

Egungo Euskararen Hiztegia



[bertsioa: 2024-01-09]

O¹ iz euskal alfabetoko hamaseigarren letra.

Bokalen hurrenkera dugu horretarako, hau da *a, e, i, o, u*. Bokalak izendatzeko termino zabalduenak irizpide horretan oinarritzen dira eta *u, o* bokalak belar deitzen dira; bestalde, *i, e* bokal sabaikari edo palatalen sailean jartzen dira. **Iñaki Arranz**

Frantsesez, latinezko *o* oro, silaba irekian, eu bilakatzen zen azentuduna zenean. **Isabel Arrigain**

Egia da *e* eta *o*, berez, eskuarki sonanteak direla. indoeuropar *o*, germanikoz *a* bilakatzea. *P, r, t, o* eta *i* hizkien aliterazioak. **Isabel Arrigain**

Ekialdean geratzen direnei *L* eta *M* letrak jarriko zaizkie; eta mendebaldean geratzen direnei, *N* eta *O* letrak. **Santiago Iruretagoiena**

O² interj ustekabea, harrimena edo miresmena adierazteko erabiltzen den hitza. *ikoi¹; ai*.

o, adiskidea! **Jon Muñoz**

o emakumeak, emakumeak! **Jon Muñoz**

o, begiratu, Tony! **Julen Gabiria**

o, Harry... zuk oso-oso kontuz ibili behar duzu. **Iñaki Mendiguren**

o, Sokrates, zer nolako poeta zaren! **Itxaro Borda**

-o, mukizu hori... -xuxurlatu zuen emakumeak suminduta-. **Lopez de Arana**

-o, sekula ezin da aurrez jakin gizonek nola jokatu behar duten. **Lopez de Arana**

-o, badakizu, Kattalin, ez zizkidan berehala kondatu bere gazte denborako istorioak. **Eneko Bidegain**

-o, bai horixe! -erantzun zion Harry-. **Oskar Arana**

o, ez, arren! oihukatu nuen. **Jon Alonso**

o gizon benetan ospetsu eta miragarria! **Askoren artean**

-o! Léaren garrasiak durundi egin zuen Brady pasabidean. **Jon Muñoz**

o Salomon, ez da aski zure hitzek zure aitaren hitzen kontra egitea? **Xabier Kintana**

o Jainkoa, katu malapartatu bat bezalakoxea zara. **Koro Navarro**

o, ene Jainkoa, Tony-rekin bezalaxe. **Oskar Arana**

-o, o, gal zenezake! **Koldo Izagirre**

o, o, zein estanpa ederra. **Anjel Lertxundi**

oasi (orobat *oasis* g.er.) 1 iz basamortu batean, ura dagoelako landareak dauden toki.

-Al-Fayoumgo **oasian** bizi da. **Xabier Aranburu**

Israeldarrak basamortuan barrena Itsaso Gorriara jo eta Kadex **oasiraino** heldu ziren. **Elizen arteko biblia**

Jardin joria zuen, euskal paisaia zentzuzkoak inguraturiko landare tropikalen **oasi** hostotsua, hamaika urmael, zubitxo eta estatuarekin. **Joseba Sarrionandia**

Ozeanoak uharteekin eta basamortuak **oasiekin** puntu komun asko dituzte. **Iñaki Mendiguren**

-Oasi barruan inork ezin duela armarik eraman soinean. **Xabier Aranburu**

Posible horietan aipatzen dira: Antartidako izotz-geruza urtzea; Nilo Garaiko urak Saharako basamortuan sartzea, eta, hartara, bertako eremuan alde bat berdetu eta **oasi** handi emankor bihurtuko lukeena. **Pello Zabala**

Zeren karabana hau **oasi** batera iritsi orduko, eta dagoeneko **oasirik** ez da han. **Josu Zabaleta**

Han zegoen bera, **oasi** bat bezain galdurik. **Xabier Olarra**

Bere emaztearen sorterriko aljeriar **oasitik** Habibek ekarritako datil freskoen kutxa ireki zuen Maxek. **Jon Muñoz**

2 irud/hed

Zerutik jaitsitako bedeinkazioa izango balitz bezala, miseriaren basamortuaren erdi-erdian eztizko **oasi** gisa. **Juan Kruz Igerabide**

Aste barruko basamortuan, osteguna *luxe et volupté*-zko **oasia** bihurtu zaio. Lazarragaren lana **oasi** txiki bat da euskal literaturgintzan, elizgizona ez zen jauntxo euskaldun eta literaturzale batek, asmo erlijiosorik gabe, idatzirik obra. **Oskar Arana**

«Kontsumorako ekoizpenaren aurrean, **oasi** alternatiboa», hala definitu dute antolatzaileek. **Berria - Kultura**

Hotel Suisse-ren hallean [...], belus, erdizal eta errezelazko **oasi** anakroniko hartan, zain neukan Martini doktore zelakoa. **Oasi** bat bezala gogoratzen baititut sei urte haiek. **Juan Garzia**

Lekuz mugitutako Euskal Herri puska bat da hau, desertuz inguraturiko **oasi** bakezko bat, non inork ez duen egunkaririk irakurtzen eta, hortaz, nekez iristen den kanpoko berri. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bizitzak arrastaka eramateko indarra balu, gauza zoragarria izango litzateke pentsatze hutsa, ibiltariarentzat gelditu eta zuhaitz baten itzalpean esertzea bezala-edo, bakezko **oasi** batean sartzea bezalako zerbait. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan)

Urrutiko **oasi**-estatu horretatik sortu eta garatu zela arabiar mundu-inperio musulmana, jainko-eskuhartzea biziki iradokitzen zuen lastertasunez. **Iñaki Mendiguren**

oasis ik oasi.

obabatar izlag/iz Obabakoa, Obabari dagokiona; Obabako biztanlea.

Eta hari guzti hauek hainbesteraino egiten diote tira irakurleari non honek ere azkenerako sentitzen baitu bere burua **Obabatar** bat gehiago bailitzan, bere egiten baititu bertako gertakizun asko. **Berria - Kultura**

obal izond obalo formakoa.

Aurpegi **obal** zurbil bat aurreratu zen argitara. Irene Aldasoro
Soingaineko berde luze bat zuen soinean, [...] eta larruzko kapela **obal** bat buruan. Irene Aldasoro
Markoa **obala** zen, urre kolore aberatsekoa eta estilo moriskoko filigranez apaindua. Koro Navarro
Erretilu **obal** luze batean jarri zituen xerrak. Jon Muñoz
Jainkosaren aretoa txikia eta **obala** zen. Juan Garzia
Laut etzanikoa, laut zutikakoa, zitola, fidula edo biola **obala**, zanfona, gaita, [...]. Berria - Kultura
Mutur batean tinpanoa du, eta, bestean, berriz, beste mintz tenkatu bat, *leiho* **obal** deritzona, barne-belarriaren ataria. Irene Aldasoro
Adats izurtuan, zuntzaren gune batzuk biribilak dira eta, beste batzuk, berriz, **obalak**. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erretratu obala (3)

obalatu izond obala.

Itsasmutilak ile horia zeukan eta arrosa eta krema-koloreko aurpegi **obalatu**. Lopez de Arana
Bizkarrean kox-kox egin zionean bere begi **obalatu**en samurtasuna ikusi zuen. Pako Aristi
Mahai **obalatu** zuri distiratsuan, xanpaina eta Rhin-eko ardoa edateko kopak txandakatzen ziren. Lopez de Arana
Adarga: larruzko ezkutu **obalatu**. Patxi Ezkiaga
Lehen egunean jantoki **obalatu**an ikusi zintudan hazpegi finak zituen gizon dotore ilezuri batekin. Lopez de Arana
Stadiumaren eraztun **obalatu**aren barnean. Karlos Linazasoro
Telebistako irudiaren marko-objektua nabarmenagoa zen hasierako telebistetan, telebista-leiho ia **obalatu** oso nabarmetzen baitzen begietarako, eta ia ito egiten zuen irudia. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurpegi obalatu (3)

obalo 1 iz elipsearen antzeko kurba itxia, ardatz bat edo birekiko simetrikoa dena.

Orbana luzatu, eta **obalo** bihurtu zen zirkulua. Jon Muñoz
Haren aurpegiaren **obalao** polit-polita zen, eta biribila, arrautza errun berria bezala. Jose Morales
Ilehoria eta liraina zen, hazpegi fin eta neurri-neurrikoak zituen, kokots zorrotza, zoragarri biribil aurpegiaren **obalao**, edozein margolarik *madonna* baten eredutzat hartzeko modukoa. Jose Morales
Geroago, zero zifra bat asmatu zuten astronomo maiek, barraskilo-maskorra irudikatzen zuen **obalo** horizontal batez irudikatua. Jon Muñoz
Bi argazki itsatsiak **obalo** gisa zeuden moztuta. Fernando Rey

2 (izenondo gisa)

Ispilu **obaloan** ikusten nion irribarrea. Matías Múgica
Luteziak, isilik zegoenean, ahoa neurritz gain txikia zuen, koral-ale **obalao** iduri. Matías Múgica
Lehen egun hartan bezain liluragarri ikusten zaitut: [...] lepoaren segaila, gerriaren liraina, besoan zuria, masailen gorria, aurpegiaren **obalao**, bularren gordea... Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurpegiaren obalao (5)

obariko izond obolutegiari dagokiona.

Estimulazio **obarikoarekin** hasi ziren, baina emaitzarik ez lortzean, Gurutzetara bidali zituzten. Berria - Harian

obario iz obolutegia.

Gonada sexuak - **obarioak** eta testikuluak- eta horiek sortzen dituzten hormonek -estrogenoak eta testosterona- odola, bihotza eta burmuina asaldatzen dizkigute.Zikloaren erdialdera, obulazioa gertatzen da (obulu bat ateratzen da bi **obarioetako** batetik). Luis Elberdin
Adinean aurrera egin ahala, **obarioek** obulu gutxiago dituztela eta obuluen kalitatea txarragoa dela. Berria - Harian
Ea **obarioak** kendu zizkidaten galdetu nion. Joseba Urteaga
Menopausia iristen denean, kanpoko aldatetek eragin handiagoa dute **obarioen** funtzionamenduan. Berria - Gaiak
Urte bi zuela lotu zitzaion xangre maltzurak **obarioak** suntsitzen zizkion azantzik gabe. Itxaro Borda
Urrezko pipitaz betea neukan sabela, / eta petaloek eztanda egin zuten nire **obarioetan**. Jasone Osoro
Ekografiki oso informazio garrantzitsua ematen digu barruko genitalei buruz, hau da, uteroari eta **obarioei** buruz. Luis Elberdin
Obarioetako minbizia aurkitzeko beste sistema bat garatu dute. Berria - Gaiak
Obario minbizia oso zabaldua dago mundu osoan. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obario minbizia (3)

obedentzia ik obedientzia.

obediarazi, obediaraz, obediarazten du ad obeditzera behartu.

-Obediarazten dakien jaun bat! Karlos Zabala

obedient izond ipar bidea, esanekoa.

Lagun batzuekin bizi zen ez komentu batean bainan heien erdian elgarrekin otoitz eginez eta izaite guzia Jainkoari kontsekratuz, osoki pobre, **obedient** eta garbi biziz funtsean serorak bezala. **Herria**

Eneko mutil gazte bat da, zuzena eta **obedienta**, guztiz fidatzekoa. **Joan Mari Irigoien**

obediente 1 izond esanekoa. ik obeditzaille.

Lehen lezioa hartzen ari zèn haur **obediente** banintz bezala. **Joan Mari Irigoien**

Obediente izateko apala izan behar derrigor. **Imanol Unzurrunzaga**

Berak Etxe Goxon Halleren neska gisa ezagututako neska suminkor, begirada gaiztoko hura **obediente** zen -Halle bezala-, lotsatia -Halle bezala-, eta langile amorratua -Halle bezala-. **Anton Garikano**

2 (adizlagun gisa)

Sekula ez naiz orain nagoen bezain **obediente** egon. **Edorta Jimenez**

obedientzia 1 iz esanekotasuna.

Neskek moja bihurtzean hiru boto eman behar dituzte: pobrezia, kastitatea eta **obedientzia**. **Berria - Euskal Herria**

Hemen ere beharko zaie legeei jarraiki, baina **obedientzia** hau ez da izaneren nehoiz baldintzarik gabekoa, herriaren sustenguak baitu bermatzen eta ez bortizkeriaren bortzak. **Piarres Xarriton**

Legeari zor zaio **obedientzia** eta legeak eskatzen du urratzea: dialektika horretan mugitzen da desira. **Joseba Zulaika**

Prest gaude edozein desobedientzia zigortzeko, zuen **obedientzia** bere betera iritsiko denean. **Elizen arteko biblia**

Obedientzia hori, noski, zenbait legeri begirunea izatea baino sakonagoko zerbaiz zen. **Xabier Olarra**

Azaleko kultura eta **obedientziarik** eza. **Elizen arteko biblia**

Zer-nola auzitara eraman ninditean, **obedientzia** ukatu izanaren kargu larripean? **Mirentxu Larrañaga**

Obedientzia, ari zen esaten, kristau guztiek zor diete Jainkoari ez ezik, baita eliz nagusiei ere. **Iñaki Mendiguren**

Latinetik frantsesera itzultzen loriatzen nintzen, lehenik testuak errana errespetatuz, perpausen barnean harat hunat ibiliz sasitik ezin jalgiz, gero beste mintzaira baten libertateari eskainiz aurrekoari zor nion **obedientzia**. **Piarres Aintziart**

Barur egiten duenak bakarrik elizaren legerari jarraitzeko, ez du **obedientziako** bertutearen saria irabaztea baizik merezi. **Piarres Xarriton**

Etiopiako printze oinordekoak printzerri bat du, eta maitasunaren eta **obedientziaren** etsenplua ematen die sujetei. **Iñaki Iñurieta**

Espiritu gaizto hori, **obedientziapean** agintzen diat: irten emakumeagandi. **Askoren artean**

Obedientziapeko agindurik ez da arinkeriaz eman behar. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Indioek erlijio-maisuei, guruei, begirune ez ezik, **obedientzia** handia ere erakusten diete. **Gotzon Garate**

Obedientzia itsua zen gauza seguru bakarra. **Julen Gabiria**

Eta hantxe mutu eutsi zion, **obedientzia** hutsez. **Juan Garzia**

Eskatutako hori faborea baldin bada, ez dinat pentsatu ere egin gura hireganako **obedientzia** derrigorrezkoak zertara behar dezakeen. **Josu Landa**

Obedientzia sailduaren izenean agintzen diegu Jainkoaren izenaren ohoretan eta begirunez hemen erran guztiak zuzenki eginaraz dituzten beren funts eta horrelako lurraldeetan. **Piarres Xarriton**

Bertute zail den **obedientzia** apalaren bidez. **Askoren artean**

Obedientzia perfektuan, eskulanean, bakardadeko bizitzan eta kontenplazio santuan eredugarri izan zen guretzat. **Askoren artean**

Ea **obedientzia** zibilaren aurka doazen ala ez, eta hala izanez gero, irakasteko debekua ezartzekoa. **Esteban Antxustegi**

Asiako herrien ohiko otzantasunak, bestalde, aspaldi-aspalditik, gobernu arbitrarioekiko **obedientzia** pasiboaren forma politikoa hartu izan zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ebanjelioaren arabera askatasun eta sormena eta erabateko **obedientzia**. **Askoren artean**

Eta probaldiko urte-epaia betetzean, onartua izan bedi anaiarteko **obedientziara**. **Askoren artean**

Beharrezko **Obedientziaren** Legea onartu zuen Parlamentuak. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobatobedientzi g.er.)

Desobedientzia ekintza batekin hasi zen gizateria; ez ahal da amaituko **obedientzia**-ekintza batekin! **Txema Ramirez de la Piscina**

San Frantziskoren **obedientzi** agindua entzutean, anai Elias oso haserre joan zen atera. **Askoren artean**

Rhineko ministro Otonen **obedientzia**-gutuna hartuz, Ministro jeneralagana abiatu zen lagun batekin, beste ministro bat eta irakasle bat eskatzera. **Askoren artean**

Berehala itzuli zen, jadanik **obedientzia**-eredu eginik, eta, bere borondate propioari uko eginez, Saulo zena Paulo bilakatu da. **Askoren artean**

Joan zen korrika **obedientzi** gizon zen Silvestre aitaren agindua betetzera. **Askoren artean**

Hiru **obedientzia**-mota. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obedientzia eta **begirunea** (9); **obedientzia** **hitzeman** (5); **obedientzia** **santuak** (3); **obedientzia** **santuan** (3); **obedientzia** **santuaren** (33); **obedientzia** **santuaren indarrez** (9); **obedientzia** **santuaren izenean** (5); **obedientzia** **zor** (3)

obedientziapean **agindu** (3); **obedientziapean** **agintzen** (3)

obedientziaren galga **arbuaiatz** (3); **obedientziaren indarrez** (4); **obedientziaren izenean** (6)

obedientziarik **eza** (3)

obedientziatik **kanpo** (3)

obeditu, obedi, obeditzen 1 dio-du ad agintzen duenaren nahia bete, esana egin, bestek aginduari amore eman.

Jainkoari **obeditzea** gizonei **obeditzea** baino hobea dela esaten duenean, [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Beste gizonei **obeditu** ordez, printzipioei **obeditzen** diete. **Josu Zabaleta**

Gogoak ez zion **obeditzen**, eta bere burua hil izan balu agian hobeto egongo zela adierazten zion. **Bernardo Atxaga**

Obeditu egin behar dizut, gogoz kontra bada ere. **Anjel Lertxundi**

Ezin ordea, zeren hankek ez baitzioten buruaren aginduari **obeditzen**, barne dardara haren kapritxoari baizik. **Pedro Alberdi**

Baietz erantzun zion, **obeditzen** ziola eta ez zuela borrokarik nahi. **Bernardo Atxaga**

Baina tematu zen aitaxi, tematu, eta azkenean **obeditu** nion. **Daniel Landart**

Obedituko niola zin egin nion, eta harrezkero askatasunik ederrenean bizi izan gara biok. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Obeditu nahi ez badidazu, eskuan daukadan pistola erabili beharko dut, Anastasio. **Aitor Arana**

Hain handia zen lortua zuen gorputzaren eta espirituaren arteko adostasuna, hain handia elkarri **obeditzeko** azkartasuna, non. **Askoren artean**

-Hobe duk niri **obeditzea**. **Bernardo Atxaga**

Gauzek ere **obeditu** egiten didate. Josu Zabaleta
Zigor betierekoak daude izendatuak haren ahalguztiduntasuna **obeditzen** ez duenarentzat. Juan Martin Elexpuru
Bolaluma nire aginduak **obeditzetik** gelditu zen. Aingeru Epaltza
-Hara, **obeditu** zaitut, ez duzu gehiago marmarrik egingo. Itziar Otegi
Ama **obeditzea** errefusatzan duzu. Itziar Otegi
Inork ezin du horrelakorik **obeditu**. Joxan Elozegi
Obedituak izaten ohitutako jendeak, nabarmenki. Txillardegi
Bi klan etsai horietako buruzagiak zoriontsu bizi izan ziren, beren jarraitzaileek maitaturik, entzunik, **obediturik** eta gurturik. Josu Zabaleta
Nadiak **obeditu** egin zuen. Karlos Zabala
Bi aldiz esan beharrik gabe **obeditu** zuen, noski. Aitor Arana
Izan ere, askatasuna zailagoa da **obeditzea** baino. Markos Zapiain

2 (adizlagunekin)

Behartuak izan gira beraz Pariseko manueri umilki **obeditzera**. Herria
Ezen, ez baldin bazaio Printzeari puntualki **obeditzen**, ordena publikoa iraulia da ez da gehiago estatuan batasunik eta beraz, ez lankidetzarik, ez bakerik. Piarres Xarriton
Egitez eta etsenpluz irakasten baitzien anaiei gauza guztietan xaloki **obeditzen**. Askoren artean
Berehalaxe **obeditu** ez duzulako. Askoren artean
Zarataka hasi zen: "Ohera, ohera!", derrigorrez **obeditu** beharreko moduko ahotsarekin. Julen Gabiria
Irribarrez **obeditu** zuen, borondate onez. Aitor Arana
Ania honi apaltasunez eta debozioz **obeditzen** zion, harrokeria-bide oro uxatzeko. Pello Lizarralde
Jainkoari zintzo **obeditzen** badiozue, munduko herri guztien gainetik goratuko zaituzte. Elizen arteko biblia
Atzeko martxa jarri eta mugitzen hasten da autoa, otzan-otzan **obeditzen** nau. Mikel Hernandez Abaitua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apalki obeditu (3); **berehala obeditu** (3); **obeditu jaunari** (4); **otzan obeditu** (3)

obeditzeko prest (3)

aginduari obeditzen (3); **berak obeditzen** (3); **berari obeditzen** (3); **hari obeditzen** (3); **jainkoari obeditzen** (4); **obeditzen ikasi** (3)

ondorengoei obeditzera (3)

obeditzaile *izond/iz* obeditzen duena.

Legegileak, tronuaren gainetik, burdinazko legeak ezartzen zituen esklabo **obeditzaileen** arima gogortuztat. Juan Martin Elexpuru
Ania jainkozale eta **obeditzailea** zaharraren oinak garbitzen ari zela[...]. Askoren artean
Horrelakoxea da egiazko **obeditzailea**: ez du galdetzen zergatik mugitzen duten, ez dio axola non jartzen duten, ez du lekuz aldatzea eskatzen. Askoren artean
Benetako **obeditzailearen** deskribapena. Askoren artean

obeliska ik obelisko.

obelisko *(orobat obeliska g.er.)* 1 *iz* monolito garaia, lauki edo lauki zuzen formako oinarria duena eta goialdea piramide antzeko batez bukatua duena.

Napoleonen **obeliskoa** edo Taj Mahaleko kupula. Joan Mari Irigoien
Bi alboetara **obelisko** bana dituen arku baten azpitik. Ramon Saizarbitoria
Bi bira oso egin zituen, denek izan zezaten **obeliskoa** begiesteko astia. Jon Muñoz
Afrikarat itzuli dute Italiatik lehenagoko Axumeko **obeliska** oroitharri famatua. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Eskalatzaileek oso kutuna duten Dolomitetako **obelisko** itxurako harri tzar baten berri eman dute egunotako egunkariak, harriak goitik behera erdibitzeko arriskua duela salatuz. Berria - Kultura

oberjina ik alberjina.

obertura 1 *iz* opera, oratorio edo kideko baten sarrera gertatzen den musika-lan instrumentala; musika-lan instrumental beregaina eta laburra, egitura jakinik ez duena.

Arriagaren **obertura** hau Bilboko garaiko lanik garrantzitsuenak da. Berria - Kultura
Tannhauseren **obertura**. Alberto Ladron Arana
Salzburgoko taldeak Beethovenen Coriolano **oberturaren** irakurketa dramatiko eta sinesgarria eskaini zuen. Berria - Kultura
Beethovenen Fidelio operako **obertura** laburrean sumatu genuen orkestraren trebezia. Berria - Kultura
Txistuka eta alai dator, **obertura** militar ezagun bat ezpain artetik dariola. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Orain zibilizazio sortzailea eliza baten epifaniaren **oberturatzat** hartu behar dugu, eta zibilizazio filiala goragoko mailako lorpen espiritual horrekiko atzerakadatzat. Iñaki Mendiguren
Zibilizazio Helenikoak kristautasunaren **obertura** gisa balio izan ziola iradokitzen du. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arriagaren obertura (3); **obertura gisa** (4)

obesitate *iz* gizentasunezko egoera patologikoa.

750.000 biztanle ditu herrialdeak, horietatik 200.000 baino ez dira qatartarrak, bertako gutxi horien artean %20k diabetesa dute, eta **obesitatea** da osasun-arazo larriena. Berria - Kirola

AEBetan, berriz, 15.000 milioi dolar inguru gastatzen dira **obesitatearen** kontra. **Iñaki Heras**
27-29,9, lehen mailako **obesitatea**. **Berria - Euskal Herria**
40 baino handiago, **obesitate** morbidoa. **Berria - Euskal Herria**

obispo *(orobat **obispu** g.er. eta **obixpo** g.er.) 1 iz* gotzaina. ik **apezpiku**.

Obispoa ezetz, artzapezpikua, eta euskalduna gainera. **Inazio Mujika Iraola**

Hori esan zidan behintzat aspalditxo konfirmazioak emanez hemendik pasatu zen **obispoak**. **Juan Garzia**

Obispoa CNTko egoitza nagusian zeukaten preso. **Inazio Mujika Iraola**

2 (hitz elkartuetan)

Romanek begirunez kendu zion **obispo**-boneta buru gainetik. **Inazio Mujika Iraola**

Ikusten ari nintzen dena **obispo**-kontu batengatik ni izorratzea zela **obispo** jende horren aurren-aurreneko helburua. **Inazio Mujika Iraola**

obispotasun *iz* obispoa izateko nolakotasuna. ik **gotzaintza**.

Inoiz baino gizonago ikusi nuen harkaitz haren gainean eserita, lan-jantzi zikin hark ordu arteko **obispotasuna** aienatu izan balio bezala **Inazio Mujika Iraola**

obispu ik **obispo**.

obixpo ik **obispo**.

objektatu, objekta, objektatzen *(orobat **objetatu**) du ad* objektioa egin, eragozpena adierazi.

Objetatu izan zaio, nekez sinestekoa dela gizonak izuagatik elkartu direla gizarte zibilean, eta, benetan elkarren beldur balira, jasangaitza egingo litzaiekeela elkarri begiratzea. **Esteban Antxustegi**

Batzuek **objetatuko** dute: seme batek aita hiltzen badu, bidegabekeria egingo lioke ala ez? **Esteban Antxustegi**

Objektatzen bada uniformizazio linguistikoak kultura eta gizarte historikoen txirotzea dakarrela, Unamuno-k ez daki zer erantzun. **Joxe Azurmendi**

Arkeologia tratatzea jatorriari buruzko ikerketa modura, [...] eta **objektatzea** berak huts egin duela bere lanean eta bakarrik gertaera enpiriko batzuk aurkitzen dituela. **Xabier Arregi**

objektibagarri *izond* objektiba daitekeena, objektibatzeko modukoa.

Martin Ugalderen kontuak desblokeatzeko erabakia arrazoitzean, Del Olmo epaileak dio ez dela antzematen «zantzu **objektibagarririk**» kontu pertsonal horiek «legez kanpoko jardurekin lotzeko». **Berria - Euskal Herria**

objektibatu, objektiba, objektibatzen *(orobat **objetibatu** g.er.) 1 du ad* zerbaiti izaera objektiboa eman.

Bere arma **objektibatzea** » zen: etsaia ikerketa objektu bilakarazi eta kritika sozialaren menpe ezarri, etsaia galtzearen bidean jartzeko, baina azken liburu honetan, usaiaiko haize horren aurka doa nolabait, bera baita **objektibatua**. **Berria - Kultura**

Euskal Herriaren subjektu kolektiboa **objektibatzeko** eta birsortzeko ekarpena. **Berria - Harian**

Hango eta orduko gauzak eta sentimenduak behar nituen jalgi: **objektibatu** ditut, begien aitzinean jarri eta gisa batez urrundu. **Piarres Aintziart**

Elkarbizitza arautzen duen ordenamendu moral eta hori **objektibatzen** duten instituzioak. **Joxe Azurmendi**

Jende xumearen oso gainetik ibiltzen diren intelektual sobornagaitz batzuek, arazoa "razionalizatu" edo **"objektibatu"** nahita, bizia bizia dela esango dizute, eta hilketa guztiak berdinak eta berdin gaitzesgarriak direla. **Joxe Azurmendi**

Badakigu hainbat udalek programazio indartsua dutela, badakigu ondo doazela, baina ezin da **objetibatu**, beraz ez dakit helburua ere non jarri behar dudana. **Berria - Euskal Herria**

2 ezin **objektibatuzko**

Aise egiaztatzen da leku hori ezin **objektibatuzkoa** dela, eta ezin dela unibertsalizatu orobat, egilearen gauza dela, eta argazki batean *punctum* bat baldin badago -ez du zertan izanik-, nor begirale hari dagokiola *punctum* hori. **Josu Zabaleta**

objektibazio *iz* objektibatzea.

Ni ene gorputz hauxe naiz, ene gorputza nire nahimena da, nire nahimenaren **objektibazioa**. **Askoren artean**

Eta Bere buruaren **objektibaziotzat** daukan azken liburu honetan zerbait objektibatu gabe geratzen da: *intelligentsia*-ren gailurrera iristeko botere gizon bihurtu behar izan dela bera ere. **Berria - Kultura**

objektibismo *iz* objektiboa dena lehenesteko joera.

Ezerk ez du beste razionaliterik, egiten dioguna baino! beste **"objektibismo"** guztiak metafisikaren hondar dogmatikoak dira. **Joxe Azurmendi**

objektibista 1 *izond* objektibismoan oinarritzen dena.

Teoria honen helburuetako bat teoria **objektibistek** -naturalismoak eta intuizionismoak, adibidez- jasandako kritikak gaintzea da. **Askoren artean**

Platon izan zen lehenengoa planteamendu **objektibista** hori egiten. **Askoren artean**

Alabaina, plazeraren ideiak osagai subjektiboa barneratzen du teoriarik, eta horrek Platonen ikusmolde **objektibistatik** aldentzen du Tomas. **Askoren artean**

2 pertonez mintzatuz, objektibismoaren aldekoa.

Arrazoa esaten denean, idealista **objektibista** batek arrazoa modu absolutuan ulertzen du: osotasuna da, hemen, giltza-hitza. **Askoren artean**

objektibitate (orobat *objetibitate g.er.*) 1 iz objektiboa denaren nolakotasuna.

Max Weber-entzako edozein fenomeno sozialen ikertzailearentzat obligazio etiko eta eskakizun metodiko baitezpadakoa da neutraltasun eta **objektibitate** absolutua. [Joxe Azurmendi](#)

Atetik ohera, aukitit leihora, eguneroko unibertsoak emandako neurri zehatzen barruan bizi naiz eta, bat ala beste, objektuen **objektibitatea** ametitu eta natura hilen gogoezera egokituko naiz. [Joseba Sarrionandia](#)

Gustuak, alegia sentimenduak, ez du **objektibitate**rik. [Joxe Azurmendi](#)

Gizaki bakar, pribilejiatua zen, jainkoen ezpalekoa; bere memoria eidetikoari esker, ikusten zuen oro garunetan artxibatzen zuen, argazki kamera baten azkartasunaz eta **objektibitatez**. [Karlos Linazasoro](#)

Sentimenduetan kultura bat espresatzen baita [...] eta kultura batek badu bere arrazoizkotasuna, bere **"objektibitatea"** hortaz, gurea ez bada ere. [Joxe Azurmendi](#)

Hirugarren pertsona erabiltzen du zehaztasun eta **objektibitate** handiagoa izateko. [Berria - Kultura](#)

2 (testuinguru teknikoagoetan)

Objektutasuna eta **objektibitatea** munduaren pentsatzearen eta begiestearen gure formek sortzen dutela Kanten ondorengo Filosofia gehienaren aurreuposizioa da, aurreuposizio eztabaldagarria den arren, eta hainbat modutan eraldatua izan den arren. [Ibon Uribarri](#)

Kontraesana, era berean, kontzeptuen arteko harreman definigarria da; antagonismoak gauzatzen du **objektibitate** ororen muga. [Joseba Zulaika](#)

Berezko ordena razional edo natural horrek determinatzen du moral baten **objektibitatea**. [Joxe Azurmendi](#)

Balioen baliagarritasuna, zinezko **objektibitatea** zertzen duena (onargarritasun intersubjektiboa), gizarte bizitza eratzen duen gizatasuna edo giza esperientzia da. [Joxe Azurmendi](#)

3 (arte estiloetan)

Intimitatea irudikatzea oso era hurbilean, ia garrantzirik gabeko eszenak azaltzea era hotzean, **Objektibitate** Alemaniari Berriaren, Parisko eskolaren eta Italiako Novecentoaren pintura figuratiboaren eguneratzea aldarrikatzen du. [Berria - Kultura](#)

objektibizatu, objektibiza, objektibizatzen (*corpusean objetibizatu soilik*) du *ad* objektibatu.

Nire garaian baremoari ekin genion, etxebizitzaren beharrezan nolabait **objektibizatze**ko asmoz. [Berria - Euskal Herria](#)

objektibo¹ (orobat *objetibo g.er.*) 1 izond aurreiritzien, ikuspuntuen, interesen edo zaletasunen mende ez dagoena.

Analisi subjektiboa eta analisi **objektiboa**. [Isabel Arrigain](#)

Gure azken helburua, aurkeztutako gramatika bat ebaluatze, eta proposatutako beste gramatikekin erkatze bide **objektiboa** eskaintzea da, ez intuiziozkoa. [Itziar Laka](#)

Biek erabiltzen dituzte zifrak, datu eta estatistika **objektiboak**. [Iñaki Heras](#)

Datua argia da, **objektiboa**: 2004ko edo 2005eko salaketa judizialik ez dago. [Berria - Euskal Herria](#)

Datu **objektibo**en fidagarritasuna. [Pako Aristi](#)

Arrazoin material eta **objektiboetan** oinarriturik. [Herria](#)

Zientzialarien artean "ikertzaile" gisa onartua izateko bete beharko liratekeen baldintza **objektiboak**. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Izan ere, inork ezin zezakeen orri haietan idatzita zegoena estimatu ahal izateko moduan ulertu, eta ez zuten balio **objektiborik** ere. [Ramon Saizarbitoria](#)

Badira, gainera, portaera hori elikatzen duten arrazoi **objektiboak**. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Idatzitari tonu **objektibo** bat eman nahi zion, eta lortu zuelakoan zegoen. [Iban Zaldua](#)

Ezin dira mitoak distantzia **objektibotik** ikusi, norbera mitotik libre egon. [Joseba Zulaika](#)

Zientzia **objektibotik** erlijio metafisikora ihes egitea. [Jenaro Garate](#)

Zientziaren egia **objektiboa**, ala subjektu konprometituak bizi izan duen esperientziaren egia? [Joseba Zulaika](#)

Oraingo teoria soziologikoaren maila **objektiboa** gailendu ez duen erlatibizazio ahalegin horretan jarrera antidogmatikoa ere ageri da maiz. [Askoren artean](#)

Modu **objektiboan**, faltsua da Lurra leuna dela esatea, Colonen garaia aurretik bada ere. [Askoren artean](#)

"Barruan" egon nintzen bitartean, ezintasun **objektiboari** asmamena gaintzen zitzaion. [Txillardegí](#)

Errealitatea ez da **objektibo** eta monolitikoa; errealitatea, funtsean, jasotzen eta ezagutzen den modukoa da. [Berria - Kultura](#)

Zientzia ez da **objektiboa** eta sinesmenetan oinarritzen da, ez frogaren enpirikoetan. [Pello Salaburu](#)

2 pertonez mintzatuz, objektibotasunez aritzen dena, alderdikerian erortzen ez dena.

Bestalde, arbitro **objektiboa** askotan parte ere izaten da, eta bekaizkeria pertsonal zein profesionalak ere eragin dezaket. [Berria - Gaiak](#)

Behatzaile **objektiboari** agerikoa gertatzen zaiona baino gehiagorik ez dut esango. [Koro Navarro](#)

Objektiboa izan nahi du, baina kloratita darama hitzetan. [Iñigo Aranbarri](#)

Liburu guzia autobiografikoa izanagatik, zinez **objektiboa** nahi du izan egileak eta, horrengatik sartu duke, menturaz, "bazter" hitza bere tituluari: bazterretik hobeki ikusten ohi baita, alabaina edozein gertakari. [Piarres Aintziart](#)

Zu ez zarelako hotza, ez zarelako gutzit **objektiboa**, zu subjektu bat zarelako eta, beraz, subjektiboa. [Ana Urkiza](#)

Guggenheimen, Oteiza **objektiboa** dago; dena da zuri, distantzia badago, abstraktua da ingurua. [Berria - Kultura](#)

3 objektuei dagokiena.

Objektiboak objektuak baino ez dira. [Joseba Sarrionandia](#)

Ahalmen triste horrexek pentsarazten digu mundu **objektiboa** bera ere geure metaforetara errenditzen dugula, eta hala mendera dezakegula. [Juan Garzia](#)

4 (filosofian)

Propietate lehenak **objektiboak** dira; bigarrenak, berriz, subjektiboak. [Askoren artean](#)

Mundu-ikuskeria **objektiboa** eta subjektiboa kontrajartzen ditu, lehen eta hirugarren pertsonaren arteko asimetria epistemologikoan oinarritzen dena, hain zuzen. [Askoren artean](#)

Oinarri **objektibo** hori Inperatibo Kategorikoaren bitartez formulatuko du Kantek. [Askoren artean](#)

Ezinezkoa da benetan ideia transzendental hauen dedukzio **objektiborik** eskuratzea, kategoriez eskuratu ahal izan genuenaren moduko dedukzioa. [Ibon Uribarri](#)

Jainkoko datza, ibilera ontologikoa esan genezakeenean, arrazoimenaren edo metodoaren bermea, hau da, argi eta berezi ezagutuaren balio **objektiboarena**. [Askoren artean](#)

Errealismo morala, nolabaiteko errealitate moral **objektibo** bat existitzen dela defendatzen duen ikuspuntu metaetiko da. [Askoren artean](#)

Argazkia berez, ontologikoki **objektiboa** da, eta pintura baino sinesgarriagoa, beraz. [Josu Zabaleta](#)

Honezkeror, ordea, **ez objektibo** eta ez subjektiboa, Naturarrik gabe gaude, edo metafisikarrik gabe. [Joxe Azurmendi](#)

5 ez-objektibo

Azken urte hauetako teknologia berriei, gainera, lana erraztu da, nahiz eta betidanik argazkilaritza **ez objektiboa** izan. [Berria - Kultura](#)

Ezin da frogatu artelan oro imitatzailea dela (musika eta pintura ez **objektiboa** ez dira imitatzaileak), ezta emozioak adierazten dituela ere (diseinu formalek ez dute emoziorik adierazten). [Askoren artean](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errealitate objektibo (4); moral objektibo (3); oinarri objektibo (6)

baliotasun objektiboa (35); batasun objektiboa (3); bere errealitate objektiboa (11); beren baliotasun objektiboa (3); beren errealitate objektiboa (4); datu objektiboa da (5); errealitate objektiboa (50); errealitate objektiboa dute (3); errealitate objektiboa ematen (3); ezagutza objektiboa (4); informazio objektiboa (3); korrelatibo objektiboa (5)

analisi objektiboak (3); arrazoi objektiboak (3); baldintza objektiboak (8); datu objektiboak (12)

baliotasun objektiboaren (3); erabilera objektiboaren (3); errealitate objektiboaren (7); ezagutza objektiboaren (3); mundu objektiboaren (3)

datu objektiboan (4)

arrazoi objektiborik (5); baliotasun objektiborik (4); datu objektiborik (4); errealitate objektiborik (4); oinarri objektiborik (3)

objektibo² (orobat *objetibo g.er.*) **1** iz optika-tresnetan, ispilu, leiar edo leiar multzoa, ikusi edo aztertu nahi den gauzaren aldera zuzentzen dena. ik **okular**.

Hiru ilaratan jarritako langile talde bat ikus zitekeen bertan, denek kapela jantzita, **objektiboari** begira. Joseba Urteaga

Halako batean, aurpegia kaolin hautsez apainduriko manifestari bat jarri da **objektiboaren** aurrean. Iñigo Aranbarri

Kamera merkeenetan ez beste guztietan, atzera eta aurrera mugitzen da **objektiboa** objektuaren distantziaren arabera, filmean irudi garbia sortzeko. Irene Aldasoro

Kamera baten **objektiboa** garbitzen hasi zen Justo. Joxemari Urteaga

Objektiboa fokatzeko modu bat. Irene Aldasoro

Distantzia kalkulatu -20 bat metro- **objektiboa** hurbilarazi eta zanpaka hasi zitzaion kliskagailuari. Aingeru Epaltza

Kamera sinpleetan erabiltzen den **objektibo** bakunak ematen duen irudia onargarria da gauza askotarako, baina baditu akats batzuk. Irene Aldasoro

Argazkiak **objektibo** handi samarrarekin eginak dira. Iñaki Iñurrieta

Begiaren kristalinoa sofistikatua da kameraren **objektibo** doigarria baino. Irene Aldasoro

Gaur egun, hala ere, **objektibo** konplexuagoak erabili ohi dira tresna horietako gehienetan, leiar konbinazioak dituzten **objektiboak**, hain zuzen. Josu Zabaleta

2 (testuinguru teknikoagoetan)

Objektiboaren irekierak ezartzen du foku-sakonera. Irene Aldasoro

Argazki gehienak 20, 35 eta 90 milimetroko **objektiboekin** aterata daude. Berria - Kultura

Argazki-kamera merke baten **objektiboa** f/16koa izan daiteke; horrek esan nahi du foku-luzeraren 1/16 dela **objektiboaren** irekiera. Irene Aldasoro

Fokatzeko gaitasun desberdina duela **objektiboak** kolore bakoitzerako; aberrazio kromatikoa esaten zaio efektu horri. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan)

Ibiltokiaren muturrera heldu orduko, ordea, takoi zorrotza ohelean inkatu eta desafio egin die zain dituen kamera-**objektibo**ei. Patxi Iturritegi

4 helburua, jomuga.

Airetik itsasontzi bati ematea ur azpian doan arrainari ibaiertzetik jotzea bezain zaila da, kalkulatu behar dituzu zure abiadura, **objektiboarena**, bion arteko aldea eta bonbaren traiektoria. Koldo Izagirre

Eman niri **objektiboaren** posizioa, kargaren datuak... eta ez dut huts eginen. Joan Mari Irigoien

Bazuen osabaren studioak terraza edo balkoi tipi bat, norat ateratzen baitzuen aparatua, baterat eta bertzerat destatu ahal izateko, batean **objektibo** baterat, bertzean bertzerat. Joan Mari Irigoien

5 tele-objektibo ik **teleobjektibo**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kameraren objektiboak (3)

objektiboaren irekiera (6)

bere kameraren objektibotik (3)

objektibokeria iz objektibotasun gaitzesgarria.

Baina arrazionaltasuna ez da arrazionalkeria, objektibotasuna **objektibokeria** ez den bezalaxe. Berria - Harian

objektiboki (orobat *objetiboki g.er.*) *adlag* objektibotasunez, era objektiboan.

Bada modurik **objektiboki** jakiteko zein den hogeita batgarren mendeko Euskal Herriari dagokion formula politikorik egokiena? Joseba Zulaika

Objetiboki ikusita, bakarrik dagoen emakume bat naiz. Oskar Arana

Objektiboki asko gustatzen zitzaion: esku fin eta trebeak zeuzkan, ahots lakarra eta elkarriketa azkarra, matrailezur germanikoa; eta hala ere ez zegoen Karlekin maitemindurik. Eider Rodriguez

Ordena moral objektibo bat, berezko bat, badago, beraz, unibertsoan [...] eta gizakiak hura bereganatu behar du **objektiboki** zuzen bizitzeko. Joxe Azurmendi

Gogoratzen ez nuen arren, banekien testua zehatza zela, zuzena, neurtua eta -horrek bai, ez zuen zalantzarik- Eugeniarengan eragin **objektiboki** izugarria izan zuela.

Ramon Saizarbitoria

Eginak gaude norma **objektiboki** baliodunak eratzeraz, printzipio zientifikoetatik erakarriak, eta behaketaren bitartez edo eraketa matematiko-deduktibo luzeen bitartez emanak. Jenaro Garate

Ezagutza bat, beraz, **objektiboki** filosofikoa izan daiteke eta historikoki, hala ere, subjektiboa, hasberri gehienetan eta inoiz eskolatik at begiratzen ez duten eta bizitza osoa hasberri irauten dutenengan gertatzen den lege. Ibon Uribarri

Nekez bila daiteke horien artean, ordea, gure jarduna **objektiboki** gidatuko duen azken Arrazoirik (funtsatzearen zentzuan). Askoren artean

Lucy arriskuan dago, **objektiboki**. Oskar Arana

objektibotasun 1 iz objektiboa denaren nolakotasuna.

Modu horretan, epailearen independentzia eta **objektibotasuna** bermatu nahi izaten da. Berria - Gaiak

Zolak bere teoria estua gauditu zuen, eta hunkitu, harritu eta erakarri egiten gaitu maiz, **objektibotasuna** baizik bilatzen ez zuela esan arren. Karlos Zabala

Ordu arteko errealismoaren **objektibotasunak** kontzientziaren subjektibotasunari utzi zion lekua Joyceren lanean. Berria - Kultura

Egia hori osoa ala mugatua izan ez dagoela **objektibotasunean**, gogoko izatearen neurri gorabeheratsuan baino. Jenaro Garate

Sinekdokea **objektibotasunaren** beste muturrean dago. Iñigo Aranbarri

Asisko Frantziskoren eta Che Guevararen dimentsioak elkarrekin lotzen ikasi behar dugu, subjektibotasunaren eta **objektibotasunaren** dimentsioak ados jartzen. Askoren artean

Zientziaren Filosofiari dagokiola esklusiboki zientziaren eduki epistemikoen azterketa -metodoari, egiatasunari, **objektibotasunari**, eta beste nozio epistemikoei loturikoak-

Askoren artean

Ederetasunaren teoria bat izan da estetika; teoria zientifikotzat hartu nahi izan da askotan, eta askotan, eta askean ere izan da, **objektibotasunaren** eta arauemaitetasunaren artean zabuka ia beti. **Josu Zabaleta**

Petrusi erasiaka hasi aurretik, har ezazu denbora apur bat nire egoera **objektibotasunez** aztertzeko. **Oskar Arana**

Atxiloketak bazterrak inarrosi ditu Baionako auzitegian, baina guztiek eskatu dute ikerketa **objektibotasunez** eta bururaino eraman behar dela. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Objektibotasun -labelarekin datorren elikagaia delako, ordea, informazioa gutxieneko arretarik jarri gabe irensten dugu. **Pako Aristi**

Zoramena deritzen objektuari buruzko diskurtsoen batasuna ez litzateke oinarrituko "zoramena" objektuaren existentzian, edo **objektibotasun** hodeiertz bakar baten eraketan. **Xabier Arregi**

Saihestuko dira horrela zenbait baldintzez eta ondorioz zamatutako hitzak, zeintzuk desegokiak izango diren sakabanaketa hori "zientzia", "ideologia", teoria edo **"objektibotasun** eremu" modura izendatzeko. **Xabier Arregi**

objektifikazio iz objektibazioa.

Antagonismoak gauzatzen du objektibitate ororen muga, zeina **objektifikazio** partzialekoa eta kolokazkoa agertzen baita. Norbere burua azalduaz, norbere burua ez defendatuaz; ez artegintza lanak fabrikatuz, norberaren **objektifikazioak**, baizik eta norbera -norberaren pertsona- su lerroan jarrita. **Joseba Zulaika**

objekto ik objektu.

objektore 1 iz kontzientzia-objektioa erabili duen pertsona.

1994. urtean 50.000 **objektore** zituen Espainiako soldaduskak. **Berria - Euskal Herria**

Camilo Mejia **objektorearen** ama eta Irakeko gerraren aurkako senideen elkarteko kidea. **Berria - Mundua**

Maiatzaren 21ean urtebeteko kartzela zigorra ezarri diote Camilori, eta **objektore** izateko eskaera errefusatu. gugandik jasotakoari leial izaki, **objektore** egin da. **Berria - Mundua**

Norbaitek sinistu dezake Madrilgo intsumiso edo **objektoreak** ETAkoak direla? armak erabili nahi ez izanagatik dira **objektore**. **Berria - Euskal Herria**

Hark, **objektore** izan nahiko zukeen, kultur etxe batean edo. **Daniel Landart**

• 2 izond hed

Fundacio Per La Pau bakearen aldeko fundazioaren *Escola* **Objektoreak** kanpainak Kataluniako ikastetxeen %15 lotu zaizkio 1988tik salatu zuen Espainiako Gobernuaren «kultura militarra» ikastetxeetan sartzen saiatzen ari dela, sari, hitzaldi eta hezkuntza programekin. **Berria - Mundua**

3 kontzientzia-objektore (orobat objetore) iz kontzientzia-eragozlea.

Hirukia gorria zen preso politikoen kasuan, berdea preso arruntenean, bioleta kontzientzia **objektoreentzat**, beltza "asozialentzat", arrosa homosexualentzat. **Urtzi Urrutikoetxea**

Porturi, baina, **kontzientzia-objetore** aurpegia jarri zitzaion. **Patxi Iturritegi**

objektu (orobat objektu g.er., objeto g.er. eta objetu g.er.) 1 iz gauza ukigaia eta ez oso handia. ik gauzaki.

Objektu bakoitzaren, altzari bakoitzaren, jantzi bakoitzaren, paper bakoitzaren aurrean, lau norabide baizik ez ziren azaldu, haizeen arrosaren bidegurutzean bezala: gorde, eskaini, saldu edo bota. **Joxan Elozegi**

Bere iraganeko jendea, lekuak eta **objektuak** hazi, zehaztu egin zitzaizkion espirituan. **Bernardo Atxaga**

Munduko **objektuei** beste **objektu** bat gehitu izanaren atsegina da, azken-azken finean, irudiaren atsegina. **Josu Zabaleta**

Iturburu batetik (eguzkitik, adibidez) datozen argi-izpiek **objektu** hori (makila zuri bat, adibide bat jartzeagatik) jotzen dute. **Josu Zabaleta**

Objektu bat planeta dela esateko ez da aski neurria kontuan hartzea. **Berria - Gaiak**

8.800 bat **objektu** ditugu 10 zentimetro baino handiagoak; zentimetro bat eta 10 zentimetro bitartekoak, 110.000 **objektu** omen dabilta hor goian. **Pello Zabala**

Errusiar hondakinen orbita berean bazebilen beste **objektu** bat, tamainaz ez nolana hokoa, egia esan, baina dentsitate txikikoa. **Patxi Iturritegi**

Objektuz **objektu** hustu nuen poltsa. **Joxan Elozegi**

Zer da, orduan, **objektu** bat artelan egiten duena? **Askoren artean**

Naturaleza bereko **objektu** guztiak abiadura berean erortzen baitira, baldin puntu beretik erortzerat uzten baditugu. Irudia **objektu** bat baldin bada, eta, horrenbestez, neurri eta tamaina jakin batzuk baldin baditu, ez da mugagabea. **Joan Mari Irigoien**

Objektu bat pentsatzea eta **objektu** bat ezagutzea ez dira gauza bera. **Ibon Urizarri**

Izenek **objektuak** dituzte erreferentziatzat (" **objektu** " hitzak duen esanahirik zabalenean). **Askoren artean**

Sentsuzko begiespenaren **objektua** pentsatzeko ahalmena adimena da. **Ibon Urizarri**

Izen propioak designatzaile zurrunkak dira; designatzaile bat zurruna da baldin eta **objektu** bera denotatzen badu mundu posible orotan. **Askoren artean**

Sentimenduak **objektu** bihurtzearen kontrako erantzun moduan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erakuste bat **objektu** baten aurkezpen bisuala da. **Askoren artean**

A **objektuaren** antzekoak diren **objektuei** "triangelua" esango diegu. **Askoren artean**

Fisikak **objektu** bati buruz eratzten duen irudikapena, bada, eraikuntza teorikoa da. **Juan Garzia**

Orduan honek bere errepresentazioan **objektu** batek subjektuarekin duen hartueman jaso dezakeela juzgatu behar da. **Ibon Urizarri**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errosario aleak bezala, listariak hainbat **objektu** txiki zeuzkan tartekatuta, eta, batez ere, tximeleta formako figuratxoak. **Bernardo Atxaga**

Objektu ñabar eta iletsu bat hurbildu zitzaion, zalantzati. **Monika Etxebarria**

Dakigun apurraren arabera, **objektu** sakratuak dira. **Alberto Ladron Arana**

Annyk beti izan ditu inguruan **objektu** tabuak. **Monika Etxebarria**

Ezin da onartu, emakumeak **objektu** desiratuak, baina ez desiratzailak, sexugabea eta tatxagabea- beste emakume bat maitatzea. **Luis Elberdin**

Ertzaintzako **objektu** galduen sekziora ere jo dut, baina han ere ez dut aurkitu, eta ez dakit... **Joan Mari Irigoien**

Luminantzia, azkenik, **objektu** argitsuak azalera-unitate bakoitzeko duen argi-intentsitatea da. **Josu Zabaleta**

Eman dezagun **objektu** gorri bat duzula aurrean. **Askoren artean**

Gauzak **objektu** trinko bezala agerrarazten dituzten berezko itzalak. **Josu Zabaleta**

Objektu konkretuak irudikatu egiten dira, (objektuen) balio abstraktuak adierazi egiten dira. **Objektu** fisikoak egon badaude, baina postulatatu egiten dira, gure gogoan hautematen duguna (ideiak, errepresentazioak) haiek kausatzen baitute. **Josu Zabaleta**

Estetika transzendentalaren arabera espazioa eta denbora ez dira **objektu** absolutuak. **Ibon Urizarri**

Orain arte kartesiar kutsuko epistemologiak kanpoko **objektu** materialik zuzenean ez dugula ezagutzen esan digu. **Askoren artean**

Tamaina ertaineko diamante bat platinoan ezarria, familiaren baliozko **objektu** bakarra. **Ander Irizar**

Espazioak soilik ahalbidetzen du gauzak kanpoko **objektuak** izatea. **Ibon Uribarri**
Galde daiteke ea apriorizko adigaiak alde zuretik ez ote doazen zer bait begietsia ez. baina oro harrezko **objektu** gisa pentsatua izateko baldintza gisa. **Ibon Uribarri**

3 irud/hed

Teoria politikoaren **objektua** nahiko finkatuta dagoenez, badirudi ez dagoela arazo handirik egoera bakoitzean zer metodologia erabili behar dugun jakiteko. **Askoren artean**

Horretara iritsi ahal izateko, **objektu** ideal bat sortu beharko du Talesek, pentsamendu hutsez: "zirkulua", munduko zirkulu guztien ordezkaria dena, nolabait ere. **Jon Muñoz**

Arrautza formako **objektu** geometriko bat. **Josu Landa**

Hitzak **objektu** hegalarri batzuk dira, baina ez dute gorputzik, ez dute formarik, ez dute deus. **Anjel Lertxundi**

Gai militarrik, merkataritza, ogasun eta beste **objektu** batzuek, harreman partikularrik dakartzate. **Andres Urrutia**

Objektu matematikoei dagozkien emaitza orokorrak adierazten. **Jon Muñoz**

Aplikazio kontuak, kautela osatzaile eta erantsiak, **objektu** iragankorrak edo aldakorrak, berba batez, aginpidearen jarduneko ikuskatze lana eskatzen duten horiek. **Andres Urrutia**

Horrela bada, poliziaren begiratuen **objektu** bihurtu zen Dupin; eta ez ziren gutxi izaten Prefekturan haren zerbitzuak eskatzen zituzten kasuak. **Koro Navarro**

"Nazioa" ez da ikerketa psiko edo etnologikoaren **objektu** bat. **Joxe Azurmendi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berak ez ditu data berdinak, ezta azalera berdina edo artikulazio berdinak ere, baina **objektu** -multzo batez argibidea eman dezake. **Xabier Arregi**

Osoa, estua, jarraitua eta geografikoki ondo mugatua den **objektu** -eremu baten gainean. **Xabier Arregi**

Funtzio honek, batasun horiei "zentzua" eman beharrean, **objektu** -arlo batekin harremanean jartzen ditu. **Xabier Arregi**

[Zientzia] hauek dira berarentzat **objektu** -zientziak, dagoenez gero anatomia patologikoa, filologia, ekonomia politikoa, biologia izan ahal izan diren legeak. **Xabier Arregi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elikagai izango diren animaliak (oilaskoak, arkumeak, ostrukak, txekorrak, oreinak, txerriak, kanguruak, untxiak) gauza edo kontsumo **objektu** huts bihurtu ditu sistemak.

Edorta Agirre

Amodiozkoak ziren bai, baina ez dakit maitasun-**objektu** jakin eta zehatz bat ote zuten, garai hartan gustatzen zitzaizkien neskaren bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zientzia politikoaren ikerketa **objektua** errealitatean azaltzen diren politikek osatzen dute. **Askoren artean**

Bigarren tribuan ahaztu egin zitzaizkien sua egiteko modua, eta tresnak bakarrik gorde zituzten, gurtze-**objektu** gisa. **Jon Arretxe**

Objektu hori, ez al da nolabait teoria (edo zientzia) politikoaren ikerketa-**objektu** bera? **Askoren artean**

Ez da jatorriaren beraren sekreturako itzulera; diskurtso-**objektu** baten deskribapen sistematikoa da. **Xabier Arregi**

Tarskiren egiaren kontzeptio semantikoak, hain zuzen, hizkuntza-**objektu** bat eta horri buruzko metahizkuntza inplikatzeko dira. **Askoren artean**

Ertz hori irudi-**objektuari** hura koadratzeko, inguratzeko balio duen beste gauza baten bidez indartzen da; marko **objektua** deituko diogu horri. **Josu Zabaleta**

6 (gramatikan)

Ekintzaren egilea eta gaia, "subjektu" eta **"objektu"** nozioak erabiliz deskribatuko genituzke. **Itziar Laka**

Frantses modernoa, **objektu** zuzena adierazi ahal izateko, izena aditz iragankorraren atzetik jartze soilaz baliatzen da. **Isabel Arrigain**

Subjektu-predikatu, aditz-**objektu** gramatika harreman errazetatik abiatzen direnean. **Itziar Laka**

Adibideari intuizioaren kontrakoa den *IS - Aditza - IS* analisia ukatzeko, *home* hitza *came* aditzaren **objektu** eginaz. **Itziar Laka**

7 –en objektu izan da ad

Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, ordenantzak, ohitura orokor zein bereziak, estatutuak eta araudiak indargabe geratzen dira [...] lege hauen

objektu diren gai guztietan. **Andres Urrutia**

Nabardurok, bestalde, txit eztabaidatu eta aldakor suertatzen dira, lege testuaren **objektu** izateko adina, behinik behin. **Andres Urrutia**

Ezin da eztabaida intersubjektibo libre baten **objektua** izan; beraz, ezta haren emaitza ere. **Joxe Azurmendi**

Logikak bere zedarriztapenari besterik ez dio zor lortu duen abantaila hori, eta horregatik zaio zilegi, eta eginbeharra ere badu, ezagutzaren **objektu denez** eta beren arteko bereizketaz abstraitzea, eta adimena, beraz, Logikan bere buruaz eta formaz baino ez da arduratzen. **Ibon Uribarri**

Gorputzaren sentimenean **objektu dira** gorputzeko gauza guztiak. **Imanol Unzuurrungaga**

Gai kriminalak aurrekuste baten **objektuak** izan daitezke, gauza bera ezinezkoa delarik gai zibiletan. **Andres Urrutia**

Ez zinetela ez elkarren sujetu eta ez **objetu**, baizik-eta, gehienez ere, osagarri zirkunstantzialak. **Iñaki Seguro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimen hutsaren objektu (4); barneko sentsuaren objektu (5); begiespenaren objektu (4); esperientziaren objektu (20); ezagutzaren objektu (6); hunkitzen gaituzten objektu (4); kanpoko objektu (11)

objektu bakar (8); objektu bakarra (5); objektu berezi bat (4); objektu berriak (8); objektu bihurtu (6); objektu eremu (4); objektu erreal (9); objektu ezezagun (5); objektu fisiko (4); objektu galduen (5); objektu gisa (73); objektu hegalarri (4); objektu inteligible (5); objektu izan (4); objektu jakin (6); objektu material (4); objektu materialen (8); objektu mota (4); objektu multzo (5); objektu soil (4); objektu transzendental (12); objektu transzendental (12); objektu transzendentalk (4); objektu zuzena (4)

oro harrezko objektu (20); sentsuaren objektu (5); sentsuen objektu (18); sentsuen objektu gisa (4); subjektu objektu (4)

barneko sentsuaren objektua (5); begiespenaren objektua (6); esperientziaren objektua (5); idearen objektua (4); marko objektua (6)

orduan objektua (4); sentsuaren objektua (5); sentsuen objektua (4); sentsuzko begiespenaren objektua (4); subjektua eta objektua (4)

begiespenaren objektuak (4); bestelako objektuak (8); esperientziaren objektuak (6); kanpoko objektuak (13)

objektuak diren aldetik (6); objektuak diren heinean (6); objektuak eman (14); objektuak espazioan (7)

sentsuen objektuak (9)

objektuaren izaera (5); subjektuaren eta objektuaren (5)

objektuari dagokionez (4)

begiespenaren objektuei (4); diren objektuei (4); esperientziako objektuei (4); esperientziaren objektuei (5); harrezko objektuei (4); objektuei a (4); objektuei a priori (4); objektuei begira (7); objektuei buruz (5); objektuei dagokionez (7); objektuei eta (8); objektuei lotzen (8); objektuei lotzen zaizkien (4); oro harrezko objektuei (4); sentsuen objektuei (5)

esperientziaren objektuen (11); hutsaren objektuen (4); kanpoko objektuen (8)

objektuen ahalgarritasunaren (5); objektuen apriorizko (7); objektuen arabera (6); objektuen bidez (6); objektuen bitartez (5); objektuen eraketa (8); objektuen errepresentazioak (4); objektuen ezagutza (18); objektuen forma (4); objektuen irudiak (4); objektuen multzoa (4)

sentsuen objektuen (9)

sentsuen objektuetara (4)

objektutzat hartzen (8)

objektual *izond* arte joerez minzatur, gai gisa objektu erreal manipulatuak eta esanahi berriz hornituak erabiltzen dituena.

Orokorrean **objektualenak** diren artelanen aldeko hautua egin dela iruditzen zait, hau da, irizpide estetikoaren arabera egindako aukeraketa izan dela errazago erakusteko eta emaitza txukunena izateko. **Berria - Kultura**

Nahiago izan dute artisen izenak goretzea eta artelan **objektualen** alde egitea. **Berria - Kultura**

objektualtasun iz objektuala izateko nolakotasuna.

Espressionistak pinturan **"objektualtasun"** lasaigarregia iruditzen zitzaizaienaren kontra borrokatu ziren, materialaren eta formaren adierazgarritasun-ahalmenak askatzen ahalegindu ziren, era horretara ikusmolderik eta interpretaziorik arbitrarioenatarainoak, bakoitzak bere muturretaraino eramanak eragin ahal izateko. [Josu Zabaleta](#)

objektugabe (corpusean *objetugabe soilik*) izond objekturik ez duena.

Zerbait idaztea bai, baina idazle izenekoen idazte **objetugabea** ez. [Iñaki Segurola](#)

objektutasun iz objektua izateko nolakotasuna.

Kubistek egin zituzten lehenengo deskonposaketak ere beren modeloen **"objektutasuna"** hobeto adierazten zutelakoan egin zituzten horrela. [Josu Zabaleta](#)

Konbentzio horiek alde batera utzi beharko lirateke beharbada, eta **"objektutasuna"** deitzen diogun kategoria primarioa bera ere bai. [Xabier Olarra](#)

Etzeko gauza txiki guztiak [...] jirabiraka erabiltzen zituen eskuetan behin eta berriz, hurbil edukiz lehenbizi, besoaren luzerak ematen ziona urrunduz hurrena, haien itxura aldakorrek **objektutasun** bakar batean sintetizatu eta hartaz jabetu nahian. [Xabier Olarra](#)

Objektutasuna eta objektibitatea munduaren pentsatzearen eta begiestearen gure formek sortzen dutela Kanten ondorengo Filosofia gehienek aurreuposizioa da, aurreuposizio eztabaidagarria den arren, eta hainbat modutan eraldatua izan den arren. [Ibon Urbarri](#)

objekzio (orobat *objekzione g.er.* eta *objezio g.er.*) 1 iz kontrako argudioa.

Hori ez da **objekzio** bat. [Joxe Azurmendi](#)

Objekziorik ez daukat. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Objezioen bat al duzu? [Matías Múgica](#)

Zein **objekzio** jartzen diote Itun Zaharrari? [Imanol Unzurrunzaga](#)

Ahozko onespena eman zion Inozentzio III.a Aita santu handiak [...] ez **objekzioak** jarri gabe. [Askoren artean](#)

Amonak, ordeak, **objekzio** guztiak ezeztatzen zituen hartutako erabakian fede osoa duen baten konbentzimendu pitzadurarik gabeaz. [Anjel Lertxundi](#)

Objekzio hauek baztertu behar dira: izan ere, egia bada badela dimentsio bat ez dagokiona ez logikari ez hizkuntzalaritzari, bera ez da, hala ere, berrezarritako transzendentzia. [Xabier Arregi](#)

Hori zen **objekzioaren** xedea eta asmoa, hitz berberokin aurkeztu ez bazen ere. [Xabier Kintana](#)

Hemen berriro inferentzia kausalen aurkako Humeren **objekzioa** agertzen zaigu, eta hori ez bada gainditzen ezin da aurrera jo. [Askoren artean](#)

Pentsa itzazue, beraz, ezain aurkakori ere bururatu ez zaizkion **objekzioak**, eta armak mailegatuiezazkiezue eta berak desira dezakeen leku egokiena utz diezazkiezue. [Ibon Urbarri](#)

Objekzioa ez da batere sendoa, esan baitut familia Estatu txiki bat dela. [Esteban Antxustegi](#)

Epaiketean etengabeak izan dira aurrera segitzeko eragozpenak, eta defentsako abokatuen **objekzioak**. [Berria - Mundua](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Badira **objekzio** handiak, hala ere, entzumenaren erresonantzia-teoriaren aurka. [Irene Aldasoro](#)

Bada **objekzio** funtsezkoago bat ere. [Irene Aldasoro](#)

Ezin da arrunki onartutako eragin fisikoaren aurkako ezain **objekzio** dogmatikorik egin. [Ibon Urbarri](#)

Zientifikoarentzat hori da **objekziorik** larriena: "nazioa" ez da ikerteta psiko edo etnologikoaren objektu bat. [Joxe Azurmendi](#)

Baina benetako **objekzioa**, horien atzetik, doktrinala zen izatez. [Xabier Olarra](#)

3 kontzientzia objekzioa.

Torturen argazkien eskandalua baino bost aste lehenago **objekziorako** eskaera egin zuen, eta lehenago torturak salatu. [Berria - Mundua](#)

4 kontzientzia-objekzio kontzientzia-eragozpena.

Alde batetik auzapez batzu altxatu dira horren kontra, bereziki Partidu Popularreko eskuinekoak, Auzapezek **kontzientzia objekzioaren** izenean ezkontra mota horren errefusatzea galdatua izanzen zaielarik. [Herria](#)

Epaiketean semeari ez diote bere buruaren defentsa egiten utzi eta **kontzientzia objekziorako** eskaera ez dute kontuan izan. [Berria - Mundua](#)

5 objekzio fiskal

Armagintzaren kontra **objekzio** fiskala egiteko deia zabaldu dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Errenta aitortpenak egiteko epeak irekitzeaz diren honetan, hainbat eragilek **objekzio** fiskala egitearen aldeko mezua zabaldu dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Objekzio fiskalaren aldeko deiak, gainera, hainbat pertsona ezagunen babesa izan zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

6 objekzioa egin

Hala nola, I. Parteko 3. galdeari **objekzioa egiten** dioenak erranez gorputzera etorri aitzin arima bizi dela. [Piarres Xarriton](#)

Eta zein ongi gogoratzen duan, halaber, amak orduan **egin** zion **objekzioa**: [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

Objekzio hau **egin** dit: "gure zoritxarrak unibertsoaren perfektioa osatzen badu, zerbaiten faltan aurkituko zen perfektio hau denok betiko zoriontsu izango bagina". [Imanol Unzurrunzaga](#)

Jakitun batek, duela zenbait urte, garrantzi handiko **objekzio** bat **egin** zidan, ongi kontsideratzekoa, bera ezerezteko guk emaniko erantzunak bezala. [Xabier Kintana](#)

Egileak hemen, behin betiko, beste homonimo askori buruz ere berdin **egin** litekeen **objekzioari** erantzun nahi dio. [Xabier Kintana](#)

Araza hauei begira **egiten** n duzuen ziurtasun-ezaren **objekzioari** hasteko galdekizun hau kontrajar dakioko, [...]. [Ibon Urbarri](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako objekzio (6)

objekzione ik objekzio.

objetatu ik objektatu.

objetibatu ik objektibatu.

objetibitate ik **objektibitate**.

objetibizatu ik **objektibizatu**.

objetibo ik **objektibo**¹ eta **objektibo**².

objetiboki ik **objektiboki**.

objetibotasun ik **objektibotasun**.

objeto ik **objektu**.

objetu ik **objektu**.

objetugabe ik **objektugabe**.

objezio ik **objekzio**.

oblast iz Errusiako Federazioko administrazio barrutia, eskualdearen baliokidea.

1922: Errusiar Zuriak eta sobietarrek borrokatzen zuten bitartean, Hego Osetiako **Oblast** Autonomoa osatu zen. **Berria - Mundua**

oblazino ik **oblazio**.

oblazio (*corpusean **oblazio** soilik*) iz eskaintza.

Iritzirik, bertzalde, ezen, neure organoen eta neure menbroen alderakotzat, aspaldi ordaindu niola Jainko guztiahaldunari, girstino gisa, zor nion zerga, neure behatz ebakiaren sakrifizioarekin eta **oblazioarekin**, [...]. **Joan Mari Irigoien**

obligantza iz obligazioa.

Filosofia transzendentalak bere adigaiak printzipio baten arabera bilatzeko abantaila dauka, baita **obligantza** ere. **Ibon Uribarri**

Aitaren manua diat **obligantza** eta eginbide, zeren eta, arrazoin garbirik ezean, nola entseiatuko naiz, bada, haren iritzia aldatzerat? **Joan Mari Irigoien**

Zeren irakaslearen erranetat egoitea baitzen ikaslearen **obligantza** eta zeregina. **Joan Mari Irigoien**

obligatu, obliga, obligatzen 1 du *ad* behartu.

Itunak berez **obligatzen** du; legeak **obligatuta** mantentzen gaitu obeditzeko itun unibertsalaren bidez. **Esteban Antxustegi**

Zer pentsatu behar dugu guk, alaba fularrarekin ateratzera **obligatzen** duten gurasoez? **Joxe Azurmendi**

Zin hark behartzen eta **obligatzen** ninduen osabari eman hitza ahalik eta hobekien betetzerat eta osabarekin leial izaiterat. **Joan Mari Irigoien**

Horretara baimenduak ez ezik, horretaraxe **obligatuak** garelakoan. **Joxe Azurmendi**

2 da *ad* (bere burua) lotu.

Guiztiak beste guztiekin **obligatu** zirela suposatzen denez, nahikoa izango litzateke norbaitek hori egin nahi ez izatea, besteak ere horretara **obligatuta** gelditzeko, denak aurkakoan ados egon arren. **Esteban Antxustegi**

Itun baten bidez **obligatu** egiten gara, legearen bitartez, **obligatuta** jarraitzen dugu. **Esteban Antxustegi**

3 (era burutua izenondo gisa)

Konbertsioaren egitura inizatikoak, Arestik *Maldan beheran* erakutsi zuen eran, honako hauek ditu pauso **obligatuak**: [...]. **Joseba Zulaika**

Haren zerbitzaririk tipiena eta **obligatuena** banintz bezala. **Joan Mari Irigoien**

Obligatzaile, behartzen duenari deitzen diot; behartzen denari, berriz, **obligatua**. **Esteban Antxustegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
behartzen eta obligatzen (3)

obligatuzki *izond* obligazioz.

Lege horren arabera baxotzak bere etxean har ttipitto hori senditzen duelarik behar du berehala eta **obligatuzki** gauza hori erran bere Herriko Etxean. **Herria**

obligatzaile *izond* obligatzen duena.

Obligatzaile, behartzen duenari deitzen diot; behartzen denari, berriz, obligatua. **Esteban Antxustegi**

obligazio ik obligazio.

obligazio (orobat *obligazio g.er. eta obligazio g.er.*) 1 iz betebeharra, eginbeharra. ik eginbide.

Eraberrituta, eguneroko bizitzaren neke, **obligazio**, presa eta abarrak zain dauzkan etxerantz abiatzen da. **Bernardo Atxaga**

Igandeetako mezan harmonioa jotzeko **obligazioa**. **Bernardo Atxaga**

Emakume guztien **obligazioa** senarrari obeditzeko. **Aingeru Epaltza**

Barkamena lege eta **obligazio** orotatik haratago dagoela. **Joseba Zulaika**

Zinak ez dio itunetik sorturiko **obligazioari** ezer eransten. **Esteban Antxustegi**

Tebasen ez ziren baimentzearekin konformatzen: **obligazioa** zen mutilen arteko maitasuna. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hitz haien kontra egitea zen nire **obligazioa**, baina ez nekien zer esan. **Anjel Lertxundi**

Lasaiturik sentitzen nintzen, errudun ere bai, neure **obligazioa** bete ez nuelako. **Agurtzane Juanena**

Orain **obligazio** hori betetzen saiatuko gara. **Ibon Uribarri**

Zergatik ez duen bere **obligazioekin** konplitzen? **Bernardo Atxaga**

Gizarteak agindu dizkigun **obligazioak** dira disimulua eta hipokresia. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Interesatuena baimenik gabe ere, hartutako **obligazioari** ihes eginez, beste lege-esparru batera alde egitea. **Juan Martin Elexpuru**

Zeure **obligazio** bakarra irautea da. **Herria**

Egia esateko, ez dut berriz munduratu nahi, **obligazio** jasanezina iruditzen zait. **Josu Zabaleta**

Antzinako zin bati zor zaion **obligazio** gisa. **Juan Martin Elexpuru**

Joanes Ezpondak gogo onez onartzen zuen 5. mailatik aitzina gure artean latinez aritzeko **obligazioa**. **Aingeru Epaltza**

Erantzukizunaren azken **obligazio** eta aporia, eta, bide batez, etikaren azken burla, giza sakrifizioa da. **Joseba Zulaika**

2 (hitz elkartuetan)

Gizarte-**obligazioak** eta eginkizunak betetzera. **Josu Zabaleta**

3 korritu finkoko eta daramanarentzako titulua, jaulki zuen entitateak maileguan harturiko diru kopurua adierazten duena.

Bertan, besteak beste, akzioak, enpresen partaidetzak, edota enpresen zorrak (**obligazioak**, bonoak edo letrak) negoziatzen dira. **Iñaki Heras**

Brady plangintzak, funtsean, kreditu zaharrak hogeita hamar urterako **obligazioekin** trukatzea proposatzen zien bankuei; **obligazio** horien interes-tasa (finkoa) merkatuko tasak baino apalagoa izan zitekeen, edo deskontua izan zezaketen. **Koro Navarro**

Banku horietako batek, Italiako Capitaliak, iragarri du kalte-ordainak emango dizkiela **obligazioen** erosleei. **Berria - Ekonomia**

Lehen Mundu Gerra hasi baino lehen, nazioarteko finantza-mugimendu gehienak epe luzeko **obligazioen** izenpetzeak izaten ziren. **Koro Navarro**

Parmalaten akzio eta **obligazioetan** inbertitu duten 400 kaltetu inguru bildu ziren atzo Parman. **Berria - Ekonomia**

la bosten bat karterako inbertsioak dira, dela ez-egoiliarrek erositako tokiko akzioak, dela eragile egoiliarrek atzerriko burtsetan jaulkitako **obligazioak**. **Koro Navarro**

Titulazio esapideak tituluen jaulkipenek merkatuen jardueran hartutako nagusitasun berri hori deskribatu nahi du: nazioarteko **obligazio** klasikoak, atzeritar mailegu-hartzaile baten kontura jaulkiak, herrialde mailegu-emailearen finantza-lekuan eta diruan; euroobligazioak, jaulkitzen diren lekuaz bestelako diruan emanak; nazioarteko akzioak. **Koro Navarro**

Jasotako finantzen parterik handiena, izan ere, epe laburreko mailegu eta inbertsioei dagokie, bereziki tokiko **obligazioen** harpidetza moduan. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan)

Harryren gainerako ondasunak -bankuko kontu mehetua, akzio eta Estatu-**obligazio** gutxi batzuk- bere hartan atxikirik zeuden orobat. **Oskar Arana**

5 obligazioa izan du ad

Erretore zin egilea paradaz baliatu zen han zirenei gogorazteko elizako eginbideen konplitzeko **obligazioa** zutela. **Elena Touyaro**

769ko urtean, Karlomanok berak gomendatu zien gotzainei koarta-tenporak gogorarazteko duten **obligazioa**. **Pello Zabala**

Zer dela-eta izan behar dute horretarako **obligazioa**? **Josu Zabaleta**

Aitak haurrei jaten emateko duen **obligazio** naturalak ezkontza ezarraz du. **Iñaki Iñurrieta**

Ohoreak eta magistraturak izateagatik herritarrekin **obligazioak** dituztenen etxeetan. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emateko obligazioa (3); **obligazioa dutela** (3)

obligazione ik obligazio.

oblikuo 1 izond zehharra.

Bananondoak makurturik daude: enborrak **oblikuoak** eta hosto luzeak lehertzera eskegitako galtza zarpailduen moduan. **Joseba Sarrionandia**

Milaka txori zuri ariko dira hegatzek ontzien gainean jirabiraka, eta are zuriagoak irudituko zaizkizu eguzkiaren argi **oblikuoak** jotzen dituenen. **Joseba Sarrionandia**

Trazatu denean, zati bedi trazatutako lerroaren erditik, eta zatitu denean, zanpatu eta uzkur bitez irudi horren muturreko parteak, deformazio **oblikua** izan dezan. **Santiago Iruretagoiena**

Kremailera baten bila zebiltzan turista korearren aurpegi **oblikuo** lizun haiek. **Harkaitz Cano**

2 (adizlagun gisa)

Kurbatura dagoen parte horretan, angeluen muturrak aurrera ateratzen diren lekuan, zuloak ere **oblikuo** egingo dira. **Santiago Iruretagoiena**

obo iz zirkulua.

Laukizuzen okre argi bat bereziki beharko litzateke magma horretatik, bertan **obo** okre argi bat ezarri, eta ginbail okre ilun bat erantsi gainean. **Xabier Olarra**

Handik aurrera, beste jarlekuak **obo** zabal batean hedatzen ziren. **Joanes Urkixo**

Goialdeko **obo** biribil zurian, F. Berthoud izenaren inguruan, hamabi zenbaki erromatarrek erakusten zituen. **Txillardegí**

Hiru ordu aritu ginen hamar miliako **oboan** sakoneko kargak jaurti eta jaurti. *ik beherago* 3. **Koldo Izagirre**

Kai aldera eraman ninduten **obo** erdi baten barruan. **Koldo Izagirre**

2 zirgiloa.

Dorretxerat iritsi ginen arte, non ikusi baikenuen zaldi bat, **obo** bati lotua. **Joan Mari Irigoien**

3 oboan adlag biribilean.

Erdi-erdian haritz handi bat hedatzen zen, eta honen inguruan, **oboan**, eserleku gisako harri landuak zeuden zut jarrita. **Joanes Urkixo**

oboe 1 iz haize musika-tresna, zurez egina, mihi bikoitza eta tutu konikoa duena.

Oboea esku artean hartu eta jo. Berria - Kultura

Orain, beste aldera ari naiz aldatzen, oso musika-laguntza urriarekin: arrabita, txeloa, **oboea** edo beharbada fagota. Oskar Arana

Oboe eta pikoloaren arteko joko musikalaren antzekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Oboe tradizionalak jotzen dituzten taldeak elkartuko dira Santutxun. Berria - Kultura

Oboerako trataturik goraiatuena landu dituen Heinz Holliger konposatzailea. Berria - Kultura

Argiak musika jo ahal baleza, saxo altuaren soinua aterako luke, eta **oboearen** ezitia. Pako Aristi

2 (hitz elkartuetan)

Oboe -hotsa. Juan Garzia

Oboe doinuak entzun ditugu Euskalduna jauregian, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) egoitzako korridoreetan barrena abiatu orduko. Berria - Kultura

Tres Vientos hirukote alemaniarrek **oboe**, klarinete eta fagot kontzertua emango du gaur. Berria - Kultura

3 oboe-jotzailea.

Geoginarekin batera beste bost musikari izango dira protagonistak: Xabier Calzada (flauta), Izaskun Etxebeste (biolina), Eduardo Olloki (**oboea**), Alberto Mielgo (saxofoia) eta Naiara De La Puente (eskusoinua). Berria - Kultura

Ortzegunean 21etan kontzertu elizan Nicolas Andre (tronpeta) Béatrice Andre (**oboea**) Jean Claude Francon (organoa) *Kanboko harmoniak* antolatuturik eta lagundurik. Herria

4 oboe-jotzaile (orobat oboe- jole)

Lerroa, gizonak eta emakumeak tartekaturik baitzituen, jauregiko harresiraino luzatzen zen, eta zazpi danbor-jotzailek eta zazpi **oboe-jotzailek** doinu bera joaz nahiko lan zuten lerroa osorik hartzeko. Fernando Rey

Mikel Markezek kontrakoa egingo du: gitarra zorrotik atera, Cesar Zapirain **oboe jolea** lagun duela, eta Loperekin batera bere kantautore lana erakutsiko du leku ezberdin eta xelebreetan. Pako Aristi

Egokiena, beraz, **oboe jotzaileen** kopurua murriztea izango litzateke. Berria - Kultura

Herbie Hancock ere izango da Jazzaldian, eta baita Yusef Lateef **oboe** eta fagot **jotzailea** ere. Berria - Kultura

obogenesia iz arrautza sortzea.

Arrautzan jada dagoen kokapen-informazio horrek amak instalatua izan behar du, ezinbestean, arrautzaren eraikuntzan zehar, **obogenesian**. Juan Garzia

oboide iz arrautza-formako figura geometrikoa.

Eta sor dezake parabola, hiperbola... edo esfera eta **oboidea** eta zikloidea... forma geometriko erregular eta irregular guztiak sor ditzake. Joan Mari Irigoien

obolo iz antzinako Greziako diru zaharra, drakmaren seirena balio zuena.

Hortik dator, hain zuzen ere, grekoen hirietan, justu ukondoak sei arra dituen bezala, drakmak ere, beraiek erabiltzen zuten dirua, brontzez egindako sei txanpon izatea, sei as alegia, beraiek **oboloak** deitzen dituztenak; eta hogeita lau hatzen antzeratsu, **oboloa** ere lauko neurritan banatu zuten; batzuek neurri horiei *dichalca* esaten die eta beste batzuek *trichalca*. Santiago Iruretagoiena

Pentsatzen zuten, Karpokrates-ek bezala, inor ez dela kartzelatik irtengo azken **oboloa** ordaindu arte (Lukas 12: 59), eta honako beste bertset honekin limurtu ohi zituzten penitentziagileak: [...]. Juan Garzia

"Emaizkiozu hiru **obolo**", agindu zion esklaboari, "nahitaez atera behar baitio honek mozkina ikasi berri duenari". Jon Muñoz

obozito iz zelula germinal emea, obulo bihurtzen dena.

Obozitoa txertatu aurreko diagnostikoa egin behar denean, gurasoetako batek edo biek arazo genetikoak dituztelako. Berria - Gaiak

Antzutasun arazorik ez dela jakin arren, ezinbestekoa da **obozitoak** *in vitro* ernalkuntzaren teknika bidez ernaltzea. Berria - Gaiak

Galdera horri erantzuteko, "gune-transplante" esperimentu batzuk egin dira: **obozito** baten gunearen lekuan, beste bat jartzen da, zelula desberdindu batetik hartua: heste, giltzurrun zein beste. Juan Garzia

obra 1 iz egintza.

Gizakia bere ingurumenaren **obra** eta, era berean, egile dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Igarri zion Frantziskok hura Jainkoaren **obra** zela, ez gizakiena. Askoren artean

Gutzit ona egin izan balu, ez zukeen sekula gaiztakeriarik egingo, eta orduan Jainko baten neurriko **obra** izango zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Denak arrazoimenaren **obrak**. Joxe Azurmendi

Gizon gurutziltzatuak ziruditen eta halaxe ziren izan ere janzkeran, bizimodu estuan, beren egintza eta **obretan**. Askoren artean

Gary bere amaren **obra** izan zen nolabait Zeren aitzakia ezin hobea izan baitzitekeen hura enetzat ere, Mundu Berria ezagutzeko eta **obra** on baten egiteko... Joxean Agirre

Penitentzia egiten nuen, baina ene penitentziatzko **obrek** ere ez zuten ondore onik. Joan Mari Irigoien

Kapera baten edo komentu baten eraikitze, edo hospizioen eta bertzelako karitatezko **obren** bulkatze. Joan Mari Irigoien

2 eraberritze, eraikuntza edo kideko lana. ik lan 4.

Azkenik egin zuen **obra**, Luzaideko pilota plaza, 1927. urtean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Altxaera, berriz, errealearen irudi bertikala da, neurri pintatua, **obrak** gero izango duen irudiaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Beraz **obra** horren negurriak dira barne barne: luze 26,20 m, zabal 11 m, gora 7,30 m, sarea jo artio. Herria

Obra horretarako konkurtsorik ez zuan egon. Bernardo Atxaga

90eko hamarkadaren hasieran egin zuten aurrekontuaren arabera, **obra** egiteak 3.000 miloi euroko kostua izango zuen. Berria - Euskal Herria

Tomasek bordan **obrak** egin zituen. Pablo Sastre

Bi zinegotzi horietako baten aldeko botoa behar-beharrezkoa zen, errauste plantaren **obra** esleitu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Obrak, hala ere, ez zituzten inoiz eten. Eduarne Elizondo

AHTren **obrak** ez atzeratzeko esan diote Espainiako Gobernuari. Berria - Euskal Herria

Obra bukatu denean, gastua esandakoarekin bat baldin badator, arkitektoari ohoreak eta dekretuak ematen zaizkio. Santiago Iruretagoiena

Gainerako **obra** guztiekin batera inauguratuko dugu. Bernardo Atxaga

Badirudi itxura handiosoa eta zirrargarria ematen zaiola **obra** osoari. Santiago Iruretagoiena

Furugoneta bat heldu den David eta haren aita lan egiten ari ziren lekura, eta handik jaitsi zen kontratistak, igeltseroak behar zituela esan, eta ordua **obra** hartan baino hiru mila pezeta gehiago ordaintzeko prest zegoela esan zien. [Iban Zaldúa](#)

Autobidea zabaltzeko egiten ari ziren **obra** batzuk zirela medio. [Joxemari Iturralde](#)

Euri asko bota du, eta kaminoak ere lupeztuta daude; hainbeste **obra** ari dira egiten! [Pako Aristi](#)

Eraikuntzako langileak **obra** eta aldarnioetara itzuliko dira gaur. [Berria - Ekonomia](#)

Obra parrasta bat akulatu da ibil-bide horri beste bixta bat emateia gatik. [Herria](#)

Obra asko akulatuko da hor aurtan, erran ditake kasik dena xaharberrituko dutela. [Herria](#)

Miarritzen, aspaldixkoan jadanik **obra** ainitz egina dute ezponda batzuen azkartzeko. [Herria](#)

Bost miliunen **obra** eginik, ez baita guti! [Herria](#)

Letra gotikoz idatzitako kartel bat zegoen, honela zioena: kontuz, **obrak**. [Fernando Rey](#)

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Obra garrantzitsu asko bukatu dira: BECeakoak, adibidez. [Berria - Ekonomia](#)

Angelek zerikusi handia zeukan herrian egiten ziren **obra** publiko guztiekin. [Bernardo Atxaga](#)

Itoitzek lagundu du **obra** hidrauliko handien kontrako mugimendua antolatzen. [Édurne Elizondo](#)

Hor daude Somozak Nikaraguan egindako **obra** faraonikoak. [Iñaki Heras](#)

Gipuzkoako Aldundia «**obra** zibilen sustatzaile nagusia» dela gogorarazi zuten sindikatuek. hirugarren zatiko **obra** osagarrien kontratua. [Berria - Ekonomia](#)

Etxeetako **obra** txikiak. [Berria - Ekonomia](#)

Miarritzen ere ez daude lo eta **obra** handiak badira hasiak edo hasteko heinean, besteak beste eraikuntza **obra** pizkor batzu herriaren kondu. [Herria](#)

Obra handiak Hendaia gertokian. [Herria](#)

Autobidean **obra** luzeak hasiak. [Herria](#)

Tausteko ubideak uraren % 30 galtzen du, **obra** zaharra delako. [Berria - Harian](#)

Itoizko urtegia «**obra** segurua» dela berretsi zuen Ebroko Ur Konfederazioko presidente berri Jose Luis Alonsok. [Berria - Euskal Herria](#)

Gaitzeko **obrak** ari dituzte egiten Hendaia gertokian. [Herria](#)

Udalak izendatutako teknikarien iritziz egin behar diren premiazko **obrak** egitea. [Berria - Euskal Herria](#)

Bigarrenik, lehentasunezko **obrak** zehaztu behar dituzte. [Berria - Ekonomia](#)

Lehenbiziko **obrak** 2010 baino lehen hasi nahi lituzke. [Berria - Harian](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enpresek **obra** kontratuak «gehiegi» erabiltzen dituztela salatu dute: langileen %65ek dute kontratu mota hori. [Berria - Ekonomia](#)

Obra kontratuak mugatzeko eta enpresa nagusiek azpikontratatzen ardua bere gain hartzeko eskatzen dute sindikatuek. [Berria - Ekonomia](#)

*Zornotza Bizirik*ek zentralaren **obra** baimenaren aurka jarri zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Obra baimenik gabe bota dute behera Euskal Jairen eraikina. [Berria - Euskal Herria](#)

Eraikuntza enpresek segurtasun eta osasun neurrien araberako **obra** lanak bultzatu behar dituzte. [Berria - Ekonomia](#)

Iruñeko Udalari **obra** zerbitzua pribatizatu nahia egotzi diote. [Berria - Ekonomia](#)

Epailerean esanetan, **obra** arduradunak errudun dira, bai langilearen kontrako delituagatik, eta baita, izandako lesioengatik ere. [Berria - Ekonomia](#)

Obra-hondakin eta harri guztiak bertatik atera eta portuak 1999ko otsailean zuen itxura lehengoratzeko agindu zuen arte. [Berria - Euskal Herria](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tunela Arlaban-Eskoriatza tarte osoko ingeniariatza **obra** nagusia da. [Berria - Euskal Herria](#)

6 idazlana; norbaiten idazlanen multzoa.

Zer irabazten edo galtzen du jatorrizko **obrak** itzulpenarekin? [Ana Urkiza](#)

Hizkuntza orotako **obra** klasikoak zinezko testigantza zirela. [Juan Garzia](#)

Erretorikari buruzko **obra** klasikoetan. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

De Architectura ez da (edo ez esklusiboki behintzat) profesionalak erabiltzeko **obra** tekniko espezializatua. [Santiago Iruretagoiena](#)

Hautzaroko emozioak erreskatatzea izan da zure **obraren** helburua? [Ana Urkiza](#)

Baditu halere euskarazko bi **obra** argitaratuak: "Euskal Herriko leiendak" eta "Antso Nagusia, baskoien errege handia". [Herria](#)

Bi **obren** hari nagusia heziketa sexuala da. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Obra 15 kapitulutan emana dago. [Askoren artean](#)

Balio poetiko handiko **obrak**. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Esku artean duzun **obra** honen garrantzia eta gaurkotasuna, izan ere, Frantziskok berak duen garrantziari eta gaurkotasunari lotua baitago. [Askoren artean](#)

Hango ia **obra** guztiak jatorrizko argitalpenak ziren. [Jon Muñoz](#)

Askotarikoak dira idazle hauen esperientziak, bizitzak eta **obra**. [Ana Urkiza](#)

Gaur egun, erraz asko arbuatzen da Marxen **obra**. [Iñaki Heras](#)

Sadere **obra** guztia eskandalu hutsa da. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Wordsworthen **obra** osoa zegoen behe-beheko apaleko mutur batean. [Irene Aldasoro](#)

Jokin Zaitetik Platonen **obra** guztiak itzuli zituen. [Askoren artean](#)

Agerikoa da *Filosofia apaingelan* **obra** pornografikoa dela. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Vienan estrenatu berri den **obra** bateko antzezle nagusia da. [Ramon Etxezarreta](#)

Bere **obran** ia-ia ez da elkarrizketarik aurkitzen ahal. [Ana Urkiza](#)

7 artelana; norbaiten artelaren multzoa.

Margolarien **obra** askok, XX. mendean batez ere, inoiz ez dute markorik izan. [Berria - Kultura](#)

31 artistek presentatzen dituzte hor 84 **obra**, margolan, zizelan eta bertze, batzu aski harrigarriak. [Herria](#)

Lehendik, Rossetti-ren **obra** guztiak kopiatuko zizkion margolaria aurkitzeko enkargua egina zion. [Ramon Saizarbitoria](#)

Eskultore ospetsu baten **obra** zela esaten tematu zen. [Patxi Zubizarreta](#)

Baditu **obra** ohargarri zombait eginak, hala nola Ahetzeko plazan dagon Mattin bertsulari zenaren irudi ederra. [Herria](#)

Oraingoz ez dirudi Gasteizko artista, **obra** dagoeneko oparo baten jabe bada ere, errazkeriaren eta inertziaren mendean erortzeko arriskuan denik. [Markos Zapiain](#)

1917an estreinatu baitzuen bere lehenengo **obra** serioa, "La dama de Aitzgorri" poema sinfonikoa. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Kontzertu denboran, Maurice Ravel Ziburutarraren bi **obra** entzuten ahalko ditugu. [Herria](#)

Raimundo Sarriegik, beste **obra** batzuk eta Inauterietako edota Kaldereroetarako musika egiteaz gainera [...] denboran zehar bizirik iraun duten eta gaur egun ere Donostiako jairik berezkoen jotzen diren sei pieza ondu zituen. [Askoren artean](#)

Esan beharko genuke dentikuluak direla **obra** joniarretan leihoen lekua betetzen dutenak. [Santiago Iruretagoiena](#)

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola ibiltzen ziren antzoki zahararren **obra** eremuetan atzera eta aurrera; nola joaten ziren apeaderora beste auzokoen kontra harrika egitera. [Jokin Muñoz](#)

Horregatik komeni da proportzioak **obra**-motaren arabera gordetzea. [Santiago Iruretagoiena](#)

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori da diktadorei min handiena ematen diena: diren bezalakoak azaltzea arte- **obra** batean. **Felipe Juaristi**

Gotthold E. Lessing alemaniar dramaturgoaren antzerki **obra**. **Josu Zabaleta**

Esperientzia bizi-bizia da literatur **obra** oro, lehenaren oraina gauzatzen baitu, eta oraina etorkizunerako prestatzen. **Anjel Lertxundi**

Amodioaren eta heriotzaren gaineko ganbera-**obra** baten moduan, emakume gazte pasionatu batekin eta pasioa galdu duen gizon zaharrago batekin. **Oskar Arana**

Musika **obra** berri batzuk pilatzen ziren beheko gelako atrilean. **Irene Aldasoro**

10 **obra-maisu**

Haren ondoan nengoen ni, **obra-maisu** bezala; beraren gozamina nintzen egunero, beraren aurrean jolastuz aldioro. **Eiizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

antzerki obra (41); **arte obra** (6); **artistaren obra** (9); **atxagaren obra** (6); **bizitza eta obra** (9)

edo obra (10); **egin obra** (7); **egin zuen obra** (7); **eginiko obra** (9); **en obra** (20); **ere obra** (14); **eta bere obra** (14); **eta haren obra** (13); **eta obra** (104); **eta obra horiek** (6); **euskarazko obra** (7); **ez da obra** (6); **gure obra** (6); **hainbat obra** (23); **hamar obra** (7); **handiko obra** (8); **haren obra** (53); **hiru obra** (12); **ia obra** (6)

idatzitako obra (8); **idazlearen obra** (6); **izeneko obra** (6); **literatur obra** (9); **musika obra** (8)

obra aurkeztu (8); **obra aurkeztuko du** (8); **obra bat egin** (6); **obra bera** (9); **obra berri** (31); **obra berri bat** (6); **obra berria** (13); **obra berriak** (7); **obra bikaina** (6); **obra bildu** (8)

obra eder (15); **obra ederra** (12); **obra egin** (18); **obra egiteko** (16); **obra egiten** (6); **obra emango du** (6); **obra eskainiko** (24); **obra eskainiko du** (8); **obra eskainiko dute** (6); **obra estreinatuko** (21); **obra estreinatuko du** (11); **obra ezagutzeko** (8); **obra garrantzitsu** (7); **obra guziak** (7); **obra guztia** (22); **obra guztiak** (28); **obra handi** (20); **obra handia** (12); **obra handiak** (29)

obra idatzi (11); **obra ikusgai** (6); **obra ikusi** (10); **obra ikusteko** (7); **obra interpretatuko** (7); **obra izan** (12); **obra izango** (6); **obra jarri** (7); **obra klasiko** (6); **obra kontratuak** (6); **obra nagusi** (7); **obra nagusia** (16); **obra nagusiak** (11); **obra nagusien** (6)

obra on (20); **obra onak** (6); **obra osoa** (29); **obra osoan** (10); **obra osoaren** (14); **obra segurua** (7); **sortutako obra** (6)

antzerki obrak (7); **artistaren obrak** (7); **artisten obrak** (26)

eginiko obrak (12); **egiteko obrak** (9); **eraikitzeko obrak** (6); **gaitzeko obrak** (7)

izan diren obrak (6); **konpositoreen obrak** (8); **margolariaren obrak** (10)

obra egin (24); **obra eginak** (6); **obra egiteko** (20); **obra egiten** (23); **obra egiten ari** (7); **obra emango** (8); **obra erakutsiko** (14); **obra erakutsiko ditu** (6); **obra eskainiko** (11); **obra eskainiko ditu** (7); **obra esleitzeko** (8); **obra gelditu** (8); **obra gusta** (7); **obra hasi** (17); **obra hasiak** (8); **obra hasiko** (6); **obra hasteko** (7)

obra ikusgai izanen (7); **obra ikusi** (9); **obra ikusi ahal** (6); **obra ikusten** (16); **obra ikusten ahal** (6); **obra ikusten ahalako** (8); **obra interpretatuko** (15); **obra interpretatuko ditu** (8); **obra interpretatuko dituzte** (7); **obra izango** (7); **obra jarriko** (6); **obra joko** (13); **obra joko ditu** (6); **obra joko dituzte** (7)

obra sortzeko (7); **sortutako obrak** (7); **zatiko obrak** (6); **zizelkariaren obrak** (6)

izeneko obran (8); **obran zehar** (6)

hirugarren zatiko obren (10); **obren erakusketa** (7)

obraberritze *iz* eraberritzea.

Eta berri txarrek ez baitute lagun eskasik, egia dea aurtan ez dugula izanen BERRIA trinketeko sasoinik Hazpamen? **Obraberritze** baitezpadako batzuen gatik omen.

Herria

obragile *iz* gauzatzailea, errealizatzailea.

Prefetak [...] ezagutu du IKASen lanaren kalitatea eta, Errepublikak Hezkuntza nazionalari doazkion ikasleen beharrak bere gain har zitzakeela oroitaziz, IKAS

ikasmaterialgintzako **obragile** izanen zela zioen. **Herria**

Hiru ardatz horietan 52 neurri hartu ditugu, obragintza, **obragilea** eta aurrekontua zehaztuz. **Berria - Euskal Herria**

Hitzarmen Berezia berri behar den unean, eztabaidak daude, Ikas-i **obragile** funtzioa aitortuko dioten jakiteko. **Berria - Harian**

- Orain burdinagak sartuko dituzte eta urte batez jabeak beha egon beharko dira **obragilearen** oniritzia lortu arte. **Berria - Euskal Herria**

obragintza *iz* gauzatzea.

IKASek puntu zenbaitetan urrats bat egin du, **obragintza** publikoaren ikasmaterialgintzako batzordearen partaide izatearen truk, bere egitura, jakitatea eta gorago aipatu agintari guziak bere argitalpen batzordearen biltzen dituela. **Herria**

Obragintza Publikoaren esku ziren Antolakuntza Eskemako hainbat neurri gauzatu gabe gelditu direla erantsi zuen, hala nola irakaskuntzaren hedapen plangintza, seinaleak, euskara irrati-telebista publikoetan erabiltzea eta euskararen presentzia zerbitzu publikoetan. **Berria - Euskal Herria**

Ikas Pedagogia Zerbitzuak eta **Obragintza** Publikoak hitzarmena izenpetu dute. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obragintza publikoak (9); **obragintza publikoaren** (6)

obralari *iz*

Ipar Euskal Herriko garapen kontseiluak Ikas-i **obralari** funtzioa aitortzen zion. **Berria - Harian**

«Oskola sortua dago baina orain Estatuari dagokio sorrera ofiziala egitea eta oskol hori helburuz, epez eta diruz hornitzea», azaldu dio Jean Claude Iriart Hautetsien

Kontseiluuko zuzendari eta egitasmoaren **obralariak** berriari. **Berria - Euskal Herria**

Hautetsien Kontseilua eta Garapen Kontseiluaren lana da **obralarien** laguntzea proiektu horien gauzatzen. **Herria**

obralaritza *iz*

Obralaritza publikoko talde eragilearen bildumak (2001 az geroztik). **Herria**

Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak, Hautetsien kontseiluak eta Herriarteko euskal sindikatak osatzen duten **Obralaritza** publikoak berriki erabaki dute Erakunde publiko bat muntatzea euskararen aldeko politika eramaiteko. **Herria**

obramendu¹ *iz* giza kaka; kaka egitea.

Komunetako **obramenduen** zanga-ondoan dago gela itsua, makurtuta ibili behar izaten da bertan. **Anjel Lertxundi**

Komunerako baimena eskatu nion erizainari, eta **obramendurako** posturan eseri nintzen, gorpuzta guztiz konkorturik. **Anjel Lertxundi**

Goiz batez, **obramenduetarako** premiari zelarrik, erizain bati deitu zion komunera eraman zezan, eta erizainak, ohi bezala, komunaren gainean jarri zuen. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Horretaz ohartu orduko, mando-**obramenduen** kiratsa hartzen hasi naiz burusiari. **Anjel Lertxundi**

3 obramendua(k) egin

Kartzeleroa sumatzen duen hasten ei zen gainera, ateari emanez kokoriko jarrita, bere **obramendua** egiten. **Jokin Urain**

Egunen batean arabiarrek beren **obramenduak** etxe inguruan bertan ez egiten ikasten baldin badute, egin dezagun kontu, une horretatik aurrera, hoguei urteren buruan, bikoiztu egingen dela arabiar populazioa. **Joxe Austin Arrieta**

obramendu² 1 iz lana, obra.

Zure istorioa erabat sinesgaitza da eta badakizu: errebolbera garbitzen ari zinela Gorky zure gelara sartu, zu ikaratu eta ustekabean errebolbera disparatu eta izpiritu santuaren **obramenduz** bere bihotzean asmatu zenuela sinestea nahi duzu? **Harkaitz Cano**

obrarazi, obraraz, obrarazten du ad gauzarazi, gauzatu.

Flouret deritzan baten ideia Jack Lang-ek **obrarazi** zuen. **Herria**

Helburutzat dutelarik oinarrizko bost eskakizun hauen **obraraztea** : [...]. **Herria**

obratu, obra(tu), obratzen 1 du ad egin, gauzatu.

Hark egiten zituenak oro, nik ere, ene moldean, **obratu** nahi nituen. **Daniel Landart**

Obratu behar ziren lanen aurre-planoa ere egina zeukan. **Koldo Izagirre**

Ekintza on bat bederen **obra** dezagun... **Itxaro Borda**

Etxe berria hasten delarik lan asko bada **obratzeko**, eta hobe beraz, lagunak eta etxekoak etortzen badira eskukaldi baten ematera. **Daniel Landart**

Nik Jainkoari eskatu desgrazia, Jainkoak berak **obratu** zuena. **Joan Mari Irigoien**

Ez al dakizu hilketa latza **obratu** zela Harrondon? **Itxaro Borda**

Hala **obratzen** da, zizelkariak harrian nola, milioika lagunen pentsaera. **Iñigo Aranbarri**

Orain ikusteko zegoen zer egingo edo eginaraziko zuen, zer mirakulu **obratuko** zuen hurrondo-makila harekin. **Jon Alonso**

Orduan miraria **obratu** zen. **Edorta Jimenez**

San Antoniok **obratu** zuela predikua entzuten ari zirenen gainera ez zedila eror euririk. **Jon Alonso**

Gertakari handi bat **obratu** baitzen bordan. **Koldo Izagirre**

Batasunak [...] hasieratik bultzatu zuen ideia **obratu** da: herrietako plataformena. **Berria - Euskal Herria**

Urte oso batez lan handia egin ondoan, ELBren xedea **obratuko** da. **Berria - Ekonomia**

2 obra bihurtu, praktikan jarri.

Nik gaztaroan ikasi eta **obratu** dudan fede berbera bizi dute egunero. **Piarres Aintziart**

Elkartasuna, hitz ederra, ederragoa **obratzen** delarik. **Herria**

Erraten ahal da Errepublikak ez zuela deus **obratu** bere arauen, eskola publikoa barne, onarrarazteko: zenbat min ez zuten sortu eskolan euskaraz hitz egiteagatik pairatu gaztiguek? **Itxaro Borda**

Pentsu dut konprenitzen duzula hartu erabaki horiek berehala **obratu** behar direla. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hiru botere badira demokrazian, Montesquieu-k erakutsi zuen bezala: Lege Biltzarreak bozkatzan ditu legeak, agintariak **obratzen** dituzte, epaileek kondenatzen legez kanpo daudenak. **Herria**

Ez da aski nahi izatea zerbait **obratzeko**. **Berria - Euskal Herria**

Sarkozyren bisitatik hona ez dela deus **obratu** eta De Villepinen bisitatik deus gutxi espero dutela salatu zuten Batera-ko kideek. **Berria - Euskal Herria**

Bereziki ministro eta predikariak ohartarazten eta bultzatzen zituen apaltasun-egintzak **obratzera**. **Askoren artean**

Plan hau **obratuko** litzateke Israelgo Armadak 330 kilometro karratuko lurralde honen zati handienetik alde egin eta gero, Ariel Sharon lehen ministroak berriki iragarritako asmoa gauzatzean. **Berria - Mundua**

Euskal Herri ko departamenduaren **obratzea** hemengo jendearen behareri hurbilagoatik jarraitzeko. **Herria**

3 kaka egin.

Ohean lotu, eta hor edukiko naitek egunetan eta egunetan, **obratzeko** ere askatu gabe. **Anjel Lertxundi**

Kloroformo-usaina; ohean **obratu** beharrak gaixoarengan sortzen duen histasun herbara; gau amaiezinetan korridorean sentitzen diren jaberik gabeko pauso-hots etengabeen anonimotasuna; gazur-tanten neke etenik gabea; bakardadea... **Anjel Lertxundi**

Uzta oparoa, dudarik gabe, munduko behi guztiek **obratutakoa** eta nire izerdia nahastuz. **Joxean Sagatzizabal**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

miraria obratu zen (3)

obratxo iz obra txikia.

Menéndez Pelayo-k Espainiak eman omen duen pentsalari eta obra eta **obratxo** pila zerrendatzen du, inork ezagutzen ez dituenak ia denak. **Joxe Azurmendi**

175 oharrean aipatu dudan **obratxoa** idatzi nuenean, asko falta zen Brasiletiko emariak gaur adinakoak izan zitezen. **Iñaki Iñurrieta**

Orain, bat-batean, berari ere **obratxo** bat egiteko eskatu dio. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

obratzaile 1 iz obratzen duena, gauzatzailea. ik egile.

Frederique Martin dugu gida-liburu horren **obratzailea**. **Herria**

Indar guziez izan gaitzean bakearen **obratzaile**. **Herria**

Zuzenbidean sinesten duen ongile gaitz bat behar da, edo okerbidean sinesten duen gaizkile on bat: biak orobatsu dira, biak dira merezitako ordain justiziazko baten **obratzaile**. **Iñaki Segurola**

Aurpegi ezezagunak, elkartasun eta urriki **obratzaile** direnak, goi-izpirituaren lekuko. **Herria**

Horrek argi frogatzen du Hitzarmen Bereziak hautatu ziren xedeak eta **obratzaileak** egokiak zirela. **Berria - Euskal Herria**

2 kaka egiten duena.

Plazaren erdian, veneziarrek *il cagalibri* (liburu **obratzailea**) deitzen dioten Nicolò Tomasseo politikari eta idazlearen eskultura. **Anjel Lertxundi**

obratze iz gauzatzea.

Horrela filosofikoki orientaturiko **obratze** batekin topo egiten dugu; baina, halaber, egia da **obratze** horrek berekin erakutsirik ageri den eta absentiaren era gabeziakoaren formapean agertzen denaren esplizitazioa eskatzen duela. **Piarres Xarriton**

Rain, gogoetaz eta **obratze** garaia helduko da ere gazteen artean. **Herria**
Izaki horiek, beti idazleen hurbiltasun eta adiskidetasuna dela-eta nabarmendu baitira, erruz edo eskas apaintzen dituzte lumaren pean mamitzen ari diren eskuizkribuak, beren **obratze** ohituren arabera, eta obraren zentzua argitzen nolabaiteko interpretazio goitarrago eta idazlearen borondatearekiko loturarik gabeko batez. **Xabier Olarra**

obrerismo *iz* langileen eskubideen aldeko higikundea.

Fabrika batean egon nintzen lanean, txandaka, katean... **obrerismoa** pil-pilean zegoen eta horrek biziki arduratzen ninduen. **Ana Urkiza**

obrero 1 *iz* fabrika-langilea; langilea.

Ikus nezakeen **obreroen** begi beltzen eta jendarmearen begi urdinen artean niretzat aurreikusten zuten umezurtegiaren argazkia. **Harkaitz Cano**
Hurrengoan, heriotza bat, alde batekoa, bestekoa, edo pasaeran gertatutako edonorena - **obrero** arrunt batena, kasu, edo galiziar kale-garbitzailearena: Bilboko La Merced zubiaren ondoan hau, Tolosa ondoan hura-. **Bernardo Atxaga**
Hiri honetan denak presaka dabilta, **obreroak**, dendariak, senatariak, ikasleak, kazeta saltzaileak, langabeak. **Joseba Sarrionandia**

• 2 *izond* langileena, langileei dagokiena. ik **langile 4**.

Kristautasun behartua, Aranaren nazionalismo bizkaitarra, sozialismoaren borroka **obreroak**. **Joseba Zulaika**
Laster are gehiago aldaraziko dute, mugimendu **obreroak**, 1848ko iraultzak, naturalismoak eta, batez ere, alde batetik Michelet-en Le Peupleren mitologia eta politika populistak (Napoleon III, etab.), bestetik zientzietako positibismoa, labor, XIX. mendearen martxa guztiak. **Joxe Azurmendi**

obseditu, obsedi, obseditzen da/du *ad* obsesionatu.

Trantsizioaren mitologia guztia "bi Espainien" gaindipenak **obseditua** egon da eta halaxe segitzen du. **Joxe Azurmendi**

obserbantzia *iz* betetzea, gordetzea, begiratzea.

Bere aurrekoek lorturiko bakean gobernatu zuen probintzia, diziplinaz eta zorrotzasunez, heldutasun handiz eta Erregelaren **obserbantzia** bultzatuz. **Askoren artean**

obserbatu (*orobat otserbatu*), obserba, obserbatzen du *ad* behatu.

Hargatik deitzen zioten ere sehiak, beren arteko solasetan, urtxintxa- edo hegazti-habiak edo oihaneko bertze mila animalia bertatik bertara **obserbatu** ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**
Ikasteak, pentsamenduz oldartzeak, munduaren galdezkatzeak, izpirituaren zabaltzeak eta bazterren **otserbatzeak** sufrikario guztien arintzaile egingo zaitu, biktima plantatik aldeniduz. **Itxaro Borda**

obserbatzaile (*orobat otserbatzaile*) *izond/iz* so-egilea, behatzailea.

Mutikoa **obserbatzaile** da, gerra-berriemaile ere bai. **Berria - Kultura**
Egunkarietan, **otserbatzaileek** beren aburua ematen dute nasaiki, orrialdeak betez eta irakurlearen euskal sentimendu sakonak inarosten saiatuz. **Berria - Kultura**

obserbazino ik **obserbazio**.

obserbazio (*orobat obserbazino g.er. eta obserbazione g.er.*) *iz* behatzea.

Obserbazio pare bat egin ditut aste hauetan: jeiki berrian eta eztauriko giharrak erdi lo daudenean hobeto hitz egiten dela ingelesez, eta baita katarroa duzunean ere. **Harkaitz Cano**

2 oharpena.

Gogoetak eta **obserbazioak**, jarrera honen lanketak, eragozten dute: benetako atsegina horixe da. **Xabier Amuriza**
Bizi gaitzen lehendabizi -idatzi zuen Robert Walserekek Jakob von Gunten eleberrian-, **obserbazioak** berez etorriko dira eta. **Anjel Lertxundi**
Krisiari honen lekukotza inpresionagarri askoa, Diltheyk ematen digu halaber, XIX. mendearen hondarrean, are **obserbazio** interesante bat eginez. **Joxe Azurmendi**
Imanolek jarraian, Rufino eta bera lakoai buruz, **obserbazio** jakingarri hau egingo dau: [...]. **Xabier Amuriza**
Bidenabar, atrebentzia hartuko dut **obserbazio** filosofiko bat egiteko. **Matías Múgica**

obserbazione ik **obserbazio**.

obsesibo 1 *izond* obsesioarena, obsesioari dagokiona.

Rossetti-ren jarduna, emakumearen aurpegia behin eta berriz amaigabe erreplikatzea, ordea, bere maitasun **obsesiboaren** lekukotasuna da. **Ramon Saizarbitoria**
Fobia diot, jarrera politikotik edo ezinikusi hutsetik harago doan gorroto **obsesiboa** ageri duelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Mikelek baxu lerro bat markatzeari ekin zion, baxu lerro sendoa, **obsesiboa**. **Unai Iturriaga**
Musika burrunbatsu eta **obsesiboa** izango da. **Joseba Sarrionandia**
Aurreko lanaren aldean, labirintoen konplexutasuna zuten, eta taxu **obsesibo** eta tormentatu bat, berak bizi zuen kinka larriaren adierazgarri inondik ere, modu sinbolikoan. **Xabier Olarra**
Chopin-i dedikatuko zion arratsaldea, urteak zirauen omenaldi pribatu eta **obsesiboan**. **Josu Landa**
Inoiz, pentsamendu **obsesiboaren** eta larriduraren bidez agertzen da Tourettearen sindromea. **Xabier Olarra**
Lan egiteko modu **obsesiboa** eta tentsioz beterikoa- Freudek ere plazera bilatzearen gainetik ipini zuen erreplikatzeko konpultsio **obsesiboa**. **Berria - Kultura**
Neurotik **obsesiboak** hain kezkatuak zaudete miresgarri azaldu nahiaz, non aspergarri bilakatzen zaren. **Ramon Saizarbitoria**
Ez diot sekula galdetu Sedanori zertan datzan errudun konplexua, baina ziur naiz nire neurosi **obsesiboari** egotziko liokeela. **Ramon Saizarbitoria**
Erlijioa gizateriaren neurosi **obsesiboa** da. **Markos Zapiain**
Oroitzapen triste hauek dira behin eta berrito burura etortzen zaizkidanak, **obsesiboak** dira. **Mikel Hernandez Abaitua**

2 (izenondo elkartuetan)

Dislexiari, arreta-faltaren nahasmenduari, nahasmendu **obsesibo**-konpultsiboei, edo Touretteren sindromeari. Xabier Olarra
Joera horiek **obsesibo** konpultsiboak dira, eta neurotikoa barne gatazkatik babestea omen dute helburua. Ramon Saizarbitoria

3 (pertsonez mintzatuz)

Agian jeloskor zegok; ez al haiz gogoratzen oso jeloskorra eta **obsesiboa** zela? Antton Olano

Baina **obsesibo** samarra bihurtu zen handik gutxira: Maddiren etorkizunarekin itsutu zen, edo, hobeto esanda, etorkizun hori ezagutzeko ezintasunarekin. Iban Zaldua

Ikerlari **obsesibo** baten antzera. Joxan Elozegi

Obsesiboak bestearekin elkartzeko unean porrot egiten du. Ramon Saizarbitoria

Pasqualek aukeratu duen Hamlet pertsonaia gizaki **obsesiboa** da. Berria - Kultura

Harvey Keitelek polizia erregatu, urduri, bizi eta **obsesiboa** antzezten du, atxilotzen dituen trafikatzailen drogak konfiskatzeaz gain prostitutekin ibili eta kirol apustueta diru pila galtzen duena. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
neurosi obsesiboa (3)

obsesiboki *adlag* era obsesiboan.

Batzuetan Artearen izaeraz pentsatzen jartzen naiz **obsesiboki**. Hasier Etxeberria

Ume bat ikusi nuen zabuan **obsesiboki** dilindan, ahalik eta gorena igoz, zabuak eman ahala. Xabier Olarra

Arreta eta interesaren isuria eteten zen bakoitzean, berehala nabarmentzen ziren Bennetten tik eta errepikapenak: bibotea eta betaurrekoak **obsesiboki** ukitzea, bereziki. Xabier Olarra

Irudipena nuen laboratoriorio **obsesiboki** ordenatu hura etengabeko beste suitzar jardun ezkutu eta isilpeko baterako baliatzen ote zen. Juan Garzia

Haren pausoen atzetik jarraika bezala dabil, **obsesiboki**. Berria - Kultura

obsesibotasun *iz* obsesiboa denaren nolakotasuna.

Estereotipozaletasun eta **obsesibotasun** larria. Xabier Olarra

obsesio (*orobat obsesione g.er.*) 1 *iz* borondatearen kontra nagusitzen den burutapena, gogotik kendu ezin dena.

Amerikarrek badute **obsesio** hori, milioi bat dolarren kontuarena. betiko atsekabe hori beste edozein gogoeta edo sentimenduri lekurik uzten ez zion **obsesioa** zen. Harkaitz Cano

Nobela guztien oinarrian **obsesio** bat dago, eta **obsesio** hori da muturreko egoera batean izakiak nola erreakzionatzen duen aztertzea eta kontatzea. Ana Urkiza

Ulises bere irlara itzultzen da urte asko pasata, irlara bueltatzea da bere **obsesioa**. Mikel Hernandez Abaitua

Asmoa (**obsesioa**) luze eta ongi bizitzea baita, alde edo moldeko paradisuha hauxe omen dugulako. Edorta Agirre

Masturbazioa, horixe izan da apaiz, fraide eta mediku jainkojaleen **obsesioa**. Luis Elberdin

Jules Renard idazleak, berriz, estiloa zuen **obsesio**. Itziar Otegi

Irakasle eta ikertzaile andana bat komisario bat buru dutela, ez dute nire arrastoak aurkitzea beste **obsesiorik**. Joxean Agirre

Bi **obsesio** ditu: musika klasikoa, eta 36ko gerran ikusitako izugarrikeriak. Berria - Kultura

Prozac bedeinkazio bat izan da **obsesio** eta amorrazioentzat, nahiz eta ez duen eraginik tiken kasuan. Xabier Olarra

Mutikoaren gaixotasunaren **obsesioa** uxatzeko, inoiz ez bezala hasi zen ikasten. Josu Zabaleta

Oinazea ez du oinazeak sendatzen, ezta gorrotoak edo **obsesioek** ere. Antton Olano

Gizona ere ohartua izango da honezkeror, **obsesio** baten antzera dabilkiola ideia hori buruan bueltaka. Imanol Zurutuza

Pixkanaka, ahuldu zen nire **obsesio** hura; edo, agian, barruragotu egin zitzaidan. Koro Navarro

Handik aurrera, **obsesio** bihurtu zitzaion Fructuosori "santujale" infiltratuak bazter guztietan bilatzea. Inazio Mujika Iraola

Gerora **obsesio** bihurtuko zitzaidan irudipen bat nagusitu zitzaidan gainerako sentipen guztien gainetik: emakume haren alboan egindako denborak beste kalitate bat zeukan eta [...] alferrikako egiten zituen beste guztiak. Hasier Etxeberria

Obsesioak jota bizi zara zu. Luis Elberdin

Borobilen eta zuloen **obsesioak** jota bizi ginen ordurako. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

Nik neure maniak ditut: kartoizko kaxekiko **obsesio** gaixobera, goizeko hiruretan autoa hartu eta arrantzara joatea, horrelako gauzak. Harkaitz Cano

George Steer haren **obsesio** nagusia hegazkinak ziren. Edorta Jimenez

Gehien-gehienentzat sexua kezka-iturria da, ia denek dute **obsesio** sexual handiren bat. Karlos Zabala

Bere **obsesio** eta fantasia sexual guztiak 625 lerroko pantailaren bidez gauzatzen zituen. Jasone Osoro

Denok nahi genuen haxixak jotzea, **obsesio** bakarra zen ia. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan)

Hortik letorke zorioneko, eta premiazko, **obsesio** punttua. Andoni Egaña

- Vanunuren inguruko segurtasun **obsesio** batengatik atxilotu dute Hounam, beste inolako arrazoirik egon gabe. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
obsesio bakar (3); **obsesio bakarra** (6); **obsesio bat zen** (3); **obsesio bihurtu** (7); **obsesio bihurtzen** (3); **obsesio bilakatu** (3); **obsesio nagusia** (4); **obsesio txiki** (3)
rossetti ren obsesioa (4); **rossettiren obsesioa** (4)
obsesioak jota (3)

obsesiodun *izond* obsesioak dituen.

Erotutako pertsona baten tonua islatzen du liburuak, ero lotsati, **obsesiodun** eta katatoniko baina dotore hitz egin nahiko lukeen batena. Berria - Kultura

obsesiokide *izond* obsesio bera duena.

Harreman guztiak laxotu egin zaizkio, obsesioaren eraginez; Ruth emaztearekin duenaz gainerako guztiak laxotu dira, eta hari ere biak **obsesiokide** direlako eutsi dio hein handi batean. Xabier Olarra

obsesionatu, obsesiona, obsesionatzen 1 da ad obsesioa izan.

Berez, eskuratu berri dudana nobela galdu nuenean [...] ez nuke esango sobera hunkitu nintzenik; eta **obsesionatu** ez, behintzat. **Ramon Saizarbitoria**

Obsesionatuta zeukaan lanak, eta gero eta urduiago zegoan. **Jon Muñoz**

Iraganeko emakume batekin zegoen **obsesionatua**. **Karlos Zabala**

Begien bistakoa zen hitz haiek berreskuratzearekin **obsesionatu** ordez, Victoriari, besterik gabe, "ezin pinta zaitzaket, baina maite zaitut" esan behar niola: egia. **Ramon Saizarbitoria**

-Teoria batekin **obsesionatuta** daramat bizitza osoa... **Pako Aristi**

Bere buruarekin **obsesionatua** dagoen psikopata bat da Dutroux. **Berria - Gaiak**

Ni ez naiz betidanik horrelakoa izan, nire obrak [...] nire eginkizun literarioak alegia, ez nauela **obsesionatu** nahi dut esan. **Ramon Saizarbitoria**

Berrogei urteren muga gainditua nuen, bigarren nerabezaroan sartzea bezala da hori edo okerrago, pitin bat **obsesionatzen** hasia nengoen bizitzaren gainbeherarekin, eta Monikak adinarekin ahazten lagunduko zidala erabaki nuen. **Joxean Agirre**

Gaurkotasanak **obsesionatua** bizi den mundu hau, ahazturak **obsesionatutako** mundua da. **Patxi Zubizarreta**

2 (era burutua izenondo gisa)

Idazle **obsesionatua** naiz. **Ana Urkiza**

Irakurle **obsesionatua** naiz. **Ana Urkiza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obsesionatuta zegoen (3)

obsesione ik obsesio.

obsidiana iz sumendi harkaitza, beira-egiturakoa, beltza edo oso kolore ilunekoa, laba-laster hoztean sortua.

Sastakaiari zegokionez gehiago zehazten ahal nuen: nik **obsidianazko** ganibet beltza imajinatzen nuen, lehengo azteken klasera. **Aingeru Epaltza**

obskurantismo (orobat oskurantismo) 1 iz kultura gizartean zabaltzearen aurkako jokaera.

Razionalismo argi modernoa nola **oskurantismo** iluna bihurtzen den. **Joxe Azurmendi**

Inkiszioaren **oskurantismo** zapaltzailea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Erdi Aroa **obskurantismoari** lotuta deskribatzen da sarri, herritarrek orain dituzten eskubideekin konparatuta. **Berria - Harian**

2 arazoak-eta ez argitzeko joera.

Vatikanoaren **obskurantismoa** eta Aita Santuaren inguruko intrigak. **Berria - Kultura**

Halaber, indusketetan agertzen den ondarearekin dagoen «**obskuntarismoa**» salatu dute. **Berria - Kultura**

obsoleto iz zaharkitua.

Museoetako bilduma klasikoak **obsoleto** dira, zaharkituak dira dagoeneko, museifikatuak eta diseatuak daude, eta horien ordez hobe duzue lore bati, txakur bati, fetixe bati gogor eustea. **Joseba Zulaika**

Artea **obsoleto** bihurtu da. **Joseba Zulaika**

Maitemintzen al dira oraindik gazteak, ala, mekanismo hori dagoeneko **obsoleto** bihurtu ote da, alferreko, atzeratua, lurrunezko lokomozioaren moduan? **Oskar Arana**

obstetrizia iz medikuntzaren adarra, haurdunaldiaz, erditzeaz eta erditze-ondokoaz aritzen dena.

1904ko neguan izan nintzen haren ikasle (badakizu bi urte eman nituela Parisen **obstetrizia** ikasten). **Monika Etxebarria**

Ikerketa Londresen lanean ari diren hainbat adituk egin dute, Elizabeth Garrett Anderson erietxeko eta Londresko **Obstetrizia** ospitaleko 18 ume jaiotako berri aztertuta. **Berria - Gaiak**

obszenitate iz obszenoa denaren nolakotasuna.

Jakin beharko genuen alta, papoa bortizki ukabildakadaz astinduz, komunio egunean, apezaren eresie ihardesten genielan, orain huts honen **obszenitatea** iragartzen zitzagula. **Itxaro Borda**

obszeno izond lizuna, lohia, lotsa gutxikoa.

Izaki androgino txiki eta **obszeno** bat. **Jon Alonso**

Sudurrak inoiz ez direla sinpatikoak izaten, baizik eta, izatekotan, absurdoak, are **obszenoak**. **Joxe Austin Arrieta**

Horien gazte-modukeria **obszenoa**. **Joxe Austin Arrieta**

Orduantxe bertan, duintasuna eta ahalkearen azken harresiak gaindituz, gosea ageri zen hirian bere adierazpenik **obszenoenean**, **obszenoagoa** baita janaririk ezean gorputz bat nola iraungitzen den ikustea gorputz horren beraren jokamolde intimoak erakustea baino. **Jon Alonso**

obturadore iz argazki kameretan, objektibora sartzen den argi kopurua kontrolatzen duen gailua.

Obturadoreak iluntasun osoan mantentzen du normalean kameraren barrua, baina, malguki bati eraginez gero, ireki egiten da kamera segundo zatiki batez. **Irene Aldasoro**

Filmera heltzen den argi kantitatea **obturadore** baten bidez kontrola daiteke. **Irene Aldasoro**

Goantea oso lodia denez gero ezin izango duzu **obturadorea** sakatu. **Joseba Sarrionandia**

Batzuetan, fotozelularen korrontea [...] erabiltzen da objektiboaren irekiera eta **obturadorearen** kontrola doitzeko. **Irene Aldasoro**

Obturadorea egokitu zuen. **Koro Navarro**

Diagrama eta **obturadorea** konbinatuz, ordea, argi-intentsitateen eskalaren esparru zabalagoan lortuko ditu argazkilariak emaitza asebetegarriak. **Irene Aldasoro**

obulazioa iz obulutegian obulu bat askatzea, uteroan ernaldua izan ahal dadin.

Zikloaren erdialdera, **obulazioa** gertatzen da (obulu bat ateratzen da bi obarioetako batetik). Luis Elberdin

Obulaziorik ez badago, ez dago obulurik, eta obulurik ez badago, ez dago haurdunaldirik. Luis Elberdin

Horregatik esaten da pilula anobulatorioa dela; **obulazioa** galarazten duelako, hain zuzen. Luis Elberdin

Emakumeak egingo du gero tratamendua, **obulazioa** estimulatzeko. Berria - Harian

Menopausiak emakumearen **obulaziorako** gaitasuna murrizten du. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obulazioa galarazten (5)

obulo ik obulu.

obulu (orobat **obulo** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **obulu** agertzen da) 1 iz sexu zelula emea, heldua, ernaldua izateko gai dena.

Animalia gorenetan, eta orobat gizakietan, sorkuntzaren unetik dago bizirik organismo berria, hau da, **obulua** eta esperma batzen direnetik, eta, handitu ahala, gero eta funtzio konplexuagoak hartzen ditu bere gain. Irene Aldasoro

Espermatozoiden nekazekin tronpetara iritsiko dira, baina han ez dute **obulurik** aurkituko. Luis Elberdin

Hilero-hilero umetokiko paretetan odola pilatuz joaten da, **obulua** ernalduz gero umetokia haurdunaldirako prestatuta egon dadin. Luis Elberdin

Hasteko emakumearen obarioak estimulatu behar dira, **obuluak** sortzeko; gero **obuluak** erauzi eta ernaldu, enbrioiak sortzeko. Berria - Euskal Herria

Obulua eta espermatozoidea elkarturik sortzen den zelula batetik garatzen dira gainerako guztiak. Pello Salaburu

Espermatozoidea **obuluan** sartutakoan, geruza fin-fin bat sortzen zaio **obulu** ernalduari. Hasier Etxeberria

Obulua ernaldu ez denez, estrogeno eta progesterona hormonon kopurua jaitsi egiten da, umetokiko paretak [...] ezin dio eutsi eta odola kanporatu egiten da. Luis Elberdin

Paduretako lokaztiak, espermatozoiden eta **obuluz** beteta egoten dira ekainean. Hasier Etxeberria

Samu-eme helduek hainbat landareren **obulu** ernaldu berrietan -landarearen hazi bihurtuko diren ale berdeetan- jartzen dituzte euren arrautzak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zelularen nukleoan gordetzen den material genetikoa hartu eta **obulu** bati txertatzen diote. Berria - Gaiak

Erabilitako zenbait **obulu** ikerketa-taldeko zenbait emakumerenak izan zitezkeela. Berria - Gaiak

Bi **obuluren** geneak nahastu zituzten horretarako, eta espermarik erabili gabe sortu ziren enbrioiak. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbait **obulu** -emaila ordaindu egin zituztela plazaratu zen. Berria - Gaiak

Ordu arteko nagusia, berriz, eme bihurtzen da: barrabilak txikiago egiten zaizkio, eta, faloa kanpokoaz barrura bildurik, **obulo** -habia bihurtzen. Joxerra Garzia

Emakumeak **obulu** kopuru jakin batekin jaiotzen ziren ustea zalantzan jarri dute AEBetako adituek. Berria - Gaiak

Lege berriak enbrioi, **obulu** eta hazi emailen erregistro bat sortzea aurreikusi du. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ernaldu bako emakume **obuluak** izan ziren enbrioi horien abiaburua. Berria - Gaiak

Untxi **obuluak** erabiliz zelula amak lortu zituen ja 2003an Txinako Huizhen Sheng zientzialariak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakume obuluak (3)

obulutegi iz emakumearen sexu guruina, obuluak eta sexu hormonak sortzen direna. ikobario.

Han agertu ziren txalburu buztanluzeak, barrabiletik zakilerainoko tutuak, **obulutegiak** eta umontzia, Falopioeren tronpa eta guzti. Xabier Mendiguren Elizegi

Emearen **obulutegia** amaierako ataletan egoten da eta, esan bezala, arrak bere matxarda erabiltzen du emeari gorputza okerrazteko eta **obulutegia** arraren gonaden parera eraman dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Obulutegiko ehunen bost lagin hartu zizkieten guztira. Berria - Gaiak

Lehen frogak medikoak egin ahala **obulutegietako** minbizia zuela iragarri zioten. Berria - Gaiak

Obulutegiko minbizia diagnostikatu zioten emakume horri orain urte batzuk. Berria - Gaiak

obus 1 iz artilleria-pieza, kanoiaren eta morteroaren artekoa.

Choderlos de Laclosek (1741-1803), **obusa** asmatzeaz gainera [...] *Harreman arriskutsuak* espantigarria izkiriatu ere zuen. Markos Zapiain

Metrailadorearen tiro-hotsaren soinu motelduak iratzarri nau, **obusen** kirrinka urrunekoak. Mirentxu Larrañaga

2 pieza horrek botatzen duen jaurtigaia.

Tiro-hotsak hasi dira gudu-lerro osoan zehar, metrailadoreak eta fusilak tiroka, **obusak** eta bonbak jaurtika, eta ni ere tiroka ari naiz. Mirentxu Larrañaga

Gure artilleriak **obus** bat edo bi jaurtitzen ditu aierara. Mirentxu Larrañaga

Hirurok ere elkarrizatsita gaude, nork bere burua bestearenean hondoratuta, **obusak** gure gainetik erortzen dihardutelarik. Mirentxu Larrañaga

Kriminal haiek ez ziren 55 mm.ko **obusak** lehertzen ziren lezioetan inoiz egon. Koldo Izagirre

Sei hazbeteko **obusak** telegrafo bulegoko paretara suntsitu du. Karlos Zabala

Obus baten ziztua entzun zen. Jon Maia

Bost segundo geroago, **obusak** eztanda egin zuen kanpo aldean. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrengo, **obus** -hotsak hasi dira. Mirentxu Larrañaga

Obus -zulo batean irristatu gara eta hantxe ezkutatuta egon gara puska batean, badaezpada ere, aditu gaituzten egiaztatzeko. Mirentxu Larrañaga

Gizaseme haierako asko, gaur egun badakigu, **obus** -xokak jota geratu zen. Mirentxu Larrañaga

Obus puska batek aurpegia desegin dion eta horrenbestez bizitza osorako emakume bati zirrarar eragiteari uko egin dion lagun horri. Josu Zabaleta

Erresistentziako kideek mortero eta **obus** andana jaurti zituzten basearen kontra. Berria - Mundua

Base militarren kontra eraso «misil, **obus** edo mortero» lehergailuak zartaraziz eragin ahal izan zituztela adierazi zuen Pentagonoak. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Langileen etxebizitzetatik hurbil dagoen AEBetako base militar baten aurka jaurtitako mortero **obusak** izan dira. Berria - Mundua

Argi balen eta kalibre txikiko argi **obusen** lorratzak. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

obus jaurti (3)

obusen ondorioz (3)

obustzar *iz adkor* obus handia.

Etxerakoan, orga gidatuz zetorrean bidean barna, eta hara non obus batek harrapatu zian, botheen **obustzar** batek. **Mirentxu Larrañaga**

occitaniar ik **okzitaniar**.

oda 1 *iz* Grezia klasikoan eta, musikaren laguntzaz kantatzen edo esaten zen olerki lirikoa.

Orain dela 2.600 urte, Laso Hermionekok sigma letrarik gabe idaztea deliberatu zuen **Oda** zentauroei obra, eta baita lana burutu ere. **Iñigo Aranbarri**

Bako Jorace izena (Quintus Horatius Flaccus) Horazio poeta erromatarren parodia da, haren **oda** eta epodoetan Bakori buruzko aipamen ugari aurkitzen baita. **Xabier Olarra**

Odak amaitzean hasten da, ordea, ahantzura eta benetako heriotza; hala zioten greziarrek. **Jon Muñoz**

Mundua mundu denetik kantatu izan zaizkio maitasunari **odak**. **Anton Garikano**

2 gehienetan ahapaldi edo zati berdinetan zatitzen den olerki lirikoa, eskuarki hats jasokoa.

Eta John Keats-ek, **Oda urna greko bati** delakoan, goragotik jotzen du: "Ederra egia da, egia ederra da". **Juan Garzia**

Carduccik **oda** bat idatzi zion. **Fernando Rey**

Pozik idatziko nuke tragedia bat, nahiz soneto bat edo **oda** bat, baina arauak? **Xabier Olarra**

Odak egiten zituen ilargia bonbilla berezi batekin konparatuz. **Fernando Rey**

Errezitatu zion ene anaia Mattinek laudoriozko **oda** bat Villagrandeko dukeari. **Joan Mari Irigoien**

Egon behar izan du geldí, eta gauza asko bertsozkoak direnak, sonetoak, **odak** zailak dira hor dagoen eduki guztia emateko. **Berria - Kultura**

Poesiaren eta pintxoan arteko lotura bitxi eta berritzailea, Pablo Nerudaren *Lau Oda Elemental* oinarri hartuz. **Berria - Kultura**

odaiertz (*Euskaltzaindiaren Hiztegian ostertz agertzen da*) *iz* hodeiertza. ik **ostertz**; zerumuga.

Odaiertzaren marra leunak. **Josu Zabaleta**

Hondar eremu mugagabea gorri zegoen, **odaiertza** gorri zegoen, badia neurrigabe osoa gorri zegoen. **Josu Zabaleta**

Ez zen ezer entzuten, ez zakurren hotsik eta adarrenik, dena mutu zegoen **odaiertz** ikusezinean. **Josu Zabaleta**

Ostadarrek bezala, osorik hartzen du zorigaitzak ere **odaiertz** zabala, ostadarrarenak bezain ugariak ditu koloreak eta hark bezain desberdinak, baina harexen modura elkarri estu lotuak. **Koro Navarro**

2 irud/hed

Tania, berriz, **odaiertz** berri bat zen, oraindik ezagutu gabeko mundu bat. **Jon Muñoz**

odaliska *iz* harem bateko kide den emakumea.

Egun eder batean, sultan horren **odaliska** izan nahi dutela erabakitzea. **Karlos Zabala**

Gustuko dut, noizean behin eta pertsona egokiekín, **odaliskarena** egitea, emakumeek badakite zertaz ari naizen, zoragarria da. **Karlos Zabala**

Nire ustean sultan batek sultanaren emazte begikoenari buruz senti dezakeenaren gisarakoaz, nahiz amodio horrek ez dion eragotziko maiz nahiago izatea **odaliska** soil bat. **Jon Muñoz**

Klasikotzat eta erromantikotzat jo daitekeen Edipus eta Esfingearekin batera, eta aurreko urtetako **odalisken** eta bainu-hartzaileen bertsió jendetsua den Turkiar bainua. **Berria - Kultura**

odisea 1 *iz* bidaldi luzea, eragozpenez eta gorabeherez betea.

Funtsean, **odiseak** ditut begiko, Homerorenetik Anne Marie Garaten Deabruaren Eskuaneraino, Joyce, Musil eta Döblinenak ahantzi gabe. **Ana Urkiza**

2 irud/hed

Ertzaintzak autoa ertz batean utzi zuen eta hor hasi zen aseguruarekin **odisea**. **Berria - Ekonomia**

Odisea ontologikoa, eleberrí beltz baten erritmo bizian idatzia. **Monika Etxebarria**

Liga amaitu bitartean **odisea** bati aurre egin beharko dio taldeak, itsaso zabaletik atera eta itsasertzera heltzeko ahaleginean. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan)

Apaiz gazte bat eta moja are gazteago bat. **odisea** -giroko ihesaldian laguntza handia eman ziotenak. **Inazio Mujika Iraola**

odoi ik hodei.

odol 1 *iz* kolore gorriko isurkari lodia, gorputz osoan zain eta arterietan zehar dabilena.

Gorputzaren berotze-sistema (eta freskatze-sistema) eraginkorren funtsa eta infekzioen aurkako babes-mekanismoa da **odola**. **Irene Aldasoro**

Odolak daraman hirugarren osagai funtsezkoa plaketak dira. **Irene Aldasoro**

Erre-oparitarako abereak ere hara eramango dituzue eta, haragi eta **odol**, oso-osorik erreko Jaunaren zeuen Jainkoaren aldarean. **Elizen arteko biblia**

Gerlak bazterrak su eta **odoletan** suntsitzen dituela. **Itxaro Borda**

Beraz, bere fededunengan bizi den Jaunaren espiritua da, izan, Jaunaren gorputz eta **odol** guztiz santuak hartzen dituen. **Askoren artean**

Apaizak ardo eta ogia Kristoren **odol** eta haragi bihurtzen zituen bezala egokituko baitzitzaion hari, lokatz koxkor harekin beste errealitate-maila batera eraman gintzakeen zigarro magikoa gauzatzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Adarbakoitzaren **odolak** bizirik eutsiko dizu, heriotzatik oso hurbil egonda ere, baina prezio beldurgarria ordainduta. **Iñaki Mendiguren**

Hilobira hurbiltzeko mailak igotzean, **odol** asko bota zuen ahotik. **Askoren artean**

Hala ere **odol** gehiago nahi, **odol** gehiago odolaren gain, errege odolaren gaitz guztiak. Felipe Juaristi
Lotsagorritu egin zen, eta gaztetzen sentitu zen, bere zain zaharretan zebilen **odola** berritu izan balitzaio bezala. ik odolberritu. Lopez de Arana
Hori entzunda, **odola** irakiten jarri zitzaidan. Anjel Lertxundi
Eta **odolak** zirakidalarik, beste hau xuxurlatu nuen: [...]. Txillardegia
Odolak burua hartzen zidan. Txillardegia
Odola sentitzen nuen lokietan punpaka. Anjel Lertxundi
Hil egin zituen, guduan isuritako **odola** bakealdian mendekatuz; horrela, **odolez** zikindu zituen nire jantziak. Elizen arteko biblia
Kristoren gorputz eta **odol** guztiz santuen ofizio eta ministerioagatik. Askoren artean
Bost bat litro **odol** besterik ez dauzka gorputzak. Irene Aldasoro
Urak **odol** bihurtu ziren. Elizen arteko biblia
Auguste patiora joan zen lehenbizi, bi pitxer txerri **odol** ekartzera. Karlos Zabala
Zainetako borborrean ito ezin den **odol** baten jabe gaituk hi eta ni. Anjel Lertxundi
Aski **odol** isuri nuen zauritik. Gotzon Garate
Odolaren beroa sentitzen ari nintzen masailean behera, zorabiatzeko puntuan nengoen. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Animalia erreinua bitan banatzen da: **odol** hotzeko izakiak (sugeak, arrainak eta intsektuak) eta **odol** beroko izakiak (hegaztiak, gizakiak eta gainerako ugaztunak). Irene Aldasoro
ik beherago 20. Askoren artean
Odol beroaren kolore gorria gero eta biziagoa zen esku-ahurretik hatz-muturretara doan bidean. Ibon Urbarri
Gutxi inporta zitzaion horregatik gero bere **odol** gorriak lurra bustitzea. Fernando Rey
Odola, **odol** gorriaren irudia zetorkion bat-batean doktoeari, urarekin nahasturik, eta segidan Jorge Mingoranceren oihuak, eta builak. Joxemari Iturralde
Banekien iluntasun hura, **odol** ubelduaren kolorekoa, han urrunean zebilen haizearen abisua zena. Edorta Jimenez
Uso batek adokinetako haren **odol** beltzari mokoka egiten dion bitartean. Berria - Kultura
Arterioak aortatik irtetzen dira, eta hornibide nagusitik gorputzeko beste organo eta ehunetara desbideratzen dute **odol** oxigenatu berria. Irene Aldasoro
Odol zikina jaurtitzen zuen ahotik, eta hesteak ere bota behar zituela zirudien. Askoren artean
Inoiz agortzen ez zen ibaiko urak **odol** zikinez lohitu zenituen. Elizen arteko biblia
Ezpain busti goxoan artean, **odol** zurbilaz gorrituriko ezpainetan. Monika Etxebarria
Zure amaren **odol** berekoa da. Elizen arteko biblia
Zure haragi eta **odol** berekoa da. Patxi Zubizarreta
Hasieran **odol** lodi, koagulatua ez zen ateratzen irekitako zainetik. Josu Zabaleta

3 (izenondoekin, irud/hed)

Odol aratz-aratza zebilen gure zainetan, iragana eta oraina geneuzkan alde, etorkizuna ere gurea izango zen. Anjel Lertxundi
Ni ez bezala, geldi egotera behartu dute: saltokia ixteko agindu dute, ez baitago dendarik edukitzerik **odol** garbirik izan ezean. Urtzi Urrutikoetxea
ik beherago 15. Askoren artean
Odol garbikoa omen zen emaztea, kristau zaharren habekoa. Edorta Jimenez
Handikien eta **odol** garbiko jende noblearen iritzia. Joan Mari Irigoien
Ahmeten etxe aurrera **odol** garbiko zaldi arabiar eder bat ailegatu zela ikasi zuten lehenbizikoak bere herrixkako biztanleak izan ziren. Fernando Rey
Aztirik gehienak gaur egun **odol** nahasikoak dira. Iñaki Mendiguren
"Odol urdinaren" kontu guztia ez da besterik. Joxe Azurmendi
Argi ibili; beldurra duzu segurtasun-berme onen: **odol** gazteak berez diraki, ez du beharrik inoren. Juan Garzia
-Odol gaiztoa egiten ari zaio -esan zuen Saget andereñoak-. Karlos Zabala
Ezpain batzuk eskatu izan ditut betidanik, saminezkoak; isilik eskatu ere, nire auzoa zinez gizon bulartsua baita, eta **odol** berokoa. *ik beherago* 11. Karlos Linazasoro
Odol errugabea isuri eta mendekua zeure eskuz egina duzulako. Elizen arteko biblia
Oraintxe esango diat argi-argi: **odol** noblea dugula erakutsi diok ikazkin horri. Anjel Lertxundi
Ibaiak ziren Europa zahararren zainetan zehar zebilen **odol** preziatua. Felipe Juaristi

4 (beste izen batekin elkartuz balio plurala adierazten)

Ezin dela inor salbatu, Jaunaren gorputz **odol** txit santuak hartzen dituena baizik. Askoren artean
Napoleonen eta Frantsesen urgulu ezin aseak, eroak, su- **odoletan** ezarri zuen Europa guzua, XVIII eta XIX. mendeetan. Michel Oronoz
Norberaren **odol** -haragietan hazten baita eta gizentzen, norberaren barrenak bizkarroi baten modura jaten. Felipe Juaristi

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ukraniako lurra are beltzago ageri baitzen, urteetan gari-uztarik eman ez zuen lur beltza **odol** -uzta emaila, **odol** -soro, **odol** -zelai, **odol** -hazkurri baitzen aspalditik. Felipe Juaristi
Gela sekretuko paretak estaltzen zituzten errezel gorrimekin **odol** kolorea zutela iruditu zitzaion Egutxiri. Ibon Urbarri
ik beherago 29. Askoren artean
Gaztea zen, potoloa, eta aurpegian **odol** -kolore nabarmena ageri zuen. Inazio Mujika Iraola
Odol -usaina hartzen dut... Iñaki Mendiguren
odol -usaina hartzen dut! Iñaki Mendiguren
Odol tanta batek belarritik lepora egin zidan, eta bizkarrezurrean behera izerdiarekin batera labainduz igarri nuen. Edorta Jimenez
Minutu bat geroago, sudurpean **odol** negar mehe bat zuela itzuli zen, hats-goitika. Aingeru Epaltza
Odol -lasterra imajinatu nuen, etxearen hormak miazkatzen. Koro Navarro
Taberna aurrean gelditu zen **odol** -arrasto bat izan zen aztarna bakarra. Gotzon Garate
Haren **odol** -zipritzinak hormaraino eta zaldietaraino zabaldu ziren. Elizen arteko biblia
Zer dira tunikaren **odol** -mantxa horiek? Askoren artean
Burua, bekoki aldean, **odol** orbainak zituen zapi batez estalia zuen. Felipe Juaristi
Inkiszioaren **odol** -egariarik luzeak ditu atzaparrak eta zorrotzak hortzak. Anjel Lertxundi
Zutitu egiten ginen noizean behin, **odol** -ibilia zuzpertzearren. Juan Garzia
Maionesa, pixka bat urtua, krema horizko putzu bat zen, **odol** errekastoa bi adarretan bereizten zuena. Monika Etxebarria
Gorpua jiratzean **odol** putzua ikusi genuen lurpean eta arropetan. Joxemari Urteaga
Egizu laster, bestela hau guztia **odol** bainu batean bururatuko da. Itxaro Borda
Libertario zintzoen **odol** -putzura? Inazio Mujika Iraola
Txahala lepamotz jausten baita, paparretik **odol** erreka beroa dariola. Xabier Amuriza
Bertako eritegian eginen dugu **odol** ematea. Koldo Izagirre
Baina **odol** -galera geratzen zitzaionean, gorputz osoa puzten zitzaion. Askoren artean

Odol nafada geza eraketa eta barrukoen pabilioei. Karlos Zabala

Aditu ahal izan nunez, erromantzez baitzen izkiriatura, **odol** garbitasunaren agiria zen. Edorta Jimenez

Aitak ez zuen jada hitz egiten, zenbait aste lehenago jasan buruko **odol** erasotik landa. Itxaro Borda

Baina "mirariak" bazuen bere **odol** -sari latza. Txillardegia

- Egin behar izan zuen indar handiagatik gau osoan **odol** botaka aritu zen goiza arte. Askoren artean

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa testuinguru teknikoagotan)

Gaixorik dagoen ehun bateko zelulak atera -**odol** -zelulak, adibidez- eta, gaitzak jotako genearen ale sano bat txertaturik haietan, atzera injektatzea gaixoari bere zelula tratatuak. Juan Garzia

Zuntzez eta zuntz artean harrapatutako **odol** -globuluz osaturiko nahasketa bat da ebaki baten gainean eratzen den odolbildua. Irene Aldasoro

Lau ordurik behin, **odol** -probek ezezkoa ematen zuten behin eta berriro. Oskar Arana

Historia klinikoa (jasaniko gaixotasunak, alergiak, **odol** mota, tabakismoa eta gainerako aurrekinak, ea.). Edorta Agirre

Odol -plasmaren oso antzeko likido urtsu bat da likido sinobiala, proteina-edukirik gabea baina **odol** -plasmak baino substantzia bat edo bi gehiago dituena. Irene Aldasoro

Kontranalisiaren zain dagoela, **odol** transfusio bitartez egindako lehen positiboa leporatu diote. Berria - Kirola

Antolatu diren 17 **odol** -biltzetan, 1024 **odol** -ateratze egin dira, bana bertzte 60 bat emailerekin aldi bakotx. Herria

Ezkerreko bentrikulutik aortara irteten den **odol** -zurrusta ez da oso urrun joaten hasieran. Irene Aldasoro

Premia izanez gero, hodi horietako **odol** -emariak bero kantitate handia garraiatzen du gainaldera, izerdia lurruntzean larruazaletik galtzera. Irene Aldasoro

[Osteonak] barne-hutsak dira, eta **odol** -kapilarrek betetzen dute barru hori. Irene Aldasoro

Adio egitura hexagonalari: lipar gutxiren jiran, mataza desarildu, eta glukosa bilakatu zen atzera, glukosa hori **odol** -ibilik giharre-zunzño bateraino garraiatu, eta han gogorki zatitua gertatu zen bi molekula azido laktikotan. Juan Garzia

Arteria baten eta zain baten bidez lotzen zaizkio muskulu guztiak **odol** -zirkulazioari. Irene Aldasoro

Muskuluek zilegi dute birikek eta **odol** -zirkulazioak banatu dezaketen baino bizkorrago xahutzea oxigenoa. Irene Aldasoro

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zaldi **odol** -garbiaren adore paregabeaz. Karlos Zabala

Oraindik aleman **odol** garbi batek bezala pentsa-tzen eta jokatzin nuen! Anjel Lertxundi

-Etsexik gabeko zalduna haiz, ordea, eta horrek buhame edo agot **odol** -zikin baten pare ezartzen hau. Aingeru Epaltza

Ekerrak eman behar dizkizudala uste duzu, zu bezalako **odol** -ustel batek nirekin babesgailua erabiltzeagatik, ala? Aingeru Epaltza

Gaua itsastarren irudian **odol** -gaizto eta jostalaria zen arren, betiko izatea eskatu zuen Irisarrik. Felipe Juaristi

Txori **odol** -gorria hostotzan desagertu ondoren. Anton Garikano

Ilargi bete **odol** -gorriarena zen distira, bizi-bizi argitzen baitzuen oraingoan lehen ia antzematen ez zen urraduratik, hasieran esan dudanez, sigi-saga eginez, teiltaturik oinarriraino zabaltzen zen hartatik. Koro Navarro

Mutiko **odol** -bizi bat hurbiltzen zen lasterka, eta musu ematen zien guztiei, kontuan hartu gabe gonbidatuari pozgarri edo gogaikarri zitzaion hori. ik odolbizi. Jose Morales

Izan leitekez azeriak edo iratxo **odol** -xurgatzailea. Iñaki Mendiguren

Arte-munduaren aurkako eta mundu hartan zebilen **odol** -zurgatzaile eta urdanga diru-gose guztien aurkako erdeinuz gainezka. Oskar Arana

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketaren bigarren osagaia aditz bat delarik)

Nola eskuratu, ordea, seko drogatuta zeuden ikusle **odol** -egarrituen sinpatia? Karlos Linazasoro

Odola berotu zitzaidan bat-batean, eta halaxe egin nuen, **odol** txarturik, auskalo zenbat denbora. Anjel Lertxundi

Aspalditik ari zitzaizkien taldekideei Suitzako Ginebratik deika, han jotzeko eta, Suitzian bakean bizi baziren ere, Europa osoa **odol gorritzen** ari zen gerraren kariatz, ezezkoa eman zuten beti. Felipe Juaristi

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egun hotz batean, arteria-**odola** 36,5 °C inguruko tenperaturan iristen da besaurrera, ukondo aldera. Irene Aldasoro

Itzulerako zain-**odolak**, berriz, nahiko tenperatura baxuan doalarik, bero gehiago xurgatuko luke gorputzaren erdigune berora heltzean. Irene Aldasoro

Industriaurreko enpresa-askatasuna [...] izan zen haien ekimenak sortarazitako sistema berriaren inspirazio eta bizi-**odola**. Iñaki Mendiguren

Zer eta errege **odola** nire zainetan! Aingeru Epaltza

Ogi-irin garbi bikaina eman zizkion janari eta ardoa, mahats-**odola**, edari. Elizen arteko biblia

Herensuge-**odolaren** hamabi erabilerak aurkitzeagatik eta bere lankide Nicolas Flamelekin alkimiak egindako lanarengatik. Iñaki Mendiguren

Guillemette, zoriontsuena, hestebetegin, txerri-**odol** freskoz igurtzi balioite bezala distiratzin zuen aurpegitxo gorrimin baten jabe izaki. Juan Garzia

10 *odoletan adlag*

Eskuak **odoletan** zituen atxilotzean. Karlos Zabala

Burua **odoletan** zuen, eta kordea galdurik. Josu Zabaleta

Ezin zion begirik kendu artean ere **odoletan** zen belarri hari. Fernando Rey

Artilleroetako batek **odoletan** zeukan ezkerreko besoa; kanoi-ipurdi lodi-biribil baten azpian. Edorta Jimenez

Egiaz **odoletan** zegoela ohartu nintzen. Josu Zabaleta

Bazirudien ezpainak handituta edo belarriren bat **odoletan** amaitu behar nuela beti. Mirentxu Larrañaga

Gaur goizean mukiak kentzean **odoletan** hasi zara. Sonia Gonzalez

Saihets aldera etzanik, zauria ireki egin zitzaion, eta **odoletan** hasi. Juan Kruz Igerabide

Ikusi du **odoletan** ezagun batek, eta etxera abisua, Sakabiako Faustino hil dela. Iñigo Aranbarri

Bideo pornoetan-eta askotan ikusi ditugu horrelakoak: gero eta zera handiagoak sartzen, gero eta bururago, azkenean dena lehertu eta **odoletan** gelditu arte... Xabier Mendiguren Elizegi

Zure ondotik pasatzean, **odoletan** ikusi zintudan mugitzen eta, **odoletan** etzanik zeundela, esan nizun: "Bizi! Bizi zaitetz!". Elizen arteko biblia

Hantxe zetzan Miren, lepoa urratuta, **odoletan** blai. Migel Angel Mintegi

Eta txikitu egin du, xehatu, **odoletan** blaitu. Txillardegia

Sudurra **odoletan**, artalariak eta medikuak, sorbaldatik atxikiz, ahal bezala, kanpora eraman zuten. Daniel Landart

Leihatila biribileko kristal puska guztiak erauzten saiatu da, eskuak **odoletan**. Harkaitz Cano

11 *odol-bero* ik *odolbero*.

12 *odol-emaile*

Odola isuraldatu eta gerora jakin zen **odol emailea** Creutzfeldt-Jakob gaitzarekin hil zela. Berria - Gaiak

Horregatik itxaron behar izan dute, ez baitzuten hasi nahi, **odol-emailea** iritsi arte. Xabier Olarra

Homologoa odol ezaugarri bereko **odol-emaile** baten transfusioak eragingo luke. Berria - Kirola

Gipuzkoako **Odol-emaileen** Elkarteak odolgabeziari aurre egiteko kanpaina hasi du. Berria - Euskal Herria

· **Odol emaileak** gara... /... herria euskalduntzeko... /... gerturik daukagu odola... /... edonori emateko. Iñaki Arranz

13 *odol fluxu*

Bentrikulu artifizial horietan jarritako balbula mekanikoez kontrolatzen dute **odol-fluxuaren** norabidea. Berria - Gaiak

Odol-fluxu arazoak erakiditeko gendioak.

Berria - Kirola

Hatz zuriaren gaitza oinarri hartuta eskuko **odol-fluxuarekin** zerikusia duten gaitzak azaldu zituen. **Berria** - Kirola

14 odol gaizto ik odolgaizto.

15 odol galtze (orobat odolgaltze g.er.)

Medikuen laguntza derrigorrezkoa izanzen da sor daitezkeen eragozpen erantsiak ekiditeko, hala nola **odol galtze** handiak. **Berria** - Euskal Herria

Odola gatzatu egiten du laser berdeak, eta, ondorioz, ez da **odol galtzerik** izaten prostatan. **Berria** - Gaiak

Zorionez, zirkulazio-sistemak berak ixten ditu bere ihesbideak, eta badu bere burua zigitatzeko mekanismo konplikatu baina eraginkor bat, **odol-galtzea** eragiten duten istripu larrienei ez beste guztiei aurre egiteko. **Irene Aldasoro**

- irud/hed **Odolgaltze** horri arrasta bat eman nahian, Mutiloako auzapeza, Iñaki Ugalde, etxebizitzaren politika berri bati lotu da, bereziki etxebizitza merke batzu idekiz eta eraikiz, tokiko gazteria han berean egon dadin eta kanpoko jendea ere Mutiloara joan dadin. **Herria**

16 odol-garbi (orobat odolgarbi) izond

Oraindik ez nintzen judu, oraindik ez nintzen nire benetako egoeraz jabetzen, oraindik aleman **odol garbi** batek bezala pentsa-tzen eta jokatzeko nuen! **Anjel Lertxundi**

Benetako jockeyak ziren informazio ehizaren *steeple-chase* honetan; hesien gainetik jauzi egiten zuten, ibaia zeharkatzen, oztipoak gaintzen, zaldi **odol-garbiaren** adore paregabeaz. **Karlos Zabala**

Viena osoa dantzatzeko zen elurpean, eta goizetan Henrik zalditegi zaharrera joaten zen, zaldizko espainiarren eta zaldi lipizarr **odolgarbien** ariketak begiestera. **Xabier Olarra**

Barrura sartutakoan, askotariko zakurrak ikusi zituzten, iletsuak eta **odolgarbiak** denak. **Jose Morales**

Portatzen diren moduagatik, inork ez luke pentsatuko Weasleytarrak **odolgarbiak** direnik. **Iñaki Mendiguren**

17 odol garbitasun

Kristau zaharren muina, **odol garbitasunaren** obsesioa. **Patxi Ezkiaga**

Odol garbitasunaren agiria zen, Muno Lopez de Isasi batena. **Edorta Jimenez**

Armada honetan mediku jarduteko **odol garbitasunaren** froga behar delako. **Edorta Jimenez**

18 odol-gose (orobat odolgoose) izond/iz

Terride izeneko jeneral **odol-gosea**, armada baten buru, Biarnon sartu berria zen gure erreginaren lurrak Frantziako erregerendako bereganatzeko asmoz.Lurralde arriskutsua hauxe, laino guztien topaleku baita, marinelak engainatu eta gero larrutu egiten dituzten jende anker **odol-goseen** bititoki. **Aingeru Epaltza**

Requessens y Zuñiga gizon malapartatu eta **odol-gose** hura. **Felipe Juaristi**

Urak turkiar piratez josita baitzeuden, eta haiek krudelak ziren, **odol** -goseak ziren. **Felipe Juaristi**

Errege krudel eta **odol-gose** baten eraso gogorretatik babestearren, [...]. **Felipe Juaristi**

Beste gauza batzuetan nabarmendu behar genuela, ez inor baino **odol-goseago** izaten. **Inazio Mujika Iraola**

Haserre ere haserre zegoen, galdararen, zezen bat bezala higitzen zen su gaineko piztiatza tematari haren kontrako amorru **odolgoose** eta neurrigabe batek bere senetik aterarik. **Juan Garzia**

Nik ez nian inor hil nahi; areago: ez nian gehiago etxerik erre nahi, ez nian lapurretarik egin nahi, ez nian eskuan pistola hotz **odol-gosearen** hozkirik sentitu nahi. **Juan Kruz Igerabide**

Gizabanako basati, anker eta grinatsu batena, **odolgoose** fanatiko batek bere egindako killer bero eta bertatik bertarakoa, edozertarakoa. **Jon Alonso**

19 odol hodi (orobat odolhodi g.er.)

Gorputzaren diseinuan, ordea, elkarri loturik egon behar dute pieza guztiak **odol-hodi**, nerbio eta beste ehun batzuen bidez. **Irene Aldasoro**

Erretinaren ondoan dauden nerbio-zelula, **odol-hodi** eta beste egitura batzuen itzal iraunkorrak ez dira ikusten. **Irene Aldasoro**

Sukarra, anemia, artikulazioetako mina, eta burmuineko **odol hodian** buxatzea dira gaitzaren zantzurik ohikoena. **Berria** - Gaiak

Egun horietan genitaleto **odol hodiak** kongestionatuta egoten direnez, grina handiagoa da. **Luis Elberdin**

Endekaturik eta zurbildurik zegoen makula, eta erretina osoko **odol-hodiak** mehetuta. **Xabier Olarra**

Gizakietan, ez dago hezur-zelularik **odol-hodi** batetik 0,1 mm baino urrunago. **Irene Aldasoro**

20 odol hotz

Odol hotz izukaitza eta zinezko kemena erakusten zituzten beti lanean, eskarmentu handiko kazetari guztiak ohi bezala. **Karlos Zabala**

Baina Gérard-ek ez du aski **odol hotza**, zainak airatzera ez uzteko. **Eneko Bidegain**

Halabeharra, **odol hotza**, adina eta bizinahi irmoa, horra nire amaren ustez Auschwitzen bizirik irautearen arrazoiak. **Joxan Elozegi**

Mikel Strogoffek **odol hotzari** eutsi zion, eta, belar handien artean narrastuz, zerbait ikusten eta entzuten saiatu zen. **Karlos Zabala**

Buruan sartzen bazaizu, ez zara **odol hotzez** pentsatzeko gai izango. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

- Izualdia **odol hotzeko** gizonek dirua irabazteko tenorea da. **Lopez de Arana**

Hain ematen zuen ausarta, hain kementsua, hain **odol hotzekoa**. **Fernando Rey**

21 odol hotzean adlag

Hura izan zen **odol hotzean** hil nuen aurreneko aldia. **Jon Muñoz**

Armarik ez zuen irakiar bati **odol hotzean** tiro egin zion soldaduaeren irudia. **Berria** - Mundua

Odol hotzean hiltzen zuten, eta akusatutakoei entzun gabe, heriotzara bidaltzen zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Eta, **odol hotzean**, hamar bat pausoko tartea jarri zuen solaskidearen eta bere artean. **Karlos Zabala**

-Horixe da esateko duzun guztia? -galdetu zion, **odol hotzean** -. **Karlos Zabala**

Era guztietako krimenak burutu zituzten, suminez nahiz **odol hotzean**, krimen eta injustizia haiek ez zietelako Jainkoaren eskua hain agerian erakusten. **Iñaki Iñurrieta**

Odol hotzean tiro bat jo eta gero are **odol hotzagoan** azken burukoak jo zioten. **Edorta Jimenez**

22 odol-isuri (orobat odolisuri g.er.) iz ik beherago 23 eta 26.

Torrebiejako etxe batean lo zegoela izan zuen **odol isuria** Imanolek. **Berria** - Kultura

Urtarrilaren 4an garuneko **odol isuria** izan zuen Sharonek, eta geroztik ez du konortea berreskuratu. **Berria** - Mundua

Nekropsien bidez ikusi zenez, animalia guztiak **odol isuriak** zituzten bame belarrian. **Berria** - Gaiak

Batzuek, gainera, **odolisuriak** zituzten begietan. **Berria** - Gaiak

Chester andereñoa, agureak ondoan izan zuen erizaina "azken **odol-isuria**" gertatuz geroztik [...] gai zen bere kabuz hura artatu eta zaintzeko. **Mirentxu Larrañaga**

Odol-isuria ez zitzaion gelditzen. **Fernando Rey**

Beste era batera geraezinak ziren **odol-isuriak** agortu egiten zitzaizkion Grigoriren errezo eta sendakuntza esoterikoekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

- Haren hitzetan Najafen «**odol isuria**» eragozte da proposamenaren xedea. **Berria** - Mundua

23 odol isurketa ik gorago 22.

Halako batean arrosa-koloreko **odol isurketa** labur eta urria izan nuen. **Joseba Urteaga**

- Falujako «**odol isurketa** izugarria» geldiarazteko xedez, [...]. **Berria** - Mundua

Izan ere, legearen arabera, ia gauza guztien garbikuntza odolaren bidez egiten da, eta **odol-isurketarik** gabe ez dago barkamenik. **Elizen arteko biblia**

-Ez zaidak **odol isurketa** isil hura inoiz ahaztuko -esan zidan bertan egondako batek. **Txillardeggi**

Erabateko nahaspila da dena: **odol-isurketa** eta hilketa, lapurreta eta iruzurra, ustelkeria, desleialkeria, gizarte-gatazkak, zinaustek. **Elizen arteko biblia**

Milaka gizon eta milaka emakume ziren, bizitzaren alde honetan, denak odolari begira, sekula halako kolorerik ikusi gabeak balira bezala, haien urteak **odol isurketarik**

gabeak iraganak balira bezala. [Felipe Juaristi](#)

Ez dugu [odol isurketa](#) gehiago behar. [Pako Aristi](#)

24 *odol-isurle* (orobat *odolisurle*) *izond* odola isurtzen duena.

Gerlari handiren bat hemendik zabilek bueltaka, elfo [odolisurle](#) horietako bat, edo tark nazkagarriren bat bestela. [Agustin Otsa](#)

Borroka hark ez zuen historia luzerik izan, zeren, hasi bezain sarri, lehenengo entseian zauritu eta akabatu baitzuen Joxe Aberasturik, eta hala gelditu zen eskarnio egin ustea eskarniatua eta [odol-isurle](#) ustezkoa odolustua, lurtean etzanik. [Joan Mari Irigoien](#)

25 *odol isurtze*

Borrokarik eta [odol-isurtzerik](#) gabe. [Iñaki Mendiguren](#)

Hamabost gizoneko komando hiper armatuak [odol isurtzerik](#) gabe, kartzelatik auzitegira zihoan leku aldatze fergoia setiatu zuen. [Itxaro Borda](#)

Izan zen lisarrik, izan zen [odol isurtze](#) tamalgarririk; babiloniar jendeak, ordea, bere gogoia nagusitzea lortu zuen, aberatsen oposizioaren kontra. [Juan Garzia](#)

Iraultzek askotan [odol isurtze](#) dezentea ekarri ohi dute berekin, baina beharrezkotzat jotzen da... estimazio hori beren odola isuri ez izanaren suertea izan dutenek egin ohi dute. [Xabier Olarra](#)

Hango negar-zotinak, oihuak, garrasiak, nahasteak, beldurrak, ikarak, ezbeharrak, labankadak, muturrekoak, makilakadak, ostikoak, eta hango [odol-isurtzea](#). [Patxi Ezkiaga](#)

26 *odol-jario* ik *odoljario*.

27 *odol-jariodun* ik *odoljariodun*.

28 *odol karkaxa* (*corpusean odolkarkaxa soilik*) *iz*

Eskua ahora eraman eta eztl egitean [odolkarkaxa](#) bota nuen. [Fernando Rey](#)

29 *odol-kolore* (orobat *odolkolore*) *izond* odolaren kolorekoa. ik *odolkara*.

Eta Katherine alderrai ibiltzen zen eskularruginaren eta txanoginaren denden aurretik, eta sarri askotan han geratu zen luzaro hestebeteginaren aurpegi [odolkoloreari](#) bekaitez so. [Juan Garzia](#)

Arrosatxo hori bitxiak zeuden barruan, euren zurtoin, hosto eta arantzatxo bigun gorri [odol-kolore](#) eta guzti. Kanpandoja [odol](#) koloreak, gaztain sagar aurpegi-gorriak, errege sagar horiak, oreztez beteak. [Mirentxu Larrañaga](#)

30 *odol kolpe* (orobat *odolkolpe g.er.*) ik beherago **34**; ik *odolaldi*.

Goiz batean, osaba Gradelle [odol kolpe](#) batek jo eta bertan hil zen, galantina bat prestatzen ari zela. [Karlos Zabala](#)

Ustekabeko eta ezin saihestuzko zerbait gertatuko ote zitzaion beldur zen: buruko [odol-kolpe](#) bat, bihotzekoa, aorta mehe zozoren bat behingoan lehertzea. [Jose Morales](#)

Buruko [odol-kolpe](#) bat izan zuen pare bat urte lehenago, eta geroztik etxean geratu zen, erretiroa hartuta, txaleteko lorategian paseo koxkorrek eginez. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ireneo Funes 1889an hil zen, biriketako [odolkolpe](#) batez. [Juan Garzia](#)

[Odol-kolpe](#) batetik hurbil ematen zuen, hain baitzegoen gorri. Adarretatik euri gisa darion ur hori, edateko ona ez ezik, [odol kolpeetarako](#) ere ona da, nahiz eta goroldio gustua izan. [Aingeru Epaltza](#)

Harritzekoa al da, bada, gaixotasun batek, odolaren zirkulazioko arazoaren batek, nerbio zain bat gaitzitu izanak, [odol kolpe](#) batek, gure bizi-makina markets eta hauskor honetan matxuraren bat gertatzeak gizonik alaiena ere malenkoniatsu, bipilena koldar bihurtzea? [Josu Zabaleta](#)

- *adkor* Ikusmenaren kirioen hutsegite bat izan zen, eta kito, [odol kolpetxoren](#) bat agian. [Josu Zabaleta](#)

31 *odol mantxa* (orobat *odolmantxa g.er.*)

Jatetxeko nagusiak adierazi zenez, emakumea atzeko atetik sartu zen, larri eta oso urduri, [odol mantxa](#) handia zuela sabelean eta aitzo bat eskuan. [Iñigo Aranbarri](#)

Ni odoletan nengoen purrustaka eta trajea zikintzen nion soldaduari, musuzapi bat atera eta [odolmantxa](#) hori garbitzen saiatu nintzen. [Fernando Rey](#)

Zer dira tunikaren [odol-mantxa](#) horiek? [Askoren artean](#)

32 *odol mota*

Oso arrunta ez den [odol mota](#) duten gaixoentzat laguntza handia izan daiteke, emaeleak gutxi izaten direlako eta erretsebak, normalean, behar baino txikiagoak direlako. [Berria - Gaiak](#)

Organo bat aldatu aurretik, emaeleak eta hartzaileak [odol mota](#) bera dutela egiaztatu behar dute medikuek beti. [Berria - Gaiak](#)

Historia klinikoa (jasaniko gaixotasunak, alergiak, [odol mota](#), tabakismoa eta gainerako aurrekinak, ea.) [Edorta Agirre](#)

33 *odol talde* odol mota bereko pertsona taldea.

Eta istripu bat izan duenari laguntzez gero, [odol-talde](#) bereko pertsona behar den bezala, giza arimak ere beste arima bati laguntzez gero, izaera berdinekoa behar duela izan, eta ez duela balio haren ikuspuntuak, sinesteak eta errealtate ezkutua antzekoak ez badira... [Xabier Olarra](#)

34 *odol ukaldi* ik gorago **30**.

Gogoko izan nuen haren mazelak [odol-ukaldiak](#) jota ikustea. [Aingeru Epaltza](#)

34a *odol huste* ik *odoluste*.

34b *odol hustu* ik *odolustu*.

35 *odol zin*

Agustinek, indioek pelikuletan bezalako [odol zina](#) egitea proposatu zuen, 'odola batu eta harrezkero lagunak izango gara'. Ez zen lehenengo aldia, lehenago ere eginak zituzten [odol](#) zinak. [Joseba Sarrionandia](#)

36 *odola berotu irud/hed* ik *odolberotu*; *asaldatu*; *haserretu*.

[Odola berotu](#) zitzaidan bat-batean, eta halaxe egin nuen, odol txarturik, auskalo zenbat denbora. [Anjel Lertxundi](#)

Ene harridurarako gaztelaniaz ari ziren, nola ariko baitziren handik aitzina haserretzen edo [odola berotzen](#) zitzairen bakoitzean. [Joan Mari Irigoien](#)

Zela udaberriko giroak [odola berotu](#) ziolako, zela atzetik bultzatu zutelako, kontua da erabakitasunez jo zuela aurrerantz, jende artean igarobidea urratuz eta ezeri erreparatu gabe. [Jose Morales](#)

Niri askotan [odola berotzen](#) zait, eta berak gelditzen nau. [Berria - Kirola](#)

Hoztasunak, ordea, gezurra badirudi ere, [odola berotu](#) zidan. [Miguel Angel Mintegi](#)

Emeki-emeki hatsartzen hasten gara, airekoek jadanik hemen behar zuten izan, deusik ez da entzuten... horra garako enpleatuak ateratzen ari direla eta gure [odola berotzen](#); gure galde-otoitza esker onezko otoitz bilakatzen da. [Marzel Etxehandi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

[azken odol](#) (7); [buruko odol](#) (5); [gorputz eta odol](#) (15); [gorputz odol](#) (5); [haragi eta odol](#) (8)

[odol analisi](#) (7); [odol analisiak](#) (22); [odol analisiak egin](#) (5); [odol analisiak egingo](#) (5); [odol analisisetan](#) (6); [odol arrasto](#) (10); [odol arrastoa](#) (5); [odol arrastoak](#) (23); [odol arrastorik](#) (7); [odol asko](#) (28); [odol asko galdu](#) (8)

[odol bereko](#) (6); [odol berekoa](#) (7); [odol bero](#) (6); [odol beroa](#) (12); [odol beroko](#) (10); [odol berokoak](#) (6); [odol berri](#) (5); [odol bihurtu](#) (9); [odol bihurtuko](#) (5); [odol biltze](#) (16); [odol biltze bat](#) (10); [odol biltzea](#) (5)

[odol garbiko](#) (10); [odol garbitasunaren](#) (5); [odol gehiago](#) (14); [odol gorri](#) (8); [odol gorria](#) (7); [odol gose](#) (6); [odol gutxiago](#) (6); [odol gutzia](#) (14); [odol gutzit](#) (5)

[odol hari](#) (6); [odol hodi](#) (11); [odol hodiak](#) (6); [odol hodian](#) (7); [odol hotz](#) (7); [odol hotza](#) (26); [odol hotzean](#) (34); [odol hotzean hil](#) (7); [odol hotzeko](#) (12); [odol hotzez](#) (9)

[odol isuri](#) (9); [odol isuria](#) (25); [odol isuria izan](#) (8); [odol isuriak](#) (7); [odol isurketa](#) (19); [odol isurketarik](#) (6); [odol isurtze](#) (10)

[odol jario](#) (15); [odol jariora](#) (26)

[odol koloreko](#) (6); [odol kolpe](#) (7)

odol laginak (7)
odol orban (8)
odol pixka (10); odol pixka bat (9); odol presio (7); odol presioa (7); odol putzu (26); odol putzu batean (14); odol putzuan (6)
odol tanta (33); odol tanta bat (5); odol tanta batzuk (6); odol tantak (10); odol tantarik (6); odol transfusio (14); odol transfusioa (5); odol transfusioak (6); odol txit santuak (5); odol txit santuei (5); odol xirripa (5)
odol xorta (5)
odol zipritinak (7); odol zirkulazioa (10); odol zirkulazioan (5)
ahotik odola (6); giza odola (5); isuritako odola (10); kutsatutako odola (10); kutsatutako odola jaso (7); nire odola edaten (5)
odola aldatu (5); odola atera (11); odola ateratzeko (6); odola ateratzen (7); odola bero (5); odola berotzen (6); odola bor bor (9); odola borborka (12); odola botatzen (10); odola dario (7); odola dariola (10)
odola edan (5); odola edaten (13); odola eman (10); odola emateko (8); odola ematen (6); odola ematera (6); odola erruz isuri (5); odola galtzen (7); odola garbitu (6); odola garbitzen (6); odola hartu (7)
odola ikusi (5); odola irakitan (5); odola irakiten (20); odola irudikatzen (5); odola isuri (25); odola isuriko (6); odola isurtzea (6); odola isurtzeko (7); odola isurtzen (18); odola jaso (10); odola jaso zuten (5)
odola sutan (6); odola zainetan (5); odola zeriela (7); odola zerien (5); odola zeriola (26); odola zerion (14)
sudurretik odola (7); zainetako odola (11); zainetan odola (5)
jaunaren gorputz odolak (8)
odolaren beroa (9); odolaren bidez (6); odolaren gorria (5); odolaren mintzoa (27); odolaren ordez (5); odolaren presioa (7)
odolaz aldarea zipritinduko (5)
odolean dauden (5); odolean neraman (12)
odoleko kolesterol maila (7); odoleko zelula (5); odoleko zelulak (9)
aurpegia odoletan (11); burua odoletan (5); eskuak odoletan (8); odoletan blai (19); odoletan hasi (6); odoletan utzi (6); odoletan zuen (5); sudurra odoletan (5)
eskuak odolez (10); odolez bete (9); odolez beteak (6); odolez beteriko (5); odolez beteta (7); odolez betetako (6); odolez betetzen (6); odolez blai (15); odolez estalia (5); odolez zikindu (7); odolez zikindua (8); odolez zikinduak (5); odolez zikindurik (5); odolez zikinduta (10)

odolaldi 1 iz odola burura igotzea. ik odol 30.

Aparrak egiten duen ezkutatzela lan sotilak berebiziko zirrara sortzen ditu, **odolaldiak** lehertzeko zorian jarri dizkizu zainak. [Anjel Lertxundi](#)

Odolaldi epel bat banatu zitzaion masailetan. [Anjel Lertxundi](#)

2 haserrealdia.

Ez al zatoz errita egitera zeure seme nagia, zeinak, **odolaldi** beroa huts eginik, geroko gerora baitu uzten zure agindu larriaren ezinbesteari erantzutea? [Juan Garzia](#)

odolbako izond odolgabea.

The Morning Post-ek, bestalde, harri eginda galdetzen zuen zein ote zen hain triskantza **odolbako** haren benetako zioa. [Lutxo Egia](#)

odolbatu iz odolbildua.

Zigorren zartadak **odolbatua** uzten du, mihiaren zartadak hezurak hausten. [Elizen arteko biblia](#)

Odolbatuak egiteko erabiltzen den substantzia sortzen duen arrain transgeniko bat aurkitu dute. [Berria - Gaiak](#)

odolbero (orobat odol-bero; Euskaltzaindiaren Hiztegian biak agertzen dira) 1 izond/iz odola beroa duena, erraz asaldatzen, haserretzen edo berotzen dena.

Hira: izaera eta maila goreneko haserre, pertsona **odolberoentzat** eta abagune berezietarako egokia. [Xabier Olarra](#)

Jo ezazue! -zioen oihuka, erasoaldi nagusiaren ordua iritsirik teniente **odolbero** batek bere soldadu-sailari, "Aurrera, mutilok!" oihukatzeko erabiltzen duen ahots-doinu berberaz. [Jose Morales](#)

22 urteko gazte **odolbero** baten balentria. [Berria - Kirola](#)

Dani bezalako **odolberoak** nabarmetzen ziren poliziaren kontrako borroka horietan. [Jokin Muñoz](#)

Eta ni **odolberoa** naiz, ordea, eta **odolbero** direnekin baizik ez naiz ondo moldatzen, bai eguneroko bizitzan, bai artean edo pentsamenduan. [Karlos Zabala](#)

Florak ez zidan uzten telebistan boxeorik ikusten, ni baino **odolberoago** izan arren ikuskizun bortitza iruditzen omen zitzaiolako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Kontatu dizut **odol beroak** ginela gu, zu orain zaren modukoak esan nahi dut, eta berotasun horrek eman zigula indarra abentura berri honetan sartzeko. [Pello Salaburu](#)

Izan ere, napolitarra naiz eta, napolitar guztiak bezala, **odol-beroa** eta suharra. [Joan Mari Irigoien](#)

Mutil baldar bat zen, iluna, herabea eta **odol-beroa** oso. [Koro Navarro](#)

Sobera **odol-beroa**, sobera esku-arina. [Aingeru Epaltza](#)

Urrundu liskarretik eta bekatuari ihes egingo diozu, **odol-beroa** liskarra pizten baitu. [Elizen arteko biblia](#)

Ez hasi istilutan **odol-beroarekin**, ez zeharkatu basamortua halakoarekin. [Elizen arteko biblia](#)

• 2 adlag

Odol bero zegoen guztiz jakin berri zuenagatik. [Karlos Zabala](#)

3 (izen gisa)

Semeordearen **odol bero** gero eta nabarmenagoari lehenbailehen ihesbide emateagatik. [Aingeru Epaltza](#)

odolberotasun iz odolberoa denaren nolakotasuna.

Ondo gogoan zuen Pelloren **odolberotasunak** Erramun eta bera ere ados jarri zitueneko eguna. [Joxemari Urteaga](#)

Batzuei (damu baziren ere) axolagabekeria edo arinkeria bitxi bat nabari zitzaien; [...] zenbaiti, **odolberotasuna** eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-probaketa. [Xabier Olarra](#)

odolberotu, odolbero, odolberotzen da/du ad odola berotu, asaldatu, haserretu.

Ez **odolberotu** gaizkileengatik, ez eta gaiztoen inbidiatan egon ere. [Elizen arteko biblia](#)

odolberotze (corpusean odol berotze) iz odola berotzea, asaldatzea, haserretzea.

Zuek ez duzue inoiz ezagutu halako zirrarak, halako **odol berotzerik** ... [Paddy Rekalde](#)

odolberritu, odolberri(tu), odolberritzen da/du ad odola berritu.

Gero, gogamen itzalia berpiztu zitzaion, eta **odolberriturik** esan zion gerta zitekeela bera, Vashka Kashirin, bere ziegan zoratzea, izenik ere ez zuten torturak nozitzea, minaren muga guztiak gainditzea. **Jose Morales**

2 irud/hed

Bestetik, azken 25 urteotan bertsolari belaunaldi batek bertsogintza **odolberritzeko** egin duten ahaleginaren emaitza ere bada, eta, batez ere, azken 15 urteotan bertsolaritza kolektibo bezala gidatu duten bertsolari, bertsoszale eta antolatzaile belaunaldi batek garatu duten estrategia soziokulturalaren emaitza. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

odolbide iz odolaren bidea.

Karol Schultzi, ordea, berrogeita hamar zigorrada eman zizkieten eta gero, zauriak su gori, zauriak gorri, zauriak **odolbide**, zauriak min-huts, zauriak leize sakon zirelarik, gatzez, gatz arruntez, gatz usainik gabekoz, gatz itsasorik gabekoz, estali zituzten denak. **Felipe Juaristi**

Margarett Girard naturopatak mintzaldi bat eskainiko du **"Odolbidea"** gaiaz. **Herria**

odolbildu 1 iz kolpe baten ondorioz gorputzean gertatzen den ubela. ikodoluri; odolbatu.

Auzitegiko medikuak odoluriak aipatu ditu, hau da, kolpe baten ondorioz azalaren azpian sortzen diren **odolbilduak**, gorriak hasieran, urdinak ondoren eta horiak amaieran.

Berria - Harian

Aurkitu zutenean, haren alde askotan azaldu ziren **odolbilduaren** arrastoak. **Joxan Elozegi**

Begitartea **odolbildu** bat eginda zeukaten pertsonak ikusi ditut, eta begi-zuloak hutsik zeuzkan koitadu bat, izugarria, izugarria. **Jon Alonso**

Martinez de Irujok ere arazoak ditu ezkerreko eskuan, hatz batean **odolbildua** baitu. **Berria - Kirola**

2 odol gatzatua, bereziki odol hodi batean gertatzen duena.

Zuntzez eta zuntz artean harrapatutako odol-globuluz osaturiko nahasketa bat da ebaki baten gainean eratzten den **odolbildua**. **Irene Aldasoro**

Konpontze-prozesuaren lehen urratsa **odolbildu** bat sortzea da, bi helbururekin: lehenik, odol-hodiak itxi eta jariora gelditzeko. **Irene Aldasoro**

Koma egoeran izan zen iheslaria bi egunez, kolpearen ondorioz buruan egin zitzaion **odolbilduaren** eraginez. **Berria - Euskal Herria**

Badirudi hobera egin duela, **odolbildu** larriena kendu diotelako. **Berria - Euskal Herria**

Odolbildu horrek **odoljarioari** eusten dio, eta behin-behineko partxe gisa hantxe geratzen, harik eta azpiko ehunak osatu arte. **Irene Aldasoro**

Ebakuntza honi esker, burmuinak pairatzen zuen presioa bigundu egin da eta aurreko ebakuntzatik geratu ziren **odolbilduak** kendu dira. **Berria - Mundua**

Odol-zirkulazioan **odolbildu** bat eratzek oker handia eragin dezake, hala nola tronbosi koronarioaren kasuan. **Irene Aldasoro**

Ohiko karkaisekin batean, odola eta **odolbilduak** ere espektoratu zituen. **Joan Mari Irigoien**

3 (hitz elkartuetan)

Odol-lagin bat saio-hodi batean uzten bada, bitan bereiziko da berehala: alde batetik, **odolbildu** masa gorri ilun bat agertuko da, [...]. **Irene Aldasoro**

odolbizi izond gorri bizia.

Haren ezkerretara beste gizon askoz gazteago bat bazen, ilegorria hura ere; haren kolore **odolbiziak** sua iradokitzen zuen, eta Glencoe jaunaren bizarrarenak, berriz, udazkeneko hostoak. **Juan Garzia**

Ikusi nuen, Inverness-en, ahaztuko ez dudan emakume bat; ikusi nuen adats **odolbizia**, gorputz harroa; ikusi nuen minbizi bat bularrean; ikusi nuen lur lehorreko zirkulu bat espaloi batean, lehenago arbola bat egon zen lekuan **Juan Garzia**

odoldu, odol(du), odoltzen (105 agerraldi, 60 liburu eta 2 artikulutan) 1 da/du ad odolez bete, odolez estali edo zikindu. ik odoleztatu.

Atzaparrekin lurra zulatzeari ekin omen zion, azazkalak **odoldu** zituen arte. **Ramon Saizarbitoria**

Gerria minberatzen, eskuak **odoltzen** zizkion soka hartatik esekita zegoen. **Juan Garzia**

Han belarretan kuzkurtuta zegoen, jantziak **odoldurik** zituela. **Iñaki Mendiguren**

Erabat desituratua nengoan, aurpegia handituta eta **odolduta** neukan eta uraren mugimenduaren bareak areagotu egiten zuen aurpegiaren makurra. **Jon Maia**

Muturra **odolduta** zekarren. **Jon Maia**

Bazuen beldurra erresuma **odoltzen** zuten borroka haiek boterearen lortzeko gudu soilak zirela baina gai hori ez zitzaion axola. **Elena Touyarou**

Otsaileko gertaeretan Paris **odoldu** zelarik, atsekabetu eta klubez klub ibili zen odol haren ordaina eskatuz eta "mundu osoko errepublikazaleen anaitasunezko musua" aldarrikatuz. **Karlos Zabala**

Aitari begirada **odoldu** zitzaion. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Eguzkia behera doan heinean **odoltzen** ari da ostertza. **Jokin Urain**

3 (era burutua izenondo gisa)

Berna **odoldua** alkandoran bilduta bularraren kontra estutuz. **Ramon Saizarbitoria**

Buru **odoldua** pika batean iltzatuko zioten Ahmeti eta hirian barna eramanen zuten jendeak hista eta burla egiteko. **Fernando Rey**

Hil-hurren dagoen biktima belaunikatua zirudien, esku **odolduak** luzatu eta asasinari mesedez gehiago sufriarazi gabe behingoz hiltzeko eskatzen ziona. **Ramon Saizarbitoria**

Arratoia tinko helduta zeukan Ronek bere esku haginkatu, urratu eta **odolduen** artean. **Iñaki Mendiguren**

Ukabil **odolduaz** mehatxu egin dio Bioloni. **Itziar Otegi**

Bere amarenera agertu zen, ezpata **odoldua** eskuetan zeukala. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esku odoldua (4)

esku odolduak (3)

odoldun izond

Lokat ez ezik, ernaminez beteriko ustelkeria ere bai, baselina bezain limuri, eta putzuek egunsentiko argipean odol zikinezkoak dirudite, hileko **odoldunak**, arrabioz beteriko istilak, buztan dardartizko burubeltzez irakiten, espermatozoozko borbortegiak balira bezala. **Joxe Austin Arrieta**

odoldura iz odol orbana.

Eskuei heldu zaie txanda eta bortizki garbitu ditu, existitzen ez den lohiduraren - **odolduraren** - bat kendu nahian. **Sonia Gonzalez**

odoleztatu, odolezta, odoleztatzen (58 agerraldi, 38 liburu eta 4 artikulutan) da/du ad odoldu.

Gehienek horixe uste dute eta, triserik, sakrifizio-harriak **odoleztatzen** dituzte eta aldareak oparizatzen, emazteak semen ugariz haundun uzteko. **Xabier Amuriza**
Gero, abere-odola hartu eta aberea jango duzuen etxeko ategainak eta alboak **odoleztatuko** dituzue. **Elizen arteko biblia**
Liburu baten ertza **odoleztatzean** liburuko orrialde guztiak odolez zikitzen diren era berebean. **Harkaitz Cano**
Biolentziak **odoleztatzen** du gure herri hozkatua, gure gizartea, eta gero eta orakutuago uzten gaitu hiritar guztiak lokatz gorri horretan. **Pello Salaburu**
Eta bitartean Heriotza Gorria kanpoan zebilen, dena ustelduz eta **odoleztatuz**. **Alberto Ladrón Arana**
Anai Rufinok, bada, arretaz begiratu eta aztertzen zituen, eta beti **odoleztatuak** aurkitzen zituen eskuineko aldean. **Askoren artean**
Plazara ekarri zuen orgatik jaitsarazi, bi fraide bidelagun zituela urkabela igo, estaltzen zuen espartzuzko estalkia kendu eta, **odoleztatuta** eta gerritik gora biluzik, borroaren trangaberara eraman zuten. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Alba, goiza bera **odoleztatuko** lukeen gizona, deabruen anaia bihurtua; Requessens y Zuñiga, deabruen morroi eta morroi. **Felipe Juaristi**

2 irud/hed

«Enbaxada hau **odoleztatuta** dago» eta «Bush, hiltzaile» oihukatu zuten manifestariek. **Berria - Mundua**

3 (era burutua izenondo gisa)

Preso eskuindarren gorpu **odoleztatuek** presondegiaren barren-goiak lohitzen zituzten. **Lutxo Egia**
Llumez esku **odoleztatua** altxatu eta gizona dagoen lekurantz zuzentzen du. **Antton Olano**
Harmingainek, begi **odoleztatu** eta ikaratuekin, Gandalfi begirada laburra egin zion. **Agustin Osoa**
Eztarria zulatua zeukan txakurrak agerian ditu oraindik hortz **odoleztatuak**. **Oskar Arana**
Linternari esker, Amaiak bularrean zeukan zulo **odoleztatua** ikusi zuen. **Aitor Arana**
Gu hara iristen ari ginen uneantxe ari zen halako txoritza beltz-ubel saldo oso bat errai-multzoko bati tiraka, hara eta hona, beren moko **odoleztatu**ei sarrats-litsak zerizkiela. **Joxe Austin Arrieta**
Hura izan zen hura, galbarioa! ez nuen anaiaren aurpegi **odoleztatua** baizik ikusten. **Daniel Landart**
Zapi **odoleztatua** kentzean sentitzen zuen oinazeagatik. **Askoren artean**
Nitarik hiru metrotara oihal **odoleztatu** bat ikusi nian. **Daniel Landart**
Jakanarru **odoleztatua** jantzi nuen. **Edorta Jimenez**
Charlyk arma **odoleztatua** nireganat noratua zuen orain. **Aingeru Epaltza**

odoleztatze iz odoltzea.

Aitzitik, eskuz-eskuak, burrukak, guduak eta lohadar urratzeak eta gorputz **odoleztatzeak** azkon distiratsuen hegatzeari baino askoz lehenago izan ziren. **Xabier Amuriza**

odolgabe 1 izond odolik ez duena.

Hilotzek nondik sortzen dituzte harrak, ustelkeran, eta halako bizidun pilo hezugabe eta **odolgabea** nondik darie lohadar hanpatuei? **Xabier Amuriza**
Izaki zainil eta meharra, aurpegi zurbilduna, alferrik egingo dio zimiko, mina eragiteraino, bere larruazal **odolgabe**ari, zertarako eta, ez beti gainera, hala-moduzko puntu gorriren bat ekartzeko. **Itziar Otegi**

2 kemenik ez duena.

Nire lantokiko gaxte **odolgabeak** apezkumeak baino goizago erretiratzen dituk gauaz. zamari nagiak akuilua behar duela eta asto **odolgabeak** eztena duela zain. **Aingeru Epaltza**
Odolgabea izaeraz eta makurgaitza moldez, lagun gutxi egin zituen eskolan. **Irene Aldasoro**
Baionara iritsitakoan, bere iraganaz damutzeke, hala ere gerorako esperantza **odolgabeaz** fidaturik, itsas borrokak, itsas sarraskiak, itsas nahigabeak, itsas ibilerak oro uzteko ordua bazela iritzirik, jauregia eraiki zuen Baionako portutik gertu. **Felipe Juaristi**

3 (adizlagun gisa)

Baina aipagarriena, Alcide Jolivet gehien harritu zuena, dantzari persiar haiek **odolgabe** aritzea zen, eta ez kartsu. **Karlos Zabala**

4 izond odolik isurtzen ez dena.

Hala ere, Ekialde Urruneko lurrean mahayanaren eta konfuzianismoaren arteko topaketa maila politikotik espiritualera aldatu orduko, haien gerra ia **odolgabearen** zoria dramatikoki alderantzikatu zen. **Iñaki Mendiguren**

5 odolgabea izlag odolgabea.

Hauen borroka alferrikakoa da; hausten dituzten itzalak berriro sortzen dira Walhallan heroiek egiten duten bezala, **odolgabea** borrokekin berriro olgatu ahal izateko. **Ibon Uribarri**
· Zientzia modernoa ideal aszetikoekin berdindu da, **odolgabea**, txepel. **Joxe Azurmendi**

odolgabetu izond kemenik gabe gelditua.

Ondoezak jota bezala eseri nintzen urkamendi-aulkian, automata baten itxura betean, **odolgabeta**, eroria, ordurako ni neu ez banintz bezala. **Karlos Linazasoro**

odolgaixto ik odolgaizto 2.

odolgaizto 1 iz

Negun eskularru motzak behar zituen erien begiratzeko, **odolgaiztoak**, minberatuak eta brioletatuak atxikitzen baitzizkion. **Michel Oronoz**

2 odolgaizto egin (orobat odolgaixto egin) adkor mindu.

Inori ez zitzaion **odol gaiztorik egin**. **Anjel Lertxundi**
-Odol gaiztoa egiten ari zaio -esan zuen Saget andereñoak-. **Karlos Zabala**
-On Camillo, ez **odol gaiztorik egin** -esan zion egun batean aldareko Kristok-. **Koldo Biguri**
Ez zuen, inola ere, Emma **odolgaixto** egiten utziko. **Daniel Landart**

odolgaltze ik **odol 15.**

odolgarbi ik **odol 16.**

odolgi ik **odolki.**

odolgiro (7 agerraldi, 5 liburutan) 1 izond odolzalea, ankerra.

Bera da, Michele Angiolillo, anarkista **odolgiroa**, Corpus Christi eguneko atentatuaren egileetarikoa bat, Bartzelonan Giuseppe Santo legez ezaguna. **Koldo Izagirre**
Nire gau hartako ziegakide koitadu hura jakingarriak hartua zen noski, esana izanen zioten zer egiten nuen, nolako ankerra nintzen, zeinen **odolgiroa**. **Koldo Izagirre**

2 (adizlagun gisa)

Izututa ikusi zuen nola mugitzen zuen Dembak errebolbera berokiaren azpian, **odolgiro**, hilketa burutzeko prest. **Anton Garikano**

3 (izen gisa)

Sortu izan dira [...] ideia baten martiriak eta zernahi neke eta anaiak esaten dietenen alde bizia emoteko prest legez jartzen dituzten leiendak, traizioak heroitasuna balekar moduan, edo **odolgiroak** gizatasunik. **Koldo Izagirre**

4 **odolgirozko izond odolgiroa.**

Emakumeak berak ere interesaturik zeuden kontakizun **odolgirozko** eta sarritan sinestezinezko horietan. **Josu Zabaleta**
Maiz pentsatzen zuen kaleburu bakoitzean dozena erdi metrailadore jarri eta zein atsegina izango litzaiokeen jai tonto **odolgirozko** hartatik zetozenetatik bat bera ere zutik ez uztea. **Josu Zabaleta**

odolgorri izond odolgiroa.

Ezin ulertu gizakia nola izan litekeen horren bihotzgoror, **odolgorri**, sentimendu gabea. **Gotzon Garate**

odolgorritu izond odolak gorritua.

Abasek begitarte **odolgorritua** zuen, begiak hobietatik irteteko zorian. **Patxi Zubizarreta**
Lepoa ez zitzaion ikusi ere egiten, baina sorbalda artetik aurpegi biribila nabarmentzen zitzaion, puztua, **odolgorritua**, hanpadurek deuseztatutako hazpegiekin. **Patxi Zubizarreta**

odolgoose ik **odol 18.**

odolgosetu izond odolgosea.

Eta jendea boxeolarien xaxaka, oihuka, txakur amorratu eta **odolgosetuen** arteko borroketan bezala, aurkaria akabatzeko eske. **Paddy Rekalde**

odolhodi ik **odol 19.**

odolisuri ik **odol 22.**

odolisurle ik **odol 24.**

odoljario (54 agerraldi, 11 liburu eta 22 artikulutan; orobat **odol-jario** 56 agerraldi, 26 liburu eta 12 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **odoljario** agertzen da) 1 iz odola jariatzea; jariatzen den odola. ik **odol 21.**

Odol-jarioa eteteko, amaraun bat jarri nahi zioten; Espinosak pastila batzuekin sendatu zuen. **Juan Garzia**

Odolbildu horrek **odoljarioari** eusten dio, eta behin-behineko partxe gisa hantxe geratzen, harik eta azpiko ehunak osatu arte. **Irene Aldasoro**

Beste modurik ez zen **odol-jarioa** gerarazteko. **Oskar Arana**

Hilerokoa izanik, **odol-jarioa** duen emakumea zazpi egunegaz geldituko da kutsaturik. **Elizen arteko biblia**

Izter masail burualdeak **odol-jarioan** hasi zitzaizkidan, ez nituen gorputz giltzadurak sentitu ere egiten. **Jesus Mari Mendizabal**

2 (eritasun gisa)

Zer egingo zenuke hemen haietako batek garun-**odoljarioa** edo bihotzekoa izango balu? **Ibon Uribarri**

Aspirinak eta alkoholak mukosa ahultzen dute, eta urdaileko **odoljarioarekin** edo urdaileko ultzerekin lotzen dira sarritan. **Irene Aldasoro**

Hernia diskala, neumonia eta urdail-hesteetako **odoljarioa**. **Pako Aristi**

Odoljarioa zutenei eta legendunei garbitasuna eta osasuna eman zizkien, larriki zaurituei sendaketa osoa eta, are handiagoa dena, hildakoak bizira itzuli zituen. **Askoren artean**

Legendun eta **odoljarioz** joak. **Askoren artean**

Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan **odol-jarioz** zegoena. **Askoren artean**

3 (izenondoekin)

Lagunek zauria lotu zioten Ulisesi, eta arao bat esan zuten **odoljario** beltza geldiarazteko. **Juan Kruz Igerabide**

Juneak **odol-jario** handi bat izan zuen burmuinean, etxeko baratzean lanean ari zela abuztu erdiko bero itogarriko arratsalde batean. **Oskar Arana**

Odol jario dezentea eragin zidan. **Joxerra Garzia**

4 izond odola isurtzen dena.

Itsaso Beltzera iritsi ginen gero, Don ibaiari jarraiki, eta Azov hirian sartu ginen, turkoei jaiotzen nintzen urtean hartua, borroka latz **odol-jario** batez. ik **odol 26.** **Felipe Juaristi**

5 (adizlagun gisa)

Ulisesek, alabaina, eztaerriaren erdian sartu zion gezia, eta atzeraka erori zen Antinoo; edontzia lurrera joan zitzaion, eta sudurra **odoljario** hasi. **Juan Kruz Igerabide**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

odoljarioa izan (5); **odoljarioa izan zuen** (3)

odoljariodun *(corpusean odol-jariodun soilik) izond* odoljarioa duena.

Izan bedi beti Joaben etxean **odol**-jariodunik, legendunik, eme-itxurako gizonik, ezpataz edota goseak hilko denik! **Elizen arteko biblia**

odolkara *izond* odolaren kolorekoa. ik **odol 29**.

Saski baten ondoan, kandela piztu batek kolorezko kanta zoli bat hedatzen zuen inguru beltz hartan, bitxiloreen orban zuri biziak, dalien gorri **odolkara**, bioleten urdintasuna, arrosen mami bizidunak agerira azalduz. **Karlos Zabala**

Nakar arrosak, koral **odolkarak**, perla esne kolorekoak. **Felipe Juaristi**

Otoitz egin zenuen, zeru **odolkarari** so, laguntzaren galde. **Xabier Montoia**

odolkarkaxa ik **odol 28**.

odolketa *iz* odol isurtze handia.

Gerra honek txiki utziko ditu orain arteko **odolketa** guztiak. **Alberto Ladron Arana**

Eta etengabeko borrokez gogaituriko askok pentsatu genuen orduantxe amaituko zirela liskar eta **odolketa** guztiak, aleman guztiok Hitlerren gidaritzapean lanean hasiko ginela gure herria berriz ere indartsu egiteko. **Alberto Ladron Arana**

odolki *(orobat odolgi g.er.) 1 iz* zerri odol egosiz eta beste zenbait gehigarritz egiten den hestebetea. ik**odoloste**; **buzkantz**.

Andoila, saltxitxa eta **odolkien** alde zen hura. **Karlos Zabala**

Babarrun ederrak ematen dituzte: azak, **odolkiak** eta txerriki guztiak. **Pablo Sastre**

Haragi egosia atera zuten gero, azolioa **odolkiarekin** ondoren. **Koro Navarro**

Sukaldeko bizigarrirek bereziena astero hartzen dugun gibeletzko **odolkia** eta ogi lehorra marmeladarekin izaten dira. **Josu Zabaleta**

-Esaidan, bihar arratsaldean egingo dituzue **odolkiak**? **Karlos Zabala**

Odolkia bete zutenean, Quenuk mantso-mantso bota zuen ur irakineko eltze batera. **Karlos Zabala**

Odolkiak jatera gonbidatzen gaitu. **Josu Zabaleta**

-Badakin, gogotik gustatzen zaidan **odolki** beroa, eltzetik atera berria... **Karlos Zabala**

Arrazoi horrexegatik, Imanolen zakil lodiak **odolki** mutur lotu bat gogorarazten zuen. **Aitor Arana**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Odolki-itxurako beso batzuen gainetik kotoizko mahukak jasota zeuzkan emakume batek burua leihotik agertu zuen, txima grisez bete. **Lopez de Arana**

Nik ez dinat ezer erosten denda horretan, ez niken ezta **odolki** puska bat ere hartuko, ez dakin, ala?... **Karlos Zabala**

Odolki jana eginez eta afari ostein egin genuen saioa. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urdaiz gizona ezekiz, zerri **odolkiak**, saiheksiak, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko eltzekorik gutziziatuenak genituen oraintsu arte. **Patziku Perurena**

4 **odolkiak ordainetan** mesedea edo kaltea hartu duenarekin era berean jokatuz.

Kristinak, **odolkiak ordainetan**, ezta hamar minutu ere aitortua zidala Ximurrarekin sei aste zituela, isil-gordean, ni etxetik bidaltzea erabaki orduko. **Aingeru Epaltza**

Olentzero, San Nikolas, Santa Klaus eta Errege Magoak jo eta ke aritu dira lanean, onak izan direnei opariak eta gaizto izan direnei **odolkiak ordainetan** emanez. **Berria - Gaiak**

Eta nik, **odolkiak ordainetan** emateagatik, Artaxona ere Euskal Herrian dagoela esan nion, eta Bergarajaregitarren sorterria baino zaharragoa eta herri nobleagoa zela Artaxona ziur asko. **Ramon Saizarbitoria**

Beti pentsatu izan dut une hartantxe hasi zela Koronela gu gorrotatzen, eta ordutik aurrera burutazio bakarra izan duela beti, nola edo hala, **odolkiak ordainetan** ematea guri. **Mirentxu Larrañaga**

Uztailean, Tourrean, Armstrongin laguntzeko zeregin bakarra dute US Postal taldekoek, baina **odolkiak ordainetan** eman zituen atzo Armstrongek. **Berria - Kirola**

Ryoko izango ez balitz bezala jokatuko nuen errezitaldian eta **odolkiak ordainetan** jaso nituen. **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

odolki puska bat (3)

odolkiak ordainetan (21); **odolkiak ordainetan eman** (3); **odolkiak ordainetan izaten** (3)

odolkide *izond* odol berekoa.

Teratokartzinoma delakoa, zenbait sagu-leinu **odolkideren** barrabiletan aurkitzen dena. **Juan Garzia**

Nire gogoan, saguari buruz han egiteko zen ikerketak honako hauek ekarriko zituen: sagu **odolkidezko** hainbat leinu mantentzea; mutanteak bereizi eta mantentzea. **Juan Garzia**

Odola dugu lokarri, eta, hain zuzen ere, **odolkide** eta errosiar gisa mintzo natzaizue orain. **Jose Morales**

odolkidetasun *iz* odolokide izateko nolakotasuna.

Askorentzat snob bat zen, zenbaitentzat **odolkidetasunak** eta endogamiak ahuldutako sasi-aristokrazia leinu baten azken alea. **Jon Alonso**

Ate bat irekitzen duan aldiro **odolkidetasunaren** legearen ondorio ustelen bat kausitzen duk. **Aingeru Epaltza**

Badirudi ez dagoela halabeharrez hizkuntza ahaidetasunaren eta herrien arteko **odolkidetasunaren** arteko erlaziorik izan beharrik. **Isabel Arrigain**

odolkigile iz odolkiak egiten dituen pertsona.

Ordiziako odolki lehiaketan, Iñaki Kanpos ordiziarrek du **odolkigile** hoberenaren saria eskuratu. **Heria**

odolkoizond odolzalea.

Gainera, hola ez duk euli xintik ere sartzen etxe barnera, guziak enegana zetozek: euli, mandeuli, ezpada eta gisako mixtoluxe **odolkoizond** oro; eta ez dakik ongi nola pozten nauten! **Patziku Perurena**

odolkolore ik odol 29.

odolkolpe ik odol 30.

odolmantxa ik odol 31.

odoloste 1 iz odolkia.

Mamia jan baino lehen, **odolosteari** hestea erretiratzeko diot nik beti. **Hasier Etxeberria**

Odolosteak eta lukarikak amestu zituelako, nonbait, eta haien ordeztu, berriz, baratzeetako jaki gezak besterik ekarri ez zituelako. **Edorta Jimenez**

Bero-bero omen zegoen, eta Madamerekin haserre, Monsieurrin gustatzen ez zitzaizkion **odolosteak** prestatu eta zakarrontzian amaituko zutela bazekielako. **Joxemari Urteaga**

2 adkor zakila.

Hark kristoren aldaba zeukan, itzela zen hankarteko **odoloste** hura, eta inguruko neskezahar eta alargun guztiek erostetako etxera ekartzeko aitzakiaz mesede hartzen zuten, mesede eta plazerra... antxoak, barbarinak, bisiguak eta halakoak sukaldian utzi ostean txitxarro ezkutua bilatzen zioten Tomasito inozenteari... **Paddy Rekalde**

odolostetxu iz adkor odoloste txikia.

-Bai, esango zion hau probatu nahi duenari, ez bahaiz ondo aritzen honek hiru **odolostetxuari** haginka egin eta jan egingo dik. **Paddy Rekalde**

odoloztu, odolotz, odolozten da/du ad odola hoztu.

Lehendabizi gorpua pintatzen dugu, gero lehortu, gero ura edo libixa, formak desegin daitezten, **odoloztu** daitezten eta koloreak jario dakizkion». **Beria - Kultura**

odoltsu ik odoltsu.

odoltsu (orobat odoltsu g.er.) 1 izond odolez betea, odolez zikindua.

Inolako nardarik gabe miatzatzen zituen sufritzen zutenen zauri **odoltsuak**. **Juan Garzia**

Nire ondoan, lurrean, sei gauzatxo **odoltsu** ari ziren mugitzen. **Joxan Elozegi**

Niloko ur **odoltsuak**. **Elizen arteko biblia**

Moritz Cafe-an atera zizkidaten txuleta **odoltsua** eta entsalada benetan ederrak ziren. **Xabier Montoia**

Arrain haien begi bizien eta zakatz oraindik **odoltsuen** erdian, arraia handi bat ageri zen, gorrikara, orban ilunez pintarratua. **Karlos Zabala**

Pulpa **odoltsu** bat eginda utziko zutela. **Jon Alonso**

Odoltsu zeuzkan begiak, ufaka sudur-mintzak, dardarka ezpainak. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Inoiz ez ninduen oporrik utzi, ezta emetasunaren zor **odoltsua** kitatu behar zuen egunetan ere. **Aingeru Epaltza**

-Morboa atsegin zaigun, Lisa, komunikabideetan nagusi ditun berri **odoltsuak**, irentsi egiten ditinagu. **Migel Angel Mintegi**

Ez dute ordea alderdi makabroa galduko, xehetasun **odoltsu** higuigarrienak ere argi deskribaturik agertzen baitira. **Koro Navarro**

Poesia hitz-labur bezain **odoltsuak** idazten nituen. **Juan Garzia**

Hizkuntza, frantsesa noski; bandera, zuri-gorri-urdina, eta ereserkia, Marsellesa **odoltsua**. **Hasier Etxeberria**

Bestaldean kolore **odoltsuko** oholak zurezko dorreak eraikiz antolatua. **Joseba Sarrionandia**

Courage, iritsiko duk gure eguna, iritsiko duk gure egun **odoltsu**. **Lopez de Arana**

Bortxatze gogo **odoltsu** leun batek hartu nau atzetik, geldiro, belarrien atzetik. **Monika Etxebarria**

IRA Probisionalak eta Ofizialak su-etena eman zuten 1972an, *Bloody Sunday*-n (lgande **Odoltsua**) britainiarrek eragindako sarraskiaren ondoren herritarren babesa izugarri handitu eta gero. **Beria - Harian**

3 odola dakarrena, odol-isurlea.

Bi gerra **odoltsu**, mingarri, eta... alferrik galduak gainera. **Txillardegi**

Nola erantzun behar zaio ekintza **odoltsu** honi? **Juan Garzia**

Bezperako atentatu **odoltsuaren** argazkia. **Itxaro Borda**

Bonba zartatze **odoltsuak** egin dituzte tokikoek Koweitean. **Heria**

Erligioen arteko gurutzada **odoltsuen** eta gerla itsusien historia. **Piarres Xarriton**

Iraultza **odoltsua** amaitu zelarik, kemena ondoko hauteskunde borroketara bideratu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Doneztebeko arkebuzkada ez zen izan sail luze eta **odoltsu** baten hastapena baizik. **Aingeru Epaltza**

Araba mairu eta kristauen arteko borroka-leku **odoltsua** zen. **Martin Anso**

Araba mairu eta kristauen arteko borroka-leku **odoltsua** zen. **Martin Anso**

4 (pertsonez eta kidekoez)

Mary erregina katolikozalea *Bloody Mary*, Maria **Odoltsua** - igo zen errege-jarlekura. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Francisco Franco diktadore **odoltsu**. **Iñigo Aranbarri**

Bilau **odoltsu**, lizuna! [Juan Garzia](#)

Ez dut hemen bakarrik geratu nahi, Baroi **Odoltsua** bi aldiz igaro da dagoeneko. [Iñaki Mendiguren](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

borroka odoltsu (3); **gerra odoltsu** (6); **gertaera odoltsu** (3)

baroi odoltsua (3); **igande odoltsua** (3); **odoltsua izan** (12); **odoltsua izan da** (4); **odoltsua izan zen** (7)

borroka odoltsuak (4); **eraso odoltsuak** (4); **gertaera odoltsuak** (3)

gerra odoltsuan (3)

erasoetatik odoltsuena (3); **erasorik odoltsuena** (3); **odoltsuena izan** (6)

odoltsuki *adlag* era odoltsuan.

«Eskuin zaharkituena zortzi urtez Espainiako Estatuko Gobernuan egonda gero eta ETAk **odoltsuki** su-etena hautsi eta gero», Euskal Herriak «une dramatikoak» bizi dituela dio dokumentuak. [Berria - Euskal Herria](#)

odoltzar *iz*

Gertatuko da ezen janari oro, gogor nahiz likido, gauza heterogeneoz osatuzat jo behar dela, hezurren eta nerbioen eta odolaren eta **odoltzarren** nahaste bat. [Xabier Amuriza](#)

odoltzale ik odolzale.

odolur *iz* belar landarea, zurtoin herrestaria duena eta lore txikiak, zuriak eta gorriak ematen dituena(*Polygonum aviculare*).

Krisopidoak, izainak, sorgin-baratxuria (*Allium sorginium*) eta **odolurra** -esan zuen hortzartean, osagaien zerrendan behera hatza eramanez-. [Iñaki Mendiguren](#)

-Bada beste zerbait ere -esan zien Harryk, Hermione **odolur** -sortak puskatu eta edabera nola botatzen zituen begira-. [Iñaki Mendiguren](#)

odoluri *iz* odolbildua.

Auzitegiko medikuak **odoluriak** aipatu ditu, hau da, kolpe baten ondorioz azalaren azpian sortzen diren odolbilduak, gorriak hasieran, urdinak ondoren eta horiak amaieran. [Berria - Harian](#)

Auzitegiko medikuek ez dute zehaztu, ordea, zerk eragin zituen **odoluriak**. [Berria - Harian](#)

Haatik, salaketa jarri eta bi egun beranduago aurpegian eta besoan «soilik» bi **odoluri** zituela zehazten du epaiak, «eta eraso fisikoa hain gogorra izan balitz, neskak gorputzean aztarna gehiago izango zituela». [Berria - Euskal Herria](#)

odoluste (*robat odol uste eta odolustute g.er.*) 1 *iz* eri bati zaina irekitzea odol kopuru jakin bat ateratzeko.

Hurtadak **odoluste** bat egin zion besoan. [Josu Zabaleta](#)

Denbora hatzen artean ihes egiten sentitzen nuen, gorputzetik itzurtzen minutuz minutu, **odoluste** jadanik geldiezin bat bezala. [Juan Garzia](#)

Eleberriak Donostiako Konstituzio Enparantza laukizuzena zezen-plaza biribil bilakatu eta etakide baten azken ehun metroak kontatu zizkigun, **odoluste** geldoa, hil arte.

[Berria - Kultura](#)

Heriotzarainoko odol **hustea** zela, horra nik neuk esan nezakeen bakarra. [Edorta Jimenez](#)

2 odol asko isurtzea.

Drake aipatu zuen, eta hark egindako lapurretak eta **odolusteak** deabruaren lanak zirela esan zuen. [Edorta Jimenez](#)

Bosniako tropa serbiarrak Srebrenican sartzen baziren, **odoluste** bat izango zela esan zidan, bi armaden artean gorroto handia zegoelako. [Berria - Harian](#)

Irakekoa egun gori-gorian dagoen gatazka da, **odoluste** handia izaten ari da bertako petrolioak gutiziatzen duten Estatu Batuentzat, eta oso zaila da modu objektibo batez han gertatzen denaz hitz egitea. [Berria - Kultura](#)

Baina prebentzio faltarekin ez ezik, kontratazio politikekin lotu zuen [CCOOK] «**odoluste** gordina». [Berria - Ekonomia](#)

3 irud/hed

XIX. mendean alabaina, ekonomiaren beherakadak eraman gaitu jendetzearen erdia galtzera, eta XX. mendean ez dugu jakin herriaren **odolustea** geldiarazten, ez aterabide berriak asmatzen. [Piarres Xarriton](#)

Sestaoko ontziolaren **odolusteak** milaka lanpostu desagerrarazi ditu jada. [Berria - Ekonomia](#)

Estatu Batuetako ekonomiaren pisua kontuan izanik, kapitalen merkatuen halako **odoluste** batek, nahitaez ekarri behar zuen epe luzera interes-tasak izugarri handitzea eta kaudimen txikieneko zordunak baztertzea. [Koro Navarro](#)

Diezek berretsi du Jaurilaritzak bere gain hartu beharko dituela Espainiako Gobernuak Euskal Herrian dauzkan enpresa publikoak, «**odolustea** etengo badu. [Berria - Ekonomia](#)

Espainiako eta Frantziako legediek jasotzen duten komunikazio eskubidea erabili ahal izateko, euskal presoen senide eta lagunek izugarrizko **odoluste** ekonomikoa pairatzen dute. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

navalen odolustea (3)

odolustel *iz*

Inork, halabeharrez, herio hiletarik ekiditen bazuen, berari ere gero, ultzera nazkagarriz eta sabel jario beltzez, galmenak eta heriotzak itxaroten zion, edo sarritan burukomin handiz, sudur beteetatik **odolustela** bar-bar zerion: hortixek alde egiten zuen gizakiaren indar eta izate guztiak. [Xabier Amuriza](#)

odolustu, odoluts, odolusten (*robat odol-hustu g.er.*) (*robat odolustutzen g.er.*) 1 da/du ad odol guztia galdu edo kendu.

Bihar nire aurrean zintzurra moztuko duela esan dit, nire gainean **odolustuko** dela. [Eider Rodriguez](#)

Ur berotan sartu bide du hanka, eta zainak ebaki orkatila inguruan; eta **odolusten** hasi da, eta **odolusten** jarraitu du azken gogoetak ahotik atera ahala. [Imanol Zurutuza](#)

Tiroa bota zuen emakumea eta lurrean **odolustu** zen gizona agertuko zirela ematen zuen. Joxean Agirre

Zaldirik leunenaren gainean ere, berehala **odolustuko** zinateke. Juan Kruz Igerabide

Jangai den piztia edo hegaztia ehizatzen badu israeldarrak nahiz etorkinak, **odolustu** egingo du eta odola lurrez estaliko. Elizen arteko biblia

Gezi bat aski da bihotz bat **odolustutzeko**, baina bi izen behar dira bihotz bat zulatzeko. Iñaki Segurola

Eta hala gelditu zen eskarnio egin ustea eskarniatua eta odol-isurle ustezkoa **odolustua**. Joan Mari Irigoien

Goizean zakur-zaintzaileak zakurtzegira agertu zirenean zakurrik gehienak hilak ziren, **odolustuak**. Gotzon Garate

Zauritua **odolustuta** hil zen. Berria - Euskal Herria

Ez dezatela jan **odolustu** gabeko abererik, ez eta odolik ere. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Nafarroa etengabe **odolusten** ari zen anai arteko liskarrean. Aingeru Epaltza

Putzua harrezkero ubide batetik **odolustu** izan da. Xabier Olarra

Doktoregaita aski **odolustua** zuten banderilleroen ziztadek ordurako. Markos Zapiain

Bi tiroak jaurti zituztenean, bada, zerua husten ikusi genuen, hodeiak **odolusten**. Karlos Linazasoro

«Langileria etengabe **odolusten**» ari dela salatu du CCOOk. Berria - Ekonomia

SAk Espainiako Gobernua egin zuen Navalen «**odolustearen**» erantzule. Berria - Ekonomia

Artean Forumeko barneko jokoak Bilbo Basket **odolustu** zuen. Berria - Kirola

Madrilen Prisa (- %4,5) eta Gamesa (- 2,8) **odolustu** ziren gehien eta Parisen Alcatel (- %4,3), nahiz lehen hiruhilekoan irabaziak iragarri. Berria - Ekonomia

Zapaltzen dituzuen harriak bero dira oraino, sartaldean **odolusten** ari den egunaren oroigarri. Xabier Montoia

Ikusirik "euskal eliza odol **husten** ari zela", girixtino multxo batek berpiztu du Fededunak elkartea. Herria

3 (era burutua izenondo gisa)

Txerri **odolustua** ematen nian. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

odolustu gabeko abererik (3)

odolustuta hil (7); **odolustuta hil zen** (3)

odolustutze ik odoluste.

odoluzki *iz* uzkiko odol zaineetako barize motako hedapena.

Odoluzkiak bi motatakoak izan daitezke: barnekoak edo kanpokoak. Berria - Gaiak

Beste tratamendu bat ere aholka dezake medikuak **odoluzkien** garapena geldiarazteko. Berria - Gaiak

Hilabete batez besterik ez bazen ere, zelai zabalez inguratutik eta udaberria esnatzen hasia zela hain herrixka ederrean atsedean hartzea onuragarria zen are **odoluzkientzat** ere. Jose Morales

Batzuetan **odoluzki** batek edo beste edozerk galarazi egingo digu uzkiko koitua egitea. Luis Elberdin

Botikara joan eta **odoluzkien** kontrako pomada bat erosten du. Berria - Gaiak

Arkakusoa bezain zirikatzailea, mandeulia bezain nazkagarria, izurdea bezain argia, Akiles bezain heroikoa, **odoluzkiak** bezain desegokia. Jon Alonso

Gizon bat mahaiaren gaineko aldizkariak nahaspilatzen ari zen, beltzuri, **odoluzki** gaiztotu baten jabe bezain. Aingeru Epaltza

odolzale (*58 agerraldi, 30 liburu eta artikulu 1ean; orobat odolozale g.er.*) 1 izond odol isurtzearen zalea dena. ik odolgiro. (pertsona eda kidekoak)

Rafael Leonidas Trujillo **odolzaleak** ostikada haiek jotzea plazera izan zuenik, dudarik ez, ostera. Edorta Jimenez

Saiatu nintzen kontra egiten, Carrero **odolzale** nazkagarri bat zela; Adelaren aita hil zutenen agintarietakoa, gainera. Juan Kruz Igerabide

Izaki **odolzaleen**, hiltzaileen eta borroeroen izaera misteriozko horretatik zerbait zeukan gizon hark. Koro Navarro

Eskuekin egiten nuen amets [...] eta putzu ilunekin, eta jainko **odolzaleekin**. Iban Zaldúa

Ez ditugu aberkideak barbaro **odolzale** batzuen eskuetan uzten ahal. Xabier Montoia

Epaile **odolzale** amorratuak ezagutu dira; horrelakoa izan da Jeffreys Ingalaterran; horrelakoa izan zen lepamoztailea deituriko gizon bat ere Frantzian. Juan Martin

Elexpuru **odolzale**

Kritias izan zen lapurrena eta **odolzaleena** oligarkiarekin boterean egon zirenen artean. Askoren artean

Ahalegin guztiarekin egin behar diogu borroka **odolzaleari**, baina gu geu **odolzale** bihurtu gabe. Juan Kruz Igerabide

2 (bestelakoak)

Iheslariek borrokan egin behar izan zuten piztia **odolzale** haien kontra. Karlos Zabala

Benjamin, otso **odolzale**, harrapakina du irensten goizean, hondarrak banatzen arratsean. Elizen arteko biblia

Zuk, gizaseme, epaitu, epaitu gogor hiri **odolzalea**, aurpegiratu beraren jokabide higuingarria! Elizen arteko biblia

Orduantxe konturatu zen bere eskuin eskuan, irmo hartuta, Birgha ezpata **odolzalea** zeukala. Joanes Urkixo

Bidean, zezenketen afixak ugalduz doaz eta, horiek sarriago ikustean Bilboko publiko gupidagabearen jarrera **odolzalez** idatzi zuena etorri zaio gogora Ernest Hemingwayri. Edorta Jimenez

Ordurako, bele kuxkuxeroak zerurantz joanak ziren, kakaraka, behin beren gaiztakeria **odolzalea** burututa. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiri odolzalea (4)

odolzalekeria (*corpusean odol-zalekeria soilik*) iz odolzaletasun gaitzesgarria.

Otsoak bortizkeria itsua, ankerkeria, **odol-zalekeria** eta, oro har, gaizkia ordezkutzen du; baina baita indarra, ausardia, askatasuna -hezigailtasuna- eta gizakiok miresten ditugun beste dohain asko ere. Martin Anso

odolzaletasun iz odolzalea denaren nolakotasuna.

Areago joan zen bortizkerian eta **odolzaletasunean** ... Askoren artean

odolzikin iz

Zuek, **odolzikinak**, izango zarete hurrengoak! **Iñaki Mendiguren**

-Potter deuna, **Odolzikinen** laguna -esan zuen Malfoy astiro-. **Iñaki Mendiguren**

-Tira, zoaz eritegira eta eman ostiko bat nire partetik **odolzikin** horiei guztiei -esan zion Malfoy, barre isila eginez-. **Iñaki Mendiguren**

Laster izango zara zeure ama **odolzikin** maitearekin, Harry... **Iñaki Mendiguren**

odontologia 1 iz medikuntzaren adarra, hortzeriaz eta hortzetako eritasunez aritzen dena.

Haginaría zen, ekinaren poderioz ikasia baina, egundo ez baitzen eskolan ibili, ez **odontologiakoan** ez bestelakoetan. **Patxi Zubizarreta**

Odontologia mekanikoa, biderik laburrena arrakasta eskuratzeko... **Lopez de Arana**

Quiron Klinikako Estomatologia eta **Odontologiako** Zerbitziburua. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Quiron Klinikako **Odontologia** Zerbitzuko burua. **Berria - Euskal Herria**

Garaí hartan sortu genituen Arkitektura, Arte Ederrak, Farmazia eta **Odontologia** fakultateak. **Berria - Harian**

odontologo iz odontologian espezialista den medikua. ik dentista.

Horregatik hartu zuten haginaría, dentista eta **odontologoek** euren zaindarizat. **Pello Zabala**

oe 1 interj ik ohe-ohe-ohe.

Txapeldunak, txapeldunak, **oe**, **oe**, **oe**...! **Joan Mari Irigoien**

Halaxe bukatu baitzuen bere jarduna ere, irri-karkaraka, **oe-oe-oe**, ohe-ohe-ohe! **Joan Mari Irigoien**

2

-Oe, **Oe**, **Oe**, **Oeee**. -kantatzen zuten. **Bernardo Atxaga**

Oeste iz Estatu Batuetako sartaldeko eremua, bereziki idazlan eta filmen kokalekutat hartua.

Oesteko pelikuletan bezala, denok begira hasi gara ea pistola nork ateratzen duen. **Pako Aristi**

Halakoak ziren beti **Oesteko** heroiak, ausartak baina krudelak. **Joseba Sarrionandia**

Karabana han behean doa gurpilen kirrinkarekin eta zapartarekin basamortuko hauts eta hareharri artean **Oeste** alderantz, kolore horiztak eta biolin doinuak horniturik dena.

Joseba Sarrionandia

-Eta gero bai, koloretako pelikula hasi zen eta han geunden gu, **oeste** amerikanoko lautada hautsezatuei begira diligentziaren leihotik. **Joseba Sarrionandia**

ofenditu, ofendi, ofenditzen du ad iraindu.

Komandanteak galdetu zionean: izena, abizena, lanbidea... Tidjani (ez al zekien ba!) guztiz **ofenditu** zen. **Pablo Sastre**

Presiopean zegoen, hunkituta, eta inor **ofenditu** bazuen, ulertu egin behar zaio. **Berria - Mundua**

ofensa ik ofentsa.

ofentsa (orobat ofensa g.er.) iz iraina, laidoa.

Sorgin auzietan ere, maiz ageri da, aker beltzari ipurdian (uzkian) pot emate kontua, kristau xuriekiko **ofentsa** zikin moduan. **Patziku Perurena**

Berotasun handirik gabe ihardetsi zioten nire agurrari, nik ahortzi baina haiek oraino gogoan zeukaten **ofentsa** zaharren baten errefera-edo. **Aingeru Epaltza**

ofentsatu, ofentsatu, ofentsatzen du ad iraindu.

Eta hartzen dut xede zin bat zu gehiago ez **ofentsatzeko** eta zure borondateari amore emateko, amen. **Itxaro Borda**

Ofentsatua sentitu nintzen. **Aingeru Epaltza**

-Zaude isilik, otoi jauna! -oihukatu zuen hark, **ofentsaturik** -. **Elena Touyarou**

ofentsiba 1 iz erasoaldia.

AEBetako Armadak erresistentzia irakiarraren gune gotorren kontrako **ofentsiba** atzeratu egin du. **Berria - Mundua**

Hau bezalako ofizialak izan bagenitu Intxortako **ofentsiba** zoro hartan... **Pablo Sastre**

Azpeitiko AAMK «estatu **ofentsiba** errepresiboa» arbuaitu du .Urte batzuk baziren iraultzak garaipena lortu zuela, baina contren **ofentsibak** gogor jotzen zuen eta Estatu Batuen setio ekonomikoak zaildu egiten zuen dena. **Berria - Euskal Herria**

Momentuan EDFak **ofentsiba** darama Landesetan, lekuko bi bulego hetsiak baitituzte jadanik. **Herria**

-Nazionalak **ofentsiban** zetozenez, ez zidan luze jo haien abangoardiako tropekin topo egiteak. **Alberto Ladron Arana**

Irudi kanpaina bati ere ekin zion, berriro politikoki **ofentsiban** egoteko. **Berria - Mundua**

Frantziak horrelakorik ez badu obratzen ikusi nahi, entzungorren jarrera utzi eta **ofentsibara** pasatu beharko du. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

«Berritze **ofentsiba**» bat iragarri zuen. **Berria - Mundua**

ofentsibo izond erasokoa, eraso-.

Oinarritzko ekipamendu **ofentsiboa**. Israelgo lehen ministro Ariel Sharonek esan zuen «lasaitasuna» egonez gero, «operazio **ofentsibok** etengo» dituela. **Berria - Mundua**

"Etsaiaren taktika **ofentsiboa** al zen?" galdetu zuen Erregeak. **Xabier Olarra**
Algara ozena zen, **ofentsiboa**, barre kuartereroa. **Harkaitz Cano**

oferenda ik **oferenda**.

oferendatu ik **oferendatu**.

oferta 1 *iz* eskaintza.

Sekulako **oferta** aurkitu dut Italiara joateko. **Pako Aristi**

Oferta ekonomikoaren kultura hau suntsitzen hasten ez bagara, berak suntsituko gaitu gu. **Pako Aristi**

2 ofertan egon

Zenbat gauza erosten ditugun **ofertan** daudelako, eta ez behar ditugulako! **Pako Aristi**

Txerri-saiheskia ekarri dut, **ofertan** zegoen eta. **Pako Aristi**

ofertorio *iz* mezaren partea Jainkoari ogia eta ardoa eskaintzen zaizkiona. **ikeskaintza**.

Kanpoko apez batek zuelarik meza emaiten, Donetx-ek berak eskea egiten zuen **ofertorioan**, beretter batek baino larderia gehiago izanez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ofertorioan Charles Sabarots gure konfardiako Lendakariak eskaintza bat ofreitu du arrantzako mozkinak aldrean pausatuz. **Herria**

Nola ez aipa **ofertorio**ko otoitza: [...]. **Herria**

off 1 *iz* off-eko ahotsa.

Filmak ikusten ditugunean ez dugu protagonistaren **off**-a behar, zer ari den pentsatzen jakiteko. **Berria - Kultura**

2 off-eko ahots ikusten ez den norbaiten ahotsa.

Ez ohiko egoera horretan zuzendariak berak landu duen gizonezko baten **off**-eko **ahotsak** proba ezberdinak eginarazten dizkie. **Berria - Kultura**

Atal bakoitza **off**-eko **ahots** batek aurkezten du. **Berria - Kultura**

Otso talde bat basoan ilunpean bilduta agertzen da, eta **off**-eko **ahotsak** zera dio: [...]. **Berria - Mundua**

Gure Jainkoak ar eta eme egin gintuen, esango zuen **off**-eko **ahotsak**, eta pantailak orduan haur biluzi biren argazkiak erakutsiko zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Igerilekura jauzi egiten duten andra-gizonak; gazteleraz ari da **off**-eko **ahotsa**. **Jokin Urain**

3 play-off ik **play**.

office *iz* sukalde alboko gela txikia.

Buruan zerabilen distribuzio berriaren arabera, solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteca, jantokia, sukaldea eta **officea**; eta goiko planta familiaren bizitza pribaturako txokoa: sala, jantzitokia, logelak, bainugelak. **Patxi Iturritegi**

offside *iz* jokoz kanpoko egoera. **ikorsai**.

'**Offside**!' eskatu nuen. **Joseba Sarrionandia**

ofizial¹ *izond* legezko aginpidea gauzatzen duten erakundeetatik (gobernetik, administrazioetik...) datorrena; erakunde horiei dagokiona, horiek antolatua, edo horiek erabakirik indarrean dagoena.

Mikhail Sholokhov-ek, *Don ibai baketsua* eleberraren egilea eta sobietar idazle **ofiziala** denbora luzean, [...]. Esan nahi baita John Dee erregina berriaren astrologo **ofizial** bilakatu zela. **Iban Zaldúa**

Horrek artean enbaxadore **ofizial** dagoen Bowers-i idatzi dio apirilaren 14an. **Edorta Jimenez**

Omsk hiria mendebaldeko Siberiako hiriburu **ofiziala** da. **Karlos Zabala**

Pertsieraren ordeze ingelesa administrazio inperialaren hizkuntza **ofizial** bihurtzeko. **Iñaki Mendiguren**

Hizkuntza **ofizial** bakarra estoniera da, ostera. **Edorta Jimenez**

Hasieran, erromatarren urte **ofiziala** martxoaren 1ean hasten zen. **Iñaki Mendiguren**

Völkischer Beobachter zen, NSDAP alderdiaren egunkari **ofiziala**, München bertan egina. **Alberto Ladron Arana**

Idazki **ofizial** batekin jakinarazi zidaten "lanpostu iraunkorra esleitu" zidatela. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hori da diskurtso **ofiziala**; demokrata guztien eta espainol "ongi jai" guztien diskurtsoa. **Joxe Azurmendi**

Geltokikoaren ostean harrera **ofizialagoa** dator. **Edorta Jimenez**

Argentinako futbol-selekzioaren elastiko **ofizial** bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ligako partida **ofizial** batean. **Joan Mari Irigoien**

Berria irakurri orduko, nire auto **ofizialaren** bila joan naiz. **Alberto Ladron Arana**

Ez zen taxi bat, taxi **ofizial** bat ez behintzat. **Jon Muñoz**

Horietatik guztietatik 2.073 babes **ofizialekoak** izango dira, eta 938, berriz, etxebizitza sozialak. **Berria - Euskal Herria**

Eliz munduan, eliza **ofizialaren** eta herri-mugimenduen arteko tirabirak ere gogorak ziren, mugimendu heretikoek eragin handia baitzuten. **Askoren artean**

2 (predikatu edo adizlagun gisa)

Euskara ez zen **ofiziala**, ez zuen eskolan lekurik. Lehiaketa ez zen **ofiziala**, noski: ez genuen ezer jakin nahi ikastetxearekin. **Koldo Zuazo**

Kabiliari dagokionez, Aljerreko aginteak ebatzi du erreferendum bat egin beharko dela tamazighta **ofizial** bilakatu aurretik. **Berria - Mundua**

1880an Iruñeko gotzainaren baimenez sartu zen **ofizial** Agur hitza aurreneko aldiz euskarazko dotrinetan. **Patziku Perurena**

3 ez-ofizial

Taxi **ez ofizial** bati: aireportutik etortzeko horia, baina aireportura joateko **ez-ofiziala**. **Harkaitz Cano**

Gauza bat bakarria zaukaat lan ez **ofizial** bat baino gogokoagoa, eta bera kolpe **ez-ofizial** bat duk, eta gauza bat bakarria zaukaat kolpe **ez-ofizial** bat baino gogokoagoa,

eta bera sute **ez**-duzuk **ofiziala** Pablo Sastre

Gure gizonari hagitez kitzikagarrigoako zaizkio gizon-emakume horien alderdi "ez-**ofiziala**" ukitzen dutenak. Aingeru Epaltza

Victor Hugorentzat badago askatasunaren eta naturaltasunaren Euskal Herri bat: Euskal Herri **ez ofiziala**, ez politikoki ez eliztarki. Koldo Izagirre

Badakizkite eskolan ikasi ingelesa eta 'filipino' ofiziala, baita ere etxeko hizkuntza "**ez ofiziala**". Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazpen ofizial (3); agiri ofizial (10); bertsio ofizial (3); bilera ofizial (3); dokumentu ofizial (6); egitura ofizial (4); ekitaldi ofizial (6); erakunde ofizial (10)
ez ofizial (16); gutun ofizial (3); hautagai ofizial (4); hizkuntz ofizial (3); hizkuntza ofizial (43); hizkuntza ofizial bakarra (9); hizkuntza ofizial gisa (6); izen ofizial (3)
laguntza ofizial (3); lehen ofizial matxinoaren (3); lehiaketa ofizial (3); modu ofizial (3)
ofizial bihurtu (3); ofizial bihurtzea (3); ofizial bihurtzeko (3); ofizial bilakatu (3); ofizial egin (4); ofizial izan (3); ofizial izango (3); ofizial izatea (7); ofizial izateko (5)
partida ofizial (12); partida ofizial batean (5); sail ofizial (3); talde ofizial (3); titulu ofizial (3); txapelketa ofizial (6); txosten ofizial (6)
adierazpen ofiziala (5); agindua ofiziala (5); agiri ofiziala (6); argazki ofiziala (4); aurkezpen ofiziala (25); aurkezpen ofiziala egin (3); auto ofiziala (4); babes ofiziala (4);
baieztapen ofiziala (4); baimen ofiziala (3); balio ofiziala (10); berri ofiziala (3); bertsio ofiziala (33); bidaia ofiziala (5); bilera ofiziala (5); bisita ofiziala (5); curriculum
ofiziala (3); diru ofiziala (3); diskurtso ofiziala (8)
ejaren jarrera ofiziala (3); egitarau ofiziala (3); egoitza ofiziala (4); ekitaldi ofiziala (24); ekitaldi ofiziala egin (6); erabakia ofiziala (3); erabilera ofiziala (5); erlijio ofiziala
(5); eskaera ofiziala (9); eskola ofiziala (3); estatus ofiziala (4); estreina ofiziala (3); estreinaldi ofiziala (8); estrenaldi ofiziala (3); euroaren truke ofiziala (4); europan
ofiziala izan (3); euskara hizkuntza ofiziala (6); euskara ofiziala (16); euskara ofiziala izan (4); ezagupen ofiziala (3); ezagutza ofiziala (4); harrera ofiziala (16); harrera
ofiziala egin (10); hasiera ofiziala (6); hautagai ofiziala (3); historia ofiziala (9); hizkuntz ofiziala (3); hizkuntza ofiziala (51); hizkuntza ofiziala ez (5); hizkuntza
ofiziala izan (5); hizkuntza ofiziala izango (4); hizkuntza ofiziala izatea (5)
idekitze ofiziala (5); inaugurazio ofiziala (4); informazio ofiziala (4); izaera ofiziala (11); izen ofiziala (24); jarrera ofiziala (10); klubaren onarpen ofiziala (3); kopuru
ofiziala (5); kronista ofiziala (3); kuota ofiziala (4)
onarpen ofiziala (11); ordezkari ofiziala (5); paper ofiziala (3); partida ofiziala (3); politika ofiziala (4); proposamen ofiziala (3); sail ofiziala (20); selekzio ofiziala (5);
sorrera ofiziala (4); taldearen aurkezpen ofiziala (5); titulazio ofiziala (3); truke ofiziala (11); txapelketa ofiziala (6); txosten ofiziala (4)
zerrenda ofiziala (3)
abertzale ofizialak (3); agentzia ofizialak (5); agiri ofizialak (6); aldizkari ofizialak (7); bertsio ofizialak (13); bertsio ofizialak dio (3); bisita ofizialak (4); datu ofizialak (14);
diskurtso ofizialak (3)
ekitaldi ofizialak (5); eliza ofizialak (3); emaitza ofizialak (19); entrenamendu ofizialak (3); eraikin ofizialak (3); erakunde ofizialak (3); erretorika ofizialak (3); eskola
ofizialak (3); ezker abertzale ofizialak (3); gudarosteko ofizialak (3); harreman ofizialak (7); historia ofizialak (8); hizkuntza ofizialak (31)
idazkera ofizialak (3); interes tasa ofizialak (4); iturri ofizialak (6); iturri ofizialak aipatuta (3); lehen entrenamendu ofizialak (3)
ordezkari ofizialak (3); paper ofizialak (3); partida ofizialak (6); perito ofizialak (3); sail ofizialak (3); saio ofizialak (4); sektore ofizialak (3); selekzio ofizialak (7); tasa
ofizialak (4); txosten ofizialak (7)
ildo ofizialarekin (4); sektore ofizialarekin (3)
agentzia ofizialaren arabera (3); bertsio ofizialaren (14); bisita ofizialaren (3); eliza ofizialaren (6); eskola ofizialaren (3); euskararen ezagupen ofizialaren (3); ezagupen
ofizialaren (5); hizkuntza ofizialaren (6); sail ofizialaren barruan (3); txosten ofizialaren (3)
agiri ofizialean (3); aldizkari ofizialean (19); aurkezpen ofizialean (3); auto ofizialean (3); berlineko sail ofizialean (4); bidaia ofizialean (3); bisita ofizialean (20); bisitaldi
ofizialean (3); buletin ofizialean (16); buletin ofizialean argitaratu (4); buletin ofizialean argitaratzen (3); cannesko sail ofizialean (3)
ekitaldi ofizialean (11); era ofizialean (5); espainiako aldizkari ofizialean (5); espainiako buletin ofizialean (8); ez ofizialean (8)
kazeta ofizialean (3); modu ez ofizialean (4); modu ofizialean (17)
orri ofizialean (3); sail ofizialean (71); sail ofizialean aurkeztu (4); sail ofizialean lehiatuko (8); saio ofizialean (3)
web orri ofizialean (3); zinemaldiko sail ofizialean (7)
agintari ofizialek (3); bertsio ofizialek (3); datu ofizialek (4); erakunde ofizialek (10); iturri ofizialek (51); iturri ofizialek azaldu (7); iturri ofizialek esan (3); iturri ofizialek
jakinarazi (3)
babes ofizialeko (137); babes ofizialeko etxe (8); babes ofizialeko etxea (3); babes ofizialeko etxeak (16); babes ofizialeko etxebizitza (13); babes ofizialeko etxebizitzak
(24); babes ofizialeko etxebizitzan (23); babes ofizialeko etxeen (11)
sail ofizialeko (38); sail ofizialeko filmak (4); sail ofizialeko filmen (3); sail ofizialeko lehiaketako (3); sail ofizialeko sari (3); udalek babes ofizialeko (3); zinemaldiko sail
ofizialeko (5)
babes ofizialekoak (23)
babes ofizialekoen (4)
agiri ofizialen (4); bertsio ofizialen (3); datu ofizialen arabera (24); emaitza ofizialen (5); hizkuntza ofizialen (6); iturri ofizialen (112); iturri ofizialen arabera (100); iturri
ofizialen esanetan (7); kongresuko sekretu ofizialen (7); sekretu ofizialen (13); sekretu ofizialen batzordea (3); sekretu ofizialen batzordean (8)
harrera ofizialera (3)
bi hizkuntza ofizialetako (3); entrenamendu ofizialetako (8); entrenamendu ofizialetako denborak (7); erakunde ofizialetako (3); hizkuntza ofizialetako (3)
aurreko entrenamendu ofizialetan (4); bulego ofizialetan (5); datu ofizialetan (5); dokumentu ofizialetan (3); ekitaldi ofizialetan (3); entrenamendu ofizialetan (20); eraikin
ofizialetan (4); ez ofizialetan (5); hizkuntza ofizialetan (6); lan saio ofizialetan (3); lehen entrenamendu ofizialetan (3); lehiaketa ofizialetan (12); partida ofizialetan
(6); saio ofizialetan (4); txapelketa ofizialetan (9)
historia ofizialetik (3); ildo ofizialetik (3); sail ofizialetik (7); sail ofizialetik kanpo (5)
bisita ofizialez (5)
adierazpen ofizialik (4); agiri ofizialik (3); baieztapen ofizialik (3); balio ofizialik (6); berri ofizialik (3); datu ofizialik ez (5); erantzun ofizialik (3); informazio ofizialik (5);
informazio ofizialik ez (3); izaera ofizialik (3); jakinarazpen ofizialik (4); partida ofizialik (4); partida ofizialik jokatu (3)

ofizial² (orobat ofiziale g.er.) 1 iz armadan, maila apaleko buru edo buruzagia, hots, alferrea, lotinanta edo kapitaina.

Bera zen gudarosteko **ofizial** guztien buru lehen hilabetean. Elizen arteko biblia

Etengabe sartuko da jende berria MBR 200en: Yoel Acosta Chirinos, Francisco Arias Cardenas, William Izarra, Gerardo Marquez... ejerzitoko **ofizialak** dira denak. Pako Aristi

Enperadorearen guardiako **ofizialak** sorbaldak goratu zituen. Xabier Olarra

Ehiztariaren Hogeita Bateko **ofizialak**. Anton Garikano

Nazioaren egoerarekin kezkatutik zeuden, ejerzitoko beste **ofizial** eta azpifizial asko bezala. Pako Aristi

Bere agindupeko 3 kapitainak, 7 **ofizialeak** eta 475 soldaduak, preso altxa genituen. Txillardegia

Solasean ziharduen bigarren **ofizialarekin**. Karlos Zabala

Bere gudarí, **ofizial** eta gurditeriaren eta zalditeriaren arduradun egin zituen. Elizen arteko biblia

Hogei bat zaldizkok osatzen zuten destakamendua, eta **ofizial** bat zihoan haien buru. Karlos Zabala

Destakamenduko bi **ofizialak** aurrera etorri dira eta beren gizonak akuilatzen hasi. Karlos Zabala

Haien buru egiten zuena bere herriari traizioa egindako **ofizial** bat zen. Karlos Zabala

Logroñon kuartelean gelditu ziren, eta **ofizial** batek jenerala ikustera igoarazi zuen Martin. Koro Navarro

Soldadu bakoitzaren atzean **ofizial** bat beharko zen, ihes egin ez zezaten. Edorta Jimenez

Hogei bat zaldizkok osatzen zuten destakamendua, eta **ofizial** bat zihoan haien buru. Karlos Zabala

Suitzatik alde egitera behartua zela esan zidanean, ni Thun-en nengoen soldadutzan, **ofizial**. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondoeekin)

Ez du ematen hitza jan izanak asko kezkatzen zuenik **ofizial** italiarra. Jokin Urain

Gure aita gerrara joan zen, **ofizial** mediku gisara, Krasera. Fernando Rey

Errepublikaren Gobernuak zenbait **ofizial** profesional bidali zizkigun Bizkaira. Jokin Urain

Itsas armadako **ofizial** jubilatua bat. Joseba Urteaga

Porter Goss CIAko operazio **ofizial** beteranoa da. Berria - Mundua

Hango irakasleak **ofizial** erretiratuak ziren. Xabier Olarra

Khale prusiar **ofizial** ohia. Lutxo Egia

Batzuk eta besteak **ofizial** militarrek eta zibilak ziren aldi berean. Iñaki Iñurrieta

3 administrazioan eta kidekoetan, maila apaleko burua.

Dirudienez, zerbitzu sekretuetako **ofizial** batek oker itzuli zuen alemanei irratiz harrapatutako mezu bat. Iñigo Aranbarri

Hiru gizon sartu ziren, eta oso adeitsu aurkeztu zituzten beren buruak poliziako **ofizial** gisa. Koro Navarro

Leviren aurretik pasatu den René horren fitxa ezkerrean bideratu du **ofizialak**, eta ezkerre heriotza da, giltzapetuek geroago jakingo duten bezala; Levirena eskuinera joango da, eta bizitza esan nahiko du horrek. Iban Zaldúa

Jadanik ez zegoen probintzietara **ofizial** bereziak bidaltzeko ohitura, justizi administrazioaren eta arazo politikoen begirale. Iñaki Iñurrieta

Antioiko erregeak **ofizial** zerga-biltzaile bat bidali zuen Judeako hirietara. Elizen arteko biblia

Bikario zeritzen **ofizial** batzuk zituzten beren esanetara; eta gizon guztiak ehunekotan [...] banatuta zeudenez, kondeek zenturioi izeneko **ofizialak** ere bazituzten beren aginduetara. Iñaki Iñurrieta

-Ez da beharrezkoa, **ofizial** jauna: nire bizkarra zaintzeaz Jaungoikoa arduratuko da. Koldo Biguri

Zerbitzuetako **ofizialak** begiratu egin zidan: [...]. Juan Kruz Igerabide

Elkar maitasunaren eta bakearen batasuna gordetzeko, monasterioko **ofizialak** ahizpa guztien oniritziak hautatuko dira. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sarrera-gelan neure **ofizial**-eskularruak eta neure **ofizial**-boneta janzen ari nintzela, berriro deitu zioten leihatilara: klarionaren pare zurbildu zen Hanna. Hiru herrialde horien historiak berezitasun paradoxiko bat erakusten du: armadako **ofizial**-taldeak iraultza "liberalak" gidatzen. Joxe Austin Arrieta

Mikel Strogoff tsararen mandatarien gorputz bereziko kidea zen, eta **ofizial** maila zeukan gizon hautatu horien artean. Karlos Zabala

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bidezaingo Zuzendaritzako administrari-**ofiziala**. Aingeru Epaltza

Gauza jakina da, Le Blanc-en dendatik desagertu zen astean, neska itsas **ofizial** gazte batekin ibili zela. Koro Navarro

Eta orain, amesgaizto sukartsu batean bezala, SSetako goi **ofizial** bihurtuta agertzen zitzaidan. Alberto Ladron Arana

6 (*orobat ofiziale*) eskulanetan, aprendizaren eta maisuaren mailen arteko pertsona. ikofiziale.

Oraindik ongi gogoan dut **ofizial** aritzen zen neska bat, neska ilehori bat, nekazaría, egun batean gure amari jostun lanetan laguntzera etorri zena. Pello Lizarralde

Udaberriean kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzailak eta zurginak, arozak eta kisuginak, beren maisu, peoi, **ofiziale** eta ikastunekin. Aingeru Epaltza

- Martinek mutil frantses-euskaldun bat aukeratu zuen atzelari, Artxipiren okindegian **ofiziale** zegoena eta Bautista Urbide deitzen zena. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armadako ofizial (12); itsas armadako ofizial (3); itsas ofizial (3); itsasontziko lehen ofizial (3)

ofizial gazte (6); ofizial gazteak (4); ofizial ilehoria (8); ofizial ilehoriak (7); ofizial ilehoriari (3); ofizial matxinoaren (3); ofizial nagusia (3); ofizial ohia (6)

poliziako ofizial (5)

argazkiko ofiziala (3); armadako ofiziala (4); ofiziala igorri (3)

armadako ofizialak (6); ofizialak eta soldaduak (3)

eskualdeko ofizialen (8)

ofizialdu, ofizial(du), ofizialtzen 1 du ad ofizial bihurtu. ik ofizializatu.

Kamino-bazter eta zangetan tiroz hildakoen historia inoiz **ofizialdu** gabekoak istorio bilakatuta iritsi zaizkigu maiz, ahozko transmisioaren kateari esker. Jokin Urain

Batasunaren eta alderdi sozialistaren arteko harremanak noizbait **ofizialtzeko** bidea irekitzeko edo errazteko. Berria - Euskal Herria

Liberalek Espainia-Nazio mitiko bat demokratiko samarra asmatu dute, Menéndez Pelayok berehalaxe beste mitologia batekin, tradizionalista eta katolikoa, lurrazpiratu diena, hau **ofizialdu** baitu irakaskuntza frankistak luzaro, gaurdainoko ondare zabala utziz. Joxe Azurmendi

2 (era burutua izenondo gisa)

Asteartean *Berria*-k atera zuen gehigarria hori izan baitzen batez ere, berdintasun **ofizialduaren** izenean egindako irain gaitzigarria. Iñigo Aranbarri

ofiziale 1 iz ipar hargintza, zurgintza eta kideko lanak bere kontu egiten dituen eskuzko langilea.

Ofiziale batzu kausitzen ahalko dira hor, hargin, zurgin eta beste, zer nola egiten duten erakutsiko dutenak. Herria

Ofizialeen erakusketa, oihalpean: muble, margo, argazki, oihal, larru, harri, etxe-mozkin... Herria

Ofizialeen Ganbarak bultzatzen du indar guziez "Ofizioen unibertsitatea" Baionan, Pauen jadanik eraikia den bezalakoa. Herria

Bruthe Jean-Bernard, Elektriikan **ofiziale**. Herria

Mendibil Dominique, **ofiziale** tindatzale. Herria

Larre Jean Pierre, 46 urte, *Gure Amentsa*, **ofiziale**, hargina. Herria

Mahaxtura zen, biziki **ofiziale** fina eta lan onekoa. Herria

Gaineratikoentzat badira kutxa bereziak, horietan dira besteak beste laborari, **ofiziale**, arrantzale, burdin-bidetako langile eta soldadoak. Herria

Lan eremu horietan kokatzen diren **ofiziale** edo enpresek, urteko zerga, herrien arteko zindikatari dute pagatzen, diru zama hunen erdia Aiherra herriari berriz itzultzen delarik. Herria

Badakizu, Beñat, **ofiziale** onak ez duela lanabes kamutsik. Koldo Izagirre

Jada 16 **ofiziale** bagira, bakoitzak guharen lantegiak eta bete beharrekin. Herria

Baiona Tipia, langile, **ofiziale** eta etorkinen auzotegia zen. Elena Touyarou

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baionan aprendizaren saristapenean **Ofiziale** Ganbarako buruzagiek egin dituzten deklarapenak. Herria

Udako hiru hilabete horietan sortu baitira 104 **ofiziale** enpresa, 125 zerrendetarik kenduak izan direlarik denbora berean. Herria

14 urtetik goiti **ofiziale** ikasketen bidez lan munduan sartzeko aukeraren alde bozkatu zuen [...] Frantziako Legebiltzarreko diputatuen gehiengoak. Berria - Ekonomia

Eta enetako Euskal Herria salbatzeko edo gizarte osoa eraikitzeko, laborari mundua, **ofiziale** mundua, arrantza mundua, ekonomia mundua gogoan izan behar dugu... Bai, papereztatzaile gisa lan egiten nuen **ofiziale**-artisau batekin. Menane Oxandabaratz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriko ofiziale (3); ofiziale eta artixta (3)

ofizialeen ganbara (3); ofizialeen ganbarak (3)

ofizialgai iz ofizial izateko prestatzen dari den pertsona.

ofizialgintza *iz ipar*

Kontsumorako ekoizpen gehienak lekuan bertan ekoiztea proposatzen du, **ofizialgintzaren** eta laborantzaren bidez. Berria - Euskal Herria

ofizialisatu ik ofizializatu.

ofizialismo *iz* gobernuari eusten dioten ideologiaren multzoa.

Ofizialismoaren ordezkariak neoliberalismoa sostengatzen duela eta euren jarrera eskuinaren porrota eragiteko baino ez dela gaineratu zuten. Berria - Mundua
Bacheletek, halaber, **ofizialismoaren** eta herrialdeko kultur ordezkariaren babesa jaso du. Berria - Mundua

ofizialista 1 *izond* ofizialismoarena, ofizialismoari dagokiona.

Julianek berehala erreparatu zion taberna barruko giro **ofizialistari**. Pedro Alberdi
Senatuko 102 ordezkarietatik, berriz, 61 lortu zituzten alderdi **ofizialistek**. Berria - Mundua
Alberto Jordan Hernandez zutabegileak zera dio, [...]: «CNE Hauteskunde Kontseilu Nazionalen ordezkaritza **ofizialistak** duen konplizitate lotsagarriak Venezuelako Errepublikari Bolibartarraren Konstituzioari kolpea ematen lagundu dio Hugo Chavez». Berria - Mundua

• 2 *iz* ofizialismoaren jarraitzailea.

Hiriburuan, oposizioak eta **ofizialistek**, ez zuten amore ematen ez zituzten nazioartearen proposamenak aintzat hartu eta krisiak dimisioa eragin zuten. Berria - Harian
Maily **ofizialistaren** izendatzeak ez du inor harritu, are gutxiago Jean Claude Mallet beste hautagaia izan behar zuen sektore moderatukoak lehiazarri uko egin ondoren. Berria - Ekonomia

• 3 *izond* egoera ofizialari dagokiona.

Borroka armatua eta kale borroka ia hibernazio egoeran daudenez, ezker abertzale **ofizialista** bide zibilaren saioa egiten ari da dagoeneko de facto. Berria - Euskal Herria

ofizializatu, ofizializa, ofizializatzen 1 du *ad* ofizial bihurtu. ik ofizialdu.

Federazioak **ofizializatutako** proba da, eta hilaren 24an jokatu da. Berria - Kirola
Bisak, nortasun agiriak, zernahi baimenak, ezkontzak **ofizializatze** behar ziren agiriak... eta abar. Ramuntxo Etxeberri
Antzuola eta Aiherra herriek, beren anaitasun edo adixkidetasuna hitzarmen baten bidez **ofizializatuko** dute, bai Aiherrako herriko etxean eta bai Antzuolako udaletxean. Herria
Uztailaren azken egunetan deituko da hauteskundeetara, abuztu hasieran zerrendak aurkeztuko dira, eta bukaeran **ofizializatuak** izango dira. Berria - Kirola
Bestaren antolatzaileek, horrelako ekimenen bidez eta euskara karrikara ateraz, «hautetsiak euskara **ofizializatzer**a» bultzatu nahi dituzte. Berria - Euskal Herria
Atzoko ekitaldiak errektorearen kargua **ofizializatu** zuen (ez, berez, taldekideena). Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Agian hobea irudituko zain tortura, heriotza **ofizializatu**a, zeremonia bat egin eta zementua jartzea heriotzaren inguruan, barroteen itzalean... Harkaitz Cano

ofizializatze *iz* ofizial bihurtzea.

Aste honetan, Frantziako Atzerri ministro Michel Barnierrek hizkuntza gutxituak Europako Batasunean **ofizializatzearen** aurka dagoela adierazi du. Berria - Ekonomia

ofizializazio *iz* ofizializatzea.

Idazle katalanen eta idazle ingelesen PEN klubek aurkeztu dute Euskal PEN Kluba, eta Galiziako, Espainiako eta Iberoamerikako Federazioko PEN klubek ere babesa eman diote Euskal PEN Klubaren **ofizializazioari**. Berria - Kultura
Vilaweb egunkari elektronikoak, San Joan bezpera zela eta, kanpaina bat abiatu zuen, katalanaren **ofizializazioa** eskatzeko Europako Batasunari, Irlandari, Espainiari eta Frantziari. Berria - Mundua

ofizialkeria *iz* ofizialtasun gaitzesgarria.

Zenbat exekutoria, zenbat armari, ijito euskaldunenak, gerra eta **ofizialkeria** aitzakia beren gutiustea nobletu nahian. Patziku Perurena

ofizialki (*orobat ofizielki g.er.*) *adlag* era ofizialean.

Ofizialki, Garbiketa Espezialeko Taldea dira, nahiz eta, egiten dutena eginda, Garbiketa Etnikoko Talde izena eman jendeak alkatearen garbitzaile kutunei. Urtzi Urrutikoeetxea
Ez ziren esklaboak **ofizialki**, baina esklaboak ziren benetan. Karlos Zabala
1982ko abuztuan, Mexikok ezin ziela bere konpromisoei aurre egin **ofizialki** adierazi zuenean, [...]. Koro Navarro
Espainiarrek **ofizialki** existitzen dena bakarrik onartzeko joera baitute. Joxerra Garzia
Kasinoak Hong Kongen **ofizialki** debekatuak baitziren, hango biztanleak hasi ziren eguneroko joan-jinen egiten Makaoraino. Ramuntxo Etxeberri
Gaurdaino, ez du inork sekula **ofizialki** aitortu haiek pairatu zuten bidegabekeria. Mirentxu Larrañaga
Ofizialki bai, adin jakin batean ume izateari utzi egiten diogu **ofizialki**, eta bihurtzen gara lehenik gazte, gero heldu, geroago zahar. Joxerra Garzia
Frantziak gerla deklaratzeko dako **ofizialki** Espainiari 1793ko martxoaren 8an. Michel Oronoz
Beste helburu batzuetarako *koiné* atikoa erabiltzen jarraitu zuten **ofizialki** erabilia aurkitu zuten alde guztietan. Iñaki Mendiguren
Euskara kontuetan aditua ni neu nintzen, **ofizialki** behintzat. Joxerra Garzia
Nationalité française; erran nahi baita, euskara garbian, naziotasunez frantsesak gabela, **ofizialki**, guztiok. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egin du ofizialki (3); hasi zen ofizialki (3); hasiko da ofizialki (3); iragarri zuen ofizialki (3)

ofizialki aurkeztu (3); ofizialki baieztatu (6); ofizialki egin (5); ofizialki egiten (3); ofizialki eman (3); ofizialki estreinatu (3); ofizialki hartu (3); ofizialki hasi (3); ofizialki izenpetu (3); ofizialki jakin (6); ofizialki jakin arazi (3); ofizialki jakinarazi (8); ofizialki lehiatzeko (5); ofizialki onartu (11); ofizialki onartua (3)

ofizialkide *iz* ofizial-laguna.

Jehuk esan zien bere **ofizialkideei** : -Nire alde baldin bazaudete, ez dezala inork ere ihes egin hiri honetatik, egin dugunaren berri Izreelera eramatera. **Elizen arteko biblia**

ofizialkidetza *iz* koofizialtasuna.

Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan salatu ditu giza eskubideak, euskararen aldeko babesa, hizkuntzen pausoz pausoko garatzea eta **ofizialkidetza** oinarriak hausten dituzten arauak. **Herria**

ofizialorde *iz* azpiofiziala.

Hochedé **ofizialorde** ohi bat da, oraindik orain tenienteorde izendatua. **Josu Zabaleta**

Armadako Miguel Krasnoff eta Marcelo Moren brigadier ohiak, Rolf Wenderoth koronel ohiak, Basclay Zapara **ofizialordea** eta Osvaldo Romo dira auzipetuak. **Berria - Mundua**

Jada kapitain bat eta 20 **ofizialorde** behin-behineko kargugabetu dituzte. **Berria - Mundua**

Airez aire itzuli ziguten, goizalde batean -"etsaia heldu zelakoan"- guardiako **ofizialordea** garitatik tirokatu eta. **Aingeru Epaltza**

Nire herriko gudarientzat eta **ofizialordeentzat** . **Josu Zabaleta**

ofizialtasun 1 *iz* ofiziala denaren nolakotasuna.

Ezin dugu ahaztu, maila honetan, izaera ofiziala, estatuek ematen dietela tituluei, eta gure kasuan, Espainiako eta Frantziako estatuak direla **ofizialtasun** hori definitzen dutenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ofizialtasun ofiziala botereen aldetik etortzen da, errealtatean ezagupen hori egina delarik. **Berria - Harian**

Multzo batetik bestera, beraz, jauzi mortal izugarria dago: **ofizialtasun** guztien gainetik edo azpitik bizitzen ziren izenetatik, **ofizialtasunik** gabe deus ez diren izenetara. **Iñaki Segurola**

Napartheid Komikilari taldea, 1988an Iruñean sortua, Nafarroan euskararen **ofizialtasuna** arautzen duen legea salatzen. **Iñaki Arranz**

Ikurrinaren onarpenaz idatzi, **ofizialtasunaren** aldeko borroka kontatu gabe? **Alberto Barandiaren**

Orain Europako Batasunaren bigarren mailako **ofizialtasun** bat ere ukatzen digu. **Berria - Euskal Herria**

Idazkiok **ofizialtasunez** jantziak eta arau-emaileak dira, hizkera literarioagoa dute eta hiztegia eta estiloa ere zainduagoak. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskarak lehenetsunezko **ofizialtasun** estatusa izan behar duela eta Espainiako Konstituzioak jartzen dizkion mugak gainditu behar dituela. **Berria - Euskal Herria**

Andres Urrutia euskaltzainburuak berriz, euskarak Ipar Euskal Herrian eta Europan duen **ofizialtasun** mailaren inguruko gogoeta egin du bere idatzian. **Berria - Kultura**

Euskarak beharrezko duen lege babesa izatea eta Euskal Herri osorako euskararen **ofizialtasun** egoera lortzea. **Berria - Euskal Herria**

Euskarak estatus legal bakarra ez izatea, **ofizialtasun** eza eta lurralde osorako hizkuntza politika bakarra ez izatea. **Berria - Euskal Herria**

Aipatuz ere euskarak jasan dituen trabak, **ofizialtasun** eskasean besteak beste. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskararen ofizialtasun (3)

benetako ofizialtasuna (5)

euskal selekzioaren ofizialtasuna (3); euskararen ofizialtasuna (114); euskararen ofizialtasuna aitortzeko (4); euskararen ofizialtasuna aldarrikatu (5); euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen (4); euskararen ofizialtasuna eskatu (7); euskarari ofizialtasuna (4)

galizieraren ofizialtasuna (3); hizkuntzaren ofizialtasuna (3); hizkuntzen ofizialtasuna (8)

ofizialtasuna aitortzeko (5); ofizialtasuna aitortzeko eskatu (4); ofizialtasuna aldarrikatu (9); ofizialtasuna aldarrikatuz (3); ofizialtasuna aldarrikatzen (6); ofizialtasuna behar (3); ofizialtasuna eskatu (12); ofizialtasuna eskatzeko (5); ofizialtasuna eskatzen (4); ofizialtasuna irabazi (4); ofizialtasuna lortzea (4); ofizialtasuna lortzeko (5); ofizialtasuna ukatzen (4)

selekzioaren ofizialtasuna (3); selekzioen ofizialtasuna (3)

ofizialtze *iz* ofizial bihurtzea.

UGTren eta LABen arteko bilera Batasunaren eta alderdi sozialistaren arteko bileren **ofizialtzeari** bidea irekitzeko modu bat izan dela interpretatu dute askok. **Berria - Euskal Herria**

ofiziante *iz* elizkizunburua; zeremoniaturua.

Amak [...] hilarietako prediku-otoitza zela erran zigan, **ofiziantek** aldikal errepikatu ohi zuena. **Jose Angel Irigaray**

Seko sinestua bainago, egungo gizarteko parasitorik ugalkorrena eta irrikatuena dela **ofiziante** klase berri hori. **Patziku Perurena**

ofiziar *iz/izond ipar* ofiziala; karguduna. ik ofizier.

AEBetako Armadako marine indarren **ofiziar** David Holahanek. **Berria - Mundua**

CGT, FO, CFTC, CGC eta marinel **ofiziar** sindikatuak osatutako elkargoaren izenean mintzatu zen Israel eta akordioa galarazteko ekintzak bultzatuko dituztela iragarri zuen. **Berria - Mundua**

30-40 palestinar polizia **ofiziar** Egiptoratu joatea, 6 hilabeterako trebakuntza bat jarraitzerat. **Berria - Mundua**

· Diuanian, Saddam Hussein agintean zelarik, Aire Armadako **ofiziar** zegoen bat tiroz hil zuten. **Berria - Mundua**

ofiziatu, ofizia(tu), ofiziatzen 1 du *ad* mezaz mintzatuz, esan, eman.

Eliza ere gainezka zegoen, jaun inkisidorea, dominikoen ordenakoa, meza **ofiziatzen** hasi zenean. **Joan Mari Irigoien**

· Beauvais-eko elizbarrutian **ofiziatu** zuen aurrea. **Juan Garzia**

2 zerbeit gisa aritu.

Magrisek **ofiziatzen** du, Triesten dagoenetan, tertuliaren gidaritza. **Anjel Lertxundi**

ofizielki ik ofizialki.

ofizier 1 iz ipar armadako ofiziala.

Gizon galtze haundiak izan ziren ene erresimenduan, oinezko 16.ean, soldado eta **ofizier**. **Michel Oronoz**

Leclerc-en dibizioneko **ofizier** zenbait berriketa jin ziren, ahal zuteneko, eta Kurutze Gorriari dei egin zioten. **Marzel Etxehandi**

Ez aitzinamendu aski handia, nonbait, konboiaren buru diren **ofizieren** lasaitzeko. **Xabier Montoia**

Uztailaren 20-an, 1944-ean, Normandian Alemanak gibelka hasiak zirela, Ekialdean berdin Errusiarrak ezin atxikiz, aleman **ofizier** batzu Von Stauffenberg kolonela buru zutela bonba bat ezarri zuten Hitler bere militar nagusiekin bildua zen gelan. **Herria**

Hortan ginen, **ofizier** frantses bat jin zitzaionean, preso batek lagundurik. **Marzel Etxehandi**

Lotseriak hartzen zuen zenbait aldiz bereziki **ofizier** SS batek ostiko bat ederra eman zion arrats hartan. **Marzel Etxehandi**

S.S. **ofizier** batek hartzen gitu itzultzale bat lagun eta, idor eta haundikor, deplauki botatzen dauku: "Ihes egitera entseatuko dena, herioaz zigortua izanen da!". **Michel Oronoz**

Bistan da, preso bat zen, alemana, 4/5 galonetako **ofiziera**. **Marzel Etxehandi**

Louis Aljerian **ofizier** izana zen. **Piarres Aintziart**

2 (hitz elkartuetan)

Honek, eüskaldün izanik ere, gerla egin dü Nafarroaren aitzia eta kontre, Espainiako erregearen armadak, **ofizier** kargüan. **Herria**

Horra gure apez-gai gaztea, eta ez zitaken bakarra, borroka gogorrean bere kontzientziarekin **ofizier** eskolak errefusatu, gerla eta hiltzea errefusatu. **Herria**

Eta guk banekien, berak erranik, informazio **ofizierak** plazer hartzen zuela galdeketa egitean. **Piarres Aintziart**

ofizina iz bulegoa.

Kafkak bere andregaiak bidalitako gutunak **ofizinan** -eta ez etxean- jasotzen zituela. **Pedro Alberdi**

Hamarka **ofizina** eta denda dituzte inguruetan: hortxe aurrean bertan BBVren sukurtsal bat, Trabajo Temporal SA-ren bulego nagusia, eta baita auto frantsesen kontzesionario bat ere. **Iban Zaldúa**

Horrela segitu genuen, kontu-kontari, ordu laurden batez, **ofizina** zuzendaria azaldu zen arte. **Iban Zaldúa**

Eibarren **ofizinetako** jendea beharginak baino ordubate beranduago sartzen da lanera, bai goizean bai arratsaldean. **Pedro Alberdi**

Karabiniereen **ofizina** hori hutsik egonen da gaeuz. **Joseba Sarrionandia**

Parrokiako koruan ere abestu nuen umetan, Don Klaudioarekin, herriko paper-olako **ofizinan** hasi nintzenezan utzi behar izan nuen arte. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lepo-zuriak **ofizinetako** langileak dira (alkandora zuridunak, nolabait), eta lepo-urdinak berriz ekoizpen-langileak (mahonezko jantxidunak, alegia). **Iñaki Heras**

Orduan gogoratu zuen esana ziola **ofizina** amaitu ondoren Oreitiara joatekoa zela, lan pixka bat egitera. **Iban Zaldúa**

Assicurazioni Generalin nago, eta ez dut esperantza galtzen egunen batean urrutiko herriren bateko besaulkietan esertzeko, **ofizinare** leihoetatik azukre-kanabera soloako edo hilerrri mahomatarak ikusteko. **Pedro Alberdi**

ofizinista iz bulegaria.

Greba baten indarra gizarte osoan zegoak, gizartearen zati guztiak batera atera behar ditek kalera, langileek, **ofizinistek**, tabernariak... **Pako Aristi**

Ofizinistek, berriz, ez dute beren aldetik ezer egiten haien gorrotoa baretzeko. **Pedro Alberdi**

ofizio 1 iz lanbidea, ogibidea.

Itsasaldetik, bertako lanbide, **ofizio** eta ogibidearekin loturik ageri zaigu, gaurko egunak markatzen zuen mugarri ezagun honekiko lotura. **Pello Zabala**

Horregatik ez zen, idaztea edo pintatzea, **ofizio** bat, ikasi egin zitekeen zerbait. **Bernardo Atxaga**

- **Ofizio** asko dakizkizu... **Joan Mari Irigoien**

Lanean bai baina **ofizioa** ez dakien langilearena ere alboan irakasle bat jarrita erremedia zitekeen ausia. **Joxerra Garzia**

Bere **ofizioa** erakusten ere saiatu zen gogotik. **Pello Zabala**

Gazte batek erraiten badauzu nahi duela arrantzale izan, kontseilatuko duzu **ofizio** hori hautatzea? **Menane Oxandabaratz**

Izan ere, gure **ofizio** hau soldadua bezalakoa da. **Joan Mari Irigoien**

Galdegiten nizan ea **ofizio** bat bazenuenez. **Eneko Bidegain**

Haur bakoitzak etorkizunean bere gurasoen **ofizio** berbera izango duela. **Iñaki Heras**

Nire gurasoen helburua etxeko neskoi **ofizioa** ematea zen. **Ana Urkiza**

Langile bati, lanposturen baten jabe egin nahi duenean, lanpostu horretan egin beharko duen langintzan trebe izatea eskatzen zaio: **ofizioa** menderatzea, alegia. **Joxerra Garzia**

Eta, nola herri bakoitzak, kongregazione edo kofradia bakoitzak, baita **ofizio** bakoitzeko gremioak ere, norik bere patroina duen [...]. **Joan Mari Irigoien**

Afizioa **ofizio** bihurtu zitzaidan gero, eta horrek, egia esan, puska dezentea kendu zion nire bertso gozatzeari. **Berria - Kultura**

Auzira jin den publiko zabala, ehun bat jende **ofizioko** jantzitan hor ziren hirurogei abokaten ondoan, oren bat berden egon behar izan da kanpoan, polizak auzitegiko sarrera gelara sartzea debekatzen baitzion. **Herria**

ik ofizioko.

2 (izenondoekin)

Handik bueltan **ofizio** serio bat ikasi zuen, Eibarko armeria batean. **Pako Aristi**

Behere-mailako funtzionario bilakatuagatik, **ofizio** onak zituzten denek. **Itxaro Borda**

Letratua izan behar zuela eta letratua izan behar zuela, letratuarena pintorearena baino **ofizio** duinagoa zelako. **Joan Mari Irigoien**

Kasetaritzea da, dudarik gabe, **ofizio** ederrenetarik; betezazue zuzenki euskaldunen eta euskararen onerako. **Herria**

Bat-batean neure begien aurrean ikusten nuen zer **ofizio** zitala zen nirea. **Matías Múgica**

Horra **ofizio** petrala, bat bada: denborari itxura hartzen saiatu beharra! **Pello Zabala**

Ofizio liberaleri, mediku, abokat, notario eta horier ez. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez ikusiarena egiten saiatzen ziren, baina - **ofizio** senak hala salatzen zidan-aldi berean mesfidantza apur bat ere bazuten berekin. **Matías Múgica**

Ez zuen bere lana kobratzen: jende gehiena berarengana zihoanez, **ofizio**-lagunek salaketa sartu, eta, 305. urtean, kristauen aurkako jazapen garaian, lepoa moztu zioten. **Pello Zabala**

Arrantzaleek eta itsas-ikastegiak arduratzen direnek goiz bat osoa eman dute portu hegi hortan itsasoko **ofizio** mota guztiak hobeki ezagutarazi beharrez. **Herria**

Ofizio Etxea lan esperientziarik gabeko 25 urtetik beherakoei bideratuta dago, eta Enplegu tailerra 25 urtetik gorakoei. **Berria - Ekonomia**

Zientzia eta tekniken "maîtrise" delakoa, IUP (baxotik goiti hiru urte **ofizio** ikasketa diploma) bilakatuko dena. Herria

Ofizio eskola bati buruz igorri zuen eta harri zizelkari CAPEa pasatu. Herria

Pauen jadanik idekia dutenez gain gisa horretako **"Ofizio** unibertsitatea", zergatik beste bat Baionan? Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere liburuan, bere esperientziatik abiatuz, garai hartan arkitekto: **ofizioa** zer zen azaltzen saiatu zen xehetasun guztiarekin. Santiago Iruretagoiena

Ea, bada, pobreen abokatu horrek, bete ezazu gurekin zeure zaindari **ofizioa**, Aitak ezarritako epea bete arte. Askoren artean

Gustatzen baitzitzaidan ene papereztatzaile **ofizioa**. Daniel Landart

Ministro eta predikariei ongi jokatzeraz eragiten zien, esanez prelatu- **ofizioak** eta predikazioaren ardurak ez zietela inola ere eragotzi behar oitutz santu debotoa, ezta limosna eske joatea ere. Askoren artean

5 ofizioa menderatzea.

Ibilbide horretan konturatu naiz arnasa luzeko lasterketa dela nirea eta gero eta **ofizio** gehiago dudala; gero eta gehiago hurbiltzen naizela esan nahi dudana horretara. Ana Urkiza

Asteazken zehar Abel Barriolak azpimarratu duen bezala Patxi Eugi **ofizio** «handiko» pilotaria da eskuz banakakoa. Berria - Kirola

6 elizkizuna; bereziki, berariazko oitutz multzo jakin batean datzana.

Aste Sainduko **ofizioak**. Herria

Klerikoek erreza bezate **ofizioa** Erromako Eliza santuaren erroaren arabera. Askoren artean

Lagun zituen zaldun giristinoak eta nahi zuen jakin nola ziren zelebratzen **ofizioak** giristinoen mezetan. Aurelia Arkotxa

Maitinetako **ofizio** guztian eta gaueko mezan. Askoren artean

Eta antifona honekin amaitzen zen **ofizioa**. Askoren artean

Eguneko nahiz gaueko liturgi ordu guztietan esan ohi zituen Frantziskok gorespen hauek, baita Maria Birjina dohatsuaren **ofizio** aurretik ere. Askoren artean

Horrelaxe sortua izan daiteke Frantziskok osatu eta erretratzen zuen Jaunaren Nekaldiko **Ofizio** hau. Askoren artean

7 (hitz elkartuetan)

Espiritu xalotasunean bizi baitziren eta oraindik ez baitzekiten Elizaren **ofizio** -oititza erretratzen. Askoren artean

Bederatzi urteetara heldu bezain sarri, izan zuen lehen eliza koroa eta ikasi elizako **ofizio** liburua irakurtzen. Piarres Xarriton

· Liturgi **ofizioaren** tankerari eta erretratze moduari begiratu, berriz, badirudi klerikoentzat bakarrik zela Erregela hau. Askoren artean

8 Ofizio Santu (orobat Ofizio Saindu) ik Inkisizio.

Espetxetik, gutun bat bidali zion Erromako **Ofizio** Santuari -Inkisizio beldurgarriari, alegia- aita salatuz. Jon Muñoz

Hor zeuden ere haiekilan, Aita Sainduaren gelako atalondoan, Inkisizioaren **Ofizio** Sainduko jaun kardinale ospetsuak. Piarres Xarriton

Nola Nafar Doktoarek mihiluze fama baitzuen eta **Ofizio** Sainduaren auzitegiko sekretuez ez baitzen biziki axolaten, bi galdeketa egin zizkieten. Piarres Xarriton

Ofizio Santuaren Tribunalak atxilotua zuela, fede zahar eta oneko norbaitek halaxe salatutik. Edorta Jimenez

Salaketa **Ofizio** Santuaren belarrietara iritsia zela. Edorta Jimenez

Bestela, neu joango naiz **Ofizio** Santuaren aurrera, Bartolome Izetak eta biok izan dituzuenak azaltzera. Edorta Jimenez

Joan ginen lehorat, eta **Ofizio** Sainduko guardiak hauteman genituen urrunerat. Joan Mari Irigoien

Ofizio Sainduaren manuz eta aginduz, eta jaun inkisidorearen trabailuen araberako maiztasunez. Joan Mari Irigoien

Espainiako mugan ezarriko ninduke, **Ofizio** Sainduak zikiri baten gisara erre nazan. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afizioa ofizio (4)

ofizio bihurtu (3); **ofizio eskola** (3); **ofizio oititza** (9); **ofizio sainduak** (4); **ofizio sainduaren** (12); **ofizio sainduko** (12); **ofizio sainduko guardiak** (5); **ofizio saindukoak** (4); **ofizio santu** (3); **ofizio santua** (4); **ofizio santuaren** (7)

erreza bezate ofizioa (3); **idazle ofizioa** (3); **ofizioa erretratze** (3); **ofizioa ikasten** (7); **ofizioa irakatsi** (5); **predikatze ofizioa** (3)

ofizioen tenoreak (4); **ofizioen unibertsitate** (4)

arte eta ofizioetako (3)

ofizioarte *iz*

Bio urtea uste baino mugimendutsuagoa izan baita: bio **ofizioarte** frantsesa bi parte egin da eta OGM, jitez aldatu hazkurrien eztabadak badu aipaldi. Herria

ofizioburu *iz*

Laborari gutxi eta merkatari asko; batez ere: pelaireak, harginak, arotzak, zurginak, basteroak, kordeleroak... eta **ofizioburuak** beren aprendiz eta morroiek. Patziku Perurena

ofiziodun *izond* ofizioa duena.

Izbekak [...] gizonezko alargun bati eman zion Marko, kristau zintzoaz gainera, **ofizioduna** baitzen, zaldizaina, eta semerik gabea izanik, semetzat hartu eta hezi zezan;

Kosmas, berriz, turkoen familia aberats bati eman zion. Felipe Juaristi

Ofiziodun gutik egin dute Pettanek egin duena, bere hiriko jauntziak, dirdirak eta ilabete-sariak utziarik, zer buru-kolpek ereman baitzuen ere, Garaziko borturat [...]. Herria

ofiziogune *iz* ofizio jakin bateko kideak biltzen diren gunea.

Jendea bere **ofiziogunetan** pilatzen joan zen, eta urteak joan ahalean: calle de las Caldererías, de los Calceteros, Cuchillerías [...]. Patziku Perurena

ofizioka 1 *adlag* nork bere ofizioa duela.

Guztira hamaika bertso puntuagarri bota zituzten bertsolariak: **ofizioka**, zortziko handian eta txikian hiruna, eta bakarka bi punturi erantzuna ematean eta kartzelako gaien hiruna. Berria - Kultura

Ofizioka nenbilenean, neurera nengoen eta bakarka ere, hirugarrenetik aurrera neure burua kontzentratzen egon nintzen. Berria - Kultura

2 ofiziokako *izlag*

A motako bertsoa egin beharra zeukan, **ofiziokako** gaia hasten duenak beti egiten baitu A motako bertsoa, nori erantzunik ez dauka eta. J. Garzia / A. Egaña / J.

Sarasua

ofiziokide *izond* ofizio berekoa.

Horrela, Boggess epaileak agerian utzi du berriz bere **ofiziokideek** zergatik deitzen dioten Epaile Bihozbera. **Fernando Rey**

Material batzuk hartu nituen: gauzaki solidoak, irudiak, komikiak, ilusioak, bideo-zintak eta pertzepzio-test batzuk, Ralph Siegel **ofiziokide** eta fisiologoak kasurako prestatuak. **Xabier Olarra**

I. jaunaren gutuna jaso nuenean, bada, Robert Wassermann oftalmologoarekin jarri nintzen harremanetan, lagun on eta **ofiziokide** baitut. **Xabier Olarra**

ofizioko *izond*/iz ofizioa ondo menderatzen duena; halakoa ofizioz dena. ik**profesional**.

Ofiziokoetan, urrezko medaila Jan Camps beljikanoari emanen zaio, amaturretan Mario Maas holandesari. **Herria**

Bideo sariketa: bi sail izanen dira: **ofiziokoena** eta ez **ofiziokoena**. **Herria**

Uruguay-en soldadoak **ofiziokoak** dira. **Herria**

Ofiziokoa izateko eskubidea lortu nuela sentitu nuen, bertsolari izango nintzela. **Andoni Egaña**

Urte hastetik ondarrera zenbat diru emaiten dion hiriak Aviron errugbi **ofizioko** taldeari. **Herria**

Gogoan eduki behar baita beti **ofiziokoak** ez diren aktoreak direla. **Berria - Kultura**

Orotan ere ari dira suaren kontrako "gerlariak" emendatzen, **ofizioko** ala bolontario: Alemanian 27.000 **ofizioko**, Ingalaterran 52.000 orotarat, eta horietan 35.000 **ofizioko**. **Herria**

Guk, **ofiziokoak**, mesprezuz aditzen genituen huskeria haiek. **Matías Mújica**

Herrian bertan **ofiziokorik** ez bazen, kanpotik etorriko zen konfiteroa. **Patziku Perurena**

Formakuntza ona egiten dela berehala lanari lotuz **ofiziokoen** ondoan. **Herria**

Gauzen behar bezala segurtatzeko, **ofiziokoek** egiten duten bezala, [...]. **Herria**

ofizioso *iz* ez-ofiziala izanik, ia ofiziala dena.

Ekzer ofiziala nahiz **ofiziosoa** mugitu egin ziren beste kasu batzuetan, baina Puig Antich oso bakarrik utzi zuten. **Berria - Kultura**

Dena den, aipatu dudan adierazpen **ofizioso** horrek lege eta matematika alorreko hainbat eztabaida eragin zuen. **Juan Garzia**

Silvio Berlusconi lehen ministroaren eta hark irudikatzen duen guztiaren kontrako borrokaren ordezkari **ofizioso** ez ezik, zinema izar bat ere bada [Moretti] bere herrikideentzat. **Isabel Arrigain**

Asmatikoa izaki, beti pentsatu izan dut noizbait arnasa hartzeko arazoak izan ditugunok, halako komunitate **ofizioso** bat osatzen dugula, ahulen legio bat bere ahuldadearen eta inguruko ahuldadearen kontzientzia duena, **Harkaitz Cano**

ofreitu, ofrei, ofreitzen du *ad ipar* eskaini.

Holandesez **ofreitu** didaten kafe beroak akiduraren azken puskak airera botatzen dizkit. **Piarres Aintziart**

Herriko kontseiluak **ofreitzen** du bazkari bat, helduden otsailaren 5 ean ortzegun eguerditan, adineko jende guzieri. **Herria**

Meza sailduarekin hasi dute eguna, ondotik Europ kanpinan zintzur bustitze bat **ofreitua** izan da beren lagun eta adixkide multxo bati. **Herria**

Jeneral batek, adinez han harat joana, **ofreitzen** dizkio petentak bere emazte gazteari. **Herria**

oferenda *iz* eskaintza.

Zeren Bartzelonan segurik kataluniar indar politiko buru nagusienak biltzen dira goizarekin elgarren ondora lore **oferenda** baterako bezala. **Herria**

Bestalde hiru kontzertu, batto ja iragana, musika " **oferenda** " edo eskaintza deitu dituztenak, hiruak Donibane Lohizuneko elizan. **Herria**

Eta zin degizut eta hitz emaiten ezen neure alabarekin ezkonduko zaitudala eta etxeko jaun eginen zaitudala, alaba sendatu ondoren eta zuk Jainkoari zure behatzaren **oferenda** egin ondoren. **Joan Mari Irigoien**

oferendatu, ofrenda(tu), ofrendatzen (*orobat oferendatu*) du *ad* eskaini.

Berak guri emandako opariak eskaintzen dizkiogu eta gure buruak **oferendatuz** beragana bihurtzen gara. Eta zuetarik nor legoke bere behatzaren ebakitzeko eta **oferendatzeko** dispoziotionean, Lorenzo Cortés zaldunaren erresurrezioaren truke? **Imanol Unzurrunzaga**

oftalmia *iz* begietako hantura.

Frantziskok jasaten zuen **oftalmia**, Ekialdean eginiko egonaldian hartua zen ziurrenik. **Askoren artean**

oftalmologia 1 *iz* medikuntzaren adarra, begia eta begiaren eritasunak aztertzen dituen.

Bob Wasserman harri eta zur eginik zegoen Virgilek eta Amyk gorabehera horiei buruz emandako azalpenez; hogeita bosten bat urte emanak zituen **oftalmologia** klinikoan, eta begi-lausorik franko kendua zuen, baina ez zuen sekula topo egin halako gorabeherekin. **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Osasun publikoak bere gain hartuko ditu aho-hortzetako osasuna eta **oftalmologia** arreta. **Berria - Euskal Herria**

Itxaronaldi luzeenak ginekologia, traumatologia, **oftalmologia** eta dermatologia espezialitateetan izaten direla adierazi zuen. **Berria - Euskal Herria**

oftalmologo *iz* oftalmologian espezialista den medikua. ik **okulista**.

Especialistei dagokienez, dermatologoek (3.093 kontsulta) eta **oftalmologoek** (3.883) pasa zituzten kontsulta gehien. **Berria - Euskal Herria**

Robert Wassermann **oftalmologoarekin** jarri nintzen harremanetan, lagun on eta ofiziokide baitut. **Xabier Olarra**

Gogoan hartu beharra dago [...] ez ditugula geure erretinako irudiak ikusten (**oftalmologo** batek bai, ikusi ahal izango lituzke, horretarako tresneria berezi batez baliatuz). **Joxan Elozegi**

Galdezka joan natzaizen **oftalmologoek** ez dakite ezer koloreak ikusi ezin honetaz. **Xabier Olarra**

Anbulatoriora lehenbailehen ailegatu eta ahalik eta numerorik onena hartzeko, **oftalmologorako**, traumatologorako, otorrinolaringologorako... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Han ginen Bob Wasserman, nire lankide **oftalmologoa**. **Xabier Olarra**

oftalmoskopia iz begi barnea aztertea, hartako gailu batez.

Erretinaren argazki xeheak hartuak zituen hark, operazioa egin eta berehala, eta Bobek, begia orain azterturik **oftalmoskopia** zuzenekoz eta zeharrekoz) eta argazkiekin alderaturik, ez zuen frogarik ikusten operazio-ondoko inolako konplikaziorerik. **Xabier Olarra**

ofuskazio iz itsutzea; itsukeria.

Ene ekibokazio espantagarria zen eta hemendik beretik barkamena eskatzen diet herri honi, Pérez deskastatuari, euskal atsoei eta suhi txintxo guzietan, umilki, belauniko eta etzanda, pasa, zapaldu eta ttu egin nire gainean, arrontik barkagaitza den nire **ofuskazio** gaizto horrengatik. **Patziku Perurena**

ogale 1 iz irinez eta abarrez eginiko txerri bazka egosia. ikozala.

Zaldalea eta **ogalea**. **Patziku Perurena**

2 irud/hed

Ideiak argi zeuzkala onartzekoa zuen Jessicak, ezpainetarik eleen janiza akuilatzen zuen arto irinezko **ogale** baten pare iragana isurtzen zitzaiola andere adinduari. **Itxaro Borda**

ogasun 1 iz norbaitek dituen ondasunen multzoa.

Ezkontza pertsonen arteko batuketak da; senar-emazteak aske dira euren **ogasuna** kolokan ez jartzeko. **Andres Urrutia**

Orain artekoak ongi azaltzen digu gai honetan eskubideen desmasiak zerga-kopurua urritu egiten duela eta **ogasunak** berak ezin duela herritarra kaltetu, bere burua ere kaltetu gabe. **Andres Urrutia**

2 pl ondasunak.

Anarkia feudaleko garaietan printzeak eta lurjabeak pobre samarrak ziren, eta beren menpekoak zigortuz eta krimenetik ere etekinak atereaz handitzen zituzten beren **ogasunak**. **Juan Martin Elexpuru**

3 (orobat O larriarekin) Estatu baten edo Euskal Herriko Foru Aldundien ondasun, errenta eta hartzekoen multzoa. ikfinantza.

Gizarte Segurantzak alde batera utzirik, espainiar **ogasunak** nazioaren ondasunen %19 baino ez ditu kontrolatzen. **Joseba Zulaika**

Nafarroako **Ogasunarekin** kontuak kitatzeko epea maiatzaren 7an hasiko da. **Berria - Ekonomia**

2003ko irailean, Espainiako **Ogasunak** BEZagatik eta zerga bereziengatik Gasteizkoari ordaindu beharrekotik 32 milioi horiek kendu zituen. **Berria - Ekonomia**

Labur, bi eratako zergak daudela esan daiteke: zuzenekoak, **Ogasunari** zuzenean ordaintzen zaizkionak, eta zeharkakoak, artekari baten bidez ordaintzen direnak. **Iñaki Heras**

Fakturak behar bezala egitekotan, **Ogasunarentzako** atxikipena jarri beharra zegoen, eta horretarako lizentzia fiskala atera behar. **Iñaki Iñurrieta**

Ogasunak, jada, 75.000 likidazio proposamen egin eta bidali dizkie aitorleei. **Berria - Ekonomia**

Afrikatik ekarritako esklabo beltzen salerosketa sasoiko **ogasunaren** zutabea zenean, Garat anaia nagusia horren kontra agertu zen sutsu, horri buruz inor gutxi mintzo zen garaian. **Askoren artean**

Eta nik ehundaka tona zilar emango diet **ogasuneko** zerbitzariei, errege-gordailura eraman dezaten. **Jose Antonio Mujika**

Ogasunak ere laster nozitu zituen kalteak: alde batetik, artisautza-produkzioaren gaineko zergen bilketak behera egin zuen deblauki, [...]. **Iban Zaldúa**

Hogeita hamabost urte zeramatzan administrazioan, eta jendeak madarikatzen duen funtzionario horietako bat zen, metodikoa eta zuzena, "denok gara **ogasuna**" lelo barregarriaren jarraitzaile sutsua. **Migel Angel Mintegi**

Ogasuneko eraikinean urrezko txanponak pilatzen ari ziren sabairaino. **Lopez de Arana**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Epailera fiskoaren abokatu zen gehiago egia bilatzaile hotz baino, **ogasun**-kutzako agente, legeen babesle eta ministro baino lehenago. **Juan Martin Elexpuru**

Oso bestelako iritzia dauka Ekonomia eta **Ogasun** Ministerioak. **Berria - Ekonomia**

Herri-min eta giza min elkartasunezkoak eraginda edo **Ogasun** Sailak hartararuta den, ez dagokit juzkatzea. **Anjel Lertxundi**

Zazpi orri, Ekonomi eta **Ogasun** Departamentuan ohi duten babo-hizkera hanpatuan. **Aingeru Epaltza**

Aisialdiaren sirena hotsa entzun bezain laster, **Ogasun** egoitzaren parean zegoen kafetegira abiatu zen. **Aritz Gorrotxategi**

Zergadunek 25 milioi aurreztu dituztela azaldu du **Ogasun** zuzendariak. **Berria - Ekonomia**

Eusko Jaurilaritzako lehendakariorde eta **Ogasun** sailburu Idoia Zenarruzabeitiak atzo jakinarazi zuenez, [...]. **Berria - Harian**

«Tratamendu hobea egiten dio seme-alabak diren familiei eta adineko aitorleei» Juan Jose Mujika Gipuzkoako **Ogasun** ahaldunak atzo iragarri zuenez. **Berria - Ekonomia**

Konfiantza falta argudiatu du **Ogasun** diputatuak Ibarra kargutik kentzeko. **Berria - Euskal Herria**

Francisco Iribarren Ekonomia eta **Ogasun** kontseilariaren esanetan Nafarroako ekonomia «oso orekatua» da. **Berria - Ekonomia**

Behin «kontuak orekatuta» hitz egiteko prest dagoela azaldu du Espainiako **Ogasun** idazkariak. **Berria - Ekonomia**

Migel Angel Fernandez Ordoñez Espainiako **Ogasun** Estatu idazkariak. **Berria - Ekonomia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ohiko bidez gain, sakelako telefono bidez egiteko aukera eskaintzen du Foru **Ogasunak**. **Berria - Ekonomia**

Hego Euskal Herriko foru **ogasuneko** 11.655 milioi euro bildu zituen iaz, eta zeharkako zergen pisuak gora egin zuen berriro, «langile arrunten kalterako». **Berria - Ekonomia**

6 Ogasunaren egoitza.

-Ostolazaren emazteak Foru **Ogasuneko** egiten zuen lan. **Migel Angel Mintegi**

Gero Ane Lizarazuri deitu zion **Ogasun** bulegora. **Migel Angel Mintegi**

7 Herri Ogasun Ogasun Publikoa.

Ez da dudarik lotan eta jokoan eman zituela zati handi batean: gauza zurrak da behea jo zuela ondarez, **Herri Ogasuneko** diru-txartelen "kupoia ebakitzen ez zuelako". **Juan Garzia**

Gainzorra ematen den kasuetan, «gobernuak kontzertazio bidea erabili nahi du **Herri Ogasun** eta jabeen arteko konponbidea antolatuz» azaldu zuen Marc-Philippe Daubresse Etxebizitza arloko Estatu Idazkariak **Berria - Euskal Herria**

8 Ogasun Publiko

Ez al litzateke zuzena izango herri honek bertako **ogasun publiko** kudeatzeko magistratuak aukeratzea ahalbidetuko lukeen lege bat? **Imanol Unzurrunzaga**

Alcolean ia aberats guztiak egiten zioten iruzur **Ogasun Publikoari**, eta ez zituzten lapurtzat hartzen. **Josu Zabaleta**

Merab Adeishvili atxilotzeko agindua eman zuen atzo Fiskaltzak, ustez **ogasun publikoari** milioi erdi dolar kendu diolakoan. **Berria - Mundua**

1989an **Ogasun Publikoaren** aurka 36 delitu egitea eta faltsutasuna egotzi diete. **Berria - Ekonomia**

Ogasun Publikoko egoitzara heltzean, bakoitzak bere bidea jarraitu zuen. **Aritz Gorrotxategi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabako ogasun ahaldunak (3); **ekonomia eta ogasun** (41); **espainiako ogasun** (11); **jaurilaritzako ogasun** (3)

ogasun ahaldu (3); **ogasun** ahaldu (7); **ogasun** batzordeak (8); **ogasun** batzordeak (3); **ogasun** diputatu (4); **ogasun** diputatuak (7); **ogasun** diputatuaren (3); **ogasun** eta finantza (3); **ogasun** idazkari (5); **ogasun** kontseilariak (5); **ogasun** ministerioak (19); **ogasun** ministerioaren (3); **ogasun** ministerioari (3); **ogasun** ministro (12); **ogasun** ministroa (3); **ogasun** ministroak (4); **ogasun** publikoari (3); **ogasun** sailak (12); **ogasun** sailaren (12); **ogasun** sailaren egoitza (4); **ogasun** sailburu (4); **ogasun** sailburuak (12)

bizkaiko ogasunak (5); **gipuzkoako** ogasunak (4); **itzuliko** ditu ogasunak (3)

ogasunarekin kontuak kitatzeko (3)

foru ogasunek (3); **gipuzkoako** ogasunek (3)

bizkaiko ogasuneko (6); **espainiako** ogasuneko (3); **ogasuneko** ikuskaritzako (3)

ogen iz hobena.

Tiipitiki ez ikasi, ez da ene **ogena**. Hastetik jüdikatzten eta kritikatzten dü ekonomismoa, integrismo güziek bezala **ogen** egiten beitu jente güzier. **Herria**

Ogen hanitx egin deigü kanpoan eüskaraz aritzeko ahalkeak, eta orano haboro eskolan hobeki kausitzeko, eüskara bazter ützi behar zelako ustekeriak. **Herria**

Moral publikoaren aurkako **ogena**, antza. **Berria - Kultura**

ogерleko (orobat hogерleko g.er.) iz hogei errealeko diru zaharra, bost pezetaren baliokidea.

Bikario hark hartzen zuen bere soldata, aldatzen zuen zilarra, eta **ogерleko** eta pezetaren mordoxxa bat osatuz uzten zuen mahaiaren gainean, ez oso handia, soldata ez baitzen altua. **Koro Navarro**

Bi egun pasa zituen eta 30 **ogерleko** kobratuta etorri etxera. **Pako Aristi**

Ogerleko bakar bat ere ez zait kostatu. **Josu Landa**

Kobratzaileari pezeta bat, edo bi, eta geroago **ogерlekoa** ordaintzen zitzaion. **Pako Aristi**

Dionisosi hartutako, ebatsitako, mila **ogерlekoko** bat eman zion. **Unai Iturriaga**

ogi 1 iz gari irinez, urez eta gatzez osaturiko oreka legamiaz jaikiaz eta labean erreaz egiten den jangaia.

Jan dezala **ogia** eta edan ura. **Elizen arteko biblia**

Atera sagardoa iturri-askatik, banatu **ogia** eta gazta, eta otordua egiten genuen. **Bernardo Atxaga**

Kristok **ogia** eta arraina eman zion jaten jendetzari. **Askoren artean**

Nekazaritza agertu baino 12.000 urte lehenago hasi ziren gizakiak **ogia** egiten. **Berria - Gaiak**

Polenta jan beharko diagu -xuxukatu zien-, **ogia** ahitu egin duk. **Josu Zabaleta**

Kilo bat **ogi** osatzeko kilo bat labore behar da; kilo bat txahalki egiteko, ordea, 16 kilo labore. **Edorta Agirre**

Langileek 400 grama **ogi** eskuratzen dute, ogitzeko aisetak ez diren gaiez egina gaizki errea, pisua, liseritzeko nekea... **Marzel Etxehandi**

Oinak tarras kale-ertzeko dendara litro erdi esne eta barra erdi **ogi** erostera. **Oskar Arana**

Afaria prestatu zien eta legamigabeko **ogia** erre zuen; baita haiek jan ere. **Jose Antonio Mujika**

Ogi labetik atera berriaren usaina, kolorea, xamurtasuna hasi da salan zabalzen. **Joseba Sarrionandia**

Ogi eta gurinez egindako budina, mahaspasaduna, patata-orezko pastelxoak, gazta eta eskabetxea, eltzekariak eta erregosiak. **Mirentxu Larrañaga**

Bimbo **ogiak** oliotan bustita gizendu egiten duelako. **Ramon Saizarbitoria**

Egunak ematen zituen gero ur eta **ogi** hutseko barauan. **Koldo Biguri**

2 ore horretatik labean sartzen den zati bakoitza, forma jakina duena.

Ogi bat mahai gainean. **Filipe Bidart**

Hartu hamar **ogi**, sutopil batzuk eta ontzi bat ezti, eta zoaz harengana. **Elizen arteko biblia**

Ez dakit baserritar hark nolako itxura ikusi zidan **ogi** bat emateko, baina **ogi** hura inoiz jan dudan gozoena bezala oroitzen dut. **Jon Maia**

Beti halakoxea izango zela pentsatu nuen, beti egongo zela borda haren atarian, libranko zortzi **ogiak** besarkatuz. **Bernardo Atxaga**

Ez zegoen labea **ogi** txikiatarako! **Karlos Linazasoro**

Aldarea, urrezkoa; eskainiriko **ogiak** jartzeko mahaia, urrezkoa. **Elizen arteko biblia**

3 (izenondoekin)

New York hiri handia da, **ogi** zuria astearen erdian ere jaten dena. **Koro Navarro**

Ogi handiak, etxean egindako ogiak; gari ogiak, zekalezkoak, arto irinarekin eginak. **Pablo Sastre**

Tabuna Kafrauk **ogi** beltza saltzen zuen ezkutuka. **Patxi Zubizarreta**

Ogi berria, opil bat bezain xamurra, kafesnez goraino betetzen zen bustialdi bakoitzean. **Unai Iturriaga**

Teontzietatik hurbil, saski batean, gurinezko **ogi** txikiak zeuden, ekarri berriak, lurrina zeriela. **Karlos Zabala**

Azken labealdiko **ogi** berroz bete-beterik. **Karlos Zabala**

-**Ogi** idorra nahiago nik, hori baino. **Karlos Zabala**

Gosaltzeko, **ogi** lehorra kafearen ordekoarekin. **Josu Zabaleta**

Ba al zekien hark **ogi** lizuna eta haragi ustela jaten zenituela? **Karlos Zabala**

Lakoi hezurgabetuak zeuden, itxura biribil ederrekoak, **ogi** birinduaz horizatuak. **Karlos Zabala**

Gaixoak sendatzen dituzten **ogi** bedeinkatuak. **Askoren artean**

Izan ere, limosnako ogia **ogi** santua da. **Askoren artean**

Biraka dut burua, dardarka belaunak eta ikaraz gorputz osoa, **ogi** pozoitua jan banu bezala. **Askoren artean**

Itzultzean, **ogi** beltzeko puskek gotzainaren mahai gainean jarri zituen. **Askoren artean**

Tori **ogi** gogor puska hau, haginik sartu ezin diodana. **Josu Zabaleta**

4 irud/hed

Ogibide ofizialak neke handia eta **ogi** gutxi zekarkiola ikusirik, bigarrenari *full time* ekitea erabaki zuen. **Martin Anso**

Hemen Giuseppe Botazzi herritarra baino ez dago, **ogia** irabazteko bizkarra apurtzen, besteak paseatzera ateratzen diren bitartean. **Koldo Biguri**

Alternatibarik ez dute bertako nekazari gehienek beste era batera **ogia** irabazteko. **Berria - Gaiak**

Zu baitzara Jesus, gure erospena, gure maitasun eta irrika, **ogi** indar-emalea eta aingeruen bihotzak eta santu guztien bihotzak pozten dituen ardoa! **Askoren artean**

Gaiztakeria dute **ogi**, indarkeria ardo. **Elizen arteko biblia**

-Boterea gure ore txarraren **ogia** da -esan zidan, gero eta haserreago. **Patxi Ezkiaga**

Gaurko **ogia** eta biharko gosea da autoritarismoaren politika. **Berria - Mundua**

Ekonomiaren hizkuntza izan behar du, **ogia** ekartzen duena. **Berria - Mundua**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon azkarra izana zen denboran eta behin segurik Mutxiokoak dantzatu omen zituen 81 kiloko **ogi** zakua bizkarrean. **Herria**

Har itzazu niko bildu dudan **ogi**-zakutu hau eta ardo-ontzi hau. Askoren artean

Kafea eta **ogi**-opil bat hartzen ditu. Eskarne Mujika

Zirrikitu eta zulo ugarien artean argi nabari ziren **ogi**-barra zuriak. Urtzi Urrutikoetxea

Goizetan kafea, zopa eguerdirako, **ogi**-anoa herena edo laurdena zen. Urtzi Urrutikoetxea

Nik, **ogi**-mutur bat eta baratxuri bat baldin badituz, ez dut zeruaren beharrik. Anjel Lertxundi

Sukaldariak beti gordetzen dizkie sobratutako **ogi pusketak**. *ik beherago* 18. Bernardo Atxaga

Ogi-azal eta **ogi**-pusketa guztiak bilarazi zizkion astearteko ogi-budinerako baliatzeko. Irene Aldasoro

Ez zuen ezer ikusten, belar gainean zeuden garagar-irinez edo zahiz egindako hiruzpalau **ogi** koskor izan ezik. Askoren artean

Txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren **ogi**-apurak. Eiizen arteko biblia

Lurrera gosea bidaliko dut; ez **ogi**-gosea, eta ez ur-egarria, Jaunaren hitza entzuteko gose-egarria baizik. Elizen arteko biblia

Bere haurraren **ogi**-tartekoa berak jaten duen aita. Herria

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gelditzen zaizu saiheski **ogi**-arrautzeturik, Quenu andrea? Karlos Zabala

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amets egin dut, garagar-**ogi** bat biribilka zihola madiandarren kanpalekuan barrena. Eiizen arteko biblia

Aldamenekoa agertu zitzaion Raymondi eguerdiko otorduarekin, zartagin bete txerriki hotz eta arto **ogia**. Mirentxu Larrañaga

Arroz-budina bakarrik geratzen zen, eta zartagin erdi bat jengibre-**ogi**. Anton Garikano

Goizean, aitak tren barruan esnea erosi zigun, eta arrautza gogortuak, eta babarrun-**ogia**. Juan Kruz Igerabide

Elfoen bide-**ogi** hark gero eta ahalmen handiagoak zituen, bidaiariak bizirik irauten baitzuten, hura soilik, bestelako elikagaiekin nahastu gabe, jaten zuten heinean. Agustin Otsoa

Legamigabeko pazko-**ogiak** bezala. Eiizen arteko biblia

8 ipar garia.

Zelai zabalak **ogi** arto eta behi. Herria

Pontault Combault eskualdeko **ogi** zelai usaintsuetan Guermantesko kondesaren atzetik. Itxaro Borda

Ezker, **ogi** landa berde berdea, astoliliek guneka sistatua. Piarres Aintziart

Ura eta urretzen ari ziren elgeetarik ebaki eta zazpinaka josi **ogi**-buruak benedikatu zituen apezak. Berria - Kultura

Ezker eta eskuin, landa kaskamotzen zerumugarainoko hedaduran, **ogi** meta borobilak, xotx taula batean bezala jarriak daude. Piarres Aintziart

Belar edo **ogi** biltze sasoieta neskekin ederki jostatzen zela. Itxaro Borda

Apirilean ihintze, **ogi**-urte! Pello Zabala

9 eguneroko ogi

Barkatu, paparazzi bat naiz, nola edo hala irabazi beharra daukat **eguneroko ogia**. Bernardo Atxaga

Izertia aterata jango duzu **eguneroko ogia**. Jose Morales

Bideetan bizi ziren artista horiek elbarriak edo itsuak izan ohi ziren askotan, **eguneroko ogia** beste era batera lortzeko modurik ez zutenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Droga ekoizten **eguneroko ogia** ateratzen duten andre eta gizonei alternatiba taxuzkoak eskaini behar zaizkiela gogorazari dute. Berria - Gaiak

Honelako poesia ironikoa, **eguneroko ogi** animikoa dizu, batez ere, sukaldetik ikulurako animazio beroa edo ekaitzaren kezka hurbiletik bizi izan dituenak. Patziku Perurena

Eguneroko ogia bizi artistiko iraunkorra duen zerbait bihurtu, eta jendeari halako plazer intelektual edo atsegin espiritual bat eman. Irene Aldasoro

Juan Duñabeitiak berak postalean aipatu legez "torturak **eguneroko ogia** baitira" garai horretan. Edorta Jimenez

Frakasatu batzuk iruditzen zitzaizkidan: beren bokazioa sakrifkatzen zuten **eguneroko ogiaren** aldean. Anjel Lertxundi

Zoriontasuna gezurra baldin bada, izan bitez zorigaitza eta tristura gure egia, gure **eguneroko ogiak**. Iñaki Segurola

10 **ogi arbola** (*Euskaltzaindiaren Hiztegian **ogi zuhaitza** agertzen da*) tropikoetako zuhaitza, fruituak gai irintsu bat daukana (*Artocarpus communis*).

Sudurzuloak zabal-zabal zeuzkan su bakartiaren ondoan kiskaltzen ari zen **ogi-arbolaren** fruituaren usaina hartzeko. Lopez de Arana

Kolonia britainiarretako esklaboentzako **ogi-arbola** bila bidali zuten Christian Ozeano Pazifikora. Berria - Gaiak

11 **ogi bihi** ipar gai alea.

Ogi bihia irin bilakaraztea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Saran, negua bortitza abiatzen zen eta **ogi bihiaren** salneurria beti goiti ari, baina kezkarriena Konbentzioak igorri ordezkari baten jitearen abisua izan zen. Elena Touyrou

Ogi-bihia, lurrerat erori eta hiltzen ez bada, bakarrik egoiten da; hiltzen bada, fruitu ainitz emaiten du. Herria

650 barrika arno, 500 barrika sagarno, zernahi zaku **ogi bihi**. Herria

Nihuren baitan egin nuen ene arrangura guzietan, ene burua bakartasunak joa eta itoa senditurik ere, **ogi bihi** metaren gaineko xoria nintzela! Janbattitt Dirassar

12 **ogi-buru** ik **ogiburu**.

13 **ogi denda** okindegia.

Meza emandakoan, apez katoliko batek bere elizkide ezagun bat topatzen zuen kalean, egunero elizaren gertuko **ogi-denda** beretik ateratzen ari zela, hain zuzen. Josetxo Azkona

Aiseago aldatzen da erlijioz **ogi-dendaz** baino. Josetxo Azkona

Eta zalantza sano faxista hura kontatu zion anaiari, eta anaia idazkariak Guardia Zibilari eta Guardia Zibilak alkate berriari, hark gauean bere emazteari, emazteak **ogi dendakoari** eta **ogi dendakoak** Mariari. Jon Maia

14 **ogi irin** (*orobat **ogirin g.er.***) gari irina.

Bazuen emakumeak etxean zekor gizendua; hil zuen berehala; **ogi-irina** hartu eta egin zuen oreka eta erre zituen opil batzuk. Elizen arteko biblia

Amak berehala heltzen zion zartaginari; atera **ogi-irina**, bizigarriak, eta ldoiak eskatzen zion guztia, eta haur bat bezala aritzen zen, umeak sukaldetara jolasten direnean bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

Ogi-irin-katilua ez zen hustu, ez eta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasen bidez esana zuen bezala. Elizen arteko biblia

Hiru urteko zekorria, anega bat **ogi-irin** eta zahagi bat ardo eraman zituen. Elizen arteko biblia

la zazpi tonelada **ogi-irin** garbi eta hamalau tonelada **ogi-irin** arrunt. Elizen arteko biblia

15 **ogi-jotze** (*corpusean **ogi joite** eta **ogijotze** soilik*) iz

Izturiztarrek ontsa ezagutzen zuten, bereziki gazte denboran **ogi joite**, arto xuritze eta holakoetan ainitz kurutzatzen baitzen Izturitzeko etxeekin, Elizako urratsak bestalde. Herria

Eguerditan, **ogijotzearen** ikustaldia. Herria

Eta segur bazen lan mota frango laborari etxeetan: arto jorrak, arto biltzeak, arto xuritzeak, **ogi joiteak**, belar egiteak, belarketak, egurketak, iratze epaiteak, gisu labeak, auzolanak, [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Etxauzko parkean ikusiko dira lehengo lan, ofizio eta tresnak; horietan bapozeko **ogi joiteko** bat. Herria

Iganueko, Gamueko jauregiaren ondoan, **ogi joitea** lehengo moldean. Herria

16 *ogi landa* (*orobat ogilanda g.er.*) gari alorra.

Pekin-en alabainan Olinpi-Jokoen kiroldegi nagusia ez da oraino eraikia, aurtun **ogi landa** gisa baliatua da! **Herria**

Bianan sartu aitzin, beste artzain bat, artaldea **ogi landan** alha ari zaiola. **Piarres Aintziart**

Mahasti eta **ogi landen** erdian goiti beheiti eztiak uhain lurtsu bilakatzen ditu ibiltariaren urrats biziak. **Piarres Aintziart**

Orbanejako lehen etxea ikusi dudalarik, **ogi landen** itasotik ateratzean, biderearen monotonia eta izpirituaren loaldia hautsi didate murruek. **Piarres Aintziart**

16a *ogi-lauki*

Arrastoen bila ari bagina bezala, paretan zintziliek zeuden arropak miazten hasi ginen, eta berdin gas-sua, lapiko zikina, non pasta hondarrak ageri baitziren, eta poltsan zegoen **ogi-laukia**. **Juan Kruz Igerabide**

17 *ogi-mami*

-Emango al zenidake **ogi-mami** pixka bat, mesedez, nire konpota amai dezadan? **Itziar Otegi**

Haragia, **ogi-mamia** eta arrautza halako ore-itxura hartzen hasi zenean, haragi puskek hartu eta bolatxoak egiten hasi zen. **Jon Alonso**

Xake joko bat muntatu nuen, xake taula orrialde batean marraztuz eta piezak **ogi mamiz** eginik. **Filipe Bidart**

Haren sabelak **ogi-mamiaren** zurtasuna du. **Itziar Otegi**

18 *ogi puskasup_1*

-Ekardazu, arren, **ogi puska** bat eskuan. **Jose Antonio Mujika**

Hobe **ogi-puska** gogor bat eta lasaitasuna, etxean festa eta liskarra baino. **Elizen arteko biblia**

Gure eguneko **ogi puska** 350 edo 400 grama. **Marzel Etxehandi**

Gurina hedatu duzu **ogi puskan** eta busti duzu kafean. **Xabier Montoia**

19 *ogi puskasup_2* pertsona ona.

"A zer **ogi** puska Adriano!", esaten zuen. **Fernando Rey**

-**Ogi-puska** bat zara, Arthur. **Fernando Rey**

Ogi-puska hutsa zara. **Mirentxu Larrañaga**

Bizia, **ogi-puska** bat, potoloa. **Anjel Lertxundi**

19a *ogi pusketa* ogi puska.

Iluntzen hasi orduko, baserrira itzuli ziren, eta afari legea egin zuten, hegaluze-lata eta **ogi pusketa** batzuekin. katilu zapal bat bakarra ekarri zuten ur hotzez betea, bakoitzak bere **ogi-pusketa** busti zezan: han ez zegoen ez platerik ez denentzako jaki berorik. **Iban Zaldúa**

Ogi pusketa amak ebaki arte zain egoten zen. **Karlos Zabala**

Jon: **ogi pusketa** bat; hobeto esateko, baserriko esnetan bustitako **ogi pusketa** bat. **Unai Iturriaga**

20 *ogi zopa pl*

Esne berotan **ogi-zopak** egindakoan, konturatu zen bizitza guztian ez zuela halako goserik izan. **Anton Garikano**

Ogi-zopak bezain zaporegabea urte berriko otordua. *irud/hed* Eta hala gabiltza, aurkariari **ogi zopak** eman eta eman. **Berria - Euskal Herria**

· sing Baina Buchenwalden gerta daiteke gosaltzeko **ogi-zopa** beroa edukitzea ezustean. **Urtzi Urrutikoetxea**

21 *ogi txigorgailu* (*orobat ogi xigorgailu; Euskaltzaindiaren Hiztegian ogi txigorgailu agertzen da*)

Batek daki ez ote zen horren kontrako eraginez asmatu ondoko urtean **ogi txigorgailua**. **Pello Salaburu**

Ogi-xigorgailutik xerra batzuk atera nituen. **Fernando Rey**

22 *ogi txigortu* (*16 agerraldi, 8 liburutan; orobat xigortu 19 agerraldi, 8 liburu eta artikulua 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian ogi txigortu agertzen da*)

Olo-ahia zopa-ontzietan, sardinaz keztatua azpiletan, **ogi txigortu** ugari, eta arrautzak eta hirugiharra plateretan. **Iñaki Mendiguren**

Ames andreak burua astindu zuen, triste, eta kanelazko **ogi txigortua** eskaini zion. **Mirentxu Larrañaga**

Sukaldeko mahaiairen jiran eseri dira denak, erdian jarrita txokolate bero-beroa, **ogi xigortu** berria, galletak, bizkotxoak, marmelada eta gurina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gurina **ogi txigortuan** zabaldu, kafesnetan busti eta ahora. **Anjel Lertxundi**

Amak txokolate beroa eta **ogi xigortu** gurinez igurtzia prestatzen zizkigun. **Juan Kruz Igerabide**

23 *ogi xerra* (*orobat ogi zerra*)

Nigandik aski urruti utzi zuen fardel zuri txiki bat, barnean edukiko zituena, ohi bezala, **ogi xerra** bat eta txokolate tableta bat. **Monika Etxebarria**

Bi **ogi-xerra** txigortu zituen. **Oskar Arana**

Bordeletik abiatzean, soldaduek **ogi xerra** bana eman zieten preso guziei. esnea txokolate-hautsarekin, **ogi xerrak** gurina eta konfiturarekin eskaintzen zizkien. **Eneko Bidegain**

Oloz eta urdaiazpikoz hornitutako **ogi zerra** txigortu bat eskuratzen dio. **Antton Olano**

Arrautza irauli du **ogi xerratik** ahora. **Koldo Izagirre**

24 *ogitan pasatu* ogi birrinduaz estali, gero frijitzeko. ikogiztatu.

Batzuetan, emakumeak taberna batera eramaten gintuen, eta txerri xerra **ogitan pasatua** erosten zigun, edo arroz pastelak, soja-ore eta piperrautsarekin egosiak. **Juan Kruz Igerabide**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

asetzeko adina ogi (4); bi ogi (13); bi ogi xerra (5); bost ogi (4); eguneroko ogi (11); hiru ogi (5); kilo ogi (6); kilo ogi irin (4)

ogi apur (16); ogi apur bat (6); ogi apurrak (30); ogi apurrik (6); ogi apurrik ez (4); ogi artean (5); ogi azal (4); ogi bat (21); ogi batzuk (4); ogi beltza (6); ogi bihi (5); ogi bihia (6); ogi bila (4); ogi biribil (5)

ogi egin (7); ogi erdi (4); ogi eta ardo (7); ogi eta gasna (4); ogi eta gazta (4); ogi eta ur (5)

ogi irin (13); ogi irin garbi (6); ogi irina (4); ogi joitea (5); ogi koskor (6); ogi kozkor (8); ogi kozkor bat (4); ogi landa (4); ogi lehorra (5); ogi mamia (10); ogi mutur bat (5)

ogi oso bat (4); ogi papurrak (11); ogi pixka bat (10); ogi puska (80); ogi puska bat (41); ogi puskak (7); ogi pusketa (12); ogi puxka (5); ogi santua (5); ogi tartean (6); ogi txigortu (6); ogi txigortua (6)

ogi xerra (30); ogi xerra bat (7); ogi xerrak (5); ogi xigortua (9); ogi xigortuak (4); ogi zaku (4); ogi zati (23); ogi zati bat (13); ogi zatia (6); ogi zatiak (6); ogi zerra (9); ogi zopak (4); ogi zuria (5); zekale ogi (6)

alabei ogia kendu (4); eguneko ogia (4); eguneroko ogia (35); eskainiriko ogia (6); gazta eta ogia (9); jateko ogia (6); legamidun ogia (4); legamigabeko ogia (16); legamigabeko ogia jango (12)

ogia egin (4); ogia egiteko (11); ogia egiten (9); ogia eman (8); ogia ematen (8); ogia erosteko (6); ogia erosten (9); ogia erostera (5); ogia erre (8); ogia erre artinoko (4); ogia eta ardoa (10); ogia eta arraina (4); ogia eta gatza (5); ogia eta gazta (7); ogia eta gurina (12); ogia eta ura (15); ogia eta urdaiazpikoa (4); ogia hartu (9)

ogia irabazteko (9); ogia jan (6); ogia jango (15); ogia jango duzue (12); ogia jaten (17); ogia kendu (4)

ogia ugari (4)

zeruko ogia (4)

bost ogiak (4); eskainiriko ogiak (12); jaunari eskainiriko ogiak (7); legamigabeko ogiak (6); ogiak hartu (4)

legamigabeko ogien (22); legamigabeko ogien jaia (11); ogien jaia (11); ogien mahaia (4)

ogirik ere ez (4); ogirik ez (13); ogirik gabe (8); ogirik gabeko (6)

ogiz bakarrik bizi (8)

ogiarte *iz* ogitartekoa. • *irud/hed*

Noiz da, baina, **ogiarte** hau? Lazaro eta Erramu bitarteko garizumako azken astea da, Nekaldi astea deitzen zitaiona. Pello Zabala

ogiba ik **ojiba**.

ogibide 1 *iz* bizibidea ateratzeko jarduna. ik **lanbide; ofizio**.

Ogibide bera zutenez -oihal-etxolagileak ziren-, haiekIn gelditu zen bizitzen eta lanean. Elizen arteko biblia

Bigarren Mundu Gerra bukatuta, **ogibide** asko izan zituen -trenbideetako langile, bulegari, moldiztegiko langile [...] -, erabat literaturari emana bizi baino lehenago. Fernando Rey

-**Ogibideren** bat ikasi nahi nuke. Koro Navarro

1971an, nagusiek -kanpotiararak- bet-betan hetsi zuten lantegia, orduko 15 luhusoar langileak egunetik biharamunerat **ogibiderik** gabe utziz. Herria

Horixe baitzen bizimodua ateratzeko bete behar zuen **ogibide** txukuna. Jon Alonso

Ogibide ofizialak neke handia eta ogi gutxi zekarkiola ikusirik, bigarrenari *full time* ekitea erabaki zuen. Martin Anso

Gainera, Lorienten bizi behar izateak bere **ogibidean** lana aurkitzea eragozten dio. Berria - Mundua

Urte askoan izan duten **ogibidetik** gertuen dagoen lana da. Berria - Kirola

Hemen, Amerikan, neure **ogibidean** aritzen naiz, eta nahikoa irabazten dut. Koro Navarro

Poeta izatea ez da **ogibide** bat, bizimodu bat baizik. Karlos Linazasoro

Itsusia baita, itsusia denez, anai-arreben komunitatea otoitz egitera deitzeko **ogibidea** duena madarikazioka ibiltzea. Jon Alonso

Zergatik aukeratu duk eskaleen **ogibidea**? Patxi Zubizarreta

Bertsoa **ogibide** bihurtu nuen behin, eta geroztik ez dut bertsoa behar bezala gozatzeko paradarik izan. Joxerra Garzia

Bere **ogibidea** aspaldi menperatzen duenak bezala. Harkaitz Cano

Txirindularitza du **ogibide** eta pasio. Berria - Kirola

Lanik ez izatea edo lana galtzea ez baita **ogibiderik** ez izatea edo norberaren bizibidea galtzea soilik. Iñaki Heras

Ez lanbide, ez **ogibide**. Joxerra Garzia

2 *hed*

Literatura dut ez **ogibide** baina bai lanbide, eta beharturik nago ordu eta betile asko irakurtzen erretzera. Anjel Lertxundi

Postariaren lanbidea guztiz **ogibide** literario eta kilikagarria zela, horretan oinarrituta hainbat ipuin asma zitezkeela. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan)

Raimundo Silvak, zuzentzaile-**ogibidean** zeukan eskarmentu luzeari esker, ez zuen besterik behar alde egin behar zuela konprenitzeko. Jon Alonso

Oso serio ekin zion sasi-**ogibide** berriari. Jon Arretxe

ogibitarteko ik ogitarteko.

ogiburu *(orobat ogi-buru)* *iz* galburua.

Zazpi **ogiburu** bildu eta ximini gainean zintzilikatzen zituzten gau hartan, urte guziko ogia ukaiteko. Herria

Jan lezake bai, **ogiburutan**, uzteko lastoa! Herria

Ura eta urretzen ari ziren elgeetarik ebaki eta zazpinaka josi **ogi-buruak** benedikatu zituen apezak. Berria - Kultura

Uzkinazoek uzta-landatik ebatsi **ogi-buruak** brosta zokotaraino zeramatzaten Pablo Sastre

ogidi *iz* gari saila.

Leiho bat plazara irekitzen zitaion eta gainerakoak Bonneval edo Courville alderako **ogidi** horailletara. Berria - Kultura

Eguneroko zaila zeramaten arren, **ogidiz ogidi**, dena ebaki-azantz mehar, ez zuten gizon egarrituek hiri nagusitik oporretara zetozen jende handi horien biziera gutziazten.

Berria - Kultura

ogiegile *iz* okina.

Gero, emeki emeki utzi zen etxeetan ogi egitea, ikusiz hobe zela **ogiegileari** ogi bihi zakuak trukatzeta, harek jatekoa prest ekartzekotan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

ogigaineko *iz*

Barre batean sartu nintzen uretan, eseri eta **ogigaineko** bat dastatu nuen; oso gozoak zeuden! Juan Martin Elexpuru

ogijotze ik **ogi 15**.

ogiketa *adlag* gari bila.

Jakesi errana diot **ogiketa** nindoala. Janbattitt Dirassar

ogilanda ik **ogi 16**.

Ogino *(orobat ogino)* *iz* Oginoren metodo kontrazeptiboaren izena.

Metodo antikontzeptibo horiek azaldu ondoren, zorionez antigoaleko beste batzuk alde batera uzten ari gara; adibidez, atzerako marxa eta **Ogino**. **Luis Elberdin**
Ahantz ditzagun atzerako marxak, **oginoak**, egunak eta egutegiak, eta bakoitzak akera dezala berarentzat erosoena den metodoa eta benetan eraginkorra dena. **Luis Elberdin**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire bitzta, beraz, **Ogino** metodoaren eta makina banatzaileetako libera bateko kondoiaren artean kokatzen da. **Joseba Urteaga**
Banekien **Ogino** egutegiaren arabera sasoi arriskutsuan nengoela, baina ez nuen uste "hura sustrai zitekeenik" nire sabelean. **Joseba Urteaga**
Ogino egutegia historialari on batek ikertu beharko luke, ermandade sekretua zen, alderdi komunista baino hobeto antolatua. **Karlos Zabala**

ogirin ik ogi 14.

ogitagasna iz ogia eta gazta.

Askaltzen naiz; betiko janaria: atun, txorizo, eta **ogitagasna**. **Piarres Aintziart**

ogitarteko (91 agerraldi, 42 liburu eta 16 artikulutan; orobat ogi-tarteko g.er., ogibitarteko 11 agerraldi, 2 liburutan, eta otarteko 51 agerraldi, 18 liburu eta 3 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian ogitarteko agertzen da) 1 iz

Eguerdi aldera, **ogitarteko** bat jan nuen. **Ramon Saizarbitoria**
Ondoko baseritarrari erosten genion esnea egunero eta esne-gainarekin **otarteko** gozoak egiten zizkigun amak. **Jon Maia**
Bakoitzak hirugiharrezko dozena-erdi bat **ogitarteko** jan ondoren, berokiak jantzi zituzten. **Iñaki Mendiguren**
Noizbait bi **ogitarteko** ekarri dizkidate, mortadelarenak. **Agurtzane Juanena**
Xingarrarekilako **ogitarteko** bat eskaini zidan, ondotik gasna zerra bat ederra eta azkenik sagar bat.Bere haurraren **ogi-tartekoa** berak jaten duen aita. **Janbattitt Dirassar**
- **Ogitarteko** pare bat prestatu dut eramateko. **Fernando Rey**
Beste jatetxe bateko arduradun bibotedunak **ogitarteko** goxoa prestatu dit prestutasunez. **Jon Arretxe**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denei gibelaldea erakutsi aitzin, Charlyk etorkizuna iragarri zion **ogitarteko** -jaleari: [...]. **Aingeru Epaltza**
Eskuartearen neukan **ogitarteko** puska bat hautsi eta luzatu nion. **Itxaro Borda**
Ogitarteko mutur bat eman zidan langile batek, honela ziozala: [...]. **Joxan Elozegi**
Xinaurriak bezalakoak ziren, ber bidetik galburu-bizarrak eta **ogitarteko** papurrak behin eta berriz garraiatzen ibili eta gero. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etorri ni ikustera noizean behin urdaiazpiko-**ogitarteko** batekin. **Fernando Rey**
Mendi-buelta eginda gero geratu ohi ginen garai batean Sasibilen, xolomo-**otarteko** bat jateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Emadazu beste pepino-**ogitarteko** bat. **Antton Olano**
Kalexka horietariko baten dago nire ostatua, döner kebab **ogitarteko** eta platerkadak saltzen dituen lokal ñimiño baten alboan. **Jon Arretxe**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ogitarteko bat jan (5); **ogitarteko bat jaten** (3); **ogitarteko txar** (3); **ogitarteko txar bat** (3)
ogitartekoa jan (6)
ogitartekoak jaten (3)

ogite iz gari ugaritasuna.

-Martxoa eurite, urtea **ogite**. **Pello Zabala**
Maiatz eurite, urtea **ogite**. **Pello Zabala**

ogitsu iz gari edo ogi askokoa.

Asentsio-letañak euritsu, urtea bere **ogitsu**. **Pello Zabala**
Apirila euritsu, urte hura **ogitsu**. **Pello Zabala**

ogitxo 1 iz ogi txikia.

Egunen batzuk jan gabe eduki ondoren eman zizkieten sardina lata bat hiruko bakoitzarentzat eta **ogitxo** bat bostentzat. **Jokin Urain**
Han egon zen garizuma osoan ez jan eta ez edan, **ogitxo** haietako baten erdia izan ezik. **Askoren artean**
Ostatuaren beheko aldean denda txiki batzuk zeuden, non sokak, uztai-formako **ogitxoak** eta zamarienzako lepokoak saltzen baitzituzten. **Jose Morales**

2 (hitz elkartuetan)

Ez zioten xanpainarik eman Nofuturi; bai, ordea, ezti-**ogitxoz** mukuru betetako plater bat. **Jon Muñoz**

ogiztatu, ogizta, ogizatzen du ad ogitan pasatu.

Sutegiaren gainean, bitsaderak, koilarak eta kirten luzeko sardexkak baino gorago, zenbakidun tiradera errenkada batean, ogi arraspatuak, fina eta larria, **ogizatze** ogi mamia, intxaur muskatua, iltzea, piperbeltzak eta beste espeziak paraturik zeuden lerro-lerro. **Karlos Zabala**

ogoni iz Niger ibaiaren deltan kokaturiko etnia bateko kidea.

Deltan bizi diren etniek ijwak, **ogoniak**, igboak eta itsekiriak hainbat multinazionalen kontrako salaketa jarri zuten ekainean. **Berria - Mundua**
Saro Wiwa **ogoni** etniako beste zortzi ekintzailerekin batera exekutatu zuten 1995. urtean. **Berria - Mundua**

ogro 1 *iz* gizakiak irensten dituen alegiazko erraldoia; pertsona anker eta zakarra.

Ogroek eta erraldoiek -edonork zekienez, haur-jale porrokatuak- ez zitzaidan iruditzen alde handirik zutenik lorategietan nirekin gurutzatzen ziren [...] zenbait jenderekin.

Juan Garzia

Mariak beldurrezko hotzikara goxo bat sentitu zuen gorputzean, ipuinetan **ogroa** iristen denean bezala. Juan Garzia

Anai Jaxinto, beraz, ez zen nik gaztetan uste nuen **ogroa**, umorez ondutako zentzu ezin finagoa baitzuen, mendialdi hartan ongitxo erakutsi zidanez. Joan Mari Irigoien

Nik neuk asmatzen nizkion, imintzioak eginez, orain **ogro** baten itxura egiten nuela, orain maitagarri batena. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Baina zer da euskaldunak, abertzalegoak preseski, bere populazio apatikoari barkatzen ez diona? [...] Estatuak bi azken mendeetan bihurtu diren **ogroek** gure lurrak irenstea? Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Aretoaren erdian gelditu eta oihuka hasi zen, ohiko **ogro** ahotsaz, gosaria galdezka. Joxan Elozegi

oguzi, ogutz, oguzten (*Euskaltzaindiaren Hiztegiari ahoskatu eta ebaki agertzen dira*) du ad ahoskatu, ebaki

'Eta hori, eztarria gargaratuz kantetan dabe,' dio Manolek bere euskaramoduan, 'ze ezin dabe hitz osorik **oguzi**.' Ondo ahoskatzea, gaizki ahoskatzea (edo **oguztea**) jende asko kezkatzen duen arazoa da. Joseba Sarrionandia

oguzkera *iz* hitzez eta kidekoez mintzatuz, ahoskatzeko modua. ik**ebakera**.

Oguzkerari adiera zabala emango diogu, esaterako **"oguzkera** argia", **"oguzkera** txarra" esaldietan duena. Lourdes Oñederra

Ninik, haietako batengana hurbildu, eta bere Friuliko **oguzkera** astunaz, oihu alai egin zion-: [...]. Josu Zabaleta

ohaburu ik oheburu.

ohaide (*36 agerraldi, 15 liburutan*) 1 *iz* norbaitentzat, berarekin ezkontzatik at sexu harremanak dituen pertsona. ik**maitale** 5; **ohekide**; **ohelagun**.

Absalomen alaba Maaka izan zuen Roboamek maiteena bere emazte eta **ohaide** guztien artean. Elizen arteko biblia

Soldadu soil bat, are eta gehiago Erdi Aroko soldadua izanik, ez zen besteren emakumearekin sartzen ausartuko, bere **ohaidea** baizik ez izanik ere. Jon Alonso

Kretan diat jatorria, eta gizon aberats baten semea nauk, baina aitak erositako **ohaide** bat zuan nire ama. Juan Kruz Igerabide

Kaleben beste **ohaide** batek, Maaka izenekoak, Xeber eta Tirhana sortu zituen. Elizen arteko biblia

Han, **ohaideen** haurrak lehen emaztearen haurtzat hartzen dira. Iñaki Iñurrieta

Erromatar legionarioei, zerbitzu aktiboan zeudenean legez ezkontzea debekaturik izan arren, praktikan baimendu egiten zitzaizkien **ohaideekin** ezkon-harreman iraunkorrak izatea eta familiak haztea. Iñaki Mendiguren

Gradurik gabeko soldaduek denentzako putak baizik ezin ditzake eskura, **ohaide** eskusiboa izatea jaunen plazer eta eskubidea da. Jon Alonso

2 (hitz elkartuetan)

Bikote hura bere **ohaide** topaketetan diskretuki ibiltzera lehiatu arren, haurrak ondoko gelan lo egiten zuen. Elena Touyarou

Gure **ohaide**-nesketara al goaz ba, ema-jabeek ohi duten bezala, etorri eta deituta, desgaraia izanda ere, etxean sartzeko? Patxi Ezkiaga

ohaidetasun *iz* ohaidetza.

Harrigarria zitzaion erlijioaren hatzak hain barna ziren herri ttipi hartan, **ohaidetasuna** hain naturalki onets zezaten eta, haur sortu berrien ez bataiatzea, are gehiago!

Elena Touyarou

ohaidetza *iz* ohaideen bitzita. ik **ohaidetasun**.

Herrialde horietan, **ohaidetza** desohoratu egin behar izan da, eta, beraz, baita hortik sortu diren haurrak ere. Iñaki Iñurrieta

Ohaidetza ilegada da, baina desagertu barik transformatu egin dela esango nuke nik. Berria - Gaiak

Odolezko eta **ohaidetzazko** eskubideak aldarrikatuz, Lisboa armen indarrez menderatu behar izan zuen eta artean gerlako errautsen arrastoa ez zen han guttiz iraungia. Edorta Jimenez

Ohaidetzaren ofizioak ez du agerpen handirik behar; eskeko mojarrena, agian, zertxobait argitu beharrekoa da. J.M. Olaizola "Txiliku"

ohakidetasun ik ohekidetasun.

ohako *iz* ipar sehaska.

Han zeuden Colette eta Ximun, begiak pindarka, atseginaren atseginez itxuraldatuak, ondoan zeukatela **ohakoa**, dena mihise lilikatu, farfaileria eta xingola. Daniel Landart

Eguberri, Urtats eta Errege magoen ondotik, bertze egun haundi bat dugu ospatzen, sortze miresgarri bat, eta sortu den haurrak sehaska edo **ohako** ederra dauka Ainhizan, ELA sindikatari esker. Herria

· Gaizkile zahar baten papera egiten nuen, nire lana zen bezala, eta antsika eseri nintzen **ohakoan**. Matías Múgica

ohantze (*163 agerraldi, 38 liburu eta 45 artikulutan*) 1 *iz* etzalekua, ohea. ik **ohatze**.

Ez du ez gela ez **ohantzea** inorekin partekatu behar. Aingeru Epaltza

Gero, aretoan Faramir etzateko **ohantzea** presta zezatela agindu zuen, bai eta joan zitezela ere. Agustin Otsoa

Ohantze edo ohe moduko bat zeukan Prokusto hark, bere neurri-neurrikoa. Joxerra Garzia

Gauak, berriz, **ohantzean** itzulika higitzen zituen, bere lotsagabekeria goratik madarikatzen. Aingeru Epaltza

Ohantzeko lasto gainean bilatu nuen jarlekua. Aingeru Epaltza

Behin kokaturik, berriz, **ohantze** hotza izanen zuen maizago esperoan, epela baino, Garrúzeko gau luzeetan. Aingeru Epaltza

Goiko solairuko gelatan **ohantze** gogorren ilarak zeuden, eta forma bakoitzean kartel eta arau-zerrenda bana. Agustin Otsoa

Ettxeko neskatokak mintzaira horren eskolak eman zizkion bere **ohantzean**. Aingeru Epaltza

Bizkarra gogotik berotu zidan, hainbertze berotu, bi egunez egon bainintzen **ohantzetik** jaiki ezinik. Aingeru Epaltza

Tronua hutsik aurkitu zuten, eta haren aurrean Théoden Markako Erregea zetzan, zeremoniazko **ohantzean**: hamabi zuzik eta hamabi zaintzailek inguratzen zuten **ohantzea**. Agustin Otsoa

2 irud/hed

Oheratu umetxoak ta egizu lo bakean / etzanik dago Po erraldoi baten moduan / Jainkoak egin dion lur-**ohantze** handian. Fernando Rey

Ezereza, izen baten dina egiten den momentutik, izatearen **ohantzean** etzaten da. Iñaki Segurola

3 habia.

Egundainotik ainarak **ohantze** ezkaratzean. Herria

Gaur egun / ez dator kukurik Ama Birjina **martxokoz**, / enarek ezin dute ohantzerik zulatu zementuan. Pako Aristi

4 irud/hed

Beharbada, Magalirekin ezkondurik, **ohantze** berri bat muntatuko genuela, bosgarren estaiko hura baino aise pollitagoa. Janbattitt Dirassar

Ez dugu sekulan **ohantze** bat egiten ahalko eta haurrik gabe geldituko gira. Herria

Goresmen beroenak espos berrieri eta beren familiari eta bizi ditela urostatunean ene auzoko **ohantze** pollitean. Herria

-Ene **ohantzean**, zure etxen zara, pena dut haatik ez baitzuzt aterbe pollitagoa eskaintzen ahal. Janbattitt Dirassar

Bere **ohantzea** han berean badu ere, Parisen badauka egoitzaño bat. Herria

5 (hitz elkartuetan)

Eta hantxe egon ziren gizonak mugitzeke, burua makurtuta, hil-**ohantze** bateko erostarien gisara. Agustin Otsoa

ohantzeño iz adkor ohantzea. ik ohantzetto.

Murruan egin **ohantzeño** batean paratu dute Jondoni Jakoberen itxura, Jakintzaelkartea sustatzaile, Ziburuko herria laguntzaile. Herria

ohantzetto iz adkor ohantzea. ik ohantzeño.

-Bosgarren estaian dut ene **ohantzettoa** eta gain hartarat heltzeko eskaler hauek baizik ezøø Janbattitt Dirassar

ohape ik ohepe.

ohar *(3273 agerraldi, 244 liburu eta 1132 artikulutan)* 1 iz zerbait jakinarazteko, bereziki izkribuz eta gehienetan laburki, egiten den adierazpena. ik oharpen; oharkizun.

Honek **ohar** bat izan gura du, ez kritika bat. Joxe Azurmendi

Oharra diot, orri erdi inguruko kartoi mehe zuri bat erabili nuelako. Ramon Saizarbitoria

Itzultzailearen **Oharra**. Karlos Zabala

Oharra: Postaleko tximinoa bezala sentitzen naiz hainbeste intelektualen erdian. Eider Rodriguez

Eta **ohar** hau egin zien Jesusek: "ulertzeko gauza denak uler beza". Elizen arteko biblia

Beste **ohar** bat: lehen pertsona gramatikala erabili dugu idazteko. Jon Alonso

Argazkiarekin batera, **ohar** hau zetorren: [...]. Jon Muñoz

Ohar hau irakur zitekeen beste baten izenaren alboan: "Ondo daki bere lana eta ez da mozkortzen". Jose Morales

Oharrak dio sendagileak Luke bizkortzen saiatu zirela ordubetez, baina umeak okerrera egin zuela. Berria - Gaiak

Ohar hau ongi adi ezak: hire eskualdeko herri bakoitzak eskola bat beharko dik eta haurrek, mutiko edo neskatok, hizkuntza bat bakarria ikasiko die, frantsesa. Elena Touyrou

Ez diezaietela ez Erregelari eta ez hitz hauei **oharrik** erantsi, esanez: [...]. Askoren artean

Ez dakit **oharra** idazteko horrenbeste pentsatu ote nuen. Ramon Saizarbitoria

Oharrez josiriko laurahun eta hogeita hamazazpi orri dira. Jon Alonso

Azterketa-orrian, baina, anai Jaxintok **ohar** bat utzi zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Danborradaren jatorriari buruzko **ohar** batzuk aurkeztuko ditugu ondoren. Askoren artean

Oharrez josi zituen Fermatek orriz orri idazlanak. Jon Muñoz

Bigarren egunerokoa irakurri dut, eta baita **ohar** batzuk hartu ere. Patxi Zubizarreta

Oharrak hartu eta fitxak egin. Askoren artean

Ohar gehiegi ez sartu; luzeegiak ere ez egin. Askoren artean

-Lehenengo asteburua Hogsmeadera joateko -erantzun zion Ronek, iragarki-taula zahar eta higatuan agertu zen **oharrera** keinu eginez-. Iñaki Mendiguren

Eskolako **oharretan** bazen xehetasun bat, lehen irakurketan itzuri zitzaidana. Juan Garzia

2 (egin aditzarekin, ik beherago 6)

Segi aurretik, **ohar** bat egin behar diat, Joxemai. Txillardegi

Ohar bakar bat ere egin gabe, "denetarako prest", Nadiak Mikel Strogoffen eskua hartu zuen. Karlos Zabala

Baina aholku horretaz bi **ohar egin** genitzake: [...]. Piarres Xarriton

Nik festara itzuli behar dut, Minerva, ikasleei **ohar** batzuk **egin** behar dizkiet eta. Iñaki Mendiguren

Nire espedientea irakurtzen ari da, **oharrak eginez**. Koldo Izagirre

Gipuzkoako Ogasun diputatuak jendaurreko **oharra egin** zien ondarearen gaineko zerga aitortzerakoan «erlaxatu diren gipuzkoarrei». Berria - Ekonomia

Europako Batzordeak Volkswagen Legea aldatzeko azken **oharra egin** dio Alemaniari. Berria - Ekonomia

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohar txiki bat bidaltzen dizut nire etxe berri honetatik. Jokin Urain

Ohar labur bat, hamabi lerro boteretsu, paper lodi satinatu batean Parisera igortzen nizkionak. Ramon Saizarbitoria

Bi **ohar** labur-labur, geroago berriro sinboloaren noziora itzuli aurretik. Josu Zabaleta

Eskuz idatzitako **ohar** luze bat zen. Edorta Jimenez

Metak disketxeak atzo **ohar** informatibo baten bitartez jakinarazi zuenez, [...]. Berria - Kultura

Oso **ohar** taxuzkoak egiten zituen arraza oneko zakurrez. Jose Morales

EHun eta berrogeita hamar orriko bibliografia eta pare bat mila **ohar** argigarri. Iñaki Segurola

Zenbait **ohar** anonimo bati dizikilde, poliziaire buegoetatik igaro ez direnak. [Karlos Zabala](#)
Laguntza benetakoa eskaini diit horretan Eskarne Mujikak, irakurketa zorrotza eta **ohar** balioitsuak eginez. [Irene Aldasoro](#)
Jasotako lekukotasun guztiek **ohar** filologiko-literarioak, etnoantropologikoak, sozio-historikoak eta kulturalak edukiko dituzte. [Berria - Harian](#)
Ni neu, **ohar** lotsagarri hori gurutze gorri lodi batez tatatzekotan nabil aspalditxoan. [Joxerra Garzia](#)
Terminologiari buruzko **ohar** orokorra. [Ibon Uribarri](#)
Aurretiko **oharrok** egin ondoren, beste kapitulu bati ekingo diot. [Xabier Kintana](#)
Orotariko **oharren** artean, Zuloren beraren pentsamenduak zeuden. [Pablo Sastre](#)
Esker oneko **ohar** bat idazten hasi nintzen. [Anjel Lertxundi](#)
Gauza bat ez zuen gogoko: hormetako **ohar** erlijiozkoak. [Irene Aldasoro](#)
Ikus artikulua azken **oharretan** laburki ematen den bibliografia osoa. [Piarres Xarriton](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohar koaderno baten orriak pasatzen ari zen, eta keinu bitxiak egiten zituen. [Koro Navarro](#)
Belaunen gainean **ohar** -koaderno zabalik, OL sailkatze oinarria aurkeztu zien Ruche jaunak entzuleei. [Jon Muñoz](#)
Lafitten eragina, beste zerbait izan da enetzat: ene liburuen erdian daukat, 1955eko urriaren 7an hasten den *Carnet-notes* delako ene **ohar** liburuxka! [Piarres Aintziari](#)
Bere paper guztiak, **ohar** -liburuxka guztiak, ohar guztiak... bere bizitza osoa! [Jon Muñoz](#)
Zure aitzinean irakurtzeko zenituen **ohar** -paper barreiatuak nahasten zenituela, ederra zinen. [Itxaro Borda](#)
"Bingoa kirolago da, telebista kultura baino!" esaldia iltzaturik genuen erredakzioko kortexko **ohar** -taulan, kameran-eta zirigarri. [Anjel Lertxundi](#)
Ohar -sistemaren malgutasuna. [Askoren artean](#)
Obra batzuek eskuz idatzitako **ohar** multzo handi bat zekarten. [Jon Muñoz](#)
Ez zuen erraz ulertzen txofer ahozabalaren **ohar** -sail gutxieslea. [Itxaro Borda](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horregatik ezin izan du kolkoan isilgorde oin-**ohar** hau: [...]. [Joxe Azurmendi](#)
Bigarren jarraibide sortan, berriz, albo-**ohar** moduko bat erantsi zuen Templek. [Xabier Olarra](#)
Borroka armatuaren sabela, bazter-**ohar** konplize horiekin hazten da. [Itxaro Borda](#)
Buru-**oharra**: edozein depresiotatik ateratzeko kafea droga gogorra dela nonbait apuntatu. [Harkaitz Cano](#)
Sarrera-**ohar** baten bidez. [Juan Martín Elexpuru](#)
Luzaro egon nintzen suizidio **oharrek** idatzeko eginak diruditen hoteleko idazmahai horietako baten aurrean hitz bat idaztea lortu gabe. [Ramon Saizarbitoria](#)
Aldizkaria bidalitako bidaia-**ohar** eta marrazkiak ere ikusgai daude erakusketan. [Berria - Kultura](#)
Mugaz bestaldeko erakundeak, dakidanez, zenbait prentsa-**ohar** eta manifestu zabaldu besterik ez zuen egin. [Rafa Egiguren](#)
Batasunak ere kritikatu du Nafarroako Gobernuaren aurrekontu proiektua, prentsa **ohar** batean. [Berria - Harian](#)
Afera-bidaietako gastu-**oharrek** egiaztatuko dituzu. [Joxan Elosegi](#)
Irakasle batek izenpeturiko baimen-**oharra** behar zen. [Iñaki Mendiguren](#)
Kromatoaren txartelak aurreko argitaraldian "2-3" tanta botatzeko agindu-**oharra** zekarren, eta ez "23". [Juan Garzia](#)
Liburu lodiak idatzi zituztela, eta egunkariko lege-**oharrek** bezain estu inprimatuak gainera. [Irene Aldasoro](#)
Agoteen gaian sartu aitzin, hiztegi **ohar** bat egin nahi nuke. [Herria](#)
Agurearen hileta-**oharrek** "bat-bateko heriotza" besterik ez zuen aipatzen. [Ibon Uribarri](#)
Goiz batean egunkaria irakurtzean, heriotza-**ohar** bat ikusi nuen: [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Azpi-**oharrek**. [Karlos Zabala](#)
Margolanek nonahi, zaharrak eta berriak: berriak martxoan egindako marrazki-**oharretan** oinarrituak. [Xabier Olarra](#)

6 ohar egin (ik gorago 2) ohararazi.

Abesbatzen kantaldian, Pepponek **ohar egin** zion Zakarrari kantua ere kirola dela, birrikak sendotzen baititu. [Koldo Biguri](#)
Ohar egiten dizut, bada, ez diezaiozun sekula jendearen itxaropenari huts eman. [Askoren artean](#)
-Besteek baino argi gehiago ematen dutela esango nuke - **ohar egin** zuen On Camillok. [Koldo Biguri](#)
Entzun, ene herri, **ohar degizut!** [Elizen arteko biblia](#)

7 ohar egite iz oharraraztea.

Errusiaz gain, **ohar egite** horrekin bat dator Txina ere, Pekinek ere ez baitu begi onez ikusten Segurtasun Kontseiluak jarrera gogor bat ebatzi dezan Iranen kontra. [Berria - Mundua](#)
Seulgo ordezkararen arabera, «etorkizunean proba nuklear baten gertakizunaz **ohar egite** bat izan da, baina iparkorearrek ez zuten mehatxu zehatzik egin nahi». [Berria - Mundua](#)

- hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
- azken ohar (6); bidalitako ohar (11); bidalitako ohar baten (5); egindako ohar (7); idatzitako ohar (9); igorritako ohar (11); igorritako ohar baten (5); igorritako prentsa ohar (7); kaleratutako prentsa ohar (5)
 - ohar bana (4); ohar banatan (4); ohar bat aurkitu (5); ohar bat bidali (8); ohar bat egin (12); ohar bat egiten (4); ohar bat helarazi (4); ohar bat idatzi (4); ohar bat idazten (5); ohar bat kaleratu (11); ohar bat utzi (6); ohar batean adierazi (8); ohar batean jakinarazi (11); ohar batean salatu (8); ohar baten bidez (213); ohar baten bitartez (52); ohar batez (6); ohar batzuk egin (5); ohar bidez (32); ohar bidez erantzun (5)
 - ohar egin (13); ohar egin zuen (8); ohar eta iragarkietan (5); ohar hau bidali (4); ohar hau egin (7); ohar hau egiten (5)
 - ohar koaderno (7); ohar labor (16); ohar labor bat (6); ohar laborrean (4); ohar orokorra (5); ohar txiki (8); ohar txiki bat (6)
 - oin ohar (10); oin ohar batean (4); oin ohar hau (6); prentsa ohar (270); prentsa ohar bat (7); prentsa ohar batean (89); prentsa ohar baten (141); prentsa ohar batez (4); prentsa ohar bidez (15); zabaldutako ohar (4)
 - argitaratzailearen oharra (6); azken oharra (22); buru oharra (7); itzultzailearen oharra (15); lehen oharra (13)
 - oharra atera (6); oharra bidali (10); oharra egin (12); oharra eman (5); oharra hartu (5); oharra igorri (8); oharra irakurri (10); oharra jaso (4); oharra kaleratu (20); oharra plazaratu (13); oharra plazaratu zuen (7)
 - oin oharra (5); prentsa oharra (41); prentsa oharra igorri (4); prentsa oharra kaleratu (9); prentsa oharra plazaratu (10)
 - azken oharrak (4); azpi oharrak (4); egindako oharrak (4); hartutako oharrak (8); idatzitako oharrak (13); igorritako prentsa oharrak (6); kaleratutako prentsa oharrak (4)
 - oharrak dioenez (19); oharrak egin (6); oharrak egiten (5); oharrak hartu (15); oharrak hartuz (5); oharrak hartzea (4); oharrak hartzeko (14); oharrak hartzen (23); oharrak idatzeko (4); oharrak idazten (7); oharrak irakurtzen (4)
 - oin oharrak (6); prentsa oharrak (34); prentsa oharrak dioenez (6); zabaldutako oharrak (7)
 - oharraren arabera (30); oharraren bidez (6); oharraren bitartez (7); prentsa oharraren (16); prentsa oharraren arabera (4); prentsa oharraren bitartez (7)
 - bidali zuen oharrean (4); bidalitako oharrean (10); helarazitako oharrean (7); igorri prentsa oharrean (5); igorritako oharrean (6); igorritako prentsa oharrean (14); kaleratutako oharrean (6)
 - oharrean adierazi (15); oharrean adierazi zuenez (6); oharrean azaldu (6); oharrean dioenez (5); oharrean jakinarazi (4)
 - plazaratutako oharrean (4); prentsa oharrean (107); prentsa oharrean adierazi (12); zabaldutako oharrean (8)
 - oharren arabera (5); oharren bidez (4)

Bazter haietako artzainen zakurrak **ohara** ziren. **Eneko Bidegain**

Deus makurrik gertatu izan gabe haatik: soilik kakurra **ohara** izanki... **Herria**

· Katuen edo zakurren sexugrinari, uhara, **ohara** esan izan diogu guk Goizuetan. **Patziku Perurena**

oharbide iz oharra.

Lege testu hauekiko bertako herritarren gogoia bistan da jarraiko bi testuotan: a) 1789. urtean Lapurtarrek Versaillesko Bilkurara joateko ziren euren ordezkariak eman zizkieten

oharbideetan : [...]. **Andres Urrutia**

Lehenengo **oharbideak** ilunak ziren, erakunde zibil eta erlijiosoen nahasmendua zela eta. **Andres Urrutia**

ohardun ik ohartun.

ohargabe ik oharkabe.

ohargabekeria ik ohargabekeria.

ohargabetasun ik ohargabetasun.

ohargaltzaile izond oharmena galarazten duena.

Uko egin beharra dago sorkarien inpresio zentzukoiei eta multiplizitate **ohargaltzailetik** bizitzeari. **Joan Mari Lekuona**

ohargarri (orobat ohartgarri g.er.) 1 izond ohartzeko modukoa, ohartzea merezi duena. ik nabari.

Aipatzen du ere [...] Ponte de Mulla deitzen duen zubia, hots, Pisuerga gainditzten duten hamaika arkuak finkatzen duten zubi **ohargarria**. **Piarres Aintziart**

Iraultzaren ostean, frantziar legeriak aldaketa **ohargarriak** izan ditu. **Andres Urrutia**

Beste gauza bat **ohargarria** : garai hartako jendea ez zela batere uzkur harat eta hunat ibiltzeko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Afixan, ordea, ez zegoen gauza **ohargarri** askorik. **Jose Morales**

Antzekotasun-puntu horiek desberdintasun **ohargarri** batek, behintzat, orekatzen ditu. **Iñaki Mendiguren**

Hemeretzigarren mendean susperraldi moral **ohargarria** lortu zuten. **Iñaki Mendiguren**

Banuen halaber gertaera gutzit **ohargarri** baten berri, alegia, Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz albo-adar iraunkorrik sortu. **Koro Navarro**

Zenbaki edo xifre **ohargarri** bat: 300.000 beilari iragaiten dira hemendik urtean! **Herria**

Urte betetze **ohargarri** horren ospatzeko, [...]. **Herria**

Hortik datoz glosei erantsi oharñoak, gero barreiatuak diren Azpilkuetaren beraren idazlanen irazkia ehotzen duten "Notabilia" **ohargarrietan**. **Piarres Xarriton**

2 (pertsonez)

Sigala apeza, Périgueux-ko meraren axuanta, filosofia erakaslea, presuna **ohargarria** eta maitagarria, nehon baldin bazen. **Marzel Etxehandi**

Bere zerbitzura gizon **ohargarriak** erakartzen ditu, administrazio sekularrean beren talentuarentzako lekua aurkitzen porrot egindakoak. **Iñaki Mendiguren**

3 hautemangarria.

Ezpain ertzaren luzadura, ozta-ozta **ohargarria** bisaia itxuraz neutroan. **Aingeru Epaltza**

4 (izan eta kideko aditzekin)

Emazte zenbait hautetsiak izan direla eta ezkerrekoek tanto zenbait irabazi ditzutela, hori da gehienik **ohargarri**. **Herria**

Ohargarri da bestalde, gero ta gehiago jende heldu dela beila hortarat kanpotik. **Herria**

Ohargarri da, zenbeit denbora hauetan, gure ordezkariak guti baizik ez dutela parte hartzen biltzarre horietan. **Herria**

Bereziki **ohargarri** zaigu Jose Maria Arizmendiarieta zenak abiatu urratsaren garapen itzela. **Piarres Xarriton**

Ni oso isilik nengoen, niregan batere ohikoa ez dena, eta ziurrenik **ohargarri** irudituko zaiena. **Josu Zabaleta**

Loditasunean ere landu daiteke, ordea, gainazala; hartan jartzen den gai kopurua, haren trinkotasuna eta materialtasuna **ohargarri** bihurtuz lortuko da adierazkor egitea.

Josu Zabaleta

Horietan **ohargarria** izan da mariñelen lana. **Herria**

Erbat **ohargarria** da zerbaite existitzen dela aurreuposatzean zerbaite halabeharrez ere existitzen dela dioen ondorioztatpena ezin saihestea. **Ibon Uribarri**

· **Ohargarriena**, ikastolaren egoitza eraiki dūala. **Herria**

• 5 (O larriz, izen gisa) oharra.

Gehigarri honen 1. parte frogatzen da 14. gehigarriko gure **Ohargarriarentzat** aitzinatu ditugun argudioekin. **Piarres Xarriton**

Egia dioela urrunago jarriko den seigarren **Ohargarriak** Erromako Aita Sainduak berak lardieratzen ahal duela laiko normahi. **Piarres Xarriton**

Gure **Ohargarri** honetan jadanik eman ditugun kasik argudio guztiei esker. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ohargarri da (23); **ohargarri izan da** (3)

gauza ohargarria (4); **ohargarria da** (20); **zinez ohargarria** (3)

ohargarriki izond ohartzeko moduan, nabariki.

Ohargarriki, lehenbiziko arrazoa herri arimaren inguru geografikotik menpegabetasunaren alde, itxaropenaren arrazoa da hemen ere: herriaren arima inguruaren produktua baldin bada, espainolei ez zaie toki handirik gelditzen itxaropenarako. **Joxe Azurmendi**

Beste edozein mendiren bultzadak inoiz **ohargarriki** ardatzari begira duen kokapenetik higitu ezingo lukeen modukoa baita. **Ibon Uribarri**

ohargile iz oharrak egiten dituen pertsona.

oharka¹ iz ohea osatzen duen egitura, gainean lastaira jartzen zaiona. ik **ohazur**.

Gelak baxuak ziren eta ugariak, eta hornidura eskasekoak iruditu zitzaizkidan; hegoaldera ematen zuen bat egokitu zitzaigun, eta bertan bi **oharka** eta komoda bat, bere palangana eta txarroarekin, zilarrezkoak biak. **Juan Garzia**

Andreas **oharkaren** ertzean eseri zitzaion, zapi busti bat eskuan. **Anjel Lertxundi**

Izba bateko **oharkan** etzanda pentsa eta pentsa egon ondoren, ez bat eta ez bi, tabernako bidea hartu huen halako batean. **Jose Morales**

Oharkan zetzan, erretzen. **Juan Garzia**

Baziren bi **oharka**: haietariko bat desmuntatu, [...]. **Juan Garzia**

oharka² *adlag* oharrak egiten.

-Egia da -Santxok erantzun-; alabaina, pagatzaile onak bahitura-minik ez; eta sukalde apalean afaria prest; zera esan nahi dut, nirekin ez dela hala moduka eta **oharka** ibili beharrik. **Patxi Ezkiaga**

oharkabe (*orobat ohargabe g.er.*) **1 adlag** inor ohartu edo konturatu gabe, oharkabean.

Normalak eta zintzoak bagara, biztanleriaren gehiengoarentzat ikusezinak bihurtzen gara, ez gara existitzen, **oharkabe** igarotzen gara. **Txema Ramirez de la Piscina**

Sedukzio prozesua oso modu naturalean -ia **oharkabe** - inor zapaldu gabe gauzatzen da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Hizkuntzari buruzko aurkikuntza eta orokortze garrantzitsuak **oharkabe** igarotzen direla, zantzu semantiko ilunok hertsiki-hertsian jarraituz gero. **Itziar Laka**

Leku eta une egokian egoten zekien, **oharkabe** pasatzen. **Berria - Kultura**

2 (izenondo gisa) inork hautematen edo nabaritzen ez duena.

Mikel Strogoff, mugimendu **oharkabe** batez, steam-boataren ate aldera hurbildu zen. **Karlos Zabala**

Azkenean, beti-bateko mugimendu **oharkabe** hark hasieran zuen eragina galdu zuen. **Koro Navarro**

Ilobaren maitearengan gehien hunkitu ninduen izan zen haren keinuen erabateko askatasuna, halako axolagabetasun **oharkabe** bat, bete-betean uanean bertan, orainaldi betiereko eta beti hedakor batean bizitzen uzten ziona. **Oskar Arana**

Modu berezi hori -ikusmen inplizitu, **oharkabe** edo itsu-ikusmen deritzona- garun-azaleko ikusmen-aldeak konorterik gabe egonez gero gertatzen da. **Xabier Olarra**

Nola aurkaratu gertaeren haria edo ohituren lerrakera **oharkabea**? **Andres Urrutia**

3 ohartu gabe, konturatu gabe.

Barodako zoo-zaintzaile batek **oharkabe** tigreen eta lehoien arteko atea zabalik utzi zuen. **Gotzon Garate**

-Zer ulertu ote du horrek? -esan zuen Harryk **oharkabe**, artean ingurura begira, ahotsa nondik etorri ote zen jakin nahian. **Iñaki Mendiguren**

Ez zitzaizkion **oharkabe** pasa gona motzak agerian utziriko izter sendoak. **Migel Angel Mintegi**

Idazteko gai baten bila nenbilela, haurtzarorearen nostalgiak jo nau **oharkabe**. **Berria - Kultura**

Agian horregatik izan zinen hain zoriontsu une hartan, **oharkabe** zoriontsu. **Lourdes Oñederra**

Hor ditugu ikastolak beharrik, non ere ikasten diren **ohargabe** bai frantses bai euskara. **Herria**

Aldi berean, eskerron **oharkabez**, eta apika orobat errebantxa-irritsez, oraingoan berak hartu zuen nire hezkuntzaren ardura, eta eskas nenbilela ulertarazi. **Juan Garzia**

ik *beherago* 9. **Askoren artean**

4 (izenondo gisa) ohartzen edo konturatzen ez dena.

Ukondoaz saihetsean eman zion aldamenen zeukan lagun **oharkabeari**, Mikelen presentziak kontura zedin. **Pedro Alberdi**

Batzuetan, ezereen bila ari ez diren pertsona **oharkabeek** aurkitzen dituzte urrezko txanponak. **Itziar Otegi**

Maindireak esku **oharkabeek** ibiltzen dituztela, gorputzaren biluztasuna erakusteraino. **Juan Garzia**

Gainerako guztiak [...] erretorika eta poetika jokoak baino ez dira, irakurle **oharkabea** hitzik gabe uzteko eta inondik ere ez duten sakontasun filosofikoa agertzeko erabiliak. **Xabier Kintana**

Lehen egunetik zekien Fernanek "Hartzaren topaketa" izeneko antzerki saio zirrarragarriaren protagonista **oharkabea** Begoñak izan behar zuela. **Aingeru Epaltza**

Zentzugabekeria baino ez zatekeen neska lokartu eta **oharkabeari** edozer gauza egitea. **Ibon Uribarri**

5 **oharkabean**¹ *adlag* inor ohartu edo konturatu gabe.

Aukera handia zegoen benetan gauez **oharkabean** pasa eta Irkutsken sartzeko. **Karlos Zabala**

Handia zara eta zailagoa duzu **oharkabean** pasatzea. **Fernando Morillo**

Ekar ditzadan gogora, **oharkabean** pasa diren esanera enfatiko batzuk, Goizueta aldeko usuario aberatsetik neureganatuak. **Patziku Perurena**

Lehen bi asteetan gertaturikoak **oharkabean** joan zirela ontzat emanik ere, posible al da inor txo ere ez konturatzea hirugarren astean gertatu zitzaizkionetaz? **Karlos Linazasoro**

Oharkabean gelditzea espero zuten, beren ezkutuko bekatuak ahanzturaren estalki sendoaren azpian gordeta. **Elizen arteko biblia**

Horregatik, zuzengabe mintzo den inor ez da **oharkabean** geldituko, justizia salatzaileak ez dio barkatuko. **Elizen arteko biblia**

Hiruak eta erditan xuxen hasi besta, hiru oren eta erdi emankizunentzat, **ohargabean** joan da. **Herria**

Segurtasun-gailu hori limes militar baten ingeniari politikoei ez zaie **oharkabean** pasatzen. **Iñaki Mendiguren**

Mendebalde moderno berantaren konbentzio historiko honetara Mendebaldeko *religio historici* arrunt baten artikulua **oharkabean** onetsiz iritsi zen. **Iñaki Mendiguren**

Handituz joan zitzaiola min hura, ia **oharkabean** baina etengabe. **Imanol Zurutuza**

6 **oharkabean**² *adlag* ohartu gabe, konturatu gabe. ik **oharkabeki**.

Bere lanaren emaitza plazaratzeko artikulua bat idazteko orduan, zientzialariak, oharturik nahiz **oharkabean**, gauezko zientzia ahaztu, eta ez dakar hizpidera egunezko zientzia baino. **Juan Garzia**

Gizonak irribarre zabaldu zuen eta neskak ere, **oharkabean**, irribarre egin zuen. **Patxi Zubizarreta**

Oharkabean, sabaira begiratu nuen. **Karlos Linazasoro**

-Abas! -atera zitzaion **oharkabean**. **Patxi Zubizarreta**

Lotsagorriturik, kasik **oharkabean** xuxurlatu zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Hara, familiako altxorra desegiten ari ninduan **oharkabean**! **Aingeru Epaltza**

Halaxe heldu da gizona amildegi ertzera, **oharkabean**, pausoz pauso, egunez egun. **Imanol Zurutuza**

Augustok erromatarren bakea ezarri zuenean Pisidian, **oharkabean** bidea prestatzen ari zen San Paulorentzat. **Iñaki Mendiguren**

Oharkabean harrapatu du hiltzaileak. **Migel Angel Mintegi**

On egiten duenean ere, **oharkabean** egiten du. **Elizen arteko biblia**

Jaunak debekatua duen zerbaite eginez, buruzagiren batek **oharkabean** bekatu egiten badu, errudun bihurtzen da. **Elizen arteko biblia**

Oharkabean bezala, ezker eskuak eriak eskuineko hatz nagria eraman zuten, ezkon-eraztuta ukitzeraino. Aingeru Epaltza

Gabini ez zaio **oharkabea**n pasatu keinua. Iñaki Iñurrieta

Berrogei urteak bete arteraino, euskaraz idaztera ezin menturatzu egona zela, arrunt frantximentua zeukalakatuz bere burua, **oharkabea**n bere izate guziaz euskalduna zuela.

Piarres Aintziart

7 **oharkabea**³ (-en atzikiaren eskuinean)

Hitz haiek ez ziren neskaren **oharkabea**n pasatu eta, ez-esatekoak esan zituelakoan eta mihiak traizio egin ziolakoan, ezpainak hozkatu zituen. Patxi Zubizarreta

Gure **oharkabea**n, San Joanen laugarren zaldun beltza lauhazka inguratzen ari zitzagun. Aingeru Epaltza

Bertzeen **oharkabea**n ihes egin nahi duelakoa jokatzu, burua apaldu eta urrats luzean zeharkatu nuen erredakzioa, ezker eta eskuin beldurtu antzo begiraka. Aingeru Epaltza

Asisko herriak, santua gaez hilez gero, anaiek, hiritarren **oharkabea**n, haren gorputz santua hartu eta beste hiriren batera eramango zuten beldurrez, jauregiaren kanpoaldean hainbat gizon jartzea erabaki zuen. Askoren artean

8 **oharkabe***ko izlag* oharkabea gertatua, konturatu gabekoa.

Borgesek sekretu eta apika **oharkabe***ko* irrika, sekula existitu ez zen Buenos Aires baten mitologia irazkitzea izan zen. Juan Garzia

Gure bizia, jaikitzen garenetik, betea dago gure nortasunaren nabarmentzeko egiten ditugun **oharkabe***ko* urratsekin. Pello Salaburu

Bere moldakaitzasunaz hartzen denez, ahaleginak egiten ditu hutsunea betetzeko; adimen-ahalegin eskerga eta konputazio-ahalmen izugarria ditu erabili beharrik, ordea, besteak **oharkabe***ko* erraztasunez moldatzen diren arloetan. Xabier Olarra

Emaitza hori gupidarik gabeko multinazional eta bertako enpresario harraparien zeharkako eta **oharkabe***ko* jardueraren emaitza da. Iñaki Heras

Oharkabe*ko* gihar espasmoak saihesten ditu TCHak eta horregatik onuragarria izan daiteke bizkarrezurrean arazoak dituztenentzat. Berria - Harian

Ez, ez, hori harropuzkeria, antzekotasun guzti-guztiak dira jakinaren gainekoak, bakar bat ere ez da **oharkabe***ko*a. Karlos Zabala

Oharkabe*ko*a izan zen Angelaren keinu hura inondik ere, maltzurkeriarik gabekoa, baina izter zuri-zuri haien ikuspen laburrak larriagotu egin zuen soto misteriotsu hartara joateko proposamenak nire baitan pizturiko asaldura. Alberto Ladron Arana

9 **oharkabe***z adlag* oharkabea.

Korridoreko argia piztu ez banuen, beraz, ez zen **oharkabe***z* izan. Aingeru Epaltza

Halako atzera-pausoak, **oharkabe***z* bada ere, motibatutzat jotzekoak ziren: "oinarri funtzionaleko" inibiziotzat. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ia oharkabe (3); **oharkabe igarotzen** (3)

erdi oharkabea (3); **ia oharkabea** (38); **ia oharkabea igaro** (5); **kasik oharkabea** (16); **nire oharkabea** (4)

oharkabea bada ere (6); **oharkabea bekatu egiten** (5); **oharkabea bezala** (20)

oharkabea esan (3); **oharkabea geratu** (4); **oharkabea geratzen** (3); **oharkabea harrapatu** (3); **oharkabea hartu** (3); **oharkabea heldu** (3); **oharkabea huts** (6); **oharkabea huts egin** (6)

oharkabea ia (5); **oharkabea igaro** (16); **oharkabea igaro zen** (4); **oharkabea igaroko** (5); **oharkabea igarotzea** (3); **oharkabea igarotzen** (3); **oharkabea izan** (4); **oharkabea joan** (11); **oharkabea joaten** (3); **oharkabea kasik** (3)

oharkabea pasa (13); **oharkabea pasatu** (37); **oharkabea pasatu zen** (3); **oharkabea pasatuko** (11); **oharkabea pasatzea** (8); **oharkabea pasatzeko** (5); **oharkabea pasatzen** (29); **oharkabea sartu** (4)

oharkabea utzi (6)

oharkabekeria (*orobat ohargabekeria*) iz ohartasun falta gaitzesgarria.

Onartzera gutarik batzuek Jainko guztiz on eta handiaren aldera gure esker tzarra, **oharkabekeria** eta ausartzia erakutsi dugula, tipien ordeztandak hautatuz eta berdinduen ordeztandak gaizkia eta hobereenaren ordeztandak tzarrena. Piarres Xarriton

Jasanezinak zaizkio beren buruan zorri nazionalistak sumatzen ez eta hedabideetatik besteen bartzak arengatik belikoz ito nahian dabilzanak; izan ere, **oharkabekeria** horrek nazionalismorik gaiztoenean ditu amiltzen, inperialista kutsukoan alegia. Markos Zapiain

Deus gutiri hartzen naiz egun, ez naiz fleitean, eta bide xuxena hutsegirik, bi edo hiru kilometroz errepidea segitu dut, baina kexatu gabe, honelakoa baita, eta ohikoa, ene **ohargabekeria**, eta ez bainaiz nihaurekin kalapitan beti ariko. Piarres Aintziart

oharkabeki *adlag* oharkabea, konturatu gabe.

Pitxerrei **oharkabeki** begiratu zien, gobadarako zerrendaz itaundu zion neskameari ganora gabe, eta, sukaldetik itzultzerako, senarra oherako gertatzera joana zen.

Mirentxu Larrañaga

Gure artean sortu den konplizitatearen erdian pasa dira, **oharkabeki**, argazki-makinan daramatzadan 25 gramo haxix, eta alkandoraren eskuin-mahuka bilduan dihoan bosteko harri ederra. Pako Aristi

oharkabe

ko ik oharkabe 8.

oharkabetasun (*orobat ohargabetasun g.er.*) 1 iz ohartsunik eza.

Oharkabetasunak ez gaitu bertzei min egitetik libratzen, kulpatik libra bagaitzake ere, zeren ohartasuna zein **oharkabetasuna**, biak ere berdintsu eta orobatsu izan baitaitezke, bertzei eragin minaren eta kaltearen kausa. Joan Mari Irigoien

Gauza ederra da **oharkabetasun** hori, baina baita arriskutsua ere. Anjel Lertxundi

Oharkabetasun osoraino lokarraz zuten neskatoak bizitzeari utzi ez bazion ere, ez al zuen bizi-denbora galdu eta ez al zen, beraz, hondorik gabeko zulo batera amildu? Ibon Uribarri

2 **oharkabetasunez adlag** oharkabez.

Egunkariak, halaber, AEBetako Armadaren agintari goren Richard Myersen dimisioa ere eskatu du, Rumsfelden kasuan bezala, «**ohargabetasunez** jokatzeari». Berria - Mundua

3 **oharkabetasunezko izlag**

Zorion une bat izan zen, **oharkabetasunezkoa**, bizitzaz gainezkako une bat. Xabier Olarra

oharkabetu, oharkabe(tu), oharkabetzen da/du *ad* ohartasuna galdu edo galarazi.

Norbait **oharkabetu** egingo zen eta aurrekoa jo. Urtzi Urrutikoeetxea

Arrieta **oharkabetu** zen istant batean, bere burua galzorian ikusita, Iturbidek mahairantz jauzi egin zuen, eta errebolbera eskuraturik, tiro egin zion. Migel Angel Mintegi

Desagertu egiten da lurrera erortzen den guztia: zigarroen paketea, zapatak, poemak, arropak, **oharkabetzen** naizenean irekitzen den aho baten gainean biziko banintz bezala. Berria - Kultura

Inor ez dadila ausart Jainkoaren seme-alabak **oharkabetzen** aktibismoaren zorabiora eramanez edota multiplizitatean sartzu praktika arruntan zama astunegiaz eta kanpoko egintzez. [Joan Mari Lekuona](#)
Emakumeren bati, **oharkabeturik**, putzu alboan suila ahazten bazaitzaion, Pliushkinek etxera eramaten zuen suila. [Jose Morales](#)

oharkabetze iz arreta galtzea.

Piloturik zaharrenak ere ustekabean harrapatzen dituen **oharkabetze** txoro horietako bat baizik ez zen. [Josu Zabaleta](#)

oharkabezia iz oharkabetasuna.

Erruei itsu, patua gupidagabea izan daiteke **oharkabeziarik** txikienekiko. [Juan Garzia](#)

oharkaitz iz sumagaitza.

Ikara **oharkaitz** batek inarrosi ninduen: gizon-usain minarekin batean, haren gorputzak itsatsirik zekarren Edurneren urrin gazi-gaztea. [Aingeru Epaltza](#)

oharkera iz arreta, ohartasuna.

Euli gosea baino bero inkakorragoa egiten zuen, baina Norak ez zuen sapa astunaren **oharkera** handirik. [Anjel Lertxundi](#)

oharketa iz ohartzea, arreta.

Eztandaz inarrosi kontzientziaren iratzartzea, elkartasunaren kontzeptuaren bermatzea, politika mailako **oharketa** lasterra, ekintza eremuen finkatze praktikoa, [...] eta horrelako mila eginbide beharrezko. [Itxaro Borda](#)

Enuntziatio-modu berriak lanean jartzen dira (**oharketa** kuantitatiboak eta kalkulu estatistikoak) kontzeptu berriak marrazten dira (degenerazioa, perbertsioa, neurosia) eta, jakina, erakuntza teoriko berriak eraiki daitezke. [Xabier Arregi](#)

oharkizun iz oharra. ik oharpen.

Londresko Poliziako komisariorde Brian Paddickek adierazi zuen inork ez zuela atentatuaren aurretik **oharkizunik** egin. [Berria - Harian](#)

Atsedinari buruz **oharkizunak**. [Elizen arteko biblia](#)

Bigarren **oharkizuna** da nola itzuli geuron sorburura eta egiazko argira. [Joan Mari Lekuona](#)

Adigaien ahalgarritasunetik (logikoa) berehala gauzen ahalgarritasunera (errela) ez inferitzeko **oharkizuna** da hau. [Ibon Urbarri](#)

Ostegunean bideo bidez eginiko **oharkizunean**, bahitu zituzten 14 pertsonetatik zazpi hegokorear askatu zituztela esan zuten. [Berria - Mundua](#)

Handik NBEko buruak «**oharkizunik** tinkoena» helarazi zien Darfurko gatazkan diharduten aldeei, bie su-etena urratu izana leporatuta. [Berria - Mundua](#)

Al Kaedaren erasoan **oharkizunik** jaso ez zuela dio Bushek [Berria - Mundua](#)

oharkor izond ernea, arretazkoa.

Zutitu nintzen orduan; eta une batez isiltasuna gorderik, igorri nizkion, oharkabea bezala, behako basak eta noragabeak, hargatik erneak eta **oharkorrak** zirenak. [Jon Muñoz](#)

oharmen 1 iz gauzez ohartzeko ahalmena.

Gogamena kendua ez bazuten ere, galdua zuten, itxura guztien arabera, **oharmen** erne eta argia. [Xabier Olarra](#)

Orain **oharmena** eta oroimena hutsik ere gabeak zituen. [Juan Garzia](#)

Adimentsu eta **oharmen** naturalaren jabe izatea, kontzeptu bat iradokizunik txikienean ulertzeko adinakoa. [Xabier Kintana](#)

Zuzentzaileak nahiko **oharmen** du, nahiko sentiberatasun behatzerakoan, begirada arin batez horrelako informazio osoa atzemateko. [Jon Alonso](#)

Ikargarria da posibilitzat hartzen dugunak gure **oharmena** zenbat baldintzatzen duen ikustea. [Ana Urkiza](#)

Izan ere, funtsean ez gara ari azentuaren izaera fonetiko, fisiko, objektiboaz, hiztunak subjektiboki bere **oharmen** linguistikoa ematen dion pisuaz baizik. [Lourdes Oñederra](#)

Beste hizkuntza baten ahoskeraz bereganatzeko, hiztun horrek **oharmena** fonetikoki "berrafinatu" beharko du eta kategoria fonologikoak berrantolatu. [Lourdes Oñederra](#)

Eromena, batzuetan, horixe besterik ez da, antza: zeure buruaren **oharmena** erauzten dizun zirimola bat; orduan, ez zara zu zeu, zirimola bera baizik; ez dago zirimola besterik. [Juan Kruz Igerabide](#)

2 ohartzea, arreta, arta. ik ohartasun.

Gero, bere inguruarenganako **oharmena** itzularazi dion arrosario etenari eman dio tankera. [Aingeru Epaltza](#)

Baina aitor dut hauetarik ezerk ez zuela ene **oharmena** jo; beste nonbait neukan, osorik. [Koldo Izagirre](#)

Oroimena aztertu nionean, antzeman nion nolabait beraren mundu itxia, momentu bakarrera -"orainera"- mugatua, dena-bat bihurtua zela, iraganaren (edo etorkizunaren) **oharmenik** ezak eraginik. [Xabier Olarra](#)

Gero, bere inguruarenganako **oharmena** itzularazi dion arrosario etenari eman dio tankera. [Aingeru Epaltza](#)

- **Oharmenez** eta arretaz entzuten dizugu- bota zion Jonathanek. [Jon Muñoz](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sakon-sakonean, ezintasun horrek eragina da ingurukoekiko **oharmen** -falta, jendeari buruzko jakingurarik eza eta balio-kontuen duen muga. [Xabier Olarra](#)

Pertzepzioak edo **oharmen** -sintesiak epe laburreko oroimenetik epe luzeakora bultzatzea eskatzen du. [Xabier Olarra](#)

Fonema asmo, **oharmen** eta memoria unitatea dugu: berariaz ahoska, berez hauteman eta oroitu daitekeen hotsa. [Lourdes Oñederra](#)

Ekoizpen-erraztasunak sintagman du indarra, hotsak hurrenez hurren fisikoki ahoskatzeko orduan, eta **oharmen** -erraztasunak, paradigman, gure hots eta hitz-biltegian, gure hizkuntzaren memorian. [Lourdes Oñederra](#)

Uste dut nahasgarri izan daitekeela **oharmen** fonetikaz hitz egitea, beste fonetika bat bailizan, fonetika beraren [...] beste ikuspegi bat denean. [Lourdes Oñederra](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fonologiak (hau da, ekoizpen- **oharmen** indarrek) zerbaiten esplikaziorik ezin badu eman, zerbait hori ez da fonologiaren eremuko esplikagaia, beste nonbaitekoa izango da. [Lourdes Oñederra](#)

Ikusiko dugu hori guztia giza **oharmenaren** baldintza unibertsalekin lotzen dela. [Lourdes Oñederra](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oharmen fonetikaz (3)

oharmenaren aldetik (7)

oharmeneratu, oharmenera(tu), oharmeneratzen da *ad* oharmenera etorri. ik **bururatu**.

Auschwitz en zuen egonaldia laburrean, berari "ez zitzaion inoiz **oharmeneratu** juduen hilketara bideratua zirudikeen ez ein elementu". Juan Garzia

oharño iz ohartxo.

Hortik datoz glosei erantsi **oharñoak**, gero barreiatuak direnak Azpilkuetaren beraren idazlanen irazkia ehotzen duten "Notabilia" ohargarrietan. Piarres Xarriton

oharpen (269 agerraldi, 54 liburu eta 81 artikulutan) 1 iz zerbait ohartarazteko edo ikusarazteko egiten den adierazpena. ik **obserbazio**; **ohar**.

Orain, zure baimenarekin, egunkarian kopiatuko ditut zure azken **oharpenok**. Antton Olano

Tarteka, zutabe suntsitu batzuei buruzko **oharpena**. Joxe Austin Arrieta

Beste **oharpen** bat: ez dira nahasi behar hotsen igorpenerako beharrezkoak diren mugimendu irekitzaile eta itxiztaileak, eta hots horien irekidura desberdinak. Isabel Arrigain

Beste bi **oharpen** oraino: lehena, eskuinburuak oro har gibelerat egin duela kasik denetan. Herria

Balio du haren **oharpenei** behako baten emaita. Herria

Nola bete zitzaketen haren **oharpen** eta aginduak? Askoren artean

Bertenez, bada **oharpen** bat zuk sumatu ez izanak harriturik naukana, erran nahi baita, maitasunean deus zailagorik ez dela sentitzen ez dena izkiriartzea baino. Jon Muñoz

Hainbeste maite zuen espirituko alaitasunez beteriko pertsona, non hitz hauek idatzarazi baitzuten guztien **oharpenerako** kapitulu batean: [...]. Askoren artean

Beltzez jantzitako gizontxoak **oharpena** egin zion hari ere, han ez zela erretzen. Josu Zabaleta

Karia hortara, LANTEGIAK-Euskal Herriko enpresen batasunak nahi ditu bi **oharpen** hauek egin: [...]. Herria

Kasu hortaz, ELB sindikatak zabaldu du ageri bat, **oharpen** asko eginez. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horretan nago preseski, paper xurian oroitzapen eta **oharpen** berri berriak artoski pausatuz, gauza simple edo gertakizun hunkigarriak hitz motz biluzietan erranez, gero apaindurik kondatzekotan. Piarres Aintziart

Oharpen argia da bere adiskide batek egiten diona: «Zu ez zara bizi, besteek bizi zaituzte». Berria - Kultura

-Oso **oharpen** zuzena egin duzu, jaun agurgarri hori. Jose Morales

Oso **oharpen** zuhurrak egiten baitzizkion troikako laguntza-zaldi izpildunari. Jose Morales

Oharpen larriena, OPHLM-eko sei zuzendarien jorنال bikoitzaz egiten du Bordeleko auzitegiak. Herria

Koordinazio ordena bi hauetako bakoitzak **oharpen** berezi batzuk eskatzen ditu. Isabel Arrigain

Hau aipa daiteke **oharpen** seguru eta erabilgarri gisa: logika orokorra organon gisa kontsideratuz gero, beti itxuraren Logika dela, h[au] d[a], dialektikoa dela. Ibon Urbarri

Sasi-irakaspenen kontrako **oharpena**. Elizen arteko biblia

3 ohartzea.

Bestalde, artistak bere **oharpenetatik**, bere irudipenetatik, bere oroimenetik, bere sorlanarentzat baliagarri deritzona hautatzen duen bezala, modu berean, bere teoria eraikitzeke, zientzialariak bere **oharpenen** azpimultzo bat aukeratu behar du eta, harekin loturiko fenomenoaren artean, harira zein datozen erabaki. Juan Garzia

Eszena harrigarri hau zalantzarik gabe ikuspen profetikoa izan zela, eta Moisesen ahalegin guztiek **oharpen** intelektualetara jotzen zutela. Xabier Kintana

Aldi berean han ikusmenezko **oharpenik** ere gertatzen zela, eta horren objektua sorkari bat zela, berori ikustean **oharpen** intelektualaren gorentasuna erdietsiz. Xabier Kintana

Baldin, hala eta guztiz ere, begizko **oharpen** hori ikuspen profetikoren bat ez bazen behintzat. Xabier Kintana

"Nire zoriona, berriz, Jainkoaren ondoan egotea da", hauetan guztiotan jakintzaren bidezko hurbiltzea da, hots, zientziako **oharpena**, eta ez lekuzko hurreratzea. Xabier Kintana

Gero berriro aspirtzen da bere ezerezen **oharpenean**. Joan Mari Lekuona

Baina barne-**oharpenetik** ez da ateratzen berriro itzultzekotan ez bada. Joan Mari Lekuona

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EAEn **oharpen** eta txosten oldea izan genuen, eta batzordeak ebatzi zuen lan taldea bidaltzea; hain zuzen ere, informazio gehigarria edukitzeke. Berria - Euskal Herria

Oharpen tornu bat nasaia argitaratua du preseski joanden egunean. Herria

Moisesek **oharpen** -kantika israeldarrei irakatsi. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi oharpen egin (4); **oharpen bat egin** (3)

oharpentxo iz *adkor* oharpena.

Beste **oharpentxo** bat: batzuetan, sagar ondo sartu delarik eta ez hitza, arbola bera perdez agertu da eta sagarrak gorritz. Herria

oharpide iz ohartzeko bidea.

Gizon horiek beren bekatuagatik bizia galdu badute ere, errauts-ontziak sagaratuak daude, nire aurrean intsentsua eskaintzeko erabili izan direlako. Egin errauts-ontzi horiekin aldea estaltzeko xafiak; horrela, **oharpide** izango dira israeldarrentzat. Elizen arteko biblia

oharrarazi ik ohartarazi.

oharrikasi, oharrikas, oharrikasten du *ad*

Hobeto esan, horixe izaten da kulturek berek astiro-astiro urteetan eta mendeetan egiten dutena balioekin, ondorioetatik **oharrikasiz**, hots, eskarmentua hartuz, transformatuz, eboluzionatuz (moraliki). Joxe Azurmendi

ohartarazi, ohartaraz, ohartarazten (*orobat oharrarazi eta ohar-arazi g.er.*) **1** du *ad* ohartzera edo konturatzera behartu; jakinarazi, ikusarazi. ik **ohartu 5**; **abisatu**.

Jagoleak, arerioa datorrela ikustean, adarra jotzen du jendea **ohartarazteko**. **Elizen arteko biblia**

Nahi dut hemen adierazi, edo bederen **ohartarazi**, zer deitzen dugun Natura sortzailea eta zer deitzen dugun Natura sortua. **Piarres Xarriton**

Badut hemen, zuk ongi **ohartarazi** didazun bezala, bi alor horietan non trebaturik. **Jon Muñoz**

Zein urrun zegoen **ohartarazi** behar zenigun! **Patxi Zubizarreta**

Eliseok **ohartarazten** zuen erregea eta hau erne egoten zen. **Elizen arteko biblia**

Ohartaraziko zaituztet nik, gauzak jasotzeko ordua iristean. **Iñaki Mendiguren**

-Albertek ere ez du txintik atera- **ohartarazi** zuen Maxek. **Jon Muñoz**

Jendeak behin baino gehiagotan **ohartarazi** zion: "itsumustuan hilko zara". **Patxi Zubizarreta**

Charliek maiz **ohartarazi** nau, alegia Jimmyrengandik urrun ibiltzeko aholkatu izan dit. **Mirentxu Larrañaga**

Ohartarazten dizuet tortilla ez dela labanarekin mozten. **Fernando Rey**

Hizkuntzarekin jolas egiteak ere hizkuntzak dituen ahalbideez **ohartarazten** gaitu. **Iñaki Arranz**

Era berean, **ohartarazten** dizuet berriro antzekorik egiten baduzue, ez dudala izango kanporatzea beste aukerarik. **Iñaki Mendiguren**

Honela **ohartarazi** zion aitaginarrebak: -Zure jokaera ez da egokia. **Elizen arteko biblia**

Ohartarazi zigun nola, kaxoi batean, bazen tresna sorta koxkor bat hartarakoxe egokia. **Juan Garzia**

Hasi prestatzen zahartzen zarenerako, **ohartarazten** dio bere buruari. **Oskar Arana**

Eta Zarautz aldean ere honako hau **ohartarazi** nahi zuten: Santio-Santanak euritsu, urte hura artotsu. **Pello Zabala**

Haratago joanez, honakoa **ohartarazi** zuen: «Europa nazionalismoei aurre egiteko asmatu da, nazionalismo guztiak arrisksuak baitira». **Berria - Euskal Herria**

2 (kompletibo batez)

-Grosrouvrek **ohartarazi** dit, gutunean, ez zuela izan liburuak kutxaz kutxa ordenan jartzeko astirik. **Jon Muñoz**

Inork ez baitzion **ohartarazi** arrisksua izan zitekeela animaliak labean lehortzea. **Patxi Zubizarreta**

Nik, ordea, zera **ohartarazi** nien: ez nengoela inon aurkezteko moduan, esan diezaietela beren gurasoei. **Fernando Rey**

Abiatu aurretik, ordea, **honakoa ohartarazi** zion mutilari: ez zuela hitz egin behar beltzez jantzitako emakumeekin, ezkonduak baitziren. **Xabier Aranburu**

Gaztainondoaren kontra sorbalda zikinduko zuela **ohartarazi** nuen, eta alden du egin zen. **Ramon Saizarbitoria**

Mutila inguruan dabilela **ohartarazi** nahi dizut, besterik ez. **Oskar Arana**

Hori nuen buruan, Hondarribian lur hartzeaz geundela **ohartarazi** zutenean. **Ramon Saizarbitoria**

Guztiei **ohartarazten** eta aholkatzen diet, ez ditzatela mespretxa eta juzga arropa leun eta kolorezko jantzirik nahiz jan-edari finak hartzen ikusten dituztenak. **Askoren artean**

Anjel Lertxundik **ohartarazten** digu, fikziozko itzultzaile baten bidez, euskal hiztegiaren -ezagutzen dituen gainerako hiztegiaren ez bezala- *itzulpen* hitza lehenago datorrela *orijinal* baino. **Iñaki Arranz**

-Nire eginbeharra da zuri **ohartaraztea** Lajosek hona ekarri dituen plana eta asmoa arrisksuak direla. **Ander Irizar**

Denon eginbeharra da, era berean, giza eskubideak errespetatzea nahitaezkoa dela **ohartaraztea**. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adituek ohartarazi (6); arduradunak ohartarazi (5); ari dela ohartarazi (24); ari direla ohartarazi (7); arriskua dagoela ohartarazi (9); arriskuan daudela ohartarazi (8); arriskuaz ohartarazi (45); arriskuez ohartarazi (12); arrisksua dela ohartarazi (6)

badagoela ohartarazi (5); badaudela ohartarazi (5); beharraz ohartarazi (10)

dagoela ohartarazi (71); daudela ohartarazi (49)

egin dezakeela ohartarazi (10); egin direla ohartarazi (8); egingo duela ohartarazi (11); egingo zutela ohartarazi (6); egon daitezkeela ohartarazi (7); eragin dezakeela ohartarazi (6); eragin ditzakeela ohartarazi (5); erakundeak ohartarazi (10); ez dagoela ohartarazi (8); ez egiteko ohartarazi (6); ezinbestekoa dela ohartarazi (8)

garrantziaz ohartarazi (10); garrantziaz ohartarazi zuen (5); gehiagotan ohartarazi (5); gerta daitezkeela ohartarazi (7); gobernua ohartarazi (6); gobernuari ohartarazi (8); gobernuari ohartarazi zion (6)

honakoa ohartarazi (5)

ibiltzeko ohartarazi (8); izan daitezkeela ohartarazi (14); izan daitezkeela ohartarazi (11); izan dela ohartarazi (7); izango dela ohartarazi (23); izango direla ohartarazi (9); izango duela ohartarazi (6)

kalteaz ohartarazi (8)

labek ohartarazi (6); larria dela ohartarazi (9); larriaz ohartarazi (6)

ministroak ohartarazi (5)

nahi duela ohartarazi (6)

ohartarazi bezala (5); ohartarazi digu (11); ohartarazi dit (5); ohartarazi du elak (5); ohartarazi du erredakzioa (11); ohartarazi du labek (5); ohartarazi du nbek (11); ohartarazi du omek (14); ohartarazi duenez (39); ohartarazi dute adituek (12); ohartarazi dute zientzialariek (7); ohartarazi dutenez (22); ohartarazi nau (5); ohartarazi ninduen (8); ohartarazi zidan (15); ohartarazi zigun (8); ohartarazi zuen azkarragak (6); ohartarazi zuen diezok (6); ohartarazi zuen erakundeak (8); ohartarazi zuen sindikatuk (5); ohartarazi zuenez (66)

premiak ohartarazi (6); presidenteak ohartarazi (12); prest dagoela ohartarazi (6)

sindikatuak ohartarazi (7)

zagoela ohartarazi (16); zera ohartarazi (12)

arriskuaz ohartarazten (14); ohartarazten digu (12); ohartarazten eta aholkatzen (7); ohartarazten gaitu (5)

ohartarazle *izond* ohartarazten duena.

Irakatsi zuen hura beti begien aurrean eraman behar zela, egin behar zuten bizitzaren **ohartarazle**, eta, gehiago oraindik, hil ere berarekin hil behar zela. **Askoren artean**

ohartarazpen *iz* zer bait ohartarazten den mezua edo agiria. ik **jakinarazpen**.

Aurelianok hitzei eutsi zien, baina honako **ohartarazpen** hau ezarri zion aurrez: [...]. **Juan Garzia**

Joan zen abenduan **ohartarazpena** egin zion batzordeak konpainiari: salaketei otsailaren 15a baino lehenago erantzun, edo bi milioi euroko isuna ordaindu egunero.

Berria - Gaiak

Oso **ohartarazpen** argia da: klima aldaketa abian da eta larriagotzen ari da. **Berria - Gaiak**

Gero txosten bat bidali zuen Hradecera eta niri **ohartarazpen** bat iritsi zitzaidan. **Fernando Rey**

Hilaren 4 an Jiménez Velasco Aguraineko notarioaren **ohartarazpen** bat jaso nuen, egun horretan ireki behar zutela nire izenean ezarritako dokumentua, 1885etik han zegoena gordeta. **Iban Zaldúa**

-Kondenatuari sententziaren **ohartarazpena** sinarazten ahaztu zitzaian. **Edorta Jimenez**

Alkateari egindako **ohartarazpen** bat soilik espero zuten askok. **Berria - Gaiak**

Uste dut badela hor mezu bat guretzat, **ohartarazpen** moduko bat, nola jokatu beharko genukeen esaten ari zaiguna. **Oskar Arana**

ohartzapena 1 iz ohartzapena.

George Bush orain arte erabateko sustengua agertu badio ere Ariel Sharon Israelgo lehen ministroari, **ohartzazte** aski zorrotz bat zuzendu zion herenegun zabalduak agiri batean. **Berria - Mundua**

Riceren **ohartzazte** gehiago. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan)

Hala, New Delhik Katmandura bidalitako Karan Singh mezulari bereziak Manmohan Singh lehen ministroaren **ohartzazte** mezu bat ekarri zion joan den asteazkenean Gyanendra erregeari. **Berria - Mundua**

Ohartzazte lan horretaz gain, gertatutako arrazakeria ekintzen aurkako ihardukitzeak egon dira, eta eraso edo atentatu andana leporatu dieten 14 gazte auzipetu dituzte; horietatik 12 espetxeratu dituzte. **Berria - Mundua**

ohartasun 1 iz arreta, arta. ik oharmen 2.

Jakite hori, beraz, arte bat da: ernetasuna, **ohartasuna**, usna. **Askoren artean**

Zail egiten zait haren gogo-egoerari antz ematen, ematen baitu gogobetetasun itun baten eta bere buruaren **ohartasun** artega eta ezeroso baten artean dabilela. **Oskar Arana**

Kontzientziaren eta arrazoimenaren **ohartasuna** erdi lausotuta zituen, eta malkoak biltzen zitzaizkion, antza, begien ertzetan. **Ibon Uribarri**

Bere baitara bildurik, xake-partida zail bat buruz jokatzen aritu zen, **ohartasun** lasai eta sakonez. **Jose Morales**

Oharkabetasunak ez gaitu bertzei min egitetik libratzen, kulpatik libra bagaitzake ere, zeren **ohartasuna** zein oharkabetasuna, biak ere berdintsu eta orobatsu izan baitaitezke, bertzei eragin minaren eta kaltearen kausa. **Joan Mari Irigoien**

2 (hitza elkartuetan)

Bere aurpegian babesgabetasun eta segurtasunik ez hori bera ikusi nion eta aldi berean bere gizonezkotasun kontzientziaren **ohartasun** puntu bat sumatu nion. **Josu Zabaleta**

oharteman, oharman, oharmentan du ad ohartu, ikusi.

Sukaldean, orain iritsi ezin zen leku batean, tximinia altuaren gona zurian, haurren baten eskuak ikatzez margoturiko itsasontzi ttipi bat **oharteman** nuen. **Koldo Izagirre**

Oharteman dituzu, arratsapalean, Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraik a gerrarazten eta ezkutazten dituen zumar guztien soslai izugarriak? **Koldo Izagirre**

-Jende gaiztoa, gorriak - **oharteman** zuen Cristina andreak. **Koldo Biguri**

ohartzekin 1 izond ezin oharzuko.

Baina amari apoplexiak eman zionetik, konturatu ere ez zen egiten hankarik ba ote nuen, adi-adi egoten baitzen haren keinurik **ohartzekin** zaintzen, zerbait behar ote zuten jakiteko. **Ramon Saizarbitoria**

Begietako urdina, normalean kasik **ohartzekin**, aise ere nabarmenagoa zuen. **Aingeru Epaltza**

Artetan besteen buruen artean harena ikusten nuen, lepo mehe luzean txertaturik, ile ilun hostotsua haizearen ufako arinak eta gorputzaren mugimendu erregular eta sotilak dardara **ohartzekin** ezartzen zutela. **Piarres Aintziart**

Joxek baietz dio buruaren mugimendu ia **ohartzekin** batez. **Pello Lizarralde**

Gizonak gaixotasun **ohartzekin** eta ohiko batengatik hil izan dira halakoetan: makaltasunean eta miseria jaiok, bortizkerian edo gobernuaren aurreiritzietan, nola suntsitzen zituzten ikusi izan dute, maiz suntsipenaren kausez oharu ere egin gabe. **Iñaki Iñurrieta**

Abelek modu ia **ohartzekin** mugitu du burua baietz esateko. **Pello Lizarralde**

2 (adizlagun gisa)

Begi txiki distirak soilik nabarmetzen zuten gelako mugimendu oro jarraitzen zuela, **ohartzekin**. -Nongoa hut hi, hain mensa? -galdegiten zidan, trankalaka, Joanesek bere iloba zuzena nintzela jakidien **ohartzekin**. **Urtzi Urrutikoetxea**

ohartzari ik oharzari.

ohartu iz oharxa.

Beste askotan bezala, Fernando Videgainen "Crónica negra medieval" leitu nuenean, **ohartu** ezerez batzuk jaso nituen nere desordenadore madarikatu honetan, eta hementxe daude oraindik. **Patziku Perurena**

ohartu, ohar(u), oharzen 1 da ad adimenaren bidez gauzaren batez jabetu, zerbait ikusi. ikkonturatu; erreparatu.

Hura ikustearrekin batera **ohartu** zen zertaz ari ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Gaur **ohartu** da zein garrantzitsua den lekukotasunak belaunaldiz belaunaldi hedatzea. **Eneko Bidegain**

Ohartu haiz nolako elizak eraikitzen dituzten gaur egun? **Karlos Zabala**

Berehala **ohartu** nintzen, Kristinak eta biok bezain zaila zuten Charlyk eta Ximurra elkarrekikoa. **Ohartu** orduko, zerbeza lata bana genuen eskuetan. **Aingeru Epaltza**

Irten, eta nire gogoz kontra, **ohartu** gabe, nahi gabe, hilerrirantz joan nintzen. **Josu Zabaleta**

Ohartu gabe, kale burura heldu ziren. **Patxi Zubizarreta**

Segidan utzi zituen aretoak, inor ere **ohartu** gabe. **Karlos Zabala**

Ohartu ginenerako berandu zen. **Koldo Izagirre**

Egiaz, Jauna dago hemen eta ni **ohartu** ez. **Jose Antonio Mujika**

-Haizeak garagar usaina dakar, **ohartu** zara? **Karlos Linazasoro**

-**Ohartu** gara, **ohartu** gara! -garrasi egin zuten denek batera. **Jon Muñoz**

Ilunenak, izan ere, **ohartu** ere egiten ez garen horiek dira. **Juan Kruz Igerabide**

Ohar zaitenez nola hor argiro adierazten den izen eratorri guztiok ez zirela agertu Munduaren sortzeaz geroztik baino. **Xabier Kintana**

2 (konpletibo batez)

Ohartu nintzen heriotza barkamena eta bakea dela. **Ander Irizar**

Ohartu zen nagusia Jauna aldeko zuela Josek eta lagundu egiten ziola, beti, hasitako ongi bururatzeko. **Jose Antonio Mujika**

Paulina begira-begira neukala **ohartu** nintzen. **Bernardo Atxaga**

Egiaz odolatan zegoela **ohartu** nintzen. Josu Zabaleta

Isiltasunean lau begi zelatari zeudela **ohartu** zen. Felipe Juaristi

Zer bait esaten hasi orduko, sentimenez gainezka zegoela **ohartu** nintzen. Iñaki Iñurrieta

Ohartu zara zientifiko batzuk sentimentalak direla? Piarres Aintziart

Ordulariari behatuz **ohartu** zen zilegitzen zitzaien ordu eta erdiko jardunaldia bukatzen zihoakiela. Itxaro Borda

Bat-batean **ohartu** zen segada batean harrapatu zutela. Gaztea **ohartu** zen Kirxak urratsa motelagotu zuela, bera ere horretara gonbidatu nahi balu bezala. Patxi Zubizarreta

Zutik jarri eta bere gonak atondo zituenean **ohartu** zen ni ere han nengoela. Joxean Agirre

Manex erretorea **ohartu** zen hastetik ez nintzela zeremonia alegera horietan batere lasai. Piarres Aintziart

Jacques, kostata baina, **ohartu** zen egoera hartan abokatuek ez zutela zer eginik. Felipe Juaristi

Leihoa freskura bila zabaldu zuen baina **ohartu** zen kanpoan sargoriago zegoela barruan baino. Josu Landa

Ohartua zen eremu mortu bat zegoela haien eta gainerakoen artean. Imanol Zurutuza

Urteen buruan, gero eta gehiago garena herritarrok, **ohartuak** garenok, Euskal Herria badela, gure jende kopuru seinatu bat jokatzeko delakotz nazio bat balitz bezala. Piarres Xarriton

3 (ezezko perpaus batean)

Ez nintzen batere **ohartu** paretan txolarreak zeudela, justu nire gainean. Jose Antonio Mujika

Ez zen **ohartu** ni han nintzenik, eta gelara igo nintzen arreba agurtu gabe. Anjel Lertxundi

Bera ez zen **ohartu** han geundenik, eta nik beste aldera begiratu nuen. Juan Kruz Igerabide

4 (osagaia -z atzikiak)

Alderdi Ederrera iritsi zirenean **ohartu** zen tamarindoez. Iñaki Iñurrieta

Menendez ez zen pistolaz **ohartu** harik eta ustezko lapurra lurrean etzanda ikusi zuen arte. Aritz Gorrotxategi

-Ez utzi zure beldurraz **ohar** daitezen. Xabier Aranburu

Susana begiratu hark adierazten zuenaz **ohartu** zen. Bernardo Atxaga

Baina Telleria ez zen horretaz **ohartu**. Harkaitz Cano

Gestapoa **ohartu** zen, ordea, noizbait, apezaren jukutiaz. Eneko Bidegain

Nire presentziaz **ohartu** ez balitz bezala izan zen. Alberto Ladron Arana

Ene trenpu makalaz **ohartu** zen Martina eta eskua "lasai!" errateko moldean beso gainean pausatu zidan. Itxaro Borda

Nire bat-bateko zurbilduraz **ohartu** zen idazle kontsaktatua. Aingeru Epaltza

Ordura arte ez zen txikikeria hartaz **ohartu** ere egin, baina dirurik gabe larri behar zuen inondik ere. Juan Luis Zabala

Irribarre egin du eta berehalakoan **ohartu** naiz nire xalotasunaz. Monika Etxebarria

Baina ontziko inor ez da lehorraren hurbilaz **ohartu**. Anjel Lertxundi

Ohartu San Bonabenturak erabiltzen duen konposizio-baliabideaz. Askoren artean

Deusez **ohartu** orduko, paper guztiak sinatuak zituen. Aingeru Epaltza

Ni izan nintzen beharbada haren deserosotasunaz **ohartu** zen bakarra. Ander Irizar

Ama berehala **ohartu** zen nire alderdi ilun hartaz. Alberto Ladron Arana

Lehenengo abisuaz ez nintzen **ohartu** ere egin. Iban Zaldúa

Balantza imintzio zitekeenaz **ohartu** bide zen Ana, besotik heldu baitzion. Iñaki Iñurrieta

Azkenik, norbait **ohartua** erredakzioan duten pagotxaz. Aingeru Epaltza

5 (osagaia -i atzikiak)

Doi-doian **ohartu** nintzaion ganberaren antolaketari. Aingeru Epaltza

Ostiak hain ontsa gorderik etortzen ziren paketetan, non nehor ez baitzen sekula deuseri **ohartu**. Marzel Etxehandi

Neketan ezagutuko nukeen, ileari **ohartu** ez banintz. Aingeru Epaltza

Ez dakit ama zer baiti **ohartu** zenetz baina arratsalde guziaz kasik gordea egon nintzen. Janbattitt Dirassar

Gero **ohartu** naiz, beti bezala historiaren hatzen gibeletik herrestan, Gaztelako hirian egin izan zen auziaren garrantziari. Piarres Aintziart

Harrituta zegoen Ruche jauna horri **ohartu** ez izanaz. Jon Muñoz

Kikara eta ogi-koskorra esku banatan, haien begiradei **ohartu** nintzaion, eta hankartera jaitsi nuen nik neurea. Inazio Mujika Iraola

Mende berean, Allande Oihenart zuberotar jakintsua **ohartu** zitzaion gaineko bi erresuma puxanten artean bere sorteriaren batasunari eta finkatu zituen gure nazioaren oinarri historikoak. Piarres Xarriton

Zeri behar nintzateke **ohartua**? Janbattitt Dirassar

• 6 du ad ohartarazi. ik ikusarazi; abisatu.

-Segada bat zen, beraz - **ohartu** zuen Léak, elkar aditezko keinu bat eginez Jonathani. Jon Muñoz

-Gaur egungo sektetan bezalaxe - **ohartu** zion, hanpaturik, Léak. Jon Muñoz

Ohartu beharra daukak hitz horrek erantzunkizuna adierazten duela. Xabier Olarra

Urte bereko abenduaren 30eko agirian, berriz, *Eusker*a aldizkariaren gainbeheraz **ohartu** zuen Luis Villasante euskaltzainburuak. Koldo Zuazo

Gizonak **ohartu** behar du, bekatu egiteko batere ohiturarik ez duen agindu batean pentsatzen jartzen denean, ez duela denbora handirik egon beharrik. Patxi Altuna

Ohartu behar da, *Gure Aita* amaitzean, egun batean edo askotan, gauza bera egin behar dela Agurmariarekin, eta gero gainerako otoitzekin. Patxi Altuna

· Izadiak, inork **ohartu** gabe, senar-emazteen arteko batuketa luzatzen du, batuketa horri urtero-urtero zimentarri berriak emanez, gozo eta betebeharrak sortu berriekin. Andres Urrutia

7 ikusi.

Juriskontsultorik gehienek legeari buruz eman dituzten zehaztapenak begiz jotzean, berehalakoan **ohartu** dugu zehazte horien askieza. Andres Urrutia

Ohartzen duzue, Miranderen munduan gabiltzala orobat. Joxe Azurmendi

Ohartuko duzunez, Arrazoimen horrek, berak ez du historiarik, ez dago klase baldintza ideologikoen edo errepresio freudianoen baldintzen pean: purua eta garbia da, lehen Jainkoa bezala. Joxe Azurmendi

Ohar bedi erregela hau oso erabilgarria dela gramatikako beste hainbat tokitan. Itziar Laka

8 (osagaia -i atzikiak)

Ohartuko zenion albiste horren ondorioari, eta sumatuko duzunez, itzuli nintzenean horra non kanpora aurkitia izana nintzen, egoera hark bere baitan zekarren duintasun guztiaz. Jon Muñoz

9 (era burutua izenondo gisa)

Hain zuzen ere, estrategia erretorikoen erabilera **ohartua** erakusten digu, besteak beste, honek guztiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Espiritu **ohartuen** laketgarri eternala zatekeen horrenbestez haren liburua. Juan Garzia

Era horretara azalduz, hiztunak, gramatikariak beren analisi **ohartuan** ez bezala, ez du eragiketa zailik egin behar. Isabel Arrigain

Lehenengo maila, prozesu inkontzienten antolamenduari dagokiona (sintoma neurotikoa, ametsak), eta bigarren maila, psikologia tradizionalak kontuan hartzen zuena (pentsamendu **ohartua**). Josu Zabaleta

Adibide hori sinpleegia zen: bilaketa-proiektu **ohartuago** edo ohartu gabeago bat izan ezean [...] ikusmeneko bilaketarik ez dela, ez zuen besterik adierazi nahi. Josu

10 ez *ohartu*arena egin

Atea ixten dio, ez-ikusiararena, **ez-ohartu**arena **egiten** dio ahal duen guztietan haurraren kanpo-aldetik datorren guztiari. Xabier Olarra

Sobakevitx, **ez ohartu**arena **eginez**, gainerakoak baino urrunago zegoen plater batera hurbildu zen eta arrain ketu txiki bat hartu zuen sardexkarekin. Jose Morales

-Zuk **ez ohartu**arena **egin** behar duzu, berari aurrenesku izaten utzi. Xabier Olarra

Begirada itsasoan, ez zen ohartu detektibearen etorreraz; edo **ez ohartu**arena **egin** zuen, norik jakin. Migel Angel Mintegi

-Zure amaxi eta osabak ontsaxko ezagutzen ditut -jarraiki zuen gazteak, bestearen haserreaz eta ustekabeaz **ez ohartu**arena **eginez**. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

bat batean ohartu (13); **batere ohartu gabe** (7); **batez ohartu** (17); **berehala ohartu** (148); **berehala ohartu nintzen** (42); **berehala ohartu zen** (52); **berehalaxe ohartu** (25); **berehalaxe ohartu nintzen** (10); **berehalaxe ohartu zen** (13); **dagoela ohartu** (8); **denak ohartu** (7)

ederki ohartu (6); **ez da ohartu** (19); **ez dira ohartu** (13); **ez zuela ohartu** (8); **ezertaz ohartu gabe** (9); **garrantziaz ohartu** (7); **geroago ohartu** (6); **halaxe ohartu** (12); **halaxe ohartu nintzen** (9); **harik eta ohartu** (7); **hartaz ohartu** (14); **horretaz ohartu** (41); **horretaz ohartu eta** (6); **horri ohartu** (6)

ia ohartu (20); **ia ohartu gabe** (13); **inor ohartu** (28); **inor ohartu gabe** (12); **istantean ohartu** (6); **kasik ohartu gabe** (7); **laster ohartu** (31); **laster ohartu nintzen** (8); **lehenago ohartu** (8); **luze gabe ohartu** (6); **nengoela ohartu** (12); **nola ohartu** (7)

ohartu baino lehen (22); **ohartu balitz bezala** (6); **ohartu bezain laster** (12); **ohartu da** (145); **ohartu dira** (88); **ohartu du** (14); **ohartu dute** (7); **ohartu ere gabe** (14); **ohartu gabe ere** (6); **ohartu gabean** (18); **ohartu orduko** (37); **ohartu zen horretaz** (7); **ohartu zenean** (58); **ohartu zenez** (8); **ohartu zinen** (11); **ohartu ziren** (148); **ohartu zirenean** (12); **ohartu zuen** (19); **ongi ohartu** (10); **orain ohartu** (17); **orain ohartu gara** (8); **orduan ohartu** (48); **orduan ohartu zen** (21); **orduantxe ohartu** (18); **presentziaz ohartu** (7); **segituan ohartu** (6)

zebilela ohartu (6); **zegoela ohartu** (69); **zegoela ohartu zen** (36); **zeturrela ohartu** (7); **zeudela ohartu** (19); **zeudela ohartu zen** (6); **zeukala ohartu** (15); **zeukala ohartu zen** (10)

ohartuki *adlag* ezagueraz, konturaturik, jakinaren gainean.

Funtsezko bulkoa gaiztotu bada, dena, **ohartuki** edo oharzteke, gaiztotu egin ohi da. Joan Mari Lekuona

Ohartuki egin nuen ahalegin bat nik ere haiekin batera barre ez egiteko. Oskar Arana

Erantsi egin dezakegu, gainera, [...] hitzunik, hein handi batean, ez direla hizkuntzaren legez **ohartuki** jabetzen. Isabel Arrigain

Beti ongi erantzuten du, eta bere buruari oharkabean ongi erantzuten aditzen dion bakoitzean, **ohartuki** sendotzen du bere zorientasunaren ezagutza. Iñaki Segurola

ohartun

1 *ohartun izan* (*orobat ohardun izan g.er.*) da *ad* ohartu, konturatu.

Neure burua gorrotatzen hasia nintzen: **ohartun** nintzen zerbait gorde behar banu bezala jokatzeko ari nintzela, ondikotz, deus gordetzekorik ez nuelarik. Aingeru Epaltza

Irudi guztiz gizatiarra, bai horixe, izpiriturik ez duelako, zer den **ohartun** ez delako edo zer den ulertzeak ardura ez diolako. Josu Zabaleta

Ez nintzen difamazio bat zabaldu izanaz **ohardun**: gutxiago, damu. Anjel Lertxundi

2 *ohartun egin* ohartu, konturatu.

Apailuaren ezaugarri honek garrantzi handia du, nolana ere, bat-bateko plano-aldaketa asko dituzten filmetan batez ere, ikuslea plano-aldaketa horien **ohartun** egitera behartzen baitute, ia-ia oharkabean bada ere. Josu Zabaleta

ohartxo *iz* ohar laburra; *adkor* oharra. ik *oharño*; *ohartto*.

Zilegi izan bekigu **ohartxo** batean gomutatzea nola gizartearen ikuskeran, eta gero nazionalismoan, A. D. Smithek ere bi korronte handi bereizten dituen: baina horiek ez dira frantsesa *versus* alemana edo ilustrazioa *versus* Erromantizismoa, baizik tradizio franko-alemana *versus* anglo-amerikanoa. Joxe Azurmendi

Hitanoaz ere nahiko nuke **ohartxo** bat egin. Koldo Zuazo

Moja baten egunkaria zen, **ohartxo** labor eta hitz gutxikoen sorta bat, ospitaleko bizitzari buruzko irudipenak jasotzen zituena. Josu Zabaleta

Ikasturte-hasierako **ohartxo** batzuk ditut zuentzat. Iñaki Mendiguren

Poliziaburuak **ohartxo** bat idatzi zion berehala, arratsean bere etxera etortzeko gonbita eginez. Jose Morales

Paperetako bat Lauaxetak utzitako **ohartxo**a zen. Juan Luis Zabala

Ohartxo bat zegoen post-it horian idatzia: [...]. Harkaitz Cano

ohartze *iz* adimenaren bidez gauzaren batez jabetzea, zerbait ikustea.

Beranduko **ohartze** horrek [...] denak batera bultzatu zituen garapen-bideko herrialdeentzako kredituak bat-batean moztera. Koro Navarro

Nire kezka **ohartze** hutsak erne jartzen du aita, baina ez du hitzik egiten. Anjel Lertxundi

Baita ere haur ttikientzat, musikari **ohartze** saioak eta musika ikasteko lehen urratsak. Herria

ohartzeke *adlag* ohartu gabe.

Funtsezko bulkoa gaiztotu bada, dena, ohartuki edo **ohartzeke**, gaiztotu egin ohi da. Joan Mari Lekuona

Ohartzeke hilotz bilakatzen haiz! Itxaro Borda

Bere laborategian teorizatzen duen fede oneko zientzialaririk, **ohartzeke** pasatzen gara kriminal hutsera. Juan Garzia

Unibertsitateko bulegoan nengoan, hiri zaharreko eraikinean, eta testuaren korapiloak askatu nahian joan zitzaizkan arratsaldea, denboraren iraganaz **ohartzeke**. Felipe Juaristi

Sasoi hartan arte-munduan hain erabilia zen performance-aren bertso-bertsioa egin nahi genuen nonbait, **ohartzeke**, gureak beti izan direla performance, bai hitza ezagutu aurretik eta bai gerora. Andoni Egaña

ohaska *iz* *adkor* ohea.

Orain mutiko goxoa hemen etzanda dago, gixagaixoa, bere **ohaska** estuan, hiltzeko uanean bezalaxe. Eduardo Matauko

Zumarraren zainak zirela uste nuen, baina eskuaz ukitu nuenean altzairuzko **ohaska** bat zela ikusi nuen, nirearen gainekoa. Fernando Rey

Jiratu eta berriz **ohaskan** etzan nintzen. Fernando Rey

ohatila 1 *iz* andak.

Anbulantzia irtsi zen, eta kaskorik kendu gabe **ohatilara** igo zuten. Pako Aristi

Ohatila batean jaitsi ninduten gelatik. Joseba Urteaga

Handik **ohatila** batean igogailura eramán ninduten eta gora joan ginen, eta handik sala batera. Xabier Olarra

Coccorano herriko emakume bat **ohatilan** eramán zuten aita dohatsuaren hilobira; izan ere, mihia ez beste gorputz-atal guztiak ezinduak zituen. Askoren artean

Ohatila metaliko batean etzana. Harkaitz Cano

Ondoren, **ohatila** ginekologiko batean etzaten zara, eta bularrak eta besapeak haztzen dizkizute, kozkorrik dagoen ikusteko. Luis Elberdin

Haien ondotik Katalinaren **ohatila** heldu zen, Mauleko lau mutiko gaztek besagainean eramana. Aingeru Epaltza

Jaiki, hartu **ohatila** eta zoaz etxera. Elizen arteko biblia

2 esku ohatila

Eta lehentxeago, gizona baino handiagoa zelakoan, itsas uhinei agindu eta mendi-gailurrak balantzán pisa zitzakeela uste zuena, lurrera erori ondoren, esku-**ohatilan** zeramaten orain. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hartu ohatila (5); **ohatila hartu** (4)

ohatilan etzana (3)

ohatu, oha, ohatzen 1 da ad ohean etzan; oheratu.

Sendabidea **ohatua** egotea zen, geldirik, ez dakit zenbat egunez. Fernando Rey

Aste guzía **ohatua** egona zen griparekin ala gaitza arinkiago ukana zuen...? Janbattitt Dirassar

Andre zaharra zenbait egun hartan **ohaturik** zegoen, etortzeko luzamendutan zebilen heriotzaren zain. Elena Touyarou

Ohatua zelarik, etorri zitzaion andere Juana printzesaren mezularia, Valladolidera joan zedin galdezka. Piarres Xarriton

Egiazko hontza hi, ez hiza nehoiz **ohatuko**? Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Ohean jotzen dugun bakoitzean lehenbiziko tximino **ohatuaren** desengainua eta oroimina berritzen ditugu. Iñaki Segurola

Gizona piztia **ohatua** da. Iñaki Segurola

3 ipar kokatu.

Biziki jende bildu da meza nausiko eliza kasik ttipiegi baitzen denen **ohatzeko**. Herria

Ehorzketa egunean, bildu da mundu bat, elizan ezin **ohatuz**, kanpoan baitzen biziki jende. Herria

Txipiñi da Frantzia, "Ile-de-France" eskualdean **ohatzen** hasi berria. Herria

Mündüko bi gerlen artean **ohatzen** da istorio, espartiñaren üngürüan, Mauleko besten kariaia. Herria

ohatze (82 agerraldi, 31 liburu eta 8 artikulutan) 1 iz ohatzea.

Hala, **ohatzean** etzan nintzen eta berehala lo nengoen. Jon Alonso

Bi gizonek **ohatze** berean lo egin zuten, bikotearen haurrak beste **ohatze** batean lo zeuden logelan. Elena Touyarou

Ohatze handiaren eta metalezko paretaren arteko pasabide estua. Aingeru Epaltza

Hura **ohatzean** izter-zabal etzateko adina denbora erabili nuen, neure burua arruntik biluzteko. Aingeru Epaltza

Ohatze bigun horri eskaintzen zizkion bere ordu eta pentsamendu guztiak. Karlos Zabala

Gogotik ahantziko naiz aterpetxeetako **ohatze** gogorrez. Aingeru Epaltza

Ohatze moduko horretan etzan naiz. Agurtzane Juanena

2 irud/hed

Kameliak are garestiagoak ziren, dozenaka iristen ziren azokara, kutxa batzuen barruan, goroldiozko **ohatze** batean paratuak eta kotoi orri batez estaliak. Karlos Zabala

ohatzeratu, ohatzera(tu), ohatzeratzen da/du ad oheratu.

Tabakoaren eta edariaren karga ohi baino handiagoa dudalarik, aspiriña pare bat hartzen dut **ohatzeratu** aitzin. Aingeru Epaltza

Oroit: bat gaur **ohatzeratzean**, pare bat bihar atzartzean eta hiru gehiago iluntzean. Aingeru Epaltza

ohaxka iz adkor ohaska.

Ohez beteriko nabean, Beshir tunisiarrak nirearen ondoko **ohaxka** zeukan aukeratuta. Fernando Rey

Aldiro Lopetuso txikia etortzen zitzaidan gogora, **ohaxkan** gauero negarrez aritzen zena nire azpian, soldadutza egiten ari nintzenean. Fernando Rey

ohazal (orobat ohe-azal) iz ohe esalkia.

Susie Thatcherrek, ohean deseroso etzanda, esku urdin eta hezurtsuak **ohazal** gainean ezarri zituen. Lopez de Arana

Biluzik geratu bezain laster **ohazal** azpira lerratzen da sator zulatzaille baten moduan, eta bizkarra ematen dio berari. Oskar Arana

Kearney jauna eztlak penatzen zuenean, lumatzazko **ohazal** bat jartzen zion Kearney andreak oinen gainean eta ron-pontxe sendo bat egiten zion. Irene Aldasoro

Oihal-zatiz eta adabakiz osaturiko Hagriden **ohazalaren** gainean zegoen luze-luze eginda. Iñaki Mendiguren

Umea **ohazal** urdin argi batean bilduta dago. Xabier Paya

Biharamunean, ordea, **ohe-azal** bat hartu, uretan busti eta aurpegian ezarri zion erregeari Hazaelek. Elizen arteko biblia

ohazeru ik ohezeru.

ohazpiko ik ohe 11.

ohazur 1 iz oharka, ohearen egitura.

Ohazuretik zaratarik gabe jaiki, eta leihora irten zen. Juan Garzia

Ohazur gainean etzan zen, belarrietaraino tapatuz burusiaz. Juan Garzia

Oyanderreko jaunak, bere onetatik aterea, lotu zizkiok hiru semeak emazte hilaren **ohazurari**, bete dik egurrez koarto guzia, eman zioik su, eta han ziaik heriosur zaldi gainean. Patziku Perurena

Ohe bi alokatu dodaz Gautxori-busean... Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Ohazur soinuak, "bai banoa", pausoak, sarraila-hotsak, eta Joseba agertu zen begietako makarrak kenduz. Iñaki Zabaleta

ohe 1 iz bertan etzateko prestatua dagoen altzaria. ikohatze; kamaina; etzauntza.

Batez ere **ohea** zen miresgarria; lau koltxoi zituen, lau bururdi, burusiak lodi-lodiak, ohe estalki ederra. Karlos Zabala

Leiho irekitik sartzen zen argira, **ohe** jadanik jantziak eta gaineko arropa ongi tolestuak trufa egin zitoen nire nahikeriaren hutsalari. Aingeru Epaltza

Txikia izango da gela, zuriz pintatua, horman armairu bi, hozkailu bat, eta **ohe** biko litera. Joseba Sarrionandia

Ohe moduko bat zekarten. Koro Navarro

Azken batean **ohea** behegaina bezain gogor dago. Juan Garzia

Gau hartan Gabriel Irisarrik eta Juvenalia Mickeviciusek **ohe** berean egin zuten lo. Felipe Juaristi

"**Ohe** berean egin genuen lo hamar urtean", esan zion behin, "zergatik izango dituzu bada sekretuak nirekin?". Oskar Arana

New Yorkeko erietxeetan, ordea, 62.800 **ohe** daude soilik, eta, asko jota, 12.000 libratuko lirateke. Berria - Gaiak

Estalkiz jantzi dut **ohea** Egiptoko lihoz egindako oihal koloretsuz. Elizen arteko biblia

Bere logela erakutsi zidan, horma zuri eta batentzako **ohe** bakarreko gela soila. Xabier Olarra

Bi lekutako **ohea** badinat. Itxaro Borda

Horren ondotik, biharamunean, goitikaz beteriko **ohe** batean esnatzean bezain higuindurik sentitzen nintzen. Monika Etxebarria

Ulisesek, orduan, ohea nola egin zuen azaldu zien, zurgin trebe baten gisa, eta **oheak** zituen ñabardura guztiak adierazi zizkien. Juan Kruz Igerabide

Amak **oheko** arropa zikinak eta nire pijama jaso zituen zorutik. Anjel Lertxundi

Logelara joan eta neure **oheko** izarak erretiratu nituen. Jasone Osoro

Oheko tapakiak apartatu zituen. Koro Navarro

Hirugarren egunean askatu didate eskua **oheko** hankatik. Koldo Izagirre

Duhau lejitimista baxenabartarrak gogo onez eskaini zizkidan Orbe karrikako bere etxean **ohea** eta mantenua, eta tratu ezin lañoagoa eman zidan. Txillardegí

Inbestizamendu horren ondorioz sortuko ditu 320 laguntzaile lan postu, eta xahar etxetan 1435 **ohe** idekiko dira, gaur egungo zortzi mileri gehituko direnak. Herria

2 (aditz baten objektu gisa)

Berari gustatzen zaion bezala hasi ginen **ohea** egiten: azpiko maindirea zabaldu,ertzak koltxoipean sartu, eta gero eskua pasatu genion, zimurrik gera ez zedin. Anjel Lertxundi

Oheak egin gabe, gosarian erabilitako mahaia jaso gabe. Josu Zabaleta

Eurinomak **ohea** prestatu zien. Juan Kruz Igerabide

Beste **ohe** bat prestatari zuen bere logelan, bertan kriseilua gau guztirako piztuta utziz. Askoren artean

Etxeak beste bi logela zeuzkan, baina hanga **oheak** jantzi gabe zeuden. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohea aldatzeko maindreak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire **ohea** zabaldu nuenean pijama bat aurkitu nuen burkapean. Aitor Arana

Jauntzi, **ohea** bildu eta altxatu, hormako katean lotuz. Filipe Bidart

Kaka egin eta **ohea** zikindu zidan. Martin Anso

Seietako kanpai-hotsak entzun aurretik uzten nuen **ohea**, eta galtza motzak eta elastiko arre kolorea janzten nituen. Anjel Lertxundi

Gauero malkoz bustitzen dut **ohea**, blai eginda uzten etzalekua. Elizen arteko biblia

Denak **ohera** joan ziren. Juan Kruz Igerabide

Aitak **ohean** ematen zuen egun osoa, buru azpian hiru edo lau buruko pilatuta. Joseba Sarrionandia

Oinetakoak kendu eta **ohean** etzan zen. Bernardo Atxaga

Baziren bost hilabete hiriko gizon bat, Pedro izenekoa, guttiz elbarri **ohean** etzana zegoela. Askoren artean

Susie **ohean** eseri zen. Lopez de Arana

Virginiaik negar egiten zuen **ohean** ahuspez jarrita, hain isilka non batzuetan bere bizkar-ikarari erreparatu behar nion lo gelditu ote zen jakiteko. Bernardo Atxaga

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohe handian eserita, portua ikus zezaketen. Lopez de Arana

Ohe txiki bat moldatu zien txerpolari baten gurdi zaharrean. Karlos Zabala

Etzanda egon nahi zuen hantxe, **ohe** eroso hartan, betiko... Iñaki Mendiguren

Ohe gogorra lumazkoa begitantzen zitzaion. Gotzon Garate

Diru pilak hutsune handi bat egin zuen neska gaztearen **ohe** bigun delikatuan. Karlos Zabala

Ez pentsa hemen bakarka eta **ohe** leunetan lo egiten dugunik. Txillardegí

Barroteen itzala **ohe** zuriaren gainean. Harkaitz Cano

Baina inork ez zuen utzi nahi mantentzen, suaren eta katiluen beroa, zer eta berotu gabeko **ohe** hotz baten truke. Anton Garikano

Ohe desegin baten irudia zegoen bere buruan. Harkaitz Cano

Haren ondoan eseri nintzen **ohe** arras nahaspilatuaren gainean. Jon Muñoz

Logelan bakarrik nago, bederatzi **ohe** hutseko salan. Joseba Sarrionandia

Ama **ohe** tolesgarrian dago eserita, irakurtzen, josten, puntu egiten edo ikasten, une horretan zer egin behar den, hartan. Josu Zabaleta

Bazen **ohe** elastiko maiztu bat -familia osoak gogoz erabiltzen zuen, besoak astintzeaz batera saltoka ibiltzeko-. Xabier Olarra

Zelda aski handi batean sartzen gira, orduan berean hustu dutena guretzat, bi **ohe** bikoitzekilakoa. Filipe Bidart

Erietzeko atarira iritsi zen unean bertan, ikusi zuen beste gaixo bat zeramatela **ohe** gurpildunean ebakuntza-gelara. Oskar Arana

Bere zorigaitzoko **ohe** bakartian etzanik zegoela, esna eta intzirika, Frantziskoren izena esan eta esan, gizon bat agertu zitzaion. Askoren artean

Nire aurrez aurre nire ohea, haritzeko **ohe** zahar habedun bat. Imanol Unzurrunzaga

Antzinako kaobazko **ohea**, arropa gordetzeko armairua, hau ere egur berekoa. Jon Alonso

Lau zutabeko **ohe** dotore batean, oihal zintzilikari hautsezatuekin, Crookshanks zetzan. Iñaki Mendiguren

Burdinazko **ohe** bat zuen, leihoaren aurreko hormaren zokoan. Lopez de Arana

Maindreak zuloz beteta zeuden; baita lumazko **ohea** ere. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohe atorra jantzi, oinak artile kizkurrezko alfonbraren gozotasunean, [...]. Karlos Zabala

Ohe arropak kenduta, emakumeak Ttipiren agentzian ohi zuen uniforme zeraman jantzirik. Aingeru Epaltza

Bazen erreminta-kutxa bat logela ondoko **ohe** -jantzien armairuan. Oskar Arana

Barruan badira arropak, **ohe**-tapakiak, artilde-matazak. Koro Navarro
Gela izugarri handi batean, aitak bi **ohe**-ilararen artean eraman ninduen eskutik helduta ile zuri kizkur ederreko aguretxo batengana. Joseba Urteaga
Emaztea aurrez aurre eseri zitzaion **ohe**-sofan. Mirentxu Larrañaga
Ohe-armairuak eta haurren zurezko sehaskak sukalde pribatuan zeuden. Itxaro Borda
Era bateko eta besteko mahaien, **ohe**-mahaien eta idatz-altzarien gainean zeuden gauza txiki guzti-guztiak. Oskar Arana
Ohe bagoian bidaiatzen nuenean, maleta berehala utzi eta dutxatzeko beta ematen zuelako erabiltzen nuela. Ramon Saizarbitoria
Pullman **ohe**-bagoiaren konpartimenduko txoko estuetan. Mirentxu Larrañaga
-**Ohe** eta diru aferetan balitekek, baina istorio hau ez duk nire espezialitatekoa. Aingeru Epaltza
Orain ospitalean zegoela, **ohe**-burdinei estekatu eta pildorez kunkurino emokatu. Itxaro Borda
Garondoa burdinazko **ohe**-baranda hotzaren gainean etzan eta ametsetan murgildu zen. Irene Aldasoro
Pedro Páramok gaixoa **ohe**-bizkarraren kontra eratzanez jaso arte itxaron zuen apaizak. Juan Garzia
Txanda hartu genien bi lagunak atera ziren, eta **ohe** oinean eseri ginen biok. Josu Zabaleta
Zapatak jantzita ohean etzan eta **ohe**-gaina zikintzen dit! Fernando Rey

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa sexu harremanei lotua)

Aita Tontonek ama Gabryri: "**Ohe**-pasara bakoitzean umegorri bat egiten didan". Pablo Sastre
Hotel hartan bertan izan genuen **ohe** saioaren urruneko oroitzapen bat nuen, zatikatu. Ramon Saizarbitoria
Behin, gure **ohe**-saio gogoangarri haietako baten ondoren, begira geratu zitzaidan eta esan zidan zerbaite zuela niri kontatzeko. Juan Martin Elexpuru
Egun batean, bazkalondotik ia iluntze arte irauten zuen **ohe**-jardunaldi batean zirrika geundela, aitortu nion Asuni nondik zetorkidan ahalmen ikaragarri hura. Josetxo Azkona
Hala nola Montsek, gure **ohe**-jolasetan, burua nire zangoen artean sartzen zuenean, esanez: "hemen ni, Garaipenaren Arkuan!". Joan Mari Irigoien
Ez dago arrazoirik **ohe**-gutizi bat mahai-gutizi bat baino bitxiagotzat jotzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ohe-kontuak norberaren bitziza pribatu eta partikularrari dagozkio. Xabier Mendiguren Elizegi
Sekula ez zituen **ohekoak** aipatzen; ez nire giharrek egin zioten inpresiorik, nonbait, ez nire berotasunak utzi zion inon erredurarik. Joxean Agirre

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena gain, ondo, ertz eta kidekoak direla; ik beherago 10)

Klara zurrungaka zetzan **ohe** gainean, utzi nuen planta berean. Aingeru Epaltza
Sexu arloan inoiz eginko inbertsiorik txarrena egin eta gero, bakarrik gelditu zenean, pote bat garagardo hartu, purutxo bat piztu, eta **ohe** gaineko anabasara itzuli zen. Migel Angel Mintegi
Ohe ondoko lanpara piztu arteko denbora. Anjel Lertxundi
Ilunantz hartan begiak erdi itxita **ohe**-barrenera begiratu zuen, eta han fardel-metatxo bat ikusi zuen. Iñaki Mendiguren
Ohe barruan irakurtzen nuen nik, izarapean, linterna txiki baten laguntzarekin. Anjel Lertxundi
Ohe ertzeraino etorri zen. Aingeru Epaltza
Ohe hegian jarri zen Magali. Janbattitt Dirassar
Burua itzuli ere egin zuen nire aldera behin, bere **ohe**-aldamenean zutik nengoela. Joxe Austin Arrieta
Biharamunean, ez nintütüzin nihuntik ere **ohe** bazterretik jeikitzen ahal. Menane Oxandabaratz

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Geroago, jeneralaren aita esku-**ohe** batean ekarri zuten, eroria baitzen zalditik: beste bost urte iraun zuen bizirik. Xabier Olarra
Esku-**ohea** lurrian ipintzeko eskatu zien. Askoren artean
Ez zen logura, eta jauzika aritu zen bere indar guztiaz malguki-**ohe** gainean. Bi besaulki, sofa-**ohe** zabala, eta armairu bat, arrunt samarrak denak. Joseba Urteaga
Eta atzean logela ezkon-**ohe** handi batekin; gau-mahaiaren gainean zeuden zazpi liburuak, soka batez lotuta. Juan Martin Elexpuru
Han zuen Claudek ezkon-**ohe** handia, eta han egiten zien harrera goxoa bere mutikoei. Karlos Zabala
Arloteari, errege-**ohea**. Jon Muñoz

8 irud/hed

Eta Paris oparo, mardul, elikagaiz gainezka ageri zitzaion ilunpetan ezkutaturik; barazki **ohe** baten gainean iritsia zen. Karlos Zabala
Erretilu batean, indioilar baten hezurrak ageri ziren, perrexilezko **ohe** baten gainean, habia beldurgarri bat balitz bezala. Koro Navarro
Sobrante gelditutako pusketak hurrengo urterako gordeko ziren, hurrengo haritz-trunko-enborraren aurretik su-**ohea** egiteko. Pello Zabala

9 ohe azal/ik ohazal.

10 ohe azpi (-n, -ra eta kideko atzizkien ezkerrean) ik ohepe.

Azkar, Tito, sar zaitetz nire **ohe azpian**, mugil! Jon Maia
Lasterka gora joan eta **ohe azpira** sartu zen. Iñaki Mendiguren
Etxean norbait sartu zela iruditu zitzaidan, eta, jaikirik, armairuetan eta **ohe azpian** begira aritu nintzen. Josu Zabaleta
Petrushkari, berriz, maleta **ohe azpitik** ateratzeko agindu zion. Jose Morales

11 ohe azpiko (orobat ohazpiko) izlag

Ibiltzen naizela, ate osteko ezezagunaz, errezel atzekoaz, armairu barrukoaz, **ohe azpiko** ezezagunaz naiz beldur. Josu Zabaleta
Eta uhaletatik beso bat atera, ohe azpian haztamuka hasi eta **ohazpiko** beirazko pixontzia hartu eta ikaragarritzko indarrarekin jaurti zuen, pixontzia hegan joan zen logelan zehar eta nire ohe ondoko paretan jo eta txikitu zen Fernando Rey

12 ohe-buru ik oheburu.

13 ohe estalki ik beherago 15.

Gordeka bezala, keinu ernez, emaginak **ohe estalki** batean troxatu zuen eta eliza atarian utzi. Elena Touyarou
Batez ere ohea zen miresgarria; lau koltxoi zituen, lau bururdi, burusiak lodi-lodiak, **ohe estalki** ederra. Karlos Zabala
Ohe-estalkia kendu, eta burkoaren azpian gorde zuen gero liburua. Anjel Lertxundi
Ohe-estalki eta mantetan bilduta sutondo aurrean, edan, sudurra zintzatu, eta berriro edan zuten. Anton Garikano
Kolare alaiko **ohe-estalki** baten azpian etzanda. Anton Garikano
-p/ Gorputz osoa hartzen dit ikarak **ohe estalkien** berotasunean. Josu Zabaleta
Neska alde batera itzultzen da, tira egiten die **ohe-estalkiei** soinburuen gainetik. Oskar Arana

14 ohe gain (orobat ohegain g.er.) iz ohearen gainaldea.

Ordubete geroago, apar geruza zuri-zuri batek estaltzen zituen **ohe gaina** eta hormetako beheko aldeak. Josetxo Azkona
Zapatak jantzita ohean etzan eta **ohe-gaina** zikintzen dit! Fernando Rey
Ohe gaina beste apal batek zeharkatzen zuen. Joxemari Urteaga
"Zaude"; esku meharrez **ohagainak** pixka bat atondu zituen; "eseri zaitetz pixka batean..." Pablo Sastre

15 ohe gaineko (orobat ohagaineko) iz ohe-eskalkia.

Ohagainekoaz estali zuen bere burua eta, uste baino lehen, lo geratu zen. Aitor Arana
Nik bizia eman niolako, begizta bat naiz berarentzat, begizta bat da niretzat, eta lotuta gaude **ohe gaineko** honen puntuak elkarri lotuta dauden bezala. Anjel Lertxundi

-la katagorria ekartzen dutuz, **ohe gainekorako** narru azal gutxi falta zaizkit. **Jon Maia**
Ohean etzan eta **ohe gainekoak** dituen puntu egineko begiztei eta begizten arteko loturei begira egon naiz luzaz. **Anjel Lertxundi**
· p/ Mairidireek eta **ohe** gainekoek, desordenaturik, agonia luzearen lekukotza ematen zuten. **Monika Etxebarria**
"Double face" horietariko damaskozko errezel eta **ohegainekoak**. **Juan Garzia**

16 ohe kide ik **ohekide**.

17 ohe lagun ik **ohelagun**.

18 ohe-sabai ohearen goialdean, eskuarki lau zutabek eusten diotela, jartzen den ehunezko estalkia. **ikohezeru**.

Ohe-sabaia purpura eta urrez egina zen, esmeraldaz eta harribitxiz apaindua. **Elizen arteko biblia**

Afaldu genuen, billa haren inguruan paseatu ginen, mila kontu kontatu zizkidan, eta gero, berandu, oso berandu, gela txit eder batean oherarazi ninduen, **ohe-sabaia** zuen ohe batean. **Jon Muñoz**

Eta hauek dituzue haren **ohe-sabaiko** oihalak, hura, mozkor-mozkor zetzala, estaltzen zutenak. **Jose Antonio Mujika**

19 ohe tolesgarri

Gela hutsetan maletak prestatuta zeuden, eta bi **ohe tolesgarri** ama eta biontzat: han gau batez, azkenekoa, lo egin eta biharamunean Innsbruckera joan beharrean geunden. **Eduardo Matauko**

Sarreratik gertuen dagoena sukaldea da, nahiz eta **ohe tolesgarri** bat daukan: Blanchek erabiliko duena. **Xabier Paya**

Ama **ohe tolesgarrian** dago eserita, irakurtzen, josten, puntu egiten edo ikasten, une horretan zer egin behar den, hartan. **Josu Zabaleta**

Esterak, **ohe tolesgarriak**, aulki eta mahaien hondar zarpailak, Londresen beren buruak ongi pagatutakoak - hainbestean zetozen honerako; eta argazki bat edo beste, eta liburuak. **Anton Garikano**

20 ohe zeru ik **ohezeru**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

burdinazko ohe (12); **etxeko ohe** (5); **gelako ohe** (8); **krokodiloa ohe azpian** (9); **nire ohe ondoan** (5)

ohe alboan (4); **ohe aldera** (4); **ohe atorra** (12); **ohe aurrean** (5); **ohe azpian** (57); **ohe azpira** (5); **ohe azpitik** (7); **ohe bakarra** (10); **ohe bakarrean** (4); **ohe barrenean** (7); **ohe barruan** (10); **ohe batean eserita** (4); **ohe batean lo** (5); **ohe baten gainean** (7); **ohe batetik bestera** (4); **ohe bazterrean** (8); **ohe berean** (19); **ohe berean lo** (4); **ohe buruan** (7)

ohe ertzean (73); **ohe ertzean eseri** (17); **ohe ertzean eserita** (23); **ohe ertzean jesarri** (4); **ohe ertzetik** (9); **ohe estalki** (14); **ohe estalkia** (11); **ohe estalkiak** (11); **ohe estalkiaren** (4); **ohe gainean** (278); **ohe gainean eseri** (21); **ohe gainean eserita** (6); **ohe gainean etzan** (24); **ohe gainean etzanda** (19); **ohe gainean jarri** (6); **ohe gainean utzi** (15); **ohe gainean zegoen** (6); **ohe gaineko** (16); **ohe gainera** (44); **ohe gainera bota** (11); **ohe gainetik** (10); **ohe gehiago** (6); **ohe guztiak** (5); **ohe handi** (14); **ohe handi bat** (7); **ohe handi batean** (4); **ohe handia** (9); **ohe handian** (8); **ohe hutsa** (5)

ohe inguruan (12); **ohe moduko** (4)

ohe ondoan (61); **ohe ondoan zutik** (6); **ohe ondoko** (46); **ohe ondoko mahaitxoan** (7); **ohe ondoko mahaitxoaren** (4); **ohe ondora** (12); **ohe ondotik** (7); **ohe txiki** (7); **ohe txiki bat** (4); **ohe txikian** (5)

ohe zabal (4); **ohe zabala** (4); **ohe zabalaren** (4); **ohe zabalean** (7)

ospitaleko ohe (5)

oheak egin (6); **oheak kirrinka** (4)

aldameneko ohean (4); **baby suggsen ohean** (4); **bere ohean etzanda** (4); **bere ohean hil** (4)

eseri zen ohean (4); **etxeko ohean** (5); **etzan zen ohean** (8); **ezkon ohean** (5); **gauean ohean** (4); **gauetz ohean** (5); **gelako ohean** (8); **heriotzako ohean** (5)

jadanik ohean (4); **nor bere ohean** (4)

ohean agonduta (16); **ohean agonduta zen** (7); **ohean agonduta** (4); **ohean ahoz gora** (4); **ohean aurkitu** (13); **ohean aurkitu zuen** (5); **ohean aurkitu zuten** (4); **ohean dago** (9); **ohean daude** (4)

ohean egin (4); **ohean egon** (17); **ohean egon behar** (6); **ohean egongo** (4); **ohean egoten** (8); **ohean eman** (5); **ohean eseri** (29); **ohean eseri zen** (9); **ohean eserita** (28); **ohean eserita zegoen** (6); **ohean esertzen** (5); **ohean etzan** (79); **ohean etzan zen** (27); **ohean etzan zuen** (4); **ohean etzana** (5); **ohean etzanarazi** (9); **ohean etzanda** (110); **ohean etzanda zegoen** (9); **ohean etzanik** (15); **ohean etzaten** (6); **ohean gaixo** (6); **ohean gaixorik** (6); **ohean geratu** (17); **ohean geratu naiz** (4); **ohean geratzen** (5); **ohean goxo** (4); **ohean hil** (12); **ohean hil zen** (5)

ohean jarraitu (5); **ohean jarri** (9); **ohean jesarrita** (4); **ohean jiratu** (5); **ohean lo** (18); **ohean lo egiten** (4); **ohean luze** (5); **ohean mugitu** (5); **ohean nengoela** (12); **ohean nengoen** (6); **ohean nintzen** (4)

ohean pixa egiten (4); **ohean sartu** (77); **ohean sartu zen** (10); **ohean sartuta** (12); **ohean sartzea** (4); **ohean sartzen** (18)

ohean utzi (6); **ohean zegoela** (8); **ohean zegoen** (26); **ohean zehar** (4); **ohean zetzala** (5); **ohean zetzan** (14); **ohean zeudela** (4)

ondoko ohean (14); **ospitaleko ohean** (6); **sartu nintzen ohean** (5); **sartu ohean** (4)

ohearen alboan (4); **ohearen alboko** (4); **ohearen alde** (7); **ohearen azpian** (4); **ohearen beste** (6); **ohearen beste aldean** (5); **ohearen ertzean** (11); **ohearen eta** (8); **ohearen eta hormaren** (4); **ohearen gainean** (25); **ohearen inguruan** (5); **ohearen oinaldean** (6); **ohearen oinetan** (4); **ohearen ondoan** (18); **ohearen ondoko** (4)

oheari begira (4)

oheko arropak (5); **oheko izarak** (4); **oheko oihalak** (5); **oheko tapakiak** (5)

goazen ohera (6); **hoa ohera** (4); **itzuli zen ohera** (4)

ohera aurretik (6); **ohera baino lehen** (6); **ohera bidali** (5); **ohera bidaltzen** (4); **ohera bueltatu** (4)

ohera eraman (22); **ohera eraman zuen** (6); **ohera eramaten** (4); **ohera hurbildu** (14)

ohera igo (4); **ohera itzuli** (20); **ohera itzuli zen** (7); **ohera itzultzeko** (5); **ohera itzultzen** (6); **ohera joan** (98); **ohera joan aurretik** (9); **ohera joan zen** (17); **ohera joango** (4); **ohera joatea** (8); **ohera joateko** (17); **ohera joateko ordua** (4); **ohera joaten** (9); **ohera noa** (16)

ohera sartu (22); **ohera sartu zen** (4); **ohera sartzen** (7)

segi ohera (5)

jaiki zen ohetik (7); **ohetik altxatu** (45); **ohetik altxatu zen** (4); **ohetik altxatzen** (7); **ohetik atera** (18); **ohetik ateratzeko** (4); **ohetik behera** (4); **ohetik bota** (4)

ohetik entzun (4); **ohetik erori** (6)

ohetik irten (7); **ohetik jaiki** (88); **ohetik jaiki zen** (9); **ohetik jaikitzean** (6); **ohetik jaikitzeko** (6); **ohetik jaikitzen** (7); **ohetik jauzi egin** (8); **ohetik kanpo** (12); **ohetik kanpora** (10); **ohetik mugitu** (6)

ohetik salto egin (10)

ohe-ohe-ohe *interj* ik *oe*.

Txapeldunak, Txapeldunak! **Ohe**, **Ohe**, **Ohe**! **Herria**

Halaxe bukatu baitzuen bere jarduna ere, irri-karkaraka, oe-oe-oe, **ohe-ohe-ohe**! **Joan Mari Irigoien**

Ez al ginen atzo horretan gelditu, oe-oe-oe, **ohe-ohe-ohe**? **Joan Mari Irigoien**

ohealdi *iz* ohean ematen den denbora.

Nekatuta nengoen, eta bertako argi itzaltsua ere **ohealdi** baten gonbita egiten ari zitzaidan, baina ez nituen hamar minutu egin gelan. **Anjel Lertxundi**

Aita ez zen inondik ageri: bere **ohealdi** haietako batean bide zegoen. **Iban Zaldúa**

oheburu (**49** agerraldi, **39** liburu eta artikulu **1**ean; orobat **ohe(-)buru 14** agerraldi, **12** liburu eta **2** artikulutan, eta **ohaburu g.er.**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **oheburu** agertzen da) **1** iz ohearen burualdea.

Hogeita bost bat oheko bi ilara zeuden, **oheburuak** bi pareten kontra eta bi ilarerako eriak elkarri begira zeudela. **Inazio Mujika Iraola**

Estalkiak hartu, haiekin okotzeraino estali eta **oheburuan** kiribildu nintzen. Juan Martin Elexpuru

Ohe buruan eserita dago, burkoa bizkarrean jarrita. Jokin Muñoz

Orduan, Jakob **oheburura** makurtu zen. Elizen arteko biblia

Irakurtzen ari zen, **oheburuko** lanparatxoa bakarrik piztuta. Aitor Arana

Ohe buruko koadro arruntaren gainean [...] bere buruko zapi loredun koloretsua zegoelako esekita. Ramon Saizarbitoria

Gero, **ohe buruko** zutoineraino joan, Holofernesek han zintzilik utzia zuen ezpata hartu, eta esan zuen: [...]. Jose Antonio Mujika

Gaueko erizaina, ile urdinduko emakume bat, nire gelara itzuli zen eta nire **ohebururaino** hurbildu zen isilik. Joseba Urteaga

Erreginaren **oheburuan** ikusten baldin banauzu, berandu baino lehen hilko den seinale. Martin Anso

Kontua da gurasoek bazutela **oheburuaren** gainean koadro handi bat, ez luzea baina bai zabala, asko pisatzen zuena. Joan Mari Irigoien

2 ohe buruan dagoen pieza bertikala.

Jangelako mahai biribila eta sei aulki urdinak, diban laranja, zur argiko ohea eta armairua, zur berean landuriko bi **oheburuak**. Joxan Elozegi

Oheburuaren kontra eserita zegoen, maindirearekin bere bularrak estaliz. Joxean Agirre

Oheburuaren kontra agondurik, ahalegin berezia egin behar izan nuen tonu normal batez hitz egiteko. Anjel Lertxundi

Berriro eseri nintzen ohean, **oheburuaren** kontra, beste zigarro bat pizteko. Joan Mari Irigoien

3 oheburuko iz bururdia, burkoa.

Oheratu nintzen eta **oheburukoari** heldu nion oihuak ito nahian. Joseba Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oheburuaren kontra (3)

ohegain ik ohe 14.

ohegaineko ik ohe 15.

ohekide *(21 agerraldi, 12 liburutan; orobat ohe-kide 5 agerraldi, 3 liburutan, eta ohakide g.er.) 1 iz* norbaitentzat, berarekin ohe berean dagoena; bereziki, berarekin ezkontzatik at sexu harremanak dituen pertsona. ik **ohelagun**; **ohaide**.

Hura ere ezustean esnatu zen eta begi arrarpaloekin begiratu zion **ohekide** ezezagunari. Patxi Zubizarreta

Azkenik erizainek haien zama beste ohe batean utzi zuten -nirean alegia, eta, era horretan, gutxi gorabehera nire adina zeukan gaztea hartu nuen **ohekide**. Urtzi Urrutikoetxea

Box-a beste bi **ohekiderekin** banatzen dugu, biak ere gazteak, atseginak eta Budapestekoak. Urtzi Urrutikoetxea

Noizbait nire lagunik onena izan zena, nire pisukidea, nire **ohekidea**, nire jabea: Santi. Jon Arretxe

Zalantza bakarra nuen: gure artean zeuden bi nesketatik nor [...] hautatua zuen kardinalak gau hartarako **ohekide**. Anjel Lertxundi

Ondoren, jauregira itzuli zen erregea; baraurik igaro zuen gau osoa, **ohekiderik** gabe, eta begiak bildu ezinik. Jose Antonio Mujika

-Benetan bitxia da zurea, Onan -esan zidan Imanolek-: gizonzale guztiok nahi izaten dugu gure **ohekideek** buztan handia edukitzea eta zamalkari trebeak izatea. Aitor Arana

Gizaseme batek harreman sexualak gizonezkoekin gauzatzeko ohitura duenean, munduko gauzarik errazena zaio **ohekideari** plazer ematea, berak atsegin lukeena haiei egitea besterik egin beharrik ez dauka-eta. Aitor Arana

Barneko beirartetik harata, erredakzioan, doi-doian **ohekide** egin ez nuen neska nekusan. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Aurreko gauean ere [...] nerabezaro gorrian bezala, eskua **ohekide** nerabilela bildu ninduen loak. Aingeru Epaltza

ohekidetasun *(corpusean ohakidetasun soilik) iz* ohekide denaren nolakotasuna.

Zapalkuntzaren, justiziaren, **ohakidetasun** ugariaren, oturuntzen eta are erudizioaren plazerrei uko egin, eta hamahiru urtez bere burua Bakardade Aratzaren Pabilioian giltzapeturik eduki zuen. Juan Garzia

ohelagun *(3 agerraldi, 3 liburutan; orobat ohe(-)lagun 3 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian ohelagun agertzen da) iz* norbaitentzat, berarekin ohe berean dagoena; bereziki, berarekin ezkontzatik at sexu harremanak dituen pertsona. ik **ohekide**; **ohaide**.

Oihu zorrotza egin zuen eta hortaz, jakina, **ohelaguna** esnatu. Matías Múgica

Argi ikusten zuen euliari hego bat kentzeko ere gai ez zelako itxura ematen zuen maltzuraren beste **ohe lagun** bat gehiago izan zela emakume hura. Bego Montorio

Gogora ekarri zuen lo eskaseko **ohelagun** izan berri zuen neskatxatxo. Juan Garzia

Ohe-laguna duela ematen du-eta! Antton Olano

Edo **ohelaguntzat** eduki nazaten nahi badu, berdin. Oskar Arana

Ez zuen ez jaten, ez lorik egiten, ez eta ere arrabitaren (*luth*) kantua gehiago gozatzan, are gutiago **ohe lagun**en konpania jasaiten. Herria

ohelari *iz* oheez arduratzen dena.

Honela osatzen da: Logelaria, **Ohelaria** eta Otordularia. Xabier Olarra

ohepe *(orobat ohape g.er.) iz* 1 ohe azpia.

Hurrena, nik leihoetako kristalak, lanparako, komuneko ispiluko zipriztinak eta **ohepeak** oroitarazten nizkionean, berak obsesionatua nengoela leporatzen zidan. Patxi Zubizarreta

Behako laster bat **ohapeari**: gure lur-sagar erresalbu guzია desagertu da! Marzel Etxehandi

2 ohepean

Inork ez du kriselua piztu eta ontzipean gordetzen edo **ohepean** ipintzen. Elizen arteko biblia

Zer egin jakin barik, *tout à coup* **ohepean** sartu, eta handik gizon baten oinetakoak ikusi ditut. Patxi Zubizarreta

Ertzain gazteak manta altxatu zuen, **ohepean** ezkutuan zegoen pistola ttikia agerian utziz. Harkaitz Cano

Soinua han egoten zan bere **ohepean**. Xabier Amuriza

Ez jakin zergatik, baina kontua da nire **ohepean** zegoela argindar-hartunea. Urtzi Urrutikoetxea

Atorra bila aritu zen pixka batez, eta azkenik, txanpon zilar batzuekin batera, **ohepean** aurkitu. Felipe Juaristi

3 *ohepeko izlag*

Eta halaxe, ez negu ez uda, tartean behin ateratzen du mundu madarikatu honek egun horietako bat, biharamuna daukan izaki bat **ohepeko** hauts bihurtzea desirarazten duena. Unai Iturriaga

4 *ohepera*

Burkotik altxatzen saiatzen nintzen oro, burua **ohepera** joaten zitzaidan jirabiraka. Mirentxu Larrañaga

5 *ohepetik*

Ohepetik sei botila *Cutty Shark* atera zituen, hasi gabe zeudenak. Harkaitz Cano

Urrundu direnean, merkataria **ohepetik** ateratzen da. Xipri Arbelbide

Burua altxatzen duenean ikusten duenak izu laborria eragiten dio, burutik pasatzen zaion lehen gauza da **ohepetik** pistola ateratzeko denborarik ez daukala. Harkaitz Cano

Ordu berean, **ohepetik** hiruzpalau garratoi atera ziren eta gainera jauzi egin zidaten, hemendik ausiki, handik ausiki, gorputz guztia odoletan ezarriz. Daniel Landart

oherarazi, oheraraz, oherarazten du *ad* oheratzera behartu.

Gaur goizean jakin duelarik nigandik bi presuna ezagunen heriotza hain goiztiarra, ondoezak jo du, eta **oherarazi** dut. Jon Muñoz

Afaldu genuen [...] mila kontu kontatu zizkidan, eta gero, berandu, oso berandu, gela txit eder batean **oherarazi** ninduen, ohe-sabaia zuen ohe batean. Jon Muñoz

oheratu, ohera(tu), oheratzen 1 da *ad* ohera joan.

Erbat leher eginda **oheratu** ziren, eztarriak lehortuta. Iñaki Mendiguren

Gau hartan bere logelako beste inor baino lehen **oheratu** zen Harry. Iñaki Mendiguren

Berantegi **oheratu**, eta oso nekez eta arrunt gau minean loakartu bainintzen. Txillardegí

Oheratu nintzenean, argia itzalita, arratsalde hartako kontuak oroitu nituen, eta aitak esandakoak. Juan Kruz Igerabide

Gazte hau gaueko hamarrak aldera etxeratua zen, nekatuta zegoela eta aurki **oheratu** behar zuela esanez agurtu zuen bere otseina, Bouvin jauna. Josu Zabaleta

Goiz afaldu, **oheratu**, eta lo egitera behartu zuen bere burua. Juan Garzia

Astebete-edo egin zuen eztulka, eta **oheratu** egin zen. Josu Zabaleta

Oheratzeko ordua da jada. Anjel Lertxundi

Gau hartan ez nintzen baloiarekin **oheratu**: ordez, citroñeko ilehoria gogoan nuela, masturbatu egin nintzen. Joan Mari Irigoien

2 (norbaitekin, sexu harremana gauzatzeko)

Hiru edo lau aldiz gehiago **oheratu** zen Ivanekin; guztira, bi hilabete egin zuten elkarrekin, gutxi gorabehera. Iban Zaldúa

Ez det ikusten zergatik biren artean roilo ona dagoenean, adiskide izan eta erakargarritasuna dagoenean, ez diren elkarrekin **oheratu** behar. Lourdes Oñederra

Zertarako balio du norbaitekin roilo bat edukitzeak, elkarrekin **oheratzeak**, larrua jotzeak? Lourdes Oñederra

Afalostean **oheratu** egingo ziren, amodioa egingo zuten eta biharamunean Rekekox inoiz baino miserableago sentituko zuen bere burua. Joxemari Iturralde

Maiteminduta zeundetelako **oheratu** zarete elkarrekin. Lourdes Oñederra

Batarekin eta bestearekin **oheratzen** nintzen, eta azkenean haurdun amaitu nuen. Oskar Arana

-Hire aurpegiaren ederragatik uste duk **oheratu** naizela hirekin, ala? -maripurtzilak. Aingeru Epaltza

Gizon horrekin **oheratzen** dela eta ohean basatia dela imajinatu du, damurik gabe. Harkaitz Cano

Oheratu eta goizaldea arte maitasuna egin eta hurrengo egunean presarik gabe esnatu eta bere bularraren gainean hatzez marrazkiak egin denborarik ez balego bezala, hitz egin gabe. Lourdes Oñederra

Baina zuk ezin zenuen buztana lasai eduki, eta emakume horiekin **oheratu** behar zenuen, ezta? Aitor Arana

Zurekin behin edo bitan **oheratu** ondoren, utzi eginen zaitu. Fernando Rey

Esan beharrik ez dago hirurok elkarrekin ere **oheratu** eta jolas atseginetan ibili ginela. Aitor Arana

• 3 du *ad* ohera eraman.

Maria txikia bainatu eta **oheratu** du, afariatz erabat ahaztuta. Jokin Muñoz

Ordubeta pasatu da zu **oheratzerako**. Arantxa Iturbe

Zerbitzatzen nien afaria, isilik **oheratzen** nuen Lucy, isilik ematen nion gabon musua Davidi. Oskar Arana

Emetxoa **oheratu** zutenean, egongelara joan zen, arratseko albistegiko azken berriak entzuterara. Iñaki Mendiguren

Aitak izterretatik oratu du eta judoko giltza dirudien batekin **oheratu** du. Eider Rodríguez

Goizeko ordubeta zen operazio gelan bukatu zutenean, eta lehentxeago erizainek Charlotte **oheratu** zuten. Xabier Olarra

Negar batean hasten da Felix, bera haur izanik eta amak **oheratu** eta lasterrean, "Ai, nire bihotzeko kutuna" aitak maiz esan ziola gogoratuta. Josetxo Azkona

Neska askorekin oheratu naiz, / baina bakardadeak ere / gau askotan **oheratu** nau / jipoi-jipoi eginda. Pako Aristi

Elkarrekin **oheratuko** zaituztet. Karlos Zabala

4 (norbaitek norbait, sexu harremana gauzatzeko)

Ez, ni ez nintzen Montsek **oheratu** zuen lehen gizon ospetsua, ez bigarrena, ezta hogeigarrena ere. Joan Mari Irigoien

Nik ez nekien, ordea, merkataria ezagun aberastu berri baten alaba zela hura, neska ezin esnobago bat, gizon famatuak eta gizarteko izarrek aldi batez **oheratzen** zituena, oroimenaren ohol markodunetan zintzilikatzeko. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berandu oheratu (3); **berant oheratu** (4); **berant oheratu naiz** (4); **berarekin oheratu** (8); **berarekin oheratu zen** (3); **berehala oheratu** (5)

elkarrekin oheratu (10); **gauean oheratu** (4); **goiz oheratu** (9); **goiz oheratu nintzen** (3); **harekin oheratu** (6)

luzaz berant oheratu (4); **nirekin oheratu** (3); **oheratu arte** (3); **oheratu aurretik** (18); **oheratu baino lehen** (14); **oheratu gabe** (4)

elkarrekin oheratuko (3)

berarekin oheratzea (3); **gizon batekin oheratzea** (3); **oheratzea erabaki** (4)

berarekin oheratzeko (3); **emakume batekin oheratzeko** (3); **oheratzeko ordua** (4)

berandu oheratzen (5); **berarekin oheratzen** (4); **elkarrekin oheratzen** (12); **emaztearekin oheratzen** (4); **gauean oheratzen** (3); **lehenago oheratzen** (3); **oso berandu oheratzen** (3)

ohetegi iz *ipar* ohe asko dagoen gela edo aretoa. ik *ohetoki*.

Alanbre sareetatik aski hurbil eta ortogonalki, presoen **ohetegiak** paraleloki altxatuak zituzten. Eneko Bidegain

ohetoki iz ohe asko dagoen gela edo aretoa. ik **ohetegi**.

Pierre haren atzetik joan, eskua askatu, eta bere **ohetokian** zeukan txilinetik zintzilikatu zuen. **Josu Zabaleta**

Horrela beldurrez esnatu du **ohetoki** osoa eta maindireei ekaitz-hotsa aterarazi. **Itziar Otegi**

ohetto iz ipar ohe txikia. ik **ohetxo**.

Hiru metra eta erditsuko laukada egiten dute gelek, bi **ohetto** mehar (bakarkakoak), bulegotto bat, armairua eta ikuzteko salatto duxadun. **Herria**

Hirugarren **ohettoa** ere, beste baten gainean plegatzen dena. **Herria**

ohetxo iz ohe txikia. ik **ohetto**.

Linek umea sartzen du bere **ohetxoan**; gero Line eta haren senarra ohe handira joaten dira eta argia itzaltzen dute. **Eskarne Mujika**

Itzultzean, Lucy aurkitzen du biltegitarako erabiltzen duen lizun-usaineko trasteleku txikian **ohetxo** bat ipintzen. **Oskar Arana**

Larritasunez jotzen zuen ukabil itxiekien burdinazko **ohetxoa** kontra jarrita zegoen pareta. **Josu Zabaleta**

ohetzar iz adkor ohe handia.

Hain dirudizu txikia eta zurbila, hain txikia ere, hortxe, **ohetzar** handi horretan etzanda. **Mirentxu Larrañaga**

Gu lasai ederrean geunden **ohetzarrean** karraska eta karraska arto hostoen gainean. **Pello Lizarralde**

ohexka iz ohetxoa.

Ohexkan etzateko gizona lurretik altxatu zutenean ikusi omen zioten zauria alkandora urratuaren azpian, zauri bakarra, bihotzaren pare-pare. Partida amaitu aitzin utzi egin behar izan zuen zelaia **ohexka** mobilean, lepoko babesgarria jarrita. **Joxean Agirre**

ohezeru (orobat **ohazeru** eta **ohe-zeru**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **ohezeru** agertzen da*) iz ohearen goialdean, eskuarki lau zutabek eusten diotela, jartzen den ehunezko estalkia. ik **ohe 18**.

Nola bidea egun eta erdikoa baitzen, oihanaren bazter batean gelditu behar izan genuen gauetz, lurra etzaleku eta goiko izarrak **ohezeru**. **Joan Mari Irigoien**

Ohean etzanda, begiak **ohe-zeruko** belusean jarrita entzun zuen Ruche jaunak irakurraldia. **Jon Muñoz**

Aldi berean, beheko solairuan, **ohe-zeruko** errezelen azpian. **Jon Muñoz**

Belusezko **ohe-zeruaren** estalpean, honela mintzatu zen: [...]. **Jon Muñoz**

Gazte bizartsu ezagun bat topatu nuen neure aurrean, **ohazeruaz** bestaldean, niri begira zutik, larderia handiz hau ziostararik: [...]. **Txillardegi**

ohi 1 part dagokion aditzari ohikotasun zentzua ezartzen dion hitza.(aditzaren era burutuarekin, laguntzailearen ezkerrean)

Gisako atestatuetan gertatu **ohi** denez, ñabardura morbidoak erantsi dituzte lekukoek. Ostatuetan zerbitzatu **ohi** dituzten jakiak ekartzen hasi ziren. **Joxean Agirre**

Sarritan ordutsu horretan elkartu **ohi** ziren, baina behin ere ez baitzuten hitzik trukatu. **Patxi Zubizarreta**

Gustatuko litzaizueke? galdetu **ohi** zuen, batez ere alabei zuzenduz. "Ez izan tentela", esan **ohi** diot. **Anton Garikano**

Bakarrik dagoen edo egon **ohi** den pertsonaren egoera. **Imanol Zurutuza**

Izan daiteke eta izan **ohi** da. **Iñaki Segurola**

Idealizatu egin **ohi** da egia, eta batzuetan ez da errepide ertzean lehertutako arratoi bat baino. **Ramon Saizarbitoria**

2 (omen eta kidekoen ezkerrean)

"Voilà le sommet!", esan **ohi** omen du Baroi melomano handi-gurakoak. **Txillardegi**

Gobernura noa hemendik egun gutxira eta diru-irrika bizian noa; halaxe joan **ohi** omen dira gobernadore berri guztiak. **Patxi Ezkiaga**

Jainkoek barre egin **ohi** omen dute gizabidearen arrakala horiei erreparatuz. **Pedro Alberdi**

Ereiteko garaian, nekazariak beti goldaketan eta lurra urratzen eta areatzen jardun **ohi** ote du? **Elizen arteko biblia**

3 (aditz trinkoen ezkerrean)

Baina, **ohi** denez, tradizioak pasadizo sinesgaitz samarrak erantsi zizkion abentura honi. **Askoren artean**

Tom portxera baztertzen da, **ohi** duen bezala bazkalostean erretzera, eta ni haren ondoko besaulkian esertzen naiz. **Oskar Arana**

Adimenari doakionez, dakusadanez, bat **ohi** datoz adimenezko multzoaren atomoetako batean datzan akzidente bat dela esatean. **Xabier Kintana**

Inbaditutako lurraldean inurriak bezala **ohi** dabilta zelatariak. **Karlos Zabala**

Aipu-ehiztariaren lanak literaturaren depreazio alferrikakora **ohi** darama, ordea, eta nire asmoa oso bestelakoa da. **Juan Garzia**

Valenzianoek **ohi** dagiten mairu eta kristau arteko liskar aizun amaneratu bezalako bat. **Patziku Perurena**

Emakume gazteek gizon zaharrei **ohi** dakarkieten maitasun hori. **Juan Garzia**

4 (aditzaren era ez burutuarekin)

Denek egiten **ohi** dutena egin zuen: usnatu, inguruan itzulika lotu, haren karesak onetsi eta haren lagun joan, isilik. **Elena Touyarou**

Erran dezagun gauzak eramaiten dituztela, Gipuzkoar trinkoek egiten **ohi** duten bezala. **Herria**

Artikulu batean, titularra idazten azkena izaten **ohi** da. **Aingeru Epaltza**

Doinuak herrikoiak izanagatik, kontzerturako estiloa maite zuten beti musikagile profesionalak eta bandako zuzendariak izaten **ohi** ziren epaileek. **Koldo Izagirre**

5 (erlatibozko ezezko perpausetan, ez-en ezkerrean).

Ez zuen oraino kaxkoratu kazetaritzak bulego eta saltokietan **ohi** ez diren ordutegiak dituela. **Aingeru Epaltza**

Ohi ez zuen arretaz, bi esaldi kopiatu zituen Grosrouvrek. **Jon Muñoz**

Musu eman zidan (inoiz egin **ohi** ez zuena) amultsuki behin eta birritan. **Eduardo Matauko**

Honetan, eredugarri-askotan **ohi** ez duen bezala- *Berria*. **Iñigo Aranbarri**

Piztieki ere jan **ohi** ez dutena gizakien hortzek irensten zuten. **Askoren artean**

Benetakoa izan arren inork sinetsi **ohi** ez duen istorio bitxi samar horietako bat dun. **Harkaitz Cano**

Halabeharrez edota beti lotan egon **ohi** ez den deabruaren eraginez. **Patxi Ezkiaga**

Koldarkeria, hortaz, gehienak izutzen **ohi** ez dituzten gaitz baten Beldurra besterik ez da. Piarres Xarriton

6 (aditza ezabaturik)

Beharrik, abuztuko ortziral horretan **ohi** baino isilago zebilen irratilaria. Aingeru Epaltza

Ohi baino askoz goizago erretiratu zen ostatura, afaria amaitu arte ere itxaron gabe. Jose Morales

Husain Kirxak, **ohi** bezain kalakari, kanpamendu kontuak ekarri zituen hizpidera. Patxi Zubizarreta

Gora eraman Lekua **ohi** bezain hutsik zegoen, paretetako oroigarri portugaldarrak arruntean bezain andeatuak. Aingeru Epaltza

Ez, zorabiatuta zegoen, beti **ohi** bezainbat. Mirentxu Larrañaga

Gora eraman zituen Harryren bulegora, eta nola Harryk **ohi** ez bezain urduri eta aztoraturik irudi zuen atea ireki zuenean [...] Rufus ikaritzen hasi zen. Oskar Arana

Aitak, bada, **ohi** ez bezain adiskidetsu hartu zuen Villona, eta benetako errespetua erakutsi zuen atzerriko lorpenekiko. Irene Aldasoro

Kale urdinetan jendea bazezilen, **ohi** ez bezainbat akaso. Karlos Linazasoro

7 (kargu edo lanbide baten izenaren eskuinean, elkarketako bigarren osagai gisa, "izana" adieraz)

-Non dituk Sarako erretorera eta erretore-lagun **ohia**? Elena Touyarou

Arkale gizon lodi bizi-bizi bat zen, uzta-biltzaile **ohia**, zaldi-tratulari **ohia** eta kontrabandista. Koro Navarro

Espainiako Barne ministro **ohi** Jose Barrionuevok indultua eskatu zuen atzo GAL auziagatik espetxeraturata dagoen Enrique Rodriguez Galindorentzat. Berria - Euskal Herria

Bata, itxuraz, soldadu **ohia** zen; bestea, itxuraz ere, musikari **ohia**. Felipe Juaristi

Alderdi Komunistako kide **ohiak** dira. Edorta Jimenez

Legebiltzarkide **ohia** da Zubimendi, Bilboko zinegotzi **ohia** Arbulu. Iñigo Aranbarri

Baliteke Girondeko prefeturako idazkari orokor **ohiak** pailazo hura erreparatu izana, baina ez da gauza segurua. Josu Zabaleta

«Komunismoaren aurkako erretorika berpiztu dute», dio Satur Ocampo gerrillari **ohi** eta Bayan Munako legebiltzarkideak. Berria - Mundua

Ondo-ondoan Sebastian infante eta mariskal-**ohiaren** jauregia. Txillardegi

Bazituen hark ere ordurako bi emazte **ohi** eta alaba hazi samar bat, Pamela. Oskar Arana

-Gorrotu zaitudalako -esan zuen beraren amorante **ohiak** -. Oskar Arana

8 (bestelako izenen eskuinean, adiera berarekin)

Ogibide **ohiak** artean sustrai sendoak zituen harengan. Migel Angel Mintegi

Zure enpresa-**ohia** -ondotxo ezagutzen dut ManWork- ez da tratuetara makurtzen den horietakoa. Iban Zaldua

Udaletxe **ohiaren** azpialde hartan zeuden Liburutegiaren funts baliosenak, plazaren azpitik ere hedatzen ziren barrunbeetan. Iñaki Iñurrieta

Mesón de los Franceses ospitale **ohian**, kafesne on bat hartu dut, beheraxago aterpe berri berrian zigilua ukan dut, eta jo aitzina. Piarres Aintziart

Sena zeharkarazi zion Napoleonek Institutuari, lehengo kokalekuaren aurrez aurre kokatzeko, Mazarin jauregi **ohian**. Jon Muñoz

Aberea, eta garraioa orobat, militarrek bahitu Frantziskotarren komentu **ohian** lortu zituzten. Elena Touyarou

Portomarín hiri **ohia**, Miño ibaiaren urek, urtegi bilakaturik, itoa dute. Piarres Aintziart

Erabakia hartu zuen, abiatzeko bezperan zurrumurru bat entzunik, Club Jean-Jacques Rousseau **ohian**, orain sinpleki "Société Populaire" deitzen zutenean. Elena Touyarou

9 ohi bezala

Ohi bezala, azkar erantzun zidan. Bernardo Atxaga

Ohi bezala, bere buruari galdegin zion ea zer egin behar zuen. Patxi Zubizarreta

Ohi bezala, nire alaba zientzialariak arrazoi izan zuen, aitortzeko burugorregia izan nintzen arren. Oskar Arana

Handik gutxira gertatu zen, goiz batean, txoriaren bisita, garestarrek, **ohi bezala**, kanpai-hotsarekin iragarri zutena. Martin Anso

Koxepak, **ohi bezala**, begiak ia hesteraino ximurturik eta hitzik atera gabe so egiten du. Eneko Bidegain

Super-Constellation-a genuen hegazkina, linea hartan **ohi bezala**. Joxe Austin Arrieta

Nahiz eta bere hitz egiteko modua jasoagoa izan, *sobratu* aditza erabili zuen aurreratu orde, Obabako nekazariek **ohi bezala**. Bernardo Atxaga

9 ohi ez bezala

Ohi ez bezala, begiak zabaldu eta istant batean zeharkatu zuen ametsen eta errealtatearen arteko muga. Migel Angel Mintegi

Anaiak, **ohi ez bezala**, ez zituen ezkatatu giltzak, ezta berekin eraman ere; bestetik, ahantzia zuen giltzoz jabetzeko debekua berritzea Enricori, bere mehatxu eta gutzi. Juan Garzia

Gaitza EBn agertu ondoren, **ohi ez bezala** debekua beste aldean aurkitu dituzte euren buruak Europako Batasuneko herrialdeak. Berria - Gaiak

Eguna epela zen **ohi ez bezala**, eta Nancy-k jean urdin batzuk eta kotoizko elastiko zuri bat zeramatzan. Oskar Arana

Aita ere hitzun zegoen egun hartan, **ohi ez bezala**. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

adierazi ohi (14); **ageri ohi** (24); **agertu ohi** (83); **aipatu ohi** (42); **aldatu ohi** (11); **antolatu ohi** (21); **aritu ohi** (12); **askotan egin ohi** (8); **askotan gertatu ohi** (8); **atera ohi** (33); **aukeratu ohi** (8); **aurkitu ohi** (23); **azaldu ohi** (23)

begiratu ohi (17); **bereizi ohi** (12); **bete ohi** (28); **beti egin ohi** (13); **beti esan ohi** (13); **beti izan ohi** (21); **beti ohi** (10); **bilakatu ohi** (9); **bildu ohi** (38); **bizi ohi** (46); **bota ohi** (21)

deitu ohi (73)

eduki ohi (28); **egin ohi** (728); **egiten ohi** (27); **egokitu ohi** (9); **egon ohi** (262); **egotzi ohi** (8); **ekarri ohi** (73); **eman ohi** (220); **entzun ohi** (28); **erabili ohi** (258); **eragin ohi** (15); **erakutsi ohi** (42); **eraman ohi** (83); **erantzun ohi** (19); **erran ohi** (12); **erre ohi** (10); **errepikatu ohi** (17); **esan ohi** (745); **eseri ohi** (22); **eskaini ohi** (28); **eskatu ohi** (12); **etorri ohi** (114); **ezarri ohi** (14)

galdetu ohi (13); **galdu ohi** (9); **gelditu ohi** (12); **geratu ohi** (23); **gertatu ohi** (218); **gorde ohi** (18)

hartu ohi (105); **hasi ohi** (22); **hitz egin ohi** (20); **hurbildu ohi** (9)

ibili ohi (163); **idatzi ohi** (19); **ikusi ohi** (67); **ipini ohi** (10); **irakurri ohi** (15); **iraun ohi** (9); **irudikatu ohi** (9); **iruditu ohi** (8); **itzuli ohi** (12); **izan ohi** (1112); **izaten ohi** (15)

jan ohi (19); **jantzi ohi** (19); **jardun ohi** (19); **jarraitu ohi** (8); **jarri ohi** (60); **jaso ohi** (28); **jo ohi** (37); **joan ohi** (180); **joera izan ohi** (9); **jokatu ohi** (50)

kantatu ohi (13); **kontatu ohi** (24)

lortu ohi (14); **lotu ohi** (15) mintzatu ohi (14)

ohi baino (382); **ohi baino gehiago** (26); **ohi baino goizago** (8); **ohi bezain** (28); **ohi bezala** (466); **ohi ez** (131); **ohi ez bezala** (56); **ohi ez bezalako** (36); **ohi ez bezalako** (9); **ohi legez** (21)

ospatu ohi (10); **pentsatu ohi** (25); **piztu ohi** (8)

sarri gertatu ohi (9); **sartu ohi** (26); **sentitu ohi** (19); **sortu ohi** (55)

txapeldun ohi (8)

ulertu ohi (12); **urtero egin ohi** (16); **uste ohi** (16); **utzi ohi** (26)

zabaldu ohi (9); **zaila izan ohi** (8)

[izenondoa: 5 aholkulari ohi (9) alkate ohi (27); **arduradun ohi** (6); **atzerri ministro ohi** (9); **barne ministro ohi** (19); **buraso ohi** (5); **buru ohi** (30); **buruzagi ohi** (14); **diputatu ohi** (14)

ebbko lehendakari ohi (5); **ekintzaile ohi** (7); **emazte ohi** (6); **enbaxadore ohi** (7); **entrenatzaile ohi** (6); **espainiako presidente ohi** (17); **estatu idazkari ohi** (7); **gerlari ohi** (32); **gerrillari ohi** (9)

idazkari nagusi ohi (5); **idazkari ohi** (15); **ikaskide ohi** (5); **ikasle ohi** (18); **irakasle ohi** (10); **irakeko presidente ohi** (18); **jeneral ohi** (8); **jokalaria ohi** (37); **jugoslaviako presidente ohi** (12); **kide ohi** (21); **lagun ohi** (5); **langile ohi** (13); **lehen ministro ohi** (33); **lehendakari ohi** (26); **militar ohi** (11); **ministro ohi** (104); **nagusi ohi** (15)

pilotari ohi (14); **portlandeko jokalaria ohi** (5); **presidente ohi** (146); **preso ohi** (53); **soldado ohi** (5); **soldadu ohi** (10); **txapeldun ohi** (8)

zinegotzi ohi (8); **zuzendari ohi** (21)

aebetako presidente ohia (9); **agintari** ohia (12); **aizkolari** ohia (5); **alkate** ohia (30); **amrikano** ohia (5); **arduradun** ohia (8); **athleticeko jokalar**i ohia (8); **atzerr**i ministro ohia (6); **auzapez** ohia (26); **bikotekide** ohia (35); **bikotekide** ohia jo (5); **buru** ohia (22); **buruzagi** ohia (12); **deputatu** ohia (9); **diktadore** ohia (14); **diputatu** ohia (11)

ekintzaile ohia (6); **emazte** ohia (38); **entrenatzaile** ohia (21); **erakasle** ohia (7); **erretor** ohia (14); **euskal preso** ohia (8); **euskaltzainburu** ohia (11); **gasteizko alkate** ohia (7); **gerlari** ohia (7); **gidari** ohia (6); **gobernadore zibil** ohia (5); **gubernuburu** ohia (17); **gubernuko ministro** ohia (5); **haritxelhar euskaltzainburu** ohia (6); **hormadiko ohia** (7); **hussein presidente** ohia (9)

idazkari nagusi ohia (7); **idazkari** ohia (11); **ikasle** ohia (11); **jaun erretor** ohia (6); **jeneral** ohia (28); **jokalar**i ohia (76); **jugoslavia** ohia (25); **jugoslaviako presidente** ohia (9); **kapitain** ohia (6); **kide** ohia (27); **komunista** ohia (5); **kontseilari** ohia (8); **lagun** ohia (29); **langile** ohia (7); **legebiltzarkide** ohia (6); **lehen ministro** ohia (31); **lehendakari** ohia (43); **miarritzeko jokalar**i ohia (8); **miarritzeko ohia** (7); **militar** ohia (10); **ministro** ohia (67); **minixtro** ohia (22); **mutil lagun** ohia (9); **nagusi** ohia (14); **neska lagun** ohia (13)

ofizial ohia (6); **pilotari** ohia (19); **politiko** ohia (10); **president** ohia (41); **presidente** ohia (140); **presidente** ohia hil (6); **preso** ohia (37); **preso politiko** ohia (7); **realeko jokalar**i ohia (6); **sailburu** ohia (12); **senar** ohia (14); **soldadu** ohia (5); **talde** ohia (18); **taldeko kide** ohia (6); **txapeldun** ohia (20); **txirrindulari** ohia (17)

ustez bikotekide ohia (5); **ustez emazte** ohia (5); **xapeldun** ohia (7); **zinegotzi** ohia (13); **zuzendari** ohia (35)

agintari ohia (13); **alkate** ohia (25); **arduradun** ohia (8); **aristide presidente** ohia (5); **atezain** ohia (5); **atzerr**i ministro ohia (6); **auzapez** ohia (17); **barne ministro** ohia (13); **baskoniako jokalar**i ohia (5); **bikotekide** ohia (14); **buru** ohia (20); **buruzagi** ohia (17); **clinton presidente** ohia (6); **diktadore** ohia (9); **diputatu** ohia (15)

emazte ohia (9); **enbaxadore** ohia (7); **entrenatzaile** ohia (32); **errektore** ohia (6); **estatu idazkari** ohia (5); **gerlari** ohia (17); **gobernadore** ohia (5); **gubernuburu** ohia (16); **hautetsi** ohia (10); **hussein presidente** ohia (6)

idazkari ohia (17); **ikasle** ohia (11); **irakasle** ohia (13); **jeneral** ohia (22); **jokalar**i ohia (61); **kapitain** ohia (5); **kide** ohia (37); **kontseilari** ohia (10); **lagun** ohia (9); **lamassoure minixtro** ohia (5); **langile** ohia (16); **legebiltzarkide** ohia (6); **lehen ministro** ohia (23); **lehendakari** ohia (26); **mahaikide** ohia (5); **miarritzeko ohia** (7); **militar** ohia (6); **ministro** ohia (75); **minixtro** ohia (16); **nagusi** ohia (8)

pilotari ohia (16); **president** ohia (12); **presidente** ohia (117); **preso** ohia (44); **sailburu** ohia (8); **senar** ohia (9); **soldadu** ohia (5); **taldekide** ohia (15); **txapeldun** ohia (25); **txirrindulari** ohia (13)

xapeldun ohia (8); **zinegotzi** ohia (13); **zuzendari** ohia (14)

jugoslavia ohian (8)

emazte ohiarekin (5); **lehen ministro** ohiarekin (5)

agintari ohia (19); **alkate** ohia (8); **aristide presidente** ohia (9); **auzapez** ohia (17); **bere talde** ohia (19); **bikotekide** ohia (12); **buru** ohia (13); **buruzagi** ohia (8); **deputatu** ohia (5); **diktadore** ohia (19); **diputatu** ohia (5)

ekintzaile ohia (5); **emazte** ohia (14); **errege** ohia (8); **gubernuburu** ohia (8); **hussein presidente** ohia (5)

idazkari ohia (10); **ikaskide** ohia (7); **irakeko presidente** ohia (21); **jeneral** ohia (5); **jokalar**i ohia (8); **jugoslavia** ohia (6); **lagun** ohia (5); **lehen ministro** ohia (13); **lehendakari** ohia (11); **ministro** ohia (24); **minixtro** ohia (6); **nagusi** ohia (6)

pilotari ohia (7); **president** ohia (7); **presidente** ohia (115); **presidente** ohia aurkako (5); **preso** ohia (15); **segurtasun buru** ohia (9); **senar** ohia (9); **talde** ohia (29); **talde** ohia aurka (12); **talde** ohia kontra (8); **txirrindulari** ohia (7)

zuzendari ohia (9)

bikotekide ohiarengandik (6)

agintari ohia (7); **auzapez** ohia (5); **bikotekide** ohia (9); **emazte** ohia (14); **gubernuburu** ohia (5); **jeneral** ohia (6); **lagun** ohia (10); **lehendakari** ohia (5); **ministro** ohia (6); **neska lagun** ohia (7); **presidente** ohia (28); **preso** ohia (18); **talde** ohia (5)

bikotekide ohie (5); **preso** ohie (11)

gerlari ohie (13); **ikasle** ohie (15); **jokalar**i ohie (6); **kide** ohie (11); **langile** ohie (29); **langile** ohie deituta (7); **preso** ohie (24)

gerlari ohien (44); **gerlari** ohien meza (5); **gudari** ohien (5); **herriko gerlari** ohien (5); **ikasle** ohien (11); **kide** ohien (5); **langile** ohien (8); **politiko** ohien (5); **preso** ohien (21); **preso politiko** ohien (5); **soldadu** ohien (12); **taldekide** ohien (7)

jugoslavia ohirako (62); **jugoslavia** ohirako auzitegiak (6)

ohiz kanpoko (97); **ohiz kanpoko**a (28); **ohiz kanpoko**ak (7)

ohiarazi

ohiaraz, ohiarazten *(corpusean **ohituarazi** soilik)* du *ad* ohitzera behartu. ik **ohitu** 5.

Gau hartako neskatoa ere etxe hartara **ohituarazi** ote zuten? Ibon Uribarri

ohidura iz ipar

Neketsuagoak dira noski, mendian ibiltzeko **ohidurarik** ez dutenentzat. Elena Touyarou

Guk **ohidura** dugu, emankizuna bururatzean, erraitea "segi hola-hola bide horietan", eta zuretzat ere ber desioa dut. Menane Oxandabaratz

Nahiz odolean gorputzak ehotzeko bai eta arimen suntsiketa erdiesteko deabruak asmatu dueloaren **ohidura** okaztagarria. Piarres Xarriton

Neketsuagoak dira noski, mendian ibiltzeko **ohidurarik** ez dutenentzat. Elena Touyarou

Eskual Herria eta Eskualdunak nahi zituzken beren gain ikusi, beren zuzenen jabe, beren gizonez zainduak, beren mintzaiaz, **ohidurez** ala erlisioneaz iduri zakoten bezala gozatzeko eskuarekin. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aspaldiko ohidura (12); **lehengo ohidura** (5); **ohidura bereziak** (6); **ohidura berria** (3); **ohidura den bezala** (7); **ohidura ederra** (3); **ohidura handia** (3); **ohidura on** (3); **ohidura segituz** (4); **ohidura xahar** (5); **ohidura zahar** (5); **ohidura zaharra** (4); **ohidura zaharrak** (3); **ohidura zaharren** (5)

betiko ohidurak (4); **euskal ohidurak** (4); **gure ohidurak** (6); **hilen inguruko ohidurak** (3); **lehengo ohidurak** (4)

ohiduraren arabera (3)

aspaldiko ohidurari (3); **ohidurari jarraikiz** (11)

euskal ohiduren erakustegian (3); **ohiduren arabera** (4)

euskal ohidureri (4); **ohidureri jarraikiz** (3)

ohikera iz

Zurekikoa nire lepaginean utzia daukazu; ordez, eginbehar hau bizitzak, berez eta **ohikeraz**, nagusi jaunen gain jarritako zama baita. Patxi Ezkiaga

ohikeria iz

Ezin zuen ulertu sendagileak erakusten zuen **ohikeria** eta normaltasuna. Hasier Etxeberria

Mundua bestelakoa da egun, hiriak bestelako beharrak ditu eta horretaz baliatu behar dugu, **ohikeriatan** gelditu gabe. Bego Montorio

Edozer gauza eguneroko **ohikeriatik** alde egiteko, ez duzue uste? Paddy Rekalde

Izena **ohikeria** hutsez eskatzen dutela "holako eta halakoren bulegoa; noren partetik, mesedez?", automatikoki, baina ez diotela jakinarazten deia doakionari, nirea bezala luzea eta korapilatsua denean batez ere. Ramon Saizarbitoria

-Zabarkeriari eta **ohikeriari** amore emateagatik galdu dugunaz konturatzeko. Fernando Morillo

ohiki adlag

Eta haren hitzak, **ohiki**, hauek izan ohi dira: ebaki, erre eta suntsitu; eta orain hiltzen ere hasi dira. Agustin Otsoa

Argi baitago gaixoen gorputzak leku kutsatu batetik beste leku osasuntsu batera eramaten badira eta iturri garbietako ura **ohiki** ematen bazaie, bizkorrago osatuko direla.

Konposta egiteko, fruta eta barazkien hondakinak, arrautza oskolak, kafe eta te hondarrak, ogia, [...] belarra, lorategiko hondakinak eta **ohiki** zaborretara botatzen dugun beste hainbat gai organiko erabil daiteke. **Berria - Euskal Herria**

ohiko (3869 agerraldi, 243 liburu eta 1663 artikulutan; orobat ohizko 241 agerraldi, 37 liburu eta 100 artikulutan) 1 iz

Nagusia bere **ohiko** tokian eseri zen, kutzaren beste aldean. **Patxi Zubizarreta**

Nire **ohiko** lankidea, Puntu, gripeak jota dago eta ezin izan da lanera etorri. **Jon Arretxe**

Ttipik ere ez zuen bere **ohiko** iruzkinik egin oraingoan. **Aingeru Epaltza**

Uste genuen bere ahizparen gaixotasunaz jabetu gabe zegoela [...] eta ezjakin jarrai zezan nahi genuen, **ohizko** bizimodua egiten. **Bernardo Atxaga**

Haien **ohiko** egoera isilatasuna dela eta hizketa tarteka hartzen dituen sukar arin bat dela esan liteke. **Monika Etxebarria**

Ohiko iritzia da, baina okerra, hebreeraz *t-mûn-h* eta *tabnit* sinonimoak direla. **Xabier Kintana**

- **Ohikoa**, txekea sinatu eta kito, besterik ez. **Migel Angel Mintegi**

Ohikoa sarri gertatzen delako, ordaintokira gerturatu ahala nabaritu zuen guardia zibilen berdea. **Unai Iturriaga**

Deitze hori, hala ere, oso **ohikoa** zen gure artean. **Juan Kruz Igerabide**

Adin hartan **ohikoak** genituen halako denbora-pasa bortitzak. **Aingeru Epaltza**

Ohikoagoa da emakumezkoak argi eta garbi ezbeharren egile izatea, beraien maltzurkeriak eramaten baititu heroiak elkar hiltzera. **Iñaki Mendiguren**

Munduak berarentzat zer tankera zuen ulertarazten saiatzen zenean, etsipenak jotzen zuen, ez baitzioten balio zuri-beltzekoarekiko parekotasun **ohikoek**. **Xabier Olarra**

Argi dago beraz gure garaiotako fenomeno **ohikoenetako** bat [...] ez dela estrategia zahar baten eguneratzea baino. **Koro Navarro**

Iruditzen zitzaion, lagunak errazegi irristatzen zirela **ohikora**. **Pedro Alberdi**

Fayetteville Observer Egunkariak **ohikoa** ez zen gutun bat zekarren 1862ko maiatzaren 19an, Long Grabs berriemaileak Camp Magnunetik bidalia: [...]. **Xabier Olarra**

Ez da **ohikoa** hainbestarainoko luzamendua. **Anjel Lertxundi**

Ohartu nintzen kanpai ez zen kanpai haren zintzarri hots xaxtar hark bazuela zerbait berezia, ez zela **ohiko** hots xaxtarra, izan hots xaxtarra izaten jarraitzen zuen arren, ez zela **ohikoa**. **Harkaitz Cano**

2 ez-ohiko ik ezohiko.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

jugoslavia ohiko (19)

ohiko arazoa (6); ohiko arazoak (5); ohiko batzarra (5); ohiko bezero (5); ohiko bezeroak (7); ohiko bidea (7); ohiko bideetatik (8); ohiko bidetik (16); ohiko bihurtu (24); ohiko bihurtu da (6); ohiko bilakatu (7); ohiko bilera (6); ohiko bizimodua (11)

ohiko egitura (5); ohiko egun (5); ohiko eran (5); ohiko erantzuna (5); ohiko estrategia (7); ohiko funtzionamendua (5); ohiko gauza (7); ohiko gauzak (5); ohiko gripearen (7); ohiko hamabostekoa (7); ohiko hizkera (6); ohiko hizkuntza (5)

ohiko ibilbidea (5); ohiko ironiaz (5); ohiko irribarre (7); ohiko itxura (5); ohiko jarduera (9); ohiko jokabidea (5); ohiko jokalaria (7); ohiko jokariak (6); ohiko joko (8); ohiko jokoa (9); ohiko lan (23); ohiko lan arruntik (13); ohiko lana (8); ohiko lehen (6); ohiko lekuan (6); ohiko lekuetan (6); ohiko maila (7); ohiko merkatuan (9); ohiko moduan (16)

ohiko orduan (6); ohiko prozedura (14); ohiko sistemara (5); ohiko tokian (6)

ohiko zerbitzuak (5); oso ohiko (6)

sobiet batasun ohiko (5)

ez zen ohikoa (15); hain ohikoa (22); hain ohikoa den (6); horren ohikoa (6); nahiko ohikoa (6); nahiko ohikoa da (6)

ohikoa baita (5); ohikoa bihurtu (12); ohikoa bilakatu (9); ohikoa bilakatu da (7); ohikoa da (122); ohikoa dela (14); ohikoa den (87); ohikoa den bezala (18); ohikoa den legez (7); ohikoa den moduan (13); ohikoa dena (8); ohikoa denez (26); ohikoa duen (12); ohikoa duten (10)

ohikoa ez bada (5); ohikoa ez den (25); ohikoa ez zen (8); ohikoa ez zena (5)

ohikoa izan (38); ohikoa izan den (5); ohikoa izan zen (6); ohikoa izango (7); ohikoa izaten (23); ohikoa izaten da (16); ohikoa zen (41); ohikoa zen bezala (7); ohikoa zuen (18)

oso ohikoa (68); oso ohikoa da (22)

gero eta ohikoagoa (8); ohikoagoa da (16)

gero eta ohikoagoak (5); ohikoagoak dira (12)

hain ohikoak (9); ohikoak dira (58); ohikoak direla (8); ohikoak diren (68); ohikoak ez diren (18); ohikoak izan (12); ohikoak izan dira (9); ohikoak izaten (25); ohikoak izaten dira (14); ohikoak izaten diren (5); ohikoak ziren (31)

oso ohikoak (18); oso ohikoak dira (6)

bere ohizko ezkortasunaz (4); da ohizko (5); dira ohizko (3); ene ohizko (3); ohizko biltzar (10); ohizko biltzar nagusi (3); ohizko biltzar nagusia (4); ohizko euskal (3); ohizko musika (3); ohizko prestamen otoitza (8)

ohikotasun 1 iz ohikoa denaren nolakotasuna.

Egunari eguna, **ohikotasunak** irentsiko du guztia, baina une eder hauen oroitzapena geldituko zait. **Anjel Lertxundi**

Leku berriak ezagutzen genituen, festa pittin bat egin eta **ohikotasuna** hausten genuen. **Berria - Kirola**

Konformatuko ez den taldea nahi dugu, **ohikotasun** arriskutsu batean ez erortzeko. **Berria - Kirola**

Orain gogoan ez dudana irakasle batek **ohikotasun** osoz ekin zion hurrengo eskola orduari. **Anjel Lertxundi**

Ikaragarria zen pentsatzea jendea urkatzerakoan gizakiak hain **ohikotasun** handiz joka zezakeela, hain arduratsu, hain zehazki, hain lehatsuki, munduko ekintzarik zentzugabeena hain era arrunt eta ondo antolatuan egin zezakeela. **Jose Morales**

Esamolde horiek ohikoak izatea -alegia, **ohikotasuna** ezaugarri izatea-, haien esanahiaren edo haien sintaxien berezitasunen mendean dago. **Isabel Arrigain**

2 (hitz elkartuetan)

Gero bulegora joan zen, han mila bider ukitu eta ikusi denak **ohikotasun**-sentsazioa itzuli zion, eta azkenik logelara joan zen, antzinako kaobazko ohea. **Jon Alonso**

ohikunde iz ohitura.

Hondar bi urteotan, alabaina, **ohikundeak** eta usantzak alde baterat utzi, egiteko gibelaezinarri zimendutik eta erroetarik lotu eta, borondateari behingoz leku egiten niola, gogor bezain gotor ekin nion lanari, sukar menereazin batek hartua bezala, Plinio Zahararren erranari nerraiola: [...]. **Joan Mari Irigoien**

ohikune 1 iz erritua.

Hona hemen erre-opariei buruzko **ohikunea**: erre-oparia gau osoan egongo da erretzen aldre gainean; aldareko sua ez da itzaliko. **Elizen arteko biblia**

Ohikuneari zehatz-mehatz lotuz ospatuko du Pazkoa. **Elizen arteko biblia**

Ohikune hauek egin ondoren, lurtean ahozpezturik, otoitz egin zioten Jaunari. **Elizen arteko biblia**

Ohikune hau ospatzen jarraituko duzue, Jaunak, bere hitza betez, emango dizuen lurraldean sartzen zaretenean. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenengo itunak bazituen berek lurreko santutegia. Elizen arteko biblia

Zazpi egunez egingo dituzu garbikuntza- eta sagarapen-**ohikuneak**; horrela, guztiz sakratua izango da aldarea, eta hori ukitzen duena ere sakratu gertatuko da. Elizen arteko biblia

Haien ordez, beste belaunaldi bat sortarazi zuen Jainkoak, eta hauek erdaindu zituen Josuek, bidean ez baitzuten erdaintzuntza-**ohikunea** inoiz ere egin. Elizen arteko biblia

Apaiz nagusia haren alde barkamen-**ohikunea** egiten ari zen bitartean, lehengo bi gazteak agertu zitzaizkion Heliodorori. Elizen arteko biblia

Apaizek eta lebitarrek, guztiek batera, garbikuntza-**ohikuneak** beteak zituzten; beraz, garbi zeuden guztiak. Elizen arteko biblia

ohikuntza iz ohitura.

Karl Kautsky itekiar sozialista "alemanduak" idatzi zuen, adibidez: jakin behar da, nazionalitateen hizkuntza guztiak, gero eta gehiago, etxe barneko **ohikuntzetara** bilduko direla, eta holaxe, ondorioztasunez etorri etxeko altzari zahar batzuk iduri, begiratuko ditugu eta zainduko, hainbat baliagarritasun ez izanik ere. Piarres Xarriton

Suposatzen da, bestalde, historikotasunaren forma bakarrak eta berberak biltzen dituela egitura ekonomikoak, gizarte egonkortasunak, pentsamoldeen inertzia, **ohikuntza** teknikoak, jokaera politikoak, eta guztiei eraldaketa-mota bera ezartzen diela. Xabier Arregi

ohil iz basa, basatia.

Askok burrukan eta minez aieneka dihardute eta, panterak edo lehoi **ohilak** haginka jango balitu bezala, dena ulu beldurgarritz betetzen dute. Xabier Amuriza

Hesperideen urrezko sagar distiratsuen jagoleak, begirada oker eta gorputz izugarriko dragoi **ohil** zuhaitz-gerriari besarkatuak. Xabier Amuriza

Guk **ohil** eta barbarotzat jotzen dugun askok, "guk adina edo gehiago darabil arrazoimena". Joxe Azurmendi

Eta nahiz eta kanporantz lehertu ez, haizearen oldarra bera eta bere eraso **ohila** lurraren zulo ugarietan zehar hedatzen da, dardararen ondorengo izua bezala. Xabier Amuriza

Gurutzada **ohil** bat izan da Estatu moderno espainolaren sorkuntza. Joxe Azurmendi

ohildu, ohil, ohiltzen du ad 1 egotzi, bota.

Ondoren, kanpora **ohildu** ninduen eta kabina hornitu berrian gelditu zen bakarrik. Joxan Eloseg

Drogazale botika-ebasle bat banintz bezala **ohildu** ninduten. Aingeru Epaltza

Agerian da zeru gaineko bizardunak, gure lehen guraso Adan eta Eba paradisutik **ohildu** zituenean, ez zekiela haien ondorengoren batek erredakzio batean beteko zuenik kondena biblikoa. Aingeru Epaltza

Kaioak bata besteari patata azala mokotik kentzen eta zalapartan ari direla, berriz, petrel beltz handi bat jaitsiko da, kaioak hegal kolpeka **ohildu** eta patata azalen jabe geratzeko. Joseba Sarrionandia

Sukaldetik uxatu eta **ohildu** nahi izan zuen, eta ezin. Joan Mari Irigoien

Ber denboran bizi publikotik **ohiltür**ik izan da eüskara. Herria

Ondoren, kanpora **ohildu** ninduen eta kabina hornitu berrian gelditu zen bakarrik. Joxan Eloseg

Garaileek [...] berteak **ohildu** baitzituzten kanpo-ilunpe likidazionistara. Aingeru Epaltza

Oroitu behar gara, halaber, Beldurraren **ohiltzeko** erabilgarri den izpirituaren Sendotasunaz. Piarres Xarriton

2 (era burutua izenondo gisa)

Adimenaren arketipo handiak, ideia hutsak, **ohilduak** izanen dira, sentimenen irudi soilez. Oskar Arana

Leonel Garrok ere bere egin zuen errege-erregina **ohilduen** patua. Aingeru Epaltza

ohilkatu,ohilka, ohilkatzen du ad ohildu.

Mintzaje zaharrena, hürrün **ohilkatü**. Herria

ohilketa iz ohiltzea.

Ohilketa da Alpeetako pasarteko gairik sakonenetarikoa. Oskar Arana

ohiotar izlag/iz Ohikoa, Ohiori dagokiona; Ohiko biztanlea.

Nahiz eta labore-egileak mendebalera joan ahala Saint Louis eta Chicago orain negozioaren parte handi batez jabetu, Cincinnati oraindik txerri-portua zen **ohiotarrentzat**. Anton Garikano

ohitu, ohi, ohitzen 1 da ad ohitura hartu.

Zin dagit gogorra dela norberaren aita zaharra denean jada, negarrez ikusi beharra, **ohitu** gabe bazaude behintzat. Ramon Saizarbitoria

On du gizakiak gaztetandik uztarpean **ohitzea**. Elizen arteko biblia

Baina, alferkerian **ohitu** haiz, eta nahiago duk eskean ibili sabel-zorro aseezin hori betetzeko. Juan Kruz Igerabide

Garaziren galeraz **ohitzen** hasi? Txillardeg

Bat **ohitu** egiten da gauzak geroz eta gogorrago bihur daitezen; harrizteari uzten dio batek, gogor baino gogorrago zena are eta gogortzenago dela ikusteaz. Oskar Arana

Kontu korronteko diruari kiratsa dariola... ba tira!, sudurra aise **ohitzen** omen da; izen ona eta itxura, berriz, gorde egin behar dira. Migel Angel Mintegi

Hunka dira egunero kalera atera behar diren hitzak, moldeak, manerak, mundua erakusteko ahaleginak, eta **ohitzea**, kostatu egiten da. Iñigo Aranbarri

Apurka, begiak ñarrotuz, **ohitu** naiz. Koldo Izagirre

Zer besterik da oroitzea, izan ere, **ohitzea** ez bada? Patziku Perurena

-Ni ezingo nintzateke **ohitu**. Eskarne Mujika

Entzunaren entzunez, **ohitu** garen titulu horietako bat. Iñigo Aranbarri

Hasieran ez zitzaion gustatzen, baina gero **ohitu** egin zen. Josu Zabaleta

Ohitu egiten da bat. Eskarne Mujika

Sobera **ohitua** zaude munstro horren atzetik ibiltzen. Fernando Rey

Denen iritziz gaizki hezitako pertsona nintzen, gaizki **ohitua**. Fernando Rey

2 (objektua -tzera eta -ra atzizkiekin)

Oroimenik gabe bizitzera ere **ohitzen** da, baina ez da **ohitzen** ahazmenik gabe bizitzera. Felipe Juaristi

Bizitzaren geometria, beirak tarteko, ikustera **ohitu** nintzen. [Felipe Juaristi](#)

Ez bainago egonean egotera **ohitua**. [Joxe Austin Arrieta](#)

Ohitzen ari naiz estoldako ura edatera, azkenean gustatu egingo zait. [Harkaitz Cano](#)

Argazkiek egunkarietan ezer ez esatera **ohitu** naiz. [Iñigo Aranbarri](#)

-Tira, **ohitzen** hasia nindunan hirekin bizitzera. [Aingeru Epaltza](#)

Begiak berehala **ohitu** zitzaizkidan oholezko hormaren zirrikitu meharretatik sartzen zen argi urrira. [Anjel Lertxundi](#)

Bizitzak gozoa eta gazia, biak ditu eta bietara **ohitu** behar da. [Jasone Osoro](#)

Denborarekin [...] ilusio bat sortu zitzaidan: **ohitu** egingo nintzela egoera berrira, ahaztu egingo nintzela Angelez eta bere lagunez. [Bernardo Atxaga](#)

Zoriona droga gogorra da gorputzarentzat, hasierako dosietara gorputza **ohitu** egiten da, eta hurrena gehiago behar du. [Pako Aristi](#)

Hala ere, oraino ez nintzen **ohitu** adin horretako ohiko zehaztasun ezera. [Aingeru Epaltza](#)

Eta honetara **ohitu** beharko dut aurrerantzean, honetara eta hau baino ere gutxiagora. [Oskar Arana](#)

Aise **ohitu** ginen hartara. [Mirentxu Larrañaga](#)

3 (objektua -tzen atzikiarekin)

Azkenetako **ohitu** egin nintzen bertan gora eta behera ibiltzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Auzotik igarotzen ziren autoek ateratzen zuten hotsa bereizten **ohitu** nintzen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Prentsan, eta menturaz normalean tituluetan ez irakurtzen **ohitu** garelako, adjektiboa beti da deigarri. [Iñigo Aranbarri](#)

Gero ume horiek are adiskideago egiten zaizkizu, jaiotzetik zu ikusten **ohitu** baitira. [Gotzon Garate](#)

Zure ahoa ez dadila **ohitu** zin egiten, ez eta Santuaren izena maizegi aipatzen ere. [Elizen arteko biblia](#)

Andrés automatikoki erantzuten **ohitu** da. [Lourdes Oñederra](#)

Munduaren erdia ukatzen **ohituak** gara. [Itxaro Borda](#)

4 (objektua -ekin atzikiarekin)

Umetatik **ohitu** behar izan dut Cementos Rezola lantegiko tximiniekin. [Joan Mari Irigoien](#)

Askatasuna agindu ziolako ezkondu zen Bettearekin, baina behin elkarrekin **ohitu** zirenean, ohartu zen ez zuela interes handirik [...] askatasun horretaz baliatzeko. [Oskar Arana](#)

Ez al zen, bada, ikuskizunarekin **ohitzen** ari? [Anjel Lertxundi](#)

Ardo zaharrek **ohituak** ez du berririk nahi, "zaharra hobea duk" esaten baitu. [Elizen arteko biblia](#)

Igual **ohitzera** helduko naiz, sakelakoarekin bezala, ez dizuet ezetz esaten. [Iban Zaldúa](#)

• 5 du *ad* ohitura harrarazi. ik *ohiarazi*.

Ohitu ezak Julie orori beha egotera eta oro mezutzera, bai eta huskeria irudi dakioketena ere. [Jon Muñoz](#)

Ez dea alabaina zinezko desleialkeria, jukutria beltza, zeure adiskidea zuek irudirik gabe ezin bizitzera **ohitu** duzun ondoren? [Jon Muñoz](#)

Ez **ohitu** zeure ahoa itsusikeriak esatera, bekaturako aukera ematen baitu horrek. [Elizen arteko biblia](#)

Ohitu ezazu zure senarra galera horietara. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Zeren osaba Joanikotek halaxe erakutsi baitzidan, eta hartarat **ohitu** ninduen... [Joan Mari Irigoien](#)

-Bai, baina ni siberiarra naun, eta horrelako ibilaldi latzetara **ohitu** nindunan txikitari, aitarekin ehizan nindoalarik. [Karlos Zabala](#)

Urola-Kostako herri aldirikaren eta euren bultzatzaile guztien lana eskertu zuen, «herriko notiziak aldira euskaraz irakurtzen **ohitu** gaituztelako». [Berria - Euskal Herria](#)

Egunero egiten zen desfile honek soldaduen musika, jantzi eta jokamoldeekin **ohitu** zituen bertakoak, eta laster hasiko ziren haien formen eta doinuen parodia egiten.

[Askoren artean](#)

Gaizki **ohitu** gaitu Osasunak eta atzoko porrotak eta taldeko jokalaririk garrantzitsu batzuen hutsuneak, urtarileko aldapa gogorra izan daitekeela sumatu daiteke. [Berria - Kirola](#)

Gaizki **ohitu** ditu, nahi duten guztia egiten dute! [Fernando Rey](#)

Dantzalekuetako argi sikodelikoak halako moduz **ohitzen** ditu begiak, non gero, kanpora irteerakoan, gauaren iluna beltzagoa iruditzen zaigun, eta ondorioz, gaua utzi eta berriro fluorezente normalak dituen taberna batera sartzean, bertako argia biziagoa, mingarriagoa. [Pako Aristi](#)

Ez ditinat gaizki **ohitu** nahi. [Anton Garikano](#)

6 (era burutua izenondo gisa)

Zure jokabidea bikaina zatekeen gizon **ohitu** batekin, ez baitzukeen desirarik baizik. [Jon Muñoz](#)

Gau hartako sorgintxo **"ohitua"** oraindik birjina izatea [...] agure haien gainbehera penagarriaren seinalea zen batez ere. [Ibon Uribarri](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aulkitik ikusten ohitu (3); azkenetako ohitu (5); begiak ohitu (4); berehala ohitu (7); berehala ohitu zen (4); bizitzera ohitu (6)

egiten ohitu (7); egoten ohitu (3); erabat ohitu (3); gaizki ohitu (13); hartara ohitu (5); horietara ohitu (4); horretara ohitu (7)

ikusten ohitu (9); ikustera ohitu (6); ilunpera ohitu (3); ilunpera ohitu ahala (3); iluntasunera ohitu (3); irakurtzen ohitu (3); izatera ohitu (4); jendea ohitu (5); jokatzera ohitu (3); laster ohitu (5); laster ohitu ziren (3)

ohitu ahala (4); ohitu arte (6); ohitu beharra (6); ohitu da (15); ohitu dira (9); ohitu egin behar (5); ohitu egin nintzen (7); ohitu egiten zara (10); ohitu gabe (12); ohitu gabea (5); ohitu gaituelako (3); ohitu gara (17); ohitu naiz (14); ohitu nintzen (12); ohitu zen (24)

bizitzen ohitua (3); bizitzera ohitua (3); egiten ohitua (5); egitera ohitua (4); egotera ohitua (5); ez baitzegoen ohitua (3); gaizki ohitua (3); ibiltzen ohitua (3); ikusten ohitua (6); izatera ohitua (3); ni ohitua nago (3)

ohitua bainengoan (4); ohitua behar (4); ohitua dago (15); ohitua dagoen (5); ohitua den (3); ohitua nago (16); ohitua nengoan (8); ohitua nintzen (3); ohitua zaude (3); ohitua zegoela (3); ohitua zegoen (21); ohitua zen (10); oso ohitua (4)

ohituago dago (7)

bizitzen ohituak (3); egiten ohituak (7); horretara ohituak (3); ikusten ohituak (4); jokatzera ohituak (3); ohituak baitira (3); ohituak daude (11); ohituak gaude (11); ohituak ginen (3); ohituak zeuden (3)

egiten ohiturik (3); ikustera ohiturik (3); ohiturik gaude (3); ohiturik zegoen (4)

aritzera ohituta (3); bizitzen ohituta (4); bizitzera ohituta (5)

egiten ohituta (8); egitera ohituta (6); egotera ohituta (6); entzuten ohituta (3); gaizki ohituta (8); hartzera ohituta (6); honezkeroko ohituta (4); horretara ohituta (15)

ibiltzen ohituta (7); ikusten ohituta (6); ikustera ohituta (7); irakurtzera ohituta (3); jokatzera ohituta (8); jokatzera ohituta (12); lehiatzen ohituta (3)

ohituta baitaude (5); ohituta daude (41); ohituta egon (14); ohituta egongo (8); ohituta egotea (4); ohituta gaude (34); ohituta zegoen (34); ohituta zeuden (9); oso ohituta (6)

gaizki ohitutako (3); ohitutako jendea (4)

ohituz gero (4); ohituz joan (6); ohituz joan nintzen (3); ohituz zihozten (3)

horretara ohitzea (3)

horretara ohitzeko (4); ohitzeko astia (3)

apurka ohitzen (3); gaizki ohitzen (4); gaizki ohitzen ari (3); horretara ohitzen (3); ikustera ohitzen (3); jendea gaizki ohitzen (3)

ohitzen ari (19); ohitzen ari naiz (5); ohitzen da (14); ohitzen gara (3); ohitzen hasi (7); ohitzen hasia (6); ohitzen hasiak (8); ohitzen hasita (4); ohitzen joan (5); ohitzen zara (4)

segituan ohitzen (3)

ohitura 1 iz egintza bat askotan errepikatzearen ondorioz hartzen den aritzeko era edo modua. ikekandu; aztura; usadio.

Ohitura ez zen hurrengo mendeetan galdu; aitzitik, berritu eta indartu egin zen gerraren bat edo pertsekuzioaren bat sortu zenero. [Bernardo Atxaga](#)

Barre egiteko **ohitura** galdu dugu, egiaz barre egitekoa, esan nahi dut. [Josu Zabaleta](#)

Jimmyrenera bakarrik joateko **ohitura** hartu zuen Hazelek, bestelako konpromisorik ez zuenean. [Mirentxu Larrañaga](#)

Amona Erikak zioenez, Ingo hil zenean hartu zuten **ohitura** hori. [Anjel Lertxundi](#)

Armadan zerbitzatu zuenean hartu zuen erretzeko **ohitura**. [Jose Morales](#)

Aspaldi konturatu zen gizonen **ohitura** eta ahulezia berak zituztela deabruak. [Koro Navarro](#)

Belatzak, saiak eta gizonarengandik urrun bizitzeko **ohitura** duten beste hainbat piztia. [Joseba Sarrionandia](#)

Hau ez zen gertatzen lehenago, gurasoek **ohitura** baitzuten beti gaizki esandako esaldiak zuzentzeko. [Pello Salaburu](#)

Horretara, adibidez, erregeak **ohitura** du hiriko kaleetatik zehar zaldi gainean besterik ez ibiltzeko. [Xabier Kintana](#)

Lehendiko **ohitura** baitzuten adiskideek Camillaren baranoan biltzekoa, hura mirestera. [Mirentxu Larrañaga](#)

Indioek aspaldidanik zuten **ohitura** hori. [Gotzon Garate](#)

Errespetatu eta bete nahi nuke nik ere **ohitura** hori, baina ez dakit gauza izango ote naizen baraurik egoteko eguzkia zeruan dagoen bitartean. [Jon Arretxe](#)

Ohitura aldatu neban eta bazirudian Kilkenny-gaz hobeto nenbilela. [Jon Arretxe](#)

Ohitura bihurtu zen eskolen ondotik ikasgelan gelditzea, elkarrekin solasean. [Karlos Zabala](#)

Gure **ohitura** eta usadioei egotzi zaie ezkontza makurrak sustatzea. [Andres Urrutia](#)

Noiz eta ezkontzaren inguruko berritasunak berri izaiteari uzten baitio, galtzen da liluramendua eta gibeletik dator **ohitura** eta **ohituraren ohitura**, zeina baita amorioarentzat, nola lehortea zuhaitzarentzat. [Joan Mari Irigoien](#)

2 (sintagma pluralean)

Haren oinatzai jarraiki behar zatzaizkiote, haren erlijioa besarkatu eta beraren **ohiturak** gorde behar dituzue. [Xabier Kintana](#)

Gu, aldiz, geure bizia eta **ohiturak** defendatzeko borrokatzen gara. [Elizen arteko biblia](#)

Zure legeak bizioak zuzentzeko eta **ohiturak** arautzeko baizik ez dira eginak. [Iñaki Iñurrieta](#)

Esan daiteke merkataritzaren legeek hobetu egiten dituztela **ohiturak**, eta aldi berean, lege horiek hondatu egin ditzaketela **ohiturak**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ohiturek onartzen duten familiaritasuna da. [Koldo Izagirre](#)

Ez bedi inor harri, beraz, gure **ohiturak** antzina genituenak bezain ankerrak ez direlako. [Iñaki Iñurrieta](#)

Erroztapenak, izan ere, **ohituren** eta tradizioen zama zanpatzailea esan nahi du. [Joxe Azurmendi](#)

Gizon ordenatu eta **ohituren** zalea zarena erakutsi zenidan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Errutina da **ohituren** herdoila. [Joxerra Garzia](#)

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohitura ona da irakurri ahala oharrak hartzea eta fitxetan biltzea. [Askoren artean](#)

Kontratu egiteko askatasuna ezin beste ezerk ere mugatu, justizia, **ohitura** on eta onura publikoak baino. [Berria - Kultura](#)

Jokabide hori **ohitura** gaizto bihurtu baldin bazaio, hutsegitearen neurriko penitentzia ezar biezaio abadesak. [Askoren artean](#)

Ohitura gaiztoko jendeak nituen inguruan, eta haien bizioak imitatu nituen. [Jon Muñoz](#)

Gizarte batetik jasoriko adierazpide oro, hasteko, beti **ohitura** kolektibo batean oinarritzen da, edo gauza bera dena, egiunean. [Isabel Arrigain](#)

Beharbada, aspaldiko **ohitura** bat berritzeko aukera ematen zielako. [Pedro Alberdi](#)

Honek, neskalaguntzera joandako mutila harrika hartzeko **ohitura** ez aspaldiko hura dakar gogora. [Patziku Perurena](#)

Izan ere, **ohitura** ezin txarrago hau alde guztietan errotu da kristau deitzen direnen artean. [Askoren artean](#)

Elkarri bisitak egiteko **ohitura** ezin lotsagarriagoa hartu dute denek. [Jose Morales](#)

Antonio ere, aita bezalaxe, itsas lanetan hasi zen, eta ez-ohiko **ohitura** bat hartu zuen: bere itsasaldietan libururen bat edo bertze eramaitekoa. [Joan Mari Irigoien](#)

4 (izenondo eta izenlagunekin sintagma pluralean)

Lagun txarrek **ohitura** onak usteldu egiten dituzte. [Elizen arteko biblia](#)

Merkataritzak galbidean jartzen ditu **ohitura** garbiak: horra Platonen kexen gaia; baina gizabideratu eta leundu egiten ditu **ohitura** barbaroak, egunero ikusi ohi dugunez. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ohitura zaharrak esaten baitu: erregearen eskuak sendagile eskuak dira. [Agustin Otsoa](#)

Atzerritarren **ohitura** higuingarriei jarraituz. [Elizen arteko biblia](#)

Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, ordenantzak, **ohitura** orokor zein bereziak, estatutuak eta araudiak indargabe geratzen dira. [Andres Urrutia](#)

Ettxera taxiz itzuli zen, **ohitura** diru-urrezaleak dituen gizona izanik ere, ez zen gutxiagorako, lehenbailehen nahi zuelako bere mahai aurrean eseri, telefonoa hartu eta Maria Sararen zenbakia markatu. [Jon Alonso](#)

Greziar **ohiturak** eta arrotzen joerak oso indartsu sartu ziren. [Elizen arteko biblia](#)

5 (zuzenbidean) pl

Gure zuzenbide politikoan gehiago sakontzea ezinezkoa denez baldin eta herri germaniarren lege eta **ohiturak** guztiz ondo ezagutzen ez badira, gelditu egingo naiz une batez, ohitura eta lege horiek aztertzeko. Bateko **ohiturak** eta besteko zuzenbide idatzia, bitariko zen Frantziako antolamendu juridikoa eta beharrena, agi denez, bi egitura horien arteko transakzioa. [Iñaki Iñurrieta](#)

Ohiturak, ekitateak, zuzenbide goiburuak eta jurisprudentziak saihestezinak dira lege zibilaren aplikazioan, beste horiek bigarren mailan kokatuta badaude ere, lege zibil horren aurrean. [Andres Urrutia](#)

Gizakiak harrigarri atxikitzen zaizkie beren lege eta **ohiturei**; hauek dira nazio bakoitzaren zorionaren egile. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hain zetozen bat legeak **ohiturekin**, non legeok ez baitzuten bidegabe askorik egin, nahiz berez bidegabeak izan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gure helburua **ohiturak** legeei lotzea izan da; orobat, familia izpiritua zabaltzea, hori ere, esanak esan, herriaren izpiritua aldaera baita. [Andres Urrutia](#)

Zer dira legeak, **ohiturak** gabe? galdetzen baitzion honek [Tazitok] bere buruari. [Piarres Xarriton](#)

Tokian tokiko **ohiturak**; herri barbaroen eta erromatar zuzenbidearen aldaketa. [Iñaki Iñurrieta](#)

Eta hainbeste lege erortzean, **ohiturak** sortu ziren nonahi. [Iñaki Iñurrieta](#)

Bertako ohitura, lege zaharra, usadioa, legeak eta **ohiturak** aipatzen dira agiritan. [Iñaki Iñurrieta](#)

San Luisen erregealdian eta ondorengoetan, legegizon abilek, hala nola Défontaines, Beaumanoir eta beste batzuek, idatziz jarri zituzten beren barrutietako **ohiturak**. [Iñaki Iñurrieta](#)

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halakoxea zen garai hartan gure **ohitura**-zuzenbide idatzia. [Iñaki Iñurrieta](#)

Gaztela aldean ere gorde ei da abuztuko **ohitura**-eskola hau, edo honen antzerakoa. [Pello Zabala](#)

Aro Heroikoa gizarte-interregno bat dela, non bizitza primitiboaren aztura tradizionalak galdu diren, oraindik ez duelarik "**ohitura**-molde" berririk eratu zibilizazio jaio berriak edo erlijio nagusi jaio berriak. [Iñaki Mendiguren](#)

Lehenbizi eliminazio-dietak izan ziren, gero magnesioa eta B6 bitamina, gero tinkatze behartua, gero baldintzapen eragilea eta **ohitura**-aldaketa. [Xabier Olarra](#)

Gutxitan gordetzen dituzte horiek, taldetxoek arinki askatzen dituzten negoziotan, halako ganora edo arreta, hain zuzen ere, moralak agintzen dituenak **ohitura** arloetan. [Andres Urrutia](#)

Ohitura -falta izango da igual. Xabier Mendiguren Elizegi

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lege testu horiek, Lapurdin eta Zuberoan, herri **ohituren** bilketak ziren, Lapurdin 1510. urtean eta Zuberoan 1520. urtean gaskoineraz -orduko hizkuntza ofizialaz- idatziak.

Andres Urrutia

Gizarte **ohitura** horri jarraiki, XVIII. mendean gutun bidezko nobelak bilakaera luzea ezagutu zuen Frantzian; ahots bakarreko gutunetarik, ahots anitzeko gutunetara. Jon Muñoz

Ez ditugu beteko erregearen aginduak, ez eta aldatuko ere ezertan geure erlijio-**ohiturak**. Elizen arteko biblia

Hizkuntza, negozio-**ohiturak**, legedia edo marketin prozedurak oso desberdinak direnean. Iñaki Heras

Konpenezinak eta krisiak nahitaez gertatzen direla, baldin eta "bizitza osoko pertzepzio-**ohitura** eta -estrategiak" aldatu behar badira. Xabier Olarra

Dokumentuaren egileek itsas ugaztunen elikadura **ohituren** jarraipena egin dute azken hilabeteetan. Berria - Gaiak

Baliabideak erabiltzeko modua eta kontsumo-**ohiturak** aldatzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Animalien aurkako sukaldaritza **ohitura** anker bezain matxista honen aurka jo zuen argi eta garbi aldizkari hark. Joxan Elozegi

Elezaharrak dioenez, harrika hil zuten, juduen kastigu-**ohitura** zenez. Pello Zabala

Eta inoiz ez diot barkatuko neure herriari, ijito **ohitura** kobarde hori. Patziku Perurena

Raniero kardinal diakonoak -buru argiko gizon, jainko-zaletasunaz eta bizi-**ohiturez** ospetsuak- hitz-etorri santuz eta malkoz haien azalpena egin zuen. Askoren artean

8 ohiturazkosup_1 izlag ohiturari dagokiona; ohiturei dagokiena.

Ohiturazko zuzenbidearen aurrean, lege arrazoidun horrek idatzian du euskarria, idatzia baita ororen zimentarri eta egontokia. Andres Urrutia

Nahiz eta gure artean **ohiturazko** zuzenbidea erromatar zuzenbidearen kontrakotzat hartu ohi den [...] egia da, hala ere, erromatar zuzenbidearen hainbat xedapen gure ohituretan sartu zirela, batez ere idazketa berriak egin zirenean. Iñaki Iñurrieta

Arrotza baitzen nire lagunartean, arrats hartan jendez eskastuan, **ohiturazko** begiramenak zor zizkidan; hala, afaltzera joan ginenean, esku eskaini zidan. Jon Muñoz

Ohiturazko film honek pertsonaien arteko joan-etorriak kontaktzen ditu, anekdotario indartsua eta harrigarria erabiliz. Berria - Kultura

Bertute **ohiturazkoek**, naturazkoek edo goi-isurizkoek zikintzen eta zahartzen dute izpiritua. Joan Mari Lekuona

Deliberatu zuen ezen amodiozko edo adiskidantzazko loturak laxatuak edo hautsiak zirela jadanik, eta soilik beren buruei zieten maitasun loturek eta **ohiturazkoek** zutela oraino indar poxi bat. Jon Muñoz

Baina maitasun hori, hutsal, senezko eta **ohiturazkoa** izan beharrean, borondatezkoa da, argudiatua, logikoa. Itziar Otegi

Errepikatzearen poderioz **ohiturazko** bihurtu den zerbaite: Spinozaren "etika". Piarres Xarriton

9 ohiturazkosup_2 izlag ohikoa.

Poliziek lasai ziruditen, **ohiturazko** gertakari baten aurrean baleude bezala. Iñaki Zabaleta

10 ohitura izan¹ da ad (hirugarren pertsona singularrean)

Ohitura zen enperadoreak zenbait lege zibiletatik salbuestea. Iñaki Iñurrieta

Irakaskuntzan **ohitura da** razionalismoa eta enpirismoa kontrajartzea. Askoren artean

Ohitura zen Gabon gauean haustegiko errautsa hartu eta soroetan zabaltea. Joseba Zulaika

Hemengo **ohitura baita** gosaltzeko bildu eta elkarrengandik bereizi baino lehen gutunak noiz helduko igurikatzea. Jon Muñoz

Mundu guztiak dakienez, **ohitura** izaten **da** hori probintzietako dantzaldi guztietan. Jose Morales

11 ohitura izansup_2 du ad

Ohitura du Aulki apostoliko honek eske datozkionen nahi jainkotiar eta desira egokiei harrera on egitea. Askoren artean

Gogoz ikasten zituen Talmuda eta Thora, juduek **ohitura duten** bezala, eta errabinoa edo holako zerbaite izan nahi zuen. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

antzinako ohitura (4); aritzeko ohitura (4); aspaldiko ohitura (20); begiratzeko ohitura (4); betiko ohitura (5); biltzeko ohitura (5); bizitzeko ohitura (24); botatzeko ohitura (5); deitzeko ohitura (5)

edateko ohitura (9); egiteko ohitura (55); egiteko ohitura hartu (5); egoteko ohitura (9); emateko ohitura (15); erabiltzeko ohitura (10); eramateko ohitura (6); erosteko ohitura (4); esateko ohitura (13); etortzeko ohitura (4); euskaraz irakurtzeko ohitura (4); garaiko ohitura (4); garbitzeko ohitura (4); geratzeko ohitura (4); hitz egiteko ohitura (9)

ibiltzeko ohitura (21); idazteko ohitura (9); igarotzeko ohitura (4); ikusteko ohitura (8); irakurtzeko ohitura (22); izateko ohitura (6); jantzeko ohitura (4); jartzeko ohitura (8); jateko ohitura (15); joateko ohitura (26); joateko ohitura hartu (4); jokatzeko ohitura (8); jotzeko ohitura (17)

ohitura aldaketa (5); ohitura aldatu (4) ohitura baitzuen (7); ohitura berri (12); ohitura berri bat (8); ohitura berriak (4); ohitura bihurtu (12); ohitura bilakatu (8); ohitura bilakatu da (4); ohitura bitxi (5); ohitura da (23); ohitura dago (5); ohitura dauka (4); ohitura den bezala (11); ohitura denez (4); ohitura du (21); ohitura dute (28)

ohitura eta usadio (5); ohitura eta usantza (6); ohitura falta (14); ohitura faltagatik (4); ohitura gaizto (4); ohitura gutxi (5); ohitura guztiak (10); ohitura handia (13); ohitura handiagoa (5); ohitura handirik (11); ohitura hartu (51); ohitura hartu genuen (4); ohitura hartu zuen (16); ohitura hartua (6); ohitura hartzen (4); ohitura hura baitzuen (4); ohitura hutsez (4)

ohitura izan (8); ohitura izango (6); ohitura izaten (9); ohitura kontua (5)

ohitura on (7); ohitura ona (6); ohitura onak (20); ohitura onen (7); ohitura oso (6); ohitura txar (11); ohitura txarra (10); ohitura txarrak (10)

ohitura zahar (8); ohitura zaharra (8); ohitura zaharrak (15); ohitura zaharren (4); ohitura zaharretan (4); ohitura zela (7); ohitura zeukan (13); ohitura zuen (63)

sartzeko ohitura (5)

urrun bizitzeko ohitura (18); uzteko ohitura (5)

animalien ohiturak (4); garraio ohiturak (4); greziar ohiturak (5); kontsumo ohiturak (9); lege eta ohiturak (4)

ohiturak aldatu (18); ohiturak aldatuz (4); ohiturak aldatzea (7); ohiturak aldatzeko (7); ohiturak aldatzen (11); ohiturak baztertu (4); ohiturak hartu (4)

tokiko ohiturak (4)

ohituraren arabera (17); ohituraren indarrez (5); ohituraren kontra (7); ohituraren ohituraz (5); ohituraren poderioz (6)

ohiturari jarraiki (14); ohiturari jarraikiz (6); ohiturari jarraituz (30); urteetako ohiturari jarraituz (4)

ohiturei buruz (7); ohiturei buruzko (4)

ohituren arabera (19); ohituren kontra (6)

ohituratu, ohitura(tu), ohituratzen (Euskaltzaindiaren Hiztegian ohitu agertzen da) da ad ohitu.

Gaur egun **ohituratu** ospaketak ikusita, edonork igarri, igarri behar dioen norbera zorutzen ez bada...! Pello Zabala

Ohituratuak izan gira betidanik estado zentralista batzutan bizitzea, bai Frantzian, bai Españan, bai Belgikan, bai ainiz beste estadutan ere. Menane Oxandabaratz

Ohituratua ez dagoenarentzat, gainera, gogorragoa da. Berria - Kultura

ohituratxo iz adkor ohitura.

Elorrio aldean-eta, izan behar zuen Bizkai aldean eske errondaren bat egiteko **ohituratxoren** bat ere. Pello Zabala

ohiturazale izond ohituren zalea dena.

Jon **ohiturazalea** dela, metodo berriek beldurtu egiten dutela. Itziar Laka

ohiturazko ik ohitura 8.

ohitza iz

Kutxa bankoaren partaidetzarekin, helburua krexen **ohitza** horren atxikitzea bezain jendeai helaraztea da, erakusketa ibiltarietan agertzen diren eskulanean bitartez. **Herria**

ohitze 1 iz ohitura hartzea.

Azkenik, apurka-apurkako **ohitze** edo etxekotze moduko bat ere gertatzen ari zela ematen zuen... **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Ohitze kontua baino, etika eta sentipen kontua da. **Beria - Euskal Herria**

Ikaste espliziturako lobulu tenporalen erdialdeko sistemaren osotasuna beharrezkoa bada ere, ikaste inpliziturako bide primitiboago eta lausoagoak erabil daitezke, baldintzatze eta **ohitze** prozesu bakunetan gertatzen den bezala. **Xabier Olarra**

ohizko ik ohiko.

ohoin 1 iz lapurra. ik ebasle.

Posta-mutila hil, mandoak eraman, gurdia hustu eta bidaiariak atrakatu dituzten **ohoin** batzuek. **Koldo Izagirre**

Hiriko ospitaleak aterpe ematen zien Donejakuera joaten ziren erromesei, baina erromes horiek berak larrutzen bide-lapur eta **ohoinak**. **Aingeru Epaltza**

Orain preso politikoen inmoralitatea erakutsiko die preso sozialei, **ohoinak** eta trafikatzailleak besterik ez omen diren hauei. **Koldo Izagirre**

Zeren nehor ez bailitzake ausart erratera zuzena dela, gizeraileak, **ohoinak** eta lapurrak ez gaztigatzea erabaki lezakeen bakea. **Piarres Xarriton**

Eta politiko horiek nehongo bandil eta kriminalekin nahastekatuak dira, merkatu beltzero, **ohoin**, proxeneta, pederasta, Sorbonako erakasle, industria-gizon, ofizier, deputatu, apez, lastaira beretan aurkitzen dira, mahai beretan. **Marzel Etxehandi**

Soldaduek eta **ohoinak** dena eraman zuten berekin. **Elena Touyarou**

Zeren Kristo bi **ohoinen** artean gurutzifikatua izan baitzen, eta **ohoinetarik** batek eman zion bere arimaren argi guztia. **Joan Mari Irigoien**

Natura zoragarria da; amestiek behar duten bezain basa, **ohoinak** behar duten bezain zakarra. **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan)

Ohoin fama zeukaten ordea. **Itxaro Borda**

Ohoin bizimodua ohizkoa bilakatu zitzaion. **Itxaro Borda**

- Bat-batean gogoratu zen, ikaraz, oren bi lehenago zaldi-pikatzailetik eliza-**ohoinen** gradora hupatu zela, kalizari pott lizuna eskaini zion unean hain zuzen ere. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ohoin atrebituak (4)

ohoinak sartu (3)

ohoindegi iz ohoinen lekua.

Gizalegea baztertuz geroz, munduko estatu guztiak **ohoindegi** eta lapur-zilo handi batzuk besterik ez dira. **Piarres Xarriton**

ohingo iz ohointza.

Ohingoari benta huna eman dako. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Guziak **ohingoan** zer anbizionia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

ohoinkeria iz

Honek salgai zeuden lurrik erosi ondoren, **ohoinkeria** harekin batzuen eta bertzeen arteko liskarra pizten zuela. Beren **ohoinkeriaren** fruitua karitatezko edo miserikordiazko obretan enplegatzen zutela. **Joan Mari Irigoien**

Ohoinkerian baizik ez dute ikasi. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

ohointza 1 iz lapurreta.

Etz da bada katolikorik **ohointza** eta erailketa baino krimen handiagoa dela heresia, ukatuko duenik, Goserik geunden; hotzak jangura xorroxten zigun; **ohointzak** baziren aski ardura. **Piarres Xarriton**

Berrogoi bat **ohointza** aitortu zituen orduan, denak Hendaian eginak, etxez etxe ikuska ibiliaren bortxaz. **Herria**

Gauaz, jateko ebaste anitz bada, nahiz-eta **ohointza** garrazki zigortua den. **Marzel Etxehandi**

Eme-mundu horrek gaitzeko sarraskiak pairatu zituen: bortizkeria, bortxaketa, ebasketa, **ohointza** indartsu, erreketeta, suntsiketa. **Itxaro Borda**

Menturaz, pentsatu zuen emazte gazteak, **ohointzatik** libratu zen bere neurriei eta kanpoko itxurari esker. **Elena Touyarou**

Gaitzurik, zerbitzariak Hugonell gaztearen jantzietan gorde zuen zilarrezko kopa bat eta biharamunean, **ohointzaz** akusatu. **Piarres Aintziart**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Diotenaz, **ohointza** mota batzu dira azkarki emendatu eta horrek nahasten bezala omen ditu kondu guztiak. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alabaina nehor ez zen harritu, dinamita **ohointzatik** landa, Hutx militante potoloa libre eta kargurik gabe atera zenean. Ospagai har ditzaket amodioak, abere-**ohointzak**, nabigazioneak, gerlak. **Itxaro Borda**

Han porturik ez baitute, baina bai ordea uhaitz zabal eta onak, salerostetan dabilzan itsasturiendako lanjerosak direnak, hango jendeak itsas-**ohointzatik** anitz bizi baitira. **Aurelia Arkotxa**

ohol 1 iz zureko zati aski luzea, laukiuzen formakoa, laua eta mehea.

Ohol batzuk daude zulo gainean, oker ez banago. [Koldo Biguri](#)

Ziri, **ohol**, taula eta oholtxo denak lizar zurezkoak. [Pello Zabala](#)

Ohol bakoitza bost metro luze eta hirurogeita hamabost zentimetro zabal izango da. [Elizen arteko biblia](#)

Lan-mahaiko **ohola** eremu leuna, garbia da, *tabula rasa*, egoki mintzatzeko. [Jon Alonso](#)

Goio **ohol** bat neurrian zerratzen ari zen tosta berria egiteko. [Joseba Sarrionandia](#)

Zer ari naizen? **ohol** hauek josten. [Harkaitz Cano](#)

Ni ontziaren alde batetik bestera nibilen; ekaitzak **oholak** askatu zituen, masta erabat hautsi zen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Horma beltz bat eta leihoak **oholez** estaliak ikusi nituen; kafetegia erre egin zen. [Koro Navarro](#)

Saltzaileak beren saltokiak atontzen ari dira, bi asto eta **ohol** bat, plazaren leku estrategikoenetan. [Anjel Lertxundi](#)

Ohol bat hartzen dut, eta aizto bat, hirugiharra ebakitzeke. [Eskarne Mujika](#)

Lurreko hiru **ohol** altxatu nituen gero, eta zulo hartan ezkutatu nituen gorpu hondakinak. [Koro Navarro](#)

Ohol batzuek iltzeak galdu dituzte eta, zirrikituak zabaldu zaizkiguk. [Edorta Jimenez](#)

Ondoren **ohol** horiek bikearekin ondo estaltzen dira, eta burdinazko uztaiekin lotzen dira uraren indarrak ez ditzan askatu. [Santiago Iruretagoiena](#)

Kirrinka egin zuen **oholak**, intxaur kraskatuaren zarataz. [Jon Muñoz](#)

Bost kartel haietako bi Santi Zantarrak erabiltzen zituen kalez kale **ohol** bitan itsatsi eta bular-bizkarretik eskegita. [Josu Landa](#)

Hegaztien kaiolan txori bakar bat dago, itsas arrano gazte bat, hegal hautsia **ohol** batekin lotua daukana. [Oskar Arana](#)

Gurpilak ere zuzendu nizkion, aitak **ohol** batzuekin egiten lagundu zidan zurezko oinarri batean ipinita, eta prest utzi nuen bizikleta. [Juan Kruz Igerabide](#)

Marcantonio Raimondi italiararen grabatu bat hartu zuen oinarri **ohol** gaineko olioa egiteko. [Berria - Kultura](#)

Arropa garbitzeko **ohol** baten antzera. [Anton Garikano](#)

Deskripzioak **oholak** bezalakoak dira errepresentazio globalen uholdean. [Ana Urkiza](#)

Nire kamainaren **oholean** ipini zuen zangoa, bota lotzearren. [Koldo Izagirre](#)

-Bederatzi buztaneko katuaren igurtzia nahi duzue, **oholean** paseatzen hasi baino lehen? [Julen Gabiria](#)

Gure aurreko **oholezko** hesian bi txolarre geratu ziren. [Bernardo Atxaga](#)

Oraindik zutik dago Itzaiaundi izeneko borda, **oholezko** etxe ilun bakarra Goizuetan. [Patziku Perurena](#)

Bazegoen **oholezko** kai bat ere, zeinen alboan txalupa bakan batzuk lotuta zeuden. [Joanes Urkixo](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hiru *brie* gazta, **ohol** biribil batzuen gainean, malenkoniatsu ageri ziren, ilargi itzaliak iduri. [Karlos Zabala](#)

"Mahai familiarra", zurezko altzari bat da, **ohol** lau bat, lau hankarekikoa. [Juan Garzia](#)

Guzti-guztiek **ohol** berriak zeuzkaten teilatuko **ohol** zaharkituen ordeiz; ate guztiak beren erroetan ondo sarturik zeuden. [Jose Morales](#)

Lurra **ohol** beltzez estalita zuen taberna ilun batean sartu nintzen. [Anjel Lertxundi](#)

Ikatz bezalako habe eta **ohol** beltzez eginiko eskailera. [Koldo Izagirre](#)

Tarte txikitik hormetara, sabairainoko hesolekin lotutako hormak zeuden, **ohol** kareztatuez eginak eta sabairaino iristen ziren hesolei josiak. [Anjel Lertxundi](#)

Zangorik gabeko elbarri bat mugitzen zen **ohol** gurpildun baten gainean. [Koro Navarro](#)

Mozteko **oholean** aritzen nintzenez, emakumearen doinua imitatzen saiatzen nintzen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Oroimenaren **ohol** markodunetan zintzilikatzeko. [Joan Mari Irigoien](#)

Zedrozko **oholez** estali zituen tenplu barneko hormak. [Elizen arteko biblia](#)

Haritzeko **oholak** edo lastoa erabiliz. Etxe ongi argizaritua, **ohol** ongi leundua, oxigeno neurri onez hornitua bihurtzen da eguna. [Santiago Iruretagoiena](#)

3 (erkaketetan)

Zabuka egin eta zerraldo erori zen ahoz behera, **ohol** bat bezain zurrin. [Iñaki Mendiguren](#)

Ohola bezain zurrin zegoen, begiak zabal-zabalik zituela. [Iñaki Mendiguren](#)

Monasterioko zulo batera bota zuten eta han egon zen luzaro, **ohola** bezain lehor geratu zen arte. [Elizen arteko biblia](#)

Lanari oratu nion, naufragoa **oholari** bezala. [Juan Martin Elexpuru](#)

Itxuraldaketa prozesua oso-osorik buruturik, bada, Brown jaunak esperantza ahul bati heldu zion, nola naufragoa **ohol** ezgauzari. [Karlos Linazasoro](#)

4 hed

Eta, brontzeko **oholetan** idatzirik, gutuna igorri zuten Jerusalemara, bake- eta elkargo-agiri izan zedin. [Elizen arteko biblia](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inguruko hormek harlanduzko hiruna erreskada eta zedrozko **ohol** -erreskada bana zituzten. [Elizen arteko biblia](#)

Ohol -gatzeluak eta enbor piloak ikusten genituen gure aurrean, errekaren eta errepidearen arteko sailetan ezarrita. [Bernardo Atxaga](#)

Inork ez zuen bera ikusi **ohol** mutur hartatik deuseztapenaren uretara murgiltzen. [Anton Garikano](#)

Moztu duen **ohol** zatia estua da nonbait. [Iban Zaldúa](#)

Ohol -xaffa bat erantsi zitzaion txanbergari. [Juan Garzia](#)

Ohol hormak eta uralitzako teilatua dituen etxe umelean. [Joseba Sarrionandia](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haritz **ohol** leunduen gainean. [Askoren artean](#)

Troiako zaldia [...] izei **oholez** egina omen zen. [Pello Zabala](#)

Atea balitz, zedro- **oholez** gogortuko genuke. [Elizen arteko biblia](#)

Hilerriko ateko iragarki- **oholak** argituta jakin nuen. [Aingeru Epaltza](#)

Publizitate **ohol** handiak margozten nituen, eta horrekin artea zer-nola egin nezakeen pentsatzen nuen etengabe. [Berria - Kultura](#)

Laranjondo baten babes **oholetan** bermatu zen lipar batean, belarrari eta pagausoei begira. [Karlos Zabala](#)

Lekaiok, denborarik galdu gabe, atetila danbeteke batez itxi, oin **oholak** gora bildu, eta, kalesaren atzealdeko uhalari helduta, gidariari oihukatu zion: "aurrera!". [Jose Morales](#)

Eskuetan neukan ate- **ohola** kendu eta burua bere aldera jirarazi zidan, kokotsetik helduta. [Jesus Mari Mendizabal](#)

Artikoko izotz-pusken erdian betiko harrapatuta gelditu den ontzi- **ohol** ezdeus baten moduan ikusten dut neure burua; porrotaren zapore mikatza ahosabaiari itsatsita gelditu zait betiko. [Anjel Lertxundi](#)

Surf- **ohol** bana besapean, nire ondotik pasa dira horretan bi mutil gazte eder, sendo, mardul, heriotzaz sekula pentsatu gabekoak; eta hondartzara jaitsi dira. [Txillardegí](#)

Eliza bateko kanpandorre bat konpontzen ari zen langile batek eski- **ohol** bat topatu zuen teilatua gainean. [Josetxo Azkona](#)

Fatima Vlasevicen jaiotza eta heriotza datak dagoz zurezko zut- **oholean** idatzita: 25-1-47 / 30-9-95. [Edorta Jimenez](#)

5 ohol hesi ik oholesi.

4 tranpa ohol ik tranpol.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hesiaren **ohol** (3); **ohol baten gainean** (4); **ohol gainean** (4); **ohol gatzeluen** (4); **ohol handi** (3); **ohol luze** (4); **ohol zahar** (3); **ohol zuri** (3); **panpina ohol** (3); **surf ohol** (3)

kontu ohola (3); ohola bezain (3); ohola kendu (4); pampina ohola (9)
oholak edo pinturak (3); zurezko oholak (4)
oholaren gainean (3)
oholen artean (6); oholen gainean (5)
brontzezko oholetan (4)
oholez eginitako (3); oholez estali (4); zurezko oholez (3)

oholeria iz oholen multzoa.

Leihu eta ateburuetan karranka egingo du beleak; zedrozko **oholeria** gorri agertuko da. [Elizen arteko biblia](#)

oholesi (orobat *ohol hesi* g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren *oholesi* agertzen da) iz oholezko hesia.

Oholesi bat ipinazari zuen jauregiaren lurren inguruan. [Joan Mari Irigoien](#)

Eskorta edo oilategi txiki hura **oholesi** batez inguratutako zegoen, eta **oholesiaz** bestaldean alor ikaragarri zabalak ikusten ziren, eta, han ereinda, azak, tipulak, patatak, erremolatxak eta bestelako barazkiak. [Jose Morales](#)

Etxe gibelean lorategi estu bat zegoen, aldameneko etxeko **oholesi** zuriak mugatua. [Alberto Ladron Arana](#)

Oholesiak lauzpaborts ziren, elkarri itsatsiak, bakoitza ate tipi edo ateska batekin. [Joan Mari Irigoien](#)

Ezker-eskuin, **oholesi** ikatzez belztuak zeuden, hormen kontra pilatutako ikatzari eusteko. [Anjel Lertxundi](#)

oholtxo 1 iz ohol txikia, estua edo mehea.

Azkenean, izaren artean limurtu zen, amiñika-amiñika, oheko **oholtxoek** kurrinkarik egin ez zezaten. [Lopez de Arana](#)

Bazirudien etxeen jabeek berek kendu zituztela teiltuetako haga eta **oholtxoak**. [Jose Morales](#)

Hark **oholtxo** bat eskatu zuen eta bertan idatzi: "Joan du izena". [Elizen arteko biblia](#)

Idatz ezazu hau **oholtxoan** eta egin zigilaturiko agiria, gerorako geldidadin, betiko lekukotzat. [Elizen arteko biblia](#)

Puskatutako zatiak atzera elkartu eta igeltsuz edo **oholtxo** baten laguntzaz lotzen badira, hobeto osatzen da hezurra. [Irene Aldasoro](#)

Berriro konorteratu nintzenez, **oholtxo** pare batez loturik neukan hanka, zurrun. [Juan Kruz Igerabide](#)

Xaboi-ontziaren atzean, sei edo zazpi **oholtxo**, batetik besterako hutsarte meharretan bizar-labanak sartzeko jarriak. [Jose Morales](#)

Gurdira igo, **oholtxoaren** kontra jarri, zeharka eserita, eta zaldiaren bridak hartu zituen. [Karlos Zabala](#)

2 (hitz elkartuetan)

Clémencek asmo gaiztoko txantxak egitea atsegin zuen, eta, egun batez, salmenta **oholtxoetan**, gorteko jaun-andrerik ezagunenen izenak paratu zituen esleituriko oilar, arraia eta berdelen parean. [Karlos Zabala](#)

oholtza 1 iz oholez osaturiko zorua, egitura baten gainean ezartzen dena, batez ere ikuskizunak emateko erabiltzen dena.

Zutabeen gaineko habe haiek berrogeita bost ziren, lerro bakoitzean hamabost, eta habe haien gainaldean zedrozko **oholtza**. [Elizen arteko biblia](#)

Alboetan oholak zeuzkan, gainera, zeharka jarrita, eta horren gainean **oholtza** bat jartzen zen. [Santiago Iruretagoiena](#)

Hotsek gidatuta, laster iritsi dira **oholtza** bat jartzen ari diren zelaira. [Anjel Lertxundi](#)

Oholtza gainean, arotz bat ari da azken mailukadak jotzen turkoen ate gaineko gortina gorriaren euskarriari. [Anjel Lertxundi](#)

Irudietan, jendea **oholtza** gainean, kantuan eta testuak irakurtzen. [Iñigo Aranbarri](#)

Eta begiratzean, erregea ikusi zuen **oholtza** gainean zutik, ohi zen bezala. [Elizen arteko biblia](#)

Teknikariak azken konexioak egiten ari dira **oholtzan**, argiak piztu-itzalika. [Javi Cillero](#)

Oholtzak 500 metro koadro hartzen du, eta opera, musika klasikoak, antzerkia edo beste edozein ikuskizun hartu dezake, eta hala ere mikrofonorik gabe ere erraz asko entzun litezke afoniko baten azalpen guztiak. [Berría - Kultura](#)

Dantzarako **oholtzak** hutsik daude oraindik, eta paperezko mila bandera, bonbilla harietatik zintzilika, ozta mugitzen dira itsasotik datorren haize arinetan. [Josu Zabaleta](#)

Eta Jagger euskaraz ibiliko balitz **oholtzan** saltoka? [Pello Salaburu](#)

Plaza erdi-erdian **oholtza** zegoen altxatuta eta haren gainean musikariak esertzeko aulkiak. [Felipe Juaristi](#)

Bat-batean atetxo bat zabaldu zen **oholtzaren** atzealdean, eta agure bat azaldu zen, oso dotore jantzia, eta haren ondoren bi laguntzaile gazte. [Josu Zabaleta](#)

Emakume gazte bat ikusi genuen **oholtza** batean igota dantzan. [Felipe Juaristi](#)

Horregatik deitzen zela flamenko emakume gazteak **oholtzaren** gainean egindako dantza modua. [Felipe Juaristi](#)

Urka-bilurren ezkeraldera, **oholtzaren** albo batean, gizon patxadatsu bat zegoen, ahoan zeukan buztinezko pipari xurga eta xurga. [Anjel Lertxundi](#)

Altxatu **oholtza**, eta antez iezadazue zeuen ikuskizunik hobereana. [Juan Garzia](#)

Oholtzak gillotina bat zuen erdigunean. [Joan Mari Irigoien](#)

Urkamendian nengoen, **oholtza** baten gainean. [Joan Mari Irigoien](#)

Oholtzako emakumeak "I-25" esan zuen, eta aretoko norbaitek oihu egin zuen, "Bingo!". [Koro Navarro](#)

2 hed

Hondoan, tabernakuluaren atzean, harrizko **oholtza** baten gainean, gaitzeko errezel bat luzatzen zen lurretik bobedaraino, estatuz eta azpirliebez zamatua. [Koldo Izagirre](#)

3 ohol sail egituratua.

Zaharrak, kopetilun, begirada galdua zeukan zoruko **oholtzan**; gazteak, aldiz, urduri zerabilen eskuetan mahaitik jasotako kartazal barrubigunezkoa. [Migel Angel Mintegi](#)

Beste leku batzuetan, ezin alde batera utzi ur geldia, eta bidea gainetik igarotzen zen, baina ez zubien bitartez, **oholtza** kulunkariez baizik. [Karlos Zabala](#)

4 (hitz elkartuetan)

Eta beldur nintzen ez ote gintuen egunen batean eszenara aterako, eszenara edo arratsik hobereenetan bere ekitaldia ematen zuen kaka-**oholtza** haietara, hobeto. [Josu Zabaleta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdian oholtza (3); oholtza bat jartzen (4); oholtza baten gainean (8); oholtza gainean (101); oholtza gaineko (13); oholtza gainera (35); oholtza gainera igo (11); oholtza gainera igotako (3); oholtza gainetik (9); oholtza handian (11); oholtza inguruan (4); oholtza moduko (3); oholtza nagusian (3); oholtza ttipian (7)

oholtzako emakumeak (6)

igo ziren oholtzara (9); igoko da oholtzara (4); igoko dira oholtzara (3); oholtzara igo (19); oholtzara igo zen (5)

oholtzaren gainean (18); oholtzaren gainean zutik (3); oholtzaren gainetik (4)

oholtzatik jaitsi (4)

oholtzagune iz oholtza dagoen gunea.

Aspaldiko kontuetatik abiatu banaiz ere, azken hiru hamarkada hauetan eguraldiak berak eta aroaren jira osoak irabazi duten **oholtzagune** eta pulpitu distira da lan honen buruan zehaztu eta jantzi nahi izan dudana. **Pello Zabala**

oholtzar iz tamaina handiko ohola.

Hainbat kartoi eta **oholtzar** zegoen txoko ilun batean bermaturik, eta beste hainbat aurreko haien inguruan, lurrean pilotuta. **Fernando Morillo**

oholtzaratu, oholtzara(tu), oholtzaratzen 1 da/du ad oholtzara igo; oholtzara eraman.

Txapelketa baterako edo asko prestatu izan naizen garaietan, "bertso onak" botatzeko ziurtasunarekin **oholtzaratzen** nintzen. **Andoni Egaña**

Kursaaleko terrazetan, pailazozen atzetik Kresala dantza taldekoak **oholtzaratu** ziren. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Titin III.ak eta Pascualek, ostera, zegokien papera ezin hobe **oholtzaratuz**, itzalpean utzi zituzten aurrean zituzten beste bi izarrak. **Berria - Kirola**

oholtzatxo iz tamaina txikiko oholtza.

-Begira bi horiek kantatzen -aitak, **oholtzatxo** batean mikrofono batekin kantuan hari ziren bi gizon haiei begira. **Jon Maia**

ohondikatu, ohondika, ohondikatzen du ad oinkatu, zapaldu.

Itzalasterrek burua astindu eta lurra **ohondikatu** zuen. **Agustin Otsoa**

ohoragarri (orobat ohoregarri g.er.) 1 izond

Etxekoandre **ohoragarriarekin** bidegabe jokatu zuela ohartu zen. **Anton Garikano**

Gentleman **ohoragarri** hark ez zuen ohiturarik bi gauza batera egiteko. **Karlos Zabala**

Gainera, Nekazaritzako ministro James Wilson **Ohoragarriaren** onarpen sutsua du alde. **Xabier Olarra**

Zahartzaro **ohoragarria** ez datza bizitza luzean, ez da neurtzen urteen kopuruaz ere. Haren itxura **ohoragarritik** eta garaiera egokitik segi zitekeen militar erretiratu zela. bi urteen buruan nihaur ene lagunei jarraiki nintzaizen, uko egin nuelarik, bihotzez eskerrak bihurtu ondoan haatik, Tolosako Unibertsitateak eskaini aulki **ohoragarriei**. **Elizen arteko biblia**

2 (deiki gisa)

Ene jaun **ohoragarria**, ondo asko dakit baiet. **Juan Garzia**

Ongi etorri, auzokide **ohoragarri** hori -esan zion. **Patxi Zubizarreta**

-Jainkoak sarizta zaitzala, gizon **ohoragarri** hori! -Lagun **ohoragarri** hori, begira nolako ehuna eta nolako xaboia, eta hona nolako bitxikeria erosi nuen atzo!Laster egongo da prest, lagun **ohoragarri** hori. **Patxi Zubizarreta**

Berorregana etorri naiz jakitera zer erabaki duen Berorren Gorentasun Txit **Ohoragarriak** gaixo eta zaurituei buruz. **Jose Morales**

3 (izan eta kideko aditzekin)

Atzoko hautsa gorrotagarria da: duela hiru mendeko errautsa **ohoragarria** da. **Koldo Izagirre**

Komuna garbitzea, japoniar baten begietan, ez zen **ohoragarria**, baina ez zenuen horrenbestez omena galtzen. **Joxan Elozegi**

Antzezlarion lanbidea **ohoragarria**, zintzoa, apala eta jatorra da. **Lopez de Arana**

-**Ohoragarri** zaiola gradu honetako gipuzkoarrak pastorala ikustera etorri izana. **Txillardeggi**

Jaiak dolu bihurtu ziren, larunbat-jaiak barregarri eta **ohoragarri** zena arbuigarri. **Elizen arteko biblia**

Burke-k eman dio bere izena bi lankideen **ohoragarri** den prozedura bereziari. **Juan Garzia**

Eta **ohoragarri** deritzozu ergeletan azkenekoa zarela inolako lotsarik gabe aitortzeari? **Joxan Elozegi**

Beren baitan uste zuten jendeak esaten zuen bezain **ohoragarriak** zirela. **Askoren artean**

4 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean)

Aski zen haren bulego zabaleko lau hormak estaltzen zituzten berrogei apal liburuz kargatuak ikustea, erabat konbentzitzeko hura baino gizon jakintsuagorik ez zela inoiz izan Balançoneko hiriaren **ohoragarri**. **Josu Zabaleta**

Etxea egokiarazi eta dotoretu du, Victor Hugoren oroi eta Frantziaren **ohoragarri**. **Koldo Izagirre**

Burke-k eman dio bere izena bi lankideen **ohoragarri** den prozedura bereziari **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jaun ohoragarri (27); jaun ohoragarri hori (26); lagun ohoragarri (3); lagun ohoragarri hori (3)

gorentasun txit ohoragarria (4); jaun ohoragarria (3)

ohoratu, ora, ohoratzen 1 du ad ohore ekarri edo eman; begirune handiz tratatu.(jainkoak eta pertsonak)

Jende koxkortuak, berriz, jai bat dela, ezkontza herstea edo jainkoa **ohoratzea** dela, maiz aurpegia gorritz pintatzen du. Eta Merkurio jainkoa, ibiltarien patroia, zuten Erromanoek **ohoratzen**, harriak botatuz. **Gotzon Garate**

Irail hastapen huntan Ama Birjina **ohoratzen** da molde berezi batez. **Herria**

Jainkoak bizi luzea emanen die aita-amak **ohoratzen** dituztenei. **Aingeru Epaltza**

Zergatik eskatzen duzu zuk inoiz **ohoratu** ez duzunaren mesederik? **Joan Mari Lekuona**

-Zer sari eman behar zaio erregeak **ohoratu** nahi duen bati? **Jose Antonio Mujika**

Ohoratzen nauena dut **ohoratuko**; gutxiesten nautenak, aldiz, beheratu egingo ditut. gure ohidurek manatzen baitaukute zaharren **ohoratzea**, haien artatzea, belaualdien arteko elkartasunak zerbait erran nahi baitu euskaldunentzat. **Elizen arteko biblia**

Priszilianori dagokionez, berriz, bere sektak martiritzat **ohoratu** zuen. **Juan Martin Elexpuru**

Iragan larunbat aratsean, 17 urte huntan preso dagon Filipe Bidart da **ohoratu** izan. **Herria**

Gisa horretan guziz **ohoratu** zen erregearen gortean Etxauz familia. **Michel Oronoz**

Baduzu pilota munduan pilotari bat **ohoratzen** duzuna edo estimatzen? **Menane Oxandabaratz**

Whiskya ere hor ikusten dut, Kristinak arrotza **ohoratzen** jakin duen seinale. **Aingeru Epaltza**

Tartaroen artean, emakumea zenbat eta gehiago prostituitu, orduan eta **ohoratuagoa** zen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

2 (aberak edo gauzak)

Indian ez dira behiak bakarrik **ohoratuak**. [Gotzon Garate](#)
-Zure presentziarekin **ohoratu** egiten duzu gure etxea, Kirxa jauna. [Patxi Zubizarreta](#)
Borroka egingo dut, nire karitateak kaskartasuna **ohoratzen** duelakoan, Gizonari uko egin eta, horrela, norbanakoa betiko kaskartasunean espetxeraten duen orenen kontra. [Josu Zabaleta](#)
Erlitio batek lanari uzteko agintzen duenean, **ohoratzen** duen izakiaren handitasuna baino kontuanago hartu behar ditu gizakien premiak. [Iñaki Iñurrieta](#)
Su haundi bat pizten da arrats hartan, ohidura zaharra da kasik mundu guzian, iguzkiaren gorapenkari, dantzak emaiten dira errondan edo jauziak suaren gainetik egiten, eguzkiaren **ohoratzeko**. [Michel Oronoz](#)
Ez didak eginen imajin ebakirik, ez ezain figurarik Zeruan garaian diraden gauzenik, edo behean, lurrean, diradenenik; ez dituk haiek adoratuko, ez **ohoratuko**... [Aingeru Epaltza](#)
Heldu den astelehenean dugu saindu guzien besta **ohoratzen** duguna. [Herria](#)
Urte guziz bezala Santiago Apostoloaren ohoretan uztailaren 25ean **ohoratzen** dira bestak Luzaiden. [Herria](#)
Igandean baginuzke bi besta **ohoratzeko** Itsasun. [Herria](#)
Txinatarrentzat etxean izaten duten aldarea bezala, non, makurka, arbasoen oroitzapena **ohoratzen** baitute. [Ander Irizar](#)
Gizonaren errespetu horrek ez zekarren nahitaz norbanakoaren kaskarkeriaren aurrean, ergelkeriaren edo ezjakintasunaren aurrean ahuspeztu behar lotsagarria, Jainkoaren Enbaxadore izate hori **ohoratzen** baitzen lehenik eta behin. [Josu Zabaleta](#)
San Franciscon Euskal Etxearen hogoi ta hirugarren urteburua berriz ere besta poltit batekin **ohoratu** dute. [Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregeak ohoratu (14); **handizki ohoratu** (3); **ohoratu aitamak** (8); **ohoratu eta beneratu** (3); **ohoratu eta eskertu** (3)
ohoratu izan (16); **ohoratu izan da** (12); **ohoratu izanen** (4); **ohoratu izanen da** (3); **ohoratu izango** (4)
ohoratuak izan (20); **ohoratuak izan dira** (15); **ohoratuak izanen** (3)
aita ohoratzen (4); **jainkoa ohoratzen** (3)

ohoratzailer iz ohoratzen duena.

Zer eta bizi luzea sari, gurasoen **ohoratzailerari**! [Aingeru Epaltza](#)
Kantuaren xarma ez balitza, Joanesez ez zuen endelegatzen zerendako egiten zioten hainbat ohore, **ohoratzailerak** ez zirelarik normahi pentsa emazu! [Itxaro Borda](#)

ohoratze iz

Zer txalo nasaiak! ez dukete beharbada guziek begi onez ikusten **ohoratze** hori. [Herria](#)
Igande huntako dugu gure bertsu idazle zenaren **ohoratze** eguna. [Herria](#)

ohore 1 iz ezagutzen den merezimenduari dagokion erakutsi ageria. ik aintza; ondra; ospe.

Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna, indarra, **ohorea**, ospea eta gorespina. [Elizen arteko biblia](#)
Haiek bizi artean berretsi egingo zizkiela beren **ohore** eta karguak. [Iñaki Iñurrieta](#)
Karguaren **ohorea** bilatzen baitzuten, ez karga. [Askoren artean](#)
Oso lotsagarria da guretzat, Jainkoaren zerbitzariontzat, santuek obra horiek egin eta guk, kontatze hutsarekin, ospea eta **ohorea** jaso nahi izatea. [Askoren artean](#)
Anaiari izen onaren **ohorea** kentzen zionak, berari abitua kentzea merezi zuela. [Askoren artean](#)
Langileagoa denak **ohore** gehiago izan dezala, bere ospeak diz-diz egin dezala bere ondorengoengan. [Juan Martin Elexpuru](#)
Ohore artean eta buru makurka hartu zuten. [Patxi Zubizarreta](#)
Karlomanen kapitularrak **ohore** hori aitortzen die erregearen basailuei, ezin direla behartuak izan zin egitera, beren basailuen ahotik ez bada. [Iñaki Iñurrieta](#)
Lurreko gizonen artean aedoak **ohore** eta begirune merezi dik, Musak erakutsi baitio kantuan. [Juan Kruz Igerabide](#)
Oso lotsagarria da guretzat, Jainkoaren zerbitzariontzat, santuek obra horiek egin eta guk, kontatze hutsarekin, ospea eta **ohorea** jaso nahi izatea. [Askoren artean](#)
Oso luzaz estutu zion eskua, eta sutskui eskatu herrira bisita egitera joateko **ohorea** egin ziezaiola. [Jose Morales](#)
ik beherago 10. [Askoren artean](#)
-Zergatik ez didazu ene kafe etxera etortzeko **ohorea** egiten? [Patxi Zubizarreta](#)
Egidazu ene tabakotik pipatzeko **ohorea**. [Koldo Izagirre](#)
Zer dela-eta **ohore** hau? [Oskar Arana](#)
Ohorea beti Tenshi jaunari. [Joxan Ellosegi](#)
Ohorea zuei, aberria uharte urrun hartan defendatzeko adorea duzuenoi. [Koldo Izagirre](#)
Agur eta **ohore** zuri, Eneko! [Joan Mari Irigoien](#)
Egingo dut hori zuregatik eta zure herriarengatik; gainera, **ohorez** beteko zaitutet zu eta zure herria, aukera izan bezain laster. [Elizen arteko biblia](#)
ik beherago 7. [Askoren artean](#)
Lotsaz bete zara, ez **ohorez**. [Elizen arteko biblia](#)
Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, Iparraldean **ohoretan** izanen da bi ortzegunez. [Herria](#)
Haren laguntzaile eta adiskide izateko zoriona eta **ohorea** izan dugunontzat. [Berría - Kultura](#)
-Zuri narraizu, greziar jendearen **ohore** horri, eta neure oinak zureek utzitako oinatzetan jartzen ditut orain. [Xabier Amuriza](#)

2 (izenondoekin)

Niretzat **ohore** handia izango litzateke berori neure etxe apalean hartzea. [Patxi Zubizarreta](#)
Bailengo Dukesak **ohore** handizat hartuko zuela erregina bere jauregian errezebitzea. [Txillardegí](#)
Ez zebilen noski titulu eta **ohore** handien peskizan. [Aingeru Epaltza](#)
Hiri hartakoak ongi etorria **ohore** handiz egitera atera zitzaizkion. [Elizen arteko biblia](#)
Frantziskoren gorputz santua lehen hobiratua izan zen tokitik eliza honetara aldatu zuten, **ohore** handiz. [Askoren artean](#)
Zu zara Jerusalem aintza, Israelen harrotasunik handiena, gure herriaren **ohore** bikaina. [Elizen arteko biblia](#)
Aurreiritiz josi **ohore** zaharkitu baten aitzakian. [Elena Touyarou](#)
Gudukatzen duen zaldunak bere ondasunak, bere gorputza, eta agian, bere bizia ere arriskatzen ditu, **ohore** hutsal eta labor bat lortzeagatik. [Joan Mari Lekuona](#)
Hain **ohore** urria bildu al zuen nire osabak hiltzean, nirekin egin zituenek batera arrastorik merezi ez izateko etorkizuneko belaualdietan? [Karlos Zabala](#)
Ohore sozialia beste batek ematen die [...] Frantzia izenda dezakegun Aita larderiatsuak, jakitatearen eta lan seguruaren bidea irekitzen dienak. [Itxaro Borda](#)
Kristoren jarraitzaileari **ohore** eta gorazarre iragankorrak mespretxatzen irakasten baitaio, handinahikeria eta harropuzkeria zapaltzen eta itxurakeriaren iruzurra bazterten. [Askoren artean](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garaiko **ohore** kodea kontuan hartuta, Beatrice heroi bat zen, emakumeen aitzindaria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gauazko karrikazaleek bazuten beren **ohore** arautegia eta ez zuten ahorik irekitzen. Elena Touyarou

Ohore -desafio bat, igarriko zeniotenez. Anton Garikano

Joker clubeko kide baten jarrera hartu zuen, orduantxe balihoa bezala, aurpegia okertu gabe, **ohore** -zor handi samarrak kitatzera. Anton Garikano

Eta nola gizonen burutik ezin den kendu ez handinahia ez **ohore** -egarria, ez da gobernariaren betebeharra hortaz arduratzea. Esteban Antxustegi

Diru-gosea eta **ohore** irrika itsua. Xabier Amuriza

Horrela jaioko dira bertute eta **ohore** nozio txit ilunak, eta ilunak dira aldatuz doazelako denboraren jirabirekin. Juan Martin Elexpuru

Barbaroaren **ohore** -zentuak "piztia harrapariak bezala egiten du orro, sekula ez dakielarik noiz dagoen asebeteta". Iñaki Mendiguren

Edota artzapezpiku behintzat edo halatsuko **ohore** -karguren bat. Patxi Ezkiaga

Haien izenak, adina eta profesia-maila, haien kargu eta **ohore** -tituluak, eta haien dohainak eta erruak ere bai. Askoren artean

Espainia osoak hartu dik **ohore** -puntuatza Bilbo legetasunaren barruan atxikitzea. Txillardegi

Hau gizonen artean konpondu beharreko **ohore** kontua da: emakume batek traba egingo liguke. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hemen, haatik, onartu zaizkio birjina-**ohore** eta lore-ihautzeak, eta ezkila eta guztiko azken hileta-agurra. Juan Garzia

Han arrazoi hauek eman ziren Luis hautatzeko: familia inperialakoa zela, Karlos Gizenak errege-**ohorea** eman ziola, eta Amulfo enperadoreak zetroaz eta bere enbaxadoreen ministerioaz izendatu zuela. Iñaki Iñurieta

Mesede-**ohore** horren ordaina edo saria dotea da, neskatxareen gurasoek senarraren familiari eman beharrekoa. Gotzon Garate

5 besteen oniritzia, edo geure buruarengatik, ez galtzera behartzen gaituen sentimena.

Ohorea baldintza gisa jartzen diote gizon askok bere bizimoduari. Juan Martin Elexpuru

Gizakiaren egiazko **ohorea** Jaungoikoaren irudi eta antzeko izatean datza. Imanol Unzurrunzaga

Pasha otomandar handiak eta bey kurdu haiek guztiek zaldi batengatik jarri behar ote zuten kolokan beren **ohorea** ? Fernando Rey

Nola ote da Xarles Erregeren **ohorea**, ospea eta loria, bai eta Frantziako errege indartsuen bertutea, ematxar baten ahulezia bihurtu? Piarres Xarriton

Alaba haziz gero, familiaren **ohorea** alabari dote ematean eta jai handi bat egitean datza. Gotzon Garate

Ez du horrela salbatuko bere **ohorea**. Josu Zabaleta

Neskaren **ohorea** bere zinei lotuta geratu da: hauei huts egiten badie, hura zikindu egingo da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bestela, **ohore** gutzia galduko dut bihar arratsaldean, gorteko zaldun guztiek alde batera utzi naute eta. Juan Kruz Igerabide

Ohore gutzia galtzen zuen emakume ezkonduak, gonazalaren batek bortxaz burua estaltzen dion tauka kenduz gero. Patziku Perurena

Neskari **ohorea** kendu eta mutilari bizimodua goibeldu, hori zen desiratzen zuena. Koro Navarro

Espainiaren **ohorea** zegoen jokoan. Joxe Azurmendi

Ohore -arrastorik geldituko balitzaiagu, ez genion jakinaraziko bey-ari horrelako proposamen bat. Fernando Rey

6 –en *ohoretan*

Ospa ezazue Pzako Jaia Jaunaren, zeuen Jainkoaren **ohoretan**, itun-liburu honetan idatzia dagoen bezala. Elizen arteko biblia

Jesu Kristo gure Jaunaren gorespen, aintza eta **ohoretan** ! Askoren artean

Mezkiritz mendatea, bere oroitarri ximplearekin, Orreagako Birjinaen **ohoretan** eraikia. Piarres Aintziart

Adonisen **ohoretan** egiten ziren jaiak *adoniak* ziren eta landarezarekin eta landareen zikloarekin loturik zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Felipe Bigarrena erregearen **ohoretan** berantago "Filipinas" deituko dituzte. Ramuntxo Etxeberri

Zazpi euskal probintzien **ohoretan** zazpi "urtxo xuri" hegaldatu dira plazaren erditik. Herria

Irribarrez altxatzen dut edontzia, ardo bitxi batez betea, afarira gonbidatu ditudanen **ohoretan**. Eskarne Mujika

Antonio Machadok ere ondu zuen poema xarmagarri horietako bat, eulien **ohoretan**. Patziku Perurena

Frantzes Xabierkoaren eta Joanes Leizarragakoaren V. mendeurrenaren **ohoretan**. Piarres Xarriton

Ziburun, urte berriaren **ohoretan**, Herriko Etxeak Bordagaineko dorrerat gomitatu ditu hautetsi, elkarburu eta kargudun asko. Herria

Hainbat xehetasun edo berdintasun edo arrazoi zirela medio -baina guk ez dakizkigunak, eta, beraz, hemen, egiaren **ohoretan**, aipatuko ez direnak-, [...]. Karlos

Linazasoro

Sentimena, normaltasunaren **ohoretan**, erabat agorturik. Txillardegi

7 *ohorez adlag* ik *ohorezki*.

Horregatik, bere kargua **ohorez** eraman ezin zuela-eta, hilgarria hartu eta bere burua galdu zuen. Elizen arteko biblia

Ea Saudade hiria aurkiturik, haraino bultzatu zituen helburua beterik, **ohorez** itzultzeko aitzakia zuten. Felipe Juaristi

Bertzenaz, paper horiek, **ohorez** zuri igortzen dizkizudanak bezala, Valmont jaunagandik beragandik hartu nituen. Jon Muñoz

Ohorez hartuko du zelai horrek finala, laugarrenez. Berria - Kirola

Gure herriari egoki iruditu zaio mandatarari hauek **ohorez** hartzea eta horien mezua hiriko agirien artean sartzea, Espartako herriak horien oroitzapena izan dezan. Elizen arteko biblia

Théodének urte luzeak bizi izan baitzituen, eta leinuko entzutetsuenak bezainbesteko **ohorez** amaitu zituen bere egunak. Agustin Otsoa

Begirunez eta **ohorez** onartu zituen, bakoitzari zor zitzaiona onberatasunez emanaz. Askoren artean

Kosmonautikaren Eguna ospatu zuten atzo Errusian, **ohorez**. Berria - Gaiak

8 -en *ohorez*

-Bihar jai eginen dugu Jaunaren **ohorez**.

Altzinook aginduta, Zeusen **ohorez** edan zuten ardoa. Juan Kruz Igerabide

Arkitektoak klamide itxura eman zion hiriari Alexandroren **ohorez**. Jon Muñoz

Kantuak eta musika eta lore-kordak, aitareen **ohorez** baino gehiago, nire **ohorez** izango ziren. Matías Múgica

Tomek baso ardoa goratu, "nire piztzesaren **ohorez**" esan, eta irri egin zuen. Iñaki Zabaleta

Eta, azken agurrean, bitez martxa eta zeremonia gerrazkoak ozenki mintza haren **ohorez**. Juan Garzia

Aurretik irten zen Menelao, eskuan urrezko ontzi bat ardoz beterik zuela, gora jasota, haien **ohorez** eskainiz. Juan Kruz Igerabide

Ezpataz zauritua izan arren bizirik dagoen piztiaren **ohorez** irudi bat egiteko agintzen die. Elizen arteko biblia

- Batzar hartan garbikuntza egin gabeko jende asko zegoenez, lebitarrek Pzako-bildotsak hiltzen ziharduten, Jaunaren **ohorezko** ekintza sakratu hura egiteko garbi ez zeudenen orde. Elizen arteko biblia

Errege-erreginen **ohorezko** esku-zartaldia ez bide zen amaitzen, eta malkoak ageri ziren askoren masailetan. Txillardegi

9 *ohorezko izlag*

Itzuliko da tsarra, eta **ohorezko** hitza ematen dizut Bere Maiestate errukiberak ez zaituela bazter utziko. Jose Morales

Ohorezko matrikulaz lehiazteko azterketa berezira aurkeztu nintzen, bikain ateratako beste lauzpabost ikaskiderekin batera. Joxerra Garzia

Urte gutxiko artean ikasle bikaina izatetik halamoduzko ikasle izatera pasatu zen, eta ordu arte **ohorezko** koadroetan ziur izandako tokia galdu zuen ondorioz. Bernardo

Atxaga

Dama gaztelura eraman, eta **ohorezko** hileta bat egin zioten. Juan Kruz Igerabide

Errege guztiek **ohorezko** atsedenaren izan ohi dute, nor bere hilobian. Elizen arteko biblia

-Pasha, egiten ariarena ez da **ohorezko** gizon baten duinekoa. [Fernando Rey](#)
Martin Ugalde idazle eta Euskaldunon Egunkaria-ko **Ohorezko** Lehendakaria. [Juan Luis Zabala](#)
Eman diezaiogun aukera beste norbaiti, **ohorezko** gonbidatuarekin berriketan aritzeko. [Mirentxu Larrañaga](#)
Boldireva kondesa eta Juziakina printzesa, alarguna bata eta neskazaharra bestea, gorteko **ohorezko** damak biak garai batean, berritsuak biak, mihi-luzeak biak. [Jose Morales](#)
Indar Ilunen Aurkako Defentsarako Ligako **Ohorezko** kidea. [Iñaki Mendiguren](#)
Barrurako pasoa **ohorezko** guardiek ixten dute, mutil gazte-gazteak, ejerzitoko onenak. [Pako Aristi](#)
Bere 46 urteko aita John Noxon abokatu ezaguna zen eta bi urte gazteago zen bere ama, Bluestocking Club **ohorezkoaren** bazkide. [Gotzon Garate](#)
1993az geroz, euskaltzain **ohorezkoa** zen. [Herria](#)
"Balio viktoriarak" **ohorezkoak** dira **ohorezko** Ingalaterran. [Joxe Azurmendi](#)

10 ohore egin (58 agerraldi, 26 liburu eta 21 artikulutan) ik beherago 11 eta 12.

Moskuko Plaza Gorrian zegoen, katafalko batean, eta ehunka pertsona zeuden ilaran bere aurretik pasa eta **ohore egiteko**. [Bernardo Atxaga](#)
Erreximenten laguntza, minutu bat ere ez nuen behar izan zerbitzatuari **ohore egiteko**. [Aingeru Epaltza](#)
Jainkosak agintzen duela jaiot-lurra armaz eta kemenez defendatu behar dela eta gurasoei babes eta **ohore egin** behar zaiela. [Xabier Amuriza](#)
Horren harira biktimei **ohore egiteko** modu onena etorkizun hobeago baten alde lan egitea dela gaineratu zuen. [Berria - Harian](#)
Pilotaren bestaz da bakarrik **ohore egin** pilotazale zenuari. [Herria](#)
Han, eguerdiko hamabietan, 40 mosso boluntariok osaturiko talde batek, jairako jantzirik, **ohore egingo** dio *senyera*-ri. [Berria - Mundua](#)
Izendapen horri **ohore eginez** bezala, automobila erosi zuen halako batean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Jainkoak dohain bat eman zidan jaiotzean eta dohain horri **ohore egin** diot. [Karlos Zabala](#)
"Izenari **ohore egin** behar zaiok", aditzera eman zidan Migelek hura erakustean. [Aingeru Epaltza](#)
Ezker abertzalean politika poetikoa nagusi izan den garaia agur eta **ohore egin** dio nolabait hemen Koldo Izagirrek. [Markos Zapiain](#)
- Benetan **ohore** handia egin didazu, gotzain jauna, nirea dena zuk bakarrik gorde baituzu osorik, besteek kendu egiten didaten bitartean. [Askoren artean](#)

11 ohore ekarri (4 agerraldi, 2 liburu eta artikulua 1ean) ohore egin.

Ehorzketa egunean bere lagunek **ohore ekarri** diote bere gorputza karreatuz. [Herria](#)
Gizon zintzoa zen, gizona, herrian zintzo jokatzeko zuten guztiak **ohore ekartzen** zioten. [Gotzon Garate](#)
Kalean usu ematea gizonaren atzetik doa, bizpahiru metrora, senarrari **ohore ekarriz**. [Gotzon Garate](#)
- Bengali hizkuntzak **ohore** berezia dakar, Rabindranath Tagore-k hizkuntza honetaz idatzi eta Nobel saria irabazi zuelako. [Gotzon Garate](#)

12 ohore eman (25 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) ohore egin.

Orduan, Nabukodonosor erregeak, lurreraino ahozpezturik, **ohore eman** zion Danieli. [Elizen arteko biblia](#)
Herri hau hurbiltzen zait, bai, **ohore ematera**, baina ezpainez bakarrik ohoratzen nau.
Jende guztiak, belaunikaturik, gorespen, aintza eta **ohore eman** diezaiola Jainko Jaun bizi eta egiazkoari. [Askoren artean](#)
Goizean ihes egin zuen, herriak bila etorri eta **ohore eman** ez ziezaion. [Askoren artean](#)
Basapiztiak, txakal eta ostrukek, **ohore emango** didate, basamortuan ura emango baitut eta landa lehorrean ibaiak sortaraziko, nire herriari, neure aukeratuari, edaten emateko. [Elizen arteko biblia](#)
Izan begirune Jaunari eta emaiozue **ohore**! [Askoren artean](#)
- Honen guztiaren berri jakitani, Alexandro erregeak **ohore** handiagoa **eman** zion Jonatani. [Elizen arteko biblia](#)

13 ohore gosesup_1 (orobat ohoregose) iz

Denborak kanbiatu direla hor ere eta orai nehor guti izan ditakeela auzapez **ohore-gosez** edo ederrez eta handiarena egin beharrez. [Herria](#)

14 ohore gosesup_2 (elkarketak izenondo balioa duela)

Ziburun berean baditake halere aintzek ez duten biziki ezagutzen, berenaz gizon ixila baita, ez batere espantukaria eta **ohore gosea**. [Herria](#)
Papermutur belztuxe bat aski balitz gure arteko jitojende trepalari **ohoregose** guzia nobletzeko, orduantxe bapo gu! [Patziku Perurena](#)
Herri zentzudun guzietan halaxe izan da beti: gudaria barbaro, merkatarri/politikoa erdipurdiko diru eta **ohore** gose, eta azkenik izpiritu nobleko gizona, horrenbeste grina zitalik gabeko estzeptiko bakartua. [Patziku Perurena](#)

15 (izan aditzarekin)

Ez da hau, ordea, **ohoregose** direnen berezitasuna, baina, bai, zorrigaitzak jotzen dituen eta barne ilauna duten guztiarena. [Piarres Xarriton](#)
Ohore gose baita ama? ez dugu naski ezagutzen amarik, ohorearen gatik lotu zenik eta irauten bere sailean. [Herria](#)

16 ohore izan da ad

Ohore izango da guretzat zuk gurekin bidea egiten baduzu. [Felipe Juaristi](#)
Ohore zaigu, beraz, haren euskarazko lanak berriz argitaratzea. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)
Ohore zaigu haurren arteko sailkapenean gure Santa Mari eskolako taldeak bigarren egin duela eta gainera publikoaren saria ere altxatu duela. [Herria](#)
Egun hartan, Jaunak erneazuriko duena Israelen bizirik geldituen eder eta **ohore izango** da; lurak emango duena, haien harrobide eta apaingarri. [Elizen arteko biblia](#)

17 ohorea izansup_1 da ad (hirugarren pertsona singularrean)

Ohorea da hark urratutako bideari jarraitzea. [Berria - Gaiak](#)
Luxua eta **ohorea da** Kertes geure hizkuntzan irakurri ahal izatea. [Berria - Kultura](#)
Ohorea da niretzat zure zerrenda horretan hain aurrean egotea. [Oskar Arana](#)
Tomek baietz esan zuen, jakina lagunduko ziola, **ohorea izango zela** berarentzat. [Oskar Arana](#)
-Ohorea litzateke niretzat -gaineratu zuen, doinu-apal, jauregi jabeak. [Felipe Juaristi](#)
Ohorea zela esan zuen, ohore ez nolana hikoia, munduko printze-etxe ederrerenetakoak herrian egotea. [Felipe Juaristi](#)

18 -tzeke ohorea² izan du ad

Nirekin ezkon zaitezten erregutzeko **ohorea dut**. [Antton Olano](#)
-Ene emakume zintzoa, zoaz eta esaiozu semeari nire alabaren senartzat eta suhizat hartzeko **ohorea dudala** -esan zion azkenik sultanak Aladinen amari. [Patxi Zubizarreta](#)
-Aurrena, esadazu norekin hitz egiteko **ohorea dudan** -esan zuen Nozdriovek, berarengana hurbilduz. [Jose Morales](#)
Inoiz jaun handiek gonbidatuta, ongi hornituriko mahaietan esertzeko **ohorea bazuen**, lehenengo auzoko etxeetan ogi-koskorrek eskatzen zituen eta, gero, miseria harekin aberats, mahaietan jartzera etortzen zen. [Askoren artean](#)
Zabar eta azkar esaten hasita, esango nuke hiru garelako urte, mende eta milurte aldaketa bizitzeko **ohorea izan dugun** belaunaldiak. [Joxerra Garzia](#)

19 ohorezko aipamen

Tomek **ohorezko** aipamenekin eskuratu berria zuen lizentziatu-titulua Cornell-go unibertsitatean. [Oskar Arana](#)
Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren **Ohorezko Aipamena** Pello Zabala jaunarentzat da. [Pello Zabala](#)
Ohorezko Aipamenari dagokionez, aurtengo sarituaren merezimenduak hauek dira: [...]. [Pello Zabala](#)
14-eko gerla egin zuen burutik buru, gradoz beti goiti joanez eta zortzi **ohorezko aipamen** ardietsiz. [Herria](#)

20 Ohorezko Legio

Parisen **Ohorezko** Legioko domina eman zioten, eta, 1925ean, Teatro d'Arte erakundea sortu zuen Erroman.

Josu Zabaleta

Ohorezko legioa ematea alkateari.

Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agur eta ohore (29); izenari ohore (5); niretzat ohore handia (4)

ohore artean (5); ohore bat da (9); ohore berezia (4); ohore bila (4)

ohore egin (17); ohore eginez (14); ohore egitea (5); ohore egiteko (11); ohore egiten (8); ohore eman (4); ohore emango (4); ohore ematen (6); ohore ematera (4); ohore eta aintza (5); ohore guztiak (4); ohore guztiekin (10); ohore handi (5); ohore handia (57); ohore handia da (21); ohore handia egin (4); ohore handia izan (8); ohore handiagoa (7); ohore handiak (4); ohore handiko (4); ohore handitan (4); ohore handizat (11); ohore handizat hartuko (5); ohore handiz (26)

ohore jaunari (5); ohore kontua (4); ohore kontuetan (4)

ohore zuri (8)

ospe eta ohore (8)

aintza eta ohorea (5); emateko ohorea (5); ezagutzeko ohorea (4); familiaren ohorea (11); herriaren ohorea (4); izanaren ohorea (5); izateko ohorea (12); izugarritzko ohorea da (4); jainkoaren ohorea (4); jasotzeko ohorea (5); joateko ohorea (4)

ohorea baino ez (4); ohorea egiten (5); ohorea eta aintza (6); ohorea eta bizia (4); ohorea galdu (5); ohorea izan (17); ohorea izango (11); ohorea izango da (4); ohorea jokoa (6); ohorea kendu (5); ohorea salbatu (5); ohorea zikindu (6); ohorea zikintzen (4)

ospea eta ohorea (4)

izenaren ohoreagatik (6)

ohoreak egin (5)

eskaini didan ohorearen (4); ohorearen aurka (4); ohorearen izenean (7); ohorearen pare (4)

ohoreko gizona naiz (4)

ohorerik gabeko (4); ohorerik handiena (4)

bere ohoretan (5); egunaren ohoretan (5); errepublika egunaren ohoretan (4); jainkoaren ohoretan (6); jaunaren ohoretan (5); jondoni bixintxoren ohoretan (5)

ohoretan eman (4); ohoretan eraikitako (4); ohoretan muntatu (9); patroin sailduaren ohoretan (15); sailduaren ohoretan (22); sakramendu sailduaren ohoretan (6); urte berriaren ohoretan (4); zenaren ohoretan (12)

beraren ohorez (7); bere ohorez (10); bere ohorez erretako (10); beren jainkoen ohorez (5); izenaren ohorez (4); jainkoaren ohorez (8); jainkoen ohorez (7); jaunaren ohorez (51); jaunaren ohorez erretako (18)

ohorez bainaiz (16); ohorez bete (4); ohorez betea (4); ohorez beteko (6); ohorez egiten (5); ohorez eraikitako (4); ohorez erretako (30); ohorez erretako oparia (17); ohorez erretzeko (9); ohorez eta aintzaz (5)

euskaltzain ohorezko (7)

ohorezko a mailan (5); ohorezko alpamena (12); ohorezko aipamenak (4); ohorezko aureskua (6); ohorezko aureskua dantzatu (4); ohorezko b mailan (4); ohorezko bazkide (6); ohorezko dama (5); ohorezko domina (8)

ohorezko euskaltzain (18); ohorezko euskaltzain izendatu (4); ohorezko gonbidatu (5); ohorezko gonbidatua (6); ohorezko hitza (6)

ohorezko kide (9); ohorezko lehendakari (7); ohorezko lehendakaria (9); ohorezko maila (4); ohorezko mailako (28); ohorezko mailan (36); ohorezko mailan ari (10); ohorezko makila (8); ohorezko matrikula (6); ohorezko medaila (19); ohorezko medailak (10)

ohorezko postuetan (4); ohorezko presidente (6); ohorezko sakea (9); ohorezko saria (20)

ohorezko zerrendan (4)

ohoredun *izond* ohorea duena.

Etxeko teillatupean bizitzen utzi zion, gizon **ohoreduna** zelakoan, eta harrera onaz abusatu zuen, garbi. **Irene Aldasoro**

Zubigainetik bezalaxe, zubiaren arkupetik iragotzeak zoriaren mudantza sortzen du, horregatik pasarazten dira San Anton egunean abereak zubipetik, edo herri dantza askotan dantzariak arkupetik, eta oraindik halaxe jendaje **ohoreduna** arku dotore apainduen azpitik. **Patziku Perurena**

ohoregabe (*orobat ohoregabe g.er.*) 1 *izond* ohorerik ez duena. ik **ondragabe**.

Astero bezala idazten dizut eskutitz hau, nolako gizona zaren ahaztu ez dezazun: gizon **ohoregabea**, lapurra, miserablea. **Gotzon Garate**

Aita gaizki hartu eta ama etxetik bidaltzen duena seme lotsabako eta **ohoregabea** da. **Elizen arteko biblia**

2 *ohoregabeko izlag* ohoregabea.

Luze bizita ere, ez dituzte batere aintzakotzat hartuko, eta azkenean **ohoregabeko** zahartzaroa izango dute. **Elizen arteko biblia**

Izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik; Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez **ohoregabeko** ziren atalei ohorerik handiena eman zien. **Elizen arteko biblia**

ohoregabetu, ohoregabe(tu), ohoregabetzen da/du *ad* ohorea kendu edo galdu, ohoregabe bihurtu.

Bat-batean lorturiko botereaz izandako mozkorraldia, Bengalako gobernari ingelesen lehen belaunaldia **ohoregabetu** zuena, arrakastaz gainditu zuen zintzotasun moralaren ideal berri batek. **Iñaki Mendiguren**

Ohoregabeturik sentitzen zen, eta Sandrok, hori ikusirik, trapuzko pilota bat egin, katu bat zela adierazi, eta goizero jartzen zion mutur aurrean. **Juan Garzia**

ohoregarri ik **ohoragarri**.

ohoregose ik **ohore 13**.

ohoretasun *iz* ohoragarritasuna.

Inork ezin baitu jatorrasun, **ohoretasun** eta etikotasunaren apainduren zehar ikusi, eta beraz, bakoitzak bere inguruan ikusten zuen ongiaren ustezko adibide jatorretan beretzako hobekuntzaren eskola aurkitzen baitzuen. **Ibon Uribarri**

ohoretsu 1 *izond* ohorez betea. (pertsonez)

Zuen legeak funtzionari usteldu bati, banku-hausle iruzurgile bati, abokatua izateko eskubidea ematen dio eta, sarri, gizon **ohoretsu** askori ukatu egiten zaio babesbide hori.

Juan Martin Elexpuru

Elkarrizketan Marco Antonio Pinochetek esan zuen bere aita «gizon **ohoretsua**» dela eta ez duela sekula dirurik lapurtu. **Berria - Mundua**

Dama **ohoretsu** eta aberats batekin ezkondu nintzen. **Patxi Zubizarreta**

Biharamun goizean, saratar **ohoretsuenen** buruak zeuden Ibarlako jaunaren baratzean azen ongarrri. **Anjel Lertxundi**

Bizi luzea zuretzat eta zure biztanle **ohoretsuentzat**! **Patxi Zubizarreta**

Irakeko **Ohoretsuen** Brigadeki Guardia Nazionalako hiru kideri lepoa motzu zietela iragarri zuen atzo, Al Jazeera telebistak zabalduko mezuaren bidez. **Berria - Mundua**

2 (gauzei buruz)

Horregatik, Jaunaren eskutik hartuko dute errege-koroa **ohoretsua**, diadema ederra. **Elizen arteko biblia**

Borrokan aurkitutako heriotza **ohoretsua**. **Agustin Otxoa**

Haren iragan **ohoretsua**, orotaz mintzatu eta orotan azken hitza berea izateko eskubidea ematen ziona. **Monika Etxebarria**

Zergatik bizi den pozik gure ustez bere ohitura galduengatik triste behar lukeena eta alderantziz, bizitza **ohoretsuagatik** pozik behar lukeena zergatik bizi den triste. **Imanol Unzurrunzaga**

Bere adinari, bere zahartzaroaren nagusitasunari eta lanean zuritutako ile agurgarriari zegokien jokaera **ohoretsua** hartu zuen Elezarrek. **Elizen arteko biblia**

Gainerakoek alde egin zuten, egiteko **ohoretsu** eta haien indarren neurrikoa betetzeko aukerak adoreturik. **Agustin Otxoa**

Liburu horretan erreferentzia ugari jasotzen dira urkatzeko langintza **ohoretsu** eta errentagarriari buruz. **J.M. Olazola "Txiliku"**

3 (adizlagun gisa)

Aldi batean zenbait anaia bidali nahi izan zituen probintzia guztietara, ontziz hornituak, inon Jaunaren Gorputza era desegokian jarria aurkituz gero, ontzi haietan **ohoretsu** jar zezaten. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

izen ohoretsua (4)

ohorezki *adlag* ohorez, ohorez beterik.

Eta, gaur egun oraino, **ohorezki** bizi naiz, hango ene aulkiak ematen dizkidan etekin iraunkor eta nasaietarik. **Piarres Xarriton**

Bi alaba eta bortz semerekin familia ederra hazi du eta **ohorezki** altxatu. **Herria**

Greziako literaturan zakurra **ohorezki** hartua da. **Gotzon Garate**

Liberalismoaren jarraikitzaile gehienek, hala nola aita Griffiths galestarrak, kantu bera zerabilten: Gure Galesera mintzaira hil bedi, ezteki, goxoki, **ohorezki**. **Piarres Xarriton**

Ohorezki hiltzeko dretxoa galdatzeko taldea. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altxatu dituzte ohorezki (3); **arras ohorezki** (5); **ohorezki altxatu** (11); **ohorezki altxatu dute** (3); **ohorezki altxatuak** (4); **ohorezki bizi** (3)

ohorezko ik **ohore** 9.

ohostu ik **ostu**.

oi¹ *interj* ustekabea, harrimena, miresmena, oinazea... adierazteko erabiltzen den hitza. **iko**²; **ai**.

-**Oi**! -egin zuen oihu bat-batean, eta, astiro, aurpegitik bereizi zituen esku-ahurrak. **Jose Morales**

Oi ene Jainko, gogora zaitetz nitaz, eta har nazazu onez! **Elizen arteko biblia**

Egin dezala haren erregetza zurea baino handiago, **oi** ene errege David! **Elizen arteko biblia**

Oi ene, zer egin duk? **Juan Garzia**

Oi ene!, perlazko iduneko berria! **Mirentxu Larrañaga**

Oi haurreko usain, irudi, giro eta gauza bizigabeak. **Herria**

Oi, lehiaren makurra, hain agudo laster egitea intzestuzko maindire artera! **Juan Garzia**

Oi, hura baletor! **Juan Kruz Igerabide**

Oi apaltasun gorena! **Askoren artean**

Oi, zaldia, zaldia, nolako zaldia! **Jose Morales**

Oi betiereko oinaze ikaragarria! **Patziku Perurena**

Oi, adiskide, emaidazu musu! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-**Oi**, Neville -entzun zuen amonaxoa hasperenka. **Iñaki Mendiguren**

Nafarra **oi** Nafarra, Euskadi lehena. **Piarres Xarriton**

Oi, adiskide, emaidazu musu! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-**Oi**, sentitzen dut. **Koro Navarro**

-**Oi**, **oi**, **oi**! -esan zuen Ronek, komunetatik kanpora, hutsik zegoen korridore ilunera itenez-. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oi emakumerik ederren (3); **oi ene bihotz** (3); **oi ene herri** (4); **oi frantzisko santua** (3); **oi kanta berri** (5); **oi zeinen santu** (4)

oi² (*orobat **ohi** g.er.*) iz hortz-haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragi sendo gorrixka. **ikhobi**.

Eta hortzak, **oiak** ahaztu gabe, behar den bezala goitik behera eskulatzten ditut, ispilua pastaz ziprintzeagatik kezkatu gabe. **Ramon Saizarbitoria**

Oiak gorritu arte garbitu zituen hortzak, eta hauen zuritasuna harroki egiaztatu zuen ispiluan. **Iñaki Zabaleta**

Banketerako zorrozuta dituzun zure hortz horiek, erori egingo zaizkizu, eta hutsik geratuko masail-hezurretan **oiak**. **Santiago Iruretagoiena**

Ezpainak eta **ohiak** lehorrik eta kologeturik zeuzkan, azala urratua. **Josu Zabaleta**

Ordezko hortzeriaren inguruan -ez zuen kendu nahi izan- **oiak** agerian zeuzkan. **Joseba Urteaga**

Baina **oiak** honda-honda eginda geratu zitzaizkion. **Koro Navarro**

Zeren eskuak eta belaaunak dardaritzen hasiak baitzaizkit, eta beren **oietan** kordokatzen hortzak. **Juan Garzia**

Agian zurrungaka zegoeken, arinki, hortz-**oi** ubel zikinak erakutsiz. **Ibon Urbarri**

oiartzuar (*orobat **oihartzuar** g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **oiartzuar** agertzen da*) *izlag/iz* Oiartzungoa Oiartzuni dagokiona; Oiartzungo biztanlea.

Pedro Berrondo **oiartzuar** apeza zendu da aintzineko aste hortan, 83 urtetan. Herria

Ivan Agirre igerilari **oiartzuarrak** heldu den maiatzaren 6tik 16a bitartean Madrilen (Espainia) jokatuko diren Europako Txapelketetan parte hartuko du. Berria - Kirola

Bigarren: Olatz Mitxelena **oiartzuarra**. Herria

Aintzane Galardi Portu **oiartzuarraren** "Itoti urdinaren azpian" olerki bilduma. Herria

"Antxusa" delakoa, **oiartzuarra**, bere 22 urteetan hil zuten unean, Lizarragaren aginduz fusilatu zuten. Txillardegi

Fraixkuanttonio sortzez **oiartzuarra**, eta Mañulafraixka Leonet bertakoa. Patziku Perurena

Oiartzuarra zen Mendiburu, Nafarroako mugakoa, eta Nafarroan barrera ibili zen misio lanetan. Koldo Zuazo

Oiartzuarrak erronka latza du txapelari eusteko, batez ere, ez duelako nahi adina prestatzerik izan. Berria - Kirola

Oiartzuar guztiek zekiten begi-txatxu hark jakin behar zuela zehazki hilobia non zegoen. Koldo Izagirre

oiartzundar *izlag/iz* oiartzuarra.

Xabier Lete... **oiartzundar** semea agertzen zaigu bere bizar mamitsuarekin, profeta baten pare, Iparragirre " Gernikako arbola " egin zuenaren itxura oroitarazten digula. Herria

Aintzane Galardi **oiartzundarrak** ereman du olerki saria, "Itoti urdinaren azpian" poema-xortarentzat. Herria

oidium *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **oidio** agertzen da)* iz mahatsondoaren eta beste landare batzuen ondo bizkarroia, haren ostotetan izpi zurizko sare moduko bat eratzen duena (*Oidium tuckeri*).

Kostaldeko mahastizaleek, Lekeitiokoek adibidez, txakolinaren zain, **oidiumaren** aurkako tratamendua noiz egin, auririk ba ote zetorren jakin nahi zutela eta... Pello Zabala

oies *(orobat **oihes**)* 1 *izond* pertsonez mintzatuz, zakarra eta hezibiderik gabekoa.

Ez urrutira joateko erregutu zigun obispoak, ez zela fidatzen bahitu zuen mutil **oies** hartaz. Inazio Mujika Iraola

Hiriarekiko harremanetan elkarren arteko errespetuan bizi nahi zuen, eta min ematen zion berak baserritar **oies** deitzen zien horietakoek irain zezaten. Irene Aldasoro

Trebetasun handiz atzipetu zituen kartzelako bere zaindaria **oiesak**, eta, gorri-separatisten izutik ihesi zihoala, istripu zoritxarreko bat izan, eta hanka hautsi zuen. Inazio Mujika Iraola

Une horretan bertan txirrina jo zuten; etxejabea zen, gizaje **oihes** eta mutiria oso. Josu Zabaleta

Beste batek, halakoak eginez, **oiesa** eta gisagabea emango zukeen; hark ez; Tellagorrik berezkoak zituen gisagabekeriatik urruntzen zuten dotoretasuna eta leuntasuna. Koro Navarro

2 irud/hed

Harryk "ene jenio gozakaizta" deitzen zion hari, baina izaera **oiesa** eta batzuetan borrokalaria gorabehera, zakar larderiatsu hura bene-benetako artista zen muinean. Oskar Arana

Oraingo pintoreak denak omen dira zirriborro eta brotxakada **oiesak**, Malagako komunista farfaila hori legez. Javi Cillero

Hark esaten zuenez, gorputzari eman beharra zegoen bere premia miserable eta **oiesak**, eta espiritua garbi eduki. Josu Zabaleta

Gauean nire pitxar **oieseko** ura izotz bihurtzeraino hozten zuen, eta sua piztea izaten zen, jakina, jantzi aurretik, nire lehenengo eginkizuna. Josu Zabaleta

Etena horren modu **oiese**an antzetzua ikusteak beharbada. Inazio Mujika Iraola

3 (adizlagun gisa)

Ohart nintzen irakasle izan nuenean ni berarekin hain **oies** portatu izanaren zerga zela nolanahi ere, baina ezin nuen gainetik kendu kontzientzia txarraren zama. Anjel Lertxundi

Bere lana dela-eta kazetariak batzuetan **oihes** jokatu behar. Urtzi Urrutikoetxea

oieskeria *(orobat **oiheskeria**)* iz oiesari dagokion egintza gaitzesgarria.

Poliziak, gainera, bestelako txikizioen pare jarri zuen sei txiro haien hilketa ere, hau da, **oieskeriaren** galgan. Karlos Linazasoro

Poliziak, gainera, bestelako txikizioen pare jarri zuen sei txiro haien hilketa ere, hau da, **oieskeriaren** galgan. Karlos Linazasoro

oihal 1 *iz* ehun sarria eta ile-laburra; bereziki artilezkoa; ehuna; ehun horren zatia.

Ikara ematen zuen etxeko **oihal**, zapi eta ehunetara hurbiltzeak: hauts bihurtzen ziren ukitze hutsarekin. Jose Morales

Bertan, janari hornidura handiak, urrezko eta zetazko **oihalak**, tapiz garestiak eta, batez ere, urregorritzko nahiz zilarrezko txanpon pila. Patxi Zubizarreta

Ataria liho eta muselinazko **oihalez** apaindua zegoen. Elizen arteko biblia

Gizonezko askok Durangora jo ohi zuen lanera, artilezko **oihalak** eta zapiak egiteko industriak indarra baitzuen han garai hartan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Urrez ehundutako **oihal** hori txanoan sartzen zen atzealdetik. Karlos Zabala

Oihalezko kapela buruan jarrita. Aitor Arana

-Erakutsi tarteko prezioko **oihalen** bat. Jose Morales

Ametsetan ari nintzen, eta **oihal** bat ehuntzen ikusi nuen nire burua. Bernardo Atxaga

Emaiozu pobretxo honi **oihala**, soinekoa bukatzeko lain izan dezan. Askoren artean

Geroago iratzarri zen eta berak ireki zituen oheko **oihalak**. Jon Muñoz

Araioa, esne-mamitan bizi zara -segitu zuen Monak, haren berokiaren **oihala** ukitu bitartean. Fernando Rey

Hementxe dut, zeuk Terebinto haranean hil zenuen Goliat filistearren ezpata, **oihal** batean bildua. Elizen arteko biblia

Oihal batean bildutako sei hosto zekartzan. Agustín Otsoa

Sarreraren hegal batek zazpi metro eta erdi **oihal** izango ditu, hiru zutabe eta hiru oinekin. Elizen arteko biblia

Javierrek ETAkoen aldeko **oihal** bat jarri nahi izan zuen udalean. Pello Salaburu

Hauek dituzue haren ohe-sabaiko **oihalak**, hura, mozkor-mozkor zetzala, estaltzen zutenak. Jose Antonio Mujika

Testu guztiaren atzean, bizitzea tokatu zitzaion agertokiko atzeko **oihal** bezala, egoera politikoa, esespena, gerra eta arrazakeria, bizitza eta heriotza. Josu Zabaleta

ik beherago 9. Askoren artean

Atzeko **oihalaren** atzean, gaizki konektatuta balego bezala-edo, argi berde bat piztuko da, eta Pertsonaien itzalak proiektatuko ditu. Josu Zabaleta

Portugali, hortaz, ingeles **oihala** inportatzea interesatzen zaio, nahiz eta oihal horren erabateko kostua portugaldar **oihalarena** baino handiagoa izan. Koro Navarro

Bi enpresen artean 150 milioi metro *denim* (jeanetarako **oihal**) ekoizti zuten. Berria - Ekonomia

Liho zabarrez egindako **oihala** da, eta ziurrenik pinturaren azpian, **oihala** prestatzeko geruza eta likido bakartzailea ageriko dira. Javi Cillero

2 (izenondoekin)

Oihal zurio estalitako saski baten hondotik hartuta. Karlos Zabala

Oihal zurian erortzen da orbanik handiena. Berria - Kirola

Oihal beltz bustiekin estalitako mahaien gainean. Karlos Zabala

Kotoiko **oihal** fina, izen bereko hiri txinatarrean ekoizten zena. Karlos Zabala

Gona, berriz, **oihal** leuneko eta, alkandorako sagar batzuk bezala, lila kolorekoa zen. Bernardo Atxaga

Inork ez dio jantzi zaharrari **oihal** gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu eta zarratada handiagoa egingo luke. Elizen arteko biblia

Oihal larriz eginikako erridau bat baizik ez zen logela beste barmetik berexten zuena. Janbattitt Dirassar

Purpurazko jantzia eta koroa daramatzenagandik **oihal** latzez jantzirik dagoenaganaino. Elizen arteko biblia

Atexka bat ireki, eta **oihal** latzezko beroki lodi batean bilduriko irudi bat agertu zen. Jose Morales

Zangoak estaltzeko **oihal** lodi bat jartzen zuen, gerriko gorri batekin lotua. Fernando Rey

Oihal gaztainakaz forraturiko beroki hartz-larruzkoa soinean. Jose Morales

Sinpletasunera jo dute Teatro La Bokako kideek eta hiru **oihal** bertikal besterik ez dute erabili eszena apaintzeko. Berria - Kultura

Bazen olioeko kriseilu handi bat mahaiko **oihal** laukidunaren gainean. Koro Navarro

Jarleku aurkitzen du ahizpak diruditen bi neska mardulen eta esku bat **oihal** odoloztatu batez bilduta daukan gizon baten artean. Oskar Arana

Oihal tolestuak armaruan sartzen dira. Josu Zabaleta

Mareak behera egindakoan, zetazkoa dirudien **oihal** sotil batek estaltzen du lokazia, aparrak garagardoa bezala. Hasier Etxeberria

- **Oihal** ingelesa?, edo, aukeran, hemengoa nahiago duzu, Errusiakoa bertakoa? Jose Morales

Zamarrak, **oihal** indianoz eginak eta kotoi gordinez estaliak, gerrian estutzen zituzten. Karlos Zabala

Feltrozko kapela, laneko alkandora kaki-kolorea, **oihal** bakerozko jaka eta galtzamantala erabiltzen zituen beti. Koro Navarro

Oihal itsuaren aurrez aurre, entzun bai, baina ez zuen ikusten. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru kasu gerta daitezke, Portugalek Ingalaterrari egiten dion **oihal**-eskariaren elastikotasunaren arabera. Koro Navarro

Esku-oinak **oihal**-zerrendaz loturik eta aurpegia zapi batez estalirik zituen. Elizen arteko biblia

Lapikotik gertu zegoen Esteban, buruan **oihal**-esteka eta balak kraskatu zion bular-kaxaren gainean **oihal**-esteka, beso bat ere igeltsatuta zuela. Harkaitz Cano

Oihal-zati bat ezkutuan eman nahi izan zion behartsu bati. Askoren artean

Anaia guztiak arropa zirtzilez jantz bitez, eta zakukiz nahiz bestelako **oihal**-puskaz adaba ditzakete. Askoren artean

Jeremiasek lurreen sartu dituen harri horien gainean ezarriko ditut haren tronua eta gaineko **oihal**-estaldura. Elizen arteko biblia

10.30etan Meza nagusia, **oihal** aterbe batean. Herria

Erakusketa, pilota, haur joko, musika, bazkari (150 bazkaltiar **oihal**-aterbe pean)... ez zen mugimendurik falta Bidarraiko feria egunean. Herria

933 bal, 881 kutxa, 10 saski, 8 **oihal**-fardel. Lopez de Arana

Errotak eta bolak ez ziren geldirik egoten, **oihal**-fabrikak, aroztegiak eta irundegiak etengabe aritzen ziren lanean. Jose Morales

Saltzaileak aise igarri zuen **oihal**-kontuetan aditua zen erosle baten aurrean zegoela. Jose Morales

Hiru kasu gerta daitezke, Portugalek Ingalaterrari egiten dion **oihal**-eskariaren elastikotasunaren arabera. Koro Navarro

Autarkia-egoeran, izan ere, ardo-unitate bat, Portugalen, 0,89 **oihal**-unitaterekin trukutzen da. Koro Navarro

- Kolore beltzeko **oihal**-zintzilikailu astun bat jaitsi zen beiratearen aurrean. Jon Muñoz

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak pertsoneri dagokiela)

Frantziskoren aita, Pedro Bernardone, **oihal**-saleroslea zen lanbidez. Askoren artean

Oihal-ekoizle ingelesek, alderantziz, irabazi handiagoa lortzen dute beren produktuan portugaldar merkatuan Ingalaterran baino. Koro Navarro

Oihal-merkatari gisa, Pedro Bernardone Champagne eskualdera joango zen, Mediterraneoetik Ipar Itsasora zihoan bidetik. Askoren artean

Beratar **oihal** saltzaile bat ezagutzen zuen, harekin negozio zorbait baitzuen eginik. Elena Touyarou

Jerusalemera heldu zirenean, goiko urtegirako ubide ondoan gelditu ziren, **oihal**-garbitzailearen sororako bidean. Elizen arteko biblia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bainu-**oihal** bat luzatu zidan gero, aurpegia xukatzeke. Joxan Elozegi

Altzari, besaulki eta dibanak, babes-**oihalak** kendurik, berpiztu egiten ziren. Xabier Olarra

Eguerditan bezala, mahai gainean garbi-**oihala** hedatu eta baxera gainean emaiten dut idortzen. Filipe Bidart

Nora popa aldean zegoen, Hawthorneren liburu eskuetan eta sorbalda-**oihal** bat soinekoaren gainetik. Anjel Lertxundi

Dama-itxurako izaki horietako asko [...] galtzerdirik gabe, sorbalda-**oihal** gorria eta bortzegiak soinean. Jose Morales

Gelaren erdira joan zen, bere sorbalda gazteak lepo-**oihalean** bildurik, hotzez dardaraka baitzeuzkan. Jose Morales

Erdietsi ere zuen, denborarekin, dantzen eragozte eta debekatzea, aldi batez, baita emaztekiek buru-**oihal** haien eramaitea ere. Joan Mari Irigoien

Kaliza, korporal, aldare-**oihal** eta meza-oparitarako erabiltzen den oro ederra izan dadila. Askoren artean

Hor da gure segurtasun sentimendua, gure bizitza marraztuko den hondo-**oihala**. Joxan Elozegi

ik beherago 9. Askoren artean

Kordoi bati tiratu zion eta, bat-batean, zinema-**oihal** bat agertu zen sabaitik nire pareko liburu-apalategian behera. Anjel Lertxundi

Emazteek orduak lisatzen eta bazkari apailatzen nahiz bastatzen, azpiltzen, josten, mahai **oihal** brodatzen edo trikotatzen pasatzen zituzten. Itxaro Borda

Zabalagotu zeure etxolaren esparrua, hedatu beldur gabe zeure egoitza-**oihalak**. Elizen arteko biblia

Emakume haserre batek, zaku-**oihal** zoldatsu batez jantzirik, sekulako jipoia eman zion neskato errukarri bati. Jose Morales

Eta ekarri zeurekin zurdatz-**oihala** nire gorpua janitzeko, eta hilobirako behar den argizaria. Askoren artean

Lumak, tintontziak eta ezko-**oihal** koadroduneko azalekiko koaderno batzuk zeuden han, eskola-umeek kontuak egiteko erabiltzen dituztenak bezalakoak. Xabier Olarra

Jainkoak nahi duen arte, hil-**oihala** gordean egongo da. Patxi Zubizarreta

- *irud/hed* Zerua gorritu egin zen, mendien atzeko gau-**oihal** beltza atzeratuz, eta eguzkia kolpe batez agertu zen. Juan Kruz Igerabide

6 haize oihala, bela.

Haizeak, ipar aldetik joko, Leongo Golkotik zehatz esatera, **oihalak** puztu zituen, eta iritsi ziren azkenik Napolesera. Felipe Juaristi

Masta luzeak apurtuak, **oihalak** zarrastatuak. Felipe Juaristi

Itsaso Beltzean nekez eta poliki zebiltzan itsasontzien **oihal** hanpatuak bezala. Felipe Juaristi

Han dira arrain-ontzi txikiak, **oihal** koadroa daramatenak, kostaldez kostalde ibiltzera ohituak, kostaldeko gorabeherei egokituak, nola lanperna haitzetara. Felipe Juaristi

Itsasontzi beltza uretara eraman, masta eta **oihalak** jarri, animaliak hartu, eta malkoz urturik abiatu ginen. Juan Kruz Igerabide

Judua itsasora bota ezean, ez zela Jainkoaren haserre atertuko, ez zela haizea **oihaletara** itzuliko. Felipe Juaristi

Poliki beren eskuetan haizea preso hartu zuten **oihal** koadroak. Felipe Juaristi

Brankako **oihala** haizeari emanik. Elizen arteko biblia

7 antzoki baten agertokian igo eta jaits daitekeen ehun zati handia.

Bigarren ekitaldirako **oihalak** jasotzeko garai da. Oskar Arana

Emanaldia bitan etengo da: lehenengoan, **oihala** ez da jaitsiko. Josu Zabaleta

Oihala jasotzean, Leone Gala, sukaldari kapelaz eta mantalaz jantzita, zurezko zali batez arrautza jotzen ari da katilu batean. Josu Zabaleta

Agertokiko **oihala** zabalik geratuko da. Josu Zabaleta

Oihala. Antton Olano

8 margolanak egiteko erabiltzen den euskarrria.

Françoisek pintzelik finena hartu eta marra bat pintatu zuen **oihalean**, marra zuri bat goiko aldean, marra estu luzea. Felipe Juaristi

Gelaren beste aldean, hiru hankadun aulki bat eta **oihalarri** eusteko asto zaharkitua zeuden; astoaren atzean, berriz, Rodolfo bere bizitzan zehar margotutako **oihal** gehienak, bata bestearen gainean pilaturik. Aritz Gorrotxategi

Hiru margolan eder, bertikalki pintatuak, **oihalek** loriozki haizearen presentzia salatzen dute. Herria

Manuel de Fallak idatzi zuen ballet hau, eta 1949. urtean Dalik, 30 urte lehenago Picassok egin bezala, eszenografia horretarako **oihalak** margotzea onartu zuen. Berria - Kultura

Tamaina handiko **oihala** da (294 x 209 zentimetro), eta, urrunetik begiraturaz gero, beirate baten itxura magikoa hartzen du, **oihala** margotzean Grecok erabilitako teknika dela-eta. Berria - Kultura

Liho zabarrez egindako **oihala** da, eta ziurrenik pinturaren azpian, **oihala** prestatzeko geruza eta likido bakartzaila ageriko dira. Javi Cillero

Oihal margotua zahartu egiten da, hobeto ala gaizkiago, eta pigmentuak aldatuz joaten dira. Josu Zabaleta

Marmol berdezko pilareak, nabar ilunak, eta margo-**oihalak**, goibelak. Irene Aldasoro

9 atze oihal eszenatokietako atzeko oihala.

Bi eszena-hegal eta **atze-oihal** bat, ate batekin, aski izango dira. Josu Zabaleta

Atze-oihala goratu eta segituan, han ageri zen gure amona Pina pintzelarekin eta margotzeko astoarekin eta hitzok esaten zituen: [...]. Fernando Rey

Konpainia-burua eta Aita salbu, lurlean egongo baita oraindik eskaileratxoaren ondoan, gainerako guztiak zeruarena egiten duen **atze oihalaren** atzean desagertu izango dira. Josu Zabaleta

Bazerien igurikimen-kutsu halako bat, desatsegina ez zen urduritasun apur bat, **atze-oihala** igo zain daudenei antzeman ohi zaiena bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

10 eguzki oihal itzal egiteko zabalzen den olana euskarriduna.

Goian, pertsianak itxiak daude, eta **eguzki oihalak** jaitsiak. Karlos Zabala

Goiko leihoak irekitzen zituzten, **eguzki oihal** gris handiak zintzilik jartzen; zeru goritik behera suzko euria erortzen zen merkatuaren gainera, berotu egiten zuen burdin xafrazko labe bat balitz bezala. Karlos Zabala

Pabiloiak pilatzen ziren, beren bi teilatu mailekin, beren pertsiana jarraituekin, beren **eguzki oihal** ikaragarriekin. Karlos Zabala

11 esku oihal ik eskuoihal.

12 haize oihal ehun gogorrezko edo olanazko zatia, gehienetan puska josiez osatua, haizeak eragiten dionean ontzia mugiarazteko antolatua. ik gorago 6; ik bela.

Ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean, hiru masta eta sokateriaz hornitua, lehenengo latindar **haize-oihalak** eta gero txopatik brankara oihalak zituena.

Iñaki Mendiguren

Baita hegan ere, **haize-oihala** hegaltzat harturik. Doi-doi patchwork modura osatutako **haize-oihala** eta lema horiez gain ez du ontziak besterik. Joan Mari Irigoien

Zeren eta ontzi on bat duenak ontziz egin baitezake, oinez ez ezik, lasterka ere, ur gainean... baita hegan ere, **haize-oihala** hegaltzat harturik. Joan Mari Irigoien

13 hil oihal ik hil¹ 54.

14 oihal dendasup_1 oihalez eginiko denda. ik beheago 17.

Astebete egon nintzen kanpaleku nagusian, hogei oheko **oihal**-dendan [...] alta eman zidaten arte. Harkaitz Cano

Aspaldiko partez heriotza urrun ibiliko zen kanpamendu hartako **oihal-denda** hartatik, zelai kixkaliaren gainean inprobisatutako behin-behineko jantoki hartatik, barre ozen haiek uxatua. Harkaitz Cano

15 oihal dendasup_2 oihalak saltzen diren denda.

Oihal-denda baten jabe zen merkataria, eta ardi-mozketa bere aurrean egin zezaten nahi izaten zuen, faltsifikazioak saihestearren-edo. Xabier Aranburu

Ostiralero bezala, otoitz orduan, bere aitaren **oihal-denda** zaintzen zegoen Mamu, hura meskitan zen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Izen berri kristaua hartuta, kontulari-lan bat erdietsi zuen **oihal-denda** batean. Oskar Arana

-Zatozte, zatozte! -zioen, gizalagezko keinu nabarmenak eginez, saltzaile batek **oihal-denda** baten aurrean. Jose Morales

Oihal-denda izandako elizaren portxean eserita, pixka bat edanda eta zeregin handirik gabe, gai zen gauza horietan pentsatzeko. Anton Garikano

16 oihal etxe (29 agerraldi, 6 liburu eta 17 artikulutan; orobat oihaletxe 14 agerraldi, liburu 1 eta 10 artikulutan) ik oihalpe.

Jantoki gisara antolatutako **oihaletxe**ko errezela zeharkatzen lehena izan nintzen. Harkaitz Cano

Artsaldean, Elaudiko kantarien boz fina eta soinuariaren musika ezitia preziazten ahalko dira edo zoin aro izanikan ere, **oihal-etxe** handi bat eraikia izanen baita. Herria

Ororen buru, aterpe haundia, **oihal etxe** bat edo, hobeki eraiteko teilatu plastiko bat, murruren txapel izurtua. Piarres Aintziart

Uztaritzen "Xaputuan" bat muntatuko dugu, hogeitamar metro largo eta luze duen indiano **oihal etxe** bat. Herria

Uztaritzen "Xaputuan" bat muntatuko dugu, hogeitamar metro largo eta luze duen indiano **oihal etxe** bat. Herria

Chellala herrixkan plantatu ginen, **oihal etxe** handien aterbean. Piarres Aintziart

Arabiar **oihal-etxe** bat datilondo eta guzti -benetako artelana, Steffiren aitak egina kortxoekin-. Anton Garikano

17 oihal etxola (174 agerraldi, 11 liburu eta 12 artikulutan; orobat oihaletxola g.er.)

Ez naiz inoiz ere etxe batean bizi izan, israeldarrak askatu nituenetik gaurdaino; **oihal-etxolan** bizi izan naiz kanpalekuz kanpaleku. Elizen arteko biblia

Han tribu asko zeuden, kurdu nomaden kanpamentuak beren **oihal-etxola** handiekin. Fernando Rey

-Jaunaren Kutxa eta Israel eta Judako soldaduak **oihal-etxoletan** dira; Joab nire buruzagia eta haren zerbitzariak lur gorrian etzaten dira. Jose Antonio Mujika

Ben-Hadad, beste erregeekin batera, **oihal-etxoletan** edaten ari zen erantzun hau hartu zuenean. Elizen arteko biblia

Orduan, Tzadok apaizak, hartua baitzuen Jaunaren **oihal-etxolatik** olio-adarra, gantzutu egin zuen Salomon. Elizen arteko biblia

Ardoa edan zuenean, mozkortu eta **oihal-etxolaren** erdian biluztu egin zen. Jose Antonio Mujika

Ikusi orduko, lasterka joan zitzairen **oihal-etxolaren** sarreratik. Elizen arteko biblia

Harpean eta behetixeagoko belardietan **oihal-etxola** batzuk zeuden muntatuta. Fernando Rey

Oihal-etxolak bildu eta Hebronan zegoen Mambre-ko Artadian kokatu zen Abran. Jose Antonio Mujika

Baina onetsi behar izan zuten guarda nazional konpainia batek **oihal etxolak** beren funtsetan finka zitzan, mendi lepotik landa haien baserria lehena baitzen. Elena Touyarou

Asteartetik eta ostegun honetaraino **oihal etxolak** ezarri dituzte fakultate aitzineko pentzean. Herria

18 oihal etxolagile

Ogibide bera zuten **oihal**-etxolagileak ziren -, haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean. Elizen arteko biblia

19 oihal ontzi ik oihalontzi.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzeko oihal (4); **bainu oihal** (4); **bere oihal etxola** (5); **beren oihal etxola** (3); **beren oihal etxoletan** (3); **bi oihal** (6)

estaltzeko oihal (3); **gaineko oihal** (3); **hil oihal** (5); **holofernesen oihal etxolara** (3)

jaunaren oihal (4); **koloreko oihal** (4); **kotoizko oihal** (3)

oihal astun (3); **oihal aterbe** (4); **oihal batean bildu** (3); **oihal batek** (6); **oihal baten** (11); **oihal batez** (12); **oihal batzuk** (3); **oihal beltz** (9); **oihal beltzak** (3); **oihal busti** (3); **oihal denda** (8); **oihal dendan** (3)

oihal etxe (15); **oihal etxe bat** (4); **oihal etxea** (4); **oihal etxean** (3); **oihal etxola** (64); **oihal etxola bezala** (3); **oihal etxolak** (23); **oihal etxolako** (4); **oihal etxolan** (17); **oihal etxolara** (16); **oihal etxolara eraman** (3); **oihal etxolarako** (3); **oihal etxolaren** (13); **oihal etxolaren erdian** (3); **oihal etxolatik** (5); **oihal etxolen** (3); **oihal etxoletan** (18); **oihal fabrika** (3); **oihal fina** (4); **oihal finak** (3); **oihal gainean** (5); **oihal gaineako** (4); **oihal garbitzailearen sororako** (3); **oihal gorria** (3); **oihal gorriz** (4); **oihal handi** (13); **oihal handi bat** (3)

oihal latzak (3); **oihal latzez** (6); **oihal latzez estali** (3); **oihal latzezko** (8); **oihal latzezko beroki** (7); **oihal lodi** (4)

oihal puska (20); **oihal puska bat** (5); **oihal puskaz** (3); **oihal saltzaile** (7)

oihal urdin (6); **oihal xuri** (4); **oihal zahar** (5); **oihal zati** (13); **oihal zati bat** (3); **oihal zatiak** (3); **oihal zerrenda** (3); **oihal zerrendak** (4); **oihal zuri** (14); **oihal zuri bat** (6); **oihal zuria** (5); **oihal zuriak** (4); **oihal zuriaren** (5); **oihal zuriz** (4); **oihal zurizko** (3)

sorbalda oihal (4); **zetazko oihal** (8)

agertokiko oihala (3); **atari sarrerako oihala** (3); **haize oihala** (6); **hil oihala** (14); **koloreko oihala** (3); **mahai oihala** (4)

oihala altxatu (6); **oihala egiten** (3); **oihala erdiz erdi** (3); **oihala jaitisiko** (3); **oihala kendu** (7); **oihala ukitu** (6); **oihala zabalduko dute** (3); **purpura morezko oihala** (3); **santutegiko oihala** (3); **sarrerako oihala** (9)

atariko oihalak (4); **bela oihalak** (5); **haize oihalak** (5); **metro luzeko oihalak** (3); **oheko oihalak** (5); **oihalak kendu** (4); **oihalak zabaltzeko** (3); **zetazko oihalak** (4)

atzeko oihalaren (3); **oihalaren atzean** (6); **oihalaren beste aldean** (4); **oihalaren beste aldera** (3); **oihalaren gainean** (5)

oihalean bildu (3)

oihalen artean (3); **oihalen gainean** (4)

oihalez eginak (3); **oihalez egindako** (7); **oihalez estali** (3)

eskoziar oihalezko (3); **oihalezko aterbe** (4); **oihalezko etxe** (5); **oihalezko etxe azpian** (3); **oihalezko etxola** (4); **oihalezko kapela** (3); **plazako oihalezko** (3)

oihaleratu, oihalera(tu), oihaleratzen du *ad* margolan bat oihalean egin.

Frankie Ash **oihaleratu** eta gero mila eta berrehun dolar eskuratu zituen. **Pablo Sastre**

Halako gauzetan ipintzen zuen arreta Idoiak, eta denbora luzez egoten zen haiei begira, sorgor, harik eta bat-batean **oihaleratzen** zituen arte, barne-bulko batek eraginda.

Juan Kruz Igerabide

oihaleria *(orobat oihalteria g.er.)* 1 iz oihalezko gauzen multzoa.

Orduan, baserriko idiak uztarrarian, arropak, aferak eta dotea osatzen zuen **oihaleria** osoa orgetan garraiatu zioten. **Itxaro Borda**

Intxaur zurezko zoru eder bernizatuak, eta haietako armairuetako **oihaleria** ederra. **Josu Zabaleta**

Antolatzaile edo arduradunek jakin arazten dute, edozoin motako arroperia, zapeta bai eta etxeko **oihaleriaren** behar gorrian daudela. **Herria**

Xina hasi da, iduriz, amerikanoek alde batetik eta europanoek erakutsi kexuaren senditzen, hauk gaizki hartuak baitzituzten Xinako **oihaleria** izurriteak munduko merkatuetan, beren mugen beste aldetik prezioa apalegietan sortzen zaizkienak. **Herria**

Kontrolatzaileak leku aitzinatu eta bikain batean kokatu gintuen, kotoi gorritan azafratzko arrosak zituen **oihaleriaz** apaindua. **Koldo Izagirre**

Hala, bada, burua galtzen hasi zen iparrorratzaren eta astrolabioaren artean, nahastuz **oihaleria** eta artilleria, mesana eta tisana, [...]. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Arropa eta **oihaleri** bilketa. **Herria**

Zabala jaun-anderek alde bat zerratuko dute otsail ondarrean merkatugunetik bi urratsetan duten **oihaleria** saltegia. **Herria**

oihaletxe ik **oihal** 16.

oihaletxola ik **oihal** 17.

oihaletxoladun *izlag* oihal etxolez hornitua.

Hola nahiago dute berek bermatu, eskainiak zaizkien **oihaletxoladun** kanpamenduetan beha egon baino. **Herria**

oihalgile 1 iz oihalak egiten dituen pertsona.

Glasgow-n zegoen bat, **oihalgile** baten dendan, eta Belfasteko te-salerosle baten enplegatu zegoen bestea. **Irene Aldasoro**

Oihalik finenak bezala zahartzen zen, zeta fin eta antzinakoen antzera, zeinag egitean **oihalgile** trebeen familia oso batek bere amets guztiak oihal-zati hartan ehuntzen dituen. **Xabier Olarra**

2 oihalak egiten diren lantegia. ik **oihalgindegi**.

Bergarako TAVEX (%3,87) Brasilgo *Santista Textil* **oihalgilearekin** bat egitera doa, kapitalaren %45 ordezkatzen duten akziodun nagusiek atzo jakinarazi zuten. **Berria - Ekonomia**

oihalgindegi *iz ipar* oihalak egiten diren lantegia.

Mendi muinoetan errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegia ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, **oihalgindegiak** eta larru-apaindegia. **Piarres Xarriton**

Txokolateriak eta **oihalgindegiak** hurbil. **Itxaro Borda**

oihalgintza *iz* oihalak egitea.

Komunitatea hogei bat lagunek osatu zuten hasiera batean, gehienak artisau-lanetara emanak: zeramika, **oihalgintza**, marrazkigintza, pintura... **Joan Mari Irigoien**

Herrialdeko **oihalgintza**, behinola Kristautasun osoan famatua, gainbehera larrian erori zen. **Iban Zaldua**

Egoera hartan, Ana, nire emaztea, **oihalgintzan** hasi zen lanean, diru zerbait irabazteko. **Jose Antonio Mujika**

Georges, Lillen sortutako **oihalgintzako** langile bikote komunistaren semea. **Itxaro Borda**

oihalki *iz* oihal zatia, oihalezko pieza.

Guraize profesionalak, kolore guztietako patrioiak eta **oihalkiak**. **Joxan Elosegi**

Oihalkien gisa iristen zaizkio oroitzapenak zenbaitetan, eta kosta egiten zaio oroimena behar bezala janzteko moduko soinekorik jostea. **Imanol Zurutuza**

Sadioko **oihalki** koloretzuak salgai izanen dira ere: elkortzen berri horren lehen fruituak dira. Herria
1953. urtean, François Begueriek sortutako *Les Tissages du Saison* enpresaren lehendabiziko jarduera izan zen zapatagintzarentzako **oihalkiak** fabrikatzea. Berria - Harian
APF-ak segurtatzen du bildu **oihalkien** ehuneko 90a arratratatzaileei saldua izan zaiela, eta hortik atera duen dirua enbaldituen laguntzeko erabiliiko dela. Herria
Oihalkien bilketa APF elkartearentzat. Herria

oihalontzi *(orobat oihal ontzi)* iz belaontzia.

Itsuanen hartzak gelditu egin ziren orduan heldulekuan, arkuak zubian bezala, **oihalontzia** itsaso geldian bezala, eta poliki-poliki etorri zen lehengora baretasuna eta gerezi usain sarkorra. Felipe Juaristi

Haizeari esker dira libre **oihalontziak** itsasoan. Josu Zabaleta

Han ezagutu zuen bere bizitza guztian zaletasun handia izango zuen itsasoa eta **oihal ontzi** handiak. Josu Zabaleta

oihalpe iz oihal azpiko aterpea.

Bi **oihalpe** zabal muntatuak dituzte, batto ikusgarrientzat, nahiz zombait kanpoan ere emanen diren, eta bestea jantegi bezala. Herria

Ikusgarri guziak **oihalpe** zabal baten pean emanak dira, gaitzeko giro goxoan. Herria

Ortzirale aratsean, Miarritzen, Agileran plantatu **oihalpe** batean, Alpha Blondy. Herria

Eguerdiko bazkariak arrakasta ederra ukan du, **oihalpea** jendez beterik zagola. Herria

Caneta-ko **oihalpean**, aratsaldeko 7-etan, "Les balles populaires" eta ondotik Afrikako perkusio berezi batzu. Herria

Oihalpean, betiko giro beroa ginuen bazkarirako. Herria

oihaltegi iz oihal denda.

Denda apal bat zen, **Oihaltegia** izen lausoaren pean errejistratua. Irene Aldasoro

oihalteria ik oihaleria.

oihaltxo iz oihal zati txikia.

Batetik bestera doaz, txima handiekin, maiz zikin aski, noiz edo noiz azazkal luze makur-makurrekin, ia larrugorri, gerrian **oihaltxo** soila dutela. Gotzon Garate

Eskez idatzi nahi baduzu, beso azpian **oihaltxoa** ipini beharko duzu, izerdiz papera blai-blai egin ez dadin. Gotzon Garate

Gainenat delako **oihaltxoa** ez omen dute beti agerian ezartzerik, sakelan atxikitzea ere aski... Herria

. Begiraleek arreta gutxien erakusten duten bazkalosteko ordu nagi horietan Dontsu lagun batzuk bildu ditut (Lujanbio, Beñat Mardo, Iturrino...) parkeko bazter batean, gogoan nituen bi adabakiekin jositako **oihaltxo** xume hori irakurtzeko. Anjel Lertxundi

oihaltzar iz adkor oihal zati handia.

Pausutik pausura galduta ibiliko da, eta bere **oihaltzar** zakarraren hirukia agertuz. Patxi Ezkiaga

oihan 1 iz basoa, bereziki handia eta basatia dena.

Gizon prestu batek berdin jokatzeko du etxean zein Afrikako **oihanetan**. Lopez de Arana

Ontziak, ustez, Amazoniako **oihanean** legez kanpo moztutako kaoba egurra zeraman Miamiara. Berria - Gaiak

Handik hamarraldi batzuetara, Malaysiako **oihanetara** aldatu zituztelarik, Wickhamen aleek *hevea*-sail handi-handiak sorrarazi zituzten, latexa ibaika ematen zutenak. Jon Muñoz

Brasilgo **oihaneko** beste bazter batera. Jon Muñoz

Joan zen Landesetara **oihaneko** lan bortitzerat. Herria

1807an, maitagarri andana bat Aix ondoko **oihan** batean agertu zen, eta nekazari baten alaba eraman zuten, **oihanean** sartua baitzen arropa-pardel batekin. Xabier Olarra

Ibaiaren ertzean kokaturik zegoen etxaldea, **oihaneko** soilgune batean. Jon Muñoz

Ene denbora-pasa bakarrak: telebixtari so edo oinezko ibilaldi zenbait, ardurenik Angeluko itsasalderat, **oihana** pollita ere baita hor, dena pinu, zernahi bidexka pinu horien artetik. Janbattitt Dirassar

Erreka zulotik alendu ahala soilduz joan da **oihana** eta anitzuz soinuak. Pello Lizarralde

Badu bulta bat patarra beheiti egiten ari dela, baina **oihana** beti bezain sarri. Piarres Aintziart

Oihana piztia arrisksuz betea dago, mundu guztiak daki hori. Iñaki Mendiguren

Beheko **oihan** lainoz estalitik hegazti baten karraka heldu zaio. Pello Lizarralde

Komunikazioaren munduan **oihaneko** legea da nagusi. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zegoen oztoporik - **oihana** eta izotza izan ezik, kosako nomada borrokalarien ohiko aliatuak- errusiar Kristandade Ortodoxoaren aitzindari haiei Uralak igarotzea eragozteko. Iñaki Mendiguren

Oihanez oihan lehenik eta mendi kaskoetatik gero, Amaiurreraino heldu zen. Eneko Bidegain

Orotara beraz, 28 hektarea bazituen: 22 hektarea lur erabili eta beste 6ak **oihan** eta larre. Daniel Landart

2 (izenondoekin)

Aldudeko **oihan** komunean egurrak egiteko beren baimena eman zuten. Michel Oronoz

Amikuzeko **oihan** komunala. Itxaro Borda

Amerikako **oihan** tropikaletatik at, landarea loratzen zen baina ez zuen lekarik ematen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dena gainean hartu eta hor doaz, bilin-boloka, **oihan** tropikala zeharkatzen duen espedizioa balitz bezala, igerilekurako bidean. Xabier Mendiguren Elizegi

Aste osoak igarotzen nitian **oihan** betean, inor ikusi gabe. Jon Muñoz

Gorsehillgo **oihan** oparoak inguratzen ninduela. Koro Navarro

Hortik elikatzen da halaber gure eta animalien enda, hortik dakutsagu hiri alaiak umez loratzen eta **oihan** marduletan txori berrien kantua nonahi entzuten. Xabier Amuriza

- **Oihan** birjinako akusmatiko baten bila! Jon Muñoz

oihaneratu, oihanera, oihaneratzen da *ad* oihanera joan.

Urduri **oihaneratu** ginen. **Aingeru Epaltza**

oihanestatze ik **oihaneztatze**.

oihaneztatu, oihanezta, oihaneztatzen **1** da *ad* zuhaitzez bete. ik **basotu**; **oihanberritu**.

Besteak beste dela 10.000 urte izan diren hotz haundien ondotik nola gure mendiak berriz **oihaneztatu** diren. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa) • **irud/hed**

Ximurraren gorpuzkera mehatua eta buru **oihaneztatua** begiztatu nituen elizako eskaileretako goiko harmailetan. **Aingeru Epaltza**

oihaneztatze (*corpusean oihanestatze soilik*) *iz* zuhaitzez betetzea.

Oihanzaingo zerbitzuek nahi lukete beraz **oihanestatze** sail berezi bat akulatu, urte guziz arbola andana bat landatuz eta hori hamabost urtez segidan. **Herria**

oihangintza *iz* oihanak lantzea.

Segurki bada nun zer asma eta susta: laborantxa, **oihangintza**, etxe mozkinen sal erospenak, energia berriztagarriak, euskalgintza eta kultura sail guziak. **Herria**

oihangune *iz* oihana dagoen gunea.

Arratsalde urdina, eta ohiko mendi-haize epelezko horma: Vierwaldstättersee (Lau **Oihanguneen** Lakua), eskuinera Wetterhorn, atzerago Eiger eta Jungfrau, beharbada baita Finsteraarhorn ere, ez dut gure mendion artetik beste ezain bereizten, buruan beste zerbait darabilt. **Joxe Austin Arrieta**

oihanlur *iz* oihanpeko landaretza.

Halaxe jokatzan du naturak: iratzearen jas ederra **oihanlurreko** usteltzatik ateratzen du, eta bazka-belartza simaurretik. **Juan Garzia**

Intsektua ernaldurik gertatzen da, arrautzak jartzen ditu eta hiltzen da: gorputxo **oihanlurrean** datza; bere umoreez hustu da, baina kitinazko oskolak luzaro dirau, ia suntsiezin. **Juan Garzia**

Horra hor lanean **oihanlurreko** ehorzle nonahiko, unaezin eta ikusezinak, humuseko mikroorganismoak. **Juan Garzia**

oihanpe *iz* oihanaren azpialdea. ik **basope**.

Lekunberritik San Mikaelera 17 kilometro dira **oihanpez oihanpe**. **Herria**

Puska batean, deabruak hartua, Erromako printzearekin, monjeekin, serorekin eta, finean, papista guztiekin zer eginen nuen ari izan nintzaion oihuka **oihanpeari**. **Aingeru Epaltza**

Jaio nintzen basetxea, laster bertan hilko naizena, **oihanpean** da. **Juan Garzia**

Oihanpetik atera gabe eman die bizkarra, urrundu beharra akuilu. **Aingeru Epaltza**

oihantsu 1 *izond* oihan asko dagoena. ik **basotsu**.

Gero Zelai hura dena inguratua da mendi **oihantsuez**, eta erdi erdian Auritzeko herri pollit eta garbia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Aro ederra zen trenak aizina zuen, Moselle ibaiari harat zihoala, eta luzeki ikus genitzakeen ibaia bi aldeetatik hesten duten mendixka **oihantsuak**. **Marzel Etxehandi**

Eta nongoa da Orentzero, endemas aldeotako baso **oihantsu**, burniola zahar, eta ikazleku oparoenetakoa ez bada? **Patziku Perurena**

Kama ibaia zabal-zabal hedatzen zen orduan, eta xarmangarriak ziren haren ertz **oihantsuak**. **Karlos Zabala**

Ibaiaren erdian, berriz, uharte **oihantsua** sortzen zen, eta haren kostaldean ontzi ugari zeuden ainguraturik. **Agustin Otsoa**

Amazonia lurralde **oihantsuan**, 30 urte barne, oihanaren eremua ttipitu da % 20-ez. **Herria**

2 irud/hed

Oso oker ere ez zebilen: ezpain gainean bibote **oihantsua** ageri zitzaion jada, gu oraino kasik lumatu gabeak ginelarik. **Aingeru Epaltza**

oihantto 1 *iz* oihantxo.

Sortetxeko **oihanttoan** ikusten nituen xori guzien izenetaz ez naiz oroit baina negu gogorretan sukaldeko leiho aitzinera hurbiltzen ziren etxetxoriak ditut orain gogoan.

Piarres Aintziart

Gu segurik osorik heldu gira Zugarramurdiko **oihantto** baten hegian dagon Anttonen benttara, Sarako harpeetarik bi urratsetan. **Herria**

2 irud/hed

Bere eri segailekin zotz xuri beltz batzu hunkitzen zituen eta zilarrezko hodi luze, ttipi, lodi, mehe batzuetarik, baziren, baziren, zilarrezko **oihantto** bat iduri zuten, soinuak ateratzen ziren, lodi, mehe, guri, zorrotz, beren barneko hatsa bera sendi baitzen. **Michel Oronoz**

oihantxo *iz* basotxo. ik **oihantto**.

Han urrun, **oihantxo** eta ur-errotaz josirik belardiez harantzago, berde eta urdin ageri ziren baso sarriak, itsasoaren edo lainoaren irudiko. **Jose Morales**

Bi alboetatik, beraz, ezin ibil zitekeen, eta destakamenduak **oihantxo** haren aurretik pasa beharko derrigorrean, Irkutskeko bide nagusian zehar zetozenez gero. **Karlos Zabala**

Oihantxora hurbiltzerakoan, zaldien ibilera mantsotzen hasi zen. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Mutikoa ematze larruhasari begira egon zen; zangarteko ileek osatzen zuten **oihantxoak** fazinatzen zuen. **Itxaro Borda**

oihantzain ik **oihanzain**.

oiantzainburu ik oihanzainburu.

oiantzar *iz adkor* oihan handia.

Maia-herri hau bezala: gurpila ezagutu ez eta piramideak eraiki, tenpluak **oiantzarraren** erdian, dena lizundu eta hezetasunez birrintzen den lekuan... zertarako? **Joxe Austin Arrieta**

oihanxka *iz* oihantxo.

"Corps-Franc Pomiès" beste armako hogeita hamar bat gūdari oihal-etxoletan zaudean Ürrüstoiko eliza gibelean, erreka bazterreko **oihanxka** batetan, eta katexima egūnez elestatzen gūntūan. **Herria**

oihanzain (*orobat oihantzain; Euskaltzaindiaren Hiztegia oihanzain agertzen da*) *iz* basozaina.

Badira ere mendian bizi direnak edo menditik bizi, laborari, artzain eta **oihanzain**. **Herria**

Louis de Froidour **oihanzain** handiak. **Herria**

Idazlea, Jacques Luquet **oihanzaina**, bera ere ttipi-ttipitik urtxo ihiztarien artean ibilia. **Herria**

Hartzak artzainaren etsai, orkatz eta oreinak **oihantzainen** etsai, basurdeak laborarien etsai. **Herria**

Ene **oihantzain** denbora laburra izan zen, zazpi urte bakarrik, Senperen **oihantzain** iragan nituen urteak ene biziko ederrenak kausitzen ditut. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Noiztenka, sardeak eta labana zorrotzak eskuetan, asaldatzen ziren funtzionario **oihanzainak** mehatxatuz. **Itxaro Borda**

oihanzainburu (*corpusean oihantzainburu soilik*) *iz* oihanzainen burua.

Hitzegin zuten gero Jacky Vicedos Oihantzainak eta Pierre Salaberry **Oihantzainburuak** azaltzeko zer nolakoa den xedea. **Herria**

oihanzaingo *iz* oihanak zaintzeko jarduera.

Bizi guzian arizana da **oihanzaingoari** loturiko injinadore lanetan. **Herria**

Duela hiruzpalau urte hasi zen **oihanzaingoaz** mintzaldi zenbaiten eskaintzen. **Herria**

Makila ferratu bat eman dako Baionako auzapezak, hoinbeste lan egin duelakotz, gure kulturaren alde, pilota, **oihanzaingoa** eta denek hoin maite dugun "gure bazterrak" emankizuna. **Herria**

oihar 1 *iz* durundia. ik oihartzun.

Gizona gontzetarik atera zen, dena **oihar** eta karranka. **Itxaro Borda**

Elizaren baretik kanta suharren **oiharra** zetorkien belarrien kilikatzer. **Itxaro Borda**

Kanpoko herotsen **oiharra** ahantzi bezain laster, Joanaren begitartearen araua zetorkidan golkoaren kilikatzer: non zebilen? **Itxaro Borda**

Maianak azietak erortzen eta hausten entzuten zituen, gorputzak ubeltzen zituzten ukabila kasken **oihar** elkorrak. **Itxaro Borda**

2 oihar izan da *ad* durundiatu.

Ordularia hamabi aldiz **oihar** zenean, Jacob sartzen zen eta gohaina usnatzen bailuan, izar horia zekarren aterkia disgustuz dilindatzen zuen. **Itxaro Borda**

· (*aditza ezabaturik*) Zanpa-zanpa zebilen etxean ehar, urrutizkinaren txirrina **oihar**. **Itxaro Borda**

Orduko *associated press* agentziako agiria berriz irakurtzen baldin banuen, irratiko ahotsak eta azienda ñapurren marrakak jagoitik belarrian **oihar**, galbidean erratu "emazteki" baten biografia nire nezakeen. **Itxaro Borda**

oiharrarazi, oiharraraz, oiharrarazten du *ad* durundiarazi.

Elizako dorreak hil-zeinuen danbakoak **oiharrarazi** zituenean, zulgileak irudiz, errealitatera itzuli ziren. **Itxaro Borda**

Marmarok gerri-mina sendatzen zuen erraz, eria bizkarrean har eta naski latinez baina hizkuntza aski misteriozua zen, bara-baratzen zituen oitizak **oiharraraziz**. **Itxaro Borda**

oihartu, oihar(tu), oihartzen da *ad* durundiatu.

Tiroak **oihartu** ziren ortzaizeaz bestaldean. **Itxaro Borda**

Klinikako gela batetik zakur errebelatu baten zaunka luzea **oihartu** zen. **Itxaro Borda**

Musika **oihartu** zenerako Pierrak Agata gerritik hartu zuen, dantzara deituz. **Itxaro Borda**

oihartzuar ik oiaztuar.

oihartzun (*orobat oiharzun g.er.*) **1** *iz* hots uhinek behaztopa bat aurkitzean gertatzen den hots errepikatzea; horrela errepikatzen den hotsa.

Ez zuen deus entzuten, halako **oihartzun** batzuk bakarrik. **Eneko Bidegain**

Oihartzunak durundi egiten du, behin eta berriz errepikatuta. **Iñaki Arranz**

Ararateko **oihartzunak** erantzun zion. **Fernando Rey**

Tiro itsuei tiroen **oihartzunak** baizik ez zieten ihardesten. **Itxaro Borda**

Beste tiro batzuk gehiago bota nituen, eta **oihartzunak** entzun nituen muinoen kontra. **Juan Kruz Igerabide**

"Especialista batengana joan beharko dut" dioen bere ahotsaren **oihartzuna** entzun da sukalde hutsean. **Eider Rodriguez**

Bonsoir! erranez barneko hesia hesten didate, klixka!, atea gero, klaska! klaska! giltzarekin bi itzuli, eta, klanka!, gaineo zerrapoa, klanka!, pekoa, zeldaren barnean sekulako **oihartzuna** eginez... **Filipe Bidart**

ik behegaro 7. Askoren artean

Gero Tabiraren ahotsa heldu zitzaion, urrundik, dantzaka, **oihartzun** gisa errepikatuz: [...]. **Joanes Urkixo**

Bere amaren ahotsa inoiz baino ozenago entzuten zuen bere buru barruan, **oihartzun** baten gisa: [...]. **Iñaki Mendiguren**

2 (izenondoekin)

Emandako urratsen **oihartzun** geldoa entzunez jaitzi ziren, Kale Isilera, Rath Dinenera iritsi ziren arte. **Agustin Otsoa**

Agindu ozenen baten **oihartzun** xume-xumea heltzen zen niganaino. **Txillardegi**

Mila ezezagunen elkarrizketen **oihartzun** hurbilak oraindik ere belarrietan durundika, espaloieren erdian gelditu eta, bat-batean, herrimina gaineratu zitzaidan. **Alberto Ladrón Arana**

Nire andrearen ahotik ateratako "Fernando, bagoaz?" horrek **oihartzun** durunditsua utzia zidan belarri barnean. **Aingeru Epaltza**

Weasley andrearen oihuek, ohi baino ehun aldiz ozenagoek, tintin-hotsa eragiten zieten mahaiko plateri eta koilari, eta **oihartzun** gorgarria harrizko paretetan. **Iñaki Mendiguren**

Itsas barraskilo batek itsasoaren marmarra bere altzoan nola, halaxe darama literaturak oihartzunen **oihartzun** etengabea. **Anjel Lertxundi**

3 irud/hed

Orain, berriz, ezagututako alaitasun guztien **oihartzuna** iristen zitzaion. Liburu bat zabaldu orduko, idazlearen arreta piztu duten **oihartzun** batzuk entzun eta antzeman ditzake irakurleak: idazlearen mamu kuttunak eta obsesio zaharrak; [...]. **Agustin Otsoa**

Eta susmoa hartu nion txakurren beldur hura ez ote zen beste beldur sakonago baten **oihartzun**. **Pedro Alberdi**

Zer **oihartzun** izan dezake horrek guztiak Sephenen arte-lanean? **Xabier Olarra**

Euren ekintzen **oihartzuna** neurtu gabe egin dituztela horietako asko. **Eduarne Elizondo**

Besoa diosal egiteko goratu zuenean, gehiegi altxatu zuen; espasmo edo postura zurrin batean gelditu zela zirudien: noizbait izandako estereotipoen zantzu bat, **oihartzun** bat edo. **Xabier Olarra**

Oihartzun dute Portalisen baitan dibortzioaren aldeko eta aurkako argudioek. **Andres Urrutia**

Maite dut nire ateraldiek **oihartzun** izatea. **Aingeru Epaltza**

Greenpeaceren jarrerak oraindik ere **oihartzuna** badu hemen. **Eduarne Elizondo**

Nahiz, dena oihu eta burrunba dagoen mundu nahasi huntan, ospakizun horien **oihartzuna** ez bide den lehen bezan azkarra... **Herria**

Goragoko mailetan gertatzen da integrazioa, eta hala elkartzeko dira koloreak eta oroimena, espero dena, asoziazioak eta desirak, **oihartzunezko** eta esanahizko mundu bat sortzeko gutariko bakoitzarentzat. **Xabier Olarra**

4 irud/hed (izenondoekin)

Badaude gurean, atzerrian **oihartzun** ona izan duten liburuak, eta beharrezkoa da jakitea kanpoan zerk funtzionatzen duen. **Ana Urkiza**

Hilketak **oihartzun** handia izan zuen. **Oihartzun** eta indar handiko grebak antolatuta ziren. **Migel Angel Mintegi**

Solidarioen ekintzak **oihartzun** zabala izan zuen Euskal Herrian, baita hemendik kanpo ere. **Eduarne Elizondo**

Atzean geratu dira, oso atzean, gerra lagarriaren **oihartzun** metrailazkoak. **Oihartzun** metagramatikoa: hitza hizki bat aldatuta errepikatzen da. **Iñaki Arranz**

Oihartzun luzatuaren kasuan, bigarren hitzak lehenengoaren errepikapena da, baina hizki bat (edo batzuk) gaineratuta. **Iñaki Arranz**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zergatik ez pentsatu liburuek berek, liburuen beren artean sortzen ziren dei eta **oihartzun** jokoeekin, erabakitzen zutela Enrikeren gogoaren higidura? **Iñaki Iñurrieta**

Ixtorio-mixterio hitz bikoitzak prozedura ondo baino hobeto baliatzen du: lehenengo hitzaren metagramari *m* bat erantsita, errepikapenak ez du bakarrik **oihartzun** efektua sortzen, aitzitik zentzuz beteriko bigarren hitz bati probetxu semantikoa ere ateratzen dio. **Iñaki Arranz**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hots **oihartzun** hauen indar poetikoa ageri da batzuetan: [...]. **Iñaki Arranz**

Gorria eragiteko moduko kanoiztateak harrabots-**oihartzun** egin zuen zerumugan. **Edorta Jimenez**

Konposizioaren zentzu plastikoak gainera, konposizio hitzak dituen musika-**oihartzunak** ere ez baitira ahaztu behar. **Josu Zabaleta**

Txontaren txio-txioa entzun zuenean, fusileria **oihartzun** urruna etorri zitzaion gogora. **Karlos Zabala**

Frantziako gerla **oihartzunak** ez ziren oraino Nafarroara ailegatu. **Aingeru Epaltza**

Nola mantendu, moldatu eta hobetu bere gizarte-**oihartzuna** eta euskal komunitateari egiten dion ekarpen kultural, intelektual eta ludikoa? **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

· Musika **oihartzun** hari etenkor bat heltzen zen gugana. **Txillardegi**

7 oihartzun egin

Gure oihuek **oihartzun egiten** zuten kale isilean. **Irene Aldasoro**

Haren irriak, berriz ere, **oihartzun egin** zuten "Lisboako" paretetan. **Aingeru Epaltza**

Handik gutxira, kanpai handiaren tenore-eiteko dangadek **oihartzun egin** zuten herrixka osoan zehar. **Mirentxu Larrañaga**

Hiru bider **egin** zuten **oihartzun** Atearen kontra ariete handiak. **Agustin Otsoa**

Kantuei etsaien garrasi zakarrek **egiten** zieten **oihartzun**. **Elizen arteko biblia**

Kontuz emandako pauso bakoitzak ozen **egiten** zuten **oihartzun** horma itzaltsuetan. **Iñaki Mendiguren**

Egun osoan aditu gabeko danbatekoek orain **egiten** zuten **oihartzun** kanpo aldean. **Aingeru Epaltza**

Basoa soinu bezalako betetzen da eta harkaitzek **oihartzun egiten** diete poz-kantuei. **Askoren artean**

Ordu bateko eta bietako joetan, zakur batek saingaka egin dio **oihartzun**. **Aingeru Epaltza**

Testu batek gure baitan **oihartzun egiten** badu, imaginario berezia sorrarazten badigu barnean [...], malgua bezain aberatsa den hizkuntzan, kontsidera daiteke begien aitzinean dugun testua kalitatezkoa dela. **Ana Urkiza**

· Haien hanka-hotsak **oihartzun** ozena **egiten** zuten Crabberen eta Goyleren hanka handiek lurra jotzean. **Iñaki Mendiguren**

Egia osoa, egia mina, ez da bakarrik jateko moduko platera; ez da nork bere buruari gordinki esatekoa ere, zeren pertsona bakarraren barruan **oihartzun** edo durundio gaiztoa **egiten** baitu, eta asko eta izugarri baita anplifikatzen, jasangaitz, erregarri eta norbere buruaren torturatzaile bihurtzerainokoa. **Iñaki Segurola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lanaren oihartzun (3)

oihartzun asko (3); oihartzun bat (18); oihartzun batek (3); oihartzun baten (6); oihartzun batzuk (4); oihartzun berezi (3); oihartzun berezia (6)

oihartzun egin (19); oihartzun egin zuen (9); oihartzun eginez (3); oihartzun egiten (23); oihartzun egiten zuten (4); oihartzun eskasa (4); oihartzun gehiago (3); oihartzun gisa (11); oihartzun gutxiago (3); oihartzun handia (68); oihartzun handia eduki (3); oihartzun handia izan (44); oihartzun handia lortu (4); oihartzun handiagoa (27); oihartzun handiagoa izan (5); oihartzun handiagoa lortu (4); oihartzun handiena (5); oihartzun handiko (10); oihartzun huts (3)

oihartzun izan (5); oihartzun izugarria (4); oihartzun luzatua (6); oihartzun luzatuaren (3); oihartzun mediatiko (6); oihartzun metagramatikoa (3); oihartzun murriztua (3)

oihartzun onak (3); oihartzun ozena (3); oihartzun txikia (5); oihartzun txikia izan (3)

oihartzun urruna (4); oihartzun zabala (11); oihartzun zabala izan (4); oihartzun zabala lortu (3); oihartzunen; oihartzun (3)

urratsen oihartzun (3)

ahots baten oihartzuna (3); ahotsaren oihartzuna (6); ahotsen oihartzuna (4); azken oihartzuna (3)

hitzen oihartzuna (14); hotsen oihartzuna (4)

izan duen oihartzuna (4); izan zuen oihartzuna (10); lehenengoaren oihartzuna (3); nire urratsen oihartzuna (4)

oihartzuna aditu (3); oihartzuna balitz bezala (3); oihartzuna egiten (4); oihartzuna egiten zuten (3); oihartzuna eman (3); oihartzuna entzun (11); oihartzuna entzun zen (3); oihartzuna entzuten (10); oihartzuna hartu (3); oihartzuna heldu (3); oihartzuna iritsi (3); oihartzuna izan (37); oihartzuna izan du (9); oihartzuna izan zuen (9); oihartzuna izango (4); oihartzuna izatea (5); oihartzuna jaso (3); oihartzuna sumatzen (3)

oihuaren oihartzuna (3); **sekulako oihartzuna** (5); **sortutako oihartzuna** (3)
urratsen oihartzuna (6)
ahotsaren oihartzunak (3); **lehen oihartzunak** (3); **oihartzunak entzun** (3); **oihartzunak entzuten** (4)
oihartzunaren bila (3)
oihartzunen gelan (3); **oihartzunen jokoa** (3); **oihartzunen oihartzun** (3)
ez dute oihartzunik (6); **inolako oihartzunik** (4); **izan zuen oihartzunik** (3); **oihartzunik gabe** (4); **oihartzunik handiena** (5); **oihartzunik izan** (11); **oihartzunik izango** (4)

oihartzuntsu *izond* oihartzunez betea.

Horregatik du berebiziko garrantzia hots **oihartzuntsuenak** -oihartzun ozenenen oihartzun direnak- euskaratzeak. **Anjel Lertxundi**
Eta, ordu laurden baten buruan, olatuarena eginez, *sumsum corda* alai **oihartzuntsua** besterik ez zen entzun patio gotikoaren airean. **Karlos Linazasoro**

oiharzun ik oihartzun.

oiher *izond ipar* okerra.

Horrek, Baionara jin genetik beti iluna zuen soarekin batean, zinez aire **oihera** ematen zion. **Elena Touyarou**

oihes ik oies.

oihesgo 1 *iz ipar* kontrakotasuna, gorrotoa

200 judu izan dira Frantzia Sharonen deia entzun dutenak Israelerat emigratuz: heietarik zenbait, egia-erran, joan dira Sharonen salatu zuen **oihesgoaz** aserik, baina ez denak: parada on hortaz ballatzea gatik joan dira batzu, edo ere familiako arrazoinez, edo itxudioen gatik, edo ere beren abertzaletasun arrazoinez. **Herria**
Elgarrekin baketze horren lanak ororen gainetik: azken berrietan 200 gudukari pasaturik, 10 aitzindari heietan, dira errenditu, erranez **oihesgoak** ez duela bererik oraingo kasuan. **Herria**

Badakigu protestak izan zirela Frantzia, erakutsiz han hemenkako zenbaiten herrazko jestu txarrek ez dutela nazione baten **oihesgoa** erran nahi. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Deitoratu du, bere aitzinekoen urriki-dolu bat bezala erakutsiz, hainbeste hil eta kalte egin zuen gerlari **oihesgoa**, eta herra haien lekuan Europaren anaitasun solasak erakutsi aski bihotzekin. **Herria**

oiheskeria ik oieskeria.

oihestu, oies(tu), oihesten du *ad ipar* izutu, sumindu.

Israelek dio dei egin Nazioeen Batasunaren Biltzar Nagusiaren karietara, deitoratuz Israelgo haurren izitze eta harridura palestindarren abrekeriek **oihesturik**. **Herria**
Dei horri buruz ziren **oihestuak** presoen familietako 30 bat buraso: Bogota kapitaleko katedralea okupatu ere dute hauk eta orduan ditu Alvaro Uribe presidentak burasoak errezebitu eta heien artean Bogotako kardinalea, Mgr Pedro Rubiano. **Herria**
Abidjan kapitalean eta hango lurretan aspaldi du elgarrekin ainitz harreman balios badutela hango beltzek eta hemengotar zuriek, zenbait elgarri buruz **oihesten** hasiak badira ere. **Herria**
Darfour eskualdea, Afrikako Soudan herriaren zeharrean, ainitz aipu da oraino ere: bi miliu iheslari dabilta han gaindi gerla zibil batek **oihesturik**. **Herria**

oihu (*orobat oju g.er.*) 1 *iz* ahotsak egotziriko hots zolia. ik **deiadar**; **orro**; **garrasi**; **heiagora**.

Belatxinga baten orroaren antzeko **oihu** bat entzun zen publiko artetik: [...]. **Anjel Lertxundi**
Amak aurpegira eraman zituen eskuak, **oihu** bat itotzeko. **Juan Kruz Igerabide**
-Oihu bat, oihu haundi eta azkar bat igaiten da kontzentrazio zelaitik, 1945eko apirilaren 30a hartan eta denetan zabaltzen: "Amerikanoak! Amerikanoak!". **Michel Oronoz**
Oihu bat jaurti zuten emakumeek, **oihu** bat eta bakarra, aho bat eta bakarra balute bezala. **Felipe Juaristi**
Phips-ek **oihu** bat jaulki zuen. **Juan Garzia**
Halako batean, **oihu** bat gailendu zitzairen gainerako asotsei: [...]. **Aingeru Epaltza**
Emazte mehats eta hauskor bat, beltzek jantzia eta ile zuriak kolore bereko zapien bildurik agertu zen eta etxeko andre zaharrari **oihu** bat atera zitzaion. **Elena Touyarou**
Oihu bat itzuri zitzaion Taibeleri. **Koro Navarro**
Ez, ez zen posible kalkulatzea **oihu** hark eragin zuen isiltasunaren sakona. **Juan Garzia**
Kantuak, azalpenak, jendearen gora eta **ojuak**. **Iñigo Aranbarri**
Nire **oihu** eta espantuek gazteluko biztanle guztiak erakarri zituzten patiora. **Aingeru Epaltza**
Garrüzera obligatu zuen, astoa eta guzti, haren **oihu** eta madarikazioei entzungor. **Aingeru Epaltza**
Isiltasuna beti hots baten, kolpe baten, **oihu** baten atari da. **Jon Maia**
Pozezko **oihuz** eta malkoz egin genien ongietorria Jani eta Miepi. **Josu Zabaleta**
ik beherago 6. **Askoren artean**
Ez ele, ez **oihu**, ez marraka bat. **Michel Oronoz**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arestian **oihu** alaiak zirenak intziri eta zinkurin bihurtu ziren, bat-batean. Oso **oihu** handia egin nuela uste dut. **Joan Mari Irigoien**
Oihu ikaragarri, zoli, erdiragarri, emakume baten oihu bat, zabaldu zen gauean. **Josu Zabaleta**
Oihu garratzak izango dira Jaunaren egunean: ausartenak ere garrasi egingo du. **Elizen arteko biblia**
Oihu zorrotza egin zuen eta hortaz, jakina, ohelaguna esnatu. Burutik oinetaraino dardaraz, lurtean itzulika hasi zen, **oihu** lazgarria botaz. **Matías Múgica**
Oihu errukarri haiek egiten zituztenei laguntza emateko. **Karlos Zabala**
Oso ondo entzuten nituen haien **oihu** zakarrak eta kolpe-hotsak. **Anjel Lertxundi**
Bat-batean emazteak **oihu** elkorra bota zuen. **Itxaro Borda**
Oihu petralak, maiseatze keinuak. **Patxi Iturritegi**

Gero, **oihu** handi bat hirian zaiten: "Legea maite izan eta itunari eutsi nahi diotenak betoz nirekin!". [Elizen arteko biblia](#)

Mespretxuzko **oihu** ttiki bat egin eta... zarrast! goitik behera urratu zuen gutuna. [Joxan Elozegi](#)

Orduan, pozezko **oihu** bat egin, eta estu besarkatuko luke umea. [Julen Gabiria](#)

Minezko **oihu** bat bota zuen. [Julen Gabiria](#)

Mila ezpata distiratsu ikusi zituen bere odolaren bila, eta beldurrezko **oihu** bat eginda, arrapaladan hasi zen. [Julen Gabiria](#)

Jendetzari alaitasunezko **oihu** bat jaulkitzen zaionean. [Jose Morales](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Minak zulatuta, eta urrutitik bezala, ziztu eta **oihu** -hots handia entzun zuen. [Iñaki Mendiguren](#)

Nire inguruan dena zen **oihu** mordoia, zarata, berba eta gertakizun atalak. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut semeen errefusak ez ote zuten Domingo horren gizon isil eta ezkibela egin, emazte **oihu** -laster eta espantu-sarria ez bezalakoa.

[Aingeru Epaltza](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ufada ozena eta min-**oihu** bat entzun ziren. [Iñaki Mendiguren](#)

Oihua izan zen, oihua, min **oihu** urragarria. [Felipe Juaristi](#)

Ikara-**oihu** ito bat egin zitzaion eta malkoak aurpegian behera hasi zitzaizkion. [Iñaki Mendiguren](#)

Israeldar guztiak igo ziren Jaunaren itun-kutxarekin batera, poz-**oihu** artean, adar, turuta, txilin, harpa eta zitarak joz. [Elizen arteko biblia](#)

Arratsean negarrez bagaude ere, goizean berrituzko **oihu** . [Elizen arteko biblia](#)

Errudun sentituz bere burua zigortzen hasi zen, atsekabe-**oihu** handiz auzoko jende guztia negarrera bultzatuz. [Askoren artean](#)

Etsipen-**oihu** orokor bat entzun nuela esango nuke. [Ramon Saizarbitoria](#)

Eta haiek bestela bezala, ez bat eta ez bi, dei-**oihu** bakar bat ere ez! [Fernando Rey](#)

Beti bezalako komedia egin zuten soldaduek, fusilak besaburura eta lurrera behin eta berriz aldatuz aginte-**oihu** zakarren arabera. [Txillardegi](#)

Oina ezarriko diot gainean Edomi, garaipen-**oihu** egingo Filisteari. bihotza erdibitzen duen gauza da, Jaungoikoari mendeku-**oihu** egiten diona! [Koldo Biguri](#)

Bigarren hilaren hogeita hiruan egin zuten han sarrera gorespel-**oihu** artean, palmadarrez, harpa, txilin eta lira-soinuz lagundurik. [Elizen arteko biblia](#)

Emakume **oihu** zoli batzuek erantzun ziguten. [Josu Zabaleta](#)

· Laguntza eske **oihu** larria.

6 oihupean

Gero, «denok kalera!» **oihupean**, ondoko plazara atera ginen inguruko auzokideak esnatzeko eta (*Mal de Ojo* taldearen baimenez) mestijai honetara gonbidatzeko. [Berria - Kultura](#)

7 oihuz adlag oihuka.

-Fontanisko atean zagok, zaintzaile -erantzun zion **oihuz** Basiliok. [Josu Zabaleta](#)

-Zer ostia ari zarete? - **oihuz** - ez uka, osotara sinetsi diok zomorroi astopito horri, ezta? [Aingeru Epaltza](#)

Hurrena, berriz, Gregek **oihuz** : [...]. [Xabier Olarra](#)

Totte **oihuz** , ezbeharra ekiditen saiatzen zen. [Itxaro Borda](#)

-Ai, jauna -hasi zen **oihuz** eta zotinez-, nire nagusi gaixoa, hil egin dutela. [Josu Zabaleta](#)

Jendetzaren parte handi bat lorategitik irtena zen, plaza aldera, **oihuz** , garrasiz eta kantuz betetzen zutela. [Josu Zabaleta](#)

Oi, gizonok, zuei nago **oihuz** , eta gizasemeentzat da ene deiadarra. [Xabier Kintana](#)

8 oihu batean adlag oihuka.

Beste guztiok **oihu batean** erantzun genion. [Anjel Lertxundi](#)

Regina, patioko atera irten, eta **oihu batean** hasi zen hoska. [Josu Zabaleta](#)

Orduan, israeldar elkarte osoa **oihu batean** hasi zen, eta gau osoa negarrez igaro zuen. [Jose Antonio Mujika](#)

Telebistari begira daudenak **oihu batean** hasi dira baliogabetutako gol baten kontura. [Paddy Rekalde](#)

Eta andrearen negarrek aski ez, eta seme-alabak ere **oihu batean** , intzirikia eta elkar joka. [Aingeru Epaltza](#)

Gizon hura, ordea, **oihu batean** ari zen kantatzen. [Unai Elorriaga](#)

Zapatak mahai azpian bota, egongelan eseri eta **oihu batean** : "Julia, whiskia". [Alberto Barandiaren](#)

-Hori? -joan zitzaion ihesi Mikel Strogoffi **oihu batean** , baretu ezinezko amorrazioa adieraziz. [Karlós Zabala](#)

9 oihu bizian adlag oihu batean, oihuka.

Oihu bizian ekiten genion elkarki. [Joxan Elozegi](#)

Partaideak **oihu bizian** zebiltzan, denak batera hitz egiten eta, ohi denez, lelokeria galantak esaten aurkezlearen oniritziarekin. [Miguel Angel Mintegi](#)

Bazen sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat; eta **oihu bizian** esan zuen: [...]. [Elizen arteko biblia](#)

10 oihu egin ik oihukatu.

Orduan, Moisesek **oihu egin** zion Jaunari, eta Jaunak zuhaixka bat erakutsi zion. [Jose Antonio Mujika](#)

Oihu egiten entzun nion, eta beldurtu egin nintzen. -Hemendik - **oihu egin** zuen, eta lasterka hasi zen, eskaileretan gora, atari nagusira. [Juan Martin Elexpuru](#)

-Ni! - **oihu egin** zuen Martinek. [Koro Navarro](#)

-Putasemea! - **oihu egin** zuen-. [Koro Navarro](#)

-Kaixo, hankaluze! - **egin** nion **oihu** . [Koldo Biguri](#)

-Polizia... Polizia...! -egin du norbaitek **oihu** . [Rafa Egiguren](#)

-Zer James, bukatu duzu azkenean? - **egin** zion **oihu** bere amak haren besoetara oldartuz. [Lopez de Arana](#)

"Artzainak!", **egin** zuen **oihu** azkenean, saria daraman zenbakia asmatu duenaren furfuriarekin. [Jose Morales](#)

Oihu egin nuen: "Zerbitzaria! [Monika Etxebarria](#)

-Agur, Eligio! - **egin** zioten **oihu** biek, bizikletak hartu eta alde eginez. [Josu Zabaleta](#)

-Zer dun, Justina? zergatik **egiten** dun **oihu** ? -galdetu zuen Susana San Juanek. [Juan Garzia](#)

-Eutsi, eutsi, irauli egingo duk eta! - **egiten** zion **oihu** . [Jose Morales](#)

Aldiro-aldiro **oihu egiten** nuen: - ea! [Josu Zabaleta](#)

Gidariak **oihu egin** zidan: [...]. [Juan Kruz Igerabide](#)

la hasi omen ziren mutur-joka, eta komunistak, bi gizonen artean kanpora ateratzen ari zirela, mehatxuka **egiten** omen zuen **oihu** . [Juan Kruz Igerabide](#)

Oihu egin nuen nire barrenean: aurkitu diat! [Fernando Rey](#)

-Esan nahi du berorrek - **oihu egin** zuen polizi buruak- Ivan Ogareff esku hartzen ari dela tatariarren inbasioan? [Karlós Zabala](#)

Ahalegin handia egin behar izan nuen ez **oihu egiteko**. Ongi hornituriko mahaian eserita bazaude, **ez oihu egin** aho zabalik: "Ederki bete dago hau!" · Marini-ren zaldunak zerura **oihu** eta **oihu eginez** segitzen zuen nire atzean. [Juan Kruz Igerabide](#)

Orok **oihu** : Biba! [Koldo Izagirre](#)

aldeko oihu (7); **aurkako oihu** (7)
egin nion oihu (14); **egin oihu** (14); **egin poz oihu** (13); **egin zien oihu** (14); **egin zion oihu** (46); **egin zuen oihu** (232); **egin zuten oihu** (18); **egiten zuen oihu** (25); **egiten zuten oihu** (10); **eske oihu** (6); **garaipen oihu** (7)
jaunari oihu egin (7); **jendearen oihu** (6); **kontra oihu** (5); **norbaitek oihu egin** (8)
oihu artean (18); **oihu bakar bat** (5); **oihu bat atera** (6); **oihu bat bota** (7); **oihu bat egin** (12); **oihu bat entzun** (14); **oihu batean** (42); **oihu batean hasi** (8); **oihu batzuk aditu** (5); **oihu batzuk entzun** (6)
oihu egin (1111); **oihu egin dio** (11); **oihu egin du** (33); **oihu egin nion** (16); **oihu egin nuen** (36); **oihu egin zidan** (15); **oihu egin zien** (36); **oihu egin zion** (165); **oihu egin zioten** (12); **oihu egin zuen** (609); **oihu egin zuten** (32); **oihu eginen** (7); **oihu eginez** (33); **oihu egingo** (27); **oihu egiteko** (33); **oihu egiten** (199); **oihu egiten du** (16); **oihu egiten zion** (11); **oihu egiten zuen** (47); **oihu egiten zuten** (15); **oihu egitera** (7)
oihu eta oihu (6); **oihu eta txalo** (5)
oihu handi (8); **oihu handi bat** (7); **oihu handia** (6); **oihu handiak** (6); **oihu handiz** (17); **oihu handiz esan** (5)
oihu ito bat (5); **oihu izugarri** (5)
oihu lazgarri (6); **oihu lazgarria** (5); **oihu lazgarriak** (9)
oihu ozen (6); **oihu ozenak** (8)
oihu txiki (9); **oihu txiki bat** (7); **oihu txikiak** (5)
poz oihu (25)
txalo eta oihu (5)
aldeko oihua (7); **aurkako oihua** (5); **erregu oihua** (6); **oihua egin** (14); **oihua egin zuen** (8); **oihua entzun** (21); **oihua entzun nuen** (5); **oihua entzuten** (6); **oihua izan zen** (5)
aldeko oihuak (39); **aldeko oihuak bota** (8); **aldeko oihuak egin** (9); **animo oihuak** (9); **antzeko oihuak** (5); **aurkako oihuak** (34); **aurkako oihuak entzun** (7); **jarraitzaileen oihuak** (5); **kontrako oihuak** (25)
oihuak airera (5); **oihuak bota** (18); **oihuak bota zituzten** (13); **oihuak egin** (22); **oihuak egin zituzten** (12); **oihuak eginez** (7); **oihuak egiten** (9); **oihuak entzun** (63); **oihuak entzun ziren** (23); **oihuak entzun zituzten** (6); **oihuak entzunik** (6); **oihuak entzutean** (9); **oihuak entzuten** (30); **oihuak entzuten dira** (5); **oihuak izan** (6); **oihuak izan ziren** (6); **oihuak ziren** (10)
poz alaitasunezko oihuak (5)
oihuen artean (22); **oihuen artean hartu** (5)
oihuz bete (5); **poz oihuz** (14)

oihudromo *iz adkor* oihuka aritzeko gunea.

Ene aburuz, Patri, hobe genuke Arartekoaren zeregin txolin hori kendu eta herritarrok geure zaratak botatzeko moduko **oihudromo** bat eginen balute. Hasier Etxeberria

oihuka 1 *adlag* oihu eginez.

Erreka zulora joan ginen Jack eta biok, korrika, **oihuka**, gure makila mehekin sasiak ebakiz, dantzan, zakurrak xaxatuz. Koro Navarro

Zaintzalea jauzika eta **oihuka**, ai ai ai!, dantzan ari balitz bezala, zango batetik bestera jauzika, zolari so. Filipe Bidart

Irri eta **oihuka** ibili omen ziren jauregi hartan barrena. Inazio Mujika Iraola

Oihuka agurtu dute beste bat, lankideek Goxoa deritzotena. Urtzi Urrutikoetxea

Beatrizek **oihuka** jarraitzen du, baina mutila jadanik ez da gai zer esaten duen ulertzeko. Iban Zaldua

Hurbildu ginenean, gure gainera etorri ziren, irainka, **oihuka**: [...]. Juan Kruz Igerabide

-Esana zieat, ordea -esan dit Txominek haserre antzean-, **oihuka** ez ibiltzeko. Txillardegi

Oihuka segitzen nian eta erantzunik ez. Itxaro Borda

Oihuka zerbaít esan diodanean, are astindu bat eman diodanean, ez da iratzarri. Mirentxu Larrañaga

Oihuka hasi zen bat-batean: "Zertan ari dira ume horiek! zer darabilte esku artean!". Bernardo Atxaga

Oihuka hasi nintzaion: "Abel, Abel, mintza hakit!". Daniel Landart

Segi! -entzun nuen Samuels jauna **oihuka**. Koro Navarro

-Horrela ikasiko duzue! -esan zigun azkenean **oihuka**. Rafa Eiguren

Slytheringo guztiak Hagriden aurka ari ziren **oihuka**. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Negarrez hasi ziren emakumeak, zotinka, min-**oihuka**, ibai indarrari beren malkoz irabazi nahian. Felipe Juaristi

Orduan gora-**oihuka** ekin genion, eta baita Big Joek ere, gitariko inork baino ozenago. Mirentxu Larrañaga

Herbail-aulki baten erroten zirri-zarra isila hauteman zuen Agatak, eta Maddi amatxia hor zeukan ondoan, eni, eni, eni kukumixa-**oihuka**. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ahots bat oihuka (4); **atzetik oihuka** (9); **aurka oihuka** (5); **aurrean oihuka** (5)

erdi oihuka (8); **esan zidan oihuka** (4); **esan zion oihuka** (6); **esan zuen oihuka** (14); **hasi zen oihuka** (14); **hasi ziren oihuka** (5)

ia oihuka (22); **jendea oihuka** (10); **kontra oihuka** (5); **lasterka eta oihuka** (5); **minez oihuka** (4); **negar oihuka** (4)

oihuka ari (108); **oihuka ari zen** (31); **oihuka aritu** (11); **oihuka aritzen** (6); **oihuka atera** (4)

oihuka degiot jaunari (8)

oihuka egin (4); **oihuka ekin** (9); **oihuka ekin zion** (5); **oihuka entzun** (7); **oihuka entzuten** (5); **oihuka erantzun** (5); **oihuka esan** (24); **oihuka esan zuen** (7); **oihuka esanez** (7); **oihuka esaten** (18); **oihuka esaten zuen** (4); **oihuka eskatzen** (4); **oihuka eta barrez** (4); **oihuka eta garrasika** (7); **oihuka eta irrintzika** (4)

oihuka hasi (212); **oihuka hasi zen** (87); **oihuka hasi ziren** (42); **oihuka hasi zitzaion** (9); **oihuka hasiko** (12); **oihuka hastea** (6); **oihuka hasteko** (9); **oihuka hasten** (36); **oihuka hasten zen** (6)oihuka hitz egin (4); **oihuka hitz egiten** (4)

oihuka ia (5)

oihuka jarraitu (4)

oihuka mintzo (4)

oihuka segitzen (5)

oihuka zebilen (5)

poz oihuka (15); **pozez oihuka** (12); **txaloka eta oihuka** (5)

oihukalari *izond* oihularia, oihukaria.

Eta orduan boz **oihukalari** batez galdetu zigun: [...]. Matías Múgica

Baina operan aktorearentzat eruedu *simia audibilis* da (edo *Pithecanthropos stentor*), tximino **oihukalaria**, alegia. Xabier Olarra

oihukarazi, oihukaraz, oihukarazten du *ad* oihukatzerara behartu.

Arimari denaz bezainbatean, izu laborriak eta etsipenak hartaratua, biziaren ertzei eutsi zien, eta hamaika anpulu eragin zizkion, hamaika sokorri-dei **oihukarazi**. Patri

Zubizarreta

oihukari (12 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan) 1 izond oihuka ari dena edo aritzen dena. ik oihulari.

Bateria jotzaile urduria eta **oihukaria** aurreko taldearena da. **Berria - Kultura**

Biltzar **oihukari** horren arrazoina hauxe zen: [...]. **Herria**

Seko isildu zen ate ondoko morroi **oihukaria**. **Aingeru Epaltza**

Lzuak jota, hanka-hotsak entzun zituen kanpoko korridorean... liburu **oihukaria** berriro apalean sartu eta lasterka irten zen. **Iñaki Mendiguren**

- Hoa heure **oihukari** nazkante horiekini! **Agustin Otxoa**

2 (adizlagun gisa)

Konpainiako kapitaina troparen buruan zegoen, aldizka isil ala **oihukari**. **Itxaro Borda**

oihukatu, oihuka(tu), oihukatzen du ad oihuka egin. ik oihu 10; oihuztatu.

-Bai - **oihukatu** zuen Bain andreak aztoratuta-. **Mirentxu Larrañaga**

-Bai noski! - **oihukatu** zuen neskak. **Jon Muñoz**

Hil egin dut! - **oihukatu** zuen. **Patxi Zubizarreta**

"Gora musikari errusiarrak" **oihukatu** zuen alkoholak hartutako ahots ozen batek. **Felipe Juaristi**

"Kontuz, tunel horrekin!", **oihukatu** zuen orduan; "gaizkileak zelatan daude-eta", erantsi zuen gero. **Josetxo Azkona**

Alde hemendik, *stupid* - **oihukatu** zion. **Iñaki Zabaleta**

Fanchek **oihukatu** zidan: [...]. **Itxaro Borda**

Autoan zoazelarik, aurrekoari bozina jotzen zaio etengabe "Que haces, huevon" **oihukatuz**. **Pako Aristi**

Gerra hastean erreketengandik ihesi joandako komunista hura agertuko zela berriro, eskopeta bizkarrean zuela eta "gora Errepublikak" **oihukatuz**. **Juan Kruz Igerabide**

Senarrak kopeta ilundu du eta, gora begiraturik, **oihukatu** du: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Egun hartan, [...] otoitz egin zion Josuek Jaunari, honela **oihukatuz** israelarren aurrean: [...]. **Jose Antonio Mujika**

Bazirudien ehunka gramofono ipini zituztela logelan, eta guztiak, bata bestearen ondotik, ganora ergelez mekanikoki **oihukatzen** zituzten norbaitek agindutako hitzak: [...]. **Jose Morales**

Bost ontzietako bidaiariak abesti bera **oihukatzen** zuten. **Josu Zabaleta**

Ez zuen sekulan jo, mozkorra arraila etxeratu ondoan, asaldaturik, bururik ez buztanik gabeko hitzak **oihukatuz**, eskumeneko gauza guziak hausten zituelarik ere. **Elena Touyarou**

Zure izena esango nuke, **oihukatuko** nuke, hiriaren belztasunean, baina beldur naiz horrek ere minduko nauen. **Sonia Gonzalez**

Irainak **oihukatzen** zizkioten elkarri, bultzaka aritzen ziren, eta zaplazteko latzen bat ere itzuri zitzairen inoiz. **Mirentxu Larrañaga**

Behin eta berriz **oihukatzen** zuen esaldia, giro guztiz obsesiboa sortu arte. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurka oihukatu (3); **berriz oihukatu** (3); **hiltzaile oihukatu** (3); **izena oihukatu** (7); **kontrako leloak oihukatu** (3); **leloak oihukatu** (10)

oihukatu zion (50); **oihukatu zituzten** (21); **oihukatu zuen** (299); **oihukatu zuen alexek** (3); **oihukatu zuen jendetzak** (5); **oihukatu zuen norbaitek** (4); **oihukatu zuten manifestariak** (4)

ozen oihukatu (4); **zerbait oihukatu zuen** (3)

hitzak oihukatuz (3); **honela oihukatuz** (5); **oihukatuz erantzun** (4)

oihukatze gogo (3)

berriz oihukatzen (3); **izena oihukatzen** (5); **izenak oihukatzen** (3); **oihukatzen ari** (4); **oihukatzen hasi** (15); **oihukatzen zion** (14); **oihukatzen zuen** (41); **oihukatzen zuten bitartean** (4); **zer oihukatzen** (3); **zera oihukatzen** (3)

oihukatze iz oihu egitea.

Euskadi izena ere, ordea, balio gabetua laga zuen Autonomi Estatutuak eta orduan Gora Euskal Herria Independentea eta antzekoak esaka hasi behar izan zuen, lehenago Gora Euskadi Askatuta **oihukatze** soilarekin konformatzen zenak. Bakea eta askatasuna, hori da hanbat eta hanbat manifestaldik beren plankarta, **oihukatze** eta bihotzeko dei saminez dioten oihu bakarra, Goiz batez, izenen **oihukatze** denboran, alditxartu zen Dubernet. **Hasier Etxeberria**

oihulari (32 agerraldi, 15 liburu eta 4 artikulutan) 1 izond oihuka ari dena edo aritzen dena. ik oihukari.

ez nituen atsegin ez kafetegi zaratatsuak, ez lagun **oihulariak**, ez neska tuntunak. **Josu Zabaleta**

Jolasean ari zen haur talde **oihulari** bat seinalatuz. **Alberto Ladron Arana**

Tren beltz baten hotsa entzuten zuen, astelehenez etorri eta asteartez berriro bazihoala, kaio mutur-luze, kaio handi, kaio **oihulariak** atzetik zituela. **Felipe Juaristi**

Hitzak orro egin zuen txori **oihularien** artean, eta txoriek orro hura hartu eta lehorrera eraman zuten beren hegoen danborretan. **Koro Navarro**

Ur laster nabigaezinak, babuino dantzari **oihulariak**, sugeak lotan, hortz-hobi gorriak zurien odol gozoaren zain. **Anton Garikano**

Hegaztien hots **oihularia**, ingurua haragikor betetzen duten landareetan uztartuz aditzen da. **Edorta Jimenez**

2 (izen gisa)

Kepak, zutituta eta lurrari ostikoka isilarazi ditu **oihulariak**. **Aingeru Epaltza**

Honetarako egin nau ni Jainkoak **oihulari** eta apostolu -egia diot, ez diot gezurrik-, eta jentilen maisu, berauei sinesmena eta egia irakasteko. **Elizen arteko biblia**

-Ba, zera... amak **oihulari** bat bidali dit -esan zuen Ronek oso ahots apalez. **Oihulariaren** hotsak entzun zituzten atari nagusian: Nevilleren amonaren ahotsa zen, oihoka baino ehunka aldiz ozenago bihurtua magia bidez, familia osoari lotsa ekarri ziola garrasi eginez. **Iñaki Mendiguren**

oihumin iz intziria.

Behingoan, manta eta maindiretatik tira egin zuen beregana eta, ohe barruan zeharo sartuz, begiak indarrez itxita zituela, **oihumin** kexati luzea bota zuen orduan. **Josetxo Azkona**

Dardaraka hasi zen, itxuraldaketa harrigarri bat gertatu arte: gorputza bigundu eta urtu egiten zela zirudien, lurrunduko balitz bezala, eta azkenean laino antzeko zer bait bihurtuta geratu zen, **oihumin** gor eta luze batez lagunduta. **Joanes Urkixo**

oihuska ik oihuxka.

oihuteria iz oihu multzoa.

oihutsu *izond* oihuz betea.

Bata bestearen barnera atseginez lehertzen zireneko alde **oihutsuak** karrikan pasatzen zen aleman armadaren urrats kolpekatuei gehitu ziren. **Itxaro Borda**

oihuxka *(orobat oihuska)* iz oihu txikia.

Nire ingurukoen **oihuxka** eta madarikazioak baizik ez nituen sumatu hainbat segundotan. **Aingeru Epaltza**

Oihuxka batzuk egin zituen Adela, handik gutxira, itotzear zegoen tigre otzandu bat iduri. **Joan Mari Irigoien**

Haurrak **oihuxka** bat egin zuen. **Pablo Sastre**

oihuztatu, oihuzta, oihuztatzen da-du *ad* oihukatu.

-Zer? - **oihuztatu** zen Lakatos-. **Matías Múgica**

Franz apalategien atzean bizkor desagertu eta ez zen azaldu Stanislaus Dembak "kontua!" **oihuztatu** zuen arte. **Anton Garikano**

oikonimo *iz* etxe izena.

Barañainen, bertako errotari, "Batan de Barañain" deitzen omen zioten 1837an, eta Astrainen bertan bada "Batanena" **oikonimoa**, eta Etxarri Aranazen ere bai "Bataniturri" lekuizena; eta hola, beste leku askotan. **Patziku Perurena**

oilagor 1 *iz* hegazti zangaluzea, haragi oso gozokoa, eperra baino txikixeagoa, moko luzea, zuzena eta mehea, eta luma arre belzgunedunak dituena (*Scolopax rusticola*).

Oilagorrak buru gainetik pasako zaizkizu. **Itziar Otegi**

Ehiztari gazte bati ospea ematen diona **oilagor** bat botatzea izaten da. **Itziar Otegi**

Arbisorotan zakurrek altxatutako zozoen atezua, egunsentian pinutegietara itzultzeko beren hegala txikiz altxatzen diren **oilagorren** zelata. **Pako Aristi**

Batzuetan, zenbait ehiztari gauaz irteten zen ehizara, esku-argi eta guzti, **oilagorrak** argira hurbiltzen baitziren, edo, bestela, argiari begira geratu, geldi-geldi; hala, erraz ehizatzen zituzten. **Juan Kruz Igerabide**

Axenariok hegala apurtuta duen **oilagorra** jaso du, harrotasunez astindu eta bolbora usaina arastu du. **Itziar Otegi**

Lehenengo **oilagorrak** ehizatuak direla udazkena baino lehen, eta ea prest egongo ote den haiek jateko, ondoko beltz batzuen konpainiarekin. **Hasier Etxeberria**

Bi **oilagor**, moko luzeen zamagatik motel, aieratu egin dira, elkarri segika maitasun jolasean. **Itziar Otegi**

-Bihar **oilagorretarat** joan behar diagu, eta goazen ehiza-zakurren ikusterat... **Joan Mari Irigoien**

2 (hitz elkartuetan)

Amairuko baserri batean bazuten ardiei hozka egiten zien **oilagor** zakur bat. **Gotzon Garate**

oilaki *(orobat oiloki; Euskaltzaindiaren Hiztegian oilaki agertzen da)* 1 *iz* oilo okela.

Ganaduari, jakina denez, okela eman izan zaio jateko, pentsuan nahasita, izokinari izokin eta oilaskoari **oilakia** janarazten zaien bezala. **Edorta Agirre**

Heldu eta berehala, **oilakia** apailatzeko agintzen zuen beti, eta txahalkia ere eskatzen zuen. **Jose Morales**

Eman, beraz, lasai asko **oilokia** eta oilo hezurak, maite dituzun zeure zakurrei. **Gotzon Garate**

Aturri-Errobi-ko Herri Elkargoak, bere argibide aldizkariarekin etxe mozkinak (aratxeki, behiki, xerriki, **oiloki**, arrotze, esneki, baratzeakari, igali, erreximenta, ezti, gasna, arno sagarno, kontserbu eta bertze) xuxenean erosteaz galdeketa labor bat helarazi du etxe guzietara. **Herria**

Bi pastel handi nabarmetzen ziren gainerako guztiaren gainetik, **oilakiz** egina bata eta luzoker gaziz bestea. **Jose Morales**

• 2 *izond* beldurtia, koldarra.

Horregatik **oilaki** bat bezala portatzen da bere ideiekin. **Eneko Bidegain**

3 *oilaki ipurdi*

Jakinguraz, lehen aldiz aterarazi zien **oilaki** -ipurdia haurtaldeko helduenei gizaki baten odolak. **Joxemari Urteaga**

oilaloka *(orobat oila-loka g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian oilaloka agertzen da)* 1 *iz* loka dagoen oiloa.

Lau ahate-arrautzaren gainean **oilaloka** bat ipintzen zuela, haien txitatzeoko asmotan. **Joan Mari Irigoien**

Oila -lokak beren lanean ziharduten mandioko bazterren batean, ilunxko zegoen txokoan, lepa-saskiren baten pean. **Pello Zabala**

Benetan ari zen **oilaloka** modura (emakume guztiak bezalatsu, intelektualak ere barne, nik susmo), umea hegazpian babestu beharrez; hortik **oilalokaren** nire aipamena eta, hitzak hizpidea dakarrenez, Hanna zeharo bere onetik at jarri ere bai nire aipamen harengatik, inoiz ikusia nuen baino ere eme-suharrago. **Joxe Austin Arrieta**

Pikatxoiak eta aitzurak bazterturik, **oilaloken** zirinez igurtzitako hurriz-makila edo burdina imantatu berezietz urre bila saiatzen ziren ur-bilatzaileak. **Anjel Lertxundi**

Brankako zapia **oilalokaren** paparra bezala puztu zen arte. **Edorta Jimenez**

Robinengana baizik ez zuen begirunerik, eta bere begi beltz ederrekin haren isiltasuna txitatzen zuen, **oilalokak** arrautzak legez. **Karlos Zabala**

2 irud/hed

Nesken gauza zela hura [letrak], hogeitik gora neska baitziren gelan eta zazpi mutil: aurreneko lerroan esertzen zirenak bi, lehenengo lerroko **oilaloka** aulkiberoen taldetxoarekin bat eginik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Polittena, herrietako **oilalokak** oilategitik ateraraztea izan da, eta "ama, ixilduko altzea faborez?"entzun gabe, beste 500 ikuslerekin batera nola barre suelto egiten duten ikustea. **Joxean Sagaztizabal**

Oilaloka halakoak, utzi berriketak! **Xabier Paya**

Esan dudan moduan, ergel hura **oilalokaren** pare jarri zen, Zubian, eurenak bazetozela eta bazetozela, kukurruko zoroetan. **Edorta Jimenez**

Lau bezero kontatu ditu Clint Eastwooden afixa baten azpian: hiru prostituta gazte eta **oilaloka** trabestitu bat. **Patxi Iturritegi**

3 (hitz elkartuetan)

Orain, berriz, umea ikustera joan behar dutela-eta, autoan sartu orduko hartu du, ostera ere, betiko **oilaloka** -jarrera: "Zer jan ote du, zer egin ote du, gogoratu ote da, ez ahal zitzaien ezer gertatuko gaixoari...". **Xabier Mendiguren Elizegi**

oilanda 1 iz oilo gaztea. ik oilasko.

Arrautza luzangak oilaskoa dakar; arrautza potoloagoak, **oilanda**. Pello Zabala

-Oilanda gazte bat erretzeko agindu beza ba bentariak -esan zuen Santxok. Patxi Ezkiaga

Oilanda gazte bat atzeman, lumatu, tripatu, erre eta bazkaldu zuten han berean, data-ondoaren malda zekenean. Itxaro Borda

Garunak ilarrekin, saltxitxak azalorearekin, labean erretako **oilanda** galkatua, luzoker gaziak eta, beti bezala, hostorezko gozopila. Jose Morales

Oilanda gazte baten ahotsa zuen begirale batek eta komuneko ur-jauziarena bezalakoa besteak. Anjel Lertxundi

2 (emakumez mintzatuz)

-Inguru honetako **oilanda** hau lotsagabea da gero, lotsagabea! -esan zuen atso batek Andresen atzean, Elvira seinalatuz. -Orrialde gutiago eginkizun, eta gainera, praktiketako **oilanda** pinpirinen kontura. Josu Zabaleta

Izan ere, **oilanda** ederra iruditu zitzaion emakume hura Telleriari. Harkaitz Cano

Begira auzoan nabarmen den **oilanda** nabar horri, oilarra etxean izanik ere, nola doan auzora, legez kanpoko amodio grinak sutua, senarra "zirin bedarrak ekarten" Londresen duen bitartean. Patziku Perurena

Ehunka **oilanda** izan eskura eta kapare baten alaba hautatu behar gainka egiteko. Aingeru Epaltza

Erabaki irmoa hartua nuen: hemeretzi urteko goiz-**oilanda** bat halako traste baten jabe bazen, ni ere izanzen nintzen hura hainbat. Aingeru Epaltza

Edozein top-less lokaletan, hogeita bost dolarren truke magalean dantza egingo dizu Louisianako unibertsitate publikoan geografia ikasten duen **oilanda** batek. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan)

Karlosek Ignazia bakarrik geratu zen arte itxoin zuen, eta gaizki esaka aritu zitzaion, **oilanda** moduak eta faltukeria leporatuz. Koro Navarro

-Erabaki irmoa hartua nuen: hemeretzi urteko goiz-**oilanda** bat halako traste baten jabe bazen, ni ere izanzen nintzen hura hainbat. Aingeru Epaltza

oilandatxo 1 iz adkor oilanda.

Herrialde batzuetan binaka ipintzen dituzte arrautzak: Yaun Donianen izenean **oilandatxo** bi, lehenbiziko pareta jartzean; Yaun Donianen izenean oilaskotxo bi, bigarren bikotearekin, eta horrela txandaka. Pello Zabala

2 (emakumez mintzatuz)

-Ea, nire **oilandatxoa**! bagoaz? non daukan habia? Jose Morales

oilar 1 iz oiloaren arra, tamainaz hura baino handiagoa dena eta gandor gorriagoa eta handiagoa duena, eta hark ez bezala hatzak ezproinez hornituak dituena. ik oilasko.

Oilotegian zegoen oilarrak, argitasun hura ikusirik, egunsentia hemen zela eta bere eztaerri takarrarekin kantatzeari ekin ziola, eta harekin batera herriko **oilar** guztiek. Pako Aristi

Nork eman dizkie jakinduria eta sena ibis hegaztiari eta **oilarrari**? Elizen arteko biblia

Eskua luzea eta argala zen, **oilar** baten ezproia nola. Felipe Juaristi

Oilar bi oilategi berean edo pilotu bi ontzi berean, haserrea mokoetan eta haserrea muturretan. Edorta Jimenez

Oilar batek kantatu zuen. *ik beherago* 11. Askoren artean

Lapurrak zerbitzaria ukitu orduko, kantari hasiko zen **oilarra**. Jon Muñoz

180ko abiaduran bai, **oilar** puztu baten antzera, atzetik ertzaintzaren bi motor hurbildu zitzaizkidanean. Joan Mari Irigoien

Sarrera bertzeekin batean **oilar** bat bezain buruxut egin beharrean, kopetilun eta gogo gabetua nintzen bueltan. Aingeru Epaltza

Oilar gandor-gorri bat duk. Andoni Egaña

Baina haiek ere han geratu ziren **oilar** lumatuen antzo, hitzik gabe eta mutu, ez kikiriki, ez kukurruku. Joan Mari Irigoien

Amak **oilar** bat hil, eta bazkari gozoa ipini zuen. Juan Kruz Igerabide

Urrunera, Belexiko aldean, **oilar** baten kukurrukua. Michel Oronoz

Oilarraren kukurrukuarekin altxatu ziren. Iñaki Mendiguren

Oilarrak kukurruku egin orduko, hau da, horrek hirian duen ordaina bete orduko, erraz esnatzen nintzen, bakar-bakarri. Joxan Elozegi

Oilarra kukurrukua jardutea, gauez nahiz goiz nabarrez, hori guztiz normala da. Pello Zabala

Batez ere **oilarren** arteko borrokak preziatzen zituen! Ramuntxo Etxeberri

ik beherago 9. Askoren artean

Astotik **oilarrera** pasatu nintzen; frantsesek naski alderantziz egiten zutela azpimarratze beharrik ez nuen. Itxaro Borda

2 (sukaldaritzan)

'Gaur, **oilarra** patatekin,' anuntziatuko du sukaldariak. Joseba Sarrionandia

Eguerditan: bazkaria (axoa edo **oilarra** arnoan, xerrikerria, gasna, deserta eta kafea). Herria

3 irud/hed

Zurezko **oilar** gandor-gorri eder bat zen itsulapiko hori, aitik nondik edo handik ekarria. Joxerra Garzia

Atsegin emango lioke bere burua ikusi ahal izango balu Benetako Elizaren kanpandorreko haize-orratzeko **oilar** bihurturik. Xabier Olarra

-Lotsa ez dakit, baina itxura denez **oilar** galanta dugu Arrieta, alajaina! Migel Angel Mintegi

Eta, hala, **oilarra** oilotzen zelarik, oiloa oilartu zitzaigun: erran nahi baita ezen, napolitarra makurtzen ikusi bezain sarri, osaba hazi zela. Joan Mari Irigoien

Zenbait hilabete lehenago Europako bi **oilar** zaharrak, enperadore Karlos Espainiakoa eta errege Frantziako Frantziakoa, elkarri lotu ziren berriz. Aingeru Epaltza

Sartzen dira, Dongaitz Léon, famatua, anaia Jean-Baptiste lagun, Arce eta Leonis, bi **oilar** gazteak, Frantziako xapeldun berriak. Michel Oronoz

Ligako bi **oilar**, elkarren aurka, egoera oso desberdinean. Berria - Kirola

Ordu arteko bi **oilar** amorratuek, elkar harturik, soldadu hordia nork zorrotzago eta distiratsiago larrutu eta barregarri laga izan zen ordutik aurrerako saioa. Anjel Lertxundi

Tonkov erusiarrak irabazi du 17. saioa; **oilarrak** eskortan gelditu ziren, gaurko etaparen zain. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bakarrik zeuden, hegaztien usain sendoen artean, ia lo egin gabe, itzaletik bat-batean sortzen ziren **oilar** kantuengatik. Karlos Zabala

Honelakoak esaten zituzten lotsagabe, "neska autoan sartu zen eta nik eskua sartu nion hankartean" edo "aski da giltzari eragin eta azeleragailua zanpatzea, neska nire gainera oldartzeko" - **oilar** -kantu patetikoak. Karlos Zabala

Oilar borrokatik kanpo bada besterik ordea. Berria - Kirola

Trikilari zahar askoren buruan, plazea temea zan, **oilar** burrukea lako bat. Xabier Amuriza

Oilar -lumak daude nire jantziaren eta ez dakit nondik etorri diren. Iñaki Mendiguren

Oilategiko oiloen artean indartsu azaldu den **oilar** luma onekoaren harrokeriaz. Xabier Paya

Txima jario jaikitzen zen; bere burua astindu eta hodei batetik iriten zen, **oilar** gandorreko lumaren bat mototsean sartuta. Karlos Zabala

Oilar gandorrez eta giltzurrunez betetako opil bat atera zuten lehendabizi lukainkatarako haragi albondigekin. Josu Zabaleta

ANPBAk eskola bat salatu du **oilar**-ehiza jokoarengatik. Berria - Euskal Herria

Mutila ez zaio batere gogoko, **oilar**-uste halakoa, baina kanuto ikaragarriak egiten ditu. Aingeru Epaltza

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horien artean dago joko **oilarrak** hazi eta heztea ez ezik, zakurrak eta katuak batu, hazi, elikatu, maitatu, laztandu eta, herioren hotzean, lur ematea ere. Edorta Jimenez

Hazaribag-en gizon bat borroka **oilar** askoren jabe zen. Gotzon Garate

Orduantxe du goiz **oilarrak** kukurruku jo, eta, haren soinura, tanpez ostendu da, eta begien bistatik aienatu. Juan Garzia

6 (izenondo gisa)

Ena larritasunean espainiarrei behatzen nien nik, zeren, nola bainekien ezen ezin **oilarragoak** eta ezin urguilutsuagoak zirela guztian, ohoreari loturik zeuden gaietan partikularzki, hala iguriki nuen istant batez ezen oldartu eginen zitzaizkiela guardiei. Joan Mari Irigoien

7 (adizlagun gisa)

Hura ailegatu aitzin, hiru haurridetan mutiko bakarra, pozik nengoen noski oilategiko **oilar**. Aingeru Epaltza

Buru-xut eta **oilar** antza bulegoratu nintzaion. Aingeru Epaltza

Arratsaldean, bata okela egosien erdian eta bestea arrainen artean eserita, **oilar-oilar** agertzen ziren, ea nor ederrago, ahal zuten kalterik handiena elkarri eginez. Karlos Zabala

8 *argi oilar* zomorroz-eta elikatzen den txori moko-luzea, buru gainean lumazko mototsa duena(*Upupa epops*). ik **basoilar**.

Usapal diamante bat, koral-moko bat, masail-laranja bat; **argi-oilar** bat, esnea bezain zuria, garezurreen tente hiru luma hori argi zituena. Jon Muñoz

Argi oilarrak jo dute, eguna sentitu dute! Pako Aristi

Argi-oilarrak *pu-pu-put* ("espan edo zeloan daudenean alkarri deitzeko"); enarak *txotxi-txotxi* ("txio berezi onekin azaltzen dute beren estuasuna ta samiña"); txindorrak *uit-uit*; buztangorriak *uit-tro-tro*; [...]. Iñaki Segurola

9 *oilar joko* oilarren arteko borrokan datzan jokia.

Ez da inon aipatzen Hemingwayren zaletasun handienetakoa ziren oilarrazkak edo **oilar**-jokoak. Edorta Jimenez

Oilar jokoan aritzen zen han jendea, musika entzuten zuen; mozkorren eta loterien oihuak. Juan Garzia

Film horietan, **oilar jokoak**, hartzak, azeriak, txerriak, hipopotamoak, fokak, zikoinak eta arkumeak ikus daitezke, besteak beste. Berria - Kultura

10 *oilar-pisu* boxeoan, goi mugatzat 53,5 kilo duen pisua.

Egun hartako saioan guztiak **oilar** pisuko boxeolariak ziren, baina aurrean zeukan honek Joseluk baino hamar kilo gehiago zituela zirudien. Josu Landa

11 *oilarrak jo* oilarrak kantatu.

Oilarrak jo arte geratzen zen beti berarekin, baina egun hartan lehenago alde egin zuen. Koro Navarro

Oilarrak jo berria zuen eta eguzkiaren lehen pindarrak ageri ziren ekialdean. Aingeru Epaltza

Baina Pedrok ukatu egin zuen berriro, eta berehala **oilarrak jo** zuen. Elizen arteko biblia

Benetan diotsut: Gaur gauean, **oilarrak** bitan **jo** baino lehen, zuk hirutan ukatuko nauzu. Elizen arteko biblia

Une hartan, hiriko patrioren batean, urrun, **oilar** batek **jo** zuen. Agustin Otsoa

Une hartan, bigarren aldiz **jo** zuen **oilarrak**. Elizen arteko biblia

· Itzuliko zarete, zorianaren **oilarrek jotzen** dutenean, gaztaina egosiak ernamuintzen direnean. Juan Kruz Igerabide

12 *oilarrak kukurruku jo*

Hitz egitekotan zuan **oilarrak kukurruku jo** duenean. Juan Garzia

Atera du saskitik **oilarra**, ego azpian axkure egiñez, or **jo** dio **kukurruku**. Patziku Perurena

Beste **oilar** batek **jotzen** zuen nigan **kukurruku**. Jesus Mari Mendizabal

· Hiru bider **kukurruku jotzea** normala da; askoz gehiago egiten baditu, seinale eguraldi gaiztoa datorrela edo norbait hilko dela gertuan. Pello Zabala

Ez nuen **kukurruku jotzeko** denbora handirik izan. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oilar borroka (3); **oilar eta oilo** (3); **oilar mutuak** (3)

oilarra baino harroago (3); **oilarra kukurruka** (3); **oilarra kukuruka** (5)

oilarrak jo (12); **oilarrak jo zuen** (4); **oilarrak kantatu** (3); **oilarrak kukurruku** (7); **oiloak eta oilarrak** (3)

oilarren artean (4); **oilarren arteko** (10); **oilarren arteko borrokak** (3); **oilarren aurka** (3)

oilarite iz egunsentia.

Zeren abiaturik egon bainintekoen, halatan eta ezustean, neure bizitzako argi-urratzerik eta **oilariterik** gabeko gau beltzik beltzenean eta izugarrienean barrena... Joan Mari Irigoien

Uzten zien, finatzeko, hilabetean behin beren festa partikularren prestatzerat [...] zeina **oilariteraino** luzatzen baitzen eta zeinari eguerdirainoko atsedenaldia baitzerraion. Joan Mari Irigoien

oilarkeria iz oilartzen denaren harrokeria.

Ezaguna dugu Moaben gehiegizko harrokeria, haren **oilarkeria** eta handiustea, haren handi-iritzi hutsalak. Elizen arteko biblia

Zapaldu egingo dut handiputzen harrokeria, lurrera botako jauntxoan **oilarkeria**. Elizen arteko biblia

Frantziako Itzulia zirku bat bilakatua dela baginakien aspaldixkoan, dirua delarik lehenik konda, eta handi-mandikeriak, eta batzuen **oilarkeriak**. Herria

Zaldun harroak mespretxatu egin zituen errekuak eta, Santuaren maitasuna ergelkeriatzat joz eta gutxietsiz, **oilarkeriaz** erantzun zion: "Nik preso sartuko zaitudan zulo eta kartzelan, ezin izango zaitu lagundu, ez beste inork". Askoren artean

oilarrauzka iz oilar jokia.

Estiloz-eta liburua liluragarria bada ere, hutsune nabarmenak ditu; adibidez, ez da inon aipatzen Hemingwayren zaletasun handienetakoa ziren **oilarrauzkak** edo oilar-jokoak. Edorta Jimenez

oilartegi 1 iz oilar jokoak egiten diren lekua.

Apustuzalea da Ernest, hala frontoian nola **oilartegietan**. Edorta Jimenez

2 irud/hed

Iragan garietan, Flandes izen Mendebaldeko Europako "oilartegia", non parroki estatu gerrari zentzuzkoak beren munduko "oilartegi" izateko. Iñaki Mendiguren
Orain, Mendebaldeko Europa osoak zirudien markatua, beste gerra orokor bat gertatu gero, mendebaldartzen ari zen munduko "oilartegi" izateko. Iñaki Mendiguren

oilartu, oilar(tu), oilartzen 1 da ad oilarraren manierak hartu. ik gailendu; harrotu.

Eta, hala, oilarra oilotzen zelarik, oiloa **oilartu** zitzaigun: erran nahi baita ezen, napolitarra makurtzen ikusi bezain sarri, osaba hazi zela. **Joan Mari Irigoien**
Zergatik harrotzen zara gaiztakeriaz eta jainkozalearen aurka **oilartzen**? **Elizen arteko biblia**
Ez harrotu daramazun gainjantziak, ez eta **oilartu** ere ospe-egunean. **Elizen arteko biblia**
-Hi, ni gipuzkoarra nauk, e! - **oilartu** zen Ane bere taldekideen artean. **Unai Iturriaga**
Noiz ez dut nik sinistu ihesarena? - **oilartu** zitzaion Trauko. **Pedro Alberdi**
Zuek hondoratu egin nahi nauzue, baina lau pareta hauen artean neu naiz errege; eta nire noten beldur zareten bitartean, ez zarete **oilartuko**. **Anjel Lertxundi**
Baietz hori ere aurreko morroiak bezala **oilartu**! **Anjel Lertxundi**
Otoitza amaitu zenean ontziburu berriak, **oilarturik**, aginduak emateari ekin zion. **Edorta Jimenez**
Ihaureria-egunak ziren, eta amodioak, **oilarturik**, bere lakioak botatzen zituen hirian. **Xabier Olarra**
Gazteena da **oilartuen** dagoena. **Harkaitz Cano**

2 (era burutua izenondo gisa)

Beatrice gazteari dagokionez, inoiz baino sarriago jasan behar izan zituen aita **oilartu** eta desnaturalizatu haren bortzak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Ordea, napolitar **oilartuak** berehala apaldu zuen bere behakoa eta mahaiari beha jarri zen, erranaz damutua iduri. **Joan Mari Irigoien**
Ibaika heldutakoena hira, kantua eta gangarra ustezko erasotzaile **oilartuaren** kontra. **Iñigo Aranbarri**

oilartxo 1 iz oilar txikia.

Baina besteak ezentzunarena egiten zuen, **oilartxoak** bezala jasotzen zuen burua. **Josu Zabaleta**
Etxeak goiko aldean teilatu-hegal tailatuak zituen, zulodunak, eta tximiniak eta dorretxoak eta latzko **oilartxo** bat haizeak bultzatuta jira egiten zuena. **Fernando Rey**

2 adkor oilarra, harroxkoa.

-Ez dago niri adarra joko didan **oilartxo** harrorik -esan zuen Txoriburuak, zutituz. **Josu Zabaleta**
Oilartxo batekin dabil neskatoa, eta hara orain **oilartxoarekin** nahasita neu ere! **Oskar Arana**
-Hi, hago isilik, **oilartxo** sasi iraultzailea! **Paddy Rekalde**

oilartze iz oilarraren manierak hartzea; gailentzea; harrotzea.

Irria orroa bihurtzen zen; umorea, borroka; dantza, lagunen aurreko **oilartzea**, mespretxua. **Urtzi Urrutikoeetxea**

oilasko (orobat oilaxko g.er.) 1 iz oilar gaztea.

Jendeak, kontzientzia hartuta, **oilasko**, urde, txekor eta gainerakoei eman zaien tratua gaitzetsi eta galaraziko du. **Edorta Agirre**
Han **oilaskoak** eta indioilarrak zeuden eta sekulako otorduak zerbitzatzen zituzten. **Fernando Rey**
Arrautza luzangak **oilaskoa** dakar; arrautza potoloagoak, oilanda. **Pello Zabala**
Beltz zahar-zahar bat bere etxeko patiora irteten duk eta **oilaskoei** artoa botatzen hasten duk. **Xabier Paya**
Baditut **oilasko** gizen ederrak.... **Karlos Zabala**
Lepoa moztu dioten **oilaskoaren** gorputzak korrika ibiltzeko gaitasuna du. **Joxerra Garzia**
Azeri bat harrapatuz gero **oilasko** eta arrautzak biltzen diren gisan. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Lehen baserriarrek pare bat **oilasko** emango zizkizuten azeriaren truke, eta buztana moztuko zioten apaingarri gisan. **Pako Aristi**
Erizainak sardina zahar bat dirudi, asko jota lumarik gabeko **oilasko** biguna. **Eider Rodriguez**

2 (sukaldaritzan)

Bretoiak janaria dakar, urdaiazpikoa, pateak, ahuntz-gazta, **oilasko** hotza. **Felipe Juaristi**
Baina, zergatik jaten da etxe honetan beti **oilasko** egosia? **Fernando Rey**
Oilasko errea, ardoa ugari eta letxuga gutxi. **Unai Iturriaga**
Gau hartan, txanpain botila eta **oilasko** errea erosi nituen, eta afari intimo bat egin nahi nuela esan nion. **Juan Martin Elexpuru**
Ikusia zuen anaia adio egiten orga baten atzean, sakelari **oilasko** frijitua zuela, begietan malkoak. **Anton Garikano**
-Jaunari **oilaskoa** ehiztari erara. **Monika Etxebarria**
Jan genuen, egia, baina etxetik ekarri **oilasko** onetik! **Daniel Landart**

3 irud/hed

Lumatu gabeko **oilasko** hasberri baldin baginen ikastetxe hartara gindoazenetako asko, gu bezain nobato, gu bezain ezjakin eta inozentea zen Periko ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Thailandiakoa zen **oilasko** haragi izotzia. **Berria - Harian**
Etxera bidean harategian sartu zen, **oilasko** paparrak eta piper lata bat erostera. **Unai Iturriaga**
Oilasko bularra plantxan eman dio eta erdia utzi du. **Pako Aristi**
-**Oilasko** -otarteko bat eta kikara bat kafe. **Lopez de Arana**
Ahoan zeukan **oilasko** pusketa amaitu murtzikatzen, irentsi eta ahoa ezpain-zapiak garbitu ondoren. **Joxemari Iturralde**
Ontzian **oilasko** -puskak zeuden, eta katiluetan, kafesne beroa. **Inazio Mujika Iraola**
Gero tea hartuko zuten, eta bina sandwich-triangulu jango zituzten, bezpera gauean geratutako **oilasko** -hondar xehatuz eginak. **Mirentxu Larrañaga**
Eusko Label zigilua duten **oilasko** produktuen etiketak. **Berria - Gaiak**
Oilasko -etxe, pizzategi eta goseak kentzeko balio bai baina gustura nekez dasta daitekeen jakia ematen duten establezimendu ireki berriak. **Edorta Agirre**
Arriskutsua dela zakurrei **oilasko** hezurrik ematea. **Gotzon Garate**
Katu-haragiak ez du parekorik ibai-karramarroak harrapatzeko, ez **oilasko** -tripak, ezta hiltegi hondakinak ere. **Itziar Otegi**
Chicken Dinner: **oilasko** -afaria, hots, oilaskoa plater nagusizat duen afaria. **Lopez de Arana**

5 oilo loka ik oilaloka.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oilasko biltzearen (3); **oilasko erre** (3); **oilasko errea** (9); **oilasko gaixoa** (3); **oilasko haragi** (3); **oilasko hezurrik** (3); **oilasko kontsumoa** (3)

oilaskoa jan (5)
oilaskoak hazten (3)
oilaskoen ebasten (3)

oilaskoki *(orobat oilaxkoki g.er.) iz oilasko haragia.*

Haurrentzat, **oilaxkokia** eta bixkotxa, 8 euro. **Herría**

Guhaurek hemen jan nahi ere ez dugun kalitate txarreko **oilaskokia**. **Herría**

Etxeo karniboroiei (katuari, txakurrari) landarez osaturiko pentsua eta animalia herbiboroiei animaliazko produktuak janarazi ohi zaizkie; are okerrago, espezie bereko animaliak ere (behia behikiaz elikatzen da, oilaskoa **oilaskokiaz**). **Edorta Agirre**

Europak -eta batez ere Frantziak- ehun mila tonaka **oilaskoki** izoztua helarazten du Afrikarat. **Herría**

oilaskotu, oilasko(tu), oilaskotzen *(orobat oilaxkotu g.er.) da ad oilaskoaren manierak hartu. ik oilartu.*

Arazoin gehiago hor, ez dituen sartalde huntakoak elgarri buruz **oilaskotzen** has, haratxago direlarik egiazko oilar haundiak. **Herría**

Gazterik **oilaxkotuak** nolazpait. **Janbattitt Dirassar**

oilaskotxo *iz adkor oilartxo, harroxkoa.*

Herrialde batzuetan binaka ipintzen dituzte arrautzak: Yaun Donianen izenean oilandaxo bi, lehenbiziko parea jartzean; Yaun Donianen izenean **oilaskotxo** bi, bigarren bikotearekin, eta horrela txandaka. **Pello Zabala**

oilategi *(orobat olatei g.er. eta oilotegi g.er.) 1 iz oiloak eta etxeo gainerako hegaztiak gordetzen diren tokia.*

Padrek eta anaia zaharrenak **oilategia** egin zuten eta oilo batzuk sartu zituzten, eta, beraz, arrautzak jasotzen hasi ginen. **Jon Maia**

Eskorta edo **oilategi** txiki hura oholesi batez inguraturik zegoen. **Jose Morales**

Segidan, etxe atzeko **oilategi** txikira ematen zuen leihoa zabaldu eta eskuan zituen ogi-apurrak bota zizkien oiloei. **Anjel Lertxundi**

Hor ari da marmarrean **oilategia** garbitzen -esan zigun Adelak. **Bernardo Atxaga**

Oilar bi **oilategi** berean edo pilotu bi ontzi berean, haserrea mokoetan eta haserrea muturretan. **Edorta Jimenez**

Oilategiko atea klaskarazi zuen. **Itxaro Borda**

Pauso-hotsek ikaratuta, oiloak aztoratu eta kakaraka hasi dira **oilategiko** kotan. **Itziar Otegi**

Oilategiko hesiaren gainetik jauzi eginik edo azpitik pasabide bat zulaturik, isilean akabatzen zuen indioilarra, eta bere gaizkideari eramaten. **Juan Garzia**

Oilategietako zirina jaso pala erraldoiez. **Joseba Urteaga**

Antzarak **oilategitik** kalapitan aditzen ziren. **Itxaro Borda**

Oilotegian zegoen oilarrak, argitasun hura ikusirik, egunsentia hemen zela eta bere ezterri takararekin kantatzeari ekin ziola, eta harekin batera herriko oilar guztiek. **Pako Aristi**

Otsoak sartu baitira eskortan, azeriak ere bai **oilategian**. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Hiru haurridetan mutiko bakarra, pozik nengoen noski **oilategiko** oilar. **Aingeru Epaltza**

-Umeak non ditun? -galdegin nion, **oilategia** txitarik gabe sumatu nuenean. **Hasier Etxeberria**

Auzitegian bilduta zeuden ikusleetak askok, purrustadak eta algara zinikoak bota zituzten eta ordura arte erabateko seriotasunean eramandako epaiketa **oilategi** harro bihurtu zuten. **Hasier Etxeberria**

Beste damatxo guztiak bikote horren inguruan hegaka bezala hasi eta eszena guztiak batera zirudielarik masakre tragikoa, **oilategi** asaldaturia eta jostun erromantiko baten abentura erromantikoa, agertu nintzen eszenan. **Matías Múgica**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etxeo oilategian (3)

oilatei ik oilategi.

oilaur *iz zarakarra.*

Emilio Mina Irasasi, futboleko hain ondo egiten zuen mutil argal, errubio eta isila, laugarrena errepikatzen ari zena, belaunburuak **oilaurrez** beterik zituena **Joseba Sarrionandia**

oilaxko ik oilasko.

oilaxkoki ik oilaskoki.

oilaxkotu ik oilaskotu.

oilu 1 *iz etxeo hegazti emea, hegan egiten ez duena, moko sendoa, gandor gorria eta luma ederrak dituena (Gallus gallus).* ik oilar; oilanda; oilasko.

Atzean utzi genituen hiru **oilu** harlauza lohitsueta mokoka. **Koro Navarro**

Idi, zeri eta **oilu** ugari dago, azken hauek pitoxa eta lepozurien begipean. **Koldo Biguri**

Bazen burdin puska bat **oilu** errulearen ondoan ipintzen zuenik, habiaren ondoan aizkora uzten zuenik ere bai. **Pello Zabala**

Oiloak aztarrিকা ibiltzen diren lekutik aparte. **Anton Garikano**

Oiloren bat harro-harro kakarazka hasten denean, errun hurren dagoela abisu emanez, [...] **Gotzon Garate**
Baratzeko tresnak gordetzeko erabiltzen zituzten etxeorde haiek, bai eta animaliak ezteko ere, hala untxiak nola **oilokak**, edo baten batek txerrien bat... **Juan Kruz Igerabide**
Oiloak eta urdeak bazkatuak, etxeratu ninduan, lasai, eguneroko zerbitzua beterik. **Itxaro Borda**
-**Oiloari** lepoa mozteko kapaz ez?... **Patziku Perurena**
Oiloak pixa egin arte. **Patziku Perurena**
Han zegoen, bai, **oiloa** txitaldi handiarekin. **Gotzon Garate**
Hemen jendea, nola **oilokak** kotan egoten diren, bada horrelaxe bizi zuan, katanduta. **Pako Aristi**
Oiloak kotara bezala erretiratzeko gustatu izan zait beti, eta jaikitzeke nagi gutxi... **Pello Zabala**
Nire ahaleginak **oilo** gorri eder bat eta hainbat ardi-larru izan zituen sari. **Aingeru Epaltza**
Hainbat **oilo** gizen gorrixka lurreen mokoka zebiltzan patioan. **Iñaki Mendiguren**
-Gantza, **oilo** zaharrean... **Patxi Zubizarreta**
Hobe huke horretarako kasik heure andrearekin **oilo** zaintzera joango bahintz. urte askotan nahi baduk bizi, **oiloekin** ohera eta txoriekin jaiki. **Juan Garzia**
Oilo alu batek kakaratzu bat egin zuen. **Jon Maia**
Oiloen etsai beldurgarriak diren zapelaitzak, hontza gautarrak eta mozolo isilak ere. **Koldo Biguri**
Gripa bortitz baten iduriko gaitza, oiloetakoak erraiten zaiona, **oilo** eta hegaztietan ari baita gehienik. **Herria**
· Hiru txita eta ama **oilokak** lurra aztakatzeaz utzi diote. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ekaitza hain gaiztoa al da, bada, txitentzat? bada, bai! bai **oilo** txitentzat eta baita txorien habietan ere. -Pronto pasta! -oihu egin zuen emakumeak **oilo** -ahotsaz. **Pello Zabala**
Entsalada, **oilo** arrautzak, urdaiazpikoa eta frutak bazkalduko dituzue. **Joseba Sarrionandia**
Eman, beraz, lasai asko oilokia eta **oilo** hezurrak, maite dituzun zeure zakurrei. **Gotzon Garate**
Bizikleta hartu, eta osteratxo bat egingo nuela hiri inguruko baserrietan barrera (arteaz bazen halakorik) **oilo** -zirin bila. **Juan Garzia**
Oilo saldoak mokoarekin aztarrika zebiltzan lur bigunean. **Karlos Zabala**
1945ean, **oilo** hazkuntza 500 oiloetan mugatua zen. **Herria**
Aial ondoren, han abiatzen zen Casin Cholet **oilo** -harrapaketan Parisko harresi-hobien ifrentzuetan. **Juan Garzia**

3 (sukaldaritzan)

Paper urdinean bilduriko **oilo** erre bat. **Jose Morales**
Jokoa ez da errenta, hobe **oiloa** erreta. **Gotzon Garate**
Irakiten hasi zen **oilo-salda**, lehenengo suan. **Jon Muñoz**
Oilo salda usaina, baba eta ilar bihikatzeko soina **Itxaro Borda**

4 (pertsonez mintzatuz, koldartasuna-edo adierazteko)

Merezita daukat horrelako **oilo** batekin bazkidezteagatik... **Lopez de Arana**
-Hago isilik, **oilo** koldar hori! **Joan Mari Irigoien**
Demokrazia Kristauren prentsa-bulegoaren aginduetara, **oilo** katolikoek hauteskunde-propagandarako lan egiten dute. ondo ulertu genuen demokraziagatik egin zenutela eta **oilo** faxistak zirela haiek. **Koldo Biguri**
Zoin **oilokak** zareten! **Janbattitt Dirassar**
A ze **oilo** koadrilla! **Jokin Muñoz**
Eta, hala, oilarra oilotzen zelarik, **oiloa** oilartu zitzaigun: erran nahi baita ezen, napolitarra makurtzen ikusi bezain sarri, osaba hazi zela. **Joan Mari Irigoien**

5 **oilo azal** oilo ipurdia.

Poemaren berrirakurraldi hartan, **oilo azala** jarri zitzaidan. **Joan Mari Irigoien**
Zurtoinak lodiak eta leunak ziren, eta kiribildurik zeuden, borrokan ari balira bezala; horrek **oilo-azala** jarri zidan. **Juan Kruz Igerabide**

6 **oilo bixar** (*corpusean oilobixar soilik*) oilo ipurdia.

Urekoak abilduta belarrari oratuz igaiten ziren bidezidorreraino, larru-azala **oilobixar**, gorputz osoa leiho eurtuen antzera pikorreztatua, hortzak karraskaz eta ezpainak more harkaitz pirataren gainean kiskalmenak hartzen egon arren, **Koldo Izagirre**

7 **oilo gari** gaiaren antzeko landarea (*Poligonum fagopirum*)

Menpekotasunak biderik egin orduko une baxu batean parez pare **oilo-garia** sumatu eta, ez naloxona ez naltrexona ez ostiarik. **Urtzi Urrutikoeetxea**

8 **oilo ipurdi** (**40 agerraldi**, **20 liburu** eta **9 artikulutan**) pertsonen azala, hotzagatik-edo, oilo lumatuaren itxura hartzen duenean.

Oilo-**ipurdia** egin zitzaidan: emakumeak lehengo eguneko zapata takoidunak zeramatzen. **Aingeru Epaltza**
Supizitaileri buruzko gogoeta horrek oilo-**ipurdia** eragin zion. **Lopez de Arana**
Ni ere hotzak nago, esan zuen Karmenek, besoetako oilo **ipurdia** lagunari erakutsiz. **Xabier Montoia**
Mila! -atera zitzaion osabari eta niri oilo **ipurdia** jarri zitzaidan. **Aitor Arana**
Oilo-**ipurdi** jarri zitzaidan azala albistea irakurri nuenean. **Hasier Etxeberria**
Ximurraren karkailak oilo-**ipurdia** jarri zidan. **Aingeru Epaltza**
Eta ostiko eta hasperenak egiten zituztela entzuten nuen, eta oilo-**ipurdia** jartzen zidaten. **Pello Lizarralde**
Gizakietan ere badira oraindik mekanismo horren aztarnak, hotzak edo beldurrak eragindako oilo-**ipurdiak** erakusten duen bezala. **Irene Aldasoro**
Ene... ordu haiek, oilo **ipurdis**, burua lehertzeko zorian. **Jon Muñoz**
Ez dakit nola azaldu, baina dardaran bezala jartzen zidan larru-azala soinu hark, **oilo-ipurdia** ateratzeraino. **Alberto Ladron Arana**

9 **oilo koloka** (*orobat oilo kolka g.er.*) iz oilaloka.

Oilategiko atea klaskarazi zuen, **oilo kolokak** eta oilar nagiak kurukuruka beren habietarik ihes izutuan abiatzen miretsiz, belar flokak eta luma arinak altzarazten zituztela. **Itxaro Borda**
Lankidea bere kalbarioaren azaltzen entzuten nuen, **oilo koloka** baten gisa, ezpainak txukunki plegatuz. · *irud/hed* Erradak ze bizimodu behar zuen izan nere iduriko **oilo koloka** batek horrenbertze oilarren artean. **Itxaro Borda**

10 **oilo larru** (**10 agerraldi**, **7 liburutan**; *orobat narru g.er.*) oilo ipurdia.

Oilo-larrua egin zaio harrabotsa hurbiltzean. **Aingeru Epaltza**
Oilo larrua eginda jarraitu genuen martxan, beldurra gaindituko bagenu bezala, zangoak dardaraka. **Joseba Sarrionandia**
Barrez eztanda egin zuen azkenean eta **oilo-larrua** jarri zitzaidan. **Joxan Elozegi**
Oilo larrua ipini zitzaidan, hankak dardarka hasi, aurpegiko gihar guztiak tenkatu, eta iruditu zitzaidan gorputzaren ordezkari bat nuela. **Mikel Hernandez Abaitua**
Kafeak noski zainak inarrosi zizkidan, **oilo larrua** denetan hedatuz; zure mintzamoldeak halaber. **Itxaro Borda**
Oilo larrua hazten zitzairen eta orro-emez urrundu ziren sasiaren maldatik. **Itxaro Borda**

11 **oilo luma** (*orobat oiloluma g.er.*)

Baziren ahate lumakak, non hondoratzen baitziren kotoiaren gainean bezala, eta **oilo luma** arinak, urre kolorekoak, nabarrak, putz egin eta hegaka goratzen zirenak. **Karlos Zabala**

Haizeak hara-hona darabilen **oilo-luma** baten hotsa baino babesgabeago. Anjel Lertxundi

Zeren eta nahi ez duenak dei dezaten oilo, ez dezala jantz **oilo-lumarik**. Joan Mari Irigoien

Argi borobil batean ikusi zuen jaun zaharra zelaian, **oiloluma** baino argalagoa, buruari eragiten, ustez bere artean hizketan, bera lixibarekin zetorrela. Anton Garikano

Orduan senarra **oiloluma** bezain leuna bihurtu ohi zen, onbera, inorekikoa, emaztea bereganatu nahian. Anton Garikano

12 **oilo lur** (*orobat **oilolur** eta **oilalur***) etxe ondo, etxe alde.

Gu denok **oilo-lur** berean bizi garen familia izanda, osagarri exotikoa eskaintzen zigan irlandar sendiak, baina ezteietako gorabehera guztietatik bat gelditu zitzaidan niri gogoan, oso bestelakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez gara, alabaina, geure **oilolur** heterogeneo eta askotarikotik irteten, prentsa abertzaleko eguraldiaren maparen mugen barruan gabilza beti. Juan Luis Zabala

Herritik alde egin zuenetik, galdua zuen lotura guztia **oilalurrekin**. Anjel Lertxundi

Jonkia **oilo-lurrekoa** izan ohi da eskuarki eta haren heriotza herrian edo herritik gehienaz ordubetetsuko bidea dagoen bazterren batean gertatzen da, baina mendigoizalea, zenbat-eta goizaleago eta orduan-eta urrunago hiltzen da. Iñaki Segurola

13 **oilo zango** (*corpusean **oilozango soilik***)

Andrazko zahar bat topatu dut aulki baten, gona jasota **oilozangoak** eguzkitan berotzen begiak itxita. Koldo Izagirre

14 **oilo zopa** (*corpusean **oilozopa soilik***)

Ez fraideak bakarrik, herriaren zuhurtzia ere kontra neukan, "filosofia baino hobe da **oilozopia**" esaera zaharra aintzat hartzeraz behintzat. Joxerra Garzia

15 **oiloak ferratzera** antzarak ferratzera.

-Zoaz **oiloak ferratzera**! -esanaz agurtu zuen laguna. Joxemari Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oilar eta **oilo** (3); **oilo ipurdia** (37); **oilo ipurdia eragiten** (3); **oilo ipurdia jarri** (10); **oilo ipurdia jartzeko** (5); **oilo ipurdia jartzen** (6); **oilo jatea** (3); **oilo koloka** (4); **oilo larrua** (9); **oilo luma** (4); **oilo mota** (3); **oilo salda** (6); **oilo zahar** (3); **oilo zirin** (3)

oiloak eta oilarrak (3); **oiloak lapurtu** (3)

arrautzaren eta oiloaren (3); **oiloaren genoma** (3)

oiloen gripa (10)

oiloetako gripa (4)

oilobixar ik **oilo** 6.

oilobusti (*16 agerraldi, 10 liburu eta artikulu 1ean; orobat **oilo busti** 10 agerraldi, 8 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **oilobusti** agertzen da*) izond adkor koldarra.

Entzuna zutela han beste kamarada batzuek faxista **oilobusti** bat harrapatu zutela. Edorta Jimenez

Ez zuen ni handik bidaltzeko intenziorik, bai baitzekien arriskugabea nintzela, "**oilobusti**" bat, ni bezalakoengatik esan ohi zuen legez. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero **oilobusti** antzera portatua zen, garrasika. Juan Garzia

Dabid ordurako errotik aldaturik zegoen eta ez zen jada gaizkileen beldur ezkutatu zen **oilobusti** gauzaintzailea. Patxi Zubizarreta

-Aita **oilobusti** galanta da. Julen Gabiria

-**Oilo bustia**! -garrasi egin zidan atzetik-. Mirentxu Larrañaga

Oilobusti halakoa! Patxi Zubizarreta

- Arima kaskar **oilo-bustiak** oker bezain injustuki epaitu ohi ditu handiaren ekintzak. Joxe Azurmendi

oiloetxe iz oilategia.

Baserriaren inguruko soro eta barruti, txaradi eta baso,azienda eta artalde, **oiloetxe** eta ukuiu... egongo ez zen ba, atezu eta ernai egoteko obligazio eta enpeinurik! Pello Zabala

Hegazti handiako hauek, beti baserritik gertu, batez ere kanpoan aztarrika ibiltzean, edo ekaitza hasi orduko **oiloetxearen** anparoa gordetzen direnean, [...]. Pello Zabala

oiloki ik **oilaki**.

oilokindegi iz ipar oilasko denda, hegazti denda.

Eta Oilargandor Xingola perfeta, Oilokoloka emaztea eta **oilokindegia** ia osoa. Jose Angel Irigaray

oilokume iz oiloaren kumea. ik **txita**.

Egunaren erdigunean, sabelalde zurixka zuen koleoptero bateko sardina bidaiarien artera egotzirik, lepo luze lumatuko **oilokume** batek begitan hartu zuen bat-batean sardineta bat. Xabier Olarra

oilokunde iz oiloen eguna.

Errokkari aldean, 3 ostegun hauetaz aparte, beste jai berexi bat zizuten, **oilokunde** zeritzana: eskolan sortua izan behar zuen. Pello Zabala

oiloluma ik **oilo** 11.

oilolur ik **oilo** 12.

oilotegi ik **oilategi**.

oilotoki iz oilategia.

Sarrailak daude kutxa, eskorta, estalpe, **oilotoki**, zelategi, eta mandioko atean. **Anton Garikano**

Bere lurretan ziren **oilotokietako** arrautzak eta bere loretokietako alferriko belarrak saltzeko agindu zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Oilotokiko kakoa baino ezguzazagoa, arrantzale ugerdoa, zikin zorritzot halakoa. **Edorta Jimenez**

oilotu, oilo(tu), oilotzen da ad koldartu.

Oilotokiko kakoa baino ezguzazagoa, arrantzale ugerdoa, zikin zorritzot halakoa. **Edorta Jimenez**

Eta, hala, oilarra **oilotzen** zelarik, oiloa oilartu zitzaigun: erran nahi baita ezen, napolitarra makurtzen ikusi bezain sarri, osaba hazi zela. **Joan Mari Irigoien**

Egiazko pistola atera zuen eta **oiloturik** alde egin zuten hiru lagunek. **Gotzon Garate**

Neska batzuk barreka eta garrasika **oiloturik**. **Lutxo Egia**

oilotzar iz adkor oilo handia.

Oilotzarra. **Pello Lizarralde**

oilozale izond oiloaren zalea dena.

Arrautzazalea izan nintzen, gero **oilozalea**, gero txerrizalea. **Pablo Sastre**

oilozango ik oilo 13.

oilozopa ik oilo 14.

oin 1 iz gizakiaren zangoaren beheko zatia, hura zutik dagoenean lurra ukitzen duena. ikhanka; zango.

Tartetxo batez geldi geratu nintzen hantxe, **oin** bat karelairen gainean eta bestea ontziko bizkar sendoan. **Edorta Jimenez**

-Oina hautsi dut! **Joanes Urkixo**

Oina zapaldu diola! **Xabier Olarra**

Oinak dardarazten zizkidan laborria gairidurik, zutitu, eta jantoki-bagoirantz abiatu nintzen. **Anjel Lertxundi**

Gero eta nabarmenkiago, **oinak** non pausa ez neukala erreparatu nuen. **Txillardegi**

Oin hura botatxo batez jantzirik zuen eta bestea, berriz, pantufla batez. **Monika Etxebarria**

Bizi da oraindik Jonatanen seme bat; elbarri ditu bi **oinak**. **Elizen arteko biblia**

Itsuaren begi bihurtu nintzen, elbarriaren **oin**. **Elizen arteko biblia**

Berorren mesedearen **oin** eta eskuak musukatzen ditut. **Anjel Lertxundi**

Lurrera bota ninduen eta eskuak eta **oinak** lotu zizkidan. **Pello Lizarralde**

Begi, **oin** eta eskuz keinuak egiten ditu engainatzeko. **Elizen arteko biblia**

Baloia eskuin **oinaren** barrualdearekin jotzean mina sentitzen du oraindik belauanean. **Berria - Kirola**

Buztinezko **oinak** dituen koloso erraldoia. **Iñaki Iñurrieta**

Oin baten gainean zutik, Jimmyk bere orpoa ostikoka zerabilen beste **oinaren** puntaz. **Lopez de Arana**

ik beherago 29. **Askoren artean**

Irisarrik ikusiak zituen gizon-emakumeak dantzaz, ezpainak ezpainetara, eskuak eskuei, gerriak gerriei, gorputzak soinez soin eta oinez **oin** elkarri loturik. **Felipe Juaristi**

Lilith Espiritu Gaiztoen Erregina **oin** baten gainean dantzatzeko zela esan zuen. **Koro Navarro**

PP agintean dagoenetik eradu ekonomikoak «buztinezko **oinak** eta buzdinezko bihotza» duela aipatu zuen IUko buruak. **Berria - Euskal Herria**

Behin, lagunetako batek **oinetako** zauriak ikusi zizkion. ik oinetako. **Askoren artean**

Arropen artean eman ziguten **oinetako** trapua ez zela mukizapia, sasoi batez pentsatu nuen bezala. **Urtzi Urrutikoetxea**

Eta lilak ziren **oinetako** mokasinak ere. **Bernardo Atxaga**

2 (izenondoekin)

Urrezko zutabeak zilarrezko oinarrietan bezala dira zango ederrak **oin** sendoen gainean. **Elizen arteko biblia**

Natalina haietako batean egoten zen eserita, bere zango motz eta **oin** luzeak atzera-aurrera kulunkatuz. **Fernando Rey**

Oin luzeak baldarki higitzen zituen Annaren **oin** txiki arin bizien atzetik. **Lopez de Arana**

Nora zaramatzate orain zuen **oin** zaluek? **Jose Morales**

Ixkina batean laga eta atea ixten nuenean, haren **oin** lodiak igar nitzakeen arrastaka, animalia bat izango balitz bezala. **Jasone Osoro**

Ezpain zartatuak laztandu eta berehala, besaulkirantz herrestatu zituen **oin** astunak. **Aritz Gorrotxategi**

Karrikara atera ziren esku hutsak zeruari eta **oin** hutsak lurrari erakutsiz. **Felipe Juaristi**

Oin minberatuak goxatzen. **Karlos Zabala**

Astrakan-larruzko jaka luzea soinean eta puntuzko txapinak **oin** biluzietan. **Jose Morales**

Oin biluzietako behatzetan ere bazegoen plazerra azal eta hatz-oskol leunen kontaktutik hasita. **Harkaitz Cano**

Zango motz sendoak zituen, zuhaitz-enborrak bezalakoak, eta **oin** zapalak babaz beteak. **Iñaki Mendiguren**

Ohean eserita, bizarrik gabeko gizon bat, masail-irtena, logale-aurregiarekin, **oin** iletsuak lurrean, isilik. **Jose Morales**

Oin zikinak eguzkiaren argi hitsean astintzen. **Lopez de Arana**

Haren **oin** nekatuetako oinetakoen lokarriak askatzeko. **Mirentxu Larrañaga**

Delikatuki ibiltzen **oin** behatz-itsusi, gorrien gainean. **Koro Navarro**

Nor aldera ziezaiokeen Merkuriu **oin** hegodunaren debozioa asimila zezakeenik? **Pello Zabala**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizonaren **oin**-urratsa neurtu zuten eta hori aplikatu zuten altuera neurtzeko. **Santiago Iruretagoiena**

Poliki-poliki, **oin** pauso neurtuez, baltsean bezala, erdiko bidetik jo zuten, gizonetako txistu eta emakumezkoen txaloak lagun. **Felipe Juaristi**

Txalo, **oin**-zarta eta kantuketa eritmikoan murgildu zen, eta oihuka hasi: [...]. **Xabier Olarra**

Oin-zolen gainean dabilzan lau zangodun piztia guztiak. **Elizen arteko biblia**

Basa herrira itzultzeko biderei ekin genionean, lehen izarren pean, hareta sutan zen **oin** zolen azpian. [Juan Garzia](#)
Nonahi ezar daitezke kableak: besapeetan, bularretan, esku edo **oin** muturretan, zango artean, belarrian, mihian... *ik bererago* 29. [Xabier Montoia](#)
Neska gazte bat bere zango-aztal eta **oin**-eri minberen artatzen ari da. [Piarres Aintziart](#)
Eguzkiak jotzen zuen lekuetan egurrezko lurzorua bero zegoen, haren **oin**-azpiek sumatu zuten. [Lopez de Arana](#)
Zapatak hartu zizkion -**oin**-gain altukoak eta lokaztuak-, esanez: -barkatu. [Anton Garikano](#)
Jendeek uretarako begilagunak eta **oin**-hegalak jantzita igurikatu zituzten. [Berria - Euskal Herria](#)
Alfonbraren gainean, han-hemen, espartzuzko **oin**-tapizak. [Jon Muñoz](#)
Lekaiok [...] atetila danbateko batez itxi, **oin**-oholak gora bildu, eta, kalesaren atzealdeko uhalari helduta, gidariari oihukatu zion: "Aurrera!". [Jose Morales](#)
Oin-aulki baten gainera igan zen eta, mintzatzen hasi aitzin, jendetzari beha egon zen, aski luzaz. [Elena Touyarou](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bazela han gazte bat, zeinaren lepoa baitzen jirafa **oin**-lasterrarena baino luzeagoa. [Xabier Olarra](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urrezko giza **oin** erraldoi bat, zelai urdin batean. [Koro Navarro](#)

Bere neskatxa-**oin** mehe biluzietan sandaliak jantzita. [Fernando Rey](#)

6 hainbat animalietan, hanka bukatzen den zatia. ikapo¹.

Munstro gaiztoa eta orrolaria, hamabi **oin** oker eta sei lepo luze dituena. [Juan Kruz Igerabide](#)

Usoek, zumezko erretiluetan estu-estu, inuzenteen azal biluzi samurra zuten; ahateek, azala gogorrago, beren igeri **oinak** zabal-zabal zeuzkaten. [Karlos Zabala](#)

7 hainbat gauzakitan, lurra ukitzen duen zatia.

Plutarkoren liburua **oin** bakarrek mahaian baten gainean gelditu zen zabalik, han jarri baitzuen don Ottaviok. [Jon Muñoz](#)

Zortzi ohol hauek zilarrezko hamasei **oin** izango dituzte, ohol bakoitzeko bi **oin**. [Elizen arteko biblia](#)

Haren zangoak marmolezko zutabe, urre gorritzko **oin** gainean jasoak. [Elizen arteko biblia](#)

On Camillok gurutzearen **oina** euskarrian sartu eta zuzen-zuzen abiatu zen Pepponerenganantz. [Koldo Biguri](#)

Uraska eta **oina** brontzezkoak egin zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Belek haizea ez dutelako hartzen berez zentroaren lekua den masta-**oinaren** ondoan. [Santiago Iruretagoiena](#)

Salaren beste ertzera eraman duzu begirada, arrastaka altzari eta alfonbren gainetik, eta ikusi duzu senarra **oin**-lanpararen argi horian. [Lourdes Oñederra](#)

8 berto lerroaren osagaia den eta hura neurtzeko erabiltzen den silaba multzoa; bertsolaritzan, hitz puntuduna.

Poemetan ere berdin, doinuaren metrikak eta **oinak**, eta hitzen eta esamoldeen banaketa txukun eta dotoreak [...] irakurlea liluratu egiten dute, eta inolako eragozpenik gabe, liburuaren bukaeraino eramaten dute. [Santiago Iruretagoiena](#)

Diskurtsoa koherentziatzat hartzeko aukera emango dioten **oinak** bilatzen ditu, eta "flako" eta "gerorako" aurkitu ditu haien artean. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

"Mesede" **oina** gorde du horretarako bertsolariak, lotura hori aise egin ahal izateko, hain zuzen ere. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Ximunek gaitzeko bertso polita jalgi du lau **oinak** emanik. [Herria](#)

Berto bakoitzean kategoria gramatikal desberdinetako **oinak** nahasten zituen. [Andoni Egaña](#)

Ba lau **oinak** ematearena asmatu berritan, entzule arruntarentzat lantegirik zailena horixe zen, eta miretsi egiten zituen bertsolariak bestek emandako lau **oin** nola edo hala josten zituelako! [Andoni Egaña](#)

Saioz saio ibiliko bagina, berandu gabe oharretako ginatete **oinak** eta puntu erdiak ez ezik, ideia on askoak ere errepikatzen direla, ez beti gai berarekin, ez beti bertsolari beraren ahotik. [Berria - Kultura](#)

Lau **oin** horiekin ez dago itxurazko bertsorik osatzerik. [Andoni Egaña](#)

Aukeraturiko **oinak** gogoan antolatzen ditu, diskurtso ahalik eta koherenteena eta osoena bilatzeko egokientzat jo duen ordenan. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

9 oinarria, euskarria.

Lisatzeko oholaren **oina** desarmatu nuen. [Jesus Mari Mendizabal](#)

Mattinen aitzinean aitak mesprezatu egiten ninduen, zeren eta hura baitzen etxeko **oina** eta harroina, eta ni zoko batean galdu haizea. [Joan Mari Irigoien](#)

Aineza nik ere haren trebezia, [...] neure burutazio eta ideiei gorputz emateko, gorputz sendo bat, zeinak harria den hitza eta hitza den harria baillituzke **oin** eta zimendu! [Joan Mari Irigoien](#)

Prezioa santutegiko pisu-neurriaren arabera zilarrezko txanponetan ordainduko da, **oin**-txanpona hamar gramokoa delarik. [Elizen arteko biblia](#)

Eta halabehar honek adirazten du, ahaztuxe badugu ere, zeruko jainkotasun guziekin lurreko gizakian dutela **oin**. [Patziku Perurena](#)

Serumaren poltsa eusteko **oin** metalezkoak tatarrazka zeramala, ematen zuen autobuseko barrari helduta zihoala danbalaka. [Hasier Etxeberria](#)

Mikrofono-**oina** zapaldu, zutitu, mikrofonoa altueran egokitu, marranta-hotsak, gorputz-zalantzaren bat agian... [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

10 eraikinez mintzatuz, zimenduen sekzioaren plano. ikoinplano.

Caecilia Metella-ren hilobia aurkituko dugu, Campagna-ko hondakinik ospetsuena, hoguei metroko diametroa duen eraikin biribila, **oin** laukiduna, travertinoz estalia. [Joxe Austin Arrieta](#)

Oin karratuko dorretxe antzeko bat da Olasagasti. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

11 estaia.

Etxe guztiak familia bakarrekokoak ziren, **oin** bakarrekokoak. [Jon Muñoz](#)

Karrika zabal gisan antolatuak, hiru **oin** baino gehiagoko eraikinak. [Aingeru Epaltza](#)

Oin bakoitzean gelak zabalagoak ziren, eta tenpluko horma, berriz, estuagoa; barreneko oinetik bitartekora igarotzen zen, eta honetatik gorenerokora. [Elizen arteko biblia](#)

12 hainbat gauzaren behealdea.

Prensan, argazki edo irudiren baten azpiko testuari "**oin**" deritzo. [Joxerra Garzia](#)

Azpiko **oin** batek zer zioen ere buruz dakizu oraindik: "maquisard de l'ETA a l'entrainement". [Rafa Egiguren](#)

Ohearen **oin** aldetik begiratu diozunean, Luisi oso urrutitik ari zintzaizkiola iruditu zaio. [Lourdes Oñederra](#)

Arnas beharrea egongo balitz moduan jesarri zen Joselu baldosen gainean, ohearen zurezko **oina** bizkarraren euskarri. [Josu Landa](#)

Argazki-**oinak**, bakoitza zegokion tokian. [Aingeru Epaltza](#)

ik beherago 28. [Askoren artean](#)

Pixkanaka-pixkanaka, letrak baretzen dira eta argazki-**oina** irakurtzen dut. [Anjel Lertxundi](#)

Elurra ageri da Katarain estudioaren inguruetan, eta Txindokiren **oina** ere zurituta dago. [Berria - Kultura](#)

Eugene Domack zientzialari taldeko buruaren arabera, sumendiaren **oina** 700 metroko sakoneran dago, eta tontorra, berriz, 275 metroko sakoneran. [Berria - Gaiak](#)

Bular eder haiei so, Fuji mendiaeren tankera zuen kopetako ile-**oinaren** lerroa jarraitzen saiatu zen hatz baten muturrearekin. [Ibon Uribarri](#)

13 luzera neurri zaharra, 30 bat cm balio duena.

Hortik ateratzen da **oinak** hamasei hatz dituela, eta brontzezko denarioak ere beste hainbeste as dituela. [Santiago Iruretagoiena](#)

Agerian geratzen zen horma hartan, beste sakonune bat ikusi genuen, lau bat **oin** luze, hiru bat **oin** zabal eta sei edo zazpi **oin** garai. [Koro Navarro](#)

Oin bat inguru luze zela mutur batetik besterako distantzia. [Koro Navarro](#)

"Labar txiki" hura, harkaitz beltz distiratsuzko amildegi babesgabea, hamabost edo hamasei bat **oin** gora altxatzen zen azpian genuen harkaitz mordotik. [Koro Navarro](#)

Barruan bi **oin** zabalako hormak egin beharko ditu. [Santiago Iruretagoiena](#)

Atzetik pilastrak dituzte atxikita, hogeit **oin** altu, bi **oin** eta erdi zabal eta **oin** eta erdi lodikoak. [Santiago Iruretagoiena](#)

Begira lehen txorrotadaren aztarnak: hamar **oin** baino urrunago joan da. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Bi prentsa jarri behar badira leku horretan, hogeita lau **oin** emango zaizkio zabalean. [Santiago Iruretagoiena](#)

Larru-zati haiek **oin** karratu batekoak ziren, orladunak eta diseinuz apainduak. [Iñaki Mendiguren](#)

Boliviak 48,7 bilioi **oin** kubiko gas erreserba ditu orotara. [Berria - Mundua](#)

14 ingeles neurri sisteman, 30.5 cm-ren baliokidea den luzera neurria.

Ur, Oxford bezala, "kausa galduen egoitza" gertatu da; nahiz eta, ziur egoteko, Ur-en kausa ez egon erabat galduta, ingelesek **oin** batean 12 hazbete eta txelin batean 12 penny zenbatu bitartean. [Iñaki Mendiguren](#)

39.000 **oinetako** altueran gaude, , baina norbaitek aireportuko lurrean esandako hura datorkit gogora: hau adiskidantza eder baten hasiera izan liteke! [Pako Aristi](#)

- Emanen dizkio sei **oin ingeles** lur eta, hain handia denez, bat gehiago. [Juan Garzia](#)

15 oinez

Milizianoak eta gudariak mendebalerantz abiatu ziren kamioietan, autoetan, motorretan, bizikletan edo **oinez**, mendirik mendi **oinez** ere bai batzuk. [Joseba Sarrionandia](#)

Kolegiara joan beharko nuen egunero, bizikletaz, trenez, **oinez**. [Bernardo Atxaga](#)

Oinez ibiltzeko gauza ez zenean, astotxo baten gainean ibiltzen zen lurraldean zehar. [Askoren artean](#)

Oinez ibiltzeko Pirineotan trebeska, behar da osasun edo osagarri azkarrekoa izan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Bat-batean bizikletatik jaitsi eta **oinez** korrika hasi zen. [Koldo Biguri](#)

Oinez ttipi-ttapa joanda ez da igo ezin den aldaparik! [Pako Aristi](#)

Norantza berean gindoazen biok **oinez**. [Harkaitz Cano](#)

Frantziako Tolosakoak, omen, eta Oloronetik **oinez** abiatuak. [Piarres Aintziart](#)

Oinez itzuli ginen Via Appian barrera. [Joxe Austin Arrieta](#)

Igaroko gara **oinez** haren etxe ondokit. [Oskar Arana](#)

Igogailua hondatuta dagoenez, **oinez** igo behar hiru pisu. [Patxi Iturrategi](#)

Igogailuari deitu, eta **oinez** jaitsi nintzen. [Karlos Linazasoro](#)

Harritu egin nau aldaketak bat-batean: lehen kalean **oinez** ikusten nuen gehienetan. [Pako Aristi](#)

Bi ordu inguru behar dira Azpeititik **oinez**. [Iñigo Aranbarri](#)

Zenbait ordu **oinez** egin ondoren, [...] herritxoari eusten dion harritar hartara iritsi nintzen. [Josu Zabaleta](#)

Egin genituen **oinez** hirurehun bat urrats, eta leizearen ahorat heldu ginen. [Joan Mari Irigoien](#)

Oinez bost egunez ibili ondoren, iritsi zen mugara. [Gotzon Garate](#)

Ordu erdi bat bai, **oinez**. [Txillardegia](#)

Umeak **oinez** ikasten duen moduan bizitzan ibiltzen ikasi. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Igerian **oinez** baino lehen ikasi duela esana du Goreauk, eta urpekaritzan oso gazte hasi zela. [Berria - Gaiak](#)

Jaio orduko **oinez** irakasten diozu, zutik bizitzeko aukerarik izango duen ez dakizu baina. [Joxerra Garzia](#)

Arrieta, hik ez dakik **oinez** uretan! [Koldo Izagirre](#)

16 aditz oin ik erro.

Partizipioa eta **aditz oina** bereiztea, hau da, *ikus du* eta *sartu da*, baina *ikus daiteke*, *sar hadi*. [Koldo Zuazo](#)

Mendebalean, erdialdean eta euskara nafarreko hizkera batzuetan galdtu egin da **aditz oina**. [Koldo Zuazo](#)

17 esku oin (65 agerraldi, 9 liburutan) pl eskuak eta oinak. ik beherago 23.

Rafaelek, atzetik joan, heldu, eta **esku-oinak** lotu zizkion. [Jose Antonio Mujika](#)

Esku-oinak garbituko dituzte, beraz, hil nahi ez badute. [Elizen arteko biblia](#)

Ondoren zerbildu egin zaizkie aurpegiak, gogortu **esku-oinak**, zurrundu hezurrak. [Felipe Juaristi](#)

Niri ere ezinbestekoak zitzaizkidan Dabiden presentzia eta berotasuna; nik uste baino beharrezkoagoak haren **esku-oinen** epeltasun babesgarria neguko gau hotzetan.

[Patxi Zubizarreta](#)

Igo zen, beraz, Jonatan katamarrean, **esku-oinez** lagundurik, ezkutaria ondoren zuela. [Elizen arteko biblia](#)

Ittzeen seinaleak hasi zitzaizkion **esku-oinetan** agertzen. [Askoren artean](#)

18 guda oin (orobat gudu oin) gudu lerroa. ik fronte.

-Bihar ez dago Solluberik -esan zigun **guda-oinetan** izan osteko haietako batean-. [Edorta Jimenez](#)

Guda-oinetan tiro egiteko zen norbait geratzen zen artean eustea zen geratzen zitzaiguna. [Edorta Jimenez](#)

Kontraeraso bat izan zela jakin nuen, eta atzera eginarazi zietela alemaniarrei, eta berriro armaz hartu zituztela gure **gudu-oineko** lubakiak. [Mirentxu Larrañaga](#)

Guda-oinetan ongi zihoan aurrerabidea, orratzek zulatutako AEBetako kartografian barrera. [Harkaitz Cano](#)

Guda oinetan hegazkin bat tximista batean igarotzen denean, alemaniarra da ziur. [Josu Zabaleta](#)

19 oin arrasto

Patriciaren **oin arrastoak** zaldi batenak bezain handiak ziren elur gero eta lodiagoan. [Koro Navarro](#)

Santa Kruzek eta bere mutilek Aranora elurretan **oin-arrastorik** utzi gabe egin zuten bidaiarena... [Anjel Lertxundi](#)

Belauniko jarri zen lurrean eta hurbil-hurbiletik miatu zuen ingurua, kandela baten argitan, **oin-arrastoren** bat topatzeko esperantzarekin. [Julen Gabiria](#)

Gauza bera diote San Joanengatik: hiru urrats egin omen zituen Bermeotik Gaztelugatxera eta han omen daude **oin-arrastoak**. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

20 oin azpi iz

Gune txiki batzuk baino ez ditu gorputzak batere hilerik gabeak, hala nola **oin azpiak** eta esku ahurrak. [Irene Aldasoro](#)

Brasildarrak **oin azpia** minberatuta daukalako iragan asteburitik. [Berria - Kirola](#)

Eguzkiak jotzen zuen lekuetan egurrezko lurzoru bero zegoen, haren **oin-azpiek** sumatu zuten. [Lopez de Arana](#)

Zakurrek **oin azpitan** -horregatik beren urrats hezeak- eta muturrean bakarrik dituzte izerdi guruinak. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

21 oin azpi (toki atzizkiekin singularrean)

Ez zuten sentitzen lurra **oin azpian**, ez denboraren joana, ezta beren burua ere. [Jose Morales](#)

Zapal ezazue **oin azpian**, zatitxo bat ere gera ez dadin! [Jose Morales](#)

Euren **oin azpitik**, ibaiak pilotateak milikatzen zituen. [Lopez de Arana](#)

Hatz, esku-ahur eta **oin azpiko** azal sendoa bero-isolatzaile ona da. [Irene Aldasoro](#)

Edozein egunetan lapurrek gure **oin-azpiko** lurra ere eraman dezakete. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

22 oin bular ik oinbular.

23 oin-esku (3 agerraldi, 2 liburutan) pl oinak eta eskuak. ik gorago 17.

Haren gorputza, haren **oin-eskuak**, haren hortzak eta haren burua Estatu Batuetan baziren ere, Frantzia zen haren arima. [Felipe Juaristi](#)

Etxe batera iritsi zenean, **oin-eskuak** mailatuak zeuzkan, ziztada gorritz handituak, odolatan. [Karlos Zabala](#)

24 oin hartu

Gehiegi irekitzen bada, berriz, trumilka aterako da ura, eta hartzaile egarrituaren esku-ahurretan **oin harturik**, gainezka egingo du, geiser baten moduan. [Joxerra Garzia](#)

Maimonek dio filosofia atomista hori funtsean 12 baiespenetan oinarritzen dela, eta gero, berorietan **oin hartuta**, unibertsorean sorrera eta Jainkoaren existentzia, bakartasuna eta gorputz gabetasuna frogatzen ditu. **Xabier Kintana**

Halako jauzi boteretsuari esker sendoki **oin hartu** zutela uste izan ondoren jadanik determinatutako adigaia. **Ibon Uribarri**

25 oin hezur *(corpusean oinezur soilik)*

Eta lehenik zer ikusi zuten? burezurra! eta bi **oinezurretako** zatiak ere ikusi zizkiotean! eta hala jakin zitean, eskeletoaren gainerako puskek ehortzita zituen arren, ahoz gora hil zela munstroa. **Joan Mari Irigoien**

Izan ere, lur barruko suan gelditutako deabruak Luziferri isatsetik tiraka hasi zitzaizkionean, ipur-konkorreko zatiak beheraka egin zian, eta **oinezurrek** eta buruak goraka. **Joan Mari Irigoien**

26 oin hots *(64 agerraldi, 29 liburu eta artikulua 1ean; orobat oinots 18 agerraldi, 13 liburutan)*

Oin hotsa guganantz zetorren. **Alberto Ladron Arana**

Oin hotsak goiko solairuan. **Harkaitz Cano**

Haien **oin-hotsak** galdu ziren. **Anjel Lertxundi**

Joanesen **oin-hotsak** arinak ziren, noski, eta entzungarriak, baiki. **Felipe Juaristi**

Oin-hots bizkorrak eta lekuz aldatutako altzarien zaratak entzun ziren. **Jon Muñoz**

Big Lannieri bihotza taupaka hasi zitzaion, herio larrian, ikusirik Raymondek ez ziola aterik zabaldu bere **oin-hotsak** entzutean. **Mirentxu Larrañaga**

Oinezkoen **oinotsa** eta bidezkoen ahotsa besterik ez zen entzuten. **Jon Muñoz**

Zure **oin**-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, biluzik nagoelako. **Elizen arteko biblia**

27 oin hutsik ik oinuts 3.

28 oin ohar *(orobat oinohar g.er.)*

Oin-oharrik argi eta garbi uzten zuen zein zen izenburua: "Elsa Braun, Alsfed, Germany". **Iban Zaldúa**

Erreferentzia **oin-oharretan** ematen baduzu, parentesiak ez dira beharrezkoak. **Askoren artean**

Hemen aipatu ditugun emakume izen zifratuak editorearen **oin-ohar** batean baino ez dira aipatzen, modu azkar batean aipatu ere, inolako azalpenik eman gabe. **Iñaki Arranz**

Joseba Sarrionandiak Manuel Bandeiraren antologian hitz honi egiten dion **oin ohar** batean, *etxeorratz* ez duela gustuko aipatzen du. **Harkaitz Cano**

Liburuaren sarrean, lehen **oin-oharrean** (9. or.), Cachok dio nola Iñigo izenez bataiatu zuten Loiolako txikia. **Patxi Altuna**

Saio honek lehen idazketa bat 1899an izan du (ik. **Joxe Azurmendi**)

1063 or., 2. **oin-oharra**). **Iban Zaldúa**

Arraza berba ez da behin ere ageri; odola, Herodoto-ren aipu bezala bakarrik, eta **oin-oharrean**. **Joxe Azurmendi**

Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz[ultzailearen] oh[arra]).

Argazkiaren **oin-oharra** irakurri nuenean ez nintzen larritu; atsekabe-zitada bat sentitu nuen nire baitan, asko jota. **Iban Zaldúa**

29 oin ortozik adlag

Galtzontzilotan, oin **ortozik**, lerroari segitzen diot, ea nora. **Iñigo Aranbarri**

ik ortozik.

30 oin punta *(orobat oinpunta g.er.)*

Ohitura du ordu laurden osoan oin orpoen eta **oin punten** gainean balantzaka aritzeko. **Josu Zabaleta**

Oin puntekin oin gainak ukitu dizkio Elenari eta, aldi berean, besapea miatzatu dio. **Eider Rodriguez**

Isilka eta **oin-puntetan** joan ziren korridore ilunean aurrera, ate beldurgarrirantz. **Jose Morales**

Bere amaren logelara **oin-puntetan** itzuli, gerruntzea eta jantzia jaso eta armairuan eseki zituen. **Lopez de Arana**

Oin puntetan jarri eta berriro joan nintzen ispilura oker bat ote zen ikusteko. **Pello Lizarralde**

Berealdiko zehaztasunez egin zituen hemezortzi ariketak: bere gorputz gazte argaldu samarra luzatu, makurtu, arnasa hartu eta bota, **oin-puntetan** ipini, besoak eta hankak altxatu. **Jose Morales**

Gauetz altxatzen zen nire anaia **oin puntetan**, lo nengoelakoan, eta ilehoriaren atea jotzera joaten zen. **Pello Lizarralde**

Zientziak **oin-puntetan** aurrera egiten du, ez urratsetan, horiek zarata gehiegi ateratzen baitute. **Berria - Gaiak**

31 oin zola *(orobat oinzola)*

Zangoak zuzenak, eta **oinzolak** zekorren apatxarenek bezalakoak, brontze leundua bezain distiratsu. **Elizen arteko biblia**

Ezkonduta dago, eta katolikoa da burutik **oin-zolaraino**. **Oskar Arana**

Kilimak egiten zizkidan alfonbra lodiak **oin-zoletan**. **Koldo Izagirre**

Eguzkiak bero galdatan zeukan lautada; basa herrira itzultzeko bideari ekin genionean, lehen izarren pean, harea sutan zen **oin zolen** azpian. **Juan Garzia**

Belarrietan eztanda egiten zigun, eta ikara izugarria barreiarazten zuen dorrean zehar, gure **oin-zoletan** dardara eragiteraino. ez irristatzeko, **oin-zolak** zoruaren kontra tinko zapaltzea beste biderik ez dut; hotza dago. **Mirentxu Larrañaga**

Ene **oinzolen** oinaukia. **Xabier Kintana**

32 oina eman

Hitzaren lehenengo letrek **oina emango** balute bezala. **Iñaki Arranz**

Bakearen alde egin zuen topa, latinez hark ere, Irujorenak **oina eman** izan balio bezala. **Inazio Mujika Iraola**

Albistegiari azken **oina ematen** dion jotaren marrumak urratua egin dio haizeari. **Aingeru Epaltza**

33 oina hartu

Gutxienez bostehunen bat metro egin beharko nituen ibaian goiti, **oina hartu** ahal izateko belarrik edo ihirik ez zen lekuren bat aurkitzeko. **Josu Zabaleta**

Horiek dira ezezkotik abiatzen direnak; baiezkoan **oina hartzen** dutenak ("bai eta bai", "bai baina ez") besterik dira. **Iñaki Segurola**

34 oinak lurtean

Zure erabaki zuzena zekarren, ezpata zorrotza baillitza, eta gelditzean, heriotza zabaldu zuen nonahi; **oinak lurtean** zituela, zerua ukitzen zuen. **Elizen arteko biblia**

- irud/hed - **Oinak lurtean** ditu, esaerak dioen bezala. **Oskar Arana**

Baina, jakina, beti izaten da laguntzaile desinteresatu bat **oinak** lurtean jartzen laguntzen diguna. **Bernardo Atxaga**

Baina erlatibizatu egin behar da, eta **oinak lurtean** izan, jaso laudorioak, jaso gaitzespenak. **Ana Urkiza**

Hik **oinak lurtean** jarrita bizi behar duk, baina ahaztu gabe baloia duala eguzki, eta lurak eguzkiaren inguruan jiritzen duela. **Berria - Kirola**

Jaime Barriuso presidentek **oinak** lurtean dituela dio. **Berria - Kirola**

Oinak lurtearen gainean nituela jardun nahi nuen behingoz, eta nondik nora nabilen ez dakidala gelditu naiz. **Iñaki Segurola**

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi oin luze (3); **esku eta oin** (3)

oin arin (4); **oin arastoak** (3); **oin atz** (3); **oin azpiak** (3); **oin azpian** (17); **oin azpitan** (3); **oin baino handiagoa** (5); **oin baino txikiagoa** (3); **oin bat zabal** (4); **oin beteko** (3); **oin biak** (3); **oin bien gainean** (3); **oin biluziak** (4); **oin biluzien** (4); **oin dituztela** (4)

oin emango (3); **oin erdi** (5); **oin eskuak** (3); **oin eta erdi** (9); **oin eta erdiko** (5); **oin eta esku** (3); **oin gainean** (3); **oin handiak** (3); **oin hartu** (18); **oin hartu du** (11); **oin hartzen** (3); **oin hatzak** (3); **oin hots** (7); **oin hotsa** (12); **oin hotsak** (31); **oin hotsak entzun** (6); **oin hotsak entzuten** (4); **oin hotsek** (6); **oin hotsen** (4); **oin hotsik** (3); **oin hutsak** (4); **oin hutsik** (10)

oin ingeles (4); **oin ingeles lur** (4); **oin izango dituzte** (3); **oin karratuko** (3); **oin kubiko** (3); **oin kubiko gas** (3); **oin luze** (8); **oin luzeak** (3); **oin luzekoa** (4); **oin minberatuak**

(3)

oin ohar (10); **oin ohar batean** (4); **oin oharra** (5); **oin oharrak** (6); **oin oharrean** (3); **oin oharretan** (3); **oin pauso** (3); **oin pausu** (3); **oin punta** (6); **oin puntak** (3); **oin puntaz** (4); **oin puntan** (4); **oin puntetan** (38); **oin puntetan jarri** (5); **oin txanpona** (3); **oin txiki** (3); **oin txikiak** (4)

oin zabal (4); **oin zola** (3); **oin zolak** (4); **oin zolen** (3); **oin zoletan** (3)

oinez oin (7); **sei oin ingeles** (4); **zilarrezko berrogei oin** (4)

eskuineko oina (8); **ezker oina** (3); **ezkerreko oina** (4); **oina aho gainean** (3); **oina altxatu** (5); **oina jarri** (4); **oina jartzen** (4); **oina lurrean** (3); **oina oinaren ordain** (3); **oina sartu** (3); **oina untzia** (3); **oina gainean** (3); **oina zapaldu** (4)

argazki oinak (6); **bi oinak** (11); **buztinezko oinak** (5); **esku eta oinak** (3); **esku oinak** (33); **esku oinak erditik** (3); **eskuak eta oinak** (14); **garbitu oinak** (4); **lau oinak** (9)

oinak agerian (3); **oinak airean** (6); **oinak arin** (18); **oinak arrastaka** (14); **oinak arrastatzen** (3); **oinak berotzeko** (4); **oinak besarkatu** (4); **oinak brontzezkoak** (5); **oinak busti** (6); **oinak busti gabe** (4); **oinak bustitzen** (3)

oinak erreta (3); **oinak eta eskuak** (11); **oinak garbitu** (13); **oinak garbitzeko** (14); **oinak garbitzen** (14); **oinak garbitzera** (5); **oinak herrestan** (7); **oinak hoztu** (3); **oinak ikusi** (3); **oinak jarri** (3); **oinak lotu** (4); **oinak lotuta** (3); **oinak lur gainean** (3); **oinak lurrean** (61); **oinak lurrean dituela** (3); **oinak lurrean izan** (7); **oinak lurrean jarri** (3); **oinak lurrean jarrita** (4); **oinak lurrean jartzeko** (3); **oinak musukatzen** (3); **oinak uretan** (3); **oinak zapaltzen** (8)

setheren oinak (3) zutabeen oinak (4)

eskuin oinarekin (5); **ezker oinarekin** (8)

ile oinaren lerroa (3); **oina oinaren ordain** (3); **oinaren gainean** (4); **oinaren kontra** (3); **oinaren puntarekin** (3)

aldare beraren oinean (3); **aldare oinean** (6); **aldare oinean isuriko** (3); **argazki oinean** (3); **beheko oinean** (6); **eskailera oinean** (3); **ezker oinean** (3); **guda oinean** (4); **lau oinean** (9); **mendiaren oinean** (3); **odola aldare oinean** (4); **oinean eseri** (4); **oinean isuriko** (6)

oinei begira (5); **oinei muin** (3); **oinei so** (3)

apaizen oinek (3); **oinek zapaltzen** (3); **zuen oinek zapalduko** (3)

bi oinekin (7); **hiru oinekin** (4); **lau oinekin** (5)

bi oineko baldosak (4); **eskuin oineko** (8); **eskuin oineko erpuruak** (7); **ezker oineko** (11); **mendi oineko** (3); **oineko alde** (5); **oineko altuera** (4); **oineko azalera** (3); **oineko behatz** (3); **oineko behatza** (3); **oineko erpuruak** (7); **oineko erpuruak igurtziko** (4); **oineko hezur** (3); **oineko luzera** (4)

bere oinen azpian (3); **bi oinen gainean** (9); **esku oinen** (4); **lau oinen gainean** (3); **nire oinen azpian** (4); **oinen artean** (7); **oinen aurrean** (4); **oinen azpian** (41); **oinen azpian lurra** (3); **oinen azpiko** (4); **oinen azpitik** (3); **oinen gainaldean** (4); **oinen gainean** (34); **oinen goiko** (3); **oinen inguruan** (5); **oinen ondoan** (13); **oinen parean** (3); **oinen pean** (10)

oinera iritsi (3)

esku oinetako (10); **esku oinetako zauriak** (3); **eskuetako eta oinetako** (4); **oinetako behatz** (15); **oinetako behatz ttikienaren** (3); **oinetako behatz ttikiraino** (4); **oinetako girgiluak** (3); **oinetako hautsa** (5); **oinetako lokarriak** (5); **oinetako zauriak** (7)

esku oinetan (16); **guda oinetan** (3); **haren oinetan ahuspeztu** (3); **haren oinetan etzan** (4); **jaunaren oinetan** (3); **Jesusen oinetan** (5); **lau oinetan** (4); **mendiaren oinetan** (6); **ohearen oinetan** (4)

oinetan ahozpeztu (3); **oinetan ahozpezturik** (5); **oinetan ahuspeztu** (12); **oinetan ahuspeztu zitzaion** (3); **oinetan ahuspezturik** (5); **oinetan belaunikatu** (5); **oinetan belaunikatu zen** (3); **oinetan eta saihetsean** (4); **oinetan gelditu** (3); **oinetan hedatzen** (4); **oinetan izan** (6); **oinetan jarri** (4); **oinetan jarrita** (3); **oinetan utzi** (4)

san frantziskoren oinetan (3); **sandaliak oinetan** (3); **santu beraren oinetan** (3); **santuaren oinetan** (4)

burutik oinetara (15); **burutik oinetara luzatzen** (3); **Jesusen oinetara** (3); **oinetara ahozpeztu** (3); **oinetara begira** (3); **oinetara begiratu** (4); **oinetara bota** (5); **oinetara erori** (11); **oinetara erori zen** (5); **oinetara iritsi** (6); **oinetara jausi** (3); **oinetara luzatzen** (3); **oinetara luzatzen zen** (3); **oinetara makurtu** (3); **oinetara makurtu zen** (3)

burutik oinetaraino (46); **burutik oinetaraino begiratu** (3); **oinetaraino iristen** (3)

burutik oinetarainoko (3)

oinetatik burura (3); **oinetatik bururaino** (7); **oinetatik gertu** (3); **oinetatik gora** (4); **oinetatik tira** (3)

hamar oinetik berrogeira (3)

abiatu ginen oinez (3); **berririo oinez** (3); **beti oinez** (6); **bidea oinez egin** (3)

elurretan oinez (3)

ibilbidea oinez egin (3); **joan ginen oinez** (3); **lekorne makea oinez** (6)

oinez abiatu (42); **oinez abiatu nintzen** (7); **oinez abiatu ziren** (11); **oinez atera** (5); **oinez dabil** (3); **oinez doala** (4)

oinez edo bizikletaz (4); **oinez edo bizikletean** (3); **oinez egin** (42); **oinez egin zuen** (8); **oinez eginen** (4); **oinez egingo** (6); **oinez egitea** (3); **oinez egiteko** (5); **oinez egiten** (23); **oinez eman** (5); **oinez eta zaldiz** (4); **oinez etorri** (13); **oinez goaz** (4); **oinez hasi** (22); **oinez hasten** (3)

oinez ibil (4); **oinez ibili** (28); **oinez ibili ziren** (4); **oinez ibiltzea** (15); **oinez ibiltzeko** (12); **oinez ibiltzeko gauza** (3); **oinez ibiltzen** (19); **oinez ibiltzera** (4); **oinez igaro** (4); **oinez igo** (4); **oinez ikasi** (8); **oinez iragan** (4); **oinez iristeko** (4); **oinez itzuli** (10); **oinez itzuliko** (3); **oinez jaisten** (3); **oinez jaitsi** (11); **oinez jarraitu** (25); **oinez jarraitzen** (5); **oinez joan** (52); **oinez joanda** (3); **oinez joango** (19); **oinez joatea** (10); **oinez joatea erabaki** (6); **oinez joateko** (9); **oinez joaten** (16)

oinez oin (7); **oinez zetorren** (4); **oinez zihoan** (18); **oinez zihoazela** (6); **oinez zihoazen** (8)

ur gainean oinez (8)

oinik busti gabe (5)

oinalde 1 iz oinen edo oinaren aldea.

Iparraldeko konstelazioaren buru inguruarekin zeharka eta Geminisen **oinaldean**, Auriga aurkitzen da, Tauroren adar baten muturrean. **Santiago Iruretagoiena**

Hegoaldeko harresien **oinaldean**. **Agustin Otsoa**

Hurrengo gauean gurutze guztiz izugarri bat ikusi zuen ametsetan: haren gailurrak zerua ukitzen zuen, eta **oinaldea** Frantziskoren ahoan finkatua zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Bide horretatik iritsi ziren azkenik Goi Patria eta Iturriaren Plazara, Dorre Zuriaren **oinaldean**. **Agustin Otsoa**

Orduan eman zigun Gandalfek landan bildu beharrean hona etortzeko aholkua, haranean mendien **oinaldean** elkartzeko. **Agustin Otsoa**

Erizain bat ohearen **oinaldearen** inguruan zebilen. **Lopez de Arana**

Ohearen **oinaldeko** barran jarrita, txirularekin sehaska-kanta eder bat jo zuen amarentzat. **Julen Gabiria**

Eta han zegoen Big Joeren hatz-marka ere, tintaz zikinduriko zirriborroan, orriaren **oinaldean**, beti ohi bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Eskutitza eskuz sinatua da, denen errubrikak hortxe direla, orriaren **oinaldean** edo bestela ezkerreko ertzean. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan)

Esanahi ezberdinak izan ditzake, elkarren artean gurutzatuak edo txandakatuak, baina berbera dirauen enuntziazio-**oinalde** baten gainean. **Xabier Arregi**

3 orriaren oinaldea.

Amairako oharrak: **oinaldeko** oharren ordezkoko dira eta testu osoaren atzeko aldean, bibliografiaren aurretik, idazten dira. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ohearen oinaldean (6)

ohearen oinaldeko (3)

oinarri 1 iz gauza bati eusten dion azpiko atal, gehienetan trinkoa. ikzimendu; egonarri; harroin 2

Bola itxurako lanparak marmolezko **oinarri** bat zuen, eta atzeko hanken gainean zutik jarritako kobrezko untxi bat. **Joseba Urteaga**

Lanpararen **oinarriari** tinko heldurik. **Jon Muñoz**

Oinarrien gainean goratuak, marmolezko estatuak, goibelak, zuriak baina goroldio meheak lizunduak. **Joseba Sarrionandia**

Gelaren lau izkinetan, halamoduzko **oinarrietara** jasota, zurezko santuak paretara begira, milizianoei bizkarra emanaz. **Inazio Mujika Iraola**

Eraikuntza hauek guztiak [...] neurrira landu eta zerraturiko harri bikainez egin zituzten **oinarrietatik** habeetaraino, etxearen kanpoaldetik areto nagusiraino. **Elizen arteko biblia**

Hiriko harresiaren **oinarriak** era guztietako harribitxiz zeuden apainduak: lehenengo **oinarria** jaspez, bigarrena zafiroz, hirugarrena kaltzedoniaz, laugarrena esmeraldaz.

Elizen arteko biblia

Oinarrietarako harri bikainak ezarri zituen, harri handiak, bost eta launa metrokoak. **Elizen arteko biblia**

Kontuan hartu plintoak, basak, dadoak, erlaitzak eta zimazioak kolomen **oinarriaren** azpian egongo den estilobatoarekin egokituz egin behar direla. **Santiago Iruretagoiena**

Azpian **oinarri** bat egingo da lurretik altxatuta, harri-koskorrek edo zoladurak ez dezaten egurrak ukitu. **Santiago Iruretagoiena**

Keopsen piramideak karratua du **oinarria**. **Jon Muñoz**

Oinarri karratu bat egiten da, grezieraz *eschara* esaten dena, alde bakoitzetik hogeita bat oin dituena eta lau zeharanga dituena. **Santiago Iruretagoiena**

Berrito eraikiko da **oinarri** horien gainean, eta koloso berdinak jarriko dira, ezberdintasun anker batekin: oraingo honetan zimenduak hain ondo hartuta egongo direnez gero, ez zuen belaunaldiak eta ez hurrengoek ez dute eraistea lortuko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Mendiak eta lurra **oinarriak** dardaraz jartzen hark begiratzean. **Elizen arteko biblia**

Oinarriek huts egitean, zintzoak zer egin? **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed ik funts; sustrai.

Empirismoan **oinarriak** sentipen-datuak dira. **Askoren artean**

Zuhurtziaren **oinarria** zuhurtzia nahi izatea da. **Elizen arteko biblia**

Lehen mailako eskola judu erlijiosoa, hiru urteik aurrerako mutikoei hebreeraren, Torah-ren eta judutasunaren **oinarriak** irakasten zitzaiena. **Koro Navarro**

Zuzenbide idatzia, arrazoiduna, Herri Batzarrek sortua, horietatik ditugu sistema berriaren **oinarriak**. **Andres Urrutia**

Honi dagozkion gogoetek, apaiz izan zein prakadun, inarrosi egiten dituzte denak, eta gure **oinarriak** berak dardarazten. **Txillardegi**

Oinarri horiek egunerokoak ditugu aldiotan ere eta edozein legelarientzat ezinbestekoak, lege jorraketa arruntean nahiz goi mailako ikerketan. **Andres Urrutia**

Einsteinen arabera, lan zientifiko on ororen **oinarriaren** erlijiozko sentimendu bat dago, "arrazoiaren usteekin" hertsiki lotua. **Iñaki Seguro**

Argi dago inork ez dezakeela ezarria dagoen **oinarria** besterik ezar; eta **oinarri** hori Jesu Kristo da. **Elizen arteko biblia**

Gure euskal legedia, foruetan aurkitzen dena alegia, beste **oinarri** batzuetan funtsatzen zelako. **Pello Salaburu**

Espazioaren ideia gorputzari eta haren mugimenduari lotuta dago **oinarri**-oinarritik. **Josu Zabaleta**

Fermatek zenbakien teoria modernoa sortu zuen; probabilitateen teoriaren **oinarriak** jarri, Pascalekin batera; [...]. **Jon Muñoz**

$\cdot 10^2=100$ denez gero, 100en logaritmoa, **oinarria** 10 denean, 2 da: $\log_{10}100=2$. **Jon Muñoz**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Adierazgarritasunari dagokionez, **oinarri** simple batean oinarritzen da: estiloa zenbat eta berriagoa izan, orduan eta adierazgarriagoa da. **Josu Zabaleta**

Teoria fonologikoaren **oinarri** nagusietako bat zeregin horretarako prozedura analogikoak ziren. **Itziar Laka**

Lege naturalaren doktrinak hiru **oinarri** orokor ditu: [...]. **Askoren artean**

Oinarri sendo horren gainean altxatu zuten karitatearen egitura noblea. **Askoren artean**

Teoria honek ez duela inolako **oinarri** zientifikorik. **Josu Zabaleta**

Gaitzaren **oinarri** biologikoak aztertu dituzte lan horietan. **Berria - Gaiak**

Gaurko kulturaren antropologiaren **oinarri** filosofikoak. **Berria - Euskal Herria**

Politika ekonomikoaren **oinarri** teorikoak. **Koro Navarro**

XX. mendeko estetika, nolana ere, bestelako **oinarri** batzuetatik abiatu da. **Josu Zabaleta**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Motor finkoa, **oinarri**-plaka astun bati torloju loturik egoten da, **oinarri**-plaka zorura irmo josia dagoela. **Irene Aldasoro**

Oinarri-puntu bat aurkitu. **Xabier Olarra**

Zenbat eta **oinarri** puntu gehiago izan, orduan eta errazago mantentzen da oreka. **Berria - Kirola**

Beste gauza batzuk alda daitezke Euskadi sarien **oinarri**-arauetan, baina hori ez. **Berria - Kultura**

Adimen hutsaren **oinarri**-esakunea: agerpen oro handitasun hedatua da bere begiespenari dagokionez. **Ibon Uribarri**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zimendu horren gainean benediktarren ordenak Mendebaldeko ekonomi bizitzaren nekazaritza-**oinarria** jarri zuen, eta oinarri horrek eman zion zistertar ordenari industri gaineiturarako oinarria. Hindu eta Mendebaldeko zibilizazioek ia ez zuten kultur **oinarri** komunik. Gizarte garatuetan, batez ere estatu-**oinarriak** justifikatu ahal izateko, aurrera gehien egin duen sistema politikoa demokrazia formala izan da. **Iñaki Mendiguren**

Baina nire helbururako askigarria da froga-**oinarri** soila begi-bistan jartzea, era herrikoian bada ere. **Ibon Uribarri**

Semiperiferiak, nahiz eta ez egon beti esportazioan espezializatua, ekoizpen-**oinarri** dibertsifikatuagoa izaten du. **Koro Navarro**

Izan ere, nigan topa daitezkeen nire izatearen determinazio-**oinarri** guztiak errepresentazioak dira. **Jon Muñoz**

Halako kasuek erakusten digute, beraz, bizitzaren atxikimendu-**oinarri** osoari azpiana egin diezaiokeela lesio neurologiko batek. **Xabier Olarra**

Politika horrek [...] zerga-**oinarria** zabalduz, estatuaren sarrerak handitzen zituen. **Koro Navarro**

Barneko organoei doakienez, bihotza besterik ez zaio egotzi, horren izena balio anitzekoa delako, 'adimena' ere esan nahi baitu, aldi berean, izaki bizidunaren bizi-**oinarria** izanez. **Xabier Kintana**

6 oinarrizko ik oinarrizko.

7 oinarri eman

Bai, baina Iraken aurkako eraso nazioarteko legedia aintzat hartu gabe egin izanak ez al dio **oinarri eman** giza eskubideen bortxaketari? **Berria - Mundua**

8 oinarri hartu ik oinarritu.

Gangak adreiluzko zerrenda zuri eta gorriak zeuzkan, eta haren arku beharatuak burdinurtzko nerbioekin bat egiten zuten, zutabetxo batzuetan **oinarri harturik**. **Karlos Zabala**

Damurik botek ez zuten **oinarri hartzen** ahal, lerratu egiten zitzaizkion berehala. **Koldo Izagirre**

Egiptoarrek Sirio **hartzten** zutenean **oinarri**, eta ez eguzkia, arazo bera zuten, zeren Sirioren urtea eta eguzkiarena ia-ia parekoak izanik ere, betiere galtzen zituzten ordu batzuk. **Pello Salaburu**

Inbentarioan sailkaturiko 196 eskuizkribuetatik 147 **oinarri harturik**, ondorio aski finkatuetara iritsi dela dirudi Santuaren idazkien benetakotasunari eta testu kritikoari buruz. **Askoren artean**

Azterketa genetikoak **oinarri hartuta**, txinpantzeek eta gizakiok gene berberak omen ditugu ehuneko laurogeita hamabostean edo gehiagoan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Dibortzioa ere elkarrekiko adostasunak ekar dezake, ezkontza bera elkarte delako kari hori **oinarri hartuta**. **Andres Urrutia**

Ideologia burges txikiaren esanetara zegoen, eta nazionalismoan, aktibismoan eta boluntarismoan **hartzten** zuen **oinarri**. **Rafa Egiguren**

MCCk, lehen lauhilekoa **oinarri hartuz**, salmentak %10 handitzea espero du aurten Banaketa Taldean eta %8 Industria Taldean. **Berria - Ekonomia**

9 oinarri izan du ad

Banakoaren neurosiak sexua **du oinarri**; aldiz erlijioak, neurosi unibertsalak alegia, norberekeria. **Markos Zapiain**

Eta guk Jainkoa **dugu oinarri**, Jainkoa gidari... **Joan Mari Irigoien**

Tradizio klasiko horrek bi doktrina esoteriko zituen **oinarri**: [...]. **Xabier Kintana**

Lehenak bigarrena **baitu oinarri**, eta ez alderantziz! **Karlos Linazasoro**

Eztabaida horien ildotik, eta txosten horixe izanik **oinarri**, NBEk erabaki zuen 1992an Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia egitea. **Itziar Izagirre / Amaia Lizarralde**

Tradizio klasiko orrekorrekin doktrina esoteriko **zitu**en oinarri : [...]. Xabier Kintana

Erresuma Batuan, politika **oinarri duten** fikzioek arrakasta badute. Berria - Kultura

Elzaharrak **oinarri duen** gertaera historikoa -horren berri testuaren hasieran ematen da- Analesen bildu zuen Aleson-ek. Martin Anso

Posible da, beraz, euliaren baitan enbrioiaren garapenak **oinarri duen** sistema genetikoa aztertzea. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adimen hutsaren oinarri (23); **adimenaren oinarri** (15); **adimenaren oinarri eskune** (5); **apriorizko oinarri** (10); **apriorizko oinarri eskune** (6); **argiketa oinarri** (11); **batasunaren oinarri** (12); **demokraziaren oinarri** (7); **ditu oinarri** (37); **du oinarri** (90); **dugu oinarri** (6); **dute oinarri** (29)

ezker abertzalearen oinarri (6); **gutxieneko oinarri** (6); **hartu du oinarri** (5); **hartzten du oinarri** (6); **hiru oinarri nagusi** (5); **hori oinarri hartuta** (7); **horiek oinarri hartuta** (7); **horretarako oinarri** (5)

inolako oinarri juridikorik (7); **jatorrizko oinarri** (5); **kausalitatearen oinarri** (8); **lana oinarri** (5); **modalitatearen oinarri** (5); **musika oinarri** (6)

oinarri bakarra (10); **oinarri baten gainean** (8); **oinarri bera** (8); **oinarri berri** (5); **oinarri berriak** (6); **oinarri demokratiko** (7); **oinarri demokratikoak** (13); **oinarri dira** (5); **oinarri ditu** (9)

oinarri eskune (164); **oinarri eskune gisa** (7); **oinarri eskune guztiak** (5); **oinarri eskune sintetiko** (7); **oinarri eskunea** (36); **oinarri eskuneak** (56); **oinarri eskunean** (5); **oinarri eskunearen** (17); **oinarri eskuneei** (6); **oinarri eskuneek** (7); **oinarri eskuneekin** (5); **oinarri eskuneen** (36); **oinarri eskuneen arabera** (7); **oinarri eskuneetan** (5); **oinarri filosofiko** (5); **oinarri gainean** (5); **oinarri gisa** (59); **oinarri gisa hartuta** (5); **oinarri goren** (6); **oinarri hartu** (7); **oinarri harturik** (23); **oinarri hartuta** (127); **oinarri hartuz** (13); **oinarri hartzten** (7); **oinarri hau** (7); **oinarri hauek** (7); **oinarri historikoa** (6); **oinarri hori** (18); **oinarri horiek** (31); **oinarri horiekin** (9); **oinarri horien** (10); **oinarri horien gainean** (5); **oinarri horren** (12); **oinarri horren gainean** (9)

oinarri ideologikoak (7); **oinarri izan** (32); **oinarri izango** (21); **oinarri juridiko** (5); **oinarri juridikorik** (20); **oinarri juridikorik ez** (5); **oinarri komun** (5); **oinarri komunak** (5); **oinarri moduan** (11); **oinarri nagusi** (21); **oinarri nagusia** (20); **oinarri nagusiak** (10); **oinarri nagusietako** (9); **oinarri nagusietako bat** (7); **oinarri nagusizat** (7)

oinarri objektibo (6); **oinarri oinarrian** (29); **oinarri oinarritzko** (44); **oinarri oinarritzkoa** (10); **oinarri oinarritzkoa da** (6); **oinarri on** (5); **oinarri ona** (5); **oinarri politiko** (13); **oinarri politikoa** (13); **oinarri politikoak** (7); **oinarri sendo** (16); **oinarri sendoa** (36); **oinarri sendoak** (37); **oinarri sendoen** (9); **oinarri sendoen gainean** (5); **oinarri sendorik** (10); **oinarri sozial** (13); **oinarri soziala** (17); **oinarri sozialak** (7); **oinarri sozialaren** (8); **oinarri teoriko** (5); **oinarri teorikoak** (11); **oinarri transzendental** (5)

oinarri zientifikoa (5); **oinarri zientifikorik** (11); **oinarri zitu**en (5); **oinarri zu**en (6)

sistemaren oinarri (5); **taldearen oinarri** (5)

ahalgarritasunaren oinarria (11); **arrakastaren oinarria** (5); **bizitzaren oinarria** (5); **demokraziaren oinarria** (5); **froga oinarria** (7); **funtsezko oinarria** (5); **gatazkaren oinarria** (7); **lanaren oinarria** (6); **lehenengo oinarria** (6)

oinarria barnebiltzen (6); **oinarria ezarri** (6); **oinarria izan** (23); **oinarria izan zen** (6); **oinarria izango** (9); **oinarria jarri** (7); **oinarria osatzen** (6)

taldearen oinarria (6)

akordioaren oinarriak (6); **bake prozesuaren oinarriak** (6); **demokraziaren oinarriak** (11); **estatuaren oinarriak** (6); **etxearen oinarriak** (5); **fede katolikoaren oinarriak** (10); **konponbiderako oinarriak** (8); **lurraren oinarriak** (5)

oinarriak aurkeztu (5); **oinarriak berak** (6); **oinarriak ezarri** (17); **oinarriak ezartzea** (5); **oinarriak ezartzeko** (7); **oinarriak ezartzen** (9); **oinarriak finkatu** (13); **oinarriak finkatzeko** (7); **oinarriak finkatzen** (9); **oinarriak ipini** (5); **oinarriak jarri** (28); **oinarriak jarri zitu**en (5); **oinarriak jarriko** (7); **oinarriak jarrita** (5); **oinarriak jartzea** (6); **oinarriak jartzeko** (9); **oinarriak jartzen** (7); **proposamenaren oinarriak** (5); **prozesuaren oinarriak** (11)

agerpenen oinarrian (5); **ditu oinarrian** (9); **du oinarrian** (15)

oinarri oinarrian (29); **oinarrian dago** (8); **oinarrian dagoen** (30); **oinarrian datzan** (19); **oinarrian dauden** (11); **oinarrian duen** (7); **oinarrian egon** (7); **oinarrian ezarri** (7); **oinarrian ezarritako** (6); **oinarrian ezartzen** (8)

oinarriaren gainean (5)

froga oinarrien (7); **oinarrien arabera** (6); **oinarrien aurka** (6); **oinarrien gainean** (7)

oinarriko futbola (5)

oinarririk gabe (24); **oinarririk gabea** (5); **oinarririkgabeak** (6); **oinarririkgabeko** (12)

ezinbesteko oinarritzat (3); **oinarritzat dituen** (3); **oinarritzat duen** (3); **oinarritzat hartu** (18); **oinarritzat harturik** (10); **oinarritzat hartuta** (32); **oinarritzat hartuz** (15); **oinarritzat hartzea** (3); **oinarritzat hartzten** (8); **oinarritzat izan** (3)

oinarridun 1 *izond* oinarria duena.

Lurjabeei ematen die [...] salneurri arrazoizko baten barruan, xede horretarako laguntzak eskuratzeko itzaropen **oinarriduna**; merkataria eta ekoizleak antolatzen ditu, arakasta osoz, atzerriko industriarekin lehian ibiltzeko. Andres Urrutia

Egozketa hori **oinarriduna** izan daitekeela ezin uka. Andres Urrutia

• 2 (izenlagun gisa)

Liburukotea hartu dut esku artean berriz ere, Eñautek irakurtzeko propio daukan besaulkian, irakurtzeko propio dagoen **oinarridun** lanpararen argipean. Sonia Gonzalez

Inork ere ezin du egin uretan habiarik ez **oinarridun** etxerik, alde egite eta itzuleren espazioa baita. Joseba Sarrionandia

oinarrigabe 1 *izond* oinarririk ez duena.

Horrela, barneko kontraesan orotatik aske izan arren, judizio bat faltsua edo **oinarrigabea** izan daiteke. Ibon Uribarri

Inork funtsaz ezin aldarrika dezakeenez gero kanpoko sentsuen gure errepresentazioen kausa transzendentalaz zerbait ezagutzen duela, orduan bere baieztapena erabat **oinarrigabea** da. Ibon Uribarri

2 *oinarrigabeko izlag* oinarrigabea.

Arrazoimenaren kritikak, beraz, azkenean halabeharrez gidatzen du zientziara; kritikarik gabeko bere erabilera dogmatikoak, aitzitik, **oinarrigabeko** baieztapenetara. Ibon Uribarri

oinarrigin *izond* oinarria egiten duena.

Lehenago Naturaren edo Jainkoaren leku aktibo eta **oinarrigina**, objektiboa, giza arrazoimenak hartu digu orain. Joxe Azurmendi

oinarripen *iz* oinarritzea.

Dena dela, soziologiaren **oinarripena** utzi eta oinarrianago dagoen balioekiko haren filosofia interesatzen zaigu zuzenkiago, azkenean hori da eta Leo Strauss (eta gu!) armintzen duena. Joxe Azurmendi

oinarritu, oinarri, oinarritzen 1 du *ad* oinarri eman, oinarritzat hartu.

Neure eskuz **oinarritu** nuen lurra, neure eskuz hedatu zerua. Elizen arteko biblia

Sendo **oinarritu** duzu zeure gaztelua etsaien aurka, etsai mendekuzaleak isilarazteko. Elizen arteko biblia

Sakrifiziotik behar da hasi, maitasuna **oinarritzeko**. Josu Zabaleta

Ideiak edo sentimenen edo hausnarketaren emaitza dira; haien balioa esperientziak **oinarritzen** eta mugatzen du. Askoren artean

Arrazoiketa publiko bat **oinarritzeko** ez digu balio. Joxe Azurmendi

"Physis" hitza "fusein" berbatik dator -garatu, handitu-, eta une batean printzipio suprafisiko -metafisiko- baten beharra duela ikus dezakegu, batez ere transzendentsia hori **oinarritzeko**. Askoren artean

Bakotzak behar dik noizbait bere autonomia **oinarritu** ! Michel Oronoz

Balioak absolutuki **oinarritu**, erlijioek egiten zuten. **Joxe Azurmendi**

Filosofoek, morala razionalki **oinarritu** nahi izaten zuten. **Joxe Azurmendi**

2 (-n atzikiaren eskuinean)

Erljioa denboraren poderioz gualoste talde batean **oinarritu** zen. **Gotzon Garate**

Nirei diedan maitasuna odol emaitza honetan **oinarritu** dut, amak berea esne emaitzan oinarritzen duen bezala. **Josu Zabaleta**

Nire zibilizazioak, berriz, giza harremanak Gizonaren gurtzan **oinarritu** nahi izan ditu. **Josu Zabaleta**

Sakrifizioan **oinarritu** zuen Gorostidik bere berrogei urteko militantzia. **Joseba Zulaika**

Nago, simulazio hutsean **oinarritu** izan dugula gure prestakuntza. **Andoni Egaña**

Frantziskok apaltasun eta pobretasunik handienaren gainean **oinarritu** zuen bere burua. **Askoren artean**

• 3 da *ad* oin hartu, oinarri hartu.

Elberri honetan **oinarritu** omen zen Alfred Hitchcock, *The Lodger* filmatzeko. **Anton Garikano**

Betiereko erretorika alferrikakoetan **oinarritu** ordez, bide berri bati ekin dio Seaskak. **Hasier Etxeberria**

Zertan **oinarritzen** da adiskidetasuna? **Xabier Olarra**

Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriarazko argudiotan **oinarritu**, Espirituaren indarrean baizik. **Eiizen arteko biblia**

Fedearen **oinarritu** beharrean, egintzetan **oinarritu** zirelako. **Eiizen arteko biblia**

Argazki-estilo asko **oinarritzen** dira denbora inplizituki argazkian txertatze honetan. kanpoko merkatuen zabalkundean huts-hutsik **oinarritzen** zen hazkunde baten mugak.

Josu Zabaleta

Baina, tira, eman dezagun erretzen dela, aseguratu gabe, zure zifrak **oinarritzen** diren epea baino lehen. **Xabier Olarra**

3 (forma ez jokatueta)

Gure predikua, izan ere, ez zen uste okerretan **oinarritua**, ez eta asmo maltzurrez nahiz engainuz egina ere. **Eiizen arteko biblia**

Lehengoa emozioan **oinarritua** bazen, oraingoa arrazoiaren **oinarritu** behar da. **Joseba Zulaika**

Gure zibilizazioa, neurri handi batean, itzulpenean **oinarritua** dago. **Anjel Lertxundi**

Hogeita sei premisotan **oinarriturik**, Jainkoaren existentzia eta haren ezaugarri kardinalak, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna, frogatuko ditugu. **Xabier Kintana**

Zilbor-hesteko odol-laginen banku pribatu hauen negozioa transplante autologoan **oinarriturik** dago, beraz. **Berria - Gaiak**

Egia-irizpide batean **oinarrituriko** jakintza espekulatiboarena da ikusmolde hori. **Juan Garzia**

Talaia fundazioak 1996an eskatutako hitzaldi batean **oinarrituta** dago. **Bernardo Atxaga**

Ospea ekarri zion unibertsoa (Sekula Betiko Lurralde, Peter Pan, Kako-okerrak...) idazlearen beraren bizitza latzean dago **oinarrituta**. **Julen Gabiria**

Ez du nahi laborategiko esperimentuetan **oinarritutako** eztabaidarik, eta ez du kontuan hartu nahi pertzepzio "naturala" baizik. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

absolutuki oinarritu (3); **datuetan oinarritu** (6); **defentsa sendoan oinarritu** (3); **defentsan oinarritu** (6); **defentsan oinarritu zuten** (3); **emaitzetan oinarritu** (3); **errespetuan oinarritu** (4); **eskubidean oinarritu** (4); **euskalkian oinarritu** (4); **hutsean oinarritu** (4); **ikerketan oinarritu** (3); **ikerketetan oinarritu** (3); **justizian oinarritu** (3); **lanean oinarritu** (8); **legean oinarritu** (5)

oinarritu da (59); **oinarritu dira** (23); **oinarritu ditu** (3); **oinarritu du** (24); **oinarritu dut** (3); **oinarritu dute** (10); **oinarritu gara** (7); **oinarritu zarete** (3); **oinarritu zen** (39); **oinarritu ziren** (17); **oinarritu zuen** (34); **oinarritu zuten** (11); **oinarritu zuten garaipena** (3)

puntutan oinarritu (4); **sendo oinarritu** (3); **sisteman oinarritu** (3); **susmoetan oinarritu** (3); **talde lanean oinarritu** (4); **txostenetan oinarritu** (3); **zertan oinarritu** (10); **zutabetan oinarritu** (4)

arau batean oinarritua (3); **dago oinarritua** (20); **lanean oinarritua** (3); **nobelan oinarritua** (3); **oinarritua da** (8); **oinarritua dago** (21); **oinarritua egon** (5); **oinarritua egongo** (3); **oinarritua egotea** (3); **oinarritua izan** (3); **oinarritua zegoen** (5)

daude oinarrituak (5); **oinarrituak dira** (5)

oinarrituko dira (8); **oinarrituko du** (6); **oinarrituko gara** (4); **zertan oinarrituko** (5); **zertan oinarrituko da** (3)

lanetan oinarriturik (3); **liburuan oinarriturik** (5); **oinarriturik dago** (6); **oinarriturik daude** (4)

herriaren eskubidetan oinarrituriko (3); **justizian oinarrituriko** (5); **oinarrituriko bakea** (3); **oinarrituriko ekonomia** (3); **oinarrituriko filmak** (3); **oinarrituriko sistema** (3)

araduan oinarrituta (4); **arauetan oinarrituta** (6); **artikuluaren oinarrituta** (7); **autodeterminazio eskubidean oinarrituta** (4); **autogestioan oinarrituta** (3); **berdintasunean oinarrituta** (4); **bizitzan oinarrituta** (3); **dago oinarrituta** (11); **datu horietan oinarrituta** (3); **datuetan oinarrituta** (7); **datuotan oinarrituta** (3); **defentsan oinarrituta** (4); **deklarazioaren oinarrituta** (3); **deklarazioetan oinarrituta** (5)

ekonomikoetan oinarrituta (3); **elkartasunean oinarrituta** (3); **emaitzetan oinarrituta** (4); **errealitatean oinarrituta** (3); **errespetuan oinarrituta** (6); **eskarmentuan oinarrituta** (3); **eskubidean oinarrituta** (7); **eskubideetan oinarrituta** (6); **esperientzian oinarrituta** (7); **esperientzietan oinarrituta** (4); **giza eskubideetan oinarrituta** (3); **hitzetan oinarrituta** (3); **hutsean oinarrituta** (3)

informazioan oinarrituta (3); **ipuean oinarrituta** (3); **lanean oinarrituta** (3); **lanetan oinarrituta** (3); **legean oinarrituta** (5); **liburuan oinarrituta** (4); **mendekuan oinarrituta** (4)

oinarrituta dago (42); **oinarrituta daude** (10); **oinarrituta egin** (11); **oinarrituta egin du** (3); **oinarrituta egon** (12); **oinarrituta egongo** (7); **oinarrituta erabaki** (4); **oinarrituta eraiki** (6); **oinarrituta hartu** (3); **oinarrituta hartzen** (3); **oinarrituta idatzi** (4); **oinarrituta izan** (3); **oinarrituta lortu du** (3); **oinarrituta sortu** (7); **oinarrituta sortu zuen** (3); **oinarrituta zeuden** (3)

planean oinarrituta (3); **poemetan oinarrituta** (3); **polizi deklarazioetan oinarrituta** (3); **printzipioan oinarrituta** (3); **printzipioetan oinarrituta** (5); **susmoetan oinarrituta** (3); **txostenetan oinarrituta** (10); **txostenetan oinarrituta** (4)

zertan oinarrituta (4)

akordioan oinarritutako (3); **aniztasunean oinarritutako** (7); **artemisinin oinarritutako** (3); **autodeterminazio eskubidean oinarritutako** (6); **bakean oinarritutako** (3); **balioetan oinarritutako** (3); **berdintasunean oinarritutako** (18); **berdintasunean oinarritutako gizarte** (3); **bertuteetan oinarritutako** (5); **bertuteetan oinarritutako teoria** (3); **borondatean oinarritutako** (3); **defentsan oinarritutako** (4); **demokrazian oinarritutako** (7)

eginbeharretan oinarritutako teoria (4); **ekintzaren ondorioetan oinarritutako** (3); **elkarrizketan oinarritutako** (6); **elkartasunean oinarritutako** (6); **ereduan oinarritutako** (3); **errealitatean oinarritutako** (4); **errespetuan oinarritutako** (12); **eskubidean oinarritutako** (6); **eskubideetan oinarritutako** (8); **eskubidetan oinarritutako** (5); **eskubidetan oinarritutako bakea** (5); **ezaugarri genetikoetan oinarritutako** (3); **ezberdintasunean oinarritutako** (3); **garapen iraunkorren oinarritutako** (4); **gezurretan oinarritutako** (5); **giza eskubideetan oinarritutako** (4); **gorrotoan oinarritutako** (5); **hutsean oinarritutako** (3)

iraunkortasunean oinarritutako (3); **justizian oinarritutako** (11); **justizian oinarritutako bakea** (4); **lanean oinarritutako** (8); **legean oinarritutako** (4); **liburuan oinarritutako** (4); **mendekuan oinarritutako** (3); **nortasunean oinarritutako** (5)

obran oinarritutako (5)

oinarritutako alternatiba (3); **oinarritutako arte** (3); **oinarritutako bake** (3); **oinarritutako bakea** (11); **oinarritutako demokrazia** (4)

oinarritutako ekintza (4); **oinarritutako ekonomia** (5); **oinarritutako erabaki** (3); **oinarritutako eredu** (6); **oinarritutako eredu** (4); **oinarritutako espetze** (5); **oinarritutako espetze politika** (3); **oinarritutako estrategia** (4); **oinarritutako europa** (4); **oinarritutako euskal herria** (3); **oinarritutako fikzioa** (3); **oinarritutako film** (3); **oinarritutako filma** (7); **oinarritutako garapen** (3); **oinarritutako gizarte** (8); **oinarritutako gizarte** (3); **oinarritutako harreman** (4)

oinarritutako ikusizuna (7); **oinarritutako irtenbide** (4); **oinarritutako jokalekua** (3); **oinarritutako konponbide** (3); **oinarritutako konponbidea** (4); **oinarritutako lan** (3); **oinarritutako lana** (6); **oinarritutako legea** (3); **oinarritutako liburua** (3)

oinarritutako obra (5); **oinarritutako plana** (3); **oinarritutako politika** (10); **oinarritutako sistema** (10); **oinarritutako talde** (6); **oinarritutako teoria** (11); **oinarritutako teoria etikoak** (7); **oinarritutako teoria etikoen** (3); **oinarritutako terapia** (3)

oinarpenean oinarritutako (3); **ondorioetan oinarritutako** (6); **ondorioetan oinarritutako teoria** (4); **paisaietan oinarritutako** (3); **subiranotasunean oinarritutako** (4); **zatiak oinarritutako** (4); **zuzenbidean oinarritutako** (3)

artikuluaren oinarrituz (3); **datuetan oinarrituz** (6)

berdintasunean oinarritzen (8); **berdintasunean oinarritzen da** (3); **boterean oinarritzen** (3); **datuetan oinarritzen** (4); **defentsan oinarritzen** (11); **defentsan oinarritzen da** (4)

errealitatean oinarritzen (4); **errespetuan oinarritzen** (9); **errespetuan oinarritzen da** (3); **esperientzian oinarritzen** (3); **fedean oinarritzen** (3); **gezurretan oinarritzen** (3); **harremanetan oinarritzen** (3); **harremanetan oinarritzen** (4)

ideietan oinarritzen (4); **informazioan oinarritzen** (3); **lanean oinarritzen** (4); **legean oinarritzen** (7); **legean oinarritzen da** (3)

oinarritzen da (298); **oinarritzen dira** (78); **oinarritzen ditu** (6); **oinarritzen dituzte** (3); **oinarritzen du** (16); **oinarritzen dute** (11); **oinarritzen gara** (8); **oinarritzen naiz** (3); **oinarritzen zara** (8); **oinarritzen zen** (33); **oinarritzen ziren** (9); **oinarritzen zuten** (5)

sinesmenetan oinarritzen (3); **tradizioan oinarritzen** (3); **zertan oinarritzen** (47); **zertan oinarritzen da** (12); **zertan oinarritzen zara** (7)

oinarrizapen 1 oinarriztea.

Liburu honekin Kantek Filosofia ez ezik, izadiaren eta munduaren ulermena, hots, gure mundu-ikuskerara ere hankaz gora jarri duela eta horrekin batera honi **oinarrizapen** irmoa eman diola. **Ibon Uribarri**

Bakoitza enpirikoki kontsidera daiteke, hots, agerpen jakin batzuei aplikatzen, baina denak apriorizko osagai edo **oinarrizapenak** ere badira, eta honek ahalbidetzen du erabilera enpiriko hori. **Ibon Uribarri**

2 (hitz elkartuetan)

Idealismo transzendental edo kritikoa baten printzipioetan funtsatzen diren Izadiaren Metafisikaren eta Ohituren Metafisikaren **oinarrizapen**-saialdia. **Ibon Uribarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

metafisikaren oinarrizapen (3)

oinarrizte iz oinarri ematea, oinarrizat hartzea.

Oinarrizte hori ezin da beharren arabera aldatu: oro har, zimenduak ez dira behin eta berriz aldatzen! **Jon Muñoz**

oinarrizko 1 izlag besteren oinarri gertatzen dena; garrantzizkoena.

Oinarrizko bibliografia. **Berria - Kultura**

Oinarrizko partikulak. **Iban Zaldua**

Atomoaren egituraz **oinarrizko** ikerkuntza egiten duten zientzialariek erakutsi digutenak izan dezake inolako aplikaziorik konputagailuak egiteko? **Pello Salaburu**

Legeei dagokie, gai bakoitzean, **oinarrizko** arauak eta molde berezkoak finkatzea. **Andres Urrutia**

Matematikoki, beraz, presente dauden maiztasun guztien zatitzaile komunetako handiena ateratzeak emango digu **oinarrizko** maiztasunaren zenbatekoa. **Lourdes Oñederra**

Hezurrek, eskeletoaren **oinarrizko** elementuak, zurrunak izan behar dute, baina ez zurrunegiak. **Irene Aldasoro**

Informatikako **oinarrizko** programen ezagütza. **Herria**

Nazio bakoitzak badu ere bere Ohitura berezien araberako bizia eramaiteko eskubidea, baztertzuz, jakina, edozein **oinarrizko** giza eskubide bortxatzeko bidea, eta bereziki herri gutituen zapalkuntza. **Piarres Xarriton**

Erantzuna eman zuten azkenean: n mailako ekuazioak n erro ditu, zehatz-mehatz; aljebra **Oinarrizko** Teoria da hori. **Jon Muñoz**

OHO, **Oinarrizko** Heziketa Orokorra, da gaztelerazko EGBren ordain ofiziala. **Joxerra Garzia**

Oinarrizko batxilergo titulua eskuan neukan, eta goi mailakoa neure kontura ari nintzen prestatzen. **Juan Kruz Igerabide**

2 (izenaren eskuinean)

Bellen teoriak hiru osagai **oinarrizko** ditu: [...]. **Askoren artean**

Dientzefaloak funtzio **oinarrizkoak** erregulatzen ditu, loa, jangura eta libidoa bereziki. **Xabier Olarra**

Lehenik, epistemologia kartesiarraz ariko gara, hori baita arlo honetan proiektu **oinarrizkoa**. **Askoren artean**

Nire ingelesa zoritzarrez **oinarrizkoegia** da-eta horrelako liburu bat eroso irakurtzeko. **Aitor Arana**

Fisika teorikoaren kontzeptu eta lege **oinarrizkoak**. **Iñaki Segurola**

Uste dugu unibertitate delat munduko erakunderik garrantzizkoena, eta gizartearen etorkizunarentzat [...] erakunde honek egin dezakeen lana dela funtsezkoen eta

oinarrizkoena. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Silaba da hizketa erritmoaren unitate **oinarrizkoena**. **Lourdes Oñederra**

Kantek frogatzen du ezin frogatuzkoak direla erlijioen eta filosofia sistemen bi postulatuturik **oinarrizkoenak**: Jainkoa eta askatasuna. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

gure oinarrizko eskubideak (5); **gutzien oinarrizko eskubideak** (6); **herriaren oinarrizko eskubide** (4); **herritarren oinarrizko eskubideak** (14)

oinarri oinarrizko (44)

oinarrizko adigai (6); **oinarrizko adigaiak** (7); **oinarrizko adostasun** (6); **oinarrizko adostasuna** (10); **oinarrizko ahalmen** (4); **oinarrizko akordio** (9); **oinarrizko akordioa** (9); **oinarrizko akordioa lortzea** (6); **oinarrizko arau** (13); **oinarrizko araua** (5); **oinarrizko arauak** (17); **oinarrizko arazo** (7); **oinarrizko askatasunak** (9); **oinarrizko askatasunei** (4)

oinarrizko baldintza (8); **oinarrizko baldintzak** (10); **oinarrizko baldintzak betetzen** (5); **oinarrizko balioak** (4); **oinarrizko beharrak** (22); **oinarrizko bereizketa** (4); **oinarrizko bibliografia** (20)

oinarrizko datuak (4)

oinarrizko egitura (8); **oinarrizko elementua** (5); **oinarrizko elementuak** (9); **oinarrizko erregela** (4); **oinarrizko errenta** (42); **oinarrizko errentaren** (10); **oinarrizko eskakizunak** (6); **oinarrizko eskema** (5); **oinarrizko eskubide** (51); **oinarrizko eskubidea** (33); **oinarrizko eskubidea da** (7); **oinarrizko eskubideak** (146); **oinarrizko eskubideak errespetatu** (4); **oinarrizko eskubideak urratu** (5); **oinarrizko eskubideak urratzea** (5); **oinarrizko eskubideak urratzen** (17); **oinarrizko eskubideei** (5); **oinarrizko eskubideen** (86); **oinarrizko eskubideen alde** (7); **oinarrizko eskubideen gutuna** (6); **oinarrizko eskubideen urraketa** (10); **oinarrizko eta funtsezko** (5); **oinarrizko ezagutza** (13); **oinarrizko ezagutzak** (4); **oinarrizko ezaugarri** (4); **oinarrizko ezaugarriak** (4)

oinarrizko gai (4); **oinarrizko gaiak** (8); **oinarrizko gaietan** (4); **oinarrizko galdera** (5); **oinarrizko galderari** (4); **oinarrizko gauza** (6); **oinarrizko giza eskubideak** (17); **oinarrizko giza eskubideen** (7); **oinarrizko gizarte** (6)

oinarrizko helburu (4); **oinarrizko hezkuntza** (9); **oinarrizko hezkuntza orokorreko** (4); **oinarrizko hitzarmen** (57); **oinarrizko hitzarmen demokratikoa** (31); **oinarrizko hitzarmen demokratikoaren** (15); **oinarrizko hitzarmena** (6); **oinarrizko ideia** (18); **oinarrizko ideiak** (6); **oinarrizko ikasketak** (14); **oinarrizko ikerketa** (11); **oinarrizko ikerkuntza** (16); **oinarrizko ikerkuntzan** (9); **oinarrizko indar** (6); **oinarrizko informazioa** (6); **oinarrizko irizpide** (4); **oinarrizko irizpideak** (7)

oinarrizko jakintza (4); **oinarrizko jokoan** (4)

oinarrizko kontzeptu (5)

oinarrizko lan (4); **oinarrizko lau** (8); **oinarrizko lege** (8); **oinarrizko legea** (14); **oinarrizko legeak** (7); **oinarrizko liburua** (5)

oinarrizko militanten (4)

oinarrizko nobela (6)

oinarrizko osagai (4); **oinarrizko osagaia** (7); **oinarrizko osagaiak** (7); **oinarrizko osasun** (13); **oinarrizko osasun zerbitzuak** (4); **oinarrizko osasun zerbitzurik** (6)

oinarrizko prestakuntza (7); **oinarrizko printzipio** (13); **oinarrizko printzipioak** (13); **oinarrizko printzipioen** (7); **oinarrizko printzipioen aurka** (5); **oinarrizko puntuak** (5); **oinarrizko puntuetako bat** (4)

oinarrizko soldata (4)

oinarrizko testu (5); **oinarrizko testua** (5); **oinarrizko testuak** (4); **oinarrizko tresna** (7)

oinarrizko unitate (4)

oinarrizko zerbitzu (7); **oinarrizko zerbitzuak** (12)

presoen oinarrizko eskubideak (4)

oinarrizkotasun iz oinarrizkoa denaren nolakotasuna.

Esan daiteke, balioen filosofia nolabait funtsezko balioen objektibotasuna eta **oinarrizkotasuna** salbatu nahian abiatu zela, eta azkenean lehendik zegoena baino kaos handiago bat lortu duela. **Joxe Azurmendi**

oinarriztapen 1 iz oinarritzea.

Existenzialismoaren atmosferan hazi ginenok bederen, balioen **oinarriztapen** razional absolutu bat ez dugu inola posible ikusten, baina haren premiarik ere ez dugu sentitzen ezertarako. **Joxe Azurmendi**

Razionalismo huts baten deklarazio-erabakia, birdenboran zientzia berriaren interpretazio filosofiko eta **oinarriztapen** metafisikoa izan nahi duena, modernitatearen lehenengo paradigma finkoa ezarri, Descartesen sistema da. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan)

Ez hurrenez-hurrenez kotasun kronologikoa eta bere kausalitate koerlatiboa, baizik **oinarriztapen**-ordena, zeinak ezagutzen duen nola diren gauzak beren baitan. **Piarres Xarriton**

oinarriztatzaile iz oinarritzen duena.

Zientziaren eginkizun **oinarriztatzaile** filosofiak ditu. **Joxe Azurmendi**

Arrazoimen zaharra, absolutua eta metafisikoa, kreatzailea eta **oinarriztatzaile** Jainkoaren ordezkoa izatetik, tresna (instrumental) hutsa izatera etorria dago. **Joxe Azurmendi**

oinastarri ik oinastarri.

oinategi iz

Oinak **oinategi**, soilik loeria astunaren orratzak kaskoan zitzaka nabaritzen zituela, Angeluko Chambre d'Amour hondartzara heldu zen konturatu gabe. **Itxaro Borda**

oinatz 1 iz oinak lurrean uzten duen aztarna edo seinalea.

Lur gorrian **oinatz** bat ageri da, eskuineko oin batek utzia. **Pello Lizarralde**

Sarreratik salara **oinatz** pare lerro bakarra ageri zen: nirea. **Iban Zaldua**

Lurra lehor zegoen arren, haren urratsek **oinatz** sakon eta argiak uzten zituzten. **Jose Morales**

Gurpil-arrastoak nabariak ziren, astoaren **oinatzak** ere bai. **Joxe Austin Arrieta**

-Kaioen **oinatzak** -esan zuen neskek, eta haiei begira geratu zen pixka batean. **Iñaki Iñurrieta**

Jendeak harrikatu egiten du deabruaren **oinatza** eta txapela kentzen du burutik santuaren oin-arrastoaren parean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Elurteak Iñakiren **oinatz** eta arrasto guztiak estali, eta gaua kanpamenduetariko baten babesean iragan izanen zuela erabaki nuen. **Xabier Montoia**

Bidezidorreko hartxintzarretan bere zapaten takoiek uzten zituzten **oinatz** txikiei begira geratu nintzen, oin-hots txikiak entzunez. **Joxean Agirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer da **oinatz** segida bat desertuan? istorio bat. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Una-una egiterainoko lasterkaldi gogorretara eramaten ninduen elur berritan herrestan, giza **oinatz** orotatik urrun, basagizon baten senez asmatzen edo zituen ibilbideetan barrena. **Juan Garzia**

Bai baitzen azeri **oinatzik** eta apika otsoenik ere. **Juan Garzia**

Zikinetan agertu den basurde **oinatzari** gauekoa edo gutxienez bi eguneko den antzemateko ahalegin eta txilimalak. **Pako Aristi**

4 aztarna, arrastoa.

Horra lurrean, zeruko jainkoaren **oinatza**. **Patziku Perurena**

Azkenik, gizakumea apurka-apurka eta atalez atal joaten eta bizi sentimena galtzen maiz ikusten dugu; lehenik oinetako behatz eta atzazalak ubeltzen, gero oinak eta bernak hiltzen, ondoren, herio hozminaren **oinatzak** beste lohadar guztietan arrastatzen. **Xabier Amuriza**

Ahantzmena madarikatu duzu, ahulegia baita oroitzapenak **oinatzik** utzi gabe erazteko. **Joxerra Garzia**

'Blemish' (David Sylvianekin elkarlana, 2004): beti egiten jakin izan duen bezala are gehiago bere ibilbidean **oinatz** garrantzitsua utzi duen lan honetan Japan taldeko abeslariak laguntzaile paregabeak hartu zituen bidelaguntzat. **Berria - Kultura**

Zoruan gomazko zola baten **oinatza** aurkitu genuen. **Juan Garzia**

Ama haugabetuak, berriz, mendi berdeak oinkatuz, lurrean inkaturiko apatz bikoitzaren **oinatzak** ezagutu nahi ditu. **Xabier Amuriza**

Kristo gure Jaunaren irakaspen eta **oinatzei** jarraitzea. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

irakaspen eta oinatzei (3); **oinatzei jarraitu** (3)

utzitako oinatzek (3)

oinaulki iz oinak pausatzeko aukitxoa.

Sei maila zituen errege-aukiak eta, berari atxikiak, **oinaulkia** eta, jarlekuaren alde banatan, besoak. **Elizen arteko biblia**

Ene oinzolen **oinaulkia**. **Xabier Kintana**

Eseri tronuan nire eskuinean: etsaiak **oinaulkitzat** jarriko dizkizut. **Elizen arteko biblia**

oinazarazi, oinazaraz, oinazarazten du ad oinazetzer behartu.

Ahal duen dirurik gehiena ateratzeko, emaztea gorputzean eta ariman **oinazaraziko** du; hasi da emaztearen gurutzebidea. **Gotzon Garate**

Giltzapean sartzeak, ordea, ebain-ebain egitea, xehatzea, **oinazaraztea** esan nahi du. **Gotzon Garate**

oinaze 1 iz mina, bereziki bizia.

Adiskide ditugu, beraz, larrialdi eta estuasunak, lotsa eta irainak, **oinaze** eta tormentuak, martirio eta heriotza bidegabek eragiten dizkigutenak. **Askoren artean**

Bere **oinaze** eta gaitzen larriaz ahazteko. **Askoren artean**

Oinazeak dena betetzen zuen, nire zentzumenak, nire pentsamenduak. **Alberto Ladron Arana**

Aurrera jarraitzen zuen, karranpek eta **oinazeek** jota. **Karlos Zabala**

Oinaze askorekin hil zen. **Juan Garzia**

Oinazea Matrix-en baizik ez dago, errealitate dagoela uste dugun leku horretan baizik ez. Antton Olano
Islilik joaten zen, hortzak gogor estuturik jatorri iluneko amorru, **oinaze** eta suhartasun baten eraginez, eta itsu-itsuan egiten zuen aurrera. Jose Morales
Ezinezkoa da naturazko atseginak **oinaze** bihurtzea, gure naturak den bezalakoa dirauen arte. Joan Mari Lekuona
Neure buruari agintzen diodan plazerak nire **oinaze** guztiak leuntzen ditu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Aberria **oinaze** zitzaidan eta sortetxea zorigaitz izugarri. Imanol Unzurrunzaga
Oinazeak orduak luze ditu. Imanol Zurutuza
Zenbat **oinaze** jasan zezakeen gorputz batek egoera horretan? Oskar Arana
Oinazerik gabeko kauterizazioa. Askoren artean
Oinazea ez pairatzea eta torturatzailerekin kolaboratzea aukeratzeko baldin baduzu, ezin esan ahalako **oinaze** morala erosten duzu. Agurtzane Juanena
Itxaropena gure poz eta **oinaze**. Jokin Urain
Oinazez txikitzen nengoen, baina ez nuen negarririk egin. Jesus Mari Mendizabal
Eskuineko hankan milioika ziztada sentitzen nituen, oinazearen **oinazez**, armada oso bat zaldiz nire gainetik igarotzen ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide
Oso oker zenbiltzake Jainkoaren seme-alaba izan nahi bazenu baina **oinaze** -minik gabe. Joan Mari Lekuona

2 (aditzaren objektu gisa)

-Ba al duzu **oinazerik**? Patxi Zubizarreta
Oinazea arindu **oinazean** bizi denari, eta poza areagotu pozik bizi denari. Bernardo Atxaga
Igurtzi egin nuen larrua bixi-bixi zauriaren ondoan, eta **oinazea** ematu egiten zela iruditu zitzaidan. Txillardegi
Gero eta ahulago, **oinazeari** eutsi ezinik, Urigainera ailegatu arte zutik irauten saiatu nintzen. Rafa Egiguren
-Oinaze eta miseria erruz ikusi nuen, eta bizi ere bai, baina nire bizitzako unerik zorionsuenak ere han izan nituen. Juan Kruz Igerabide
Loa bere **oinazea** etetera etor zedila desiratu zuen. Patxi Zubizarreta
Jaunaren **oinazeak** oroituz eramaten zituen bereak. Askoren artean
Halaz guztiz, ez zitzaizkion **oinazeak** inola ere joaten. Elizen arteko biblia

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Oinaze handiak jasaten zituenez, nahi eta ahal baino diru gehiago xahutu zuen medikutan osasuna berreskuratzeko. Askoren artean
Bat-batean zuri motelez pintaturiko hatzak sartu zaizkit aluan eta barrutik urratu naute, **oinaze** zahar bat sentitu dut. Eider Rodriguez
Oinaze bizi-bizia bularraren erdian. Txillardegi
Oinaze min baten gisakoa da, eta **oinaze** min horrek sortzen du ezin adierazizko plazerra. Jon Muñoz
Hitz horiek amaren begitarte zaharra, **oinaze** luzeek erasana, alaitu zuten. Monika Etxebarria
Orduan **oinaze** itzel batek bereganatzen nau, [...] esan ezinezko pena erraldoiak. Jon Alonso
Gorputzeko **oinaze** gogorrek estutzen bazuten ere, [...]. Askoren artean
Oinaze latzena urratzen du, minutu batez, munduaren edertasunak. Piarres Aintziart
-Oinaze eta miseria erruz ikusi nuen, eta bizi ere bai, baina nire bizitzako unerik zorionsuenak ere han izan nituen. Juan Kruz Igerabide
Ba al da "**oinaze** ezirik"? Jon Muñoz
Hara, hiltzera noa orain gaitz honen **oinaze** jasanezinez. Askoren artean
Berealdiko **oinazea** eztula egiterakoan. Anjel Lertxundi
Lepoko edo bizkarreko **oinazeak** jasango balitu moduan sorbaldak beharuta. Josu Landa
Gauetz, hezurretaraino zulatuta saminez, etengabeko **oinazeak** izaten ditut. Elizen arteko biblia
Infernuko **oinaze** hondogabekoetan betiko eduki nahi banauzu, Jauna, erabat etsita nago. Joan Mari Lekuona
Izugarrizko **oinaze** artean hil zen. Elizen arteko biblia
Ortuzainak **oinaze** mutuzko imintzio bat egin zuen. Karlos Zabala
Oinaze goibeleatan itotako morrosko sendo haien aurpegi minduetan, aspaldi hartan ez bezala, goiztiri esperantzatsu baten irribarre gozo-etzia hozitzen bide zen, izuti. Txillardegi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez du zirkirik ere egin, ez eta **oinaze** -keinurik txikiena azaldu ere. Askoren artean
Anai Joane nahiago izan zituen mundu honetako zazpi **oinaze** -egun, eta bat-batean zenbait gaitzez gaixotu zen. Askoren artean
Gauza jakina baita, ehundaka **oinaze** -urte basatiren ondoren, gurpilak lehenago espetxeak adina izutzen duela. Juan Martin Elexpuru
Oinaze antsiekin ahalegindu zen berriro tentetzen, baina lurrera erori zen. Bernardo Atxaga
Ulua entzuten hasi bezain azkar, bi tiro atera eta uluaren orde **oinaze** -intziri bat entzun zuten. Koldo Biguri
Oinaze -intziritan haur askoz erdi dena. Askoren artean
Atxilotuen **oinaze** oihuak entzuten zirela alboko etxeetatik, batez ere goizaldean. Joseba Sarrionandia
Ezari-ezarian, eta leherketek eragindako deskalabruak egunero toki eta itxura beretan topatzen ohiu ahala, hiriko zauriak hastapenetako beren **oinaze** -pozoi hura galduz joan ziren. Beti zegoen bere Kristoren aurpegiari begira, beti atxikitzen zitzaion **oinaze** -gizonari, sufritzen ikasia zenari. Txillardegi
Hasieran bakan, egunegun egun ugalduz joango ziren **oinaze** -kolpeak. Imanol Zurutuza
Dударik gabe susmagarria iruditu zitzairen nire **oinaze** adierazpen jori hura. Ramon Saizarbitoria
1.000 Hz-eko maiztasunean, entzumen-atalasea baino 120 dB gorago dago **oinaze** -atalasea, gutxi gorabehera. Irene Aldasoro
Oinaze -eragileak ankertzen doazen heinean, gizonen arimak ere gogortu egiten dira. Juan Martin Elexpuru

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gizon oinazetu eta **oinaze** -eragile haren bitxikeria ulertezinetako bat. Josu Zabaleta

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gülbahar hagitz urduri zegoen, amodio-**oinazez**, gauza bat agerikoa zelako: Ahmeten baitan aldaketa nabarmena gertatua zen. Fernando Rey
Hala, gau batez, bere gaixotasunengatik neke-**oinaze** larri eta ezberdinez ohi baino abailduago zegoela, bihotz-barnean bere buruaz errukitzen hasi zen. Askoren artean
Pedroren malko haiek ez ziren molde hartakoak, barren-**oinaze** batek eraginak baizik. Joan Mari Irigoien
Batman atsegin baino atseginagoa nuen arren, amonaren barne-**oinazea** eta ezinegona nagusitu zitzaizkidan. Joan Mari Irigoien

7 oinazepean

Izan ere, ezer ez den bezala Jainkoa atsekabetu eta **oinazepean** jar dezakeenik, ez da ezer horrelako gizaki bat nahigabetu eta tristatu dezakeenik. Joan Mari Lekuona

Oinazepean eta atsekabean aurkitzen zarenean oroi zaitez oraindik gozatzen dituzun ontasun eta zorionez. Joan Mari Lekuona

8 oinazezko

Oinazezko giroa arnasten nuela sentitu nuen. Koro Navarro
Ahalegin berezia egin behar izan zuen eztarrian gora zetorkion **oinazezko** zinkurina gordetzeko. Anjel Lertxundi
Zenbaitetan, haize kolpe ikaragarri baten eraginez, baso osoa etzaten zen alde berera, **oinazezko** intziri batez. Josu Zabaleta
Elbarri batekin gizatasunez jokatzeko duenak, Londresko atseginari alde batera uzten dituenak **oinazezko** ohe batean egoteko, ontasun handia izan behar du, inondik ere. Antton Olano
· Nire bitzita **oinazezkoa** baizik ez da orain; zure baietza hartzen ez dudan bitartean sosegurik ez duket. Jon Muñoz

*Lamento d’Ariannako zati bat kantatu zuen, zatirik mingarriena, **oinazezkoena**, Alessandrori begira. **Felipe Juaristi***

9 **oinaze zaldi** estira emateko tresna.

Heldu ziren goizean torturatzaileak eta, kartzelatik aterata, **oinaze**-zaldian zintzilikatu zuten, burdinazko pisu ugari beraren gainean jarriz. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gorputzeko oinaze (5)

oinaze afektiboa (3); oinaze arin (4); oinaze arin bat (3); oinaze bizi (4); oinaze bizia (7); oinaze bizia eragiten (3); oinaze bizitan (3); oinaze gorritan (4); oinaze guztien azkena (3); oinaze handi (3); oinaze handia (11); oinaze handiagoa (3); oinaze handiak (5); oinaze ikaragarria (4); oinaze izugarri (6); oinaze izugarri hura (3); oinaze izugarriak (3); oinaze jasan (3); oinaze keinu (3); oinaze min (8); oinaze mina (3); oinaze minak (5); oinaze minen (4); oinaze oinazetsuak (3); oinaze zahar (5)

eragindako oinazea (3); mina eta oinazea (3)

oinazea arintzeko (3); oinazea arintzen (3); oinazea ematen (3); oinazea eragin (3); oinazea eragiten (4); oinazea eta atsekabea (3); oinazea izan (4); oinazea nuen (3); oinazea sentitu (3)

sekulako oinazea (3)

gaitzaren oinazeagatik (3); oinazeagatik hitz egiteko (3)

oinazeak eraman (3); oinazeak jota (5); oinazeak orduak luze (8); oinazeak ugalduko (3); oinazeak ugalduko dizkizut (3); sekulako oinazeak (3)

oinazearen oinazez (5)

oinazeen bidez (3)

ez du oinazerik (3); ez zuen oinazerik (3); inolako oinazerik (3); nirea bezainbateko oinazerik (3); oinazerik gabe (12); oinazerik gabeko (12); oinazerik handiena (4)

oinazez betea (5); oinazez beterik (6)

oinazeko garrasi (3)

oinazealdi *iz* oinazeko denbora.

Une honetan, **oinazealdi** laburra jasan ondoren, Jainkoak hitz eman duen bukaerarik gabeko bizian parte dute nire anaiak. **Elizen arteko biblia**

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin tumorea erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-tratamenduen **oinazealdi** ahulgarriak igaro ondoren, larrigura- eta zorabio-aldi luzeak pairatu, ilea galdu, gogoa galdu, lana galdu eta emaztea galdu ondoren, zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. **Oskar Arana**

Hamidak, gizonari begirik kendu gabe, Muski kalean gizonaren bila jasadako **oinazealdia** mendekatuz, garaipenaren zorientasuna sentitu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Gizakiak onartu behar du gabezia hori, bere jokabidea zuzena izan dadin eta kontsolamendu ziurra izan dezan **oinazealdian**. **Joan Mari Lekuona**

oinazedun *izond* oinazea duena, oinazea sentitzen duena.

Baina otoizgilea ez da Frantzisko, Jesus **oinazedun** eta larritua bera baizik. **Askoren artean**

oinazegailu *iz* estira emateko tresna. ik **oinaze 9**.

Gero **oinazegailuan** ipinarazi zuen eta besoak tiraka loka jarri eta gorputz guztia aterarazi zion bere giltzetatik inolako errukirik gabe. **Askoren artean**

oinazegarri (*orobat oinazgarri g.er.*) *izond* oinazetzen duena.

Galdetzen zion bere buruari nola jasan ote zezaketen bezeroek ahots **oinazegarri** harekin egitea bidaia. **Jon Muñoz**

Tristura **oinazegarria** xeheki printzatu zitzaion barrenean, harritar leun artean jausi izango balitz bezala. **Mirentxu Larrañaga**

Espetxera sartu aurretik harekin igarotako azken egun **oinazegarria** gogoratu. **Oskar Arana**

Horrek halako irudipen asaldagarri bat sortzen zion buruan, eldarniozkoa, **oinazegarria**, etsai-itxurakoa. **Jose Morales**

Eta **oinazegarria** ez zen heriotza ikustea, bizitza eta heriotza batera ikustea baizik. **Jose Morales**

Zuzendari txit agurgarriak bortxatzen banau, trauma **oinazgarri** baten jabe izan nadin da. **Anjel Lertxundi**

• 2 (izen soila –on atzizkiaren eskuinean)

Horratx amodioaren zoraldi betea, zeinaren bortzitasunak bere burua baitu galtzen eta gogoia eramaten etsi gaitzeko eginbidetara hain sarri nola zerupeko edozein pairamen izaki gaixoon **oinazegarri**. **Juan Garzia**

oinazeka *adlag*

Zurezko gorputzak triskantzaren lekukoak ziren, **oinazeka** eta aieneka. **Felipe Juaristi**

oinazeleku *iz* oinazetzeko lekua.

Espetxea akusatuaren **oinazeleku** delako gehiago, gordeleku baino. **Juan Martin Elexpuru**

oinazemendi *iz adkor* oinazelekua.

Ea zer uste zuen, ba; obispoa halako **oinazemendian** lotuta ikusi, eta tiroka hasi behar izan genuela noski. **Inazio Mujika Iraola**

oinazepeko *izlag* oinazeen azpikoa.

Horiek guztiok, hautemateari dagokionez, beren baitan akatsa daukate, horien bitartez besterik hautematen duen izakiarengan ere, pasiboki ukituak izaten direlako, bestek eraginak, etenak eta **oinazepekoak**, gainerako organoen antzera. **Xabier Kintana**

oinazetsu *izond* oinazez betea.

Cook andreak ezin konta ahala espezialistarengana jo izan zuen, dirutza handiak xahutu zituen, eta tratamendu **oinazetsuak** pairatu. **Mirentxu Larrañaga**

Norak, ordea, ez zuen Andreamatik ateratako ondorioa entzun, atximurkada **oinazetsu** bat sentitzen baitzuen bihotzean hitz egin zuenetik. **Anjel Lertxundi**

Era berean, gorputzean hobea da zauri **oinazetsua**, oinazerik gabeko usteltzea baino. **Imanol Unzurrunzaga**

Epai-egunean tormentu **oinazetsuak** jasango ditu. **Iñaki Iñurrieta**

Ba al liteke hau baino tortura **oinazetsu** eta lazgarriagorik? **Mirentxu Larrañaga**

Emakumea harro zegoen bere oin txikiez, baina harrokeria **oinazetsua** zitzaion inondik ere, punta kamutseko txapin takoi altuetan estu-estu sarrarazten baitzuten, ahalik eta

neurririk txikienekoetan. [Mirentxu Larrañaga](#)
Gertatu zirenetatik baliagarria edo onesgarria edo interesgarria edo deigarria iruditzen zaiguna irazten dugu denboraren galbahean, eta ahalegin berebizikoak egiten ditugu kaltegarria edo [oinazetsua](#) zitzaiguna albo batera gera dadin. [Anjel Lertxundi](#)
Dena argi ikusi nahi duk gu bion artean -esan zidan ahots [oinazetsu](#) batez. [Anjel Lertxundi](#)
Tristeziaren eta etsipenaren kopa [oinazetsua](#) hurrupatua zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[oinaze oinazetsuak](#) (3)

oinazetu, oinaze(tu), oinazetzen 1 da *ad* oinaze hartu. ik oinaztatu.

Ez al dakusu nola sarritan elkar-atseginak lotzen dituenak kate komunetan [oinazetzen](#) diren? [Xabier Amuriza](#)

A zer lanak hartzen dituen, zergatik [oinazetzen](#) ote da horrela, besterik gabe lau oinean joan ordez? [Anton Garikano](#)

Nik diot, Jainkoagatik gizakiak sofrizten duen guztia, Jainkoagan ere sofrizten duela; eta Jainkoa gizakiarekin batera [oinazetzen](#) dela. [Joan Mari Lekuona](#)

Eta, buruak edo begiak guregan minaren eraso jasatean, gorputz osoan [oinazetzen](#) ez garen bezala, horrelaxe gertatzen da inoiz gogoa bera ere penatzea edo pozez gainezkatzea, bitartean arimaren beste zatiari, lohadar eta organoetan, ezein nobedadek eragiten ez diola. [Xabier Amuriza](#)

• 2 du *ad* oinaze eman.

-Eta nola eraman ditzaket pazientzia gau eta egun [oinazetzen](#) nauten etengabeko min hauek? [Askoren artean](#)

Zergatik [oinazetzen](#) dituzu ene anaia arkumeak, horrela lotuta eta zintzilik eramanez? [Askoren artean](#)

Bere besaulki gogorrean eseririk zegoen, pentsamenduek eta lo egin ezinak [oinazeturik](#). [Jose Morales](#)

Gizon honen emaztea deabruak [oinazetua](#) zegoen. [Askoren artean](#)

Ni [oinazetu](#), behehitu, doilortu izana ez ote duk aski, hilobiko bakea ere nahi didak kendu? [Jon Muñoz](#)

-Zer, baina, erru-sentipen horiekin geure burua [oinazetzeaz](#) gainera? -galdetu zion arrebak. [Anjel Lertxundi](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

Zer egin zezakeen orduan emakume kanaandar apal eta [oinazetu](#) hark? [Joan Mari Lekuona](#)

Hemen "mirra-zorrotxoak", Frantziskoren bihotzean finkatua dagoen Kristo [oinazetua](#) irudikatzen du. [Askoren artean](#)

Nire kantuen azalean gelditzen direnek beti adjektibo berdinarak erabiltzen dituzte nitaz hitz egiteko: malenkoniatsua, [oinazetua](#), madarikatua, tristea... [Berria - Kultura](#)

Besoak biluzik, begiak itxita, zorientasuna aurpegi zurbil [oinazetuan](#). [Jose Morales](#)

Makina [oinazetu](#), dardarati bat baizik ez nintzen. [Josu Zabaleta](#)

Gorioten azken solasek Shakespeareren unerik hunkigarrienak oroitazten dituzte, Lear erregearenak oroz lehen: doinu zoro, [oinazetu](#), arrotz, estrainio berdina. [Markos Zapiain](#)

Hunkitu egiten zuen hark guztiak, pentsatu zuen dramatikoki mutilak bere bakardade [oinazetuan](#). [Koro Navarro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[deabruak oinazetua](#) (3)

oinazezko ik oinaze 7.

oinazeztatu *izond* oinazetua.

Ez du oraindik galdu, ezin du galdu bere ni, ni [oinazeztatu](#) hori, odoletan dagoena eta akabatu nahi izan ez dutena. [Monika Etxebarria](#)

oinazeztu, oinazez(tu), oinazeztatzen da *ad*

Ni Marinaz [oinazeztu](#) nintzen, Mireille Mathieu-k bezala firrikatu zituen erreak aho-sabaian, eta hurrengo egunetan ohartu nintzen galtzerdi beltzak maite zituela. [Koldo Izagirre](#)

oinazgarri ik oinazegarri.

oinazpi 1 *iz* oinaren azpia.

[Oinazpian](#) zafirozko lauaz eginiko solairua bezalakoa zuen. [Koldo Izagirre](#)

Agureak berriro oinetako behatz muturrekin ukitu zuen neskatoaren larruazal lodiko [oinazpia](#). [Ibon Uribarri](#)

Neskatoaren hanka bat ukitzen saiatu zen [oinazpiarekin](#). [Ibon Uribarri](#)

Zerratsak lohi mehe bat osatua du [oinazpietan](#). [Pako Aristi](#)

Seinale handi bat agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia, ilargia [oinazpian](#) eta hamabi izarreko koroa buruan. [Pello Zabala](#)

Kristok errege izaten jarraitu behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren [oinazpian](#) ipini arte. [Elizen arteko biblia](#)

Elkarri neurtu genizkion [oinazpien](#) luze-zabalak. [Aingeru Epaltza](#)

Eskuak eta [oinazpiak](#) maskurturik eta ikorzirinez josirik. [Joan Mari Irigoien](#)

Errepide zaharretan su hartzen du hautsak gudarien [oinazpi](#) kailutuetan. [Patziku Perurena](#)

2 irud/hed

Harkaitzaren [oinazpira](#) nau jasoko. [Askoren artean](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[etsaiak oinazpian jartzen](#) (4)

oinazpiko 1 *izlag* oinaren azpikoa.

Zuen buru gaineko zerua brontzea bezain lehor eta [oinazpiko](#) lurra burdina bezain elkor bihurtuko dizkizue. [Elizen arteko biblia](#)

Behatzek neskato beltzaranaren [oinazpiko](#) larruazal lodia ukitu zuten. [Ibon Uribarri](#)

2 (izen gisa)

Halako naretasun alai bat, itsasoko uhinek **oinazpikoa** mugiaraziko balioite bezala, berehala jabetu bazen ere. Jar hadi lurrean, nire **oinazpikoaren** ondoan. **Iñaki Iñurrieta**

oinaztar *(orobat oinaztar)* iz Ahaide Nagusien borroketan, Oinazeko leinuaren aldekoa.

Harresiko kosketan mordoka "ipuzcoano castillanoak" hilotzik, batipat ganadu ebasleak, hegazti harraparien jaki gozo dira, odol gaiztoko **Oinaztar** eta Lazkanotar banderizeok aldez aurretik egindako traizioaren aurkako mendekuaren lekuko. **Patziku Perurena**

"**Oinaztar** eta ganboarren zina", idatzi zuten egun hartan egunkariak beren lehen orrialdeetan, alderik alde zabal. **Joxerra Garzia**

Erdi Aroko bandoen arteko liskarretan, Deban, Bustinagatarrak eta Iturzatarrak ziren Ganboatar eta **Oinaztarren** ordezkioak. **Martin Anso**

Zeruarekin lotura zuten gauzetan bat etorri arren, lurrekoek tirabirak eragin zituzten Xabierkoaren eta Loiolakoaren artean, lehenengoa agaramontar sutsua eta bestea **oinaztarra** zelako, beaumontarrekin batera Gaztelaren aliatu biziak. **Berria - Euskal Herria**

oinaztar *(orobat oinaztar)* iz Ahaide Nagusien borroketan, Oinazeko leinuaren aldekoa.

Harresiko kosketan mordoka "ipuzcoano castillanoak" hilotzik, batipat ganadu ebasleak, hegazti harraparien jaki gozo dira, odol gaiztoko **Oinaztar** eta Lazkanotar banderizeok aldez aurretik egindako traizioaren aurkako mendekuaren lekuko. **Patziku Perurena**

"**Oinaztar** eta ganboarren zina", idatzi zuten egun hartan egunkariak beren lehen orrialdeetan, alderik alde zabal. **Joxerra Garzia**

Erdi Aroko bandoen arteko liskarretan, Deban, Bustinagatarrak eta Iturzatarrak ziren Ganboatar eta **Oinaztarren** ordezkioak. **Martin Anso**

Zeruarekin lotura zuten gauzetan bat etorri arren, lurrekoek tirabirak eragin zituzten Xabierkoaren eta Loiolakoaren artean, lehenengoa agaramontar sutsua eta bestea **oinaztarra** zelako, beaumontarrekin batera Gaztelaren aliatu biziak. **Berria - Euskal Herria**

oinaztargi iz tximista; oinaztarria. ik oinaztu; oinaztura.

Oinaztargia, argi egitean, nabarmen ikusten da; haizeak inguru guztian jotzen du. **Elizen arteko biblia**

Izaki haiek batetik bestera ziztu bizian zebiltzan **oinaztargia** bezala. **Elizen arteko biblia**

François-ek pozezko alarau bat bota zuen orduan; oihartzunak **oinaztargiaren** trumioa bezala errepikatu zuen. **Josu Zabaleta**

Oinaztargiak sigi-sagan ari ziren leiho hilen ilaretan zehar. **Lopez de Arana**

Orduan, aintziraren gainean hegaka dabilen txoria **oinaztargi** bat bezala jaisten da, hegal bat ur urdinean murgildu eta berriz arin goratzen da. **Fernando Rey**

Bat-batean, **oinaztargia** gauaren erdian bezala, pentsamendu bat pasatu zitzaion burutik. **Imanol Zurutuza**

Oinaztargi batek argitua bezala, egia agertu zen pasharen begien aurrera. **Fernando Rey**

oinaztargika *adlag* oinaztargiak jaurtiz. ik oinazturaka.

-Ahantzi egin duk norekin ari haizen -esan zuen Aragornek garraztasunez, begiak **oinaztargika** zituela-. **Agustin Otsoa**

oinaztarri *(orobat oinaztarri g.er. eta oinaztar g.er.) 1* iz lurra jotzen duen tximista.

Oso oker ez banago, **oinaztarri** eta trumoi dunbotsuaren ondorioz erori zen gargola faltsuarekin ari nintzen. **Karlos Linazasoro**

Basatia denean, berriz, **oinaztarra**, lurrikara eta zikloia ematen du. **Xabier Olarra**

Itsasotiko kirats umela, itsasoaren gaineko eguzki ugertsua, eta laino beltzen artetiko **oinaztarri** urdin-zuriskak lehorrerantz, kuartozko lanpara baten argi taupakariaren gisa. **Joxe Austin Arrieta**

Haren begirada mesfidatiak **oinaztarriak** zuhaitz-enborra lez zeharkatu ninduen lehentxoago hain harro agertu nintzena, eta, une hartan, beldurraren presentzia sumatu nuen nire barren guztian. **Pedro Alberdi**

Sinetsiko al dit norbaitek adierazten badut William Lang paraxutista **oinaztarri** baten gainean zamalka galdu zela sekula betiko? **Karlos Linazasoro**

2 irud/hed

Cejador-en baskoiberismoaren kritika **oinaztarrizkoaren** tonua. **Joxe Azurmendi**

oinaztatu, oinazta, oinaztaten 1 du *ad* oinazetu.

Ongi merezia zuen hori, besteen erraiak zigor ugari eta ankerrez **oinaztatu** baitzituen berak. **Elizen arteko biblia**

Biharamunean goiko kastetako jauntxo batzuek dalitarenera joan, aita harrapatu eta **oinaztatu** egin zuten. **Gotzon Garate**

Ez duzu aski ahantzuraren ura hari edanaraztea, **oinaztaten** duzu berebat! **Jon Muñoz**

2 (era burutua izenondo gisa)

Ilunpeak bere altzo **oinaztatura** bildu baino istant bat lehenago. **Aingeru Epaltza**

oinaztu 1 iz tximista; oinaztarria. ik oinaztura; oinaztargi.

Han goian, beraz, haizez eta suz beterik dago dena; horregatik trumoiak eta **oinaztuak** nondinahi sortzen dira. **Xabier Amuriza**

Ortziko hodeiak xumetzen direnean ere sortzen dira **oinaztuak**; zeren, haizeak leunki sakabanatzen eta joanean disolbatzen dituela, nahitaez jausi behar baitute hazi oinaztugileek; orduan **oinaztu** isila ari du, izu beltzik eta iskanbilarik gabe. **Xabier Amuriza**

Baita ere **oinaztua** sortzen da, hodeiek, elkar jotzean, suzko hazi ugari jaurtitzen dutenean, suharriak burdinarekin edo beste suharri batekin jotzean bezala. **Xabier Amuriza**

Oinaztuak etxean hormak zeharkatzen baititu, hotsak eta harrabotsak bezala; burdina sutan goritzen da eta haitza kraskatzen, bapore sutsuaren suminez. **Xabier Amuriza**

Grekoek Poseidoni eskaini zioten lizarra, eta nola Poseidon hau itsasoaren jainko zen, bere mende omen zituen **oinaztu** eta tximistak. **Patziku Perurena**

Oinaztu batek jakin baitzuen non jo: hiriko ate handiko sarraila jo eta puskatu zuen. **Pello Zabala**

Oinaztuek argi egiten digute, trumoiak burrunba egiten du. **Eskarne Mujika**

Egundoko ekaitza sortu zen pare-parean, tximist eta **oinaztu**, trumoi eta erauntsi, goiak behera lehertzearaino. **Pello Zabala**

Trumoi eta **oinaztu**, ekaitz formalak ekartzen ere zalea da [Martxo]. **Pello Zabala**

Goiz hartan pentsatu egin zuen eta pentsamendu hura **oinaztu** baten argia izan zen, **oinaztuek** irauten duten denbora berean. **Sonia Gonzalez**

Oinaztuaren indarra hain da azkarragoa eta gailenagoa. **Xabier Amuriza**

2 (izenondokin)

Zeru-lurren arrazoa eta egitura azaldu behar da, ekaitzak eta **oinaztu** distiratsua kantatu. Xabier Amuriza

Gauza bera gertatzen da, **oinaztu** sutsuak hodeitik hodeira jauzi egiten duenean ere. Xabier Amuriza

Izan ere, **oinaztu** indartsuak hotsak eta ahotsak bezala zeharkatzen ditu etxe hormak, haizak eta brontzea pasatzen ditu eta brontzea eta urrea kolpera urtzen. Xabier Amuriza

Zergatik eraisten ditu **oinaztu** etsaiz jainkoen tenplu santuak eta euron egoitza bikainak eta apurtzen jainkoen irudi ondo landuak eta kentzen euren imajinon gurtza hain zartada bortitzez? Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan)

Aita orohaltsuak, ostera, sumin biziak jota, Faetonta bihoztuna bat-bateko **oinaztu** kolpe batez zaldietatik eraitsi zuen. Xabier Amuriza

Ekaitz-egunak, berriz, Bilbon 3; eta beste hiru hiriburuenginguruan, 4na egunetan tokatzen da trumoi eta **oinaztu** jasa. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

trumoi eta oinaztu (3); **tximist eta oinaztu** (10)

oinaztugile *izond* oinaztua sortzen duena.

Ortziko hodeiak xumetzen direnean ere sortzen dira oinaztuak; zeren, haizeak leunki sakabanatzen eta joanean disolbatzen dituela, nahitaez jausi behar baitute hazi **oinaztugileek**; orduan oinaztu isila ari du, izu beltzik eta iskanbilarik gabe. Xabier Amuriza

oinaztura (*orobat inaztura*) 1 iz tximista; oinaztarria. ik **oinaztu**; **oinaztargi**.

Gauero izaten ziren **oinazturak**, hori bai, eta haietxek gure arratseroako entretenimendu bakarra. Joxe Austin Arrieta

-Jainkoak, **inaztura** igorririk, ez du heretiko-habia horretatik harri bat harri gain utziko! Aingeru Epaltza

Zeren eta berri hura **oinazturak** hartua bezala zabaldu baitzen Europa osoan, ezin fitezagorik. harik eta Zeusek haiek guztiak azpiratu zituen arte, **oinazturaren** aizkoraz bitan banatzen zituela. Joan Mari Irigoien

Orduan amildegi sakonak azaltzen ziren hodeietako **oinazturen** argitan. Karlos Zabala

Balzacen maisu lan hau astiro abiatzen da; baina berehala hasten da lauhazka, eta **oinazturaren** zalutasunaz amaitzen da. Markos Zapiain

2 ekaitza (?).

Bisaia tanpez ilundu zuen, **oinaztura** bat doi-doi zeru oskarbi batean. Aingeru Epaltza

Batzuetan **oinaztura** gaiztoak harrapatzen zituen biak bidean, jostaiek ere bai, eta txita eginda iristen ziren herrira. Alberto Barandiaren

oinazturaka *adlag* oinazturak jaurtiz. ik **oinazturaka**.

Ez du, dena dela, axola handirik: hamar urtetan ala hamabitan izan, zerua ortoska eta **oinazturaka** zegokeen, hain segur ere, harako egun txar hartan. Aingeru Epaltza

oinbakar *izond* oin bakarra duena.

Badira batzuk, jadanik Pliniok aipatu zituenak **Oinbakarrak** deriztatenak, oin bakar baten gainean baitabilza. Aurelia Arkotxa

oinbaloi *iz ipar* futbola.

Oinbalioean Xapitaleko zelaian ari ziren gure kirolariak, Baitgs de Bearn Herrikoen kontra. Herria

Oinbalioan ere irabazi dute Uztaritzeko aurka 7 eta 0. Herria

Oinbalioan, 3 eta 0 irabazi dute gure jokolariek Artix herrian. Herria

C. **oinbaloi** kirolariak egin dute beren biltzar nagusia. Herria

oinbaloiari *iz ipar* futbolaria.

Jeunes Basques elkartearen, **oinbaloiari** izan zen eta ondotik kirolari gazteen kudeatzaile xintxo eta leiala. Herria

oinbete (*Euskaltzaindiaren Hiztegian oin agertzen da*) iz oina.

Estutzeak ere beheko partearen bosteko bat izan behar duela, eta ostikoek behean **oinbete** izan behar dutela, eta goian sei hazbete. Santiago Iruretagoiena

Altzairuzko marko batzuk dira, lau **oinbete** altukoak gutxi gorabehera, eta horien barruan egoten dira erregistroak. Xabier Olarra

Eta, horrela, eguzkiari behatzen diogularik irudikatzen dugu gutarik nonbait han berrehun **oinbetetan** aurkitzen dela, baina gure errakuntza ez datza irudikizun huts horretan, baizik eta irudikatze hori egiten dugularik ez baitakigu zer den ez egiazko distantzia ez zer den gure irudikizunaren kausa. Piarres Xarriton

oinbide *iz* oinezkoentzako bidea.

Oinbide berri bat. "Aldean" estatutik behetirakoan oinezkoak bortxatuak ziren beti bideko autoen hegaleri hurbiltzera; [...]. Herria

oinbiko 1 *iz* bi oin dituen.

Stiloa **oinbiko** lepaluze bat da, S lineako autobusetan ibiltzen dena eguerdi aldera. Xabier Olarra

2 *izlag/iz* enborrez mintzatuz, oi oineko diametroa duena; bi oineko enborra.

Hiru bikoak batera, txanda librean; etzandako **oinbiko** enborra (2, 1, 0 puntu). Berria - Kirola

Orduan, bi 45 ontzako, lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi **oinbikora** jokatu zuten saioa. Berria - Kirola

Txanda librean bi bikoak elkarren kontra, zortzi enborrera: lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi **oinbiko** (5 puntu). Xabier Amuriza

Orduan, bi 45 ontzako, lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi **oinbikora** jokatu zuten saioa. Berria - Kirola

Orduan, **oinbiko** bat gutxiago ebaki zuten gaurko lanarekin alderatuta. Berria - Kirola

Lehen proban ez dago aldaketarik eta zutikako **oinbikoa** ebaki beharko dute. Berria - Kirola

Lehen **oinbikoa** izan zen lan erdietako mugarría, hirugarren enborra. Berria - Kirola

oinbular (*orobat oin bular*) iz oinaren gainaldea, behatzetarik zangoarekiko luturaraino; oinetakoetan, gainalde hori estaltzen duen zatia.

Burdinaren kolpea nabaritu zuen **oin-bularrean**, ez zituen belauinak tolestu behar izan botek oinarri har zezaten. Koldo Izagirre

Lehenengo, oinazpi guztia; gero, **oinbularra**, eta, amaitzeko, taloia eta berna oinazpiarekin lotzen dituen ertza. Luis Elberdin

Letrak kiribilka ari ziren, denda eta bulegoetako lanaz unaturik zeuden aurpegi, atzamar eta **oinbular** minberatuen artetik. Lopez de Arana

Txapinen gairatik, ikaraz dardaraka bezala zituen **oin-bularrak**, basamortu bakarti haren aurrez aurre. Mirentxu Larrañaga

Osaba zapatariaren esku trebeek moztutako larrua **oinbularrak** josten zituzten josleei eramaten nien, eta gero joan behar nuen **oin-bularrak** hartzera eta eraman behar nituen zapatak egiten zituzten langileengana. Pello Lizarralde

Nekatuta zegoen eta mina zeukan **oinbularretan**. Lopez de Arana

Orain **oinbularrez** eta orain orpoz, orain belaunez eta orain buruz... Joan Mari Irigoien

oinburdina (*corpusean oin-burdina soilik*) iz oina lotzeko burdina.

Afonkak **oin-burdinan** harrapaturiko hanka askatu zuen, brontzezko hatzaz zauria haztakatu zuen. Pablo Sastre

oindun *izond* oina duena.

Sarreraren ondoan, berriz, esekitoki **oindun** bat eta, bere hartatik dilindan, nire jaka izan zitekeena. Aingeru Epaltza

Edontzien armadak bi aldeak betetzen zituen, ilaretan txukun jarrita: pattar edontzi txikiak, ardo baso lodiak, fruitu zukueterako kopak, absenta edontziak, garagardo pitxerrak, baso **oindun** handiak, denak goikoaz behera, ipurdia airean. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Ez pentsa leku hauetan infernuko aterik egon daitekeenik eta gero handik jaingo maneez arimeei Akeronteko bazterretara tiratzen dietenik, orein hego **oindunek**, sudurren bitartez, narraziak gordelekuetatik irtenarazten dituztela sinestu ohi denez. Xabier Amuriza

oinetako 1 *iz batez ere pl* oinak estaltzeko eta babesteko jantzia; adiera hertsian, zapata.

Oinetakoa, beraz, jabetza eskubidearen sinbolo garbia da. Patziku Perurena

Izotzetan patinatzeko **oinetakoak**. Josu Zabaleta

Emaztearen **oinetakoak** ez ziren, ez, mendirako biziki egokiak. Eneko Bidegain

Gimnasiako **oinetakoak** ziren, gomazkoak, gure aitak erosten zizkidan. Pello Lizarralde

Beste pertsonaia bat agertzen da agertokian, laugarrena, takoi altuko **oinetakoak** jantzita dituen neska bat. Oskar Arana

Haren oin nekatuetako **oinetako**en lokarriak askatzeko. Mirentxu Larrañaga

Oinetakoen lokarriak lotzen ari balitz bezala egin zuen, Lupinek ikus ez zezan. Iñaki Mendiguren

Oinetakoen zolak itsasten zitzaizkien, plisti-plasta egiten zuten, artega, lokatz izugarri hark miretsirik. Karlos Zabala

Oinetakoen armairuan, arreta handiz aukeratu zuen txarolezko mokasin pare. Jon Muñoz

Lokatzez estaltzen nituen **oinetakoetako** zuloak. Eskarne Mujika

2 (aditza baten objektu gisa)

Jaiki, **oinetakoak** hartu, **oinetakoak** jantzi, lehenik galtzetinak eta gero **oinetakoak**, noski, eta handik behingoz abiatu. Joxe Austin Arrieta

Andrew eta berak **oinetako** eta galtzerdiak isil isilik jantzi zituzten, kontua aipatu ere egin gabe. Anton Garikano

Perrettek, **oinetakoak** kendu, eta hankak luzatu zituen. Jon Muñoz

Harry bere **oinetako** bat kendu, galtzerdi lokatzu zikina erantzi eta haren barrura sartu zuen egunerokoa. Iñaki Mendiguren

Oinetakoak erantzi, eta itsasora bidean hasi zen. Anjel Lertxundi

Hausterrek **oinetako** erantzi eta lurrera erortzen utzi du. Iñaki Iñurrieta

Oinetako bat erantzi eta Boozi eman zion.

Oinetakoak lotu zituen lehendabizi, jaka jantzi zuen gero. Anjel Lertxundi

Haurtxo bat balitz bezala biluzi zuen, **oinetakoak** askatu zizkion, korapiloetan trabatuz, burua eta belaunak laztandu zizkion, eta ez zuen barre gehiagorik egin, hain zeukan asebeterik bihotza. Jose Morales

Gabin ohartu zen neska **oinetakoak** askatzen hasia zela. Iñaki Iñurrieta

Betuna eta zepillua erosi eta trenetan jendearen **oinetakoak** garbitzen hasi zen. Gotzon Garate

Van Daan andreak **oinetakoak** aldatu eta txapinetan hasten da gelan hara-hona ibiltzen. Josu Zabaleta

Batek lapiko bati begirutzen zion eta salneurria galdetzen, besteak **oinetako** batzuk saiatzten zituen. Anjel Lertxundi

3 (izenondoekin)

Belarritako luzeak eroezan eta **oinetako** altuak. Xabier Montoia

Oinetako militar zahar batzuk erabiltzen ditu. Pablo Sastre

Oinetako zahar eta birjosiak jantzi zituzten oinetan eta zarpa zaharrak soinean. Elizen arteko biblia

Oinetako beltz bernizatuak eta galtzerdi zuri parpailadunak jantzita agertu da mahaira. Oskar Arana

Burusoila, galtza grisak, **oinetako** lustratuak. Pablo Sastre

Oinetako deportibo eta praka bakeroetan bistaratu zuen bere Pietatea. Unai Iturriaga

Hantxe zegoen geldirik, bere **oinetako** begiztadun handien gainean jarrita. Karlos Zabala

Soinean alkandora zuri garbi-garbia zeraman, izur txukuna eginez lisatutako prakak, **oinetako** distiratsuak. Urtzi Urrutikoetxea

Gona tolesdun urdin bat, kaxmirrezko jertse zuri bat, eta kolore marroi arrunteko **oinetako** orpo luzekoak. Oskar Arana

Haren **oinetako** orpo altukoak ez zeuden gelaren bazterrean. Tapaki ingelesak irrist egin zion, agerian utzirik toles ezin txukunagoko galtza eta **oinetako** ezin hobeki betuneztatuak. Juan Kruz Igerabide

4 (izenlagunekin)

Elurrak hondatuko ez zituen larruzko **oinetako** arin batzuk eroatera. Anjel Lertxundi

Ez zen oinen errua, usain txarra eragiten zieten gomazko **oinetako**en baizik. Pello Lizarralde

Orduan ziren Gathalonabesen aitzinean belaunikatzen, eta haren zetazko **oinetakoak** zituzten musukatzen. Aurelia Arkotxa

Italiar **oinetako** pare dotore askoa. Joxe Austin Arrieta

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horregatik esaten diote Antso "Menditarra", baita Antso "Abarka" ere, aukeran, menditarrek bere-berezkoa duten **oinetako** klase hori hobesten duelako. Martin Anso

Belar hostoak **oinetako** -zolari itsatsita. Oskar Arana

Inoiz joana nintzen haren lantegitxora etxekoren baten **oinetako** -zoruak errepasa zitzen. Anjel Lertxundi

Gutunazal batekin eta arropa edo **oinetako** denda batekoa zirudien poltsa batekin. Patxi Zubizarreta

Kiffi kaleko "Shoe Shop" **oinetako** -dendan lapurketaren bat gertatzen ari zela-eta dei bat jaso genuen atzo gauaz. Joxemari Urteaga

Azkenean, Rossetti niretzat **oinetako** marka bat zela konbentzitu nuenean, funtsezkoena kontatu zidan: [...]. Ramon Saizarbitoria

Hantxe zeuzkan, esan zion, traje bat eta **oinetako** parea. Mirentxu Larrañaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jean zarpailltuok eta kirol-**oinetako** higuatuok. Oskar Arana

EHun eta berrogeita hamar dolarreko kirol-**oinetako** urdin fosforeszenteak. Fernando Rey

Jose Ramonek ere tenis-**oinetako** enbragetik altxa eta metro batzuk egin ditu. Urtzi Urrutikoeetxea

Zapatak, erloju-orratzak, ganibetak, argi-mutilak, ume-**oinetakoak** borla gorriarekin, azpiko arropa enkajeduna. Felipe Juaristi

5 *oinetako-garbitzaile* iz bizibidez oinetakoak garbitzen dituen pertsona.

Oinetako -garbitzaileak, ordea, ez zuen jendearen poz-jarioa bizi, begi-bistakoa zen ez zitzaiola soldaduen fanfarroikeria atsegin. Argazkian, **oinetako** garbitzaile bat, taberna bateko erakusleihoaren aurrean eta basokada bat ardo eskutik hurbil. Anjel Lertxundi

Galdu ditudan senide eta adiskide askoren oroitzapenak baino egiatasun eta izatasun gehiago du **oinetako** -garbitzailearen begiradak nire oroitzapenen ganbaran. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kirol oinetako (5); larruzko oinetako (3)

oinetako bat erantzi (4); oinetako bat kendu (3); oinetako berriekin (3); oinetako deportibo (3); oinetako enpresen (3); oinetako garbitzailea (3); oinetako onak (3); oinetako pare (8); oinetako sendoak (4); oinetako urdin (3); oinetako zahar (4)

arropak eta oinetakoak (3); erantzi oinetakoak (4); etxeko oinetakoak (3); jantziak eta oinetakoak (6); kirol oinetakoak (8)

oinetakoak askatu (3); oinetakoak erantzi (14); oinetakoak ere erabil (3); oinetakoak eskuan (3); oinetakoak eta galtzerdiak (6); oinetakoak jantzi (12); oinetakoak jantzita (3); oinetakoak janzten (3); oinetakoak kendu (10); oinetakoak kentzen (4)

oinetakoaren puntarekin (3); oinetakoaren puntaz (3)

jantzi eta oinetakoen (3); jantzien eta oinetakoen (5); oinetakoen azpian (3); oinetakoen lokarriak (6); oinetakoen lokarriak askatzeko (3); oinetakoen prezioak (3); oinetakoen zientzia (3)

oinetakorik gabe (4)

oinetakogile iz oinetakoak egiten dituen pertsona. ik zapatagile.

Oinetakoak egitea teknika bat da, zentzu horretan: **oinetakogilearen** teknika eta larrua baliabideak dira; helburua, aurretik diseinaturikoa, oinetakoak berak. Askoren artean

Alegiazko bi arte-mota horiek emozioak nahi dituzte oroitu, baina emozio horiek aldeztu aurretik daude diseinatuta, prefabrikatuta, **oinetakogilearen** kasuan gertatzen den moduan. Askoren artean

oinetakogintza iz oinetakoak egitea. ik zapatagintza.

Osbigilea gizon sinplea zen, Birjinenaren zalea, zeinaren dominak baitzaramatzen, eta sinetsita zegoena debozio horrek eskubidea ematen ziola larru txarra erabiltzeko bere **oinetakogintzan**. Juan Garzia

oinetxe 1 iz familia noble baten etxe zaharrena.

Ezkaiko jauregia 1665. urtean bilakatu zuten **oinetxe**. Edurne Elizondo

Oinetxean, erdiko balkoi handiaren gainean, fundatzaileen armarrria ageri zen, harearri gorrian landua. Koro Navarro

Garai batean hura izan zen Habanako alderdirik aberatsena: itsas aurrean hotelak, bi edo hiru solairuko **oinetxeak**, negozioak eta dendak. Jon Muñoz

Alabaina, ez dago eskualde honetan nire arbasoen **oinetxe** ilun grisa baino dorre ohoragarriaririk. Koro Navarro

Noizbait kontatu hidan **oinetxe** eta etxalde bat zain hituela nonbait, Errusiako mugaren ondoko lekuren batean. Xabier Olarra

2 irud/hed aitoren semeen leinua.

Antzina-antzinatik ziren liskarrak ohandotarren **oinetxearen**, zeina Nafarroako erreinukoa baita, eta zalakaindarren artean, zeina Lapurdiko lurretan baitago. Koro Navarro

Hau [...] Iñigo Santxex Ezpeletakoa kronistak egiten duen kontaketa da, bandoen arteko guduetan nola isuri zen lehen odola, Urbian, ohandotarren eta zalakaindarren **oinetxeen** artean azaltzen duena. Koro Navarro

oinezka iz oinez ibiltzea.

Norabide zehatzik gabe joan zen **oinezka** geldoan aurrerantz, ihesaldi guztietan bezalaxe, gibelera behatzeko. Unai Iturriaga

oinezkako 1 *izlag* oinez egiten dena.

Bertzalde beste **oinezkako** ibilaldi bat ere, Aiherran gaindi, finkatua dute, azaroaren 17-ko. Herria

Oinezkako hiru ibilaldi (lehiaketa gogorik gabe). Herria

• 2 iz oinez ibiltzen den pertsona. ik oinezkari.

Goizean **oinezkakoak** atera dira Luzaideko elizatik Orreagarat buruz goizeko 6 ak eta erdietan. Herria

Erran behar da ere Luzaideko elizatik kurutzearen eremaiteko oitura dela **oinezkakoak** aldizkatuz. Herria

Lehenago bano jende multzo ttipiagoa ukaiten da **oinezkakoetan**, bana ondotik autoetan joaiten da lehenago oinez joaiten zen baino jende gehiago. Herria

oinezkari iz onez ibiltzen den pertsona. ik oinezkako 2.

60 **oinezkari**. Herria

oinezkatu, oinezka(tu), oinezkatzen du *ad* (zerbait) oinez ibili.

Leku itxian ere, zeruz, itsasoz, ibaiz, mendiz aldatzen garena eta zelaia **oinezkatzen** eta hotsak entzuten ditugula. Xabier Amuriza

Erreka horren **oinezkatzean** pentsaketan nengoen holako zerbitu egin baledi Banka Aldudeko errekan, zer itxura har lezakeen! Herria

Dagoeneko ez ditut metroak **oinezkatzen**, baizik eta ilunabarra jaukitzen zaidala, kilometroak, Paul Austerren nobeletako pertsonaien maneran autoaz, zainak kiskailtzen dizkidaten bilkuretara joateko eta handik su gosez itzultzeko. Itxaro Borda

oinezko 1 *izlag* oinez egiten dena; oinez dabilena.

Bi hilabetez ibili naiz **oinezko** bidean, haran handi triste batean behera, harik eta hura ordokira iritsi den arte. Juan Garzia

Tolosa-Tolosa **oinezko** mendi-ibilaldi neurtua egin da igande. Herria

Eugenesiaz gizakiak "hobetzea" zein tasun bat sustatzea, hala nola matematiketarako edo **oinezko** lasterketarako gaitasuna- biologikoki suizida eta sozialki zentzugabea litzateke. Juan Garzia

Arratsaldean paseatzera joan nintzela bi neskoekin, gure ohiko ibilaldi **oinezkoa** egitera. Fernando Rey

Oinezko talde mozorrotuak, eroarena egiten, dantzan eta kantuan. Josu Zabaleta

Hogeita hamar libra gehiegi dira **oinezko** bidazti batentzat. Juan Garzia

Niri autoak ez zaizkidak axola, ni **oinezko** ibiltaria nauk. Fernando Rey

2 irud/hed

Oso zaila zela, alegia, "**oinezko** hiritarrari" (hau da, fede gutxikoari) delako kubotzar horiek gustatzea. Iñaki Seguro

3 (gudarostean) ik infante 2.

Arturren gudarosteak bi hilabete inguru zeraman Gaunes hiria hartu nahirik, eta ez zuten batere aurreratzeko, eta, gainera, zaldun eta **oinezko** asko galtzen ari ziren. Juan Kruz Igerabide

Eta horra, **oinezko** eta zaldizko gudari-talde handia zetorkien gainera. Elizen arteko biblia

Omsk hiriaz jabetuak ziren zaldizko eta **oinezko** gerlari haiek. Karlos Zabala

Baina gizon galtze haundiak izan ziren ene erresimenduan, **oinezko** 16.ean, soldado eta ofizier. Michel Oronoz

Pertsona hori beti zaldizko eta **oinezko** gizon ugari lagundurik ibiltzen da, ezpata biluziz inguratua. Xabier Kintana

· Ehun mila gudari **oinezko**, hogeit mila zaldizko eta gudurako trebaturiko hogeita hamar elefante zituen erregeak bere gudarostean. Elizen arteko biblia

• 4 iz oinez dabilen pertsona.

Oinezkoak ezkerretik doaz, trafikoa bera ere ezkerretik joan arren. Gotzon Garate

Berun koloreko karriketako **oinezko** bakanak, etxerako bidean zihoazen gautxori hitsak ziren. Alberto Ladron Arana

Kaleak hutsik zeuden, errepidean ibilgailu gutxi zebilen eta espaloietan **oinezko** bakan batzuk soilik. Migel Angel Mintegi

Bazter batean gelditu eta **oinezko** bati orri batean apuntaturik zeukan helbideaz galdetu zion. Migel Angel Mintegi

Oinezkoen oinotsa eta bidezkoen ahotsa besterik ez zen entzuten. Jon Muñoz

Bidea ez nekienez, **oinezko** bati egin nion galde, nekazari nafarra bera, biziki traje polita zeramana. Koldo Izagirre

Tranbia hark **oinezko** bat nola harrapatzen zuen ikusi zuen. Arantxa Iturbe

3000 **oinezko** dira han gaindi ibili, lehenak goizeko 5etan abiatuak, launaka ibiliz. Herria

Ez dut atsegin **oinezko** arruntzen batek edo bestek zelango izuz begiratzen gaituen. Urtzi Urrutikoeetxea

Oinezkoentzako kale bitxia dago haren bihotzean, eta gazte jendea hantxe pilatzen da. Jon Arretxe

Astoak zeraman abiadura, izan ere, ozta-ozta baitzen giza **oinezko** batena baino arinagoa. Joxe Austin Arrieta

Besotik helduta zebilen **oinezko** bikote bati erreparatu nion arretaz: biak itxura xargaleko, orbela harrotzen zuten pausoan-pausoan. Anjel Lertxundi

· Hirietan ibilian ibili ohi zen jende hura **oinezko** bihurtuta dago gaur, eta **oinezkoentzako** baxter mehe eta berdegune izenekoetan errenditzen ikasia, errespetu ederrean.

Iñaki Seguro

5 irud/hed

Niri gehiago interesatzen zitzaizkidan kimika bakarti, arma-babesik gabe eta **oinezko** hutsaren historiak; gizonaren neurriko kimika, alegia Juan Garzia

6 oinezko gudaria.

Zazpi lagun hartu zituen goarniziorako, hiru zaldizko eta lau **oinezko**. Aingeru Epaltza

Mila gudu-gurdi, zazpi mila zaldizko eta hogeit mila **oinezko** atzeman zizkion Davidek. Elizen arteko biblia

Zaldizko, **oinezko**, orga... nonahi ageri zen etsaia. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gudari oinezko (3); **hogeit mila oinezko** (4); **lau oinezko** (3); **mila gudari oinezko** (3); **mila oinezko** (12)

oinezko bat harrapatu (7); **oinezko bat hil** (8); **oinezko bati lapurtzeagatik** (3); **oinezko gudari** (3); **oinezko ibilaldi** (16); **oinezko ibilaldi bat** (10); **oinezko ibilaldia** (12); **oinezko ibilaldiak** (4)

oinezkoen zaldain (3)

oineztxo *adlag adkor* oinez.

Kafetxea esan du, eta andretxoa gogoratu dut, bere sonbreirutxoarekin, bere kipetxoarekin, Taita Diositoren laguntzatxoarekin, **oineztxo**. Joseba Sarrionandia

oinezur ik oin 25.

oinka (*orobat ointka g,er,*) 1 *adlag* oin kolpeak emanez.

"Lasai, zaldia!", hots egin zuen Lubisek, gure zalapartarekin urdurituta baitzeuden, arnaska eta **oinka**. Bernardo Atxaga

Don Fernandok bere hankapean hartua zeukan Ermandadeko bat, eta **oinka** eta **oinka** neurtu beharrean. Patxi Ezkiaga

• 2 iz oinkada, pausoa. ik oinkada.

Oinka astunak hauteman zituen Graxik. Itxaro Borda

oinkada *iz* urratsa, pausoa.

Ehun metro inguru eginak izango zituen, Peppone lau **oinkada** emanda ondoan jarri zitzaionean. Koldo Biguri

Errebolberrera eta txostena eskuratuak, Arrietaren ondotik pasa, eta lau **oinkadetan** bulegotik irten zen. Migel Angel Mintegi

Bata luze eta meharra zen eta bestea tikiagoa, urrats urduriz bere kidearen **oinkadak** berdindu nahian zebilena. Alberto Ladron Arana

Gizonak edaria trago batez hustu, **oinkada** luzez kabareteko erdialdera hurbildu eta dantzan hasten ziren. Felipe Juaristi

Alpapa bustian **oinkada** handiz nabil, eta aranak lapurtzen ari naiz. Josu Zabaleta

Nire **oinkada** barru-hutsak, arrastiriko eguzkiak tindaturiko hormen oihartzunean errepikatuz euren hotsa. Juan Garzia

Oinkada militarrek azkartu ziren orduan. Txillardeggi

Karrika-zoruetako harri biribilen gainera erortzen entzuten nituen neure **oinkadak**. Juan Garzia

oinkari iz ibiltaria.

Sahagún hirira doa dudarik gabe eta **oinkari** ona da. **Piarres Aintziart**

Plazatik haste, itxura kriket, plazergarri, alai bat beretuz, etxe xuri argiak eta gainerat **oinkarientzat**, zer geriza, prezagarriak diren harri pikatuz egin bazterbide egokiak.

Herria

Lehen Bizkai-ri buruz doan galzada, Plazida beheitiko xendrek, Ipurtaargi gotor itxuraz argituak dire, **oinkarien** loriagarri. **Herria**

oinkatu, oinka, oinkatzen 1 du ad oinaz zapaldu.

Gero, logelak txukuntzeko aitzakia emanik, sukaldetik irten, eta eskaileretan gora alde egin zuen, eskailera-maila bakoitza kementsu **oinkaturik**. **Anjel Lertxundi**

Londresen zoazela, pentsatzea daukazu kalean **oinkatzen** duzun lauza edo eskaileratan laztantzen duzun eskubanda Dickens-ek zapaldu eta ferekatu zituela. **Ramon**

Saizarbitoria

Aita ikusten du soroa ildoz ildo **oinkatzen**, mokorrez mokor zapaltzen, eskuarez bezala berdintzen, sasiak, zuhaixkak, karduak eskopetaz jotzen. **Itziar Otegi**

Zutiitu egin da jendea; ezin du ihes egin: zapalduta, itota, **oinkatuta** daude guztiak. **Jon Muñoz**

Ama Birjinaren seme ezin onest eta leialagoa nintzela, zeren, haren eginak eta ekinak jarraibide harturik, aurizki, zanpatu eta **oinkatu** bainuen sugea. **Joan Mari Irigoien**

Pierideen bazter lekuak, aurretik inor ibili gabeak, **oinkatzen** ditut. **Xabier Amuriza**

2 irud /hed

Hala, haren gogoaren oldar bizia garaile izan zen, eta urrun jo zuen, munduko eremu gartsuaz harago, eta, bere sen eta gogoz, orotasun neurrigabea **oinkatu** zuen.

Xabier Amuriza

3 (era burutua izenondo gisa)

Eta ordurako hondakin beltz haietara zeraman elur **oinkatuko** bidean barna gure aita heldu zen **Fernando Rey**

oinkatzaile izond oinkatzen duena.

Gizartea goiti-beheiti moldaturikako edifizio bat zela, bere mailak eta graduak zituena, eta edifizio hartan lege eta arau batzuk bete beharra zegoela, eta horrela izan zen

tipiagoen **oinkatzaile** bezain handiagoen meneko eta manuko. **Joan Mari Irigoien**

oinkatze iz oinaz zapaltzea.

Mundutik at zeuden han, goiko azoketatik Parisko **oinkatze** jarraituaren hotsa iristen zela. **Karlos Zabala**

oinlekudun izond oinlekua duena. ik ointoki.

Larruzko bota marroiak ditu zilar gorriko ezproiekin, zaldi bat ondoan, zaldi handi lodia -Velazquezek maite zituenak bezalakoa-, urrezko **oinlekuduna**. **Felipe Juaristi**

oinlodi iz peonia (Paeonia officinalis).

-Bai, ikusi izan ditut beraien ustez gnomoak diren gauza horiek -erantzun zion Ronek makurtuta, burua **oinlodi** -sastrika batean sartuta-. **Iñaki Mendiguren**

Borroka-hots bortitza entzun zen, **oinlodi** -sastrika astindu eta Ron tente jarri zen. **Iñaki Mendiguren**

oino ik oraino.

oinohar ik oin 28.

oinorde 1 iz oinordekoa.

Besterik ezean egokitzen zaizkie ondasun horiek notario batek zehaztu eta bilarazi ahal izango dituen legezko **oinordeei**. **Joxan Elozegi**

"Legezko **oinorde** lehen eta bakarra", notarioaren hitzen arabera. **Joxan Elozegi**

Oinordea iruzurti bat ez baina oinordetza filiazio bidez egokitu zaion pertsona dela. **Joxan Elozegi**

Arazo horietan, Estatuaren esku-hartzea ezin utzizkoa dugu, behar-beharrezko baita baten bati **oinorde** izateko eskubidea ematea eta zatiketa modua ere finkatzea.

Andres Urrutia

Nevadako familia ezaguneko **oinorde** baita, Laxaltarren leinukoa. **Berria - Kultura**

Bere eskubideak ere ahuleziarik gabe eskatu zituen: umearena, familia batu batean heziketa ona jasotzeko eskubidea, mantxarrik gabeko izen eta negozio oparo baten

oinorde izateko eskubidea. **Monika Etxebarria**

Izena Nafarroako tronuko **oinordearen** ohoretan emana zioten. **Aingeru Epaltza**

Erosketa, opari eta bizitzako halabeharretatik zetozen hamaika objektu zeutzan bakardadean abandonaturik, **oinorde** jakinik gabe. **Joxan Elozegi**

"Jabetza" horren aldean pobretasuna "ondare iraunkorra" da, "zeruetako **oinorde** eta errege" egiten gaituena. **Askoren artean**

2 ondoretasuna.

Noemiri soroa erosten badiozu, Rut moabdar alarguntsarekin ezkondu ere egin beharko duzu; honela, berarengandik jaiotako seme-alabek hildakoaren jatorria irauraraz

dezakete eta haren **oinordea** gorde. **Elizen arteko biblia**

Nire arbasoen heriotza motak ariko dira aztertzen **oinorde** epileptikoren baten bila, erakutsi ahal izateko nire garunen kitzikadura anormalek eroan nautela gaizkintza

politikora, **Koldo Izagirre**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeen **oinorde**-eskubidea. **Elizen arteko biblia**

Ondoren, haragizko aita graziazko semea -jadanik diru gabetua- hiriko gotzainaren aurrera eramaten saiatu zen, haren eskuetan aitarengandiko **oinorde**-eskubideei uko egin

eta zeukan guztia ere itzul ziezaion. **Askoren artean**

Berriro kuraiaren jabe nintzen egunetan, burua lepoaren gainean betiere, segida ematen nion neure **oinorde** txindurri-lanari. **Joxan Elozegi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Andere eder hau, deus gutxi esatea da noski baina, Mikomikon-erresuma handiaren jabe-gaia da, belau- **oinorde** xuxen-xuxenean. **Patxi Ezkiaga**

oinordekide iz beste batzuekin batera oinorde den pertsona.

Hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Kristo Jesusen bitartez eta berrionari esker, jentilok **oinordekide** izatea, Kristorekin gorputz bat bera osatzea eta agintzari beraren partaide izatea. [Elizen arteko biblia](#)

Seme-alaba bagara, bai eta oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren **oinordekide**; zeren, nekeetan Kristoren kideko garenez gero, aintzan ere beraren kideko izango baikara. [Elizen arteko biblia](#)

oinordeko 1 iz ondarea dagokion pertsona; gurasoek ondarearen hartzekodun izendatzen duten pertsona. ikpremu; jabegai.

Hi, gainera, nire **oinordekoa** haiz: daukadan eta izan nezakeen guztia hiri utzi nahi diat. [Agustin Otsoa](#)

Ezkontzera behartua haiz eta **oinordeko** bat eman behar didak! [Elena Touyarou](#)

Walden doktoreak, hirurogeita bost urterekin, **oinordeko** bat seduzitu nahi du. [Koro Navarro](#)

Seme-alabek lege naturalaren ondorio gisa dutela aitaren **oinordeko** izateko eskubidea. [Iñaki Iñurrieta](#)

Naziek bereganatutako Klimten bost obra jabeen **oinordekoei** itzuli beharko dizkie Austriak. [Berria - Kultura](#)

Hamabi Tauletak legeak baimentzen zion testamentua egiten zuen edonori **oinordekotzat** berak nahi zuen hiritarra aukeratzeko. [Iñaki Iñurrieta](#)

Lege Vokoniarrak ez zuen uzten emakume bat **oinordeko** izendatzen, ezta alaba bakarria izanda ere. [Iñaki Iñurrieta](#)

Semerik ez didazu eman eta neure etxeko morroia izango dut **oinordeko**! [Elizen arteko biblia](#)

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: "**oinordekoa** duk! hil dezagun, eta mahastiaren jabe izango gaituk". [Elizen arteko biblia](#)

Orain, beraz, ez zara esklabo, seme baizik eta, seme zarenez, bai eta **oinordeko** ere, Jainkoaren borondatez. [Elizen arteko biblia](#)

Quenu **oinordeko** bakarra zen, bere anaia Florentekin batera. [Karlos Zabala](#)

Naziek bereganatutako Klimten bost obra jabeen **oinordekoei** itzuli beharko dizkie Austriak. [Berria - Kultura](#)

Eta, hala, testamenturik ez izanagatik, haiek geratu ziren gero herentzia guztiaren **oinordeko** unibertsal. [Pello Lizarralde](#)

Ez dizut ezkututuko beti nazka izan dizudala [...] horregatik, esan nahi dizut nire herentziaren **oinordekoen** zerrendatik kanpo zaudela hasiera-hasieratik. [Aitor Arana](#)

Legeak guraso genetikoak ezagutzeko aukera eskaintzen duen kasuetan ere, semeak edo alabak ez du izango haren **oinordeko** izateko aukerarik. [Berria - Gaiak](#)

Erreinuaren **oinordeko** zirenak, berriz, kanpora, ilunpetara, botako ditu Jainkoak. [Elizen arteko biblia](#)

Familia buru gisa, eta bere **oinordeko**, Beydari izendatu zuen. [Pablo Sastre](#)

Bera izan zen Raguelen ondasunen **oinordeko**. [Elizen arteko biblia](#)

Ondare paregabe baten **oinordeko** izateko. [Iñaki Mendiguren](#)

2 (izen baten eskuinean)

Etiopiako printze **oinordekoak** printzerri bat du, eta maitasunaren eta obediendiaren etsenplua ematen die sujetei. [Iñaki Iñurrieta](#)

3 kargu edo kideko batean beste baten ondorengo dena.

Klovisen **oinordeko** Luis VII.ak agindu zuen lore horren marrazkia bere ezkutuan egin zezaten: "lis" lorea deitzen zaio. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Izan nadila, otoi, zure profeta-espirituaren **oinordeko**. [Elizen arteko biblia](#)

Sobietar Batasuna Errusiako Petritar Inperioaren **oinordeko** politikoa zen. [Iñaki Mendiguren](#)

«Erabateko» sostengua eman zion atzo presidentek bere «**oinordeko** politiko» Dominique De Villepini, Berline bati emandako erantzuna baliatuz. [Berria - Ekonomia](#)

HZ «Batasunaren **oinordekoa**» omen delako erabaki zuen Espainiako Gobernuak HZren kontrako prozedurari ekitea. [Berria - Euskal Herria](#)

Hiritar, urbano edo moderno hitzek "hobea" esan nahi dutela sinesten dutenak, ez dira besterik baizik-eta lehenagoko herri-koxkorretan jauntxoaren mehatxuek beldurtzen eta apaizaren esanak itsu-itsuan sinesten zituzten herritar obxan gixaixo haien ondorengo eta **oinordeko** zuzenak. [Iñaki Segurola](#)

Alderdi hura gerra aurreko POUM ezker muturreko alderdiaren **oinordeko** -edo zen, ideologia aldetik behintzat. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bergmanen **oinordekotzat** duten arren, ahantzurak itzali du Kieslowskiren oroitzapena. [Berria - Kultura](#)

4 irud/hed

Nortasuna folklore hutsean geratu da New Yorken bizi diren euskaldunen **oinordekoengan**. [Harkaitz Cano](#)

-Zure espirituaren **oinordeko** izan nadila, haren bi zati neureganatuz. [Jose Antonio Mujika](#)

Herri-borrokak ere asmatu egin nahi zuen nola aurpegi eman, aurrekoaren **oinordeko** zuzena izan arren legitimotasun handiagoa lortzeko bidean zen erregimen berriari. [Jokin Urain](#)

Guztiak ziren, bestalde, nola edo hala, kultura hippyaren **oinordeko**. [Joan Mari Irigoien](#)

Erronka epe luzera bota zuen Andresek, eta bere garaipenei jarraipena emateko bi **oinordeko** ditu orain: Angela Vilaríño alaba, eta Gorka Apalantza. [Berria - Kirolak](#)

Jules Verne **oinordeko** punkzaleak. [Berria - Kultura](#)

Espainolek sinetsi gura dute, latinoak izanez grekoak direla: Erromaren **oinordeko**, Atenasen **oinordekoak**. [Joxe Azurmendi](#)

1997an inauguratu zen Sestaon ACB lantegia, Bizkaiko Labe Garaien **oinordekoa**. [Berria - Ekonomia](#)

Bagdadeko liburutegia izan zen Alexandriakoaren benetako **oinordekoa**. [Jon Muñoz](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berreroste-eskubidea **oinordeko** -aldaketa bakoitzeko ordaindu behar zen. [Iñaki Iñurrieta](#)

Horregatik lotzen du ETArekin fiskalak, eta Joxemi Zumalabe Fundazioa ASKren **oinordeko** lana egiteko sortu zela esaten du. [Berria - Euskal Herria](#)

Justiniano enperadoreak [...] hiru **oinordeko** -mota ezarri zituen, ondorengoak, aurrekoak eta zehar-ahaideak, gizonezkoen eta emakumeen artean inolako bereizketarik egin gabe. [Iñaki Iñurrieta](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitasantutzak erreklamatzeko Erromatar Inperioaren eliz **oinordeko** zen aldetik. [Iñaki Mendiguren](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren **oinordeko** (6); amaren **oinordeko** (3); erreinuaren **oinordeko** (6); jainkoaren **oinordeko** (4)

oinordeko bakarra (4); **oinordeko eta errege** (4); **oinordeko gisa** (4); **oinordeko izan** (12); **oinordeko izango** (7); **oinordeko izatea** (7); **oinordeko izateko** (12); **oinordeko politiko** (3); **oinordeko ziren** (3); **oinordeko zuzena** (3); **oinordeko zuzenak** (3); **ondasunen oinordeko** (3)

zeruetako erreinuaren **oinordeko** (4)

batasunaren **oinordekoa** (3); **oinordekoa izan** (4); **slytherinen oinordekoa** (15)

slytherinen **oinordekoak** (4)

oinordekotzat jo (4)

oinordekotasun iz oinordekotza.

-Oinordekotasun zaila, tokatu zaiguna -esan, eta irribarre egin zidan. [Ramon Saizarbitoria](#)

oinorde (23 agerraldi, 17 liburu eta 17 artikulutan) iz oinordearen eskubidea, ondarearen hartzekodun izateko eskubidea. ik **oinordetza**; **ondorengotza**; **ondare**.

100.000 eurotik azpiko **oinordekotzak** zergagabetzea. Berria - Ekonomia

Norberaren haurrak elikatzea zuzenbide naturaleko betebeharrak bat da; haiei **oinordekotza** ematea, zuzenbide zibileko edo politikoko betebeharrak. Iñaki Iñurrieta

Badira hautabide hutsezko monarkiak; eta argi dagoenez **oinordekotzen** ordenak lege politiko edo zibiletatik etorri behar duela, haiei dagokie zein kasutan diogen arrazoiak **oinordekotza** hori seme-alabei uzteko, eta zein kasutan eman behar zaion beste norbaiti. Iñaki Iñurrieta

Ondasunen banaketa, banaketa horiei buruzko legeak, banaketa horretan parte jaso duena hil ondorengo **oinordekotza**: horiek denak gizarteak baizik ezin ditu arautu. Iñaki Iñurrieta

Zertarako dituzte zure sariak, baldin seme-erik gabe banoa mundutik eta nire etxearen **oinordekotza** Eliezer damaskoarraren eskuetara pasatuko bada? Jose Antonio Mujika

Aitarenekin **oinordekotza** jaso duten seme-alabei, jaso ez dutenak gorrotatzea al dagokie? Iñaki Iñurrieta

Karlos Bosgarrenak Borgonia, Gaztela eta Aragoiko **oinordekotza** jaso zuen. Iñaki Iñurrieta

Beren **oinordekotza** mundua izango zutelako agindu zuten Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Elizen arteko biblia

1894an gobernu liberalak ezarri zuen zergaz ari da, **oinordekotza** jasotako kapitalari ezarritakoa, aberatsen kalterako eta nahigaberako. Antton Olano

Taibelek arropa denda bat zeukan, gurasoengandik **oinordekotza** hartua. Koro Navarro

Hauteskuendean promesa egin omen zuen nekazaritza ondareei buruz **oinordekotzen** gaineko salbuespena ezarriko zuela Galizian. Iñaki Heras

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

[Lehen dinastian] koroa anaien artean banatzen zen [...] eta feudoak, mugigarriak zein bizi artekoak, ez ziren **oinordekotza**-gai, ezin ziren banatu. Iñaki Iñurrieta

Datorren urteak aurrera, Ipar Euskal Herrian gutxi batzuek baizik ez dute ordaindu beharko **oinordekotza** zerga. Berria - Ekonomia

Espainiako Koroarako **oinordekotza** alorra erreformatzeko asmoa. Berria - Mundua

Espainiako **oinordekotza** gerra amaizeko akordioetako bat izan zen Utrecht-eko Ituna. Berria - Mundua

Feudoak semeengana pasatu ziren, **oinordekotza**-eskubidez eta hautabidezko eskubidez, eta feudo bakoitza, koroa bezala, hautabidezko eta oinordetzazko izan zen. Iñaki Iñurrieta

Gehiengoaren iritzia alde egin beharra zegoen; eta hainbana bazeuden, akusatuen alde egiten zen delitu-kasuetan; zor-kasuetan, zordunaren alde; **oinordekotza**-kasuetan, auziperatuaren alde. Iñaki Iñurrieta

Printzeak esperientzia izatea nahi bazen, adin txikitasunari beldur bazitzaion, eunukoei bata bestearen atzetik haurrak tronuan jartzea nahi ez bazen, zuten asko ezarri zen horrelako **oinordekotza**-ordena bat. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Danimarkako tronu-**oinordekotzarako**? Juan Garzia

4 irud/hed

Tradizioa ez baita **oinordekotza** ematen zaigun zerbaitekin, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. Anjel Lertxundi

Europaren **oinordekotza**: Europaren kultur, erlijio eta **oinordekotza** humanistak aipatzen ditu; ez, ordea, kristautasuna. Berria - Mundua

Bitartean, dena den, Leizaolak erbesteko Jaurilaritzako lehendakari jarraitu zuen, EKNri ez baitzioten Jaurilaritzaren zilegitasunaren **oinordekotza** aitortzen. Berria - Euskal Herria

Inola ere ez dugu eskatu eskusibitaterik EHren **oinordekotza**. Berria - Euskal Herria

Surrealismoaren **oinordekotza** berretzat hartu eta bere sinboloek, bere erloju urteek, bere bibote ezinezkoek, pinturaren eta historionismoaren arteko mugan utzi bazituen ere, arrakasta itzela lortu zuten. Berria - Kultura

Bion bahiketa eta desargetzea izan zen BVE erakunde parapoliziaren **oinordekotza** hartuko zuen GALen lehen ekintza. Jokin Urain

oinordetu, oinorde(tu), oinordetzen du ad

Ohera itzuli beharrean, telebista izetuko du, ia oharkabean, automatikoki, asaba zaharrendandik naturalki **oinordetutako** ohitura balitz bezala. Joseba Sarrionandia

oinordetza (132 agerraldi, 20 liburu eta 17 artikulutan) iz oinordearen eskubidea, ondarearen hartzekodun izateko eskubidea. ik **oinordekotza**; **ondorengotza**; **ondare**.

Oinordetza ez da eskubide naturala, baizik eta gizartearen barnekoa, lege politikoak edo zibilak onartuta. Esteban Antxustegi

Kontratuak eta **oinordetzak** dira nor berea ez duena eskuratzeko eta jada norberarena den hori eskualdatzeko modu nagusiak. Josu Zabaleta

Herentzia, legatu edo beste edozein **oinordetza** dela-eta sortutako ondasun eta eskubideen eskurapenak. Iñaki Heras

Zuzeneko zergak, sarreraren gaineko zergak edota **oinordetzen** gaineko zergak. Iñaki Heras

Dohaintzen, **oinordetzaren** eta ondare txikien gaineko zerga ezarri nahi du berriaz, baita inbertsio publikoen funtsen eta burtsa transakzioen gainekoak ere. Berria - Mundua

Dohaintzen alde nago, eta **oinordetzen** aurka. Joxan Elozegi

Aurrezten dutenen kalterakoa dela zerga, eta bereziki, **oinordetza** zergaz zamatzen bada, bi aldiriz zamatzen dela, izan ere aberastasuna sortu zenean ere errentaren gaineko zergak zamatzen baitzuten. Iñaki Heras

Estatuak ez da oinordeko, ez dauka beste zereginik **oinordetza** horien ordena ezartzea baino. Andres Urrutia

Nolatan eman diezaguke **oinordetzak** une gordin horretan ordu gutxi batzuk lehenago gurea ez zenaz jabetzeko eta, inolako muga eta eragozpenik gabe, nahi bezala gozatzeko baimena? Joxan Elozegi

Hala, Erroman monarkia ezarri zenean, **oinordetzen** sistema osoa aldatu zen. Iñaki Iñurrieta

Gaztetan anaiarekin haserretu, **oinordetza** zela-eta, eta etxetik bota zian. Bernardo Atxaga

Ibili ziren, jakina, beste zurrumuru batzuk ere, senide guztiak liskartu zituen **oinordetza** kalapitatsu baten ingurukoak guztiak. Anjel Lertxundi

Baina mahatsa mozteko zilarrezko guraize txikiak dira inolaz ere amonak eman zidan objektu kuttunena, lotuago naukana, nire **oinordetza** baliotsuena, zergatik esaten ez dakidan arren. Joxan Elozegi

-Askoren ahaleginari eta adorea esker orain neure **oinordetza** hartuko dut. Agustin Otsa

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oinordetza zerga: Sarkozyk proposatuta, seme-alabei 100.000 euro arteko ondasunak oinordetzan uzteak ez du zergarik ordainduko. Berria - Ekonomia

Aberastasun pribatuaren **oinordetza** eskubidea ez da sekula ere izan botere publikoaren ahalmenik. Andres Urrutia

Baina dohain hori nonbait **oinordetza** lerrotik kanpo geratu zen: Ingalaterrako azken errege-erreginak ez dira ukipen bidezko sendatzaileak izan, eta garai batean "errege-gaitz" esaten zitzaion gaixotasunak orain "scrofula", izen apalagoa darama. Xabier Olarra

Kritikoei esaten dute **oinordetza**-demokrazia bihurtzen ari dela egungo sistema politikoa. Berria - Mundua

3 irud/hed

Ondarea **oinordetza** kulturala da, bere ezaugarri kulturalak kontuan hartuz baloratu, babestu, erabili eta gozatzeko dena hurrengo belaunaldiei transmititu aitzin. Berria - Euskal Herria

Gezurra da guraso gizenen seme-alabak gizenak izan behar direla, halaberharrez, benetako **oinordetza** elikatzeko ohitura da, eta ez besterik. Berria - Harian

ETAren **oinordetza** den Ibarretxeren Planari. **Berria** - Euskal Herria

Gozogile talentu hura eta nornahi nonahi lotzeko gaitasun hura espero nituen nik **oinordetzan** hartuak. **Joxan Elozegi**

Bere mesedean, esan beharra dago egoera txarra hartu zuela **oinordetzan**, eta huts egiteko tarterik ez ziotela utzi. **Berria** - Kirola

Haxix erretzaile madarikatu horrek zoramena eman dik **oinordetzan**. **Patxi Zubizarreta**

4 *oinordetzan* adlag

Gurasoak hil ostean ume zela bizi izandako etxe hura jarauntsi zuen **oinordetzan**. **Oskar Arana**

Oinordetzan jaso nuen nik, zuzenean hartu nahiago nuen ordea. **Joxan Elozegi**

Ez dira bat "**oinordetzan** hartzea" eta "**oinordetzan** uztea". **Joxan Elozegi**

Halako gizonak gauza berri bat aurkitzen du, eta **oinordetzan** uzten die hura atzetik datozenei. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oinordetza eskubidea (3)

kontratuak eta oinordetzak (4)

oinordetzan hartutako (3); **oinordetzan hartzea** (4); **oinordetzan uzteko** (3); **oinordetzan uzten** (3)

oinordetzakoa zen (4)

oinordetzen gaineke (4)

oinots ik **oin 26**.

oinpe 1 *iz* oinazpia.

Kontsumoa gure apeta txiki batzuek asetzeko tresna izatetik guztion bizitzaren oinarri izatera iritsi denean erori da koherentziaren zutabe errimea gure kontzientziaren **oinpeetatik**. **Pako Aristi**

2 (leku-denborazko atzizkiekin singularrean)

Ez nuen paper-muturra **oinpean** ezkutatzekeo betarik izan. **Anjel Lertxundi**

la erori ere egin zen harri labain batek **oinpean** huts egin zionean. **Hasier Etxeberria**

Goizean goiz, egun-hasierako ariketa fisikoak egitera behartzen gaituztenean, belarrak kristal hautsiaren hotsa ateratzen du gure **oinpean**. **Anjel Lertxundi**

Ez dakit esaten nola, baina hantxe zen noski beruna, neure **oinpean** sentitzen nuen, nahasi, zital, larri. **Juan Garzia**

Eta esaiezu gure oinaze zaharra **oinpean** bildua daramagula!... **Patziku Perurena**

Lehendabiziko hegaldian, Mediterraneoan behean genuela egin dugu Erromara; bigarrenean, Adriatikoa genuen **oinpean**. **Anjel Lertxundi**

Kosovoren auzia hor geratzen bada ere, serbiar nazionalismoaren **oinpean**. **Piarres Xarriton**

Gure **oinpeko** lurzoruan, udako beroa suma zitekeen artean, eta baziren han urrebotoiak ere. **Mirentxu Larrañaga**

Eguraldiaren gorabeherak, ilargiarenak bezalaxe, berritze, goratze, betetze, beharitze ilargiaren ohiko hazte-estutze horiek denak ageri dira emakumearen **oinpekoan**. **Pello Zabala**

Abas lotsagaldua berriro ere leihotik begirik kendu gabe, gisa horretan liluratu, eta bere **oinpera** ekarriko banindu bezala. **Patxi Zubizarreta**

Bokarako mezkitan sartzean, Korana jaso eta bere zaldien **oinpera** jaurti zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Behatzez eta **oinpeaz** katuaren ilaje leuna eta sabelaldea laztanduz. **Harkaitz Cano**

oinpekatu, oinpeka(tu), oinpekatzen du *ad* oinpean erabili. ik **oinperatu**.

Uler nazazue, itsutu ez du egiten; jendeak ikusi egiten du, baina loreen eta txorien jardina **oinpekatzen** du. **Pablo Sastre**

oinperaketa *iz* oinperatzea.

Zapaldurik, zafaturik, ukaturik, eguneroko **oinperaketa** doilorra, bai. **Txillardegia**

oinperatu, oinpera(tu), oinperatzen du *ad* oinpera ekarri, oinpean erabili. ik **azpiratu**.

Antza denez, jaun nahiz andereak, Porte Champerretera joan asmoz, igotzen edo jaisten zirenean, metodo sistematikoz **oinperatzen** zizkion txarolezko zapatatxoak. **Xabier Olarra**

Ez Jainkoak, ez inongo sorkarik **oinpera** gaitzake, ez hain ondoraino azpiratu, geurok egiaz irits dezakeguna areagotuz. **Joan Mari Lekuona**

Han zuen, eta han baino ez, nolabaiteko aukera irabazteko, bere ideiak nagusiarazteko, arerioak **oinperatzeko**. **Juan Garzia**

Batzuetan jainkoak zokoraturik gelditzen dira, besteetan gizakiak **oinperaturik**. **Askoren artean**

Fedearengandik sortzen den itxaropenak beldurra garaitu, **oinperatu** eta hezi egiten du. **Herria**

Ohorezko kontua baitzen hura, eta, ohore kontuetan, **oinperatutako** duintasuna berreskuratzeko bide bakarra mendekua zen. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

oinplano *iz* eraikinez mintzatuz, zimenduen sekzioaren plano. ik **oin 10**.

Egitasmo originaletik, soilik **oinplanoa** errespetatu zuten, hots, zimenduak. **Berria** - Kultura

Teatroaren **oinplanoa** honela antolatu behar da: beheko partearren perimetroa izango denaren zabalera hartu eta, erdian zentroa jarri, egin bedi zirkunferentzia bat inguru guztian; [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Hirigintzari edo toponografiari jarraituz, etxe baten **oinplanoa** edo kale bat topatuko dituztela aurretik asmatzea posible da. **Berria** - Harian

IV. mendean hasi ziren: egiturak harrizkoak bihurtu ziren, egonkorak, eta laukizuzena zen **oinplanoa**. **Berria** - Harian

oinpunta ik **oin 29**.

ointka ik **oinka**.

ointoki *iz* zalgurdi, tren eta kidekoetara igotzeko oina jartzeko tokia. ik **pikabuztan**².

Berriro garai eta arranditsu agertu zen zaldiaren gainean, eta **ointokien** gainean zutik, oihu egin zuen, bizidunek inoiz entzun gabeko ahots ozen eta argiaz: [...]. **Agustin Osoa**

Ez genukeen inoiz topatuko mutil gazte hari esker izan ez balitz, kamioiaren **ointokira** igo eta haretzek gidatu baikintuen bertaraino. **Joxe Austin Arrieta**

Auto bat heldu zen, geratu, eta segituan, **ointokian** salto txikia eginez, zu agertu zinen, zure estilo arin eta malguan. **Eduardo Matauko**

Konpartimentuek bi atexka zituzten alde banatan eta bagoiko paretara osoan zehar **ointoki** luze bat. **Fernando Rey**

Má?sak musu bat eman zidan eta gero burdinazko barrari heldu eta **ointokira** igo zen. **Fernando Rey**

Ointokitik salto egin zuen, eta zangoa luzatu zuenean zapata beltz eta galtzerdi zuriak ikusi zitzaizkion. **Fernando Rey**

ointutsik ik oinuts.

oinustu, oinuts, oinusten da *ad* oinetakoak kendu.

Mainguka ez ibiltzearren, arruntik **oinustu** eta zealdoka gurutzatu nuen ganbera, sarrerako ateraino. **Aingeru Epaltza**

oinuts 1 *iz pl* oin hutsak.

Jaitsi ezazu behakoa, **oinuts** handi zikinak agerian uzten dituen gona izugarri xaretua darama. **Koldo Izagirre**

Horra gizon oinutsetan zutitua bere **oinuts** zintzilikatuei begira; ez du beste ispilurik, ez beste sinesterik; oinazea noizbait oinetatik sortu zuela dirudi euskaldunak. **Patziku Perurena**

2 *oinutsean adlag* oinutsik.

Denok errege dira nahiz eta asko ibili **oinutsean**. **Xabier Olarra**

3 *oinutsetan adlag* oinutsik.

Horra gizon **oinutsetan** zutitua bere oinuts zintzilikatuei begira; ez du beste ispilurik, ez beste sinesterik; oinazea noizbait oinetatik sortu zuela dirudi euskaldunak. **Patziku Perurena**

4 *oinutsik* (149 agerraldi, 65 liburu eta 12 artikulutan; orobat *oin hutsik* 10 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean, *oinutsik g.er.* eta *oinutsik g.er.*) *adlag* oinetakorik edo kidekorik gabe.

Oinutsik hurbiltzen zaio, eroso, agurtzera: besoak zabalik, bera besarkatuz, masailean musu emanez. **Oskar Arana**

Islamdarren artean ere, bertako jabearen lurraldera **oinutsik** sartzen da arrotza, hartara indarrez deus bereganatzeko asmoan ez datorrela adieraziz. **Patziku Perurena**

Gau osoan, **oinutsik** aritu zen lasterka hondartzan zehar. **Jon Muñoz**

Atsegin du **oinutsik** ibiltzea, zoruko zura sentitzea oinen azpian. **Antton Olano**

Itsasoan **oinutsik** dabilen dama misteriotsua. **Aritz Gorrotxategi**

Neskatilatxoak **oinutsik** eta zangoetako azazkalak pintaturik dabilta, zeure begien pozerako. **Gotzon Garate**

Soinekoaren azpian **oinutsik** ageri zitzaizkion zangoak, mehe eta beltz. **Aingeru Epaltza**

Ez azaldu **oinutsik** eskolara. **Mirentxu Larrañaga**

Oinutsik zegoen, eta pijama horia jantzita. **Joxe Austin Arrieta**

Damutuko zaiok Xegamari hi **oinutsik** erabilia garbantz gordinen gainean! **Koldo Izagirre**

Ohean etzanda imajinatu nuen, deskantsatzen, **oinutsik**. **Bernardo Atxaga**

Botak ere jantzi zituen, **oin hutsik** ametsetan soilik ibiltzen baitzen bera; eta ez beti. **Felipe Juaristi**

David Oliamendiko maldan gora zihonan negarrez, burua estalirik eta **oinutsik**. **Elizen arteko biblia**

Berehala, neskatoa azaldu zen **oin hutsik** eta tunika arrosa jantzirik. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oinutsik dabilen (3); **oinutsik ibili** (5); **oinutsik ibiltzen** (9); **oinutsik sartu** (3); **oinutsik zebiltzan** (3); **oinutsik zegoen** (4)

oinzola ik oin 30.

oixtian (*orobat oixtian*) 1 *adlag ipar* arestian.

Sartu dira **oixtian** ikusi hiru gizonak. **Piarres Aintziart**

Ur xorta bat edana dut **oixtian** eta ur horrekin badut aski. **Janbattitt Dirassar**

Izana zen untxien bazkatzen **oixtian**. **Piarres Aintziart**

Erran dautzut **oixtian**. **Menane Oxandabaratz**

Eta **oixtian**, proëllaz ari baitzintzaidkidan, hara, zeremoniaren urrats nagusiak penn-brao aldean eramaten ziren. **Itxaro Borda**

2 *oixtiko izlag*

Oixtiko familiak jadanik han zeuden, pick-upak bide bazterrean ontsa lerrotaturik. **Aurelia Arkotxa**

Eta beste emazte bat, ba, **oixtiko** emazte bera, Lurdes Iriondo duzula hautatu. **Menane Oxandabaratz**

Oixtiko bidelaguna dut gogoan. **Piarres Aintziart**

Oixtiko otsoa itzuli zaigu. **Piarres Aintziart**

3 *oixtion adlag* arestian.

-Ikusi duka, **oixtion**? **Marzel Etxehandi**

Kapoa ikusi duzu **oixtion**, zure paper ofiziala eskuan ukan duen hura egun ona du gaur. **Marzel Etxehandi**

ojala ik oxala.

ojalatero 1 *iz* karlistaldietan, don Karlosen gortean eta, oro har, frontean ez zegoen karlista.

Joan omen zen behin harengana Donostiako jauntxo bat, familia karlistakoa, **ojalatero** deitzen zituztenetako, potzolo-potzolo eta guri-guria. **Koro Navarro**

Ez omen dik inolaz ere **ojalateroek** bezala jokatu nahi: gortean goxo-goxo bera, eta esamesa alferretan borrokatik urruti. Txillardegi
Eta fronteetako hilketa basa izugarriek (euskaldun baseritarrek jasanak, oro har, eta ez **ojalatero** "señoritoek"), zalantzan uzten ninduten. Txillardegi
-Baina arazoa ez da, azkenean, Lizarraga jenerala; bere ondoan dauden **ojalateroak** baizik. Txillardegi

2 (izenondo gisa)

Ez dut "señorito **ojalatero**" horietakoa izan nahi. Txillardegi
Egia ote zen, azkenean, Valentín Gómez ere, Karlos Setimoren konfiantza-gizona, "liberalegia" zitzaizela mini-gorteko ultramontano **ojalateroel**? Txillardegi

ojale iz

Baina egitasmo hori **ojaleetan** dago. Berria - Ekonomia

ojiba (*orobat ogiba g..er.*) 1 iz arku zorrotza.

Orratza, **ojibak**, beiradurak eta arbotanteak. Koldo Izagirre
Hurbildutakoan, horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau **ojiba**, hamabosgarren mendekoak, absidean. Koldo Izagirre
Zurezko zubian, etxe zorrotz, **ojibaz** ildoxkaturiko teilaz gain-estalien, eta piperrontzi tankerako kantoidorre urdin-horien artean, zorabialdi bat izan zuen bat-batean Rhin ibaiaren argiaren aurrean. Juan Garzia

2 irud/hed

Buruu zatituta duten misilak atzemateko eta **ogiba** nuklearra duten misilak suntsitzeko da, era berean, sistema. Berria - Mundua

ojibal izond gotikoa.

Galeria **ojibalaren** gainean bigarren galeria apalago batek, habe landuzkoa, teila harroko teilatuari eusten dio. Koldo Izagirre
Atari **ojibala** erdian, Iturriozko latsaren gainetik eraikitako harrizko mailadi hirukun baten eskailera-buruan; eta bi leiho hertsi luzexka goian. Txillardegi
Harriz egindako baserri bat utzi nuen eskuinean, ate **ojibalekoa**. Koldo Izagirre

oju ik oihu.

OK (*orobat O.K.*) adostasuna adierazteko erabiltzen den hitza. ik okey.

-**O.K.**, sherif jauna -entzun ahal izan diogu, oraingoan argi, Luisi. Patxi Zubizarreta
-Seiak eta erdiatarako berandueuz hemen, **O.K.**? Patxi Zubizarreta
OK: badakit non dagoen hozkailua. Iban Zaldúa
Dena **OK**. Harkaitz Cano
Hamar milioi eskaini dizkiot (sei bat euro) eta onartu egin ditu **"OK"** huts batez. Jon Arretxe
Taxi gidariak **OK** esan eta taxia abiarazi zuen. Berria - Kultura

ok¹

1 ok egin asebate.

Bizkor jaitsi nintzen, jardun hutsalez **ok** eginik. Juan Garzia
Ok eginda nago, erabat. Txillardegi

ok² ik oka.

oka (*orobat ok g.er.*) 1 iz oka egitea; oka egiten dena. ik okada; gorako; goitika 2; goitiko.

Haren sintoma nagusiak sukarra, nekea eta **okak** dira. Berria - Gaiak
Eta zein gogor egin zitzaizkidan ilunera arteko orduak, okaz **oka** eta eldarnioz eldarnio, harik eta lo pisu batek hartu ninduen arte...! Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Pentsamenduaren **oka**. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Izuaeren usainak zituen, barrunbeetakoak, **oka** usaina. Jon Maia
Segidan gargarak egiten zituen aparra eztairitik behera joan zedin utziz, gero **oka** saiotan kanporatzen zuen. Bego Montorio

•4 adlag oka egiten.

Hesteak irauli eta **oka** hasteko zorian egon zen. Anjel Lertxundi
Oka hasteko gogoia zetorkion urdailetik gora. Anjel Lertxundi
Charlie eta biok **oka** ari ginen, itsasontziaren alde batetik behera. Mirentxu Larrañaga
Hatzak sudurretara eraman, eta, hesteak **oka** jaurtitzeko zorian, Norak burua atzeratu zuen kalesa barrura. Anjel Lertxundi
Erraietako ondoeza **oka** igotzen zait eztairitara, suzko erreka itsu bat baneuka bezala barruan. Anjel Lertxundi
Emmaren apartamendutik atera orduko, sabelean neukan guztia bota nuen, **oka** eta **oka**. Daniel Landart

5 oka egin (urdailean dagoena) ahotik indarrez berriro egotzi. ik okaztatu; okatu.

Ene hitzak entzun zituenean, arreba goitika hasi zen, **oka egiteko** gogoz. Joan Mari Irigoien
Oka egingo ote nuen ere egon nintzen. Edorta Jimenez
Begiak zabal-zabalik, baina begiradarik ez, intziri soil bat, egarri zela xuxurlari, ahots erabat erlatsez, pultsua ere oso motel, **oka egin** zuen, eta izerdia eman ere eman ahala. Joxe Austin Arrieta
Nahiago izan nuen barre egin, **oka egingo** nuen bestela. Joxan Elosegi
Ok egin ondoren baino hutsago neukan barrena, ezertarako gogorik gabe. Anjel Lertxundi

Eztia aurkitu duzu? ez jan behar baino gehiago; bestela, **ok eginda**, bota egingo duzu. Elizen arteko biblia

Komunaren alboan zeuden loreen gainera **egin** zuen **oka**. Juan Kruz Igerabide

Behin, haretxen gainera **oka egin** eta bota nituen bareak. Iñaki Mendiguren

Oka egin ondoren hobeto sentitu zen. Lopez de Arana

Oka egin dit barruak. Anjel Lertxundi

Oka egin arte asebeste zirenean, mozkor-kantaz zikindu zituzten hiriko plazak. Askoren artean

Kontua galdua du dagoeneko zenbat bider ez ote duen **egin oka** sendagaiak direla eta, ikara du oraindik ere eskuetan. Imanol Zurutuza

Presoak dio horren eraginez odola isurtzen zuela **oka** eta txiza **egiten** zuenean. Berria - Harian

Utzidazu zure liburuetan **oka egiten**. Berria - Kultura

6 irud/hed

Orduan sentitzen duzu zure gorputzak daukan koadro betekada neurrigabea dela eta **oka egin** behar duzula. Unai Elorriaga

Oka egitean, zure gorputzetik itendako hondakinen artean ikusten dituzu 42 pintore inpresionistaren 42 inpresio, 17 pintore kubistaren 212 marra zuzen eta surrealista baten erloju urtu batzuk. Unai Elorriaga

Euren postontzia **oka egiten** ari zen: gutunen laurdenak kanpoan zuen gorputz erdia. Unai Elorriaga

Isilik geundela, bozgorailuek **oka egin** zuten: [...]. Lander Garro

Zerbero eta Furiak eta argirik eza eta Tartaro, ahotik gar izugarriak **ok egin**, ez dira inon eta izan ere ez daitezke benetan. Xabier Amuriza

7 (objektuarekin)

Irentsitako ondasunak **oka egingo** ditu, Jainkoak botarazi egingo dizkio sabeletik. Elizen arteko biblia

Oker ez banago, 999 aldiz hil eta beste hainbestetan **oka egin** nau Ama Lurrak mundura. Aritz Gorrotxategi

Mikelo ere barrabilak **oka egin** beharrean dago. Lau bat metrotara zeuden arren, bozgorailuek **oka egiten** zuten punk burrunbada zela eta, neskak ezin zezakeen euren artean hitz egiten zuten ezer ulertu. Urtzi Urrutikoeetxea

8 oka eginarazi oka eragin.

Ginebrak, huts-hutsik edo nahastuta, **oka eginarazten** zion berehala. Mirentxu Larrañaga

Ikusezina ei da gorrotoa, ezin ei da ukitu, haztatu, oratu, barrutik atera eta kanpoan utzi, gaixoari barrukoak aterarazten zaizkion moduan; **oka eginaraziz**. Edorta Jimenez

9 oka eragin

Eztia, bere izateagatik, gehiegi hartzen denean, urdaila erretzen eta **oka eragiten** duena. Jateko ematen zieten ore margulak **oka eragiten** zion edonori ikuste hutsarekin. Xabier Kintana

Gero hatza ahoan sartu nion eta, miraria izan zen hala **oka** ez **eragitea**, zintzurreraino landatu bainion. Edorta Jimenez

Zeren ohiko eta betiko biandak gogait **eragiten** baitzidan eta **oka**, eta sentiarazten ninduen idor, agor eta guti-balio. Joan Mari Irigoien

10 oka-eragingarri (orobat ok-eragingarri) izond oka eragiten duena.

Galera sentsazioaz gain, **oka-eragingarri** eta anormala iruditzen zitzaion hasieran Jonathan I.ri ikusmenezko bere mundua. Xabier Olarra

Hark pentsatzen zituen heste-libragarri eta ahotikako **ok-eragingarri** guztiak zehatz ziren neurritz eta pisuz Xabier Olarra

11 okari oka

Urrearen orde ez ikatza eman nahi diguten garaiak bizitzen ari gaituk, **okari oka**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oka egiteko gogoa (10); **oka hasteko** (3)

okada 1 iz oka egitea; oka egiten dena. ik gorako; goitika 2; goitiko.

Eztula eta **okadak** entzun dira. Xabier Paya

Estreinako **okada** sukaldeko mahai gainera jaurti zuen. Unai Iturriaga

Bezperako **okaden** arrasto likitsak zituen gorputzean, iraganeko gainerako arrastoak bezala ezabatu nahi zituenak. Unai Iturriaga

Neufchatel, limbourg, marolles, pont-l'évêque gazta karratuek beren nota zoli berezia ipintzen zuten musikazko esaldi latz **okadarainoko** hartan. Karlos Zabala

2 oka egiteko gogoa. ik okagura; goragale.

Aire pixka baten bila irtengo naiz, **okadak** sentitzen ditut eta. Juan Garzia

Tratamenduan direnei kimioterapiak eragiten dizkien **okadak** kentzeko. Berria - Euskal Herria

"Leçons d'abîm" hartzea tokatzen zaidak -esan zuen **okada** pasatu zitzaionean-. Iñaki Iñurrieta

Okada ekarri zion pentsamenduak ahora. Hasier Etxeberria

Gutariko askok zorabioak, **okadak**, eztula eta enparauak izaten ditugu. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Orduan, bere atzean **okada** -hots bitxi batek kolpean birarazi zuen. Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Eta iragartzen dizuet [...] zuen bekatuen **okadara** itzultzen bazarete, izurriteak berriro etorriko direla, zigorra bikoiztu egingo dela eta are handiagoa izango dela zuen kontrako Jaunaren haserre. Askoren artean

Baina jakin ezazu gaitz larriagoak jasango dituzula, berriro bekatuaren **okadara** itzultzen bazara. Askoren artean

5 (hitz elkartuetan)

Ur **okadak** estolda orotatik. Unai Iturriaga

Funts gabeko barre ozena, aho bete barre, zerebro hustuaren barre **okada** .. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bekatuaren okadara (4); **bekatuaren okadara itzultzen** (3); **bekatuaren okadara itzultzen** (3)

okadaka adlag oka eginez bezala.

Astazakila, nor joagoa! -nik, **okadaka**. Aingeru Epaltza

okagarri (12 agerraldi, 11 liburu eta artikulu 1ean) izond okaztagarria.

Ilusenti luze bat ematen zuen, zingira **okagarri** baten hondoan. Karlos Zabala

Neska baten xalotasuna eta krimen **okagarri** baten aurpegia kontrajarri genituen, ulertzen? Anjel Lertxundi

Izaki **okagarria** zen, gaiztagin bat baino askoz makurragoko zerbait, neroni baino ere makurragokoa. **Matias Múgica**
Artean, burgesak **okagarriak** ziren eta gaurko albisteetan kale-borroka deritzoten hartatik gertu zenbiltzan. **Berria - Kultura**
-Behin eta berriz, eztarriaren barrenetik bezala: gauza **okagarriagorik** ! **Irene Aldasoro**

okagura iz oka egiteko gogoia. ik goragale.

-Nora naramazu, Willem? -galdetu zion Mathildek, **okagura** gainditu zuenean. **Anjel Lertxundi**
Haizeak ekarritako ipuin haiek nahikoa, gure urdail-tutuak **okagura** sentitzeraino lizuntzeko. **Harkaitz Cano**
Une horretatik bertatik antagonistak hartzeari uzten diozu, kanpora **okagurea**, takikardia eta bihotza lehertzeko arriskua. **Pako Aristi**

okaka iz oka eginez.

Okaka eta okitua, gogoari datzekionez oro nahaste eta deboilamendu. **Jose Angel Irigaray**

okaldi iz oka egitea.

Izan ere, neure **okaldi** hartan gorputz-arimak barrendik garbitu ondoren, abiatu nintzen berriro elizarantz, nondik eliztarrak gartzelarantz baitzihozaren, prozesioan, osaba presoaren bila. **Joan Mari Irigoien**

okapi iz jirafaren familiako afrikar ugaztun hausnarkaria, hura baino txikiagoa eta lepo motzagokoa, hostoak eta fruituak jaten dituen (Okapia johnstoni).

"**Okapi**"ren erregulartasunaz ere hitz egiten dute zenbaitzuek, animalia horren izena bokalen eta kontsonanteen arteko tartekatze perfektu baten adibidea izanik. **Iñaki Arranz**

okaran iz arana.

Nik jan gabe lagatzen nituen **okaran** eta sagarrak bakarrik dastatzen zituen. **Jasone Osoro**
Pastelaren ondotik, Mariettek **okaranak** eman dizkie eta emakumea oso lanpeturik dago, hezurak arrautzak balira bezala jartzen bere koilaran, arretatsu. **Monika Etxebarria**
San Migel inguruko sasoi honetako fruituak ere aipatzen dira beste esakune zahar batzuetan: San Migeletan **okaranak**. **Pello Zabala**
Okaranezko marmelada titiburuetan zabaltzen hasi zen orduan, eta mihia luzatuz bertatik miazteari eman zion, niri zeharka begira. **Jon Arretxe**
Konfitura zegoen han plater txo batean prest; ez zen **okaranezkoa**, ez madarizkoa. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

okaranezko marmelada (3)

okarazi, okaraz, okarazten du ad oka eragin.

Atal horretarako hautatua duen bigarren istoriotxoa izugarria iruditzen zaio, gaurko uste ustel-estaliekin batere bat ez datorrena ("apo bati ere **okarazteko** modukoa", biografoaren esanetan). **Anjel Lertxundi**

okarina iz herri musika-tresna txikia, buztinezkoa eta arrauzkara, hamar zulo, bi behealdean eta zortzi goialdean, dituen.

Udaberrian bideari ekin nion oster, haiek iristea deliberaturik: gogaiturik nindukan lur itsaskor eta bigun hark, ezertarako ez baitzen on, lurregosisko **okarinak** egiteko salbu, eta gaitasunez eta sekretuz peiturik baitzegoen. **Juan Garzia**

okasino ik okasio.

okasinotsu ik okasiotsu.

okasio (orobat okasione, okasino g.er. eta okazione g.er.) 1 iz nondik-norako jakinak dituen mementoa.

Iruditzen zitzaidan agurraren tristezia bera ere [...] estiloari zegokion ezinbesteko agerpena zela, **okasio** bakoitzean **okasioak** eskatzen zuena egiteko dotorezia alegia.

Ramon Saizarbitoria

Lehen **okasioan** erasotzailea Espainia zen, Espainiar Armada, 1588; bigarren **okasioan**, Luis XIV.aren Frantzia, Blenheim, 1704; hirugarren **okasioan**, Iraultzaren eta Napoleonen Frantzia, Waterloo, 1815; laugarren **okasioan** Gilermo II.aren Alemania, Armistizio-eguna, 1918. **Iñaki Mendiguren**

Txinatarrak inoiz ez ziren japoniarrak bezain urruti iritsi Mendebaldeko kulturaren mende jartzen **okasio** bakoitzean, edota hartatik beren burua urrutuz bitarteko xenofobia-aldian. **Iñaki Mendiguren**

Iluminato anaia zen **okasio** hartan Frantziskoren laguna. **Askoren artean**

Hala ere, **okasio** batzuetan sarkin barbaroak zerbitzu apal bat egin izan dio geroari. **Iñaki Mendiguren**

Horrelako **okasioetan**, itzulingerurik gabe hitz egitea betebeharrak morala baino gehiago da. **Antton Olano**

Malkin andrearen **Okasio** Guztietarako jantzi-dendara joan zen, eta jantzi berriak erosi zituen han. **Iñaki Mendiguren**

2 aukera, egokiera, era.

Deliberatu dut **okasio** horretaz baliatzea haur horren balio justua jakiteko, bai eta haren heziketa azkartzeko ere. **Jon Muñoz**

Irudipena neukan sentipen horrentzako aukera, **okasio**, aitzakiaren baten bila zebiltzala. **Urtzi Urrutikoetxea**

Okasio hori berriz agertuko delakoan nago. **Jon Muñoz**

Zeren orain nagoen heinean, dena **okasio** baten mende dagoke. **Jon Muñoz**

Hitzen, hizkien eta zenbakien **okasioa**. **Imanol Unzuurrungaza**

Handik hilabete batzuetara, Kenneth White Biarritzera etorri zelarik bertze idazle batzuekin konferentzia baten egitera, joan nintzen eta harekin ene kezka literarioez mintzatzeko **okasioa** ukan nuen. **Ana Urkiza**

Balia zaitze galde horretaz zeure hutsa konpontzeko eta zaude mintzatzeko **okasioaren** zain. Jon Muñoz
Hitz ematen dizut hartatik, begirune hutsagatik ordea eta ez premiagatik, baliatuko dudala galdegitza hori egiteko **okasioa**, dela izebari, dela ilobari berari. Jon Muñoz
Ospatu behar bada, balia dezagun aukera eta **okasioa**, euskarari irudia edertuko dion ispilu bat egiteko, hitzez eta irudiz. Joxerra Garzia

3 (izenondoekin)

Bazekinat **okasio** ederra dela hitza jan izanaz espantuak egiteko. Jon Muñoz
Urteetan erabili gabe egon ziren **okasio** handietako baxera finez hornitua zen mahai luzearen buru zen. Elena Touyarou
Okasio handietarako soineko beltzez jantzita, piano baten aurrean zutik, partituraren azken nota jo eta gero, denak txaloka balitu bezala. Alberto Barandiaren
Eta zein harro jartzen diren, **okasio** bereziren batean, beren kristau-bereizgarririk gabe agertzeko pribilegioa izaten badute. Iñaki Mendiguren
Émilie ondo begiratu zen hain **okasio** nabarmena ihes egiten uztezik. Jon Muñoz
Okasio tristeetan bezala, familian hildakoren bat edo ezbeharren bat izan denean bezala. Josu Zabaleta
Autoan egitea, egia esateko, kasu gutxi batzuetan besterik ez, beste baliabiderik uzten ez duten **okasio** urri horietan, nahiz eta jende asko dabilen halako perbertsio automobilistiko batek joa eta horiei izugarri gustatzen zaien auto barrenean jotzea. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

okasio bakoitzean (3); **okasio bat** (3); **okasio berezietan** (3); **okasio hartan** (4)

lehen okasioan (5)

okasione ederra (4); **okasione hortan** (3)

okasioneaz balia (4)

okasione ik **okasio**.

okasiotsu (*corpusean okasinotsu soilik*) izond arriskutsua.

Baita kalapitaren bat sortzeko ere hainbatetan, zeren guztiak ere baitziren, ostatatzen gintuen gizonaren erranetan, gizon gaitzak eta ondikoizkoak, gerlatiak eta maliziatiak, **okasinotsuak** eta inkontru gaixtoak. Joan Mari Irigoien

okatu, oka(tu), okatzen (*10 agerraldi, 6 liburutan*) 1 du *ad* oka egin, okaztatu.

Behin **okatu** ere egin nuen, plazan. Joxan Elozegi
Egutxik berehala erantzun zuen, eta, bular oinazetua maitekiro laztantzen zion uanean, amak odol kopuru handia **okatu** zuen. Ibon Uribarri
Bada, gantxigorak ikusi eta ezin eutsi izan nion beste segundo batez: sukaldean bertan **okatu** nuen bota beharreko guztia. Joxan Elozegi

2 irud/hed

Lurrak mundu osoan zurruputzen duen ura, munduko elur guztia urtzean jasotzen duen ura, gainezka egiten dionean, handik **okutzen** du. Jon Maia
Zerurainoko adreiluzko bi tximiniak ke beltza **okutzen** zuten etengabe. Jon Maia
Hau lurraren kontra amiltzen eta lehertzen denean, zirimolaren eta ekaitzaren indar haserrea **okutzen** du. Xabier Amuriza

okazione ik **okasio**.

okaztadura iz oka egiteko gogo, narda, higuina.

Eskolara itzultzeak halako nazka, **okaztadura** bat ematen zidan. Daniel Landart

okaztagarri (*92 agerraldi, 46 liburu eta 11 artikulutan*) 1 iz oka eragiten duena. ik **okagarri**; **nazkagarri**. (gauzez)

Gas-lanparen argi zakarraren azpiko ohe-ilarak, izarak behin eta berriro astintzearen ondorioz sortutako usain **okaztagarriak**, aurpegi lodiak, zargalduak, horiak, zuriak.

Lopez de Arana

Dena jira-biraka zebilen gela itxiaren kirats **okaztagarrian**. Lopez de Arana

Etxe higuingarria, kalezulo **okaztagarria**, eta piztia bezalako jendea! Patxi Zubizarreta

Onartu beharra daukat gureak Meg Ryanen pelikula **okaztagarri** horietako baten antza duela. Patxi Iturritegi

Azter ditzagun arretaz erlijio **okaztagarri** honen dogma zentzugabeak, misterio beldurgarriak, zeremonia amorragarriak eta moral ezinezkoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aire goxo batekin emaiten zituen xehetasun **okaztagarriak**. Ramuntxo Etxeberri

Cesar Telleriaren apartamentuan egoteak bere amesgaiztoak profanatzen aritzearen sentipen **okaztagarria** sorrarazten zion. Harkaitz Cano

Okaztagarri da gose dagoenari kentzea. Eneko Bidegain

Okaztagarria zait gure jatorkeria. Iñigo Aranbarri

Okaztagarriak zaizkizu halako ikuskizunak. Xabier Montoia

Barruan hiru liburukiko eleberri baten eskuizkribu bat, samurkeriaren samurkeriaz ohi baino **okaztagarriagoa**. Antton Olano

Haren traje merkea, haren ile likatua, dena **okaztagarria**. Unai Iturriaga

2 (pertsonez)

Gizon **okaztagarria** zara. Elena Touyarou

Made in Venezuela telesaiotetan, euskal abizenak dituzte aberats zikoitzek, andra-gizonik **okaztagarrienek**. Iñigo Aranbarri

Esan, bada inor doilorrakorik eta **okaztagarriagorik** lurrazalaren gainean? Iñigo Aranbarri

-Harroputz **okaztagarriak** -esan zidan Garazik. Txillardeggi

-Eta izaki **okaztagarri** horiek harri eta zur geratu ziren gu Oihanean ikustean, ez baitzuten inoiz gure berri izan. Agustin Otsoa

3 (adizlagun edo predikatu gisa)

Ez zen kapitaina, marinela zen, kuberta-garbitzaile, lanbas-dantzalari bat, besotik heltzen zidana min ematerainoko zakar eta belarrira **okaztagarri** leun: [...]. Koldo Izagirre

Agian Europako herritar guztiak **okaztagarri** atzematen dute. Berria - Euskal Herria

Handi-mandiek 10 harijan hil eta besteei handik aurrera bizitza **okaztagarri** egiten saiatu ziren. Gotzon Garate

okaztarazi, okaztarazten du ad okaztzera behartu.

Nola Hastapenean ez zekien eta orain ere dago ea ez ote den bide txarretik abiatua eta ez ote dituen asteburuko lagunak gai horretaz behin betirako **okaztarazten**. **Eneko Bidegain**

okaztatu, okazta, okaztzen (40 agerraldi, 15 liburu eta 9 artikulutan) 1 du ad nazkatu, asebateak higuindu.

Okaztzen zuen haren ikusteak, han, hondartza bakarti hartan, palto luzea soinean, eta buruan txapela lumaduna, hiru koloretako xingolarekin, hiru gizon armatu aldamenean. **Elena Touyarou**

Ez daki zer erantzun, baina argi da holako egoerek **okaztatzen** dutela. **Eneko Bidegain**

Otoitz egin izan dut duela hamar hamabost urte arte, asetzeraino, **okaztatua** ondarrean. **Piarres Aintziart**

Eguneroko jipioiez eta tratu txarrez **okaztaturik**, Kaushalyak gau batez gizonari burua moztu eta gorpua galsorora jaurti zuen. **Gotzon Garate**

Ekaineko errepresioaz **okaztaturik**, Nohant sorterrira itzuli zen politika gibelean utziz. **Berria - Kultura**

Gérard faxista dela frogatzeko helburua beteagatik, **okaztaturik** dago nolaz iragan dituen hogeita lau oren baino gehiago holako baten ondoan. **Eneko Bidegain**

Ez dira bakarrik **okaztatuak**, aldarrikatzen dute beren nardadura. **Herria**

Erabakia agertu den *Zutabe* 109 barne boletín berean ETA-k jakinarazten du "su-etena ez dela aterabidea eta **okaztatua** dela su-etenen aldeko galdeez". **Herria**

2 oka eragin. ik okatu.

Aulkietan, berriz, hainbat orduz edukitzen dituzte lotuta, tarte horretan emandako elikagaia **okaztatu** ez dezaten. **Berria - Mundua**

Jan ez zuen zerbait **okaztatu** zuen Sethek orduan, eta horrek tiro batek bezala astindu zuen Denver. **Anton Garikano**

Lurraldea bera ere kutsatu egin da; nik zigortu egin dut bere gaiztakeriagatik, eta hark **okaztatu** eta kanpora bota ditu bere biztanleak. **Elizen arteko biblia**

Hala ere, zirudiena baizik ez zen egiazki Damian Arruti: une batetik bestera hesteak **okaztatuko** zituen erretzaille porrokatu bat, zaharxoa aukeran, halako atarramentu atletikoetan ibiltzeko. **Hasier Etxeberria**

Etnaren urrumak hementxe ari dira mehatxuka, haren garren sumina berriro pilotzeko eta su bortxaz egotzia ahutzetarik **okaztatzeko** eta garrezko tximistak berriro zerura jaurtitzeko. **Xabier Amuriza**

okei¹ ik okey.

okei² ik hockey.

okela 1 iz abere edo hegaztien haragia.

Okelak eta haragi xehatuak ere baziren, ontzi zabal batzuen hondoan, gantz gatzatuzko puskez inguratuak. **Karlos Zabala**

Arraina eta **okela** oso ditu laket. **Gotzon Garate**

Jango al duk **okela** hau, hire gorputza atalez atal torturatu baino lehen? **Elizen arteko biblia**

Behiak eta bildotsak hil, **okela** jan eta ardoa edan zenuten.

Egurraren erdiarekin sua egiten du, eta gainean **okela** erre eta asetzeraino jaten. **Elizen arteko biblia**

Bata **okela** egosien erdian eta bestea arrainen artean eserita, oilar-oilar agertzen ziren, ea nor ederrago. **Karlos Zabala**

Okela, errea eta oso egina, jateko moduan zegoen. **Karlos Zabala**

Okela gazitua harri gisa erabiliz. **Karlos Zabala**

Idi bizia saldu egingo dute, jasotako dirua eta hildako idiaren **okela** erdibanatuz. **Elizen arteko biblia**

Neure ogia, neure ura eta moztailleentzat hil ditudan abereen **okela** hartu eta nondik datorren ere ez dakidan jendeari eman behar al dizkiot? **Elizen arteko biblia**

Hartu gero sagarapeneko aharia eta egosi haren **okela** toki sakratuan. **Elizen arteko biblia**

Salmahaiko **okelen** usainak inbaditu izan balu bezala aurkitzen zen. **Karlos Zabala**

Okelaren partez, proteina landarezkoak. **Edorta Agirre**

Kilo erdi **okela** katuarentzat hozkailuan. **Josu Zabaleta**

Okelatarako badira, baita pikatu edo harakeikatu ere. **Iñigo Aranbarri**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ipini **okela**-zatiak, zatirik onenak, izter eta bizkarraldea. **Elizen arteko biblia**

Pazko-bildotsa etxean bertan bakarrik jan daiteke; ez da zilegi **okela**-puskarik kanpora ateratzea. **Elizen arteko biblia**

Israeldar guztiei, gizaseme nahiz emakume, ogia eta **okela**-zati bana eta mahaspasa-opil bana eman zizkien. **Elizen arteko biblia**

Harakinek **okela**-laurdenkiak zintzilikatzen zituzteneko kakotzar burdinazkoiei. **Juan Garzia**

Enperadorearen plateretik jasotako **okela** xerra haiek izenik gabeko zaborra ziren harentzat, gorotz politikoa bat, erresumaren zerrikeria guztien hondakin ustela. **Karlos Zabala**

Ogiz eta **okela**-kontserbaz osatutako opariak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Okela-erregimen harekin eta bero harekin, Andres urduri zegoen beti. **Josu Zabaleta**

Okela-erre jateak antolatu, mozkortu eta liburuak erretzen zituen. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abere **okela** kutsatuta dagoen eta kate komertzialera iritsi ote den aztertzen ari dira orain zientzialariak. **Berria - Gaiak**

Kezka iturri da oraindik ere hainbat hozkailutan gordeta zegoen hegazti **okela**. **Berria - Gaiak**

Aaronek eta semeek elkar-keta-etxolaren sarreran jango dituzte ahari-**okela** eta saskiko ogia. **Elizen arteko biblia**

Odolki hotza, saltxitxoi xerrak, txerri **okela** gazitu puska bat. **Karlos Zabala**

Karramarroak eta arraintxo ondo xigortuak ipini inguru guztian, eta esperlano-**okela** xehatua tartekatu hor-hemen, eta ondoak, errefauak, tipulak azenarioak, babak... **Jose Morales**

Sakrifizioak eskaintzera etorriko diren guztiek galdara hauetan egosiko dute opari-**okela**. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hartz **okela** (3); larrua eta **okela** (3)

okela erre (4); **okela errea** (3); **okela errearen** (3); **okela gordinen** (3); **okela jan** (4); **okela jateko** (5); **okela jaten** (8); **okela puska** (12); **okela puska bat** (3); **okela puska** (3); **okela zati** (5); **okela zatia** (3)

txerri **okela** (3); zakur **okela** (6)

hegazti **okelaren** (3); **okelaren prezioa** (3); **okelaren zaporea** (3)

salmahaiko **okelen** (3)

okelagintza iz okela-ekoizpena.

Bost sektore nagusi aztertu ditugu: **okelagintza** sektorea, arrantza sektorea, esne ekoizpen sektorea, barazkien kontserba sektorea, eta ardogintza sektorea. **Berria** - Gaiak

oker 1 izond lerro zuzena bezalako ez dena, artez ez dagoena. ik makur.

Etsaien sable **okerra** baino zaurigarriagoa zen haizea eta hotza. **Felipe Juaristi**
Aho inguruko zimurrek eta hanka **oker** samar haiek ere ongi ematen zioten. **Fernando Rey**
Besaulkian jesarri, hanka **okerra** luzatu eta, eskuak hots lehor batekin igurtziz, [...]. **Urtzi Urrutikoetxea**
Haren gorputz **okerrari** segitu nion begiradaz, gelako trasteen artean gramofonoraino hurbildu bitartean. **Alberto Ladron Arana**
Ilargi erdia bezalako betaurrekoak zituen, sudur luze eta **okerra**, zilar-koloreko ile sueltoa, eta bizarra eta bibotea. **Iñaki Mendiguren**
Eszila, munstro gaiztoa eta orrolaria, hamabi oin **oker** eta sei lepo luze dituena. **Juan Kruz Igerabide**
Bere erratz **okerraren** gainean. **Iñaki Mendiguren**
Haren begi **oker** txikiak eta haren besaurre haragitsuak. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela; ik beherago 13)

Bob James, herrixkako sagu-liluratzaille sudur-**okerra**, ekarrarazi zuen saguak xirmi-xarma desagerraraz zitzan. **Mirentxu Larrañaga**
Emakume esku-**okerra** Gubbion. **Askoren artean**
Nikolas hanka-**okerra** Folignon. **Askoren artean**
Mrs. Densch astunki eseri zen sofa txiki hanka-**okerraren** erdian. **Lopez de Arana**

3 zuzena ez dena.

Baina kontzientzia ez da inoiz **okerra**, iluna eta makala baino. **Jenaro Garate**
Gaua zen eta bide **okerra** hartu zuen. **Askoren artean**
Bide **okerra** hartu zuen bizitzan eta bere burua hiltzea erabaki zuen. **Jose Morales**
Mediku batek lepoan eginiko masaje **oker** baten ondorioz, zerbikalak nahiko minduta ditut. **Berria - Kirola**
Beste hutsegite bat, beste mugimendu **oker** bat izan zen hori behaztopaz eta uste **okerre**z betetako bide luze batean. **Oskar Arana**
Hanka sartze bat, uste **oker** bat... **Migel Angel Mintegi**
"Zibilizazio-batasunaren" ideia **okerra**. **Iñaki Mendiguren**
«Jokabide **oker** eta lotsagarria» zela esan zuen Annanek herenegun. **Berria - Mundua**
Adierazgarria da informazio **oker** horrek higiezinaren merkaturako eragilearen artean eragin zuen «urduritasuna». **Berria - Ekonomia**
Diruzalekeriari emanak, eskupekoak onartzen zituzten eta epai **okerrak** egiten. **Elizen arteko biblia**
Negozio **oker** batzu izan badira ere denbora batez, orai ez dela gehiago holakorik. **Herria**
Diru-negozio **oker** frango izan dela hor nunbait, hori da nolazpait agertzen. **Herria**
Jatorrizkoan *Finiate* deitzen zaien sendagileari, "anai Joan"en irakurketa **oker** baten ondorioz. **Askoren artean**
Ez dago sugearena baino pozo **okerragorik**, ez eta emakumearena baino amorrutxaragorik ere. **Elizen arteko biblia**
Eguberri-ostea garairik **okerrera** zen. **Jon Muñoz**
ik beherago 10. **Askoren artean**
- Erakusterat emanez bozka-lege horrek baduela halako **oker**-aire bat bezala... **Herria**
Izen horrek berak ez ote du ba halako **oker** aireño bat? besta hori ez litakea behar Lanarena baino gehiago langileena? **Herria**

• 4 (predikatu gisa)

Kalkulia **okerra zen** baina. **Berria - Mundua**
Zuzen dena behar duzu maite, **oker** dena gorrotatu. **Elizen arteko biblia**
Oparia borondatezkoa bada, zilegi da gorputz-atalak **oker** dituen zekorria nahiz aharia eskaintzea. **Elizen arteko biblia**
Ohiko iritzia da, baina **okerra**, hebreeraz *t-mûn-h* eta *tabnit* sinonimoak direla. **Xabier Kintana**
Faxista batzuk ditun, Stalin baino **okerragoak**, **Okerra** da fedegabeen arrazoiketa. **Mikel Hernandez Abaitua**
Ez dago **okerragorik** bere burua gaizki hartzen duena baino. **Elizen arteko biblia**
Okerragoa da, izan ere, zitalkeriagatik poz hartzea hondamenaren damu izatea baino. **Imanol Unzurrunzaga**
Eta, **okerragoa** zena, nitaz aspertuta zegoela hitzik gabe adierazteko zuen modu hura. **Ramon Saizarbitoria**
Minbizia bera baino **okerragoa** zela begitandu zitzaizun une hartan. **Hasier Etxeberria**
-Txarra baino **okerragoa** -erantzun zuen Tomek. **Berria - Mundua**

5 (adizlagun gisa) ik okerki.

Bekatu egin dugu gurasoen antzera, **oker** jokatu dugu, errudun gara. **Elizen arteko biblia**
Oker ari naiz: etengabe zeuden aldaketak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Jakina da, orde, gauza berberak batzuek zuzen eta beste batzuek **oker** erabiltzen dituztela. **Imanol Unzurrunzaga**
Gauzak **oker** erabiltzea eta **oker** gozatzea, hori da eta ez besterik gizakion bizitza biziotu eta errudun bakarra. **Imanol Unzurrunzaga**
Baliiteke gauzak **oker** egotea, guk uste baino okerrago, eta lan gehiago izatea. **Jon Muñoz**
ik beherago 15. **Askoren artean**
Uste dut **oker** juzgatu nauzula. **Matías Mujika**
Ez da **oker** jaiotzen dena zuzenduko duenik. **Jon Alonso**
Madarikatua Jainkoak emandako eginkizuna **oker** betetzen duena! **Askoren artean**
Berehala aitortzen nuen zuk, zuzen zaren horrek, ez ninduzula **oker** zigorkatzen. **Imanol Unzurrunzaga**
- **Oker** eman diote berria, nagusi. **Juan Garzia**
Oker interpretatua izan den idazlea ez da zentsuratu behar. **Imanol Unzurrunzaga**
Baina ez nazazue **oker** ulertu. **Koro Navarro**
Oker maite du bere burua kaltegarri zaiona maite duenean. **Imanol Unzurrunzaga**
Zuzen zaude, baina oraindik ez dut ikusten zer onartu dudan nik **oker**. **Imanol Unzurrunzaga**
Biluzik sentitu nintzen, biluzik edo **okerrago**: gabeturik, apaldurik, umiliaturik. **Jon Alonso**
Sortzeko gai direnek sor ditzatela hobetoxeago ala **okerreago**. **Andoni Egaña**
- Gertaera historiko guztien datak **oker**, ibai guztien kokalekua **oker**, sekula izan ez diren pertsonen biografiak. **Oskar Arana**

5a (hitz elkartuetan)

Oker-ulertze orokor horretatik bi ondorio atera ditzakegu. **Askoren artean**

• 6 iz makurra, hutsa.

Pedroren akatsak eta **okerrak** ere bertutetzat hartzeko prest nengoen. **Joan Mari Irigoien**

Bereak ez diren beste **oker** batzuk hantxe geldí daitezela onartu beharko baitu. [Jon Alonso](#)

Luze gabe oharatu zen bere **okerraz**. [Xabier Montoia](#)

Ondo baitakit goseak bultzatuta egin dituzula **oker** guztiak. [Askoren artean](#)

Gaurtik aurrera **oker** horren kontu eske etorriko zaion unearen zain biziko da. [Jon Alonso](#)

Okerra zuzentzeko azalpen ezinezkoen baten bila. [Aingeru Epaltza](#)

Ez dik gu bezala **okerrak** xuxentzen ibili beharrik, egiten duen guztia zuzena delako... [Joan Mari Irigoien](#)

Darioren **okerra** egin zuten berriro, hau da, kontraerasoan hastea. [Iñaki Mendiguren](#)

Oker bat egin zenuen, Lucy. [Oskar Arana](#)

Hark hirugarren aldiz esan zien: -zer **oker** egin du, bada, honek? [Elizen arteko biblia](#)

Jainkoa mendekatu egin behar dela dion ideiatik sortu da **okerra**. [Juan Martín Elexpuru](#)

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Oker larria, baina ez bakarra. [Jon Alonso](#)

Guk, aldiz, uste dugu **oker** handiena ez dagoela izenean. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Oker txikiena aprobetxatuko dute gainerako taldeek. [Berria - Kirola](#)

Albacete mendean ez hartzea **oker** itzela litzatekeela iritzi diote. [Berria - Kirola](#)

Gerra luzea bada eta zehar-kalte ugari badaude, denek esango dute **oker** izugarria izan dela. [Berria - Euskal Herria](#)

Oker hutsa edo apropos eginiko engainua izan da trena zama agiri okerrekin bidaia izana? [Berria - Gaiak](#)

Sasoí guztian ezin direlako **oker** berberak errepikatu. [Berria - Kirola](#)

Estatutua ahalbidetu zuen erakundeak berak aitorzen du duela 25 urteko apustua **oker** politikoa izan zela. [Berria - Euskal Herria](#)

Jujearen txostenean «**oker** juridikoak» daudela esan zuen atzo Greg Dyke BBCko zuzendariak. [Berria - Mundua](#)

Liburuetatik bizi naiz, baina ni beti kanpoko aldean nagoena naiz, baita egilearen okerra edo **oker** tipografikoa zuzentzen dudanean ere. [Jon Alonso](#)

Izugarritzko **okerra** egiteko zorian gaude, geure kalterako. [Elizen arteko biblia](#)

8 (hitz elkartuetan)

Ongi da, liburua **oker**-zuzenketa batez zabalduko da. [Jon Alonso](#)

Egin duten **oker** motaren araberakoa izango da zigorra. [Berria - Harian](#)

-Bistan dago kronologi **okerra** dagoela kontakizunean. [Askoren artean](#)

9 okerreko izlag okerra.

Okerreko zenbakira deitu duzu. [Eskarne Mujika](#)

-Barkatu, andrea, **okerreko** txirrina jo dut nonbait. [Lopez de Arana](#)

Okerreko autobusera igo da. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Okerreko mutila aukeratu zuela. [Antton Olano](#)

Hau **okerreko** bidea dela uste dut, sistemaren garatze *ad hoc* antzuak baino eskainiko ez litzukeena. [Itziar Laka](#)

Okerreko bidea aukeratzeko eskubidea guri ere zor baitzaigu. [Edorta Agirre](#)

Goizero saiatua omen zen autostopean, baina **okerreko** errepidean, nonbait. [Joxe Austin Arrieta](#)

Beruna oso baliagarria da balantza **okerreko** aldera makurrarazteko adinako pisua duten argudioen kontrapisurako. [Xabier Olarra](#)

Atentatu bat iragarri zigu **okerreko** orduan eta **okerreko** lekuan. [Harkaitz Cano](#)

Hobe behartsu eta prestu izan, jokabide **okerreko** aberats baino. [Elizen arteko biblia](#)

Nor bere zentzu onaren arabera txalotuko dute, bihotz **okerrekoak** mesprezioa izango du. [Elizen arteko biblia](#)

Ez naiz ausartzen inolako interpretaziorik egitera, **okerrekoa** egingo nuke eta. [Andoni Egaña](#)

Milimetrotako eman nahi nituen pauso guztiak, inolako **okerrekorik** gerta ez zedin. [Hasier Etxeberria](#)

Okerrekoren bat esan ote nuen egon nintzen, Martinek ez zidan-eta berehala erantzun. [Edorta Jimenez](#)

10 okerrena

Dagoeneko **okerrena** iragan duk. [Agustín Otsoa](#)

Azkenean, **okerrena** amaitu denean, begi lausotu eta negartiez so egin dut gorantz. [Mirentxu Larrañaga](#)

Okerrena pentsatzen hasita nengoen! [Anjel Lertxundi](#)

Okerrena zalantzak ziren. [Alberto Ladron Arana](#)

Eta, azken batean, **okerrena** merezi nuen. [Alberto Ladron Arana](#)

Lehenengo eguna duk **okerrena**, Tommo -dio Charliek, arnastetuka-. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gerora pentsatu dut hori zela **okerrena**, baina orduan ez, ordea. [Ramon Saizarbitoria](#)

Polizia noiz agertuko, gurasoek-eta zer erabakiko, eta, **okerrena** zena, neure ahuleziaren esklabo. [Anjel Lertxundi](#)

Ez ulertua izateko modu bat da loria, menturaz **okerrena**. [Elena Touyarou](#)

Okerrena ez zela errenditzea izan, baizik eta isilpean, Errepublikari ohararazi gabe, errenditu izana, berak arrazoi eman zion. [Ramon Saizarbitoria](#)

Egin zuen **okerrena** ez du jende askok ezagutzen. [Iñaki Mendiguren](#)

Datorkidana azalduko zioat Bixentari; gerta dakidakeen **okerrena** bera ezkatutu gabe. [Txillardegí](#)

11 ezin okerrago adlag

Ezin okerrago datorkio zu bezalako emakume bati. [Mirentxu Larrañaga](#)

Ezin okerrago zebilen Azkue. [Koldo Zuazo](#)

Ezin okerrago dagoena ezin baita dagoen baino okerrago imajinatu. [Joxerra Garzia](#)

Danny Ainge **ezin okerrago** ari da Bostonen manager lanetan. [Berria - Kirola](#)

Gainera, egoera hori ez zen gaztelu barrukoa baino hobea, non gauzak **ezin okerrago** baitzeuden. [Iñaki Mendiguren](#)

- *izond* Ez zuen zentzurik uda txar baten amaierako gau **ezin okerrago** batean trenbideko zubi baten azpian orduak eta orduak isil-isilik emateak. [Koro Navarro](#)

12 hainbat okerrago

Ideia hauek nonbait usteltzen badute, **hainbat okerrago** berarentzat, **hainbat okerrago** iritzi filosofikoen artean gauza txarrak besterik jasotzen ez dakitenentzat, edozer gauzarekin usteltzeko gai direnentzat! [Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio](#)

Alegia, "mina", "beldurra", "helburua" eta horrelakoak ez badira termino zientifiko zehatzetara murrizten ahal, **hainbat okerrago** beraientzat. [Askoren artean](#)

- **Hainbat okerrago** zuentzat. [Koldo Izagirre](#)

Tira, **hainbat okerrago** haientzat. [Alberto Ladron Arana](#)

13 begi-oker izond

Haren atzean neskezahar erdi herren begi-**oker** bat, txorixoa, xolomoa ala haragi egosia nahi al zenuen galdetzen zizuna. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ama begi-**okerra** nuen, eta, jakina, ezin maitatu! [Bernardo Atxaga](#)

Montserrat Roig-ek dio emakumezko idazleak **begi okerrak** direla: begi bat kanpora begira edukitzen dutela eta bestea barrura. [Ana Urkiza](#)

14 oker egin

Oker egin nuen, eta damu dut. [Oskar Arana](#)

Ez dira berdin errudun zarela adieraztea eta **oker egin** zenuela onartzea, eta badakizu hori. [Oskar Arana](#)

Oker egin dut, errugabea heriotzara emanaz. [Elizen arteko biblia](#)

Oker egin dut kontua, neba? [Karlos Zabala](#)

-Oker egin dago galdera, adiskide. [Imanol Zurutuza](#)

Bainan kontrakoak hasarre, bozen kondaketa arrunt **oker egin** dela. [Herria](#)

Ze **oker egiten** duen etxean, bertan saiatzen dira konpontzen. [Gotzon Garate](#)

Oker ibili bazara amodio kontuetan edo beste zenbait gauzatan, edozertan izan dela ere, horretan soilik **egin** duzu **oker**. [Juan Kruz Igerabide](#)

- Bi gauza **oker eginek** ez dute gauza zuzen bat egiten, Gordon. [Oskar Arana](#)

15 **oker egon** (norbait edo zerbait) ik beherago 17.

-Oker zaude, Nathan. [Oskar Arana](#)

-Horretan **oker zaude**. [Monika Etxebarria](#)

-Agirre jauna, zu oso **oker zaude** nitaz duzun iritzian. [Koldo Izagirre](#)

-Wendy, **oker zaude** amei buruz. [Julen Gabiria](#)

Ez, ba, **oker zaude**, oso ederra zen! [Fernando Rey](#)

-Ez horixe, **oker zaude**... [Karlos Zabala](#)

-Oker egon ninteke, noski, baina ez dut uste. [Migel Angel Mintegi](#)

Nahiago nuke **oker banengo**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Beharbada **oker egongo** naiz, baina nire irudipena da ez garela leku horretatik asko mugitu. [Bernardo Atxaga](#)

Oker ez **banago**, nik eskatuta atzeratu genuen eztabaida. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Baina, ez dakit, agian nire aita **oker zegoen**. [Bernardo Atxaga](#)

-Bada, gizon hori **oker dago** edo gezurra dio -murmurikatu nuen-. [Aingeru Epaltza](#)

-Ba, **oker hengoan**, txo. [Patxi Iturritegi](#)

Buruan jartzen zitzaion, esate baterako, testu-liburuko frogaketa matematikoak **oker zeudela**. [Bernardo Atxaga](#)

Data **oker dago**: konbertsiotik 10. urtea 1217a (edo 1216a) da. [Askoren artean](#)

Geroago gertatuko zirenek frogatuko zuten moduan, **oker nengoan** horretan. [Oskar Arana](#)

Heltzeko modukoan artean interesgarrirentzat jotzen dituzten arazoei ekiten diete zientzialariek; zuzen nahiz **oker egon** horretan, ustez konponbidea aurki diezaieketen arazoei, alegia. [Juan Garzia](#)

Noraino **oker nengoan** frogatu dut azken aldian. [Aingeru Epaltza](#)

Bizitza zoriotsua nahi duten heinean, gizakiak ez **daude oker**. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Berehala ohartu zen **oker zegoela**. [Koldo Izagirre](#)

-Oso **oker zaude**, justiziak epaitzen ditu krimenak. [Koldo Izagirre](#)

Zein **oker zegoen**! [Iñaki Mendiguren](#)

Gaizki dagoela? **okerrago egon** beharko luke, urdanga marisaltsera halakoa...! [Joan Mari Irigoien](#)

16 **oker ibili**

Oker ibili naizela ikusten dut, eta barkatu beharko didazu nire ergelkeria. Zer heinetan bekatu egiten duten, aipatu diren gaien inguruan **oker dabilzanek**. [Agustin Otsoa](#)

-Ez **zabiltza oker**, ez. [Migel Angel Mintegi](#)

Jaunak arrazoi du; ni eta nire herria, berriz, **oker gabiltza**. [Jose Antonio Mujika](#)

Baina **oker dabilta** sasi jakintsu horiek ere. [Piarres Xarriton](#)

Oker zebilen, Lisa ez zen batere elizkoia. [Karlos Zabala](#)

Kontua **oker dabil**, oso oker. [Monika Etxebarria](#)

Oso **dabil oker**! [Joan Mari Irigoien](#)

Zeharo **oker ibili** gara. [Txillardegi](#)

Oker ibili bazara amodio kontuetan edo beste zenbait gauzatan, edozertan izan dela ere, horretan soilik egin duzu oker. [Juan Kruz Igerabide](#)

Maizaren iritziz, eta ez zuen uste **oker zebilenik**, arazoaren gakoa ez zegoen balizko adarretan, senarraren desleialtasunak emakumearen kontu korrontean izan zezakeen eraginean baizik. [Migel Angel Mintegi](#)

17 **oker izan** da *ad* oker egon.

Horrela ikusten baninduan, **oker hintzen**. [Xabier Olarra](#)

Riaño eraitsi zutenean, beste Riañorik ez zela izanen erran zutenak **oker ziren**. [Eduarne Elizondo](#)

-Gizon hori, oso **oker** ez **banaitz**, enplegatua arrunt bat da. [Xabier Olarra](#)

Zuzen dena behar duzu maite, **oker dena** gorrotatu. [Elizen arteko biblia](#)

Gaitz horri aurre egiteko legeak ez dira eman behar **oker direnen** kontra, zuzen-zuzenean okerraren aurka baizik. [Esteban Antxustegi](#)

18 **oker-oker adlag**

gorputz-atalak orain kuzkurtu, orain luze zabaldu edo bildu egiten zituen, orain **oker-oker**, orain zurrin eta gogor jartzen zituen. [Askoren artean](#)

Charlieren atzetik joan naiz lubakian barrena, **oker-oker** makurtuta, beste guztiak bezalatsu. "Maite zaitut" esan eta mailadian behera joan zen, **oker-oker** eginda baina ahalik eta azkarren, atzera begiratu gabe. [Mirentxu Larrañaga](#)

Lepoan saski bat zeraman zamaketari bat igaro zen, bizkarra **oker-oker** eginda zamaren azpian. [Koro Navarro](#)

Atake moduko bat izan zuen eta ahoa **oker-oker** eginda geratu zaio. [Koro Navarro](#)

Eta eskuan, atzamar guztiak barrurantz bilduta zituen, salbu eta hatz erakuslea, **oker-oker** jarrita baitzeukan, kako baten itxura mehatxagarriarekin. [Julen Gabiria](#)

Paralisiak jotako gazte bat ahoa ireki ezinik eta begiak **oker-oker** zituela gelditu zen. [Askoren artean](#)

19 **okerragora egin** ik beherago 20.

Beste batzuetan ere esan izan dizut uneko aldarrearen zein mendeko garen hemen denok, eta gaitz hori azkenaldi honetan geroz eta **okerragora egiten** ari dela iruditzen zait, niregan batez ere. [Josu Zabaleta](#)

Denborak aurrera egin ahala **okerragora egin** zuen [Adelaren osasunak]; eta, halako batean, Albertok deitu zidan: [...]. [Juan Kruz Igerabide](#)

Horietako askok ez dauka botikak eskuratzetik eta, ondorioz, gaitzak **okerragora egiten** du. [Berria - Gaiak](#)

20 **okerrera egin** (*185 agerraldi, 30 liburu eta 126 artikulutan*)

Bentariari esker, iskanbilak ez du **okerrera egingo**. [Patxi Ezkiaga](#)

Egoerak **okerrera egin** dezakeela ohartarazi du, gainera WWFK. [Berria - Gaiak](#)

Biztanleria horrenbeste hazten den eran, ordea, arazoak **okerrera egiten** du, biztanle gehiagoren artean banatu behar baita dagoen apurra. [Iñaki Heras](#)

Norbaiti zakur amorratu batek koska egiten bazion, lotu eta batere urik gabe edukitzen zutela, edanez gero gaitzak **okerrera egingo** zuelakoa. [Bernardo Atxaga](#)

Horren harira, lan baldintzak **okerrera egin** dutela ohartarazi zuen, hainbat arrazoi direla medio. [Berria - Ekonomia](#)

Urte hasieratik **okerrera egin** du gobernauak hiritarren artean duen irudiak. [Berria - Ekonomia](#)

Jasser Arafat 28an ospitaleratu zuten bere osasunak **okerrera egin** ondoren. Berria - Mundua

Aitak ura besterik ez zuen hartzen, baina ez zuen **okerrera egiten**. Joseba Urteaga

Ez dakit non zabiltzan, ez eta zure egoerak **okerrera egin** ote duen ere. Hasier Etxeberria

Okerrera egin dezake denak: hori da egia bakarra. Iban Zaldua

21 **okerrera jo** (11 *agerraldi*, 3 *liburu eta 7 artikulutan*) okerrera egin.

Izan ere elurra mara-mara ari zuen atzo arratsaldean eta egoerak **okerrera jotzea** espero du Prefeturak. Berria - Harian

Arazoi izan zuen atezainak eguraldiak **okerrera joko** zuela esan zionean. Joxemari Urteaga

Martxoko hauteskundeek geroztik, PP eta PSEren arteko harremanek **okerrera jo** dute, eta PPren gutxiengoa nabariagoa da. Berria - Euskal Herria

Zerk edo zerk **okerrera jotzerik** baldin badu, **okerrera joko** du. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

baina oker nengoen (13); **baina oker zegoen** (8); **diru negozio oker** (6)

erabat oker (10); **ez dabil oker** (6); **ez nenbilen oker** (5); **ez zebilen oker** (15); **ez zen oker** (5); **gutziz oker** (16)

irribarre oker (5); **negozio oker** (8)

oker al nabil (5); **oker ari** (13); **oker aritu** (5); **oker asko** (7); **oker atera** (5); **oker bat egin** (8); **oker bat izan** (9); **oker baten ondorioz** (7); **oker dabil** (24); **oker dabilta** (18); **oker dago** (27); **oker daude** (14); **oker dena** (6)

oker egin (38); **oker egin dut** (5); **oker eginda** (20); **oker egiten** (16); **oker egon** (17); **oker egongo** (8); **oker egotea** (11); **oker erabiltzen** (12); **oker ez banabil** (6); **oker ez banago** (214); **oker ez banaiz** (19); **oker gaitza** (6); **oker geunden** (5); **oker guztiak** (8); **oker habil** (6); **oker hago** (18); **oker handi** (8); **oker handia** (25); **oker handia litzateke** (5); **oker handirik gabe** (10)

oker ibili (15); **oker ibiliko** (7); **oker jokatu** (36); **oker jokatu zuen** (6); **oker larria** (8); **oker nabil** (8); **oker nago** (10); **oker nenbilen** (6); **oker nengoen** (43)

oker oker (29); **oker oker eginda** (20)

oker ugari (5); **oker ulertu** (10); **oker ulertzen** (5); **oker zabilta** (19); **oker zabiltzate** (5); **oker zaude** (57); **oker zaudete** (9); **oker zebilen** (14); **oker zegoen** (30); **oker zeuden** (6)

oso oker (86); **oso oker zaude** (10)

uste oker (25); **zerbait oker** (9); **zuzen ala oker** (8); **zuzen edo oker** (5); **zuzen eta oker** (5)

arras okerra (5); **bere okerra** (8); **bide okerra** (22); **bide okerra hartu** (10)

egindako okerra (5); **erabaki okerra** (10); **erabat okerra** (7); **erabilera okerra** (8); **ere okerra** (6)

idea okerra (7); **informazio okerra** (7); **iritzi okerra** (7); **jokabide okerra** (7)

okerra zuzendu (12); **okerra zuzentzeko** (10)

uste okerra (24); **uste okerra da** (6); **zuzena ala okerra** (8); **zuzena eta okerra** (6)

are eta okerrago (6); **are okerrago** (99); **askoz ere okerrago** (5); **askoz okerrago** (20)

ezin okerrago (24); **gero eta okerrago** (36); **hobeto edo okerrago** (10); **inoiz baino okerrago** (5); **lehen baino okerrago** (7)

okerrago ari (6); **okerrago aritu** (7); **okerrago bizi** (5); **okerrago da** (7); **okerrago dago** (16); **okerrago daude** (9); **okerrago dena** (20)

okerrago egon (6); **okerrago egongo** (5); **okerrago gaude** (5); **okerrago hasi** (7)

okerrago izan (7); **okerrago izango** (8); **okerrago izango da** (5); **okerrago jarriko** (6); **okerrago jartzen** (5); **okerrago jokatu** (5); **okerrago moldatzen** (10)

okerrago oraindik (19); **okerrago sentitu** (5); **okerrago tratatzen** (5)

okerrago zegoen (11); **okerrago zena** (5)

oraindik okerrago (5); **orduan baino okerrago** (5); **uste baino okerrago** (5)

are okerragoa (42); **are okerragoa da** (11); **askoz ere okerragoa** (8); **askoz okerragoa** (23)

egoera okerragoa (6); **ezin okerragoa** (8); **gero eta okerragoa** (6); **heriotza baino okerragoa** (6); **lehengoa baino okerragoa** (5)

okerragoa da (77); **okerragoa izan** (37); **okerragoa izan da** (5); **okerragoa izan zen** (12); **okerragoa izango** (26); **okerragoa izango da** (8); **okerragoa izango zen** (5); **okerragoa izatea** (5); **okerragoa litzateke** (7); **okerragoa zen** (21)

zerbait okerragoa (6)

are okerragoak (7); **askoz okerragoak** (10); **gauza okerragoak** (6); **okerragoak dira** (12); **okerragoak izan** (10); **okerragoak ziren** (5)

gauza okerragorik (5)

datu okerrak (5); **egindako okerrak** (5); **erabaki okerrak** (5); **erabilera okerrak** (6); **mutur okerrak** (5); **okerrak zuzentzeko** (14); **ondorio okerrak** (6)

uste okerrak (9)

bere okerraz (5); **okerraz jabetu** (5)

modu okerrean (5)

okerreko bidea (20); **okerreko bidea hartu** (9); **okerreko bidetik** (19); **okerreko erabakia** (8); **okerreko erabakia hartu** (5); **okerreko lekuan** (11)

okerren bat egin (5); **okerren bat egiten** (8)

denetan okerreana (5); **gauzarik okerreana** (13); **gerta daitekeen okerreana** (7); **hori da okerreana** (7); **horixe da okerreana** (6); **okerreana espero** (5); **okerreana gertatu** (7)

okerrenaren beldur (5)

egoerarik okerreanean (5)

okerrenera jota ere (7)

egoerak okerrera egin (58); **egoerak okerrera egingo** (7)

okerrera doa (8); **okerrera egin** (173); **okerrera egin dezake** (6); **okerrera egin du** (47); **okerrera egin duela** (27); **okerrera egin dute** (6); **okerrera egin zuen** (24); **okerrera egingo** (30); **okerrera egingo du** (9); **okerrera egiten** (25); **okerrera egiten ari** (7); **okerrera jo** (7); **okerrera joan** (5)

osasunak okerrera egin (6); **txarretik okerrera** (5)

bide okerretik (22)

ezeren okerrik ez (13); **okerrik ez bada** (17); **okerrik ez dela** (14); **okerrik ezean** (56); **okerrik gabe** (18)

okerbide 1 iz okerreko bidea.

Zeure bizitza osoan egin zuzen dena eta ez hartu **okerbidea**. Elizen arteko biblia

Ez zaitzala **okerbidera** eraman patriarkez kontatzen denak, hots, Jainkoa haiei mintzo eta agertzen zitzaieiela. Xabier Kintana

Ivan Ogareff **okerbidean** abiatu eta berehala ohartu zen nolako onura atera zezakeen emakume harengandik. Karlos Zabala

Bakealdia etorri orduko, orde, **okerbidera** itzuli ziren. Elizen arteko biblia

Heziketa onartzen duena bizirako bidetik du, zentzarazpena baztertzen duena **okerbidetik**. Elizen arteko biblia

Norbera bizi den mendeko ideia guztiak aspaldiko mendeetara aldatzea, **okerbideetan** emankorrena da. Iñaki Iñurrieta

Berehala datozkit zenbait fitxatoko aipuak, argibidea -edo agian **okerbidea** - eskaintzera. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Glukosaren oxidazioaren **okerbide** bat baino ez da diabetesa; "beraz", antozianinekin glukosaren oxidazioa oster a bere galga zuzenera ekartzeko saioa egin zitekeen.

Juan Garzia

Zuzenbidean sinesten duen ongile gaitz bat behar da, edo **okerbidean** sinesten duen gaizkile on bat. Iñaki Segurola

okerbideratu, okerbidera(tu), okerbideratzen 1 da/du ad okerreko bidetik joan edo eraman.

Zintzoa, **okerbideratzen** bada, ez du ordurarteko bere zuzentasunak salbatuko. Elizen arteko biblia

Baina zuen bihotza **okerbideratzen** bada eta, jainko arrotzen aurrean ahozpeztu eta haiek gurtzeko tentazioari amore emanez, [...]. Elizen arteko biblia

Hire inbidiak **okerbideraturik** baizik ezin huan izan nitaz horrelako irudi distortsionaturik. Xabier Olarra

Ez da batere ona entzuten ari naizena; Jaunaren herria **okerbideratzen** ari zarete! Elizen arteko biblia

Joramek berak eraiki zituen Judako muinoetan kultu-lekuak, Jerusalemgo jendea sasijainkoak gurtzera bultzatuz eta Juda **okerbideratuz**. Elizen arteko biblia

2 (era burutua izenondo gisa)

Badaki ezjakinez eta **okerbideratuez** gupidatzen, bera ere giza ahuleriez inguratua dagoenez gero. Elizen arteko biblia

okerdura 1 iz okertzea.

Izatekotan ere, malenkonia lauso baten espresioa baino ez zen, ezpainen ezkerraldean zen **okerdura** txiki batek ematen zion malenkonia lausoaren espresioa, horixe soilik.

Unai Iturriaga

Neskaren ezpainen **okerdurak** horren premiarik ez zutela adierazi zidan. Aingeru Epaltza

Gainera, aise eta dotore egin zituen trinoak, erredobleak, tremoloak, besoen **okerdura**, esku muturreko birak eta ondulazioa. Berria - Kultura

Ezkerreko alboaren gainean etzanda zegoela, sorbaldek eta aldeak egiten zituzten angeluak ezberdinak ziren, antza, gorputz-enborearen **okerdura** zela eta. Ibon Uribarri

Puntu horretan okertzeko moduko bigun zegoen hodia: lortzen zen **okerdura** oso urrun zegoen perfektioetik, baina azken funtsean zerbait gertatzen zen, forma berri, arbitrario bat sor zitekeen. Juan Garzia

2 kurbatura.

Esfera batekin alderatu behar da eta bere erradioa bere azaleraren **okerduratik** abiatuta aurkitzen da. Ibon Uribarri

Garai hartan ezinezkoa zirudien halako eraikuntza batek arroken gainean zutik irautea, uretatik 30 metroko altueran; 28 metroko **okerdura** du, eta eskuz moztutako 456 harrik osatzen dute. Berria - Mundua

3 bi muturren arteko garaiera-desberdintasuna. ik makurdura; inklinazio.

Hildakoaren keinu karakteristikoren bat, hala nola, sorbaldaren postura edo behatz lodiarren **okerdura**, 41-42 gradukoa. Unai Elorriaga

Okerdura hori 3,4 gradukoa dela eta, gehienetan, Artizarra Eguzkiaren gainetik edo azpitik pasatzen da, eta horregatik ez da Lurretik ikusten. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan)

Belaunezur edo tibia-hezur higituren bat, etengabe barkamena eskatzen duela dirudien sorbalda keinu bat, munduko kriminal guztiak salatuko omen zituen sudur **okerdura** komun bat. Harkaitz Cano

okerka 1 adlag oker, zeharka. ik makurka 2.

"Zer esaten ari zara! hilda dago!" txoriaren burutxo **okerka** zegoen lepoan; bere begia marra ximur bat zen. Bernardo Atxaga

Hinde Shevachen begi horixkek **okerka** neurtu zuten errabinoa. Koro Navarro

Lepoa **okerka** luzatu eta, sukaldean bainatzen ari zen haur txikiari zozo begira zegoen. Pablo Sastre

Atzeko jesarlekuan **okerka** jarri zelarik, ispiluan txoferraren begiak ikusi zituen. Pablo Sastre

Bidea goiti behiti **okerka**, eta urrunean hil... Patziku Perurena

Okerka zetozen umeki zailak bakarrik nituen nik gogoko [...], eta bereziki, gizaki berriaren hil edo biziko borroka nire esku geratzen ziren uneak nituen maiteen. Hasier Etxeberria

2 alderantziz.

"Susmorik ez" letra desberdinez idatzi zuen lehengoaren azpian; **okerka** idatzi zuen hirugarren aldiz; laugarrengoan, berriz, eskuinarekin idatzi nahi izan zuen, baina idazten hasi den haur baten baldarkeriaz egin zituen zirriborroak. Joxemari Urteaga

okerkera adlag alde batera makurtuz.

Ikustekoa zan hainbeste urteko gizonaren indarra, apur bat gorputza **okerkera**, zelan soinua besoek emon ahala zabaltzen eta izten eban eta zelako irrintzia ataraten eutsan.

Xabier Amuriza

Kopla hau entzuneran, Rufo harro-harro paraten zan, burua apur bat **okerkera**, irribarrea paparreraino eriola. Xabier Amuriza

okerkeria 1 iz egite okerra. ik makurkeria; bihurrikeria.

Gaur egun ere sexuzko lege-hausteen aurrean badira oraindik **okerkeria** horiek onartu-edo egiten dituzten epaileak, esanez emakumeak gizona horretara zirikatatu duela.

Jon Muñoz

Ez zuen parte hartzen gaueko orgietan [...] ez eta bestelako **okerkerietan** ere. Jose Morales

RPR alderdiaren buruetarik zenean, **okerkeria** batzu eginik, langile batzu pagatuz Pariseko herriaren kondu lanean ari balire bezala RPR alderdiarentzat ari zirelarik.

Herria

Alain Juppé **okerkeria** nahasi batzuetan partzuer edo saltsan izana dela RPR alderdia kudeatzen zuen denboran. Herria

Oihanak Matxaleni **okerkeriak** egiten zizkion, eta urteak joan ondoren Matxalen Oihanaren nagusi egin zen lantegian. Berria - Kultura

Adulterioegilez bete baitago herrialdea, jende guztia gaiztakeriara doa lasterka, **okerkerian** galtzen dituzte indarrak. Elizen arteko biblia

Goretsiko zaitugu geure erbestealdian, kendu baitugu geure baitatik zure aurka bekatu egin zuten gure gurasoen **okerkeria**. Elizen arteko biblia

Donibane eta Ziburu, elgarri hoin josiak-eta, bi kantonamendutan izaitea, ez dea hori beste **okerkeria** bat? Herria

2 gauza okerra.

Okerkeria haundia liteke haatik loturak ez atxikitzea aski tinki... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure ADN edo kode genetikoetan ginituzkeen **okerkeriak** dira eritasun horien iturri. Herria

3 okerra denaren nolakotasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Haren ahalguztiduna ene ezerezinarekin, haren zuzentasuna ene **okerkeriarekin**, haren ontasuna ene txarkeriarekin. Patxi Altuna

"Ez da okerrik aurkitu Jakobengan", **okerkeria** ez baita begiz ikusten. Xabier Kintana

Hor da argi eta garbi ikusten gerla baten **okerkeria**, noiz eta ere bi etsaiek, elgarren artean, zepo batean bezala harrapatzen baitute petzero bera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

okerkeria frango (9)

okerki adlag oker. ik oker 5.

Aurkako objekzio guztiak **okerki** irakatsia izan den arrazoimen baten trabak dira. Ibon Uribarri

Aintzineko gobernua, Jospin-ena beraz, arrunt **okerki** jokatu baita sail hortan. Herria
Alkien banatzeko moldea ere arrunt **okerki** aldatua dute, hori oraino beste nahaskeria bat! Herria
Deliberatu du haatik Parisera dei egitea, iduritzen baitzaio arrunt **okerki** akulatua izana dela afera hori... Herria
Pentsakizun mila bururutzen zaizkie, **okerki** uste izateraino gaitz horiek ezkutuko bekatuetatik ote datozkien. Joan Mari Lekuona

okerkuntza iz okerra, hutsegitea.

Ez litzateke hori **okerkuntza** edo gaizkiulertu bakarra. Edorta Jimenez
Orduan Mr. Cardenasek esan du badirela erdiuste eta **okerkuntza** batzuk, denbora igaro ahala argituz joango direnak. Edorta Jimenez
Ez litzateke hori **okerkuntza** edo gaizkiulertu bakarra. Edorta Jimenez

okerlari iz (cf olerkari)

Gogora datorkit nola joan zen behin euskaldun olerkari edo **okerlari** bat urrutiko hiri batera, eta nola bota zituen han euskarazko zera batzuk, eta ea ba -galdetzen zioten honuzkoan- zer ulertu zuten edo zer iruditzen ote zitzaion berari, eta ezetz, ulertu ezetz, baina "transmititu" baietz, transmititzea lortu zuela. Iñaki Segurola

okerragotu, okerrago(tu), okerragotzen da/du ad areago okertu.

Lehendik egoera kaxkarrean bizi ziren sahararren bizi baldintzak **okerragotu** ez zitezten. Beria - Mundua
Sabela handituta zuen, eta sabeleko handitu hori gernu-debeku batez **okerragotu** zen. Josu Zabaleta
Gainera, tipoa, gauzak **okerragotzeko**, berrogei urte gazteagoa zen emakume batekin ezkondua zegoen. Karlos Zabala
Ikasgairik txarrena zen harentzat, eta Snape maisuari zion ikarak askoz gehiago **okerragotzen** zizkion gauzak. Iñaki Mendiguren
Bat-bateko mugimenduak saihestu behar ditugu, horiek egoera **okerragotu** dezaketelako. Beria - Mundua
Erreserba Federalak, tamalez, ez zuen jakin krisiari irtenbidea aurkitzen; aitzitik, **okerragotu** egin zuen egoera. Iñaki Heras
Nolako lantzoia Floren, gure uste okerrak **okerragotzeko** ! Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera okerragotu (9)

egoera okerragotzen (4)

okerragotze iz areago okertzea.

Langabezia, soldata eskasak eta ezberdintasun sozialen **okerragotzea** ... Beria - Harian

okerrarazi, okerraraz, okerrarazten (orobat okerrerazi g.er.) 1 du ad okertzera behartu.

Ezpainak **okerrarazten** dituztela beren zapore zikinez. Irene Aldasoro
Umeari musu eman zion, bere esku zuri hezurtsuek iritsi berriari burua atzerantz **okerrerazi** zioten, eta horrela begiratu zion aurpegira, goi-goitik. Xabier Olarra
Arrak bere matxarda erabiltzen du emeari gorputza **okerrarazteko** eta obulutegia arraren gonaden parera eraman dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Nik **okerrarazi** nuen bere egiazko sinestetik [...] gezurrezko sineskeria galgarrietara. Imanol Unzurrunzaga

okerrerazi ik okerrarazi.

okerrezin (corpusean okertezin soilik) izond oker ezin egon daitekeena.

Problema dator kalitate eta gustua nahasten direnean, eta geure gustuari kritika **okertezinaren** balioa ematen diogunean. Ana Urkiza

okertezin ik okerrezin.

okertu, oker(tu), okertzen 1 da/du ad lerro zuzenaren itxura duena makotu. ik makurtu.

Puntu horretan **okertzeko** moduko bigun zegoen hodia: lortzen zen okerdura oso urrun zegoen perfektioetik, baina [...]. Juan Garzia
Burdina ezer ez balitz bezala **okertzen** bazuten, pentsa zer egin zezaketen jendearen lepoarekin. Pello Lizarralde
Zutitu, eskuak giltzurrunetara eraman eta atzera **okertu** zen, hasperen lasaitua eginez. Jon Alonso
Urtza esaten genion ibai-tartearen inguruko haltz luzeak alde batera zein bestera **okertzen** ziren. Bernardo Atxaga
Kanabera **okertu** eta atzera eta aurrera mugitu zen. Koro Navarro
Orain gauk haize eta txikizoz beteak daude; zuhaitzak **okertu** eta makurtu, eta hostoak zalapartan hegatzten dira. Anton Garikano
Ikatz zakuen antza zuten, eta gurdia ardatzak **okertzen** zituzten beren zama eskergaz. Karlos Zabala
Errepidea, ederra hala ere, bihurtune beldurgarri **okertzen** eta plegatzen da amildegiaren hegian. Koldo Izagirre
Ezpatak su hartu zuen, **okertu**, eta desagertu arte erre zen. Agustin Otsoa
Hanka eta oina argaldu, **okertu** eta ihartu egin zitzaizkion. Askoren artean
Elurraren pisuaz teilatuak **okertu** ere egingo zirela. Joseba Sarrionandia
Hain da zama astuna, non hainbatetan [...] bizkarra **okertzera** behartzen baitu, iturritik edaten ariko balitz bezala. Xabier Montoia
Mattini aurpegiko giharrak gogortu zitzaizkion, bekokia zimurtu, eta bizkarrezurra **okertu**, bihurtu eta kurbatu. Joan Mari Irigoien
Saihets batera **okertu** eta segituan jotzen nuen horma sorbaldarekin. Bernardo Atxaga
Ahuleziaren ahulezia, Baldwini belauinak **okertu** egiten zitzaizkion. Lopez de Arana
Buru sorbaldaldera **okertu** eta ilea txirikordatu zuen. Anton Garikano
Bekaina **okertu** zuen Tomasek, ez zuen sinesten. Koldo Izagirre

Muturra **okertu** zitzadela, Isabel Sanjosek ilegorri tindatua eta bularralde oparoa lehen lerroan ikustean. **Aingeru Epaltza**
Supituan, ordea, harridurak ahoa **okertu** zion. **Anjel Lertxundi**

2 irud/hed

Ez **okertu** zuzenbidea alderdikeriaz jokatu; ez onartu eskupekorik, itsutu egiten baititu pertsona jakintsuak ere eta hondatu egiten zintzoen epaia. **Elizen arteko biblia**

3 norabide zuzenetik, berezko edo ohiko norabidetik aldaratu.

Zinkurin bat ere gabe, Keparen gorputza alde batera **okertu** da, astiki, buruak lurra jo arte. **Aingeru Epaltza**

Goitik behera pitzaturiko harresi garaiari bezala gertatuko zaizue: piskanaka **okertu** eta, halako batean, gutxien ustean, lurrera amiltzen da. **Elizen arteko biblia**

Atx, lerro hau **okertu** zait! **Pello Salaburu**

Platera beherantz **okertu** balu. **Anton Garikano**

Rietiko aintziran zehar bi gizonetako eta bi emakumezko haur batekin txalupan zihoazela, ontzia alde batera **okertu** eta urez bete zen bat-batean. **Askoren artean**

Ispilu erretrobisorea **okertu** eta gorbataren korapiloa bere lekuan zuzen jartzen du. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herren egiten zuen zertxobait, edo hobeto esanda, gorputza alde baterantz **okertzen** zuen ibiltzerakoan, maleta astuna balitzaio bezala. **Bernardo Atxaga**

Buru alba batera **okertu**, eta hildakoa aztertzeari ekin zion, margolari batek bere margolana aztertzen duen bezala. **Jose Morales**

Hogei antzara gari beratua jaten ari ziren etxean, baina menditik arrano bat etorri zen, eta denei lepoa **okertu** eta hil egin zituen. **Juan Kruz Igerabide**

Gogoan dudan azken gauza duk lepoa **okertu** nuela taxi batean zihonan neska eder-eder bati begiratzeko. **Lopez de Arana**

Bakoitza bere bidetik doa, nor bere lerrotik **okertu** gabe. **Elizen arteko biblia**

Zorionez haizeak jaurtitzaileren punteria **okertzen** zuen. **Jon Alonso**

Abnerren ondoren abiatu zen Asahel zuzen-zuzen, inora **okertu** gabe. **Elizen arteko biblia**

Euren sorbaldeei eragiteko modu hori edo kapela albo batera **okertzeko** modu hori. **Mirentxu Larrañaga**

Lilyk pilatua zeukan inpresioen zama **okertu** eta goitik behera jausi zen ibaika. **Anton Garikano**

Pixkanaka, euren bideak aldentzen joan ziren, bide nagusitik **okertzen** diren bidexkak bezala. **Aritz Gorrotxategi**

4 irud/hed

Zentzuzko jokabidetik **okertzen** denak hildakoen artean amaituko du. **Elizen arteko biblia**

Baina **okertu** egiten zen juzguan. **Bernardo Atxaga**

Maitatu izan genuen elkar aldi batez, eta gero den-dena **okertu** zen. **Oskar Arana**

Den-dena ondo zihoan, baina kolpetik **okertu** egin zen zerbait. **Bernardo Atxaga**

Egia esan, geuk **okertzen** dugun neurrian da egoera hau ezin eramanezkoa. **Josu Zabaleta**

-Ez, gauza **okertu** egin zen. **Pako Aristi**

Gauzak erabat **okertzen** badira ez diot senarrari erraztasunak emateko asmorik, ez horixe. **Migel Angel Mintegi**

Gauzak hainbesteraino **okertu** dira Holandan non haurrak tropelaka aritzen baitira kaleetan bidaztiak geratu eta ogi puska bat eskatzen. **Josu Zabaleta**

Nik zazpi urte nituela langabezian gelditu zen aita, eta, bat-batean, bizitza **okertu** egin zitzaigun. **Ana Urkiza**

Gaiztoek tranpa jarri didate; ni, ordea, ez naiz zure legeetatik **okertu**. **Elizen arteko biblia**

Edertasunak liluratu zaitu eta irrikak bihotza **okertu**. **Elizen arteko biblia**

Laster asko **okertu** dira agindu nien bidetik; zekor-irudia egin dute, eta haren aurrean ahozpeztu dira. **Elizen arteko biblia**

Batzuek bide horretatik **okertu** eta alferrikako berritsukerietara jo dute. **Elizen arteko biblia**

Egiatik **okertu** egin dira, piztuera jadanik gertatu dela baitiote, horrela batzuen sinesmena galbidean jarriz. **Elizen arteko biblia**

Dena den, **okertu** egingo ginatete baldin eta akats hori [...] ikuspuntu psikologiko baten arabera ulertuko bagenu. **Bernardo Atxaga**

Kanoia bihotza egon ohi den lekuan jarri nion, **okertu** nintzen, eskuinaldea eta ezkerrekoa nahasi nituen. **Fernando Rey**

"Gauza horietan euskal artzainak ez gara behin ere **okertzen**." "Eta nola asmatzen duzue, haizearen norabidea aztertuta?" **Bernardo Atxaga**

5 (era burutua izenondo gisa)

Burdina gori **okertua** kolpatzen duen errementariaren moduan. **Agustin Osoa**

la biluzik zegoen, behatz **okertu** eta maskurtuak zituen. **Jose Morales**

Adar bat hartu, haria lotu, amu gisa orratz **okertu** bat erantsi, eta ogi zati bat ipini zion beita gisa. **Juan Kruz Igerabide**

Alanbre puska herdoildu bat topatzen bazuen, segituan lapurtzen zuen, eta berdin egiten zuen adreilu batekin edo paper urratu batekin edo iltze **okertu** batekin. **Pello Lizarralde**

Ero-etxeetako gaixoen aurpegi ilun, begi galdu, buru makur, ezpain **okertu** haiek. **Gotzon Garate**

Xanpaina kopa **okertu** batetik tantaka ari zen. **Lopez de Arana**

Nekez hauteman zitekeen barrunbe beltz hartan bidezidor mehar bat, baranda erori batzuk, pergola **okertu** bat, zuloz josiriko sahats-enbor zahar bat. **Jose Morales**

Eguzkia gortinen azpitik limurtzen zen bulegoan eta ezteki distira **okertu** batek puruen kea ebakitzen zuen. **Lopez de Arana**

Nire poztasuna irain otu zitzaielakoan nago, ezpainetan tristurazko irri **okertua** agertu baitzitzaion. **Edorta Jimenez**

Atalburutik pasatzean atezaina sumatu nuen bere garitako leihatilatik zelatan, eta irribarre **okertuan** halako bozkario bat antzeman nion, barre-haize bat. **Joxean Agirre**

-Ezin baita **okertua** zuzendu, ez eta zenbatu ere ez dagoena. **Elizen arteko biblia**

6 (era burutua izen gisa, hitz elkartuen bigarren osagai bezala)

Une hartan, akabo haren ohiko lepo: **okertua**, ibilera zurruna, tikak, begiratu iheskorra. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoa **okertu** (7); ahoa **okertu** zuen (4); alde batera **okertu** (6); asko **okertu** (10); aurpegia **okertu** (4); aurpegia **okertu** zuen (3); baldintzak **okertu** (4); bekaina **okertu** (3); belaunak **okertu** (3); bidea **okertu** (3); bidetik **okertu** (7); bizkarra **okertu** (4); burua **okertu** (8); burua **okertu** zuen (4); dena **okertu** (6); dena **okertu** zen (3); denak **okertu** (3); denak **okertu** dira (3)

egoera **okertu** (23); erabat **okertu** (5); ezpainak **okertu** (5); gauzak asko **okertu** (4); gauzak **okertu** (18); gehiago **okertu** (6)

izugarri **okertu** (3); laster asko **okertu** (3); lepoa **okertu** (5); musua **okertu** (3); muturra **okertu** (25); muturra **okertu** zuen (7); nabarmen **okertu** (5); nabarmen **okertu** da (4); **okertu** baino ez (4); **okertu** bat (3); **okertu** da (9); **okertu** dira (11); **okertu** ditu (3); **okertu** du (6); **okertu** dute (5); **okertu** gabe (8); **okertu** nuen (3); **okertu** zen (19); **okertu** zion (6); **okertu** ziren (6); **okertu** zituen (6); **okertu** zitzaion (4); **okertu** zuen (42)

partida **okertu** (3)

alde batera **okertua** (3)

egoera **okertuko** (5); nabarmen **okertuko** (3)

albo batera **okerturik** (8); alde batera **okerturik** (9); apur bat **okerturik** (7); burua **okerturik** (3); **okerturik** zegoen (3); **okerturik** zuela (3)

alde batera **okertuta** (5); aurpegia **okertuta** (3); **okertuta** dago (6); **okertuta** zegoen (10); **okertuta** zeudela (3); zeharo **okertuta** (3)

egoera **okertuz** (6); egoera **okertuz** joan (3); gauzak **okertuz** (3)

baldintzak **okertzea** (3); egoera **okertzea** (4)

baldintzak **okertzeko** (4); egoera **okertzeko** (3); gauzak **okertzeko** (3); lan baldintzak **okertzeko** (4); **okertzeko** arriskua (3); **okertzeko** aukera (3); **okertzeko** joera (3); **okertzeko** modu (3)

asko **okertzen** (5); baldintzak **okertzen** (4); burua **okertzen** (3); egoera **okertzen** (10); gauzak **okertzen** (28); gauzak **okertzen** direnean (4); gehiago **okertzen** (4); muturra **okertzen** (10)

okertzen ari (24); **okertzen** da (6); **okertzen** dira (4); **okertzen** du (4); **okertzen** dute (3); **okertzen** hasi (15); **okertzen** hasi zirenean (3); **okertzen** hasten (4); **okertzen** joan (8); **okertzen** zen (6); **okertzen** ziren (3)

okertxo *izond adkor oker samarra.*

Hamaika juduk zutela horrelako txilibitu **okertxo** alaia mohel haren zirkuntzizio lan eskasa zela-eta. *Uf uf* eginez, txamarrapean kremalleradun jertse beltz lodi batez jantzita sartu zen ostatura Ane: matrail hezur irtenak, begizuloak, bizkarrak **okertxo**. **Karlos Zabala**

okertzaile *izond okertzen duena.*

Endredo huntarik noiz eta nola jalgiko ote **okertzaileak**? **Jose Angel Irigaray**

okertze 1 *iz norabide zuzenetik, berezko edo ohiko norabidetik aldaratzea.*

Badira topaketa batzuk, ikusi-ez ikusiz sumatzen ditugun gauza batzuk, atsekabe sekretu batzuk, zoriaren **okertze** batzuk, gure baitan gogoeta mundu mingarri bat eragiten dutenak. **Josu Zabaleta**

Pentsatu nuen okertu egin nintzela nire gazte urte haietan, eta **okertze** hori ezjakintasunetik etorri zela, bizitzaren lehen egia, ximpleena -"bizitza da handiena"- ondo ez konprenitzeagatik, eta horixe bera gertatu bide zitzaiola nire aitari gerra denboran. **Bernardo Atxaga**

Baina ezustean harrapatu gaituen eguraldiaren **okertze** larriak beheiti joatera derrigortu gaitu. **Xabier Montoia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzetatik unitate handiagoetara igarota, sintaxia jotzen dute bete-betean **okertze** prozesu hauek. **Iñaki Arranz**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mentxuk bihurrikeriazko masail **okertzeren** bat bilatu zuen bestearen aurpegian. **Josu Landa**

Mesprezuzko ezpain **okertze** bat eginez behatu die bekoz beko. **Koldo Izagirre**

Porturainokoa burutzen zuen lehenik, egun parte haren protokoloan lehen gerri-**okertzea** itsasoari baitzegokion. **Josu Landa**

Bideetako galeriano eta ildoen esklabo izan diren hauek, idien nahiz mandoen atzetik beti, zerua beste esperantzarik gabeko patuari eskuloturik, nola sumatuko zuten ba, beren askaziaren zorian halako bide-**okertze** bat? **Xabier Mendiguren Elizegi**

okey (*orobat okei*) adostasuna adierazteko erabiltzen den hitza. ik **OK**.

- **Okei**, nire esku. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- **Okey**, ihardetsi nion dudaz blai, atzeman iezadazu emazte bat gaur komunika dezadan. **Itxaro Borda**

okigarri *izond okitzen duena.*

Lotsaren ogi mikatza jan eta miseriaren zopa **okigarriak** irentsi ditugu. **Ramon Etxezarreta**

okil (*orobat okilo g.er.*) *iz hegazti igokaria, usoaren tamainakoa, hegoak zuri-beltzak dituena, zuhaitzen zuloetan habia egiten duena, eta bere moko luze, mehe eta gogorraz arbola azalak indarrez joaz harrapatzen dituen arrez elikatzen dena (Picus viridis).*

Entzuna zuen **okilaren** deia [...] eta hala jakin zuen hantxe egingo zutela habia berriro ere, bide bazterreko enbor zulatu haietakoren batean, aurreko urteetan bezala.

Imanol Zurutzuza

Harik eta, senar-emazteen ikusmirak edo izuturik, **okilak** hegan alde egin zuen arte. **Imanol Zurutzuza**

Erlauntzetan jartzen dira **okilak**, ate ondoan. **Unai Elorriaga**

Okilak egurra zulatzerakoan nola, halaxe hasi da erizaina nik idatzitakoa irakurtzen. **Anjel Lertxundi**

Okilak, ordea, lasai asko jarraitzen zuen belar artean mokoka, zomororen baten peskizan. **Imanol Zurutzuza**

Aditzen duzue **okila** kantuz, horrek euria laster ekarriko dik. **Herria**

okilo ik **okil**.

okin 1 *iz*

Janari-denda batean aritu nintzen lehendabizi, **okin** izan nintzen gero, eta iturgin ere izan nintzen. **Anjel Lertxundi**

Niren lehenengo lanean **okin** baten mutil ibili nintzen. **Pello Lizarralde**

Okinak oreka egiten duenetik ogia jaiki arte gehiago suberritu beharrik ez duen labe. **Elizen arteko biblia**

Ogiz oso **okin** adeitsu batek hornitzen gaitu, Kleimanen ezagun batek. **Josu Zabaleta**

Elkarteburu hautetsia izan da, aho batez gainerat, Yves Duhalde, ofizioz bollander edo **okina**. **Herria**

Vienako **okin** batek asmatu zituen kruasan opiltxoak, austriarrek turkoen kontra irabazitako bataila bat ospatzeko. **Anjel Lertxundi**

Okinak ogirik egin gabe biltzen ditu ezkutuak. **Karlos Zabala**

Izerdi patsetan **okina** labearen ondoan bezala. **Karlos Zabala**

Husnia **okina** hor dago, labearen alboan zaku baten pare eseria, begi bat ogietan eta bestea senarra zelatzen! **Patxi Zubizarreta**

Hori edo antzeko amarruzko beitarren bat bota omen zuen amak **okinarenean**. **Anjel Lertxundi**

Beila **okinarenera** *pletz!* bat erostera sartzen zenean, halako etorriaz aritzen zen haiek in txantxetan, non miretsita uzten baitzituen etxeokandre guztiak. **Koro Navarro**

Hegoaldeko **okin** eta bixkotx egileeekin ariko gira lanean. **Herria**

Hiru egunen buruan, Faraoiak urtebetetzea zuenez bazkari handi bat eskaini zien bere funtzionario guztiei eta, han zegoela, Edarizain Nagusiaz eta **Okin** Nagusiaz gogoratu zen. **Jose Antonio Mujika**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zirauki eta Mañeru herrietako inguruak miazten genituen xehe-xehe, **okin** -labeetarako isats landare ihartuak etengabe zapaltzen genituelarik. **Txillardegí**

Lurrean kukubilkatua egoten zen, janzten nahiz pipatzen, edota **okin** bikotea zelatzen. **Patxi Zubizarreta**

Joseren argibidea egokia zela ikusirik, **okin** -arduradunak esan zion: [...]. **Elizen arteko biblia**

3 (izenondo gisa)

Andere **okin** hark ez zuen nonbait soilik ogia saltzen eta kantuak elkarrizketaren bidez eta oso ongi kontatzen du pasadizoak. **Berria - Kultura**

donibane auzoko okina (4); **husnia okina** (4)

husnia okinak (4)

okinaren alaba (8); **okinaren emazte pinpilipauxa** (3); **okinaren emazte pinpilipauxak** (3); **renato okinaren emazte** (4)

okinde ik **okindegi**.

okindegi (*orobat okinde g.,er. eta okintegi g.er.*) iz ogia egiten den etxea; ogia saltzen den denda.

Okindegia oso argia zen, ispilu zabalak zeuzkan, marmol eta urrezko lanak, eta ogiak jartzeko bi apalategi, bata burdin landuzkoa eta beirazkoa bestea, non ogi luze distiratsuak maldan jarrita agertzen baitziren apaletan. **Karlos Zabala**

Hango eraikinei josi zien begirakunea: **okindegia**. Kirxaren kafea, osaba Kamilen denda, bizartegia, bazarra eta Raduan Husainiren etxea. **Patxi Zubizarreta**

Ikusten ditugu han edo hemen Frantziako herri tipi aintzitan jendeak kexu eta griñatuak, emeki emeki zerbitzu beharrenak desagertzen ari zaizkotelakotz: hemen eskola, han posta, **okindea**, ostataua, azken saltegiaren ondotik. **Herria**

Okindegiko mutilak pasaratzeko seda lortu digu, matazatxo txiki-txiki bat 90 zentimotan. **Josu Zabaleta**

Lepoa niganantz jiratu beharrean, bere eskuinerantz jiratu zuen parean fortunatu zitaion Kotkowski **okindegiko** opilei begira geratuz. **Harkaitz Cano**

Okindegiko Ford zaharrari aurrea hartu berri zion errepidean. **Alberto Ladron Arana**

Larunbat arratsaldean ama saltokiko **okindegira** joan zen. **Koro Navarro**

Arotza **okindegira** joan zen ogitara, eta okina aroztegira ohol baten bila. **Bernardo Atxaga**

Okindegian hasiak ziren Pazkoko ogi ailisak prestatzen. **Koro Navarro**

-Ez huen gaur **okindegian** lanean hasi behar? **Unai Iturriaga**

okintegi ik **okindegi**.

okintza iz ogiak egitea; okinaren lanbidea.

Komentuetan ikusten ditugu jenderik handienak, armadetako aintzindariak, aitorenseme aberatsak, bai eta erregen odoleko handi-mandiak, ari direla edozoin lan arruntetan, batzu **okintzan**, bertezak kozinan, asko abere-zain, gehienak laborantzan. **Xipri Arbelbide**

Hara hor Armando eta irin finaren xamurtasuna bere amantal zuriarekin ogia prestatzen, gerla baino inportanteagoa omen den **okintzan**, eta hara hemen ni eta nire itzuli beharra poltsa bizkarrean eta giltza eskuan. **Joseba Sarrionandia**

Kontrako norabidean, gure artean oker gertaturiko **okintzako** saioek erakutsi ziguten bezala, makinaria txikiagoa baliatuz ez dago serie amaigabeak egiteko premiarik, produktua azkarrago eta kalitate hobez ekoitz daiteke. **Edorta Agirre**

okitu, oki(tu), okitzen 1 da/du ad guztiz bete.

Abiadura handian diruz **okituko** zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitatxiren etxalde abandonatuan laborantzan plantatuko. **Itxaro Borda**

Bildumari diruz **okitu** bat zen hura, eta Harryren bi margolan erositako zen 1976an. **Oskar Arana**

Probintzia honetako oraina eta geroa erabakitze diruz **okitutako** hamabi-hamalau kabroien batzarrak horrelatsu izanen dituk. **Aingeru Epaltza**

Hogei urteko mukizu puntu-com milioiz **okituez**. **Oskar Arana**

Kloroformo eta odol usainez, garrasi eta hasperenez **okituriko** sala haren barruan. **Eduardo Matauko**

Banaka irakurri behar dira poemak, bestela **okitu** edo zorabiatu egin gintezke. **Berria - Kultura**

2 zerbaiten gehiegikeriagatik gogaitu edo aspertu. ik **ase**; **nazkatu**.

Izan ere, arima ez da asko jakitez asetzen eta **okitzen**, baizik gauzak barrenean sentitzez eta gozatzez. **Patxi Altuna**

Etzaulkian zegoen, eskuak sabelzorro gainean gurutzatuta, ez irakurtzen edo lotan, baizik eguzkia hartzen bizitzaz **okitutako** izaki baten antzera. **Anton Garikano**

Herria obsesio, eldarnio izateraino bizi izatera heldu omen zen, eta ordurako **okitua** zegoen, gogaitua guztiz. **Patxi Zubizarreta**

3 (era burutua izenondo gisa) guztizkoa.

Bulegari neskazaharra, nire lehenbiziko bisitaldian mari-ozpin **okitua** eta bigarrenean nonbait hor iduritu zitzaidana. **Aingeru Epaltza**

Integrista **okitua**, gaizki moldatzen zituen haurrak eta haietarik bat hil ondoan haren anaiak jo du apeza guretzefika batekin. **Herria**

Haien artean, izan ditzen komunistak, sozialistak edo bertze alderdietakoak badira jakobino **okituak**, Korsikan ikusi den bezala azken erreferendumean. **Herria**

Eskuindar **okituak**, haienzat konstituzio horrek desegiten zuela hain maite duten Frantzia. **Herria**

Pliushkinek kontu egin zuen bisitariak ergel **okitua** behar zuela. **Jose Morales**

4 *izond* guztiz aberatsa.

Alabaina, zazpi urteren buruan, artaldea saldu eta osaba **okituari** agur erran zion. **Itxaro Borda**

5 (adizlagun gisa) guztiz.

Martina gero Jonez **okitu** amorostu zen eta beste behin zubigintzan zinpururik, gabe geratu nintzen, tu mikatza irentsiz, haginak tinkatuz eta lepo zainak zapartatzeaz. **Itxaro Borda**

6 *aberats okitu* oso aberatsa.

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxeokandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, **aberats okitua**, burokrata grisa... **Jose Morales**

Diruz jositako **aberats okituaren** bizitza egin zuen Felixek hamasei urte bete zituen arte. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Peterrek, herrian eta partikulazki familian, **aberats okituaren** fama zeukan. **Itxaro Borda**

Ezkerterik dauka bere burua, nahiz **aberats okitu** bat duen hartua lagun eta president ordetzat, nahiz hitzemana duen ere ez dituela Brasiliaren zorrak ukatuko. **Herria**

Behar gorrian jaio, eta **aberats okitu** hil zen. **Jon Muñoz**

7 *zahar okitu* oso zaharra.

Une hartan agure **zahar okitu** bat sartu zen, urteek gorputz-adar bakar bat ere onik utzia ez ziotena. **Patxi Zubizarreta**

-Badut osaba bat, **zahar okitua** bera. **Jose Morales**

Bakarrik libro utzi zituzten biziki eri eta **zahar okituak** zirenak, Mathieu apeza besteak beste; ez omen ziren zama gehigarri bat baizik. **Elena Touyarou**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberats okitu (9)

aberats okitua (12); **aberats okitua zen** (3)

oklusio iz fonetikan, hersketa.

Artikulazio guneak, kokapena gorabehera, beti irekidura bat azaltzen du, hau da, irekiera maila bat, ondoko bi muturretako mugen artean: erabateko **oklusioaren** eta irekiera handienaren artean, alegia. **Isabel Arrigain**

Mota honetan, aho barrunbean momentu batean gertaturiko erabateko **oklusioa** dela eta lortzen diren fonemak sartzen dira. **Isabel Arrigain**

okote iz pinu mota erretxintsua, zuziak egiteko erabiltzen dena.

Ez dute *ocoterik* ekarri, **okotea** bustirik dagoelako; ezta arte-lurrik ere, hura ere bustirik dagoelako euriteaz. **Juan Garzia**

okots ik **okotz**.

okotz (orobat **okots**; *Euskaltzaindiaren Hiztegia* **kokots** agertzen da) iz kokotsa.

Pijama altxatu zidan gerritik **okotzera**. **Unai Elorriaga**

Estalkiak hartu, haiekin **okotzeraino** estali eta oheburuan kiribildu nintzen. **Juan Martin Elexpuru**

Tunika eta estalki garbiak ipini zizkion, handitu eta gaztetu egin zuen, beltzarana egin zuen berriro eta **okotzean** bizar beltza ipini zion. **Juan Kruz Igerabide**

Denbora eman zuen bere mihiaz nire pubiseko ilearekin jolasean, **okotzarekin** zabaldu zuen nire potxotxa... **Juan Martin Elexpuru**

okoztar *izlag/iz Okozkoa*.

Garcia Ardantzekoak aita **Okoztarra** zuen, ofizio guziak eginak zituen eta ez aberats haundi haietarik izanki, orai etxejoauntu zen, Oliteko ondoan lurralde ederrak bazituen, ogi, mahats, oliba, fruitu, emaiten zutenak eta horietaz semeak arduratzen ziren. **Michel Oronoz**

okra

1 *okra-belar*

Beheragoko bestean zeudenan luze jotzen zuten gauzak: patata, kalabaza, **okra**-belarra, getozka. **Anton Garikano**

Ogia eta arraina Jainkoaren botereak ziren, eta ez esklabo-ohi batenak, segur aski inoiz ez baitzituen eraman berrogeita hamar kilo baskulara, eta ezta **okra**-belarrik jaso ere, bizkarrean haur bati helduta. **Anton Garikano**

okre 1 *izond* koloreez arituz, hori iluna dena.

Kolore gorri, **okre**, marroiak ziren nagusi. **Iñaki Iñurrieta**

Berez sortuta ateratzen direnak azalduko ditugu lehenengo, hala nola lur horia edo **okrea**, grekoek *ochra* deitzen dutena. **Santiago Iruretagoiena**

Ziklisten tropela, goi-goitik, muino bat igotzen, eta ezkerrean arbolak, berdeak eta **okreak**, eta eskuman hilerrri bat, berdea eta **okrea**. **Unai Elorriaga**

Makalak bai, egon zitezkeen Gaztelan -makal bertikalak horizontal **okre** eta idorraren erdian-, baina beste berderik ez. **Bernardo Atxaga**

Zapata kaxa baten hondoa, beste hainbaten artean aurkitutako argazki **okre** hau adibidez. **Harkaitz Cano**

Kioskoetan sekula salduko ez diren postal **okreak** sakabanatzen dira. **Sonia Gonzalez**

Txokolatea suarekin bigundu eta bota dut tabako artera: polen gozagarria iratze **okreen** artean. **Pako Aristi**

Kolore guztietako alfonbrak, **okreak**, urdinak, arrosak, berdeak, zuriak, gorriak. **Bernardo Atxaga**

• 2 *iz* kolore okrea.

Eñaut bertan zegoen, eguzkiak **okrez** blaitzen zuen landa berdexka batean. **Sonia Gonzalez**

Pintura beltzarekin moldatu eta bukatu behar dira panelak, tartean triangulu batzuk sartuz **okrez** edo bermiloiez. **Santiago Iruretagoiena**

3 (izenondoekin)

Ongi ikusteko, laukizuzen **okre** argi bat bereizi beharko litzateke magma horretatik, bertan obo **okre** argi bat ezarri, eta ginbail **okre** ilun bat erantsi gainean. **Xabier Olarra**

4 irud/hed

Hutsune **okrea** sentitzen ari zela pentsatu zuen, urdin ilunez nahastutako hutsune **okrea**, hain zuzen. **Unai Elorriaga**

Frommen esanetan, haatik, gizabanako berezia suspertzeak, taldearen kontrol mekanismoak ahulduz, urrundu egiten du Luis Berrizbeitiak aipatu "odolaren sinfonia **okre**" aren arriskua. **Markos Zapiain**

5 mea lurkara, burdin oxido hidratatua, margolaritzan erabiltzen dena.

Luzitzaileek **okre** atikoaren kolorea imitatu nahi dutenean, ontzi batean jartzen dituzte ihartutako bioletak, eta sutan egosten dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

Okre oneko mineral puska bat erretzen jartzen da gori-gori dagoen arte; ondoren ozpinarekin itzaltzen denean purpura-kolorea hartzen du. **Santiago Iruretagoiena**

Okre gorrixkoa usu ageri da antzinako hilobi eta tumuluetan. **Pello Zabala**

Okre gorria ere leku askotan ateratzen da, baina onena leku gutxi batzuetan bakarrik, hala nola, Pontoko Sinopen, Egipton, Hispaniako Balearretan eta baita Lemnosen ere. **Santiago Iruretagoiena**

6 (hitz elkartuetan)

Ibaiak, hazirik, **okre**-kolorea zuen. **Koro Navarro**

Ilargia elur hura guztia botatzen zuen hodei **okre** koloreko batek estalia zegoen. **Fernando Rey**

Antzinakoek **okre**-lur ugari erabili zuten luzituak egiteko. **Santiago Iruretagoiena**

Okre tinduaren egiteko lurra jausten zen mandotan Lindow menditik behera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

oktaba (orobat **otaba**) 1 *iz* liturgian, zortziurrena; zortziurrenaren zortzigarren eguna. **ikoktabario**.

Oktabak eta Sanjuanak juntu antzean tokatu ziren urte batean, aste bakar batean lautan jota daude Sakabi eta Elgeta, panderorik gabe, Aittola gaineko Mugarriko ordekan, txabolako teiletu gainera igota. **Iñigo Aranbarri**

Heletan, Iholdin eta hor gaindi, aspaldiko ohidura ederra berme, distira berezi bat emaiten zaiote Besta-Berri eta **Otabari**. **Herria**

Ondoko igandean, **Otabaz**, berdin eginen da Aiherran herriko bestakari! **Herria**

Igande huntan, **Otaba**, aratsaldeko 3.30etan, beti Uztaritzeko txarangak airosturik. **Herria**

Helduden igandean, Besta Berri **Otaba** ospatuko da Ortaizen. **Herria**

2 eskala diatonikoa osatzen duten zappi noten eta lehenengoaren goiko kideak osatzen duten multzoa; hots baten maiztasuna bikoiztean edo erdira ekartzean gertatzen den hotsa.

Hori dela medio soinuaren goialdean bi botoi gehiago jartzeko ideia etorri zitzaion: osatu gabeak zituen bere bi **oktabak** eranstea. **Koldo Izagirre**

Honenbestez, bi **oktabako** eskala kromatikoa osatu zuen. **Koldo Izagirre**

Hatz lodiarene eta erakuslearen artean **oktaba** baten tarte hartzen nuen doi-doi. **Harkaitz Cano**

3 liburu eta kidekoetan, paper kaier baten zortzirenaren tamaina.

Denetan gogokoena *Directorium Inquisitorium* obraren **oktabako** edizio txiki bat genuen, Eymeric de Gironne domingotarrarena. **Koro Navarro**

oktabario *iz* zortziurren batean egiten diren deboziozko praktikak.

Eguberri garai honek bere **oktabario** edo zortziurrena izan ohi zuen, ez oso antzina. **Pello Zabala**

oktabilla *iz* tamaina txikiko propaganda-orria.

Haietako batean ezagutu zuen Santos, kide komunista batzuekin **oktabillak** banatzen, eta nola hurbildu zitzaion orrixa urdin bat eskainiz. **Josu Landa**

oktaedro *iz* zortzi aurpegiko poliedroa.

Kuboa, sei aurpegiak karratuak dituena; **oktaedroa**, alegia, bi piramide berdin, haien oinarri karratuetatik itsatsiak, zortzi aurpegiak triangelu aldeak dituela. **Jon Muñoz**

oktagono ik **oktagono**.

oktanaje *iz* gasolina batek duen oktano ehunekoa.

Momentu honetan **oktanaje** altuko gasolinarekin ari da 'ni'-a bustitzen eta sua emango dio, hemen bertan, mundu guztiak ikusteko moduan. **Berria - Kultura**

oktano 1 *iz* erregai baten ezandarako eragozpena neurtzen duen unitatea.

95 **oktanoko** gasolina litroak batez beste 1,047 balio du, eta gasolioak 0,96 euro.Merkatzearekin, 95 **oktanoko** berunik gabeko gasolina litroak, batez beste, 90,5 zentimo balio ditu, 98 **oktanokoak** 99,2 eta 97 **oktanoko** superrak 97,7. **Berria - Ekonomia**

92 zentimo inguru berunik gabeko 95 **oktanoko** erregai litro baten truke. **Berria - Ekonomia**

Berunik gabeko 95 **oktanoko** gasolina, berriz 12 zentimo garestiago ordaintzen da egun. **Berria - Ekonomia**

Deposituko tapoia kendu eta 95 **oktanokoa** botatzen dudana bitartean. **Mikel Hernandez Abaitua**

2 oktano zenbaki erregai baten ezandarako eragozpena neurtzen duen zenbakia.

Alde batera utziko dut, hortaz, Tomek bidearen beste aldean zegoen gasolindegitik latontzi bete gasolina **oktano-zenbaki** handiko nekez ekarri zuelako kontua **Oskar Arana**

oktastilo (*orobat oktostilo*) *izond* tenpluez, tenplu atariez eta kidekoez mintzatuz, aurrealdean zortzi zutabe dituena.

Era honetako adibiderik Erroman ez dago, baina Atenasen Jupiter Olinpikoaren tenplu **oktastiloa** dago. **Santiago Iruretagoiena**

Ondoren, eta berdin tetrastilo, hexastilo edo **oktastiloen** kasuan, zati horietako bat hartu eta hori izango da modulua. **Santiago Iruretagoiena**

Tenplua eraikitzeko izango den lekuaren aurreko aldea bana bedi, tetrastiloa izan behar badu, hamaika eta erdi zatitan, plintoak eta koloma-oinarrien proiektzioak kontatu gabe; sei kolomakoa izango bada, bana bedi hamazortzi zatitan; **oktostiloa** izango bada, bana bedi hogeita lau eta erdi zatitan. **Santiago Iruretagoiena**

okteto *iz* zortzi musika-tresnarentzako musika lana.

Mendelsshon hari zortzikoteak Felix Mendelsshonen Harirako **Oktetoa** op. **Berria - Kultura**

oktogonal *izond* oktogonal bat osatzen duena.

Atenasen marmolezko dorre **oktogonal** bat eraiki baitzuen, eta oktogonalaren alde bakoitzean haizeen irudiak jarri baitzuten bakoitzak nondik jotzen zuen markatuz.

Santiago Iruretagoiena

Erdiko marmolgune **oktogonallean** etzanda zegoen, ahoz gora. **Jon Arretxe**

Ile-xerlo horailak ageri zitzaizkion bere kapelu **oktogonalaren** azpitik. **Koro Navarro**

Behean, dorre karratu bat, hirurogeita hamar metro garai, bloke itzelez egina; haren gainean, bigarren dorrea, **oktogonal**, aurrekoa baino ia bi bider txikiagoa; eta haren gainean, berriz, hirugarrena, askoz ere finagoa, zilindrikoa, hamar metro garai. **Jon Muñoz**

oktogonal (*orobat oktogonal g.er.*) **1** zortzi aldeko poligonoa.

Karratu batean inskribatutako **oktogonal**. **Jon Muñoz**

Atenasen marmolezko dorre oktogonal bat eraiki baitzuen, eta **oktogonalaren** alde bakoitzean haizeen irudiak jarri baitzuten bakoitzak nondik jotzen zuen markatuz.

Santiago Iruretagoiena

Lau metroko garaiera eta 16 metroko diametroa duen **oktogonalak** lau ate handi dauzka, eta lau orduz egongo da irekita egunero. **Berria - Kultura**

Horiek guztiak egin direnean, jarri gnomoa **oktogonalaren** angeluen gainean, eta horren arabera zuzenduko dira kaleen norabideak. **Santiago Iruretagoiena**

2 (hitz elkartuetan)

Oktogonal forma du, erabat urdinez dago margotua. **Berria - Kultura**

«Baina ez dut uste Hungaria ongi prestatuta dagoenik», adierazi du Livia Freik, **Oktogonal** Plazan, «burokrazia handia da oraindik eta erakunde publikoetan jende gutxi da gai atzerriko hizkuntzetan hitz egiteko». **Berria - Mundua**

oktokordio iz

Horren luzeran erreten batzuk jartzen dira: organoa tetrakordioa baldin bada, lau; hexakordioa bada, sei; **oktokordioa** bada, zortzi. Berria - Iruretagoiena

oktostilo ik oktastilo.

okular izond optika-tresnetan, leiar edo leiar multzoa, behatzaileak begia aurrean gertatzen dena. ikobjektibo².

Kalkulu hori arras eraztu zen, eta automatiko bilakatu zen, argazkiarekin: argazki-makina bikoitz sinkronizatu bat hartu eta bi objektiboak begien arteko distantzia berera jarririk, eszena beraren bi ikuspegi zertxobait aldenduak hartzen zituzten bi plaka atera zitezkeen; aski zen, gero, **okularrak** elkarrengandik distantzia hartara jarrita zituen ikusgailu batetik begiratzea, eta sakontasun-efektu handia eragiten zen. Josu Zabaleta

okulista (orobat okulizt g.er.) iz begietan espezialista den medikua. ik oftalmologo.

Maputon zazpi **okulista** daude, Kuban ikasitakoak denak. Berria - Gaiak

Koloreen konbinaketa gustukoa ez duenari nork ordainduko dio **okulista**? Anjel Lertxundi

Okulista batek egiaztatu zidan ez zegoela nire ikusmena arazo horren muinean. Joxan Elozegi

Pentsa dezagun nolako eragina izango lukeen gure poltsikoan, esate baterako, etxebizitza eskuragarri balego, edota haurtzaindegi publikoak, dentista edo **okulistak** doan bagenu. Berria - Ekonomia

Okulista eta begizainek bera dute zaindari; baita elektrizistek ere. Pello Zabala

Atzo Anneren bista beste gairik ez zen izan etxe honetan, amak Kleiman andreak **okulistarengana** eraman nintzan proposatu zuelako. Josu Zabaleta

Block-eko erizaina otoiztu nuen lagun nezan kanpalekuko **okuliztera**, hau ere presoan, hungariarra, frantsesa ontsa emaiten zuena. Marzel Etxehandi

okulizt ik okulista.

okultismo iz zientzia ezkutuen eta horiei dagozkien praktiken multzoa.

Erdi Aroaren aurreko ahoko transmisioko hainbat higikundetan dago Kabalaren jatorria, fedea eta mistizismoa sineskeria eta **okultismoarekin** lotzen baitziren haietan, jainkotasunera iristeko bidetzat harturik. Koro Navarro

Marrak egin, marrak endredatu, giza gorputzaren zatiak ahalik eta **okultismo** gehienez ensanblatzen. Joseba Sarrionandia

Bere gaztaroa zedarritu zuten behar sexuak, zalantza ideologikoeak eta **okultismoko** esperientziek gorpuztu dituzte pertsonaiak. Berria - Kultura

okultista iz okultismoan aritzen dena.

Sekta **okultisten** gaineke ikerketa, Urtxipiaren hilketaren eragile. Aingeru Epaltza

Sekta sataniko eta **okultisten** gaineke zaborreriaren ondoan, gainera. Aingeru Epaltza

Litekeena da Egunkari honek eskatuta hiriko sekta sataniko eta talde **okultisten** gainean egiten ari zen ikerketa Anjel Urtxipiaren hilketaren nahigabeko eragile gertatu izana. Aingeru Epaltza

okume 1 iz Afrikako zuhaitza, zurgintzan oso aintzat hartzen den zur arin eta arrosa-kolorea duena(*Aucoumea klaineana*).

Nik portuko usainak dauzkat sudurraren memorian: kakaoa, fuela, herdoila, arrain usteldua, gatza, cock ikatza, platanoa, **okumea**, kafea [...]. Berria - Kultura

Gineako **okumearekin** ari ginen eta material horrekin erne ibili beharra daukagu, zama desberdina izaten da jasoaldi bakoitzean eta abiada ongi erregulatuta jaso behar dira. Koldo Izagirre

Tximeleta formako figuratxoak: kartoizkoa bat, plastikozkoa bestea, burdinazkoa hurrengoa, zurezkoa edo **okumezkoa** hurrengokoa... gutxienez hamar tximeleta, gai desberdinez eginak denak. Bernardo Atxaga

Agian garai hartan geratu naiz iltzatuta, agian haurtzaroko kaiolatik irten ezinik geratu zait arima, nahiz eta orain, **okumezko** ganibetaren orde, boligrafo bat izan nire krimenak burutzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Fruta-kaxa apurtu bateko **okume** -xafila pare iltzatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai batean, fabrikako solairu guztia espazio bakarra omen zen eta gero, **okume** txapazkoak diruditen egurrezko paretekin banatu zutenean, alde hartan geratu bide zen animalia barrokoa. Harkaitz Cano

okupa 1 iz indarrean dagoen legearen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartzen duen pertsona. iksquatter.

Denok taldea gindoazen: Kubaren aldekoak, **okupak**, komunistak, feministak, banakoak... **Okupek** Poliziaren bisitaren zain daudela jakinarazi zuten. Berria - Euskal Herria

'**Okupen**' kuartela. Berria - Euskal Herria

Okupa belgikar batzuekin ari zen Ane, bere ingeles maila erakusten. Unai Iturriaga

Urgull mendiko **okupa** nintzen, desanparoaren beldurrik gabe, bakardadeak ez ninduen izutzen, ezta ilegaltasunak ikaritzen ere. Pako Aristi

Martxa honetan Euskal Herrian / geroa dugu arraro, laster **okupak** egongo dira / Ertzainak baino gehiago. Berria - Kultura

Herrizaingo Sailaren oharren arabera, gaztea baserri batean atxilotu dute; **okupa** moduan bizi zen baserri batean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Uda gau batez neska **okupa** bat ezagutu zuenetik neska horren heriotzerainoko bidaian Chrisek mutiko izateari utziko dio eta gizon bilakatu. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Okupa itxura zuten, nolabait esateko. Juan Luis Zabala

Horien artean, **okupa** taldeak, deportazioen aurkako taldeak, ikasleak eta langileak daude. Berria - Mundua

okupamendu iz okupatzea.

Milafrangako elektrika postu nagusiaren **okupamenduaz** hitzik ez du nagusiak erran, aldiz, "Robin des Bois" izenarekin ezagutuak diren elektrika emaita eta tarifakzio merkeagoek EDF-aren itxura bihozatuna hedatzen dutela erran du. [Herria](#)

okuparazi, okuparaz, okuparazten du *ad* okupatzera behartu.

Urrats ona da lan horietan arrazatea gure gazteak, zeren erakutsi behar baitzaioete laneko gustua eta gehiago dena bakantzetako denboran horien **okuparaztea** ez baita lan txarra. [Herria](#)

Nork daki burgesiak ez duen etorkizunean **okuparaziko** ! [Koldo Izagirre](#)

okupatu, okupa(tu), okupatzen 1 du *ad* toki bat hartu bertan gelditzeko, bereziki indarrez. **iksquattatu**.

Naziek Varsovia **okupatu** zuten garaian. [Pablo Sastre](#)

Italia iparralde osoa alemaniarrek **okupatu** dute. [Josu Zabaleta](#)

Irak inbaditzeak eta **okupatzeak** handitu du eraso terroristen arriskua. [Berria - Mundua](#)

Inguruko mendiak oro **okupatu** dituzte: Mendizorrotz, Arratzain, Buruntza, Santiago-mendi. [Txillardeggi](#)

Batefik, Brandeburgoko atea **okupatu** genuen, eta, bestetik, Alexander Platz telekomunikazio dorrera igo ginen. [Edurne Elizondo](#)

Okupatutako sailean ordena publikoa mantentzea. [Jokin Urain](#)

Gaur arratsaldean Txuspo Poyo delako batekin geratu naiz: erdi **okupatutako** fabrika batean espazioak alokatzen omen ditu Brooklynen. [Harkaitz Cano](#)

Txikiarekin gertatu zen bezala, guardia zibilek erabat **okupatu** zuten herria Txatoren hileta-egunean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Errazionamendua, grebak eta kaleak militarri **okupatuak**. [Joxe Azurmendi](#)

Baina, bizitoki eta kale, errepide eta ola, laborantza eta larre, terreno gehiena gizakiak **okupatu** dio lurrari. [Pello Zabala](#)

2 toki jakin bat hartu.

35 gaztek Bilboko udaletxea **okupatu** dute, Santutxuko Sorgintxuloren alde. [Berria - Euskal Herria](#)

Mauleko lizeoko gurasoek eskola **okupatu** dute ahalbideen murrizketa salatzeke. [Berria - Euskal Herria](#)

Elkartearen ustez, lur horiek ezin dira **okupatu** etxebizitzak egiteko. [Berria - Euskal Herria](#)

Bi bezero haizatu zituen **okupatzen** zuten mahaitik. [Elena Touyarou](#)

Ordea, komunak ere **okupatuta** zeuden: begiak itxia, zigarroa ezpainetan, lau plazak lau jubilatuk hartuta zeuzkatzen. [Pablo Sastre](#)

Gizonezkoena **okupatuta** zegoela, eta emakumezkoen komunean sartu nintzen aurreko batean. [Joxerra Garzia](#)

Atrakaleku hobereak **okupatuta** daude. [Joseba Sarrionandia](#)

Martxoaren lehena: 20 unibertsitate greban, 13 **okupatuak**. [Berria - Ekonomia](#)

Ping-pong saiorik ezin, mahai biak **okupatuta** baitzeuden. [Joxe Austin Arrieta](#)

Haitza ez zen euren ohe zabalak baino handiagoa, baina bazekiten zelan **okupatu** ahalik eta lekurik gutxiena. [Julen Gabiria](#)

Emakume horrek normalean ohe horretan egiten du lo eta zuk **okupatu** egin duzu, bere semearekin batera, seme kutunarekin batera. [Sonia Gonzalez](#)

Apartamendu horiek oro **okupatuak** direa gaur egun? [Herria](#)

3 irud/hed

Idazle izanik, **okupa** dezakezu espazio garrantzitsu bat, nola ez, baina ez dut nahi arrisku hori hartu. [Ana Urkiza](#)

Eta bost urtez, moduz eta enpresarako probetuz **okupatu** zuen aulki hura. [Bego Montorio](#)

4 (era burutua izenondo gisa)

Orain ez dira juduak kontua, Holanda guztia da, Holanda eta Europa **okupatu** guztia. [Josu Zabaleta](#)

Bera hasi baitzen lurralde **okupatuetan** *maisons de la culture française* zabaltzen, propaganda eta espioitza egiteko. [Pablo Sastre](#)

Gaza eta Zisjordania lurralde **okupatuetan**. [Berria - Mundua](#)

Armendaritzek markatzen zuen gune **okupatuaren** eta askearen arteko muga. [Eneko Bidegain](#)

Bordele hiri **okupatu** zen, eta jendeak izua gordeta eraman beharrean, izuak zeraman jendea, ez gordeta, agerian baizik. [Felipe Juaristi](#)

Italia herri **okupatua** zen, Polonia bezala, Jugoslavia bezala, Norvegia bezala. [Juan Garzia](#)

5 indarrean dauden legeen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartu.

Euskotreneko geltoki zaharra **okupatu** dute Zazpikaleetan. [Berria - Euskal Herria](#)

Herenegun Baiona Ttipiko bizileku huts bat **okupatu** zuten eta norbaitek bertan jarraituko du bizitzen, okupatzaile bezala. [Berria - Euskal Herria](#)

Gazte Asanbleak gaztetxe berria **okupatu** du. [Berria - Euskal Herria](#)

Okupatu zutenetik, gaztetxeak gorabehera franko izan ditu hamar urtean, era guztietako gazteak pasatu baitira bertatik. [Berria - Euskal Herria](#)

Gazteok kudeatutako tokiak behar dugu, eta horregatik **okupatu** dugu etxe hau; ateak zabalik egonen dira etorri nahi duen jende guztiarentzat. [Berria - Euskal Herria](#)

Mendillorri **okupatutako** etxea foralek hustu dute. [Berria - Euskal Herria](#)

6 (era burutua izenondo gisa)

Zigor Kodea alda dezala eskatu dio IUk Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuari, eta ekitaldiak antolatzen eta auzokideen oniritzia duten eraikin **okupatu**en auziak «elkarrizketaren bidez» konpontzeko ahalegina eskatu du. [Berria - Euskal Herria](#)

Azken hamar urteotan hutsik egon den etxe **okupatuarekin** zer egiteko xedea duen galdetu dio ABk Baionako Herriko Etxeari. [Berria - Euskal Herria](#)

Hiru urtez ibili ziren etxe **okupatuz** etxe **okupatu**, hemen hilabete bat, hor aste pare bat. [Sonia Gonzalez](#)

• 7 da *ad* ardura hartu; denbora eginkizun batean eman.

Domaiak beti **okupatua** dela beste norbaitek. [Jose Angel Irigaray](#)

Horretaz **okupatuko** naiz! [Ramuntxo Etxeberri](#)

Emaztea **okupatuko** zen haren uzteaz toki seguruan, lan eta arrisku gutiago beretzat. [Elena Touyarou](#)

Haragia **okupatua** baita doloreari ihardokitzen eta berdin honetaz beraz gozatzen. [Piarres Aintziart](#)

-**Okupatuta** baldin bazagoz, beranduago etorriko naiz. [Josu Landa](#)

Lehen ere, umetan etortzen nintzenez, egun osoa izaten genuen **okupatuta**: orain igerilekua, orain bazkaria, orain jolasa... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ahuldade batek sortu zaigu denbora **okupatuarekiko** morrontza hau: geure buruarekin bakarrik, lasai, bakean eta isiltasunean egoten ez jakitetik. [Pako Aristi](#)

Limosna bila joaten eta morroi-lanetan **okupatzen** zenez, etsenplu ona emanez. [Askoren artean](#)

• 8 du *ad* (norbait) eginkizun batekin hartu.

Presa handiko afera batzuk eduki naute **okupaturik** -moztu zuen. [Elena Touyarou](#)

Zeren lanak beti **okupatzen** du gizona. [Menane Oxandabaratz](#)

9 (era burutua izenondo edo izen gisa) landuna.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako populazio **okupatua** aintzat hartuta, langileen %27 dira enpleguko BGAE bateko bezeroa. [Iñigo Aranbarri](#)

Urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuz gero, %0,69 gehiago ziren Hego Euskal Herriko **okupatuak**. [Berria - Ekonomia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraikin bat okupatu (4); eskola okupatu (7); eskolak okupatu (7); eskolak okupatu zituzten (3); etxe bat okupatu (5); etxe okupatu (7); etxe okupatu batean (3); etxea okupatu (6); frantzia okupatu (4); gaztetxea okupatu (3); herrialdea okupatu (9)

inbaditu eta okupatu (3); iparraldea okupatu (4); irak okupatu (3); lantegi bat okupatu (5); lurralde okupatu (3); lurraldea okupatu (3); mendebaldeko sahara okupatu (4)

okupatu gabeko (3); sahara okupatu (5)

zuloaga eskolak okupatu (4)

herrialde okupatuan (3); irak okupatuan (3)

lurralde okupatueta (10)

lurralde okupatueta (5)

marokok okupatutako (4); okupatutako etxea (3); okupatutako lurralde (5); okupatutako lurraldeetan (7); okupatutako lurretan (5)

irak okupatzea (3)

okupatzeko asmoa (3)

herrialdea okupatzen (8); hiria okupatzen (3); iparraldea okupatzen (5); irak okupatzen (41); irak okupatzen duen (30); lurrak okupatzen (3); okupatzen duen koalizio (27); okupatzen dute (8); okupatzen duten (17); okupatzen duten soldadu (3); okupatzen eta (5); okupatzen zuen (6); okupatzen zuten (5); sahara okupatzen (3)

okupatzaile *izond/iz* okupatzen duena. ik **okupazio 2**.

Armada **okupatzaile** berez handiak are segizio handiagoa ekarri zuen berekin: eskaleak, gaiztaginak, iruzurtiak, pailardak, putazainak, bilaketariak, kausitzaileak eta mota guztietako harrapariak. Aingeru Epaltza

Bagdadeko gobernu **okupatzaileak** Iraketik at kanporatu zuen kate hau 2003ko azaroan. Txema Ramirez de la Piscina

Najafen indar **okupatzaile** eta Al Sadren gerrillari xiiten arteko borrokak oso latzak izan dira egunotan. Berria - Mundua

Indar **okupatzaileak** kanpora dioten kartelak erantsi nituen hiriaeren gunean. Berria - Mundua

Ez dute arerio **okupatzaileen** lagun hurko azaldu nahi. Berria - Mundua

Denera 76 erreportari edo hedabideetako laguntzaile hil dituzte, erresistentziaren erasoetan zein **okupatzaileek** tirokatuta. Berria - Gaiak

Historialariak ezin du seinalatu denboraldi bat, Bosforo eta Helesponton aurrez aurre zeuden itsasertzetako "asiar" eta "europar" **okupatzaileen** artean kultur aniztasun garrantzitsua izan zela esateko modukoa. Iñaki Mendiguren

Hiriko biztanleak ez ziren matxinatu **okupatzailearen** kontra. Aingeru Epaltza

Lehen plamak albiste ditu Berlusconiaren krisia, **okupatzaileek** Bagdadren hildako bost irakiar eta Cipollinik Tourrean izandako erorikoa. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Hor zaude beti, hamar urte iraganik ere, haien oroimenaren atal infinitesimal baten **okupatzaile**. Aingeru Epaltza

3 iz indarrean dauden legeen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartzen duen pertsona.

Herenegun Baiona Ttipiko bizileku huts bat okupatu zuten eta norbaitek bertan jarraituko du bizitzen, **okupatzaile** bezala. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

indar okupatzaile (5)

indar okupatzaileak (7)

indar okupatzaileei (3)

indar okupatzaileek (10)

espainiako indar okupatzaileen (3); indar okupatzaileen (12); okupatzaileen aurka (8); okupatzaileen aurkako (5)

okupatze 1 *iz* toki bat hartu bertan gelditzeko, bereziki indarrez.

Eskola **okupatzeek** aintzina jarraitzen dute asko tokitan, hala nola Donamartiri-Donoztirin, Ezpeletan ea bertze... Herria

Lur **okupatzeek** ez dute ahultzen gobernamentua. Herria

Lur **okupatzeen** karietarat, jendea hasi da hiritik basa-bazterrerat itzultzen. Herria

Hori guzia, dudarik gabe, aintzina eraman duten mugimenduari esker, bai gutun igortze, bai eskola **okupatze**. Herria

2 toki jakin batean egotea.

Memento honetan hotelen **okupatze** tasa %20 da. Berria - Harian

Ospitaleko zerbitzuen **okupatze** indizea %140 eta 150era iritsi dela nabarmendu dute. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskola okupatze (7)

okupazio *(robat okupazione g.er.)* 1 iz okupatzea.

1869an, frantsesen ekimenez, Suezeko ubidea zabaldu zelarik, Egipto gune estrategiko guztiz garrantzitsua bihurtu zen, eta horren ondorioz etorri zen, 1882an, britainiarren

okupazioa. Koro Navarro

Aita xaharra aspaldi hila zen, gerra izan zen bitartean, baina alemaniarren **okupazioaren** aurretik. Fernando Rey

Hots, bada holakoekin aski % 82 irakiar **okupazioe** horren kontra izaiteko. Herria

Zapalkuntza, menderatzea eta **okupazioa** jasaten dituzten herrialdeen ingurumena eta baliabide naturalak babestu egin behar dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Okupazioaren garaian eman zuen argitarara bere lan filosofiko ezagunena: *L'Étre et le Néant* (1943, Izatea eta Ezereza). Monika Etxebarria

Ez zuela udaltxearen **okupazio** sinbolikoan parte hartu deklaratu zuen Barandiaranek Tolosako epaitegian. Berria - Euskal Herria

Japonia pasiboki zetzan Mendebaldeko botere handienaren **okupazio** militarren pean. Iñaki Mendiguren

Hainbat aldiz **okupazio** militarrek pairatu zituen, eta 1845ean konfiskatu zieten fraideei, nahiz eta gero itzuli. Berria - Kultura

Zerrataz mehatxatuak diren herrietako eskoletako arduradunek, estatuaren erabakiei kontra egiteko orduan, abertzaleen ekin moldeak baliatzen dituzte: **okupazioak**, manifestazioak, agiriak... Itxaro Borda

Okupazio berriekin erantzun diegu kaleratzei. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **okupatzaile**.

Okupazio indarrak ez dira Iraketik erretiratu. Berria - Harian

-Holandako alemaniar **okupazio** indarrekin bat eginda zegoen polizia taldea. Hargatik, **okupazio** armadek arrastatze handiak obratzen zituzten barnealdeko sasi eta xaretan. Josu Zabaleta

San Sebastian eguneko 'Danborrada' famatuak XVIII. mende bukaerako eta XIX.aren hasiera aldeko **okupazio** tropen desfile eta erretreta arranditsuak gogoratzen ditu. Askoren artean

Itoizko solidarioen **okupazio** ekintzak ahal guttikoak agertu dira parean zaukaten buldozer eta foruzainen indarkeriaren kontra. Herria

Lan horrek **okupazio** garaiko Frantziaren miseriak eta loriak azaltzen ditu. Berria - Kultura

Oren anitz jarriekin eta gero eta gehiago mintzatzaren ziren **okupazio** garaiaz. **Eneko Bidegain**
Laster, hilabete batzuk barru, **okupazio** akta egingo dugu. **Berria - Euskal Herria**

3 indarrean dauden legeen kontra, etxebizitza edo lokal bat, bizitzeko hartzea.

Bilboko **Okupazio** Mugimenduak deituta, 35 gazte Bilboko udaletxean sartu eta hango balkoian egon ziren atzo, Santutxuko Sorgintxulo gaztetxea desagertzearen kontra daudela adierazteko. **Berria - Euskal Herria**

4 toki jakin batean egotea.

Duela bi urte bezalatsu, %90eko **okupazio** maila izan zuen Bilboko Euskalduna jauregiak 2005ean. **Berria - Kultura**

Atzo **okupazio** datu horrek mesede egin zioten. **Berria - Ekonomia**

Presondegi batzuen **okupazio** kopurua %125,4koa da. **Berria - Euskal Herria**

5 lan jarduera; landuna izatea.

Adibide horrek oso argi ikusarazten du langile espezializatuen denbora osoko **okupazioa** ez dela errentagarria gertatzen, baldin salmenta kopuru jakin batetik gora ez bada. **Koro Navarro**

Okupazio tasa inoiz baino handiagoa da, eta langabeziak behera jarraitzen du (%7,6 da gaur egun). **Berria - Ekonomia**

Langabezia %0,3 handitu arren, jarduera eta **okupazio** emaitzetan oinarritu du iritzi baikor hori Gobernuak. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako **okupazio indarrek** (3); **israelgo okupazio indarrek** (3); **nazioarteko okupazio indarren** (3)

okupazio erraldoia (5)

okupazio indar (13); **okupazio indarrak** (70); **okupazio indarrak erretiratzeko** (3); **okupazio indarrei** (46); **okupazio indarrek** (180); **okupazio indarren** (178); **okupazio indarren buruzagi** (3); **okupazio indarren egoitza** (3); **okupazio indarren eskutik** (5); **okupazio indarren presentzia** (3); **okupazio indarrentzat** (6); **okupazio indarretako** (13); **okupazio indarretan** (3); **okupazio militarra** (5); **okupazio militarra** (3); **okupazio militarren** (4)

okupazio sinboliko (3); **okupazio sinbolikoan** (3); **okupazio tasak** (3); **okupazio tropak** (3); **okupazio tropek** (4); **okupazio tropen** (8)

irako okupazioa (20); **irako okupazioa abiatu** (3); **iraken okupazioa** (40); **iraken okupazioa abiatu** (4); **israelen okupazioa** (3); **lurralde palestinarren okupazioa** (3); **lurren okupazioa** (3)

okupazioa abiatu (18); **okupazioa amaitu** (6); **okupazioa amaitzeko** (3); **okupazioa bukatu** (5); **okupazioa bukatzeko** (8); **okupazioa defendatu** (3); **okupazioa dela eta** (3); **okupazioa hasi** (11); **okupazioa justifikatzeko** (4); **okupazioa salatu** (6); **okupazioa salatze** (4); **palestinarren okupazioa** (3)

aeben okupazioak (3); **iraken okupazioak** (6); **israelen okupazioak** (4); **okupazioak eragindako** (3); **okupazioak jarraitzen** (3)

alemaniarren okupazioan (3); **iraken okupazioan** (3)

okupazioarekin amaitu (3)

irako okupazioaren (9); **iraken okupazioaren** (16); **iraken okupazioaren aurka** (4); **iraken okupazioaren aurka** (3); **iraken okupazioaren kontrako** (4); **israelen okupazioaren** (6)

okupazioaren alde (9); **okupazioaren aldeko** (15); **okupazioaren aldeko mugimendua** (6); **okupazioaren amaiera** (3); **okupazioaren aurka** (25); **okupazioaren aurkako** (20); **okupazioaren behatokiko** (4); **okupazioaren behatokiko zuzendari** (4); **okupazioaren bukaera** (3); **okupazioaren eta** (13); **okupazioaren historia** (4); **okupazioaren kontra** (13); **okupazioaren kontrako** (20); **okupazioaren menpe** (3); **okupazioaren ondoren** (7); **okupazioaren ondorioak** (3); **okupazioaren ondorioz** (4)

okupazioari aurre egin (4); **okupazioari aurre egiteko** (6); **okupazioari aurre egiten** (3)

okupazione ik **okupazio**.

okurrente *izond* asmotsua, ateraldiak dituen.

Intimitatean, ordea, koraza horiek galtzen zituenean [...] arras bestelakoa izaten ere ba omen zekien, zorrotza, **okurrentea** eta umore onekoa. **Joxean Agirre**

Gainera, zure hizkuntzan **okurrente** izatera ohitua, ez da erraza hitzen despentsara joan eta bertan murraila batekin topo egitea. **Harkaitz Cano**

okurrentzia *iz* burutazioa. ik **ateraldi**.

-Artea **okurrentziatik** hain gertu dagoenean artista nor den eta nor ez den bereizten saiatu beharko genuke... -Francis azken sakatuak ematen ari da zigarroari. **Harkaitz Cano**

Kontatu ahala sortzen zaizkion **okurrentziak**, burutazioak, hipotesiak txertatzen dizkio kontaketa hariari. **Iñaki Iñurieta**

Noren **okurrentzia** izan da? **Pako Aristi**

Okurrentzia ona iruditzen al zaik ordu hauetan lagunak ohetik ateratzea? **Pako Aristi**

Joan den asteburuan, urrutira jo gabe, elur masa handiegia erori zela lurralde hauetan eta, zein izango esku pilota «zuzentzen» dutenen azken **okurrentzia**? lau ordu eskas falta zirela Gasteizko jaialdia hasteko, jaialdia bertan behera uztea. **Berria - Kirola**

okurritu, okurri, ikurritzen da *ad* bururatu, burutik pasatu.

Inspirazioa txorrada bat da, konforme, baina batzuetan zerbait **okurritzen** zaizu edo ez zaizu **okurritzen**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nori **okurritzen** zaio arratsaldea pareta zazar batean soka batetik zintzilik pasatzea? **Pako Aristi**

Auskalo nori **okurritu** zitzaion jolas horrena. **Iban Zaldúa**

Nori **okurritzen** zaio lanparak piztea! **Patxi Zubizarreta**

Zuri ere **okurritzen** zaizkizu... **Pako Aristi**

Ezta **okurritu** ere. **Patxi Iturritegi**

Pentsatu zuen espazio horretan bertan egon zela neska minutu batzuk lehenago, intimitatean, eta **okurritu** zitzaion biak batera ere -neska eta Matias- elkarrekin egon zitezkeela bainugelan, naturaltasun osoz. **Unai Elorriaga**

Bestela bizitza arrunta izan zuen Gaudík, Familia Santua eta Güell Parkea **okurritu** zitzaizkion arren. **Unai Elorriaga**

Okzidente *iz* mendebaldea. ik **mendebalde 3**.

Gure gaurko **Okzidenteko** birtualizazio eta merkantilismoaren kontra. **Herria**

Baina hori, **Okzidente** aberatsak ahanzia du... **Ana Urkiza**

okzigeno ik **oxigeno**.

okzipital *izond* okzipuzioaren aldean dagoena.

Hirurogei urteko emakume baten kasua azaldu zuen: ezkerreko hemisferioko lobulu **okzipitalean** erasan zion apoplexiaren ondorioz, grisaren gamako koloreetan ikusten hasi zen beraren ikus-eremuko eskuinaldean zegoen guztia. **Xabier Olarra**

okzipuzio iz garondoa.

Izan ere, noiz eta Mignoni gibelesko ile-xerloak jaso eta **okzipuzio** ile gabeen eman bainion musu, dar-dar batek hartu zuen hura, eta bertze dar-dar batek ni. **Joan Mari Irigoien**

okzitan ik **okzitan**o.

okzitandar ik **okzitan**iar.

okzitanera ik **okzitan**iera.

okzitan**iar** *(orobat **occitan**iar g.e.r., eta **okzitandar**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **okzitan**iar agertzen da) izlag/iz* Okzitanikoa, Okzitanari dagokiona; Okzitaniko herritarra.

Iragan ortziraletan -irailaren 21ean- baginuen mintzaldi interesgarri bat **okzitan**iar hizkuntzaz Gilabert Narioo-rekin. **Herria**

Dantzaldia, **occitan**iar, xiberotar, nafar, uztariztar, paristar sonülariak harrotürrik... **Herria**

Euskal eta **okzitan**iar dantzariekin. **Herria**

Emazteari maitalearen bihotza jatera ematen dion senarraren elezaharra XII. mendean zabaldu zen Europan barrena Guilhem de Cabestanh **okzitan**iarren kantu bati esker. **Martin Anso**

Berdeen eurodiputatu Gerard Onesta **okzitan**iarrekin. **Berría - Harian**

Lapurdi eta Nafarroa Behere osoa Baionako arrondizamenduan batu zituen, eta Zuberoa, aldiz [...] **okzitan**iarra den Olorokoan sartu zuen. **Koldo Zuazo**

Alderdi **Okzitan**iarra (POc). **Berría - Euskal Herria**

Oso kontuan eduki behar da, bestalde, Santiagoko bidea indartu nahi izan zela XI. mendearen bigarren erdian, eta erbesteko hainbat lagun ekarri zen azpiegitura sendotzera: **okzitan**iarrak eta frankoak, batez ere. **Koldo Zuazo**

Katalan, euskal herritar, sardiniar, eskoziar eta **okzitan**iarrek beren esperientziak alderatzeko aukera izango dute. **Berría - Mundua**

Hemen gaingiko gaskoien artean aspaldian bada eztabaida bipila: gaskoiak **okzitan**darrak direa bai ala ez? **Herria**

Horrez gain, **okzitan**iarrek 29 entsegu gehiago egin dituzte. **Berría - Kirola**

okzitan**iera** *(orobat **okzitan**era; Euskaltzaindiaren Hiztegian **okzitan**iera agertzen da) iz* Okzitaniko latin hizkuntza.

Geroztik haatik, hizkuntzaren batasuna doi bat galdu da, eta gaur egun lau azpi-mintzaira bereixten dira: gaskoina (Garona ibaiaren pekaldean), probentzala, Languedoc eskualdeko mintzaira, eta ipar-**okzitan**iera (Auvergne-Limousin eskualdean). **Herria**

Mistralek literatur nobel saria irabazteak ez zuen **okzitan**iera salbatu. **Mikel Hernandez Abaitua**

Kontseilu Nagusiak 1.050.000 euroko aurrekontua bozkatu duela euskara eta **okzitan**iera sustatzeko. **Berría - Euskal Herria**

Era berean, Aran Bailarako hizkuntza ofizial gisa onartzen du aranesa (**okzitan**ieraren aldaera). **Berría - Mundua**

Mintzaldia doi bat **okzitan**ieraz bainan gehiena frantsesez, sartzea urririk. **Herria**

Euskaraz, bretoieraz, **okzitan**ieraz edo katalanez idazten den literaturan. **Ana Urkiza**

Bernard Manciet **okzitan**ierazko poetaren (1923-2005) omenezko argitalpena. **Berría - Kultura**

okzitan**o** *(orobat **okzitan** g.er.) 1 izlag/iz* okzitaniarra.

Mintzaldia: "Okzitanieraren egoera gaur", **Okzitan**o Erakundearen zuzendari den Jordi Fernandez Cuadrench hizlari. **Herria**

Okzitan Kultur Erakundearen adarra Angelun ezarria izan da, hain zuzen Gaskoin eremuan. **Herria**

Azken 40 urte hauetan, **okzitan**o militante batzu entseatu dira politika sail indartsu baten bultzatzera... **Herria**

Munduko musikak (**okzitan**o, zeltikoa, galizianoa, afrikanoa...). **Herria**

Hizlari izanen dira Jacques Baudouin "Hèstas e pastorales en Baish Ador" elkartearen presidentea eta Institutu **Okzitan**oaren president ordea. **Herria**

Bernard Lesfargues poeta **okzitan**oaren inguruan antolatutako arats berezia. **Herria**

2 iz okzitan

Hiru mintzaira badituzte, **okzitan**o, gure kaskoinaren idurikoa, española eta katalana. **Herria**

Igandea arrakastatsua izan da, Erramun Caracotche-k zelebratu duen mezatik haste -meza airosa, euskaraz eta **okzitan**oz. **Herria**

Lescar-en osoki **okzitan**oz argitaratzen den "la Setmana" astekariari. **Herria**

ola 1 iz burdin mea landuz burdina egiten zen lantegia. ik**burdin**ola.

Ola, errota, harrobi eta meategi zaharrak. **Juan Luis Zabala**

Pentsa zenbat diru egongo litzatekeen herrialdean, industria zaharrak -**olak**, ontziolak, fabrikak- lanean jarriko bagenitu. **Irene Aldasoro**

Urbaiango **ola** egin beharra zegoan, profitorik, hartarakotz, Laiotzako **olako** hainbat osagarri, nola horma zaharretako harlanduak, hala hauspoak eta labeak. **Joan Mari Irigoien**

Nola **olak** zura beharrezkoa izanen lukeen gau eta egun, zeren, herensuge zintzur-luzeen idurirat, **olak** ere ez baitu bere goseaz nehoiz asetzen, hala [...]. **Joan Mari Irigoien**

XVIII. mendean, Saint-Pée markesa zen **ola** horien jabea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 irud/hed

Baina jakina da, balizko **olak** burdinarik ez! **Berría - Euskal Herria**

Asmo zaharren **olak** beharrezkoa duela ideia berrien hauspoa, burdin produkzioz guztia uhertu eta herdoilduko ez bada... **Joan Mari Irigoien**

3 fabrika, lantegia.

Robleseneko **ola** edo fabrika Ifernuko erreka horretan zegoen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eguna hasi da Orbaizetako **ola** edo fabrikan, ibilaldi batekin Nabalako lepoan gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren Hantxetik, joan den mende erdira arte ehunki latza lantzeko **ola** zenetik, eta egun oraindik "Batango Presa" denekotik, hartuko zuen gero Zortziko zenak ura 1905ean, lehenbiziko aldiz Leitzara argindarra zabaltzeko. Patziku Perurena Eugin bildu esperientzia baliatu zuten arras ontsa Orbaizetako **olaren** eraikitzeko eta ibilarazteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure aitak ere, paper-**olan** ibili arren, atekak itxi eta ireki eta gauean garda lanak egitea besterik ez zeukan buruan. Xabier Mendiguren Elizegi Paper-**ola** kiratsa nabaritzen hasi zenean. Unai Iturriaga Orbaizetako arma **olaren** kantua zela medio, hara joateko autobusak antolatzen ziren Andoainen. Berria - Kultura Badira Luzaiden hiru elektrika **ola** edo fabrika, XX. mende hastapenean eraikiak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

4 ipar etxola.

Pottoko olaltetik abiatürrik, Eitzegaineako **olatik** igaranen gira, Ibarbürüko lepoa heldüren, Ahüzkiko ütürri saihetsetik Bohokorteko tiniala elkiko, Hegilloreko **olala** arrajaisiko, eta Üdoiako **olari** agur egitez, Pottora üngürüz arrajinen. Herria

5 burdin ola ik burdinola.

olaberritar izlag/iz Olaberrikoa, Olaberri dagokiona; Olaberriko biztanlea.

Garai batean, plazaz plaza zabiltzan kantuz Josu Irastorza **olaberritarra** eta Jokin Lasa lazkaotarra. Ezustekoa eman zuten Zozaia lesakarrak eta Sergio gasteiztarrak, eta irabazi egin zieten Berasategi II.a **olaberritarrari** eta Txiki iruindarrari (40-31). Herria

olagarro 1 iz burua arrautza itxurakoa, begi irtenak eta zortzi garro dituzten eta jateko onak diren zefalopodo mota batzuei ematen zaien izena (*Octopus vulgaris* etab.).

Poliki-poliki atera da **olagarroa** arrokaren azpitik, garroak baldarki luzatuz. Imanol Zurutuza Hala ere, oldartu zitzaion Nemo kapitaina **olagarroari**, eta, aizkorakada batez, beste beso bat ebaki zion. Elizen arteko biblia Bai baitzirudien **olagarroek** ura zikindu eta beren ehizakiak lo arazteko erabiltzen duten isurkari lodi horietakoren bat jaurtitzen zizula. Josu Zabaleta **Olagarroa** haiztari bezala lotu zitzaion Fructuoso, harik eta Amanciok dantza-lagun aldaketa eskatu zuen arte. Inazio Mujika Iraola Bere garro luzeekin harrapatu du **olagarro** erraldoietako batek marinel dohakabea, gupidagabeki astintzen du airean. Imanol Zurutuza Haiek ez bezala, berak bai, berak **olagarro** galanta begiz jota zeukan, eta gainera bazekien non aurkitu; ez zuen, ordea, ez amurik ezta amuzkirik ere harrapatu ahal izateko. Migel Angel Mintegi Badakizu nola akabatzen diren **olagarroak**, Isabelle? Harkaitz Cano

2 (jaki gisa)

Igandero-igandero joaten ziren Monumentalera bermut bat egin eta **olagarro** txikiak jatera. Pablo Sastre Gero ribeiroa banatzen dugu, eta **olagarroa** eskaintzen dugu, galegoek bakarrik prestatzen dakiten dastamenari gozo-mina eta hortzari sendo-bera zaion **olagarro** bikain hori. Koldo Izagirre **Olagarro** puska irineztatu eta frijitu goxo-goxoak, Tokion bakarrik ematen dituztenak. Jon Muñoz -Spagetiak, **olagarroa** eta entsalada -jarraitu du deseroso, baina irribarretsu. Patxi Zubizarreta Taloa, sagardoa, **olagarroa**, ribeiroa, pantumaca eta cava dastatzeko aukera izango da. Berria - Kultura

3 irud/hed

Orduan igerian jartzen zituen **olagarroak**, eta mila modutan artikulatutako esku bikain luze haiek hipnotizatu egiten ninduten. Lander Garro Fructuoso atzera **olagarro** -jokoan hasita zegoen Jetrurekin, Amanciori txanda kenduta zakar. Inazio Mujika Iraola

	hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)	
	olagarro erraldi (3)	

olagizon 1 iz ola batean lan egiten duen gizona.

Olagizonak zirela munduan zeuden gizon bakarrak, zeren infernuak zailtzen eta gogortzen baitzituen gizon haiek egunoroz, sutegietako garretan. Joan Mari Irigoien Metalen inguruan, burdinarekin konkretuki zerikusia izan duten errementariak eta **olagizonak**, [...]. Berria - Kultura

olakide iz ola berekoa.

Zure lehengusuaren **olakide** nauzu, eta zuregana jotzeko esan dit Parisko kontuak direla-eta. Javi Cillero

olalte iz ipar etxola baten inguruko bazkaleku edo larrea.

Horiekilan batean eginen dügün ebilaldi zatia hau dateke: Erroimendiko lepoa (1362 m) - Kasernagaine (1454 m) - Erraize gaine (1451 m) - Oronitzeko **olaltea** (1039 m) - Jauregiberriko lepoa (886 m) - Haritxondoko bordak (717 m) - Larraineko karrika (627 m). Herria

olaltesa iz olalteko emakumea.

Faizurik gabeko bazkari honeki, Pistako **olaltesak** nahi dütügu eskertü, turrusta ederraren kantüko olaren baliatzen üzten gütüelakoz eta gurekilan axurki saiheskiak jatera jinen direla esperantxü dügü. Herria

olana 1 iz ehun sendoa eta gogorra, haize-oihaletan, kanpin dendetan... erabiltzen dena.

-Ba al duzu nickelik, Congo? -esan zuen hankak azkar mugitzen ari zela, **olanazko** zapatak oinetan. Lopez de Arana Andereñoaren **olanazko** Oxford txapinek gomazkoa baitzuten zorua. Mirentxu Larrañaga Batzuetan **olanazko** aulkiaren gainean lo geratzen zen eta liburua erori egiten zitzaion. Bego Montorio **Olanazko** aulkian etzanda. Bego Montorio **Olanazko** estalkien azpian, mahai luzeak daude, zapi zuriz estalirik. Berria - Kultura Belardi osoa hartuko dute kalean geratu diren milaka bizilagunei **olanazko** aterpea emateko. Javi Cillero

2 olana zatia.

Esnatzean **olana** berde baten zuzen gutuzen biluzia. Juan Luis Zabala
Olana lodi batek babesten zuen hondartza txikiaren gaineko kafetegian txokolate bana hartzea proposatu diot. Txillardegí
Ordu erdi geroago, **olana** batek gerizpetutako terrazako mahaira jarri berria nintzela, auto handi batetik jausten ikusi nuen. Aingeru Epaltza
Dendaren **olanaren** aterpean, kazkabarraren txinpartak eta haizearen marrumak entzungo dituzu. Joseba Sarrionandia
Hark bazela [eskalera] bat Arkalaren taberna adierazi zion, hartu zuten tabernatik eta harekin eutsi zieten **olanei**, harik eta forma konikoko kanpadenda bat osatu zuten arte. Koro Navarro
Popako kanoia **olana** kentzen ari dira... Lopez de Arana
Jendea lau arboletan loturiko **olana** baten azpian metaturik dago. Aingeru Epaltza
Olana handienaren azpia hartu du jende gehienak etzatokitako. Aingeru Epaltza
Roulotte moduko taberna **olanaz** estalian argiak pizturik zeuden, eta loredu tulipa bat zirudien. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olanazko aulki (3); **olanazko aulkian** (5)

olategi (orobat *olatei*) iz olen gunea.

Ekainaren 3an Bankako etxeeri eta **olategiari** su emaiten dute. Michel Oronoz
Horko olatu nasaia, itsasotik zenbeit kilometretan dire eta pasaia libro utzi behar zen unti kozkorrak **olateietaraino** heltzeko.. Herria

olato ik olatu.

olatu (orobat *olato g.er.*) 1 iz itsas uhina. ik **baga**¹; uhin 6.

Hondartzara jaitsiko ote ginen geunden, **olatuak** ikusteko. Anton Garikano
Han behean **olatuak** hausten ikusten zirela. Joseba Sarrionandia
Olatua haustean ur-zipritinak barreiatzen diren bezala. Jose Morales
Luzeak dira azken hondartzan lehertzen diren **olatuak**. Agustin Otsoa
Kantauri itsasoan, orduko 130 km.-ko haize bilaua nagusitu zen, eta 14 metroko **olatuak** altxarazi zituen. Pello Zabala
Baretu zen azkenik ekaitza, lasaitu ziren **olatuak**, eta belak berriro zabalduz aurrera jo zuten. Felipe Juaristi
Goxoa da, leuna, itsasoko **olatuak** bezala lerratzen da. Pako Aristi
Olatuak sentitzen dira harkaitzen kontra jotzen. Anjel Lertxundi
Ez zenuke bost minuturik ere egingo hemen, **olatu** batek jo eta berarekin eramango zintuzke-eta. Anjel Lertxundi
Han behean **olatuak** arrokei harrokeriaz eta egokortasunez erasotzen dieten artean. Joseba Sarrionandia
Eta uretan zegoen bitartean gozatu egiten zuen eta **olatuak** hartzen zituen. Fernando Rey
Gogor eusten zion enberrari, **olatuaren** atzerakoak ez zezan berriro ere itsasora itzuli. Anjel Lertxundi
Patrizio, lema zuzenduz, hurrengo **olatuaren** zain geratzen zen. Felipe Juaristi
Gau hartan **olatuak** harro zebiltzan itsas pasabide honetan. Pako Aristi
Biharamunean, hondartzara joan nintzen autoz: oskarbi eta bero, eguerdia eta **olatuak** bare. Joxe Austin Arrieta
Olatu bat zetorrelarik, saihetsetik hartzen zuen, eta itsasontzia gora **olatu** bizkarreraino joaten zen eta gero berriro erortzen. Felipe Juaristi
Itsasoaren ertzean eserita egon ginen, **olatu** joan-etorrien errainuei begira. Juan Kruz Igerabide
Ez zegoen ordea **olatu** joan-etorri ohikorik batere, aitzitik, itsasoak astinaldi labur, laster, haserreak jotzen zituen, norabide guztietan. Koro Navarro
Berriro ere isiltasuna, **olatu** hots urruna eta haizearen laztan leuna olatuaren terrazan. Aritz Gorrotxategi

2 (izenondoekin)

Ohartu gabe, itsasoaren erdian gaude **olatu** harrotuen erdian. Berria - Gaiak
Harik eta hurrengo instantean bertan gelditu eta izozten zen arte **olatu** harroen belztasun arantzadunagatik. Anton Garikano
Aurrekoak baino **olatu** indartsuago batek jo zuen dikearen kontra. Anjel Lertxundi
Zure uhin eta **olatu** oldartsuak gainetik igaro zaizkit. Elizen arteko biblia
Egunaren argia moteltzen joan ahala distira gehixeagoz zilarrezatu zituen **olatu** zakarrak. Anton Garikano
Lehengoa Labarpeko **olatu** apartsuak blaitu nindueanean bezalatsu. Txillardegí
Hala itsasoa, haize bortitzek bere lautadei eragiten dietenean, marmol distiratsuzko **olatu** zuri bihurtzen da. Xabier Amuriza
Joniar itsasoko **olatu** urdinak. Jon Muñoz
Idoiaren isiltasun tristeak **olatu** leunen doinua zuen. Juan Kruz Igerabide
Orroa dagi itsasoak, **olatu** handiak harrotuz. Elizen arteko biblia
Batbatean **olatu** handi batek zipritinduko zaitu eta zartakoa sentituko duzu aurpegian. Joseba Sarrionandia
Olatu gaitzen ilarak ez zuen etenik. Txillardegí
Olatu esker ga bat lehertzen hasia ikusi dut aurrealdean. Txillardegí
Portu sarreran **olatu** itsuak barraren kontra lehertzen zirela. Joseba Sarrionandia
Kostaldea ozta-ozta suma zitekeen, tarteka, **olatu** mehatxatzaileez haruntzago. Txillardegí
Itsasoko **olatu** haserreak dira, beren lotsarien aparra botatzen dutenak. Elizen arteko biblia
Olatu goibel berberak lehertzen ikustea asterik aste. Anton Garikano
Olatu jostakinak. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lantxurdaz eta **olatu**-bitsez blai zegoen, baina ez zuen hotzik. Anjel Lertxundi
Olatu-kolpeen edo itsaso zabalaren indarrarengatik. Santiago Iruretagoiena
Olatu-erasoren batek lemari eragitera behartzen zuenean. Anjel Lertxundi
Telebistan ikusiak ditut surfariak **olatu** ganga baten azpian segundo amaiezinak pasatzen. Pako Aristi
Olatu hotsa zabaldu zen eskailerak igotzen zituzten bitartean. Anton Garikano
Itsaso haserrearen **olatu**-burrumba dirudite haren oihu larriek. Elizen arteko biblia
Olatu sailak, lau zapabost lerrotan jarraian leherturik. Txillardegí
Munstrotraz ikaragarri baten lerdea zirudien **olatu**-tontorretako bitsak. Anjel Lertxundi
Goserik daudenean, itsas hondotik irteten zaie kantua; pozik daudenean, berriz, **olatu** gain apartsuetatik... Anjel Lertxundi
Andreasek **olatu**-mazelen kontra zuzentzen zuen branka belaontzia zeruarekin ia bertikal jartzeraino. Anjel Lertxundi

Itxura zuzen arabera, beren **oldarra** segituko dute Mazedoniarrak Albaniar horien haizatzeko beren lurretarik. **Herria**

Zeuk desegin zenuen erraldi indartsuaren **oldarra**. **Elizen arteko biblia**

Zaldia ere urdurituta zeuden arbolapean ekaitzaren **oldar** eta burrundararekin. **Hasier Etxeberria**

Neure gudu-gurdien **oldarrez** mendi-gailurretara igo naiz, Libanoko tontor hurbilgaitzeta. **Elizen arteko biblia**

ik beherago 6. **Askoren artean**

Hainbesteko uhola sortzen baitu hodeiaren urruturak eta haizearen **oldarrak** trumoiaren zartada gorria hegatzten denean. **Xabier Amuriza**

Zeren leku askotan lur zoru gorria suak hartzen baitu eta Etnaren **oldarrak** urruma egiten barrenengo garretatik. **Xabier Amuriza**

Neurriz gaineko pozaren **oldarrari** eusten saiatu zen. **Jose Morales**

Kristautasunaren **oldarrak** garbitu zituen Merkurio zaleen guneak, eta San Migel mendiak etorri ziren horiek ordezkatzera. bi soldadu britainiar hil ziren eta beste bat zauritu zen, Amara hirialdean erresistentzia indarrekin egindako **oldar** batean. **Pello Zabala**

ik beherago 7. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hipnotizatutik amaitu zuen olatuen **oldar** basatiarekin eta ezinbesteko atzerakadekin. Deabruak, **oldar** eta amorru handiz, heldu zioten eta elizan barrera arrastaka eramaten hasi ziren. **Anton Garikano**

Arratsalde hartan berean, **oldar** bortitz batean, Montgommeryren gainerako tropek zeharkatu zuten Ihuri ibaia. **Aingeru Epaltza**

Beharbada biziaz ordainduko zuela bere semearekin ezustean topo egitean harengana bultzatu zuen **oldar** ezin eutsizkoa. **Karlos Zabala**

Frankoen **oldar** kontrolaezina. **Iñaki Mendiguren**

Grinen **oldar** jarkiezina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oldar erretolikatsu bat espero nuen, baina natural bezain gisatsu aritu zait. **Anjel Lertxundi**

Burutapen ezberdinak etortzen zitzaizkion bata bestearen ondoren, eta haien **oldar** nekagarriak guztiz kezkatutik utzi zuen. **Askoren artean**

Ereinotz mendietan zehar haize zirimolek sakaturiko garra zabaltzen eta bere **oldar** handian dena irensten duenean bezala. **Xabier Amuriza**

Nor ere ahalegintzen baita, bere afektu hutsaren eraginez, besteek maita dezaten hark maite duena eta haren jitearen arabera bizi daitezen, hura **oldar** hutsez ari da eta, horregatik higuingarria da. **Piarrés Xarriton**

Edozelan ere, **oldar** biziz eraso zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Oldar ezkutuko batek eramaten zuen nire adimena harengana, hala, batere neurri gaberik. **Hasier Etxeberria**

Ama-alabak elkartu eta berehala, pozezko **oldar** bat izan zen hasieran, baina handik gutxira herrak eta etsaigoak hasi ziren azaleratzen. **Oskar Arana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oldar giroa eutsiezina zen. **Jon Maia**

Zakurretan **oldar**-grinak belauenez belau iraute du. Boz lasaigarria zen, ezta ez nuke erranen, baina bai inolako **oldar** kutsurik gabea. **Gotzon Garate**

Estuarioa hor egongo zela agudo atzera egiteko edozein saio mozteko, baldin eta, bitartean, moriskoen **oldar**-brigadek, inguratze-mugimendua eginez, ez bazituzten lehorreratzeko gabarrak hondatzen. **Jon Alonso**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1898an, ekaitz **oldar** ikusgarria Madrilén. **Pello Zabala**

Horretan, zabaltzen da atea, den bezain zabal, eta sartzen da haurtzaroko lagun on haietako bat haize **oldarra** balitz bezala. **Josu Zabaleta**

Haren izterrendoko zaina teinkatzen sumatzen duenean, gozamen eta irrika **oldar** bat sentitzen du bere barnean. **Oskar Arana**

Han, inork ikusten ez zuelakoan, negar bizian lehertu zen, begiak iturri; otoitz **oldarrek** bizkarra makurrarazten zioten, haize handi batek joa bezala. **Karlos Zabala**

Itxaropen-**oldar** bat, dena egiteko zegoelako sentipena, dena asmatzeko. **Iñaki Iñurrieta**

Herabetasun **oldar** batek erasota, atzeratu egin nuen hari deitzeko unea. **Oskar Arana**

Ez zen, bada, erabat zentzugabea garai hartan geure mugak ezagutzera bultzatzen gintuen gogo-**oldar** hura. **Juan Garzia**

Oroit da jadanik zimeldua daukan bizi-**oldarraz**. **Jose Angel Irigaray**

Alemanek Bastogne eta Anvers-i buruz egin kontra-**oldarra** irabazi bide zuten. **Marzel Etxehandi**

Borreroak aspaldian gainditu zuen hutsalkeriak lapurtzeko barne-**oldar** hori. **Karlos Linazasoro**

5 *oldarrean* (73 agerraldi, 33 liburu eta 19 artikulutan) adlag ik oldarka.

1304ko ekainaren 10ean, sukaldari, tindatzaile, errementari, apaiz eta eskalezko samalda bat **oldarrean** sartu zen [...] Florentziako auzo noblera. **Juan Garzia**

Oldarrean sartuko dira hona, eta zuen etxeak erreko dituzte, zuen haurrak hilko. **Mirentxu Larrañaga**

Arrapaladan irten zen ohetik Jonathan, eta **oldarrean** joan aterantz. **Jon Muñoz**

Bihurgune batean, moto bat zeharka plantatu da eta murru bati kontra joan **oldarrean**. **Herria**

Etsimendua lagun, **oldarrean** abiatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

Oldarrean eraso eginik, gotorlekuez jabetu ziren juduak. **Elizen arteko biblia**

Zenbait zakur ageri ziren hartz bati **oldarrean** ekinez. **Koro Navarro**

Euria egin du, errekaetoak **oldarrean** datoz. **Oskar Arana**

Oldarrean zulatzen du tapiza ezpataz. **Juan Garzia**

Beroaldia **oldarrean** zabaldu zitzaion gorputzeko zoko-moko guztietara, eta sentsazio berri hark ahantzazari egin zion arestiko higuina. **Patxi Zubizarreta**

Nun nahi bada zernahi makur, urak, ikaragarriko **oldarrean**, geriza-diga batzu ere gainditurik eta asko tokitan leher-arazirik... **Herria**

Gero haizeak zergatik abiatzen eta geratzen diren azalduko dut eta nola **oldarrean** zena baretzen den, sumina ematutakoan. **Xabier Amuriza**

Joane Somarriba-k bururaino segituko ote du holako **oldarrean** ?

6 *oldarrez* adlag oldarrean.

Beraz han abiatu nintzen, itsumustuan eta **oldarrez**, zer esan behar nion tutik ere jakin gabe. **Oskar Arana**

Alemaniar gudarostea indarrez eta **oldarrez** ari zen Frantzia sartzen. **Josu Zabaleta**

Baina, nor ere ahalegintzen baita besteak Arrazoiaren arabera gidatzen, hura ez da **oldarrez** ari, gizatasunez eta bihozberatasunez baizik, eta guztiz lasai dago bere buruarekin. **Piarrés Xarriton**

Bi gizon horiek mundu honetan zuten eginkizunera zeharo grinatuta zeuden, eta hudoen irudira atsegin zuten albisterik ustekabekoenen zantzuaren atzetik **oldarrez** abiatzea. **Karlos Zabala**

Medikuak, zorrotz aztertu ostean, **oldarrez** hondoratu zizkion erpu ruak begi-globoen gaineko zulo estalietan, bere gorputzaren zama osoarekin indar eginez. **Mirentxu Larrañaga**

Ideologiak zapalduko joera, **oldarrez** ageri da ezustean. **Markos Zapiain**

7 *oldar* batean

Oldar batean sartu nintzen egongela zabalean, tiro egiteko prest. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako **oldar** (3); **oldar berean** (5); **oldar berri** (20); **oldar berri bat** (11); **oldar egileek** (5); **oldar egin** (10); **oldar egin zieten** (4); **oldar egite** (27); **oldar egiteak** (7); **oldar egiteko** (3); **oldar egiten** (4); **oldar gaitzean** (15); **oldar gaitzean hasi** (3); **oldar handian** (5)

lehen **oldarra** (3)

oldarraren ostean (6)

oldarrean jo (4); **oldarrean sartu** (7)

oldargarri *izond* oldartzea merezi duena: oldartzeko modukoa.

Ager itzazu erruok hain antzetsu, non askatasunaren orbanak dirudiketen, gogo-barren sutsu baten eztanda gartsua, piztia-halaketan bat odol bezatugabea, orori

oldargarri. Juan Garzia

Oldargarria da kondenuatuak izan gaitzen. **Berria - Harian**

oldarka (*27 agerraldi, 19 liburutan*) **1 adlag** oldarrean. ik **oldar 5; oldeka**.

Berrikitan, Parisko jendeak Bastilla **oldarka** hartu eta hango presoak askatu ditu. **Elena Touyarou**

Baina odolaren deia entzuten zuen, oihuka eta **oldarka**. **Felipe Juaristi**

Boxeoa: bi gizon txiki, txikiaren txiki epaileari bularreraino baino heltzen ez zaizkionak, elkarri inguruka, **oldarka**, erasoka ari dira. **Oskar Arana**

Bakar-bakarrik nengoen, baina hirirantz **oldarka** doan jende aldra baten gisa nindoan. **Monika Etxebarria**

Gehiago erranen nion, urtetan erran gogo nizkion guztiak etorri baitzitzaizkidan **oldarka** gogora. **Aingeru Epaltza**

Eta zera gehitu zuen **oldarka**: [...]. **Karlos Zabala**

Barnean zintudan, ni, berriz, kanpotik nenbilen zure bila; eta ni, itxuragabe hau, zuk egindako edertasunetan **oldarka** sartzen nintzen zure bila. **Imanol Unzurrunzaga**

Buru barneko mamurik beltzenak **oldarka**, negar-megar isil batean egin nuen puska luzea. **Aingeru Epaltza**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zutaz ari naizela dirudi, hala jokatu izan baituzu beti, hitz-**oldarka**. **Xabier Montoia**

oldarkeria *iz* oldarrean aritzeko joera gaitzesgarria.

Zakurrek, pertsonak bezala, jarduera makurrak izan litzakete: beldurra, gorrotoa, **oldarkeria**, ero-boladak. **Gotzon Garate**

Gehiengoak larderia eta eta **oldarkeria** du, gutxiengoak diskrezioa. **Berria - Mundua**

Lehen urteak ez ziren errazak izan, hango gizartean erroturiko arrazismoaren **oldarkeria** zela medio. **Berria - Kultura**

Haren **oldarkeria** ozpinari aurre egiteko moldea. **Patxi Zubizarreta**

Saiatzen ari da konturatzeko zergatik, lehen hitzetatik, ezin izan zion **oldarkeriari** eutsi. **Jon Alonso**

oldarketa *iz* oldartzea.

Horiek dute neskatoa **oldarketa** batean salbatu, bahitzaileetarik pare bat hilez naski eta beretzat kalterik gabe. **Herria**

Datu informatiko horiek agerian uzten dute anbulantziari **oldarketa** jazo baino lehenago deitu zitzaiola, eta ertzainek ordubete geroago arte ez zutela gertatutakoaren berri izan. **Berria - Euskal Herria**

oldarki *adlag* oldarka.

Idumean zehar etorririk, inguratu egin zuten Bet-Sur eta luzaro eraso, gudu-tramankuluz baliaturik; baina inguratuek irten eta erre egin zizkieten tramankuluak eta oso

oldarki borrokatu ziren. **Elizen arteko biblia**

oldarkoi (*orobat oldarroi g.er.*) **1 izond** oldarkorra.

Garai hartan asko jaikiko dira hegoaldeko erregearen aurka; haien artean zure herriko gizon **oldarkoi** batzuk ere bai. **Elizen arteko biblia**

Bat gogorra zen, irmoa, **oldarkoia**, zainart, indartsua, izutzen ez zena, beti borrokarako prest. **Gotzon Garate**

Uholdea bezain **oldarkoi**, aitaren ezkon-gelara sartu zara, zeure aitaren ohea lohitz. **Elizen arteko biblia**

2 (adizlagun gisa)

Gaez ibiltzen naizenean [...] gasnategiko argiak ortzaizean jaukitzen zaizkit, **oldarroi**, menperatzaile, beldurgarri. **Itxaro Borda**

oldarkor (*52 agerraldi, 21 liburu eta 24 artikulutan*) **1 izond** oldartzeko joera duena. ik **oldartsu**. (pertsonak)

Francesco gizon harroa, **oldarkorra**, sexuzalea eta menperatzailea zen, eta biolentzia eta bortxa erabiltzea zen gehien atsegin zitzaiona, agintea eskuan zuela erakustea.

J.M. Olaizola "Txiliiku"

Batzuetan sumatu izan dut hitzaldietara-eta joaten naizenean, gizonzkoek halako emakume **oldarkorra** espero dutela, labanarekin joan ohi den horietakoa... **Ana Urkiza**

Langile desatsegin, **oldarkor**, tematiaren erreputazioa lortu zuen ministerioan, eta kasik egunero eragiten zuen liskar edo kalapitaren bat. **Patxi Zubizarreta**

Esaidazu zergatik zaren **oldarkorra** nirekin hitz egiten duzunean. **Jon Alonso**

Gazteak, **oldarkorrek** eta ausartak. **Aitor Arana**

Batean bi pertsona zarela, alegia, gazte sutsu, **oldarkor**, joko eta abenturei gutziz emana, eta aldi berean zure trebetasunetan antze handiko gizona, zorrotz eta serio, arduratsu eta mugarik gabe jantzia. **Eduardo Matauko**

2 (animaliak)

Horretarako zer hoberik zakur **oldarkor** bat baino? **Gotzon Garate**

Beste animalia askorekin gertatzen den bezala, emeak baino zakur arrak gogorragoak, **oldarkorragoak** eta [...]. **Gotzon Garate**

Tximino hauek **oldarkorrek** dira oso, eta lehoiak ere hil ditzakete. **Berria - Gaiak**

Entomologoen eltxoa oso **oldarkorra** dela ohartarazi dute. **Berria - Gaiak**

Eta olatuei, zaldi zuri ilara **oldarkor**, apar gandra erausten zitzairen. **Txillardegia**

3 (bestelakoak)

Baina, ordu onean ukaldiari itzuririk, Nozdriovi beso **oldarkorretatik** heldu eta gogor eutsi zion. **Jose Morales**

Ekimen militar **oldarkorrek** bideratu zituzten Afrikan, Asian eta Amerikan, herrialde boteretsuenen kolonia monopolioa hausteko helburuaz. **Koro Navarro**

Kapitalismoaren eraso **oldarkorra** geratzeko. **Berria - Kultura**

Tau madrildarren joko **oldarkorari** aurre egiten saiatuko da. **Berria - Kirola**

Hauteskunde kanpaina gogorra, zakarra eta **oldarkorra** izan da. **Berria - Harian**

Heziketa sexista, **oldarkor** eta arrazista. **Berria - Euskal Herria**

Kalean eskean dabilenari 7.500 euroko isuna jarriko diote, eskea modu **oldarkorrean**, agresiboan egiten badu, hori bai, baina auskalo nor erabakiko duen zer den eske **oldarkorra** eta zer eske adeitsu. **Joxerra Garzia**

Borondate **oldarkorra** handiari hutsaletik eta beren indarren balioespen okerretik sortzen da. Esteban Antxustegi
Begiradan antzeman dut aldaketarik handiena: **oldarkorragoa** tinkoagoa irudituz zait, ausartagoa, eta aldi berean zoriontsuagoa. Patxi Zubizarreta
Ohiko eztabaidetan, jokamolde harro eta **oldarkorra** erakusten zuen. Patxi Zubizarreta
Horrela, gozamenak, eskubide mailara iraganik, bere hutsaltasun **oldarkorra** galtzen zuen. Monika Etxebarria
Horri esaten zaio, betiko alarde honetan, "ohean ona" izatea: txorta-laguna errenditzea, menderatzea; ahalmena, potentzia edo boterea erakustea bere gorputz errepresibo edo aparatu **oldarkorarekin**. Iñaki Segurola
Urte horietan, Barojaren kazetari-lanak bereziki **oldarkor** eta zalapartatsuak izan ziren. Josu Zabaleta
Miruak kirikinoa atzaparretan hartu izango zukeen era **oldarkorrean**. Edorta Jimenez
Neskak hizeketa molde **oldarkorrez** erresumindu zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

4 (adizlagun gisa)

Amorraturik balego bezalako eskukada bat eman zion mahaiari eta atzaparrak **oldarkor** erakutsi, basapiztien antzo. Xabier Mendiguren Elizegi
Oso **oldarkor** jokatu du Jesus Mari Larrazabalek; gauzak barrutik eta ondo ezagutu gabe, gainera. Berria - Harian
Riveroren mutilak **oldarkor** irten ziren eta Chrysopoulus atezainaren lanak gora egiten lagundu zien bizkaitarrei. Berria - Kirola
Prostitutek ere badute, harrapakinaren bila dabilen izaki orok hain erne eta **oldarkor** eduki ohi duen sen horri berari jarraitzen dioten unetik, estetika berezi bat. Pako Aristi
Espainia honengatik erasiatzen ote digute **oldarkor** "zu espainola zara ala ez" dontsu hori? Joxe Azurmendi
Orduko hartan, izan ere, sekula baino goibelago, fanatikoago eta **oldarkorrago** etorria zen Karlos Ohando Oñatitik. Koro Navarro
"Umore oneko ikusten zaituz" esatea atera zitzaidan, **oldarkor**. Ramon Saizarbitoria
-Hortaz? -galdetu zion Ruche jaunak, ia **oldarkor**. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jarrera oldarkor (5)

eskaintza oldarkorra (4); **jarrera oldarkorra** (18); **joko oldarkorra** (5); **oldarkorra da** (6); **oldarkorra izan** (5); **oso oldarkorra** (5)

oldarkorragoak izan (6)

jarrera oldarkorrak (3); **oldarkorrak dira** (3); **oldarkorrak izan** (3); **oso oldarkorrak** (3)

joko oldarkorrari (3)

modu oldarkorrean (3)

oldarkortasun 1 iz oldarkorra denaren nolakotasuna.

Itzulpen horrek ez du ematen kontzeptu homerikoan adiera osoa, ongi homerikoaren barruan zehaztasuna, ausardia, **oldarkortasuna**, bortizkeria eta, oro har, gorentasun aristokratikoari dagozkion ezaugarri guztiak sartzen baitira. Askoren artean

Gazteongan eragin handia duten hainbat balio kirolaren bidez zabaltzen dira txiki-txikitatik, lehiakortasuna eta **oldarkortasuna** esaterako. Berria - Harian

Bere **oldarkortasuna** zela-eta, Van Gaalek berak eman zion *pit-bull* goitizena. Berria - Kirola

Haren handinahia eta **oldarkortasunak** bere onetik atera zuten. Patxi Zubizarreta

Kementsua zen, ahoan legarrik gabe hitz egiteko gai baino gaiago, eta, Husnia okina salbu, karrikan ez zegoen hari **oldarkortasunean** eramango zionik. Patxi Zubizarreta

Neskak, begietan erronka eta **oldarkortasuna**, hoztasunez galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Nire anaiairen galderak zorrotzak izaten dira beti, halako parte gaiztoko hurbiltasun eta **oldarkortasunez** eginak. Ander Irizar

Indarkeria **oldarkortasunarekin** baino, kontrolarekin lotu behar dugula: «indarkeria gizonak emakumeari ematen dion kolpea baino askoz gehiago baita». Berria - Euskal Herria

Gogor jokatu behar dugu, **oldarkortasun** handia erakutsi behar dugu, baina txartel inozaok ikusi gabe eta alferrikako borroka eragin gabe. Berria - Kirola

Kamusten ari ote zen nire **oldarkortasun** sano hura? Joxan Elosegi

2 (hitz elkartuetan)

Oldarkortasun puntu horrekin zelairatu ginen. Berria - Kirola

-Estatu Batuak, Alemania eta Japonia, hirurak ziren "industria-herrialde berriak" XIX. mendearen bukaeran, eta gogoratu beharrik ere ez dago haien merkataritza- eta politika-**oldarkortasuna**. Koro Navarro

oldarkote izond adkor oldarkorra.

"Aitor du, ez dago inolako zalantzarik", esan, eta hanka-puntetan jarririk, gora eta behera higitu du gorputz **oldarkotea**, halako dotorezia zangoastun batez. Anjel Lertxundi

oldarmendu iz oldarpena.

Agian sentimendu sakon eta ezezagun huraxe gizonaren begiak ikusi zituen lehenengo aldian sortu zitzaion, aldi berean erakarmena eta **oldarmendua** sorraraziz, izan ere hain bortitz eta oldarkor begiratu zion, garaipen aireko halako irribarrearekin. Patxi Zubizarreta

oldarpen iz oldartzea.

Beste zakur batek, ordea, **oldarpenaren** bidez bere boterea agertu nahi du. Gotzon Garate

Ertzainen «**oldarpen** basatia» salatu zuen. Berria - Ekonomia

oldarraldi 1 iz zerbait edo norbait oldartzen den aldia.

Nola atxiki dezakegu irudimena garbi, errealitatearen **oldarraldietatik** babestuta? Oskar Arana

Batzuetan hitz-eztia izango da, beste batzuetan **oldarraldi** zakar gogorrak izango ditu. Josu Zabaleta

Tristeziatzko eta furfuriazko **oldarraldi** batek hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Biluztasun hunkigarritik (ia *a capela* abestutako *Laser beam*), atmosfera limurtzaile [...] eta **oldarraldi** elektrikoetara pasatu zen taldea, baina ez zuen saioa biribiltzeko astirik izan. Berria - Kultura

Baina, hiru sektore horiek behintzat garesti ordainduko dute petrolioaren prezioaren **oldarraldia**. Berria - Ekonomia

«Neoliberalismoaren **oldarraldiari**» zelan aurre egin aztertu, «herrien subiranotasunaren aldeko konpromisoak» berretsi eta askatasun sindikalak aldarrikatzeko. Berria - Ekonomia

Azken laurdena ere antzekoa izan zen, eta etxekoan **oldarraldia** ezerezean gelditu zen. Berria - Kirola

2 (gerretan-eta) ik erasoaldi.

Behin-betiko **oldarraldia** prestatzekotan, bateria bat jarri zuten gutarrek Klarisen Monastegian [...] Ega ibaiak inguratzen duen zelai gune batean. Txillardegi

Zaldun-taldeak gudu-lerrotan antolatutak, **oldarraldi** eta erasoaldiak alde batetik eta bestetik. Elizen arteko biblia

Joan den astelehenean, matxinoek 21 polizia hil zituzten, antzeko **oldarraldi** batean. Beria - Mundua

Ekaineko **oldarraldian** 100 pertsona inguru hil zituzten gerrillariak. Beria - Mundua

Eraso honen ostean, Israelak **oldarraldi** bat burutu zuen Beit Hanunen. Beria - Mundua

Irak okupatzen duten koalizio militarreko indarrek aldi berean xiiten **oldarraldiari** eta suniten erasoari aurre egin behar diotelarik, [...]. Beria - Mundua

Oldarraldia igandean egin bazuten ere, atzo zabaldu zuen Poliziak horren berri. Beria - Mundua

Abu Anas al Shamiren Eskuadroia izan zen **oldarraldiaren** egilea. Beria - Mundua

Kerbala, Najaf, Kufa, Kul eta Irak hegoaldeko beste hainbat hiri xiitatan piztutako **oldarraldiari** amaiera emateko ahaleginetan, [...]. Beria - Mundua

Oldarraldi orokor baten seinalea izan zen nonbait hura. Koro Navarro

Ertzaintzaren **oldarraldia** salatu dute zortzi lagunek auzitegian. Beria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xiiten oldarraldia (3)

xiiten oldarraldiak (3)

oldarrarazi, oldarraraz, oldarrarazten du *ad* oldartzera behartu.

Nire gainera ilunpea **oldarrarazi** zuten hitz haiek: [...]. Alberto Ladron Arana

Elkarrekiko berotasunak Venusen estimuluek kinaturiko haziak bata-bestearen aurka **oldarrarazi** dituenean. Xabier Amuriza

oldarroi ik oldarkoi.

oldartasun *iz* oldarkortasuna.

Bat-batean masailgorriturik, begiak **oldartasunezko** eta fururiazko pindarrez bete zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

oldarti *izond* oldarkorra, oldartsua.

Ez pentsa, beraz, Zentauroak [...] txakur **oldartiz** inguratutako gorputz erdi itsastarreko Eszilarik izan daitekeenik. Xabier Amuriza

oldartsu (*63 agerraldi, 34 liburu eta 3 artikulutan*) 1 *izond* oldarrez betea. ik oldarkor. (pertsonak)

Etxean aitarekin geratu ziren bi alabek inoiz baino anparo gutxiago zeukaten anaia zaharrak joandakoan, eta aita **oldartsu** eta gogor haren atzaparretan inoiz baino babesgabeago zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste fraidea, haren laguna, gaztea, **oldartsua** eta kasu emalea aldi berean. Marzel Etxehandi

Ongi dago honen agudo amore ematea, **oldartsua** izatea, Peter bera bezain **oldartsu** eta urduria izatea? Josu Zabaleta

Mignonek ihardetsi zidan ezen bere bezero bat zela, baina ez zuela gau hartan ikusi ere egin nahi, zeren ni kementsuago eta **oldartsuago** bainintzen eta zeren gau hartan ni nahi baininduen [...] bere baratzeko baratzezain bakar. Joan Mari Irigoien

Geldiezina eta **oldartsua**, hilabete eskasa zen hamazortzi urte bete zituela, eta ospatu egin nahi zuen. Fernando Morillo

Inor hil aurretik horren inguruan pentsatzen ere badaki, **oldartsua** da, baina neurrian. Beria - Kultura

Ez nuen espainiar ejekutibo **oldartsuaren** itxurarik, eta, beraz, sumatu zuen ez nuela dirurik sobran. Jon Muñoz

2 (animaliak)

Hantxe zegoen, bai, arestian idisko **oldartsua** zirudien gizona idi zahar flako bihurturik! Joan Mari Irigoien

Zazpi bekatu nagusiak dira, artzanora **oldartsuak** bezala dira, beren indar guztia jartzen dutelarik bekatu-bizitza uztea erabaki duenaren aurka, graziaren ukitua izan ondoren erabaki ere. Joan Mari Lekuona

3 (bestelakoak)

Zenbat eta **oldartsuagoa** izan eraso, orduan eta handiagoa behar du izan Jainkoaren egarriak eta gure desiraren sugarrak. Nik ireki nuen bidea itsasoan, ur **oldartsuetan** zehar. Joan Mari Lekuona

Ekaitz hondagarriak bezala, ur handi **oldartsuek** bezala. Elizen arteko biblia

Urak hazi egin dira iparraldean, uholde **oldartsu** bihurtu. Elizen arteko biblia

Oroitzapen sarkorra, mendiak bezain pizu, uhainak bezain **oldartsu**. Michel Oronoz

Itsaso eta mendi eta ibai **oldartsuetan**, hegaztien etxe hostotsu eta zelai berdetsuetan zehar. Xabier Amuriza

Uraren doinu etengabeak bere isuri **oldartsuan**. Elizen arteko biblia

Uhinaren gangar **oldartsuen** antzera talka eginez. Agustin Otsoa

Juduek, berriz, erregearen gudarostearen indar **oldartsua** ikusirik, atzera egin zuten. Elizen arteko biblia

Itsasoak, bere mugetatik gainez eginik, ez ditu lehia **oldartsuagoz** jaten lautadak. Juan Garzia

Denek espero zuten orduan gizonetzko beltzaranaren sarrera **oldartsua**. Joxemari Iturralde

Bere izaera liskarziale **oldartsuak** gizonari aurre egitera derrigortzen zuen. Patxi Zubizarreta

Lotsa, ostera, emakume hura neure egiteko sentipen **oldartsuak** eragiten zidan, bai bainekien hala sentitzeak umetu egiten ninduela, haurrak jostailu bat beretzat nahi duenean bezala. Hasier Etxeberria

3 (adizlagun gisa)

-Barkatuko ahal didazu inoiz! -eta besotik heldu zion **oldartsu**, neskek gelatik alde egingo ote zion beldurrez. Anjel Lertxundi

-Hargatik -erantzun Pepponek, gogor eta **oldartsu**. Koldo Biguri

Leandro, ordea, esaldiaren aurka jarri zait, **oldartsu** jarri ere, amorru bero batek barrena hartu balio baino kemen handiagoz. Anjel Lertxundi

Oldartsuago ekin zion ibilbideari. Josu Landa

Neskek eskua erretiratu zuen, kopeta zigarrokin batez erre izan banio baino **oldartsuago**. Anjel Lertxundi

Bi gizonetzko eta, haien atzetik, Amaia, bere zurbilean **oldartsu**. Fernando Morillo

Orduan, Mador jaiki zen, **oldartsu**: [...]. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ur oldartsuetan (3)

oldartu, oldar(tu), oldartzen 1 da *ad* oldarrean abiatu; oldarrean eraso. (pertsonak)

Arranoaren antzera **oldartzen** da etsaia, hegoak zabalduz Moaben gainera. **Elizen arteko biblia**

Simon, orduan, bere gudarostea atera eta etsaien kontra **oldartu** zen. **Elizen arteko biblia**

Hari segika, trena hartzera korrika zihoazen ezin konta ahala alprojaren kontra **oldartu** nintzen. **Fernando Rey**

Pinturaren kontra **oldartu** zen, txakur lana zela esan zuen, zin egin zuen ez zuela pintzelik ukituko bere denbora guztian. **Karlos Zabala**

Siberiarantz **oldartu** da, kirgizen estepetarantz, eta han saiatu da, eta ez arrakastarik gabe, herri nomadak altxatzen. **Karlos Zabala**

Berehala, niregana **oldartu** zen, eta zartako bat eman zion bandexari. **Bernardo Atxaga**

Deabruak, esaneko, bueltatu eta buruzagiarenganantz **oldartu** ziren ahotik garrak jaurtikiz. **Joanes Urkixo**

Biengana **oldartu** zen, furfuriatsu, eta, zaldien antzera, ahoa bete bits. **Patxi Zubizarreta**

Ezpata jirabiraturaz, demonioen artera **oldartu** zen. **Joanes Urkixo**

Laster **oldartu** zen Ruche jauna bederatzigarren solairura eraman zuen igogailura. **Jon Muñoz**

Telefonoak jo, eta hura hartzera **oldartu** zen Perrette. **Jon Muñoz**

Bata bestearen besoetara **oldartzen** da. **Antton Olano**

Une hartan bertan, hamabi bat zaldizkok bidera **oldartu** eta kibitka inguratu dute. **Karlos Zabala**

Harry Roni atzetik heldu zion jantzitik, Malfoyren gainera **oldartu** ez zedin. **Iñaki Mendiguren**

Kontrako norabidean **oldartu** nintzen. **Alberto Ladron Arana**

Amak deitu eta arrapaladan **oldartu** zen aita telebista gainera. **Xabier Montoia**

Errebeldiaz **oldartu** edo ez, berdintsu da, Baroja bera eta bere pertsonaiak aurretiaz daude porrot egitera kondenatuak. **Josu Zabaleta**

"Propio egin al duk!", **oldartu** zen orduan ereinotz adarra lurrera bota eta ukabila eskainiz. **Bernardo Atxaga**

2 (pertsonak, zaio adizkiekin)

Itsumustuan **oldartu** zitzaion Max. **Jon Muñoz**

Orduan, Sauli **oldartu** zitzaizkion bete-betean; joan zitzaizkion ondoren arkulariak eta larriki zauritu zuten. **Elizen arteko biblia**

Biharamunean, eguna argitu aitzin, 3 000 espainol soldado **oldartzen** zauzkigu. **Michel Oronoz**

Desesperoak ematen duen deliberamendurekin **oldartu** omen zitzaidan emakumea. **Joxean Agirre**

Itsasoa bezala **oldartu** zaizkio etsaiek. **Elizen arteko biblia**

-Bestenaz, zer? - **oldartu** zitzaion eiherezaina. **Elena Touyarou**

-Zer diozu? - **oldartu** zaio Luis aurrena, eta hurrena Adela, Esther, Xavier... **Patxi Zubizarreta**

Gainera **oldartu** nintzaion, bi besoez heltzeko. **Josu Zabaleta**

Bost minutu ere ez ziren pasako gasaren errebisioa egitera etorri zen mutila gainera **oldartu** zitzaidanean. **Jasone Osoro**

Haserre nendin nahi zuten haiek, irainka **oldar** nintzaion, ostiaka eta mahai-kolpe bortizka. **Karlos Linazasoro**

Sirakusari **oldartu** zitzaioan Martzelo: itsasotik eta lehorretik, batera, egin beharra zegoan eraso. **Jon Muñoz**

Lehorraldian dagoenak gogoan eduki beza Jainkoak bere izatezko indar hutsetan utzi nahi izan duela, etsaien astinaldiei eta tentaldiei **oldar** dakien. **Patxi Altuna**

Jo eta **oldar** hakio herriren bati! **Juan Garzia**

- Azkenean, agintariei **oldartu**, eta Holofernesen aurrean errenditzeko eskatu zieten, hobe zela hori egarriak hiltzea baino. **Jose Antonio Mujika**

Frantziako erregeren onspenaz armada Lapurdi aldean metatu nahi zuen lehenik eta handik Hondarribiari **oldartu**. **Aingeru Epaltza**

-Heretikoak guri **oldartu**? **Aingeru Epaltza**

• 3 (du aditz gisa)

Gabeziak ez nau **oldartzen** dagoeneko. **Hasier Etxeberria**

4 (animaliak)

Batzuetan, ordea, animalia ere **oldartu** egiten da, eta bezatu duena hiltzen du... **Josu Zabaleta**

Lehoieme amorratuek gorputza betean noranahi saltatzen zuten, aurre egiten zietenen aurpegira **oldartzen** ziren edo ezustean atzetik harrapatzen zituzten. **Xabier Amuriza**

Zaldiak, brau, zutitu eta jendetzarengana **oldartu** ziren. Zakurrak lehenengo heldu, eta zaunka **oldartu** ziren. **Lopez de Arana**

Chinook izokina da beste izokinei **oldartzen** zaien bakarra. **Hasier Etxeberria**

5 (bestelakoak)

Ekaitza bezala lehertu da Jaunaren haserre, haize-erauntsia bezala **oldartzen** da, zurrunbiloka dabil errudunen buru gainean. **Elizen arteko biblia**

Ekaitzaren erauntsia ondoan **oldartzen** zaizunean. Itsasoa ere **oldartu** eta bertan lehertzen da. **Pello Zabala**

Honela ibaia, euriteek uhertua, dikeen kontra indar izugarritz **oldartzen** da. **Xabier Amuriza**

Etxolaren barnetik garrasi sakona **oldartu** zen. **Itxaro Borda**

Atea irekitzean, eguzki-argia **oldartu** zitzaion Jimmyren aurpegiari, halako kilima batzuk eragiten zizkiola. **Lopez de Arana**

Loa **oldartu** zaizue eta gainera abaildu eguneko akidura. **Xabier Montoia**

Neskak ez zuen ulertzen zergatik euskarazko ehortz-elizkizunetan, tristezia larriaren aztaparretan behera amiltzeko orde, abesteko gutzia **oldartzen** zen herritarren bihotzetan. **Itxaro Borda**

Uholde bortitz baten antzera, nire atxilotetaren oroitzapenak **oldartu** zitzaizkidan, irudi segida izugarri batean. **Alberto Ladron Arana**

Saltzaile andreen asmamena aske **oldartzen** zen, gertaerarik lazgarrienak amesten zituzten. **Karlos Zabala**

Euskal batasuna **oldartu** egin zen. **Koldo Izagirre**

5 (era burutua izenondo gisa)

Filmatzen ari zela, kameraren puntak nortasun sakonarekiko irekitzen zion lezeaz hormatua, Graxi oroitzen zen Arbideko ezagun baten administrazioarekiko ohar **oldartuaz** :
[...]. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzetik oldartu (5); aurka oldartu (31); aurka oldartu zen (11); aurka oldartu ziren (10); aurrera oldartu (10); aurrera oldartu zen (7); barrura oldartu (3); berriro oldartu (3); bortizki oldartu (3)

erdira oldartu (3); ertzainak oldartu (6); ertzaintza gogor oldartu (4); ertzaintza oldartu (7); gainera oldartu (19); gainera oldartu zen (4); gainera oldartu zitzaion (3); gogor oldartu (11); gora oldartu (3); grebalariei oldartu (3); harengana oldartu (6); harrika oldartu (3)

kontra oldartu (20); kontra oldartu ziren (5); lasterka oldartu (3); lepora oldartu (5); manifestarien aurka oldartu (5)

oldartu da (11); oldartu nintzaion (8); oldartu nintzen (12); oldartu ostein (3); oldartu zaio (11); oldartu zen (99); oldartu ziren (47); oldartu zitzaion (11); oldartu zitzaion (18); oldartu zitzaion (47); oldartu zitzaizkien (15)

polizia oldartu (8); polizia oldartu zitzaion (3); sabelaren barnetik oldartu (3)

aurka oldartuko (3); gainera oldartuko (5); kontra oldartuko (3); oldartuko da (3); oldartuko zaizkigu (3)

aurka oldartzeko (4); gainera oldartzeko (4); kontra oldartzeko (6)

aurka oldartzen (8); kontra oldartzen (8); oldartzen da (15); oldartzen zen (11); oldartzen ziren (8); oldartzen zitzaion (6)

oldartzaile (orobat oldartzale g.er.) izond oldartzen dena.

Liztorra, finean, **oldartzailea** da, borrokalari sutsua. **Jose txo Azkona**

Izpirituak irakiten hasi zitzaidan baina zin egina nuen ez nintzela **oldartzaile** agertuko. **Daniel Landart**

Hunek galdegin dako Bush jaunari aitortzean publikoki Izrael zela **oldartzale**. **Herria**

oldartzale ik oldartzaile.

oldartze 1 iz oldarrean abiatzea; oldarrean erasotzea.

"Baiona" trenaren estrenaldian bost "demo", urruntxago hamar bat poliza, **oldartze** zerbait gertatu balitz kontra joaiteko gain ginetik tresnatuak. **Herria**

Espetxe barruan **oldartze** horiek pairatu zituzten Imanol Esnaola eta Idoia Arbelaitz preso ohien eta Josu Cerrato Etxerat-eko ordezkariaren lekukotzen bitartez, eraso horien zehaztasunak entzuteko aukera izan zuen atzo batzordeak. **Berria - Euskal Herria**

1830eko uztailan izan ziren Parisen **oldartze** gogorrrak hiru egunez, historia liburuetan "les Trois Glorieuses" deituak direnak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ertzaintzaren **oldartze** basatiak eta botere ekonomikoaren zerbitzura dauden komunikabideak. **Berria - Ekonomia**

Gizonak ez zuen inolaz ere hain **oldartze** bat-batekorik espero. **Harkaitz Cano**

Oldartze sekretu lasai bat zegoen akaso haren jardunean, borondate sendoa bere libertatea esan gabe aldarrikatzeko. **Iñaki Iñurrieta**

Oldartze eraikitzailea nahi dut. **Berria - Kultura**

Thoreau-ren lana da status quo-aren aurkako **oldartze** amaigabe bat, hemen bizitzeko modu berri bat bilatzeko borroka. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta beste leku batean ere ikusia izan bide da beste biltzar baten sustatzaile betiko **oldartze** xedeetan. **Herria**

Oldartze tresna, eredu ideologiko, ala gozatzeko parada ximplea, neke da neurtzea tendentzia iraunkorra ala iraupen laburreko moda den. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Sasi-**oldartze** baten erasoetarik jendeak salbatu behar genituen. **Itxaro Borda**

Baina, maiz, barne **oldartze** batzuen ondotik, suntsiturik egon naiz. **Piarres Aintziart**

Huraxe zen bere zehar-**oldartze**, jukutria, azpijoko eta portaera lizun guztien zioa eta helburua, emaztea nazkatu eta birrinaraztea. **Berria - Kultura**

olde 1 iz oldarra; andana.

Barruko **olde** batek eraginda mahaian zehar luzatzen du besoa, gizonaren eskua estutzen saiatzen da, baina eskuaren atzealdea ukitzea baino ez du lortzen. **Oskar Arana**

Hain nagusitasun agerikoaz baliatuta, dudarik ez da niri zegokidala gure **olde** berotiak hoztera saiatzea. **Aingeru Epaltza**

Irudi guztietan irribarez, are barrezka ere batzuetan, begiak pizturik alaitasunezko eta limurtasunezko **olde** hantu batez. **Oskar Arana**

Ur masak mingostasuna iragazten du, itzultzen da, erreken bururantz jotzen du denak eta handik lurtean zehar **olde** gozoan isurtzen da eta uhinak lehenago ere euren oin gardenez ireki zuten bidetik jaisten dira. **Xabier Amuriza**

Minbiziak zurgatu senarra eta erokeriak desorekatu semea biak artatzen zituen, **olde** bakarraz, sekula auhen edo zinkuririk entzunarazi gabe. **Itxaro Borda**

Oldez maite den guztiak hil egiten zaitu azkenean. **Josu Zabaleta**

Eta ohartzen naiz idazketak, lehen **oldean** bederen, gisa batez nahi duena nahi duenean egiten duela, berdin pentsamendua aintzinatuz. **Piarres Aintziart**

Halako batean, hasierako plazer **oldea** apaldu zenean, pentsatzen hasi zen apur bat, eta zalantza eta nahastea ikusi nituen haren begi marroietan sartzen. **Oskar Arana**

Amur eta Jakutsk probintzietan barreiaturik zeuden tropa urriak ez ziren tatariarren **oldeei** eusteko gauza izango. **Karlos Zabala**

Hemen gaindi, lehenago iraganak zirela kartagotarrak eta erromatarrak, godoak, frankoak eta mairuak, ingelesak eta espainolak, frantsesak eta, azkenik, alemanak, baina **olde** arrotz guztien artekin gure arbasoak beti gelditu zirela euskaldun. **Piarres Xarriton**

Elikagaien **olde** berria. **Edorta Agirre**

Apurka-apurka etorri balira ebazpenak, eta ez **olde** bakar batez, orobat izango ziren, zalantzarik gabe, zedarri funtsezkoak biologiaren eta medikuntzaren historian. **Juan Garzia**

1980 eta 1990eko hamarraldien ezaugarrietako bat, izan ere, komunikazioen kostuen murrizte masiboa da, eta desauratzeen eta pribatizazioen **olde** handia. **Koro Navaro**

Han datozkit irakasle guztiak **oldean**. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halako amorru **olde** bat igo zitzaion garunera doktoareari. **Josu Zabaleta**

Bizitzaren zentzu jentil, dionisiakoari alegia, natur **olde** eta jaiera suhar edonoiz libreekin, instintoen berenezko jaialdi argitsuari biziartean, gezurrezko moral baten aginduen zamapean gizakia astotu eta makurtu gabe. **Joxe Azurmendi**

Berrito gogoa pizteko bezala, alaitasun **olde** bitxi bat jabetu zen berrito neskez. **Josu Zabaleta**

Abendu hasierako bero **olde** hura ez zen batere normala. **Harkaitz Cano**

Ez da konfidentzia **olde** bat izan, edonola ere. **Josu Zabaleta**

Indarkeria **olde** horretan, gutxienez 45 lagun hil ziren tartean lau ekintzaile eta beste 100 zauritu. **Berria - Harian**

Jende-**oldeen** legea zen: etorri-berriek, azkenek, beren miseria eta deserritasunaren indar ukiezinarekin bultzatzen zieten aurreko migrazioekoei. **Iñaki Zabaleta**

Jerusalengo giza **oldeen** Kaldearako desterruan. **Patziku Perurena**

Zomorro **olde** baten antzera zeharkatu dute ibaia. **Agustín Otsa**

Miserable-**olde** bat inoiz ez da solidarioa izango. **Pako Aristi**

Ez da oraindik gauzatu 1950eko eta 1960ko hamarkadetan Espainiako hiri batzuetara bideratuko den inmigrazio-**oldea**, baina lehenengo etorkinak hasi dira iristen industria pixkanaka garatzen ari den hirietara. **Iban Zaldúa**

Aurkikuntza horiek [...] hornitze-lan handiak, migrazio-**olde** berriak eta lehen industrializazio-saioak bultzatuko zituzten. **Koro Navaro**

Gauaren erdian zakurren zaunka-**olde** batek iratzartzen du. **Oskar Arana**

3 nahia, gogoa.

Beraz, onar ezazu atseginez eta zeure **oldez** Zeure burua Jainkoari uzten gauza guztietan. **Joan Mari Lekuona**

Bere jaiotzaren meneko baita noski printzea: ez dezake, pertsona ezdeusek ohi dutenez, bere **oldez** joka. **Juan Garzia**

4 jende olde ik jende 15.

5 oldez edo moldez alde edo moldez.

Hortako egiten ditu behar diren guztiak, **oldez edo moldez**. **Herria**

Denak ere eta besterik Lafittekin egin zituen, ez haizeak eta gizonen bulkadak oro alde ikustearekin [...] baina beti kasik haize kontra, eta berak sortuz haize berriak, **oldez edo moldez**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraso olde (4); **indarkeria olde** (10); **indarkeria olde berri** (3); **jende olde** (9)

bahiketa oldea (4); **indarkeria oldea** (9); **jende oldea** (9); **salaketa oldea** (5); **salaketa oldea eragin** (3)

indarkeria oldeak (6); **jende oldeak** (8)

jende oldearen (7)

oldeari aurre egiteko (5)

oldez edo moldez (4)

oldeka *adlag* oldarka; andanaka.

Eta orduan, oraindik ere kontu handiz aurreraka nindoala, Toledoko izugarrikerien gaineko ehunka zurrumuru gogoratu zitzaizkidan **oldeka**. Joxerra Garzia

Alemanak **oldeka** zabalduak ziren ordurako Norwegian, Holandan, Frantzia, Jugoslavian, eta labana bat gurinean bezala sartzen ari ziren errusiar ordokietan barrena. Lurrari dagokionez, azpiproduktu bat bide da haren osaera: izarretan energia eratzearen eta gure galaxiaren baitan izarrak **oldeka** sortze eta galtzearen albo-emaizta, hain zuzen.

Juan Garzia

Euskara ez zekienak zer eginik izango ez zuelakoan, jendea **oldeka** hasi zen seme-alabak ikastolan matrikulatzeko eskaera egiten. Joxerra Garzia

oldozketa *iz* gogoeta. ik **pentzaketa**.

Hurrengo eszena ongi gogoan dut, ongi gogoan dudana bezala esaera haren aurretixe egin nuen **oldozketa**. Karlos Linazasoro

oldozkor *adlag* pentsakor. ik **gogoetatsu**.

Oldozkor gelditu ziren biak. Anjel Lertxundi

oldozmen *iz* pentsamena.

Izpiritutik (**oldozmen** eta nahimenetik) behar du abiatu: izpirituaren forma historikotik hain zuzen, hori da arraza. Joxe Azurmendi

oldozpen *iz* gogoeta.

Ortega-k ezagutzen zituen Spengler-en **oldozpenak** etxeari buruz, eta haren baieztapen dogmatikoa, kultur morfologiakoa: "etxea da, egon dagoen arrazaren espresiorik garbiena". Joxe Azurmendi

Ezin isilean gorde Txitxikovek tankera horretako gogoetak zerabiltzala buruan gau-jaira bildurikoak aztertzen zituen bitartean eta **oldozpen** horien ondorioz, lodiekien bat egitea erabaki zuela azkenean. Jose Morales

Hala ere, **oldozpen** horiek legearen zorrotasuna errukiz epeltzeko zorian daudelarik, beste neska batzuen irudi tamalgarria datorkigu, nahitaez. Lopez de Arana

Errendituta nengoen eta lo premian: nekeagatik, egun osoko emozioen eraginez, edan eta erretako guztiagatik, etorkizunari buruzko **oldozpen** ilunak nerabiltzala buruan.

Anjel Lertxundi

Gogoetatsu eta egoera bitxi hari buruzko **oldozpen** lausoetan murgildurik tea edaten ari zela, gelako atea ireki, eta Nozdriov agertu zen ustekabean. Jose Morales

Gainerako denbora isilik eta **oldozpenetan** ematen du. Lourdes Oñederra

Garrantzi handiagoko solas eta **oldozpenen** mende baitzegoen. Jose Morales

-Zer moduz ikasketak? -errepikatzen dio Enrikek galdera, bere **oldozpenetatik** irtenda. Iñaki Iñurrieta

oldozte *iz* pentsatzea, gogoeta.

Ez zuten askorik irau nire bakardadeak eta **oldozteak**: gero eta jende gehiago ari zen hurbiltzen. Anjel Lertxundi

Oldozte hauekin bueltaka nebilela iritsi nintzen apartamentuaren ate aurreraino. Joxemari Iturralde

Nire buruhauste eta **oldozte** hauek guztiak azaldu nitzkien Dodovi eta Scwzsi, gauzak argitu eta estrategiak berritze aldera. Karlos Linazasoro

Berriro hasia nintzen urduritzen eta onena **oldozte** hits haiek alde batera uztea izango zela erabaki nuen. Joxemari Iturralde

Horrekin bueltaka aritu zen gauean ohean, **oldozte** kezkarri horiek burutik ezin kendurik. Joxemari Iturralde

Bere **oldozteen** haria berrartuz, [...]. Joxemari Iturralde

Ez ditut gogoan gai hari buruz egin genituen **oldozteak**, baina badakit bat etorri ginela hirurok oinarri-oinarrian: hondamendia da edertasunaren hazia eta ongarría, edertasuna izuaren kontrastea da, begien atzean gordetzen dugun begirada. Karlos Linazasoro

oldoztu, oldoz, oldozten du *ad* pentsatu.

Eta jendea ezagutu ahala, jendearen historiak entzun eta haiei buruz **oldoztu** ahala, aldatu zitzaion bere erlijio bietako dogmei buruz zuen ikuspegia. Felipe Juaristi

Zeren berehala hasi baitzen, xakeko jokalaria bailitzan, hurrengo mugimenduaren nondik norakoak **oldozten**. Pedro Alberdi

Zer dauka, ba, mutil honek?", **oldoztu** zuen Alaznek. Fernando Morillo

Ongi **oldoztu** ezazu hau: nahiz eta zuk ezaupide guztiak eduki, zuretzat egiazko bizitzarenak diren ezaupideak, maitasunaren testigantza hau sentitzen ez baduzu, galdu zara. Joan Mari Lekuona

Seigarrena: **oldoztu** nola hau guztia jasaten duen nere bekatuengatik, etab.; eta zer egin eta jasan behar dudana nik hartatik. Patxi Altuna

Hainbat kale bihurreran ibili nintzen atzera-aurrera, zeregin jakinik gabe eta azken orduetan gertatutakoak **oldozteari** guztiz emanda. Anjel Lertxundi

Beste historiok batzuek **oldoztu** zutenaren arabera, beraren posibilitateen kopurua ahitzen zen unean amaituko zen mundua. Juan Garzia

Dibertsitatearen batasuna **oldoztu** behar da, baita batasunaren dibertsitatea ere. Askoren artean

ole 1 *interj*

-**Ole** -aldarri egin zien-. Edorta Jimenez

'**Ole**!' haurrak beldurtuko ziren eta nerabeek 'Confetti' borroka batean parte hartuko zuten. Ramuntxo Etxeberri

Ole, **ole**, **ole**. De Gasperiarekin ez da jaten... Josu Zabaleta

2

Lertxundi Lertxundi "El donostiarrak" zezenarekin zeukan trebezia erakutsi zigun arratsaldean, eta pase bakoitzean, **ole** eta **ole** oihuz bete genuen giroa. Rafa Egiguren

-Bartzelona aise ari zen irabazten herenegun, erraz jokatzeko, eta Nou Campeko jende oldea **ole**!-ka hasi zen. Berria - Kirola

oleaginoso *izond oliokara.* • *irud/hed*

Disraelik behin Wilberforce Apezpikuaren estiloa "koipetsu, **oleaginoso**, xaboitsu" hitzez deskribatu zuen. Xabier Olarra

Olentzaro ik **Olentzero**.

Olentzero *(345 agerraldi, 17 liburu eta 129 artikulutan; orobat **Olentzaro 7 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan, eta Orentzero 20 agerraldi, 2 liburutan**) iz*

Larunbatean, **Olentzero** Baionan eta Hiriburun. Herria

Askotan joan izan naiz **Olentzero** ikustera; azkenekoz, abenduaren 24an. **Olentzeroren** zai, haurrak eta burasoak aratsaldeko 3 ak 30 etako Pannecau zubian bilduko dira. Berria - Euskal Herria

Olentzero ikatzeko bordatik jaitea lortu zuten, parlamentarien artean opariak banatzera. Berria - Harian

Olentzero. San Nikolas, Santa Klaus eta Errege Magoak jo eta ke aritu dira lanean, onak izan direnei opariak eta gaizto izan direnei odolkiak ordainetan emanaz. Berria - Gaiak

-Badakizu, umea nola jantzi genuen festetako karrozarako, kaikuarekin eta txapelarekin, **olentzeroren** ondoan joateko. Jon Maia

Sikiera **Olentzerok** esku-argi bat ekarri balio. Joxean Sagatzizabal

Gabonetan opari eta guzti datozen erregeak -edo **Olentzero** - gurasoak direla, esaterako, kalean ikasten dute ia haur guztiek. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez esan! oraindik sinisten duzu **Olentzerorengan**? Patxi Iturritegi

Bigarren zatian berehala urtu zen Standard, deagertu egin zen, amore eman zuen ezinak jota, eta Athleticek **Olentzeroz** mozorrotutako taldearen opariak baliatu zituen.

Berria - Kirola

Ukrainan ez dagoela ez **Olentzerorik** ez Bizar Zuririk. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olentzero eguna (6); **olentzero erakusketa** (3); **olentzero ibiliko da** (3); **olentzero ikazkina da** (3)

olentzeroren bisita (3); **olentzeroren desfilea** (3)

oleo 1 *iz margolanetako olio.*

Gaurkoan berriro etortzekotan dira eta sarrerako atean **oleoz** 350 MANHATTAN AV. idatzi dut, letra larri eta gorriz, horixe baita helbidea. Harkaitz Cano

2 olio margolana.

Albo batean Jose Ramon Amondarainen (Donostia, 1964) **oleo** ikusgarri bat du; eta bestean, Peralen beraren collage-ak, jolasak. Berria - Kultura

Juan Mieg margolariak azken hiru urteetan eginiko **oleoak** aurkeztu ditu Montehermoson. Berria - Kultura

Oleoak eta margoak. Berria - Kultura

41 koadro, guztira, **oleoak** denak. Berria - Kultura

Oleo txikiak taulan. Berria - Kultura

oleobide ik oliobide.

oleoduka *iz oliobidea.*

Horiekin guziekin bazuten tapatua edo andeatua hamar mila olio egunean ereman behar dituen **oleoduka** bat. Herria

olerkari *(317 agerraldi, 45 liburu eta 127 artikulutan)* 1 *iz olerkiak ontzen dituen idazlea. ik poeta.*

Bidal ditzatela Alexandriako gure hirira **olerkarien** eta prosalarien idazlanak, erretorikoenak eta sofistenak, medikuenak eta igarleenak, historialarienak, eta filosofoenak, eta gainerako guztienak ere bai... Jon Muñoz

Olerkariak, ez dakit, diot, badu poetak ez duen plus serioago bat, gertuago dago poeta trajedunetik zarpailetik baino. Iñigo Aranbarri

Asmatu ezinako ekuazioa zait zergatik deitzen zaien batzuei **olerkari** eta besteei poeta. Iñigo Aranbarri

Lizardi eta Lauaxeta, ostera, **olerkari** diren arren, heriotza goiztiarrak eta modernitate nahiak egiten ditu poeta. Iñigo Aranbarri

1913ko urrian [...] bertako beste **olerkari** batek, Ramon Guelbenzuk, honako bertso hauek eskaini zizkion *Euskal-Erria* aldizkarian: [...]. Askoren artean

-Galdetuko bazenit nire aurpegia noiz hasi zen aldatzen -erantzun dio **olerkariak** kazetariari-, ez nuke erantzuten asmatuko, egunero ikusten baitut ispluan, igartzeko moduko aldaketarik gabe. Imanol Zurutuza

Bihar hainbat irakurraldi eta munduko **olerkariekin** bilerak eta errezitaldiak. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Gerra aurreko hiru **olerkari** handiak! Juan Luis Zabala

Urte horretan hil zen euskaldunok izan dugun **olerkari** handienetako bat, Lizardi, euskara noranahiko nahi zuena. Pello Salaburu

Olerkari homerikoez ia ezer ez zekiten Gizarte Minoikoaz. Iñaki Mendiguren

Etzahun **olerkari** erromantikoa. Herria

Euskaldunok ere badugu, gure aldetik, Gure **olerkari** eta idazle lehena, Bernat Etxeparekoa. Piarres Xarriton

Ondo dio, bai, **olerkari** paganoak: "Gurasoen jokabide txarren artean haziak garenez, gaitz guztiak haurtzarotik ditugu segika". Askoren artean

Oi Ofelia laztana, **olerkari** traketsa nauzu; ez dakit neure lantuok neurtitzen. Juan Garzia

Donostiako beste **olerkari** guztiz ezagun batek ere, Juan Bizente Etxegaraik, ondu zuen ereserki bat 1813ko abuztuaren 31n izandako gertaera izugarriak gogoratzeko. Askoren artean

Victor Hugo frantses **olerkari** famatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Olerkari euskaldunak eta erdaldunak elkartuko dira Iruñean ekainaren 3an Nafar Poesiaren Besta ospatzeko. Berria - Kultura

Josanton Artze **olerkari** usurbildarrak idekiko du festibala. Herria

Rostand, hori bai zela benetako **olerkaria**! Iñigo Aranbarri

3 (beste izen baten eskuinean)

Gezur-harrobi deitzen die Salvat Monho Isturitzeko apaiz **olerkariak** hatsa bera gezur dutenei. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
euskal olerkari (4); gerra aurreko olerkari (3); mendeko olerkari (3); olerkari gazte (3)
lauaxeta olerkaria (3)
maite ditugun olerkariak (15)

olerkarisa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea)* iz olerkaria (emakumezkoa).

Bertze aldetik adierazten du sortzen dela kantua diolarik **olerkarisak**: [...]. **Herria**

olerkaritza iz olerkariaren lanbidea. ik poesia.

Beharbada galdetuko didazue ea euskaldunek ere ez ote duten, gainerako nazio gehienek duten bezala, beren herri- **olerkaritza**, nahiz **olerkaritza** hori urria eta interes gutxiak izan. Bada, bai, euskaldunek ere badituzte beren kantu, balada eta koplak; baina, egia esan, piezok ez dute inondik inora poesiaren izenik merezi. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Olerkaritzan, abangoardiaren bidea aukeratu bazuen ere, euskal poeta klasikoak biziki maite zituen. **Berria - Harian**

olerki *(733 agerraldi, 74 liburu eta 246 artikulutan)* 1 iz poesia-lana, lerro sailetan egiten dena. ik poesia; poema.

Lizardiren **olerki** bateko lehenengo perpausa den "Bihotzean min dut, min etsia, negar isila darion mina" esaldia. **Itziar Laka**

Emily Dickinsonen **olerki** guziak musikalak direla eta hark aspaldi soinuratu zuela bat. **Aurelia Arkotxa**

"Ahotsak hautsiz" zeritzan **olerki** baten pasarte soil bat irakurri nion. **Jon Muñoz**

Olerkiak esateko edo irakurtzeko beste modu bat. **Edorta Jimenez**

-Marie-Noëlle-en **olerki** aintz itzuli ditut. **Menane Oxandabaratz**

Poetak **olerkiak** idazten dizkio, egunero bat behintzat, bere maiteari. **Edorta Jimenez**

Gerora, egun batez, emazteak koadernora aldatutako **olerki** hura aurkituko zuen: "Bi herrialde besterik ez dago: sasoiak daudenena eta gaixoena". **Imanol Zurutuza**

Errimarik gabeko **olerki** haietan, bihotz taupaden etorriaz idatziak, mundu oso batek zirakien, samurtasunezko unibertso ezin handiago batek. **Jon Muñoz**

Maitasunezko **olerkiak** baino zerbait gehiago. **Jon Muñoz**

Gabriel Celayaren **olerki** guztien bilduma osatu dute. **Berria - Kultura**

2 (izenondoekin)

Olerki neurtuek diziplina eta logika handia eskatzen dute, idazteko metodo jakin bat... **Ana Urkiza**

Ez ote dira ohartu **olerki** epiko gehienetan galtzalea dela ohoratzen. **Herria**

Lizardiz eta bere **olerki** gailenetako batez: "Asaba zârren baratza". **Xabier Mendiguren Elizegi**

Rap erritmoz egindako **olerki** zoragarria. **Edorta Jimenez**

Ongi irakurtua baitzuten "La Chanson de Roland" Erdi Aroko **olerki** ederra, nahi zuten jakin noraino adi zitekeen Ibañetatik igorri adar deia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Nire **olerki** kutunetako bat irakurri nuen. **Jon Muñoz**

Horiek oro, *Zendako ote?* galdatu zuen Migel Unamunokoak, Espainiak atzerriratu zuelarik eta, Biriatuko oroitarriaren aitzinean gogoetaturik, gaztelaniazko ¿*Para qué?* **olerki** hunkigarria asmatu zuelarik. **Piarres Xarriton**

Olerki jostakinak ere, zenbaitzu. **Herria**

Begira, hementxe, Seoanen, bada idazle bat, oso **olerki** politak idatzi dituena, *Os Eidos* du izena bere liburu batek. **Josu Zabaleta**

Nik neuk ere **olerki** labur bat irakurri dut, euskaraz eta gaztelaniaz. **Edorta Jimenez**

Olerki libroa estimatzen da, bena ez saristatzen. **Herria**

Olerki budistetan oinarritutako obra bi dira. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inoiz ez zuen haren **olerki** lerro bakar bat irakurri. 12-tan "Hatsaren Poesia 2004" deitu **Olerki** bildumaren aurkezpena. **Anton Garikano**

Parisen Lizeoetako gazteek egindako **olerki**-lehiaketako sarien banaketara gonbidatu ninduten. **Edorta Jimenez**

Felipe Arrese Beitia **olerki**-saria: saria eman gabe geratu da. **Herria**

Malaye Djeziri-ren **olerki**-liburua zen. **Juan Kruz Igerabide**

Gazterik hil bazen ere [...] seiehun prentsa-artikulu, hogeita hamahiru **olerki**-sorta eta hamalau liburu idatzi zituen. **Askoren artean**

Iluntzean **olerki** emanaldi bat dago, denontzat irekia. **Edorta Jimenez**

4etan **olerki**-saioa Senpere-Oxtikenean. **Herria**

Izanan da ere bertalde kantaldi, kontzertu, **olerki** irakurketa... **Herria**

Lau **olerki**-esatariek elkarri txanda hartzen diote. **Edorta Jimenez**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri antzerkia, pastoralak, dekorazio- **olerki** gehienak eta kantutegi zaharra zein gaur egungoa, berriz, belarritz jasotzekoak badira ere, idatziz sortuak dira gehienak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Azkuek bildutako herri **olerkietan**. **Iñaki Arranz**

Ormazabalaren ume **olerkietan** ere, hitz bikoitz "berriak" topatzen ditugu han-hemenka. **Iñaki Arranz**

Trebatua naiz ziri- **olerkietan** ere. **Juan Garzia**

Horrexegatik bilakatu zen, beharbada, errerealismo poetikoaren zinema- **olerki** fatalisten galai. **Berria - Kultura**

Urtetik urtera ere zorbait eskoletako haurrek talde- **olerki** batzu liburuan ezartzeko moldatzen dituzte. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitonaren olerki (5); egindako olerki (3); euskal olerki (3); idatzitako olerki (8)

olerki bat irakurri (3); olerki bilduma (16); olerki bildumaren (3); olerki eder (4); olerki epiko (3); olerki guziak (3); olerki irakurketa (6); olerki liburu (5); olerki liburu (6); olerki luze (3); olerki saria (4); olerki sorta (4); olerki zati (4)

olerkia irakurri (3)

idatzirik olerkiak (3); narrazioak eta olerkiak (3); olerkiak idazten (5); olerkiak irakurri (9); olerkiak irakurtzen (4)

bertso eta olerkien (6); olerkien hemeroteka (4)

olerkiera iz olerki estiloa.

Nolakoa da ba Lotsatiren **olerkiera**? **Xabier Mendiguren Elizegi**

olerkigile *iz* olerkiak ontzen dituena.

Badakigu Edinburgotik oso urrti ez zegoen nonbaiten jaio zela, nahiz eta ez jakin zehatz-mehatz non, herriaren izena ez baita iritsi gure ezaguerara, ez bada baladetako "Scarlet Town" izenarekin -eta ezin asmatu zein den Barbara Allen ederraren hiri gorri hori, **olerkigilearen** irudimen gartsuak sortutako ametszko hiri eskarlata bezalaxe izan baitaiteke Edinburgoko aldiri edo auzo kaxkarren bat-. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

olerkigintza *(21 agerraldi, 5 liburu eta 12 artikulutan)* *iz* olerkari batek, eskola edo talde batek olerkiak egiteko duen era berezia; olertia jardun gisa hartua. ik **poemagintza**.

Aldagai horiek mende hartzen ditu bertso lerroen bereizketak, eta horrek bidea zabaldu die akrostikoei zeinahi hizkuntzako **olerkigintzan**. **Iñaki Arranz**

Hastapenean, literatura italiarra izan genuen eredu, batez ere, **olerkigintzan**. **Ana Urkiza**

Arrese Beitiaren arrakasta, haren **olerkigintzaren** kalitateari baino gehiago zor zaio sortu zeneko momentuari. **Berria - Kultura**

Aratsaldeko 2.30etan, Agurtzane Ortiz-en mintzaldia Manex Edozaintzi Etxart-en **olerkigintzaz**. **Herria**

«**Olerkigintza** modakoa omen zenari, poesia existentzial-sozialari» ireki zizkion ateak, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*-ren irakurketak akuilatuta. **Berria - Harian**

Arte Plastikoak izeneko sailak pintura, eskultura nahiz argazkigintza hartuko ditu; Literatura arloan, aldiz, narratiba, **olerkigintza**, ipuina nahiz saiakera diziplinek parte hartuko dute. **Berria - Kultura**

Estepan Urkiaga -Lauaxeta-, abertzale gazteen lorerik loratuena **olerkigintzan**, surik sutuena mitinetan, idazlaririk trebeena izparringietan. **Edorta Jimenez**

Salman Rushdie «ile zuriak erakargarritasun seinale izatetik zahartzaroaren oinaze izatera igarotzen diren tarte arrikutsu horretan aurkitzen den **olerkigintzako** sex-symbola». **Berria - Kultura**

olerkiño *iz* olerkitxo.

Gatuzain argitaletxeak atera du liburu bat arras berezia, Mikel Dalbret saratarraren 25 marrazki koloretsu bildurik eta marrazki bakoitzaren aldean Jon Maia Zumaiko bertsulariaren **olerkiño** bat. **Herria**

olerkitxo *iz* poematxo.

Isiltasun handi bat egin zen eta mutikoak, dena jarraian eta estropezu egin gabe **olerkitxo** bat errexitatu zion gotzainari ur-zirrista bat bezain ahots argi finaz. **Koldo Biguri**

Sainetegileetako batek lehoiarena egin zuen, lurreetan etzan eta orroka, eta aitak **olerkitxo** batzuk irakurri zituen; berebiziko txaloak egin zizkieten. **Josu Zabaleta**

olerkizale *iz* olerkien zalea den pertsona.

Bi egunez, irailaren 7 eta 8an, larunbat-igandez, olerkari eta **olerkizaleak** elgarretaratuko dira Senpere-Oxtikenean. **Herria**

olerkizaletasun *iz* olerkizalearen nolakotasuna.

Musikazaletasunak eta **olerkizaletasunak** irakurtzen eta idazten ikasteko gogoa piztu zioten, sortzen zituen kantak gorde egin nahi baitzituen. **Fernando Rey**

Olerkizaletasuna agerian dute urruneko herri horietakoek, eta, euren pozarekin bat eginez, nik neuk ere olerki labur bat irakurri dut, euskaraz eta gaztelaniaz. **Edorta Jimenez**

olerti *(25 agerraldi, 6 liburu eta 9 artikulutan)* **1** *iz* poesia, arte gisa hartua. ik **olerki**.

Bi urtetan, zazpireun orrialdetan, berreun idazlan eman dizkigu, jakintza, elerti, musika, **olerti** eta abar azaldurik. **Koldo Zuazo**

2 (hitz elkartuetan)

Harri eta Herri baino lehenago hasi zen gizarte-**olertia** egiten, eta, Mitxelenak, Aresti gizarte-**olertiaren** barruan zegoela esaten zuen, eta saiatu zen Aresti AEBetan argitaratzen. **Berria - Kultura**

oles *iz* atera heltzen denak egiten duen deia; agurtzeko deia.

Haren **olesari** agur isil batez erantzun nion, eta orduan leihoan mutiko baten burua ikusi nuen. **Edorta Jimenez**

Oles motel bat egin nion, eta gelatik alde egin nuen, hanka. **Edorta Jimenez**

2 (hitz elkartuetan)

Oles keinua egin nion; esku batekin boneta altxatuz eta bestearekin kriseilu astinduz erantzun zidan. **Edorta Jimenez**

3 *oles egin*

-Zer dugu, Mattin? -**oles egin** nion, anaiarekin hitz egitera zetorrela uste izanik. **Edorta Jimenez**

Zoaz, kapitaina, ene partetik **oles egin** daniar erregeari. **Juan Garzia**

Bizkaiko zabra taxuko ontzitxo baten ondoan igaro ginelarik, euskarazko berba batzuk aditu genituen eta, **oles egin** genien hangoei, zoroen modura deiadarka, eta itaundu, aldarriz hori ere, nongoak ziren. **Edorta Jimenez**

Artilleroen gorpuak uretara banan-banan jaurti eta danba!, kanoikada banaz **egin** zieten beren kideek gorpuei **oles**. **Edorta Jimenez**

- Han, kristalaren kontra galdurik begirada, kilimakurrei **oles egin** nien, sabelean jarriz arreta osoa, zure etorreraren zain. **Eider Rodríguez**

oletar *izlag/iz* Oletakoa, Oletari dagokiona; Oletako biztanlea.

Astelehen huntan bere azken egoitzaraz segitua izan da Mattin Perugorria **oletarra** (Trabenea). **Herria**

olgantza *iz* olgeta.

Bikotea **olgantzan** eta alberdanian ibili zen, orain trufaka, orain laztanka, harik eta, ilunabarrarekin, nagusia mirabe jantzian agertu zitzaizen arte. **Patxi Zubizarreta**

Ez elkarrekin **olgantzan** jarduteko: arreta handiz hautatu dut, edertasunari hainbeste begiratu gabe, baizik osasuntsu, aldaka zabaleko, gazte eta alai izateari. **Juan Garzia**

olgota, **olga**, **olgatzen 1 da ad** jostatu, jolastu, atsegin hartu.

Ni ere ase arte **olgatuko** naiz egunen batez, zaude ziur. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Hobe bidean aurkitzen diren neskatoak, gau baterako edo hilabeterako on, geroaz pentsatu gabe **olgatzeo**, emazteek aitzakia hori izaten baitute. [Juan Garzia](#)

Olga zaitetz, ez zara inoiz orain baino gazteago **olgatuko**. [Itziar Otegi](#)

Hor egoten da pikarota gure zain, gu sentimenduarekin itsutu eta barregarri geratu orduko gure kontura **olgatzeo**. [Anjel Lertxundi](#)

Egiguk pot, egiguk pot!, **olgatzen** ginen. [Anjel Lertxundi](#)

• 2 du **ad** jostarazi, atsegin harrarazi.

Hain dira laburrak gure atsegin-urte ezti horieki horietaz gozatzeko zoria baldin badugu, oroimen politiek kontsolatu eta **olgatuko** gaituzte zahartzaroan ere. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Bera egon izan balitz sakan hartan senarren aurka labankadaka ibili ordez, haragia **olgatuko** zukeen bestek **olgatu** zuketek bezainbeste eta bezain nasai. [Jon Alonso](#)

-Horrek **olgatzen** badu, ni ez nau askorik gogaitzen -pentsatzen du Axenariok. [Itziar Otegi](#)

olgeta 1 iz olgatzea, atsegin hartzea, jostatzea, jolastea. ik **olganta; parranda**.

Senargaietara aritzea jaioterriko ume guztiak egindako **olgeta** zen. [Joxemari Iturralde](#)

Niri iruditzen zait **olgeta** hauek hotzak eta gatzik gabeak bihurtzen direla, geure burua jantzi ahala deboziogai horien ezerezaz jabetzen garenean. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Itsastarra zen eta bere txikitako **olgeten** lekua izan zen itsas portura itzuli zen Andres Untzain, hiltzera. [Edorta Jimenez](#)

Ondotxo genekien bukatu zirela, behingoz, **olgetak** eta ameskeriazko jolasak, kito betiko. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gure arteko jolasek ez ziguten hasierako zirrara hura eragiten eta, elkar maite genuen arren, beste **olgeta** batzuetara jotzen genuen. [Juan Martin Elexpuru](#)

Eskuaz laztantzen nuela **olgeta** atseginaren eguzkiak belztutako izter gihartsu eta bilo horidun haien azal leun eta otzana. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Kondoia, horren ostean etorriko diren **olgetetarako**... [Patxi Zubizarreta](#)

Eta era honetako **olgetetan** jardun nahi duzunean, Eugeni, baztertu azidoak: hemorroideak handitzen dituzte eta sarketa mingarri bihurtzen. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Ez nekien zergatia, baina Danel jolasean ari zen gurekin, hain gustukoak zituen **olgeta** haietariko bat baliaturik, gu barregarri uzteko. [Anjel Lertxundi](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ohea, beraz, **olgeta** lekua izan zen haientzat luzaroan; hara eramaten zituzten jostailuak, han jaten zituzten lapurtutako azenario eta arbiak. [Karlos Zabala](#)

Zer izango itsasontzia eta, nola esango nuke, **olgeta** -areto flotagarri bat edo horrelako zerbait zen, txanpon-makinetan jokatu, pantaila erraldoian telebista ikusi edo dantzan ibiltzeko. [Bernardo Atxaga](#)

Lehenik, **olgeta** elkarrekin, herri elkarrekin, 20an danborradarik ez jotzea erabaki zuten -25era aldatu zuten-, maisu zenduaren omenaldi gisa. [Askoren artean](#)

Bestea, espaloi ertzetik, lagunaren zakarkeriak batzuetan oina errepidera aterarazten ziola, **olgeta** -aurpegiz zetorren entzuten. [Irene Aldasoro](#)

Baina **olgeta** adierazpen bat zerabilen aurpegian ñirrika. [Irene Aldasoro](#)

Diru mordoak zahutu nuen zulo horretan, baina ez zitzaidan axola, **olgeta** -antropologia praktikatzeko aukera ezin hobea eskaintzen baitzidan, eta, gainera, bertan zerbitzatzen zuten whiskya ez baitzen batere makala. [Iban Zaldua](#)

3 **olgetan adlag** olgatzen, jostatzen, jolasean; txantetan.

Gerran **olgetan** nekatzen ginenean, ez dakit zenbat bider hil eta gero, orduan ahoz gora etzaten ginen, landabideren batean edo nasako harlauzen gainean. [Joseba Sarrionandia](#)

Ohean etzanda, Juliaren berna luze biluzia Eñauten inguruan korapilatzen zen suge leun eta zuri baten antzera, esku batez bularreko ile izerditsuetan **olgetan** entretenitzen zen bitartean. [Sonia Gonzalez](#)

Dingilizka zegoen letreroxoarekin **olgetan** ari zen Mentxu. [Josu Landa](#)

Garbitzailearen izena Kedar zen, eta, egun batean, putzuaren inguruan **olgetan** ari zirela, Malcolm bertara jausi eta ito egingo zen. [Julen Gabiria](#)

Eta geroz eta gogo handiagoz abiatu ohi zen kalera **olgetan**, handik edo hemendik saltsa-maltsaren batean ikusiko zuelakoan. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Aurrealdeko etxeko eskaileretan noiz **olgetan** noiz borrokan zebilen deaburtxo-talde baten garrasiak. [Lopez de Arana](#)

Gintonikaren izotzekin **olgetan** hasi da. [Paddy Rekalde](#)

Herbie beste emakumeren batekin **olgetan** ibil zitekeela pentsatze hutsak, berriz, sutan jartzen zuen. [Mirentxu Larrañaga](#)

Eskain zakizkio oso-osorik zurekin **olgetan** ari den libertinoari. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

-Honek elefanteen hilerria dirudi -esan zion **olgetan** Lucyk aitari. [Joxemari Iturralde](#)

-Kanta hau ez al dugu lehentxeago ere entzun? -galdetzen zidan **olgetan** Silbiak. [Joxemari Iturralde](#)

Eta zuk, Lezo, zer egingo duzu? -galdetzen zioten irrikan orduan **olgetan** -benetan. [Iñigo Aranbarri](#)

Benetako gauzak **olgetan** bakarrik esanak izan daitezten lortzen du umorismoak, eta olgetakoak benetan hartuak izatea galarazten. [Iñaki Segurola](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olgetan ari (5); **olgetan hasi** (4); **olgetan ibili** (3); **olgetan zebilen** (3)

olgetagai iz olgetarako gaia.

Bi izebek ere gogoz barre egin zuten, Gabrielen arduratasuna **olgetagai** jakina baitzen beren artean. [Irene Aldasoro](#)

olgetakide iz norbaitentzat, harekin olgetan ari dena.

Ezagunak nituen **olgetakide** asko, telebistako lanetik batzuk, Danelek antolatzen zituen festetatik gehienak. [Anjel Lertxundi](#)

olgetaldi iz oleta saioa.

Olgetaldi bat egin nahi dut biak izorratzen. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

olgetazale izond olgetaren zalea dena.

Aita, don Pedro Hurtado, gizon garai, argal, dotore bat zen, gaztaroan apaina eta **olgetazalea** izana. [Josu Zabaleta](#)

oliadura (orobat oliodura g.er.) 1 iz Elizaren sakramentua, hiltzeko zorian daudenak olio santuaz gantzutzean datzana.

Eri zenbait lagunduak izan ziren beste batzuk atsoluzioe laster batekin egon behar, eta zenbait aldiz **oliadura** lasterrago batekin. Marzel Etxehandi
Marburyk kontatzen du noble ingeles bati **oliadura** eman ondoren ohartu zirela olio behar bezala sagaratu gabea zela eta besterik ez zegoela eskuratzerik. Xabier Olarra

Bitxia da gaixo honi gertatzen zaiona, larunbatean gaixoen **oliadura** jaso zuen eta lau egun geroago senda-agiria ematen diote. Berria - Mundua

Kontutan hartzekoak dira baita ere aitortzaren eta **oliadurako** sakramentuaren aipamen garbiak. Jon Muñoz

2 azken oliadura oliadura.

Azken **oliaduraren** errotia hiltzeko zorian den norbaiten gorputzeko alde batzuk Apezpiku batek sagarutatuko olio z ukitzean datza. Xabier Olarra

Hirugarren egunean azken **oliadura** eman zioten. Kofesatu nintzen, komuniatu ninduen, eta azken **oliadura** eman. Xabier Olarra

oliaduratu, oliadura(tu), oliaduratzen du ad oliatu.

Oliaduratzen nute, ene hurbilekoek pentsatzen dute ez nizala hortik aterako. Michel Oronoz

oliatu, olia, oliatzen du ad oliadura eman.

Apaizak haren begiak, haren sudurrak eta oinak **oliatzen** zituen bitartean, koba bazterretara begira zegoen Paco. Pablo Sastre

oliba 1 iz olibondoaren fruitua, jateko ona, txikia eta luzarana, azal leuna, hezur gogorra eta olio ematen duen mamia duena.

Olibondoak astintzean, ez itzuli adarretan geldituriko **olibak** biltzera. Elkarrekin jardunak ziren **oliba** biltzen eta baita zerriak zaintzen ere. Elizen arteko biblia

Gauetz, Haiat Al-Nufus printzesarekin berriketan ari zela, **olibak** jateko gutizia egin zitzaion. Patxi Zubizarreta

Garagardo bat eta **olibak** eskatu zituen. Migel Angel Mintegi

Oliba bat ahoratu, eta begirada edari horixkaren aparrean kokaturik, pentsakor gelditu zen, ilehoria gogoan. Migel Angel Mintegi

Oliba irentsi, hezurra platerxoan utzi, eta zurrutada bat garagardo hartu zuen. Migel Angel Mintegi

Joseluk egin zuen afaria: esparragoak **olibekin**, eta saltxitxak tomatearekin. Alberto Barandiaren

Annak **oliba** bezain leuna zen aurpegi hartan finkatu zuen begirada. Lopez de Arana

Hiru bitter erdi eta **oliba** beltz batzuk eskatu genizkion. Joan Mari Irigoien

Baratzuri, piper eta pepinotxo arteko **oliba** birrinduekin. Jon Maia

Ogi garratza eta **oliba** bigunduak jan zituzten. Juan Garzia

Orain berton baditugu urdaiazpiko edota gazta zaporeko patata frijiuak, antxoia gustuko **olibak**, [...]. Edorta Agirre

Olioak **olibarena** behar du izan. Pako Aristi

Gari, ardo, **oliba**, granada, piku eta gainerako fruituen hamarrenak ere ematen nituen, Jerusalemen kultu-zerbitzua egiten zuten lebitarrentzat. Elizen arteko biblia

Olibaren jatorriko garestitzeak 25 milioi euroko kostua eragin omen dio. Berria - Ekonomia

2 (neurriekin)

Zakukada **oliba** jateko prest ni. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguerdia zen, eta gizonak vermouthe bat eta platerxo bat **oliba** eskatu zituen. Joan Mari Irigoien

Ezpainetan irribarrea zekarren azken honek eta, eskuetan, platerxo bat bete **oliba**. Aitor Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txinan (*Olea europaea* gorabehera) olibondoa aldatzen segitzen dute, eta **oliba** barietatea, batez ere, *pikual*, *arbekina*, *hojiblanca*, *zurixka*, *enpeltre* eta *verdial* dira. Edorta Agirre

Ahotik **oliba** -hezur bat bota zuen bere ukabil hertsira. Lopez de Arana

Trailu berak jotzen du galburua eta barreiatzen du lastoa, eta olio ez da **oliba** -patsarekin nahasten dolare berak zapaltzen dituelako. Imanol Unzuurrungaza

Miraz gelditzen zen sardinzar ketuei, antxoei, kaparrei begira, edo pepino eta **oliba** upelen aurrean. Karlos Zabala

Elenek bere igaroan aurpegiak, fruta-erakusleihoak, lekale-poteak eta **oliba** -pitxerrak ikusten zituen. Lopez de Arana

Oliba -poteak ere baziren ugari! Jon Muñoz

Bada baliabide gutxiago duen musikajole, kantari, **oliba** saltzaile, izozki saltzaile eta gainerako, sos batzuk biltzeko makina bat ordu eman behar duena kale gorrian. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Olio-**oliba** landatzen da, jatekoa bigarren mailara igarota. Ahuntz bizardunei basa-**oliba** atsegin zaie. Edorta Agirre

• 5 izond oliba kolorekoa.

Belus **olibako** galtza lasaiak, gerriko gorria, zilarrezko eratzun batez lotutako lepo itzuli handiko alkandora. Koldo Izagirre

- Behin artilezko bufanda berde-**oliba** lepoaren inguruan ezarrita, neguko beroki marroi iluna jantzeari ekin zion. Lopez de Arana

6 oliba-ale (corpusean olibale soilik)

Errein, bai, ereingo duzu, baina uztarik bildu ez; **olibalea** zapaldu, bai, baina zeure burua gantzutu ez; mahatsa zapaldu, bai, baina ardorik edan ez. Elizen arteko biblia

7 oliba-berde izond

Jamesek marra berde argiekiko jantzi gris ilun bat zuen, bai eta urrezko orratzarekiko puntuzko gorbata **oliba** -berde bat eta lauki beltzekiko artilezko galtzerdi **oliba** -berde batzuk ere. Lopez de Arana

- Luxuzko zur sendoz eginak ziren, eta **oliba** -berdezko belusez estalita zeuden. Jon Muñoz

8 oliba-kolore (orobat olibakolore g.er.) izond olibaren kolorea duena. ik olibakara.

Neskaren parera iritsi zenean, gizon **oliba** -kolore burusoilak gorpua bultzatu zuen alde batera, eta neskari hitza zuzendu: "dantzan ingo al deu?". Jon Alonso

Manchester-gona **oliba** -kolore kanpai-erako bat. Joxe Austin Arrieta

Ez zen askorik aldatu itxuraz: garaia zen, hezurtsua, **olibakolore**; ileak artean sarriak, bizarra ongi moztua, bekokia, sudurra eta kokotsa gotor eta ozta-ozta zirriboratuak irudi. Juan Garzia

Jende andana, batzuk euskaldunak, beste batzuk **oliba** kolorez edo grisez jantziak. Jokin Urain

- Siberiako harri garden horietan bakarrik aurkitzen den **oliba** kolore ilun horretako likore bat edan zuten gonbidatuek aurrena, kopa bana. Jose Morales

9 oliba koloreko izlag oliba-kolorea.

Altzairuzko begiak, sudur fin okerra eta **oliba** -koloreko larruzala zeuzkan eta bere ezpainei halako muzin-kutsu arin bat zerien. Lopez de Arana

Bere gorpuzkera egoki, **oliba** -koloreko azal eta ilaje dotorearekin, ziurtatuta zeukan beti erakarmen moduren bat. Oskar Arana

Galtza luzeak **oliba** koloreko panazkoak, gerriko gorria. Koldo Izagirre

Haren **oliba** koloreko aurpegiak Maurice Barrès-enaren nolabaiteko antza zuen. Monika Etxebarria

Orduan bere begi **oliba** kolorekoak nigan murgildu zituen. Jon Muñoz

- Gizon **oliba** -koloreko burusoila zutik jarri zen. **Jon Alonso**
ik gorago 8.

10 **oliba-olio** (*orobat **olibolio** g.er.*)

Oliba-olioa, ardoa, kafea, gure europar historiaren mugarri eta barneko muga-marra dira. **Edorta Jimenez**
Bidaiaaren azken aldera Varsovian afaldu genuen; perrexila, berakata eta **olibolioa** ziren jatekoetan. **Edorta Jimenez**
Oliba olio erraz ekoizten da, ingeniari-tza genetikoak haratago, puntako teknologiaren premiarik gabe. **Edorta Agirre**
Oliba-olio fina zen hura, ordea, hotzean ateratako lehen zuku horietarikoa, Toskanatik zuzenean ekarria. **Jon Muñoz**
Agindu israeldarrei **oliba-olio** garbi eta birfindua ekartzeko, krisailuak beti pizturik egon daitezela. **Elizen arteko biblia**
Lehenen behar duzuna ahal den **oliba oliorik** usaingabeena, sudurrei inolako jariorik igorriko ez diena. **Xabier Amuriza**
Tomate helduekin eta **oliba olioarekin** igurtzitako ogi zatiak. **Berria - Kultura**
Sei kilo kasia santutegiko pisu-neurriaren arabera, eta lau litro **oliba-olio**. **Elizen arteko biblia**
Berehala bueltatu zen, **oliba olio** potoa eskuan. **Jasone Osoro**
Sardina gazituen kaxa biribila hartu eta **oliba olio** lata koloretsuen gainean utzi du. **Pello Lizarralde**

11 **oliba ondo** ik **olibondo**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gizon oliba koloreko (3); **oliba kolore** (3); **oliba koloreko** (14); **oliba koloreko larrua** (3); **oliba olio** (8); **oliba olio** (6)

olibadi iz olibondo z landaturiko landa edo saila.

Toskanako mendialdeko herrixka guztiak bezala, antzinakoa da eta hilibi etrusko ugari ditu, eta, bi mila urte lehenagotik, nekazaritza, soro mailakatuak eta **olibadi** eta mahastiak izan ziren hangoen bizibide. **Xabier Olarra**
Lur-sailik, mahastirik eta **olibadirik** ederrenak kenduko dizkizue, bere zerbitzariari emateko. **Elizen arteko biblia**
Dena kiskali zen: bildutako garia eta artean ebaki gabe zegoena, eta are mahastiak eta **olibadiak** ere. **Jose Antonio Mujika**
Jaen aldean **olibadiak** lerro zuzen-zuzenetan antolatuta daude; ez duzu halakorik topatuko Marokon. **Iban Zaldúa**

olibakara izond olibaren kolorearen antzeko kolorekoa. ik **oliba 8**.

Bestea ere, don Blas Carreño, argala zen; baina garaiagoa, sudur-kakoa, ile urdina, azal **olibakara** eta militar-itxurakoa. **Josu Zabaleta**
-Kolore ilunen bat, **olibakara** edo botila-berdea, txilar koloreko izpilekin -esan zuen Txixikovek. **Jose Morales**

olibakolore ik **oliba 8**.

olibale ik **oliba 6**.

olibatze iz olibondoa.

Ekia zeruaren erdian jauntzen zenean, egarria pasatzen zuten eta **olibatzeen** maldara heltzean, itzalean jartzen ziren ahamen eta ur ttilikaz sosegatzeko. **Itxaro Borda**
Olibatzeak iruditzen zaizkizu ilunpean, enbor eta adar bihurrikoak. **Xabier Montoia**
Ez legoke ez laranja edo zitroinik, ez molde anitzeko fruitu eta barazkirik, ez lerroka ezarri **olibatze** eta mahastirik ere. **Xabier Montoia**

olibino iz magnesio eta burdin silikato batek osaturiko harribitxia, berdea edo horia.

Ez zituen berekin ekarri, halere, ez lapis lazulizko paparreko orratza, ez **olibinozko** besokoa, ez eta topazio eta amatistadun eraztunak ere; etxean utzi zituen bere komodako tiradera batean. **Mirentxu Larrañaga**

olibolio ik **oliba 10**.

olibondo (*orobat **oliba ondo** g.er.*) **1** iz *Oleaceae* familiako zuhaitza, olibak ematen dituena, enbor bihurri adartsua, hosto berdeak gainetik eta zurixkak azpitik, eta lore zuriak dituena (*Olea europaea*).

Mandioan ez zen alerik; mahatsondoak, pikuondoak, granadondoak eta **olibondoak** ez zuten fruiturik ematen. **Elizen arteko biblia**
Olibondoak ilara perfektuak osatzen zituzten. **Jon Maia**
Herialde beroak ikusi nahi nituen, non fama baita **olibondoak** eta limoi-arbolak hazten direla. **Juan Garzia**
Zedro, arkazi, mirto eta **olibondoak** landutako ditut basamortuan; zipres, zumar eta izeiak eremuan. **Elizen arteko biblia**
Txinan (*Olea europaea* gorabehera) **olibondoa** aldatzen segitzen dute. **Edorta Agirre**
Argiune bizi eta mugikor hartan horma sabeldu erdi erori bat ageri zen, non **olibondoan** sustrai tormentatuak bihurritzen eta kiribiltzen baitziren, harri landugabeak besarkatu nahian bezala. **Patxi Iturritegi**
Paisaia han gris zilarkara duk, **olibondoan** kolorekoa. **Xabier Olarra**
Behiek tiratuko gurdietan abiatzen ziren herriko plazatik **olibondoetarantz**, eta makildutako **olibondolari** olibak nora erori zitzaizkion ikustea ezinezkoa zenean bukatzen zuten eguna. **Jon Maia**
Olibondoak astintzean, ez itzuli adarretan geldituriko olibak biltzera. **Elizen arteko biblia**
Neuk agorrazazi ditut lurra eta mendiak, gari-sail, mahasti eta **olibondoak**, lurraren emaitza guztia. **Elizen arteko biblia**
Buzoka batek elektrika hari bat jorik Garinoainen, Nafarroan, sua lotarazi du hango **oliba ondo** eta landare batzuetan, makurrak ere eginez, landaretegi haren ehunetarik 80 erre baitira, erran nahi baita 120 **olibondo**, eta arte ondo batzu besteak beste. **Juan Garzia**
Pikuondo eta **olibondoak** matxinsaltoak jan ditu. **Elizen arteko biblia**
Ondoren hesolak sartuko dira, makal, **olibondo** edo haritzekoak eta sutan gogortutakoak. **Santiago Iruretagoiena**
Hirurak ageri ziren algaraka **olibondo** baten azpian. **Hasier Etxeberria**
Etorri ziren etorri errondak, **olibondoetara** paseo luze bekatzukoak igande arratsetan, izen berriak korruetan... **Jon Maia**

Erabat desitxuratu arte egurtu ondoren, eskuak eta hankak txikituta, bera eta gainarako **olibondoetatik** kanposanturaino eramán zituzten, paseoan, hormetara.

Jon Maia

2 (izenondoekin)

Kartolan **olibondo** eder bat zekarren, berrogeita hamar urtetik gorako arbola lerdena. Hasier Etxeberria

Errepidea zuzen zihohan, mahastien artetik eta **olibondo** zahar eta makurtuzko olibadiren bat edo bestetik zehar. Josu Zabaleta

Olibondo zahar haiek, ehunka urtekoak, bihurrituak, tetanosak jotako gaixoak ematen zuten. Josu Zabaleta

Atzean gelditu dira muinoak, argi leunpean, beren baratze-mailekin, beren **olibondo** zartatu eta mahatsondoekin. Xabier Olarra

Olibondo bakan batzuk sail elkor batean, jenderik ez. Joxe Austin Arrieta

Lautadako **olibondo** mardula bezala, platanoa bezala luzatu naiz. Elizen arteko biblia

Olibondo hostotsu baten azpian. Jon Alonso

Olibondo basatiak dira, hiriaren apaingarri betidanik. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haietako asko aurretik zihoazkion, **olibondo**-adarrak eskuetan. Askoren artean

Arratsean etorri zitzaion, **olibondo**-adartxo moztu berria mokoan zekarrela.

Heraklesekin ekarri zituen **olibondo** haziak, hiperboreen lurraldetatik. Berria - Kirola

Sakelako linternak, botila-irekitzekoak, entsaladarako tresnak, **olibondo** zurean landuak. Joxan Elozegi

Zabalera horretan sutan ikaztutako **olibondo**-egurak jarri beharko dira zeharka eta sarri-sarri. Santiago Iruetagoiena

Eguna argitzean, goizeko argi zurbilean, mahats-soroak eta **olibondo**-ilarak hasi ziren ikusten. Josu Zabaleta

Gari zelaiak eta arto zein **olibondo** sailak desagertzearekin batera desagertu ziren haiek ere, alegia, erbiak eta galgoak. Jon Maia

Olibondo sailetan ibiltzen ginen txorien habia bila, eta mahatsondoetan ere bai. Jon Maia

Jendeak **olibondo** eta beste zuhaitz-aldaska moztu-berriei eragiten die. Askoren artean

4 olibondoaren zura.

Ukuiluaren ondoan, ziklopearen ziri izugarri bat zegoen, **olibondo**z egina, heze-hezea. Juan Kruz Igerabide

Pinu, hagin edo **olibondo**z eginiko lantza zen. Berria - Kirola

Hori eginik, **olibondo**zko enbor batean eseri ziren biak, Peneloperen atzetik zebiltzan ezkongaiak nola hil pentsatzeko. Juan Kruz Igerabide

Egurrezko hesolak sartuko dira lurlean, sutan gogortutako makalezkoak edo **olibondo**zkoak. Santiago Iruetagoiena

5 *basa olibondo* ik **basolibondo**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olibondo adarrak (3); **olibondo** adartxo (4)

olifante

iz J. R. R. Tolkien-en obretan, elefantearen antzeko izakia, ikaragarri handia, gerra tresna gisa erabilia.

Samek ez zuen, oihanen bateko hostailaren artetik edo ezkutuko soilguneren batean, **olifanteren** bat agertuko zitzaion esperantzarik galtzen. Agustín Otsoa

Dena hain da nahasia, beste hainbat gauza gertatu baitira: Aragornen arazoak eta Kontseilu Zuria, eta Gondor eta zaldizkoak, eta Hegoaldeko Gizakiak eta **olifanteak** ...

Agustín Otsoa

oligarka 1 iz oligarkiako kidea.

Baztertuta sentitzen direnak **oligarkak** dira orain, Venezuelako boteretsuenen seme-alaba aurpegi zuridunak. Berria - Mundua

Ministro ohi asko bildu ditu: Justxenko bera eta Anatoli Kinak lehen ministro ohiak dira; Timoshenko eta Poroshenko **oligarkak** dira. Berria - Mundua

Azken batean, baliabide publikoen kontura aberastu den **oligarka** bakarra al da Khodorkovski? Berria - Ekonomia

Eskandalua saihesteko, **oligarkak** Fraga abizeneko galiziar bati ordaindu zion [...] euskal neskatilarekin ezkontzeko. Berria - Harian

Guzti hori arkeologia da, laster ez da izango hemen Espainiako banderarik, ez guardia zibilik, ez **oligarkarik**. Joseba Sarrionandia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **oligarkiko**.

Bilboko **oligarka** familiako faxista bat hil behar genuen, espioitza egiten harrapatua genuen Wakoning kontsularen sarean. Koldo Izagirre

oligarkia 1 iz aginpidea pertsona multzo txiki baino ahaltsu baten eskuetan dagoen gobernu era.

Bere herria kudeatzen zuen **oligarkia** gorrotatzen zuen. Ramuntxo Etxeberri

Japonesekin 'business'-a garatu zuen **oligarkiak** bere bidea segituko zuen amerikarren benedizioarekin. Ramuntxo Etxeberri

Irabazi asmorik gabeko elkartea da, orain 29 urte sortutakoa, eta bere sortzaileen eta kudeatzaileen artean Bizkaiko **oligarkiako** izen ezagunak daude. Berria - Kultura

Egunkari nagusienak, *El Universal* eta *El Nacional*, bere [Chavezen] aurkako **oligarkiaren** eskuetan daude eta ez dute bere jostioaren eta lorpenen berririk ematen. Pako Aristi

Oligarkiaren garai oparoak ziren haiek, aspaldi agortu zirenak. Berria - Euskal Herria

Espainiako banku nagusiak izan zituen bazkide nagusi, Euskal Herriko **oligarkiarenak** tartean. Iñigo Aranbarri

Ondasunak **oligarkia** liberal-kontserbadorearen eskuetan kontzentratzeak sortu zuen gatazka. Berria - Mundua

Gobernu mota bakoitzaren argiak eta itzalak, bai eta desbideraketak, hots, Tirania, **Oligarkia** eta Demagogia eztabaidatu ondoan, hiru eredu nagusien batuketaren hautua egiten zuen Zizeronek. Piarres Xarriton

2 irud/hed

Urdaibai eta Astilleroen **oligarkia** kolokan jarri dute hondarribitarrek, eta hemendik aurrera lehia estuagoa izango da hirugarren txandetan. Berria - Kirola

oligarkiko izond oligarkiarena edo oligarkena, oligarkiari edo oligarkei dagokiena. ik **oligarka 2**.

Greziaiko demokrazia sistema **oligarkiko** bilakatu zen, non klase politikoa eta ekonomikoa gauza bera ziren. Berria - Mundua

Bankuen erdiak dirua zuritzen duten arrautza-oskol hutsak eta beste erdiak talde **oligarkiko** handien finantza adarra dira eta bere kabuz soilik ezin dute aurrera egin. Berria - Ekonomia

Perikle ondoko epe demokratiko erradikalean [...] Athenaiako klub edo hetairia aristokratiko eta **oligarkikoetan** alde batetik, korrante demokratiko igualitaristetan bestetik, justiziaren kontzeptu tradizionalaren eta berriaren artean biziki gogortu zen ausia. Joxe Azurmendi

Unamuno hau da, herri espainol intrahistorikoaren erredentore, eta horren salbazioaren amorez Estatu **oligarkiko** eta zentralistaren apostolu bilakatua, Bilbora etorri dena. Joxe Azurmendi

oligo ik olio.

oligoelementu *iz* izaki bizidunen zeluletan oso kopuru txikian aurkitzen den eta metabolismoan nahitaezkoa den elementu kimikoa.

Etorbizuneko elikagai "konplexuak" aberastuta etorriko zaizkigu, hau da, premiazkoak ditugun bitamina, mineral eta **oligoelementuekin** osatuta. **Edorta Agirre**
Bazekien bitaminak, **oligoelementuak**, mineralak eta bestelakoak oso beharrezkoak zituela bere susperraldian. **Joxemari Iturralde**

oligofreniko *izond* buru ahalmenean urritasun larriari dagokiona.

Eta neuregan bilatu nahi duzu erantzuna, nire barren kakanahasi **oligofrenikoan**? **Karlos Linazasoro**

2 (irain gisa)

Badirudi sinetsi egiten dituzula nahi eta ezin dabilen gixon **oligofreniko** koadrila horrek zereginik gabe dagoenean asmatutako ipuinak, ni gaztea naiz, jauna, baina printzipio sendoak ditut. **Karlos Zabala**

• 3 *iz* oligofrenikoa den pertsona.

Ez nuen espero, eta aurreikuspen falta horrek mokortuta eta **oligofreniko** batek ere erakutsiko ez lukeen irribarrearen jabe utzi ninduen. **Aingeru Epaltza**

Zergatik hiltzen dituzte haur jaioberriak, paralitikoak, **oligofrenikoak**, militarrek? **Karlos Linazasoro**

-Mongolo hutsak dira denak, erremediorik gabeko **oligofrenikoak**, eta barka nazatela **oligofrenikoek** konparazioagatik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

oligomaila *iz*

Batzuek **oligomaila** hori behinola zenbait tokitan endemikoa zatekeen eritasunarekin dute lotzen -kretinismoa, bai-. **Jose Angel Irigaray**

oligomero *iz* erradikal elkartuak desberdinak dituen molekula.

Aratsalde hartan, bat-batean otu zitzaion tasun horietariko gehienak azaltzeko aski zela onartzea halako proteinak **oligomero** espezifikokoak zirela, hots, simetriaz antolatutako azpiunitate kopuru bikoitiz osatuak. **Juan Garzia**

oligonukleotido *iz* ADN edo ARN sekuentzia laburra, berrogeita hamar base bikotek edo gutxiagok osatua.

Plaka horrek **oligonukleotidoak** ditu; familiako hiperkolesterolemia eragiten duten mutazio bakoitzari dagozkion sekuentzia osagarriak, alegia **Berria - Gaiak**

oligopolio 1 *iz* saltzaile kopuru urri-urri batek merkatua kontrolatzen duen egoera.

Gaur egun indarrean dagoen sistemak zerikusi gutxi du erabat berekasa, inongo oztoporik gabe, funtzionatzen duen merkatuarekin, zeren monopolioak **oligopolioak**, enpresen arteko akordioak, informazio eta aginte asimetria izugarriak, edota gobernuen araudi protekzionistak baitira nagusi. **Iñaki Heras**

Hementxe jazotzen dira espekulazioaren ondoriozko sarraski larrienak: "alferrrikako" elikagaiak, kostua jaitsaraziko luketenak, etc, desagerrarazten dira, prezioak [...] atxikitzea agintzen baitu monopolio eta **oligopolio** eskergen aginduzko eskaera/eskaintza legeak. **Edorta Agirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **oligopolistiko**.

Nazioartekotzea, beraz, internalizazioarekin lotua ageri da hemen, merkatuaren hutsuneei emandako erantzun gisa, **oligopolio** -konkurrentziako egoera batean. **Koro Navarro**

3 irud/hed

Zenbait monopoliori eusten dieten arren, militarri adibidez, **oligopolio** batean daude, non lauzpabost botere dauden: Europa-Erusia, Txina, India eta Japonia. **Berria - Mundua**

Libre utzitako eremuez **oligopolio** informatibo pribatuak jabetu ziren azkar asko, hariak eta merkatuaren jaun bakarrak egin ziren arte. **Txema Ramirez de la Piscina**

oligopolistiko *izond* oligopolioarena, oligopolioari dagokiona. ik **oligopolio 2**.

Paul Krugman-ek [...] 1986 azaltzen du nolako ahaleginak egiten dituzten estatuek enpresa nazionaleri merkatu **oligopolistikoetan** sartzen laguntzeko -ohiz kanpoko mozkinak eta sarrera-hesi gogorrek izatea da merkatu horien ezaugarria-, edota merkatu horietan nagusi diren enpresak konkurrentziatik babesten laguntzeko. **Koro Navarro**

oligosakarido *izond* monosakaridoz osaturiko polimeroa.

Normalean, gainera, osagai **oligosakaridoren** bat edo osagai fenolikoren bat izaten dute produktu prebiotikoek. **Berria - Gaiak**

olimpiada ik olinpiada.

olimpiar ik olinpiar.

olinpi

1 **olinpi joko** (**30 agerraldi**, **15 artikulutan**) *pl ipar* olinpiar jokoak.

Beti bezala, **Olinpi** jokoen saila bururatu da maratoni deitu lasterraldi luzearekin. **Herria**

Hiri horrek ardietsi du udako **Olinpi** -jokoak han egitea 2008-an. **Herria**

Parisek jadanik badituela **Olinpi** -Jokoentzat behar diren muntadura gehienak. **Herria**

Plaza laxoa 1924-an egin zen, **Olinpi** -Jokoak Parisen muntatu ziren urtean. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olinpi jokoak (17); **olinpi jokoen** (7)

olinpiada (67 agerraldi, 12 liburu eta 22 artikulutan; orobat olimpiada g.er.) 1 iz pl olinpiar jokoak. ik olinpiar 3.

Nork irabaziko duen hurrengo **Olinpiadetako** ehun metroak, eta maratoia. Iban Zaldua

Olinpiadetako ehun metroko lasterketa balitz bezala geunden gu denok, arnasari eutsiz, hura dena nola bukatuko. Xabier Mendiguren Elizegi

Olinpiadetan ederki aritu dira hedabide abertzaleak Espainia ordezkatu duten euskal kirolarien lana goraiatzeko. Berria - Kirola

Lau **olinpiadatan** jarraian egotea marka bikaina da, baina Telleriari ez dio loa kentzen. Berria - Kirola

Egunen batean **olinpiadetako** domina bat irabaztea gustatuko litzaidake. Jon Muñoz

Olinpiadetako dominadunak. Koldo Izagirre

Neguko **Olinpiadetako** urrezko domina eskuratzetik gertu zegoen, bada, Sven Malysen. Josexo Azkona

Olinpiadetako *citius, altius, fortius* haren antzera, "gero eta luzeago" izan liteke hemengoetako goiburua. Iñaki Arranz

2 sing

Olinpiadara joatekoa den selekzio nazionalen egon nahi du. Jon Muñoz

Oroitzen nuen Bartzelona ere oso desberdina zen, **olinpiada** baino lehenago izan bainintzen hemen azkenekoz. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz edlartuetan)

Telebistako **olinpiada**-emanaldian hipika emango zutela pentsatu zuen. Unai Elorriaga

4 irud/hed

Euskal herri kirolerako **olinpiada** izan ohi da Herrialdeetako Txapelketa, eta irabazten duena, olinpiarra dela esatea ez da gehiegikeria. Berria - Kirola

30 aldiz irabazi du Arraunaren **Olinpiada** deituriko proba. Berria - Kirola

Gazte Topaguneak Gazte **Olinpiadak** antolatuta parte-hartzea sustatzeko. Berria - Euskal Herria

Hilabeteotan Euskal Herriko herri eta auzo ugarietan egin diren gazte **olinpiadetako** finala jokatuko da larunbat eguerdian. Berria - Euskal Herria

Goizean hasi eta ilundu arte, Gaztetxe Egunean antzerkia, herri **olinpiadak**, erakusketak, bazkaria, parodiak, [...] izan ziren bost gunetan. Xabier Montoia

Ondoren, besteak beste, *Eskolak euskaldundu behar du* erakusketa eta ikasle **olinpiadak** izan ziren. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arraunaren olinpiada (3)

gazte olinpiadak (6); olinpiadak ikusi (3)

gazte olinpiadetako (3)

olinpiar (orobat olimpiar g.er.) 1 izlag Antzinako Greziako Olinpiakoa, Olinpiari dagokiona. ik olimpiko.

Zibilizazio etsai baten presioak kanpo-proletalgoaren ugalkortasun-erlijio primitiboak **olinpiar** "jainkozko gerra-taldeen" erako erlijio bihurtzen ditu. Iñaki Mendiguren

Jainkosak berak eta parekoek zuten hilezkortasuna bere giza maitaleari emateko eskatu zien **olinpiar** lagunei. Iñaki Mendiguren

Olinpiar begi baten itxi-irekian ziztu bizian iragan zen eztei-bidaiaren ondoren, Erosek eta orain hilezko baina ezinbestean adintzen ari zen lagunak elkarrekin deitoratu behar izan zuten beti-betiko Titonen zorigaitzeko egoera larria. Iñaki Mendiguren

2 olinpiar jokoei dagokiena.

Olinpiar suak Everest zeharkatuko du **Olinpiar** estadioa, kirolguneak, garraibideak... dena dago erdizka. Berria - Kirola

Olinpiar igerilekuak ez du sabairik. Berria - Kirola

Lekua eta ordua: **Olinpiar** pabiloia (Badalona), 12:15ean. Berria - Kirola

Moskuko **Olinpiar** Kirol Jauregian. Berria - Kirola

Inaugurazio ekitaldia, **olinpiar** hiriko bizimodua... Berria - Kirola

Nazioarteko eta Greziako **Olinpiar** Batzordea, eta, Atenasko gobernu nazioartearen begiepean daude, **olinpiar** guneak epeen barruan bukatuta egongo direla bermatzeko. Berria - Kirola

Autonomien kirol federazioek **olinpiar** erakunde edo nazioarteko federazioetan sartzeko duten gaitasuna. Berria - Kirola

Eusko Jaurilaritzako Kontseiluak **Olinpiar** Sustapenerako Euskal Batzordea eratzeko dekretua onartu zuen atzo. Berria - Kirola

Bartzelonako **Olinpiar** astean ariko dira bihurtik aurrera. Berria - Kirola

Taldeakako **olinpiar** jazarpena. Berria - Kirola

Olinpiar tiroa: Maria Quintanal. Berria - Kirola

Gertu, oso gertu izan nuen **olinpiar** diploma. Berria - Kirola

Olinpiar saria, berriz, Laure Manaudou igerilariari eman diote. Berria - Kirola

Lau aldiz **olinpiar** txapeldun. Berria - Kirola

Azken **olinpiar** txapelduna, aldiz, Varazdat armeniarra izan bide zen. Berria - Kirola

Tyler Hamilton **olinpiar** txapeldunordea izan zen. Berria - Kirola

Bi aldiz **olinpiar** eta munduko txapelduna. Berria - Kirola

Olinpiar loria lortu zuen, azkenean. Berria - Kirola

Hiru **olinpiar** Donostian. Berria - Kirola

3 Olinpiar Joko (686 agerraldi, 4 liburu eta 353 artikulutan; orobat olimpiar joko) pl

Olinpiar Jokoetara joateko gutxieneko marka lortua du dagoeneko. Berria - Kirola

Oraindik ez du Atenasko **Olinpiar Jokoetara** nor joango den iragarri. Berria - Kirola

Turingoak inoizko **Olinpiar Joko** garbienenak izatea nahi dugu. Berria - Harian

Kirolari balitz, lau **Olinpiar Jokoetan** parte hartuta hogeita hamaika urterako. Andoni Egaña

«Super Jokoak izan dira, zalantzarik gabe», bota zuen harro-harro Jacques Rogge Nazioarteko Olinpiar Batzordeko (NOB) lehendakariak Salt Lake Cityko Neguko **Olinpiar Jokoak** amaiera ekitaldian. Berria - Harian

2008ko Neguko **Olinpiar Jokoak** aurpegia aldatu nahi omen diote hiriri. Anjel Lertxundi

Gazteen **olinpiar jokoak** egin ditugu hainbat eskualdetan eta herritan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atenasko olimpiar jokoak (15); atenasko olimpiar jokoan (9); atenasko olimpiar jokoetako (6); atenasko olimpiar jokoetan (67); atenasko olimpiar jokoetarako (18); atenasko olimpiar jokoetatik (4)

bartzelonako olimpiar jokoan (3); bartzelonako olimpiar jokoetan (5)

kataluniako olimpiar batzordean (3)

laugarren olimpiar jokoak (4)

mexikoko olimpiar jokoetan (3); munduko eta olimpiar (6)

nazioarteko olimpiar batzordeak (14); nazioarteko olimpiar batzordean (4); nazioarteko olimpiar batzordearen (8); nazioarteko olimpiar batzordeko (14); neguko olimpiar

jokoak (27); **neguko olinpiar jokoetan** (17)

olinpiar batzordea (6); **olinpiar batzordeak** (21); **olinpiar batzordean** (8); **olinpiar batzordearen** (10); **olinpiar batzordeko** (18)
olinpiar estadioa (6); **olinpiar estadioak** (3); **olinpiar estadioan** (10); **olinpiar estadioan jokatuko** (3); **olinpiar eta munduko** (4)
olinpiar joko (20); **olinpiar joko batzuetan** (7)

olinpiar jokoak (193); **olinpiar jokoak antolatzeke** (17); **olinpiar jokoak antolaten** (3); **olinpiar jokoak egin** (3); **olinpiar jokoak hasi** (4); **olinpiar jokoak hasteko** (3); **olinpiar jokoak iritsi** (3); **olinpiar jokoak izango** (5); **olinpiar jokoak prestatzeko** (4); **olinpiar jokoak prestatzen** (6)

olinpiar jokoei begira (5)

olinpiar jokoek (9)

olinpiar jokoekin (4)

olinpiar jokoan (50); **olinpiar jokoan antolakuntza** (4); **olinpiar jokoan atarian** (5); **olinpiar jokoan aurreko** (3); **olinpiar jokoan aurretik** (7); **olinpiar jokoan hasiera** (4); **olinpiar jokoan ondoren** (4)

olinpiar jokoetako (46); **olinpiar jokoetako antolaketa** (4); **olinpiar jokoetako antolatzaileak** (4)

olinpiar jokoetan (265); **olinpiar jokoetan ariko** (6); **olinpiar jokoetan aritu** (5); **olinpiar jokoetan aritzeke** (4); **olinpiar jokoetan egoteko** (5); **olinpiar jokoetan izan** (9); **olinpiar jokoetan izango** (9); **olinpiar jokoetan izateko** (3); **olinpiar jokoetan jokatuko** (6); **olinpiar jokoetan urrezko** (11)

olinpiar jokoetara (13); **olinpiar jokoetara joan** (3)

olinpiar jokoetarako (55); **olinpiar jokoetarako prest** (3); **olinpiar jokoetarako txartela** (5)

olinpiar jokoetatik (17); **olinpiar jokoetatik kanpo** (8)

olinpiar jokotan (3)

olinpiar kirola (3)

olinpiar sua (8); **olinpiar suak** (5)

olinpiar txapeldun (6); **olinpiar txapelduna** (19); **olinpiar txapeldunak** (3)

olinpiar urtea (3)

pekingo olinpiar jokoak (5); **pekingo olinpiar jokoetako** (4); **pekingo olinpiar jokoetan** (10)

sydneyko olinpiar jokoetan (5)

turingo olinpiar jokoak (3); **turingo olinpiar jokoetan** (6)

xakeko olinpiar jokoetan (3)

olinpiko 1 *izond* Antzinako Greziako Olinpiakoa, Olinpiari dagokiona. ik **olinpiar**.

Era honetako adibiderik Erroman ez dago, baina Atenasen Jupiter **Olinpikoaren** tenplu oktastiloa dago. **Santiago Iruretagoiena**

2 olinpiar jokoei dagokiena.

Estadio **olinpiko** baten antza dauka, hainbat mota, kolore eta egoeratako jendez betea. **Luis Elberdin**

Urrezko domina erakusten du, eta zuzi **olinpikoaren** irudiak gainjartzen dira, kea dariola. **Joseba Sarrionandia**

Atleta kanpeoiak harrokeriaz goratu ditu besoak, uztai **olinpikoen** azpian. **Joseba Sarrionandia**

Turista gutxi biltzen ditu gazteluak, gehienek beheragoko instalazio **olinpikoetan** egiten dizkiote argazkiak elkarki. **Koldo Izagirre**

Ez zegoen frogarik Erroma K.a. 753an sortu zela esateko, edo Jaialdi **Olinpikoak** lehenegoz K.a. 776an egin zirela esateko. **Iñaki Mendiguren**

3 *Joko Olinpiko* (**25** agerraldi, **11** liburu eta **9** artikulutan; *orobat joko olinpiko*) *pl* olinpiar jokoak. ik **olinpiar 3**.

Har dezagun, esaterako, **Joko Olinpikoetako** probarik handiena: ehun metroak. **Joxerra Garzia**

Hitler saiatu zen Berlinen egin ziren **Joko Olinpikoak** nazien aldeko propaganda bihurtzen. **Pello Salaburu**

Erromako **Joko Olinpikoetan** urrezko medaila irabazi zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Bere bulegoan aurkitu dut, telebistari begira, **joko olinpikoetako** atleta batek bere urrezko domina erakusten duela. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

joko olinpikoak (10); **joko olinpikoen** (4); **joko olinpikoetako** (3); **joko olinpikoetan** (6)

olinpismo *iz* egungo olinpiar jokoei dagozkien balioen eta arauen multzoa.

Olinpismoaren izpiritua, "bakea eta tolerantzia", ehortzia dute mundu huntako handi-mandiek. **Herria**

1994an Salt Lake Cityko hiria 2002ko Neguko Olinpiar Jokoak antolatzeko aukeratua izan zenetik, kirolarekin eta **olinpismoarekin** zerikusia zuen guztia alde batean izan zen, eta eskandaluek eureganatu zuten arretoa osoa. **Berria - Harian**

olinpotar *izlag/iz* greziar jainkoen egoitza den Olinpori dagokiona. • *irud/hed*

Joan eta etorri, guretzat Madriken bizi ziren **olinpotarrak**. **Joxe Azurmendi**

olinpotxo *iz cf* olinpotar.

Baina euskal kazeta, irrati, telebista eta aldizkari batzuetan genero literatura dramatikoak, poesia, kritika bera, biografia, zientzi fikzioa... batzuen gaineko iruzkinik (edo aiputxorik, sikiera) ere agertzen ez den bitartean, egile eta itulutzaila saiatu batzuk sancta sanctorum, **olinpotxo** eta parnasotxo guztietatik at dauden artean, [...]. **Berria -**

Kultura

olio (*orobat oligo g.er.*) **1** iz olibetatik ateratzen den isurkari koipetsu eta likatsua, hori-berdaxka; zenbait landare, animalia edo meatatik aterazen den gai koipetsua, ohiko tenperaturan isurkaria dena eta uretan urtzen ez dena, eta gehienetan ura baino arinagoa dena. ik **koipe**.

Ur azpira isurritako **olioa** ur azalera ateratzen da; **olio** gainean isurritako ura **oliopean** murgiltzen da; beren pisuak eraginda, beren tokira doaz. **Imanol Unzurrunzaga**

Ura eta **olioa** bezala gara. **Juan Kruz Igerabide**

Trailu berak jotzen du galburua eta barreiatzen du lastoa, eta **olioa** ez da oliba-patsarekin nahasten dolare berak zapaltzen dituelako. **Imanol Unzurrunzaga**

Olio saltzen ziharduen Barberino izeneko auzokide lodi batekin ezkondu behar izan zuen oskigileak Becchina. **Juan Garzia**

Hotsa **olioa** bezala zabaldu zen. **Jon Alonso**

Xurgatua zuen **olio** guztia arrozak. **Jon Muñoz**

Gatz-ozpin-**olioarekikoak** maneatzten hasten da gero. **Anjel Lertxundi**

Oliotan frijitutako txorizoaren usaina. **Txillardegi**

Oliotan oraturiko irina eskainiko duzue labore-oparitzat. **Elizen arteko biblia**

Bere eskuak **oliotan** igurtzi zituen eta nire gerra di-da astintzen hasi zen. **Jasone Osoro**

Zerbitzariek garbitu, **olioz** igurtzi eta tunikaz eta estalkiz jantzi zituztenean, aulkietan eseri ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Olio kolorea izaten duen. **Bego Montorio**
ik beherago 9. **Askoren artean**
Denbora galdu gabe, mirabeak azken zahagirik kriselurako **olioa** hartu zuen. **Patxi Zubizarreta**
Lanpararen **olioa** txinpartaka ari zen eta garra gero eta ahulagotuz zihoan kliskada. **Juan Garzia**
Junta horiek **olioarekin** oratutako karearekin beteko dira. **Santiago Iruetagoiena**
Hotz mantentzeko, ura, **olioa**, airea edo beste fluidoren bat behar dute motor gehienek. **Irene Aldasoro**
Olio presioan sartzen da bi gainazalen artera, eta, hartara, oliogeruza eraginkor bat mantentzen da mugimendurik ez denean ere. **Irene Aldasoro**
Olioaren presioari begiratu bat egiten diot. **Josu Zabaleta**
Gustuko nian eskopeten metalaren eta **olioaren** usaina ere. **Xabier Olarra**
Pistolaren **olioak** utzitako zikina. **Rafa Egiguren**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gantzuketako **olio** bikaina bezala da, buruan isuri eta bizarrean behera, Aaronen bizarrean behera, soinekoraino jaisten den **olio** lurrintsua bezala. **Elizen arteko biblia**
Horrela ez duzu galduko aleari darion **olio** goxoa. **Javi Cillero**
Olio berezi bat ere ateratzen dute hurrak xehetuz. **Pello Zabala**
Olio lodia lurrean zabalduz doa, Zahagi bakoitzean **olio** irakina botatzen hasi zen. **Pako Aristi**
Etxeoandreak **olio** frijituaren usaina zuen. **Anjel Lertxundi**
Olio errearen eta ardo merkearen erresuma. **Aingeru Epaltza**
Olio berotan biguntzen ari zen tipularen usaina zabaldua zen zirritu guztietara. **Joxemari Urteaga**
Botika gustuko belarrak **olio** karmindutan apailatuak. **Koldo Izagirre**
Uretan garbitu zintudan, estaltzen zintuen odola kenduz, eta **olio** usaintsuz lurrindu. **Elizen arteko biblia**
Moisesek eman zion apaizgoa Aaroni, **olio** sakratuz gantzutuz. **Elizen arteko biblia**
Txokolate egin berriaren usaina baino trinkoagoa baitzen **olio** zaharkituekin eta ukulitik zetorren mando-usinarekin oratutako kiratsarena. **Anjel Lertxundi**
Usaina ezagutzen dut lehenik: **olio** mekanikoarena. **Hasier Etxeberria**
- **Olio** kanfreduna erosi dut merkatu beltzean. **Marzel Etxehandi**
Loditasun lirdingatsua zuela irudi zuen, **olio** mineral batez osatua edo. **Karlos Zabala**
Mahats urak iturriko urarekin nahastea onartzen du, baina bike astunak eta **olio** arinak ezin dute. **Xabier Amuriza**
Rudolf Diesel alemanak kurri arazi zuela auto bat duela 112 urte, **olio** erregaiekin eta ez ezantzarekin. **Herria**
Hautsa, pomada, makillajea kentzeko krema, eguzkitarako **olioa**, kotoia. **Josu Zabaleta**
Bada umeentzako **olioa** bainugelako arasan. **Oskar Arana**
Dextrosa, bakailao gibebeko **olioa**, legamia tabletak eta kaltzioa ematen dizkidate. **Josu Zabaleta**

3 (neurriekin)

Hark erantzun: "ehun upel **olio**". **Elizen arteko biblia**
Diana I ontzitik barruan zituen 45 tona gasolio eta hiru tona **olio** isuri dira itsasora. **Berria - Euskal Herria**
Ordainez, sei mila tonelada gari eta zortzi mila litro **olio** garbi eman ohi zizkion Hirami urte oroz, bere etxeoak elikatzeko. **Elizen arteko biblia**
Tuteran 5.000 litro **olio** aztertzen ari dira, ustez etiketetan iruzurra antzemanda. **Berria - Euskal Herria**
Zezen eta ahari bakoitzeko berrogei kilo irin eta sei litro **olio** eskainiko ditu labore-oparizat. **Elizen arteko biblia**
Isuria herenegun gertatu zen, eta, Ebrokro Ur Konfederazioaren arabera, 1.000 bat litro **olioko** isuria izan da. **Berria - Mundua**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elizabethek **olio** -lanpara itzaltzeko keinua egin zuen. **Anjel Lertxundi**
Olio -gela, berriz, argia hegoaldetik eta eguzkiak berotzen duen aldetik daukala jarri behar da. **Santiago Iruetagoiena**
Olio -saltzaileak zurikatzaileak dira. **Askoren artean**
Nahiz eta haren ahotsa ezaguna izan, **olio** merkatarri jantzian, nola ezagutu lapurren burua? **Patxi Zubizarreta**
Olio deposituak, gasolina deposituak, zula-zula eginda dago dena. **Josu Zabaleta**
Olio -biltegien arduraduna. **Elizen arteko biblia**
Mandioak egin zituen, gari, ardo eta **olio** -uztak gordetzeko. **Elizen arteko biblia**
Hartu eskuan **olio** -pitxer hau eta zoaz Galaadeko Ramotera. **Elizen arteko biblia**
Olio -botila guztiak bezala, itsaskorra zen hura ere. **Jon Muñoz**
Hogeita hemezortzi **olio** zahagi, bakar bat beterik eta gainerakoak hutsik. **Patxi Zubizarreta**
Orduan, Tzadok apaizak, hartua baitzuen Jaunaren oihal-etxolatik **olio** -adarra, gantzutu egin zuen Salomon. **Elizen arteko biblia**
Lapikoan egosi eta **olio** -opilen gustuko opilak egiten zituzten. **Elizen arteko biblia**
Bi **olio** tanta jarri zituen koilaran. **Xabier Aranburu**
Ertzetatik handitzen doazenak, **olio** orbanen antzera. **Monika Etxebarria**
Olio -mantxa bat topatzen diote galtzontziloetan, eta horrek salatzen du. **Rafa Egiguren**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Altzifretik eta pinutik erretxina ateratzen den bezala, zedrotik, hain zuzen, zedro-**olioa** esaten zaion koipea ateratzen da. **Santiago Iruetagoiena**
Liho-**olio** egosian sarturiko tipularen historia kontatzeari ekin nion. **Juan Garzia**
Korridorera sartu orduko lurrin sarkor bat nabaritzen zen, arrosa-**olio** eta kolonia frantsesarena. **Xabier Olarra**
Moyresak ekoiztutako soja-lezitina edo soja-**olio** transgenikoa asko erabiltzen da margarinak, txokolateak, jogurtak eta antzekoak egiteko. **Berria - Euskal Herria**
Gustura hartuko nuke bainu bat haur ttikientzako xaboiarekin, eta gero igurtzi batzuk almendra **olioarekin**. **Patxi Zubizarreta**
Intxaur-**olio** epela isuri zuen nire zaurien gainera. **Aingeru Epaltza**
Landare **olioetatik** eta olio hondakinetatik biodiesel aekoizteko prozesua. **Berria - Gaiak**
Prusiako Urdinaren txartela urdinez zikindurik zegoen [...] eta Arrain **Olioarenak** antxoa-kiratsa zuen. **Juan Garzia**
Usainkiak eta olio argi, gantzuketa-**olio** eta intsentsu usaintsuarentzat. **Elizen arteko biblia**
Tinta-lata batzuk, eta makina-**olio** ontzi pare bat. **Txillardegi**
Garaje-gelan, Montmartreko zortik gora igotzen zen motor-**olioaren** usaina. **Jon Muñoz**
Perrette, amasari eutsirik motor-**olio** usaina ikaragarri gogorra zelako, garaje-gelan sartu zen. **Jon Muñoz**

6 pintura mota, olio eta koloregaiez egindako margoez egiten dena; nota horretako margolana.*ik beherago* 13.

Olioz eginiko margoak ez ezik, brontzezko, poliesterrezko, berunezko eta zinkeko eskulturak ere ikus eta eros ahalko dira bertan, azaroaren 13ra bitartean. **Berria - Kultura**
Lehengusina gazteari lehenengoak bezala paratzeko agindu, eta **olio** -pintzelkadak ematen hasi zen oihalaren gainean. **Iban Zaldúa**
Urangaren 45 **oli**oz osatutako erakuketa irailaren 17ra arte dago ikusgai Donostiako Paupa galerian. **Berria - Kultura**
Praken albo banatan **olio** gorritzko pinturazko orban luze eta ezabaezinak. **Urtzi Urrutikoetxea**
Madonna **olio** lana da, 1894ean bukatu zuen. **Berria - Kultura**

Olio teknika hau berrikuntak sortutako berritako dela. Berria - Kultura
Bilboko Arte Eder museoak artista gipuzkoarraren obra andana jaso du berriki paper gaineko 2.375 marrazki, hiru **olio** eta klarionezko beste horrenbeste obra. Berria - Kultura

Gerra aurretik erretratuak eta balio gutxiko **olio** postinpresionistak pintatzen zituen. Iban Zaldúa

Guztira, 30 **olio** abstraktu. Berria - Kultura

Errealitatekin hartutako irudiekin eginiko marrazki askorekin lagundu zituen **olio** handi abstraktuak, 1985. urtetik aurrera. Berria - Kultura

7 **fuel-olio** petroliotik eratorritako erregai likidoa.

Malaysiako ontziak isuritako erregaia **fuel oila** da. Berria - Gaiak

Itsas hondoan dagoen **fuel-olioak** muskuiluak eta txirlak pozoitu ditu. Berria - Gaiak

Depositoa **fuelolioz** betetzeko. Harkaitz Cano

Fuel-olioz lohitutako hondakinak dira horiek. Berria - Euskal Herria

Zenbait hondartzatan **fuel-olio** arrastoak ikus daitezke oraindik. Berria - Gaiak

Fuel-olio isuriaren erantzulea aurkitzeko. Berria - Gaiak

Fuel-olio orbanak agertu dira Landetan. Berria - Gaiak

Fuel-olioa jaso arren hondakin toxikoak ez dira deuseztatuko. Berria - Gaiak

Zentral termiko berriak ikatzekoak edo **fuel-olioak** baino hobekak dira ingurumenarentzat. Berria - Euskal Herria

'Exxon Valdez' ontziak 40.000 tona **fuel-olio** isuri zituen Alaskako kostaldean. Hondoratu zen uanean 70.000 tona inguru **fuel-olio** zeramatzan. Berria - Gaiak

8 **oliba-olio** ik **oliba 10**.

9 **olio-kolore izond** olioaren kolorea duena. ik **oliba 10; oliokara**.

Gizon flakoxta bat ikusi zuen, beltzarana oso, larrua **olio-kolore**. Felipe Juaristi

10 **olio koloreko izlag** olio-kolorea.

Irribarrea **olio koloreko** begietaraino iritsi zitzaion oraingoan. Bernardo Atxaga

Makillatuta zegoen, eta marra beltz batek nabarmendu egiten zizkion begi **olio kolorekoak**, horiztak, apur bat arreak. Bernardo Atxaga

Bere begi **olio kolorekoek** zuzenki begiratu zidaten. Bernardo Atxaga

11 **olio lanpara** (orobat **oliolanpara g.er.**)

Zer gertatzen zaizu? -larritu zitzaion arreba, eta ohe ondoko **olio-lanpara** piztu zuen. Anjel Lertxundi

Poltsikoan giltza bilatu zuen, mendeak zituen ate astun eta irekitzen zaila bultzatu, atalondo zabala gurutzatu eta **olio-lanpara** batek juxtu-juxtu argitzen zuen eskailera gangadun heze baten oinean gelditu zen. Xabier Olarra

Eraikin berri baten aldamioren azpitik pasatzean ohartu zen **olio-lanparak** konpontzen espaloia erztean eserita zegoen gizon zahar bat begira zeukala. Lopez de Arana

Ohe ondoko **olio-lanparako** argi horiak dar-dar egin zuen gela osoan. Anjel Lertxundi

12 **olio ontzi** (orobat **olioontzi eta oliontzi**)

Hara, hementxe zaukaat halako baltsamo zerutarra (eta salda betetako **olio-ontzia** erakusten zion), ttantta bi edan hutsarekin sendatuko haiz, dudarik gabe. Patxi Ezkiaga

Urre hutsezko argimutilla ikusten dut, **olio-ontzia** gainean duela; zazpi kriseilu ditu eta zazpi hodi, olio kriseiluetara eramateko. Elizen arteko biblia

Bai ikusi ere metal aberatsezko kaliza ederrik eta **oliontzi** arragoan urtzeko onik. Juan Garzia

Azkenean, ez olio, eta ez **olio ontzi**. Pello Zabala

Oliontzi bat eman zioten eta makinaren errodamenduak olioztatu eta garbitu behar izaten zituen. Fernando Rey

13 **olio pintura** (orobat **oliopintura g.er.**) ik gorago 6.

Gurasoek ene hamabost urte betetze egunean egin zidaten oparirik ederrena, **olio pintura** kutxa izan zen, bere pintzel eta pintura oihalekin. Ana Urkiza

Olio-pintura freskoaren usaina aditzen zen inguru guztian. Jose Morales

Irarlanaren aldamenean, **olio-pintura** belztu batek hormaren erdia betetzen zuen. Jose Morales

Hormako paper horia zurezko eskulan krema-kolorekoen eta **olio-pinturen** marko urreztatuen artean ageri zen. Lopez de Arana

Bulegoan txokolatearen koloreko ezkoialarekin tapizatutako sofa bat zegoen eta paretan **oliopintura** handi bat trenmakina bat irudikatzen zuena. Fernando Rey

14 **olio santu pl** oliadurako sakramentuan, hil zorian den eria gantzuzeko erabiltzen den olio bedeinkatua.

Hiltzorian zeudenei **olio santuak** ematea. Koldo Biguri

Olio santuak eman gaixoari eta esan: "bukatu dut". Juan Garzia

Diotenez, zeruan ez dute onartu, deabruari arima saldu ziolako; infernua ere ez diote aterik zabaldu, hiltzeko orduan **olio santuak** hartu zituelako. Anjel Lertxundi

-sing -Aita O'Rourke egon zen berarekin astearte batean, eta hark **olio santua** eman, gertatu, eta dena egin zion. Irene Aldasoro

Haietako inor ere ez zen hil amerik eta testamenturik gabe, bat ere ez **olio santua** hartu gabe. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begi olio kolorekoak (3); **erabilitako olio** (3); **fuel olio** (11); **liho olio** (3); **motor olio** (3); **motor olio usaina** (3); **oliba olio** (8)

olio asko (4); **olio botila** (3)

olio frijituaren (6); **olio frijituaren usaina** (4); **olio garbi** (3); **olio geruza** (3)

olio isuri (4); **olio koloreko** (3); **olio kolorekoak** (3); **olio lanpara** (5); **olio lanpara piztu** (3); **olio lanparak** (3); **olio mantxa** (3)

olio ontzia (3); **olio orban** (3); **olio pintura** (7); **olio pittin bat** (4); **olio pixka bat** (4); **olio santuak** (4); **olio tanta** (5)

olio usaina (7); **olio zahagi** (3)

sei litro olio (4)

ardoa eta olio (5); **argitarako olio** (4); **errizino olio** (3); **fuel oila** (11); **gantzuketa olio** (15); **isuri olio** (4); **landare olio** (3); **oliba olio** (6); **olioa eta ezitia** (3); **olioa eta ura** (3); **olioa irakiten** (5); **olioa isuri** (8); **olioa isuri zuen** (3); **olioa isuriz** (7); **sagarapeneterako gantzuketa olio** (3)

ardo eta olioaren (6); **olioaren usaina** (4)

oliotan bustiriko (5); **oliotan oraturiko** (17); **oliotan oraturiko irina** (6)

olioz eginak (3); **olioz egindako** (4); **olioz igurtzi** (12); **olioz oraturiko** (7)

oliobide (orobat **oleobide g.er.**) iz petrokioa garraiatzeko hodi egitura.

Siberiatik Ozeano Pazifikora petrolioa eramango duen **oliobide** berria. Berria - Mundua

Oliobide honetatik egunero 15.000 upel garraiatzen dituzte Nahran Omarreko petrolotegietatik Faoko penintsulara. Berria - Mundua

Errusiako uretan **oliobide** bat eraikitzeko proiektuaren aurka. Alaskako **oliobide** batek milioi bat litro petrolio isuri ditu tundran. Berria - Gaiak

Agintarien arabera, **oliobidea** barrutik herdoilduta sortu zen zuloa. Berria - Gaiak

BP petrolio konpainiak Alaskan dituen **oliobideak** ondo kudeatzen ari ote den ikertzen hasi da Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak. Berria - Gaiak

Atzo, Basora inguruko bi **oliobideri** egin zien eraso erresistentziak. Berria - Ekonomia

Kerbala inguruan gertatutako sabotaje baten ondorioz, sutan zen atzo eskualdeko **oliobide** nagusia. Berria - Mundua

oliodun iz olio duena.

Metala, zura edo oihala ditu bere ekaiak; pigmento naturalekin, akrilikoekin edo **oliodunekin** du margotzen. **Herria**

oliodura ik oliadura.

oliokara izond olio-kolorea. ik olibakara.

Kaskamotz, kokotsetik belauetaraino estaltzen zuen mando-manta zuri zabal bat, belus galtza motz **oliokarak**, artile zuriko azpantarrak botoi-zulo beltzekin, espartinak besterik ez oinetan. **Koldo Izagirre**

oliolanpara ik olio 11.

oliontzi ik olio 12.

oliopintura ik olio 13.

oliotsu izond olio asko daukana.

Lizuntzera egindako piper beterren bat, bokarta **oliotsu** batzuk. **Aingeru Epaltza**

Nire urdail nikotinizat beteari, zerbeza batez beraturiko pintxo **oliotsu** parearen hala-holako oparia egin nion lehenik. **Aingeru Epaltza**

Geratzen ziren haragi **oliotsu** eta minaren apurrak hartu, eta osorik igurtzi nuen xingola, heltzen nintzen lekuraino. **Koro Navarro**

Portu barruan urak azal **oliotsua** zuen. **Joseba Sarrionandia**

Itsaso **oliotsutik** bueltan zetozen mutikoei begira egon ginen. **Koro Navarro**

oliotu, olio(tu), oliotzen 1 da/du ad oliotzatu.

Badago Liparis izeneko ibai bat zeinetan, bertan bainatzen edo garbitzen direnak, ur horrekin **oliotuta** bezala ateratzen baitira. **Santiago Iruretagoiena**

2 olioaren itxura hartu.

Kaioen txilio urruna sumatzen duzu bakarrik soinuezaren handiaz jabetzeko: itsasoa **oliotu** egiten denean bezalako isiltasun hori plazan, galerna zetorren. **Koldo Izagirre**

3 (era burutua izenondo gisa)

Aingira **oliotuak** eman arren, bere eskuak eutsiko die bai aise, batere mugitu gabe! **Xabier Olarra**

Hainbeste neurona ondo **oliotuez** inguratuta egoteak perspektiba aldatzera eramaten gaitu. **Berria - Kultura**

olioztatu, olioza, olioztatzen 1 du ad olioz igurtzi.

Bere pergamino haragia **olioztatzen** ari zen, ur epeletan beratu ondoren. **Karlos Zabala**

Oliointzi bat eman zioten eta makinaren errodamenduak **olioztatu** eta garbitu behar izaten zituen. **Fernando Rey**

Epaiteko makinaren **olioztatzen** eta burdinazko juntetan kokaturiko belar puskek eskuz kentzen. **Itxaro Borda**

Ez ahaztu nire Olivetti idazmakina noizean behin **olioztatzea**. **Bego Montorio**

Mila aldiz madarikatu duzu zeure burua Astra zahar hura hain sarri garbitu eta **olioztatzeagatik**. **Rafa Egiguren**

Segurua kendu eta kargadorea ongi **olioztatua** zegoela baieztatu zuen hitz egiten zuen bitartean. **Harkaitz Cano**

Oihal gorri batean kontu handiz bilduta, Lüger bat, distiratsua eta **olioztatu** berria. **Iban Zaldua**

Osagaiak bereizi, garbitu, **olioztatu** eta, zatar muturra harturik, dirdaitu uzten zuen atal bakoitza. **Xabier Montoia**

2 (era burutua izenondo gisa)

Ez du benda **olioztatu** haiek erabili beharrik jadanik. **Oskar Arana**

Aho inguru **olioztatuak** garbitu zituen paperezko ezpain-zapiak. **Aingeru Epaltza**

Walther PPKren metal **olioztatuzko** mekanismoak ateratzen zituen klaskadez gozatu nintzen. **Alberto Ladron Arana**

Karrak egin zuen ostatuko ate betiere **olioztatu** gabeak. **Aingeru Epaltza**

Ate gaizki **olioztatuaren** kirrinkak. **Aingeru Epaltza**

Karrak egin zuen ostatuko ate betiere **olioztatu** gabeak. **Aingeru Epaltza**

olo 1 iz lastodunen familiako landarea, buruxkak dilindan dituen, alea zamarien eta hegaztien janaritzat erabiltzen dena (Avena sativa).

Gaitzaren espirituaren lurralde guztiak bete-beterik zeuden gari lodiz, ezkila dorreak ziruditen **olo** gizenez, lihoz, koltza ederrez, hirusta gorritz, ilarrez, azaz, orburuz, bihitan edo fruitutan eguzkitara ontzen den guztiaz. **Josu Zabaleta**

Belar eta **olo** gobernuak zituen gero pagatzen bainan berak nahi zuen prezioan, erran nahi baita biziki guti omen! **Herria**

Hüllantxago, merkexago, **olo** franko Barkoxen... **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen bere hortz horixketatik salbu gelditzen zen belar-izpi edo **olo**-alerik. **Jon Alonso**

Ekarri honentzat **olo**-garagardoa eta arrautza pastela. **Koro Navarro**

Errusiako larreoiolak, **olo** lastoaren eta ikatzen arteko nahasketa batean iristen direnak. **Karlos Zabala**

Zenbatean saldu duzu **olo**-neurria? **Jose Morales**

Goizean **olo** malutazko katilu bat hartuta konformatu behar genuen. **Josu Zabaleta**

Olo-ahia zopa-ontzietan, sardinazar kezatua azpiletan, ogi txigortu ugari, eta arrautzak eta hirugiharra plateretan. **Iñaki Mendiguren**

Dagoeneko gosarian ez duzu patata frijiturik jaten (ogia aurrezteko), **olo**-ahia baizik. **Josu Zabaleta**

Izeba **olo** -morokila buruntzaliarekin ateratzen ari zitzaidala, [...]. **Irene Aldasoro**

3 olo gaizto *(orobat ologaizto g.er.) iz gari sailetan hazten den olo mota (Avena fatua).*

Garia hazi eta burutu zenean, **olo gaiztoa** ere agertu zen. **Elizen arteko biblia**

Olo gaiztoa bildu eta sutan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. **Elizen arteko biblia**

· irud/hed Gaztetan, erein zuen berak ere bere **olo gaiztoa**, bai; arrandiatu zen bere adimen askatasunaz eta ukatu zuen Jainkoa lagunen aurrean pubetan. **Irene Aldasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

olo ahi (3); **olo ahia** (8); **olo gaiztoa** (10); **olo gaiztoaren parabola** (3); **olo morokila** (3)

ologaipto ik olo 3.

olorondar *izlag* oloruetarra.

11 kilometrako lasterkaldi huntan, Jean Claude Bagueste **olorondarra** da nagusitu. **Herria**

Laugarren aldia du Oilandoiko hau irabazten duela **olorondarrak**. **Herria**

oloruetar *izlag* Oloruekoa, Olorueri dagokiona; Olorueko biztanlea.

Zapata-gin mozkortiak ez dakit, baina haren andre **oloruetarrak** ez zion uko eginen ni bere etxean atxikitzeari, sekula izan ez zuten semearen ordain. **Aingeru Epaltza**

omega 1 *iz* greziar alfabetoko letra.

"**Omega**!", diote jarraian, eta bi marra luze eramaten dituzte maparen angelu baterantz. **Bernardo Atxaga**

Alfa, **omega**, giltza, denak beste zerbaiten sinbolo. **Edorta Jimenez**

2 alfa eta omega

Neu naiz **Alfa eta Omega**, lehena eta azkena, hasiera eta bukaera. **Elizen arteko biblia**

Alfa eta Omega letrak dagoz atearen aldetan, bietan bana. **Edorta Jimenez**

Axularri buruz abenturatu ditudanak horrela balira ere: itzalaren metafora bera da, literatur talaiatik begiraturik, gorabehera honen guztiaren **alfa eta omega**. **Anjel Lertxundi**

Bera da **alfa eta omega**, ikerlaria eta aztergai bilduma. **Jenaro Garate**

Kandela piztuaren dirdira, **alfa eta omega**, omega eta alfa. **Iban Zaldúa**

· Izan omen ginena eta izan behar omen duguna: horra, dirudienez, gure **alfa** eta horra gure **omega**; horra gure bi harri puska gainetik kendu ezinak. **Anjel Lertxundi**

3 omega 3

Omega 3a, gainerakoan, arrain urdinetan da ugaria. **Berria - Gaiak**

Antza, gene horrek sortzen duen proteinak eragiten du miraria: Omega 6 izeneko gantzak -nahiko ohikoak dira, baina ez oso osasungarriak- **Omega** 3 bihurtzen ditu. **Berria - Gaiak**

Txerri transgenikoak sortu dituzte, **Omega** 3 iturri. **Berria - Gaiak**

Omega 3 iturritzat arraina hartzen du jende askok, arrain urdina. **Berria - Gaiak**

Omega -3 koipea da gakoa, ikertzaileen arabera, haurraren adimen koizientea altuagoa izan dadin eta mintzamen hobeia izan dezan. **Berria - Gaiak**

Omega -3 gantz-azidoek alzheimerra saihets omen dezakete. **Berria - Gaiak**

Auzitan jarri dute **Omega** 3 gantzek bihotzeko osasuna hobetzeko duten gaitasuna. **Berria - Gaiak**

omeiatar *izlag/iz* lehen islamdar dinastiari dagokiona; dinastira horretako kidea.

Omeiatar Kalifaldiko kantonamendu militar eta muga-goarnizioak Islamaren zerbitzurako izan ziren argi eta garbi. **Iñaki Mendiguren**

Abd al-Malik **omeiatar** kalifarengan. **Iñaki Mendiguren**

Omeiatarren aroan. **Iñaki Mendiguren**

Mundu siriakoan ere, **omeiatarren** kalifaldian, hiru belaunaldi behar izan ziren benetako musulman erlijiozaleak sortzeko kristau edo zoroastroar izandako aitona-amonon artean. **Iñaki Mendiguren**

Omeiatarren axolagabezia eta abbastarrek musulman ez baina "Liburuaren Herri" zirengana agindutako tolerantzia arretaz betetzen zutela aprobetxatuz, [...]. **Iñaki Mendiguren**

omeleta *(Euskaltzaindiaren Hiztegian moleta agertzen da) iz* moleta, arrautzopila.

Gozoa zagok benetan **omeleta**! **Hasier Etxeberria**

Joateko imintzio egin duenean, Joaquinek hartu du hitza berriro, baina oraingoan, Damiani begiratu ordez, **omeleta** platerean galdurik begiak. **Hasier Etxeberria**

omen¹ *part* hiztunak aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula.

1 (esaldi amaieran)

Gauetan, armairuetan kristalezko basoak puskatzen dituzte, **omen**. **Josu Zabaleta**

Organo barrokoa ikustekoa da, **omen**. **Piarres Aintziart**

Santiago anaia, berriz, ikasle izan arren, Komandante gradura iritsia zen, **omen**. **Txillardegí**

Mutil ederra, beltzarana, ile kizkurrekoa, bizkar-zabala, handiki itxurakoa, ingeles itxurakoa kasik, Oxforden estudiatu baitzuen, **omen**. **Fernando Rey**

Egun honetan Arrigorriagan edo inguru horietan borroka itzel bat gurek irabazi zutelako, **omen**... **Pello Zabala**

Eta auzo bat, Ezpataka etxeko andere bat heldu zen ene kontsolatzerat, **omen**. **Menane Oxandabaratz**

Eta borondatez atzera egiteko batera asmorik ez, **omen**. **Joxe Austin Arrieta**

Hire lagun mina, **omen**. **Txillardegí**

Pirinioetako herri politenatarik, **omen**. **Piarres Aintziart**

· Historialari progre batzuek -liberalak **omen** - orain deitoratzen dute. **Joxe Azurmendi**

Iris Krasnow kazetari arrakastatuak -hala **omen**- lau seme-alabek arduratzeko utzi zuten arrakasta ekarri zion lanbidea. **Arantxa Iturbe**

2 **omenez** esaten dutenaren arabera. ik **omenka**.

Ez du balio hemen goiti eta beheiti omenka eta **omenez**, Euskaltzaindiak eta euskaltzainek hau edo hura esan edo egin dutelakoa-edo arinki baieztatzen ibiltzea. **Pello Salaburu**

Omenez baizik ez nuen ezagutzen, eta karia horretara deus guti desira nezakeen areago ezagutzea: iruditzen zait ordea gehiago balio duela gizonak omenak baino **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

aldarea eraiki omen (16); **alde egin omen** (22); **ari omen da** (21); **ari omen dira** (26); **ari omen zen** (31); **aurkitu omen zuen** (10)

ba omen da (28); **ba omen daude** (10); **ba omen dira** (35); **ba omen du** (19); **ba omen zen** (50); **ba omen ziren** (16); **ba omen zuen** (15); **baina ez omen** (37); **baino ez omen** (16); **baizik ez omen** (15); **behar izan omen** (16); **behar omen da** (13); **behar omen du** (21); **behar omen dugu** (11); **behar omen zuten** (11); **behar omen zuen** (28); **besterik ez omen** (21); **bizi izan omen** (12); **bizi omen da** (12); **bizi omen zen** (24); **bota omen zuen** (11)

deitzen omen zioten (10)

egin behar omen (33); **egin nahi omen** (11); **egin omen du** (20); **egin omen zen** (24); **egin omen zion** (34); **egin omen zioten** (14); **egin omen zuen** (90); **egin omen zuten** (40); **egiten omen da** (12); **egiten omen du** (30); **egiten omen dute** (15); **egiten omen zuten** (12); **egiten omen zuen** (31); **egiten omen zuten** (16)

egon omen zen (18); **eman omen zion** (16); **eman omen zioten** (13); **eman omen zuen** (13); **ematen omen zuen** (10); **eraiki omen zioten** (16); **eraman omen zuen** (11); **erantzun omen zion** (22); **erantzun omen zuen** (10)

ere ba omen (43); **ere egin omen** (11); **ere ez omen** (51)

esan nahi omen (16); **esan omen zien** (15); **esan omen zion** (78); **esan omen zuen** (69)

esaten omen zion (10); **esaten omen zuen** (22)

eskatu omen zion (10)

eta ez omen (36)

ez omen da (193); **ez omen dago** (45); **ez omen daki** (17); **ez omen dira** (33); **ez omen ditu** (12); **ez omen dituk** (23); **ez omen du** (104); **ez omen duk** (10); **ez omen dute** (56); **ez omen nuen** (11); **ez omen zaio** (13); **ez omen zegoen** (28); **ez omen zekien** (12); **ez omen zen** (98); **ez omen zion** (17); **ez omen ziren** (18); **ez omen zitzaion** (18); **ez omen zuen** (134); **ez omen zuten** (38)

ezin omen zuen (12)

galdetu omen zion (22); **geratu omen zen** (18); **gertatu omen zen** (12)

hala esan omen (13); **hala esaten omen** (10); **hartu behar omen** (12); **hartu omen zuen** (18); **hasi omen zen** (38); **hasi omen ziren** (18); **hil omen zen** (18); **hitz egiten omen** (12); **hori ez omen** (17); **hori omen da** (11)

ibili omen zen (14); **ibiltzen omen zen** (17); **idatzi omen zuen** (12); **ikusi omen zuen** (26); **ikusi omen zuten** (10); **inork ez omen** (16); **iruditu omen zitzaion** (11)

izan behar omen (13); **izan omen da** (29); **izan omen dira** (11); **izan omen zen** (106); **izan omen ziren** (24); **izan omen zioten** (13); **izan omen zuen** (43); **izanen omen da** (13); **izanen omen dira** (12); **izango omen da** (31); **izango omen dira** (12); **izaten omen zuen** (10)

jarri omen zioten (10); **jo omen zuen** (20); **joan omen zen** (32); **joaten omen da** (10); **joaten omen zen** (15)

nahi izan omen (17); **nahi omen du** (32); **nahi omen zuen** (18)

omen da eta (30); **omen da hori** (11); **omen du eta** (18); **omen zen bere** (13); **omen zen eta** (28); **omen zion eta** (10); **omen ziren eta** (10); **omen zuen behin** (11); **omen zuen bere** (29); **omen zuen eta** (22)

ona omen da (13)

sartu omen zen (12); **sortu omen zen** (11)

omen² 1 iz entzutea, izen ona; ospea, fama.

Norbere izana eta munduaren **omena** irabazteko asko erakutsi behar da eta asko ezkutatu. **Iñaki Seguro**

Beraz, ohorea eta **omena** galtzea izango zen dimisioa aurkeztea. **Joxan Elozegi**

Ezin garaituzkoa nintzelako **omena** neureganatzea izan zen nire lehen ardura. **Jon Muñoz**

Jeneralean, ordea, omenak ematen dio **omena** omentzaileari. **Joxerra Garzia**

Haren **omena** hedatzen ari da, leku hauta delakotz zelai paregabeko hura, goratasun hartan, sasoin beroaren pasatzeko eta osagarriarentzat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Azken urte hautan, bertze sail batek du haatik Belokeren **omena** haunditzen: mintzo gira tapizaginzaz eta idatzedegintzaz. **Herria**

Iruditzen zait ordea gehiago balio duela gizonak **omenak** baino. **Jon Muñoz**

Haatik mundu zabalerat ere zabaldurik haren antropologo eta etnologo **omena**. **Herria**

Hortik dator, jende arruntaren iritziaz loriatzen dena, egunero, beldurrak aztoraturik, bere **omen** onaren zaintzeko lehiatzen dela, bermatzen eta ahalegintzen. **Piarres Xarriton**

Erregearen aldeko **omen** eta haren salbamendurako egitasmoetan ibilia. **Andres Urrutia**

Tokiak 40 urtez goitiko gizon-emakumeen harrapalekuaren **omena** zuen, fauna askotariko -dibortziatu, banandu, neskazahar, mutilzahar, etxe-aspertu- baina xede bakarrekoaren etzanaldi azkarren abiaburu. **Aingeru Epaltza**

Agian garaztar jakintsun horren **omenak** berriz distiratu du, duela lau mende bezala. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 zurrumurrua.

Karrikan **omena** zebilen bazela iruine seme bat baino gehiago, isilean lekutua errege kanporatuena aldera. **Aingeru Epaltza**

-Omena dabil bere izeba Isabel Hungariakoa izan dela bere lehen amorantea, oraingoz bakarra. **Aingeru Epaltza**

3 omenaldia.

Egunkariko eskari hark eman zidan aitzakia oroitzapen hori idatziz jasotzeko eta, katarsiaren bitartez, nirea ere bazen hildako hari neure ohorea etz **omena** azaltzeko.

Xabier Mendiguren Elizegi

Soldaduak eta heroiak alde guztietan ohoratzen dira eta **omena** egiten zaie, aurkikuntzak egiten dituztenei betirako ospea ematen zaie, martiriak gurtu egiten dira. **Josu Zabaleta**

Bertsolari eta bertsozaleen **omena** jaso zuen Iturri 1975eko Bertsolari Egunean. **Berria - Kultura**

Antzinako gizartean, hilotz freskoari **omenak** eta poemak egiten zizkieten. **Markos Zapiain**

4 -en **omenetan** *adlag* -en omenez, -en gorazarrez.

Haren **omenetan** eta zenbaki luzeagoak ezagutu beharrik ez zuela izan eskertzeko egin du topa, kopa airean. **Arantxa Iturbe**

Urtero egiten zutela meza bat Nikolas izena zuen familiako ez dakit noren **omenetan**. **Anjel Lertxundi**

Washingtonen dauden ia 400 eraikin historikoetatik bat bera ere ez dela amerindiarren **omenetan** egin, orain arte. **Berria - Mundua**

Espainiako Erregearen ama zenaren **omenetan** malkoak isurtzera. **Hasier Etxeberria**

5 -en **omenez** *adlag* -en gorazarrez.

Gerran hildakoen **omenez** eraikitzen ari ziren monumentuari begira. **Bernardo Atxaga**

Dantek Beatrizen ezaipainetan irribarre bat ikustearren idazten omen zuen, Borgesek bere aitaren **omenez**. **Joxean Agirre**

Ondoren, oturuntza handi bat eman zien erregeak buruzagi eta zerbitzari guztiei, Esterren **omenez**. **Jose Antonio Mujika**

Ukabila jasorik, Internazionala kantatu zuten denek, eta goraka ekin zioten, Ixkoren **omenez**. **Juan Kruz Igerabide**

Bi txalapartari aritu ziren eliz atarian, ezkonberrien **omenez**. **Juan Kruz Igerabide**

Eta berehala Pablo Picassok margotu zuen egun Madrilen dagoen eta mundu osoan ezaguna den irudia, Gernikaren **omenez**. **Pello Salaburu**

Garaipen inperialen **omenez** eraikitako monumentuen aurrean, porrotari neurea altxatzeko gogoia sortzen zitzaiala adierazi nion. **Ramon Saizarbitoria**

Gainera harlap hau hire **omenezko** harrapatu dinat. **Sonia Gonzalez**

Jon Miranderen balada Jim Morrisonen **omenez**. **Harkaitz Cano**

6 -en **omenezko izlag** -en gorazarrezkoa.

Lizardiren **omenezko** monumenturako bidea hartu nuen lehen egun hartan. **Juan Luis Zabala**

Senar-emazte berrien **omenezko** bertsoak kantatzen. **Felipe Juaristi**

Sarriegiren **omenezko** plakaren inaugurazio ekitaldian prozesio zibila egin zuten. **Askoren artean**

Arriagaren **omenezko** saioak. **Berria - Harian**

Compay Segundoren **omenezko** kontzertua gaur Donostian. **Berria - Kultura**

Osteguneko kontzertua jaialdiaren aparikoa izango da, eta igandekoa Johnny Cashen **omenezkoa**. **Berria - Kultura**

Beraren aurrean hanpatzen eta apaltzen ikusten zuen bular hura berarentzat hanpatzen eta apaltzen zela une hartan, eta barre hura, usain hura eta nahitako begirada haiek beraren **omenezkoak** zirela. **Irene Aldasoro**

Lauaxetaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko hamabost idazlek haren poemen gainean idatzitako glosak bilduko ditu udazkenean argitaratuko den **omenezko** antologiak. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriaren omena (3); omena galtzea (3)

aitaren omenez (7); bere omenez (22); biktimen omenez (11)

eduardo txillidaren omenez (3); ez dauden omenez (4); gaztearen omenez (3); haren omenez egindako (4); haren omenez eginiko (3); hildakoen omenez (13); hildakoen omenez egindako (3)

idazlearen omenez (4); izenaren omenez (3); jainkoaren omenez (3); jainkosaren omenez (4); jaunaren omenez (8); jexux artzeren omenez (3); langileen omenez (5); mikel goiaingeruaren omenez (3); militanteen omenez (3); nire omenez (6)

omenez antolatu (6); omenez antolatutako (6); omenez egin (9); omenez egina (4); omenez egindako (19); omenez egingo (4); omenez eginiko (9); omenez eginiko obrak (3); omenez egiten (3); omenez eraikitako (8); omenez hartu (3); omenez idatzi (3); omenez idatzitako (8); omenez jarri (7); omenez jarritako (6)

ospetsuaren omenez (3); poetaren omenez (3) santuaren omenez (4); sarriegiren omenez (3)

zure omenez (4)

agirrearen omenezko (3); arafaten omenezko (3); arriagaren omenezko (6); bere omenezko (5); biktimen omenezko (7); compay segundoren omenezko (4)

emazte berrien omenezko (3); hildakoen omenezko (4)

idazlearen omenezko (5); lauaxetaren omenezko (3); lekuonaren omenezko (3); lizardiren omenezko (5); mugerzaren omenezko (3); mujikaren omenezko (4); musikagilearen omenezko (3)

omenezko diskoa (4); omenezko diskoan (4)

omenezko eguna (6); omenezko ekitaldi (4); omenezko ekitaldia (9); omenezko ekitaldiak (14); omenezko ekitaldian (8); omenezko ekitaldian (3); omenezko erakusketa (4); omenezko eskultura (6); omenezko estatua (3)

omenezko jaialdia (3); omenezko kontzertu (3); omenezko kontzertua (9); omenezko meza (5); omenezko monolitoa (3); omenezko monumentua (3); omenezko monumentuaren (4); omenezko plaka (10)

omenezko oroitarrian (3); omenezko plaka (10)

sarriegiren omenezko (4); txillidaren omenezko (3)

omenaldi 1 iz

Espainiako gerran hildako brigadistei **omenaldi** bat egingo zieten hurrengo egunean. **Jon Maia**

1967an Luzaidek **omenaldi** bat egin zion 100 urte lehenago sortu zelakotz, plaka eder bat ezarri bere aita herriko idazkari gisa egon zen etxean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

1998an Elgoibarren senarrari **omenaldia** egin zioten eguna. **Pako Aristi**

Bizi-bizi du gogoan Sakabiri 1962ko abenduan Lastur Arbizkoa bailarakoek bere jaiotetxean, Aittola Berrin, egin zioten **omenaldia**. **Iñigo Aranbarri**

Putzu-ri buruzko iruzkinaren bidez ezagutu nuen Txillardegia, UEUK Iruñean egin zion **omenaldiaren** biharamun goizean. **Markos Zapiain**

Nafarroa Behereko jaun guztien **omenaldia** jaso zuen, etsaien etsaiena eta etsaien lagunena. **Aingeru Epaltza**

Berak eta Albertok uko egin zioten **omenaldi** orori, jende askok egin nahi zien baina. **Juan Kruz Igerabide**

Horrela ematen zion gorputz bere **omenaldiari**, baldin eta, erdizka uste zuenez, koadroak **omenaldi** izan behar bazuen. **Anton Garikano**

Omenaldi modukoa da, beraz: nire kuttunenak dira. **Lourdes Oñederra**

-Nire hogeigarren sonata -esan zuen-, Beethoveni **omenaldia** da hau. **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Nire **omenaldi** xumea hango buñueloak eta jogurta hartzea izan zen. **Edorta Jimenez**

Winston erosi duzu, Eñauti **omenaldi** txiki bat egitearren eta, betiko moduan, filtroraino agortu duzu. **Sonia Gonzalez**

Horien denen erdian, **omenaldi** labor bat merezi dik Amédée Arce gure herritarrek. **Michel Oronoz**

Gauden ziur alor horretako gure gehiegikeriak, edonolakoak izanda ere, naturaren aurkako irainak izan beharrean, hari eskainitako **omenaldi** zintzoak direla. **Juan Martín**

Iragan urtarilaren 22an, 69 urte bete bezperan, itsas merkarizarako kapitainek **omenaldi** beroa egin zioten Bartzelonan. **Berria - Gaiak**

Azaroaren 3 an, **omenaldi** berezi bat egina izanen zaio, Aiherran, Piarres Haristoy Bordako apezari, aurten egiten baitu duela 100 urte hil zela. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguraldiak ere distira berezia eman zion **omenaldi** egunari. **Joxean Agirre**

Agurretan, **omenaldi** -bertsoetan, elizakoetan... horrelako zerbait gertatzen da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Dendaren atzealdeko armairuan dauzkat botila eta largabista, baina bakarrik edateak **omenaldi** kutsua izango luke eta ez diot halako oparirik egin nahi horditu zenuen oroimenari. **Javi Cillero**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur oker erabiltzen da, leku eta garai jakin bateko heroieren aldeko herri **omenaldi** libre eta antolatu gabea adierazteko. **Xabier Olarra**

EAK zahazki, EAJ-PNVri guztiena zen ondarea beretu izana aurpegiratzen zion, eta jokatu zuen bezala jokatu, Sabinori merezi zuen herri-**omenaldia** ukatu ziotela. **Ramon Saizarbitoria**

Azkena soilik aipatzearren, Oihane Errazkinen hiletan **omenaldian**, Donostian, Ertzaintzak erruz eraso zion bere guraso, senide eta lagunei. **Jokin Urain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko omenaldi (3); azken omenaldi (3); beste omenaldi bat (3)

egindako omenaldi (3); eginiko omenaldi (7)

omenaldi asko (3); omenaldi bat (80); omenaldi bat egin (9); omenaldi bat eginen (5); omenaldi bat egiteko (4); omenaldi bat eskaini (7); omenaldi bat eskainiko (7); omenaldi berezi bat (14); omenaldi bero (15); omenaldi bero bat (10); omenaldi beroa (23); omenaldi beroa egin (5); omenaldi beroa eskaini (5); omenaldi bihurtu (3)

omenaldi eder (11); omenaldi eder bat (9); omenaldi ederra (6); omenaldi ederra (6); omenaldi egin (4); omenaldi eguna (4); omenaldi egunean (8); omenaldi gisa (29); omenaldi hobereana (3); omenaldi hunkigarri (5); omenaldi hunkigarri bat (4); omenaldi hunkigarria (6)

omenaldi izan (4); omenaldi kartsu bat (9); omenaldi kartsua (3); omenaldi suhar (3); omenaldi ttipi (4); omenaldi txiki bat (8)

omenaldi ugari (5); omenaldi ugari egin (3); omenaldi xume (4); omenaldi xumea (13); omenaldi xumea egin (3); omenaldi xumea egingo (4)

aldeko omenaldia (4); atzoko omenaldia (3); azken omenaldia (6); biktimei omenaldia egin (3); cashen omenaldia (3)

egin zioen omenaldia (5); egindako omenaldia (15); elkarreak omenaldia (7); elkarreak omenaldia eginen (3) larunbatean omenaldia egingo (3); lehen omenaldia (3); merezitako omenaldia (6) omenaldia antolatuta (6) omenaldia egin (87); omenaldia egin diote (11); omenaldia egin zioten (23); omenaldia eginen (20); omenaldia eginen diote (9); omenaldia eginez (3); omenaldia egingo (87); omenaldia egingo diete (10); omenaldia egingo diote (45); omenaldia egingo zaio (8); omenaldia egitea (7); omenaldia egiteko (25); omenaldia egiten (7) omenaldia eskaini (11); omenaldia eskainiko (6); omenaldia eskainiko diote (4); omenaldia jaso (11); omenaldia jaso zuten (5); omenaldia jasoko (6); omenaldia jasoko du (3); omenaldia merezi (3) omenaldiak debekatzea (3) aldeko omenaldian (3); argalaren omenaldian (4); egin omenaldian (3); egin zioten omenaldian (3); egindako omenaldian (12); eginiko omenaldian (5); omenaldian izan ziren (3); omenaldian parte hartzeagatik (6); omenaldian parte hartzeko (3) eskaini omenaldiarekin (3) omenaldiaren aurretik (3); omenaldiaren barruan (3); omenaldiaren ondoren (3) omenaldira joan (5); omenaldira joateko (7); omenaldira joateko deia (3) omenaldirik hobereena (3); omenaldirik onena (3) omenaldiz omenaldi (4)

omenalditxo *iz* omenaldi xumea.

Lerroetatik bihoakie biei azken agur eta **omenalditxoa**. Jokin Urain

12.00: idazle zendueri **omenalditxoa**. Herria

Idazle argentinarra Tolosatik igaro berria zen, **omenalditxo** bat egin zioten bertan, eta guk, talde literarioa ginen aldetik, ezin huts egin halako ekitaldi batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Honaino komunetako poeta anonimoei eskaini nahi izan diegun **omenalditxoa**. Joxerra Garzia

omendu, omen(du), omentzen (*orobat omentu g.er.*) 1 du *ad* omenaldia egin, gorazarre egin.

Orain, goazen nire jauregira, atzerritarra **omentzera**. Juan Kruz Igerabide

Izpurako Herriko etxeak nahi ukan du herritar aipatua **omendu**, bere izena emanez eraiki berria zuen biltzar-toki ederrari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lluis Llachen kantaldi batekin **omenduko** dituzte martxoaren 3ko biktimak, sarraskiaren 30. urtemugan. Berria - Harian

Ziburuk kartsuki **omendu** ditu Zubeldia bi anaiak. Herria

Esteban Larrañaga (Azpeitiko Loliola, 1947) eta soinu txikia **omentzera** ehunka lagun hurbildu ziren atzo Azpeitiko kiroldegira. Berria - Kultura

Duela ia urtebete hil zen idazle eta euskaltzaina **omendu** dute bere senideek, Santurtzin kilometro hunkigarri bat eginez. Berria - Harian

Jexux Artze **omentzeko** ekitaldiak antolatuta dituzte Usurbilen. Berria - Kultura

Agustin Salinasi eginiko omenaldiaren barruan zurginaren arkatza **omendu** nahi izan du anfitrioiak. Berria - Kultura

Elkar **omendu** zuten. Berria - Harian

Sufriarazten digutenak **omentzen** ditugu eta ez irribarrea sorrarazten digutenak. Berria - Harian

Acapulcoko Zinema Jaialdiak Julio Medem **omenduko** du. Berria - Kultura

Belarra lehortzen ari mandioko goialdeetan gozo, belar bihurria kiribilkari heroiak **omentzen** dituzten estatuak estaliz. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Konpositore **omendua** ezagutarazteko mahai-ingurua egingo dute. Berria - Kultura

Indart eta Ormazabal, artista **omenduak**. Berria - Kultura

Uso dilistazaleak, uso goraiapatuak, **omenduak** eta sarituak. Hasier Etxeberria

Omenduak ez zuen hitzik egin bere omenaldian. Iñigo Aranbarri

Maurice Harriet ere egongo da aurtengo **omenduen** artean. Berria - Kultura

Omenaldia, ustez, **omenduari** omen egiteko antolatzen du omentzaileak. Joxerra Garzia

omengarri *izond* omentzeko modukoa.

Intelektual gure eskoletan prestu, benera eta **omengarri** baten, "liberal" itzal handiko Ortegaren saiotoxo bat gomenda liteke: *Mirabeau o el político*, 1927koa. Joxe Azurmendi

omenka *adlag* beste bati entzunaren arabera.

Golarazko aitona batek gogoan dauka, gizaldiz gizaldi **omenka** jasotako gertakari beltza. Patziku Perurena

Nazka-nazka eginda nengoen **omenka** bizitzeaz. Juan Luis Zabala

Ez du balio hemen goiti eta beheiti **omenka** eta omenez ibiltzea, Euskaltzaindiak eta euskaltzainek hau edo hura esan edo egin dutelakoa-edo arinki baieztatzen ibiltzea.

Pello Salaburu

Hark [Xerazadek], **omenka-omenka**, ipuinka-ipuinka, nola lortu zuen Xarier erregearen bihotza sendatzea. Patxi Zubizarreta

Eta ez naiz **omenka** ari. Aingeru Epaltza

omentsu *izond ipar* entzutetsua, ospetsua.

Talde **omentsu** bat dugu hau oren arabera. Herria

Hazparnen gaindi iragan da aurtun xirindulari lehiaketa **omentsu** hau. Herria

Ikastegietako haurrek, karia hortarat ikusi ahal izan dituzte kirolari **omentsu** batzu, mintzatu ere, hala nola Didier Munduteguy, Yves Sallaberry (Xala) [...], Beñat Inchauspe Xapeldun izana pilotan eta ere kontseilu nagusi dena eta ere Raphael Larronde pilotari xapelduna hau ere. Herria

omentu ik omentu.

omentxo *iz* omenalditxoa.

Baina, nire **omentxo** tartean ipiniz, hauek denak ziren goizero ahalegintxo egiten zuten guneak: Algorta, Alonsotegi, Amorebieta, Arboleda, Barakaldo, Basauri, Durango, Etxebarri, Gernika, Gordexola, Leioa, Lekeitio, Lemoa, Mungia, Santurtzi, Zalla. Pello Zabala

omentzaile *izond/iz* omentzen duena.

Omenaldia, ustez, omenduari omen egiteko antolatzen du **omentzaileak**. Herria Joxerra Garzia

Jeneralean, ordea, omenduak ematen dio omena **omentzaileari**. Herria Joxerra Garzia

omiasaindu *(orobat omia saindu g.er.)* 1 *iz ipar* santu guztien eguna. ik **domu 1** eta **domuru 1**.

Helduden larunbatean dugu **Omiasaindu**. Herria

Jakinez bertze igande ala pesta egunetako elizkizunek ez dutela lehengo jarraitzea kausitzen sinesdunen ganik, ohargarri da **Omiasaindu** ez dela egoera orokorri segitzen. Herria

Horra zergatik ukan dugun aspaldiko **Omiasaindu** jendetsuena... Herria

Ainitz jende kofesatzen zuten, ohean, bidean, lanean, bereziki besta-buru inguruetan 44ko Bazko, Andrevena Mari (Agorrilaren 15ean) eta **Omiasaindu**. Marzel Etzehandi

Omiasaindu irikotzat ez direa saltegi frango Eguberriri buruz apaintzen? Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Omiasaindu bezperan, haurrak ziren mozorrotzen, sorgin-jauntzietan paratuz ardurenik, eta goxoki galdez ibiltzen etxez-etxe. Herria

Omiasaindu bezperan euri xorta bat egin badu ere eta denbora geroztik freskatu bada ere, egun arraroak izan dira. Herria

Omiasaindu inguru hortan egin behar luke bere sartzea. Herria

Omiasaindu biharamunean zendu da Linda Bustingorry 22 urte zituelarik. Herria

3 *omiasaindu egun*

Omiasaindu eguna iragan da usaiako bildutasunean gogoan gintuela gure hil maiteak. Herria

Helduden astelehenean, **Omiasaindu egunean** jokatu da partida hau Garatenean. Herria

Ainitz jende ibili eta beren familietako hilarien loreztatzen, eta **Omiasaindu egunean** gure herriko eliza untsa betea zen. Herria

1512 hartan berean, **Omiasaindu egunak** Joanes Albretetako [...] ekarri zuen Pauetik Iruñearen hegiraino. Aingeru Epaltza

4 *omiasaindu kari* ik **omiasaindukari**.

omiasaindukari *(orobat omiasaindu(-)kari)* *adlag* omiasaindu dela eta.

Omiasaindukari, hilarrietan, obrak gelditu behar dira urriaren 22tik azaroaren 1a arte. Herria

Hala ziren funtsean, Otsabidera zetozenen demagun **Omiasaindukari**, etxeetan, bideetan eta elizetan ibiltzen baitziren jendearen errnaz axolagabe. Itxaro Borda

Larunbatean, **Omiasaindu-kari**, Urruñako elizan, *Vocalia* taldea, Gasteizetik etorriko den emazte talde guziz jeinutsua. Herria

Mundu bat xoko guzietan! Aspaldian etzen holakorik ikusi **Omiasaindukari**. Herria

Giroa ere berezia izan zen herri askotan; azken orduko lore eskaintzak nagusi izaten dira **Omiasaindu kari** familia bazkariak antolatzeko ohitura duten herrietan. Berría - Euskal Herria

Kontzertu guziak aratseko 9-etan salbu **Omiasaindu-kari** Urruñan emanen dena, hura aratsaldeko 6-ak eta erdietan. Herria

omisio *iz* egin eza, ez egitea.

Seguruenik **omisioak** ordaintzen ari gara, ekintzak baino gehiago. Berría - Euskal Herria

Omisioak ere ekintza dira. Berría - Euskal Herria

Zer den zilegi eta zer ez ekintza eta **omisioetan**. Esteban Antxustegi

Erregularizazio prozeduraren azken txanpan ez-egiteko edo **omisio** bidezko erroldatze agiri asko eta asko onartu direla ohartarazi zuen Peredak. Berría - Harian

omititu, omiti, omititzen du *ad* ez egin; ez esan.

Horrela, erru, hau da, bekatu izango da Estatuaren arrazoiaren, hau da, legeen aurka egiten, **omititzen**, esaten edo nahi izaten dena. Esteban Antxustegi

omnibus 1 *iz* autobusa, batez ere garai bateko hiri arteko edo hiriko autobus publikoa.

Errepidea leporaino betea zegoen, gurdi, orga eta **omnibusekin**. Koro Navarro

Hemengo urratu hau Gower Streetera doan **omnibus** irauli zenekoa da, gazteagoak eta zoriotsuagoak ginen garai batekoa. Antton Olano

Batzuetan, makurtu eta Bastilletik Wagram plazara zihoan **omnibus** Saint-Eustache zubiko geltokiraino jarraitzeko itxura egiten zuen. Karlos Zabala

Omnibus batean, egun batez, eguerdi aldera, jarraian doan tragikomediatoaren lekuko izatea suertatu zitzaidan. Xabier Olarra

Omnibus batek gurutzatu zuen karrika, eta kotxeroaren oihuaren premia barik abiatu zen zaldia ostera. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Valence izeneko **omnibus** gidari batek adierazi zuen halaber Senako ferry batean ikusi zuela Marie Rogêt, delako igandean, gazte azal-ilun batekin. Koro Navarro

Lorategiek, alde batean, **omnibus** ilara amaiezin bat dute, Julen Gabiria

omnipotente *izond* guztiahalduna.

Jesukristo **omnipotentea** da, jada gure artean egonen da, segurasko. Karlos Linazasoro

Ez al zen, bada, Jainkoa, Madre Columbak zioen bezala, guztiz ahaltsua, **omnipotentea** eta orojakilea? Lourdes Oñederra

omnipresentzia *iz* nonahikotasuna.

Ubikuitate: [...] aldi berean leku guztietan egoteko ahalmena edo dohaina, baina ez aldi oroz eta leku guztietan egotekoa, hori **omnipresentzia** baita, Jainkoarena eta eter argi-eroalearena baizik ez den ezaugarria. Xabier Olarra

Ubikuitatearen eta **omnipresentziaren** arteko bereizketa inportante hau ez zegoen garbi Erdi Aroko Elizarentzat, eta horrek odol asko isurarazi zuen. Xabier Olarra

omnistzientzia *iz* dena jakitea.

omoneria iz kapilau egoitza.

Ikasleen **omoneria** zabalik. **Herria**

Donibane Garaziko Bilgune **omoneriak** presuna bat bilatzen du, denbora erdiz lanean aritzeko helduden irailetik harat. **Herria**

Momentu lasai bat iragaiten dute **omoneriako** gelan. **Herria**

omonier 1 iz ipar kapilaua.

Gure erretore nagusia higitzen hasia, ez baita gazte haietarik: curriculum normal bat egina izan du, gaztaroan bikario, gero erakasle, gazte mugimenduetan **omonier**, katixima arduradun. **Piarres Aintziart**

Aspaldian ezagutzen nuen eta ontsa, 14-18ko gerlan, infanteriako 34. erreximenduan **omonier** ukana bainuen. **Marzel Etxehandi**

Geroxago **omonier** baten bisita ere ukan nuen. **Filipe Bidart**

Soldaduak irriz, konpainiako **omonierra** barne. **Itxaro Borda**

Münster-eko gazteria katolikoaren **omonierra**. **Marzel Etxehandi**

Frantxua Gaztambide Donibane Lohizunetik Baionara doa Katedraleko kalonje eta Turismo pastoralaren **omonier** gisa. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

30 urte nituen Gabonera joan nintzenez, Bordalen ixtudienteen **omonier** zerbitzua egin ondoan, hiru urtez, apeztu orduko. **Piarres Aintziart**

"Le Personnalisme" delako liburutxoia iretsia nuen baina ohartua nintzen ene **omonier** lagunari arriskutsua iduritzen zitziola sentzibilitate hori. **Piarres Aintziart**

Manhattan hirian, 16 urtez presondegi **omonier** izan da Rafael, frantses apez bat, hogoi mila presuner erdian bizituz. **Herria**

omoniergo 1 iz ipar kapilautza.

Gero, adin batetarat heltzearekin, Donibanerat bildua, ospitaleko **omoniergoa** segurtatzen zuela. **Herria**

Gero, bortz urtez Pariseko Euskaldunen **omoniergoa** beteko du: euskaldun gazte frango bazoan urte hetan Parisera, eta berriki idekia zen Euskal etxearen antolatzen lan gaitza egin zuen. **Herria**

2 (egoitza) ik omoneria.

Biharamunean **omoniergoan** egin behar genuen bilkurara ez nintzen joan. **Piarres Aintziart**

omoplato iz sorbalda-hezurra.

Sabeth, bere galtza bakero beltzekin, [...] bere bi **omoplatoak** nabari zitzaizkiola jertse beltzaren azpian. **Joxe Austin Arrieta**

Omoplato biluzi zorrotzak ia elkartzten ziren batzuetan, neskaren bularraren azpian sua edo ikatz bizia jarri balute bezala. **Jose Morales**

Eskuineko eskumuturraren parte batean ere urratu handiak ageri zituen, eta orobat bizkaralde osoan, **omoplatoetan** bereziki. **Koro Navarro**

Badaude erraldoiaren atalak, *disjecti membra gigantis*; hemen belauna, han enborra edo **omoplatoa**, haratago burua. **Koldo Izagirre**

omore ik umore¹.

omoretsu ik umoretsu.

on-line (orobat on line g.er. eta online g.er.) 1 iz (beste izen baten ezkerrean) konexioaren une berekoa.

Lastertasuna eta fabrikako lan-aretoan bertan funtzionatzeko gaitasuna sentikortasun handia baino garrantzitsuagoak direnean erabiltzen da **on-line** analisisa (hala deritzo une bereko lan-metodo horri). **Irene Aldasoro**

On line edizioa bestea baino laburragoa da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Fitxategiak, liburutegiak, **on line** katalogoak, aldizkarien aurkibideak (hemerroteketan), Internet, CD-Rom... **Askoren artean**

Tutoretzak, **on-line** laguntzak, ikasle izan direnekin harremanari eustea, ikasleentzako hitzaldiak... **Berria - Euskal Herria**

Online sistema honi esker partekatzea lortzen diren bidaia gehienak noizbehinkakoak izaten dira, eta hirutik bat baino ez (%37) aldizka egindako bidaiak. **Berria - Euskal Herria**

On-line zerbitzuen bitartez egiten dira eragiketen erdia ia (%42,9). **Berria - Ekonomia**

2 (adizlagun gisa) unitate zentralarekin konektaturik; konexioaren une berean.

Interneteko helbideak ere ematen zaizkigu, Kanten obra nahiz beronen gaineko liburu zein artikuluko berezituak **on line** kontsultatu ahal izateko. **Markos Zapiain**

Telesforo Monzonen literatur lan guztiak **on-line** jarri ditu, gaurdanik, Susa argitaletxeak bere webgunean. **Berria - Kultura**

Sistema multimedia batean oinarrituta, **on-line** eta CD batzuen bidez funtzionatzen du Boga sistemak. **Berria - Euskal Herria**

Eskuizkribu duela gutxi arte ezezaguna eskuratu bezain laster, haren faksimilea jarri zuen **on-line** Gipuzkoako Foru Aldundiak. **Berria - Kultura**

Mugimendu finantzarioak denbora errealean egiten dira, **on-line**. **Iñaki Heras**

Hor, beste hainbat zerbitzu eskaintzeaz gainera, **on-line** euskara ikasteko aukera emango dietela atzerritarrei. **Berria - Euskal Herria**

Klasikoen gordailua (idazle klasikoen lanak **on-line**), Kritiken hemeroteka (literatura modernoko liburuen kritiken bilduma eguneratua). **Berria - Harian**

on¹ 1 izond bere egitekoa ongi betetzen duena; espero den bezain egokia edo onuragarria dena. antixar. (gauzez mintzatuz)

Baina gorroto dut gizon hori, gauza txarrak baizik ez baitit iragartzen, **onak** iragarri beharrean. **Elizen arteko biblia**

Jauna, ez al zenuen hazi **ona** erein soroan? nondik du, bada, olo gaitzoa? **Elizen arteko biblia**

-Ohe **ona** da -esan zuen gizonak, eta poltsa lurrean utzi eta garagardoa eta whiskia atera zituen. **Koro Navarro**

Lurrez joatekotan, nire zaldirik eta gurdirik **onenak** utziko dizkiat. **Juan Kruz Igerabide**

Txakurrak, esate baterako, bista kaskarra du eta nahiko belarri **ona**. **Irene Aldasoro**

Ez, bihar ez, erantzun zion, baina aurki, hitz eman zion; eguraldi **ona** egiten zuen lehen egunean. **Anton Garikano**

Euskara **ona** eta zuzena erabili ohi du gehienbat Euskadi Irratiak. **Koldo Zuazo**
Gauza **ona** da gatza; baina gatza gezatuko balitz, nola gazitu berriro? **Elizen arteko biblia**
Zahartzeak ez du deus **onik**, badakigu. **Iñaki Segurola**
-Baina haren etxean ez duk batere atarramentu **onik** izango: zeken hutsa duk! **Jose Morales**
Lan horrentzat, hiztegi **on** bat baitezpadakoa da mahai gainean, eta ahalaz biga edo hiru, elgarren artean konparaketen egiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 (pertsonez mintzatuz)

Langile **ona** naiz -marmar egin zuen Budek, ahoa beteta zeukala. **Lopez de Arana**
Ikasle **ona** zarella esaten dit Hermannek: ez galdu guk izan ez genuen aukera. **Anjel Lertxundi**
Zaila da jakiten benetan Jexux inoizko soinu-jotzailerik **onena** izan ote den. **Xabier Etxabe**
Nik bete nezakeelako, apika, berak bete ezin izan zuen ametsa, soldadutza egitekoa eta soldadu **on** bat izatekoa: gudari **on** bat, alegia. **Joan Mari Irigoien**
Bettek berehala eskatu zion barka, baina kaltea eginik zegoen jada, eta nahiz eta hiriko abokatu **onenetako** bat kontratatu zuen hura defendatzeko, Harry ohartu zen hondaturik zegoela jada bere bizitza. **Oskar Arana**
Lisak aita Roustan ezagutzen zuen, Saint-Eustacheko apaiz bat, itzal handiko gizona, aholkulari **ona**, huts egiten ez zuen laguna. **Karlos Zabala**
Baina bagenuen gure artean preso bat, Longarte, oso mediku **ona**. **Koldo Izagirre**

3 (izen gisa)

Emadazu adimen argia zure herria gobernatzeko, eta **ona** eta txarra bereizteko. **I**
Eta, aurkitutakoan, berori non eta nola zain-zain gelditu den esango diot, harengana, izenaren **ona** eta garbia galarazi gabe, noiz eta nola joan ote litekeen agindu arte alegia. **Patxi Ezkiaga**
Azter itzazue erromatarrak, eta ez dituzue inoiz aurkituko beren **onak** eta txarrak egin zituzteneko inguruabarrak aukeratzeko baina garaiago. **Iñaki Iñurrieta**
Alde txar guziet ere badute beren **ona**, ordea. **Eneko Bidegain**

• 4 izond handia, ederra.

-Eta esan dituan txori horiek mokadu **ona** al zeukatek? **Jon Maia**
Txikiena jaino eta ama erditzean hil zenetik zenbat aldiz ez ote dizkiet eman ipurdiko **onak**, eta hala ere ezin sosegatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Kattalinek bere garagardoari hurrupaldi **on** bat emaiten dio, berriz ahoa ireki aitzin. **Eneko Bidegain**
Libreta berriz hartu nuen, bertan zerbaite egin beharra banu bezala, eta tinta parrastada **on** bat bota nion gainera. **Xabier Olarra**
Ez da azitia izan behar gizonak ohera gonbidatu nahi duela igartzeko, ipurdia ere salduko lukeela larrutaldi **on** baten truke. **Patxi Iturritegi**
Mutiko bat gaiztoa eta bihurria bazen, ez zuela ezerk balio, zigorrada **on** batzuk izan ezik. **Irene Aldasoro**
- *irud/hed* Sari banaketaren ondotik, pilotaren besta segitu zen Philippe-n ostatuan mahai **on** baten inguruan. **Herría**

• 5 izond zintzoa; moralak eskatzen duena betetzen duena. antgaizto.

Polizia **on** eta gaiztoaren kontua, berriz ere? **Rafa Egiguren**
Aurretik jakintzat eman behar da edozein kristau **onek** prestago egon behar duela hurkoaren esana onesteko gaitzesteko baino. **Patxi Altuna**
Pozaldian espiritu **onak** gehiago gidatzen eta aholkatzen gaituen bezala, hala lehorraldian gaiztoak. **Patxi Altuna**
Ederki, morroi **on** eta leiala! gauza gutxian leial izan haiz, askoren buru ipiniko haut. **Elizen arteko biblia**
Quenuk pentsatu zuen Lisa **onegia** zela, Gavard basapiztia haren atzetik horrela ibiltzeko. **Karlos Zabala**
Ni ez naiz jende gaiztoa egun batetik bestera jende **on** bihurtzeko mania moderno horren aldekoa. **Antton Olano**
- Ene errege jaunaren hitzak lasaituko nau, Jainkoaren aingerua bezala baita bera, **ona** eta gaiztoa bereizten dakiena. **Elizen arteko biblia**
Horrela hasi ziren **onak** gaixotzen. **Joseba Sarrionandia**

6 ontasuna adierazten duena.

Ez naiz berriz bihotz **oneko** agertuko sekula! **Karlos Zabala**
Neskatxa garbia eta ohitura **onetakoa** dela. **Gotzon Garate**
Badirela oraino zenbait Katoliko ere makur dabiltzanak, uste baitute bekatu mortaleko estatuan egin obra **onek** ez dutela deus balio. **Piarres Xarriton**
Ez du zalantzarik: asmo **oneko** gezurrak egia gordinak baino krudelago dira. **Imanol Zurutuza**
-Esaiozu behintzat hitz **on** bat. **Koldo Biguri**

• 7 iz ongia.

Ez bedi inor bere buruaren **onaren** bila ibil, besterenaren bila baizik. **Elizen arteko biblia**
Horretarako, ordea, neure buruaz ahaztu eta lagunaren **ona** bilatu behar nuen. **Anjel Lertxundi**
Bila dezagun arimaren **ona**, ez juzgatzekoan gainetik hegan dabilena, maitasunari atxiki zaion **ona** baizik. **Imanol Unzurrunzaga**
Iluntasunen artean zein ez den hain handia juzga daitekeen bezala, eta amildegien artean zein ez den hain sakon, halaxe araka daiteke erlijio faltsuen artean ere ea zein atxikitzen zaion hobeto gizartearen **onari**. **Iñaki Iñurrieta**
Gorrotzko afektu horiek eta horien idurikoak Bekaizkerian biltzen dira, zeina, horrexegatik, Gorrotoa besterik ez baita, honek gizakia bestearen gaitzaz pozttera eta haren **onaz** tristatzera daraman bezainbatean. **Piarres Xarriton**

8 oneansup_1 adlag

Etzeko jaunari deitu zioten, eta Lancelot non zegoen esan zezala agindu, **onean** nahi ez bazuen, txarrean. **Juan Kruz Igerabide**
Ezin didazu eragotzi gora joatea, **onean** behintzat: edo erabat debeketzen didazu, edo nirekin fidatzen zara bestela, onerako ala txarrerako, eta bakean uzten nauzu. **Josu Zabaleta**
Ezkongai harroek ere **onean** hartu zuten, baina barruan asmo gaiztoak zituzten. **Juan Kruz Igerabide**
Ni, ordea, **onean** nahiz txarrean, hementxe edukiko nauk zain, hik hala nahi baduk... **Joan Mari Irigoien**
Aurrean nor daukaan, hari eragin behar diok, **onean** edo txarrean, zuzenean edo zeharka. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

9 (neure, bere...) onean²

Gurasoak, errebelde zenean eta bere **onean** zegoenean berarekin hain etsaituak, orain, babesgabe eta gaixo zegoen garaian, egunero etortzen zitzaizkion bisitan. haur hura ez dago bere **onean** eta senean, haur gaixo bat da hura, bere gurasoek gaixotutako haur bat. **Xabier Olarra**
Nik uzkur baina abegikor ikusi nuen, bere **onean** edo tentuan nolana ere. **Joxean Agirre**
Gaur ez nagok neure **onean**, baina hurrengoan ez diat barkatuko. **Xabier Etxabe**
Ez nengoen nire **onean** egun hartan. **Josetxo Azkona**
-Ez zeunden zeure **onean**. **Oskar Arana**

10 -en onean³

Ondorengotza-ordena, monarkietan, Estatuaren **onean** oinarritzen da. **Iñaki Iñurrieta**
Errusiako armadak sarritan egin zuen borrokan haien buruzagiekin, zeintzuk, beren **onean** eta beste uztarri bati lotzeko asmoz, kirgizen askatasuna defendatzen baitzuten Moskuko mendekotasunaren kontra. **Karlos Zabala**

11 oneanean adlag ik beherago 24.

Banekien Marrok, han harrapatuz gero, pasada on bat emango zidala, **oneanean**. **Juan Kruz Igerabide**
Beraz, telegrama batekin ez nuen, **oneanean**, etxeokoa alferrik kezkatzea beste ezer lortuko; txarrean, berriz, arriskuan jartzea. hil edo bizikoa omen den "hizkuntzaren azpiegitura" izeneko hori ere ez da, **oneanean**, hizkuntzaren axalik axialena izatera ere iristen. **Anjel Lertxundi**

Hau guztia gaztelaniar banu, harritu apezpiarekin behatuko lidake. **onenean**, baten batek. **Pello Salaburu**

· **Onenean** zeudenean, hots zakar bat entzun zuten troka gainetik "¡Alto a la guardia civil!". **Anjel Lertxundi**

Baina, **onenean** zegoela, jas!, gauza deskontrolatzen hasi zen. **Patxi Iturritegi**

Imanolen eta bion sexu harremanek beren **onenean** irauten zuten eta, biok gazte eta osasuntsuak izaki, bete-betean gozaten genituen. **Aitor Arana**

12 -en onerako

Ez da ari herriaren **onerako**, kalterako baizik. **Elizen arteko biblia**

Elizaren **onerako** izango da, Aita Santuak erabaki badu, baina ez da bidezkoa, Mary Jane, eta ez dago ondo. **Irene Aldasoro**

Jainkoak dei egin digu bere errukiaz, ez geure **onerako** bakarrik, baita beste askoren **onerako** eta salbamenerako ere. **Askoren artean**

Estrategia liberalaren helburua izan da merkatuaren **onerako** estatuari pisua kentzea, eta aitzakia polita izan da globalizazioarena. **Iñaki Heras**

Ez dakit zoriarekin estandarizazioari zer egingen dion hautu honek, baina kalte egiten badio ere hizkuntzaren **onerako** izanen da. **Janbattitt Dirassar**

Batzuek euskararen **onerako** joko dituzte itzulpenok, baina nik, lege arazoren bat dudan bakoitzean erdaraz irakurri behar izaten ditut, zer gerta ere, euskaraz-edo ere badatozen legeok. **Joxerra Garzia**

Hain urte gutxian, kausaren **onerako** eta errepublikaren hobe beharrez, hainbeste aurreiritzi, hainbeste kate zentzugabe hausten jakin izan duen herriari ez zaio batere kostako jainkoaren mamua sakrifikatzea, erregearena baino hutsalagoa baita. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

· Ez dakit gaiztoa den edo ez, baina guztia **onerako** gertatu da, ezta? **Oskar Arana**

13 -en onetan

Erromako elizak bidali zigan apezpikuak garbiketa etnikoa egin zuen jarraian Baionako seminarioan, Frantziako IV. edo V. Errepublika Bakar eta Zatiezinen **onetan** eta, menturaz, zenbait euskaldun fededun xumeren kaltetan. **Piarres Xarriton**

Neure apurra eman behar nuela "Jainkoaren eta Espainiaren **onetan**". **Txillardegi**

Baina jakin ezak, hire **onetan** mintzo naizela. **Daniel Landart**

Haurraren **onetan**, nik dakita ez diodanetz amor eman behar! **Janbattitt Dirassar**

Aita Sainduaren botereak gainditzen duela edozein nagusitasun, onartuz geroz Jesu Kristo gure Jaunak beti bere artaldearen **onetan** diharduela sinetsi behar dugula.

Piarres Xarriton

Etxeberrí, orduko auzapeza, eta d'Abbadie d'Arrast, Etxauzko nausia, ez zitian arras ideia berekoak eta uste diat bakotzak nahi zuela bere burua eta bere boterea agertu, herriaren **onetan** zerbait eginez. **Michel Oronoz**

Diru-sarrerak eta baliabideak administratzailearen **onetan** administratzearen zientzia edo artea. **Xabier Olarra**

14 onezko ik onezko.

15 on behar (orobat onbehar) hobe beharra. ik onbehar¹.

On-beharra zeramatzak gure gauzak, guk geuk desira genezakeen baino zuzenago. **Anjel Lertxundi**

Propaganda ofizialak diotenaren gutiz bestera, borondate oneko jendea oso arriskutsua da, inozotasunarekin estaltzen baitute ezjakintasuna, eta **onbeharraren** nahiarekin injustizia oro. **Pako Aristi**

On beharrean egin zuen, egoera ezerosoari irtenbidea ematearren, apeta beteta bakean utziko zuelakoan. **Migel Angel Mintegi**

Gerta liteke, nik **on beharrez** zerbait egin eta zu atsekabetzea. **Gotzon Garate**

On beharrez alferrikako lanak hartzen dituzte. **Gotzon Garate**

Nire bizitzan lehendabiziko aldiz, familiaren **on beharrez** ari nintzen, eta ez neure onaren bila. **Anjel Lertxundi**

Nire **on beharrez** beti, nirekiko begirunez uneoro, baina zuk abiarazi zenuen nirekiko afera, niri galdetu barik, eta zuk nahi zenuen trenkatu auzia, behin betiko, nire iritzia galdegin gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hik niri kasu egidak, hire **on beharrez** ari nauk eta. **Anton Garikano**

16 on egin

Kafeak **on egin** zigan. **Daniel Landart**

Haize freskoak **on egin** zidan eta burua lasaitzeko balio zuela konturatu nintzen. **Joxemari Iturralde**

Loaldi on batek **on egingo** dio. **Iñaki Iñurrieta**

Hari ere **on egin** zion bi egunetako atsedetak. Gurasoei deitzaiek ere **on egin** dit eta doi bat lasaitu nau. **Aingeru Epaltza**

Hire karrera politikoak harrotuko duen publizitateak hire abokatu-lanari **on egingo** zio. **Lopez de Arana**

Tamainako min batek **on egiten** digu; zerbaiten edo zerbaitetarako minak. **Iñaki Segurola**

Ez al duk nirekin etorri nahi ospitalera? Teresari **on egingo** zio. **Bernardo Atxaga**

"Ni zu izatera", esan zion kalonje batek, "Mexikora itzuli eta lagun hurkoari **on egiten** saiatuko nintzateke. **Bernardo Atxaga**

-Gutxiagok **on egin** behar digu! -atera zitzaion Agustinari. **Aitor Arana**

· - **On degigula!** -esanaz sartu zuen Justok sardexka azpilean. **Joxemari Urteaga**

On egin deizuela! **Txillardegi**

· **On egin!** -esan zien guztiei, irribarretsu. **Iñaki Mendiguren**

· Makina bat **on egin** zuen bere bizialdian! **Irene Aldasoro**

Halako traizioa egin zuen, bada, Ptolomeok, **on egin** gaizkiak ordainduz. **Elizen arteko biblia**

17 on-gaitz (orobat ongaitz g. er.) pl alde onak eta txarrak.

Natura aingerutu hori natura hila besterik ez daiteke izan; besterik da lurra edo mendia bere **on-gaitzekin**. Nazioak arraza nagusi horren **on-gaitzak** ditu, horren bertuteak eta bizioak. **Iñaki Segurola**

Urte bat pasatu zaiku bere **on gaitzekin**, zorion eta penak nahaste. **Herria**

Prefeta edo zuprefeta batek bere kargua uzten duelarik nonbait, dokumentuak han gelditzen dira egin duen lanaren lekuko, bere **ongaitzekin**. **Xipri Arbelbide**

Euriri so, eskaintzaren **on-gaitzak** aztertzen ari nintzelako egin nuen. **Aingeru Epaltza**

Ezkontza bera ez al da ezkontideen arteko elkarte oso eta hutsik gabekoa, bizitzaren **on-gaitzetan** partaidetza eta gauza guztien -zeruko nahiz lurrekoen- komunikazioa eskatzen duena? **Jon Muñoz**

18 on iritzi (orobat oniritzi) dio ad ongi iruditu.

On neritzon, beraz, nire anaiaren jokabideari, eta berak eskertu egiten zuen nire konformidadea. **Pedro Alberdi**

Adio, bizkonde; **on deritzot** zauden lekuan gelditzeko hartu duzun xedeari. **Jon Muñoz**

Ikuspuntu honetatik jokatzu gero, **on deritzogu** esperimendazio orori. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Alkate orokorra zen aldetik, **on iritzi** zion ekimenari eta, bereziki herriaren ordezkaria izanik, zabal-zabal esan zuen seguru zegoela ekimen hura ez zela erabiliko propaganda politikoa egiteko. **Koldo Biguri**

Baina ez zen mintzatu; begiratu, baiezkoa egin, **oniritzi** eta aurrera jarraitu zuen. **Anton Garikano**

Norak liburua zabaldu zuen eta, argiari **oniritzi** zionean, irakurketari ekin zion. **Anjel Lertxundi**

· Heresia da esatea ez ziola **oniritzi** Jainkoak, zeren Jainkoak arima guztiei oniritzen baitie eta guztiengatik hil baitzen; arimok dira Jainkoari **oniritzen** ez diotenak: hala, bada, besteei bezala **oniritzi** zion Jainkoak Garbairaren arimari. **Anjel Lertxundi**

19 on izansup_1 da ad

On da erregearen sekretua isilpean gordetzea, baina Jainkoaren egintzak aldarrikatu eta zabaldu egin behar dira, merezi duten bezala. **Jose Antonio Mujika**

On da gordetzea eta zaintzea suntsitu behar ez den guztia: legeek usadioak jagon behar dituzte, usadio horiek gaitzesteko modukoak ez direnean. **Andres Urrutia**

Jaioterra itzultzen saiatzeko - **on da** tarteka-haur haur haur itzultzea -, aitak noiz edo noiz, hala gogokitzen bada, gizon bat seinatzen dit: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Giza legeek **on denaz** arautzen dute; erlijioak hobereana denaz. **Iñaki Iñurrieta**
Begotandu zitzaizkion **on dela** gure ekintzen lekukoren bat izatea, batez ere zalantza eta nahasmendua edozein bihurtzetan zain daukagularik. **Javi Cillero**
Jakin bezate, beraz, Israelgo seme-alaba guztiak **on dela** Jaunari jarraitzea. **Elizen arteko biblia**
Jukutria guztiak **on ziren** gosearen ez-titzera ahalegintzeko. **Eneko Bidegain**
Baina egia da, horrekin batera, behin prozesu bat ireki ondoren **on dela**, urteak igarotzen direnean, atseden eta pausaldi hartzea gauzak ongi egiten ari ote garen ikusteko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Presoak medikuen aitzinean pasatzen ari dira jakiteko komandora joaiteko **on direnez**. **Marzel Etxehandi**
Azkenean, ardi gasna ekoi-zeintzat **on zena**, enetako ere kaltegarria ez zela sinestera heldua nintzen. **Itxaro Borda**
On litzateke hor ere eremu ezberdinetako adituen elkar-lana bultzatzea. **Lourdes Oñederra**
Baina bi hauek bereiziz gero argi agertzen da ez dela gaizto gizaki izanagatik, ez eta **on** gaizto izanagatik, alderantziz baizik, **on da** gizaki izateagatik eta gaizto txarra izateagatik. **Imanol Unzurrunzaga**

20 on izansup_2 du ad

On du gizakiak gaztetandik uztarpean ohitzea. **Elizen arteko biblia**
Giza gorabeheren gobernamenduak **on ditu** artearen begirada eta hausnarketa, eragin luze urrutikoak ekarri ohi dituen pentsamenduaren nondik norakoak ulertzeko. **Anjel Lertxundi**
Girixitino erro azkarrak **on dituela** erakitzen ari den Europa berriak. **Herria**
On zenukete onagatik arduratzea, beti ordea, ez ni zeuekin nauzuenean bakarrik. **Elizen arteko biblia**
Dontsu Etxera etorri aurretik, edozein aitzakia **on izaten nuen** dutxapean sartzeko (iratzarri, tristurari kontra egin, bizi-poza kantatu, alkohol gehiegiaren erasana arindu...), eta egunaren joanak aitzakia eman aldiro dutxatzen nintzen hona ekarri ninduten arte. **Anjel Lertxundi**
On luke gehixago sofrizea, baina norekin? **Herria**
Maita ezazu pixka bat zeure irakaslea, eta batez ere, izan zakizkio manukor; **on dukezu** eta. **Jon Muñoz**

21 on izansup_3 zaio ad

Museo batera doanari **on zaio** aurrez jakitea zeren bila doan. **Anjel Lertxundi**
Alferrik baita hor aroen aldaketak bilatzea ez baituzue aurkituko; iraute eta aldarre guztien gainetik dago, beti Jaungoikoari atxikitzea **on zaiola**. **Imanol Unzurrunzaga**
Beharbada horrexegatik, hau da, ni ere ez nintzelako egunkariko lagunik maitatuena, **on izaten zitzaion** nire konpainia. **Aingeru Epaltza**
Garai haietan aldiz, bide zuzenetik baztertzeko estakuru guztiak **on zitaizkidan**. **Itxaro Borda**

22 on izate (orobat onizate)

Pitzia odolitzalea eta ikaragarria izateaz gain, perbertsitatez betetakoa da, inozentzia eta **on-izatea** gorrotatzen dituen izaki gaizkilea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Bestalde, gizaki ona esaten dugunean, horrelakoetan ulertu behar da **onizate** hori emana izan zaiola eta jaio ez den Ontasunari dariola eta beronetik datorrela. **Joan Mari Lekuona**

23 on puska (orobat onpuska g.er.) izond/iz

Ukabilak adinako egia esaten dizkio irakurleari soldadu **on-puska** eta motz samar baten ahotik. **Fernando Rey**
Jon, gizon zintzo eta **onpuska**, erromantikoki sinestuna zen funtsean. **Patziku Perurena**
Bere alaba, Maria, **on puska** izateaz gain, eder baino ederragoa da. **Martin Anso**
Erramun [...] mutil jatorra jatorrik bazen, **on-puska**, Herioak eramana zuen. **Imanol Zurutuza**
Bihotz handiko **on-puska** izan dela beti. **Xabier Mendiguren Elizegi**
-Zezena? iskua da, moteil, **on puska**, eta lotuta dago! **Joxean Sagatzizabal**
Belazkita gaizto baino gaiztoagoa da, eta Iñigo, berriz, **on puska** hutsa. **Martin Anso**
Gizon txikitxo, hortzik batere gabea, baina **on puska** jatorraren aurpegia zuena. **Josu Zabaleta**
Nire ondoan **on puska** itxura zuen sarjentu nagusi bat egokitu zen. **Jon Alonso**
- Beltzak, **onpuska** eta zoriontsu, eskuan muin egin zidan. **Juan Garzia**
Beti alai eta aldarre onean dago, beti gertu eta **on puska**: horiek ditu bere ezaugarriak. **Josu Zabaleta**

24 onenean ere ik gorago 11.

Pertsonaia ospetsuak miresten ditugu, **onenean ere** gizadiari mesede handiren bat egin diotenak, eta okerrean, berriz, beren ergelkeria besteren lelokeria pizteko erabiltzen dutenak, lelokeria hori giza arimaren bazterrik ezustekoenetik agertzen baita. **Juan Kruz Igerabide**
Gure bizitza hirurogeita hamar urte, **onenean ere** laurogei: gure bizi-lehia neke eta atsekabe huts; bizitza arin doa, hegan goaz! **Elizen arteko biblia**
Horrek esan nahi du hartutako airean dagoen oxigenoaren laurdena besterik ez dela aprobetxatzen, **onenean ere**. **Irene Aldasoro**
Edo oroit zaitzez umetan leher egin arte jolasean eta okerrean ibiltzen zinen lekuez: gaur ozta-ozta ausartzen zara zeure buruari aitortzera, **onenean ere**, paisaje huts bat besterik ez direla zuretzat, zeure haurtzarora bera bezalaxe. **Iñaki Segurola**

25 onenera jota

Onenera jota, Molly niregana itzultzen zen lasterka eta eskutik heltzen zidan. **Mirentxu Larrañaga**

26 onera egin

Lucy ez du **onera egiten**. **Oskar Arana**
Hurrengo txandan gauzek **onera egingo** zutela, azkenean. **Anton Garikano**
Autoa kostaldeko bidetik irristaka doa, eta eguraldiak **onera egin** du. **Iñigo Aranbarri**
Gaixo egon ondoren **onera egin** izan balu bezala. **Karlos Zabala**
Alabaina, arazoak **onera egin** beharrean, okertu besterik ez dira egin. **Patxi Zubizarreta**
Txarto hasi zen elkarrizketa, baina **onera egin** zuen apurka-apurka. **Jose Morales**
Azken urte hautan, ibaietako uren kalitateak, oro har, **onera egin** omen du. **Herria**
Merkataritza trukearen aukeran [...] sartzen denak **onera egiten** du, kanpoan geratzen denak berriz txarrera. **Iñaki Heras**
Ekonomia ongi doa eta **onera egingo** dute burtsek. **Iñaki Heras**
Umoreak **onera egin** zion, ordea. **Ramon Saizarbitoria**
Pasatuko zait -esan zuen Noraren aitak, arnasak **onera egin** zionean. **Anjel Lertxundi**

27 bere, nire... onera ekarri (64 agerraldi, 30 liburu eta 24 artikulutan)

Kaferaino eramatea lortu zuten, besaulki batean esertzea, eta orduan bere **onera ekartzen** ahalegindu ziren. **Patxi Zubizarreta**
Hark bizi zuen isilatasunezko kutxatik atera, eta egunerokotasunaren sentsazioak, pozak eta jario normala biziarazi nahi zizkion, hura besterik ez zuelakoan adiskidea bere **onera ekartzeko** modua. **Anjel Lertxundi**
Egoera hartan, alferrik zen autoritate-kolpe bat hura bere **onera ekartzeko**. **Iñaki Iñurrieta**
Orduan lagunak neure **onera ekarri** nau: kontuz ibiltzeko gero zer egiten dudan neska horrekin, asko kobratzen dutela, eta ordaindu ezean arazo latzak izango ditudala. **Pako Aristi**
«Askotan geratzen zituen partidak, eskuak ur berotan sartu eta bere **onera ekartzeko**», gogoratzen du Gallastegik. **Berría - Kirola**
Ahaleginak ahalegin, ospitalean ezin izan dituzte mutilak beren **onera ekarri**. **Patxi Iturritegi**
Atzo atseden hartu zuten miarritzarrek, gorputza bere **onera ekartzeko**. Clermonten irabazi ondoan (6-16). **Berría - Kirola**

Arnasa bere **onera ekarri** eta aurrera jo zuen Joanesek. [Felipe Juaristi](#)
AEB Ameriketako Estatu Batuen eta Hego Korearen arteko harremanak krisian daude eta Hego Korea beti lagun izan duen Pekin baliatu nahi du gauzak bere **onera ekartzeko**. [Berria - Mundua](#)

Diabetesa gaixotasun bat da, odoloko glukosaz arduratzen den mekanismoa bere **onera ekartzeko** insulina emanez tratatzen dena. [Irene Aldasoro](#)

Kutsatutako lurra bere **onera ekartzeko** proiektua aurkeztea. [Berria - Euskal Herria](#)

28 bere, nire... **onera etorri** (234 agerraldi, 95 liburu eta 28 artikulutan)

Egun batzuk eritegian egin zituen, burua galduta, harik eta morfina eraginez baretu eta pixkanaka bere **onera etorri** zen arte. [Juan Kruz Igerabide](#)

Horrek, ezusteko zama hura eskuan hartzeak, ia oreka galarazi zion, balantzaka egin baitzuen une batez baina berehala bere **onera etorri** eta soldaduen aurrean gelditu zen. [Felipe Juaristi](#)

Baina istant hori ere igaro da, bere **onera etorri** da ezustetik andrea, eta bildu du adorea. [Imanol Zurutuza](#)

Bere **onera etorri** zenean, ezertaz ez zela gogoratzen adierazi zien Martak medikuei. [Harkaitz Cano](#)

Ez zen bere **onera etorri** harrezkero eta handik bi urtera hil zen, 1908ko otsailean. [Monika Etxebarria](#)

Exkaluk lasaitua zirudien, bere **onera etorria**. [Pako Aristi](#)

"Zer moduz daude nire lagunak?", galdetu nuen nire **onera etorrita**. [Bernardo Atxaga](#)

Kolpetik esnatu nintzen, eta une batzuk behar izan nituen nire **onera etortzeko**; gero bezperako gertaerez gogoratu nintzen. [Josu Zabaleta](#)

Arnasa sakon hartu, neure **onera etorri** ezinik, poltsa atearen ondoan utzi, eta eskaileretan behera jaitsi nintzen, bi sentimendu elkarren kontra borrokan nituela barruan, bularra leherrarazteko zorian. [Juan Kruz Igerabide](#)

Halakoetan larritu egiten nintzen [...] eta zaipi ahaleginak egin behar izaten ditut lasaitzeko eta berriro neure **onera etortzeko**. [Patxi Zubizarreta](#)

Edozein pertsonak egin zezakeen gauzarik adeitsuena zen zuri kontatzea eta zu zeure **onera etor** zintezan behingoz. [Mirentxu Larrañaga](#)

Haren aurpegia bere **onera etortzen** hasi zen emeki. [Anjel Lertxundi](#)

-Gauzak beren **onera etorri** dituk: nagusiak gaineko, mutilak azpiko. [Aingeru Epaltza](#)

Guztia bere **onera etorria** zen, bakea genuen berriro, zu itzuli zaren arte. [Oskar Arana](#)

Begiak euren **onera etorri** zitzaizkidanean, berriz, besoetan katu bat bazeukala ikusi nuen. [Edorta Jimenez](#)

Denbora pixka batera, ordea, arnasa bere **onera etortzen** zaionean, erosoago sentituko da kirolaria bere eginkizunean. [Irene Aldasoro](#)

Banekien, gainera, ez nembilela oker; moteltzen hasiko zela halako batean prozesu hura eta bere **onera etorriko** zela. [Berria - Kultura](#)

-Harrezkero ez al zarete **onera etorri**? -dio Ferminek. [Pako Aristi](#)

29 bere, nire... **onera itzuli** (109 agerraldi, 43 liburu eta 42 artikulutan)

Pasatu nintzen agian, kolpearen ondorioz ordu betean ez zelako bere **onera itzuli**. [Jon Alonso](#)

Oheratu egin behar izan omen zuten, bere **onera itzuliko** bazen. [Arantxa Iturbe](#)

Adituen arabera, gaixoak urtebete inguru behar izaten du bere **onera itzuli** ahal izateko. [Berria - Gaiak](#)

Gaiztagina bere **onera itzuli** zenean, haragiak ere bere ohiko itxura hartu zuen. [Askoren artean](#)

Gero bere **onera itzuli** zen berriro, eta esandako ezer ez zuen gogoratzen. [Iñaki Mendiguren](#)

Gero, lo luze batetik esnatu balitz bezala bere **onera itzulirik**, esaten zuen: [...]. [Jose Morales](#)

Neuk ere ihes egin nuen, hirirantz lasterka, eta ez nintzen nire **onera itzuli** kaleraino iritsi eta han jende berandutua topatu nuen arte. [Josu Zabaleta](#)

-Ez al duk argazkiak ateratzeko makinarik sekula ikusi? -entzundakoa, zure **onera itzuli** zara. [Rafa Egiguren](#)

Zeure **onera itzuli**, dardarizoari eutsi, eta ikasketak behintzat ez uzteko eskatu zenidan, etorkizunean aukera berriak zabalduko zizkidan atea zela. [Xabier Mendiguren](#)
[Elizegi](#)

Geroago, ilunabar aldera, geure **onera itzuli** ginenean, txundituta begiratu genion elkarri, fakir indiar baten sorginkerien lekuko izan bagina bezala. [Ander Irizar](#)

Nire trenpea, etxeko jarrera, bizitza bera: dena bere **onera itzultzen** ari dela iruditzen zait. [Anjel Lertxundi](#)

Goizez Pepponerekin tratu egitera jaitsi zen eta, alde biek pixka bat amore emanez, gauzak bere **onera itzuli** ziren nolabait. [Koldo Biguri](#)

Minutu batzuk pasatu ondoren, pixkanaka, gorputza lasaitzen hasi eta arnasa bere **onera itzuli** zaizu. [Rafa Egiguren](#)

Begiak bere **onera itzuli** aurretik irakurri zuen titularra. [Harkaitz Cano](#)

30 bere, nire... **onetik atera** (orobat **onetatik atera g.er.**)

Eta odolak su gabe dirakinez, amaren hitzek bere **onetik atera** zuten. [Patxi Zubizarreta](#)

Neska lotsagorritu egin zen arren, hitz haiek ezin izan zuten bere **onetik atera**. [Patxi Zubizarreta](#)

Guardiei deika aritu zela bere **onetik aterata**. [Bernardo Atxaga](#)

Batzuk bere **onetik ateratzen** dira ni, pertsona autista anormal hau, hara azaldu, eta ekipamendu guztiaren diseinua egiteko gauza naizela ikusita. [Xabier Olarra](#)

-Nor da gizon hau, Gordon? -esan zuen Harryk, bat-batean ahotza dardarka, bere **onetik aterata**. [Oskar Arana](#)

Aita bere **onetik aterata** ibili zen, bera eta Perkins izeneko azti zahar bat bakarrik baitaude bulegoan. [Iñaki Mendiguren](#)

-Gorrotu dut -marmar egin zuen Susiek- neure **onetik ateratzen** nau. [Lopez de Arana](#)

Bazen neure **onetik ateratzen** ninduen zerbaite, zera: arrabioak putzu bakoitzean gainezka, arrabioak istil xixtrin bakoitzean bor-bor... eta, oro har, atergabeko landare-narotasun hura, malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura. [Joxe Austin Arrieta](#)

Jende honek nire **onetik ateratzen** naik, Sabino -esan zuen Carlosek apal-. [Bernardo Atxaga](#)

Horregatik, Floraren amak nire bihozgabekeria aipatu zuenean nire **onetik atera** ninduen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Ez genituzke gauzak beren **onetik atera** behar. [Karlos Linazasoro](#)

Bere **onetik ateratako** jende-kasta bat duk. [Antton Olano](#)

Iruditzen zait bakardadearen gainean idatzitako testu edo artikuluko asko bere **onetik ateratakoak** direla, eta idatzi dituztenek beste gauza asko estaltzeko erabili izan dutela bakardadea. [Berria - Gaiak](#)

-**Onetik ateratzekoa** zen, higuin garria, izatearen eta ezagutzaren auziari buruzko hitzaldiak entzutea, noiz eta gure inguruan dena baitzen misterio, estalkirik gabe agertzeko irrika bizian [Juan Garzia](#)

31 **onez onean adlag** onean; modu onean.

Onez onean saiatu zen lehenik, txeraz eta lausenguz, eta mehatxuekin gero. [Joxean Agirre](#)

Telefonoz deitu ohi zidan tarteka, desorduetan askotan, **onez onean** jeneralean baina amenazoekin ere bai tarteka, erantzungailuan mezu izugarriak utziz. [Joxean Agirre](#)

Baldin jendea ez baditeke **onez-onean** bide xuxenerat bil, bortxatu behar dela indarrez eta larderiaz. [Xipri Arbelbide](#)

Onez onean edo, bestela ezin bada, indarrean. [Antton Garikano](#)

Gogoak baretzera sartu ginen haien artera, **onez onean** liskarrari konponbidea jar ote geniezaiokeen. [Inazio Mujika Iraola](#)

Bi estatu eslaviarrak desagiten ziren: alde batetik Txekoslovakia, Txekia eta Eslovakia elkarretarik bereiziz, **onez onean**, eta beste aldetik Jugoslavia, Eslovenia, Kroazia, Bosnia, Mazedonia, Serbia eta Montenegro, hots, estatuko nazio bakoitza beregain jarriz, kostarik kostatzen. [Piarres Xarriton](#)

Onez onean edo baldarrean, uretan beratuta bukatuko dute ia-ia denek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Arrazoika ari menturaz, **onez onean** nolazpait? [Janbattitt Dirassar](#)

Onez onean ari nintzaion, kasik besta-doinuan, urduritasunaren estalki. [Aingeru Epaltza](#)

Edo, bertzenaz, modu zibilizatuagoan, egokieraz **onez onean** profita, filosofatzeko: zinkeria noraino den onargarria, zergatik egun bakar batean bai eta bitan ez. [Aingeru Epaltza](#)

Onez onean dizut aitortzen horrek orain arte lortu ahal izan ditudan guztiak bainoago lausengatzen nauela. [Jon Muñoz](#)

Orduan uste izan nuen guztiak biok: neska tipi hark, izu-ikaraz beterik, **onez onean** nahi izan zuen oihukatu; beharrik ahotsa negar malkotan itzali zitzaion. **Jon Muñoz**

32 onezkoak egin ik onezko 4.

33 onik ik onik.

34 onik onenean

Zu, ordea, **onik onenean** bihar goizean eta agian baita etzi ere oroitueta zara nitaz, baina erabat ahaztuko nauzu laugarren egunerako, haizerik ez dabilenetan zure bela horiek indarrrik gabe gelditzen diren moduan. **Anjel Lertxundi**

Paradoxikoa badirudi ere, erraztasuna bera dute Schumannen piano-lanek zailtasun nagusi: pianoa *sottigliezzari*k gabe joz gero, haren piezek beren xarma guztia galtzen dute; **onik onenean**, erdibidean gelditzen dira, ez dute malenkoniariak ematen. **Anjel Lertxundi**

35 ontzat eduki

Istvan Locodik **ontzat dauka** Medgyesyren gobernuaren erabakia. **Berria - Mundua**

Kolore guzietako hautetsiek **ontzat daukate** ideia hau. **Herria**

Ona den gizakiak Jainkoagan halako uste ona eduki behar du, eta hain ziurtasun handia, eta Jainkoa hain **ontzat eduki**, non ontasun eta maitasun hori kontuan hartuz, uste baitu ezinezkoa dela zorigaitzen bat sortzea. **Joan Mari Lekuona**

Horrela, **ontzat eduki** zuen bere onginahian anai Joani jainko-maitasunaren distira etaugar hori kentzea, eta inolako espiritu-kontsolaziorik gabe utzi zuen. **Askoren artean**

Ongi ezagutzen ditut zure lanak eta Fonetikari dagokionean oso **ontzat daukat**, baina ezin ditut ia erabili neure fonologialari lanetan -hain zuzen ere, Fonetika eta Fonologia zientzia ezberdinak baitira erabat. **Lourdes Oñederra**

36 ontzat eman

Entzuten dira eta jasutzen, aztertzen eta **ontzat ematen**. **Askoren artean**

Legegileak **ontzat ematen** zuena hartu behar zela ontzat, eta hark debekatzen zuena, berriz, txartzat. **Esteban Antxustegi**

Ez zuen akta **ontzat ematea** beste erremediorik izan, laburra izateaz gainera, okerren bat bazuen arren. **Ramon Saizarbitoria**

Ezin dira pinturak **ontzat eman** ez baldin badira errealtatearen irudikapen. **Berria - Kultura**

Juduek **ontzat eman** zuten Mardoceok araututako ohitura hori, lehendik ere hasiak baitziren hala egiten. **Jose Antonio Mujika**

Unibertsitatean, Elizak **ontzat ematen** ez zuen doktrinarik, ezin irakatsi zen (horregatik Madrilgo Ateneoa etab.ren garrantzia, ideien askatasun gehixeagoren eremu bakarrak). **Joxe Azurmendi**

Solidarioen taldea sortu zenean guk **ontzat eman** genuen, eta Greenpeacearen moduko taldea izan zitekeela pentsatu genuen. **Eduarne Elizondo**

Norberak maite edo gorroto duena guztiek **ontzat emateko** ahalegin hau, egia erran, Handinahia da. **Piarres Xarriton**

Beraz, Sortzailearen ez-existentzia **ontzat ematekoa** balitz, unibertso osoa ere ez litzateke existituko, horren kausa urrunak, bere azken ondorioak eta bitartekoa osatzen dituen desagertuko litzatekeelako. **Xabier Kintana**

Telebista kamerak, irudien azken atzera-aurrera baten ondoren, **ontzat eman** du planoak. **Anjel Lertxundi**

37 ontzat hartu

Jokamolde horiek ezin dira **ontzat hartu**, baina bai ulertu. **Koldo Biguri**

Ongi eramaten dugu onak ez izatea, baina ezin dugu eraman on ez iruditeza edota **ontzat hartuak** ez izatea. **Askoren artean**

Eta orduan neuk ere ez nuen sinetsi neure esana, edo sinetsi bai baina ez **ontzat hartu**, ez nekike nola adierazi. **Karlos Linazasoro**

Norberak orain ona deritza gauza bati, eta txarra gero; eta gauza bera **ontzat hartzen** du, berari badagokio, eta txartzat beste batena bada. **Esteban Antxustegi**

Haren deskripzioa **ontzat hartuz** gero, hiri kaskar bat baino ez da. **Karlos Zabala**

-Ez da eskaera **ontzat hartzen**. **Koldo Izagirre**

Bigarren aukera **ontzat hartzen** bada ordea, Jainkoa da moraltasunaren iturria. **Askoren artean**

Ontzat hartu eta baitetsi ere egiten dut zuk esandakoa. **Imanol Unzuurrungaza**

Paulok eta haren lagunek bidean kausitu zituzten beste hizkuntza guztien artean badira zenbait fede berriaren jantzeko **ontzat hartu** zituztenak, hala nola Siria, Persia, Armenia eta Egiptoko hizkuntza zaharrak. **Piarres Xarriton**

Gizonak ez du zertan makurtu edozein eratako agintearen aurrean, gizonak ez du zertan **ontzat hartu** fedez onartu beharreko edozein printzipio. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

38 ontzat izan du ad

EBn sartzeari **ontzat duen** arren, agintariak esan zieten baina prozesu zailagoa dela nabarmendu du. **Berria - Mundua**

Gobernuak **ontzat du**, lekuan lekuko ustelkeria garbitzen lagutzen duelako. **Berria - Gaiak**

-Bizitzan hainbatetan gertatu ohi den bezala, ez ote dira orain ere gaixotzat dituztenak on, eta **ontzat dituztenak** gaixto...? **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

abegi on (9); **adiskide on** (17); **afari on** (32); **afari on bat** (15); **albiste on** (15); **alde on** (51); **alderdi on** (12); **arratsalde on** (77); **arrazoi on** (20); **asmo on** (14); **aukera on** (27); **aukera on bat** (17)

bazkari on (75); **bazkari on bat** (33); **bazkari on baten** (31); **berri on** (172); **berri on bat** (50); **berri on batekin** (9); **besta on** (58); **besta on deneri** (15); **bidaia on** (13); **bide on** (31); **biziki on** (10); **bolada on** (19); **borondate on** (28)

defentsa on (9); **egintza on** (15); **eguberri on** (38); **egun on** (231); **eguraldi on** (12); **ekintza on** (15); **emaizta on** (42); **emaizta on bat** (12); **erantzun on** (12); **esker on** (52); **ezagutza on** (13); **ezagutza on bat** (11)

gau on (115); **gauza on** (72); **giro on** (19); **gizon on** (29)

ideia on (19); **ideia on bat** (13)

jende on (14); **jokalaririk on** (23); **jokalaririk on asko** (10); **joko on** (10)

kafe on (10); **kuraia on** (41)

lagun on (35); **lan on** (24); **lan on bat** (12); **liburu on** (15)

mahain on (34); **mahain on baten** (31)

obra on (20); **omore on** (21)

on ala (9); **on asko** (62); **on baino** (28); **on bakarra** (24); **on da** (60); **on dela** (31); **on den** (18); **on dena** (13); **on dira** (18); **on direla** (9)

on edo txar (9); **on egin** (161); **on egin dio** (12); **on egin zidan** (25); **on eginen** (18); **on egingo** (96); **on egingo dizu** (14); **on egitea** (13); **on egiteko** (15); **on egiten** (106); **on esan** (14); **on eta txar** (16); **on eta txarrak** (22); **on eta zuzen** (9); **on gaitzak** (13); **on gehiago** (15); **on gisa** (15); **on gutxi** (11); **on handia** (19); **on hutsa** (9)

on izan (17); **on izanen** (14)

on on (11); **on ona** (54); **on onak** (14); **on puska** (14); **on samarra** (12); **on ugari** (11)

on urte (9); **on zen** (9)

osagarri on (38); **parada on** (9); **pare on** (21); **parte on** (27); **parte on bat** (23); **partida on** (39); **partida on bat** (27); **pesta on** (13); **pesta on deneri** (9); **pidaia on** (10); **pilotari on** (16); **postu on** (24); **postu on asko** (11); **suerte on** (68); **talde on** (17); **tratu on** (10); **txakolinak on egin** (9); **txapelketa on** (9); **txirrindulari on** (9)

une on (10); **urrats on** (10); **urte berri on** (77); **urte on** (72); **urte on bat** (10); **usain on** (10); **uste on** (29); **xantza on** (115); **xantza on bat** (12); **xantza on guzietan** (15); **xede on** (9); **zati on** (14); **zerbait on** (13); **zorte on** (42)

abegi ona (39); **abiapuntu ona** (9); **adibide ona** (16); **adibide ona da** (13); **adiskide ona** (9); **aire ona** (23); **aita ona** (10); **aitzakia ona** (14); **aktore ona** (12); **albiste ona** (109); **albiste ona da** (43); **aldarte ona** (14); **alde ona** (64); **alderdi ona** (17); **ama ona** (14); **amaiera ona** (15); **ardo ona** (20); **arno ona** (16); **aro ona** (15); **arras ona** (39); **artzain ona** (33); **aski ona** (15); **asmo ona** (16); **atezain ona** (9); **aukera ona** (163); **aukera ona da** (19); **aukera ona du** (12); **aukera ona galdu** (9); **aukera ona izan** (20); **aukera ona izango** (11); **aurpegi ona** (11)

bai ona (16); **balorazio ona** (18); **begi ona** (12); **benetan ona** (12); **bere alde ona** (22); **bere esker ona** (19); **bere izen ona** (13); **berez ona** (13); **berri ona** (204); **berri ona da** (22); **berri ona dela** (13); **beti da ona** (13); **bezain ona** (85); **bidaia ona** (13); **bide ona** (19); **bihotz ona** (48); **bikote ona** (18); **bilakaera ona** (13); **bista ona** (11); **biziki ona** (37); **bolada ona** (37); **borondate ona** (74); **bukaera ona** (13); **buru ona** (10)

datu ona (9); **defentsa ona** (34); **defentsa ona egin** (9); **dena ona** (9); **denbora ona** (18); **denboraldi ona** (28)

edateko ona (13); egiteko aukera (9); egoera ona (26); egun ona (62); egun ona (29); eguraldi ona (121); eguraldi ona egiten (24); ele ona (14); emaitza ona (126); emaitza ona eman (16); emaitza ona izan (11); emaitza ona lortu (19); emaitza ona lortzea (11); emaitze ona (10); erabaki ona (10); eragin ona (10); erantzun ona (20); esker ona (229); esker ona adierazi (13); esker ona agertu (9); esker ona azaldu (10); esku ona (12); esperientzia ona (19); esperientzia ona izan (13); etsenplu ona (29); ez da ona (134); ez dela ona (41); ez litzateke ona (11); ez ona (30); ez zela ona (9); ez zen ona (26)

fama ona (19); fede ona (14)

galdera ona (15); gau ona (14); gauza ona (135); gauza ona da (30); gauza ona dela (11); giro ona (105); giro ona dago (9); gizaki ona (10); gizon ona (63); gizon ona da (11); gustu ona (15); guztia ona (11); guztiz ona (29); guztiz ona izan (12)

harreman ona (86); harreman ona izan (11); harrera ona (202); harrera ona egin (44); harrera ona egiten (9); harrera ona izan (85); harrera oso ona (12); hartze ona (15); hasiera ona (34); hori gauza ona (15); hori ona da (49); hori oso ona (10)

ideia ona (16); ideia ona (100); ideia ona da (9); ideia ona iruditzen (10); ideia ona izan (15); ikaragarri ona (10); ikasle ona (33); inpresio ona (12); irakasle ona (14); iritzi ona (18); irtenbide ona (10); irudi ona (35); itxura ona (135); itxura ona eman (31); izatea ona (13); izen ona (150); izugarri ona (21)

jarrera ona (41); jarrera ona erakutsi (9); jaurtiketa ona (10); jende ona (25); jokalarri ona (37); jokalarri ona da (14); joko ona (89); joko ona egin (19); joko ona egiten (10); joko ona erakutsi (9); kokapen ona (14)

lagun ona (50); lan ona (276); lan ona egin (124); lan ona egitea (19); lan ona egiteko (9); lan ona egiten (49); leku ona (18); literatura ona (10)

maila ona (208); maila ona eman (64); maila ona ematen (17); maila ona erakutsi (22); maila oso ona (14); marka ona (12); material ona (10); memoria ona (19); musika ona (16); mutil ona (19)

nahiko ona (26); nire esker ona (20)

omere ona (37)

on ona (54)

ona al da (22); ona ala txarra (24); ona dago (31); ona edo txarra (41)

oroimen ona (13); oroitzapen ona (24); osasun ona (20); oso ona (517); ospe ona (15)

parada ona (14); partida ona (140); partida ona egin (55); partida ona jokatu (28); pertsona ona (34); postu ona (19); puntu ona (22)

saio ona (26); saio ona egin (10); sasoi ona (43); sasoi puntu ona (14); seinale ona (87); seinale ona da (16); sen ona (11); suerte ona (49); suerte ona izan (9); sukaldari ona (14)

talde ona (97); talde ona da (30); talde ona du (12); toki ona (38); tratu ona (21); txapelketa ona (14); txirrindulari ona (10)

umore ona (41); urte ona (33); usain ona (33); uste ona (60); uzta ona (14)

zein ona (11); zentzu ona (22); zer den ona (26); zerbait ona (21); zerbitzu ona (11); zori ona (14); zorte ona (89); zorte ona izan (19); zorte ona opa (15)

adiskide onak (18); aholku onak (13); albiste onak (25); alde onak (74); alderdi onak (12); arras onak (16); arrazoi onak (12); artzain onak (17); asmo onak (21); aukera onak (17)

baldintza onak (12); berri onak (79); bertso onak (12); beti onak (14); bihotz onak (10); biziki onak (14); bolada onak (14)

datu onak (9); denak onak (11); denbora onak (17)

egintza onak (18); egun onak (14); eguraldi onak (10); emaitza onak (317); emaitza onak eman (25); emaitza onak ematen (12); emaitza onak izan (25); emaitza onak lortu (55); emaitza onak lortzeko (11); emaitza onak lortzen (28); emaitzak onak (39); emaitzak onak izan (17); emaitzak oso onak (13); esker onak (26); ez dira onak (37); ez hain onak (18)

fitxaketa onak (16); fitxaketa onak egin (12); fruitu onak (16); fruitu onak eman (10)

garai onak (35); gauza onak (81); gizaki onak (13); gizon onak (10); guztiak onak (13)

harreman onak (60); harreman onak izan (9); harreman onak (14); hitz onak (23); idazle onak (12); ikasle onak (13)

jainko onak (31); jende onak (19); jokalarri onak (85); jokalarri onak dira (11); jokalarri onak ditu (20)

kritika onak (17); kritika onak jaso (9)

lagun onak (80); lan onak (23)

manera onak (15)

nahiko onak (13); nota onak (22)

ohitura onak (20); on onak (14); onak daude (21); onak edo txarrak (16); onak eta txarrak (75)

ondorio onak (40); oroitzapen onak (40); oroitzapen onak ditut (13); orroitzapen onak (10)

oso onak (185)

partida onak (27); pilota onak (9); pilotari onak (9); postu onak (10)

sentsazio onak (24); suerte onak (10)

talde onak (10); une onak (12); urte onak (14)

xede onak (22)

eguraldi onarekin (10); joko onarekin (11); nota onarekin (9)

artzain onaren (27); berri onaren (16); borondate onaren (16); esker onaren (20); izen onaren (26); lan onaren (9); sen onaren (15); zentzu onaren (9)

bolada onari (19); izen onari (10); lan onari (16); lan onari esker (10)

aldarte onean (37); bere onean (24); bide onean (101); bide onean da (9); bolada onean (53); denak omere onean (16)

egoera onean (72); giro onean (68); giro onean iragan (12)

itxura onean (9); konpainia onean (9); leku onean (14); maila onean (57); maila onean aritu (11); martxa onean (13); modu onean (34); molde onean (17)

omere onean (96); onean ari (15); onean aritu (18)

onez onean (57)

ordu onean (11); osagarri onean (41); osasun onean (13); oso onean (18)

prezio onean (39); sasoi onean (95); sasoi onean dago (11); trenpu onean (17)

umore onean (32); une onean (10); zentzu onean (10)

emaitza onak (12)

emaitza onekin (15)

aldarte oneko (20); asmo oneko (36); bihotz oneko (44); borondate oneko (55)

esker oneko (167); esker oneko agertu (9); esker oneko hitzak (21); etxe oneko (27); familia oneko (20); fede oneko (12); gustu oneko (10)

itxura oneko (30); kalitate oneko (13); mail oneko (10); maila oneko (25)

umore oneko (27); zentzu oneko (12); zorte oneko (12)

bihotz onekoa (56); esker onekoa (32); etxe onekoa (11); familia onekoa (14); itxura onekoa (11); kalitate onekoa (11); parte onekoa (42)

egintza onen (10); gauza onen (13)

armarik onena (11); aukera onena (32); aukerarik onena (21); bere marka onena (10); bere onena (41); bere onena eman (11); biderik onena (22); defentsa onena (9); defentsarik onena (13); denbora onena (33); denborarik onena (28)

egunik onena (15); emaitza onena (17); emaitzarik onena (20); erremediorik onena (12); euren onena (11); europako onena (13); gauzarik onena (60); goleatzaile onena (9); golegile onena (24); golegilerik onena (19)

irtenbiderik onena (10); jokalarri onena (75); jokalarri onena izan (12); jokalarri onena izendatu (9); jokalaririk onena (26); jokorik onena (21); lagunik onena (36); lan onena (27); lanik onena (20); lauretan onena (9); lekurik onena (19); maila onena (18); mailarik onena (9); marka onena (39); markarik onena (33); modu onena (10); modurik onena (66); munduko onena (17); nire lagunik onena (9)

onena eta txarrena (9); partida onena (10); partidako onena (34); partidarik onena (30); pilotari onena (10); posturik onena (13); saskiratzaile onena (13); sasoirik onena (10); talde onena (44); talderik onena (32); talderik onena da (10); txirrindulari onena (9)

unerik onena (16); zorterik onena (11)

aukera onenak (9); bere onenak (16); denbora onenak (14); emaitza onenak (12); emaitzarik onenak (19); gauzarik onenak (13); jokalarri onenak (39); jokalaririk onenak (14); lagunik onenak (13); munduko onenak (19); onenak emanda (14); pilotari onenak (10); talde onenak (41); txirrindulari onenak (10); urterik onenak (17)

borondate onenarekin (10)

aktore onenaren (38); aktore onenaren saria (14); emakumezko aktore onenaren (12); film onenaren (43); film onenaren saria (15); gidoi onenaren (10); gizezko aktore onenaren (11); jokalarri onenaren (23); jokalarri onenaren saria (16); talde onenaren (14); zuzendari onenaren (32); zuzendari onenaren saria (18)

bere onenean (19); kasurik onenean (22); modurik onenean (16); sasoi onenean (31); sasoirik onenean (29); unerik onenean (32)

lau onenen artean (9); onenen artean dago (13); talde onenen (16)

talde onenetakoa (10)

bere onera (353); bere onera ekarri (16); bere onera ekartzeko (18); bere onera etorri (87); bere onera etorriko (11); bere onera etortzen (22); bere onera itzuli (41); bere onera itzultzen (13); beren onera (20); bide onera (15); egoera bere onera (17); gauzak bere onera (19); neure onera (38); neure onera etorri (13); nire onera (22)

onera egin (26); **onera** egiten (9)
bere onerako (13); **bereren onerako** (10); **denen onerako** (10); **ez onerako** (9); **gauza onerako** (23); **gizartearen onerako** (9); **gobernu onerako** (15); **gure onerako** (14); **guztien onerako** (15); **guztuen onerako** (9)
onerako ala txarrerako (11); **onerako da** (16); **onerako dela** (12); **onerako edo txarrerako** (33); **onerako eta txarrerako** (31); **onerako izan** (32); **onerako izango** (39); **onerako izango da** (11); **onerako izango dela** (9); **onerako nahiz txarrerako** (15); **onerako zein txarrerako** (26)
taldearen onerako (11); **zuen onerako** (9)
baldintza onetan (14); **denen onetan** (36); **esku onetan** (34); **euskararen onetan** (11); **guztien onetan** (21); **herriaren onetan** (13); **pilotaren onetan** (10)
bere onetatik (13)
bere onetik (288); **bere onetik atera** (51); **bere onetik aterata** (84); **bere onetik ateratzen** (44); **bere onetik aterea** (25); **bere onetik irtenda** (18); **bereren onetik** (16)
bide onetik (170); **bide onetik doa** (18); **bide onetik doala** (22); **bide onetik doazela** (16); **bide onetik goaz** (11)
iturri onetik (10)
neure onetik (51); **neure onetik atera** (9); **neure onetik ateratzen** (28); **nire onetik** (31); **nire onetik ateratzen** (9)
asmo onez (25); **begi onez** (539); **begi onez hartu** (84); **begi onez ikusi** (153); **begi onez ikusiko** (34); **begi onez ikusten** (210); **bihotz onez** (37); **borondate onez** (26)
esker onez (162); **esker onez hartu** (9); **fede onez** (46); **gogo onez** (242); **gogo onez hartu** (21); **gogo onez onartu** (13); **gogo onez onartzen** (9); **gustu onez** (9)
lege onez (13)
oso begi onez (17); **oso gogo onez** (17)
umore onez (46); **zentzu onez** (13)
alde onik (14); **atarramentu onik** (20); **bateren itxura onik** (16); **berri onik** (16); **bizirik eta onik** (11); **deus onik** (68); **deus onik ez** (16)
emaitza onik (53); **esker onik** (24); **ez onik** (13); **ez zuen onik** (10); **ezer onik** (79); **ezer onik ez** (15); **gauza onik** (73); **gauza onik ez** (18)
itxura onik (45); **joko onik** (11); **ondorio onik** (10)
onik atera (160); **onik atera da** (17); **onik atera zen** (56); **onik atera ziren** (28); **onik aterako** (59); **onik ateratzea** (16); **onik ateratzeko** (33); **onik ateratzen** (16); **onik aurkitu** (16); **onik dago** (11); **onik eta osorik** (15); **onik eta salbu** (10); **onik ez** (159); **onik ez du** (9); **onik iritsi** (11); **onik irten** (25); **onik irten zen** (10); **onik irtengo** (9); **onik irteteko** (9); **onik izan** (44); **onik izango** (31); **onik izaten** (19)
oroitzapen onik (19)
uste onik (10); **zerbait onik** (13); **zorte onik** (16)
ontzat eman (251); **ontzat eman zuen** (49); **ontzat emanez** (12); **ontzat emango** (22); **ontzat ematea** (17); **ontzat emateko** (13); **ontzat ematen** (106); **ontzat hartu** (105); **ontzat hartu zuen** (27); **ontzat hartuko** (15); **ontzat hartzen** (42); **ontzat jo** (240); **ontzat jo zuen** (67); **ontzat jo zuten** (19); **ontzat joko** (9); **ontzat jotzen** (47)
oso ontzat (23); **oso ontzat jo** (12)
azen ontzeko (27); **marka ontzeko** (9)

on² 1 iz gizon helduentzako trataera. ik don.

Euskal Herriko meteorologiaren aita: **On Migel** Orkolaga. **Pello Zabala**
Igeldoko **On Migel** faltatu zenean, Pedro bere anaiak jarraitu zuen lan berean. **Pello Zabala**
On Afonso Henriques, furfuria bareturik, pentsakor gelditu zen eskuin eskua bizarrari atxikia. **Jon Alonso**
On Camillo apaiz jauna, Peppone komunista eta Kristo gurutzekoa. **Koldo Biguri**
-Hanka batean zauritu du -esan zion Pepponek **On Camillori**. **Koldo Biguri**
On Camillo, pozoituta daukazu bihotza! **Koldo Biguri**
-Zer egin behar dut? -galdetu zuen **On Camillok**. **Koldo Biguri**
Emakumeak azkar joan ziren **On Camillorengana**, ezponda bedeinkatzera joateko eskatzera, baina On **Camillok** ezetz. **Koldo Biguri**
Ez nintzen **On Kixote** bezain ausart, bipil eta indartsu sentitzen, ez nintzen inori ezertan ganorazko laguntzarik emateko gauza. **Juan Luis Zabala**
On Kixote da irakurlea, ez Cervantes, askoz ere urrutiago doa **On Kixote** Cervantes baino. **Markos Zapiain**
-Lurjabe hori **On Kixote** hutsa da!... ik kixote. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

on afonso (40); **on camillo** (443); **on camillok** (624); **on camilloren** (46); **on camillorengana** (5); **on camillori** (34); **on kixote** (30); **on kixotek** (4); **on kixoteren** (10); **on migel** (4)

onagro iz Asia erdialdean bizi den basa astoa, ile fin zilarkara duena.

Mozorro aldaketa izan zen gauzarik ikusgarriena; **onagroak** putrearekin elkar trukea egin, salamandrak ardiarekin, ostrukak tximinoarekin... ezin konta ahala trukaketa izan zen ikusleen artean. **Karlos Linazasoro**

onaldi iz gauzak ongi doazen aldia.

Agortean eta gosetean eman beharko baitio bizigai, hezealdian eta **onaldian** zerbitzatu zuenari buruz. **Patxi Ezkiaga**
Onaldian eta gaitzaldian, osasunean eta gaixotasunean. **Juan Garzia**
Jainkoaren nahiera makurtzen dena, nahiz **onaldian** nahiz txarraldian, konfiantza apalean iraunez. **Joan Mari Lekuona**
Norbait **onaldian** denean, nahigabetu egiten dira etsaiak; txarraldian, adiskideak ere alde egiten. **Elizen arteko biblia**
-Heziketak baino areago, babesa zoriaren **onaldiak** emango diola uste duenari. **Santiago Iruretagoiena**

onanismo 1 iz masturbazioa.

Baliteke haiek asmatua izatea masturbazioaren partez **onanismoa** esateko kontu hori, horrela ez dituzte onartu behar gaur egun galbidezkotzat hartzen diren hainbat harreman. **Karlos Zabala**

Gu komunismoaren eta **onanismoaren** atzaparretatik babestearren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire estasi bakarra **onanismoa** da. **Karlos Linazasoro**

2 irud/hed

Poesiak, gainerako arte guztiek bezala, badu, eta ezinbesteko du, gainera, **onanismotik** -kanpaia zein arrabita jotzetik- bere apurra. **Joxerra Garzia**

Orduan -diote dena dakitenek- batek bere buruari ongi nahi, opa, eta barkatu, lausengatu, onetsi, onartu, egon, ibili eta gainerako operazio **onanista** guztiak egitera jarri behar du; labur esanik, bere burua maitatu behar omen du. **Iñaki Segurola**

Larrua jotzea baino zakarragoa, bilkuren ondotiko **onanismo** gastronomikoa... batez ere harremanen anorexiarekin ezkontzen denean! **Itxaro Borda**

onanismokeria iz masturbazioa.

Seguru inguruko baserrietan, COU egin behar zuen Tolosako institutuan, nonahi, dozenaka gizaseme **onanismokeriatan** zebilela lxabelengatik. **Joxean Sagartzizabal**

onanista *izond/iz* onanismoari dagokiona; onanismoa praktikatzeko duen pertsona.

Adierazi nahi baitzidan ederki ezagutzen zuela nire iragana, alegia nire iragan **onanista**, jakin behar du etxeko teleikusle errespetagarriak, gizaseme dohakabe itxurako hau, gizaseme **onanista** zikin hau zer den, zer izan den, gizarteak berriz inoiz halakorik pairatu beharrik izan ez dezan. **Karlos Linazasoro**

Neu ere **onanista** izan nintzen lehen berrogeita hamar urte ilun haietan. **Karlos Linazasoro**

onankeria *iz* onanismoa, masturbazioa.

Esan beharrik ez dago **"onankeriatan"** nenbela, zakilari eragiten. **Aitor Arana**

1710ean argitaratzen da Bekkers-en *Onania*, edo **onankeriaren** bekatu izugarria eta bi sexuentzat dakartzan ondorio ikaragarriak, gomendio fisiko eta espiritualen ikuspegitik hartuta. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

onararazi ik onarrarazi.

onarbera *izond* onartzeko joera duena.

Nire aitzindari **onarberak** ez zion muzinik egin halabehar hutsaren laguntzari: nolabait à la diable edo osatuz zihoa, arian-arian, obra hilezkorra, hizkuntzaren eta asmamenaren inertziak eramanik. **Juan Garzia**

Madame Henri Bachelier-en album **onarbera**, edo oro-harrapari, horretarako soneto zirkunstantzial batzuen hutsa gora-behera. **Juan Garzia**

onarberatasun *iz* onarbera denaren nolakotasuna.

Mendeetako jardunaren ikasbidez, gizon hilezkorren errepublika **onarberatasunaren** eta ia axolarik ezaren perfekzioa lortua zen. **Juan Garzia**

onargaitz *izond* onartzen zaila dena, ia onartezina.

Onargaitza zitzaidan nire lagunaren hiltzaileari inolako dohainik aitortzea, ezta haren lanbide zikinari zegokiona ere. **Aingeru Epaltza**

Onargaitza da senitartekoek inolako laguntzarik gabe ibili behar izatea fusilatuen eta desagertuen bila. **Berria - Euskal Herria**

Onargaitza zitzaion bulegokume putaseme hark horrelakoak aurpegitratzea. **Fernando Morillo**

Interpretaziorik ezustekoena (eta **onargaitzena**, hurrengo urteetako traiektoriari beha), KINTANA, X., "Unamuno eta euskara", in: Jakin 121 (2000) 65-80. **Joxe Azurmendi**

onargarri 1 *izond* onar daitekeena, onartzeko modukoa.

Azken batean, zentzuz begiratuta, ezin nuen arrazoirik ikusi, ez nintzen gai zio **onargarri**, ezagun edo ulergarri txikiena aurkitzeko zergatik nengoen hemen eta ez beste nonbait. **Urtzi Urrutikoetxea**

Zapore **onargarri** "unibertsalak" zein diren ikertzea. **Edorta Agirre**

Munduaren irudi legez funtzionatzen du perpaus **onargarriak**. **Markos Zapiain**

Esaldi **"onargarrien"** estatusa ematen diete zuzen sortuak izan ez diren osagai linguistikoz osatutako multzoei; bestalde, esaldi gramatikalen estatusa ematen diete interpretagarriak diren multzoei, baldin eta zuzen eratuak izan diren. **Xabier Arregi**

Gizartean **onargarri** denari baitagokio konbentzioa. **Josu Zabaleta**

Metodo horiek erakutsiko digute zein ikuspuntu moral diren **onargarri** eta zein ez. **Askoren artean**

Hori gutzia -diote- arrazoimenak **onargarri** du. **Xabier Kintana**

Eskuan daukadan gauzaren ezaguera objektiboa da izan; eta nire gogora eramaten dut, eta gogoak esaten dit **onargarria** den, ala arbuigarria, ala oraindik ezbaikoa. **Jenaro Garate**

Egoera orok muga bat du eta **onargarri** izan daitekeena onartezin bihurtzen da mugatik harat. **Joan Mari Irigoien**

Ezinezkoa da ustez denon ona litzatekeenaren adierazpen etiko bakararra erabaki eta finkatzea, etikoki bidezkoak eta moralki **onargarriak** diren gainerako adierazpen guztiak baztertuz. **Berria - Euskal Herria**

Noumeno baten adigai, problematikoki soilik hartuta, **onargarria** izan ez ezik, ezinbestekoa ere bada sentimenari zedarriak ezartzeko adigai gisa. **Ibon Uribarri**

Doktrina honen defendatzaile egoskorrenak behin eta berriz ezbeharrak jasaten ohitutakoak dira, eta modu **onargarrian** argudiatzen dute irribarra dirudien musu-imintzio batez. **Xabier Olarra**

2 (pertsonez)

Gizon hura baitzen karrrikako ezkongai **onargarri** bakarra. **Patxi Zubizarreta**

Itxura ona zuenez, eta ongi janzten zenez, neska bati hitz egiten bazion, ezkongai **onargarri** baten gisan hartzen zuen hark hasieran. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezkongai onargarri (3); onargarri izan (4)

azalpen onargarria (3); ez onargarria (3); gutzit onargarria (3); onargarria iruditzen (4); onargarria izan (5); onargarria izango (9); oso onargarria (3)

onargarriagoa izan (3)

emaitzak onargarriak (3)

modu onargarrian (3)

onargarritasun 1 *iz* onargarria denaren nolakotasuna.

Eduki horren **onargarritasuna** filosofian irizpide razional soilekin epaitu nahi izan zuten, zer hartu eta zer utzi garaiko filosofien arabera erabakiz. **Askoren artean**

Zapore-usainen **onargarritasuna**, hein batean, zabaltzen ari zaigula-eta [...] geroz eta aukera handiagoak izango ditugu elikagaiak elkarren artean konbinatzeko. **Edorta Agirre**

Izan ere, segurtasunaren eraketa, arriskuaren **onargarritasunaz** gain, arriskuaren determinazio bera baldintzatzen duten uste sozio-ekonomiko jakin batzuen onespren inplizituari loturik doakio. **Berria - Gaiak**

Enuntziatua aztertzean aurkitu dena izan da zeinu-multzoetara daraman funtzioa, zeina ez den identifikatzen ez **"onargarritasun"** gramatikarekin, ez zuzentasun logikoarekin. **Xabier Arregi**

Onargarritasunaren hastapen hau, ondorioz, unibertso osoari aplikatzen zaio. **Xabier Kintana**

Arrazoimenaren **onargarritasunaren** hastapen horren arabera [...]. **Xabier Kintana**

2 (hitz elkartuetan)

Duvek ongi frogatu du arte osoa dela gaur egun lehen-lehenik instituzioak definitua (instituzio horrek gero **onargarritasun**-irizpideak, berez guztiz aldagarriak, esan beharrik ere ez dagoen bezala, ezarri nahi izateko arriskuarekin, jakina). **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
onargarritasunaren hastapen (3)

onarketa iz onartzea.

Nekazaritzan PAC erreformaren segida eta transgenikoen **onarketa**, ekoizle handien mesederako. **Berria - Euskal Herria**

onarkor izond onargarria.

Lafitendako, musika guztiak **onarkor** ziren, soinua xuxen eta dohain zerbaitekoa zen ber. **Herria**

onarmen iz onarpena.

Autodeterminazio eskubidea eta estaturik gabeko nazioen **onarmena** aldarrikatu zituen. **Berria - Euskal Herria**

Bestalde, Lamassourek hizkuntza gutxituen «**onarmen** juridikoaren gaia» gogorarazi zuen, Parisko bileran. **Berria - Euskal Herria**

PCF alderdi jakobinoak, abertzaleak nekez jasaten dituen LCR alderdiak eta PSko sektore jakobinoak onartuko ote dute beste itun baten negoziatioari begira, herri eta hizkuntza gutxituen **onarmenaren** alde ere borrokatzea? **Berria - Harian**

onarpen 1 iz onartzea.

Musuak, batez ere ezpainetan emandakoak, **onarpena** eta konplizitatea esan nahi du. **Luis Elberdin**

Giza mugen **onarpena**. **Askoren artean**

Oro har, hizkuntzak mugatuak direlako **onarpena**, hizkuntzon deskribapena errazteko helburuarekin egin ohi da. **Itziar Laka**

Onarpena baino gehiago, bere sustengua deplauki segurtatu omen dio. **Herria**

Ikusleak irudia atzematen duenean, atzemate horretan parte duten eragile guztiak aztertzen ditu, ulerpenari, interpretazioari, hots, irudiaren **onarpenari**, eragiten dioten faktore guztiak. **Josu Zabaleta**

Bidez ala xendraz, badugu jadanik asko eta asko egina, Euskararen **onarpen**, zabalte eta barnatze mailean. **Herria**

Herri indigenen eskubideen **onarpenaren** aurka. **Berria - Gaiak**

Gazteluan moldaketak egin behar ziren, eta Nafarroako Kantzileria luzatzen ari zen horretarako diruaren **onarpena**. **Aingeru Epaltza**

Bi jarreretan dago kontraesana, bi jarreraren artean ibili behar du idazleak txerpolarari gisa -loria eta bakardadea, fama eta anonimatua, **onarpena** eta porrota bizkar-poltsa berean sarturik-. **Anjel Lertxundi**

Menekoaren **onarpenarekin** gobernatu behar dela dio Platonek. **Askoren artean**

Bere ustez merezi duen **onarpenik** jasotzen ez badu etxean anker bihurtuko da. **Pako Aristi**

Autodeterminazio eskubidearen **onarpena** lortzeko bide bakarra mugimendu zibila duk. **Mikel Hernandez Abaitua**

Lehen hamaika lagunak inguratu zitzaizkionean, Erromara abiatu zen, Inozentzio III.aren **onarpena** lortzeko berak "hitz gutxitan eta sinpleki idatzirik" bizimoldearentzat. **Askoren artean**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zer gerta ere, Foruen **onarpen** osoa ongi finkatuta uztea. **Txillardeggi**

Okarizek azpimarratu zuenez, «planak **onarpen** handia izan du». **Berria - Kirola**

Teoriak ez du **onarpen** zabalik lortu. **Irene Aldasoro**

Ikuspegi arrazoizko honek **onarpen** zabaldu du arkeologoen artean, Jakinminaren zientzia nobleari egindako ekarpenagatik. **Xabier Olarra**

Kanpaina bultzatzen duen erakundeak **onarpen** egokia izan behar du noski, eta badirudi GKE arloan dagoen aniztasunak ez duela horretan askorik laguntzen. **Iñaki Heras**

Jakin badaki ez dela aski ikusleen **onarpen** pasiboa. **Patxi Iturritegi**

Etsipena, halako **onarpen** adoregabeketa, agertzen dira beti super-errealismoaren gai nagusien artean. **Koro Navarro**

Euskal nazioaren **onarpen** politiko eta juridikoa. **Berria - Mundua**

Hitzak Britainia Handiko eta Estatu Batuetako gobernuen **onarpen** ofiziala du. **Xabier Olarra**

Hamidak igarri egin zion amaren ezkutuko **onarpenari**. **Patxi Zubizarreta**

Sekulako ustekabe atsegina izan zen guretzat haren berehalako **onarpena**. **Jon Arretxe**

Emakumeengan antzinako sinesmen honek **onarpen** duda-mudazko bat besterik ez du eragiten. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan)

Onarpen aire bat begien dirdaia, esperantzaz marmarrikatu zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

-Ohere bat niretzat -erantzun eta begiekin **onarpen** keinua egin zion. **Joxemari Urteaga**

Helburu hori betetzen badu, «euskal nortasunaren **onarpen** fasea bukatua» izanen dela dio. **Berria - Euskal Herria**

Jaiotzen garen unetik bertatik musua maitasun, **onarpen** eta segurtasun adierazpena da. **Luis Elberdin**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal herriaren onarpen (3); **euskal nazioaren onarpen** (7); **klubaren onarpen ofiziala** (3); **nazioaren onarpen** (8); **nazioaren onarpen politiko** (4)

onarpen handia izan (3); **onarpen handiagoa** (5); **onarpen handiagoko akordiorik** (3); **onarpen juridiko politiko** (3); **onarpen ofiziala** (11); **onarpen politiko** (5); **onarpen zabala** (7)

pen klubaren onarpen (3)

aniztasunaren onarpena (3); **autodeterminazio eskubidearen onarpena** (7); **behin betiko onarpena** (3); **eskubidearen onarpena** (9); **eskubideen onarpena** (4); **euskal herriaren onarpena** (3); **nazioarteko onarpena** (3)

onarpena behar (4); **onarpena eman** (5); **onarpena eskatzen** (3); **onarpena izan** (3); **onarpena jaso** (6); **onarpena lortu** (5); **onarpena lortzeko** (8)

onarpenean oinarritutako (3)

onarrarazi (28 agerraldi, 14 liburu eta 13 artikulutan; orobat onarrarazi g.er. eta onartarazi 30 agerraldi, 6 liburu eta 22 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian onarrarazi agertzen da), onarraraz, onarrarazten du ad onartzera behartu.

Euskararen sostenguz, afera horretan sartzan dugun afektibitatea baliatzen da, onartezinaren onartzeko eta **onarrarazteko**. **Itxaro Borda**

onartu

onar, onartzen **1** du *ad* eskaintzen edo ematen dena borondatez hartu; ontzat hartu. **ikonetsi**.

Hiri lurtrarrean bizitza hilkorren euskarri diren legeak **onartzeko** zalantzarik ez dauka. **Imanol Unzurrunzaga**

Erasotzaile injustuaren erailketa, legeak **onartua**. **Imanol Unzurrunzaga**

Stalinekin minutu batzuek eztabaidatzen utzi zituen eta, azkenik, hatza mapa gainean jarri, eta, buru-keinu batez, Finlandiako ordezkariaren eskakizunak **onartzen** zituela adierazi zuen. **Iban Zaldua**

Otoi, **onar** ezazu zerbitzari honen eskuerakutsia. **Elizen arteko biblia**

Honek, itxaro zuen zorionagatik, gurutzean hiltzea **onartu** zuen, heriotza lotsagarria zela kontuan hartu gabe. **Elizen arteko biblia**

Zure arbasoen duineko gizon ausarta, haien ohorea edo espea inork zikintzea **onartzen** ez duena. **Fernando Rey**

Jakin dut, juduek ez dituztela **onartu** nahi greziar ohiturak. **Elizen arteko biblia**

Donostia oso polita dela **onartu** zuen; hitz horiekin: [...]. **Ramon Saizarbitoria**

2 norbait hartzea ontzat hartu.

-Nik ez nizek gizon beltzik **onartuko** nire emaztearen inguruan. **Anton Garikano**

Hori egia da batez ere inperio despotiko handietan: **onartu** egiten dira atzerritarrek, ez zaiolako arretarik eskaintzen printzearen boterea zauritzen ez duela dirudienari. **Iñaki Iñurrieta**

Ezuste hura ez zen izango hainbestekoa, hobeto ulertuko nuen, baldin eta alde zaurerik idoiari halako aldentze bat-edo nabaritu izan banio, ni ez **onartze** bat, edo txortan egiteko gogorik eza, edo nik ahal dakit zer. **Juan Kruz Igerabide**

3 proposamen, iritzi... bat ontzat edo egiazkotzat hartu.

Kontua da Margak gai hartan ez zuela inongo arrazoibiderik **onartzen**. **Ramon Saizarbitoria**

Onartu egin zituen haien dogma guztiak, salbu eta Mekara joatera behartzen duena. **Iñaki Iñurrieta**

Bake-proposamena **onartu** eta atea zabaltzen badizkizute, zeuentzat lan egitera behartuko dituzue bertako bizilagunak. **Elizen arteko biblia**

"Eta atzerritarrekin itunak egiten dituzte", hau da, haien iritziak **onartzen** dituzte. **Xabier Kintana**

Deus esan gabe **onartzen** al zuen senarrak emaztearen jokabidea? **Anjel Lertxundi**

Horrela, gizakien portaera morala **onartzen** ala gaitzesten duten hitzetan eta egintzetan ez dugu deus egiten gorputz atalen bidez, gure baitan hitz sekretuak aurrea hartu ez badie. **Imanol Unzurrunzaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aho batez onartu (100); akordioa onartu (16); araua onartu (9); arauak onartu (11); araudia onartu (10); askatasuna onartu (9); atzo onartu (55); atzo onartu zuen (31); aukera onartu (13); aurrekontua onartu (15); aurrekontuak onartu (15); aurreproiektua onartu (10); auzitegiak onartu (9); azkenean onartu (28)

badagoela onartu (10); bakarrik onartu (16); baldintzak onartu (16); bat egitea onartu (10); batzordeak onartu (17); berehala onartu (21); berehala onartu zuen (10); bilera onartu (15); bilera onartu zuen (8); botoekin onartu (12)

dagoela onartu (56); dekretua onartu (24); dekretua onartu zuen (12); dimisioa onartu (8)

ebazpen bat onartu (15); ebazpena onartu (45); ebazpena onartu zuen (16); egin izana onartu (8); egin zuela onartu (10); egitasmoa onartu (21); egitea onartu (42); egoera onartu (10); emaitzak onartu (16); ematea onartu (29); ematea onartu zuen (13); erabakia onartu (29); erantzukizuna onartu (13); errealitatea onartu (11); erreferendumean onartu (8); erreforma onartu (14); eskaera onartu (49); eskaera onartu zuen (9); eskaerak onartu (9); eskaintza onartu (51); eskaria onartu (16); eskubidea onartu (37); eskubideak onartu (12); estatutua onartu (26); estradizio eskaera onartu (8); euroagindua onartu (8); ez dagoela onartu (10); ezin da onartu (54); ezin du onartu (13); ezin onartu (12)

garaipena onartu (15); gehiengoak onartu (10); gernikako estatutua onartu (9); gobernua onartu (22); gogo onez onartu (13); gonbita onartu (16)

hartzea onartu (12); helegitea onartu (30); herenegun onartu (9)

israel onartu (8); ituna onartu (13); izan zela onartu (31); izana onartu (40); izana onartu zuen (17); izatea onartu (25)

jaunak onartu (10); jaurilaritzak onartu (12)

kargua onartu (8); kereila onartu (8); kongresuak onartu (16); konstituzioa onartu (17); kontseiluak onartu (31); kontseiluak onartu du (9)

laguntza onartu (11); lege bat onartu (13); lege proiektua onartu (28); legea onartu (130); legea onartu zuen (35); legeak onartu (11); legebiltzarrak onartu (29); legebiltzarrak onartu zuen (10)

mozio bat onartu (9); mozioa onartu (25); mozioa onartu zuen (8)

nahiz eta onartu (11); nik onartu (12); nola onartu (13)

ofizialki onartu (11)

onartu ala ez (16); onartu arren (102); onartu arte (31); onartu aurretik (23); onartu baino lehen (10); onartu berri du (15); onartu da (38); onartu du (823); onartu du erredakzioa (13); onartu du jaurilaritzak (9); onartu edo ez (38); onartu ezean (34); onartu izana (56); onartu izanak (22); onartu ondoren (64); onartu ondotik (8); onartu oostean (24); onartu zen (141); onartu zuen (1674)

parlamentuak onartu (12); plana onartu (82); plana onartu du (17); porrota onartu (13); pozik onartu (11); presidentea onartu (8); proiektua onartu (45); proiektua onartu zuen (16); proposamena onartu (85); proposamena onartu du (9)

salaketa onartu (9); sortzea onartu (11)

testua onartu (14); tramitera onartu (22); tramiterako onartu (46); txostena onartu (17)

udalak onartu (10); uztea onartu (9)

zegoela onartu (18); zuzenketa onartu (14)

aho batez onartua (13); ezin onartua (14); onartua da (18); onartua dago (11); onartua izan (113); onartua izan da (24); onartua izateko (30)

onartuak dira (13); onartuak izan (53); onartuak izan ziren (10); onartuak izateko (10)

atseginez onartuko (24); atseginez onartuko du (10); erabakia onartuko (10); eskubidea onartuko (9); gogo onez onartuko (8); jaunak atseginez onartuko (17); legea onartuko (9); plana onartuko (13); proposamena onartuko (15)

onartuta dago (19); onartuta dauden (9)

aho batez onartutako (16); espainiako kongresuak onartutako (8)

eusko jaurilaritzak onartutako (13); eusko legebiltzarrak onartutako (16); gobernua onartutako (22)

jaurilaritzak onartutako (19); kataluniako legebiltzarrak onartutako (18); kongresuak onartutako (10); kongresuan onartutako (12); kontseiluak onartutako (13); legebiltzarrak onartutako (55); legebiltzarrak onartutako estatutu (8); legebiltzarrean onartutako (8)

onartutako ebazpena (27); onartutako ebazpenak (24); onartutako estatutu (13); onartutako lege (21); onartutako legea (11); onartutako legez besteko (12); onartutako mozioak (8); onartutako testua (16); onartutako testuak (22); onartutako txosten (8)

parlamentuak onartutako (13)

legea onartuz gero (10)

ezin onartuzko (13)

ezin onartuzkoa (16)

erabakitze eskubidea onartzea (9); eskaintza onartzea (11); eskubidea onartzea (26); estatus politikoa onartzea (8); ez onartzea erabaki (13); izaera onartzea (8); konstituzioa onartzea (10); legea onartzea (10)

onartzea erabaki (36); onartzea erabaki du (11); onartzea erabaki zuen (14); onartzea espero (19); onartzea proposatu (9)

proposamena onartzea (8)

onartzearen alde (18); onartzearen aldekoa (8)

aurrekontuak onartzeko (10); eskaintza onartzeko (12); eskubidea onartzeko (14); ez onartzeko eskatu (18); konstituzioa onartzeko (8); legea onartzeko (21)

onartzeko aukera (11); onartzeko eskatu (87); onartzeko eskatu zion (21); onartzeko eskatzen (11); onartzeko moduko (22); onartzeko modukoa (9); onartzeko prest (145); onartzeko prest agertu (17); onartzeko prest dago (9)

plana onartzeko (25); proposamena onartzeko (21); testua onartzeko (8)

aho batez onartzen (8); aise onartzen (9); aniztasuna onartzen (8); atseginez onartzen (19); autodeterminazio eskubidea onartzen (14); dagoela onartzen (8)

egitea onartzen (15); erabat onartzen (8); errazago onartzen (9); eskaera onartzen (8); eskubidea onartzen (42); eskubideak onartzen (15); ez baitu onartzen (9); gogo onez onartzen (9)

izatea onartzen (13); jaunak atseginez onartzen (8); legea onartzen (9); legeak onartzen (13); legebiltzarrak onartzen (11); nekez onartzen (11)

onartzen da (57); onartzen du (236); onartzen duen oparia (9)

onartzaile izond onartzen duena.

Azken horri zenbait kasuistek uko **onartzailea** esaten diote. **Xabier Olarra**

onartze iz eskaintzen edo ematen dena borondatez hartzea; ontzat hartzea.

Margolana benetakoa dela ziurtatu dian aditu horrek ez al hau margolanaz gabetu, berak aztertu eta jatorrizkotzat **onartze** hutsarekin. **Jon Muñoz**

Hori erdiesteko, laket ez zitzaizkidan gizonak izan ziren beti begirunezko eskaintzak **onartze** irudi bat egin nien bakarrak. **Jon Muñoz**

Feminismoaren aldeko mugimenduak, homosexualen eskubideak **onartze** bidean jartzea, eta abar, badirudi atzerabiderik gabeko urratsak direla gizartean. **Pello Salaburu**

Madriek nola ihardetsiko dion planaren **onartze** horri. **Herria**

Heriotza **onartze** soil-soila da, zenbaitetan, gudariarentzat. **Josu Zabaleta**

Margolana benetakoa dela ziurtatu dian aditu horrek ez al hau margolanaz gabetu, berak aztertu eta jatorrizkotzat **onartze** hutsarekin. **Jon Muñoz**

onatiar ik oñatiar.

onatiar ik oñatiar.

onbehar¹ (orobat on-behar) 1 iz behartasuna, pobrezia.

Bizitoki kontuetan Afrikan ere ez dut **onbehar** handiagorik ikusi. **Gotzon Garate**

2 izond behartsua.

Eta nor da jakintsuago, finean: baserriar noharroin **on-beharra** baina Jainkoaren bidetik dabilena, edo kapare aberats kasik guztiahalduna baina deabruari arima saldua diona? **Joan Mari Irigoien**

onbehar² ik on¹ 15.

onbera 1 izond bihozbera, errukitsua. (pertsonez)

Eta Raduan Husainik, Husain **onbera** eta urrikaltsuak, iskanbila batean hartu zuen emazte lotsagabe halakoa. **Patxi Zubizarreta**

Jainko bihozbera eta errukiorra, haserregaitza, **onbera** eta leiala, onginahiari milagarren belaunaldiraino eusten diona. **Jose Antonio Mujika**

Pertsona gaizto nahiz **onberek** toki horietan uzten zituzten salaketak. **Juan Garzia**

Zendua zitzaion senarra ere; gizaseme atsegin eta **onbera**, beti alai eta kontent, egokitu zitzaion zori on apurrarekin. **Mirentxu Larrañaga**

Senar **onbera**, emakume dotore eta maitasun beharrekoa, eta maltzur jokatzeko duen adiskide estimatua, amorante gazte eta sutsu bilakatu... **J.M. Olaiola "Txiliiku"**

Zu emakume zuhurra eta **onbera** zara, denek dakiten gisara. **Patxi Zubizarreta**

Jauna, izan **onbera** zeure herrialdearekin, aldatu Jakoben ondorengoan zoria. **Elizen arteko biblia**

Jainko hori ez da beti **onbera** eta errukitsua; alta, batzuetan, kontrako indar bihurtzen da, Akilimarro bat. **Juan Kruz Igerabide**

Eta jende xuxena, xuhurra, **onbera**, ez al da funtsean, inoren zinezko izakerekin deus ikusirik ez duen apaingura xuriz biziata? **Patziku Perurena**

Haren berezko **onberatasunak** bi aldetik gidatu zuen ongi. **Karlos Zabala**

2 (animaliez)

Badirudi txantxangorria ez dela batere txori **onbera**, inoxoa eta errukarria, guziz bestelakoa baizik. **Patziku Perurena**

3 (gauzez)

Begira neukan, etxe-zakur zahar batenak bezalako begi busti **onberekin**. **Anjel Lertxundi**

Soberanoaren esku **onberak**. **Juan Martin Elexpuru**

Begiak zabaltzean, aurpegi bizardun **onbera** ikusi zuen, beregana makurturik, begirada errukitsuz so egiten ziona. **Karlos Zabala**

Gela txiki eta soil hura, etxeko jaunaren begitarte **onbera**. **Jose Morales**

Galitzia hark eragindako irribarre **onbera** bat zebilkion jostalari aho aldean. **Mirentxu Larrañaga**

Galiziarrek barre egiten zuen, algara **onbera** batez. Hizketa eszeptiko eta **onbera**, izan ere, arretarik gabeko azterketa batek baino ez bailezake har biraogiletzat. **Josu Zabaleta**

Angeloren jarrera **onbera** ikusita, nire asmoen xehetasunak zehazten hasi nintzaion, zertan eman ez nituenak ere barne. **Anjel Lertxundi**

Epai hori ez dator bat Kilpatrick-en kristau jokabide **onberekin**. **Juan Garzia**

Beharbada barre egiten zuen guk Parisko maiatzaz galdetzen genionean, beharbada erruki **onbera** bat sentitzen zuen, edo geure baitan bere burua hamar urte gazteago ikusten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oso egoki eta dohatsuki definitua izan baita adiskidetasuna: Jaungoiko eta giza gaietan adostasun **onbera** eta karitatezkoa. **Imanol Unzurrunzaga**

Erabaki genuen halabehar ikaragarri hura ere **onberegia** zela harentzat. **Mirentxu Larrañaga**

Mamu beltza omen dabil Euskal Herrian barrena: literatura iruzkingile **onbera**. **Markos Zapiain**

4 (tumoreez eta kidekoez)

Neuroma akustiko izeneko tumore **onbera** izateko aukera bikoiztu egiten da sakelako telefonoa luzaroan erabilia. **Berria - Gaiak**

Leku txarra zen burua tumore bat edukitzeko; **onbera** izanik ere, haziz gero, burmuina estutuko baitzion. **Imanol Zurutuza**

Hiperplasia **onbera** sendatzeko azken teknika iritsi da Donostiara. **Berria - Gaiak**

Froga horrek prostatak minbizia ez ezik, prostataren hipertrofia **onbera** edo prostataren handitzea ere detekta ditzake. **Berria - Gaiak**

5 (adizlagun gisa)

Dama guztiak, banan-banan, ondorio batera iritsi bide ziren, alegia **onberegi** jokatu izan zutela Big Lannierekin, eta hortaz, emakumea gailendu egin zitzaizela azkenean. **Mirentxu Larrañaga**

onberatasun 1 iz onbera beren nolakotasuna.

Jaungoikoak bere **onberatasun** eskuzabala ez diola ukatu. **Imanol Unzurrunzaga**
Haren gizatasuna eta **onberatasuna** nuen buruan. **Berria - Kultura**
Hango jendeen **onberatasunari** esker, banuen laboratorioan idazmahai herren bat. **Juan Garzia**
Bizitzaren ilunabarrean zegoelarik, bere **onberatasuna** isurtzen zuen ororengan. **Monika Etxebarria**
Janaria ez digu eskuratzen harakinaren **onberatasunak**, ez garagardogileenak, ez okinarenak, baizik eta haiek beren ondasunak aintzat izateak. **Iñaki Heras**
Euskal literaturan ohikoegi bilakatu den **onberatasunetik** urrun daude ipuin hauek. **Berria - Kultura**
Dostoievski dantsua hurbildu zait bere ohiko **onberatasun** otzankote horrekin, eta ukalondotik oratu dit: [...]. **Anjel Lertxundi**
Ez eman inori haserreberdik, ez galberdik; baizik eta, zeuek otzanak izanik, eragin guztiei bakera, **onberatasunera** eta bihotz-batasunera. **Askoren artean**
Jainko Jaunak, bere betiko **onberatasunez**, hitz egiteko dohaina eman zion. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan)

Nardagarriak iruditzen zaizkit beren maskarak, **onberatasun** poseak eta kausa handien aldeko beren aldarrikapenak. **Joxean Agirre**

onberatu, onbera(tu), onberatzen da/du ad onbera bihurtu.

Guztiz gauza nabaria da zer guztiak lurretik elikatzen eta hazten direla airearen aurretantz; eta, sasoa une egokian euriz **onberatzen** ez bazaie, zuhaitzak lainoen zamaz lotatzeraino, eta eguzkiak bere aldetik laztantzen eta beroa ematen ez badie, uztek, zuhaitzek eta animaliek ez daukate hazterik. **Xabier Amuriza**

onbide 1 iz bertutera eramaten duen jarraibidea; ongiaren bidea.

Bi oinarritzko helburu nabari daitezke obraren jardun-hari osoan: irakurlea informatzea eta **onbidean** eraikitzea. **Askoren artean**
Honetatik bera eta beste guztiak **onbidean** biziki eraikiak izan ziren. **Gotzon Garate**
Apaltasuna eta pazientzia gordetzera animatu ondoren, anaia batzuk hirian utzi zituen herria **onbidean** sendotzeko eta besteak bere aurretik Bolzanora bidali zituen. **Askoren artean**
Haren bidez egiaren arerioak nahasten zituen, Kristoren gurutzearen etsaiak gezurtatzen, bidegalduak **onbidera** ekartzen, elkarrekin liskartuak baketzen eta ados zeudenak maite-lokarri estuagoz lotzen. **Askoren artean**
Zuk ez daukazu nahi dituzunak **onbidetik** gidatzerik, baina Jainkoak nahi dituenak gidatzen ditu. **Patxi Zubizarreta**
Ideala, ordea, adibide batean, h[au] d[a], agerpenean egikaritu nahi izatea egingaitza da [...] eta gainera, zerbait absurdua eta **onbide** gutxi duena da bere baitan. **Ibon Uribarri**
Errepara zaitzete egungo merkatu guzian: ekologismoa, denbora librismoa, feminismoa, [...] **onbide** osasungarriak omen ditugu denak. **Patziku Perurena**
Onbidera itzuli dela iruditzen zaidan bakoitzean, eskandalu berri bat ekartzen dit. **Patxi Zubizarreta**
Ibili **onbidetik** eta jarraitu zintzozen jokabideari. **Elizen arteko biblia**

2 (hitz elkartuetan)

Bere heriotzaz prestutasun eta **onbide**-eredu gogoangarria utzi zien, gazteei ez ezik, bai eta herri osoari ere. **Elizen arteko biblia**
-O anai Leon! anaia txikiak mundu guztian santutasun eta **onbide** etsenplu handia emango balute ere, arretaz idatz eta apunta ezazu ez dagoela hor poz bete. **Askoren artean**

onbideratu, onbidera(tu), onbideratzen 1 da ad onbidera etorri.

Norbait hitzez edo egitez fede eta bizimodu katolikotik okertzen bada eta **onbideratzen** ez, gure Anaiartetik erabat egotzia izan bedi. **Askoren artean**
Onbideratzen ez badira, ezpata zorrotzen du, utzia teinkatu eta botatzeko prestatzen. **Elizen arteko biblia**

• 2 du ad onbidera ekarri. (pertsanak)

Senarra **onbideratzeko** eginak zituen zazpi ahalak alfer-alferrikakoak gertatu ziren eta akitua utzia zuten. **Patxi Zubizarreta**
Kartzela aldiak ez omen zuen emakumea **"onbideratu"**, eta orduan senarrak bere ohore lohitu odolarekin garbitzeko beharra sentitu zuen. **Martin Anso**
Bekatar bat **onbideratzen** duena miletan eta miletan hobe da sinestunekin ibiltzen dena baino. **Patxi Zubizarreta**
Baina irudipen okerra zen hori: pertsona bakar baten agintea aski zen haur-saldo hura **onbideratzeko**. **Jose Morales**

3 (gauza)

Guztien ohiturak **onbideratzeko** bertute betearen etsenpluen bidez agertu zena. **Askoren artean**
Beldurraren eraginez erreprimitzen du legeak, eta beldurrak makurtzen eta **onbideratzen** du zekenen gogoa. **Imanol Unzurrunzaga**
Neure buruari galdetzen diot ea jakin ote dudan hutsegiteak eta bidegabekeriak zuzentzen edo, gutxienez, **onbideratzen**. **Juan Kruz Igerabide**
Izan ere zenbat ote ziren, desegin beharreko kalteak, zuzendu beharreko okerrak, **onbideratu** beharreko bidegabekeriak, neurritu beharreko gehiegikeriak, ordaindu beharreko zorrak. **Patxi Ezkiaga**
Raxoik dio elkarrizketa **«onbideratuko»** duela. **Berria - Euskal Herria**
Rose etxera bidaliko zuen, eta ez kezkatzeko eskatuko zion, bera arduratuko zela-eta dena **onbideratzen**. **Mirentxu Larrañaga**
1276ko Nafarrerriako gerra dagoeneko urrutit geratzen zen arren, 1351n oraindik zeharo **onbideratu** gabe zegoen Iruñeko auzoen arteko harremana. **Martin Anso**
Astia ematen zien bankuei ordainketa-hutsegiteen arriskua gutxiagotzeko eta beren balantzak **onbideratzeko**. **Koro Navarro**
Hazkundeak handia izaten jarraitzen zuen, aurrezki eta inbertsio-tasak bereziki altuak ziren, inflazioa motela eta finantza publikoak **onbideratuak** zeuden. **Koro Navarro**
Brady plangintzak nekez **onbideratu** zuen Mexikoko ekonomia, eta 1990az geroztik gozatu duen kapitalen sarrerari ez dio ia etekinik atera inbertsio-tasak goratu ahal izateko. **Koro Navarro**

4 (era burutua izenondo gisa)

Aurreko pauso **onbideratu** guztien ordaina une horretatik aurrera pauso bakar bat ere ezin aurreratu ahal izatean datzala uste izatearena. **Harkaitz Cano**

onbideratze 1 iz onbidera etortzea.

Zergatik harrotzen zarete gizon-emakumeen konbertsioaz, horien **onbideratzea** nire anaia sinpleen otoitzez lortua bada? **Askoren artean**
Ikusleari sinesgaitza egiten zaio Jose Garfia hiltzaile gupidagabearen **onbideratzea**. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Olabarriak azaldu zuenez, Espainiaren **«onbideratze** demokratikoaren» alde borrokaturiko dira Espainiako Parlamentuan. **Berria - Euskal Herria**
Mustafa Kemal Atatürkek Turkiaren **onbideratze** larderiatsurako ezarri zuen erregimena. **Iñaki Mendiguren**
Maastrichteko itunak finkaturiko bost irizpideetatik, epe luzeko inflazio-tasen eta interes-tasen konbergentziarekin zuten bik zerikusia, beste bik finantza publikoen **onbideratzearekin**, eta batek truke-tasen egonkortasunarekin. **Koro Navarro**
Onbideratze horretarako, bankuek kredituak mugatu, beren funtsak sendotu eta galerei erantzuteko erreserbak eratu behar zituzten. **Koro Navarro**

Bankuen **onbideratzea** . Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

García Márquezen kontakizunak funtzio argi bat du: **onbideratze** istorio bat da, *El amor en los tiempos de cólera* lanean onesten omen den erru moralaren ordainetan.

Ibon Urbarri

· Nortasun-**onbideratzea** . Oskar Arana

onbidetsu *izond* onbidez betea.

Engainua litzateke, errepikatzen zidan etengabe: herabekeria hori ez dea **onbidetsua** , batez ere neska nahirik seduzitu? Jon Muñoz

-Oi antze eta dohainon makurra, indarra baitute inor hala limurtzeko! -bere irris laidotsura zuen erakarri ene erregina itxuraz hain **onbidetsuaren** gogoia. Juan Garzia

Haserre nago gutun horren kopia bat egiteko astia izan ez dudalako, hala nire moralaren zorrotza **onbidetsu** gerta zekizun. Jon Muñoz

onbre *interj*

- **Onbre** , beltzak... nik aukeran antxoadunak.- Xabier Mendiguren Elizegi

onda (*Euskaltzaindiaren Hiztegian uhin agertzen da*) 1 iz izurra. ik kirru.

Espigazko traje gris perla sobrioa zeraman, eta ile gominaztatuen tangero itxura ematen zioten **onda** batzuk zituen eginak. Xabier Mendiguren Elizegi

Jean Claudek esku trebez kontatu zituen, eta orrazten hasi zen ondoren bere kopetako **ondak** . Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Gauza bera ezkilen arrabotsak egiten ahal omen lezazke **onda** izurdura batzu airean eta hok urruntzen orzantza. Herria

3 irud

Ondorengoa ez zuen identifikatu, baina **onda** bereko zerbait zen. Pako Aristi

ondamu *iz* bekaizkeria. ik inbidia.

Ondamua eragiten zidan horrek, Ulisesi bekaizkeria izugarria nion, inbidia gorria, baina berdin jarraitu nuen, hala ere, hiru egunetan zehar hurritzaren hostopean ezkutatuta.

Hasier Etxeberria

Ondamua eragiten dit ezerez horren zorionak, eta ez dut ongi ulertzen bizirik jarraitzeari lotuta egote derrigorrezko hau. Hasier Etxeberria

Argazkiko neu horrek finko-finko begiratzen zidan, ez dakit errukiz ala **ondamuz** . Karlos Linazasoro

Ingelesek **ondamuz** begiratzen zioten aspalditik Errusiari, hain lurralde handi eta zabala zelako. Jose Morales

ondar ik **hondar**²; **hondar**⁴.

ondare 1 *iz* gurasoengandik jasotzen diren ondasunen multzoa. ik seniparte.

Semeen artean **ondarea** banatzean, ezin emango dio lehen-seme-eskubidea maiteago duen emaztearen semeari [...] benetako lehen-semearen, kaltetan. Elizen arteko biblia

Familian bezala: seme-alaba bakoitzaren **ondarea** aita nahi duen artekoa eta aita nahi duenerainokoa izango da. Esteban Antxustegi

Anaia, hainbat urtez zerbizatu ditut nire aita eta etxeko guztiak, eta, dagokidan **ondarea** txikia den arren, idi hau nahi dut nire ondare-zatitzat hartu eta behartsuei eman.

Askoren artean

Errege-**ondarea** semeetako bati bakarrik pasatzen zaio; Aaronen **ondarea** , ordea, ondorengo guztiei. Elizen arteko biblia

Arrazoia dute Tzelofhaden alabek; lur-**ondarea** emango diezu jabetzan, beraien aitaren anaiei bezala: aitaren **ondarea** emango diezu. Elizen arteko biblia

Horra, bada, Benjaminen leinukoei senitarteka banaturiko **ondarearen** mugak. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Bekatarien seme-alaben **ondarea** hondamendira doa, etengabeko lotsa utziko diete ondorengoei. Nire **ondare** zen herri hau basoko lehoia bezalako bihurtu zait. Elizen arteko biblia

Jainkoak guretzat zeruan prestatu duen **ondarea** jasotzeko itxaropena. Elizen arteko biblia

Ardien artzain zena, bere herri Jakoben, bere **ondare** Israelen artzain egin zuen. Elizen arteko biblia

Aita batek bere semeari zer uzten dion oso ondo ez dakienean, bere **ondare** genetiko eskasa eta bere maniak eta bere keinuak eta bere asma edo epilepsiarako aurredisposizioa, bere biblioteka uzten diete batzuei. Harkaitz Cano

3 norbaitek aurrekoengandik jaso duen ondasuna; norbaiten duen ondasuna.

Guk ez dugu besteren lurrik hartu, ez eta besteren ondasunik geureganatu ere, geure arbasoen **ondarea** baizik. Elizen arteko biblia

Italiar-siziliar estatu osoa, Pedoren **ondare** gisa aita santuek gutiziatzen zutena, Augustoren **ondare** bilakatu zen. Iñaki Mendiguren

Ondarea babesteko ardura duen erakundeak txintik ere ez du erran. Edurne Elizondo

Indiak Britainiar Inperioan inperioegileen ama-hizkuntza ingelesa xede batzuetarako pertsierak ordeztu zuen, hau izanik mogolek **ondare** gisa utzitako hizkuntza ofiziala.

Iñaki Mendiguren

Ezin, beraz, arrazoirik eta formarik gabe eskualdatu bere artapean dagoen **ondarea** ; tentuaz administratu eta fideltasunaz kudeatu beharra du; kontularia da, administratzailea bezainbestekoa; bere jokabidearen erantzulea; kaltea ere ezin sortu, horren konponketa gauzatu gabe. Andres Urrutia

Limosna, behartsuei zor zaien **ondarea** eta eskubidea da, Jesu Kristo gure Jaunak guri eskuratua. Askoren artean

4 (izenondoekin)

Karlos Martelek **ondare** publiko guztia elizgizonen eskuetan aurkitu zuen bezala, Karlomagno elizgizonen ondasunak gerrarien eskuetan aurkitu zituen. Iñaki Iñurrieta

Kantuzko memoriaren bidez **ondare** komun batean parte hartzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egin ezazue sakratu eta bortxaezin elizgizonen **ondare** antzinako eta beharrezkoa; finko eta betierekoa izan dadila, haiek bezala; baina utzi beste ondasun berriak haren eskuetatik irteten. Iñaki Iñurrieta

Ekaingo **ondare** arkeologikoa aztertu, ezagutu eta ezagutarazteko asmoarekin. Berria - Kultura

Ondare arkeologikoa, arkitektonikoa, industriala, etnografikoa, artistikoa, eta liburutegiak, artxiiboak eta museoak kontuan hartzen ditu Planak. Berria - Kultura

Ondare higiezina kontserbatzeko Sektoreko Lurralde-plana adostu foru aldundiekin. Berria - Kultura

Nik neure Seat 127aren truke eman zidaten dirua nuen **ondare** bakar, eta larri genbiltzan beti diruz. Joxerra Garzia

5 irud/hed

Pobretasuna eta bakea utzi zizkien **ondare** eta herentzia gisa eta herentzia gomendatu zien mundu honetako arriskuetatik gorde.

Askoren artean

Oraindik ez da heldu egia gehiengoaren **ondare** izango den garai zoriotsua. **Juan Martin Elexpuru**

Nik ere errito batzuen betekizun moduan, **ondare** baten jasotzaile gisa bizi izan nuen txikitan kristautasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Heriotza gu guztion **ondare** da, Miss Prism... **Antton Olano**

Ez zuten zerupean ezer edukitzerik nahi izan behar pobretasun txit gorena besterik, honen bidez asetzen baititu Jaunak mundu honetan gorputzeko eta espirituko janariz, eta gero zeruko **ondarez**. **Askoren artean**

Zure aztarnak poliziaren **ondare** izango dira hemendik aurrera. **Rafa Egiguren**

Sadek utzitako **ondare**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

6 (izenondoekin)

Izebari atzetik behatzen genion makurtzen zenean, eta beti aitortzen genuen izebak **ondare** handia zuela gonapean. **Pello Lizarralde**

Oroimena gizakiari eman zaion **ondare** preziatuena dela diote autore askok. **Berria - Gaiak**

Gizon handien ideiak gizadiaren **ondare** erkidea dira. **Juan Garzia**

Trikitixak [...] ezkutan zegoen bertso eta kopia "lohien" **ondare** ugaria bideratu zuen. **Koldo Izagirre**

Nietzsche kristautasunaren kontra ez ezik horren **ondare** etiko-ideologiko guztiaren kontra ere saiaturko da. **Askoren artean**

Frederick Hielscher irakasle eta mistiko alemanak *Ahnenerbe* ("Arbasoen ondarea") erakunde sortu zuen, Alemaniako herriaren **ondare** kultural zein genetikoak ikertu, babestu eta sustatzeko helburuekin. **Alberto Ladron Arana**

Gizadiaren **ondare** genetikoarekin ari gara hor. **Juan Garzia**

Post-ETA garaian, nola begiratu ETaren **ondare** pozoituari? **Joseba Zulaika**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eleazar apaiza, Nunen seme Josue eta Israelgo leinuetako senitarteburuak arduratu ziren **ondare** -banaketaz. **Elizen arteko biblia**

Ondare partiketek eten zuten tradizio hori. **Edurne Elizondo**

Hamabost urterekin, bere **ondare** -partea eskatu zuen, Angiolieri zaharra hilik balego bezala. **Juan Garzia**

Zuei dizuet emango Kanaan lurraldea hauxe da zuen **ondare** -zatia. **Elizen arteko biblia**

Artean, israeldar zazpi leinu gelditzen ziren beren **ondare** -zatia hartzeko. **Elizen arteko biblia**

1.600 euro baino **ondare** irabazi apalagoak dituenak. **Berria - Ekonomia**

Ondare -zentro hortan lanean ari den Manu Iñarra-rekin herriaren bisita, tokiko historia ezagutzeko. **Herria**

ik ondaregune.

Zer erakutsiko diguzue Baionan "**Ondare** egunen" kari? **Herria**

Ondare "polo" horren aldeko elkartean partaide izaitea bozkatu du Baionako kontseiluak. **Herria**

Zaindu eta indartu behar ditugun **ondare** altxor paregabeak dira... **Herria**

Carmen Fernandez Aparicio Reina Sofiako **ondare** zaintzaileak azaldu duenez, [...]. **Berria - Kultura**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Printzeak bere ondarearen zati bat bere semeetakoren bati ematen badio, zati hori semearen herentzi **ondare** bihurtuko da. **Elizen arteko biblia**

Giza espezieari, oro har, eta populazio bakoitzari ere bai, joko handia eman diezaioko ugaritasun-**ondare** horrek. **Juan Garzia**

Jaunaren batzarrean herri-**ondare** berriri banatzerakoan, ez du zuetariko inork parterik izanen. **Elizen arteko biblia**

Zeltek kristautasuna moldeatu zuten beren gizarte-**ondare** barbarora egokitzeko. **Iñaki Mendiguren**

Limes-aren alde barbaroan metatzen den energia psikikoa oso neurri txikian bakarrik dator mugaz bestaldeko barbaroen gizarte-**ondare** kaskarretik. **Iñaki Mendiguren**

Kontuan hartu behar da medikuntza genetikoaren teknologiak kontsumo-**ondare** ere badirela. **Berria - Gaiak**

Hauteskundeetan promesa egin omen zuen nekazaritza **ondareei** buruz oinordekotzen gaineko salbuespena ezarriko zuela Galizian. **Iñaki Heras**

Zerrenda hori osatzen duten eraikin eta monumentuen artean %3 baino ez dira industri **ondare**. **Berria - Kultura**

Gipuzkoako kultur **ondare** mugigarria gorde, zaharberri eta zainduko dituen zentroa izango da. **Berria - Kultura**

Literatur **Ondare** Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko. **Itziar Otegi**

Lodzeko Kultur **Ondarearen** Babeserako Elkarteak bi urte geroago desegin zen. **Iban Zaldúa**

- 1982an *Irargi* Euskadiko Dokumentu **Ondare** Zentroa jarri zuen martxan Kultura Sailak, **Berria - Harian**

7 **ondare eman** ondare gisa eman.

Eskatu niri, eta nazioak emango dizkizut **ondare**, lur osoaren jabe egingo zaitut. **Elizen arteko biblia**

Kanaan lurraldean zazpi nazio suntsitu ondoren, berauen lurra eman zien **ondare**. **Elizen arteko biblia**

Josuek bedeinkatu egin zuen Jefunerren seme Kaleb eta Hebron eman zion **ondare**. **Elizen arteko biblia**

Barkatu zeure zerbitzarien eta zeure herri Israelen bekatua, erakutsi egin behar duen bide zuzena eta isuri euria **ondare** eman zenion lurrera. **Elizen arteko biblia**

Moisesek legea eman digu, Jakoben elkartearantzat **ondare**. **Elizen arteko biblia**

8 **ondare hartu**

Zu zara haren ahaiderik hurbilena; beste inork baino eskubide handiagoa duzu zuk harekin ezkontzeko, eta haren aitaren ondasunak **ondare** hartzeko. **Jose Antonio**

Mujika

9 **ondare izan** du *ad*

Hori izango du garaileak **ondare**, eta Jaingo izango nau ni eta nik bera seme. **Elizen arteko biblia**

Jar zaitetz zeure **ondare** duzun herriaren alde, eta bihur ezazu alaitasun gure atsekabea. **Elizen arteko biblia**

Zuk eramaten duzu herria, zeure **ondare** duzun mendira. **Jose Antonio Mujika**

Lebitarrek, beraz, ez dute beste israeldarrek bezala ondare-zatirik izango, Jauna baitute **ondare**, berak hitz eman bezala. **Elizen arteko biblia**

Horregatik esan diet ez dutela lur-sailik izango **ondare** gainerako israeldarren artean. **Elizen arteko biblia**

Ez dute inolako ondarerik izango: ni neu izango naute **ondare**. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beren **ondare** zatia (4); **bizia izango ondare** (4); **dute ondare** (5)

euskal herriko **ondare** (4); euskal **ondare** (10); gipuzkoako **ondare** (7); **gizadiaren ondare** (4); **gure ondare** (12); **guztien ondare** (4); **guztion ondare** (4)

izango ondare (6); **kultur ondare** (5); **literatur ondare** (5); **literatur ondare unibertsaleko** (4); **munduko ondare** (4); **nire ondare** (6)

ondare aberatsa (5); **ondare arkeologikoa** (9); **ondare arkeologikoaren** (4); **ondare artistikoa** (7); **ondare etnografikoa** (4)

ondare guztia (5); **ondare historiko** (8); **ondare historikoa** (4); **ondare historikoaren** (9)

ondare irabazi apalagoak (4); **ondare izan** (7); **ondare kultural** (7); **ondare kulturala** (7); **ondare kulturalaren** (6); **ondare mugigarria** (5)

ondare publikoa (4); **ondare sindikal** (12); **ondare sindikal metatuaren** (6)

ondare unibertsaleko obra (4); **ondare zati** (5); **ondare zatia** (13); **ondare zatirik** (4); **ondare zentroa** (4); **zeure ondare** (5); **zuen ondare** (5)

ahozko **ondare** (4); **arbasoen ondare** (4)

errenta eta **ondare** (5); euskal **ondare** (4); **gure ondare** (17); **guztion ondare** (8); **haren ondare** (6); **hark utzitako ondare** (4); **herri ondare** (4); **herriko ondare** (4)

itsas ondare (7); **kultur ondare** (16); **milioi euroko ondare** (4); **nire ondare** (5)

ondare **babesteko** (4)

utzitako ondarea (14); zeure ondarea (4)
biarno garaiko ondarearen (8); dokumentu ondarearen (8)
euskal ondarearen (5); garaiko ondarearen (8); garaiko ondarearen erakundeak (5); gure ondarearen (21); gure ondarearen lekuko (4)
industria ondarearen (6); industria ondarearen elkartek (4); kultur ondarearen (16); kultur ondarearen zuzendari (4)
ondarearen alde (4); ondarearen balioa (4); ondarearen eguna (4); ondarearen egunak (49); ondarearen egunak direla (5); ondarearen egunen (9); ondarearen egunen kariatara (5); ondarearen elkartek (4); ondarearen erakundeak (5); ondarearen lekuko (4); ondarearen zati (7); ondarearen zuzendari (5)
leinuaren ondaretik (8)
jainkoak ondareztat emango (5); ondareztat eman (4); ondareztat emango (8); ondareztat emango dizuen (4); zeure ondareztat (5)

ondaregune iz ondarea dagoen gunea.

Duela 30 urte abiatu sailaren kondu, egia da delako erakunde berezi horrek beretu dituela itsas-bazterreko eremu frango, behar bezala begiratuko direnak, **ondaregune** berezi bezala. **Herria**

ondaretxo iz ondare txikia.

Piskanaka txorakeriekin **ondaretxo** bat egiten duzu. **Berria - Euskal Herria**

ondaretza iz ondorea.

Bere seme-alabak eta bilobak, bere **ondaretza** guztia, eraman zituen Jakobek Egiptora. **Elizen arteko biblia**

ondarkin ik hondarkin.

ondarkindegia ik hondarkintegi.

ondarkintegi ik hondarkintegi.

ondarlar izlag/iz Ondarlakoa, Ondarlari dagokiona; Ondarlako biztanlea.

Utz dezagun **ondarlar** adiskidea aitzina mintzazera: [...]. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ondotik, han berean Jean Louis Cihigoyenetchek **Ondarlarra**, han bizi dena, mintzatu da hango euskaldunetz. **Herria**

Geroztik Luzaidera heldu zaizkigu beti **ondarlarrak**, nahiz paperetan Arnegiko diren elizaz ere. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ondarlarren hilobiak eta luzaidarrenak nahastekaturik daude, anaitasun haundienean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

ondarrabittar ik hondarribiar.

ondarroar ik ondarrutar.

ondarrutar (orobat ondarroar g.er.) 1 izlag/iz Ondarrukoa, Ondarruri dagokiona; Ondarruko biztanlea.

Aitzol Aramaio **ondarrutar** zinemagilearen *Terminal*-ek film laburrik onenaren saria lortu du *LaCinemaFe* zinemaldian. **Berria - Kultura**

Ondarrutar kantari edo musikero batek *Beti lo* hitzekin itzuli zuen jatorrizko *Without love*. **Iñaki Segurola**

Iragan asteazkenean bihotzekoak emanda hil zen kotramaisu **ondarrutarra** gogoratuko dute astelehenean Ondarroan. **Berria - Ekonomia**

Agustin Zubikarai **ondarrutarra** ere argitasun bera ematen du. **Patziku Perurena**

Euskarazko jende natuala izatea oso zaila da, azpeikoitiarra edo **ondarrutarra** ez denarentzat. **Iñaki Segurola**

XIX. mendearen bukaeran Ipar Ameriketara artzain joandako **ondarrutar** bat da Garmendia. **Berria - Kultura**

Guraso galiziarren seme-alabak izan arren, zeharo **ondarrutarra** diren gazteak. **Koldo Zuazo**

Euren izen-deiturak gorabehera, **ondarrutar** peto-petoak dira. **Koldo Zuazo**

Ondarrutarrek bazuten arrauneko proba garrantzitsuenetan aritzeko grina, eta trainerua ere bazuten izan. **Berria - Kirola**

2 Ondarruko hizkera.

Antzerako arazo bati egin behar izan dio aurre Kirmen Uribek "Bar Puerto" ikuskizunean **ondarrutarrez** jasotako adierazpenekin. **Iñigo Aranbarri**

ondartegi ik hondartegi.

ondartza ik hondartza.

ondasun 1 iz pl eskura daitezkeen baliozko gauzak. ik funts; aberastasun.

Jauna, **ondasunak** bagenitu, armak ere beharko genituzke defendatzeko. **Askoren artean**

Bazen Maonen bere **ondasunak** Karmelen zituen gizon bat; gizon oso aberatsa zen, hiru mila ardi eta mila ahuntzen jabe. **Elizen arteko biblia**

Ondasunak, lurra eta etxea behintzat, ez ziren banatzen eta zatitzen familiako artean, premuaren eskuetan utzi baizik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Beren lur eta **ondasunak** saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, norik zer behar zuen. **Elizen arteko biblia**

Heretikoen **ondasunak** besterendu egiten ziren, eta ez heretiko zigortuak eta ez haren ondorengoek ez zeukaten berreskuratzetik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ondasunak zeure odolkekoei eman dizkiezu eta pobreei kendu; ez zara bote santuekin bizitzeko duin. Patxi Zubizarreta

Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat **ondasunak** pilatzen dituenari. Elizen arteko biblia

Beharren gainera erdi makurtuz, han pilaturik nituen **ondasunen** kontua egin nuen. Edorta Jimenez

Izan daitezela egintza onetan aberats, eskuzabal jokatzu eta **ondasunak** besteen zerbitzura jarriz. Elizen arteko biblia

Ondasun horiez gozatzeko modua. Iñaki Heras

Errudunaren **ondasunez** jabetu zen Ajab erregea. Juan Martin Elexpuru

Arautu beharra zegoen jaunek **ondasun** haien truke hartzen zituzten eskubideak. Iñaki Iñurrieta

Nola itsutu zaituzten **ondasun** horiek! Jose Morales

Ondasun eta zerbitzuak produzitzeko eta gizartea osatzen duten norbanakoaren artean banatzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kargutik kendu zituen eraikuntza-batzordeko funtzionarioak; haien egoitzak, Estatuaren **ondasun** bihurturik, erruki-etxeak eta soldaduen semeentzako eskolak izan ziren aurrerantzean. Jose Morales

Ondasun guztiak konfiskatu zizkieten, zeukaten guztia bahitu zieten. Jose Morales

Hobe **ondasun** gutxi zuzentasunez, irabazi handiak bidegabekeriaz baino. Elizen arteko biblia

Jaunak bedeinkatu egin zituen Obed-Edomen etxea eta **ondasun** guztiak. Elizen arteko biblia

Bere jauregiko buru egin zuen eta bere **ondasun** guztien administratzaile. Elizen arteko biblia

Aurrerantzean **ondasun** asko banatu zien behartsuei. Askoren artean

Urre eta zilar asko, purpura morez eta gorri tindaturiko oihalak eta beste **ondasun** ugari bildu zituzten. Elizen arteko biblia

Ez da aipatu ere egiten herrialde horiek geroz eta **ondasun** gehiago inportatzen dituztela berera. Iñaki Heras

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erregeak **ondasun** handiak jaso zituen eta mesede egin nahi zienen artean banatu. Elizen arteko biblia

Bai, aberastu egin naiz, **ondasun** handiak bildu ditut, baina nire irabazietan ez du inork bekatu edo hutsegiterik aurkituko. Elizen arteko biblia

Agindutako **ondasun** balioa eta bikainak ere eman dizkigu. Elizen arteko biblia

Lurreko **ondasun** iragankorrak. Imanol Unzurrunzaga

Asko dira besteren **ondasun** galkorren bekaizt direnak. Patxi Zubizarreta

Sorkariekiko eta **ondasun** materialekiko maitasun ordenagabekotik jadanik askaturik, norberaganako maitasunaren atxilo gertatzen dira. Joan Mari Lekuona

Ondasun higigarriak merkataritzaren alorrekoak dira; higiezinak, oster, lege zibilaren meneko. Andres Urrutia

Ondasun higiezinaren gaineko zergekin, alegia, kontribuzioekin. Iñaki Heras

Ondasun iraunkorretan %7,3koa izan dela azken aldi horretako produktibitate hazkundera eta **ondasun** ez-iraunkorren kasuan, berriz, %2,1ekoa. Iñaki Heras

Produktibitate areagotzeak oso handiak izan omen dira, bai, baina bereziki **ondasun** informatikoak ekoizten dituen sektorean. Iñaki Heras

Merkatariek inportaturiko luxuzko **ondasunak** eskuratzeko, izan ere, diru-baliabide handiak behar ziren. Koro Navarro

Benetako eta gezurrezko **ondasunak**. Elizen arteko biblia

Ordezkatze hori errazago gertatzen da kontsumoko **ondasunak** liberalizatzen direnean. Koro Navarro

Jaunak zuengana itzuli eta munduko **ondasunak** ugarituko dizkizuela. Oskar Arana

Zuengan espirituzko **ondasunak** erein baditugu, gehiegi ote da zuengandik lurreko **ondasunak** jasotzea? Elizen arteko biblia

3 (gauza ez-materialak)

Izan ere, munduan bizi zela, goiko **ondasunen** maitale porrokatu honek ez zuen munduan ezerean jabetzarik nahi izan. Askoren artean

Jaunarengana itzuli zinenetik heriotza arte hain gogotsu bete duzun pobretasun handitik betiko, egiazko eta neurrigabeko **ondasunetara**, eta mundu honetako heriotzatik betiko bizira. Askoren artean

Gomendatu zien betiko **ondasunetara** jo zezatela eta mundu honetako arriskuetatik gorde. Askoren artean

Ondasun iraunkorrak eta inork ere kendu ezingo dizkionak eskuratzeko dituenak, ez beste inork, izan daitezke zoriontsu. Imanol Unzurrunzaga

Jakinduria, **ondasun** moral eta kulturalen iturri. Elizen arteko biblia

Berongengan daude gordeak jakinduriaren eta ezagueraren **ondasun** guztiak. Jakinduria, **ondasun** guztietan onena. Elizen arteko biblia

4 *sing*

Ura munduaren **ondasuna** eta denen eskubidea. Berria - Gaiak

Han ditut liburuak, **ondasun** baliosena. Bertziko bere **ondasun** zoragarrian, artean, Baztanen, jai bikainak antolatu ziren. Piarres Aintziart

Bi herrialdeei komeni zaie trukea, herrialde bakoitzak bere truke-kideak produktibitate handienaz ekoizten duen **ondasun** hura inportatzen baitu. Koro Navarro

5 *sing* (gauza ez-materialak)

Ez diren gauzen **ondasuna**. Patziku Perurena

Bere haurrei bere lanbidea eman dien langileak beren kopuruaren proportzioan ugaldtu den **ondasuna** utzi die. Iñaki Iñurrieta

Bidegabeko dirua eta egiazko **ondasuna**. Elizen arteko biblia

Zu zara nire adorea euskarri, oi Jainko, zu nire betiko **ondasun**. Elizen arteko biblia

Berek herri jakintza zeukaten, herriaren espiritua, Grimm anaiek bildutako ipuinen poesia, beren hirien arkitektura berezia; hitz batean, beren **ondasuna** zeukaten, alde batetik identitatearen ematen ziena eta, bestetik, gainerakoengandik bereizten zituena. Bernardo Atxaga

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrela, **ondasun** -multzo handiak egin ziren. Elizen arteko biblia

Hazkunde ekonomikoa herrialde batek ekoizten dituen **ondasun** eta zerbitzu kopuruaren hazkundera da. Iñaki Heras

Elkartearen bizimodua: **ondasun** -erkidegoa. Elizen arteko biblia

Ondo egina da, **ondasun** zirkulazioaren askatasunaren eta nekazaritzaren ikuspegitik, oinordetza ordezen zentzugabeko horien debekua. Andres Urrutia

Bi herrialdeetako **ondasun** -merkatuetako egokitzea. Koro Navarro

Latinezko *dispensatio* hitza, etkezainaren administrazio edo **ondasun** -kudeaketa esan nahi duena, hemen "salbuespen" esanahiaz erabiltzen da. Askoren artean

Konbertsio eta **ondasun** -banaketa horretatik zortzi egunerako [...] jakin zuen anai Egidiok Asisko hiritar ziren zaldun ospetsu haiek egindako ukapenaren berri. Askoren artean

Gizon, nor egin nau ni zuen artean epaile edo **ondasun** -banatzaile? Elizen arteko biblia

Ondasun -gose guztiak aparte bazaudete, [...]. Xabier Olarra

Nolanahi ere, damak ez ziren **ondasun** -egarri. Jose Morales

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**ondasunetatik** milioiak xahutu direla norberaren askatasunarekiko eta oititzaren, garaipenaren eta bizitza erlijiosoarekiko bateragarritasuna frogatu edo ukatzeko. Xabier Olarra

Haiena bezalako parte hartuko du bere mantenturako, famili **ondasunak** saltzetik jaso dezakeenaz gain. Elizen arteko biblia

Nola eliz **ondasunak** feudo bihurtu ziren. Iñaki Iñurrieta

Jainko-**ondasunak** gorde, gal ez daitezten. Askoren artean

Printze honek, ikusiz errege-**ondasunen** eta ondasun fiskalen parte bat bizitza osorako edo jabetza gisa eman zitzaizela nobleei, [...]. Iñaki Iñurrieta

Barne produktu gordina handitzea, merkatu handiago bat eratzea, kultur **ondasuna** aberastea, demokraziaren bidean aurrera egitea. Berria - Mundua

Finantza-**ondasunak**, osatu orduko, lur-jabetzetan edo luzuzko kontsumoetan gastatzen diren. **Koro Navarro**

Erabilerak makinerian, ekipoen edota beste kapital-**ondasunen** batean eragiten duen balio galera. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Garapen-bidean zeuden gainerako eskualde handietan, oso urriak ziren oraindik industria-**ondasunak** eta azpiegitura ekonomikoak. **Koro Navarro**

Makina-erreminta inbertsio **ondasuna** da. **Berria - Ekonomia**

Tokiko industriak ezin ekoizti dituen hornikuntza-**ondasunak** inportatzeko posibilitateak. **Koro Navarro**

Ekipamendu-**ondasunak** ekoizteko sektore baten falta. **Koro Navarro**

Jabe-**ondasunek** ez daukate atzera egiterik. **Iñaki Iñurrieta**

Leku guztietan errespetatzen dira sustrai-**ondasunak**. **Juan Martin Elexpuru**

Pentsamenduak baino arinago egiten du hegan, eta herri guztiei banatzen dizkie salbamen-**ondasunak**. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren ondasun guztiak (3); bere ondasun guztiak (22); bere ondasun guztien (7); beren ondasun guztiak (5)

emazte eta ondasun (4); ene ondasun guzia (3); etxeke ondasun (5); haien ondasun guztiak (4); hainbat ondasun (5); hainbeste ondasun (7); haren ondasun guztiak (5)

kultur ondasun (3); mundu honetako ondasun (3); munduko ondasun (5); nazioarteko ondasun (3); neure ondasun guztiak (3); nire ondasun guztiak (8)

ondasun apurrak (5); ondasun asko (8); ondasun bakar (4); ondasun bakarra (5); ondasun baliotsu (3); ondasun banaketa (3); ondasun bat (5); ondasun baten (5); ondasun batzuk (5)

ondasun eta abere (5); ondasun eta zerbitzu (12); ondasun eta zerbitzuak (7); ondasun eta zerbitzuen (17); ondasun gehiago (6); ondasun gisa (4); ondasun gutxi (4); ondasun guzia (4); ondasun guztia (3); ondasun guztiak (146); ondasun guztiak eman (4); ondasun guztiak ikertzeko (3); ondasun guztiak kendu (4); ondasun handiak (12); ondasun handiak izan (3); ondasun higiezin (3); ondasun higiezinak (3); ondasun higiezinen (9); ondasun hori (3); ondasun horiek (20); ondasun horien (4)

ondasun iragankorrak (3); ondasun iraunkorrak (4); ondasun iraunkorren (6); ondasun materialak (5); ondasun materialen (4); ondasun mota (6); ondasun mugatua (3)

ondasun oro (4); ondasun publikoak (3); ondasun ugari (5)

zenbait ondasun (4); zeure ondasun guztiak (4)

egiazko ondasuna (3)

banatu zituen ondasunak (3); beren ondasunak galdu (4); bildutako ondasunak (3)

eliz ondasunak (4); elizaren ondasunak (8); elizen ondasunak (3); emandako ondasunak (3); etxea eta ondasunak (3); etxeke ondasunak (8); familiaren ondasunak (4); gordetako ondasunak (3); hiriko ondasunak (5)

jauregiko ondasunak (3); kontsumo ondasunak (3); lur eta ondasunak (3); lurreko ondasunak (4); mundu honetako ondasunak (4); munduko ondasunak (4); nire ondasunak (14)

ondasunak bagenitu (3); ondasunak bahitu (6); ondasunak bahitzea (4); ondasunak bahitzeko (11); ondasunak bahitzeko prozesua (3); ondasunak banatu (3); ondasunak banatzeko (4); ondasunak banatzen (3); ondasunak bildu (3)

ondasunak ekoizteko (5); ondasunak eman (3); ondasunak erosteko (3); ondasunak eskuratzeko (4); ondasunak eta zerbitzuak (3); ondasunak galdu (6); ondasunak galtzea (3); ondasunak galtzen (5); ondasunak gorde (6); ondasunak harrapatu (3); ondasunak hartu (8)

ondasunak izan (3); ondasunak kendu (8); ondasunak kenduko (3); ondasunak kentzen (3); ondasunak nahi (3)

ondasunak oro (5); ondasunak ostu (5); ondasunak pilatu (3); ondasunak pilatzen (3); ondasunak saldu (5)

ondasunak ugari (3); ondasunak utzi (5); ondasunak zaintzeko (3)

saldu zeure ondasunak (8); zeuen ondasunak (4); zeure ondasunak (12); zure ondasunak (6)

ekoizitako ondasunen (3); elizaren ondasunen (4); erregearen ondasunen (3); gure ondasunen (5); munduko ondasunen (3); nire ondasunen (6)

ondasunen arabera (4); ondasunen arduradun jarri (3); ondasunen arduradunak (3); ondasunen banaketa (6); ondasunen bat (4); ondasunen bidez (3)

ondasunen ekoizpen (3); ondasunen ekoizpena (4); ondasunen erabilera (3); ondasunen erdia (8); ondasunen erdiak (3); ondasunen eskariaren (3); ondasunen eta zerbitzuen (11)

ondasunen jabe (6); ondasunen jabetza (6); ondasunen kontra (3); ondasunen likidazioa (3)

ondasunen oinordeko (3); ondasunen parte (5)

zeure ondasunen (3)

bere ondasunetan (3); beren ondasunetan (3); lurreko ondasunetan (3)

ondasunez bete (6); ondasunez beteko (9); ondasunez beteko zaitut (3); ondasunez beteko zaituzte (3); ondasunez jabetu (7); ondasunez jabetu zen (3); ondasunez jabetzeko (4)

ez dugu ondasunik (3); inoren ondasunik (3); ondasunik gabe (5); ondasunik handiena (3)

ondasungabetze iz norbait ondasun gabe uztea.

Erbesteratze eta **ondasungabetzeak**. **Juan Martin Elexpuru**

Batzuek diote **ondasungabetzea** horma bat dela mendekuen eta harrokeria pribatuen aurrean, baina ez dira konturatzen zigorren ondorioz ondasun batzuk etortzeak ez duela esan nahi hauek beti justuak direnik, justuak izateko nahitaezkoak behar dutelako izan. **Juan Martin Elexpuru**

Ondasungabetzeak salneurria jartzen dio ahularen buruari, erregabeari errudunaren zigorra sufriarazten dio, eta erregabaea ere delituak egiteko premia desesperatuan jartzen du. **Juan Martin Elexpuru**

ondasuntsu izond

Bi puntuzko **ondasuntsu**. Bidasoaz bi aldeetan mugakide, hendaiarra bata eta irundarra bestea, arma kontrabandotan ari Madriloko gobernuia uzkaitezkotan. **Txillardegia**

ondasuntza iz

Bestaldetik ere, ez al dira **ondasuntzak** aita familiakoaren xede zuhurra behar dutenak? **Andres Urrutia**

ondatau ik hondatu.

ondatze ik hondatze.

onddo (orobat onjo g.er. eta ontto g.er.) 1 iz perretxiko mota handia eta mami-lodia (Boletus sp).

Udazkena beroa izan zen, baina lehorra, eta ez zen apenas **onddorik** sortu. **Jon Alonso**

Gustura eta lasai joan den hilabetean mendian **onddo** bila sartu dituzun orduak. **Berria - Kirola**

Azken urteetan **onddoak** udazkenean bezala agertu dira kazetariak, politologoak, ekonomialariek edo soziologoek egin izan dituzten azterketa eta analisiak. **Pello Salaburu**

Onddoen pare. Omordiako bide bazterrean, agertzen ari dire hargintza gotor batzu. **Herria**

Itsaskiz beteriko hostorea, **onttozko** moussea eta ez dakit zenbat gauza gehiago atera ziguten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehenagi berriari (alga, **onddo** eta antzekoiez osaturiko jakia), banatze modu berriak (etxez etxeko dendak, Internet bidezkoak). **Edorta Agirre**

2 (izenondoekin)

Onddo txiki-txikiiek hartzen zuten osorik kanpoaldea, erlaitzetik zabaltzen zen armiarma-sare mehe bat bailiran. **Koro Navarro**

Onddo ustelen usain berezia iritsi zitzaidan sudur zuloetara. **Koro Navarro**

Sutara botatzen dute **onddo** pozoidun jakin bat, suarekin batera aireetara joanik, espiritu gaizto guztiak pozoiz kutsatuta uxa ditzan. **Pello Zabala**

Onddo zurizten haztegi eta armiarma iheskorren gordeleku. **Anton Garikano**

Ea prest egongo ote den [oilagor] haiek jateko, **onddo** beltz batzuen konpainiarekin. **Hasier Etxeberria**

Onddo gorri haluzinagarriaren kontsumoa. **Pello Zabala**

3 irud/hed

Gizakiaren lehenbiziko eztanda nuklearraren lekuko eta sortzaile, Robertek estu aztertu zuen hamaika kilometroko **onddo** atomikoa. **Fernando Morillo**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Onddo nahaski beroaren arrastoa oraindik ahoan, Damian, aulkia atzerantz botata, zutitu egin da. **Hasier Etxeberria**

Bai, zinez, larrazken huntan jastatu ahal izan dugun **onddo** platarik gozagarriena ginuen hor, ahotik ezin utzia! **Herria**

Saltsak, saltsa-oinarriak, **onddo**-hondoak, oreak, horrelako oreak etxean prestatzeko lehengai eta tramankuluak. **Edorta Agirre**

Denda beltz eta gorri ilunen kanpamendu handiak sortu ziren, **onddo** multzo higuigarriak bezalakoak. **Agustin Otsoa**

Jendea arras polliki ihizi eta **onddo** sasoi huntan oraino Garazin. **Herria**

Aurten **onddo** urte zela ezin uka, halere gure xokoan atxemana izan den hau bezalakoak bakan ditazke. **Herria**

Bizarra ondo egindako aurpegi mehea zuen, eta lepo-anoki bikoitz oso luzea eta **onddo**-itxurako kapela hegala-zabala bat soinean. **Irene Aldasoro**

ik beherago 7. **Askoren artean**

Injinerua Mark zen, gizon garai lodia, buru biribilekoa, karrikan zebilelarik kapelu beltz **onddo** antzeko batez estaltzen zuena. **Felipe Juaristi**

· Bitartean urrutian zeruraino hazten zihoa **onddo** moduko hodei bat, gora eta gora hazten zen, solairu askoko altuerara. **Fernando Rey**

5 historik, sustrairik ez zurtoinik ez duen landare mota apala, klorofilarik gabea baina zelula nukleodunak dituen*(Mycota)*.

Giza gorputza prestatuta dago hainbat mikrobio, birus, bakterio, **onddo** eta parasitok kalterik egin ez diezaioten. **Luis Elberdin**

Eta **onddoak** sortuz gero, akabo pintura. **Javi Cillero**

Eulien bizitza hilabete batzuetakoa izaten da [...] ez baitituzte ondo jasaten tenperatura baxuak eta, gainera, **onddo** kutsatzaile batek gaixotu egiten baititu. **J.M. Olaizola**
"Txiliku"

Kakalardoak [...] zilatzen du zurraren enborra, galeria batzu eginez, eta ondotik zilo horietan **onddo** bat hedatzen da, zumarra ustelaraziz. **Herria**

Baliteke tatuajeak egiteko baliatzen den tinta mota baten hainbat sorta **onddoekin** kutsatuta egotea. **Berria - Euskal Herria**

6 *onddo-biltzaile* onddo bila ibiltzen den pertsona.

Baina Otsabideko mendietan, sasoi kanpoko **onddo** biltzaile ugari gurutzatzen zutela ohartzen ziren. **Itxaro Borda**

Herriko nekazariak, erlezain autonomoak, gozogle artisauak, **onddo**-biltzaileak, txalupako arrantzaleak. **Edorta Agirre**

7 *onddo kapela*

Karratutako soinekoaz, betiko bibotearekin, eta bere **onddo**-kapeluari eskuineko eskuaz helduz. **Txillardegi**

Jantokitik etorrira, **onddo**-kapela marroiko gizon bat ate birakaritik sartu zen. **Lopez de Arana**

Onddo-kapela jantzita eta beroki azpian plaka bana duten gizon batzuek ere ez naitek bakean uzten. **Lopez de Arana**

Mary [...] jaiotzaz ez zen hirikoa, ez zen **onddo** kapelaren itzalpean bizi, zuek eta ni bezala. **Koro Navarro**

Gorde **onddo**-kapela beltzak,... /... kapela txukun eta luzeak. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belar eta onddo (3); **onddo bila** (3); **onddo kapela** (16); **onddo kapela marroiko** (3); **onddo kapelako** (5); **onddo kapelako gizon** (3); **onddo kapelaren** (4); **onddo magiko** (3)

onddoak bezala (7)

onddoketa *(orobat onjoketa) adlag ipar* onddo bila.

Onddoketa trebatu ninduen ni ttantak. **Herria**

Onjoketa doatzila erraiten dute bederen patarrari goitikoan. **Herria**

2 iz onddo bilatzea.

Sasoi ondar huntan beste enplegurik ere baitute ainitzek, ihizi, **onjoketa** eta beste. **Herria**

Euskal Herri guzian bezala, bertako jender laguntzea gatik, atzeritarri frango, uhalde baten pare etorri dire **onddoketarat**. **Herria**

Bakoitzak bazituen bereak, **onddoketarako** bezala. **Eneko Bidegain**

3 *ondoketan* ondo bila.

Gehiago sekulan nihork ez omen du **onddoketan** ikusiko. **Herria**

onddoketari *(orobat onjoketari) iz* onddo-bilatzaile.

Huna beraz, Jean Marie Luro gure **onddoketariari** zer gertatu zaion eta huni esker gizon bat hiltzetik beiratua izan dela. **Herria**

Onjo urtea izan da aurtengo hau, oihan xoko frangotarik xareak onjoz beterik ateratzen ikus baitzitazkeen **onjoketariak**. **Herria**

Denek badakite ere zer ihiztaria eta **onjoketaria** zen. **Herria**

onddotegi iz onddo eremua. • *irud*

Baina abiadura askoz ere handiagoa da orain; «Lapurdi **onddotegia** bihurtu da, nonahi etxekoak sortuz» azpimarratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

ondeste *(orobat hondeste g.er.) iz* heste lodiaren azken zatia, uzkian amaitzen dena.

Ondestean tumore gaiztoa aurkitu diote Angel Alcalde presoari. **Berria - Euskal Herria**

Bi tumore atzeman zizkieten **hondestean**, hainbat hilabetetan odola botatzen aritu ostean. **Berria - Euskal Herria**

Vioxx botikak koloneko eta **ondesteko** polipoak saihesteko balio ote zuen jakiteko hasi zuten ikerketa hori. **Berria - Gaiak**

Espetxean bihotzkeoak eman, ospitalean ebakuntza egin, eta **ondesteko** minbizia aurkitu zioten gero. **Berria - Euskal Herria**

Haragi gorriek zein haragi prozesatuek koloneko eta **ondesteko** minbiziarekin lotura zuzena dutela aurkitu zuen iaz Minbiziaren eta Elikaduraren Inguruko Europako Ikerketak (EPIC). **Berria - Gaiak**

ondiko 1 iz atsekabea; zorigaitza.

Egun hautan gure herrian **ondiko** zorigaitza badabila; Mayi Teiletxea 58 urtetan hori ere gan da tanpez bezala. **Herria**

Han gutzia zen dolua eta atsekabea, gaitza eta zorigaitza, **ondikoa** eta ondoko ondore ezin penagarriagoa... **Joan Mari Irigoien**

Ondikoak mingosturik, edateari ekin zion. **Jose Morales**

Hildakoen etxea husteak areagotu egiten du doluaren oinazea, haren **ondiko** guztiak dastaraziz. **Joxan Elozegi**

Berant ote nenbilen neure **ondiko** izugarriaren deitoratzen eta auhentzen hasteko? **Joan Mari Irigoien**

Zer **ondiko** handia nik, zuk diozun bezala, neure hutsegiteak aintzat hartu izana. **Jon Muñoz**

2 ondikoz (7 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean; orobat ondikotz 102 agerraldi, 21 liburu eta 15 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian ondikoz agertzen da) adlag damurik, zoritxarrez.

Ondikoz, ardoa dugu Euskal Herriko gaitzik handiena, Bermeora eta Santa Agedara ardoak eramaten du jendea samaldaka. **Gotzon Garate**

Ondikotz, Kristinak ez zion inoiz nire apetari amorerik eman. **Aingeru Epaltza**

Baina, neure senak erabaki adimendutsu hartarat bulkatu baninduen ere, egoera hark ez zuen luze iraun, **ondikotz**. **Joan Mari Irigoien**

Eta 1875ko Santomasetan (txistorrik gabe emana, **ondikotz**!) Donostiatik etorritako mezulari baten bidez izan nuen berri fidagarririk. **Txillardegia**

- **Ondikotz** ... ez du ikusten, ez entzuten, ez ulertzen, eta ez da mintzatzen ere. **Elena Touyarou**

Euskal Herria musulmanen eta frankoen zein baskoien arrago, iraganeko lauso baino ez da, **ondikoz**. **Iñigo Aranbarri**

Errua bizitari buruzko eskakizunekiko arrapostu ezarekin ezkontzen zenean, horma itsua eraikitzen ari zitaion **ondikoz**. **Itxaro Borda**

3 ondikozko izlag zorigaitzokoa, zoritxarrekoa.

Ondikozko egoera horrek ugaltu egin du lapurreta, prostituzioa, borrokak eta mafiakeria. **Gotzon Garate**

Ondikozko etxe hartatik irtetean, ate-atean gelditu zen une batez doktorea, eta birrikak bete artean arnastu zuen askatasunaren airea. **Josu Zabaleta**

Makur zaitez batbederak zugan hain sarri miretsi izan duen eraman handi errukitsura, hura baita geure **ondikozko** bizitzan erein ditugun nahigabeak jasanarazten dizkigun bakarra. **Jon Muñoz**

Nafarroako erresuma izutu eta ikararazi zuten **ondikozko** gerla haietan. **Joan Mari Irigoien**

Bere sabel barruan hondatu zuen makina **ondikozko** hark lotzen zuen izaki txiki hura, estutu eta itxuragabetu egin zuen, eta munstro bihurtu zuen. **Josu Zabaleta**

ondikotz ik ondiko 2.

ondikoz ik ondiko 2.

ondino ik oraindino.

ondino ik oraindino.

ondo¹ (14054 agerraldi, 265 liburu eta 2665 artikulutan) 1 adlag nahi, espero edo behar den bezala; era onez, egokitasunez. ik ongi.

Hautzarooan **ondo** ibili nintzela erantzun nion, baina nerabezaroon ezetz, ikastetxean pasatutako lau urteak oso gogorrak egin zitzaizkidalda. **Bernardo Atxaga**

Zu eta zure familia **ondo** izatea espero dut, osasuna baita bizitzan dugun altxorrik preziatuena. **Imanol Zurutuza**

Umea **ondo** hazi, eta gero gaitza nola ulertu? **Berria - Harian**

Ez dakit **ondo** hezten ari ote garen. **Patxi Iturritegi**

Ondo jantzitako etxe oneko eta mojek **ondo** hezitako neskato onak. **Sonia Gonzalez**

Buruz-eta **ondo** jantzia dirudi, ordea. **Berria - Kirola**

Halako jokabideak **ondo** ikusiak zeuden ezkerreko ekintzaileen artean; are gehiago, liburuak lapurtzea ekintza iraultzailetzat hartzen genuen. **Juan Kruz Igerabide**

Neskak ahoa zabaldu zuen zerbait esateko, baina ez nion **ondo** entzun. **Anjel Lertxundi**

Esaiezu, arren, arreba zaitudala eta, hartara, zuri eder egitearren **ondo** hartuko naute ni ere eta bizirik utziko, zuri esker. **Jose Antonio Mujika**

Ondo irabazitako atsedean egun batzuk. **Bego Montorio**

Baina hasiera-hasieratik ez ziren **ondo** etorri Alleyne jauna eta biak. **Irene Aldasoro**

- **Ondo** da, ados, Lauaxeta jauna, ados. **Juan Luis Zabala**

Ondo da, ez dut eztabaidan hasteko gogorik. **Anjel Lertxundi**

Ondo da, pentsatu zuen Johnnyk, "agoantatuko dut". **Pako Aristi**

- **Ondo** da, **ondo** da -esan zuen buruzagiak marmarka. **Koro Navarro**

Goibel dabil, baina, gainerakoan, **ondo** dago. **Oskar Arana**

Eta **ondo** dago hori, ondo egiten bada behintzat. **Joxerra Garzia**

Ezin du etsi zu berriro ikusi gabe, baina oso **ondo** dago. **Oskar Arana**

- **Ondo** dago, Charlie, barrura sar daitezela -purrustaka esan zion atera azaldu zen mandatarari ilegorriari. **Lopez de Arana**

-Tira, **ondo dago** -esan zuen azkenean, eta txistua irentsi zuen. **Julen Gabiria**

2 (izenondo, adizlagun edo kideko batekin) oso.

- **Ondo** gogorra daukak burua! **Pedro Alberdi**

Ondo finak frantsesak. hantxe aurkitu genuen kamioi txiki bat **ondo** ezaguna: nire Peugeot. **Inazio Mujika Iraola**

Ondo egia zen bere kontura jarri zenean Gremio Clubeko bazkide gisa onar zezaten desio zilegia izan zuela. **Bego Montorio**

Fruta eskaini digu, baina garesti dago, **ondo** garesti hala ere! **Josu Zabaleta**

Ondo garbi idatzi zuen komisarioak gutunean. **Jon Muñoz**

Goiz-goizetik hasi eta **ondo** berandu arte, buru-belarri emanik egoten zen: bezeroak, hornitzaileak, eskaerak, salmenta, saillkapena, kontuak, itzulketak. **Jon Muñoz**

Guri gerrak begiak ireki zizkiguan **ondo** atsegingarri, gero **ondo** negargarri bide guztiak itxiko zizkigun bezala. **Pako Aristi**

Eskupeko legez 8 dolar eman nien eta **ondo** pozik gelditu ziren, itxuraz. **Edorta Jimenez**

Ondo ederki zeukaten ikasita gidoia, eta inor ez zegoen inprobisatzeko prest. **Karlos Linazasoro**

Zerbait esatearren izan zen, **ondo** ederto nekien Jesusen Afaria agertzen zuela, baina isiltasuna hausteko galdetu nuen. **Bego Montorio**

Ondo gogoan hartua zuen Grosrouvrek Tartagliaren aholkua. **Jon Muñoz**

Pentsatuko duanez, lantokio orduak, **ondo** jakinean zegoen mundu guztia kontuaz. **Juan Garzia**

3 (izen izenondodun batekin) oso.

Hari ez zitzaion, ordea, halako ezbeharririk gertatuko; **ondo** gizon maltzurra zen eta. **Jon Muñoz**

Izan ere, Joia andrea, 40 urteak jada beteak baina gazteen freskotasuna gordetzen zuena [...] **ondo** andre gustagarritzat jo zitekeen. **Bego Montorio**

4 (aditzekin) asko, oso, ederki.

Morroiarri gaztetan nahi duena egiten uzten diona **ondo** damutuko da gero. **Elizen arteko biblia**

Ondo merezia genuen zu galtzea, gurekin izan zaitugun bitartean, ez baikin arduratu zu ezagutzeaz. **Askoren artean**

Dena den, berak baino jende gehiago daukazu; harenak, gainera, **ondo** nekaturik datoz noski. **Juan Kruz Igerabide**

Nonbait **ondo** nazkatua zegoen hainbeste urteko Gerran inori sufrimendurik opa nahi izateko. **Xabier Etxabe**

Barrendik **ondo** bustia ibiltzen zela beti LNear hainbat goiz-saio egin ondoren, **ondo** beteta zeukan koadernoan. **Karlos Zabala**

Tripa **ondo** beteta zuenean. **Joan Mari Irigoien**

-**Ondo** dakik neroni ez nintzela zuekin izan Londreseko bidaian. **Iban Zaldúa**

5 *ondoegi* adlag

Ondoegi egiten ari duk satorrarena satorra izateko. **Harkaitz Cano**

Nire ustez, gauzak ongi egitea gustatzen zitzaielako; **ondoegi** apika, aberatsen etxeetan egiten diren modura. **Ramon Saizarbitoria**

Lidia, bere emaztea, oso ondo konpontzen zen, **ondoegi**, bere aspaldiko laguna zen Lukas Mingorancerekin. **Joxemari Iturralde**

Dirua irabazten du, eta ez dakigu zertan gastatzen duen, edo, hobeto esanda, **ondoegi** dakigu. **Karlos Zabala**

Gutziz bestaldera da, bada; **ondoegi** ulertzen dut dena. **Oskar Arana**

Eguna okupatua izaten genuela esan dut, baina nik behintzat ez dut **ondoegi** oroitzen zertan pasatzen genuen denbora. **Xabier Mendiguren Elizegi**

6 *ondo*en (262 agerraldi, 58 liburu eta 163 artikulutan) adlag ik beherago 7.

Uzkurra, horixe zen alboan nuen gizona **ondo**en definitzen zuen hitza. **Anjel Lertxundi**

Flaubert-en Topikoen Hiztegia-k "korrika **ondo**en egiten duen herria" dio "basque" hitzean. **Ramon Saizarbitoria**

Ondoen iruditu zitzaiona egin zuen. **Irene Aldasoro**

Port Vendrell inguruak ezagutzen nituen nik **ondo**en. **Anjel Lertxundi**

Ur handietan daudela gorderik gezur handienak eta ilunpe hartantxe egiten duela **ondo**en igerian arrain itsu hiztunak. **Iñaki Seguro**

Zulo ilunak ezagutzen zituzten, bazekiten **ondo**en itxitako hesiak ere nondik zeharkatu. **Karlos Zabala**

Ni nongoen sukalde barruan gertatzen zena ikusteko **ondo**en kokatua, eta hango ate erdi irekitik barrena ikusi nuen Roman etxeoandreaekin hizketatzen. **Inazio Mujika Iraola**

Ez dago motor termikorik, **ondo**en diseinatua dela ere, 100 °C iritsi gabe % 25eko eraginkortasuna iritsiko duenik. **Irene Aldasoro**

Gizon zaurituak, berriro, ahal zuen **ondo**en, esan zuen: [...]. **Irene Aldasoro**

Nolanahi ere, gerok ospatzeko opa zigula, ahal genuen **ondo**en, geure arimen osasunaren fabore, iruditzen baitzitzaion hala ere ordurako kaltetuxe ez ote zegoen. **Juan Garzia**

Ahalik eta **ondo**en egingo dut. **Julen Gabiria**

7 *ondo*ena (34 agerraldi, 9 liburu eta 17 artikulutan) adlag ik gorago 6.

Ez zuten alferrik esaten lehengo zaharrek pertsona logura antxean, gose antxean eta diru-falta antxean ibiltzen dela **ondo**ena. **Iñaki Seguro**

Zilarrezko biola bat, lore bat, izango zen bertsoz hunkigarrienak eta martxari **ondo**ena egokitua [...] asmatzen zituenarentzako saria. **Askoren artean**

Ondoena zeudenak orrela, eta beste asko eta asko illak. **Xabier Etxabe**

-Baina honela **ondo**ena. **Josu Zabaleta**

Luze gabe, ordea, beste markatari batzuek, piratek batzuetan -flandriarrak, holandarrak, ingelesak- hartu zuten lehentasuna eta baliatu zituzten **ondo**ena kolonietako gaien ekoizpena eta banaketa. **Koro Navarro**

Haiak ezagutzen zuten **ondo**ena eliza haren estiloa: ezaugarri arkitektonikoak, higaduraren kalteak, egin beharreko konponketa-lanak... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahal nuen **ondo**ena eramaten nituen Fortunatok egiten zizkidan erasoak. **Koro Navarro**

Berak gauzak ahalik eta **ondo**ena egin nahi zituelako. **Koro Navarro**

8 *ondo* asko (135 agerraldi, 44 liburu eta 19 artikulutan) oso ondo. ik ongi 8.

Ondo asko zekien saltsa gaizto batean ari zela nahasten, baina indarren batek bultzatzen zuen. **Koro Navarro**

Bai bainekien, **ondo** asko gainera, galduak ginela, baita itsasontzi hamar aldiz handiago batean egon bagina ere. **Koro Navarro**

Atentatu haietako asko suizidatzen jo daitezke, egileek **ondo** asko baitzekiten berehala atxilotu eta hil egingo zituztela. **Jose Morales**

Ondo asko ezagutzen haut!, zital hutsa haiz, ez didak haiengatik askorik ordainduko! **Jose Morales**

Hitz batez, historiak **ondo** asko irakasten digu lege penalek inoiz ez dutela suntsipena beste ondoriorik izan. **Iñaki Iñurrieta**

Ondo asko konturatzen nintzen autozentsura garbia zela hura, baina, jaten ematen dizun eskuari ez omen zaio kosk egiten eta... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Argitu beharrean, ordea, gauzak nahasten ari ginen eta gure zenbait hanka-sartze **ondo** asko haizatu zituen prentsak, gu lotsagarri utziz, haizatzeko modukoak izan baitziren izan ere. **Joxean Agirre**

Gudua laburra bezain arrantza ona egin zuten gure mutilek: zortzi euskal nazionalista, Españari zioten gorrotoan nabarmendu direnak eta hamaika mendigoitzale **ondo** asko armatuak. **Inazio Mujika Iraola**

9 *ondo* bai *ondo* oso ondo.

Are gehiago: forma aldetik **ondo** bai **ondo** garatu eta zoritua agertzen da bertsoz aritza lehen aipamen dokumentatu horietan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Zatiketa hori indarrez ezarririkoa da, dirua bezala, baina ez didazue ukatuko **ondo**-bai-**ondo** barneratuta eta geuretuta dugula. **Joxerra Garzia**

Balkoian dagoela, Gergoriok alimaleko oihua egin du, kalean dauden guztiak **ondo** bai **ondo** entzuteko modukoak. **Berria - Kultura**

10 *ondo* baino hobeto (236 agerraldi, 40 liburu eta 125 artikulutan; orobat *ondo* baino hobeki 2 agerraldi, 2 liburutan) ik ongi 10; ongi 11.

Hilobia neure begien maila berean neukan, beraz **ondo** baino hobeto ikusi nituen hango sartu-atera guztiak. **Jon Muñoz**

-Ez nuke nahi inork fanfarroitzat hartzerik -esan zuen F-k bere ohizko fintasunaz- baina nik **ondo** baino hobeto gogoratzen ditut Holden Caulfielden gorabeherak. **Bernardo Atxaga**

Sarak **ondo** baino hobeto ezagutzen ditu, etxean duen argazki-bilduma liburu batean agertzen baita Dietrich Mummendey-ren 1960ko erretratu hura. **Iban Zaldúa**

Ondo baino hobeto daki nor garen Jainkoak, eta zuek ere zeuen baitan badakizuelakoan nago. **Elizen arteko biblia**

Berehala jaiki zen, **ondo** baino hobeto sendatuta, eta poz eta gorespen oihuka hasi zen. **Askoren artean**

Gauzarik zailena hori zela, hain zuzen, **ondo** baino hobeto erakutsia zion filosofian zuen eskarmentuak. **Jon Muñoz**

Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala; eta hori benetan betetzen baduzue, **ondo** baino hobeto. **Elizen arteko biblia**

Ondo baino hobeto izorratu zuten. **Oskar Arana**

Jakin bai hark, **ondo** baino hobeto. **Joxe Austin Arrieta**

11 *ondo* hezi *izond* ondo hezitakoa.

Eskolatua nauk, **ondo** hezia, buru-jantzia, ezin hobeto prestatuak nagok, gai nauk jendea gobernatzeko. **Jose Morales**

Irakaslea, oster, gizonzkoa zen, hogeita hamatako urteko gizon beltzaran serio eta **ondo** hezia. **Jon Arretxe**

Afaria bukatu denean, Altzibarko nagusiak, bere logela eskaini dio hain eskeko **ondo heziari**, mandiao ez baitu lo egiteko gau-girorik egiten. **Anjel Lertxundi** Zein gizon **ondo hezik** ez lituzke begien aurrean ikusi nahiko Kattalin, Kattalinen dantza limurkorrak, ezpainetako karmin gorriak indartutako Kattalinen irribarra? **Anjel Lertxundi**

12 *ondo ibili* *interj* ik ongi 19.

Ondo ibili ! **Bernardo Atxaga**

Ondo ibili **Parisen.** **Javi Cillero**

-**Ondo ibili**, eta kontuz etxe aurreko errotondan buelta gehiegi eman gabe. **Xabier Etxabe**

Kopetan musutxoa eman eta **"ondo ibili** Marie, au revoir!" esan zion. **Joxemari Urteaga**

Tira, datorren astean hitz egingo dugu, bitartean agur eta **ondo ibili**. **Migel Angel Mintegi**

12a (izen gisa)

Izan zen, halere, malkorik, musurik eta **"ondo ibili"** sentikorrik. **Joxean Sagatzizabal**

Nork bere aldetik joan behar izan dugu, **"ondo ibili"** soil baten ondoren, eta penaz sartu naiz nire autobusean, pentsakor, neska misteriotu hari buruzko zalantzak argitzeko modurik ez izateagatik. **Jon Arretxe**

13 *ondo izate* iz ik ongizate.

Haiek zaharrak zitunan eta ez zitiztenan gaztezen zerak ikusten, baina gure **ondo izatea** begiratzten zitenan, hori bai. **Xabier Mendiguren Elizegi**

14 *ondo jaioa(k) egon* ondorio onik ez espero izan.

Ondo jaioa nago! **Txillardegi**

15 *ondo jantzi izond* ondo jantzitako.

Kalean, agure **ondo jantzi** bat neskatxari begira. **Anjel Lertxundi**

Gizon altua, **ondo jantzia**, betaurreko finak eta zapata garbi distiratsuak. **Sonia Gonzalez**

Harekin beste bi pertsona datoz, atezaina eta beste gizon bat, Beatrizen adinekoa, serioa, **ondo jantzia**. **Iban Zaldua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

aski ondo (12)

benetan ondo (9)

dena ondo (241); **dena ondo atera** (19); **dena ondo badoa** (11); **dena ondo dago** (9); **dena ondo egin** (13); **dena ondo joan** (16); **dena ondo zihoan** (10); **dena oso ondo** (16); **denak ondo** (17)

ez dabil ondo (10); **ez dago ondo** (45); **ez dagoela ondo** (9); **ez dakit ondo** (34); **ez daude ondo** (9); **ez hago ondo** (17)

fisikoki ondo (20); **fisikoki oso ondo** (9)

gauzak ondo egin (29); **gauzak ondo egiteko** (15); **gauzak ondo egiten** (18); **gutziz ondo** (9)

hain ondo (167); **hain ondo ezagutzen** (16)

izugarri ondo (17)

lana ondo egin (14); **lar ondo** (9)

nahi bezain ondo (16); **nahiko ondo** (119); **nahikoa ondo** (15); **nik bezain ondo** (9)

ondo adierazten (12); **ondo al zaude** (23); **ondo amaitu** (12); **ondo antolatuta** (17); **ondo antolatuta** (18); **ondo aprobetxatu** (16); **ondo ari** (178); **ondo ari da** (47); **ondo ari dira** (21); **ondo aritu** (143); **ondo aritu zen** (39); **ondo aritu ziren** (24); **ondo aritzea** (9); **ondo aritzen** (9); **ondo asko** (135); **ondo asko dakit** (9); **ondo asko ezagutzen** (12); **ondo asko zekien** (13); **ondo asmatu** (10); **ondo atera** (113); **ondo atera da** (15); **ondo atera zen** (13); **ondo aterako** (36); **ondo ateratzea** (11); **ondo ateratzen** (46); **ondo aukeratu** (10); **ondo azaldu** (17); **ondo azaltzen** (15); **ondo aztertu** (31); **ondo aztertuta** (9)

ondo babestuta (12); **ondo baderitzozu** (12); **ondo badoa** (16); **ondo baino hobeto** (235); **ondo baitakit** (9); **ondo baitzekien** (14); **ondo baliatu** (41); **ondo baliatu zuen** (18); **ondo begiratu** (37); **ondo begiratzen** (10); **ondo bereizten** (15); **ondo bete** (48); **ondo bete ere** (11); **ondo beteta** (21); **ondo betetzen** (15); **ondo bidean** (63); **ondo bideratu** (9); **ondo bideratuta** (10); **ondo bizi** (53)

ondo da (203); **ondo dabil** (10); **ondo dago** (285); **ondo dagoela** (62); **ondo dagoen** (9); **ondo daki** (82); **ondo dakien** (14); **ondo dakigu** (26); **ondo dakik** (18); **ondo dakit** (34); **ondo dakite** (63); **ondo dakizu** (24); **ondo dator** (11); **ondo daude** (33); **ondo daudela** (17); **ondo deritzo** (9); **ondo doa** (22); **ondo doala** (12); **ondo doaz** (13)

ondo edo gaizki (17); **ondo egin** (218); **ondo egin duzu** (13); **ondo egin zuen** (13); **ondo egina** (45); **ondo eginda** (15); **ondo egindako** (22); **ondo egingo** (24); **ondo egitea** (25); **ondo egiteko** (35); **ondo egiten** (134); **ondo egiten du** (19); **ondo egokituta** (18); **ondo egokitzen** (35); **ondo egon** (43); **ondo egongo** (35); **ondo egongo da** (10); **ondo egotea** (15); **ondo ekin** (19); **ondo ekin zion** (12); **ondo eman** (16); **ondo ematen** (30); **ondo entrenatu** (11); **ondo entzun** (30); **ondo entzuten** (15); **ondo erabiltzen** (14); **ondo erakutsi** (9); **ondo eraman** (10); **ondo eramaten** (10); **ondo erantzun** (35); **ondo erantzuten** (10); **ondo esan** (14); **ondo etorri** (22); **ondo etorriko** (58); **ondo etortzen** (15); **ondo eutsi** (68); **ondo eutsi zion** (31); **ondo ezaguna** (9); **ondo ezagutu** (48); **ondo ezagutzen** (421); **ondo ezagutzen du** (55); **ondo ezagutzen dugu** (22); **ondo ezagutzen dut** (29); **ondo ezagutzen nau** (10); **ondo ezagutzen zituen** (13); **ondo ezagutzen zuen** (36)

ondo funtzionatu (14); **ondo funtzionatzen** (25)

ondo gainditu (13); **ondo garbitu** (14); **ondo gaude** (26); **ondo gelditu** (19); **ondo geratzen** (12); **ondo gogoan du** (20); **ondo gogoan dut** (22); **ondo gogoratzen** (90); **ondo gogoratzen dut** (13); **ondo gorde** (11); **ondo gordeta** (16)

ondo hartu (85); **ondo hartuko** (17); **ondo hartzen** (29); **ondo hasi** (132); **ondo hasi zuen** (22); **ondo hasteko** (10); **ondo hezia** (10); **ondo hitz egin** (9); **ondo hitz egiten** (14); **ondo hornituta** (11)

ondo ibili (54); **ondo ibiliko** (15); **ondo ibiltzen** (10); **ondo idazten** (15); **ondo ikasi** (16); **ondo ikasita** (11); **ondo ikus** (9); **ondo ikusi** (81); **ondo ikusi dut** (10); **ondo ikusi nuen** (9); **ondo ikusten** (127); **ondo ikusten da** (9); **ondo ikusten dut** (20); **ondo irabazia** (10); **ondo irakurri** (13); **ondo irizten** (9); **ondo irten** (22); **ondo irtetzen** (9); **ondo irudituta** (20); **ondo iruditzen** (84); **ondo iruditzen zait** (28); **ondo islatu** (11); **ondo itxi** (22); **ondo itxita** (12); **ondo izan** (16)

ondo jabetzen (9); **ondo jakin** (58); **ondo jakin ere** (9); **ondo jakin gabe** (20); **ondo jan** (9); **ondo jantzita** (19); **ondo jarri** (16); **ondo jartzen** (10); **ondo jaso** (11); **ondo jaten** (14); **ondo jo** (10); **ondo joan** (72); **ondo joan zen** (16); **ondo joanez gero** (15); **ondo joango** (17); **ondo jokatu** (122); **ondo jokatu zuen** (19); **ondo jokatzeta** (19); **ondo jokatzeko** (72); **ondo jotzen** (17)

ondo kokatu (11); **ondo kokatuta** (25); **ondo konpondu** (28); **ondo konponduko** (9); **ondo konpontzea** (9); **ondo konpontzen** (70); **ondo kostata** (11)

ondo lan egiten (10); **ondo legoke** (21); **ondo lo egin** (49); **ondo lotu** (14); **ondo lotuta** (28)

ondo menderatzen (12); **ondo merezia** (24); **ondo merezita** (19); **ondo merezitako** (14); **ondo moldatu** (69); **ondo moldatu zen** (14); **ondo moldatzen** (168); **ondo moldatzen da** (30); **ondo moldatzen naiz** (18); **ondo mugitu** (13)

ondo nago (128); **ondo nagoela** (22); **ondo nagok** (11); **ondo nekien** (13); **ondo nengoela** (12); **ondo neurtu** (21)

ondo ondo (30); **ondo ondoan** (195); **ondo ondolik** (49); **ondo oroitzen** (18); **ondo osatu** (12)

ondo pasa (32); **ondo pasatu** (38); **ondo pasatuko** (10); **ondo pasatzea** (30); **ondo pasatzen** (43); **ondo pentsatu** (41); **ondo pentsatua** (10); **ondo pentsatuta** (35); **ondo pentsatuz** (20); **ondo pentsatuz gero** (17); **ondo pentsatzen** (13); **ondo portatu** (18); **ondo portatzen** (30); **ondo prestatu** (26); **ondo prestatuta** (31); **ondo prestatutako** (9); **ondo prestatzen** (9)

ondo samar (10); **ondo sartu** (9); **ondo sartuta** (13); **ondo sentitu** (13); **ondo sentitzen** (37)

ondo tratatu (11); **ondo tratatzen** (13)

ondo ulertu (110); **ondo ulertu zuen** (10); **ondo ulertzeko** (11); **ondo ulertzen** (92)

ondo zagok (26); **ondo zaindu** (45); **ondo zaindua** (11); **ondo zainduta** (29); **ondo zaintzen** (15); **ondo zaude** (37); **ondo zaudela** (14); **ondo zegoela** (36); **ondo zegoen** (33); **ondo zegok** (28); **ondo zehaztu** (11); **ondo zehaztuta** (10); **ondo zekien** (70); **ondo zekiten** (18); **ondo zihoala** (13); **ondo zihoan** (15); **ondo zihoazen** (11)

ondo (27)

oso ondo (1649); **oso ondo ari** (42); **oso ondo aritu** (27); **oso ondo atera** (12); **oso ondo dago** (52); **oso ondo dagoela** (12); **oso ondo daki** (11); **oso ondo egin** (20); **oso ondo egiten** (21); **oso ondo egokitzen** (10); **oso ondo egon** (9); **oso ondo ezagutu** (9); **oso ondo ezagutzen** (89); **oso ondo gogoratzen** (20); **oso ondo hartu** (17); **oso ondo hasi** (14); **oso ondo ikusi** (17); **oso ondo ikusten** (20); **oso ondo iruditzen** (10); **oso ondo jakin** (13); **oso ondo joan** (11); **oso ondo jokatu** (20); **oso ondo jokatzeko** (15); **oso ondo konpontzen** (19); **oso ondo moldatu** (11); **oso ondo moldatzen** (29); **oso ondo nago** (23); **oso ondo pasatzen** (12); **oso ondo ulertu** (17); **oso ondo ulertzen** (38); **oso ondo zaindu** (10)

taldea ondo dago (12)

ze ondo (16); **zein ondo** (36); **zeinen ondo** (13); **zer ondo** (12)

ahalik eta ondoen (59); **ondoen egiten** (12)

ahalik eta ondoena (15)

ondo² 1 iz gauza zati bati baten, hura aukitzen-edo daigena. (izen soil baten eskuinean) ik albo; aldamen.

Joan ziren, bada, eta han aurkitu zuten astakumea ate **ondo** batean kanpotik lotuta, eta askatzen hasi ziren. **Elizen arteko biblia**

Ateburua eta ate-**ondoak** trakets tailatutako granito urdinezkoak ziren. **Fernando Rey**

Leiho **ondo** utzi eta, oso poliiki ibiliz, ohe ertzean eseri zen Mikelengandik ahalik eta urrutien. **Aitor Arana**

Bata Ameriketara joan zen, bestea Maiek huts uste zuen etxe **ondoaren** zaintzen egon. **Itxaro Borda**

Hiriko toki gomendagaitzak bisitatzen hasi zen: bertako portu inguruko karrikatxoak, Gaztelu Berriko soldadueria ibili ohi zen zerritegiak, Baiona Ttipiko hegoaldeko harresi **ondoak**. **Elena Touyarou**

Urriaren 20an baizik ez du Mauleko suprefetak plantan ezarriko berri emaila sare bat, jakiteko zer ari diren espagnol liberalak muga **ondoetan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Jainkoaren eskutik utzitako bazter batean, joan-da-joan eta sekula iristen ez den erreka-**ondo** batean bizi da Maria Luisa. **Iñaki Segurola**

Iturri **ondo** batean eseri eta beste deskantsu bat egin genuen. **Pedro Alberdi**

Atzamarkatua eta urratua ageri zituen, azkenik, ezpain **ondo** eta eskubiko masaila. **Joxemari Urteaga**

Kresalak bakarrik erretzen duen moduan zartaturik zeuzkan begi-**ondoak**. **Anjel Lertxundi**

Zauri **ondo**, sendatua; edo sendatzen hasia bederen? **Txillardegia**

2 aldiria.

Emaztea 1872an Pariseko **ondoetan** sortua zen, ama, Marie Chaput, Baigorriarra zen. **Michel Oronoz**

3 ondoko, ondorengo denbora. (izen soil baten eskuinean) ik **bazkalondo** etab.

Entzun dut emazte bat irrati hortakoa herio **ondoaz** mintzo zena. **Herria**

Baziren jadanik soldadu zirenak eta haiek orotara zazpi urte egin behar izan zituzten, gerla bera eta gerla **ondo** ere kondatuz. ik gerraondo. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gerla **ondo**: Harriturik egona naiz ikusiz nola bilduak ziren Irak-eko xiitak beren hiri sainduan. **Herria**

Gainera, gudu **ondoaren** zera zegoen, egoera, triskantza, azterketa. **Karlos Linazasoro**

Bertzeek ez bezala, ministroarenean bazkaltzen gelditzen nintzen eskola **ondoetan**. **Aingeru Epaltza**

Omasaindu **ondo**. **Herria**

Tamainaren eta distantziaren ebaluazioari dagozkion ilusioak baizik ez ditugu aipatuko hemen (eta ez ikuspen-**ondoari** edo hondar-ikuspenari dagozkionak, urjauziaren ilusioa, adibidez). **Josu Zabaleta**

Geroko laga beharko ziren zentsurak eta zentsura-**ondoak**. **Lutxo Egia**

4 ik ondorio.

Gertaerak **ondo** utzi zuen etxeko giroan. **Aingeru Epaltza**

5 ondoan adlag

Ondoan ardangela egongo da argia sartzeko leiho bat duela iparraldera begira. **Santiago Iruetagoiena**

Ondoan nahi ninduen, inoiz izan ez zuen semearen lekuan. **Aingeru Epaltza**

Ondoan banituen 3 edo 4 laborari, Touraine-koak. **Marzel Etxehandi**

Ondoan, arditegi berria, modernoa, hiru lau ehun ardi aise aterbetuko dituen. **Piarres Aintziart**

Hemen **ondoan** bizi naiz. **Oskar Arana**

Esnatzen denean, Petrus dauka **ondoan**, sofan eserita, garagardo botila bat eskuan duela. **Oskar Arana**

Hiztegia **ondoan** neukan. **Aitor Arana**

Bertze gizon bat zekarren **ondoan**, gazteagoa. **Aingeru Epaltza**

Sophie-ri galdegin zion ea leku bat bazuen **ondoan**. **Eneko Bidegain**

Adinik gabeko fela bat kokoriko jarri zitzaion **ondoan**. **Jon Muñoz**

Eta **ondoan**, tinta-lata batzuk, eta makina-olio ontzi pare bat. **Txillardegia**

Burdin eta zerrapo hotsa **ondoan**. **Xabier Montoia**

6 (izen soilaren eskuinean)

Azkenean, leihoak osoki zabaldurik, aulki bat hartu eta ohe **ondoan** jarri zen. **Elena Touyarou**

Eta gelan, leiho **ondoan** bertan, Maguggia zaharraren ohea zegoen. **Koldo Biguri**

Zuhaitz **ondoan** egongo dituk, gerizpean. **Aitor Arana**

Andaluziako Malaga hirian jaioa zen, itsas **ondoan**, denak belaunaldiz belaunaldi kristau zaharrak izan ziren etxe batean. Autoaren bolante **ondoan** zegoen erloju borobilaren orratzek jiraka jarraitzen zuten. **Felipe Juaristi**

Pazko **ondoan** ere, eskolarik ez zeno, Pantxika jitekoa zen bere aitarekin. **Janbattitt Dirassar**

Gernika **ondoan** bizi nintzen. **Bernardo Atxaga**

Eta han, urrunago, Ebro **ondoan** dagoen Mendabian herrian hil zen, bataila batean, Zesar Borja. **Piarres Aintziart**

Komentu batentzat toki bila zebilelarik, Jan Pierrek begiztatuko zuen Salvatore kapera **ondoan**. **Xipri Arbelbide**

7 (-en atzikiaren eskuinean)

Arbelaren **ondoan**, egutegiak 1957ko iraila zela adierazten zuen. **Bernardo Atxaga**

Nabarrerian berean eraikia zen, Arrotxapeko atearren **ondoan**, San Zernin burgoa begipean zuela. **Aingeru Epaltza**

Biltegiako atearren **ondoan** etxerako sarrera normala dago. **Josu Zabaleta**

Leiho zabalduaren **ondoan** esertzera joan naiz. **Josu Zabaleta**

Pista estaliaren eta portiko bikoitzaren **ondoan** pasealekuak egingo dira estali gabe kanpoan. **Santiago Iruetagoiena**

Igo zuen aldapa, irribarrez, eta nire **ondoan** eseri zen zubian. **Irene Aldasoro**

Bizkarretik hartu nuen eta goxoki zegoen ene **ondoan**. **Janbattitt Dirassar**

Mornatarrak dira! -murmurikatu zuen druidak Fionnen **ondoan**, kezka-keinu batean eskua aurpegira eramanez. **Joanes Urkixo**

Haren **ondoan** bizi zen orduan, atari berean, eta eskolara ere elkarrekin joaten ziren. **Ramon Saizarbitoria**

Martxel anaia gazteak eta biok egiten genuen lo bertan, ohe banatan eta elkarren **ondoan**. **Txillardegia**

Plazako bi aldeetan, bankuak daude, bata bestearen **ondoan** jarrita, ilara luze semizirkularra osatzen dutenak. **Karlos Zabala**

Tiraderan, hari muturrak, jostorrazak, otoitz liburu bat, Ametsen giltza liburuaren ale zikin baten **ondoan**. **Karlos Zabala**

Ezin dut musu bat eman masaila batean besarkatzen dudanaren **ondoan** beste haren masaila ikusi gabe. **Josu Zabaleta**

8 (aditzaren era burutuaren eskuinean) ondoren.

Komunzki, jan **ondoan**, gose ginen. Dudan egon **ondoan** arrosarioak utzi zizkidaten. **Marzel Etxehandi**

Apur bat ixilik egon **ondoan**, andereak segitu zuen: [...]. **Janbattitt Dirassar**

Bozkariozko une hura hainbertze urtez igurikatu **ondoan**, aitaxi ez zegoen halako arrazoiatar: [...]. **Aingeru Epaltza**

Meza eman **ondoan**, erretoreak erromesei esplikatzeko die Santutegiko zizelkaduren adierazpena. **Piarres Aintziart**

Irriz ase **ondoan**, bota zuen aitzina beretik: [...]. **Janbattitt Dirassar**

9 (-ko atzikiaren eskuinean)

Kanboko **ondoan** bizi naiz. **Janbattitt Dirassar**
Etxe hori aipatzen dugunaz geroz, jakin behar da, anitez berantago, 1972an, egina izan dela oroitari bat Ardandegiko **ondoan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Atzo, goizeko hametak laurden gutitan, Uztaritzeko **ondoan**, Baionatik Kanbo alderat doan errepidean, patar baten zolako bihurgune batean, auto bat zerbait gisaz joan da arunt zeharka eta arroilarat uzkaile. **Janbattitt Dirassar**

10 aldean. (-en atzikiaren eskuinean)

Baina zer dira zertzelada arin horiek, bete diren xede garrantzitsuen **ondoan**? **Jon Muñoz**
Hura poza, beti iruditu baitzizaidan txiki samarrak neuzkala, osabarenen **ondoan** bederen. **Aitor Arana**

11 ondoko izlag ondoan dagoena.

Ondoko herriko bestak ziren, martintzar-feria bat, dena oihu eta apustu nork astakeria handiagoa eginen. **Aingeru Epaltza**
Edo **ondoko** balkoian, 10ekoan, hirugarren solairuan [...] begirale izuti pare bat: Mendibiltarrak. **Txillardegi**
Marie Baiona **ondoko** herrixka batean jaio zen. **Iñaki Zabaleta**
Norbait hila zen **ondoko** logelan. **Imanol Zurutuza**
Halakorik gertatu gabe, pauso hotsen oihartzuna barreiatu zen **ondoko** gelatik. **Aingeru Epaltza**
Bakoitza **ondokoari** itsatsia du, elkarki atxikiak, ezin bereziak. **Elizen arteko biblia**
Gure Eskuliburuan erratan eta frogatzen den bezala 15. artikuluan eta **ondokoetan**. **Piarres Xarriton**
Era berean, **ondoko** hitz hauek ere aipa daitezke: [...]. **Xabier Kintana**
Ondoko taulan ikusten da hau hobeki: [...]. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Osagai analisiari dagokion gramatika-eredu berriaren adibide erraz bezala, har bedi **ondokoa**: [...]. **Itziar Laka**
- Zergatik ametsik gabe? - galdetu zion **ondokoak**. **Josu Zabaleta**

12 (izen soilaren eskuinean)

Etxe **ondoko** parkera eraman eta lagunei erakutsi. **Alberto Barandiaren**
Geltoki **ondoko** tabernara sartu zen, kafea hartzera. **Jon Maia**
Puska baten buruan handik atera zen, eta ate **ondoko** paretari bermatu. **Elena Touyarou**
-Muga **ondoko** herriak dira lehenik zaindu beharko direnak. **Elena Touyarou**
Liburua ohe **ondoko** mahaitxoan utzi, eta Adari begiratu nion. **Anjel Lertxundi**
Aitak Kalkuta **ondoko** lantegi batean lan egiten zuen. **Gotzon Garate**
Handik bi urtera, Absalomek errege- seme guztiak gonbidatu zituen Efraim **ondoko** Baal-Hatzorren egiten ari zen ardi-mozketako jaira. **Elizen arteko biblia**
Nik ez dut irten nahi, eta ate **ondokoa** naizenez ezin da inor irten, eta indarka hasi zaizkit. **Bernardo Atxaga**
Suitzarra zen, Lausana **ondokoa**. **Aingeru Epaltza**
- Tom zihoan gidari; ni, gidari **ondoko**; Lucy atzean. **Oskar Arana**
Haren ofizial **ondoko** bihurtu zen. **Karlos Zabala**

13 (-en atzikiaren eskuinean)

Eser gaitezen hemen -esan zuen arrosategiaren **ondoko** banku bat seinalatuz-. **Bernardo Atxaga**
Nire **ondoko** ohean. **Hasier Etxeberria**
Nire idazmahaiaren **ondoko** apal bateko ohar-koadernoak. **Xabier Olarra**
Agindutako jaiegun horien aurreko eta **ondoko** hiru egunetan. **Elizen arteko biblia**
Lekutua zen haren **ondoko** emakumea. **Aingeru Epaltza**
Elkarren **ondokoak** ez diren lurraldeetan. **Isabel Arrigain**
- Berak sukaldearen **ondokoa**n egiten zuen lo. **Bernardo Atxaga**

14 ondoren datorrena.

Ondoko egunetan jakingo ote? **Txillardegi**
Ondoko egun batean esan zioten Joseri: [...]. **Jose Antonio Mujika**
Ondoko zazpi asteetan Lili Marlen nitaz burlatu zen. **Itxaro Borda**
Ondoko udan [...] deliberatu nuen norabait behar nuela mugitu, bazter ikuska ibiltzea ez dela kalte. **Janbattitt Dirassar**
Ondoko orrialdeetan saiatu naiz XX. mendeari buruzko hausnarketa pertsonal bat egiten. **Pello Salaburu**
Hau **ondoko** lanen hastapena baldin bada, aurrerantzean ez dute izango burutu ezinezko egitasmorik. **Jose Antonio Mujika**
Aste oso honetarako eta **ondoko** besteetarako. **Patxi Altuna**
Har ditzagun **ondoko** perpausok: [...]. **Itziar Laka**
Karmin gorri margotuta **ondokoa** zegoen idatzita: "Abiadura gustatzen, Julia?". **Jasone Osoro**
-Zergatik ametsik gabe? - galdetu zion **ondokoak**. **Berría - Euskal Herria**

15 (izen soilaren eskuinean)

Epifania **ondoko** bigarren igandea. **Herria**
Kristo **ondoko** 65. urtean. **Imanol Zurutuza**
Konbertsio **ondoko** lehenbiziko aste horietan, East Villagen ibili zen batera eta bestera. **Xabier Olarra**
Ene denboran ere behar izan ditut ezitutu gerla **ondoko** zauriak, gudariak kasik fede bereko fededunak ziren. **Michel Oronoz**
Erdialdeko mendebaldean ari baitzen hura ere garai hartan, gradu-**ondoko** lana egiten Chicagon. **Oskar Arana**
Eta azkenik, solas-**ondoko** uzten dut galde bat, egundainotik kezkatu nauena, eta gaur hemen zertan dugun berrikusi nahi nukeena: [...]. **Piarres Xarriton**
Horra zergatik amets ederrik egin ahal izan genuen, II. Mundu Gerla **ondoko** lehen urte haietan, oraino gazte ginen lagunek. **Piarres Xarriton**

16 (-en atzikiaren eskuinean)

Euriaren **ondoko** gardentasuna giroan, bustiaren distira gauza guztietan. **Koldo Izagirre**
Goizeko eskolen **ondoko** pausaldian geunden, Akademiaren aitzineko plazan. **Aingeru Epaltza**
Hilketaren **ondoko** bi egunetan ez da burrunbarik falta hirian. **Aingeru Epaltza**
Hilketeta-saio bakoitzaren **ondoko** biharamun goizean, Settlers erietxera eramaten du furgoneta bete, erraustegira. bekatua agerikoa denean, esate baterako, emagaldutako ageriko batena eta auzi baten **ondoko** epaiarena edo tratatzen dituen pertsonak kutsatzen dituen oker ageriko batena. **Oskar Arana**

17 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Jaiki **ondoko** lehenbiziko kezka "mezzorodo" delakoa ongi egina ote zegoen begiratzera zuen. **Fernando Rey**
Joantto etorri **ondoko** egunetan, herritar guztiak haren joan-jinen goaitan egon ziren. **Elena Touyarou**
Aitona hil **ondoko** bederatzirenean izan genuen lehen berria. **Alberto Barandiaren**
Jesusengan eta hil **ondoko** bizitzan sinesten du. **Oskar Arana**
Goizik afaldu **ondoko** lehen kopaxkan. **Aingeru Epaltza**
-Ez zinen-eta graduatu **ondoko** eskoletara joan. **Oskar Arana**
Sublimazioa, nola alkohola uretatik sublimatzen den, edan **ondoko** zaporerik ez arrastorik utzi gabe. **Oskar Arana**

18 iz ondoren datorren pertsona. (-en atzikiaren eskuinean) ik ondorengo 5.

Hil zutenean gobernu burua zen eta Francoren **ondokoa**. Pello Salaburu

Abokatu eta legeagizon leinu baten **ondokoa** zen Ezponda. Aingeru Epaltza

Ni naiz izan nintzen haur haren **ondokoa**, ondorengoa eta oinordekoa; haur baten ondorengoa naiz, ume baten umea naiz. Iñaki Segurola

Uste dut, beraz, gure **ondokoek** guk baino gehiago eginen dutela eta, nolazpait, Herria aitzina badoala. Piarres Xarriton

· Orain Iturburu-ko **ondokoak** dira hor bizi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

19 **ondoko** (esapide modukoetan)

-Ze barkatu eta barkatu **ondoko**! Unai Iturriaga

-Ze hi haiz hi eta hi haiz hi **ondoko**! Unai Iturriaga

20 **ondora** (*orobat ondorat g., er.*)

Eta esan zidan: "Zatokit, arren, **ondora** eta hil nazazu; hilzorian nago, baina oraindik bizirik". Elizen arteko biblia

Ondora salto egin eta altzora igo zitzaion Crookshanks, urrumaka. Iñaki Mendiguren

San Frantziskok, **ondora** etorri zitzaionean, galdetu zion: "Nor zara zu?". Askoren artean

Ikasleak **ondora** bildu zitzaizkionean, Paulo jaiki eta berriro hirian sartu zen. Elizen arteko biblia

Lulu batzuetan **ondora** hurbiltzen zitzaion. Josu Zabaleta

Jainkosari berari ere bihotza beratu zitzaion, eta, **ondora** etorrita, esan zidan: [...]. Juan Kruz Igerabide

21 (izen soilaren eskuinean)

Aldian behin eskua eramaten nuen galtzarbe **ondora**, eta agiriak jaka-barreneko patrikan zeudela sentitzeak pixka baterako lasaitzen ninduen. Domengak Joanto besotik hartu zuen, eta leihu **ondora** eraman, hobeki ikusteko. Anjel Lertxundi

Gelako beste txokora joan zen orduan Matias, ate **ondora**, Halah, Habor eta Hara lurraldeetara eta Gozango ibai **ondora** erbestera zituen; han bizi dira gaurdaino. Unai Elorriaga

Iritsiak ginen bere hoteleko eskailera **ondora**. Ramon Saizarboritoria

Biharamunean, preso guzti-guztiok, Iruñe **ondora** gutarrek garraiatu, eta Don Carlosen aginduz, askatuak izan ziren! Txillardegi

Larretak dioenez, Tiber **ondora** joan ziren euskaldunak "illun" zeuden borrokaldiaren bezperan. Martin Anso

22 (-en atzikiaren eskuinean)

Aita, busti-bustirik, suaren **ondora** joan zen lehortzera. Juan Kruz Igerabide

Berogailuaren **ondora** joan nintzen jesartzera. Monika Etxebarria

Ihes egiten saiatu zen Muxir, eta osabak botatako tiro batek jausi zuen teilatutik behera, emakumeen artera, zerraldoaren **ondora**. Iñigoren **ondora** itzuli nintzen berriz. Juan Kruz Igerabide

Zatoz nire **ondora**, Lilio, egizu berba nire orde. Koldo Izagirre

Jaiki eta haren **ondora** jo zuen Fubukik. Joxan Elosegia

"Oso ondo, David", esan zidan berak, eta Redinen **ondora** joan zen esertzera. Bernardo Atxaga

Fionnek bere arma jaitsi zuen eta, druidari bizkarra emanez, Mael eta Oisnengana itzuli zen, Bran kordegabetuaren **ondora**. Joanes Urkixo

Udan laket zuten Luzaideko etxean egoitea, zernahi adiskide gomitatuz beren **ondora**, denek batean besta eder batzu muntatuz eta horrela herria algeratuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

23 (-ko atzikiaren eskuinean)

Heltzen da [bidea] Errekuliseneko **ondora**, non ere juntatzen baita Donibane Garazitik Portaleburun gaindi jin bidearekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

24 **ondoraino**

Eta ez zieten begiratu zazpiren bat aurpegiei, **ondoraino** etorriak ehiztariaren errifleari ezikusi eginda. Anton Garikano

Ama **ondoraino** hurbiltzen ausartu zen eta, deabruaren kontra konjuru ugari botaz -hura zela uste baitzuen-, alaba ohean ez zuten saiatu zen. Askoren artean

25 (izen soilaren eskuinean)

Zutitu eta mahai **ondoraino** etorri zen. Matías Múgica

Sukaldeko ate **ondoraino** lagundu eta kanpoko lorategian zenbat tulipa ikusten dituen galdetu dio. Imanol Zurutuza

Su **ondoraino** joan zen bizkor, eskuak igurtzika, txinpartak atera nahi balizkie bezala. Irene Aldasoro

Trenak 400 metro eraman zuen autoa arrastaka, Hellingo geltoki **ondoraino**. Berria - Mundua

Baztanen hasi eta, Ultzaman barrena, Iruñe **ondoraino** datorren lerroak egiten du muga. Koldo Zuazo

26 (-en atzikiaren eskuinean)

Garai bateko ibilbide buruz ikasiari jarraikiz, Pyrénées jatetxearen **ondoraino** bertaratu da, barrura egin gabe. Javi Cillero

Baina sorkariek ez daukate barrurago sartzerik, arimaren **ondoraino**. Joan Mari Lekuona

"Badakik, David? auto hori Begigorriyarena izan zuan lehenago", esan zidan Osaba Juanek nire **ondoraino** etorrita. Bernardo Atxaga

Batzuetan argi-itzala bere **ondoraino** heltzen zen. Anjel Lertxundi

27 (-ko atzikiaren eskuinean)

Gaitzeiko ibiladia eskaintzen dauku Landesetako hegi hortarik Bilboko **ondoraino**, portuz-portu, hor gaindi kausi ditazkeen bazterrak aipatuz bainan ere zernahi argitasun emanez, nun zer den ikusteko eta itsasoari dauden elkarteak nun zoin diren... Herria

28 **ondorako izlag**

Jakoben nahia, hil **ondorako**. Jose Antonio Mujika

Bi apez hitzeman zizkiola Bazko **ondorako**. Xipri Arbelbide

Hogeita zortzi hortzetako eskuila erabiltzen zituen, launaka bilduta plastikozko zorrotan, asteko egun bakoitzaren izenarekin, koloreen arabera bereiziz ordua edo erabilera: berdea hortzetarako, gorria mihirako, horia bazkari **ondorako** eta urdina oheratzerako. Bego Montorio

29 **ondotik**

-Zazpi eginahalak egin ditut, baina gibelak ez dezake gehiago jasan... -erran zion, **ondotik** iragaiterakoan, ez zela batere hobendun ulertaraziz. Elena Touyarou

Jende artean aurrera zihoazen bitartean, Colin Creevey igaro zitzaion **ondotik**. Iñaki Mendiguren

la egunero pasatzen da **ondotik**. Eneko Bidegain

Mehatxu handi bat dago hiriaren gainean -esan nion gizabidetsu, **ondotik** pasatzean. Monika Etxebarria

-Erakutsiozu nola azeleratzen duzun, Harry! -oihu egin zion Fredek, **ondotik** ziztu bizian pasatu zitzaionean, Aliciarengana zihoan bludger baten atzetik. Iñaki Mendiguren

Bidea ezagutzen duelakotz, aitzinean doa Xanti, gibeletik Xabi, **ondotik** Elur. Michel Oronoz

30 (izen soilaren eskuinean)

Malfoy, Crabbe eta Goyle zakar pasatu ziren arbola **ondotik**, izei-orratzak alde guztietara barreiatuz eta pozik irribarre eginez. Iñaki Mendiguren

-Soldadutzako batailarik ez, mesedez -entzun zen ate **ondotik**. Iñaki Iñurieta

Ohe **ondotik** goporra hartu eta hurrupada txiki bat edan du Agerrek. Aingeru Epaltza

-Soldadutzako batailarik ez, mesedez -entzun zen ate **ondotik**. Iñaki Iñurieta

Arduratuegia baitzegoen besaburu gainetik begira bere ezkerreko belari **ondotik** igaro zen urrearen distirari. Iñaki Mendiguren

Oraingo Zubiandua Pekoetxetako mendi aldera eramana izan da erreka **ondotik** urren. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

31 (-en atzizkiaren eskuinean)

Atzo, hiriko biztanleak ezikusi eta ezentzun pasatzen ziren emakumearen **ondotik**, egiteko handiagoak dituztenen itxuran. **Aingeru Epaltza**

Bortz segundoko astia eman nion neure buruari, anaiaren plateraren **ondotik** nabala hartu arte. **Aingeru Epaltza**

Galdetu dio ea bazekien nola pasatu Fluffyren **ondotik**. **Iñaki Mendiguren**

Gorputa ekidinez Yvesen **ondotik** iragan ziren. **Itxaro Borda**

32 atzetik.

Atzetik jarraitzen zion, **ondotik** zezena balu bezala, ni aho bete hortz hantxe utzita. **Juan Kruz Igerabide**

Deabrua **ondotik** balute bezala egin zuten eskapo. **Aingeru Epaltza**

Kurios pinta erdi, **ondotik** jarraiki zitzaion. **Elena Touyarou**

Aita zaldien aitzinean zebilen urratsean eta bera **ondotik**, trinkili-trankala, eskuan matoa zatxikala. **Itxaro Borda**

Hain segur, abiatuak zaizkizue mutikoak **ondotik**. **Daniel Landart**

33 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

J-ren **ondotik**, K, K-ren **ondotik** L. **Monika Etxebarria**

Kamioneta zahar baten **ondotik** gabiltzak. **Aingeru Epaltza**

Orain seme-alaba baboen eta koinatu ezdeusen arrastoen **ondotik** nabilek, Erkidegoko Gobernuaren eta Udalaren enpresa publikoetako bulegoetan. **Aingeru Epaltza**

Kristina gure **ondotik** etorria zen igoera malkartsuan barna, eta komun tikiraino egin zuen urrats handian. **Aingeru Epaltza**

Lantto honentzat izenburu baten **ondotik** nenbilerarik, politika gaiez ariko naizela adierazi nahiz, gogoratu zitzaidan *Res Publica* latinezko hitz elkarte zahar hura. **Piarres Xarriton**

34 ondoren.

Ondotik, Alcalako unibertsitate sortu berrian sartu zen gai liberalak, filosofia naturala eta moralak, bai eta teologia eskolastikoa ikastekotan. **Piarres Xarriton**

Eta **ondotik** honela esaten du: [...]. **Patziku Perurena**

Hortan egiten da lan ederrik, eta gero, pentsatzen dut, politika, gero jinen dela, **ondotik**, fruitu bezala. **Menane Oxandabaratz**

Lehenik ezkerria, gero eskuina, **ondotik** berriz ezkerria, eskuina, ezkerria, eskuina... **Eneko Bidegain**

Maiatz aldizkarian argitaratu zituen bere lehen literatura lanak eta, **ondotik**, literatura aldizkari askotan kolaboratu izan du. **Ana Urkiza**

Deiari erantzunez atera zen emazteak so kezkatu batez behatu zien, lehenik Joantori eta, **ondotik**, elizgizonari. **Elena Touyarou**

Joantok buruaz baieztatu zuen eta, **ondotik**, sukaldetik atera zen eta, nehor agurtu gabe, etxetik alde egin zuen. **Elena Touyarou**

Isilunea **ondotik**, eta Annyk ez du hausteko asmorik. **Monika Etxebarria**

35 (izen soilaren eskuinean)

Trentoko Kontzilio **ondotik** piztu ziren erlijio gerrak lekuko. **Patziku Perurena**

36 (-en atzizkiaren eskuinean)

Gure ama haren **ondotik** etorri zen, 1542an. **Aingeru Epaltza**

Gaur bezalako gau ero baten **ondotik** hondartzan gosaldutik genian, laurehun kilometro egin eta gero. **Aingeru Epaltza**

Hainbeste urtetako loriaren **ondotik**! **Patxi Zubizarreta**

Hamar urteren **ondotik** ez zitzaizkion gogotik joan: "Haur da ene seme maitea...". **Aingeru Epaltza**

Ahari-saiheskiaren **ondotik**, vatrushkak zerbitzatu zituzten. **Jose Morales**

Maletaren **ondotik**, gainerako puskek igo zizkieten: kaobazko kutxa bat Kareliako urki-zurezko apaingarriz edertua, zapata-orkoiak eta paper urdinean bilduriko oilo erre bat hurrenez hurren. **Jose Morales**

37 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Abuztuko ortzirale horretan, beheko txirrina jo **ondotik**, esperoan gelditu nintzen, ateari kontzen niola. **Aingeru Epaltza**

Orain badira, hortaz, zenbait pertsona "ezagutu" egiten nautenak, ni ikusi **ondotik** pentsatzen dutenak "gutakoa da". **Monika Etxebarria**

Etxeratu **ondotik**, arratsa pasa zenuen bakar bakarrik. **Ramuntxo Etxebarri**

Eguraldi argia dagoelarik, zaratotsak hiria mutur batetik sartu eta bestetik ateratzen dira, pareta guztietan zehar iragan **ondotik**. **Monika Etxebarria**

Ohola agintariei erakutsirik, eta egin beharreko frogak burutu **ondotik**, baieztatu ahal izan zuten eski-ohola Sven Malysena zela. **Josetxo Azkona**

38 *ondotikako izlag*

Aipatu gabe **ondotikako** milaka eri eta hilak, xankre eta gainerateko gaitzen ondorioz. **Herria**

Ondotikako ekitaldi guziak Bilgune aldean iraganen dira. **Herria**

Kenduko dizkiote hiriko bestaren zenbait seinale, hala nola gakoan hedapenaren **ondotikako** "mazkleta" su ziri ozenen tiraldia. **Herria**

39 (-en atzizkiaren eskuinean)

Bigarren partean ihurzuri xuri/gorriak esperantza guziak zapuztu ditu: bost minuta barne hiru entsegu sartu dituzte Miarriztarrek, eta emaitza orokorra (41/16), zorrotzagoa izan zitekeen aise, entseguen **ondotikako** ostikadetan tantorik ez baitute xuri/gorriek erdietsi. **Herria**

40 *ondotiko izlag (-en atzizkiaren eskuinean)*

Larrua jotzea baino zakarragoa, bilkuren **ondotiko** onanismo gastronomikoa... batez ere harremanen anorexiarekin ezkontzen denean! **Itxaro Borda**

Desiraren gaueko erakustaldiek, debaldeko bilkuren **ondotiko** bakardadearen izaria oparimintzen zidaten. **Itxaro Borda**

Zezenketaren aurretikoak eta **ondotikoak** dira. **Jokin Muñoz**

41 *ondo-ondoan*

Atzerago, San Martingo kanposantuko hilarri mordoak ikusten nuen gelatik, San Bartolomeko komentutzar berriaren aurrean, eta **ondo-ondoan** Sebastian infante eta mariskal-ohiaren jauregia. **Txillardegi**

Ondo-ondoan, Luisaren aurpegia, ezpainak, bere gorputz leuna, benetakoa. **Pako Aristi**

Ondo ondoan, etxe berri batean, idazki zahar bat, 1671koa. **Michel Oronoz**

Esango dizut orain Raket nire atzean dagoela zain, eta haren gerizpe, **ondo-ondoan**, Ruben. **Patxi Zubizarreta**

42 (izen soilaren eskuinean)

Nik bezain ongi ezagutzen zituzten ene gurasoek, adibidez, etxe **ondo-ondoan**, Plaza Zaharreko Irazu anaiak. **Txillardegi**

Horma zuri pintatu berrian pintada hauxe ageri zen, sarrera **ondo-ondoan**. **Karlos Linazasoro**

Trenbide **ondo-ondoan** zegoen etxe batean bizi ginen. **Jokin Urain**

43 (-en atzizkiaren eskuinean)

Une batean Piers eta Dudley beiraren ondo-**ondoan** zeuden, eta berehala atzeraka salto egin zuten, izuaren izuz txiloka. **Iñaki Mendiguren**

Etxe horren **ondo ondoan** baitzen pilota plaza bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Han geunden tente-tente, gure buruak harenaren **ondo-ondoan**. **Daniel Landart**

Aterpe hutsean berokiak astinduz zituzten, elurra eserlekuetan barreiatuz, eta, elkarren **ondo-ondoan** oraindik ere, bolatokiko leihoaren aldamenean eseri ziren. **Koro Navarro**

44 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

45 *ondo-ondoko* izlag

Bera ohe barruan atsedenean eta ni **ondo-ondoko** alfonbra gainean eserita. **Aitor Arana**

-Eta, hasteko -jarraitu zuen-, Gortearen **ondo-ondoko** Zuzendaritzak prestatuturik, geure Egunkari Ofiziala argitaratuko diagu. **Txillardegi**

Gauza bera gertatzen da arteriaren luzera osoan eta haren **ondo-ondoko** zainetan. **Irene Aldasoro**

46 (-en atzizkiaren eskuinean)

Armistizioaren **ondo-ondoko** hilabeteetan hil ziren. **Fernando Rey**

47 *ondo-ondora*

Banekien luze gabe etorriko zela inguruan zelatan egitera, **ondo-ondora** etorriko zitzaidalda, agian ukitu ahal izateko moduan, heltzeko moduan agian? **Josu Zabaleta**

Errepidea **ondo-ondora** sartu dioten arren, badirudi landareek antzinagokoa den beste aire bat gorde dutela hemen, eta horrek in elikatzen dituztela euren kimu lerdenak.

Pako Aristi

Elkarri begietara zuzen begira geratu ginen eta laster **ondo-ondora** etorri zitzaidan. **Aitor Arana**

48 (-en atzizkiaren eskuinean)

Gainazal zakarra ferekatzen zuen neurrian belarriaren **ondo-ondora** eramaten zuen eta haren kontra jarri, adi-adi entzuteko keinuaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

49 *ondo-ondoraino*

Zeren hurbiltzen ari baitziren, nahi gabe, elkarrengana alboratzen, **ondo-ondoraino**. **Anton Garikano**

Gurekin zeunden ikasgelaren **ondo-ondoraino** iritsi arte! **Iñaki Mendiguren**

50 *ondo-ondotik*

Berak orduan zirkulu erdi bat eginez hasi dira nire bila, zakur sarnadunak bezala, eta haietako biren erdian gertatu naiz ni, **ondo-ondotik** pasa zaizkit. **Bernardo Atxaga**

Nire aurretik igaro ziren, **ondo-ondotik**, eta urruntzen ikusi nituen. **Josu Zabaleta**

Kapela erantzi eta ilea **ondo-ondotik** moztua zuen buru handi bat erakutsi zuen Ignatius Gallaherrek. **Irene Aldasoro**

51 (-en atzizkiaren eskuinean)

Bud haren **ondo-ondotik** igaro zen harrokeria nabarmenaz. **Lopez de Arana**

Esan zahar batek dio askotan igarotzen garela zorionaren **ondo-ondotik**. **Josu Zabaleta**

Florak Brooklynera egin zuen ikustaldi zorigaiztokoaren **ondo-ondotik** etorririk, lehenbiziko aitorten hura benetan izan ote zen bihotz-bihotzetik ateratako negarra? **Oskar Arana**

52 *ondo ondoko* izlag

Ondoz ondoko berrikuntza zehatzak gertatuko dira; eta berrikuntza horiek, bere aldetik, beste hainbesteko zati gertaerak izango dira, haien izaeraren arabera zerrendatzen, deskribatzen eta saiklatzen ahal direnak. **Isabel Arrigain**

Hazkundealdian gizabanako sortzaileek erantzun arrakastatsuak ematen dizkiete **ondo ondoko** erronkei. **Iñaki Mendiguren**

Ondoz ondoko enuntziatuaren arteko multzokatze-motak ez dira beti berdinak eta ez dute jokatzeko sekula ere ez, segidako osagaien pilatze edo justaposizio hutsez.

Xabier Arregi

Ikusmeneko pertzepzioa, era horretara, gure begietan sartzen den argiaren bidez iristen zaigun informazio baten elkarren **ondo ondoko** alditan banaturik egiten den tratamendua da. **Josu Zabaleta**

41 *ondo ondokotasun* iz ondoz ondokoa denaren nolakotasuna.

Aztarna horien bitartez imajinatiboki hautematen dira kanpo-gorputzak, zeren eta arrasto horiek (eta horiei dagozkien ideiak) nahiz eta desagerrarriak izan jasotako afekzioen aldebekotasun eta **ondo-ondokotasunarengatik**, halaber, egia da elkartzeko-prozesuen bidez berrezarriak izan daitezkeela. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

afal ondoan (22); **alpatu ondoan** (8); **aitaren ondoan** (22); **aldare ondoan** (14); **amaren ondoan** (26); **anaiaren ondoan** (8); **arbasoen ondoan** (11); **argazkiaren ondoan** (9); **aritu ondoan** (11); **arizan ondoan** (17); **ate ondoan** (170); **ate ondoan zegoen** (11); **atearen ondoan** (42); **atera ondoan** (11); **autoaren ondoan** (12)

bakoitzaren ondoan (8); **barra ondoan** (10); **bata bestearen ondoan** (101); **bazkal ondoan** (29); **bazkari ondoan** (8); **belarri ondoan** (21); **belarriaren ondoan** (8); **bere arbasoen ondoan** (10); **bere ondoan** (262); **bere ondoan eseri** (8); **beren ondoan** (10); **berogailuaren ondoan** (9); **bete ondoan** (10); **beti ondoan** (8); **bide ondoan** (16); **bildu ondoan** (14); **bukatu ondoan** (14); **burkoaren ondoan** (14); **bururatu ondoan** (12)

ditu ondoan (18); **du ondoan** (21)

egin ondoan (211); **egon ondoan** (89); **elgarren ondoan** (10); **eliza ondoan** (12); **elizaren ondoan** (22); **elkarren ondo ondoan** (17); **elkarren ondoan** (310); **elkarren ondoan bizi** (12); **elkarren ondoan eserita** (12); **elkarren ondoan jarri** (11); **elkarren ondoan jarrita** (8); **eman ondoan** (48); **ene ondoan** (37); **entzun ondoan** (19); **erre opariaren ondoan** (8); **erregearen ondoan** (15); **erreka ondoan** (18); **errekaren ondoan** (8); **errepidearen ondoan** (8); **eskaini ondoan** (10); **etxe ondoan** (53); **etxearen ondoan** (24); **ezagutu ondoan** (8); **ezarri ondoan** (12)

galdu ondoan (46); **geltoki ondoan** (8); **geltokiaren ondoan** (10); **gerla ondoan** (11); **gidariaren ondoan** (11); **gorpuren ondoan** (10); **gurasoen ondoan** (8); **gure ondoan** (45)

haien ondoan (84); **haren ondoan** (290); **haren ondoan eseri** (14); **hartu ondoan** (31); **hasi ondoan** (9); **hauen ondoan** (8); **hemen ondoan** (8); **herriaren ondoan** (9); **herriko etxearen ondoan** (9); **hesiaren ondoan** (8); **hil ondoan** (35); **hilobi ondoan** (11); **hilobiaren ondoan** (10); **hire ondoan** (14); **hiri ondoan** (10); **honen ondoan** (29); **horien ondoan** (25); **horma ondoan** (10); **hormaren ondoan** (13); **horren ondoan** (65)

ibai ondoan (26); **ibaiaren ondoan** (29); **ibili ondoan** (48); **ikus ondoan** (22); **irabazi ondoan** (42); **iragan ondoan** (38); **iturri ondoan** (15); **iturriaren ondoan** (17); **itzuli ondoan** (10); **izan ondoan** (50); **izango ditu ondoan** (10)

jan ondoan (12); **jaunaren ondoan** (12); **jo ondoan** (14); **joan ondoan** (14); **jokatu ondoan** (33); **jordan ondoan** (8)

kantatu ondoan (11)

lagunaren ondoan (9); **leiho baten ondoan** (8); **leiho ondoan** (76); **leihoaren ondoan** (22); **lortu ondoan** (8)

mahai ondoan (17); **mahaiaren ondoan** (15); **meza ondoan** (32); **mintzatu ondoan** (10); **muga ondoan** (9); **mugaren ondoan** (9)

nagusiaren ondoan (17); **neskaren ondoan** (10); **neure ondoan** (27); **nire ondoan** (200); **nire ondoan eseri** (15)

ohe ondoan (61); **ohearen ondoan** (18); **oinen ondoan** (13); **ondo ondoan** (195); **ondo ondoan zegoen** (8)

ondoan agertu (19); **ondoan aurkitu** (22); **ondoan aurkitu zuen** (9); **ondoan belaunikatu** (14); **ondoan bizi** (65); **ondoan bizi zen** (11); **ondoan bizi ziren** (11); **ondoan dago** (48); **ondoan dagoela** (8); **ondoan dagoen** (119); **ondoan daude** (20); **ondoan dauden** (22); **ondoan den** (33); **ondoan denak** (8); **ondoan diren** (9); **ondoan du** (11); **ondoan duela** (14); **ondoan duen** (13)

ondoan eduki (9); **ondoan egin** (40); **ondoan egiten** (13); **ondoan egon** (66); **ondoan egon zen** (8); **ondoan egongo** (16); **ondoan egotea** (22); **ondoan egoteko** (14); **ondoan egoten** (12); **ondoan ehortzi** (12); **ondoan ehortzi zuten** (10); **ondoan eman** (11); **ondoan erori** (8); **ondoan eseri** (163); **ondoan eseri nintzen** (14); **ondoan eseri zen** (61); **ondoan eseriko** (8); **ondoan eserita** (99); **ondoan eserita zegoen** (13); **ondoan esertzea** (8); **ondoan esertzen** (33); **ondoan esertzera** (8); **ondoan etzan** (42); **ondoan etzan zen** (17); **ondoan etzanda** (25); **ondoan ezarri** (14); **ondoan gelditu** (71); **ondoan gelditu zen** (23); **ondoan geratu** (57); **ondoan geratu zen** (30); **ondoan gertatu** (9); **ondoan geundean** (8); **ondoan hartu** (8); **ondoan hasi** (8)

ondoan ikusi (24); **ondoan ipini** (14); **ondoan izan** (61); **ondoan izan zuen** (11); **ondoan izanen** (10); **ondoan izango** (20); **ondoan jarri** (118); **ondoan jarri zen** (23); **ondoan jarri zuen** (8); **ondoan jarriko** (8); **ondoan jarrita** (33); **ondoan jarriz** (15); **ondoan jartzeko** (8); **ondoan jartzen** (26); **ondoan jesarri** (9); **ondoan joan** (10); **ondoan nahi** (23); **ondoan nengoen** (11); **ondoan neukan** (9); **ondoan nuen** (12)

ondoan paratu (8)

ondoan utzi (35); **ondoan utzi zuen** (10); **ondoan zegoela** (19); **ondoan zegoen** (157); **ondoan zen** (12); **ondoan zetzan** (8); **ondoan zeuden** (49); **ondoan zeukan** (20); **ondoan zihonan** (9); **ondoan zituela** (12); **ondoan zituen** (9); **ondoan zuela** (31); **ondoan zuen** (42); **ondoan zutik** (58)

opariaren ondoan (9); **osatu ondoan** (8)

paretaren ondoan (10); **pariseko ondoan** (16); **pasatu ondoan** (15); **plaza ondoan** (15); **preso egon ondoan** (18); **putzu baten ondoan** (8)

sarreraren ondoan (9); **sarreraren ondoan** (11); **sartu ondoan** (13); **senarraren ondoan** (11); **suaren ondoan** (25)

ukan ondoan (12); **utzi ondoan** (14)

zubiaren ondoan (8)

[6] **arafaten ondoko** (5); **ate ondoko** (40); **atearen ondoko** (9); **bazkal ondoko** (5); **beharrez ondoko** (5); **bere ondoko** (32); **bide ondoko** (10)

egin ondoko (6); **eliza ondoko** (24); **elizaren ondoko** (12); **elkarren ondoko** (20); **elkarren ondoko lurraldeetan** (7); **epifania ondoko** (9); **erreka ondoko** (18); **errepide**

ondoko (11); eskola ondoko (6); eskola ondoko (49); gela ondoko (9); geltoki ondoko (11); geltokiaren ondoko (7); gerla ondoko (13); gerra ondoko (26); gidariaren ondoko (5); gizakunde ondoko (5); gradu ondoko (6); gure ondoko (9); han ondoko (5); haren ondoko (26); hau ondoko (6); hil ondoko (25); hiri ondoko (9); hiriburua ondoko (6); hondartza ondoko (5)

ea ondoko (5); ibai ondoko (25); ibaiaren ondoko (6); iruñ itsas ondoko (11); iturri ondoko (5); kafe eta ondoko (5); leiho ondoko (31); leiho ondoko mahaian (5); mendekoste ondoko (5); muga ondoko (8); nabulus ondoko (5); nire gela ondoko (5); nire ondoko (13); nirearen ondoko (5)

ohe ondoko (46); ohe ondoko mahaitxoan (7); ondo ondoko (7)

ondoko aldi batez (5); ondoko aldian (7); ondoko aste (20); ondoko astean (33); ondoko asteburuan (9); ondoko asteetan (44); ondoko asteotan (13); ondoko astetan (25); ondoko atetik (5); ondoko aulki (13); ondoko aulkian (25); ondoko aulkian eseri (6)

ondoko belaualdiei (5); ondoko besaulkian (9); ondoko bidea (5); ondoko denboretan (6)

ondoko egun (19); ondoko egunak (20); ondoko egunean (7); ondoko egunetako (27); ondoko egunetan (300); ondoko egunetan ageriko (6); ondoko egunetan ikusi (5); ondoko egunotan (14); ondoko erregela (5); ondoko eserlekuan (6); ondoko etxe (24); ondoko etxe batean (6); ondoko etxeak (6); ondoko etxean (13); ondoko euskal (5); ondoko ezkien artetik (6)

ondoko gauean (12); ondoko gela (24); ondoko gela batean (9); ondoko gelako (6); ondoko gelan (49); ondoko gelara (15); ondoko gelara joan (6); ondoko gelatik (23)

ondoko harri (5); ondoko hau (14); ondoko hauek (12); ondoko hauek dira (7); ondoko helbidera (8); ondoko helbiderat (5); ondoko herri (16); ondoko herrikka (9); ondoko herrikka batean (7); ondoko hilabete (13); ondoko hilabete horietan (5); ondoko hilabeteetan (13); ondoko hilabetetan (29); ondoko hiru (16); ondoko hitz (10); ondoko hitzordua (6); ondoko hitzorduak (8); ondoko honetan (5); ondoko hori (5)

ondoko igandean (19); ondoko iturrian (5)

ondoko kale (9)

ondoko larunbatean (13); ondoko lau (8); ondoko laugarren (6); ondoko lehen (18); ondoko lehenbiziko (5); ondoko lehenengo (5); ondoko lerroetan (6); ondoko lurraldeetan (7)

ondoko mahai (23); ondoko mahai batean (10); ondoko mahaian (20); ondoko mahaitxoan (8); ondoko mahaitxoaren (6); ondoko mendean (7); ondoko mendi (7)

ondoko ohean (14); ondoko orduetan (6); ondoko orrialdeetan (7); ondoko ortzegunean (5); ondoko ortziraletan (5)

ondoko paretan (5); ondoko plaza (5); ondoko plazan (5); ondoko prentsaurrekoan (5)

ondoko taberna (13); ondoko taberna batean (8); ondoko tabernara (5); ondoko taula (5); ondoko taulan (5)

ondoko urratsa (5); ondoko urte (11); ondoko urteak (6); ondoko urtean (56); ondoko urteetako (6); ondoko urteetan (61); ondoko urteko (7); ondoko urteotan (5); ondoko urtetan (53); ondoko urtetan ere (5)

ondoko zelai (7); ondoko zelaian (6); ondoko zortzian (12)

ondo ondoko (19); oraino ondoko (5); paris ondoko (10); plaza ondoko (8); portu ondoko (7); sarrera ondoko (5); sukalde ondoko (12); trinket ondoko (6); trinketa ondoko (5); txoferraren ondoko (5)

zubi ondoko (7)

[3] aitaren ondora (3); amaren ondora (3); ate ondora (23); ate ondora hurbildu (3); atearen ondora (3); belarri ondora (4); bere ondora (25); beren ondora (4); berogailuaren ondora (3)

elkaren ondora (4); eskailera ondora (3); etxe ondora (5); gorpuaren ondora (3); gure ondora (4); haien ondora (5); haren ondora (24); haren ondora itzuliko (3); haren ondora joan (3); harryren ondora (4); ibai ondora (3); lagunen ondora (3); leiho ondora (13); leiho ondora hurbildu (4); nire ondora (21); nire ondora etorri (4)

ohe ondora (12); ondo ondora (5)

ondora ailegatu (5); ondora ailegatu ginen (3); ondora bildu (5); ondora deitu (3)

ondora ekarri (4); ondora ekartzen (3); ondora eraman (20); ondora eraman ninduen (4); ondora eraman zuen (7); ondora eramaten (3); ondora erori (3); ondora etorri (26); ondora etorri zitzaion (6); ondora etorriko (3); ondora etorrira (3); ondora etortzen (5); ondora heldu (16); ondora heldu zen (4); ondora hurbildu (22); ondora hurbildu nintzen (5); ondora hurbiltzen (4); ondora hurbiltzera (3); ondora hurreratu (3)

ondora iristean (6); ondora iritsi (29); ondora iritsi arte (3); ondora iritsi zen (3); ondora iritsi zenean (3); ondora iritsita (4); ondora itzuli (18); ondora itzuli da (3); ondora itzuli zen (9); ondora itzuliko (3); ondora itzultzen (6); ondora joan (34); ondora joan zen (11); ondora joango (3); ondora joateko (3); ondora joaten (4); ondora makurtu (4)

utzitako zuhaitzaren ondora (3); zuhaitzaren ondora ailegatu (3); zure ondora (3)

[3] ate ondoraino (5); ondoraino iritsi (5); ondoraino joan zen (3)

[8] aintzin eta ondotik (10); askoren ondotik (13); ate ondotik (17); atentatuaren ondotik (12); aztertu ondotik (8)

bailearen ondotik (9); bat bertzearen ondotik (15); bat bestearen ondotik (43); bata bertzearen ondotik (8); bata bestearen ondotik (59); bazkariaren ondotik (8); beraren ondotik (8); bere ondotik (42); bertzearen ondotik (23); bestearen ondotik (104); besteen ondotik (9); bildu ondotik (8); bilerraren ondotik (34); bozen ondotik (26)

egin ondotik (43); egon ondotik (9); elkarren ondotik (14); eman ondotik (16); ene ondotik (11); erasoaren ondotik (9); etenaren ondotik (10); etxe ondotik (9)

fluffyren ondotik (9)

gerlaren ondotik (17); gertakarien ondotik (12); gure ondotik (18); guzien ondotik (9)

hauteskundearen ondotik (29); isilune baten ondotik (25); izan ondotik (9)

lanaren ondotik (8)

mezaren ondotik (25); nire ondotik (56); onartu ondotik (8)

ondo ondotik (49)

ondotik abiatu (13); ondotik afaria (18); ondotik aperitifia (14); ondotik bazkaria (46); ondotik bere (12); ondotik berriz (8); ondotik besta (8); ondotik dantzaldia (57); ondotik dator (10); ondotik denak (11)

ondotik egin (15); ondotik eginen (11); ondotik erran (9); ondotik etorri (48); ondotik etorri ziren (10); ondotik etorriko (15); ondotik gertatu (9); ondotik heldu (39)

ondotik igaro (83); ondotik igaro zen (22); ondotik igarotzean (30); ondotik igarotzen (33); ondotik ikusi (8); ondotik iragan (17); ondotik izan (23); ondotik izanen (14); ondotik izanen da (13); ondotik jin (11); ondotik jinen (15); ondotik joan (29); ondotik mintzatu (9); ondotik mutxikoak (11); ondotik nahi (10)

ondotik pasa (15); ondotik pasatu (46); ondotik pasatzean (39); ondotik pasatzen (38); ondotik pasatzen zen (8); ondotik pasatzerakoan (17); ondotik pilota (8); ondotik prosioa (9); ondotik segidan (9); ondotik sortu (9); ondotik talo (21)

ondotik zer (14); ondotik zintzur bustitze (15); ondotik zintzur bustitzea (30)

partidaren ondotik (12); partidaren ondotik (14)

zerbaiten ondotik (8); zure ondotik (17)

[3] elkaren ondo ondoan (17); gure ondo ondoan (3); harryren ondo ondoan (4); neure ondo ondoan (5); nire ondo ondoan (5); nirearen ondo ondoan (3); ondo ondoan (195); ondo ondoan dago (3); ondo ondoan egon (4); ondo ondoan gelditu (3); ondo ondoan geratu (3); ondo ondoan jarrita (3); ondo ondoan zegoen (8); ondo ondoan zeuden (5)

ondo ondoko (7)

ondo ondora (5)

ondo ondotik (49); ondo ondotik igaro (5); ondo ondotik pasatu (3)

ondo³ 1 iz landare edo zuhaitzen banakoa. ikarteondo, mahatsondo etab.

Bi urte berantago aterbe baten pean ezarri zuten arbola zahar horren **ondoa**. Eta mahats aldaka zenbaitek, **ondoan** artetik edo berdin bidean berean luzaki hedaturik, beren hosto jori zabalak goizeko eguzki goxoan hain nagiki etzaten dituzte non ibiltariak, bereari jarraikiz, loak hartua iduri duten gauza bizidun horiek ez baititu nahi, lehertuz, iratzarrarazi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haatik, zuhaitz **ondoan** fruituak eta arto uzta mutilentzat, baita ere oilo, ahate, urtxo, zerri eta ardi zonbeitzu. Herria

Ez dakit nolaz haz zitezkeen, gutako inori ez baitzitzaion inoiz burutik pasatzen ez arrosa-**ondoak** ureztatzea ez inaustea. Fernando Rey

Etxe gibelego mimosa **ondoari** so nindagon joandean egun batez. Herria

2 motzondoa, epaitondoa.

Eta hamarretik bat bakarra bertan gelditzen bada, huraxe ere suari emango diote, haritza eta terebintoa bezala: moztu eta gero, **ondoa** besterik ez zaie gelditzen; baina

ondo horretatik kimu santua erneko da berriro. Elizzen arteko biblia

Mizpira bere **ondoaren** gainean landu, urte batez zauriak senda zakizkion igurikatu eta, zizelkatu ondoren,huna nun eskuratzen dutan. Herria

3 irud/hed

Eulia ala nematodoa? hilabete batzuek, Sydney-k emandako nematodo-**ondoarekin** jolasean jardun nuen. Juan Garzia

Egiten ditu hiru zati bere ederraren gutunak, lehenengoari atxikitzen dio eder harengandik jasoa zuen potret bat, bigarrenari maitasunezko hasiera letra bat eder hark pintatua, hirugarrenari haren adaretako ile **ondo bat**. Jon Muñoz

ondoan ik **ondo**² 5.

ondobide iz

1 **ondobidean adlag** arazorik ez bada.

Orain arte, pneumonia atipikoaren kasu bakarra baieztatu dute Osasunerako Mundu Erakundeko adituek eta ustez kutsatuta zeuden beste bi pertsonak datozen egunetan etxera itzuliko dira, **ondobidean**. **Berria - Gaiak**

2 **ondobidez adlag** arazorik ez bada.

Hogeita hamaikarekin Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren lau final jokatu da **ondobidez**. **Andoni Egaña**

Astia dagoenez pentsatzeko, bukaerarako zela uste zena igual bertsoaren tartean edo hasieran jartzen da eta handik abiatuz oso bestelako norabidea, eta **ondobidez** kalitatea, ematen zaio bertsoari. **Andoni Egaña**

ondoez (orobat **ondoeza g.er.**) 1 iz ongi ez dagoen pertsonaren egoera; bereziki, osasunaren erorialdi arina. **ikongiez; alditxar; ezinegon.**

Urdaila sentitzen ari nintzen, azken bolada hartan sarri bezala: ez zen **ondoeza**, ezta oina ere; sentitu egiten nuen, besterik gabe, nik ere urdaila baitut; sentipen ergela, nolana ere. **Joxe Austin Arrieta**

Ondoez moduko bat ere eragiten dit hemen eserita geratzeak, ezer egin gabe emanez orduak, edo egunak. **Eskarne Mujika**

Gizon etsitua ematen zuen, besteren zoritxar beti berdin eta beti berrituak sortzen zion **ondoezaren** aurrean sor agertzen ez zekien gizona. **Imanol Zurutuza**

Ondoeza egin zitzaidan. **Ramon Saizarbitoria**

- **Ondoezak** eman dio -saiatu da emaztea egoera zuritzen. **Anjel Lertxundi**

Etxera sartuta **ondoezak** eman zion, eta oso gutxira hil zen. **Pako Aristi**

Lepic jauna, eskarmentuzko ehiztaria den arren, irten egin da **ondoezak** jota. **Itziar Otegi**

Ondoeza izan du eta behaketa daukate. **Jesus Mari Mendizabal**

Justiziarekiko **ondoeza** agertzeko Iruzuraren Aurkako Plataformak gaur deitu duen manifestaziora joateko eskatu du Jokin Elarrek. **Berria - Euskal Herria**

Sukarra dugunean bekokia zapi busti bat ipintzeak **ondoeza** aritzen du. **Irene Aldasoro**

Telleriak fusilamendutik salbatu zuenean, halako **ondoez** bat egin zitzaion gure aitari, izuaren ondorioz edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hilabeteak igaro zituen horrela, **ondoez** horren mendeko, lerro bakan batzuekin borrokan, idazteko pasioaren eta aldi berean ezintasunaren morroi. Poliki-poliki **ondoez** azaldu ezin bat ari zitzaidan sartzen hala ere. **Joxean Agirre**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ondoez arin bat baizik ez... espero diat. **Alberto Ladron Arana**

Ondoez arin bati egotzi zion botaldia, digestio txarren bati. Tentatzailearen aurkako frogaz luzeetan zaildurik baitzaudete, litekeena da [...] ez noizitea hortik inolako eragozpenik; baina zuen lagunei ondoeza lekarkiekie horrek, **ondoez** larria... **Karlos Linazasoro**

Ondoez lauso bat sentitu nuen, eta zurruntasunari egotzen saiatu nintzen, eta ez narkotiko baten eraginari. **Juan Garzia**

Begiak itxi orduko, **ondoez** ezagun batek erasan du. **Itziar Otegi**

Ez zekien ezer gaixotasunaren larritasunari buruz, gripe soil bat izan zitekeen, edo bat-bateko **ondoeza**, emakumeen gauzak, esaterako, Haren nerbioetako **ondoeza** Cayenneko ameskeria luzeen esnaera besterik ez zen. **Jon Alonso**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esturazko ipuinak, betiere halako **ondoez** sentipen bat uzten dutenak. **Josu Zabaleta**

Gaixotasuna baino lehen izaten den **ondoez** aldia. **Josu Zabaleta**

lazko urriko eta azaroko indarkeria uholdeak auzo baztertuetakoko **ondoez** giroa nabarmendu zuela. **Berria - Mundua**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Behin aipatu nion, tamalez, neure urdail- **ondoezarena**. **Joxe Austin Arrieta**

5 **ondoezik aldag** ik **ongiez** 2.

Atea hertsarazi dut eta **ondoezik** nintzela erranarazi. **Jon Muñoz**

Ez nago guztiz osasuntsu, **ondoezik** nagoela ere esan dezaket. **Koro Navarro**

Nola itzuli zen hura Bechevera, bizkarrak eroriak eta bizitasunik gabe begietan, **ondoezik** egon balitz bezala. **Koro Navarro**

Pitin bat **ondoezik** sentitu zen hainbeste bonboi irentsita. **Lopez de Arana**

Usaindu eta berehala **ondoezik** sentitu eta lurrera erori zen. **Martin Anso**

Gizona **ondoezik** jarri zen, begiak bere onetik at. **Bego Montorio**

Sukarra, gorputz osoa **ondoezik**; hotzeri ederra harrapatua zuen. **Jon Muñoz**

Janari nazkagarria eman zidatek gaur bazkaltzeko, **ondoezik** zeukaat oraindik sabela. **Jose Morales**

Piztiak **ondoezik** behar zuen egon, zeren emakumeak, ahaleginean ari izanagatik, ez baitzuen lortu lehoiak ohiko ariketak egiterik. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ondoez arin (4)

hitzen ondoeza (49); **hitzen ondoeza liburuan** (18); **ondo eza sortzen** (3); **ondoeza egin** (17); **ondoeza egin zitzaidan** (6); **ondoeza egingo** (4); **ondoeza eragiten** (4); **ondoeza sentitu** (4)

ondoezak eman (4); **ondoezak jo** (3); **ondoezak jota** (6)

ondoezaren arrazoia (3)

ondoezik dago (4); **ondoezik egon** (5); **ondoezik jarri** (6); **ondoezik jarri zen** (3); **ondoezik jartzen** (4); **ondoezik nago** (5); **ondoezik sentitu** (11); **ondoezik sentitu zen** (5); **ondoezik sentitzen** (4); **ondoezik zegoela** (8); **ondoezik zegoela esan** (3); **ondoezik zegoelako** (3); **ondoezik zegoen** (4); **ondoezik zela** (3)

ondoezagotze iz

Egon liteke zalantza momentu bat, edo hobeto, Ortega baitan beti egon den zalantza **ondoezagotze** bat orain moda arrazistaren aurrean. **Joxe Azurmendi**

ondoezik ik **ondoez** 5.

ondoeztu, ondoez(tu), ondoezten 1 da/du ad ondoeza eman, ondoezak jo.

Gauza bat da kamioi baten azpian leherturik datzan gorputz baten bistan odolezko malkotan **ondoeztea**. **Iñaki Segurola**

Egin dezagun kontu, bada, hemen astintzen ari garen amodiozko pena izeneko gaitzak **ondoeztua** hagoela hi ere, munduan beste asko bezala. **Iñaki Segurola**

Ziztatu nauenean horrela **ondoeztea** ere! **Lopez de Arana**

2 (era burutua izenondo gisa)

Argi faltan ixten den lore bat bezala ilundu zitzaidan barrena, eta oinaze lausoa sentitu nuen, gaixotasun bat datorkizula abisatzen dizun gorputzald **ondoeztua**. **Anjel Lertxundi**

ondoko ik ondo² 11.

ondope iz oinarria.

Hemen moralak eta Zuzenbideak (hiriko legeak) bat egitera jotzen dute [...] eta biek Naturan dute **ondope** tinkoa eta etzauntza, gizaki klasikoak oraindik bere burua haren barru-barruan (ez buruz buru!) sentitzen zuen Natura handi Ama horretan. **Joxe Azurmendi**

ondora ik ondo² 20.

ondoragotu, ondorago(tu), ondoragotzen da ad ondorago jarri.

Andreasek, **ondoragotu**, eta galdetu zion zer ari zen irakurtzen. **Matías Mujika**

Zenbait barku zain zeuden portuan, geldi-geldi balantzan, eta **ondoragotu** nintzenezan, ur urdinaren eraso xuabe nekaezinak ohol zuri biguinak eta burdina beltz gogorra jotzearen hotsa entzun nuen. **Matías Múgica**

Ondoragotu, eta orduan eta handitzenago zitzaion aurpegia alde guztietatik, soinean zituen emakume janzki zabalegi aseegiek efektu bera egiten zutela. **Matías Múgica**

ondoraino ik ondo² 24.

ondoratu, ondora(tu), ondoratzen 1 da ad ondora etorri.

Batzuk, urruti zeudenez, **ondoratu** ere egin dira. **Iñaki Zabaleta**

110. geltokira heldu zirenean trenetik jaitsi eta kartelera **ondoratu** ziren. **Iñaki Zabaleta**

Ikusi gintuenean, altxatu eta **ondoratu** zitzaigun. **Matías Múgica**

Ondoratu nintzaiolarik, zorrozki begiratu zidan. **Daniel Landart**

Ondoratu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdegin zioten: -Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez? **Elizen arteko biblia**

Hortaz, Bera (gorets bedi!) ez zaio ezeri **ondoratzen** edo hurreratzen, Hari ere ezer hurrantzen eta hurbiltzen ez zaion bezala. **Xabier Kintana**

Neskame batek **ondoratu** eta esan zion: -Hi ere Jesus galilearrarekin bizi hintzen. **Elizen arteko biblia**

· Urrutzikina **belarri** ondoratu nuen. **Itxaro Borda**

2 (-ra atzikiaren eskuinean)

Leihora **ondoratu** nintzen. **Josu Zabaleta**

Eskailera urduri igo eta haiengana **ondoratzen** da. **Antton Olano**

Zarpatsuetako batek [...] Hurtadorengana **ondoratuz**, fazakeria barregarri batez esan zion: [...]. **Josu Zabaleta**

· -Ezin, bada, haraino **ondoratu**, Cowley zinegotziarekin hizketan ari zela! **Irene Aldasoro**

3 ondo-ondoratu

Angie larritu egin zen, "please, kanpora atera nahi dut", eta aurpegi luze haien sudurrak **ondo-ondoratu** egin zitzaizkion begietara eta algara egin zuten. **Iñaki Zabaleta**

ondore 1 iz ondorioa.

Agerian utzi nahi izan dut, jokabide jakin bat hartzen bada, hartatik **ondore** jakin bat segitzen dela. **Antton Olano**

Laburbilduz, beharrezko dugun unibertsa azkenik emaitza bat da, **ondore** aparteko bat, erabaki baten ondorioa, subjektuak bizi izandako egari dion leialtasuna. **Joseba Zulaika**

Baina ikusten duzue ene harreman haien **ondore** gaixtoa. **Joan Mari Irigoien**

Ipar beltzak **ondore** gaitzak. **Pello Zabala**

Hori izan zen Erosek Anterosen aurka eginiko guduaren **ondore** itzal beltzekoa. **Juan Garzia**

Ondore zibiletan arauzko den lege korritutik at ere, bada merkataritzan korritu arrunta, lege finko eta zehatz baten objektua ere ezin izan daitekeena. **Andres Urrutia**

Ikusi ditugu beraz horien **ondoreak**, beren itsas untzien inguruan beldurgabeko gudari famatuen moldean. **Herría**

2 ondorengoa, norbaitengandik sortutako izakien multzoa.

Basamortua mundua da, garai hartan landugabea eta antzua bertuteen doktrinari dagokionez; semeen **ondore** eder eta zabala, berriz, anaien kopuru handia, bertute oroz jantzia. **Askoren artean**

Esan zion: oparo bedeinkatuko zaitut eta **ondorea** erruz ugalduko. **Elizen arteko biblia**

Orain, adin honetara iritsi naizelarik, nire **ondoreaz** hasi naiz pentsatzen, eta tragikoa iruditzen zait mundu hau ondorengorik egin gabe utzi behar izatea. **Oskar Arana**

3 ondorez ondorioz.

Norberak, **ondorez** gertatuko zaionaren jakinaren gainean, hala eginez gero hil egingo dela jakinik, berariaz egindako edozein ekintza izango litzateke bere buruaz beste egitea. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Etsai urrun samar ikusi zuén egun batean, pentsatu zuen ezen hura zela bere ordua, eta entseiatu zen, **ondorez**, handik itzurtzerat eta ihes egiterat. **Joan Mari Irigoien**

ondorean adlag ondoren.

Hantxe ezagutzen dut Jean ere, nekazari-morroi bat, beti neure **ondorean** ibiltzen dena. **Eskarne Mujika**

Lana zen lan, eta **ondorean** poz eta afari-merienda: Uztaillean gariak ebaki, horrek zer poz duen nekazariak daki. **Pello Zabala**

Hain egoki ere, karrozaren ondoan zegoen, eta handi hartu ahal izan zuen bururi bat, ezkutatuz balioko ziona; eta **ondorean**, han joan ziren bata bestearengana, etsai amorratuak balira bezala. **Patxi Ezkiaga**

Honela erantzun zion Don Kijotek, horren guztiaren **ondorean**: [...]. **Patxi Ezkiaga**

ondorego iz ondorengoa, norbaitengandik sortutako izakien multzoa.

Bazen Albeniz-en **ondoregoko** norbait, eta ez nor nahi, emazte eder bat, Cecilia izenekoa eta deituraz Sarkozy, bai, hura bera, ministroaren andrea. **Herria**

ondoregotza iz ondorengotza.

Alta, «ez du arazorik» testu berrian erkidegoen izenak sartzeko, Europako Konstituzioa aipatzeko edo Koroaren **ondoregotza** zehazteko. **Berria - Euskal Herria**

ondoreko iz ondokoa, ondorengoa.

Eromos haietxen **ondorekoen ondorekoak** izan nahi dute, gure independentzia aldarrikatzera San Nikolasetan, Santa Ageda bezperan, San Blasetan... eskera bidaltzen ditugun euskal aingeru xuriok, edo noren **ondorekoak** bestela? **Patziku Perurena**

Berrehun urte paseak dira seme goizuetarra Napoleosen hil zela, baina oraindik hor etortzen omen dira Goizuetara haren **ondorekoak**, tobera hotsean, beren izen handiaren sustrai bila. **Patziku Perurena**

Orain, halakoen **ondorekoak** agertzen zaizkit tarteka, beren "eskudo" nobleak erakutsiz, harro harro! **Patziku Perurena**

ondoren¹ 1 adlag segidan, gero.

Hasieran, garia ematen zieten; **ondoren**, nahiago izan zuten lurrak ematea. **Iñaki Iñurrieta**

Horixe baitzen behin eta berriz irakurtzen zuen idazlea, Emile Ajar asmatu aurretik eta **ondoren**. **Joxean Agirre**

Hona dator, gero badoa, **ondoren** berriro dator, zerbait nahi badut berak dakarkit, eta entzun egiten dit. **Joxe Austin Arrieta**

Txaradiko hosto-hotsa entzun nuen, gero adar-kraskatzearena, eta **ondoren** esku-zartada moduko bat, animaliarene palastada, noski. **Joxe Austin Arrieta**

Giza zama horiek, **ondoren**, Amerikara eraman eta gai tropikalekin trukutzen ziren. **Koro Navarro**

Irri egin zuen berriro, eta **ondoren** barrez hasi. **Oskar Arana**

Ondoren zaldizkoen konpainien txanda izan zen. **Txillardegi**

Areatzako zubia igaro duzu **ondoren**, eta Alde Zaharrera sartu zara gero. **Rafa Egiguren**

Lehen bertsioa itzulpen moderno askoren iturri izan den *Sacrum Commercium Sancti Francisci cum Domina Paupertate* (Quaracchi, 1929) edizio kritikoari jarraituz egin da; **ondoren** *Fontes franciscani*-ko testuaren arabera berrikusi da. **Askoren artean**

Ondoren datorren guztia hitz hauen azalpena baino ez da. **Askoren artean**

"Por cierto" esan nion, **ondoren** erantsiko nuena orduantxe bertan bururatu izan balitzait bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Nolabaiteko nobleziaren erantsi du **ondoren**: [...]. **Monika Etxebarria**

Demokristauen ordezkariaren txanda etorri zen **ondoren**. **Koldo Biguri**

Bestetan baino operazio handiagoa egingo diote, nonbait, eta medikuek esan omen dute gutxi mugitu behar duela **ondoren**, ez zaiola batere komeniko egunero trenean eta batetik bestera ibiltzea. **Bernardo Atxaga**

Horrekin batera laster hasi ziren beste bi eskakizun gorputzen: hizkuntza nazionalerara itzultzea eskatzen zen [...] eta Vitruvioren "berrilustrazioa" egitea **ondoren**, hau da, testu hari galduta zeuden jatorrizko marrazkien ordeko irudiak jartzea. **Santiago Iruretagoiena**

Armairitik **ondoren** txaketa bat hartu eta "goazen" esan zuen, bizkarretik zintzilikatzen zuela. **Joxean Agirre**

2 (izen soilaren eskuinean)

Hirugarrenenerako eliza igandero bete egiten zen José Tudelaren biolina entzutearren, hasia baitzen hura bakarka jotzen, meza **ondoren** batzuetan, meza aurretik besteetan. **Felipe Juaristi**

Nolanahi ere, kristauak bezala ezin omen du sentitu, esan duenez, baina gerra **ondoren** inork ez omen du jakingo kristaua ala judua den. **Josu Zabaleta**

Lan bikoitza egin duzu: ikerlariarena arazoa argitzeko eta psikologoarena arazo **ondoren** laguntza emateko. **Migel Angel Mintegi**

3 (-en atzikiaren eskuinean)

Etorri berria baitzen Bartzelonako ospitaletik bigarren ebakuntzaren **ondoren**, eta ez baitzen artean kalera ateratzen. **Bernardo Atxaga**

Hiru espresoren **ondoren**, pozik eta eroso sentitzen hasi naiz. **Harkaitz Cano**

Istripuaren **ondoren**, beste antolamendu bat egin zuen Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

Enrikeren erakustaldiaren **ondoren**, Gabinek bata bestearen atzetik jaurti ditu bere hiru dardoak. **Iñaki Iñurrieta**

Eta tarte labor baten **ondoren**, beste hau erantsi zuen: [...]. **Txillardegi**

Ustekabearen **ondoren**, berriro lotu gintzaizkion oheko jolas atseginari. **Aitor Arana**

Baina egunkariak ez dira 60 urteren **ondoren** bat-batean berpiztu berri diren irakurle despistatuentzat egiten. **Juan Luis Zabala**

Guztiak batera existitzen ez direlako, elkarren **ondoren** baizik, eta hori ezinezkoa denik ez da inola ere frogatua. **Xabier Kintana**

Lehenengo tiro erabat bidezkoen **ondoren**, kate-erreakzio bat sortzen da inguruko poliziengan, eta energia ezkutu batek eraginik festara elkartzen omen dira, senak hala aginduta. **Harkaitz Cano**

4 (aditzaren era burutuaren ondoan)

Zergatik hil **ondoren** ez dago ezer? **Felipe Juaristi**

Zaldiak konfiskatu **ondoren**, ibai ontziak konfiskatuko dituzte, eta gero zalgurdiak, eta gero gainerako garraio bideak, harik eta debekatu arte inperioaren luze-zabalean barrena pausorik egitea. **Karlos Zabala**

Halako batean, ordulariari begiratu **ondoren**, "zeuk kontatu" esan zion notarioak, lehor. **Ramon Saizarbitoria**

Berlinen sei hilabete pasa **ondoren** bizitza kalitate ezberdin bat ezagutu nuen, eta gustatu egin zitzaidan. **Harkaitz Cano**

Inglaterra politikari-bide bera hartu zuen gero, ekonomia politikoki klasikoaren guraso fundatzaileek, Adam Smithen eta David Ricardok, haren teoria osatu **ondoren**. **Koro Navarro**

1999ko abuztuaren 14an hil zen, 41 urte zituela, elizakoak eta Aita Sainduaren benedikapena hartu **ondoren**. **Aingeru Epaltza**

5 (bestelakoak)

Abestea: ahots beheran bakarrik, eta arratseko seiak **ondoren** betiere. **Josu Zabaleta**

Seguru Van Hoveenek baduela susmoa hemen gordeta gaudela, zeren hamabiak eta erdiak **ondoren** ekartzen baititu beti patatak, eta inoiz ez ordukata eta erdiak **ondoren**. **Josu Zabaleta**

Ohi bezala, bazkal **ondoren** jasoko nituen euren opariak. **Aitor Arana**

6 atzean; atzetik, ondolik.

Bere hamar mila gizonak **ondoren** zituela jaitzi zen Barak Tabor menditik. **Elizen arteko biblia**

Hau entzuten, Jesus hitzen egin zen hartaz eta, **ondoren** zetorkien jendearengana itzulirik, esan zuen: "Egia esan, Israelen bertan ere ez duturiko horrelako sinestedunik". **Elizen arteko biblia**

Ondoren datozenentzat ere egoteko leku lasaia gera dadin. **Santiago Iruretagoiena**

Lauaxeta zetorren nire atzetik, eta neskatoa **ondoren**, pistola ezkerreko eskuan zuela. **Juan Luis Zabala**

Bere gurutzea hartu eta nire **ondoren** ez datorrena, ez daiteke izan nire ikasle. **Elizen arteko biblia**

Gure **ondoren** aterako dira eta, horrela, hiritik urrutu erakarriko ditugu, aurrekoan bezala beraiengandik ihesi goazela uste izango baitute. **Elizen arteko biblia**

Eta bere **ondoren**, Liz jarri da: "Daddy, zer moduz zaude?", galdetu dit aspaldi elkar ikusi ez bagenu bezala. **Bernardo Atxaga**

Har itzazu zeure jaunaren gudariak eta zoaz haren **ondoren**. **Elizen arteko biblia**

Pedro haren **ondoren** atera zen; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez. **Elizen arteko biblia**

Beldurrez beteriko maitasunez errukitzen zen bere **ondoren** erakarri zuen artaldetxoaz. **Askoren artean**

Ondoren Al Jazeera zetorren (%26) eta gero, oso urruti, kate ofiziala Al Iraqiya TV (%12). **Txema Ramirez de la Piscina**

7 ondorengo ik ondorengo.

8 ondorenean adlag ondoren.

Ibiltaria ardiei begira gelditzen da [...] eta **ondorenean** goraka egiten du arin. **Bernardo Atxaga**

Orduan adiskideak bere etxeko terrazara gonbidatzen zituen; jaten eta edaten ematen zien, eta **ondorenean** haxixa erretzen zuten. **Patxi Zubizarreta**

Tira, gauzak bestelakoak izango dira **ondorenean**. **Mirentxu Larrañaga**

Ondorenean ere bizpahiru aldiz errepikatu zidan agindua: bi erlikiak itzuli behar nituen, berea eta Felipek gorde zuena. **Ramon Saizarbitoria**

Amak beti izaten zuen lana: festetan festak zirelako, eta **ondorenean** beste arrazoiren bategatik. **Bernardo Atxaga**

Manifestazioak iraun zuen bitartean, eta baita **ondorenean** ere, huraxe izan zen Luzaron kaleko komentario nagusia. **Pedro Alberdi**

9 (izen soilaren eskuinean)

Big Joeri eman zion opari [uzta-sagua], te **ondorenean**, fruitu-arbolen baratzearen hondoan ezkutatu baikin, etxaldeko ikusmiratik at eta Amama Otsoren begirada zelataritik urrun. **Mirentxu Larrañaga**

Adelaren amak gorriak ikusi zituen gerra **ondorenean**, senarra heriotza-zigorrez noiz hilko zuten zain. **Juan Kruz Igerabide**

Gure aita han egon huen gerra **ondorenean**. **Bernardo Atxaga**

Gerra **ondorenean**, gerotxora arte, garia ereiten zuten baserrietan. **Pako Aristi**

Zati berean, Irunerako norabideko hirugarren bidea, uda **ondorenean** irekiko dute. **Berria - Euskal Herria**

Jokalari txuri-urdinak «nahiko gustura» sentitu zela adierazi zuen partida **ondorenean**. **Berria - Kirola**

Jokalariak, bien bitartean, «lasai» dagoela adierazi zuen atzo entrenamendu **ondorenean**. **Berria - Kirola**

10 (-en atzikiaren eskuinean)

Arropen aurkikuntzaren **ondorenean**, segituan, Mariaren senargai St. Eustacheren gorpu bizigabea, edo kasik bizigabea, aurkitu zen ordurako [...]. **Koro Navarro**

Handik aurrera, ordea, Racine, Molière eta gainerako neoklasiko **ondorenean**, oro aldatu egingo da literaturan. **Bernardo Atxaga**

Bolada zail baten **ondorenean**, kobazulo ilunak beste tamaina bat zuela orain, ez zela lehen bezain handia, nire arima osoa hartzeko modukoa. **Bernardo Atxaga**

Europako Legebiltzarra onartu egin zuen atzo *Prestige* ontziaren hondamendiaren **ondorenean** idatzitako itsas segurtasunari buruzko txostena. **Berria - Gaiak**

Batzuek aurkikuntzaren berri eman nahi dute, baina besteek ezkutatu, Bigarren Mundu Gerraren **ondorenean** bezala. **Berria - Kultura**

Gaixotasun baten **ondorenean** bezain zuri zegoen. **Koro Navarro**

11 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Geroenean, denda itxi **ondorenean**, nagusiak Urreginen kalera egin zuen, eta saltzaile gazteak Azarrentz. **Patxi Zubizarreta**

Partida amaitu **ondorenean**, Edek apartamenturaino lagundu zion. **Mirentxu Larrañaga**

Harekin hizketan egon **ondorenean**, Balbok agitaratzaileagana jotzen zuen Motturak bilduma zientifikoari buruz egindako proposamenen berri ematera. **Fernando Rey**

Liburu honek Frantzisko santuaren mirariak biltzen ditu, bai haren bizitza zehar gertatuak, bai hil **ondorenean** haren bitartez eginak. **Askoren artean**

Patti Smith zirudien, kontzertua eman **ondorenean**. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

abiatu ondoren (10); **adierazi ondoren** (29); **adierazpenen ondoren** (13); **afal ondoren** (19); **afaldu ondoren** (40); **agerraldiaren ondoren** (9); **agertu ondoren** (35); **agindu ondoren** (16); **agurtu ondoren** (26); **aipatu ondoren** (13); **aitortu ondoren** (17); **aldatu ondoren** (16); **alde egin ondoren** (29); **altxatu ondoren** (11); **amaitu ondoren** (159); **argitu ondoren** (12); **aritu ondoren** (102); **askatu ondoren** (13); **atentatuaren ondoren** (10); **atentatuaren ondoren** (32); **atera ondoren** (68); **atxilotu ondoren** (41); **atzean utzi ondoren** (9); **aurka galdu ondoren** (24); **aurkeztu ondoren** (42); **aurkitu ondoren** (21); **aurretik eta ondoren** (30); **azaldu ondoren** (36); **aztertu ondoren** (119)

bahitu ondoren (9); **baiezatu ondoren** (13); **banatu ondoren** (14); **bat egin ondoren** (93); **bat izan ondoren** (14); **bata bestearen ondoren** (93); **batzarraren ondoren** (9); **bazkal ondoren** (17); **bazkaldu ondoren** (31); **baztertu ondoren** (22); **begira egin ondoren** (16); **begiratu ondoren** (41); **beraren ondoren** (13); **berdindu ondoren** (20); **bere ondoren** (11); **bereizi ondoren** (12); **berotu ondoren** (9); **berreskuratu ondoren** (11); **berretsi ondoren** (9); **berri eman ondoren** (11); **berri izan ondoren** (18); **berri jakin ondoren** (14); **bete ondoren** (82); **bidaiaaren ondoren** (10); **bidali ondoren** (15); **bidea egin ondoren** (9); **bihurtu ondoren** (12); **bila ibili ondoren** (11); **bildu ondoren** (94); **bildu ondoren egin** (12); **bilera egin ondoren** (18); **bileraren ondoren** (16); **bileraren ondoren** (10); **bisitatu ondoren** (11); **bizi izan ondoren** (15); **bizi ondoren** (28); **borrokatu ondoren** (12); **bota ondoren** (67); **bozen ondoren** (26); **bukatu ondoren** (86); **buruan ezarri ondoren** (9); **burutu ondoren** (18); **busti ondoren** (12)

deklaratu ondoren (17); **desagertu ondoren** (24); **desegin ondoren** (16)

ebakuntzaren ondoren (9); **edan ondoren** (43); **eduki ondoren** (43); **egiaztatu ondoren** (29); **egin ondoren** (1330); **egon ondoren** (369); **egunen ondoren** (11); **ekarri ondoren** (9); **elkarren ondoren** (10); **emaizten ondoren** (9); **eman ondoren** (415); **entzuz ondoren** (99); **erabaki ondoren** (30); **erabakia hartu ondoren** (11); **erabakiaren ondoren** (9); **erabili ondoren** (11); **eragin ondoren** (14); **eraitsi ondoren** (9); **erakusketak ikusi ondoren** (9); **erakustaldiaren ondoren** (10); **erakutsi ondoren** (39); **eraman ondoren** (28); **erantzun ondoren** (13); **erasoaren ondoren** (23); **erasoen ondoren** (27); **erori ondoren** (31); **erosi ondoren** (12); **erre ondoren** (15); **erretiratu ondoren** (14); **esan ondoren** (131); **eskaini ondoren** (23); **eskatu ondoren** (43); **eskuratu ondoren** (19); **esperientziaren ondoren** (10); **espetxean eman ondoren** (10); **eten ondoren** (12); **etenaldiaren ondoren** (20); **etenaren ondoren** (36); **etorri ondoren** (15); **ezagutu ondoren** (32); **ezarri ondoren** (48); **ezkundu ondoren** (13); **eztabaidaren ondoren** (14); **eztabaidatu ondoren** (12); **eztanda egin ondoren** (10)

finkatu ondoren (15); **franco hil ondoren** (17); **frogatu ondoren** (15)

gainditu ondoren (41); **gaitzetsi ondoren** (10); **galdetu ondoren** (20); **galdu ondoren** (173); **garaipena lortu ondoren** (11); **garaipenaren ondoren** (17); **garaitu ondoren** (12); **garbitu ondoren** (37); **gelditu ondoren** (35); **geratu ondoren** (45); **gera amaitu ondoren** (10); **gera ondoren** (43); **gerraren ondoren** (74); **gertatu ondoren** (41); **gogoeta egin ondoren** (9); **gogoratu ondoren** (10); **gosaldutxo ondoren** (26); **gurutzatu ondoren** (11)

harrapatu ondoren (13); **hartu ondoren** (233); **hasi ondoren** (34); **hausnartu ondoren** (16); **hauteskundeak irabazi ondoren** (10); **hauteskundearen ondoren** (60); **hautsi ondoren** (19); **heldu ondoren** (18); **heriotza ondoren** (16); **heriotzaren ondoren** (47); **hil ondoren** (295); **hilotzaren ondoren** (18); **hilotzaren ondoren** (11); **hitz egin ondoren** (56); **hitzartu ondoren** (9); **hitzen ondoren** (9); **hori egin ondoren** (26); **horren guztiaren ondoren** (11); **hura hil ondoren** (13); **hustu ondoren** (17); **huts egin ondoren** (16)

ibilbidea egin ondoren (10); **ibili ondoren** (186); **idatzi ondoren** (21); **igaro ondoren** (177); **igo ondoren** (22); **igurtzi ondoren** (14); **ihes egin ondoren** (11); **ikasi ondoren** (22); **ikertu ondoren** (15); **ikusi ondoren** (143); **inguratu ondoren** (9); **irabazi ondoren** (201); **iragan ondoren** (19); **iragarri ondoren** (24); **irakurri ondoren** (79); **iraultzaren ondoren** (17); **ireki ondoren** (15); **iritsi ondoren** (43); **irten ondoren** (48); **isilik egin ondoren** (11); **isilune baten ondoren** (23); **istripiua izan ondoren** (11); **istripiuaren ondoren** (14); **itxi ondoren** (50); **itzali ondoren** (9); **itzuli ondoren** (31); **izan ondoren** (386)

jabetu ondoren (12); **jaio ondoren** (15); **jaitsi ondoren** (26); **jakin ondoren** (62); **jakinarazi ondoren** (10); **jan ondoren** (31); **jantzi ondoren** (15); **jardun ondoren** (48); **jarri ondoren** (82); **jasan ondoren** (45); **jaso ondoren** (154); **jesusen ondoren** (9); **jo ondoren** (107); **joan ondoren** (45); **jokatu ondoren** (103)

kaleratu ondoren (18); **kanpo geratu ondoren** (11); **kanporatu ondoren** (33); **kantatu ondoren** (14); **kendu ondoren** (30); **kolpearen ondoren** (9); **kontra galdu ondoren** (12); **kontzertuaren ondoren** (11)

lan egin ondoren (22); **lan saioaren ondoren** (17); **lanaren ondoren** (30); **landu ondoren** (10); **lanean aritu ondoren** (9); **lehertu ondoren** (10); **leporatu ondoren** (17); **lo egin ondoren** (11); **lortu ondoren** (100); **lotu ondoren** (11)

manifestazioaren ondoren (19); **mendearen ondoren** (28); **menderatu ondoren** (13); **meza ondoren** (14); **miatu ondoren** (23); **min hartu ondoren** (10); **mintzatu ondoren** (17); **moztu ondoren** (10); **mundu gerraren ondoren** (33)

nabarmendu ondoren (9); **nagusitu ondoren** (18); **negoziazioaren ondoren** (15); **ni hil ondoren** (9); **nire ondoren** (27); **nire ondoren etorri** (13)

ohartarazi ondoren (11); **onartu ondoren** (64)

ondoren abiatu (13); **ondoren** adierazi (9); **ondoren** askatu (12); **ondoren** atera (10); **ondoren** atxilotu (11); **ondoren** aurkitu (11); **ondoren** azaldu (10); **ondoren** berritoki (38); **ondoren** berriz (19); **ondoren** dator (13); **ondoren** datorren (20); **ondoren** datorrena (11); **ondoren** datoz (11)

ondoren egin (88); **ondoren** egin zituen (23); **ondoren** egindako (27); **ondoren** egingo (20); **ondoren** egiten (14); **ondoren** eman (17); **ondoren** emandako (10); **ondoren** erabaki (23); **ondoren** erabakiko (10); **ondoren** esan (26); **ondoren** esan zuen (9); **ondoren** etorri (80); **ondoren** etorri zen (21); **ondoren** etorriko (27); **ondoren** ezarri (9); **ondoren** gertatu (32); **ondoren** gertatu zen (13); **ondoren** gertatzen (10); **ondoren** hartu (42); **ondoren** hartu zuen (13); **ondoren** hasi (44); **ondoren** hasi zen (16); **ondoren** hasiko (11); **ondoren** hil (23); **ondoren** hitz egin (10)

ondoren ikusi (9); **ondoren** ikusiko (10); **ondoren** iritsi (23); **ondoren** itzuli (14); **ondoren** izan (40); **ondoren** izan zen (13); **ondoren** izandako (9); **ondoren** izango (17); **ondoren** jakin (13); **ondoren** jarraitu (10); **ondoren** joan (41); **ondoren** joan zen (9); **ondoren** joango (9); **ondoren** lau (10); **ondoren** lortu (14)

ondoren onartu (10); **ondoren** sartu (9); **ondoren** sortu (22); **ondoren** sortu zen (12); **ondoren** sortutako (13)

ondoren utzi (10)

operazioaren ondoren (9); **ordaindu ondoren** (26); **osatu ondoren** (19); **otoitz egin ondoren** (12)

pairatu ondoren (9); **parte hartu ondoren** (21); **partida irabazi ondoren** (9); **partida jokatu ondoren** (16); **partidak irabazi ondoren** (11); **partidaren ondoren** (43); **pasa ondoren** (73); **pasatu ondoren** (132); **pentsatu ondoren** (25); **piztu ondoren** (20); **porrot egin ondoren** (14); **porrotaren ondoren** (25); **preso egon ondoren** (18); **prestatu ondoren** (15); **probatu ondoren** (9); **puska baten ondoren** (14)

saiatu ondoren (32); **sailkatu ondoren** (15); **saioaren ondoren** (30); **salatu ondoren** (26); **saldtu ondoren** (10); **sartu ondoren** (77); **sinatu ondoren** (27); **sortu ondoren** (21); **su etenaren ondoren** (25); **suntsitu ondoren** (13)

tarte baten ondoren (11); **tiro egin ondoren** (10); **torturatu ondoren** (11)

ukatu ondoren (10); **ukitu ondoren** (9); **uko egin ondoren** (18); **une baten ondoren** (11); **urte batzuen ondoren** (15); **urte bete ondoren** (10); **urte egin ondoren** (11); **urte eman ondoren** (12); **urte igaro ondoren** (25); **urte ondoren** (21); **urte pasatu ondoren** (15); **urtebeteren ondoren** (9); **urteren ondoren** (82); **utzi ondoren** (163)

zabaldtu ondoren (30); **zain egon ondoren** (17); **zeharkatu ondoren** (34); **zehaztu ondoren** (11); **zigorra bete ondoren** (13); **ziurtatu ondoren** (20); **zuela jakin ondoren** (9); **zure ondoren** (15); **zuzendu ondoren** (12)

ondoren² 1 iz ondorioa. ik **ondore**.

Zurrutaren **ondorenak** dira. **Xabier Etxabe**

Kalkulu baten **ondorena** izan balitz agian ez nintzatekeen ausartuko. **Bernardo Atxaga**

Bere hutsegiteak ezkatzen dituenak **ondoren** txarra izango du, aitortu eta damutzen denak errukia lortuko. **Ondorenak** gehiegi hausnartu gabe, atsegin hartu zuen pentsamendu haien gozoan. **Elizen arteko biblia**

Semeak ez ditu aitaren erruaren **ondorenak** jasan beharko, ez eta aitak ere semearenak. **Elizen arteko biblia**

Honako honetaz ez du mutu batek baino gehiago hitz egingo; edota epai **ondorenak** pagatu beharko ditu pagatu. **Patxi Ezkiaga**

2 ondokoa.

Denboraldiko lehen lasterketek ongi markatzen baitute **ondorena**. **Berria - Kirola**

Ondorena gogorragoa da. **Arantxa Iturbe**

Gerra **ondorena** arte ez genian jakin zer zen egia. **Josu Zabaleta**

Gerra **ondorena** arte [...] ezin izan zen hitz hori gaitzespen-zentzurik gabe erabiltzen hasi. **Josu Zabaleta**

Orritook idazten igaro dut hileta **ondorena**. **Anjel Lertxundi**

ondorenean ik **ondoren**¹ 8.

ondorengo 1 izlag ondoren dagoena; ondoren datorrena.

Horren adibide dugu **ondorengo** singular/plural parea, *Rad/Räder*, non erroko bokala **ondorengo** atzizkian datorrenaren palataltasunera asimilatzen den. **Lourdes Oñederra**

Ondorengo bebarruetan ausardia handiagoetara murgiltzen dira. **Pako Aristi**

Horrela igaro ziren **ondorengo** asteak, beti asteburuaren zain. **Jokin Urain**

Anaietako batek **ondorengo** etsenplu hau jarri zuen: [...]. **Askoren artean**

Harritzekoa da, era berean, Zabalaren **ondorengo** erabakia: [...]. **Koldo Zuazo**

Ondorengo taulan ikus daiteke hori. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Lehenengo zenbakia mapari dagokio, **ondorengo** zenbakia eta letra mapako koordinatuei. **Askoren artean**

XIV. mendeko "Espiritualak" eta **ondorengo** erreforma-mugimenduak. **Askoren artean**

Horrela eredia sortuko du **ondorengo** hainbat bildumarentzat. **Askoren artean**

Gure aurreko gurasoen egite harrigarriak **ondorengo** semeen origarritarako gordetzea. **Askoren artean**

Baina **ondorengo** lerroetan ez duzu inolako bereizkuntzarik egiten Fonetikaren eta Fonologiaren artean eta eztabaidatzen dituzte fonologialarien baieztapenak, ez Fonologiarenak, baizik Fonetikarenak bailira. **Lourdes Oñederra**

2 (izen soilaren eskuinean)

Jaunaren 1209. urtean, haren konbertsio **ondorengo** hirugarrenean. **Askoren artean**

Eguberri **ondorengo** lehenbiziko sei egunak nolako, hurrengo urteko lehenbiziko sei illabeteak halako. **Pello Zabala**

Hiparko, Kristo aurretiko II. mendean; eta Klaudio Ptolomeo, Kristo **ondorengo** II. mendean. **Jon Muñoz**

Jaunaren Gizakunde **ondorengo** 1226. urtean, urriaren 4an, igandez, Kristorengana joan zen zorientsu. **Askoren artean**

Aukeran utzi ziren, era berean, *n*, *l* eta *r* **ondorengo** *z* / *tz* ahoskerak: *esantzuen* / *esan zuen*. **Koldo Zuazo**

1945 **ondorengo** nazioarteko finantzen hedapenak, alabaina, ezaugarri bereziak ditu. **Koro Navarro**

3 (-en atzizkiaren eskuinean)

Kontsonantearen **ondorengo** bokalak. **Lourdes Oñederra**

Bidea erraza egin zait, atsegin handia ematen zuen arnasa hartzeak euriaren **ondorengo** giro garbian. **Bernardo Atxaga**

Heriotzaren **ondorengo** bizitza broma bat baino ez litzateke izango. **Koro Navarro**

Arafaten hiletaren **ondorengo** orduak. **Iñigo Aranbarri**

Su-etenaren **ondorengo** negoziazioetan ere "traizioa" izango da protagonista nagusi. **Joseba Zulaika**

Karlomagoren **ondorengo** erregealdi zorizgaitzekoek, normandiarren inbasioek, barne-gerrek, atzera ere hasierako iluntasuneari murgilarazi zituzten nazio garaileak. **Iñaki Iñurrieta**

Horregatik abiatu ziren 14aren **ondorengo** asteazken-ostiral eta larunbatetan. **Pello Zabala**

Haren **ondorengo** greziar matematikari guztiak. **Jon Muñoz**

Frankismoaren amaierako eta **ondorengo** urteetan. **Iñaki Segurola**

Gerra zahar baten **ondorengo** zauri osatu gabeak zirela pentsatzen nuen nik beti. **Anjel Lertxundi**

4 (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Utz dieziaiogun, bada, andre erromesari bere hirira itzultzen halako dohain zoragarriz kontsolatua, eta gu goazen santua hi **ondorengo** beste hainbat gertaera kontatzeraz.

Askoren artean

Ituna hitzartu otorduren edertasuna. [Askoren artean](#)

Exebarrieta hil [ondorengo](#) egunetan hartu zuen bere lagun Oteizak erabakia: Arantzazuko basilikaren fatxada nagusiaren gorenean *Pietà* bat ezarriko zuen. [Joseba Zulaika](#)

"Uste nuen baino atseginagoa da", idatzi zuen Mathildek Zarautza heldu [ondorengo](#) egunetako batean. [Anjel Lertxundi](#)

• 5 iz beste pertsona edo izaki batengandik datorren pertsona edo izakia, ondokoa. ikondo¹ 14.

Bi motatako oinordekoak baizik ez zituen ezartzen legeak: seme-alabak eta aitaren autoritatearen mende bizi ziren [ondorengo](#) guztiak, zeini oinordeko baitzeritzen. [Iñaki Iñurrieta](#)

Sorbaldan pisu guztia hartuz irudikatu zituzten, hain zuzen ere, [ondorengo](#) guztiak betiko gogoan har zezaten Kariako emakumeei beren okerrengatik ezarritako zigorra. [Santiago Iruretagoiena](#)

Mahoma profetaren [ondorengo](#) zuzena baitzen kalifa. [Jon Muñoz](#)

Joseph Fourier inperioko baroia -bere izeneko [ondorengo](#) ospetsuengatik ezaguna-, [...] bizirik atera zen mamelukoen erasoetatik. [Jon Muñoz](#)

Herri hautatua da Israel, Kanaango lurralde zabalaren jabe egingo dena eta [ondorengo](#) ugari eta aberatsak izango dituen. Bakoitzak ehunen bat [ondorengo](#) sortzen zituen hiruzpalau egunean. [Jose Antonio Mujika](#)

Salomon Dabiden [ondorengo](#). [Jose Antonio Mujika](#)

6 ondorengo izan da ad

Ehunak burdinaren [ondorengo](#) dira, ehundegiak burdinaz egiten baitira. [Xabier Amuriza](#)

Parisen ezagutu nuen nire itultzailea, Israel izenekoa, gizon dotorea eta adeitsua, Gasteiztik Baionara erbestera joandako judu euskaldunen [ondorengo](#) zen. [Edorta Jimenez](#)

Sem-en [ondorengo](#) zen Terah. [Jose Antonio Mujika](#)

Israelen [ondorengo](#) dira eta Jainkoak seme-alabatza hartu zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Eta zer diozue zuek, santuen [ondorengo](#) zaretenok? [Askoren artean](#)

Hiru anaietako batek semea badu, eta herriak hura hautatu nahi badu aitaren [ondorengo](#) izan dadin, osabek onartu egingo dute. [Iñaki Iñurrieta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

[aaronen ondorengo](#) (10); [abrahamen ondorengo](#) (5); [aitaren ondorengo](#) (4); [arafaten ondorengo](#) (4); [atentatuaren ondorengo](#) (4); [aurreko eta ondorengo](#) (10); [batzordearen ondorengo](#) (4); [bere ondorengo](#) (17); [bileraren ondorengo](#) (4); [bukatu ondorengo](#) (5); [daviden ondorengo](#) (4)

[gerra ondorengo](#) (12); [gerraren ondorengo](#) (7); [hauteskunde ondorengo](#) (4); [heriotzaren ondorengo](#) (6); [hil ondorengo](#) (18)

[inperioaren ondorengo](#) (5); [kristo ondorengo](#) (8); [manifestazioaren ondorengo](#) (5); [merariren ondorengo](#) (4); [mundu gerraren ondorengo](#) (6); [nire ondorengo](#) (8)

[ondorengo asteetan](#) (5); [ondorengo aurreneko](#) (6); [ondorengo bat](#) (9); [ondorengo belaunaldiei](#) (6); [ondorengo belaunaldientzat](#) (6); [ondorengo belaunaldietan](#) (6); [ondorengo denbora](#) (4); [ondorengo dira](#) (5)

[ondorengo egoera](#) (9); [ondorengo egun](#) (5); [ondorengo egun batean](#) (4); [ondorengo egunak](#) (8); [ondorengo egunean](#) (6); [ondorengo egunetan](#) (45); [ondorengo emaitza](#) (5); [ondorengo errege](#) (7); [ondorengo erregea](#) (33); [ondorengo estatu](#) (9); [ondorengo estatuak](#) (6); [ondorengo galdera](#) (5); [ondorengo gogoeta](#) (5); [ondorengo guztia](#) (5); [ondorengo guztiak](#) (16); [ondorengo hau](#) (9); [ondorengo hauek](#) (14); [ondorengo hilabeteetan](#) (9); [ondorengo hiru](#) (13); [ondorengo hitzak](#) (5)

[ondorengo izan](#) (4); [ondorengo izateko](#) (4); [ondorengo izendatu](#) (6); [ondorengo lau](#) (5); [ondorengo lehen](#) (22); [ondorengo liburuetan](#) (5)

[ondorengo orduak](#) (4); [ondorengo orduetan](#) (6); [ondorengo prentsaurrekoan](#) (12)

[ondorengo ugari](#) (10); [ondorengo uanean](#) (5); [ondorengo urte](#) (4); [ondorengo urteetan](#) (50); [ondorengo ziren](#) (4); [sortu ondorengo](#) (4); [su etenaren ondorengo](#) (11); [zerga ondorengo](#) (7)

ondorengotasun iz ondorengo izateko nolakotasuna.

Plagio: [...] kointzidentzia literarioa, lehentasun zalantzazko eta [ondorengotasun](#) fidagarri osatua. [Xabier Olarra](#)

ondorengotza 1 iz ondorengo batek oinordekotza izatea; oinordekotza jasotzen duen ondorengoa. ik oinordekotza.

Hala bada, bere [ondorengotza](#) Kasar Al-Samani utzi nahi izan zion, baina bisirrak lehenago semea ezkontzeko aholkatu zion, hartara ziurtatu egingo baitzuten dinastiaren jarraipena. [Patxi Zubizarreta](#)

Francisco Franco caudilloa, ohean hil zela 1975ean [...] [ondorengotzaren](#) inguruko kontuak ahal izan zuen bezain estu loturik. [Juan Luis Zabala](#)

Hasieran nobleek bakarrik izan zuten etorkizuneko [ondorengotzak](#) ezkontza-kontratzu erabakitzeko askatasuna. [Iñaki Iñurrieta](#)

Armanus erregeak bere erregetza eta [ondorengotza](#) ustezko Kamar Al-Samanen esku utzi zituelarik, esan ezin ahalako ezkontza prestatu zuen. [Patxi Zubizarreta](#)

Jaunaren aurrean egindako halako ekintza batean, [ondorengotzarako](#) xedapenak egin ziren, feudoa oinordekoek zerbitzatua izan zedin. [Iñaki Iñurrieta](#)

Feudoak oinordekotzazkoak izan zirenean, primu-eskubidea ezarri zen feudoen [ondorengotzan](#). [Iñaki Iñurrieta](#)

PAN eta Palestinako Legebiltzar Kontseilua prest al daude Arafaten [ondorengotzarako](#) eta ondorengo egoerarako? [Berria - Mundua](#)

Ospitaleko iturri batzuek hiltzat ematen zuten buruzagi palestinarra, baina adierazpen ofizialik ez zuten egin [ondorengotza](#) beren gain hartzeko prestatzen ari diren Kureia eta Abbasek. [Berria - Mundua](#)

Familia jabego-modu bat da: gizon batek, familiari [ondorengotza](#) emango dion sexu haurrik ez badu, ez du etsiko [ondorengotza](#) emango dion sexu haurra izan arte. [Iñaki Iñurrieta](#)

Partikularren [ondorengotza](#) arautzen duen legea lege zibila da, xedetzat partikularren interesa duena; monarkiaren [ondorengotza](#) arautzen duen lege politikoa da, eta Estatuaren ona eta iraupena ditu xedetzat. [Iñaki Iñurrieta](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

[Ondorengotza](#) zerga ezabatu du, elkarte zerga kendu, interes gatazka legea onartu. [Berria - Harian](#)

Orain arteko Frantziako legediak zenbait zerga gutxitze jasotzen zituen [ondorengotza](#) kasuetarako. [Berria - Ekonomia](#)

Halakoxeak izan ziren [ondorengotza](#) -legeak lehen erromatarren artean. [Iñaki Iñurrieta](#)

[Ondorengotza](#) -ordena ez dago ezarrita errege-familiarentzat, baizik eta Estatuarentzat interesgarria delako errege-familia bat izan dadin. [Iñaki Iñurrieta](#)

3 irud/hed

Urak ez du ubiderik beritu, euskaldun populuaaren askatasunaren kontrako errepresioaren [ondorengotza](#) eta transmisioa beti zorrotz burutzen delarik. [Jokin Urain](#)

Honek inplikatzeko du definitzen dela berarekin uztarturiko eremu guztiaren erregimen komuna, eremu horiek guztiak har ditzaketen [ondorengotza](#), aldiriekotasuna eta errepikapen erak, eta izankidetasun-erlora hauek guztiak elkarren artean uztartzeko dituen sistema. [Xabier Arregi](#)

4 ondorengo multzoa, ondokoa.

Bedeinka ezazu, otoi, zeure morroi honen [ondorengotza](#), beti zure aurrean irau dezan. [Elizen arteko biblia](#)

Betiko iraungo du haien [ondorengotzak](#) eta beraien ospea ez da desagertuko. [Elizen arteko biblia](#)

Fedegabeen [ondorengotza](#) ugaria, ordea, ez da ezertarako: sasiaren kimutik sortua, ez du sustrai sakonik botako, ez eta oinarri sendorik izango ere. [Elizen arteko biblia](#)

Jeroboamen [ondorengotza](#) suntsiaraziko duen erregea sortuko du Jaunak Israelen gaur bertan. [Elizen arteko biblia](#)

Jainkoarengan konfiantza handia eduki zezala gehitu zuen, Berak maite baitzuen, berarengan eta bere ondorengoengan jarri baitzuten bere miserikordiaren begiak hamaseigarren belaunaldiraino, zeinean [ondorengotza](#) ahulduko baitzen, baina egoera hartan ere Jainkoak bere begiak ipiniko zituen, eta ondorengorik izango zen. [Jon Alonso](#)

5 ondorengotza gerra

Orduan Espainiarekin ari zen Ingalaterra **ondorengotza** gerran. **Iñaki Heras**
Ingalaterra eta Herbehereetako itsas armadak Gibraltar konkistatu zuen Espainiako **ondorengotza** gerran. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
morroi honen ondorengotza (3); **ondorengotza emango** (3); **ondorengotza ordena** (7)
ondorengotzat jotzen (3)

ondorenkari *izond*

Gertaera baten frogak bata bestearen menpe badaude, aztarnak beren artean baino ez badira frogatzen, alegia, zenbat eta froga gehiago ekarri, orduan eta txikiagoa da gertaeraren probabilitatea, froga-aurrekariak falta diren kasuetan, **ondorenkariak** ere faltako direlako. **Juan Martin Elexpuru**

ondorentxo

1 *ondorentxoan adkor* ondorean.

Aurreneko karlistaldiaren **ondorentxoan** etorri da Victor Hugo Euskal Herrira. **Koldo Izagirre**
Gutunak eragindako zalapartaren **ondorentxoan**, bakarrik joan nintzen batean -negu gordina zen eta elurra ari zuen-, sukaldean aurkitu nuen frau Gerda, sosegurik hartu ezinda. **Anjel Lertxundi**

ondoretasun 1 *iz* gurasoek ondokoei geneen bitartez espeziearen ezaugarriak transmititzen dien prozesua. ik herentzia 3.

Genetika sortu zuen, hots, **ondoretasun** mendeliarra teoria kromosomikoaren arabera interpretatzen duen zientzia. **Juan Garzia**
Ilarretan **ondoretasuna** nola gauzatzen den azalduz Gregor Mendel-ek idatziriko lehenbiziko txostenaren mendeurrena. **Juan Garzia**
Ondoretasunean bilatu behar zen zer mekanikaren bitartez eratzen den oilo-arrautza batetik oilako bat, eta giza arrautza batetik, berriz, gizaki bat. **Juan Garzia**
Mendearen hasieran, **ondoretasuna** aztertu nahi izan zuenean, drosfila delako euliaz baliatu zen Morgan karaktereen transmisioaren auzia ebazteko. **Juan Garzia**
Ordezko teoria bat, esperimendu-oinarririk gabea eta karaktere bereganatuaren **ondoretasunean** oinarritua. **Juan Garzia**
Neolamarckar komunistek, karaktere bereganatuak **ondoretasunez** jasotzen zirelako hipotesiaren aldeko, eraso egin zieten [...] errusiar genetistei. **Juan Garzia**
Ondoretasunezko eritasun berriak. **Juan Garzia**
Ondorioa atera zuen ezen ikerturiko karaktere guztiak **ondoretasunezkoak** zirela, hala adimenari zegozkion gaitasunak nola alderdi fisikoari zegozkionak. **Juan Garzia**
Ingeniaritza genetikoa: Haurrei pasatuko zaizkien geneak aldatzen dira **ondoretasunezko** gaitzak saihesteko. **Berria - Gaiak**

2 irud/hed

Asmabide horietako batek higuingarriri iradokitzen du mendeak direla dagoeneko Konpainia existitzen ez dela, eta gure bizitzen desordena sakratua soil-soilik **ondoretasunezko** dela, tradiziozkoa. **Juan Garzia**
Oraindik ez dugu erabat galdu usaimena zentzumen ia bakarra eta garuna sudurraren luzapen bat baino askoz gehiago ez ziren garaiaren **ondoretasuna**. **Irene Aldasoro**
Ikek bere arbaso alemanen **ondoretasuna** ziren arrano begi argiak josi zituen bulego zabaleko atean. **Alberto Ladrón Arana**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun, atzemanak ditugu mila eta bostehunetik gora **ondoretasun**-nahasmendutan tarteko diren nahasmendu genetikoak. **Juan Garzia**
Oraingoz hastapenetan baino ez badago ere, terapia genikoaren eskutik etortzekoa da, noski, zenbait **ondoretasun**-gaitz nahiz minbiziren konponbidea. **Juan Garzia**
Geneen baitako gai **ondoretasun**-eramaile gisa azido desoxirribonukleiko (ADN) delakoak jokatzeko papera zehaztea. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrez gainera, *Giza* **ondoretasuna** eta arrazen *higienea* eskuliburuaren egiletarikoa zen. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ondoretasunezko eritasuna (3)

ondoretsu

1 *ondoretsuan* ondorengutxi gorabehera.

Ez nago salgai -erantsi zuen **ondoretsuan**, ohetik salto eginaz. **Matías Múgica**
Ondoretsuan mirabe batek bere atzetik joateko keinua egin zidan. **Matías Múgica**
Pazko **ondoretsuan** zen, udaberri bete-betea, hain zuzen. **Matías Múgica**

ondoretza *iz* ondoretasuna.

Ondoretza argirik ez. **Berria - Mundua**

ondoriatu, ondoria, ondoriatzean du *ad* ondorioztatu.

Horregatik ez da egia, halere, M. Weber-ek balioen eztabaidari arrazoizkotasun eta zentzu oro ukatzen diola, batzuetan haren erlatibismo beti gogotik azpimarratutik **ondoriatu** nahi izaten den legez. **Joxe Azurmendi**

ondorio 1 *iz* egite, egoera edo gertaera batetik berez segitzen den egite, egoera edo gertaera. ikondore.

Kausa berberak **ondorio** berberak dituzte. **Iñaki Iñurrieta**
Azalpen hori fenomenoaren azken kausa baino nolabaiteko **ondorio** gisa uler daiteke, edo hobe esanda, fenomenoaren beraren gertakari beharrezko baten gisa. **Iñaki Heras**
Berdinak diruditen legeek ez dutela beti **ondorio** berbera izaten. **Iñaki Iñurrieta**
Ugalketa **ondorio** bat da, ez helburua. **Luis Elberdin**
Kataklismoa eta bere **ondorioak**. **Iñaki Mendiguren**
Ondorioak benetan ikusgarriak izaten dira. **Luis Elberdin**
Baina, hala beharrez, jakinen du ere gaizkiaren bidean sartzen... **ondorioa** behar da ikusi. **Piarres Xarriton**

Ondorioa : deskodratzeak indar handiagoa du iradikier ere era honetako irudietan, berariaz mantendu behar baita berriro zentratzeko aukera baten kontra. Josu Zabaleta

Esandakotik **ondorio** hau ateratzen da, oso maiz eragozpen ugari izaten direla erlijio bat herrialde batetik beste batera eramateko. Iñaki Iñurrieta

Hortik **ondorio** hau atera daiteke: [...]. Iñaki Iñurrieta

Ondorioa harrigarria gertatzen da, optimismoagatik. Koro Navarro

Datuotatik ateratzen den **ondorioa**, nahikoa garbia da. Iñigo Aranbarri

Liburua irakurtzen duenak berehala aterako du **ondorio** bat: asko aurreratu dugu autogobernua eskuratu dugunetik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Legeak zigorra dakar **ondorio**; baina legerik ez dagoenean, ez da lege-hausterik ere. Elizen arteko biblia

Arrasto horiek guztiak **ondorio** berera garamatzate: bat-bateko bertsolaritza genero berezia da, eta, hala den neurrian, azterbidea ere berezia behar du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Senarraren bila joatea erabaki du, **ondorioei** erreparatu gabe. Patxi Zubizarreta

Baina batetik eratorzen diren **ondorio** eta betebeharrak guzti-guztiak ez dira eratorzen besteetatik. Juan Martin Elexpuru

Ikuspuntu honek baditu zenbait **ondorio** koadroaren ikusmoldeari dagokionez. Josu Zabaleta

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Hogoitahamar bat urteren eboluzioaren **ondorioa** hemen daukat, mendi honetan. Piarres Aintziart

Kanten iraultzaren **ondorioak**. Ibon Uribarri

1968an plazaratutako euskara batua izan zen ahaleginaren **ondorioa**. Koldo Zuazo

Gizakiaren egoera naturala, giza kontratua edo historia artifizialki bereizteko jarrera dira modu honetako asmakizunen **ondorioak**. Askoren artean

Arinkeria da emakumei ahul fama egoztea, umekeria lehendik ere heriotza zibilaren jabe diren kondenatuei benetako heriotzaren **ondorioak** ezartzea. Juan Martin Elexpuru

Hirugarren munduko gosea lehen munduko gehiegizko luxuaren **ondorioa** da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Merkataritzaren **ondorioa** aberastasunak dira. Iñaki Iñurrieta

Goldsteinen lanaren zati bat garuneko lesioen **ondorioei** buruzkoa zen. Xabier Olarra

Delituak barka daitezkeela erakustea [...] inpunitatearen laudorioa egitea da, eta sinestaraztea barkatzen ez diren zigorrak indarraren bortxakeriak direla justiziaren **ondorio** baino gehiago. Juan Martin Elexpuru

Haren obrak ez dira kartzelan sartu aurretikoak, kartzela-urte luzeen **ondorioa** baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ahulezia guzien **ondorio**, halako indar bat: gelditasunaren aisetasuna, inertiaren tema. Piarres Aintziart

Pertsonaren umorea oreka bioelektrikoen **ondorioa** dela esan zuen. Joseba Sarrionandia

Dekretuaz eta haren **ondorioez** baizik ez ziren mintzo. Karlos Zabala

3 (izenondoekin)

Merkataritzaren **ondorio** naturala bakea ekartzea da. Iñaki Iñurrieta

Planteamendu horrek, hasieran behintzat, **ondorio** askatzaileak izan zituen. Askoren artean

Bi sexu horien arteko hurbilketak berehala ditu **ondorio** eragingarriak. Andres Urrutia

Ondorio harrigarrietara iritsi gara, eta horietan ez da txikiena erakustea unibertsitatea nahiko "merke" ateratzen zaiola euskal gizarteari. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Seme-alaben adin nagusitasunarekin amaitu egiten da gurasoen aginpidea, **ondorio** zibilei dagokienez. Andres Urrutia

Hain zuzen, ezagunak dira langabeziaren **ondorio** ekonomikoak ez ezik, baita soziologikoak eta psikologikoak ere. Iñaki Heras

Halako gaiztakeria petoek **ondorio** izugarri eta hilgarriak izango omen litzukete berehala. Xabier Olarra

Datu horiek ikusita, ez du ematen unibertsitate mailako ikasketak egiteak **ondorio** txarrik dakarrenik, ez herri horietan behintzat, batez ere emakumezkoen kasuan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Espekulazioak oso **ondorio** larriak izan ditzake truke-tasa finkoetan, 1992-1993ko diru-krisia gertatu zenean, adibidez, ikusi zen bezala. Koro Navarro

Juduen kanporatzeak (1492) izan zituen **ondorio** ezin kaltegarriak. Koro Navarro

Ugaritasunaren kontrako lan-gerra isila bakez egiten duena, indar-gerra odoltsu eta **ondorio** ilunekoaren orde. Juan Martin Elexpuru

4 (izenlagunekin)

Behin-behineko **ondorioa**. Josu Zabaleta

Bigarren **ondorioa**: jarraitasun-ezaren adigaiak leku gorena hartzen du historia diziplinetan. Xabier Arregi

Homonimia (edo homofonia) azken hariraino eramateak zentzugabeko **ondorioak** ekar ditzake. Iñaki Arranz

Ustekabeko **ondorioak** ekarri zituen gertaera hark. Jon Muñoz

Ezusteko **ondorioak** agintzen dizkizut. Markos Zapiain

Agerpenen afinitatea (gertukoia zein urruna) irudimenean egiten den eta a priori erregeletan oinarritzen den sintesiaren beharrezko **ondorioa** da. Ibon Uribarri

Bide berri horrek oso bestelako **ondorioak** izan zituen. Iñaki Iñurrieta

Funtsezko **ondorioa**: forma esanguratsua. Askoren artean

Zorionez, ika-mikak alderantzizko **ondorioa** du apezarendako. Aingeru Epaltza

-Presakako **ondorioa** da hori. Jon Muñoz

Halabeharrezko **ondorioa**: diru-egongaiztasuna. Koro Navarro

Hauxe da aurrerapenaren berezko **ondorioa**: [...]. Joxe Austin Arrieta

Ondo begiratu duzu, gehiegizko **ondorioen** bati lekuri eman gabe? Imanol Unzurrunzaga

Kolapsoaren beharrezko eta ezinbesteko **ondorioa** da desintegrazioa? Iñaki Mendiguren

Ezin diegu utzi okerreko **ondioria** eraman gaitzaten. Xabier Olarra

5 (logikan-eta)

Humeren ustez, indukziozko premisak eta **ondorioak** bi proposizio-mota oso desberdinak dira. Askoren artean

Hori argi dago premisetatik **ondorioak** nola heltzen diren ikasi duenarentzat. Xabier Kintana

Multzoa • bada, eta A •-n dauden formulen **ondorio** logikoa bada, sinbolikoki • \Rightarrow A idatziko dugu. Askoren artean

A eta B QLren bi formula badira, B A-ren **ondorio** semantikoa dela esaten dugu baldin eta bakarrik baldin A formula asetzen duten interpretazio guztien segida guztiak B formula asetzen badute. Askoren artean

Horren forma A•B, B• \Rightarrow A da eta posible litzateke bilatzea interpretazio bat premisak egiazkoak egiten dituen eta **ondorioa** faltsua. Joan Mari Irigoien

Haatik, (102) perpausari "aktiboaren" formaldatzea ezartzen badiogu, **ondorioa** ez da gramatikala. Itziar Laka

Formaldatze hau bere **ondorioa** IS bat izan dadin taxutuko da. Itziar Laka

Ondorio bakoitzari egiazko premisa bana gehituz, horietatik nahitaezko **ondorioak** ateratzeko, silogismo kate baten ondoan, azken bi **ondorioen** arteko kontraesan edo aurkaritza argitzera helduko da. Xabier Kintana

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jazoeren **ondorio** -ilaran dena nolabait erregela honen menpean dagoela. Ibon Uribarri

Atera nahi litzatekeen ondorioa, alegia, barbaroek araudi orokorra egin zutela glebako joputza nonahi ezartzeko, **ondorio** -aurrekoa bezain gezurrezko da. Iñaki Iñurrieta

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berak borondatea deitzen duen x indar batek daraman laster bat, aldian behin, materia organizatutako erdian, albo **ondorio** bat eragiten duena. Josu Zabaleta Kultur eragin sirialko eta helenikoek Arabiarantz izandako irradiazio luze eta iraunkorrek gizarte- **ondorio** metakorra sortu zuen. Iñaki Mendiguren Garaipen militar horren lehen gizarte- **ondorio** hautemangarria helenismoari bizkorgarri bat ematea izan zen. Iñaki Mendiguren Biztanleriaren birbanaketa ordenatuen ustekabeko erlijio- **ondorio** horiek ez ziren izan Nabukodonosor basakeriazko asiriarr metodoetan berrerortzeak izan zituenak bezain ohargarriak. Iñaki Mendiguren Zigor- **ondorioak** edo familiari egindako kaltea edo mina dela-eta erabakiko genuke ez torturatzea. Askoren artean Inferentzia- **ondorio** hau ezagunegia da eta beraz ez da beharrezkoa hemen bera zabalean azaltzea. Ibon Uribarri · Askotan ezartzen da globalizazioaren, pobrezia- eta desberdintasunaren arteko kausa- **ondorio** erlazioa, Iñaki Heras

8 ondorio izansup_1 da ad

Eguzkiaren beroak eragindako lurrunketaren **ondorio da** euria. Irene Aldasoro Indar honen **ondorio da** giza ekintzen multzo nahasia. Juan Martin Elexpuru 1980ko hamarraldiko bigarren erdiko nazioarteko zuzeneko inbertsioen gorakada, aurrenik, europar eta japoniar enpresen ekoizpen-jardueren nazioartekotze lasterraren **ondorio da**. Koro Navarro Proteina-urritasunaren **ondorio dira** munduko elikadura-arazo ia guztiak. Irene Aldasoro Apaltasunaren **ondorio dira** Jaunarenganako begirunea, aberastasuna, ohorea eta bizia. Elizen arteko biblia Erregela honen atzean lehen Anai-artearen ibilbide osoa aurki daiteke, haren bizitza errearen deskribapen eta **ondorio baita**. Askoren artean Krisi hura gerren eta gerrek ekarritako izurriteen ondorio edo Amerikako metal bitxien beheraldiaren **ondorio izan** zen. Koro Navarro Ibai batek sortzen dituen uholdeak, ibaiak daraman ur-emari maila handitzearen **ondorio direla** esatea bezalatsu. Iñaki Heras Delituak barka daitezkeela erakustea [...] inpuntatearen laudorioa egitea da, eta sinestaztea barkatzen ez diren zigorrak indarraren bortxakeriak **direla** justiziaren **ondorio** baino gehiago. Juan Martin Elexpuru

9 ondorio izansup_2 du ad

Bokazioak misioa **du ondorio**: besteizentz jarraibide eta ispilu garbi izan behar dute ahizpek. Askoren artean Izan ere, bekatuak, bakarra izan arren, guztien gaitzespena izan **du ondorio**; dohainak, berriz, bekatuak asko izan arren, barkamena izan **du ondorio**. Elizen arteko biblia Harro gaude atsekabez ere; bai baitakigu atsekabeak eramanpena **duela ondorio**. Elizen arteko biblia Edozein sailletako ekai eskasiak espekulazio gero eta handiagoa ukan **zuen ondorio**, eta normahi egoeraz baliatzen zen, guti edo aski. Elena Touyarou

10 ondorioz

Jainkoak gizaki itxura duela uste zuten, hau da, haren forma eta jasa, eta hortik, **ondorioz**. Jainkoaren gorpuztasunaren doktrina ateratzen zitzaion. Xabier Kintana Pentsa lezake norbaitek Pío Barojaren ikuspegia, zazpi probintziak gogoan hartzen zituen, bere ideologia euskaltzalearen adierazpen zela, eta mozketak, **ondorioz**, idazle jakin baten aurkako eraso. Bernardo Atxaga Uraren azal jabala, **ondorioz**, borobil meharrez zimurtzen zen. Itxaro Borda Izadiaren eta, **ondorioz**, indarraren (*hybris*) legearen gainetik zuzenbidearen gorentasuna jartzeko ahalegina oso hedatuta egon da beti helendar kultura politikoan. Askoren artean Odola isurtzearen eta, **ondorioz**, soldadutza egitearen aurkako kontzientzi eragozpenean, hasierako kristauak ez zetozen bat judu-tradizioarekin. Iñaki Mendiguren Eta, **ondorioz**, nola bizi honetan ez baita dohatsutasun osorik, ez da ere izanen zorigaitz osorik. Piarres Xarriton **Ondorioz**, Peterrek gauza asko bere kabuz ikasi behar izan zituen. Julen Gabiria Mundu hau auzitan jartzera etorri naiz ni; **ondorioz**, ikusten ez dutenek ikusi egingo dute, eta ikusten omen dutenak itsu bihurtuko. Elizen arteko biblia **Ondorioz**, mahastia zeharo hondatua eta ia mahatsik gabe geratu zen. Askoren artean Zeren irudi geometrikoak egia-aren baitan nahiz egia beraietan egon, gure ariman edo adimenean ere badaudela inork ez du zalantzarik egiten; **ondorioz**, egia gogoan ere badago. Imanol Unzuurrungaga Ekoizpenaren emendatzeak merkatu berriak kolonizatzea bultzatzen baitu, eta horrek **ondorioz** kolonien altxamendua ekarriko duela, eta kapitalismoaren suntsitzea. Markos Zapiain Murriztu egin genuen zerrenda **ondorioz**. Bernardo Atxaga Adi egotea erabaki zuen **ondorioz**. Felipe Juaristi Hiru ortzi-gorputz haiek, eguzkia, lurra eta ilargia, elkarrekiko lerro zuzenean paratuak egonik, nahitaezko **ondorioz**, ilargiaren ilunperatze bat gertatzen ari zela ikusteak, egonezina sortu zidan. Joxe Austin Arrieta Lotzen dizkiozu [...] zeure ohorea eta zoria zeure zaldiari; haren zauriak eta heriotzak zeurea dakarte **ondorioz**. Patziku Perurena

11 (-en atzikiaren eskuinean)

Piezoelektrizitate-propietatea du hezurak: presio mekanikoaren **ondorioz** korrante elektrikoa sortzeko gaitasuna, alegia. Irene Aldasoro Hobeki egin nahi hartan, labankadaxto baten **ondorioz**, zarratada pare bat egin nuen masailan. Txillardeggi Gaixotasunaren **ondorioz**, ematen zuen bazuela harritzeko moduko bizkortasun berezi bat. Xabier Olarra Hondarretan zetzan, erorikoaren **ondorioz** konortegabetua, suposatu nuen. Joxe Austin Arrieta Pentsatzen zuten bere bizkar okerragatik janzen zela modu hartan, konkorrak disimulatzeke; ez, Joseba bezala, bere bizimodu aldrebesaren **ondorioz**. Bernardo Atxaga Nire zauriak gaiztotuak daude eta zornatan, nire zorakeriaren **ondorioz**. Elizen arteko biblia Merkatuen existentziaren eta dirua erabiltzeko ohituraren zabalkundearen **ondorioz**, apurka-apurka, ekoizpen-sistema autarkikoa pitzatu egiten da, eta jardueren espezializazioa sortzen da. Koro Navarro Gertatuaren **ondorioz**, Asisko herriak erabaki hau hartu zuen: [...]. Askoren artean Jaiotza tasa jaistearen **ondorioz** eta emakumeen independentzia ekonomikoaren **ondorioz**, giza primatuek duela 4 milioi urte garatutako eredura bueltatzen ari gara, hau da, bikote sailaren eredura. Luis Elberdin Klimen arteko aldearen **ondorioz**, herriek batzuek besteen salerosgaien premia handia dute. Iñaki Iñurrieta Euskal Herrian ehunka bazkide galdu zituen elkarte ekologistak adierazpen haien **ondorioz**. Edurne Elizondo Hizkuntzalaritzak mende honetan egin dituen aitzinamenduen ondotik, eta haien **ondorioz**, beste zientzia batzuk ere baliatu dira haren emaitzez. Piarres Xarriton Antolaketa horren **ondorioz**, eskuak egiten duen indarra handitzen da intxaurra kraskatu ahal izateko. Irene Aldasoro *ik beherago* 13. Askoren artean Kontsidero horien guztien **ondorioz** sortu ziren babes-hiriak. Iñaki Iñurrieta Honen guztiaren **ondorioz**, aipatzekoa da nolako loturak sortzen diren herri garatueta gizaritearen eta unibertitatearen artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

12 (-ko atzikiaren eskuinean)

Hizkuntzalaritzan jartzen den arretaren paradoxazko **ondorioz**, hizkuntzalaritzaren arloa da, hain zuzen, ustekeriak, ameskeriak eta iduripenak gehien zabaldu diren arloa. Isabel Arrigain

13 horren ondorioz

Abantaila handi bat du itsasoak bizileku izateko: itsasoan, ia zeharo neutralizatuta dago grabitateak; **horren ondorioz**, oinarrizko egiturak baino ez dira behar leku batetik bestera mugitzeke. Irene Aldasoro Senar-emazteek askatasuna dute, **horren ondorioz**, euren arteko itunak egiteko, lege zehatz horri egoki baderitzote. Andres Urrutia Gizakiak trukerako berez duen joera horrexek bideratzen du [...] lanaren banaketa, eta, **horren ondorioz**, baita ekoizpenaren eraginkortasuna ere, nazioen aberastasunaren oinarri dena. Koro Navarro

Esan dezake, ekonomia esperimentatua ez da posible, eta **horren ondorioz**, askotan sortzen da gezurkera mota hau. **Iñaki Heras**
Gero, mugitzen hasten dira zein bere eskualdera itzultzeko, eta **horren ondorioz**, lur zati batzuek ere beren tokia utzi eta urarekin, airearekin eta suarekin elkartzen dira.
Xabier Kintana

Eta beraz, **horren ondorioz**, Aita Sainduak ezin du bere egitekoa beste baten gain utzi. **Piarres Xarriton**

Horren ondorioz, gai kriminalak aurreikuste baten objektuak izan daitezke, gauza bera ezinezkoa delarik gai zibiletan. **Andres Urrutia**

Horren ondorioz bereizketa bat egin izan da: alde batetik, metafisika orokorra (*ens commune*) eta, bestetik, metafisika berezia (*summa ens*), izaki partikularrena, onartuz. **Askoren artean**

Horren ondorioz, ahoa eta sudur-zuloak uretan murgilduko dira, eta, ur azalaren azpian ere arnasa hartzeko ahaleginak egiten baitira, biriketan sartzen da ura. **Koro Navarro**

Zakarrontzi izugarri handietan amildu nituen paper mutur eta puska zimeldu haiek guztiak, eta jaso ezinako moduan bete eta astundu ziren **horren ondorioz** zakarrontziak, ahanzturan itzali ezin den oroimenari zenbaitetan gertatzen zaion bezala. **Joxan Elozegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

azterketaren ondorio (8); bere ondorio guztiekin (7); borrokaren ondorio (6)
eragindako ondorio (6); gatazkaren ondorio (15); globalizazioaren ondorio (7); hainbat ondorio atera (7); horren ondorio da (10); horren ondorio dira (6); horren ondorio izan (8)
izan ditzakeen ondorio (6); izatearen ondorio (6); legearen ondorio (7); nahi gabeko ondorio (7)
ondorio argia (6); ondorio atera (49); ondorio baikorrak (11); ondorio bat atera (9); ondorio bat da (8); ondorio batera iritsi (6); ondorio bera (15); ondorio da (91); ondorio dela (49); ondorio dela esan (6); ondorio dira (69); ondorio direla (32); ondorio ditu (7)
ondorio ekarri (11); ondorio ekarriko (14); ondorio ekonomiko (13); ondorio ekonomikoak (12); ondorio ezkorrak (6); ondorio gaiztoak (7); ondorio garbia (9); ondorio garbia atera (6); ondorio garbirik (13); ondorio gehiago (7); ondorio gisa (76); ondorio larriak ekarriko (9); ondorio larriak eragin (14); ondorio larriak izan (20); ondorio larriak izango (19); ondorio larrienak (6); ondorio latzak (37); ondorio lazgarriak (14); ondorio logikoa (11); ondorio nabarmenak (7); ondorio nagusi (28); ondorio nagusi atera (9); ondorio nagusi bat (9); ondorio nagusia (26); ondorio nagusiak (29)
ondorio okerrak (6); ondorio on (7); ondorio onak (40); ondorio onik (10); ondorio onuragarriak (6); ondorio orokor (7); ondorio orokorrak (12); ondorio politiko (11); ondorio politikoak (15); ondorio praktikorik (6); ondorio psikologikoak (6); ondorio semantikoa (6); ondorio txar (9); ondorio txarrak (39); ondorio txarrak izan (6); ondorio txarrik (15)
ondorio ukanen (7); ondorio ukanen duen (6); ondorio zen (12); ondorio zuzen (7); ondorio zuzena (47); ondorio zuzena da (14); ondorio zuzena izan (6); ondorio zuzenak (7)
oso ondorio larriak (10)
politikaren ondorio (17); politikoaren ondorio (8); prozesu baten ondorio (7); txostenaren ondorio (6)
ze ondorio (7); zein ondorio (53); zein ondorio atera (7); zein ondorio izan (9); zein ondorio izango (8); zer ondorio (130); zer ondorio atera (21); zer ondorio ekarriko (6); zer ondorio izan (18); zer ondorio izanen (7); zer ondorio izango (12); zer ondorio ukanen (7); zeren ondorio (6); zituen ondorio (8); zuten ondorio (10)
atera zuten ondorioa (6); ateratako ondorioa (8); azken ondorioa (10); bere ondorioa (11); horren ondorioa da (13); horren ondorioa izan (7); lanaren ondorioa (22); lanaren ondorioa da (11); lehen ondorioa (17); nire ondorioa (8)
ondorioa argia (12); ondorioa argia da (7); ondorioa atera (14); ondorioa garbia (8); ondorioa garbia da (8); ondorioa izan (103); ondorioa izan da (27); ondorioa izan daiteke (7); ondorioa izan dela (8); ondorioa izan zela (8); ondorioa izan zen (20); ondorioa izango (21); ondorioa izango da (6); ondorioa zela (10); ondorioa zen (18); ondorioa zera da (6)
albo ondorioak (7); aldatetaren ondorioak (6); ateratako ondorioak (10); azken ondorioak (8); bere ondorioak (44); bere ondorioak atera (7); bestelako ondorioak (9); dakartzan ondorioak (10)
ekintzen ondorioak (9); eragindako ondorioak (7); gatazkaren ondorioak (12); gerraren ondorioak (8); grebaren ondorioak (8); horrek ondorioak izango (6)
ikerketaren ondorioak (9); indarkeriaren ondorioak (6); istripuaren ondorioak (7); izan ditzakeen ondorioak (9); izango dituen ondorioak (6); izugarriko ondorioak (6); lehen ondorioak (15); nahi gabeko ondorioak (10); nolako ondorioak (28); nolako ondorioak izango (7)
ondorioa atera (37); ondorioa atera zituen (6); ondorioak aterako (7); ondorioak ateratzeko (34); ondorioak ateratzen (15); ondorioak aurkeztu (6); ondorioak azaldu (6); ondorioak aztertu (18); ondorioak aztertze (14); ondorioak dira horiek (6)
ondorioak ekarri (7); ondorioak ekarri (11); ondorioak ekarriko (11); ondorioak eragin (7)
ondorioak ikusita (7); ondorioak izan (46); ondorioak izan ditu (9); ondorioak izan zituen (7); ondorioak izango (43); ondorioak izango ditu (10); ondorioak izango dituela (8); ondorioak izaten (7); ondorioak izugarriak (6); ondorioak jasan (16); ondorioak jasaten (10); ondorioak larriak (15); ondorioak nabarmenak (8); ondorioak nabarmenak dira (7)
ondorioak oso larriak (7); ondorioak pairatu (8); ondorioak pairatzen (12); ondorioak sufritzen (6)
ondorioak utzi (6); sakabanaketaren ondorioak (8); txostenaren ondorioak (12); zer nolako ondorioak (17)
ondorioei aurre egiteko (14); ondorioei buruz (22); ondorioei buruzko (13); ondorioei dagokienez (6)
dituen ondorioen (6); ditzakeen ondorioen (9); izan ditzakeen ondorioen (7); ondorioen arabera (11); ondorioen artean (13); ondorioen beldur (11); ondorioen berri (14); ondorioen inguruan (14)
ondorioetako bat (56); ondorioetako bat da (6)
ondorioetan oinarritutako (6)
dituen ondorioez (9); ditzakeen ondorioez (7)
ez du ondoriarik (8); inolako ondoriarik (8); ondoriarik gabe (11)
ondoriotzat jo (11)
akordioaren ondorioz (13); aldatetaren ondorioz (10); aldateten ondorioz (6); arazoaren ondorioz (30); atentatuen ondorioz (14)
bonbardaketaren ondorioz (9); borrokaren ondorioz (19); borroken ondorioz (29); bozen ondorioz (6)
egindako presioen ondorioz (6); egoera horren ondorioz (7); egoeraren ondorioz (9); eguraldi txarren ondorioz (10); ekaitzaren ondorioz (14); ekaitzen ondorioz (7); ekintzen ondorioz (6); elurraren ondorioz (9); elurtearen ondorioz (8); erabaki horren ondorioz (6); erabakiaren ondorioz (14); eraso baten ondorioz (13); eraso etengabeen ondorioz (20); erasoaren ondorioz (17); erasoaren ondorioz (26); eroriko baten ondorioz (6); erradiazioaren ondorioz (8); erreformaren ondorioz (10); euriteen ondorioz (10); ezbeharraren ondorioz (14); eztanda egitearen ondorioz (7); eztandaen ondorioz (9)
faltaren ondorioz (8)
gaitz baten ondorioz (7); gaitzaren ondorioz (18); gaitzen ondorioz (13); gaixotasunaren ondorioz (7); gaixotasunen ondorioz (6); gatazkaren ondorioz (20); gerraren ondorioz (25); globalizazioaren ondorioz (6)
gose grebaren ondorioz (9); grebaren ondorioz (30); gripearen ondorioz (12)
haien ondorioz (17); haren ondorioz (53); harremanen ondorioz (6); hartzearen ondorioz (7); hauen ondorioz (17); hauteskundearen ondorioz (6); hegazti gripearen ondorioz (7); hiesaren ondorioz (7); hitzarmenaren ondorioz (8); honen ondorioz (44); horien ondorioz (79); horren guztiaren ondorioz (21); horren ondorioz (655); hotzaren ondorioz (10)
ikerketaren ondorioz (6); indarkeriaren ondorioz (16); istiluen ondorioz (7); istripu baten ondorioz (43); istripuaren ondorioz (74); istripuen ondorioz (22); isuri baten ondorioz (9); isuriaren ondorioz (6); ixtripu baten ondorioz (6); izandako istripuaren ondorioz (6)
jasotako kolpeen ondorioz (8)
kanpainaren ondorioz (6); kanporatzearen ondorioz (6); kolpe baten ondorioz (12); kolpearen ondorioz (61); kolpeen ondorioz (31); kutsaduraren ondorioz (9)
lanaren ondorioz (21); lanen ondorioz (15); legearen ondorioz (18); lege kanporatzearen ondorioz (6); leherketa baten ondorioz (13); leherketaren ondorioz (17); lesio baten ondorioz (7); lesioen ondorioz (9); liskarren ondorioz (11); lurrikararen ondorioz (6)
mehatxuen ondorioz (8); minbiziaren ondorioz (12)
nekearen ondorioz (7); neurrien ondorioz (6)
oker baten ondorioz (7)
ondorioz erabaki (7); ondorioz etorri (11); ondorioz etorri da (6); ondorioz gerta (7); ondorioz gertatu (28); ondorioz gertatu zen (7); ondorioz gertatzen (13); ondorioz gutxienez (10); ondorioz hartu (8); ondorioz hasi (7); ondorioz hil (98); ondorioz hil zela (15); ondorioz hil zen (37); ondorioz hildako (20); ondorioz hildakoak (9); ondorioz hiltzen (10); ondorioz iritsi (10); ondorioz izan (25); ondorioz sortu (21); ondorioz sortuko (6); ondorioz sortutako (26); ondorioz sortzen (24); ondorioz sortzen diren (8); ondorioz utzi (6)
osasan arazoaren ondorioz (6)
pilaketaren ondorioz (11); politikaren ondorioz (13); politikoaren ondorioz (7); presioaren ondorioz (12); presioen ondorioz (23); protesten ondorioz (11); prozesuaren ondorioz (10)

sakabanaketaren ondorioz (12); salaketaren ondorioz (11); sute baten ondorioz (13); sutearen ondorioz (21)

tabakoaren ondorioz (7); tiroen ondorioz (14); tiroketaren ondorioz (9); tiroketen ondorioz (6); torturaren ondorioz (8); torturen ondorioz (8); tratu txarren ondorioz (11); txartel pilaketaren ondorioz (9); txartelen ondorioz (9)

uholdeen ondorioz (29); urakanaren ondorioz (8); zatiketaren ondorioz (6); zauri larrien ondorioz (6); zaurien ondorioz (18)

horren ondoriozko (10)

ondorioarazi, ondorioaraz, ondorioarazten du *ad* ondorioztatza behartu.

Horrela Spinozak, "bere baitan den eta bere baitatik ulertzen den zerbaiten" ideiatik soilik abiatuta, era matematikoan **ondorioaraz** dezake proposizioz proposizio metafisika osoa ("De Deo") eta, metafisikaren laguntzaz, "gizonen bizio eta zentzugabekeriak Geometren modura tratatu". **Askoren artean**

ondoriobako *izond* ondoriogabea.

Orduak egin nituen hona eta hara deika, ez ebasketa triste bat, ez eraso sexual xume bat, ezta istripu kaltegabe eta **ondoriobakoena** ere neureganatu ez nuela. **Aingeru Epaltza**

ondoriodun *izond* ondorioa duena.

Oraingo honetan azioak ondorioak izan ditu, baina ondoriorik izan ez balu ere, asmo hutsean eta hutseginean gelditu balitz ere, berdin-berdin sartuko zituzten [...] agirietao ekinza bere-gain-hartuen zerrendetan; ondoriodunak eta **ondoriogabeak** elkarren ondoan eta segidan ateratzen zituen kuadrillak bere agirietao. **Iñaki Segurola**

ondoriogabe *izond* ondoriorik ez duena.

Hala ennearazitako oroitzapen konkretuek ez omen dute esanahi berezirik; zoriz pitzarazitako segmentu **ondoriogabe** hutsak baizik ez omen dira. **Xabier Olarra**

Gorde zaitezte alferrikako marmarretik, eutsi mihiari eta ez jardun gaizki-esaka, ez baita **ondoriogabea** izaten ezkutuan esandakoa ere. **Elizen arteko biblia**

Oraingo honetan azioak ondorioak izan ditu, baina ondoriorik izan ez balu ere, asmo hutsean eta hutseginean gelditu balitz ere, berdin-berdin sartuko zituzten [...] agirietao ekinza bere-gain-hartuen zerrendetan; ondoriodunak eta **ondoriogabeak** elkarren ondoan eta segidan ateratzen zituen kuadrillak bere agirietao. **Iñaki Segurola**

ondorioka *adlag* ondorioak ateratzen.

Ez genuke asmatuko jauregia nolakoa den, alferrikakoa genuke senez eta **ondorioka** jardutea. **Anjel Lertxundi**

ondoriotasun 1 *iz ipar* oinordetza; ondarea.

Eta horrela Estatu-Nazio handiaren **ondoriotasuna** gelditu zen korsikar jeneral gazte baten eskuetan. **Piarres Xarriton**

Jakin behar da, nazionalitateen hizkuntza guztiak, gero eta gehiago, etxe barneko ohikuntzetara bilduko direla, eta holaxe, **ondoriotasunez** etorri etxeko altzari zahar batzuk iduri, begiratuko ditugu eta zainduko, hainbat baliagarritasun ez izanik ere. **Piarres Xarriton**

Horra beraz zergatik zuzen den, Erroman egitea auziaren epaia, han ez baita artzapezpikuaren **ondoriotasunaren** igurikatze luzerik, ez laburrik. **Piarres Xarriton**

Baldin-eta bestelakorik izan bada ere historian barna, handi-mandien feodal jestuak eta diru **ondoriotasun** batzu, bai-eta konfardienak ere bestalde. **Herria**

Euskal Aste hunek, egun bere gorena duen, parada eder huntan berriro dizkituzue hunara bildu zirezten guzieren, zuen ororen **ondoriotasun** bakarraren maitasunezko lokarri beroak. **Herria**

2 zerbait beste zerbaiten ondorio izatea.

Sintaxiaren arloan aztertzen diren kontzeptuak honako hauek dira: axioma, teorema, **ondoriotasun** sintaktikoa, froga formala, konsistentzia, etab. **Askoren artean**

Semantikaren arloan bagaude, aldiz, aztertzen direnen artean honako hauek liriateke: asegarritasuna, egia, eredia, baliozkotasun logikoa, **ondoriotasun** semantikoa, baliozketza semantikoa, etab. **Askoren artean**

ondoriotsu *izond* ondorioz bete.

Jende aintz hunkitua da Euskal kultur munduak bizi izan dituen gora behera **ondoriotsuetaz**. **Herria**

Hitzeman bezala, gobernuak prestatua du lege-gaiño bat biziki **ondoriotsua** izan ditakeena batere plantan gauzatzen balinbada segurik, tokian tokiko karguduneri esku gehiago uzteko gisan. **Herria**

Azpiratuon "kontzientzia txarra" hortik sortuko da, moralean bezain **ondoriotsua** gero erlijioetan. **Joxe Azurmendi**

Ziminoekin ere egin omen dira entseguak, baina ez dira **ondoriotsuak** izan. **Herria**

Agian **ondoriotsu** izanen den prestakuntza! **Herria**

ondorioztapen *iz* ondorioztatzea.

Ene aburuz, **ondorioztapen** hori onartezina da. **Juan Garzia**

Horregatik, **ondorioztapena** ere hemengoaren aldean beste bat izan zen, hots, bere amaigabetasun erreala inferitu zen. **Ibon Uribarri**

Inferentzia bakoitzean oinarrian datan esakune bat dago, eta honetatik segitzen den beste bat, hots, **ondorioztapena**, eta azkenik, inferentziaren ondorioa (kontsekuentzia), zeinaren arabera azkenaren egia aurrengoaren egiarekin ezinbestean elkarlotua baitago. **Ibon Uribarri**

ondorioztatu, ondoriozta, ondorioztatzen 1 du *ad* ondorioztat atera.

Horixe **ondorioztatu** dute ESAko adituak, Cassini-Huygens ontziak bidalitako informazioetik. **Berria - Gaiak**

Hortaz, hortik itxuraz hau **ondorioztatzen** da: gauza bakoitzean erabat barnekoa den zerbait dagoela (substantzia), eta hau kanpoko determinazio orenen aurretik doala. **Ibon Uribarri**

Hortik zera **ondorioztatzen** da, ia beti komeni izaten dela erlijio batek dogma partikularrak eta kultu orokorra izatea. **Iñaki Iñurrieta**

Hori ere ez da egia; izan ere, San Luis 1269an abiatu zen, Ducangek nabarmendu bezala, eta hortik **ondorioztatzen** du kode hori hura kanpoan zelarik argitaratu zela. **Iñaki Iñurrieta**

Hortik beste hau ere **ondorioztatzen** da, alegia monarkian ez zela zentsu orokorrik; eta hori argi uzten dute hainbat eta hainbat testuk. **Iñaki Iñurrieta**

Pelbisaren formagatik **ondorioztatu** dugu emakume batena dela eskeletoa. **Berria - Gaiak**

Horretatik guztiatik hau **ondorioztatu** behar da, Europa gaur egun ere oraindik giza espeziearen ugalketari bide emango dioten legeen beharrean dela. **Iñaki Iñurrieta**

Baina hortik ez da **ondorioztatzen** gaiztoak berez direla gaiztoak. **Esteban Antxustegi**
Hori bera **ondorioztatzen** da borondatearen, ongiaren, ohorearen eta baliagarritasunaren definiziotik. **Esteban Antxustegi**
Orduan ontzia auzoko batek ostua zela **ondorioztatu** zuten. **Martin Anso**
Eta, azkenean, gazteluaren jabe egiten baldin bazen neskaren jabe ere egingo zela **ondorioztatu** zuen. **Martin Anso**
Hori guztia, zer esanik ez, geroago **ondorioztatu** nuen, inpresio berezia eragin zidan film hura gogoratzu. **Iban Zaldúa**
-Gizon hori ez dago burutik sano - **ondorioztatu** nuen. **Alberto Ladron Arana**
Horra zer gertatzen den hipotesi guztiak aztertzen ez direnean - **ondorioztatu** zuen Jonathanek. **Jon Muñoz**
Beraz, ondo aprobetxatu behar dituzu daukazun frogak, eta gainerakoa, **ondorioztatu**. **Antton Olano**

2 (logikan-eta)

Pentsa dezagun norbaitek A ustea duela eta A ustea B ustearen bitartez justifikatzen duela, bigarren horretatik **ondorioztatuz** -indukzioz, dedukzioz edo azalpen hoberearen inferentziatz, esaterako-. **Askoren artean**
Loturarik ez dago sinbolo horien artean eta garbi dago p eta q sinboloetatik r **ondorioztatzea** ez dela posible. **Askoren artean**
Logika batentzat sistema formal bat proposatzen denean, sintaktikoki **ondorioztatzen** dena sistema horretan semantikoki ere **ondorioztatu** egin behar da. **Askoren artean**
Gogotik ahalegindu ziren hori frogatzen (beste axioma eta postulatuetatik **ondorioztatzen**, alegia, 5. postulatu). **Jon Muñoz**
Bereizte honetatik ez da **ondorioztatu** behar era unibertsal batean enuntziatuaren subjektua formulazioaren egileaz gutiz ezberdina dela -bere izaeran, estatusen, funtzioan, identitatean-. **Xabier Arregi**
Hori **ondorioztatuko** litzateke ahalmen mugatuko edo mugagabeko kausa batetik, hots, edo gizakiaren ahalmen soiletik [...] edo Naturaren ahalmen mugagabetik. **Piarres Xarriton**
Neurketa zuzenaz iristerik ez zeukana arrazoibidez **ondorioztatzer**a abiatua zen Tales. **Jon Muñoz**
Hemendik **ondorioztatzen** da, noski, arrazoimen-ezagutza espekulatibo ahalgarri oro esperentziaren objektuetara zedarrizatu behar dela. **Ibon Uribarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

hortik ondoriozta dezakegu (3)

adituek ondorioztatu (3); **azterketatik ondorioztatu** (3); **egin dela ondorioztatu** (3); **hala ondorioztatu** (7); **hortik ondorioztatu** (7); **hortik ondorioztatu dute** (4); **ikerketak ondorioztatu** (3); **izan zela ondorioztatu** (7)

ondorioztatu dute adituek (4); **ondorioztatu dute ikertzaileek** (6); **ondorioztatu dute zientzialariek** (3); **ondorioztatu zuen ikerketak** (3)

bertatik ondorioztatzen (4); **halaberrez ondorioztatzen** (4); **hemendik ondorioztatzen da** (3); **hortik ondorioztatzen** (14); **hortik ondorioztatzen da** (9); **hortik zera ondorioztatzen** (3); **ikerketak ondorioztatzen** (3); **txostenak ondorioztatzen** (3); **zera ondorioztatzen da** (10)

ondorioztatze iz ondoriotzat ateratzea.

Ondorioztatze horiekin bat etorri zen Chirac. **Berria - Harian**

Iragan otsailean, Libian ikerketak egiteko baimena lortu ondotik, Alk **ondorioztatze** latzak egin ditu herrialde horretan giza eskubideen alorreko egoeraz. **Berria - Mundua**

Ikerketa txostenak ez badu zehazki Donald Rumsfeld Defentsa idazkaria erantzule jotzen ere, **ondorioztatze** horretara darama. **Berria - Mundua**

Ondorioztatze horiekin bat etorri zen Chirac. **Berria - Harian**

ondorioztu, ondorioz(tu), ondoriozten du ad ondorioztatu.

Atzo kaleratutako sententziek jasotzen dutenez, Fiskaltzak zein Estatuaren Abokatuak aurkeztutako inpugnazioetan «argi **ondoriozten** da Batasuna sareak HZ hautagaitza bultzatu eta kontrolatzen duela». **Berria - Euskal Herria**

ondostatze iz landareez eta kidekoez mintzatuz, lurrez inguratu.

Alta, adina hor du, eta Aita saindu berri bat beharko deneko, haren bozemaile kontseilutik baztertzen da, ez baitu gehiago atseden eta bere erroen **ondostatzeaz** beste ametsik. **Herria**

ondotik ik ondo² 29.

ondotiko ik ondo² 40.

ondotxo¹ adlag adkor ondo, ondo asko.

Ondotxo dakit zer den minduta egotea. **Mirentxu Larrañaga**

- **Ondotxo** dakizue borroka horien berri. **Harkaitz Cano**

Hik ere **ondotxo** dakik zein zingiratan ari garen mugitzen. **Harkaitz Cano**

Gainera, **ondotxo** nekien Ivyk, emakume guztiak bezala, nik zer sentitzen nuen nahi zuela jakin, eta ez besterik. **Joxe Austin Arrieta**

Ondotxo genekien bazela han beste zerbait, guri kontatu nahi ez zigun zerbait, guri ezkutatu nahian zebilen zerbait. **Mirentxu Larrañaga**

Bera izana zela Kaukasoan, **ondotxo** ezagutzen zuela berak Ivan, arma bidez izan ezik inola ere ezin zentzaraz omen zitekeen Ivan hura. **Joxe Austin Arrieta**

Han berriro kontatu zidan **ondotxo** ezagutzen nuen gertakaria. **Iban Zaldúa**

Literaturan, ordea, gauzak ez dira hain erraz erabakitzeko modukoak, Lertxundik gaztelaniarekiko morrontzarena salatzen darabilen esalditxoaren historiakoak **ondotxo** erakusten duenez. **Joxerra Garzia**

Ondotxo ikasi dute hori Japonian, esaterako, non bertako krisi larritik ateratzeko interes tasek izugarri egin duten behera. **Iñaki Heras**

Ni **ondotxo** moldatzen nauk landetxe batean... **Lopez de Arana**

Portalisen esanak, edonola ere, ez datoz politikaren esparrutik, berak **ondotxo** bereizten baititu politika eta harreman zibilak. **Andres Urrutia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ondotxo baitaki (3); **ondotxo baitzekien** (3)

ondotxo daki (16); **ondotxo dakigu** (11); **ondotxo dakigulako** (3); **ondotxo dakik** (10); **ondotxo dakik hik** (3); **ondotxo dakik hori** (3); **ondotxo dakit** (28); **ondotxo dakit nik** (3); **ondotxo dakite** (12); **ondotxo dakite hori** (3); **ondotxo dakitenez** (4); **ondotxo dakizu** (30); **ondotxo dakizu zuk** (3); **ondotxo dakizunez** (4)

ondotxo ezagutzen (20); **ondotxo ezagutzen dut** (4); **ondotxo ezagutzen zuen** (3)

ondotxo genekien (8)

ondotxo jakin (11); **ondotxo jakin ere** (5)

ondotxo nekien (9)

ondotxo ulertu (3)

ondotxo zekien (36); **ondotxo zekien berak** (3); **ondotxo zekiten** (9); **zuk ondotxo dakizu** (4)

ondotxo² ik ondoxe.

1 *ondotxoan* *adkor* ondo-ondoan.

Elkarri musu bat emanez bukatu genuen saioa, aho **ondotxoan**. [Josu Zabaleta](#)

Behin baino gehiagotan afaldu izan dut, bakar-bakarrik, hitzaldi lekuan bertan, edo **ondotxoan**, edo erdibideko herri are anonimoago batean, edo bidertzeko jatetxe are bakartiago batean. [Pako Arísti](#)

Ixabel nire **ondotxoan** etzanda, ahuspez. [Joxean Sagatzizabal](#)

Jakina bezain esan beharrekoa da literatura eta bizitza elkarren **ondotxoan** ibiltzen direla. [Berria - Kultura](#)

2 *adkor* ondoren.

Sagar bilketaren **ondotxoan** aldegin zuen, iraileko egun batez. [Josu Zabaleta](#)

Akragas ibaiaren urbazter urreztatutik hurbil agertu zen, Agrigentoko hiri ederrean, Xerxes-ek itsasoa katez joarazi zuen garaia **ondotxoan**. [Juan Garzia](#)

3 *ondotxotik* *adkor* ondo-ondotik.

Inurritegiak dozenaka azaltzen ziren, zomorro errukarriak aztoraturik; larre-saguak korrika bizian nire **ondotxotik**, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerak, txiritak; eta ibiliko ziren, ikusi ez banituen ere, ziklopeak, lamiak, basiliskoak, herensugeak, [...]. [Joxean Sagatzizabal](#)

Ondotik, edo **"ondotxotik"**. [Jon Muñoz](#)

ondoxe 1 iz ik ondotxo¹.

Sasoin bete-bete hura Errepublikak egunetik harat izaiten da denen buru agorriko Andredena Maria **ondoxe** artino. [Herria](#)

Seiak **ondoxea** zen jo nuelarik Magaliren bizitegi txar hartako atean. [Janbattitt Dirassar](#)

2 *ondoxean* *adkor* ondoren.

Berantenez Urtats **ondoxean** jakinen da beraz Pariseko juje horiek zer dioten. [Herria](#)

Danone horrek hain xuxen 1700 langile nahi omen luzke baztertu Frantzian gaindi, Pazko **ondoxean** edo hola! Sindikatentzat hori ezin onetsia da! [Herria](#)

Delako galdera -"gogorxko atzokoa, ezta?"- zerbitzariari kafeak eta erretzeko papera eskatu **ondoxean** pausatu zuen. [Aingeru Epaltza](#)

Tokia, merkatu-plaza, gure laguna bere lan-indarra bertan saltzen hasi **ondoxean**. [Aingeru Epaltza](#)

3 *ondoxeko* *adkor* ondorengo.

Igandetan haatik, eguerdi **ondoxeko** berdin... [Janbattitt Dirassar](#)

4 *ondoxetik* *adkor* ondo-ondotik.

14-eko gerla **ondoxetik** eta etxea zerratu arte, duela zombait urte. [Herria](#)

Medikuntza naturistaz arnegatu **ondoxetik**, haren zakua botika mordoskaren altxatokia zen, buruko minak eta txaketenak estakuru. [Aingeru Epaltza](#)

ondozka *adlag* elkarren ondoren.

Normala ote da halako abandonua, hutsunea eta bihotz-hauste zirrara izugarriarekin batean tristura baino bizinahi sendoago bat, bizirik dirauenaren poz isil garailea edo bizitzaren eta heriotzaren arteko elkarkidetzat bitxia **ondoizka** edo aldi berean sentitzea? [Joxan Elozegi](#)

ondozkatu, ondozka(tu), ondozkatzen da/du *ad* ondozka jarri.

Estilo elkarbigiztatuan aldiz, parez pareko perpausak **ondozkatzen** dira, elkarren menpekotasunik eta batasunik batera eratu gabe. [Patziku Perurena](#)

Gaueko ordu txikitzen jartzen naiz Henao kaleko bizitzan txatalak **ondozkatzen**, loari kendutako tartean. [Javi Cillero](#)

ondra 1 iz ohorea.

Azken urteotan **ondra** handienaz ohoratu diagu Olentzero mozkorra, ume-jalea, ikazkin aldrebesa, baba-zaku tripania... [Anjel Lertxundi](#)

Akabo nire mirespena eragin zuen dotoretasuna, akabo laguna, akabo lagunaren ondoan imajinatu izan nituen harmonia oneko ibilerak eta Alemaniaren **ondrako** lanak.

[Anjel Lertxundi](#)

Fanatiko-arraza bat gara, eta **ondraren** fanatismoa da indartsuenetako bat. [Josu Zabaleta](#)

Maisu Txikia, ohore kontuetan oso jeloskorra bera, prest zegoen, hori esaten zuen behintzat, **ondra** kendu nahi zionari sastakada bat emateko. [Josu Zabaleta](#)

Ez tedeskoek ez italiarrek ez diguzue duintasunaren **ondra** kenduko kroaziarroi, gera bedi argi esana. [Anjel Lertxundi](#)

Araknek handik eta hemendik jasotzen zituen **ondrek** eta alabantzek harrokeriaz bete omen zuten. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Orduan, neskatxa horrek zikindu du gure **ondra**. [Fernando Rey](#)

2 birjintasuna.

-Hara: orain dela urte batzuk ia galdu nuen **ondra**, emakumeok esaten dugun bezala. Ez zen niretzat inolako sakrifizioa izan, arruntki **ondra** edo **ondra**-galtzea deitzen den hori garrantzirik gabekoa baitzitzaidan: zuk, nire gorputzaren jabe bakarrak, ez ninduzun maite; beraz, gainontzeko gutzia bost axola zitzaidan. [Josu Zabaleta](#)

Gauza handi, indartsu, ikaragarri bakarra, emakume horiei geratzen zaien **ondraren** ideia da, beren buruen gainean zintzilik duten gauza beldurgarri bat bezala. [Josu Zabaleta](#)

Izan ere, tristea da gero, konforme nator harekin, emakumeen **ondra** hankartean eramatea, bizi garen gizarte honetan gertatzen den bezala. [Karlos Zabala](#)

3 *p/* hileta elizkizunak.

-Kukuak esan zuen, Santa Maria Martxokoz ez bazetorren, bere **ondrak** egiteko. [Pello Zabala](#)

ondradu (*orobat ondratu, onratu g.er. eta ondrau g.er.*) 1 *izond* zintzoa, prestua.

Gure xedea persona eraginkorrez, zintzoez eta **ondraduez** ingurutzeta da gure herraldearen arazoak konpontzeko. [Berria - Mundua](#)

Esan zion jende **ondraduarentzat**, lan egiteko prest zegoen edonorentzat, beti irekiak egongo zirela Argentinako atean. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Guraso **ondraduak** ditait nik, ikasiak, familia onekoak. [Eskarne Mujika](#)

Hortaz, bizio hori zeukan, Orso Nerok bezalaxe, baina gure aitak ez, aita **ondradua** zen. [Pello Lizarralde](#)

Jelosia berezia zen, bestalde, Florentenganako destaina eta emakume **ondratuaren** hoztasuna gorabehera. **Karlos Zabala**
Hemen, bion artean, esango diat, emakume **ondradua** bizitzaren produkturik ergelen eta mingotsenetako bat iruditzen zaidala. **Josu Zabaleta**
Talamoni gizon **ondradua** dela uste dut, nahiz eta *Corsica Nazion*eren baitan dauden guztiak halakoak ez izan, Charles Pieri kasu. **Berria - Mundua**

2 (gauzei buruz)

Non da, gizajo hori, zure biziera santu eta **ondradu** hura? **Joseba Sarrionandia**
Mugimendu natural eta espontaneoa izan zen, zintzoa eta **ondradua**. **Berria - Kultura**
Pitzadurarik, zirrikiturik eta ahuleziarik gabeko imitazio-bide **ondradu** bat sortu: bat eta euskaldun izateko beste moduak ukatzen zituena. **Anjel Lertxundi**
Aralarrek ahalik eta kanpainarik **ondradu** eta zuhurrena egingo du, baina era berean, mezu tinko, garden eta bortitza emanen du. **Berria - Euskal Herria**
Noizbait gure historia **ondradu** bat idazten bada, ikusiko da Bidasoaz bi aldetako zoko ilunotan errotutako euskaldunon gizaerak, kulturak, odolak, asko zor diola, besteak beste, Santiobide inguruko merkatu beltz hari. **Patziku Perurena**
Egia **ondradu** bat ukatu zuen euskal jatortasun faltsu baten gorantz. **Patziku Perurena**

3 irud/hed

Atzo gauean bertan, ardo **ondratu** batekin ospatu genuen garaipena. **Anjel Lertxundi**
Tabernan ez zegoen zerbitzaria beste inor; tabernan egin nituen bi ordu **ondratuetan** ez zen inor sartu. **Anjel Lertxundi**

4 (adizlagun gisa)

Dirua egindakoa zen Ameriketara eta **ondradu** ordaintzen zigan alokairuan utzi genion gure etxe ondoko apartamendua, baina ez zuen diru-ugaritasunaren seinalerik ematen. **Anjel Lertxundi**

ondradutasun *iz* zintzotasuna, prestutasuna. ik ohoretasun.

Kaskarinak eta **ondradutasunik** gabeak gara, kaskarinak eta **ondradutasunik** gabeak direnen gainetik igarotzea beharrezko delako. **Ramon Etxezarreta**
Hasierako aforismoetan elkartasuna, **ondradutasuna** eta hiritarren osotasun politikoa goraipatzen zituen, aberatsenen diru-gosea kritikatzearekin batera. **Berria - Kultura**

ondragabe *izond* ondrarik ez duena. ik ohoregabe.

Zeren sarritan gizakiek diotena, hots, gaixotasunak eta bizitza **ondragabea** Tartaroren herio-zuloa baino beldurgarriago direla eta eurek badakitela gogoaren izaera odolezkkoa dela [...] eta gure doktrinarik ez dutela ezertarako behar, pentsa ezazu hori guztia areago dela harrokeria, benetako ustea baino. **Xabier Amuriza**

ondratu¹, ondra(tu), ondratzen du *ad* ohoratu.

Eduardo dugu Nietzschek erdikusi zituen zoko ilun asko gogoz eta pentsatzez argitu eta **ondratu** dituen bakarra. **Patziku Perurena**
Zure adiskidetasunarekin **ondratu** gaituzunoi pasarazi dizkiguzun une gozo guztien esker onez. **Anjel Lertxundi**
Hartara, izan ezazu ziertotzat probintzia txit noble honetako txikiarainokoez ere inoiz baino kemen handiagoz **ondratuko** dutela zure izen berez ondrosoa. **Anjel Lertxundi**
Sabino Aranaren gorpuzkiak Sukarrietako hilobira itzuli behar zituztela, ez zegoelako jada profanatuko zituzten arriskurik eta herriak merezi zuten bezala **ondratu** zitzan. **Ramon Saizarbitoria**

ondratu² ik **ondradu**.

ondrau ik **ondradu**.

ondroso 1 *izond* aski ugaria.

Afari-merienda **ondroso** bat egiteko. **Pello Zabala**
Pentsa genezake kosta aldetik beti ere aiseago egiten duela euri-zaparrada **ondrosorik**. **Pello Zabala**
Meza sorta **ondroso** eta ongi luzitua dakar gero bertan. **Pello Zabala**
Izan da aldi ilargialdiko berezirik, 500 litro **ondroso** eta beteak eman dituenik, ilbetearekin hasi euritea, eta ilbetearekin amaitu. **Pello Zabala**
Ez da, egia esan, **ondroso-ondroso** horietakoa, baina ofizio probetuzkoa da. **Matias Múgica**

2 (adizlagun gisa)

Bere 28 egunotan badaki euritik **ondroso** ematen. **Pello Zabala**
Ia lurralde denak **ondroso** samar dabilzke euria jasotzen hasten diren hilabete honetan. **Pello Zabala**

• 3 *izond* ohoretsua.

Hartara, izan ezazu ziertotzat probintzia txit noble honetako txikiarainokoez ere inoiz baino kemen handiagoz ondratuko dutela zure izen berez **ondrosoa**. **Anjel Lertxundi**

ondrosotasun *iz* ondrosoa denaren nolakotasuna.

Besteetan, jauziaren altuera eta bueloak markatuko zuen liho edo kalamu uztaren **ondrosotasuna**. **Pello Zabala**
Ikusten duzue nolako **ondrosotasunez** ibili zen orduan; arazoak zituzten mariagorarekin ibai-erreka guztiak gainez zihoazelako. **Pello Zabala**

ondu, on(du), ontzen (*orobat ontu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian ondu agertzen da*) 1 da/du *ad* on bihurtu. ik hobetu.

Txarragoak **ontzen** du txarra. **Iñaki Segurola**
Hau dio Jaunak: "Nik **ontzen** dut ur hau; aurrerantzean ez du ekarriko heriotzarik, ez agortasunik". **Elizen arteko biblia**
Mendi-bideotako lokatz lohi eta basak lehortuko zirela esateko orduan ere, Santio sasoia seinalatzen zuten: Santixautarako biderik txarrena be **onduko** da bai! **Pello Zabala**
Txiste nahiz kontakizun txarren bat **ondu**, edo ona hobetzeko asmotan esan ohi dugu benetan gertatua dela han kontaktzen dena. **Joxerra Garzia**
Jakina da denboran pentsatzeak zenbat **ontzen** duen, zenbat edertzen duen bizialdi bat: orduan batek zenbat lezakeen! (orduan bai, bizi nintzen!; orduan bai ederki!). **Iñaki Segurola**
San Antoniok ondu zaitzala esanez, ume nahiz abere, etxeko denei zirtatzen zitzaien gurutze bat eginez. **Pello Zabala**

ontzen, zintzozen, duintzen, duintzetzen eta gajo-gizajotzen. Iñaki Segurola

Giza izaera, adiskidea, hain da ankerra non geure zitalkeriaz oharitzen garenean ere ez garen **ontzen**. Matías Múgica

Baina denborak dena sendatzen du, dena usteltzen eta **ontzen** du, eta denborarekin Joxe "Joxe zena" bihurtzen da. Iñaki Segurola

2 lurraz mintzatuz, ongarritu.

Lurraren **ontzeko** gisua behar zutela hedatu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lur berri egiteko eta ongailuz **ontzeko** ere bai. Herria

Egiazko onkailuan, izenak berak manatzen duen bezala, lurra **ontu** behar bailuke eta ez funditu! Herria

3 fruituez, belarraz eta kidekoez mintzatuz, heldu, umotu.

Kimuberritu zen, loratu eta **ondu** egin ziren mahats-mordoak.

Rhin ibaira goiti eta beheiti ari den bidearen bazterrean gereziak **onduxeak** dira. Marzel Etxehandi

Gure barrutietan belarra eguzkitan **ontzen** den bezala, lizar-hostoa **ontzen** omen zuten haiek, eta saroe eta bordetan gorde, neguan aziendak gozatzeko. Pello Zabala

Horra hor hurritza, berriz ere, biziaren ziklo harrigarri horren amaieran, hiru bider hirutan biribildua, bederatzir hilabete luzetan **ondu** eta umotu. Patziku Perurena

Uzta **ontzeko** eta orohar nekazalorako haize hau baita hoberena. Patziku Perurena

Ezen ez da ontasun horietarik bihi bat, zerbait ments ez duenik, erraten den bezala: **ondu** batentzat beti bi gordin. Piarres Xarriton

4 (era burutua izenondo gisa)

Plazaren bertze muturrean, Larrea, gerezi **ondu** bat bezain gorriturik, ahakarrean denei: [...]. Aingeru Epaltza

Autobus mendabelar batera igo nintzen, non mugitzen baitziren bezeroak gazta **onduegi** batean harrak bezala. Xabier Olarra

Greccioko belar **onduaren** mirarizko indarra. Askoren artean

Kosta aldean, eta belardi eta pentzeetatik belar **ondua** bildu nahi duenarentzat. Pello Zabala

Ezkaratzean, arto txurikinez eta belar **onduzko** ohea, gau hori hantxe egin zezan. Pello Zabala

Ahuntzak belarra baino lehen jaten zuela lizar-hosto **ondua**. Pello Zabala

5 (ardoaz eta kidekoez mintzatuz)

Ardo gaztea, **ondua** baino hobe. Berria - Kirola

Kortxo atera dio sotoan zeukan ardorik **onduenari**. Anjel Lertxundi

Musika horri lotuta beste milaka batzuk daude, norberarekin bat egiten dutenak, norberaren tamainara egokitzen direnak, **ondutako** ardo botilaren hutsari bezala. Felipe Juaristi

Ondutako ardoen salmentak, oster, igo egin ziren iaz; %5,85 hain zuzen, eta 87,5 milioi euroa iritsi dira. Berria - Ekonomia

Haren gerri bueltak ez zion bourbona **ontzeko** upel haietako bati inolako inbidiarik. Harkaitz Cano

6 irud/hed

-Ja, baldintzak ez daudela **onduak** esanen didak... Koldo Izagirre

XIX. mendearen erdi aldera, mikroskopio optikoa hain **ondu** zen, non zelularen hainbat egituraren berri eman baitzigen. Juan Garzia

Izpiritu espainola **ondua** zegoen, feniziar, greko, erromatarrek han desenbarkatu baino lehen. Joxe Azurmendi

7 janariez mintzatuz, prestatu; bereziki, hura gozatzeko gaiak ezarri. ikmaneatu¹.

Olairen aterpean, Joanesek gasna biziki eztiak **ontzen** zituen. Itxaro Borda

Landare produktua, ozpinetan **onduak**. Josu Zabaleta

Eguerdiko saldaren **ontzeko** baratzeak bipiltzeari ekinez. Itxaro Borda

Azafraiz **ondutako** risottoarekin eta gremolatarekin. Jon Muñoz

[Hurak], intxaur eta gaztainekin batera, zenbat afari-merienda **ondu** ote dituzte hiru emari hauek! Pello Zabala

8 irud/hed

Blusa pixka bat irekitzen zitzaionean, bi zuritasunen artean bizitza arnasa bat ateratzen zela ikusi uste zuten, [...] merkatuak uztailaren gaualdi sargorietan izaten duen kirats tanta batez **ondua** zegoena. Karlos Zabala

Lakuaren ondoko bazterrak ikusmiratzen, oso politak baitziren uda parte hartan, argi biziz **onduak**. Felipe Juaristi

Usadio asko eta bitxiak, arrenez eta eskariz **onduak**, hortik nahi baitzen eguraldiaren babesa ziurtatu. Pello Zabala

Frantziak [...] Prusia gaiztoa gaztigatu ahal izan zuen eta hark egin aspaldiko zauri samina sendatu, Alsazia maitea berreskuratzearrekin eta, gainera, bere Afrikako inperioa etsaiaren hondarkinez **ontzearekin**. Piarres Xarriton

9 haragiaz eta arrainaz mintzatuz, luzaz irauteko eran prestatu. ikgazitu.

Orobat kondatu zidan bere zahartzarrea eta nola azken bidaia batean abiatu zen, itsasoa zer den, ez gatzez **onduriko** okelarik jaten, ez arraunaren berririk ez dakiten gizonetara iristeko xedeak bultzaturik, Ulises bezala. Juan Garzia

Ez nitek harra egiten zaion gatzez **ondutako** janaririk nahi. Anjel Lertxundi

Urtero, Pazkoaz, Burtonen baleontzia pasatzen zen munduaren berri eta mantenugaiak ekartzera, eta guk **ontzen** genuen urdai ketu apurra kargatzera. Juan Garzia

Kabiar gazitua, sardinaz ketuak, gazta, mihi ketuak eta gaizkata-bizkar **onduak**, dendetatik ekarria hori guztia. Jose Morales

Bitarte hartan, gaizkata-xerra **onduak** jan zituzten, eta arratsaldeko bostak aldera eseri ziren mahaira. Jose Morales

10 larruaz mintzatuz, ustel ez dadin, hartako gaiez prestatu.

Larru **onduak** jotzen eta kolpatzen zituzten, zirti-zarta, uda eta negu. Aingeru Epaltza

Zaila litzateke aurkitzea beste inor hark adina gari zuenik [...] eta biltegietan, aletegietan eta idortegietan hark beste oihal, ehun, ardi-larru **ondu** zein ondugabe, arrain gazitu, barazki eta ehizaki zuenik. Jose Morales

Deusengatik ez, erronka egiteagatik, larru **onduaren** gainean harramazka baten arrosa kolore absurdoa agertarazteagatik: munduaren absurdotasunarekin jolas egiteagatik. Monika Etxebarria

11 literatura- edo musika-lan bat egin, sortu.

Homerok *Odisea* **ondu** zuen. Juan Garzia

Antonio Machado ere **ondu** zuen poema xarmagarri horietako bat, eulien ohoretan. Patziku Perurena

Bihotzean min du Lizardi poetak, eta hileta-eresia **ondu** du, amona zenaren ehortz-egunean. Imanol Zurutuza

Luze **ondua** zuela kakofoniaren eta kaosaren posibilitateak infinituraino zabaltzeko gauza zirudien poema bat. Juan Garzia

Lauko adina teorema **ondu** zituen Al Khaiamek. Jon Muñoz

Bertsolariek diskurtso-atalak **ontzen** ari direnean, hau da, bertsotan ari direnean, [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1991n, *Klasikoak* sorta abiatu zelarik, latinetik euskaraturik, **ondu** nuen, Tomas Mororen *Utopia* liburu. Piarres Xarriton

Latinetik erdararako itzulpenak **ontzeko**, hiztegi mardulak eskumenean. Itxaro Borda

Abeli buruzko txosten bat **ondu** zuen azkenean Augustin Cauchy. Jon Muñoz

Han inprimatu baitziren Frantziar **ondutako** lehenengo liburuak. Jon Muñoz

Historiako lehen entziklopedia filosofikoa eta zientifikoa ismaeldarrek **ondua** da. Jon Muñoz

Aiton-amon xaharrenean intentzio sanoenak ezagutu ditut atsolitz ongi **ondu** horietan. Pello Zabala

Idazki "perfektoa" da, hain zuzen, tasun delikatu horiez **ondua** baita, errazen higatzen dena. Juan Garzia

Hala dio behintzat haren seme salduak, galeretan buruz **ontzen** ari den aitaren kontrako bertsuetan. Anjel Lertxundi

Raimundo Sarriegi, musikari herrena [...] Donostiako Martxa eta zortziko zoragarriak **ondu** zituen. Askoren artean

Sarriegik bi pieza **ondu** zituen, "Euskal-Billera" eta "Sporti-Clay" izenekoak, izen bereko erakundeentzat. Askoren artean

Inork entzungo ez zituen hil eresi batzuk **ondu** eta irakurleen eta neronen onerako sekula inprimatuko ez diren neurritzak idatzi ondoren. Jon Muñoz

12 irud/hed

Bazuen sekretu bat beira koloretuentzat, eta guztiz itxura ederreko xafila nabarrak **ontzen** zekien. Juan Garzia

Hamar minutuan plana **ondurik** neukan. Juan Garzia

Stampe-k **ondu** duen teoriaren bertsio modernoan. Lourdes Oñederra

Aurrean, nolanahi ere, Iraultzak **ondu** nahi zuena: estatu nazional edo bakarraren gogoa. Andres Urrutia

Hala, apurka-apurka joan ziren **onduz** genetika klasikoaren eta mekanika kromosomatikoaren legeak. Juan Garzia

Bere koadernoko orrien barruan sartuta zeukan gizon mordoxka hark **ondua** zen Greziako matematika! Jon Muñoz

Gabon-afarirako egitaraua **ondu** berria zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Geometria zaharrari aljebraren aberastasun berriak eskaintzeko **ondu** zuen Fermatek bere sistema. Jon Muñoz

Kapital txiki bat biltzen dute apurka-apurka, beren zoria besteen kontura **ondurik**. Jose Morales

Gabon-afarirako egitaraua **ondu berria** zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

13 kirol markez eta kidekoez mintzatuz, hautsi, gainditu.

-Zure marka guztiak **onduko** dituzu gaur, Mentxu... Josu Landa

Qi Huiren marka berdintzea lortu zuen Amanda Beardek 2003n, baina atzokoan Jonesek **ondu** egin zuen. Berria - Kirola

19 aldiz **ondu** du munduko marka. Berria - Kirola

Bodrogik orduaren marka **ondu** nahi du denboraldia amaituta. Berria - Kirola

15 urterekin, bera da munduko errekorra **ondu** duen igerilaririk gazteena. Berria - Kirola

100 euro, ezetz larunbatean Realak Eibarrek gaur atzokoz lortuko duen emaitza **onduko**. Berria - Kirola

Atleta kenyarrak lasterketa bikaina egin eta lasterketako denbora **ondu** zuen. Berria - Kirola

14 azak ontzeko hori gutxi balitz bezala.

Eta, azen **ontzeko**, maizterrak izan gara beti, lehen ere aipatu dudan bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errekorra ondu (6); **espainiako marka ondu** (5); **euskadiko marka ondu** (3); **marka ondu** (48); **marka ondu zuen** (16); **munduko errekorra ondu** (3); **munduko marka ondu** (14); **pieza ondu** (3); **txosten bat ondu** (3)

belar ondua (10)

marka onduta (5)

ondutako txostena (5); **ondutako txostenak** (3)

belar onduzko (3)

marka ontzea (6)

azak ontzeko (3); **azen ontzeko** (27); **marka ontzeko** (9); **markak ontzeko** (3); **munduko marka ontzeko** (3)

fruitua ontzen (3); **gasna ontzen** (3); **marka ontzen** (3); **markak ontzen** (3); **ontzen ari** (13) ontzen saiatuko da (3)

onduberri *izond* ondu berria dena.

Beren usain, itxura eta mami gozo zurigorri erotikoagatik, atseginaren eta emankortasunaren irudi izandako piko **onduberriaz** gainera, pikoak idortzeko ohitura ere oso aspaldikoa da, eta probatu dituenak badaki ongi, piko **onduberriak** baino hagitzez gozoagoak izaten direla piko lehortuak, hain zuzen ere, lehortu ahalean azukrea loditzen baitzaie. Patziku Perurena

ondugabe *izond* ondurik ez dagoena, ondu gabe dagoena.

Zaila litzateke aurkitzea beste inor hark adina gari zuenik [...] eta biltegietan, aletegietan eta idortegietan hark beste oihal, ehun, ardi-larru ondu zein **ondugabe**, arrain gazitu, barazki eta ehizaki zuenik. Jose Morales

ondulatu, ondula, ondulatzen 1 du *ad* izurtu; uhin forma hartu.

Orazia uretan pasa eta samur **ondulatu** du ile beltza. Eider Rodriguez

2 (era burutua izenondo gisa)

Ile **ondulatu**a jaisten zaio exekutibo jakaren atzetik, dotoreziaz ixten zaio gerrian bularrak doi bat tentetuz. Urtzi Urrutikoeetxea

Ilea, motza, baina ez Luisek irudikatu bezain motza eta, gainera, **ondulatu** xamarra. Lourdes Oñederra

Adats beltz **ondulatuak** atzerantz eskuez orraztu ondoren. Paddy Rekalde

Haren alboan ezer gutxi jango nuen: gominolaren batzuk, patata **ondulatuak**, gusanitoak, doritoak, cheetoak, gantxitoak, donetteren bat eta antzeko litxarreriak baino ez.

Jon Arretxe

Bainugelan bere buruari behatu zion ispilu **ondulatuan**. Lopez de Arana

Zigarroaren keak lerro **ondulatuak** egiten zituen gelako sabaian, emaro desegiten zirenak. Bernardo Atxaga

ondulazio *iz* ondulatzea. ik izur.

Elementu horiekin, klimaxa, soinuen leherketa cluster-ean, etengabeko **ondulazio** gozoa eta disonantziaren fintasun sentsuala lortu ditu. Berria - Kultura

onegile ik ongile.

onegingarri *iz ipar* onuragarria, mesedegarria.

Eta jende guzia da, batasun **onegingarri** hau halako ximiko batekin utzirik, bakotxa bere bidexkan abiatu, nor Ezpeletara, nor Amaiur-era, Donibane Lohizunera, Hendaiara, Iruñera edo haratago! Herria

Eta jende guzia da, batasun **onegingarri** hau halako ximiko batekin utzirik, bakotxa bere bidexkan abiatu, nor Ezpeletara, nor Amaiur-era, Donibane Lohizunera, Hendaiara, Iruñera edo haratago! Herria

3 onegintza iz ongia egitea.

Ongileak nekez izaten dira ospetsuak, eta beraien **onegintzak** erabat desinteresatuak ez badira, behintzat, baliteke erabat ez merezi izatea ere. **Iñaki Mendiguren**

Duela bi edo hiru mendeko historia eta gaurkoa ezagutzen dituenak ikus dezake nola luxuaren eta nagitasunaren baitatik sortu ziren bertuterik gozoenak: gizatasuna, **onegintza**, giza akatsen tolerantzia. **Juan Martin Elexpuru**

onegite iz egintza ona. ik ongiegin.

-Jainkoak izan dezala bere lorien, zeren eta handia izan baitzen haren liberaltasuna eta anitz haren **onegiteak** -erran zuen osaba Joanikotek. **Joan Mari Irigoien**

onentsu izond onena-edo.

Sona handiko izenak bai, baina, bertako emakumezko krosleri **onentsuena**, onena ez bada, ez da Zornotzan izango. **Berria - Kirola**

Oskar Matuterentzat, «zentzugabekeria» da erabakia, baina «aukera txar guztien artean **onentsuena**» izan da. **Berria - Euskal Herria**

Etxeo gehienak, Afrikako talderik **onentsuenean** ari dira: Tunisiako *Esperancen*, hain justu. **Berria - Kirola**

Martinez Irujak jendea erakartzen du, eta Aimar Olaizola, sasoiaren denean, aurrelaririk **onentsuenetakoa** da. **Berria - Kirola**

Film **onentsuenak** aurrena, arruntagoak hurrena, zegoen guztia azkena, eta zegoentxo horretan bideo pornoak ziren nagusi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gainera, urtero bezala, sariak banatu eta gero, afaria hiriburuko jatetxerik **onentsuenetako** batean egingo dugu, *El Portalón*-en. **Patxi Zubizarreta**

Lizarra da suge-pozoiaren kontrako erremediorik **onentsuena**. **Pello Zabala**

onentxo izond adkor ona.

Haurra hurbileko ikastetxe egokiren batera bidaliz gero, zera, ingurumari honetako haurrik **onentxoan** biltzen dituen batera alegia, aukera-aukerako lagunak egiteko parada izango du. **Mirentxu Larrañaga**

oneraspén iz debozioa. ik jaiera.

Begira nola jaisten diren onura eta mesede guztiak goitik, ene ahalmen makala goiko ahalmen guztizko eta mugagabekotik jaisten den bezala, eta berebat zuzentasuna, ontasuna, **oneraspéna**, errukia, etab. **Patxi Altuna**

Kristauak ere agudo bereganatu zuten aingeruaren debozioa: IV. mendean, nahikoa hedatua genuen **oneraspén** hau orduko kristau herri guztian. **Pello Zabala**

oneratu, onera(tu), oneratzén 1 da/du ad onera egin; onera ekarri.

Ardoa dastatu bezain laster, oso agudo eta erraz **oneratu** zen. **Lopez de Arana**

Anak ubelduak zeuzkan gorputz osoan, baina laster **oneratu** zen. **Juan Kruz Igerabide**

Orduan, **oneratzen** zer ordutan hasi zen galdegin zien; eta haiek erantzun: -Atzo eguerdiko ordubatean alde egin zion sukarrak. **Elizen arteko biblia**

Bezperako zaurietatik ezin **oneraturik**, gauean zendua zen. **Aingeru Epaltza**

Horrelako ustekabeetatik luze gabe **oneratzen** naiz beti. **Josu Zabaleta**

Oneratu da apur bat, eguraldia bera bezala: dagoeneko ez da tximistarik. **Iñaki Iñurrieta**

Medikuak ezteki ohartarazi zuen korrika eta presaka ibiltzeaz, eta otoi erregutu zion astiro-astiro **oneratu** behar zuela. **Mirentxu Larrañaga**

Enperadorearen barkamen orokorraren albisteak **oneratu** berritan harrapatu zuen. **Aingeru Epaltza**

Gaitz larriak araberako sendagai larriz ohi dira **oneratzen**, **oneratzekotan**. **Juan Garzia**

Esan didate astebeteko kontua izango dela, zainak **oneratu** arte. Gizonezko protagonistak larrua jotzen bukatzen baitzuen **oneratu** nahiz ari zitzaion erizainarekin. **Javi Cillero**

Bi erlijio militar horiek [...] sekula ez ziren **oneratu** kristau-aroko hirugarren mendearen erdian armadaren aldi bateko kolapsoak eman zien kolpetik. **Iñaki Mendiguren**

Hark, esnatutik, haserre egin zien haizeari eta olatuei; hauek **oneratu** eta dena bare gelditu zen. **Elizen arteko biblia**

Eskuz ari ziren, gehienetan airetik **oneratuz**, punpetik ez baitzitekeen errex. **Herria**

2 (bere eta kidekoen eskuinean)

Ulrich ere bere **oneratu** zen, baina izuaren izuz indarra galtzeko zorian sentitzen zenez, patar botila baten eske joan zen armairura. **Josu Zabaleta**

Neure **oneratzen** saiatzen naiz. **Joxe Austin Arrieta**

Hatsa gozatu, burua bere **oneratu** eta bihotzerrea itzalita ere, hortxe iraunen dizute, zauri materiaturen gisara. **Aingeru Epaltza**

Ixtripu batetik nausia bere **oneratu** artean. **Herria**

Bere **oneratzean**, ez zituen entzun negarrak, baizik Amyren urrea bizkorgarriak. **Anton Garikano**

Suntsitu dut neure haurraren bizitza, eta hori ezin dezaket inola ere osterata bere **oneratu**. **Joxe Austin Arrieta**

Azkenean, eskerron apalez begira, bere **oneratua**, berritua, bueltatxo bat ematera zihoala esan zuen. **Anton Garikano**

Taldea fisikoki bere **oneratzeko** aste oso baliagarriak izan direla. **Berria - Kirola**

3 (era burutua izenondo gisa)

Iruñeko Labriten, partida gogorra: 874 jo **oneratuak**. **Herria**

Orotara 427 jo **oneratuak**, horietarik 118 Goñik joak. **Herria**

888 jo **oneratuak**, oren bat eta erdiko borrokan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jo **oneratuak** (10)

oneratze iz onera egitea, onera ekartzea.

Iritsi nahi nuen xedera heldu nintzen orduko, gibelera egin nuen berriz, eta neure **oneratzearen** begirunezko eskaintza egin nien atsegingarriak gertatu nahiaren ezinean merezimenduaren eta bertutearen nahikundera makurtuak diren horietariko emakume batzuei. **Jon Muñoz**

oneritzi ik oniritzi¹.

onerizko iz maitasuna, txera.

Irri bat luzatu zidan, hurbila eta urruna aldi berean, **onerizkoaren** eta txantxaren artekoa, erraiten zidala: [...]. **Joan Mari Irigoien**
Beraz, badirudi ezen badela aldi bat **onerizkoarentzat** eta bertze aldi bat gaitzerizkoarentzat, eta bata bertzeari darraiola, nola itzala gorputzari. **Joan Mari Irigoien**
Aitaren **onerizkoa** bere boterean oinarrituta dago, hots, jabetza-eskubidean; maitasunean ere oinarrituta dago, eta arrazoian, eta haurren arrazoiaren ziurgabetasunean
Iñaki Iñurrieta

onesgarri 1 izond onetsi daitekeena, onesteko modukoa.

Jokabide **onesgarriak** neurriz gain putzarazten dituen azturarenategatik. **Juan Garzia**
Neure adimenaz ongi eta zuzen jardunez eta bere borondate txit santuaren eta **onesgarriaren** arabera aukeratuz. **Patxi Altuna**
Presidenteak azaldu du [proiektuaren] atal batzuk **onesgarriak** direla eta beste zenbaitek, aldiz, elkarrizketa sakontzera behartzen dutela. **Berria - Mundua**
Gertatu zirenetatik baliagarria edo **onesgarria** edo interesgarria edo deigarria iruditzen zaiguna irazten dugu denboraren galbahean, eta ahalegin berebizikoak egiten ditugu kaltegarria edo oinazetsua zitzaiguna albo batera gera dadin. **Anjel Lertxundi**
Galde ezazu, **onesgarria** naizela esango dizute. **Josu Zabaleta**
Ez zen Jainkoaren hitzaren goserik, zeren orduan bereziki predikariaren hitzak indarrez beteak baitzeuden, eta entzuleen bihotzak **onesgarri** zitzaizkion Jainkoari. **Askoren artean**
Lanaldiaren murrizketa 13 ordu hiru urtean, berriz, «**onesgarritzat**» jo zuen. **Berria - Ekonomia**

2 (adizlagun gisa)

Saia zaitez Jainkoaren aurrean **onesgarri** agertzen, zertan lotsaturik ez duen langilea bezala, egiazen mezua zuzen irakasten duena bezala. **Elizen arteko biblia**

oneski (orobat onestki g.er. eta onestoki g.er.) 1 iz zintzoki, prestutasunez.

Oneski jokatu behar dute eta gutxi hitz egin, begira dauzkatenek ikasbide ona emateko. **Askoren artean**
Eta beste galde frangoren artean hauxe oraino: diru hori **oneski** beretua bazuen, zendako ezarri duen ixilka Suisako banko batean... **Herria**
Iragana ahalik **oneskien** duplika dezagun, tradizioari den mendreneko ñabardura erorik ekarri gabe. **Itxaro Borda**
Izan daitezela gozo, baketsu eta eratsu, otzan eta apal, denekin **oneski** hitz eginez, egoki den bezala. **Askoren artean**
Jaunaren izenean, zoazte apal eta **oneski** bidean binaka. **Askoren artean**
Lanean dakiten anaiek lan egin bezate eta jardun ezagutzen duten ofizioan, baldin arimaren salbamenaren kontrakoa ez eta **oneski** egiteko modukoa bada. **Askoren artean**

2 haragiarekiko garbitasunez, lotsa onez.

Aurpegia itzuli orduko ni pasatzeko beldur nintzen lekurantz, han agertzen zitzaidan kasitatearen duintasun garbia, narea, ez pozkario txarrean, **oneski** ferekatzen, zalantzarik gabe etor nendin baizik, errukizko besoak, eredu onez gainezka, nigana luzatuz, ni onartzeko eta besarkatzeko. **Imanol Unzurrunzaga**

onesmen iz onespena.

Nazioarteko adituen **onesmena** daukagu, nehork ez ditu ukatzen duk eman xehetasunak. **Berria - Euskal Herria**

onespen 1 iz onestea.

Erregelaren ahozko **onespen** hau benetako baieztapena zen. **Askoren artean**
Jon Baltzari bidali nion testua [...] kontaktetan zehar agertzen den pertsonaia legez bere **onespen** nahiz gaitzespena emateko edo zuzenketak proposatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Asko ibiltzen dira agintariaren **onespen** bila, baina Jaunak bakarrik babesten ditu giza eskubideak. **Elizen arteko biblia**
Egia da San Bonabenturaren lanak **onespen** zabala izan zuela. **Askoren artean**
"Juduok **onespen** itsuz eta etsipenez" onartu behar ei dugun patua, Jainkoak ezarri baitigu arbasoen bekaturen zigor-ordainetan. **Urtzi Urrutikoetxea**
Beti erakutsi zion halako **onespen** beroa elkarrekin suertatu ziren guztietan. **Aingeru Epaltza**
Jokamolde zuzena, gero eta gutxiago erabiltzen den jokamoldea, tamalez -buruari eragin zion, **onespen** gisa. **Migel Angel Mintegi**
-Umm! -esan zuen, **onespen** modura, eta albisteetara itzuli zen berriro. **Mirentxu Larrañaga**

2 (hitz elkartuetan)

Miretsirik nengoen neure dedukzio-ahalmen ikaragarriarekin, beste *ni* bat izan ledin nahi nuen, neure buruari soinburuan **onespen**-kolpetxoak emateko. **Oskar Arana**
Etxeko atean itxaron zuen, makila eskuan, bere jendeaz inguratutik, eta bisitaren zioa azaldu ziolarik, buruz **onespen** keinu bat besterik ez zuen egin. **Elena Touyarou**
Gela osoari begiratu bat eman, eta liburu-apalategiari begira buruari eragiten dio **onespen** keinua eginez. **Oskar Arana**
Erresistentzia mugimenduak ez baitira aipatzen, soilik **onespen** jarrerak. **Markos Zapiain**
Azken batean nork ez du, isilpean behintzat, adiskidetasun apur baten beharrik, eta **onespen** berba batek gauzak errazten ditu, nire ustez. **Urtzi Urrutikoetxea**
-Pikoan eman arte, aldakuntzek denbora behar dute -moztu zuen hark, **onespen** doinuan-. **Elena Touyarou**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

onespen handiagoa (3); **onespen keinu** (7); **onespen keinua** (4); **onespen maila** (4); **onespen zabal** (3)
azken onespna (4); **behin betiko onespna** (3); **bere onespna** (12); **erregelaren onespna** (3); **gorteen onespna** (3); **guztien onespna** (4); **herri osoaren onespna** (4); **herritarren onespna** (3); **jainkoaren onespna** (5); **jaunaren onespna** (3); **jendearen onespna** (3); **kritikaren onespna** (3); **kritikarien onespna** (3); **legebiltzarren onespna** (3); **nire onespna** (7)
onespena behar (14); **onespena behar du** (6); **onespena bilatu** (3); **onespena edo** (3); **onespena eman** (25); **onespena eman beharko** (4); **onespena eman ondoren** (3); **onespena emango** (4); **onespena ematen** (3); **onespena eta** (11); **onespena izan** (5); **onespena jaso** (23); **onespena jaso behar** (3); **onespena jaso du** (4); **onespena jaso ondoren** (3); **onespena jaso zuen** (4); **onespena lortu** (7); **onespena lortzeko** (6); **osoaren onespna** (4)
taldeen onespna (3)
onespenarekin onartu (3)

onest (orobat onestu g.er.) 1 izond zintzoa, prestua.

WDRko musikariei buruz beti esango nukeena da **onestak** direla, zintzoak adierazteko moduetan; ez dutela snob-etik deus ere; eta beti ari direla kalitatearen aldeko borrokan. **Berria - Kultura**
Etzirela ohoinak eta alferrak, fama hala bazuten ere, bainan **onestak** eta langileak. **Herria**
Ez zuten eskandalu-bide izan zitekeen lanbiderik onartzen, baizik eta eginbide santu, zuzen, **onest** eta onuragarrietan jarduten zuten. **Askoren artean**
Baldin Danceny jaunak ez badu sentimendu **onest** oro galdu, ez dio uko egingen berak baizik sortu ez zuen hutsegite bat konpontzeari. **Jon Muñoz**

Izan asturo edo izan asmo finko, betiere da egintza **onest** eta laudagarri bat, aditzetik beretik malkoak isurtzeko aukerak nauen. [Jon Muñoz](#)

Onest eta ohoin bilakatuko da Miarritze. [Koldo Izagirre](#)

Froga iezadazu bada, jauna, ezen, zuk anitzetan erran didazun bezala, emakume **onestek** ez duketela sekula zutaz zer deitoraturik. [Jon Muñoz](#)

2 (izen gisa)

Jainkoak atsegintasun handiagoa hartzen baitu bekatarri bat zeruan sartzen denean, laurogeita hemeretzi **onest** sartzen direnean baino... [Joan Mari Irigoien](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sentimendu onest (3)

onestasun 1 iz zintzotasuna, prestutasuna.

Horrela, beste tokietako anaiak eta bizilekuak, egoki den garbitasun, santutasun eta **onestasunetik** inoiz okertuko balira ere, leku hau Ordena osoaren ispilu eta etsenplu izatea nahi dut. [Askoren artean](#)

Profesoreak eztabaida espreski politikoa nahi baldin badu, **onestasun** intelektualak zein zibikoak, bera ere eztabaida hori egiteko dauden toki publikoetara joan dadila.

[Joxe Azurmendi](#)

Uste osoz uste dugu, **onestasun** publikoaren izenean, dibortzio eta bigarren ezkontzaren artean denbora tarterik ere behar-beharrezkoa dela. [Andres Urrutia](#)

Lege haiek zerikusi gutxiago zutela gauzarekin berarekin eta ezkontzaren **onestasunarekin**, errepublikaren konstituzio partikularrekin baino. [Iñaki Iñurrieta](#)

Mezak, meditazioak, Izkribu Sainduen irakurketak, mendian egin ibilaldiak, eztabaida plantakoak, afalondoko kantu sentimental eta etsenpluzko jostetak: **onestasunezko** espiritualtasun batean murgilduak ginen. [Piarres Aintziart](#)

2 haragiarekiko garbitasuna, lotsa ona.

Leku hartan emakumerik sartzen ez uzteko erabakia zeukatelako aspalditik, bizilekuaren **onestasuna** eta debozioa gorde nahiz. [Askoren artean](#)

oneste iz ontzat ematea.

Han adieraziak diren ideiei atxikia iduri duzunez, eta nire isiltasuna **oneste** gisa hartzen duzunez, argi eta garbi behar dizut erran neure iritzia. [Jon Muñoz](#)

Gauza bat eta bera esan daiteke bihozminaren, axolaren, hasperenaren eta begilunduraren alderditik [...] eta orobat esan daiteke errealtatearen **oneste** betegin, soraio eta ikaragabearen alderdi libelante-subjetibo edo desmitifikatzaile-objetibotik. [Iñaki Segurola](#)

onestezin izond ezin onetsizkoa.

Agirian idatzirik moduan, "errusiar intelektualen jarrera gaitzesten dugu" hori **onestezin** zaio, Errusiako intelektual denak zaku berean sartzea omen delako. [Edorta Jimenez](#)

Eta **onestezina** da filosofiak neurtu behar duela gizakia. [Jenaro Garate](#)

onestki ik oneski.

onestoki ik oneski.

onestu ik onest.

onetsarazi, onetsaraz, ontsarazten du ad ontzat harrarazi, onarrarazi.

Beratar oihal saltzaile bat ezagutzen zuen, harekin negozio zenbait baitzuen eginik, eta biak laneko har zitzan **onetsarazi** zion. [Elena Touyarou](#)

Ez dira gogoeta horiek nik betebeharez hartu dudan xede behar-beharrezkoa **onetsarazi** dizutenak? [Jon Muñoz](#)

Legea ezin da indarka **onetsarazi**. [Elena Touyarou](#)

Ez zuen ere lortu handik joan zedin **onetsaraztea**, behin eta berriz errepikatu arren orain libro zela, ez zela bortxatua denbora gehiago han egotera. [Elena Touyarou](#)

onetsi, onets, onesten 1 du ad ontzat eman. ik onartu.

-Kide berririk **onesten** duzue? -galdegin zion. [Elena Touyarou](#)

-Ederki - **onetsi** zuen-. [Koldo Biguri](#)

-Hori ere egia da - **onetsi** zuen On Camillok-. [Koldo Biguri](#)

Onetsi dugun huraxe bera gaitzesten dugu: horra gehiengoz erabakitako auzi ororen azken beltza. [Patziku Perurena](#)

Gramatikak **onesten** eta gaitzesten dituen esamoldeak. [Iñaki Arranz](#)

Zure hautu librez zeuk **onetsiaz**, ala Botere batek bortxaz ezarriaz? [Joxe Azurmendi](#)

Hark **onetsi** eta onartu egin zuen, eta gero kontsistorioan guztiei iragarri. [Askoren artean](#)

Agureak buru-mugimendu azkarrez **onesten** zituen Andreasen hitzak. [Anjel Lertxundi](#)

Banekien Adelak ez zituela inondik ere **onetsiko** nire asmoak. [Juan Kruz Igerabide](#)

Esker oneko buru mugimendu batez **onetsi** baitzuen nire eskaria. [Anjel Lertxundi](#)

Washingtonen Francoren erregimena **onesteko** gertu ziren. [Berria - Kultura](#)

Aita santu Inozentzio III.ak haien Ordena eta Erregela **onetsiak** zituen arren, ez zituen idatziz berretsi. [Askoren artean](#)

Aita batek, erromatarren artean, behartu zezakeen alaba senarra zapuztera, nahiz eta ezkontza berak **onetsia** izan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak **onetsia**. [Patxi Altuna](#)

-Honek ere ez du zin egitea **onetsi** -gehitu zuen Graxik-. [Elena Touyarou](#)

Orduan erabaki nuen ez nuela gehiago agindurik beteko, eta ez nuela **onetsiko** ere nehork bere ikusmoldea bortxaz inposa ziezadan. [Elena Touyarou](#)

Helburuak edozein bide **onesten** duelakoan? [Anjel Lertxundi](#)

Bide beretik, hadadura etengabea dela onartzu gero, beharrezkoa zela zatiezintzat edukirik denbora-istant horren zatigarritasuna ere **oneste**a. [Xabier Kintana](#)

Ene burua ikusten nuen alimaleko saltsa baten erdian eta hori ez nezakeen **onets**. [Janbattitt Dirassar](#)

Zer, asteen bi edo lau egunez Hazparnera...?! ez nezakeen horrelakorik **onets**. eskolatuak direnek eginbide handia dutela euskaraz aritzea "jende xeheen artean", zeren

"Ikustean jaunek gogoratzen eta **onesten** dutela", asmatuko dute "ez ditakela hain gutiestekoa". Daniel Landart

2 (era burutua izenondo gisa)

Idazle nagusien maisulan **onetsiak** eta ezegagunen zirriborro ia galduak maila berean jarri ditugu. Iñaki Arranz

Zeren legea, hastapen orokorrak harturik gidari -hastapen **onetsiak** eta liburuetan bilduak-, kasu partikularren kariaz hastapen horietatik desbideratzearen kontrako izaten baita. Koro Navarro

Finantzen porrota, petrolio-errentarekiko mendekotasun **onetsiaren** bidez esplikatzeko dena, [...]. Koro Navarro

Esan liteke zoriontasuna eromenaren aurpegi bat dela, eromen **onetsi** bakarra. Iñaki Segurola

Gogoratu beharra dago Sokrates bat zikutarazi egin zutela jainko **onetsiez** bestelako jainkoak sartzeagatik Atenasen. Iñaki Segurola

3 ezin onetsizko izlag

Ezin onetsizko erabaki hits baten ondorioz, debekatua izan zen joanden otsailean. Herria

Nor da altxatzen **ezin onetsizko** gerla horren kontra? Herria

ezin onetsizko okerkeria frango eginak baitzituen Estrada presidentak. Herria

Jainkoa aita bat da eta aita baten kontra oldartzea **ezin onetsizkoa** da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

4 bedeinkatu.

Guztiek alde egiterakoan otoitz egingo dute eta etxea **onetsiko**, jainkoen grazia haren gainean koka dadin. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aho batez onetsi (3); **aise onetsi** (3); **batzordeak onetsi** (4)

egitea onetsi (6); **erabakia onetsi** (3); **lanak onetsi** (4); **legea onetsi** (7); **legea onetsi du** (3); **legebiltzarrak onetsi** (3)

proposamena onetsi (4)

bortzikeria ezin onetsia (3); **ezin onetsia** (68); **ezin onetsia da** (5); **ezin onetsia daukate** (5); **gauza ezin onetsia** (3); **guziz ezin onetsia** (3); **zinez ezin onetsia** (3)

ezin onetsiak (12); **ezin onetsiak direla** (5)

ezin onetsizko (3)

francoren erregimena onesteko (4)

onezia 1 iz ontasuna.

Berrikitan teologo dominikano bat, galdegiten ziotela nolaz Jainkoak bere **onezian** eta mugagabeko potentziarekin gizon eta emazteak oinazean abandonatzen zituen, erran omen du: [...]. Piarres Aintziart

Laugarrena da Eufrate, erranahiaz "osasun onekoa", **onezia** anitz heldu baita uhaitz horren bazterretan eta uhaitz horri esker. Aurelia Arkotxa

Sinesten dut ez beretzat bizi den Eliza baten baitan, bainan mundua bertzelakatzeko xedetan bizi den Elizaren baitan, bilakarazi nahiz Erresuma bat **oneziaz** zehargi.

Herria

2 onkeria.

Onezia sendatu beharreko eritasun nagusia zen. Itxaro Borda

Agataren beste itzal barkaezina **onezia** zen. Itxaro Borda

Onezia, barne-ahultasun eta norberarekiko errespetu falta larriaren marka zen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Ekai kimiko horiek fortuna txararen aurrean, bihotz **onezia** eskaintzera bideratzen gintuzten eta hobe denentzat azkenean, ez? Itxaro Borda

onezik *adlag* ondoezik.

Frantzia **onezik** izan duk hondar urteetan, alemanek ezarriko gaitiztek sendabidean. Berria - Kultura

onezko 1 izlag onari dagokiona.

Onezko ekintza jatorren bidetik joz gero. **Onezko** izpiritu izan zein iratxo madarikatu, zeruko haize gozo ekarle zein infernuko zafrada, hire asmoak makur izan zein onbera, hain heldu haiz hi itxura itaugarrian ezen mintzatu behar bainatzaik. Juan Garzia

Maite zituen bereak, gizon zintzoa eta **onezkoa** izan zen, eta Jaunaren bakean hil zen. Josu Zabaleta

Arazoin horien balioa zer den... hori ez da beti **onezkoa**. Menane Oxandabaratz

2 (izen baten eskuinean)

Uste **onezko** otoitza.

Eta haren hira ez zen zela **onezkoa** eta haren haserrea ez zen amoriozkoa eta onginahizkoa. Joan Mari Irigoien

Gure herriak baketu nahi badira, borondate **onezko** hitzarmenak ez dira aski; mendeku tentaldietan ez erortzeko beste biderik hartu behar da. Piarres Xarriton

Anitak aldiz bere etxeko lanak eginez bere borondate hoberena erakutsi du herrian ditugun obra **onezko** elkarrean arduratuz urte sail ederrean. Herria

Etxe ekoizpenekin egina den bazkari batproposatua izan den da, kalitate **onezko** ekoizpenekin egina (ahate gibela, ardi, behi eta ahuntz gasna, axoa, oilaskoa saltsan...).

Herria

Zenbait zertzelada haren alde gertatu ziren, baina zorte **onezko** izpi galdu horiek kontuan hartuta ere, haren sabotajearen ausardian eta eraginkortasunean bazen zer bait ia deabruzkoa. Oskar Arana

Eibartar zaharren omore **onezko** "Zirikadak" eta "Eztenkadak" edo Peru Abarkaren bizia eta obra hastetik ezagutarazi zizkigun. Herria

3 esker onezko

Berehala heldu zen zubira, eta Senara jauzi egin aurretik **esker onezko** keinu bat egin zion. Harkaitz Cano

Bihotza **esker onezko** irri distiratsu batez ari zitaidan taupaka. Oskar Arana

Gure Jaunaren Pasio gurgarria oroitzeak erukizko eta **esker onezko** sentimendu handiak sortu behar ditu. Joan Mari Lekuona

Gero, kopa hartu eta, **esker onezko** otoitza egin ondoren, eman egin zien eta denek edan zuten. Elizen arteko biblia

Jainko salbatzaileari **esker onezko** kanta. Elizen arteko biblia

Gure galde-otoitza **esker onezko** otoitz bilakatzen da. Marzel Etxehandi

Jendaki eta adixkide, hoinbeste jende bildu baita **esker onezko** azken agur baten egiterat, ez da beraz batere harritzeko. Herria

Herriko etxearen **esker onezko** hurrupaldia. Herria

Gizon miresgarri horri, ezagutza eta **esker onezko** ikustate hau egin diote Frantzian diren 22 eskualde-kapitaletan. Herria

Beharrak hurbiltzen dituelarik, [gizonak] beren artean, nahitaez, zenbait lotura ezarri beharrean aurkitzen direla: odolezkoak -elkarrengana biltzetik sortuak-, amodiozkoak, adiskidetasunezkoak, **esker onezkoak**. Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio

4 onezkoak egin

Onezkoak egin zituzten hantxe bertan, eta musu eman elkarri. Karlos Zabala

Eman eskua, **onezkoak egin** ditzagun! **Jose Morales**

Ordubetez geratu zen Farat jauna kalezuloko kafe etxean, nagusiarekin ahalik eta aituaren agertzeko, eta harekin **onezkoak egiteko**. **Patxi Zubizarreta**

Guztiek nahi dute salbatu eta **onezkoak egin** Jaingo gure Jaunarekin, beregandik kenduz hartarako duten eragozpen edo oztipoa beretu duten gauzaren atxikian. **Patxi Altuna**

Tomekin harremanetan nintzen berriro, eta, gainera, jatetxetik ateratzen ari nintzela, Marina Gonzalezek musu bat igorri zidan irribarrez, eta, horregatik guztiagatik, **onezkoak egin** nahi nituen munduarekin. **Oskar Arana**

· Arratsean itzuliko zara; eta gure **onezkoak egite** zailerako ez dugu aski denbora izanen biharamuna arte. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

borondate onezko (5); **esker onezko** (88); **esker onezko kanta** (6); **esker onezko kantu** (6); **esker onezko meza** (15); **esker onezko oparia** (3); **esker onezko otoitz** (4); **esker onezko otoitza** (14)

onezkoak egin (10); **onezkoak egiteko** (4)

oneztatu *izond*

Besta astelehen goizean Baiona Handi eta Txikiko karrikak usainduak ziren, usain **oneztatu** krezilla hedatzen zuten zerbitzuak ez baitira agertu. **Herria**

ongailu (*orobat ongailu; Euskaltzaindiaren Hiztegian ongailu agertzen da*) 1 iz janariak ontzeko gaia.

Mendebaldeko entsaladetako hiru **ongailu** hauei dagokienez, [...]. **Edorta Agirre**

Bai eta saltsak, boilur kontserbak, barazki beratuez egindako **ongailuak** ere, botila lepatutz aho-zabal batzuetan sarturik. **Karlos Zabala**

Biziki kaltekor lurrai burrustan emaiten zaizkion **onkailu** batzu, ez direnak egiazko **onkailuak**, egiazko **onkailuak**, izenak berak manatzen duen bezala, lurra ontu behar bailuke eta ez funditu! **Herria**

2 irud/hed

-Beharko, bertzerik ez dakigunok! -inongo **ongailurik** izatekotan, etsipenak uzten duen mikatzaz. **Aingeru Epaltza**

Ezagutu dutenek diote gatz eta biper zuela bere solasaren **onkailua**. **Marzel Etxehandi**

3 ipar ongarrria.

Lur berri egiteko eta **ongailuz** ontzeko. **Herria**

Gure **onkailu** bakarra "compost" deitzen da: ongarrri usteldua eta xehatua da, bizpahiru hilabetez usteltzera utzi ondoan. **Herria**

Laborantzako lurren kutsadura **ongailu** kimikoetatik jiten da parte, beste parte bat euriak berak ekartzen du. **Herria**

Gizakia bere kideekin harremanean eraikitzen, handitzen, garatzen, osatzen da, landare bat lur on, **ongailu**, iguzki, aire eta urarekin edertzen den bezalaxe. **Filipe Bidart**

Halako sentikortasun berezi bat, negatiboa, balukeela kontsumitzaileak konpostaz osatu **ongailuentzat** iruditzen zaie enpresa horiei. **Herria**

4 (hitz elkartuetan)

Denbora berean, hirugarren zikloko ikasleek belar usaintsuak, barazkiak eta espezia **ongailuak** ezagutu dituzte. **Herria**

Ikerketa batzuetan agertu da berriki konposta **ongailuak** lur barnean jarriak direlarik, zanahori, lur sagar eta azalilien lur azpiko parteen axaletan elementu metalikoak eta "HAP" deituak agertzen direla. **Herria**

ongailuztatu *izond* bizigarri ondua.

Antzara arre gizen bat zegoen mahaiaren mutur batean eta, beste muturrean, perrexil-adaxkaz estaliriko paper izurtuzko ohe batean, urdaiazpiko handi bat, azala kendurik eta ogi-apur txigortuz gaineztaturik, paper listatu apain bat hankezurten inguruan zuela, eta haragi biribilki **ongailuztatu** bat haren ondoan. **Irene Aldasoro**

ongaitz ik on¹ 17.

ongarri 1 iz lurrak emankorrako bihurtzeko erabiltzen den gaia.

Arrain harrapatu berria soroko **ongarri** bihurtzea. **Edorta Agirre**

Ongarria eman, eta urte pare bat utziz gero, beharbada... -erantzun zion Xong jaunak, burua astinduz, eskukada bat lur aztertu eta gero. **Juan Kruz Igerabide**

Landan bizi nintzenean, nik neuk prestatzen nuen **ongarria**. **Juan Kruz Igerabide**

Eztia bildu, **ongarria** egiteko azpiak atera edo artaldea belaira eraman. **Pello Salaburu**

Ondoa aitzurtu eta **ongarria** botako diot. **Elizen arteko biblia**

Ura garbitzeaz gain, lortutako lokatzarekin elektrizitatea, laborantza estentsiborako **ongarria** eta lorategietan baliatzeko konposta sortzen dute Arazurín. **Berria - Euskal Herria**

Milioika mikroorganismoak eragiten duten materia organikoaren aldaketa biologikoaren ondorioz **ongarri** naturala edo konposta sor daitekeela. **Berria - Euskal Herria**

Konpostajearen bitartez, **ongarri** organikoak lor daitezke. **Berria - Euskal Herria**

Izan ere, **ongarri** kimiko guztiek petrolioak dute osagaien artean. **Berria - Ekonomia**

Nola erran diezadakezu ezen bizitzaren iturria agorturik dakusazula, baldin zuhaitzetik erortzen den hostoa ere bizi berri baten **ongarri** bihurtzen bada? **Joan Mari Irigoien**

Haizeak **ongarri** hedatu berriaren eta belar errean usaina ekarri die. **Pello Lizarralde**

Hildakoak **ongarri** bihurtzen direla, eta kito. **Juan Kruz Igerabide**

Otsaileko elurrak **ongarri** hoberena. **Pello Zabala**

Biharamun goizean, saratar ohoretsuenen buruak zeuden Ibarlako jaunaren baratzean azen **ongarri**. **Anjel Lertxundi**

2 (neurriekin)

Zerri horiek orok emanen dute urtean 3500 metro kubo **ongarri**. **Herria**

Zenbat eta zenbat eskorgatara **ongarri** eramanik baratzerara! **Piarres Aintziart**

3 irud/hed

Eta hura da... gogoia; biziaren izerdia eta **ongarri** bakarra gogoia da, bizitzeko gogoia; eta ez dago beste jira-bueltarik. **Iñaki Segurola**

Baina literatur zaletasunak aski **ongarri** kausitu zuen garai hartako espetxeetan. **Jokin Urain**

Ezinaren zuin zurrunez markatu genuen iraultzaren ildoak, odola **ongarri**. **Joxerra Garzia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta inguruotan aditzen dudana simaur edo **ongarri** usain hau ez ote dator hire marrazkitik...? **Joan Mari Irigoien**

Egurrezko hamazazpigarren balkoiari begira zegoela **ongarri**-meta bat zapaldu zuen. **Unai Elorriaga**

Harry besakada bat zuten ihar **ongarri** -pilara botatzera joan zen, eta han Ernie Macmillanekin topo egin zuten aurre. **Iñaki Mendiguren**

Kotoi-uztak laukoizteko **ongarri** -sistema korapilatsu baten xehetasun gehiago. **Anjel Lertxundi**

Uztailaren lehen egunetan, eguzkiak gogor jo zuen eta haize hegoak **ongarri** -zuloetarik zetozen urrin tzarrak hirian barna barreiatu zituen. **Elena Touyarou**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gerora, gari eta ardo ezin hobeak bilduko dira, horrelako uzta ezinezkoa izango zelarik gorotz **ongarririk** gabe. **Joan Mari Lekuona**

• 6 *izond* onuragarria.

Zuhaitz eta landareen onura **ongarriak** geureganatu eta ospatu nahiak erakutsita. **Pello Zabala**

Hor daukagu Maurizio donea [...] halakoren batean, lehorte makurren bat nozitu zutelako, euri **ongarria** erakarri omen zuena. **Pello Zabala**

Otoitza da mundualdian egin dezakegun gauzarik **ongarrien** eta maitagarriena. **Joan Mari Lekuona**

Eurentzat ere **ongarria** da, bestela ez bailukete tripulaziorik osatuko. **Berria - Kirola**

Gauza hauek jakitea alde askotatik **ongarri** eta egoki izango zaizu, ene lagun on. **Xabier Amuriza**

Badakit ongi asko **ongarri** zaidala sofrikizun honi; baina eskaiozu Jainkoari eman diezadala jakinduriaz eta egonarriz eramateko grazia. **Joan Mari Lekuona**

Bada, izan ere, errakuntza onik, egilearentzat kalte ez baina **ongarri** gerta daitekeenik. **Imanol Unzurrunzaga**

Gizarte hark oso kontutan hartzen zituen debekuen arteko tirabira **ongarri** emankorra izan zen literatura libertinoarentzat. **Jon Muñoz**

Desiratuz Jainkoak bete dezala bere aintza eta goralmena bere esku utzitako jendeen **ongarri** eta kontsolagarri. **Joan Mari Lekuona**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ongarri bihurtzea (3); **ongarri gisa** (4)

arima ongarriak (6)

ongarritasun *iz* onuragarritasuna.

Leku hori, orduan, ez da ondo dauden pertsonentzat bakarrik izango osasungarria; aldiz, bestelako gaitzak jota jaio direnak ere, beste leku sanoetan gaitzen kontrako botikekin sendatzen direnak, hemen askoz ere bizkorrago osatuko dira klimaren **ongarritasunagatik** eta haizerik gabeko lekua izateagatik. **Santiago Iruretagoiena**

ongarritegi *iz* ongaria biltzen den lekua.

Akrobata harrigarriarena egiten ari nintzela ubideetara salto egiten nuen eta, behin batean, **ongarritegi** batera ere erori nintzen buruz behera. **Pello Lizarralde**

Ahalkeak Katalinaren sartzeko denbora iraun zidan, **ongarritegi** usaina ekarriko ote nuen ipurdian itsatsia. **Aingeru Epaltza**

ongarritu, ongari(tu), ongarritzen (*29 agerraldi, 20 liburu eta 3 artikulutan*) 1 du *ad* ongaria eman. Ik **ongarritzatu**.

Basoak, esaterako, zura ematen du, itzal egiten du eta lurra **ongarritzen** du orbelaz. **Jose Morales**

Burgundiarren artaldeek erromatarren landa **ongarritzen** zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Haragi-piltzarrak loreontziak **ongarritzeko** erabiltzen zituen. **Josu Zabaleta**

Laborariak lurra, lurretik beretik atera dituen fruitu on guzien hondakinekin, gerru-gorotzekin, **ongarritzen** duen bezalaxe. **Patziku Perurena**

2 irud/hed

Idazle apalak gehienak, baina beren lanaren izerdiaz asaba zaharren baratze kokkor hau **ongarritu** eta aberastu dutenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Mundu zaharreko kultura guzietan, Indiatik Europaraino, izpirituz **ongarritutako** materia umoa eta giza gogo ondua eta betea sinbolizatzen ditu bederatzia. **Patziku Perurena**

Bertzalde, ez zuen lehen aldia bertzeren baratzea **ongarritzen**, eta emazte printzipalagoaren pazientzia erretzeko beldur zatekeen. **Aingeru Epaltza**

3 (era burutua izenondo gisa)

Horren hurrengoa Kolonbia dateke, eta Kuba, Argentina eta Txile ere lur **ongarritua** diratekeela dio. **Edorta Jimenez**

ongarritzatu, ongarrizta, ongarriztatu (*3 agerraldi, 3 liburutan*) 1 du *ad* ongarritu.

Ukraniako lurra gizona zegoen, odolaz haragiz bezainbeste baitzuten **ongarritzatu**. **Felipe Juaristi**

Laster uzten diote lurra tratatzeari [indigenek]; **ongarritzatu** egiten dute. **Xabier Olarra**

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta hazi bakar hori jenderazinoz jenderazino bizirik mantentzea duk gure eginbeharra, egun batean lur **ongarritzaturat** erori, eta bateko ehun eman dezan, eta orotarat heda dadin. **Joan Mari Irigoien**

ongendu *iz* ukendua.

Edaria duzu, latineko *poma* (sagarra) delakotik datorrena, eta ez du deus ikusirik egungo gure pumada edo **ongendu** esanahiarekin. **Patziku Perurena**

ongi (*12141 agerraldi, 262 liburu eta 3320 artikulutan; orobat ungi g.er.*) 1 *adlag* nahi, espero edo behar den bezala; era onez, egokitasunez. ik **ondo**¹.

-Gizonak **ongi** bizitzeko ez du askorik behar; gaizki bizitzeko, berriz, asko ere ez du nahikoa. **Pello Zabala**

Naturaren goreneko eskubidez erabakitzen du bakoitzak zer den **ongi** eta zer gaizki. **Piarres Xarriton**

Onean **ongi**, baina txarrean gaizki. **Patxi Zubizarreta**

Azkar eta **ongi** jaso nahi ditu albisteak nire lehengusina horrek! **Karlos Zabala**

Pilak **ongi** ote zebiltzan frogatu ere nuen, abiarazteko botoia zanpatuz. **Aingeru Epaltza**

Botilak muselina zurizko zapietan **ongi** bildu eta tapoiak **ongi** loturik. **Josu Zabaleta**

Nik **ongi** pasatu nahi nuen, besterik ez. **Antton Olano**

Dena **ongi** aterako da. **Iñaki Zabaleta**

Xilo haietan sartzten zuen xiri bat, konduen **ongi** eramaiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zerrikeria galanta egin diotela, putakeria handia eta **ongi** antolatua, horixe besterik ez. **Migel Angel Mintegi**

-**Ongi** pasa dezazula -esan nuen azkenik. **Fernando Rey**

Aitaren kafean hasi zen lanean, baina bi gizonak ez ziren **ongi** konpontzen. **Patxi Zubizarreta**

Orduan **ongi** ikusia zegoen denen eta denaren kontrako errebelde hura aipatzea. **Josu Zabaleta**

Zein **ongi** zihon dena? **Matías Múgica**
Lehenko liburutik bagenekien autobiografia eta barne-hizketa **ongi** doazkiola Dirassarren estiloari. **Janbattitt Dirassar**
Ongi zetorkiok txanpon batzuk biltzea. **Koldo Izagirre**
Oroitzapen goxoenak ez dira **ongi** ezkontzen bere abituekin. **Aingeru Epaltza**
Nonahi hartzen zuten **ongi** eta, Kirxa bera, lozorroa gorabehera, kezkatu egiten zen kafe etxean sartu-irten bat egiten ez bazuen. **Patxi Zubizarreta**
Ongi baino hobeki interpretatzen zituen sufien edo tradizio mudejarrean oinarritutako kantak. **Joan Mari Irigoien**
Bibote mehe **ongi** moztua sudurpean. **Felipe Juaristi**
-**Ongi** -erantzun dio suhiak-; apur bat izutua, jakina. **Imanol Zurutuza**
Ongi, komandante jauna. **Josu Zabaleta**
-Dena **ongi**, jauna? **Monika Etxebarria**
Gaur arratsaldeko seietan **ongi**? **Iñaki Zabaleta**
Lagunarekin **ongi**-esanka noiz jardun eta gaizki-esanka noiz hasi erabaki behar du, bien arteko lana hobeia izan dadin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Iritzi publiko **ongi**-erakutsi, **ongi**-hitzezin eta gaizki-esalearekin. **Iñaki Seguro**

2 (izan eta egon aditzekin)

Ongi da, **ongi da** gauzen ardura norbaitek hartzea. **Lourdes Oñederra**
-Ama **ongi** da? **Elena Touyarou**
Pettan Lacaze lanetik erretiratu da berriki baina oraindik **ongi da** gorputzez, izpiritua beti berdin zorrotz dauka eta bihotza emankor. **Herria**
Ongi izan, neure kuttuna. **Txillardeggi**
-**Ongi** da, hala biz! **Jose Antonio Mujika**
-**Ongi da** -erantzun zioten-, egizu esan bezala.
-**Ongi** da, ikusten dudanez denok etorri zarete. **Bernardo Atxaga**
-**Ongi** da, Lucy -esan zuen Tomek-. **Berria - Mundua**
-**Ongi** dago, Sam -esan zuen Landakoetxek-. **Agustin Otsoa**
-**Ongi** dago, barkamena eskatzen dizut, berandutzen ari da eta. **Josu Zabaleta**
Bai, tira, **ongi** dago. **Harkaitz Cano**
-Zure zerbitzari den gure aita bizi da, bai, oraindik, eta **ongi** dago. **Elizen arteko biblia**
-**Ongi** dago horrela, Breveski jauna? **Harkaitz Cano**
Burutik **ongi** al zaude? **Migel Angel Mintegi**
Fisikoki ez nengoen **ongi**, baina ezta psikologikoki ere. **Joan Mari Irigoien**

3 (izenondo, adizlagun edo kideko batekin) oso.

Ongi finak dira *oiñak, oiñetakoak, oiñutsik...* hitzak, eta usuario handikoak. **Patziku Perurena**
Ongi bitxiak dira gizonak. **Joxan Elozegi**
Baina melaia bere gorpuzkeraren liraina nabarmentzeko gisara jantzia zuen eta, horrekin batera, bere gerrialdea eta bular **ongi** biribilak. **Patxi Zubizarreta**
Josuk kafea zerbitzatu zion, baita tostada **ongi** zamatu eman ere eskutara. **Aingeru Epaltza**
Anaia John, sortu dizkizudan arazo guztiez **ongi** damuturik nagoela eta aurrerantzean bizimodu hobeia eramateko asmoa dudala esatera etorri naiz hiritik. **Antton Olano**
Gogoan **ongi** iltzatuta geratuak zitzaizkion hitz tolesdurarik gabeak: [...]. **Imanol Zurutuza**
Pistola prest zeraman eskuan **ongi** helduta, estu-estu hartuta. **Aitor Arana**
Ongi gogoan dut. **Patziku Perurena**
Han, XVI. mende aldean, Lantainako alaba nobleak, **ongi** gordean zeukan, ustez, bere pekatua. **Patziku Perurena**
Liburu honetan **ongi** agerian gelditzen dira Saramagoren estiloaren aurkikuntzarik onenak. **Jon Alonso**
Zure sekretua niregan **ongi** giltzapean dago. **Patxi Zubizarreta**

4 (aditzekin) asko, ederki.

Laurogei urte **ongi** paseak zituela hil baitzen behin ere mediku baten edo dentista baten beharrik izan gabe. **Fernando Rey**
Atsedena **ongi** merezia duzue-eta, goizetik halako lanak hartuta gero". **Joan Mari Irigoien**
Andresek **ongi** frogatua zuen [...], zenbat eta gorago igotzen den bat, orduan eta baliabide gehiago duela lege arruntei itzuri egiteko. **Nik ongi** nekien hori egia zela. **Josu Zabaleta**
Ongi jakingo duzunez, hala espero dut behintzat, Mr Worthing, idealen aroan bizi gara. **Antton Olano**
Erramun zuen izena, **ongi** gogoratzen zuen. **Imanol Zurutuza**
Um Hamida **ongi** jabetu zen, **ongi** jabetu zenez, Afifi andereak zeuzkanak baino hamar gutxiago aipatu zituela. **Patxi Zubizarreta**

• 5 (orobat O larriz) iz moralaren aldetik on den guztiak osatzen duen ideia edo izaki abstraktoa. ikon¹ 7.

Ongia eta gaizkia, kontrakoa izan arren, gauza berean eta aldi berean aurki daitezke. **Imanol Unzurrunzaga**
Ordu arteko nire munduan erraza gertatu zitzaidan banaketa egitea: gaizkiaren eta **ongiaren** arteko lehian, aski zen erabakitzea zein zelaitan zegoen **ongia**. **Anjel Lertxundi**
Ongiari eta gaizkiari buruz ari garelarik, auzi hau moralaren diziplina alorrekoa dela ez dut uste inork zalantzarik egingo duenik. **Imanol Unzurrunzaga**
Gizakiek, beraz, deitu dute **Ongia** beren osasunaren alde eta Jainkoaren ohoretan doan edozein gauza; Gaizkia, berriz, kontrakoa dena. **Piarres Xarriton**
Gaizkiari kontrajarria **ongia** dago, heriotzari kontrajarria biza. **Elizen arteko biblia**
Liburua manikeoa da: **Ongia**, Renan, Frantzia, Ilustrazioa, Arrazoia, Unibertsaltasuna *versus* Gaizkia, Herder, Alemania, Erromantizismoa, Bihotza, Nazionalismoa. **Markos Zapiain**
Oharbakekeria eta ausartzia erakutsi dugula, tipien orde handiak hautatuz eta berdin **ongiaren** orde gaizkia eta hoberenaren orde tzarrena. **Piarres Xarriton**
Edo, agian, nire **ongia** hurkoaren gaizkian oinarritzen da?, nire herriaren **ongia** zure herriaren gaizkian oinarritzen da? **Felipe Juaristi**
Munduaren okerreko ikuskera aldrebestuan erortzeko, non bakoitza bere mundu psikologiko deformatutik sorturiko **ongi** subjektiboarekin aurkezten den. **Xabier Kintana**
Itzulpen horrek ez du ematen kontzeptu homerikoaren adiera osoa, **ongi** homerikoaren barruan zuhurtasuna, ausardia, **oldarkortasuna**, bortizkeria eta, oro har, gorentasun aristokratikoari dagozkion ezaugarri guztiak sartzen baitira. **Askoren artean**
Sokratentzat Justizia gure baitan dagoen **Ongi** bat da, hau da, pertsona bakoitzaren baitan eta hiri osoaren baitan dagoena: **Ongi** partikularra eta **Ongi** orokorra. **Askoren artean**
Ongi gorena, jakina, baina ez zentzu platondarrean, horren arabera **Ongia** eskuarki hipostatu egiten baitzen. **Askoren artean**

6 ona. ik on¹ 3.

Bi maitasunok batera egon daitezke pertsona berarengan, eta gizakiaren **ongia** honetan datza, alegia, ongi bizitzera garamatzana gehituz, gaizki bizitzera garamatzana urritu beharra, osasun betera iritsi gaitzen arte eta gure bizitza osoa ongia bihur dadin arte. **Imanol Unzurrunzaga**
Jainkoaren gorputz-atalen artean ere hain berezko maitasun bat behar litzateke agertu, non ongi-nahizko maitasunez poztuko baikineteke gure senideetako baten **ongiagatik**, hala nola egingo genukeen buruarekin, gizakiaren atal duinenarekin. **Joan Mari Lekuona**
Gizartearen **ongia** nahi dutenez ez dute gaitza lur gainetik kentzeko indarrak. **Felipe Juaristi**
Ongitik **ongia** bakarrik dator, eta gaiztotik ez dator gaiztoa baino. **Joxe Azurmendi**

Horrela zure **ongiaz** bozkariatzen garenen, atseginekin ikusten dugu berriro dituzula zure gorrag eta ez ondoko gaitzen gain uzten. **Piarres Xarriton**
Ordain diezazula Jaunak zuk gaur niri egindako **ongia**. **Elizen arteko biblia**

7 **ongien** (146 agerraldi, 48 liburu eta 57 artikulutan) ik beheago 8.

Hirian onartu izan da **ongien** kultur aniztasuna. **Bernardo Atxaga**

Wagner da alemanon arima **ongien** ulertu duen musikagilea, Oskar. **Alberto Ladron Arana**

Bere rola **ongien** bereganatu duen pertsona Hillary iruditu zait, Olga alegia. Trabari mota bakarra duen hizkuntzak trabari ahoskabeak izango ditu eta bokal mota bakarra duenak, bokal ahokariak, horiek entzuten baitira **ongien**. **Patxi Zubizarreta**

Asmatzeko daude oraindik bere pentagramak **ongien** interpretatuko dituzten musika-tresnak. **Harkaitz Cano**

Berarengana noiznahi konfiantzaz jo dezaten, **ongien** dagokien eran. **Askoren artean**

Zenduak hilkutxan daude **ongien**, beila-lekuko asepsia distiratsuan. **Karlos Linazasoro**

Museo bati dagokion proiektua **ongien** ulertzen duen proposamena da, eta San Telmora hobekien egokitzen dena. **Berria - Harian**

-Jendearekin batera alde egin, ahal dugun **ongien** moztortuta. **Josu Zabaleta**

Beren lana ahalik **ongien** egiten saiatzen ziren. **Gotzon Garate**

Bakarrik esan dezaket, neure buruari ahalik eta **ongien** eusten saiatu nintzela eguerdi-arte hartan, ahal izan nuen bitartean. **Joxe Austin Arrieta**

8 **ongiena** (8 agerraldi, 5 liburu eta artikulatu 1ean) ik gorago 7.

Donostiarraren izateko modua denboran zehar **ongiena** definitu duen ezaugarria. **Askoren artean**

Ahaleginak egin zituen egin, ahal zuen **ongiena** afaria antolatzen. **Patxi Ezkiaga**

Ez dezagun izan nahiago osasuna eritasuna baino, aberastasuna pobrezia baino, ohorea desohorea baino, bizitza luzea laburra baino, eta berdin gainerako guztian; bakar-bakarrik irrikatzen eta hautatzen dugula **ongiena** garamatzana sortuak izan garen xedera. **Patxi Altuna**

Zalantzarik ez dagoena da, kohesio soziala eta, bakea eta, bizikidetzat, horrelaxe sustatzen direla **ongiena**. **Joxe Azurmendi**

Herialde bakoitzaren ahalmenak ahalik eta **ongiena** ustiatzen dituen lanaren banaketa arrazionala. **Koro Navarro**

9 **ongi asko** (43 agerraldi, 22 liburu eta 4 artikulutan) ondo asko, oso ongi. ik ondo¹ 8.

Baina hori zen egia, eta **ongi asko** zeukan gogoan. **Ramon Saizarbitoria**

Ongi asko dakizu besteak baino hobea naizela, beste askok batera baino hamar bider diru gehiago irabazten dudala. **Patxi Zubizarreta**

Ongi asko jakin beharko nuke, ordea, Annyk ez duela inoiz ere onartuko nire aurrean zahartzea. **Monika Etxebarria**

Ongi asko ezagutzen duzu herrialdearen historia. **Berria - Mundua**

Musulmanak etorri zirenean, eta Eudonek laguntza eskatu, Charles Martelek **ongi asko** aprobetxatu zuen abagunea... **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

10 **ongi bai ongi** oso ongi.

Begiko banauzu, har itzazu nire eskuerakutsi hauek, zure aurrean aurkeztea Jainkoaren beraren aurrean aurkeztea bezala izan baita niretzat, eta zuk **ongi bai ongi** hartu bainauzu. **Jose Antonio Mujika**

Ongi bai ongi ezagutzen zuen amona Sinforosak anai Jaxinto! **Joan Mari Irigoien**

Izan ere, **ongi bai ongi** oroitzen dut nola aita Tommék erran zion amari ezen gazte umila eta apala nintzela. **Joan Mari Irigoien**

Ez dut zure ontasunez neurritz gain baliatu nahi; **ongi bai ongi** baitakit zure gutunak ez daitezkeela luzeak izan. **Jon Muñoz**

11 **ongi baino hobeki** (53 agerraldi, 18 liburu eta 4 artikulutan) ik ondo¹ 9.

Ivan Ogareffek **ongi baino hobeki** zekien zertan ari zen harengana oldartu ziren soldaduak geldiarazi eta emirraren justiziarako gorde zuenean. **Karlos Zabala**

Alabaina, amak ez zuen Aladin konbentzitzea lortu, hark **ongi baino hobeki** ezagutzen baitzituen bi trepetara miresgarri haien dohainak. **Patxi Zubizarreta**

-**Ongi baino hobeki** konprenitzen duk, Paxkal. **Daniel Landart**

Ihizi egun hura **ongi baino hobeki** joan zen. **Elena Touyarou**

Enekin ere **ongi baino hobeki** baliatu zen bere trebetasun hartaz. **Joan Mari Irigoien**

Ongi baino hobeki errezebituak izan ziren hango Herriko Etxean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Esmokin bat zeraman, **ongi baino hobeki** ematen ziona. **Fernando Rey**

12 **ongi baino hobeto** (26 agerraldi, 13 liburu eta 8 artikulutan) ik ondo¹ 9.

Ongi baino hobeto nekien, segundo batean zalantzarik ez izateko moduan. **Josu Zabaleta**

Gertutik ikusita tentagarria iruditu zitzaion Ane Lizarazu, begiak betetzeko gorputz lerdena baitzeukan, **ongi baino hobeto** betea, eta sendoa. **Migel Angel Mintegi**

Poitiersko zelaietan galdu zen aukera hori, Charles Martelek **ongi baino hobeto** gogoratuko baitzuen, beti, nor izan zen laguntza eskatu zuena eta nor menpean geratu zena. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Alkateak jauregia zaintzeko propio jarritako zaindarien **ongi baino hobeto** hartu zuten neskatxa panpoxa, Justina alegia, soineko zuri hegalaria jantzita zeramana. **Felipe Juaristi**

Ongi baino hobeto ezagutzen genuen elkar. **Mirentxu Larrañaga**

13 **ongi egin iz** ongi eginikoa.

Oro galdu dut, bai neure erruz galdu ere; baina zure **ongi**-eginen bitartez oro berreskura dezaket. eta, horrela, argi ageri da Mendekurako gertuago daudela gizakiak, **ongi eginak** ordaintzeko baino. **Jon Muñoz**

Ongi eginengatik Jainkoari eskerrak emanez. **Askoren artean**

14 **ongi eman**

Orrazkera berriak **ongi ematen** ziola erratekotan egon nintzen, eta ez bakarrik egia zelako. **Aingeru Epaltza**

Esmokin bat zeraman, **ongi** baino hobeki **ematen** ziona. **Fernando Rey**

Ez dut sekula izan gizon gazte horri hain **ongi ematen** dion itxura txukuna. **Monika Etxebarria**

Hizkuntza horrek ez dit batere **ongi** ematen. **Antton Olano**

Ongi moztutako eta **ongi ematen** duten oihalen artea, behar baino toles bat gehiago ez duten, behar baino milimetro bat gutxiago ez duten oihalen artea. **Fernando Rey**

Bat beti bestek hiltzen du, eta bere burua "beste" egina dagoen kasuetan, bere buruak hiltzen du bat: halaxe esan behar genuke, eta ez bere burua hiltzen duela batek; belarrirako ez du hain **ongi ematen**, egia, baina barrenagoko zerbaitek esaten digu halaxe direla gauzak. **Iñaki Segurola**

Zorua eta atea ere, goiko solairua igotzeko eskailerak bezalaxe, zurezkoak ziren, eta oso **ongi ematen** zioten, garbi eta distiratsu, etxearen harrizko izateari. **Aitor Arana**

15 **ongi etorri interj**

-**Ongi etorri**! -esan zien Dumbledorek, kandela-argiak bere bizarrean dir-dir. **Iñaki Mendiguren**

Ongi etorri! Kaixo, Arrosa! **Txillardegi**

Ongi etorri, Horazio; **ongi etorri**, Martzelo jator hori. **Juan Garzia**

-**Ongi** etorri, printzesa -esan zion-. **Fernando Rey**

Ongi etorri, ene arreba heriotza. **Juan Garzia**

Ongi etorri gure bilerara, David. **Bernardo Atxaga**

Ongi etorri beraz gure borda xumera, **ongi etorri** gure partez. **Michel Oronoz**

Ongi etorri jipoituon mundura. **Anjel Lertxundi**

16 (izen gisa) ik ongi etorri.

17 ongi etorri egin

Etorri da, beraz, eta denek **ongi etorri egin** diote gizonek bosteko leiala (-?) zabalduz, emazteak, Deviers-Joncour andereak, musu pare bat. **Herria**
 Portugaletik itzultzean, bi Gaztela herriek eta Nafarroak hartu ninduten eta **ongi etorri egin** zidaten ene lanak eta aholkuak baliatuz. **Piarres Xarriton**
 Belokeko beneditarrei **ongi etorri egin** zien Idiazabaleko jendeak. **Marzel Etxehandi**
 Konpainia telefonikoaren erantzungailu estandarrak **ongi etorri egin** zidan lineaz bertzaldetik. **Aingeru Epaltza**
 Nekazari errusiarrek ez diote **ongi-etorri** txarrrik **egingo** kanpotarrari. **Karlos Zabala**
 Herritarrek ufaka **egiten** zieten **ongi etorri**. **Egiok**, beraz, arrotz bati bezala **ongi etorri**. **Aingeru Epaltza**

18 ongi etorrika (orobat ongi etorrika g.er.) adlag

Maiatz-eguzki alaiari **ongi-etorrika** diardute. **Pello Zabala**
 Ospakizun ergel horietako bat: munduari 24 orenetan bira ematea, urte berriari **ongi etorrika** luntx eta txanpaina tarteko, aireportuz aireportu, denbora gehiegi eman gabe bakoitzean. **Jose Angel Irigaray**
 Alde guztietatik **ongi etorrika** ari zaizkio; irribarreak alde guztietan berriro etxera itzultitako seme hondatzailearentzat. **Xabier Olarra**

19 ongi hezi izond

Baserri giroko neska zintzo **ongi hezi** bat, obsesioez eta fobie bezala. **Koro Navarro**
 Euritakoari eusten zion etxezain gazte eta **ongi heziak** irribarre batez agurtu zuen. **Aitor Arana**
 Don Cleto Meana zen etxeko filosofoa, gizon ikasia eta **ongi hezia**, miserian eroria. **Josu Zabaleta**
 Mamu talde errespetagarri eta **ongi hezia**. **Xabier Olarra**
 Zu eta zu bezalako jendea... guztiak hain guriak, hain aditsuak, hain irribarretsuak, hain **ongi**-heziak... eta hain azal gogorrekoak batez ere! **Joan Mari Irigoien**
 Tinko bezain mamu geratu zen japoniar **ongi hezi** haren begitartea. **Joxan Elozegi**
Ongi hezia eta zentzuduna. **Patxi Zubizarreta**

20 ongi ibili interj ik ondo¹ 11.

Aitak esan zion: **Ongi ibili**!
 -Orain, **ongi ibili**! -esan zuen printzeak niri buruz-. **Ongi ibili**, seme! Zeruko Jaunak gida zaitzate zure emazte Sara eta biok. **Matías Múgica**
 Jaungoikoa zurekin; **ongi ibili**. **Juan Garzia**
 Galdegin nion ea nola esaten zuten "agur, **ongi ibili**" navajo hizkuntzan. **Iñaki Zabaleta**

21 ongi ikasi izond

Eva polita eta **ongi ikasia** zen. **Itxaro Borda**
 Behartsuek ez ezik, jende **ongi** ikasiak ere alde egiten du Indiatik. **Gotzon Garate**

22 ongi izate ik ongi zate.

23 ongi jaioa(k) egon ondorio onik ez espero izan.

Ongi jaioak gaude! **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

ahal bezain ongi (42); arras ongi (102); aski ongi (83); aski ongi ezagutzen (10)
 begira ongi (12); behar bezain ongi (11); bereziki ongi (9); beti ongi (41); biziki ongi (50)
 dena ongi (175); dena ongi aterako (13); dena ongi doa (9); diruz ongi (10)
 elkarrekin ongi (10); entzun ongi (11); euskara ongi (13); euskaraz ongi (12); ez dago ongi (22); ez dakit ongi (21)
 fisikoki ongi (15); gauzak ongi egin (12); guztia ongi (14)
 hagitz ongi (16); izan ongi (12)
 lana ongi egin (12); lana ongi egiten (11)
 nahi bezain ongi (18); nahiko ongi (59); nahikoa ongi (11)
 ongi adierazi (10); ongi adierazten (13); ongi ala gaizki (14); ongi antolatua (11); ongi antolatua (15); ongi ari (82); ongi ari da (19); ongi ari gara (12); ongi aritu (73); ongi aritu ziren (15); ongi aski (24); ongi asko (43); ongi asmatu (19); ongi atera (64); ongi atera zen (14); ongi aterako (31); ongi aterako da (10); ongi ateratzen (32); ongi azaltzen (13); ongi aztertu (29)
 ongi baderitzo (10); ongi baderitzozu (13); ongi bai ongi (26); ongi baino hobeki (53); ongi baino hobeto (23); ongi baitzekien (14); ongi baliatu (45); ongi baliatu zuen (17); ongi begiratu (19); ongi bereizten (29); ongi bete (29); ongi betetzen (20); ongi bizi (31); ongi bizitzeko (15); ongi bukatu (10); ongi bururatzeko (17); ongi burutu (13)
 ongi da (270); ongi dago (123); ongi daki (45); ongi dakigu (11); ongi dakit (24); ongi dakite (11); ongi dakizu (41); ongi dakizue (10); ongi dakizun (13); ongi dakizun bezala (13); ongi dakizunez (13); ongi daude (15); ongi doa (32); ongi doatzi (10); ongi duk (30)
 ongi edo gaizki (12); ongi egin (135); ongi egin zuen (10); ongi egina (28); ongi eginak (10); ongi egingo (18); ongi egitea (12); ongi egiteko (21); ongi egiten (91); ongi egiten du (10); ongi egokitzen (22); ongi egon (17); ongi egongo (21); ongi ematen (38); ongi entzun (21); ongi entzuten (14); ongi erakusten (30); ongi erakusten du (12); ongi erakutsi (26); ongi eramaten (10); ongi erantzun (25); ongi erantzuten (11); ongi esan (29); ongi esana (9); ongi esaten (10)
 ongi etorri (1105); ongi etorri bero (39); ongi etorri beroa (26); ongi etorri beroena (118); ongi etorri deneri (118); ongi etorri egin (106); ongi etorri eginen (11); ongi etorri guzietan (32); ongi etorri hobereana (60); ongi etorri sortu (10)
 ongi etorria (407); ongi etorria egin (86); ongi etorria eginen (11); ongi etorria egiteko (14); ongi etorria egiten (13); ongi etorria eman (11); ongi etorria izango (16); ongi etorriak (62); ongi etorriaren (25); ongi etorriko (41); ongi etorririk (10)
 ongi eusten (10); ongi eutsi (37); ongi eutsi zion (13); ongi ezagutu (37); ongi ezagutua (27); ongi ezagutua zen (9); ongi ezagutzen (348); ongi ezagutzen du (36)
 ongi finkatu (9); ongi funtzionatzen (15)
 ongi garbitu (10); ongi gogoan dut (10); ongi gogoratzen (34); ongi gorde (11); ongi gorena (29)
 ongi hartu (81); ongi hartua (15); ongi hartuko (12); ongi hartzen (30); ongi hasi (35); ongi heldu (10); ongi hezi (10); ongi hezia (20); ongi hezitako (11); ongi hitz egiten (12); ongi hornitua (17); ongi hornituak (17)
 ongi ibili (30); ongi ibiliko (10); ongi ikasi (26); ongi ikasia (18); ongi ikasiak (11); ongi ikusi (13); ongi ikusi (44); ongi ikusia (23); ongi ikusten (65); ongi ikusten dut (9); ongi irabazi (20); ongi irabazia (9); ongi iragan (49); ongi iragan da (18); ongi iritzi (25); ongi iritzi zion (10); ongi iritzen (10); ongi irten (20); ongi irudit (38); ongi iruditut (10); ongi iruditzen (72); ongi iruditzen bazaizu (11); ongi itxi (9); ongi izango (11)
 ongi jabetu (13); ongi jakin (43); ongi jakin gabe (9); ongi jantzia (10); ongi jantziak (9); ongi jardun (21); ongi jarri (10); ongi jarrita (9); ongi jaten (9); ongi joan (55); ongi joan zen (13); ongi joango (15); ongi jokatu (61); ongi jokatu zuen (10); ongi jokatzen (29); ongi jotzen (9)
 ongi kokatuta (11); ongi konpondu (18); ongi konpontzen (38)
 ongi lotu (10)
 ongi menderatu (9); ongi menperatzen (12); ongi merezia (31); ongi merezitako (10); ongi merezitua (9); ongi mintzatzen (10); ongi moldatu (48); ongi moldatzen (92); ongi moldatzen da (21)
 ongi nago (43); ongi nekien (23); ongi neurtu (11)
 ongi ohartu (10); ongi ohartzen (14); ongi ongi (9); ongi ordaintzen (11); ongi oroit (9); ongi oroitzen (68); ongi oroitzen dut (14); ongi oroitzen naiz (19)
 ongi pasa (15); ongi pasatu (37); ongi pasatzeko (16); ongi pasatzen (22); ongi pentsatu (24); ongi pentsatua (10); ongi pentsatuta (11); ongi pentsatzen (12); ongi portatu (10); ongi prestatu (14); ongi prestatua (13); ongi prestatuak (9); ongi prestatuta (21); ongi prestatutako (10); ongi prestatzeko (10); ongi prestatzen (10)
 ongi sentitzen (13)
 ongi tratatu (11); ongi tratatzen (13)
 ongi uler (14); ongi ulertu (89); ongi ulertuko (10); ongi ulertzeko (13); ongi ulertzen (70)
 ongi zagok (20); ongi zaindu (17); ongi zaindua (14); ongi zainduak (10); ongi zaintzen (10); ongi zaude (11); ongi zegoen (21); ongi zekien (43); ongi zekiten (11); ongi zer (30)
 orori ongi etorri (11); oso ongi (669); oso ongi aritu (10); oso ongi dago (22); oso ongi ezagutzen (28); oso ongi konpontzen (9); oso ongi moldatzen (12); oso ongi ulertu (10); oso ongi ulertzen (23)

sobera ongi (9)

txit ongi (11)

zein ongi (40); zeinen ongi (10)

ahalik eta ongien (18)

egin zion ongiatorria (10); egingo diote ongiatorria (11); ongiatorria egin (44); ongiatorria egin zioten (10); ongiatorria egingo (21); ongiatorria egingo diote (13); ongiatorria egiteko (16); ongiatorria eman (21); ongiatorria emateko (10)

[3] desiratzen duen ongia (3); guztien ongia (5); nire ongia (4)

ongia ala gaizkia (4); ongia egin (7); ongia egiteko (9); ongia egiten (16); ongia eta gaizkia (40); ongia eta gaizkiaren (4); ongia maite (5); ongia zer den (3)

ongiaki eta gaizkiak (5)

gaizkiaren eta ongiaren (5); ongiaren alde (3); ongiaren ardatza (3); ongiaren eta gaitzaren (3); ongiaren eta gaizkiaren (68); ongiaren ideia (4)

ongiari eta gaizkiari (8)

ongiaz eta gaizkiaz (9)

ongialdi iz

Eraman itzazu gogotsu ezbeharrak, / ez zaitzala puztu **ongialdiak** : / honek eskatu egiten du fedea, / ezbeharrek, exijitu. **Askoren artean**

ongiegile (orobat ongi egile) izond/iz ongilea.

Laster hautatua izan nintzen solista izateko, zeremonia handietan eta ere igande arratsalde batzuz dama **ongiegile** baten egongelan kantatzeko. **Piarres Aintziart**

Maitagarri **ongiegile** bat naiz zuretzat. **Jon Muñoz**

Ene aingeru begiralea eta **ongi egilea**. **Joan Mari Irigoien**

Soilik nahi du, bizimolde **ongiegileago** batez, bere gaztaroko akatsak edo hobeki erran hutsegiteak konpondu. **Jon Muñoz**

Eskerrak langile guzieri, **ongi egile** ixileri eta ondoko urte arte, zerbait egin nahian. **Herria**

ongiegin iz egintza ona. ik onegite.

Zin egina nuen, alabaina, ez nuela nehoiz baimen hori gabe ene unibertsitatea utziko, ez zezan nehork uste izan ahanzten nituela, hari zor nizkion **ongiegin** handi itzelak.

Piarres Xarriton

Hitz hauetaz oroit naiz, mendiaren **ongieginaz** ari baita pentsalari poeta [...] "Han izaitea eta han pentsaketa egitea laket zaigu". **Piarres Aintziart**

Haienganako haren Gorrotoa ez dela Maitasunaren edo **Ongieginaren** bidez, errazki, garaitzen. **Piarres Xarriton**

ongiotorri (orobat ongi etorri; Euskaltzaindiaren Hiztegian, izen gisa ongiotorri agertzen da) iz

Oniasek **ongi etorri** handia egin zion zuen mezulariari. **Elizen arteko biblia**

Alta, etxera itzuliz ere, pentsatzekoa zen, ez zidatela hain segur, **ongi-etorri** hoberena eginen. "Herria" honetarik **ongi etorri** bero eta amultsua eskaintzen diot "Berria" egunkari berriari. **Daniel Landart**

"Hau duk **ongi etorria**, hau!", esan zuten haiek. **Jose Morales**

Ongi etorria izan bedi eta gizakiak onartua. **Joan Mari Lekuona**

Lagunek **ongi etorria** eman ziguten, eta negar egin zuten bizia galdu zutenengatik. **Juan Kruz Igerabide**

Baina ez zuen pentsatzen zuenik esan; gorde egin zuen barreneko azalean, eta aurpegi arraiz, hitzik gozoenez, **ongi etorria** eman zion. **Felipe Juaristi**

Hartze duten **ongi etorria** egin nahi diegu. **Elena Touyarou**

1933ko udazkenean, Luhusoko herrian, egin zen urteko bilkuran **ongi etorria** egin zieten euskaltzale zaharrek. **Piarres Xarriton**

Buruak etorri berriengana itzuli ziren eta irri firfira batez egin zieten **ongi etorria**. **Patxi Zubizarreta**

Jesus itzuli zenean, jendeak **ongi etorria** egin zion, denak haren zain baitzeuden. **Elizen arteko biblia**

Ongiotorriko omenaldia egin ziguten egunean bertan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

ongiotorrika ik ongi 18.

ongiez 1 iz ondoeza.

Hori guztia oroitzeak sorrarazi dion **ongieza** arintzeko, beste hurrupa bat egin du idazle gazteak. **Patxi Zubizarreta**

Ongieza ez erakusteko eginahaletan, inguruko mugidan finkatu nituen begiak. **Aingeru Epaltza**

Nire inguruan, **ongiez** sakon baten mendean zeuden nire lankide guztiak. **Joxan Elozegi**

Gorputz atalen kontu arina egin nuen: inon ere **ongiez** berezirik ez, non ez zen halako karga eskerga bat garondo partean. **Aingeru Epaltza**

Ongiez etimologikoak. **Patziku Perurena**

2 ongiezik adlag ondoezik.

Bigarren koka takadak ez zidan mintzamen itzuli, baina, whiskyaren eta zerbezaren laguntzaz, ez **ongiezik** ez bozkariorik gabeko egoera neutro batera igorri ninduen.

Aingeru Epaltza

ongiezik ik ongiez 2.

ongieztu izond ondoeztua.

Auzolana: mitikoa da gure artean, baina nik ez dut hitz **ongieztua** besterik ezagutu. **Patziku Perurena**

ongigarri izond

Bada, beraz, herri zibilizatuen kodeetan, halako xedapen **ongigarria**, kasuan kasukoak biderkatu eta arrazoa bera arte bihurtzen duena. **Andres Urrutia**

ongile *(orobat ongile g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegi ongile agertzen da)* 1 izond/iz ongia egiten duena. ik ongiegile.

Bere egoitza hilen artean duen jainko **ongile** bat da. **Juan Garzia**

Haren emaitza, izan, ongia bere izaeraren eskuzabaltasunagatik eta jaiotzetiko ontasunagatik egiten duen gizon **ongile** eta errukiorren antzekoa da. **Xabier Kintana**

Oso apaiz **ongilea** izan zen. **Irene Aldasoro**

Egiptoarrek esklabo bihurtu zituzten etorkin **ongileak**. **Elizen arteko biblia**

Zoriontasuna aldeko izan zuen eta familia **ongile** baten buru gertatu zen. **Patxi Zubizarreta**

Zintzo eta **ongile** denaren zoriontasuna. **Elizen arteko biblia**

Artista gazte txiroa familiaren **ongile** bihurtu da eta hori zureztat pozteko kontua izango da. **Ramon Etxezarreta**

Zenbait gizon zuzenek gaizkileei dagokien zoria dute, eta zenbait gizon gaiztok **ongileei** dagokiena. **Elizen arteko biblia**

Lehendik ere pobreen **ongile** bazen, ordutik aurrera sendoago erabaki zuen bere bihotz barruan, aurrerantzean ez ziola limosnarik ukatuko Jainkoaren izenean eskatzen zion inongo pobreri. **Askoren artean**

Monarka handiek, gidari ditugun gizadiaren **ongile** handiek, maite dituzte filosofo apalak. **Juan Martin Elexpuru**

Poliziaburua, nola edo hala, hiriko **ongile** eta aita babeslea zen. **Jose Morales**

Ongile noble eta aberatsen batek bere etxean jatera edo ostatu hartzera gonbidatzen bazuen, [...]. **Askoren artean**

Salba nazazu, nire **ongilea**, salba nazazu! **Jose Morales**

Berehala sinatu zuen, bere **ongile** ldiak ez damutuko zen beldurrez. **Aingeru Epaltza**

2 (gauzei buruz)

Eguzki errainu **ongileek** ur bihurtu ditek lurrin pila hori! **Karlos Zabala**

Ordurako, gainera, aski argi ikusia zuen botika haren eragin **ongilea**. **Imanol Zurutuza**

Konpainiaren eragin **ongilearen** pean, gure ohiturak halabeharrez josirik daude. **Juan Garzia**

Zure Gorentasunak lan honen lehen argitaraldiarekin izandako begiramendu **ongile** berari eskaintzen diot bigarrena ere. **Ibon Urbarri**

3 (adizlagun gisa)

Sinbologia berbera betetzen du, zazpi arkuko zubian iragotzen den gure zaldi majikoak: **ongile** badator onik iragoko du zubia, baina gaizkile badator bertan galduko bere burua. **Patziku Perurena**

Gogoratuko zela hura, Loiolan sartzen baziren, **ongile** ibili zaizkion guztien izenez, eta horrelako kontu batzuk esanda gizatasunez portatu zela azkenean kapitaina. **Inazio Mujika Iraola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

hiriko ongile (3)

gure ongilea (3); **nire ongilea** (5)

ongiletasun *iz* ongilea denaren nolokotasuna.

Eta errukiari eta karitateari eta **ongiletasun** salbatzaileari. **Iñaki Segurola**

ongimaitatu *izond* ongi maitatua.

Elsa ez da asko arduratzen politikaz, gure Lider **Ongimaitatua** gurtzeko ez bada. **Ramon Etxezarreta**

onginahi *(orobat ongi-nahi)* 1 *iz* nahi edo borondate ona.

Onginahi adina gorroto. **Berria - Kirola**

Libre samar baitzara, eta alkoholaren **onginahiak** afaltiarretara fruituz oparo den zuhaitz baten gisa makurrarazten baitzaitu halakoetan. **Josu Zabaleta**

Jauna[...], izan zaitez gaur nire aldeko, arren, eta ager ezazu nire nagusi Abrahami diozun **onginahia**! **Jose Antonio Mujika**

Agindu hau eman zion erreginarentzat: joan zedila erregearengana, haren **onginahia** irabazi eta herritarren alde egitera. **Jose Antonio Mujika**

New Yorkeko mafiak polizien **onginahia** irabazi nahi zuen. **Gotzon Garate**

Hau da ene seme maitea, beragan dut ezarria nire **onginahi** guztia. **Xabier Olarra**

Zergatik ukatzen didazu zeure **onginahia**, nire gain ezarri herri osoaren zama? **Jose Antonio Mujika**

Har itzazu esandakoak **onginahi** eta debozioz, eta ikusi gutxienez haietan zuri eta zure alabei egun osoan dizuedan ama-maitasun kartsua. **Askoren artean**

Gogor egin nion hitz, ez zuen leunkeriarik gura izaten, gorroto zituen zaharrena zelako **onginahiz** egiten genizkion gozokeriak. **Koldo Izagirre**

Gero haren **onginahizko** galdera, ea andereñoa nire andregai al zen, eta gure estutasuna. **Joxe Austin Arrieta**

Horra zertan den dibortziatutako senar-emazte ohien arteko tolerantziaren eta **onginahiaren** mitoa. **Oskar Arana**

2 (izenondoekin)

Onginahi handia izan zenuen gure aita Davidentzat, eta ni errege egin nauzu, haren ondoren. **Elizen arteko biblia**

Egiaz begiko duzu zeure zerbitzari hau eta, bizitza gordez, **onginahi** handia agertu didazu, baina ez dut mendian salbatzeko modurik. **Jose Antonio Mujika**

Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta **onginahi** handikoa. **Elizen arteko biblia**

Gaztetxoenganako **onginahi** errukibera adieraz lezakeen irri bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zaindu gure herrialdea, arriskuan dagoen gure nazioa, denei eskaintzen diezun **onginahi** zabal horrekin. **Elizen arteko biblia**

Arrazoi taxuzkorik gabe eta **onginahi** gehiegizko batek eraginik. **Xabier Olarra**

Onginahi hutsez salbatu zaituzte! **Elizen arteko biblia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain, tratuak zer edo zer gozatua baitzuen irudi hura, ezipainetan **onginahi** -irribarrea erakusten zuela ageri zitzairen. **Imanol Zurutuza**

Bertan dauden objektu presenteak gorputzaren begiez ikusten dituzu; zure pentsamenduak eta **onginahi** sentipenak arimaren begiez. **Imanol Unzurrunzaga**

Begira, bada, oraintxe da **onginahi** -garaia, oraintxe salbamen-eguna. **Elizen arteko biblia**

onginahitsu *izond* onginahiz betea.

Gaizkileek soilik lortuko balituzte lurreko ondasun iragankorrak eta zintzoek bakarrik gaitzak jasan, Jaungoikoaren asmo zuzenari edota **onginahitsuari** egotziko genioke.

Imanol Unzurrunzaga

ongintza 1 *iz* behartsuen laguntza.

Baina, Dolmancé, karitateak, **ongintzak** ezin al du zenbait arriban zorian ekarri? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Zeren, samin oroz at, arriskuetatik libre, bere baitan ahaltsu, gure beharizanik gabe, ez **ongintzen** menpe baitago, ez suminak jotzen baitu. **Xabier Amuriza**
Ongintza harrokeriaren bizioa da, arimaren benetako bertutea bainoago. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Argitaletxe alternatiboa da, irabazien zati handi bat **ongintzazko** zereginetan gastatzen duena. **Jon Arretxe**
On Kixoteren erara abiatzea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen, jomuga zehatzik gabe, **ongintza** xede bakar, bidez bide, neure indar eta borondatez okerrak zuzentzeko eta behartsuei laguntzeko prest. **Juan Luis Zabala**

2 behartsuei laguntzeko erakunde publikoa.

Emakumeak, berriz, borrokalari horien pareko kideak, **ongintzako** patronatu, haurtzaindegi, tailer gehienen sortzaile izan ziren. **Monika Etxebarria**
Ongintzako mediku izan zen Manuel Val y Vera ere, Barojaren zahartzaroko lagunik leialenetakoa eta barojazaleenetakoa. **Josu Zabaleta**
Ongintzako langelan xuxurlaka aritzen ziren: [...]. **Monika Etxebarria**
Jantoki **ongintzakoetan** emandako haragi erdi-ustela. **Xabier Olarra**
Donostiako *belle époque*-ren garaian [...] distira horri bizkar eman eta **ongintzako** lekameek eskaleei jaten ematen zieteneko irudia margotu zuen. **Berria - Kultura**
Ongintzatik ongizatera. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Po ibaiaren bazterretako uholdeetan bizirik atera zirenen aldeko **ongintza**-errezitaldi batean. **Fernando Rey**
Zenbait **ongintza**-elkartetako presidente eta beste batzuetako partaide zen. **Anton Garikano**
Azal biguneko liburuak bost dolar eta hamar zentimotan saldu ziren [...] eta otsailaren lehenerako saldu ez zirenak erietxeetara, **ongintza**-erakundeetara eta itsasgizonen liburategietara igorri ziren. **Oskar Arana**

ongitsu *izond*

Gai guztietarako legeak ematea ezina dela eta, alderdion eskaini egiten die magistratu publikoa, halako arbitro **ongitsu** eta alderdigabea. **Andres Urrutia**

ongitu, ongi(tu), ongitzen da/du *ad ondu, oneratu.*

Behin **ongitua**, goarnizioko soldaduenetara aldatu ninduten. **Aingeru Epaltza**
-Hire gripe delakoaz **ongitua** egonen haiz, ezta? **Aingeru Epaltza**
Ikuskizunak **ongitua** zion umorea-. **Aingeru Epaltza**
Gizakiengan, ostera, adimena beti korapilatu ohi da, gehiago edo gutxiago, bizitzaren egintza guztiekin; modu horretan ere, sentimendua gogoaren aldamenean dago, zuzenbideak sen soila ordezkatzen du, eta den-dena handitu eta **ongitu** egiten da. **Andres Urrutia**

ongitxo *adlag adkor* aski ongi. ik **ongitxo**.

-Txosten hori, bihotza, ez da paper arrunt bat, eta zuk **ongitxo** dakizu. **Migel Angel Mintegi**
Baina ez nadin engaina: **ongitxo** dakit, telefonoa egon arren, Dabidek ez lukeela deituko. **Patxi Zubizarreta**
Ongitxo ikusten ari haiz deusetarako ez duela horrek balio izan. **Joxan Elozegi**
Emakumea **ongitxo** ohartu zen doktoreak merkatari baten hizketa molde maltzurra zerabilela. **Patxi Zubizarreta**
Bezeroek, hura **ongitxo** ezagutzen baitzuten, ez zuten aintzat hartu. **Patxi Zubizarreta**
Eta errealtateak **ongitxo** erakutsi zidan ordurako zer bertigo handia eragiten zidan hiru metrotik gorako hormen zein harkaitzen gainean egoteak. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

ongitxo daki (4); **ongitxo dakit** (9); **ongitxo ezagutzen** (7); **ongitxo ezagutzen zuen** (3); **ongitxo nekien** (3); **ongitxo zekien** (11)

ongitze *iz oneratzea, ontzea.*

Zientziak ekarri balin baditu **ongitze** eta ontasun handienak gizonari, ez duela argitzen hainbertze jainkoaren izaitea eta ekartzen duela ere gaitz eta galbide frango.
Herria
Alabaina ama **ongitze** bidean dugu eta semea, berriz, xaldiko sasoikoaren pareko. **Aingeru Epaltza**

ongiulertu *iz ongi ulertzea.*

Elkarrizketa gozo zoroak, erabat beteak erdizkako esaldiz, ametsez eta gaizkiulertuz, **ongiulertu** guztiak baino zirrargarriagoak. **Anton Garikano**

ongixko 1 *adlag adkor* aski ongi. ik **ongitxo**.

Ongixko zekien hori niretzat nagaikarekin jotzea baino makurragoa zela. **Matias Múgica**
-**Ongixko** moldatu gaituk -nik, sobera arriskatu gabe. **Aingeru Epaltza**
Irakurlea, honetara ezker, **ongixko** konturatuko zen hau ez dela kimika-tratatu bat. **Juan Garzia**
Jakin-mina zabaltzen zihoan, gauzak **ongixko** egiten genituen seinale, nonbait. **Pello Zabala**
Ni ordurako **ongixko** gogait egin nengoan adio eta adiorik ez guztiez. **Koldo Izagirre**
Ongi, **ongixko**; baina erantzukizunak? **Karlos Linazasoro**

2 *ez-ongixko adlag*

Eta gure ama edo gutako nonbait ez-**ongixko** sentitu eta Albertorengana joateko desira adierazten zuenean, gure aita bere irri-algara burrunbatsu haien ezteztan lehertzen zen. **Fernando Rey**

ongizate (*orobat ongi izate g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren ongizate agertzen da*) 1 *iz ongi dagoenaren egoera.*

Hurrengo goizean esnatzen da; ondo sentitzen da barren-barrenetik, eta **ongizate** horrek ez du utziko. **Oskar Arana**
Gero arimaren zurruntasun moduko bat izan zen, halako **ongizate** lozorrozko bat, minak aldegin gabe bazen ere, ez zen min nekagarria, ordea. **Josu Zabaleta**
Egiazko ametsa [...] gauzarik gozagarriena da zalantzarik gabe; berez etorri behar du, baina, nekez behartu gabe, eta gorputzaren **ongizate** bete-betea behar du lagun. **Josu Zabaleta**
Lehenago bozkario, **ongizate** eta atseginak lurruntzen nabaritzen ditut. **Patxi Zubizarreta**

Zer bidetatik igarotzen da gure desioa, harik eta bizipen erotikoko eragiten digun **ongizate**, samurtasun, esker on eta lasaitasun sentipen horretaraino iritsi arte. **Luis Elberdin**

Animalien **Ongizatearen** Aldeko Elkarteak boluntarioen elkarte kementsua izan zen behiala. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuetan)

Albiste bakoitza, munduaren **ongizate** eta bake nahiaren aurpegi aratzean barbero labanaz irekitako ebakia iruditzen zaio. **Pako Aristi**

Zer bidetatik igarotzen da gure desioa, harik eta bizipen erotikoko eragiten digun **ongizate**, samurtasun, esker on eta lasaitasun sentipen horretaraino iritsi arte. **Luis Elberdin**

3 estuasu materialik gabe bizi denaren egoera.

Juan Jose Ibarretzek goraiatu egin zuen Unibertsitateak duen «betebehar erabakigarria» gizartearen **ongizatea** lortzeko. **Berria - Euskal Herria**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan pobrezia mugaren muga gizabanako bakar batentzat 567,5 euro da hileroko, eta **ongizatearen** muga 901,11 euro. **Berria - Ekonomia**

Kontsumoa eta aisia, salgai eta prezioak, jostaketarekin batean, **ongizatearen** gizartearen bizi garenontzat. **Berria - Kultura**

EAEko biztanleen **ongizatea** areagotuko lukeen bigarren aldaketa ekonomikoa. **Berria - Euskal Herria**

Bihotzeko arazoek **ongizatearekin** lotura dute. **Berria - Gaiak**

Ongizatearen ekonomia-aitzindaria izan zen Arthur Pigou Nobel sariak zioen bezala, [...]. **Iñaki Heras**

Estatuaren **ongizatearekin** zerikusia zuen krimenen bat. **Juan Martin Elexpuru**

Ongizate materialaren helburua aitortzen dute batak zein besteak. **Anjel Lertxundi**

Globalizazioa hainbat herritar eta herrialderentzat, gero eta gehiago eragiten du, **ongizate** ekonomikoaren iturri bilakatu da. **Iñaki Heras**

Ongizate sozioekonomikoa eta barne zein kanpo elkartzuna Europa mailako parametro modernoetara garatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Euskal herritar guztien garapen ekonomiko, **ongizate** eta kohesio sozialarentzat. **Berria - Euskal Herria**

Ongizate sozialaren zerbitzuek puntako maila lortu zuten. **Berria - Euskal Herria**

Gizartearen ekonomia guztien eskuetan egon behar du eta gizon-emakume guztiei bermatu behar die **ongizate** kolektiboa. **Berria - Harian**

Ongizate pribatua, miseria publikoa. **Berria - Mundua**

Gizartea aberastea da unibertsitate jardueren azken helburua, kultura, askatasun, demokrazia, **ongizate** eta kohesioan aberatsagoa izatea. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ongizate ekonomian aditua den Vicenç Navarro ekonomilari kataluniarrak dio Europan bi **Ongizate** Estatu izan direla eredu. **Iñaki Heras**

"**Ongizate** estatuaren" britainiar sistemari zegokionez, pixkanaka eta dogmatismorik gabe alderdi politiko guztien legegintzazko ekarpenen bidez eraiki zen. **Iñaki Mendiguren**

Ongizate Estatu Sobiet Batasunaren ahalmena eta horri lotzen zitzaion mehatxu komunista hurbil sentitzen zirelako garatu zen horrenbeste. **Iñaki Heras**

Lege hori da **Ongizate** Gizarte honi falta zaion hanka. **Berria - Harian**

Ongizate gizartea politika globalizatzaileen menpe geldituko ote den kezka agertu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Ongizate Sistemak hezkuntzarekin eta sistema fiskalarekin duen harremana ere aztertuko dute astearteko lan saioan. **Berria - Euskal Herria**

Ongizate zerbitzuen kudeaketan. **Berria - Euskal Herria**

Hemen ditugu, beraz, globalizazioaren fenomeno eta XVIII. mendetik aurrera sortu zen estatu-nazioaren krisia, **ongizate** egoerari zerraizkionak. **Askoren artean**

Bere esanetan azken zortzi urteko agintaldiaren ondotik, **ongizate** baldintzak «ia desagertu» egin dira. **Berria - Euskal Herria**

Ongizate maila hobetzea eta giza gaitasunen garapen integrala lortzea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Osasun, Hezkuntza, **Ongizate** eta Kultura sailetan jaitsiera «nabarmenak» egin dira. **Berria - Mundua**

Ongizate ereduaren suntsitzeko nahia. **Berria - Euskal Herria**

Malikak 30 urte doi zituen eta **ongizate** etorkizuna aurretik. **Iñigo Aranbarri**

Ongizate diputatuaren dimisioa eskatu dute, **Berria - Euskal Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izan ere, ondasun eta zerbitzu horiek bere ekarpena egiten diote giza **ongizateari**, merkatutik kanpo egon arren. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

6 gizarte ongizate

Udaletxeko Gizarte **Ongizate** Sailaren laguntzarekin. **Herria**

Gizarte **ongizate** globalaren eta kapital naturalaren mugak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Iruñeko Gizarte **Ongizate** Institutuan sartu dira. **Berria - Euskal Herria**

Nafarroako Gobernuaren **Ongizate** Saileko kontseilari Jose Ignacio Palacios. **Berria - Euskal Herria**

Galdera hori Gizarte **Ongizate** arduradun Enrique Agirrezabali egin dio. **Berria - Euskal Herria**

Enrique Agirrezabal Gizarte **Ongizate** Sailaren arduradunak. **Berria - Euskal Herria**

Emakumeen kontrako indarkeria hipzide izan zuen atzo Nafarroako Parlamentuko Gizarte **Ongizate** Batzordeak. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gizarte ongizate (21); **gizarte ongizate sailburu** (4); **gizarte ongizate saileko** (3)

ongizate diputatuaren (3); **ongizate diputatuaren dimisioa** (3)

ongizate eredu (3); **ongizate estatu** (4); **ongizate estatua** (26); **ongizate estatuak** (3); **ongizate estatuaren** (19); **ongizate estatuari** (13); **ongizate estatuari egiten** (4); **ongizate fisiko** (4); **ongizate gehiago** (3); **ongizate gizartea** (3)

ongizate maila (7)

ongizate publikoaren (3); **ongizate sailak** (4); **ongizate sailaren** (3); **ongizate sailburu** (5); **ongizate saileko** (3); **ongizate soziala** (3)

aberastasuna eta ongizatea (3); **garapena eta ongizatea** (3); **gizakiaren ongizatea** (3); **gizarte ongizatea** (9); **gizartearen ongizatea** (3); **hiritarren ongizatea** (4)

ongizatea areagotuko (5); **ongizatea bermatzeko** (3); **ongizatea handitzeko** (3); **ongizatea hobetu** (3); **ongizatea lortzeko** (3); **ongizatea sortzen** (3)

gizarte ongizatearen (6); **ongizatearen alde** (4); **ongizatearen aldeko** (4)

ongizateari eusteko (4)

gizarte ongizateko (15)

animalien ongizaterako (7); **gizarte ongizaterako** (19); **gizarte ongizaterako kontseilari** (4); **gizarte ongizaterako sailaren** (4); **gizarte ongizaterako saileko** (3)

ongunde iz hitzarmena, abenikoa.

Haien artean **ongundeen** egiteko eta bakearen erdiesteko. **Joan Mari Irigoien**

Bortzak ari ziren irri-karkaraka, ahuntzaren haragiak bakeak eta **ongundeak** egin balituzte bezala. **Joan Mari Irigoien**

onik 1 adlag ongi, ezbeharrik gabe. ik salbo.

Hala, denok bizirik eta **onik** heldu ginen lehorra. **Elizen arteko biblia**

Onik iritsi ginela diodanean esan nahi dut ez zitzaigula inolako ezustekorik gertatu, ez poliziaren bisitarik ez gisako ezer. **Anjel Lertxundi**

Haizearekin pare bat eguneko borroka egin ondoren iritsi ziren Londresera, **onik** iritsi ere. Felipe Juaristi
Erre-opariak eskaini zituzten, beren arteko bat ere galdu gabe **onik** itzuli zirelako. Elizen arteko biblia
Saioa mendian galduta zegoen mendizalea **onik** topatu dute. Berria - Euskal Herria
Murillo del Fruton galdutako mutila **onik** agertu da. Berria - Euskal Herria
Hondarrbian desagertu zen emakumea **onik** aurkitu dute. Berria - Euskal Herria
Lehoiaren gorpua lurrian eta bere burua **onik** ikusi zuelarik, Gandar oharatu zen berak hil behar zituenak gertatu zitzaizkiola salbatzaile. Patxi Zubizarreta
Onik gelditzen zitzaion besoa gerri aldeko sastagaira zeramala bihurrikatu zitzaidan. Aingeru Epaltza
Orduan esan nien bi egun bazirela naufragio lazgarri batetik **onik** irten nintzela. Patxi Zubizarreta
Herr Haspern, ordea, **onik** irten zen lehendabiziko epaketan. Anjel Lertxundi
Gu, gure alaba ondo hezi eta txalupa portura **onik** eramatea beste kezkarik ez dugunok! Karlos Zabala

2 onik atera

Hiru atentatutatik **onik ateratzea** lortu zuen Alexandro II.ak. Iban Zaldúa
Hiriari gelditzen dena ezpataz, goseak edo izurritz hilko da; babiloniarrengana igarotzen dena, ordea, bizirik eta **onik aterako**. Elizen arteko biblia
Hura izan zela bidaiaiko unerik larriena aitortu genuen hirurok, eta Abdellahri zor geniola **onik atera** izana. Bernardo Atxaga
Hondamendi batetik **onik atera** den pertsona bakarra zirudien komisariako itxarongelan. Joxean Agirre
Onik ateratzeko, inork ikusi gabe zelatatu behar duzu. Pako Aristi
Badakitelako zerbait gertatuz gero haiek **onik aterako** direla. Edurne Elizondo
Kontaeik egia osoa eta kito, Charlie, eta **onik aterako** haiz. Mirentxu Larrañaga
Neskaren kapritxoak harriturik samar utzi baninduen ere, **onik atera** nintzen azterketa misteriotso hartatik. Patziku Perurena
Gertatutakoari hainbesterainoko garrantzia ez ematea zela hartatik **onik ateratzeko** modu bakarra. Anjel Lertxundi
Erditze arriskutik **onik ateratako** andreak. Askoren artean
Eta, nengoen kinka larritik **onik ateratzekotan**, horixe egin behar nuen, buru-belarri hausnartu. Alberto Ladrón Arana
Nork bere burua sekula **onik aterako** ez den putzu batera botatzea. Iñaki Segurola

3 onik egon

Desagertuta zegoen ertzain urpekaria ustez 20 metroko zulora erori zen, baina **onik dago**. Berria - Euskal Herria
Egunak igaro ahala, ez zegoen dudarik Fluffy artean bizirik eta **onik zegoela** giltzaz itxitako atearen atzean. Iñaki Mendiguren
Bizirik egonez gero, **onik nagoela** esan behar. Oskar Arana
Mikel Goñi **onik dago** auto istripua izan ostean. Berria - Kirola
Zure karabanari gertatu zitzaion triskantzaren berri izan ostean, etxeokoa pozarren daude **onik zaudelako**. Patxi Zubizarreta
Bizarginak odola kendu zion bai gaixo zegoenean, baina zuk **onik dagoela** atera diozu; eta horrela hemendik ere ez dizu ezeren zorrik. Patxi Ezkiaga
Koinatua kolpatuta ere, ni bizirik eta **onik nengoela** ikasteak zenbateraino nahigabetuko zuen ez nengoen hagitz seguru. Aingeru Epaltza
-Zuzenean niregana etorri behar zenuen! -esan zion amorruz, ordu erdi lehenago **onik zegoen** besoaren hondakin triste eta elbarri hari helduta-. Iñaki Mendiguren
Hezetasun-aztarnarik batera ez; **onik zegoen** zura. Jon Muñoz
Biztanleak ez dira **onik dauden** etxeetara itzultzera ausartzen. Berria - Mundua
Hondamen hartan, gauza batek goxatzen zuen: **onik zeuden** kutxak! Jon Muñoz

3 onik eta osorik

Poz handia hartu zuten Nadia eta Mikel Strogoff **onik eta osorik** aurkitzean. Karlos Zabala
Itzul zaitez etxera, **onik eta osorik**, eta aurki. Mirentxu Larrañaga
Ontziratuta dagoen guztia **onik eta osorik** helduko da. Jon Muñoz
Ozen mintzo zitzaion zerbait on eta ezustekoaz, hiltzat emandako adiskide min bat **onik eta osorik**, bizirik eta irribarretsu agertu balitz bezala. Jose Morales
Jakob, berriz, **onik eta osorik** iritsi zen Kanaan lurraldera, Siken izeneko hirira. Jose Antonio Mujika

4 onik izan du ad (ezezko perpausetan)

Hari burua txiki-txiki egin arte ez dut **onik izango**. Patxi Zubizarreta
Ez dugu begiz jotako gizabazter horien izena jakin arteko **onik izaten** kasik aurreneko kolpetik eta hurbilguratik. Iñaki Segurola
Ez zuen **onik izan**, lore saltzaile haietako batekin lanean hasi zen arte. Karlos Zabala
Ez duk **onik izan** gure Gilen hemendik urrundu arte. Aingeru Epaltza
Eskuratu behar dut, edo nire eskuek ez dute **onik izango**. Patxi Ezkiaga
Gaiztoak ez du **onik izango** eta ez du bere bizia luzatuko itzal bat adina, ez baitio begirunerik Jainkoari. Elizen arteko biblia
Nik ez bainuen Hermannik gabe **onik izaten**, horixe lortu behar nuen neuk ere, berak ere senti zezala nirekin egoteko premia. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

onik atera (160); **onik atera ziren** (28); **onik aterako** (59); **onik aterako zara** (5); **onik ateratzea** (16); **onik ateratzeko** (33); **onik ateratzen** (16); **onik aurkitu** (16); **onik aurkitu dute** (7); **onik dago** (11)
onik eta osasuntsu (6); **onik eta osorik** (15); **onik eta salbu** (10); **onik heldu** (5)
onik ikusi (6); **onik iritsi** (11); **onik irten** (25); **onik irten zen** (10); **onik irtengo** (9); **onik irtetea** (4); **onik irteteko** (9); **onik irteten** (6); **onik itzuli** (7); **onik itzuli zen** (4); **onik itzuliko** (6); **onik izan** (44); **onik izanen** (4); **onik izango** (31); **onik izaten** (19)
onik topatu (5); **onik zegoela** (5)

onil 1 iz inbutua.

Manuelek ardo botilak **onilaz** betetzen jarraitu zuen. Unai Iturriaga
Baziren han poteak, lurrontziak, pertzak, azpilak, latorrizko lanabesak, lapiko sakonak, **onil** zabalak, [...]. Karlos Zabala
Léonek, eskuin eskuarekin, heste hutseko zati luze bati eta haren muturrean sarturiko **onil** aho-zabalari eusten zien. Karlos Zabala
Berak banatu digu zopa, kirten luzeko eta **onil** itxurako burruntzali xeble batekin. Urtzi Urrutikoetxea

2 irud/hed

Baiona eta Donibane Lohizune lotzen dituen errepidea, lotura nagusi bakarra, **onila** da atera nahi dutenentzat. Berria - Harian

onildu, onil(du), oniltzen du ad uxatu

. ik ohildu.

Izeba Matildek begi galduez entzuten ditu nire tokia hartu duen faltsario horren letaniak, zeinak aldi berean keinuak egiten baitzitkit, euli bat **oniltzen** ariko balitz bezala, ni uxatzeko, lekutzeko. Jon Alonso

"Halakorik!" pentsatu zuen, eskua astinduz haragi xehatuaren gainetik **oniltzen** zuela. Jon Alonso

oniriko *izond* ametsetakoa, ametsetikakoa.

Argazkietan, zinean eta telebistan hainbeste aldiz ikusitakoa, benetan so egirik, ia **onirikoa**, ia irrealia irudituko zaizu. **Joseba Sarrionandia**

Ezinezkoa da amesgaizto batek uzten dizkigun gogo-abaildura zein irudien jatorria elementu **oniriko** soilekin adieraztea. **Anjel Lertxundi**

Lekuona [...] Euskal Herriko lehenengo artista plastiko surrealista izan zen, koadro **oniriko**, argazki futurista eta collage harrigarrien egilea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jendetasunaren gaia gogo-bihotzean berebaitako mundu **onirikoa** gauzatzera saiatzen da. **Herria**

Daliren estetika **onirikoaren** jarraitzaileen artea Nikolas Lekuona ordiziarra egon zen. **Berria - Kultura**

Zahar nahiz gazte, ezagun nahiz ezezagun, liriko edo **oniriko** nahiz ironiko edo sarkastiko, era guztietako poetei zabaltzen die atea urtero *Hatsaren Poesia* olerki bilduma-k. **Berria - Kultura**

Gregory Corso, 'beat' belaunaldiko poeta **onirikoa**, duela bost urte hil zen. **Berria - Kultura**

Diskurtso koherente baten bidez adieraztea irudi **oniriko** bat begitantzen zitzaidana. **Joseba Urteaga**

Neuri, ordea, munduaren existentzia egiten zait harrigarri; misterio hutsa baita; eta, misterioaren inguruan, ez zaizkit ametsa eta irudimena baizik geratzen; eta poesia eta errealtate **onirikoa**, azken finean. **Joan Mari Irigoien**

Bere obren alderdi **onirikoak** erakusten du surrealismoaren aitzindari izan zela. **Berria - Kultura**

onirikoki *adlag* era onirikoan.

Guziz samurrak Nichollas Hampersen zurezko lauki egiturak hain **onirikoki** marraztuak eta koloreztatuak; goraiatzekoak ere Josette Dacosta ren azken lanak formaletik abstrakzioeruntz baidoatzi, kolore ederrak egokituz. **Herria**

onirismo iz irudi onirikoak irudikatze joera duen jardura.

Zazpi egileen obrek geramatzate ametsen eta **onirismoaren** baitara bide berrietan gaindi. **Herria**

Bestalde, lotako ametsek edo **onirismo**-fantaseoaren bidez agerian uzten diren gabeziak eta euforiak ere badira. **Ana Urkiza**

oniritzi¹ ik **on**¹ 18.

oniritzi² (*orobat oneritzi g.er.*) 1 iz ontzat ematea, onestea.

Ez zure baimena, zure **oniritzia** besterik ez. **Alberto Barandiaren**

Ministro jeneralak horretarako baimena eman didan arren, zure **oniritziarekin** eduki nahi nuke. **Joan Mari Irigoien**

Baimena, onespena eta **oniritzia** alabak eman beharko zizkiola, berak ez baitzuen hor zeresanik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Pozgarriak ziren, halaber, Müller jaunaren **oniritzia** eta Anghiosen laudorioak. **Anjel Lertxundi**

Agintarien **oniritzia**. **Berria - Gaiak**

Arras zoriontsua naiz, baldin **oniritzi** hori merezi badut zugandik: baldin ez badiot adiskidantzaen jaidurari soilik zor. **Jon Muñoz**

Zure **oniritzia** behar dut. **Alberto Barandiaren**

Besteen **oniritzia** izatea komenigarri ez ezik beharrezko bihurtu zen amildegian ez erortzeko. **Juan Martin Elexpuru**

Haren mazelak **oniritzia** egin zion nire musuari eta horretan ezagutu nuen ez zela nirekin bart bezain erremindua. **Aingeru Epaltza**

Hauteskunde Batzordearen **oniritziak** HZK «baldintza guztiak» betetzen dituela erakusten du. **Berria - Euskal Herria**

Herria defendatzera joan ginen, eta herritarren **oniritzia** jaso genuen. **Eduñe Elizondo**

Zera bururatu zait, lapurra atxilotzea lortzen baldin banuen, Weber jaunaren **oniritzia** irabaziko nuela. **Alberto Ladron Arana**

Abadesak ahizpa guztien **oniritzia** eskatu behar du. **Askoren artean**

Erregearen **oniritzia** lortu eta aginteaz jabeturik, berehala behartu zituen Jasonek herritarrek greziarren biziera hartzera. **Elizen arteko biblia**

Ez ezazu, orduan, baieztapena eraman zeure **oniritziak** eskatzen dizuna baino areago, zeuk gauzari irizten diozun horretan ez baitago engainurik. berriz hartu bainuen lehengo lana, baratzezaina, fraideen komunitatearen **oniritziak** eta abegi onaz. **Imanol Unzurrunzaga**

Legeak, -aldaeiznak, denen **oniritziarekin** ez bada- ez dira hondatuko interes pribatuena eraginez. **Juan Martin Elexpuru**

2 (izenondoeekin)

Hortan parte hartuz dio Christianne Giraud eskultoreak erakusketari **oniritzi** osoa emaiten. **Herria**

Jose Manuel Durao Barroso buru duen Europako Batzordeak Europako Parlamentuaren **oniritzi** zabala lortu zuen atzo. **Berria - Mundua**

Aztertu gabe irentsi den albisteak jendearengan duen eragina, gizartearen sortzen duen iritzi erraldoia, kontzientzia zegoen tokian **oniritzi** soziala txertatzera datorrena. **Pako Aristi**

Proiektuak ez zuen sinadura profesionalik eta inongo **oniritzi** teknikorik. **Berria - Euskal Herria**

Halako **oniritzi** estetiko batez begiratzen zuten gure hartu-eman. **Karlos Zabala**

Bertze mahaiko saltzaile ustezkoari begiratu makur bat egin eta **oniritzi** etsia eman nion menestrari. **Aingeru Epaltza**

3 (hitz elkartuetan)

Hiritar batek besteegandik jasotzeko duen gutxieneko **oniritzi** zatiaren aurkakoak, ospe txarrarekin zigortu behar dira. **Juan Martin Elexpuru**

Pentsatu nian, beharbada, Wilkieren **oniritzi**-gutun batek lagun ziezadakeela. **Mirentxu Larrañaga**

Ordukoan poz eta **oniritzi** murmurioa izan zen bisitariena, eta gizonak "follow me" esan zuenean, denak atera ziren haren atzetik korrika. **Ramon Saizarbitoria**

4 oniritzia eman

Reb Alter Vishkowerrek bere **oniritzia** eman zion harremanari. **Koro Navarro**

Bruselak **oniritzia** eman dio erabakiari. **Berria - Gaiak**

Gure animalien inportazio-agiriei aldiari ematen diete agintariak **oniritzia**. **Jon Muñoz**

Horrela jakin nuen Jose Luis zela hautagairik egokiena, eta harekin ezkondu nintzen aitak **oniritzia** eman eta hiru urte geroago. **Iban Zaldua**

Begiez egiten dit galde; nire **oniritzia** ematen diot, buruari eraginez, baina pixka bat dezepzionaturik dagoela sumatzen dut, gogo biziagoa nahiko lukeela. **Monika Etxebarria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batzordeak oniritzia eman (5); **batzordearen oniritzia** (3); **bere oniritzia** (17); **bere oniritzia eman** (6); **beren oniritzia** (4); **besteen oniritzia** (3)

gobernuak oniritzia eman (3); **gorteen oniritzia** (4); **herritarren oniritzia** (5)

kongresuaren oniritzia (6); **kontseiluaren oniritzia** (6); **kontseiluaren oniritzia jaso** (4); **kritikarien oniritzia** (3); **legebiltzarraren oniritzia** (6); **ministroyen kontseiluaren oniritzia** (3)

oniritzia du (7); **oniritzia dute** (3); **oniritzia eman** (128); **oniritzia eman zion** (35); **oniritzia emango** (10); **oniritzia ematea** (6); **oniritzia emateko** (8); **oniritzia ematen** (12); **oniritzia izan** (6); **oniritzia jaso** (47); **oniritzia jaso du** (9); **oniritzia jaso ondoren** (5); **oniritzia jaso ostean** (4); **oniritzia jasoko** (4); **oniritzia jasotzea** (3); **oniritzia lortu** (8); **oniritzia lortzen** (3)

onizate ik **on¹ 22.**

onize 1 iz agataren aldaera, kolore argiko eta iluneko zerrendak ageri dituena.

Mota guztietako harribitxiz apaindua, kornalina, topazio eta berilo, **onize** eta jaspez, zafiro, errubi eta esmeraldaz apaindua. [Elizen arteko biblia](#)

2 onize harri

Hartu gero bi **onize** harri eta zizelkatu haietan Israelen hamabi semeen izenak. [Elizen arteko biblia](#)

Buruzagiek **onize** harriak eta beste harribitxiak ekarri zituzten apaiz nagusiaren efod jantzia eta bularrekoa hornitzeko. [Elizen arteko biblia](#)

onjo ik **onddo.**

onjoketa ik **onddoketa.**

onjoketaria ik **onddoketaria.**

onkailu ik **ongailu.**

onkeria iz ontasun gaitzegarria.

Onkeria gabeko garraztasuna. [Berria - Kultura](#)

Euskal tradizioan badugu gaur egun askok -agian arrazoi osoz, beharbada **onkeria** hutsez- arbuizaten duten "frantses-euskaldun" hori, hegoaldekoontzat kiderik ez duena, nik dakidala ez baita inoiz "espainol-euskaldun" esan izan. [Joxerra Garzia](#)

Pertsonaiei darien xalotasun eta **onkeria** erabatekoa literarioki sinesgaitza gertatzen da, nire ustez, eta horrexek egiten ditu pertsonaia gehienak berdinegi. [Berria - Kultura](#)

Haren hitzetan, «**onkeria**» horren ondorioz, «ETA karitateko ahizpa bihurtu dela dirudi». [Berria - Harian](#)

onkitu ik **hunkitu.**

onkogene 1 iz aktibatzen denean minbizia eragiten duen genea. ik **minbizi 7.**

Baziren, beraz, "minbizi-geneak" edo "**onkogeneak**". [Juan Garzia](#)

Onkogeneek zelulen ugalketa faboratzen dute. [Juan Garzia](#)

Geroago, "antionkogene" izeneko beste gene batzuk aurkitu ziren, **onkogeneen** eragina deuseztatzen zutenak. [Juan Garzia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Erakutsi gerta litekeela ADN injektatua **onkogene** -ezabatzaile batetik hurbil integratzea eta horrenbestez minbizi bat eragitea. [Juan Garzia](#)

onkologia 1 iz medikuntzaren adarra, tumoreak aztertzen dituena.

Oinarrizkoak dira, ordea, errehabilitazioko, hemodialisiko eta **onkologiako** gaixoentzako zerbitzuak. [Berria - Ekonomia](#)

EHUko medikuntza ikasleek Andrew Koff **onkologian** aditua entzun ahal izan zuten atzo, Leioako kanpusean. [Berria - Gaiak](#)

Onkologiari eskainitako C pabiloia ere zaharberritu egingo du. [Berria - Euskal Herria](#)

Gurutzetako Ospitaleko **Onkologia** Pediatrikoko Unitatean batez beste 30 ume izaten dituzte egunez. [Berria - Harian](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **onkologiko.**

Onkologia zentrorik ez erakitzea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak. [Berria - Euskal Herria](#)

Haien asmoa **onkologia** zerbitzua eremu pribatuaren esku uztea dela azpimarratu zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Ikerketa-zentroetan eta ospitaleetako **onkologia** sailetan. [Berria - Gaiak](#)

Immunologia eta **onkologia** departamentuko arduraduna. [Berria - Gaiak](#)

Onkologia pabiloi berria Nafarroako Ospitalean. [Berria - Euskal Herria](#)

Hazkunde handiagoa izan dute **onkologia** kontsultek (%32) eta birgaitze kontsultek (%27). [Berria - Euskal Herria](#)

Rosa Alas Brun, Izabako Oinarrizko Arretarako medikua, Eduard Rodriguez-Farre [...] eta Josep Ferris Tortajada La Fe-ko (Valentzia) **onkologia** -pediatra izango dira. [Berria - Euskal Herria](#)

3 erietxe batean, onkologia zerbitzuen barrutia.

Irakurri berri zuen korridorearen sarrerako atearen gaineko errotilua, **Onkologia**, eta modu batean baino ezingo zukeen azaldu hark sentiarazi ziona. [Imanol Zurutuza](#)

Bitxia da **Onkologiako** itxarongelako eserlekuen antolamendua. [Imanol Zurutuza](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haur **Onkologikoak** Laguntzeko Elkartearekin bat egin genuen orduan, eta Iruñera etortzea erabaki genuen. [Berria - Harian](#)

onkologiko 1 izond onkologiarena, onkologiari dagokiona. ik **onkologia 2.**

Tuterak badu unitate **onkologikoa** ; Lizarrak ez. **Berria - Euskal Herria**
Erietxe **onkologikoa** eraikitzeko 24 milioi euro emango dituzte. **Berria - Ekonomia**
Instituto **Onkologikoan** hitzartutako zerbitzuetarako. **Berria - Ekonomia**
Miguel Sanzek gure herraldean zentro **onkologikoa** egiteko aukera baztertu zuen, duela bi aste. **Berria - Euskal Herria**
Osasun Sailak Nafarroako Plan **Onkologikoarekin** aurrera jarrai dezala espero dugu. **Berria - Euskal Herria**
Guadalajarako (Espainia) patologia **onkologikoen** eta zentral nuklearren arteko harremana izan zuen aztergai. **Berria - Euskal Herria**
Ebakuntza **onkologikoetarako** ebakuntzetako itxaronaldia ezin izango da 30 egun natural baino handiagoa izan. **Berria - Euskal Herria**

• 2 iz erietxe onkologikoa.

Gipuzkoako **Onkologikoa** bularreko minbiziari buruzko nazioarteko ikerlan batean ari da. **Berria - Gaiak**
Josep Prier a Donostia Ospitaleko **Onkologikoko** arduraduna da. **Berria - Harian**

onkologista iz onkologoa.

Eta **onkologistarekin** tratamendu gogorra erabaki genuen, erradiazioa eta kimioterapia batera. **Joseba Sarrionandia**

onkologo iz onkologian espezialista den medikua.

Iradoki nuen egoki zatekeela saguaren institutu edo bat eraikitzea, etxepe batean elkarturik jardun zezaten, material bera zutela aztergai, genetistek, fisiologoek, patologoek, biologoek, **onkologoek** eta bestek. **Juan Garzia**
Ezinbestekoa zutela gaixoei mundu osoko **onkologoek** erabiltzen zituzten tratamendu haietara makurtzea, hura baitzuten, segur aski, gaitza garaitzeko bide bakarra. **Imanol Zurutuza**
Nire birika-minbizia aienatzen ari zen, eta azken azterketaren ostean **onkologoak** esandakoaren arabera, bazen baikortasun zuhur baterako arrazoirik. **Oskar Arana**
Horixe bera uste bide zuen Van Rensselaer Ameriketako Estatu Batuetako **onkologo** eta humanistak ere. **Berria - Gaiak**

onkote izond adkor aski ona.

Aitona bizkar sendoko gizona zen, lasaia, **onkotea**. **Anjel Lertxundi**
Fetixismo guztiak uxarazteko modukoak dira Hemingwayren itxura **onkotearen** erreklamora eskaintzen dizkidaten plateren prezioak. **Anjel Lertxundi**
Hemingwayren aurpegi **onkoteak** niri begira segitzen du. **Anjel Lertxundi**
Eskura zeukan Norak, guztiz eskura, ilargi **onkotea**, ahurraren magalean kabitzen zitzaizkion hiru gabiraiak. Hiru hegaztien hegada alderraiak desitxuratzen zuen aldian-aldian ilargiaren itxura **onkotea**. **Anjel Lertxundi**
Masaila ardo koloreko angioma batez estalia zuen **onkote** itxurako morrosko zabal bat. **Juan Luis Zabala**

ONO ik oraino.

onomastika 1 iz izen bereziak, eta bereziki pertsona izenak, aztertzen dituen jakintza.

Gramatika kontuan hartuta, liburuak sei atal ditu: sintaxia, ahoskera, **onomastika**, aditz laguntzaile batua eta hiztegi batua. **Berria - Euskal Herria**
Aditua zen **onomastikan**. **Koldo Zuazo**
Onomastikako batzordeko partaidea da, eta ere Eusko Ikaskuntzako kidea. **Herria**
Kirolean, antzerkian, **onomastikan** eta beste sektore askotan lan egindakoek jaso dute euren omenaldia. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik onomastiko.

José Pedro Machadoren Hiztegia ireki, eseri, eta **onomastika** ataleko zutabeak begiratzen hasi zen. **Jon Alonso**
Onomastika arloko gaiak landu zituzten; Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera araua onartu zuten. **Berria - Kultura**
Erregeren **Onomastika** eguna zela-ta, azaroaren 4an kaleratzekotan, ale berezia prestatu genuen "El Cuartel Real"ean. askoan Euskaltzaindiaren barneko administrazioan eta **onomastika** batzordean lan handia egin du Lizundiak. **Txillardegia**
Onomastika Jardunaldiak antolatuko ditu Euskaltzaindiak. **Berria - Kultura**
Onomastika -kontuetan inork baino gehiago omen zekien Peru Mintegiaga akademikoa ekarri zuten geriatrikotik hurbil dagoen aretora "Izena nolako, izana ere halako" hitzaldia ematera. **Anjel Lertxundi**

onomastikologia iz

Anjel Lertxundik **onomastikologia** asmatu du. **Berria - Kultura**

onomastiko izond onomastikarena, onomastikari dagokiona. ik onomastika 2.

Euskal Herriko tradizio **onomastikoak** aztertu zituen: katolikoa, erromantikoa, sabindarra, iraultzailea... **Anjel Lertxundi**
Euskaltzaindiak euskararen corpus **onomastikoa** eratzeko proiektua abiatuko du aurten. **Berria - Kultura**
Inon eta inoiz ikusi al da, Antero Apaolazak bere nobelako pertsonaiari Patxiku Txerren deitu zionetik, manipulazio **onomastiko** begi-bistakoagorik? **Anjel Lertxundi**

onomatopeia iz izendatzen duen gauzari dagokion hotsa irudikatuz edo, haren izena sortzea; horrela sorturiko izena.

Laburbilduz, **onomatopeiak** eta harridura hitzak bigarren mailakoak dira, eta zalantzan jar daiteke, neurri batean behintzat, haien jatorri sinbolikoa. **Isabel Arrigain**
Euskarazko **onomatopeien** bilakaera ongi aztertzea. **Patziku Perurena**
Orain dela gutxi, euskarazko **onomatopeiak** azaltzeko komikiak argitaratu direla ere iragarri zuen. **Berria - Euskal Herria**
Onomatopeien erabilera eta jolaserako joera nabarmendu ditu epaimahaiak zure liburuan. **Berria - Harian**
Hitz bikoitz asko **onomatopeien** sailean aurkituko ditugu. **Iñaki Arranz**
Ezinezkoa da ia **onomatopeiak** inprobisatzea, aurrez formulatu eta formulen artean egokitze saioak egin ez badira. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

onomatopeiaka adlag onomatopeiak erabiliz.

Tratulantak pasatzen ziren: lehen aldian, saltzaileei **onomatopeiaka** hitz eginez, bildots metatuei ez zieten behakorik ere botatzen, hauek otoi erosika hasi arte bederen. **Itxaro Borda**

onomatopeiko *izond* onomatopeiarena, onomatopeiari dagokiona.

Zein bakan hitzegiten duten, ordea, filologoek hitz **onomatopeikoez** ! **Patziku Perurena**

Euskal sen **onomatopeiko** pittin bat. **Patziku Perurena**

Poema plastikoak, egilearen hitzetan, kolorea dutenak, umorea dutenak, **onomatopeikoak** ere, jostailuzkoak eta erritmoz beterikoak. **Beria - Kultura**

oñoña *iz ipar* gozokia.

Milaka esku zirela luzatzen, **oñoñak**, liburuttoak, burukoak, zakutxoak eta iragarkiz beteriko bertze purtxileria frango eskuratu nahian, kalapitan artzeraino batzutan! **Herria**

Oñoñak eta makila erabili zituen bata bestearen ondotik. **Herria**

Eguberrikari, San Josepe eskolako burasoen **oñoña** xokolatetzkoak salduko dituzte ostirale aratsaldean eskoletxean **Herria**

onpuska ik on¹ 25.

onsko *izond* adkor ontxoa.

Albokari **onskoa** ezezik, Arratia aldeko azken albokagilea baigenuen. **Patziku Perurena**

Oliteko erregeren palazioan, Juanaren bataioan, 1358ko buruilaren 2an, janari **onskoen** artean aza atera zutelakoa. **Patziku Perurena**

Jendeak kalitate **onskoa** bilatuko balu bere plazerretan, [...]. **Patziku Perurena**

ontarte *iz* mesedea.

Valmont jaunak **ontarte** hori, erranen ere nuke kasik bidezkotasan hori, igurikatzeo eskubidea badukeela iruditzen zait. **Jon Muñoz**

Eginen dit menturaz Dancenry gutun bat eramateko **ontarte** handia. **Jon Muñoz**

Egidazu, arren, gutunok hartzeko **ontarte**. **Jon Muñoz**

Lehen puntua da hartutako **ontarteengatik** Jainko gure Jaunari eskerrak ematea. **Patxi Altuna**

Zeure ontasun guztiak ez dizkizut hartatik gutxiago eskertzen eta, aurrerantz ere, arren otoi, zeure **ontarterik** ez niri uka. **Jon Muñoz**

Deus ez zait zaila irudituko zuk **ontarte** handiz eman bide dizkidazun artak neuretzeko. **Jon Muñoz**

Ez dut ordea neholaz ere gutxitu nahi **ontarte** horregatik agertuko nizukeen esker ona. **Jon Muñoz**

Makurtu naiz haren maitalearen **ontarteak** gazte horrekin banatzera: nik bezainbat eskubide bazuen haatik; eta niri bost axola! **Jon Muñoz**

Zeren lehendabizi ipini behar baitugu helburutzat Jainkoa zerbitzatu nahi izatea, zein baita helburua, eta bigarrenik **ontarteak** biltzea edo ezkontzea, gehiago komeni bazait, hori baita helbururako bidea. **Patxi Altuna**

ontasun 1 *iz* ona denaren nolakotasuna.

Kolonoetako batek iturriko uraren **ontasunaz** baliatuz eta hari probetxu ateratzeko asmoa hartuz, dendatxo bat jarri zuen. **Santiago Iruretagoiena**

XX. mendeak erakutsi digu jakitearen erabilgarritasuna, zientziaren berezko, eta ez diru edo ekonomia kontuetan oinarritutako, **ontasuna**. **Pello Salaburu**

Bizitzaren gogorkeriak ongia ernarazten du bihotz handietan; horiek **ontasun** hori munduan zehar eramango dute eta mundua aldatu nahi izango dute, daramaten ongiaren araberakoa izan dadin. **Felipe Juaristi**

Ontasuna indartsua da, indarrak ez duenean! **Felipe Juaristi**

Ontasuna eta gaiztotasuna beste propietate moraletara murriz daitezke, hala nola zorionera. **Askoren artean**

Karitatearen **ontasunaren** edo okerkeriaren oinarritzko eztabaida. **Iñaki Heras**

2 (*Jainkoarena*)

Kontenplazio-argi batean murgiltzen nintzen eta bertan, Jainkoaren **ontasun**, jakinduria eta ahalmen neurrigabearen leizea ikusten nuen. **Askoren artean**

Onak, **ontasunetik** eta **ontasunean** hartzen du berari dagokiona; **ontasunean** dago, bizi eta kokatzen da, eta **ontasunean** ezagutzen du bere burua. **Joan Mari Lekuona**

Ontasuna ugaritu egiten da eta bera den guztia sorrarazi egiten du ona den hartan. **Joan Mari Lekuona**

Egiaren berri duen orok badaki zeruko Aitak Semeari eta Izpiritu Santuari bakarrik eman diela **ontasun** guztia. **Joan Mari Lekuona**

Gizaki ona eta **ontasuna** ez dira **ontasun** bakar bat besterik, hura sortua dela ezik, eta hau, bestalde, sortzailea. **Joan Mari Lekuona**

Jaungoikoaren **ontasunak** ez du deus hondatzen uzten ez izateraino. **Imanol Unzurrunzaga**

Landu gabeko mahastia ere Jaunaren usain gozua hedatzen zuten kimuak ematen hasi zen eta, gozotasunezko loreak sortuz, ohore eta **ontasunezko** fruituak eman zituen. **Askoren artean**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ontasun unibertsal baten ametsak beharrezkoak dira, ur handiak uhin bakarrean joan daitezten. **Felipe Juaristi**

Ordezkatzen dituzte xarma liluratzaileak **ontasun** maitagarriaz. **Jon Muñoz**

Halako **ontasun** sakona, halako harmonia, zerion nortasun hari. **Joxan Elozegi**

Gaiztakeriaren tentazioetik ihes egin nahian, irudizko **ontasun** hutsaren besoetara oldartu zen, eta babesleku bat eraiki zuen bere buruarentzat, non justizia eta egia erabatekoak baitziren. **Karlos Zabala**

Enderrengan batere eraginik izan ez zuen halako **ontasun** itxuratiz eta gailentasunez hitz egin zuen. **Ander Irizar**

Lege zibilek, aitzitik, gizaki guztien **ontasun** morala dute xedetzat, ez norbanakoena. **Iñaki Iñurrieta**

Barruko ekintzak **ontasun** jainkozkoan ditu erroak eta bere atsedena; sorkaria itsu da bere baitan harturiko ontasunarentzat eta argiarentzat. **Joan Mari Lekuona**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ona denak ona ateratzen du bere barneko **ontasun**-altxorretik. **Elizen arteko biblia**

Bizio ageriko guztiak arinak dira; kaltegarriak berriz hagitz, **ontasun** itxura baten pean gordetzen direnak. **Patziku Perurena**

Ez gabela beste edozein baino gutxiago **ontasun**, karitate eta anaitasun kontuetan. **Jon Alonso**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Trenak ikusi nituen Siberiara zihoazela, ehunka eta milaka lagun zeramatatzela: Moskukoak, Leningradokoak, Errusiako hiri guztietakoak, giza **ontasun** handi eta argitsuaren etsaitzat hartutako gizon-emakumeak. **Felipe Juaristi**

Gure esku dago, herritar arrazional eta tematen gisa, legeen eta instituzioen hobetzea eta, ondorioz, gure bizi **ontasuna** ere bai. Esteban Antxustegi
Tenplura eta santutegira ontzi bat ur eramaten dute gurtzarik garbienarekin, eta lurreen belaunikatuz eta besoak zerurantz altxatuz, eskerrak ematen dizkiote jainko: **ontasunari** ura asmatu zuelako. Santiago Iruretagoiena

6 gauza ona edo onuragarria.

Izan itzazu nigana ama baten **ontasunak**; arrenka dizkizut galdatzen. Jon Muñoz
Substantzia oro edo Jaungoikoa da, edo Jaungoikoagandik da, **ontasun** oro Jaungoikoa ez bada Jaungoikoagandik delako. Imanol Unzurrunzaga
Atxikimendua diezun sortutako **ontasun** guztietatik askatzeko. Joan Mari Lekuona
Osaba Kamilek aurrena bere adiskidearen **ontasunak** goraiatu zituen, hurrera Um Hamidarenak. Patxi Zubizarreta
Egiaz mintzo omen zara, fida omen zatzaizkit, zeure adiskidantza didazu azkenik eskaintzen: zenbat **ontasun**, andrea, eta ondikotz ezin haiez baliatu! Jon Muñoz
Zeure **ontasun** guztiak ez dizkizut hartatik gutxiago eskertzen eta, aurrerantzean ere, arren otoi, zeure ontarterik ez niri uka. Jon Muñoz
-Jainkoak **ontasunez** eta ondasunez sari zaitzala! Patxi Zubizarreta

7 ipar ondasuna.

Bazituen bestalde anitz etxe eta **ontasun**, ez bakarrik Luzaiden. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Beretzat atxikiz eliza horren mozkin guztiak eta Orreagak Portugalen zeuzkan **ontasun** guztienak eta urtero honenbesteko bat ordainduz delako komentuari. Piarres Xarriton
Bere alaba, Jaurenea-ko **ontasun** baliosena, ahalke zipitzik gabe gizon batekin etzan zen, eta are laidogariago, sotanadun batekin. Elena Touyarou
Ez ote zen aski elizaren **ontasunak** erresumako **ontasun** ekartzea? Elena Touyarou
Lurra ez dela gure aitamek edo gure aitzinekoak utzia daukuten **ontasun** bat guk gozatzeko, bainan dela guk gure haurrei berdin sano utzi behar ginukeena. Menane Oxandaratz
-Amankomunean daukagun **ontasun** handiena bakartasuna dela jakitea onuragarria da... Itxaro Borda

ontiko izond izakiari dagokiona.

Gauza bat da egia **ontikoa** eta beste bat egia ontotopikoa. Karlos Linazasoro

ontogenesi *(corpusean ontogenesisa soilik) iz ontogenia.*

Hizkuntz bilakaera ulertzeko era bat, non bere filogenesia agertzen den **ontogenesisa** bakoitzean. Berria - Kultura

ontogenetiko izond ontogeniarena, ontogeniari dagokiona.

Esanahi historia gabeak edo **ontogenetikoak**, aldiz, indarrean dauden kausa edo mekanismoei begiratuko die. Askoren artean
Batak, argirantz hazten den landarea ikusita, bizidunaren bizitzan bertan ageri den kausa bati lotuko dio efektua, kausa **ontogenetiko** hurbilari. Askoren artean

ontogenia iz banako baten eboluzio prozesua espezie baten barruan. ikfilogenia.

Psikoanalisi freudiarraren ikuspegi filogeniakoa (antropogenesia) zein **ontogeniakoa** (norbanakoaren garapena) sexualitatean oinarritzen dela, gizaki ororen gogoa eragiten duen eragile dinamizatzaile nagusia sexualitatea dela proposatzen baitu. Berria - Harian
Fritz Müller-en printzipioa egokitzuz, animalia baten enbriologiak haren genealogia errepikatzen duela alegia, edo Haeckel-ek dioen bezala, **ontogenia** filogeniaren laburbilduma bat dela, esan daiteke gizakiaren psikologia animaliarenekin psikologiaren sintesi bat baizik ez dela. Josu Zabaleta

ontologia 1 iz metafisikaren zatia, izakia orokorrean aztertzen duena.

Aristotelesen **ontologian** substantziak daude oinarri-oinarrian. Askoren artean
Nominalistak bi osagaiko **ontologia** -banakoak eta unibertsalak- proposatu beharrean, osagai bakarreko **ontologia** proposatu nahi du, hau da, aztertzen ari garen kasuan, unibertsalik gabeko **ontologia**. Askoren artean
Nominalistak **ontologian** banakoak eta banakoen multzoak hartuko ditu aintzat, eta horien bitartez saiatuko da azaltzen errealistak banakoekin eta unibertsalekin azaltzen duena. Askoren artean
Iraultza honen emaitza negatiboa ordu arteko *metaphysica generalis* edo **Ontologia**, h[au] d[a], izatearen irakaspena, adimen hutsaren analitika apalago batez ordezkatzeko ekintza da. Ibon Uribarri
Mendebaldean **ontologia** eta teologia metafisika bakarrenen bi aldeak izan dira. Askoren artean
Bai egiaren analitika (dakigun egiaren azterketa zientifiko-teorikoa) bai orainaren **ontologia** (garenon izakiaren azterketa historiko-praktikoa). Berria - Kultura
Horrela, filosofia anglosaxoiaren egiaren analisiak eta filosofia kontinentalaren orainaren **ontologiak** bat egin dute. Askoren artean
Autismoaren gaiak **ontologiaren** galderarik sakonena ukitzen ditu, desbiderapen errotikakoa inplikatzeko garunaren eta gogamenaren garapenean. Xabier Olarra
Errealitatearen interpretazio molde racional bat destakatu behar zuena, errealitatearen uko bihurtzen da, salto mortale logiko batean arrazioa hermeneutikatik **ontologiara** jauzaraziz. Joxe Azurmendi
Subjektu pentsatzailearen jarduera erdigunean ipiniz, **ontologia** zaharra suntsitu zuen. Berria - Kultura
Funtzionalismoa **ontologia** materialistaren garapen bat da. Askoren artean
Koloreen **ontologiari** buruzko tesia egin du. Askoren artean
Argazki-irudiaren **ontologia**. Josu Zabaleta
Ontologiako eskola-liburuak. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Ontologia aristoteliko batean, beraz, hiru izaki-mota bereizi ditugu: banakoak, motak eta propietateak. Askoren artean
Gizakiaren **ontologia** konplexua da eta bere baitan daramatza ezaugarri antagonikoak, era bipolarrean. Askoren artean
Dena den, bion arteko antzak, bi-bion **ontologia** desberdinen gainean daude eraikita, esaten ari garen Barojarenak alegia eta ulertu nahi dugun Miranderenak. Joxe Azurmendi
Ziberespazioan eta ziberdenboran **ontologia** desberdina dugu, ez da mundu fisikoarena. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badago osagai bakarreko beste **ontologia**-mota bat, hain zuzen ere, banakorik gabeko **ontologia** aldarrikatzen duena. Askoren artean
Egunotan museoan egiten ari den **Ontologia** kongresuaren barruan. Berria - Kultura
Nazioarteko **Ontologia** Biltzarra. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orainaren ontologia (3)

ontologiko *izond* ontologiarena, ontologiari dagokiona.

Orain arte ikusi ditugun arazo metodologikoak, epistemologikoak edota **ontologikoak** tipikoak izan dira zientziaren ikasketa estandarrean. **Askoren artean**

Jainkoaren izatearen froga **ontologiko** baten ezintasunaz. **Ibon Uribarri**

Davidsonen ustean, gertaldiek berezko kategoria **ontologikoa** osatzen dute. **Askoren artean**

Orain arte zenbait kategoria **ontologiko** aztertu eta aipatu ditugu: banakoak, motak, propietateak, erlazioak, banako abstraktuak eta gertaldiak, besteak beste. **Askoren artean**

Heideggerrek proposatutako Izatearen eta Denaren arteko bereizketa **ontologikoa** hartzen du (*Sein* eta *Seiende*). **Berria - Kultura**

Maimon [...] Jainkoaren beste ikuskera batekin aurkezten zaigu, Jainkoaren ikuskera kosmologikoarekin ez, baina **ontologikoarekin**. **Xabier Kintana**

Determinazio **ontologikoa** erabaki etikoaren korrelatua da eta bien artean errealitate beraren aurpegi bikoitza eratzen dute. **Piarres Xarriton**

Bai idealismo **ontologikoa** bai hiperrealismoa hasieratik baztertuko ditugu. **Askoren artean**

Dualismo **ontologikoa** arabera, beraz, bi substantzia-mota daude munduan, fisikoa eta pentsakorra, bakoitza bere ezaugarri propio eta bereizgarriekin. **Askoren artean**

Denok gara berdinak [...] eta desberdinak: berdinak gure duintasun **ontologikoari** dagokionez *-homines, cives-* eta desberdinak gure baliabideei, joerei eta irrikeri dagokienez. **Esteban Antxustegi**

Jarrera errealistaren alde agertzen dira, konpromiso **ontologikorik** onartu gabe. **Askoren artean**

Zerizan gorena den jatorrizko zerizan bakar baten froga egiterakoan froga fisiko-teologikoaren oinarrian kosmologikoa datza, honen oinarrian, ordea, **ontologikoa**. **Ibon Uribarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

froga ontologikoa (6)

ontologikoki *adlag* era ontologikoan; ontologiaren ikuspegitik.

Badirudi, ordea, **ontologikoki**, hau da, errealitatearen mailan, bi adierazpen predikatibo horiek gauza desberdinak adierazten dituztela. **Askoren artean**

Baina, neurriak neurri, berez, **ontologikoki**, izatez, gauza bera dira mozkorrak, haurrak, [...] urduri dagoenak edo gutako bakoitzak hizkuntzaren hitzak hots bihurtzean egiten ditugunak. **Lourdes Oñederra**

Argazkia berez, **ontologikoki** objektiboa da, eta pintura baino sinesgarriagoa, beraz. **Josu Zabaleta**

Nominalista **ontologikoki** aurreztailea da: karga ontologiko gutxiagorekin ahalmen bera izan nahi du. **Askoren artean**

ontologista *izond* Jainkoa esperientziaren bidez ezagut daitekeela dioen doktrinaren aldekoa.

Hori dela eta, ezin da esan Agustín **ontologista** denik. **Imanol Unzurrunzaga**

ontologizatu, ontologiza, ontologizatzen du *ad* ontologiko bihurtu.

Hegelek arrazoimena "**ontologizatu**" egiten du: gizakia [...] espiritu gisa bera ere den mugagabearen ahalmen bihurtzen du, eta ezagutzako objektu propioena mugagabe horixe du hain zuzen (bere burua). **Askoren artean**

ontoteologia *iz*

Teologia transzendentala edo jatorrizko zerizanaren izatea oro har esperientzia batetik eratorzea pentsatzen duena da [...] eta Kosmoteologia izena du, edo bere izatea adigai soilen bitartez esperientziaren laguntzarik gabe ezagutzen duela sinesten du, eta **Ontoteologia** deitzen zaio. **Ibon Uribarri**

Ez guke esango Erdi Aroko pentsamenduak ez duela inolako erantzukizunik **ontoteologia** horren garapenean, nahiz eta horren gailurrera iristeko era garbienean Aro Modernoaren filosofiari itxaron behar, preseski Hegel-en sistemari. **Askoren artean**

Egitura horri Heideggerrek **ontoteologia** deitu dio. **Askoren artean**

ontoteologiko *izond* ontoteologiarena, ontoteologiari dagokiona.

Ikuspegi horretatik begiratuta, egungo zenbait garaikidek metafisika **ontoteologikoa** eta bortizkeriaren artean aurkitu uste izan duten lotura aintzat hartzekoa da. **Askoren artean**

ontotopiko *izond*

Gauza bat da egia ontikoa eta beste bat egia **ontotopikoa**. **Karlos Linazasoro**

ontsa (*745* agerraldi, *32* liburu eta *352* artikulutan –gehien-gehienak Herria-koak-; orobat *untsa 572* agerraldi, *9* liburu eta *414* artikulutan –denak bat izan ezik Herria-koak-, eta *untxa* g.er.) **1** *adlag* ipar ongi. ik **ondo**¹; **ongi**.

Ontsa gorderik bazen kafea, eta hobeki gorderik, pinta laurden bat aguardienta. **Marzel Etxehandi**

Arte honetan, **ontsa** goberna hadi hor gairi. **Janbattitt Dirassar**

Abel, eskolan, **ontsa** ari zen. **Daniel Landart**

Ene latinezko lan bat agertu zen, 1925ean **ontsa** oroit baldin banaiz, aita Lazaristek Italiako Piacenza hirian duten "Divus Thomas" aldizkarian. **Piarres Xarriton**

Badaki arras **ontsa** zergatik baztertua den. **Piarres Aintziart**

Iparraldeko egoera biziki **ontsa** ezagutzen du, eta horrekin ez zaio aski bere buruari. **Filipe Bidart**

Zinez **ontsa** iragan da aurtengoa ere. **Herria**

Beharbada **ontsa** eta beharbada ez hain **ontsa**. **Janbattitt Dirassar**

Bakoitza egin-ahala **ontsa** kokatu zen. **Marzel Etxehandi**

Hark errepostu baietz, **ontsa** zela. **Marzel Etxehandi**

- **Ontsa** da, ontsa; leher egina baina ontsa. **Elena Touyarou**

-Anbroxio **ontsa** dun, Kattalin. **Eneko Bidegain**

-**Ontsa** da, zure ospitale egunak eta pausukoak kontrolatuak izan dira bulegoetan. Marzel Etxehandi

-**Ontsa** da, hemen berean beraz, arratsaldeko seietan. Janbatiitt Dirassar

Biziki **ontsa da** hilen ohoratzea bainan ez ote da hobeki hiltzetik begiratzea ahal ditugunak oro? Herria

Ontsa da indar berezi baten egitea zerbait handi eta ikusgarri gertatzen delarik bainan ez litake ahantzi behar egun guzietako egoera gogorra. Herria

-Etxean denak **ontsa** -Eusebiok solasgaia aldatu zuen. Eneko Bidegain

Handikiekin ez nauk **ontsa**. Itxaro Borda

Izan **ontsa**, Doktor ona eta, maita nazazu, egiten duzun bezala! Piarres Xarriton

Izan **ontsa**. Herria

2 (izenondo, adizlagun edo kideko batekin) oso.

-**Ontsa** mehatukaria zara, errazu! Janbatiitt Dirassar

Lastairaren gainean jarririk, pentsatzen nuen **ontsa** dolugarri zela hola hartua izaita. Marzel Etxehandi

Ontsa kexu zen, ori, presoan zango meharretaz. Eneko Bidegain

Doi bat zalantzan egonik -baina, hain segur, **ontsa** kontent gauzak hain aise zihoazelako- hiru alemanek baietz. Marzel Etxehandi

Amaren auhen elkorrak **ontsa** gogoan zeuzkan amatxik. Itxaro Borda

3 (aditzekin) asko, ederki.

-**Ontsa** tinkatu ninduten: 140.000 libera kendu zautaten. Marzel Etxehandi

Joanesi ipurdi mazelak **ontsa** minberatu zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra segundu oro kaska eta kaska. Eneko Bidegain

Barnea **ontsa** beroturik aspaldiko partez, mahai aitinean jarririk gelditzen naiz pixka bat, erdi ametsetan... Filipe Bidart

Haiei gertatzen zitzaienaz **ontsa** futitzen zen, erran zion bere buruari. Elena Touyarou

Ontsa irri egin genuen, eta esku zartak ere ukan zituen gure Caron apezak, hainbeste non mitralletadun S.S. kankaila bat jiten baitzaigu orroaz "Ruhe Silenz". Marzel Etxehandi

4 ez ontsasup_1 adlag

Badira mendi herri batzu arras galduak eta beraz oraino **ez ontsa** miatuak. Herria

Baginakien **ez ontsa** zabilala, eta eritegitean tratamenduak egiten ziozkatela, bainan ez du ihardoki ahal izan. Herria

72 urte zituen eta bazuen zenbait denbora **ez ontsa** zagola. Herria

Triste zegoen, etxeko norbait **ez ontsa** izanez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

5 ez-ontsasup_2 iz ondoeza.

Zenbait urte hautan, osagarria ahuldua zuen, eta ondar **ez-ontsa** batek ereman du, 87 urte zituelarik. Herria

Alta azken ez-**ontsa** eta ezin bertze labor batzuen ondotik, azken orenak jo dio Lehuntzako erretor ohiari. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahal bezain **ontsa** (9); anbroxio **ontsa da** (3); arras **ontsa** (25); arras **ontsa iragan** (4); aski **ontsa** (10); aski **ontsa ezagutzen** (3); besta **ontsa iragan** (3); beti **ontsa** (7); biziki **ontsa** (52); biziki **ontsa ari** (4); biziki **ontsa ezagutzen** (3); biziki **ontsa iragan** (4); biziki **ontsa pasatu** (4); dena **ontsa** (3); denak **ontsa** (14); denak **ontsa iragan** (4); denek **ontsa** (3)

ez ontsa (17); **ez ontsa izanez** (3); **ez zela ontsa** (5); frango **ontsa** (3); guziak **ontsa** (3); izan **ontsa** (7); nik bezain **ontsa** (4)

ontsa ari (10); **ontsa ari izan** (3); **ontsa baino hobeki** (3); **ontsa bizi** (3); **ontsa bururatu** (4); **ontsa bururatzeko** (3); **ontsa da** (16); **ontsa dakit** (6); **ontsa dakizu** (4); **ontsa edo gaizki** (3)

ontsa egin (6); **ontsa egina** (4); **ontsa emaiten** (4); **ontsa emana** (3); **ontsa ezagutu** (4); **ontsa ezagutua** (13); **ontsa ezagutua zen** (4); **ontsa ezagutzen** (28); **ontsa ezagutzen duela** (3); **ontsa ezagutzen dut** (3); **ontsa futitzen** (3); **ontsa gogoan** (3); **ontsa gostarik** (7); **ontsa hasi** (3); **ontsa hasia** (3); **ontsa heldu** (3)

ontsa ibilli (3); **ontsa ikasi** (6); **ontsa ikasia** (5); **ontsa ikusi** (6); **ontsa ikusia** (3); **ontsa iragan** (25); **ontsa iragan da** (16); **ontsa iragan dira** (7); **ontsa izan** (3); **ontsa izanez** (4); **ontsa joan** (18); **ontsa joan da** (7); **ontsa joan dira** (5); **ontsa kexu** (3); **ontsa konprenitu** (6); **ontsa kontent** (3)

ontsa oroiti (5); **ontsa oroiti banaiz** (3); **ontsa oroitzen** (4); **ontsa pasatu** (9); **ontsa pasatu da** (3); **ontsa pasatu dira** (3); **ontsa pasatzen** (3); **ontsa prestatua** (3); **ontsa prestaturik** (3)

ontsa zainduak (3); **ontsa zela** (7)

orain **ontsa** (3); segur **ontsa** (4); sobera **ontsa** (7); zela **ontsa** (6); zerbait **ontsa** (3); zerbait **ontsa joan** (3); zinez **ontsa** (4)

ontsalaz (orobat untsalaz eta untsaraz g.er.) adlag ipar gauzak ongi gertatu edo egitekotan.

Eskola horrek **ontsalaz** Juan Huarte-ren izena hartu beharra zuen, baina geroztik eraiki "Lycée de Navarre" delakoak bereganatu zuelakotz, ez zuen gehiago izen berezi baten beharrik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste gauza bat dena, **ontsalaz** barda erran beharra, orain erranen diat: behar dena egiten dudala ez haur beharretan jartzeko. Janbatiitt Dirassar

Linzoain errepidetik bazter dago, baina **ontsalaz** zeharkatu behar nuen. Piarres Aintziart

Eguerditan ja bi solas eginik, arratsean bagenuen **ontsalaz** aise denbora gehiago gure gomendio. Janbatiitt Dirassar

Ea orai zer dugun egitarauan? ibiltokia aipatu ditek, beraz **ontsalaz**, laster, ibiltokia. Filipe Bidart

Ontsalaz, gu zortziak baizik ez ginelan joanen aipatua genuen. Daniel Landart

Ontsalaz, mugaren bertaldez Amairuko bi lagun egoiten ziren iheslarien beha. Eneko Bidegain

ontsaño adlag ipar adkor ontsa. ik ontsaxko; ondotox²; ongixko.

Zaldiz ere doazenak badira, bizkar hezurra **ontsaño** inarrosiz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

ontsarazi, ontsaraz, ontsarazten du ad ontzera behartu.

Hego Afrikan Nelson Mandela, herri hortako beltzen eta zurien berdintasunaren **ontsarazteko** hainbeste egin zuena, xahartua eta ahuldua da 85 urtetan, oraino itzal handia izana gatik ere gizon bezala. Herria

ontsasko ik ontsaxko.

ontsatto adlag ipar adkor ontsa. ik ontsaxko; ondotox²; ongixko.

Mendixkaz egina den Xibero xoko hontan, turistek arraro dütüen bortütik eta ibarretik bazter, aleman güti düt ikusi, eta maki **ontsatto**. Herria

Hori güzia, eta **ontsattoz** haboro ere badakigü denek, eta hanitx aisa konta dirogü arrahaurer. Herria

ontsaxko (orobat *untsasko*, *untsasko*, *untxasko* g.er. eta *ontxasko* g.er.) adlag ipar adkor ontsa. ik ontsanto; ontsaño; ondotxo²; ongixko.

Elkar **ontsaxko** maite itxuren arabera. [Janbattitt Dirassar](#)

- **Ontsaxko** goxatu garena gu biak zoko horretan! [Janbattitt Dirassar](#)

Ontsasko leher eginik heldu ziren kasernara eta soldaduek ganbarak erakutsi zizkieten. [Eneko Bidegain](#)

Ontsasko zaindu zuen bere burua. [Marzel Etxehandi](#)

Gehienek euskara **ontsasko** mintzatzen eta irakurtzen dutela. [Herria](#)

Aldiz **ontsaxko** ulertzen zuen goizero jaikitzean bere burumuinean errepikatzen zuen esaldia: Askatasunari uko egitea gizon izateari berari uko egitea da. [Elena Touyrou](#)

ontsixka ik ontzixka.

ontsu *izond* ona, onuragarria.

Huhinek, orain beltzago eta itsuago, barrako eta moilako harri berdotzak eta baporeen saihets **ontsuak** jotzen zituzten. [Joseba Sarrionandia](#)

ontto ik onddo.

ontu ik ondu.

ontxasko ik ontsaxko.

ontz ik hontz.

ontza (orobat *untza* g.er.) 1 *iz* pisu neurri zaharra, erromatar libraren hamabirena eta libra arruntaren hamaseirena balio zuena.

Kultura bakoitzak munduaren neurkera zuen Frantziako Iraultza arte: arrobak eta kana erdiak, oinak eta zeleminak, pintak eta kuartiloak, librak eta **ontzak**, goldeak eta arak... [Anjel Lertxundi](#)

Hogeita bost dolar **ontza** ! [Xabier Paya](#)

"Tabako xehetua", esan zuen orduan hark, "bost penike **ontzako**", bere pobrezia eta printzipioak nabarmen aditzera emanez. [Anton Garikano](#)

Dendara joan eta bezero bakarria zegoen, gurin **ontza** batzuk erosten ari zen neska bat. [Koro Navarro](#)

Arraina zegoenetan, olio ere ematen ziguten, **ontza** eta erdi bakoitzari. [Edorta Jimenez](#)

Beste marka bat hautsi zuen urreak ere: 450 dolar **ontzako**. [Berria - Ekonomia](#)

ik beheerago 9. [Askoren artean](#)

2 (txanponetan)

As-ak kobrezko bi **ontza** pisatzen zuen; eta denarioak hamar as balio zuenez, kobrezko hoge **ontza** balio zuen. [Iñaki Iñurrieta](#)

Lehen gerra punikoan as delakoak, kobrezko hamabi **ontzakoa** izan behar zuelarik, bi besterik ez zuen pisatzen; eta bigarrenean, bat bakarria. [Iñaki Iñurrieta](#)

Errepublikak kobrezko **ontza** bakarreko asak egin zituen; erdia irabazi zien hartzekodunei; denario bat ordaindu zuen kobrezko hamar **ontza** haiekin. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hamasei **ontza** kobrezko jasotzen zituzten, hogeiren orde. [Iñaki Iñurrieta](#)

Denario horrek zilarrezko **ontzaren** zortziren bat balio zuelarik, esan berri dugun proportzioa ezartzen zuen horrek. [Iñaki Iñurrieta](#)

3 (izen soil baten ezkerrean) ik beheerago 9.

Hemendik aurrera sei **ontza** zerriki jan behar dituzu egun biz bat. [Xabier Olarra](#)

Igandeetan, berriz, urdaia banatzen ziguten, eta arrosa, neurrian, gero astelehenetan eta asteazkenetan hiruna **ontza** hezur ematen zizkiguten, baba nahiz garbantzuekin batera, lapikokoa egin genezan. [Edorta Jimenez](#)

-Hara: har ezazu hiru **ontza** haize ale, hiru **ontza** ilargi lore, hiru **ontza** linterna argi. [Patxi Zubizarreta](#)

-Dirurik ez duenak bere gorputzaz ordaintzen du askatasuna: **ontza** bete haragi eman behar, eta berdin kentzen diote bati ontza hori besotik ala bihotzetik. [Josu Zabaleta](#)

4 luzera neurri zaharra, oinaren hamabirena balio duena. ik hatz.

Ontzaz **ontza**, mantso-mantso, urteak ziruditen tarteen ondoren bakarrik sumatzen zen jaitsaldian, behera zetorren pendulua, eta beheerago! [Koro Navarro](#)

Tiriki tauki taki / Mailuaren hotsa, / Zigortu nauten ziegak / ez ditu bi **ontza**. [Koldo Izagirre](#)

Ama-alabak alboko etxera joan ohi ziren *La dama Rosa* ikustera, han 25 **ontzako** aparatua zutelako, eta Benito zena eta biok bakarrik geratzen ginenez, aukera hartaz baliatzen ginen ordu berean lehendabiziko katean ematen zituzten marrazkiak ikusteko. [Ramon Saizarbitoria](#)

5 irud/hed

Zehazki, Estatu Batuen historian, Gobernu baten aginpidea Ministerio batenaz ordezkatzea, horrela herriaren ongizate eta zorionak **ontza**-erdi aurrera zezan. [Xabier Olarra](#)

6 (enborren lodiera-neurri gisa)

Zortzi enbor ebakiko dituzte: bi 45 **ontzako**, bi kanaerdiko, bi 60 **ontzako** eta bi oinbiko. [Berria - Kirola](#)

Banaka, 45 **ontzako** egurra ebakiko dute, erlojuaren aurka. [Berria - Kirola](#)

Hiru proba: 45 **ontzakoa** kolpeka; 45 **ontzakoa** abiaduran eta lau enbor: bi 45eko eta bi kanaerdiko. [Berria - Kirola](#)

Bi bikoak txanda librean 80 **ontzako** bat ebakitzera. [Xabier Amuriza](#)

Etzandako 45 **ontzako** enborra, erlojuaren aurka. [Berria - Kirola](#)

Alde bakoitzak 3.000 euro jokatuko ditu eta 25 enbor ebaki: etzandako 20 kanaerdiko eta zutikako bost 45 **ontzako**. [Berria - Ekonomia](#)

Laurak batera 45 **ontzako** zutikako enbor bana ebakiko dute. [Berria - Kirola](#)

Azken proban, ordea, bete egin zen bi kanaerdiko eta bi 60 **ontzako** ebakitzen, eta 58 segundoko alde atera zion nafarrak. [Berria - Kirola](#)

7 txokolate tableta bat ildo moduko bidez bereizten den zatietako bakoitza.

Jengibre-opilak, mahaspasak eta txokolatezko **ontzak** eskaintzen ari zitzaizen emakumezkoek. [Anjel Lertxundi](#)

Ogi puska bat eta txokolate **ontza** bat. [Bernardo Atxaga](#)

Txokolate **ontza** pare bat edota bestelako gozoki batzuk. [Paddy Rekalde](#)

-Gogoan zeukaat oraindik, nirea zela esanez, magalean nola jarri zidaan soinua Bilboko dendari hark, baina ez pentsa **ontza** bi txokolateren truke eman zidanik, ez zituari amutsak ordaindu nizkioan laurogei duroak, eta ez gaurkoak gero, 1928koak baizik. [Pako Aristi](#)

8 *ontza urresup_1* (orobat *ontzurre*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian ontza urre agertzen da*) iz metal preziatuen pisu banakoa 13,103 gramo urrerren baliokidea.

Hala, **ontza urrea** Londresen 682 dolarrean (aurretik 681,70 dolarrean) eta Zurichen 682,55 dolarrean (aurretik 679,95 dolarrean) kotizatzen iritsi zen. [Berria - Ekonomia](#)

600 dolarretik gora igo da **ontza urrea** eta urte hasieratik %16 inguru garestitu da. [Berria - Ekonomia](#)

Kobreaz eta zinkaz gain, baina, **ontza urrearen** prezioak ere ezin izan zion hazteko tentazioari eutsi. [Berria - Harian](#)

Trebizondaraino joan zen eta han **ontzurre** pilo bat eman zizkion merkatari veneziar bati, bere nahia betetz. [Felipe Juaristi](#)

Ehun **ontza urre** ere eman zioten sari. [Martin Anso](#)

9 *ontza urresup_2* ik gorago 3.

Gaur egun, mearen berrogeita hamar kintal urre-meak lau, bost eta sei **ontza urre** ematen ditu. [Iñaki Iñurrieta](#)

10 *ontza zilar* metal preziatuen pisu banakoa 13,103 gramo zilarren baliokidea.

Hala, 1980tik lortutako mailarik handiena iritsi zuen, 618,90 dolar; eta **ontza zilarrak**, 1983az geroztik lortutakorik handiena, 13,70 dolar, alegia. [Berria - Harian](#)

11 *ontzako urresup_1* diru zaharra, urrezkoa, ontza bateko pisukoa, Espainian hogeit hamar hamasei ogerleko balio zuena. ik gorago 8; ik *ontzako*.

Aitonak garagardo fuertea edan zuen, eta nik limonada, eta bere poltsatxotik ateratako **ontzako urre** batez ordaindu zion Edwindsford andreari. [Koro Navarro](#)

Denario bat bakarrik balio duen txanpon bat ematen didanari, mila **ontzako urre** emango dizkiot. [Askoren artean](#)

Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta hamar **ontzako urre** banatu zizkien, esanez: "Jarri irabazian, ni itzuli bitartean". [Elizen arteko biblia](#)

12 *ontzako urresup_2* ontza urrea.

Atzo **ontzako urre** batek 448 dolar balio zituen eta astearte gauean inoiz baino garestiago zegoen. [Berria - Ekonomia](#)

13 *ontzako zilar* diru zaharra, zilarrezkoa.

Txanpon bakar bat ematen didanari, ehun **ontzako** zilar emango dizkiot. [Askoren artean](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ontza urre (5); **txokolate ontza** (3)

ontzako bana (5); **ontzako bat ebakitzen** (3); **ontzako egurra** (4); **ontzako egurra ebakiko** (3); **ontzako enbor** (5); **ontzako enbor bat** (5); **ontzako enborra** (6); **ontzako enborra ebakitzen** (3); **ontzako urre** (5); **ontzako zutikako enbor** (3)

ontzaile (orobat *ontzale* g.er.) izond/iz aipatzen dena ontzen duena.

Izu berria begietan zintzilik zeukan zazpi urteko txokolate **ontzaileen** alabak. [Itxaro Borda](#)

Atari batzuetan, larru-**ontzaileen** lantoki bihurturik, larruak lerro-lerro zintzilik ikusten ziren. [Koro Navarro](#)

Larru-**ontzaileen** auzora egindako bisitaren ondoren. [Bernardo Atxaga](#)

Jonathan-eta-Léak ondo baino hobeto ezagutzen duten matematikari batek idatzia: *Brahmagupta*, kolore anitzeko ezezagunen **ontzailea**. [Jon Muñoz](#)

ontzako iz ontzako urrea.

Batzuk, lotsarren edo, **ontzako** bana eman ei eben eskupekotzat. [Anjel Lertxundi](#)

Jauna, zure **ontzakoak** hamar halako eman du. [Elizen arteko biblia](#)

ontzale ik ontzaile.

ontze iz on bihurtzea.

Magdalenaren **ontzea**. [Patxi Altuna](#)

Era horretan, bestelako lehengaiak, bestelako **ontzeak**, bestelako ontziratzak... dira txarkuteria modernoaren bereizgarriak. [Edorta Agirre](#)

Aurretiaz prestatuturiko saltsa, hondo eta **ontzeak** ere jeneralizatuko dira, horietatik baitira eskuarki denbora gehien kentzen edo galarazten dietenak sukaldeko jendeari.

[Edorta Agirre](#)

ontzi (1638 agerraldi, 186 liburu eta 296 artikulutan; orobat *untzi* 287 agerraldi, 17 liburu eta 152 artikulutan –ia guztiak Herriakoak–; *Euskaltzaindiaren Hiztegian ontzi agertzen da*) 1 iz ur gainean higitzen den zernahi ibilgailu, batez ere txikia ez dena. ik *itsasontzi*.

Ur-lasterrak ibaian behera daraman **ontzi** bat ikusten dut. [Ibon Uribarri](#)

Neuk salbatu nian Ulises, Zeusek **ontzia** txiki-txiki egin zionean. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ehun eta hogeita hamar **ontzi** eta zortzi mila marinel ei ginen, eta hogeit mila gerra gizon. [Edorta Jimenez](#)

Hantxe zuen berrir laguna, **ontziko** gainalde guztietan barrena bere bila ibilia. [Joxe Austin Arrieta](#)

ik ontzigain.

Horrengatik igo nahi du Africa **ontziko** kubertara Lisboako Diario de Noticias-eko kazetariak. [Iñigo Aranbarri](#)

Gure **ontziak** ordubete zeraman gutxienez ainguran; eguna argitzen ari zuen jadanik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Tartetxo batez geldi geratu nintzen hantxe, oin bat karelaren gainean eta bestea **ontziko** bizkar sendoan. [Edorta Jimenez](#)

Atalburuetan ziren armarietan denbora alferrik galdu barik egin nuen **ontziko** bizkar nagusira. [Edorta Jimenez](#)

ik beherago 30. [Askoren artean](#)

Demagun **ontzi** baten edukiera zortziehun tona ur dela: **ontzi** horren karga laurehun tonakoa litzateke. [Iñaki Iñurrieta](#)

Haizeak nonahitik jotzen duela ere, arriskurik gabe portura daitezke **ontziak**. [Jon Muñoz](#)

Bostongoak baino belaontzi txikiagoak ziren atrakalekuetan aingura botatako **ontzi** gehienak. [Anjel Lertxundi](#)

Han loturik, baziren pinazaren moldeko **ontzi** bi, gure maniobraren trabagarri. [Edorta Jimenez](#)

Bere pisuarengatik ur gainean ez da egoten, horrengatik garraioa **ontzi** gainean edota izeiaz egindako baltsetan egin behar izaten da. [Santiago Iruretagoiena](#)

Plimrose ontzi ingelesa [...] Portugalete hiriarren aurrean mulaturik dago. [Edorta Jimenez](#)

Torrey Canyon ontziak 80.000 tona petrolio isuri zituen Erresuma Batuko kostaldean. [Berria - Gaiak](#)

ABN Amro 1' **ontziak** irabazi osteko kostako hiruagaren estropada. **Berria - Kirola**

Afal ondoren **ontzi** gainera igo ginen berriro. **Josu Zabaleta**

Cadizko portu barruan sartu, gizonetako batzuk lehorreratu, hiriari su eman, hamaika **ontzi** handiri tiro egin eta hondora joanarazi eta gero ihes egin handik, berak **ontzi** bat bera ere galdu gaberik, onik. **Edorta Jimenez**

Ontziko mutilik ttipiena igo da oroitzenaren masta gainera. **Anjel Lertxundi**

Lehorrean ala **ontzietan** ? **Edorta Jimenez**

Denok gaude **ontzi** berean. **Harkaitz Cano**

Ontzia itsaso harrotuan buruka hasiko da eta alboka. **Joseba Sarrionandia**

Horixe esan nahi du *log-book* hitzak, "**ontziko** liburua", gure bitakora partikularra. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ontziko gizonen ene lehengusu Hernandoren ezaupidea ez izatea zilegi zen, gurean gizonak gutxitan erreparatzen baitio gaztetxoari. **Edorta Jimenez**

ik ontziko.

Esan beharra dut, orobat, Sena ibaia [...] **ontziz** ibiltzeko ibaia dela Roueneraino. **Josu Zabaleta**

Zaleek, lagunak eta maskarek lagundurik Suitzarainoko bidea urratu zuen, handik Suediara joan zen, eta azkenik, **ontziz**, Brasilerara ailegatu. **Edorta Jimenez**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ontzi handien artean albistari zebiltzan **ontzi** txikiek kezkarazteko berriak zekartzaten. **Edorta Jimenez**

Hiru bira eman zituen gure **ontzi** ederrak, hiru bira... eta itsaso hondora joan zen. **Lopez de Arana**

Tximinia txikiko **ontzi** luzengak, ugerrez gorritutako tximinia handiko **ontzi** potoloak. **Lopez de Arana**

Horretan aritu ziren hainbat eta hainbat marinel, **ontzi** ofizialen "bizkartzain" lanetan, esango bagenu bezala. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ingelesen **ontzietan** marinelak eurak dituk artillero eta marinel, biak. **Edorta Jimenez**

Egungo aro globalean migrazio mugimendua, **ontzi** mitikoetan egin orde, patera edo kamioi azpian ezkutatuta egiten baita. **Iñaki Heras**

Garabi handien besoak **ontzi** merkanteen gainean makurturik zirkinka ari dira, zamak deskargatzen edo kargatzen. **Joseba Sarrionandia**

Kargako **ontzi** ingeles bat zegoan hemen. **Edorta Jimenez**

Ontzi motordun txikietan bandera gorriek harro egiten zuten izokin urbanoen bidaia arratsaldeko lehen orduetan. **Lutxo Egia**

Ontzi hondoratuko marinela azken oholari nola, halaxe atxiki gintzaizkion eskaintza zekenari. **Aingeru Epaltza**

Oihalak denak zuloz josita, **ontzi** fantasma bihurtuko zen azkenerako. **Harkaitz Cano**

Har ezak hogeai arrauneko **ontzi** bat, eta abia hadi aitaren berri jakitera. **Juan Kruz Igerabide**

Hiru mastako **ontzi** baten bela nagusiaren pareko pantaila handia. **Jon Muñoz**

Hiru mastakoa izaniko *Ánimas* karraka, harrezkero masta biko **ontzi** herren bihurtua. **Edorta Jimenez**

Gobernua aisialdiko **ontzien** jabe diren zibilei gerra-ahaleginean sartzeko eskatu diela irakurri du idazleak. **Edorta Jimenez**

3 (neurri gisa) ik ontzikada.

Hartu hamar ogi, sutopil batzuk eta **ontzi** bat ezti, eta zoaz harengana. **Elizen arteko biblia**

Bertara joan zen, harzurizko **ontzi** bat ukendu zeramala. **Elizen arteko biblia**

Baita **ontzi** bat arrosa-ur ere. **Joan Mari Irigoien**

- Monjeek beren aldetik **ontzi** bete olio ematen zieten anaiei. **Askoren artean**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aduanak, moillako zerbitzuak, salerosketako enpresak eta **ontzi**-konpainien bulegoak ziren eraikuntzak. **Anjel Lertxundi**

Gero eta apalagoa zen **ontzi**-saihetsen karraska-hotsa. **Anjel Lertxundi**

Ontzi-sotoan arraunean ari ziren galerianoen egoera zorigaitzokoa. **Jon Muñoz**

Egunak eta egunak igaro behar izan zituzten **ontzi**-maskorra olatuetan zintzilik, olatuen jostailu. **Felipe Juaristi**

Itsasoa bare dagoen arren, **ontzi**-sabelean mugimendu handia dabil dagoeneko. **Harkaitz Cano**

Gainezka zegoen **ontzi** zubiaren alde hau, eta txopako bidaztiak ez ziren nahasten itxura eta kolore anitzeko talde horien artean. **Karlos Zabala**

Artikoko izotz-pusken erdian betiko harrapatuta gelditu den **ontzi**-ohol ezdeus baten moduan ikusten dut neure burua. **Anjel Lertxundi**

Baiona irakurtzen zen gida-kabina askoren aitzinean idatziriko **ontzi**-izenen azpian. **Anjel Lertxundi**

Ez bainengoan ni Lisboan ikusi genuena bezalako **ontzi** multzorik sekula lehenago ikusita. **Edorta Jimenez**

Marinel batek **ontzi** maketak egiten ditu vodka eta whisky botilen barruan. **Joseba Sarrionandia**

Ontzi gidariak uste zuten Tour-Tan zelakoak zirela eta zuzenka hondamendira segitzen zituzten. **Itxaro Borda**

Ez baitago batere argi zein espezie zen **ontzi**-gidari egiten zuen animalia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Sortzaileak Noeri eta haren **ontzi**-lagun salbatuei emandako itun-hitza. **Iñaki Mendiguren**

Hark sorturiko olatu ikaragarriek **ontzi** laguntzaileak hondoratu zituzten, Achradineko harresien aurrez aurre. **Jon Muñoz**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsasoko Poliziaren patruila-**ontzi** bat. **Edorta Jimenez**

Hamaika urterekin, posta **ontzi** batean itsasoratu zen Indiara joateko. **Karlos Zabala**

Terranova aldean ibiltzen da bakailao-**ontzi** batean. **Bernardo Atxaga**

Eskerrak ikatz-**ontzi** ingeles batek ikusi eta gau aldera handik jaso gintuen. **Josu Zabaleta**

Salgai-**ontzi** holandar baten hondakinak. **Koro Navarro**

Hiru urtetik behin ur handietako merkataritza-**ontzi** haiek urrez, zilarrez, marfilez, tximinoz eta indioilarrez beterik itzuli ohi ziren. **Elizen arteko biblia**

Sarritan ibiltzen dira han *steam-boat*ak eta aintzirako kabotaje **ontzi** txiki guztiak. **Karlos Zabala**

Dinamitaz zamaturiko garraio-**ontzi** batean. **Edorta Jimenez**

Zama-**ontzi** batean lanean ibiltzen zen marinel peto-petoa. **Paddy Rekalde**

Berehala heldu da polizia-**ontzia**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Bidaia-**ontzi** zahar ospetsu bat zegoen Nevan gelditurik. **Xabier Olarra**

Hura konpondu eta luzaz ibili zen Sukarrieta eta Laida artean pasaia-**ontzi** legea. **Edorta Jimenez**

libaian gora-behera dabiltzan turista-**ontzi** horietako batean. **Edorta Jimenez**

- Volgako *steam-boat* **ontzia** hartu behar baitzuen. **Karlos Zabala**

6 (airean edo espazioan dabiltzanak)

Scaled Composites enpresaren **ontziak** atmosfera zeharkatuko du, baina ez da urrunago joango. **Berria - Gaiak**

Orbitan jartzea lortzeko, askoz abiada handiago hartzen duten **ontziak** behar dira. **Berria - Gaiak**

Ontziak Lurretik 100 kilometro urrundu beharko du barruan hiru lagun daramatzala. **Berria - Gaiak**

Stardust **ontziak** itzulera kapsula askatuko du Lurrerantz. **Berria - Gaiak**

Ontziak Marten lur hartuko du, eta hango lurrazalaren laginak jasoko ditu, gero Lurrera ekartzeko. **Berria - Gaiak**

Voyager **ontziak** 1980ko hamarkadan beste ekaitz bat antzeman zuen Saturnon. **Berria - Gaiak**

NASAk eta ESAk elkarlanean egindako Cassini **ontziak** bat egin duten bi ekaitzen irudiak jaso zituen atzo Saturnon. **Berria - Gaiak**

ESAn Rosetta **ontziak** bete du bere lehen helburua: Churyumov-Gerasimenko kometan lurreratzea da azken xedea. **Berria - Gaiak**

Denborazi berriz **ontziak** 675 milioi kilometro egin ahal izateko. [Berria - Gaiak](#)
Kometaren orbitara iristen denean, berriz, **ontziak** barruan daraman *Phila*e robota askatuko du eta hura izango da kometa aztertzeaz arduratuko dena. [Berria - Gaiak](#)

7 gauzaki bardeduna, isurkariak eta kidekoak edukitzeko edo biltzeko erabiltzen dena.

Ontziak (botilak, latak, flaskoak...) irekitzeko sistemak soildu egingo dira. [Edorta Agirre](#)

Zuek, bildu ardoa, fruituak eta olioak, sartu **ontzi** eta biltegietan. [Elizen arteko biblia](#)

Ontzi bat eskaini dizute kafesnea hartzeko. [Rafa Egiguren](#)

Frantziskok bazkalorduan eskuak garbitzen erabilitako ura **ontzi** batean jaso zuten. [Askoren artean](#)

Bere aita Davidek sagaratuak ziren urrezko eta zilarrezko gauza eta **ontzi** guztiak bertara eramane eta Jaunaren etxeko altxortegian gorde zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Etxeko zapatiletan eta fianbrera moduko **ontzi** bat eskuetan. [Pedro Alberdi](#)

Gernua bai, halaxe egiten nuen, kamainatik jaitsi barik, kaiku taxuko **ontzi** batean. [Edorta Jimenez](#)

Intsentsuz beteriko **ontzi** ketsu bat zeramala agertu zen. [Lopez de Arana](#)

Aurreitik irten zen Menelao, eskuan urrezko **ontzi** bat ardoz beterik zuela, gora jasota, haien ohorez eskainiz. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gazte talde bat hemen, plastikozko **ontzi** handi zenbaiten inguruan. [Aingeru Epaltza](#)

Koktelak nahasteko **ontzi** haiek, kakahueteetarako plater zatikatu haiek. [Joxan Elozegi](#)

8 (izenondo eta izanlagunekin)

Buztina ez ote dago buztinariaren esku, honek lur beretik **ontzi** baliotsuak nahiz **ontzi** arruntak egiteko? [Elizen arteko biblia](#)

Sukaldeko mahai baten gainean **ontzi** borobil bat zegoen. [Gotzon Garate](#)

Lehoiaren azpialdean, berriz, ur-xirriparen biltzaile, harlanduzko **ontzi** barroko bat ageri zen. [Txillardegia](#)

Portzelanazko **ontzi** eder horiek bezalakoa zen. [Jose Morales](#)

Kafe-hautsa, ura eta azukreak *ibrik* izeneko **ontzi** berezian jartzen dira. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Jainkoak esana entzun eta egin ez ezik, **ontzi** liturgikoak eta Jaunaren hitz santuak dakartzaten liburu liturgikoak zaindu behar ditugu. [Askoren artean](#)

Gutzira, urre eta zilarrezko 5.400 **ontzi**. [Elizen arteko biblia](#)

Barruan zertxobait geratzen denean, kristalezko **ontzi** batean gorde ordez, lapikoan usteltzen uzten du. [Josu Zabaleta](#)

9 (pl., sukaldean erabiltzen direnak)

Lapikoak, paderak, mahai gaineko **ontziak**, [...]. [Juan Kruz Igerabide](#)

Garbiketa lanak (mantelak, zapiak, sukaldeko **ontziak** eta tresnak, mahaikoak, lurra ekortzea...). [Edorta Agirre](#)

Haserre dago, gainera, gure **ontziak** ez baina bereak erabiltzen ditugulako. [Josu Zabaleta](#)

Ontziak harraskan bildu eta harrikoa egiteari ekin zion berehala. [Unai Iturriaga](#)

Afaltzeko erabilitako **ontziak** jaso, eta, Kurtek hala eskatuta, harraskan utzi nituen, han pilatutako beste hainbat **ontzi** erabiltzen gainean. [Anjel Lertxundi](#)

Van Daan andreak janariak prestatzen ditu, amak **ontziak** garbitzen. [Josu Zabaleta](#)

Sukaldea jaso eta **ontziak** garbiturik, ama telebistaren aurrean esertzen zen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ontziak berriak zirenez, sukaldetan jolasten ari nintzela iruditzen zitaidan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ez inor eskailera jaisten, ez iturriko urarenik, ez inor erratza pasatzen, ez ezulzik, ez **ontzi** garbiketarik harrikoa, ezer ez. [Pako Aristi](#)

Ferrari bat edo **ontzi**-garbigailu bat bezala? -erdeinuzko muzina egin zuen-. [Jon Muñoz](#)

Geroxeago, jangelara itzuli zenean, tea hartzeko **ontziak** eta ron-botila bat ikusi zituen mahai gainean prest. [Jose Morales](#)

10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zentzugabea irakastea apurtutako **ontzi**-zatiak elkartzea da, lozorroan dagoena esnaraztea. [Elizen arteko biblia](#)

Ontzi piloa zegoen sukaldeko harraskan metatuta. [Javi Cillero](#)

Tiraderan, lata-, poto-, **ontzi**-irekitzekoak, tapoi-kentzekoak, kortxo-ateratzekoak eta antzeko beste zerbait, dena tresna bakarrean, agian. [Edorta Agirre](#)

Sukaldean, **ontzi**-hotsa. [Anjel Lertxundi](#)

Baldintza bakarra, norberak erabilitako **ontzi**-tresnak norberak garbitzea. [Iñaki Iñurrieta](#)

Euskal Herriko **ontzi**-fabrikatzaileek eta elikagai-banatzaileek beren prospektuak munduko hizkuntza gehienetan plazaratuko dituzte, euskaraz izan ezik. [Edorta Agirre](#)

Itsas piano bat zegoen **ontzi**-gelan. [Irene Aldasoro](#)

11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Brontzeko hamar ur-**ontzi** ere egin zituen, orga bakoitzerako bana; bina metroko diametroa zuten, eta mila eta seiehuna litro ur hartzen. [Elizen arteko biblia](#)

Esne **ontziak** lurtean utzi ditu, atsedean bila. [Lander Garro](#)

Jaki-**ontzi** handi bat zekarren eskuetan. [Inazio Mujika Iraola](#)

Foie-gras **ontziak** eta kolore aldakorreko atun eta sardina latak. [Karlos Zabala](#)

Zopa-**ontzi** bero bat mahai erdian ipini zuen. [Lopez de Arana](#)

Bi entsalada-**ontzi** ederretan. [Aitor Arana](#)

Har itzazu nik bildu dudak ogi-zakuto hau eta ardo-**ontzi** hau. [Askoren artean](#)

Nikelezko izotz-**ontzi** batean. [Lopez de Arana](#)

Zetazko paperean bildutako nartziso-**ontzi** batetik gainezka eginez, izar-itxurako lore batzuek dir-dir egiten zuten fosforeszentzia argiz. [Lopez de Arana](#)

Piper-**ontzi** zenbakaitz haiek. [Joxan Elozegi](#)

Zigarro **ontzi** zilar-kolore bat hartu zuen. [Koro Navarro](#)

Urrezko intsentsu-**ontzi** bat zeraman, eta usainki asko eman zitoten. [Elizen arteko biblia](#)

Egin txingar-**ontzi**, pala, xipu-**ontzi**, sardexka eta errauts-**ontziak**. [Elizen arteko biblia](#)

Koktel-**ontzi** bati eragiten ari zen bere esku iletsuen artean. [Lopez de Arana](#)

Nik husten nion beti paketea tabako-**ontzi** beltzera. [Irene Aldasoro](#)

Bost argi **ontziko** armiarma lanpara bat zegoen sabaitik zintzilik, globo zeharrargiz apaindua. [Karlos Zabala](#)

Plastiko **ontzi** batean gasolina zeukan. [Gotzon Garate](#)

Etenkako emari baten gorabeherak leundu beharrean gertatzen den ingeniariak espantsio-**ontzi** bat jartzea pentsatuko luke ziur asko. [Irene Aldasoro](#)

· Euriak jotako aterki bat bezala, bizitzak jotako hezur-**ontzi** bat bezala, [Felipe Juaristi](#)

12 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Alabaina, Graxi txikitatik urguilu-**ontzi** eta harro-putzua zen. [Itxaro Borda](#)

Halako txinparta bat eduki behar zuen hari esaten zenionak, halako zer kilikagarri bat, bizitzan pauso motel-arrarioz joan ohi den beste ergel-**ontzi** horietako bat ez zinela erakusteko. [Oskar Arana](#)

Katedraleko sarrera atzeman zuen eta hango ilunpean, ama-**ontzi** bero eta harkor batean nola, umekia bezain kuxkur belaunikatu zen. [Itxaro Borda](#)

Kikildu egiten nintzen pentsaturik bazitekeela kaka-**ontzi** santu usteko harekin beste aurrez aurreko bat eduki beharra. [Oskar Arana](#)

13 arrain ontzi ik arrainontzi.

14 arrantza ontzi ik arrantza¹.

15 bela-ontzi ik belautntzi.

16 *fruitu-ontzi* ik **fruituontzi**.

17 *fruta-ontzi* ik **frutaontzi**.

17 *gerra ontzi* ik **gerraontzi**.

18 *guda-ontzi* ik **gudaontzi**.

20 *ibai ontzi* ik **ibaiontzi**.

21 *itsas ontzi* ik **itsasontzi**.

22 *kafe ontzi* ik **kafeontzi**.

23 *kanoi ontzi* ik **kanoiontzi**.

24 *karga ontzi* ik **kargaontzi**.

25 *kirol ontzi* ik **kirolontzi**.

26 *komun ontzi* ik **komun**¹ 5.

27 *landare ontzi* ik **landare** 6.

28 *lore ontzi* ik **loreontzi**.

29 *lurren ontzi* ik **lurrenontzi**.

30 **ontzi bizkar** ontziaren gainaldea. ik **ontzigain**; **kubieta**.

Nahiago izan nuen neu bakarrik atsedean egitera goiz joan, txandarik ez zutenekin alfer jokoetan **ontzi bizkarrean** geratu baino. **Edorta Jimenez**

Eskailera batzuk zeuden ontzitik uretara zihoazenak, **ontzi-bizkarrean** erdialdean bertan. **Harkaitz Cano**

Brusola duk -esan zuen, **ontzi bizkarrak** masta bertan sartzeko egina zuen zulo biribila erakusten zigularik-. **Edorta Jimenez**

Bideko portuetan aingura boteaz, atsedean hartzeko, **ontzi-bizkarra** garbitzeko, ustel usaina kentzeko, kroskoa pintatzeko. **Felipe Juaristi**

31 *ontzi gain* ik **ontzigain**.

32 *ontzi-jabe* ik **ontzijabe**.

33 **ontzi komunikatu**

Ontzi komunikatuen teoria azaldu nion. **Joxe Austin Arrieta**

Nire etxea ez zen elastikoa, ezin nintzen **ontzi komunikatuen** jokoan aritu: alde bat hustu bestea betetzeko. **Joxan Elozegi**

33 *ontzi-krosko* ik **krosko** 4.

34 **ontzi-mutil** (*orobat untzimutil*) itsasontzietan mutil gisa aritzen dena.

Laster jakingo nuenez, haren semeetako bi, aitaren grazia bereko Joan Sanz eta haren hurrengoa, Martin Sanz, artean **ontzi-mutilak** ziren; gazteena, berriz, Domingo Sanz, mutil huts zetorren; hots, morroi. **Edorta Jimenez**

Eskifaia salbatzeko sakrifikatzen den **ontzi-mutila** bezala. **Jon Muñoz**

Beste biderik ez zeukan, bada: Andreasengandik orpoz-ipurdi ihes egin, eta berriro Ameriketara eramango zuen ontziren batean ezkatutu, edo, besterik ezin eta, marinel-ele hartako neska hura bezala **ontzi-mutilez** mozorrotu. **Anjel Lertxundi**

Ontzi-mutil hasi zen, Kanadara zihoan Allan Lines-eko ontzi batean, hilean libera bat irabaziz. **Irene Aldasoro**

35 *paper ontzi* ik **paperontzi**.

36 *te ontzi* ik **teontzi**.

37 *tinta ontzi* ik **tintontzi**.

38 **ur ontzisup_1** ura edukitzeko ontzia.

Ezpainetara hurbiltzen zion **ur ontzia** eta hark edaten. **Karlos Zabala**

Nola eramango diet nik lekaideei **ur-ontzia** edo suila erdi hutsik? **Askoren artean**

Hamar **ur-ontzi** eginarazi zituen eta uraskaren ezker-eskuin ezarri, bost alde batean eta bost bestean. **Elizen arteko biblia**

Orgaren gainaldean **ur-ontzi** baten ezpainak ateratzen ziren metro erdi gorantz; **ur-ontzia** biribila zen. teiltatueta **ur-ontzi** burdin xafazkoei. **Elizen arteko biblia**

Erromesak kantari zihoazen, bidai makila eskuan, **ur ontzia** gerritik zintzilik. **Karlos Zabala**

-Zein **ur-ontzitarra** egin behar dun pixa orain, Karmen? **Inazio Mujika Iraola**

39 **ur ontz²** itsasontzia.

Kubo handi baten itxurako zentro kulturala ezkerrean utziz, 'Star ferry' **ur-ontzien** kaiaruntz joan ziren eta itsas bazterrean, lasaiki ibili. **Ramuntxo Etxeberri**

Makao portuko kaian, 'jetfoil' deitu **ur-ontzi** superzonikotik jaitsi zirelarik, Mikel eta Nina harritu ziren: zer hiri itsusia! **Ramuntxo Etxeberri**

Urte horietan, aldiz, beste aktibitate bat garatu zen: miseriarri ihes egiteko, Txinako baserriarrak milaka zetozen Makaora, Amerikarako **ur-ontzien** betetzera. **Ramuntxo Etxeberri**

40 *zabor ontzi* ik **zaborrontzi**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

armadako ontzi (5); arrain ontzi (6); arrantza ontzi (5); beirazko ontzi (7); beteriko ontzi (11); betetako ontzi (9); brontzezko ontzi (7); buztinezko ontzi (8)

ixipu ontzi (5); komun ontzi (7); kristalezko ontzi (11); lurrezko ontzi (6)

ontzi asko (9); ontzi atzeman (7); ontzi barruan (22); ontzi barrura (5); ontzi bat hartzeko (5); ontzi bat hondoratu (10); ontzi bat hondoratuta (6); ontzi beltz (6); ontzi berean (24); ontzi berezi (7); ontzi berri (5); ontzi bete (6)

ontzi enpresen (7); ontzi erraldoi (9); ontzi gainean (9); ontzi gainera (5); ontzi gehiago (9); ontzi guztiak (16); ontzi handi (35); ontzi handi bat (8); ontzi handiak (10)

ontzi txiki (15); ontzi ugari (6); ontzi zahar (8)

plastikozko ontzi (8); te ontzi (7); ur ontzi (14); urrezko ontzi (9); zabor ontzi (6); zilarrezko ontzi (7)

arrantza ontzia (5); azukre ontzia (5)

errauts ontzia (7); hondoratu zen ontzia (5)

intsentsu ontzia (7); komun ontzia (8); movistar ontzia (14)

ontzia bahitu (5); ontzia hartu (16); ontzia hondora (7); ontzia hondoratu (12); ontzia hondoratzen (7); ontzia jo (5); ontzia kostaldetik urruntzeko (5); ontzia utzi (7)

prestige ontzia (5); te ontzia (13); ur ontzia (10); zigarro ontzia (11)

armadako ontziak (6); arrantza ontziak (7); brontzezko ontziak (5); errauts ontziak (14)

exxon valdez ontziak (6); intsentsu ontziak (7); ixipu ontziak (12); kontserba ontziak (5); movistar ontziak (11)

ontziak egin (5); ontziak egiten (10); ontziak eraikitzeko (6); ontziak eraikitzen (6); ontziak garbitu (12); ontziak garbitzeko (5); ontziak garbitzen (22); ontziak garbitzen ari (5)

prestige ontziak (7); ur ontziak (5); urrezko ontziak (5); zilarrezko ontziak (8)

ontzian gelditzen den (5); ontzian izan (5); ontzian sartu (12); ontzian zihoazen (5); ontzian ziren (5); san salvador ontzian (9)

komun ontziaren (8); ontziaren alde (5); ontziaren barruan (6); ontziaren bizkarrean (6); ontziaren eta (6); ontziaren gainean (7); ontziaren izena (6); ontziaren kontra (7); ontziaren ondoan (6); prestige ontziaren (15)

gipuzkoako ontziek (7)

ontziko bizkar (5); ontziko gizon (5); ontziko gizonek (5); ontziko kapitainak (7); ontziko kapitainari (7); prestige ontziko (5); san salvador ontziko (10)

ontzira bota (5); ontzira igo (12); ontzira itzuli (5); ontzira joan (6)

ontzialdatu

ontzialda, ontzialdatzen du *ad* (isurkari bat) ontziz aldatu.

Ale-xeha ezak eztainua, bota azido klorhidrikoa, kontzentra, **ontzialda** eta kristal ezak, gosea pairatu nahi ez baduk, ongi baitakik zer den. Juan Garzia

ontzialdi

iz ontziz eginiko bidaldia.

Ontzialdiak alde batera utzi nituen, eta Deaneak lan bat lortu zidan tren konpainian. Javi Cillero

Oroigarri merkeak eta usain nabarrak, horixe baino ez nuen ekartzen **ontzialdi** haieztatik. Javi Cillero

ontziburu 1

iz ontzi bateko buru den pertsona. ik **ontzizain**.

Ontziburu ona zela erakutsi zuen orduan, atzamarra noratu zuen Irish Pride faltsu harengana. Koldo Izagirre

Atrakatzeko maniobrak iraun zuen tartean **ontziburuak** ez zion aldarri egiteari utzi eta, haren aginduek karraka otzandu egin zutela esan zitekeen. Edorta Jimenez

-Astrolabioa -esan zuen **ontziburuak** -. Edorta Jimenez

Ontziburuak keXu da antxoak bila gero eta urrunago jo behar dutelako, eta petrolioak gero eta garestiagoak delako. Txirrinen zain daude, **ontziburuak** arrantzarako prestatzeko noiz aginduko zain. Berria - Harian

Lotara joan dira bai **ontziburuak** (Javier Ituarte), bai arrantzaleak. Berria - Harian

2 (adizlagun gisa)

Harrezkero ez zen **ontziburu** joango, beste edozeinen ontzitan meneko baino. Edorta Jimenez

Aitak semeetako bat nahi zuen **ontziburu**, eta pilotu beste biak, hirurak adin egokian sartu ahala. Edorta Jimenez

ontzidi 1

iz elkarrekin edo egiteko berean ari diren itsasontzien multzoa. ik **flota**; **ontziteria 3**.

Ontzidia, bederatzi guda-ontziz dago osatua. Harkaitz Cano

Telefono-bulegoko batek esan dit itsasoan bataila handi bat gertatu dela, St. John's-en, Ternuan, eta ingelesek alemani berrogei aleko **ontzidi** bat urperatu dietela. Lopez de Arana

Europaren integrazioak, azkenik, urrats erabakigarriak izan zuen gaztelar-gehoar **ontzidiak** 1292an Gibraltarko itsasarte hartu zuenean. Koro Navarro

Eskasiaren errua «berdel arrantzan hasi diren **ontzidi** berriena» izan daiteke. Berria - Ekonomia

Japoniarren hegazkinak ohar edo gaztigurik gabe, ezkutuan, jo zuten erasoak Pearl Harbourren obra biziak leheneratzen ari zen **ontzidi** estatubatuarren aurka. Jon Alonso

Itun berri horretako lehenengo artikularekin bat, Kubako Itsas **Ontzidiko** ontzietako batzuk gerra-ahaleginean lagunduko dute. Edorta Jimenez

2 (hitz elkartuetan)

Errusiako iparraldeko gerra **ontzidiaren** barku nagusia den 'Piotr Veliki' (Pedro Handia) ontzi nuklearra. Berria - Mundua

Halaber, Brasigo arrantza **ontzidia** berritzeko prozesuan parte hartzeko aukera izango dute, agian, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek. Berria - Ekonomia

ontziditxo

iz *adkor* ontzidi txikia.

Espainiak Kuban eta Filipinetan zituen bi **ontziditxo** hondamendia gertatu ondoren ere, lasai ederrean joaten zen jende guztia antzerkera edo zezenetara. Josu Zabaleta

ontzigin

(*robat ontzi gain*) iz ontziaren gainaldea. ik **ontzi 30**; **kubieta**.

Ordu batzuen buruan, **ontziginak** mukuruko bete zen zaku gogor, harri egin, karez pikortatu eta maskortxoak josiz. Juan Garzia

Ontziginak lizatzeak egunetan eta egunetan belauniko lan egin beharra esan nahi zuen. Xabier Olarra

Garbi-garbia zegoen **ontziginak**, distiratsu zeuden berunezko karel-barandak eta soka-gakoak. Anjel Lertxundi

Karelen behe parteko ur-zuloak garbitu zituen gero [...] olatuek jotakoan itsasoko ura **ontziginak** pila ez zedin. Anjel Lertxundi

Hotz zegoen **ontzi** -gainean, busti ere egiten zinen bitsaren brixta dez; kamareroak tolestatu egin zituen aulki guztiak. Joxe Austin Arrieta

105 milimetrotako kanoi bana, 37 milimetrotako beste kanoitxo bana eta 20 milimetrotako metrailadore bina dute **ontzi gainean**. Edorta Jimenez

Gero, **ontzi-gainera** berriro. Joxe Austin Arrieta

Biharamunean, osterak, **ontziginak** irten eta erresuma barea izango da itsasoa. Joseba Sarrionandia

Isildua zen pianoa; **ontzi gainera** joana izango zen Villona. Irene Aldasoro

Andreas ikusi zuen une hartan **ontziginetik** sukaldaria bitarteko eskaileretan behera. Anjel Lertxundi

ontzigtaltze

iz ontzia edo ontziak galtzea.

Ontzigtaltzea erabatekoa gertatu zen eta, marinela franko ito zen arren, Badr erregeak, ohol bati eutsirik, kostaldera iristea lortu zuen. Patxi Zubizarreta

ontzigarbigailu

iz sukaldako ontziak garbitzeko gailua.

Hiruro artean sukaldaria jaso eta platerak **ontzigarbigailuan** sartu ostean, gurasoekin egongelara joan nintzen bideo berria ikustera. Aitor Arana

ontzigile 1

iz itsasontziak egiten dituenak.

Aker Yards munduko bosgarren **ontzigilea** da tamainaz. Berria - Ekonomia

Bazan **ontzigile** militarrek 2000an jasotako 560 milioi euroak. Berria - Ekonomia

Hamabosgarren mendean Mendebaldeko **ontzigileek** Islamaren erronkari emandako erantzunaren arrakasta ikaragarriak esplikatzeko du makalaldiak luzaroan zertutako lilura, Mendebaldeko ontzigitzaren merkataritzan ondoren etorri zena. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

Batek **ontzigitze** eskarmentua eta besteak beste teknologia jarriko du, baldin eta SEPIK beste inori ez badio saltzen Naval. Berria - Harian

3 (adizlagun gisa)

30 bat urte dira **ontzigitze** gabiltzala. Berria - Ekonomia

ontzigitza *(orobat ontzigitza)* 1 iz itsasontziak egitea.

Ondoren, antolamendu modu kapitalistak beste sektore batzuk eskuratzen hasi ziren: meatzaritza, **ontzigitza** eta burdingintza. Koro Navarro

PVCaren kontsumoa aztertuz gero, lan-eremu hauetan erabiltzen da gehienbat: eraikuntzan, **ontzigitzan**, nekazaritzan, automozioan, altzarigintzan eta jostailu eta aisialdirako gaietan. Berria - Gaiak

SEPIK azaldu du berriro Izar taldearen bi negozioak (**ontzigitza** zibila eta militarra) banatuko dituela. Berria - Ekonomia

Hiru mende eta erdiko makalaldiaren ondoren, Mendebaldeko **ontzigitza** berriro ere bizkorraldi baten bezperan aurkitu zen. Iñaki Mendiguren

CCOOK, aldiz, ondorioztatu du **ontzigitza** ez dagoela krisialdian. Berria - Ekonomia

Bizkaia diruz lagunduko du **ontzigitzaren** industria osagarria. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izar **ontzigitza** taldeak 11.000 langile ditu eta ekaineko azken datuen arabera, 1.172 langilek egiten dute lan Sestaoko Naval ontzilian. Berria - Ekonomia

Behar ziren segurtasun neurriak ez hartzea ere leporatu diote **ontzigitza** enpresari. Berria - Mundua

Pearl Harborkoaren ostean Navyren **ontzigitza** planak bizkor badoaz ere, [...]. Edorta Jimenez

Euskal kostaldean urpean aurkitutako materialek, erromatarren presentziaren berri ematen digute, merkataritza harremanena eta beste hainbat alderdi kulturalena, zeinetan **ontzigitza** teknologiak aipamen berezia duen. Berria - Kultura

ontzijabe *(orobat ontzi jabe eta untzijabe)* iz itsasontzien jabea.

Nekazarietara eta **ontzijabeei** legez, garraiolarietara bete-betean eragin die urte beltzaren garestitzeak. Berria - Ekonomia

Italiako itsasontzi bateko kapitain eta **ontzijabeari** 70.000 euro ordaintzera zigortu zituen Marseillako auzitegi batek, ontziak joan zen martxoan 22 tona ekilore olio eta hidrokarbuo Mediterraneoan bota zituelako. Berria - Gaiak

Ontzijabe izandako familia batentzat lan egin zuen hainbat urtez. Berria - Euskal Herria

Argi erakutsi dugu puntako ontziak eraiki eta **ontzi-jabe** zorrotzenen premiak bete ditzakegula. Berria - Ekonomia

Bizkaiko Aldundiak iragarri zuen Norvegiako Knutsen **ontzi jabearekin** petroliontzi bat eraikitzeko kontratua lotu zuela. Berria - Ekonomia

Gure Gipuzkoako **ontzijabeen**, buruen eta pilotuen iritzia jaramon egin gabe, Armada laster abiatuko duk. Edorta Jimenez

Ondarroako Alturako **Ontzijabeen** Elkarteko (OPPAO) gerente Victor Badiolak. Berria - Ekonomia

ontzikada 1 iz ontzi baten edukia. (neurri gisa) ik ontzi 3.

Egunero bi pitxerkada ardo ateratzen dituzte handik, eta bi **ontzikada** ur jartzen haien orde. Jon Muñoz

Ahultasun zantzo guztiak joanak ziren, **ontzikada** bete ur gainera bota izan balio bezala. Julen Gabiria

Bere sorbalda gainean zeukan esku hura norena ote zen begiratu zuen Harryk, eta sabelean **ontzikada** bete izotz bota balio bezala sentitu zuen. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan)

-Aspaldian ez nituen eskuak lurretan sartu; aire **ontzikada** bat hartzen ari naizela iruditzen zait. Juan Kruz Igerabide

ontzikide *(orobat untzikide)* 1 iz ontzi bateko lagunetako bakoitza.

Ontzikideak lehorrean jaitsi dira, kapitainak hiri zuria bisitatzeko aukera eman die eta. Anjel Lertxundi

2 ontzi berekoa.

Karibe itsasoko U-ontzien ehizaldian **ontzikide** izan zuen Winston Guest aberatsaren aire-konpainian ziharduelakoa ere egia da. Edorta Jimenez

ontziko iz ontzi batean doana; ontzi bateko marinela.

Ontziko besteek Drakerenganako hain esker oneko nengoenik jakin izan balezate, jakin. Edorta Jimenez

Ontziko denok masta nagusiaren aurrean bildurik, ohiko legean, **ontziko** gazteenak, Zarauzko Bartolome Izeta mutilak [...] *Agur maria* esanez ekin zion errezoari, berak bakarrik. Edorta Jimenez

ontzilari *(orobat untzilari)* iz marinela.

Zure aberastasunak, merkantziak eta salgaiak, zure marinela eta lemaizainak, zure itsas arotz, merkataria eta gerlariak, daramatzazun **ontzilari** guztiak, itsasoaren erdian urperatuko dira zeu hondoratzean. Elizen arteko biblia

Orain itsasoak suntsiturik zaude, urpean galdurik, zure merkantziak eta **ontzilari** guztiak ere hondoratuta. Elizen arteko biblia

ontzileku iz ontziak lehorreratzeko tokia.

Leihoak **ontzilekura** begira dituen bere etxean aurkitu nuen hilik eta eskuan, aitortu beharrean nago, nik ulertu ezin dezakedan gutuna zeukan. Joxean Agirre

Sena ibaiaren ertzeko **ontzilekuetan**, nik aurreigarrri bezala, ontziak geldituta. Edorta Jimenez

ontziño *(corpusean untziño soilik)* iz ontzitxoa.

Akitania lurraldeak diruz lagundu baitu alabainan **untziño** horren erostea. Herria

ontziola *(orobat untziola)* 1 iz itsasontziak egiten diren lantegia. ik ontzitegi.

Hirurogei tonako garabi flotantea zeraman atoiari Facal bigarrenak **ontziola** aldera, bafore handiren bat ariko ziren motorizatzen. Koldo Izagirre

Sasoi hartan portuak hamabosten bat enbarkazio izango zuten, **ontziola** ere bai konponketak egiteko. Joseba Sarrionandia

Kinka larrian daude bai **ontziola**, bai **ontziolako** langileen lanpostuak. Berria - Ekonomia

Aita Le Håvre-ra joan baitzen, familia osoa harturik, Lespinasse **ontzioletan** lan egiteko. **Anjel Lertxundi**

Lan horiek egin ondoren, **ontziolak** egingo dira. **Santiago Iruretagoiena**

«Aldundiak ez du etsiko» eta eskura dauzkan tresna guztiak erabiliko ditu Sestaoko **ontziola** suspertzeko. **Berria - Ekonomia**

Eusko Jaurlearitzari eskatu zioten Sestaoko **ontziolaren** jabetza eskuratzeko eta industria biziberritzeko. **Berria - Ekonomia**

Ontziola itxiko duten beldur dira langileak. **Berria - Ekonomia**

Sestaoko **ontziola** pribatizatzeo arrazoirik ez dago. **Berria - Ekonomia**

Hamar dolarreko soldata egunean **ontziola** batean lan egiteagatik, pentsa... **Lopez de Arana**

Zergatik, eta huelga bat antolatuz zuelako **ontzian**. **Inazio Mujika Iraola**

ELAko arduradunak argi utzi zuten Sestaoko **ontziolaren** produktibitatea handia dela eta erabakia politikoa izan zela salatu zuten. **Berria - Ekonomia**

Burdina-xafila her doilduz eta egur-oholezko hesiz babestutako biltegi, **ontziola** eta eskabetezuegiak zeuden ezker-eskuin. **Anjel Lertxundi**

Ekonomiaren «zutarrietako bat» da Naval **ontziola**. **Berria - Ekonomia**

EAKo hautagaiek bilera egin zuten atzo Izar **ontzioletako** langile batzordearekin. **Berria - Euskal Herria**

Ontziolako zerra hotsa entzungo zuten. **Joseba Sarrionandia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ontziola militarrek salbatzako asmoa «berretsi» du SEPIK. **Berria - Ekonomia**

PSOEk «lehen bait lehen» argitu behar duela «**ontziola** publikoen etorkizun iluna». **Berria - Ekonomia**

«Inbertsiogile pribatuaren esku» utzi nahi ditu **ontziola** zibilak. **Berria - Ekonomia**

Ontziola handia da eta kontratu gehiago behar ditu errentagarri izateko. **Berria - Harian**

Ontziola txiki eta ertainek goraino bete dute enkarguen zorroa. **Berria - Harian**

Naval **ontziola** errentagarria baita. **Berria - Ekonomia**

Horrenbestez, Naval **ontziola** lehiakorra dela azpimarratu dezakegu. **Berria - Ekonomia**

Lan taldearen erdia kaleratu ondotik, nork inbertitu du **ontziola** indarge batean? **Berria - Ekonomia**

Puntako **ontziola** da eta askotariko ontziak eraikitzen ditu: arrantzan ibiltzeko ontzi handiak, ferry txikiak eta zama ontziak, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan)

Izar **ontziola** taldeak hainbat diru laguntza publiko jaso ditu urteotan, eta Bruselak legez kanpokotzat jo ditu horietako asko. **Berria - Ekonomia**

Ontziola talde publikoak 1.100 milioi euro eman behar dizkio bueltan Espainiako Estatuari, PPren gobernuaren garaian jasotako diru laguntza ezlegezkoak direla eta.

Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskalduna ontziola (3); izar ontziola talde (3); naval ontziola (17)

ontziola errentagarria (4); ontziola itxi (5); ontziola ixteko (3); ontziola militarrek (14); ontziola militarrek eta (3); ontziola militarrek (3); ontziola militarrek eta (3); ontziola militarren (5); ontziola pribatizatzeo (7); ontziola publiko (3); ontziola publikoa (3); ontziola publikoak (7); ontziola publikoak (7); ontziola publikoak (3); ontziola publikoak (8); ontziola salbatzeo (5); ontziola talde (9); ontziola zibil (16); ontziola zibilak (23); ontziola zibilak pribatizatzeo (3); ontziola zibilei (4); ontziola zibilek (12); ontziola zibilen (16); ontziola zibiletan (4)

sestaoko naval ontziola (3); sestaoko ontziola (19)

ontziolari iz ontziolako langilea.

Pasaian, ordea, bai, ikusi ditu langileak, ikusi: baserritarrak, arrantzaleak, batelerak, **ontziolariak**, herri xumea eguneroko beharretan. **Koldo Izagirre**

ontzipe iz itsasontziaren azpialdea.

Edo itsasoko uhinak zeharkatzen dituen ontzia bezala: igaro eta arrastorik ez du uzten, **ontzipeak** ere ez lorratzik uhinetan. **Elizen arteko biblia**

2 ontziaren azpia.

Inork ez du kriseilua piztu eta **ontzipean** gordetzen edo ohepean ipintzen. **Elizen arteko biblia**

ontziraleku iz ontziratzeo lekua.

Donostian, esaterako, murgiltzeo lau gune arriskutsu daude: uharteko **ontziralekua**, Club Nauticoko baranda, Loretope eta teniseko gunea. **Berria - Euskal Herria**

Antolatzaileak esan digu berehalaxe datorrela ibaiontzia, esku telefonoz abisatu berri diote honen aurretik dagoen **ontziralekutik**, Waterloo Bridgetik, irten dela oraintxe bertan. **Joxemari Iturralde**

Ur-azala arrailatzen zuten ferryak laprast egiten zuten eta, mareak bere altzoan eramanez, astiro-astiro iristen zen **ontziralekura**. **Alberto Barandiaren**

Ibilaldi bat egingo zuten hiriko kale zikin eta zabortsuetan zehar East River-eko **ontziraleku** hartaraino. **Lopez de Arana**

Beherago Harlandeko kai eta **ontziralekuak** zeuden, korrantean gora Hegoaldeko lurraldeetatik zetozen ontzien zain. **Agustin Otsoa**

Oinak babaz beteta zeuzkan eta leher eginda zegoen, baina ferrya **ontziralekutik** ibaiaren ur izurtuaren gainean zamalkatzen aldentzean, halako inurridura bero bat sentitu zuten zainetan. **Lopez de Arana**

Zeruertz kedarrezatuaren kontra, gabarrak, baporeak, zentral elektrikoak, **ontziraleku** estaliak, zubiak. **Lopez de Arana**

ontzirategi iz ontziralekua.

L'Estaque edo **ontzirategia**, Braquerena, eta horako bi Picasso horiek: *Gitarra eta fruituontzia* eta *Umea eta panpina*. **Jon Muñoz**

ontziratu, ontzira(tu), ontziratzen (orobat ontziratu) 1 da ad itsasontzian sartu.

Hemen **ontziratu** zen Lafayette. **Koldo Izagirre**

Armadan **ontziratzen** da, eta bertan, *Felicisima* edo Txit zorioneko izeneko itsasontzian, sukar ustelari aurre egin beharko dio. **Berria - Kultura**

Itsas negozioetan zebilen merkataritza jendearekin **ontziratu** nintzen. **Patxi Zubizarreta**

Nekez **ontziratu** ziren, urak ibai bazter zati bat hartu eta gabarra ezin baitzen ertzerraino hurbildu. **Karlos Zabala**

Kaia pilatzen hasi ziren euskaldunak, **ontziratzeo** gertu. **Jokin Urain**

Valentzian, Gandiako portuan, britainiar destruktore batean **ontziratutik** ihes egin zuten. **Edorta Jimenez**

Egiptoko kostaldea jo, Mariotis aintziran barrena sartu, eta han, feluka batean **ontziratutik**, Nilo ibaian gora egin zuten Talesek. **Jon Muñoz**

Urtaro onean, Livenitxnaiko portua **ontziratzeo** edo lehorreratzeo gunea da Baikal aintzirako bidazientzat, **Karlos Zabala**

Kolonoek gaitzetsi zuten Smith kapitaina, eta, 1609an, Ingalaterrara **ontziratatu** zuten. Juan Garzia

-Suterekin, presoak presaka **ontziratatu** dituzte, eta itsasoratu dira. Elena Touyarou

Haietxek ziren, Basoran, nirekin batera **ontziratatu** nituenak. Patxi Zubizarreta

Seguruenik kontsulak berriro **ontziratuko** hau. Lopez de Arana

Nik, haatik, ez nien utzi negar egiten, eta agindu nien artalde ugaria **ontziratatu**, eta itsasoratzeko. Juan Kruz Igerabide

Ardiak, behiak eta hegaztiak ere eramaten ziren ibaian gora eta behera, eta beltz batek nahikoa zuen han agertzea lana lortzeko: jotzen, hiltzen, zatitzen, larrutzen, **ontziratzen** eta erraiak jasotzen. Anton Garikano

3 hegazkinean sartu.

Aireportuetan badira dagoeneko makina batzuk **ontziratze**ko txartela norberak ateratzeko. Beria - Harian

Gero, isilik geratu ginen deserosoa eta luzea gertatu zitzaidan une batez, megafoniak **ontziratze**ko deia egin zuen arte. Ramon Saizarbitoria

4 ontzian sartu.

Ez zen Extremadurako kafea, bistan da, gerra ostetik Portugaldi kontrabandoan sartzen zuten kafe xigortua baizik, Afrikako kolonietan bildu eta eho gabe aletan **ontziratua**. Urtzi Urrutikoeetxea

Ardoa **ontziratatu** gabe saltzen denean mahatsa baino merkeagoa da. Beria - Ekonomia

Garbitu, josi, **ontziratatu** eta halako lantxo batzuen truke [...] hantxe geratzen utziko zioten. Anton Garikano

Kroketak, zopak, potaje edo eltzekariak, albondigak, kontserbak, postreak, tortillak, saldak, pastak... etxekoandreak paratzen zituen bere laborategian, eta orain **ontziratuta** hartzen ditu apalategitik, beren ontzi egokitan, mikrouhin labean hiru minutu egin eta mahaira eroateko pronto. Edorta Agirre

Atmosfera eraldatuan **ontziratua**. Edorta Agirre

5 (botoa) hautestontzian sartu.

Parte-hartzea %39,55 izan zen eta botoa eman zutenen artean baiezkoa izan zen nagusi igandean Herrialde Katalanetan, **ontziratutako** botopaperen %73,19ekin. Beria - Harian

Marka berria ezarri zuen biztanle gutxiko New Hampshire, 200.000 boto **ontziratuta**. Beria - Mundua

ontziratze 1 iz itsasontzian sartzea.

Ontziratzeak eta lurreratzeak, italiarrek eta falangista espainiarrek izandako gorabeherak kontatzen jarraitzen du Dupuyk. Bobie ontziaren M. Jokin Urain

Georges Dupuy arduradunaren ahotik jasoa ematen du Steer-ek Sautoñako **ontziratze** eta ihesaren berri: [...]. Jokin Urain

Ontziratze kaira hurbilduko zen eguerdia baino lehen, eta, han, polizia errukigaberen batek ontzira igotzea galaraziko zion indarrez! Karlos Zabala

2 hegazkinean sartzea.

Ezustean harrapatu nau, **ontziratze** gelara sartzekotan geundela, azafataren aurrean besotik heldu, eta kontutxoak egiten hasi zaidanean. Patxi Zubizarreta

Hegaldia atzeratuta zetorrela jakinarazi zuten, **ontziratze** atera iritsi nintzenean. Ramon Saizarbitoria

ontzitegi (orobat untzitegi) 1 iz ontziola.

Babilonian mila ontzirentzako portua eginarazi zuen, eta **ontzitegiak**. Iñaki Iñurrieta

Itsaso hori arakatzera joan zen, Indietakoa arakatu zuen bezala; Babilonian mila ontzirentzako portua eginarazi zuen, eta **ontzitegiak**. Iñaki Iñurrieta

Kezka handitu egin zen Bilboko **ontzitegi** nagusiaren greba zela eta: gu ez geunden borroka hartan, eta horrek bigarren mailan uzten gintuen gizartearen aurrean. Bernardo Atxaga

Toshiroz hitz egin dut, eta orain non ote dagoen galdetu diot neure buruari, Osakan jarraitzen ote duen **ontzitegietan** lanean. Bernardo Atxaga

Entzutetsuak ziren Riobo **ontzitegiko** txalupak. Beria - Kirola

2 ontzien apalategia.

Ontzitegira joan, ireki, pitxar bete ur hartu eta burutik behera hustu du, lasai-lasai. Itziar Otegi

Jeleen **ontzitegia** iraulita zegoen, eta barruko guztia pilatuta zegoen beheko apalaren ertz batean. Anton Garikano

Izkinako **ontzitegitik** edalontzi batzuk ateratzen ari zen bitartean. Joxemari Iturralde

ontziteria 1 iz sukaldeko ontzien edo kidekoen multzoa.

Sukalderaino joan, aurreko mantal txiki bat bere gerri oparoan lotu eta nik garbitu berri nuen harraskako **ontziteria** garbitzen hasi zen berriro. Anjel Lertxundi

Ez sukaldeko **ontziterien** hotsik, ez bestelakorik. Anjel Lertxundi

Sukaldea huts-hutsik utzi dute: mahai-tresnak, **ontziteria**, tresna elektriko txikiak, den-dena. Oskar Arana

Ontziteria ere bazen izkina batean, garbiki bildurik katiluak, dutea edo kafearen apailatzeko doa, platerak... Aurelia Arkotxa

Zilarrezko **ontziteriaren** diseinua aitzakiatzat hartuta. Mirentxu Larrañaga

Zilar eta urre guztia, eta brontzezko zein burdinazko **ontziteria** osoa Jaunarentzat dira; haren altxortegira eramango ditugu. Jose Antonio Mujika

Arropa, janaria, liburuak, **ontziteria**... dena lurretik, dena triskatuta. Fernando Morillo

2 (hitz elkartuetan)

Zilarrezko kafe-**ontziteriaren** aurrean eserita, azukreontzia eskuztatzen ari zen azkazal zorrotz arrosak zituzten bere atzamar zuri perretxiko itxurakoez. Lopez de Arana

3 ontzidia.

Hiram erregearen **ontziteriak** ere, Ofirko urreaz gainera, sandalo-zur ugari eta harribitxiak ekarri zituen. Eiizen arteko biblia

Seleukoren seme Demetrio Tripoliko portura heldu zela gudu-talde handi batekin eta **ontziteriarekin**. Eiizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan)

Salomonek itsas **ontziteria** eginarazi zuen Etzion-Geberren. Eiizen arteko biblia

Ez da juzgatu behar Europa estatu partikular bat bailitzan, merkantzi **ontziteria** berak bakarrik egingo lukeen estatua. Iñaki Iñurrieta

ontzitsu izond itsasontzi asko dagoena.

Eneastarren ama, gizakien eta jainkoen gozotasun, Venus elikatzaile, ortziko zeinu lerrakoren azpian, itsaso **ontzitsua** eta lehor fruitutsua hanpatzen dituzuna! Xabier Amuriza

ontzitxo (orobat untzitto) 1 iz ontzi txikia. ik ontzixka.

Han gelditu zen baita santuak edateko erabiltzen zuen buztinezko **ontzitxo**a ere. Askoren artean

Beste hiru potetako koilarakada bana bildu zituen **ontzixora**. Josu Landa

Tea zabutinezko **ontzitxo** zabarbitzatuko dizute. **Gotzon Garate**

Kaiolan, **ontzitxo** batzuk zeuden, artatxikiarekin, barazkiekin eta urarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Orduan makina hark zerbait [...] ukatzen zion, eta zukuturiko isuri hori **ontzitxo** batean geratzen zen. **Joxemari Iturralde**

2 (hitz elkartuetan)

Flaskotxoak, hauts-**ontzitxoak**, ezpain-lapitzak, tuboak, azazkal-laka, ile-gakoak, besterik ez... **Joxe Austin Arrieta**

3 itsasontzi txikia.

Ohartu naiz neu naizela naraman **ontzitxoaren** makinista, neuk eragin behar diedala balbulei, neu naizela abiada erregulatu duena hemen. **Koldo Izagirre**

Une hartan gure **ontzitxoak** astindu bat egin zuen, zakur batek uretatik ateratzean egiten duen bezalakoxea, itsasoaz apur bat libratzeko. **Koro Navarro**

-lgo! -agindu zigun Sinbadek, **ontzitxo** bat seinalatuz. **Edorta Jimenez**

Ibaian behera Belemerraino zihoan janariz zamatutako ibai-bazterreko **ontzitxo** batean. **Jon Muñoz**

3 espazio ontzi txikia.

Bota dezagun **ontzitxo** espaziora. **Berria - Harian**

ontzitar *iz adkor* ontzi handia.

Indietako ontziak txikiak ziren, eta greziar eta erromatarrenak, handinahikeriak eginarazi zizkien **ontzitzarrak** alde bat utziz gero, ez ziren gureak bezain handiak. **Iñaki Iñurrieta**

Itsasoz etorriak ginen, karraka **ontzitar** horietako batean, Nuestra Señora de las Ánimas izenekoa bera. **Edorta Jimenez**

Osabak ikusi izan banindu, ikusi, hiru mastako **ontzitzarren** txopara katuaren modura igotzen. **Edorta Jimenez**

Ur azalean, **ontzitzarrak**. **Edorta Jimenez**

ontzixka (*orobat untzixka*) 1 iz ontzi txikia. ik ontzitxo.

Benetan diotsuet: Mesiasen jarraitzaile zaretelako, **ontzixka** bat ur bada ere ematen dizuen inor ez da saririk gabe geldituko. **Elizen arteko biblia**

Petrusek pipa erre ohi du, antigoaileko erako pipa bat, tutua kako itxurakoa eta **ontzixkaren** gainean zilarrezko estalki txiki bat dituen. **Oskar Arana**

Tente jartzen da, pipa ateratzen du lan-jantziko poltsikotik, estalkia ireki, tabakoa **ontzixkan** sakatu, eta tira egiten dio isiotu gabe. **Oskar Arana**

2 itsasontzi txikia.

Egun hartan, immigratu albaniarrek zeramatzen **ontzixka** batek talka egin zuen Italiako kostazainen barku batekin eta honen ondorioz, 15 etorkinek bizia galdu zuten.

Berria - Mundua

Behin, Rieti aintzirako portu bateko **ontzixka** batean eserita zegoela, arrantzale batek arrunki tenka deituriko arrain handi bat harrapatu zuen eta Frantziskori eskaini zion debozioz. **Askoren artean**

ontzizain *iz* ontziburua.

Badiako negozio gizon guztiak ezagutzen zituen, **ontzizainak**. Aduanako zainzaileak bai eta polizia guztiak ere. **Bego Montorio**

Zaindari izendatu dute eta babesa eskatu diote marmolariek, txalupazain, **ontzizain** eta marinelek; urpean hilobiratu zuten, urpekariek eta urpeko arrantzaleek ere aukeratzea daukate. **Pello Zabala**

ontzizale *iz* ontzien zale dena.

Kirol-**ontzizaleena** bezalako kapela zuen buruan, bekokitik atzera eraginda, eta entzuten ari zen kontakizunak adierazpen-olatuak igortzen zizkion etengabe aurpegira, sudur, begi eta ezpain ertzetatik. **Irene Aldasoro**

ontzurre ik ontza 8.

onura (*1022 agerraldi, 112 liburu eta 355 artikulutan*) 1 iz zerbaitetik, norbaitentzat edo zerbaitentzat gertatzen edo ateratzen den ondorio ona. ik probetxu; etekin; hobari.

Dirua balio guztien zeinua da; **onura** edo fruituak ematen dituen oro eskuratzen du. **Josu Zabaleta**

Leudeentzako ondasunei ondasun fiskal, **onura**, ohore, feudo deitu izan zaie autore eta garaien arabera. **Iñaki Iñurrieta**

Kalte egiten duen orok **onuraren** bat erautzen dio kaltetuari; **onurarik** kentzen ez badio, ez dago kalterik. **Imanol Unzurrunzaga**

Aitzina eginen dut afektuekin, zer **onura** eta zer kalte dakarten gizakientzat ohararaziz. **Piarres Xarriton**

Eta, alde horretatik, **onura** da. **Patxi Zubizarreta**

Kondoiak **onura** asko ditu: segurua da, sinplea da eta ez da kontrol medikorik behar. **Luis Elberdin**

Ariketa honek **onurarik** ote du? **Iñaki Arranz**

Aberatsenek aterako diote **onura** zerga erreforma berriari. **Iñaki Heras**

Klase bateko kideak bakarrik, eta ez guztietakoek, atera zuten **onura** egoera hartatik. **Iñaki Mendiguren**

Zer **onura** ekarri digu harrobide genuen aberastasunak? **Elizen arteko biblia**

Argi zekusan saleroste hark **onura** handia ekarriko ziola, baina ohiz kanpokoia zen, eta berriegia aukeran. **Jose Morales**

Ildo berri bila jotzeak, asmatzeak eta hutsegiteak, beti egiten digu **onura**. **Andoni Egaña**

Badakigu zer zen **onura** batengatik nork bere bura inori gomendatzea. **Iñaki Iñurrieta**

Zer **onura** espero behar dut nik higandik, ez baituk heure aldarte eta ganora baino heure burua mantendu eta jazteko? **Juan Garzia**

Erregeagandik **onura** bat jasotzen zutenek **onura** horren parte bat ematen zieten zenbait basailuri; baina parte horiek ez ziren osotasunetik bereizten. **Iñaki Iñurrieta**

Komenigarritasun ideia okerra da benetako mila **onura** sakrifikatzea uesteko edo inportantzia gutxiko kalte bakar batengatik. **Juan Martin Elexpuru**

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Gizakiaren **onura** gizartearen onurari kontrajarrita balego, ez legoke gizakirik. **Iñaki Heras**

Izpirituaren **onurarik** gorena edo haren ongirik gorena Jainkoaren ezagutza da. **Piarres Xarriton**

XVI. mendeko prezioen gorakadak [...] azkenduko zuen errentadunen hondamena, merkataritza-klasearen **onurarako**. **Koro Navarro**

Nazioarteko merkataritzaren **onurak** bistakoak dira. **Iñaki Heras**

Lanaren **onura** hezitzaileei buruzko esaera zahar ugari bilatuko du gure bildumetan horretara jartzen denak. **Anjel Lertxundi**

Arrazoimen hutsaren Filosofia ororen **onura** handiena, eta agian bakarra, beraz, negatiboa besterik ez da. **Ibon Urbarri**

Oso herrialde gutxiak eskuratzen zituzten aurrerapen ekonomiko horien **onurak**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Kafearen **onurak** predikatzen aurretako iragarle ikusgarrienetako bat. J.M. Olaizola "Txiliiku"
Ez dut sekula pentsatzen gure ekintzen **onuran** edo kaltean, etikotasunean edo etikotasun faltan. Harkaitz Cano
ik beherago 6. Askoren artean

3 (izenondoekin)

-Zaila da zuena baino **onura** handiagoko hartzailerik topatzea. Josu Landa
Zazpi ehun langile dabilta eremu hortan, gure herriarentzat **onura** ezin hobe, pleita leku horrek eskaintzen baitu lana eta lanbide zerga; zer eskatu gehiago? Herria
Izan ere, ezin da **onura** iraunkorrik itxaron politika moraletik, gizonaren berezko sentimenduetan oinarrituta ez badago. Juan Martin Elexpuru
Onura morala eta norberaren interesa lortzea gauza bera direla. Iñaki Heras
Pasioei uko egitetik eta interesen arteko talkatik sortu da **onura** komunaren ideia, giza justiziaren oinarria. Juan Martin Elexpuru
Ez da ahaztu behar, dena dela, i/bokala sabaikari edo palatal deitzeak analisi fonologikoari dakarkion **onura** praktikoa. Lourdes Oñederra
Ezingo dio magistratu batek legezko zigorra handitu hiritar gaizkile bati, erantzukizuna, **onura** publikoa, edo beste edozein aitzakia hartuta. Juan Martin Elexpuru
Onura Publikoko aitormena. Iban Zaldua

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batzuen ustez, ingurugiroaren defentsa irabazi edo **onura** iturri da. Iñaki Heras
Izarrek begitarterik abegikorrena erakutsiko dizuten egokiera, bada, nola-halako **onura** -ekarletzat aurkez zaitezkeenekoa duzu. Juan Garzia
Lehenengo pentsatzen den hura bukaerarako gordetzeak bi **onura** mota ekarriko dizkio bertsolariari: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskertzen diet, hala ere, albo-**onura** hori eragin izana. Joxerra Garzia
Horrekin trakesturik, zabartzen dira osasunera eta arimen espiritu-**onurara** daramaten egintzetan. Patxi Altuna

6 *onuran adlag* gozamina izanez.

Gizon libre oro, lau lur-sail baditu, jabetzan nahiz **onuran**, etsaiaren kontra edo bere jaunaren atzetik joan dadila. Iñaki Iñurrieta

7 *onurapean*

Berariazkoa da, herritarrek hasieratik ezartzen dutenean euren artean Estatua gobernatzeko modua [...]; suposatua, berriz, beren probetxu eta iraupenerako baten legeen eta boterearen **onurapean** jartzen direnean, besteen kontra. Esteban Antxustegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dakarren **onura** (3); **gizakiaren onura** (4)
onura asko (7); **onura atera** (6); **onura ateratzea** (3); **onura ateratzeko** (5); **onura ateratzen** (6)
onura baino gehiago (3); **onura besterik ez** (3)
onura ekarri (9); **onura ekarriko** (13); **onura ekartzen** (3); **onura ekonomiko** (3)
onura fiskalak (3)
onura gehiago (3); **onura gisa** (3); **onura gutxi** (4)
onura handia (18); **onura handia ekarriko** (3); **onura handiagoa** (8); **onura handiak** (7); **onura handiak ekarri** (3); **onura handiena** (3)
onura izan (3); **onura izango** (3)
onura politikoak (5); **onura politikoak lortzeko** (3); **onura psikologikoak** (3); **onura publikoa** (8); **onura publikoak** (5); **onura publikoaren** (8); **onura publikoko** (6)
espetxe onurak (14); **matxuraren onurak** (3); **nolako onurak** (3)
onurak aipatu (3); **onurak azpimarratu** (3); **onurak baino gehiago** (3); **onurak ekar** (3); **onurak ekarri** (3); **onurak ekarriko** (6); **onurak lortu** (4)
espetxe onurarik (6); **ez dago onurarik** (3); **inolako onurarik ekarriko** (3); **onurarik atera** (4); **onurarik aterako** (3); **onurarik ekarri** (4); **onurarik ekarriko** (12)

onurabide iz onura ateratzeko bidea.

Gure ordenantzek hainbeste **onurabide** kendu dizkiete akusatuei, non zentzuzkoa baita geratzen diren apurrak gordetzea, abokatua batez ere, oinarritzat. Juan Martin Elexpuru

onuradun 1 *izond*/iz onura hartzen duena.

Aski mugatua izan bazen ere herrialde **onuradunen** zorraren zerbitzuaren gainean neurri horiek izan zuten eragin zuzena, akordio horiei esker, lehen uanean, herrialde zordunen egoera ekonomikoaren gaineko uste ona sortu zen. Koro Navarro

Testamentuak bi **onuradun** aipatzen zituen, Tom Wood eta Rufus Sprague. Oskar Arana

Izan ere, Adeliaren izena koadernoak aurkitu baino askoz lehenago ere topatu zuen hildakoaren **onuradunen** artean. Bego Montorio

Laguntza horiek jasotzeko, gizarteratzeko itun bat izenpetu behar dute **onuradunek**. Berria - Ekonomia

Gisa horretako hika-miketean **onuradun** bakarrak legegizonak, auzitegi-prokuradoreak eta gainerako kideak baitira. Migel Angel Mintegi

Zapore onargarri "unibertsalak" zein diren ikertzea oso jende [...] gutxiere esku dagoenez, horiek izango dira elikadura mundializatzeako arduradun eta **onuradunak**, noski. Edorta Agirre

Telealarma zerbitzuaren **onuradun** ez da edozein izango, hainbat baldintza bete behar baitira derrigorrez. Berria - Euskal Herria

Desarme psikologikoaren prozesu honen **onuradunak** ez dira gobernariak edo gobernatuak, ezta gutxiengo menderatzailea edo barne-proletalgoa ere. Iñaki Mendiguren

Teknologia berriek aukera berriak eskaintzen dituzte (**onuradun** ia bakarrak lehen munduan bizi garenok bagara ere). Txema Ramirez de la Piscina

Ikusi dugu, halaber [...] estatu unibertsalek mantenduriko erakundeen **onuradun** nagusiak eliza unibertsalak izan direla. Iñaki Mendiguren

Onuradun berri bat etortzen zen, eta beste azpibasailu batzuk ezartzen zituen. Iñaki Iñurrieta

Indiar Batasuna eta Pakistan seinala daitezke Indiako herri-administrazio britainiarraren **onuradun** gisa. Iñaki Mendiguren

Onuradun izateko betekizunak: [...]. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

onuradun nagusia (3); **onuradun nagusiak** (3)

onuragabe 1 *izond* onurarik ez duena.

Guretarrek ere ikas dezatela egintza onetan lehenengoak izaten, premiazko beharrei aurre eginez, gizaki **onuragabe** izan ez daitezten. Elizen arteko biblia

2 *onuragabeko izlag* onuragabea.

Ez dute batere interesik, lantzen dituzten espazioaren eta denboraren adigaien jatorriaz [...], eta badirudi, orobat, **onuragabekoa** zaiela adimenaren adigai hutsen jatorria eta honekin batera beren baliotasunaren hedapena ikertzea; aitzitik, haiek erabiltzea besterik ez zaie interesatzen. Ibon Urbarri

onuragarria izond onuragabea.

Inbertsiorik **onuragaitzena**. **Xabier Olarra**

onuragarri 1 izond onura dakarrena. ik probetxugarri; onuratsu; mesedegarri.

Obra **onuragarri**, santu eta zuzenak egiten zituztela jakin arren, ez ziren gai inola ere haietaz harrotzeko. **Askoren artean**

Alderdi **onuragarri** eta kaltegarriak izango ditu, nolana ere, fenomeno horrek. **Edorta Agirre**

Metodo kaltegarri batek instituzio **onuragarri** bat usteldu du. **Juan Martin Elexpuru**

Ordutik aurrera, ez bekio zilegi izan monasteriotik kanpora ateratzea, motibo **onuragarri**, arrazoizko, ageriko eta onargarriatik ez bada. **Askoren artean**

Bizia berreskuratu zuten zaharrak eta gazteak ur **onuragarri** haiek edanda. **Karlos Zabala**

Eskatu aholkua jende zuhurrari eta ez mesprezatu aholku **onuragarria**. **Elizen arteko biblia**

Ezagutzat hauen zati bat, aspalditik da konfiantzaren jabe, eta horren bidez itxaropen **onuragarria** iragartzen du besteentzat ere, hauek izaera erabat ezberdinekoak diren arren. **Ibon Uribarri**

2.000 libra inguru batzea lortu ondoren, alde egin omen zuen promotoreak; jakina, horixe bai ekimen **onuragarria**! **Iñaki Heras**

Borrokaldi bat izan omen zen soldadu siberiarren eta tatariarren artean [...] borrokaldi ez oso **onuragarria** errusiarrentzat. **Karlos Zabala**

Motorrek ez dute lan **onuragarri** bihurtzen erregai guztia; motorraren energia kimikoaren parte bat -parte handia, proportzioan- bero bihurtzen da. **Irene Aldasoro**

Hori are bitxiagoa zen, kontuan izanik, liskarrak, etxe-aldaketak eta harreman **onuragarriagoen** balizko ahalbideak bitarteko, taldekideak etengabe berritzen zirela. **Mirentxu Larrañaga**

2 (hitz soila izan -da ad- eta kideko aditzekin)

Gizakia Jainkoarentzat izaten ote **onuragarri**? zentzu onekoa bere buruarentzat da **onuragarri**! **Elizen arteko biblia**

Zilegi ez denik ez da egin behar, nahi bezain **onuragarri** eta betegarri izanik ere eta bizia bera horretan balitz ere. **Piarres Xarriton**

Dohain eta kontra-dohain horiek [...] modu berean gertatzen zaizkie **onuragarri** jarduera horretan parte hartzen dutenei. **Koro Navarro**

Harremanik izanez gero, aberatsenak hartu adiskidetzat: agian, **onuragarri** izango zaizkik egunen batean. **Jose Morales**

Nehork ez dio, beraz, **onuragarri** zaionari, hots, bere izana atxikitzeko gurariari uko egiten. **Piarres Xarriton**

Teknikariaren mania ei da, Hannaren ustez, Kreaizioa **onuragarri** bihurtzea. **Joxe Austin Arrieta**

Onuragarri iruditu zaigu gure lanak atariko liburu batez hasia: Zuzenbidea eta legeak orokorrean. **Markos Zapiain**

Diruaren asmakuntza, zalantzarik gabe, **onuragarri** gertatu zen jaulki zuten gobernuen mendekoentzat. **Iñaki Mendiguren**

· Esango nuke **onuragarriago** gerta lebigukeela silabatzea kontzeptuari eustea. **Lourdes Oñederra**

Ezer ez da **onuragarriago** gizakiarentzat gizakia bera baino. **Piarres Xarriton**

3 (hitz mugatua izan -da ad- eta kideko aditzekin)

Hurren azala, ur irakinetan egosita, pixa errazteko **onuragarria** da. **Pello Zabala**

Onuragarria al zen nekazariak erostea beste leku batera aldatzeko? **Jose Morales**

Itsaso honetara abiatzera ausartu aurretik, ordea, **onuragarria** izango da lehenago uztera goazen lurraldearen mapari so egitea. **Ibon Uribarri**

Zein emankorrak eta **onuragarriak** diren etxaldeko lanak. **Jose Morales**

Gizakiak, Arrazoiaren gidaritzapean bizi direnez, gizakiarentzat **onuragarrienak** dira. **Piarres Xarriton**

Jesusen Bihotzean zuen sinesmen handia, debozio katoliko guztietan **onuragarriena** zela uste baitzuen, eta onartzen zituen sakramentuak ere. **Irene Aldasoro**

Gazte-gaztetandik neure kontura bizitzen ohituta, **onuragarria** gertatu zitzaidan bizimodu berria. **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

onuragarri da (3); **onuragarri dena** (3); **onuragarri gertatu** (4); **onuragarri izan** (9); **onuragarri izango** (6); **onuragarri zaiona** (8); **onuragarri zaiona bilatzeko** (3)
erabat onuragarria (3); **eragin onuragarria** (4); **ez da onuragarria** (3); **ez zen onuragarria** (3); **hori onuragarria da** (3)
onuragarria da (30); **onuragarria dela** (8); **onuragarria den** (12); **onuragarria edo kaltegarria** (3); **onuragarria egin** (3); **onuragarria gertatu** (5); **onuragarria izan** (45);
onuragarria izango (24); **onuragarria zen** (4)
oso onuragarria (17); **oso onuragarria da** (4); **oso onuragarria izan** (4); **oso onuragarria izango** (3)
onuragarriagoa da (3)
ondorio onuragarriak (6); **onuragarriak dira** (4); **onuragarriak direla** (5); **onuragarriak diren** (5); **onuragarriak izan** (7); **onuragarriak izango** (5); **oso onuragarriak** (3)
egia onuragarrien (3)
emaitza onuragarriak (3)

onuragarriro adlag era onuragarrian.

Hala ere, gertatu ondorengo jakinduria errazaren zain egon gabe, behatzaileak agian espekula dezake **onuragarriro** etorkizun dauden gauzen formaz. **Iñaki Mendiguren**

onuragarritasun iz onuragarria denaren nolakotasuna.

Horiek horrela, argi dago dibortzioaren **onuragarritasuna** grinaren arrisku eta indarkerian dagoela. **Andres Urrutia**

Hainbat ikerketa egin dira kalamuaren erabileraren **onuragarritasunaz** eta izan ditzakeen eragin kaltegarriez. **Berria - Harian**

Erromako azken legeek, Justinianoren Bildumara ekarritako horiek, **onuragarritasun** eta ekitate naturalean dute gogoia. **Andres Urrutia**

Lege politikoa ez da geratzen norbanakoen **onuragarritasunean**, baldin eta ikuspuntu orokoragoaz ari bada. **Andres Urrutia**

Edozein modutan ere, norberak bere burua aska al dezake kontzertu berezko eta ezinikusizko ahalmen horren eragin eta **onuragarritasunetik**? **Andres Urrutia**

onurakor (Euskaltzaindiaren Hiztegian onuragarri agertzen da) izond onuragarria.

Hoberena, zuhurtasuna ondasunekin batera izatea; hori da **onurakorrena** lur honetan bizi direnentzat. **Elizen arteko biblia**

onurapean ik onura 7.

onuratsu izond onuraz betea. ik onuragarri.

Nire zorianaren ideia hori bera lagungarri baliaturik, sarri sentitu nituen ideia haren ondorio **onuratsuak**. **Jon Muñoz**

Negozio bereziki **onuratsu** bat egin ondoren, familiarekin bakarka gelditu eta, aztoratuta, beste negozio oraindik ere erakargarriagoak eta oparagoak taxutzen hasten den merkataria moduan. **Ander Irizar**

Elikagaiak prozesatu egingo dira, berez ez dauzkaten nutriente **onuratsu** batzuk har ditzaten. [Edorta Agirre](#)

Handik aurrera, errazagoa eta **onuratsua** gertatu zitzaien dena. [Jose Morales](#)

Goipuzteak bezala arimantzat ere bi motatako elikagaiak daude: batzuk osasungarri eta **onuratsu**, besteak hilgarriak eta kalterako. [Imanol Unzuerruzaga](#)

onuratu, onura(tu), onuraten da *ad* aprobetxatu.

Nor **onuraten** da benetan herrialdearen berreraikuntzaz? zenbaterainokoa da Mendebaldeko boko-boko dabilen hitz magiko horren inguruko ustelkeria? [Berria - Mundua](#)

Ironikoki, gerta liteke Errusiako negozioak Justizien presidentetzatik **onuratzeko**. [Berria - Mundua](#)

Onuratu diren taldeak aski ezagunak dira, proiektu iraultzaile sozialistatik urrundu direnak eta ahal duten atzeritarrekin eta manipulaturako nazioarteko erakundeekin beren buruaren propaganda egiten ari direnak [Berria - Mundua](#)

onuratzeko *iz* adkor onura txikia.

Soberanoari dagokion eskubidea bereganatu du, eta lapurretan egiten dio, soberanoak txanponetik eskuratzen dituen **onuratzekoak** sakeleratu dituelako. Baina itxuraz alferrikakoen diren gauzek ere izan dezakete bere **onuratzekoak**, eta esperantza horrek ematen dizu kemena hala ere jardunean jarduteko. [Juan Martin Elexpuru](#)

onuratzeko *iz* onuraren zalea dena.

Eskatzen dioten guztiei emango balie, pentsatuko genuke sariaren truke solean zor diogula zerbitzua, eta zerbitzu mota horrek ez gintuzke zintzoagoak egingo, **onuratzekoak** eta zikoitzagoak baizik. [Imanol Unzuerruzaga](#)

onuratzeko 1 *iz* uste ona.

Onuratzeko, elkarrekikotasuna eta berdintasuna dira beharrenak. [Andres Urrutia](#)

Ezkontza deuseza, bi ezkontidek edo eurotariko batek **onuratzeko** egina bada, ez da duda-mudazkoa seme-alaben egoera zibilerako. [Andres Urrutia](#)

Ez da faltako, horratio, gizakiek euren arteko harremanetan amarrua egitea; hori horrela ere, askatasunari eta **onuratzeko** konfiantza aitortu behar zaie. [Andres Urrutia](#)

2 *iz* onuratzekoak.

Oztopo taktikoa higiarazteko, besteren jakinmin **onuratzeko** aintzat hartu behar da. [Jon Alonso](#)

onuratzeko *iz* onaren zalea dena.

Jakinduria espiritu adimentsu eta santua da, bakarra, jarduera anitzekoa, fina, mugikorra, sarkorra, kutsagabea, aldaezina, **onuratzeko**, zolia. [Elizen arteko biblia](#)

op¹

1 *op arte* efektu bisualean oinarritzen den arte estiloa.

Pop eta **op** arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, diseinu-margolanak eta argazkiak, bideo-artea eta Espresionismo Berria... [Oskar Arana](#)

op² *interj*

Arropa zintzilikatzen ariko balitz bezala oratzen dit, indiferentziak, mahuka batetik lehenik, gero bestetik, pixka bat astindu zimurrak kentzeko eta hurrengora, **op!**, mahuka bat, gero bestea. [Eider Rodriguez](#)

opa 1 *iz* eskaintza, oparia.

Esker on isilez hartu nion **opa**. [Juan Garzia](#)

2 desira, nahia.

Urte berriari buruz zabaldu ditu bere agiantzak eta **opa** beroenak herritar guzietan. [Herria](#)

3

Horren arabera, bi **opa** artean geratzen den tarteari metopa deitzen zaio grekoen artean. [Santiago Iruretagoiena](#)

4 (hitz elkartuetan)

Haren etxea lurrarekin berdindu beraren begien aurrean, eta hondamendia eta heriotza zion-**opa** zion haren adiskide guztiei. [Juan Garzia](#)

5 *opa egin* opa izan. ik *opatu*.

Prodiren garaipena onartu zuen eta zorte ona **opa egin** zion. [Berria - Mundua](#)

Auzo guztia gurekin lasterka joan zen, gu besarkatuz, ongi etorria **opa egin**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Hura entzun, aurpegia iturri publikoan murgildu, eta ni gabe jarrai zezatela **egin** nuen **opa**. [Joxe Austin Arrieta](#)

Besarkatu egin gintuen, eta, adio gisa, hurrena herrialde libre batean elkar ikusenez **egin** zigan **opa**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Eman egin behar zaio, izan ere, lurrari: **opa egin** behar, gero zerbait kenduko bazaio, eta horregatik da lurra faltasua eta ustela nekazariarentzat. [Iñaki Segurola](#)

6 *opa izan, opako* du *ad* norbaitentzat zerbait nahi izan. ik *opatu*.

Nik ez diot muzin egin profeta izateari; halere, ez dut **opa** izan zoritar-egunik. [Elizen arteko biblia](#)

Ez zion inolako gaitzik **opa**, inondik inora ere, baina irrika biziz espero zuen euren etxetik alde egingo zuen eguna. [Mirentxu Larrañaga](#)

Begirik bildu ezinezko gau luzeak **opa** ditiat. [Antton Olano](#)

-Gizagaixo bat naiz, baina zintzoa, eta ez diot inori kalterik **opa**. [Patxi Zubizarreta](#)

Eta heriotza **opa** izan zuen: "hobe dut hil, bizi baino!". [Elizen arteko biblia](#)

Bere prediku guztietan, bildutakoei Jainkoaren hitza iragarri aurretik, bakea **opa** izaten zion esanez: "Jaunak eman diezazu bakea!". [Askoren artean](#)

Osasuna eta bakea **opa** dizuet guztioi. [Askoren artean](#)

Opa biezaiote bakea Jerusalem: lasai bizi bitez maite zaituztenak! [Elizen arteko biblia](#)

Zorte ona **opa** izan nion alde egitera zihoala, eta gero bakarrik geratu nintzen ostera ere gelaxka hartan. [Oskar Arana](#)

Barruan zegoenari kanpoa **opa** izatek berriro barrua **opa** izatera pasa da gauza. [Iñaki Segurola](#)

Pentsatu nuen bikotea esnatu, dena kontatu eta suerte ona **opako** niela. [Matías Múgica](#)

Berehala ulertu zion apaiazak, eta, gogo onez **opako** ziola, esan zion, eskatzen ziona. **Patxi Ezkiaga**
Zure arimak [...] irrikatu eta **opa** bezain sarriro idatzi ez badizut ere, ez zaitez harritu, ez eta uste izan ere inola, zuganako maitasunaren suak zure amaren erraietan gar txikiagoa duenik. **Askoren artean**

Elkarri gau ona **opa**, eta, geroko utzi gabe, lotara joan ziren denak. **Jose Morales**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkar sendatzea opa (3); **bihotz bihotzetik opa** (3); **gabon opa** (3); **heriotza opa** (6); **heriotza opa izan** (3); **hiltzea opa** (3); **jainkoak opa** (3)
onena opa (18); **onena opa diot** (6)
opa diat (3); **opa die** (3); **opa diet** (6); **opa dio** (9); **opa diogu** (7); **opa diot** (18); **opa dizuet** (8); **opa dizugu** (4); **opa dizut** (20)
opa egin (3); **opa eginez** (5)
opa izan (20); **opa izan zion** (3); **opa izanez** (3); **opa izateko** (4); **opa izaten** (3)
opa nion (3); **opa zien** (8); **opa ziola** (3); **opa zion** (18); **opa zioten** (5)
osasuna opa (6); **sendatzea opa** (6); **sendatzea opa dizut** (4)
zoriona opa (6); **zorritzarra opa** (3); **zorte ona opa** (15); **zorte onena opa** (3); **zortea opa** (3); **zortetik onena opa** (4)

opagarri iz opa izateko gauza.

Zueri, haurño izpiritu xorrotzekoak, doatzi gure urteberriko **opagarriak**. **Herria**

opako¹ ik **opa 6**.

opako² ik **opaku**.

opakotasun ik **opakutasun**.

opaku (orobat **opako**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **opaku** agertzen da) 1 izond argia igarotzen uzten ez duena.

Haren aurpegia zapi arin eta **opaku** batek estali zuen, eta betiko orban gorri haiek besterik ez zen geratu; loreak ematen zuten. **Juan Kruz Igerabide**

Berotzen saiatuz gero [...] kristaltze-ura galtzen du, **opako** bihurtzen da, eta bezero ergelek ez dute atsegin. **Juan Garzia**

Ke zirpiltzuak atoiotzian eta baporeen atzealdeari itsatsita egiten zuen hegaz, oso behean, ur **opako** eta berdekaran zehar arrastaka. **Lopez de Arana**

Leihoko kristalak **opako** zeuden, eta beste aldean malko irudiko hari loditan irristatzen ziren tantak. **Juan Garzia**

2 irud/hed

Halako batean bi eztanda txiki eta **opako** entzun dira musikaren gainetik, xanpain merkeak egin ohi dituenen tankerakoak: motelak, kalaxkak, alaitasunik gabeak. **Patxi Iturritegi**

Oi, begiratu bitxi, **opako**, hutsa, pentsamendurik gabea, eta hain ederra! **Josu Zabaleta**

Itsasoak, doi bat asaldatua, olio kapa zabal baten dirdira **opako** eta astuna zeukan. **Koldo Izagirre**

Ezkutatzen ninduen zera hark ez zirudien isla zehatz-zehatza zuenik, poliki-poliki argituz zihoan gardentasun **opako** bat baizik. **Juan Martin Elexpuru**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gardentasun opako bat (3)

opakuntza iz opa egitea.

Haren landetxeko zuhaitzen pean mahaiaik hedatu ziren, edari-**opakuntzak** eskaintzeko. **Juan Garzia**

opakutasun (orobat **opakotasun**) 1 iz opakua denaren nolakotasuna. ik **opazitate**.

Pertsonaia jakinik gabe, oinak, lepoak edo itzal hutsak erakusten dituzte, gardentasunaren eta **opakutasunaren** arteko mugan. **Berria - Kultura**

Labe berri horretan gaia bera ez ezik, erretakoan sortzen duen kearen **opakutasuna** eta toxikotasuna neurtu ahal izango dute Gaiker zentroko teknikariek. **Berria - Gaiak**

Kolpekatzean **opakotasun** apur bat aurkitu zuen eskuineko birrikaren erpinean. **Josu Zabaleta**

2 irud/hed

Bere taldeak ez du abertzaleak «noraezean» ibiltzea onartuko, ez eta aurrekontuen «**opakotasuna**» babestuko ere. **Berria - Euskal Herria**

Finantzen eta politikaren alorren arteko lotura estuak, eta horren ondoriozko finantza-jardueren **opakotasunak**, gobernatzeko modu baten krisia bihurtu dute krisi hau. **Koro Navarro**

Albert Camusek idatzi zuen gizakion gardentasun-nahiak, arrazionaltasun beharrak munduaren **opakotasunarekin** talka egitean sortzen dela absurdu sentimendua. **Berria - Kultura**

opaldu, opal(du), opaltzen 1 du *ad* eskaini; opari egin.

Abere gizenak **opalduko** dizkizut, ahariak erreko, zezen eta akerrak eskainiko. **Elizen arteko biblia**

Botoz eskainia Jaunari **opaltzeko** gai den aberea bada, sagaraturik gelditzen da. **Elizen arteko biblia**

Ixaskunek ni presondegitik irten orduko pareta osotan luzeran prestatutako apaletan, tarte huts galantak zeuden [...]; eta Ozamizek **opaldutako** mordoa gaitza izanik ere, zerrenda ordenatuan kokatzeko behar adina lekugune antzeman uste nuen. **Txillardeggi**

Oparigaia jan, **opaldua** izan den egunean eta biharamunean jango duzue. **Elizen arteko biblia**

Opalduriko haragia, legez garbi daudenek bakarrik jan dezakete. **Elizen arteko biblia**

2 (era burutua izenondo gisa)

Idi **opalduak** larrutu ondoren, hezur guziak kendu, eta haragia pertzara botatzen dute. **Patziku Perurena**

Haragi **opaldua** ukitzen duen edonor sakratu bihurtzen da. **Elizen arteko biblia**

opalgai iz opaltzeko gaia. ik oparigai.

Suak **opalgai** prestatzeko ziren, jakina, eta jaki sakratuz ospatzeko. **Pello Zabala**

Zerua une batez argitu egin da, sufrea bezain errainu hori batek ebakitzen du gaueko iluntasuna, **opalgaiaren** gorputza ebakiko lukeen ezpata su-jariozkoa baillitza. **Xabier Olarra**

opalkuntza iz opaltzea. ik eskaintza.

Eta zenduaren burua soildu eta garbitu ondoren urreztatu, eta semeek imajintzat erabiltzen dute urtero **opalkuntza** handiak eginez. **Patziku Perurena**

opalo iz silize mea, itxura esnekara irisatukoa, harribitxi gisa erabilia.

Hainbeste firuzeh, Elburzeko meategi entzutetsuetatik atereak, hainbeste lepoko, kornalinez, agatez, esmeraldez, **opaloez**, zafiroez bete-beteak, ezen haren blusa eta gona harribitxiz ehunduak zeudela zirudien. **Karlos Zabala**

Jasperek **opalozko** koilarea eskaini zion; Rosek urrezkoa. **Anton Garikano**

Opalozko lepoko eder baten kontra zegoen txartela irakurri zuen: Kontuz: ez ukitu. **Iñaki Mendiguren**

2 irud /hed

Kolore distirant haiek guztiak nahasten ziren batzuk besteekin, maskorren haragi tonuak legatzen **opaloekin**, berdelen nakarrak barbarinen urreekin. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan)

Merlenka kaxak, **opalo** ñirñirez beteak. **Karlos Zabala**

· Oporrak baino bi aste lehenago, bat-batean zerua argitu eta **opalo** -zuri distiratsuaen kolorea hartu zuen, eta lur-sail lokaztuak izotz dirdaitsuz estalita agertu ziren goiz batean. **Iñaki Mendiguren**

opari 1 iz eskaintza; norbaiti eskaintzen zaion gauzakia.

Opari bat erosten denean jakin behar da norentzat erosten den. **Harkaitz Cano**

Opari hauxe besterik ez diat eskatuko, berri ona emateagatik: tunika eta estalki eder bat. **Juan Kruz Igerabide**

-Opari bat ekarri dizut -esan zion hamasei urte zituela Mariak Alesi. **Jasone Osoro**

Irudiko zaie irudiak, ekialdetik sortuz, erreguak eta **opariak** egiten ari direnei begira daudela jarrita. **Santiago Iruretagoiena**

Opariak jaso, **opariak** egin, **opariak** erosi. **Pako Aristi**

Abenduaren 25ean San Nikolasek **opariak** ekartzen dizkie haurrei. **Josu Zabaleta**

Deabrueri eskaintzen zaizkie **opari** horiek, ez Jainkoari. **Elizen arteko biblia**

Opari ugari eskaini zuten Israel osoaren alde. **Elizen arteko biblia**

Elkartasun-opariko aberetik, Jaunari honako hauek aurkeztuko zaizkio, beraren ohorez erretzeko **opari** gisa: [...]. **Joanes Urkixo**

Jaunak atseginez onartuko du bere ohorez erretako **oparia**. **Elizen arteko biblia**

Esango nuke bera ere poztu dela berarentzako **opari** bat dudala jakinarazi diodanean. **Patxi Zubizarreta**

Zazpiak pasatotan aitari eta amari egunon esatera joan eta egongelara, **opariak** zabaltzera. **Josu Zabaleta**

Gure esku gosetiak **opariaren** bila abiatu ziren. **Aingeru Epaltza**

Hiru dira noski elementuok: **oparia** bera, oparigilea eta **opariaren** hartzailea. **Joxerra Garzia**

Opari ote, ala bonba geroratu bat? **Jon Muñoz**

Mikelek nekez egiten zuen aurrera **opari**en poltsekin. **Patxi Zubizarreta**

[Begiak] higatzeko zorian nituen, neskaren izter biribil arteziaz zizelatuen miran; "etxean eroso egoteko" jantziriko galtza motz-motzen **opari** bat. **Aingeru Epaltza**

Zaldia Zerua **oparia** da Ahmetentzat. **Fernando Rey**

Patu bitxi batek abiarazi zuen Gaztelako hirira, baina zorionaren **opari** gertatu zen azkenik, zoritxararen jantzia agertu arren. **Aingeru Epaltza**

Alkandora koloretsu biren **opari** egin nion nire buruari. **Edorta Jimenez**

Nagiak gainetik kentzeko beste abagune baten **opari** egin nahi diguk, orduan! **Anjel Lertxundi**

Voltigeur baten **oparia** eginen al diot neure buruari igandeetan? **Monika Etxebarria**

Opariei buruzko teoria orokor baterako lehen urratsak Eta gero, gure belaualdian hiesaren **oparia** izan genuen. **Joxerra Garzia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Edozein **opari** txikiegi da, zuretzat usain gozoko izateko. **Elizen arteko biblia**

Jan ditzake, bai, Jainkoari eskainiriko jakiak, **opari** guztiz sakratuak eta **opari** sakratuak. **Elizen arteko biblia**

Botoz aginduriko zeuen **opari** hoberenak. **Elizen arteko biblia**

Horrrela, jentilak, Espiritu Santuak sagaraturik, Jainkoarentzat **opari** atsegingarri izan daitezten. **Elizen arteko biblia**

Menelaok irribarre eta laztan egin zion: **opari** eder bat eman, eta joaten utzi zion. **Juan Kruz Igerabide**

Inoiz hartu dudak **oparirik** politena, beharbada. **Josu Zabaleta**

Opari ederra egin dit Jainkoak! **Elizen arteko biblia**

Betoz **opari** bikainak Egiptotik, dakarziola arin Etiopiak eskuerautsiak Jainkoari. **Elizen arteko biblia**

Bidegabekeriaz lortutakoa sakrifiziotzat eskaintzen duenak **opari** gaitzesgarria egiten du. **Elizen arteko biblia**

Berak ere berehala eman zion **opari** beroa Lore zintzoari. **Aitor Arana**

Plazer handia hartzen zuen bere ilobari aita-amek sekula ere eginen ez zizkieten **opari** garestiak egitean. **Aingeru Epaltza**

Aita erdi alkoholiko alde eginaren **opari** genetiko bat egokitu zitzaion tamalez. **Oskar Arana**

Beti izan zuen **opari** erreem premia, gogoeta egin zuen errabinoak Jainkoaz. **Koro Navarro**

Erosi egin nahi zidan, baina adierazi nion **opari** kuttuna nuela, eta ez nuela galdu nahi. **Juan Kruz Igerabide**

Eta orain, benetako **oparia**. **Josu Landa**

Ezkutuko **opariak** sumina baretzen du, isilkako erregaloak haserririk biziena. **Elizen arteko biblia**

Esker onezko **oparia** egin beharrean nengoan, eta gaur bete dut promesa. **Elizen arteko biblia**

3 (adizlagun gisa)

Frantzisko gaixorik zegoela, Siena konderriko handiki batek faisai bat bidali zion **opari**. **Askoren artean**

Itsas kapitain baten alaba zen, eta kapitain horrek **opari** ekarri zion Gnôr Grassiadiôri kolore guztietako papagai handi bat. **Juan Garzia**

Kaxa bat txakolin ekarki zidan **opari**. **Aingeru Epaltza**

Nire logelara itzuli eta, jakina, **opari** jasotako liburua irakurtzen hasi nintzen. **Aitor Arana**

Puska bat eransten diot **opari**. **Koro Navarro**

Hemen banaiz, ispilu bat emango diot **opari**. **Joxerra Garzia**

200.000tik gora ale ekarriak handiak, eta Kleopatari eman zizkion **opari**. Jon Muñoz

Nik eman al nizun hau **opari**, Cecily? Antton Olano

Lur puska bat badiat, erregek **opari** emana. Aingeru Epaltza

Hil zuten zekorra **opari** eskaintzeko, eta haurra Eliri eraman zioten. Elizen arteko biblia

Salomon erregeak eta [...] israeldar batzar osoak ezin zenbatu ahalako ardi eta idi-multzoz handia eskaini zuten **opari**. Elizen arteko biblia

Ni neu, neure bizia **opari** eskaintzeko zorian nago. Elizen arteko biblia

Bere burua **opari** eskaini zuenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Agian gogorazazi al dizute zuk egun batean horrelako arrosak **opari** eskaini zenizkion neska? Eduardo Matauko

Isaak **opari** eskainia. Elizen arteko biblia

Rosa de Winter herriz herri ibili zen ahul zenari adore emanez, etsian zenari itxaropena ekarriz, ilun bizi zenari argia **opari** banatuz. Felipe Juaristi

· Senideok, Jainkoaren maitasunagatik eskatzen dizuet eskaini ditzazuela zeuen buruak **opari** bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri. Elizen arteko biblia

Martiritzaren sutan bere burua Jaunari **opari** bizi eskaini nahi zion. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ardoa bezala isuriko dute etsaien odola, ixipuz-ontzi beteetatik aldare-ertzetan behera jaisten den **opari**-odola bezala. Elizen arteko biblia

Opari paperez bildutako ardo biek ateratzen dutena. Iban Zaldúa

Ameliaz ez baitzuen ireki nahi ere izan [...] kolore zuriko kamisoi luze-luzea gordetzen zuen **opari**-kutxa. Josetxo Azkona

Azken asteotan Habanako **opari**-dendak Raimundo Nick Valdibiaren postalez bete dira. Pako Aristi

Izan ere, zerbait badira **opari**-festa baitira gaur eguberriak. Joxerra Garzia

Hirian sartu eta berehala aurkituko duzue, **opari**-otodurako muinora igo dadin baino lehen. Elizen arteko biblia

Berxebara iritsi zenean, **opari**-eskaintza egin zion bera aita Isaaken Jainkoari. Jose Antonio Mujika

Bazter orotatik zetozen gizonak Enpedoklesenganantz, besoak **opari**-eskaintzaz zamaturik. Juan Garzia

Jai eta beste egun jakinetan egin ohi ditugun **opari**-eskaintze eta otoitzetan. Elizen arteko biblia

Arratsaldeko **opari**-garaiari atera nintzen nahigabealditik. Elizen arteko biblia

· **Opari** hartzaileen sailkapen taxuzko batek. Joxerra Garzia

Ez zuen horrelako detailerik espero, eta luze eskertu zion **opari**-egileari. Jon Alonso

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egongelan bildutako gai haietako batzuk eztei-**opariak** ziren. Mirentxu Larrañaga

Esaidak hire izena, harrera-**opari** bat egingo diat eta. Juan Kruz Igerabide

Ivanekin gogoratu da, noski, hura izan baitzen Ivanek egin zion agur-**oparia**. Discman more hura, Sony markakoa. Iban Zaldúa

Pentsatu nuen ez zela kalterako izango hari bake-**opari** gehigarri bat igortzea asteartean idatzia nion gutunaren jarraipen gisara. Oskar Arana

Biok eskainiko diagu urtebetze **opari** eder bat. Aitor Arana

Zazpi urte oparoetan uzta **oparia** eman zuen lurrak. Jose Antonio Mujika

Jauregitik irten zen Urias, eta errege-**opari** batek jarraitu zion ondotik. Jose Antonio Mujika

Jainko-**opari** hau gizakiak askatasunean bizia eta Jainkoa aukeratzeko erabil dezake. Iñaki Mendiguren

Berriro entzungo dira poz-alaitasunezko oihuak eta senar-emaztegaien kantuak, berriro entzungo tenplura gorespen-**opariak** ekarriz kantatuko duten hau. Elizen arteko biblia

Pazko Jaiko zazpi egunetan bezala jokatu du printzeak, barkamen-**opari**, erre-opari eta labore- eta olio-**opari** berdinak eginez. Elizen arteko biblia

Beroni dagokio israeldarren bekatuen barkamen-ohikunea egitea, barkamen-**opari**, labore-**opari**, erre-**opari** eta elkartasun-**opariak** eskainiz. Elizen arteko biblia

Biak egun berean igaro ziren Jaunarengana, andrea goizean eta senarra arratsaldean, goiz **opari** bezala bata, arrats-**opari** bezala bestea. Askoren artean

Erregina Katalinaren senarrak gure aitaxiri egin jaiotze-**opari** berak egin zizkidan niri erregina Joanarenak: axolagabekeria eta ahanztura. Aingeru Epaltza

6 erre-opari

Erre-opari bat egin nahi baduzu, eskaini iezaiozu Jaunari. Jose Antonio Mujika

Gogora bitza zure eskaintza guztiak / eta onar atseginez zure **erre-oparia**! Askoren artean

Jaunarentzako **erre-oparizat** hirurogeita hamar zezen, ehun ahari eta berrehun bildots eskaini zituzten. Elizen arteko biblia

Erre-oparitako hainbeste abere larutzeko aski apaiz ez zegoenez, beren lankide lebitarrek lagundu behar izan zieten lan guztia bukatzen. hor dituzu idiak **erre-oparitarako**, eultzia eta idien uztarría egurretarako. Elizen arteko biblia

Urtean hiru bider Salomonek **erre-opariak** eta bake-opariak eskaini ohi zituen Jaunarentzat eraikia zuen aldarearen gainean, Urtean hiru bider Salomonek **erre-opariak** eta bake-opariak eskaini ohi zituen Jaunarentzat eraikia zuen aldarearen gainean. Elizen arteko biblia

Urrea arragoan bezala garbitu zituen, eta **erre-opari** bezala onartu. Joan Mari Lekuona

Ez al zuten haiek jaten **erre-oparietako** gantza, eta edaten isur-oparietako ardoa? Jose Antonio Mujika

7 eskain-opari

Israel herri, basamortuan berrogei urtez ez zenidan sakrifiziorik, ez **eskain-oparirik** egin. Elizen arteko biblia

Aldare gainera ekartzen dizkidazuen erre-opariak eta **eskain-opariak** ez ditut atsegin, eta zekor gizenen elkartasun-opariei bizkarra ematen diet. Elizen arteko biblia

Erabil ezazu arretaz diru hori, zezenak, ahariak, bildotsak eta **eskain-opari** eta isur-oparietarako behar den guztia erosteko, eta eskaini itzazu Jerusalemgo Jainkoaren etxeko aldarean. Elizen arteko biblia

8 hil-opari

Han, Perimedesek eta Eurilokok **hil-opariei** eusten zieten bitartean [...]. Juan Kruz Igerabide

Sartu lurrean arrauna, eskaini **hil-opariak** Poseidoni, etxera itzuli, eta egin opariak jainkoei. Juan Kruz Igerabide

9 isur-opari

Debekatua zuten juduek tenpluan erre-opariak, sakrifizioak eta **isur-opariak** eskaintzea. Elizen arteko biblia

Gainera, aker bat barkamen-oparitarako, eguneroko erre-opari eta berauei dagozkien labore- eta **isur-opariekin**. Elizen arteko biblia

Oparigaiet **isur-opari** hauek dagozkie: zekor bakoitzari hiru litro ardo, ahariari bi litro eta arkume bakoitzari litro eta erdi. Elizen arteko biblia

Egin azpilak, erretiluak, pitxerrak eta katiluak, **isur-oparietarako**. Elizen arteko biblia

Bete egin behar omen dituzue, zeruko erreginari intsentsua erre eta **isur-opariak** eskaintzeko hitz emandako botoak. Elizen arteko biblia

Ez al zuten haiek jaten erre-oparietako gantza, eta edaten **isur-oparietako** ardoa? Jose Antonio Mujika

10 opari egin ik oparitu.

Egin diezaigun **opari**. Juan Kruz Igerabide

Opari egin zizkidaan, duela urte batzuk. Jon Muñoz

Kontsolatzeko, matematika-liburu ospetsua **opari egin** zion aitak. Jon Muñoz

Nofuturak, hala eta guztiz ere, ezagutu egin zituen, eta bikie festatxo xume bat **egin** zien **opari**. Jon Muñoz

Berak itzultitako liburu bat **egiten** dit **opari**. Edorta Jimenez

Liburua Urrutia batek **opari egindako** argazki-album harrigarria da. Edorta Jimenez

Hirugarren gau bat ere **opari egin** zenidan. Eduardo Matauko

Katiak **opari egindako** berokia jantzi zuen jakaren gainetik. **Felipe Juaristi**
Cat of Year, urtero katurik jatorrenari **opari egiten** dioten saria. **Gotzon Garate**

11 ordain opari ik ordain 13.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barkamen opari (4); **egin zion opari** (4); **egindako opari** (5); **eguneroko erre opari** (8); **eman zion opari** (4); **erre opari** (47); **erre opari gisa** (4); **isur opari** (5); **labore opari** (13)

opari atsegingarri (4); **opari bat egin** (12); **opari bat ekarri** (6); **opari bat eman** (6); **opari bikaina** (6)

opari eder (15); **opari eder bat** (8); **opari ederra** (14); **opari ederra egin** (5); **opari ederrak** (4); **opari egin** (21); **opari egindako** (4); **opari egitea** (5); **opari ekarri** (4); **opari eman** (13); **opari eskaini** (14); **opari eskaintzeko** (4); **opari gisa eskaintzeko** (4)

opari ona (4); **opari polita** (6); **opari sakratuak** (8)

urtebetetzeko opari (4); **zeruaren opari** (7)

barkamen oparia (17); **barkamen oparia da** (5); **egindako oparia** (8); **elkartasun oparia** (5); **erre oparia** (36); **erre oparia eskaini** (4); **erretako oparia** (17); **gorespen oparia** (4); **labore oparia** (16); **onartzen duen oparia** (9)

oparia egin (18); **oparia egiten** (8); **oparia eskaini** (18); **oparia eskainiko** (6); **oparia eskaintzeko** (14); **oparia eskaintzen** (14); **oparia eskaintzera** (10); **oparia eskertu** (4); **oparia jaso** (10); **oparia jaso zuen** (5)

ordain oparia (7)

bake opariak (6); **elkartasun opariak** (21); **elkartasun opariak eskaini** (6); **erre opariak** (74); **erre opariak eskaini** (16); **erre opariak eskaintzeko** (6); **erre opariak eskaintzen** (4); **isur opariak** (21); **labore opariak** (14)

opariak banatu (4); **opariak egin** (16); **opariak eginez** (6); **opariak egiteko** (7); **opariak egiten** (14); **opariak eman** (5); **opariak eraman** (4); **opariak erosi** (6); **opariak eskaini** (49); **opariak eskaini zizkioten** (10); **opariak eskainiko** (6); **opariak eskainiz** (10); **opariak eskaintzea** (6); **opariak eskaintzeko** (17); **opariak eskaintzen** (22); **opariak eskaintzera** (11); **opariak eta intsentsua** (4); **opariak eta sakrifizioak** (7); **opariak jaso** (4)

opariaren bila (4)

isur opariekin (8); **isur opariekin batera** (4)

erre oparien (23); **erre oparien aldare** (5); **erre oparien aldarea** (7); **oparien eskaintza** (4)

erre oparietako abereak (4)

erre oparietarako (7); **isur oparietarako** (5)

elkartasun oparietatik (4)

isur opariez gain (5)

barkamen opariko (9); **elkartasun opariko** (8); **ordain opariko** (4)

barkamen oparirako (13); **barkamen oparirako zekorra** (4); **erre oparirako** (11)

erre oparirik (6); **oparirik ederrena** (7); **oparirik onena** (7)

barkamen oparitarako (10); **erre oparitarako** (8); **erre oparitarako abereak** (5); **oparitarako abereak** (8); **oparitarako egurra** (4)

barkamen oparitzat (27); **elkartasun oparitzat** (10); **erre oparitzat** (42); **erre oparitzat eskaini** (9); **erre oparitzat eskainiko** (7); **isur oparitzat** (4); **labore oparitzat** (12); **oparitzat eskaini** (19); **oparitzat eskaini zuen** (5); **oparitzat eskainiko** (12); **oparitzat eskainitako** (6); **oparitzat eskaintzeko** (5); **ordain oparitzat** (9)

oparialdi iz oparien aldia.

Migelek ez zion mozkin handirik atera hiriko **oparialdiari**. **Aingeru Epaltza**

oparigai 1 iz opari egiteko gaia. ik eskaingai.

Oparigai bakoitzari, dagozkion labore- eta isur-opariak erantsiko dizkiozue, arautua dagoenez. **Elizen arteko biblia**

Oparigaia aharia bada, bi litro oliotan oraturiko zortzi kilo irin eskainiko ditu labore-oparitzat. **Elizen arteko biblia**

Oparigaiei isur-opari hauek dagozkie: zekor bakoitzari hiru litro ardo, ahariari bi litro eta arkume bakoitzari litro eta erdi. **Elizen arteko biblia**

Hona hemen aldareari buruzko arauak, sakrifizioak eskaini eta **oparigaien** odola isurtzeko eraikiko den egunerako. **Elizen arteko biblia**

Oparigaia erre bitartean, apaizek otoitz egin zuten. **Elizen arteko biblia**

Oparigaia jan, opaldua izan den egunean eta biharamunean jango duzue. **Elizen arteko biblia**

Oparia eskaintzen zuen egunean, Elkanak bere emazte Peninari eta honen seme-alaba guztiei **oparigaia**ren zati bana eman ohi zien. **Elizen arteko biblia**

2 biktima.

Hatsarekin batean zango-besoak moztu diozkatala, bere kargua utzi du Bidarraiko Laboratorioaren **oparigai** (victime du "Laboratoire"). **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bete urez lau ontzi eta isuri erre-**oparigai** eta egurraren gainera. **Elizen arteko biblia**

Ekarzidazue erre- eta bake-**oparigaia**. **Elizen arteko biblia**

-Zergatik ez duzue barkamen-**oparigaia** toki sakratuan jan? **Elizen arteko biblia**

Gero, apaizak ordain-**oparigaia**ren odola hartu eta garbitu behar duenaren eskuineko belarria eta eskuin eskuko eta eskuin oineko erpuurak igurtziko ditu. **Elizen arteko biblia**

Gantz guztiak aldarean erreko ditu, elkartasun-**oparigaia**ren gantzak bezala. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barkamen oparigaia (3); **erre oparigaia** (5)

oparigaia erre (4)

oparigaia gantzak (3)

oparigile iz opari egiten duen pertsona.

Hiru dira noski elementuok: oparia bera, **oparigilea** eta opariaren hartzailea. **Joxerra Garzia**

Opariak egiten zizkioten, baina berak ez zien ezer doarik ematen, eta, batzuetan, jasoriko oparia gorde, eta **oparigileari** berari saltzen zion geroago. **Jose Morales**

Asmoak, **oparigilearen** asmoak egiten du opari bat handi edo txiki, egoki edo desegoki, on edo txar. **Joxerra Garzia**

Opariak mutu dira (gehienak, behintzat), baina asko eta asko esaten digute **oparigileari** buruz. **Joxerra Garzia**

Opariak **oparigilea** salatzen badu, azken asteetako igoeren atzean burtsa iruzurgile bat egon liteke. **Berria - Ekonomia**

oparigintza iz opariak egitea.

Giza naturari berez-berez darion joera da opariak egitearena, eta asko ikas liteke **oparigintzatik**, behar bezala erreparatuz gero. **Joxerra Garzia**

Orain arteko teoriak oparian edo opariaren hartzailearengan zentratu izan dira, eta horixe izango da nire ekarpena: **oparigintza** oparigilearen ikuspegitik aztertzea. **Joxerra Garzia**

Oparigintzari buruzko liburua izango denez, ez nuke salgai jarri nahi: opari ematea nahi nuke, eta hala proposatuko diet editoreei. **Joxerra Garzia**

oparimindu, oparimin, oparimintzen du *ad* adkor opari egin.

Apartamentuko mahai kantoian, bideko ikuskizunak hatz bilakaturik geratu nintzen lo ezin, asean eta barnez nahikoa hunkitua: desiraren gaueko erakustaldiek, debaldeko bilkuren ondotiko bakardadearen izaria **oparimintzen** zidaten. **Itxaro Borda**

opariño *iz* adkor oparia.

Karia hortarat, **opariño** bat ukan du zintzurrean gelditua zaiona, jakin-arazi baitiote auziperatua izaiteko irrisku handian dela. **Herria**

oparitu, opari(tu), oparitzen 1 du *ad* opari egin.

Ez dago gizonik bere askatasun zatia, on publikoaren mesedetan, doan **oparitu** duenik. **Juan Martin Elexpuru**

Beraz, denbora **oparitzea** bizitza **oparitzea** da. **Ana Urkiza**

Klubak liburu zoragarri bat **oparitu** dit, Nederlandar sagak eta elezaharrak. **Josu Zabaleta**

Pistola seinalatu nion: "Nik uste nuen hemezortzi urte betetzearan **oparituko** zizula aitak". **Bernardo Atxaga**

Varaderon Wilsonek **oparitutako** koralezko koilarea ipini duzula gaur goizean. **Eider Rodríguez**

Margoti eta niri paparreko orratz bana **oparitu** digu, zentimo bateko txanpon bat ongi apaindu eta distiraraziz egina. **Josu Zabaleta**

Zer gustatuko litzaizuke **oparitzea** nik? **Eskarne Mujika**

Emazteak bizkarrez, zango artea zabalik, alua **oparitzen** zion, hasperen eta auhenka. **Itxaro Borda**

Felicitasek bere lehen irri murrizta **oparitu** zidan, kukuka, bere ezpain artetik. **Aingeru Epaltza**

Oparituko al didak esaldi hori poema baterako? **Bernardo Atxaga**

Maitasunaren esperantza konplizitatean hasten den jakitun, ez zidan konpliziterik **oparitu** nahi. **Harkaitz Cano**

Ondotik, askaria **oparitua** izanen da jende guzietan. **Herria**

2 ipar

Olentzerok bere aldetik **oparitu** zituen haur guziak bedera bedera. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitak **oparitu** (4); eraztuna **oparitu** (3); liburu bat **oparitu** (6); liburu **oparitu** (5); liburu **oparitu** zidan (3)

oparitu berri (3)

urtebetetze egunean **oparitu** (3)

aitak **oparitutako** (3); **elsbeth** **oparitutako** (4)

oparitxo *iz* opari txikia.

Irailean nire urtebetetze-eguna da, eta gurasoek diru pixka bat eman didate aldeztu aurretik **oparitxoren** bat erosteko. **Iñaki Mendiguren**

Magistratuek begiko zuten eta **oparitxoak** egiten zizkieten noiz edo noiz. **Jose Morales**

Gozokiak eta beste **oparitxoak** emango zizkiola esanez sartzen zen haurra barruan. **Gotzon Garate**

Baina hitzematen dizuet hurrengoan **oparitxo** bana ekarriko dizuedala, huts egin gabe. **Jose Morales**

Batzuetan bizitzak badaki gaurkoa bezalako **oparitxoak** egiten. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

oparitxoak egiten (4)

opariztatu, oparizta, oparizatzen du *ad* opariz bete.

Gehienek horixe uste dute eta, tristerik, sakrifizio-harriak odoleztatzen dituzte eta aldareak **oparizatzen**, emazteak semen ugariz haundun uzteko; alferrik ekiten diete jainkoen ahalarri eta orakuluei. **Xabier Amuriza**

oparo 1 *adlag* ugaritasunez, zikoizkeriarik gabe; oparotasunean.

Oparo gosaldun odoren, abian jarri ziren hirurak Pavel Ivanovitxen kalesan. **Jose Morales**

Izan kontuan urri ereiten duenak urri biltzen duela, eta **oparo** ereiten duenak bildu ere **oparo** biltzen. **Elizen arteko biblia**

Zazpi urte **oparo** haietan uzta ugaria eman zuen lurrak. **Elizen arteko biblia**

Paris **oparo**, mardul, elikagaiz gainezka ageri zitzaion ilunpetan ezkutaturik. **Karlos Zabala**

Arrapaladan eta **oparo** hitz egin zuen, hitzak ahoan gorde ezinik. **Anjel Lertxundi**

Hogeigarreneko hamarraldiko frantses zinema-eskolak, eskola "inpresionista" deituak, **oparo** erabili zituen efektu horiek. **Josu Zabaleta**

Bildots garbiaren odolak, bost zaurietatik **oparo** isuriak, munduko bekatuak garbitu zitueneko misterioa. **Askoren artean**

Oparo eskertuko nitek. **Juan Kruz Igerabide**

Gurinari erreximenta gehitu nion, **oparo**. **Aingeru Epaltza**

Grazia eta bakea **oparo** zuei! **Elizen arteko biblia**

Ura gainezka haien suiletan, soroak urez **oparo**. **Elizen arteko biblia**

Hantxe zenbait mahai handi prestatuta zeuden, era ikusgarriaz homiturik eta portzelana baliosez eta urrezko baxeraz **oparo-oparo** beterik. **Karlos Zabala**

Nire kontra gogor estutu, eta emateko, emateko niri berak hain **oparo** zuenetik. **Anjel Lertxundi**

2 *izond* dagokiona edo berezkoa ugari duena; ona eta ugaria; oparotasunez ematen duena.

Hemen sortu eta helduko dira fruitu **oparo** eta gozagarriak. **Joan Mari Lekuona**

Afari-merienda **oparo** baten hondarrak. **Aingeru Epaltza**

Festa eta otordu **oparoak** berrehun lagunentzat, hegazkin pribatuak eta txoferrek gidatutako autoak. **Oskar Arana**

Eskote zabala eta gona motz-motza jantzen zituen bular **oparoak** eta aldaka biribilak agerian uzteko. **Migel Angel Mintegi**

Gustatzen zitzaidan ipurdi-mazela **oparo** haiek ene sabelpe gosetiaren jo-mugatatzat sentitzea. **Itxaro Borda**

Zure gorputz **oparoan** galtzea desiratu nuen. **Eider Rodríguez**

Jainkoa gizakia baino eskuzabalago denez, erregea baino mahai **oparoagotik** janaritzen da behartsua. **Askoren artean**

Lurralde **oparoa** da, erreka, iturriz eta ibar eta mendian sorturiko iturburuz hornitua. **Elizen arteko biblia**

Eguraldia betiere ilun, euri **oparoagoen** iragarle. **Bego Montorio**

Portuaren grialdean, leizezulo batetik iturri **oparo** bat dator, eta inguruko lertxunak daude. **Juan Kruz Igerabide**
Gotzon Garate elgoibartar jesuita eta idazle **oparoak** du aurtengo sari nagusia eskuratuko. **Herria**
Bouvilleko bizimoduaren eta atmosferen deskripzioak **oparoak** eta borobilak dira. eskale haiek guztiek kontu-korrante **oparoak** zituzten bankuetan. **Monika Etxebarria**
Langile ixila baina nekagaitza, emaitzetan **oparoa**. **Herria**
Diru-laguntza **oparoa** helarazten zion. **Jose Morales**
Bizitzen jarraitzeko nire grinak gutxi zuen zorotik, are gutxiago etorkizun **oparogo** baten ametsetik. **Anjel Lertxundi**
Ideia horrek ezagutzaren eta burmuinaren inguruan ikerketabide **oparoa** ireki du. **Askoren artean**
Oinaze barbaroak, gogorkeria **oparo** bezain zentzugabeak, frogatu gabeko edo ustezko delituak. **Juan Martin Elexpuru**

3 (izenondo elkartuetan)

Bular alde handi- **oparoa**, itxiturazko gotorleku hertsietatik aske, apalki hondoratua zuen galtzarbepean. **Mirentxu Larrañaga**

4 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa) oparotasuna.

Fruituen **oparoa** eta margo leuna hilabete honek ateratzen du. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizitza oparo (3); **esnea oparo** (4); **gosari oparo** (3); **idazle oparo** (3); **iturri oparo** (6)
oparo bedeinkatuko (4); **oparo bete** (3); **oparo bizi** (4); **oparo eman** (7); **oparo emango** (3); **oparo ematen** (6); **oparo erabili** (3); **oparo eskaintzen** (3); **oparo isuri** (4); **oparo izan** (4)
urte oparo (3); **uztail oparo** (5)
bide oparoa (3); **bizitza oparoa** (3); **bularralde oparoa** (3); **egitarau oparoa** (5)
egoera oparoa (3); **eskaintza oparoa** (4); **etorkizun oparoa** (29); **etorkizun oparoa du** (3); **etorkizun oparoa iragarri** (3); **etorkizun oparoa izan** (3); **fruitu oparoa** (3); **gosari oparoa** (4); **guztiz oparoa** (3); **hain oparoa** (3); **hitz jario oparoa** (3)
ibilbide oparoa (21); **ibilbide oparoa egin** (5); **idazle oparoa** (8); **ile oparoa** (3); **isuri oparoa** (3); **iturri oparoa** (12); **iturri oparoa izan** (4); **jario oparoa** (3); **lan oparoa** (6); **luze eta oparoa** (7)
oso oparoa (6); **oso oparoa izan** (4); **otordu oparoa** (3)
urte oparoa (10); **urte oparoa izan** (6); **uzta oparoa** (6)
ezin oparogoa (4)
bular oparoak (6); **fruitu oparoak** (3); **garai oparoak** (4); **urte oparoak** (4); **uzta oparoak** (3)
bular oparoen (5)
garairik oparoena (4)

oparoaldi iz oparotasunezko aldia.

Laneko arropak ere -haren neurri urria errenditutako traje italiarra- eta betaurreko beti lodi baina ez bertzorduz bezain handien diseinu garestiak salatzen zuten **oparoaldia**.
Aingeru Epaltza

Egun hartan, erori egingo zaizu Asiriaren zama bizkarretik eta haren uztarrria lepotik; **oparoaldia** izango duzu ondoren. **Elizen arteko biblia**

Esaterako, ekonomiak izan dezake, **oparoalditik** ekarria, gehiegizko ekoizpen ahalmena. **Iñaki Heras**

Bistakoa denez, **oparoaldi** ekonomikoa handia izan den arren, aldeak ez dira murriztu, areagotu baizik. **Iñaki Heras**

oparoki adlag oparo.

Artzaina isildu zen, kea **oparoki** hatsartzeko. **Itxaro Borda**

Fite eta **oparoki** luzatu zen orduko afera politiko estataletara, astea barne beharra baitzen iragan presidentearen bozka moldeari buruzko erreferenduma. **Herria**

oparotasun 1 iz oparoa denaren edo oparo ematen duenaren nolakotasuna. ik ugaritasun.

Eskuzabalak **oparotasuna** izango du. **Elizen arteko biblia**

Oparotasun hark ez zuen eskuzabaltasuna iduri, kontrakoa baizik. **Monika Etxebarria**

Amaltearen adarretik **oparotasuna** atera ahal izateko, nekazari tradizional haiek iraultza egin beharko zuten lurra lantzeko eta lurren jabetzako metodo tradizionalan.
Iñaki Mendiguren

Ipin bitza, halaber, begiraleak, Egiptoko lurraldea eskualdetan banatu eta urte onetako **oparotasuna** ondo kudea dezaten. **Jose Antonio Mujika**

Haiena da galera, gurea **oparotasuna**. **Berria - Kultura**

Mendebaldeko edo mendebaldarturiko elitea, **oparotasuna** bere buru-argitasun eta aurreikuspenari zor diena, zergatik zigortu nekazarien aurreikuspenik gabeko kontinentziarik eza ordaintzera? **Iñaki Mendiguren**

Ez dago **oparotasunik** aguazilik, poliziarik, epailerik eta presondegirik gabe. **Esteban Antxustegi**

Aulo Geliok [...] diosku bere denboran Lege Vokoniarra ia deuseztatuta zegoela; hiriaren **oparotasunak** estalita. **Iñaki Iñurrieta**

Parkearen **oparotasunari** so gelditu zen atarian une batez. **Berria - Kultura**

Neskato baten soinaren **oparotasuna** ez da hura begietsiz edo haren ondoan higitu gabe etzanez ezagut daitekeen zerbait. **Ibon Urbarri**

1795ean argitaratuko ditu *Juliette edo bizioaren oparotasunak*, eta *Filosofia apaingelan*. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hastapenean ez zen **oparotasunean** ibili, baina negozio arrakastatsuak izan zituen Lehen Mundu Gerran. **Patxi Zubizarreta**

Semeak halaxe egin zuen bere ondorengoekin ere, eta denak sekretupean eta zorionean, zorionean eta **oparotasunean** bizi izan ziren. **Patxi Zubizarreta**

Txinak, baina baita Birmaniak ere, Siamek, Vietnamek, eta, neurri txikiagoan, Koreak, XVIII. mendean, **oparotasunezko** aldi bat bizi izan zuten, eta, zenbaitetan, hedapenezkoa. **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Estatu Batuetako iparraldeko hiritarrak jabetzen ziren haien **oparotasun** ekonomikoan ez zutela parterik hegoaldeko herri-kideek. **Iñaki Mendiguren**

Fidantzia dugu, jaunok, ezen, zuen argietan eta herriaren sentimendu kontserbadoreetan oinarri harturik, egunez egun **oparotasun** publikoa handitzea lortuko dugula.
Karlos Zabala

Egunak bare igarotzen ziren egurats koipetsu hartan, **oparotasun** geldo haren erdian. **Karlos Zabala**

Burtsek beren logikaz egiten dutela bidea [...] nolabaiteko **"oparotasun** irrationala" gidari dutela. **Iñaki Heras**

Opariak egin, dantzaldiak antolatu, **oparotasun** onuragarria sortu, maisuek eta eskulangileek eguneroko ogia irabazteko modua izan dezaten. **Jose Morales**

Ingurune espirituali gogorra, **oparotasun** materialak arimaren nahiak itotzen dituenekoa izango litzateke. **Iñaki Mendiguren**

Batzuek **oparotasun** neurrigabea, eta milioika gizaki pobrezia gorrian. **Iñaki Heras**

Amerikako errealitatearen **oparotasun** neurritz gainera zuzen eta zehatz adierazteko. **Berria - Kultura**

Bestalde, **oparotasun** lexiko handia du japonierak. **Ibon Urbarri**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hornigold bulartsua, benetako **oparotasun** -adar urez bete! **Juan Garzia**

Hari esker bolada baterako **oparotasun** egoera ziurtatu zuen. Jon Arretxe

EB, jatorrian, bake eta **oparotasun** egitasmo modura sortu zen, azken finean, estatuek mugarik ez izateko eta gatazka gehiago sortzea eragozteko. Berria - Euskal Herria

Ondo jantzitako bi gizonetzko ziren, sendokoteak eta buru-iritziak, eta **oparotasun** -arnasa bat ekarri zuten lagunarte hartara. Irene Aldasoro

Zetozen gabezi urteetarako **oparotasun** -urteetan horniketa egitea. Iñaki Mendiguren

Oparotasun -denboran oroituko gosealdiaz; aberastasun-egunetan, pobreziaz eta lazeriaz. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina mundu-**oparotasunaren** miasmak, masa lelotzen duenak, ongi eragin lezake mundu honetako xarrei buruzko mesfidantza arima espiritualki sentibera eta kementsuetan. Iñaki Mendiguren

Grazi **oparotasunez**, gauza guztien Jaun txit gozo eta barearen aurrean egoteko. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oparotasunean bizi (4)

oparotu, oparo(tu), oparotzen du *ad* oparo edo oparoago bihurtu.

Eta noski, hortaz tximistorratzaren abildadeak ere azkartu eta **oparotu** behar izan dira azken urteotan. Pello Zabala

Gerora, tenporak hedatzen joan zireneko sasoi horretan etorriko zen liturgia ospakizunaren zabalte eta **oparatzea** ere. Pello Zabala

opatu, opa, opatzen 1 dio *ad* opa izan.

Zorte on!, **opatu** zidan irriño adeitsu batez, baina ez zen jaiki. Anjel Lertxundi

Zorte ona **opatzea** besterik ez zait geratzen, orduan. Harkaitz Cano

Edalontzi erdi-beteekin topa egin genuenean, lvyk, zutik, bidaia ona **opatu** zidan eta, batez ere, bizitza zoriontsua. Joxe Austin Arrieta

Antioke errege eta buruzagiak bere hiritar dituen judu prestuei agurrik beroena, osasuna eta ongizatea **opatuz**. Elizen arteko biblia

Goizero-goizero, eskaileretan pausoak entzuten nituenean, amarenak izango zirela espero izaten nuen, egun onak **opatzera** zetorrela, eta jendetasunez agurtzen nuen, egiaz pozten bainintzen begi onez begiratzen zidalako. Josu Zabaleta

Afaldu ostean, Wilmarth andereñoak gau on **opatu** zien gonbidatu guztiei eta haien buru-gurtzeak eta "Gau on, Wilmarth andereñoa!" agur-hitzak onartu zituen ordainetan. Mirentxu Larrañaga

Begira, deitu nizun bakarrik sentitzen nintzelako, lanean ari ote zinen jakinminez nengoelako, zuk niri senda nendin **opatzea** nahi nuelako. Jon Alonso

Bikote guztiei **opatuko** nieke horrelako esperientzia bat izatea, amodioa, benetako amodioa zer den ikus dezaten. Patxi Zubizarreta

Niri, berriz, begi klixkarik ere ez zidan **opatu** handik kanporatzean. Aingeru Epaltza

Une batez, heriotza desiratu eta **opatzeraino** gorroto izan nuen nire gainekoa. Joxan Elozegi

2 eskaini. ik opaldu.

Herrialde haiek izartegia eta beste izaki asko jainkozkotzat zeduzkaten eta berari astearen egun bat -osteguna- **opatu** zioten; euskaldunek, aldiz, egun bera eskaini zioten. Pello Zabala

Egunoro zenbakiak eta kopuruak kopiatzen hamar ordu ematen zituzten kontulariak handitasun eta misteriorik gabeko jainko baten aldrean sakrifizioan **opaturiko** biktimak ziren nire begietan. Joxan Elozegi

Berehala ulertu genuen sakrifizioan **opatua** izango zela, gizenaren gose kartagotarra asetzeko. Joxan Elozegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zorte ona opatu (6); **zortetik onena opatu** (3)

opazitate *iz* opakutasuna.

Hau tristura, nekez sinets liteke gardentasun eta garbitasun horiek guztiak, azken finean, erabateko **opazitatearen** azala baizik ez izatea. Jon Alonso

open 1 *iz* maila guztietako kirolariak onartzen dituen kirol norgehiagoka. ikireki³. (tenisean)

laz Serenak berak irabazi zuen Australiako **Opena**, eta baita haren ondoren jokaturako grand slam-eko beste hiru torneokoak ere. Berria - Kirola

US **Open** txapelketa hasiko da aste honetan. Berria - Kirola

Horiek dira US **Openeko** finalerdietarako sailkatu diren tenisleriak. Berria - Kirola

Etoko tenisleriak indartsu US **Openean**. Berria - Kirola

Bestalde, Euskadiko **Openaren** irabazle Patxi Ciak sukarra zuen, eta bosgarren postutik ezin izan zuen gora egin. Berria - Kirola

2 (pilotan)

Badiola III.a eta Larraia aurrera Nafarroako Lau t'erdiko **Openean**. Berria - Kirola

Huna beraz partida hunekin hasiko dela Sant-Andreseko trinketean aurtengo **Open** xapelgoa. Herria

Open pilota lehiaketa Gantxiki trinketan. Herria

Pariseko trinketean jokatu da pilotarien nazioarteko **open** berezia, *Hitzekoa* batasunak muntatzen duena. Herria

Dermit eta Sorhuet-Ezcurra II, beste **Open** partida batekin. Herria

Joanden hilabete hastetsuan oraino Parisen ikusia ginuen hango trinketean muntatu **Open** Lehiaketaren karietarat. Herria

open-market *iz* merkatu irekia.

Merkatu irekiko eragiketak eginez (**open**-merket eragiketak, alegia, zor publikoa erosiz edo salduz). Iñaki Heras

opera¹ 1 *iz* musikaz erabat hornituriko antzerki lana; lan horiek osatzen duten generoa.

Opera hasi baino bost minutu lehenago eskatu zien ahots gozo batek bozgorailutik, arren, itzaltzeko telefonoak. Imanol Zurutuza

Hamahiru urte zituela ekin zion lan zailagoak sortzeari; esaterako, musika adituak txundituta utzi zituen ekitaldi biko **opera**: *Los esclavos felices*. Berria - Harian

Opera bat idatzi zuen, musika eta guzti. Fernando Rey

Orobat esan zion bigarrenez ere ikusi ahal izango zutela *Madama Butterfly*, Pucciniren **opera**, lehenago ere malkoak isururaziak zizkiona. Imanol Zurutuza

Wagnerrek **opera** oinarri hartu zuen bere **opera** batzuetarako. **Alberto Ladrón Arana**

'Tristan eta Isolda' **opera** muntatzen. **Berria - Kultura**

Gero, egun batean, haren telegrama jaso nuen; **operako** libreto baten antzekoa zen: arranditsua, hutsalaren hutsalez arriskutsua, eta gezurtia. **Ander Irizar**

Mozarten Don Giovanni **operako** zati solteak jo eta jo. **Felipe Juaristi**

Tina Gorinak ere sekulako lana egin zuen *La Sonnambula* **operako** ariekin. **Berria - Kultura**

Lyongo **Operako** Baletak ere eskainiko du emankizun bat. **Berria - Kultura**

Haiek batera, **opera**, musika klasikoa, zarzuela eta dantza eskainiko ditu auditoriumak. **Berria - Kultura**

Asko gustatzen zitzaion **opera** osaba Xabierri, askotan joaten zen Bilbora gure aitona eta izebekin Arriaga teatrora. **Mikel Hernandez Abaitua**

Opera ez dut biziki maite; "ronflant" kausitzen dut hori. **Menane Oxandabaratx**

Ez dut maite homosexual ez eta **operaz** futitzen den jendea. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren **opera** maiteenaren libretoa, Aristofanesez idatzia, laburra da, simplea eta eraginkorra. **Xabier Olarra**

Saforen azkentzea izeneko **opera** dramatiko konposatu zuen. **Felipe Juaristi**

"Ernestine" **opera** komikoa (1777), ikusleek gogor gaitzetsitako libretoa. **Jon Muñoz**

Niretzat Rossiniren lanik onenak **opera** serioak dira. **Berria - Kultura**

Opera bufoa da, eta, estilo horri segika, hiru pertsonaia asmatu ditut, hiru satiro. **Berria - Kultura**

Opera Inperialako zuzendaria. **Matías Múgica**

Pentsa zitekeen opera-abeslaria hurbiltzen ari zela, eta **opera** serioa, benetako **opera**, orduantxe hasiko zela. **Jose Morales**

Errepertorioko hiru **opera** aurkeztuko ditu OLBEK: *Nabucco*, *La Sonnambula* eta *La Bohème*. On bidetik etorri zaigu **opera** modernoa bel cantoo-aren gotorlekua den Bilbo honetara. **Berria - Kultura**

Opera zaharrak kantatzen entzuten egoten ziren. **Josu Zabaleta**

Bere **opera** politikoetarako libretoak idazten dituztenen izenak. **Iñaki Heras**

Opera italiarraren zalea baitzen oso. **Felipe Juaristi**

Sasoi horretan nagusi ziren **opera** rossiniar eta belliniarretatik bereiz zitekeen lana zen **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik operistiko.

Parisen ia gauero egiten ziren **opera** emanaldiak. **Jon Muñoz**

Ikusmin handia dago gaur Alemaniako Bayreuth hiriko **Opera** Jaialdia abian jarriko duen Richard Wagnerren *Parsifal* operaren emanaldiaren inguruan. **Berria - Kultura**

Bilboko elkartearen hurrengo **opera** denboraldian. Janariarekin batera hiru biolin-jotzaile azaldu ziren, hirurak ere **opera**-konpainiakoak, senar-emazte berrien omenezko eztei-doinuak joka. **Berria - Kultura**

Wielizcka, izan ere, Gatzeko **Opera**-Etxe gisa zen ezagunagoa. **Felipe Juaristi**

Caruso bera kantatua zen **opera**-antzoki hartan. **Jon Muñoz**

Opera ekoizpen handiak ez dira inoiz Nafarroan ikusi, Nafarroako Jaialdien garaian ez bada. **Berria - Kultura**

Gioacchino Rossiniren *La donna del lago* **opera** lana gozatzeko aukera izango da aste honetan Donostian eta Iruñean. **Berria - Kultura**

Astean behin, **opera** obrak ikustera joaten zen. **Felipe Juaristi**

Kamarako musika eta **opera** piezak jotzen zituen talde batean. **Felipe Juaristi**

Albertok kanporako bidea hartu du, **opera** zati bat txistukatuz. **Patxi Iturritegi**

Opera-kantari baten atzetik Italiara alde egin zuen aitaren ahaide aberats batzuen semea omen zen Kurt. **Anjel Lertxundi**

Ontziko kide bat da, **opera**-soprano ospetsu bat. **Anjel Lertxundi**

Bordaleko **Opera** abesbatza entzuten da. **Herria**

Doi-doi izan zuen denbora **opera** ikusleak herioa deika zuela ohartzeko. **Imanol Zurutuza**

Schlingensiefel ez du orain artean urrats askorik egin **opera** zuzendaritzaren arloan. **Berria - Kultura**

Ainhoa bere **opera** jantzia, takoidun zapatekin Central Parkeko zelaia mukuru betetzen zuen jendearen artean bidea irekitzen. **Harkaitz Cano**

Benjamin Brittenen *Peter Grimes* lana taularatuko du **Opera** Lagunen Bilboko Elkarteak (OLBE) datozen egunotan Euskalduna jauregian. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauza ederra izango zatekeen gizartera garaile itzultzea, ganbera-**opera** bitxi eta txiki baten egile gisa. **Oskar Arana**

Benetan idatzi nahi duena musika da: Byron Italian, gizasemearen eta emakumearen arteko maitasunaren inguruko gogoeta bat, ganbera-**operaren** gisara egina. **Oskar Arana**

5 operak emateko eraikiriko antzokia.

Operako palko batean gizonezko lagun batekin eserita nengoen, eta zu aldamenekoan. **Eduardo Matauko**

Atzo **operan** izan nintzen Merteuil andrearekin. **Jon Muñoz**

- **Operara** joan nahi nuke -esan nion-, baina ez daukat oraindik txartelik... **Joxe Austin Arrieta**

Opera da idazlan honetako gertakizun askoren gertalekua eta haren oihartzuna eta aipua sarri agertzen dira. **Jon Muñoz**

Ni ere **operan** egon behar nintzen orena heldu zenean, bihotza nahi gabe hertsatu zitzaidan. **Jon Muñoz**

Dantza irakasle izana zen **Operan**, Luis XV.aren garaian. **Josu Zabaleta**

Lehenengoa erdigunea da: **opera**, katedrala eta horrelakoak dituena. **Lourdes Oñederra**

Ondoren, Orienteko plazara gurutzatu genuen, eta handik gora, **Opera** inguruan buelta bat emateko proposamena egin nion, Madrilen atseginenetakoa dudan alderdia delako. **Ramon Saizarbitoria**

Edozein lekutan geundela -Notre Dame-n, **Opera**-n, Parisek dituen hainbat ikusgairen aurrean-, etengabe zetorkidan burura zein pozgarria zatekeen gauza haiek biok batera besotik helduta ikusi ahal izatea. **Ramon Saizarbitoria**

Isiltasun hartzatua da; **operan**, eszenatokia hutsik gelditzen denean bezala, orkestraren zazpi konpasetan zehar, zehatz--mehatz. **Monika Etxebarria**

- Gaztea hatsanka zetorren, **Opera** Plazatik ibilgailuaren atzetik lasterka joan eta gero. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

euskal **opera** (5); ganbera **opera** (3)

opera abesbatza (4); **opera eskainiko** (6); **opera ezaguna** (4); **opera hasi** (3); **opera ikusi** (3); **opera izango** (3); **opera kantari** (6); **opera kantaria** (4); **opera kantariaren** (6); **opera lagun** (10); **opera lan** (5); **opera lana** (4); **opera serioa** (3); **opera taularatuko** (4); **opera zati** (3)

verdiren **opera** (3); wagnerren **opera** (5)

operako pertsonaia (3); **parisko operako** (4)

pariseko operan (3); **parisko operan** (3); **peter grimes operan** (3)

operara joateko (4)

bilboko operaren abesbatza (11); **bilboko operaren abesbatzak** (6); **operaren lagun** (4); **operaren ondoren** (3); **otello operaren** (3)

opera²

1 *opera prima* lehen sortze lana, bereziki zinemalagile batena.

Opera prima batean zuzendariak dena eman du; askorentzat, lehen filma azkena izaten baita. Berria - Kultura

Sagastizabalen istorio eraberritu hau Gabilondoren eta Bernuesen **opera prima** izango da zineman, eta hainbatentzat aktore moduan egingo duten lehen lana. Berria - Harian

Quentin Tarantinoren **opera prima** Reservoir Dogs (1992) mirestuan ere rol bat jokatu zuen, eta Robert Altmanen aginduetara aritu zen *Short Cuts* (1993) drama konplexuan. Berria - Kultura

Opera prima onena aurkeztzen duen zinemagileak 25.000 euroko saria eramango du, antolatzaileek aditzera eman dutenez. Berria - Kultura

Opera prima guztiak interesgarriak badira, are interesgarriagoak izaten dira liburuaren egileak 50 urteak beteak baldin baditu. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

opera prima (23); **opera prima saria** (4)

operadore 1 iz telefono-zentral batean, komunikazio ez-automatikoak gauzatzen dituen pertsona. ikoperatzaile.

Zenbaitetan deitu nion, baina **operadoreak** telefonoa deskonektatua zegoela esan zuen. Fernando Rey

-Eten al duzu Detroitekin? -esan zuen telefono- **operadoreak**. Mirentxu Larrañaga

'Aurrera...' esan du, telefono **operadorearen** ahotsez. Joseba Sarrionandia

-Hoteleko **operadoreari** deitu nion osabak kontseilatutako jatetxean erreserba egin zezan. Bernardo Atxaga

-Prozesu horretan, sistema kimiko burutsu batek egiten du **operadoreak** Morse kodearekin egiten duen lana. Irene Aldasoro

2 tresna jakin batzuek maneatu eta erabiltzeko zeregina duen teknika.

Barzani jeneralaren **operadore** pertsonala zen aita. Juan Kruz Igerabide

Aparatu irrati-hartzaile bat zen funtsean, maiztasun-alde txiki-txikiak atzematen zituen: eta, baiki, kolpetik sintoniatik irten, eta lastategiko txakurra bezala zaunka hasteko, aski zuen **operadorea** aulki gainean higitzea, edo esku bat mugitzea. Juan Garzia

Ez zen konturatzen bazeudela orduan bera baino **operadore** askoz hobeto prestatuak Barzani-ren esanetara... Juan Kruz Igerabide

3 irud/hed

Mass media hauetako askoren atzean New Cultural Standard horietarantz eta pentsamendua homogenotzerantz jotzen duten kultur **operadore** indartsuak daude. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Joan zen urtarrilean «Espainiarako turismoa sustatzen duten estatuetako tour-**operadore**, bidaia agentzia eta enbaxada nagusiei» idatzi bana bidali ziela aitortu zuen ETAK. Berria - Euskal Herria

4 zerbitzu jakin bat sustatze eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa.

Iaz Bizkaian garraio publikoan egin ziren 179 milioi bidaietatik 73 milioi Metro Bilbao **operadorearen** bidez egin ziren. Berria - Euskal Herria

Bidaia-erakunde txartel bakarra edukiko badute ere, hor bateratuko dira hainbat **operadoreen** bidaia titulu guztiak. Berria - Euskal Herria

Parmatour **operadore** turistikoaren arduradun gisa dirua desbideratu izana leporatzen diote Parmalat auziko ikertzaileek. Berria - Ekonomia

EEPK lehia handiagoa eragingo dutela bermatu daiteke, exijitutako desinbertsioei esker beste **operadore** elektriko bat sartu daitekeelako lehian. Berria - Ekonomia

Hori dela eta, [banku txartelen erabileraz] EBko araudia betetzen ez duten **operadoreen** aurka neurri zorrotzak hartuko dituela ohartarazi du Batzordeak. Berria - Ekonomia

5 (hitz elkartuetan)

2005eko maiatzean hasi zen [Naturgas] gasaz gain, elektrizitatea ere eskaintzen, hala, energia **operadore** integral bilakatuz. Berria - Ekonomia

Espainiarako turismoa sustatzen duten estatuetako tour-**operadore**, bidaia agentzia eta enbaxada nagusiei. Berria - Euskal Herria

Gomendioak: inkesta egileek komunikazio **operadoreen** eta aire konpainien datu elektronikoak ikusi ahal izanzen dituzte. Berria - Euskal Herria

6 telefonia zerbitzuen sustatze eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa. ikoperatzaile.

Duela lau urte Vodafonek **operadorea** erosterakoan diru sariak eman izana leporatu zitzaizen baina epaileak ez du akusatuen jarrera «gestio desleialtzat» jo. Berria - Ekonomia

EBk leku guztietan telefono mugikorren **operadoreek** tarifa bera izatea nahi du. Berria - Euskal Herria

Telekomunikazioen euskal **operadoreak** banda zabaleko produktu «iraultzaile» bat aurkeztu du. Berria - Ekonomia

Telefoniacak ADSL sarearen erabilerara bezero partikularrei edo beste **operadore** batzuei saltzen die. Berria - Euskal Herria

Hendaian bizi eta automatikoki Espainiako **operadore** baten sarera egokitu zitzaizen telefonoa. Berria - Harian

Hasiera batean, **operadoreek** lehen minutua osorik ordainaraztea erabaki zuten, baita minututik pasatuz gero minutu bat eta 30 segundo kontuan hartzea. Berria - Harian

Operazioak zailtasunak ekarriko dizkie inguruko hirugarren **operadore** nagusiari, Telecom Italia Mobileri, bi erraldoiren artean prezio eta zerbitzuetan lehiatzeko aukerak murriztuko zaizkio eta. Berria - Ekonomia

7 (hitz elkartuetan)

«Eskandalagarria» da telefono **operadoreen** jokabidea, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko (EKE) presidente Jon Ariñoren ustez. Berria - Harian

Telefonia **operadoreari** tarifa gehigarriko zenbakien deskonexioa eskatu; [...]. Berria - Euskal Herria

8 matematikan eta kidekoetan operazio bat gauzatzeko adierazlea. ikoperatzaile 3.

Arkeologiak diskurtso baten iragazkortasunaren maila eta era aztertzen ditu: [...] halaber definitzen ditu gertaerak enuntziatuetan transkribatzeko **operadoreak**. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jeneralaren operadore pertsonala (7)

telefono operadoreak (3)

operagile iz operak ontzen dituen musikagilea.

Benjamin Britten Erresuma Batuko **operagileak**. Berria - Kultura

Giuseppe Verdi (Roncole, 1813-Milan, 1901) **operagilea** arrakastaren gailurreraino eraman zuen lana, *Nabucco* opera, ikusi ahalko da gaur, Kurasaalean, Donostian. Berria - Kultura

Albiachen arabera, «*L'occasione fa il ladro*» lanean, Rossinik bere garairik emankorrenean» sorturikoan, **operagilearen** ohiko elementuak ageri dira. Berria - Kultura

operatibo 1 izond aritzen dena, espero den ondorioa eragiten duena.

Pistolari banda **operatibo** bakarra. Berria - Harian

Azken asteotako atentatuek frogatzen dute ETAK «talde **operatiboak**» dituela. Berria - Euskal Herria

Erasoek Al Kaedaren gaitasun **operatiboari** kalteak eragin behar bazizkieten ere, [...]. Berria - Harian

Mishalen patua Rantissiren bera da eta aukera **operatiboa** dugun uanean, egin egingo dugu. Berria - Mundua

Aurreko azpiek zientziaren alde **operatiboan**, praktikoan, jartzeko alde interesa: zientziagintza aztertuz zientzia argitzean. Askoren artean
Zientziaren makulu baldarren -baina txit **operatiboan** - heineraino etorrikeri ere, ez dakigu galdera horri erantzuten. Iñaki Segurola

2 aritzeko moduari dagokiona.

IRA Probisionalaren politika eta estrategia **operatiboak**. Berria - Mundua

Desadostasunak **«operatiboak»** izan zirela esan zuen Herrizaingo sailburuak. Berria - Euskal Herria

Garapen iraunkorraren printzipio **operatibo** hori. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nolanahi ere, alderdi **operatibotik** bakarrik interesatzen zaie analistei (alegia C edo V segmentu bakoitza baino unitate luzeagoa den bezainbatean), azentuaren kokalekua zehazteko, segmentuen zenbait ordezkatzeko sistematizatzeke. Lourdes Oñederra

3 (ekonomian)

Gas Naturalek 2009an 1.200 milioi euroko mozkin **operatiboa** izatea aurreikusten du. Berria - Ekonomia

Irabazitako lau eurotik hiru (%79) emaitza **operatiboei** esker izan ziren. Berria - Ekonomia

Alemaniako autogileak jakinarazi duenez, 87.153 milioi euro fakturatu zituen 2003an, aurreko urtean baino %0,21 gehiago, baina irabazi **operatiboak** nabarmen gutxitu ziren, %62 zehazki. Berria - Ekonomia

4 (izan aditzarekin)

Zentzu bat, zentzu berri bat, edo nahiago bada berriz funtzionala eta **operatiboa** den zentzua. Jon Alonso

Rivabellosako plataforma logistikoan lau pabiloi eraikiko dituzte urtarretetik aurrera, eta, okerrik ezean, sektoreko enpresaren bat udazkenerako **operatiboa** izatea espero du administrazio kontseiluak. Berria - Ekonomia

Gure antolamendu juridikoan **operatiboa** ez den eskubide bat gauzatu ahal izateko ahalegin itzel eta nekezak eskatzen dituzten lege zirrikietara jo beharko dugu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

• 5 iz emaitza militar edo polizial bat lortzeko ekintza koordinatuen multzoa.

Ertzaintzak Guardia Zibila babestu beharrak **operatiboa** zaildu besterik ez du egiten, lana modu berean egiten ez duten bi indarrek esku hartu behar dutelako. Berria - Euskal Herria

Espaniako Poliziak ezarritako **operatiboko** zuzendariorde Pedro Diazek «gehiegizko konfiantza» izan zutela esan zuen. Berria - Harian

Alkoholaren inguruan badu polizia egitura horrek **operatibo** berezia, astebururo zenbait auzotan egiten dutena, gazteei kalean edatea galarazteko. Berria - Euskal Herria

6 **sistema operatibo** ordenagailu baten oinarriko prozesuak kontrolatzen dituen aginduen eta programen multzoa.

Europako Batzordeak Microsoft zigortu zuen atzo, informatikako **sistema operatiboetan** «ia duen monopolioa nagusikeriaz baliatzeagatik». Berria - Ekonomia

Microsofti egotzi zioten Internet Explorer nabigatzailea Windows **sistema operatiboarekin** batera saltzea eta Nestcape Navigatorri orduko nagusia bidea ixtea. Berria - Ekonomia

EBk 497 milioi euroko isuna jarri zion Microsoft [...] eta Windows **sistema operatiboaren** interfaz kodeak lehiakideekin partekatzea behartu zuen, haien aplikazioek Windows baliatu ahal izateko. Berria - Ekonomia

Microsoftek salatu duenez, saltzaileek Windows XP **sistema operatiboaren** kopia piratak jartzen zituzten dendetan salgai zeuden ordenadoreetan. Berria - Euskal Herria

Merkatuaren %90 kontrolatzen duen arren, Linux **sistema operatiboa** lekua jaten ari zaio. Berria - Ekonomia

Microsoftek kalte larria izango du Windows Media Player programa gabeko **sistema operatiboa** ekoiztera behartzen badute. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sistema operatiboa (6)

operatorio *iz*

Arte objektibo horretan espazioa "polisentsoriala eta **operatorioa**", "praktikoa eta esperimental" da; Erdi Aroko artean aurki daiteke, baina baita kubismoan ere, edota Egiptoko artean, edota haurren marrazkietan. Josu Zabaleta

operatu, opera, operatzen 1 du *ad* ebakuntza egin.

Adrian berriro **operatuko** dute errebalidako azterketak bukatu eta gero -esan zidan-. Bernardo Atxaga

Ez nuen ulertzen zergatik **operatu** behar ninduten, sabeletik ateratzeko ezer ez zegoenean. Joseba Urteaga

Josiko naute berriro eta, konorera itzultzen naizenean, **operatu** egin nautela esango didate. Joxe Austin Arrieta

Urgentziaz **operatuko** dute gaur. Berria - Euskal Herria

Boxeolari izan nahi badu **operatu** egin beharra zeukak sudurretik. Bernardo Atxaga

Belaunetik **operatzen** dugu Peio Oyharçabal Miarritzeko klinikan. Herria

Azkenean nik esan nion eramateko, eta besikulatik **operatu** ninduten. Berria - Kirola

Onik dago Gurutzetako Ospitalean iragan astean oinetaraino heltzen ziizaion poltsa kentzeko **operatu** zuten emakumea. Berria - Gaiak

Emakume bat hil da Iruñean, urdaila txikitzeke **operatu** ostean. Berria - Euskal Herria

Espero zitekeen, gainera (begirik txarrena **operatu** ziotenez lehenbizi), ezkerreko begiko erretina, handik aste batzuetara kendu behar baitzioten lausoa, askoz erretina funtzionalagoa izatea eskuinekoa baino. Xabier Olarra

Halako oroitzenak operazio-gelan ere sorraraz daitezke, baldin eta **operatzean** elektrodo bidez estimulatzen bada lobulu tenporaletako alde ukitua. Xabier Olarra

Operatu eta soilik bikietako bat salbatuko dugu; ez **operatuta**, berriz, bi bikiak hilko dira. Askoren artean

Neurofibromatosi kasu bitxi bat deskribatzen ari zen: berriki **operatutako** gazte batena. Xabier Olarra

Operatu eta gero, zenbait hilabetez, ezin izan nituen gehiago koordinatu ikusmen bidezko sentsazioak neure pausajarekin. Xabier Olarra

2 aritu; emaitza jakin bat lortuz aritu.

Mugimendu horien protagonista nagusiak ez dira edozein ordenagailutatik **operatzen** duten broker txikiak. 1887an arrazaren kontzeptuarekin **operatzen** du, eta Unamuno erabakia da bere tesian, arrazak eta hizkuntzak bat egiten dutela: "el lenguaje es la raza". Iñaki Heras

Kasu bakoitzean, aztertutako hizkuntzaren sistema fonologikoa, hau da, erabiltzen dituen hotsen taula, osatu behar da, ondo bereizturiko fonema kopuru zehatz batez

operatzen baitu hizkuntza bakoitzak. Isabel Arrigain

Operatu, erakusten ez den historiaren filosofia batekin operatzen da; eta ikusten ez den historia (unibertsal) horrek paper ezkutu erabakigarria jokatzen du diskurtsoan. Joxe Azurmendi

[Organizismoak] materialismo holista da, osoa zati osagarriak baino gehiago dela kontsideratzen du, zati bakoitzaren ezaugarriak zatiak **operatzen** duen osotasunaren testuinguruaren mende baitaude. Askoren artean

3 (era burutua izenondo gisa)

"Emakumezkoa ala **operatua** zen hori?" entzuten da geroxeago. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

operatu aurretik (4); **operatu ondoren** (3)

operaturik etxeratua dugu (3)

operatzaile 1 iz telefonia zerbitzuen sustatze eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa. ikoperadore 6.

Produktu berriarekin Amena-Euskaltel «Windows erabil dezaketzen sakelakoak komertzializatzen dituen lehen **operatzailea**» bihurtu dela nabarmendu zuen Jose Ferrek, Amenako Negozio Unitateko zuzendariak. **Berria - Ekonomia**

Telefonia: Katalunian ari diren **operatzaileek** zerbitzuak katalaneraz ematea, eskaera egin behar izan gabe. **Berria - Mundua**

2 film batean argazkigintzaz arduratzen den pertsona.

Aspaldi aztertuak dituzte, beraz, **operatzaileek** eta zinemagileek egin daitezkeen kamera-mugimendu guztiak. **Josu Zabaleta**

3 matematikan eta kidekoetan operazio bat gauzatzeko adierazlea. ikoperadore 8.

Gramatikaren teoria arduratsua go formulatzen ariko bagina, sinboloa hitz mailako kateatze-**operatzaile** gisa ulertuko genuke, eta sinboloa osagai-egitura mailako kateatze-**operatzaile** gisa. **Itziar Laka**

4 kirurgilaria.

Biziki ontsa ez baitira bakarrik mediku orokorrak eskas bainan ere **operatzaile**, lokartzaile eta asko espezialista ere. **Herria**

operazale iz operaren zalea dena.

Euskalduna bete zuten **operazaleek** *La bohème*-ren bertsiio dramazkoan. **Berria - Kultura**

Desengainutzat hartu zuten bilbotar **operazale** batzuek [...] OLBere denboraldiko *Otello* operaren emanaldia. **Berria - Kultura**

Aurretik, Carlos Benito **operazaleak** obraren aurkezpena egingo du. **Berria - Kultura**

operazio (orobat operazione g.er.) 1 iz ebakuntza.

Bestetan baino **operazio** handiagoa egingo diote, nonbait, eta medikuek esan omen dute gutxi mugitu behar duela ondoren. **Bernardo Atxaga**

Lobulu frontaleko tumor baten lehen **operazioa** 1884an egin zen. **Xabier Olarra**

1951n egiten da lehenbiziko **operazio** irekia bihotzean, berriki asmatutako bihotz-biriketako makina bati esker. **Pello Salaburu**

Pazientea, begietako **operazioa** egin eta handik urtebetera, ez zen gauza aurpegiak eta aurpegierak zein norena zen esateko. **Xabier Olarra**

Medikuntzan, gaur egun **operazio** batzuk urrundik egiten dira, medikua eta eria bi tokitan daudela, konputagailuen bidez. **Pello Salaburu**

Xehe-xehe aztertua zuten, bada, zer konplikazio gerta zitezkeen **operazioan** eta **operazioaren** ondoren. **Xabier Olarra**

Diru pixka bat izaten dudanean egingo dudana lehenengo gauza **operazio** bat izango da, titiak txikitzeko. **Pako Aristi**

Zain-lotailuak urratuta, bi **operazio** egin arren ere, hanka makalik gelditu zitzaion. **Pablo Sastre**

Oso **operazio** simplea da, anestesia lokala jarrita egiten da eta ez da beharrezkoa ospitalean geratzea. **Luis Elberdin**

Batzuetan **operazio** bategatik 10.000 dolar pagatzen zituzten giltzurrun-hartzaileek **Gotzon Garate**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaixoak, **operazio**-mahaian, kirurgialaria galdezka ari zitzailea erabat ohartzen zirelarik, nor bere iraganeko denbora batera eramana sentitzen zen, beti garai berera, eszena berera. **Xabier Olarra**

Irailaren erdi aldera, iritsi zen azkenean **operazio**-eguna. **Xabier Olarra**

Erretinaren argazki xeheak hartuak zituen hark, operazioa egin eta berehala, eta Bobek, begia orain aztertutik (oftalmoskopia zuzeneko eta zeharreko) eta argazkiekin alderaturik, ez zuen frogarik ikusten **operazio**-ondoko inolako konplikazioenik. **Xabier Olarra**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Organo batzuk partekatzen dituzten bi haur bazenitu, zilegi litzateke banaketa **operazioa** egitea jakinaren gainean izanda operazio horretan ahulena hil egingo dela bestea bizi dadin? **Askoren artean**

Hemendik hiru astera, kontrabando **operazio** bat deskubrituko dute poliziek. **Josu Landa**

4 aritzea; zenbait ekintza koordinatuk osatzen duten ekintza konplexua.

Bi **operazio** edo eginkari horiek elkarren ahaide txit hurbilak direlakoan nago, biak ere libratze bat diren aldetik. **Iñaki Segurola**

Operazio berbera egin zuen; hau da, hitza bilatu, lerro bakan batzuk irakurri eta apalean utzi. **Unai Elorriaga**

Operazioan parte hartu behar zuen jendearekin bilduta, dozenaren bat, egitasmoan zein paper zegokion azaldu nion bakoitzari. **Rafa Egiguren**

Demagun ordenagailu batek hainbat **operazio** egiten dituela eta, gainera, gizakiok egiten ditugun eran egiten dituela. **Askoren artean**

Operazioko 12.800 milioi euroren ordainketa esku diruz eta bi taldeen arteko akzioen elkartrukean egingo da. **Berria - Ekonomia**

Operazioarekin 500 edo 600 euro inguru, garbi, aterako zituen. **Jon Alonso**

Denda guztietan, handi zein txikitetan, **operazio** bera burutzen nuen: liburuari buelta eman, eta neure azalaren aldetik jarri. **Iban Zaldua**

Poliki-poliki dorrea altxatzea posible egiten duten **operazio** horiek guztiak. **Jon Alonso**

5 (izenondoekin)

Ingeniari kimikoa berehala konturatuko litzateke lan hori guztia ezin dela egin **operazio** bakar batean; organigrama bat egingo luke, prozesaketaren fase bakoitzak behar duen tresneriaren pieza espezializatu guztiak zehaztuz. **Irene Aldasoro**

«Mozorropean finantza **operazio** inbiliariorako ezkututzen» direla salatu dute agiriaren sinatzaileek. **Berria - Ekonomia**

Laborarien borroka ere aintzina doatzi: ELB-k muntatzen ditu **operazio** sinbolikoak: egoitza publikoen okupazioak, karakoil operazioak, etab... **Herria**

Menard-ek -gogoan dut- esan ohi zuen gaitzestea eta laudatzea **operazio** sentimentalak direla, kritikarekin batere zerikusirik ez dutenak. **Juan Garzia**

6 (hitz elkartuetan)

Zer **operazio** mota ote dira, beraz, kritikariek ezean, gure poetaren aldikako gaitzeste eta laudatze horiek? **Patziku Perurena**

· Hastapeneko herabearengatik asko zabaldu zituen gero, zilegi ziren finantza **operazioen** mugak. **Piarres Xarriton**

Hauetatik gehienak, jaunen soldatapeko arma-gizon batzuk bazter utzirik, morriok direla, zama eta hustutze-**operazioetarako** etorriak. **Jon Alonso**

7 (poliziak eta militarrek eraginikoa)

Igandean, uztailaren 27an, Altsasun sartu ziren gure bolondresak, Lizarraga jeneralak berak zuzendurik **operazioa**. **Txillardegí**

Ertzain mordo haien atzetik, erreka aldean, ertzain nagusiak ikusi nitian, **operazio** hura bideratzen ari zirenak. **Paddy Rekalde**

Poliziaren iturriek adierazi dutenez **operazioa** ez da oraindik amaitu. **Unai Iturriaga**

Drogaren kontrako hainbat **operazio** egin zituen Foruzaingoak, bestalde, 2005 urtean. **Berria - Euskal Herria**

Foruzaingoa agertu zen Artozkin, eta soldarioak herritik botatzeko eta etxeak eraisteko **operazioa** hasi zuen. **Eduarne Elizondo**

Erori zenean, gaizki irindako **operazio** hari buruzko ohar eta erreferentziak harrapatu zituzten poliziak. **Rafa Egiguren**

Operazioari *Eguzki Beltza* klabe-izena jarri zioten, eta guztiz isilpekoa izan zen. **Alberto Ladron Arana**

'Condor **operazioko**' hilketetan parte hartzeagatik auzipetuta jarraituko du diktadoreak. **Berria - Mundua**

Jakin nahi izan du, era berean, libretan ageri den "Roberto" izeneko **operazio** hori zertan den. **Rafa Egiguren**

Enbaxadorearen hitza du **operazio** honetan izan litekeen edozein galera edo heriotza gerrako galeratzat joko dela. **Edorta Jimenez**

8 (izenondoekin)

Aitak oraintze esan duenez, seguru dago maiatzaren 20a lehen **operazio** zabalak hasiko direla bai Errusian eta Italian, bai mendebaleko frontean. **Josu Zabaleta**

Erromatarren **operazio** militarren eremua Italiatik kanpo zabaldu zenean. **Iñaki Mendiguren**

Propaganda armatuaren bitartez, diktaduraren kontrako **operazio** pedagogikoak egin behar ziren baldintza subjektibo egokiak sortzeko, eta euskal herri langileak horrela, mobilizatuta, gero eta gehiago hartuko zuen ekintzetan parte. **Rafa Egiguren**

9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erasotzailearen **operazio** -basetik frontera dagoen tarte oso luzearen eragozpenak. **Iñaki Mendiguren**

Irungo mugatik haraindi dauka **operazio** -basea, Arcachon-en hain zuzen, La Ville d'été deritzan hiribilduan etxetxo bat baitauka. **Migel Angel Mintegi**

Politikaren eremu honetan **operazio** -zelai gisa, Mendebalde modernoko parroki estatuen lehia eta gerrak aukeratu ditugu. **Iñaki Mendiguren**

Scott **Operazio** -zuzendariordeari [...] xehetasun txiki bat pasatu baitzitzaien: gaztelania eta ingelesa ez ziren preseski neska haren hizkuntza bakarrak. **Fernando Morillo**

10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste polizia **operazio** bat. **Iñigo Aranbarri**

Egunkariak esaten zuten iparramerikar ejertzitoak urtean hoge mila gerra **operazio** egiten zituela Vietnamgo lurretan. **Joseba Sarrionandia**

Gerra- **operazio** handi bat bezalako izan zen elementu guztiak koordinatzea. **Karlos Zabala**

Pazifikatze **operazio** batetik itzultzean. **Itxaro Borda**

Baketze- **operazioa** ez baita finitu. **Xabier Montoia**

10a irud/hed

Operazioen teatroa mahai handi batean jarritako mapan irudikatua dago, dagoeneko nazien mendean ziren eskualde zabalak hari gorriekin orratzei kateatuak. **Harkaitz Cano**

11 operazio bulego (corpusean operaziobulego soilik)

Zorrotz begiratutako trenaren makinan zurbil ziohan Honzik ingeniaria, **operaziobulegoko** zuzendaria. **Fernando Rey**

12 operazio gela (7 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan; cf ebakuntza-gela 51 agerraldi, 15 liburu eta 14 artikulutan) ebakuntza.

Operazio gelara sartu aurretik, baina, ebakuntzarako prestatzen zituen gaixoak. **Berria - Gaiak**

Ikuskizun harrigarria zen Bennett **operazio-gelarako** prestatzen ikustea. **Xabier Olarra**

Operazio gelara eraman ninduten eta han medikuak maskara bat jarri zidan aurpegian, naturaltasunez arnasa hartzeko esanez, eta hori da gogoan dudan guztia. **Xabier Olarra**

Halako oroitzenak **operazio-gelan** ere sorraraz daitezke, baldin eta operatzean elektrodo bidez estimulatzen bada lobulu tenporaletako alde ukitua. **Xabier Olarra**

13 operazio gune (orobat operaziogune)

Arkalaren tabernan ezinbestekoa izaki, hantxe zeukan bere **operazio-gunea**, hantxe aritzen zen hitzaldiak egiten, hantxe aritzen zen eztabaidan eta hantxe eusten zion bizirik nekazarien artean jabearen kontra izaten den gorroto sor horri. **Koro Navarro**

Huraxe izango zen nire **operazio-gunea** hurrengo hiru egunetan. tsoaren abegi ona medio, 17tik 20 urte bitartean, egiazko **operazio-gune** bilakatu genuen izeba Milagrosen etxea.Venezuelaren kasuan ere Inperioa ez da modu diplomatikoan erantzuten ari, ekintzen bidetik baizik, eta bi **operaziogunetan**: Haitin, inperialismo frantziarrarekin eskuz esku, AEBetako komando militar batek Jean-Bertrand Aristide presidentea bahitu eta Afrikako hegoaldera deportatu du. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken operazio (3); drogaren aurkako operazio (3); egindako operazio (9); eginiko operazio (3); marketin operazio (4); marketing operazio (3)
operazio arakastatsua (3); operazio baliokideei dagokien (3); operazio bat abiatu (3); operazio bat egin (5); operazio batean atxilotu (3); operazio berean atxilotutako (6); operazio berezia (4); operazio bereziak (6); operazio berezietarako (3)
operazio gelan (3); operazio gisa (3); operazio guztia (5); operazio handia (10); operazio hutsa (3)
operazio militar (13); operazio militar bat (3); operazio militarra (10); operazio militarrek (14); operazio militarren (4); operazio militarren (3); operazio militarretan (6); operazio militarretarako (3)
operazio ondoko (3); operazio politikoa (3); operazio poliziala (4)
operazio zabal (9); operazio zabal batean (4); operazio zabalak (4); operazio zaila (4); operazio zuzendariordeak (4)
polizi operazio (6); polizi operazio (33); polizi operazio batean (5); polizi operazio berean (5); polizi operazio handia (3)
abiatu zuten operazioa (3); aurkako operazioa (41); aurkako polizi operazioa (8); banaketa operazioa (4); burututako operazioa (3); condor operazioa (7)
egin zuten operazioa (3); egindako operazioa (5); ekaitza operazioa (3); ekinen aurkako operazioa (3); eraisteko operazioa (8); eraisteko operazioa hasi (3); guardia zibilarren operazioa (3); haikaren aurkako operazioa (5); hasitako operazioa (6); herenegun hasitako operazioa (3); hiltzeko operazioa (3)
irteera operazioa (12); itzulera operazioa (12); kontrako operazioa (18); kontrako polizi operazioa (5); lehen operazioa (3)
operazioa abiatu (14); operazioa abiatu zuten (8); operazioa agindu (4); operazioa amaitu (3); operazioa arrakastatsua izan (3)
operazioa egin (23); operazioa finantzatzeko (4); operazioa gertatu (3); operazioa hasi (16); operazioa hasi zenetik (3)
operazioa izan (16); operazioa izan zela (5)
operazioa salatu (8); operazioa salatu zuten (3); operazioa salatze (6)
operazioa zabalik dago (3)
ortzadarra operazioa (3); penitentzia egunak operazioa (6); polizi operazioa (17); polizi operazioa (53); polizi operazioa salatu (4)
udalbiltzaren kontrako operazioa (5)
condor operazioagatik (4)
aurkako operazioak (3); kontrako operazioak (6); kontrako polizi operazioak (3)
operazioak egiteko (6); operazioak salatze (5); operazioak zabalik jarraitzen (4)
polizi operazioak (13); polizi operazioak (17); polizi operazioak salatze (3)
aurkako operazioan (31); aurkako operazioan atxilotu (6); aurkako operazioan atxilotutako (6); bilboko polizi operazioan (5); condor operazioan (8)
egindako operazioan (4); eginiko operazioan (3); egunkariaren kontrako operazioan (3); ekinen aurkako operazioan (4); eraisteko operazioan (3); hasitako operazioan (3)
irteera operazioan (6); kontrako operazioan (23); kontrako operazioan atxilotu (6); kontrako operazioan atxilotutako (5); kontrako polizi operazioan (8)
operazioan atxilotu (34); operazioan atxilotu zuten (17); operazioan atxiloturiko (3); operazioan atxilotutako (24); operazioan atxilotutakoek (4); operazioan atzemandako (3); operazioan parte hartu (6)
polizi operazioan (10); polizi operazioan atxilotu (3); polizi operazioan (26); polizi operazioan atxilotu (11); polizi operazioan atxilotutako (6); segiren aurkako operazioan (3); udalbiltzaren kontrako operazioan (3)
operazioarekin batera (3); operazioarekin lotuta (3)
aurkako operazioaren (5); hasitako polizi operazioaren (4); kontrako operazioaren (5); kontrako polizi operazioaren (3)
operazioaren aurka (3); operazioaren baitan (4); operazioaren barnean (3); operazioaren barruan (13); operazioaren berri (9); operazioaren bezperan (3); operazioaren harira (8); operazioaren helburua (5); operazioaren inguruan (3); operazioaren nondik norakoak (4); operazioaren ondoren (9); operazioaren ondorioz (5); operazioaren ondortik (3); operazioaren ostean (4)
penitentzia egunak operazioaren (3); polizi operazioaren (16); polizi operazioaren (21); polizi operazioaren baitan (3); polizi operazioaren harira (3); polizi operazioaren ondortik (3)
polizi operazioek (3)
azken polizi operazioen (3); operazioen berri emango (3); operazioen ondorioz (3); polizi operazioen (4); polizi operazioen berri (3); polizi operazioen (4)
itzulera operazioetan (3); polizi operazioetan (4)
condor operazioko (3); licorne operazioko (3)

operazioburu iz operazio baten buru den pertsona.

Anselmok baino ingeles apurtxo bat gehiago jakiteagatik izendatu zuen don Evaristok **operazioburu**. Joxemari Iturralde

Agian, agentzia hartan lehenengo aldiz, **operazioburu** izateak ez zion sosegurik eskaintzen. Joxemari Iturralde

Eta hori gutxi balitz, bera, Julio Rekexo zen **operazioburu**. Joxemari Iturralde

operaziogune ik operazio 13.

operazionalizatu, operazionaliza, operazionalizatzen du ad operazional bihurtu.

Era berean, "mugimendu sozial batek ezin dezake goza artikulazio politiko ireki eta demokratikoaren egoera bere baitan duen negatibitatea bere eginda eta

operazionalizatuta ez bada". Joseba Zulaika

operazione ik operazio.

opereta iz antzerki lan arin eta samurra, elkarrizketak, musika eta dantza batzen dituen.

Antzerki lanak eta **operetak** sortu zituen gaztetan. Berria - Harian

"La fille de Madame Angot" **Opereta**. Herria

Baita tarteka ontziko makina bat ofizial ere, galaz jantziak, **opereta** batean bezain distiratsu denak ere. Joxe Austin Arrieta

Sarriegik *Aita Pello* **opereta** plazaratzen du. Askoren artean

Opereta batetik irtena zirudien guraso pare hark. Juan Garzia

K olegioko festetan gauza asko egin zituen: errexitatu, kantatu, dantzatu; komedia batean tximinoz mozorrotua atera zen, eta *Elurretan galdutako txapina* izeneko **opereta** batean kantatu. Fernando Rey

operistiko iz operarena, operari dagokiona. ik opera¹ 3.

Emanaldia bi zati zeharo ezberdinetan zatitu zuten; lehen zatiak espainiar hegoaldeko kolore berezia izan zuen (Federico Garcia Lorca ardatz zuela) eta bigarrean, aldiz, errexitaldi **operistiko**en obra ezagunak zeuzkan atrelean. Berria - Kultura

Eta, begira, alarde superatu horren orde, antola ezazue, nafar arnegatu horiek, gerra **operistiko** bat. Patziku Perurena

operkulo iz zenbait animaliaren irekidura jakin batzuek ixten dituen pieza.

Oiraintxe ilbeltzean, gordeleketan lozorroan daudela, beren **operkulotan** itsatsiak, dira gozoenak eta garbienak karakolak. Patziku Perurena

operoi iz banako genetiko funtzionala, seinale erregulatzailerak baten kontrolpeko gene multzo batek osatua.

Poliki-poliki, lisogeniari buruzko lana eta laktosa sistemari buruzkoa konbinatuz, eztabaiden eta arbeleko diseinuen poderioz, tankera hartu zuen, halako batean, **"operoi"** delakoaren ereduak. Juan Garzia

Operoiari buruzko lanaren ondoren, eragozlea Pasteur Institutuan bakartzen kale egin ondoren, nor bere bidetik joanak ginen poliki-poliki. Juan Garzia

opiar iz

Emakumeei oinordeko izatea debekatzean, luxuaren kausei aurre hartu nahi izan zien, Lege **Opiarraren** defentsa hartu zuenean luxua bera geldiarazi nahi izan zuen bezala.

Iñaki Iñurrieta

opiazeo izond/iz opio edo opioaren eratorriren bat duena. ik opioide.

Alkoholaz zein **opiazeoaz** mintzatu gara beti menpekotasunaz aritzean. Berria - Gaiak

Gerraldean ezarritako kateter batetik botika anestesikoak eta **opiazeoak** ematen zaizkio erditu behar denari, minik sentitu ez dezan. Berria - Gaiak

opil 1 iz irinezko ore a labean erreaz egiten den ogi modukoa, berez biribila eta txikia.

Pitxar bete ur eta sei **opil**. Patxi Zubizarreta

Bizkor, egizu ore a irinik onenaz hirurentzat eta presta itzazu **opil** batzuk. Elizen arteko biblia

Hartu ogi-irin garbia, erre zortzina kiloko hamabi **opil**. Elizen arteko biblia

Opil egin berrien usaina, erroskilena, esne irakinarena, eta sardinzar ketuena zetorkion patioetatik. Koro Navarro

Neskak plater bat jarri zuen mutilaren aurrean urdaiarekin eta **opil** batekin. Koro Navarro

Opil bat kafean bustitzen zuen bitartean -kruasana zela oiritzen naiz- Lakatosek bestela bezala esan zidan: [...]. Matías Múgica

Opila bezain zapal eta mehe zeukan lastaira. Jose Morales

- Bai zera, horiek ez dira irin bereko **opilak**. Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Molde zaharrean **opil** berria egitea hobe izango da beti, molde berrian **opil** zaharra egitea baino. Joxerra Garzia

Mahaspasazko bi **opil** gozo handi erosi eta jatera eseri ginen. Irene Aldasoro

Jangelatxoan, mahaiak gozokiz eta **opil** gozoz betetako erretiluak eta ardo zurizko botilak eskaintzen zizkieten bertaratuei. Josu Zabaleta

Esnez, arrautzaz eta irinaz eginiko **opil** mehea, taloaren antzekoa. Jose Morales

Kremaz betetako **opil** bat eskuan zuela irten zen. Joxemari Urteaga

Atari sarreran tipulazko **opilak** saltzen ari zen neska bat. Koro Navarro

- **Opil** beteak zeuzkaugu gaur -esan zuen Steffi Prokopek, animatze aldera. Anton Garikano

Hemen, botak eta zortzi-itxurako **opilak** zeuzkaten pintaturik. Jose Morales

Hartu zituen ere legamigabeko **opil** bat, olio zaturiko **opil** bat eta talo bat. Elizen arteko biblia
Egiptotik atera zuten altxagabeko orez legamigabeko **opilak** egin zituzten. Elizen arteko biblia
Eztiz igurtzitako **opil** txiki batzuk zeuden plater txo baten jiran. Anjel Lertxundi
Opil adardun arrautzatuaz. Patziku Perurena

3 (neurriekin)

-Ba, nik neure ametsean hiru saski **opil** neuzkan buru gainean.

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Opil saski batzuk ekarri zituzten. Juan Garzia
Mutil zaharrenari, Alphyri, eman zion Mariak **opil** -zorroa, opilak bana zitzan. Irene Aldasoro
Ronek haragi eta giltzurrunezko **opil** -zati bat zeukan ahora bidean. Iñaki Mendiguren
Geratzen zen **opil** -puska jarri zuen berriro mutilak Noraren hortz artean. Anjel Lertxundi
Maria zegoen **opil** banaketaren begirale. Irene Aldasoro
Hegoaldeko labe beroko **opil** -laino zuria. Pello Zabala
- Ardo gozoa amatxorentzat eta baso bat esne eta **opil** antzeko batzuk niretzat. Xabier Montoia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kafea eta ogi- **opil** bat hartzen ditu. Eskarne Mujika
Artzainaren zorrotik eurek sartu zuten ogi- **opil** bat atera zuten. Karlos Linazasoro
Arto- **opila** da hau, banana-hostoan bildua, kalean bertan saltzen duten otamen koxkorra. Joxe Austin Arrieta
Bazkalondoan, irratia piztu eta arroz- **opila** eta kafesnea zerbitzatu zizkidan. Javi Cillero
Esne- **opil** bat gehitu nion neureari, ez bainuen oraino gosaldu. Aingeru Epaltza
Eltzekariak, patatak eta bizkotx- **opilak** . Mirentxu Larrañaga
Zuria zen, txarrangil-haziaren itxurakoa eta ezti- **opilaren** gustukoa.
Te-kikarakada bana eta fruta- **opil** batzuk baino ez. Mirentxu Larrañaga
Hogei garagar- **opil** eta gari berria bide-zorroan. Elizen arteko biblia
Jengibre- **opil** ezin gozoagoak dauzkat. Anjel Lertxundi
Piku- **opil** puska bat eta bi mahaspasa-mordo ere eman zizkieten. Elizen arteko biblia
Ogia eta okela-zati bana eta mahaspasa- **opil** bana eman zizkien. Elizen arteko biblia
Cinnamon-raisin, kanelaz eta mahaspasaz egindako eratzun- **opila** . Oskar Arana
- Hago isilik, zuntzun- **opila** ! Anjel Lertxundi

6 irud/hed

Askoz gehiago kezkatzen da ASC elkartearen uda guzian ondartzara jin diren petrolio **opilak** aitzina etorriko diren oraino. Herria

7 arrautza opil ik arrautzopil.

8 nork bere opilari su

Ama-amonak ez ziren eztabaida hartatik aterako, nork bere astoari arre, nork bere **opilari su** . Joan Mari Irigoien
- Ez zen, beraz, ene eskua toki menperatu berritik kentzeko bertze agindu bat -nik, bederen, neure **opilari su** , horrela ulertu nuen-, baina bai nire haztatze lanak gelditzeko erregua. Aingeru Epaltza

9 ogia erre arterainoko opil (orobat ogia erre artinoko opil) ipar

Baionako partida eta Garatenekoikus detzazkegu hemen bertzalde, biak ere amaturren artean, ogia erre arterainoko **opila** ! Herria
Zerbait bide da hori haatik ogia erre artinoko **opila** bakarrik, baina dena ere on. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
jengibre opil (4); **ogi opil** (3); **opil gozo** (4)
erre artinoko opila (4)
jengibre opilak (4); **legamigabeko opilak** (4); **opilak egin** (3); **opilak jan** (3); **opilak jaten** (5)

opilgile iz opilak egiten dituen pertsona.

Ez horixe, zeren, ez dielarik **opilgile** , arropagile, jostun zein kapelagileen arimek muzin egiten, ez baitit noski niri egingo. Anjel Lertxundi

opilondo iz opila.

-Tori, Hester, jan ezazu mutur bat bederen... -eta itxura goxoko **opilondo** bat eskaini zion Willemek. Anjel Lertxundi

opiltto iz opiltxoa.

Opil ttikiak egiten zituzten bailara zenbaitetan, **opilttoaren** erdi-erdian paxientxi gisako ale bihi baia edo babatxo jangairen bat ipiniz, tokian tokiko usadioen arabera. Pello Zabala

opiltxo 1 iz opil txikia.

Txitxikovek, atzera begiratu, eta han ikusi zituen, ordurako mahai gainean prest, ondoak, **opiltxoak** , bizkotxoak, kauserak, gozopilak, bliñaki eta denetariko gaiz beteriko pastelak: tipulaz, lo-belarraz, gaztanberaz, esne gaingabetuaz... Jose Morales
Aurrena, egidazu niri **opiltxo** bat, eta ekarri. Jose Antonio Mujika
Igo txokolate bat eta **opiltxoak** 108. gelara, lehenbailehen, mesedez. Lopez de Arana
Kremazko **opiltxo** bat eta kafesnea eskatu nion zerbitzari bati. Joxemari Iturralde
Bi soseko **opiltxo** bat erostera sartzen zenean. Karlos Zabala
Anaia sakristauak, berriz, bisitan zetorren jendearentzat amak egindako **opiltxoak** jan eta ardo gozoa edaten zuen. Jon Maia
Saltoki batzuetan baita gure erroskilen antzeko **opiltxo** batzuk ere, zuriak eta biribilak, Urkiolako San Antonioren erromerietan bezala. Anjel Lertxundi
Vienako okin batek asmatu zituen kruasan **opiltxoak** , austriarrek turkoen kontra irabazitako bataila bat ospatzeko. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Danielek, orduan, bikea, koipea eta ileak hartu eta denak batera egosi zituen; guztiaz **opiltxoak** eginik, herensugeari ahora bota zizkion, eta, irentsi zitueneko, lehertu egin zen herensugea. **Opiltxo** horiak, horrela esaten omen diete txinatarrek taxi. Elizen arteko biblia

-Begira, ene **opiltxo** hori, ez naiz ni nor zuri aholku emateko. Oskar Arana

3 (neskei buruz)

Hogeita hamar urtetik gora dauzka, guk bezala, eta hamazazpi urteko **opiltxo** batekin dabil! Jon Arretxe

Nondik aterako zuen Gaizkak honelako **opiltxo**? Jon Arretxe

4 (hitz elkartuetan)

Ogi zati bat eta bezperako irin **opiltxo** batzuk eman zizkion. Jon Maia

"Zorioneko gazteria", ematen zuen zioela erretoreak erretilutik basoerdi almindra **opiltxo** bat hartu edo likore zurrutadatxo bat edaten zuen bitartean. Josu Zabaleta

opinione iz ipar iritzia.

Tony Blair Ingalaterrako lehen ministroa ere ez dute afera horiek guziek onten **opinionearen** aitzinean. Herria

Opinionia da bi gobernetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Iritzi edo **opinione** trukaketa eder batekin bururatu zen bilkura balios hori. Herria

Opinionea inarrosia da Ameriketan berean, % 69 dira han berean holako egitateak kondenatzen dituztenak. Herria

opio 1 iz lo-belarraren buruetatik ateratzen den esne modukoa, alkaloideez aberatsa, sorgortzaile gisa erabiltzen dena.

-Badakit, bai, haxixa, **opioa**, konfitura berdea, paradisu artifizialak. Josu Zabaleta

Opioak edozein eritasun senda zezakeela pentsatzen zen. Joseba Sarrionandia

Opioak [...] oso eginkizun garrantzitsua izan zuen ondoren etorri zen kolonizazioan. Koro Navarro

Jendeak tabakoarekin erretzen zuen, harik eta hemeretzigarren mendean botikari aleman batek **opiotik** morfina atera zuen arte. Joseba Sarrionandia

Opioa hartu nuen eta bere eraginaren ametsetan iritsi zitzaidan poema osoa, hitzez hitz, esaldiz esaldi. Pako Aristi

59 urte zituen orduan, gaixotasun malapartatu batek sortzen zizkion minei eutsi ezinik **opioa** erretzen zuen eta adiskiderik gabe bakardade bakartienean sentitzen zen.

J.M. Olaizola "Txiliku"

Francesco Cenci lo geratu zela **opioaren** eraginez, eta, hura lo zegoela, Olimpio eta Marziori deitu zietela emakumeek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezin zuela zehaztu noiz hartu zuen irakurtzeko bizioa, izan ere, benetako bizioa baitzen, halako **opio** lasaigarria gorputzaren nahiz gogoaren nekeetatik eta eguneko gaitzetatik bizkortzeko. Bego Montorio

Horiek egiteko **opioaren** landaretik ateratako gaiak morfina, kodeina edo hidromofona, kasu erabiltzen dira. Berria - Gaiak

Opiotik eratorritako drogak. Berria - Gaiak

Jendeari begiratzea aski dut, **opioa** isuri izan banie bezalaxe lokarrarazteko. Josu Zabaleta

"Kiroalaren alienazioa, edo zergatik den futbola herriaren **opioa**" izeneko tesina. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Opio mitxoletaren hazkuntza eta merkataritzaren aurkako borroka. Berria - Mundua

ik beherago 3. Askoren artean

Miseriari ihes egiteko txinatar asko **opio** kearen txingoletan lokartzen ziren. Ramuntxo Etxeberri

Laudanoa **opio** zukua da. Ramon Saizarbitoria

[Laudanoa] **opio** hautsa alkoholarekin nahastuz egiten zen, azafraiez ematen zitzaion kolorea, eta Malagako ardoaren esentziaz usaingoatzen. Ramon Saizarbitoria

Opio tronpeta bat erre duzue edo ze ostia! Unai Iturriaga

NBEk ohartarazi du **opio** sailak ugaritu direla eta herrialdea «narko-estatu» bilaka daitekeela. Berria - Mundua

Hamaseigarren mendean Europa eta Asiaren artean **opio** merkataritza zegoen. Joseba Sarrionandia

Politika errealitateen artea da, eta ez **opio**-erretokia. Berria - Euskal Herria

Arimako sentipen guttiz erori batez, zeina lur honetako sentipenekin ezin baita alderatu, ez bada **opio** hartzailearen biharamunarekin, eguneroko bizimodura itzuli behar suminarekin, errezelaren altxatze gorrotagarriekin. Koro Navarro

Opio -saltzaile bat? Fernando Rey

Akordioaren arabera, «segurtasunezko gerrikoa» mugaldeko eremuei dagokie, non **opio** kontrabandisten ibilbideak moztu nahi dituzten. Berria - Mundua

3 opio-belar (orobat opiobelar)

Mundu osoan **opio**-belar gehien ekoizten duen herrialdea Afganistan da, ekoizpen osoaren %87 bertakoa da. Berria - Gaiak

Thailandian **opio**-belarraren negozioak behera egin badu ere, anfetaminena asko indartu da. Berria - Gaiak

Ekialdeko Asian, berriz, **opiobelar** landaketak eta kalamuarenak ohikoak dira. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herriaren opioa (4)

opiobelar ik opio 3.

opioide (orobat opioideo) izond/iz opiazeoa.

Sistema **opioideoak** mina, plazera eta menpekotasunak kontrolatzen ditu. Gehien hartzen diren substantzia psikoaktiboaren artean depresoreak, bizigarriak, **opioideak** eta haluzinogenoak daude. Berria - Gaiak

Gehien kontsumitzen diren **opioideak**, ostera, morfina eta heroina dira. Berria - Gaiak

opioideo ik opioide.

opor 1 iz ikasleak edo langileak izaten dituzten atsedean egunak edo atsedean garaia. ikoporraldi.

Edozein tarte libre edo **opor** baliatzen nuela irakurtzeko eta ikasteko. Juan Kruz Igerabide

"Zer moduz **oporrak**?", entzun nuen aurikularrean. Bernardo Atxaga

Har itzak **opor** batzuk. Aingeru Epaltza

Oporrak eskatu zituen bere nagusiarri. Ramuntxo Etxeberri

Hasieran alabak hiritik etxera etortzen ziren **oporrak** pasatzera. Koro Navarro

Nik bezala, **oporrak** guranorren ematen zaituen, gurasoekin. [Juan Luis Zabala](#)

Oporrak hasteko egun bakarra falta zela esan zidan. [Xabier Montoia](#)

Marcel ere itzultzearen alde, **oporrak** bukatzen ari zitzaizkiola-eta. [Joxe Austin Arrieta](#)

Oporrak behar dituk hik. [Edorta Jimenez](#)

Eskerrak laster diren **oporrak**. [Josu Zabaleta](#)

Harritu egiten ninduen gure arte-jakitun paper-kalkatzaileak, eguzki-galdatan lan egin eta lan horretan bere **opor** eta aurrezki guztiak xahutzeko gauza baitzen, inork deszifra ezin dezakeen hieroglifiko-mordoa etxera eramatearren. [Joxe Austin Arrieta](#)

John William Hughes zuen hain zuzen ere adiskide zaharrenetako bat (ez da benetako izena), Londresko oihal saltzailea bera, inguru hartan **oporetako** etxe bat zuena.

[Koro Navarro](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bai **opor** onak orain dela bi urtekoak... [Patxi Zubizarreta](#)

Udako **opor** lasai haiek pasatutakoan, lau lagunok berriro elkartu ginen pisuan. [Jon Arretxe](#)

Gorrotago zituen udako **oporrak** urteko beste edozein garai baino. [Iñaki Mendiguren](#)

Udako **oporetan** Egiptora joaten gastatuko dugu urrea. [Iñaki Mendiguren](#)

Pazko asteko **oporrak** pasatu eta lehenengo larunbatean. [Iñaki Mendiguren](#)

Eguberrietako **opor** haiek bukatu arteko denbora guztian. [Iñaki Mendiguren](#)

Bere buruari galdetzen zion eskolako **oporrak** zergatik luzatzen ote ziren horrenbeste. [Eskarne Mujika](#)

Aste Santuko **opor** laburretan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Laster etorri ziren azterketak, eta **opor** laburrak hartu nituen. [Juan Kruz Igerabide](#)

Bere **opor** luzeetako aste bat. [Aingeru Epaltza](#)

Opor politik izango dira, gero! [Iñaki Mendiguren](#)

Aitak han zerbitzatzen zuen bere **opor** ordainduetan. [Joseba Urteaga](#)

-Especialistak **opor** ongi merezietan zeuzkatela. [Aingeru Epaltza](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gerra gori-gorian zegoen eta ez nuen semea ezagutzeko pare bat egunetako **opor**-baimenik lortzen. [Anjel Lertxundi](#)

Ni eta Greta **opor**-etxe baten bila ibiltzeak adierazten-edo zuen harremanen egonkortasuna ere ez zitzaidan alibirik onena suertatu. [Anjel Lertxundi](#)

Opor garaia ailegatzen zenean, gure aitak etxe bat alokatzen zuen, etxe bera beti. [Fernando Rey](#)

Bakoitzari gelditzen zaizkion **opor** egunak solas izan dituzte. [Aingeru Epaltza](#)

Ohitu gara beti zazpigarren egunerako edo **opor** hilabeterako gauzak uzten... [Ana Urkiza](#)

Opor-usain halako bat sumatzen zuen, azkeneko eskola-egunean gailendu ohi den bozkario-giro damu-arrastorik gabekoa. [Mirentxu Larrañaga](#)

Datu hotzak dira, plantilla organikoetik, nominetatik edo haien gaixo-agiri edo **opor**-orrietatik atereak. [Aingeru Epaltza](#)

-Hau **opor** bukaera, ezta? [Aingeru Epaltza](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orain aberri-**oporrak** merezi ditut erotu baino lehen. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Nik behintzat ez neukan batere gogorik beste bokaló-**opor** bat hasteko. [Koldo Izagirre](#)

-Hortaz, aldi guztien egile zarelarik, zeru-lurrok egin baino lehen aldirik izan bazen, zergatik esan lan-**opor** zeundela? [Imanol Unzurrunzaga](#)

4a greba, lanuztea.

Langreko-ko eta Gijon-go portuetako sindikalista gorriak, subertsioaren profesionalak, **oporra** jotzera bortxatzen gintuztenak. [Koldo Izagirre](#)

5 oporetan

Oporretan ala? [Pablo Sastre](#)

Oporretan zegoela esan zidan. [Iban Zaldúa](#)

Oporretan dauden Salamancako ikasleak dira. [Koldo Izagirre](#)

Oporretan egondako jendea Bilboratzen hasi da. [Sonia Gonzalez](#)

Frantzia aldean halako uholdeak eta hildako hainbat udazale **oporetan** zirenak. [Pello Zabala](#)

Maiate **oporetan** zelarik, ama eritu zitzaiola. [Janbattitt Dirassar](#)

Gero, abuztuan, eurekin eraman ninduten **oporetan**. [Iban Zaldúa](#)

Oraindik ez dugu erabaki **oporetan** joango garen ala ez. [Iban Zaldúa](#)

Mikel eta Joxemari Tunisiara joan ziren **oporetan**. [Aitor Arana](#)

Ni **oporetan** etorri naiz hona, eta jakinarazten dizut ez dudala ezertxo ere egiteko asmorik. [Bernardo Atxaga](#)

Niri bakarrik bururatzen zait aitona Wojtyła Val d'Aostara **oporetan** datorren egun berean honako trena hartzea! [Anjel Lertxundi](#)

Oporretan lanera joatea proposatzen zигun lira batzuk biltzeko. [Pello Lizarralde](#)

Oporretan dabilenak ez du horrelako lanik hartzen. [Joxemari Urteaga](#)

Uztaila eta abuztua **oporetan** pasatu ostean, bidaiariak etxerako bidean dira. [Berria - Harian](#)

6 opor bidai (orobat oporbidaia g.er.)

Itsasontzi batean hainbat lagun doaz, tartean detektibe pribatu bat, hamabost eguneko **opor-bidaian**. [Joxerra Garzia](#)

Eskuz idatzitako lerro hauek bidaltzen dizkizut Europako **oporbidaian** berehala Municetik igaroko den Jimmy Ledereren adeitasunari esker. [Ramon Etxezarreta](#)

Akaso neurritz gorako poztasun bat ihesari buruz hitz egiterakoan, baina besterik ez, auzia erabakita, eta Manuel **opor bidai**a luze batetik itzuliko balitz bezala. [Pedro Alberdi](#)

Ondoren Frantzian zer egiten duen galdetu dio, eta Aicek bueltan datorrela Espainian zeharreko **opor-bidaia**tik, eta Parisera doala. [Iban Zaldúa](#)

Diru zama hortan, ez dira haatik Eguberri eguneko bazkaria eta Urtezaharreko afaria kondutan hartuak, ez-eta ere **opor-bidaia**k, elurretara eta abar... [Herria](#)

7 opor denbora (orobat opordenbora g.er.)

Ikastegien **opor denbora** huntan, haurzaindegi bat ideki da, burraso gazteen lagungarri. [Herria](#)

Opor denbora hartan ez zen izan Ordinon egin genuen bezalako uda kanpaldirik. [Piarres Aintziart](#)

Uztaritzeko apez erakasle batek kontseilatu zidan **opor denboretan**, etxen, idazle baten liburua hartzeko eta ene kaierean orriak eta orriak betetzeko, kopiauz. [Piarres Aintziart](#)

Herrietako arduradunen helburua da haur eta gazteak, ikasketa orduetarik kanpo, aste buruetan eta **opor denboretan**, saia ditezen kirol eta kultur aktibitate diferentetan beren gogoaren arabera lan egitera eta moldatzera. [Herria](#)

8 opor eginsup_1 lanik ez egin.

Inoiz **opor** egiten ez zutenek lantegietan jarraitu zuten Errepublikan mendian defendatu behar zenean. [Koldo Izagirre](#)

Erein goizean zeure hazia, eta arratsaldean ere ez egin **opor**, ez baitakizu ereinaldi bietan zein izanen duzun hoberena. [Elizen arteko biblia](#)

-Etsaiarengandik beti zerbañ ikasten baita, Migel Mailuk ere **opor** eginarazi zien Donapaleuko notarioei. [Aingeru Epaltza](#)

9 opor eginsup_2 ipar huts egin.

Abuztuak amor eman du, baina ez dit **opor egin**, oporrak eskaini baizik. [Piarres Aintziart](#)

Haatik ez du joko **opora**, Europako konstituzio haren **opora egitearen** ondotik. **Herria**

Komunismoak eta Tito batek nahi izan zituzten horietarik zenbait bategin baina ez direa orain, Berlingo paretaren erortzea, komunisten **opora egitea** eta oro pasaturik, sekulan bezain petzero, nehor gutik nahi dituen herri txar bilakatuak, batzu musulman eta besteak girixtino! **Herria**

Duela hiru urte **opora egin** zuten Indian beren solasaldietan baina ez dute etsitua, oraino berriki ere bi egunez zinez funski mintzatuak direnez geroz. **Herria**

10 **opora eman** jai eguna eman.

Sekulako euri-jasak egin zituen aurreko egunetan, eta ez baitzegoen lan egiteko modurik, **opora** eman ziguten. **Anjel Lertxundi**

11 **opora gelditu**

Opora gelditu ginen. **Aingeru Epaltza**

12 **opora landa** (*corpusean oporlanda soilik*)

Beren **oporlandak** eraiki dituzte eta hango ekintzak antolatu, herri hauetan: Sara, Azkaine, Lehuntze, Gotaine-Irabarne, Itsasu... **Herria**

12 **oporrek egin**

Hitz gogorrek egin zituen grebalarien aurka; besteak beste, «ELAK ordaindutako **oporrek egiten**» egotea leporatu zien. **Berría - Ekonomia**

Esan bezala, Hugok ez zuen **oporrek** Pasaian **egiteko** asmorik. **Koldo Izagirre**

Udako **oporrek** kanpinetan **egiten** zituen. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguneko **opora** (3)

opora batzuk (4); **opora denbora** (5); **opora denboretan** (3); **opora edo bakantza** (4); **opora egin** (3); **opora egun** (14); **opora egun bat** (3); **opora egunak** (11); **opora fiskalak** (3); **opora garaia** (6); **opora garaian** (4); **opora luzeak** (4); **opora osteko** (3); **opora sailduetan** (3); **opora txiki** (3)

udako **opora** (7)

amaitu dira **oporrek** (3); **aste santuko oporrek** (5); **derrigorrezko oporrek** (3); **eskolako oporrek** (3); **gabonetako oporrek** (5); **hilabeteko oporrek** (3)

oporrek behar (3); **oporrek bukatu** (9); **oporrek eman** (5); **oporrek hartu** (16); **oporrek hartuko** (5); **oporrek hartzeko** (7); **oporrek hartzen** (7); **oporrek hasi** (7); **oporrek igaro** (3); **oporrek iritsi** (3); **oporrek izan** (4); **oporrek izango** (6); **oporrek moldagarriak** (3); **oporrek pasatzen** (4); **oporrek pasatzera** (7)

udako **oporrek** (22)

aste santuko oporren (8); **oporren atarian** (3); **oporren aurretik** (3); **oporren bezperan** (3); **oporren ondoren** (5); **oporren ostean** (9); **udako oporren** (3)

oporretako etxe bat (4)

oporretan da (3); **oporretan dago** (9); **oporretan daude** (5); **oporretan dira** (4)

oporretan egon (4); **oporretan etorri** (7); **oporretan etortzen** (3); **oporretan ezagutu** (3); **oporretan gaude** (3); **oporretan geunden** (4); **oporretan harrapatu** (3)

oporretan izan (4); **oporretan izanen** (3); **oporretan joan** (10); **oporretan joateko** (3); **oporretan joaten** (3); **oporretan nago** (3)

oporretan zegoen (4); **oporretan zen** (3)

udako oporretan (18)

oporretara joan (19); **oporretara joana** (4); **oporretara joateko** (5); **oporretara joaten** (3)

oporretarako etxe (3)

oporretatik bueltan (17); **oporretatik iritsi** (3); **oporretatik itzuli** (5)

oporbidaia ik **opora** 6.

opordenbora ik **opora** 7.

opordun *izond* oporrek dituena.

Salgaien inguruan purrustaka metatzen ziren etxeoandreen, haur eta aita **opordunen** eta erretiratuen artean. **Aingeru Epaltza**

- Bertzaldean aste **oporduna** izanki eta, jendalde gotorra etorri da Lapurdiko anaieri bisitaz eta lekuen ikusterat. **Herria**

oporgune (*orobat opora gune*) iz oporretako gunea.

Iragan asteartean Cervione herriaren inguruan, iparraldean, bost atentatu egin zituzten **oporgune** batzuen kontra. **Berría - Mundua**

Nazioarteko ordezkariak atzo goizean heldu ziren Urruñako Sokoa auzoko **oporgunera**. **Berría - Euskal Herria**

Herriko Etxean zehazten dute ez dagoela kanpalekurik, baina sei hotel daude eta **opora-gune** bat. **Berría - Harian**

oporketa iz lanuztea.

Gatozen 1920ko Azkoitiko **oporketa** edo lanuzte famatura. **Berría - Kultura**

Lorenzo Garate peontzan aritzen zen, Uztarrik taberna jarri zuen Azpeitian, eta Urkilegi Azkoitiko **oporketa** handiko bertsoak jarritakoa, sindikalista eta fabrikako langilea izan zen. **Berría - Kultura**

oporlanda ik **opora** 11.

oporleku (*orobat opora leku*) iz oporretako lekua.

"**Oporleku** da hau" esan du Frai Joxek, "nahiko nahaste-borraste dago bestela ere gure herrian, udalekuetan ere umeak politizatzen hasteko". **Xabier Mendiguren**

Elizegi

Kexu izaten ziren nire senideak eta ama, mendiko **oporleku** haietan eta aparteko etxe haietan aspertzen zirelako. **Fernando Rey**

Nafarroa edo Lizarra, beraz, afektuen mundua izan da eta baita guztiz idealizatutako eremua ere, ez delako lan lekua izan, **opora leku** baizik, hau da, gozamenerako eta aisiarako lekua. **Ana Urkiza**

Opora lekuetatik itzuli ziren herritarrek auto ilarak eragin zituzten atzo Araban eta Gipuzkoan. **Berría - Euskal Herria**

oporraldi (*orobat opora aldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian oporraldi agertzen da*) 1 iz opora denbora.

Berarentzako gozamen hutsa zen, jolas berri bat, **oporraldi** halako bat, kaskarin fin izateari uko egin ahal izatea. **Mirentxu Larrañaga**

Udan negoziotia itxi eta Lucyrekin eta nirekin **oporraldi** luze bat egiteko iradokizuna ere ez zitzaion ikaragarri gustatu. **Oskar Arana**

-Gure aitaren urteko **oporraldia** San Pedroetako lau egunak izaten ziran. **Xabier Amuriza**

Astebeteko **oporraldia** dugu fabrika. **Eskarne Mujika**

Abendu bukaeran "Aste Zaharra" izaten zen: morroi eta neskameen urteko **oporraldi** bakarra; orduan ezkondu, orduan ziren nahi zuten hartara joateko libre. **Pablo Sastre**

Ni hiru asteko **oporraldi** horretarako besterik ez nauk bizi. **Lopez de Arana**

Oro har galdetzen dizut, ea Lucyk **oporraldi** bat hartuko balu, etxaldea zaintzeko prest egongo ote zinatekeen. **Oskar Arana**

Udako **oporraldiaren** bukaera nahi baino lehenago iritsi zitzaion Harryri. **Iñaki Mendiguren**

Ni ere joaten nintzen udako **oporraldi** haietara eta asper-asper eginda egoten nintzen. **Fernando Rey**

Larru beltzaranak, bestalde, **oporraldietan** beltzarandurikoa, edertasuna areagotu egiten zion. **Migel Angel Mintegi**

Oporraldiaren noraezean. **Javi Cillero**

Lan eskubide guztiak ukatzen zaizkiela salatu dute: **oporraldi** aratuak, gaixotasun baja, langabezia edo Gizarte Segurantzza. **Berria - Euskal Herria**

Laster debekatu egingo digute **oporraldietan** hiltzea. **Edorta Jimenez**

Miseriak ez du **oporraldirik** hartzen. **Herria**

2 irud/hed

Arazoiairen argira mugatzen dira, eta barruko **oporraldi** faltsura, non hainbesteko atsegina hartzen baitu naturazko gustuak, irudirik gabe, barealdian eta atsedenean. **Joan Mari Lekuona**

Hain dituzte sustraituak **oporraldi** eta barealdi horiek beren izaeran non errukia den Jainkoak gupitu behar baitu ikustean, zeinen zabaldua dagoen errakuntza hau gure egunotan. **Joan Mari Lekuona**

Entzun izan diot atsegin lukeela fabore zerbaite eska baniezaio[...] baina ez diot eskatu, eta menturaz, erdiets nezakeela jakinik ere, ez diot egin ahal izan, san Agustinen erran hau gogoratuz geroz: **oporraldi** sailduak bilatzen ditu egiaren amodioak eta tratu zuzenak asmatzen amodioaren ezinbestek. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan)

Jalta Krimean dago, Itsaso Beltzaren ertzean, eta ospea hartzen ari zen **oporraldi** -gune bezala. **Iban Zaldua**

· Maiatza heldu zen eta alde egiteko prestatzen hasi zinen, amatasun **oporraldia** hartu behar zenuen. **Agurtzane Juanena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asteko oporraldia (4); **eguneko oporraldia** (3); **gabonetako oporraldia** (3); **hilabeteko oporraldia** (5); **oporraldia hartu** (3); **oporraldia izango** (3); **oporraldia luzatu** (3); **udako oporraldia** (6)

udako oporraldiak (3)

aste santuko oporraldiaren (3); **gabonetako oporraldiaren** (5); **gabonetako oporraldiaren aurretik** (3); **oporraldiaren ostean** (6); **udako oporraldiaren** (4)

oporralditxo iz oporraldi laburra.

Oporralditxo batzuk hartzera noa, pilak kargatzera eguzkipean. **Migel Angel Mintegi**

Santu Guztietako **oporralditxo** etorri zen gero hurrena berehala. **Jesus Mari Mendizabal**

oportegi iz oportekua.

Uztaritzeko *Eki begia* **oportegiak** udarako xekatzen ditu: [...]. **Herria**

oporto 1 iz Oporton egiten den ardo gozo eta urrintsua; kopa bat oporto.

-Atera egizu **oporto** pixka bat, Santos... **Josu Landa**

-Santos, **oporto** hobea izaten zenuen lehen. **Josu Landa**

Izeba Juliak **oportoa** edo jereza eskaini zien gonbidatu guztiei. **Irene Aldasoro**

Donnelly andreak esan zuen **oportoa** ere bazeukatela nahiago bazuen. **Irene Aldasoro**

Xabi barra ertzetik dator hiru **oporto** eskuan dituela. **Xabier Etxabe**

Hirugarren **oportoa**. **Xabier Etxabe**

2 (hitz elkartuetan)

Gelaren erdi-erdian mahai txikitxo zegoen, **oporto** eta burbon botila banaz eta lauzpabost edalontzirekin. **Josu Landa**

Oporto kopa komisariori eraman dion zerbitzaria barra ondoan dago. **Joxemari Iturralde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oporto kopa (5)

oportunismo iz onura ateratzeko, are bere printzipioen aurka, egoerara egokitzen denaren jokaera.

Oportunismoak hainbat aurpegi ditu, eta hainbat modutara egin daiteke. **Iñaki Heras**

Beren aukera garapen ideologiko baten ondorioz zintotasunez eginikoak ditut gogoan, ez **oportunismo** politiko hutsaren arabera aldatu direnak. **Joseba Zulaika**

Zenbait kritikariren iritzian, **oportunismo** hutsez egin zen Pirandello Alderdi Faxistako kide, bestela ezin izango zuelako Teatro d'Arte erakundea ez sortu ez hainbat urtez bere eskuetan atxiki. **Josu Zabaleta**

Alderdi politikoek autokritika egin beharrean gaia «**oportunismo** merkea» egiteko erabili dituela adierazi zuen. **Berria - Euskal Herria**

Antzeko **oportunismoa** salatu izan ohi da euskal nazionalismoan ere. **Joseba Zulaika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oportunismo merkea (3); **oportunismo politiko** (3)

oportunista 1 izond/iz onura ateratzeko, are bere printzipioen aurka, egoerara egokitzen dena.

George Bush errepublikanoak, bestetik, «politiko **oportunista**» izatea eta «ideia propiorik» ez izatea egotzi zion Kerryri: «onura politikoa lortzeko edozer esateko prest dago Kerry». **Berria - Mundua**

Herr Piper, ordea, kamusada galanta gertatu ere bai, ez baitzen komunista, **oportunista** baizik. **Joxe Austin Arrieta**

PPren jarrera gogor kritikatu zuen, eta «arduragabea, **oportunista** eta doilorkeriaz bete» dela gaineratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Diskurtso **oportunista** eta erreakzionarioaren lekuko ederra da erantzun mota hori. **Iñaki Heras**

Herodesen fakzioa, bestalde, estatu-politikari **oportunista** baten jarraitzaileen artean zegoen erreklutatua. **Iñaki Mendiguren**

Herioiak ala **oportunistak**? [Berria - Mundua](#)

2 aukerak trebeki baliatzen dituen.

Ez dakigu zein den best-seller-aren sekretua eta **oportunista** denak ez du iraungo, proiektu koherente bat duenak baizik. [Berria - Kultura](#)

Alabaina, Jacob-ek zioenez, eboluzioa ez da diseinugile hutsa, brikolajegilea baizik, **oportunista** hutsa eta, orduan, eboluzioa optimizazio-prozesu gisa aztertzea ez da zuzena. [Askoren artean](#)

oportunitate iz aukera.

Oro har, sariak **oportunitate** bat dira liburua ganoraz argitaratzea dakartenean. [Ana Urkiza](#)

Baina aukeran huraxe zen argitu ahal nuena argitzeko azken **oportunitatea**. [Edorta Jimenez](#)

Oportunitate bat baguenen beraz, Miarritze kultura mailan kokatzeko, leku erreferente bat izateko. [Berria - Kultura](#)

oportuno izond aukeran datorrena.

Atzoko sozialista gorriak orain liberal zuriak dira (Prietoren "socialista a fuer de liberal" leloa gustatzen zaie: ez liberal eta ez sozialista askok lotsaizunak estaltzeko zapitxo literario **oportuno** bat). [Joxe Azurmendi](#)

oporzale izond/iz oporren zalea dena.

Kostaren zati hura, Playa de las Américas, dena josita zegoen **"oporzaleentzako"** eraikin eta lokalez. [Bernardo Atxaga](#)

oposaketa (Euskaltzaindiaren Hiztegia **oposizio** agertzen da) 1 iz pl oposizioa, lehiaketa.

Iruñeko Udalerako administrari laguntzailerako 2001ean egin ziren **oposaketetan**. [Berria - Euskal Herria](#)

Musikari gazteek **oposaketetara** aurkezteko pieza unibertsalak landu behar izaten dituztelako. [Berria - Kultura](#)

Oposaketa batzuk atera ditut. [Patxi Zubizarreta](#)

Joan den urtean **oposaketak** gainditu zituen eta geroztik Frantziako hezkuntza funtzionarioa da. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (hitz elkartuetan)

Eta denak zorionak emanez eta zer **oposaketa** mota ote ziren galdezka hasi zaizkit. [Patxi Zubizarreta](#)

Nafarroako legebiltzarkide, Tafallan zinegotzi, eta, gainera, irakasle **oposaketak** prestatzen ari da. [Berria - Euskal Herria](#)

3 oposizioa, kontraktasuna.

Twirf-ek, Irala eta Cruz-en **oposaketa** gora-behera [...] proposamen berria egina zuen zirt-zart erosteko *La Prensaren* bildumak, Kixotearen hiru mila eta lauhun ale, [...].

[Juan Garzia](#)

Ez dakigu **oposaketa** tinkoa egiten edo akordioak egiten hasiko den. [Berria - Euskal Herria](#)

Zatiketa hori "garbi" eta "zikin"aren arteko **oposaketan** oinharritua da; garbiari hurbilago eta gizartean maila gorago. [Herria](#)

Batzuetan, haurtxoen moduan jokatuz, **oposaketa** xehean ildotik asmatzen duela leku berrian, Ameriketan, kasu, izango duen bizimodua: "hemen jendea gaiztoa da, han zintzoa; hemen behartsu bizi naiz, han duintasunez, agian aberats; hemen maitasunik gabe, han zoriontsu". [Bernardo Atxaga](#)

oposatu, oposa, oposatzen du ad aurrez aurre jarri.

Renan eta Herder modu paradigmaticoan **oposatu** ahal izateko, faltsifikatu beharra dago bata zein bestea. [Joxe Azurmendi](#)

Bizitza politikoa kontsiderazio mekaniko-razionalistari, organiko-tradizionalista **oposatzen** dio (nolabait esan: besteak matematikarekin pentsatzen badu, honek biologiarekin pentsatzen du gizartea). [Joxe Azurmendi](#)

oposizio (orobat *oposizione* g.er.) 1 iz gobernuaren edo agintaritzaren kontrako indar politikoen edo sozialen multzoa; legebiltzarrean, gobernuko alderdien kontrako alderdietako hautetsien multzoa.

Instituzio liberalek ezin dute aurrera egin **Oposizioko** alderdirik gabe. [Xabier Olarra](#)

Ezkerreko **oposizioko** zortzi hautetsiek kontra bozkatu dute inkesta publiko berri bat galdatuz. [Herria](#)

Oposizioko taldeek ez dute testua ontzat eman, eta elkarrizketa falta salatu dute. [Berria - Harian](#)

Foro hori «alderdien arteko kontua» da buruzagi sozialistaren iritziz, «Gobernu-**oposizio** mekanismoa martxan sartzen ez den foroa». [Berria - Harian](#)

Alabaina, Chavezekiko **oposizioa** kupidarik gabe ari da gaia [delinkuentzia] haren aurka erabiltzen. [Pako Aristi](#)

«Taxuzko elkarrizketa eraginkorra» hasteko eskatuko die lehendakariak alderdi politikoei, **oposizioko** barne. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (izenondoekin)

Marcos ohartu zen **oposizio** demokratikoak aitzina hartu zuela emaitzetan. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Garai hartan nazien kontrako **oposizio** politikoa, batez ere sozialistak eta komunistak, ezin sutsuagoa zen. [Alberto Ladron Arana](#)

Oposizio abertzaleak salatu du elkarte bizitzaren lan talde munizipala ez dela ere bildu, buxeta aitzinttoan. [Herria](#)

Aukera Berdintasunerako Legearen eztabaidak aurrera jarraitzen zuen, ezkerreko alderdien **oposizio** sendoarekin. [Berria - Ekonomia](#)

Aralarrek UPNri **oposizio** «tinkoa» eginen diola iragarri du Zabaletak. [Berria - Euskal Herria](#)

Putinen **oposizio** liberaleko hedabide batzuek dudak jarri zuten balantze hau. [Berria - Mundua](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Viktor Justxenko [...] hautagaiaren uestezko garaipena bertan behera uztea aldarrikatzen duten **oposizio** indarrek agintearekiko negoziazioak eteten zituztela eta gobernuaren blokeoa berresten zutela iragarri zuten atzo. [Berria - Mundua](#)

Bi **oposizio** mota daude Haitin. [Berria - Mundua](#)

DUPek **oposizio** jarrera nabarmen aldatu du bozak irabazi zituenetik. [Berria - Mundua](#)

Schroeder, **oposizio** sortzaile. [Berria - Mundua](#)

KMT Kuomintang alderdiak (Alderdi Nazionalista) gidatutako **oposizio** aliantzak (Aliantza Urdua) irabazi ditu Legebiltzarrerako eginiko hauteskundeak, 225 diputatuetik 113 lortuta. [Berria - Mundua](#)

Ramiros **oposizio** taldeko kideak Saint-Marceko komisaldegiaz jabetu ziren joan den larunbatean. [Berria - Mundua](#)

Exilioan eginiko **oposizio** lanak Turkian, Iraken eta Frantzia eman zion oposizioaren ikur nagusia bilakatzeko karisma eta sinesgarritasuna. [Berria - Mundua](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iraken daraman politika defendatzeko eginahal bereziak egiten ari da azken egunotan Etxe Zuria, inbasioaren hirugarren urtemuga eta gerraren kontrako barne zein kanpo

oposizio gero eta handiagoa direla-eta. **Berria - Mundua**
Aitasantutzak herri-**oposizio** "idolatrekin" bat egin zuen gogotsu, eta horrekin urratzen handia egin zuen bizantziar agintetik bere burua askatzeko. **Iñaki Mendiguren**

5 kontra egitea.

Itoizko Koordinakundearen eta solidarioen inguruan mamitu da urtegiaren kontrako **oposizioa**. **Edurne Elizondo**
Londresen agintean den Alderdi Laboristaren barrenean erabakiak **oposizio** handia izan zuen. **Berria - Mundua**
Alavesen Akziodunen Batzarrean **oposizio** handirik gabe eztabaidatu dituzte plazaratutako puntu guztiak. **Berria - Kirola**
Fariseuek, berriz, apaiz nagusiek, lege-maisuek eta santutasun-itxurak zituzten haiek guztiek **oposizio** gogorra egin zioten eta azkenean heriotza-zigorra eman. **Joan Mari Lekuona**
Arrakasta horrek, ekoizle-kartel baten eraginkortasuna baino areago, nazio-estrategia baten egokitasuna adierazten du, erakundeko herrialde kide gehienen **oposizio** argiarekin bideratu zen arren. **Koro Navarro**
Neskaren argudioei erakutsitako **oposizio** faltsua ahanztirik, pozarren egokitu zen besaulkian. **Patxi Zubizarreta**
«Uniformizazioz garrantzitsuak uhin horri **oposizio** eta erresistentzia» egitea da helburua. **Berria - Kultura**
Mugimendu horiek oso klerikalizatua zegoen Eliza ofizialarekiko **oposizio** -karga handia zuten. **Askoren artean**

6 kontraktotasuna.

Desberdintasun horrek, zeina Ipar-Hego **oposizioaren** osagai baita, metaketa-prozesu ororen bi osagai nagusirekin du zerikusia: kapitalarekin eta lanarekin. **Koro Navarro**
Mentalitate alternatibista edo manikeoaren propioa izaten da, errealitate osoa bi poloren arteko **oposizio** eta borroka bezala ikustea (Jainkoa/Deabrua, Ongia/Gaikzia). **Joxe Azurmendi**
Ahozko eta idatzizko jardunen arteko **oposizioa**, zuria eta beltza bailiran, ez da batera egokia ikergaiari zehazki heldu behar zaionean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Oposizio nagusiaren terminoak euskal paganismo jatorra eta kristautasun arrotz etorkina dira. **Joxe Azurmendi**

7 (astronomian)

1884an Marte Lurrari buruz **oposizio** egoeran zegoela, eta lauorogei milioi legoatako distantziara besterik ez gugandik. **Josu Zabaleta**

8 enplegu publikoko lanpostu baterako lehiaketa.

Jakina, katedrari Idoyagaren curriculumari zegokion perfila jarri zitzaion, eta, **oposizio** hartan entzule izan ginenok argi eta garbi ikusi genuen, hasiera-hasieratik, SKk zer egirik ez zuela. **Joxerra Garzia**
Ahots ona izaki, tenorra izateko **oposizio** batzuetara aurkeztu zen eta irabazi egin zuen. **Berria - Kultura**
Gero, instituturako **oposizioak** atera zituen. **Anjel Lertxundi**
Funtzionario izateko **oposizioa** Euskal Unibertsitatean egin nuen, baina tribunalean bi baino ez ziren bertakoak. **Joxerra Garzia**
Oposizioa dela, tesia dela, bada tribunal aurreko azterketarik franko unibertsitatean. **Joxerra Garzia**

9 (hitz elkartuetan)

Valentziako Generalitatearen Hezkuntza Sailak 2002. urtean eginiko **oposizio** deialdiari helegitea jarri zion ACPV Valentziako Kultur Ekintza taldeak **Oposizio** -azterketak, baina, hain dira gogorak, ezen inor ez baita haietara aurkeztzen. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezkerreko oposizio (4); **oposizio abertzaleak** (7); **oposizio bakarra** (3); **oposizio gogorra** (3); **oposizio guztiak** (3); **oposizio guztia** (3); **oposizio handia** (4); **oposizio kontserbadoreak** (6); **oposizio liberaleko** (3); **oposizio nagusia** (4); **oposizio tinkoa** (4)
aurkako oposizioa (3); **benetako oposizioa** (3); **ezkerreko oposizioa** (12); **gobernu eta oposizioa** (3); **gure oposizioa** (3); **herritarren oposizioa** (4); **kontrako oposizioa** (8); **oposizioa dago** (3); **oposizioa egiteko** (6); **oposizioa egiten** (8)
aurkako oposizioak (3); **ezker anitzeko oposizioak** (4); **ezkerreko oposizioak** (36); **gobernuak eta oposizioak** (6); **kontrako oposizioak** (4); **leporatu zion oposizioak** (4); **nahi du oposizioak** (5)
oposizioak atera (3); **oposizioak aurkeztutako** (13); **oposizioak bildutako** (3); **oposizioak dio** (6); **oposizioak egin** (3); **oposizioak galdeketa eskatzeko** (3); **oposizioak irabaziko** (3); **oposizioak salatu** (5); **oposizioak uko egin** (3); **oposizioak uste du** (3)
salatu du oposizioak (6); **udaleko oposizioak** (3); **uste du oposizioak** (3); **venezuelako oposizioak** (4)
oposizioan dagoen (5); **oposizioan dauden** (5); **oposizioan den** (3); **oposizioan egotea** (4); **oposizioan zegoenean** (3)
ezkerreko oposizioaren (3); **gobernuaren eta oposizioaren** (8)
oposizioaren alde (4); **oposizioaren arabera** (10); **oposizioaren aurka** (5); **oposizioaren aurkako** (5); **oposizioaren burua** (4); **oposizioaren erantzuna** (3); **oposizioaren eskaera** (3); **oposizioaren iritzia** (3); **oposizioaren jarraitzaileak** (3); **oposizioaren jarraitzaileen** (3); **oposizioaren jarrera** (3); **oposizioaren kontra** (3); **oposizioaren kontrako** (6); **oposizioaren kritikak** (3)
egotzi zion oposizioari (3)
ezkerreko oposizioko (9); **gubernuko eta oposizioko** (7)
oposizioko alderdi (68); **oposizioko alderdi guztiek** (8); **oposizioko alderdi nagusia** (7); **oposizioko alderdi nagusiak** (12); **oposizioko alderdi nagusiaren** (3); **oposizioko alderdi nagusiko** (6); **oposizioko alderdiak** (16); **oposizioko alderdiak biltzen** (3); **oposizioko alderdiei** (5); **oposizioko alderdiek** (42); **oposizioko alderdiekin** (4); **oposizioko alderdien** (14); **oposizioko alderdiko** (3)
oposizioko beste alderdiek (4); **oposizioko bi alderdi** (4); **oposizioko buru** (21); **oposizioko burua** (18); **oposizioko buruak** (18); **oposizioko buruaren** (8); **oposizioko buruzagi** (7); **oposizioko buruzagiak** (8)
oposizioko diputatuak (3)
oposizioko hainbat kide (5); **oposizioko hautagai** (4); **oposizioko hautagaiak** (4); **oposizioko hautagaiari** (3); **oposizioko hautetsi** (3)
oposizioko indar (7); **oposizioko indarrak** (3); **oposizioko indarrei** (3); **oposizioko indarrek** (14); **oposizioko indarren** (7)
oposizioko kide (12); **oposizioko kidea** (4); **oposizioko kideak** (19); **oposizioko kideek** (10); **oposizioko kideen** (4)
oposizioko koalizioa (3)
oposizioko ordezkariak (3); **oposizioko ordezkariekin** (3)
oposizioko sektore (3)
oposizioko talde (38); **oposizioko talde bakarra** (3); **oposizioko talde guztiek** (8); **oposizioko talde politiko** (3); **oposizioko talde politikoan** (3); **oposizioko taldeak** (10); **oposizioko taldeei** (6); **oposizioko taldeek** (24); **oposizioko taldeen** (7)
oposizioko udal (3)
oposizioko zazpi alderdi (3); **oposizioko zortzi hautetsiek** (3)
poliziak oposizioko (6)
salatu dute oposizioko (3); **udaleko oposizioko talde** (4); **ukrainako oposizioko** (6)

oposiziburu *(orobat oposizio buru)* iz oposizioaren burua den pertsona.

Morgan Tsvangirai **oposiziburua**, traizio akusazioaz errugabe joa. **Berria - Mundua**
Estatuko **oposiziburuak**, John Brodgen kontserbadoreak, bere iritzia eman zuen gertaera horren inguruan: [...]. **Berria - Mundua**
Demokraziarako Herri Aliantza osatzen duten **oposiziburuak** diotenez, lehen ministroak diru publikoa erabili du bere kanpaina finantzatzeko, eta botoak «erosi». **Berria - Mundua**

oposizione ik oposizio.

opoterapia iz eritasunak animalia-etorkiko drogak erabiltzen zuten terapia.

Berarengatik zernahi egiteko prest eta gogotsu zegoen, berak agindutako edozer gauza, baita **opoterapia**-gaien ekoizpen sailletara eginiko zenbait iker-txango ere. **Juan Garzia**

opots (orobat **opotx**) iz sega-potoa.

Beste zernahi tresna: sega, segu kotxu edo **opotxa**, zerra, arpana, haizkora, mailu, trukets eta gaineratiko! **Herria**

Martizen xorrotarriaren asots kolpekatua zurean zizelkatu **opotsean** hezetzeko sartzen oihartzen zen, floka-floka, dailu zein labanaren ezpain eskainietan xirrixarra, ezti eta eraginor suertatzearen. **Itxaro Borda**

opotx ik opots.

opresio 1 iz zapalketa, zapalkuntza.

Gandhik pentsatzen zuen kisten kontrako gudua kastetako jendeekin ereman behar zela, hinduisten gehiengo zabala horiek baitzuten, eta gainera **opresioa** Daliten kontrakoa baino zabalago zen, kastetako laborariena ere hor baitzen. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Europako Batasunaren idealak kontra egiten dio globalizazioari, kultura eta politika arloko menpekotasunari eta gizarte **opresioari**. **Edorta Jimenez**

opsina iz erretinako zeluletan aurkitzen den proteina, argia hautemateko prozesuan parte hartzen duena.

Izatez, erretineno (A bitaminaren antzeko material batez) eta **opsina** izeneko proteinaz osatua dago. **Irene Aldasoro**

Proteina guztiak oso molekula handiak dituzte, eta **opsina** molekulak badu azalean zulo bat erretineno molekula bat garbi-garbi egokitzen zaiona. **Irene Aldasoro**

optika 1 iz fisikaren adarra, argia eta argiarekiko gertakariak aztergai dituen.

Jakitearen arlo asko landu zituen -batez ere natur zientziak, **optika** eta matematika-. **Esteban Antxustegi**

Euklides, geometriaren aita, **optikaren** [...] sortzaileetako bat ere izan zen, eta ikusmena teorizatzen lehenengoetakoa orobat. **Josu Zabaleta**

Optika era axiomatikoan formulatzeko. **Askoren artean**

Objektu baten eta haren "irudiaren" arteko erlazioa **optika** geometrikoaren legeak aplikatuz kalkula daiteke. **Josu Zabaleta**

Gaixotu egiten ninduen gazte hark [...] **optikari** buruzko haren solaskeria ergelak, deus ere ez baitzekien **optikaz**, baina batez ere haren "barka, jauna" jakintsu-usteko hark gaixotzen ninduen. **Joxe Austin Arrieta**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **optiko**.

Aurreko horiek (ez existitzearen akatsaz gainera) **optika**-tresnak dira soilik. **Juan Garzia**

3 kameren eta kidekoen leiarren multzoa eta egitura.

Nire kamerarekiko interesa azaldu zidanez, bada, beronen **optikari** buruzko azalpenak ematea. **Joxe Austin Arrieta**

4 betaurrekoak eta kidekoak saltzen diren denda.

Inguruan dena kontsumitzeko aukerak (zinemak, bokategiak, putetxeak, kalitatea ez zaintzea helburu duten jatetxeak, **optikak**, opari-dendak, solarium eta saunak, automobila garbitzeko munstroak, umeentzako jolastokiak, sinagoga, bidai agentziak...), **Edorta Agirre**

Pasta lodi beltzeko begiorde itsugarri horiek jakako poltsikoan neramatzan orain, eta jantzirik, berriz, nire betikoak, jadaneko konponduak, **optikatik** atera berriak. **Aingeru Epaltza**

Optikan izana nintzen eta hango gizona nire dioptriak neurtzen tematua zen, hautsitako kristalen ordezkokoak zuzen paratu beharrez. **Aingeru Epaltza**

5 ikuspuntua.

Ezkerreko **optika** batetik, beti ere, bistan da. **Jon Alonso**

Hernandezen ahotsak musika hau beste soinu **optika** batetik entzuteran eraman gintuen. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

optika geometrikoaren (3)

optikalari ik **optikari**.

optikari (orobat **optikalari**; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **optikari** agertzen da*) iz optika-tresnak egiten eta saltzen dituen pertsona.

Optikari baten erakusleihoko erlojuan ordu biak eta hogeita bost ziren. **Lopez de Arana**

Optikari edo begi lagun saltegietan aurkituko dute, hala nola Baiona, Miarritze eta Uztaritzeko Vittonatto saltegietan, 4 eurotan. **Herria**

Gero, ebakien beldurrez, baita beiragile eta kristalariok ere Markosi eskatu zioten beren anparoa, eta beiragileetatik baita, azkenik **optikariek** ere. **Pello Zabala**

Optikalariarenean, ikusmen-zorroztasuna neurtzeko, berez ere nahiko konplexuak diren eta begiak oso emaitza onak lortzen ez dituen estimulu batzuk erabiltzen dira (alfabetoko letrak). **Josu Zabaleta**

optiko izond optikarena, optikari dagokiona. ik **optika 2**.

Zelula horiek guztiak nerbio **optikoko** zuntzak osatzen dituzten zelulekin lotuta daude beste sinapsi batzuen bitartez. **Josu Zabaleta**

Informazioa garraiatzeko zuntz **optikoaren** ahalmena. **Iñaki Heras**

Euskaltelek 1.200 milioi euro inbertituko ditu zuntz **optikoa** herri eta enpresa guztietara hedatzeko. **Berria - Ekonomia**

Sentikortasun paregabeko tresna **optiko** bat da begia, diseinuari eta funtzionamenduari dagokionez ezaugarri harrigarri asko dituen. **Irene Aldasoro**

Apailu horretan tresneria **optikoa** azpimarratuko da batez ere, beste guztien gainetik: kamera, ideologia burgesaren subjektu zentratua mugagabe errepikatuzko tresna bezala harturik. **Josu Zabaleta**

XIX. mendearen erdi aldera, mikroskopia **optikoa** hain ondu zen, non zelularen hainbat egituraren berri eman baitzigen. **Juan Garzia**

Teleskopia **optikoen** bidez. **Berria - Gaiak**

Ilusio **optikoa** egia **optikoa** da. Xabier Olarra

Edo desilusio **optiko** bat, zehatzago. Harkaitz Cano

Letizia maindirean bildurik altzaten da komunerako asmoz, baina bere poltsa hartzeaz batera uzten du erortzen, aurreko lotsaz damu edo efektu **optikoaren** bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Mekanismo **optiko** horrek, bi irudi bateraraziz, objektuaren distantzia adierazten du eskala batean. Irene Aldasoro

Bitartean hatz aztarnak hartuko dizkiete, irakurketa **optikoa** egiten duen laser sistema baten bidez. Berria - Mundua

Zehaztasun **optiko** -geometrikoa hurbilago al dago ideal horretatik efektu "atmosferiko" baten bilaketa baino? Josu Zabaleta

2 iz optikaria.

Goizean goizxeago sartu eta arratsaldean lehentxeago ateratzeko baimena eskatu nion gure buruari, **optikoarenean** txanda neukala esanda. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ilusio optiko (4); **zuntz optiko** (6); **zuntz optiko bidezko** (3)

zuntz optikoa (4)

ilusio optikoak (4)

optikoki *adlag* optikaren aldetik.

Oso modu eskematikoan bada ere, esan daiteke lehendik **optikoki** eta gero kimikoki tratatu den informazioaren hirugarren tratamendu maila bat osatzen duela sare guztiz trinko eta konplexu horrek. Josu Zabaleta

Gai da, hura bezala, **optikoki** guztiz zuzena den ikuspegi perspektibista bat emateko, baina, horretaz gainera, gai da, hura ez bezala, antolamendu hori finkatzeko, erregistratzeko. Josu Zabaleta

optimismo 1 iz baikortasuna.

Ez dira bakarrik hizkuntza kontuetan, lehenago igartzen zen **optimismoaren** parean, aski kezkatu ageri zaizkigunak. Pello Salaburu

Optimismo unibertsalaren metafisika razionalista "teologia mozorrotua", esango du berak- handietatik [...] pesimismo totalaren metafisikara gakartza Schopenhauerrek. Askoren artean

Helburua da garapenak sortutako **optimismoaren** kontra joatea, diskurtso positibistaren alde ahulak nabarmentzea. Berria - Harian

Millen azterketak nazioarteko truke librearen bertuteei buruzko teoria klasikoaren **optimismoa** sendotzen du. Koro Navarro

Batzuek -literatoak, gehienak-, bizitzan, instintuen basakerian jartzen dute beren **optimismoa**, eta bizitza ankerra kantatzen dute, zitala, doilorra, helbururik, xederik, printzipiorik eta moralik gabeko bizitza, pantera bat oihanaren erdian bezala. z ote da **optimismoa** sufritzeko beldurrez dagoenaren etsipena? Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Espainia osoa, eta Madril batez ere, zentzugabeko **optimismo** -giro batek bizi zuen. Josu Zabaleta

optimista 1 *izond/iz* baikorra.

Pim **optimista** puska bat da, baina beti ditu bere arrazoiak. Josu Zabaleta

Alabaina, **optimista** zen funtsean gizadiaren aurrerabideari buruz. Berria - Kultura

Optimistentzat -gero eta gehiago bazen horietarik- zenbait hilabeteren edo asteren afera zen. Marzel Etxehandi

Zeren **optimistarentzat** azken esperantzak ere gehiago baitu esperantzatik azkenetik baino, eta horregatik ohi baita haren azken esperantza, betiere, azkenaurrekoa. Joan Mari Irigoien

Zerbait oharkabean pasatu zaizu... **optimista** ere hilkorra dela. Xabier Olarra

Optimista erradikala, fede handikoa, antzerki obra baten debekatzea defenditu zuen, "emakumeen emantzipazioaren aldeko borroka garaiotan, emakume negatibo bat" aurkezten zuelako. Pablo Sastre

2 (gauzei buruz)

Horrexetan hasten da, eta horretxetara biltzen, munduko filantropia **optimista** guzia. Patziku Perurena

Zurrumurrak zurrumuru, badaezpada ere hipotesi **optimista** ere idatzita utzi nuen. Iñigo Aranbarri

Ez ote da alaitasun **optimista** hori nekezko, zahardadezko behera-behar batek, etsi-behar batek ekarria? Iñaki Segurola

Euskara hizkuntza baikorra, **optimista** da; edota optimiston eta baikorron hizkuntza: izatea esatearen mende jar daitekeela sinesten dugunona da etorkizuna. Iñaki Iñurrieta

optimizatu, optimiza, optimizatzen du *ad* optimoa lortu.

Ikastetxeko bertako lan giroa hobetzea, gela barruko giroa eta funtzionamendua **optimizatzea** eta irakaslearen lan baldintza psikikoak ere hobetzea. Berria - Euskal Herria

Zabor-bilketako kamioien denborak eta kostuak arrazionalizatzeko, emaitzak **optimizatzeko** helburuz, lortu ditek ibilbide perfektuaren adierazpide den formula matematikoa. Iñaki Iñurrieta

Arcelorrek azaldu du amaitutako altzairu produktuen atala **optimizatzeko** prozesuaren barruan kokatu behar dela salmenta. Berria - Ekonomia

Beste gerente bat jarri dutela geriatrikoko "baliabide ekonomikoak **optimizatzeko**", horra. Anjel Lertxundi

optimizazio 1 iz optimizatzea.

Sinergiak sustatu eta garatu behar dira, baita baliabideen erabileraren **optimizazioa** bilatu ere. Berria - Euskal Herria

Horrek esan nahi du, organismoa osotasunean ikusita eta bere garapen-prozesua kontuan hartuta, ezin dela pentsatu ezaugarri guztien **optimizazioa** posible denik. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan)

Alabaina, Jacob-ek zioenez, eboluzioa ez da diseinugile hutsa, brikolajegilea baizik, oportunistak hutsa eta, orduan, eboluzioa **optimizazio** -prozesu gisa aztertzea ez da zuzena. Askoren artean

optimo *izond* ezin hobea.

Merkatu mekanismoek inolako trabarik gabe lan egin behar dutela ekonomiaren funtzionamendu **optimoa** bermatzeko. Iñaki Heras

Euroaren esparrua ez omen da esparru monetario **optimo** bat. Iñaki Heras

Kapitalak, batetik bestera, inongo oztoporik gabe inbertsio **optimoen** bila aritzeko aukerak izan du onurarik, esaterako, finantzazioa lortzeko erraztasuna izugarri erraztu baita.

Iñaki Heras

Izan ere, bilakabideek dakartzaten tasun-konbinaketa **optimoaren** arabera sor daitezkeen hots-unitate eta hots-bilkurak gutxiegi dira edozein hizkuntzaren kontraste eta egituratze beharretarako. Lourdes Oñederra

optimum iz puntu optimoa.

Gutxiago dagokio mundu mailako **optimum** baten bilaketari, industriako mozkin-tasak jaistea eragotzeari baino; izan ere, Ricardoren banaketa-legeen analisiaren arabera, jaitsialdi hori ezin saiheztuzkoa litzateke. Koro Navarro

Ekonomia politiko klasikoak [...] nazioarteko **optimumari** buruzko hausnarketez jantzirik, britainiar kapitalismoaren interesak aldeztu ditu. Koro Navarro

Bera **optimum** bat bezala agertzen da: irtenbidea eman zaien al baita eta kontraesan kopuru handiena al baita eta baliabide bakunenean. Xabier Arregi

opulant 1 izond oparoa, joria.

Neskaren argumentu melengek mutikoa hormatzen baldin bazuten, haren bular alde **opulantak** suaren menara aurkitzen zuen. Itxaro Borda

2 aberats okitua.

Ez dezaket ahanztz alabaina hengo etxetiar, petxero eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela, apez errefraktarioek, etxeko jaun **opulante** eta notabilek haizea norabidez aldarazi artean. Itxaro Borda

Laudorio eta elurra bezain zuriak ziren eleek hozturik bezala, populazio **opulanta** beha zegoen: ohoreak bizian egiazki lanean ari izan gabe jardun zutenentzat zirela marmaritzen zuten. Itxaro Borda

opuskulo ik opuskulu.

opuskulu (orobat opuskulo) iz zientzia- edo literatura-idazki laburra.

The end of laissez-faire (1926) izeneko **opuskulu** bikainean, Keynesek dio ekonomilariak izan omen zirela "berekoikeriaren eta sozialismoaren arteko kontraesana ebazteko aitzakia zientifikoa eman zutenak". Iñaki Heras

1784ko *Beantwortung der Frage: Was ist Aufklärung* ("Zer da Ilustrazioa?") galderari erantzuna) **opuskuluan** Kantek honela laburbildu zuen Ilustrazioaren xedea: "*Sapere aude!*". Askoren artean

Hara non izenburu harrigarria zuen idazlan batean ipini zuen Ruche jaunak begirada: zuzen paraleloei dagozkien zalantzak argitzen dituen **opuskuloa**. Jon Muñoz

Zenbaki adiskideei buruzko **opuskulua** aurkitu zuen gero Ruche jaunak, *Thabit ibn Qurrarena*. Jon Muñoz

opzio (orobat opzione g.er.) 1 iz aukera, hautabidea.

Beraz, bi **opzio** dituzu: edo inkontziente bat zara eta ezikusiarrena egiten duzu, edo eta kontzientea zara eta aurre egingo diozu. Ana Urkiza

Pilota 13 urtez **opzio** gisa proposatu ondoan eta ikasleen zoramena ikusiz kirok egintza horrentzat, Hazparneko URSUYA ikastegiak sortarazi du. Herria

Erretorak baxoko hainbat **opzione** elki deitze. Herria

2 ekonomian, akzioak eta kidekoak epe eta baldintza jakinetan erosteko edo sartzeko eskubidea.

Opzioak, futuroak eta gisa bereko produktuak aspalditik izan dira (Japonian, esaterako, mendeak eta mendeak dira arrozaren gainean futuroak salerosten direla). Iñaki Heras

Arriskuaren osagai bakoitzak, titulu jakin bati dagokionak, merkatu batean negozioa daitezkeen babes-tresna berezien sorrera ekar baitezake: epemuga duten kontratuak truke-tasaren arriskuari aurrea hartzeko, interes-tasen kontratuak tasen aldakuntzaren arriskuari aurre egiteko, **opzio** negoziagaien merkatuak, etab. Koro Navarro

opzione ik opzio.

or iz txakurra.

Raimundo Silvak ikusten du egunkari zabalduz hurbiltzen den zakurra, **orak** zalantzak ditu, ez daki gizonari begiratu behar dion. Jon Alonso

Izan ere, dado-jokoaren gorabeherak zirela kausa, ahakarrean ari ziren bortz zaldunak arestian, otsoak eta **orak** iduri. Joan Mari Irigoien

Adingabea nintzela eta ez neukala sarterik esan zidan **orak** mendean zeuzkan ululari batek. Koldo Izagirre

Mundu guztia nahi izaiten zuen bere erranetarar, morroiak eta **orak**, harat eta honat igortzen zituenak. Joan Mari Irigoien

Eta, ikusi zuenean ezen gauzak urrunegi joan zitezkeela, osabak **ora** bereganat erakarri, eta hala erran zion aita jesuitari: [...]. Joan Mari Irigoien

oragartar izlag/iz Oragarrekoa, Oragarri dagokiona.

2002-ko Euskadi literatur sari nagusia eman diote Itxaro Borda **Oragartar** idazleari, «100% basque» eleberriarentzat. Herria

Oragartar idazleak hamasei liburu publikatuak ditu azken hemezortzi urte hauetan. Herria

Marie Pierre Beroquy Etxeberrikoak senartzat hartu du Alain Iriberry **oragartarra**. Herria

Gazteen mailean Stephane eta Benoit **oragartarrak** nausitu. Herria

orai ik orain.

oraidanik ik oraindanik.

oraikokeria ik oraingokeria.

orain (orobat *orai g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian orain agertzen da*) **1 adlag** une honetan, garai honetan. (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

- Lehen portugaldarra nintzen; **orain** ez dakit zer naizen. Felipe Juaristi
- Boxeolarietako bat euskalduna zen, **orain** ez naiz gogoratzen izenarekin. Bernardo Atxaga
- Baina beharbada -diot **orain** -orduak hasiko nintzen ulertzen mundua ez zela ulertzeko egina. Iñaki Segurola
- Gauzak garbiago daude **orain**. Iñaki Segurola
- Non zagok **orain** txakurra? -galdetu nuen-. Mirentxu Larrañaga
- Non ote dabil **orain**? Pako Aristi
- Tira, eta zertan zabilza **orain**? Mirentxu Larrañaga
- Baina ez nuke **orain** aitortzera noanaz hitzik egingo, baldin ez banengo erotzeko beldurrez. Anjel Lertxundi
- Neure buruari, **orain**, horren arrazoia galdetzen diot. Monika Etxebarria
- Neure buruaz naiz **orain** harritzen, nola atrebitu nintzen holako gauza baten galdatzerat...! Janbattitt Dirassar
- Kopak ur-busti ditut, eta **orain** platerño ilara bat jartzen ari naiz. Pako Aristi
- Orain** sentitzen duzun oinaze hori, berarenganako min hori, ametsa besterik ez da. Antton Olano
- "**Orain** ulertzen dut", esan zuen Lubisek leihotik kirika eginez. Bernardo Atxaga
- Ze kristolarru gertatzen zain **orain**... Anjel Lertxundi
- Eta hara non doan **orain** hazten. Monika Etxebarria
- Zer nahi duzu **orain**? Patxi Zubizarreta
- Arinkeriaz baieztatu duzuna **orain** zuzen dezakezu. Imanol Unzurrunzaga
- Orain**, larriena kenduta, nolabait normaldu nauk jan-edanetan. Aingeru Epaltza
- Orain** ikasi du Isidorak tolerantzia hitzaren esanahia: gauzen benetako funtsa ikusten jakitea. Pako Aristi
- Eta **orain** lotuko dinat hau guztia hasierakoarekin, erleekin alegia. Pako Aristi
- Ez zara **orain** lotsakerietan hasiko, ezta? Sonia Gonzalez
- Orain** ez didazu ihes egingo! Mirentxu Larrañaga
- Baina begira: seme bat sortu eta izango duzu **orain**. Jose Antonio Mujika

2 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

- Orain** diferentea zen. Aingeru Epaltza
- Hiru ziren **orain** errekarren ertzean zaldiekin zeuden langileak. Bernardo Atxaga
- Gibelean nintzen **orain**, Tipik aitzinean nire lekua hartuta. Aingeru Epaltza
- Orain** hemen nintzen, zaratarik gabeko herri honetan. Juan Garzia
- Bera zen **orain** konpasa galdu nahi ez zuena. Bernardo Atxaga
- Orain**, aldiz, emeki-emeki zihoan gurdian etzanda. Karlos Zabala
- Erresuminduta eta amorrut beteta zebilen **orain**. Jon Muñoz
- Orain** denek zekiten. Koro Navarro
- Orain** banekien haietako bat Bernardino zela, aurrean neukan gizonaren aita. Bernardo Atxaga
- Baina **orain** data ere banekien: "Ekainaren 6an". Txillardegi
- Aldaka-maldaka nenbilen **orain**, lasterka barik, eta ozta-ozta baino ez nengoen zutik. Mirentxu Larrañaga
- Lurrera erori ginen eta buelta hartu genuen, **orain** lauhankan zegoen nire aurrean, bere ipurmasaila kolore-gorriak ikusten nituen. Juan Martin Elexpuru
- Orain** ez: **orain** kontua serio hartu beharra zegoen. Juan Garzia
- Nik, **orain** berean joan gogo nian haren ondora. Daniel Landart
- Orain** Hesteluz ere deitzen zidaten batzuek... niri begira esan zuen "batzuek", hitza markatu nahiz. Inazio Mujika Iraola
- Apika, hitzeko oroimenaz baizik ez zituen ezagutzen **orain**. Xabier Olarra
- Nor arduratzen zen **orain** Herrenkoz? Juan Kruz Igerabide
- Orain** berriro ari zuen elurra. Oskar Arana
- Orain**, bertze gautiar bat ari zen, gizaseme bat, leku berean ate joka, ez hain zorte oneko. Aingeru Epaltza
- Oso gogor eta oso luzaroen lan egina zen **orain** bizi zen mundu txiki hura eraikitzeko. Oskar Arana
- Telefonoa idatzi zuen **orain**. Aingeru Epaltza
- Beti maite izan zituen loreak, baina forma edo usainez baizik ezin zituen **orain** bereizi. Xabier Olarra
- Orain** hark aipatu zion emazteari etxe aldatzeko asmoa. Karlos Zabala

3 (bestelakoak)

- Harrapa itzazu **orain**! Patziku Perurena
- Orain** lo egin zak lasai. Txillardegi
- Eta **orain**, Ximu, kontaidak zer zakur-plasta zanpatu duan. Aingeru Epaltza
- Orain** lasai ederrean joan gintezke gu ere komunera binaka eta hirunaka. Iñaki Segurola
- Orain**, elkarren ezagutzak hobekixe egiten ahal genituzke, ez duzu uste? Janbattitt Dirassar
- Zuk ikusi **orain** [...] egoki laburbildu dudan hemen azaldu dudana. Imanol Unzurrunzaga
- Era horretan, politika horiek defizit handiagoak izan zitzaizkion **orain**, bai aurrekontukoak, bai kanpokoko defizitak. Koro Navarro
- Barrenak agindu zidan, horrela deskribatuko nuke **orain**. Karlos Zabala
- Orain** berriro deituko nion, eta apaldurik eta belauniko egongo nintzaion harik eta gure arteko kontu guztiak garbitu eta berak barkamena eman arte. Oskar Arana
- Orainaldia, berriz, beti **orain** baltitz, ez litzateke lehenera igaroko. Imanol Unzurrunzaga
- Orduan **orain** baino zibilizatuagoak baitziren, artean tartariarrek inbaditu gabeak izaki. Iñaki Iñurrieta
- Orduan, **orain** bezala, Nafarroa Beherea ez zen Paris. Aingeru Epaltza
- Sexuaren funtzioa garbi dago, lehen **orain** bezala: pertsonak erakartzen gaituen indar bat da! Pako Aristi
- Aintza berari **orain eta** beti. Elizen arteko biblia
- Orain** edo inoiz ez: hala beharko zuen. Jon Muñoz
- Tira, eta **orain** zer? Juan Luis Zabala
- Eta **orain** hau. Juan Garzia

Eta **orain**, ene! **Julen Gabiria**

- 4 iz orainaldia.

Orainak aldi izateko lehenaldira igaro behar badu, nola esan dezakegu badela, bere izaera ez izatera iristea bada? **Imanol Unzurrunzaga**

Norberak irekitzen baititu astiro-astiro iraganeko ateak, **oraina** zein geroa irentsiko dizkion munstroa sar dadin. **Markos Zapiain**

Kontzientzia jarioaren eredia, non **orainak** etengabe ihes egiten dion bere buruari etorkizunaren irekiduran eta iraganaren atxikipenean. **Xabier Arregi**

Iragana eta lurra, iragana eta odola, iragana eta hazia: oraingo denbora bilakatuak zirela, beti irauten duen **oraina** zirela. **Felipe Juaristi**

Agerian geratzen zen **orainaren** egiazko izaera: existitzen dena zen, eta **oraina** ez zen guztia ez zen existitzen. **Monika Etxebarria**

Oraina borrokarena da, geroa gurea. **Pako Aristi**

Esperientzia bizi-bizia da literatur obra oro, lehenaren **oraina** gauzatzen baitu, eta **oraina** etorkizunerako prestatzen. **Anjel Lertxundi**

Oraina deritzan lerro mugikor batek bereizten du Etorbizuna deritzan alegiazko aldi batetik. **Xabier Olarra**

Bitartean zu zure gorputza zara, analisiaren emaitzak, hori zara, hori da zure geroa, zure gorputzaren beharbadako geroa, zure gorputzaren osasunaren **oraina**. **Lourdes Oñederra**

Haren eskuzabaltasuna zikoizkeria zen semearen baitan; harentzat gerorik ez zegoen, honentzat **oraina** baizik ez. **Felipe Juaristi**

Ezjakinek denbora alferrik galtzen uzten dute: **orainak** ihes egiten die, ihes egin izan die beti; halatan, ez dute oroitzapen eder eta sakonik. **Markos Zapiain**

Nire **oraina**: barraren ondoan ametsetan dagoen neskame atorra beltzarekiko hori, gizontxo hori. **Monika Etxebarria**

Oraina Karl zen eta elkar maite zuten. **Eider Rodriguez**

Ahaztu gainerakoa, bizi **oraina**, goza zeure maitearekin. **Juan Kruz Igerabide**

Kate-begi moduan hartutako **orain** batez ari naiz, ez oraina alfa eta omegatzat jotzen duen itzalik gabeko adanismo batez. **Anjel Lertxundi**

Oraina eta geroa, etorkizuna eta egungoa, horra hor, urri nahiz oparo, berezko eta betiko harremanak. **Andres Urrutia**

- Begiak itxita ere, hori bera gertatzen zitzaion, zeren, nahiz eta bizi-bizi gorde oroienean ikusmenezko bere iruditeria, kolorerik gabea baitzen **orain** hura. **Xabier Olarra**

5 **orainago** adlag gerotzik.

Egoki erakutsi dute hori, besteak beste, Ronald Fisher ingeles genetistak eta, **orainago**, Richard Dawkins-ek. **Juan Garzia**

Ailegatu, Unamuno-k, liberalismoaren defentsa ailegatu ohi du, **orainago** beste batzuek Konstituzioaren defentsa ailegatzan duten legez. **Joxe Azurmendi**

Azkenik, **orainago** psikoanalisiaren, hizkuntzalaritzaren, etnologiaren ikerketek subjektua deszentratu dute bere nahiaren legeekiko, bere hizkuntzaren formekiko, bere jardutearen araukiko, bere diskurtso mitiko edo alegiazkoarekiko. **Xabier Arregi**

6 **oraingo** ik **oraingo**.

7 **orain arte**

Ez nauk inor izan **orain arte**, ez nauk inor gaur ere. **Anjel Lertxundi**

Orain arte, handik atera gabe pasa omen dituzu uda guztiak. **Bernardo Atxaga**

Goizean hasi denetik **orain arte** lan eta lan aritu da, atsedetik hartu gabe. **Jose Antonio Mujika**

Nolatan ez naiz **orain arte** konturatu? **Jose Morales**

Orain arte bezala, bere kasa eramango duela borroka. **Txillardegí**

Orain arte zergatik ez dizugun ezer esan? **Anjel Lertxundi**

-Egia duk, ezkertia haiz, **orain arte** konturatu gabe nengoan. **Iñaki Iñurrieta**

-**Orain arte** egiten nuena egiten jarraituko dut, gutxi gorabehera. **Juan Kruz Igerabide**

-Non jotzen zenuten **orain arte**? -galdegina zien Sarak, musika isildu zenean. **Felipe Juaristi**

Gizon hori **orain arte** ez zen inoiz Venezuelatik atera. **Pako Aristi**

Orain arte ez baldin bazakiten zer den gerla, hemendik aintzina ondikotz ikasiko dute. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Dolu du, hala dio, **orain arte** ez haurraz arta gehiago harturik. **Janbattitt Dirassar**

Orain arte ez bezalako zerbait egin nahi dut, diferentea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Sekula ez dizut maitasunik agindu, **orain arte** ez dut-eta jakin maitasuna zer den -esan, eta ahoa zakartua zuela konturatu zen mutila. **Felipe Juaristi**

Bi ñabardura garrantzitsu, baina, **orain arte** esandakoaren gainean: [...]. **Iñaki Heras**

7a (izen gisa)

Labanekin bizi izan naiz eta harekin egona naiz **orain arte** guztian. **Jose Antonio Mujika**

8 **orain dela** (denbora banakoekin) duela.

Orain dela ordu erdi bat iritsi da. **Antton Olano**

Orain dela bi egun Ceciliak hori bera galdetu zuen afaltzeko orduan. **Jon Muñoz**

Orain dela egun batzuk, Laon inguruan, guda lerroak non zeuden eztabaidan ari ginen. **Josu Zabaleta**

Orain dela mila eta bat gau hasi nintzaion gure aurrekoen ipuinak eta ikasbideak kontatzen. **Patxi Zubizarreta**

Izeba Augustari elkarrekin afalduko genuela hitz eman bainion **orain dela** astebete baino gehiago. **Antton Olano**

Dena dago **orain dela** bi hilabete bezalaxe. **Joxe Austin Arrieta**

Orain dela zortzi hilabete-edo, nire lagun batek, Louis R... -k, bere ikaskide batzuk bildu zituen gau batean. **Josu Zabaleta**

Hain zuzen, **orain dela** ia urtebete gertatu zen. **Eduardo Matauko**

Orain dela urtebete, su-eteneko hartan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orain dela pare bat urte, kasu, abandonatu ninduen nire emazteak. **Josetxo Azkona**

Eta Madrilan ere bai 1869an, **orain dela** lau urte. **Txillardegí**

Orain dela hogeita hamar bat urteko kontuak direlako. **Pello Salaburu**

Gaur egungo mundu honek zerikusi gutxi du **orain dela** ehun bat urtekoarekin. **Pello Salaburu**

Iruaingo hau **orain dela** ehun urte baino gehiago egin omen zitean, don Carlos erregearen gerra hartan. **Bernardo Atxaga**

Orain dela mende bat pasa, 1895eko otsailaren 14an. **Antton Olano**

Orain dela ez dakit zenbat mende desagertutako guantxei. **Bernardo Atxaga**

-Letagin biak eta azken juzioko hagina ere atera nituen, **orain dela** denbora franko. **Patziku Perurena**

Orain dela gutxi, hari buruz idazten ari nintzaizula, Van Daan andrea azaldu da. **Josu Zabaleta**

Orain dela oso gutxi arte egon duk ba hortxe. **Txillardegí**

Ez al zuan matxinada bat izan **orain dela** ez asko? **Jon Muñoz**

- **Orain astebete** ez dela iritsi zen etxera, asaltoko goardia patruila batek jarraitzen ziola. **Ramon Etxezarreta**

9 (dela ezabaturik)

Etxeko txukunketa egiten zion emakumeak aurkitu du hilda, **orain** ordu pare bat edo. **Orain** egun batzuk, aurreko atala idatzi baino lehen, Itsasondon izan nintzen, aspaldiko partez. **Migel Angel Mintegi**

Entzun nituen, **orain** egun asko, **orain** egun asko... egun askoan entzun ditut... **Koro Navarro**

Neu ere ez nintzen Jeronimorekin gogoratuko baldin **orain** astebete hirira joan behar izan ez banu bezero ona nuen gizon baten hiletara. **Anjel Lertxundi**

Gogoratu nuen igande batean, **orain** hiru aste, ez gehiago, nolabaiteko konplizitate itxura antzeman nuela gauzetan. **Monika Etxebarria**

Orain hilabete-edo janaria eskasago ematen ari zitzaizkigula konturatu ginen. **Anjel Lertxundi**

Orain urtebete, ez, orduan ez zitzaidan berdin. Anjel Lertxundi

Orain bi urte urkatu nuen, erregeren aginduz. Anjel Lertxundi

Aitona hil zenean jakin nuen nik, **orain** bost urte beraz. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain hamar urte ditu. Gotzon Garate

-Atzeratuak gaudek, baina **orain** hamar urte atzeratuagoak geundean. Koldo Izagirre

Orain urte batzuk, Errezilgo elizako paretan honako idazki hauxe agertu zen: [...]. Iñaki Segurola

Orain bi mila urte sanskritoiz moldatutako otoiak murmurikatzen dituztela. Gotzon Garate

Gernikaren bonbardaketari buruzkoa ikusi nuen **orain** gutxi. Jokin Urain

10 *orain duela adlag* duela, orain dela.

Orain duela zenbait aste, solasean geundelarik [...]. Piarres Xarriton

Orain duela zorbait ilabete aurkeztu zuen bere liburua herriko etxean, eta geroztik askok haren irakurtzeko epea izan dute. Herria

Istoriario hau kondatzen, nolaz ez gogora, **orain duela** 60 urte gertatu zena, Poloniako konzentrazio kanpo batean? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Funtsean Eñaut Etchamendi ezterenezubiak idazleak baditu liburua batzuk, hala nola "Gilen", garaztar hutsez idatziak **orain duela** hogeit bat urte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Badu **orain** hiru aste Hazparnen gurutzatu nuela. Daniel Landart

11 *orain hurrena adlag* oraingoaren aurrekoan.

Orain hurrena, duela bi urte izan zen. Berria - Kultura

"**Orain hurrena** ikusi nuenean umetxo bat zuan". "Denborak aurrera egiten dik", esan nion. Bernardo Atxaga

Han hasi zen, kontu-kontari, **orain hurrena** izandako golf-saioa zuloz zulo azaltzen. Mirentxu Larrañaga

Orain hurrena zaluagoa hengoan hi ere! Pako Aristi

Orain hurrena, berriz, kalean topo egin genuen. Joxerra Garzia

Orain hurrena ikusi ginenetik denbora guztian edan besterik ez dut egin eta zubi azpian lo egin, gure klaseko guztiak bezala. Matías Mujika

12 *orain hurrengo izlag* oraingoaren aurreko.

"**Orain hurrengo** Eguberrietan Marruekosera joan ninduan egun batzuk pasatzera", esan du Josebak lehen tragoarekin batera. Bernardo Atxaga

Orain hurrengo neguan gertatu zen, Mediterraneoaren bazter honetan beronetan. Josu Zabaleta

Horrelako espekulazioetan hasi, eta ispilukazo galanta har dezakek, esan nian **orain hurrengo**. Iñaki Iñurrieta

13 *orain hurrengoan adlag* orain hurrena.

Enrikek kontatu zidan **orain hurrengoan**. Iñaki Iñurrieta

Orain hurrengoan baino lasaiago etorri zara, ezta? Migel Angel Mintegi

Hori gertatu zitzaidan **orain hurrengoan**, egunkari honetako zutabegile eta Urola-Kostako Hitza-ren zuzendari den Gari Berasaluzeren zerrenda leitu nuenean. Iñigo Aranbarri

14 *orain ... orain...*

Markesak goitik behera begiratzen zien **orain** maisuari **orain** alkateari, haien borondatea soka motzez loturik eta mende baleuka bezain seguru. Anjel Lertxundi

Nik ez dakit aldizkako egoerak izatea irrikatu behar dugun, berez baitira egoerak **orain** zoriontsuak **orain** mingarriak, betiereko kondena bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Mikel Strogoffen zaldia, gidaririk gabe nora ezean, **orain** hona **orain** hara egiten zuen eta destakamendu osoa nahasten. Karlos Zabala

Herriz herri ibili zen, biolina eskuan, **orain** ezkutuan **orain** agerian joka. Felipe Juaristi

Orain hemen, **orain** han, bizi indarrak nagusi dira eta gero menperatuak. Xabier Amuriza

Tristeziak eta poza aldi berean, **orain** alde batera **orain** bestera mugitzen den balantza bat bezala. Fernando Rey

Oinek eramaten zituzten biak ala biak [...] **orain** aurrera **orain** atzera, **orain** jende artera **orain** jende artetik kanpora. Felipe Juaristi

Erortzen dira, halakoetan, maskarak, eta garen bezalakoak azaltzen gara, **orain** guztiz irrigarri, **orain** guztiz nigargarri. Joan Mari Irigoien

Haren eskuak etengabe mugitzen ziren, **orain** atorra laztantzeko, **orain** kapela beltza egokitzeke. Monika Etxebarria

Amarauna handitzen ari zen, eta armiarmak, kar-kar-kar, **orain** argazkilari moduan moztorturirik **orain** ertzain gisa, ez zuen ni sarean bildu beste lanik. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

agian **orain** (13); ari da **orain** (69); ari dira **orain** (35); ari gara **orain** (14); ari naiz **orain** (26); ari zen **orain** (23); autodeterminazioa **orain** (10)

ba **orain** (25); bada **orain** (32); badakit **orain** (15); badirudi **orain** (13); baita **orain** (54); baita **orain** ere (11); batez ere **orain** (15); begira **orain** (19); bizi da **orain** (12)

dabil **orain** (28); dabilta **orain** (13); dago **orain** (233); dagokio **orain** (12); daki **orain** (10); dakit **orain** (13); dator **orain** (16); datoz **orain** (13); daude **orain** (95); dauka **orain** (19); daukagu **orain** (12); daukat **orain** (23); dirudi **orain** (11); doa **orain** (12)

ea **orain** (28); egin ditu **orain** (11); egin du **orain** (31); egin dute **orain** (13); egin **orain** (24); egingo dugu **orain** (20); egiten zuen **orain** (11); ematen du **orain** (11); entzun **orain** (18)

gaude **orain** (36); goazen **orain** (10)

hara **orain** (17); hemen eta **orain** (23); hemen **orain** (20); hona **orain** (16); horra **orain** (10); horregatik **orain** (11)

iruditzen zait **orain** (14); itzul gaitzen **orain** (10)

lehen eta **orain** (22)

nago **orain** (43); nahiz eta **orain** (41); noa **orain** (12)

orain arte (4347); **orain arte** bezala (156); **orain arte** egindako (100); **orain arte** eginiko (18); **orain arte** erakutsitako (15); **orain arte** esandakoa (11); **orain arte** izandako (20); **orain arte** jokaturako (15); **orain arte** sekula (20); **orain arte** soilik (10); **orain arte**an (414); **orain arte**an bezala (16); **orain arte**an egin (11); **orain arte**an ez (19); **orain arte**ko (969); **orain arte**ko bi (14); **orain arte**ko bidetari (17); **orain arte**ko ibilbidea (10); **orain arte**ko lan (10); **orain arte**ko lana (11); **orain arte**ko partida (10); **orain arte**koa (50); **orain arte**koak (24); **orain arte**koan (20); **orain arte**no (26); **orain arte** batzuk (35); **orain arte**te (21)

orain badaki (16); **orain badakigu** (33); **orain badakik** (11); **orain badakit** (80); **orain badakizu** (15); **orain badirudi** (17); **orain badu** (11); **orain bai** (191); **orain baino** gehiago (10); **orain baino** lehen (15); **orain bakarrik** (26); **orain bakea** lelopean (13); **orain banekien** (11); **orain bat** batean (11); **orain bazekien** (19); **orain berean** (46); **orain berriro** (52); **orain berriz** (78); **orain bertan** (51); **orain beste bat** (14); **orain bezain** (37); **orain bezala** (92); **orain bi aste** (55); **orain bi denboraldi** (19); **orain bi hilabete** (16); **orain bi urte** (146); **orain bi urteko** (13); **orain bost urte** (22)

orain da (20); **orain dagoen** (43); **orain dator** (13); **orain dela** (1503); **orain dela** astebete (17); **orain dela** gutxi (169); **orain dela** hilabete (68); **orain dela** urtebete (36)

orain egin (47); **orain egingo** (11); **orain egiten** (52); **orain egiten ari** (18); **orain egun** batzuk (20); **orain ehun urte** (11); **orain eman** (16); **orain erakutsi** (11); **orain ere** ez (32); **orain esan** (64); **orain esango** (32); **orain esaten** (25); **orain eta beti** (14); **orain eta** hemen (29); **orain ez bada** (13); **orain ez bezala** (11); **orain ez dago** (48); **orain ez dakit** (26); **orain ez daukat** (10); **orain ez nago** (11); **orain ez naiz** (22); **orain ez zen** (14); **orain ez zuen** (10); **orain ezin** dut (21)

orain galdetzen (10); **orain gehiago** (19); **orain gertatzen** (21); **orain gertatzen ari** (12); **orain goazen** (10); **orain gogoratu** (12); **orain gogoratzen** (15); **orain gutxi** (150); **orain gutxi arte** (34); **orain gutxiago** (10)

orain hamar urte (24); **orain hartu** (11); **orain hasi** (31); **orain hasiko** (23); **orain hasten** (18); **orain hasten da** (10); **orain hil** (10); **orain hilabete** (72); **orain hilabete batzuk** (30); **orain hiru aste** (17); **orain hiru urte** (58); **orain hitz egin** (10); **orain hurrena** (16); **orain hurrengo** (12); **orain hurrengoan** (17)

orain ikusi (33); **orain ikusiko** (30); **orain ikusten** (48); **orain inoiz baino** (14)

orain jakin (19); **orain joan** (20)

orain konturatu (14); **orain konturatzen** (23); **orain konturatzen naiz** (14)

orain lanean (10); **orain lasai** (19); **orain lasaiago** (10); **orain lau urte** (51)

orain nagoen (29)

orain ohartu (17); **orain ohartzen** (12); **orain onartu** (11)

orain pentsatzen (17)

orain sartu (10); **orain sei urte** (10); **orain sentitzen** (20)

orain ulertzen (69); **orain ulertzen dut** (34); **orain urte asko** (20); **orain urte batzuk** (92); **orain urte bi** (14); **orain urtebete** (40); **orain utzi** (12)

oraindik orain (104); **orauan eta orain** (12)
zaude orain (20); **zebilen orain** (11); **zegoen orain** (69); **zergatik orain** (22); **zeuden orain** (22); **zeukan orain** (19); **zoaz orain** (16)
[3] gure oraina (3); **iragana eta oraina** (16); **lehena eta oraina** (8); **oraina bizi** (10); **oraina eta etorkizuna** (10); **oraina eta geroa** (20)
iraganaren eta orainaren (5); **orainaren eta etorkizunaren** (3); **orainaren eta geroaren** (3); **orainaren eta iraganaren** (6); **orainaren ontologia** (3)
iraganaz eta orainaz (3); **orainaz eta** (9); **orainaz eta geroaz** (7)

orainaldi 1 iz oraingo aldia.

Neskaren irudimenak, **orainaldia** gaudituz, etorkizunerako jauzia egin zuen. **Patxi Zubizarreta**

Hau **orainalditik** ihes egiteko ahalegina da, etorkizun ezezagunaren iluntasunera salto eginez. **Iñaki Mendiguren**

Oraingo hilabetea ere ez da **orainaldi**, egunka baikiz; lehena bada orain, gainontzekoak etorkizun; azkena bada, gainontzekoak iraganak. **Imanol Unzurrunzaga**

Beraz, aurtengo urtea ere ez da osorik **orainaldi**; eta osorik ez bada **orainaldi**, ez da oraingo urtea. **Imanol Unzurrunzaga**

Egun osoa ere ez baita **orainaldi**. **Imanol Unzurrunzaga**

Iragana ez darraikio dagoeneko ez den **orainaldi** bati, izan den **orainaldi** batekin batera existitzen da. **Josu Zabaleta**

Herria handitzeaz batera **orainaldi** eta lehenaldiaren arteko tartea ere handitu egin zait. **Javi Cillero**

-Jaitsi **orainaldira**. **Juan Kruz Igerabide**

Denbora joan egiten dela esateak, iraganak **orainaldian** duen birtualtasuna sentitzen gurea nahi du esan: **orainaldia** ez da existitzen, edo ez da bakarrik existitzen behintzat, zeren **orainaldiko** une bakoitza iraganerantz irristatzen baita, eta **orainaldia** etengabeko irristatze horretaz eta horrek eragiten dituen oroitzapen eta itxaropen-efektuez egina baita, orobat. **Josu Zabaleta**

2 (izenondoekin)

Perfekzioa, akatsik gabeko unea, erabateko zoriona, **orainaldi** betea. **Lourdes Oñederra**

Agnèsek New York hiriko **orainaldi** ederrean ez zuen atzean utzi bere iragana, segika etorri zitzaion hura bera, arnasa hartzeko astirik eman gabe. **Felipe Juaristi**

Orainaldi desatseginetik ihes egiteko ahalegina, ezezaguna den eta ezagutu ere ezin daitekeen etorkizunera salto eginez. **Iñaki Mendiguren**

Orainaldi errearen errautsetan eraiki guren Geroaren Paradisua, berriak jaioko zirelakoan. **Joxerra Garzia**

3 (gramatikan)

Protogermanikoak ez du forma berezirik geroaldia adierazteko; eta **orainaldia** erabiliz adierazten dela esaten denean, ez da zorrotasunez hitz egiten, zeren **orainaldiaren** balioa desberdina baita germanikoan, eta **orainaldiaren** ondoan geroaldia duten hizkuntzetan. **Isabel Arrigain**

Gregek **orainaldia** erabiliztea -edo **orainaldi** burutua-; gertaera haiei buruzko sentiera hain aspaldikotzat ez hartzea, are gutxiago bukatutzat ematea. **Xabier Olarra**

Da: izan aditza, hirugarren pertsona singularra, **orainaldia**. **Sonia Gonzalez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
orainaldian bizi (3)

oraindaino 1 adlag orain arte.

Oraindaino lurtean aita deitu dizut; hemendik aurrera uste osoz esan dezaket: Gure Aita, zeruetan zarena, beronen gain utzi baitut nire altxor guztia eta nire konfiantza eta itxaropen osoa. **Askoren artean**

Zeren nehorik ez du **oraindaino** Gorputzaren egitura behar bezain zehazki ezagutu haren funtzio guztiak esplikatuz ahal izateko. **Piarres Xarriton**

Eta ez da belarririk sortu **oraindaino** ortu eta baratzeetan, ez berbena, ez pasmo-belar, ez besterik, hari kontra egiteko balio lezakeenik. **Imanol Zurutuza**

Nik ez dut holakorik **oraindaino** inor topatu, herri honetako mediku jaun bat izan ezik. **Patxi Ezkiaga**

Egia da garai hartan ideia bera -funts-funtsezkoa **oraindaino** ere- irakurgai gurea narratzeko arteari buruzko era askotariko ikerlanetan. **Juan Garzia**

Harro egoteko motiborik ez zitzaion bere ustetan falta: sortaldetarra izatea, kriolloa izatea, emakume guztiak erakartzea, justun garesti bat aukeratu izana eta, sekula ez dut jakingo zergatik, euskaldun jatorrikoa izatea, **oraindaino** jende horrek ez baitu, historiari bazter, behiak jetzi besterik egin. **Juan Garzia**

2 oraindainoko izlag

Herri berri eta xume bat, apaltasunean eta pobretasunean **oraindainoko** beste guztiak ez bezalakoa. **Askoren artean**

Oraindainoko filosofia tradizioak -indartsuen zabalena behintzat- gizakia animalia arrazoimenduna aitortu izan du. **Jenaro Garate**

3 oraindainokoan adlag oraindaino.

Oraindainokoan hartu ditudan erabaki ustel ugarietan, horra ustelena. **Aingeru Epaltza**

Oraindainokoan ez duzue ezer eskatu nire izenean; eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin. **Elizen arteko biblia**

Gure bizia bukatuko zela, eta hor bukatuko zela **oraindainokoan** gure biziari zentzua eman dion eta kemenez bete duen guztia. **Xabier Olarra**

Oraindainokoan ez du zorte handirik izan, ez Donostian ezta beste Munduko Kopako klasikoetan ere. **Berria - Kirola**

oraindanik (orobat oraidanik) 1 adlag hemendik aurrera, aurrerantzean.

Gauza anitz aldatuko da hemen, **oraindanik**, erresumaren eta euskaldun guzien faboretan. **Elena Touyarou**

Jaunak esan zidan: **oraindanik** eskura ematen dizkizut Sihon eta beronen lurraldea; hasi horretaz jabetzen. **Elizen arteko biblia**

Kapera hau izanen da **oraindanik** ene mundua. **Joan Mari Irigoien**

Badakit **oraindanik** ez naizela depresio berri batean sartuko. **Piarres Aintziart**

Oraindanik, semeek amaren arreta gozoa ezagutuko dute, eta atxikimendu leialez jarraituko diete beti haren oinatz beneragarri. **Askoren artean**

Jaunak zainduko ditu zure ibilera guztiak **oraindanik** eta betiko. **Elizen arteko biblia**

2 dagoeneko.

Arratsaldeko seiak berinazko iragarki batek 39 graduko eguraldia erakusten dit, baina **oraindanik** gorputza beroari egina zait. **Piarres Aintziart**

Oraindanik, eta horiek hola izanikan ere, erran ditake erakustegi zinez miresgarria dela. **Herria**

Araba Euskaraz, **oraindanik** aurkeztua izan dena. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
oraindanik atxik (5); **oraindanik eta betiko** (4); **oraindanik izenak eman** (4)

oraindar izond oraingoa.

Hain zuzen gizarte **oraindarraren** ajea [...] hierarkia eta noblezasun falta horixe da, demokrazia berdinkorrek dena zapaldu zuenez gero. **Joxe Azurmendi**

Ez zuen, alabaina, Tuzidides baten tenpleko athenaitarrik eskandalizatu izango, **oraindarrok** agian espanta gintezkeen moduan. **Joxe Azurmendi**

oraindik 1 *adlag* aipaturiko unean egintza edo egoera batek bere hartan dirauela adierazten duen adizlaguna. ik **oraindino; oraino.** (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Odak **oraindik** bizirik daude gizakien ahotan. Iñaki Mendiguren

Oraindik zutik dago Itzaiaundi izeneko borda, oholezko etxe ilun bakarra Goizuetan. Patziku Perurena

Esdua haren oin biluzian du **oraindik**; gero, orkatilatik heltzen dio estu. Oskar Arana

Hildakoa zatitan dago **oraindik**. Josu Zabaleta

Hi ere sasoiari hago **oraindik**. Aingeru Epaltza

Beste versta bat ibili behar duzu **oraindik**, daramazun bidetik. Jose Morales

-Hamabost egun ditugu **oraindik** irailako azterketarako. Juan Kruz Igerabide

Badira **oraindik** ere erregimen komunista batzuk, Txinakoa adibidez. Koro Navarro

Badut **oraindik** ere izterren garaiko zenbait abentura kontatzeko. Karlos Zabala

Badabil **oraindik**, denbora emeki-emeki zatikatzen du, segundoka aurrena, minutuka hurrengo, eta orduka gero. Mirentxu Larrañaga

Badaki **oraindik** kalean gizonetakoak itzuli egingo zaizkiola eta hori aski duela adinaren ezinbesteko muga ez duela oraindik gaintu jakiteko. Joxean Agirre

Hogei minutu falta dira **oraindik** abioia iristeko. Lourdes Oñederra

Ez al didak errebistarena **oraindik** barkatu, David? Bernardo Atxaga

Hainbeste gauza zeuzkat **oraindik** egiteko eta ikusteko! Jon Muñoz

George -esan zuen Darling andreak, lotsaz-, harra barruan duzu **oraindik**, ezta? Julen Gabiria

Ordu erdi **oraindik** iristeko. Arantxa Iturbe

Baraurik **oraindik**. Migel Angel Mintegi

2 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Abiatu zirenean, ateri zegoen **oraindik**. Karlos Zabala

Oso goiz zen **oraindik**, eta parajeak ere ezagunak; begiak itxi nituen, lotan jarraitzearren. Joxe Austin Arrieta

Luzaroan egon zen ezkerreko eskuaz muinoi **oraindik** estaliari airean eutsiz. Ramon Saizarbitoria

Préchaq-en egon nintzen garaian, elkarrekin bizi ziren laurak **oraindik**. Txillardeggi

Bezeroei atea ireki aurretik hamar bat minutu bazituen **oraindik**. Josu Landa

Ea **oraindik** sinesten al zuen zigarro puru alemanaren etorkizunean. Joxe Austin Arrieta

Esnatu zenean, dinosauroa **oraindik** han zegoeneko, alegia. Harkaitz Cano

Haizea atera zuen, baina airearen goiko geruzetan baino ez **oraindik**. Karlos Zabala

3 (ezezko esaldietan, gertatzekoa dena ez dela behingoz gertatu adierazten duela)

-**Oraindik** ez da dena bukatu -esan zion Fredek-. Iñaki Mendiguren

Oraindik ez ditut berrogei urte bete. Lopez de Arana

-**Oraindik** ez baita handikien udatea amaitu! -pentsatu nuen. Txillardeggi

Oraindik ez zara ohartu emakumeekin ez zaiola tentetzen? Aingeru Epaltza

Oraindik ez **ez** diogu mikrofonotik inori kokxa egin e! Pako Aristi

Otordua zerbitzatzeko agindu zioten nonbait, nahiz eta berez **oraindik** ez izan horretarako ordua. Joxe Austin Arrieta

Ez da **oraindik** aparteko ezer, zorioneko goragale xumea da. Monika Etxebarria

Ez zuen **oraindik** galdu, beraz. Harkaitz Cano

Tiresiasen iragarpena jakitera etorri nauk, Itakara nola iritsi jakiteko, ez bainaiz **oraindik** etxera itzuli. Juan Kruz Igerabide

Ez dut ezer kalkulatu **oraindik**. Oskar Arana

Telegraforik ez genuen **oraindik**. Txillardeggi

Ez dut **oraindik** dena aztertu. Monika Etxebarria

Poliziak bere pistola aurkitu du, baina **oraindik** ez daki norena den. Rafa Egiguren

-Guk dakigula **oraindik** ez, baina larri ibili laster ez izatea, larri ibili! Migel Angel Mintegi

Ez naiz gauza begi bakarraz keinu egiteko, ez **oraindik**. Mirentxu Larrañaga

Emaztearen arrastorik ez **oraindik**. Oskar Arana

4 (errepikatzea edo areagotzea adieraziz)

Hitz pare bat **oraindik**. Jon Muñoz

Bada **oraindik** beste metodo bat, sistema honen aldekoek onartzen dituzten hipotesietako baten premia duena. Xabier Kintana

Oraindik gehiago esanen dut: [...]. Patziku Perurena

Eta areago **oraindik**, aurrerantzean senarra lotuago izango duzula esango nuke. Migel Angel Mintegi

Nahiago zuten Kristoren maitasunagatik laidoak eta irainak jasan, munduaren ohoreak edo erreberentziak edo laudorio hutsalak jaso baino; gehiago **oraindik**, irainein poztu egiten ziren, eta ohoreekin tristatu. Askoren artean

Errazago **oraindik**: aski da garunak eragin gabeko begi mugimenduek ikusmeneko munduaren egonkortasuna nola galarazten diguten egiaztatzea. Josu Zabaleta

Eta **oraindik** harago, urruntasun ezinagoa. Juan Garzia

Esan nian ez dudala Italiara joateko gogorik, eta **oraindik** gutxiago hiru izanda. Jon Muñoz

Arratoi bati fereka egitea ez dut uste oso gauza atsegina izango denik, eta hark hozka egitea gutxiago **oraindik**. Josu Zabaleta

Haren atzean, segidan, Tagliamentoko etzeak hasten ziren, eta atzerago **oraindik**, ibai hondardiko hutsunea, aintzira bat bezain handia, mendien itzalen kontra. Josu Zabaleta

Ukabileko hatz bat edo bi zabalduz gero, okerrago **oraindik**. Jose Morales

5 **oraindik ere** (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraindik ere egiten dut, Jainkoari esker. Arantxa Iturbe

Oraindik ere pozik bizi dira elkarrekin Manhattango goialdeko eskualdean. Gotzon Garate

Oraindik ere aditzen ditut haren hitzak, atzo esan balitu bezala. Matías Múgica

Begiak itxi eta, **oraindik ere**, ikusi egiten ditut habia haiek: karnabaren goroldiozkoa, kaskabeltzaren borobil-borobila, mikaren handi eta baldarra. Bernardo Atxaga

Urte asko pasatu dira ordutik, oso urrutikoak dira oroitzen ditut, baina **oraindik ere** zehaztasun handiz gogoratzen ditut. Anjel Lertxundi

Amorrua ematen dit onartzeak, baina, **oraindik ere**, oroitzen naizen bakoitzean, bero-bero jartzen nau sentitu nuen atsegin ikaragarriak. Juan Martin Elexpuru

-Bai, maite zintudan, eta **oraindik ere** maite zaitut. Eskarne Mujika

Uste dut **oraindik ere** gogoko nauela, apur bat. Mirentxu Larrañaga

Eta maisu handiekin gertatzen den moduan, **oraindik ere** ikasi egiten dugu entzuten dugun aldiro. Koldo Izagirre

Munduaren bazter batean geratu zen, nolabait esateko, eta han dago **oraindik ere**. Iñaki Iñurrieta

-Hiperzutabeetan badira **oraindik** ere espezializatuagoak diren zelulak, eremu zabalagoa edo estuagoa dutenak. Josu Zabaleta

6 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Musuairekin **oraindik ere** harrituta, aitarien suten Romanek, eta kikara hartu suten eskuan. **Inazio Mujika Iraola**

Nire eter botilaren zulotik hartzen nuen arnasa **oraindik ere** . **Josu Zabaleta**

7 *oraindik orain* arestian, oraintsu, duela gutxi.

Gogoratzen naiz **oraindik orain** ekarri ziotela berorri; atzo bertan, esate batera. **Juan Garzia**

Programa zaharrak errepikatzen hasi zirenetik, bada jendea pasa den astean ikusi zaituena, eta uste du **oraindik orain** egon zarela platoan. **Pako Aristi**

Garai bateko dialektiko mordoia bihurtu zaigu **oraindik orain** komunikatibo eta dialogiko. **Markos Zapiain**

Adiós a la bohemia, lan apalagoa izanda ere [...] gerora antzerki lan gisa jokatu izan dena (baita **oraindik orain** ere) arrakastarekin. **Josu Zabaleta**

Euskal herritarren gehiengo batek **oraindik orain** konstituzio europar baten alde bozkatu du, adibidez. **Joseba Zulaika**

Ezusteko handia izan da **oraindik orain** -2004. urtean- agertu den Joan Perez Lazarragaren izkribua. **Koldo Zuazo**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

atzo oraindik (15)

bada oraindik (36); **badago oraindik** (14); **badira oraindik** (27); **badu oraindik** (33); **badut oraindik** (11); **badute oraindik** (9); **baitira oraindik** (12); **behar da oraindik** (9); **behar du oraindik** (16); **behar dugu oraindik** (11)

dago oraindik (374); **dago oraindik ere** (25); **dagoela oraindik** (34); **daude oraindik** (163); **daude oraindik ere** (12); **dauka oraindik** (26); **daukagu oraindik** (12); **daukat oraindik** (34); **daukate oraindik** (11); **daukazu oraindik** (9); **dirau oraindik** (13)

ez baita oraindik (15); **ez baitu oraindik** (11); **ez da oraindik** (172); **ez dago oraindik** (40); **ez dagoela oraindik** (15); **ez daki oraindik** (13); **ez dakigu oraindik** (15); **ez dakit oraindik** (19); **ez dakite oraindik** (10); **ez dela oraindik** (26); **ez dira oraindik** (34); **ez du oraindik** (154); **ez duela oraindik** (14); **ez dugu oraindik** (17); **ez dut oraindik** (21); **ez dute oraindik** (85); **ez naiz oraindik** (9); **ez oraindik** (27); **ez zaio oraindik** (10); **ez zegoen oraindik** (18); **ez zen oraindik** (30); **ez ziren oraindik** (9); **ez zuen oraindik** (20); **ez zuten oraindik** (11)

falta da oraindik (17); **falta dira oraindik** (12)

gaude oraindik (39); **gaztea da oraindik** (9); **gehiago oraindik** (52); **geratzen da oraindik** (13); **geratzen dira oraindik** (16); **gogoan du oraindik** (14); **goiz da oraindik** (16); **goizegi da oraindik** (10); **gutxiago oraindik** (28)

hago oraindik (11); **handia da oraindik** (9); **hor dago oraindik** (9)

ikusteko dago oraindik (9)

jarraitzen du oraindik (19); **jarraitzen dute oraindik** (9)

nago oraindik (31); **nahiz eta oraindik** (66); **naiz oraindik** (47); **nau oraindik** (10); **nengoen oraindik** (14); **ni oraindik** (21); **nik oraindik** (31); **nintzen oraindik** (19); **non oraindik** (10); **nuen oraindik** (30)

okerrago oraindik (19)

oraindik argitu gabe (18); **oraindik asko dago** (12)

oraindik bada (13); **oraindik badago** (16); **oraindik badira** (10); **oraindik badu** (9); **oraindik bizirik zegoela** (10)

oraindik dezifratu gabe (21)

oraindik erabaki gabe (10); **oraindik ere** (1977); **oraindik ere bizirik** (20); **oraindik espetxean** (11); **oraindik etxean** (20)

oraindik ez (2051); **oraindik ez dago** (95); **oraindik ez daki** (31); **oraindik ez dakigu** (34); **oraindik ez dakit** (62); **oraindik ez dakite** (43); **oraindik ez dakizu** (9); **oraindik ez nago** (9); **oraindik ez zegoen** (12); **oraindik ez zekien** (9); **oraindik ezin dut** (12)

oraindik garaiz (19); **oraindik gogoan** (45); **oraindik gogoan dut** (9); **oraindik goiz da** (22); **oraindik gutxi** (10); **oraindik gutxiago** (16)

oraindik indarrean (36)

oraindik lanean (18)

oraindik orain (104)

oraindik preso (15)

oraindik urrun (20); **oraindik urruti** (9)

oraindik zabalik (14); **oraindik zehaztu gabe** (20); **oraindik zutik** (12)

orduan oraindik (16)

urrun dago oraindik (11); **uste dut oraindik** (19)

zabalik dago oraindik (10); **zaude oraindik** (17)

oraindino *(orobat oraindio g.er. ondino g.er. eta ondiño g.er.) adlag* oraindik.

1970 inguran gabiz, frankismoaren errai-erraietan **oraindino** , erantzunaren olatua gorantz etorrela eta euskal nortasunaren aldeko edozerk indarra eukanean. **Xabier Amuriza**

Baina nik ez nekien, **oraindino** ez nekien zu Bergarako kartzelako hamahirugarren ziegan egona zinela nire aurretik. **Koldo Izagirre**

Zuek **oraindino** "gora euskadi askatuta" fasean zaudete. **Koldo Izagirre**

Nik **oraindino** maite zaitut, badakizu. **Eider Rodriguez**

Oraindino ez dago antikomunista sutsu bihurtuta. **Edorta Jimenez**

Oraindino hainbat gauza egin behar ditugu... **Sonia Gonzalez**

Parentesiaren barruan **oraindino** beste parentesi bat egin beharra daukat. **Edorta Jimenez**

Generalisimoaren plazan gramolak **oraindino** dantzara zekartzan gazteak. **Josu Landa**

Zelan liteke honen neska ederra, gaur arte inondik ere ezagutzen ez nuena, nirekin egotea **oraindino** ? **Jon Arretxe**

Bidea ederto baten ei dago eta etsaiak kilometro askotara dagoz **oraindino** . **Lutxo Egia**

oraindio ik **oraindino**.

oraindu, orain(du), oraintzen *(orobat oraitu) da/du ad* oraingotu.

Geroaldiaren jokatzan ez naiz hain trebe, badakit haatik lehenaldia **oraintzen** . **Piarres Aintziart**

Baina sobera luzatu gabe jarraitu dut oroituak **oraintzen** . **Koldo Izagirre**

Kontalariak istorio berriak asmatu behar ditu, atzo esan zuenaz ahanzi behar du [...] ziegan miaketa egin eta idatzi dituen guztiak txikituko dizkiotelako segurtasunean bizi behar du, galdutakoak **oraitu** ezinda beti berriro asmatzen hasi behar du kontari hasten den bikoitzean. **Koldo Izagirre**

oraineratu *izond* orainera ekarria.

Denborari dagokionez, plana orainera dago, Gaudreaulten iritzian, (iragan **oraineratu** bat); aldebereketasunaren eta sinkroniaren mailakoa da beti; eta muntaketak baizik ez du uzten orain etengabe horretatik ihes egiten. **Josu Zabaleta**

oraingo 1 *izlag* une honetakoa, garai honetakoa.

Oraingo gabonak, lehenagokoen aldean, hotzagoak dira. **Joxerra Garzia**

Irauketa deitzen du **oraingo** etxea, zen lehen eliza eta ber denboran ospitalea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zioten atsegirik ematen ez lehengo ez **oraingo** gaitzek. Askoren artean

Ordena osoaren **oraingo** eta geroko onerako lortzen ditudan gauzak. Jon Alonso

Horra, **oraingo** tragedia eta etorkizunerako erronka latza. Edorta Agirre

Ziurtatu dezakegun gauza bakarra da **oraingo** bideak porrotera garamatzala. Joxerra Garzia

Ez da **oraingo** kontua. Arantxa Iturbe

Oraingo aldian bai, ahoa ireki nuen, oker-aditua zurrizteko asmoz. Aingeru Epaltza

Ez dakit oso naturala ote den lana horrela preziatzeko **oraingo** joera hau. Joxerra Garzia

Oraingo hau beste historia bat da. Juan Kruz Igerabide

Polizia ez dabil oso gozo **oraingo** aldi honetan. Karlos Zabala

Oraingo honetan, ordea, sega utzita pistola batekin. Migel Angel Mintegi

Baina atera gaitzazu gaitzetik, lehengo, **oraingo** eta gerokotik. Askoren artean

Zure istorioak ikasten, zu zeu, **oraingo** Teresaren ezagutza galdu du. Lourdes Oñederra

Ez baitzen orduan **oraingo** lur berdintzeko mekanikarik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· Oraino ez den geroa izaten hasi baledi eta luze-gai izateko **oraingo** bihurtuko balitz eta horrela luze gertatu, orainaldiak garbi azaldu digu lehentxeago bera ez daitekeela luze izan. Imanol Unzurrunzaga

2 (nire, bere eta kidekoekin)

Nire oraingo bizitza utzi beharraren beldurra. **Nire oraingo** adina izanen zuen Okarizek orduan. Matias Múgica

-Hire **oraingo** neska? Aingeru Epaltza

Bere oraingo egoera kaskarra eta garai batekoa konparatzen dituelarik, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Indultua zen hura, indultua, tsarraren anaia emana, haren lehengo erbeste kideentzat, **haren oraingo** arma lagunentzat! Karlos Zabala

- **Gure oraingo** sarjentua, alegia. Mirentxu Larrañaga

Ez baitago erlojurik **gure oraingo** denbora neurtuko duenik. Felipe Juaristi

Bizirik dago oinazea oraindik, **zure oraingo** bular eroriagoetan lo, **zure oraingo** eztarri urratuagoan zain. Lourdes Oñederra

Haien oraingo bizimoduak -haien gorputzak, ideiak, kontu korronteak- ez du zerikusirik hirurogeiko hamarkadan generaman bizimoduarekin. Joseba Urteaga

· Begira diezaiodan **oraingo nire** bizitzari: ez dut barneko loturarik, eta zer axola dit hemen bizi beharrak? Anjel Lertxundi

Izan ere, **oraingo gure** nekeek, une bateko eta arinak izanik, betiko den aintza paregabea prestatzen digute. Elizen arteko biblia

Ba al du horrek zerikusirik **oraingo zure** arazo horiekin? Oskar Arana

3 *oraingoan* adlag oraingo aldian, orain. (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Lujanbiok **oraingoan** ere A motako bertsoa egin du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

- **Oraingoan** ere ez al nauzu ezagutzen? Joxe Austin Arrieta

Oraingoan, ez, **oraingoan** ez duk libratuko urde-lerde hori! Anjel Lertxundi

-Gertakari hori **oraingoan** ezkutatu duzue, baina ez al duzu uste egunen batean etxea itxi beharko duzula? Ibon Uribarri

Harrapatuko zaitut **oraingoan**, harrapatuko zaitut! Iñaki Mendiguren

Veronica harrapatu dut **oraingoan** eta ez da azkena izango. Harkaitz Cano

Tamalez ezin naiz astebete baizik geratu **oraingoan**. Antton Olano

Trikitaliaren eta bertsolarien arteko lankidetzat, ia hutsera etorri da **oraingoan**. Iñigo Aranbarri

Urruntxo joan da **oraingoan**. Mirentxu Larrañaga

· Inoiz baino hobeto etorriko luke akordeoia **oraingoan**. Bernardo Atxaga

4 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraingoan bere ezpainak bilatu nituen. Jon Muñoz

Oraingoan, indar handirik gabe tinkatu nion eskaintzen ari zitzaidan eskua. Aingeru Epaltza

Oraingoan ez zen harritu, bazekien-eta horretarako lokarrarazi zutela. Ibon Uribarri

Davidek gogaitu aurpegia jarri nahi izan zuen **oraingoan**, baina lortu gabe. Bernardo Atxaga

Aitatxi berriz ere ikastun bilakatu zen, lehenago zapategian bezala, gerlaren ikasbidean **oraingoan**. Aingeru Epaltza

Baina **oraingoan** ez ziren nitaz ari. Joxe Austin Arrieta

Angelo zen berrero, **oraingoan** katilu bat eskuan: [...]. Anjel Lertxundi

Handik hiru egunera itzuli nintzen bertara, eta **oraingoan** bai: hantxe topatu nuen osaba. Txillardegi

Neskak mutu zirauen **oraingoan**. Xabier Mendiguren Elizegi

5 *oraingoz* (orobat *oraingotz g.er.*) orain artekoa soilik hartuz kontuan.

-**Oraingoz** Belgikara; gero, ikusiko dut. Josu Zabaleta

Oraingoz ez da horrelakorik gertatu. Iñaki Heras

Oraingoz, 72 milioi eurotik goiti gastatu dira. Eduarne Elizondo

Oraingoz, zu eta Rachel zarete irentsi ahal ditudan senitarteko bakarrak. Oskar Arana

Nik ez dut **oraingoz** inolako erantzunik. Pello Salaburu

Ez dut **oraingoz** desioa burutu. Bernardo Atxaga

Asmo horixe nuen **oraingoz**, baina ez nekien hurrengo egunean zer egin, eskolara joan ala ez. Juan Kruz Igerabide

Eta lantokira **oraingoz** ez joateko. Txillardegi

Fisikari askok nahi lukete agian urrea modu merke batean sortu, baina hori ez du **oraingoz** inork ere egin. Pello Salaburu

Hori, ordea, ez da batere gauza segurua, **oraingoz** behintzat. Josu Zabaleta

Baina ezin luza naiteke gehiago eta **oraingoz** hementxe du honek errematea. Iñaki Segurola

Sulfodieno batekin ez da sekula jakiten, baina **oraingoz** dena zihoan behar bezala. Juan Garzia

Europa ere ez da gai izan Itoitz gelditzeko, **oraingoz**. Eduarne Elizondo

Susmoa besterik ez da **oraingoz**. Arantxa Iturbe

Aski, **oraingoz**. Aingeru Epaltza

· Orain-**oraingoz**, ez zaigu bururatzeko zerk murriztu lezakeen zentzu horretan gure analisi-endarra. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere oraingo (6); ene oraingo (4); gure oraingo (14); lehengo eta oraingo (10); nire oraingo (12)

oraingo aldean (4); oraingo aldi (11); oraingo aldiko (5); oraingo bekatua (4); oraingo bidetik (4); oraingo bizitza (4); oraingo denbora (4)

oraingo egoera (36); oraingo egoeran (14); oraingo egoerara (4); oraingo egoerarekin (4); oraingo egunean (4); oraingo eredu (4); oraingo eta geroko (14); oraingo gazteak (6); oraingo gazteek (7); oraingo gobernua (5); oraingo gure (6); oraingo hau (45); oraingo honek (6); oraingo honekin (5); oraingo honetan (367); oraingo honetan bezala (6); oraingo honetan ere (28)

oraingo intifadan (4); oraingo joera (4); oraingo kasuan (6); oraingo kontua (15); oraingo lege (4)

oraingo presidentea (4)

oraingo ustez (21); **oraingo zuzendaritzak** (4)

zure oraingo (6)

ea oraingoan (7); **egin dik oraingoan** (7); **egin du oraingoan** (5); **egin zuen oraingoan** (5); **izan zen oraingoan** (5); **izango da oraingoan** (6)

oraingoan bai (51); **oraingoan benetan** (7); **oraingoan ere ez** (14); **oraingoan ez** (108); **oraingoan ezin** (7); **oraingoan gehiago** (5)

orain oraingoz (4); **oraingoz bederen** (17); **oraingoz behinik behin** (5); **oraingoz behintzat** (88); **oraingoz ez behintzat** (4); **oraingoz ondo** (7)

oraingokeria *(corpusean oraikokeria soilik) iz* oraingo gauza gaitzesgarria.

Oraikokeriak: bada holako herra bat Estatu Batuetan frantsesen kontra. **Herria**

oraingotasun *(corpusean oraikotasun soilik) iz* oraingo denaren nolakotasuna.

Badira Uztaritzeko kaperan Lafitten prediku batzu, dena bixi eta **oraikotasun**, ezin ahanziak gelditu direnak gure haur buru txarretan. **Herria**

Lagun batek Interneten atxemanik, Pierre Eyt apezpikuak, Baionan 1974 ko martxoaren 20ean eman mintzaldi batetik, zonbait gogoeta, ikusiz zer **oraikotasuna** duten gure eskakizunekin. **Herria**

Oraikotasuna ere ez doala gibelatuz baina aitzinatuz euskararen alderat **Herria**

oraingotu, oraingo(tu), oraingotzen *(orobat oraikotu) du ad* oraingo bihurtu.

Hola, euskara modernizatu genuen, gaurkotu, **oraingotu**, eguneratu, Etxeparek eskatzen zuen tornua bera ere, tornua, hortxe-hortxe, ia-ia eman genion denen artean.

Pello Salaburu

Nor enoatuko edo aspertuko ote zen, eta, are gutiago, nor lokartuko Lafitte jaunak argitzen eta **oraikotzen** zituen esplikazioeen erdian! **Herria**

Egia erran ez naiz biziki ohartu nola bertzelakatu behar zen politika, nola berritu, nola **oraikotu** behar zen. **Herria**

Fedeak gaurko giroan, sekulan baino gehiago, sineste baieztatutatik aintzinago, bizi berritu, **oraikotu**, lekukotu, bermatu eta sustatzaile indar bat bilakatuz duela bere egitekoa, loeria batean kulunkatzerat loakeen mundu baten harrogarri. **Herria**

oraingotz ik oraingo 5.

oraingoxe *adlag* oraingo berekoa.

Ez da **oraingoxe** kontua euskalduna, garai zaharretako vizcaïno hura, larru latzeko eta belarri luzekoaren ahaide egitea. **Bernardo Atxaga**

Ez da Humbelinoarena **oraingoxe** Nafarroa, otsoek Larrazen zezena hil zutenekoa baizik. **Pablo Sastre**

Bestalde, ez da **oraingoxea** -1892koa da- Hiriart Urrutyk "Iganetakoa lana" titulua jarri zion artikulu batean idatzi zuena. **Iñaki Segurola**

Ez da **oraingoxea** Xabier Amurizaren definizioa. **Andoni Egaña**

Zer intuizio izango du gure kreatzaileak gure egoera **oraingoxekoaz**? **Karlos Linazasoro**

oraingoz ik oraingo 5.

oraino *(orobat orano g.er., oino g.er. eta ono g.er.) 1 adlag* oraindik. (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Bi kilometro **oraino** katedrala ikusi aitzin. **Piarres Aintziart**

Euskarak, galduxe baditu ere, baditu esanera dotore batzuk, **oraino** bazterka bederen baliatzen dituenak. **Patziku Perurena**

Orano bizi da, eta berriz ariko da aste ondar hontan gure Xiberoan. **Herria**

Goiz duk **oraino**. **Filipe Bidart**

-Gaztea zara **oraino**. **Pako Aristi**

2 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraino 2600 kilometroko bidea bazuen, alta. **Eneko Bidegain**

Atzo **oraino** harekin nintzen. **Daniel Landart**

Bederatzi urte irau zuen **oraino** auziak. **Piarres Xarriton**

Arlesen egon nintzen **oraino** bi egun. **Janbattitt Dirassar**

Urez estali sutea **oraino** ketan zegoen, mihimen zatiak lurtean, arropak eta tupina hutsaren tapakiak sasetan. **Itxaro Borda**

Lehen, eta ez hain aspaldi **oraino**, batzuk erraiten zuten soldadagoaren egitea biziki gauza ona zela mutiko gazte batentzat, bizitzen ikasteko molde hoberenetarik batto! **Herria**

Gainerako lagunak egoten ahalko ziren **oraino** pixka batean. **Aingeru Epaltza**

Etsaia **oraino** bizartu gabeko mutiko bat zen noski. **Aingeru Epaltza**

Urte hartan, eliza bat bazen Alduden 1688tik, baina parropia ez zen **oraino** ofizialki eraikia. **Michel Oronoz**

Haran bere sorterrian, kaldearren Ur hirian, hil zen, **oraino** bere aita bizi zela. **Elizen arteko biblia**

Horietakoa askotxo bizirik zen **oraino**. **Jon Alonso**

Ez zekien nola moldatuko zen aita-amen herrira heltzean, norekin mintzatuko zen, nori galdeginen zion haren askazietan norbait bizirik zegoenentz **oraino**. **Elena Touyarou**

Beharrik, estatxa lehorra zegoen **oraino**. **Koldo Izagirre**

Larru **oraino** epela ukitu nuela eta bularraren gainean, behiala kurubilka uzurtzen nintzen gunean, haren mototsa jaso eta gehiago higitzen ez zela. **Joxan Elozegi**

3 (ezezko esaldietan, gertatzekoa dena ez dela behingoz gertatu adierazten duela)

-Unai ez da **oraino** prest -motz eta zorrotz. **Aingeru Epaltza**

Jaunaren zuzia ez zen **oraino** itzalia. **Elizen arteko biblia**

Belarrak ez ziren sartuak **oraino**. **Piarres Aintziart**

Erran zizuten: **oraino** ez duk deus ikusi. **Xabier Montoia**

Ez dut **oraino** gaingitu bizioa, ordea. **Hasier Etxeberria**

Kontzilio berririk ez zen aipu **oraino**. **Piarres Xarriton**

Lanik ez baitugu **oraino**, jatekoa xuhur dugu. **Marzel Etxehandi**

Baina ez naiz **oraino** deitzera ausartu. Iban Zaldúa

Bi urte jadanik eta auzia ez zen **oraino** iragarria. Itxaro Borda

Harrabots batzuk **oraino** bereizten ez ditudanak... Filipe Bidart

Oraino ez zenez umerik adinean, iloba berarekin ikastun hartzeko prest zegoen, jana eta etzana sari. Aingeru Epaltza

Ezin erran **oraino** zer kanbiamendu mota eta norainokoa. Michel Oronoz

Ez baitugu **oraino** haren irrintzirik edo arrantzarik aditu. Iñaki Segurola

Eguna ez da hilik **oraino**, bizi-bizirik da. Oskar Arana

Baina apustu hau egitera ez gara ausartu **oraino**. Edorta Agirre

4 (errepikatzea edo areagotzea adieraziz)

Kanta dezagula **oraino**! Itxaro Borda

Zorigaitzez, erranen du **oraino** Azurmendik, Euskal historiarik ez genuen apenas ezagutzen. Piarres Xarriton

Aipatu zidan **oraino** Ceylan uharteko arrain-andrea, 1835aren inguruan, Antonio Abbadiak. Aurelia Arkotxa

Eta hats beretik, bazen **oraino** beste dozana bat kopla. Piarres Xarriton

Oraino haratago, Landetako hondartza azkengabea, gero eta nekezago ikus genezakeen. Txillardegi

Bezperagoan baino panpinago **oraino**. Janbattitt Dirassar

Hain gostarik eta hainbertze beldurrekin zilotik atera ondoan, **oraino** gogorragoa zen berriz erortzea. Bigarren kasua garbiagoa da **oraino**. Eneko Bidegain

Orano ttipiago da Maddiren etxea. Herria

Alde horrek **oraino** garbiago iduri du, argiago, bi bazterretan zeldetako atea lerrotzen direlarik, bakoitza bere zenbakiarekin. Filipe Bidart

Gehiago **oraino**, erran behar dugu Iraultzaren printzipio nagusi haiek munduko populu guztientzat baliagarri zeuzkatela: Robespierrek goraiatzan zuen "populu guztien subiranotasun printzipio sakratua". Piarres Xarriton

Bazekien bazela **oraino** gehiago sufritu zuenik edo egonaldia jasan ez zuenik. Eneko Bidegain

Bizkitartean nahi nuke **oraino** Québec-en, Euskal Herrian edo beste eskualde anitzetan eskuratu edo berreskuratu nahiz dabilzan boterearen ideia itzuli. Piarres Xarriton

Zortzi dira bakarrik, baina zortzi sobera **oraino**! Menane Oxandabaratx

5 *oraino ere* (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraino ere, Loretxu, horren aipatzeak berak halako bat egiten dit... "Kintze" **oraino ere** ibiltzen da zenbait tokitan; tanto eder bat gertatzen delarik, nork ez du entzun: "Zer kintze ederra!"? Janbattitt Dirassar

Oraino ere ez daki nola hurbildu zituen ezpainak Txominen ezpain xokora, pott ezti baten emaiteko. Eneko Bidegain

Bazen (ez dakit **oraino ere** baden) ofizio bat Hollywooden, zeina baitzen turistei-eta zine "izarren" etxeak erakusteko gidariarena. Pablo Sastre

Eta hik, Joxe, **oraino ere** ukatu egin behar ote duk ezen Antonio hire anaia dela? Joan Mari Irigoien

Keinuz ari zaidak **oraino ere**. Juan Garzia

Bisitak eta bisitak eta **oraino ere** bisitak. Daniel Landart

Jessicaren irudiko anaiaren itzala xerkatzen zukeen **oraino ere** amatxik, zuhaitzaren tiniara hupatzen zenean. Itxaro Borda

6 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Elixabet **oraino ere** maite zuen eta, haien batasuna ezinezkoa zenaz gain, ez zen neherekin ezkonduko. Elena Touyarou

7 *orainokoa* orain arte; oraino.

Eta **orainokoa**, ez dut sekula erantzun egokirik jaso. Txillardegi

Lehen taldeak **orainokoa** ez du partida bat ere galdua eta hola segituz goi mailarat, erran nahi baita Akitaniako xapelketarat, hupatzen ahal laiteke. Herria

Segur, gobernuak hitzeman du presondegia berri batzuen eraikitzea baina sail hortan ez da **orainokoa** aintzinamendurik batere... Herria

Orainokoa hatsartzen zirauen. Itxaro Borda

Beste gauza bat dena, amari ez diot **orainokoa** errana zurekin ibilki naizela. Janbattitt Dirassar

Nahiz egia erran, ez den hortaz **orainokoa** garbitasun oso-osorik... Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

bad **oraino** (40); **badela** **oraino** (11); **badira** **oraino** (23); **badirela** **oraino** (7); **badu** **oraino** (9); **baduela** **oraino** (12); **berriki** **oraino** (7); **berrikitan** **oraino** (11); **bertzalde** **oraino** (8); **bestalde** **oraino** (45); **dago** **oraino** (7); **daude** **oraino** (14)

ez baita **oraino** (8); **ez baitu** **oraino** (9); **ez da** **oraino** (104); **ez dela** **oraino** (15); **ez dira** **oraino** (36); **ez direla** **oraino** (14); **ez du** **oraino** (30); **ez dut** **oraino** (14); **ez dute** **oraino** (24); **ez gira** **oraino** (8); **ez oraino** (50); **ez zen** **oraino** (28); **ez ziren** **oraino** (7); **ez zuen** **oraino** (13); **gehiago** **oraino** (41); **haatik** **oraino** (14)

izanen da **oraino** (15); **luzaz** **oraino** (11)

oraino aise (13); **oraino arras** (42); **oraino aski** (15); **oraino bizirik** (20); **oraino bururatua** (11); **oraino egiteko** (12); **oraino ez** (139); **oraino ezin** (10); **oraino frango** (8); **oraino gazte** (18); **oraino gehiago** (113); **oraino gogoan** (17); **oraino gutiago** (11); **oraino hobeki** (16); **oraino luzaz** (33); **oraino luzaz elgarrekin** (9); **oraino preso** (11); **oraino sobera** (9); **oraino trenkaturik** (7); **oraino xutik** (9)

segur **oraino** (7)

zegoen **oraino** (16)

orainokoa segurik (12)

oraintsu 1 *adlag* duela gutxi. (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraintsu esan duan bezala, garai politik izan zituan, oso politik, baina egoera hartan gureak ez zian luzaro iraungo. Migel Angel Mintegi

Historia bera errepikatu da **oraintsu**, oraindik aspaldi ez dela, "bideo-arte" sortu delarik. Josu Zabaleta

Izan ere, Saharaz hegoaldeko Afrika aldea, arabiar mundua, Asiako erdialdea, garapenetik kanpo utzi dira **oraintsu** arte. Koro Navarro

Pariseko trena **oraintsu** ailegatu da. Monika Etxebarria

Seiak **oraintsu** jo dute. Agustín Otsoa

Bilbotik kanpo eta **oraintsu** arte iraun dute horrelako jokabide batzuek bizirik. Koldo Zuazo

Piezoelktrizitateak hezurren biologian duen eragina berrikusi du **oraintsu** New York-eko Columbia unibertsitateko Andrew Bassett doktoreak. Irene Aldasoro

Desoreka sortzen ari da orain euskal eta erdal taldeen tartean, **oraintsu** arte ez bezala, euskararen kaltean orain. Pello Salaburu

2 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Kexu ginen **oraintsu**, non ote ziren ezkutaturik Espainiako inteligentsia eta intelektualak. Hasier Etxebarria

Oraintsu arte, ia ideia arasto txikien ere ez genuen parte hartzen zuten indar eta mekanismoz. Juan Garzia

-Maisu, **oraintsu** juduek harrika egin nahi zizuten, eta hara zoaz berririo? Elizen arteko biblia

Horrek esan nahi du orain arte, **oraintsu** arte beste norbaitekin zegoela, ez zegoela bakarrik. Lourdes Oñederra

3 orain dela.

-Alaba galdutokoa hasi zen pianoa ikasten, **oraintsu** bi urte. Anjel Lertxundi

Hizkuntzen kontzertuan hots gutxi ateratzen duten hizkuntzetako idazleok pagotxa halako bat dugu dena esanda dago topikoari ihes egiteko, Yorgos Séferis poetak **oraintsu** laurogei urte formulatu zuen maneran. Anjel Lertxundi

4 oraintsuago duela gutxiago.

Oraintsuago, eredu kimiko hori zabaldu egin da fisika eta genetikako ideiak bereganaturik, eta biologia molekularra deritzon zientzia berria sortu da. **Irene Aldasoro**

Oraintsuago, argazkigintza "artistikoaren" adar bat argazkiaren denbora-ahalmen hori erakusten espezializatu da. **Josu Zabaleta**

Oraintsuago ere azaldu da zenbaitetan kontzeptu hori, batzuetan ezkontuago, bestetan ageriago, zinema mutuaren artea berraurkitzen ari ziren zenbait kritikariren diskurtsoan. **Josu Zabaleta**

oraintxe 1 *adlag* orain bertan. (orainaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraintxe duzue aukera; honela mintzatu baita Jauna Davidi buruz: [...]. **Elizen arteko biblia**

Gure gordeleku **oraintxe** bihurtu da egiazko gordeleku. **Josu Zabaleta**

Oraintxe entzun dugun doinu hori ondo etorriko litzaioke jaunartzeko oneari. **Bernardo Atxaga**

Berak **oraintxe** esan duen bezala, asmatu behar duen ipuin horren sarrerako atea, [...] eragileak, Violante delako horrek, erabaki du. **Bernardo Atxaga**

Kafea egin dut **oraintxe**. **Koro Navarro**

-Harry... uste dut zerbait ulertu dudala **oraintxe**! **Iñaki Mendiguren**

"**Oraintxe** ematen diat Durrutiren hurrengoa!", esan zuen ispiuari begira. **Inazio Mujika Iraola**

Oraintxe ez naiz ausartzen ezer egitera; beldur naiz ez ote dagoen debekatuta. **Josu Zabaleta**

Ez naun **oraintxe** gogoratzen, baina hain garrantzitsua badun, saiatuko naun. **Unai Iturriaga**

Ti-ta: **oraintxe** natorrek. **Pablo Sastre**

Zenbat diru daukak **oraintxe**? **Juan Garzia**

Zaude, **oraintxe** bilatuko dizut. **Anton Garikano**

Oraintxe jaikiko naiz, eta une batean zurekin nauzu. **Josu Zabaleta**

2 (lehenaldiko aditz eta adizkiekin)

Oraintxe ari zitzaidan Joseba esplikatzeko zergatik daukan halako antza astoekin. **Bernardo Atxaga**

Entzun al duzu Ekialdeko lapurreta handi horren berri? **oraintxe** ari nintzen irakurtzen. **Koro Navarro**

Esaten ari nintzaion, **oraintxe**, izugarritzko gozatua dela zu kantuan entzutea. **Mirentxu Larrañaga**

Oraintxe ere hor zegoen. **Txillardegia**

Non dago gainera, **oraintxe** hemen zegoen eta. **Anton Garikano**

Hirugarren ume bat **oraintxe** ari ziren garbitzen nonbait, garrasi zorrotzak eta sukaldariaren errieta ozenak baitzetozen sukaldetik. **Anton Garikano**

3 (bestelakoak)

Hasteko letu ezak hau **oraintxe**. **Txillardegia**

-Etxera **oraintxe** joatea izanen da zuhurrena, nik uste -esan du orduan. **Txillardegia**

-Nire kontra daukaana, **oraintxe** esan! **Edorta Jimenez**

Kenduiok **oraintxe** bertatixe eta ikusiko duk nola dena ondo irteten den. **Juan Garzia**

Maiestate hori, baietz **oraintxe** sastatu. **Juan Garzia**

-Utzi pasatzera **oraintxe**! **Aingeru Epaltza**

Zina hauts baleza **oraintxe**! **Juan Garzia**

Oraintxe bezala, neure herria batere ulertzen ez dudana garaia iristen ari da. **Josu Zabaleta**

4 oraintxe bertan

Oraintxe bertan, inguratua daukate Jerusalemgo gotorlekua eta hartu egin nahi dute. Santutegia eta Bet-Sur hiria ere sendotu dituzte. **Elizen arteko biblia**

Ospa hemendik **oraintxe bertan**. **Koro Navarro**

Oraintxe bertan ez da liburu kaxa bat goiko solairura eramateko gauza. **Bernardo Atxaga**

Oraintxe bertan bera idazten ari duk, ezta? **Iban Zaldúa**

Ea **oraintxe bertan** zurekin ote nagoen galdetzen diot neure buruari. **Jon Muñoz**

-**Oraintxe bertan** etortzen ez bazara, ez nauzu etxean aurkituko. **Juan Kruz Igerabide**

Oraintxe bertan eskatuko diok barkazioa hire arrebari. **Koro Navarro**

Oraintxe bertan joan behar, hortaz? **Txillardegia**

Etxera **oraintxe bertan**! **Koro Navarro**

Ospa hemendik **oraintxe bertan**. **Koro Navarro**

Neuk tiro egin beharko nizek, **oraintxe** eta hementxe **bertan**. **Mirentxu Larrañaga**

5 oraintxe dela

Oraintxe dela gutxi Zarautzen Xabier Eizagirre, Txaparro-ko zuzendaritzako kidea eta Urola-Kostako Hitza-ren sortzaileetakoari eman zioten jokalaririk onenaren saria.

Berria - Kirola

6 (dela ezabaturik)

Errefraut sotitiz horrekin akordatu ginen urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, **oraintxe** 13 egun. **Pello Zabala**

1501ean, **oraintxe** 500 urte, beraz, Iruñean argitara eman zen otoitz-liburu latinezko batean, hantxe ipinitako eraskintxo batean ageri da azaro izen hori. **Pello Zabala**

7 oraintxe ere

Oraintxe ere hor zegoen. **Txillardegia**

"Autoarekin ari naiz lanean **oraintxe ere**", dio. **Oskar Arana**

Oraintxe ere, begien bistan baneuka bezalaxe, zinta hura. **Joxe Austin Arrieta**

Irribarrea eragiten di, **oraintxe ere**, hartan pentsatze hutsak. **Mirentxu Larrañaga**

-Bapo eginda, **oraintxe ere**, ezta ba? -esan zuen senarrak-. **Mirentxu Larrañaga**

-Ba, **oraintxe ere**, beharbada, zuek baino tontakeria gutxiago esaten dugu guk. **Josu Zabaleta**

8 oraintxe... oraintxe...

Oraintxe ahoa zabaldu, **oraintxe** itxi, **oraintxe** zabaldu, **oraintxe** itxi. **Fernando Morillo**

Barne txokorik gordeena aurkitu balu bezala, **oraintxe** Epaileari erantzuten zion, **oraintxe** Aitari erregu egiten, **oraintxe** Senarrarekin olgatzten zen, **oraintxe** Lagunarekin solasean jarduten. **Askoren artean**

Oraintxe jesarri, **oraintxe** altxatu zebilen, **oraintxe** besoak bular gainean gurutzatu, **oraintxe** lepoan, eta **oraintxe** erlojuari begiratu. **Urtzi Urrutikoetxea**

9 oraintxe puntuan oraintxe bertan.

Oraintxe puntuan esan dugun bezala, zinemak eman die formarik ikusgarriena koadratzearen eta eremuaren arteko harremani. **Josu Zabaleta**

-Egia esanda, horixe pentsetan ari nintzuan **oraintxe puntuan**. **Juan Luis Zabala**

Oraintxe puntuan, ibai ertzean eguzkitan paseatzen ari nintzela, zalantza sartu zait nire zentzu onean ote nagoen. **Josu Zabaleta**

hitz buruzko maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ari naiz oraintxe (5)

oraintxe ari da (4); **oraintxe ari naiz** (5); **oraintxe arte** (12); **oraintxe azalduko dizut** (4); **oraintxe berean** (10); **oraintxe bertan** (402); **oraintxe bertatik** (4); **oraintxe bertan** (11); **oraintxe da** (10); **oraintxe dator** (6); **oraintxe du** (5); **oraintxe duzu** (5)

oraintxe erakutsiko dizut (4); **oraintxe ere** (18); **oraintxe goaz** (5); **oraintxe hasi da** (5); **oraintxe hasten da** (5)

oraintxe ikusiko duzu (6); **oraintxe jaikiko naiz** (4); **oraintxe nator** (16); **oraintxe natorrek** (4); **oraintxe noa** (10)

oraintxe puntuan (6)

oraitu ik **oraindu**.

oraixtian *adlag* arestian.

-Bada kantu bat -Ermitearen oharra da orain-, **oraixtian**, zuhaurek, hitz erdika aipatu duzuna, Bettiri. **Michel Oronoz**

orakatu, oraka, orakatzen da/du *ad* lohitu, zikindu.

Nahi bainuke inork ere **oraka** ez baleza gure hizkuntza, [...] ñabardura arrotzak nahi edo ez nahi hizkuntzari atxikiaraziz, ustez edo iroizgarri egokiak direla, ez baitira batere hala. **Pello Salaburu**

Orakatu gara gu, **orakatu** dugu gizartea, **orakatu** aldamenekoak. **Pello Salaburu**

Biolentziak odoleztatzen du gure herri hozkatua, gure gizartea, eta gero eta **orakatuago** uzten gaitu hiritar guztiak lokatz gorri horretan. **Pello Salaburu**

orakulo ik **orakulu**.

orakulu (*orobat orakulo g.er.*) **1 iz** jainko batek medium batez bidez ematen duen erantzuna; erantzun hori bideratzen duen mediuma.

Hemen ez da **orakulurik**, ez ikuskaririk, ez aldarerik edo aldiroko agerraldirik. **Jose Antonio Mujika**

Haren **orakulu** eta egintzak, Koranean eta Tradizioetan dauden bezala, zuzenbidearen iturburutzat onartu zituzten jarraitzaileek. **Iñaki Mendiguren**

Usadio zaharra segituz, kaperara zoazan izeba-iloak **orakulua** entzutera. **Orakuluaren** ahoz Apolok eraikuntza hori eskatu badu, ez da, noski, aldare bikoitz baten premian delako. **Anjel Lertxundi**

Ekaitz batek hondoratu zuen senarraren ontzia -**orakulu** baten iragarkia ezagutu nahi eta haren bila zihoan bitartean- eta bertan ito zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Orakulu batek esanda dakit zuri esker bedeinkatu nauela Jainkoak. **Jose Antonio Mujika**

Izan ere, behiala **orakuluak** Sokrates gizakirik jakintsuena zela aldarrikatu zuen. **Markos Zapiain**

Atenastarren batzorde bat Delfosera ontziratu, eta galdezka joan zitzaion **orakuluari**, ea esango zien izurria nola gelditu. **Jon Muñoz**

Hona Balaanen **orakulua**, begi argiak dituen gizonaren **orakulua**, Jainkoaren hitza entzuten eta Goi-goikoaren asmoen berri dakienaren **orakulua**, ahaltua estasian, begiak zabal-zabalik, ikusten duenarena: ikusten ari naiz, baina ez da orain gertatuko; begi aurrean dut, baina ez da berehala beteko: gora doa Jakoben izarra, altxa da Israelen errege-makila. **Jose Antonio Mujika**

Egia esan, ez dakit zergatik egotzen zitzairen inolako zentzurik burua joaniko baten hitzei, baina gure artean beti horrela izan denez, eta zoroen hitzek, **orakuluarenak** bailiran, esanahi sakona dutela uste izan denez, logikoa zela iritzi nion. **Jon Alonso**

2 irud/hed

Gero erantzuna ongi neurtu eta hizkuntza arranditsu batean formulatu behar duzu, bezeroak ere **orakulutzat** jo zaitzan, eta horrenbestez bere konfiantzaren eta Kimikariaren Elkargoak finkaturiko tarifen duin. **Juan Garzia**

-Badirudi Eliot **orakulutzat** hartzen duala eta bertsotatik gure literaturgintzarako programa bat atera nahian habilela. **Iñaki Iñurrieta**

Diru politikaren magoa, kondaira, **orakulua**, jainkoa, zer epiteto ez dira erabili Greenspan deskribatzeko? **Berria - Ekonomia**

oral *izond* ahoari dagokiona.

Hasieran irrika hauek "partzialak" dira, iturburu bakanduei dagozkie (irrika **orala**, anala, falikoa, eta abar), eta atsegin bakan bat, iturburu organoari dagokiona, dute helburua.

Josu Zabaleta

Irrika eskopikoa, ikusi beharra baliarazten duena, ez da, jakina, organo baten atseginari darraizkion oinarritzko irrika handi lehen mailako horietakoa, irrika **orala**, adibidez (abereak duen elikatu beharretik sortua). **Josu Zabaleta**

oralde *iz* txakur taldea.

Oraldearen atzetik doaz, txakurren atzetik. **Hasier Etxeberria**

oraldi **1 iz** orea egitea; labealdi bateko orea.

Jainkoaren erregetza legamiaren antzekoa da: emakume batek anega bat irinetan nahasten du, eta **oraldi** guztia harrotzen da. **Elizen arteko biblia**

Gainera, lehen opilak Jainkoari sagaratuak badira, bai eta **oraldi** osoa ere eta, sustraia sagaratu bada, bai eta adarrak ere. **Elizen arteko biblia**

2 irud/hed

Itsasoan igeri egin eta gero azalean geratu ohi den kresal eta giza usainen **oraldi** gazi-mina zerion mutilaren gorputzari. **Anjel Lertxundi**

oralista **1 izond** ahozko mintzabidearekiko dagokiona.

Idatzizko poetikak bertsolaritza zehazten erakutsitako ezinaren aurrean, teoria **oralista** jo dute aditu batzuek hura aztertzeko bide bakartzat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Eraz ulertzekoa da teoria **oralistak** idatzizko tradizioetik datozenengan lehendabizikoz sorrarazten duen xarmaren zergatia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Teoria **oralistaren** ekarri baliosuenetakoa bat da, zalantzarik gabe, *performance* kontzeptuari aitortzen dion zentraltasuna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 iz teoria oralistaren jarraitzailea.

Inoiz baino zalantzarikoa da **oralistek** ahozko eta idatzizko mintzabideen artean egiten duten goitik beherako bereizkuntza. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

oramahai iz ore a egiteko mahai modukoa.

Nilo ibaiak igelak emango ditu borborka, ibaitik atera eta zure jauregian, zure logelan eta ohe gainean sartuko dira, baita zure funtzionarioen eta herriaren etxe, labe eta **oramahaietan** ere. Elizen arteko biblia

Israeldarrek oraindik legamiz altxagabeko ore hartu eta, **oramahai** eta guzti estalkietan bildurik, bizkarrean hartu zuten. Elizen arteko biblia

Saskiak fruituz eta **oramahaia**k ogiz beteko dizkizue Jaunak. Elizen arteko biblia

-Ez nuen bizitza labeko palan eta **oramahai** batean xahutu nahi. Koro Navarro

orangeaz iz Herbeheretako Orange dinastiakoa.

Nobleak dira batzuk, espainiarrak Hegoaldera bidali zituzten **Orangearrak**; merkatariak dira besteak: biek ala biek jarri dituzte hiriaren zimendu harriak. Felipe Juaristi

orangista iz ingelesen nagusitasunaren eta erlijio protestantearen aldeko irlandarra.

Zer ospatzen dute uztaileko **orangistek** Irlandan? Iñigo Aranbarri

Istiluak **orangisten** urteko martxa nagusian. Berria - Mundua

Udan **orangisten** martxen sasoi gatazkatsuan. Berria - Mundua

Orangisten desfileak euren auzoetatik pasatu zirenean. Berria - Mundua

-Baina **orangista** da Crofton, ez? -esan zuen Power jaunak. Irene Aldasoro

Ondo **orangista** jatorra. Irene Aldasoro

• 2 izond orangistena, orangistei dagokiena.

Martxa **orangistek** eta Omagheko atentatuak, baina, hari batetik zintzilik utzi zuten hitzarmena. Berria - Harian

Desfile **orangistetan** izandako istiluak eragozteko gai ez dela. Berria - Mundua

Boluntario Loialisten Indarra talde paramilitarrak eta Ordena **Orangistak** ere bat egin zuten berarekin. Berria - Harian

3 irud/hed

Era berean, desfileko partaideak «azken finean espainiar **orangistak**» direla adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

orangutan iz giza itxurako tximino handia, iletsua, zango-motza eta beso-luzea, Borneo eta Sumatrako oihanetan bizi dena (*Pongo pygmaeus*).

Primate talde bat gara, eta gu gatozen eboluzio lerrotik giboiak duela 25 milioi urte banandu ziren; **orangutanak**, duela 15 milioi urte; gorilak, 10 milioi urte, eta txinpantzeak eta giza primataek sortu ziren adarraren banaketa duela 6 milioi urte baino ez zen gertatu. Luis Elberdin

Gorilen, **orangutanen**, txinpantzeen eta, azkenik, gizakiaren arbasoa omen den tximino mota baten hezur fosilak. Berria - Gaiak

Burezurreko zati bat, baraila, **orangutan** batena zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Behin, ikasle zinenean, esan omen zenion **orangutan** batekin ezkontzea bezalaxe izango zela nirekin ezkontzea. Josu Zabaleta

Batek erraldi indartsuaren keinuak egiten zituen eta bere muskuluak erakusten zituen, beste bati, berriz, **orangutanaren** saltoak egitea gustatzen zitzaion eta hark bezala dantza egitea bularrean ukabildakad joz. Pello Lizarralde

Orangutan aurpegia daukagu? Harkaitz Cano

orano ik oraino.

orantz (orobat orantz eta orrantza g.er.) iz legamia, altxagarria.

Ostiralez, ogirik ez da egiten, **orantzik** ez da arrotzen. Pello Zabala

Esne ezti kutixiatuari, bere hiru zulotako txistuaz, arrak **orrantza** xortak eransten zizkion. Itxaro Borda

orapilo (Euskaltzaindiaren Hiztegian korapilo agertzen da) iz korapiloa.

Gure literatur tradizioaren azterketak izan behar lukeela batasunaren -bereziki hiztegi-batasunaren- **orapiloa** askatzeko ihardunbidean erabili beharko genukeen irizpide nagusia. Berria - Harian

oratoria 1 iz jendaurrean hitzaldizak emateko antzea, entzuleak atsegintzea eta hunkitzea helburu duena.

Juliano agintariaren egunetan kristauetara debekatu zitzaizela literatura eta **oratoria** irakastea, eta berak lege hau onartuz, nahiago izan zuela mintzoaren eskola utzi zure Hitza abandonatu baino. Imanol Unzurrunzaga

Gure mutil horiek, baldin berorri entzuna egia bada, **oratorian** eta erretorikan landu beharko lukete mintzoa, zenbat eta hizkuntza gehiagotan, hobeki... Joan Mari Irigoien

Bi ziren **oratoria** eta eskritura onaren ezaugarriak: neurria eta distira, distira eta neurria. Joan Mari Irigoien

Zinez miresgarria zen haren **oratoriaren** estila. Irene Aldasoro

Oratorian hain gustuko ditugun kontrako konbinaketaz. Imanol Unzurrunzaga

Oratoria kristaua tradizio klasikoarekin lotzen du. Imanol Unzurrunzaga

Garai bateko misiolariena baino **oratoria** goratsuagoarekin. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Han jarraituko zituen burutu arte **oratoria** ikasketak. Imanol Unzurrunzaga

Mattinekin nituen harremanetan, ni nintzen beti galtzeko, zeren, **oratoria** eserizio haietan ere, oro har, hura baino trebeagoa nintzen arren, iduriz bainintzen trebeago. Joan Mari Irigoien

Beldur naiz, ordea, politikan erabiltzen diren hitzak bestearentzat bakarrik balio duten **oratoria**-errekurtsu soilak ez ote diren. Hasier Etxeberria

-Itzaltzak musika puta hori! -agindu dio Natxok zakar, **oratoria** alarde batean. Patxi Iturritegi

oratorio 1 iz kantataren egitura duen musika lana, erlijiozko gai bati buruz ondua.

Musika mailan, besteak beste, bi opera eta bi **oratorio** sortu ditu. Herria

Haydnek idatzitako *Kreazioa* **oratorioko** aria bat entzun genuen. Berria - Kultura

Mors Saulus et Jonathae obrak, **oratorioa** izan arren, «indar dramatiko handia» du, bakarlariren eta koruaren parte-hartzeari esker. Berria - Kultura

Oratorio italiarra, hau da, Biblian oinarritutako gidoiak, kantaria dotore uzteko moduko musikaren bidez. Berria - Kultura

2 otoizgia.

Bigarren zatian, beste lehio bat irekiz, hiriko elizetara egin zuten salto, eta konkretuki jesuiten **oratorioetara**. Berria - Kultura

oratu¹, ora, oratzen 1 du *ad* ore egin.

Normalean, emakume abandonatuek besteren etxean irina **oratur** ateratzen zuten bizimodua, edo neskame sartuta. Koro Navarro

Arropa, azukre, keroseno eta olio anoak handitu egin behar dira; akabo ongi **oratu** gabeko ogia, behera okelaren prezioa. Patxi Zubizarreta

Aulki-bizkarrean idorrazai aurretik **orutzen** zituen pastak prestatzen zizkidan. Joxan Elozegi

Oliotan **oraturiko** irina eskainiko duzue labore-oparizat. Elizen arteko biblia

Egin gari-irin zuriz legamigabeko ogiak, olioz **oraturiko** opilak eta oliotan bustiriko taloak. Elizen arteko biblia

Lehenengoarekin batera, eskaini la u kilo irin zuri, litro bat olio garbiz **oratur**, eta isuri litro bat ardo. Elizen arteko biblia

Beraketa behar adinako arduraz egin denean [...] har bedi aitzurra eta, morteroa **orutzen** den bezalaxe, beratutako karea ere zuloan hala aitzur bedi. Santiago Iruretagoiena

Junta horiek olioarekin **oraturako** karearekin beteko dira, eta junturak elkarren kontra igurtziko dira ondo zapaldu ondoren. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed

Gizonak ezartirik gora igo berri zitzaion karkasa ahoan **oratu**, eta tu egin zuen lurrera piparen beste aldeko ezpain artetik. Anjel Lertxundi

Txokolate egin berriaren usaina baino trinkoagoa baitzen olio zaharkituarekin eta ukulitik zetorren mando-usainarekin **oraturako** kiratsarena. Anjel Lertxundi

Caixal Estradé agurgarriak berrikerien eta liberalismoaren kontra hitz ezinago gogorrez **oraturako** sermoi beldurgarria bota zuen. Txillardegia

Arrastiriaren etorrerarekin azkarturik nonbait, gorrotoz eta urrutiminez **oraturako** sentimendu garratza nigan azkartzen ari zela nabaritu nuen. Txillardegia

Nire onean ote nengoen ez nekielarik, ontziburu berriari paparretik **oratu** nion. Edorta Jimenez

3 zikindu. ik orakatu.

Burmuin andeatuek kemen pizar baten oparia harturik, neure hozkailu partikularrean aurkitu nuen zorioneko orrialdea tintaz **oratzeko** manera. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oliotan oraturiko irina (6); **olioz oraturiko** (7); **oraturiko irin** (4); **oraturiko irina eskainiko** (5)

oratu², ora, oratzen 1 dio *ad* heldu.

Neska ilegorriak besotik **orutzen** zion belaun bat lurrean zegoen beltzaranari. Berria - Kultura

Senarrak besotik **oratu** zion. Lopez de Arana

Besoa luzaturik, eskutik **oratu** eta pianoaren aurrera ekarri zuen sendagilea. Anjel Lertxundi

Kokotsetik **oratu** eta aurpegia jasoarazi zidan, begiak ikusteko. Anjel Lertxundi

Usoei hegaletatik **orutzen** zien, buruan kolpe bana ematen zien kirtenarekin, eta, zorabiaturik zeudela, ganibetaren punta sartzen zien eztarrian. Karlos Zabala

Atzetik hurbildu, gerritik **oratu**, eta jirarazi egin nuen. Anjel Lertxundi

Nire onean ote nengoen ez nekielarik, ontziburu berriari paparretik **oratu** nion. Edorta Jimenez

Ez zekien alabari nondik **oratu**, hainbeste nazka ematen zioten botin lokatzuek, galtzerdi zikinek, gona urratuak, esku eta aurpegi belztuek. Karlos Zabala

Patrikan gordetako giltza hotzari **oratu** zion, irmo. Harkaitz Cano

Bolanteari **oratu** eta amasa sakon hartzen saiatu zen. Unai Iturriaga

Atea itxi bezain laster, harengana joan nintzen hitzik egin gabe eta hankarteari **oratu** nion esku beteka. Karlos Zabala

Andrazko bat agertu zen [...] sein bat besoetan eta neskatxo bat gonari **oraturik**. Edorta Jimenez

Gogor **orutzen** zion eskumaz baxuari Somera kalean zihoalarik. Unai Iturriaga

2 irud/hed

Bat-batean, ordea, soldaduak agertu baino lehenagoko gaiari **oraturik**, inolako iluntasunik gabe galdetu zion Norak: [...]. Anjel Lertxundi

Zer esan nahi du omen horrek? -ontziburuak lehengo hariari **oratu** nahi izan zion. Edorta Jimenez

3 oratzearren *adlag* oratzeko.

Puruari **oratzearren** erabilitako eskua buruarekin batera mugitzeari utzi zion, jantokian bertan baina urrutiko bazter batean begiak finkatuta. Josu Landa

Ontziaren auzian Igeldokoak amore emango ez zuela itaun haietan ulertu zuen, nonbait, ontziburu berriak; ez baitzizkion egin jakinguraz edo grinaz, beste hariren bati **oratzearren** baino. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besotik oratu (26); **besotik oratu zion** (8); **esku biez oratu** (3); **eskutik oratu** (8); **gerritik oratu** (7); **hariari oratu** (3); **lepotik oratu** (3); **oratu zion besotik** (3); **paparretik oratu** (5); **sorbaldatik oratu** (5); **ukalondotik oratu** (3); **ukondotik oratu** (8)

eskutik oraturik (4); **ukalondotik oraturik** (4)

eskutik oratuta (4)

besoetatik oratur (3)

besotik oratzen (5); **eskutik oratzen** (3)

oratzaille *izond* oratzen duena.

Oinak herrestan, argi diraditsuak, aurpegi hanpatuak, beso **oratzailleak**, gihar teinkatuak, oinak jauzika. Lopez de Arana

Txitxikovek, Maniloven beso **oratzailetik** ihes egin nahirik, urratsa azkartzen zuen. Jose Morales

2 (adizlagun gisa)

Hatzek, leun eta **oratzaille**, laztandu, eutsi, sakatu eta estutu egiten dute. Luis Elberdin

orazino ik orazio.

orazio (orobat orazino eta orazione) iz otoitza.

Eztiago eta gozoago direla **orazioetan** eta otoitzetan daudenen negarrak, komedietan, dantzetan eta munduko plazeretan dabilzaten irriak baino. **Aingeru Epaltza**

Gorde ezak liburua, eta eska egiok zeruari horko **orazioen** premian ez hadila izan. **Edorta Jimenez**

Hantxe ene **orazioen** fruitua...! **Joan Mari Irigoien**

Entzün otoi **orazione** hau. **Herria**

orazione ik orazio.

orbain 1 iz ebaki edo zauri batek osatu ondoren larruazalean uzten duen seinalea. ikebakiondo.

Arago: ez zen ageri han ez ospelik, ez erredua edo garatorik, ez negal, baba, kalentura, pustula, zimur, kailu, **orbain** edo granorik. **Bernardo Atxaga**

Aspaldiko eritasunaren **orbain** edo hondakinen arrastoak bazirela pentsarazten omen zuen azterketak, baina ez garai hartan gaixotasun prozesu aktiborik zegoenik. **Xabier Olarra**

Zauri lehorra **orbain** handienetik ireki zen, eta kristal muturra agertu zenean eskuz atera zuen. **Alberto Barandiaran**

Orain, basurde batek egin zidan zauriaren **orbaina** erakutsiko dizuet. **Juan Kruz Igerabide**

Harramazka egin zion bere azkazal beltzein aurpegiaren alde batean; ondorioz, **orbain** estu luze bat geratu zitzaion masailean amari. **Juan Kruz Igerabide**

Harri eta zur geratu gara esku ahurretan dauzkan **orbain** sakonak ikustean. **Harkaitz Cano**

Egiazko eta ageriko zauri baten **orbain** gorritz estalia. **Askoren artean**

Orbainak odol sakratua isurtzen zuen maiz, tunika eta barruko galtzak busti-busti eginda utziz. **Askoren artean**

Bekokiko **orbaina** gurasoak hil ziren auto-istripuan egin zitzaiola. **Iñaki Mendiguren**

Emakumeak, hankak garbitzen ari zela, aspaldiko **orbain** bat ezagutu zuen, basurde batek egina. **Juan Kruz Igerabide**

Afari denboran jakinen dut zergatik besoa altxarazten duten, zerbitzariak argituko nau: Alemanak lagundu dituzten miliziano frantsesek beso azpian **orbain** edo zikatriza bat badute engaiatu direlarik egina. **Marzel Etxehandi**

2 (izenondoekin)

Orbain txiki bat zeukan eskuineko bekain ondoan. **Bernardo Atxaga**

Betaurreko biribilak erabiltzen zituen, eta bekokian tximista bezalako **orbain** mehe bat zuen. **Iñaki Mendiguren**

Suak eragindako **orbain** gorri-gorri bat zeukan eskuineko masailean. **Anton Garikano**

Eskua haren eskuineko saihesten aldera irristatu zitzaion eta **orbain** preziatu hura ukitu zuen. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan)

Baita labanaz egina zirudien ebaki bat ere, **orbain** itxurakoa. **Bernardo Atxaga**

Mamu erretxin eta begirada finkokoa, odol-**orbain** zilar-kolorez estalita zegoena. **Iñaki Mendiguren**

Ollivander jaunak Harryren bekokiko tximista-**orbaina** ukitu zuen hatz luze eta zuri batez. **Iñaki Mendiguren**

4 (adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian **orban** agertzen da) orbana.

Orbain zuri-zurbilak dituela ikusten badu, gaitzak ez du garrantzirik; halakoa garbi dago. **Elizen arteko biblia**

Ile berreskuratua buruan dotore; bizkar gainak inoizko sendoenak; bisaiaiko larruazala zimurrez gabetua; matelondoko betiko orizta iluna **orbain** bakar. **Aingeru Epaltza**

Burua, bekoki aldean, odol **orbainak** zituen zapi batez estalia zuen. **Felipe Juaristi**

orbaindu, orbaindu), orbaintzen 1 da/du ad zauri osatuan orbaina eratu.

Zauri, ebaki nahiz harramazka guztiak berehala **orbaintzen** zitzaizkion, eta arima zauritzen duten oinaze guztiak ere halaxe, berehala kanporatu eta urruntzen ziren. **Jose Morales**

Gasa bildu bat paratu zidan azalaren eta haragiaren artean, "jarioario eusteko", azaldu zidanez, "garbiketa prozesurako", zauria ez zedin behar baino lehen **orbaindu**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Banekien hona jin aitzin zauria ez zela **orbainduko**, gaizkonduko baizik. **Piarres Aintziart**

Buruan hartutako kolpeak bere ondorioak utzi zituen; berehala **orbaindu** zen zauria, baina hegatzia ez zen, nonbait, ezertaz gogoratzen. **Jon Muñoz**

Gaizki **orbainduriko** ebaki bat zeukan begitartean, alderik alde. **Karlos Zabala**

Haren zauri dagoeneko **orbainduaren** inguruan, ezten-hagak bezain zut zeuzkan lumak, zenbateraino haserre zegoen erakutsiz. **Jon Muñoz**

Halaber eskuineko saihestean lantza-zauri bat agertu zitzaion, **orbaindu** gabea, gorria eta odoldua **Askoren artean**

2 irud/hed

Hala ere, urteak beharko ditu oraindik zauri psikologikoak **orbaintzeko**. **Berria - Gaiak**

Haien harremanek, funtsean, betiko hartan zirauten, biak ala biak aspaldi irekitako zaurian hatza sartzeko beldur balira bezala, hura guztiz **orbaindu** ez zen seinale, zu hor eta ni hemen, nor bere etxean. **Joan Mari Irigoien**

Ez diat sekula ahaztuko kolpe hura, buruan ez ezik bihotzean ere beste zauri bat eragin baitzidan, oraindik ere **orbaindu** ez dena. **Joan Mari Irigoien**

3 (era burutua izenondo gisa)

Baina ez zuen erlojura begiratu, zuzenean zauri **orbainduaren** ebakiondora begiratu zuen. **Fernando Rey**

Haren bekoki urdin distiratsuan, lerro mehe ilun batek seinalatzen zuen zauri **orbaindua**. **Jon Muñoz**

Aurpegian alderik alde ebaki **orbaindu** bat zuen, ahoa gurutzatu eta kokosperaino zihoakiona. **Fernando Rey**

Bihotz **orbaindua**. **Joxerra Garzia**

4 (adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian **orbandu** agertzen da) orbandu.

Horrela Auliden, Danautarren buruzagi haitek, gizotasunaren eredu haiek, Hirubideko Birjinen aldea Ifianassaren odolez dorpeki **orbaindu** zuten. **Xabier Amuriza**

Oraingoan lehor zegoen Hagriden oharra, negar-malkoz **orbaindu** gabe. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orbain gorri (3); **orbain txiki** (4)

orbaina ikusi (3); **orbaina itxi** (3); **orbaina ukitu** (3); **tximista orbaina** (4)

orbainezin izond ezin orbainduzkoa.

Hain zuzen, beste guztiak batera baino askoz min gehiago egin zidaten bi piztia haiek, zauri **orbainezinak** utzi zizkidaten-eta hala gorputzean nola ariman **Juan Kruz Igerabide**

orbaingabe ik orbangabe.

orbaintxo 1 iz orbain txikia.

Hain moldakaitza ote zen gizona? Ez ote zeukan beste zer esanik? Edo damututa ote zegoen hitz egin izanaz? Ez ote zituen gogoko ezker masaileko bere bi **orbaintxoak**?
Anton Garikano

2 (adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegian ez da agertzen, baina **orbaintxo** behar luke) orbantxo.

Psilopa petrolei hauek oinak estaltzen dituzten iletuok koipeztatzeko guruinak dituzte eta guruin horien bidez labaintzen dira petrolio gainean -honen gainera eroritako koipe **orbaintxo** batzuen gainean bezala- . J.M. Olaizola "Txiliku"

orbaintze iz zauri osatuan orbaina eratzea.

Zauriaren eta sendatzearen artean, **orbaintze** garai bat bada. Berria - Euskal Herria
Orbaintze garaian, oraino zaurituak gara, oraino minbera da, zauria berriz ireki daiteke. Berria - Euskal Herria

orbaizar izlag/iz Orbaizetakoa, Orbaizetari dagokiona; Orbaizetako biztanlea.

Azaroan, Mikel Zabalza **orbaiztarra** atxilotu eta, Intxaurrondoko kuartelera eraman ondoren, Endarlatsa inguruan ihes egin ziela esan zuen Guardia Zibilak. Jokin Urain

orban 1 iz larruzalean edo zerbaiten gainaldean gertatzen den zikingunea edo bestelako koloreko gunee txikia. ikizpil.

Bere gorpuzkera handiak, aurpegiko **orbanak**... beldurra eman zidaten. Rafa Egiguren
Zimurrak eta **orbanak** ageri dira haren aurpegi bizar gabeen. Aingeru Epaltza
Buruko min gogorak, sabelaldeko eta giharretako mina, goragaleak, eta azaleko **orbanak** dira gaitzaren zantzu nagusiak, zientzialarien esanetan. Berria - Gaiak
Begi ertzean zeukan **orbanak** itxura beldurgarria ematen zion. Joanes Urkixo
Martinak pasatzen ote die inoiz eskuila gure soinekoei, kentzen ote dizkie **orbanak**? Fernando Rey
Maindireetan ere ez zen **orban** bat bera ere. Josu Zabaleta
Orbana luzatu, eta obalo bihurtu zen zirkulua. Jon Muñoz
Nire azalean dauden **orban** eta marka guztien erakustaldia da. Berria - Kultura
Bihar berriro garbitu beharko dizkizut jantziko **orbanak**. Josu Zabaleta
Begi ertzean zeukan **orbanak** itxura beldurgarria ematen zion. Joanes Urkixo
Orbana egin dut tintaz! Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Horma zartatuetan **orban** ilunak eratu dituzte euriak eta hezetasunak. Pello Lizarralde
Eta egunaren argiarekin ederra zena are ederrago bihurtzen zen gauaren lehen iluntasunarekin, argiak pizten baitzituzten etxe bakartietan eta herrietan, eta haran guztia **orban** horikaz betetzen baitzen. Bernardo Atxaga
Orban more bat, ezkerreko izterrean. Berria - Kultura
Aste horretan, gainera, **orban** marroixka batzuk atera zitzaizkidan. Berria - Euskal Herria
Bitxiloreen **orban** zuri biziak, dalien gorri odolokara. Karlos Zabala
Mozoloak gauean zehar ihes dago, **orban** beltz espazio beltzean ibiltari. Josu Zabaleta
Haren masailek **orban** bioleta bat eragiten dute aulkiaren larru marroiaren gainean. Monika Etxebarria
Gas argiontzia batek [...] blusa baten **orban** urdina, txapel baten punta argizatzen zituen. Karlos Zabala
Gaua heldu da, bere begitartearen **orban** zurbila ez dut ikusten ia. Monika Etxebarria
Orban nabarek janiko bi ispilu. Monika Etxebarria
Olio gorritzko pinturazko **orban** luze eta ezabaezinak. Urtzi Urrutikoetxea

3 irud/hed

Bihotzean zuen **orbanairi** erreparatu, eta negarrez hasi zen. Joxerra Garzia
Frantziskoren adimena, **orban** orotatik garbi, misteriorik ezkutuenean sakonera iristen zen. Elizen arteko biblia
Guantanamo **orban** handi bat da historian, baina ez bakarrik AEBenean, baita han gertatzen ari dena isiltzen dutenen eta onartzen dutenen historian ere. Berria - Harian
Dopinaren **orban** beltzak Neguko Olinpiar Jokoak ziprztindu ditu berriz ere. Berria - Kirola
Doilorkeria **orban** zibila denez, eta oinazeak eta suak **orban** espiritual eta gorputzik gabeak kentzen dituztenez, zergatik, orduan, torturaren hotzikarek ez dute kentzen **orban** zibila, doilorkeria, alegia? Juan Martin Elexpuru

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire galtzetako kafe-**orban** hau. Jon Muñoz
Bi ardo-**orban** puska galantak zikintzen zioten alkandora zuri dotorea. Jon Muñoz
Begiea tinta **orban** beltz bat bezala zen esmalte zurian. Josu Zabaleta
Amak aurpegiko edo gorputzeko beste edozein ataletako zikinkeria-**orbanak** mingainarekin bustiriko zapi-mutur batez garbitzen zizkigunean. Iban Zaldúa
Bidegainean koipe **orban** bat zegoen. Joan Mari Irigoien
Baltiko itsasoan [...] fuel olio **orban** handi bat agertu da, eta kalte handia egin dezake. Berria - Gaiak
Egunez egun handiagotzen zen errimel **orban** iluna utzi nuen sofaren besoaren gainean. Sonia Gonzalez
Atalondoan odol **orban** bat zegoen, izar itxurakoa. Monika Etxebarria
Ehiztari indartsuak, bere anaiari oraturik, haitz baten gainean eseri zuen, eta odol **orban** bat baizik ez zen haren burua harri batzuez tinkaturik, belarrira oihu egin zion, gor bati hitz egiten ari balitzaio bezala: [...]. Josu Zabaleta
Esku baten gainean, hatz txikitik hurbil, sardinaz ezkata bat zeukan, han nakar **orban** bat ipintzen ziona. Karlos Zabala
Ni hona ekarri nindutenean, txita baten itxura beteko lizun-**orban** bat nabarmentzen zitzaion leihoaren azpiko horma-puskari. Anjel Lertxundi
Ezin izanen ditugu atzeman bestetan ziegan kukututa eguzki printzetan ikusten ahal ditugun zikin **orban** horiek. Koldo Izagirre
Eguzki **orban** zabalak zitzu bizian orraztu du belardia. Pello Lizarralde
Eguzki-**orban** hauek 11 urte inguruko zikloa dute. Pello Zabala
Neskazaharrak, gona beltza jantzita, intsektu **orban** bitxi bat ipintzen zuen argitasun gordinen erdian. Karlos Zabala
Eskuak eta begiak ikusi nituen; han-hemenka argi-**orban** batek aurpegi bat jaten zuen. Monika Etxebarria
Petrolio gordin **orbanak** harkaitzetako itsaskietan itsasten direnean, ito egiten dira guztiak. Berria - Euskal Herria

hitz burutua maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguzki orban (4); **hezetasun orban** (4); **odol orban** (8); **olio orban** (3); **orban beltz** (6); **orban gorri** (12); **orban gorrixka** (4); **orban handi** (7); **orban ilun** (3); **orban ilunak** (6); **orban itsusi** (3); **orban more** (5); **orban txiki** (4); **orban zuri** (4); **sabaiko orban** (3)

erregai orbana (3); **hidrokarburo orbana** (3); **orbana garbitzeko** (4)

fuel orbanak (3); **orbanak agertu dira** (5)

eguzki orbanen (3)

orbanez betea (3); **orbanez beteta** (4)

orbanik gabe (3); **orbanik gabea** (3)

orbandu, orban(du), orbantzen 1 da/du *ad* orbanak egin, orbanez zikindu.

Hermione kontuz ireki zuen Edaberik Ahaltsuenak liburua eta hezetasunez **orbanduriko** orrialdeen gainera makurtu ziren hirurak. negar-malko handiek zenbait tokitan hainbesteraino **orbandu** zuten tinta, ezen oso zaila baitzen irakurtzea. **Iñaki Mendiguren**

Zilar jario eder, zabal, geldi, luze bat zen, han-hemen purpuraz **orbandua**. **Josu Zabaleta**

Eta tiro egin diot, txuribeltzeko karretea daraman argazki kamerarekin, inor odolez ez **orbantzeko**. **Pako Aristi**

-Aita ikusi nahi dut -esan zuen hark, besoak gurutzatuta eta ukondoei eri dardarati eta nikotinaz **orbanduez** estu helduz. **Oskar Arana**

Forma hutsen mundu bat ikusten duela, koloreak **orbandu** gabea. **Xabier Olarra**

2 irud/hed

Beldurra, norberaren ahotsez mintzatzeko, edo orri zuria **orbantzeko**, edo... **Iñaki Iñurrieta**

Gertaera txiki batek besterik ez zuen **orbandu** bidaia zorientsu hura. **Juan Kruz Igerabide**

Garibai **orbanduz**, Juan de Ldiak ez estatu-kontseilaria eta honen ingurua **orbandu** nahi dute. **Anjel Lertxundi**

Gerta zitekeen -eraz gertatu ere- gure protagonistaren masaila eder eta marduletako bat ezin garbituzko laidoak **orbandurik** geratzea. **Jose Morales**

3 (era burutua izenondo gisa)

Einsteinek pipa atera zuen alkandora **orbanduaren** poltsikotik. **Fernando Morillo**

Raimundo Silva jaiki eta sukaldera joan zela, zakarrontzia tximinia azpitik erakarri, ireki eta arrosa **orbandua** jaso zuela. **Jon Alonso**

Slipa eta telazko galtza **orbanduak** arropa zikinaren pila ginean utzi nituen, begien bistan. **Joseba Urteaga**

4 (*adiera honetarako, Euskaltzaindiaren Hiztegia orbaindu agertzen da*) orbaindu.

Oso belar egokia zauriak **orbantzeko** eta hantura jaisteko... **Joanes Urkixo**

orbandun *izond/izlag* orban bat duena; orbanak dituena.

Igitaiaren gisa ebaki du munduaren intimitate geza, eta orain jiraka dabil eta gu guztiok, Madeleine, gizon gizona, ispilu **orbanduna**, edalontziak, geure burua existentziaren esku abandonaturik dugun gu guztiok. **Monika Etxebarria**

Imajinatu habia bat nire lepoan, **orbandun** arrautzatxoekin! **Julen Gabiria**

orbangabe (*orobat orban gabe g.er. eta orbaingabe g.er.*) 1 *izond* orbanik ez duena.

Eta goietan, urdin **orbangabea**. **Pello Zabala**

Elur mardul, aratz eta **orbangabea** bazter orotan. **Xabier Montoia**

Emakume bat agertu zen orduan, ilargiak argitzen zuen eremu mortuan, jantzi zuri **orbangabe** bat soinean. **Imanol Zurutuza**

2 irud/hed

Bere Adelia garbia baitzen, **orbangabea** eta santua. **Bego Montorio**

Zeren aliatuentzat askoz ere errazagoa eta merkeagoa baita germaniar garbi, **orban gabeak** beren artean hiltzen uztea. **Josu Zabaleta**

Grinek, atsekabeek eta zirrarek ez zuten zimurrik utzi haren aurpegi garbi, **orbangabea**. **Jose Morales**

Daneli buruz osatua duan irudi **orbangabera** lokatz pixka bat botatzea. **Anjel Lertxundi**

Azalpena, teknikoki, **orbangabea** da, eta nik neuk ere ez nuke arazorik sinatzeko. **Berria - Kultura**

Ez horretan jokutzen zuen ongi merezitako ospe **orbaingabea** ez ezik, kontzientzia bakean edukitzeko lasaitasuna. **Jon Alonso**

Gizakiari, ordea, ahuleziak jotako izakia baita, ezinezkoa zaio Bildots **orbangabe** gurutziltzatuari bete-betean jarraitzea. **Askoren artean**

Arbolapean ezarritako aldaretxoan, Ama Birjina **Orbangabearen** imajina bat zegoen. **Txillardeggi**

3 (adizlagun gisa)

Giroa ere epela zegoen; eta zeruaren urdina, aratz, **orbangabe**. Begitartea **orban gabe** eta desitxuratu gabe gordeko al zuen, orain bere aurrean zeukan moduan?

Txillardeggi

orbange *izond* orbangabea.

Aire **orbange** zeharrargiak, eguzki printzen aurreko argixoari basoko zuhaitz bakoitzari bere margo eta ukittu propialak eransten uzten dio. **Pello Zabala**

orbanka *adlag*

Gautzen ari zen, **orbanka**, zeruan mantxa koipetsu ilunak agertzen direnean bezala, eguzkiaren ezkutatzeko horizontalik gabe. **Harkaitz Cano**

orbantsu *izond* orban asko duena.

Jeneralarengana hurbildu, makurtu, eta muin eman zion esku zahartu, **orbantsu** eta eraztun batez apainduan. **Xabier Olarra**

orbantxo 1 *iz* orban txikia.

Neska gazte dotore bat, dena **orbantxo**z betea aurpegia, sartu zen dendan. **Jon Muñoz**

Orbantxo gorri lauso bat agertu pantailan, eta jirabiraka hasi zen formularen inguruan, eulia zauriaren inguruan bezala. **Jon Muñoz**

Atzemangaitzak dira zure hiri zapalak eremu lau horretan, puntuak edo **orbantxoak** dirudite zabaldiaren erdian. **Jose Morales**

Horren begietara gure eguzki-sistema partikularra ez baita Esne Bidean izar-hautsezko **orbantxo** bat baizik. **Iñaki Mendiguren**

Baina ez dakizu nolako oihal polita bidali dioten haren ahizpari, hitzez azaltzerik ez dago zein zoragarria den: urdin argia, marra estu-estuak, eta marren artean **orbantxoak**

eta lerrotxoak, **orbantxoak** eta lerrotxoak, **orbantxoak** eta lerrotxoak... Jose Morales

2 (hitz elkartuetan)

Zigarroa, errimel **orbantxoak** bokillan, dantzan dabil Asunen atzamar artean. Paddy Rekalde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orbantxoak eta lerrotxoak (3)

orbel 1 iz zuhaitzetatik eroritako hosto ihartuen multzoa.

Hostoak hasi dira **orbel** bihurtzen, amaitu dira oporrak. Joxerra Garzia

Darling andreak arretaz aztertu zituen: **orbela** zen, bai, baina seguru zegoen hosto haiek ez zirela Ingalaterrako zuhaitz batekoak. Julen Gabiria

Egurra eta **orbela** biltzen suari bizi-bizi eusteko. Iñaki Mendiguren

Ibai zuloan **orbelak** estaltzen du zorua eta ustel usain hezea hedatzen du. Pello Lizarralde

Kasik oharkabean, **orbelaren** gainean etzan eta arrodaka hasi nintzen orduan ere... Joan Mari Irigoien

Gero **orbela** bordako zoruan hedatu dute, eta, minutu batzuen buruan bi lagun etzanda egoteko moduko tokia atondu dute. Pello Lizarralde

Artzain txakurra, **orbela** usnatu ondoren, deitu beharrik gabe hurbildu zitzaion. Joxemari Urteaga

Hozkailua hutsik dago, ohea egin gabe du; **orbela** lurrean dabil alde batera eta bestera, hautsitako leihotik sartuta. Oskar Arana

Haizeak **orbela** harrotzen zuen, eta hodeietan gordetako euria haizeari txanda hartu zain zegoen. Anjel Lertxundi

Lurzoruan **orbela** astintzeko beste jotzen zuen haizeak. Ramon Saizarbitoria

Haizeak daraman **orbela** bezala, arrapaladan, bere aurretik igarotzen dira. Oskar Arana

Han-hemen **orbela** bera baino zoroago dabilzan hotsek diote Napoleonek ihes egin duela Elba uhartetik. Anjel Lertxundi

Orbelak duen jolas-sena bezalakorik ez dago. Julen Gabiria

Gero, **orbelezko** ohatze batean etzan eta aurki zegoen lo zerraldo. Karlos Zabala

Erretorika hutsa da, haizeak alferrik gizendutako **orbela**. Anjel Lertxundi

Ibai sakonetan, hondoa ikusten ez den horietan, hitzak **orbelaren** pare dira, ia geldirik, poliki-poliki arrastaka doan erraldoi baten bizkar bustian. Juan Kruz Igerabide

Nire oroitzapenak deabruaren poltsako urrezko txanponen parekoak dira; ireki eta **orbela** baizik ez zegoen. Monika Etxebarria

2 (izenondoekin)

Mugazainen begipetik urruti, afari legea egin eta **orbel** gorriaren gainean etzan ziren, estalki bana gorputzaren babesgarri. Joxemari Urteaga

Baina batez ere sugeek izozten zioten odola; oina **orbel** mugikorrean hondoratu eta haien buru meheak ikusten zituen sustraien nahaspila itzelean sigi-sagaka. Karlos Zabala

-Estimaten dizut, Jolivet jauna -erantzun zuen Harry Blountek, lankideak urki baten gerizpean prestaturiko **orbel** iharraren gainean etzanda jarririk. Karlos Zabala

Han-hemenka, argituz zihon behelainoaren adarretan, gune arrisksuak kokatu zituen: **orbel** sarria, zenbait sastraka, gizon bat ezkutatu ahal zuten harkaitz handiak...

Joanes Urkixo

Hala, **orbel** izutia ere haizean. Anjel Lertxundi

Orbel ugari zegoen pilatuta belartzetan eta zidorretan, baina bustia zegoen azken orduetako euriagatik. Anjel Lertxundi

-Zuhaitz erdi biluzien aldameneko **orbel** usteltzen hasiarena nagusitzen zen gau giro oraino ez hotzegian. Xabier Montoia

3 hosto ihartua.

Hego-haizeak ekarritako **orbelak** jaso eta garbitzen. Koldo Izagirre

Karramarroak eta karakoilak dabilza herrestan **orbel** eta gorbelen artean. Koldo Izagirre

Pinaburu, **orbel** eta pinu-orratz deseginez betetako bidexka ihintz-tantaz blai denari. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orbel sorta batzuk besterik ez zeuden. Karlos Zabala

Charlierek in eskolara bidean, udazkeneko **orbel**-pilatan kriski-kraska, eta istil-putzuetako izotzetan zintzi-zanpa. Mirentxu Larrañaga

Ez zebilen haizerik, jada ez zen **orbel**-dantzarik. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laster hasiko zen euria, haizeak kale bazterretako zumar-**orbela** harrotzeari utzitakoan. Anjel Lertxundi

Mikel Strogoffek eta Nikolasek etzanda ipini zuten urki **orbelaren** gainean, ahal zutenik eta ongien. Karlos Zabala

6 orbelpe-

Champs-Elysées-etara itzuli nintzen; kontzertu kafetegiek su guneak ematen zuten **orbelpean**. Josu Zabaleta

7 orbel-kolore (corpusean orbelkolore soilik) izond/iz

Orbelkoloreak salbatzen du igela; ile ugariaren babesak, zorria. Anjel Lertxundi

Eta Ada ordu arte mozrorrik gabe bazegoen ere [...] zein unetan doi hasi ote zen **orbelkoloreaz** babesten, eta Danelekin bizi izandako bizpahiru urteak ederresten? Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orbela biltzen (4); **orbela harrotzen** (3)

orbelaren gainean (7)

orbeldu, orbel(du), orbeltzen 1 da/du ad orbel bihurtu.

Larrea urritzen, zuhaitzen arba eta hostoak ere jausten eta **orbeltzen**, fruituak ere bildu ahala, gero eta gutxiago bixtan. Pello Zabala

Zuhaitzek, bestalde, beren hostoak **orbelduta** zapuzten dituzte. Pello Zabala

Are eta hurbilago, bera jaten ari den punturaino iristen den belardi bat dago, **orbeldutako** garoz erdi estalia. Bernardo Atxaga

2 irud/hed

Mediku naziek ere bata zuria janzen zuten, hala egoten ziren *Krematorium*-eko gaseztatzeko dutxen aretoko leihatilatik beha nire lagunak itokarrean zorutzen hasten zirenean buldarari kolpeka paretetan aztarrika elkarri garrasika, ballet mutu batean, zyklon B enbatak **orbelduta**. Koldo Izagirre

3 (era burutua izenondo gisa)

Anjelek, lurrean geratu den folio **orbeldua** seinalatuz, behin-betikoa uste duen sastada eman dio orduan: [...]. Joxerra Garzia

orbelkolore ik orbel 7.

orbelpe ik orbel 6.

orbeltsu *izond* orbel asko dagoena.

Eta imajina dezaket udazkeneko arratsa Central Parkeko xendra **orbelsuetan**. [Joxerra Garzia](#)

orbeltza *iz* orbela.

E lurra eta eguzkia joan-datoz beraren gainean, bera ukitu gabe: hosto hilen **orbeltzak** eta azaleko usteltzak lurperaturik datza, hilkin bat bilakatu da, "gauza" bat, baina atomoen heriotza, gurea ez bezala, ez da inoiz atzeragabea. [Juan Garzia](#)

orbita 1 *iz* argizagi batek nagusitzat duen argizagiaren inguruan egiten duen ibilbidea.

Jupiterrek bere **orbita** Marteren eta Saturnoren tartean dauka, eta Marterena baino bide luzeagoa egiten du eta Saturnorena baino motzagoa. [Santiago Iruretagoiena](#)
Uztailaren 1ean iritsiko da Cassini ontzia Saturnoren **orbitara**. [Berria - Gaiak](#)
Cassini espazio zunda Saturnoren **orbitan** sartu zen atzo. [Berria - Ekonomia](#)
'Venus Express' gaur jarriko da Artizarraren **orbitan**. [Berria - Gaiak](#)
CoKu Tau4 izarraren **orbitan** dago planeta hori, Taurus konstelazioan. [Berria - Gaiak](#)
Errusiar hondakinen **orbita** berean bazez beste objektu bat, tamainaz ez nolanhikoa [...] nukleo metalikorik gabeko kondrita karbonatuzko arroka puska bat izan zitekeena. [Patxi Iturritegi](#)
Hala frogatu zian [...] ezen planeten **orbitak** eliptikoak zirela eta ez zirkularrak. [Joan Mari Irigoien](#)
Palo Altoko astrofisikari batek, **orbitaren** parametroak zehatz-mehatz kalkulatu ondoren, "2001 SG506" izenaz bataiatu zuen. [Patxi Iturritegi](#)
Iduri zuen 27. gela gero eta urrutiago zegoela mundutik, espaziontzi bat zela urruneko **orbita** batean. [Bernardo Atxaga](#)

2 (izenondoekin)

Gerriaren eskua ainguraren moduan gerrian dudala, futuro hitzaren beharrik gabe, planetek, meteoritoek eta beste asteroideek betetzen dituzten **orbita** eliptiko nekaezin eta ia zehatzez axolatu gabe. [Joseba Sarrionandia](#)
Maniobraren amaieran, Ilargiaren inguruko **orbita** egonkorra helduko da zunda. [Berria - Gaiak](#)
Lurraren inguruan, **orbita** geoestazionarioan, biraka ari diren sateliteek Lurreko puntu finko batekiko posizioa mantentzen dute beti. [Berria - Gaiak](#)
Gaur bidaliko dute *Aura* espaziorantz, Kaliforniako Vanderbergeko basetik; sei urte egingo ditu **orbita** polarrean. [Berria - Gaiak](#)
Marteren inguruan egunean hirutan orbitatzen du [Phobos-ek], eta bere **orbita** espirala da, beraz, azkenean, Marteren azalera deuseztuko da. [Berria - Gaiak](#)
Negu edo uda, udazken edo udaberri, eliza gotiako ala kartoi-harri faltsu, zer axola dio, eguzkia bere **orbita** betiberdin azkengabea jira eta bira badabil? [Karlos Linazasoro](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **orbital**.

Ez dakit zergatik baratzen zen panpinak, plastikozko dinosauroak eta **orbita** -estazioak aurkezten zituzten apal haiek begiratzera, inoiz ez bainuen dendan sartzen ikusi. [Iban Zaldua](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hegoaldeko klimatik hurbilago eta eguzki-**orbitaren** azpiko aldean bizi direnak. [Santiago Iruretagoiena](#)

5 irud/hed

Jean Claude Trichetek, atzo adierazi zuen ez duela AEBen **orbita** berean sartzeko asmorik eta ondorioz %2ko interes tasei eutsi zien. [Berria - Ekonomia](#)
Izan ere, Errusiaren itzalaren beldur izaten jarraitzen dute herrialdeok, hamarkada luzetan Moskuren **orbitakoak** izan ondoren. [Berria - Mundua](#)
Kontu hura ez zen erabat bakutu ni beste **orbita** batean sartu eta berriz agertu ez nintzen arte. [Karlos Zabala](#)
Iriditu zitzaidan buruz ikasitako zerbait errepikatzen ari zela, edota, bere jardunaren hitz batzuek magnetizaturik, **orbita** berean astiro bira eta bira zebilkiola gogoia. [Irene Aldasoro](#)

6 burezurraren zuloa, begia dagoena.

Begiak **orbitetatik** irteteko zorian eta aho zabalik jarraitzen zuen, lur gorri arrastoz betea zegoen gelaren erdian zutik. [Ramon Saizarbitoria](#)
Martak bere **orbitatik** aterata zeuzkan begiak eta bere rictusean gutxitan sumatzen zitzaion ezpain-dardara bat azaleratzen zen. [Harkaitz Cano](#)
Gero, begietako **orbitek** kolore gorria hartu zuten eta likido trinko berde bat irristatu zitzaion ezpainetan behera sugandila baten moduan. [Aritz Gorrotxategi](#)
· **Orbitetatik** irtendako begirada legez baino ezin dut deskribatu. [Julen Gabiria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere orbita (11); orbita aldatu (3); orbita berean (3)

artizarraren orbitan (3); ilargiaren orbitan (3); inguruko orbitan (3); lurraren orbitan (3)

orbitan jarri (6); orbitan jarri zuten (3); orbitan jartzea (5); orbitan jartzea lortu (3); orbitan jartzeko (6); orbitan jartzeko maniobrak (3); orbitan sartu (5); orbitan sartu zen (4); orbitan sartuko (3)

planetaren orbitan (4); saturnoren orbitan (11); saturnoren orbitan sartu (3)

bere orbitaren (3)

orbital 1 *izond* orbitarena, orbitari dagokiona. ik **orbita 3**.

Normalean automatikoki egiten da espaziontzia eta ISS estazio **orbitalaren** elkarketa. [Berria - Gaiak](#)

Arrakasta bada, bidaia **orbitalak** egitea izango da hurrengo urratsa, eta gero, ziurrenera, hotel bat jartzea han goian. [Berria - Gaiak](#)

2 begiaren orbitari dagokiona.

Inhibiziorik gabeko tankera berezi-berezi bat, lobulu frontalen alde **orbitaletan** (hots, begi ondoko aldeetan) lesioa izan dutenengan ikusten direnen antzekoa edo sindrome orbito-frontala izenekoak [Xabier Olarra](#)

orbitatu, orbita(tu), orbitatzen 1 du *ad* orbitan biratu.

1995ean aurkitu zuten lehen aldiz izar baten inguruan **orbitatzen** zuen planeta bat. [Berria - Gaiak](#)

Marteren inguruan egunean hirutan **orbitatzen** du, eta bere orbita espirala da, beraz, azkenean, Marteren azalera deuseztuko da. [Berria - Gaiak](#)

1930ean Pluton aurkitu zutenetik, Eguzkia **orbitatzen** aurkitutako zeruko gorputzik handiena. [Berria - Gaiak](#)

Kometa bat **orbitatzea** izango da Rosettaren egitekoa. [Berria - Gaiak](#)

Cassinik, bestalde, Saturno, eguzki sistemako planetarik ederrenetakoa bide dena, **orbitatzen** jarraituko du, beste lau urtez. [Berria - Gaiak](#)

2 irud/hed

orburu 1 iz konposatuaren familiako baratze landarea, orri moduko zati haragitsuz osaturiko buru trinko jateko onak dituen (*Cynara scolymus*); delako buru hori.

Amak **orburuak** prestatu zituen, ilarrekin, eta barazki-zopa bat, eta zainzuriekin egindako arrautzopila. **Juan Kruz Igerabide**

Atzealdean, beste bederatzira iraulki orgak, beren aza eta ilar metak eramanez, beren **orburu**, uraza, apio eta porru pilak garraiatuz, geldo-geldo haren aldera zihoazela zirudien. **Karlos Zabala**

Gure **orburuak** hostokatzen, orriz orri mahonesan busti eta hortzen artean orriz orri irensten ari ginela. **Joxe Austin Arrieta**

Han abiatzen zen, goizean goiz, pedalka bizian elurretaraino, sosik gabe, **orburu** bat poltsiko batean eta bestea urrazaz beterik. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan)

Orburu zurtoinek, hostoek eta beste hondarrek galtzada arriskutsu bihurtzen zuten. **Karlos Zabala**

Orburu mordo baten loratze mamitsua ageri zen hemen. **Karlos Zabala**

ordain 1 iz zerbaiten truke edo baliokidetzat ematen edo hartzen den zera.

Mahometar herrialdeetan, debekua zenbat eta zorrotzagoa izan, hainbat handiagoa lukurreria; mailegu-emaileak legea haustea dakarkion arriskuaren **ordaina** jasotzen du.

Iñaki Iñurrieta

Epaileari ez obeditzuz gero, honek berari egin irainaren **ordaina** hartzen zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Izan ere, **ordaina** hartzea ukatzen zuenak mendeku hartzeko eskubidea gorde nahi zuen; **ordaina** ematea ukatzen zuenak mendeku-eskubidea uzten zion irainduari.

Iñaki Iñurrieta

Itsu batek ere ikus zezakeen Henrikek errefera eman nahi ziola bere koinatuari, sei urte lehenagokoen **ordaina**. **Aingeru Epaltza**

Bisita onak **ordaina** eskatzen du, eta zurea ona izan da niretzat! **Pako Aristi**

-Ea mesede honen **ordaina** bihurtzen dizugun, jauna. **Karlos Zabala**

Saiatuko zen aurrerago horrelako tratu txararen **ordaina** eskatzen, bai eta eskuratzen ere. **Karlos Zabala**

Nik emango diet merezi duten **ordaina**. **Askoren artean**

Lege-haustearen **ordaina** heriotza da. **Iñaki Mendiguren**

Kartzelan pasatu ditudan zortzi urteak ez al dira nahikoa **ordain** izan? **Bernardo Atxaga**

Kalte edo irainen bat jasotzen zuenak hartu beharreko **ordainari** bidezko prezioa jartzen arduratu ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Zuek, ordea, ez zenidaten jaramonik egin, eta orain haren odola **ordain** eske ari zaigu. **Jose Antonio Mujika**

-Urteak nire soldataz haren poltsikoa gizentzen, eta horra **ordaina**. **Aingeru Epaltza**

Fernandorekin egindako tratuaeren arabera, irabazien erdia jasoko nuela **ordain** gisa. **Bernardo Atxaga**

Huraxe eman zioten **ordain** bezala, nagusi xixtrin batekin lau hilabeteen larrutan aritzearen truke. **Anton Garikano**

-Zein sari edo zein **ordain** eman zitzaion Mardoqueori, egin zuenagatik? **Jose Antonio Mujika**

Egin dudana lanaren **ordaina** nahi diat orain. **Edorta Jimenez**

Zentzu pixka hori da denboraren pasaerak uzten digun **ordain** edo kontsolamendu bakarra. **Joseba Sarrionandia**

2 (izenondoekin)

Ordain eskasa, idatzi gogo nuen erreportaia luze eta txundigarriaren aldean. **Aingeru Epaltza**

Erizainaren gaixoarekiko arretetik oso **ordain** urria ohi dute, eta laguntzaile gizajoa ere etsipenak jota geratu ohi da. **Jon Alonso**

Desertuak, jakina, onartu egiten zituen, baina ez hutsaren truke edota amoroski, baizik eta [...] **ordain** gogor baten aldera: anakoretek aurre egin behar izaten zioten, hala, ordu luzean aspertasunari. **Bernardo Atxaga**

Horratz zuhurtziaren eskua askatu izanak ekarri zidan **ordain** latza! **Karlos Linazasoro**

Arrak kunplitu duenean, emeak **ordain** gaiztoa ematen dio: lepaldean kiribildu eta hozka eginez lepoa moztzen dio. **J.M. Olaiola "Txiliiku"**

Orduan ehiztariak ibiltzen dira sarri eskualde oparo horretan zehar, lephori, zibelina eta batez ere azerien atzetik, haien larruen truke **ordain** ederra jasotzen baitute.

Karlos Zabala

Bi edo hiru bider ohartarazia izan ondoren, bere errua **ordain** egokiaz garbituko ez balu, ken bekio bere aginpide-maila eta ohorea. **Askoren artean**

Bakeak **ordain** politikorik ez duela esatearekin batera, politikak bakea lortzen lagun dezakeela dio. **Berría - Harian**

Truke desberdinaren mekanismoak [...] munduan zehar lanak dituen **ordain** desberdinen ondorioz sortzen diren balio-transferentziak deskribatzen ditu. **Koro Navarro**

3 baliokidea.

Erdal hitzen **ordain** euskaldun guztiak jarri zituen, bata bestearen ondoren. **Koldo Zuazo**

OHO, Oinarrizko Heziketa Orokorra, da gaztelerazko EGBren **ordain** ofiziala. **Joxerra Garzia**

Sailkapen jakin batek ematen digun eredu hartu eta frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez, latinez, italieraz, katalanez... idatzita dauden adibideak euskal **ordainez** aldatu.

Topoi hauen izatea kontuan harturik, guk nahiago dugu "argudio-hobi" ematea "topoi" horren **ordain**. **Iñaki Arranz**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Paperaren **ordain**-balioa jaitsi egin zen. **Juan Garzia**

Portziunkulan alferrikako hitzei jartzen zitzaien **ordain**-zigorra. **Askoren artean**

Jakintzaren kiliak bultzatzen dituen nire anaiak esku-hutsik aurkituko dira **ordain**-egunean. **Askoren artean**

Bi **ordain**-modu horien abantaila kasuan kasuko inguruabarren araberakoa da. **Iñaki Iñurrieta**

Ordain-kondizio bat beharko da, hauxe: zaldun honek, Toboso aldera joango dela agindu behar dit, eta paregabeko Dulzinearengana aurtezko dela. **Patxi Ezkiaga**

Hire zerbitzuen **ordain**-txartela emana nian nik nire onean eta hemen nabilek oraindik aurrera ezinik neroni. **Patxi Ezkiaga**

Horren aldera, gure erregeak zian pareko **ordain**-bahia ezarria, zeina Fortinbrasen ondarrera bihurtu baitzatekeen, hura garaila irten balitz. **Juan Garzia**

Aparkalekuen prezioak eta **ordain**-sistemak. **Lourdes Oñederra**

Elkarrekikotasuna gizarte primitibo askoren ezaugarria da: jarduera ekonomikoak pertsona batek beste pertsona bati egiten dizkion emaitza eta **ordain**-emaitzen kate batean txertatzen direla esan nahi du. **Koro Navarro**

Ordain-ilara uste baino mantsoago joaki, ordea, eta nik, denbora pasa alde edo, sartu dut txokolatina xixtrin bat patrikan. **Joxerra Garzia**

Adiskideren bati mesederen bat egiten dion lagun jatorrak ez du dena delako mesede hori **ordain**-gosez egiten. **Joxerra Garzia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

30 urte arteko gazteentzat, 45 urtetik gorako langabeentzat eta elbarritzat jarri zen martxan kontratu mota hori, kaleratze **ordain** txikiagoekin. **Berría - Ekonomia**

Ordainak: langile guztiak ordutu **ordaina** kobra dezatela, 9,4 euro aurten eta 10,4 2005ean; autoa erabiltzen duten langile guztiak jasotzea kilometroen **ordaina**. **Berría - Ekonomia**

Martineau jaunak proposamen hau egin zidan: diru-**ordain** baten truke, haren etxeko hormetako paper zaharrak kentzen ea lagunduko ote nion. **Jesus Mari Mendizabal**

Lankidetzan dugu jardungo bi-biok, kitapen-**ordaina** emateko zure arimari. **Juan Garzia**

Xegama eta bere morroiak ikusi nituen plazaren buruan, whisky **ordainaren** bila zetozen. **Koldo Izagirre**

Gorrotoa, gorroto **ordain** batek handitzen du, eta, Maitasunak, alderantziz, suntsi dezake. **Piarres Xarriton**

Nik, egia esan, Jaienkoaren errukiari eta graziaeri esker, ez dut gogoan aitzortzen eta hoben- **ordainaren** bidez zuzendu gabeko inolako bekaturik. **Patxi Ezkiaga**
Gogoaren sasi- **ordain** edo suzedaneoa den helburua hilburu bat da izatez. **Iñaki Seguro**

6 ipar ordekoa, ordezkaria; ondorengo.

Dena den, minixtroaren kargu uzte hori berehala onartua izan da eta handik ixtanteko **ordaina** ere hautatua zen: Thierry Breton. **Herria**

Alabaina sortu omen zen anai-arreba hilen ordezkari, ordezeko, **ordain**, bazko-egun bateko mirakulua baina nehoiz izate propiorik ez zuen eduki. **Itxaro Borda**

Bainan bere emaztea eman zuen lehendakari- **ordain** eta bera hil zen urte baten buruan, eta... **Menane Oxandabaratz**

Ordainak: Dardy, Itoiz, Martiarena, Mendiboure, Mugica. **Herria**

8 (-en atzikiaren eskuinean adizlagun edo predikatu balioarekin)

Italiak ere lur puska zenbait irabazi zituen, aliatuei eman laguntzaren sari, eta Belgikako erregeak Alemaniako mugetan bizpalau herrixka beretu, hortik jasan kalteen **ordain**.

Piarres Xarriton

Isiltasuna atsedena da, ez nekearen ondoren eta nekearen **ordain** sortzen den atsedena, baizik eta nekearen aurretikoa. **Felipe Juaristi**

Norbaitek agindu zuen, Mehaine gaztearen heriotzaren **ordain**, alerik ere bizirik ez uzteko. **Aingeru Epaltza**

Lanaren **ordain**, beharrezko duten guztia har dezakete, dirua izan ezik. **Askoren artean**

Zuengatik gaitza bihurtu didate, eta neure maitasunaren **ordain** gorrotoa. **Askoren artean**

Ez izan horrelakoaz gupidarik: bizia biziaren **ordain**, begia begiaren **ordain**, hortza hortzaren **ordain**, eskua eskuaren **ordain**, oina oinaren **ordain**. **Elizen arteko biblia**

Erredura erreduraren **ordain**, zauria zauriaren **ordain**, kolpea kolpearen **ordain**. **Elizen arteko biblia**

Benetako gauzarik ez dagoenean gauza guztiak berdintzen dituen ezerez ideala eta gauza guztien **ordain** izan nahi lukeen ideal ezereza gelditzen da. **Iñaki Seguro**

-Gure bizia zuenaren **ordain**, baldin eta salatzen ez bagaituzu! **Elizen arteko biblia**

-Apezpiku jauna, Jainkoaren **ordain** zira beti eta errespetua zor zaitzu. **Michel Oronoz**

Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzain oso izendatua izan da, zendu berria den Jose Mari Satrustegiren **ordain**. **Herria**

Mayi-ren **ordain** Lallemand anderea etortzen da, buruzagigoa orai artinoko errientsak hartzen duelarik. **Herria**

8 (adizlagun gisa)

Beltzagi hil zen eta Heguy bat etorri **ordain**. **Xipri Arbelbide**

9 ordainetan (294 agerraldi, 92 liburu eta 65 artikulutan) adlag ordain gisa, ordainez.

Esan zion: -uztazu zurekin oheratzen; hark galdetu zion: -zer emango didazu **ordainetan**? **Elizen arteko biblia**

Tori nire mantua **ordainetan**, eta emazkidazu bildotsak. **Askoren artean**

Ez zekien irakurtzen ez idazten; **ordainetan**, sukaldari guztiz abila zen. **Juan Garzia**

Oroitaraz maistraren gorputza bereganatua zuela, **ordainetan** maitasun apur bat ere eman gabe. **Juan Kruz Igerabide**

Larrañagak [...] matxinatuei hartu zizkieten arma bat ere gabe utzi zituela CNTkoak, baina haiek, **ordainetan**, Maria Cristinako xanpaina guztia etxeratu zutela behintzat.

Inazio Mujika Iraola

Ordainetan, zuk niri Tom deitzea nahi dut. **Oskar Arana**

Dirurik ez zuen onartzen **ordainetan**, baizik eta liburu zaharrak, musika-tresnak, biolin eta organoak, Pragakoek ospea baitzuten mundu osoan. **Felipe Juaristi**

10 (-en atzikiaren eskuinean)

Eman dizkizuedan irabazi ugarien **ordainetan**, ordain itzazue nire hiletaren gastuak. Kanpoko ordainketen oreka segurtatzen uzten zaio truke-tasari, trukeen prezioen gaineko ziurgabetasun gero eta handiago baten **ordainetan**. **Anjel Lertxundi**

Estatu Batuetako diru-murriztearen **ordainetan**, Alemania eta Japoniaren aurrekontu-politikaren zorrotasuna etorri zen. **Koro Navarro**

Sos batzuk utzi nituen nire porrotaren **ordainetan**. **Anjel Lertxundi**

Neke horren **ordainetan** jasotzen den sariak merezi du: [...]. **Txema Ramirez de la Piscina**

11 orde.

Nola haritzaren **ordainetan** onbuaren itzala ikusten baitzuen [...] guk ere horrelako zerbait amesten genuen Francoren garaian, herri eskoletan euskara ikustea. **Pello Salaburu**

12 ordainez (187 agerraldi, 51 liburu eta 79 artikulutan) adlag ordain gisa, ordainetan.

-Mesede bat eskatuko diat, **ordainez**. **Koldo Izagirre**

Ahuldu egingo zara, badakizu, baina **ordainez**, arinagoa bihur dezakezu, beharbada, torturaren eraso. **Rafa Eiguren**

Zakurraren nagusiak 800.000 pezeta eman zizkion **ordainez**. **Gotzon Garate**

Euskaldun bat joan zaiku bainan **ordainez** bertze Euskaldun bat jin. **Herria**

13 (-en atzikiaren eskuinean)

Eztiaren kasuan, hamabi errublo jaso dituzu zeure lanaren, zeure nekeen **ordainez**. **Jose Morales**

Egindako gaitzaren **ordainez** gaitza jasoz. **Elizen arteko biblia**

Baina horren **ordainez** saltegi txiki anitz itxiko dira, eta ez dira ohartzten saltegi txiki horiek ere lanbide zerga asko kobratzen dutela. **Berria - Euskal Herria**

Nik gustura emango dizkiot nederlandera eskolak, berak frantsesean eta beste gai batzuetan ematen didan laguntzaren **ordainez**. **Josu Zabaleta**

14 orde.

Haren **ordainez** herriko kontseiluan sartu da. **Herria**

Ordainez deitzen ahalko dira: Azkaingo erretora: 05 59 54 02 04 edo Senperekoa: 05 59 54 19 48. **Herria**

Apeztegia hor zuen **ordainez** baina Unanue eta Peñagarikano nausi. **Herria**

Eta Baionako gela apurraren orde. **ordainez**, etxebizitza txukun bat erosteko hautua egin nuen. **Txillardegia**

15 ordainezko izlag

Badirudi literatur zerura iristek berekin dakarrela **ordainezko** penitentzia. **Juan Garzia**

Komikoak bezain negargarriak dira kaltearen eta **ordainezko** sufrimenduaren arautze zehatzak (hik niri behi bi ebatsi, nik hiri belarri bat ebaki...). **Markos Zapiain**

Maitaturiko gauzaren **ordainezko** maitasunaren ondorioz [...]. **Piarres Xarriton**

16 odolkiak ordainetan ik odolki 4.

17 ordain opari bekatuaren ordainezko oparia.

Oharkabeko erruaren **ordain-oparia**. **Elizen arteko biblia**

Sarrerako atalondoan bina mahai zeuden alde bietan, eta haietan hiltzen ziren erre-oparitarako nahiz barkamen- eta **ordain-oparitarako** abereak. **Elizen arteko biblia**

Ahari akasgabea eramango dio apaizari, ordain-**opariako** balio berekoa. **Elizen arteko biblia**

Ordain-opariengatik eta bekatuen barkamenerako opariengatik jendeak eman ohi zuen dirua ez zen Jaunaren etxerako izaten, apaizentzat baizik. **Elizen arteko biblia**

18 ordain sari ik ordainsari.

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begia begiaren ordain (5); **begiaren ordain** (6); **biziaren ordain** (8); **diru ordain** (4)

guztiaren ordain (3); **hortza hortzaren ordain** (4)

juduak suntsitzearen ordain (3); **kalte ordain** (63); **kalte ordain bat** (3); **kalte ordain gisa** (10); **kalte ordain modura** (4); **kalteen ordain** (3); **lanaren ordain** (3)

oina oinaren ordain (3); onaren ordain gaitza (4)
ordain agiria (3); ordain bat eman (3); ordain baten truke (4); ordain bila (4); ordain dirua (3)
ordain ederra (4); ordain gaitza (5); ordain gaitza ematen (3); ordain gisa (30)
ordain izan (3); ordain latza (3); ordain modura (5)
ordain opari (3); ordain oparia (7); ordain opariak (3); ordain opariko (4); ordain oparirako (3); ordain oparitzat (9); ordain politikoa (3); ordain politikorik (18); ordain politikotzat interpreta (3); ordain sari (5); ordain saria (9); ordain saririk (3)
suntsitzearen ordain (3)
zerbitzuen ordain (4)
badu bere ordaina (4); bekatuaren ordaina (3); bere jokaeraren ordaina (4); bere ordaina (17); beren ordaina (9)
dakarren ordaina (3); dolarreko kalte ordaina (4); dolarreko ordaina (3)
eginaren ordaina (4); egintzen ordaina (3); eguneko kalte ordaina (8); emango dizu ordaina (3); euroko kalte ordaina (44); euskarazko ordaina (3)
har ezak ordaina (3); hitzaren ordaina (3); hoben ordaina (3)
jokabideak merezitako ordaina (3); jokaeraren ordaina (4)
kalte ordaina (187); kalte ordaina eman (14); kalte ordaina emango (4); kalte ordaina ematea (3); kalte ordaina emateko (6); kalte ordaina eskatu (10); kalte ordaina eskatuko (4); kalte ordaina ezarri (3); kalte ordaina jaso (11); kalte ordaina jasoko (6); kalte ordaina jasotzeko (11); kalte ordaina ordaindu (8); kalte ordaina ordaintzera (3); kaltearen ordaina (4); kalteen ordaina (3)
lanaren ordaina (14)
maitasunaren ordaina (3); merezi duten ordaina (4); merezitako ordaina (6); merezitako ordaina emango (3)
neure zuzentasunaren ordaina (4)
ordaina bete (3)
ordaina eman (39); ordaina eman dit (5); ordaina emanez (3); ordaina emango (23); ordaina emango diet (5); ordaina ematea (11); ordaina emateko (31); ordaina ematen (11); ordaina ematera (5); ordaina eskatu (15); ordaina eskatu dio (4); ordaina eskatuko (6); ordaina eskatuko du (3); ordaina eskatzeko (4); ordaina eskatzen (11); ordaina eskatzen du (3); ordaina ezarri (4)
ordaina hartu (8); ordaina hartzea (3); ordaina hartzeko (7); ordaina hartzen (4); ordaina hitzartu (3)
ordaina irabazteko (3); ordaina irabazteko asmoz (3); ordaina izan (9); ordaina izango (3)
ordaina jaso (26); ordaina jaso zuten (4); ordaina jasoko (10); ordaina jasoko dute (3); ordaina jasotzea (4); ordaina jasotzeko (17); ordaina jasotzeko eskaera (3); ordaina jasotzeko eskubidea (5); ordaina jasotzen (5)
ordaina merezi (4)
ordaina nahi (3)
ordaina ordaindu (8); ordaina ordaintzera (3); ordaina pagatu (3); ordaina zor (5); ordaina zor nizan (4)
zuzentasunaren ordaina eman (4)
agindutako kalte ordainak (3); biktimen kalte ordainak (4); diru ordainak (3)
emandako kalte ordainak (3); euroko kalte ordainak (7)
kalte ordainak (281); kalte ordainak agindu (3); kalte ordainak eman (9); kalte ordainak emango (9); kalte ordainak ematea (8); kalte ordainak emateko (24); kalte ordainak ematen (3); kalte ordainak eskatu (12); kalte ordainak eskatuko (7); kalte ordainak eskatzeko (5); kalte ordainak eskatzen (3); kalte ordainak jaso (22); kalte ordainak jasoko (9); kalte ordainak jasotzea (4); kalte ordainak jasotzeko (19); kalte ordainak jasotzen (3); kalte ordainak ordaindu (8); kalte ordainak ordaintzeko (10); kalte ordainak pagatu (4); kalte ordainak pagatzeko (3)
kalte ordainarekin (4)
kalte ordainaren (7); ordainaren bidez (3)
kalte ordainei (7)
ordainekoa eman (17); ordainekoa eman zieten (4); ordainekoa emateko (10); ordainekoa emateko aukera (3)
kalte ordainen (34); kalte ordainen truke (6); ordainen inguruan (3)
bekatuen ordainetan (3); egitearen ordainetan (3); kalte ordainetan (9); kalteen ordainetan (3); lanaren ordainetan (5); odolkiak ordainetan (21); odolkiak ordainetan eman (3); odolkiak ordainetan izaten (3)
ordainetan eman (6); ordainetan ematen (4); ordainetan izaten (4); ordainetan izaten dira (4)
kalte ordainez (6)
kalte ordainik (31); kalte ordainik gabe (8)

ordainagiri *(orobat ordain-agiri g.er.)* iz ordainketa bat egin dela adierazten duen agiria. ik **tiket 2**.

Martin Baionako notario baten etxera joan zen, agindu-txartelak zuzenak ziren galdetu zion, eta baietz esan zionean, hantxe utzi zituen gordailuan, **ordainagiri** baten truke.

Koro Navarro

Pliushkini **ordainagiria** bertantxe eginarazi, eta dirua eman zion. **Jose Morales**

Amonak Kremlin-Bicêtreko Delécluze kaleko 20. orubeko etxean ordaintzen zuen alokairuaren fakturen **ordainagiriak**. **Joxan Elozegi**

-Ez -erantzun nion, alokairuaren **ordainagiria** eman bitartean. **Fernando Rey**

Turinen barrena atzera eta aurrera ibiltzen zen bizikletaz, mandatari eta **ordain** -agiri biltzaile. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ordainagiria eman (3)

ordainarazi, ordainaraz, ordainarazten *(orobat ordainduarazi g.er.)* 1 du ad ordaintzera behartu. ik **pagarazi**. (diru eta kidekoetan)

Zunni doktoreak, beraren abokatuak, ipso facto auzibideratuko zituen kalte eta galerengatik, eta ehun mila nacional **ordainaraziko** zien. **Juan Garzia**

Gero, dena jokatu eta ezer gabe geratu ninduan, eta gainera sei errublo **ordainarazi** zizkidatean hango gizatxar haiek. **Jose Morales**

Agentziak, kolpearen neurriaren arabera, seguruak ordaintzen ez duen konponketaren zatia **ordainaraztera** eta garajejan dauden furgonetak garbitzera zigortzen ditu gidariak. **Patxi Zubizarreta**

Zaita orduan hurrengo eskalearengana hurreratu zen, eta banan-banan, beren zerga **ordainarazi** zien. **Patxi Zubizarreta**

Milioika euroko errepide zergak **ordainarazi** dizkigute gure senide eta lagun euskal preso politikoak bisitatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Txartel-zulatazileak diferentzia **ordainarazi** zion. **Joseba Urteaga**

Enpresak lizentziak **ordainarazi** nahi zituelako. **Berria - Gaiak**

2 (bestela)

Gogor **ordainarazi** baitizkio Jaunak bere bekatuak. **Elizen arteko biblia**

Hori egin dianari larrutik **ordainarazi** behar zioat; zin egiten diat. **Juan Kruz Igerabide**

Behar bezala **ordainaraziko** zienat iraina. **Juan Kruz Igerabide**

Gu hemen honela ahantzirik eduki izana, seme, garesti **ordainaraz** izeaiok. **Juan Garzia**

Profanazio hori geure biaziz **ordainaraziko** digu Jainkoak. **Elizen arteko biblia**

Zuen ondasun guztiak eta gehiago emango bazenizkidate ere, nire eskuak ez lituzkek geldituko ezkongai guztiari lotsagabekeria heriotzaz **ordainarazi** arte. **Juan Kruz Igerabide**

Heriotza eta kalte hauen erantzule direnei euren makurkeriak **ordainaraztera** deliberatuta gaude. **Berria - Mundua**

Nire umore txarra **ordainarazten** ari nintzaion. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

garesti ordainarazi (3)

ordainarazpen iz ordainaraztea.

Judutarrak, beren **ordainarazpeni** esker aberasturik, tirania berdinez gabetzen zituzten printzeek, eta horrek kontsolatu egiten zuen herria, egoera hobetzen ez bazion ere.

Iñaki Iñurrieta

Ribaforadako Udalak, 1997ko urtarrilaren 20an egin osoko bilkura arruntean, ondotik ematen diren **ordainarazpenak** onetsi zituen erregelamenduzko quoruma zuela.

Aingeru Epaltza

ordainbide iz ordaintzeko bidea.

Zenbat eta pobreago sujetak, hainbat ugariago familiak; zenbat eta zergaz zamatua, hainbat eta errazago **ordainbidea**: bi sofisma horiek beti hondatu dituzte eta beti hondatuko dituzte monarkiak. **Iñaki Iñurrieta**

Beste nonbaitetik edukiko zuen noski **ordainbidea**. **Matías Múgica**

ordaindu, ordain(du), ordaintzen 1 du *ad* erosi, hartu edo zor denari dagokion saria eman. ikpagatu. (diru eta kidekoetan)

- **Ordaindu** al dizu? **Irene Aldasoro**

-Zenbat **ordaintzen** diate gu pozoitzeagatik? **Koldo Izagirre**

Kontatu zion nola lagun batek afaria **ordaindu** zion Baratterenean egun zoragarri batez. **Karlos Zabala**

-Ez didazu **ordaindu** edaria, jauna... -esan zuen ostatuko emakume zaharrak. **Jose Morales**

Bahitura-etxeari **ordaintzeko** epea amaitzen zaien egunean. **Jose Morales**

Ongi baitzekien oraindik ez zidatela soldata **ordaindu**. **Joxan Elozegi**

Gavardek ostrak **ordaindu** zituen. **Karlos Zabala**

Gauero zigarroak ekartzen zizkidaan, eta tranbia ere berak **ordaindu**, joan eta etorri. **Irene Aldasoro**

Nire fiantza **ordaindu** ez balu, non egonen nintzateke ni orain? **Fernando Rey**

Uko egin zion zergak **ordaintzeari**. **Jose Morales**

Zoritxarrez, ez dut dirurik nire erreskatea **ordaintzeko**. **Bernardo Atxaga**

Klase partikularrak nahi dituenak aparte **ordain** ditzala, eta kito. **Patxi Iturritegi**

Ordaindu gabeko fakturak. **Monika Etxebarria**

Noiz **ordaindu** behar dizkidazu bostehun dolarrak? **Iñaki Zabaleta**

Jimmyk bere azken dolarraz **ordaindu** zion. **Lopez de Arana**

Bostehun pezeta **ordaindu** eta libre gelditzen da. **Gotzon Garate**

-Ehun mila errublo **ordaindu** dituzu nekazari horiengatik, eta niri hogeita bost bakarrik eman dizkidazu harturiko nekeen ordainetan. **Jose Morales**

Gehienetan, txanpon batzuk **ordaintzea** zen zigorra. **Xabier Etxabe**

Azken txanpona **ordaindu** arte kitatu du bere zorra. **Askoren artean**

Merkatariak kokoen balioa **ordaindu** zidan. **Patxi Zubizarreta**

Herri suntsitzaileak aldi batez greziarren pribilegioak gal zituzala; isun bat **ordain** zezala hiria berreraiki arte. **Iñaki Iñurrieta**

Ordain dezaketena besterik ez dute hartzen mailegutuan, eta ez dute erosten saldu ahal dutena adina baizik. **Iñaki Iñurrieta**

Eskalerik ez dagoela halako isuna **ordain** dezakeenik. **Joxerra Garzia**

Kaltea **ordaindu** egin behar da horrelakoetan. **Irene Aldasoro**

Fardelen truke **ordaindu** beharreko kopurua izan da borrokaren zergatia. **Jon Arretxe**

Emakumeak liburua **ordaintzekoa** amaitu zuenean, [...]. **Oskar Arana**

2 (bestela)

-Oraintxe ari gara anaiari egin geniona **ordaintzen**, hura estu eta larri erreguka ari zitzaigunean ez baikenien jaramonik egin. **Jose Antonio Mujika**

Hutsa enea izan da, kortesiaren arauen ez betetzeagatik, eta nihaurk **ordaindu** beharko dut neure hutsa. **Joan Mari Irigoien**

Gorputzak, errurik ez duen arren, **ordaindu** behar izaten dituen izpirituaeren miseria txikiak dira. **Jon Alonso**

Inoren sentimenduekin jokatzan duenak **ordaindu** egin behar du. **Antton Olano**

Horrela **ordaindu** behar al didazu? **Antton Olano**

Arrakastaz erasokorra den zibilizazio batek **ordaindu** behar duen gizarte-prezioa zera da: atzerriko biktimen kultura sartzen zaiola bere bizi-lasterrean. **Iñaki Mendiguren**

Baina harro sentitu naiz galdera egin izana, eta egiarekin baizik ezin izan dut **ordaindu** halako ohorea. **Koldo Izagirre**

Zigor nazala gogor Jaunak, baldin eta Adoniasek esan duen hori bere biziaz **ordaintzen** ez badu! **Elizen arteko biblia**

Euren utzikeria **ordaindu** behar ote dugu, ba, guk orain? **Koldo Zuazo**

Ez al dezakezue **ordaindu** beharreko odol-zerga arindu? **Jon Alonso**

Egiten zaien konfiantza **ordaintzeagatik**, beren eginbidea baino gehiago egiten ohi dute. **Marzel Etxehandi**

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Onorioa izan zen nahikoa ongi **ordaintzen** ziola. **Jon Alonso**

"Prezio zuzen" haren bertsiio gaurkotua baizik ez da prezio egonkor eta ondo **ordaindu** hori. **Koro Navarro**

Lasterketa hura ez zen, ez, nik dakidala, hain gaizki **ordainduak** dauden futbolarien aldekoa. **Pello Salaburu**

Emakumeak lanposturik kaskarrenetara, gaizkien **ordainduetara**, aginterik ez dutenetara zokoratu dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Disidentzia eta ausardia oso garesti **ordaintzen** da. **Luis Elberdin**

Hori kontsumitzaileen bizkar lortzen da, nazio barnean garestiago **ordaindu** behar izaten baita nazioarteko merkatuetan merkeago eros daitekeena. **Koro Navarro**

Nik beti garaiz **ordaindu** dut neure alokairu-zatia. **Lopez de Arana**

Txitxikovek eskuzabal **ordaindu** zion jostunari eta, bakarrik geratu zenean, beste zereginik ez zuela, bere irudia ispiluan aztertzen hasi zen. **Jose Morales**

Arau hori Valmontengana ez bete izana larritik **ordaindu** beharko du. **Jon Muñoz**

Baina zaudete lasai, zeren larritik **ordaindu** beharko baituzue! **Joan Mari Irigoien**

Sadek garesti **ordaindu** zuen bere ausardia. **Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio**

Hori bai, diru-paperean **ordaindu** behar didazu. **Jose Morales**

Kanbio-letrak txanpon berrian **ordaindu** behar direnez, badirudi kanbioa txanpon berriaren gainean doitu beharko litzatekeela. **Iñaki Iñurrieta**

Gauzak argi-argi utzi, eta kreditu-txartelaz **ordaindu**. Karlos Zabala

Italiako autopistetan ezin zen edozein lekutan kreditu-txartelarekin **ordaindu** Norarekin azken aldiz egon nintzanean. Mikel Hernandez Abaitua

Hiru epetan **ordaindu** behar izan nuen. Jon Muñoz

Hilero-hilero **ordaindu** behar dute, interes handiekin, luxuzko auto bat erosi izan balute bezala. Berria - Euskal Herria

4 ordaina eman; ordaintetan eman.

Handik lekutzeko gero eta gogo handiagoa nuen, baina molde berean **ordaindu** nion. Aingeru Epaltza

Begira nola **ordaintzen** diguten orain: zeuk jabetzan eman zenigun lurraldetik gu botatzera datoz. Elizen arteko biblia

Hemezortzigarren mendeko Mendebaldeko gizakiak, haren aurre-aurrekoek Erdi Aroko kontzeptuei zieten leialtasuna erlijio-gerren agoniarekin **ordaindu** zutelarik, ezin zezakeen Bossueten tesia superstizio barregarri eta zaharkitu gisa baztertu. Iñaki Mendiguren

Behar nuen sofrikarioa sofrikarioaz **ordaindu**? Piarres Aintziart

Bidezko da atsekabeteen zaituztenei Jainkoak atsekabez **ordaintzea**. Elizen arteko biblia

Buruilaren 18an, saratarrek **ordaindu** dute Ataundarren agerraldia, han gaindi ibiliz. Herria

5 ipar ordeztu, ordezkatu.

Capellan ezin ariz, Goñi II ak **ordaindu** du. Herria

Lehen multkoko bi partida horiek Uztaritzen jokatu dira, Recalde Sorhondo **ordaintzen** zuelarik. Herria

Jean Mixel Semerenak **ordaindu** behar ukan du Ximun Lambert gripatua. Herria

Idiart falta bakarrik, Bonetbeltx bere herritarrak arras poliki **ordaindu** duena. Herria

Sortzaileak joan dira; bi emazte gaztek **ordaintzen** dituzte lehenbiziko bi gizonak. Herria

Napoleonen gerlen ondotik, lehengo erresumaren lege zaharra berriz indarrean sartu zelararik, Lapurdiko bazter hondatueta ez ziren aitzineko desmasiak berehala **ordaindu**. Piarres Xarriton

Maitasunak eta Bihotz zabaltasunak behar dutela Herra garaitu, eta ez beste Herra mota batez hura **ordaindu**. Piarres Xarriton

Ahurti eta Bastidako portuak eraikitzen ditu, Aturri ibaiari buruz bide baten ukaiteko eta galdu zituen Atlantikako alderdian -Gipuzkoa, 1200ean, eta Bizkaia, 1224an- Kastillako erregeak hartuak, **ordaintzeko**. Michel Oronoz

Xistera handia asmatuko zuen beraz, beso zaurituaren indar eskasaren **ordaintzeko**. Ramuntxo Etxeberri

6 (era burutua izenongo gisa)

Igandeak jaiegun **ordaindua** izan behar zuela edo oporretan ere soldata ordaindu behar zutela. Berria - Euskal Herria

Inork ez zuen "opor" hitza esaten, aberatsen hitza baitzen hori, "aisialdi **ordaindua**" baizik. Jon Muñoz

Caballitoko zuzendaritzak «opor **ordainduak** izatea» egotzi die behin baino gehiagotan grebalariei. Berria - Harian

Kontrazepzio metodoak hobetu izana eta emakumeak etxetik kanpo lan **ordaindua** izatea dira nekazaritza garaiaren ondorengo gizarteko iraultza sozial, kultural ekonomiko eta sexual handiena. Luis Elberdin

Ez zen hartatik herabetu faktura aurkeztean: larru **ordainduaren** alorrean ibiltzen diren prezioetatik goiti, arras goiti gero, pagatu nuen telefono zenbakia. Aingeru Epaltza

Psikologoa eta puta: biak dira bota-behar baten hartzaile **ordainduak**. Iñaki Segurola

7 ordaintzeke adlag ordaindu gabe.

Ordaintzeke dauden epeak kita litezke eta artean ere zerbait geratuko litzateke; hori bai, ordea, urri samartua. Juan Garzia

Baina are gehiago sumintzen zuen hilabete bakar bateko alokairua ere **ordaintzeke** utzi ezin izanak. Patxi Zubizarreta

Lagun Arok jarriko ditu **ordaintzeke** zeuden bermeen gordailuko 1,7 milioi euroak. Berria - Kirola

Enpresak ez zien ezer eskaini nahi eta, besteak beste, kitatzeak, uztailleko soldatak eta atzerapenak **ordaintzeke** zituzten. Berria - Euskal Herria

8 ezin ordainduzko ik ordainezin.

Proiektua legez kanpokoa zela onartu zuen Auzitegi Nazionalak, baina **ezin ordainduzko** bermea ezarri zuen obrak gelditzeko. Edurne Elizondo

Izan ere, gertatu ohi da, sari txiki batengatik **ezin ordainduzko** altxorra galtzea. Berria - Kirola

Utzi iezadazue, eseri aurretik, perla **ezin ordainduzko** eta ahantzezin honekin amai dezadan. Oskar Arana

Sartzeko baimena izan balute ere, sarbide haren prezioa **ezin ordainduzkoa** zen haientzat. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

afaria ordaindu (5); alokairua ordaindu (7); asko ordaindu (5)

bermea ordaindu (51); bermeak ordaindu (6); bermerik ordaindu gabe (5); bidaia ordaindu (6); bidesaria ordaindu (6)

dirua ordaindu (11); dirutan ordaindu (9); dirutza ordaindu (8); diruz ordaindu (5); dolar ordaindu (50); dolar ordaindu ziren (5)

etari ordaindu (5); etete klausula ordaindu (9); euro bat ordaindu (6); euro gehiago ordaindu (11); euro inguru ordaindu (10); euro ordaindu (173); euro ordaindu dizkio (12); euroko bermea ordaindu (35); euroko isuna ordaindu (20); eurotik gora ordaindu (5); ezer ordaindu gabe (5)

garesti ordaindu (66); garesti ordaindu zuen (24); garestiako ordaindu (10); garestiegi ordaindu (5); gastuak ordaindu (12); gehiago ordaindu (57); gobernuari ordaindu (5); gutxiago ordaindu (19)

hilero ordaindu (5)

ikasketak ordaindu (5); iraultza zerga ordaindu (22); isuna ordaindu (46); isunak ordaindu (8)

kalte ordaina ordaindu (8); kalte ordainak ordaindu (8); kalteak ordaindu (6); klausula ordaindu (12); kontua ordaindu (14); kuota ordaindu (7)

larrutik ordaindu (50); larrutik ordaindu zuen (12)

milioi dolar ordaindu (13); milioi euro ordaindu (43); milioi ordaindu (5); milioi pezeta ordaindu (7)

ordaina ordaindu (8); ordainak ordaindu (8)

ordaindu beharra (41); ordaindu beharreko (112); ordaindu beharreko diru (9); ordaindu beharreko prezioa (17); ordaindu beharrekoa (13)

ordaindu ezean (6); ordaindu izana (10)

oso garesti ordaindu (7)

pezeta ordaindu (19); poltsikotik ordaindu (7); prezioa ordaindu (10)

sarrera ordaindu (12); soldata ordaindu (9)

txartela ordaindu (9); txartelarekin ordaindu (5)

udalak ordaindu (5)

zentimo ordaindu (6); zerga ordaindu (42); zerga ordaindu ziotela (5); zergak ordaindu (37); zergarik ordaindu (14); zorra ordaindu (9); zorrak ordaindu (7)

ongi ordaindua (5)

ordainduak izan (6)

biziaz ordainduko (6); dirutan ordainduko (5); dolar ordainduko (13)

erdia ordainduko (7); euro ordainduko (46); euro ordainduko dizkio (16); garesti ordainduko (8); gehiago ordainduko (12); gutxiago ordainduko (7)

larrutik ordainduko (28); larrutik ordainduko zuela (5); milioi dolar ordainduko (8); milioi euro ordainduko (30)

ongi ordainduko (5)

bermea ordainduta (76); euro ordainduta (22); euroko bermea ordainduta (38); ordainduta utzi (5)

ordaindutako dirua (6)

bermea ordainduz (5); euro ordainduz (6); sakelatik ordainduz (5)

ezin ordainduzko (6)

bermea ordaintzea (5); dirutan ordaintzea (6); euro ordaintzea (7); ordaintzea erabaki (8); zerga ordaintzea (5); zergak ordaintzea (6)

ordaintzearen truke (5)

ordaintzeari uko egin (6)

abalen bidez ordaintzeko (13); **alokairua ordaintzeko** (7); **bermea ordaintzeko** (5); **bermeak ordaintzeko** (8); **bidaiak ordaintzeko** (7); **etxea ordaintzeko** (7); **etxebizitza ordaintzeko** (5); **euro ordaintzeko** (11); **gastuak ordaintzeko** (21); **gehiago ordaintzeko** (11); **gehiago ordaintzeko prest** (6); **gutxiago ordaintzeko** (6); **gutzia ordaintzeko** (6); **ikasketak ordaintzeko** (6); **isunak ordaintzeko** (5); **kalte ordainak ordaintzeko** (10); **kalteak ordaintzeko** (9); **langileei ordaintzeko** (8); **ordainak ordaintzeko** (10)

ordaintzeko adina (7); **ordaintzeko agindu** (5); **ordaintzeko aukera** (24); **ordaintzeko aukera eman** (7); **ordaintzeko dirua** (26); **ordaintzeko dirurik ez** (8); **ordaintzeko epea** (5); **ordaintzeko erabili** (7); **ordaintzeko erabiliko** (8); **ordaintzeko erabiltzen** (10); **ordaintzeko eskatu** (16); **ordaintzeko eskatzen** (5); **ordaintzeko modua** (11); **ordaintzeko orduan** (5); **ordaintzeko prest** (48); **ordaintzeko prest dago** (5); **ordaintzeko zigorra** (5)

prezioa ordaintzeko (8); **soldata ordaintzeko** (6); **soldata ordaintzeko** (20); **zerbitzuak ordaintzeko** (8); **zerga ordaintzeko** (7); **zergak ordaintzeko** (9); **zorra ordaintzeko** (10); **zorrak ordaintzeko** (6)

larrutik ordaintzekotan (6); **ordaintzekotan egon** (5)

alokairua ordaintzen (5); **diruz ordaintzen** (5); **dolar ordaintzen** (6); **euro ordaintzen** (28); **euro ordaintzen dute** (5); **garesti ordaintzen** (24); **gehiago ordaintzen** (22); **gutxiago ordaintzen** (14); **horretarako ordaintzen** (16); **ikasleek ordaintzen** (5); **isuna ordaintzen** (9); **klausula ordaintzen** (5); **langileei ordaintzen** (5); **larrutik ordaintzen** (9); **ondo ordaintzen** (7); **ongi ordaintzen** (11)

ordaintzen hasi (6); **ordaintzen laguntzeko** (5); **ordaintzen utzi** (8)

zerga ordaintzen (8); **zergak ordaintzen** (26); **zergarik ordaintzen** (8); **zorra ordaintzen** (5)

euro ordaintzera (21); **euro ordaintzera kondenatu** (7); **euro ordaintzera zigortu** (6); **isuna ordaintzera** (6); **ordaintzera behartu** (6); **ordaintzera behartuta** (6); **ordaintzera kondenatu** (11); **ordaintzera kondenatu du** (7); **ordaintzera zigortu** (16)

ordainduarazi ik **ordainarazi**.

ordainezin *(orobat ordain ezin g.er.) 1 izond ezin ordainduzkoa.*

Badirudi, Zizeronek dakarren apaizburuen liburuen pasarte baten arabera, erromatarren artean bazirela delitu **ordainezinak**. Iñaki Iñurrieta

Zorionez, nekazariak eta udatiarrak elkar hartuak zeuden beti, zertan eta, tenperatura jasangaizten laguntza **ordainezinaz**, berde izpi bat agertzen zuen lursail oro erregai bilakutzen. Aingeru Epaltza

Inozentzia existiitzen zela eta adiskidetasuna zer **ordainezin** bat zela pentsatzeagatik. Karlos Linazasoro

David Stampe-ekiko eta Patricia Donegan-ekiko nire zorra ere **ordain ezina** da. Lourdes Oñederra

ordainezintasun *iz ordainezina denaren nolakotasuna.*

Lukurreria handitu egiten da **ordainezintasun**-arriskuaren proportzioan. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

delitu ordainezinak (3)

ordaingailu *iz zerbait ordaintzeko balio duen gauza.*

Berak ere txanpon bera ekarri zuen **ordaingailutzat**. Felipe Juaristi

ordaingaitz *izond ordaitzen zaila, ia ezin ordainduzkoa.*

Ukaezina eta **ordaingaitza** da euskararen aggiornamenduan azken urteotan irakasleria egiten ari den ahalegin gaitza, hezkuntza terminologia finkatetik hasita. Iñigo

Aranbarri

ordaingarri *izond ordain daitekeena, ordaintzeko modukoa.*

Kaltegilea jatorriz zorduna da: aurreneko giza jarduera trukea eta salerosketa izan baitzen, gizakiak bere burua balio-emaile, tasatzaile eta tratularizat zuen harro,

ordaingarri bilakutzen zuen gutzia. Markos Zapiain

ordaingo *iz ordaintza.*

Jakitun zaude, andrea, ezen zorigaitzoko gertakari horrekin **ordaingoa** finitua dela, eta zeure deliberoak halatan libro har ditzakezula. Jon Muñoz

ordainkari *iz ipar ordezkaria.*

Duela hamabortz bat urte, zuzendari nintzelarik kolegio batean **ordainkari** erakasle bat ikusi nuen. Herria

Ordainkari bat behar nuen bi asterentzat. Herria

ordainkatu, ordainka, ordainkatzen du *ad ipar trukatu, aldatu, ordezkatu.*

Biltzar anaikor hortan ikusi dire zer plazerrekin berriketari ezagunek solas alaiak **ordainkatzen** zituzten beren irakurleekin. Herria

ordainkatze *iz ordezkatzea.*

Hegoaldean xapelgoak aitzina doatzi, Ligaxkako partidekin, eskuko min eta **ordainkatze** batzu goiti beheiti. Herria

ordainketa 1 *iz ordaintzea.*

Ordainketa, berriz, hainbestekoa izango omen zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bitartean nik ostatuko andrearengana jo nuen **ordainketa** egitera, gaiak ardura ez balit bezala. Bernardo Atxaga

Eraikina lehen solairuraino iritsi da, eta kontratistari **ordainketa** bat egin beharra dauka. Xabier Olarra

Ordainketaz ez duzu kezkatu behar, hor daude maiuren ondasunak, zure eskuez har dezazun nahi duzun gutzia. Jon Alonso

Ordainketaren agiria sinatu eta zutitu egin nintzen. Edorta Jimenez

-Estimatzekoa da zure jarrera, baina mundu material honetan, zorritzarrez, bihotzeko eskerrak ez dira nahikoak bizitzeko - **ordainketarena** gogorarazi zion diplomaziaz.

Migel Angel Mintegi

Arreta guztia **ordainketaren** katamiletan jarria, ez nintzen prezioaren izugarrikeriaz jabetu. **Aingeru Epaltza**

Askotan mesedeon **ordainketarako** erabiliak izan baitira errefuxiatuak. **Pako Aristi**

2 (ekonomian)

Lan-indarraren **ordainketa** da munduko espazio ekonomikoaren beste faktore desberdintasun-eragile egiturazko bat. **Koro Navarro**

Kapitaletik interesetan ordaindutakoa kenduko zela, eta beste guztia hiru **ordainketa** berdinetan kitatuko zela. **Iñaki Iñurrieta**

Beranduko ohartze horrek [...] denak batera bultzatu zituen garapen-bideko herrialdeentzako kredituak bat-batean moztera, eta era horretan hain beldurgarri gertatzen zitzairen **ordainketen** etetea eragin zuten. **Koro Navarro**

Auzitegiek ez dute zorraren **ordainketa** eten. **Berria - Ekonomia**

Kasu batean, kanpoko **ordainketen** oreka segurtatzen uzten zaio truke-tasari, trukeen prezioen gaineko ziurgabetasun gero eta handiago baten ordainetan. **Koro Navarro**

Hasieran **ordainketarako** tresna ziren truke-letrak, kreditu-tresna bihurtu ziren berehala. **Koro Navarro**

Diruen bihurtarritasunaren hastapenak, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) estatutuek ezarriak, ohiko eragiketen **ordainketak** baino ez zituen hartzen kontuan. **Koro Navarro**

Ordainketak Berdintzeko Nazioarteko Bankuak (munduko banku zentralen banku zentralak, alegia) eginiko kalkuluen arabera, [...]. **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehen, usadioz, **ordainketa** korronteen balantza orekatu behar izaten zen, eta orain berriz, kanpoko eta barruko zorraren atxikigarritasunari eutsi behar zitzaion. **Koro Navarro**

Gero **ordainketa** -liburuak ekarrarazi nitian, eta ikusi nian naziak hiru hilabete baino ez zeramala gurean. **Juan Garzia**

Banku horrek ordaindu gabe utzitako eragiketa baten ondorioz, **ordainketa** -sistemari buruzko mesfidantza izugarria zabaldu zen, merkatuak higatu zituen, eta eragile asko arriskuan jarri zituen. **Koro Navarro**

Lan profesionalari dagokionez, merkatuko maila duina erreferentziatzat duen **ordainketa** -politika. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Urtetan inbertsio txikiena egin gabe, zaharkituta eta deskapitalizatuta zegoen erabat enpresa, eta **ordainketa** -etena agindu zuen halako batean, kiebrak jota. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Horren guztiaren emaitza: 132.000 milioi dolarretako **ordainketa** etena, munduaren historiako handiena, izugarriko krisi ekonomikoa, instituzionala eta soziala. **Iñaki Heras**

Estrategia ofizialak, nolahi ere, astia ematen zien bankuei **ordainketa** -hutsegiteen arriskua gutxiagotzeko eta beren balantzak onbidertzeko. **Koro Navarro**

Enplegu eta **ordainketa** -balantzak oso kaskarrak izaten baitira. **Koro Navarro**

Ikusi zen diruaren manipulazioa oso bide praktikoa zela zorrak murrizteko eta **ordainketa** -bitartekoen urritasuna arintzeko. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi hilabete behin gizon bati egiten diogun diru- **ordainketaren** eta gure enpresak erasorik ez jasatearen artean harremanik bazegoela jakin zuenean. **Iban Zaldúa**

Ezin izan zuen 50 milioiko bono **ordainketa** itzuli. **Berria - Ekonomia**

Telefono **ordainketaren** agiriarekin heltzen zen zenbaki zerrendan. **Patxi Zubizarreta**

Beraren kontu- **ordainketa** doilor horrengatik, osaba Marchin-ek osaba deitua izateko eskubidea galdu zuen. **Juan Garzia**

Estatutu horri esker, Estatu Batuek abantaila izugarri bat zuten, alegia, kanpo- **ordainketak** beren diruaz finantzatu ahal izatea. **Koro Navarro**

Analisi batzuen arabera, 2010. urtea baino lehenago europar hiritarrek ez dituzte eskuratuko erretiro **ordainketak**, demografia arazoak direla eta. **Pello Salaburu**

Modu ez etikoan lehiatzeko gero eta aukera ugariagoak dituzte, lan egoera malgutzeko presioa eginez [...] edota transferentzia prezioen bidez zerga **ordainketak** saihestuz. **Iñaki Heras**

Gutxieneko soldatak, kaleratze **ordainketak**, kontratu malguak, eta abar. **Iñaki Heras**

4 **ordainketa balantza** (21 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean; orobat **ordainketa balantze 2** agerraldi, 2 liburutan)

Estatu Batuetako interes-tasak igotzen badira, edo tokiko **ordainketa-balantzak** behera egiten badu, hankazgoratuak gerta daitezke kapitalen fluxuak. **Koro Navarro**

Herrialde kideen **ordainketa balantzatan** sor zitezkeen desoreka iragankorrak finantzatzea. **Iñaki Heras**

Ordainketa-balantzaren krisia izanez gero, diruari depreziatzen uzteko aukerak, hain zuzen ere, saihestu egiten du doikuntza osorik ekonomiaren aldagai errealean mende (eskaria, ekoizpena, enplegua) utzi beharra. **Koro Navarro**

Kontu korronteko defizita **ordainketa balantzaren** adierazlea da, eta AEBen kasuan frogatzen du herrialde horrek irabazi eta aurrezten duena baino gehiago kontsumitzen duela. **Berria - Ekonomia**

Diru-eskaintza horren bariazioak **ordainketa-balantzaren** saldoaren bilakaeraren mende geratzen direla huts-hutsik. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diru ordainketa (3); euroko ordainketa (5)

ordainketa bakarra (3); ordainketa bakarrak (3); ordainketa balantzaren (4); ordainketa balantzaren (3); ordainketa balantzen (7); ordainketa balantzatan (3); ordainketa egin (9); ordainketa egiteko (4); ordainketa etendura (6); ordainketa eteteko (3); ordainketa kopurua (3); ordainketa sistema (4)

zergen ordainketa (3); zorraren ordainketa (4)

ordainketak egin (3); ordainketak egiteko (5); ordainketak eten (3)

ordainketaren agiria (3)

kupoaren ordainketatik (3)

egindako ordainketen (4); nazioarteko ordainketen (4); ordainketen agiriak (3)

ordainkizun 1 iz ordaintzekoa, ordaintzeko dagoen gauza.

Ze kontzientziako karga gaiztok darama gizontxo bere larruta edo jotzailtza ardura gisa, eman-behar, bete-behar, iraun-behar, gozarazi-behar eta, esan dezagun behingoz, auskalo noiztik eta nondik datorren **ordainkizun** edo zor baten gisa sentitzera? **Iñaki Segurola**

2 **ordainkizun izan du ad**

Beste berrehun dolar bakarrik zituen **ordainkizun** eta haiek ere hurrengo batean kitatzeko asmoa zuen. **Mirentxu Larrañaga**

ordainleku (80 agerraldi, 2 liburu eta 42 artikulutan) 1 iz ordaintzeko lekua. ik ordaintoki.

Postala ordaintzera sartu zenean neskatila atsegin bat suertatu zitzaion **ordainlekuan**. **Harkaitz Cano**

Pattinen erakuts mahaiaren eta **ordainlekuaren** arteko eremu hertsian, fama eta ohorea salbatzeagatik, adiskideak ez zuen jada eskapatzerik. **Itxaro Borda**

2 (autobideetan)

Partiduz partiduz futboleko mantra gogaikarri bezain eraginkorrari heldu zion autopistetako **ordainlekuak** kudeatzen dituen Ferrovialen filialak. **Berria - Ekonomia**

Auto pilaketak saihesteko, Londresen egin bezala, Bilboko hainbat sarreratan **ordainlekuak** jartzea da Eguzkik proposatzen duen alternatibetako bat. **Berria - Euskal Herria**

8.000 kamioik zeharkatzen dute egunero Bariatuko **ordainlekua**. **Berria - Euskal Herria**

Ordainlekuetan ilara luzeak sortuz gero ez da bidesaririk kobratuko Gipuzkoan. **Berria - Euskal Herria**

ordainsari *(orobat ordain sari g.er.) 1 iz* zerbitzu edo lan batengatik ordaintzen den saria.

Autobide berriak **ordainsaria** izango du. **Berria - Euskal Herria**

Autobideetako **ordainsarien** igoera iragarri dute kudeatzaile guztiek, baina zenbatekoa iragarri gabe. **Berria - Ekonomia**

Durangoko autopistan **ordainsaria** pagatzeko itxaroten zeuden auto batzuk aurrean eraman zituen kamioi aleman batek. **Iñigo Aranbarri**

Euren ustez, **ordainsariak** ez du balio kamioien trafikoa murrizteko. **Berria - Euskal Herria**

Datorren apirilaren 27an, EHUko irakasleen **ordainsariak** aztertze batzarra egingo dute sindikatuek, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak eta EHUko Gobernu Taldeak. **Berria - Euskal Herria**

Soldatak **ordainsaritan** oinarritu beharrean, taula bidez finkatzea eta enpresak nahi duen lanordu malgutasuna ekiditea. **Berria - Ekonomia**

Nahiz eta abadeak eta monjeek dohainik utzi zieten eliza Frantzisko eta anaiei, inolako **ordainsaririk** edo errentarik gabe, hala ere [...]. **Askoren artean**

Tratua isilean egingo da, eta Axenariok inork adoretu gabe egin beharko du lan, **ordainsaririk** espero gabe. **Itziar Otegi**

Ebakuntzaren **ordainsariak** gain, egunero bi zentimo besterik ez diat nahi. **Patxi Zubizarreta**

Langabeei osorik pagatuko diete lehen hileko **ordainsaria**. **Berria - Ekonomia**

Ordainsaria : 25 euro, bidaia eta bazkaria barne. **Herria**

1.000 euroko **ordainsaria** jaso zuen marokoarrak proba irabazteagatik. **Berria - Kirola**

2 (izenondoekin)

ETAren aurkako borrokan Espainiako Gobernuak PPren laguntza izango duela berretsi zuen Raxoik, baldin eta «**ordainsari** politikorik» ordaintzen ez bazaio. **Berria - Euskal Herria**

«Lan jardun amaigabeak, **ordainsari** eskasak eta kontratu prekarioak» izan ohi dituztela azaldu dute. **Berria - Euskal Herria**

Hiru urteko ituna, KPren arabera soldata igoera, 100 orduko malgutasuna eta, hitzarmenaren bukaeran, soldata arruntan moduko **ordainsari** osagarriak. **Berria - Ekonomia**

Bestetik, 25 euroko **ordainsari** gehigarria eskaini zuen, 2004. urterako besterik ez». **Berria - Ekonomia**

3 egintza on baten edo kideko baten ordaintan ematen edo hartzen den saria.

Alferrik duk **ordainsari** handi bat eskaintzea bila ari haizena agertu denean. **Antton Olano**

Ordainsaria tentagarria da oso, bereziki, Osama Bin Laden buruzagia hilik edo bizirik harrapatzeko informazio fidagarria emateagatik eskaintzen den kopurua: 25 milioi dolar. **Berria - Mundua**

Jean-Pierre Raffarin lehen ministroak bi kazetariak aske jartzearen truke ez dutela **ordainsaririk** eman ziurtatu zuen. **Berria - Mundua**

Ordainsari bikaina eskuratzen du. **Mirentxu Larrañaga**

Jende xeheaz errukitzen denak Jaunari ematen dio eta berak itzuliko dio **ordainsaria**. **Elizen arteko biblia**

Leiala bazara, Ghân-buri-Ghân, **ordainsari** ederra jasoko duzu eta betiko izango duzu Markaren adiskidetasuna. **Agustin Otxoa**

Orain hartzen ari diren **ordainsari** erregularra handiagoa eta ziurragoa da noizbehinkako erasoaldietan lortu ohi zuten harrapakina baino. **Iñaki Mendiguren**

1936ko gerrako eta frankismoko biktimentzako «**ordainsari** moral» gisa, hainbat ekitaldi antolatuko ditu Eusko Jaurilaritzak. Bere burua guztien salbamenerako **ordainsaritzat** eman zuena. **Berria - Euskal Herria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta oro har malgutasuna ez litzateke horren txarra -beste aukerarik izan ezean- babes soziala nagusi izango balitz, eta langileen eskubide sozialak eta **ordainsari** maila bermatuta baleude. **Iñaki Heras**

ELA, LAB, EILAS, UGT, CCOO eta CSIF sindikatuek unibertsitateko irakasleen **ordainsari** sistema egokitzeko eskatu diote EHUko gobernu taldeari eta Jaurilaritzari. **Berria - Euskal Herria**

Babcockeko lan taldearen borroka zikintzen du irregulartasunei lotutako **ordainsari** eskaerak. **Berria - Ekonomia**

ordainsaritu, ordainsari(tu), ordainsaritzen du *ad* ordainsaria eman.

Orain hain ankerki menperatu ditugun emakumeak **ordainsaritu** beharrean gaude, nahitaez; eta horrek osatuko du neure buruari egin diodan bigarren galderaren erantzuna.

Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Poliziaren lana goretzi zuen, eta haien zeregina ez dagoela «ongi **ordainsaritua**» gaineratu zuen. **Berria - Kultura**

ordaintoki *(19 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz* ordaintzeko tokia. ik **ordainleku**.

Kontatu zidanez, bat-batean, **ordaintokira** huxtuka zihoala, Pattin eta Remi, euskal hiru koloreetan dekoratu erakuts mahaiaren gibelean, beren etxeko ardien ekoizpenak promozionatzen begimendu zituen. **Itxaro Borda**

2 (autobidetan)

Autobusa **ordaintokitik** igaro zenean, oinaze sakona sentitu zuen erraietan. **Unai Iturriaga**

Irurtzuna bidean, autobideko **ordaintokian**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Telefonisten ordeko lana egiten duten telefono linea digitalak, automatizaturiko **ordaintokiak** autobidetan, langileak ordezkatzeko dituzten makinak, automatizazioa, errobotak, eta abar. **Iñaki Heras**

Irungo **ordaintokia** baino lehentxeago dagoen gasolindegian. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ordaintokiaren ondoko aparkalekua hutsik dago.. **Berria - Harian**

ordaintza 1 iz

ordaina; ordaintzea.

Jainkoak ez dezake ezer egin horien alde, geure laguntzarik gabe, haren zuzentasunak **ordaintza** eskatzen duenez. **Joan Mari Lekuona**

Betiko "emaileari emok" edo **ordaintzaren** herria dutela lege, hor dute ere Palestina muimenduaren aintzindari lehenetarik bat, Abdelaziz al Rantissi, juduek hil nahi ukan dutena baina kolpatu bakarrik ororen buru. **Herria**

Hango justiziak, gehiago bere menez ez badu ere, kondenatu du hamar urteko lan gaztigura (aurkitzen badu), ebatsi diruen **ordaintza** gaztigutzat, herri hartako bankotik ebatsiak dituen 50 milioi euroentzat. **Herria**

Biktitek birgaitze eskubidea dute (duintzea eta aitortzea), **ordaintzarako** eskubidea (kalte ordaina edo laguntza materialak) eta memoria eskubidea (iraganaren berrikuspen kritikoa eta bizikidetasuna berreraikitzeke oroitzen). **Berria - Euskal Herria**

ik ordaintze 4.

Zabaletarentzat, bake prozesuak euskal presoan amnistiarekin eta bortizkeriaren biktima guztien **ordaintzarekin** amaitu behar du. **Berria - Euskal Herria**

Ingurumen kalteengatik edo kalte horiek izateko arriskuagatik **ordaintza** baliabide eraginkorrak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Lehendabizi egingo den **ordaintza**, hala da nire nahia, nire etxekoandreaki, zerbitzatu nauen denbora guztiko saria ematea izango da. **Patxi Ezkiaga**

2 iz ipar ordezkotza.

Alabainan Juppé kondatua izanez gero ideki da **ordaintza**. **Herria**
Laguntza hori, Pantxixek kotisatzen zuen "**Ordaintza**" (service de remplacement) elkartetik ardiets lezake familiak, baina "**Ordaintza**" ez du aski ahalik hilabete zombaitendako ordeko langile bat pagatzeko. **Herria**
97, 98 eta 99 eko urtetan beren **ordaintzetan** eskas emanak zirela uste zuten herriko hautetsiek. **Herria**
Bainan ene proiekturik haundiena behar da izan, hemendik goiti, ene segida, ene **ordaintza**. **Menane Oxandabaratz**

ordaintzaile (orobat ordaintzale) 1 izond/iz ordaintzen duena.

Juduak **ordaintzaile** unibertsalak izan dira. **Ramon Etxezarreta**
Aitak, orduan, Gourevitx kolegioan sartu zuen, han ez baitzen behar sarrerako azterketarik, **ordaintzaile** onak baizik. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Erreginaren ordezkari zegoen han, erran nahi baita, tenpluaren bigarren **ordaintzailearena**. **Aingeru Epaltza**
Industria enpresak dira zerga profesionalaren **ordaintzaileen** %24, baina zergaren %60 ordaintzen dute. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Politika honetan zenbait herrialde, bizitza gerragatik desantolatuta zutenak, altxatu egin ziren berriro Washingongo Kongresuak bozkaturiko diruaz, amerikar zerga- **ordaintzailearen** borondate onaz, haren patrikatik irten behar baitzuen diru guztiak. **Iñaki Mendiguren**
Maitale- **ordaintzaileen** ohetik jaikitzean, hatsanka, soaz hazta zitzakeen ipurdi mazela iletsuak, tripa sail hirukoitzak, koskoila hustuak eta oihan ilunetan aterpetzen ziren zakila jada hertuak irudikatzen zituen. **Itxaro Borda**
Printzipio horien artean garrantzitsuenetakoa **kutsatzaile-ordaintzaile** printzipioa dago: kutsatzen duenak garbitu behar du. **Iñaki Heras**

3 ipar ordezkatzeko duena.

Larrechea zen ari beharra baina espalda hura ez aski zaildua, Beñatek egin du haren lana, **ordaintzale** gutik egundaino egin izan duten bezala. **Herria**
Baina denak arizan dira, Istillarte **ordaintzalea** barne. **Herria**

ordaintzale ik ordaintzaile.

ordaintze 1 iz erosi, hartu edo zor denari dagokion saria ematea. ikpagatze; ordaintzeta.

Oso arriskutsua litzatekeela errukia delitu berriz eta **ordaintze** berriz nekatzea. **Iñaki Iñurieta**
Ordaintze desberdin horri zaio erraiten "erranyak" [=arrandak]. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Sarrera **ordaintze** hutsak, besaulkian eseri eta bere pilotari kutunaren alde egin nahi izate hutsak ez diola tanto bakoitzeko epailearen [...] amarekin akordatzeko eskubiderik ematen pilotazaleari. **Berria - Kirola**

2 ipar ordezkatzeko.

Hemen ere **ordaintze** bat ezinbertzez: Lacroix ari zen Valenciaren orde. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Latino Amerikako, Ekialdeko Europako eta Mediterraneo aldeko herrialdeen **ordaintze** -eteteen historia luzeak garbi erakusten du bai hartzekodunek, bai zordunek, beren harremanetan agertzen duten amnesia txundigarria. **Koro Navarro**
Sektoreko enpresa gehienetan nagusi den prekarietatea murriztea eta baita gazte eta emakumezkoentzako diskriminatzailea den lanbide kualifikazio eta **ordaintze** sistema zuzentzea ere. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik ordaintza.

Egia, justizia eta **ordaintze** lana. **Berria - Euskal Herria**
Ordaintze sistemak biktima bakoitzaren arabera egokitu behar dira, baina. **Berria - Euskal Herria**
Azterketen eta elkarriketen bidez, hori guztia aztertu eta emakumei **ordaintze** prozesu horretan zer interesatzen zaien jakin behar dugu **Berria - Euskal Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestenaz azindren saria laster joanen zela arranda **ordaintze** hortan. **Herria**
1976-an, Raymond Barrezelarik gobernuburu, diru- **ordaintze** batzu ttipitu zituzten... **Herria**

ordaintzeke ik ordaintze 7.

ordari iz 1 ipar ordaina.

Zortzi hilabeteko lan tematsu baten **ordari** eguna izango da biharkoa Antso Handia trajeria edo pastoralaren tauladara igokoa diren 118 mauletarrantzat. **Berria - Kultura**
Zaragozan errezebitzen dū aitzindari berriak, eta **ordariz** ihiztekako zaldi elibat emaiten deitzo Antsok. **Herria**
Soma ederra prefosta, bena ez da opari bat izaten ahal, **ordariz** eta horri esker bi xede bete beharbeitūtūe irratiek: 1- Eūskarazko lanaren iraūpena; 2- Irrati bakoitzaren garapena. **Herria**

2 ipar ordezkaria, ordezkaria.

Badut uste Erregeren eskerra galdua dudala hiru arrazoi hauetarik batengatik edo salatu baitote frantsesa naizela edo Erregeren sekretu zerbait argitaratu dudala edo **Ordariarengana** hurbildu naizela mandaturik gabe. **Piarres Xarriton**
Al Kaedak, berriz, konpromisioa hartzen du 10 kilo urre emateko Bremer edo bere ordezkaria, AEBetako buruzagi militarra edo bere **ordaria** hilen dituen edonori. **Berria - Mundua**
Laster jakinen da halaber Xiberoko 42 kontseilūetako **ordariak** nor haūtatūren dūen beren artean, Xiberoko Zindik izateko beste sei urteren. **Herria**
Ez naiz norberaren kontzientziaren **ordari** bilakatzen ahal; ordea, eder, on eta zuzen izatearen idearen lehentasuna baizik azpimarra diezazuket. **Itxaro Borda**
Dena den, hura kalitzen bazuten, beste bat igorriko zieten, eta herriak **ordariak** bilduko zituen. **Elena Touyarou**
· Lehenik bihotzak (eta pila batekin bazabilan builta hontan), gero anka batek: hartarik operatū zūen dūala urte zombait, ezūr baten **ordari** protesia bat ezariz. **Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen sindik **ordaria** da Ligiko Jean Bidart eta bigarrena Arrokiagako Sylvain Ayphassorho, "Eiherazaina" laborari etkekoa. **Herria**
Ordūan 19 urteak zūtūan, laborantxako mitil zen Maulen, kolonel- **ordari** kargūala heltūko zen, Jean LOUSTAU deitzen da. **Herria**
Herriko auzapeza zen 1995 az geroz, Atarratzeko kantonamentuko SIVOM aren lehendakari **ordaria**, Xiberoko herri alkargoko bulegoan zen ere. **Herria**

orde 1 adlag orde.

Lehen ase zirenek, orain ogi **orde** egin behar lan; gosetuek, aldiz, atsedan har dezakete. **Eiizen arteko biblia**

Ez izuli inori gaitzik gaitz **orde** eta saia zaitetze beti elkarri eta denei ongi egiten. **Elizen arteko biblia**

Ardilaru bat zigortzen zuelako, bere burua zigortu **orde**. **Joan Mari Irigoien**

Ez, adierazi nion, ez naiz ni, alaba nauzu, eta neure izena eman nion berarena entzun **orde**. **Joxan Elozegi**

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Begien **orde** bi xilo ttipi dituzte eta ahoaren **orde** sake baten idurikoa den aho xabal bat, ezpainik gabekoa. **Aurelia Arkotxa**

Josteta horien **orde**, beste zenbait jolas erabili behar direla. **Piarres Xarriton**

Airekoen **orde** posta dute orai baliatzen. **Herria**

Orduan, mahastien **orde**, hasi ziren fruitudun arbola landatzen, sagar, mertxika, aran, udareondo... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Baina boterea alde batetik bederen izatea da, nahiz ez zaien legelariei aski argi ageri eta berdin ez dela egia dirudien eta batzutan boterearen **orde** maiz ahalmena ematen den. **Piarres Xarriton**

Carlos de Viana-ren **orde** da erregin gisa jartzen bere arreba, Leonor, Gaston de Foix-rekin ezkondua.. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Axularrek erran zion deabruari ezen geratuko zela bera, haren **orde**. **Joan Mari Irigoien**

Alauren **orde**, haatik, Irakeko Atzerri ministro Hoshir Zebari etorriko da Bruselara. **Berria - Mundua**

Eta arizan da Begino Errastiren **orde**, eta Apeztegia Zezeagaren **orde**. **Herria**

Filipe ari zen Biscouby-ren **orde**, hunek zangoan kolpadura bat jasanik. **Herria**

3 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

-Zergatik diozu "beste aldean" Espainian errateko **orde**? **Elena Touyarou**

Hitz batez, behar dugu tzarrak izaiteko **orde** onak izan. **Herria**

Bat-batean, guregana jiteko **orde**, ohartu ginen ontzia eskuinera zihola, herri ttipi honek duen bertze portura. **Aurelia Arkotxa**

Biharamunean, bere ilunenean etxera bakarrik joaiteko **orde**, eskolatik landa beraz Xabik beste ikasleak Etxauzera segitu zituen. **Michel Oronoz**

Ezagutu dugu familia bat zeintan aita "to"-ka aritzeko **orde** bere semeeri, "xu"-ka ari baitzen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

4 iz ordezkoa.

Nola baita burua, aldi berean, osotasunaren sinbolo eta **orde**, halako tailuz, non [...]. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artzeko orde (3); **egiteko orde** (4); **egoiteko orde** (3); **gaitzik gaitz orde** (3); **haren orde** (15); **horren orde** (3); **hunuen orde** (3); **izaiteko orde** (3); **joaiteko orde** (3)

orde ari (8); **orde ari zen** (5)

sorhueten orde (3); **urtekoaren orde** (4); **uzteko orde** (3)

ordea 1 *junt* "baina"-ren esanahi bera duen baina perpausaren hasieran ez ezik, barnean edo amaieran ere jar daitekeen juntagailua.

Gero, **ordea**, bururatu zait horrelakoek ere ekar dezaketela etekinen bat. **Anjel Lertxundi**

Erromara heldu bezain laster **ordea**, erromatarren estimua bereganatu zuen. **Piarres Xarriton**

Alferrik da, **ordea**, dialogoa komunikabideen erakuslehoan egin nahi izatea. **Joxerra Garzia**

Ni nago, **ordea**, Auschwitzekin zerikusirik ez duten obretan adina fikzio (edo gehiago) dagoela Auschwitz buruzkoetan. **Juan Garzia**

Zer eginik banuen, **ordea**, eta logelako bidea hartu nuen. **Anjel Lertxundi**

Etorri ziren, **ordea**, artzain batzuk ere eta neskak handik bota nahian hasi ziren. **Jose Antonio Mujika**

Irudikatu bai, **ordea**, irudikatzea libre baita, oraingoz. **Felipe Juaristi**

Aranok, **ordea**, zinez maite ditu arrastotik kanpo dabiltzanak, beharbada bera ere ez delako ohiko bidetik ibilizalea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Batel bat, **ordea**, irauli egin zen. **Juan Kruz Igerabide**

Alderantziz, **ordea**, irakurleari hurbilketa horiek zenbateraino diren ugari azaldu beharra niola irudit zait. **Josu Zabaleta**

Han ibili zen luzaroan itzul-inguruka gure gainean, ezer jaurtiki gabe **ordea**, eta halako batean ospa egin zuen iparralderantz. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zakiat non haizena ezta bakarrik hagoen ere, bai, **ordea**, norekin bukatuko duan gaurko gaua. **Aingeru Epaltza**

Itzuli beharra zegoen, **ordea**. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zuen bere burua engainatu nahi, **ordea**. **Imanol Zurutuza**

Ni pozik, **ordea**, nire txikian. **Arantxa Iturbe**

Mutilak barre egin zuen, hartarako arrazoirik gabe, **ordea**. **Koro Navarro**

Bada, **ordea**, beste alderdi ilun bat, idazleari, baina, agor ezinezko kontagailua ematen diona: legeaz kanpoko gizartea. **Gotzon Garate**

Suposatzen badugu, **ordea**, norbait Gigesen eratzun miragarriaren jabe litzatekeela, jendea ikustezin bihurtu ohi zuena, eroa izango litzateke orduan hori, bere burua legeok obligatua usteko balu. **Joxe Azurmendi**

Balioespen horrek in agian ez gara bat etorriko; **ordea**, besterik gabe paperontzira botatzea ez dugu zilegi. **Koldo Izagirre**

Ordea, ongi pentsatzen baduzu, gu ere ez gara gure lurraren zeruan erortzen. **Aurelia Arkotxa**

2 (ezezko perpausetan)

Ez da, **ordea**, harrotasuna, zintzotasuna baizik (elkar ukatzen badute bi tasun horiek). **Lourdes Oñederra**

Ez du, **ordea**, izenpetu nahi izan. **Anjel Lertxundi**

Ez nago ziur, **ordea**, hori ote den batez ere. **Josu Zabaleta**

-Ez nuke nahi, **ordea**, inoren ahotan... -ingurura begiratu zuen. **Migel Angel Mintegi**

Ez zegoen, **ordea**, nabarmentzeko beldurrik. **Anjel Lertxundi**

Ez zekien **ordea** patuak ere bere baitan agintedunak dituela: gorputzaren gogo eta irrikak, gorputzaren izu eta beldurrak. **Felipe Juaristi**

Marrazkera txukuneko, begirada sukartsuko gizonaren grabatuak ez zuen, **ordea**, aparteko dohain artistikorik. **Anjel Lertxundi**

Lanaz aparteko ilusiorik ere ez nuen, **ordea**, garai hartan. **Juan Luis Zabala**

Ez zien esan, **ordea**, lehoiaren hezur artetik hartua zuela. **Jose Antonio Mujika**

Ez gaitzala, **ordea**, horrek itsu. **Aingeru Epaltza**

Espazio hori hierarkizatua zegoen, ez **ordea** politikoki bateratua. **Koro Navarro**

Infinitu potentziala kontzeptu argia da; ez, **ordea**, akzidentala. **Xabier Kintana**

Ez **ordea** 1978ko udan, Tolosako Triangelu Plaza lehenengoz ikusi nuenean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez, **ordea**, beharko luketen abiadurarekin. **Pello Salaburu**

Haiena ez da mafia: guk gutxienez legeak dauzkagu, errusiarrek ez **ordea**. **Harkaitz Cano**

Hori, **ordea**, ez diet fraideei zor. **Joxerra Garzia**

Haiek **ordea** ez ziren kontuan hartzeko gauzak. **Koro Navarro**

Horrek ez zion asko laguntzen, **ordea**: aurrean ikusten zuena bezain beltza zen, izan ere, gogamenean tomateaz egiten zuen irudia. **Xabier Olarra**

Ez didate entzuten, **ordea**. **Arantxa Iturbe**

Semeak ez zuten etsi, **ordea**. Jokin Muñoz
Deus garbirik ez, **ordea**. Anjel Lertxundi
Zabarkeriarik gabe, **ordea**: testuen izaera gordetzen saiatu gara beti ere. Jose Antonio Mujika
Banekiela bere aita brigadista izan zela; haren lan artistikoen berririk ez nuela, **ordea**. Bernardo Atxaga

3 (galdera eta harridura perpausetan)

Non da neska hori, **ordea**? Bernardo Atxaga
Non sartu da, **ordea**? Mirentxu Larrañaga
Nork ateratzen zuen, **ordea**, hidalgia titulua? Patziku Perurena
Nor zegoen **ordea** pornografiaren atzean? Xabier Mendiguren Elizegi
Zer da, **ordea**, liburu bat errepikapen-, eragin- eta zabalkunde-efekturik gabe? Anjel Lertxundi
-Zer duk, **ordea**, Joxemai? Txillardegi
Bekatua Jaunaren aurka egiten badu, **ordea**, nor izan dezake aldeko? Elizen arteko biblia
Nola zen, **ordea**? Joxerra Garzia
Zer egin genezakeen Gasteiztik **ordea**? Xabier Mendiguren Elizegi
Zertara dator kontua, **ordea**? Javi Cillero
Zergatik **ordea**? Xabier Mendiguren Elizegi
-Zertarako, **ordea**? Anjel Lertxundi
Zerk lotu ote du, **ordea**, saguzahar hori hortzarekin? Patziku Perurena
"Baina nola da posible **ordea**?", egiten dut nik neure artean, arrunt gogoetatua eta arranguratua. Iñaki Segurola
Aita, **ordea**, enperadorea duk! Karlos Zabala
Hik zer dakik, **ordea**, zenbat egun pasatu diren! Karlos Linazasoro
Ez dago **ordea**, Petrus! Oskar Arana
-Okerragoa zuan, **ordea**, bidaian ez jarraitzea! Karlos Zabala
Garai onean jakin behar, **ordea**! Txillardegi
Pierre Menard-en [...] don Kixotea halako sofisteria lainotsuetan berriro erortzea, **ordea**! Juan Garzia
Ez **ordea** Euskal Herrian! Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

alferrik **ordea** (23); bai **ordea** (113); baina ez **ordea** (9)
ez da **ordea** (23); ez du **ordea** (9); ez **ordea** (219); ez zen **ordea** (24); ez zuen **ordea** (19); gabe **ordea** (24); gero **ordea** (11); hark **ordea** (9)
ni **ordea** (13); nik **ordea** (23)
orain **ordea** (21); **ordea ez da** (12)

ordegabe *izond* ordezkorik gabea.

Osaba Joanikoten ausentzia **ordegabea** nuen, alde batetik, eta, bertetik, amarekin eta jauregiarekin gutziz hautsi beharreko sentimentu hura, bertze lur baterat jaiotzeko grina eta nahikunde pizten zidana. Joan Mari Irigoien

ordeinu *iz* ordena.

Urrezko domina lortzeko faborito nagusiaren joko fisikoak ezin izan zion Italiako taldearen **ordeinu** eta lan serioari aurre egin. Berria - Kirola
Bukaera arte lehen 45 minutuetako **ordeinuari** eustea baino ez zen gelditzen. Berria - Kirola

ordeka 1 *iz* eremu laua. ik ordoki.

Bide, **ordeka**, muino eta kaskoetan. Pello Zabala
Ordekara iritsi zirenean, obusek eragindako bi zulo handi aurkitu zituzten begien aurrean. Jon Maia
Ordutan eta ordutan kotxeak aurrera jarraitzen zuen **ordeka** hartan, non lertsun saldoak baizik ez baitzen ikusten zeruan, non artasoroak arpilatuak baitziren. Xabier Olarra
Errepidea **ordeka** idor batean bukatzen zen, Hotel Jamai-ren adreiluzko eraikin handiaren aurrean. Bernardo Atxaga
Muino bat igan eta itsasoa ageri zaizue: infinituraino hedatzen den **ordeka** zuria. Xabier Montoia
Latzaz zen benetan uzta osoa bilduta zegoen **ordeka** hustua. Xabier Olarra
Arratsaldean, **ordea**, bidea zuzen baino zuzenagoa bilakatu zen, eta paisajeak mendien erliebe gorabeheratsuak galdu, eta basamortuaren **ordeka** monotonoa eskuratu zuen. Patxi Zubizarreta
Contadorrek bizpahiru lagunengana babesa eduki zuen **ordekan** eta Aitor Osarena azken igoeran. Berria - Kirola
Herasek, ez baitu **ordekako** erlojupekoetan ondo ibiltzeko dohainik. Berria - Kirola
Babel izenaren pean bere aintzarako eraikitzen hasitako dorre bat izan zuen Sinarreko **Ordekan**. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Bukaerako **ordeka** zatian Perezek bazekien oilarrek ezingo zutela ehiza antolatua. Berria - Kirola
-Egun batean, 24 orduan, egun normal batean bai, lur azal eta itsas **ordeka** horietan, zenbatsu ekaitz sortzen direla iruditzen zaizue? Pello Zabala
Lehen bi garaipenak sasi-**ordekako** etapetan eskuratu bazituen, atzokoan [...] Neilako zingiretako gainean kokaturiko helmugan lortu zuen. Berria - Kirola

3 *izond* laua, berdina. ik ordoki 5.

Leku **ordekan** edo zingiratsuan eraiki beharra gertatzen bada, asentuak eta lurpeko egiturak sendo egin beharko dira. Santiago Iruretagoiena
Lur **ordeka** horietan euren elikadura laboratzen dute hildakoek, sendikoek hilobietan utzitako janariaren osagarri gisa edo senideek hilobietan zer janik jartzen ez badiote, haren ordeko. J.M. Olaizola "Txiliku"
Iparraldeko artasoro zabal **ordeka** haietan. Pello Zabala
Ordeka den tokietan batik bat, zeren malkar eta mailo, aldapa eta pendizak dituenak, hobe du artzaintzari toki ematea. Pello Zabala
Ibaiaz bestaldetik zihoan bidea, **ordeka** zen arrunt. Txillardegi
Haztamuka baina bide galtzerik gabe ibili omen zitzaion bular mardulen bolumena edo sabel **ordekaren** erliebea arakutzen, arrotz zaizkigun gorputzekin egiten dugun bezala. Joxean Agirre

4 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarteak izenondo balioa duela)

Bazen, era berean, benta hartan, Asturias aldeko neska motz bat: aurpegi-zabala, lepondo **ordeka**, sudur-motza, begi bat oker eta bestea ez oso xuxen. Patxi Ezkiaga

4 *goi ordeka*

Goi-ordeka txiki batean kotxeak gelditu eta gatibuak kanpora atera zituzten.

Berria - Kultura

Parkean sartu ahala, alde guztietarantz zabaldu zen ikuspegia, eta baztergabe bihurtu hango **goi-ordeka**.

Xabier Olarra

-Ismaelek **goi ordeka** du jaioterri.

Jose txo Azkona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

goi ordeka (3); **ordeka zabal** (3)

ordekan ondo moldatzen (4)

ordekatsu *izond* ordeka.

Oholde ikusgarria, hiria hondatua eta inguruko baratze zabal **ordekatsua** dena lokatzez gainezka eginda utzi zuen.

Pello Zabala

ordekatxo *iz* eremu txikiko gunela.

Aspalditxo hartan txondorrik ezagutu gabeko **ordekatxo** batean egin zuten zuloa.

Joxemari Urteaga

Eskailearen luzera osoan, jateko usainak nahasten ziren eguerdian eta ilunabarretan, hangoak eta handik harakoak, eta laugarren pisura hurbiltzean, hirugarren pisuko

ordekatxoan jada, gure etxeko bazkariaren usaina har nezakeen.

Jon Maia

ordekazale *izond/iz* txirindulariez mintzatuz, bide ordeka zalea dena. ikordokizale.

Taldea orekatua omen da, Guerreroren ahotan: "Futbolearen bezala, denetarik dugu: **ordekazaleak**, igotzaileak, esprinterren bat ere bai, itzuli txikietan eskarmentua dutenak".

Berria - Kirola

Ordekazale petoa, erlojupekoetan maisu, 1996 urtean eman zizkigun lehen zertzeladak, 22 urte eskas zituela, Tourreko bigarren erlojupekoan.

Berria - Kirola

ordeko 1 *iz* beste norbaiten ordeza dagoen edo ari den pertsona. ikordezko 3; ordezkari.

Erregeak edo haren **ordeko** jauntxoaren batek aginduko zuen nor, non eta nola urkatu.

Patziku Perurena

Bin Laden eta bere **ordeko** Al Zauahirik erasoak egiteko «agintzen» jarraitzen dutela adierazi zuen AEBetako Armadako Eric Olson jeneralak.

Berria - Mundua

Egoera kezagarria da», esan zuen atzo erakundeko zuzendariaren **ordekoak**, Jean-Luc Angotek.

Berria - Gaiak

-Aski dugu haien **ordekoekin** hitz egitea! -egin zuen oihu Onorinok barrez.

Josu Zabaleta

Gernikako 1931ko haren ostean Madrilgo Gobernuak alkatetza kendu zion, eta **ordeko** bat jarri.

Edorta Jimenez

Horregatik, Aita santu, apaltasun eta debozioz eskatzen dizut, Ostiako jauna eman diezaguzula zeure **ordekotzat**.

Askoren artean

2 (hitz elkartuetan)

Haur tipia eritegira eraman eta berandu gabe guraso **ordekoek** hartu zuten.

Gotzon Garate

German Kortabarria Idazkari nagusi **ordekoa**.

Berria - Ekonomia

3 beste zerbaiten ordeza dagoen edo ari den gauza.

Biriken eta giltzurrunen **ordeko** mekanikoak.

Irene Aldasoro

Ondasuntzat neuzkan arropen **ordeko** egokiak non erosi bilatu behar nuen, denak zahar eta zarpaildurik baitzeuden.

Edorta Jimenez

Eguna gauari darraion bezala, erriarrak alemanei jarraiki zihozten, tai gabe, beldurrik gabe, gupidarik gabe, berez bezala, gorrotoa eta bekaitza eta amorrua benetako

bihotzaren **ordeko** zutela.

Felipe Juaristi

Lehendabiziko argazki modua erretatuak, paisaiak egiteko erabili zen segituan; hasieran margolaritzaren lagungarri izan zen, eta gero haren **ordeko**, irudikapenatarako.

Josu Zabaleta

Kontuak kontu, dela musika berez maite nuelako, dela izan ez nuen maitasunaren **ordekotzat** hartzen nuelako, musika-entzule fin eta nekegabea bihurtu nintzen.

Xabier

Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ikordezko.

Begi-**ordekorik** gabe ikusteko moduko animaliak nahi nituen nik, banan-banan ezagutu eta izena ere jar zekiekena.

Juan Garzia

Errepidean, hantxe geratu zen, tiranoaren hagin-**ordekoarekin** eta kepisarekin batera, Chevrolet Bel Air autoa, 52 bala-zulok apaindurik.

Edorta Jimenez

Doinu jostalarari bat ari zen ahapeka kantari, eta ezkerreko atzamarrak zituen danborra bihurtutako oholaren kontrako makilatxo **ordekoak**.

Josu Landa

Igande berezietan, Kearney andrea eta familia katedral-**ordekora** joaten zirenean, jende-taldetxo bat biltzen zen meza ondoren Cathedral Street izkinan.

Irene Aldasoro

Gero, jauzi-**ordeko** batean gorputz osoaren zama beso luzatua tanpez eskegita, ezkerreko besoa goratu zuen tolesturik galtzarbean edukia zuen uzta gaineraino, ukondoa

bertan tinkatuz.

Koldo Izagirre

4 baliokidea, ordaina.

Pentsatu nuen, Bartzelonako Filosofia Fakultatean ikasitakoaren bidetik, "mitoa" izan zitekeela "rural" delakoaren **ordekoa**.

Bernardo Atxaga

Ur-jauzi, *turrusta*, *zurrua*, *pista*, *jauzkeiri* agertu zaio gaztelerazko *cascada* edo frantsesezko *cascade* hitzaren **ordeko** hiztegi guztietan.

Iñigo Aranbarri

Eta ezagutzen ez zituen hitz guztien gainean bere **ordekoa** ipintzen harrapatu zuen amak.

Iñigo Aranbarri

Proteina guztiak ez dira berdinak; jaten dugun ardiaren edo txerriaren proteinak ez dira bere horretan giza proteinaren **ordeko**.

Irene Aldasoro

5 ordekoak egin

Gerora, uda partean hilabete pare batez uzten nuenean, **ordekoak** egin behar zituenak ezin baitzuen bete asteburuko ofizio hori, oporrak tarteko.

Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

idazkari nagusi ordekoa (3)

ordekotza *iz* ordezkotza, ordeza aritzea.

Teila **ordekotza** auskalo zenbat herrialdeetako txabola eta etxeetan bete duen; itsasontzi xume eta kanoak egiteko aparta; itsasoan edo urpean eduki behar diren upel, ontzi,

baso eta beste egiteko ere, primerakoa.

Pello Zabala

orden ikordena.

ordena *(orobat orden g.er. eta ordenu g.er.)* 1 *iz* edozein era edo motatako arau baten arabera antolamendua;

antolamendu horren ondorioz egoera.

Ordena, berriz, gauza berdinak eta ezberdinak dagokien lekuan ezartzen dituen antolamendua da. [Imanol Unzurrunzaga](#)
Ideien **ordena** eta lotura, eta gauzen **ordena** eta lotura, berberak dira. [Piarres Xarriton](#)
Gorputzaren usaina, izerdi-usaina, galarazia dago, kirats bat da, kaos tiki bat, kosmetikaren kosmosak, **ordenak** eta antolamenduak menderatu beharrekoa. [Iñaki Seguro](#)
Desordena hori, haatik, errepikaturik, **ordena** litzateke: [...]. [Juan Garzia](#)
Bartzelonak **ordena** ezarri nahi zion partidari. [Berria - Kirola](#)
Tradizioan **ordena** jarriz. [Berria - Kultura](#)
Mesedez, jar diezaiogun **ordena** apur bat orgia honi, sukarraldian eta gehiegierian ere beharrezkoa izaten baita. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Anabasaren ideiatik aldentzea eta **ordena** pixka bat ezartzea. [Iñaki Arranz](#)
[Eboluzioaren teoriak] **ordena** bat ezartzen du organismoen aniztasun eta desberdintasun harrigarrian. [Juan Garzia](#)
Eta **ordenak ordena** dakar. [Berria - Kultura](#)
Irmaren zeregina zenbait urtez, haren zientzia artxibategiaren zaintzea eta **ordenan** ipintzea izan zen. [Pablo Sastre](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Munduan **ordena** naturalak agintzen du. [Xabier Kintana](#)
Naturaren **ordena** komun hori bateratzea. [Piarres Xarriton](#)
Nik ez dut Naturan ikusten [...] aipatu ohi diren "harmonia" eta "**ordena**" miresgarririk. [Txillardeg](#)
Sexu bat bestearengana gerturatzen duen guraria, izadiaren **ordena** fisikoari dagokio. [Andres Urrutia](#)
Nik erantzungo nioke sorkarien **ordena** gorenetik beherenera hain zehazki mailakatuta dagoela non [...]. [Imanol Unzurrunzaga](#)
Ordena moral objektibo bat, berezko bat, badago, beraz, unibertsoan (**ordena** kosmiko objektibo bat, zientziak deskubritzen duena, dagoen bezala). [Joxe Azurmendi](#)
Unibertso osoan miresten den **ordena** zoragarria. [Imanol Unzurrunzaga](#)
Arrazoimena ez dela gai jainkozko **ordena** globala ulertzeko. [Imanol Unzurrunzaga](#)
Gauzen berezko **ordena** da, jende zenbait [...] gauzen berezko **ordenaren** aurka oldartzen tematzen den arren. [Jon Alonso](#)
Gu munduan nagusi izatea -gu, mendebaldetarrok, gizonok, kristauok, zuriok- gauzen **ordena** berezkoa dela. [Jon Alonso](#)
-Eskumakoekin inteligentzian, dio lehengo puntuak, **ordenako** gizonen alde egin dut, begirune osoz. [Edorta Jimenez](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eliza Santuan ere bada **ordena** -batasun bat, gorputz mistikoa izena justifikatzen duena. [Joan Mari Lekuona](#)
Nigan erreprimitzen zuen bere baitan eraman ezin zezakeena: berotasuna, **ordena** eza, ezaxola, sentsualitatea. [Joxan Eloegi](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bizi-**ordena** bat da jakituria. [Piarres Xarriton](#)
Hurrenkera kronologikoan jarritako gizarte-moten segidak aldi berean behetik gorako balore-**ordena** adierazten duela. [Iñaki Mendiguren](#)
Ondorengotza-**ordena**, monarkietan, Estatuaren onean oinarritzen da. [Iñaki Iñurrieta](#)
Ondorengotza-**ordena** zuzenbide politikoaren edo zibilaren mende dagoela, eta ez zuzenbide naturalaren printzipioen mende. [Iñaki Iñurrieta](#)
Lege-**ordena** desberdinak daude, eta giza arrazoiaren bikaintasuna honetan datza. [Iñaki Iñurrieta](#)
Argudioen antolakuntza **ordena** egoki baten arabera. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

5 gizarte edo gizarte jakin bat antolatzeko eta aritzeko ohiko era aratua.

Jainkoak munduan ezarri **ordenan**, bizia bere eskuz atera behar duena ez da inoiz lotsatu bere umeak boteretsua zerbitzatzera igorri beharraz. [Aingeru Epaltza](#)
Hegemoniazko lekua izateak, hasteko, kostu militarra eta politikoa ekarri ohi du, alegia, indarrean dagoen **ordenaren** defentsaren eta **ordena** horri eutsi beharrenduaren kostua. baino lehen hasi zen gizon hori lurralde haietan legea eta **ordena** behar ziren bezala ezartzen. [Koro Navarro](#)
Gure gizarte historikoak [...] zapalketa gogorretan oinarritzen dira eta [...] itzelezko presio eta indarrak eragiten dituzte, injustiziak eta errebeldiak, **ordenak** desordena dakarrela eta desordenak **ordena** berria. [Joseba Sarrionandia](#)
Lehen Mundu Gerrak ekarri zuen nazioarteko **ordena** horren hondamena. [Koro Navarro](#)
Matxinada denean, herriak buruzagi ugari; gizon burutsu eta adituarekin **ordena** nagusi. [Elizen arteko biblia](#)

6 (izenondoekin)

Arkitektura, Vitruviok ordenatuta uzten duen eran, *sub specie aeternitatis* pasatuko zen **ordena** erromatarren, *pax augusta*-ren, parte izatera. [Santiago Iruetagoiena](#)
Giro eta **ordena** berri horretan, burgesia nagusi. [Andres Urrutia](#)
Irakiaren kontrako gerla mehatxua nazioarteko "**ordena**" berri horren adibide gisa har daiteke. [Herria](#)
Gizartearen **ordena** justua da politikaren egiteko nagusia. [Berria - Gaiak](#)
Gizartearen iraupen eta **ordena** egokiak familien egonkortasunean dutela oinarri. [Andres Urrutia](#)
Heriotza-zigorra egokia eta beharrezkoa al da gizartearen segurtasunerako eta **ordena** onerako? [Juan Martin Elexpuru](#)
Emakumearen papera **ordena** tradizionalean. [Joseba Zulaika](#)
Portalsek **ordena** zibil berriaren oinarriak ezartzen ditu kontratuatan. [Andres Urrutia](#)
1960ko hamarraldiaren hasiera arte, nazioarteko **ordena** ekonomikoa oso hierarkizatua zegoen. [Koro Navarro](#)
Harreman librean gain eraikitako **ordena** soziala ezarri zuen mugimendu komunalak. [Askoren artean](#)
Manifestazioak «**ordena** konstituzionala eta bake publikoa asaldatzeko helburua» zuela. [Berria - Euskal Herria](#)
Indarrean dagoen **ordena** moral, politiko, sozial, ekonomikoa, teknologikoa, kultural, sinbolikoa eta ideologikoa iraultzen duen komunikazio mota bat. [Txema Ramirez de la Piscina](#)
Munduko **ordena** gizatiarrago bat sustatuz globalizazio prozesuak antolatuko litzuzkeen planetako "New Deal" bat eraikitzeko asmoz. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)
Ordena publikoko araudiak lege zibilak ez bezalakoak direla. [Iñaki Iñurrieta](#)
Ordena Publikoko Auzitegiaren eskuetan utzi zuen auzia. [Rafa Egiguren](#)

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbaitek gizarte-**ordena** bat bultzatzeko dakarte hizpidera desberdintasun biologikoa. [Juan Garzia](#)
Mundu **ordena** justuago eta demokratikoagoa aldarrikatu du Lulak. [Berria - Mundua](#)
Nazioarteko diru- eta energia-**ordena** berrian nabarmendu zen gutxitze hori. [Koro Navarro](#)

8 hurrenkera.

Erregelen **ordena** funtsezkoa da. [Itziar Laka](#)
Dokumentuen **ordena** liburuan. [Askoren artean](#)
Esaldien **ordena** logikoa eta argitasuna zaindu. [Askoren artean](#)
Letren **ordena** aldatu gabe. [Juan Martin Elexpuru](#)
Ideien **ordena** errespetatu. [Askoren artean](#)
Gaiak **ordena** alfabetikoan antolatua daude. [Askoren artean](#)
Beste argitalpenetan, **ordena** kronologikoan sailkatzen saiatzen dira. [Askoren artean](#)
Ordena alda daiteke, baina ez edukia. [Berria - Harian](#)

Gaien **ordenak** garaien aldarazi dit. **Iñaki Iñurrieta**
Aurrena, kantuak entzuteko modu izengabea dago, ofiziala edo markatu gabea, jakineko **ordena** batean, hots, diskoak dakarren **ordena** berean jotzen dituen. **Iñaki Seguro**
Gauzak txukun egitera, beraz, gertakarien **ordena** logikoari jarraitu beharko zioan Ripodasek. **Aingeru Epaltza**
Hona haien jaiotza **ordena** : [...]. **Josu Zabaleta**
Hitz **ordena** iraultzeak dakartzen ondorioak. **Iñaki Arranz**
Haien irteera **ordena** ere zehaztuta dago: Getaria-Kaiku, Zumaia-Bateratze, Pasai Donibane Koxtape-Isuntza eta Orio-Ondarroa. **Berria - Kirola**
Ahaleginduko gara gai **ordena** aldatzen eta negozioz kolektiboaren gaia lehendabizi eztabaidatzen. **Berria - Euskal Herria**

9 maila.

Berehala aztertuko dugu ea zergatik, kategoria jakin batean, lehen **ordenako** faktoreak indartsuagoak diren edo ez, beste **ordenako** faktoreak baino. **Isabel Arrigain**
Logika elementalera edo, beste modu batean deituz, lehen **ordenako** logikara. **Askoren artean**
Teoria etikoak lehen **ordenako** galderari erantzuten dien bitartean, metaetikak bigarren **ordenakoei** erantzuten die. **Askoren artean**
Sorkarien **ordena** gorenetik beheenera hain zehazki mailakatuta dagoela non [...]. **Imanol Unzurrunzaga**
Ez dugu aldatuko kategorien goragoko **ordena**, beren taulan aurkeztua dagoen **ordena**. **Ibon Uribarri**
2. koadroan azaltzen dira ohiko zenbait gauzaren luminantzien magnitude-**ordenak**. **Josu Zabaleta**
"Ordenei" (*ordines*) dagokienez, izena erromatar gorputz politikoan zeuden politikoki pribilegiaturiko klaseetatik hartu zuten, "Senatari Ordena"tik, adibidez. **Iñaki Mendiguren**

10 apaizgora iristeko bidean, mailatako bakoitza.

Ordena zenbait hartzeko on ziren zazpi apezgai bazituen gutienez. **Xipri Arbelbide**
Ordena bat izan behar zuten gure zazpi gazteak, denak gibelarazi ditu apezpikuak. **Xipri Arbelbide**
Pedro Loboren semeak, apaiz izateko asmotan **ordena** -mailak eta koroia hartu berriak ditu. **Patxi Ezkiaga**
Lizentziaduna bainaiz eta Elizaren lehen **ordenak** hartua. **Patxi Ezkiaga**
Lehen **ordenak**: apaiz izateko lehen urratsak. **Patxi Ezkiaga**

11 elizaren zazpi sakramentuetako seigarrena, horretarako prestatuak apaiz bihurtzeko egitekoa duena.

Eliza kristauan badela **ordena** sakratuen sakramentu bat edo apaizgoa, sakrifizio eginkizunak eta naturazgandiko ahalmenak berekin dituen. **Xabier Olarra**
Jesu Kristo gure Jaunaren ondotik, Jondoni Petirenganik hasten da apezgoaren **ordena**. **Piarres Xarriton**
Diosesako apezek katedralera ehunka betetzen zutelarik, gutarik 25-ek **Ordena** saildua ukan ginuen goiz hartan. **Herria**
43 urtetan apez-**ordena** eskatzen du eta ukaiten Viviers hiriko apezpikuaren eskutik. **Herria**

12 boto nagusiak egin ondoren erlijiozko bizitza daramaten pertsonen elkartea. **iklagundi; anaidi.**

Askok, aita-amak eta ondasunak utzita, anaiei jarraitzen zieten, **Ordena** santuko abitua hartuz. **Askoren artean**
Elkartea, "Anaia txikien **Ordena**" deitua. **Askoren artean**
Predikariaren **Ordenako** anaia baten eskariz. **Askoren artean**
Jesusen Lagundiko **ordena** hain aipatua eta aberatsa sortu zuten hamahiru lagunetarik batek. **Piarres Xarriton**
Berak fundatu zuen Ama Maria Mesedeetakoen **Ordena**. **Pello Zabala**
Gazte bat, handiki etxekoa eta oso fina, San Frantziskoren **Ordenan** sartu zen. **Askoren artean**
Ordenako saildu fundatzaileari. **Aingeru Epaltza**
San Frantziskok, **Ordena** fundatzeari ekin zionean, pobretasun gorenaren jarraitzaile ziren hamabi lagun hautatu zituen. **Askoren artean**
Beste **Ordena** bat sortu zuten, Penitentzigileen **Ordena** deritzana eta Aita santuak onetsi zuena. **Askoren artean**
Metz hirian ere etxea hartu zuen eta **Ordena** landatu zuen Lotaringian. **Askoren artean**

13 (izenondoekin)

Garrantzi handikoa da idazki hau **Ordena** mendikanteek klero sekularrarekin pobretasunaren inguruan izan zituzten tirabirak ulertzeko. **Askoren artean**
Deigarria da bereziki **Ordena** monastikoei egiten zaien begiratu kritikoa. **Askoren artean**
Ikusten zuen [...] **Ordena** erlijiosoek Apostoluen oinatzekiko sentiberatasuna galdua zutela. **Askoren artean**
Hasierako *fraternitas* edo anaite xumea **Ordena** handi bilakatzen ari zen. **Askoren artean**

14 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordena -fundatzaileen artean, ez da sortu Frantzisko baino bikainagorik. **Askoren artean**

15 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Monje **ordena** bat. **Xabier Olarra**
Frantzia mailan, 19. mendean, 397 serora **ordena** berri sortu ziren, baina 51 gizon **ordena** bakarrik, 8 aldiz gutiago! **Xipri Arbelbide**
Kontenplazio **ordenetarako** dohainak nituen, banekien orduan. **Joxan Elozegi**
Sortu zuen herri-administrazioa ez zen anaidi profesional hutsa, baizik eta erlijio-**ordena** baten baliokide sekularra. **Iñaki Mendiguren**
Baina alde handia zegoen hasierako fraternitas xumearen eta eliz **ordena** instituzionalean gero eta integratuagoa zegoen Ordenaren artean. **Askoren artean**

16 hed

Zer zen beraz Malteko **Ordena** hori? **Herria**
Ordena Orangistak protestanteak auzo katolikoetatik igarotzeko eskubidea aldarrikatzen zuten. **Berria - Harian**
Legion d'honneur **ordenako** zaldun egingo dute. **Itziar Otegi**
Harry Potter eta Fenixaren **Ordena**. **Berria - Kultura**
Haien segurantzarako sortu zen zaldun ibiltarien **Ordena**: neska gazteak zaintzeko, alargunak babesteko, eta umezurtzei eta behartsuei laguntza emateko. **Patxi Ezkiaga**
Himmlerrek SSen agintea hartu zuenean, zaldun **ordena** berri bat sortzeko ametsa izan zuen. **Alberto Ladron Arana**
Ordena honetakoa nautze ni, ahuntzain anaio; eskerrik asko bai, niri eta nire ezkutariari eman diguzuen sarrera on eta oparoagatik. **Patxi Ezkiaga**
Ezin zitekeela, uste baitzuen, borroka-arriskueta lege onez sartu Zalduneria-**Ordena** hartu gabe. **Patxi Ezkiaga**
Kantinplora Zaplatuaren **Ordenako** domina emango diogula jakiteak sendia poztu eta semeaz harro egoten lagunduko dizuen itzaropena daukagu. **Harkaitz Cano**

17 (arkitekturari) zutabeak eta entablamentuak osatzen duten multzoa.

Ateen estiloak edo **ordenak** hiru dira: doriarra, joniarra eta atikoa. **Santiago Iruretagoiena**
Ordena doriarrean trigrifloen eta metopen arteko arrazoa asmatu zen bezala, **ordena** joniarrean ere dentikuluen kokaerak bere proportzio propioa du, eta **ordena** doriarrean modiloiek astazaldien proiektzioak irudikatzen dituzten bezala, **ordena** joniarrean gapiroen proiektzioa irudikatu nahi dute dentikuluek. **Santiago Iruretagoiena**
Ordena doriar eta korintoarrari buruzko arauak eman behar ditut. **Santiago Iruretagoiena**
Lehen **ordenetara** edo molde gotiko edo erromanikoetara itzuli beharrean badiagu eredu berriak garatzea. **Lopez de Arana**
Erdipurdiko **Ordena** dorikoa arkitektura greziarreko hiru **ordena** klasikoetan zaharrena eta soilena da. **Xabier Olarra**
Eta hala, **ordena** bakoitzaren proportzioak eta erlazioak utzi dizkigute finkatuta, haien jatorrizko printzipioetan oinarrituta. **Santiago Iruretagoiena**

18 agindua. ik manu.

Eta exigentzia bat zen, manua eta **ordena**, eske bat baino areago. **Joan Mari Irigoien**

Pistola automatiko batez eraso zion atxilotzeko **ordena** zekarkion Richard Madden kapitainari. **Juan Garzia**

Gelditzeko **ordena** eman. **Joseba Zulaika**

Ni makina gelan nago, sentinako kiratsa baino lurrin betegarriagoan, Alejo Bilbao komandantearen **ordenak** hartzen. **Koldo Izagirre**

Kapitainak soldaduei kamioira igotzeko **ordena** eman zien. **Itxaro Borda**

Ministerioak igorri **ordenak** egiaztatuko zituen. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

anaia txikien ordena (18); **anaien ordena** (8); **berezko ordena** (5); **beste ordena** (12)

edertasuna eta ordena (9); **gai ordena** (13); **gauzen ordena** (12); **gizarte ordena** (5); **hitz ordena** (7); **hitzen ordena** (4)

ideien ordena (11); **izadiaren ordena** (9); **legea eta ordena** (10); **lotura eta ordena** (4); **merlingo ordena** (7); **mundu ordena** (6); **munduko ordena** (7); **naturaren ordena** (11); **nazioarteko ordena** (13)

ondorengotza ordena (7)

ordena aldatu (10); **ordena aldatuta** (4); **ordena alfabetikoan** (5); **ordena alfabetikoaren** (4); **ordena apur bat** (4); **ordena barruko** (4); **ordena berean** (20); **ordena berean kateatzen** (4); **ordena berrezartzeko** (4); **ordena berri** (17); **ordena berri bat** (6); **ordena berria** (9); **ordena berriak** (6); **ordena berriaren** (6); **ordena deitu** (4); **ordena deitzen** (4); **ordena doriarrean** (4)

ordena ekonomikoa (4); **ordena eman** (6); **ordena eta katea** (8); **ordena eta lotura** (4); **ordena ezarri** (8); **ordena ezartzeko** (4)

ordena jakin bat (4); **ordena jakin batean** (6); **ordena jartzeko** (5); **ordena joniarrari** (5); **ordena komunari** (4); **ordena komunean** (4); **ordena konstituzionala** (7); **ordena kronologikoan** (4); **ordena kronologikoari** (4); **ordena maite** (5); **ordena mantentzeko** (4); **ordena moral** (4); **ordena natural** (6); **ordena naturala** (4); **ordena naturalaren** (4)

ordena osoa (5); **ordena osoak** (4); **ordena osoan** (8); **ordena osoaren** (9); **ordena osoari** (6); **ordena osoko** (4); **ordena pixka bat** (8); **ordena politiko** (4); **ordena publikoa** (22); **ordena publikoaren** (11); **ordena publikoari** (4); **ordena publikoko** (13); **ordena sortu** (6)

ordena utzi (5); **ordena zahararren** (4); **ordena zaintzen** (5)

zalduneria ordena (7)

anaia txikien ordenako (5); **lehen ordenako** (4); **ordenako abitua** (8)

ordenako anaia (8); **ordenako buru** (6); **ordenako ministro** (9)

predikarien ordenako (5)

anaia txikien ordenan (5); **gai ordenan** (8); **guztiak ordenan** (4)

ordenan hartu (9); **ordenan hartua** (4); **ordenan izan** (5); **ordenan jarri** (4); **ordenan sartu** (30); **ordenan sartu zen** (11); **ordenan sartzea** (4); **ordenan sartzen** (6); **ordenan zaharretakoa** (4)

sartu zen ordenan (8)

adimenari dagokion ordenaren (4); **afekzioen ordenaren** (4); **anaia txikien ordenaren** (4); **dagokion ordenaren arabera** (4); **ezarritako ordenaren** (5); **gai ordenaren** (4); **gorputzeko afekzioen ordenaren** (4); **izadiaren ordenaren** (6)

ordenaren aita (4); **ordenaren alde** (5); **ordenaren arabera** (31); **ordenaren aurka** (8); **ordenaren baitan** (6); **ordenaren eta katearen** (4); **ordenaren hasieran** (10); **ordenaren kontra** (5); **ordenaren sorrera** (8); **ordenaren zaindari** (5)

ordenari dagokionez (6); **ordenari eman** (5); **ordenari jarraiki** (4)

inolako ordenarik gabe (6); **ordenarik eza** (5); **ordenarik gabe** (24); **ordenarik gabeko** (8)

zein ordenatakoak (4)

zein ordenatan (14); **zer ordenatan** (7); **zer ordenatan batzen** (4)

ordenatik kanpo (5); **ordenatik kanpora** (6); **ordenatik kanpora hilko** (4)

ordenaz kanpo (8)

ordenadore *(81 agerraldi, 21 liburu eta 22 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian ordenagailu agertzen da) iz* ordenagailua.

Gogoratzen duzu Hal 9000 **ordenadorearen** agoniako kanta? **Joseba Sarrionandia**

Ordenadoreen munduan Apple etxeak lehenengo gailu gardenak atera zituenean, beste iraultza bat hasi zen. **Berria - Gaiak**

Ordu erdi eman dut **ordenadore** aurrean, idazten, pare bat orri osatu arte. **Xabier Etxabe**

Lan gehiegi egiten nuela, edo ikasten edo **ordenadorearen** aurrean ematen nuela egun osoa. **Antton Olano**

Ardura tresna gisa erabilia zara, aitzur bat edo **ordenadore** baten antzera. **Itxaro Borda**

Guztia etxean osatu dut **ordenadore** portatil batekin. **Berria - Kultura**

Ikaslek lan egin ahal izan dute "Argitu" zerbitzuak **ordenadoretan** ezarri dokumentu grafikoekin. **Herria**

Sistema bat daukazula antolatuta kritikak idazteko, **ordenadoreko** programa automatiko bat, duela bost urte EEBBetan erosi. **Javi Cillero**

Txostenen edo **ordenadoreen** pantailaren gibelean saiatzen ziren beren lotsa ezkatutzen. **Joxan Elozegi**

Xake partida da hau: gure mugimenduak aurreikusten dituen **ordenadore** baten kontra jolastera behartuta gauden xake partida. **Sonia Gonzalez**

Nik **ordenadorearekin** desordenatu besterik ez nuke egingo adin honetan. **Arantxa Iturbe**

Ordenadorea ez daiteke intelijentzia harro, zeren dena dakielarik, ez baitu ezer ulertzen. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan)

Izugarritzko **ordenadore** lana egin behar izan dut. **Berria - Kultura**

Ideolab kolektiboaren **ordenadore** jolasa horretan geratzen da, jolaz hutsen. **Berria - Kultura**

Giza **ordenadore** moduko batzuk direla esan liteke, inork ez bezalako kalkuluak egiteko gai baitira, eta erabili ere holako pare bat idiota matematiko erabili omen zituen

Britainia Handiko gobernuak II. Gerra Mundialean. **Iñaki Segurola**

ordenadun *izond* ordena duena, ordenaz hornitua.

Kosmosa edo mundu **ordenaduna** baino lehenagoko ustezko kaos hartaz ez dakigu ezer. **Iñaki Segurola**

ordenagabe 1 *izond* ordenarik gabekoa.

Baina aurrean etzanik zuen gorpu hileria erori zitzaizkion begiak, eta kolpetik, beldurretik haserrera bat-batean aldaturik, amorru **ordenagabe** batez dardaratu zen. **Josu**

Zabaleta

2 *ordenagabeko izlag* ordenagabea.

Leporaino daude sarturik **ordenagabeko** nahikerietan. **Joan Mari Lekuona**

Asko, sorkariekiko eta ondasun materialekiko maitasun **ordenagabekotik** jadanik askaturik, norberaganako maitasunaren atxilo gertatzen dira. **Joan Mari Lekuona**

ordenagailu *(941 agerraldi, 75 liburu eta 280 artikulutan) 1 iz* informazioa metatu eta zenbakizko kalkuluak edo eragiketa logikoak lastertasun handiz egin ditzakeen tresna elektronikoa. ik **konputagailu; ordenadore.**

Ordenagailua piztu eta posta elektronikoko behatu nuen. **Aingeru Epaltza**

Norbait nire **ordenagailuan** sartu eta hau guztia amets hutsa dela esango balit, [...]. **Antton Olano**

Gure espezielistek haren **ordenagailua** miatuko ditek. Aingeru Epaltza

Hiru aukeraz balia zitekeen pasa-hitza idazteko; hirugarrenean huts eginez gero, **ordenagailua** berez deskonektatuko zen. Aingeru Epaltza

Ordenagailuan teklatzen jarraitzen zuen bitartean. Joxean Agirre

Ordenagailuan murgildu eta ezer sentitu ez. Antton Olano

Ordenagailuan landutako azken dokumentuen izenak agertzen diren tokian. Aingeru Epaltza

D izeneko birus informatikoak ehunka **ordenagailu** kutsatu ditu egun bakarrean. Berria - Gaiak

Nola sartuko zenioke birus bat **ordenagailuan**? Antton Olano

Argazkiak **ordenagailuz** tratatzen. Joxemari Urteaga

Ordenagailuz sortutako irudiak ziren, xarma handikoak. Aingeru Epaltza

Ordenagailuz lagundutako diseinua eta ekoizpena (CAD/CAM sistemak). Iñaki Heras

Ordenagailuz simulazio batzuk egingo dituzte aurrea. Berria - Gaiak

2 (ordenagailuaren/ordenagailuko)

Ordenagailuaren CPU-a, ordea -prozesatzeko unitate zentrala, ordenagailua bera, alegia-, ez zegoen. Fernando Morillo

Kurtsorea keinuka ari da **ordenagailuko** pantailan. Antton Olano

Aldamenean **ordenagailuaren** pantaila, modelo berri-berrikoa. Aingeru Epaltza

Ordenagailuko teklen eta musikaren hotsa. Antton Olano

Ordenagailuaren tekla zurien artean. Bernardo Atxaga

Idazmakina edo **ordenagailuetako** klabierrak. Iñaki Arranz

Ordenagailuren bateko inprimagailutik ateratakoa, ziurrenik. Fernando Morillo

Ordenagailuko zakarrontzi birtuala ere hustu zuen. Fernando Morillo

Windows sistemarekin, **Ordenagailuaren** disko gogorretik fitxategi bat borratzen denean, nahiz eta zakarrontzi birtuala hustu, datuek diskoan jarraitzen dute fisikoki.

Fernando Morillo

Badirudi Mireiak bere **ordenagailuko** disko gogorreko informazioa borratzea lortu zuela. Fernando Morillo

Ordenagailuko CD-ROM bat bezalakoa dut gogamena. Xabier Olarra

XXI. mendeak ikusiko ditu, zalantza gabe, mundu horretan gertatuko diren aldaketa nagusiak, **ordenagailuen** ahalmena indartzen denean, eta kontsultak egiteko bideak erraztu eta arintzen direnean. Pello Salaburu

3 (izenondoekin)

Mireiak bere **ordenagailu** eramangarria piztu eta PRANA artxiboa zabaldu zuen. Fernando Morillo

Ustezko ekintzaile islamistaren **ordenagailu** eramangarriari Heathrowko mapak eta argazkiak nahiz Londresko beste eraikin batzuen planoak aurkitu zituztela. Berria - Mundua

Jipoitzeaz gain, **ordenagailu** mugikorra eta satelite telefonoa lapurtu zizkieten. Berria - Mundua

Espainiako Poliziak denera 33 disko gogor, kanpoko bost memoria, 437 disko konpaktu eta DVD eta bi eskuko **ordenagailu** atzeman zituen. Berria - Euskal Herria

Ordenagailu pertsonalen aroaren hasieran. Berria - Gaiak

Galeriako erakusleihoan «**ordenagailu** birtuala» ipini dute. Berria - Kultura

Mikroprozesadoreek, besteak beste, egin dute azken lana, laugarren belaunaldiko **ordenagailu** txikiak garatzeko orduan. Pello Salaburu

Weizman Institututoko (Israel) zientzialari batek minbizia aurkitzeko gai den **ordenagailu** ñimiño bat sortu du. Berria - Gaiak

Inork txipa duen objekturen bat ukitzen duenean hark uhin bat bidaltzen du **ordenagailu** nagusira. Berria - Gaiak

Ordenagailu atomikoei buruz hitz egiten hasi beharko genuke aurrerantzean. Pello Salaburu

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizitza **ordenagailu**-programa bat baino ez zen. Antton Olano

"**Ordenagailu** -lan"tzat hartzen du, hain zuzen, bere pentsakera, **ordenagailu**-artxibo sail bat begitانتzen baitzaio bere oroimena. Xabier Olarra

Hiru hamarkada bete ditu gaur Apple **ordenagailu** konpainiak. Berria - Gaiak

Ordenagailu gela, komunak, sukaldea, bi bulego, sala... Berria - Euskal Herria

OEHko lan taldeak lehen urteetan erabilitako **ordenagailu** sistema, Wang izenekoak, zaharkituta eta zirkuitu guztietatik kanpo geratu zen. Berria - Harian

Ordenagailu sare zabala edukiko du, eta wireless sistemari esker kable barik sartu ahalko dira erabiltzaileak Internetera. Berria - Kultura

Ordenagailu ekoizleen sektorean %42 hazi da batez besteko produktibitateak. Iñaki Heras

Non sartu ote dut ditoxosozko giltza? atzeko poltsikoan? **ordenagailu**-poltsan? Patxi Iturrategi

Ur Bizian, ohointza batzu izan direla, **ordenagailu** ebaste eta bertze. Herria

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espainia ez da munduan puntakoa, inola ere, esku **ordenagailuen** kontuetan. *Gogo-***ordenagailua** metaforak "ezagutza" eta "burmuina" ulertzeko modua ere aldatu du. Pello Salaburu

6 *ordenagailuz* izlag ordenagiluz sortua.

Txoraturik dabil Pontitoren **ordenagailuzko** simulazioen ideiaz; bai eta batek kaskoa eta eskularruak jantzi, eta, ikusi ez ezik, errealitate birtual hori ukitzeko kontuarekin ere. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehunka **ordenagailu kutsatu** (3); **eskuko ordenagailu** (3); **milaka ordenagailu kutsatu** (3)

ordenagailu aurrean (7); **ordenagailu baten bidez** (3); **ordenagailu bidez** (12); **ordenagailu bidezko** (9); **ordenagailu eramangarria** (7); **ordenagailu eramangarriak** (3); **ordenagailu gelan** (3); **ordenagailu kutsatu ditu** (8); **ordenagailu programa** (4)

eskuko ordenagailua (3); **ordenagailua erabiltzen** (4); **ordenagailua itzali** (3); **ordenagailua lapurtu** (5); **ordenagailua piztu** (11)

ordenagailuan atzemandako (6); **ordenagailuan atzemandako agiri** (3); **ordenagailuan sartu** (7)

ordenagailuarekin eginiko (3)

ordenagailuaren aurrean (18); **ordenagailuaren aurrean eseri** (5); **ordenagailuaren bidez** (5); **ordenagailuaren pantaila** (5); **ordenagailuaren pantailan** (7)

ordenagailuen bidez (5)

ordenagailuko pantailan (4)

ordenagailura pasatu (3)

ordenagailuz egindako (3); **ordenagailuz eginiko** (3); **ordenagailuz egiten** (4)

ordenagailuzale *izond* ordenagailuaren zalea dena.

Ez naiz **ordenagailuzale**. Aingeru Epaltza

ordenaketa *iz* ordenatzea.

Hau gertatzearen arrazoa bere aldetik hau da: apertzepzioa eta berekin batera pentsatzea errepresentazioen **ordenaketa** determinatu ahalgarri orenen aurretik doazela.

Ibon Uribarri

Horrela espezieen eta generoen **ordenaketa** betiko finkatua geratzen da. **Xabier Arregi**

Munduko gauzei **ordenaketa** helburudun hau erabat arrotza zaie, eta ausaz baino ez zaie atxikitzen. **Ibon Uribarri**

Enuntziazio-sailen **ordenaketa** ezberdinak (dela inferentzien, ondoz ondoko inplikazioen eta arrazoiketa demostratiboen ordena; dela deskribapenen ordena, deskribapen horiek mugatzen duten orokortze-eskemak edo zehaztapen progresiboen eskemak, eurek zeharkatzen dituzten banaketa espazialak; [...]). **Xabier Arregi**

ordenakide iz ordena bereko pertsona.

Alproja Damutuen Elkarte Abegitsua; **Ordenakide** Zoragarrien Itun Mistikoa. **Xabier Olarra**

ordenamendu 1 iz ordenaketa, antolamendua.

Hura zen primua eta herederoa, eta ni kateko bigarrena, eta bazirudien ezen naturaleza bera ere ados zegoela **ordenamendu** harekin, nor bere mailarako eta bere gradurako predestinaturik balego bezala. **Joan Mari Irigoien**

Obarren berritasuna ezin liteke joan materiaren taxuketara eta **ordenamendua** baino haruntzago. **Bernardo Atxaga**

Gelako **ordenamenduan** gauak bidera ditzakeen aldaketa xumeak aurreikusteari ekiten diot emeki eta ezarian. **Anjel Lertxundi**

Estiloen arteko kontrasteak edo errepikazioak efektu bereziak sortzen ditu, eta horretarako Laclosek bikain erabili zuen gutunen hurrenkera edo **ordenamendua**. **Jon Muñoz**

Errima-sail bakoitzaren **ordenamendu** on batetik baino ez daiteke etor beraldi zehatz eta arrakastatsua. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Kontsultarako, haren Obra Osoetara jo daiteke (Emecé Editores, Buenos Aires), non aski xuxen jarraitzen baita **ordenamendu** kronologikoa. **Juan Garzia**

Rousseauk eta berarekin beste batzuek espezieen **ordenamenduaz** eta hizkuntzen jatorriaz hausnarketa egin dutela-eta, taxonomiaren eta gramatikaren arteko harremanak gauzatu egin dira. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Buruan errima-sail bakoitzaren **ordenamendu** lan hori bertsolari denek egiten dute, bakoitzak bere erara, jakinean edo oharu gabe. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ordenamendu adibide bat hau litzateke INA amaitzen diren hitzekin osatua: [...]. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Errima-hitzen ordenamenduak (proposaturiko honek bezala beste edozein **ordenamendu** -motak) bi abantaila dakarkio bertsolariari. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

3 lege multzoa.

Eusko Jaurilaritzaren Proposamena indarrean dagoen **ordenamenduaren** aurkakoa dela esatea, **ordenamendu** horren erreforma helburu duen edozein arau ere horren aurkakoa dela esatearen pare da. **Berria - Euskal Herria**

Konstituzioan eta beste herrialde demokratikoen **ordenamenduetan** ez dagoelako eskubide hori. **Berria - Euskal Herria**

4 (izenondoekin)

Horregatik ditugu hain gogoko **ordenamendu** juridikoak, lur azaleko herri guztiak araubidea nahiago badute ere. **Pello Salaburu**

Bost konpromiso hartzea proposatu zuen: indarkeria eza eta bide politiko hutsak erabiltzea, [...] egitasmo politiko oro **ordenamendu** juridikoan txertatzea, gizartearen aniztasuna errespetatzea. **Berria - Harian**

Oinarria Espainiako Konstituzioan eta Gernikako Estatutuan du, eta indarrean dagoen legedia eta **ordenamendu** juridiko-politikoaren errespetatzen du. **Berria - Euskal Herria**

Baztertu egin da **ordenamendu** jurisdikzional berria sortzea, eta, hala, alor penalaren barruan, espezializazioa egingo da emakumeen aurkako indarkeriari buruz. **Berria - Euskal Herria**

Ordenamendu lokalak herritarrei galdetzea baimentzen du eta tresnak badaude horretarako. **Berria - Euskal Herria**

Elkarbizitza arautzen duen **ordenamendu** moral eta hori objektibatzen duten instituzioak. **Joxe Azurmendi**

Ordenamendu berri hori gobernuak laster pasarazi beharra duen erreforma batean legetatuko da. **Herria**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure lege **ordenamenduan** ere jasota dago ingurumenaren arloan herritar orok informaziorako duen eskubidea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Indarrean diren legeek diotena, indarrean den zuzenbide-**ordenamenduak** dioena da nik esan nuena eta, beraz, hor ez zegoen ezer nik neuk asmatutakoa. **Berria - Euskal Herria**

Etorkizuneko mundu **ordenamenduan** eskualdeak eragile aktiboak direla iritzi dio. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako ordenamendu (3); ordenamendu juridiko (3); ordenamendu juridikoa (5); ordenamendu juridikoak (8); ordenamendu juridikoan (10); ordenamendu juridikoaren (11); ordenamendu juridikora (3)

ordenamenduaren aurkakoa dela (3)

ordenantza 1 iz araudiari dagokion xedapena.

Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, **ordenantzak**, ohitura orokor zein bereziak, estatutuak eta araudiak indargabe geratzen dira, lege nagusi nahiz lege banandu moduan, lege hauen objektu diren gai guztietan. **Andres Urrutia**

Teodosioren kodea ikus daiteke: enperadore kristauen **ordenantzen** bilduma bat besterik ez da. **Iñaki Iñurrieta**

Nafarroan Erlijio egiazkoa menderatzen duten **ordenantza** eta agindu guztiak indarrik gabe uzteko. **Aingeru Epaltza**

Akusatuari ematen zitzaion abokatua edo kontseilua ez da legeko edo **ordenantzak** eskaintzen duten pribilegioa: gizonen lege guztien aurretikoa den zuzenbide naturalak eskaintzen duen askatasuna da. **Juan Martin Elexpuru**

Gai honetaz daukagun **ordenantza** bakarra jaunak beren bailliak laikoan aukeratzera behartzen zituena da. **Iñaki Iñurrieta**

Erregeek beren mendeko lurraldeetarako **ordenantzak** egiten zituztenean, beren agintea besterik ez zuten erabiltzen. **Iñaki Iñurrieta**

Konstantinok ezarri zuenean igandean atsedean hartuko zela, hirietarako eman zuen **ordenantza** hori, ez landako herrientzat. **Iñaki Iñurrieta**

Luis XIV.aren **ordenantza** kriminalen, errege-kasuen zerrenda zehatza egin ondoren, hitz hauek eranstean dira: [...]. **Iñaki Iñurrieta**

2 (udalari dagokiona)

Ordenantza hura lege lokala zen. **Iñaki Iñurrieta**

Iruñea Berriko kideek azpimarratu dute antzokia udalarena dela, eta, ondorioz, euskararen **ordenantza** bete beharko lukeela. **Berria - Euskal Herria**

Besga eraikinari dagokion **ordenantza** aldatuko du Bilboko Udaleko Hirigintza Sailak. **Berria - Harian**

Iruñeko Udalak onartu berri duen Euskararen **Ordenantza** berria. **Berria - Harian**

Burlatako Udalari Euskararen **Ordenantza** betetzea kostatzen zaiola salatu du AETk. **Berria - Euskal Herria**

Udaleko Babes Egituraren **Ordenantzaren** 7.02.04 artikulua araberara. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordenantza eredua jada batzordean aurkeztu da eta aztertzen ari dira une honetan. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Udal **ordenantzetatik** hastea hobetsi dute. **Berria - Harian**

Udal **ordenantzen** bidetik udalerriak euskalduntzeko planak: [...]. **Berria - Euskal Herria**
Azken errege-**ordenantzak** ikertzerakoan, kontuok gorde ditugu beren beregi: gizartearen funtsezko ordena, zintzotasun publikoa, ondareen segurtasuna eta aurrerakuntza orokorraren inguruko guztiak. **Andres Urrutia**

Gogora ezazue Bartzelonako gizalege-**ordenantzak** debekatu egiten duela prostituzioa, kasu jakin batzuetan. **Berria - Mundua**

5 ofizial edo guruzagi baten mende dagoen soldadoa.

Miska, lotinantaren **ordenantza**, bere nagusia zetzan ospitaleko ohearen ondoan jarrita, zer egin ez zekiela, burua esku zikin bien artean hartuta zegoen. **Pablo Sastre**

6 bulego publiko bateko bigarren mailako enplegatua.

Igande eguerdian jabetu zen museoko **ordenantza** bat lapurreta gertatu zela, Diputazioak jakinarazi duenez. **Berria - Kultura**

Goizean erietxeko **ordenantzak** hondakinen poltsekin iristen direnerako, emakume eta haur mordo bat dago zain, hondakin horien artean xiringak, orratzak, benda garbigarriak, edo merkatura eraman daitekeen edozer gauza hartzeko. **Oskar Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskararen ordenantza (6); **gizalegearen ordenantza** (6)

euskararen ordenantza (6); **gizalegearen ordenantza** (6)

bartzelonako gizalege ordenantzak (3); **gizalege ordenantzak debekatu** (3); **ordenantzak debekatu** (3)

ordenario ik ordinario.

ordenatsu (agian hutsa, ordenatu-ren orde) izond

Etexko bakea, bertan agintzen dutenen eta obeditzen dutenen arteko elkartasun **ordenatsua** da; hiriko bakea gobernarien eta hiritar gobernatuaren arteko elkartasun ordenatua. **Imanol Unzurrunzaga**

ordenatu, ordena(tu), ordenatzen 1 du ad ordena ezarri. ik antolatu; apailatu; taxutu.

Gaiak **ordenatu** nituen, hain zuzen ere, bilatu nahi dituenak ez ditzan zati desberdinetan sakabanatuta aurkitu. **Santiago Iruretagoiena**

Karta jokoan bezala ari zen Enrike, fitxa batzuk eskuan hartuta; nahasten edo **ordenatzen**, auskalo. **Iñaki Iñurrieta**

Kaxoiak **ordenatzea** moduko zerbait da. **Julen Gabiria**

Ni salan zutik, azken filmak **ordenatzen** ari, errebelatzera eraman ahal izateko. **Joxe Austin Arrieta**

-Aitorpena jaso behar dugu -azaldu dio idazkariari bere oharrak **ordenatu** bitartean-. **Rafa Egiguren**

Sei ataletan **ordenatu** ditu Xavier Bray arduradunak erakusketako artelanak. **Berria - Kultura**

Kalean atxilotzen badute ezingo du fitxategirik **ordenatu** edo bere gaixoei kasu egin. **Josu Zabaleta**

Irudiak kronologikoki **ordenatu** behar dira. **Joseba Sarrionandia**

Letrak segida jakin batean **ordenatzen** ditu alfabetoak, eta hurrenkerak horrek aurrera/atzera egiteko bidea zabaltzen digu guri. **Iñaki Arranz**

Ez du ezein (objektuen) adigairik sortzen, baizik eta hauek **ordenatu** besterik ez ditu egiten. **Ibon Uribarri**

Libururen bat irakurtzen ari eta zirrara eragiten badit, nire buruko gauzak ongi **ordenatu** behar ditut lehendabizi, gainerakoekin nahastu aurretik. **Josu Zabaleta**

Ez zuen besterik buruan, bueltatzea eman, distraitu, ideiak **ordenatzea**. **Jon Alonso**

Besteak beste, marko teoriko honi esker birformatu eta **ordenatu** ahal izan ditugu bat-bateko bertsolaritzari dagozkion galdera eta arazo zaharrak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (era burutua izenondo gisa)

"Kasu triste bat"en, maitatzen ez dakien gizon **ordenatu** batek, emakumea bere burua tren azpira amiltzera daroa. **Markos Zapiain**

Hiriko bakea gobernarien eta hiritar gobernatuaren arteko elkartasun **ordenatua**. **Imanol Unzurrunzaga**

Zer paper jokatu zuen natura **ordenatu** baten ideiak aberastasunaren teorian. Bizimodu erraxa, **ordenatua** eta burgesa. **Xabier Arregi**

Sorketa **ordenatu** baten gaiaren eta natura oparo baten gaiaren artean. **Xabier Arregi**

Gauza bera gertatzen da irudi-horman ere, irudi mugikorrez osatutako segida **ordenatu** bat baita, osotasun zatikatuzko irudi bakar bat bezala irakur daitekeena. **Josu Zabaleta**

Errenazimenduko errepublikazaleek komunitate politikoa, alegia politeia, herritartasun gisa hartu zuten, hau da, gorputz **ordenatu** bat non izaki libreak elkarrekin bizi zitezen, denontzako lege baten menpean. **Esteban Antxustegi**

Mendikariak apur bat aparte zeuden, talde **ordenatu** eta isilean, lantza, arku eta ezpatez armaturik. **Agustín Otsoa**

Erdialdetik hasi eta iparraldeko muturreraino modu **ordenatuan** igoz, guztiz modu naturalean azaltzen dira herrien ahots-tonuak, gero eta lodiago. **Santiago Iruretagoiena**

Hautura prozesua «era **ordenatu** batean» egingo dute. **Berria - Ekonomia**

Laboratorio obsesiboki **ordenatu** hura. **Juan Garzia**

3 erlijio ordena eman.

Elizgizon **ordenatu** ninduten haur nintzelarik. **Juan Garzia**

Geroztik Elizak **ordenatu** ditu diakreak behardunen eta guzien zerbitzari bezala. **Herria**

Tagastera itzuleran anaidi monastikoa fundatu zuen eta 391n apaiz **ordenatu** zuten. **Imanol Unzurrunzaga**

Donostiako Joan Mari Uriarte gotzainak du apez **ordenatu**.

Iturriek argi erakusten dute Frantzisko diakono zela, ez apaiz, nahiz eta ez diguten esaten noiz eta nola **ordenatu** zuten. **Askoren artean**

Loir-et-Cher departamenduko hautesleek Blois hiriko apezpiku hautatu zuten gero jaun hura bera, eta apezpiku lagunek apezpiku **ordenatu**. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaiz ordenatu (3); **apez ordenatu** (4)

gizon ordenatua (3)

era ordenatuan (4); **modu ordenatuan** (5)

perfektuki ordenatuta (4); **txukun ordenatuta** (3)

ordenatzeko eta kateatzeko (5); **ordenatzeko modu** (3)

gauzak ordenatzen (3); **ordenatzen eta kateatzen** (3)

ordenatuki adlag era ordenatuan.

Saihetsean den hondartzan, pintatu berriak diren batelliku kriketak, egur batzuen gainean garbiki eta **ordenatuki** ezarriak, kroskoa gainera. **Aurelia Arkotxa**

Baina ez anabasa batean, txorimalo bat egitear dagoen norbaitek lurrean **ordenatuki** lerratu izan balitu bezala baizik. **Harkaitz Cano**

Gauzak **ordenatuki** egitekotan, ordea, kontutan hartu behar ditugu puntu hauek: [...]. **Piarres Xarriton**

ordenatzaile 1 *izond* ordenatzen duena.

Aurretiaz zerizan **ordenatzaile** gorena ezartzen badut oinarrian, orduan izadiaren batasuna egitatean ezeztatu egiten da. **Ibon Uribarri**

Azeri Begi iritsi zenean Enperadore Horiaren aginte-etxera [...] paperak aurkitu zituen milaka, baina inongo zentzu **ordenatzaile**rik gabe pilatuta han-hemen. **Felipe Juaristi**

Arrazoizko printzipio **ordenatzaile** baten bitartez. **Ibon Uribarri**

2 *iz* ordenatzen duen pertsona.

Zorionaren egilea naiz eta zoritxarraren **ordenatzailea**. **Imanol Unzurrunzaga**

Hortaz, zorigaitzoko izan arren, nahi duzuna daukazulako, Sortzailearen onberatasuna goratzen dut; eta zu eskergeaitzoko izateagatik nahi ez duzuna jasaten duzulako

Ordenatzailearen justizia goratzen dut. **Imanol Unzurrunzaga**

Maimonek hemen bere **ordenatzaile** -lanaz jabetuta jokatzeko du. **Xabier Kintana**

ordenatze *izond*

Sortzea eta **ordenatzea** zertan diren ezberdin. **Imanol Unzurrunzaga**

Eta hor errimen almagatzen eta **ordenatzeak** sekulako garrantzia hartzen du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Maimonen bigarren **ordenatze** -lana Aristotelesen fisika eta metafisikaren zati teologikoki garrantzitsuen laburbilpena da. **Xabier Kintana**

ordenazale *izond* ordenaren zalea.

Zeren izugarri **ordenazalea** baitzen, zinez! **Joan Mari Irigoien**

Fraideek, **ordenazaleak** izaki, elizaren atzealdean eta saihetsaldean lerroz lerro jarri zituzten gerezioak, baratze lur puska dezentean, fraideek gerezi ardoa egiteko adina eta gehiago ere ematen baitzuten zuhaitzok. **Felipe Juaristi**

Kontatu dizut, bertzalde, nolakoa zen ama etxeko gobernuaz denaz bezainbatean, artatsu eta **ordenazale** itsu. **Joan Mari Irigoien**

ordenazaletasun *iz* ordenazalea denaren nolakotasuna.

Gaitzeko lana zen hura, amaren aldekoek berezko duten pazientziak, txukuntasunaz, **ordenazaletasunaz** eta perfekzio nahiaz bururatua. **Joxan Elozegi**

ordenazio 1 *iz* ordenatzea, ordena ezartzea.

Proportzioaren erabilera zuzena, Vitruvioren ustez, *ordinatio*, **ordenazioa**, deitzen den ezaugarri jadanik arkitektonikoan ulertu behar da. **Santiago Iruretagoiena**

Ohikoa denez kontsideratzen da diskurtsoak eta euren **ordenazio** sistematikoa, askotan bihurria den elaborazio baten azken egoera besterik ez direla. **Xabier Arregi**

Musikaren partzial harmonikoen **ordenazio** naturala alderantzikatu du konpositoreak obran. **Berria - Kultura**

Ordenazio Akademikorako errektoreordea zen orduan 1991-1996. urteak bitartean EHUren errektorea izango zen. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

Autoreak erraz lortu ahal izango zuen gauza bera bere "liburuak" beste modu batera egituratuz, liburu barruko zatiketarik ez baitira bestelako **ordenazio** -aukerarik ez onartzeko bezain zurrunka eta finkoak. **Santiago Iruretagoiena**

Gero, mendeetan barrena, **ordenazio** kontuok beste tenpora-batzuetara ere zabalduko dira. **Pello Zabala**

3 (*orobat ordinazio g.er.*) erlijio ordena ematea.

San Leon Aita Santuak ahaleginak egin zituen Italia aldeko gotzainen aurrean eta beste nazioetako gotzainekiko, ahaleginak eta bost bai, egun santu hauek, **ordenazioak** barne, zabaltzen eta osparatzen. **Pello Zabala**

Jaunak hain fede handia eman zidan eta ematen dit Eliza santu erromatarraren moldearen arabera bizi diren apaizekiko, beraien **ordenazioa** dela-eta, ze, pertsegituko banindute ere, beraingana jo nahi baitut. **Askoren artean**

Zortzi diosesetakoak ziren apez berri horiek eta Crescensio Sepe Erromako Ebanjelio lanaren kongregazioko apezpiku arduradunak egin du **ordenazio** hori. **Herria**

Apez egin nintzen egun hartako **ordenazioa** nahi nuen finkatu. **Piarres Aintziart**

Hona **ordinazioen** kopurua hamarkadaz hamarkada: 1860ko hamarkadan, 79 apez berri Euskal herrian (4 BAB-koak), 1870koan 84 (3 BAB). **Xipri Arbelbide**

ordenu¹ *iz* ipar testamentua, hilburukoa.

Atseginekin ikusten dugu betetzen dituzula zuhonek zure zorrik eta ez zure ondokoen gain uzten; ezen gaztigu garrantzak jasanen dituzte beste munduan, beren **ordenuan** behar baino gehiago beren ondokoei fida izan direnek. **Piarres Xarriton**

ordenu² ik ordena.

ordez 1 *adlag* adierazten denaren lekuan, ordainetan edo haren truke. ik orde.

Ile **ordez** sugeak, atzamar zorrotzak eta hagin beldurgarriak zituztela irudikatu ohi ziren. **Antton Olano**

Etxeko atalburuan ere, egungo elorri **ordez** lehen lizar adaskak paratzen ziren gurutzean. **Patziku Perurena**

Bost filosofo **ordez**, hamar sartuko dituzte agian. **Joxerra Garzia**

-Dirudienez, hegazkinak, mendebaldera **ordez**, ekialdera hartu zuen. **Koro Navarro**

Ni bertaratutako orduko, ukondotik helduz, komisaria barrura **ordez** atarian dagoen lorategira eraman ninduen. **Joxean Agirre**

"Baina **ordez** "eta" jarriko lukeena fidagarriagoa litzaidake. **Joxerra Garzia**

-Dolu handiegia dute eta ez dituzte **ordez** sortzen direnak laztantzen ahal. **Itxaro Borda**

Ordez, Wernerren ikustera joan zen. **Itxaro Borda**

Praktika ukatzen da, eta, **ordez**, hitza eskaintzen. **Juan Martin Elempuru / Bego Montorio**

Zemai egin ere bai, buruz beherako orekan jarriko zela gure hamaseigarren solairuko balakoiko eskubandaren gainean, eta nik ozta-ozta eragotzi; **ordez** -edo, whisky botila bat jaurtiki zuen delako Urliak fatxadan behera... **Joxe Austin Arrieta**

2 (-en atzikiaren eskuinean)

Urrearen **ordez** ikatza eman nahi diguten garaiak bizitzen ari gaituk, okari oka. **Anjel Lertxundi**
Berrito burua altxatu zuenean aurpegia erabat desitxuratua zuen, malkoen **ordez** behazuna edo pozoiren bat xurgatu balu bezala. **Joxean Agirre**
Bigarren mutantearen buruan hanka bat eratu bada antenaren **ordez**, seinale mutazioak gene bat indargabetu duela. **Juan Garzia**
Gurpilak jiraka jarraitzen zuen nire buruan; orain, ordea, arestiko zenbakien **ordez**, izenak erakusten zizkidan. **Bernardo Atxaga**
Betaurrekoen **ordez** ukipen-leiarrak jarraazi zizkion; haren armairua erabat berritu zuen. **Oskar Arana**
Nahi duzu zure **ordez** joan nadin... **Eneko Bidegain**
Arauzko alkandora faxistaren **ordez**, kokospeko beltz xeble bat, arra bat zabal, zeina mugimendu zakar bakoitzean jakaren ertzetatik iriteten baitzitzaion. **Juan Garzia**
Gona estu nimitzua janzen zuen, lehengo eguneko plisatuaren **ordez**. **Aingeru Epaltza**
Oharkabekeria eta ausartzia erakutsi dugula, tipien **ordez** handiak hautatuz eta berdinduen **ordez** gaizkia eta hoberenaren **ordez** tzarrena. **Piarres Xarriton**
Urruneko autoaren burrunba isilaren **ordez**, urruneko urratsen harrabots idorrek sendi izango dituzu. **Filipe Bidart**
Sodio-kloruroaren **ordez** potasio-kloruroa baliatzen hasiak dira goi-sukaldari aitzindari batzuk. **Edorta Agirre**
Baina horren **ordez**, are gauza bitxiagoa egin du: negar zotinka hasi da. **Urtzi Urrutikoetxea**
Londres laster geratu zitzaizen oso atzera, eta haren **ordez** landa berde txukunak ageri ziren. **Iñaki Mendiguren**
Horren **ordez**, bere soldadu-ibilerei buruz galdetzen nion. **Anjel Lertxundi**
Zer ikusten dugu honen guztiaren **ordez**? **Juan Martin Elempuru / Bego Montorio**
Gauza horiek bihurtzen ditu on, haiek egokiro antolatzean egon beharko lukeen onaren **ordez**. **Imanol Unzurrunzaga**
Hori gabe, oraindik ere Teodosiar kodea izango genukeen erromatar legea lurraldeko lege zen probintzietan, Justinianoaren legeen **ordez**. **Iñaki Iñurrieta**
-Joera dugu aurrean dugunaren **ordez**, alde aurretik nagusitu zaigun klaxea ikustekoa. **Iñaki Iñurrieta**

3 (aditzaren era burutuaren eskuinean) beharrean.

Bere gorputzak, ilun-bistan, "hari beltza eta zuria bereizi ezin diren uanean", sendoagoa ematen zuen, beteagoa; hogeitun urte izan **ordez** hamar gehiago balitu bezala. **Bernardo Atxaga**
Partida egin **ordez** belazeetan etzan ziren, alkandorak erantzirik. **Eider Rodriguez**
Urteak betetzen zituen mutila ospitalean zegoen festan egon **ordez**. **Koro Navarro**
Hobe haragi minbera ukitzen ez segitzea, goxatu **ordez** gehiago erretzen baitu. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Liluratu **ordez**, politikak, gaur egun, nazkatu egiten du. **Txema Ramirez de la Piscina**
Erantzun **ordez**, Xerealek irakurtzen jarraitu zuen: [...]. **Iñaki Iñurrieta**
Baionan hotelez hotel ibili omen zen bere lagunekin, jendarmeengana jo **ordez**. **Anjel Lertxundi**
Mitina ematen zuen ebanjelioa esplikatu **ordez**. **Koldo Izagirre**
-Orangutan deitu **ordez** tximino deitu izan balit behintzat! **Josu Zabaleta**
Bera joan **ordez**, alaba bidali zuen. **Anjel Lertxundi**
-Zergatik ez zuen ihes egin, hala ere, bere burua hil **ordez**? -galdetu zuen Perrettek. **Jon Muñoz**

4 (-tzeok atzikiaren eskuinean) ipar beharrean.

Zeren ahultzeko **ordez** indartzen baitira, esperientzia horretan azkarturik, beren arteko elkartasun sare berezia antolatuz, Frantziako administrazioaren traba guzien gainera. **Filipe Bidart**
Ez zuen ulertzen zergatik euskarazko ehortz-elizkizunetan, tristezia larriaren aztaparretan behera amiltzeko **ordez**, abesteko gutizia oldartzen zen herritarren bihotzetan. **Itxaro Borda**
Gizakien bihotzak sendotzeko **ordez** haien hondatzen dakitenak, gogaikarri dira, bai beren buruentzat, bai besteentzat. **Piarres Xarriton**
Oraino luze luzea etzanik dagoela, besoak eta zangoak tiratu, hortzak tinkatu eta xulitzeko **ordez** berriz matalazaren gainera uzten du bere gorputza. **Eneko Bidegain**
Zeruko graziak ohoratzeko **ordez**, aterpeko nesken graziari eskerrak bihurtu zituzten mundu triste honen edertasun garrantzizuenari amor emanen. **Piarres Aintziart**
Goerari pentsatzeko **ordez** behar genuen gure izpiritua bertze norabide baterat igorri. **Ramuntxo Etxeberri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abiatu **ordez** (6); agertu **ordez** (5); aitaren **ordez** (11); aldatu **ordez** (8); aritu **ordez** (5); aztertu **ordez** (5); babestu **ordez** (5); bakoitzaren **ordez** (6); baten **ordez** (77); begiratu **ordez** (12); beraren **ordez** (5); bere aitaren **ordez** (5); bere **ordez** (89); berearen **ordez** (5); bestearen **ordez** (5); bilatu **ordez** (8); bota **ordez** (8); deitu **ordez** (12); egin **ordez** (64); egon **ordez** (19); eman **ordez** (34); erabili **ordez** (8); erakutsi **ordez** (8); eraman **ordez** (7); erantzun **ordez** (19); esan **ordez** (29); euren **ordez** (7); galdu **ordez** (6); gelditu **ordez** (5); geratu **ordez** (5); gure **ordez** (14); guztien **ordez** (7); haien **ordez** (62); haren **ordez** (184); hartu **ordez** (15); hasi **ordez** (9); hil **ordez** (10); hitzaren **ordez** (9); hitzen **ordez** (9); honen **ordez** (15); horien **ordez** (30); horren **ordez** (278); ibili **ordez** (14); ikasi **ordez** (7); itzuli **ordez** (7); izan **ordez** (59); jainkoaren **ordez** (5); jardun **ordez** (6); jarri **ordez** (8); jo **ordez** (8); joan **ordez** (35); nihaten **ordez** (5); nire **ordez** (42); odolaren **ordez** (5); **ordez ari** (12); **ordez ari zen** (7); **ordez ariko** (20); **ordez ariko da** (15); **ordez aritu** (8); **ordez aritu zen** (5); **ordez arituko** (5); **ordez arizan** (6); **ordez erabiltzen** (5); **ordez jarri** (5); **ordez sartu** (6); **ordez sartu zen** (5); **ordez zelaizatu** (7); **osoaren** **ordez** (7); **ruizen** **ordez** (5); **sartu** **ordez** (10); **semearen** **ordez** (6); **utzi** **ordez** (11); **xingola** **ordez** (9); **zigorraren** **ordez** (5); **zure** **ordez** (26)

ordezgarri iz ordezgarria.

Zure aldean **ordezgarri** hutsalak ote dira gainerako guztiak? **Josu Zabaleta**

ordezkaezin izond ezin ordezkatuzkoa.

Gizon **ordezkaezin** bat gauzak aldatzen ari da. **Ramon Etxezarreta**
Zenbatekoak ziren planetaren ertserbak baliabide material **ordezkaezinetan**, mineraletan adibidez, eta baliabide material ordezkarrietan, ur-argindar eta uzta eta ganadu eta lanesku eta giza trebetasunean? **Iñaki Mendiguren**
Zoriontasun garden bat zela sentitzen zuten gainera, **ordezkaezin** eta bakarra, sakratua. **Eider Rodriguez**
Baina Hermannen adiskidetasunari eusteko, **ordezkaezina** izatea behar nuen lortu. **Anjel Lertxundi**
Bere petaka beti bete zela medio, ez zitzaion batera kostatu Duvrescuren tertulia-lagunik **ordezkaezinena** bihurtzea. **Iban Zaldúa**
Fakturazioa mila miliotara iristen den edozein eskualdetan inor ez da **ordezkaezina**. **Jon Alonso**

ordezkagaitz izond ordezkatzen zaila, ia ordezkaezina.

Baita beren burua egia bakar, behin-betiko eta **ordezkagaitza** aldarrikatu zutenena ere. **Jon Alonso**

ordezkagari 1 izenordezka daitekeena, ordezkatzeko moduko.

Sendagileen estatus hau nahikoa berezia da oro har gizarte eta zibilizazio forma ezberdinetan: bera ez da ia inoiz pertsonaia bereizteza edo **ordezkagarria**. Xabier Arregi

Produktu **ordezkagarriak** ekoizten dituzten ekonomia adarretan, atzerriko lehiak badu bai eraginik, bai enpleguen galeran bai soldata mailan. Iñaki Heras

Zenbatekoak ziren planetaren erreserbak baliabide material ordezkazinetan, mineraletan adibidez, eta baliabide material **ordezkagarietan**, ur-argindar eta uzta eta ganadu eta lanesku eta giza trebetasunean? Iñaki Mendiguren

Begi-bistakoa da eraldatutako materiala eta hura eraldatzeko lanabesak elkarren osagarriak direla, ez alternatiboak -ez **ordezkagarriak** -. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ahots bat zen, presentzia fisiko bat; **ordezkagarria**, ondorioz. Aritz Gorrotxategi

2 (izen soila -en atzikiaren eskuinean adizlagun balioarekin)

Zuri kolorea aldiz, errusiarren esku eta arima garbiaren **ordezkagarri** hautatu zuen. Harkaitz Cano

Bizitza gauza ergela da, emoziorik gabea, gorabeherarik gabea, hemen behintzat, eta alde guztietan berdin, nik uste, eta izumenez betetzen da gogoeta, bizitzaren emozio-antzasunaren **ordezkagarri**. Josu Zabaleta

Goenkale-ren arrakastaren ondoren beste foiletoki batzuk prestatu nahi zituzten, nonbait, aurrekoaren osagarri edo **ordezkagarri**. Xabier Mendiguren Elizegi

ordezkagarritasun iz ordezkagarria denaren nolakotasuna.

Adierazitako horrek baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen arteko **ordezkagarritasuna** aipatzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

ordezkaketa (6 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan) 1 iz ordezkatzea. ik ordezkapen.

PANeko presidentearen balizko **ordezkaketaz** mintzo, Israelgo presidente Moshe Katsavek esan zuen Tel Avivetik ez duela eskua sartuko haren ondorengoa hautatzeko tenorean. Berria - Mundua

Bost dira auzitara jotzeko arrazoiak: klase berriak ez irekitzeko arrazoitu gabeko erabakiak, oren kopuruaren oreka ez errespetatzea ikastetxeetan, irakasle elebidunen **ordezkaketa** ez bermatzea, [...]. Berria - Euskal Herria

Bada ordea beste zenbait baliabideren arteko **ordezkaketarako** aukerarik -harraren orde zura erabiltzeko, esate baterako-, produkzioan duten eginkizuna berdintsua baita: eraldaketarako lehengaiak dira azken batean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 (hitz elkartuetan)

Bizitza maila bera berreskuratu ahal izateko lan gehiago egin beharra (sarrera efektua), jasotako soldatari parte handiagoa kentzen zaionez, aisialdiari probetxu handiagoa ateratzeko desioa baino handiago izan ohi da (**ordezkaketa** efektua). Iñaki Heras

ordezkapen (110 agerraldi, 19 liburu eta 62 artikulutan) 1 iz ordezkatzea. ik ordezpen.

Desohoretzat hartzen zuten oinordekorik gabe hiltzea, esklaboak hartu zituzten oinordekotzat, eta **ordezkapenak** asmatu zituzten. Iñaki Iñurrieta

Agerikoak diren **ordezkapenez** gainera, gaur egun badakigu gorputzeko zelula eta molekula bakoitza etengabeko aldaketa-prozesuan dagoela, desegin eta berregin. Irene Aldasoro

Hitzen **ordezkapenean** datza jolasa, baina hitzaren orde haren definizioa jartzen da. Xabier Olarra

Krosko bakarreko ontzien **ordezkapenak**, gasontzien eskari indartsuak eta itsasoko autobideek sektorea suspertuko dutela aurreratu zuen. Berria - Ekonomia

Ez datoz bat emakumeek gaur egun munduan duten benetako eragina eta gero gizartean, ekonomian eta politikan duten **ordezkapena**. Luis Elberdin

Irudikapena da fenomenorik orokorrena, ikusleari urrutiko errealitate bat, haren lekua hartzen duen beste baten bitartez, "**ordezkapenez**" ikusteko aukera ematen diona. Josu Zabaleta

Niri agertu zaidana izan da hutsuneak dituzten sailak, mordoilotutakoak, diferentzien jokoak, urruntasunenak, **ordezkapenak**, eraldaketanak. Xabier Arregi

2 (eskola, langune eta kidekoetakoa)

Ordezkapen bat egiten ari zen lizeoan. Fernando Rey

Kanboko Xalbador kolegioan eta Ziburuko Larzabal kolegioan **ordezkapen** bat betetzeko, irailetik goiti. Herria

Kazetaria da Jimenez, **ordezkapenak** egiten ditu EITBn, eta ahalik eta irakurterrazen eta erakargarrien idazten saiatzen dela dio. Berria - Kultura

Parisa joan ninduan gero; han **ordezkapenak** egiten nitian kafetegietan, eta, halako batean, Sorbonako tabako-kafetegian egokitu ninduan. Jon Muñoz

Carmiñak, berriz, auzoko *Consum* batean **ordezkapenak** egiteko zoria izaten zuenean, irabazitakoaren zatirik handiena [...] guraso jubilatuei igortzen zien. Iban Zaldúa

Ordezkapenaren bi hilabeteak bukatu zirenean, Andres Madrila itzuli zen; hirurogei duro zeuzkan gordeak. Josu Zabaleta

-Aldi baterako kontratazioak egin beharko zenituzkete, laneko **ordezkapenak** betetzeko. Aingeru Epaltza

Gorpuari azterketa egin zion sendagileak ez zian atsoa ezagutzen, oporretako **ordezkapenak** egiten ari eta. Aingeru Epaltza

Urtarrilean eta otsailen Kutzak egin dituen 50 kontratatuetatik, 43 **ordezkapenekoak** eta «produktio beharren araberakoak» dira eta gainontzeko zazpiak praktiketakoak Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Proposizio hori ez da ordezkapen logikoaren kasua, eta ezin da **ordezkapen** -kasu bihurtu sinonimoen bitartez ere. Askoren artean

"Ez dago ezkondua den mutilzaharrik" ez da **ordezkapen** -motako proposizioa. Askoren artean

«Izugarri» areagotu ziren **ordezkapen** kontratuak, Azkarragaren hitzetan. Berria - Ekonomia

Ordezkapen zerrendetan antzinakotasuna bakarrik ez delako kontuan hartzen. Berria - Euskal Herria

Irakasle horiek beste 17.000 irakaslerekin batera daude **ordezkapen** zerrendatan. Berria - Harian

Ordezkapen lana egiten ari diren 11 langile finko egingo dituzte. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arratsero bezala, eguneko zaindari-**ordezkapena** egiteko tenorean, beti bezalako komedia egin zuten soldaduek, fusilak besaburura eta lurrera behin eta berriz aldatuz aginte-oihu zakarren arabera. Txillardegi

Al Oufi Al Kaedak Saudi Arabian duen uestezko laugarren buruzagia da erakunde islamikoak ez du buruzagi **ordezkapena** baieztatuz. Berria - Mundua

5 ordezkari; ordezkariak.

Espainiako legeek diote nazioarteko **ordezkapena** Espainiako selekzioari soilik dagokiola. Berria - Kirola

Estatuak, ministroen kontseiluan izango duten **ordezkapena** eztabaidatzera mugatu dira batez ere. Berria - Mundua

Emakumeen **ordezkapena**: joan den astelehenean, Gobernu Kontseiluak onartutako testuak finkatzen du legebiltzarkideen %25 emakumeak izan beharko luketela. Berria - Mundua

Irakeko behin-behineko gobernuaren euren **ordezkapena** ez dute nahikotzat jo buruzagi politiko kurduak. Berria - Mundua

Pozik agertu zen, omenaldian Andoaingo Udalean **ordezkapena** duten alderdi guztiek parte hartu zutelako. Berria - Euskal Herria

ERCK lehen halako sei handituko du bere **ordezkapena**. Berria - Euskal Herria

ordezkari 1 iz talde, erakunde edo pertsona baten izenean beste erakunde batean edo toki batean ari den pertsona.

Tierney jaunaren **ordezkarietako** batek kontratatu zuen O'Connor jauna barrutiko alderdi batean boto eskea egiteko. **Irene Aldasoro**

Agintariak Jainkoaren **ordezkari** direlako. **Elizen arteko biblia**

Zakarias aita santuaren **ordezkari** zen San Bonifaziok koroatu eta gantzutu zuelako. **Iñaki Mendiguren**

Etxe hau Asisko kontzejuarena da eta gu hemen kontzejuaren **ordezkari** gara. **Askoren artean**

Üdallerri bakoitzak **ordezkari** edo delegatu bat badu hor. **Herria**

Nafarroako Gobernuo **ordezkari** bati. **Eduarne Elizondo**

Errusia eta Albaniako enbaxadetako **ordezkariak**. **Berria - Mundua**

Demokristauen **ordezkariaren** txanda etorri zen ondoren. **Koldo Biguri**

Ordezkar batzuk hautatzea erabaki dugu aho batez, eta zuengana bidaltzea Bernabe eta Paulo geure senide maiteekin. **Elizen arteko biblia**

Hirugarren belaunaldiaren **ordezkari** hauentzat ingelesa zen etxeko nahiz eskolako hizkuntza. **Iñaki Mendiguren**

Bera zen SSaren aurrean gaitubien **ordezkari**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Moscou-tik Armada Gorriko **ordezkari** bat etorri zen Itsasura, medaila batzuen banatzaera. **Eneko Bidegain**

Ni liburu-saltzailea naiz, enpresa ezagun baten **ordezkaria**. **Koro Navarro**

Lan-talde baten **ordezkari** modura ariko balitz bezala. **Askoren artean**

PSE-EEko **ordezkari** Huertasen proposamena babestea erabaki zuten hirurek. **Berria - Harian**

AEBetako **ordezkari** Richard Lugarrek bitartekari lanak egin zituen Marokoko gerra presoak askatzeko auzian. **Berria - Harian**

Donostiako Gaztelubide Gastronomía Elkarteak **ordezkari** inguru. **Pello Salaburu**

Aralarrek, ordea, **ordezkari** bat lortuko luke Gipuzkoan. **Berria - Euskal Herria**

Batzorde bat izendatua zuen De Gaullek, zientzia-arlo bakoitzeko **ordezkari** ziren hamabi "jakintsu"z osatua. **Juan Garzia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Draco Malfoy harropuztuta zebilen ikastetxean zehar, **ordezkari** nagusi izendatu balute bezalaxe. **Iñaki Mendiguren**

Asiriarr **ordezkari** nagusiak esan zien: [...].

Jainko Handiak ezartzen du, ororen gaineratik, bere **ordezkari** zuzena, Errege subiranoa. **Piarres Xarriton**

-Gobernu berriaren **ordezkari** ofiziala zarela. **Elena Touyarou**

1997an NBEko **ordezkari** berezi James Bakerrek hitzartu zuten erroldak osatuko zituztela bozetan iruzurrik egon ez zedin. **Berria - Harian**

Gizarte zibileko kideak, GKEak, **ordezkari** instituzionalak eta komunitate akademikoko hainbat aditu izan ziren bertan. **Itziar Ezaguirre / Amaia Lizarralde**

Ordezkar politikoa eta herritar ugari bildu zen atzo Hego Euskal Herriko erakundearen aurrean egindako kontzentrazioetan. **Berria - Harian**

Zuzen zabilta, **ordezkari** sindikala izatea ez da astoaren goizeko arrantza. **Javi Cillero**

Presentzia hori egiazko presentziatzat harturik eta ez irudikapenezko **ordezkari**, imajinaziozko **ordezkari** edota **ordezkari** birtual bezala harturik. **Josu Zabaleta**

Servan **ordezkari** orokorrari igorriko dizkiozu, nire goraintziekin. **Elena Touyarou**

-Isilpeko **ordezkariak** azaldu zigunez, AEBetako gobernuaren irriban dago gerran sartzeko -azaldu zidan Mitxelenak-. **Alberto Ladron Arana**

Gobernu berriko **ordezkari** bigarren mailakoak. **Felipe Juaristi**

3 irud/hed

Soloeta-Dima izan zen joera honen **ordezkari** nagusia. **Koldo Zuazo**

Azkena aukeratu zuen, erdibidearen eta tradizioaren **ordezkaria** zelakoan. **Koldo Biguri**

Arkeologia iluministaren **ordezkari** nagusienetako batek, J. B. Leroy-k. **Santiago Iruretagoiena**

Euskal kulturaren **ordezkari** izan zara hainbat herrialdetan. **Ana Urkiza**

Pacheco kardinala, Espainiako interesen **ordezkaria**. **Piarres Xarriton**

Espeziearen **ordezkari** hilkor baten desagintzaren eta beste baten sorreraren artean. **Iñaki Mendiguren**

Alberto Handia eta Tomas Akinokoa teologoak, sasoiko pentsabidearen **ordezkari** ausartak zirela erakutsiz. **Askoren artean**

Pentsamendu ilustratuaren **ordezkari** nabarmenatariko baten, De la Roda ministroaren, eskutik. **Juan Martin Elexpuru**

Orain batera zeuden bi egi forma horien **ordezkari** lehiakideak ados jartzera iristea ala bata edo bestea zelaitik kanpo geratu arte borroka egitea. **Iñaki Mendiguren**

Kultura siriakoaren **ordezkari** ziren andaluziar musulmanengandik hartutako altxorra. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko **ordezkari** bakarra, desintegrazio-seinale ukaezinik ageri ez zuena. **Iñaki Mendiguren**

4 (pertsona ez dena)

Ikuspegi-modu honen **ordezkari** tipikoenak hirurogei ondoko urteetan oso boladan egon ziren teoria "konbinatorio" edo "algoritmikoak" izan dira. **Josu Zabaleta**

Ettxeko egongelan, hala ere, suak ordezkatu zituen bonbilak, aukeran haien **ordezkari** ahulegia zen arren. **Aitor Arana**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Manhattan Proiektuaren ardura eman ziotenean, Grovesek Washingtoneko **Ordezkar** -ganberan izan zuen haserrealdiak hango guztiak beldurtu zituen. **Fernando Morillo**

Steer, *The Times* egunkariaren **ordezkari** lanetan iritsi zen Bilbora. **Jokin Urain**

Alferrik eman zioten apezpiku bakoitzari probintziatiko beren **ordezkari** gradua, kondearen aginteari kontra egiteko. **Iñaki Iñurrieta**

Biltzarrek gutun bat igorri dio Batzarrari, Garat anaiei beren **ordezkari** karguaren kentzeko. **Elena Touyarou**

Gaur egun japoniar **ordezkari** talde batekin ari dira tratuetan, multinazional handi batean integrazteko asmoz. **Iban Zaldúa**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziako erreginaren izenean harremanetan sartu nintzan Iruñeko errege **ordezkariarekin** eta apezpikuarekin, behin betiko muga zehatz baten finkatzeko. **Michel Oronoz**

-Herriak libreki hautatu dituen nazio **ordezkariak** deabruak deitzen dituzu? bigarren planoan, berriz, tribunan zeuden agintari zibilak eta eliz **ordezkariak** agertzen ziren. **Elena Touyarou**

Datan eta Abiram hauek Moises eta Aaronen aurka altxatutako elkarte-**ordezkariak** ziren. **Elizen arteko biblia**

-Bihar, Donibanen beharrak ditugu Parisetik zuzenki datozkigun bi herri **ordezkari**. **Elena Touyarou**

Egunkaria SArene lege **ordezkariak** gaur bertan aurkeztuko du Espainiako Auzitegi Nazionalen likidazio proiektua. **Berria - Euskal Herria**

Alderdi kristau kontserbadoreko prentsa **ordezkaria** da gizona. **Edorta Jimenez**

6 (adizlagun gisa)

Parisen bizi izan da beti, CGTko **ordezkari** Renault Billancourten. **Itxaro Borda**

Horretarako etorri gara, **ordezkari**, Gil de Rolim, Ligel, Lichertes [...] eta ni neu, denetan ezdeusen eta apalena, zure zerbitzari. **Jon Alonso**

Euzkadi'ko Jaurilaritzaren **ordezkari** jarduteak zabalitzen zizkion ateak ahaztu barik. **Edorta Jimenez**

Erreginaren **ordezkari** zegoen han, erran nahi baita, tenpluaren bigarren ordaintzailearena. **Aingeru Epaltza**

Gure hizkuntza honen eta hizkuntza honetan egiten den literaturaren **ordezkari** joan nintzen. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aebetako ordezkari (8); alderdi politikoetako ordezkari (7); alderdietako ordezkari (7); alderdiko ordezkari (5); aralarreko ordezkari (6); batasuneko ordezkari (17); batzordeko ordezkari (11); ccooko ordezkari (5)

eaen duen ordezkari (17); eajko ordezkari (8); eako ordezkari (9); eeko ordezkari (7); eeren ordezkari (5); ekialde hurbilerako ordezkari (7); elako ordezkari (12); elizaren ordezkari (5); elkarteko ordezkari (18); erakundearen ordezkari (8); erakundeko ordezkari (31); erakundeko ordezkari berezi (6); espainiako gobernuaeren ordezkari (14); espainiako gobernuo ordezkari (8); espainiako ordezkari (7); estatuaeren ordezkari (5); euskal herriko ordezkari (5); euskal ordezkari (7); gobernu ordezkari (8); gobernuaren nafarroako ordezkari (25); gobernuaren ordezkari (26); gobernuo nafarroako ordezkari (6); gobernuo ordezkari (19); goi ordezkari (21); herriaren ordezkari (12); herritarren ordezkari (16)

ikasleen ordezkari (6); jaialdiko ordezkari (5); jaurlaritzaren ordezkari (5); kontseilari ordezkari (21); kontseiluko ordezkari (10); labeko ordezkari (17); langileen ordezkari (13); ministerioiko ordezkari (5); nafarroako ordezkari (35); nafarroan duen ordezkari (11); nbeko ordezkari (21); nberen ordezkari (6)

ordezkari aukeratu (5); ordezkari bakarra (26); ordezkari bat izango (9); ordezkari bat lortu (6); ordezkari berezi (44); ordezkari bereziak (8); ordezkari berria (7); ordezkari berriak (8); ordezkari bidali (5); ordezkari bildu ziren (5); ordezkari carlos urkijok (7)

ordezkari gisa (98); ordezkari hautatu (5)

ordezkari izan (28); ordezkari izango (28); ordezkari izango ditu (14); ordezkari izateko (16); ordezkari izendatu (11); ordezkari javier solanak (9); ordezkari jeltzaleak (5); ordezkari kargua (5); ordezkari lakhdar brahimik (5); ordezkari lortu (11); ordezkari marisa diaz (5); ordezkari moduan (6); ordezkari nagusi (17); ordezkari nagusia (22); ordezkari nagusiak (27)

ordezkari ofiziala (5); ordezkari paulino luesmak (6); ordezkari politiko (27); ordezkari politikoak (21); ordezkari politikoei (9); ordezkari politikoei (16); ordezkari politikoen (17); ordezkari politikok (6); ordezkari sindikalak (5); ordezkari sindikalek (14); ordezkari terje roed (5); ordezkari ugari (21); ordezkari ugari bildu (5); ordezkari ugariak (5); ordezkari vicente ripa (13); ordezkari vicente ripak (31); ordezkari xiita (6)

pse eeko ordezkari (7); pse eeren ordezkari (5); psnko ordezkari (6); sindikatuko ordezkari (5); taldeko ordezkari (14)

bere ordezkaria (7); elkarteko ordezkaria (6); espainiako gobernuaren ordezkaria (6); espainiako gobernuo ordezkaria (5); espainiako ordezkaria (5); estatuaeren ordezkaria (5); euskal ordezkaria (6); eusko jaurlaritzaren ordezkaria (5); gobernu ordezkaria (7); gobernuaren ordezkaria (10); gobernuo ordezkaria (7)

jaurlaritzaren ordezkaria (7); kontseilari ordezkaria (26); kontseiluko ordezkaria (5); labeko ordezkaria (5)

ordezkaria izan (14); ordezkaria izan zen (6); ordezkaria izango (7); ordezkaria zen (9)

abko ordezkariak (5); alderdi guztietako ordezkariak (13); alderdi politikoetako ordezkariak (11); alderdietako ordezkariak (26); alderdiko ordezkariak (10); aralarreko ordezkariak (20); aubko ordezkariak (14)

batasuneko ordezkariak (41); batzordeko ordezkariak (19); berdeetako ordezkariak (5)

ccooko ordezkariak (19); cgtko ordezkariak (7)

eaen duen ordezkariak (33); eajko ordezkariak (19); eako ordezkariak (20); eb iuko ordezkariak (8); eeko ordezkariak (7); ehneko ordezkariak (8); elako ordezkariak (39); elkarri ko ordezkariak (5); elkarteen ordezkariak (5); elkarreteako ordezkariak (15); elkarteko ordezkariak (45); enpresetako ordezkariak (8); eragileetako ordezkariak (7); erakundeetako ordezkariak (10); erakundeko ordezkariak (15); erakundetako ordezkariak (9); esk ko ordezkariak (5); espainiako gobernuaren ordezkariak (17); espainiako gobernuo ordezkariak (12); espainiako ordezkariak (6); estatuaeren ordezkariak (6); euskal herriko ordezkariak (8); ezker abertzaleko ordezkariak (10)

gobernu ordezkariak (8); gobernuaren ordezkariak (24); gobernuetako ordezkariak (5); gobernuo ordezkariak (26); gorraiz elako ordezkariak (5); gurasoak elkarteko ordezkariak (6)

hamaseko ordezkariak (5); herri ordezkariak (11); herri plataformetako ordezkariak (6); herrialdeetako ordezkariak (12); herrialdetako ordezkariak (6); hzko ordezkariak (8); iuko ordezkariak (9)

jokalariaren ordezkariak (5); kontseilari ordezkariak (41); kontseiluko ordezkariak (7)

labeko ordezkariak (37); langileen batzordeko ordezkariak (6); langileen ordezkariak (37); lege ordezkariak (5)

ministerioiko ordezkariak (7); nafarroa baiko ordezkariak (5); nafarroako ordezkariak (6); nafarroan duen ordezkariak (14); nazioarteko ordezkariak (5); nbeko ordezkariak (19)

ordezkariak adierazi (22); ordezkariak adierazi zuenez (7); ordezkariak argitu (5); ordezkariak aukeratzeko (11); ordezkariak azaldu (30); ordezkariak azaldu zuenez (13)

ordezkariak bat etorri (5); ordezkariak bidali (7); ordezkariak bildu (35); ordezkariak bildu ziren (20); ordezkariak bilduko (7); ordezkariak bilduko dira (5); ordezkariak biltzen (7)

ordezkariak egin (5); ordezkariak egindako (5); ordezkariak esan (15); ordezkariak esan zuenez (5)

ordezkariak hautatzeko (7)

ordezkariak izan (45); ordezkariak izan ziren (31); ordezkariak izango (19)

ordezkariak jakinarazi (8)

ordezkariak nabarmendu (7); ordezkariak nabarmendu zuenez (5)

ordezkariak salatu (6)

patronaleko ordezkariak (5); plataformako ordezkariak (7); plataformetako ordezkariak (6); ppko ordezkariak (9); pse eeko ordezkariak (7)

sailleko ordezkariak (9); sindikatuetao ordezkariak (46); sindikatuko ordezkariak (17)

taldeetako ordezkariak (11); taldeko ordezkariak (21); tateko ordezkariak (5); txinako ordezkariak (5); udaleko ordezkariak (5); utgko ordezkariak (9)

ordezkariarekin batera (8); ordezkariarekin bildu (5)

batasuneko ordezkariaren (8); elkarteko ordezkariaren (5); espainiako ordezkariaren (5); kontseilari ordezkariaren (11); labeko ordezkariaren (5); ordezkariaren arabera (30); ordezkariaren esanetan (31); ordezkariaren hitzetan (12); ordezkariaren ustetan (5); ordezkariaren ustez (12)

eaen duen ordezkariari (8); kontseilari ordezkariari (8)

gobernuo ordezkariet (5); langileen ordezkariet (27); taldeetako ordezkariet (5)

alderdi politikoetako ordezkariet (8); alderdietako ordezkariet (31); aralarreko ordezkariet (11)batasuneko ordezkariet (13); batzordeko ordezkariet (16)

eajko ordezkariet (7); eako ordezkariet (8); eb iuko ordezkariet (5); ebko ordezkariet (5); eeko ordezkariet (11); elkarreteetako ordezkariet (10); elkarteko ordezkariet (17); enpresako ordezkariet (6); enpresetako ordezkariet (6); eragileetako ordezkariet (7); erakundeetako ordezkariet (22); erakundeko ordezkariet (15); erakundetako ordezkariet (9); erkidegoetako ordezkariet (5); espainiako gobernuo ordezkariet (5); estatuetako ordezkariet (6); etxerat eko ordezkariet (5); gobernuo ordezkariet (22); herri plataformetako ordezkariet (6); herrialdeetako ordezkariet (9); herritarren ordezkariet (5); hzko ordezkariet (9)

iuko ordezkariet (6); jaurlaritzako ordezkariet (10); klubetako ordezkariet (6); labeko ordezkariet (8); langileen batzordeko ordezkariet (7); langileen ordezkariet (76); nafarroako gobernuo ordezkariet (6); nazioarteko ordezkariet (5)

ordezkariet adierazi (6); ordezkariet azaldu (10); ordezkariet azaldu zutenet (6); ordezkariet egin (6); ordezkariet elkarretaratzea (6); ordezkariet esan (10); ordezkariet hartu (12); ordezkariet hartu zuten (9); ordezkariet osatuko (7); ordezkariet osatutako (5); ordezkariet osatzen (9); ordezkariet osatzen dute (8); ordezkariet parte hartu (10); ordezkariet parte hartuko (5); ordezkariet sinatu (5)

plataformetako ordezkariet (7); ppko ordezkariet (12); pse eeko ordezkariet (11); sindikatuetao ordezkariet (47); sindikatuko ordezkariet (12); taldeetako ordezkariet (13); taldeko ordezkariet (7)

udal ordezkariet (9); zuzendaritzako ordezkariet (5)

alderdietako ordezkariet (10); batasuneko ordezkariet (10); eeko ordezkariet (6); erakundeetako ordezkariet (6); gobernuo ordezkariet (11); langileen ordezkariet (21)

ordezkariet (24); ordezkariet (55); ordezkariet (29); ordezkariet (16); ordezkariet (8); ordezkariet (7); ordezkariet (5); ordezkariet (5); ordezkariet (5); ordezkariet (6)

pse eeko ordezkariet (6); taldeko ordezkariet (5)

alderdietako ordezkariet (7); gobernuo ordezkariet (8); idahoko ordezkariet (6); langileen ordezkariet (14)

ordezkariet (6); ordezkariet (13); ordezkariet (27); ordezkariet (20); ordezkariet (6); ordezkariet (5); ordezkariet (7); ordezkariet (5)

ordezkariet parte hartzea (5); ordezkariet ustez (5)

udal ordezkariet (6)

ordezkariet gain (6)

ordezkariet (6)

ordezkariorde 1 iz idazkariaren azpikoa den pertsona, zenbait betekizunetan haren ordezko dena.

Victor Morlan Sustamen Ministerioko Azpiegitura eta Planifikaziorako Estatu idazkaria eta Espainiako Gobernuo Aragoiko ordezkari eta Huescako **ordezkariorde** Javier Fernandez eta Ramon Zapatero. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Gobernuaren Arabako **ordezkariordeak**, Gloria Sanchezek, ertzainak atzo goizaldean Arrentiako Bentetan izan zuen erasoa «gogor» salatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Gobernuaren Burgosko **ordezkariorde** Berta Triciok jakinarazi zuen Novo Villarren deklarazioaren mamia: [...]. **Berria - Euskal Herria**

Generalitateko Gizarte Ongizate sailburu Alicia de Miguel eta Espainiako Gobernuaren duen **ordezkariorde** Luis Felipe Martinez ere joan ziren ezbeharraren berri jakin zutenean. **Berria - Mundua**

2 (hitz elkartuetan)

Euskal gizarteak Guardia Zibilarekin «zorrak» dituela esan zuen Espainiako gobernu **ordezkariordeak** La Salve kuartelean. **Berria - Euskal Herria**

ordezkariordetza iz ordezkariordea dagoen bulegoa. ik ordezkaritzaorde.

Prestige ontziak kalte egin dien 44 arrantzontziren eskaerak tratamitatu zituen abenduan Espainiako Gobernuak Bizkaian duen **Ordezkariorde**. **Berria - Euskal Herria**

ordezkaritza 1 iz ordezkararen kargua eta bekekizuna; ordezkarien multzoa.

Hasiera-hasieratik Jaurilaritzaren **ordezkaritza** horiekin aliatuen alde lanean ibilia zen. **Edorta Jimenez**

Juan Jose Lizarbe PSNko **ordezkaritzako** buruak ere «elkar ulertzeko giroa» espero du. **Berria - Euskal Herria**

ERC alderdiko **ordezkaritza** batekin 2004ko urtarilean izandako bilera. **Berria - Euskal Herria**

Osasunerako Mundu Erakundeak Txinan duen **ordezkaritzako** bozeramailea da Roy Wadia. **Berria - Gaiak**

Eta oroitu duzu eginbide lauso bat duzula, **ordezkaritza** bat, zein, zergatik eta zertarako den zehaztu ezin izango duzun arren. **Joseba Sarrionandia**

Halako batean, Stalin sartu zen **ordezkaritza** biak biltzen ziren gelan. **Iban Zaldúa**

Zazpi laguneko **ordezkaritza**. **Berria - Euskal Herria**

Praiatik etorritako **ordezkaritza** ofiziala han zegoelako. **Bego Montorio**

Sar dadila **ordezkaritza** bat, zuetako lauk osatua gehienez ere. **Josu Zabaleta**

Gizartearen **ordezkaritza** zabala gonbidatuen artean. **Berria - Harian**

Ordezkaritza politiko bati zegokion tratua eman ziguten. **Berria - Harian**

Zerrendetan gorabeherak egonez gero, litekeena baita emakumeen **ordezkaritzak** behera egitea. **Berria - Harian**

Hamaseko **ordezkaritza** bat ere izan zen atzo Kairon. **Berria - Mundua**

Zer madarikatu badute **Ordezkaritzakoek**. **Edorta Jimenez**

2 ordezkaritzaren egoitza.

Baionan Euskaltzaindiak duen **ordezkaritzan**. **Herria**

Espainiako Gobernuaren Arabako **ordezkaritzari** koketelez eraso diote. **Berria - Euskal Herria**

Peruko Enbaxada eta Uruguaiako **Ordezkaritza**, biak eraikin berean dagozela-eta bigarren horretako ministroari deitu dio. **Edorta Jimenez**

Galindez, gerra hasi denez geroztik Manuel Irujo eta Euzkadi'ko **Ordezkaritza** zaintzeaz arduratuko den Guardiako kidea da. **Edorta Jimenez**

Sukaldeko leihotik erakunde publiko batekin betetzen zuen eraikina ikusten zuen; berak ez zekien zer erakunde zen, epaitegia ote zen, ministerioaren **ordezkaritza** ote zen, gobernu autonomikoaren departamentu bat ote zen. **Jon Alonso**

Gasteizko Lan Zuzendaritzaren **ordezkaritzan**. **Berria - Ekonomia**

Baina hara non, telebista piztu, eta simaur pilo bat ikusi nuen Britainia Handiko **ordezkaritza** baten aurrean. **Hasier Etxeberria**

3 ordezkatzea; ordezkaritza izatea.

Babeserako Batzarrean **ordezkaritza** zeukaten indar politiko eta sindikalak ez ziren ados jartzen nola jokatu behar zuten. **Inazio Mujika Iraola**

HZk, legekoa izanda ere, boto kopurua bikoiztea ere ez luke aski, **ordezkaritza** lortzeko. **Berria - Euskal Herria**

Gero eta jende gehiagok aitortzen diote FLNri aljeriarren **ordezkaritza**. **Xabier Montoia**

Gehienetan arazo pertsonalak izaten dira tartean; boterea, **ordezkaritza**, hitza, borrokari buruz bakoitzak irudikatu nahi duen argazkia. **Eduardo Elizondo**

Ordezkaritza honek egiten du, beren sakramentu-eginkizuna bete dezaten. **Joan Mari Lekuona**

Vitruvioren teoria nekez iritsi zitekeen arkitektura erromatarren **ordezkaritza** literarioa beretzat hartzea, arkitektura horrek Vitruvio hil ondoren izan baitzuten kronologikoki bere garapen eta gauzatzetik original eta ikusgarrienak. **Santiago Iruretagoiena**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hashim Thaci da albaniarren **ordezkaritza** taldearen burua negoziatioetan. **Berria - Mundua**

Txilen, Eusko Jaurilaritzaren **ordezkaritza** bulego bat inauguratzeko asmoa du Zenarrutzabeitiak. **Berria - Ekonomia**

Ordezkaritza krisi bat dago herrialdean: zenbait giro sozialetan jendea ez da ordezkatuta sentitzen. **Berria - Harian**

Lanpostuak baldin badira ere, egonkortzen ez dituzten **ordezkaritza** postuak dituzte bakarrik eskaintzen. **Berria - Harian**

Herritarren zeharkako **ordezkaritza** botoen bidez. **Berria - Mundua**

Demokraziaren ibilera egokia **ordezkaritza** egiturak berri indarrean jartzearekin eta hauteskondeak lehenbailehen antolatzearekin gauzatu behar da. **Berria - Mundua**

EEPK guk luzaz egin **ordezkaritza** lana bere gain hartu badu ere, kulturaren bitartez euskara biziarazteko ekintzak egiten segitzea erabaki dugu. **Berria - Kultura**

Indar politiko suniten **ordezkaritza** maila nabarmen hazi egin dela. **Berria - Mundua**

LAB eta CCOO sindikatuen **ordezkaritza** portzentaiek gora egin zuten Hego Euskal Herrian iaz 2002koekin alderatuta. **Berria - Ekonomia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pio Barojaren editoreak Prentsa eta Propaganda **Ordezkaritzara** igorri zuen kopia. **Berria - Kultura**

Lurralde **ordezkaritzaren** bidez «autonomien arteko elkartasuna» bermatzen duen Senatuaren erreforma aldarrikatu zuen. **Berria - Mundua**

Murostik etorritako Carmiñaren ahaide-**ordezkaritza** murriz eta zalapartatsua landa, jende gutxi hurreratu zen: adiskide pare bat eta gure aita. **Iban Zaldúa**

Herriko etxean errezebitua izan da buraso **ordezkaritza** bat. **Herria**

Alde batetik, horrenbestez zientzia-ikerikuntzaren garrantzia aitortuz, ikerikuntza-**ordezkaritza** bat sortu zuen. **Juan Garzia**

Elkartearen kanpo **ordezkaritza** ereman, proiektu berriak landu irratien garapenerako, partaidetzak negoziatu, txostenak osatu... **Herria**

Bihar Jaurilaritzako Industria Sailarekin bilera egingo du enpresa **ordezkaritzak**. **Berria - Ekonomia**

- Mexikon gandi ibili berria da Onatiar enpresa **ordezkaritza** andana bat, auzapezarekin joanik. **Herria**

6 ordezkaritza izan du ad

Parlamentuan **ordezkaritza** duten alderdi guztien buruek, ekitaldiaren inguruan, guztiz balantze baikorra egin dute. **Berria - Mundua**

Udalean **ordezkaritza** duten talde guztiei eskatu zieten gaztetxearen inguruan duten iritzia «argi eta garbi» plazaratzeko. **Berria - Euskal Herria**

Kurduak **ordezkaritza** izan dezakete Legebiltzarrean. **Berria - Mundua**

Formula bat bilatu beharko litzateke, hain zuzen horren bidez munduko herriek eta herritarrek **ordezkaritza** izan dezaten munduko gobernamenduaren nondik norakoa gidatzen duten instituzio globaletan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Gauza harrigarrienetako bat New Yorkeko Polizia Departamenduko kideen koadrila batek gay eta lesbianen desfilean **ordezkaritza** izatea dateke. **Harkaitz Cano**

- Euskal txirindulariek **ordezkaritza** zabala dute aurten Euskal Herriko Itzulian. **Berria - Kirola**

ELAk Gipuzkoan %44,38ko **ordezkaritza** du, CCOO %16,28koa eta UGTk %7,9koa. **Berria - Ekonomia**

Legeak dio bezeroek gutxienez %25eko **ordezkaritza** izan behar dutela Batzar Nagusian. **Berria - Ekonomia**

alderdiaren ordezkaritza (3); batasunaren ordezkaritza (6); batasuneko ordezkaritza (5); batzordearen ordezkaritza (6); dagokien ordezkaritza (5)

ebn ordezkaritza (3); eragileen ordezkaritza (5); espainiako gobernuaren ordezkaritza (3); espainiako kongresuko ordezkaritza (3); estatuaren ordezkaritza (3); euskal gizartearen ordezkaritza (4); euskal herriaren ordezkaritza (4); euskal herriko ordezkaritza (10); euskal ordezkaritza (15); gizartearen ordezkaritza (5); gobernuaren ordezkaritza (7); gobernuko ordezkaritza (5); gure ordezkaritza (6); hautatutako ordezkaritza (3); herri ordezkaritza (5); herrialdetako ordezkaritza (3); herrien ordezkaritza (3)

jaurlaritzaren ordezkaritza (5); kanpo ordezkaritza (3); kongresuan ordezkaritza duten (10); kongresuko ordezkaritza (4); kontseiluko ordezkaritza (3); langileen ordezkaritza (4); legebiltzarrean ordezkaritza (16); legebiltzarrean ordezkaritza duten (5); legebiltzarrean ordezkaritza lortzeko (3); legebiltzarreko ordezkaritza (3); lortutako ordezkaritza (3); mahaian ordezkaritza izatea (3); nafarroako ordezkaritza (5); nazio ordezkaritza (3); nazioarteko ordezkaritza (10)

ordezkaritza bakarra (3); ordezkaritza bat bidali (8); ordezkaritza bat bidaliko (3); ordezkaritza bat igorriko (3); ordezkaritza bat iritsi (3); ordezkaritza bat izan (3); ordezkaritza batekin bildu (5); ordezkaritza bermatzeko (4); ordezkaritza bidali (10); ordezkaritza bidali du (5); ordezkaritza bidaliko (8); ordezkaritza diplomatikoan (3); ordezkaritza du (3); ordezkaritza duen (11); ordezkaritza duten (45); ordezkaritza duten alderdi (12); ordezkaritza duten sindikatu (4); ordezkaritza duten talde (4); ordezkaritza gehien duten (3); ordezkaritza handia (4); ordezkaritza handiagoa (6); ordezkaritza handiena (3); ordezkaritza hartu (3)

ordezkaritza izan (16); ordezkaritza izan dezaten (4); ordezkaritza izango (15); ordezkaritza izango dute (4); ordezkaritza izatea (15); ordezkaritza izateko (14); ordezkaritza izateko aukera (3); ordezkaritza lana (4); ordezkaritza lortu (8); ordezkaritza lortu zuten (3); ordezkaritza lortzea (4); ordezkaritza lortzeko (11); ordezkaritza lortzeko aukera (3)

ordezkaritza osatu (3); ordezkaritza politiko (8); ordezkaritza politikoa (9); ordezkaritza politikorik (5); ordezkaritza propioa (3); ordezkaritza sindikalaren (7)

ordezkaritza zabal (10); ordezkaritza zabal batek (6); ordezkaritza zabalak (44); ordezkaritza zabalak bildu (3); ordezkaritza zabalak izan (4); ordezkaritza zabalak izango (7); ordezkaritza zabalagoa (3); ordezkaritza zabalak (3); ordezkaritza zuzena (10); ordezkaritza zuzena izatea (3)

parlamentuan ordezkaritza duten (3); sindikatuen ordezkaritza (5); taldeko ordezkaritza (3)

udalean ordezkaritza (5); udalean ordezkaritza duten (5)

araban duen ordezkaritzak (3); argentinako ordezkaritzak (3)

eaeko ordezkaritzak (3); eaen duen ordezkaritzak (4); espainiako gobernu ordezkaritzak (3); espainiako gobernuaren ordezkaritzak (3); espainiako gobernuko ordezkaritzak (5); espainiako ordezkaritzak (3); euskal ordezkaritzak (6); gobernu ordezkaritzak (5); gobernuaren nafarroako ordezkaritzak (5); gobernuaren ordezkaritzak (3); gobernuko ordezkaritzak (5)

nafarroako ordezkaritzak (7); nafarroako ordezkaritzak jakinarazi (3); nafarroan duen ordezkaritzak (6)

ordezkaritzak jakinarazi (7); ordezkaritzak jakinarazi duenez (3); ordezkaritzak jakinarazi zuenez (3)

gobernu ordezkaritzako (3); ordezkaritzako arduradun (3); ordezkaritzako arduradunak (3); ordezkaritzako buru (4); ordezkaritzako burua (3); ordezkaritzako buruak (4)

gobernu ordezkaritzan (3); lan ordezkaritzan (3)

bilbon duen ordezkaritzaren (3); espainiako gobernu ordezkaritzaren (3); espainiako gobernuaren ordezkaritzaren (4); langileen ordezkaritzaren (4); nafarroan duen ordezkaritzaren (5)

ordezkaritzaren arabera (5); ordezkaritzaren aurrean (15); ordezkaritzaren bidez (3); ordezkaritzaren buru (6); ordezkaritzaren gehiengoa (6)

ordezkaritzari dagokionez (5)

gobernuaren ordezkaritzatik (3)

ordezkaritzaburu iz ordezkaritza baten buru den pertsona.

IAEAK, ostera, aukera hori egingo balu, krisiari irtenbide diplomatiko bat aurkitzea zaila izango dela ohartarazi zuen joan den igandean Irango **ordezkaritzaburu** Ali Larijanik.

Berria - Mundua

ordezkaritzaorde 1 iz ordezkariordearen kargua eta bekekizuna; ordezkariordea dagoen bulegoa. ik ordezkariordetza.

Hala jakinarazi du Espainiako Gobernuaren Bizkaiko **Ordezkaritzaordeak** eta Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak. **Berria - Euskal Herria**

Orube horretan Espainiako administrazioaren zenbait bulego jartzeko beste eraikin bat egin zen, egun ere badirenak: Espainiako **Ordezkaritzaordea**, Espainiako Poliziaren komisaria bat, Ogasunaren egoitza bat, bai eta lehengo epaitegiak ere. **Berria - Kultura**

SOS Arrazakeriak elkarretaratzea egin zuen atzo arratsean, Espainiako Gobernuaren **Ordezkaritzaordearen** aurrean. **Berria - Euskal Herria**

ordezkaritzaordetza iz ordezkaritzaordea.

Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako **Ordezkaritzaordetzak** adierazi zuenez, ezkutuko bidaiariek ez zuten eskatu ontzitik jaista. **Berria - Euskal Herria**

Ordezkaritzaordetzak gehitu zuenez, «Bizkaiko hondartzak itxuraz garbi daude». **Berria - Euskal Herria**

Espainiako Gobernuaren **ordezkaritzaordetzak** debekatu egin zituen aukokideek bere egoitzaren aurrean egin nahi zuten elkarretaratzea. **Berria - Euskal Herria**

ordezkatu (2059 agerraldi, 131 liburu eta 1212 artikulutan), ordezka, ordezkatzen 1 du ad norbait edo zerbait beste norbaiten edo zerbaiten ordez jarri; ordez aritu. ik ordeztu; ordainkatu. (norbait)

Ez nekien nork **ordezkatu** ninduen. **Daniel Landart**

Abas **ordezkatu** zuen bizargin xaharrarengana hurreraturik, eskua luzatu, eta esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Badakizu ni zaharra naizela eta, nire erresuma gobernatzeko, ez dudala ni **ordezkatuko** nauen inor. **Patxi Zubizarreta**

Denbora pilo bat ematen nuen han, eta Nancyren senarra Aurorak eta Lucyk **ordezkatu** zutelarik, etxe hura osoa emakumezkoen unibertso bat bilakaturik zen. **Oskar Arana**

Herri tipietako jendeek ez zituzten onartzen beren apezak **ordezkatzen** zituzten apez zinegileak. **Elena Touyarou**

Abokatu laborista gazte batek **ordezkatu** zuen, Tony Blairrek. **Berria - Harian**

Anai Leonardo, Saxoniako kustumodua, [...] Cremonan, bere jaioterrian, hil zen, eta Höxtergo Bertoldo anaiak **ordezkatu** zuen. **Askoren artean**

Helburuak lorturik, emakumeen trafikatzaila agerian etorri ohi zen maitalea **ordezkatzea**. **Patxi Zubizarreta**

Une batez, bikoitzasuna baliatuz fantasiako Cesar aluzinatu eta inexistenteak benetako Cesar **ordezkatu** ote zuen iruditu zitzaion. **Harkaitz Cano**

Hogei jokolari arizan dira, Garbajosa Thomas Castaignède-n ordez, Chabal Hariñoordoquy-ren ordez, Privat-ek Brouzet **ordezkatzen** zuela, Marconnet-ek Pieter de Villiers eta Rué Ibañez. **Herria**

2 (zerbait)

Anak, argi nagusia iraungi eta mahaiaren gaineko lanpara tipiaz **ordezkatu** zuen, esku batekin kontzen zidala beti. **Aingeru Epaltza**

Tarantasa **ordezkatzeko** beste zalgurdi bat erostea, ordea, ezinezkoa zen. **Karlos Zabala**

Etxeke egongelan, hala ere, suak **ordezkatu** zituen bonbilak, aukeran haien ordezkarri ahulegia zen arren. **Aitor Arana**

Bigarrena: petrolio energia berriztagarriekin **ordezkatzea**. **Berria - Harian**

Organo horiek eginkizun mekanikoak dituzte funtsean, eta arrazoizkoa da pentsatzea ea **ordezka** ote daitezkeen erabat hondatu baino lehen, beste edozein makinatan osagai matxuratuak aldatzen diren bezala. **Irene Aldasoro**

Justiziaren sinboloa, balantza alegia, ezin **ordezka** liteke beste edozein gauzakiz, orga batez, adibidez. **Isabel Arrigain**

Birfindegiek **ordezka** al dituzkete agortzen diren petrolio-hobiak? **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Zenbait azpiegitura elektriko, ostera, itxi egingo dira, baina gasezko ziklo konbinatuko lantegi berriekin **ordezkatzea** erabaki dute. **Berria - Ekonomia**

Inportazioak **ordezkatzea** nahiz esportazioak sustatzea antolamendu bertikala duten industrializazio-estrategiak dira. **Koro Navarro**

Sistemak ez du itzultzailea **ordezkatu**, baizik eta haren lagungarri izango da. **Berria - Harian**

Izuaz **ordezkatu** nuen bada eskas zitzaidan sentikortasuna. **Jon Muñoz**

Aspertasuna sinesmena **ordezkaten** duen gaitza duzu. **Patxi Zubizarreta**

Dirua **ordezkaten** duen paper zirkulatzaile bat. **Iñaki Iñurrieta**

Euro izeneko gure diru berriak 1999ko urtarrilaren 1ean **ordezkatu** zituen euroaren eremuko diru nazionalak. **Iñaki Heras**

Irriñoa desagertua zitzaion, damuaren errezel goibelak **ordezkatu**. **Aingeru Epaltza**

Langileak izan behar, naturak ukatzen ziena **ordezkatzeko**. **Iñaki Iñurrieta**

Perpaus batean osagai bat erreferentzia bereko beste osagairen batekin **ordezkaten** badugu, ez da horrenbestez perpausaren egia-balioa aldatuko: "Atxaga asteasuarra da" eta "Joxe Irazu asteasuarra da" perpausak egia-balio bera dute. **Askoren artean**

3 (fonetikan)

Eskuarki, herskari horiek ezpainkari-horzkariez **ordezkaten** dira. **Isabel Arrigain**

Funtsean letra bakoitzak fonema bat irudikatzen du, salbuespenak badaude ere: bi letra fonema bakar baterako (tx, ts, tz, tt, dd), letra bat bi fonemarako (x, kasu batzuetan), eta fonemarik **ordezkaten** ez duten letrak (h, zenbait euskalkitan). **Iñaki Arranz**

4 talde, erakunde edo pertsona baten izenean beste erakunde batean edo toki batean aritu.

Hiriko hedabide guztiak **ordezkaturik** zeuden zubi gainean: agentziak, irriatiak, telebistak eta nirea bezalako egunkariak ere bai. **Aingeru Epaltza**

Gure sindikatua independentista den bakarra da eta langileen %70 **ordezkaten** ditu. **Berria - Mundua**

Sindikatu asko oso urrun daude **ordezkaten** dituzten langileengandik. **Berria - Ekonomia**

Euskal Autonomia Erkidegoko Editoreen Elkarteak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauden 47 argitaletxe **ordezkaten** ditu. **Berria - Harian**

Badirudi bost hiritar horiek herriko bost klaseak **ordezkaten** zituztela, eta ez zela kontuan hartzen seigarrena, ezer ez zutenena. **Iñaki Iñurrieta**

Nirekin datoz Olabarrieta, Barrendo, Peli de Larrañaga, Amadoz, Nafarroa **ordezkatu**. **Jokin Uraín**

Garat anaiak beste hiru diputaturekin batean hautatuak izan ziren Batzarrean Lapurdiren **ordezkatzeko** edota lapurtarren eskubideen defendatzeko. **Elena Touyrou**

Bi gobernadore nagusik **ordezkaten** dute tsarraren agintaritza gorena lurralde zabal hartan. **Karlos Zabala**

5 irud/hed

Otsok bortizkeria itsua, ankerkeria, odol-zalekeria eta, oro har, gaizkia **ordezkaten** du; baina baita indarra, ausardia, askatasuna -hezigaiztasuna- eta gizakiok miresten ditugun beste dohain asko ere. **Martin Anso**

Tomas Akinokoak, ordea, Aristotelesen araberako joera humanista **ordezkaten** du etika eta politikan. **Askoren artean**

Giro horretan, ETAK **ordezkaten** duen borroka armatuaren gaiak gogorrenentzat, bai eta horien hegalpean monopolizatzen den euskarak epelagoentzat, merkatuko zere aberatsa osatzen du. **Itxaro Borda**

Instituzioetan egon ala ez, Ezker abertzaleari bere interlokuzioa **ordezkaten** duen herri eremutik datorchio. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainia **ordezkatu** (4); **ordezkatu zuen karguan** (3)

entrenatzaileak **ordezkatu** du (5); **espainia ordezkatuko** (4); **herria ordezkatuko** (3); **nork ordezkatuko duen** (8); **ordezkatu du karguan** (3); **ordezkatu duen erakunde** (4); **ordezkatu duen hautagaitza** (3); **oskar lasa ordezkatuko** (3)

europako batasunean **ordezkatu** (3); **eusko legebiltzarrean ordezkatuta** (3); **guztiak daude ordezkatuta** (3); **kontseiluan ordezkatuta** (3); **legebiltzarrean ordezkatuta** (6); **legebiltzarrean ordezkatuta dauden** (3); **ondo ordezkatuta** (3); **ordezkatu egon** (10); **ordezkatu egongo** (5); **ordezkatu egotea** (5); **ordezkatu sentitzen** (3)

ordezkatea erabaki (5); **ordezkatea proposatu** (3)

inor ordezkatzeko borondaterik (3); **langileak ordezkatzeko** (4)

ordezkateko ardura (7); **ordezkateko asmoa** (3); **ordezkateko asmorik** (5); **ordezkateko aukera** (6); **ordezkateko borondaterik** (3); **ordezkateko erabakia** (3); **ordezkateko fitxatu** (3); **ordezkateko gai** (3); **ordezkateko hautagai** (13); **ordezkateko hautagai nagusia** (4); **ordezkateko hautagai nagusiak** (3); **ordezkateko hautagaiak** (4); **ordezkateko hautagaietako** (3); **ordezkateko hautagaietako bat** (3); **ordezkateko prest** (3)

presidentea ordezkatzeko (4)

alderdiek ordezkatzen (3); **batasuna ordezkatzen** (6); **borondatea ordezkatzen** (5); **euskal herria ordezkatzen** (4); **ezer ordezkatzen** (3); **gehiago ordezkatzen** (3); **gehiengoa ordezkatzen** (10); **gizarte osoa ordezkatzen** (3); **gizartea ordezkatzen** (3); **guk ordezkatzen** (4); **guztia ordezkatzen** (3); **guztiak ordezkatzen** (8); **haiek ordezkatzen** (6); **herria ordezkatzen** (8); **herria ordezkatzen duen** (3); **hori ordezkatzen** (3); **hura ordezkatzen** (7); **interesak ordezkatzen** (3); **langileak ordezkatzen** (3); **ondo ordezkatzen** (5); **ordezkaten ahal** (3); **ordezkaten ari** (3); **ordezkaten baititugu** (3); **ordezkaten ditu** (18); **ordezkaten ditu eta** (3); **ordezkaten dituen** (22); **ordezkaten ditugu** (6); **ordezkaten dituzte** (18); **ordezkaten dituzten** (23); **ordezkaten du** (44); **ordezkaten du eta** (5); **ordezkaten duela** (18); **ordezkaten duelako** (8); **ordezkaten duen** (76); **ordezkaten duen paper** (3); **ordezkaten duena** (3); **ordezkaten dugu** (3); **ordezkaten dute** (24); **ordezkaten dutela** (7); **ordezkaten duten** (35); **ordezkaten dutena** (3); **ordezkaten duzun** (3); **ordezkaten esan** (4); **ordezkaten eta** (3); **ordezkaten ez** (13); **ordezkaten ez duen** (3); **ordezkaten ez duten** (3); **ordezkaten zituen** (6); **ordezkaten zituzten** (8); **ordezkaten zuela** (3); **ordezkaten zuen** (16); **ordezkaten zuten** (6); **osoa ordezkatzen** (8); **zati bat ordezkatzen** (6); **zer ordezkatzen** (3)

ordezkatzaille *izond/iz* ordezkatzen duena.

Langileek uko egin zieten ordura arteko lotura sindikalei eta enpresa guztietan batzar **ordezkatzailleak** eratu ziren. **Berria - Ekonomia**

Haatik, ez dauka hauteskunde bidez osatua den instituzio **ordezkatzailerik**. **Berria - Euskal Herria**

Sekretua argitu bitartean, idazle askok zurrutari ematen dio edabe zoragarriaren **ordezkatzaille** gisa. **Anjel Lertxundi**

Zinema, egiazko presentziarik batere eskaintzen ez duenez, bi zentzuetan -ohikoan eta teknikoan- irudimenezkoak diren **ordezkatzailleez**, adierazleez osatua da. **Josu Zabaleta**

2 (fonetikan)

Bilkura **ordezkatzaillea** ordezkatua baino ahulagotzat har daiteke, bilkura osatzen duten tasunen konbinaketa errazagoa bada ekoizpen ahaleginaren aldetik eta ahulagoa oharrenaren aldetik. **Lourdes Oñederra**

3 ordezkaria.

Langileak eta CFDT sindikataren **ordezkatzaillea** biziki kezkatuak ziren bilkura sartzean. **Herria**

«Gizarteko sektore jakin bat ez dago ondo ordezkatua, eta hori ez da Iraken mesederako izango», esan du, aurki kabinetean dauden hutsuneak «sunita sinesgarri eta **ordezkatzailleek** betetzea» espero duela adieraztearekin batera. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan)

Beren **ordezkatzaille**-izaeraz abusatuko balute, kargua utziaraziko zaie atzera etxera bidaliz; haiek beren nagusiaren aurrean salatzea ere badago, eta hartara hau haien epaile edo sopikun bihurtuko litzateke **Iñaki Iñurrieta**

ordezkatzete 1 *iz* norbait edo zerbait beste norbaiten edo zerbaiten ordeak jartzea. **ikordezkaketa; ordezkapen.**

Zikiratzearrekin ordaintzen du norberak autoritate sinbolikoaren **ordezkatzete** hori. **Joseba Zulaika**

Eurek jasotzen duten eraldaketa, euren txandakatzearen, banaketaren eta **ordezkatzearen** jokia. **Xabier Arregi**

Matematikaren arlotik datozkigun kontzeptuak hizkuntzara bihurtuta, honako eragiketa hauek bereizten ditu bere sailkapenean: gehitzea, kentzea, bidertzea, konbinatzea eta **ordezkatzete**. **Iñaki Arranz**

Latino Amerikako industrializazioa, inportazioen **ordezkatzete** bidezkoa. **Koro Navarro**

Horien erdiak **ordezkatzete** proportzionalaren arabera hautatuko dituzte, eta beste erdiak, aldiz, ohiko hauteskunde barrutien arabera. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

- Britainiar arbitroak ingulduak aintzatuena luma zitatean ezpataren **ordezko**, lehia zuzentzeko tresna gisa. **Iñaki Mendiguren**
Oroimena zuen liburuen **ordezko**. **Askoren artean**

5 (-en atzikiaren eskuinean izenondoekin)

Abandonua eta autokontrola sormenaren **ordezko** alternatiboak dira. **Iñaki Mendiguren**

Ikuspegi beretik, komunismoa Ekialdeko kristautasun ortodoxoaren **ordezko** ideologikotzat hartu ahal izango litzateke, liberalismoaren orde z hautatua. **Iñaki Mendiguren**

Nahiz eta bere sortzailea hil, arabiar inperiogile primitiboak erori, arabiarren **ordezko** iraniarrak gainbehera joan, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Ez baitut uste hitz ilun honen **ordezko** egokirik inork asmatuko didan. **Patziku Perurena**

Oraingo kudeaketa moduen osagarri -edo **ordezko**- egoki izan litezkeen tresnak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

6 (-en atzikiaren eskuinean bestelakoetan)

Begira, hauxe izango da nire **ordezkoa**. **Karlos Zabala**

Hura baita erregeren **ordezkoa** Nafarroa Beherean. **Aingeru Epaltza**

Gosaltzeko, ogi lehorra kafearen **ordezkoarekin**. **Josu Zabaleta**

Optikan izana nintzen eta hango gizona nire dioptriak neurtzen tematua zen, hautsitako kristalen **ordezkoak** zuzen paratu beharrez. **Aingeru Epaltza**

"El Cuartel Real", Zazpi Urteetako gerratean Oñatin argitara zen "Diario Oficial" delakoaren **ordezkoa** izango zena. **Txillardegi**

Amaierako oharrak: oinaldeko oharren **ordezkoak** dira eta testu osoaren atzeko aldean, bibliografiaren aurretik, idazten dira. **Askoren artean**

7 (hitz elkartuetan)

Unibertsitate hartako araudiak ez baitzuten onartzen erreinutik kanpo erdietsi titulu arrotzak, Azpilkuetak behin batean irakasle-**ordezko** baten lanik baizik ez zuen egin ahal izan. **Piarres Xarriton**

8 (adizlagun gisa)

Kafkak beste zerbaite eman dio **ordezko**. **Oskar Arana**

Burdinazko gizon hau hartzen zuten **ordezko**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Erregina Joanak, Arroxelara partitzean, Agaramont kendu eta Arros utzi zuen bere **ordezko**, armadaburu eta lotinant jeneral. **Aingeru Epaltza**

Deserosotasun horren ondorioz edo haren **ordezko**, ugari edan zenuen; nik ere bai. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hegoaldean potajea, jaki frijitua edo, **ordezko**, tripakiak, flana eta fruta. **Edorta Agirre**

9 ordezko pieza

Buxia berriak, delkoaren tapa berri bat eta beste hainbat **ordezko pieza** ordaindu beharko ditut, baina kezka bakarra daukat, tramankulu zahar hori prest edukitzea berrito errepeidean ibiltzeko. Autoentzako **ordezko piezak** saltzen dituzten dendetako langileei. **Oskar Arana**

Horrela hasten da abiatzen, nekez, karabana kondenuatu hau! **ordezko piezarik** gabe, pneumatikorik gabe, gasolinarik gabe, mekanikaririk gabe. **Josu Zabaleta**

Doitasun-tresnekin lan egiten du Stanleyren enpresa berean, **ordezko piezen** sailean. **Xabier Paya**

Gorputzaren berezko egitura eta funtzioa behar bezala ulertuz gero, **ordezko piezak** eta bestelako gailuak diseinatzeko lagun dezake ingeniariak bitzita-kalitatea hobetzeko.

Irene Aldasoro

Ordezko pieza integratuak. **Irene Aldasoro**

10 -en ordezkoa(k) egin

Ordubete geroago etxeko telefonoa hoska hasi zen, eta ama ote zen pentsatu nuen, edo don Hipolito bera, Virginiaren ezkontzan harmonioa jo behar zuenak ez zuela agiririk eman eta nik haren **ordezkoa egin** nezala eskatzeko. **Bernardo Atxaga**

Luzindak ederki asko **egingo** zuela Dorotearen **ordezkoa**. **Patxi Ezkiaga**

Elizondoko kandelen **ordezkoa egiten** duen erretxin barra kaxa bat. **Koldo Izagirre**

Trafikoko zaintzaileen **ordezkoak egiten** dituzte. **Gotzon Garate**

Eduki beza lagun egoki bat ere, behar den guztietan haren **ordezkoak egin** ditzan. **Askoren artean**

Nire **ordezkoak egiten** ari da egunkarian. **Aingeru Epaltza**

- Berea balute bezala sentitzen zutela zango- eta beso-motzek hark **egindako ordezkoa**. **Inazio Mujika Iraola**

Garia erraz biltegitratzen da, bai komunitateak eta bai norberak bere aldetik jasota, eta hori falta bada, erraz **egingo** dira **ordezkoak** barazkiekin, haragiarekin edota lekaleekin. **Santiago Iruetagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi ordezko (5); **kasen ordezko** (3)

ordezko atezain (4); **ordezko atezaina** (5); **ordezko bat** (25); **ordezko baten** (3); **ordezko bihurtu** (3)

ordezko egokia (3); **ordezko eskaintza eginez** (3); **ordezko gisa** (21); **ordezko hortzak** (3)

ordezko izan (8); **ordezko izango** (17); **ordezko izango da** (11); **ordezko izateko** (6); **ordezko izendatu** (3); **ordezko jokalaria** (8); **ordezko jokalariek** (3); **ordezko jokalariek** (5); **ordezko jokalariekin** (6); **ordezko jokalarien** (3); **ordezko joko** (4); **ordezko moduan** (5)

ordezko ona (3); **ordezko pieza** (3); **ordezko piezak** (8); **ordezko piezen** (5); **ordezko saria** (4)

ordezko zaldiak (3)

president ordezko (4); **taldeko ordezko** (3); **zure ordezko** (5)

bere ordezkoa (16); **haren ordezkoa** (20); **izango da ordezkoa** (3); **kasen ordezkoa** (3)

ordezkoa aukeratzeko (7); **ordezkoa da** (6); **ordezkoa egiten** (3); **ordezkoa hautatzeko** (6); **ordezkoa izan** (10); **ordezkoa izango** (13); **ordezkoa izango da** (5); **ordezkoa izatea** (5); **ordezkoa izateko** (3); **ordezkoa izendatzeko** (4); **ordezkoa zen** (6)

prodiren ordezkoa (5); **zorriaren ordezkoa** (3); **zure ordezkoa** (3)

bere ordezkoak (6); **haren ordezkoak** (6); **izango dira ordezkoak** (6)

ordezkoak atera (3); **ordezkoak dira** (3); **ordezkoak egiten** (5)

ordezkoen aulkian (36); **ordezkoen aulkian eseriko** (4); **ordezkoen aulkian eserita** (4); **ordezkoen aulkian utzi** (3); **ordezkoen aulkitik** (7); **ordezkoen eserlekuan** (5)

ordezkotzat hartu (3)

ordezkotza iz ordezkaritza.

Herriaren **ordezkotza** du legegileak; hortaz, herri horren ohiturak, aiurria, egoera politikoa eta erlijiosoa ezagutu behar ditu. **Andres Urrutia**

Aresoko elizako benefiziaduna zen Pedro Guilleron apezka, baina, 1602 urteko udatzen aldera, Leitza abaderik gabe gelditu, eta haren **ordezkotza** ere berak egiten zuen, Aresotik Leitza joan-etorriak mendiz eginez. **Patziku Perurena**

Historia ofizialaren orrialdeetan gaur kausa baten eta bihar beste baten mozorroa jantzita ageri zaigun horrek Gaizkin du izena: gure uesteko **ordezkotzan** adore harturik, mundua -eta munduan gu!- salbatzeko lanari ekiten dio, kemen nekagaitz batez. **Anjel Lertxundi**

2 ordezkoa izatea, ordez aritzea.

Harry asko sentitu zuen lan hura galtzea, eta, hainbat pertsonak **ordezkotza** hartu nahi izan bazuen ere, Harryk bihotz-bihotzez gomendatu zuen bere anai Thomas, zentzudunagoa eta edariari neurria hartzen trebeagoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

3 ondorengotza.

Adinekoa zelako-edo, matematikako beste irakasle bat ere kontratatu zuten, haren erabateko erretiroa aurki zetorrela-eta, ordu batzuk kentzeko eta **ordezkotza** prestatzeko.

Xabier Mendiguren Elizegi

Salbu eta, zenbait gehiegikeriaren ondorioz, jainkoek kontu handiagoa dutela eta erabaki dutela ez uztea inori **ordezkotzan** beren iragartze-ahalmena. **Juan Garzia**

ordezpen 1 iz ordeztea, ordezkatea. ik ordezkapen.

Lilura hirukoitz bat sortzen den unea da, kanpotasun bat (bere buruaz gauzaten duen imajina "kontzeptual" edo arketipoarekiko erlazioan dagoen gizakiarena) eta Jainkoaren gizakiarekiko transzendentzia bat sortzen den **ordezpen**-mekanismo baten (superstizioaren) errainua dena. Piarres Xarriton

Zalantzarik gabe, ondo egina da, ondasun zirkulazioaren askatasunaren eta nekazaritzaren ikuspegitik, oinordetza **ordezpen** zentzugabeko horien debekua. Andres Urrutia

1792. urteko azaroaren 14koa, oinordetza **ordezpenak** indargabetu zituena. Andres Urrutia

2 ordezkari-tza.

Behin-behineko legebiltzarra osatzeko xedea duen batzarrean tirabirak nabarmendu dira, sunitek euren **ordezpenaren** eskasia salatzean. Berria - Mundua

ordezte iz ordezkatea.

Hori, bi idazkera sistemetan -bai sistema ideografikoan, bai fonetikoan ere- gertatu ohi da, baina lehen sistematan [...] indar handiagoaz gertatu ohi da **ordezte** hori. Isabel Arrigain

Handik urte gutxi barru, 1969an, Quine-k epistemologiaren **ordeztea** aldarrikatu zuen ezagutzaren azterketa zientifikoaren bidez, psikologiak eskain dezakeenaren bidez, hain zuzen. Askoren artean

Jaiotza-tasaren beherakadak (1975ean zenbatutakoaren %40 izan zen 1990ean) eragin iraunkorra izan du Hezkuntza Sistemaren **ordezte**-tasan. Berria - Euskal Herria

ordeztu (81 agerraldi, 27 liburu eta 4 artikulutan), ordeztu, ordeztu 1 du ad norbait edo zerbait beste norbaiten edo zerbaiten ordeztu jarri; ordeztu aritu. ik ordezkatu. (norbait)

Greziarrek Troiako gerra egitean, Aresek Afrodita **ordezten** du, jardueren buru den jainko gisa. Iñaki Mendiguren

-Hoa, nik beteko diat hire lekua, hi **ordeztera** bidali naik komandanteak. Jose Morales

Orain arte Nekazaritza eta Arrantza ministroa zen Herve Gaymardek du Nicolas Sarkozy **ordeztu**. Berria - Mundua

Katolikoen santuekin **ordeztu** zituzten jainkoak. Karlos Zabala

Artelan baten egilea parerik gabea da, ezin **ordeztuzkoa**. Juan Garzia

Europako 7.000 soldaduk NATOkoak **ordeztu** dituzte. Berria - Mundua

2 (zerbait)

Horkheimer-ek laster igarri zion, "antropologia filosofiko" moderno batek, hasiera-hasieratik, ez duela besterik bilatzen erlijioa **ordeztu** eta berak funtzio hori betetzea baino.

Joxe Azurmendi

Monarkia ilustratuak nazionalismoak **ordeztu** zituen bat-batean Mendebaldeko ideia politiko nagusi gisa. Iñaki Mendiguren

Zerk bultzatzen du zientzialarien elkarrekin teoria bat baztertzera eta beste teoria baten bidez **ordeztera**? Askoren artean

Bizitza asaldatuaren estimulua artifizio bihurriaz **ordezteko** ahalegin neketsuetan. Iñaki Mendiguren

Nekez **ordeztuko** omen du gertuko etorkizunean lima edo limoi zukuak ozpina, joera osasungarriak gorabehera. Edorta Agirre

Nortasuna ezin da **ordeztu**. Ander Irizar

Erantzunak **ordezten** zuen galdera, galdetzailak hitz egiten gaixoaren lekuan: [...]. Imanol Zurutuza

Horreketaz konturatu nintzen, lehenik eta behin, hona etorritakoan, eteko nire mundu hura gerrako nire mundu honengatik **ordeztu** nuenean. Mirentxu Larrañaga

3 talde, erakunde edo pertsona baten izenean beste erakunde batean edo toki batean aritu. ikordezkatu 4.

Nomadak basamortua **ordezten** du; sedentarioak, hiria. Joxe Azurmendi

Erakunde horien betebeharra da **ordezten** dituzten herritarren gehiengoaren erabakiak defendatzea eta kanpotik inposatutako legeak ez betetzea; horrela legitimatzen dira erakundeak herritarren aurrean. Berria - Euskal Herria

ordian ik orduan.

ordinal izond zenbakiez mintzatuz, hurrenkera adierazten duena.

Ba, gainerakoak, denak zenbaki **ordinaletan** zihoazen: lehen asteguna, bigarren egun gorria, hirugarren eguna, laugarrena, hots, *feria secunda*, *feria tertia*, *feria quarta*, *feria quinta* eta *feria sexta*, beti ere, igandetik abiatuta. Pello Zabala

ordinario (orobat ordenario) izond ipar arrunta, ohikoa.

Nola hartzen hasiak ditugun hiru presuna berriz lanean usarazteko, hauen lana ez da langile **ordinarioen** hainera heltzen, baizik eta %-etik 60 era. Herria

Aldiz autodun **ordinarioek** baliatzen baldin ba ditugu 35 euroko isuna pagatzeko izanen dugu. Herria

Nire ustez, resaka da, ez **ordinarioa**, lehengo batean aipatzen nizuen haietako, baizik atmosfera beraren ajea. Berria - Kirola

ANAES batzordeak so egin du xeheki eria nola segitua den zerbitzu batetik bestera, operatuak nola asumituak diren, bereziki aste burutan, hots zerbitzu **ordenarioak** hetsiak izaiten diren tenoretan. Herria

ordinazio ik ordenazio.

ordiziar izlag/iz Ordiziakoa, Ordiziar dagokiona; Ordiziako biztanlea.

Lehen urte haietan Mari Karmen Odiozola **ordiziar** esatari finarekin moldatu nintzen solas errazean gustura. Pello Zabala

Pello Ramirez **ordiziar** musikaria ere heldu zaiku diska batekin, "Haize oihalak", bere lehen obra. Herria

Honela mintzo da garai haiek akordura ekartzean Tomasi Redondo **ordiziarra**: [...]. Jokin Urain

27 urtetan apez-tuda Xabier Insausti Gipuzkoako **ordiziar** gaztea. Herria

Ordiziarra zen sortzez. Herria

Ordiziarra zen, ikastolako ikaslea, eta Egileor zuen abizena, oker ez banago. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrazoi horregatik, **ordiziar**, goierritar eta herritar orori AHTren aurkako ekimenetan parte hartzeko dei egiten diegu. Berria - Euskal Herria

Ordiziarrak beti ibili ziren aurretik, Iruretak eskuetan min hartu arte. Berria - Kirola

ordoki 1 iz eremu laua. ik ordeka.

Miarritze eskuinean eta aitzinean itsasoa daukan **ordoki** batetik doa bidea. [Koldo Izagirre](#)

Muinoaren tontorretik **ordokia** ageri zen, bizkar grisez mugaturik. [Josu Zabaleta](#)

8000 metro karratuko **ordoki** bat Irati deitua, aireportutik 300 metrotera aurkitzen dena, hautatu du hiri elkargoak, afera bilgune horren eraikitzeko. [Herria](#)

Filiposeko **ordokietan** itzali zen espiritua Atanasio eta Anbrosiorengan berpiztu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Alemanak oldeka zabalduak ziren ordurako Norvegiar, Holandar, Frantziar, Jugoslavian, eta labana bat gurinean bezala sartzen ari ziren errusiar **ordokietan** barrena.

[Juan Garzia](#)

Mila versta eta gehiagoko bidean bizkor igarotzen ziren mendilerro bihurriak, **ordokien** gainean zut, gotorleku azkengabe bateko harresi eskerga bailiran. [Jose Morales](#)

Klima gogorra ia lurrik gabeko **ordokian**. [Iñaki Mendiguren](#)

997an, elurte makur mardul batek lanak ematen ditu sei egunean penintsulako **ordokian**. [Pello Zabala](#)

- Kanpalekua dena **ordoki** da, eta han, ezker, block-ak ageri dira **ordokian**. [Marzel Etxehandi](#)

2 (izenondoekin)

Iparraldean eta mendebalean begia badoa mugarik gabe Leipzig-eko **ordoki** ederrean. [Michel Oronoz](#)

Antartikako ekialdeko **ordoki** izoztuan. [Berria - Gaiak](#)

Zaldi zuriak, **ordoki** elurtuarekin nahasita bezala, ez ziren nabaritzen. [Fernando Rey](#)

Harkaitz honen inguruan triangulu antzeko **ordoki** ttipi bat dago landa lehorrez bete. [Koldo Izagirre](#)

Asiaren erdialdeko merkatariaik, kasu, **ordoki** luzeak zeharkatu zituztenak bere salgaiak merkaturatzeko. [Karlos Zabala](#)

Hantxe begiztatu zuen, **ordoki** zabal baten erdi-erdian zut, ibaitik urruti ez, Keopsen piramidea! [Jon Muñoz](#)

Ordoki soil zabalak, oraindik ere negukoak den berde hotz eta arin batekoak, han-hemenka mertxika adar arrosek koloreztatuak. [Josu Zabaleta](#)

Gaztelako **ordoki** garai eta errean, aparteko estimazioa du ilgoratik ilbehera bitarteko ilargiaren argiak. [Pello Zabala](#)

- Denbora desagertu egin zen, **ordoki** zabal bihurtu zen, eremu garden, espazio huts, plaza erraldoi. [Jose Morales](#)

3 irud/hed

Oraino gauzak ez dira **ordoki** eta guduak irauten du. [Herria](#)

Horrek ez du erran nahi patar guziak **ordoki** dituela, gaurko egunean bestenez ere ez baita holakorik. [Herria](#)

4 (hitz elkartuetan)

Parroki hiri-estatuaren sistema, **ordoki**-zati bakartu bakoitzean nekazaritza-ekonomia autarkikoa garatzea eragin zuena, jada ez zen egitura politiko egokia orduan egitura ekonomiko unitarioa zeukan Gizarte Helenikoarentzat. [Iñaki Mendiguren](#)

Ordoki puska ederra ageri zen han goitik. [Josu Zabaleta](#)

- Deception uharte hori sumendia izan omen da inoiz, itsaso australetakoa ur **ordoki** hotzetan amatatu eta erdi murgildu orduko. [Joseba Sarrionandia](#)

Barne-**ordoki** edo meseta aldetik datorren haize lehorra. [Pello Zabala](#)

5 (izenondo gisa) ik ordeka 3.

Ea bidea **ordokia** den ala ibarretan eta aldapetan zeharkakoa. [Patxi Altuna](#)

Egusentiko argi grixkaran ere basoarte itsua, eguzkiaren lehen printzak oihaneko zeruert **ordokiaren** gainetik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Laborantzarako, lur hoberenak eta **ordokienak** jenden %2-ren eskuetan dira. [Herria](#)

Lekorrek etsenpluak erakusten digu ez duela bide **ordokiegi** eta zabalegia ideki nahi. [Herria](#)

5 goi ordoki

Kras Esloveniako lurraldea da, kareharrizko **goi-ordokiz** osatua. [Fernando Rey](#)

Cuzcon -barruko **goi-ordokian** zegoen inken hiriburu zaharrean-. [Iñaki Mendiguren](#)

Iraniar **goi-ordokiko** pertsiar inperiogileek. [Iñaki Mendiguren](#)

Mongoliako **goi-ordokiaren** hego-ekialdeko ertzean. [Iñaki Mendiguren](#)

Gero Ahuriko altxonbidera, eta handik izen bereko **goi-ordokira**. [Fernando Rey](#)

Sagarrondoak loratzen diren **goi ordokia**. [Felipe Juaristi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

goi ordoki (7); **ordoki zabal** (3); **ordoki zabalean** (3); **patarrak ordoki** (4)

goi ordokia (4)

goi ordokiak (3)

goi ordokian (10); **penintsulako ordokian** (3)

goi ordokiaren (5)

ordokitu, ordoki(tu), ordokitzen du ad ordoki bihurtu.

Hiru aldaketa ekartzen dituzte lan horien bidez: ezenatokia **ordokitzen** eta luzatzen dute hamalau metro arte, jarleku gunea zutago emaiten dute, artisten egongelak osoki berritzen dituzte. [Herria](#)

2 irud/hed

Ezagun da aise harreman hobeak direla azkenean Madril eta Gasteizen artean, nahiz horrek ez duen erran nahi patar guziak bat-batean **ordokitu** direla... [Herria](#)

Bertan euskara ofiziala da, behar ziren legeak onartuak dira, eta bideak zabalduak eta **ordokituak** dira euskararentzat. [Berria - Euskal Herria](#)

Algeriarekin patarrak **ordokitzen** hasi ditu Frantziak. [Herria](#)

Gauzen **ordokitzerat** onez onean, entseatu ondoan, Hazparnek hartu du auzi bidearen erabakia. [Herria](#)

ordokitxo iz eremu txikiko ordokia.

Ikusi zuten lehendabiziko gauza, **ordokitxo** baten hondoan, bide lokaztuan, mahatsondo errenkada desordenatuen artean, neska gazte zurbil-zurbil bat izan zen [Josu Zabaleta](#)

ordokizale izond ordokien zalea dena. ik ordekazale.

Egoi Martinez (Etxarri-Aranatz, Nafarroa) hankazutzar sendoko mutila da, **ordokizalea**, zaldi indartsua. [Berria - Kirola](#)

Anquetil, baina, ez zen igotzailea, **ordokizale** petoa baizik. [Berria - Kirola](#)

Badu aldaparen bat, baina ez **ordokizale** petoak asko zigortzeko adinakoa. [Berria - Kirola](#)

Erlojupeko lauetan ondo moldatzen direnak ez ziren askorik kexatu ibilaldia aurkeztu zuten egunean, eta horrek, igotzaileentzat bakarrik ez, indartsu dauden

ordokizaleentzat ere egokia izan daitekeela esan nahi du, ordubeteko ahalegina delako. [Berria - Kirola](#)

ordots 1 iz/izond txerri arra; arra.

Tapia eta Izagirrerenean, apoa zapoa zen, ez **ordotsa**, mendebaldean apoa deitzen bazaio ere txerri arrari. **Iñigo Aranbarri**

Horiek ari dira, tira ahala, zorri bat nahiko dute txikitatu, eta oraino miatu gabe **ordotsa** den edo urrixa. **Menane Oxandabaratz**

3 irud/hed

Orain banekien, zalantza guztietatik harago: **ordots** goseti batekin bizi nintzen, urde basati batekin; neure burua gobernatzeko gauza nintzela esan zidan don Tirsok; handik aurrera ikusi beharko nuen gauza ote nintzen basurde hura gobernatzeko eta menderatzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Su pindar bat ikusi nuen haren begiradan, eta une batez beldur izan nintzen **ordotsak** urrixari erasoko ote zion, basurdeak bere eskularru finak erantziko ote zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Fredegunda eta Brunekildaren erregeordetza **ordots**, ozart eta lotsagabeek, harritu baino gehiago, jakinaren gainean jarri zuten nazio hura. **Iñaki Iñurrieta**

• 3 (izenlagun gisa)

Bortxaz musukarazi ziotean lurra, haren gibelaldean **ordots** aritzeko. **Aingeru Epaltza**

ordre 1 iz ipar ordena.

Hilabete bat osoa behar izan zen **ordre** puxka baten egiteko. **Marzel Etxehandi**

Besta berri Otabaren ondotik eskerrak igortzen diozkategu lehenik gazter, seriooki eta **ordre** handian ibili baitira. **Herria**

Aratsaldean bezperak, ondoan denak goizean bezala **ordre** ederrean itzuliz. **Herria**

Jende hori guzia, goiz guziz **ordrerik** handiengan joaiten zen eta arratsean hala-hala itzultzen. **Marzel Etxehandi**

Erakutsi du [...] nola deitoratzen zituen orduko barrabaskeriak, nola agertzen jadanik **ordrearen** alde. **Herria**

2 agindua.

Madamen **ordrea** ez zuen ez Xarlesekin ez Jeannek hautsi. **Itxaro Borda**

-Emazu **ordrea** libra gaitzaten. **Marzel Etxehandi**

3 ordena, sakramentua.

Mintzaldi andana bat entzun behar genuen: kongregazione bakoitzeko batekin erran behar zuen bere **ordrea** zer zen, zer helburu zuen. **Marzel Etxehandi**

Seigarren zatia, Heren-**Ordre** edo Heren-Ordenaz, dei batzuekin jendea sail hortan partzuer jartzeko. **Herria**

Apez izan naizenetik, "le Sacrement de l'Ordre" beraz **"ordrea"** ukan diat bainan animaleko desordrean bizi naiz! **Menane Oxandabaratz**

ordu 1 iz eguna banatzen den hogeita lau zati berdinetako bakoitza; zati horren denbora-hedadura. ikoren.

Beren bizitzako egun eta **ordu** guztietan. **Joan Mari Lekuona**

Baina nik **ordu** eta minutu guztiak kontatu behar ditut dagoeneko. **Agustin Otsoa**

Hogei **ordu** zeramatzan han, salbutamol inhalazioak hartzen, aldizka oxigenoaren hodira konektatuta. **Bernardo Atxaga**

Sei **ordu** egin zituen nire ontziak sabelean haitz hura zuela. **Josu Zabaleta**

Gauza zen hogeita lau **ordu** jan gabe edo hamar gau lo egin gabe emateko. **Karlos Zabala**

Gauetz hiru **ordu** eta laurden behar izango dituzu. **Unai Elorriaga**

Bi **ordu** eman genituen jaisten, sokaz halamoduz lagundurik, izozturik baitzegoen. **Juan Garzia**

la bi **ordu** egin zituen indianoak atzera-aurrera. **Anjel Lertxundi**

Bi **ordu** eskas iraun zuen bilerak. **Joxe Austin Arrieta**

Ordu eta erdi egon zela itxaroten. **Iban Zaldúa**

Ordu bat Grañon utzi dudala eta hemen orain naiz Kastillan sartu. **Piarres Aintziart**

Ordu bat barne El Burgón izanen naiz. **Piarres Aintziart**

Pozeko sukarrak handi, ezin esan ahalako batekin bete zidan bihotza, eta **ordu** batez printzea ere joan zitzaidan gogotik. **Matías Múgica**

Handik **ordu** batzuetara, Lancelot aretora igo zen beste zaldunekin. Los Angelesetik Londresera neuzkan **ordu** luzeetan irakurriko nuela pentsatu nuen, lainoak baino goragoko eremu etereoan. **Juan Kruz Igerabide**

Hil baino **ordu** batzuk lehenago, osabak susperraldi bat izan zuen. **Bernardo Atxaga**

Hiru **ordu** baino gehiago behar izan nituen zeregin hura amaitzeko. **Oskar Arana**

Ordu gutxiaren buruan berri eta gaitasun berriz beterik sentitu nintzen. **Juan Garzia**

Zortziak arte bost **ordu** oso, biribil, eder eta freskoak dauzka. **Pako Aristi**

Kaiokak ere **ordu** zaharren hego urdinduei eragin die, eta haien zalapartak, momentu bateko geldialdi erabatekoa urraturik, elizaren inguruan kiribildutako kale estu bihurrietan gora hartu du. **Anjel Lertxundi**

Hogeita lau **orduko** festa etengabea. **Harkaitz Cano**

Eguna gris dago, eguzkia sartzerako doa; trena hemendik bi **ordura** abiatuko da. **Monika Etxebarria**

Handik bi edo hiru **ordutara**, kamioi handi bat aliegatu zen, atzekoa jendez kargatua. **Joseba Sarrionandia**

Chichirivichen bizi da, Caracasetik autoan lau **ordutara**, itsasertzean dagoen herri batean. **Pako Aristi**

Zoazte erabat isilik goizeko lehen **ordutik** Tertzia otoiitza arte. **Askoren artean**

Erakargarriagoa zaidan **ordutik ordura**. **Antton Olano**

2 (bide eta kidekoekin)

Lizarratik ez urrun kokaturik (baina aski urrunsko, halere: bi **ordu** bide oinez). **Txillardegui**

-Sei-zazpi **ordu** bide dago -esan zien. **Josu Zabaleta**

Lau **orduko** bidea Arditurriko meategitik goiti. **Koldo Izagirre**

Zortzi bat **orduko** bidea duzue hemendik lehendabiziko errekaraino. **Anjel Lertxundi**

Usurpadorea hiriburutik hirurogei **orduko** ibilaldira dagoen punduraino hurbiltzen ausartu da. **Iñigo Aranbarri**

Gero bi **orduko** paseoa eman behar zaio, bestela lo-muker egoten duk. **Fernando Rey**

3 (zerbaiten unea adierazteko)

Zer **ordu** ote da! **Pako Aristi**

Notario bati deituz, Frantziskoren heriotzako egunaren eta **orduaren** akta jaso zuen. **Askoren artean**

Ordu bata hiru minutu guti. **Aingeru Epaltza**

Pendulu erlojuak **ordu** bata eta erdia jo zuen tinbre garbi-garbiarekin. **Karlos Zabala**

Ordu bat eta erdian, ahaleginak ahalegin, almadiak hesi trinko bat jo eta gelditu egin zen behin betiko. **Karlos Zabala**

Eguerdiko **ordu** batean. **Anjel Lertxundi**

Ordu bateko autobusa **ordu** bietakoa bihurtu da, eta **ordu** bietakoa hiruretakoa. **Jon Arretxe**

-Goizaldeko **ordu** bi eta erdietan bukatu diat bart. **Aingeru Epaltza**

Ordu bi eta laurden arteko gertakarien zerranda. [Antton Olano](#)
Optikari baten erakusleihoko erlojuan **ordu** biak eta hogeita bost ziren. [Lopez de Arana](#)

Ordu biak aldera Rabinowitz doktoreak deitu du nire egoeraz galdetzeko. [Bernardo Atxaga](#)

Ordu biak jo baino minutu batzuk lehenago. [Karlos Zabala](#)

Eta oraindik **ordubiak** doi-doi. [Joxe Austin Arrieta](#)

Sekula ez naiz **ordu** biak baino lehenago oheratzen. [Koro Navarro](#)

British Airwaysen Londreserako BA 485 hegaldia **ordubiak** eta berrogeita bost minututan abiatu da Sondikako aireportutik. [Harkaitz Cano](#)

Elkarrizketa hori goizeko **ordu** bietan gertatu zen. [Karlos Zabala](#)

Becker doktorea, kontsulta **ordu** bietatik bostetara. [Anton Garikano](#)

Biharamunean han ekin genion, ez goizegi, **ordu** zehaztu gabe batean (Sandrok ez zituen gogoko erlojuak: [...]). [Juan Garzia](#)

4 eguneko une jakina, bereziki zerbait egiten edo gertatzen dena; garaia, unea.

Aurrerapen handiz jakin zuen santuak bere heriotzako **orduaren** berri. [Mirentxu Larrañaga](#)

Bazkaltzeko **ordua** izan behar zuela pentsatu nuen, baina ez nintzen erlojuak begiratzera ausartu. [Bernardo Atxaga](#)

Aurrekoaren jarraipena, bazkaltzeko **orduaren** zain. [Anjel Lertxundi](#)

Eguerdia da, lotarako **orduaren** zain nago. [Monika Etxebarria](#)

Ordu ona mokadu bat jateko, neketsua gerta zitekeen gauari aurre eman baino lehen. [Miguel Angel Mintegi](#)

Berak animatzen ninduen Benitori Kanoietara laguntzera [...] nirekin ez omen zuelako horrenbeste edango; eta etxera **ordu** egokian ekartzeko eta antzekoak esaten zizkidan. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bera baino zuhurrago ibili ote ziren azken **ordu** gaizto haietan? [Bernardo Atxaga](#)

Presaka doaz etxera, lauretako meriendaren **ordua** baita. [Itziar Otegi](#)

Azken **orduko** albiste gaiztoa, ordea, hortxe dago. [Anjel Lertxundi](#)

Zer **ordutan** deituko duzue? [Pello Zabala](#)

Garbitzailea **ordu** berean iristen da egunero, eta, irteerako bost minutuak gorabehera, **ordu** berean joaten. [Arantxa Iturbe](#)

Baina **ordu** berean telefonoak jo zuen. [Daniel Landart](#)

Hasierako eta maitemitze **orduko** biolin musika berarekin. [Joseba Sarrionandia](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hasi da jendea kafea hartzeko **ordu**-gira hurbiltzen eta. [Pako Aristi](#)

Ordulariari begiraturik, arnasa berritu nuen, **ordu**-malgutasun oparoa nuela konturatu bainintzen: mugan arazoren bat gertatuz gero ere, banuen nahikoa denbora autoa bazterren batean utzi eta trenera heltzeko. [Anjel Lertxundi](#)

Horretarako, hortzak izan behar ditu, eta parkeko **ordu**-sartzeak hortzak baino lehen hasten dira amarentzat. [Arantxa Iturbe](#)

Bigarren formulazioa, berriz, **ordu**-kontua da, eta orduak, oraingoz behintzat, minutuak baino luzeagoak dira. [Joxerra Garzia](#)

Ezkutuan egon **ordu**-pare bat, Gringotts ireki orduko hara joan, eta gero abiatu egingo zen... baina nora? [Iñaki Mendiguren](#)

Lehen **ordu**-modu honetan egin ohi zuten legez sartu da gaur ere Istilaga analetako bat. [Pako Aristi](#)

-Ostatuko harrera-gelakoak ere **ordu**-minutu haiek adieraziko zituen, duda barik. [Josu Landa](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Geldi-geldirik egoten zen eskola-**orduetan**, begiak edo bekainak behin ere mugitu gabe. [Jose Morales](#)

Horiek, haatik, kunplitu beharko zituzten lan-**ordu** batzuk! [Matías Múgica](#)

Hormako extintoreari begira ematen zituen Marcosek kafe-**orduak**, aulkitik altxatu gabe. [Unai Elorriaga](#)

Atsedean-**ordu** hauek (13etatik 17ak bitarte), hauetxek dira okerrenak. [Joxe Austin Arrieta](#)

Goizeko hamarretatik arratsaldeko lauak arte dituzte bulego-**orduak**. [Antton Olano](#)

Gure entrenamendu-**ordua** da hau! [Iñaki Mendiguren](#)

Lorategien itxiera-**ordua** adierazten duten panelak. [Julen Gabiria](#)

E... ziar zaude ondo kopiatu dituzula azterketa-**orduak**? zigarreta bat piztu nuen, lvyk ere entzuna zuen nire abiatze-**ordua**. [Iñaki Mendiguren](#)

Guk, mutikook, dilijentzien etorrera-**ordua** bagenekien. [Txillardegi](#)

Gauez ere, zure izena dut gogoan, beila-**orduetan**, zure irakaspena. [Elizen arteko biblia](#)

Gau-**ordua** hartan bertan, kartzelariak berekin eraman eta zauriak garbitu zizkien, eta berehala bataiatu zen beretar guztiekien batera. [Elizen arteko biblia](#)

Gero bazkaria dator, eguerdian, edo geroago, zerbitzu-**orduen** arabera. [Agustin Otxoa](#)

Otoitz-**orduak** beti zutik, txanoa kenduta, begiak bilduta eta dena ongi ahoskatuz esaten zituen. [Askoren artean](#)

Borroka-**ordua** iristean, apaizak aurreratu eta gudarosteari hitz egingo dio: [...]. [Elizen arteko biblia](#)

Espirirituz ikusi zuen gizon hark hurbil zuela heriotza-**ordua** eta azken epaia. [Askoren artean](#)

-Amona Erikak emandako hitzorduaren data-**orduak** eta gainerako xehetasun guztiak errepasatu nituen. [Anjel Lertxundi](#)

7 behar ordu ik behar.

8 beste orduz ipar behiala, lehenagoko beste batean.

Larunbat goiz hartan, oihaneko zuhaitzei **beste orduz** baino hobeki begiratu nien. [Daniel Landart](#)

Jadanik ere **beste orduz** doi bat arizanak gira hortaz bainan gauza batzu behar baitira artetan oroitazari, [...]. [Herria](#)

Nik, **beste orduz** ere errana duket hori, *agorrila* nahiago. [Herria](#)

Bertze orduz, eta partikulazki errege ohiaren denboran, omen, bazen okerkeria frango gobernuaren partetik, berak nahi bezala iragan ziten botz horiek. [Herria](#)

Kontuz bazebilen Graxi eta, halaz, ohikoan baino inguru zabalagoa egin zuen, **beste orduz** zuzen heltzen zen Eiherateko Zokora iristeko. [Itxaro Borda](#)

9 jolas ordu ik jolas 9.

10 ordu arte (812 agerraldi, 99 liburu eta 140 artikulutan) adlag ik beherago 24.

Ordu arte erreparatu ez nion mutil beltzaran bat aurkeztu zidan Hermannek. [Anjel Lertxundi](#)

Ordu arte, berari entzun nion arte alegia, ez zitzaidan bururatu nirea istorio tristea izan zitekeenik. [Ramon Saizarbitoria](#)

Ordu arte, ordea, inoiz ez nintzen hain eskala handian aritu. [Matías Múgica](#)

Ordu arte behintzat. [Iban Zaldua](#)

Ordu arte inork ez zuen halako galderarik inoiz egin, gaur egun harrigarri bazaigu ere. [Jon Muñoz](#)

Ez omen zuen antzik **ordu arte** izandako mutiko ipurtarin bihurriarekin. [Xabier Olarra](#)

Halaxe eten zituen **ordu arte** bere giza mailakoekin izandako harremanak. [Patxi Zubizarreta](#)

Aditz laguntzailea zen benetako korapiloa, **ordu arte** sekula ukitu gabea. [Koldo Zuazo](#)

Mutiko gazte bat, Raimundo delakoa, **ordu arte** ez ezaguna, ausartatu zen haien balakatzera. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Hamar urte pasa ziren aprendiz sartu nintzenetik eta **ordu arte**. [Daniel Landart](#)

Elizako beiradura nagusia, zurixka, marrazkirik gabea, ilunduz joan zen; nabarmenduz,aldi berean,aldarean piztuta zegoen kandela lodiarene garra, **ordu arte** ikusezina. [Bernardo Atxaga](#)

11 ordu arteko (150 agerraldi, 49 liburu eta 27 artikulutan; orobat orduarteko g.er.) izlag

Martinek martsoan hitz zuten, **ordu arteko** bizitasunik gabe. **Bernardo Atxaga**

Ordu arteko nire munduan erraza gertatu zitzaidan banaketa egitea: gaizkiaren eta ongiaren arteko lehian, aski zen erabakitzea zein zelaitan zegoen ongia. **Anjel Lertxundi**

Ordu arteko frantses euskaldunak eta espaiñolak, ordutik aurrera herri bakar bateko iparraldeko eta hegoaldeko bizilaguntzat hartu ziren. **Koldo Zuazo**

Bitxi zitzaidan **ordu arteko** kideekin tiroka aritu beharra. **Inazio Mujika Iraola**

Beti heltzen duk olaturen bat **ordu arteko** indartsuenak utzitako arrastoa desegitera. **Anjel Lertxundi**

Nietzschek **ordu arteko** balioak ordezkatu nahi ditu, moralitate berri bat gauzatze aldera. **Askoren artean**

Erantzunak, azkenez, zorionez, ezabatu egin zuten **ordu arteko** tonu maior nekagarria. **Bernardo Atxaga**

Orduarteko zalantzek, ez bai alferrikakoek paradoxalki egoera tinko batean itzatua ninduten. **Piarres Aintziart**

Ekuaio aljebraikoaren ebazpenei berriz ere eraso jo aurretik, **ordu arteko** laburbiltzeko premia izan zuen Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

Baina, bizargin baten emaztearen bizimoldea **ordu arteko** baino hobea izango ote zen? **Patxi Zubizarreta**

12 ordu erdi (orobat orduerdi g.er.)

Ordu erdia da bizkotxoan jan duela, eta orain gogoratu du hautsi duen debekua. **Pako Aristi**

Teresak **ordu erdia** behar zuen tarte hura hiru aldiz ibiltzeko. **Bernardo Atxaga**

Baina egoteko **ordu erdi** bat, Fructuoso etorriko zela ordurako. **Inazio Mujika Iraola**

Ordu erdi bat bai, oinez. **Txillardegi**

Ordu erdi daramak balantzen apologia egiten! **Jon Muñoz**

Zer barri ikasi behar nuen **orduerdi** irauin zuen bista hartaz? **Koldo Izagirre**

Ordu erdi emateko eskatu zidak, eta hogeita bost minutu baizik ez dituk joan. **Aingeru Epaltza**

la **ordu erdi** egin genuen sarreraren, zutik eta isilik, nor bere txandaren zain. **Anjel Lertxundi**

Ordu erdiren buruan, hara itzultzean, galdetu zion: [...]. **Koro Navarro**

Port Authority geltokira, ia-ia **ordu erdiko** bidea zuen. **Iñaki Zabaleta**

Kotxez **ordu erdi** bateko bidea bada handik honaino. **Joxemari Urteaga**

Ordu erdi geroago iritsi zen Ron gela ilun hartara. **Iñaki Mendiguren**

Denda ireki orduko joango naiz film horren bila, hemendik **ordu erdira**. **Jon Muñoz**

Etxe-zulotik **ordu-erdi** batera daukazun erreka-bazterrean oinak freskatzen. **Iñaki Segurola**

Handik **ordu erdi** batera edo, itzultzen ikusi nuen, motorraren gainean mantso-mantso. **Juan Kruz Igerabide**

Zaldiak **ordu erdi** baino ez zuten behar izan hamar verstak egiteko. **Jose Morales**

Ordu erdi luzea zen Pauline txikia desagertu zela. **Karlos Zabala**

Ordu erdiz berotu nuen materiala; gero, tenperatura jaitsi, eta hidrogenoa iraganarazi nuen beste ordu betez. **Juan Garzia**

13 ordu erditxo adkor ordu erdia.

Zaude **ordu erditxo** bat. **Matías Múgica**

14 ordu ezkeror orduz gerotzik, harrezkeror.

Ordu ezkeror, tarteka itzuli zen eskolak ematera. **Iban Zaldúa**

Ordu ezkeror Ordenaren ardura osoa eta gobernua bere Bikarioaren eta Ministro probintzialen esku utzi zuen. **Askoren artean**

Eskalada libreaz, noski, ez zuen **ordu ezkeror** ezer jakin nahi izan. **Iban Zaldúa**

15 ordu gaiztoan

Ordu gaiztoan... Deyirmenoluku, Memed dauka zain... **Pablo Sastre**

Buf! **ordu gaiztoan**! alimaleko hanka sartzea. **Pablo Sastre**

Ordu gaiztoan! hegazkinez zebilen lehenengo aldia gainera. **Patxi Iturritegi**

16 ordu izan da/du ad ik beherago 23.

-Ba bai -ihardesten genien-, **ordu da** ba! **Itxaro Borda**

Ordu da pixka bat zehatzago deskribatzeko: gizon handia zen, bizkar-zabala, ilehoria, zuritzen hasia. **Matías Múgica**

Ordu zen munduari idekitzeko. **Piarres Aintziart**

Emeki-emeki jendea barreiatu zen: **ordu zen** Jaunari eskerren bihurtzeko. **Marzel Etxehandi**

Ordu zela, norbait lot zezaten, beste guztiak bide zuzenean gelditu zitezten. **Piarres Xarriton**

Ordu da herritarrek herriaren geroa beren gain har dezaten. **Itxaro Borda**

Beraz **ordu zen** Orriako Amak zor zitzaion ohorea berriz eskura zezan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ordu dugu, beraz, orain Gorputzaren existentziarekin ikustekorik ez duen Izpirituaren iraupenera iragaiteko. **Piarres Xarriton**

-Hemendik goiti, noiznahi **ordu huke** norabait mugitzeko! **Janbattitt Dirassar**

Ordu huen. **Aingeru Epaltza**

17 ordu laurden (orobat ordulaurden g.er.)

Ordu laurden bat iragan zen. **Monika Etxebarria**

Hamar minutu, **ordu laurden** bat, eta erromesa prest dago. **Piarres Aintziart**

Soldaduak berbertatik tiro egiten hasi eta **ordu laurden** batean aritu ziren espaloiak garbitzen. **Karlos Zabala**

Zintzotasunezko eroaldi batean, Mertxerena ere kontatu nion **ordu laurden** lehenago. **Aingeru Epaltza**

Ez da **ordu laurdena** ere izango. **Fernando Morillo**

Ordu laurdena besterik ez geneukan egin beharrekoak egiteko. **Rafa Egiguren**

Eskolatik 500 metrora bizi nintzen Beasainen, hamar bat minutuko bidea oinez, **ordu laurdena** askotan, bidean beti izaten baitzen non gelditua eta zer ikusia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oraindino **ordu laurden** falta da hitzordurako. **Urtzi Urrutikoeetxea**

-Ezagutzen diat etxe bat, **ordu laurden** uzten ditek baineran ur berotan, berrogei xentimo xaboiarekin. **Koldo Izagirre**

Ilunak oraindik irauingo du beste hiru **ordu laurden** inguru-edo, agindu hori baitu gauak bere ariketak bukatu arte. **Pako Aristi**

Bidez tronpatu ez banintz, ez nuen holako **ordu laurden** goxoa pasako Torres del Rion. **Piarres Aintziart**

Ordu laurdenik ere ez, eta etxea sekulako zuzi bat egina zegoen. **Anjel Lertxundi**

Beti bezala, hiru **ordu laurdeneko** bidaia. **Unai Iturriaga**

Handik **ordu laurdenera**, neskamea lasterka agertu zen, gorri-gorria. **Karlos Zabala**

Sartzeko tramiteak hiru **ordu laurdenez** luzatu ziren. **Iban Zaldúa**

18 ordu laurdentxo adkor ordu laurdena.

Eguzkiari erreparatu, eta hor ikusten dugu goizetik jada **ordu laurdentxo** irabazia duela. **Pello Zabala**

19 ordu onean

Ordu onean! **Jon Muñoz**

Eskura kausitu duzu, hartu duzu: **ordu ordu**! Jon Muñoz

Baina, **ordu onean** ukaldiari itzuririk, Nozdriovi beso oldarkorretatik heldu eta gogor eutsi zion. Jose Morales

Eta ni nintzen kimikari hori, **ordu onean** etorria. Juan Garzia

-**Ordu onean** dadila -Santxok esan-; eta zein naizen esango diot nik berorri, ea ezkutari berritsu horien artean kide arteko sartu ote nintekeen-edo. Patxi Ezkiaga

20 ordu-orduan

Trena, berriz, **ordu-orduan** atera zen. Gotzon Garate

Jatorduak **ordu orduan**. Joseba Sarrionandia

21 ordu oro (15 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan; orobat orduoro 20 agerraldi, 14 liburu eta artikulatu 1ean, eta ordu oroz 5 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan) adlag ordu guztietan. ik orduro.

Ordu oro egiten nian amets Gretaren garaipenaren xanpainetik edango genuen egunarekin. Anjel Lertxundi

Ordu oro 50.000 euro galtzen ari da Italiako aire konpainia nagusia, eta 200 milioi euro baizik ez zaizkio geratzen kutxetan. Berria - Ekonomia

Ez baita gero erraza gaur gaztelaniaz edo frantsesez egunero eta **orduro** erabiltzen ditugun esamoldeak, kontzeptuak eta informazio zabalak besterik gabe, bat-batean, euskaraz ematea. Pello Salaburu

Ordu oro eskatzen zuen orain semearen berri, eta negar zotinka hasten zen berri txarragoak zirenean. Josu Zabaleta

Ordu oro "aferez" mintzatzen zen harekin, bere atzera-aurreren berri emateko eta kide berrien izenak jakinarazteko. Karlos Zabala

Dotea dela kausa, **orduro** emakume bat hiltzen da Gujaraten. Gotzon Garate

Guk guztiok edonon, nonahi, **ordu oro** eta noiznahi, egunero eta etengabe, sinets dezagun benetan eta apalki, bihotzean gorde eta maita dezagun. Askoren artean

-Agindu ezazu **orduro-orduro** Tomsk-era telegrama bat bidaltzeko, eta zer gertatzen ari den jakinaraz diezadate. Karlos Zabala

22 ordu txiki

Azken gautxorien eta egunsentiko beharginen arteko **ordu txiki** hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer ari zara **ordu txiki** hauetan argia piztuta? Berria - Kultura

Baina, tira!, gaueko **ordu txiki** haietan, edozer gauza gerta zitekeen, egia esateko. Antton Olano

Deustuko jaietan hasi zen dena, gaueko **ordu txiki** eta kritiko horietan. Urtzi Urrutikoeetxea

Uda-gau bateko **ordu txiki** sargorietan kokatu beharko nuke Rimbaud ezagutu nuen mentura. Anjel Lertxundi

23 ordua izan da/du ad ik gorago 22.

Ordua zen norbaitek nire misioa zehatzago azal ziezadan. Edorta Jimenez

Ez du hitz bakar bat esango berari **ordua dela** iruditzen zaion arte. Oskar Arana

Lucy, **ordua duzu** benetan zer aukera duzun ikusteko. Oskar Arana

Ba mutil, **ordua duk** heure botika probatzeko! Juan Martin Elexpuru

24 ordura arte (950 agerraldi, 143 liburu eta 271 artikulutan; orobat ordurarte g.er.) adlag ordu arte. ik gorago 10.

Ordura arte idatzitako sarrerak kontatzeko lanik ez nuen hartu artean, baina ehunetik gertu izan behar zuten jada. Oskar Arana

Ordura arte Neguriko familia batena zen Loramendi txalera eresia zuen. Joseba Sarrionandia

Ordura arte, Ebroko Ur Konfederazioko kideek isilpean izan zuten pitzaduren kontua. Edurne Elizondo

Ordura arte, neu izan nintzen beti lehenengoa sartzen, neu azkena iriteten. Hasier Etxeberria

Florent begira zegoen nola azoka handi haiek **ordura arte** bildu zituzten itzal eta ametsetatik iriteten ziren, egunezko argitan beren jauregiak infinituraino luzatuz. Karlos Zabala

Aski zituen, ordea, segundo horiek, **ordura arte** ezagun zuenaz oso bestelako buruko mina zela ohartzeko. Imanol Zurutuza

XVI. mendetik hona, ez da dudarik bere sorterriko lurriari, bere ama hizkuntzari, hots, nazioa definitzen duen edozein elementuri **ordura arte** ez zuen garrantzia eman ohi diola bakoitzak. Piarres Xarriton

Txabiren heriotzak **ordura arte** amets baten bizi izan banintz bezain lur joa utzi ninduen. Koldo Izagirre

Munduko Bankuko presidentek zioen, elkarrizketa batean, ez zutela **ordura arte** aintzat hartu GKEen indarra, ustez askoz ere txikiagoa izango zela. Pello Salaburu

Tolosa, **ordura arte**, Gizarte Segurantzako anbulatorioa zen niretzat, familiako medikuak X izpiak ateratzeko edo espezialistak ikusteko bidaltzen gintuen osasun zentroa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez omen zen konturaturia: baliteke, baina halaxe zen, izan ere: **ordura arte**, begirada bat bera ere ez Hannak niri, goiz hartan. Joxe Austin Arrieta

Zer esan ez zekiela geratu zen ama; inoiz ez nion **ordura arte** hala erantzun. Juan Kruz Igerabide

Lan korapilatsua izango zen, zalantzarik gabe, **ordura arte** izandako korapilatsuen. Migel Angel Mintegi

Nozio garrantzitsu batez jabearazten gintuzten bi mutanteok: anomalia genetiko ohikoek ez zekarten berekin egitura berriak, **ordura arte** ezezagunik eratzea. Juan Garzia

Astudillo Villamedianarekin eta Torquemadarekin lotzen zuen errepedearekin paraleloan joanak ginen **ordura arte**. Bernardo Atxaga

25 ordura arteko (200 agerraldi, 61 liburu eta 71 artikulutan) izlag

Dirua, **ordura arteko** nekazari-munduan ez zuen garrantzia ari zen hartzen komunen ingurunean. Askoren artean

Ordutik hona, haren egintzak, **ordura arteko** gaitzak menderaturik, beraren egoera hori ezerezten dio eta ordaindu beharreko kalte handiak ere egiten. Andres Urrutia

-Hara! lehengoan ikusi nuen arpegial! -bota zuen Carmenek, **ordura arteko** haria etenda. Iñaki Iñurrieta

Ikerketa **ordura arteko** parametro teorikoen barnean abiarazi genuen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez zen gauza **ordura arteko** martxari eusteko. Txillardeggi

Edozein unetan da posible, **ordura arteko** ezagueraren arabera, arrastoa ateratzea zer gerta daitekeen handik, demagun, bost urtera. Juan Garzia

Sendatua nintzen, bada, eta astia izan nuen **ordura artekoak** mamitzeko, banuen-eta zer mamitu. Edorta Jimenez

Ordura artekoan, saia zaitetz egoera gainditzen. Itziar Otegi

26 orduraxe arte adkor ordura arte. ik gorago 24.

Lo zurrungan zegoen ordurako, nahiz eta **orduraxe** arte maien erlijioaz, arteaz eta abarrez berriketan jardun berria izan. Joxe Austin Arrieta

27 ordutik hona

Ordutik hona hirurogeitik gora ekintza egin dituzte, denak oso ikusgarriak. Txema Ramirez de la Piscina

Horrize hartu nion higuina duela hogeitaka urte, eta **ordutik hona** hazi baizik ez da egin higuin hori. Iñaki Segurola

Arrazoi sustraideunak tartean direla erdietsi zuen hark dibortzioa; **ordutik hona**, haren egintzak, ordura arteko gaitzak menderaturik, beraren egoera hori ezerezten dio eta ordaindu beharreko kalte handiak ere egiten. Andres Urrutia

Aspaldi, sarritan ikusten nituen ametsetan, baina hamarka urte igaro dira **ordutik hona**, hamarka urte igaro dira gauza guztietatik hona. Karlos Zabala

Garai zailak pasatuak gara **ordutik hona**; Lajosek berrogeita hamar urtetik gora du eta jadanik ez du hitzekin jolas egiten, bere iraganari aurre egitera dator, hona bidean da.

Ander Irizar

-Ez -esan zuen Konradek serio-, ez gaituk gaztetu **ordutik hona**. Xabier Olarra

Denbora pasatu baita **ordutik hona**. Juan Garzia

28 orduraz gero (35 agerraldi, 14 liburu eta 15 artikulutan; orobat orduraz geroz 17 agerraldi, 2 liburu eta 13 artikulutan; eta orduraz gero g.er.) harrezkero. ik beharago 29.

Orduraz gero, hara eta hona ibili naiz, nora ezean, eta hara non gaur George-tik igaro behar nuen, eta pentsatu dut, zergatik ez hemen geratu eta zugana etorri hitz egitera. Eta

orduz gero ikusi duzue zer egiten duen. **Oskar Arana**

Eta **orduz gero**, Jose zela eta, bedeinkatu egin zuen Jaunak egiptiarraren etxea; etxean nahiz landan zituen gauza guztien gainera etorri zen Jaunaren bedeinkazioa. **Jose Antonio Mujika**

Bahituak: lau hilabete iragan dira eta **orduz gero** frantses kasetariak han daude nonbait preso ez direlarik batere hobendun. **Herria**

Oliobidea sutan izan da **orduz gero**, baina gaur itzali ahal izango dutela espero dute. **Berria - Ekonomia**

la ordu arte gerraren gazia dastatua bazuen ere, **orduz gero** bakearen gozoa nahi. **Felipe Juaristi**

29 **orduz geroztik** (*263 agerraldi, 39 liburu eta 155 artikulutan*) harrezkero. ik gorago 28.

Orduz geroztik, gelditzen zait beste kapitulu baten gaia, jakiteko ea Indarkeria eta Politika bereizi behar diren eta, egiaz, bereiz daitezkeen. **Piarres Xarriton**

-Eta **orduz geroztik** ez da Siberiara bueltatu? **Karlos Zabala**

Baina **orduz geroztik**, Damaseko pentokan herrokatu eta zaldizko bidaia urrunak goraitzen zituzten hitzak bazerabilzkion gogoan dantzan. **Itxaro Borda**

Zer gertatu ote zen, **orduz geroztik**, edozein ibilgailuren leihatilaren kristalean burua jartzen duzunean, egun hartaz, une hartaz gogoratzeke. **Lourdes Oñederra**

Telefonozko elkarrizketa hori izan zen amaiera, eta **orduz geroztik** Edith izen soil bat izango zen niretzat, bost hizki txiki. **Oskar Arana**

Jende batzuek lortu zuten gordetzea edo ihes egitea, eta **orduz geroztik** bide baten bila zebiltzan infernutik eskapatzeke. **Elena Touyarou**

Tolerantziari nazka hartu genion aspalditxotik, arrazoiz hartu ere, eta **orduz geroztik** intolerantziari ederretsiak daude askotxo hemen hauetan, ohartu gabe intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, gutarrismo eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. **Iñaki Seguro**

1834ko lege batek, debekatu egin zituen eliz barruko enterramentuak, higieine kontuagatik, eta **orduz geroztik** sortu ziren egungo Kanposantu berriak. **Patziku Perurena**

Quenuk beti leporatu zion osaba Gradelle dendako xehatze mahaiaren gainean hil zela barreiatu izana; **orduz geroztik**, ezin zuen begiz ikusi. **Karlos Zabala**

Inork ez du aurkitu, **orduz geroztik**, Lumumbaren arrastorik. **Iban Zaldúa**

Lau urte pasatu dira **orduz geroztik**. **Iban Zaldúa**

David ingeles filologian lizentziatu zen 1992an, baina igeltsero dabil ia **orduz geroztik**. **Iban Zaldúa**

30 **puntako ordu** jarduera gehiena dagoen ordua.

Madrilera, goizeko **puntako orduan**, zihaozen lau trenetan hamar lehergailu zartarazi zituzten. **Berria - Harian**

Banketxe bateko mandatarari bati den-dena ebatsi diote Wall Streeten, **puntako orduan**. **Lopez de Arana**

Puntako orduan kenduta, Iruñerriko hiri garraio zerbitzua geldirik egon zen atzo. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aparteko ordu (13); arratsaldeko ordu (36); arratsaldeko ordu biak (11); azken ordu (54); behar ordu (31); bi ordu barru (8); bi ordu eman (13); bi ordu geroago (25); bi ordu inguru (10); bi ordu lehenago (24); bi ordu luze (8); bi ordu pasatxo (8); bizpahiru ordu (12)

eguerdiko ordu (34); eguerdiko ordu bata (9); eguerdiko ordu batean (17); egun eta ordu (8); eguneko ordu (12); eskola ordu (22); gaueko ordu (66); gaueko ordu txikietan (24); goizaldeko ordu (46); goizaldeko ordu bata (8); goizaldeko ordu batean (8); goizaldeko ordu txikietan (10); goizeko ordu (91); goizeko ordu bata (10); goizeko ordu biak (19); goizeko ordu bietan (11); goizeko ordu txikietan (16); handik ordu batzuetara (29); handik ordu erdira (32); hiru ordu egon (22); hiru ordu iraun (8); hiru ordu laurden (41); hiru ordu laurdeneko (8); hiru ordu lehenago (8); hiruzpalau ordu (9); hitz ordu (8)

ia ordu erdi (8); lan ordu (25); lehen ordu (43); lehen ordu erdian (13); leku eta ordu (8)

ordu aldaketa (10); ordu arte (800); ordu arte inoiz (22); ordu arte sekula (19); ordu artean (14); ordu arteko (133); ordu artekoa (9); ordu asko (84); ordu asko ematen (12)

ordu bakar (8); ordu barru (23); ordu bat (95); ordu bat eta (16); ordu bata (102); ordu bata aldera (8); ordu bata arte (8); ordu bata eta (29); ordu batean (67); ordu bateko (11); ordu batzuen buruan (11); ordu batzuk beranduago (9); ordu batzuk eman (8); ordu batzuk geroago (61); ordu batzuk lehenago (98); ordu berean (183); ordu bertsuan (8); ordu bete (75); ordu bete lehenago (8); ordu betean (12); ordu betera (8); ordu betez (14); ordu bi (39); ordu bi eta (21); ordu biak (97); ordu biak aldera (26); ordu biak eta (9); ordu bietan (40)

ordu erdi (392); ordu erdi barru (20); ordu erdi bat (45); ordu erdi batean (17); ordu erdi baten (12); ordu erdi batera (11); ordu erdi batez (19); ordu erdi beranduago (9); ordu erdi geroago (29); ordu erdi inguru (12); ordu erdi lehenago (30); ordu erdi luzea (8); ordu erdia (51); ordu erdian (57); ordu erdiko (72); ordu erdira (64); ordu erdiren buruan (9); ordu erditik (9); ordu erditxo (8); ordu erdiz (69); ordu estrak (11); ordu eta erdi (103); ordu eta erdian (15); ordu eta erdiko (52); ordu eta erdiz (33); ordu eta laurden (11) ordu ezker (8)

ordu gehiago (51); ordu gutxi (65); ordu gutxi batzuetan (13); ordu gutxi batzuk (13); ordu gutxiago (22); ordu gutxira (45); ordu gutxiren buruan (14); ordu gutxitan (14); ordu guztiak (20); ordu guztietan (19); ordu haiek (10); ordu haietan (38); ordu hartan (143); ordu hauetan (44); ordu honetan (71); ordu hori (14); ordu horiek (15); ordu horietan (32); ordu horretan (102); ordu hura (8)

ordu igaro (13); ordu iraun (41); ordu iraun zuen (27); ordu iraungo (8)

ordu jakin (13); ordu jakinetan (9)

ordu laurden (256); ordu laurden baino (9); ordu laurden bat (61); ordu laurden batean (11); ordu laurden baten (12); ordu laurden batera (8); ordu laurden batez (25); ordu laurden geroago (15); ordu laurden inguru (12); ordu laurden lehenago (13); ordu laurdena (46); ordu laurdenean (27); ordu laurdeneko (27); ordu laurdenera (12); ordu laurdenez (13); ordu lehenago (78); ordu luze (24); ordu luzeak (37); ordu luzeetan (18); ordu luzetan (9); ordu luzez (18)

ordu onean (11); ordu oro (15)

ordu pare (70); ordu pare bat (32); ordu pare batera (10); ordu pare batez (11); ordu pasa (14); ordu pasatu (17); ordu pasatxo (12)

ordu txepela (10); ordu txiki (8); ordu txikiak (23); ordu txikiak arte (17); ordu txikietan (78); ordu txikitik (11)

ordu zen (35)

pare bat ordu (26)

sei ordu (47)

zazpi ordu (24); zenbait ordu lehenago (15); zenbat ordu (27); zer ordu da (41); zer ordu den (8); zer ordu zen (23)

abiatzeko ordua (17); afaltzeko ordua (25); agur esateko ordua (9); alde egiteko ordua (10); atariko ordua (32); ateratzeko ordua (10); azken ordua (24); bada ordua (13); badator ordua (8); bazen ordua (18); bazkaltzeko ordua (17); benetako ordua (8)

eguna eta ordua (14); emateko ordua (19); erabakitzeko ordua (10); esateko ordua (15); hartzeko ordua (16); hasteko ordua (23); heriotzako ordua (11); hiltzeko ordua (8); hitz egiteko ordua (8); hitz ordua (22)

iritsi da ordua (8); itzultzeko ordua (21); ixteko ordua (29); jartzeko ordua (8); joateko ordua (52); lekua eta ordua (28)

ordu arte (31); ordua baino lehen (10); ordua begiratu (10); ordua da (127); ordua da eta (8); ordua dela (42); ordua duk (11)

ordu eta lekua (40); ordua etorri (9); ordua heldu (57); ordua heldu da (16)

ordu eta iristen (25); ordua iristen denean (12); ordua iritsi (121); ordua iritsi arte (9); ordua iritsi da (29); ordua iritsi zaie (8); ordua iritsi zen (13); ordua iritsi zenean (13); ordua iritsia (8); ordua izango (8); ordua jo (15); ordua noiz (10)

ordu zela (26); ordua zela esan (9); ordua zen (55)

sartzeko ordua (8)

aparteko orduak (31); azken orduak (27); behar orduak (33); eskola orduak (12); hontzaren orduak (10); lan orduak (31); oinazeak orduak luze (8)

orduak aurrera (16); orduak egin (12); orduak egiten (14); orduak eman (50); orduak eman zituen (8); orduak ematen (62); orduak ematen zituen (23); orduak eta egunak (8); orduak eta orduak (131); orduak igaro (14); orduak igarotzen (10); orduak joan (10); orduak luze (9); orduak pasa (14); orduak pasatu (12); orduak pasatzen (13); orduak ziren (10)

adierazteko orduan (12); afaltzeko orduan (8); antolatze orduan (9); arratsaldeko azken orduan (11); arratsaldeko lehen orduan (17); ateratzeko orduan (8); aukeratzeko orduan (26); azaltzeko orduan (9); aztertze orduan (10); behar orduan (26); betetzeko orduan (8); betiko orduan (8); bi orduan (9); bilatzeko orduan (12)

egiteko orduan (140); egiterako orduan (13); emateko orduan (37); ematerako orduan (8); erabakiak hartzeko orduan (10); erabakitze orduan (14); esandako orduan (11); esateko orduan (15); eskaintzeko orduan (9); ezartzeko orduan (10); goizeko lehen orduan (15); gosaltzeko orduan (8); hartzeko orduan (44); hautatzeko orduan (12); heriotzako orduan (18); heriotzaren orduan (9)

idatzeko orduan (38); itzultzeko orduan (10); ixteko orduan (11); jartzeko orduan (11); jolas orduan (9); jotzeko orduan (8); lantzeko orduan (10); lau orduan (10); lehen orduan (67); lehenengo orduan (12); lortzeko orduan (8)

osatze orduan (8); prestatzeko orduan (9); seinaltzeko orduan (8); sortzeko orduan (10)

zehazteko orduan (11)

goizeko orduabata (8)

aparteko orduen (9); behar orduen (15); lan orduen (10); orduen liturgia (19)

arratsaldeko lehen orduetan (12); aurreko orduetan (8); azken orduetan (51); datozen orduetan (21); eskola orduetan (11); euskadiko sei orduetan (18); goizeko lehen orduetan (8); hurrengo orduetan (22); jolas orduetan (8); lan orduetan (9); lehen orduetan (40)

eskola ordukatu kanpo (8)
azken orduko aldaketa (14); azken orduko ezustekorik (8); bi orduko lanuztea (8); bi orduko lanuzteak (13); kilometro orduko abiadura (22); kilometro orduko abiaduran (21); lau orduko lanuzteak (10)
azken ordukorik ezean (8)
azken ordura arte (21); ordura arte (939); ordura arte egindako (18); ordura arteko (168); ordura artekoan (9); ordutik ordura (11)
bi orduren buruan (12); orduren buruan (29)
ordurik onenak (8)
edozein ordutan (38); halako ordutan (10); hogeita lau ordutan (9)
lehen ordutik (8); ordutik gora (20); ordutik ordura (11)
bertze orduz (9); beste orduz (34); bi orduz (87); bi orduz egon (10); bizpahiru orduz (8); bost orduz (16); hainbat orduz (37); hamabi orduz (11); hamar orduz (8); hiru orduz (44); hogeita lau orduz (27); lau orduz (48); orduz gero (35); orduz geroz (17); orduz geroztik (263); orduz ordu (17); pare bat orduz (10); sei orduz (17); zenbait orduz (13); zortzi orduz (22)

orduan *adlag* 1 une hartan.

Orduan, israeldar elkarte osoa oihu batean hasi zen eta gau osoa negarrez eman zuen. **Elizen arteko biblia**

Orduan buru bat agertu zen berlinaren atean. **Karlos Zabala**

Orduan, egun batez, dena amaitu zen. **Oskar Arana**

Orduan zertan pentsatzen niharduen ez dakit. **Joxe Austin Arrieta**

Orduan piztu zitzaidan argia kaxkoan. **Aingeru Epaltza**

Eta **orduan** dena ulertu nuen. **Jon Muñoz**

Eta, **orduan**, zer eta dena izorrratu zen. **Mirentxu Larrañaga**

Osaba Kamilek, **orduan**, ahots zorrotzez eta haurrena gisako xalotasunez, esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Dalilak, **orduan**, Sansoni: [...]. **Jose Antonio Mujika**

-Jaunak -esan zien **orduan** -, badago zerbait hobe egitea. **Karlos Zabala**

Ez dugu daturik noiz idatzia den jakiteko, nahiz eta kritikoki gehien iritzi Frantziskoren bizitzako azken urteetako izan daitekeen, **orduan** bilakatu baitzen Leon anaia Frantziskoren lagun-min eta idazkari. **Askoren artean**

Telemakok, **orduan**, ontzi bat eta hogeit hamar arraunlari eskatu zituen, aita hilik edo bizirik zegoen argi eta garbi jakitera joateko. **Juan Kruz Igerabide**

Doinu bat etorri zitzaion **orduan**, gela hartako bazter batetik sortua. **Felipe Juaristi**

Hauster agertu zen **orduan**, nabarmen herren eginez. **Iñaki Iñurrieta**

Emakumeak lepoko bat atera zuen **orduan**, bostehun eta hirurogeita hamar eraztun ez osatua. **Patxi Zubizarreta**

Zerurantz altxatu nituen **orduan** neure begiak. **Txillardegia**

Hogeita bi urte nituen **orduan**. **Txillardegia**

Une batez irudi izan zuen Rachel negarrez hastera zihoala, baina malkoak gorde egin zituen, eta pertsona krudela eta berekoia nintzela esan zidan **orduan**. **Oskar Arana**

Uther, Arturren aita, britainiarren errege izendatu zuten **orduan**, eta haren ondoren Arturrek hartu zuen erregetza. **Juan Kruz Igerabide**

Orduan jabetu zen Ruche jauna gertatutakoaz. **Jon Muñoz**

Orduan ere, ez zuen esplikaziorik eman. **Jon Muñoz**

Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, **orduan** eta ez lehenago, zentzu komuneran jotzea, azken denbora hauetako asmakaria sotila besterik ez da. **Patziku Perurena**

-Berunezko moldeak dituk horiek, konposiziorako letrak, hain zuzen -argitu dit **orduan** bertan lanean ari zen gazte batek-. **Txillardegia**

Eta kuxian, **orduan** bertan, erabaki nuen ostegun arrastiriko entrenamendura ez nintzela joan. **Daniel Landart**

Zelda aski handi batean sartzen gira, **orduan berean** hustu dutena guretzat, bi ohe bikoitzekilakoa. **Filipe Bidart**

2 kasu horretan, hortaz.

Jo dezagun eboluzioan sinesten segitzen dugula, baina orain bere alderdi ortodoxoan: **orduan**, gizona piztia ohatua da. **Iñaki Segurola**

Esanak jabe izendun bat baldin badu, **orduan** esan hori ez da esate bat, baizik-eta botatze bat, botakin bat. **Iñaki Segurola**

Gogamenak nolabait afektatua den heinean errepresentazioak jasotzeko duen harmenari sentimena deitzen badiogu, **orduan** norberak errepresentazioak sortzeko ahalmena edo ezagutzaren berezotasuna adimena da. **Ibon Uribarri**

Hemen adigaiari baldintza hau gehitzen badiot eta hau badiot: "gauza guztiak kanpoko agerpen gisa bata bestearen ondoan daude espazioan", **orduan** erregela honek orokorki eta zedarritzapenik gabe balio du. **Ibon Uribarri**

Eta gure begiespena beti sentsuzkoa denez gero, **orduan** ezin zaigu inoiz esperientzian denboraren baldintzapean ez dagoen objekturik eman. **Ibon Uribarri**

Nondik datorkizu **orduan** mundu guztia zure ondoren ibiltze hori? **Askoren artean**

Nolatan, **orduan**, zigortzen ditu justiziaz bekatuak, hauek gabe bere sorkuntza ez bazen osoa eta perfektua izango? **Imanol Unzurrunzaga**

Eta banaka harturik, bere bakarrean, **orduan** bai; **orduan** guai bat izan liteke lerroa, txorixoa eta pailazo merkea. **Iñaki Segurola**

Orduan, zergatik ez zenuke zuk denboraren gaua esango, Denborek beren buruaren gaua izateari utzi ziotelako jendea idazten hasi zenean. **Jon Alonso**

-Artaburu bat jarri behar genuke erregetzat, **orduan**? **Koldo Izagirre**

-Bihar arte **orduan**. **Unai Elorriaga**

Eta **orduan** zer? **Iñaki Segurola**

-**Orduan** norbait bizi da Media Lunan? **Juan Garzia**

3 ordu batean. ik oren 6.

Arcos de Jalon (Zaragoza, Espainia) eta Madril arteko bidea abiadura handiko trenaren bidetik 200 kilometro **orduan** eginez murriztuko du denbora Renfek. **Berria - Euskal Herria**

Munduko txapelketaren atarian, Ducati, 338,1 kilometro **orduan**. **Berria - Kirola**

4 orduan eta.. -ago

Noizean behin erbi bat edo unxi bat begiztatzen genuen, eta **orduan eta** gusturago sentitzen ginen. **Bernardo Atxaga**

Aitaren errietek, nire iritziak pitzatu beharrean, kontrako efektua eragiten zidaten: **orduan eta** alemanago sentitzen nintzen. **Anjel Lertxundi**

Ezin dut deus ere esan; ahoa irekitzen badut, izan ere, akabo: **orduan eta** okerrago. **Jesus Mari Mendizabal**

Ondorogotu, eta **orduan eta** handitzenago zitzaion aurpegia alde guztietatik. **Matías Múgica**

Izaren igurtzia sentitu nuen titiburuetan, eta **orduan eta** gehiago asaldatu nintzen. **Juan Martin Elxepuru**

Ustez sakonago, eta **orduan-eta** axalago, segururik. **Iñaki Segurola**

Buruan geroz eta arinago ibili gauzak, **orduan eta** buruko min handiagoa sortzen da. **Joxemari Urteaga**

5 (zenbat-ekin lotua)

Hitzak zenbat eta goxoago, **orduan eta** eraginkorrago. **Elizen arteko biblia**

Geureari zenbat eta gutxiago atxiki, **orduan eta** maiteago izango dugu Jaungoikoa. **Imanol Unzurrunzaga**

Baina zenbat eta ezberdinago izan kanpoko egitura, **orduan eta** argigarriago gertatzen zaigu Klararen testigantza oinarritzko frantziskotar identitatea ulertzeko eta hartaz jabetzeko. **Askoren artean**

Zazpi bide haiek zenbat eta beherago **orduan eta** estuagoak ziren. **Felipe Juaristi**

Horregatik, gezurra zenbat eta sanoago, **orduan eta** zailago erdi bihurtzeko. **Patziku Perurena**
Pantxok -zenbat eta hurbilago Obabako festak, **orduan eta** okerrago- uko egiten ziolako zerrategiko eginbeharrari. **Bernardo Atxaga**
Zenbat eta ekuatore aldetik urrunago, aldiz, **orduan eta** hotzago eta ilunago negua, eta ez horrenbeste uda... **Pello Zabala**
Esan litekeelakoan nago zenbat-eta barrenago eduki batek legea, moralata eta ordena on ofiziala, **orduan-eta** errazkiago ager litekeela morboaren zera hau. **Iñaki Seguro**
Zenbat eta luminantzia handiagoa izan, **orduan eta** argitsuagoa emango du koloreak, eta **orduan eta** zuritik hurbilagoa izango da. **Josu Zabaleta**
Eta zenbat eta justuagoak izan legeak, zenbat sakratuagoa eta bortxaezinagoa segurtasuna, **orduan eta** handiagoa soberanoak bere menpekoei gordetzen dien askatasuna. **Juan Martín Elexpuru**
Hortxe zegoen jolasaren mamia: zenbat eta kristalean gorago jo, **orduan eta** gairdiezinagoa errekorra. **Unai Elorriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen orduan (12); **agertu zen orduan** (18); **ari zen orduan** (13); **ba orduan** (22); **bai orduan** (9); **baina orduan** (377); **baina orduan ere** (39); **baina orduan ez** (39); **bainan orduan** (17); **baitez orduan** (25); **bazen orduan** (11)
erabaki zuen orduan (12); **esan nion orduan** (11); **esan zidan orduan** (15); **esan zion orduan** (16); **esan zuen orduan** (79); **eta orduan bai** (45); **eta orduan bakarrik** (12); **geratu zen orduan** (12); **gertatu zen orduan** (14); **hasi zen orduan** (32); **hasi ziren orduan** (14)
ikusi zuen orduan (10); **izan zen orduan** (23); **izan ziren orduan** (13); **izan zuen orduan** (13); **izango da orduan** (13); **jo zuen orduan** (18)
orduan agertu zen (18); **orduan bururatu zitzaion** (9)
orduan egin zuen (14); **orduan erabaki nuen** (11); **orduan erabaki zuen** (11); **orduan ere** (594); **orduan ere ez** (49); **orduan erran nion** (10); **orduan esan** (103); **orduan esan nion** (12); **orduan esan zuen** (14)
orduan eta errazago (10); **orduan eta gehiago** (59); **orduan eta gutxiago** (18); **orduan eta handiagoa** (19); **orduan eta hobe** (13); **orduan eta hobeto** (31); **orduan eta orain** (12); **orduan eta txikiagoa** (9)
orduan ez bezala (10); **orduan ez da** (48); **orduan ez dago** (17); **orduan ez du** (12); **orduan ez dugu** (9); **orduan ez genuen** (11); **orduan ez litzateke** (9); **orduan ez nuen** (21); **orduan ez zegoen** (13); **orduan ez zen** (40); **orduan ez zuen** (17); **orduan ezagutu** (29)
orduan gertatu zen (24); **orduan hasi nintzen** (15); **orduan hasi zen** (50); **orduan hasi ziren** (29); **orduan hasten da** (14)
orduan ikusi nuen (24); **orduan ikusi zuen** (19); **orduan ikusiko da** (12); **orduan ikusiko dugu** (10); **orduan iritsi zen** (10); **orduan izan zen** (20); **orduan jakin nuen** (19); **orduan jakin zuen** (19); **orduan jakingo dute** (35); **orduan jakingo duzu** (10); **orduan jakingo duzue** (24); **orduan konturatu nintzen** (37); **orduan konturatu zen** (22)
orduan ohartu nintzen (12); **orduan ohartu zen** (21); **orduan sortu zen** (11)
orduan ulertu nuen (34); **orduan ulertu zuen** (19)
pentsatu nuen orduan (10); **sentitu zuen orduan** (11)

orduantzu *adlag* orduan gutxi gorabehera.

Orduantsu jin zen berriz Büchenwald-era Harignordoquy apeza, bere komando lagun batzuekin lan egiten zuen lantegia bonbardatua izan zen eta xehatua. **Marzel**
Etxehandi
Orduantsu (1559ko maiatzean) san Frantzisko Borgiak aurkezten dio Erregeri apezpikutzat gai dauzkan gizon batzuen zerrenda, erranez: [...]. **Piarres Xarriton**
Orduantsu jin zen berriz Büchenwald-era Harignordoquy apeza, bere komando lagun batzuekin lan egiten zuen lantegia bonbardatua izan zen eta xehatua. **Marzel**
Etxehandi

orduantxe *adlag* orduan bertan.

Orduantxe jabetu nintzen zer zen goiznabarrero esnatzen ninduen zarata bitxi hura. **Joxe Austin Arrieta**
Orduantxe jo du txirrinak: amaordearen ahizpa eta ama sartu dira. **Urtzi Urrutikoetxea**
Ez zen **orduantxe** izan, baizik eta lehenago, Raimundo Silvak pentsatu zuenean, [...]. **Jon Alonso**
Mutilak **orduantxe** sumatu zuen adio esan beharraren gertutasuna. **Patxi Zubizarreta**
Telebista ere **orduantxe** deskubritu zuen, harrituta, Lauaxetak. **Juan Luis Zabala**
Jokatu berrira zen **orduantxe**, New Yorkeko Madison Square Gardenen, Cassius Clay eta Sonny Listonen arteko boxeo konbatea. **Bernardo Atxaga**
Une erabakigarria zen hura: **orduantxe** egin behar zirt edo zart. **Jon Muñoz**
Hurbildu dituk orduan kasernara Santakrutzen mutilak... eta **orduantxe** bai sospresa: [...]. **Txillardeggi**
Hegazkinetik jaitsi eta aduanan banatu ginenean, **orduantxe** jabetu ni zeren inguruan ibilia nintzen lehenago gogoetan. **Joxe Austin Arrieta**
Tajo ibaiko urak **orduantxe** esnatu izan balira legez izan zen. **Edorta Jimenez**
Wolfgang Pauli, bere garaiko fisikaren egoerarekin etsita zegoen bolada batean, depresio latz baten mendean erori zen, eta **orduantxe** omen zuen, beste etsimenduzko kolpe batean, neutrinoaren hipotesia bota. **Iñaki Seguro**
Oroitzen naiz hirurogei urte bete berri zituela **orduantxe**, [...] eta alemaniar azentu arin batekin hitz egiten zuela ingelesez. **Oskar Arana**
"Hor zetorrek", esan zuen Pantxok prismaoak begietan zituela, eta **orduantxe** bertan neska gazte bat azaldu zen zuhaitz baten atzetik. **Bernardo Atxaga**
Ea **orduantxe** bertan zergatik ez; ez zegoela denborarik galtzeko. **Inazio Mujika Iraola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orduantxe agertu zen (4); **orduantxe ari zen** (4); **orduantxe azaldu zen** (4); **orduantxe bakarrik** (13); **orduantxe bertan** (37); **orduantxe dago** (3); **orduantxe entzun nuen** (4); **orduantxe erabaki nuen** (6); **orduantxe erabaki zuen** (3); **orduantxe ere** (4); **orduantxe gertatu zen** (5); **orduantxe gogoratu zen** (4); **orduantxe gogoratu zitzaidan** (3); **orduantxe harrapatu** (3); **orduantxe hartu** (4); **orduantxe hasi** (48); **orduantxe hasi nintzen** (7); **orduantxe hasi zen** (21); **orduantxe hasten da** (5); **orduantxe hasten zen** (3); **orduantxe ikusi nuen** (4); **orduantxe ikusi zen** (3); **orduantxe ikusi zuen** (9); **orduantxe iritsi zen** (5); **orduantxe izan nuen** (4); **orduantxe jabetu nintzen** (5); **orduantxe jakin nuen** (5); **orduantxe jakin zuen** (5); **orduantxe jo du** (4); **orduantxe jo zuen** (6); **orduantxe konturatu ginen** (3); **orduantxe konturatu nintzen** (10); **orduantxe konturatu zen** (7); **orduantxe ohartu** (18); **orduantxe ohartu nintzen** (13); **orduantxe piztu** (5); **orduantxe piztu zitzaidan** (3); **orduantxe sartu** (10); **orduantxe sartu zen** (4); **orduantxe sentitu nuen** (3); **orduantxe sortu zen** (3); **orduantxe ulertu nuen** (3); **orduantxe ulertu zuen** (5); **orduantxe zen** (4); **orduantxe zetorren** (6); **orduantxe ziren** (4)

orduarteko ik ordu 11.

ordubete (*orobat ordu bete*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian ordubete agertzen da*) 1 iz ordu osoaren denbora bitartea.

Zaila da **ordubete** lasai bat eta liburu on bat edukitzea. **Anton Garikano**
Bere txanda hasi aurreko **ordubete** edo ordu erdi huts hura. **Oskar Arana**
Arratsaldero, **ordubete** luzea ematen zuen han, jende xehearen esamesen berri jakin nahirik. **Karlos Zabala**
Ordubete luzea joan zaie horretara Eskisaroiako kaxko kiskalgarri hartan. **Txillardeggi**
Ordubete luzez orpoz orpo jarraitu nien harik eta harkaitz handi baten pareraino iritsi ginen arte. **Bernardo Atxaga**
Pentsatuz **ordubete** osoa aritu dela jardunean. **Patxi Altuna**
Aurreko **ordubete** hau ez dute kontatu, ordu bat gehiago hemen... **Agurtzane Juanena**
Emakume guzti-guztiak Hasanen besoetan urtebete igaro nahi zuketean, edo hilabete bat, edo, besterik ezean, **ordubete** bat. **Patxi Zubizarreta**
Hemendik sanjoanetara, beste **ordubete** eta minutu batzuk irabazi behar ditu. **Pello Zabala**

Ordubete eta 10 minutuz horietan burtzen da eguna, esan nahi baita, gaueko ordu aski direla gaua freskatu duela esateko. Pello Zabala

- **Ordubete** notizia emateko. Arantxa Iturbe

Eta **ordubeteren** buruan inguru guztia zegoen zuri-zuri. Joan Mari Irigoien

- **Ordubetea** irabazi dut neure egun librean... Lopez de Arana

2 (hitz soila aditz baten ezkerrean)

Gure ontziak **ordubete** zeraman gutxienez ainguran; eguna argitzen ari zuen jadanik. Joxe Austin Arrieta

Ordubete bada heldu zela sumatu dudala, baina ez nion neure buruari aitortu nahi. Monika Etxebarria

Ordubete egon nintzen zain, gutxienez. Joxe Austin Arrieta

Ordubete ibili dira horrela, gero beren autoetan sartu eta badoaz. Bernardo Atxaga

Ordubete eman behar zuen han geldirik, erregaia berritzen zuten bitartean. Karlos Zabala

la **ordu bete** egin dugu mendiko bide bihurtu batean gora. Anjel Lertxundi

Berarekin **ordubete** utziko zaitut eta gero zuk libre utziko nauzu. Jon Alonso

Ordubete igarota, artean lurrean jarraitzen zuten gorpu biek. Jokin Urain

Ordubete falta zen afaritarako. Anjel Lertxundi

- **Ordubete** beharko nikek, gutxienez. Rafa Egiguren

- Emadazu **ordubete** -onartu zuen Amaiak-. Fernando Morillo

3 (hitz soila adizlagun baten ezkerrean)

Ordubete geroago, haien diruak, zilarrezko ehun eta hogeitauro, nire poltsikoan zeuden. Bernardo Atxaga

Ordubete geroago, bidazti berriei zein zaharrei deika hasi ziren, Kaukasoren brankako kanpaia joz. Karlos Zabala

Igandean, ordea, meza baino **ordubete** lehenago, jende beldurtua iritsi zen apaiztxera. Koldo Biguri

Bazkaldu edo afaldu baino **ordubete** lehenago. Patxi Altuna

Tren bat egongo da **ordubete** barru. Koldo Biguri

Ordubete inguruko tartea neukala iruditzen zitzaidan. Bernardo Atxaga

Eginak nituen aurrez sartu-atera batzuk, sekula ez **ordubete** baino gehiagokoak. Bernardo Atxaga

4 ordubetea adlag

Ordubetea hantxe gara. Koro Navarro

Oraingo bide berriekin, **ordubetea** ailegatzen naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Posible izango zen zazpietarako Lekeition egotea, **ordubetea** iristea. Joxemari Iturralde

-Hartu autoak, motozikletak, kamioiak eta gurdiak eta ekarri denak hona **ordubetea**! Koldo Biguri

Liburutegia hutsik egoten da, itxi aurreko **ordubetea**. Arantxa Iturbe

Florent **ordubetea** geratzen zen Gavardekin batzuetan, miraz haren kalaka agorrezina zela-eta. Karlos Zabala

5 ordubeteko izlag

Ordubeteko atzerapena. Karlos Zabala

Fruktuosok irribarrez esan zidan **ordubeteko** kontua izango zela dena, eta berehala etorriko zirela bueltan. Inazio Mujika Iraola

Gero, beste **ordubeteko** bidea oinez. Iñigo Aranbarri

Nork daki zer den asteen bi egun igaro beharra Kordoban edo Malagan dagoen senideari **ordubeteko** bisita egiteko, Bapaumen, Fresnesen, La Santen edo Clairvauxen dagoen presoak ikusteko? Jokin Urain

6 ordubetera

Arrak, emea estaltzeko, 10 minututik **ordubetera** behar izaten du. Gotzon Garate

Boulibet karrikan antzematen ditudan gizontxo beltz horietako bat izanen naiz hemendik **ordubetera**. Monika Etxebarria

Handik **ordubetera**, Irtish ibaiaren ertzean zeuden, Omskeraino hogeitauro bat versta baino gelditzen ez zirela. Karlos Zabala

Gero, handik **ordubetera**, barre egiteari utzi zioten, herrian zabaldu zenean Pizzi zaurituta zegoela. Koldo Biguri

7 ordubetez adlag ordubete.

Goizean ordubete eta arratsaldean beste **ordubetez** ateratzen ginen patioa. Jokin Urain

Besotik helduta Rodanoren gaineko terrazara joan eta hantxe egon ginen **ordubetez**, elkarri besotik helduta beti ere, gauerdian zutik. Joxe Austin Arrieta

Beirarekin **ordu betez** borrokan aspertu ondoren, nazkaturik eta umiliaturik geunden. Juan Garzia

Eta etorkizunerako planak egiten egon ziren **ordubetez**. Unai Elorriaga

8 duela ordubete

Duela ordubete agurtu duzu Andrés aireportuko pasaporte kontrolaren ondoan. -Ainhoa ekarri du baina guri utzi digu **duela ordubete**. Lourdes Oñederra

-Zin egiten dut arrautza hau **duela ordubete** hartu dudala nire oilo beltzaren habiatik. Koldo Biguri

9 orain (dela) ordubete

-Prater kalean al zeunden **orain dela ordubete** edo? -galdetu zion Dembak. Anton Garikano

Hungariatik datorren idazle-laguntzaile bat heldu zaigu **orain ordubete** Rossija hotela utzi dugun lauroi. Edorta Jimenez

Orain ordubete -edo abisu bat ailegatu zaio ospitaleatik, [...] alaba gazteena hil egin dela umea egiterakoan. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste **ordubete** (13); **duela ordubete** (3)

gutxienez **ordubete** (5); **handik ordubete** (5); **handik ordubete eskasera** (3)

ia ordubete (24); **ia ordubete egon** (3); **ia ordubete iraun** (3)

ordubete baino gehiago (14); **ordubete baino lehen** (3); **ordubete barru** (26); **ordubete bat** (4); **ordubete behar** (10); **ordubete behar izan** (4); **ordubete beharko** (4); **ordubete berandu** (6); **ordubete beranduago** (20); **ordubete daramat** (3); **ordubete doi** (3)

ordubete edo bi (4); **ordubete egin** (10); **ordubete egon** (13); **ordubete eman** (11); **ordubete eman zuen** (3); **ordubete ematen** (3); **ordubete eskas** (8); **ordubete eskas iraun** (4); **ordubete eskasean** (8); **ordubete eskaseko** (4); **ordubete eskasera** (3); **ordubete eta erdi** (4); **ordubete falta** (5); **ordubete falta zen** (3); **ordubete galdu** (3); **ordubete geroago** (49)

ordubete igaro (4); **ordubete inguru** (27); **ordubete inguru iraun** (5); **ordubete inguruan** (5); **ordubete inguruko** (6); **ordubete iraun** (12); **ordubete iraun zuen** (9); **ordubete lehenago** (60); **ordubete luze** (4); **ordubete luzea** (3); **ordubete luzean** (4); **ordubete luzez** (8)

ordubete pasa (6); **ordubete pasatu** (3); **ordubete pasatxo** (3); **ordubete pasatxoko** (5)

ia ordubeteko (3); **ordubeteko emanaldia** (3); **ordubeteko epea** (3); **ordubeteko lana** (5); **ordubeteko lanuztea** (6); **ordubeteko lanuztea egitera** (3); **ordubeteko saioa** (5); **ordubeteko saioa egin** (3); **ordubeteko saioan** (4)

ordubeteren buruan (4)

ordubetetik gora (5)

beste **ordubetez** (4); **ezta ordubetez ere** (4); **ia ordubetez** (3); **ordubetez egon** (11); **ordubetez egon ziren** (6)

ordubetegarren adlg (denbora-atzizkiez) ordubete.

Ordubetegarrenean -idatziko du Galindezek- Puerta del Sol zeharkatu genuelarik ez-ohikoa zen jendetza batu zen espaloietan. Edorta Jimenez

Ordubetegarrenean hor da Cristoth. Edorta Jimenez

Ordubetegarrenera lasaiago zeuden hirurak, lokal bazterreko sofa zaharreen berriketan, kanutoen etengabeko joan-etorriaren erdian. Unai Iturriaga

ordubetetsu *adlag* ordubete gutxi gorabehera.

Jonkia oilo-lurrekoa izan ohi da eskuarki eta haren heriotza herrian edo herritik gehienaz **ordubetetsuko** bidea dagoen bazterren batean gertatzen da. Iñaki Segurola

ordubetetxo *iz adkor* ordubetea.

Sekulako zotina jarri zitzaion, aukitit altzarazten zuen dardar bortitza, **ordubetetxo** iraun ziona. Karlos Linazasoro

Bazkalostean, On Camillo **ordubetetxo** batez geratu zen hizketan Kristorekin. Koldo Biguri

Baina astearte gauetan telebistan **ordubetetxoko** saioa ikusteko, egin daiteke zerbait Damianekin. Berria - Kultura

ordubi ik ordu 3.

ordudanik *adlag* harrezkero, ordutik.

Pentsa, **ordudanik** naiz erretzaile -jarraitu zuen-. Bernardo Atxaga

Behar bada **ordudanik** daude gure sukaldeko frigorifiko gainean panpinen buru ebaki horiek. Harkaitz Cano

Ordudanik ez dut berriro ikusi. Agustin Otsoa

Ordudanik, esana zien adiskideei, ez zen behin ere damutu mutikoa semetzako hartu izanaz; behin ere ez. Mirentxu Larrañaga

Ordudanik, eta oraintsu arte, txinatar kapitalismorik izan denean, Txinatik bertatik kanpo garatu da beti. Koro Navarro

Soilki **ordudanik** zaigu haizu horiek otoitzetan erabiltzea. Xabier Kintana

Adelaren aita, POUM en ibili aurretik, PC n ibilia zen, eta **ordudanik** ezagutzen zuten elkar. Juan Kruz Igerabide

Beatriz Viterbo 1929an hil zen; **ordudanik**, ez nuen apirilaren 30ik huts egin haren etxera itzuli gabe. Juan Garzia

Israel osoak jakin zuen erregearen erabakiaren berri, eta **ordudanik** begirune handia izan zioten, zuzen epai zezan Jainkoak nolako jakinduria eman zion ikusirik. Elizen arteko biblia

Eta **ordudanik** ikasleak bere etxean hartu zuen. Elizen arteko biblia

ordu erdi ik ordu 12.

ordu erdigarren *adlag (denbora-atzizkiez)* ordu erdi.

Mikelek kulo utzi zuen botila **ordu erdigarrenean**. Unai Iturriaga

Ordu erdigarrenera agertu zen Txapli. Unai Iturriaga

orduero ik orduro.

ordugailu *iz* ordularia.

Gehiago dena, nehorik ez du konprenitzen nolaz elizako ezkilak, nolaz nork beraren **ordugailuak**, irriatiak, telebistak, hozgailuak, hoinbeste mekanikeria etxe batean orain elektrikaz direnak, berdin elektronikaz beteak direnak, nolaz geldituak diren edo makurtuak. Michel Oronoz

orduka 1 *adlag* neurritzat orduak hartzen dela.

Badabil oraindik, denbora emeki-emeki zatikatzen du, segundoka aurrena, minutuka hurrengo, eta **orduka** gero. Mirentxu Larrañaga

Lehen saioak egin orduko, ohartu zen Gabin lana **orduka**, eta ez itzulitako fitxa kopuruaren arabera, kobratzearen abantailaz. Iñaki Iñurrieta

Sasi-autonomoak, aldi baterako enpresentzat lan egiten dutenak, edota **orduka** lan egiten duten langileak, **Orduka** edo egun osorako alokatzen dituen lehen solairuko logela handi horietako batera. Iñaki Heras

Idazkari-lanak **orduka** egiten zituen loba batek erabiltzen zuen mahaian idazteko makina eta faktura itxurako paperak pilatzen ziren. Josu Landa

Orduka ordaintzen zidaten, seguru sozialetan eta sartu gabe, eta bertoetara joateko arazorik sekula ez zidaten jarri. Berria - Kultura

Sei urte egin zituen Pontevedran, eta, tabernan laguntzeaz gain, kabinetetik psikologiko pribatu baterako ere aritu zen lanean, **orduka**. Iban Zaldúa

Dantza irakaslea da **orduka**, eta jai egunetan merkataritza gunean ordulari saltzailea da. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan)

Finantzaketa talde-**orduka** kalkulatzeko du; talde-ratioa, gutxienez, 11 ikasle/talde izango direla zehazten du; Berria - Harian

3 *ordukako izlag*

Ordukako zerbitzua da hau, iragarri zuen, eta bolanteria jesarri zen, zain. Bego Montorio

Aldi baterako lana, denbora erdikoa edo **ordukakoa** izaten dute. Berria - Euskal Herria

Lanpostuak sortu dituztela esaten dute baina kontratu horiek egunekoak edo **ordukakoak** dira. Berria - Harian

orduko 1 *izlag* une hartakoa, garai hartakoa.

Orduko santu-bizitza ezagunen [...] eskema hagiografikoei jarraitzen die. Askoren artean

Orduko telekomedia arrakastatsuren batean. Xabier Montoia

Zer geratu da **orduko** Anne Frank hartatik? Josu Zabaleta

Orduko ene fedea ez zuen arrazoiak honela torturatzen, absurduaren kontzeptuari ez nintzaion hurbiltzen ere. Piarres Aintziart

Eraz da, adiskideak, nire **orduko** egoeraz trufatzea. Matías Múgica

Irakaslearen emaztea, noski, **orduko** nire adinarean ikuspegiatik, emakume heldua zen, berrogeiren bat urte-edo. [Joxe Austin Arrieta](#)

Eguraldia eta urteen harleko martxa, horixe da ilargia **orduko** kulturari. [Pello Zabala](#)

Haren manera eztekie, gure **orduko** zakarkeriatik hain urrun beti, bide zabala uzten zieten konfidentzietan. [Aingeru Epaltza](#)

Orduko gure erresistentzia pasiboa zen, eta zen iristen arbuioetik, isolamendutik, kutsatzen ez uztekin harago. [Juan Garzia](#)

Ikusiz **orduko** argarziketan ene amaren edertasuna, nago ez ote zieten apezetako sakrifizio mentala minberatzen. [Piarres Aintziart](#)

Hiru mende laurden berantago, **orduko** haurrek ez dute oraino ahantzia zer erakusle argi eta goxoa kausitu zuten Lafitten baitan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Hemendik hamar urteren buruan, bizi denak ikusiko du, **orduko** hiztegi batean, hitz horietatik anitz desagertu direla, beste batzueri lekua uzteko. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Gabon esateko **orduko** besarkada ematerakoan. [Pello Lizarralde](#)

Gauza jakina baita sua amatatzeko **orduko** asearen proportzioan handitzen dela eskuzabaltasuna. [Jon Alonso](#)

2 (mugatzailerekin)

Gaurko kontua balitz bezala gogoratzen du **ordukoa**. [Hasier Etxeberria](#)

Gaurko sentipen eta sendimenduek **ordukoetan** murgildu naute. [Piarres Aintziart](#)

Egia esan, ez dakit sentitutakoa **ordukoa** den edo oraingoa, gogoratu dudanakoa. [Unai Elorriaga](#)

Ezinezkoa da egungoak eta **ordukoak** berberak izatea. Orduko saio eta ahaleginak aipatu behar dira, beraz, **ordukoek** baldintzatzen baitituzte egungo hauek. [Edorta Jimenez](#)

Baina ene erabakia, medikuntza ikastekoa, ez zen **ordukoa** izan, hiruzpalau urte geroagokoa baizik. [Joan Mari Irigoien](#)

Geroztik ukan ditugun erauntsiak ez dira izan **ordukoaren** idurikoak. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Orain ere **ordukoa** bera gertatzen da: giza sorbide hutsez jaiotako semeak Espirituaren indarrez sorturikoa pertsegitzen du. [Elizen arteko biblia](#)

Joanesek erdietsi zuen azken medaila izan zen **ordukoa**. [Itxaro Borda](#)

Jatorrizkoan **ordukoa** da beti hizkera; itzulpenean, gaurkotu egiten da **ordukoa**. [Anjel Lertxundi](#)

Ordukoak dut sentipen gazi-gozo hura. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ordukoak ditut nik akordurik onenak, aitarenak. [Jon Alonso](#)

Ramon Saizarbitoriaren bultzada ere **ordukoa** al da? [Ana Urkiza](#)

Ez dakit oraingo denborak **ordukoak** baino hobeak diren. [Aingeru Epaltza](#)

Batzuek negarrari eman zioten, **ordukoak** ez baikinenez zuek bezain gogorrak. [Koldo Izagirre](#)

Kolaborazio garaiak ziren **ordukoak**. [Pello Zabala](#)

Hori izango da Frantziskoren obsesioa azken urteetan: eredu izan anaia guztientzat, **ordukoentzat** eta gerokoentzat. [Askoren artean](#)

3 (erakusleekin)

Hondarrikiko beren etxean hartu gintuzten Amaia eta biok bolada luze samar baterako, eta kostatu behar zaigu **orduko** hori merezi bezala ordaintzen. [Joxerra Garzia](#)

Orduko hura oso egun berezia zen Magisteritzako hiru bekadun haientzat. [Jon Arretxe](#)

Ez dakit bera oroituko den, baina uste dut gainerako guztiek gogoan dugula **orduko** hura. [Joxerra Garzia](#)

Eta **orduko** hartan ere, kostata baina lortu zuen barrukoa isla ez zekion. [Miguel Angel Mintegi](#)

Orduko hartan, Frodok ez zuen hitzik ere egin egun osoan, konkorturik zebilen. [Agustín Otsoa](#)

Zer arraio nahi ote zuen **orduko** hartan bikoteak? [Miguel Angel Mintegi](#)

Haiek besarkatu egin zuten, eta horrela banandu ziren **orduko** hartan. [Agustín Otsoa](#)

4 *adlag* bezain laster. (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Egun guziz, argitu **orduko**, eta neguan argitu baino lehen, heldu zen etxeko aterat. [Janbattitt Dirassar](#)

Urrats bat egin **orduko**, izerditan blai zinen, eta garagardoz berdindu behar berehala izerdi galdua. [Joxe Austin Arrieta](#)

Portxean eseri **orduko** antzeman genion, irribarreagatik, aldarre amoretua zekarrela. [Bernardo Atxaga](#)

Lehen saioak egin **orduko**, ohartu zen Gabin lana orduka eta ez izulitako fitxa kopuruaren arabera kobratzearen abantailaz. [Iñaki Iñurrieta](#)

Sartu **orduko** guztion begiratu lizunak bereganatu zituen, salbuespenik gabe. [Miguel Angel Mintegi](#)

Hala erratan zidaten ni liburua besapean ikusi **orduko**: [...]. [Aingeru Epaltza](#)

Ikusi **orduko** ezagutu nuen. [Alberto Barandiaren](#)

Bere ingeles kaxkarrari nik alemanez erantzun **orduko** igarri zidan suitzarra naizela. [Joxe Austin Arrieta](#)

Beti gorrotatu ditut proiektu baten berri izan **orduko** "nik ere antzeko zerbait egin nahi dut" erantzuten duten pertsonak. [Bernardo Atxaga](#)

Ni ohartu **orduko** kanpoko tapa hesten da eta haren gibeletik so zegoena urrutuzten entzuten dut. [Filipe Bidart](#)

Erotismoak gure desioaren atean jo **orduko**, heriotza ere sartu egiten duk erotismoarekin batera. [Anjel Lertxundi](#)

Ilundu **orduko**, osteria etorriko zaizkidak. [Jon Muñoz](#)

5 (erlatibozko adizkiaren eskuinean)

Beren geletara iristen ziren **orduko**, Jonathan-eta-Léa, ganbaretako astronauta halakoak, hausnarrean ekiten zioten zeru-hodeiez, ilargi-izarrez. [Jon Muñoz](#)

Entzun ninduen **orduko** Mary Balesterek paperak eskatu zizkidan. [Itxaro Borda](#)

Ez esan izana ongi damutu zitzaidan handik irten nintzen **orduko**. [Jon Muñoz](#)

Hitz hauek esan zituzten **orduko**, berera etorri zen gaztea eta, ikuskariak eman zion adorea, tentaldi guztiak uxatu zituen bere baitatik. [Askoren artean](#)

Baina... (airean utzi zuen esaldia)... kanporatua zela esaten zitzaion **orduko**, zabalik zeukan hilobi-zuloa. [Jon Muñoz](#)

"Ene, aita!", esan ere egin nion, horixe jasota dakarren pasarteira irakurri zidan **orduko**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Baina, oraingo kapela hau ere izugarri gustatuko zait, ikustera ohitzen naizen **orduko**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Jesarri egin da ni ikusi nauen **orduko**, eta irribarre zabal bat egin dit. [Mirentxu Larrañaga](#)

· Soziologiako ikasketak burutzera etorri zen aspaldi Bilbora, eta zen **orduko** bertakotua zegoen. [Unai Iturriaga](#)

Orain heldua zara eta ez gaztea, ergo, gauza batzuk den **orduko** ezin dituzu egin, *capicce*? [Unai Iturriaga](#)

6 (-ra atzikiaren eskuinean)

Maslacqera **orduko**, arratsa bere mihise iluna ezartzen hasia zen gure gainean. [Aingeru Epaltza](#)

Londresera abiatu zen, txiro, eta, lehorrera **orduko**, atxilo hartu zuten 20.000 liberarengatik, Dudley eta Bren-ton-en eskabidez. [Juan Garzia](#)

Pont Neuf kalera **orduko**, ez zekien nondik nora zebilen. [Karlós Zabala](#)

Hara **orduko**, merkaduriak abere gainean paratu eta Kulzum aldera. [Patziku Perurena](#)

Baina harat **orduko**, hauxe da harriztea, hiriko ateak hetsirik zeuden. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Fermin eta biok, kanpora **orduko**, arnasa hartzen dugu. [Pako Aristi](#)

Igarri nion, gainaldera **orduko**, han nonbaiten itzuri egin nahi zidala, bera berritoki kamarotera bakarrik itzultzearen. [Joxe Austin Arrieta](#)

Etxera **orduko**, ateburu gehienetan itzez jositako izaten zen eguzkilorea zuen barometro fidelen eta zuzenena. [Pello Zabala](#)

Casarsako lehenengo etxetara **orduko**, ezta iriak lehertu beharrean ekin zioten berritoki kantuari. [Josu Zabaleta](#)

Sotora **orduko**, ordea, abiatuak ziren berritoki soldaduak. [Txillardegi](#)

Tomasek, berriz, hura barrara **orduko** luzatu zion lehen irriñoa. [Aingeru Epaltza](#)

Ohera **orduko**, isplian ikusi dut neure burua. **Joseba Sarrionandia**
Hortaz, gaur inor ez gaituk harritu postrera **orduko** utzi gaituenean. **Aingeru Epaltza**
· Gizonaren gogora **orduko**, dena da analogia huts: erlijioa, poesia, zientzia. **Patziku Perurena**

7 une hartarako. ik **ordurako**.

Orduko jabetua behar nuen zorionak ez duela luzaz irauten. **Aingeru Epaltza**
Orduko, Picassok eta Braquek kubismoari hasiera emana zioten, eta Peary iritsia zen Ipar Polara. **Pello Salaburu**
Orduko, Tomasek eta Mariak lotua zuten haurraren geroa: bizi bazen, hamar urte betetakoan mutil hasiko zen Ziilguetako jaunaren etxean. **Aingeru Epaltza**
Orduko, iluntzen ari zuen eta ibaiertzean lastargi eta zuziak piztu zituzten. **Koldo Biguri**
Urdangek, **orduko**, lana ausarki izanen zuten setiatzaileen kanpamenduetan. **Aingeru Epaltza**
Bai bainekien nik **orduko**, natur zientzietan ikasitakoaren arabera, "apendizitisa" zela termino zientifikoa. **Joan Mari Irigoien**
Murrak arrailatuak, lubakiak beteak eta dorrea eraitzia zen **orduko**. **Aingeru Epaltza**
· Biharamun eguerditan, bazkal **orduko** Maite heldu zait irriño bat ezpainetan. **Janbattitt Dirassar**

8 ordu bakoitzean, ordu bakoitzeko.

Arnasan ere hartzen du parte pixka bat larruazalak: **orduko** 150 ml oxigeno (batzuetan gehiago) hartzen du, gutxi gorabehera, eta beste hainbeste karbono dioxido kanporatzen. **Irene Aldasoro**
Nire lehengusinak dio nahi adina haragi ematen diotela, eta hogeita bost zentabo **orduko**. **Anton Garikano**
Egia esanda, hogeita bost dolar **orduko** kobratzen zizkion psikoanalista harengana joate horrek grazia handia egiten zidan... **Lopez de Arana**

9 (bide unitate batekin lastertasuna adierazteko, adizlagun gisa)

Makinak potentzia handikoak izanik ere, hamasei versta **orduko** baino gehiago ez zuen egingo Kaukaso ontziak. **Karlos Zabala**
Bidaian, hegaz, 900 kilometro **orduko**. **Txillardegi**
Hodi luzean dunbotsa etengabe, eta gainera abiadura ezin motelago hura; doi-doi hogeita hamar kilometro **orduko**, errepide zuzen batean! **Joxe Austin Arrieta**
140 kilometro **orduko** harrapatu omen zituzten haize-bolada beldurgarri eta zirimolatsu haiek. **Pello Zabala**
125 km **orduko** ibili zen haizea, behin eta berriz. **Pello Zabala**

10 (bide unitate batekin lastertasuna adierazteko, izenlagun gisa)

Mila urteren buruan, jendea **orduko** sei mila kilometroko abidan ibiliko da indar superatomikoz mugituriko autoetan. **Koldo Biguri**
Hilaren azken egunetan, **orduko** 170 kilometroko haizeteak kalte handiak eragin zituen. **Pello Zabala**
Kantauri itsasoan, **orduko** 130 km.-ko haize bilaua nagusitu zen. **Pello Zabala**
Esprinterrak, epe laburreko energia-erreserba erabiliz, **orduko** 23 miliako abiaduran egin ditzake ehun yarda. **Irene Aldasoro**
Nola nahi duzu lurretik hamar metrora, **orduko** ehun eta hogeita hamar kilometrora, etsaien lekuak hauteman ditzadan. **Josu Zabaleta**
Etengabe pasatzen baitziren autoak, **orduko** ehun eta hogeita hamar edo ehun eta berrogeiko abiaduran. **Bernardo Atxaga**
Orduko bederatziehuneko lastertasunean, harrapakinari sekula huts egiten ez dion arpoi kolpe harrigarri hori emango diote. **Josu Zabaleta**
Lurrak **orduko** bostehun eta hogeita hamarrean garraiatzen ditu gureganantz luzerna edo gari koadro handiak eta baso hirukiak. **Josu Zabaleta**
Abiadurarik gorenean jarri da une honetantxe tren, **orduko** 140 kilometrotan. **Pako Aristi**
48,7 **kilometro orduko** batez bestekoa lortu zuen Rogersek, batez besteko ikusgarria. **Berria - Kirola**
Ezin eragotziko dut **orduko** ia zortziehun kilometroko lastertasuna harrapatzea. **Josu Zabaleta**
· Orratzak ehun eta hogeita kilometro **orduko** abiadura markatzen du [= orduko ehun eta hogeita kilometroko abiadura], eta erloju digitalak hirurak eta zazpi minutu. **Patxi Ituritegi**

11 **ordukoan** orduan, orduko hartan.

Aurreko bidaian hiru ginela eta **ordukoan** ni baino ez, edo antzeko esaldi morbosoren bat bota zuen Florak. **Ramon Saizarbitoria**
Orduan kapera ingurura iritsi eta zoritxarrez **ordukoan** ere hamarretako meza pasata zegoen eta berriro elizatik ateratzen zirenen jende boladarekin topatu zen. **Matías Mujika**
Oroimeneraino etorri zitzaion aita hil zenekoa, hau bezalako egunsenti batez hura ere; orduko hartan, hala ere, atea zabalik zegoen eta zeru gris baten argi-isola irazten uzten zuen; errautsez egina, tristea, **ordukoan** egokitu zenez, gogoan duenez. **Juan Garzia**
Ordukoan nire bizitzan lehenbizikoa aldiz oharitu nintzen herrentasun bat dantza baten antzekoa izan daitekeela eta oin herren bat mozorrotu daitekeela. **Matías Mújica**
Beste askotan bezala; baina **ordukoan** esku bat jarri zidan bekokia maitekero, ume bati sukarra hartzeko egiten zaion bezala. **Ramon Saizarbitoria**
Gure jatorria genetikoki beti bitan banatzen bada, nik erdi bakarrari egin nion kasu **ordukoan**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Erantzunik ez **ordukoan** ere. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abiatu orduko (32); **aditu orduko** (27); **agertu orduko** (34); **ahoa zabaldu orduko** (8); **allegatu orduko** (11); **alpatu orduko** (16); **alde egin orduko** (11); **altxatu orduko** (8); **amaitu orduko** (44); **argitu orduko** (30); **atea ireki orduko** (10); **atea itxi orduko** (9); **atera orduko** (41); **aurkitu orduko** (8); **azaldu orduko** (10); **begiak zabaldu orduko** (8); **begiztatu orduko** (7); **berri izan orduko** (9); **berri jakin orduko** (11); **bete orduko** (17); **bukatu orduko** (46); **bururatu orduko** (12); **da orduko** (15)
eguna argitu orduko (15); **eman orduko** (43); **entzun orduko** (110); **erantzun orduko** (7); **erran orduko** (16); **esan orduko** (55); **eseri orduko** (12); **esnatu orduko** (11); **etorri orduko** (12); **etxean sartu orduko** (10); **etxera orduko** (10); **ezagutu orduko** (14); **gelan sartu orduko** (7); **gelditu orduko** (10); **hartu orduko** (45); **hasi orduko** (212); **heldu orduko** (61); **hitza entzun orduko** (7); **hizketan hasi orduko** (10); **hotsa entzun orduko** (9); **hura ikusi orduko** (10); **hurbildu orduko** (8)
ikusi orduko (222); **ilundu orduko** (9); **ipini orduko** (8); **iragan orduko** (11); **irakurri orduko** (8); **irakurtzen hasi orduko** (7); **ireki orduko** (28); **iritsi orduko** (96); **irten orduko** (47); **itxi orduko** (20); **itzuli orduko** (28); **izan orduko** (36); **izan ziren orduko** (7); **izena entzun orduko** (8); **jabetu orduko** (18); **jaiki orduko** (11); **jaio orduko** (17); **jaitsi orduko** (9); **jakin orduko** (44); **jarri orduko** (39); **jaso orduko** (11); **jeiki orduko** (7); **jin orduko** (10); **jo orduko** (25); **joan orduko** (17); **kendu orduko** (9); **kilometro orduko** (100); **kilometro orduko abiadura** (22); **kilometro orduko abiadura** (21); **konturatu orduko** (56); **ni ikusi orduko** (13); **nire orduko** (18)
ohartu orduko (37)
orduko aita (9); **orduko aldaketa** (14); **orduko aldaketarik** (7); **orduko bere** (9); **orduko ene** (8); **orduko giro** (7); **orduko greba** (9); **orduko gure** (13); **orduko haren** (7); **orduko hartan** (156); **orduko hartan ere** (13); **orduko hura** (13); **orduko jarrera** (7); **orduko kontuak** (7); **orduko nire** (22); **orduko oroitzapenak** (7); **orduko presidente** (16); **orduko tartea** (7)
pasatu orduko (8); **pausatu orduko** (7); **pentsatu orduko** (7); **piztu orduko** (9); **sartu orduko** (146); **sentitu orduko** (11); **sortu orduko** (24); **sumatu orduko** (14); **ukan orduko** (7); **ukitu orduko** (24); **utzi orduko** (25); **zabaldu orduko** (38); **zapaldu orduko** (7); **zegoen orduko** (8); **zeharkatu orduko** (10)

ordukotz (103 agerraldi, 12 liburu eta 29 artikulutan) adlag ipar orduko, ordurako. ik orduko; ordukotzat.

68ko maiatza pasatua zen eta **ordukotz** sukarra ahazten hasia. **Piarres Aintziart**
Garatek **ordukotz** bazituen hogoi eta bederati urte. **Xipri Arbelbide**
Beharrik biharamuneko hitzordua **ordukotz** finkatua baitzuten! **Janbattitt Dirassar**
Ordukotz banuen haatik hona jiteko asmaoa. **Piarres Aintziart**
Roger Etxegarai, aldiz, egin zuen beste lan bat, nihaurk erran behar banu, enea baino biziki aberatsagoa, Erromako bulegoetan berak **ordukotz** egiten zekien bezala bildu baitzuten Euskal Herri osoko elizbaruti eta kongregazioek misio tokietan zerabiltzaten baliabideen kontu zehatzak. **Piarres Xarriton**

ordukotzat (21 agerraldi, 5 liburu eta 8 artikulutan) adlag ipar orduko, ordurako. ik orduko.

Ordukotzat haizeak eremanak zituzten. Michel Oronoz

Ordukotzat negua hurbildua zen eta lehen hormek Alemaniako gauak seriooki hoztuak zituzten. Eneko Bidegain

Bere egitateaz damuturik, Martzelina [...] igorri zuen, har zezan eta etxera ekar, baina **ordukotzat** mutikoa desagertua zen. Elena Touyarou

ordukoxe *adlag adkor* bezain laster. (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Alargundu **ordukoxe** hedatu baitzen bazterretan beste emakume batek hartu zuela Margaritaren lekua Don Carlosen bihotzean. Otoitza egin **ordukoxe**, iruditu zitzaion hegoak irteten ari zitzaizkiola. Txillardegí

Entzun **ordukoxe**, posta etxeko atea danbada batez zabaldu, eta gizon bat agertu zen. Karlos Zabala

Ron, indioilarrez eta pastelez bete-bete eginda eta kezkatzeko motibo misteriosurik gabe, bere oheko errezelak itxi **ordukoxe** hartu zuen loak. Iñaki Mendiguren

2 izlag adkor ordukoa.

Harrezkero, hobetua, doitua eta zabalagoa, baina **ordukoxe** sarea, ezin daiteke besterik izan iraileko txostenean aipatzen den sarea. Edorta Jimenez

Kontua, intelektual eta literato europar kritikoa batek, Europan zeuden **ordukoxe** problemetarik, ideien problema bezala hain zuzen, ez "Espainia beti atzeratuko" Alderdiaren arteko problema txiki legez bakarrik, batzuk eta besteak zergatik horrelaxe ikusi dituen, ikustea da. Koldo Izagirre

ordukoz (24 agerraldi, 9 liburutan) 1 adlag orduko, ordurako. ik ordukotz.

Behin -**ordukoz** hamabi urte banituzkeen- Solange eta ni bakarrik geundela goxoki itzalean, alegia deus ez, musu eman nion nexka kriket eztiari. Daniel Landart

Ordukotz neskatxa haietarik anitz ezkonduak ziren eta jadaneko familiatuak, haurrak eta emazteak besainka hezten zituzten gizonekin. Itxaro Borda

Ordukotz, ordainduak nituen lau zerbezak, karterako billete bakartiaz baliatuz. Aingeru Epaltza

2 egun haietan.

Mintzoaren ondoren, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilik gorde zuten eta, **ordukotz**, ez zioten inori esan ikusitakorik ezer. Elizen arteko biblia

ordulari (164 agerraldi, 42 liburu eta 29 artikulutan; cf erloju 1222 agerraldi, 185 liburu eta 110 artikulutan) 1 iz erlojua.

Mokanesa kendu zidaten; gero **ordularia** ("Omega" bat) ene apez-berri oroitzapena. Marzel Etxehandi

Begiak jaitsi nituenean, **ordulariari** begira atzeman nuen. Ramon Saizarbitoria

Xutitu eta **ordularian** eguerdi bost gutti direla ikusten dut. Filipe Bidart

Jangelagongelaren, hamaikak jo zituen **ordulariak**. Jon Muñoz

Sukaldeko **ordulariak** goizeko hirurak markatzen zituela. Itxaro Borda

Goizeko zazpiak zirela ikusi zuen **ordularian**. Xabier Montoia

Bat-batean martxan jarritako **ordulari** zahar bat bezala, puzka hasi zen loroa. Jon Muñoz

Gela barruan **ordulariaren** orratzak ezari-ezarian aurrerantz doazen eta kanpoan bisutsak bortizki jotzen duen bitartean. Joxean Agirre

Nehork baino biziago sentitzen baititu bere azalean **ordulariaren** orratzak, nehork baino hurranagotik haiek eragin zauriak. Xabier Montoia

Atera nuen **ordularia**... baina ez zuen taupadarik jotzen... geldirik zegoen. Josu Zabaleta

Gerra... ez zaie giltzarik gehiago ematen **ordulariei**. Josu Zabaleta

Herrietako elizetako **ordulariak**. Josu Zabaleta

Geltokietako **ordulariak**. Josu Zabaleta

Eta erlojugile ihes eginaren erakusleho honetan, **ordulari** hilen hezurtegi hau. Josu Zabaleta

Joane Somarriba bizkaitarrak urrezko medaila eskuratu du **ordulariaren** kontrako 20 kilometrako lasterkaldian, Hamiltonen. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sabatik zintzilik zegoen **ordulari** handi biribilari begiratu nion. Anjel Lertxundi

Itxaro-lekuaren erdi-erdian zegoen **ordulari** biribil tzarrari begiratu nion. Anjel Lertxundi

Egongelaren telebista gainean jarritako **ordulari** handia. Lander Garro

Hiri guztiko **ordulari** publiko bakarra. Pello Zabala

Fakultate aurretik igaro eta bere Luis XV patrikako erlojuaren ordua unibertitateko **ordulariaren** biribil goitituarenarekin alderatu ondoren, [...]. Josu Zabaleta

Astronomiako aparatuak, matematika, nabigazio eta kartografiarako tresnak (Mercatorri erosiak), hainbat **ordulari** zehatz... J.M. Olaizola "Txiliku"

Goizeko zazpiak eta hogeitigarren bigarrena zirela **ordulari** kuartozkoak. Josexo Azkona

Eskumuturreko **ordulariari** begiratu nion. Anjel Lertxundi

Hormako **ordularian** oraindik seiak zirela. Joxean Agirre

Minutuek hilezkorrak ziruditen, hondarrezko **ordularia** esku maltzurren batek horizontalean jarri balu bezala. Jasone Osoro

Gelaren beste muturrean, liburuazainaren mahai atzean zegoen bi esferako **ordulari** bitxi batek ematen zuen ordua. Jon Muñoz

Ohitura dela medio, segundo bateko kadentzia eramaten ikasi dut, Suitzako **ordulari** baten zehaztasunez. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduko **ordulari** dorre altuena du, 1995ean eraikia. Berria - Mundua

Dantza irakaslea da orduka eta jai egunetan merkataritza gunean **ordulari** saltzailea da. Berria - Mundua

85 urtetan, xahartzen ari ikusten ginuen Elizondoko **ordulari** saltegiaren bereziki azken urte huntan. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horma-**ordulari** handi bat, kaiola inkrustazioz beteta zuena, Inperi estiloko antzinako altzariak, zenbait ispilu apaingarridun eta Valentziako hiriaren XVII. mende hasierako plano bat. Josu Zabaleta

5 irud/hed

Haren barruko **ordularia** puntu-puntu ibiltzen zen, inondik ere. Juan Kruz Igerabide

6 ordularipeko erlojupekoa.

Lehen zatia, Bilbon berean, **ordularipekoa**, erran nahi baita txirindulariak bakarka partituz, zoinek emanen duen denbora gutiena. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ordulariaren orratzak (3)

ordulariari begira (3); **ordulariari begiratu** (19); **ordulariari begiratu nion** (6); **ordulariari begiraten** (3)

ordularitxo iz ordulari txikia.

Beste kontu bat da, gure eskumuturreko **ordularitxoekin**, eta ditugun egutegi 30-31 eguneko hain zehatz extu horiekin, guk esaera lasa-lasa hauek ulertzeko ez ote

ordulaurden ik **ordu 17**.

orduoro ik **ordu 21**.

ordura ik **ordu 24**.

orduraino *adlag* une hartaraino.

Orduraino gure bidea bat eta bera izan arren, orain ez nuen bide hartatik segitzeko gogorik. Alberto Ladron Arana

Deit nezak haur bat ukanen duzueanean, zuen ezkontzak **orduraino** irauten baldin badu. Itxaro Borda

Bat etorri ziren katua akabatu, zatiitu eta jan egin nuela, **orduraino** ostikadaxoren bat bota edo albainorratza ipurdian sartzea beste torturarik egiten ikusi ez nindutenak.

Pako Aristi

ordurako *adlag* une hartarako. ik **orduko 7**.

Ordurako kezka bat neukan, hala ere: haiek egiatan onartzen ote ninduten. Bernardo Atxaga

Ordurako banekien ezin niola historia hari bizkarra eman. Jon Muñoz

Ordurako bi urte zituen kartzelan igaroak, eta Dombrowskiren baldintzak ezin bakunagoak ziren. Oskar Arana

Ordurako, bi mutil kokkor zeuden han. Jose Morales

Da Ruak **ordurako** bazekien, edo sumatzen zuen, iraganaren zama astuna arintzeko modu asko ez dagoela. Felipe Juaristi

Esana zidan **ordurako** aitak ikastetetik atera ondoren akordeoi klaseetara joan beharko nuela. Bernardo Atxaga

Goioen gogoan Arianek zuen **ordurako** lekurik gehiena. Joseba Sarrionandia

Hogeita hamar urte betetzear zen **ordurako** eta ez zion batere onik egiten urteen joanak. Mirentxu Larrañaga

Nozdriovek ikusia zuen **ordurako**, eta zuzen zihoan berarenganantz. Jose Morales

Hamar-hamaika urteak beteak izango nituen **ordurako**, eta mutiko lerdena nintzen. Pedro Alberdi

Betea zen, **ordurako**, bainuontzia. Joxe Austin Arrieta

Liderra, **ordurako**, aski baldartuta zegoen. Jon Alonso

Ni iritsi nintzenez, dezentez galgatu zen **ordurako** egoera. Juan Garzia

Bestealdi batean **ordurako** unibertitatean nenbilen, artzain batekin egokitu ginen lagun bat eta biok. Bernardo Atxaga

1992tik 1996ra, langabezia-tasa, aski handia **ordurako**, bi puntu hazi zen. Koro Navarro

Mina joanik zen **ordurako**, eta geroz eta seguruago sentitzen hasi nintzen handik osorik ateratzeko neuzkan aukerez. Oskar Arana

Ikasturte bakoitzeko 7-8 ikasgai eta 5 ebaluazio kalkulatu, ehundaka azterketa eginak izango nituen **ordurako**, beste hainbat kontrol eta neurketa alde batera utzita ere.

Xabier Mendiguren Elizegi

Lepotik behera zapi bat korapilatutik ipini, eta, besoa bildurik, andregaiarengana joan zen Joxe Mari, berantetsirik izango zuen-eta **ordurako**. Juan Kruz Igerabide

-Bada, guardiako husarren koronela zen **ordurako**! Karlos Zabala

Urrutira alde eginak ziren autoak **ordurako**. Juan Luis Zabala

Edaririk ez, **ordurako**. Joxe Austin Arrieta

ordurarte ik **ordu 24**.

orduraxe ik **ordu 26**.

orduro (13 agerraldi, 3 liburu eta 9 artikulutan; orobat **orduero 9 agerraldi, 6 liburu eta artikulua 1ean**) 1 *adlag* ordu guztietan. ik **ordu 21**.

Zer egiten du egunero, **orduro**, minuturo, segundoro, ikusten dituen milaka eta milaka irudiek, entzuten dituen milioika hitzekin? Karlos Linazasoro

Kamioi ugari pasatzen da egunero errepide horretatik; zehazki, 220 **orduro**. Berria - Euskal Herria

400 megawatteko zentral batek 110 kilo nitrogeno oxido igortzen ditu **orduro**. Berria - Harian

Zaintzaileak **orduro** ematen zuen itzuli bat, eta ordu bietakoan harrapatu genuen. Xabier Olarra

Ertzaintzaren zaintzapean jarri zuen Otegi bere etxean, eta 12 **orduro** auzi-medikuaren bisita jasotzeko agindu zuen. Berria - Euskal Herria

Inoiz ez ditu albistegiak atsegin izan, eta are gutxiago ulertzen du **orduro** alde handirik gabeko berriez osatutako albiste sail enlatatuak errepikatu behar diren ekandua.

Pako Aristi

2 (hitz elkartuetan)

Albertoren pisua institututik gertu zegoen, eta, jolas-**orduero** klaseko mutil gehienek jokatzeko futbol partidua batere interesatzen ez zitzaigunez, ordu erditxo hura hantxe pasatzen genuen, askotan. Iban Zaldua

3 **orduro-orduro**

Boladaka, **orduro-orduro** egin izan dizkigute gaueko kontaktak, ordurik huts egin gabe. Jokin Urain

ordutegi 1 *iz* zereginen edo gertaeren ordurako banaketa; banaketa hori adierazten duen zerrenda.

Arratsaldeko trena **ordutegiak** agindu bezalaxe ailegatzen zela. Fernando Rey

Ordutegiaren panelean egiaztatzen nuen oraindik ere gaueko trena hartzeko garaiz nenbilela. Ramon Saizarbitoria

Ordutegien oholaren albora bueltatzean, harridura geratu zen ikustean orain bostetan zela itxeko ordua. Julen Gabiria

Sakelatik trenen **ordutegia** atera zuen, ireki eta nik inoiz ikusi gabeko argazki bat eman zidan. Fernando Rey

Manaua ez dago hegaldi luzeko hegazkinen **ordutegietan**. Jon Muñoz

Hasita zegoen ikasgaiak berrikasteko **ordutegi** prestatzen. **Iñaki Mendiguren**

Bera ohitu zen ardiñ **ordutegira** . **Xabier Aranburu**

Asko ikusten genuen Frantziako A2 katea [...] Donostian ongi hartzen zelako eta saioen **ordutegia** hobeto egokitzen zitzaigulako. **Ramon Saizarbitoria**

Bere lana hitzartutako **ordutegian** betetzen ez zuela argudiatuta. **Berria - Ekonomia**

Guztionez segurtasunerako, arren eskatzen da **ordutegi** hauek betetzeko. **Josu Zabaleta**

Txarteldegiko **ordutegia** honakoa izango da: 18:00etatik 20:00etara. **Berria - Kirola**

Zure **ordutegia** bederatzia eta erdietan bukatzen da, ezta? **Patxi Iturritegi**

McGonagall andereñoa Gryffindorreko mahaian zehar zebilen, **ordutegiak** banatzen. **Iñaki Mendiguren**

Belaunaldi hartako amek badakite zenbat kostata hazi zituzten umeak, zeinen laguntza gutxiarekin, eta amaren **ordutegia** nolakoa den ere bai. **Arantxa Iturbe**

Ezkongai izatearen abantailak bat: ez daukat **ordutegirik**, ez loturarik. **Fernando Morillo**

Zurruneetik eta malgutik du, aldi berean, administrazio honetako **ordutegiak** . **Aingeru Epaltza**

Edumez aitzineko egunean eman zidan bere **ordutegien** berri. **Aingeru Epaltza**

Ordutegien malgutasuna eta azpikontratazioa hizpide. **Berria - Ekonomia**

Saltokien **Ordutegien** Legean Jaurkitzek ez du onartu alegaziorik. **Berria - Ekonomia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ordutegi komertzialen gaineko salaketa kanpaina prestatu dute ELAk eta LABek. **Berria - Ekonomia**

Oraindik ez naiz **ordutegi** berrira jarri. **Patxi Iturritegi**

-Hirugarren urtekoen **ordutegi** berriak -esan zuen Georgek, papera besteei luzatuz-. **Iñaki Mendiguren**

Komunak eta aldagelak zeuden gizon eta emakumeentzat, **ordutegi** finkoak. **Joseba Urteaga**

Bizimodu erraxa, ordenatua eta burgesa, **ordutegi** finkoak, sendaketa bizkorgarrietan eta familian kontrolatutako ikasketen sistematikoez osatua. **Fernando Rey**

Badirudi **ordutegi** malguak, bai honetan eta baita beste zenbait jardunetan ere, anarkiaren amets urrezkoak bururatzen bideratuko gaituztela. **Jon Alonso**

Ordutegi iraunkorra bertan behera utzi du enpresak. **Berria - Ekonomia**

Pazienteez **ordutegi** zehatzak dituzte jaikitzeko, jateko edo medikaziorako. **Joseba Sarrionandia**

Toki itxiak, zaindariak, **ordutegi** zorrotza. **Markos Zapiain**

Hasieran, **ordutegi** ohikoak eta egin beharrekiko egunerokoak nahasten hasi zenean, lstillagak kontatzen zituen bere anaiaren ibilera noragabeak. **Pako Aristi**

Udako **ordutegira** egokitze ordu berean aurreratu behar zen erlojua. **Harkaitz Cano**

Merkataritzako **ordutegiak** ez ditu oraindik larunbatak barkatzen. **Aingeru Epaltza**

Atsedenerako **ordutegia** : gaueko 10etatik goizeko 7.30ak arte, igandeetan 10.15ak arte. **Josu Zabaleta**

Assicurazioni Generali utzi eta handik bi astera **ordutegi** trinkoarekiko lan bat, alegia eguerdikoko ordu bi eta erdietan bukatzen zena, aurkitu zuen **Pedro Alberdi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inezek eta berak elkarrekin ez topo egiteko **ordutegi** taula eta mapa bereziak eduki behar zituztela pentsatu nuen. **Harkaitz Cano**

Begiak itxi nituen eta lo gelditu nintzen, ordu pare batez besterik ez, **ordutegi** aldaketaren eraginpean bainengoen oraindik. **Jon Muñoz**

Orain hasten da **ordutegi** parterik lasaia. **Josu Zabaleta**

Hasiera batean, 500 metrokoan ere lehiatzeko asmoa genuen, baina azkenean alde batean utzi dugu, **ordutegi** arazoengatik. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Merkataritza-**ordutegiaren** liberalizazioaren aurka. **Iban Zaldia**

Amasa hartu eta hara-hona ibili zen tren-**ordutegiak** aztertzen. **Migel Angel Mintegi**

[Estazioan] nire anaiak tren **ordutegi** guztiak irakurri zituen eta gero etxera itzuli ginen isil-isilik. **Pello Lizarralde**

Arratsaldeko sei eta erdietan, Josu R -bere lan **ordutegia** bete bezain laster- kaleratu egin zen, artegaturik. **Pedro Alberdi**

Detektibeok, seguruenerik badakizu, ez dugu lan-**ordutegirik** : batzuetan goizez, bestetan arratsaldez... eta sarri gauze ere lan egin behar izaten dugu. **Migel Angel Mintegi**

Gure bulego-**ordutegiak** hain dira desberdinak... **Lopez de Arana**

Mintzaira berri hura ikastea bortxakoa zen niretzat, eskola **ordutegi** eta diziplinari makurtzea bezainbat. **Ana Urkiza**

Meza-**ordutegiaren** gainean. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lan **ordutegi** (6); **ordutegi aldaketak** (5); **ordutegi aldaketaren** (3); **ordutegi berria** (3); **ordutegi jakin** (3); **ordutegi malguak** (3)

lan **ordutegia** (5); **ordutegia eta egutegia** (3); **trenen ordutegia** (3)

trenen **ordutegiak** (3)

merkataritza **ordutegien** (4); **ordutegien malgutasuna** (3)

ordutik 1 *adlag* une hartatik.

Ordutik ez dut sekula haren berririk izan. **Anjel Lertxundi**

Ordutik ez dut uste itzuli denik. **Iban Zaldia**

Ordutik hasi naiz bihotzean nituenak euskal-pertsutan aipatzen. **Herria**

Ordutik Luzaidetik bereiz egon zen Arnegi, bai herriz eta bai parropiaz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ordutik , bere arima santuan itsatsia gelditu zitzaion Gurutziltzatuarekiko gupida. **Askoren artean**

Ordutik bertatik hasi zen bere burua mespretxatzen eta lehen maite zuena gutxiesten. **Askoren artean**

Ez du **ordutik** bururik jaso -argitu zuen Willemek. **Anjel Lertxundi**

Urte asko pasatu dira **ordutik** , oso urrutikoak dira oroitzenenok, baina oraindik ere zehaztasun handiz gogoratzen ditut. **Anjel Lertxundi**

Denbora asko joan da **ordutik** , izan da negar eta barrerako betarik amaiera gabekoa zirudien bidaian. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Egun batez, hamabost bat urte izango ziren **ordutik** , telefono dei bat jaso zuten etxean. **Imanol Zurutuza**

Aita urtebete eskas dela hil zitzaigun, eta **ordutik** behin eta berriz itzultzen naiz hitz hauetara, ulertu nahiz, ulertzen saiatuz. **Jon Alonso**

Nola eraman zuen bihotzean, **ordutik** heriotza arte, Jesu Kristoren nekaldia. **Askoren artean**

Hamazazpi urte nituen nik orduan, hamazazpi Montsek ere; beste hamazazpi igaro dira **ordutik** . **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herrenka dabil **ordutik** . **Jon Alonso**

Urteak pasatu dira **ordutik** . **Anjel Lertxundi**

Kasik 50 urte joanak ziren **ordutik** . **Aingeru Epaltza**

2 *ordutiko izlag*

Ordutikoa da, elorriaren jiran ospatzen zuten festa. **Pello Zabala**

3 *ordutik aurrera*

Ordutik aurrera inguraketa operazio haren bigarren fasea hasi zen. **Joxemari Iturralde**

Ordutik aurrera , Brumaireren 18koak Zaharren Kontseilutik atera eta Kode Zibilaren Idazketa Batzordeko egin zuen. **Andres Urrutia**

Ordutik aurrera, konponbiderik ez. Karlos Zabala

Denbora asko galdua genuen, eta arrisku handia zuen **ordutik aurrera** bideak, negua gainean baitzen. Elizen arteko biblia

Hark baietz erantzun zion eta **ordutik aurrera** urtero joan ohi zen. Askoren artean

Azken-azkenean pena alimale horrek den-dena hartzen baitu bere baitan, eta **ordutik aurrera** negarra baizik ez baita geratzen, negarra, oinazea eta desolazioa. Jon Alonso

Haientzat, astelehenetan Animalien Ongizaterako Klinikako poltsekin iristen hasi zen gizona baino ez da, **ordutik aurrera** geroz eta goizago agertu izan dena. Oskar Arana

Ondorengo elkarrizketak argituko zidan, apika, **ordutik aurrera** zer egin nezakeen. Iban Zaldua

Egongelan egin nuen lo **ordutik aurrera**. Joxan Elozegi

Ordu arteko bi oilar amorratuek, elkar harturik, soldadu hordia nork zorrotzago eta distiratsuago larrutu eta barregarri laga izan zen **ordutik aurrerako** saioa [...] harik eta mozkorrak beste whisky baten bila alde egin zuen arte. Anjel Lertxundi

4 ordutik hona

Ordutik hona, legearen subiranotasunaren ideia ezinbestekoa da ordena politikoaren eta askatasunaren ikuspegi errepublikazale orentzat. Esteban Antxustegi

Ordutik hona, bistan da, urte asko pasatu dira. Bernardo Atxaga

Arazoi sustraiddunak tartean direla erdietsi zuen hark dibortzioa; **ordutik hona**, haren egintzak, ordura arteko gaitzak menderaturik, beraren egoera hori ezereztan dio eta ordaindu beharreko kalte handiak ere egiten. Andres Urrutia

Garai zailak pasatuak gara **ordutik hona**. Ander Irizar

Baina ikaragarri aurreratu dugu **ordutik hona**. Iñaki Segurola

-Asko ikasi dut **ordutik hona**. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ordutik aurrera (149); **ordutik aurrera ez** (9); **ordutik dator** (3); **ordutik gaurdaino** (5); **ordutik hara** (3); **ordutik hasi** (4); **ordutik hona** (119); **ordutik honako** (4)

ordutiko ik ordutik 2.

ordutsu 1 (non kasuan, ordu-ri 'gutxi gorabehera' adiera erantsiz)

Ilunabararak dena urreztatzen duen **ordutsuan** agertu zen kalezulora, hain zuzen ere Hamidaren silueta ikusi ohi zuen tenorean, eguneroko ibilia egin aurretik. Patxi Zubizarreta

Eta botila amaitzen ari ziren **ordutsuan**, Negresco Kafean, Jean Genet altxatu egin zen. Patxi Zubizarreta

Ordutsu hartan "Arnas"etik -kanpamenduari hala esaten zioten- itzultzen zen, eta kafe etxeko gizonak mirespenez eta bekaizkeriaz begiratu zioten. Patxi Zubizarreta

Airea epela zen eta kalezuloa eguerdiko **ordutsu** hartan hutsik ageri zen. Patxi Zubizarreta

Osaba Kamil bera ikus daiteke **ordutsu** horretan, denda zabalduz eta gosaltzera joateko prest. Patxi Zubizarreta

Egunero, **ordutsu** berean pasatzen zirelako. Arantxa Iturbe

2 adlag

Itxaroten duenari, oro datorkio **ordutsu**, eta bere borondata. Karlos Linazasoro

ordutxo 1 iz adkor ordua.

Biharamun goiza aski nuke, **ordutxo** batzuk... Txillardegi

-Kuluxka bat egingo dut, **ordutxo** bat besterik ez. Jose Morales

Osabak noizean behin eskatzen zien erizainei uzteko bisita labor bat egiten bolatokira, **ordutxo** batez baino ez. Pello Lizarralde

2 ordutxo arte adkor

Espaloieren erdian zabalduko estolda-zuloan behera desagertzean, hamazazpi urte aurrerago, zer ez ote zuen ikusi nahi izan Perrettek, **ordutxo** arte ondo baino hobeto ikusten zuena? Jon Muñoz

orduxeko izlag une hartakoxea.

Orduxeko esanahi batzuk gorde ditu petxero hitzak egundaino: esklabu, morroi, miserable edo gisakoak. Patziku Perurena

orduzkero ik ordu 28.

ore (orobat orre g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian orre baztertzen da eta ore erabili behar dela adierazten) 1 iz hauts eginiko gai gotor bati edo gai xehetu bati isurkari bat erantsiz eratzen den nahastura aski trinkoa eta biguna. ik masa; pasta¹.

Ogi-irina hartu eta egin zuen **orea** eta erre zituen opil batzuk. Elizen arteko biblia

Hartu gogoan legami pixka batek **ore** guztia altxatzen duela. Elizen arteko biblia

Israeldarrekin artean legamiz altxagabeko **orea** hartu eta, estalkietan bildurik, bizkarrean eraman zuten. Jose Antonio Mujika

Labe gorria dirudite: okinak **orea** egiten duenetik ogia jaiki arte gehiago suberritu beharrik ez duen labe. Elizen arteko biblia

Ni etxe aurrean eserita egoten nintzen, buztin-lurraz jolasten; **orea** egin eta sekulako zakilak egiten nituen, titiak, ipurdiak. Eskarne Mujika

Orea egiteko mortairua prestatu zuen. Askoren artean

Ore hura genuen eskuz xehakatzeko, purruxkatzen, errausten, gazuraren mendetik askatzen. Itxaro Borda

Ore bihurtzen hasitako saltxixa-haragia biltzeko. Karlos Zabala

Darion odolak eta zolako hautsak osatu **ore** batean atxikia dirudi. Xabier Montoia

Ukendu horri esker eusten zien azal zuria, azazkal arrosei, eta bazirudien haren hatz zaluek **ore** haren malgutasuna bereganatua zutela. Karlos Zabala

Eskailertan behera jaistean, denetariko usainak sumatzen ziren: lehenik, bizarra egiteko bitsarena; gero, urreztatutako garbitzeko **oreena**, [...]. Lopez de Arana

Airea, **orea** bezain trinko eta geldia. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Kurrika baten laguntzaz, **ore** trinkotua atera bertatik. Anjel Lertxundi

Eihera [...] ia gogoz kontra hasi zen higitzen, susmo txarreko isiltasun batean, paletan itsasten zen **ore** jela-tinatuetan. Juan Garzia

Gainean sagar-xerra batzuk zeramatzan **ore** azukredun bat laboratu zuen azpil batean. [Anjel Lertxundi](#)
Ispiluan ikusten nuen, ahoa hortzetako **ore** haguntsuz betea, nire zinkurinei begira. [Joxan Elozegi](#)
Ore prefabrikatua labean sartu, berotualdia eman, eta gertu da kontsumitzeko. [Iñigo Aranbarri](#)
Mutlail inondik inora ere ez zion utziko sutegiaren gainean loditzen ari ziren **ore** gantzatsu haiei eragiteari. [Karlos Zabala](#)
Gazta parmesano batek usain lurrintsu pittin bat gehitzen zion **ore** egosien astuntasun hari. [Karlos Zabala](#)
Nire behatzen artean bolatxo grisetan deseginen zen **ore** samur eta fresko haren ukitzeaz gozatzan hasirik... mingainari eguneroko mugimendu arrunta galarazten dion **ore** mingots antzeko beste harresi bat igarri du ahoan. [Monika Etxebarria](#)
Beldurra hartu nuen, erdizka ehoturiko **ore** osasungaitz horrek barne atalen bat urratuko ote zion. [Aingeru Epaltza](#)

3 irud/hed

Oroitzapenen **orea** mamitzen ditek. [Xabier Olarra](#)
Arnasa haien guztien lainoa **ore** egiten zen telatuen gainean, ondoko etxeetarako iristen zen, Paris guztira barreiatzen zen hodei beltz bilakaturik. [Karlos Zabala](#)
Iruditzen zitzaidan [...] aurrez bizi izandako guztia desegina zegoela beren buru edota bihotzetan, **ore** bihurturik. [Bernardo Atxaga](#)
Aldian behin, begiak irekitzen zitzaizkion bere aurpegiaren **ore** grisean, eta purrustaka behatzen zuen ingurura. [Lopez de Arana](#)
Duela lau urte ekin zion, Pantxoia Etxegoin EKEko Zuzendariarekin batera, ezohiko kantaldiaren **orea** lantzeari. [Berria - Kultura](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haragia, ogi-mamia eta arrautza halako **ore**-itxura hartzen hasi zenean, haragi puskak hartu eta bolatxoak egiten hasi zen. [Jon Alonso](#)
Bazituen itsas oilar txiki tente horiak, **ore** geruza lodiegi baten azpian. [Karlos Zabala](#)
Argi bitxi haren pean Charronen aurpegiak labe batean harrotzen hasitako **ore**-bola gogorarazi zidan. [Matías Múgica](#)
Ezpain ertzean lehortu zitzaion **ore** pusketa txiki bat garbitu zuen komuneko ispiluaren aurrean. [Aritz Gorrotxategi](#)
Eltzetik **orepilota** bat atera zuen, gero antzarari mokoia ireki eta pilota mokoan sartu zion. [Fernando Rey](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta zenbat eta gehiago ikustera elkartu, orduan eta handiagoa zen odol isuria irin **orean**. [Askoren artean](#)
Ogi-**ore** gozatu, ogizko budina, ogi harrotua, ogizko bizkotxo... [Anton Garikano](#)
Une hori aprobetxatu zuen Mattinek ohea talo-**orearekin** zikintzeko. [Martin Anso](#)
Txof egin du mami-**ore** melatuak kopetaren erdian jotzean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Tamaina guztietako gaizkatak, kabiari-**orea**, kabiari gazitua, sardinaz ketuak, gazta, mihi ketuak eta gaizkata-bizkar onduak, dendetatik ekarria hori guztia. [Jose Morales](#)
Perretiko-**orearen** koloreko panpina-esku laburrak dilindan zituen alde banatan. [Lopez de Arana](#)
Virtisu-k enborrak paper ore bihurtzen ditu eta Pastgurenak musu zapi bihurtzen du paper **orea**. [Berria - Ekonomia](#)
Boninoren idazmahaiaren gainean bazen Pisako Dorrearen kopia negargarri bat, metal-**ore** arinez egina. Zintzo-zintzo irabiatzen da kromatoko herdoil-aurkakoen berriz-**ore** dontsuan. [Juan Garzia](#)
Arroz pastelak, soja-**ore** eta piperrautsarekin egosiak. [Juan Kruz Igerabide](#)
Makar-**ore** hori batez estaliak zituen begiak, lerdea zerien ezpain-xoko bie. [Anjel Lertxundi](#)
Baina antzinako behelaino **ore** hotzean genuen gogo. [Joseba Sarrionandia](#)
Sukalde aldetik datorren orotariko usain-**ore** trinkoa da nagusi. [Anjel Lertxundi](#)
Ontziteriaren soinua, katuren baten marraoa, kanpai-hotsak eta portuko sirenen eta oihuen zarata-**ore** trinkoa. [Anjel Lertxundi](#)

6 hortz-ore ik hortz 19.

7 kare ore ik kareore.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altxagabeko ore (3); **orea egin** (6); **orea egiteko** (5); **orea egiten** (6)

oreatu, ore, oreutzen da/du *ad* aireberritu, egurastu.

Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale **oreatu** barik, Augustin Zubikaraik bildu zuenez. [Pello Zabala](#)
Nire bihotzeko pertsianak jasotzea, neure barrera **oreatzea**, aire freskoa hartzea erabaki bainuen. [Patxi Zubizarreta](#)
Eta gogotik ari izan duen euria nire barrera urreztatzea, **oreatzea**, ernetzera etorri dela sentitu dut. [Patxi Zubizarreta](#)

oregano 1 *iz* ezpaindunen familiako belarra, hosto eta loreak janari-ongarri gisa erabiltzen direna. (*Origanum vulgare*).

Ez diat uste hire amonak **oreganoa** lurrin gisa erabiliko zuenik... ezta mezarara joateko ere. [Alberto Ladron Arana](#)

Oregano bila arkupeetan. [Anjel Lertxundi](#)

2 (hitz elkartuetan)

Geltoki inguruko arkupeetan usaintzen ari naizen **oregano**-usain bera sentituko zuten Pavesekek, Primo eta Carlo Levik. [Anjel Lertxundi](#)

orein 1 *iz* ugaztun hausnarkari handia, sendoa eta itxura lirainekoa, hanka-luzea eta isats-laburra, oihanean taldetan bizi dena (*Cervus elaphus*). ik **basahuntz**.

Zerbidoen familiako ugaztun artiodaktiloa da **oreina**. [Berria - Gaiak](#)
Ehiztari printzipalak zakurrez inguratutako **orein** bati keinatzen zion bere baleztarekin. [Aingeru Epaltza](#)
Gauean oreinkumeak eta **oreinak** etortzen ziren basotik, elurretan gelditzen ziren ilargiaren argitan. [Xabier Olarra](#)
Aurreko gauean, handixe etorri zitzaion trostan **oreina**... [Iñaki Mendiguren](#)
Orein baten larru zaharkitu bat ipini zion gainean. [Juan Kruz Igerabide](#)
Lancelot zauritu dut nahi gabe, **oreinari** gezia bota diodanean! [Juan Kruz Igerabide](#)
Oreinarenak bezain arin dizkit oinak egin.
Birjintasunaren jainkosak, zigor gisa, Akteon **orein** bihurtu eta bere zakurrek hantxe akabatu zuten. [Martin Anso](#)
Ikusi al dituzu **oreinak** umea egiten? [Elizen arteko biblia](#)
Hirurehun urratsera zegoen **oreinari** tiro egiteko. [Xabier Olarra](#)
Salatua izan zen, eta atxilotua, **orein** bat bortxatzeagatik. [Pako Aristi](#)
Arnak, kartutxo-zorroak, antzinako geziak, hegaztien buru diseatuak, **oreinen** adajeak. [Xabier Olarra](#)
Denok jan ahal izango dituzue, baita legez garbi ez dagoenak ere, ehiza -gazela nahiz **oreina** -jan ohi den bezala. [Elizen arteko biblia](#)
Udaberriro tiratzaile trebeak biltzen zituen eta **oreinetara** joaten zen Van aintziraren ondoko Esrük mendira. [Fernando Rey](#)
Kume arrei esne hobea ematen diete **oreinek**. [Berria - Gaiak](#)

ik beherago 8. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Euriteen sasoiari iritsi zenean, bere eguneroko bazka osatzen zuten bihi, ale eta ezkurren bila zebilela, **orein** ttiki bat ikusi zuen, uholdeak lurrera botatako enbor handi baten abarrek harrapatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Hara non agertzen den sasien artean **orein** zahar handi hori, gugandik ehun oin baino gutxiagora. Koro Navarro

Marisak mutu besarkatzen zuen, niri begi ertzetik begira, **orein** izutu batek bezala. Juan Kruz Igerabide

Ile-moztaileak burua heldu eta lepoa aurrerantz begira jarri diolarik, **orein** disekatuaren burua bere eteko horman bezalaxe sentitu da. Harkaitz Cano

Hirkaniar endatik harako txakurrak sarritan ihes egingo lioke **orein** adardunari. Xabier Amuriza

Orein zaurituak negar intziri, orkatz ukigabeak jolas. Juan Garzia

Orein hego-oindunek, sudurren bitartez, narraziak gordelekuetatik itrenarazten dituztela sinestu ohi denez. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orein -adajeak zituzten apaingarri pasabideetan. Xabier Olarra

Anitz baitziren sala nagusiko paretetan jarriak zituen **orein** -buzurrak eta **orein** -adarrak, gehienak apal batzuen gainean. Joan Mari Irigoien

Han egon ohi da **orein** -begiak dituen neska zoragarri hori. Mirentxu Larrañaga

Orein okelaz egindako saltxitxa gorri-gorri batzuk. Felipe Juaristi

Ahmeten **orein** -larruzko longain handi batekin estalita zeuden, izaki bakar bihurtuta. Fernando Rey

Orein talde osoa agertu zen orduan, aurrekoaren urratsei segika, pixka bat atzeragotik. Imanol Zurutuza

Bazen han azkonar-zulo eta azeri-zulo ugari, pixatoki ezin hobeak denak; eta, **orein** -arrastoak, haiei atzetik segika ibiltzeko agian. Mirentxu Larrañaga

Pashak zaletasun handi bat zuen: ehiza, **orein** -ehiza. Fernando Rey

Ile korapilatuen jiran **orein** -damazko koroa bat zuela, gorritz tindatua eta arrosa bat bezala zabaldua. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Pailazo zuri bitxi, **orein** -muturdun bat. Josu Zabaleta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kasu horretan maitalea da emakume-**oreina** gezi batekin hiltzen duena. Martin Anso

6 elur orein

Glaziarraren oinean, halaber, elur **oreinek** beren kumeak hazteko baliatzen duten gune babestua dago. Berria - Gaiak

Hauen artean daude ipar Amerikako elur-**oreina**, idi musketaduna, Seychelle Uharteetako azeri hegalaria eta lemur marroia. Berria - Gaiak

Lehenengo parean, txakurrek, elur-**oreinek**, zaldiek eta azienek betetzen dute osmanliarren giza esklabo-kasten lekua. Iñaki Mendiguren

Bihotza izozten sentitu dinat, nire jantziak elur-**orein** larruzkoak izan arren. Karlos Zabala

7 orein ar

Orein arren heriotza tasa emeena halako bi da. Berria - Gaiak

8 orein eme (orobat oreineme g.er.)

Kume arrei esne hobeia ematen diete **oreinek**. Berria - Gaiak

Haien itzalek pasaeran **orein** emea balakutzen dute, edo tarteka atsedenaldi bihurriak bizitzen. Patziku Perurena

Nire aurpegiak arreske dabilen **orein** emearena ematen zuen, arrak harrapatu duen momentuan. Karlos Zabala

Neftali, **orein** -eme arina, eme ederren sortzailea. Jose Antonio Mujika

Oreineme maitagarri, gazela eder duzu, ase zaitzatela une oroz beraren bularrek, lilura zaitzala beti beraren amodioak! Elizen arteko biblia

oreinki iz orein haragia.

Derradan ezen festa eguneko bazkari ezin joriagoan, **oreinkia** zerbitzatu zigutela. Joan Mari Irigoien

Baina nolana ere izan genuen **oreinkirik**. Koro Navarro

Janaria hasi zitzaizkidan alde guztietatik jauritzen, **oreinki** errea, jirafa xerrak, kabiarrak pote osoak, astigarraren siroparen kutsuan maneaturiko pastelak, Afrikako fruituak, eta trufak batez ere, zeinen goxoak diren trufak. Joxan Elozegi

oreinkume iz oreinaren umea.

Gauean **oreinkumeak** eta oreinak etortzen ziren basotik, elurretan gelditzen ziren ilargiaren argitan. Xabier Olarra

Ile motza eta begirada **oreinkumearena**. Harkaitz Cano

Ikaratutako **oreinkumea** zirudien Barbarak, kristalpean gehiegi babestutako krabelin iluna. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Oreinkumea bezain jostaria. Koro Navarro

Zoaz ihesi, ene maitea, gazela edo **oreinkumea** irudi, usain-gozoko mendietan barrena. Elizen arteko biblia

oreintxo iz orein txikia.

Bere bizitzaren gorabeherak kontatzerakoan irri goxoa egiten du, **oreintxo** baten antzera, baina ez du hitz askorik egiten. Gotzon Garate

Oreintxoak orduan, hau ustekabea!, gizakumeon hizkuntza garbian adierazi zion baso haietako intxixua zela. Xabier Mendiguren Elizegi

oreitiar izlag/iz Oreitiakoa, Oreitiari dagokiona; Oreitiako biztanlea.

Rikardo Gonzalez de Durana **oreitiar** bertsolaria nagusitu zen [...] Arabako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketan. Berria - Kultura

oreka 1 iz elkarren aurka ari diren gauza bi edo gehiagoren arteko indar berdintasuna; horrelako indarren eraginpean dagoen gauzaren egoera.

-Izan ere, garai batean Donostia xehetasuna zen; **oreka**, perfekzioa -irribarre egin zuen. Ramon Saizarbitoria

Oreka maite zuen, neurritasuna. Ramon Saizarbitoria

Honek ere ausarki desafiatzen zituen **orekaren** lege nagusiak. Unai Iturriaga

Trukean **oreka**, hasteko, oso ondo adosten da enpleguaren gaineko efektu oro har negatibo batekin. Koro Navarro

Europar halako **oreka** bat dago hegoaldeko nazioen eta iparraldekoen artean. Iñaki Iñurrieta

Herralde boteretsuenen arteko **orekak**, argi dago, ez du indarren berdintasunik adierazten, ezta nagusitasun-erlaziorik ez dagoenik ere. Koro Navarro

Delituen eta zigorren arteko **oreka**. Juan Martin Elexpuru

Edukiaren eta kontakteta erri-motoren arteko **oreka**. Ana Urkiza

Zentzu horren gainean kulunkatuko da zure bizitzaren **oreka**. Pako Aristi

Bakea irabazi du, alaitasuna, **oreka**, eta kilo batzuk; ilusioa bakarrik falta du. Pako Aristi

Eraz bidea hartu nuen, **oreka** moduko bat: gutxi ematen zidan gizarteak eta nik gutxiago itzuli. Urtzi Urrutikoeetxea

Kosta egiten zitzaion **orekari** eustea eta lau hankatan jarri zen. Aritz Gorrotxategi

2 (aditz baten objektu gisa)

Argi dago nolabaiteko **oreka** ezartzen duenak bestelako desorekarik ere eragiten duela, ezinbestez. Edorta Agirre

Justizia gizartezaleak bi proposizioak [...] bateratu nahiko ditu, bi printzipio horien arteko **oreka** aurkitu nahiko du. Iñaki Heras

Urguila tematiaren eta damu negariaren artean **oreka** bilatzeko egintza labaina. Oskar Arana

Nahi eta nahiezkoa da zigorrak beren artean **oreka** gordetzea. Berria - Euskal Herria

Saiatu izan naiz, zuzenean kontra egin edo aurrez aurre talka egin beharrean, ihes egiten eta **oreka** gordetzen. Ana Urkiza

Izerdi guruinak garrantzitsuak dira gorputzeko tenperaturaren **oreka** mantentzeko. Irene Aldasoro

Kanpoko ordaintzen **oreka** segurtatzen uzten zaio truke-tasari, trukeen prezioen gaineko ziurgabetasun gero eta handiago baten ordaintzen. Koro Navarro

Arrazoizkoa baita galdetzea ea posible litzatekeen errendimenduaren eta fidagarritasunaren arteko **oreka** aldatzea. Irene Aldasoro

Oreka galdu nuen ia. Joxemari Urteaga

Horrek, ezusteko zama hura eskuan hartzeak, ia **oreka** galarazi zion, balantzaka egin baitzuen une batez. Felipe Juaristi

Olatu kolpe batek, ordea, **oreka** galarazi zien. Aritz Gorrotxategi

Gizakien arima guztiak askatuko banitu, bi munduak ez lirateke bakean egongo, eta **oreka** hautsi egingo litzateke berriro. Joanes Urkixo

Indarren **oreka** apurtzen bada, herrialde jakin baten onurarako, halabeharrez sortuko da bigarren mailako herrialdeen koalizioa, inperioaren mehatxuari aurre egiteko. Koro Navarro

Barre algaraka ari zen Gol Fionnek **oreka** berreskuratu zuenean. Joanes Urkixo

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Aipatu da gorago giltzadura lokak dituen mekanismo bat dela eskeletoa, eta, berez, ez duela **oreka** handirik. Irene Aldasoro

Estatu Batuen, alde batetik, eta bestetik Europa eta Japoniaren arteko indar-harremanen **oreka** berria. Koro Navarro

Hain elementu heterogeneoen erabilerak halako **oreka** eder baten itxura ematen dio etxeari, kaosarenetik oso urruti. Anjel Lertxundi

Elkar baldintzatzen duten terminoen arteko **oreka** konplexu hori bera. Isabel Arrigain

Funtsean, bizitzaren muinean, bere esentzian, ez dago deus **oreka** geldian, dena baita kontrarioen borroka etenik gabea. Josetxo Azkona

Zerbaitetan itsu-itsuan sinesten badut **oreka** kosmikoan da. Harkaitz Cano

Gogoan dut, bereziki, Adela yogan eta **oreka** emozionalaren gainean eman zuen hitzaldi bat. Juan Kruz Igerabide

Nazioarteko sistema ekonomikoaren **oreka** egongaitzetik, beraz, munduko ekonomiaren egiturazko egongaitzasunera igaro gara. Koro Navarro

Pagamendu balantzen **oreka** automatikoa. Iñaki Heras

Oreka dinamikoa bilatzen dut. Ana Urkiza

Biosferaren **oreka** ekologikoaren arazo itzelak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bi muskuluk edo gehiagok egindako indarren **oreka** delikatuak eusten dio hezurri bere lekuan. Irene Aldasoro

Oreka munstruoso haren desegiteko indarrak ez nuen. Piarres Aintziart

Oreka psikikoaren haustura larri eta bat-batekoa. Anjel Lertxundi

Arazoak arazo, hura bere lekuan zegoela, gutxieneko **oreka** baten jabe; ni, aldiz, lekurik gabe nengoan, guztiz desorekatutik. Joan Mari Irigoien

Kokapenen ustetako **oreka** apurtzeko beldurrez. Josu Landa

Eboluzioaren jarraitutasuna auzitan jarri ditu Eldredge eta Gould-ek proposaturiko "jauzikako **oreka**" delakoaren teoriak. Juan Garzia

Makroeboluzioa eta aldizkako **orekak**. Askoren artean

Hura bere lekuan zegoela, gutxieneko **oreka** baten jabe; ni, aldiz, lekurik gabe nengoan, guztiz desorekatutik. Joan Mari Irigoien

Harmonia lortzea, halako **oreka** guztizko bat... Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gatazka **oreka** -puntu batean uzteko beste aukera bat agertu zen. Iñaki Mendiguren

Zaila da **oreka** -unea aurkitzea. Anjel Lertxundi

Entzumen-organo oso fina ez ezik, **oreka** -organo ere bada belarria. Irene Aldasoro

Gure **oreka** -gaitasuna mantentzeko beharrezkoak diren hainbat atzera-eraketa- eta automatizazio-eredu landu eta xehe izan ez balira, ezinezko zatekeen zutikako jarrera. Irene Aldasoro

Prebentzio hau **oreka** -irizpidea errespetatu lor daitekeela bakarrik. Juan Martin Elexpuru

Zirkuluerdi formako kanalez gainera, beste bi hodi txiki ere baditu **oreka** -sistemak: sakulua eta utrikulua. Irene Aldasoro

Oreka -egoeratik BPGaren %3,5eko defizita izatera igaro zen. Koro Navarro

Prezioak etengabe aldatuko dira, beraz, harik eta **oreka** prezioa lortzen den arte. Iñaki Heras

Komunistek [...] gogor kritikatu dute Ernest Hemingwayren horko **oreka** -gura zuri hori. Edorta Jimenez

Berunezko hodei pisutsuek **oreka** jokoak egiten dituzte hiri gainera ez jaustearren. Sonia Gonzalez

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Itxura aldatzeko mundu batean burua nahastea eragozten diguten joera **oreka** -emaile guztiak. Josu Zabaleta

Argi mamuzko hori lagun, gurutzatzen dute jangela, beren itzal **oreka** -galduen antzera balantza apur bat eginez. Xabier Olarra

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta orain, asaldaturik, buru-**oreka** galdurik [...] bidea bilatzen ari zen, kosta ahala kosta neska aurkitu nahirik. Jose Morales

Zuk baizik ezin diozulako berreskurarazi bere buruarenganako estimua eta barne **oreka**. Ander Irizar

Bere giza **orekan** kaltetuak diren edo kaltetuak izanen direnen kezak eta arrangurak. Herria

Aminoazidoen zeregin nagusia zelulen osmosi-**orekari** eustea da. Juan Garzia

Gorputzeko ur-**orekari** dagokionez, bi baldintza bete behar dira. Irene Aldasoro

Belgikan egun bizi duten hizkuntza **oreka** eta batasun politikoa ontzat ematen ditu. Edorta Jimenez

Ustelkeriaren gaitz ezagunak sustraitik kentzean, gizarte-**oreka** asaldatu zuela. Iñaki Mendiguren

Sobietar Batasuna eta Estatu Batuak K.o. 1956an elkarren aurrean aurkitu ziren, lur gainean bizirik zirauten bi botere handi bakar gisan; eta nazioarteko botere-**orekan** bi, kasurik onenean ere, kopuru txarra zen. Iñaki Mendiguren

Kapitalismoa eta ekologia-**orekaren** eramangarritasuna bateraezinak zirela. Iñaki Heras

Ekonomia-**oreka** galarazten duen ziurgabetasun horri erasotzea. Iñaki Heras

Aurrekontu-**orekara** automatikoki itzultzeko legea. Koro Navarro

Petrolioaren prezioaren gorabeherak berehalakoan eragiten diote munduko ekonomia eta finantza-**orekari**. Koro Navarro

Atzerri **oreka** (hau da, inportazio eta esportazioen arteko oreka) eta truke-tasaren egonkortasuna. Iñaki Heras

7 orekan adlag

Frantses osonak, estatu osoko jandarme/polizia **orekatu** nahian, Angeluko jandarmeen/polizia xedea du. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

UGTK akordio **orekatua** lortu nahi du, langileen aldarrikapenak eta enpresaren beharrak asetzen dituena. **Berria - Ekonomia**

Greziarren antzinako *polis* haietan gizon ideala [...] Atleta zela, eta indarra, gorputz-garapen **orekatua** eta edertasun fisikoa balio gorenak zirela. **Bernardo Atxaga**

Garapen sano eta **orekatu** baten arrangura handi batekin behar dela aintzina segitu, hori garbiki finkatu du Bernard Darretche elkarte-buruak. **Herria**

Barne-merkatuaren eta esportazioen hazkunde **orekatua**. **Koro Navarro**

Herrialde garatuak eta garapen-bidekoen artean harreman **orekatuagoak** bultzatzeko xedeaz. **Koro Navarro**

Gure ustez, kontzeptuak dituen hiru alderdiak (sozial, ekonomiko eta ingurunezkoa) ez dira beti modu **orekatuan** aintzat hartzen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Neurriz **orekatua** zen, mehea baina indartsua. **Elena Touyarou**

Eskaerak **orekatuak** izango dira. **Berria - Harian**

Hain zuzena eta **orekatua** da bere juzku eta epaietan! **Anjel Lertxundi**

3 (era burutua izen gisa)

Orekatuenen sosegua aztoratzerainokoa da geltokiko eskaileretan gora eta behera dabilen jendearen zalaparta. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

partida orekatu (13); **partida orekatu zuen** (7); **partida orekatu zuten** (3)

aski orekatua (3); **bikote orekatua osatzen** (4); **final orekatua** (5); **garapen orekatua** (4); **hasiera orekatua izan** (4); **joko orekatua** (5); **kanporaketa orekatua** (3); **lehia orekatua** (10); **lehia orekatua izango** (4); **ongi orekatua** (5)

orekatua da (24); **orekatua dago** (3); **orekatua gertatu zen** (4); **orekatua izan** (23); **orekatua izan zen** (19); **orekatua izango** (12); **orekatua izango da** (8); **orekatua lortu** (4); **orekatua osatzen dute** (3); **orekatua zen** (3); **oso orekatua** (12); **oso orekatua izan** (5)

partida orekatua (13); **talde orekatua** (16); **talde orekatua da** (8); **taldea orekatua** (3); **zatia aski orekatua** (3); **zatia orekatua** (3)

orekatuak dira (5)

modu orekatuan (6)

orekatuta dago (4); **orekatuta daude** (3); **partida orekatuta** (3)

orekatzea lortu (5)

orekatzea lortu (5)

orekatzaile *izond* orekatzen duena.

Epe ertainera edo luzera lanpostu berrien sorkuntzak balizko efektu **orekatzaileak** sortuko lituzkeen arren, murrizketa gertatzen den unean, nork ordainduko du? **Iñaki Heras**

Bakearen eta elkarbizitzaren aldekoa da, eta gizartearen egon daitezkeen ezberdintasunen **orekatzailea**. **Berria - Gaiak**

Gertakari fisiko eta moralen **orekatzaile** den denboraren eraginez. **Juan Martin Elexpuru**

orekatze *iz* oreka sortzea; orekan jartzea.

15.000 milioi euro lortzea da legearen xedea 2007ko jomugan kontuen **orekatzea** lortzeko. **Berria - Euskal Herria**

Egoera honek 1980ko hamarkada arte iraun zuen, erakundearen agintaritza arloetan **orekatze** bat bultzatu zen arte. **Berria - Harian**

Sufre dioxidoak ere **orekatze** bat ezagutzen du. **Herria**

Jasotako ikuspegiari kontrajarriz, beste muturretik, ikuspuntu baikorrak teknologia berriek epe motzera lanpostuak deuseztatzen dituztela onartzen du, baina epe luzera **orekatze** efektuak gertatzen direla dio. **Iñaki Heras**

oren 1 *iz* ordua, egunaren zatia; zati horren denbora-hedadura.

Orenak egoten garena solasean, galdeak eta arropostuak nihaurek ditut egiten. **Janbattitt Dirassar**

Orenak eta **orenak** egon zen harekin solasean. **Eneko Bidegain**

Denboraren iraganak bere dimentsio osoa hartzen du bakartasun eremu horietan: **orenak** orubete irauten du; minutuak urraska kontatuz ditzakezun hirurogei segundotan agortzen du bere denbora; eta segunduak bihotzaren taupadari darraio. **Filipe Bidart**

Horrek guziak **oren** bat iraun zuen. **Marzel Etxehandi**

Horrekin egonen gira **oren** batez kalakan, eta ikusiko dugu nor dugun gizon hau. **Menane Oxandabartz**

Berregoeita zortzi **oren** hurbil iragan dira Txominen eta Kattalinek elkar ikusi zutenetik. **Eneko Bidegain**

Zazpi **orenen** buruan oraino trantze berean zegoen, zinak eta minak ikusiz. **Eneko Bidegain**

Oren bat eta bost iraun du partida hunek, hamar bote sartuz lehenak eta zortzi besteak. **Herria**

Hiru **oreneko** bidea zuten mugaraino heltzeko. **Eneko Bidegain**

475 lagun AHTan sartu ziren eta bost **oreneko** bidaia hasi. **Berria - Kirola**

Batzuetan postan 9 orduz aritzen naiz, eta beste batzuetan, 6 **orenez**. **Ana Urkiza**

Indarkeria nagusitzen da, 24 **orenez** egunean irekiak dauden kasinoen mundutxoan. **Ramuntxo Etxeberri**

Egunean bi aldiz ateratzen nintzen, goizean **oren** erdiz eta arratsaldean beste **oren** erdiz; gainerateko denbora guzia, zeldan. **Filipe Bidart**

Oren baten bakerik ez daukute eman. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Oren baten heina dukegu elkarrekin egoteko, zendako ez zara ene etxerat heldu? **Janbattitt Dirassar**

Bi **oren** hamar guti iraun du finala biziki eder hunek. **Herria**

Eguzkiak argitzen dituen **oren** guztiak genituen, zomorro txikien pare, harat-honat korritzeko gure geografia txikia. **Aingeru Epaltza**

2 (zerbaiten unea adierazteko)

Zer **oren** ote da? lurtean, ohe ondoan, pausatua nuen ordularia, polizia kendua eta zaintzaileek berritua... sei eta erdiak. Ordularian **oren** bat eta bost. **Filipe Bidart**

-Presatua naiz, **oren** bata da jadanik eta bide luzea daukat egiteko oraino. **Itxaro Borda**

Goizeko **oren** bata edo biak dira. **Marzel Etxehandi**

Gaueko lau **orenen** buruan baizik ez zuten ehortzi, ez baitzen lehenago egin ahal izan, haren ikustera eta agurtzera bazetorren jendetza ez zelakotz atertzen. **Piarres Xarriton**

Arratsean berean, 7 **orenetan**, Baionan niz. **Michel Oronoz**

Gurea bihar goizean, 8 **orenetan**. **Marzel Etxehandi**

1849ko maiatzaren 29an, goizeko 11 **orenetan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gauaz -erran nahi baita 8 **orenetatik** eta gauerdian arte- lan egitea onartu nuen. **Marzel Etxehandi**

-Eman dezagun hameka **orenetako**. **Janbattitt Dirassar**

Arratsaldeko lehen **orenetan**, ene gelako sabaian hiru ukaldi entzuten ditut, behin eta berriz. **Marzel Etxehandi**

3 eguneko unea jakina, bereziki zerbaite egiten edo gertatzen denekoa; garaia, unea.

aspaldi hartutako erabakia semeeri esateko **orena** iritsia zela irudituz zitzaion Isidorari. **Pako Aristi**

Han genituen gure erdi-libertateko **orenik** hobereenak. **Marzel Etxehandi**

-Maleruski **orena** joan zauku, Daniel. **Menane Oxandabaratz**

Aski **oren** txarrak iraganak ditut, jakizu! **Janbattitt Dirassar**

Oren guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobira igortzen. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan)

Goiz **orenetan**, ezin sartuz aurkitzen nintzen hamarretik bederatzitan, ahizpa bata ez bazen bertzea barnean. **Aingeru Epaltza**

5 erlojua.

Baditugu hareazko erloju handiak [...]; baditugu eguzki **orenak**, harri gorritzko horma amaiezinezkoan kliska egin eta gero ezkututzen direnak. **Felipe Juaristi**

6 *orenean* oren batean. ik ordutan 3.

Frantziako beste burutik, auto gidari gazte bat harturik 100 kilometro **orenean** eginez Erreteriaraino etorri eta horko Setien jaun Apezpikuarekin soto batean mintzatu eta otoitz egin. **Herria**

Eta goazen anartean, eki haizeak zazpi mila kilometro **orenean** buhatzen duela, jendearen bakardade sentimenduaren ustiatzera gauetz, gauetz, gauetz. **Itxaro Borda**

7 *oren erdi* (*orobat orenerdi g.er.*)

Oren erdi bat aski dugu Baionara joateko. **Daniel Landart**

Oren erdi bat barne Calzadillako etxeak ikusiko ditut. **Piarres Aintziart**

Handik **oren erdi** batera, itzultzaile batekin heldu zait. **Marzel Etxehandi**

Ea ondoko itzulian, **oren erdi** baten buruan... ikusiko. **Filipe Bidart**

Komunioneak **oren erdi** bat nunbait han irau du 4 komunione emailerekin. **Herria**

Oren erdi guziz bada trein bat. **Herria**

Eguerdi, **oren erdia** dikeat. **Piarres Aintziart**

Hemendik **oren erdi** baten bidea da doi-doi, gazte ginelarik segurik ez ginuen gehiago behar. **Michel Oronoz**

Deia aditu eta **oren erdi** bateko tartean azaltzen zen *Palombe Bleue*-a. **Itxaro Borda**

· **Oren erditsu** batez oihuka ari izanik, gehienek bozik ez zuten gehiago. **Marzel Etxehandi**

8 *oren laurden*

Oren beretsutan airearen hartzera ateratzen gintuzten, **oren laurden** bat egunean. **Marzel Etxehandi**

Baina zer da **oren laurden** baten beranta? **Janbattitt Dirassar**

Oren laurden batez elea eman dio gure onddo ikerlariak. **Herria**

Pundu baten diferentzia, **oren laurden** luze batez begiratu dutena Dominici kanporatu-eta. **Herria**

Klasea **oren laurden** baten buruan hasiko zaio. **Eneko Bidegain**

Oren laurden baten buruko, Josepe hasi zen haatik buruari hazka. **Janbattitt Dirassar**

Oren laurden bat lehenago hilez kokorreraino betea zen kamioian sartu ziren. **Eneko Bidegain**

Astelehen aratsean, hiru **oren laurdenez** telebistan mintzatu da Chirac presidentia. **Herria**

Larrabile xoko hontarik hiru **oren laurdenen** bidea bagünñan. **Herria**

9 *orenez oren* ordur ordu.

Jabier Salutregi bilbotarrak kondatzen dauzku, kasik **orenez oren**, Madrilgo izgarrikeriaren gora-beherak, argitarat emanez espainol gobernuak hartua zuen gezurrezko bide hertxia, euskal populuaren bizkar. **Herria**

Deusik ez zen gertatu **orenez oren**: goiz bat eta arrats bat, bigarren eguna, eta hola, aitzina... **Marzel Etxehandi**

Danceney jaun zalduna [...] atsegintasun handiz egunoro jiten da hona, eta nirekin du **orenez oren** kantatzen. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

amaitzeko oren (5); aratsaldeko oren batean (6); arratsaldeko oren batean (5); azken oren laurdenean (4); bi oren hurbil (5); bi oren irau (8); bizpahiru oren (10); bost oren (7)

eguerdiko oren (4); goizeko oren (15); goizeko oren bata (4); goizeko oren batean (5); hamar oren euskaraz (11); hiru oren irau (6); hiru oren laurden (4); hiru oren laurdenez (9)

lehen oren (9); lehen zatiko oren (4)

oren bat barne (5); oren bat bederen (5); oren bat eterdi (17); oren bat eterdiz (8); oren bat gabe (4); oren bat gehiago (5); oren bat irau (7); oren bat lehenago (9); oren bat pasa (11); oren bata (34); oren bata arte (9); oren bata irian (7); oren batean (55); oren batean bazkaria (4); oren bateko (16); oren bateko filma (5); oren baten buruan (13); oren baten buruko (4); oren batez (59)

oren erdi (70); oren erdi bat (25); oren erdi bateko (5); oren erdi baten (19); oren erdi batez (7); oren erdia (10); oren erdian (7); oren erdiko (5); oren erdiz (6); oren eta erdi (14); oren eterdi (6); oren eterdiko (4); oren eterdiz (5); oren goxo (4); oren guti (5); oren hurbil irau (4)

oren iragan (7); oren irau (24); oren irau du (5); oren irau duena (6); oren irauenen (4); oren kopuru (4); oren lan (5); oren laurden (46); oren laurden bat (16); oren laurden baten (10); oren laurden batez (8); oren laurdena (13); oren laurdenean (9); oren laurdenez (9); oren lehenago (11); oren luze (5)

oren pare (22); oren pare bat (13); oren pare batez (6); oren pasa (9)

oren urte osoan (4)

azken oreana (5)

azken orenak (4); bederatziko orenak (4); bi orenak (14); hamaika orenak (4); hiru orenak (4)

orenak arte (16); orenak artean (5); orenak artio (4); orenak egoten (4); orenak eta egunak (4); orenak eta orenak (21); orenak inguruan (4); orenak iragan (5); orenak irian (5); orenak jo (5)

sei orenak (5)

bi orenako (18); hiru orenako (6)

bi orenen buruan (8); hiru orenen (5)

orenen buruan (30); orenen buruko (5); orenen inguruan (8); orenen lege (6); orenen legea (4)

sei orenen (7); zazpi orenen (4); zenbait orenen (6); zombait orenen (7); zombait orenen buruan (6)

azken oreneraino (4)

orenetako meza (15); orenetako mezan (9)

aratsaldeko bi orenetan (5); aratsaldeko lau orenetan (4); arratseko zazpi orenetan (4); bederatziko orenetan (7); bi orenetan (14); hamaika orenetan (7); hamar orenetan (6); hameka orenetan (9); hiru orenetan (11); lau orenetan (18); lehen orenetan (5)

orenetan eginen (4); orenetan emana (6); orenetan emana izanen (6); orenetan eta (41); orenetan eta ondotik (5); orenetan hasiko (34); orenetan hasiko da (20); orenetan hasiko dira (12); orenetan hasirik (11); orenetan haste (7); orenetan herriko (9); orenetan itsasun (8); orenetan izan (4); orenetan izanen (22); orenetan izanen da (18); orenetan kantaldia (5); orenetan luhuson (6); orenetan meza (27); orenetan meza eta (4); orenetan meza nagusia (4); orenetan ondotik (5); orenetan pilota (8); orenetan pilota partida (7); orenetan sanoki (4); orenetan xuxen (18); orenetan xuxen hasiko (5); sei orenetan (14); zazpi orenetan (8); zer orenetan (4); zortzi orenetan (7)

bi orenetarik goiti (5); lau orenetarik (4); orenetarik aintzina (17); orenetarik eguerdi arte (6)

bat orenez (9); bi orenez (48); bizpahiru orenez (5); bost orenez (4); hiru orenez (21); kasik bi orenez (4); lau orenez (11)

orenez atxiki (4); orenez egunean (5); orenez ibili (5); orenez segidan (9)

pare bat orenez (4); sei orenez (5); zenbait orenez (9); zombait orenez (6)

orenerdi ik **oren 7.**

orentegi

Ez hoa ongi motel, mailukatzen zion kontzientziaren balizko eleak bailiran, Lilarekin amodioa egiten zuen amets-gaizto eta iratzartzen zen orenak **orentegi** ahitu ondoan.
Itxaro Borda

orentsu iz ordua gutxi gerabehera.

Pantxika Maitia-k du kudeatu **orentsu** bat irau duen ekitaldi zinez hunkigarri hau. **Herria**
Nere andrea toki beretik iragana da segur, **orentsu** bat lehenago, zorionezko nigarrek aurpegia bustirik usaian bezala. **Herria**
Orentsu batez despeitu du partida, ez baitzen Biscouby prestua ere hola usatua. **Herria**
· Bi **orentsu** galdekatu ninduten urtarillaren 1ean, 2an, eta 3an. **Marzel Etxehandi**

orentto iz adkor orena.

Orentto batetako soinü eta argazki montaketan agertüko da ere San Antoni mendi kaskoan den kaperaren historia. **Herria**

Orentzero ik Olentzero.

orepilota ik ore 4.

oreretar izlag/iz errenteriarra.

Aurretik dominak lortuta joango den beste bat Sara Carracelas **oreretarra** izango da. **Berria - Kirola**
Izaitez **Oreretarra**, gerla zibila ondoko euskal gobernuak sortutako Eresoinka dantza taldearen zuzendari izan da. **Herria**
Bai Madrilen bizi den andaluziarrak bai **oreretarrak** beren azkeneko diskoak aurkeztuko dituzte. **Berria - Kultura**

oretsu 1 iz orearen trinkotasuna duena.

Arraildu egiten zen gaztaina nire haginaren artean, eta zuku **oretsu** gustagarri bat hedatzen zen orduan aho guztira. **Joxan Elozegi**
Oretsua izango zen, lirdingatsua, hortz-haginak garbi utzi ahal izateko mingainaren minutu luzeetako jarduna eskatzen duena **Joxan Elozegi**

2 ahoaz edo mihiaz mintzatuz, listu likatsuz betea.

Gogo handirik gabe ohea utzi, premia bete, eta aho **oretsua** eskuilatu ondoren, dutxa azpian jarri zen. **Migel Angel Mintegi**
Orain ahoa lehorra eta mihia **oretsua** eta loditua zuen. **Agustin Otsoa**
Kosta egiten zitzaidan mingaina arintasunez mugitzea, lehorra eta **oretsua** sentitzen nuen. **Aritz Gorrotxategi**

oretu, ore(tu), oretzen 1 du ad gai xehetu baten eta uraren nahastura mugitu eta sakatu, ore bihurtu arte.

Gose-urteetan, barruko azal hori, eho eta beste irin batzuekin nahasian, ogia **oretzeko** balio zuen, fekula eta azukrea dituelako. **Pello Zabala**
Ekarri lokatza, **oretu** buztina, eta prestatu adreilu-moldeak. **Elizen arteko biblia**
Horma, ispilu eta abarrak hortzak garbitzeko pastaz ederki **oretuak**. **Jokin Urain**

2 irud/hed

Abendu hitzak, datorrenaren aldera edo etortzearen denaren zain, erne, hori duela erlijiozko kutsuz **oretutako** mamia, esan dugu lehenago. **Pello Zabala**
Eta halako buztinez **oretu** ziren alargunen herriak eta hamaikaxo elezahar eta albiste edo eleberriak, egundaino urteen joanak ematu gabeko erreka eta bide bazterretan.
Jokin Urain
Bularrak **oretzen** jardun zidan minutu batzuetan. **Juan Martin Elexpuru**
Horien [titien] erabilera txit baliotsua da plazerean; amonanteak horie begiratzen die gozatzen duenean; igurtzi eta **oretu** egiten ditu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Bere ipurdiaren bila nebilan, bere ipurdi gogor, borobil eta leuna; indarrez **oretu** nuen, eta haren intziriak ozenagotuz joan ziren. **Juan Martin Elexpuru**
Nire neskak klitorisa **oretzen** zidan uhinka bezala, astinaldi bakoitzean hasperen eginez. **Juan Martin Elexpuru**
Niri, behintzat, bihotza irabiatzen, malgutzen, **oretzen** dit. **Anjel Lertxundi**

3 da/du ad orearen trinkotasuna hartu edo eman.

Kurrikka txikiak eginez hitz egiten zuen, eta lerdea **oretzen** zitzaion aho ertzetan. **Anjel Lertxundi**

4 (era burutua izenondo gisa)

Ez, ama nire pijama **oretuaren** lekuko izan zitekeen bitartean. **Aingeru Epaltza**

orezta (44 agerraldi, 27 liburutan; orobat orizta 12 agerraldi, 2 liburu eta artikulua 1ean;) 1 iz larruazalean eratzen den orban ilun biribila. ik orin.

Markok, ordea, amarengandik hartua, **orezta** bat zuen lepondoan, mitxeleta baten irudikoa. **Felipe Juaristi**
Esan beharra dago hogei duroko baten neurriko **orezta** zuela kokospeko zintzur-korapiloa baino beherago. **Ramon Saizarbitoria**
Orezta bat zuen bizkarrean, eskuinean, erdialdean, bizkarrezurretik gertu, margolari batek margotua bezala. **Lander Garro**
Frankotan erran dizuet haren matelondoko **orizta** ez zela parte onekoa. **Aingeru Epaltza**
Grace polita zen, neska irlandarren **oretzak** zituen, baina behar ziren lekuan jarriak. **Karlos Zabala**
Bere aurpegi itsusiko **oretzak**. **Itziar Otegi**
Garaia, argala eta baldar samarra zen, **oretzat** betea, esku eta hanka handikoa eta sudur luzekoa. **Iñaki Mendiguren**
Oretzat beteriko beso lodiak. **Lopez de Arana**
Oretzat jositako gazte alai eta oso maitatu bat, ile beltza tente moztuta daroana. **Urtzi Urrutikoetxea**

Orban, **orezta**, ebakiondo edo anputazioren bat? Rafa Egiguren

Orezta -moduko *incomodité* txiki batzuk agertu baitzitzaizkion eskuineko oinean. Jose Morales

Ikertzaileek azaldu dutenez, melanomaren zelulek ohiko **oriztak** baino BRN-2 proteina gehiago dituzte. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Emakume txiki, lodikote eta kementsu bat da, **orezta** beltzekikoa, motz-motz ebakitako ile sarri eta lodiduna, leporik gabea. Oskar Arana

Bere ezjakintasuna adibidez, eta are gehiago **orezta** ilez betea, eta titiak, umerik hazi gabea izateko oso baitzuten eroriak. Ramon Saizarbitoria

3 irud/hed

Gaztain sagar aurpegi-gorriak, errege sagar horiak, **oreztez** beteak. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan)

Berez ia eskua ere ez zen, baizik eta zerbait moztua, biguna, hezurtsua, zimeldua, argizari **oreztaz** betea. Joxe Austin Arrieta

oreztadun *izond* oreztak dituena. ik **oreztatsu**; **orindun**.

Emakume **oreztadunak** entsalada zerbitzatu die plastikozko koilara eta sarde oso handiekin. Eider Rodriguez

Begiratzen zion aurpegi **oreztadun** eta irribarretsua hura laztandu eta, eskua masailean geldituta, musu eman zion ezpzin haragitsu hertsireki haietan. Sonia Gonzalez

Fraide ilehori eta **oreztadun** hura da, oraintxe bertan Rogeiro deitzen dutela entzun dugun huraxe, nahiz eta bere egiazko izena Roger den. Jon Alonso

Ilegorria, **oreztaduna**, hankokerra, krakaz eta zorriz betea, gezurtia eta amarruzalea. Itziar Otegi

oreztatsu *izond* oreztaz betea. ik **oreztadun**.

Weasley guztiak ilegorriak direla, **oreztatsuak** eta mantent ditzaketen baino haur gehiago dituztela. Iñaki Mendiguren

Jarrera irekiko dama gazte hitzun bat zen Ivors andereñoa, aurpegi **oreztatsua** eta gaztaina-koloreko begi irtenak zituen. Irene Aldasoro

orfebre *iz* urregilea, zilargilea.

Zuek euskal artista eta **orfebreek** Argentinako euskaldun batentzat egin duzuen obra xoragarria. Herria

orfeoi *iz* abesbatza.

Sarriegi omen zen, oroz gain, hogeita bost bat ahotseko **orfeoi** txiki batekin, Donostiako Lore Jokoetan Udaletxeak Antzoki Zaharrean eskaintzen zituen funtzio eta emanaldietan jarduten zuen musikaria. Askoren artean

Donostiako eta Iruñeko **orfeoiak**, Ruhrren. Berria - Kultura

Kontzertu horretan Donostiako **Orfeoia** eta orkestra sinfoniko bat izango ditu lagun kantariak. Berria - Harian

40 *mosso* boluntariok osaturiko talde batek, jairako jantzirik, ohore egingo dio *senyera*-ri, Sant Jordi abesbatzak, Kataluniako **Orfeoiak** eta Puig-reigeko Polifonikoak *Els Segadors* kantatu bitartean. Berria - Mundua

Jesus Bihotzekoaren **orfeoiak** zazpi ordu eta erdiko gregoriano saio zoragarria eskaini zuen, ehundaka belarrion gozamenerako. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

donostiako orfeoia (32); **eko orfeoia** (4); iruñ

donostiako orfeoiak (48); **eko orfeoiak** (6); iruñ

donostiako orfeoiarekin (4)

donostiako orfeoiaren (6)

donostiako orfeoari (3)

donostiako orfeoiko (6)

orfeonista *iz* orfeoi bateko abeslaria.

Gabilondok, musikaria eta **orfeonista** ere bazenak, lehen danborradak, 1845-1855 urte bitartekoak, berez sortu zirela dio. Askoren artean

orfiko 1 *izond/iz* Orfeok sortu omen zuen greziar erlijioari dagokiona.

Demostenesek kontatzen du nola lohiaren bitartez purifikatzen zituzten iniziatuak, misterio **orfikoetan**; proteikoak, eredu berean, gaizkiaren bitartez purifikatzen saiatu ziren.

Juan Garzia

• 2 *iz* erlijio horren jarraitzailea.

Platon da Mendebalde osoarentzat filosofian, moralean, erlijioan, gure kultura komunean, oinarritzko bilakatu den gizakiaren ikusmolde dualistaren ezarlea eta finkatzaile filosofikoa -ez dateke bera asmatzailea, **orfikoengandik** ikasia baituke-. Askoren artean

orga 1 *iz* bi edo lau gurpileko ibilgailua, zamak eramateko erabiltzen dena eta zaldiek, idiek edo kidekoek higiarazten dutena. ik **gurdi**.

Errepidea leporaino betea zegoen, gurdi, **orga** eta omnibusekin. Koro Navarro

Kamioi, **orga** edota gurdirik ez zen sartzen kale itsu hartara. Mirentxu Larrañaga

Hainbat berlina, **orga** eta lando zeuden atari aurrean, bata bestearen atzetik errenkan eta ilargitan zilartsu. Anjel Lertxundi

Zaldi batek tiraka zeraman **orga** bat. Pello Lizarralde

Orga eta zaldia saldu zituzten eta, diru horrekin [...] Ziburuko portuan egoitza ttipi bat alokatu zuten. Elena Touyarou

Lau zaldiko **orgak**. Askoren artean

Orgaren gidaria baitzen, bide guzian aditu zituen arrebaren eta amaren otoiak eta aitaren isiltasun tematia. Elena Touyarou

Llanstephan-era eraman ninduen aitonak pony txiki makal batek tiratzen zuen **orga** batean. Koro Navarro

Orgetan zetozen, joan ziren bezalaxe, eta larrutik hurbil zituzten hezurak. Elena Touyarou

Esnekiaren apalaren errebueltan, Ismael sumatu du, inoiz baino herrenago, eta **orga** erdi hutsik daramala. Iban Zaldúa

Gutxigatik saihestu dugu *hot-dog* saltzailearen **orga**. Harkaitz Cano

Hiramek brontzezko hamar **orga** egin zituen; bi metro luze ziren, bi metro zabal eta metro eta erdi sakon. Elizen arteko biblia

Soldaduak eta peoiak **organ** kokatzen ari ziren azken kanoia. Aingeru Epaltza

Joantok ikusi ahal izan beste beste prezatzen **orga** Baionarantz abiatzen zela. Elena Touyarou
Ohituta bazaude, zeu ere igo zintezke **orga** gainera. Josu Zabaleta
Kaxa **orgaren** zolaren zolan pausatu zuen. Itxaro Borda
Hilotzak **orgetan** kargatu eta arratsalde osoa Munhotarreko xaran iragan zuten. Itxaro Borda
Orgen karga lekua irauli eta barazkiak lurrera zetozen mantso. Karlos Zabala
Inguru-uztai goriak jartzen zizkieten **orgen** gorpilei. Juan Garzia
Etxarte estuan bakarrik geratu nintzen, **orgaren** hagan eserita. Koro Navarro
Orgen lorratzak sakona eta zaharra dirudi, baina belarrez bete ageri da. Pello Lizarralde
-Hori ez al da **orga** idien aurretik jartzea? Iñaki Iñurrieta

2 (izenondoekin)

Bihitegiaren erdi-erdian hautsez betetako **orga** handi bat zegoen. Koro Navarro
Griphoek txistu jo eta burdinbidean **orga** txiki bat etorri zen ziztu bizian haiengana. Iñaki Mendiguren
Haien **orga** tipia zen neurri, baina haga batzuen gainean finkatu oihal batek estaltzen zuen. Elena Touyarou
Martin eta Katalina beren **orga** itxian joan ziren Donibane Garazira. Koro Navarro
Uda hasi berriko egun batean [...] piztia hura heldu zitzaigun jauregirat, zaldi bik tiraturikako **orga** berezi batean, zeinak kaiola baten karantza baitzuen. Joan Mari Irigoien
-Bihar, hortxe, karrikan, tenore berean, Enrieta Jaurenea ekarriko didazu **orga** estali batean. Elena Touyarou
Han ziren, eguerditan, astoek garraiatu **orga** kupeladunak. Herria
Griff jauna, harakina, Morgan arotza eta ni **orga** dardaratira igo ginen. Koro Navarro
Bideko hautsa harrotuz **orga** jauzkarietan pasatzen ziren nekazariak. Jose Morales

3 irud/hed

Errepublikaren **orga** aitzinarazten zuten jende horiek guztiek, premia-premian, geriza eta aterpe izanen zuten prest, legoa batera, iruinsemaeren ardurapeko murrueen atzean. Aingeru Epaltza
Azkenean, Pedro Filosofoak informatu zion: **Orga** Handia, Hartz Handia zen. Pablo Sastre

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hura entzun orduko, ukuilura eraman ninduen, eta bere aitaren **orga**-zaldia erakutsi zidan. zalgurdi eta **orga** atalak. Mirentxu Larrañaga
Berriz ere azaldu ziren bide nagusiaren alde banatan mugarriak, posta-geltokietako arduradunak, putzuak, **orga**-ilarak, herrixka grisak beren samovarrekin eta beren emakumeekin. Jose Morales
Orga lerro luzea Donibanerantz bideratu zen. Elena Touyarou
Orga-toki bete-betearen teilatuaren maila bereraino iristen zen. Koro Navarro
ik orgategi.
Halako batean, bururatu zitzaion *Jardines del Moro* deritzon parkean **orga** museoa zabalik egon zitekeela oraindik. Ramon Saizarbitoria
Bigarren berriz ere Donamartiri 42 pondurekin, Lucien Betbeder-en lasto eta **orga** altxatzearekin. Herria
Bestako sarituen artean herritarrei lehen ohorea: Jean Zugarramurdi adintsua eta Jauregi 21 urteko **orga** altxaria. *ik beherago* 10. Herria

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gerrak hobeki egiteko, 1916an asmatu zuten gudu **orga**. Pello Salaburu
Berrogei gerra **orga** eta misil-jaurtigailuak erakutsi zituzten. Berria - Mundua
Egunetik egunera, han eduki zuten kanoi-**orgara** uhalez lotuta, egiten zuten eguraldia egiten zuela. Mirentxu Larrañaga
Zaldi **orga** bat baratu berri da atarian. *ik zalgurdi.* Jon Muñoz
Erosketa-**orga** hartu eta izoztuen sailetik abiatu da ziztu bizian. Iban Zaldúa
Ordu batean, janari-**orgarekin** ibiltzen zen andre potoloa konpartimentuko atera iritsi zen. Iñaki Mendiguren
Bidaltzen dizute ikatz **orga** bat, ehun pood-eko pisua izan behar lukeena, eta laurogeita hamar baino ez du izaten. Koro Navarro
Hil **orga** bat beraren aldamenetik pasatu eta Hennek tu egiten zion. Koro Navarro
Agure kalpartsua burugabekeriak esaten ari zen oraindik, hileta-**orgako** morroia azaldu zenean, kapela luzea alde batera zuela, zigorra eskuinean eta zigarrokina ezpainetan. Josu Zabaleta
Atzealdean, beste bederatzira iraulki **orgak**, beren aza eta ilar metak eramanez, beren orburu, uraza, apio eta porru pilak garraiatuz, Laster-**orga** kulunkari bati tiraka zetorren zalditar bat belauniko jausi zitzaion, brasta, aurrez aurre. Karlos Zabala

6 (neurri gisa) ik orgatarata.

Orroit gira joanden urtean, zazpi **orga** zikinkeria bilduak izan zirela. Herria

7 gurdia.

Bizkaiko **orga** tipia esan nahi dut, bi idi eta bi gupil sendokoa, ardatzarekin batean itzulikatuz mendian legoa bete barne entzuten den soinu ikaragarria ateratzen duena. Koldo Izagirre
Kanpoan, aidaka ari ziren itzainak, negarka **orga** zamatuak. Aingeru Epaltza
Zurrinbiloek edonor eroan zezaketen, idi pareta uztarrean, **orga** hutsa eta itzain trebe eta harroa. Itxaro Borda
Laborari batek errepidea zeharkatzen du gosturik hobereanean, behi bakar batek tiratzen diola belarrez mukurru bete den **orga** zaharra. Piarres Aintziart
Bidarte eta Donibane Lohizuneraren artean, ostatu xume baten ate aitzinean, idi **orga** zahar espainiarra ikusi dut berriro. Koldo Izagirre

8 esku orga ik eskorga.

9 orga bide ik orgabide.

10 orga-joko orga bat jiraraziz egiten den herri kirola.

Zazpi kirol izango dira ikusgai: ingude-altzatzea, harri-jasotzea, aitzurrez egurra ebakitzea, aizkora, lasto-altzatzea, trontza eta **orga** jokoak. Berria - Kirola
Orga jokoan sei dira aritzekoak 350 kiloko gurdiarekin, eta Xabier Urrestik du txapela. Berria - Kirola
Orga jokoan eta zakauk eramaten, Lapurdiko Jerome Lartzabal eta Beskoitzeko hirukoia nagusitu ziren, hurrenez hurren, 4 itzuli eta 6,60 metro eginda eta minutu bat, 32 segundo eta 8 ehunenekin. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esku orga (3); **idi orga** (4); **iraulki orga** (3); **orga handi** (3); **orga joko** (4); **orga jokoak** (5); **orga jokoan** (7); **orga pare** (5); **zaldi orga** (13); **zaldi orga bat** (4)

orgabide *(orobat orga-bide; Euskaltzaindiaren Hiztegian orgabide agertzen da) iz orgak ibiltzen diren bidea. ik gurdibide.*

Etxe saihetseko **orga-bidetik** pasatuz, kilometro baten buruko oihanean sartu nintzen. Daniel Landart
Igande goiz batez kurutzatzen baduzue jende tropa bat, laparretan eta partan dabilana **orgabidetan** zehar ez harritu; Mugerren gaindiko taldea dukezu, begia erne, beharriak zabalik, lekukoak eta jin berriak nahasirik. Herria
Ursuia mendiko **orga bidetan**, han hemenka ezarriak ziren harri batzu, argi bide seinale zirenak. Herria
Gure memoria historikoan eta autokontzientzian, guk ez daukagu piramiderik eta tenplu galantik, trikuharri eta sepultura galdu batzuk mendietan apal-apalak bakarrik

dauzkagan dautzarian, **orgabidezko** historia mehar neketsu luzea gero. **Joxe Azurmendi**
9-SDPA-P58 **Orgabidearen** azkartzea. **Herria**
· Sixth Avenue etorbidean zehar zaldi zaharrak ikusi zituelako, esate baterako, **orga-bidean** arnasetuka eta arrastaka, edo espaloi-ertzean geratuta. **Mirentxu Larrañaga**

orgadun iz orga duena.

Andres tartana-**orgadun** batengana joan zen, herritxoraino eramatea zenbat kobratuko zion galdetu zion, **Josu Zabaleta**

organdi iz kotoizko ehuna, zuria, arina eta gardena, almodoiak zurruntzen dena.

Ni ere, jakina, erlijio katolikoa hezi ninduten, dotrinara joaten nintzen, lehenengo jaunartzea egin nuen **organdi** zuriz jantzita. **Karlos Zabala**

Aldare aurreko eztei-jantzia bezain eder edo ederragoa ageri zen **organdizko** hil-izara uraren gainean. **Anjel Lertxundi**

organigrama iz erakunde edo enpresa baten egituraren adierazpen grafikoa, funtzioen eta horiek betetzen dituzten pertsonen arteko harreman eta hierarkiaren berri ematen duena.

Organigrama bat egingo luke, prozesaketaren fase bakoitzak behar duen tresneriaren pieza espezializatu guztiak zehaztuz. **Irene Aldasoro**

Lehen-lehenik, aparatukoak estrategikoki txertatu behar ziren Gobernuaren **organigraman**. **Aingeru Epaltza**

Administrazioarekin edozer gaitaz aritzerakoan karguak eta karguak baizik ez, amaierarik gabeko **organigrama** garaietan: marinelik gabeko kapitain, komandante eta komodoroz jositako barkuak. **Iñaki Heras**

Jaime Mayor Oreja ohorezko lehendakaria Madrileria joanik, burukide gazteek dituzte ardura nagusi gehienak EAeko PPren **organigraman**. **Berria - Euskal Herria**

Organigramari dagokionez, besteak beste, Josu Jon Imazek komunikazio arloa hartuko du, EAJren lehendakariaren batera, eta Josune Ariztondok idazkari gisa jarraituko du. **Berria - Euskal Herria**

PPko **organigraman**, Mayor, Iturgaitz eta Carmelo Barrio idazkariaren ondoren, Alfonso Alonso, Antonio Basagoti eta Maria San Gil idazkariordeak datoz. **Berria - Euskal Herria**

Costa ez zen jada bere solaskide zuzena, Costa gizajoa, biktima errugabea, **organigramak** ekarri-eta-eramanezko eginkizun ia mekanikora gutxiagotua. **Jon Alonso**

Bestalde ATEko **organigramako** bosgarrena, zazpigarrena, hirugarrena, bigarrena harrapatzen zutenean, ai zer poza! **Itxaro Borda**

Osasunaren **organigrama** teknikoan lanean ari diren etorkizun handiko bi entrenatzaile. **Berria - Kirola**

organiko 1 izond organismoei dagokiena.

Forma eremu "bizi", **"organiko"** bat dela, eta, horrenbestez, haren adierazgarritasuna izaki bizi baten adierazgarritasunarekin konparatzeko dela. **Josu Zabaleta**

Bereiz eta bana al daitezke hizkuntza batean, bilakaera naturala, **organikoa**, alde batetik, eta literatura hizkuntza bezalako forma artifizialak, kanpoko faktoreen eraginez gertatzen direnak, eta horrenbestez inorganikoak direnak, bestetik? **Isabel Arrigain**

Andresen aukera ona izan zuen ezkortasuna eta baikortasuna ondorio **organikoak** direla egiaztatzeko, digestio txarrak eta onak bezalaxe. **Josu Zabaleta**

Gorabehera **organiko** horiek haren izaera espiritual eta materialean ere islatzen ziren. **Josu Zabaleta**

Andresi iruditu zitzaion miseria **organikotik**, elikadura eta aire faltatik zetorrela batez ere higuin hori. **Josu Zabaleta**

Ez osotasun **organiko** autonomo bezala, bere baitan itxia eta zentzua izateko gai dena, baizik eta koexistentzia-arlo baten osagai bezala. **Xabier Arregi**

Badakizu histologo batzuek uste dutela oinarriko unitate **organikoak** aurkitu dituztela zelulen protoplasman; bioblasto deitzen dituzte. **Josu Zabaleta**

Baina kaos horixe, **organikoa** eta naturala, irudikatu behar nuen nik. **Josu Zabaleta**

Artelan bat [...] **organikoa** dela esan ahal izateko, obra horren osagaien arteko erlazioak osagaiak berak bezain garrantzitsua behar du izan: organismo natural baten "antzekoa" behar du izan. **Josu Zabaleta**

Batzuk datu hotzak dira, plantilla **organikotik**, nometatik edo haien gaixo-agiri edo opor-orrietatik atereak. **Aingeru Epaltza**

Arima arrazoiduna gorputz fisiko, **organikoaren** egintza da, bizitzeko ahala duena. **Piarres Xarriton**

2 organoei dagokiena. ik organo¹ 2.

Lesio **organikoak**, foku sakonak, ehunetako aldaketak, organoen arteko hedatze bideak eta erak. **Xabier Arregi**

Touretteren sindromea gaixotasun **organikotzat** baino areago gaixotasun "moral"tzat hartu zen. **Xabier Olarra**

Arazo **organiko** batzuen ondorioz, hala nola diabetesa edo prostatak ebakuntza. **Berria - Gaiak**

Gaitz eskizofrenikoak, nahaste bipolarrak, eta psikosi **organikoak**. **Berria - Gaiak**

Buruko gaitz batzuen kausa ez zela **organikoa**, psikologikoa baizik. **Berria - Kultura**

Horrela gertatzen da psiikiatriaren eta medikuntza **organikoaren** kasuetan. **Xabier Arregi**

Ikuste-prozesatzearen eta ikustun-identitatearen porrota, oinarri **organikoa** zuena ("azpitik gorako" trastornoa edo neuropsikologikoa, neurologoen mordoiloan). **Xabier Olarra**

Virgilen ikusmenaren ahulezia **organiko** larria zela eta -ikusmen-sistemen eta ikustun-identitatearen aldetik garai hartan zerabilen zalantza-, oso zaila zen, tarteka, zer gertatzen ari zen jakitea, zer "fisiologikoa" eta zer "psikologikoa" zen bereiztea. **Xabier Olarra**

Historia naturalaren baitan egiten diren deskribapenak, elkartasun **organikoen** eta aldagai anatomikoen bidez gauzatzen diren funtzioei buruz. **Xabier Arregi**

Ez adimen urriturik, ez autismoaren arrastorik, ezta besteekin harremanak izateko eragozpen **organikorik** ere. **Oskar Arana**

3 gaiez mintzatuz, izaki bizien osagai dena.

Proteinak -substanzia **organiko** sinpleen eta airetik edo lurretik hartutako nitrogenoaren konbinaziotik sortuak- lortzeko iturri nagusi bakarra. **Irene Aldasoro**

Bakterioen bidez, gai **organikoen** egitura suntsituko dugu. **Berria - Euskal Herria**

Milioika mikroorganismo eragiten duten materia **organikoaren** aldaketa biologikoaren ondorioz ongari naturala edo konposta sor daitekeela. **Berria - Euskal Herria**

Ez baikara materia elikatuko duen materia **organikoa** baino.Tenperatura apalean urtzen delako, ia konposatu **organikoak** bezala, hots, gu bezala ia. **Ramon Saizarbitoria**

Rio Negroko ur marroi iluna, gai elkartu **organiko** ugari baitu bere baitan. **Jon Muñoz**

Konpostajea da zaborretako osagai **organikoak** oxigenoaren bidez deskonposatzeko prozesua. **Berria - Euskal Herria**

Etxeko zabor **organikoekin** konposta egiten ikasteko sistema aurkeztu du Eguzki talde ekologistak. **Berria - Euskal Herria**

Piztiak beren zuloetan, hondakin **organikoen** meten atzean, digestioan edo lo dauden orduak. **Monika Etxebarria**

Landare kopuru zabal bat analizatu, fosforo **organikoz** aberatsenak aukeratu, [...]. **Juan Garzia**

Bizia materia **organikoaren** antolaketa konplexu batetik sortu edo azaleratzen da. **Askoren artean**

Laguntza eskatu dute Kutsagarri **Organiko** Iraunkorren aurka egiteko. **Berria - Gaiak**

4 hed

Horri guztiari lotuta beste gai bat dugu: mundu **organikoa** sailkatzeko zein metodo erabili behar da? **Askoren artean**

Iturri bolkanikoa izango ote du [Marteko metanoak] edo iturri **organikoa**? **Berria - Gaiak**

Eraldaketa haietatik lehenbiziko egitura **organiko** konplexuak loratu ziren, alga eta belarren klorofilari esker [...] fotosintesia garatuz joan zen. Jose Angel Irigaray

Kimika **organikoko** nire testuliburu zaharrak. Juan Garzia

Bizitza politikoaren kontsiderazio mekaniko-razionalistari, **organiko** -trazionalista oposatzen dio (nolabait esan: besteak matematikarekin pentsatzen badu, honek biologiarekin pentsatzen du gizartea). Joxe Azurmendi

5 (izen gisa)

Zabor organikoa bereiztuta bilduko bagenu etxeko zaborraren erdia organikoa da, bi gauza lortuko genituzke: batetik, zabortegira **organikorik** ez isurtzea, [...]. Berria - Euskal Herria

Antzinako kimikariek kemen eta pazientzia gizagaindikoak izan behar zituzten, edo hein berean zen, bestela, neurrigabea **organikoei** buruzko nire esperientziarik eza. Juan Garzia

6 elkarren artean koordinatu edo ordenaturiko zatiek osatua.

Arimak gorputz **organiko** batekin duen komunitatearen ahalgarritasunaz. Ibon Uribarri

Gorputza batasun **organikoa** da, eta halaxe erantzuten du, atal guztiek batera. Luis Elberdin

Hartara ondorioztatzen du bilera «**organiko**» bat izan zutela, eta egoitza Batasunaren zerbitzura jartzea egotzita bi urtez egoitza ixteko agindu du. Berria - Euskal Herria

Ekonomiak nazioarteko bihurtzea, beraz, hazkunde-prozesu **organiko** baten jarraipena baino ez da. Koro Navarro

Esan ziguten gure jasangogortasun burlati hura ez zela aski; sumin bihurtu behar zela, eta sumin hori iraultza **organiko** eta xuxen baten ildora ekarri. Juan Garzia

Kapitalaren jabeen eta politikarien arteko harremana ia **organikoa** baita. Berria - Mundua

Ez da argitalpen **organiko** bat, badu prestigioa eta jokatzeko tartea, baina Euskal Herriari dagokionez, estatu aparatua da. Berria - Euskal Herria

Marketin politikoan aditu direnek ondotoxo dakite zer nekosoa den lider bat erakitzea: antzeman lehenik, bere basearen sinesgarritasuna lortu gero, lider **organiko** bihurtu hirugarrenik, eta azkenik gizarterantz bideratu eta mirakuluaren zain jarri. Berria - Euskal Herria

Frantsiskoren idazkiak mota askotakoak dira, eta egokiera eta xede ezberdinak dituzte; ez dute, beraz, gorputz **organiko** eta sistematorik osatzen. Askoren artean

Batzuk datu hotzak dira, plantilla **organikotik**, nometatik edo haien gaixo-agiri edo opor-orrietatik atereak. Aingeru Epaltza

Egia da onartu berria den Unibertsitateen Lege **Organikoak** irakasle ikertzaileak kontratatzeo aukera eskaintzen duela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Legegintzaldi honetan ez da aldaketarik izango legedi **organiko** judizialean. Berria - Euskal Herria

EAKo zinegotziek, aldiz, Udal Araudi **Organikoa** aldatzarekin aski dela defendatu dute aurreko egunetan. Berria - Euskal Herria

Epaileek bertan behera utzi dute Iruñeko Udal Plantilla **Organikoa**. Berria - Kirola

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege **Organikoetan**. Berria - Euskal Herria

'Hi maiteminduta hago!' esan nion, Clemente Lopez demokrazia **organikoari** buruz ari zen unean. Joseba Sarrionandia

Platonen ere *Timeo*-n unibertsoa banako baten antzera aurkezten du, osotasun animatu eta **organiko** gisa, esfera itxurakoa. Xabier Kintana

Euskaltzainek ahozko euskal tradizioaren kontra toki izenetan -a **organikoa** jartzeko erakusten duten grinaren lepotik barre egiten du Patziku Perurenak. Iñaki Arranz

7 ez-organiko izond organikoa ez dena.

Kimika **ez-organikotik** organikora pasatzeko urratsa. Juan Garzia

Bakoitzaren fosforo-edukia aztertzen eta finkatzen nuen, **ez-organikoa** eta guztirakoa. Juan Garzia

Plastikoa gai **ez organikoeekin** sendotuz beira-zuntzarekin adibidez lortzen den materiala aipatu bi horiek bezain gogorra da, baina askoz ere merkeagoa. Berria - Gaiak

Ekoizleak elikagai **ez-organikoetatik** eta energia iturri bat erabiliz materia organikoa ekoizten dutenak dira. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gai organiko (3); gorputz organiko (3); hondakin organiko (4); kutsagarri organiko (4); lege organiko (11); materia organiko (6)

ez organikoa (3); lege organikoa (13); materia organikoa (25); zabor organikoa (4)

gai organikoak (3); hondakin organikoak (6); konposatu organikoak (4); lege organikoak (3)

organikoki *adlag* era organikoan.

Bere formaren bila ari den bizitza itxuratu gabe hau aldatzen eta berraldatzen den lekuaren errealitate planoan bera ere aldatu egiten da **organikoki**. Josu Zabaleta

Baserria eta ni **organikoki** ezkon ezinak, mekauen la belarra, mekauen aaa... Joxean Sagartzizabal

organikotasun *iz* organikoa denaren nolakotasuna.

1960ak arte ez zen hasi joera hori aldatzen eta autismoaren **organikotasuna** osorik onartzen. Xabier Olarra

Organikotasunaren metaforak (alegia, izaki bizien antolamenduaren antzeka antolamendua izatea, gutxi-asko) organismoen artean gailurrean dagoen organismoa gogoratzen du. Josu Zabaleta

Formaren **organikotasunari** buruz, forma artistikoen jatorri naturalaren gai klasikoa, alegia (landarea, giza organismoa, honen zirkulazio-sistema, esate baterako, irudi artistikoaren egitura "sakonaren" eredu gisa hartzen dira, Leonardok batere gaitzetsiko ez zukeen modu batean). Josu Zabaleta

organikotu, organiko(tu), organikotzen da/du *ad* organiko bihurtu.

Dagoeneko **organikoturiko** edo gutxienez erreduzituriko karbono gordailu eskergak. Juan Garzia

organikotze *iz* organiko bihurtzea.

Karbonoaren **organikotzea** egunero geure begien aurrean gertatzen ikusiko ez bagenu, astean-astean mila miloika tonak, hosto baten berdea azaleratzen den edonon, zuzen osoz legokioke mirari izena. Juan Garzia

organismo 1 *iz* izaki bizia, animalietariko nahiz landareetarikoa, banakakotzat hartua; hori osatzen duten organoen multzoa.

Organismo bat zegoen lekuan, elkarrekiko lotura guztiak eten diren organo multzo bat baizik ez da geratu. Josu Zabaleta

Entitate konplexuak (proteinak, zelulak, **organismoak**, ekosistemak) zati osagarrien ezaugarrien arabera azal daitezkeela. Askoren artean

Organikotasunaren metaforak [...] **organismoen** artean gailurrean dagoen **organismoa** gogoratzen du: giza gorputza, azken finean, non parteek ez baitute zentzurik osotasunaren arabera ez bada. Josu Zabaleta

Azken batean, **organismoak** beren artean oso desberdinak izan arren, haien enbrioi-garapena gobernatzen duten geneak kideko dira guztiak. Juan Garzia

Posible zela **organismo** baten ADN zatikiak moztu eta zati horiek beste zatiki batzuekin batzeko. Pello Salaburu

Organismoak -kasurako, intsektuak- segmentu errepikatuen taxuan garatzen dira, itxura denez; hots, zelula anitzeko moduluz. Juan Garzia

Zer dela eta ukatu behar da c-proprietaterik ez duten **organismoek** min sentitzen dutela? Askoren artean

Oxigeno eza ez baitu **organismoak**. [Josu Zabaleta](#)

Analisi genetikoak zeinahi **organismotara** heda daiteke, gizakia barne. [Juan Garzia](#)

Enbrioaren garapenaren eta **organismoaren** funtzio nagusien oinarri genetikoak aztertzeko. [Juan Garzia](#)

Organismo bat bizirik egotea, hain zuzen, zera da: hurrengo unean oraindik ere bizitzen jarraitzea, lipar batez baino ez bada. [Juan Garzia](#)

Batak banako "atomikoen" metaketa huts gisa irudikatzen du gizartea, eta besteak gizartea **organismo** bezala hartzen du eta gizabanakoak beraren parte, pentsaezinak beren gizarteko kide edo "zelula" bezala izan ezik. [Iñaki Mendiguren](#)

Genetikoki eraldatutako **organismorik** ez onartzea. [Berria - Ekonomia](#)

Lulu ahultasun larritzko egoera batean geratu zen; haren **organismoak** ez zuen erantzuten behar besteko indarrez. [Josu Zabaleta](#)

Gizaseme galdutzat zeukan Harry, gizasemetzat ere har ezin zitekeen **organismo** baten subespezie gisako bat. [Oskar Arana](#)

2 (izenondoekin)

Biologia ere saiatzen da bere objektuen, **organismo** bizen, irudikapen bat eraikitzen. [Juan Garzia](#)

Hautespen naturala **organismo** indibidualek populazio-mailan duten kompetenziaren ondorioa da. [Askoren artean](#)

Zitoplasmako antenak luzatuta, **organismo** sarkina inguratu, irentsi eta desegin egiten dute. [Irene Aldasoro](#)

Libchaberren taldeak ahalik eta bizidun **organismo** sintetiko txikiena sortu nahi du. [Berria - Gaiak](#)

Organismo konplexuei -sexu bidezko ugalketaz baliatzen direnei- dagokienez, [...]. [Juan Garzia](#)

Arabidopsis thaliana izenekoa da belar hau, oso **organismo** simplekoa, 5 kromosoma pare baizik ez baitu. [Pello Salaburu](#)

Ugaltze-aparatua, gaur egun **organismorik** simpleenean, bakteriorik xumeenean ageri den moduan, konplexutasun ikaragarriko mekanismoa da. [Juan Garzia](#)

Organismo heldu bakoitza kasuan kasuko sorkuntza bereziaren emaitza zen. [Juan Garzia](#)

Dendrita zelulek zaintzaile lana betetzen dute; **organismo** arrotzak identifikatu eta erne jartzen dituzte beste zelulak. [Berria - Gaiak](#)

Artelan bat [...] organikoa dela esan ahal izateko, obra horren osagaien arteko erlazioak osagaiak berak bezain garrantzitsua behar du izan: **organismo** natural baten "antzekoa" behar du izan. [Josu Zabaleta](#)

3 irud/hed

Bidezkoa da suposatzea hasteko badela gai-multzo bat gauza dena diskurtso zati bat lotzeko eta bera **organismo** bat bailitzan animatzeko, bere premiekin, bere barruko indarrarekin eta bizirauteko bere gaitasunekin. [Xabier Arregi](#)

Organismo sozialaren ideia, Platon eta Aristoteles-engandik hasi, Ernazimentutik pasa, eta gaur arte, arruntik arruntena da. [Joxe Azurmendi](#)

Argi eta garbi aitortzen zuen hizkuntzak berarentzat **organismoak** zirela, **organismo** guztiz naturalak, eta hauek deskribatzeko terminorik egokienak biologiatik hartutakoak zirela. [Joxe Azurmendi](#)

Kulturak **organismoak** dira, hots, jai, garatu eta hil egiten dira. [Joxe Azurmendi](#)

Gizartea gero eta esklerotizatuago dagoen **organismo** bat bezalakoa da. [Jon Alonso](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Proposamen horrek espezieak existitu egiten direla azaltzen digu aldi berean, **organismo** -multzoak baino gehiago ez izan arren. [Askoren artean](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egitura egokia duten animaliek, hala nola plateminteez eta itsas **organismo** askok eta askok, [...]. [Irene Aldasoro](#)

Animali edo landare-**organismoentzat**. [Iñaki Mendiguren](#)

Landarea, giza **organismoa**, honen zirkulazio-sistema, esate baterako, irudi artistikoaren egitura "sakonaren" eredu gisa hartzen dira. [Josu Zabaleta](#)

Giza **organismo** batean ezerk soberakoa denik ematen badu, espirituak ematen baitu hori. [Josu Zabaleta](#)

Ugalketa **organismo** osatugabe bat. [Lopez de Arana](#)

Homologiarik gabeko egituratzat jotzen dira, beren eboluzioan bakoitza bere prototipo-**organismotik** abiatutzat, zein bere aldetik. [Juan Garzia](#)

Hizkuntza hilak, esaterako, dagoeneko ez ditugu erabiltzen, baina ongi guregana dezakegu haien hizkuntza **organismoa**. [Isabel Arrigain](#)

6 giza gorputza.

Organismoak, gorputzak bere kasa sendatzeko duen ahalmena oinarritzat duen terapiak indartutako proiektua. [Berria - Harian](#)

Estimulu horiek, jakina, **organismoak** kanpoko munduarekin harremanetan jartzeko dituen mekanismoen bitartez iristen dira, hau da, zentzumenen bitartez. [Luis Elberdin](#)

Hemendik apur batera **organismoa** berez osatuko da, eta ni, haren barruko fantasma, lehenagoko neure ni zaharra izango naiz berriro. [Oskar Arana](#)

Sendagile garen aldetik, egin dezakegun gauza bakarra zera da, **organismoaren** egoera fisikoa eta gaitzaren ondorioak artatzea. [Berria - Mundua](#)

Gai toxikoak elikagaien bidez gorputzean sartu eta **organismoko** gantzetan atxikitzen ditugu. [Berria - Euskal Herria](#)

Gauza jakina da gure **organismo** lurta astun honek ahaliziaz sinestezinak bereganatu ditzakeela ariketa bidez. [Imanol Unzuurrungaga](#)

Gasate alaiak zen, sendoa, osasuntsua, bizitzarentzat kaltegarriak diren pentsamendu edo sentimendu gaizto guztiak **organismoan** bizkor eta aztarnarik utzi gabe desagerrarazten dituen bizipoz bare eta argi horretaz hornitua. [Jose Morales](#)

Saizarbitoriaren iritzi, gatazkon aurrean jarrerarik zentzuzkoena nor bere birus nazionalista onartzea da, **organismoan** bere antigorputzak gara ditzan, osotasuna ondorioz osasuntsuagoa -lasaigoa- bilakatuko baita. [Markos Zapiain](#)

Ildo horri jarraituz, berezko edo jaiotzetiko beharrak -naturari edo **organismoari** dagozkionak- eta hartutako beharrak -kulturalak edota sozialak- desberdintzen dira. [Iñaki Heras](#)

Luzaro tente egotea mingarria da gure **organismoarentzat**. [Berria - Gaiak](#)

7 egiteko jakin bat duen erakundea, oro har, erakunde nagusiago baten zatia edo atala dena. ikorgano¹ 5.

Nazioarteko erakunde eta **organismo** guztiek beteko dituzte Adierazpen honetan jasotako eskubide eta betekizunak. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Erakundeek eta horiek kide diren nazioarteko **organismoek** [...]. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Espazioa eta denbora hausten dituzten komunikazio forma berrien pean konektatutako erakunde eta **organismoen** sortze bizkorra. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Jakintza elkarteak bere bidean beti aintzina doa, kultur eta historiako ateraldiak antolatuz, bereziki Sepanso **organismoaren** laguntzarekin. [Herria](#)

Ortegak ziurtatu du nazioarteko finantza **organismoek** ezarritako sistemak porrot egin duela Nikaraguan. [Berria - Mundua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

organismo bizidun (4); **organismo gorenen** (4)

genetikoki eraldatutako organismorik (3)

organista 1 iz organo-jotzailea.

Elizetan **organista** bat zegoen, eta orain zinta bat jartzen dute organo musikarekin, megafoniatik. [Pako Aristi](#)

Txikitari ezagutu nuen musikaririk trebeena Remigio zen, auzoko **organista**. [Juan Kruz Igerabide](#)

Aita Fischer da, Trèves-eko San Matias komentuko elizkizunaren kudeatzailea, eta bestea, nik uste, Belgikako Maredsous komentuko **organista**. [Marzel Etxehandi](#)

Organistak Eusko Gudariaren lehen notak firfiraraztean, jendea mugitu zen hilerrira abiatzeko. [Itxaro Borda](#)

Orduan, harmoniumaren egurrezko tapa jaso eta, **organistarentzat**, [...] ikusteaz bilakatu den txapa batek Dylanen arreta bereganatu du. [Pako Aristi](#)

2 (hitz elkartuetan)

Gauza jakina zen gerraostean **organista** kargua utzarazi ziotela, bai udalak eta baita elizak ere. [Josu Landa](#)

organizatza iz organista kargua.

Ikasle haietatik, batzuen batzuk fraidetzara joko zuten bezala, beste askok beren herritan maisutzan, apaizgoan, **organizatzen** nahiz sekretaritzan jardungo zuten: Don Ramon Etxeberria abadea eta Tomas Garbizu, adibide pare bikaina. **Pello Zabala**

organizatibo izond organizazioarena, organizazioari dagokiona.

Enpresek egingo dituzten eraldaketa teknologikoak, eraldaketa **organizatiboak** eta eraldaketa estrategikoak nolakoak izango diren zehaztuko ditu. **Berria - Ekonomia**
Ezker abertzaleak zabalkunde ikuspegi batekin jarraitu behar du lanean, oinarri **organizatiboak** sendotzeko **Berria - Euskal Herria**

organizatu, organiza, organizatzen 1 da/du ad antolatu.

Merkatuak eta feriak prestatzen eta **organizatzen**. **Joan Mari Irigoien**

Ezin ditu orduak **organizatu**. **Berria - Kultura**

Elkarteak orduko alderdi iraultzaile abertzaleen laguntzarekin **organizatzen** zituen errefuxiatuen aldeko manifestaldietara abiatzen zen Frantxisen autoan. **Itxaro Borda**

Desorganizazioa **organizatzen** mugatu ziren lehen unetik, jendeak ideal batengatik odola oparo ematen zuen bitartean. **Jokin Urain**

Inolaz ere ezingo genuke inorekin nire subjektua **organizatu** dagoen eran besterik funtsatzen ez denari buruz eztabaidatu. **Ibon Uribarri**

Jakin nuen gutia hau izan zen, Dachau-ko preso bat Büchenwald-era igorria izan zela, aliatuen kasetariei erakusten zena, kanpaleku ontsa **organizatu** bat. **Marzel Etxehandi**

Beha egoiterik beltzena, satanki **organizatu**, arratseko deia da. **Marzel Etxehandi**

2 (era burutua izenondo gisa)

-Barre franko egiten diat erlijio **organizatuaz**, ze ez diat sinesten Bibliaren bultzatzaileek Hitzaren ni baino jabeagoak direnik. **Edorta Jimenez**

Garbi dagoela hilketa politikoa izan zela, estatu-terrorismo **organizatu**. **Joxerra Garzia**

Batasun erabat bakartua osatzen baitu, non osakide bakoitza -gorputz **organizatu** batean gertatzen den lege- beste guztiengatik dagoen bertan, baita beste guztiak harengatik ere. **Ibon Uribarri**

Meteorologia **organizatu**, egun ezagutzen dugun gisara sare estuan antolatua, hori oso gaztea da. **Pello Zabala**

Orduan sortu zen Urbe jainkosa: eraikuntzak, merkatu **organizatu**, garraioa, artea... ezin izan haren sekitoak baizen. **Patziku Perurena**

Berak borondatea deitzen duen x indar batek daraman laster bat, aldiaren behin, materia **organizatuaren** erdian, albo-ondorio bat eragiten duena: garuneko fosforeszentzia bat, islapen bat, adimena alegia. **Josu Zabaleta**

organizatzaile izond organizatzen duena.

Gutxiengo **organizatzaileaz**. **Joxe Azurmendi**

organizazio ik organizazio.

organizazio (orobat organizazio g.er.) 1 iz erakundea.

Langile frontea ez bazen indartzen, **organizazioa** bera jarriko zen arriskuan. **Bernardo Atxaga**

Handik aurrera absurdoak iruditu zitzaizkidan **organizazioaren** agiriak; are eta absurdoagoak atentatuak; arrotzak eta antipatikoak nire burkideak. **Bernardo Atxaga**

Txantoi anaiek, haatik, ziurtzat ematen zuten, **Organizazioak** ekintzan parte hartu izana. **Pedro Alberdi**

Gerra bukatutakoan epaiketara eramane zuten gerra garaian jendea ezkatuzten ibiltzeagatik Don Manuel Lekuona eta beste **organizazioan**, baina ez zuen txintik ere atera. **Mikel Hernandez Abaitua**

SS Alderdiko **organizazioa**. **Joxe Azurmendi**

Lehendik ere bagenuela eskarmentua, eta infiltratuak egon zitezkeela **organizazioan**; santujale asko. **Inazio Mujika Iraola**

Nekazarien Konfederazioan partaide diren **organizazio** eta elkarten aurka. **Berria - Kultura**

Organizazio hartako sozio guztiak (esaten digu Lucyk) bera, Mariah bezain posizio onekoak ziren. **Pablo Sastre**

Erabaki zuen desagertzten ari ziren gauza haietatik liburu bat idaztea, eta handikako etekinak gauza haien salbatzeko borrokatzen zen **organizazio** bati ematea. **Pablo Sastre**

Oso **organizazio** humanitario gutxi aritzen dira etxeak eraikitzen. **Berria - Harian**

Deialdiaren leloa bera, 'sakabanaketa hiltzailea', ez da nahiko egokitzen horrelako **organizazio** baten berezko oinarriekin, oinarri horiek langileen eskubideen aldeko arlo politikiko-ekonomikoaren barrukoak izaten baitira. **Berria - Harian**

Bezeroekin, kontsumitzaileen **organizazioekin**, langileekin eta instituzioekin ditugun harremanetan. **Berria - Harian**

2 antolakuntza.

Alemanek lortu duten Estatu zerbitzu publikoen **organizazioa** eta efikazia, espainolek ere lortu ahalko luketela hezkuntza egoki batekin. **Joxe Azurmendi**

Amak ere ez zuen okasionea galdu erraiteko ezen gizartearen **organizazioa** piramide bat bezalakoa zela. **Joan Mari Irigoien**

Esperientziak baino ezin dezake erabaki gorputz artikulatu baten **organizazioa** noraino irits daitekeen. **Ibon Uribarri**

organizismo iz mundua organismo bizi baten kidekotzat hartzen duen filosofia-doktrina.

Organizismoa, berriz, materialismo holista da, osoa zati osagarriak baino gehiago dela kontsideratzen du, zati bakoitzaren ezaugarriak zatiak operatzen duen osotasunaren testuinguruaren mende baitaude. **Askoren artean**

Organizismoak ez du bitalismoaren bizi-indar hori mahairatzen, baina horren kezka antzekoa da batzuetan, murrizgarri ez delako, bizidunaren azalpena ez baitu soilki osagai indibidualen bidez emango, osoaren izaera osagaien ezaugarriek determinatu arren. **Askoren artean**

organizista izond organizismoarena, organizismoari dagokiona.

Beste bereizketa bat egin dezakegu hemen materialismo mekanizistaren eta **organizistaren** artean. **Askoren artean**

Zer neurritan baieztatu daiteke gai **organizista** bera dela argitaratzen dena Buffonen, Jussieuren eta Cuvieren diskurtso eta hiztegi hain ezberdinen bidez? **Xabier Arregi**

organo¹ (robat *organo* g.er.; *Euskaltzaindiaren Hiztegia* *organo* agertzen da) 1 iz organismo bizi baten zatia, betekizun jakin bat duena.

Organismo konplexu samar bat duzularik zeure aurrean, bere **organo** guztiak, ez duzu zalantzarik egiten Sortzaile batek berriaz taxutua dela. [Juan Garzia](#)

Barne-aldamio gisa ere baliagarria da eskeletoa, gorputzeko **organo** eta sistemei beren lekuan eusteko. [Irene Aldasoro](#)

Klitoria **organo** erabat femeninoa da, guztiz eraginkorra eta zeharo osatua. [Luis Elberdin](#)

Garrantzi handia du larruazalak hesi babesgarri gisa, baina beste funtzio batzuk ere baditu gorputzeko **organo** den aldetik: beroa, hotza, ukia eta mina sentitzea batez ere. [Irene Aldasoro](#)

Irudiak ikusteko egiten dira, eta, horrexegatik, hain zuzen, ikusmenaren **organoari** eman behar genion lehenetsuna. [Josu Zabaleta](#)

Mihiari lotuta baitaude bizitza eta heriotza, Liburu santuak dioen bezala -ez noski mihia dastamenaren **organo** delako, hitzaren **organo** delako baizik-. [Askoren artean](#)

Giza hizkuntzari buruz egiten diren azterlanen elkargunea hizkuntzari dagokion garun-atala da: hizkuntz ahalmena edo "hizkuntzaren **organoa**" [...] ikus-sistema, zirkulazio-sistema eta bestelako **organo** fisikoekin parekatuak. [Itziar Laka](#)

Kontzeptu honen helburua **organo** edo gauza baten funtzioa zein den azaltzea da, **organo** edo gauza horren beste funtzio posibleak, baina akzidentalak, baztertuz. [Askoren artean](#)

Eman dezagun elkarri lotutako bi haur jaiotzearen eta hainbat **organo** partekatzen dituztela bien artean. [Askoren artean](#)

Soin-enborearen bi aldeetan argia ematen duten bi **organo** dituztelako. [Jon Alonso](#)

Organoak lortzeko programa zazpi ospitaleetan. [Berria - Euskal Herria](#)

Gorputza, **organoz** osaturiko hiru dimentsioko bolumen modura ulertua, **organo** hauek mendetasun eta komunikazio-eskemen bidez uztartuta daude. [Xabier Arregi](#)

Silikonazko ipurdi berriak ondo ezartzeko gai dena edo minbiziak jotako **organo** batean tumoreak zehatz-mehatz erazteko dohain berezia daukana. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

2 (izenondoekin)

Medikuntzan, sentitzen den organoa, **organo** gaixoa da. [Anjel Lertxundi](#)

Odola da gorputzaren **organo** interesgarrienetarikoa bat. [Irene Aldasoro](#)

Hainbat **organo** garrantzitsu babesten ditu hezur-egiturak, hala nola garuna, bihotza edo begiak. [Irene Aldasoro](#)

Zentzurik estuenean, **organo** artikulatzaileak dira hotsen ahoskunea erazten dutenak elkarrengana hurbilduz edo elkar ukituz. [Lourdes Oñederra](#)

Giltzurrun artifiziala handia eta baldarra da, material sintetikoek ezin baitute berdindu **organo** naturalaren errendimendua. [Irene Aldasoro](#)

Ikusmena prozesu bat da hain zuzen ere, eta hainbat **organo** espezializatuz baliatzen da. [Josu Zabaleta](#)

Sorginkeria ugari eta erremedio onak aipatzen dira bihotz eroriari, eta beste hainbat **organo** elbarri, sendabide egokiak emateko. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Organismo bat zegoen lekuan, elkarrekiko lotura guztiak eten diren **organo** multzo bat baizik ez da geratu. [Josu Zabaleta](#)

Besteak bezala zahartzarora heldu eta ezerezean amiltzen da, naturak abere espezie bakoitzari izendatzen dion epea amaitutakoan, bakoitzaren **organo**-osaketaren arabera. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Aukerako **organo**-txertatzea. [Juan Garzia](#)

Osasun sailburu Gabriel Inlancan «bide berriak» urratzeko asmoa agertu du, **organo** aldaketen eskaeraren goranzko joeraren ondorioz. [Berria - Euskal Herria](#)

Zailagoa da **organo**-transplanterako ehunen bateragarritasuna lortzea, baina aurrerapen harrigarriak egin dira azken hamarkadan. [Irene Aldasoro](#)

Organo-emaile egokirik ez izatea zen **organo**-transplanteak egiteko eragozpen nagusia. [Irene Aldasoro](#)

Organo trafikoa salatu zuen mojak Afrika utzi du. [Berria - Gaiak](#)

Organo-trafikatzaile izan nitzela Somalian eta Ugandan? [Karlos Linazasoro](#)

Nola alkimista sutegi kokxorrean urtzera jarri dituen metal eta **organo** nahasteen gainera makurturik, urrea sortu beharrez, hala zituen Uccellok forma guztiak isurtzen formen arragora. [Juan Garzia](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren aurrean eserita nengoan, ez irakurtzen, zelatan baizik, nire gorputz **organo** guztiak atzar-atzarrik. [Josu Zabaleta](#)

Profeten liburu guztietan aipaturiko edozein gorputz-**organo**, Jainkoari egotzietarik, edo lekualdatzeko organo bat da, 'bizia'ren adierazle. [Xabier Kintana](#)

Hilotzen sexu-**organoak** erakusten zitzaizkien haurrei. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Ikusmenaz, entzumenaz, dastamenaz eta usaimenaz arduratzen diren sentipen-**organoak**. [Irene Aldasoro](#)

Ez da hori larruazalak sentipen-**organo** gisa erakusten duen misterio bakarra. [Irene Aldasoro](#)

Sentipen-**organoak** beren ahalmenaren mugara iristen direnean, haien argia itzaltzen hasten da. [Oskar Arana](#)

Entzumen-**organo** oso fina ez ezik, oreka-**organo** ere bada belarria. [Irene Aldasoro](#)

Jakina, sentipen-nerbioz inguratutako daude ile-folikulu asko, eta ukimen-**organo** delikatu bihurtzen ditu horrek ileak. [Irene Aldasoro](#)

Burmuinak fonazio **organoei** bultzada bat bidaltzen die, irudiari korrelatiboa zaiona. [Isabel Arrigain](#)

Mintzatze-**organoak** ere egotzi zaizkio, esate baterako: [...]. [Xabier Kintana](#)

Hotsak ez liriteke existituko ahots **organoak** gabe. [Isabel Arrigain](#)

Eskema hark bereizi eta hautsi egiten zuen emakumearen anatomia genitala, eta ekarpen berriek, berriz, zentzumen eta funtzio **organo** bakartzat jotzen dute. [Luis Elberdin](#)

Prozesaketa-**organo** agerikorik gabe funtzionatzen du usaimenak. [Irene Aldasoro](#)

Sistema mugikorrek edo bame-**organo** edo -ehunetara ondo itsatsirik geratu behar duten gailuak. [Irene Aldasoro](#)

5 erakunde baten zatia edo atala, betekizun jakin bat duena. **ikorganismo 7.**

Jaurlaritzaren kontsultarako eta aholkularitzarako **organoa** ere bada. [Berria - Euskal Herria](#)

Bezero ziren printzeriak probintzia bihurtuta zeuden, eta probintziak, berriz, zuzeneko eta zentralizaturiko administrazioaren **organo** bilakatuta. [Iñaki Mendiguren](#)

Eusko Jaurlaritzaren ardurako **organoa** da, hain zuzen, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea. [Berria - Euskal Herria](#)

Organo judizialen eta Administrazioaren arteko koordinazio sistema ere finkatzen du. [Berria - Harian](#)

Estatuko Fiskal Nagusiaren **organo** aholkularia da Kontseilua, fiskal nagusiari hautagai zehatz bat aurkeztuko diona. [Berria - Euskal Herria](#)

«Espainiako Botere Judizialaren **organo** zuzendarien aldetik, euskararekiko sentikortasun eskasa nabari» dela. [Berria - Euskal Herria](#)

Egitura: hiru **organo** izango ditu: Zuzendaritza Kontseilua, Aholkularitza Batzordea eta Zuzendaritza taldea. [Berria - Euskal Herria](#)

Nafarroako Kutxako **organoak** berritzen hasi dira. [Berria - Ekonomia](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez deritzagu gaizki unibertsitateen gobernu **organoen** aukeraketa unibertsitarioren esku geratzeari. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Zuzendaritza **organoak**: Kontseilu Politikoa (75 edo 80 kidekoa) eta Presidentzia (17 kidekoa) aukeratuko ditu igandean biltzarrik. [Berria - Euskal Herria](#)

Langile-klasearen erresistentzi **organoek** (sindikatuak) arauaketa handiagoa eskatzen zuten. [Iñaki Mendiguren](#)

Hala, besteak beste, Euskal Kontseilu Judizialaren eskumenak eta jurisdikzio-**organoak** zehazten dituzten artikuluei aurkeztutako zatikako zuzenketak hizpide izan zituzten atzoko saioan legebiltzar taldeek. [Berria - Euskal Herria](#)

Kode etikoak jarraipen-**organo** bat izatea iradokitu du Elkarri-k hitzartutakoak betetzen direla ziurtatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Osoko Bilkura da eztabaidagunearen erabaki **organoa**. [Berria - Euskal Herria](#)

Horrek, hain zuzen ere, kutxako aginte **organo** guztiak bere esku izateko ate guztiak zabaltzen dizkie. [Berria - Ekonomia](#)

Mendebaldeko bizitza politiko eta ekonomikoan parroki **organo** eraginkorrak sortzeko arazoaren konponbidea. [Iñaki Mendiguren](#)

7 alderdi politiko edo kideko baten agerkaria.

Hona hemen *Granma* -Kubako Alderdi Komunistaren Batzorde Zentraleko **organo** ofiziala- kazetako lehen orrialdeetik ateratako zenbait titulu. **Txema Ramirez de la Piscina**

Krisiak, ondotox ikusten dugu, eztabaida soziala pizten du (egunkari batzuk gerra horretako **organoak** bilakatzen dira). **Joxe Azurmendi**

Zer da egunkari bat? albisteak egunero plazaratzen dituen argitalpena soilik? iritzi korronte baten adierazpen-**organoa**, agian? **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aginte organo (5); **barruko organo** (3); **erabaki organo** (3); **foru organo** (4); **giza organo** (3); **gorputz organo** (3); **gorputzeko organo** (5); **jarraipen organo bat** (3); **nazioarteko organo** (3)

organo aldaketan (4); **organo artikulatzaileak** (3); **organo artikulatzaileak** (4); **organo artikulatzaileen** (9); **organo berri** (3); **organo berria** (8); **organo berriak** (5); **organo berriaren** (4); **organo gorena** (4); **organo gorenak** (3); **organo sexualak** (3); **organo trafikoa** (3); **organo zikloa** (3)

aginte organoak (4); **eta organoak** (6); **gobernu organoak** (3); **gorputzeko organoak** (4); **haien organoak** (3); **organoak bakarrik** (3); **organoak eta** (8); **sexu organoak** (12)

aginte organoen (4); **organoen bidez** (4); **organoen donazioa** (3); **sexu organoen** (3)

aginte organoetan (4); **herrialdeko organoetan** (3); **zuzendaritza organoetan** (4)

gorputzeko organorik (5)

organo² (*orobat organu g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian organo agertzen da*) **1** iz haize musika-tresna handia, hauspo bidez bultzaturiko haizeak soinua eginarazten dien hodiez osatua eta klavier bat edo gehiagoren bidez jotzen dena.

Koruak eta **organoak** kantatz eta musikaz betetzen zuten eliza argitsua. **Bernardo Atxaga**

Bederatzi urterekin **organoa** jotzen ikasten hasi nintzen. **Pako Aristi**

Jesuitetan **organoa** jotzen zian igandeetan, txanpon batzuk ateratzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ematen zuten **organoaren** musika hobeto entzuteagatik zeuzkala begiak itxita. **Bernardo Atxaga**

Gai zen, ordea, musika-pieza landuak gogoratzeko eta ikasteko; eta are zuzendari aritzeko, interpretatzeko edota **organoan** inprobisatzeko. **Xabier Olarra**

Orain, *About Time* azken lanak *world music* eta rock estiloko konbinatzen ditu, protagonismo guztia Hammond B-3 **organoari** emanez. **Berria - Kultura**

Organoaren erregistro grabeenetan hasi eta pentsa daitezkeen konbinazio guztiak erabiltzen ditu. **Berria - Kultura**

Balista eta katapultatzaileak **organo** baten hodiak bezalaxe doituak zituen Arkimedesek, bakoitza irispide desberdin batera iristeko eran kokatuak. **Jon Muñoz**

Datorren igandean haren meza kantatu bat duzue katedralean, **organo** eta guzti. **Joan Mari Irigoien**

Maiztasuna 2.000 Hz (**organo** baten nota garaiena) baino apalagoa bada, [...]. **Irene Aldasoro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

José Tudelak lehen urtea koruan kantatuko zuten neska-mutleik kantutegia erakusten igaro zuen, **organo** zahar eta txiki baten laguntzaz. **Felipe Juaristi**

Organo barrokkoa ikustekoa da, omen. **Piarres Aintziart**

Organo erromantikoa Donostian. **Berria - Kultura**

Gitarra akustikoa bat entzuten da, geldo hasieran, **organo** elektriko leun batekin batera, **Organo** hidraulikoei buruzkoak, ordea, zein diren horien printzipioak, ezin ditut aipatu gabe utzi. **Mikel Hernandez Abaitua**

Zailena, ordea, urezko **organo** hura afinatzea izan zitzaion. **Felipe Juaristi**

Biraderadun **organo** batek Danubio urdinaren doinu kiribildiratsuz betetzen zituen kaleak. **Lopez de Arana**

Aleman **organo** ahaltsu bat da, baina ez du frantsesaren delikadezia melodikoa; frantsesa biolin eskisitoa, baina ez du Goethe-ren alemanaren hanpatutasuna, gutxiago Milton-en betetasuna. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Organo musika entzuten du alargunak. **Imanol Zurutuza**

Abesbatza eta **organo** kontzertuak, bertso emanaldiak. **Joseba Zulaika**

Aratseko 9etan, Baigorriko elizan, **organo** musikaldia: François Espinasse. **Herria**

Musika Hamabostaldiko **Organo** Zikloa atzo hasi zen Donostiako San Bizente elizan. **Berria - Kultura**

Hango **organo** -hotsa gustatu zaizue, barruraino sartzen da. **Pako Aristi**

Ohetik entzun zuela kantua eta **organo** -soinua, San Frantziskoren elizan elizkizun nagusiak ospatzen ari ziren bitartean. **Askoren artean**

Lorategiaren gaineko muinora iristean, tutu lodi baten tamainakoak ziren: **organo** tutu bat baino lodiagoak hala ere, metro batekoa bakoitza. **Felipe Juaristi**

Michelcok perezatu zuen, bere eriekjin josteta ari zela mutur punta xuri beltzaren gainean, bere **organo** tekladearen gainean bezala. **Michel Oronoz**

Paola Diamantiniz maitemindu zen Paulo Zubia, San Marco katedraleko **organo** konpontzailearen alaba zaharrenaz. **Felipe Juaristi**

Zsigmond Szathmary Friburgoko Unibertsitateko **organo** irakaslea. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ibilbidean, urrutira, kale-**organo** bat entzun zuen. **Irene Aldasoro**

5 **organo-jole** (7 agerraldi, 5 liburu eta artikulatu 1ean; orobat **organojole** 9 agerraldi, 4 liburutan, **organu joile** 16 agerraldi, liburu 1ean eta 14 artikulutan –guztiak Herria-koak- **organujole** 3 agerraldi, 2 liburutan, eta **organojoile** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **organo-jotzaile** agertzen da) iz organo-jotzailea.

Hemen ziren fraideekin batera abeslari trebe hainbat eta baita **organo-jole** maisuetakoa ere, on Bitor Zubizarreta, Begoñako **organo-jole** eta musikari aparta. **Pello Zabala**

Igandean, aratsaldeko 4-etan, Donibane Lohizuneko elizan, organo kontzertua, Jose Luis Echechipia **organo joile**. **Herria**

Arras goi mailako **organo joileak** denak. **Herria**

Mary Jane -jantzi laburreko neska txiki bat orduan- zen orain etxeko euskarri nagusia, Haddington Roadeko **organo-jole** postua baitzuen. **Irene Aldasoro**

Garai hartan Bereziartua herriko **organojolearekin** ikasten zuen, eta teklen basoan botoien sasiartean baino hobeto ibiltzen zela ikusi zuen. **Pako Aristi**

Gure herrietako elizetan diren organo bikain horiek ere, **organojolerik** ezeean mutu geratzen ari diren gisa. **Pako Aristi**

6 **organo-joletza** (*corpusean organojoletza soilik*)

Beste horrenbeste, **organojoletzan**. **Pello Zabala**

7 **organo-jotzaile** (21 agerraldi, 4 liburu eta 11 artikulutan) iz organoa jotzen duen musikaria.

Koruko lanez gain, tresnak jotzen zituzten musikari multzo polita ere bazuen, lauta eta **organo jotzaileekin** batera, txirula, tronpeta, txistua, gaita, biolina, biola, kontrabaxu eta biolontxeloa jotzen zuten osaturik. **Felipe Juaristi**

Tronpeta jotzaile bat, biolin jotzaile bi, biola eta biolontxelo jotzaile bana, **organo jotzaileaz** gainera. **Felipe Juaristi**

Konpositore, zuzendari, musikologo, **organo jotzaile**... asko ziren bere balioak. **Berria - Kultura**

Elizan ez dago beste inor, apaiza, **organo-jotzailea** eta gu, geriatrikokoak. **Anjel Lertxundi**

Egitarauaren gainerako piezetan, entzuleria zabalerako aproposagoak ziren lanak eskaini zizkigun **organo jotzaileak**. **Berria - Kultura**

Larunbat arratsaldean Bergaran organo eta soprano kontzertua entzun genuen, Julia Ruiz sopranoaren eta Miguel Bernal **organo jotzailearen** eskutik. **Berria - Kultura**

organo erromantikoaren (6); **organo erromantikoko zikloaren** (3)

organo jole (3); **organo jolea** (5); **organo joleak** (4); **organo jolearekin** (3); **organo jole** (4); **organo jotzale** (8); **organo jotzalea** (4); **organo jotzaleak** (4); **organo kontzertua** (23); **organo kontzertua elizan** (3); **organo kontzertuak** (4); **organo kontzertuen** (3); **organo musika** (5); **organo musikaldia** (5)

organoa jotzeko (3); **organoa jotzen** (7); **urezko organoa** (4)

organoaren bisita (4); **organoaren doinu** (3)

organorako musika (3)

organofosfato *iz* fosfato organikoa.

1998.urtean agertu zen **organofosfatoetan** oinarritutako gehigarri ignifugoaren printzipio aktiboa eta azken urteotan hobetuz joan da. **Beria - Gaiak**

Organofosfatotan oinarritutako babesa duen poliamidaren fusio-indizea pixka bat jaisten bada ere [...] nahiko balio altuetan mantentzen da eta honek injekzio bidezko moldeaketan garrantzia handia du. **Beria - Gaiak**

organogile (*corpusean organo-egile soilik; Hizegi Batuan organogile agertzen da*) *iz*

Horrekin batera gutun bi idatzi zituen, Enrico Ponte **organo**-egile veneziarrarentzat bata; eta Johan van der Meer injineru holandarrarentzat bestea. **Felipe Juaristi**

organojole ik **organo**¹ 5.

organojole ik **organo**¹ 5.

organojoletza ik **organo**¹ 6.

organoklorato *iz* klorato organikoa.

Hondakinen artean, metal astunak daude, merkurioa eta **organokloratoak** kasu tartean, DDTa. **Beria - Gaiak**

organoleptiko *izond* zentzumenen bidez hautematen dena.

Oinarri-oinarrizko premiak beteta, elikagaiak ezaugarri **organoleptiko** onak (usaimen, dastamen, ikusmen eta ukimenez hautematen ditugunak) izan behar ditu, gustura hartuko badugu. **Edorta Agirre**

Murriztuta, gainera, zukuek propietate nutritibo eta bereizgarri **organoleptikoak** atxikiko dituzte. **Edorta Agirre**

Lehortze-sistema tradizionalen aldean metodo hau garesti samarra bada ere, kalitate hobeko produktuak ekoizten ditu: temperatura altuegirik baliatzen ez denez, galera nutrizional eta **organoleptikoak** dezente urritzen baitira. **Edorta Agirre**

organon *iz*

Aristotelesek ondu zuen hori guztia *Lanabesa* deitu zion obra batean: **Organon**, pentsamenduaren lanabesa, alegia. **Jon Muñoz**

Logika orokorrak, ustezko **organona** den aldetik, Dialektika izena du. **Ibon Uribarri**

Arrazoimen hutsaren **organona** ezagutza huts oro *a priori* lortu eta benetan sor dezaketen printzipioen multzoa litzateke. **Ibon Uribarri**

Gure Estetika transzendentalaren bigarren egiteko garrantzitsua da honek zenbait fabore ez dituela bereganatzen itxurazko hipotesi gisa soilik, baizik eta **organon** gisa balio behar duen teoria bati inoiz eska dakiokkeen bezain ziurra eta eztabaidaezina ere badela. **Ibon Uribarri**

organotxo *iz* piano txiki baten itxurako musika-tresna, biradera bati eragitean metal xafla batzuen bitartez soinu egiten duena. ik **organoxka**.

Tupustean, bonbillak piztu eta biraka hasi zen karrusela, **organotxo** musika eta guzti. **Harkaitz Cano**

Ez nauk alemaniarra **organotxo**a arrastaka daramadala bidez bide ibiltzeko, diru eske. **Jose Morales**

Gau hartantxe, infernua hasi zen: **organotxoak**, bozgorailuak, eztrandak, uluak, kantuak, ezkilak, txistuak, danbakoak, marruak. **Koldo Biguri**

organoxka *iz* piano txiki baten itxurako musika-tresna, biradera bati eragitean metal xafla batzuen bitartez soinu egiten duena. ik **organotxo**.

Organoxka single baten melodia xumeaz musika-kaxa batetik ateratzen den dantzariarena egiten du pailazoak **Harkaitz Cano**

organu ik **organo**¹ eta **organo**².

organujole ik **organo**¹ 5.

orgari *iz* orga-gidaria. ik **orgazain**.

Baina bera berbetan ari zela hautsi zuten **orgariek** eta gonbidatuek antzerkia, guztiak altxa ziren baiezka, segituan egin behar zela bozketa, jokalekua hartu zuten oholtzara igan ziren drama amaiera barik gelditu zen. **Koldo Izagirre**

Stockmann doktoreak italiarazko terminoz laguntzen zuen bere katalan xumea, eta horrek indartu egiten zuen pertsonaiaren garrantzia **Orgarien** Egoitzako ikusleen aitzinean. **Koldo Izagirre**

orgasmarazi, orgasmaraz, orgasmarazten (*corpusean orgasmatuarazi soilik*) du ad orgasmosfera iritsarazi.

Bere eskuak hain gozokiro **orgasmatuarazten** ninduen bitartean, nire ahoan jarri zuen berea. **Aitor Arana**

orgasmatiko *izond* orgasmikoa.

Diruaren libertate edo korritu-behar **orgasmatikoak** eta merkatuaren liberalizazio zeharoko edo globalak ikusi da ze miseria erein duen bazterretan, lehenaz gain. **Iñaki Seguro**

orgasmatuarazi ik orgasmarazi.

orgasmiko 1 *iz* orgasmoarena, orgasmoari dagokiona.

Kitzikapen sexuala azken muturreraino eraman dugu, eta orain erreflexu **orgasmiko** gertatzeaz dago. **Luis Elberdin**

Erreflexu **orgasmikoaren** erantzun motorra, baina, ez da genitaletan bakarrik gertatzen. **Luis Elberdin**

Doinu latzak, Mikelen eztarri urratua orroka, kanutoak, Aneren koru **orgasmikoak** eta Jonen metamorfosia jarraian. **Unai Iturriaga**

Oraindik ederki mugitzen du ipurtaldea taula gainean [...] eta ez zaio ahaztu kontzertua aurrera eramaten, titi-kolpez eta sexu probokazioen bitartez bada ere; baina karisma ez da abesten den bitartean aurpegi hiper eszitatua eta sasi **orgasmiko** jartzea bakarrik. **Patxi Iturritegi**

2 irud/hed

Euskaltzainek ahozko euskal tradizioaren kontra toki izenetan -a organikoa jartzeko erakusten duten grinaren lepotik barre egiten du Patziku Perurenak -a **orgasmikoa** aipatzen duenean **Iñaki Arranz**

orgasmo 1 *iz* sexu plazeraren goreneko ueña.

Orgasmoa ansiolitiko eraginkorra eta naturala dela esan daiteke; pertsona osasuntsuen medikamentua. **Luis Elberdin**

Orgasmoa izan ondoren, lasaitasuna, baretasuna eta ongizatea datoz. **Luis Elberdin**

Ekaitzaren ostean berea, **orgasmoaren** ostean sentiberatasuna. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Emakume batek hainbat haur izan ditzake **orgasmo** bakar bat ere izan gabe. koitoaren bidez **orgasmoa** lortzea oso nekeza da. **Luis Elberdin**

Gihar horiek **orgasmoa** gertatzen denean modu konbultsiboan uzkuratzen dira. **Luis Elberdin**

Orgasmoa ezustean etorri zitzaidan, lurrikara bat bezala. **Juan Martin Elexpuru**

Mutilak **orgasmoa** etortzen ari zaiola igartzen duenean, atera eta kanpora isurtzen du. **Luis Elberdin**

Nire **orgasmoa** joan eta etorri, joan eta etorri ibili zen olatuka, gero eta bortitza. **Juan Martin Elexpuru**

Nire **orgasmoaren** astinaldiak sentitu nituenean, samurki besarkatu ninduen. **Juan Martin Elexpuru**

Nire esnea Klaudio zurrupatzailearen ahoan isuri zen eta, **orgasmoa** sentitu bitartean, esku batez nire potro uzkurituak laztantzeko mesedea egin zidan. **Aitor Arana**

Beste **orgasmo** batek inarrosi ninduen, lehenak bezain ezustean. **Juan Martin Elexpuru**

Egundoko **orgasmo** batek astindu ninduen kanpo eta barren. **Karlos Zabala**

Orgasmoak eragindako arnasestua baretu zitzaionean. **Aitor Arana**

Haren beroak **orgasmoaren** plazerra areagotu zidan. **Aitor Arana**

Bizi **orgasmo** bakoitza azkena balitz bezala, gozatu bere azalaren zentimetro bakoitza. **Pako Aristi**

Orgasmorik ez izateaz gain, **orgasmoa** zuelako itxurak egin behar zituen. **Luis Elberdin**

2 (izenondoekin)

Orgasmo onak, benetakoak, femeninoak, baginakoak ziren. **Luis Elberdin**

Orgasmo biziagoak izaten dituzte zikloko beste egunetan baino. **Luis Elberdin**

Gazte-denborako **orgasmo** eder haiengatik. lehen **orgasmo** inozo hura bezain esperientzia bizirik ez dut izan. **Karlos Zabala**

Kondo barruan isuri nuen nire hazi zuri, bero eta ugaria, **orgasmo** betea gozatzuz. **Aitor Arana**

Orgasmo osoak izaten zituen titiei eraginda, nik bezala. **Karlos Zabala**

Bere kirtenak uzkia zulatzen zidan bitartean, **orgasmo** bortitz bat etorri zitzaidan. **Juan Martin Elexpuru**

Eta bai emakumeak, bai gizonak **orgasmo** kosmikoak izan behar dituzte. **Luis Elberdin**

Eredu horrek [...] fisiologikoki **orgasmo** desberdinak daudela dio. **Luis Elberdin**

3 (hitz elkartuetan)

Hau sekulako **orgasmo** festa da! **Luis Elberdin**

G puntua estimulatuz gero, emakumeek askotan **orgasmo** saila izaten dute. **Luis Elberdin**

Orgasmo mota bat baino gehiago al dago (baginakoa, klitorikoa...)? **Luis Elberdin**

Orgasmo itxurak egitea -batez ere koitoan- uste dugun baino zabalduago dago. **Luis Elberdin**

4 irud/hed

Ostegun Gizona: garai hartan, goizeko hamabiak arte, klaseak normal izaten ziren, eta, hamabietan puntuan, festaren leherketa, erokeria kolektiboa, jaiaren **orgasmoa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orgasmo itxurak (5); **orgasmo mota** (5)

baginako orgasmoa (8); **emakumearen orgasmoa** (3); **klitoriko orgasmoa** (5)

orgasmoa gertatzen (3); **orgasmoa izan** (9); **orgasmoa izatea** (11); **orgasmoa izateko** (4); **orgasmoa izaten** (4); **orgasmoa koitoaren bidez** (3); **orgasmoa lor** (4); **orgasmoa lortu** (10); **orgasmoa lortu behar** (6); **orgasmoa lortzea** (4); **orgasmoa lortzeko** (21); **orgasmoa lortzen** (6)

utero inguruko orgasmoa (3)

klitoriko orgasmoak (3)

orgasmoaren bila (4); **orgasmoaren ondoren** (3)

ez duela orgasmorik (4); **ez dut orgasmorik** (3); **orgasmorik ez izateak** (3); **orgasmorik ez lortzea** (3); **orgasmorik izaten** (9); **orgasmorik lortzen** (7)

orgatara *iz* orga baten edukia. ik orga 6. • irud/hed

Beste **orgatara** bat musu jin zen aitormen horien ondotik. **Janbattitt Dirassar**

orgataraka (orobat orgataraka g.er.) 1 adlag orgata betekea.

Lehen, iratzeak mendian berean metatzen zirela edo **orgataraka** etxerat ekartzen, etxe sahetsean metatzeko, orai aldiz tinki tinkia ezartzen direla borobil handixko batzuetan bildurik eta trakturrez karreatzen etxe ondoko aterbe batetarat... **Herria**

Lekuko niz **orgataraka** gorputzak horrat eremaiten zituztela gelditu gabe. **Michel Oronoz**

2 irud/hed kopuru handian.

Batzuetan, ele ederrak **orgataraka**, araberako urratsak ditari baten bete! **Herria**

Soziologoez analizatuko dute, eta psikologoez esplikatu, nola joan ginen gerla ondoan seminario eta komentuetara, **orgataraka**. **Piarres Aintziart**

orgategi iz orgak gordetzeko lekua.

Pont Neuf kalera orduko, ez zekien nondik nora zebilen; esku orgak gordetzeko **orgategi** baten erdian agertu zen; zenbait txerpolari beren postu ibiltariak antolatzen ari ziren.

Karlos Zabala

orgatila iz eskorga. ik orgatxo.

Azenario eta azaloz beteriko **orgatila** bati bultzaka. **Karlos Zabala**

Formalitate guztiak gainditu ondoren **orgatila** bat aurkitu eta ekipaje guztiarekin atera zen nazioarteko irteeren atetik. **Joxemari Iturralde**

Orgatila baten gainera botatzen ditu gorputzak, ahal bezala. **Oskar Arana**

Haur josteta batean bezala, hamabortz-hamasei pauso guztietan brastako batez itzuli eta bere tramankuluren batekin destatzen zuen bere gibelera, hilkutxa garraiatzen zuen

orgatila koadroan zarratu nahirik. **Aingeru Epaltza**

Orgatilari bulkaka ari ziren langileek bertze irribarre bat trukatu zuten. **Aingeru Epaltza**

Orgatilaran beheko apaletik ontzi bete porlana eta paleta aterata, sarrera zigitatzeari ekin zioten. **Aingeru Epaltza**

Diru gizona zen, lukurrerua, txerpolarietako maileguak egunka egiten zizkiena eta **orgatilarak** errentan ematen, eskandaluzko korrituak eskatuz. **Karlos Zabala**

Nondik zetorren odol hura hauteman nahian, oroitu nintzen **orgatila** gainera erori zitzaizkidan. **Xabier Olarra**

2 (izenlagunekin)

"Trakua" etxeko ataria da, "trakuloa", berriz, eskuko **orgatila**. **Patxi Ezkiaga**

Garraiorako **orgatilarak**. **Josu Landa**

orgatraka ik orgataraka.

orgatto iz orgatxoa.

Lau gurpleko **orgattoa**. **Piarres Aintziart**

Jatetxe zenbaitetan, halako **orgatto** batean ezarriak dira denak eta zerbitzariak pasatzen dira mahaien artean. **Ramuntxo Etxeberri**

Gizon batek tiratzen zuen 'rikso' **orgattoetan** etortzen ziren frontoira. **Ramuntxo Etxeberri**

Barazki saltzaile kasik guztiak **orgattoetan** etzanik zeuden, lo. **Ramuntxo Etxeberri**

orgatxo 1 iz orga txikia.

Orain dela hogeita zortzi urte, Prism, Lord Bracknell-en etxetik irten zinen [...] **orgatxo** batean haur bat, sexu arra, zure ardurapean harturik. **Antton Olano**

Weasley jauna berehala joan zen bideaz bestaldera kutzak garraiatzeko **orgatxoaren** bila. **Iñaki Mendiguren**

Loreak erabat zabaldu ziren egunean garraiatu zuen lurra **orgatxo** batean. **Eider Rodriguez**

Artilleroek, berriz, kanoiak euren **orgatxoetatik** kentzen, osagarrietan bereizten eta gero osagarriok banan-banan txukuntzen ziharduten, Peroren aginduetara. **Edorta Jimenez**

Hileta-jagoleak, mantal gris bat soinean, auto handiaren atzeko alde zabaldu eta **orgatxo** metaliko artikulatu bat ateratzen du. **Anjel Lertxundi**

Hileta-jagoleak, axolagabeki, hilkutxari tiratzen dio, eta **orgatxo** gaineraino eramaten du herrestan. **Anjel Lertxundi**

Nahiago izan zuen krispetak saltzeko **orgatxo** bat erosi, urterik urte dirua pilatu. **Xabier Aranburu**

Sorgina tearen **orgatxoarekin** iritsi zenean, jaki-pila bat erosi zion. **Iñaki Mendiguren**

Osaba Vernon-en aldera bideratu zuen bere kutxa eta Hedwigen kaiola zeramatzan **orgatxoa**. **Iñaki Mendiguren**

Weasley jauna bederatzigarren eta hamargarren nasen arteko langarantz joan zen, Harryren **orgatxoari** bultzaka eta bere arreta guztia bederatzigarren nasara iritsi berria zen InterCity 125-ean jarria balu bezala. **Iñaki Mendiguren**

Gizonak oinez zihoazen, eta emazteak asto batek tiratzen zuen bi gurpleko **orgatxoan** iganik. **Elena Touyarou**

Manta batez estaliriko **orgatxo** zikina garraiatzen zuen eskale bat ikusi zuen kalearen beste aldean. **Aritz Gorrotxategi**

2 (hitz elkartuetan)

Sekula ez zuten han pertsona heldurik ikusi, janari-**orgatxoa** eramaten zuen sorgina izan ezik. **Iñaki Mendiguren**

orgaxka iz orgatxoa.

Itzuri egite honek etengabe jarraitu zuen atzo, izualdiak jota zeuden Rafako iheslari biziguneetako ehunka lagun oinez joan baitziren Rafako hirira buruz, ondasun bakan batzuk zeramatatzela kamioneta nahiz **orgaxketan**. **Berria - Mundua**

orgazain iz orga-gidaria.

Trolebusek ezkilak jotzen zituzten, zalgurdiekin gurutzatzen ziren, **orgazainek** beren zigorrak astintzen zituzten, zaldiak ziztu bizian zihoazen harlauzen gainean. **Koro Navarro**

Orgazainak bere bideari segitu zion: "Erositako prezioan saltzen dizkizuet kontuok". **Juan Garzia**

orgia 1 iz janean, edanean eta bereziki sexu harremanetan gehiegikeriak egiten diren jai.

Granat-ek, antzezleak, festa bat egin behar zuela iragarri zuen, benetako **orgia**, bere etxean. **Koro Navarro**

Handikeria nabarmendu nahiz, garai hartan inoiz baino sarriago antolatzen zituen festatzaiek eta **orgiak**, inoiz baino ugariago egin gehiegikeriak eta harropuzkeriak

zerbitzari eta familiakoekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jar diezaigun ordena apur bat **orgia** honi, sukarraldian eta gehiegikerian ere beharrezkoa izaten baita. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bideetako predikaria eta herri ikasigabearen mistikoa, hainbat emakume liluratu zituen peregrinazio zoro hartan, hainbat eta hainbat **orgia** antolatu zituen hango eta hemengo bazterretan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ilunabarretan, sutondoan jarri eta elkarri masajeak ematen aritzen ginen, don Tirsok ikusi balu **orgia** lizuna irudituko zitzaion irudi batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Orgia harrigarri hark goizaldera arte iraun zuen; eta bereizi zirelarik, emakumeek barkatuak izan zirela uste izan zuten: baina gizonek, erresumina beren baitan gordea baitzuten, biharamunaz geroztik emazteak sekula betiko zapuztu zituzten. Jon Muñoz

Haurrak hiltzeko zeremoniak nahiz ezkutuko erritoak edo ohitura arraroetako **orgia** basatiak eginez. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Hala ere urkatu, urperatu eta laurdenkatu omen zuten herri osoaren **orgiarik** itsusienaren erdian. Xabier Olarra

Bizimodu estu eta etsigarri horietan kontsolatzen eta itxaropena pizten duen elementu bakarra izanik, bizilagunek leporaino irensten dituzte europar **orgia** kontsumistaren isla diren imajina engainagarri eta anestesiarri horiek. Patxi Zubizarreta

Goiko partean, oso elementu gutxirekin lortutako ezker-eskuineko aingeru-taldeen mugimendu ordenatua, zentroan dagoen Kristorenganantz; freskoaren beheko partean kontrastea eginez, infernura kondenatutako mugimendu desordenatuen **orgia**, ia mende pare bat geroago etorriko diren El Bosco eta Brueghel-en lana gogorazten dituen... Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Gogora ekarri Genna kantariaren atxiloketa zoofilia eta kanibalismo akusaziopean, eta Glen bateria-jolearen heriotza misteriotsu eta sekula ez aski argitua sexu **orgia** baten hondarrean. Patxi Iturritegi

orgina 1 iz ipar organoa, musika-tresna.

Elizaren barnean begiak alha zeuzkan, hemen ezko-argiak, han bitrail koloretsua, hantxe oraino **orgina** erraldoiaren metalezko hodiak. Itxaro Borda

Ttipi ttipitik, amaxi entzun eta ikusi du etxen edo elizan **orgina** joiten. Herria

Tillous apezak **orgina** ttipi batekin musikan laguntzen ditu eta kudeatzen kantariak. Herria

J-Mixel Bedaxagarren kantu xoragarria, herritar batek eman aureskua, ama batek irakurtu olerkia eta parropiako kantoreak eman Alleluia hura, Ttoma Ospitalek **organin** lagundurik. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Ortzirale aratsean, Baigorriko elizan, **orgina** kontzertua, Christoph Keggenhoff-ekin. Herria

Larunbat arte, Miarritzen, Jondoni Martine elizan, nazioarteko **orgina** lehiaketa berezia. Herria

· Kantaldi hori Urruñako eliza **orgina** berriaren fagoretan emana izanen da, "les Orgues d'Urrugne" elkarte antolatzaile. Herria

3 **orgina-joile** (orobat **originajoile g.er.** eta **orgin joile g.er.**) iz organo-jotzailea.

Francisco Madina oñatiarra (1907-1972) fama handiko **orgina-joilea** izana da. Herria

Jean Larrieu donzahartarrak ditu 500 kantariak gidatu, Maritxu Sahores garaztarra zelarik **orgina-joile**. Herria

Fraide ixil hori ezagutzen zuten Beloken dabiltzan guziek: hori zen komentuko ofizioetako **orgina joile** musikari exti eta fina, liturgi erakasle trebea. Herria

Martxoaren 10ean, Miarritzeko San Martin elizan, aratseko 9etan, herriko koralak, txistulariak eta Laurent Ridoulet **orgina joile** famatua. Herria

orginajoile ik orgina 3.

orgulu ik urguilu.

orhitzapen ik oroitzapen.

orhoitarazi ik oroitrazi.

orhoitu ik oroitu.

orhoitzapen ik oroitzapen.

orientabide iz bidea aurkitzeko edo jokabidea erakusteko argibidea.

Hasieratik beretik oso garbi ikusi genuen zu zinela **orientabide** egokiak emango lizkigukeen pertsona. Jon Alonso

Hurtadori ez zitzaion batere axola metodoen eta sailkapenen arazo hori, edo Soziologia zientzia bat ala jakintsuek asmatutako ehunzango bat ote zen jakitea; **orientabide** bat nahi zuen aurkitu,aldi berean espirituala eta praktikoa izango zen egia bat. Josu Zabaleta

Balio beza aurreko epigrafetxoan saioetako eszenografiari buruz adierazitakoak, bat-bateko bertsolaritzaren telebista-tratamendu egoki bati begira kontsideratu behar liratekeen kontuen **orientabidetzat**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azken buruan, edozein gai aztertzeo **orientabide** batzuk eskaintzen ditugu gida honetan: informazioa nola jaso behar den, ideia berriak nola bilatu behar diren, nola irakurri behar den irakurketa eraginkorra izan dadin, oharrak eta fitxak nola egin, ideiak nola egituratu, azaldu, aurkeztu... Askoren artean

Ondoko Mendekostez presentatuak izanen dira publikoki diosesaren **orientabide** berrituak. Herria

Hautetsien Kontseiluak 2007ra arte finkatu ditu **orientabideak**. Berria - Euskal Herria

Hala ere, hau guztia **orientabide** bat da, eskola, ikasle, egoera bakoitza mundu bat baita. Berria - Harian

Funtsezko **orientabideak** hor daude beti, elebitasun orekatua hezkunde ministerioko programak jarraikiz. Herria

2 norabidea.

Lehenbiziko urratsek -amaren geneek gobernatzen dituztenak, hura obulua osatuz doan bitartean- honako helburu hau dute: aurrea eta atzea, bizkaraldea eta sabelaldea markatuz enbrioiak **orientabide** izango dituen elementuak instalatzea obuluan. Juan Garzia

Gogora dezakegun bezala, eginkizun handi hori abiapuntu berri batekin hasi zen: giza izaeraren irudimen-, ausardia- eta aldakortasun-ahalmenak giza historia etapa garrantzitsu hartan gizadiak lortu ahal izan zuen **orientabide**-aldaketari zegozkion zailtasunen parekoak gertatu ziren. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Olatuek, gero eta handiagoak, ontzi txikia nora edo hara astintzen zuten, bere baitan jiraraziz, haien **orientabide** zentzua guztiz ezabatu arte. **Joanes Urkixo**

4 joera.

Ez da nekatuko ezberdinarekiko errespetua eta bakoitzaren sexu-zaletasunak edo **orientabide** sexuala defenditzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Bultzatzaileak filosofia alemaniarraren periferian dauden pentsalariak ditugu, hots, **orientabide** kantiar, fenomenologiko, existentzial eta abarretik kanpo daudenak.
Askoren artean

Orientabide horrek programa berri bat dakarkio Zientziaren Filosofiari XXI. menderako. **Askoren artean**

Orientabide honek eragina izan du zalantzarik gabe lanaren hipotesi eta aurreikuspenetan. **Berria - Ekonomia**

Parisera jo nuen horretarako, baina ez Sorbonara, han literatur kritikaren arloan **orientabide** tradizionala jarraitzen zutelako. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urteko orientabideak (3)

orientagarri *izond* orientabide gisa balio duena.

Hemen eskema **orientagarri** orokor bat bakarrik emango dugu. **Askoren artean**

Itzulpen **orientagarriak** egin nahi zituelako, seguru asko. 2005. urterako **orientagarria** eta derrigorrezkoa 2006. urterako ebaztea. **Anjel Lertxundi**

oriental *izond* ekialdekoa, ekialdeari dagokiona; ekialdeko herrialdetakoa edo haiei dagokiena.

Emakume **oriental** bat ere lixiba egiten ari zen, ondoan lau ume begi-xabal zituela. **Iñaki Zabaleta**

Pertsiana **oriental** batzuk izanen dira, leiho gotikoetan, eta begitarte freskoak zur beltzeko sare sarrietan. **Koldo Izagirre**

Jeinu espainola -mestizoa- munduko hiru jeinuen sintesi eta harmonia da: **orientala** (arabiar eta juduek egin dutenagatik), mendebaldarra (bisigodoei eskerrak), eta erromatar-kristaua. **Joxe Azurmendi**

Pentsamenduarekin deus ikustekorik ez duen zerbaite baldin badago munduan, hori meditazioa da, **orientalago** eta areago: orduan meditazioa ez pentsatzea da! **Iñaki Seguro**

Ondorioz testua, krausopositibista eta razionala, kritikoa da laino **orientaletatik** jalgita ikusten diren idealismo klasikoarekin [...] nahiz modernoarekin. **Joxe Azurmendi**

orientalismo *iz* ekialdeko herrialdeetako gauzekiko joera edo zaletasuna.

"Nenufare zuria (edo Ishmir eta Guzmuden ipuin zorigaitzoko eta moralexa mingotsa)": neure buruari galdetzen diot, zer dela-eta **orientalismo** joera hau. **Xabier Mendiguren Elizegi**

orientalista *iz* ekialdeko kultura edo hizkuntzak aztertzen dituen pertsona.

Zabalkunde hori Antoine Galland (1647-1715) **orientalista** frantsesari zor diogu, eta berak ekarritako sentsualitate eta mundu exotiko berriei harrera ezin hobea egin zitzaion arazoia nagusi zen garaian. **Patxi Zubizarreta**

Kalean jarri du jada bildumako aurreneko liburua: Ernest Renan historialari, filosofo, **orientalista**, teologo eta literatur kritikariaren *Zer da nazioa?* hitzaldia. **Berria - Kultura**

Ez zen lehena izan kidetasun horiek azpimarratu, eta hizkuntza horiek familia berekoa zirela onartu zuena; izan ere, hark baino lehen, bereziki W. Jones (1794) **orientalista** ingelesak ordurako azaldua zuen arazo hori. **Isabel Arrigain**

orientalizatu *izond* ekialdeko herrialdeetako kultura edo ikusmoldeetara makurtua.

Idatzi horretan ez da zalantza handirik gelditzen, bertan bortizki arbuatzen baita euskal izate **orientalizatu** eta mistifikatua, museoko pieza eta misteriozko enigma bihurtua. **Joseba Zulaika**

orientatu, orienta, orientatzen **1** da *ad* norabide jakin bat izan; puntu kardinelei buruz kokatu; **iknorabidetu**.

Artista-lantegi guztiak bezala, iparralderantz **orientaturik** zegoen hura ere. **Jon Muñoz**

Aldeetariko bat hegoaldera bete-betean **orientatua** egoteko moduan eraiki zuten arkitektoek monumentua. **Jon Muñoz**

Iritsiko zela errealtatearen lau puntu kardinalak ikusi eta **orientatzeko** gai izango nintzen eguna. **Bernardo Atxaga**

Hala bada, aise **orientatu** ziren patio barnean. **Patxi Zubizarreta**

Atomotxoan han da, intsektuaren mila begietariko batean, eta bere partetxoarekin laguntzen du hark espazioan **orientatzeko** baliatzen duen ikusmen labur eta baldarrean. **Juan Garzia**

Itzulgingurua egiten ditu, **orientatzen** da, lekua hartzen du. **Josu Zabaleta**

Abiatu aurretik inguruari erreparatu genion arretaz, eta, **orientatu** bezain laster, ezkerreko bidetik abiatu ginen. **Rafa Egiguren**

Tropen gidariak gau ilun eta lanbrosuetan **orientatzeko** eraikitako karela baxu moduko batera igota, beste aldera jauzi egin zuten ahiturik. **Agustin Otsoa**

Ez zuen jakin posizio labirinto hartan **orientatzen** eta nazionalen zentinelaren segadan eroria zen. **Koldo Izagirre**

2 irud/hed

Kalkuluen paperak jakako sakelara sartu, eta azken aldiz eman zion begiratu bat haize-arrosari, hari esker **orientatu** ahal izan baitzen mundu matematiko berri haietan barrena. **Jon Muñoz**

Oraindik bertatik garbi ikusten dut nola **orientatu** litekeen bera epistemeruntz. **Xabier Arregi**

3 norabide jakin bat hartu.

Molekula batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz ñimiñoak bezala jokatzen dute eremu elektriko batean: **orientatu** egiten dira, batzuk nagiroago beste batzuk baino. **Juan Garzia**

• 4 du *ad* norabideratu, zuzendu.

Nire lerro hauek Gidariaren lehenengo irakurketan irakurlea **orientatzea** dute helburu. **Xabier Kintana**

Irakaslearen zeregina zientzia lantzea eta ikasleak zientziaren bidean trebatzea da; ez da ikasleak politikoki norabide batean edo bestean **orientatzea**. **Joxe Azurmendi**

Amaren geneek **orientatzen** dute hura, eta bere lekuan paratzen. **Juan Garzia**

Ohartarazi nahi dugu Alderdi Popularrak osaturiko Gobernuak bultzada politikoa eman zuela *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako zigor prozesuan, eta bultzada horrek gaintu egin zuela politika kriminala fiskaltzaren bitartez **orientatzeko** ahalmena. **Berria - Harian**

Gure ibilbide pertsonala **orientatzeko** geure bizitzaren kokalekua definitzen duten koordinatuen premia baitugu, **Berria - Kultura**

orientatzaile iz orientabide gatzagoko edo profesionalen aholkatzen duen pertsona.

Historia hau gurasoek mila aldiz kontatu izan diete bai beren lagunei, bai andereño, irakasle, psikologo, foniatra eta **orientatzaileei** ere. **Jesus Mari Mendizabal**
Ikasleak ez dira, baina, nahi dituzten bisitari bakarrak: **orientatzaileak**, gurasoak eta irakasleak ere nahi dituzte. **Berria - Euskal Herria**

orientazio ik orientazio.

orientazio (orobat orientazio g.er.) 1 iz norabide jakin bat izatea; puntu kardinelei buruz kokatzea.

-Talesek ez zuen eskuairarik, gauza hobeago bat zuen: piramidearen **orientazioa**. **Jon Muñoz**
Kanpoko babes moila berria erakitzea proposatzen dugu, baina **orientazio** egokiarekin, hots, ekialdera begira. **Berria - Euskal Herria**
Zodiakoaren inklinazioaren eta eguzkiaren ibilbidearen arabera izanik, zeruak lurrikorako duen posizioak hainbat ezaugarri ezartzen dituen bezala, badirudi hala egin beharko dela eraikinen **orientazioa** ere. **Santiago Iruretagoiena**
Termometrook kaskarrak izan ohi zirenez, eta etxe bakoitzak bere **orientazioa** duenez, arras desberdinak izaten ziren ikasleek ekarritako tenperaturak. **Joxerra Garzia**
Argi artifizialen eraginez **orientazioa** galdu eta arean bertan hiltzen dira. **Berria - Gaiak**
Mila bat metroko distantzian, ipar-ekialde **orientazioan**, arrautza formako objektu geometriko bat begiztatu zuten, berrogei metroko luzera eta hamarreko zabalera zuena. **Josu Landa**
Orientazioaren haria ere laster galdu dut, ezagutzen ez nituen etorbide eta kaleetatik gindoazen eta. **Urtzi Urrutikoetxea**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nik dagoeneko galdua dut burua, eta **orientazio** zentzua, oraintxe nago goian eta oraintxe behean. **Juan Martin Elexpuru**
Orientazio-seinale behin-behineko hura. **Jon Alonso**
Zentzuzkoagoa da misilek eta itsaspekoek erabiltzen duten **orientazio**-sistema inertzialarekin konparatzea labirintoa. **Irene Aldasoro**
Baditu ingurua arakatzeko **orientazio** - eta nabigazio-sistema landuak ere: 3D kamera bat eta hi-fi soinu-errepuzitzaile estereofoniko bat, besteak beste. **Irene Aldasoro**

3 norabidea; joera.

Nire buruari galdegiten diot ea ez ote dudan **orientazioz** aldatu bidean nindoala. **Xabier Arregi**
Epistemerantzako **orientazioa** al da arkeologiari ireki ahal zaion bakarra? **Xabier Arregi**
Aldaketa horiek beste **orientazio** bat eman zieten mundu-ekonomiari buruzko ikerlanei. **Koro Navarro**
Politika ekonomikoaren **orientazioa**, oro har, murriztailea zen; horren ondorioz, soberakin korrontea mailarik altuenera iritsi zen 1989an. **Koro Navarro**
Mundu mailako trukeen mailan sumatzen da joera hau, eta orobat sumatzen da Iparretik Hegoalderantz egiten diren inbertsio zuzenen eta finantza-fluxuen **orientazio** geografikoari dagokionez. **Koro Navarro**
Euskaldunek ezin izan dituzte euren **orientazio** politikoak dituzten nahiak adierazi. **Piarres Xarriton**
Bere **orientazio** filosofikoa (eta, urrunagotik, politikoa) gorabehera, [...]. **Josu Zabaleta**
-Itxoin apur batean, mari-bero horrek -petraldu zitzaion laguna-, oraindik ez zekinagu-eta haien **orientazio** sexuala. **Patxi Iturritegi**
Aipatu "enpresaren **orientazio** antropozentrikoagoa", adibidez, erretorika hutsa izaten da gehiegitan. **Iñaki Heras**

4 (hitz elkartuetan)

Jatorri, etnia, kolore, sexu, sexu-**orientazio**, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako sexu bereizketarik gabe. **Berria - Harian**

5 orientabidea.

Irakasleko urteko 6.000 euroko igoera ez dutela eskatu esan zuen, eta kopuru hori **orientaziorako** dela zehaztu. familiei **orientazioa** eskaintzea eta pare bat ikastetxetan haur gorrei zuzendutako estraeskolarrak eskaintzea. **Berria - Euskal Herria**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskaltegiak erraztasun guztiak ematen ditu, egun guztian gela irekita dago ikaslea nahi duenean etor dadin, eta gero, astean behin edo bitan, **orientazio** lana egiten da. **Berria - Euskal Herria**
Ikusiz laborantzako ofizioek irudi txar bat düela, egünaldiaren helbürüa zen inzerzio edo **orientazio** mailan lanean ari diren egitüreekin harremanak hobeki finkatzea. **Herria**
Vital Kutxak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako proiektua enpresei zuzendutako Komunikazio eta Informazioaren teknologia berrien **Orientazio** Zerbitzuaren barruan dago. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orientazio sexuala (3)

oriente iz ekialdea.

Agustin Hiriarre, Pierre-Olivierrek ekarritako albisteek liluratuta, **Oriente** aldera abiatu zen egun batez. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**
Diamanteak ezkerretatik ibili behar dira, sortzez duten indarra septentriotik heldu baitzaie, septentrio munduaren ezkerrean baita eta **orientera** itzultzen dutelarik jendeek aurpegia, septentrio ezkerrean baitute. **Aurelia Arkotxa**
Georgi Purbachen *Theoricæ novæ planetarum*; Hayton Armeniako printzearen **Orienteko lurraldeetako historien lorea**. **Aurelia Arkotxa**
Orientetikako ez-irrika edo ez-desira meditantea bezala, Mendebaldeko ongizate etsia edo ongi-bizitze irudipenezkoa bezala. **Iñaki Segurola**
Orienteko apoteosia, aizu: karilioi eolikoak, ispiluak, bionboak, portzelanak, buda zoriontsuak, koloretako arrainak... hitz batean, Txinako astea Corte Inglesen. **Patxi Iturritegi**

origami iz paper orriak tolestaturaz gauzakiak egiteko teknika; teknika hori baliatuz egiten den gauzakia.

Ekinaren ekinaz, Ryokok larruaren azpian gordetzen zuen egia ustezkoaren bila ibili nintzen, eta paperezko **origami** delikatu horiek bezala desmuntatzean gertatzen dena gertatu zitzaion neure jakingurari: irudia desitxuratutako egiten da eta ez dago beriz ere lehengo osotasunera itzultzetik. **Javi Cillero**

original (253 agerraldi, 59 liburu eta 90 artikulutan; orobat orijinal 87 agerraldi, 39 liburu eta 18 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian original agertzen da) 1 izond kopia edo imitazioa ez dena, berritsunagatik nabarmentzen dena.

Orri hauetan zehar -esan zuen Ruche jaunak, liburuko orriak kontu handiz pasatu-, alor berri eta erabat **original** bat sortzen da: aljebra. **Jon Muñoz**
Haren lana, pentsamendu espainol **original** bat badagoena frogatzeko, Menéndez Pelayo adiskide gazteago eta jantziagoak jarraitu du. iMac ordenagailuaren diseinu **originalarekin** bat etortzeko, saga eta teklatu bereziak diseinatzea erabaki zuen Applek. **Joxe Azurmendi**
Neurria ez da **originala**, Frantziaren auzoetako batzuek jada erabiltzen baitute; Belgikak, Alemaniak eta Italiak, esaterako. **Berria - Ekonomia**

Oso **originala** iruditzen zait ikuspuntua. **Iñaki Iñurieta**
Historiaren ikuspegi hori ez da oso **originala** Worringerrek proposatzen duen garaian. **Josu Zabaleta**
Eregimen sekulararekiko burujabetasun **orijinal** horren indarrez, [...]. **Iñaki Mendiguren**
Argumenturik **originalenak**, konparaziorik adierazkorrenak. **Patxi Zubizarreta**
Perugiako Anonimoa ez da konpilazioa, obra **originala** baizik. **Askoren artean**
Plajio batek, paradoxaz, hain **orijinala** ematen bazuen, zer zen orduan orijinaltasuna? **Bernardo Atxaga**
Gero, **originala** izan nahi zuen bira turistiko txiki bat egiten genuen. **Ramon Saizarbitoria**
Inolaz ere **originala** ez den lan akademiko batek ez du batere balio. **Askoren artean**
Ez da oso **originala** hain mindurik egotea halako egun batean, maitearen galtzea iritsi denean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Ez da gai berria euskal literaturan, eta ikuspegiak ere ezer gutxi du **originaletik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Argudiabidea, izan ere, baliagotsuago baita argudioak modu **original** eta harrigarrian formulatzen direnean. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Stanislaus Dembak ez zuen oso modu **originalen** hasi elkarriketa, irakurgiaz galdetu baitzion andereñoari. **Anton Garikano**

2 (pertsonei buruz)

Jende **originalak** eta bere gisakoak ez dik berdinetik berdinerat egiten, baina berdinetik hoberat. **Joan Mari Irigoien**
Pertsonea **originalak** behar dira munduan. **Berria - Euskal Herria**
Morroia **orijinala** duk behintzat, ez zaik iruditzen? **Harkaitz Cano**
Eskalatzalea da, halaber, Erri de Luca, azken urteotan Italian sortu den narratzaile **orijinaletakoa**. **Anjel Lertxundi**
Oso **originala** iruditu zitzaidan eta "mutil honek zerbait berezia dauka, zerbait desberdina" pentsatu nuen. **Jon Arretxe**
Maite nuen, finean, **originala** zelako eta gizon maitagarria zelako. **Joan Mari Irigoien**
Originalagoak izateko eskatuko nieke futbolari, entrenatzaile eta agintariei. **Berria - Kirola**
Originala izateko ahaleginean, eguraldiari edo egoera politikoari buruzko topiko lagungarriak saihestu nahi izaten ditut, eta, blokeaturik, zentzurik gabeko kontakizun aspergarrietan galtzen naiz. **Ramon Saizarbitoria**

• 3 izond/iz jatorrizkoa.

-Txosten **originalaren** kopia emango dut. **Fernando Morillo**
Horretarako noski, testu **originalak** aztertu beharko lirateke erne. **Patziku Perurena**
Egitasmo **originaletik**, soilik oinplanoa errespetatu zuten, hots, zimenduak. **Berria - Kultura**
Danborradan parte hartzen dutenek jantzi **originalak** daramatzate. **Askoren artean**
Bitxia da bertsioa: **originalen** aita da aberatsa dena eta ama berriz ederra. **Harkaitz Cano**
Inoiz ikusi dudan alderik handiena egin zait erreprodukzioen eta **orijinalen** artekoa. **Anjel Lertxundi**
Badira euskaltzaleak frantsesezko **orijinala** eta euskal itzulpena elgarrekin parekatuz irakurtzen dituztenak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Taldean, talde-lana egiten nuen: besteen **originalak** makinaz pasatu eta antzerakoak. **Ana Urkiza**
Zuri, Mr. James, entregatuko dizut **originala** eta zu arduratuko zara fotokonposaketa eta inprimategiaz. **Iñaki Zabaleta**
Jakin nahi nuela, dena dela, zein ziren **originala** zeukaten beste idazleak, eta zentzurik ba ote zuen nik egitea, beste norbaitek lehenago burutuko bazuen. **Iban Zaldúa**
Haren aurrean, kopia bidez oso ezagunak zaizkigun obren **originalek** eragiten duten zera hori sentitu nuen, zeluloidezko pertsonaiak hezurramiturik ikusteak eragiten duenaren parekoa. **Ramon Saizarbitoria**
Baina une honetan gure ardura ez da hori, txostenaren **originala** baizik. **Migel Angel Mintegi**
Hala ere, egileak **originalari** beste orrazkera bat eman beharko dio inprimategira igorri aurretik. **Txema Ramirez de la Piscina**
Originalak *squalus* dio. **Askoren artean**

originalki *(corpusean orijinalki soilik) adlag* modu originalean.

Opariak **orijinalki** egiteko ideia ugari aurkituko duzue: oihalkiak nasaiki koloratuak, kolorezko kristalkiak gasagarrean edo labean landuak, larrukiak, xirio apaingarriak, haurrentzat zurezko apainki eta puzzleak, larru eta txapinak, joiak, eltzeak... **Herria**

originaltasun *(57 agerraldi, 21 liburu eta 14 artikulutan; orobat orijinaltasun 45 agerraldi, 11 liburu eta 3 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian original agertzen da)* 1 iz originala denaren nolakotasuna.

Originaltasuna esaten dudanean, gure baitatik datorren esperientziak eta sentsazioez ari naiz. **Ana Urkiza**
Originaltasuna bilatzea, sentsazio berria lortzea, argi eta garbi aitortutako helburua da artean XIX. mendeaz geroztik gutxienez. **Josu Zabaleta**
Orijinaltasunaren kontzeptuak indarra hartu zuenetik, edo, txanponaren beste aldetik esanda, plajioa moraliki gaizki ikusia eta lege aldetik ere kondenagarria izaten hasi zenetik, egonezina hedatu zen literatur gizartearen. **Bernardo Atxaga**
Gure amaren **originaltasuna** etxetik kanpo lan egitea zen. **Ana Urkiza**
Ikasle baten idazlanari, adibidez, ez zaio eskatzen ikertzaile batenari eskatzen zaion zorrotzasun, **originaltasun** edo sakontasuna. **Askoren artean**
Argumentuak gutxitan liluratu izan nau, liburu batean ez baitut istorioaren **originaltasuna** bilatzen. **Pako Aristi**
Horrela aurkitzen dugu, Weberren arabera, Mendebaldeko hirien **originaltasun** erabatekoa izan zena: alegia, Antzinaroaz geroztik, gizaki libreak biltzen dituen komunitate bat osatzea. **Koro Navarro**
Burke jaunaren imitatzaile ugariak apur bat marguldu dute haren jokamoldearen **orijinaltasuna**. **Juan Garzia**
Ateek kartzela batekoak dirudite eta bebarruko postontzi koloretsuek (bada bat kuku-erloju baten zurezko eskeletoarekin egina) etxean bizi diren auzoen **originaltasuna** salatzen dute. **Harkaitz Cano**
Perugiako Legenda frantsiskotar mugimenduaren **originaltasunaz** mintzo zaigu, tradizioko molde aszetiko zaharrak puskatzen dituenaz. **Askoren artean**
Zure, edo nire, edo gure liburua originala izatea nahi badugu, kasu honetan, eta dena idatzita dagoenez, **originaltasun** posible bakarra jada idatzita dagoen pasarte batez baliatzea da. **Jon Alonso**
Hala erran daiteke ezen osaba ezin originalagoa zela eta **originaltasunak** galdu zuela, Ofizio Sainduaren garaziaz. **Joan Mari Irigoien**

2 (hitz elkartuetan)

Tematika ezberdin batekin arriskatzea, ezezagunak diren obra batzuekin, nire ustez, **originaltasun** puntu bat eman dio. **Berria - Kultura**
Han ere, noski, mota guztietako nortasun eta izaerak zeuden, denak ezberdinak, beren **originaltasun** ukituez, baina denak sartzen ziren "neska arruntan" taldean. **Joxemari Iturralde**

orijinal ik original.

orijinalki ik originalki.

orijinaltasun ik **originaltasun**.

orin 1 *iz* larruazalean eratzten den orban ilun biribila. ik **orezta**.

Kokotsean grano bat ageri zuen, eta beste masailan **orina**. Bernardo Atxaga

Norak ez zuen masailak hautsezatzeko, edo ezpainak eta ezpainen ondoko **orinak** margotzeko ohiturarik. Anjel Lertxundi

Bizkarrean gaiztotuta zuen **orina** zuela-eta joan zen espezialistarengana. Berria - Euskal Herria

Lehenengoa hankan **orin** bat atera zitzaion emakume batena zen. Berria - Gaiak

Egun batean, aurpegia zenbait **orinez** margotuta agertu zen eskola ematera, eta ez zuen inongo efekturik egin. Koro Navarro

Orinez betetako esku iharrak ere jaso ditu eta, erruki keinu batez, salmahaian pausatu ditu atzera. Urtzi Urrutikoetxea

Bere esku iletsu **orinez** bete nire belaunetik erretiratu eta berokiaren barneko patrikara eraman zuen. Anjel Lertxundi

Nik ez nuen haren itsusirik ikusi, haren ederra baizik; eta ederrago oraindik, eskuin aldera ezpain gainean zeukan **orin** batek egiten ziona. Patxi Ezkiaga

2 (izenondoekin)

Kopeta zimurtzean **orin** txiki eta ilun bat erakutsiz, bekainak igo zituen hitz egiten jarraitzeko. Joxemari Urteaga

-Amatxo, zer da aurpegian duzun **orin** beltz txiki hori? Lopez de Arana

Orin nimoño haiek desagertarazteko, mendian egon eta gero, aurpegian hauts zuri batzuk eman ohi zituen. Fernando Rey

Eta **orin** iluna ezkerreko bularpean. Urtzi Urrutikoetxea

John Fitzgerald Kennedy presidentearen itxura aurkitu zenien telebistako elkarrizketatzaile haren ezker masaileko **orin** handiari. Harkaitz Cano

Medikuek, hala ere, Satanen seinalearen bila jarraitu zuten: iztarrean zuen **orin** beltz batean aurkitu zuten azkenik, eta han sartu zuten orratza. Juan Martin Elexpuru

3 (hitz elkartuetan)

Luzexkoak haatik, **orin** -ileak izateko, hik emandako neurriak. Patxi Ezkiaga

orinal *iz* pixontxia.

Neu jarri nintzen txizagurak, normal!, baina nik, **orinalik** ez.-Itzaroidazu pixka bat, hauena berehala amaituko dut... Joxean Sagaztizabal

orinalen pareko katxiak edaten dituzte denen artean... Pako Aristi

orindun *izond* orinak dituen. ik **oreztadun**.

Neska txiki ihar bat zen Anny, **orinduna** eta betaurrekoduna, eta ez zion utzi pianoa jotzeari. Anton Garikano

oriotar *izlag/iz* Oriokoa, Oriolari dagokiona; Orioko biztanlea.

-Sekretu bat: bi **oriotar** beterano miresten ditudala nik: Aita Makatzaga gerrillari famatua bata; eta Frantzisko Sagardia zure osaba, bestea. Txillardeggi

Oriotar irudigile eta pentsalari handiarentzat gizarajoa da bertsolariaren jarduna eta arima ulertzen eta estimatzen ez dituen euskalduna. Andoni Egaña

Bertsu antzerki bat ikusi **Oriotar** hiru gizon gaztek emanik. Herria

Kamel Ziani **oriotarra**, berriz, bere marka hobetzen saiatuko da. Berria - Kirola

51 urteko **oriotarra** abenduaren hasieran atxilotu zuen Ertzaintzak. Iñigo Aranbarri

Oriotarren kasta eta jenioa ditu baina emakume langilea eta atsegina izan da beti. Xabier Etxabe

Lehen jardunaldian, 55 segundo kendu zizkieten **oriotarrek**, bandera etxerako bidean jarriz. Berria - Kirola

Sanjuandarra sentizen baitzen goitik behera: sanjuandarren aldeko bezain **oriotarren** aurkako. Joan Mari Irigoien

oritarazi ik **oroitarazi**.

oritzapen ik **oroitzapen**.

orixezale *izond* Orixe euskal idazlearen zalea dena.

Orixezale amorratua, Goizuetan jaioa baina Leitzañ bizi dana. Juan Luis Zabala

orizta ik **orezta**.

orka *iz* ezpalarta.

Mazopak itsas ugaztunak dira, baleak, katxaloteak, zereak edo **orkak** bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orkak sudurretik jaurtitzen zuen iturri zuri kizkurra zen odoiartzean ikusten zen lurrin hura, eta **orkaren** mutur beltza itsasontziaren branka. Koro Navarro

Georgeren aitak sekula ikusi ez zuen **orka** handia nuen gogoan, itsasoaren azalean jauzika, edo ur azpira murgiltzen, mendi bat bezala. Koro Navarro

250.000 hegazti, 2.800 itsas igaraba, 300 itsas zakur, 250 arrano burusoil eta 22 **orka** hil zituen, [oliobideak] besteak beste. Berria - Gaiak

Hamarren bateko **orka** taldea ikusiko duzu largabistaz. Joseba Sarrionandia

orkatila (*orobat orkatil g.er., txorkatila g.er. eta txonkatila g.er.*) 1 *iz* zangoak eta oinak bat egiten duten tokian alde bietara nabarmentzen den irtengunea.

Ezer larririk ez, bihurtu txar bat **orkatilan**, baina ezingo zela oinez joan. Inazio Mujika Iraola

Gutxienez sei aste beharko zituen eskuin **orkatilan** zuen bihurtu bikoitza osatzeko. Berria - Kirola

EAEko Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez, eskumuturretan eta **orkatiletan** ebakiak zituen. Berria - Euskal Herria

Orkatileko lotura minduta dauka. Berria - Kirola

Cipollinik **orkatileko** hezurra ez dauka hautsita. Berria - Kirola
Ahotik lerdea zeriola, zapatilla erdi erantzita eta galtzerdirik gabe, **orkatilan** zauri gorria begibistan. Pablo Sastre
Ronek **orkatiletatik** heldu eta buruz behera jarri zuen. Iñaki Mendiguren
Williams andrea emakume handia eta sendoa zen, bular-harroa eta zango-mardula, eta handituak zituen **orkatilak** zapata punta-finen gainean. Koro Navarro
Orkatila ere oso minduta daukat orain, hostu ondoren. Jon Arretxe
Orkatila gorritu puztua aztertu ere egin gabe, Xang doktoreak orratz batzuk sartu zituen Uilen hankan, kotoi esterilizatu batez garbitu ondoren. Juan Kruz Igerabide
Orkatilan xiringa bat du sartuta. Sonia Gonzalez
Orkatilak kateaturik dauzkaten gizonak uretara doaz. Juan Kruz Igerabide
Hewittek min hartu zuen ezker **orkatilan** eta lotu egin zion medikuak. Berria - Kirola
Galtzontziloak **orkatiletan** eta ukalondoak belaunetan, buruari esku biez eusten zion. Unai Iturriaga

2 (aditzaren objektu gisa)

Han, presaren presaz, **orkatila** bihurritu dut espaloian Gelditu zaiok hanka erruedapean eta, sustoarekin atzera erori duk eta, krak! Jon Arretxe
orkatila hautsi zaiok. Pablo Sastre
Taliban ezkutu baten tiro trebeak **orkatila** txikitu zion Afganistango Tora Bora menditsuko labarretan. Fernando Morillo
Oinetakoaren barruko azalaren ukipenak, luzaroan, **orkatila** urratu eta zauriak sortu zizkidan alderik bigunenetan. Urtzi Urrutikoetxea
Beste bat trapu batekin **orkatila** nolabait lotzen hasi zitzaion. Pablo Sastre
Hiru ezteneko koilarea jarri diote, etzaterik izan ez dezan, eta katez lotu dizkiote **orkatilak**. Anton Garikano
Uretara bota dute emakumea, esku-**orkatilak** bilur burdinazkoez lotu ondoren. Anjel Lertxundi
Ezkerreko hanka zeukan harrapatuta, eta tramankulu horzdunak estutu egiten zion **orkatila**. Inazio Mujika Iraola
Lepazurrun-kiratsa zerion pomada batez, **orkatila** ubeldua igurtzi zion Jonathani Léak. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Aza bukatua zuten, eta txerriki ketuaren **orkatila** -hezurrak pila batean zeuden plateretan. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihurritutako orkatila (3); **eskuin orkatila** (5); **eskuin orkatila bihurritu** (3); **ezker hankako orkatila** (5); **ezker orkatila** (4); **orkatila bihurritu** (47); **orkatila bihurritu du** (7); **orkatila bihurritu zuen** (24); **orkatila bihurritu zuenetik** (3); **orkatila bihurritua** (3); **orkatila minduta** (7)
orkatilako arazoak (3); **orkatilako lesio** (3)
eskuin hankako orkatilan (6); **eskuin orkatilan** (11); **eskuineko orkatilan** (3); **ezker hankako orkatilan** (4)
ezker orkatilean (4)
orkatiletatik gora (3)

orkatx¹ ik **orkatz**.

orkatz² iz

Aker-belarra, epai-belarra, **orkatxa** ... J.M. Olaizola "Txiliku"

orkatz *(orobat orkatx g.er.) iz* oreinaren familiako ugaztun hausnarkaria, ahuntza baino zerbait handiagoa, ile-gorrixka eta adar-txikia (*Capreolus capreolus*). ik **basahuntz**.

Hamar idi gizen eta hogeit hamar idarrek; ehun ardi eta, gainera, hainbat orein, basahuntz, **orkatz** eta hegazti gizen. Elizen arteko biblia
Gehienbat isiltasuna nagusi: zaldi bat ilargi-argitan grauska bazkan ari, eta esparru berean **orkatz** bat, baina zaratarik ez, eta urrunxeago ahardi beltz bat. Joxe Austin Arrieta
Bere begitarte luze eta estuak **orkatz** zaurituaren begiratu mintsua zeukan. Fernando Rey
Autopistara atera zen **orkatz** bat jo zuten autoarekin. Berria - Euskal Herria
Martxoaren 17an, **orkatz** baten arrastoak aurkitu zituzten, hartzak hila. Berria - Harian
Batuetan, Gaspard zaharra, bere fusila hartu eta **orkatz** bila ateratzen zen; aldian-aldian baten bat botatzen zuen. Josu Zabaleta
Arrazoinetarik bat, **orkatxen** eta basurdeen emendatze handia horgo oihan-mendietan, jakinez abere horiek direla otsoen harrapakin nagusiak. Herria
Neguan, ehizaren erakuslehoiek liluraturik uzten zuten: **orkatzak** buruz behera zintzilik, aurreko hankak hautsita eta lepoaren gainetik lotuta; [...]. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon bat sartu zen bentako atean barrena; galtzerdi gergizko eta gorontz, **orkatz** -larruz jantzia zetorren. Patxi Ezkiaga
Armairuan gurasoek beretzat zuten oparia aurkitu zuen, **orkatz** larruzko bota batzuk ziren. Fernando Rey
Orain badut nire zamau zuria, eta kristaleria, eta zilarrerria, baina izokinak eta **orkatz** solomo-zerrak beranduegi iritsi dira. Eskarne Mujika
ACCA erakundeak jakin arazten du **orkatz** ihizatzea izanen dela urtarrilaren 19an. Herria

orkesta ik **orkestra**.

orkestazio ik **orkestrazio**.

orkestina *iz* musika talde ez oso handia, dantza musika jotzen duena. ik **jazban**.

Gizon batzuk taulada bat eraikitzen ari ziren **orkestinarentzat**. Bernardo Atxaga
Orkestina hasi berria zen jotzen: alai zabaltzen zen musika inguru guztian, zelaietan barna hedatuz. Josu Zabaleta
Orkestinako tronpeta-joleak pieza ospetsu bat iragarri zuen mikrofonotik. Bernardo Atxaga
Bat soinuarekin arituko zen, bestean **orkestina** egongo zen. Pako Arísti

orkestra *(orobat orkesta g.er. eta orkeztra g.er.) 1 iz* zuzendari baten gidaritza pean jotzen duten musikarien taldea.

Hil zuten bezperan Wallenstein jauregian Mozarten musika entzuten aritu zen, Pragako **orkestrak** joa. Felipe Juaristi

Hasiera-hasieratik izan naiz Euskadiko **Orkestraren** kontzertu-zikloetako bazkide. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orkestrak Souzaren Martxa jo zuen orduan. **Felipe Juaristi**

Poloniatik Hungariara joan ziren eta han Esterházy printzearen jauregian [...] Haydn ezagutu eta haren **orkestran** jo, ia urte betez. **Felipe Juaristi**

Billie Hollidayren **orkestrako** musikariak. **Harkaitz Cano**

Sarak amaitutakoan, Emmak berarekin hartu zuen eta ea presoen **orkestran** jo nahi ote zuen galdetu. **Felipe Juaristi**

Orkestrak eta abesbatzak berebiziko garrantzia dute *Peter Grimes* operan. **Berria - Kultura**

Egitarauaren lehen zatiarekin amaitzeko, Escuderoen Piano eta **orkestrarako** euskal kontzertua joko dute. **Berria - Kultura**

Jatetxean bertan jo zuen Johannes Brahmsen biolin eta **orkestrarako** idatzi zuen kontzertuaren lehen zatia. **Felipe Juaristi**

Hala ere, nik gustukoago dut **orkestrarako** bertsoia, **Orkestra** *Everybody's Doing it* kanta jotzen ari zen. **Berria - Kultura**

Eskoziako BBCren **orkestra** ariko da bihar Kurasaalean. **Berria - Kultura**

Orain Piak abestu egiten zuen, igandetan, dantzaleku bateko **orkestrarekin**. **Josu Zabaleta**

Euskadiko **Orkestra** Cristian Mandealek zuzenduko du eta Marta Zabaleta pianistak egingo ditu piano bakarleri lanak. **Berria - Kultura**

Gilbert Vargak zuzenduko du **orkestra** lau kontzertutan. **Berria - Kultura**

Lorenzo Ramosek hartuko du **orkestraren** gidaritza. **Berria - Kultura**

Orkestrakoak, hiru tronpeta jotzaile eta biolin jotzaile bat, aire alaiak jotzen ari ziren. **Felipe Juaristi**

2 (izenondoeekin)

Munduko **orkestra** filarmoniko handietan. **Joxean Agirre**

Txekiar **Orkestra** Filarmonikoak bi lan aurkeztu zituen Donostian eskainitako emanaldian. **Berria - Kultura**

EITB Irratian, Euskadiko **Orkestra** Sinfonikoak eman ohi dituen kontzertuak komentatuz. **Pello Zabala**

Ganbera Musika Zikloak hartuko ditu bere konposizioak Peñafloida kaperaren eta **Orkestra** Barrokoaren eskutik. **Berria - Kultura**

Ortizirale aratsean, geltoki zaharrean, Pariseko **orkestra** nagusia, 120 musikari partzuer, Michel Plasson zuzendari. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **orkestral**.

Orkestra -lan sinfoniko konplexuak konposatzen ohitua zegoela eta orain, berriz, tresna gutxirentzako partitura xumea idatzi beharra zuela. **Patxi Iturritegi**

Orkestra -musikaren lehenbiziko konpasak bozgorailuetatik ateratzen hasi zirenean, hari jarraitu zitzaion kantaren hitzak kantatu irudi egin zuen ezpainez. **Oskar Arana**

Bost orenak irian, 100 presuna gehiago juntatu dira Bilbotzak eta Garazi Philantropik **Orkestra** taldeen entzuteko. **Herria**

Pianista fina zen gizona, eta itsasoan barrena ibili izan zen gaztetan Alfonso XIII transatlantikoan **orkestra** -zuzendari. **Josu Landa**

Hark bere **orkestra** -lagunengana behar, azken finean biok baikenuen nor bere lanbidea. **Joxe Austin Arrieta**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dira gutxi Euskal Herriko Gazte **Orkestrarekin** aritu direnak ere. **Berria - Harian**

Copland-ek klarinete eta hari **orkestrarako** sortutako kontzertuan. **Berria - Kultura**

Musikaria zen bera, San Marco basilikako hari eta haize **orkestran**. **Felipe Juaristi**

Suediako Ganbera **Orkestra** ariko da bihar Donostiako Kurasaalean. **Berria - Kultura**

Dagoeneko urtebete igaro da [...] Pirineos Jazz **Orkestra** abian jarri zenetik. **Berria - Kultura**

New Orleanseko kale **orkestren** *dixieland* soinuan. **Berria - Kultura**

The Unusual Suspects folk **orkestran** hasi da lanean. **Berria - Kultura**

Usoek sexu-soloak jotzeari ekin diote, mekanikoki, hiriko trafiko **orkestra** lagun dutela urrutian: **Joxerra Garzia**

5 greziar eta erromatar teatroetan, eszenatokiaren aurreko zirkulu erdiko eremua.

Eszenaren luzera **orkestraren** zabalera halako bi izango da. **Santiago Iruretagoiena**

Podiumaren altuera, plataformaren mailatik gora neurtuta, **orkestraren** diametroaren hamabiren batekoa izango da, erlaitza eta gola ere kontatuta. **Santiago Iruretagoiena**

Orkestraren zentrotik pasatuz beste lerro bat egiten da, proszeniko lerroarekin paraleloa. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzikio orkestra (3); baionako orkestra (4); bartzelonako orkestra (3); berlingo orkestra (3); bilbao orkestra (66); bilbao orkestra sinfonikoa (21); bilbao orkestra sinfonikoak (26); bilbao orkestra sinfonikoaren (7); bilboko orkestra (42); bilboko orkestra sinfonikoa (10); bilboko orkestra sinfonikoak (18); bordeleko orkestra (3); donostiako orkestra (3)

eos euskadiko orkestra (4); espainiako orkestra (3); euskadiko orkestra (118); euskadiko orkestra sinfonikoa (35); euskadiko orkestra sinfonikoak (37); euskadiko orkestra sinfonikoarekin (10); euskadiko orkestra sinfonikoaren (15); euskadiko orkestra sinfonikoko (8); euskal herriko orkestra (4); frankfurteko irratiko orkestra (4); galiziako orkestra sinfonikoak (3); ganbera orkestra (7); gazte orkestra (9)

irratiko orkestra (13); irratiko orkestra sinfonikoa (4); irratiko orkestra sinfonikoak (6); kataluniako orkestra (3); kataluniako orkestra sinfoniko (3); koloniako irratiko orkestra (6); londresko orkestra (6); londresko orkestra filarmonikoak (3); musika ikastegiko orkestra (3); musikene orkestra (6); musikene orkestra sinfonikoak (3); musikeneko orkestra (3)

orkestra ariko da (4)

orkestra eta abesbatza (3); orkestra eta pianorako (4); orkestra filarmonikoa (11); orkestra filarmonikoak (10); orkestra filarmonikoarekin (5); orkestra filarmonikoaren (3); orkestra filarmonikoko (3); orkestra handi (6); orkestra handiak (3); orkestra handien (3)

orkestra nagusia (8); orkestra nagusiak (3); orkestra nazionalak (3); orkestra nazionalarekin (3)

orkestra osoa (4); orkestra sinfoniko (22); orkestra sinfoniko nazionalarekin (3); orkestra sinfonikoa (91); orkestra sinfonikoa zuzendu (3); orkestra sinfonikoa zuzenduko (3); orkestra sinfonikoak (111); orkestra sinfonikoak antolatutako (3); orkestra sinfonikoak emango (3); orkestra sinfonikoan (6); orkestra sinfonikoarekin (29); orkestra sinfonikoaren (30); orkestra sinfonikoarena (4); orkestra sinfonikoko (19); orkestra sortu (4); orkestra txiki (11); orkestra txiki bat (4); orkestra txikia (5)

orkestra zuzendari (18); orkestra zuzendaria (14); orkestra zuzendariak (4); orkestra zuzendaritza (3)

osatzen dute orkestra (4); pablo sarasate orkestra (6); rotterdamgo orkestra (6); rotterdamgo orkestra filarmonikoa (3); sarasate orkestra (9); suediar orkestra (3); txekiako orkestra (4); txingudiko orkestra (3)

vienako orkestra (6)

bilboko orkestrak (4); euskadiko orkestrak (18); ganbera orkestrak (5); gazte orkestrak (12); joko du orkestrak (3); pablo sarasate orkestrak (4)

euskadiko orkestrako (4); gazte orkestrako (8); orkestrako kide (5); orkestrako kideek (3); orkestrako musikariak (5); orkestrako zuzendari (7); orkestrako zuzendaria (3); gazte orkestran (4)

biolin eta orkestrarako (8); biolinerako eta orkestrarako (3); biolontxelo eta orkestrarako (3); eta orkestrarako kontzertua (6); orkestrarako kontzertu (3); orkestrarako kontzertua (6); orkestrarako lehen kontzertua (3); piano eta orkestrarako (9)

euskadiko orkestraren (5); orkestraren lan (3); orkestraren lana (4); orkestraren soinua (3)

orkestral 1 *izond* orkestrarena, orkestrari dagokiona. ik **orkestra 3**.

Lan **orkestrala** egin dugu: orkestra bat entzungo bagenu bezala da, baina dena pianoz egin. **Berria - Kultura**

Kontzertuaren bigarren atalean, Mussorgskyren *Gau bat mendi soilduan* eskainiko dute, «akelarre baten irudi **orkestrala**», Rafael Sanz-Espert Bilboko Udal Bandako zuzendariaren hitzetan. **Berria - Kultura**

Paleta **orkestrala** ederki erabiltzen du, bere sinfonietan orkestra handia behar da, XIX. mendeko erromantizismoaren bidetik. **Berria - Kultura**

2 (izen gisa) oskestrarako musika-lana.

Pop-rock disko batekin estreinatu zen bakarka (*Vintage violence*), baina jatorrietara itzuli zen berehala *The academy in peril* **orkestralarekin**. **Berria - Kultura**

orkestratu, orkestra(tu), orkestratzen 1 du *ad* orkestrarako egokitu.

Hasiera batean lau ahotsetarako eta organorako idatzi zuen Garbizuk, eta 1976an konpositoreak berak **orkestratu** egin zuen. Berria - Kultura

Berarenak ziren, gainera, Ziburuko konpositoreak **orkestratu** gabe utzi zituen Fuga eta Tocatta-ren harmonizazioa. Berria - Kultura

Bigarren atalean, Modest Mussorgskiren (1839-1881) Erakusketa baterako koadroak obra joko dute, Maurice Ravelek **orkestratutakoa**. Berria - Kultura

Eszenografia zuzendariaren iritziz, «hobetoen **orkestraturiko** zartzueta da Guridik eginikoa». Berria - Kultura

2 irud/hed

Maila horretan, Bennetten operazioak egintza automatiko bilakatuak ziren; une bakoitzean, dozena bat gauzari kasu egin beharra zegoen, baina etenik gabeko isuri bakar batean integraturik, **orkestraturik** zeuden. Xabier Olarra

orkestratxo *iz* oskestra txikia. ik orkestina.

Doinu herrikoiak jotzen zituen **orkestratxo** alai bat entzunez, Crellyz oroitu zen, bere andregaiaz, zain baitzeukan bere herrian. Jon Muñoz

-Ea zuen **orkestratxo** hori portatzen den, eta bisean nik dakidan pieza bat jotzen digun, e Zabaleta? Xabier Mendiguren Elizegi

orkestratzaile *iz* orkestrazio lanak egiten dituen musikaria.

Kultura musikalki zabaleko musikaria dugu maisua, eta horren gainera konpositorea eta **orkestratzaile** trebea, Ravel-en lanean sumatu genuen moduan. Berria - Kultura

orkestratze *iz* orkestrarako egokitzea.

Sonido XXI estudioan grabaturiko disko berrian **orkestratzea** eta pianoa sartu ditu Kudaik, taldearen ohiko soinua osatze aldera. Berria - Kultura

orkestrazio 1 *iz* orkestratzea.

Moldatzaileak: Mikel Urbeltz, Marian Arregi, Oskar Gartzia (**orkestrazioa**). Berria - Harian

Mussorgskiren *Erakusketa bateko koadroak* obraren ganean Maurice Ravelek egin zuen **orkestrazioa** eskainiko dute. Berria - Kultura

Bere musikak **orkestrazioan** halako bikaintasunik ez badu, ez da Sarriegik horretarako dohainik ez zuelako, handinahirik ez zuelako baizik. Askoren artean

Orkestrazio bikain horretan instrumentu guztiek daukate lana. Berria - Kultura

Orkestrazioa aberatsa da eta musika ere ona eta ezaguna. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Orkestrazio efektu interesgarriak dauzka lan honek eta Vargak bertsio sendoa eskaini zuen. Berria - Kultura

Ravelek egindako **orkestrazio** lan bikainak eraldatu egin zuen lana, betiere Mussorgskiren obra errespetatuz. Berria - Kultura

New Yorkeko **orkestrazio** irakasle baten laguntzaz. Berria - Kultura

orkeztra ik orkestra.

orki

1 orki-lili

Hara da hura heldu giralanda fantasiatsuz horniturik, irribelar, asun, bitxilorez, eta **orki**-lili luzangoz zeinei, artzain arruntek izen gordinagoa emanatik, hilotz-hatz deitzen baitiete gure dontzeila finek. Juan Garzia

orkidea (*orobat orkideo g.er.*) 1 *iz* *Orchidaceae* familiako belar landarea, mordotan biltzen diren lore ikusgarriak ematen dituena; landaren horren lorea.

Lurralde honetan ez duk **orkidearik** hazten, neure negutegian nik hazten ditudanak kenduta. Xabier Olarra

Bainilla landare igokari bat da, zuhaitzetan gora igoz 10 metroraino luza daitekeen **orkidea**, eta Amerikako tropiko inguruetako oihanetan da berezkoa. J.M. Olaizola

"Txiliku"

Orkidea zuri txikiak dilindan, adar berde artean metaturiko gau-tximeleta delikatuak balira bezala. Mirentxu Larrañaga

Andre dotorearen **orkideak** *Zekale artean harrapaka* nobelako orri batean geratuko dira beste garai bateko oroitzapen gisa. Bernardo Atxaga

Orkideak bidaltzen zizkidan! Matías Múgica

Kattalinek, irribarre bat behartu, eta beste loreen artean utzi du markesak oparitutako **orkidea**. Anjel Lertxundi

Zamau zuri batez estaliriko mahaiaren erdian, **orkideak** daude kristalezko lorontzi batean. Xabier Olarra

Egia ote zen **orkideak** argitik zetozela? Harkaitz Cano

Cattley: **Orkideen** familiako lorea, usain gozokoa eta lore-hosto handikoa. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan)

Nik gerora aurkitu nian, kutxatila batean Krisztinaren gauzen artean, bolizko xafila batean margotutako bere amaren erretratuarekin, bere aitaren zigilu-eraztunarekin eta nik oparitutako **orkidea**-txortan idortu batekin batera. Xabier Olarra

Han **orkideo**-usaineko zabaltzak zeuden. Lopez de Arana

orkideo ik orkidea.

orko *iz* J. R. R. Tolkien-en obretan, gizakiaren antzeko izakia, mustro itxurakoa.

Pippinek urduri begiratzen zuen ekialderantz, bat-batean milaka **orko** agertu eta landak inbadituko ote zituzten beldurrez. Agustin Otsoa

Harmailaren atearen atzetik, Samek **orkoaren** aurpegi maltzurra ikusi zuen argi gorrixkari esker. Agustin Otsoa

Orkoen maskara nazkagarria. Agustin Otsoa

Orkoaren gorputz konkortuaren ondoan. Agustin Otsoa

Orko likits horiek ibaian gora iritsi ziren. Agustin Otsoa

Orko handi baten gorpuia zetzan atarian. **Agustin Otsoa**

orkoi 1 iz oin itxurako pieza, oinetakoak egiteko erabiltzen dena.

Zapatariaren irudia etorri zitzaidan, **orkoiaren** aurrean jarrita, betaurreko labur estuekin, iltzetxoak ezpain artean zituela eta mailu txiki batez zapata-zoruak josten. **Anjel Lertxundi**

Orkoi pare bat, zapatak eta abarketak, bike-potea, hainbat koloretako betunak... **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan)

Maletaren ondotik, gainerako puskak igo zizkieten: kaobazko kutxa bat Kareliako urki-zurezko apaingarriz edertua, zapata **orkoiak** eta paper urdinean bilduriko oilo erre bat hurrenez hurren. **Jose Morales**

3 (esapideetan)

Bihar goizean zapatari horrek bere neurriko **orkoia** aurkituko dik hemen. **Anjel Lertxundi**

Orduan dugu anitzek onartu ez genuela euskaldunek nehongo faboreen aiduru egoiterik gure nazioari bere izariko estatuaren **orkoia** moldatzeko, eta euskaldunoi zegokigula, Txillardegik dioen bezala, Euskal Herria Helburu hartzea. **Piarres Xarriton**

orkoiendar izlag/iz Orkoiengoa, Orkoiendi dagokiona; Orkoiengo biztanlea

Hainbatetan bildu dira pilotaria eta enpresa, baina **orkoiendarrak** ez du Asegarcek kontratua berritzeko egin dion eskaintza onartu. **Berria - Kirola**

Partida eskura zuela zirudien, baina ordura arteko tantorik gogorrenaren ostean egin zuen behera iruindarrak, eta gora nabarmen **orkoiendarrak**. **Berria - Kirola**

orkotar izlag orkoena, orkoei dagokiena.

Seguruenik, **orkotar** jatorrizko izena: *sharkú*, gizon zaharra. **Agustin Otsoa**

Ni etxera noak -haranean barrera gotorleku **orkotarrerantz** seinalatuz-. **Agustin Otsoa**

orkume iz txakurkumea.

Handik hiruzpalau egunera izan genuen etxean **orkume** berria: mastin arrazakoa zen eta zuri-zuria. etxeko **orkumeei** -bai ehizakoei, bai jauregia begiratzan zutenei- jartzen zizkien izenez. **Joan Mari Irigoien**

orla 1 iz zerbaiten inguruan ezartzen den zerrenda apaingarria.

Beheko aldean, **orla** batean sartuta, *cuaderno para uso de* jartzen zuen gaztelaniaz, eta haren azpian izen bat: "Angel". **Bernardo Atxaga**

Hiriko bortaren gainean, Felipe II.aren denboretako **orla** eder higatuak hiriaren armak inguratuko zituen noizbait, frantses moldeko iraultzaren batek ezabatuak egun. **Koldo Izagirre**

Orla eta guzti dauka!, nork egin du **orla** polit hau? **Jose Morales**

Argizulo baten azpian, Mrs. Soubrieneren tailerraren atzeko gelan, Anna Cohen jantzi baten **orla** puntada azkarrez josten ari zen. **Lopez de Arana**

2 lauki orladuna, urte berean bukatu duten ikasle eta irakasleen argazkiak biltzen dituen.

Gure aitaren unibertsitateko **orla** ere hartu egin behar al duzu? **Arantxa Iturbe**

3 irud/hed

Berea baitzuen obsesio hura ere Montseren amak, bere iragana edertzekoa eta urrezko **orla** batean sartzekoa. **Joan Mari Irigoien**

4 (hitz elkartuetan)

Beheko aldean, **orla** batean sartuta, *cuaderno para uso de* jartzen zuen gaztelaniaz, eta haren azpian izen bat: "Angel". **Bernardo Atxaga**

orladun izond orla duena. ik orlatu.

Larru-zati haiek oin karratu batekoak ziren, **orladunak** eta diseinuz apainduak. **Iñaki Mendiguren**

orlatu izond orlaz apaindua. ik orladun.

Ata tolesgarria irekitzeaz batera, koloniak eta sendagaiak isuritako usain fin batek ihes egin zuen logelatik, farfaildun mahuka **orlatu** luzeei erantsirik. **Lopez de Arana**

orlegi 1 izond berdea.

Begiak igurtzi zituen, baina han zegoen oraindik jaka **orlegiko** izakia, berari so. **Aritz Gorrotxategi**

Gutxika, Calladoren ametsetan kolore **orlegiaren** presentzia nabarmenago bihurtzen hasi zen. **Aritz Gorrotxategi**

Billar jokalaria zarpail batek bat-batean tapete **orlegia** tarratatzean nola, hala tarratatzen zen gaua, balaztaren txilioarekin batera Oina finkatzeko, lur lehorreko dike mehar batzuk besterik ez daude, mugagabetasun **orlegi** hartan zeruertzeraino luzatzen diren berdeguneen artean. **Harkaitz Cano**

Cadillac beilegiaren erosteko elastikaz baturik dolar **orlegi** metak. **Itxaro Borda**

· Lehen Lan Kontratuari argi **orlegia** emateak ez duela ezer asko aldatzen. **Berria - Ekonomia**

2 (izen gisa)

Saint Patricks egunean milaka gaitero irlandarrek New York inbaditu eta ibaia **orlegiz** tindatzen duten era berean inbaditu eta kolapsatzen dute puertorrikarrek ere hiria, beren dantza, zarata eta banderatzokien. **Harkaitz Cano**

Ur ertzeko harrietatik hurbil, gorantz hedatzen ziren **orlegi** bizi-biziko lurrak. **Joanes Urkixo**

Ilundu zuenean iritsi ginen, landareen **orlegiak** eta loreen gorriak gris tristeenari men egiten zioten horretan. **Lander Garro**

3 (hitz elkartuetan)

Hostoak, aldiz, **orlegi** tindu sendoa ematen du. **Pello Zabala**

· Daltoniko ez den persona normal batentzat 0,440 µ, 0,535 µ et 0,565 µ-koak dira uhin-luzera horiek, eta urdin-bioleta, **orlegi**-urdin eta **orlegi**-horiari dagozkio. **Josu Zabaleta**

4 argi orlegi onarpena.

Lehen Lan Kontratuari argi **orlegia** emateak ez duela ezer asko aldatzen. **Berria - Ekonomia**

orma¹ iz moldea.

Baziren garai batean hiru txokolateria: bata Karrikaburuan, bigarren bat Etxepare edo Irauzketan, zeintan gelditzen baitira oraino txokolate egiteko **orma** edo moldeak.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

orma² ik horma¹.

orma³ ik horma².

ormaiztegiar izond/iz Ormaiztegiakoa, Ormaiztegi dagokiona; Ormaiztegiakoa biztanlea.

Villalonek Hodei lurrita **ormaiztegiarra** izan zuen gidari lanetan. Berria - Kirola

Bestalde, Hodei lurrita **ormaiztegiarrak** zilarra irabazi zuen gidari lanetan eslalomean. Berria - Kirola

ormatu ik hormatu.

ornamendu ik ornamentu.

ornamentazio iz apaintzea; apaindua. ik ornamentu.

Mudejar itxurako **ornamentazio** geometriko eder batek hartzen zituen azalaren lau aldeak eta bizkarraren goi-beheak. Anjel Lertxundi

Ornamentazio aldetik ere aparta zen etxebizitza, bikaina: friso, moldura, burdinazko zutabe, kapitel neoklasikoak... Patxi Iturritegi

Kanpoko **ornamentazioan**, hala ere, bazituen *Art Nouveau*-ren motibo batzuk, egiturari sotiltasun eta arintasun airea ematen ziotenak. Patxi Iturritegi

Talde moduan emaitza benetan zoragarria gertatzen zen (musika hain ederra da, **ornamentazio** justua eta kantu linea dotorea). Berria - Kultura

ornamentu (orobat ornamendu g.er.) 1 iz apaindua, apaingarria.

Hango geletan zer nolako aberastasun, luxu eta **ornamentu** miresgarriak dauden. Anjel Lertxundi

Zilarrezko apaingarriz eta bertzelako **ornamentuz** betea. Joan Mari Irigoien

Erromatar lege batek erabakitzen du itsu batek ez daukala auzitara jotzerik, ez dituelako magistratu **ornamentuak** ikusten. Iñaki Iñurrieta

Jerusalemgo jauretze handi ederrean, **ornamentu** ederrenetarikoa zen urrezko mahatsondo distiratsua. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan)

Haren biloba Pepin errege koroatu zutenean, hura zeremonia bat gehiago izan zen, eta mamu bat gutxiago; errege-**ornamenduak** besterik ez zituen eskuratu hala, eta ezer ez zen aldatu nazioan Iñaki Iñurrieta

ornatu, orna, ornaten du ad apaindu, edertu.

Lore koloretsuz **ornatutako** zeramikazko kutxatxo bat! Harkaitz Cano

Arkitekturaren diziplina hau hain ezagutza anitz eta desberdinez jantzia eta **ornatua** dagoenez, iruditzen zait justiziaz inork ezingo duela arkitektoa denik bat-batean esan, ez baldin bada umetan hasi eta aipatutako zientzia horietan pixkanaka eta mailaz maila aurreratzen joan. Santiagu Iruretagoiena

ornitologia 1 iz zoologiaren atala, hegaztiak aztertzen dituen.

Ez dut **ornitologiarik** ikasi -erantzun dio. Imanol Zurutuza

Ornitologia ikasbide bat da, baina bizi ikasbidea ere bai. Berria - Kultura

Urtarrilean Esquire aldizkariak argitaratu dio *Wings Always Over Africa: An Ornithological Letter* -Afrikaren gainean hegalka beti: **ornitologiari** buruzko eskutitza-, Italiak Etiopia inbaditu izanaren gaitzespen erabatekoa. Edorta Jimenez

Horrez gain, Eudelek biltzarra egingo du martxoaren 26an, **ornitologiako** nazioarteko lehiketa bat egingo da, txakur erakusketa bat... Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik ornitologiko.

Beste garai batzuk ziren, Organbidexkara joaten zirenekoak, **ornitologia** -behaketak egitera. Jon Alonso

EAEko **Ornitologia** Elkarteak lehendakari Alejandro Onrubiak zuzentzen duen taldeak 15 sare prestatu ditu hegaztiak jasotzeko. Berria - Euskal Herria

Garai berean Espainiako **Ornitologia** Elkarteak salatu zuen Itoizko urtegiaren proiektuak %40 murriztuko zituela inguruko hegaztien babeserako eremu bereziak. Edurne Elizondo

ornitologiko izond ornitologiarena, ornitologiari dagokiona. ik ornitologia 2.

Ikuspegi antropologikoago batetik aztertzen dute bertsoarritza, **ornitologiko** batetik baino, eta horregatik, itzulpena aitzakia da, kontestua sortzea. Berria - Kultura

ornitologo iz ornitologian aditua den pertsona.

Ornitologoak diotenez, putreak omen dira, hegazti guzien artean, gorenik hegan egiten dutenak. Patziku Perurena

Biologoak, albaiariak, **ornitologoak** ... disziplina askotako jendea aritu da Aranzadik atzo aurkeztutako bi txostenak egiten. Berria - Euskal Herria

Gustatzen zait esatea literaturaren munduan gabiltzanok bi eratakoak gara: txoriak eta **ornitologoak**. Ana Urkiza

ornitorrinko iz Australiako ugaztun errulea, ur-lehortarra, moko gogorra eta hankak igeri egiteko prestatuak dituen (Ornithorhynchus anatinus).

Lehenengo ugaztun emeek - **ornitorrinkoek** eta ekidnek- artean ez zuten kumeak kanporatzeko hodi berezirik. **Luis Elberdin**
Desagertze zorian diren guaiakoan eta **ornitorrinko** mokourdinen babesle naizen aldetik, [...]. **Iñigo Aranbarri**

ornitu ik hornitu.

orno 1 iz bizkarrezurra osatzen duten hezurretako bakoitza.

-Bihotzaren pareko **orno** batean... hernia bat... **Iñaki Iñurrieta**
Ostiko bat eman zioten garunean, lehen **ornoaren** azpian. **Berria - Euskal Herria**
Azkenik, hor dugu bizkarrezurreko **ornoak** lotzen dituen zela-giltzadura. **Irene Aldasoro**
Hogeita hamaika nerbio pare iriteten dira bizkar-muinetik (**ornoen** arteko zirikituetaatik zehar). **Irene Aldasoro**
Ornoetan fisura du, ez da lesio larria eta ez du tratamendu berezirik behar, bakarrik osatzen baita, baina hanturak min handia ematen dio. **Berria - Kirola**
Bizkarrezurrearen inguruko giharrek laxatu ditugu, **ornoak** urrundu ditugu, eta artrosi motaren bat baldin badago artikulazioetan, hori ere desblokeatu dugu. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Daukaten kezka da **orno** lunbarren hausteak bizkarrezurreko muina ukitu duen. **Agurtzane Juanena**
Mezulari azkar batzuek bizkarrezur muineko inguruetaraino bidaliko dute agindua, eta han, 3. **orno** lunbarren parean, non orgasmoaren gune erreflexua dagoen. **Luis Elberdin**
Intziri garrantz batean ahuspez jarri eta **orno** hautsietara daramatzat eskuak. **Agurtzane Juanena**
Bizkar-muina oso ondo babesturik dago bizkarrezurra osatzen duten **orno** barne-hutsei esker, baina izan dezake ustekabeko kalterik; trafiko-istripuetan, besteak beste. **Irene Aldasoro**
Alphabelette erbinude alegiazkoaren isatseko azken **orno** zalapartari, zirimolatsu eta zirikatzailea! **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bala ateratzen ikusi nuen atzeko aldetik, odol eta **orno** pusken zaparrada batean. **Alberto Ladron Arana**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orpoak, orkatilak eta hiru gerri-**orno** hautsirik, bestela esanda. **Agurtzane Juanena**
Bizkar-**orno** bakoitza Cabot itsasarteko uhartetxo bana. **Mirentxu Larrañaga**
Sekulako oinazea sentitu nuen lepo **ornoetan**. **Anjel Lertxundi**

ornoarte iz ornoen arteko bitartea.

Disko hori **ornoarteko** diskoa da, golf-pilota zabal baten itxurako egitura bat, ornoen eta bizkarrezurrearen arteko motelgailu gisa funtzionatzen duena. **Irene Aldasoro**
Polimero hori gel fin bat da berez, **ornoarteko** diskoak gogortzeko erabiltzen denaren parekoa. **Berria - Gaiak**

ornodun 1 izond ornoak dituen, hezurtzaz hornitua.

Izadiaren txantxa praktikoa desatsegina izan zen berak sorturiko animalia **ornodunetako** talde batzuk sei hatzez hornitzea lau gorputz-ataletako bakoitzean. **Iñaki Mendiguren**
Animalia ugaztun **ornoduna**. **Xabier Olarra**

2 iz animaliez mintzatuz, haien sailkapeneko adar nagusia, bizkarrezurra duten mota guztiak osatua. ikornogabe.

Linneo-k milaka animalia- eta landare-espezieren izenak eman eta sailkatu bazituen ere, egun bizirik bost milioi inguru daudela uste dugu (horietako 50 mila besterik ez dira **ornodunak**). **Askoren artean**
Daeschlerren arabera, ezinezkoa da jakitea animalia lurreko **ornodunen** arbasoa ote den. **Berria - Gaiak**
Ornodun guztietan, erreazio kimiko berdinak aurkitzen ditugu. **Juan Garzia**
Ugaztunek eta gainontzeko **ornodunek** jarduera sexual handia izaten duten garai bat izan ohi dute, araldia alegia. **Luis Elberdin**
Hortz eta haginaren forma ikusita, badirudi fruta, barazkiak, zomorroak, eta, ziurrenera, **ornodun** txikiak jaten zituela. **Berria - Gaiak**
Ez da beste animaliarik giza irudimena **ornodun** noble honek adina piztu eta sutzen duenik. **Xabier Olarra**

ornogabe iz animaliez mintzatuz, haien sailkapeneko adar nagusia, bizkarrezurrik ez duten mota guztiak osatua. ik ornodun 2.

Adibide franko daude, baina sinpleenetik hastearren, aintziretan bizi diren **ornogabe** txikien kasua aipa daiteke. **Berria - Gaiak**
Zizareak eta bestelako **ornogabeak** jaten dituzte, baina hegaztirik ez. **Berria - Gaiak**
Ornogabeek hidrokarburoak bildu egiten dituzte beraien gorputzetan. **Berria - Euskal Herria**

oro zenbtz 1 dagokion izen sintagma aipatzen duenaren osotasunari dagokiola adierazteko erabiltzen den zenbatzailea, forma mugaturik ezin hartu duena. ik guzti; dena. (izen sintagma soilari dagokiola, sintagma horren eskuinean).

Gizon **oro** errege bat da. **Xabier Paya**
Artista **oro** bi lekutan bizi da. **Joxean Agirre**
Gauza **oro** hartzen duen bat-bateko higimen falta dator gero. **Koro Navarro**
Gertatzen den guztiak (izaten haste **orok**) zerbait aurreuposatzen du. **Ibon Urbarri**
Ohiturarik gabeko gizona lagunartean hartzera makurtzen den emakume **orok** ez duela azkenik kaltea baizik hartuko harengandik. **Jon Muñoz**
Hona hemen zer egingo zaien erregeak oharatu nahi duen gizon **orori**! **Jose Antonio Mujika**
Maitasuna da gizakiak, giza-abere **orok** duen, eta atzeman ezin duen eternitate. **Karlos Linazasoro**
Egia unibertsala da, are ni bezalako fedegabeentzat, egindako bekatu **orok** dakarrela bere ordaina, lehenago edo geroago. **Iban Zaldúa**
Oker onartu dugu biok, hitz oro dela ezaugarri edota ezaugarri **orok** zerbait ezagutzera ematen duela. **Imanol Unzueta**
Gaur egun benetako larria bihotz **orotan** multzotik banatuta geratzeko beldurrak sortzen du. **Iñaki Mendiguren**
Emaidazu egun **oroz** zeure eta haren berri. **Jon Muñoz**
Sem eta Set ospetsuak izan ziren gizakien artean, baina kreazioko bizidun **oreren** gainetik Adam dago. **Elizen arteko biblia**
Eta hori eman nahi diot jendeari, gauza **oreren** bestelako irudi bat. **Xabier Paya**
Gailurreko elurraren gainean elur gehiago baizik ez zegoen, elur mardul, aratz eta orbangabea bazter **orotan**. **Xabier Montoia**

kontzientzia enpiriko **orok**, ordea, zentralizental batekin du beharrezko harremana. **Ibon Uribarri**

2 (erlatibozko esaldi bati dagokiola, haren eskuinean).

Lurrean diren bizidun guztiak hil ziren: narrastiak, hegaztiak, abereak eta piztiak, eta lurrazalean mugitzen den **oro**; eta gizaki guztiak. **Jose Antonio Mujika**

Gertatzen den **oro** bere koadernoan idazten duen mutil estatubatuarra. **Edurne Elizondo**

Erregearen zerbitzari guztiak eta probintzietako bizilagun guztiak badakite deitua izan gabe erregeagana agertzen den **oro**, jauregi barneko patioan, hiltzera kondentzen duela legeak. **Jose Antonio Mujika**

Bizi den **orok**, bizi delakoxe, forma du, eta horrexegatik zor du hiltzea. **Josu Zabaleta**

Infernuko zer botereren aginduz nengoen, Pertsefone bezala, lurpean, bizi den **orotatik**, argi guztietatik kanpora? **Joxan Elozegi**

Edaten ari dela handik igarotzen den **oro** irensten du. Beraz, Jaungoikoa lagun duen **oro** ez da zoriontsu. **Juan Kruz Igerabide**

-Pentsatzeko gaitasuna duen **ororen** esku dago sekretua, ezin zaio erreallitateari uko egin! -protestatu zuen ikasleak. Sentimeneak igortzen diguten **oro** ezin da zientzia izatera iritsi sentimen honetatik arrazoimenera iragaten ez bada. **Jon Arretxe**

Guretzat objektu enpirikoa den edo noizbait izan daitekeen **oro** lege horien bitartez determinatua baitago. **Ibon Uribarri**

Jakitun ez zegoen **ororentzat**. **Jon Muñoz**

3 (-ko atzikiaren eskuinean)

Beste gauza bat zen merkatu-sisteman artista sonatuek beren sinaduraz hornituriko **oro** diru bihurtzeko zuten gaitasuna. **Ramon Saizarbitoria**

Ez ote da izango irakurritako **oro** geratzen dela, kaparra baillitza, memorian itsatsirik? **Hasier Etxeberria**

Ohitu egin nintzen aitaren kontrako susmoak bazkatzera: hark egin edo esandako **oro** beltz ikustera, haren isiltasuna gero eta handiago sentitzera. **Anjel Lertxundi**

Basiliskoak begirada hiltzailea baitu, eta haren begiaren distiraz zulaturiko **orok** berehalako heriotza izaten baitu. **Iñaki Mendiguren**

Gainerako **orok** irakurketa erraza du, eta zer edo zer zailtxoago gerta daitekeenean erraza egiten saiatu naiz. **Pello Salaburu**

Bakea nahi duenak bakean utziko du gainontzeko **oro** ere, eta gerra nahi duenak adieraziko du gerra nahi duela. **Pako Aristi**

Gainezkako haren bitartez bustitakoan, poztu egingo nituela inguruko **oro** ere neure zorionaren bitartez. **Hasier Etxeberria**

Besterik da uste izatea jaso itxurako **oro** poesia dela. **Andoni Egaña**

Zeren, borondate ona eduki eta maite duenak eta, esan bezala, beronen kontrako **orori** aurre egiten dionak ezingo dio inori gaitzik opa. **Imanol Unzurrunzaga**

Bestelako **oro** dela, gaur-gaurkoan, alferrikako. **Hasier Etxeberria**

4 (dagokion izen sintagmak artikulua pluralaren marka hartzen duela, oro soila haren eskuinean).

Emakumeak **oro** Kaiserren bezero. **Xabier Olarra**

Gure kexuak **oro** hirutan bil litezke: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Deliberamendu absolutu horrek zailtasun eta doloreak **oro** justifikatzen zizkidan. **Piarres Aintziart**

Zeren Teseo zigaxoak ere oraindik ez daki hondarrean aletuko zaiola bere ametsa, garaileak **oro** garaiak baino Lerrukarriago direla. **Javi Cillero**

Inork agindu gabe isildu dira neska-mutilak **oro**, inoren errieta beharrik gabe bildu dira zintzo eta otzan. lurrak, zeruak, direnak **oro** zu zindukatela eta zugar bukatzen zirela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hura igaro bitartean itxi egin behar ziren dendetako eta etxeetako leihoak **oro**. **Patxi Zubizarreta**

Lur gainean gertatzen direnak **oro** kasualidade itsu zalapartari hutsak zirela. **Matías Múgica**

Norabide zehatzik gabeko pausoak **oro**, bakardadetik bakardadera eta isiltasunetik oroitzapenera. **Aritz Gorrotxategi**

Eskura zituen koaderno eta paperak **oro** tarratzen hasi zen Isabelle, amorru biziz. **Harkaitz Cano**

Akabo manikura, UVA izpiak eta prestatuturiko diskurtsoak **oro**. **Jon Alonso**

5 (oro soila erakusle pluralaren eskuinean).

Xehetasun horiek **oro**, orratzetik hari, Mathiasek zekizkien. **Daniel Landart**

Hiritik lekutu behar izan genuenean, askatu egin genituen txori eder haiek **oro**. **Koldo Izagirre**

Jesusek, hitzaldi hauek **oro** amaitzean, bere ikasleei esan zien: [...]. **Elizen arteko biblia**

Horra zergatik hil ziren gure gazte haiek **oro**. **Piarres Xarriton**

Burges erraldoi haiek **oro** oihuka zinpurten ziren. **Itxaro Borda**

Zeren urte hauek **oro** igaro ondoren, inork ere ez baitu ukatuko, esan bezala, inoiz baino gehiago idazten dela euskaraz. **Pello Salaburu**

Baina haiek **oro** "hizkuntza komun batekoak" izatea [...] Unamuno-ri interesatzen zaion apailaketa da. **Joxe Azurmendi**

Hauek **oro**, ene ustez, erran behar ziren, lasterka eta presaka, ene begi eriak ahortzi gabe eta sententzia zuzenagoaren menturan. **Piarres Xarriton**

Arratsetan, orenak egoten nintzen horiek **oro** gogoan. **Janbattitt Dirassar**

Uste izan dut beraz, haren aurka frogatuak ziren zeinuak ez zirela askiko hura susmagarri egiteko, eta kontrako seinaleen kopuruak haiek **oro** suntsituko zituela. **Piarres Xarriton**

6 (bestelakoetan).

Oro ez da urre. **Karlos Linazasoro**

Eta idaztekoak hartuta ez zitzaidan deus onik etortzen, **oro** zen euri, hasperen, kaiak hutsik. **Koldo Izagirre**

Zu zinen niretzat... -nola esango nizuke? edozein alderaketa hutsalegia da- **oro** zinen, nire bizitza osoa. Jaungoikoaren Probidentziak **oro** zuzentzen du. **Eduardo Matauko**

Paisaia berde hau, [...], **oro** laino mehe batek estalia, aberri baten eraikuntzak ez du horrenbeste odol merezi. **Mikel Hernandez Abaitua**

Orok bultzatzen gintuen elkarrengana. **Xabier Montoia**

Zerbaiten zain ematen zuen **orok**. **Juan Garzia**

Lehenengo motorra dena, unibertso osoa mugitzen eta, beraz, **orori** bizia ematen diona. **Xabier Kintana**

Ez zen eneatu ere, segur baita denbora pasa, **orori** so egon zela lurreko mamutza ttipi, ardi, ahuntz, pottoka, bele, buzoka... **Michel Oronoz**

Luzaiden, **orotan** bezala, emaztekiak ziren josten aritzen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eta bazter guztiak direla *hemen*, **orotan** *hemen* esaten dela, ez hemen bakarrik. **Iñaki Segurola**

Han zegoen Amandine, geltokiko kai bazterrean, lepoa luzatuz, **orotara** so. **Daniel Landart**

Nazionalismo baztertzalearen pozoia **orotara** zabaltzeko **Joan Mari Irigoien**

7 orotara adlag guztira.

Orotara 25 bertso dira, hemen doazenak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Orotara, bi manifestazioetan 10.000 pertsona inguru bildu ziren. **Berria - Mundua**

Igandean **orotara** hautesleen %66,5ek eman zuten botoa. **Berria - Mundua**

Bidaia-rik, berriz, **orotara** 1.208 hartzeko gaitasuna dute: 216 eserita, 992 zutik eta lau eserleku izango dira murrizturiko higikortasuna duten pertsonentzat. **Berria - Ekonomia**

Berrehun eta hamabi ziren, **orotara**, tenpluko atezain izateko aukeratuak. **Elizen arteko biblia**

Lau zihozen **orotara** auto haren barruan. **Harkaitz Cano**

Ez ziren **orotara** zortzi edo hamar mahai baino gehiago izango. **Oskar Arana**

Lantegia gogoratzen dut ondoen, nahiz eta **orotara** hiru aldiz baizik ez nintzen egon Hori Wu maisu zaharraren egoitzan. **Javi Cillero**

Aitaren arreba bat salbu, denak ezkonduak ziren eta **orotara** hogeita sei lehengusu baginen. **Daniel Landart**

Binilozko hemezortzi disko dira **orotara**. **Harkaitz Cano**

Japonia osoan, beste 18 zentral nuklear **orotara** . Berria - Gaiak

80 bat ekintza, **orotara** 300 bat demo-kidek obraturik. Herria

Dodovek besarkada bat eman zidan, beste bat Scwzsek: bi **orotara** . Karlos Linazasoro

8 oro har (orobat orohar g.er.)

Oro har ele guti erabili genuen egun hartan. Piarres Aintziart

Oro har , nahiz ile motxak jite militarra eman, aristokrata baten itxura zeukan. Bernardo Atxaga

Oro har , bi krudeltasun mota bereizten ditugu: bata ergelkeriatik sortzen da, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sexuaz bai, sexuaz **oro har** eta abstraktuan hitz egiten zenuten. Lourdes Oñederra

Eta, **oro har** , ematen zuen bulego hura andetan garraiatzen ahal zela, geltokiko buru eta guzti, aita santua eramaten duten bezala. Fernando Rey

Baina, **oro har** , bihotz ona zuen eta zerbitzu egitera ekarria zen. Daniel Landart

Abertzaleen esku zeuden, **oro har** , euskal dantza taldeak, euskaltegiak, eta Elizaren inguruko hainbat eta hainbat jende, apaiz "kontzientziatuen" gidaritzapean. Juan Kruz Igerabide

Xarmentak ziren, **oro har** , nire bezeroak, arras gisakoak. Joxan Elozegi

Literaturaren eta, **oro har** , sorkuntzaren inguruko testuak ziren. Iñaki Iñurrieta

Arteak -eta kulturak **oro har** - ez daki norantz jo. Anjel Lertxundi

Nechemia errabinoak, **oro har** , ederki ezagutzen zuen Gaiztoaren abilezia eta bazekien hura nola menderatu. Koro Navarro

Otsoak bortizkeria itsua, ankerkeria, odol-zalekeria eta, **oro har** , gaizkia ordezkaten du. Martin Anso

Izan ere, fariseuek, eta juduek **oro har** , ez dute behin ere jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe. Elizen arteko biblia

Gauaz lo guti, **oro har** : erresorten musika eta ondoan lo zegoen gizonaren korroak! Piarres Aintziart

Oso **oro har** begiratzen dut. Josu Zabaleta

Boterea zer da **oro har** ? Piarres Xarriton

Oro harrezko agerpenari dagokion objektua objektu transzendentala da, h[au] d[a], oro har Zerbaiten pentsamendu osoro indeterminatua. Ibon Uribarri

Kategoria hutsak, ordea, **oro harrezko** gauzen errepresentazioak baino ez dira. Ibon Uribarri

9 ooren buruan azken batean.

Ooren buruan , arrazoiz zukeen Mathiasiek. **Ooren buruan** , klaro asko agertu nuen zer nintzen: betidanik izan nintzena: gizatar galanta. Daniel Landart

Baina niri, **ooren buruan** , Amandinen presentzia aski zitzaidan, nahikoa. Daniel Landart

Entzuten segitzen da oraindik **ooren buruan** , bere tanta aleak kazkabarkatuz, biziaren haria albainduz. Juan Garzia

Bere ergelkeriarengatik ordaintzeko modua aurkitua zuen, eta esperientzia horretatik onik ateratzen bazen guztiz adoregabatu gabe, orduan, izango zen **ooren buruan** itxaropenik beretzat, beharbada. Oskar Arana

10 ooren gainetik oroz gain.

Ooren gainetik zuhurtziak jokatu behar zuela oroitu, eta senak atzera eragin zion Mikel Strogoffi. Karlos Zabala

Ooren gainetik , ordea, segurtasuna balioesten nuen nik. Ramon Saizarbitoria

Ooren gainetik , baina, bi eszena haien protagonistak erakartzen ninduen ni: Ernst Udet zen pilotua! Anjel Lertxundi

Ooren gainetik originala izatea da gaur moda, eta modako ibiltzea, berriz, originaltasuna. Joxerra Garzia

Globalizazioa, **ooren gainetik** , pribatutzat jo daitezkeen integrazio-logikaren emaitza da. Koro Navarro

Nik matrimonia ez dut itsu-itsuan **ooren gainetik** laudatzen. Herria

Aurreneko orrian, albiste bat **ooren gainetik** : "Joan Paulo II.a hil da". Iñigo Aranbarri

11 oroz gain (orobat orozgain g.er.) ik gorago 10; ik beherago 13.

Oroz gain , Espainia arima bat da. Joxe Azurmendi

Oroz gain , jakina, haurren jostagarri da eulia. Juan Garzia

Eta, batez ere eta **oroz gain** , ezin da ahaztu konstituzio honi baiezkotza eman zion jendearen kopurua, hori bai, oso txikia izan zela gure eskualdean. Pello Salaburu

Gizon liberala, **oroz gain** euskara maite zuena. Pello Salaburu

Eta gu, **oroz gain** , jende zibilizatuak gara. Aingeru Epaltza

Ondorio hori aldarrikatu nahi dut hemen, **oroz gain** , egoera kontuez ari bainaiz. Pello Salaburu

Liberalismo berria, **oroz gain** , munduko ekonomiaren aldaketan eta nazio-ekonomietako sektore desberdinen arteko indar-harremanen bilakaeraren arteko elkarreragin dinamikoaren emaitza da. Zuretzat aspergarriak, horregatik, non eta ez duzun jakin-minik edo gramatika goserik **oroz gain** . Koro Navarro

Lehenengo eta **oroz gain** bortxatzaileak direla uste dut. Oskar Arana

12 oroz gaineko (orobat orozgaineko g.er.) izlag

Hitz hauek eguneko ebanjelioan irakurtzen dira, Hirutasun goren, **oroz gaineko** eta gurgarriaren festaburu beneragarrian. Joan Mari Lekuona

Gai honi buruz etengabe hitz egingo balitz ere, ezer ez esatea litzateke bereiz zitekeen ematen den esentziaren gaineko eta **oroz gaineko** batasuna ulertu nahi bada. Joan Mari Lekuona

Betidanik besta eder eta herrikoiak balin baditugu ere, uste dut aurtengoak **oroz gainekoak** izan ditugula. Herria

13 oroz gainetik oroz gain.

Oroz gainetik , ez nituen aitamak nigarrez ikusi nahi. Piarres Aintziart

Badakizu denen buru zer dizudan **oroz gainetik** kondatu nahi? Janbattitt Dirassar

Muslari trebeak ziren segur, baina **oroz gainetik** euskaldun porrokatuak, jadanik aspaldian erdaldun bilakatzen ari zen herri batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dena den, haren begiek zuten lilura sortzen, **oroz gainetik** ; begi ilun haiek ez zuten nehoiz salatzen jabearen sentimendurik. Elena Touyaru

Horra zergatik, arrazoiekin, Toledoko Artzapezpiku, Espainietako Primatuaren eta bereziki Izipirituzko gaietan bera baino goragoko buruzagirik nehor ezagutzen ez duen jaun baten auzia, **oroz gainetik** Erromako Aita Sainduari berari eraman behar zaion. iduritzen zitzaion gainera erromatar argiari, heritar hobereenen formakuntzak, haien zuzentasunak eta zuhurtziak izan behar zutela, **oroz gainetik** , lehentasuna. Piarres Xarriton

"Euskal Herria" (edo Euskal Herria) bai, hori bada zerbait: kolore batzuk, kolore horiekin bat egitea, munduko mapan leku baten bila dabilen ezin-izaki bat, eta **oroz gainetik** , fede bat. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agerpen oro (12); ahalak oro (25); ahalak oro egin (8); ahalegin oro (17); ahaleginak oro (25); ahaleginak oro egingo (10); ahalgarri oro (11); ahalmen oro (10); aldi oro (76); aukera oro (16); begiespen oro (10); bizidun oro (9); dagoen oro (10); den oro (110); direnak oro (19); dituen oro (16); dudano oro (9); duen oro (98)

egin ahalak oro (16); egiten duen oro (9); ekintza oro (18); enpiriko oro (9); erabilera oro (9); ere oro (9); errealitate oro (12); esperientzia oro (8); ez den oro (10); ezagutza oro (22); gauza oro (22); gauzak oro (14); gizaki oro (23); gizon oro (9); gure ezagutza oro (8); guztiak oro (11); haiek oro (11); harreman oro (11); hauek oro (15); hitz oro (8); hoik oro (14); horiek oro (215)

indarkeria oro (8); irudi oro (11); jende oro (8); momentu oro (9); mota oro (11); mugimendu oro (12); nahi duen oro (15); natura oro (9)

ordu oro (15)

oro baztertu (11); oro baztertzen (8); oro da (62); oro dira (13); oro egin (29); oro egingo (11); oro egiten (24); oro gainditzen (16); oro galdu (18); oro galtzen (8); oro har (2433); oro har hartuta (10); oro harrezko (149); oro harrezko gauza (14); oro harrezko gauzen (15); oro harrezko objektu (20); oro hil (13); oro izan (17); oro ukatu (12); oro zen (39)

politiko oro (8)

une oro (210); zerikusia duen oro (10)

bizidun orok (8); **den orok** (32); **duen orok** (53); **euskaldun orok** (8); **gauza orok** (12); **gizaki orok** (34); **gizon orok** (16); **herritar orok** (22); **horiek orok** (11); **jende orok** (8); **nahi duen orok** (11); **orok du** (30); **orok duen** (14); **orok izan** (10); **orok nahi** (8); **pertsona orok** (18)

adigai ororen (10); **agerpen ororen** (24); **ahalgarri ororen** (26); **begiespen ororen** (12); **beste ororen** (8); **bizidun ororen** (9); **den ororen** (14); **duen ororen** (13)

eragile ororen (8); **esperientzia ahalgarri ororen** (9); **esperientzia ororen** (27); **esperientzia ororen aurretik** (11); **ezagutza ororen** (34); **gauza ororen** (25); **gizaki ororen** (11); **herritar ororen** (15)

objektu ororen (8)

oreren ahalgarritasunaren (10); **oreren arabera** (9); **oreren aurka** (22); **oreren aurrean** (13); **oreren aurretik** (40); **oreren baldintza** (13); **oreren batasun** (12); **oreren buru** (206); **oreren buruan** (55); **oreren forma** (11); **oreren gainerik** (167); **oreren iturri** (11); **oreren kontra** (25); **oreren multzoa** (10); **oreren oinarri** (8); **oreren oinarrian** (16)

pertsona ororen (13)

den orori (10); **duen orori** (29); **gizon orori** (8); **herritar orori** (22); **nahi duen orori** (11); **orori dagokionez** (10); **orori ongi etorri** (11)

alde orotan (9); **bazter orotan** (10); **denbora orotan** (12); **leku orotan** (8); **orotan bezala** (16); **une orotan** (38)

alde orotara (18); **daude orotara** (10); **dira orotara** (31); **ditu orotara** (22); **dituzte orotara** (8); **eta orotara** (40); **orotara bi** (9); **orotara bost** (10); **orotara hiru** (16); **orotara lau** (12); **orotara sei** (11); **orotara zazpi** (10); **orotara zortzi** (8)

dira orotarar (14); **lagun orotarar** (10); **orotarar hamar** (9); **orotarar hiru** (8)

esperientzia orotatik (8); **gaitz orotatik** (9); **orotatik aske** (9); **orotatik at** (9); **orotatik libre** (9)

aldi oroz (75); **aste oroz** (15); **baina oroz gainerik** (9); **bainan oroz gainerik** (11); **eduki oroz** (14); **eduki oroz abstraitzen** (13); **egun oroz** (58); **eta oroz gain** (9); **eta oroz gainerik** (42); **ezagutzaren eduki oroz** (11); **gisa oroz** (17)

oroz bat (12); **oroz bezala** (44); **oroz gain** (118); **oroz gairik** (9); **oroz gainerik** (218); **oroz goiti** (10); **oroz lehen** (22); **une oroz** (15); **urte oroz** (133); **urte oroz bezala** (39)

oroahaldun *izond* ahalguztiduna.

Ministro **oroahalduna** ahalmenak oro dituen ministroa da, horiek ez baliatzeko baldintzapean. eta barre egiten zenuen, nahiz eta biok bagenekien ez nintzela ni itzala eta zu argia, ez ginela txanpon beraren bi aldeak, baizik eta genetika-zientzia **oroahaldunaren** anaia bikiak, onerako eta txarrerako. Xabier Olarra

oroahaltsu *izond* ahalguztiduna.

Oroegile, eiteoroko, orobereganatzaile, orojakile, **oroahaltsua** da. Xabier Olarra

Aita **oroahaltsuak**, ostera, sumin biziak jota, Faetonta bihoztuna bat-bateko oinaztu kolpe batez zaldietatik eraitsi zuen eta Eguzkiak, jaustunari bidera irtenik, munduko lanpara eternala hartu zuen eta zaldi itsutuak bildu eta dardar uztartu zituen eta euren bidetik bergidatu, dena gobernatuz, greziar poeta zaharrek kantatu zuten. Xabier Amuriza

oroaskidun *izond*

Frogak, beraz, gehienez munduaren antolatzailea frogatuko luke, [...] ez, ordea, munduaren sortzailea, zeinaren ideari dena menperatzen zaion, inolaz ere aski izango ez litzatekeena aurrean dugun asmo handiarentzat, hots, jatorrizko zerizan **oroaskiduna** frogatzea. Ibon Uribarri

Denak osotara zerizan orobateratzaile bakar batetik sortu balira bezala kontsideratzea agintzen duela, hau kausa gorena eta **oroaskiduna** den aldetik. Ibon Uribarri

Zerizan baten suposizio erlatiboa baino barnebiltzen ez duen arrazoimen hutsaren hirugarren ideia ilara kosmologiko oren kausa bakarra eta **oroaskidun** gisa Jainkoaren arrazoimen-adigai da. Ibon Uribarri

orobat *adlag* era berean, berdin. ik halaber.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bai orobat (16); **baina orobat** (21); **berdin eta orobat** (6); **da orobat** (32); **dela orobat** (8); **dira orobat** (14); **ditu orobat** (5); **du orobat** (11); **dut orobat** (15); **dute orobat** (7); **ere orobat** (14); **eta orobat** (199); **eta orobat ez** (4); **ez da orobat** (4); **ez orobat** (7); **gabe orobat** (4); **gehiago orobat** (8); **hori orobat** (4); **naiz orobat** (5); **nuen orobat** (5)

orobat bainan (4); **orobat bere** (10); **orobat beste** (6); **orobat da** (7); **orobat dio** (5); **orobat dira** (4); **orobat egin** (7); **orobat erran** (5); **orobat esan** (11); **orobat eta** (5); **orobat ez** (10); **orobat ezen** (7); **orobat gertatzen** (5); **orobat hain** (8); **orobat haren** (9); **orobat izan** (7); **orobat jakin** (6); **orobat neure** (5); **orobat nire** (5); **orobat uste** (6); **orobat zen** (5); **orobat zer** (5); **orobat zuen** (4); **orobat zure** (7)

zela orobat (4); **zen orobat** (11); **ziren orobat** (7)

orobatsu *adlag* gutxi gorabehera orobat.

Orobatsu gertatzen da "barrukoa" edo "barnealdekoa" izatearekin; kostak hartu duen bultzazo turistikoarekin [...] gauza menoxa bezala gelditu da "barrukoa" eta hondartzarik ez duen herri batekoa izatea. Iñaki Segurola

Eta Urbiaingo haraneko borzpasei jauntxoekin ere **orobatsu** gertatu zitzaioan, zeren zeruan hegan zebiltzan borzpasei miru haiei ez baitzien graziarik egiten ikustek ezzen arrano bat bil zitekeela ingurune haietarat eta haien gainean hegaldia. Joan Mari Irigoien

Gertuki eta segurki erranen zuen ezen, mila eta bortzehun urte iragan arren, berdintsu eta **orobatsu** jarraituzten dela gizona, deus ere ikasi gabe. Joan Mari Irigoien

Bata sototzat eta etxeko upelategizat hartu zuten, berdintsu eta **orobatsu** utzi zutelarik bertzea. Joan Mari Irigoien

Zuzenbidean sinesten duen ongile gaitz bat behar da, edo okerbidean sinesten duen gaizkile on bat: biak **orobatsu** dira, biak dira merezitako ordain justiziazko baten obratzaile. Iñaki Segurola

Hemen gauzak nola diren, nola behar luketen edo nola nahi genukeen izatea, denak **orobatsu** dira, eta funts berbera daukate, hots, batere ez. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berdintsu eta orobatsu (31); **orobatsu dira** (4); **orobatsu gertatu** (3); **orobatsu gertatzen** (4); **orobatsu ibili** (3)

orobeherazale *izond*

"Orubezale" hitzak **"orobeherazale"** hitzarekin duen antza problematikoki adierazgarria da, baina dudarik gabe iradokitzailea. Xabier Olarra

orobereganatzaile *izond* oro bereganatzen duena.

Oroegile, eiteoroko, **orobereganatzaile**, orojakile, oroahaltsua da. Xabier Olarra

orobetegin *izond*

Teologia moral honek espekulatioaren aldean abantaila berezi hau du: berak ezinbestean jatorrizko zerizan bakar, **orobetegina** eta arrazoizkora gidatzen duela. Ibon Uribarri

orobiltzaile *izond* oro biltzen duena.

"Hona hemen nire tradizioa!", pentsatu dut neure baitan, eta, egia esateko, nire barruan sekulako poz apartsu bat jauzika sentitzen nuelako bururatu zait halako gauza ezohiko bat, bestela gero eta gutxiago naiz-eta halako kontzeptu **orobiltzaileen** botazale. **Anjel Lertxundi**

Kontzientzia oro apertzepzio huts **orobiltzaileari** dagokio, orobat sentsuzko begiespen oro errepresentazio gisa barneko begiespen hutsari, hots, denborari dagokion era berean. **Ibon Uribarri**

Jatorrizko batasunaren mementoa izan, mugatu eta anizkundu den guztia handik banatua (alienatua) izango baita, haren garapen edo hedapen bezala filosofiak ezagutua ere, dena munduaren ikuspegi **orobiltzaile** batean. **Askoren artean**

oroegile *izond* oro egiten duena.

Zu Jaungoiko guztiahaldun, **oroegile**, guztien jabe, zero-lur ederren egile zaren horrek. **Imanol Unzurrunzaga**

Oroegile, eiteoroko, orobereganatzaile, orojakile, oroahaltsua da. **Xabier Olarra**

oroerreal *izond*

Zerizan **oroerreal** bakoitza beharrezko zerizana da. **Ibon Uribarri**

Izaki **oroerrealaren** ideal hau errepresentazio soilak den arren, lehenik, egikaritua da, h[au] d[a], objektua bihurtzen da. **Ibon Uribarri**

Gauza bera gertatzen da Jainkoaren izatearen frogatranszendentarekin, zerizan **oroerrealaren** eta beharrezkoaren adigaien elkartrukagarritasunean soilik funtsatzen den eta beste inon bilatu ezin denarekin. **Ibon Uribarri**

orogenia *iz* geologiaren atala, mendien sortzea aztertzen duena; eskualde bateko mendien multzoa.

Edo Juan Retana bere anaiak katalogoan dioen moduan, haizeak eta **orogeniak**. **Berria - Kultura**

orogeniko *izond* orogeniarena, orogeniari dagokiona.

Burdinazko xafalak, eta bere mugimendu **orogenikoak**, lurazalaren tolesdurak dira, sinpleak eta deserosoak. **Berria - Kultura**

orografia 1 *iz* gerografia fisikoaren atala, lurrazalaren erliebea aztertzen duena; eskualde bateko mendien multzoa.

Ingalaterraren fauna, flora, hidrografia, **orografia**, historia militar eta monastikoa jasorik dago bertan. **Juan Garzia**

Espainia osorako badago araudi bat, baina Euskal Herriko egoera guztiz desberdina da, bai **orografiagatik** bai egiten duen eguraldiagatik. **Berria - Ekonomia**

Gaina **orografia** askotarikoa da, bertan, lautadak, kraterrak eta 3.000 metroko garaiera duten mendiak aurki daitezke. **Berria - Gaiak**

Errepidea menditik zintzilik dagoela dirudi, **orografia** oso malkartsua da, labarra da dena. **Mikel Hernandez Abaitua**

Orografia menditsua delako eta hori horrela izanda, normala delako igotzaile gehiago egotea. **Berria - Kirola**

Muinoan zehar igotzen den hiri iluna, eta han goian gaztelua, edo, behatokia aldatuz, portugaldarren kanpamentua **orografia** hautsi baten gainean, sakanak eta aldapak, olibadi barreiatuak, zenbait utzondo, arestian izandako suteen aztarnak. **Jon Alonso**

2 irud/hed

Begi-ninaki ezohiko argiaz piztu zitzaizkion eta behatz artean jira eta bira zerabilen bere aurkikuntza miragarria, koska eta kamer guztiak laztanduz, haren azalaren **orografia** osoa buruz ikasi nahi balu bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

orografiko *izond* orografiarena, orografiari dagokiona.

Tunguz mendien adar bat eratzen dute inguruko tontorrek, Altai sistema **orografiko** zabalaren parte bat osatzen dutela. **Karlos Zabala**

Ez dira lau-lauak, baina ez dute esprinterrak atzean uzteko moduko zailtasun **orografikorik**. **Berria - Kirola**

Arantza Aranaren gorputz soslaiak itzalargitan ikusi zuten, zutik jarritako Tour-eko etapa menditsu baten mapa **orografikoa** bailitzan. **Berria - Kultura**

orohar ik oro 8.

orohartzaile *izond* oro hartzen duena.

Izan ere, gogo infinitu **orohartzaile** baten baitan bakarrik izan liteke nire ametsaren pareko ametsa. **Iñaki Iñurrieta**

Zientziaren alderdi berri horrexek, teknologia egunetik egunera **orohartzaileago** batekiko lotura estu horrexek markatzen ditu hain sakonki gaur egungo gizarte-bizitza eta kultura. **Juan Garzia**

Orohartzailea eta totalitarioa da; ez du nabardurarik onartzen, dena asimilatzen du bere mende: ideologia, merkatua, herria, kultura, aisialdia... **Txema Ramirez de la Piscina**

Afekzio-irudia adierazgarritasuna **orohartzaile**, itotzaile, nagusi, bakarra bihurtu den irudikapena da zineman. **Josu Zabaleta**

orohartze *iz* guztia hartzea.

Genesisia, jarraitasuna, **orohartzea**: hauek dira ideien historiaren gai handiak, eta honegatik lotzen zaio azterketa historikoaren era jakin bati, gaur tradizionala dena. **Xabier Arregi**

Berregiteko bere kontura eskegita utzitako **orohartzeak**. **Xabier Arregi**

Enuntziatio-azterketaren hirugarren ezaugarria: bera metatze forma berezi batzuei zuzenduta dago, eta hauek ezin diren identifikatu ez oroimenaren moduko barneratze batekin, ez agirien **orohartze** aiherga batekin. **Xabier Arregi**

oro 1 *iz* oroipena, oroitzapena.

Etxea egokiarazi eta dotoretu du, Victor Hugoren **oro** eta Frantziaren ohoragarri. **Koldo Izagirre**

Ama **oro**, ama gogoan, ama aurrean; ama jangelako pareta nagusiko argazki bikainean, bera buru, eta 50 bat urte zuelarik. **Txillardegia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Argazkiaren gertakariak: Argazkiaren gertakariak: Argazkiaren gertakariak: **oro**i -txartel bat bakarrik, aitona-amonon argazki banaren azpian bakoitzaren izena eta heriotzako eguna aipatzen dituenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zutikako pertxeroa boterearen sinbolo zen, azkar eta tentuz lan egiteko **oro**i -zentsagarri bat. **Harkaitz Cano**

Esan bezala, oroitzapen baino **oro**i -mamua dira Legazpiko nire eskolaldikoak. **Joxerra Garzia**

Pentsa ezak amak bihotzez eskertuko liakeela **oro**i -ekintza xume horretan parte hartzea. **Txillardegi**

3 **oro**i izan da *ad* oroitu. ik **oroit**¹.

Oroi naiz Bordeleko jokolari batzuen izenez eta gure hitz jokoez. **Piarres Aintziart**

Oroi naiz gero, sartu bainintzen berriz Aljeriatik landa Bièvres herriko Seminarioan nola egun batez Zuzendariak galdetu ninduen bere bulegora. **Piarres Aintziart**

4 *oro*-*min* ik **oroimin**.

5 *oro*-*mingarri* izond

Eta **oro**i -mingarri zitzaizkion bainuetako kandela gorriak, hilerriko gauaren erdian, eta ganbera karratuko ihi berdeak, oinak hondoratzen zitzaizkioneko lokatz lodi haren lekuan. **Juan Garzia**

Atsekabea zera baita lasaitasun **oro**i -mingarria. **Mirentxu Larrañaga**

oroiberritu, **oroiberri**(tu), **oroiberritzen** du *ad* oroitzapena **berritu**.

Galde bidez, biziberritu ahalean, **oroiberritu**, eta nork bereganatu egiten baititu munduko sekretuak, huskeria aspergarri usteko askoren azpian mila ezusteko liluragarri bezain engainagarri bilatuz. **Patziku Perurena**

Kontuak hola, poetak esana **oroiberritu** beharko: [...]. **Patziku Perurena**

Hari batetik zintzilik daraman goiasmo handi batekin, nola **oroiberritu** lezake orduan gizonak mundua, zortzi mila metro lodiko elurpean? **Patziku Perurena**

Latina zela medio bereganatu ditu euskaldunak "doministiku egin, doministikuka ari" bezalako esanerak, behiala, inork urtintz egin aldiro, "Dominus tecum" esalegea, hutsik egin gabe **oroiberritzen** zelako. **Patziku Perurena**

oroibide *iz* oroitzeko bidea.

Ez dago garbi letraren izena emendiozko **oroibide** gisa aldatu zen ala izenak klatx eta suntsidurak naturaren txantxa izaten jarraitu zuten. **Xabier Olarra**

oroigabe *adlag* oroitzapenik gabe.

Jakina, aspaldian utzi zenituen atzera hamazazpi urteak, eta bestetik jardunbide parakimikozko karrera luzeak hilduratu egin zaitu, atrofiko, ezindu, errektiboan eta tresneriaren kokapenez ezjakin huts bihurtu zaitu, oinarritzko eta funtsezko erreakzioak ez diren guzti-guztiz **oroigabe**. **Juan Garzia**

oroigai *izond* oroitzeko gaia.

Hor dute sorburua, hain zuzen, autistek **oroigaiak** hitzez hitz gogoratzeko izan ohi duten ahalmen miragarria, eta, orobat, oroitzapen horien ezaugarri nagusiak eta ideia edo oroitzapen orokor bat taxutzeko izan ohi dituzten zailtasunak. **Xabier Olarra**

oroigailu (*orobat* **oroikailua**) **1** *iz* oroigarria.

Frankisten aldekoentzat **oroigailu** bat ederra eraiki zuten hilarrien erdian. haren **oroigailuak**; opera-kantariaren hilketaz eta Angeloren kontrako epaiketaz berri ematen zuten egunkari-zatiak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Malfoyk nire **oroikailua** dauka, andereño. **Iñaki Mendiguren**

Zirrikitu, txoko eta bazter guztietatik, aldiz eta orri, zorro, txartel, ohar, kaier, agenda txiki, fotokopia, argazki, plano, zirriborro, zerrenda eta **oroigailu** gehiago azaltzen hasiak ziren. **Joxan Elozegi**

2 (izenondo gisa)

Ohorrezko aureskua dantzatu da zalutasun haundirekin, plaka **oroigailu** bat estrenatu, eta ibilaldiko urrezko liburuan agintari batzuek beren sinadura eman dute. **Herria**

3 oroimena.

Oroigailua ahula bada ere, traidoreagoa da asmamena. **Edorta Jimenez**

Loak hartu ezinezko gauetan orain arte Madrildik atera dituzten iheslari horien erreposoa egiten du, bere **oroigailua** argazki kamera baino zehatzagoa dela baliatuz. **Edorta Jimenez**

Oroigailuko argazki kamerara Juan Leon Kruzalegiren irudia datorkio. **Edorta Jimenez**

oroigarri (*orobat* **orroigarri** *g.er.* eta **orroitgarri** *g.er.*) **1** *iz* zerbait oroitarazten duen gauzakia edo zera; iraganeko zerbait gogoratzeko gordetzen den gauzakia; gertari gogoangarri baten oroitzapenetan egiten den gauzakia. ik **souvenir**; **gomutagarri**.

Iñaki Uriá *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariak jasoko du **oroigarria**. **Berria - Euskal Herria**

Irabazleak 900 euro eta txapela jasoko ditu, eta bigarrenak 600 euro eta **oroigarria**. **Berria - Kultura**

Museoko dendan, nik ere altxor txiki bat osatu dut lagunentzat **oroigarriak** erosiz. **Edorta Jimenez**

Azpeitiko Loiolan, basilikaren aurrean, badira **oroigarriak** saltzeko bi etxola. **Gotzon Garate**

Arantzazuko **oroigarrien** dendan. **Pello Zabala**

Hainbat idazle, Carlos Casares ere tarteko, Neguko Jauregia, Leninen gela eta halako beste hainbat **oroigarri** historikoren artean ibili dira. **Edorta Jimenez**

Marco Pantani zena omentzeko **oroigarria** inauguratu zuten herenegun. **Berria - Kirola**

Duela hiru urte Eusko Abertzale Ekintzako (EAE-ANV) kideek Aiako Harriko Aritxulegin jarri zuten **oroigarria** kendu dute. **Berria - Euskal Herria**

Horregatik ezkatutu nuen **oroigarri** zaharren artean. **Ander Irizar**

Xake-taula ere hantxe dago, baina ez gerra garaiko **oroigarriak**: intsigniak, hildako ofizial alemaniar baten Lüger-a [...]. **Iban Zaldua**

Armairuan ibili naiz moskatel botilaren bila, eta aita-amen **oroigarriekin** egin dut topo. **Javi Cillero**

Gure aurreko gurasoen egite harrigarriak ondorengo semeen **oroigarritarako** gordetzea ohorea da gurasoentzat. **Askoren artean**

Peggyrentzat, Tomen partetik, **oroigarri** gisa. **Koro Navarro**

Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz eta odol txit santuak gogoz har ditzazuela, haren **oroigarri** santu gisa. **Patxi Altuna**

Lagun hori udako oporretako **oroigarri** bat besterik ezin da izan. **Patxi Zubizarreta**

Arturo Kanpiongo irakasle Luziori // behin ahaztutakoa, betiko **oroigarri**. **Patziku Perurena**

Har zazu hau **oroigarritako** ! **Matías Múgica**

2 irud/hed

Aurreko gauean korridorean harturiko muturrekoaren **oroigarria**. **Aingeru Epaltza**

Ramirez Zamaketariak lehengo arratsean kokotsean utzitako **oroigarri** hanpatuxera eraman nuen eskua. **Aingeru Epaltza**

3 (hitz soila -en atzizkiaren eskuinean)

Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena; egizue hau nire **oroigarri**. **Elizen arteko biblia**

Zure alboan igaro ditudan une ederren **oroigarri**. **Patxi Zubizarreta**

Gorde itzazu, nire **oroigarri**, eta bilobaren bati eskaini inoiz, hala irudituz gero. **Askoren artean**

Senarraren galerak bezainbat nahigabetzen zuen semearen desagerketak, eta, haren **oroigarri**, gela handi batean marmolezko hilobi bat eraikiarazia zuen. **Patxi Zubizarreta**

Migel Mailuk hiru eri falta ditu ezker eskuan, ezpata-ukaldi baten **oroigarri**. **Aingeru Epaltza**

Marsellako Tarotaren edizio aski garestia egin nion opari, gure ezkontzaren urtemugaren **oroigarri**. **Aingeru Epaltza**

Goraipamen bezala, egintza hauen berri errege-liburutegian idatzita gordetzeko agindu zuen erregeak, Mardoqueoren zerbitzu onaren **oroigarri**. **Elizen arteko biblia**

Abuztuko arrats gris epela etorria zuen hirira eta aire leun epel bat zebilen kaleetan, udaren **oroigarri**. **Irene Aldasoro**

Bila aritu naiz Benedettiren liburuen artean Yoyesen **oroigarri** egin zuen poema. **Agurtzane Juanena**

· Etxea nola erakutsi zion, are postal bat nola eman zion bere eskuz idatzi lerro batekin, Victor Hugorekin biek elkar topo egin zuteneko **oroigarri**. **Koldo Izagirre**

4 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Han militar, polizia zein zibil aldrak ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik, **oroigarri** -plaka distiratsuak goratuz, musika banda eta guzti. **Jon Arretxe**

Axernarioren **Oroigarri** -Bilduma. **Itziar Otegi**

Zehatz-mehatz, hiru **oroigarri** -klase daude: lehen jaunartzean egin ohi direnak, ezkontzakoak [...] eta hildakoenak (hauexek ugariena gainera). **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaurko eta aspaldiko erretratuekin batera, beste **oroigarri** -mota batzuk ere jasota daude bertan, amak gordeta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Han militar, polizia zein zibil aldrak ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik, **oroigarri** -plaka distiratsuak goratuz, musika banda eta guzti. **Jon Arretxe**

Ba omen dira persiarrek idatzitako bertso batzuk, edertasun muzinduaren **oroigarri** -suntsizaille berak edertzale! **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagarri gisa)

Hormetan bere proiektuen argazkiak zeuzkan esekirik, bidaietatik ekarritako animalia- **oroigarri** xumeekin batera. **Xabier Olarra**

Heriotza- **oroigarri** mordoxka atera zuen barnetik. **Joxemari Urteaga**

6 *izond* gogoangarria; oroigarritzkoa.

1936ko udan sartzean Irungo sutea piztu zen eta laster Gernikako eraso **oroigarria**. **Piarres Xarriton**

Zinez egun bat **oroigarria** denentzat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Primeran pasatu genuen ostegun gau **oroigarri** hartan. **Jon Arretxe**

Beren kantu **oroigarri** batzu eman dituzte Lakak (Baigorriko arnoaz) eta Ezpondak (Gure amerikano batzuenak, sort-herriaz). **Herria**

Ez ikaragarritzko idazlea delako, ez monumentu edota plaka **oroigarririk** jarri delako. **Berria - Kultura**

Jose Miguel Beñaran Argala duela 27 urte atentatuan hil zutenetik ekitaldi **oroigarria** urtero egin izan dutela gogoratu zuen. **Berria - Euskal Herria**

7 *oroigarritzko izlag* ik *oroitzapen* 7.

Baina komoda gainean edo tximinia gainean uzten den **oroigarritzko** argazkiak, gazte baten gelako hormatik zintzilik jarrita dagoen "posterrak", zinema-aretoan proiektatzen den irudiak, edota telebistako irudiak berak ere, denek dute zeinek bere marko-objektua. **Josu Zabaleta**

· Berunaz halaber hil- **oroigarritzko** irudixorik urt daitekeen, ez brontzea bezalako diraditsu, baizik eta, hain zuzen ere, itzal sa mar, lauso samar, hildoluzko gauzei bidezko eta egoki zaienez. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

betiko oroigarri (5); **oroigarri bakarra** (3); **oroigarri bat** (14); **oroigarri batzuk** (3); **oroigarri bezala** (4); **oroigarri gisa** (25); **oroigarri izan** (3); **oroigarri izango** (4)

oroigarria jarri (3); **oroigarria kendu** (4)

lore eta oroigarriak (3); **oroigarriak kendu** (3)

eskaintzailearen oroigarritzat (4)

oroigarritxo *iz* oroigarri xumea.

Gainera beti izaten zuen neskarentzako **oroigarritxoren** bat. **Bego Montorio**

oroigune (*orobat oroitgune g.er.*) *iz* zerbaiten oroitzapenezko gunea. ik *oroileku*.

Sarraskiaren **oroigunearen** inguruen hasi ziren istiluak. **Berria - Mundua**

Srebrenicatik hamar bat kilometrora kokatutako Potocariko **oroigunear** egin zituzten gogorarazte ekitaldiei hasiera eman zion abesbatza batek emandako Srebrenicako infernu kantuak. **Berria - Harian**

Potocariko **oroigunearen** inguruko hilerrian, identifikatuak izandako 1.300 Bosniako musulmanen gorpuzkinak ehortzita zeuden dagoeneko. **Berria - Harian**

Azkenean, **oroitgune** berezi bat, ikertegi batekin eta erakustegi bat aldean, muntatua izan da Struthof-en. **Herria**

oroikailu ik *oroigailu*.

oroikatu, oroika, oroikatzen du *ad* oroitarazi.

Jesusek bere garaian (21. mendearen gizarteari **oroikatu** behar dira) hiru jende mota aurkeztu dauzkigu, Jainkoaren maiteenak bezala: [...]. **Herria**

oroikur *iz* ikur oroigarria.

Haritzelharrek [...] Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskultura jasoko du, Manuel Lekuona sariaren **oroikur**. **Berria - Kultura**

Bridges-i Maribel Verdu aktore espainiarrak eman zion Kontxako farolaren **oroikurra**. **Berria - Kultura**

Apalategiak liburuz josiak eta hormak, **oroikurrez** beteak. **Berria - Harian**

oroikusean 1 izond guztia ikusten duena.

Hori izango ote da berari buruzko epaia, unibertsoaren begi **oroikuslearen** epaia? **Oskar Arana**

Mundu itxuranitz, aldi bereko eta ia eraman ezineko punturaino zehatz baten soegile bakarti eta **oroikuslea** zen. **Juan Garzia**

2 (izen gisa)

Halaber, gizakirik itsusienak hil omen zuen Jainkoa, ezin zuelako eraman **Oroikuslearen** soa beti gainean. **Berria - Kultura**

oroileku (orobat oroit-leku) iz oroigarri bat dagoen lekua. ik oroigune.

Trenari atxikitako **oroileku** nagusi batzuk bazeuden, nire kondaira hau irakurtzen duenak dagoeneko egiaztatu duenez. **Txillardegi**

Via Appian barrera erromes abiatu, hiru bat kilometro oinez ibili, hilobi **oroileku** moduko batera iritsi eta haretzen gainean eseri ginen: harrizko muino bat zen, babes-
ezponda baten antzekoa, belar txarrez estalia, eta Baedeker-ak aipatzen ez zuena, zorionez. **Joxe Austin Arrieta**

Egitekoa ere bazuen Madrilgo Colon biltokian, Kristobal Kolonbo famatuaren **oroit**-lekuan. **Herria**

oroiliburu (corpusean oroitliburu eta oroit-liburu soilik) iz oroitzapenak biltzen dituen liburua.

Heroi baten hainbatekoa da: amodioa eta mendekua dituzu zerbitzatuko; zure **oroitliburuan** ezarri beharreko bertze amarrukeria bat gehiago izanen da azken buruan: bai, zure **oroitliburuan**, zeren eta egunen batean argitaratuak izatea nahi baitut, eta hartu baitut izkiriartzeko ardura. **Jon Muñoz**

Egia da ere 1789ko uztailaren 14an bere **oroit-liburuan** idatzi zuela: deus. **Herria**

oroilore iz belar landarea, leku hezeetan hazten dena, loreak urdinak eta hostoak latzak dituena(Myosotis sp.).

Zerua garbi zegoen, **oroiloreak** bezain urdin, eta uda-giroa sumatzen zen airean. **Iñaki Mendiguren**

Begiak **oroilorearen** urdin berekoak zituen, malenkonia handikoak. **Julen Gabiria**

Gizon txikia zen, orinez josia zeukan buru soilduko azala eta begiak hits eta zurbil, **oroilore** zimelduen koloreko. **Matías Múgica**

Oroilorez apaindutako lastozko kapela. **Lopez de Arana**

oroimen (orobat oroitmen g.er. orroimen g.er. eta orroitmen g.er.) 1 iz ikusi, entzun, ikasi edo sentitu diren zerak gogoan gordetzeko eta gogoratzeko ahalmena; gogo, iraganeko oroitzapenen gordelekutzat hartua.

Oroimen, adimen, nahimenak bat dira esentzian, hirutasun erlatiboa. **Imanol Unzurrunzaga**

Nik, gogo naizen honek, harremanak daukat nire adimen, nahimen eta **oroimenarekin**. **Jenaro Garate**

Oroimena zerbait gogoan gordetzeko ahalmena bada, Ingo ez zen niretzat oroitzapen bat: ez nuen ezagutu, eta etxean ez zegoen haren argazkirik. **Anjel Lertxundi**

"**Oroimena**" deitzen diogun zer hori ez dela ezer, "oroitze" prozesu dinamikoak baizik ez direla existitzen. **Xabier Olarra**

Kortexa da, batez ere, ikasteaz, **oroimenaz**, emozioez eta pentsamendu abstraktuaz ardurutzen den garun atala. **Irene Aldasoro**

Berrikiago, **oroimenaren** teoria biokimikoa defendatu da kartsuki. **Irene Aldasoro**

Oroimena datu-base gisa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Oroimena nemoteknia gisa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Oroimena eta gogoangarritasuna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Oroitzen du kontatu zuen istorioa... eta orain **oroimen** horretako itzal ezezagun batek jauzi leun bat egin du eta bere bizitzan sartu zaio nolabait, lotsati, mireskor, gorrituta. **Pako Aristi**

Horrenbestez, ohartzen nintzen ez zela **oroimenaren** ariketa hutsa; herrimaren ariketa ere bazen. **Xabier Olarra**

Ez zen gehiago itzuli ez gorputz ez arima ez **oroimen** sorterrira. **Felipe Juaristi**

Ahula baita **oroimena**, gaitza iraganaren mapa osatzea. **Edorta Jimenez**

Baina orain, hainbeste **oroimen** berpiztu eta gero, haren gorputza [...] ukitze hutsaz, haragizko desiraren zitzada bizia sentitu zuen. **Irene Aldasoro**

Oroimena lantzeko plazaratzen diren gidaliburu modernoetan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gertaerak erregistratzeko norberaren metodoak hobetzea da **oroimena** hobetzea. **Irene Aldasoro**

Oroimenak huts egiten ez badit, halaxe esan nion nik: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dakit **oroimenak** nahastu egiten nauen, baina esango nuke gau hartaz gerokoa izan zela nire bizitzako boladarik ederrena. **Bernardo Atxaga**

2 (erkaketa edo metaforetan)

Gau batean gertatuarekin bete nahi zuen nonbait bere **oroimenaren** zulo hondorik gabea. **Joxean Agirre**

Oroimenaren ganbaran iragana dago, baina iragan hori ez dago finkatua, ez dago osatua, ez da beti bat eta bera. **Anjel Lertxundi**

Une hura nire **oroimenaren** uretara iritsi zenik ere zalantza egiten dut. **Bernardo Atxaga**

Oroimenaren ur handietan. **Xabier Montoia**

Hona hemen ni ene **oroimenaren** landa, leize eta ezin konta ahalko hartuzuloetan, ezin konta ahala mota gauzez neurrigabeki beteak. **Imanol Unzurrunzaga**

Musika baita **oroimenaren** kutxa irekitzeko giltzarik egokiena. **Felipe Juaristi**

Gutako bakoitzaren baitan, kimera-indar amaigabe bat dago, hots, **oroimena**, munstro beldurgarria. **Juan Kruz Igerabide**

3 (leku atzikiekien)

Egia da gauzak **oroimenera** datozela haiek gertatu diren lekuetara itzultzean! **Jon Muñoz**

Pitagoriko zintzoa inoiz ez baita altxatzen bezperako gertaera guztiak **oroimenera** ekarri arte. **Jon Muñoz**

Peroren aurpegia eta izena, ostera, ez zitzaizkidan egundaino **oroimenetik** joango. **Edorta Jimenez**

Tristura guztiak **oroimenetik** ezabatzeko ahalmena duten hitz lasaigarriak, ahapeka esanak. **Jose Morales**

Noizbait sentitu dugunaz galdetzen bazaigu, ez ditugu ematen aditzera gauzak, haiek **oroimenean** utzi eta irarritako irudiak baizik. **Imanol Unzurrunzaga**

Esan ohi dugu **oroimenean** zerbait gorde nahi dugunean; ez dugu galdetzen "zein da gauza honen hitza?". **Imanol Unzurrunzaga**

Ohitura haiek zaharren **oroimenean** gordetzen ziren, baina pixkanaka lege edo ohitura idatzi bihurtu ziren. **Iñaki Iñurrieta**

Baina ez zegoen grabaziorik, soilik nire **oroimenean** gelditutako hitzak. **Bernardo Atxaga**

Ahaztu egin nahi zenuke **oroimenean** iltzaturik geratu zitzaizuna, gogo gutxi duzu galdetzeko nor zen hildakoa. **Anjel Lertxundi**

Hainbat urteren buruan, leku hura **oroimenean** jiraka hasi zitzaidanean, beste izen bat eman nion nik: Obaba. **Bernardo Atxaga**

Eratat itsutzean, bere **oroimenean** miatu besterik ez zuen izango, liburutegi batean bezala. **Jon Muñoz**

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dut urtaroz **oroimen** garbirik ere, eta barkamena eskatu behar dut horregatik. **Karlos Linazasoro**

Neure **oroimen** lanbrotsuan apenas dudan horren arrastorik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oroitzapenetatik tiraka hasten den idazlea ez dela **oroimen** oneko pertsona, **oroimen** onekoak ez baitu oroitzen nekatu beharrik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Irakurle arretatsua zen, **oroimen** sendokoa. **Juan Garzia**

Gezurtiak ezin **oroimen** kaxkarra izan. **Fernando Rey**

Oroimen eskasa dute frantsesek. **Herria**

Nahikoa zen begirada bat ematea erakusketari, **oroimen** miragarria zuela ohartzeko. **Xabier Olarra**

Ikusmenezko **oroimen** miragarria zuen, eta bazirudien aski zituela segundo batzuk, eraikin edo hiri-ikuspegiak konplexuenak bereganatu, eta xehetasunik nimitoenak gogoan edukitzeko. **Xabier Olarra**

Nire **oroimen** kamutsak jazartzeko zenbat denbora behar, horrenbertze iraun zuen liluramenduak. **Aingeru Epaltza**

Hitz haiek **oroimen** izoztuaren erdian bizitzaren aldeko musika bat berri baliote bezala. **Pako Aristi**

Pertsona batzuk **oroimen** harrigarria dute beren izaera genetikoari esker. **Irene Aldasoro**

Bere **oroimen** "fotografikoa" zela medio. **Xabier Olarra**

Irudimenezko **oroimenak**, pertzepzioaren une iragankorrek biltegitatu ez ezik, haiek eraldatu, urrundu, bizkortu, eta azala kentzen die. **Xabier Olarra**

Berezko **oroimenaren** eta **oroimen** artifizialaren arteko bereizkuntzarekin batean, epe laburreko eta epe luzeko **oroimenak** bereizten dituzte adituek. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Zehazkiago, **oroimen** testuinguruduna -edo "episodikoa"- zen Gregek hain nahasia zeukana. **Xabier Olarra**

Haren **oroimen** semantiko deritzona nahiko osorik zegoen. **Xabier Olarra**

5 (izenondoekin irud/hed)

Esan eta egin zituztenak kondaira-liburuetan jasorik daude, Irlandaren **oroimen** suharrean. **Juan Garzia**

Liburu guztiek ez dutela **oroimen** kolektiboan gordetzea merezi. **Jon Alonso**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Taj Mahal [...] saminak eraikitako **oroimen**-etxe ederrena da, hilobi liluragarri bat, negar egiteko eta oroimenak barneraino hunkitzeko bazter zoragarria. **J.M. Olaizola**
"Txiliku"

Zerba itaksten denean, ezkerreko hemisferioan ezartzen da **oroimen**-arrastoa. **Irene Aldasoro**

Gero, **oroimen**-sorgintzea egin behar izan nien, ezer gogora ez zezaten. **Iñaki Mendiguren**

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, mintzamenen nahiz pertzepzio-, ezagumen- edo **oroimen**-funtzio espezifikoetan. **Xabier Olarra**

Baliteke **oroimen**-forma sinpleenak behinik behin garun-enberrari loturik egotea. **Irene Aldasoro**

Beste **oroimen**-eredu batzuen kasuan bezala, proposamen hori ere ezin da esperimenez frogatu. **Irene Aldasoro**

V4ko zelulek hipokanpoko eta kortex prefrontaleko **oroimen**-sistemaraino bidaltzen dituzten informazioen isuriaren etenak. **Xabier Olarra**

Lobulu tenporalaren **oroimen**-sistemaren garraio-funtzio hori argitzeko. **Xabier Olarra**

Ez zuen behar ez **oroimen**-suspergarririk, ez *aide-mémoire*rik, ez zirriborro edo oharrik. **Xabier Olarra**

Honela, Historia naturalaren **oroimen**-eremua, Tourneforten ondotik, bereziki estua eta bere formetan behartsua agertzen da. **Xabier Arregi**

Gizakien aurrean auzitan erabilitakoak segurantzarik eza gerta zitekeenez, **oroimen**-bidea erabil zitekeen epaimahaia biltzen zen guztietan, *par record* izeneko auzibideaz. **Iñaki Iñurrieta**

Ez zen **oroimen**-irudimenetan agertzen zitzaidan bezalakoa, ametsezkoa eta ilargi-argiak argitua. **Ander Irizar**

Haren argazkia zen **oroimen**-negatiboan agertzen zizaiona. **Joxemari Urteaga**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azpirarratzekoa da X. liburua, non giza **oroimenari** buruz egin diren azterketarik sakonenetarikoa burutzen duen. **Imanol Unzurrunzaga**

Bere zuzentzaile-**oroimena** bertsoz eta prosaz beteta dago, puskak, zatiak dira, baita esaldi osoak ere. **Jon Alonso**

8 oroipena, oroitzapena.

-Gure lehen amodio gauaren **oroimen**, kaligrafiatu nituen ideograma hauek eskaintzen dizkizut. **Itxaro Borda**

Urte gutxitan zauriaren **oroimena** besterik ez da geldituko eta, noski, ez bata ez bestea ez zarete ezeren errudun. **Ramon Etxezarreta**

Eta **oroimenetan** murgilduta segitu zuten. **Julen Gabiria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oroimen arrastoak (3); **oroimen** bat (7); **oroimen** baten (4); **oroimen** bikaina (3)

oroimen eremua (3); **oroimen** forma (3); **oroimen** garbirik (3); **oroimen** historikoa (21); **oroimen** historikoa berreskuratzea (4); **oroimen** historikoaren (4); **oroimen** historikoari (3)

oroimen kolektiboan (5); **oroimen** lausoa (3); **oroimen** miragarria (8); **oroimen** mota (6)

oroimen ona (13); **oroimen** sorgintzea (3)

oroimen txarra (3); **oroimen** zatiak (4); **oroimen** zehatz (3); **oso** **oroimen** (6); **oso** **oroimen** ona (3)

elurraren **oroimena** (3); **herriaren** **oroimena** (4); **nahimena** eta **oroimena** (10); **oroimena** berreskuratzeko (3); **oroimena** besterik ez (4); **oroimena** galdu (9); **oroimena** galtzen (6); **oroimena** gordetzeko (3)

oroimenak huts egiten (8)

oroimenarekin lotutako (4)

nahimenaren eta **oroimenaren** (3); **oroimenaren** aurka (3); **oroimenaren** bidez (6); **oroimenaren** kutxan (3); **oroimenaren** ur (3)

oroimenari esker (3)

herri **oroimenean** (3); **oroimenean** bizirik (3); **oroimenean** geratu (3); **oroimenean** gorde (5); **oroimenean** gordeta (3); **oroimenean** gordetako (6); **oroimenean** gordetzeko (3); **oroimenean** gordetzen (10); **oroimenean** itsatsita (3)

oroimenera ekarri (7)

oroimenetik tiraka (3)

hildakoen **oroimenez** (3)

garcia zenaren **oroimenezko** (4); **joseba** jakaren **oroimenezko** (4); **nartxi** saralegiren **oroimenezko** (4); **oroimenezko** proba (4); **oroimenezko** proban (3)

galeraren **oroimenezkoa** (4); **latasaren** **oroimenezkoa** (5); **oroimenezkoa** jokatuko (4)

oroimenik gabeko (3)

oroimendun *izond/izlag* oroimena duena.

Juduak begia eman zion ibaiari, ez triste ez alai; gogoratu zuen, judu izatea **oroimendun** eta oroimenaren esklabo izatea baita. **Felipe Juaristi**

Etorkizun **oroimendun** baten alde lelopean manifestaziora deitu du Bakearen Aldeko Koordinakundeak, gaur zortzirako Bilbon. **Berria - Euskal Herria**

Gizonaren zorigaitzik handiena **oroimendun** jaio izana da. **Patziku Perurena**

oroimeneratu, oroimenera(tu), oroimeneratzen da/du *ad* oroimenera etorri edo ekarri.

Freskotasuna eta bizitasuna dario margotuari; une horrexetan **oroimeneratu** zaiola ematen du. **Xabier Olarra**

oroimengabe *izond* oroimen ez duena.

Esan zidan, zaldiak irauli zuen arratsalde euritsu hartara arte, kristau guztiak direna izan zela: itsu bat, gor bat, burugaldu bat, **oroimengabe** bat. Juan Garzia

oroimentsu *izond* oroimen handikoa.

Idazketak "egiptoarrak jakintsuagoak eta **oroimentsuagoak**" bihurtuko zituela adierazi zion, "oroimenaren eta jakinduriaren sendagarria bailitzan asmatu baita". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egun bakoitza, ordu bakoitza, istant bakoitza izango zuen gogoan hartara, ñabardura guzti-guztiekin, eta Funes **oroimentsuari** lapurtu ahal izango zizkion hitzak, eta goraki esan: [...]. Imanol Zurutuza

oroimin (*orobat oroit-min g.er.*) iz nostalgia. ik iragan² 6.

Erbestea, noski -eta beharbada, nahiz eta nabarmen eraldaturik, nolabaiteko **oroimina** -, dinamika nagusia da Joyceren bizitzan eta obran. Xabier Olarra

Ez al zen ezkututzen, bada, etxe sekretu haren hobenetan agure errukarriek zituzten amets amaitugabeen **oroimina**, alferrik galdutako egunen damua? Ibon Urbarri

Nork sentitzen du **oroimin** handiagoa: haurrak gurasoena ala gurasoek haurrena? Xabier Mendiguren Elizegi

Sekula egia bihurtzen ez zaion fantasia da **oroimina**, eta, sekula betetzen ez duenez, irauñ egiten dio. Xabier Olarra

Amarekiko lotura; idealizazioa eta **oroiminerako** joera; beraren bizitzaren historia, haurtzaroko paradisuaren eta aitaren bat-bateko galera barne; [...]. Xabier Olarra

Oroimina du Joxek gaztetako denboraz. Pablo Sastre

Zikoinak, ostera, azkenik Marrakexera onik heldu den honetan ez du **oroimin** edo iraganminik eta, pozarren, bizpahiru itzuli egin ditu Hiri Gorriko Xmaa el Fná azoka gainean. Patxi Zubizarreta

David Werman psikoanalistak **"oroiminaren** kristaltze estetiko" aipatzen du: artearen eta mitoaren mailara altxatutako **oroimina**. Xabier Olarra

Adelak **oroimin** handia utzi zuen belaunaldi askotako umeengan, eta eskolan bertan, hango usainak ere Adelaren gorputzarena ematen zuen eta. Juan Kruz Igerabide

Dionisok, hala ere, Roxanaren **oroit-minak** bultzaturik, ezin etsi eta, azkenik berarengana ekarri zuen veneziarra. Felipe Juaristi

Parisen, Sarako oilasko eta ahateen **oroiminak** bizi izan du. Aingeru Epaltza

Joxe Marik **oroiminez** gogoratzen zituen frontoiko batzarrak. Juan Kruz Igerabide

Lolak **oroimin** handiz ekartzen zuen gogora bera kartzelan egondako garaia. Fernando Rey

oroimindu *izond* oroimina duena.

Proust - **oroiminduetarik** handiena- espresuki aztertzen ari dela, David Werman psikoanalistak "oroiminaren kristaltze estetiko" aipatzen du. Xabier Olarra

oroipen (*104 agerraldi, 32 liburu eta 9 artikulutan*) 1 iz oroitzea; oroitzen den gauza. ik oroitzapen; oroitza.

Bihotz-bihotzez maitatu zuen Kristo, etengabe bizirik gorde zuen haren **oroipena**. Askoren artean

Beraz, fenomeno batean **oroipena** eta bestean ahaztea dira azterketaren oinarria osatzen dutena. Isabel Arrigain

Horiek nere mutikotako **oroipenak**. Patziku Perurena

Jende gehienaren aldean oso **oroipen** gutxi eta laburrak ditudala iruditu izan zait beti, haurtzaroi dagokionez behinik behin. Xabier Mendiguren Elizegi

Funesez dudan lehen **oroipena** garden-gardena da. Juan Garzia

Banindoan, bada, harat eta honat, neure buruarekin zer egin ez nekiela, **oroipen** goxo eta ergeletan galdua. Patziku Perurena

Espainiarrentzat **oroipen** txarreko futbol zelaia da hori. Berria - Kirola

Oroipen ezabaezina, amonak futbolera lehen aldiz eraman ninduenekoa. Joan Mari Irigoien

Bere testamentua uzten die, **oroipen**, oharpen, aholku eta bedeinkapen den Testamentua. Askoren artean

Aspaldiko **oroipen** bat etorri zaizu burura, eta urduri jarri zara. Rafa Egiguren

Fiona ere lausotzen ari zaizu, eta luze gabe **oroipen** tetraplejikoaren artean egongo da. Lutxo Egia

Menard-ek bere bizitza Kixote garaikide bat idazteari eskaini ziola iradoki dutenek, gezurrez zikindu nahi dute haren izen garbi eta **oroipen** gardena. Juan Garzia

Akabera hurbil denean, ez da gehiago **oroipenaren** irudirik gelditzen; soilik hitzak gelditzen dira. Juan Garzia

Lehenagoko egutegia, santu asko eta askoren **oroipenetan** mugarrituta zegoen. Pello Zabala

Oroipenek eragina izaten da sarritan historikoen oinazea. Xabier Olarra

Duela urtebete, Madrilgo erasoak zirela medio, Terrorismoaren Biktimen **Oroipenerako** Europako Eguna izendatu zuten martxoaren 11. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Esklabotzaren kontrako borrokaren eta haren debekuaren nazioarteko **oroipen** urtea izendatu du NBE Nazio Batuen Erakundeak 2004a. Berria - Gaiak

Nire bedeinkapenaren eta testamentuaren **oroipen** -seinaletzat, maita dezatela elkar, maita eta bete dezatela beti gure andere pobretasun santua. Askoren artean

Nobelak, poesia, egunkari eta **oroipen** liburuak ei dira argitaratzen dituenak: literatura. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

testamentuaren oroipen seinaleztat (3)

kristoren nekaldiaren oroipena (3)

oroirensle *izond* guztia irensten duena.

Beharbada, senarraren lehia **oroirensleak** ez zion ezertaz arduratzeko aukerarik uzten. Jose Morales

Egunerokotasun **oroirenslea** oso gaixotasun larria duen edo pentsamendu **oroirensle** astun baten mende dagoen jendearen jakinmin motel eta lausoa. Jose Morales

Mendebaldeko ekonomia **oroirenslearen** ikuspuntutik, iraganean ainguraturik dago Dedal hau. Edorta Jimenez

oroit-harri ik oroitarri.

oroit-leku ik oroileku.

oroit-min ik **oroimn**.

oroit¹ (orobat orroit)

1 oroit izan da ad oroitu. ik oroi 3.

Ene latinezko lan bat agertu zen, 1925ean ontsa **oroit** baldin banaiz, aita Lazaristek Italiako Piacenza hirian duten "Divus Thomas" aldizkarian. Piarres Xarriton

Amak, **oroit naiz** arras xuxen, erakutsiak zizkidan Erromako Bidearen izarrak. Piarres Aintziart

Oroit naiz gaur balitz bezala: loriatzen nintzen haren sintaxiaren aztertzen. Piarres Aintziart

Karbon gelditu, herriko etxetik bi urratsetan den bide junta batean, ez **naiz oroit** zer, baina zerbait behar nuela erosi. Janbattitt Dirassar

Oroit nintzen zein genuen denen arteko dohatuena: Hazpandarra. Piarres Aintziart

Ordea, ez da **oroit** zein den. Aurelia Arkotxa

Nor ez da **oroit** zenbait zuen hor eginik lzetak. Herria

Oroit naiz nola herriko eskolan abiatu nintzen 1935ean, zazpi urte berantago jalgitzeko, 1942an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oroit niz nolako gogoetak nintuen herioa hurbiltzen ari zitzaularik. Michel Oronoz

Ez zen gehiago ongi **oroit** aldakuntza noiz gertatu zen, eta haurrak noiz utzi ote zuen haurtasuna gizon bizi hura bilakatzeko. Elena Touyaruou

Oroit naiz hango hondartza zabalean jostetan ari izanik. Janbattitt Dirassar

Ez **niz oroit** aita kexazaririk... Menane Oxandabaratz

Ez bainaz **oroit** horrelakorik behin ere entzunik Espainian, espainol batenganik. Piarres Xarriton

2 (esaldi konpletiboekin)

Hogei urte iragan dira eta **oroit naiz** erran niola Emile Larre-ri artikulu bat eginen nuela astero eta orduan sortu zen "Telebixta leihotik". Herria

Oroit naiz asteazkena zela eta gaitzeko eguzki ezia. Janbattitt Dirassar

Ez zen **oroit** hertsu zuela. Itxaro Borda

Oroit naiz halere jaun bat haur baten gana ukurtu zela, zerbaiten erraiteko, eta haurrak ukabila erakutsi zigula. Marzel Etxehandi

Etxe hortaz **oroit nauk** ! Piarres Aintziart

3 (osagaia -z atzikiarekin)

Lugo hiriaz ere **oroit naiz**, plaza ederraz bereziki. Piarres Aintziart

Eta gauza hauek ikustean Otañoz **oroit naiz**, estudianteei kantuak ateratzen zizkion Otañoz. Pello Salaburu

-Bixtan da **oroit** naizela Mattinez. Janbattitt Dirassar

-Urte hartako Erramu igandean **oroit niz**. Michel Oronoz

Oroit naiz apezpikuaren oharraz: [...]. Piarres Aintziart

Nire oroiemetik kanpo aurkitzen bazaituz **naiz** zutaz **oroit**; eta nola zu aurkitu gogoratzen ez bazaituz? Imanol Unzurrunzaga

Zeremoniaren gainerateko harat hunatez ez **naiz** hain zuzen **oroit**. Piarres Aintziart

• 4 du ad

Ahantzi nahi duenak **oroit** du, dio esaera zaharrak. Juan Garzia

Oroit dut Baiona jo genuen biharamunean gizonezko sabelandi bat azaldu zela amaren etxean. Koldo Izagirre

Baina **oroit dut**, gaur gertatu izan balitz bezala oroitu ere, mingain puntaraino etorri zitzaidala zuzendariari galdetzea ea ezagutzen ote zuen marmelada egiteko errezetarik. Anjel Lertxundi

Oroit dut, bereziki, nola ipini nuen Radio Clásica gau batean, eta une hartan Maria Callas ari zela Belliniren Normako aria bat kantatzen. Juan Kruz Igerabide

5 (bestelakoak, izen gisa)

Orduan doi doa ene beharri ohargagera helduak eta gaur ene **oroit** arinean dabiltzanak: 68ko maiatza, Pragaren okupazioa Errusoei, Nasser eta De Gaulle heriotzak, eta Burgos. Piarres Aintziart

Gainera, lehen **oroit** ahaleginean, ez zitzaidan pertsonaia zoriontsu bat bakarra ere bururatu. Harkaitz Cano

la *savant* guztiek dituzte **oroit** -ahalmen miragarriak. Xabier Olarra

Ortzegunean, urtarrilaren 27-an, hain zuzen 60 urteren buruan Europako agintari nagusiak, **oroit** -bilkura batean. Herria

Joanden uztailaren 14eko beilaren **oroit** -zinta grabatua izan da. Herria

6 oroittean adlag oroitzapenean.

Bertze aunitzetan bezala, urketaria azaldu da nire **oroitean**. Koldo Izagirre

Jartzen ginen aulkiren batean, itsasontziak ikusten genituen, eta guri eleka entzuten genuen ama, ene **oroitean** iduri bat baino ez den emazteki noble eta saildua. Koldo Izagirre

Zerbitzu horrek gaitu eguneroko bizian erakustoki guziz aberats horren jabeak garelako **oroitean** atxikitzen. Herria

Eta gutarik batzuen **oroitean**, XX. mende hondarrean ezin ditugu ahantz Irisarriko eliza dorrea berregin zuen Lukuze Kattileneko seme Aguerre jaun erretoa eta aita Gaxitegiarekin "Laborantzako liburu" berria utzi ziguna. Herria

oroit² ik **oroitu**.

oroitaldi iz zerbait oroitzen den aldia. ik oroitaldi.

Oroitaldien kateak Parisera eraman nau, Pragara, Managuara. Joseba Sarrionandia

oroitarazi, oroitaz, oroitazten (orobat orhoitarazi g.er., orroitaz g.er., oroitaz g.er., oroitaz g.er. eta oroitaz g.er.) 1 du ad oroitazera behartu.

Iraultzaren ondotik etorri baitzen Bonaparte, **oroitaraziko** dugu hala ere, sekula baino botere gehiago eman ziola korsikar jeneralak Frantziako Nazio subiranoari eta orozbat, tirano guztiek bezala, bere buruari. Piarres Xarriton

Oroitaz dezagun Napoleon-ek Espainiako errege izendatu zuela eta espainolek fueratu zituztela frantses soldaduak "Guerra de Independencia" delakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ondoan dagoen gizon bati galdegin diot zer **oroitarazten** duen pintura horrek. Piarres Aintziart

Ondotik, Eudene Epalza-Hebrard mintzatu da Euskalzaileen Biltzarren izenean, **oroitarazten** zuela nolako obra baliosa akulatu duen Etienne Salaberry zenak. Herria

Friso joniar bat **oroitarazten** zuen apaindura hanpatuegia aitzinaldean, bertze deus nabarmenik ez zuen. Aingeru Epaltza

Erlisioea **oroitarazten** zuen guziak desagertu behar zuen. Marzel Etxehandi

Mikroorganismoetan, baziren fenomeno batzuk zelula-desberdintzea **oroitarazten** zutenak. Juan Garzia

Astoa gogora ekarri, besteren gauzetan sartzearen arriskuaz ohartarazi nahi izan zuen; nekazariaren emaztea **oroitaraziz**, egoskorra ez izatearen abantailaz mintzatu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Zertara etorri zara nire etxera, nire erruak **oroitaraztera**, eta nire semea hiltzera? **Jose Antonio Mujika**

2 (dio saileko adizkiekin)

Neskak, bizi izan den denbora guztian, ez dit sekula zu **oroitarazi**: nire umea zen, nirea bakarrik. **Joxe Austin Arrieta**

Giza arima zein arina eta mudakorra den **oroitarazi** dio Pedro Agerrek bere buruari. **Aingeru Epaltza**

Indiako musikak arabiarrena **oroitaraziko** dizu. **Gotzon Garate**

Semearen egunaz, andreak **oroitarazi** behar izaten dit urteoro. **Aingeru Epaltza**

Kataluniarra jaiotzez, gu haurrokin ikasi zuelarik euskara, haurtzaroko doinu eta leloak **oroitarazten** zizkion horrek. **Juan Kruz Igerabide**

Toki honek **oroitarazten** dit Espainiako gerlako gertakari penagarri bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ikusten ari zenaren zoragarriak kamera etxean utzia **oroitarazi** zion, eta damutu. **Koldo Izagirre**

Senideok, irakatsi nizuen berriona **oroitarazten** dizuet. **Elizen arteko biblia**

Norbaitek halakorik **oroitarazten** dienean, barre murrizta egiten besterik ez dakite, gizalege-edo. **Joxe Austin Arrieta**

Laket zaizkit gazte horien josteta eta irriak; **oroitarazten** didate gure aitak hainbeste maite zuen irria eta "arralleria". **Piarres Aintziart**

Urik ez alferrik galtzeko **oroitarazten** dio, eta ezer kutsagarririk ez botatzeko hobi septikora. **Oskar Arana**

Oroitarazi denei gobernari eta agintarien menpeko izan behar dutela, hauen esanak egin eta egintza on guztirako prest egon. **Elizen arteko biblia**

Lanari gogor ekiten zion, haurtzaroa **oroitarazten** ziola esanez. **Juan Kruz Igerabide**

Badakigu zer bide egin duen geroztik Robert Schumanek eta de Gasperi, Adenauer, Spaak haren lagunek asmatu zuten Europaren batasunak! nahiz egun orotako berriek **oroitarazten** diguten badugula oraino zer egin helburura heltzeko. **Piarres Xarriton**

Herri hura zikina iruditzen zitzaion, India **oroitarazten** zion. **Fernando Rey**

Poliziarri dagokionez, utz iezadazu **oroitarazten** zergatik deitu genien hasiera-hasieratik: aseguruarengatik. **Oskar Arana**

Frantzia Espainiarekin gerlan da - **oroitarazi** zion hark-. **Elena Touyarou**

-Ez ahantzi egin behar dugun pelikula - **oroitarazi** zion Monak. **Fernando Rey**

- Ikasturte hasieran zaigu **oroitaraziko** honenbeste ikaslek eman duela bere izena D ereduan, eta urterik urte ohartuko gara, ehunekoetan, gero eta jende gehiagok egiten duela aukera hau. **Pello Salaburu**

oroitarazle *izond* oroitarazten duena.

Urtarrietik martxora, Danborrada, Kaldereroak eta Inauteriak zirela medio, donostiarren zentzu **oroitarazle** guztia lantzen zuen elementu bihurtzen zen Sarriegi urtez urte.

Askoren artean

oroitarazpen *iz* oroitaraztea.

Bizitza honetako gorabeherak ez daudela gure mende adierazteko, **oroitarazpen** ohi baino garbiagoa eta okerbiderik gabea. **Xabier Olarra**

Egin ote daiteke sakonagoko zerbait Gregentzat, musikak duen **oroitarazpen** -indarra baliatuz, beharbada bitartekotzat erabiliz berariazko letrak dituzten kantuak; berari edo gaurko munduari buruzko gauza baliozkoak adieraziko dizkieten kantuak, alegia? **Xabier Olarra**

oroitarazte *iz* oroitzera behartzea.

Platonen eta Pitagorasen **oroitaraztearen** kontra. **Imanol Unzurrunzaga**

oroitarri (*orobat orroitarri g.er. eta orroitharri g.er.*) 1 *iz* pertsona edo gertaera gogoangarri baten oroigarri, egiten den arkitektura edo eskultura lana. ik monumentu.

Gurek orduan, ez bat eta ez bi, dinamitaz bota zuten hankaz gora "Bergarako Besarkadaren" oroitzapenetan herrian eraikitako **oroitarria**. **Txillardeggi**

Lizardi poetaren omenez eraikitako **oroitarriaren** aurrean dago. **Bernardo Atxaga**

Jakin behar da, anitez berantago, 1972an, egina izan dela **oroitarri** bat Ardandegiko ondoan: han dago gizon baten itxura, etzanik, bi bazterretan laguntzaile batzuekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Horrela inskripzioen artean sailkatzen dugu John Smithen izena, Washingtonen **oroitarrian** lapitzez idatzia. **Xabier Olarra**

Josiasek galdetu zuen: -Zer da ikusten ari naizen **oroitarri** hura? hiriko jendeak erantzun: - [...] Betelgo aldarearen kontra egindakoa iragarri zuen profetaren hilobia da. **Elizen arteko biblia**

Budapesteko plaza deigarriena da (1896), 36 metroko altuerako **oroitarria** erdian duela. **Berria - Mundua**

Oroitarria altxatzea arrunta iruditzen zitzaion oso; jauregia eraikitzea, gutxiegi; hilobia egitea, tristeegi. **Felipe Juaristi**

- Jakobek, orduan, harri bat hartu eta **oroitarri** gisa jarri zuen. **Jose Antonio Mujika**

2 harrian irarritako idazkuna, oroigarri gisa jartzen dena.

Arkupean, horman itsatsitako **oroitarri** batean "Gabadiarrer 1914-1918 - Frantziarendako hiler" jartzen zuen, eta hamabosten bat izen zetozen ondoren. **Rafa Egiguren**

Arrazoiz eskaini zion Euskaltzaindiak **oroitarria** bere jaiotetxean. **Hasier Etxeberria**

Gauza bera egin zuten Oliten, zortzi herritar fusilatuz, **oroitarri** batek kondatzen digun bezala. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Arrantza-eskola politeknikoaren giblean dagoen txoko polit batean, Castelao idazle galegoaren **oroitarria** dago orain, euskarazko eta galegozko hitzekin, [...]. **Koldo Izagirre**

Baltimore-ko hilerrian ehortzi zuten 1849an, baina hogeita sei urte behar izan zituzten haren hilobiaren gainean **oroitarri** bat jartzeko. **Oskar Arana**

3 irud/hed

Parsien komunitatea, juduena bezala, estatua eta herrialdea galdu arren bizirik irauteko borondate garailearen **oroitarria** zen. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zaharrago, eta **oroitarri** -ikusgarriak ikusteko ikusmin tikiagoa nabaritzen dut neure baitan. **Gotzon Garate**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irakurri ere, ukituz, erraz irakurtzen zituen artean ere gerra- **oroitarrietako** eta hilarrietako inskripzioak. **Xabier Olarra**

Ehortz- **oroitarri** biribilen sekretuak ulergarriagoak izaten lagundu nahi dute horrekin. **Berria - Kultura**

Familiak jakinarazi duenez, ez dute ez lorerik ez hil- **oroitarririk** nahi. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oroitarri bat eraiki (4); **oroitarri gisa** (5)

eraikitako oroitarria (3)

omenezko oroitarrian (3)

oroitaztarna *iz* aztarna oroigarria.

Alde bat uzten dut Estigia aintzirako urek duketen bizkortze-indarra; infernuaren **oroitaztarna** hori ez da argudio bat, enfasi bat baizik. **Juan Garzia**

oroitean ik **oroit**¹ 6.

oroiterazi ik **oroitarazi**.

oroiteza (mugatua) *iz* oroitzapenik eza.

Horrek guztiak -zorrotasun aszetikoenari ere erantsi diogun pragmatismoak- "errebelde dezente eta fariseu dezente" sortu du gurean, Jose de Artetxek salatu zuen moduan, tamalez **oroitezaren** salara kondnaturik daukagun Saint-Cyran liburu guztiz gomendagarrian. **Anjel Lertxundi**

oroitgarri ik **oroigarri**.

oroitgune ik **oroigune**.

oroitidazki (*orobat oroit idazki*) *iz* txosten idatzia; bereziki, erakunde edo elkarte batek eginiko lanez urtero egiten duen idazkia.

Zortzigarren kapituluaren ematen da [...] Doktor Nafarrak, 1562ko otsailaren 25ean, Felipe II.ari berari, isilean, bidaltzen dizkion gutuna eta **oroitidazkia**, hau da, egundainotik guhonek edozein teologoren partetik irakurri dugun Inkisizioa deitu erakundearen kontrako artikulurik gogorrena. **Piarres Xarriton**

Ikusi zuen Erregek nola zeraman Nafarrak Carranzaren auzia, bere 1562ko **oroitidazkian** hauxe idazteraino heldu baitzen gure abokatua Espainiako Inkisizioaz, "zinez opari itsusia zela Espainiarentzat" eta "sekulako zartakoa"; bai eta Elizaren araudi orokorretik kanpo zegoen erakunde berezi horren ezabatzea zela hoberena. **Piarres Xarriton**

EUSTAT (web orria): jaiotzen estatistika, eta EHUko urteroko **Oroitidazkiak** (iturrietatik ateratako datuak erabiliz, egileek kalkulaturako ehunekoak). **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Euskaltzaindiaren aurrekontu arruntaren gastuen zati bat ordainduko dute administrazioek, eta ohiko argitalpenak (Euskera agerkaria, Euskaltzaindiaren Arauak, **Oroitidazkia** eta Argitalpen Katalogoa) plazaratzen lagunduko diote. **Berria - Kultura**

Oroitidazki horretan jasotako datuen arabera, iaztik hona 350 dei jaso dituzte, eta horietarik 230 bat fitxetan zehaztu dira. **Berria - Euskal Herria**

oroititz (*orobat oroit-hitz*) *iz* pl oroigarritzko hitzak.

Manuel Mariaren heriotzak Galiziako literatura astindu zuen atzo, eta **oroit-hitz** guztiek politikari, argitaratzaile, sustatzaile eta, batez ere, poeta horren konpromiso eta bere herriarekiko maitasuna azpimarratu zuten. **Berria - Kultura**

Itzulitakoan, kinkilariaren ezdeuskeria osoa aurkitu dut ene mahai gainean: Zaragozako urrezko kutunak, gorritz eta filigranaz, Segoviako **oroititzak** dituzten galtza-kordak, Bilboko ur bedeinkatu ontzi beirazkoak, Cauterets-eko latorrizko kriseilutxoak, [...]. **Koldo Izagirre**

oroitliburu, oroi-liburu ik **oroiliburu**.

oroitmen ik **oroimen**.

oroitu, oroit, oroitzen (*orobat orhoitu g.er. eta orroitu g.er.*) 1 da *ad* gogora etorri.

-Bat-batean **oroitu** naiz, horra. **Patxi Zubizarreta**

Ez naiz ondo **oroitzen**, baina orduan primeran atera zitzaidan dena, nire asmoa batez ere. **Karlos Zabala**

Ederki **oroitzen** nintzen, baina ez nion Potzolori jakinarazi. **Aingeru Epaltza**

Hantxe izan banintz bezala **oroitzen** naiz -erantzun zuen kazetari ingelesak. **Karlos Zabala**

-Egiaz, ez naiz **oroitzen**. **Ramon Saizarbitoria**

Ez dago beste espezierik hori egiten duenik: hilketa bat egin, eta bizitza osoan harro **oroitu**. **Juan Kruz Igerabide**

Aurreko gauean ere -**oroitu** nintzen-, nerabezaro gorrian bezala, eskua ohekide nerabilela bildu ninduen loak. **Aingeru Epaltza**

Ez naiz **oroitzen** zer esan genion elkarri, ezta hitz bakar batez ere. **Oskar Arana**

Ez naiz **oroitzen** zer erantzun zuen lehen momentuan. **Karlos Zabala**

Berehala **oroitu** zen zer egun inportantea zen hura harentzat: igandea, Santa Teresitaren gaita joan beharrekoa, harekin zuen zorra kitatzera. **Matías Mujika**

Oroitu naiz, goizean jarria nintzelarik bihurgune batean, nola bikote bat pasatu zitzaidan ondotik. **Piarres Aintziart**

Oroitu zen ostatuari bere deitura ematea proposatu zionean zelako poza hartu zuen Antoniak. **Josu Landa**

Inor ez da **oroitzen** nola jaiotzen, baina, alde aurretik xehero **oroitu** nahi izaten du nola hilen den. **Patziku Perurena**

Orduan ez nintzan **oroitzen** erdera zanik ere. **Iñaki Segurola**

Zer besterik da **oroitzea**, izan ere, ohitzea ez bada? **Patziku Perurena**

2 (esaldi konpletiboekin)

Are gehiago, itxura egiten zuen ez zela **oroitzen** zer diruz ari nintzaion. **Fernando Rey**

Albo batera listu egin zuela **oroitzen** naiz. **Karlos Zabala**

Oroitu nintzen Elizak baduela boterearen eskarmentua eta arras ongi informatua dela honen edo haren urratsez. **Piarres Aintziart**

Gero, **oroitu** zen bere buruari hitzeman ziola ez zuela etsiko Mathieu apezka toki fidagarrian utzi arte. **Elena Touyarou**

Nondik zetorren odol hura hauteman nahian, **oroitu** nintzen orgatila gainera erori zitzaidalda. **Xabier Olarra**

Oroitzen naiz hirurogei urte bete berri tute orduantxe. **Oskar Arana**

Baina oroit dut, gaur gertatu izan balitz bezala **oroitu** ere, mingain puntaraino etorri zitzaidala zuzendariari galdetzea ea ezagutzen ote zuen marmelada egiteko errezetarik.

Anjel Lertxundi

3 (osagaia –z atzizkiarekin)

Jainkoa Rakelez **oroitu** zen; honen eskaria aditu eta erraiak emearazi zizkion. **Jose Antonio Mujika**

"Café de Comercio" zeritzonaz ere **oroitu** naiz, Plaza Zaharreko arkupeetan kokatua. **Txillardegí**

Oso ondo **oroitzen** zen horretaz, une hartan, haren begi tristen begirada sakonarekin topo egin zuenean, hasi zitzaielako -burdin goriaz errea bezala sentitzen zuen falta zuen berna- benetakoa oinazea. **Ramon Saizarbitoria**

Garaiz eta garbi aitortzen ez den susmoak gero den-dena pozoitzen duenez, esan dezadan liburu-saltzaileaz **oroitu** nintzela, Baina **oroitu** zen bere esklabo urteetaz.

Anjel Lertxundi

Ezertaz ohartu banintzen ez bainintzen behintzat geroragoan ezertaz **oroitu**. **Juan Luis Zabala**

Hura amaitu, eta kikara pausatu arte, ez zen zerbitzariaren itsuskeriaz **oroitu**. **Patxi Zubizarreta**

-Zutaz aunitz **oroitu** naiz egun hauetan. **Aingeru Epaltza**

Ez ziren **oroitu**, inguruko etsai guztien eskuetatik libratu zituen Jaunaz, beren Jainkoaz. **Elizen arteko biblia**

Oroit Itun Zaharreko Manaren Lizarras. **Patziku Perurena**

Aste batzuk aurrerago han izandako ondorezaz **oroitu** nintzen, eta sarrerako bi ate beltzetako hitzez: [...]. **Juan Luis Zabala**

Ez zuen gehiago gogoan amaz noiz **oroitu** zen azken aldikotz. **Elena Touyarou**

Ziburun, Hiru-Kultur elkarteja **oroitua** da helduden urteko harat-hunat nagusiez. **Herria**

Ez zarete **oroitzen** idatzia dagoen hartaz: Gizakia bere azkenera iristen denean, orduantxe hasten da. **Askoren artean**

Bai, maiz **oroitzen** nintzen, aitatik, behin, bota zidanaz: "Hi Paxkal, lehena, bigarrentako!" · Aspaldiko pasadizo batekin **oroitu** naun. **Daniel Landart**

3 zait ad

Bretainiako itsasoari beha, Mattini hura lehen aldiz ikusi zueneko kontakteen ahanzi zuen zerbait **oroitu** zaio Pantxikari. **Xabier Montoia**

Zendako ez zion ogi papurrena Mattini kontatu, zer pentsa ematen dio horrek, **oroitzen** zaion bakoitzean. **Xabier Montoia**

Horrelaxe **oroitzen** zaizkit gauzak. **Pako Aristi**

Ama Katalina **oroitu** zitzaidan: ez zen ustekaberik aurpegi hartan, baizik eta zerbait desplazereko eta aldi berean ebitaezina noiz gertatuko egon denaren keinu desgogara.

Aingeru Epaltza

Bizkarrezurrrik gabe hebaunduriko pampina **oroitu** zitzaidan, bere aulki birakorraren gainean. **Aingeru Epaltza**

Potzok lehengoan jaulkitakoak **oroitu** zitzaizkidan. **Aingeru Epaltza**

4 du ad gogora ekarri.

Erlauntzetara nindoala, Leon Martyk esandakoa **oroitu** dut: [...]. **Pako Aristi**

Oheratu nintzenean, argia itzalita, arratsalde hartako kontuak **oroitu** nituen, eta aitak esandakoa. **Juan Kruz Igerabide**

Ez al da ohikoa, zerbait **oroitzen** ari garenean, "baina hi ez al hengoen bada han?" esaldia? **Pako Aristi**

Aitaren hitzak **oroitzen** nituen, esaten zuelarik ezen mekanikari batek belarri ona behar duela batez ere. **Juan Kruz Igerabide**

Jaka hutsa besarkatu nahi dut, mamu besarkada huts hura **oroitu**. **Harkaitz Cano**

Hatz erakuslea aiererantz luzatu zuen, aspaldi ahaztutako zerbait **oroitu** nahian balebil bezala. **Oskar Arana**

Ez nuen deus **oroitu** nahi, ez nuen deusez gogoetatu nahi, ez nuen deus desiratu nahi. **Aingeru Epaltza**

Orduan auzunean zebilen esamesa **oroitu** zuen: Afifi anderea handik gutxira ezkontzekoa zen. **Patxi Zubizarreta**

Oroitzen dudan aspaldiko Euskal Herria, gaurkoa baino interesgarriagoa, xelegregoa eta bitxiagoa zela uste dut... **Patziku Perurena**

Oroitzen dudan bakoitzean, kontzientzia jeltzen dit bertso horrek. **Juan Kruz Igerabide**

Oroit Ortega-ren tesia, herri bakoitzak bere arimari dagokion lurraldea hautatzen ei duela. **Joxe Azurmendi**

Horien artean zeuden -ezin horiek **oroitu** gabe utzi- mizkinkeria hutesz bazterrean utzi nituen platerak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Neguko goiz zoragarria zela **oroitzen** dut, mendi guztiak elurrak zurituta zeuden. **Jon Maia**

Ate azpitik sartu den kafe egin berriaren usainak errealtatera irauli eta Zigor sukaldean zain daukala **oroitu** du. **Eider Rodriguez**

Oroitzen zaitudanean, ama / **Oroitzen** zaitudanean, ama, / Sukaldean egoten zara / Mahaia bostentzat iminita **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

5 (aditz laguntzailerik gabe)

Oroitzen saiatu zen Bastos. **-Oroitzen** nola galdetu zenidan haurretan, oso serio, [...] nire txikitako bizitzaz, eta nola esan zenidan zerbait ikusten zenidala begietan, negarra bezalakoa edo? **Juan Kruz Igerabide**

Mudantza garaietara egiten dut atzera, eta koltxoi haietako bat nola anaiak eta biok oinez generaman **oroitzen** saiatzen naiz. **Harkaitz Cano**

Trenea badut zer pentsa, eta zertaz **oroitu**. **Piarres Aintziart**

Oroit : hik ez huen heurretarrik akabatu bizirik segi nezan. **Aingeru Epaltza**

Oroitu : berrogei eskoziar mozkortzeko adina! **Aingeru Epaltza**

Azpirarratuta dauzkadan nire etxeko liburuen -nire irakurketen- istorioak **oroitzearen** obsesioak. **Anjel Lertxundi**

Beroenean hozten uzten ditugu gauzak, gero saminez **oroitzeko** zein ongi zihoakigun guztia. **Juan Kruz Igerabide**

Huraxe da **oroitzeko** moduko heriotza bakarra. **Iñaki Seguro**

Ez **oroituarena** egin nuen, Olasonekoari kontatzeko poza emotearren. **Koldo Izagirre**

Maria zapataginaren eranskinak zer **oroitua** eman zion Mentxuri, Farmaziako ikaslea zenean zenbat arratsalde luze eta gozo pasatu zituen Barcelonetako kai ertzean liburukoteak eta apunteak hanka tartean. **Josu Landa**

6 (era burutua izenondo gisa)

Alde batetik, burmuina gai da beren elementu osagaietan zatitzeko gertakari iraganen irudi **oroituak** : elementu horiek, horrenbestez, modu berriz birkonbina daitezke eta hala irudikapen ordura arte ezezagunak sortu, egoera eta gertakizun berriak. **Juan Garzia**

Eta horien arteko bi dira aipatuena eta **oroituena**. **Berria - Kultura**

Ama duzu guztietarik **oroituena**. **Xabier Montoia**

7 **oroitzearen** adlag oroitzeko.

Aglegia ezer ez, Sud Ouest-eko horoskopoa irakurri, taldean bildu jendeen solasak buru onean inprima nitzakeen, bizia zeinen debalde zen **oroitzearen**. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaz oroit (3); **amaz oroit** (4); **artolaz oroit zara** (3); **asko oroit** (3); **bat batean oroit** (6); **batekin oroit** (5); **batez oroit** (10); **batez oroit zen** (5); **berriz oroit** (3); **beti oroit** (3)

egunaz oroit (4); **esandakoaz oroit** (4); **ez da oroit** (3); **ezin oroit** (9); **gero oroit** (3); **hitz haiek oroit** (3); **hitzak oroit** (9); **hitzak oroit nituen** (8); **hitez oroit** (4); **hori guztia oroit** (4)

nitaz oroit (6); **nola oroit** (7); **nola oroit nintzen** (4)

orduan oroit (15); **orduan oroit zen** (6)

oroitu ahal (7); **oroitu ahal izateko** (3); **oroitu beharra** (5); **oroitu da** (37); **oroitu du** (21); **oroitu ezin** (3); **oroitu gabe** (11); **oroitu izan** (5); **oroitu nahian** (3); **oroitu zen** (129); **oroitu zuen** (41)

zaharraz oroit (3); **zerbait oroit** (3); **zerbaitez oroit** (3)

beti oroituko (8); **itunaz oroituko naiz** (4); **nitaz oroituko** (5); **oroituko da** (15); **oroituko du** (5)

oroitzeko eguna (6); **oroitzeko gaitasun** (3); **zu hartaz oroitzeko** (3)
apenas oroitzen (3); argi oroitzen (3); asko oroitzen (4); askotan oroitzen (3); beti oroitzen (5)
ea oroitzen zen (3); **ederki oroitzen** (15); **ederki oroitzen dut** (3); **ederki oroitzen naiz** (5); **ez da oroitzen** (11); **ez zen oroitzen** (12); **ez zuen oroitzen** (3); **ezertaz oroitzen** (4); **gaizki oroitzen** (3); **garbi oroitzen** (6); **gauza batez oroitzen** (3); **hartaz oroitzen** (17); **hitzak oroitzen** (6); **hitzak oroitzen nituen** (4); **hobeki oroitzen** (5); **hobeki oroitzen dut** (3)
inor oroitzen (3); **izenaz oroitzen** (6); **maiz oroitzen** (5); **ni oroitzen** (3); **nik oroitzen** (4); **nitaz oroitzen** (7); **nola oroitzen** (4); **nor oroitzen** (3)
oker oroitzen (3); **ondo oroitzen** (18); **ondo oroitzen naiz** (6); **ongi oroitzen** (68); **ongi oroitzen dut** (14); **ongi oroitzen naiz** (19); **ongi oroitzen zen** (3); **ontsa oroitzen** (4); **orain oroitzen** (6); **oraindik ere oroitzen** (3); **oraindik oroitzen** (3)
oroitzen ahal (3); **oroitzen da** (35); **oroitzen du** (16); **oroitzen nintzen** (29); **oroitzen nuen** (16); **oroitzen saiatu** (3); **oroitzen saiatzen** (4); **oroitzen zen** (56); **oroitzen zen hartaz** (3); **oroitzen zen horretaz** (3); **oroitzen zuen** (18)
oso ondo oroitzen (3); **oso ongi oroitzen** (7); **primeran oroitzen** (3)
zehatz mehatz oroitzen (7); zehatzago oroitzen (3)

oroitza 1 iz oroitzapena. ik oroipen.

Raimundo Sarriegiren **oroitza** eta gorazarrea. **Askoren artean**
Lehendabizi denda kendu zioten Karol Schultzi, Azoka Plaza Zaharrean zen denda handi eta usaintsua, mapetan soilik ageri ziren tokien **oroitza** gordeta zeukana. **Felipe Juaristi**
Lehendabizi denda kendu zioten Karol Schultzi, Azoka Plaza Zaharrean zen denda handi eta usaintsua, mapetan soilik ageri ziren tokien **oroitza** gordeta zeukana. **Felipe Juaristi**
Eta Garazi aldean munterot (munttiot) deitu izan zaio deabruari, larre mugen zaindari (montero espainol) gaizto haiek artzain zuberrotarren gogoan utzitako **oroitza**, agian. **Patziku Perurena**
Ahanzturak gezi zorrotzaz jotzen zuela hango iturri hartatik ura edandakoa eta, orainaren eta iraganaren **oroitza** galdurik, beti bat, beti fresko eta beti gazte eusten ziola denboraren eraso leun gupidagabeari. **Felipe Juaristi**
Lekukotasuna eta **oroitza** bermatu nahi nituzke, Erdi Aroko kronikari zaharren pare. **Ana Urkiza**
Poliziak torturatuta hil zen Vladimir Herzog, baina haren **oroitza** ez da itzali; atxiloteta garaiko argazkiek auzia berpiztu dute. **Berria - Mundua**
Gazte livoniarraren **oroitza** agertu zitzaion supituan. **Karlos Zabala**
Gogoeta horri amaren **oroitza** elkartzen zitzaion. **Karlos Zabala**
Sute, ke, lur heze eta mihimen busti hatsaren **oroitzak** zirikatu zizkion erraia. **Itxaro Borda**
Ixin hiria, hain **oroitza** gozakaitezkoa bientzat, aurki galdu zen bidearen bihurtze baten atzean. **Karlos Zabala**
Gipuzkoako **oroitzaren** museo sare hori Gipuzkoako gizarte museoek osatuko lukete, hots: bilduma arkeologikoak, historikoak edo etnografikoak dituztenek. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Halaber, Legebiltzarrean **oroitza** ekitaldia egin zuten. **Berria - Mundua**
1943-1944 biurtekoari dagokion **oroitza** -txostenak. **Berria - Euskal Herria**

oroitzaldi iz zenbait oroitzen den denbora. ik oroitaldi.

Oroitza luze horretan segundo bakar bat ala bi ordu paseak ote nituen ezin inondik neurturik. **Txillardegia**

oroitzapen (2470 agerraldi, 231 liburu eta 521 artikulutan; orobat orhoitzapen g.er., orroitzapen g.er., oritzapen g.er. eta orhitzapen g.er.) 1 iz oroitzea; gogoan gordetzen den eta gogora datorren iraganeko irudia. ik oroipen; oroitza; memoria 2.

Oroitzapenak metatzen zitzaizkidan gogoan. **Aingeru Epaltza**
Oroitzapena oso urrutitik etorri zitzaion, eta bakardade sentipena eragin zion. **Koro Navarro**
Gogoa **oroitzapen** batetik bestera jauzika, Elsbeth etorri zitzaidan. **Anjel Lertxundi**
Oroitzapen batek hartzen dio gogoa: lurtean zeutzala jertsea goratu eta haren bular txiki eder eta akatsgabeak agerian gelditu zirenekoa. **Oskar Arana**
Oroitzapena txanpon bat bezala hondoratu zitzaidan oroimenean. **Bernardo Atxaga**
Bere garaian argiterik izan ez nuen enigmatxoaren koska bikoitza, **oroitzapena** nire memorian gorde eta iraunarazi duena. **Anjel Lertxundi**
Iraganean hamaika aldiz bezala Ameriketako izenak hartu zituen gogoan **oroitzapenei** deitzearen: Seattle, Vancouver, Old Manett [...]. **Bernardo Atxaga**
Oroitzapen guti atxiki dut ene hamar lagun horietaz. **Marzel Etxehandi**
Oroitzapenen kutxan bere bizitzako unerik garrantzitsuenak balitz bezala gordeko du. **Arantxa Iturbe**
Ospitaleko usain sarkorrak laztasun berezia ematen zien **oroitzapenei**. **Juan Kruz Igerabide**
Oroitzapen bat: harri gorri eta soropilez eginkako Orriako kurutze berezia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Beste **oroitzapen** bat: negu beltza zenean, anai-arrebok elkarri arrima-arrima eginda egiten genuen lo. **Anjel Lertxundi**
Hamaika **oroitzapen** gailendu zitzaizkion. **Patxi Zubizarreta**
Hona hemen Frantzisko dohatsuaren hiru lagunek idatzitako zenbait **oroitzapen**. **Joan Mari Irigoien**
Baina ez da **oroitzapena** ere: **oroitzapen** baten oroitzapena da. **Josu Zabaleta**
Badakit bederen zertako ari naizen **oroitzapen** horiek azalera goitiazten. **Piarres Aintziart**

2 (-en eta -ko atzizkien eskuinean)

Neure **oroitzapenetan** atxiki ditudan irudietan. **Txillardegia**
Orduko nire **oroitzapen** haiek gero eta urrunago sentitzen ditut. **Patxi Zubizarreta**
Hildakoak ez dira gure **oroitzapenetatik** erabat aldentzen. **Joxan Elozegi**
Zintzoak ez du inoiz koloka egingo, haren **oroitzapenak** beti bizirik iraungo. **Elizen arteko biblia**
Eraso diezaiegun, beraz, eta desagerrarazi horien **oroitzapena** jendeartetik! **Elizen arteko biblia**
Gorets bedi haien **oroitzapena**! **Elizen arteko biblia**
Gorde dudan arrebaren **oroitzapen** bakarra, ahotsa, hitz egiterakoan ateratzen zitzaion hoskera zorrotz erretxina. **Anjel Lertxundi**
Madarikatua izango da haren **oroitzapena**, sekula ez ezabatuko haren laidoa. **Elizen arteko biblia**
Beste izenburu bat jartzekotan nengoan, *Emakume Lizun baten Oroitzapenak*, baina ez diot jarriko. **Karlos Zabala**
Herioaren **oroitzapenak** bekatutik urrunduko gaituela. **Michel Oronoz**
Hilezkorra baita bertutearen **oroitzapena**. **Elizen arteko biblia**
Juvenaliak bere haurtzaroko **oroitzapenak** harilkatu zituen bi maitaleen aurrean. **Felipe Juaristi**
Duela zenbait urtetako **oroitzapen** bat datorkio gogora: Trompsburg kanpoaldeko N1 errepidean hartu eta autoz eraman zuen emakume batena. **Oskar Arana**
Bat-batean, mutil koskorretako **oroitzapen** bat etorri zitzaidan burura. **Anjel Lertxundi**
Egipto eta basamortuko **oroitzapenak**. **Elizen arteko biblia**

3 (izenondoekin)

Oroitzapen horrek oroimena erabat betetzen zidan artetan. **Piarres Aintziart**

Oroitzapen onaren iraupenak iragana orainean ezarri digu, opari gisa. **Oroitzapen** oneko anai Jakobo hil ondoren, aski aztoratuak gelditu ziren Saxoniako anaiak. **Piarres Aintziart**

Oroitzapen arruntak dira oro har, ederrak baina arruntak. **Unai Elorriaga**

Hartaz **oroitzapen** pertsonal bat daukat, eta, beraz, artikulatua eta konplexua. **Juan Garzia**

Aitatxiren kontakizunen oihartzuna nire arrebatakoaren larruzalaren **oroitzapen** leunarekin nahasi zen ene baitan. **Aingeru Epaltza**

Lehenbiziko xurgaldian bake-une labur bat antzeman nion, ke goxoaren **oroitzapen** berritua birrikak zeharkatzen. **Aingeru Epaltza**

Nire bizitzako **oroitzapen** gardenenetako bat izaten jarraitzen du gau hartakoak. **Iban Zaldua**

Frantzisko santuak **oroitzapen** beneragarriko Gregorio Aita santuari bisita egin zion. **Askoren artean**

Gerora **oroitzapen** kutun samurra gordetzen da adiskidetasunaren lehen ordu horiez. **Josu Zabaleta**

Idazten ari naizelarik, egundaino harri bihurtzar zegoen sedimentazioa harrotzen dut, atzarriz lo zagoen **oroitzapen** alferra. **Piarres Aintziart**

Madarikatua ilusioen kopa **oroitzapen** mingarriez gainezkarazi zuena! **Patxi Zubizarreta**

Andrea jasan zuen **oroitzapen** epileptiko hura etorri zitzaidan gogora [...]; izan ere, irauñ zion bitartean, iraganeko **oroitzapen** ahaztuak ekarri zitzaion gogora, **oroitzapen** balioitsu eta esanguratsuak. **Xabier Olarra**

Apenas zuela 1970etik askoz honantzagoko gertaeren oroimenik eta, dudarik gabe, inola ere ez haien **oroitzapen** koherente eta kronologikorik. **Xabier Olarra**

Liburu bat eman zuen argitara Pujol komisarioak "Marseilla zaharreko **oroitzapenak**" izenburuarekin. **Joxean Agirre**

Sarritan esan izan da savantek **oroitzapen** fotografiko edo eidetikoak dituztela. **Xabier Olarra**

-**Oroitzapen** oso lausoa dut -erantzun zuen-. **Ander Irizar**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun horiek belaunez belauñ ospatuko diren **oroitzapen** -egun izango dira etxe, eskualde eta herri guztietan. **Elizen arteko biblia**

Bazen urtebete Ernst Jüngerren *Altzairuzko ekaitzak* **oroitzapen** -liburua irakurri nuela. **Anjel Lertxundi**

Nehemiasen idazki eta **oroitzapen** -liburuetan ere kontatzen dira gertakari hauek. **Elizen arteko biblia**

Esnatutakoan ametsak gogoan gorde nahi izaten ditudan bezala, atxikitzen ahalegindu nintzen arren, gerora **oroitzapen** arrasto lausoa bilakatu eta ezer asko ez zidan esaten. **Ramon Saizarbitoria**

Haren **oroitzapen** -giroan egin nuen ipuintxo hau ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ikusten da enuntziatua ezin dela tratatu gertaera bat bailitzan, denbora eta leku jakin batean ekoizitakoa, ozta-ozta gogoratu (eta urrunetik ospatu) ahal izango litzatekeena **oroitzapen** -ekintza batean. **Xabier Arregi**

Noizbait ezagunak eta printzipalak izandako izen horiek denak ahazturaren zuloan amiltzen direnean, zer geratuko da **oroitzapen** -sorta horretatik? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Etxean barrera gindoazela, arretea hartu, eta **oroitzapen** -uholde bat ekartzen zion gogora margolan bakoitzak. **Xabier Olarra**

Ipini lerro bakoitzean intentsu garbia: Jaunaren ohorez, ogiaren orde zereko den **oroitzapen** -opari izango da. **Elizen arteko biblia**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire eskola-**oroitzapen** guztiak ikastolarekin lotuta zeuden, eta ezin nuen neure burua handik kanpo imajinatu. **Iban Zaldua**

Koaderno hori nire jatorriari buruzko hausnarketa-**oroitzapen** antzeko bat zen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beherakoan, gailur-**oroitzapenak** eramangarriago egiten ditu ametsak. **Joxerra Garzia**

Hura guztia urearen ametsa (amets-**oroitzapena**) zela erabaki eta ez nion buelta gehiago eman kontuari. **Iban Zaldua**

6 **oroitzapenezko izlag** ik **oroigarri** 7.

Pragaren konkistan parte hartu zutenei eskaini zitzaien **oroitzapenezko** domina. **Iban Zaldua**

oroitzapenezko plaka batekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

Armairu hartan izango zituen gordeta maitale opera--kantariaren **oroitzapenezko** hainbat gauza ere. **Anjel Lertxundi**

Izeba Julia, **oroitzapenezko** irribarre zehazgabe bat aurpegian jostari zuela, zuzen aurrera begira geratu zen. **Irene Aldasoro**

Atzera begiratu begiratzen dugu, baina **oroitzapenezko** begirada da, gaur iraganak garrantzirik izango ez balu bezala. **Berria - Kultura**

Hiri osoak bezala, Danborradak ere, erantzun sutsua ematen baitio Marino Tabuyo alkateak **oroitzapenezko** ospakizunetan parte hartzeko egindako deiari. **Askoren artean**

Azaro hunen 14 an eginen dira **oroitzapenezko** zeremonia ofizialak bainan bertzaldeko ospakizunak ere bai. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere oroitzapen (11); **gure oroitzapen** (4); **haurtzaroko oroitzapen** (8); **izandakoaren oroitzapen** (4); **nire oroitzapen** (7)

oroitzapen asko (17); **oroitzapen batzu** (6); **oroitzapen batzuk** (9); **oroitzapen bikaina** (4); **oroitzapen bizi** (4)

oroitzapen eder (5); **oroitzapen ederra** (5); **oroitzapen ederrak** (5); **oroitzapen eguna** (5); **oroitzapen gazi** (4); **oroitzapen gehiago** (5); **oroitzapen gisa** (14); **oroitzapen gozoa** (4); **oroitzapen gozoak** (7); **oroitzapen guztiak** (11); **oroitzapen hunkigarri** (4)

oroitzapen ilunak (5); **oroitzapen lauso** (9); **oroitzapen lauso bat** (4); **oroitzapen liburu** (5); **oroitzapen liburua** (5); **oroitzapen mingarriak** (6)

oroitzapen on (7); **oroitzapen ona** (24); **oroitzapen onak** (40); **oroitzapen onak ditut** (13); **oroitzapen oneko** (6); **oroitzapen onik** (19); **oroitzapen polit bat** (4); **oroitzapen politak** (4); **oroitzapen txar** (15); **oroitzapen txar bat** (6); **oroitzapen txarra** (13); **oroitzapen txarrak** (4); **oroitzapen txarrik** (5)

oroitzapen ugari (4); **oroitzapen urdin** (6); **oroitzapen urdin iluna** (6); **oroitzapen zaharrak** (7); **oso oroitzapen ona** (6); **oso oroitzapen onak** (6)

bere oroitzapena (4); **lehen oroitzapena** (8)

oroitzapena berritu (5); **oroitzapena bizirik** (7); **oroitzapena etorri** (4); **oroitzapena izan** (5); **oroitzapena utziko** (4); **oroitzapena uzten** (6); **oroitzapena uzten dauku** (4)

zenaren oroitzapena (4); **zerbaiten oroitzapena** (4); **zure oroitzapena** (6)

bere oroitzapenak (21); **haurtzaroko oroitzapenak** (14); **iraganeko oroitzapenak** (4); **nire oroitzapenak** (7); **orduko oroitzapenak** (7); **oroitzapenak ekarri** (5); **oroitzapenak etorri** (4); **oroitzapenak kontatzen** (4); **txikitako oroitzapenak** (9)

bere oroitzapenen (9); **nire oroitzapenen** (9)

haurtzaroko oroitzapenetan (5)

oroitzapenik txarrena (4)

oroitzapentxo (*corpusean orroitapentxo soilik*) *iz adkor* oroitzapena.

Eri bakotxari **orroitapentxo** bat eskainia izan zaio. **Herria**

oroitzarre *iz* oroitzapena.

Ahantura gezurra **oroitzarre** gezurra / anaitasuna gezurra maitasuna gezurra. **Iñaki Arranz**

oroitze 1 iz gogora etortzea, gogora ekartzea.

Oroitzea irudimenezko berreraikitze edo eraikitze bat da. [Xabier Olarra](#)

Oi, zenbat bizi eta **oroitze** eder lizarrari esker! [Patziku Perurena](#)

Esperientzia, bere izatez, **oroitze** hutsa da, errepikatze hutsa. [Patziku Perurena](#)

Oraindik gogoan dut Marisaren ahoko dasta; **oroitze** hutsak listua sortzen dit mingainaren inguruan. [Juan Kruz Igerabide](#)

Zergatik hainbeste gauzaren **oroitze** bizi hori? [Juan Garzia](#)

Bedeinkatua izan dadila itzain ezezagun hura, ene pentsamenduari distira eragiteko eta, jakin gabetarik, ene arimaren **oroitze** magiko hau sortzeko ahalmena ukan duenez!
[Koldo Izagirre](#)

Ez da zehazki ipuina ere: gehiago da **oroitze** bat, glosa moduko bat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Oroitzearen emaitzari, oroitzapena. [Joxerra Garzia](#)

Memoria, **oroitzea**, hori da bizi, biziera bakarra, batak bestearengan izan dezakeen lekua. [Lourdes Oñederra](#)

2 (hitz elkartuetan)

Kontu-kontaketekin eta serieko irudiekien egindako esperimientuek konbentzitu zuten Frederik Bartlett, 1920 eta 1930etan, "oroimena" deitzen diogun zer hori ez dela ezer, **"oroitze"** prozesu dinamikoak baizik ez direla existitzen. [Xabier Olarra](#)

Denboraren iragaiteak isilaraziz doan oihartzuna, egia esan, akordurik bizienek ere, garunetako **oroitze**-mekanismo neurobiologiko hutsak ez diren beste euskarren bat behar izaten baitute. [Edorta Jimenez](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oroitze hutsak (3); **oroitze hutsarekin** (3)

oroitzearekin batera (3)

oroiztarazi ik oroitarazi.

orojabe adlag guztiaren jabe delarik.

Azken hondarrak biltzen saiatzen ziren zalien latoi hotsak erantzun, euliak ere isilik, edo leku estrategikoetan kokatuak **orojabe**. [Koldo Izagirre](#)

orojakile 1 izond guztia dakiena. ik orojakitun.

Eskolako maisu **orojakile** baten tankeran. [Iñaki Segurola](#)

Ez da sinesgaitzagoa hori errealismo petoaren beste prozedura batzuk baino: narratzaile **orojakilea** bera dut gogoan adibide nagusi. [Juan Garzia](#)

Kristinak ez baitzuen behin ere Ttipiz estimu handirik egin; "maritxu **orojakilea**", horrelaxe irizten zion eta. [Aingeru Epaltza](#)

Egilearen begirada **orojakilea** da hirian bizi diren, hiria bizi duten anonimoen gain. [Berria - Kultura](#)

Jainkoaren begi **orojakilea**, narratzailea, geldirik zegoen, eta jende arruntak hartzen zuen mugitzeko ardura. [Harkaitz Cano](#)

Haren memoria eidetiko **orojakileak** ez al zuen oraindik aulki hura errejistratu? [Karlos Linazasoro](#)

Marrakitxo zenbaiten laguntzaz off-eko ahots **orojakileak** azaldu zigun gure guruienek (zer ote zen hori) substantzia berezi batzuk jariatzen zituztela. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Berlingo irakaslearen jarrera **orojakileak** gogaitu egin du pastoralgilea. [Anjel Lertxundi](#)

Ez al zen, bada, Jainkoa, Madre Columbak zioen bezala, guztiz ahaltsua, omnipotentea eta **orojakilea**? [Lourdes Oñederra](#)

Nahimen honek ahalguztiduna izan behar du, izadi osoa eta honek munduan etikotasunarekin duen harremana berari menperatzeko; **orojakilea**, intentzioen alde barnekoena eta bere balio morala ezagutzeko; oropresentea, [...]. [Ibon Uribarri](#)

Ez dago "bat bitan banatzea" euskal herritarren gaitz endemikotzat jo ez duen **orojakilerik**. [Iñigo Aranbarri](#)

2 (hitz elkartuetan)

Ainhizek berehala eskaini zidan diagnostikoa, bere ohiko **orojakile** tonuaz: [...]. [Iban Zaldúa](#)

-Pentsatzen dut zapore biziagoa emateko utziko dutela usteltzen -esan zuen Hermione **orojakile**-plantak eginez. [Iñaki Mendiguren](#)

orojakin izond orojakilea.

Etexko beste tipo bat, oso ezaguna, Maisu Txikia zen, mantxatar pedante eta **orojakin** bat, drogeriako saltzailea, sendalaria eta izain-jartzailea. [Josu Zabaleta](#)

Oro har, atsegin zitzaion gauza guztietan lehena izatea, atsegin zitzaizkion lausenguak, atsegin zitzaion nabarmentzea eta **orojakin** agertzea, atsegin zitzaion beste inork ez zekiena jakitea, eta ez zitzaizkion batera atsegin berak ez zekien zerbait zekitenak. [Jose Morales](#)

orojakintasun iz orojakina denaren nolakotasuna.

Orojakinatasunaren handiustearekin. [Ibon Uribarri](#)

Hamalaugarren mendean teologo eta filosofoen artean eztabaida sutua piztu zen ea **Orojakinatasunak** gauza bat hiru erditan erdibi zezakeen [Xabier Olarra](#)

orojakitun (orobat oro jakitun) izond orojakilea.

Nolanahi ere, katedra **orojakitunaren** gaurko faboritoaren egoera fisikoak ez ezik jokoak ere zalantza ugari sorrarazi ditu. [Berria - Kirola](#)

Katedra **orojakitunak** ere Olaizolaren alde joko du: arteari 100-30i kantatuko dute goizuetarraren alde. [Berria - Kirola](#)

Ez naiz **orojakituna**. [Itxaro Borda](#)

orojale izond animaliez mintzatuz, zernahi gai organiko elikatzen dena.

Gerra pasatakoak **orojaleak** dira jeneralean: edozer gauza jaten dute. [Xabier Etxabe](#)

Gizakiak txakala bezalako haragijale batetik zakur **orojalea** atera du; baina mende asko behar dira horretarako. [Josu Zabaleta](#)

Lehena [hartza] osoki haragijalea da, bestea [gizona] aldiz **orojalea** (%80 fruitu eta landare). [Herria](#)

orokar ik orokor.

orokor 1 iz kasu edo banako gehienei dagokiena; zerbait bere osotasunean, xehetasunak alde batera utzirik, hartzen duena. ik orotariko; jeneral¹.

Gauza ezkuak asmatzeko gaitasuna omen duen jende horren joera baitzuen, adierazpen **orokor**, zehaztugabe eta lausoak egitekoa. Ramon Saizarbitoria

Idazlan akademikoaren ezaugarri **orokorrak**. Askoren artean

Ohar bedi ikusmira honetatik teoria **orokorra** eta gramatika bereziak ez daudela betiko finkaturik. Itziar Laka

Hizkuntzalaritza **orokorreko** ikastaroa. Isabel Arrigain

Horiematik 8,6 milioi medikuntza **orokorrekoak** izan ziren eta 1,4 pediatriakoak. Berria - Euskal Herria

Telebista **orokorren** prime-timea 20: 00 edo 21: 00etatik 23: 00 edo 00: 00etara doanari esaten zaio. Berria - Euskal Herria

ETBk telebista kate **orokorra** eta ez espezializatua izaten jarraituko duela azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

Eztabaida, inon egotekotan, maila **orokorrango** batean dago. Bernardo Atxaga

Egia esateko, sukaldaritzaz ezer gutxi zekien, baina "ideia **orokorrak**" aski garbi zituen. Pablo Sastre

Bakarrik, **irizpide** orokorrenak eta hutsegite larrienak aipatuko ditut, libereki zaletasun gaizki ulertuak erakarririk anarkia ezarri nahi dutenak desengainatu nahi ditudalako. Juan Martin Elexpuru

Horraingo egindako testek eta azterketa neurologiko **orokor** batek, hala ere, berretsi zuten erabat akromatopsikoa zela I. jauna. Xabier Olarra

Zentzu **orokorrean** ari nintzen. Koldo Biguri

Hain zuzen ere, portaera modu **orokorra** horrelakoa denez, bai Estatuak bai gizonek elkarri dioten izua eta mesfidantza aitortzen dute. Esteban Antxustegi

Gai **orokor** -txit **orokor** - eta iheskor -txit iheskor- batetik abiatu eta gero, hor non, bukatzeaz geundelarik, beste gai **orokor** -txit **orokor** - eta iheskor -txit iheskor- bat sortzen zitiagun: [...]. Bernardo Atxaga

Horregatik, anaietako batzuei deitu eta modu **orokorrean** hitz eginez, bere zalantza azaldu eta aholkua eskatu zien. Askoren artean

Herioaz eta Biziaz mintzatu nintzen, uste dut, guztiz era **orokorrean**. Joxe Austin Arrieta

Konta dezadan orain, aurrez apuntatutakoa zabalduz, euskaldunen aurkako kontramitoaren Ipuin **Orokorra**. Bernardo Atxaga

Haren lanak ez dira **orokorrak**, baina bereziak, zortekoak, kasuan kasukoak. Piarres Xarriton

2 multzo bateko banako guztiei dagokiena edo guztiak biltzen dituena.

"Orain" esan du, "juduen patu **orokorraren** partaide haiz". Urtzi Urrutikoetxea

Makalaldia **orokorra** zen: argalago zegoen ganberaburua, argalago zegoen osasun-batzordeko ikuskatzailea, argalago zegoen prokuradorea, [...]. Jose Morales

Elizaren araudi **orokorretik** kanpo zegoen erakunde berezi horren ezabatzea zela hoberena. Piarres Xarriton

Arau **orokorra**: morrontzapean den nazio batean, lan gehiago egiten da kontserbatzeko, ezer eskuratzeko baino. Iñaki Iñurrieta

Enperadorearen barkamen **orokorraren** albisteak oneratu berriren harrapatu zuen. Aingeru Epaltza

Horiek interes **orokorreko** gaiak eta erlijio positibo baten jarraitzaile guztientzat beharrezko baiespenak zirelakoan. Xabier Kintana

Borroka armatua, Euskal Herria askatzerako prozesu **orokorraren** baitan ezinbesteko eta derrigorrezko ekintza bilakatu zen. Itxaro Borda

Konponbide **orokor** eta bateratua, baina aldi berean unibertsitateen arteko lehiari utsiko liokeena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aprobatu **orokorrak** ematen dituzte. Bernardo Atxaga

Nik ez diot salbuespen bakar bat ere aurkitzen axioma **orokor** honi: hiritar orok jakin behar du noiz den errudun eta noiz errugabe. Juan Martin Elexpuru

Euskal presoan aldeko greba **orokorrerako** deiari erantzunez, huelga eguna izan da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hurrengo hauteskunde **orokorretan**, 79koetan,. Iban Zaldúa

Makiak bake **orokorra** onartzen ez zuten gazte buru-beroz betetzen ari zirela erraten zion Wernerrek. Itxaro Borda

Apatia **orokorra**, gorputzaren pixkanako hondamena eta katalepsiaren ezaugarri batzuk zituzten alditzar sarri baina iragankorrak ziren diagnosi bitxiaren osagaiak. Koro Navarro

Baina, hala ere, **orokorra** izan zen krisia: erlijiozkoa, politikoa, ekonomikoa eta demografikoa. Koro Navarro

Loteria sekretua, doakoa eta **orokorra** izatea lortu zuen. Juan Garzia

Tarifa eta Trukeen Hitzarmen **Orokorra**. Koro Navarro

OHO, Oinarizko Heziketa **Orokorra**, da gaztelerazko EGBren ordain ofiziala. Joxerra Garzia

3 erakunde, zerbitzu baten osotasuna hartzen duena.

Gipuzkoako Zuzendaritzak Zuzendaritza **Orokorraren** aurrean aurkeztuko luke ekimena. Berria - Euskal Herria

Europako Batzordeko Eskualde Politikarako Zuzendaritza **Orokorrean** funtzioan zuzendari zenak sinatutako gutun bat da iturria. Berria - Euskal Herria

Espainiako Botere Judizialeko Batzorde **Orokorrari** epaileak tratu txarrak ikuskatzera bultzatzea eskatu zion. Berria - Euskal Herria

Esnekien saila zegoen haren ardurapean eta Saito jaunaren maila berbera zuen, kontaduria **orokorreko** sailaren ardura baitzuen Saito jaunak. Joxan Elozegi

Pirinio Atlantiarren Kontseilu **Orokorreko** lehendakariarekin bilera egingo du gaur Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

· Areago, 1789. urtean bertan Versaillesko Estatu **orokorretarako** deialdia erregeak egin eta Ipar Euskal Herriko lurraldeetan nabari zen aspaldiko foruak zaintzeko gogoia. Andres Urrutia

Bi-hiru, arruntan, lau gehienez ere, Amikuzeko Gorte **Orokorreko** magistratuen eta bailearen aldarren arabera. Aingeru Epaltza

4 erakunde, organismo edo sail bateko kargu gorena duena.

artikuluak prestatzeko agindu zidan egunkariko zuzendari **orokorra** izendatu zuten Valentín Gómez delako batek. Txillardegi

Atea bat-batean ireki zen, eta bertan ez zen zuzendari **orokorraren** idazkaria azaldu. Jon Alonso

Baliteke Girondeko prefeturako idazkari **orokor** ohiak pailazo hura erreparatu izana, baina ez da gauza segurua. Josu Zabaleta

Servan ordezkari **orokorrari** igorriko dizkiozu, nire goraintziekin -agindu zion. Elena Touyarou

Frantzisko Etxart, Erresumako prokuradore **orokorraren** seme bigarrena nirekin nuen. Aingeru Epaltza

5 orokorrean adlag ik jeneral².

Orokorrean, zigorraren pisuak ahalik eta eraginkorra izan behar du besteentzat, eta ahalik eta bigunena jasaten duenarentzat. Juan Martin Elexpuru

Bai **orokorrean**, eta baita -edo bereziki agian- ekonomian ere. Iñaki Heras

Formaldatzeen zehaztapenei buruz eztabaida sakonagorako, bai **orokorrean** eta baita formaldatze jakinei dagokienez. Itziar Laka

Gerrari buruz hasi zen, **orokorrean**, Josebaren aitak erabilitako tonu berean. Bernardo Atxaga

Auzokoak eta, **orokorrean**, parkeen inguruan autoak aparkatzen zituztenak, haurrentzako kolunpioak erabiltzen zituztenak, bankuetan eseri ohi zirenak, denak kexaka zebiltzan. Jon Alonso

Onuragarri iruditu zaigu gure lanak atariko liburu batez hasia: Zuzenbidea eta legeak **orokorrean**. Markos Zapiain

Hirugarrenetik erratan da, zer den, **orokorrean**, azken fin horren definizioa eta zein diren horren aldeak, baina ez nahiz luzatu, ez dira zehazten zati guztien definizioak eta aldeak. Piarres Xarriton

Erregearen, estatuaren eta soberaniaren jainkozko jatorriaren arteko identifikazioak bere baitan zekarren, **orokorrean**, boterea monarkaren eskuetan pilotzea. Juan Martin Elexpuru

Eta zer berezitasun du atzemate horrek gainerako atzemate-fenomenoekin, **orokorrean**, alderatuz? Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adigai orokor (5); akordio orokor (6); arau orokor (10); arazo orokor (4); baldintza orokor (4); desmartxa orokor batean (6)

erregela orokor (6); esakune orokor (4); estrategia orokor (4); ezaugarri orokor (4); gai orokor (6); gertaera orokor (4); greba orokor (13); hastapen orokor (4); historia orokor (7)

idea orokor (8); ikuspegi orokor (20); ikuspegi orokor bat (8); ikuspegi orokor batetik (4); interes orokor (4); jeneral edo orokor (4); joera orokor (4); konponbide orokor (4); kontseilari orokor (34); kontseilari orokor eta (4); kontseilu orokor (14); kontseilu orokor edo (7); koordinatzaile orokor (4); lege orokor (14); modu orokor (9); modu orokor batean (7)

ondorio orokor (7)

orokor bihurtu (6); orokor egin (4)

plan orokor (13); plan orokor bat (6); politika orokor (6); teoria orokor (14); teoria orokor bat (8); zuzendari orokor (5)

adigai orokorra (5); adostasun orokorra (5); akordio orokorra (11); aldaketa orokorra (5); amnistia orokorra (7); arau orokorra (9); araudi orokorra (6); arazo orokorra (8); aurkezpen orokorra (4); azterketa orokorra (13); baimen orokorra (10); baldintza orokorra (6); batzar orokorra (38); batzar orokorra egin (9); batzar orokorra egingo (4); berezia dena orokorra (4); biltzar orokorra (7); dena orokorra (4)

egoera orokorra (8); erantzun orokorra (5); eraso orokorra (4); erregimen orokorra (5); estrategia orokorra (9); gai orokorra (8); gai orokorra izanik (4); garbiketa orokorra (4); gramatika orokorra (12); greba orokorra (64); greba orokorra egin (15); greba orokorra egiteko (4); helburu orokorra (4); historia orokorra (14)

igoera orokorra (5); ikuspegi orokorra (34); informazio orokorra (7); interes orokorra (15); ipuin orokorra (6); iritzi orokorra (5); irtenbide orokorra (5); itxura orokorra (6); izaera orokorra (4); joera orokorra (7); kirurgia orokorra (4); kontseilari orokorra (32); kontseilu orokorra (20); kopuru orokorra (4); kultura orokorra (4); lege orokorra (9); logika orokorra (6); mendebalekoa orokorra (4)

ohar orokorra (5)

plan orokorra (12); printzipio orokorra (6); sailkapen orokorra (13); tasa orokorra (6); teoria orokorra (15); tonu orokorra (4)

modu orokorragoan (4)

arau orokorrak (9); asanblada orokorrak (4); aurrekontu orokorrak (5); batzar orokorrak (12); boz orokorrak (4); datu orokorrak (7)

emaitza orokorrak (8); erregela orokorrak (4); espainiako hauteskunde orokorrak (4); ezaugarri orokorrak (10); gramatika orokorrak (4); greba orokorrak (7); hatsapen orokorrak (4); hauteskunde orokorrak (58); hauteskunde orokorrak egin (6)

idazkari orokorrak (6); ideia orokorrak (8); interes orokorrak (9); irizpide orokorrak (7); jeneral edo orokorrak (4); kontseilari orokorrak (25); kontseilu orokorrak (30); lege orokorrak (8); logika orokorrak (12); mediku orokorrak (4)

ondorio orokorrak (12); plan orokorrak (9); printzipio orokorrak (5)

zuzendari orokorrak (10)

batzar orokorraren (6); egoera orokorraren (4); erlatibitate orokorraren (5); greba orokorraren (8); historia orokorraren (5); interes orokorraren (17); interes orokorraren alde (4); ipuin orokorraren (4); jeneral edo orokorraren (7); kontseilari orokorraren (4); kontseilu orokorraren (23); kontseilu orokorraren laguntzarekin (4); lege orokorraren (4); plan orokorraren (19)

egoera orokorrari (5); kontseilu orokorrari (6); politika orokorrari (11); politika orokorrari buruzko (7)

egoera orokorraz (6)

administrazio orokorrean (5); batzar orokorrean (21); biltzar orokorrean (4); kontseilu orokorrean (5); legeak orokorrean (4); mahai orokorrean (4); maila orokorrean (4); medikuntza orokorrean (4); modu orokorrean (23); orokorrean hartuta (8); orokorrean ondo (4); politika orokorrean (5); sailkapen orokorrean (41); teoria orokorrean (6); zentzu orokorrean (6)

hezkuntza orokorreko (4); hezkuntza orokorreko erakaskuntzan (4); informazio orokorreko (4); interes orokorreko (6); kontseilu orokorreko (22); legebiltzarreko politika orokorreko (6); mahai orokorreko (6); medikuntza orokorreko (5); oinarritzko hezkuntza orokorreko (4); plan orokorreko (5); plan orokorreko jarraipen (5); politika orokorreko (31); politika orokorreko eztabaidan (11); politika orokorreko eztabaidaren (5)

aurrekontu orokorren (4); hauteskunde orokorren (11); lege orokorren arabera (13)

greba orokorrera (15); greba orokorrera deitu (8)

greba orokorrerako (6); greba orokorrerako deia (4)

emaitza orokorretan (4); hauteskunde orokorretan (17)

hauteskunde orokorretarako (6)

kontseilu orokorretik (5)

orokorkeria *iz* zehaztu gabeko ideia edo jarduna, gaitzesgarritzat hartua. ikorokortasun.

Batzuk xehetasunetan galtzen direlako, beste batzuk **orokorkeria** zabaletan. Jon Alonso

AEBetako filmek europar kutsua lortu ahala izaten dute kritikaren onespina, **orokorkeria** zilegi bazait. Berria - Kultura

Orokorkeria eta tautologioi itzurtzeko, beraz, hel diezaioگون obrari. Juan Garzia

Aurreikustekoa zenez, errazkeriak eta **orokorkeriak** besterik ez zituen esan rol horretan zegoen Kiti Manverrek. Berria - Kultura

«**Orokorkeriatan** ibiltzea» leporatu dio ELAk PSOEri. Berria - Ekonomia

orokorki *adlag* era orokorrean. ik jeneral² 2.

-Oroitzapen onak dituzu, **orokorki**, zure haur denboraz? Menane Oxandabaratx

Badira salbuespenak, baina, **orokorki**, egunkari batean argazki bat hartzen delarik, kalkulatu gabe, gizonetako osatua izango da. Ana Urkiza

Pizzeriak, **orokorki**, gustukoak nituen: grazia berezia bazuten. Daniel Landart

Orduan entzun zuen Lapurdiren eta **orokorki** euskaldunen eskubideen sutuki defenditzen. Elena Touyaru

Inbertsioak **orokorki** hartuz gero, datu makroekonomikoek azaltzen dute lehengo urtera arte jaitsi egin zirela. Berria - Ekonomia

López-Morillas-en zati bat osorik aldatuko dut, **orokorki** pentsamendu krausistaren laburbildumatxo gisa balio baitezake: [...]. Joxe Azurmendi

Sinestea **orokorki** egiak direla Erromako Eliza Katoliko Ama Sainduak sinesten dituen guztiak, bai eta ere espreski [...] fedezko artikulua, bederen Elizak berak goraipatzen dituenak, teologo guztiak onartzen duten bezala. Piarres Xarriton

Elizaren buru bezala segurki, baina **orokorki**ago nolazpait bakearen mezulari. Herria

Bere kolore berezia ekarriko dü Nafarroa Beherak, eta **orokorki**ago iparralde güziak, hegoaldeari eman zeiona gogoan, bien arteko lokarri ezin etena. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orokorki baliogarria (3); orokorki hitz egitea (3)

orokorpen *iz* orokortzea.

Orokorpenen eta horiei babesa ematen dieten instantzia partikularren arteko erlazio berreslearen azterketa. Askoren artean

Hemen hizkuntzaren egitura gramatikala, eta ez estatistikoa, aztertzen dihardugunez **orokorpen** horrek ez digu oraingoan ardura. Itziar Laka

orokorragotu, orokorrago(tu), orokorragotzen du *ad* orokorrago bihurtu.

Behar-beharrezkoa ez den zigorra, dio Montesquieu handiak, tiranikoa da; proposizio hau honela **orokorragotu** daiteke: behar-beharrezkoa ez den gizonetik gizonerako aginte-ekintza oro tiranikoa da. Juan Martin Elexpuru

orokortasuna

Hastapenean ez zion zehaztu gabeko ideia edo jarduna. ik **orokortasuna**.
Erligio-gaiak, biziari buruzko **orokortasunak**, munduaren berri garrantzitsuenak, naturaren edertasuna, hots behar bezalako gogoetak. **Piarres Aintziart**
Tetraren funtzionamenduaren printzipioei buruz **orokortasunak** besterik ez nekizkien, aspaldi *Muy Interesante* edo *Elhuyar* batean irakurritako gauzak. **Iban Zaldua**
Gerotzik, bi terminoak banaezinak iruditzen zaizkio, **orokortasun** guztiak arriskutsuak direla badakien arren. **Karlos Linazasoro**
Emozio hori izan ez dutenek, edota, izanda ere, euren nortasunera aplikatu ez dutenek, definitu gabeko bizitza bat eramango dute, **orokortasunaren** epelean gordea. **Pako Aristi**
Bushek ez zuela ezer zehatzik esango eta **orokortasunean** galduko zela esan nahi zuen horrek. **Berria - Mundua**

2 orokorra denaren nolakotasuna.

Berehala sentitzen du arketipoaren **orokortasunetik** zirkunstantzia historiko konkretuetara jauzi egiteko beharra. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Konkretutasunak, minuskula indartsu batek, **orokortasunak** baino indar handiago du. **Iñigo Aranbarri**
Kontzeptuak eratzeko arauak, edozein dela euren **orokortasuna**, ez dira gizabanakoei burututako eragiketen emaitza. **Xabier Arregi**
Sistema horren **orokortasuna** frogaturik gelditzen da, ezin bada sortu sisteman ez dagoen bokal berririk. **Lourdes Oñederra**
Etxetik 10.000 km-etan, mendi galdu batean, herrirka baztertu hortan, bi populu hain desberdin fede berak bilduak: ez ote da hori elizaren **orokortasuna**? **Herria**
Zientzia, hortaz, ez da **orokortasunetik** abiatzen eta, huts hori estaltzeko nolabait, printzipio komunaren beharra dauka, batik bat ez-kontraesanaren printzipioarena. **Askoren artean**
Beharrezkotasuna eta **orokortasun** hertsia dira, beraz, apriorizko ezagutza baten ezagugarri seguruak eta elkarrekin bereiztezinki lotuak daude gainera. **Ibon Uribarri**
Esperientziatik jasotakoak **orokortasun** alderagarria besterik ez du, hots, indukzioaren bitartez lortutako **orokortasuna**. **Ibon Uribarri**
Euskal gizartearen arazoa da, bere **orokortasunean**. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanpotik aritu zen, inolako esperientziarik barneratzeko astirik gabe, eta, ondorioz, **orokortasun** gradu handi batez deskribatu zuen errealtatea. **Bernardo Atxaga**
Honez gain, **orokortasun**-baldintza bat ezartzen diegu guk gramatikei: edozein hizkuntzaren gramatika, "osagai" eta "fonema" bezalako terminoak hizkuntz bereziren mugak gaindituaz definitzen dituen hizkuntz teoria jakin baten arabera egin behar dela, alegia. **Itziar Laka**
Elkartasun eta **orokortasun** gogo horretan goazki aitzina. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orokortasun gradu (3); **orokortasun hertsia** (3)
orokortasuna eta beharrezkotasuna (3)
bere orokortasunean (6)

orokortu, orokor(tu), orokortzen 1 du *ad* orokor bihurtu.

Ez dakit, zeren hemen ez da **orokortzen** ahal, eta kasu batzuetan balio izaten ahal duen argumentazioak huts egiten ahal baitu beste kasu batzuetan. **Pello Salaburu**
Gerora, bi kasu partikular besterik ez zirenak arazo guztietara **orokortu** zirenean, [...]. **Iñaki Iñurrieta**
Txokokeriak **orokortu**, hau da, herri edo ibar jakin bateko ezaugarria euskalki osora zabaltzeko, eta euskalki osoaren ikurtzat aurkeztu. **Koldo Zuazo**
Ezarririk egia ofizialen ifrentzua bilatzen du idazleak, nagusi den pentsamenduari, **orokortu** den eredu politikoari, ziurtzat ematen den egia zalantzaren argia ematea. **Berria - Kultura**
Euskal herritarren artean euskalduntasuna **orokortzea**: herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezten lortzea. **Berria - Euskal Herria**
Kaleratze merkeagoa **orokortuko** duen lan erreforma. **Berria - Ekonomia**
Ez dut, hala ere, afera **orokortuz** nire erantzukizuna gezatu nahi. **Aingeru Epaltza**
Salbuespeneko kasu nabarmena, eskubide politikoak **orokortu** egin zirelako [...] mundu sinikoan gertatu zen. **Iñaki Mendiguren**
Kontainerren erabilera **orokortzeak** era askotako ondorioak izan ditu. **Berria - Gaiak**

2 (era burutua izenondo gisa)

Minbizi **orokortu** baten ondorioz, Alazne Olabarrieta Garzia borrokakidea hil da Bordelen. **Txillardeggi**
Erakunde terminoa nolabait ere zentzu **orokortuan** erabiliz, [...]. **Iñaki Mendiguren**
Iragan hau agertzen da teoria abstraktu baten, teoria boteretsu edo maila goienagoko baten, kasu berezia bezala, teoria inozo gisara, modu partzialean eta ez nahikoa **orokortuan**. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezin da orokortu (5)

orokortzaile *izond* orokortzen duena.

Liburu osoa halako gertakarien segida bat baino ez da, zeinetan ez dagoen pertsonaia nagusiaren aldaketa sakonik edo pertsona bera den narratzailearen gogoeta **orokortzaile**rik. **Berria - Kultura**
Nire ustez, **orokortzaile** gisako zu poetikoak egin ditudan azterketen ondoren, esan daiteke Lukreziok ez duela, printzipioz, inor epikureismotik baztertzen. **Xabier Amuriza**

orokortze 1 *iz* orokor bihurtzea.

Formaldatzeen arteko lotura baldintzatu hau beharrezko eta hautazko formaldatzeen arteko bereizkuntzaren **orokortze** bat da. **Itziar Laka**
Hizkuntza honetan posible izango da **orokortzeak** erabiltzen dituen argudioak propioki errepresentatzea, hau da, "oro" edo "edozein" partikulen erakoak. **Askoren artean**
Teorema andana bat, zenbaki perfektuei, binomioaren formula **orokortzeari**, grafo konexuei dagozkienak. **Jon Muñoz**
Orokortzea zientzia ororen baldintza da. **Joxe Azurmendi**
Esango nuke oraingo euskararen estandartzearen berritasunak, elebitasunaren **orokortzeak** eta lurralde batzuetako ofizialtasunak maileguen indarra hauspotu dezaketene eragile direla. **Lourdes Oñederra**
*Syntactic Structures*en, apurka-apurka, **orokortze** deskribatzaileak egiten dira, eredu sintaktiko azaltzaile baten zerbitzuan. **Itziar Laka**
Esanahian oinarritzen diren proposamenen azterketa arduratsua baiezatzatzen du hau, eta areago erakusten hizkuntzari buruzko aurkikuntza eta **orokortze** garrantzitsuak oharkabe igarotzen direla. **Itziar Laka**
Gertakari handi bakar bat, zeinetaz, gertakari bakarra delako, ezin baitaiteke **orokortzerik** egin. **Iñaki Mendiguren**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bakoitzari zor zaiona eman behar zaio, baina sekula ez lege orokor baten arabera, hori ahul bihurtzen baita **orokortze**-prozesu horretan. **Askoren artean**
Gizonak gizona sortzen du, baina **orokortze**-ekintza unibertsaltasunera pausatzen bada, "gizona" hitz huts bilakatuko da. **Askoren artean**
Dela deskribapenen ordena, deskribapen horiek mugatzen duten **orokortze**-eskemak edo zehaztapen progresiboaren eskemak, eurek zeharkatzen dituzten banaketa

orokunde *iz* kinkuagesimako osteguna.

Baina, behar zen bat, denak batera ospatzeko ere, eta hau zen hurrengoa, inauterietakoa, kinkuagesima ondorengoa, denentzakoa, **orokunde** deituko zitzaiona. [Pello Zabala](#)

orologio *iz*

Ea ez ote den prentsan -batez ere irratigintzaz ari zela ulertu nion Ugartebururi- gaitz bera, ea ez ote diren asko soberakoak eta betelanak, ez ote den astun irrati **orologioek** eta kazetariak eguneroko jardunean darabilten gainezko hori, haborokina, burrusta. [Iñigo Aranbarri](#)

oronoztar *izlag/iz* Oronozkoa, Oronozi dagokiona; Oronozko biztanlea.

Oronoztarrak joko gaitza erakutsi du 4 eta Erdiko Xapelari ohore eta ospe emaiten dio. [Herria](#)

Oronoztarra, Galarza VI.a bikote zuela, bart gauetz kantxaratu zen Gasteizen. [Berria - Kirola](#)

Sunbillan, **Oronoztarrak** 4 kintze botetik, 1 falta. [Herria](#)

Aspeko buru Fernando Bidartek hartu du erabakia, **oronoztarraren** «gehiegizko pisua» dela-eta. [Berria - Kirola](#)

oropel *iz* letoizko xafla mehe-mehea, urrea imitatzen duena.

Jimmy Herf jira eta bira zebilen kaleetan zehar **oropelezko** leihodun etxeorraz zaratatsuko atearen bila. [Lopez de Arana](#)

2 balioak itxuraz soilik dena.

"Gazteria alferrik galduak berriro ordaindu du bere zerga tragikoa, Coney Island-eko **oropelezko** dibertimenduen artean. [Lopez de Arana](#)

oropresente *izond* toki guztietan aldi berean dagoena.

Nahimen honek ahalguztiduna izan behar du, izadi osoa eta honek munduan etikotasunarekin duen harremana berari menperatzeko; orojakilea, intentzioen alde barnekoena eta bere balio moralak ezagutzeko; **oropresentea**, munduaren ongi gorenak eskatzen dituen behar denetatik hurbil-hurbil egoteko; betierekoa, ezein denboratan izadia eta askatasunaren adostasun hau falta ez izateko, eta abar. [Ibon Uribarri](#)

oropresentzia *iz* toki guztietan aldi berean egoteko gaitasuna.

Beharrezkotasuna, amaigabetasuna, batasuna, mundutik at izatea (ez munduaren arima gisa), betikotasuna denboraren baldintzarik gabe, **oropresentzia** espazioaren baldintzarik gabe, ahalguztiduntasuna, eta abar, predikatu transzendental soilak dira, eta horregatik, beren adigai araztuak, Teologia orok oso beharrezkoak dituenak, Teologia transzendentetik soilik lor daitezke. [Ibon Uribarri](#)

orotara ik oro 7.

orotariko 1 *izlag* mota guztietako edo ia guztietako zerak biltzen dituena. ikorokor; askotariko.

Behera iritsi zirenean, **orotariko** anabasa zen hura: altzairuak, kaxak, makineria hondatua..., dena hautsak berdintzen zuela. [Iñaki Iñurrieta](#)

Orotariko eskabideen bulegoa ate gaineko idazkunean bakarrik existitzen zen. [Jose Morales](#)

Baina halakorik ez zuten salgai **orotariko** drugstore saltokietan, legearen aginduz. [Mirentxu Larrañaga](#)

Oro har jito kastakoak zirela, edo hobeki esan, **orotariko** jendaje kriptikoa. [Patziku Perurena](#)

Hausnarketa teorikoei uko egin gabe, halako asmo entziklopediko bat darabil, **orotariko** bilketa bat eginez eta hizkuntza askotako adibideei iruzkina egiten. [Iñaki Arranz](#)

Talmudari buruzko ene izkribuetan arazo honi buruz **orotariko** ohar batzuk azaldu nituen, anitz gaiez ohartaraziz. [Xabier Kintana](#)

Ez dakit irakurleak zer nahi duen; gainera, **orotariko** irakurleak daude. [Ana Urkiza](#)

Jainkoak itsas arraintzarak sortu zituen, uretan borbor dabiltzan **orotariko** bizidunak eta **orotariko** hegaztiak. [Elizen arteko biblia](#)

Orotariko zuhaitzak sortarazi zituen lurretik, ikusgarriak eta fruitu gozodunak. [Elizen arteko biblia](#)

Orotariko euskara [...] gure mintzaira aberastu nahian inolako irizpide argirik gabe euskalki guztietako hitzak eta esapideak ez bat eta ez bi denak nahasian ematen ditugunak. [Pello Salaburu](#)

Orotariko sistema fonologiko unibertsala hizkuntzetan gertatzen diren sistemen tipologiatzat ulertu behar da. [Lourdes Oñederra](#)

Ez zuten alferrik esaten lehengo zaharrek pertsona logura antxean, gose antxean eta diru-falta antxean ibiltzen dela ondoena, eta ez -gehitzen dugu gaur- ongizatezko deritzan gizarte honek saltzen dizkigun **orotariko** litxarrien gaindiduran. [Iñaki Segurola](#)

2 (izenondo gisa)

Nerabezaroko lehenbiziko urteetatik aurrera, bere sexualitatearen historia izan zen alde batera eta bestera jo ohi zuten grinaren eta irritsen katalogo **orotariko** bat, bereizkuntzarik gabea. Egun Euskal Herrira datozen terapeuta **orotarikoak** igoaltsu. [Oskar Arana](#)

Gaiak, berriz, **orotarikoak** erabiltzen dira, eta ordu artekoak baino konkretuagoak dira, ez hain arketipokoak. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Garai batean kasino izana zen orain **orotarikoen** salerosketa merkatu bihurtutako zoko ospel hura. aienatuxea zitzaidan, bigarren gauz berean, Charlyrekin bildutako karga **orotarikoaren** laino-hondar pisua. [Harkaitz Cano](#)

Eskola kontuak hizpide direnean, ohikoak izaten dira ikasleen txuleta eta kopiatzeko ahalegin **orotarikoak**. [Joxerra Garzia](#)

hitza multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orotariko bizidunak (3); **orotariko drugstore** (3); **orotariko eskabideen** (4); **orotariko euskal hiztegia** (20); **orotariko euskal hiztegiak** (6); **orotariko euskal hiztegiak** (6); **orotariko euskara** (9); **orotariko iritziak** (3)

batxilergoko proba orotarikoa (3)

orotasun *iz*

Horrela, beraz, **orotasuna** (totalitatea) ez da askotasuna batasun gisa kontsideratua baino. [Ibon Uribarri](#)

Honi begiespenen sintesian **orotasuna** (*universitas*) edo baldintzen totalitatea dagokio. [Ibon Uribarri](#)

Gauza baten (betegintzarrearen) handitasunari dagokionez ez dago oro har ez sein adigai determinaturik, betegintzarre ahalgarri oro jasotzen duena izen ezik, eta errealitatearen **orotasuna** (*omnitudo*) besterik ez da osoki determinatzen adigaian. **Ibon Uribarri**

Urrun jo zuen, munduko eremu gartsuaz harago, eta, bere sen eta gogoz, **orotasun** neurrigabea oinkatu zuen. **Xabier Amuriza**

Aireak mendiak xedatzen ditu eta mendiek airea; lehorrak itsasoa eta itsasoak, berriz, lehor oro bereizten du; **orotasunaz** harago, ostera, ez dago mugarik jar dezakeen ezer. **Xabier Amuriza**

Horrela, zeharo galdurik jada objektuekiko lotura beharrezkoa [...] arrazoimena espekulazioetan hegaldatzen da Jainkoaz, arimaz, munduaz (den guztiaren **orotasunaz** bezala), beraien esperientziarik ezin eduki den azken printzipio metafisikoez, eta antinomia konponezinetan korapilaturik amaitzen du. **Askoren artean**

oroxurgatzaile *izond* guztia xurgatzen duena.

Ez zara, bada, zeu, ninfomana **oroxurgatzaile** bat izango? **Karlos Linazasoro**

orozgain ik oro 11.

orozgaineko ik oro 12.

orozkoar *izlag/iz* Orozkokoa, Orozkori dagokiona; Orozkoko biztaanlea.

Artzain hori, Enrike Mendiguren (gure argazkia) berenaz **orozkoarra**. **Herria**

orpazurda *iz* Akilesen orpoa.

Realeko aurrelariak **orpazurda** hautsi du Zubietan, ebakuntza egin ondoren egin duen lehen lan saioan. **Berria - Kirola**

Orain dela bi aste hartu zuen min Gerome Thion Miarrizteko jokalariek **orpazurdan**, eta herenegun egin zioten ebakuntza. **Berria - Kirola**

Balic **orpazurdako** minarekin esnatu zen, eta ez zen jantzi. **Berria - Kirola**

Orpazurdako lesio batek mikaztu zion aurreko denboraldia. **Berria - Kirola**

orpo 1 *iz* giza oinaren atzeko zatia, orkatilaren azpikoa. *ikaztal*.

Parma konderrian, gizon bati oin bat atzekoz aurrera zuela jaio zitzaion semea, hau da, **orpoa** aurrean eta behatzak atzean zituela. **Askoren artean**

Urrats bat egiten zuenero **orpo** arrosak nagiro irteten zitzaizkion zapatiletatik. **Lopez de Arana**

Andereñoak arin-arin eragin zion bere oinaren puntari, eta agerian jarri zuen **orpo** fin bat, eta hanka zimel, ederki osatu baten hasiera. **Anton Garikano**

Orpo baten gain biraka hasi naiz, zibaren gisa. **Josu Zabaleta**

Georgiek, artean **orpo** gainean kokoriko, jakin-minez begiratu zien andreaki lehenik eta Curtis-i gero. **Mirentxu Larrañaga**

Izkina batean, **orpoen** gainean kokoriko jarri eta malko analfabetotan hasi nintzen negarrez. **Joxan Elozegi**

Muntotik behera jauzi egin du bidera, eta **orpoan** harri-koskor bat sartu zaio. **Anjel Lertxundi**

Zarata beti berdin eta mehatxagarri horrek oso hurbil zirudien zenbaitetan, hain hurbil ere, non **orpo**-orpoan nuela iruditzen baitzitzaidan. **Josu Zabaleta**

Zure arrastoaren atzean nabil, **orpo**-orpotik. **Jon Alonso**

Haren egurrezko zoru labainkorrean pausatu ninduten, nire aurka estutu eta zapaltzen ninduten hainbat oin, aztal zornetsu, **orpo** eta bernazakiren erdian; gutxi-asko, espero nuena. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hirurak abian jartzen ziren, **orpoak** arrastaka, espaloien zabalera guztia hartuz. **Karlos Zabala**

Oin baten gainean zutik, Jimmyk bere **orpoa** ostikoka zerabilen beste oinaren puntaz. **Lopez de Arana**

Orpoetan jiratu, ateari kolpean tira egin eta hain gogor itxi zuen, ezen goialdean zuen kristaletako bat erori baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Ez zidan nire **orpoetan** biratzeko astirik eman. **Aingeru Epaltza**

Zapatak kendu zituen gero, **orpoaz orpoan** presio eginez. **Anjel Lertxundi**

Burutik **orporaino** blaitzen nauen sentimendua ez da hain atsegina. **Jon Alonso**

Orpoak, orkatilak eta hiru gerri-orno hautsirik, bestela esanda. **Agurtzane Juanena**

Orpoak kliskatu ditut ostera, eta irten egin naiz. **Koldo Izagirre**

Argi entzun zen ezproien hotsa, hitz egiten ari zenak **orpoak** kliskatu balitu bezala. **Jose Morales**

2 *hed*

Bat-batean [...] ezker eskuaren **orpoarekin** buruaren alde bati joka hasi zitzaion, bere burua zein ergeltzat zeukan erakusten bide zuen imintzio basati bat. **Oskar Arana**

3 oinetakoetan eta kidekoetan, orpoa estaltzen duen zatia.

Konturatu nintzen andre zaharrak zein zarpail loturik zeukan gona atzean, eta zein urratetik eta alde batera okerturik ehunezko boten **orpoak**. **Irene Aldasoro**

Talpak izeneko txanoa janzen zuten buruan, arkume beltzaren larruz egina, eta **orpo** luzeko bota larru-horiak oinetan. **Karlos Zabala**

Kaxmirrezko jertse zuri bat, eta kolore marroi arrunteko oinetako **orpo** luzekoak. **Oskar Arana**

Eta elurretan beltz eta bustirik ageri zen Sergeik galdutako eskalapoi **orporik** gabea. **Jose Morales**

Erabakimenez jarraitu zuen aurrera, neska ukondotik oratuta, frantses **orpo** garaiekin oholta ozen zapalduz. **Jose Morales**

Behin **orpo** aldeko takoak larregi ilkutu zitzaizkion zelai lokaztuan, hanka jiratzen ari zela, eta korrika bizian zetorren kontrario bat hanka gainera erori. **Jon Alonso**

-Tira, atsoa -esan zion Peterrek isilka, sutondoaren berotan eta Wendyri begira, **orpo** bat josten ari zen bitartean-. **Julen Gabiria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskailerak jaisten hasi zen, **orpo**-hotsa atereaz. **Koro Navarro**

Jimmy bueltaka zebilen bizkarrean zehar, **orpo**-joka, zeharo asaldaturik. **Lopez de Arana**

Besakadaz joka darabil, **orpo**-kolpeka, aparra aterarazten dio, eta, erdi-erdian jarrita, beldurgarri, ertzetara bidaltzen ditu olatu amorratu saldoak. **Itziar Otegi**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zapata txuri **orpo**-luzekak ikusi nituen, berna lodiak. **Juan Kruz Igerabide**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esku-**orpoaz** eskudelarari helduta eskailerak kilin-kilin jaitsi. **Pablo Sastre**

Urrezko ezproiak bota **orpoetan** **Karlos Zabala**

7 zuhaitzaren enborrak sustraiekin bat egiten duen aldea.

Horregatik, anai Joan, bera zegoen adar-burutik irten eta, adar guztien azpira jaitsiz, zuhaitz-enborraren **orpo** ondoan ezkutatu zen, zer gertatuko ote zen pentsatuz.

Askoren artean

Makal baten **orpoan** eskuak burupean egiten da lo, baina nik ezin dut. **Koldo Izagirre**

Mahastiko ilara erdi bat **orpo**-orpotik ebakita zegoen eta belarretan utzitako mahats-adarrek suge beltzak ziruditen. **Koldo Biguri**

Triskantza handiak eta 47 zuhaitz **orpotik** jiraka atera eta boteak. **Pello Zabala**

8 irud/hed

Igan dituzte eskailerak, paratu dute aulkitxoa postearen **orpoan**. **Koldo Izagirre**

Harkaitz bertikal luze baten **orpoan**, lurrean erdi hondoratua zen marmol zuriko bloke bat ikusi nuen. **Koldo Izagirre**

Mendixka batzuen **orpoan** dago Zarautz, eta itsasoa altzoan duela. **Anjel Lertxundi**

Pendizaren **orpoan** daude kokatuak mendiari eusten bezala karrikaren estiborreko etxeak. **Koldo Izagirre**

Balkoi horietan guztietan milaka gauza igerian: arropa idortzen, sareak, zapi gorri, hori, urdinak; etxe hauen **orpoan**, itsasoa. **Koldo Izagirre**

Mendiaren hegalaria ematen zuen paretaren **orpoan** zulo karratu bat zegoen. **Koldo Izagirre**

Ene ezkerrean, lehen planoan, beste mendiaren **orpoan**, beste etxe multzo bat dorre zahar desegin batera ematen zuten balkoiekin. **Koldo Izagirre**

Ulm-eko katedralean gordetzen omen dituzten Ahasverus-en zapatak jantzi, eta nire bihotzaren **orpo**-orpotik atera nahi nuen sinbologia haren bidea egiten hasi behar nuela.

Anjel Lertxundi

Espainiaren **orpoa** eta muina Gaztela da. **Joxe Azurmendi**

9 atea-eta finkatzen diren euskarria, erroa.

Taberna batzuetako atean **orpoetan** emakume lotsagabeek irribarre limuriak eskaintzen dizkizute. **Pako Aristi**

Neska atean gelditua zen, atearen **orpoari** bermatuta, nik hari begiratu nahiko nion interes berberarekin niri begira. **Jon Muñoz**

Ateak **orpoan** bira, alferrak ohean. **Elizen arteko biblia**

Santutegiaren aurrean zegoen sala handiaren aurreko ate-**orpoak**, urrezkoak. **Elizen arteko biblia**

Salako ate-**orpoaren** kontra bermaturik. **Juan Garzia**

Ahots honen oihuaz, tenpluko ate-**orpoek** dardar egin zuten, eta tenplua kez bete zen. **Elizen arteko biblia**

Orpo aldeko langaluzeei bao-zabalera osoaren hamabiren bateko zabalera emanez egingo dira atea. **Santiago Iruretagoiena**

Hiriko atearen orri biak hartu eta **orpotik** atera zituen, beren zango, ataga eta guzti. **Jose Antonio Mujika**

10 Akilesen orpo zango-mamia eta orpoa lotzen dituen zurda.

Eta eskerrak emateko moduan zaude, ez zaielako bururatu ere egingo dortoka ez harrapatuaren errua **Akilesen orpo** hauskorrei egozte. **Joxerra Garzia**

Zibilizazio baten gizarte-anatomian **Akilesen orpoa**, ikusi dugun bezala, mimesiarekiko (imitazioarekiko) mendetasuna da, gizadiko jende xeheak gidariei jarraituko diela ziurtatzeko "gizarte-trebakuntza" gisa. **Iñaki Mendiguren**

- Akilesen bi **orpo** izatea ez da ona izan eta euskal kulturak asko nozitu du. **Berria - Harian**

11 orpo gain pl

Neskak bizkorrago kulunkatu zuen eguzkitakoa eta bira erdiak egin zituen **orpo**-gainetan. **Irene Aldasoro**

12 -en orpotik -en atzetik.

Zaldien sailerantz abiatu zen, eta ni bere **orpotik**. **Bernardo Atxaga**

Kazetaria aurrea, Knörr ondoren, elkarren **orpotik** biak. **Iñigo Aranbarri**

13 orpoz orpo adlag hurbil-hurbildik, ondo-ondotik.

Nettiak eta mutilak **orpoz orpo** jarraitu zioten. **Mirentxu Larrañaga**

Lehen esan dizuedan bezala, Caulfieldi **orpoz orpo** jarraitzea da nire asmoa. **Bernardo Atxaga**

Cayennen izan delako, polizia guztia **orpoz orpo** dabilkiola uste dik. **Karlos Zabala**

Gizon ausarta zen eta beharbada **orpoz orpo** zihoakion. **Patxi Zubizarreta**

Bizirik gelditu zirenek, berriz, kasik Baionaraino egin behar izan zuten atzera, espainola **orpoz orpo** segika zutela. **Aingeru Epaltza**

Juan izeneko gaztea zaldiak **orpoz orpo** zituela hurbildu zen. **Bernardo Atxaga**

Ziur zegoen gizona ibilaldi guztian zehar **orpoz orpo** izan zuela. **Patxi Zubizarreta**

Frantses polizia etengabe **orpoz orpo** daukalarik, beti ihesi bizi duk. **Txillardegi**

Donostiarrak eta lizarritarrak **orpoz orpo** iritsi dira ABF Ligako azken txanpara. **Berria - Kirola**

Rose agertu zen iritsi berrien atzetik **orpoz orpo**. **Karlos Zabala**

Haren **orpoz orpo** heldu zen izeba Kate, deiadarka: [...]. **Irene Aldasoro**

Ihesean beti, polizia-autoen uluak eta argi urdin birakariak **orpoz orpo**. **Juan Luis Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orpo orpotik (3); **orpoz orpo** (96); **orpoz orpo jarraitu** (11); **orpoz orpo jarraitzea** (3); **orpoz orpo segika** (4); **orpoz orpo zuela** (4)

makal baten orpoan (4); **mendiaren orpoan** (3)

orpoen gainean eserita (3)

orpoetan jiratu (4)

burutik orporaino (4)

orpo orpotik (3); **orpotik atera** (3)

orpoalde iz oinetako edo kideko baten orpoaren alde.

Abarkak erantzi eta gero, supazter inguruan bero-bero zeuden espartinak, **orpoaldea** txapalik zutela oinetan sartzean ere, igarriko zien estu antxa eta lehor edo zabal eta lasai zetozkion: espartuzko zola agudo lasaitzen baita hezetasunez. **Pello Zabala**

orpogorri iz umegorria.

Eta ibiltzen ezhasi baihasi zebilen **orpogorri** hura altxatzen zuen airean. **Joseba Sarrionandia**

orpokatu, orpoka, orpokatzen du ad ezproiez eragin.

Zaldia **orpokatu** eta bidean behera jaitsi zen eremu paduratsura heldu arte. **Joanes Urkixo**

Gero, jauzi arin batez zutitu eta, abiadura hartuz, Oisinen zaldira igo eta **orpokatu** egin zuen. **Joanes Urkixo**

orpokatzaile izond orpokatzen duena.

Dena den, uztartze erdiak, **orpokatzaileak** eta joko zabalzaileak ez dira hain handiak. **Berria - Kirola**

orpotu, orpo(tu), orpotzen du *ad* errotu.

Tradizionalki Ongia eta Gaizkia euskarri absolutu batean egon da **orpotua** (Jainkoan, Naturan); eta Ongiaren eta Gaizkiaren epailea munduan ere absolutua izan da (Eliza, Arrazoimena). **Joxe Azurmendi**

orrantza ik orrantza.

orratz 1 iz altzairuzko ziri moduko atal mehe-mehea, mutur batean punta zorrotza eta bestean haria sartzeko begia duena, josteko edo ehuntzeko erabiltzen dena. ik **jostorratz**.

Ama, **orratzaren** begitik haria sartu eta galtzerdi, galtza eta kamiseta zulatuak josten ari zen. **Joseba Sarrionandia**

Wendyk ezin zuen haria **orratzean** sartu. **Julen Gabiria**

Ilar zuri haien erdian, ordea, bizar egiteko lama bat aurkitu zuen, baita josteko **orratz** eta haria ere. **Eneko Bidegain**

Bizarra egiteko tresnak, hortzetan erabiltzeko zotzak, orraziak, [...] eta josteko **orratzak**, den-denak Mihurubikoarenak zirela. **Edorta Jimenez**

Jostun txukuna da **orratzarekin**. **Koldo Izagirre**

Rosiek **orratz** batez josi zituen arrosak bere larruzko berokian. **Lopez de Arana**

Orratz baten begian sartuko luke bala. **Pablo Sastre**

Auto baten alarma, belarrietan **orratza** bezala sartzeko zelarik, geldigabeko uluan ari zen. **Iñaki Zabaleta**

Begietako nerbioak **orratz** ikustezin batez ukitu balizkidate bezala. **Joan Mari Irigoien**

Masailean milaka **orratz** ikusezinen ziztadak sentitzen nituen. **Oskar Arana**

Milioika **orratz** iltzatu zitzaizkidan zangoetan. **Lander Garro**

Une horretan **orratzak** zulatu balu bezala egin zuen jauzi Duselek: [...]. **Josu Zabaleta**

Une horretan, gustura ziztatuko zukeen **orratz** zorrotzez bere mihi ergela. **Jose Morales**

Aterabideen ugariak **orratz** bat lastategian aurkitzea baino zailagoa bihurtzen zuen aurkikuntza. **Joan Mari Irigoien**

Orratz bat besterik ez naiz, lastategi bateko **orratza**. **Lopez de Arana**

Nolatan desager daiteke pertsona bat **orratz** edo txanpon baten gisara? **Patxi Zubizarreta**

Esaldi hutsala zen, puxika bat bezalako, **orratz** batekin lehertu eta barruan deus ez dagoela konturatzen garena. **Jon Alonso**

Orratzak baino hariak luzeago izan behar du eta laga egiozu mutikoari ibiltzen. **Joseba Sarrionandia**

2 iskilinba.

Orratz batekin postala aukiarri josi eta kopiatu egiten dut. **Fernando Rey**

Idatzi genuen kleraz kartoi puska baten gainean, eta **orratz** batez horman itsatsi genuen kartoia. **Koro Navarro**

Itsas aingirak, xerrak markatzeko balio duen **orratz** beltzarekin ziztatuak. **Karlos Zabala**

Baita paperezko orri-sortatxo bat ere, paperak letoizko **orratz** batez elkarri loturik. **Irene Aldasoro**

Panpina baten bihotzean **orratz** batzuk sartuta. adar bat hartu, haria lotu, amu gisa **orratz** okertu bat erantsi, eta ogi zati bat ipini zion beita gisa. **Joan Mari Irigoien**

Tximeleta urdin txiki bat zegoen han **orratz** batez zeharkatua. **Bernardo Atxaga**

Eta hortxe geratzen zara, begirada horren pean, bere gorputzean zehar **orratz** batez apainduta legokeen zomorro baten gisan. **Josu Zabaleta**

Jantziak probatzeko orduan gure amak **orratz** asko izaten zituen ahoan, eta gero bezeroen jantziatan sartzeko zituen. **Pello Lizarralde**

Sudur hegalean kolorezko **orratz** -mutur borobil bat. **Gotzon Garate**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Norak **orratz** -kutxa zabaldu zuen. **Anjel Lertxundi**

Orratz -kutxako doinua bukatu egin zen, inork kutxa brastakoan itxi izan balu bezala. **Anjel Lertxundi**

Orratz -punta bat zeru-lurren luze-zabalarekin konparatzen bada. **Joan Mari Lekuona**

4 metalezko ziria, mutur bat puntaduna edo zorrotza duena, hainbat erabilera dituena.(puntu egiteko)

Emakumeak irribarre egin eta mataza desegiten zuen, besterik ez, eta behin belarrian sartu zuen **orratz** luzearen punta kamutsa. **Koro Navarro**

Lena pilota bat eta bi **orratz** emaiten dauzkitzut, zer trikotatzen duzu? **Menane Oxandabaratz**

Astelehen batean puntua egiteko **orratz** pare batekin itzuli nintzen gurasoenetik, bukatu gabe geratu zen jertse bat egiteko uda batean erositako. **Joseba Urteaga**

Astelehen batean puntua egiteko **orratz** pare batekin itzuli nintzen gurasoenetik, bukatu gabe geratu zen jertse bat egiteko uda batean erositako. **Joseba Urteaga**

Hona ni, ez dakit zer **orratz** lan zorabiagarri baten mehatxupean. **Josu Zabaleta**

5 (apaingarria)

Laukiekiko gorbataren gainean **orratz** errubidun bat agerian zeukalarik. **Lopez de Arana**

Korbata koloretsua, eta urrezko ttattar- **orratz** bat korapiloari eusten, eta marrazki bat korapiloan. **Fernando Rey**

Zamarraren sakelan zeramatzen urrezko bi erloju, zintzilikario bat, bi gorbata- **orratz** eta lau eraztun brillantedun. **Anton Garikano**

Lepoaren aurrealdean itsatsirik zeukan **orratz** handian irlandar ezaugarri bat ageri zen. **Irene Aldasoro**

Belarririk luzeak zeramatzen, kate bat idunean, **orratz** bat paparrean, eraztun sortak ezker eskuko bi hatzetan eta eskuineko batean. **Karlos Zabala**

Lola botoitzarrekiko beroki beltz estua jantzita, bitxi- **orratza** paparrean, arrano-sudur kakoak airea ebakitzen zuela. **Fernando Rey**

Sekulako apaingarriak zeuden han, idunekoa, eskumuturreko eskergak, paparreko **orratz** erraldoiak, bitxi basatiak. **Karlos Zabala**

Gau-soinekoak eta ile- **orratzak**, kizkurgailuak eta aurpegirako kremak eta ezin konta ahala oinetako. **Oskar Arana**

6 (medikuntzan erabiltzen dena)

Zain horietatik, **orratz** batez ziztaturik odol tanta bat hartu. **Juan Garzia**

Larruko ileak atzerantz orratzu beharko dizkio **orratzak** zaina aurki dezan. **Oskar Arana**

Autoklabea eta **orratzak** behar bezala zaindu ezean, infekzioaren bat hartzeko moduan zaude. **Javi Cillero**

Uilek dardara egin zuen, ikusirik **orratz** handi haiek gizonaren haragian sarturik. **Juan Kruz Igerabide**

Xang doktoreak **orratz** batzuk sartu zituen Uilen hankan, kotoi esterilizatu batez garbitu ondoren. **Juan Kruz Igerabide**

Orratz xiringa txiki batzuk ikusiko dituzu, injekzioaren momentua erakusteko marraztuak. **Joseba Sarrionandia**

Kontsulta gisa erabiltzen zen sarrera txikian, bi ohe xume zeuden, **orratz** poltsa bat, alkoholetan bustitako kotoi puska. **Juan Kruz Igerabide**

Esku gaineko azalean sartuta ditut bi **orratz** eta hortik bideratzen dute seruma odolera zuzen. **Hasier Etxeberria**

Orratzen bidez akupuntura puntuak ziztatzea da terapia horren muina. **Berria - Euskal Herria**

7 (erlojuarenak)

Esfera lausotuaren azpiko bi **orratz** geldituek zortziak eta hamar seinatzen dituzte. **Pello Lizarralde**

Zozotuta begiratu zuen **orratz** fluoreszenteetara: 6:55 a.m. **Iñaki Zabaleta**

Detonagailua kargarekin ez batu azken momentua arte, eta erlojuarekin ere kontua izan, **orratz** handia kendu eta txikia utzi borne elektrikoarekin kontaktua egin dezan.

'Orratz bat falta da!' esango dizute, erloju erailea erakutsiz. **Joseba Sarrionandia**

Minutuak **orrazak** ikara egiten da eta 5: 46an geratzen da. **Oskar Arana**
Horma kristalxo haien guztien itiki-itaka aditu nuen, horietako bakoitzaren barranean segundo **orrazt** koloretsua mugituko balitz bezala. **Fernando Rey**
Leihoan gurpilak, gurpiltxoak, erloju **orraztak** eta erloju koadranteak zeuden. **Matías Múgica**

8 (neurgailuean eta kidekoetan)

Huts-neurgailuaren **orrazta**, hantxe zeroan zut-zut egona, gainbeheran hasi zen, ezkererantz lerratuz. **Juan Garzia**
Hain zuzen ere, bakuometroaren **orrazta**, hatz mehatxari baten gisa, zerorantz igoz zihonan ostera. **Juan Garzia**
Orratzak ehun eta hogeik kilometro orduko abiadura markatzen du. **Patxi Iturritegi**
Belt Parkway inguruan zoazela gas-pedala sakatzea **orrazta** hirurogeita hamarretik gora igoaraziz, doi-doia egusentia baino lehentxeago. **Oskar Arana**
Ponpak hutsik ponpatzen segitzen zuen, eta **orrazta** atmosfera heren baten inguruan zabu-dantzan zebilen. **Juan Garzia**
Mendebalderaegi zoaz, Fred -erantsi zuen, aginte-koadroan zegoen **orrazt** bat seinalatuz. **Iñaki Mendiguren**
Erdian egonik pisu-**orrazta** bezala, **Patxi Altuna**

9 (trenbideetan)

Bi tren horiek elkarren ondolik igaro behar zirenak ziren nonbait, baina, halako batean, trenbide-**orraztak** mugitu zituzten, eta elkarren kontra jo zuten bete-betean. **Karlos Linazasoro**
Aldeak txikiak izan daitezke, baina guztiz ere bestelako ondorioetara eraman, trenbide-**orrazten** aldaketarekin gertatzen denez. **Juan Garzia**
Dakidana, anitz urte iragan zituela han, Tres Arroyos-en trenbideetako **orrazt** zuzentzaile egon zela. **Ana Urkiza**

10 (disco biragailu eta kidekoetan)

Gailuaren **orraztak** diskoko ildo espiralean grabaturiko gorabeheretan aurrera egin ahala, korrante elektriko bihurtzen dira **orraztari** eragiten zaizkion presio-aldaketak. **Irene Aldasoro**
Orratzak diskoan egiten duen eztl txiki horrek ez du batere ukitzen melodia. **Monika Etxebarria**
Bildumako diskorik zaharrena da, Pathé disko bat, zafirozko **orrazterakoa**. **Monika Etxebarria**
Gramolako **orraztaren** krakatekoak atera ninduen erantzunik gabeko galdera haietatik. **Anjel Lertxundi**
Gramofonoaren **orraztak** diskoko ildo hutsean jirabiraka. **Alberto Ladron Arana**

11 irud/hed

Masta gainean antena parabolikoa jirabiraka ari zen, Bisibilitatea zero, eta kapitaina pantailako zirkulu kontzentrikoei begira, argi **orrazt** fina bueltaka ari zela. **Joseba Sarrionandia**
Eguzki printza baten **orrazt** distiratsuak zeharkatuko zuen gorputz txiki hura. **Juan Kruz Igerabide**
Bidean bisuts zuriak ehun mila kristal **orrazt** zoragarri aurpegira bidalita zizta egiten zidan. **Matías Múgica**
Elur **orraztek** itzelezko mina eginen dizute, eta haize izoztuak arnasa ostuko dizu. **Joseba Sarrionandia**
Bere **orrazt**-takoidun zapatak nire iztarrateko angeluan/egingo lukeen efektua imajinatzen saiatzen naiz. **Harkaitz Cano**
Elektrodo-**orrazt** bat garunean sartu eta korrante elektriko txiki bat emanez gero, korrante horrek ikusirudiak sorraraziko ditu eremu batean. **Irene Aldasoro**
Hala ere, **orrazt**-aseguru automatikoa ere badauka. Katedralaren **orraztak** zerumugan ostentzen dira. **Sonia Gonzalez**
Artzain Onaren dorre-**orrazta** erdian, Atotxako dorrea apur bat ezkererago. **Iñaki Iñurieta**
Eskuin aldean, Santiago katedralako punta-**orrazta**. **Pedro Alberdi**
Orratzta, ojbak, beiradurak eta arbotanteak. **Koldo Izagirre**
Korrika joan ginen belar malgu saltariaren eta arroken **orrazt** zulatzaileen gainetik. **Koro Navarro**
Ateraldi horietariko batean, Ansabereko **orraztaren** goiti ari zirela, kabroi horrek irtenune llabur batean abandonatu zuen gure alaba. **Aingeru Epaltza**
Mendi zoritxarreko hura, eguzkiaren sartzean harkaitz **orrazt** bat bezala zutitua. **Josu Zabaleta**

12 pinuaren familiako zuhaitzen hosto estu, luze eta puntaduna.

Koniferoak dira zuhaitzi ia denak, **orrazt** jeneroko hostodunetz beterik, egundoko zabaleroko eta luzeroko oihan itxi berdeak. **Pello Zabala**
Historik ez baitute, hostoen ordezk milaka **orrazt** muttur baizik, xortenaren alde banatan-. **Patziku Perurena**
Bere ahotsa pinuetako **orrazt** hezeen artera erori zen, bertan hiltzeko. **Agustin Otsoa**
Malfoy, Crabbe eta Goyle zakar pasatu ziren arbola ondolik, ize-**orraztak** alde guztietara barreiatuz. **Iñaki Mendiguren**
Pinaburu, orbel eta pinu-**orrazt** deseginez betetako bidexka. **Xabier Olarra**

13 iparrorrazta.

Ontziburuak ez zidan **orrazta** kutxatik hartzeko betarik eman, ostera. **Edorta Jimenez**
Karta zabal-zabalik zetzan mahaira jo nuen, astrolabioak esandakoa haraxe aldatzeko, **orraztaren** bitartez. **Edorta Jimenez**

14 buru orrazt ik buru.

15 etxe orrazt ik etxe.

16 gari-orrazt ik gari 15.

17 haize-orrazt kanpandorreetan-eta kokaturik, haizearen norabidea adierazten duen tresna, metalezko atal birakor batek osatua.

Lehenbizi asmatu zuten meteorologia alorreko tresna, haizearen norabidea, haizeen nondik norakoa seinalatuko zuen **haize-orrazta** izan zen. **Pello Zabala**
Benetako Elizaren kanpandorreko **haize-orrazteko** oilar bihurturik. **Xabier Olarra**
Eta, jakina, **haize orrazt** bat ere behar zen, eta hari loturik, anemometroa, haizearen abiada neurtuko zuena. **Pello Zabala**
Katua zitzaion **haize-orrazt**, katua euri-iragarpen. **Pello Zabala**

18 ipar orrazt ik iparrorrazt.

19 kate-orrazt ik kateorrazt.

20 orrazt-buru

Hamabi aldiz piztu zuen gailua, kale osoan geratu ziren argi bakarrak urrutiko bi **orrazt-buru** txiki haiek izan ziren arte: berari begira zegoen katuaren begiak, alegia. **Iñaki Mendiguren**
Etil merkaptanoa (mofetak duen substantzia kirastu bat) oso kontzentrazio txikian detektatzen da: **orrazt-buru** baten neurriko tanta bat aski litzateke Houstongo Astrodomoko milioi bat metro kubikoak usain horretaz betetzeko. **Irene Aldasoro**
Haren bi begi beltz zanpatuak, **orrazt-buruak** ziruditenak, begira zeuzkan, adi-adi. **Lopez de Arana**

21 orrazt harri iman harria.

Jakiteko ea diamantea egiazkoa den, hartzen da **orrazt** -harria, hau baita orrazta bereganatzen duen marinelen harria. **Aurelia Arkotxa**
Diamantea egiazkoa eta birtuteduna baldin bada, **orrazt-harriak** ez du orrazta bereganatuko. **Aurelia Arkotxa**
Bidaiaz aspertua / Jakoberen makila // bi globo / **orrazt harria** / esfera bi / eta astrolaboa / badakartza. **Aurelia Arkotxa**

22 orrazt zain ik orrazt zain.

23 orraztetik harisup_1 adlag ipar buru batetik bestera. ik beherago 25.

Denen buru, zer erranen ote du Sirven-ek? Zernahi gauza badakiela, denak salatuko ote ditu **orraztetik hari**? **Herria**
Xehetasun horiek oro, **orraztetik hari**, Mathiasek zekizkien. **Daniel Landart**

Xehetasun horiek oro, **orratzetik hari**, Mathiasek zekizkien. Daniel Landart

24 orratzetik harisup_2 adlag ipar gai batetik bestera igaroz.

Solas batetik bertzera, **orratzetik hari**, bakoitza zertan ari den kondatzera heltzen dira. Eneko Bidegain

Eta **orratzetik hari**, lagun batekin zerbait proiektu lantzea erabaki genuen. Eneko Bidegain

25 orratzetik harira ipar orratzetik hari, buru batetik bestera. ik gorago 23.

Lasserre departamendu buruak, esku aldaketa horren esplikatzeko **orratzetik harira**. Herria

Abokatak alabaina, **orratzetik harira** irakurri duenean "Natura 2000" araudia, ez du nihun giza eskubideen aipamenik aurkitu. Herria

Lasserre departamendu buruak, esku aldaketa horren esplikatzeko **orratzetik harira**. Herria

26 paparreko orratz ik orratz 11.

27 sorgin orratz ik sorgin.

28 tximist orratz ik tximistorratz.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buru orratz (4); **erlojuaren orratz** (4); **etxe orratz** (17); **etxe orratz bat** (3); **haize orratz** (4); **orratz kutxako** (3); **paparreko orratz** (6); **sorgin orratz** (4)

orratza sartu (3); **urrezko orratza** (3)

erloju orratzak (3); **erlojuaren orratzak** (4); **etxe orratzak** (12); **ordulariaren orratzak** (3); **orratzak mugitu** (3); **orratzak sartu** (3)

etxe orratzaren (3); **orratzaren begitik** (5)

etxe orratzen (9)

orratzetik hari (6); **orratzetik harira** (4)

orratzain *(corpusean orratz-zain soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren orratzain agertzen da) iz*

Gorrotorik eta ageriko pasiorik gabe mintzatzen zen Zamaria, burdinbide hila bateko geltokiko **orratz** -zaina balitz bezala. Jon Alonso

orrantzantzeko *izlag* orratzaren antzekoa.

Bero sapa egiten du, eta bidaia hasi zuenetik erabakia okerra zela mailukadaka gogorarazi nahi liokeen bizkarreko min **orrantzantzeko** bat du lagun gaur ere. Pako Aristi

orrantzontzi *(orobat orratz ontzi; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren orrantzontzi agertzen da) iz* orrantzentzako ontzia.

Esate baterako, edonork erakutsiko dizu Bargotan aziak gau bakar batean, **orrantzontzi** batean gordeta zituen galtzagorrien laguntzarekin, eraiki omen zuen etxea. Martin Anso

Belaun azpi odolduak ez zituen batere sentitzen; bi **orratz** -ontzi ziren bere bularrak. Anton Garikano

orraxtatu, orraxta, orraxtatzen da/du *ad adkor* orraxtatu.

Atea emeki-emeki zabalduz, mirailaren aitzineko alkian jarria, bazekusan lur honetako andereetan politena, ile luze urreztatuen **orraxtatzen** ari zela. Aurelia Arkotxa

Kantatzen zuen gure amak oihu batean, altxatu eta gero, ile oraindik bustia **orraxtatzen** zuen bitartean. Fernando Rey

Uneoro haurrak garbitu, **orraxtatu** eta bero-bero edukitzea zuen kezka. Fernando Rey

orrazee ik orrazi.

orrazi *(orobat orraze g.er.) 1 iz* elkarren ondoko hortz mehez osaturiko tresna, ileak bereizteko eta apaintzeko erabiltzen dena.

Eguerdian, lanetik itzuli, garbitu, alkandora eta zapatak aldatu eta **orrazi** busti batekin ilea orraztu dudalarik, ahizpengana joan gara. Urtzi Urrutikoetxea

Gure etxeko **orraziari** hamar hortz baizik ez zaizkio geratzen eta. Josu Zabaleta

Poltsatik **orrazi** handi bat atera, mutila makurtzera behartu eta bizpahiru pasada bizkor eman zizkien lasto itxurako ile bihurriei. Alberto Ladron Arana

Erretzen ari zen, liburu lodi bat besapean, eta bere bakero-galtzen atzeko poltsikotik **orrazi** berde bat ageri. Joxe Austin Arrieta

Peterrek sirenen **orrazi** bat eman zion Wendyri. Julen Gabiria

Arreba Ernestinak ekarri ditu konketa, **orrazi** estu bat eta ozpina platertxo batean. Itziar Otegi

Marfilezko **orrazi** bat harturik, presaka orrazteari lotu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Nirea den kareizko **orrazi** bat alkandorako sakelan duela. Koldo Izagirre

Plastikozko **orrazi** batez hautsa prestatu eta saltxitxa tamainako lerroak sudurreratzen zituen. Karlos Zabala

2 irud/hed

Gizon txikiak zerumugaren amaieran begiztatu du Manhattan hegoaldeko etxe-orratzen luze mehar mailakatua, **orrazi** irregular baten segida hautsi hura. Harkaitz Cano

Orrazi estuagoa behar du, inondik ere, irudiari barik hizkuntzari pasatu behar zaiona. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan)

Axenariok lehen **orrazi** -kolpean hartu du aurrea. Itziar Otegi

- Chillidaren haize- **orrazi** heroikoak eta era berean Schanabel-en kitcha, premodernia eta posmodernia aldi berean. Joseba Zulaika

Rosiek apain- **orrazi** bat ipini berria zuen bere ile beltzezko mototsean. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urrezko orrazia (7)

haizeen orrazitik (7)

orrazkera *iz* orrazteko era, ile apainduen itxura.

Hizketa modua, janzkera, **orrazkera**... Anjel Lertxundi

Orrazkera aldatu du. Eskarne Mujika

Horretarako, dantzari soineko garbi bat jantzi, **orrazkera** apaindu, zilar doratuko gerriko bat lotu, eta hartan ahoa eta eskutokia metal berekoak zituen sastagai bat ipini zuen.

Patxi Zubizarreta

Gero eta gehiago baliatzen zen dendaurretako kristalez **orrazkera** edo jantziak doi bat txukuntzeko. **Patxi Zubizarreta**

Orrazkera di-da batean desegin zitzaion. **Fernando Morillo**

Emakume beltzen **orrazkerak** ederresten zituen gehien. **Lutxo Egia**

Gripea daukan pertsonaren **orrazkera** bezain angustiosoa. **Unai Elorriaga**

Metro gutxira, tipo heldu bat zegoen, akolitoen **orrazkerarekin**. **Lander Garro**

Neska jeans batzuk zeramatzan soinean [...] eta **orrazkera** guztiz aldatua zuen. **Javi Cillero**

Baldokietan itsatsia zeukan ilea nola airatu zuen ikusirik, pentsa zitekeen **orrazkera** zuela ardura bakar. **Joxe Austin Arrieta**

Olgak bere Pompador **orrazkera** gizona zegoen lekurantz makurtu zuen. **Lopez de Arana**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizonak buruko soilune hasi berriak **orrazkera** landu batez estaltzen zituen. **Juan Martin Elexpuru**

Inoiz **orrazkera** berriren batekin azaltzen banaiz, gaitzespeneko aurpegia jarriz begiratzen didate denek. **Josu Zabaleta**

Orrazkera berriak ongi ematen ziola erratekotan egon nintzen, eta ez bakarrik egia zelako. **Aingeru Epaltza**

Ez daitezela apain **orrazkera** nabarmenez, urrez, harribitxiz edota soineko aberatsez. **Elizen arteko biblia**

Betaurreko biribilak zituen gizonak eta antzinako **orrazkera**. **Unai Elorriaga**

Beste Larsson bat zen: rastafariar **orrazkera** zuen, eta urte eta eskarmentu gutxiago. **Berria - Kirola**

Heure adatsa leun bikaina **orrazkera** tamalgarri batez bilduko dun. **Joxan Elozegi**

Henna beltzak, guk arreata jartzen diogun kaleko norbaiten **orrazkera** jakin batek. **Harkaitz Cano**

Txairo ageri zen bere postuan, apain-apaina, **orrazkera** ezin korapilatsuagoak buruan zituela. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Buru handi eta gorria deigarria zen bere ume **orrazkeraren** aldean, marra eta guzti. **Urtzi Urrutikoetxea**

Emaztegai **orrazkera** txit altua zuen, laranja lore adarrez goratua, eta irribarre egiten zuen bere panpin ahoarekin, begiak argi, ordeko betileak tente eta luzeegi, masailak argizarizko. **Karlos Zabala**

Une hartan, ahizparen ile-**orrazkerari** begira zegoen Bain andrea, kizkur-kizkurra eta artatsuki marroi-kolorea. **Mirentxu Larrañaga**

4 irud/hed

Eta, hala ere, egileak originalari beste **orrazkera** bat eman beharko dio inprimategira igorri aurretik. **Txema Ramirez de la Piscina**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orrazkera berriak (3)

orrazketa iz orraztea. ik orraztaldi.

Egunero dutxa ederra eta **orrazketa** apaina. **Gotzon Garate**

Kementsuago ekin zion **orrazketari**. **Patxi Zubizarreta**

Orduan baliatu zen gakoaz: ahotik hartu zuen, eta ahoa zabalik geratu zen, zabalik eta mutu, harik eta **orrazketa** bukatu zuen arte. **Joxe Austin Arrieta**

Mutturak goxatu eta adixkidetzeko asmotan, **orrazketa** lanak bukatzean Maribelgana makurtzen da Mikel, muxu eman nahiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 eremu bat xehe-xehe arakatzea.

Goiz partetik, Foru Poliziak eta Polizia Nazionalak hasitako **orrazketak** azken frankotiratzaileekin akabatzea lortu duela esan du Gobernuko bozeramaileak. **Aingeru Epaltza**

Gero, ibarrera ihes egin, eta han agertu zen ostera, lur-**orrazketarako** izendaturiko zenturia faxisten buruan. **Juan Garzia**

3 idazlan bati buruz mintzatuz, zuzentzea, azken ikutuak ematea.

Hitzegirik ez dut erabiltzen sekula, ez bada, azkenean, **orrazketarako**. **Ana Urkiza**

Giza genomaren zirriborroari egingako azken **orrazketen** inguruan galdetu diogu. **Berria - Gaiak**

Ala ere, nik uste dut ez dutela lan batzuek beren kutsua galduko, **orrazketa** puskaren bat egiñez. **Koldo Zuazo**

Telebista izaten ari den bilakaera kontuan hartuta, gidaliburuak **orrazketak** behar zituen eta eduki berrien azterketa gaineratzea. **Berria - Harian**

orraztaldi iz zerbait orrazten den aldia. ik orrazketa.

Kabinete, arkitekto, bulego eta egitura frankok parte hartu ondoan azken **orraztaldiak** eman dituzte egun hauetan oraino, anartean bilkura andana bat eginik auzo gune desberdinetan, anitz auzotarren aitzinean. **Herria**

orraztatu, orrazta, orraztatzen 1 da/du ad ipar orraztu.

Zakuak hartzen, *Nouvel Obs* besapean plegatzen eta biloak **orraztatzen** segitu nuen, emozioaren aztaparrek lardaskatua. **Itxaro Borda**

Txoko ohartu zen Kerguelen komisarioak ez zuela **orraztatzeko** astirik ere ukan. **Itxaro Borda**

Baginituen guk bizpahiru Lafitte eskola emaiterat heldu zelarik: bazen batzuetan Lafitte iluna: sotana bera zinta gibeletokotz aintzin erdi trebeska ezarria, bera gaizki **orraztatua** edo batere, betaurrekoak (lunetak) lanbrotuak, gauaz lo guti egina edo halatsu orobat. **Herria**

2 irud/hed

Gainera, haize gazituak **orraztatzen** dituen neska eta mutiko pollit, lerdan eta beltxuak miresteko ezinbesteko aukera ukanen duzu! **Ramuntxo Etxeberri**

Maianak Frantxuaren zetazko zaia **orraztatzen** zuen. **Itxaro Borda**

Blanchadia gelditu da bakarrik, iparrak **orraztatzen** duen porroskaz betezko hondartza. **Aurelia Arkotxa**

3 idazlan bati buruz mintzatuz, zuzendu, azken ikutuak eman. ik orraztu 5.

Oroz gainetik Euskal-Herri osoaren historia, lau liburua ja agertuak, bosgarrena, hemeretzigarren mendeaz, **orraztatzen** ari helduden ekainean plazaratzeko. **Herria**

Jesu Kristo gure Jaunaren laguntzarekin ezartzen dugularik hemen erran dena eta urrunago erranen den guztia, Erromako Eliza Ama Saindu Katolikoaren eskutan, berak **orrazta** eta zuzen dezan. **Piarres Xarriton**

Argitaratuak nituen liburuxkak berrikustea eta, marrazkiturik neuzkan beste zenbait lan **orraztatzea**, argitaratzea eta, azken eskuztatze baten ondotik uztea. **Piarres Xarriton**

Gobernuak dauka aldiz lege berriak ez duela gauza handirik kanbiatuko, egina dela bakarrik 1952-an bozkatu legearen gaurkotzeko eta nolazpait **orraztatzeko**, arte huntan kanbiamentu frango izan delakotz mundu zabalean. **Herria**

orraztatzaile iz testuen zuzentze eta azken ikutuak emate lanak egiten duen pertsona.

Liburu hunen **orraztatzaileak** hautu bat egin du idazki horietan, gerlaren alderdi frango erakutsiz, orduko begiekin ikusiak, gerlaren aldeko eta kontrako iritziak, han jendea

nola bizi zen, euskadunek elkarri jokabideak hartu zituzten, batzuen eta bertzen sufrimenduekin... **Herria**
Kantu berri horren **orraztatzailea** : Maixan Arbelbide heletarra. **Herria**

orraztate iz orraztea.

Abendoaren 2 eta 3 an, herriko xahar etxean, ile mozteak eta **orraztateak** eginen dituzte prezio merkean. **Herria**
Bagdadeko iparrean **orraztate** bipil bat egin beharrez ari dira egun hautan, sekulan baino gehiago, amerikano tropak. **Herria**

orrazte iz testuen zuzentze eta azken ukituak emate lana.

Forma geroxeago dator, **orrazte** lanarekin. **Ana Urkiza**

orraztu, orraz, orrazten 1 da/du ad orraziaren edo kideko baten bidez bereizi, leundu edo apaindu. ikorraztatu.

Orraztu ere ispilurik gabe **orrazten** naiz, baina hala ere ondotox dakit zernolako itxura dudana. **Joxe Austin Arrieta**
Orraztu ere egin nintzen, denbora galtzearen hain zuzen. **Joxe Austin Arrieta**
-**Orraz** nazazu, ai! **orraz** nazazu; horrek sendatuko nau; **orraztu** egin behar naute. **Josu Zabaleta**
Gero, **orraztu**, ilea xingolaz lotu, eta jaietako soinekoa jantzi zuen, senarra bizi zenean erabiltzen zuena. **Jose Antonio Mujika**
Bakero-galtza beltzetatik orrazia hartu eta **orrazteari** ekin zion. **Joxe Austin Arrieta**
Gizonezko asko zegoen burua brillantiaz **orraztuta** eta jaka urdin gurutzatuz jantzita. **Ramon Saizarbitoria**
Ez da sekula garbitzen ez **orrazten** ez ezer. **Koro Navarro**
Bakeroz jantzitako eta ilea dozenaka txirikorda bihurrietan **orraztua** zuen neska bat. **Koro Navarro**
-Eta bestea -esan zidan, gako-orratza hortz artean, motots kaxkagorria **orrazten** ziharduela-, ikusia duzu. **Joxe Austin Arrieta**

2 (ile edo kideko bat osagai zuzena dela)

Sakelako orraziaz **orraztu** du ilea, armairu haundiko ispilura hurbildu gabe. **Pello Lizarralde**
Aita ohean etzanda egoten zen, ilea **orraztu** gabe, begirada galduta. **Joseba Sarrionandia**
Eskuaz **orraztu** dut bere ile gorria, eta beste eskuarekin beste zeozer heldu dut. **Joseba Sarrionandia**
Joanesez begiak igurtzi zituen, bi eskuez ilea **orraztu** zuen. **Felipe Juaristi**
Florak ile bustiak **orraztu** zituen hatzekin. **Oskar Arana**
Emazteari begiratzen zion; ilea **orraztua** zuen ordurako, soina kortsearen barruan estu, apain-apaina goitik behera, betiko moduan. **Karlos Zabala**
Erdi-loaren ez-titan neskatoaren ile luze sakabanatua ukitzen ari zenean, hura **orraztuko** balu bezala, loak hartu zuen. **Ibon Urribarri**
Apain-apain jantzita zegoen, ile kizkurak ardura handiz **orrazturik** zeuzkan. **Karlos Zabala**
Eurokopian Greziak behera bota ditu, ordea, orain arteko mito handiak, eta Nedveden urrezko tximak **orraztu** ere egin ditu. **Berria - Kirola**

3 (adizlagunekin)

Tipo betaurrekoduna eta ondo **orraztua**. **Sonia Gonzalez**
Horixe izan zen tipo ondo **orraztuak** entzun zuen azkena. **Sonia Gonzalez**
Jaka eta galtza grisak eta atorra zuria soinean, ile urdin eta sarria atzeraka **orraztua**. **Pello Lizarralde**
Catherine atean zegoen, ilea harroki **orraztua**, ezpainak distiratsuki gorrituak. **Iñaki Zabaleta**
Ilea patxadaz **orraztu** berria zuen, eta janzkia kontuz eskuilatua. **Patxi Zubizarreta**
Oso txukun eta gustu onez **orrazturik** zeuzkaten belarrondoko bizarrak. **Jose Morales**
Hantxe, ohe ertzean eserita, apain **orraztua** goiz-goizetik. **Karlos Zabala**
-Bai, bai -ihardetsi zion Nestok, Marco, moxala, gogotik **orraztuz** -, erretorearenak ez, ordea! **Josu Zabaleta**
Zaldiak txukun-txukun **orrazturik** zeuden. **Jose Morales**

4 irud/hed

Berak eta bere taldeak gudu-zelaia **orrazten** zutenean, beren lana zen zauritu konfederatuak bereiztea hildako konfederatuetatik. **Anton Garikano**
Eguzki orban zabalak zitu bizian **orraztu** du belardia. **Pello Lizarralde**
Aurrera zihoan gaua, orduak leun **orrazturik**. **Anjel Lertxundi**
Mateok baloia **orraztu** eta bigarren zutoinean errematatzeak aukera izan zuenean. **Berria - Kirola**
Eta Santosen jenio txarra **orraztu** behar zuen. **Unai Elorriaga**
Waits ahotsa ere bada, alkoholak **orraztutako** ahots ikaragarri adierazgarria. **Berria - Kultura**
Sindikatu horren ustez, eurek hitzartu duten irtenbide bera izango da, baina «**orrazturik**». **Berria - Ekonomia**

5 idazlan bati buruz mintzatuz, zuzendu, azken ukituak eman.

Bikain egin du editore lana: testuak **orraztu**, zuzendu, iradokizunak egin... **Berria - Kultura**
Moldiztegi probak **orrazten** dituen idazlea balitz moduan. **Koldo Izagirre**
Ibonek euskara aldetik **orraztu** zuen eta hirurok sinatu genuen. **Ana Urkiza**
Hara, nik Sokrates Lakes dialogoan ontsa ezagutu arren, ez nekien olerki baten **orraztera** apaldu zenik! **Itxaro Borda**
Liburuan jatorrizko testua jaso dute faksimilean, eta baita testua bera, txukundua eta **orraztua**. **Berria - Kultura**

6 (era burutua izenondo gisa)

Ile **orrazturik** beheraka elur malutak eta euri tantak erortzen zitzaizkion. **Joxemari Iturralde**
Den alerik bikainenak **Ostots orraztua** duela izenburu, eta beste batek *Igeltzuzko elektrikara* eta beste batek *Axaxas mlö*. **Juan Garzia**
-Neskaren ile solte urrezkoaren edertasun **orraztu** gabea. **Anjel Lertxundi**

7 (era burutua izen gisa)

Zure **orraztua** ez zaio gaizki etorriko... **Joan Mari Irigoien**
Berak tinbreari behetik sakatzen zionean, amak hiltegitirako antxumeari legez begiratu eta azken **orraztua**, *un dernier coup de peigne*, ematen zidan, azken **orraztua** emateak ez zuela merezi pentsatuko balu bezala. **Harkaitz Cano**
Bob artzaina bere bulegoan zegoen, idazmahaian eserita, ustez hurrengo goizean eman behar zuen predikuari azken **orraztua** ematen. **Oskar Arana**

8 orraztearren adlag orrazteko.

Sabeth berri orrazten, ilea bustita dauka, burua zeharka goraturik, hartara hobeto **orraztearren**. **Joxe Austin Arrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxien 3 aldiz agertzen direnak)
orrazteari ekin zion (3); **orrazteari utzi** (3)
ile gorriak orrazten (3); **ilea orrazten** (6); **orrazten eta orrazten** (3); **panpina orrazten** (4)
ilea orraztu (12); **orraztu eta orraztu** (4)

atzeraka orraztua (3); atzeraka orraztua (3); atzerantz orraztua (5); azken orraztua (3); ilea orraztu (12); ilea orraztu eta (3); ondo orraztua (5); ongi orraztua (5); orraztu bitartean (3); orraztu du (4); orraztu egin (7); orraztu ere (3); orraztu eta (18); orraztu eta orraztu (4)
atzeraka orraztuak (5); ondo orraztuak (5); tipo ondo orraztuak (3)
orrazturiko ile (3)
atzeraka orraztuta (3); ondo orraztuta (3)

orre ik ore.

orri 1 iz lauki formako paper zatia. ik paper; ik beherago 6.

Asmoa agertu zion **orri** bat luzatuz. **Joxemari Urteaga**

Orri bat erdibitu, eta zatieta bat eskaini zidan arkatzarekin batera. **Ramon Saizarbitoria**

Egiaztatutako paper lodi marraduneko 387 **orritan** idatzita zegoela, hasierako 379 **orriak** makinaz idatziak eta gainerakoak tintazko lumaz eskuz idatziak. **Bego Montorio**

Europako, Ameriketako Estatu Batuetako eta mundu osoko egunkari nagusien lehen **orriko** albiste handia izan da ETArean aldarrikapena. **Beria - Harian**

Orriak zabaldu eta lagun zahar baten errelatoa dator. **Pako Aristi**

Bizi-bizi begiratzen zien **orriei**. **Fernando Morillo**

Hastapenean, aldizkariak lau **orri** zituen. **Herria**

Destolestu, lisatu eta berriro irakurri zuen eskuz idatzitako **orria**. **Joxemari Urteaga**

Debekaturik zegoen, orobat, **orrien** artean seinalgailu bat uztea bera, edo **orriaren** ertza tolestea. **Juan Garzia**

Orria hurbilagotik ikertu zuen begiak nabarmen txikiagotuz. **Josu Landa**

Agenda txiki bat atera zuen zorrotik, **orri** bat kendu eta bi zatitan moztu zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Oharrez josiriko lauhun eta hogeita hamazazpi **orri** dira. **Jon Alonso**

Kartoi puska luzeko bat erabiltzen zuen gizonak [...] irakurtzen ari zen liburuan **orria** seinalatzeko. **Imanol Zurutuza**

Boswell-en liburua hamar **orritara** mugatuko balitz, espero izatekoa zen arte-lana genuke horrenbestez. **Juan Garzia**

Orriak gillotinatutako gabe dauzka. **Anjel Lertxundi**

Gauerdia zen azken aleko azken **orria** pasatu zuenean. **Alberto Ladron Arana**

Orriak pasatu eta bekokia zimurtu zuen Aita Butlerrek. **Irene Aldasoro**

Ohar koaderno baten **orriak** pasatzen ari zen, eta keinu bitxiak egiten zituen. **Koro Navarro**

Baten batek esan lezake, dena dela, erraz beteko ditudala **orriak** besteen aipua horren maiz eta oparo kopiatuz gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2003ko egutegian otsailari dagokion **orrian**. **Joxerra Garzia**

Ihes egin zuen liburutik **orri** batek. **Jon Muñoz**

Hainbat **orri** itsatsiz, taula bat egin zuen, eta horman zintzilikatu. **Jon Muñoz**

Orriak atzera zorroan sartzekoa egin zuenean. **Jon Muñoz**

Eskuizkribuan bi **orri** falta dira. **Jose Morales**

Lehen **orria**, zenbakirik gabe joan daiteke. **Askoren artean**

Bere esku astunak zapaltzen dituen **orrietatik** xurgaturiko erudizio neurrigabea. **Monika Etxebarria**

Berrogei **orriko** poema bat irakurri nahi izan zidan behin batek. **Koro Navarro**

Eskuz idatzitako gutun bat, zortzi **orrikoa**, iritsi zen ia berehala hegazkin bidez. **Koro Navarro**

2 (izenondoekin)

Orri zuriek koldartu egin naute. **Eider Rodriguez**

Orri zuri asko eta, oso noizik behin, zenbait lerro, tinta gorritz eginak. **Monika Etxebarria**

Hurrengo **orri** garbia ere jiratu zuen idatzeko toki bila, baina alde batera utzi zuen, azkenez, bolaluma. **Hasier Etxeberria**

Atorra urratuaren azpitik atera eta luzatu zizkidan **orri** zimur eta zikinak. **Jon Alonso**

Buru estaltzeko egunkariko **orri** zabal bat hartu eta kapelatxo bat egin besterik ez daukazu. **Pako Aristi**

Esku artean estutzen nuen **orri** horixka mordo bat baizik ez zen existitzen. **Monika Etxebarria**

Tipula-paperezko **orri** nimitan. **Juan Garzia**

Gurutzez jositako **orri** laukidunetan. **Jon Muñoz**

Bikiek luzatu zituen **orri** tolestua hartu zuen. **Jon Muñoz**

Orri marradun bat zen, eskolako koaderno batetik erauzia, dudarik gabe. **Monika Etxebarria**

Paperezko poltsa bat ireki eta bertatik **orri** solteek osaturiko multzo bat ateratzen du. **Jon Alonso**

-Morroi baten gorpua agertu duk toki honetan - **orri** zirriborratua eman zidan eskutara-. **Aingeru Epaltza**

Norberaren identitatea islatzen duen web **orri** pertsonalizatua, alegia. **Txema Ramirez de la Piscina**

Orri hegalarrietan Mola jeneralak, Bizkaian harria harri gainean ez zela geratuko, mehatxu egiten zuen. **Edorta Jimenez**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Gogoan du berorrek atzoko **orri**-bonbardaketa? **Orri**-oinek ohar esanguratsu bat erantsi zuen. **Edorta Jimenez**

Zerbait ondo ez dabilelako sortzen dira beti misterioak; **orri**-ertz bat estuegia, ibai bat luzeegia, hatz bat mehegia delako, edo ate bat itxita dagoelako, edo... idazmakinarako **orri**-paperak eta idazmakinarako zintak. **Jon Muñoz**

Xerrenda hori batez loturik aurkitu nuen **orri**-sorta hura. **Txillardegia**

Maria Sarak eskua paratu zuen **orri**-metatxoaren gainean. **Jon Alonso**

Mary Anne liburua hartu zidan eskuetatik, eta **orri**-miran hasi zen bera ere. **Bernardo Atxaga**

Bakoitzaren portareari eta edan-urritasunari buruzko oharrek ere ipini zituen Sobakevitxek, **orri**-bazerrean. **Jose Morales**

Inprimaketarako neurritan ebakitako paper **orri** mordo bat ipini genuen, eskuragarri. **Txillardegia**

Zolari buruz gehiago jakin nahi duenak bertan aurkituko du web **orri** zerrenda gutziz interesgarria. **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bi urte lehenago irakurtzen hasia eta xingola **orri**-bereizlea hamalagarren orrialdean zeukana. **Jose Morales**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Ibar Ezkerreko boxeolari gazte eta etorkizun handikoek osatuko dituzte soirée honetako beste borrokaldiak" izaten zen esku-**orrietan** azaltzen zen testua, letra xeheegiz gainera. **Josu Landa**

Paper-**orri** puska batean nahi adina leku izango zuen bere demostrazioa zehatz-mehatz idatzeko. **Jon Muñoz**

Gutxi-asko dozena pare bat gutun-**orri** ziren, emakume baten letra ezezagun eta urduriaz presaka idatziak. **Eduardo Matauko**

Parropia **orria** edo aldizkaria baloratu. **Herria**

Tolosako jatetxe baten menu-**orriak** zioen bezala, "ziska-miskak". [Joxerra Garzia](#)
Besapean fardeltxo bat zekarren, azpiko arropa zikinena, egunkari-**orri** batean bildua. [Fernando Rey](#)
Egunkari-**orrien** hotsak eta hormako erlojuaren tiki-takak bakarrik eteten zuten isiltasuna. [Anton Garikano](#)
Hasteko, falangista baten afiliazio **orria** eman zidaten. [Edorta Jimenez](#)
Sarrera-**orria** betetzerakoan, errepikatu eta letraz letra eman behar izan zituen izen-deiturak. [Juan Garzia](#)
Salaketa-**orri** bat bete genuen, bestela aseguruak ez zizulako ezer ordainduko. [Oskar Arana](#)
Espainiako Immigrazio Legearen arabera, etorkinek erroldatze **orria** bi urtetik behin berri behar dute. [Berria - Euskal Herria](#)
Azaldu zuten, 6.000 argibide **orri** helaraziko dizkiete etorkinei ingelesez, frantsesez, txineraz eta arabieraz idatzita. [Berria - Euskal Herria](#)
Eskara-**orri** bat pasatu zidan. [Anjel Lertxundi](#)
Hiritik joan nahi dut bihar; ekarri ditut eroste-agiriak eta eskabide-**orria**. [Jose Morales](#)
Baina izeba-osabek ez zidaten baimen-**orria** izenpetu. [Iñaki Mendiguren](#)
Gonbidapen-**orriak** bidean dira dagoeneko. [Lopez de Arana](#)
Ikasketa-**orri** distiratsua aurkezten ahal zuela fraideenekoak bukatzean. [Aingeru Epaltza](#)
Ez zen publizitate-**orri** handia, txarteltxo xoil bat baizik. [Jon Muñoz](#)
Idazkariak -azkarra bera- gauza bakarra lortu ahal izan zuen: Txitxikoven zerbitzu-**orri** zikina suntsitzea. [Jose Morales](#)
-Ea puntta bat -hatz bat sartzen saiatu nintzen, aluminio-**orria** pixka bat altxatuta. [Juan Kruz Igerabide](#)
Laboratoriora itzulirik, irazki-**orri** bat hartu, bi puntutxo gorri egin bi laginekin, eta estufan ipini nuen, 80°C-ra. [Juan Garzia](#)
Block-**orri** sorta mardul bat atera, eta satisfazio ozenez irakurri zuen: [...]. [Juan Garzia](#)
Esaldi bakar batek, esaldi soil batek -a zer esaldiak, ordea!- argitzen zuen Abelen kalkulu-**orria**: [...]. [Jon Muñoz](#)
Norbaitek ixtea ahaztu zuen leiho-**orri** pintatu berri baten ertzak egingo zion noski zauri hori. [Juan Garzia](#)
Leiho kristalaz bestaldekik estaltzen zuen plastiko-**orria** astintzen baitzuen. [Juan Kruz Igerabide](#)
Liburuaren kortesia-**orrian** datozten datuen arabera, poloniarren Egunerokoak ia hamar urte daramatza herriko liburutegian. [Anjel Lertxundi](#)
Legeak ez ditu behartzen zerrendak hautes-**orriak** bozka-bulego guztietara eta hautesle guztien etxeetara igortzera. [Berria - Euskal Herria](#)
Bozka-**orriak** Euskal Herrirako inprimituko dira. [Berria - Euskal Herria](#)
-Zigarro-paper **orri** bat zen, eta hau idatzia zuen Léak han: [...]. [Jon Muñoz](#)

6 orrialdea.

Arthurren aipatu leienda gorpuzten duela frogatzeko, ikus ahapaldi guziak *Kantuz* (Elkar, 1980) kantu liburuan, 83-84 **orrietan**. [Patziku Perurena](#)
Eten txiki bat dauka emaztea irakurtzen ari den nobelak 98. **orrian**. [Imanol Zurutza](#)
Ikus, horren erakusgarri, 13. **orriko** aipua. [Piarres Xarriton](#)
Gaur egunkarietako lehen **orrian** albiste bat zetorren: [...]. [Pako Aristi](#)
Orri gutxi haiek iragaitzaz pasatu, eta, azken **orrian**, Diputazioko balkoi nagusiaren argazkia topo, bandera gorri-horia esekita zeukala. [Inazio Mujika Iraola](#)
Interneteko **orriak** jartzen ez zuena du idatzia bere liburuan, labur bezain garbi. [Xabier Etxabe](#)
Orriko 20 txelin ordaintzen zioten. [Juan Garzia](#)

7 ate eta kidekoetan, hutsunea irekitzen eta ixten duen zatia edo zatietako bakoitza.

Goian, ate bat zabaldu zen korridorean: **orriek** kurrinka egin zuten. [Agustin Otsa](#)
Trenkadaren kontra jotzera bidali nuen ate **orria**. [Josu Zabaleta](#)
Ahotsa indarge entzun zen bi **orriko** atearen beste aldetik. [Lopez de Arana](#)
Atari ilun, bi **orrikoaren** aurrean, atezain unformatu sendo-sendoa zegoen zutik. [Matías Múgica](#)
Andresek ate-**orria** zabaldu zuen -kurrinka garratza egin zuen gontzetan- eta bebarru zabal batean sartu zen. [Josu Zabaleta](#)
Leiho irekita topatu zuen, haizeak leiho-**orriak** dantzatu eta lantzean behin danbatekoa emanaz. [Joxemari Urteaga](#)
- Aldagelan zegoen, hiru **orriko** ispilu baten aurrean. [Matías Múgica](#)

8 hostoa.

Bil-bil eginiko paper puska zabaldu, menda-**orriak** atera handik, eta luzaroan usaindu zituen. [Jon Muñoz](#)
Ekologisten arabera, ordea, Kyotoko Ituna ez sinatzeagatik Washingongo eta Camberrako buruek sentitzen duten lotsa estaltzeko pikondo **orria** da bilera. [Berria - Gaiak](#)
Abaxik, lertxun-**orria** baino urduriago, hitz magikoak esan zituen lapurren altxor-zuloaren aurrean. [Anjel Lertxundi](#)
Pinu-**orri** horien gainean gozatu zen Byron Teresaz -"gazela bat bezain herabea", deitu zion Byronek-. [Oskar Arana](#)
Tabako-**orri** bat paperean bildu, ertz biak busti eta batu, eta zigarro bildu berria eskaini zidan. [Anjel Lertxundi](#)
Itsasoan tarte bat zegoen, ezpal, kaxoi, laranja-azal eta aza-**orrizko** geruza batez estalia, ontziaren eta nasaren artean igarotzean estu-estu egin zena. [Lopez de Arana](#)

8a baldintza-orri ik baldintza.

9 bide orri ik behegero 10.

Horretaz gain, Zapaterok «bide-**orri**» bat, «errepide mapa» bat omen dauka. [Berria - Euskal Herria](#)
Autodeterminazio eskubidea gauzatu ahal izateko bide **orri** batean adostu behar gara indar autodeterministen artean. [Berria - Euskal Herria](#)
Zapaterok, hemendik aurrera jarraituko duen «bide **orriaren**» berri emango dio Ibarretxeri. [Berria - Euskal Herria](#)
Gobernuko presidentea Kongresura joaten denean bide-**orria** argitasun gehiagorekin azalduko du. [Berria - Euskal Herria](#)
Marra lodi bat bide **orrian**. [Berria - Euskal Herria](#)

10 ibilbide orri ik gorago 9.

EAeko etorkizuneko ingurumena guztien artean diseinatzeko ibilbide-**orria**, alegia. [Berria - Euskal Herria](#)
EAeko etorkizuneko ingurumena guztien artean diseinatzeko ibilbide-**orria**. [Berria - Euskal Herria](#)
Batasunari, berriz, «ibilbide komuna egiteko ibilbide-**orria**» eskaintzen dio Hirukoak. [Berria - Euskal Herria](#)

11 orri laurden (orobat orrilaurden g.er.) iz ohiko orriaren laurdenaren tamaina duen orria.

‘Tiempo de inquietud y revolución: 127 **orrilaurden**, oharrez beterikoak. [Berria - Kultura](#)
- **Orri laurden** bat zegoen mahai gainean -esan zuen-, baina desagertu egin da, ez dakit non dagoen; hain da ustela nire jendea! [Jose Morales](#)
Ikusi zuen Pliushkinen bere **orri laurdena**. [Jose Morales](#)
Paper **orri laurden** bat hartu eta neure hondamendiaren sententzia idaztera prestatu nintzen. [Pedro Alberdi](#)

12 orri-pasa adlag orriak pasatzen. ik orripasa.

Eskuetan hartu eta **orri-pasa** hasi zen. [Anjel Lertxundi](#)
Orri-pasa ari zen egunez egun, hilez hil, begiak zabal-zabalik, haur batena zirudien irribarre batez. [Anjel Lertxundi](#)
Bat zabaldu, besteari **orri-pasa** egin, eta nik idatzitako in margineko oharra, edo azpimarrak, edo zuzenketa tipografiko soilak erakusten aritu zait haiek guztiak nire delituaren froga garbitzat harturik. [Anjel Lertxundi](#)
Greziar literaturaren historia bat **orri-pasa** irakurtzen ari nintzela. [Juan Garzia](#)

13 orri-pasaka adlag orriak pasatzen.

Ez du edozein tratatu **orri-pasaka** gainbegiratzea besterik, eta oroitzenak mordoka datoz: [...]. [Juan Garzia](#)

Orri-pasaka irakurri liburua, eta hantxe aurkitu zuen Jonathanek erantzuna. **Jon Muñoz**
Amak erantzuten zion: "Bai nik ere!", eta moda-aldizkariak ikusten zituzten **orri-pasaka**. **Fernando Rey**

14 orri-pasan adlag orriak pasatzen.

Janzterakoan edo **orri**-pasan ateratako hotsek gurasoak esnatuko zituztela iruditzen zitzaidan. **Anjel Lertxundi**

Ez zait entretenimendurik faltatu atzera-aurrera dabilen jendea aztertzen, haien bizitzei buruzko nondik norakoak asmatzen, liburu erosi berrien **orri-pasan**. **Anjel Lertxundi**

15 web orri ik web.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bide orri (5); **egunkari orri** (5); **egunkariko orri** (6); **esku orri** (7); **eskuz idatzitako orri** (4); **idatzitako orri** (10); **liburuen orri** (4)

orri artean (8); **orri asko** (6); **orri bakarra** (6); **orri bat atera** (4); **orri bat hartu** (6); **orri bat idazteko** (4); **orri biko** (4); **orri kopuru** (4); **orri kopurua** (13); **orri mordo** (4); **orri mordo** (4); **orri oso bat** (5); **orri osoa** (4); **orri pare** (5); **orri pasa** (22); **orri pasa hasi** (6); **orri pasaka** (7); **orri pasan** (5); **orri pila** (4); **orri solteak** (6); **orri sorta** (9); **orri zuri** (19); **orri zuri bat** (7); **orri zuri batean** (5); **orri zuri baten** (4); **orri zuria** (7); **orri zuriak** (8); **orri zurian** (5); **orri zuriaren** (4)

paper orri (19); **paper orri bat** (5); **paperrez orri** (5); **pare bat orri** (4); **prentsa orri** (4); **publizitate orri** (4); **web orri** (57); **web orri bat** (7)

afiliazio orria (7); **azken orria** (7); **baimen orria** (9); **bere web orria** (4); **bide orria** (4); **falangeko afiliazio orria** (4); **kalkulu orria** (4); **lehen orria** (6); **orria eman** (4); **orria hartu** (9); **orria pasatu** (6); **orria pasatzen** (4)

paper orria (4); **web orria** (40)

ate orriak (4); **bozka orriak** (6); **egunkari orriak** (12); **esku orriak** (14); **esku orriak banatu** (5); **informazio orriak** (11); **lehen orriak** (7); **liburuko orriak** (5)

orriak atera (6); **orriak banatu** (14); **orriak banatu zituzten** (4); **orriak banatzen** (4); **orriak bete** (6); **orriak betetzen** (6); **orriak bota** (4); **orriak eta orriak** (14); **orriak falta** (7); **orriak hartu** (4); **orriak pasa** (5); **orriak pasatu** (11); **orriak pasatu zituen** (5); **orriak pasatzen** (27); **orriak pasatzen hasi** (10); **orriak zabaldu** (5)

paper orriak (5); **web orriak** (35)

azken orrian (10); **bere web orrian** (18); **lehen orrian** (24); **lehenengo orrian** (6); **orrian sartu** (5); **web orrian** (88)

orriaren behealdean (4); **orriaren bidez** (5); **orriaren gainean** (5); **web orriaren** (17); **web orriaren bidez** (4)

orriari begira (4); **orriari orri** (4)

egunkari orrien (5); **orrien artean** (18); **orrien gainean** (4); **web orrien** (5)

bere orrietan (6); **lehen orrietan** (5); **liburuko orrietan** (7); **orrietan agertzen** (4); **orrietan zehar** (5)

lehen orriko (6); **orriko txostena** (4)

ondoko orrietan (4)

orrietara ekarri (5)

lehen orrira (4)

orri orri (20)

orrialde 1 iz orri baten, eta batez ere liburu baten orrien aldeetako bakoitza; orrialde batean idatziriko testua. **iplama**.

Hogei bat **orrialde** ziren, hainbat ataletan banatuak, bakoitza bere sail eta azpisailekin, denak letra beltzez, kurtsibaz, azpimarrez, tarte xuriez eta ordenagailuak gisako lanei ekartzen dizkien gainerako miragarriez hornituak. **Aingeru Epaltza**

Lau **orrialde** ditu haren aurreneko memorandumak. **Edorta Jimenez**

Nire alabari buruzko txostena bi **orrialdekoa** da. **Berria - Gaiak**

AGko lege ordezkarriak aurkeztutako 62 **orrialdeko** helegitea izan zuten mahai gainean magistratuek. **Berria - Harian**

Guztira 320 **orrialde** direnez, bukatu egingo dut. **Josu Zabaleta**

"Izkribuak hamaika **orrialde** ditu, holandarra deitzen den tamainakoak... **Anjel Lertxundi**

-Hemen daukak -esan zidan horretan osaba Felipek, **orrialde** bakarreko paper bat eskuetaraten zidalarik-. **Txillardegi**

Hiru **orrialde** irakurri zituen. **Unai Elorriaga**

Gero, poemaren lau edo bost **orrialde** berrirakurri zizkidan. **Juan Garzia**

Umetan irakurritako liburu bakoitzeko **orrialde** bakoitzaren lehen eta azken lerroa esaten zituen. **Jon Muñoz**

Txostena lau **orrialde** lerro estuez polito beteek osatzen dute. **Edorta Jimenez**

Alfred North Whiteheadek idatzi zuen bezala [...] Platoni **orrialdearen** behealdean eginiko oharren segida bat baino ez da Europako filosofia osoa. **Askoren artean**

Orrialde hauek zer kontatzen didate? **Jon Muñoz**

Orrialde erdi; ez dut ezer ulertu. **Unai Elorriaga**

Biografia eder bat, eta **orrialde** bete eskela egunkarian. **Iñaki Segurola**

Jihad Islamikoak eta Ansar Al Zauhiri talde islamistek hil egin zituztela adierazi zuten herenegun Interneteko **orrialde** banatan. **Berria - Mundua**

Horrelakoetan beti orrikatu ohi zuen liburua aipaturiko **orrialdeen** bila. **Joxe Austin Arrieta**

Baina egia da, baita ere, horiei leku egiteko zientziari buruzko beste albiste batzuk desagertu egin direla egunkarien **orrialdeetatik**. **Berria - Gaiak**

Orrialdeak pasa eta pasa aritu zen, eta halako batean garrasi egin zuen. ik orri 12. **Koldo Izagirre**

Irakurri 44. **orrialdeko** pasarte. **Alberto Ladron Arana**

Frantsesez idatzitako liburu argi eta interesgarria (270 **orrialde**, 16 euro). **Herría**

64 **orrialde** ditu eta bi idazleren oharrek agertzen dira bertan. **Berria - Kultura**

Fonologia sistema batez oro har jabetzeko ik eraskinare 67. **orrialdea**. **Isabel Arrigain**

2 (izenondoekin)

Aparatua eseki, eta, urduri, **Orrialde** Horietan bila hasi da. **Iban Zaldúa**

Orrialde zuriaren ondorengoetan, hasteko eta behin, Duranek 1939ko apirilaren 28a arte Valentzian segitu zuela dio. **Edorta Jimenez**

Bat-batean **orrialde** zuri-zurian islatzen den argia. **Iñaki Iñurrieta**

Orrialde zahar erabili baten gibelaldean. **Aingeru Epaltza**

Pentsamendu lore hori batez apaunduriko **orrialde** satinatu batean. **Karlos Zabala**

Bizkor itzuli zen Cris, hiruzpalau **orrialde** fotokopiatu zekartzala. **Urtzi Urrutikoetxea**

Orrialde bakarreko adierazpen laburra. **Berria - Harian**

Orrialde osoa neska baten aurpegiak hartzen du. **Pako Aristi**

Luze aritu dira irati-telebistak, **orrialde** osoak behar izan dituzte egunkariek. **Iñigo Aranbarri**

Bi **orrialde** bete Ekuadorren gainean. **Iñigo Aranbarri**

Denouiex jaunari buruzko informazioa irakurri nuen, **orrialde** betekoa. **Joxerra Garzia**

Armeniarene eta Sobiet Batasunaren arteko gerran kronikari ibili zen, eta **orrialde** erdiragarriak utzi ditu idatzirik. **Edorta Jimenez**

Asteazkenean, **orrialde** interesgarria egunkari honetan. **Iñigo Aranbarri**

Horrek **orrialde** interesgarri eta harrigarri asko lortzeko bidea eskainiko dizu. **Askoren artean**

Lau **orrialde** ia ulertezinetan. **Karlos Zabala**

Ordenagailuaren aitzinean orekak egiten zituen, prentsaren miazte azkenerainoan, adiskideekin txiste-trukean edo **orrialde** pornoetan. **Aingeru Epaltza**

Coalition casualty count erakundearen Koalizioako biktimen kontaketa **orrialde** elektronikoa gatazkan hildako atzeritarren datuak aurki daitezke. **Berria - Harian**

Kaliforniako politikaren **orrialde** zikin bat da, Tom Mooneyren trikimailua bezain zikina. **Fernando Rey**

Guadalajara totalitarioen historiako **orrialde** beltza izango duk, behin eta betiko. **Edorta Jimenez**

3 (izenlagunekin)

Plastikozko **orrialde** batean, jatearearen berezitasunen argazki koloretsuak aurkeztuak ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Ez dut batere eragozpenik aitortzeko baliozko **orrialde** batzuk lortu dituela. **Juan Garzia**

Horra zer irakur daitekeen lehen **orrialdean**. **Xipri Arbelbide**

Egunkariak aurreneko **orrialdean** eman zuten berria, letra lodiz idatzitako izenburuekin. **Oskar Arana**

Ikusi denez, aurreko **orrialdeetan** hausnarketa bat egin nahi izan dut XX. mendeaz. **Pello Salaburu**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bidean, eskuetan neraman **orrialde** sorta distraituki zabaldu eta irakurtzen hasi nintzelarik, bihotzak palasta egin zidan, lehen esalditik ohartu bainintzen zeinen ezagun egiten zitzaidan ahots hura. **Joxean Agirre**

Ohar solteak soilik idazten dituzte, iruzkin xume diruditenak klasikoan **orrialde** ertzetan. **Joxean Agirre**

Ordu erdi darama egunkariak partidari buruz dakarren **orrialde** zatia behin eta berriro irakurtzen. **Edorta Jimenez**

Funtsean, datu hauek ematen ditugu: egilea, obra eta **orrialde** zenbakia. **Iñaki Arranz**

Gaia: Zientziaren filosofia; **orrialde** kopurua: 108. **Berria - Kultura**

Arrazoimen hutsaren kritika ohiko moduan aipatzen da 1781eko argitaraldiaren orrien zenbakiei aurretik A hizkia gehituz eta 1787ko bigarren argitaraldiaren **orrialde**-zenbaketari aurretik B hizkia erantsiz. **Ibon Uribarri**

Aurtengo azokarako bi **orrialde**-markatzaile diseinatu ditu Mattinek. **Berria - Kultura**

- Horretarako darama irakurri ezin duen egunkari **orrialde** puska hori. **Koldo Izagirre**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egunkari **orrialde** zaharrak, poetaren ekitaldien berri ematen dutenak. **Edorta Jimenez**

Gordeta neukan egunkari **orrialdea** bilatzeari ekin nion. **Bernardo Atxaga**

Hartzen du egun hartako egunkaria mahai gainetik, zabaldu kirol **orrialdeetan**, eta Mikel Arreseri buruzko erreportajea erakusten dio. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Meteorologia **orrialde** eta azaleko mapetan abisatzen hasi diren hotzalditxoaz jabetu ote haiz, bada? **Pello Zabala**

Tokioko egunkari bateko kultura-**orrialdearen** erdi-erdian, argazki bat ageri zen. **Jon Muñoz**

Prentsa **orrialdeak**, alegia. **Edorta Jimenez**

6 *web orrialde* ik *web*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egunkariko orrialde (4); lehen orrialde (4); liburuko orrialde (6)

orrialde bakar (3); orrialde bakarreko (4); orrialde bakoitza (3); orrialde bakoitzak (3); orrialde bakoitzean (4); orrialde berezi (3); orrialde berri (4); orrialde berri bat (3); orrialde bete (7)

orrialde elektronikoa (3); orrialde elektronikoan (3); orrialde eskaini (3)

orrialde idatzi (5); orrialde irakurri (5); orrialde izango ditu (3); orrialde jakin (3); orrialde kopurua (21)

orrialde oso (12); orrialde oso bat (9); orrialde osoa (6); orrialde osoak (8); orrialde sorta (6)

orrialde zuri (9)

web orrialde (11); web orrialde batean (4)

lehen orrialdea (6); lehenengo orrialdea (3); orrialdea pasatu (5); orrialdea pasatzean (3); orrialdea zuri (3); web orrialdea (6)

azken orrialdeak (4); barruko orrialdeak (4); kirol orrialdeak (3); lehen orrialdeak (5); orrialdeak begiratzan (3); orrialdeak irakurtzen (5); orrialdeak pasa (5); orrialdeak pasatu (3)

azken orrialdean (12); bere lehen orrialdean (3); bigarren orrialdean (6); lehen orrialdean (35); lehenbiziko orrialdean (3); lehenengo orrialdean (5); orrialdean ageri (3); orrialdean ikusi (3); orrialdean zabaldu (3); orrialdean zabalik (3); web orrialdean (7)

azken orrialdearen (3)

orrialdeen artean (6); orrialdeen bila (3)

aurreko orrialdeetan (9); azken orrialdeetan (6); azkeneko orrialdeetan (3); barruko orrialdeetan (3); hurrengo orrialdeetan (5); lehen orrialdeetan (8); ondoko orrialdeetan (7); web orrialdeetan (3)

orrialdeko aldizkari (3); orrialdeko autoan (4); orrialdeko dokumentu (5); orrialdeko dokumentua (3); orrialdeko dokumentuan (3); orrialdeko lana (5); orrialdeko liburu (29); orrialdeko liburua (6); orrialdeko liburuxka (5); orrialdeko obra (4); orrialdeko txostena (4)

hurrengo orrialdera (3)

lehen orrialderako (3)

orrialdetako liburu (4)

azken orrialdetan (3); edozein orrialdetan (5); orrialdetan zehar (7)

lehen orrialdetik (5); lehenengo orrialdetik (4); orrialdetik gorako (3)

orrialdez orrialde (11)

orrialdeka *adlag* orrialdez orrialde.

Itun Berriaren ale bat iritsi zitziola eskuetara eta, asko izanik ezin baitzuten anaiek osorik eduki, **orrialdeka** zatitu eta banatzen omen zien denek ikas zezaten, batak besteari trabarik egin gabe. **Askoren artean**

orrialdeño *iz adkor* orrialdea.

Aide batetik beraz, **orrialdeño** bat Beskoitze herriaren historiari eta zernahi xehetasun Elgarrekin batasunaren biziari. **Herria**

orrialdero *adlag* orrialde guztietan.

Eta halaxe **orrialdero**, liburu guztian. **Bernardo Atxaga**

orribiko *iz* bi orriko gauza.

Hala ere, ez dago **orribikoa** iako liburu erotikorik. **Berria - Kultura**

orridun 1 *izond* orriak dituena.

Luze-zabalean, berriz, bata besteari begira bi triklinio jartzeko modukoak izan behar dute, inguruan lekua utziz, eta ezker-eskuin leiho **orridunetarako** baoak izango dituzte, hain zuzen ere, etxe barrutik berdeguneak ikusi ahal izateko leihoetan barrena. **Santiago Iruretagoiena**

• 2 *izlag* hostoduna.

Atera mendira eta ekarri handik olibondo, pinu, mirto, palmondo eta **orridun** zuhaitzen adarrak, etxolak egiteko. **Elizen arteko biblia**

orrika ik **kurrika**.

orrikara 1 iz lertxuna, makalaren antzeko zuhaitz azal-leuna.

Eta, zuhaitz bat aukeratzeko anean, lertxuna, makala, zurzuria, **orrikara**, orri dantzaridun hori hautatu zioten: hostoak orlegitik hori-horixka tonu guztietara pasatzen diren zuhaitzak hirurak ere. **Pello Zabala**

Borroka garrantzitsuren bat irabaztean, bere burua koroatzen zuen lertxunaren zein **orrikararen** zarba eta hostoekin. **Pello Zabala**

2

Lertxun **orrikarazko** koroak aurkitu izan dira Mesopotamiako hilketetan ere: Kristoz aurretiko 3000 urte lehenagokoetan. **Pello Zabala**

orrikatu, orrika, orrikatzen du *ad* orri-pasa aritu. ik **orripasakatu**.

Horrelakoetan beti **orrikatu** ohi zuen liburua aipaturiko orrialdeen bila. **Joxe Austin Arrieta**

Liburua **orrikatu** eta gainbegirata, garbi zegoen lan politiko bat zela hura, anarkismoaren proselitismoa egiten zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Julenek liburua **orrikatu** zuen. **Fernando Morillo**

orri iz apirila.

Maiatzak berez, ezaugarrietako bat izan du beti, eta lurralde gehienetan, batez ere nordikoen laterri zabal horietan, udaberriaren martxako **orriarena**, zuhaitzen hostoena, alegia. **Pello Zabala**

orriaurden ik **orri 11**.

orripasa iz orriak pasatzea. ik **orri 12**.

Inguruetako xeble guztiak hurbildu zitzaizkidan, hala marihuana-erretzaileak nola burutik nahastutakoak edo salgai zeuden aldizkarietan **orripasa** bat egiten uzteko eskatzen zidaten eskale edo eskaleondoak; baina gainerako jendea -lantokietakoak, paseatzaileak- aldian behin soilik azaltzen zen, eta ez hain justu liburu bat erostera, baizik eta, gehientsuenetan, telefonoz deitzera. **Bernardo Atxaga**

orripasakatu, orripasaka, orripasakatzen du *ad* orri-pasa aritu. ik **orrikatu**; **orritzatu**; **orritzatu**.

Astiro joaten ginen Po kalean barrena, eta txitean-pitean egiten zuen aitak gelditzera, bidera irteniko katu guztiak ferekatzera, trufa guztiak usnatzera eta bigarren eskuko liburu guztiak **orripasakatzena**. **Juan Garzia**

orriratu, orrira(tu), orrritatzen du *ad* orrira ekarri.

Paragrafo batzuk idatzi zituen; gero, bi une berdin ez daudelako tesi latza **orriratu** nahi izan zuenean, Aurelianoen luma gelditu egin zen. **Juan Garzia**

orriska ik **orrixka**.

orrits iz otordu ona. ik **oturuntza**.

Urte berritze inguruko **orrits** eta festa pagano askotan, neska mutilek elkarri hur azalak jaurtizeko ohitura ere zabaldua omen zen Pirinioz alde bietan, amodiorako jolas edo amu gisan. **Patziku Perurena**

Guk bezelaxe, suak pizten zituzten kaletan, gainetik jauzika arima garbitzeko; eta beren **orrits**, kanta eta dantza zaharrez ospatzen zuten egun handia. **Patziku Perurena**

Gogora ekarri baitzion itsas zolari ostutako trofeoa, Neptunoren **orritsa**, Bacok sorbaldatik zintzilik daukan mahats tortoa (koadroren batean), leopardo larru eta gorri eta urrez jauzika doazen zuzien artean... **Anton Garikano**

orritsu *izond* orri ugari duena. ik **hostotsu**.

Haizearen putzak oihan **orritsua** astintzean, orriak hoska eta adarrak karraska egiten duten antzera gertatzen da. **Xabier Amuriza**

orritxo 1 iz orri txikia. ik **orrixka**.

Egunero irakurtzen zuen Arantzazuko egutegiko **orritxo**. **Joan Mari Irigoien**

Orritxo idazten igaro dut hileta ondorena. **Anjel Lertxundi**

Orritxo hori eskuratu ez dutenek papertxo batean *Euskal presoak Euskal Herrira* berek idatz dezaketela zehaztu zuen Xabi Larralde. **Berria - Euskal Herria**

Carabeneroen postuko sarjentua den Valerio Chiesa jaunak adierazi digunez, kartazal beltzaren barnetik **orritxo** zuri bat atera dute. **Joxemari Urteaga**

Hotel aurrera iritsi eta ordainketaren agiria eskatu diodanean, marmarka bete dit **orritxo**. **Berria - Kultura**

On Camillok poltsikotik **orritxo** inprimatu berri bat atera eta ozenki irakurri zuen: [...]. **Koldo Biguri**

2 (hitz elkartuetan)

Hotelera iritsi bezain aguro apuntatu zuen club haren helbide **orritxo**. **Joxemari Iturralde**

Horretarako, liburutegian, aspaldi banatu zituzten esku- **orritxo** batzuez baliatu ziren: Ebakuaziorako Oinarrizko Gida. **Karlos Linazasoro**

3 hostotxo.

Hamalau gizon biluzik, bele ile luzea mototsean bildua, bakoitza bere azken botilaren batekin, bere koka **orritxoekin**. **Joseba Sarrionandia**

orritzar iz tamaina handiko orria.

The Guardian-en **orritzarrei** buelta erdia eman eta irakurtzeari ekin dio ostera ere Fionak. **Lutxo Egia**

orrixka (orobat orriska) iz orri txikia. ik orritxo.

Haietako batean ezagutu zuen Santos, kide komunista batzuekin oktabillak banatzen, eta nola hurbildu zitzaion **orrixka** urdin bat eskainiz. **Josu Landa**

EZKIA ikastolako bulegoa harritu da, ikastolaren irudia baliatua izan baita hauteskundeetako **orrixka** politikoetan. **Herria**

Paper haiek nire gelan zeudela azaltzeko ez zen zaila izanen bestelako hamaika istorio sinesgarri topatzea: guzti-guztiek burbuilak bezain huts eta hutsal lirudikete **orrixka** zimurtu hauen aurrean. **Monika Etxebarria**

Hala, ikus dezakegu nola sortzen diren toles batzuk, **"orrixka"** batzuk, eta aurki nola bata bestearen gainean labaintzen diren, nola kiribiltzen eta desitxuratzen diren, organoak sortzeko. **Juan Garzia**

orritzatu, orritzka, orritzkatzen du ad orri-pasa aritu. ik orripasakatu.

Gutxiago haren jokabideak hizkuntz politika espainolean; hizkuntzaren eta herri gogoaren artekotasuna nola tratatzen duen **orritzatu** soil baino. **Joxe Azurmendi**

Garaian zebilen informazioa nolabait sumatze aldera, Entziklopedia handi hori **orritzka** genezake. **Joxe Azurmendi**

orritzatu, orritzta, orritzatzen du ad orri-pasa aritu. ik orripasakatu.

-Ea, ea -esan zuen, nire makinizkribua **orritzatzeaz** batera-. "Juanito Muñagorriren bizitza". **Xabier Mendiguren Elizegi**

ORRO (orobat orroa g.er., orroe g.er. eta orru g.er.) 1 iz lehoiaren eta beste zenbait basapiztiren oihu ozena. ik marraka; makakorro.

Bibiren intziriak **orro** bihurtu ziren. **Paddy Rekalde**

Saltinbankiak eta akrobatak, hurbiltzen zirenen belarriak sorgortzen beren orkestren **orro** eta uluekin eta beren antzeppenaren deidadarrekin. **Karlos Zabala**

Belatxinga baten **orroaren** antzeko oihu bat entzun zen publikoartetik. **Anjel Lertxundi**

Kirxak, **orro** gisako bat eginik, erantzun zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Oihu beldurgarri bat, amorru ezinduzko eta desira sukarrezko **orro** bat entzun zen eroetxean. **Josu Zabaleta**

Eta futbol zelaiako ikusleen **orroen** hotsa akaso helduko zitzaie, igande arratsaldeetan leihoak zabaltzera ausartu izan balira. **Berria - Harian**

San Mameseko harmailetan sarritan entzun da lehoien **orroa**. **Berria - Kirola**

Eztandaren **orroa** mendi guztietan entzun zen. **Julen Gabiria**

Jarraian, **orro** txiki bat jaulki zuen, izuzkoa. **Karlos Linazasoro**

Plazara bildutakoon **orroak** gero eta gartsuagoak dira. **Anjel Lertxundi**

Orro zenbaitek konpreniarazten digute ez dela iririk han ez da mintzatu behar ez eta bururik itzuli. **Marzel Etxehandi**

Zale sutsuen **orroak** apaldu zituen Errioxakoak laugarren minuturako. **Berria - Kirola**

2 (izenondoekin)

Ez zegoen duda-izpirik haren **orro** ikaragarrien esanahiaz. **Iñaki Mendiguren**

Gogoan daukat itzartu egin naizela, ziur aski hurbileko sirenen **orro** izugarriengatik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Orro sakon bat entzun zuen urrun-urrun, sendoa eta luzea, bere oinpeko lurraren erraioletatik aterako bailitzan, eta handik gutxira lurra mugitzen hasi zen eta etxeak erortzen. **Pello Salaburu**

Ateak kirrinka egin zuenean, **orro** luzeak iritsi zitzaizkien belarrietara. **Iñaki Mendiguren**

Ray zen mundu osoan nire **orro** ederra berdin zezakeen pertsona bakarra. **Koro Navarro**

Gehienetatik oihu lazgarriak edo **orro** basak jalgitzen ziren kanpora. **Aingeru Epaltza**

Orro lokaztua egin zuen zoruan buelta erdia emanik. **Koldo Izagirre**

Gaixo kabala prestua! Zinez ere, nork ez entzun halako begi eder lañoen eta **orro** gozoaren mintzoa! **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orro -hotsa gorgarria zen belarrietan... **Iñaki Mendiguren**

Nolabaiteko **orro** -hotsa egin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ondoren, dardarka hasi ziren gizenaren ezpain lodiak eta amairik gabeko **orro** andana entzun zen bazter guztietan. **Joxan Elozegi**

Inguruko ume guztiak izututa, beldurtuta, **orro** olde haren kontura. **Paddy Rekalde**

-Hustu egin zituan hilobiak, eta beztiduradun hilak **orro** -garrasika zebiltzan hango karriketean. **Juan Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sintonizatu gabeko irrati **orroen** gainetik egiten du oihu. **Eider Rodriguez**

-Hobe izango dut ez itzaltzea -esan zuen oihuka, motor-**orroaren** gaindik. **Mirentxu Larrañaga**

Ai ene, zer ekintza, hain trumoi-**orro** ozenez iragartzen dena? **Juan Garzia**

Mehatxu nabarmen gisa, itsas **orro** gaitza zetorkidan latapetik. **Txillardegi**

Itsas **orro** trinko kezkarri hartan, ez genuen txintik ateratzen: ez berak, ez nik. **Txillardegi**

Euskaldunak, kidea aldamenen erortzen ikustean, urkatzen zen kabala **orro** latza bota zuen. **Itxaro Borda**

Askatasun **orroa** zen, esnatzaile eta beharrezkoa bere indar itsuan. **Joseba Zulaika**

Handik hiru egunera, BBCKo kazetari baten izu **orroa**: Falujan, bi milatik gora ziren estatubatuarren bonbapean hildakoak. **Iñigo Aranbarri**

Eta, bat-batean, kantu-**orro** haiek min egin zidaten. **Daniel Landart**

5 (adizlagun balioko esapideetan)

Are harrituago begi parean nuenarekin: niregandik hiru-lau urrats urrundurik, birao eta **orro** zebilen noble gaztea. **Aingeru Epaltza**

Halako batean, oilanda gazteak eta komuneko ur-jauziak, oihu eta **orro**, atea itxi, eta alde egin dute gauaren zuloan barna. **Anjel Lertxundi**

Bi egunean oihu eta **orro** egon zen min izugarriagatik. **Askoren artean**

6 orroz adlag orro eginez.

Bi malkorren artean idi bat **orroz**. **Patziku Perurena**

Patzikuk, **orroz**, aulkitik jauki eta ezkerreko eria luzatu zuen: [...]. **Itxaro Borda**

Ontsa irri egin genuen, eta esku zartak ere ukan zituen gure Caron apezak, hainbeste non mitralletadun S.S. kankaila bat jiten baitzaigu **orroz** "Ruhe Silenz" -"Zergatik" galdegina nion. **Marzel Etxehandi**

-Orain ehun urte, gure arbasoek espainolei buru egin zieten eta haizatu zituzten! -adierazi zuen beste batek, **orroz**. **Elena Touyaru**

7 orro batean adlag orro eginez.

Hagridek motor gainera igo eta motorra piztu zuen hankaz; **orro batean** airera igo eta gau ilunean desagertu zen. **Iñaki Mendiguren**

Arras poliki hasiak zirelarik berotzen beren finalerdian, **orro batean** utzi du partida Larrecheak ixterretik minez, zartadura batekin. **Herria**

Gela osoa ari zen, **orro batean**, "Bejetariano, Bejetariano" egin ahala guztian oihukatzen. Raimundo Silva lehenbailehen ezkututzen ez bada, hor agertuko da Costa, motorra **orro batean**, atera iristen denean frenuari hondoraino sakatuz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire jauntxo **orro batean** hustu zen, nire hestea haziz betez. **Juan Martín Elexpuru**

7 orro egile izond

Belarriak sorgortu zitzaizkidan arte ez nuen burua biratu, eta orduan argi itsugarri batek biluztu ninduen bide erdian: ni besarkatzera heldu zen munstro **orro**-egilearen begiak. **Aingeru Epaltza**

Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena, jendea lurrera botatzen duena, [...] haize hiltzaile, ziztugile, intziri egile, **orro egile** hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? **Imanol Unzurrunzaga**

8 orro egin

Peeves! - **orro egin** zuen Filchek, amorrualdian luma lurrera botaz-. **Iñaki Mendiguren**

Koldar alaena! - **orro egin** zuen-. 'Viva España Tradicionalista!' **orroa egiten** genuen. **Koro Navarro**

-Freskatzen ari du kanpoaldean - **orro egin** zuen Matson jaunak-. **Mirentxu Larrañaga**

-Nola ausartzen zara! - **orro egin** zion, noizbait izandako txakur tzarraren ahotsarekin bat-batean-. **Iñaki Mendiguren**

Haien buru gainean, tren jaso batek **orro egin** zuen. **Lopez de Arana**

Kamioiak **orro egin** zuen bihurgune batean. **Koro Navarro**

Orain basiliskoa! egin zuen **orro** jendetzak txalo zaparraden artean. **Karlos Linazasoro**

Zoruaren gainean kontrolik gabe, gurpilak zoratuta lurrean eutsi ezinean, **orro egiten** zuen motorrak. **Rafa Egiguren**

Kanoiak biharamunean egin zuen **orro** lehen aldiz ziudadelaren kontra. **Aingeru Epaltza**

-Non? -gidariak **orro** Charlyri. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egin zuen **orro** (6); **itsas orro** (3); **jendearen orro** (3); **oihu eta orro** (3); **orro artean** (3); **orro bat** (4); **orro batean** (9); **orro egin** (52); **orro egin zion** (3); **orro egin zion** (8); **orro egin zuen** (31); **orro eginez** (6); **orro egiten** (15); **orro egiten zuen** (7); **orro izugarri** (3)

itsas orroa (10); **itsasoaren orroa** (3); **lehoiaren orroa** (4); **orroa dagi** (5); **orroa egin** (4); **orroa eginez** (3); **orroa egiten** (8); **orroa egiten zuen** (3); **orroa entzun** (6); **orroa entzuten** (4); **sekulako orroa** (3)

leonen orroak (3); **orroak eginez** (3); **orroak egiten** (3); **orroak entzun** (5); **orroak entzuten** (6); **sekulako orroak** (3)

orroaz ari (3); **orroaz hasi** (3)

orroa ik **orro**.

orroaka ik **oroka**.

orroatu, orroa(tu), orroatzen da *ad* orro egin.

"Ni naiz artzain ona" **orroatzen** zuen baina ez genion hitzik ere sinesten. **Itxaro Borda**

-Ez bedi eskapa - **orroatu** zuten denek batera, armen mehatxupean baten batek esku-burdinak ukarrietan hertsatu zizkiola. **Itxaro Borda**

Bukatu zuenean, galtzak altxatzean **orroatu** zion: [...]. **Itxaro Borda**

Makinen mehatxutik haren baztertzeo eta motore urrina zerien zaku meta gurintsuetan pausatzen zuten Rafa, lo egin zezan, sirenak azken orena **orroatu** artean. **Itxaro Borda**

orroe ik **orro**.

orroeka ik **oroka**.

orroigarri ik **oroigarri**.

orroimen ik **oroimen**.

orroit ik **oroit**¹.

orroitarazi ik **orotarazi**.

orroitarri ik **orrotarri**.

orroitgarri ik **oroigarri**.

orroitharri ik **orotarri**.

orroitmen ik **oroimen**.

orroitu ik **oroitu**.

orroitzapen ik **oroitzapen**.

orroitzapentxo ik **oroitzapentxo**.

orroka (*orobat orroaka g.er., orroeka g.er. eta orruka g.er.*) **1 adlag** orro eginez.

-Ikusten! -ekin zion Koronelak **orroka** -. **Mirentxu Larrañaga**

Hil nazazue, arren!! -berak **orroka** . **Txillardegi**

Eta, horra, Timnako mahastietara hurbiltzen ari zenean, lehoi gazte bat irten zitzaion **orroka** . **Jose Antonio Mujika**

Ahoa zabalik zuten nire kontra, lehoi harraparien gisa **orroka** . **Askoren artean**

Ruche jauna harrapatuta zegoen; amorruz **orroka** hasteko gogoa zuen. **Jon Muñoz**

Gero, amorruz dardarka eta **orroka** semea zegoen tokira joan zen. **Askoren artean**

Nahiago nuen **orroka** hasi izan balitzait. **Joxan Elosegi**

Izan zitekeen tximua, edo txoria, edo agian basakaturen bat, auskalo zer, arreske edo herio-suhar **orroka**, ezin ba jakin... **Joxe Austin Arrieta**

Gogoratu nahi ditut ilunabar urdin sakonak, egunsentia nagi arrosakarak, hartzak basoan **orroka** gauez. **Oskar Arana**

Bulldog eme zaharra ere, Davidek beretzat hartua duena, **orroka** ari da, indar handirik gabe. **Oskar Arana**

Espressoa **orroka** igaro zen, argi horiz blai. **Lopez de Arana**

Une hartan, fabriketako sirenak **orroka** hasi ziren. **Pedro Alberdi**

Mendia **orroka**, inarosten, burrunban, hondoa jotzen. **Fernando Rey**

Kobrezko eztarri dardaratia atzamar zurrunen kaleetan zehar **orroka** . **Lopez de Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amorruz orroka (3); **esan zuen orroka** (3); **orroka ari** (7); **orroka ari zen** (4); **orroka hasi** (13); **orroka hasi zen** (6); **orroka hasteko** (3); **orroka igaro zen** (3)

orrokari (**3 agerraldi, 2 liburutan**) **izond** orroka aritzen dena. ik **orrolari**.

Hango nagusiak, lehoi **orrokari**; hango epaileak, gauean ehizatuari goizerako hezurrik ere uzten ez dioten otso. **Elizen arteko biblia**

Sendo eta **orrokaria** zuen ahotsa. **Juan Garzia**

orrolari (**8 agerraldi, 7 liburu eta artikulua 1ean**) **izond** orroka aritzen dena. ik **orrokari**.

Eseriak ziren jada beren eserleketuan umeteria **orrolari** harekin bat eginik. **Oskar Arana**

Bertako buruzagiak harrapakina sarraskitzen duen lehoi **orrolaria** bezalakoak dira: jendea irensten dute, altxorak eta ondasunak lapurtzen, alargunak ugaltzen hirian.

Elizen arteko biblia

Beste aldean bi mendi daude, eta horietako batean leize bat, non bizi baita Eszila, munstro gaiztoa eta **orrolaria**, hamabi oin oker eta sei lepo luze dituena. **Juan Kruz**

Igerabide

Bere iparraren xerka, harkaitz eta harritzen artean, bide-ertzeko erreka **orrolariaren**, lasto luzeen eta arekako motore-olioz osatutako aintziren artean. **Lopez de Arana**

Leiho burdin-sareztatu batetik labe **orrolari** batean botilak egiten ari zen gizon bati begira. **Irene Aldasoro**

orrona 1 iz ipar erauntsia; ekaitza.

Batean euriteak emendatzen eta bestean idortek, galerna gaixto eta **orrona** izigarriak ba gero eta usuago. **Herria**

Lehen ereizan dira munduan gaindi haize ta euri **orrona** izigarriak. **Herria**

Indian, Bombay hiriko 15 miliun bizitzaile daukan gunean, izan dira eurite **orrona** haundiak mila bat jende hurbil hil dituztenak. **Herria**

Ameriketean, aspaldian han gaindi ukan duten **orrona** itsusienak alimaleko eremuak zafratu ditu bizpahiru egun barne. **Herria**

Bereziki hango larru-beltzek pentsatu dute Katrina **orronak** funditu dituen herritarrek zuriak izan balire eta ez beltzak, goizago mugituko zela Bush. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orrona izigarriak (3)

orru ik **orro**.

orruka ik **orroka**.

orsai **iz** jokoz kanpoko egoera. ik **offside**.

Harekin ikasi nian dakidan guztia: penalti bat zer den, **orsai** bat -esaten zidan amonak-, baita futbol taktikak ere: WM, 4-2-4... eta auskalo zenbat gauza gehiago. **Joan Mari**
Irigoien

Gaur egunera arte iritsi diren linierra, kornerra, **orsala** eta enparauak ez dira gaur goizekoak. **Iñigo Aranbarri**

orthodoxa ik **ortodoxo**.

ortodokza ik **ortodoxo**.

ortodokzo ik **ortodoxo**.

ortodontzia iz hortzeriako akatsak artatu eta zuzentzea.

Aho-hortzetako osasunaren barnean honako hauek sartuko dira, gutxienez: ahoa garbitzea, **ortodontziak**, enpasteak, periodontzia, exodontzia eta protesiak. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Parkeen jolasten ari diren haur sahararren artean badira hortzetan **ortodontzia** gailua dutenak. **Berria - Harian**

ortodoxia 1 iz eliza baten alderdi nagusiak egiazkotzat hartzen dituen doktrina eta iritzien multzoa.

Une hartan Elizak markatzen zuen nor zegoen heterodoxian eta nor **ortodoxian**. **Berria - Kultura**

Erasmus "eskolastikaren xehetasun lehor eta antzuen" bidetik apartatu zen; Axularrek ez du urrats bakar bat ere emango eskolastikaren **ortodoxiatik** kanpo. **Anjel Lertxundi**

Inkiszioaren labea prest zegoen toki bakoitzean nagusi zen **ortodoxiatik** aldentu nahi zuenarentzat. **Esteban Antxustegi**

Fama da deabru zaharrak metodo berriak darabiltzala Salamancako unibertsitateak sinbolizatzen duen sistema katolikoaren **ortodoxia** zirtzitzeko. **Anjel Lertxundi**

Maimonen jarrera, fundamentalista ez den **ortodoxian** kokatzen da. **Xabier Kintana**

Azken hamahiru urtean **ortodoxia** katolikoaren zaindaria nagusia izan da. **Berria - Harian**

Heresiarka -hereseen buru- jartzen zuen tiara batez burua estalirik sutzarrean erre zuten erlijioaren **ortodoxiaren** izenean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 irud/hed

Balizko gehiengoarentzat, alegia, nagusi den **ortodoxiarentzat**. **Iñaki Heras**

Liberalismoa Mendebaldeko **ortodoxia** zelako, eta komunismoa, berriz, jatorria Mendebaldean izan arren, heresia nardagarria zelako Mendebaldeko begietara. **Iñaki Mendiguren**

Orduan, gaur bezalatsu, **ortodoxiatik** aldentzeko ausardia zuenak bere larrutik ordain-du behar izaten zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ortodoxiaren argiari segika gabilza: Bohr eta abarrena "interpretazio ortodoxoa" da teoria kuantikoan; halaxe deritza, "Kopenhageko interpretazioa" ez ezik. **Iñaki Segurola**

Diskurtsoaren anorexiari buruz ari naiz, ideiak uniformizatzeko eta **ortodoxiarako** joeraz. **Iñaki Heras**

Hara beste seinale bat ikusteko gurean zein diren benetako transgresoreak, eta zein, **ortodoxian** eta territorio komunetan gozo-gozo jarririk, matxinada probable, zintzo eta onargarrietan ari diren epigonoak. **Berria - Kultura**

3 (izenondoekin)

Urteak daramatza gainera **ortodoxia** liberal horrek lanean, bere dogma sendotzen. **Iñaki Heras**

Ortodoxia neoklasikoa, berrogeita hamar urtez bazterturik egon ondoren, berriro itzuli zen teoria ekonomikora. **Koro Navarro**

Kuhnen lanak, ordea, berebiziko iraultza ekarri zuen **ortodoxia** akademikora Marx eta bere lagun Engels-en idatzi asko ez datoz bat "beren jarraitzaileen artean garatu zen **ortodoxia** zurrunarekin". **Askoren artean**

Bruselak **ortodoxia** gogorra apur bat malgutu eta Egonkortasun Ituna biguntzea proposatu du gaur. **Berria - Ekonomia**

4 (hitz elkartuetan)

Moskuk kristau-**ortodoxiaren** gordailuzain bakar eta gotorleku izatearen papera bere gain hartzea Moskuko patriarka-hiri autofeloaaren ezarpenarekin burutu zen K.o. 1589an. **Iñaki Mendiguren**

5 eliza ortodoxoa.

Istanbulen, turkiar lurretan, berek beste izenez deitzen duten sinodo gisa batean bildu dira **ortodoxiako** 42 Eliza buruzagi, herri eta Eliza hauetakoak: Konstantinopoli, Antiokia, Alexandria, Errusia, Errumania, Bulgaria, Serbia eta beste zenbait ttipiagotako patriarka apezpikuburuak. **Herria**

Hau bide luke bere xedea: baketze sendimendu eta jestu batzu erakustea herri hortan Erromaren ganik erdi-bereh dauden **Ortodoxiako** girixtinoeri: ereman eta itzuli nahia omen dio hango Elizari Kazango Ikono taula margodun famatua, aspaldian Vaticanoan zagoena. **Herria**

Ukraina Mendebaldearen abangoardia dela esaten hasi dira, kontuan hartu gabe katolizismoaren eta **ortodoxiaren** borrokagune izan dela herrialdea. **Berria - Mundua**

ortodoxiazale izond ortodoxiaren zale dena.

Oso bisualizatzaile ahaltsu eta sortzailea da Tom, eta, bera bezala, ez da **ortodoxiazale**, bihurri eta txantxazale baizik. **Xabier Olarra**

ortodoxo (orobat *orthodoxa* g.er., *ortodokza* g.er. eta *ortodokzo* g.er.) 1 izond erlijio bateko dogmaren eta dotrinaren araberakoa. (pertsonez mintzatuz)

Areago, judu **ortodoxoen** artean sentsualitatea, sexualitatea, guztiz menderatu eta ezabatu beharreko gauza dira. **Koro Navarro**

Niretzat ez baitzen gutxiago citroñeko neskaren agerraldia, katoliko **ortodoxoentzat** Ama Birjinarena baino. **Joan Mari Irigoien**

Ez du erlijiorik, Jesukristoz trufa egiten du, begirunerik gabe erabiltzen du Jainkoaren izena; ni neu **ortodoxoa** ez banaiz ere, min egiten dit zein ganoragabea, trufaria eta espirituz zein pobrea den ikusten dudan bakoitzeko. **Josu Zabaleta**

Appie Riem **ortodoxo** samarra da; alproja samarra hau ere. **Josu Zabaleta**

Beraz, ez **ortodoxo** ez gaztelazale izanik, Inkiszioaren atzaparretan erortzeko aukera guztiak zituen. **Martin Anso**

2 (bestelakoez mintzatuz)

Hasidismoak, hala ere, oso harrera ona izan zuen herriarengan, giza alderdi barrukoenei eta berezkoenei ematen baitie lehenetsuna, judutasun **ortodoxoaren** ikuspuntu zurrun eta formalagoek ez bezala. **Koro Navarro**

Ettxeko judaismo **ortodoxoa** baino nahiago izan zuen anaia Israel Joshua idazleak ireki zuen biderei jarraitu; Dostoievski, Txekhov, Maupassant, Flaubert eta Tolstoi irakurri zituen. **Berria - Kultura**

Usadio **ortodoxoaren** arabera, gizonetakoekin ezin dute otoitz hau esan. **Koro Navarro**

3 zernahi alorretan ortodoxiarekin bat datorrena. (pertsonez mintzatuz)

Begetariano **ortodoxoentzako** egokiak diren elikagai asko eta asko gustura dastatu ahal izango ditu haragizaleak aurrerantzean. **Edorta Agirre**

Filmean, sobietar **ortodoxo** baten eta Europan erbesteratuta zegoen disidente baten arteko xake partida kontatzen zuen. **Berria - Kultura**

Marxismoaren ezaugarri erlijiosoak azaltzen ditu Schumpeter-ek marxista **ortodoxoen** jarrerari aurka egiteko. **Iñaki Heras**

Baina, liberala izanik, era berean, ez zen liberal **ortodoxoa** izan. **Iñaki Heras**

Seneka, bestaldea, moderatua da, eta posibilista: estoiko **ortodoxoek** ez bezala, ez dio uko egiten diruari, ezta politikatik aldentzeari ere. Markos Zapiain

4 (bestelakoez mintzatuz)

Rio de Janeiron zein Johannesburgen ez zen posible izan garapenari buruzko ideia **ortodoxoa** -hazkunde gisa ulerturiko garapena- gaintzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure idazleak izurriari besteko beldurra hartu dio topikoan, ipuin hutsean edo modako arrunzeria **ortodoxoan** erortzeko aukerari. Patziku Perurena

Berak lortu behar duela neska orgasmoa izatea eta era **ortodoxoan** lortu behar duela, hau da, bere zakilarekin. Luis Elberdin

Ekonomia **ortodoxoaren** arabera. Iñaki Heras

Gobernuek zerga politika **ortodoxoak** ezarri beharko dituzte. Iñaki Heras

Bohr eta abarrena "interpretazio **ortodoxoa**" da teoria kuantikoan. Iñaki Segurola

Egin genezakeela iturri bat (horixe zen aukerarik **ortodoxoena**, jakina), arbola bat, ibai naharo bat, bidegurutze infinitu bat, hilerrri bat, labirinto homeriko bat, edozer gauza.

Karlos Linazasoro

Trinitate plazan, jazz **ortodoxotik** kanpo aritzen diren musikariak nagusituko dira. Berria - Kultura

AMM bezalako inprobisatzaile erradikalen aldean, **ortodoxoagoa** da bere proposamena. Berria - Kultura

Egin genezakeela iturri bat (horixe zen aukerarik **ortodoxoena**, jakina), arbola bat, ibai naharo bat, bidegurutze infinitu bat, hilerrri bat, labirinto homeriko bat, edozer gauza.

Karlos Linazasoro

Paper karratu **ortodoxo** batean, letra maiuskulaz, tinta urdinez. Unai Elorriaga

Burtsaratze **ortodoxoaz** ez dira fio Googlen. Berria - Ekonomia

Formari dagokionez, Linazasorok uko egin dio istorioak modu **ortodoxoan** kontatzeari. Berria - Kultura

5 kristau elizez mintzatuz, XI. mendean Erromatik bereizi ziren Sortaldeko elizen doktrinakoa; eliza horiei dagokiena.

Grezian Eliza **Ortodoxoa** nazionala da. Berria - Harian

Dioniso Trebizondako merkatari bat zen, greziarra sortzez, eta eliza **ortodoxoko** kristaua, gurasoek hala nahita. Felipe Juaristi

Ez Errusiako eliza **ortodoxoak**, eta ezta Errusiako gizarteak ere, ez zuen begi onez ikusten homosexualitatea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiriburu garrantzizkoa da; bertan bizi dira bai probintziako gobernadorea bai eliza **ortodoxo** grekoaren barruti hartako artzapezpikua. Karlos Zabala

Kristau-aroko hogeigarren mendean erromatar legearen zuzeneko oinordekoak Ekialdeko Kristau Eliza **Ortodoxo** eta Mendebaldeko Kristau Eliza Katolikoaren kanonak ziren. Iñaki Mendiguren

Ikuspegi beretik, komunismoa Ekialdeko kristautasun **ortodoxoaren** ordeko ideologikotzat hartu ahal izango litzateke. Iñaki Mendiguren

Bagdadeko Abbastar Kalifaldia piztu egin zen Kairoko Abbastar Kalifaldiaren forman, eta Erromatar Inperioa Mendebaldeko Erromatar Inperio Santuaren eta Kristandade

Ortodoxoan Ekialdeko Erromatar Inperioaren forman. Iñaki Mendiguren

Prozesu beldugarri horretan sartzen dira greziar nazionalistek 1821ean Morean gutxiengo otomandar musulmana suntsitzea, eta gutxiengo kristau **ortodoxo** greziarrak

1922an Anatoliatik saldoan egin zuen ihesa. Iñaki Mendiguren

Hitza abade **ortodoxo** batek hartu du. Edorta Jimenez

Meskietan, sinagogetan edota tenplu **ortodoxoetan**. Berria - Kultura

Atzealdean eliza **ortodoxo** batenak iruditu zitzaizkidan bi dorre kupuladunen silueta-edo ikusten zen, laino artean. Iban Zaldúa

6 (izen gisa)

Israelgo hiri edo herrietan bizi diren palestinarrek ez dutela arazorik izaten bizilagun juduekin, **ortodoxoen** guneak ez badira. Berria - Mundua

Brahmin **ortodoxo** familian sortutako emakume bati dagokion bezala, etxeko eginbeharrak nola kudeatu, horixe erabiltzen zuen maiz gogoan. Gotzon Garate

Prusiako protestante maltzurak, Errusiako **ortodoxo** zismatikoak, eta esker txarreko austriar katoliko zitalak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizon ezkontuak ordenatzen ahal diratea, **ortodoxoen** eta ekialdeko katolikoaren artean agitzen den bezala? Herria

Ekialdeko **ortodoxoen** jatorrizko kantu liturgikoa a capella da, kantu monosilabikoa eta monodikoa, errezitatibo eta salmodioetan oinarritua. Berria - Kultura

7 ez-ortodoxo

Bluesarekin lotura **ez ortodoxoa** duten gaur egungo beste hainbat musikarik ere parte hartu dute zenbait filmetan. Berria - Kultura

Aspergerrek berak aipatzen zuen "adimen autista", tradizioak eta kulturak ia ukitu gabeko adimen mota, haren ustez: ez-konbentzionala, **ez-ortodoxoa**, bitxiro "puru" eta originala, benetako adimen sortzailearen kidekoa. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eliza ortodoxo (4); kristau ortodoxo (9)

eliza ortodoxoa (3); gizarte kristau ortodoxoa (3); kristandade ortodoxoa (3); kristau ortodoxoa (14)

eliza ortodoxoak (3); kristandade ortodoxoak (3); kristau ortodoxoak (6)

ekonomia ortodoxoaren (3); eliza ortodoxoaren (4); gizarte kristau ortodoxoaren (3); kristandade ortodoxoaren (18); kristandade ortodoxoaren gorputz (10); kristau ortodoxoaren (11)

kristau ortodoxoek (7)

kristau ortodoxoen (8)

kristau ortodoxotik (3)

ortofonista iz ahots eta ahoskatze akatsak artatzen dituen pertsona.

Deiaren ostean haurrak oraindik frantsesa ikasteko edo erabiltzeko arazoak baditu, ikastetxeak **ortofonista** baten laguntza eska dezake. Berria - Harian

Aterpetzen dituen pertsonen jarraipena egiteko lau sendagile, hiru ergoterapeuta, **ortofonista** bat, 12 kinesiterapeuta, gizarte laguntzaile bat eta psikologo bat ditu. Berria - Euskal Herria

Emeki haatik, hasiak dira mediku orokorrak teletransmisioak egiten zuzenean beren ordenadoretik, daunatoek eta **ortofonistek** urratsa emekiago egiten dute. Herria

ortogenesis iz ontogenesisia, ontogenia.

Eraketa diskurtsiboak, beraz, ez dira etorkizuneko zientziak, eurak isilpean osatuko diren uanean bertan, oraindik euren buruaz jabetu gabekoak: eurak ez daude, izan ere, mendetasun egoera batean zientzien **ortogenesiarekiko**. Xabier Arregi

ortogonal izond angelu zuzenari dagokiona.

Bukaera **ortogonalek** kontraste bizia eragiten dute zeharka argitutako beira pabesarekin. Berria - Kultura

Planta karratukoa da patioa, bospasei metro luze-zabalean, sei solairutan gora egiten duen prisma **ortogonal** baten negatiboa. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Ez zinen garbi-jator horietakoa, etsai-lagun kolaborazionista sasikoa zinen jendaila buru-zapal **ortogonalarentzat**, eta badakit, maisu, arantza horrek zazpitan zulatu zizula bihotza. Iñaki Segurola

ortogonalitate iz ortogonalna denaren nolokotasuna.

Eragozpena: paralelismoa **ortogonalitatearen** mendean dagoenez gero, ez da, inondik inora, lehen ezaugarri bat. [Jon Muñoz](#)

ortogonalki iz angelu zuzena eratuz.

Alanbre sareetatik aski hurbil eta **ortogonalki**, presoen ohetegiak paraleleki altxatuak zituzten. [Eneko Bidegain](#)

ortografia 1 iz hizkuntza bateko hitzak idazteko arauen multzoa; arau horien ezagutza.

Funtsean, **ortografia**, hitzak grafikoki adierazi ahal izateko hizkuntz erabiltzaileek onartzen duten kodea da. [Lourdes Oñederra](#)

Hizkuntza, kode batek arautua agertzen da; baina kode hori bera, bere aldetik, arau idatzi bat da, erabilera zorrotz bati -**ortografiari** - lotua dagoena. [Isabel Arrigain](#)

Ahoskeraren eta **ortografiaren** arteko lotura. [Lourdes Oñederra](#)

Hizkuntza baten bereizkuntza fonemiko orok du bere isla grafikoa hizkuntzaren **ortografian**. [Lourdes Oñederra](#)

Gaur egun gizon adituek ere hizkuntza eta bere **ortografia** nahasten jarraitzen dute. [Isabel Arrigain](#)

Hizkuntza baten **ortografia** finkatzean berez fonetikan oinarritzen ez diren erabakiak har daitezke. [Lourdes Oñederra](#)

Ortografia egituratzeko eta bateratzeko saioa. [Koldo Zuazo](#)

Öchlerrek bateko azentua eta besteko **ortografia** zuzentzen zizkidan, ez zidan huts bat barkatzen, maniatikoa zen horretan. [Anjel Lertxundi](#)

Euskaltzaindiak **ortografia** arautzeari ekin zionean, berriro piztu zen eztabaida. [Koldo Zuazo](#)

Ortografia zaindu, puntuazioa jarri, idatzitakoa paragrafotan banatu eta kapituluak bereizi ditu. [Berria - Kultura](#)

Euskalki guztietan **ortografia** bat eta bera izatea. [Koldo Zuazo](#)

Hitz baten ebakera finkatzen duena bere historia da eta ez bere **ortografia**. [Isabel Arrigain](#)

Urliak ez zekien **ortografiarik**. [Joxerra Garzia](#)

Ortografia asko ikasi genuen eskolan. [Unai Elorriaga](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Letraz letra adierazi nion izena **ortografia** zaharraren arabera: "Guernica". [Bernardo Atxaga](#)

Ortografia fonetikoa nahi zuen: hizki bakoitzarentzat soinu bakar bat eta soinu bakoitzarentzat beti hizki bera. [Xipri Arbelbide](#)

Hitz berriak euskaratik bertatik sortzea nahiz kanpotik hartzea aipatu zuen, baina kanpokoak idazteko orduan, **ortografia** etimologikoa gabe, euskararen ohiko jokabidera egokitzea. [Koldo Zuazo](#)

Egun batean diktaketa bat egiteko eskatu zidan **ortografia** ona zuela erakusteko. [Joseba Urteaga](#)

Alfabeto fonologiko bat jarri behar al genuke ohiko **ortografiaren** ordez? [Isabel Arrigain](#)

Gaurko **ortografian** jarrita. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Arauzko **ortografian** ezartzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat ortografi) ik ortografiko.

Nik **ortografi** akatsak zuzendu nizkion, bestelako aldaketarik ez baitzidan onartu. [Ramon Saizarbitoria](#)

Garai bateko errege eta handiek, errege eta handiki zirela argi eta garbi erakusteko, hain zuzen, **ortografia** -akatsak egiten zituzten, propio, beren idatzi bakanetan. [Joxerra Garzia](#)

Jadanik ez dut **ortografia** akatsik egingo, arauen korrontea jarraituko dut, baina ez dakit horregatik hobeto idatziko dudan. [Berria - Kultura](#)

Bera da, hain zuzen, **ortografia** arau zehatzak ematen lehena. [Koldo Zuazo](#)

Kardaberazek eta Larramendik zabalduz **ortografia** ereduak mende oso batez iraun zuen Hego Euskal Herrian. [Koldo Zuazo](#)

Ortografia eta alfabetatze-sistemen aurrerapenerako ere balio dezake fonetikak. [Lourdes Oñederra](#)

Premisa ukaezin horietatik ondorioztatu zuen Liburutegia erabatekoa dela eta hogeitaka **ortografia** -ikurren konbinazio posible guztiak jasota daudela bertako apaletan. [Juan Garzia](#)

Ortografia hitzak grafikoki adierazi ahal izateko. [Lourdes Oñederra](#)

Euskalkien ugaritasunak eta aberastasunak ez du zertan zalantzan jarri gure nazioaren **ortografia** batasuna. [Koldo Zuazo](#)

Berak zabaldu zituen Ipar Euskal Herriko **ortografia** aldakuntzak Hegoaldean. [Koldo Zuazo](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ortografia alorrean (5)

ortografiaren batasuna (3)

ortografiko izond ortografiari dagokiona. ik ortografia 3.

Gero, akats **ortografikoren** bat egin ote duen beldur denaren gisa, arretaz hasi da berriro ere irakurtzen. [Imanol Zurutuza](#)

Hizkuntza bakoitzaren arau **ortografikoen** arabera. [Lourdes Oñederra](#)

Baina hura ere noizbait konpondu zen, eta hor hasi ginen guztiak, elkarren artean hobeki ulertuko genuelakoan-edo, erabaki **ortografikoak** hartzen. [Pello Salaburu](#)

Euskaltzaindiak arauak eman ditu aditzera azken urteotan, eta hogeit bat mila sarrerako hiztegi **ortografiko** bat ere egin du. [Pello Salaburu](#)

Zuzentzaile **ortografiko** eta gramatikalak, *Xuxen* zuzentzailea kasu, eta hiztegien erabilerarako aplikazio informatikoak sortzea. [Berria - Harian](#)

Manipulazio **ortografikoa**, esan gabe doa, artearen mailara irits daiteke. [Iñigo Aranbarri](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akats ortografiko (3)

ortografikoki adlag ortografiaren aldetik.

Panfleto asko ez dago irakurri ere egiterik: ideologiaz gainzamatuta datoz, substantibo bakoitzeko hiruna adjektibo pilatzen da eta akats **ortografiko** ugari daukate. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Akats **ortografikoren** bat egin ote duen beldur denaren gisa, arretaz hasi da berriro ere irakurtzen. [Imanol Zurutuza](#)

Fonologiak irakasten digu ezin dela **ortografikoki** bereizi entzumenak bereizten ez duena. [Lourdes Oñederra](#)

Gaztelaniaz ez da ahostuna gertatzen, **ortografikoki** zenbait biezpainkari "v" ikurraz adierazten badira ere. [Lourdes Oñederra](#)

ortopantomografia iz irudi bakar batean masalezurrak eta hortzak irudikatzen dituen erradiografia.

Orain dela gutxi Arantzazun **ortopantomografia** bat egin zuen, adibidez. [Fernando Morillo](#)

ortopedia 1 *iz* gorputzeko deformazioak gailuen bidez babesteko edo zuzentzeko teknika.

Halaber, ez datza irudi bat moldatzean ere [...] zeinek bera gaindituz, **ortopedia** baten erara jokatuko luketen gizaki (moral) horren berorren gain. Piarres Xarriton

ortopediko 1 *iz* ortopediarena, ortopediari dagokiona.

Horregatik ez zuen, bere inguruan denek aholkatzen zioten bezala, hanka **ortopediko** on bat jartzen. Ramon Saizarbitoria

Kortse **ortopedikoa** apur bat askatu eta, gorputza bere onera etorri zaionean, mimosaren azpira bueltatu da atzera ere, transistore txikia aulkiaren ezkerreko besotik zintzilik duela. Teknika hau ebakuntza **ortopedikoan** ezar daitekeela uste dute medikuek. Patxi Iturritegi

Hantxe egoten ziren, edalontzi luzea eskuan, euren aldaka **ortopedikoei** apurtxo bat eraginez, lepoa luzatuta batera eta bestera begira, zerbait interesgarriaren bila. Jon Arretxe

Sama bueltan jarri dioten iduneko **ortopedikoa**. Iñigo Aranbarri

2 irud/hed

Euskara **ortopedikoan** daude idatziak, plastikozkoan, hizkuntza guztiak duten naturaltasun goxo hori errekarra bota ondoren. Pello Salaburu

Hizkera horretan ematen dira, euskarri **ortopedikoan** oinarritzen den hizkeran. Pello Salaburu

ortorexia *iz* elikadura-nahasmendua, norberak osasungarritzat jotzen dituen janariak baino ez jatean datzana.

Ortorexia eta jateko bestelako ohitura txarrak. Berria - Euskal Herria

ortoska (*orobat ortotska*) *adlag* ortots eginez, trumoika.

Ez du, dena dela, axola handirik: hamar urtetan ala hamabitan izan, zerua **ortoska** eta oinazturaka zegokeen, hain segur ere, harako egun txar hartan. Aingeru Epaltza

Ortotska eta ineztureka, haize zakarra eta euri jasa bota du ondotik. Jose Angel Irigaray

ortotipografia *iz* testu inprimatuak antolatzeko ortografia- eta tipografia-arauen multzoa.

Batzordearen izenean Andres Alberdik Estilo Liburuaren lehen atala aurkeztu zuen, **Ortotipografia** ondorengoaren aurrekaria. Berria - Euskal Herria

ortotipografiko *izond* ortotipografiarena, ortotipografiari dagokiona.

Dela distantziagatik, dela onean zein gaiztoan pasarte jakin batzuei eman nahi zaien indarragatik, hautu ideologikoa da elementu **ortotipografikoena** ere. Iñigo Aranbarri

Zuzenketa horiek era askotakoak dira, baina nagusiki bi zatitan banatzen dira: zuzenketa **ortotipografikoak** Elzabururen arabera, «egin behar genituzkeenak baina askoz gehiago egiten ditugu» eta edukari dagozkionak. Berria - Kultura

ortots 1 *iz* ostotsa, trumoia.

Baigorriko ene oroitzapen ederrak naturari lotuak dira, pentze, mendi, erreka, zeru: harkadia bat, beldurgarria izan zitekeena ere ortzantzak, **ortotsak**, ximixtak eta aire gaiztoak zirelarik. Ana Urkiza

Behar dena da hodei guztiak hodei bakarrean bil ez daitezen, etenik gabeko hodei jarrai bihurtu ez daitezen, edo, oraindik ere okerragoa izango litzatekeena, buru barruko eguratsean elektrizitatea sor ez dadin, orduan **ortots** eta tximistez beteriko ekaitza sortzen baita. Jon Alonso

2 *ortots egin* • irud/hed

Emakume ahots karrankari batek **ortots** egin zuen jende artean. Aingeru Epaltza

ortotsik ik ortutsik.

ortotska ik ortoska.

ortotxik ik ortutsik.

ortotzik ik ortutsik.

ortoz *izond* oinutsa. ik ortuts.

Oin **ortozak** hondar lodi eta hezean dituela, Mogueimek bere gorputz osoaren pisua sentitzen du. Jon Alonso

2 oin ortozik *adlag* Galtzontzilotan, oin **ortozik**, lerroari segitzen diot, ea nora. Iñigo Aranbarri

ik ortozik.

ortozik *adlag* oinutsik. ik ortutsik.

Katu batek bezala, **ortozik**, urrats fin eta isiletan, mutila bere presentziaz kontura ez dadin. Sonia Gonzalez

Adurra, zuri-zuri, ezpain ertz batean jarioan, gerritik gora biluzirik eta **ortozik**, pistola bat zekarren eskuan, eta beste bat zekarren gerrialdean, poltsatxo baten ondoan ondo bermaturik. Edorta Jimenez

Ortozik dago eta oinek elurrezkoak ematen dute, baina badakizu ezin izango duzula gorpu uzkur eta desegin hori berotu. Sonia Gonzalez

Gero **ortozik** ibili ginen goizaldean. Joseba Sarrionandia

Lurra hauts hutsa da, eta atsegin zaio materia horren gainetik **ortozik** ibiltzea. Eskarne Mujika

Ortozik eduki ninduten ziegan... Berria - Euskal Herria

Gero, historia horretatik guzitiik zeure burua denderedatu, eta bide berria bila **ortozik** irten gura duzu mundura zure jendearekin. Joxe Azurmendi

Isadora berria balitz bezala, munduko antzoki eta plaza guztietan **ortozik** dantzatu nahi zuen. Jasone Osoro

Baina orduan ere txakurrak **ortozik**. Pello Salaburu

ortu 1 iz baratzea.

Edo oti eta matxinsalto izurritea Kalagurri aldean, laino beltz baten gisa, **ortu** eta soro, mahasti eta belardi, dena gorri utzi omen zuen. Pello Zabala

Bazterrak oparoak ziren, **ortu** eta lorategi asko ikusi zituzten. Felipe Juaristi

Lurrerantz sartzen den estuario argitsuko bi ertzetan hedatzen diren **ortuak**. Jon Alonso

Ortuan hartutako letxuga, tomate eta piper txorizeroekin. Ana Urkiza

Ez da, halabeharrez, lorazain gazte bat izango, hemezortzi edo hogeitatu bat urtekoa, oso itxura ederrekoa, lehen zure **ortuan** lanean ikusi dudana? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ortuko produktuetan ere ekoizpena txikitu egingo da, «azken asteotako beroa oso handia izan delako». Berria - Harian

Berotegietako **ortuen** izurriteak eta gaixotasunak ikertu dituzte. Berria - Euskal Herria

Yatean bertan atontzen zituen Herbertek orduak gehiegi errespetatzen ez zituzten janari legeak, berak harrapatu ezean inguruko arrantzaleei erosten zizkien arrainez eta inguruko **ortuetako** barazkiez osatuak. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Lurrari berari baino gehiago baratzeiko **ortu**-landareei gehien. Pello Zabala

· Neure kalabaza-**ortuan** dago lotuta. Iñaki Mendiguren

ortuari 1 iz barazkia.

Patata geratzen zitzaizkigun, eta gordetzeko moduko **ortuariak**: garbantzu, babarrun, lentejak. Xabier Mendiguren Elizegi

Alkondarako tomateari begiratu zion eta munduko **ortuari** guztiak madarikatu zituen. Unai Elorriaga

Sutan jartzen du eltzekada zopa handi bat, beti berdina, babarrun txuria eta **ortuariak**, hainbat egunetarako badu. Jon Alonso

Inguruko baserriarrek bertan saltzen zituzten beren **ortuariak**. Berria - Kultura

Patataren edo **ortuarien** sektoreetan kalitate irizpideak «estetikoak» direla uste du Fernandez de Larreak. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Raimundo Silva ohiko babarrun eta **ortuari**-zopa jaten ari da, Orube plazako lore eta **ortuari** azoka, aldiz, normaltasunez egin zuten. Jon Alonso

ortuts izond oinutsa. ik ortoz.

Haren oin **ortutsek** tipi-tapa jotzen zuten behegaina, eta nire buru gainetik pasatzen. Juan Garzia

ortutsik (orobat ortotsik g.er., ortotxik g.er., ortozik g.er. eta urtutsik g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian ortutsik agertzen da) adlag oinutsik. ik ortozik.

Pasilotik barrena jarraitu nuen **ortutsik**. Joxean Agirre

Esklabo bat eta emakume zuri bat, **ortutsik**, ilea lotu gabe. Anton Garikano

Mezkitako edo santutegietan berdina, jaunaren lurra denez, **ortutsik** sartu beharra dauka, haren esanera datorrela adierazteko, eta ez haren lur sakratuaz jabetzera. Patziku Perurena

Denak **ortutsik** ezarri gintuzten eta trenaren berriz abiatu zen. Marzel Etxehandi

Hemendik oren erdi baten bidea da doi-doi, gazte ginelarik segurik ez ginuen gehiago behar, espartinetan, ardurenean **ortotsik**, hemendik Urdantziako leporat, gero Urdiako leporat, edo berdina zuzenean gainez gain. Michel Oronoz

Toki guztietan zakurrak **ortutsik** dabilzala erakutsi nahian nonbait. Pello Salaburu

ortuzain iz baratzezaina.

Florent harritu egiten zen **ortuzainak** lasai-lasai ikusita, zapia buruan, azal beltzarana, merkatu nagusiko tratuen hitz jario hartan. Karlos Zabala

Goizero-goizero, aldirietako **ortuzainei** erositako hainbat besakada lore izaten ziren, bai eta goroldioa, iratze hostoak eta inkonte belarrak ere, lore sortak inguratzeko.

Karlos Zabala

Isiltasun handiaren erdian, eta hiribide mortuan gora, **ortuzainen** gurdiak Paris aldera igotzen ari ziren, gurpilen triki-traka erritmikoz. Karlos Zabala

ortuzaintza iz baratzezaintza.

UEUko Natur Zientziak Sailak Euskal Herriko **ortuzaintzari** buruzko ikastaroa antolatu du. Berria - Euskal Herria

Berotegietako **ortuzaintza**. Berria - Euskal Herria

ortuzale izond/iz ortuaren zalea dena.

Aupa baserriar eta **ortuzaleok**, akordatu Medinekin babak loretan ikusi nahi badituzue. Pello Zabala

ortzadar 1 iz ostadarra.

Zientzian, eguzkiaren eta euriaren arteko emaitza **ortzadarra** da. Joan Mari Irigoien

-Euriaren ondotik **ortzadarra** agertzen da. Aurelia Arkotxa

Ezkondu ginen egunean, **ortzadarra** atera zen. Joan Mari Irigoien

Ur irakinezko iturburu bikainak sortzen ziren han-hemenka, izadiak aintziraren hondoan zulatutako putzu artesiarrak batzuetatik, eguzki printzek **ortzadar** txiki banaz apaintzen zituztela. Karlos Zabala

Eta tronuaren inguruan esmeralda antzeko **ortzadarra** zegoen. Elizen arteko biblia

Ortzadarraren koloreak hirugarren solairu bateko esekitokitik zintzilikatutako bandera estuan. Iban Zaldúa

Ortzadarra zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua eta zangoak suzko habeak bezalakoak.

Zoriontasuna, **ortzadarraren** moduan, ez da sekula ikusten norberaren etxean; besterenean soilik. **Fernando Morillo**

· Urtea joan da **ortzadar** kamiseta lortu zenuenetik. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Igande goizean bi metro haratago elkarrekin izan genuen mokokaldiaren irudiak dantzan zebilzkidan gogoan, ezin aurkituz orduko mikatzaren eta oraingo gozoaren arteko lotunea neskaren begitartearen **ortzadarrean**. **Aingeru Epaltza**

Irribarre egin du neoiaren **ortzadarrean**. **Pako Aristi**

Ortzadarra sortu du fuelak uretan. **Berria - Kultura**

Metalezko **ortzadar** azidoa hedatzen zen Lutxana bien arteko ur astunetan. **Paddy Rekalde**

Eta esperantzaren **ortzadarra**, eta bizipoza. **Joxerra Garzia**

Umetango egun urrunetan, ordu umeletan batez ere, eta putzu-ingurua blai zegoenean, nabarmendu egiten zen urrin-**ortzadar** anizkun hura. **Txillardegi**

Oroz gain isiltasun mortu hura [...] zeru zuriskaren pean, eta eguzkia, kotoizkoa irudi, likits eta beroa, **ortzadar**-inguru batez gandutua. **Joxe Austin Arrieta**

3 ortzadar amuarrain

Ortzadar amuarraina zegoen gehienbat, amuarrain arruntak eta Dolly Varden motako batzuk mendi handietako erreka batzuetan, eta zilar-koloreak Blue Lake eta Rimrock Lake aintziretan. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ortzadarra eta hodeiak (3); **ortzadarra operazioa** (3); **ortzadarra sutan** (3)

ortzaize iz ostertz, zerumuga (?).

Ostatuko mahaian jarririk zegoen, garagardo baten aitzinean, begiak bustirik eta **ortzaizera** so. **Itxaro Borda**

Ortzaizean, Stiffeko faroa eta Eussako rail delakoaren erraldoitasunak miretsi nituen. **Itxaro Borda**

Ortzaizean multzoturiko kumulu-ninbo astunak airez, sabelak hurrez bezala, husten eta hertzen ziren. **Itxaro Borda**

Heriotzarekiko ohiturak arras barneratuak zeuzkan arren, Graxik izua nabaritzen zuen, batez ere begien **ortzaizean** aita flakutzen eta ahultzen ari zihokionean. **Itxaro Borda**

ortzaizkara *adlag* saiheska, soslaiz (?).

Batzuk besteen ondotik eramaiten gaituzte gizaneurri zerbitzura, pisatzen gaituzte, izartzen, ikuskatzen (hortzak, bularrak, zangozabal edo sabaidun) fotoak ateratzen (aitzinetik, **ortzaizkara** ...), xertatzen lehengo, oraingo eta geroko eritasunen kontra. **Marzel Etxehandi**

ortzaiztar *izlag/iz* Ortzaizekoa, Ortzaizeri dagokiona; Ortzaizeko biztanlea.

Menéndez Pidal, español hizkuntzalari ospetsua, ez zegoen biziki ados ikuspegi horrekilan, J.B. Orpustan, **ortzaiztar** erakasleak dioenaz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hirugarrenean, Albert Trounday, hau ere **Ortzaiztar** semea, zurgina, buruilean Garazitik Ortzaizerat etortzekoa da. **Herria**

Hori dauku kondatzen, bereziki argazkien bidez, gure **ortzaiztar** adiskideak. **Herria**

Lehen anderea, **Ortzaiztarra** hau ere, Maialen Lekumberry, 34'00. **Herria**

Irisarriko bi emazte (hauek biak sortzez **Ortzaiztarrak**) heldu direla Larzabaleko egun haundirat. **Herria**

Deiadar horren joile suharrak ditugu, bertzeak bertze, hiru gazte: Maider Amestoy **ortzaiztarra**, Maider Bergouignan eta Itxaro Bethart baigorriarrak. **Herria**

Pausuko trinketean iragan diren finaletan, Julien Etchegaray **ortzaiztarra** eta Mathieu Olhagaray bidarritarra nagusitu dira urruñareri 40-17. **Herria**

Ortzaiztar guzien izenean onar ditzala gure eskerrak. **Herria**

216 kidetarik 68 irisartarrak dira, 19 **ortzaiztarrak**, 12 arrosatarrak, 11 bidarritarrak eta 9 suhuskundarrak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ortzaiztar semea (3)

ortzaiztarsa (*Euskaltzaindiak desegokitizat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea*) *izlag/iz* emakumezko ortzaiztarra.

Ortzaiztarsa izanik, euskaraz berak bazekikeen, ziur; baina gure hizkuntzaz mintzatzeko gauza zela baiesteko modurik gabe aldegin nuen etxe hartatik. **Txillardegi**

ortzantz (*orobat ortzanz g.er. eta orzantz g.er; Euskaltzaindiaren Hiztegian ortzantz agertzen da*) 1 iz trumioia.

Baigorriko ene oroitzapen ederrak naturari lotuak dira, pentze, mendi, erreka, zeru: harkadia bat, beldurgarria izan zitekeena ere **ortzantzak**, ortotsak, ximixtak eta aire gaiztoak zirelarik. **Ana Urkiza**

Orzantza, ximixtak, euria jauts ahala. **Filipe Bidart**

Egun batez, **ortzantza** entzun genuen mendian, urrunean: oihuka ari zen Omochi jauna. **Joxan Elosegi**

Aldiz Karmele Galartza-k, bere betiko karrarekin, bota zigan izigarriko irrintzin luze bat, paregabea, **ortzantz** guziak ezeztatzeko heinekoa! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Egia esan, **ortzantzen** kontra zer egin? **Gotzon Garate**

Alemania hegoan **ortzantz** eta uhaste haundiak egin ditu Bavarian, herri hortako eskualdean. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arratsalde hartan kiskaltzeko bero bat egin zuen, aldiz aurren gertakaria omentzeko tenorean izigarriko **ortzantz** erauntsiak atzeman gintuen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ortzantz karraska bat aditu zen. **Itxaro Borda**

Laket zituzten ere igortzen zituen zirtu polittak, predikuetan larderiatu eta **ortzantz** aire izanagatik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gau hartan ez zen **orzantz** aro, alta. **Eneko Bidegain**

ortzanz ik ortzantz.

ortzargi *izond* irrikorra.

ortzarte *iz* ostartea.

Ohera ere itzul ninteeke hura joanda, nire inguruko lainoetan **ortzarte** bat, bere ñimiñoagatik ere, kausitua nuelako sentipenez ene zauri ugariak eztiztera. **Aingeru Epaltza**

ortze ik ortzi.

ortzegun *(robat orzegun g.er.) 1 iz* osteguna.

Apirilaren 26a, **ortzeguna**. **Marzel Etxehandi**

Ortzeguna da eta, halare, sekulako jendeketak bildu dira inguruko herrietatik Ittuina. Argia gainbehera zihoan abuztuko **ortzegun** horretan. **Patziku Perurena**

Ortzegun sailduz, martxoaren 29an, kanoi ukaldiek iratzarrazten gitezute. **Michel Oronoz**

Iragan **ortzegunean**, aratsaldeko 5 ak inguruan, 19 urteko mutiko gazte bat zendu da auto ixtripu batean. **Herria**

Lehen **ortzegunean** bazter utzitako konplimenduekin hasi ginen. **Aingeru Epaltza**

Ospe handitan egiten zuen Jesusen Bihotz Sakratuko kongregazionearen edo elgartasunaren besta, **ortzegunarekin**, Besta-Berri xaharrez. **Xipri Arbelbide**

Lehen **ortzeguneko** gau ondikozkoan, harekin batean iragana nintzen ate paretik, barnera sartu gabe. **Aingeru Epaltza**

Gaua aski goxoki iraganik, biharamun goizean Magali despeitu nuen **ortzeguna** arte. **Janbattitt Dirassar**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoko **ortzegun** goiza. **Janbattitt Dirassar**

Musika errepikaldia **ortzegun** arratsalde guziz dute. **Eneko Bidegain**

Ortzegun arratsalde apalean, gogoa ezinago arin berriz joan nintzen Magalirengan. **Janbattitt Dirassar**

Ene hogeigarren urtebetetzearen bezperako asteburu osoa niretzat izanen nuela iragarri zidan Meredithhek, **ortzegun** gauean, etxera ailegatu orduko. **Xabier Montoia**

3 *Ortzegun Saindu (robat ortzegun saindu)* Ostegun Santua.

Ortzegun sailduz, martxoaren 29an, kanoi ukaldiek iratzarrazten gitezute. **Michel Oronoz**

Ortzegun Sainduz, aratseko 7.30 etan meza eta Adorazioneko gau beila. **Herria**

Eta **ortzegun saindu** aratsean, kopa arnoz beterik apostolueri eskaini zioten erranez: [...]. **Herria**

Aste Saindu huntan **Ortzegun Sainduko** Elizkizun bakarra: Donibanen berean aratseko 8 orenetan inguruko herri guziendako, meza eta Bazkoak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abuztuko **ortzegun** horretan (5); helduden **ortzegun** (17); helduden **ortzegun aratsalde** (4); helduden **ortzegun huntako** (3); iragan **ortzegun** (3); joan den **ortzegun** (9); joanden **ortzegun** (6); joanden **ortzegun aratsaldean** (3); joanden **ortzegun aratsean** (3)

ortzegun arats (35); **ortzegun arats huntako** (7); **ortzegun arats huntan** (23); **ortzegun aratsalde** (12); **ortzegun aratsalde huntako** (4); **ortzegun aratsalde huntan** (3); **ortzegun aratsaldean** (22); **ortzegun aratsaldeko** (10); **ortzegun aratsaldetan** (3); **ortzegun aratsean** (217); **ortzegun aratseko** (23); **ortzegun arrats** (7); **ortzegun arrats huntan** (4); **ortzegun arratsalde** (3); **ortzegun arratsarekin** (3); **ortzegun aratsean** (4); **ortzegun aratseko** (4)

ortzegun eta ortzirale (3); **ortzegun eta ortziralean** (5); **ortzegun gau** (3); **ortzegun gauean** (3); **ortzegun goizaldeko** (3); **ortzegun goizean** (10); **ortzegun guziz** (7); **ortzegun huntako partida** (10); **ortzegun huntan berean** (5); **ortzegun huntan jokatu** (3); **ortzegun saindu** (6); **ortzegun saindu aratsean** (3); **ortzegun sailduz** (14); **ortzegun sailduz meza** (3)

hazparneko **ortzegunak** (3)

datorren **ortzegunean** (3); **ganden ortzegunean** (8); **heldu den ortzegunean** (4); **helduden ortzegunean** (25); **iragan ortzegunean** (9); **joan den ortzegunean** (27); **joanden ortzegunean** (27); **lehengo ortzegunean** (3); **ondoko ortzegunean** (5); **ortzegunean eta ortziralean** (11); **ortzegunean zortzi** (4)

helduden **ortzeguneko** (5); **joan den ortzeguneko** (6); **ortzeguneko partida** (12)

lehen **ortzegunetan** (3)

ortzegunetik goiti (5); **ortzegunetik iganderat** (12); **ortzegunetik larunbaterat** (21)

ortzemuga ik ortzimuga.

ortzenbor *iz* etxeorratza.

Joseba Sarrionandiak Manuel Bandeiraren antologian hitz honi egiten dion oin ohar batean, *etxeorratz* ez duela gustuko aipatzen du, eta garai batean proposatzen zen *harramazkazeru* ere baztertua izan denez, hirugarren bide bat proposatzen du: **ortzenborra**. **Harkaitz Cano**

Ahizpa bikiak omen dira dorre hauek, baina nire kabutarako nago, haserre daudela: elkarri bizkarra eman eta elkarri hitz egiten ez dioten bi ahizpa biki izan behar dutela derrigor **ortzenbor** hauek. **Harkaitz Cano**

ortzi 1 *iz* zeruko sabaia, izarrartea.

Izarrak zeru goitik amiltzen hasiko dira eta **ortzia** dardarka ariko. **Elizen arteko biblia**

Ortzia garbi. **Txillardegi**

Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta **ortzian** seinale handiak azalduko. **Elizen arteko biblia**

Zeinu horiek hamabi direnez, bakoitzak **ortziaren** hamabiren bat hartzen du, eta etengabe ibiltzen dira itzulian ekialdetik mendebaldera. **Santiago Iruretagoiena**

Orduan isiotuz joan ziren beste ontzietako argiak, abuztuko **ortzian** izarrak bezain ugari, inguru osoan. **Edorta Jimenez**

Jakintsuek **ortziak** bezala distiratu dute, eta beste bide zuzenetik ibiltzen lagundu dietenek izarrak bezala betierean. **Elizen arteko biblia**

Ortziatik trumoiak joarazi zuen Jaunak, deidatzen egin Goi-goikoak: tximista eta ikatz goriak sugarretan! **Elizen arteko biblia**

Mendi gailurrean gertatzen den bezala, **ortziaren** eta behe lainoen artean zintzilik. **Imanol Unzurrunzaga**

Arranoaren bidea **ortzian**, sugarearen bidea haitzean. **Elizen arteko biblia**

Irakurleari abisatzen dio: lehenengotan, egiak eta gauzak sineskaitz iruditzen zaizkio, baina, asimilatu ahala, errutinazko bihurtzen dira, eguneroko **ortziaren** urdina bezala.

Xabier Amuriza

2 (izenondoekin)

Teilatua eta alboak urdinak eta ukitu ezinezkoak zituen oskol bat, **ortzi** biribila bezain altua eta hutsa, non trumoiaren pare igo baitzen antxeta hegaldarien zarata. **Koro Navaro**

Ortzi urdinaren eta egunsentiaren miraria. **Xabier Amuriza**

Ortzi urdin argian, hodeiak uharte;. **Iñaki Iñurrieta**

Jupiterrek edukituen ez du inoiz oinaztua lurrera **ortzi** garbi-garbitik jauritzen eta trumoia zabaltzen? **Xabier Amuriza**
Trena abiatzen zen eta, Akizeraino kasik, leihotik beha geratzen zen, Baiona aldeko Aturri ibaiaren azal beltza eta **ortzi** iluna zurkaitzen zuten docks zirelakoak bistatik desagertzeraino. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ortzi kapa ilunean, izar-lokak jauzika. **Piarres Aintziart**

Oteiza [...] Orioko hondartzako zuloetan ezkutatzen zen haurra da, hondoan babestuta sentitzen zena, zuloaren ertzek mugatzen zuten **ortzi** zatia besterik ikusten ez zuela. **Iñaki Iñurrieta**

Aho zabalik edukitzen zituen bere kantagaiz: **ortzi**-ganga jainkozkoa, kristalez egina. **Juan Garzia**

Horrela ez izanik, ez itsaso, ez lehor, ez **ortzi** sapai argitsuek, ez hilkorren endak, ez jainkoen gorputz santuek iraun ahalko lukete une batez. **Xabier Amuriza**

Jarrain zarata bortitza dator, bat-batean lehorturik, **ortzi** sabaia gainera jausiko balitzaigu bezala. **Xabier Amuriza**

Eguzkiak ere **ortzi** gailurretik beroa noranahi hedatzen du eta zelaiak argizatzen. **Xabier Amuriza**

Imajina dezaket haren ziegako leihotik ikusten den **ortzi** puska. **Jokin Urain**

Izar distiratsuz jantzitako **ortzi**-etxea udazkenean eta udaberriko urtaro loresua irekitzean burrunbatzen da gehien eta lurra nonahi dardaratzen. **Xabier Amuriza**

4 ipar oinaztarria; trumoia; ekaitza.

Ohidura zaharren arabera -**ortzia** eror ez dadin edo beste zorigaitz batzuetarik begiratuak izateko-amak, mahai gainean ezarria zuen ezkoargia pizturik eta haren saihetsean erramu hostoila. **Daniel Landart**

Zaharrena, 17 urte, zuhaitz baten azpirat, ustez han aterbean izanen zen deusen irriskurik gabel eta gaixo mutikoa han du **ortziak** jo! **Herria**

Hiriburun, etxe bati su lotu zaio **ortziaren** ondorioz eta azkarki funditua izan da. **Herria**

Bero handi baten ondotik, **ortziak** jin dira eta **ortziekin** batean harria! **Herria**

Ekaitz labur bat, **ortzi** azkarra nahiago ditut, ezinez eta etengabeko terrenta hori. **Piarres Aintziart**

Ezpeletako zeru argi ederrean ikusten zuen zernahi hodei beltz, ikaragarriko galerna ekartzen zutela nonbaitik, dena **ortzi** eta ximixta. **Janbattitt Dirassar**

Beharepanean gaude, aroa xuko, **ortzi** hirriskuekin, euria neurrian. **Herria**

Beharrik bazkari onak fite ahantzarazi baititu goizeko **ortzi** eta euriteak. **Herria**

5 ortzi muga ik ortzimuga.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ortzi irriskuak (4); **ortzi muga** (4)

ortzia dardarka (3); **ortzia dardarka ariko** (3); **ortzia itxi** (3)

ortziak jo (3)

ortzian zehar (3)

ortziaren zabalak (4); **zeru eta ortziaren** (4)

ortziko ihintzak (3); **ortziko izarrak** (4)

ortzialde iz zerualdea.

Esperientzia ageriak garbi erakusten du hori; zeren orduan hodeiak hainbeste trinkotzen baitira ortzi guztian zehar, ezen ilunpe guztiek Akerontetik alde egin eta **ortzialde** amaigabea bete dutela baitirudi. **Xabier Amuriza**

Aro eta eguraldiari egunero itxura hartzeko ofizioan topatu ez dudan asea, natura aberatsari eta **ortzialdeko** zantzu eta mintzo guztiei jaramon eginez, denari eta denei erne erreparatzean aurkitu dut: ase horretek poztu nau azken 15 urte hauetan. **Pello Zabala**

Eta lau aldeok lau haizeen eta lau **ortzialdeen** arabera direla ezberdinak dakusgun bezala, gizakiak ere halaxe ezberdintzen dira azalkeren eta aurpegikeren arabera eta enda bakoitzari bere gaixotasunak dagozkio. **Xabier Amuriza**

ortzilare ik ortzirale.

ortzimuga (orobat ortzi-muga eta ortzemuga) iz zerumuga.

Zeroiren baten turrusta ikusten ote zuen **ortzimugako** haria eteten. **Koldo Izagirre**

Itsasoari begira egongo naiz, begiak **ortzimugan** galduta, eta kontatzeko zerbait izango dudala agintzen dizut. **Juan Luis Zabala**

Sierra Nevadako mendikateak mezu gris eta deboilatua zekarren ekialdeko **ortzimugatik**. **Javi Cillero**

Itsas uhinak soilik zutitzen dira **ortzi-muga** urrunaren eta lehorraren artean; hala ere, uhinek laster galtzen dute beren gora-nahia, eta akiturik etzaten dira hondartzan. **Anjel Lertxundi**

Muinoak dituzue oraingoak, elkarren segidan eta **ortzi**-mugaraino luze. **Xabier Montoia**

2 irud/hed

Une batez Erregina Zuriaren begi grisetako **ortzimuga** trumoi-hodei batek hartu balu bezala izan zen. **Alberto Ladron Arana**

Izan ere, ez utopien ez **hortzemuga** exotikoen premiarik gabe, atarira orduko dauzka gure idazleak bere bihotzeko zeru-lur hondogabeak. **Patziku Perurena**

Lanbideei aipamena egitearren, Herriko Etxe baten ibilmolde gehienak hatsarretik daude xede honen **ortzimugan**. **Berria - Euskal Herria**

ortziral ik ortzirale.

ortzirale (orobat ortzilare g.er. eta ortziral g.er.) 1 iz ostiralea.

Apirilaren 27a, **ortziralea**. **Marzel Etxehandi**

Astelehen, asteazken eta **ortziraletan** izaten nuen hitzordua Etxeberrirekin. **Aingeru Epaltza**

Denbora hartan, **ortziraletan** mehe egiten ginuen. **Menane Oxandabaratz**

Ortziralea jin zen. **Janbattitt Dirassar**

Iragan **ortzirale** gauan pausatu da 90 urtetan Graxiana Apeztegi, Irulegi Irungaraiko etxekandere izana. **Herria**

Albeniz, espainiol musikariaz oroitu da Kanbo joan den **ortziralean**. **Herria**

Ortziralean eta larunbatean, aratseko 9-etan, Heletan "gure baitako ilargiak", txotxongiko ikusgarria. **Herria**

Baina ama ez ezik, ni ere hunkiturik atera nintzen, partikularzki biharamuneko sermoian, **ortziralekoan**. **Joan Mari Irigoien**

Lehengo **ortziralekoaren** gisako kamiseta tiranteduna zuen soinean. **Aingeru Epaltza**

Ortziraletik iganderat, Azkainen, Kiroleta bilgunean, zaharki-feria. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Ortizirale gau hartaz bere bizi guzian orroitu zen. [Eneko Bidegain](#)

- **Ortizirale** arratsean helduko gaitun Donibane Lohizuneko geltokira. [Eneko Bidegain](#)

Ortizirale aratsean, Kanbon, "Beltzeria" antzerkia, Hiru Puntu taldearekin. [Herria](#)

3 **Ortizirale Saindu** (orobat **ortzirale saindu**) Ostiral Santua.

Iduri zuten baketzerat ari zirela Ipar Irlandes-ak, iragan **Ortizirale Saindu** batez egin akordio baten ondotik. [Herria](#)

Ortizirale Sainduz : Pasionearen irakurtzea eta Kurutzearen adoratzea, Itsasun aratsaldeko 3 orenetan eta Luhuson aratseko 8 orenetan. [Herria](#)

Bestalde, **ortzirale sainduko** elizkizuna, 7-etan beraz, euskaraz eginen da Getarian. [Herria](#)

Hirixinoentzat barur eta mehe egunak direla, hauste eta **ortzirale saindu** egunak. [Herria](#)

ortzitsu *izond ipar* ekaiztsua.

Ortzitsu izan behar ginuke aste undar hau, guneka euri turrusta ederrekin. [Herria](#)

Beharapenean gaude, aroa beroarekin **ortzitsu** aste guzian. [Herria](#)

ortzitu, ortzi(tu), ortzitzen du *ad* ekaitza egin.

Bainan bat-batean aroa **ortzitu** ! ortzikien batean euri uhar bat gaitza! mutikoetarik gaztena lasterka mainutegi barnerat, aldiz zaharrena, 17 urte, zuhaitz baten azpirat, ustez han aterbean izanen zen deusen irriskurik gabe! eta gaixo mutikoa han du ortziak jo! [Herria](#)

orube 1 *iz* etxeak eraikitze moduko lur eremua.

Gero Belfasteko gizon batek **orubea** erosi eta etxeak egin zituen. [Irene Aldasoro](#)

Denbora zeraman **orubeak** horrela, bertan ezer eraiki gabe: jabeak ez ziren nonbait ados jartzen, herentzia-gorabeheraren batengatik. [Anjel Lertxundi](#)

Garai batean **orube** bat zen han, non ibiltzen baitziren jolasean auzoko beste haur batzuekin. [Irene Aldasoro](#)

Eraikina ez zen Hego Gaztelan gorde zitzaion **orubean** sartzen. [Berria - Kultura](#)

Baina Cuerdak ez zuen merkataritza gun e izateko bideratu nahi **orube** hori. [Berria - Ekonomia](#)

Jakizu sei hilabete barru **orube** hauen balioa bikoiztu egingo dela; neuk hala ziurtatzen dizut. [Lopez de Arana](#)

Kutsadura eta anabasa baino ez dituzte ikusten itsasontzi, ontziola, enpresa kimiko eta industria ohien **orubeetan**. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Zaldun batek **orube** bat eskaini zienean, bertan eraikitzen hasi ziren eta han irauten dute gaurdaino. [Askoren artean](#)

Orube horretan Espainiako administrazioaren zenbait bulego jartzeko beste eraikin bat egin zen. [Berria - Kultura](#)

Lantegiaren ondoan zeuden **orube** batzuen salmentarekin Newellek beste 12 milioi eskuratu dituela salatu dute langileen ordezkariak. [Berria - Ekonomia](#)

Baten batek bere **orubea** beste bati dohaintzan edo salmentan uzten badio, bere buruari bakarrik kentzen dio **orube** horretarako eskubidea, ez beste inori. [Esteban Antxustegi](#)

Eskualde honetako ekonomiak astindu dituen krisia, ordainketa-balantzen krisia izan baino lehen, eskaintza mugatuko aktiboen (higiezinen, **orubeen**, akzioen) merkatuen kiebran gauzatu zen. [Koro Navarro](#)

Langileak, ordea, ziur daude ahal zuten diru publiko gehiena poltsikoratu dutela eta orain **orubeekin** espekulatu nahian dabiltzala. [Berria - Ekonomia](#)

Guk ez genuen sarbiderik babestoki antiaeroeetan: artean **orube** zirauten eremu zabaletan kuzkurtzen ginen. [Juan Garzia](#)

2 (izenondoekin)

27. kalean barrena abiatu ginen, harik eta, hondamenaren lehenengo zama gogoan nuela, **orube** huts baten aurrean gelditu ginen arte. [Jon Muñoz](#)

Trenbidearen bestaldean, eraikin handi bat zegoen, apartamentuz osatua, **orube** zabal baten erdian. [Juan Kruz Igerabide](#)

Sevillako Udalarai, esaterako, eraiki gabe dauden **orube** pribatuetan erabilera publikorako behin behineko azpiegiturak egiteko proposatu diot. [Berria - Kultura](#)

3 irud/hed

Gatazka politikoari eta **orube** demokratikoaren eraikuntzari lehentasuna eman diezaioten, aipatu proiektu politikoaren gainetik. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

orube eta instalazioen (3); **orube huts** (3)

orubearen truke (4)

orubeekin espekulatu (3); **orubeekin espekulatzeko** (3)

orubetxo *iz* orube txikia.

Horren ondorioz, baztertu egingo da mila metro koadro inguruko **orubetxoa** duen txaletaren eraikitze eredia, familia bakarreko etxebizitzaren tipologia alde batera utziz, hori ez baita sekula izan Arabako herrien izaera. [Berria - Euskal Herria](#)

orubezale *iz* orubeen zalea dena.

Orubezale Denis Kearny (1847-1907) Langileen Alderdiko liderra zen, txinatarren aurkako jarreragatik nabarmendu zena. [Xabier Olarra](#)

"**Orubezale**" hitzak "orobeherazale" hitzarekin duen antza problematikoki adierazgarria da, baina dudarik gabe iradokitzailea. [Xabier Olarra](#)

orujo ik oruxo.

ORUXO (orobat **orujo**) *iz*

"**Oruxoak** zizareak akabatzen ditik", esaten zuten gailegoek. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Haren basta-zorroan Tomasen jertseaz, Pelloren bakailaoaz eta Erdoiren gorroaz gain, **orujo** botila bat atzeman zuen. [Pablo Sastre](#)

Joxanen begietan **oruxoak** eragindako lausoa. [Paddy Rekalde](#)

- **Oruxo** botila bat eta zortzi baso, horixe bera. [Paddy Rekalde](#)

Hankan kalanbrea izan zuen eta Pellok eta Tolok jaso eta **orujo** tragu batekin bizkortu zuten. [Pablo Sastre](#)

orzaizar izlag/iz Orzaizekoa, Orzaizi dagokiona; Orzaizeko biztanlea.

Hala dio gure **orzaizarrak** aurrerago, delako mintzo ezin trenkatuzko hori euskara bera baino gaitzagotzat joaz: "Zer erranen dauzute hemengo mintzaireaz? **Iñaki Seguro**la

orzantz ik ortzantz.

orzegun ik ortzegun.

orzkarbi iz oskarbia.

Galdegite orotarik eta mehatxuzko hodei orotarik harat, jakintasunaren **orzkarbian**. **Joan Mari Irigoien**

Galdegite orotarik eta mehatxuzko hodei orotarik harat, jakintasunaren **orzkarbian** ...? **Joan Mari Irigoien**

osaba (orobat oseba g.er. eta osoba g.er.) 1 iz aitaren edo amaren anaia; orobat, izebaren senarra.

Osaba aitaren anaia zen eta izeba hiriburuan bertan jaioa. **Aitor Arana**

Eskaintzak zetozen aurrena: Lizi eta Sarari, **osaba** Juani, bere ama Carmen, Obabako gure lagun Lubis zenari. **Bernardo Atxaga**

Izeba Kontxi eta **osaba** Jontxo. **Aitor Arana**

Amona Casilda **osaba** Gabriel jaio zenean hil zen. **Mikel Hernandez Abaitua**

-Bada ni, **osaba** Felipe, berri on bat ematera etorri natzaizu gaur, eta oraindik ez dizut esan. **Txillardeg**i

-Ez izan zalantzarik, **osaba** Kamil. **Patxi Zubizarreta**

-Zure osasunaren alde, **osaba** Nat -esan zuen Tomek, edalontzia jasoz. **Oskar Arana**

Nire **osaba** Antoniorena da. **Bernardo Atxaga**

Ettxeko telefonoaren orde, gurasoenaz baliatzen dira, edo amorantearenaz, edo **osaba** apezaren etxekoaz. **Aingeru Epaltza**

Osaba eta "Tante Rose" 1841ean esposatu ziren oso gertu dagoen Notre Dame de Buglose-ren kaperatxo arkudunean. **Txillardeg**i

-Badut Egipton anaia bat, zure **osaba** Xams Al-Din. **Patxi Zubizarreta**

Saulen **osabak** galdegin zien: - nora joan zarete? **Elizen arteko biblia**

Donald ahatearen **osabak** esaten zuen aipu bat ekarri zuen akordura. **Karlos Linazasoro**

Horren ondoren, amaren aldetiko **osaba** baten etxera joan ginen. **Juan Kruz Igerabide**

Baina nire izeba, **osaba** eta lehengusua bai. **Iñaki Mendiguren**

Zerraldoa gizon batzuek zeramaten, eta aita eta **osaba** ere han ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Osabak aitarekiko bospasei urteko aldeko banaketa banaketa. **Txillardeg**i

Izeba eta **osaba** begira-begira geratu zitzaizkien. **Iñaki Mendiguren**

Osaba mediku ezin hobea zen, giza zuzeriaz betea eta diagnostikorako sen finekoa. **Juan Garzia**

Ikus nezakeen **osaba**, luzea, maltzurra eta gorria, bere bi esku iletsuez zerrikume bihurtuari eusten. **Koro Navarro**

Osaba ere polizia zuen. **Gotzon Garate**

Baina oraindik ere **osaba** zaitut, gustatu edo ez. **Oskar Arana**

Zaldi gainean doalarik, **osabarengana** hurbildu, eta diotso: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Gau hartan bertan, **osabarenean** egin zuen lo, ganbaran. **Karlos Zabala**

Osabarenean egon zen aldia eder begitandu zitzaion. **Gotzon Garate**

Egunean-egunean erotzen ari baitzen izeba, aitaren aldetiko **osabarenera** joan ginen bizitzera. **Juan Kruz Igerabide**

2 (izenondoekin)

Han osaba bat zuten, osaba Kahn, bertatik bertara inoiz ikusi gabea zuten **osaba** zahar bat. **Fernando Rey**

Mary Balester liotenantearen susmopean **osaba** adindua kontinentera preso eraman dute. **Itxaro Borda**

Frantzillaberrin bazuten **osaba** aberats bat. **Pako Aristi**

Osaba militar erretiratu batek aberriaren aintzak eta izugarrikeriak kontatzen zizkion Rufini: [...]. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Osaba harginak, Federicoren anaiak, beren etxean bizi ziren eta gu gurean. **Pello Lizarralde**

Osaba apaiz batek San Agustinen koadro zahar bat utzi zidala. **Ramon Saizarbitoria**

Osaba argalaren familian denak ziren argalak, argala aita eta argala semea. **Pello Lizarralde**

-Eutsi, iloba -erantzun, **osaba** gezurjarioak-, laster aurrekoak ez bezalako lorategi bat erakutsiko dizut. **Patxi Zubizarreta**

Osaba gonazalea da, baina gonazale zuhurra, nolabait esateko. **Migel Angel Mintegi**

-Hire **osaba** faboritoa -irribarretsu bukatu zuen esaldia Alexek-. **Fernando Morillo**

Handik urte askotara, herentziaren desioa jada pasaturik eta Araujo **osaba** lizunaz nahi bezala hitz egin zezakeenean, [...]. **Bego Montorio**

Osaba agintzaileak agindurik, hargaldu sifilidun bat familian ez zutela onartuko esan zuten. **Gotzon Garate**

Osaba estatu-kontseilaria aho zabalik geratu zen, harriduraren harriduraz. **Jose Morales**

Batera bizi ginen aita eta amama, amamaren bi ahizpa ezkongai, ama, neure **osaba** aitabitxia eta neu. **Ana Urkiza**

3 izeba-osaba (18 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan) pl izebak eta osabak. ik beherago 5.

15 ilabetetan Indako Elenaren joaiteak Agnés eta Jean François aitamak, aitaxi-amatxiak, **izeba-osebak** eta ahaideak dolu izugarrian utzi ditu. **Herria**

Baina **izeba**-osabek ez zidaten baimen-orrria izenpetu. **Iñaki Mendiguren**

Pentsatu zuen hobe zela **izeba-osabekin** hitz egitea. **Iñaki Mendiguren**

Haurtzaroko eta lehen gaztaroko pertsonaia (**izeba-osabak**, lehengusua, aitona, eskola lagunak, adiskideak, egunkariko lankideak, lehenengo amodioak). **Koro Navarro**

Amonaz eta amonaren etxeaz gogoratu naiz, izeba Fermina eta osaba Julián, bueno amaren **izeba-osabak** ziren. **Lourdes Oñederra**

Gaztedanik Aldudera joan zen, han baitzuten alabaina **izeba-osebak**: Laurence Arrospe eta Martin Inda. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

4 osaba-iloba pl osabak eta ilobak.

Mindegia **osaba-ilobak**, Olasagasti eta Iriarte Urrezko Aizkolarien lehia txikian, Urrestillan. **Berria - Kirola**

Pribilegio handia izan da Oiarzungo herriarentzat Manuel eta Juan Mari Lekuona **osaba-iloben** sorteri izatea. **Berria - Harian**

Eztabaida luze asko izan zituzten **osaba-ilobek**. **Josu Zabaleta**

Une hartantxe, lurra dardaran eta zartatzen hasi zen, eta **osaba-iloben** parean harlosa batek estaltzen zuen zulo bat agertu zen. **Patxi Zubizarreta**

Eta isilune bitxi bat sortu da **osaba-iloben** artean. **Txillardeg**i

5 osaba-izeba (96 agerraldi, 35 liburu eta 4 artikulutan; orobat osabaizeba g.er.) pl osabak eta izebak. ik gorago 3.

Aho-biko ezpata da dagozen bidegabekeria, zauritzen bazaitu ez dago **osabiderik**. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan)

Hau duk nik behar dudan **osabide**-terapia! Jose Angel Irigaray

3 osatzeko bidea.

Horrenbestez, aukera ematen du animalia baten **osabidea** eta zelulen desberdintzea aztertzeko. Juan Garzia

Lan eskerga, beti **osabidean** dagoena. Pello Zabala

osadura iz osatzea; osatzearen emaitza. ik **osaera**.

-Denekin, denekin, baduzu halako **osadura** bat, denak hartuz. Menane Oxandabaratz

osaera (*orobat osakera g.er.*) 1 iz osatzea; zerbait osatua dagoen era. ik **osaketa**.

Ez dago "batasunik", esentzia bakar eta bakuna onartzuz ez bada, **osaerarik** eta nozio-aniztasunik gabea. Xabier Kintana

Argi zuriaren **osaera** aurkitzea izan zen Newtonentzat beraren aurkikuntzetatik pozgarriena. Xabier Olarra

Bizimodua aldatzean odolaran **osaera** aldatzen duk. Xabier Olarra

Bonbaren **osaerari** erreparatuta egilea ETA izan daitekeela uste du. Berria - Euskal Herria

Hitz elkartuen **osaera** eta idazkera. Isabel Arrigain

Jardun fisikoak hezurren **osaeran** duen eragina. Irene Aldasoro

Batzorde horren **osaera** gaitzetsi ahal izango duzu, zuk edo zure legezko ordezkariak. Oskar Arana

Taldean **osaerak** bere horretan jarraituko du beste urtebetez. Berria - Kirola

Barne-merkatuen **osaera**. Koro Navarro

Frantzia eta Ingalaterran, Ehun Urteko gerrak eginkizun erabakigarria izan zuen monarkia zentralizatuena eta nazio-nortasunaren **osaeran**. Koro Navarro

Subjektuaren irudimenezko **osaerak** irudiak dira, Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Odolaren osagai nagusi agerikoenak zerrendatu ditugularik, haien **osaera** kimikoari eta eginkizunari erreparatuko diegu hurrena. Irene Aldasoro

Genetikak eta biologia molekularrak, elkar harturik, gogotik zabaldu dute gizakien **osaera** genetikoa aztertzeko gure ahalmena. Juan Garzia

Kometaren nukleoaren **osaera** kimikoa, berriz, kometaren haloaren edo argi koroaren oso antzekoa da. Berria - Gaiak

Zurzuria eta makal beltza [...] suz eta airez egoten dira aseta, ura izaten dute neurri egokian eta lurra oso gutxi, eta beraz, oso **osaera** arina duten arren, badirudi oso sendotasun handia izaten dutela erabileran. Santiago Iruretagoiena

3 (hitz elkartuetan)

Biologiaren historiak zera ematen du: ibilaldi luze gorabeheratsu bat, aurretiazko asmo zehatzik gabea, materialismorantz, erredukzionismorantz eta mundu biziairen **osaera**-eta funtzionamendu-batasunerantz. Juan Garzia

· Mehatsu-mailako desberdintasuna, zuriaren ikuspuntutik, bertako biztanleriaren arraza-**osaeraren** estatistiketan agertzen zen. Iñaki Mendiguren

Zuhaitz-mota bakoitzari dagokionez, azaldu ditut beren elementu-**osaeraren** arabera zein propietate dituen itxuraz bakoitzak, eta zein egoeratan hazten diren. Santiago Iruretagoiena

osaezin 1 *izond* ezin osatuzkoa.

Praktika hegemonikoak gizarte **osaezin** eta irekiaren artikulazioak dira. Joseba Zulaika

Ohartzen gara, finean, nola amodioaren puzzlean, onenean ere, beti dauden pieza batzuk faltan eta beste batzuk soberan, eta argazkia **osaezina** dela, ondorioz. Joan Mari Irigoien

Gurekin daramagun infinitu **osaezinen** irekitasuna da gure benetako egia. Joseba Zulaika

2 *osaezineko izlag* osaezina.

Subjektua berez da zerbait **osaezineko** eta zatikatua; ez da nire izaeraren barne altxor paregabearen fetixe hori. Joseba Zulaika

osaezintasun *iz* osaezina denaren nolakotasuna.

Identitate ororen **osaezintasuna** demokraziaren baldintza suertatzen da horrela. Joseba Zulaika

osagabe *izond* osaturik ez dagoena. ik **osagabetu**.

Zenbait lekutan segurtasun neurriak eta aurreikuspenak aski **osagabeak** dira. Berria - Mundua

Bitan banatzen diren bidexken jardina Tsíui Pín-ek unibertsoaz zuen ikuskeraren halako irudi **osagabe** bat da, ez hala ere faltsua. Juan Garzia

Sekuentzia zirriborrotsu eta distiratsu gisa ikusten zuen iragana, film **osagabe** bat antzo, jende arrotzaren egintzen ingurukoa bailitzan. Mirentxu Larrañaga

Eskuarki, datu anbiguo eta **osagabeak** izaten dira hasierakoak. Juan Garzia

Zeren eta arrazoiketaren metodo induktiboa tresna **osagabea** baita nabarmenki proposamen negatibo bat frogatzeko. Iñaki Mendiguren

Identitate **osagabe** hauen azterketa, eta ez bakarrik unean uneko identifikazioak, hauxe da lan teoriko beharrezkoena. Joseba Zulaika

2 (adizlagun gisa) osatu gabe.

Honela bere zeregina betiko **osagabe** geratuko dela ohartuz, [...] esperientziazko erabilera enpiriko oro gainditzen dituzten oinarri-esakuneetara ihestera behartua gertatzen da. Ibon Uribarri

osagabeki *adlag* era osagabean.

*Civitas Dei*ko hiritarrentzat mundu honetan zain dagoen tentaziorik txarrena ez da politikan murgiltzea, ez negoziotara lerratzea, baizik eta lurreko erakunde bat idolatratzea, horretan gorpuzten baita **osagabeki** baina ezinbestean Eliza militantea lurrean. Iñaki Mendiguren

osagabetasun *iz* osagabea denaren nolakotasuna.

Kurt Gödel batek ere, bere lanik funtsezkoenetakoa eta XX. mendeko Logikari egindako ekarpen epistemologiko baliotsuenetakoa, hots, aritmetika formalaren eta multzo teoriaren **osagabetasunaz** ziharduena, hogeitaka orrialde soiletan idatzi zuen. Iñaki Segurola

osagabetu *izond* osatu ez dena. ik **osagabe**.

Hareazko Liburu Wicif aleak utzitako hutsunean gordetzea pentsatu nuen aurrena, baina azkenean *Mila eta Bat Gauen* liburuki **osagabetu** batzuen atzean ezkutatzea deliberatu nuen. [Juan Garzia](#)

· Egunaren ordu batzuetan, bestetik, mezu misterioitsu, Morsezko tikli-takla, txistu modulatu eta giza ahots itxuraldatu eta **osagabetuzko** unibertso korapilotsu oso bat agerrarazten zuen. [Juan Garzia](#)

osagai 1 *iz* zerbait osatzen duten zati edo elementuetako bakoitza; produktu bat osatzen duten gaietako bakoitza. ik **osagarri**.

Erlojuaren kasuan gertatzen den bezala, biziduna eta bere **osagaiak** garapenean elkarrekintzen emaitza baitira. [Askoren artean](#)
Antolaketa agintzen du **osagaien** hurrenkera, **osagai** horien arteko erlazioa ahalbideratzen du, konbinaketa batzuk onartzen ditu eta beste batzuk ez ditu onartzen. [Iñaki Arranz](#)
Botikara joan zen edabeak egiteko **osagaiez** hornitzeko. [Iñaki Mendiguren](#)
Hartzailerik gabeko testuak ziren, eta, horrenbestez, literaturaren funtsezko **osagaietako** bat falta zutenak. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Maiz alderatzen du bere gogamena paraleloan **osagai** asko lituzkeen ordenagailu batekin. [Xabier Olarra](#)
Nahi baduzu istorio polit bat kontatuko dizut, istorio beltza, hildako, detektibe, emakume eder eta gainerako **osagai** guztiekin. [Migel Angel Mintegi](#)
Obra horren **osagaien** arteko erlazioak **osagaiak** berak bezain garrantzitsua behar du izan. [Josu Zabaleta](#)
Izen propioak eta adierazpen predikatioak perpausen **osagaiak** dira; banakoak eta propietateak, berriz, ontologiarenak. [Askoren artean](#)
Minus ikurra aurretik duten **osagaiak** atera egin behar dira ekuazioetatik. [Jon Muñoz](#)
Enuntziatua agertzen da azken **osagai** baten gisara, zatiezina, bere baitan bakartu daitekeena eta bere antzeko beste **osagai** batzuekin harreman-joko batean sar daitekeena. [Xabier Arregi](#)
Saussurek onartzen du sistemaren **osagai** bat aldatzea "nahikoa dela sistema berri bat sor dadin". [Isabel Arrigain](#)
Nominalistak bi osagaiko ontologia -banakoak eta unibertsalak- proposatu beharrean, **osagai** bakarreko ontologia proposatu nahi du. [Askoren artean](#)
Esan daiteke diskurtso klinikoak gauzatu duela **osagai** ezberdinak [...] harremanean jartze hau: berak, praktika den neurrian, ezartzen du **osagai** horien artean harreman-sistema oso bat, alde aurretik "benetan" emana izan ez dena, ezta eratua ere. [Xabier Arregi](#)
Nahaste ikaragarri bat gara: azido nukleikoak eta oroitzenak, desirak eta proteinak ditugu **osagai**. [Juan Garzia](#)

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egun oso bat galdu nuen motorraren **osagai** nagusiak biltzen. [Joxe Austin Arrieta](#)
Kromosomen **osagai** nagusia da ADN. [Pello Salaburu](#)
Elikagaien **osagai** kimikoak. [Irene Aldasoro](#)
Material informatikoa, **osagai** elektronikoa, erabilera zabaleko/etxeko kontsumoko elektronika. [Koro Navarro](#)
Anorexia kasuen erdian **osagai** genetiko bat dagoela ikusi dugu. [Berria - Gaiak](#)
Kalamuaren **osagai** aktibo nagusia [...] TCHA da. [Berria - Harian](#)
Osagai zahar eta berriez prestatu dugu saltsa hau, eta bertako zuen ekarpenez errezeta aberastuko gero. [Herria](#)
Legareen **osagai** zientifikoen existentzia planteatzea eta aurkikuntzaren erregela heuristikoa aztertzea. [Askoren artean](#)
Kapitalen esportazioa da, beraz, kapitalaren barne-kontzentrazioaren **osagai** logikoa. [Koro Navarro](#)
Bertsolariaren funtsezko **osagaia** ez da formulen errepertorioa, formula berriak etengabe sortzeko gaitasuna baizik. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)
Estatu eredu ideal bat oinarritzko **osagai** etiko batzuen gainean funtsezkoa zen zientzia horren helburua. [Askoren artean](#)
Herri hizkerek badute **osagai** afektibo sakona. [Koldo Zuazo](#)
Dela datu-biltze estatistikoko metodoen arabera laginak ateratzeko, dela alde aurretik **osagai** adierazgarrienak zehazten ahalegintzeko. [Xabier Arregi](#)
Eraketa-sistema bati buruz hitz egiten denean ez da ulertzen bakarrik **osagai** heterogeneoen arteko justaposizioa, koexistentzia edo elkarreragitea. [Xabier Arregi](#)
Bellen teoriak hiru **osagai** oinarritzko ditu: [...]. [Askoren artean](#)
Zer multzo ezberdinetan ager daitezkeen aldi berean **osagai** jakin batzuk. [Xabier Arregi](#)
Adibideko hitz bakoitza **osagai** isolatuztat hartuko du. [Itziar Laka](#)
Fonemen **osagai** bereizleak finkatzea. [Isabel Arrigain](#)
Sistemaren **osagai** alde bikoak ildo hierarkiko eta politiko jakinen arabera jarduten du. [Koro Navarro](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauxe dugu **osagai**-egituraren funtsezko ezaugarria, bere izaera "abstraktua" ematen diona. Egoera mugatuko automatik hizkuntzaren egitura ezartzen dituzten mugak ez dira sortzen **osagai**-egiturazko gramatika-ereduan. [Itziar Laka](#)
Sintaxi mailako hizkuntz deskribapena **osagai**-analisiaren (*parsing*) bitartez formulatu ohi da. [Itziar Laka](#)
Zeuek tratatzen duzue bera **osagai**-euskarri modura, gainerako guztiaren erreferentzia izan behar duena. [Xabier Arregi](#)
24 mota desberdinetan sailkatu zituen, ekuazioen **osagai** kopuruaren arabera. [Jon Muñoz](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izena hizkuntz **osagai** bat da leku ezberdinak bete ditzakeena gramatika-multzoetan. [Xabier Arregi](#)
Badirudi gure paradigmaren, hizkuntzaren hots-**osagaiaren** memorian, alegia, bilkura-aukerak ere gordetzen ditugula. [Lourdes Oñederra](#)
Erraz bide da hersketa-**osagai** hori luzatzea txistukarirako trantsizioan. [Lourdes Oñederra](#)

5 (izenondo gisa)

Alde batetik, burmuina gai da beren elementu **osagaietan** zatitzeko gertakari iraganen irudi oroituak. [Juan Garzia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken osagai (3); egiteko osagai (8); ezinbesteko osagai (4); funtsezko osagai (3); hirugarren osagai (5); hizketaren osagai (3); ingelesaren osagai (3); kalamuaren osagai (3); odolaren osagai (3); oinarritzko osagai (4)

osagai analisiaren (4); osagai bakarreko (3); osagai berberak (4); osagai berriak (9); osagai bikainak (3)

osagai egitura (68); osagai egitura erabakitze (3); osagai egitura mailan (6); osagai egitura sistema (3); osagai egiturak (5); osagai egitura (7); osagai egituraren (16); osagai egituraren arabera (3); osagai egiturari (4); osagai egiturazko (30); osagai egiturazko gramatika (6); osagai elektronikoa (5); osagai errepikariak (3); osagai ezinbesteko (3); osagai garrantzitsua (5); osagai genetiko (4); osagai gisa (11)

osagai jakin (3); osagai kimikoak (3); osagai nagusi (10); osagai nagusia (23); osagai nagusiak (15); osagai politikoa (4); osagai politikoak (3); osagai prosodikoak (4); osagai transgenikoak (7)

sistemaren osagai (4)

zuzeneko osagai (4)

ezinbesteko osagaia (12); funtsezko osagaia (11); oinarritzko osagaia (7)

ezinbesteko osagaiak (3); gauzen osagaiak (3); oinarritzko osagaiak (7); osagaiak ekoizten (4)

bere osagaien (4); beren osagaien artean (3); hizkuntza osagaien (5); osagaien irakaspen transzendentalaran (3); osagaien multzo (3)

osagaia 1 iz osagaia, osagarria.

Bertsu, kantu eta kondaketa, lan horren **osagailuak** frango desberdinak dira bainan biziki interesgarriak bixtan da... **Herria**

Hots, ikusgarri eder baten **osagailuak** horiek denak. **Herria**

"Lehenbizi", "atsegin", "atseden", "haserre" bezalako hitzetan inork ez dakusa, mintzaira arruntean, **osagailuen** hatzik ez metaforaren xederik; metaforak dira, hala ere, finkatu eta konkretatu diren hitz abstraktuak. **Patziku Perurena**

Mintzaldien **osagailu**, leku haundi bat emana izan zaio otoitzari. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Bost urte iraun duen ikerketa batean, arto anzilatu eta sojadun jangai **osagailu** horiek jateko ordez, pentzean alarazi izan diren behi batzu hamabost hazkuntza tokitan jarraikiak izan omen dira. **Herria**

osagarri (orobat osogarrri g.er.) 1 iz zerbait osatzen duen gauza. ik osagai.

Banaketa-autoen 8 itxurako nikelazko **osagarriek** sortzen zituzten dirdaiek eraginda. **Lopez de Arana**

Bigarren obra bere *Lehen Bizitza*-ren **osagarri** bezala aurkezten du Zelanok. **Askoren artean**

Funtsean ez nuen zerbaiti edo norbaiti uko egin behar: aditzak ez zuten **osagarri** beharrik, absolutu bat zen. **Piarres Aintziart**

Aurreko horien **osagarri** gisako laugarren printzipio bat sar genezake: zuhurtzia printzipioa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Gramatika orokorraren kontzeptuak, esate baterako aditza, subjektua, **osagarria**, erroa. **Xabier Arregi**

Kapital naturala, lehengai eta energia hornitzaile gisa, gizakiak sortutako kapitalaren **osagarria** da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Periferiako eskualde garatuenetan (Asian), konkurrentzia oro ezabatuz [...] lortu da zentroko ekoizpenaren **osagarri** izatea. **Koro Navarro**

Nire iritziz, jatorrizkoa eta laburpena **osagarriak** dira. **Iñaki Mendiguren**

Lehenago, gazta eta hestekiak ogiaren **osagarri** ziren, orain ogi muttur batekin edo ogirik gabe hartzen dira. **Edorta Agirre**

Oteizaren testu apokrifor horretan ageri diren hiru arima horiek -telurikoa, abstrakzioarena eta iraultza kulturalarena- **osagarriak** izan litezke eta uste dut **osagarri** izan dituela Oteizak bere ibilbide artistikoan. **Anjel Lertxundi**

Kontakizun bakoitza besteen **osagarri** eta aberasgarri da. **Irene Aldasoro**

Euskara Batua eta euskalkiak elkarren **osagarri** direla badiogu, bataren eta bestearen esparruak zehaztu beharko ditugu. **Koldo Zuazo**

Saramagoren nobela bakoitza autonomoa da [...] eta hala ere, hari fin batek elkarlotzen ditu guztiak, halako moldez non denak elkarren **osagarri** direla esan daitekeen. **Jon Alonso**

Liburuak epilogo bat izan zuten **osagarri**, "Euskalkiak etorkizunian". **Koldo Zuazo**

Ezkontza bera zer zen, lege zibilak lege naturaletan eta lege erlijiosoak lege zibiletan zertan ziren **osagarri**. **Andres Urrutia**

Osagarri izan liteke eta, bere aldetik, liburua eskoletan osa liteke. **Lourdes Oñederra**

2 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean)

Meatzari-familia gehienek izaten zuten baratze koxkor bat, etxeko irabazien **osagarri**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Landa-jabegoa monasterio bihurtu zuen, San Benediktok Monte Cassinon egindako fundazioaren **osagarri**. **Iñaki Mendiguren**

Hala eta guztiz, azalpen historiko hurbilagoak ere eman litezke, aurrekoaren **osagarri**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta jaun inksidoreak, apez laguntzaileek eta eliz-mutilek jantzirik elegantenak erakusten zituzten [...] zirimoniaren handitasunaren **osagarri**. **Joan Mari Irigoien**

Horien **osagarri**, bada egilekako aurkibide miragarri bat, gaikako eta formulakako beste banarekin batera. **Juan Garzia**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Informazio hau konplexuagoa da, jakina, baina aurrekoaren **osagarri** behar-beharrezkoa da orobat. **Josu Zabaleta**

Arian-arian sortzen ari dira, beraz, oraingo kudeaketa moduen **osagarri** -edo ordezko- egoki izan litezkeen tresnak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Memoriak, giza unibertsuaren magma edo haragiaren **osagarri** benazkoena den horrek. **Pako Aristi**

Ez zinetela ez elkarren sujetu eta ez objektu, baizik-eta, gehienez ere, **osagarri** zirkunstantzialak. **Iñaki Segurola**

Hori ezinbesteko **osagarri** bat da euskaldun hauen bizitzan. **Pako Aristi**

4 osagaia.

Bera da gainerako guztiaren berme nagusia, eta gainerako **osagarri** formalak zehazten ditu, halako eran non **osagarri** horiek bera gabe osagai birtual batzuk baino ez baitira... **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Gero eta koherenteagoa bihurtu nahi duzu, gorputz eman behar diozu, baina puzzleak **osagarri** asko dauzka. **Rafa Egiguren**

Bakea ez dator onarpen etsitu batetik, lerroan jarrita dauden lau **osagarri** horien orekatik baizik. **Pako Aristi**

Ibilgailuen hotsa gure kulturaren **osagarri** bilakatu zaigula. **Edorta Jimenez**

Gizonen komunitatearen parte eta **osagarri** naiz. **Josu Zabaleta**

• 5 izond zerbaitz mintzatur, haren osagarri dena, hura osatzen duena.

Argibide horiek zor dute, ordea, beste argibide **osagarri** bat. **Anjel Lertxundi**

Nagusiak eskupekoak ematen zizkigun ordu **osagarrien** truke, zergak saihesteko. **Juan Kruz Igerabide**

Orduan, emazteak bultzatuta, beste lan **osagarri** bat bilatu nuen. **Jon Alonso**

ADNaren kate **osagarri** biek elkar ezagutzeko eta espezifikoki elkarrekin uztartzeko duten gaitasunari esker. **Juan Garzia**

Ekonomiari buruzko hainbat eta hainbat gai adibideez eta testu **osagarriez** horniturik jasotzen ditu. **Iñaki Heras**

Badakizu mugimendua animalien gorentasunaren atal **osagarria** dela, eta beharrezkoa duela betegina izateko. **Xabier Kintana**

Musika gaitasunen lanketa **osagarria**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Baliabide mota hauek laguntza **osagarria** baino askoz gehiago dira bertsolariarentzat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Eztabaida ideologikoaren bideak zehazteko, erabaki **osagarri** bat sartu nahi zuten testuan. **Rafa Egiguren**

Eta sentibilitate **osagarri** bat: lurraldetasuna. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Arrazoizkotasunak, fedearentzat, kaltegarri ez baina lagungarri eta **osagarri** beharko duela izan. **Askoren artean**

Txosten ospe handiko honetan, Giza Garapenaren Indizea (GGI) sartzen da, Barne Produktu Gordinak islatzen dituen alderdi **osagarri** batzuk islatzen dituen adierazle berri bat. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Erabiltzen dituzun hitzek, eta hitz horiei emandako tonuak, informazio **osagarri** bat eskaintzen dute lekuari buruz, garaiari buruz, orduari buruz, eta nola ez, baita protagonisten izaera edota hezkuntza mailari buruz ere. **Pako Aristi**

Bloomfieldarentzat, bestalde, banaketa edo distribuzio **osagarrian** azaltzen ziren hotsen sailkapen-tresna zen fonema. **Lourdes Oñederra**

• 6 iz ipar osasuna.

Ontasun paregabea baita **osagarria**. **Herria**

Baina heldu naiz zuekin, bezperak on dira **osagarriarentzat** ! **Piarres Aintziart**

Zikinen errausteko labeak kaltegarri direla ingurumenarentzat eta jendearen **osagarriarentzat**. **Herria**

250.000 ingurumenaren zaintzeko, eta 545.000 abereen **osagarriarentzat**. **Herria**

Jaten dugu ahal bezain ontsa bizitzeko, **osagarrian** izaiteko. **Herria**

74 urte dituela bainan **osagarriak** laguntzen balinbadu oraino hogoi urterena baduela! **Herria**

Akitua, ene **osagarriak** lan gogorrik ez du jasanen. Marzel Etxehandi

Aspaldixkoan **osagarria** ahultzen ari zitaion. Herria

Bulta huntan **osagarria** mendratua zuen eta etxean artatu du familiak denbora guzian. Herria

Osagarriak lagundu dueno beti segitu ditu elizako urratsak. Herria

Bunuzen biziko den bikote huni goresmenak eta izan dezatela **osagarri** eta ainitz zorion. Herria

Osagarrian eta etxeko goxotasunean handi dadila. Herria

Kima tipia handi dadila eta bizi luzaz **osagarrian**. Herria

Kausi dezatela **osagarri** eta zorion beren bizian. Herria

Urte berriak ekar dezala bakotxari, **osagarri**, zorion, maitasun, elkartasun eta elgarren errespetua. Herria

Urte berriak agian emanen dauku **osagarri**, amodio eta bake. Herria

-Topa dagigun, beraz, iraultzaren **osagarriari** !-oihukatu zuen Zubiburuk, edalontzia altxatuz-. Elena Touyrou

Osagarri hiri! Juan Garzia

7 (izenondoekin)

Eritasuna nagusitu zaio bere **osagarri** azkarrari. Herria

Oinez ibiltzeko Pirineotan trebeska, behar da osasun edo **osagarri** azkarrekoa izan, kasik beti patarrak baitira eta ardura aski zutak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Osagarri ahula zuen. Herria

Ezen Jainkoaren bihotz onari esker hura erdietsi duen edozein atso, eri, gaixo, zahar, itxuragabeko, erromes zokoratuk izanena du betiko **osagarri** betea. Piarres Xarriton

Agian beretik joanen da urtea omore onean eta **osagarri** betean. Herria

Lehenik joan zirenak gizon eta emazte sendoak izan ziren, **osagarri** ona zutenak, lanean aritzen ahalko zirenak. Elena Touyrou

-Hunaraino jin hiz halere, **osagarri** onean hizelako marka, ez? Michel Oronoz

Bitzar nagusiak erakutsi du elkarte **osagarri** onean dagoela, bere lana segituz sail askotan euskal kulturaren alde. Herria

Bolondresak galdegin zituzten haien ordain: **osagarri** handia behar zen hortarako, eta 40 urtez petik, gaitzari ihardokitzeko. Marzel Etxehandi

Esku baloi taldea **osagarri** hobereanean. Herria

Esku Baloia **osagarri** gaitzean. Herria

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jokolari batek **osagarri** arazoak ukanez trenputxartu baita. Herria

Dituen **osagarri** arrangurek, bereziki bizkarreko minak, dute erabaki horren hartzera behartu. Herria

Seguritate eta **osagarri** saileko kargudunen inguruan. Herria

Osagarri zentroen ebaluaketa da ANAES batzordeen lana. Herria

Ohartu dira euskara ez dela kasik batere baliatzen administrazioan, Herriko Etxeetan, bankoetan ala **osagarri** zerbitzuetan. Herria

Osagarri ministerioak fermuki hitz emana du. Herria

Laneko **osagarri** gaietan fakturen tratamendua ez da gelditu, eta paperezko fakturak, jadanik aipatu dugun helbidera igorri behar dira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras **osagarri** onean (4); aurrekoaren **osagarri** (5); bata bestearen **osagarri** (5); bere **osagarri** (6); bestearen **osagarri** (5)

elkarren artean **osagarri** (3); elkarren **osagarri** (29); elkarren **osagarri** dira (7); erakusketaren **osagarri** (3); ezinbesteko **osagarri** (3); gure **osagarri** (3); izan dezala **osagarri** (3); izan dezatela **osagarri** (5); kulturaren **osagarri** (3); lanaren **osagarri** (3)

oraiko **osagarri** (8); oraiko **osagarri** on (6)

osagarri arrangura (7); **osagarri** azkarrekoa (4); **osagarri** eta zorion (18); **osagarri** gaitzean (4); **osagarri** gehigarriak (5); **osagarri** gehigarrien (9); **osagarri** gehigarrien dekretua (4); **osagarri** gisa (31); **osagarri** gisa erabiltzen (3); **osagarri** handiko (3); **osagarri** izan (13); **osagarri** izango (10); **osagarri** izateko (3); **osagarri** mailan (3); **osagarri** modura (3); **osagarri** on (38); **osagarri** on bat (7); **osagarri** on batekin (7); **osagarri** on berarekin (7); **osagarri** ona (7); **osagarri** onarekin (3); **osagarri** onean (41); **osagarri** onean da (8); **osagarri** saileko (3); pentsio **osagarri** (6); soldata **osagarri** (4); zorion eta **osagarri** (11)

bere **osagarria** (4); egitarau **osagarria** (3); eskaintza **osagarria** (3); eszenografia **osagarria** (3); laguntza **osagarria** (3); medikuen **osagarria** (3)

osagarria ahuldua (3); **osagarria** galdua zuen (3); **osagarria** izan (5); **osagarria** kraskatu (4); **osagarria** mendratia (3); **osagarria** mendratua (5); **osagarria** mendratua zuela (3)

elikaduraren **osagarriak** (3); elkarren **osagarriak** (10); gutxieneko **osagarriak** (5); nazio herriaren **osagarriak** (3); neurri **osagarriak** (3); ordainsari **osagarriak** (3)

osagarriak laguntzen (5); **osagarriak** laguntzen zueno (3); **osagarriak** ordaintzeko (3)

pentsio **osagarriak** (14); saio **osagarriak** (5); sistema **osagarriak** (4); soldata **osagarriak** (3); testigantza **osagarriak** (4)

handi dadila **osagarrian** (4); haundi dadiela **osagarrian** (3); haundi dadila **osagarrian** (3)

industria **osagarriaren** (4)

jendeen **osagarriarentzat** (3)

pentsio **osagarrien** (9); saio **osagarrien** (6); soldata **osagarrien** (3)

bata bestearen **osagarritzat** (3); **osagarritzat** hartu (3); **osagarritzat** jo (3)

osagarritzko handitze bat (23); **osagarritzko** haunditze bat (5)

osagarrigintza *iz ipar* osasungintza.

Osagarrigintzan ere urrats batzu eginen dira, hango arta-etxeaz ardurutzen den erizainarekin batera: nola arta eritasunak? zer egin eritasunik ahalaz ez biltzeko? zer jan? zer edan?... Herria

osagarritasun 1 *iz* osagarria denaren nolakotasuna.

Bi kapital mota horien arteko **osagarritasuna** onaturik, garapen iraunkorrerako irizpideak kapital naturalaren kontserbazioaren printzipioan egon behar du oinarriturik, ezinbestean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bien arteko **osagarritasunean** datza gakoa, hau da, trena bidaia luzeak egiteko erabili, eta kamioiak merkantziak trenera eraman eta trenetik hartzeko. Berria - Euskal Herria

Zientziak eta aurrerapenak gerraren eta Estatuaren gaindipena zekarten, herri guztien elkar **osagarritasuna**, komertzio librea, eta askatasun eta anaitasun unibertetsala. Joxe Azurmendi

Unibertsetate gune bakoitzaren autonomia eta elkarren arteko **osagarritasuna** lortu beharko lirerateko, bai EHUren kasuan, bai eta sistema zabalago batean ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Naturaren eta izpirituen artean ez dago oposiziorik, hots, bateko arraza biologikoa eta besteko "izpiritualitate kolektiboa"ren artean, oposiziorik ez egon ez ezik, elkarren **osagarritasuna** dago erabatekoa. Joxe Azurmendi

Unibertsal eta partikular izatearen artean Goethek alternatiba beharrik ez, baizik elkarren **osagarritasun** ezinbestekoa ikusi du beti. Joxe Azurmendi

Tokiko merkataritza bezala, kanpoko merkataritza ere **osagarritasunaren** printzipioan oinarritzen zen, ez konkurrentzian. Koro Navarro

Hondarribia eta Miarritzeko aireportuen arteko **osagarritasunari** buruz ere gogoetetzen ari dira. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Erakustea, azkenik, nola positibotasunen artean mendetasun edo **osagarritasun** -harremanak ezar daitezkeen. Xabier Arregi

Lauak osagarriak dira eta **osagarritasun** ikuspuntutik funtzionatu behar dute. Berria - Euskal Herria

Objektu sakabanatuak elkarrenganako **osagarritasun** espiriturik galdu gabe, multzokatzeko gaitasuna erakusten dute, era berean. Berria - Kultura

3 osagarritasunezko izond

Merkataritza, nazioarteko inbertsioa bezalaxe, **osagarritasunezko** irizpideen gainean oinarritzen zen funtsean. Koro Navarro

Osagarritasunezko merkataritza, alabaina, ez da desagertu. Koro Navarro

Nahikoa begi-bistako ageri zaigu natur baliabideen eta gizakiak sortutako kapital baliabideen arteko harremana **osagarritasunezko** harreman garbi bat dela. Itziar Eizagirre
/ Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

osagarritasunaren printzipioak (3)

osagile 1 iz sendagilea.

Ezinekoa iruditzen baitzitzaion, **osagilerik** onenen eskutan sendatua izanda ere, aurpegia eta soin guztia ebakiondo eta seinalerik gabe izatea. Patxi Ezkiaga

Kepa Mendizabal **osagileak** han bertan aztertu zituen gorpuak eta neuk paperak izenpetu ondoren, Gurutze Gorri-koei andetan ipini eta eramateko agindu zien. Gotzon Garate

Ez zekiagu zertaz, eta **osagileek** berek ere ez, ene ustez. Txillardegi

Bidaide batek erdi azti erdi **osagile** -petrikilo famatu baten aipua dakarkio; bestelako osabidea dela harena eta halako beste. Jose Angel Irigaray

Klubak baditu **osagile** espezializatuak, eta haien esku egon ohi dira ebakuntza eta lesio larriren bat ukan duten jokalariek. Berria - Kirola

Bilbon andra-**osagile** bategana jo neban eta neure guraria azaldu neutsan. Gotzon Garate

Hortik dator, laringologoen eta beste eztarriko **osagileen** zaindari izatearen tradizioa. Pello Zabala

Eta dena **osagile** txotxolo batek hildakoaren agiri okerra egin zuelako. Gotzon Garate

2 (hitz elkartuetan)

-Koldo, geure Elizabetxok, **osagile** ikasketak egin eta Bilbon, Basurton aurkitu dau beharra. Gotzon Garate

osakera ik osaera.

osaketa 1 iz osatzea. ik osakuntza; osaera.

Golema edo Gizon ikusezina bezalako literatur asmazioen **osaketan** beti dago zientzia mekanizistaren edo alkimiaren kontrako jarrera. Anjel Lertxundi

Teoria demokratikoaren **osaketaren** historia luzeak grekoengan du iturburu. Esteban Antxustegi

Ardura: idazkaritza, dozieren **osaketa** eta jarraipena; konduen jarraipena. Herria

Txostenaren **osaketan** parte hartu duten eragileak adostasunera heldu dira. Berria - Euskal Herria

Elkarrizketa mahaiaren **osaketa** «atzeratzeko taktikak» dituzte zenbait sektorek. Berria - Euskal Herria

Gramatika tradizionalak ez ditu kontuan hartzen hizkuntzaren zati batzuk, hitzen **osaketa**, esaterako. Isabel Arrigain

Hortik aurrera, mihiak ez du parte hartzen ahoskunearen **osaketan**. Lourdes Oñederra

Esapide horren **osaketan** parte hartzen duen "walt" erro hori. Juan Garzia

Hau da arrazoimen hutsaren zeregin kritikoaren **osaketa**, eta hau da orain egitera goazena. Ibon Uribarri

Nik bilatu nahi dudan filosofiak kosmogonia bat izan behar du lehendabizi, munduaren **osaketaren** hipotesi arrazional bat. Josu Zabaleta

Euren **osaketa** intelektuala ez delako egonarri handiko ikerketa zalea. Jon Alonso

Gipuzkoako Batzar Nagusien alderdikako **osaketari** erreparatuz gero, [...]. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Asteartean, Israelgo gobernu **osaketaren** berri esku artean dugun egunkari honetan. Iñigo Aranbarri

Gaur egun ere subjektua langilea da, baina fabrikatik askoz haratago doan lan indar mugikorra da, klase **osaketa** guztiz ezberdina duena: langile prekarioak, emigranteak... Berria - Kultura

3 osaera.

Bertsolarien hainbat emanalditan publikoaren **osaketak** nolabaiteko komunitate zentzu bat iradokitzen du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lehergaien **osaketa** aztertzen aritu ziren gero. Berria - Euskal Herria

4 sendaketa.

Handik gutxira, perlesiak jotako gizonak bere **osaketaren** berri esan ondoren, mirari hotsa zabaldu zen, lau haizetara ez, bost haizetara baizik. Felipe Juaristi

Odolaren beste osagai batzuek, berriz, **osaketa** -lanerako beti prest dagoen sistema bat eratzten dute. Irene Aldasoro

Herritarrei ukatu nahi izan diete LKEren **osaketa** lanetan partehartzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Ebakuntza ondo atera zen, baina **osaketa** luzea izango zen. Berria - Kirola

Bi hilabete pasatu dira Racingen aurka min hartu zuenetik, eta **osaketa** espero baino hobeto doala esan zuen atzo. Berria - Kirola

Entrenatzailearen iritziz, «ez dago jokatzeko moduan», nahiz eta bere **osaketa** prozesua «oso ona» izan den. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batzordearen osaketa (5); **bere osaketa** (5); **gobernu osaketa** (3); **gobernuaren osaketa** (9); **kontseiluaren osaketa** (5); **legebiltzarren osaketa** (3); **mahaiaren osaketa** (6); **mahaien osaketa** (3); **osaketa aztertzen** (3); **taldearen osaketa** (3); **taldeen osaketa** (6)

gobernu osaketaren (3); **gobernuaren osaketaren** (3)

taldeen osaketari (3)

gobernu osaketaz (3)

osakide izond/iz osatze bateko kide dena.

Baiespen horren arabera, pentsatzen dute halako gorputz batean diren akzidenteez ezin daitekeela esan horietako bat bera ere gorputz horrexen osotasunari dagokionik; aitzitik, akzidente hori, haien iritziz, gorputzaren atomo **osakide** bakoitzean datza. Xabier Kintana

Honela, Jainkoa "ez dela anizkuna" adierazi nahi dugunean, horretarako "bat" hitza erabiliz baino ezin dugu esan, "bat" eta "anizkuna", bi-biak, "kopurua"ren **osakideak** diren arren. Xabier Kintana

Arrazoimenak ezagutzaren printzipioen berezko batasun erabat bakartua osatzen baitu, non **osakide** bakoitza -gorputz organizatu batean gertatzen den lege- beste guztiengatik dagoen bertan, baita beste guztiak harengatik ere. Ibon Uribarri

Behin sailkaketaren **osakide** bat ezarri gero, orduan gainerako denak baztertzen dira, eta alderantziz. Ibon Uribarri

Gizaki jakin baten gurasoen ilara ez da zein esperientzia ahalgarritan ematen bere osotasun absolutuan, baina itzulera sorketa honen **osakide** bakoitzetik goragoko **osakide** baterantz doa, eta hainbestez, **osakide** bat absolutuki baldintzatugabe gisa aurkeztuko lukeen muga enpirikorik aurkitu gabe. **Ibon Uribarri**

Mespretxua arimari dagokiolarako, hau da, forma espezifikoari, eta ez **osakideen** eraketa eta itxurari. **Xabier Kintana**

osakuntza iz osaketa.

Kandelario hotz... esaerak **osakuntza** hirukoa dauka; non gorde duten atsotitza: neguaren bihotz, edo negua joan da motz, edo baita negua joanda poz! **Pello Zabala**

Beraz, zein eskutara zein datu iristen diren eta gero horiek denak zein irizpideren arabera elkartzen edo mihizatzen diren, puzzlearen halako edo bestelako **osakuntza** egin ahal izango da eta, horra buruhaustea. **Edorta Jimenez**

osamaitu, osamai, osamaitzen du ad

Zenbaitzuk beharrezkoak dira banakoaren egoera hobetu eta bere egintzak **osamaitzeko**, hala nola oinak, eskuak eta begiak, horiek guztiok ezinbestekoak mugitzeko, lan egiteko eta hautemateko. **Xabier Kintana**

osarazi, osaraz, osarazten du ad osatzera behartu.

Hala ere, nire bihotza ezpainei musu bat **osarazi** eta zuri bidaltzeko gertu dago. **Pako Aristi**

osasun 1 iz eritasunik gabeko egoera. ik osagarri 6.

Edertasuna eta **osasuna** baino maiteago izan eta neure argitzat aukeratu nuen. **Elizen arteko biblia**

Elikadura, **osasuna** eta ekonomia firma edo pertsona berberen eskuetan dauden bitartean, daukagunarekin konformatu beharko dugu. **Edorta Agirre**

Zergatik ez da gaitza bezain kutsakorra **osasuna**? **Patziku Perurena**

Aberatsak ez du osasunik, **osasuna** duenak ez du argitasunik, burua duenak ez du maitasunik, amodioa duenak ez du dirurik... **Joseba Sarrionandia**

Sexua **osasuna** da. **Luis Elberdin**

Bizioak kalte egiten badio **osasunari**, eta **osasuna** ona dela inork ez du zalantzarik, bizioak hondatzen dituenak onak dira. **Imanol Unzurrunzaga**

Um Hamida emakume mardula zen, haragitsua, hirurogei bat urtekoa eta, hala ere, **osasunean** zegoen. **Patxi Zubizarreta**

Kleiman jauna hobeto dabil **osasunez**, zorionez. **Josu Zabaleta**

Ulertzekoa da pediatriak umearen **osasunaz** arduratzea eta ez amaren buru-osasunaz. **Arantxa Iturbe**

Ez nauk gehiago saiaturiko, ez diat nire **osasuna** arriskuan jarriko. **Iñaki Iñurrieta**

Bere **osasunak** onera egiten ez badu. **Berria - Mundua**

Duela lau urte artrosia eta beste zenbait gaixotasun diagnostikatu zizkioten, eta aurtengo udan haren **osasunak** okerrera egin du. **Berria - Euskal Herria**

Osasunak huts egin zion arte, Patxi izan genuen Azpilgo maisu. **Joan Mari Irigoien**

Hizketan hasi zait, oso adeitsu, nire **osasunaz** -eta galdezka. **Anjel Lertxundi**

Askoz hobeto zegoen **osasunez**. **Juan Kruz Igerabide**

Gainera, aita **osasunez** pattal samar zebilen. **Juan Kruz Igerabide**

Izaba Matilde oso makal zebilen **osasunez**. **Jon Alonso**

Senarraren **osasunerako** otoitzean ari zela, anaietako batek honela esan zion xaloki: [...]. **Askoren artean**

Niri ibiltzea eder zait eta **osasunerako** mesede egiten didala sinetsirik nago. **Gotzon Garate**

Osasunaren errialdirik arinena ere larria da lehendik makal dagoen gaixoarentzat. **Imanol Zuruza**

60º C-ren jiran elementu ugari desegiten edo aldatzen dira, **osasunaren** kaltean, nonbait. diotenez, pipa erretzea **osasunaren** kaltegarri da. **Edorta Agirre**

XIX. mende amaierako adreilu eta burdinazko pabilioi **osasunaren** kaltekoak. **Iban Zaldua**

Egun batez nausiarri gertatu zitzaion **osasuneko** ez-beharrak, bat-batekoa. **Herria**

Sindikatuak Osakidetari eta patronalari leporatzen diote **osasuneko** sorospen zerbitzua ez dutela behar bezala zaintzen. **Berria - Ekonomia**

Manuel Errezola Gipuzkoako **Osasuneko** zuzendari nagusiari. **Berria - Ekonomia**

Eriek, gero eta maizago hasten dituzte auzibideak **osasuneko** profesionalen aurka. **Berria - Gaiak**

2 (aditzaren objektu gisa)

Zin-zinez beldur naiz ez ote duen **osasuna** galduko. **Jon Muñoz**

Osasuna andeatzen ari zitzaion arren. **Oskar Arana**

-Droga horrek **osasuna** xurgatuko dizu. **Joan Mari Irigoien**

Osasuna zaintzen duen medikuaren aginduaren kontra. **Imanol Unzurrunzaga**

Inguruan bildutakoek aita txiki santuari dei egin zioten eta une berean **osasuna** berreskuratu zuen. **Askoren artean**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaske hori, sekularra zela, harroputza eta mundu zalea zen, handiki jatorrikoa eta **osasun** gutxiakoa. **Askoren artean**

Betiko **osasun** onaren erresuman. **Bernardo Atxaga**

Denak zintzoak eta langileak dira eta, gainera, **osasun** ona dute. **Iñaki Zabaleta**

Atsegin handia da **osasun** oneko mutiko bat ikustea -esan zuen, Dudleyri begia keinatuz-. **Iñaki Mendiguren**

Eta hala, handik laster, Jainkoaren graziaz eta Frantziskoren merituz **osasun** bete berreskuratu zuen. **Askoren artean**

Osasun bete iduriz, aurpegiek diotenez. **Piarres Aintziart**

Gizona, lotatik esnatuko balitz bezala, **osasun** bete jaike eta Jaunaren egintza harrigarriak kontatu zituen. **Askoren artean**

Zure **osasun** makal horrek salbatu zaitu gela itsuan hamabost egun egitetik. **Anjel Lertxundi**

Lucio **osasun** pattalekoa zen, ahula, eta otorduetan ez zen inoiz goseak egoten. **Fernando Rey**

Mr Bunbury horrek harrigarriko **osasun** kaskarra du, ezta? **Antton Olano**

Ez dago sexualitate normalik eta anormalik, **osasun** sexuala ez baitagokie arau sozialei. **Luis Elberdin**

Ez zuela kezkatzen besteen **osasun** mentalak, nahikoa zeukala berearekin. **Unai Elorriaga**

Urdaitegiari osasuna zerion berriz ere, **osasun** gantzatsua. **Karlos Zabala**

Ahoko **osasunak** bizi-kalitatean eragiten duela ohartarazi du OMEk. **Berria - Gaiak**

Buruko gaitzen promozioari, prebentzioari eta tratamenduari dagokion guztia hartzen du bere baitan buruko **osasunak**. **Berria - Gaiak**

4 irud/hed

Ez ditugu euskalkiak besterengandik bereizteko erabili behar, euskararen **osasuna** sendotzeko baizik. **Koldo Zuazo**

Urdaitegiari **osasuna** zerion berriz ere, **osasun** gantzatsua. **Karlos Zabala**

5 (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertsona guztiek dute ahalik eta **osasun** mailarik gorenerako eskubidea, ingurumen kalterik gabe. **Itziar Ezizagirre / Amaia Lizarralde**

Aireak eta eguzkiak ematen zioten **osasun** -itxurak arras edertzen zuen. **Josu Zabaleta**

Aire zabalean gehiago ibiltzen zenez, **osasun** kolorea zuen. **Josu Zabaleta**

Hara iritsi eta alditxo batera, **osasun** -arazoak areagotu egin zitzaizkion. **Askoren artean**

Gero, X izpiak etorri ziren; gauzak argiago ikusteko aukera ematen zuten, baina berehala jakin zen **osasun** -kalteak eragin zitzaizkela gerora fetuan. **Juan Garzia**

Lanordu amaigabeak, soldata hutsalak eta **osasun** baldintza onartezinak. **Iñaki Heras**

Erremediatorik gabeko **osasun** epidemia. **Patziku Perurena**

Osasun -batzordeko ikuskatzailea ere gizon astitsua da. **Jose Morales**

Osasun -zerbitzuetako langileek andetan gaixo berriak ekartzen jarraitzen zuten. **Oskar Arana**

Lurraren **osasun** -propietateak larreetan eta janarietan antzematen direla. **Santiago Iruretagoiena**

Estatu Batuetako medikuen artean **osasun** sareak sortzen ari dira, batez ere jende gutxi bizi den lurraldeetan. **Pello Salaburu**

Bazekien ez zuela **osasun** -agiriirik baina beharrezkoa zuela. **Jon Muñoz**

Osasun -garbiketako kamioia etorri, eta auzo osoan ibili zen denak gortu beharrean, ta-ta-ta-ta, alde guztietara hauts desinfektatzaileak zabalduz. **Juan Kruz Igerabide**

Osasun ikerketan gastatzen den diru gehiena ez doa eritasun larrienen zergatiak eta sendatze bideak bilatzera. **Pello Salaburu**

Argentinan orain Latinoamerikako **osasun** programarik garrantzitsuena du. **Berria - Mundua**

Nafarroako **Osasun zuzendariak** dio Nafarroako legea Espainiakoa baino hobea dela. **Berria - Euskal Herria**

Getatutakoaren ondorioz, Frantziako Gobernuak **Osasun zuzendari** nagusi Lucien Abenhaimek dimisioa eman zuen. **Berria - Harian**

-Ni Keating eta Bradley **osasun** -ingeniariekin nago, Park Avenue.... **Lopez de Arana**

Berdin zitzaidala **Osasun** Sailburua edo Bayer-eko Zuzendari Orokorra bazen ere. **Hasier Etxeberria**

Gobernuak **Osasun** Sailaren agindupean. **Askoren artean**

Osasun Politikarako Nazioarteko Erakundeak Europar duen delegazioko burua. **Berria - Gaiak**

Edozelan ere, Parisko **osasun** -ikuskaritzak ez zuen sekula ezer arrarorik sumatu. **Iban Zaldúa**

Italiako **Osasun** ministro Francesco Storacek dimisioa eman zuen atzo. **Berria - Mundua**

Estatu Batuetako **Osasun** Institutu Nazionalak. **Pello Salaburu**

6 (izen elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario **osasun** -galgarriak sortzen dituen, **Karlos Zabala**

7 (izen elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire iloba lotsati eta maiteminduen buru-**osasunarengatik**, gatibu zeukan xarma hura desegiteko betebeharra neukala sentitu nuen. **Oskar Arana**

Sexu **osasuna** da pertsona bakoitzak bere buruarekin eta besteekin hobeto sentiaraziko dion sexualitatearen alderdiak bilatzea. **Luis Elberdin**

Alfonso XIII.ak hortz-**osasun** ezin hobea izango zuen, apika. **Iban Zaldúa**

Are gutxiago, zientziak eta teknologiak sortutako arriskuei erreparatzen badiegu, horiek mehatxupean jartzen baitituzte giza **osasuna** zein ingurumena. **Askoren artean**

Osalanen eta INSL Nafarroako Lan **Osasuneko** Erakundearen datu ofizialez gain, autonomoen lan istripuak ere hartu ditu kontuan LABek. **Berria - Ekonomia**

• 8 (interjekzio-edo gisa)

Osasuna! -atera berri zuen garagardoa edan zuen. **Koro Navarro**

-Osasuna, konpañero! -eta ukabila jaso zuen Karmenek, logelara sartu eta atea itxi aurretik. **Anjel Lertxundi**

Anai Leon, zeure anai Frantziskok: **osasuna** eta bakea. **Askoren artean**

-Zure **osasunaren** alde, osaba Nat -esan zuen Tomek, edalontzia jasoz. **Oskar Arana**

9 **osasuneko** izond osasuntsua.

Gizon-emakume sano eta **osasunekoak**. **Felipe Juaristi**

90 urtetarat heldua, ez zen gehiago hanbat agertzen komentu inguru heietan baina **osasuneko** izana zen eta gizon ederra. **Herria**

10 **osasun etxe** (90 agerraldi, 5 liburu eta 57 artikulutan)

Baina erabaki mingarri harekin batera gaixotasun bitxi batek jo zuen Franco, eta **osasun-etxe** batera joan behar izan zuen. **Xabier Olarra**

Zuk ikusiko duzu ea ez ote litzatekeen hobe aldi baterako **osasun etxe** batean sartu han zaindu nazaten. **Josu Zabaleta**

Legeak langileei osasun zaintza egitea exijitzen du **osasun-etxe** homologatuen bidez. **Berria - Ekonomia**

Londresko eroentzako **osasun etxe** batek zuen izenaren kontrakzioa. **Xabier Olarra**

Mutualitateetako sendagileak **osasun etxeko** ikuskaritza medikuari azaldu beharko dio langileari senda-agiria noiz emango dion. **Berria - Ekonomia**

Bi kontzeptu horiek uztartzen dituzten etxeak dira atsedean eta **osasun etxeak**. **Berria - Harian**

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleak urtean sei aldiz joaten dira **osasun etxeetara**, batez beste. **Berria - Euskal Herria**

11 **osasun zentro** (49 agerraldi, 2 liburu eta 33 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **osasun etxe** agertzen da)

Tolosa, ordura arte, Gizarte Segurantzako anbulatorioa zen niretzat, familiako medikuak X izpiak ateratzeko edo espezialistak ikusteko bidaltzen gintuen **osasun zentroa**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Osasun-zentro handietan, errutinazko bihurtu ziren 1990eko hasierako urteetan zenbait organo nagusiren transplanteak. **Irene Aldasoro**

Kasurik gehienetan, **osasun zentro** edo anbulategira joan besterik ez dute txertoa hartzeko. **Berria - Harian**

Psikologo klinikoa da Osakidetzako **osasun zentro** batean, eta, horretaz gain, psikoaalista. **Berria - Harian**

Bartzelonako Ospitale Klinikoaren menpeko **osasun zentroa** arduratuko da programa horiek koordinatzeaz. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abetako osasun (5); **aitaren osasun** (5); **aratzen osasun** (13); **bere osasun** (42); **bere osasun egoera** (19); **beren osasun** (5); **blazy osasun ministroak** (5); **buruko osasun** (38); **buruko osasun arazoak** (21)

erresuma batuko osasun (15); **espainiako osasun** (30); **espainiako osasun ministerioak** (12); **estatu batuetako osasun** (7); **europako batasuneko osasun** (10); **europako osasun** (8); **eusko jaurlaritzako osasun** (69); **eusko jaurlaritzaren osasun** (7); **frantziako osasun** (23); **frantziako osasun ministerioak** (5); **frantziako osasun ministroak** (10); **gipuzkoako osasun** (10); **gobernuaren osasun** (5); **gubernuko osasun** (16); **gure osasun** (5); **hainbat osasun arazo** (5); **hango osasun** (6)

indonesiako osasun (6); **irakeko osasun** (17); **irakeko osasun ministerioak** (7); **jaurlaritzako osasun** (85); **jaurlaritzako osasun sailak** (28); **jaurlaritzako osasun sailari** (6); **jaurlaritzako osasun sailburu** (8); **jaurlaritzako osasun sailburuak** (13); **jaurlaritzako osasun saileko** (9); **jaurlaritzaren osasun** (8); **lan osasun** (15); **laneko osasun** (5); **langileen osasun** (5); **lotutako osasun** (6); **munduko osasun** (10); **munduko osasun erakundeak** (6); **nafarroako gubernuko osasun** (11); **nafarroako osasun** (27); **nazioarteko osasun** (8)

oinarrizko osasun (13); **oinarrizko osasun zerbitzurik** (6)

osasun agintariak (8); **osasun agintariek** (53); **osasun agintarien** (9); **osasun alorreko** (8); **osasun arazo** (86); **osasun arazo bat** (5); **osasun arazo larriak** (29); **osasun arazo larriekin** (6); **osasun arazoa** (5); **osasun arazoak** (154); **osasun arazoak argudiatuta** (6); **osasun arazoak izan** (10); **osasun arazoek** (6); **osasun arazoek** (9); **osasun arazoekin** (6); **osasun arazoen** (12); **osasun arazoen ondorioz** (6); **osasun arazoengatik** (27); **osasun arazorik** (13); **osasun arduradunak** (6); **osasun arduradunek** (7); **osasun arloa** (9); **osasun arloan** (15); **osasun arloari** (6); **osasun arloko** (51); **osasun arrazioak** (8); **osasun arrazioengatik** (7); **osasun arreta** (5); **osasun artatze** (7); **osasun artatzea** (7); **osasun azterketa** (11); **osasun azterketak** (8)

osasun baldintza (9); **osasun baliabideak** (7); **osasun batzordeko** (7); **osasun betea** (8); **osasun batean** (14)

osasun departamentuak (9); **osasun egoera** (122); **osasun egoera larria** (13); **osasun egoera larrian** (5); **osasun egoera ona** (7); **osasun egoera onean** (6); **osasun egoerak** (43); **osasun egoerak hobera** (9); **osasun egoerak okerrera** (11); **osasun egoerara** (5); **osasun egoerarekin** (5); **osasun egoeraren** (18); **osasun egoeraz** (11); **osasun erakundeak** (6); **osasun eskubidea** (8); **osasun etxe** (19); **osasun etxe batera** (6); **osasun etxea** (7); **osasun etxeak** (6); **osasun etxean** (9); **osasun etxeetan** (14); **osasun etxeko** (12); **osasun etxera** (12)

osasun fisiko (6); **osasun fisikoa** (5)
osasun gaietako (7); **osasun gaietako adituen** (5); **osasun gastu** (6)
osasun kontseilari (8)
osasun laguntza (5); **osasun langile** (5)
osasun mentala (5); **osasun ministroak** (62); **osasun ministerioaren** (15); **osasun ministerioaren arabera** (10); **osasun ministerioko** (14); **osasun ministro** (25); **osasun ministroa** (10); **osasun ministroak** (58); **osasun ministroaren** (14); **osasun ministroaren esanetan** (7)
osasun on (8); **osasun ona** (20); **osasun onaren** (8); **osasun onean** (13); **osasun onez** (5)
osasun planak (6); **osasun publikoa** (11); **osasun publikoak** (11); **osasun publikoan** (9); **osasun publikoaren** (27); **osasun publikoko** (18); **osasun publikorako** (7)
osasun saila (13); **osasun sailak** (95); **osasun sailaren** (31); **osasun sailaren arabera** (7); **osasun sailari** (18); **osasun sailburu** (18); **osasun sailburu gabriel** (15); **osasun sailburua** (5); **osasun sailburuak** (22); **osasun sailburuari** (7); **osasun saileko** (29); **osasun sailetik** (5); **osasun sare** (11); **osasun sareak** (6); **osasun sarean** (7); **osasun sistema** (33); **osasun sistemak** (9); **osasun sisteman** (11); **osasun sistemaren** (18)
osasun txarra (6); **osasun txartela** (7)
osasun zentro (14); **osasun zentroak** (7); **osasun zentroan** (5); **osasun zentroetan** (7); **osasun zerbitzu** (70); **osasun zerbitzu publikoak** (9); **osasun zerbitzua** (8); **osasun zerbitzuak** (91); **osasun zerbitzuaren** (5); **osasun zerbitzuek** (44); **osasun zerbitzuen** (21); **osasun zerbitzuetako** (10); **osasun zerbitzuetan** (10); **osasun zerbitzurik** (13)
palestinako osasun (5); **presoaren osasun** (5); **presoen osasun** (10); **segurtasun eta osasun** (10); **sharonen osasun** (8); **thailandiako osasun** (7); **thailandiako osasun ministroak** (5); **txinako osasun** (15); **txinako osasun ministerioak** (10)
ugaltzeari lotutako osasun (5)
arimaren osasuna (5); **bakea eta osasuna** (5); **bere osasuna** (13); **bizitza eta osasuna** (5); **buruko osasuna** (12)
emakumearen osasuna (5); **euren osasuna** (7); **euskararen osasuna** (5); **gure osasuna** (8); **haurren osasuna** (5); **herritarren osasuna** (10)
lan osasuna (13); **langileen osasuna** (13)
osasuna babesteko (11); **osasuna bermatzeko** (10); **osasuna berreskuratuz** (8); **osasuna berreskuratuz** (6); **osasuna eta hezkuntza** (11); **osasuna eta ingurumena** (5); **osasuna galtzen** (5); **osasuna hobetzeko** (5); **osasuna izan** (15); **osasuna negozio** (5); **osasuna opa** (6); **osasuna zaindu** (5); **osasuna zaintzeko** (9)
zure osasuna (5)
osasunak okerrera egin (6)
buruko osasunaren (5); **gure osasunaren** (7); **lan osasunaren** (11)
osasunaren alde (17); **osasunaren aldeko** (8); **osasunaren aldetik** (6); **osasunaren arloko** (5); **osasunaren babeserako** (5); **osasunaren bigarren** (5); **osasunaren egoera** (6); **osasunaren mundu** (27); **osasunaren mundu erakundeak** (9); **osasunaren mundu erakundearen** (6); **osasunaren mundu erakundeko** (9); **osasunaren munduko** (5); **osasunaren nazioarteko** (13); **osasunaren nazioarteko eguna** (5)
segurtasun eta osasunaren (5); **segurtasunaren eta osasunaren** (8); **zuen osasunaren** (10)
gizakion osasunarentzat (5); **osasunarentzat kaltegarria** (7); **osasunarentzat kaltegarriak** (8)
buruko osasunari (9); **giza osasunari** (6); **gizakion osasunari** (5); **osasunari eta ingurumenari** (5)
osasunaz arduratzen (6)
handi dadila osasunean (9); **handi ditela osasunean** (5); **herritarren osasunean** (6); **osasunean eragiten** (6); **osasunean eta zorionean** (8)
lan osasuneko (9)
animalien osasunerako (14); **lan osasunerako** (5); **osasunerako arriskutsuak** (6); **osasunerako eskubidea** (15); **osasunerako kaltegarria** (5); **osasunerako kaltegarriak** (10); **osasunerako mundu erakundea** (8); **osasunerako mundu erakundeak** (157); **osasunerako mundu erakundearen** (65); **osasunerako mundu erakundeko** (26)
osasunez makal (5); **osasunez ondo** (6)

osasunbide iz osasunerako bidea.

Horrelako egoera batean zegoenari **osasunbidea** ekartzeko era bakarra erritimo azkarreko dantzak jotzea izaten omen zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Bakoitzak bere gorputza, bere emozioak eta gizarte harremanak ezagutzeko eta lantzeko lekuak dira atsedean etxeak, gorputza **osasunbidean** jartzeko txokoak. **Berria - Harian**

osasunburu iz osasun zerbitzuetako burua.

Kanposantuan Fernando de Untzeta sendagilea omen zuten zain, Euskal Gudalozteko **osasunburua**, eta Ceferino Xemein, luma-izena Amandarro zuen polemista eta burukidea, herriko erretorea...; guztira, dozena erdiren bat pertsona. **Ramon Saizarbitoria**
NFK-ko eta EAEko **osasunburuengatik** ari zen, jakina. **Iñigo Aranbarri**

osasundu, osasun(du), osasuntzen du *ad* osasuna eman.

'Jainkoak **osasundu** dezala, zuen aita!' esan zidan abadeak. **Joseba Sarrionandia**

osasundun *izond/iz* osasuna duena.

Ez baitute **osasundunek** behar sendagilea, gaixoek baizik. **Askoren artean**
Behin, neguan, tximiniako kedarrak su hartu zuen, eta, etxe osoa erretzeko arriskua zegoela ikusirik, gaixo nahiz **osasundun** guztiak zeharo ikaratu ziren. **Jose Morales**

osasungabe *izond* osasunik ez duena. • (adizlagun gisa)

Baina ez ginen modu berean hazi: ni, **osasungabe**, eta tristuran murgilduta; arina, graziaz beterik eta energiaz gainezka hura; mendialdeko itzulia zen harena; **Koro Navarro**

osasungaitz *izond* osasungarria ez dena.

Haize hori zingira-lur edo leku **osasungaitzetatik** sortutakoa baldin bada, aire kaltegarriak sartuko zaizkie gorputzaren barruan. **Santiago Iruretagoiena**
Hiriko auzunerik **osasungaitz** eta ilunenean. **Iban Zaldúa**
Errautsa ari zuen auzoko bazter orotan, elur **osasungaitz** baten moduan. **Joxan Elozegi**
Beldurra hartu nuen, erdizka ehoturiko ore **osasungaitz** horrek barne atalen bat urratuko ote zion. **Aingeru Epaltza**
Baina arrotza naiz berarentzat, eta neskato txiki honekin jolasten ibili naizen jolas arraro eta **osasungaitz** horren gainean gehiago esan diezaiodan hertsatu ordez, beste ertz batetik heltzen dio kontuari. **Oskar Arana**

osasungarri 1 *izond* osasunarentzat onuragarria dena. ik osasuntsu.

Nola aukeratu behar diren leku **osasungarriak**. **Santiago Iruretagoiena**
Elikadura **osasungarriari** buruzko hezkuntza-jarduerak. **Berria - Harian**
Ingurune seguru, **osasungarri** eta ekologikoki osasuntsu batean. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Giro **osasungarrian** bizi ginen azkenik. **Joseba Urteaga**

Bedeinkatua zu ere, ene seme, jakinduriaz hitz eginez nire barne-zalantzei halako erremedio **osasungarria** ekarri diezulako. **Askoren artean**

Aire zabaleko lanaren eragin **osasungarria**. **Alberto Ladron Arana**

Anaien aholku **osasungarriei** jarraituz. **Askoren artean**

Raimundo Silvak badu, liburu baten zuzenketa bukatzen duenean, bere buruari egun bateko atsedenaldia emateko ohitura **osasungarria**. **Jon Alonso**

Euritik jasotzen den urak propietate **osasungarriagoak** izaten ditu. **Santiago Iruretagoiena**

4 eta 14 urte bitarteko ikasleei astialdia modu **osasungarrian** betetzen erakusteko egitaraua. **Berria - Euskal Herria**

2 (predikatu gisa)

Ibaiko haizea **osasungarria** da. **Lopez de Arana**

Don Saulo sendagilea, ordea, gauze biluzik bainatzea **osasungarria** zela aritu zen esaka, odolaren ibilera azkartzen baitzuen horrek. **Felipe Juaristi**

Badirudi ahalik eta gutxien eraman behar dela ura berunezko hodietaik, ura **osasungarria** izatea nahi baldin bada. **Santiago Iruretagoiena**

Argi dago, izan ere, **osasungarriagoa** dela askorentzat burdinazko makilaz zigortuak izatea esku leunez laztanduak izatea baino. **Askoren artean**

Masturbatzea, eskuari eragitea, esku jolasa... oso **osasungarria** da, eta ez du ondorio txar bat bera ere; kontrakoa baizik. **Luis Elberdin**

Benetan da **osasungarri** pozteta eta alaitzea izan duten ohoreagatik eta zoriagatik. **Joan Mari Lekuona**

Osasungarri litzaiguke geure buruari egia esatea. **Markos Zapiain**

Hitz atseginak, ezti-abaraska: ahorako goxo, gorputzerako **osasungarri**. **Elizen arteko biblia**

Eskubaloia obsesio bilakatzea ez da **osasungarria**. **Berria - Kirola**

Zenakulo giroetan nik idazten ditudanak baino gauza gogorragoak entzun ditut, baina niri **osasungarriagoa** iruditzen zait gauzei buruz argi hitz egitea. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ariketa osasungarria (3)

ohitura osasungarriak (3)

osasungarritasun 1 iz osasungarria denaren nolakotasuna.

Lehenengo, eskualdeak begira bitz **osasungarritasunaren** aldetik, lehenengo bolumenean barru harresituak jartzeko moduari buruz idatzitakoan bezala, eta landetxeak jar bitz horren arabera. **Santiago Iruretagoiena**

Udalak agindutako gutxieneko zerbitzuak «gehiegikeria» direla adierazi zuten, eta gaineratu uraren **«osasungarritasunaren»** inguruan funtsik gabeko alarma sortu ez dutela. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Honen adibide bat Galiako zingiretan aurki daiteke, Altinum, Ravenna, Akileia eta, horiek bezala, zingiretatik hurbil geratzen diren beste herri batzuetan: arrazoi horrengatik, **osasungarritasun** -baldintza ezin hobeak dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

osasungintza 1 iz osasun publikoaren zerbitzuen multzoa.

Heziketari eta **osasungintzari** eman dio lehentasuna. **Berria - Euskal Herria**

Erretzeari uzten saiatu direnen artean hamarretik lauk **osasungintzak** garatu dituen tratamendu medikoei esker lortu dute. ELAko kide Luis Miguel Saenzek ohartarazi zuen **«osasungintza** pribatizatzeo ahaleginek» eragin dutela PPren zirriborroa. **Berria - Euskal Herria**

Belgika: **osasungintzako** langile guztiei txertoa emango diete pandemia abiatzen bada. Aborijenek, ordea, etxebizitza eta **osasungintzako** krisi izugarria pairatzen dutela salatzen dute. **Berria - Gaiak**

Gipuzkoako **osasungintzako** 500 langile ere, aurka. **Berria - Euskal Herria**

Presidenteak Kubako hezkuntzaz eta **osasungintzaz** hitz egin zuen, Habanan aspirina bat erostea zein zaila den aipatu gabe. **Pako Aristi**

Lau hitzarmen sinatu ditugu, ekonomia, nekazaritza, **osasungintza** eta ingurumenaren arloetan. **Berria - Euskal Herria**

Osasungintzan lanuzteak egin ziren Gurutzetako ospitalean (Barakaldo), Virgen del Caminon (Iruñean), Donostiako ospitalean eta Txagorritxukoan (Gasteizen), besteak beste. **Berria - Harian**

Hortik datoz, aeronautikan, bioteknologian eta **osasungintzan** edo telekomunikazioetan MCC egiten ari den ahaleginak. **Berria - Harian**

2 (hitz elkartuetan)

LHEEren estrategian ekarpenak egin behar ditugu, nahi dugun sektore publikoa aztertuz, multinazionaleri aurre egiteko enpresa publiko industrial baten alde borrokatuz, **osasungintza** eredu propio baten alde edota euskara lan mundura zabaltzeko lan eginez. **Berria - Ekonomia**

Amaia Almidal LABeko **Osasungintza** arduradunaren hitzetan: [...]. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

osasungintza euskalduntzeko (4)

osasungo iz osasun arloa.

Obra hau **Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak** saristatua du. **Herria**

osasuntsu 1 izond/iz osasunez betea dena. (izaki biziak)

Pertsona **osasuntsuetan**, badira leku bakan batzuk -maskuria eta birrikak, esate baterako- esterilak, eta begiaren kanpoaldea ere izugarri garbi egoten da. **Irene Aldasoro**

Esperimentu horietan, ikasle gazte **osasuntsu** batzuk ohean egon ziren bi astez, dieta normala hartuz. **Irene Aldasoro**

Ordura arte, esan zidan Honorék hatsanturik, ordura arte sekula ez zuen horren neska **osasuntsurik** ezagutu. **Joxan Elozegi**

Begira nuen, irribarretsu, zaldi hortz zuri **osasuntsuak** erakutsiz. **Ramon Saizarbitoria**

Bihotz, giltzurrun, birika edo gibel **osasuntsu** guztiek berdin funtzionatzen dute. **Irene Aldasoro**

Madarikatua, artaldeko abere **osasuntsu** bat eskainiko didala agindu eta gero gaixoa eskaintzen didan gezurtia! **Elizen arteko biblia**

Erretreta luze eta **osasuntsu** bat nahi diotegu dener desiratu. **Herria**

Emakume hura landare mardul **osasuntsua** zen, haren irudian, baratzeko lurrustelean hazitakoa, barazkien modura. **Karlos Zabala**

Gazteak nahiz zaharrak, indartsuak nahiz ahulak, mozkorrak nahiz lehorrak, **osasuntsuak** nahiz gaixok. **Oskar Arana**

Ez ditu zaurituak sendatuko, ez eta **osasuntsuak** bazkatuko ere. **Elizen arteko biblia**

2 (bestelakoak)

Alderdi horiek ondo kontuan hartu gabe ezingo da etxe **osasuntsurik** eraiki. **Santiago Iruretagoiena**

Koadroko Elizabeth Siddal-ek, Rossetti-ren emazte eta prerrafaeliten modelorik eztiarik, itxura **osasuntsua** du. **Ramon Saizarbitoria**

Pertsona guztiak eskubideak dituzte ingurune segurua eta ekologiakoki **osasuntsua** izateko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Mundu **osasuntsuago** baten alde! **Joxan Elosegi**

Mundu guztiak limurtzen nau bere **osasuntsu** itxurarekin. **Anjel Lertxundi**

Imajinatzen ari ziren, beren onurarako, bizitza moderno **osasuntsu**, seguru eta gogobetegarria miragarriro present zegoela bat-batean hasitako orainaldi denboragabeen.

Iñaki Mendiguren

Globalizazio **osasuntsu**, justu eta demokratiko baten alde gaudenon eskuetan dago garaipena. **Berria - Gaiak**

Osasuntsua izan naiz beti, eskerrak Jainkoari, eta oso gutxitan joan naiz ospitaletara. **Iban Zaldúa**

Ez zen **osasuntsua** eskrupulu burgesen mende bizitzea. **Anjel Lertxundi**

• 3 *adlag* osasun betean.

Zorionekoa, anaia gaixo dagoenean eta ezin ordaindu dionean, **osasuntsu** dagoenean eta ordaindu diezaiokenean bezalaxe maite duen zerbitzaria! **Askoren artean**

Osasuntsu dagoen ganadua tiroz hil eta larrean usteltzen uztea. **Edorta Agirre**

Aitarenera bizirik eta **osasuntsu** itzultzen banaiz, Jauna izango dut neure Jainko. **Elizen arteko biblia**

Gubbioko hiritar batek ere bere semetxo elbarria santuaren hilibira otzara handi batean eraman zuen, eta onik eta **osasuntsu** jaso zuen. **Askoren artean**

-Ez al duzu Kirxa kafezalea ikusten, mando bat bezain sendo eta **osasuntsu**? **Patxi Zubizarreta**

Osasuntsu irauraraziko nauzu, zutik eutsiko zeure aurrean betiko. **Elizen arteko biblia**

Lurrearekin harremanetan hazteko baizik, **osasuntsu** eta sendo. **Josu Zabaleta**

Globalizazio **osasuntsu**, justu eta demokratiko baten alde gaudenon eskuetan dago garaipena. **Berria - Gaiak**

Gizakiek gizaki izate hutsagatik eskubideak baldin badituzte, orduan **osasuntsu** bizitzeko eskubidea dute. **Berria - Gaiak**

Etorkizunean era guztietako gai eta produktu denak kontrolatu beharko ditugu guk, bizirik eta **osasuntsu** biziko bagara. **Edorta Agirre**

Hezurrak, **osasuntsu** iraungo badu, etengabeko tentsioan egon behar duela diosku Bassett-ek. **Irene Aldasoro**

osatoki iz zerbait osatzeko tokia.

4 haizeetatiko norabideak batzen dituelako 4ak, eta 3aren hiru aldikako aldarrikapen irmo sendoa, bestetik: bi zenbakiak dira erritmo guztien bilgune eta **osatoki**, osotasun konpleto eta kunplutuenaren adierazgarri. **Pello Zabala**

osatu, osa(tu), osatzen (*orobat osatu g.er.*) 1 du *ad* osotasun edo banako bat eratu.

-Puzzlea ezin dela **osatu**? **Joxemari Urteaga**

Horrela garatu zuten umetokia, hau da, barrunbe atsegin eta malgua, non umea garatuz joaten den erabat **osatu** eta mundura etortzeko gertu egon arte. **Luis Elberdin**

Pixkana-pixkana, hiruak bat egin eta bakarra **osatu** zuten. **Koro Navarro**

Bataren zein bestearen ekarpenez **osatu** ahal izan zuen bere izaera berezia. **Askoren artean**

Bi abstrakzio ezin dute une bat **osatu** denboran. **Isabel Arrigain**

Hitzen irudi grafikoa gauza iraunkor eta sendotzat daukagu, eta, denboran zehar hizkuntzaren batasuna **osatu** ahal izateko, hotsa baino egokiagozat. **Isabel Arrigain**

Izatez, une desberdinetakoak diren zatien elkarjeta artetsu batez **osetzen** baita, **osatu** ere, irudia. **Josu Zabaleta**

Hiru bertso **osatu** behar dituenarentzat izan daiteke zaplasteko izugarria. **Andoni Egaña**

Arrazoimenaren menpean dauden gure oro harrezko ezagutzek ezin dute rapsodia bat **osatu**, sistema bat baizik. **Ibon Uribarri**

Euskarra giputzean erabiltzen ziren hitzen zerrenda **osatu** zuen, bizkaitarrek ezagutu eta uler zituzten. **Koldo Zuazo**

Bi sunpur hertsiz **osatu** zubitik treskatu zuen ibaia. **Itxaro Borda**

Dena askatu nuen, pixkanaka, piezak banan-banan garbitu, berriro **osatu**, koadroa pintatu, gurpil-zorro eta estalki berriak ipini, eta orobat galgak. **Juan Kruz Igerabide**

257 Japonia **uhartez** osatua da; kosta asko dago, eta itsasoa arrainez betea da. **Iñaki Iñurrieta**

2 ik eratu.

Hatz erakusleaz katilua seinalatu eta ko-bra-tu-ko silaba mutuak **osatu** dituzte ezpainetan. **Pako Aristi**

Irribarre samin bat **osatu** dute Rakelen ezpainek. **Iban Zaldúa**

Patiaoan, bi ilara **osatu** genituen, eta erditik pasarazi genuen. **Anjel Lertxundi**

Eliz mutilek katea **osatu** behar, zakar ontziak kanpora ateratzeko. **Karlos Zabala**

Harrez gero beste talde bat **osatu** zen trenean, alegia, espainiar-armeniarra. **Edorta Jimenez**

Bikote ederra **osetzen** omen dugu. **Joseba Sarrionandia**

Honez gero bikote ugari **osatu** da eta, nor daki besteok ere zerbait egiteko tenorea ez ote den iritsia. **Edorta Jimenez**

Orain emakume askok ama izatea eta beren umeak zaintzea erabakitzen dute bikoterik **osatu** gabe. **Luis Elberdin**

Proposizio-aldagaiak haien bidez lotuko ditugu formula konplexuak **osatzeko**. **Askoren artean**

Negozio txikiarentzat, partaidetzako sozietateak **osatu** ziren. **Koro Navarro**

Aipatu berri ditudan preso ohi biok tarteko zirela, lagunarte polita **osatu** genuen Arrasaten. **Joxerra Garzia**

Urtebete lehenago, Euskal Idazkaritza sortu zen Baionan, eta "Hizkuntza Saila" **osatu** zen haren babesean. **Koldo Zuazo**

Denbora istantez **osatu** da. **Xabier Kintana**

Proteina bakoitza aminoazido-sekuentzia batek **osatu** da. **Juan Garzia**

Atearen izkinean, hari horiek beheko gora jarritako L bat **osetzen** zuten. **Lopez de Arana**

3 ik bete.

Hara, Lisboan abiatuak sei aste beteko bidaia **osatu** ostein iritsi nintzen. **Edorta Jimenez**

Bi egunez ibili zen Ulises noraezean, baina, Eos txirikorda ederduak hirugarren eguna **osatu** zuenean, mastak jaso, oihal zuriak zabaldu eta itsasontzietan eseri ginen, haizea eta lemazainak gidari genituela. **Juan Kruz Igerabide**

12 egunak **osatu** direnean, nekeak ez du balio. **Pello Zabala**

Bi apustu jokatu zituen: Azurmendiren aurka 12 oinbikora, eta Erasunen aurka, 20 kanerdikora eta segan bi orduko lana **osatu** arte. **Berria - Kirola**

Guti tratatzen gintuen 42 km **osatu** behar ginuen itzuliak. **Herría**

Irudia ikusten duenak, bada, irudikatutik ez dagoena **osatu** egiten du, irudikapenaren hutsuneak bete egiten ditu. **Josu Zabaleta**

4 (zerbaiti) osoa edo beteagoa izateko falta zaiona erantsi edo gehitu.

-Jauna: gerrara irten aurretik, Mahai Biribila berriz **osatu** behar zenuke, hildako zaldunen lekuan beste batzuk sartuz. **Juan Kruz Igerabide**

Vitruvioren tratatuaren azterketari heltzeko garaian bi enfoko posible aurki daitezkeela, baina bata ez duela, azkenean, bestea baztertzeko, **osatu** baizik. **Santiago Iruretagoiena**

Zelanoren testuaz baliatu gara kontakizuna **osatzeko**, hutsunea baitago Perugiako eskuizkribuan. **Askoren artean**

Ezkonduta eta gero, baserriko irabazi ziztrina **osatzeko** -edo, fabrikari hasi zen, Beasaingo Bernedon. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beste honako hauek ere joango dira, Diogo, Gonçalo, Fernão, [...], Soeiro, eta kontua **osatzeko** falta direnak. **Jon Alonso**

Kapitainak hiru aste itxaron zituen portuan, irten aurretik karga **osatzeko**. **Anton Garikano**

du (7)

plana osatzea (7); sare bat osatzea (6); sarea osatzea (11); talde bat osatzea (5); taldea osatzea (14); zerrrenda osatzea (9)
alderdien mahaia osatzeko (21); batzorde bat osatzeko (7); batzordea osatzeko (11); berriro osatzeko (5); berriz osatzeko (7); bertsoa osatzeko (10); bikotea osatzeko (20); curriculuma osatzeko (15); deialdia osatzeko (7); diskoa osatzeko (5)
erabat osatzeko (5); erakusketa osatzeko (6); errolda osatzeko (5); euskal curriculuma osatzeko (8); euskara osatzeko (5); familia osatzeko (7); gaitza osatzeko (5); gobernu bat osatzeko (7); gobernu berria osatzeko (17); gobernu osatzeko (89); gobernu osatzeko aukera (6); gobernu osatzeko negoziatioak (5); guztiz osatzeko (12); hamaikakoa osatzeko (8)
koadroa osatzeko (5); koalizio gobernu osatzeko (20); koalizioa osatzeko (25); koalizioa osatzeko prest (5); legebiltzarra osatzeko (5); lerroa osatzeko (6); liburua osatzeko (13); mahai bat osatzeko (7); mahaia osatzeko (46); nazionaleko gobernu osatzeko (6)
osatze agindua (6); osatze akordioa (5); osatze asmoa (22); osatze asmoz (7); osatze aukera (39); osatze behar (6); osatze beharra (8); osatze bidea (6); osatze bidean (7); osatze bilera (5)
osatze eskatu (15); osatze eskatuko (5); osatze eskubidea (7); osatze gai (9)
osatze lanean (6); osatze modua (5); osatze moduan (7); osatze negoziatioak (7)
osatze orduan (8); osatze prest (12); osatze proposamena (18); osatze prozesua (10); osatze prozesuan (5)
osatze xedea (8)
plana osatzeko (5); politika osatzeko (5); sarea osatzeko (13); talde parlamentarioa osatzeko (10); taldea osatzeko (28); taldeak osatzeko (5); txostena osatzeko (5)
zerrrenda bateratua osatzeko (8); zerrrenda osatzeko (12); zerrrendak osatzeko (7)
alderdiek osatzen (13); alderdiek osatzen dute (6)
batasuna osatzen (23); batasuna osatzen duten (18); batzordea osatzen (29); batzordea osatzen duten (26); berriz osatzen (5); bik osatzen (7); bik osatzen dute (5); bikote sendoa osatzen (5); bikotea osatzen (14); bilduma osatzen (7)
denboraldia osatzen (5); diskoa osatzen (9); diskoa osatzen duten (6)
egitura osatzen (5); elkar osatzen (7); enpresek osatzen (5); epaimahaia osatzen (6); erakundea osatzen (5); erakundek osatzen (5); erakusketa osatzen (7); errolda osatzen (6); esentzia osatzen (15); estatua osatzen (6); estatua osatzen duten (6); estatuk osatzen (7); europako batasuna osatzen (19); euskal herria osatzen (8); eusko jaurilaritza osatzen (34)
familia bat osatzen (9); familia osatzen (6); forma osatzen (12); forma osatzen duen (5)
galeusca osatzen (10); gaztek osatzen (11); gaztek osatzen dute (8); gehiengoa osatzen (13); giza gorputza osatzen (8); giza izpiritua osatzen (6); gizartea osatzen (5); gobernu osatzen (43); gobernu osatzen duten (26); gorputza osatzen (13); gorputza osatzen duten (6)
herrialdek osatzen (16); herrialdek osatzen dute (8); herriek osatzen (5); herritarrek osatzen (8); hiruko gobernu osatzen (8); hirukoa osatzen (31); hirukoa osatzen duten (27); hitza osatzen (6); hitzak osatzen (6); hizkuntza osatzen (11); hizkuntza osatzen duten (6)
ideia osatzen (6); ilara bat osatzen (5); irudia osatzen (6); izaera osatzen (6); izpiritua osatzen (8); izpiritua osatzen duen (7); izpirituaren esentzia osatzen (5); izpirituaren izaera osatzen (5)
jaurilaritza osatzen (47); jaurilaritza osatzen duten (31); jaurilaritza hirukoa osatzen (8); jendeak osatzen (5); jotzaileak osatzen (6)
kideek osatzen (10); kideek osatzen dute (8); kidek osatzen (25); kidek osatzen dute (20); koalizio gobernu osatzen (9); koalizioa osatzen (50); kontseilua osatzen (7)
lagunek osatzen (32); lagunek osatzen dute (21); lanek osatzen (8); lanek osatzen dute (8); langileen batzordea osatzen (6); laukotea osatzen (6); laukotea osatzen duten (5); legebiltzarra osatzen (8); legebiltzarra osatzen duten (6); liburua osatzen (10); liburua osatzen duten (10); liburuk osatzen (6); liburuk osatzen dute (5)
mahaia osatzen (16); mahaia osatzen duten (7); multzoa osatzen (10); musikarik osatzen (6); musikarik osatzen dute (6)
nafarroa bai osatzen (10); nagusia osatzen (5)
oinarrria osatzen (6); ordezkariak osatzen (9); ordezkariak osatzen dute (8); ordezkariak osatzen (5); osatzen dute batzordea (6); osatzen dute bilduma (5); osatzen dute erakusketa (9); osatzen duten alderdi (16); osatzen duten alderdiak (8); osatzen duten alderdiek (28); osatzen duten alderdien (26); osatzen duten alderdietako (11); osatzen duten elementuak (7); osatzen duten eragile (5); osatzen duten gobernuak (7); osatzen duten heinean (5); osatzen duten herrien (5); osatzen duten kideak (5); osatzen duten kideen (5); osatzen duten talde (12); osatzen duten taldeek (5); osatzen duten taldeen (5); osatzen duten xitek (5); osatzen hasi (17); osatzen joan (9); osatzen laguntzeko (5); osatzen saiatu (6); osatzen saiatuko (8)
osoa osatzen (13); osoa osatzen duten (5)
pertsonek osatzen (10); pertsonak osatzen dute (5); pertsonak osatzen (10); pertsonak osatzen dute (6); plataforma osatzen (9); plataforma osatzen duten (7)
sarea osatzen (9); sistema bat osatzen (5); sistema osatzen (6)
talde bat osatzen (5); taldea osatzen (55); taldea osatzen duten (18); taldek osatzen (12)
zerrrenda bat osatzen (5); zerrrenda osatzen (19); zerrrenda osatzen duten (7)
zauriak osatzea (5)

osatugabe *izond* osatu gabe dagoena.

Puzzle **osatugabe** baten gisa. **Oskar Arana**

Hitz **osatugabeak**. **Iñaki Arranz**

-Edatea da organismo **osatugabe** batek egin dezakeen gauza bakarra... **Lopez de Arana**

Mozkorraldian bezala, irudi distiratsu baina **osatugabe** ugari etortzen zitzaizkion burura, borborrean. **Jose Morales**

Objektuen aniztasun nahaspilatu bat -aldi berean gainjarritakoa eta **osatugabea** - eratzen eta desitxuritzen den lekua. **Xabier Arregi**

Zenbait sentimendu gogoratu zituen, **osatugabeak**, hala ere. **Eduardo Matauko**

Osatugabeak ere bere erretorika du. **Anjel Lertxundi**

osatugabeki *iz* gauza osatugabea.

Ideal hauek [...] ez dira horregatik ameskeriatzat jotzen, baizik arrazoimenaren ezinbesteko neurria ematen dute, bere moduan erabat osoa den adigaiaren neurria, horren arabera **osatugabekiaren** maila eta gabezia estimatu eta neurtzearen. **Ibon Uribarri**

osatzaille *izond* osatzen duena.

Aplikazio kontuak, kautela **osatzaille** eta erantsiak, objektu iragankorrak edo aldakorak, berba batez, aginpidearen jarduneko ikuskatze lana eskatzen duten horiek. **Andres Urrutia**

Kirurgia **osatzailleko** zerbitzu publikoko adituek tratatzea eskatzen dugu. **Berria - Harian**

Badirudi estatu baten masak bere **osatzaille** sentiberatasunaren alderantzizko proportzioan egon behar duela. **Juan Martin Elexpuru**

Ala, agian, hiru atal berdin dira osoaren **osatzaille**? **Imanol Unzurrunzaga**

• 2 *iz* sendagilea.

Pozoiez hilko zuten beldur hori obsesio bilakatu zitzaion eta bere sendagile, **osatzaille**, azti eta sorginen aholkuz, pozoien aurkako erremedioa jartzen ahalegindu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

osatze *1 iz* osotasun edo banako bat eratzea; (zerbaiti) osoa edo beteagoa izateko falta zaiona erantsi edo gehitzea.

Animalia irrazionalak bagina, gorputz atalen **osatze** ordenatua eta apeten atsedena besterik ez genuke gura izango. **Imanol Unzurrunzaga**

Ezker abertzaleak lehenengo hipotesia baldintzatu edo geldiarazi behar du bere ekimen politikoarekin, hipotesi horrek gatazka mantendu eta alternatiba estatutuaren **osatze** hutsera mugatuko lukeelako. **Berria - Ekonomia**

Osatze hori maila guztietan gertatzen da, mailarik oinarritzkoenetik konplexuenera; izan ere, irudi batek ezin du sekula dena irudikatu. **Josu Zabaleta**

Tentsioari ematen zaion erantzun bikainen adibide da hezur hautsi baten **osatzea**. **Irene Aldasoro**

Prezioen gorakadak, aldiz, erreserben **osatzera** bultzatuko du. Koro Navarro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1982ko urrian, **osatze** biltzar baten ondotik, ELB (Euskal Laborarien Batasuna) sortzen da. Herria

Horrekin guztiarekin collage bat egin eta irakurleari hainbat elementu ematen ahalegindu nahi nuen, collage hori berak osa zezan eta **osatze** lan horrekin maitemintze fenomenoari buruzko ideia argi bat atera zezan. Ana Urkiza

Osatze fasea bukatuta, hondakinen tratamenduaren ardua daukan Bil ta Garbi sindikatuak baliabideen zerrendatzeari ekin dio. Berria - Euskal Herria

Osatze bidean den Eusko Jaurlaritza berriari eskaera zehatza egin zion atzo EKT Euskarako Komunikazio Taldeko Administrazio Kontseiluak. Berria - Harian

Joan den aspaldian ahalegin handia egin da euskara batua **osatz**e eta zehazte bidean. Koldo Zuazo

Entzulearen jasotze-prozedura hasten baita bertsolariaren **osatz**e-prozedura amaitzen den lekuan: hots, kantuaren lehen silabekin. Andoni Egaña

Irla honetako biztanleak, eskualdeko kultura *sui generis* bat izan zitekeenaren **osatz**e prozesuaren hasieran, beste kultura baten menpe eta eraginpean suertatu ziren.

Bego Montorio

3 sendatzea.

Gizalegezko zerak etorri ziren estreina, gaitzari buruzko galdeak eta **osatz**e azkarrerako animoak. Xabier Mendiguren Elizegi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaizka Lejarretak astebete luze egin zuen koma egoeran, eta bere **osatz**e prozesua espero zena baino askoz azkarragoa izan da. Berria - Kirola

Iñaki Lejarreta mantso eta kostata gainditzen ari da mononukleosia, eta berak eta Jose Ignacio Barandiaran kirol zuzendariak erabat osatu arte **osatz**e prozesuan presarik ez edukitzea erabaki dute. Berria - Kirola

Kasik zazpi hilabete dira lesionatu nintzela, eta **osatz**e lan luze eta gogorraren ondoan erabat osatuta dudala esan dezaket. Berria - Kirola

Hernanin puxka bat indartu ere bai, **osatz**e bidean sentitu, eta Gasteizko seminariora jo zuen suelto. Pello Zabala

Tendinitisa **osatz**e bidean al duzu dagoeneko? Berria - Kirola

osatzeldi iz sendatzeko aldia.

Bestalde, garai batean ezin zen gauza handirik egin kolpaturik zeundela, baina gaur egun baliabide gehiago dago eta nik baliatu egin ditut **osatzeldia** azkartzeko. Berria - Kirola

Harrezkero, **osatzeldi** gogorra egin duela nabarmendu zuen herenegun, Aguilerako prestaketa gelan. Berria - Kirola

osatzear 1 adlag osatzeko zorian.

Paisaia -kasu honetan gure literaturarena- beti ere **osatzear** egongo baita, eta auskalo noren obra izango den gogoratzekoa gerokoen ikuspuntutik. Ana Urkiza

Bira ia **osatzear**. Gabinen parera iritsi denean, geratu egin da, eta horrela iraun du, pare bat segundoan... Iñaki Iñurrieta

2 sendatzear.

Arantzbia atezainak ere hobera egin du, eta barruko bastian zuen haustura txikia **osatzear** da. Berria - Kirola

osatzeke adlag osatu gabe.

Izenaren letrak hamazazpi izanik, launako lautan egiten baziren, letra bat gelditzen zela **osatzeke**. Patxi Ezkiaga

Zazpi jokalarirekin hasi du Baskoniak aurre-denboraldia, oraindik taldea **osatzeke** dagoen arren. Berria - Kirola

Osatzeke dago mapa. Berria - Euskal Herria

OSCAR (orobat oskar g.er.) 1 iz Hollywoodeko Akademiak urtero ematen duen saria, estatuatxo urreztatu batean datzana.

Ross Kauffmanen eta Zana Briskiren Born into Brothels 2005eko dokumental onenaren **Oscarra**. Berria - Kultura

Fargo filmean eginiko antzezpenagatik **Oscarra** irabazi zuen McDormandek. Berria - Kultura

Sofia Coppolak, zinema independentearen sari nagusiak jaso eta 24 ordu eskasera, jatorrizko gidoi onenaren **Oscarra** jaso zuen *Lost in Translation* filmagatik. Berria - Kultura

Ingelesez besteko film onenaren **Oscarra**, aldiz, ondo emanda dago. Berria - Kultura

Philip Seymour Hoffman antzezlearen lana ikusita, **Oscarra** ia ziurtatuta du. Berria - Kultura

2 irud/hed

Pat aitak, apaingarri haiek guztiak erantzita, gauzarik luzunenak erakusten zizkien, begitarte sinestezinak jartzen zituela, eta ni hantxe, borrokan, ea bigarren mailako aktorearen **oskarra** lortzen nuen. Karlos Zabala

Izugarri pozik gaude, oso harro, ASPk ematen dituen sariak surf munduko garrantzitsuenak baitira, kirol honetako **oscarrak**. Berria - Kirola

oscardun (corpusean oskardun soilik) iz oskarraz saritua.

Gabonetan zinema aretoetan agertuko da Anthony Minghellak (*Gaixo ingelesa*) zuzenduriko Ripley trebea, Matt Damon eta Guilni Patrol **oskarduna** protagonista. Markos Zapiain

osea adlag adkor hots, hau da. -

Osea: emakumea izango da oparia egiten duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Osea, neure buruaz eta neure asmakizunez nagoela maiteminduta. Lourdes Oñederra

oseake adlag adkor hots, hau da.

Oseake, ez izan bildurrik, zuen Jesusmigelek len bezin formal segitzen du ta. Xabier Mendiguren Elizegi

Bueno, gaurkoz naiko parre egingo zendun nere kontura, **oseake** zuk ere kontatu zeozer, Salouko illunabarretako ligeak-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

oseba ik osaba.

osetiar izlag/iz Osetiako dagokiona; Osetiako hiritarra.

Georgiako Barne ministroak adierazi zuen erantzun eraso horrek «15 hildako eta 25 zauritu» eragin zituela «hego **osetiar** erregimen separatista lagutzen duten mertzenario»-en artean. Berria - Mundua

Hauek dira lehenengo biktimak pasa den maiatzean **osetiarren** eta georgiarren arteko gatazka larritu zenetik. Berria - Mundua

Atzo, berriz, gutxienez zortzi zibil bost georgiar eta hiru hego **osetiar** zauritu zituzten morteroek Erevdi herrian. Berria - Mundua

1992an, Errusia bitartekari zela, bake-akordioa sinatu zuten, Hego Osetian Bake Indarrak ezartzea akordaturaz; errusiarrek, georgiarrak eta **osetiarrak**, guztira 1.500 soldadu. Berria - Mundua

Hego **osetiarrak** gau osoan eraso zioten Erevdi, artilleria astuna erabiliz. Berria - Mundua

osimoron ik oximoron.

osin¹ iz putzua.

Arrastaka eraman dute agoten kanposantutik hurbil dagoen **osin** txikiraino. Anjel Lertxundi

Manatu zion deabruak Axularri ezen atera zezala ura **osin** batetik, baliaturik galdara batez, zeinak baitzuen hondoan galbahe bat. Joan Mari Irigoien

Han, berarengandik ihes eginiko asko eta herri hartako zenbait harrapatu, lepoa moztu eta hango **osin** handira bota zituen. Elizen arteko biblia

Osin bat, putzu bat, nola margotu asmatu ezinik zebilela erantzun zenion. Hasier Etxeberria

Mentura horren atarian dela, bet-betan **osin** beltzean erortzeko sentsazioak hartua da berriz, argitasunetik ilunperako jauzia. Jose Angel Irigaray

Han, zola zolan, mendiaren oinetan, mendiek inguratzten duten eremuak, alimaleko **osin** ilun bat iduri zuen. Michel Oronoz

Ez dakit, umetan ia ito egin nintzen behin, **osin** batera erorita, eta ordutik geratuko zitzaidan beldur hori. Iñaki Iñurrieta

2 ibaietan edo itsasoan osatzen den sakonunea.

Arrain batek jauzi egin du **osinean**. Pello Lizarralde

Iritsiak ginen zurrunbiloa inguratzten duen aparrezko eraztunera; eta pentsatu nuen, jakina, **osinean** murgilduko ginela ondoren. Koro Navarro

Zubipeco **osinean** dagoena argiago ikustearren. Pello Lizarralde

Igerian ibiltzera joaten ginen Okement **osinera**, non ura ilun eta sakona baitzen, eta misteriozua, eta non ia inor ez baitzen ibiltzen sekula. Mirentxu Larrañaga

Maelström-en kanalaren erdian ba omen da **osin** bat Lurrean sartu, eta beste nonbait, oso urrun, ateratzen dena; irtetzen den lekuari dagokionez, Botniako Golkoa aipatzen dute idazle gehienek. Koro Navarro

Zenbait legoa urrutira ere entzuten da zarata, eta zurrunbiloak edo **osinak** hain izaten dira zabalak eta sakonak, non itsasontziak, haren erakarmenaren barruan sartzen baldin badira, erremediorik gabe gertatzen baitira irentsiak eta hondoratuak, beheko harkaitzen kontra txiki-txiki egiteraino. Koro Navarro

Itsasaldien arteko hamabost minutuez baliatuz, Moskoe-strömgo kanal nagusia gurutzatu eta **osina** baino askoz harantzago, Otterholm edo Sandflesen inguruan geratzen ginen aingurata. Koro Navarro

Moskoe-strömek erdian duen sakontasunak ezin neurtuzkoa izan behar du; aski da Helseggengo harkaitz garaienetik ikusten den zurrunbiloaren **osinari** axaleko begiratu bat egitea hortaz jabetzeko. Koro Navarro

3 leizea, amildegia.

Alde bietarat **osin** bana zuen bide meharretik ibiltzerat kondenaturik baleude bezala, egun batean bai eta hurrengoan ere bai. Joan Mari Irigoien

Askok buruz behera amiltzen ziren **osin** sakonetan eta ahoa jadanik zabalik jausten ziren bertan. Xabier Amuriza

4 irud/hed

Non ikusi ditut nik bi **osin** bezalako begi zaharrok? Joseba Sarrionandia

Esku berantetsiak ipur-mazeletan itsatsiz, aurpegi aldera erakarri nuen Kristina, haren **osin** gorri-beltzean pulunpatzeko nahikeriaz. Aingeru Epaltza

Hobendun kontzientziaren **osin** ilunerat largatu gabe egilea. Jose Angel Irigaray

Osin hondorik gabe bat bakardadez bete. Anjel Lertxundi

Jende oro edozein bihurtzen dituen ahazmenaren **osin** hondogabea ezdeustu artio. Iñaki Segurola

Futuroaren printze txikiak, inozentziaren **osin** tristetik hasten ginen berehala geurearen alde aldarrika. Joseba Sarrionandia

Beraiek arrazoimen arruntari jarraiki zaizkio, baina beren ezjakintasuna Demokritoren **osin** sakonetik egia ateratzeko sekretua barnebiltzen duen metodo gisa goretsi gabe. Ibon Uribarri

Arranguraren itoginak garai batean itxaropen elekiariarenak ziren lekuak isiltasunaren **osinarentzat** irabazten suma daitezke Gesalibarren idatzietan. Jokin Urain

Seguraski bazegoen arrakalaren bat ilunpetan, zirrikituren bat beltzasunaren **osinean**, nahikoa argi sartzen uzten zuena ispilu aurrean imintzua egiteko. Anton Garikano

Gizarte Segurantzaren kontuek estali ezinezko **osina** dirudite. Berria - Euskal Herria

5 aintzira, urmaela.

Goiz alderako neskatua ere erori egin zen **osinaren** ondoan: tunika arrosa ur berdearen ondoan. Felipe Juaristi

Ibai bakoitza bideratzeko kobrezko ubide bana egin zuten **osinean**, estutuz zahoana, eta azkenik, osinaren beste muturrean, metro erdia izatera iristen zena. Felipe Juaristi

Eta lubetarik egin ezin zitekeen lekuetan, harresiaren barrutik eta leku horren kontra oso luzera eta zabalera handiko **osin** bat egin zuten urtegi baten modukoa, eta putzuetako eta portuko urarekin bete zuten. Santiago Iruretagoiena

-Irudika dezagun [...] zazpi hatz dituen esku bat: hatzak ibaiak dira, eta eskua lorategiko **osina**. Felipe Juaristi

6 osin zulo (orobat osinzulo)

Aldaretik sua hartu eta, inork jakin gabe, urik gabeko putzu handi baten antzeko **osin**-zulo batean gorde zuten. Elizen arteko biblia

Zazpi ibai mehe haiek biltzeko, **osin** zuloa ere egin zuten lorategian, hogeita hamar metro luze eta tokirik zabalenean hogeit bat metro zena, behetik gora metro erdi gainera, eta alde guztietatik harrizko hormez itxia. Felipe Juaristi

Samin eta beltz, ilunpetan, eguzkitatik **osinzulora** zihoan argizko adar haren erdibidean, agian malko bat sortu zen. Anton Garikano

osin² iz asuna.

Bitxilore, **osin**, mitxeleta edo kakalardo. Hasier Etxeberria

osinzulo ik osin¹ 6.

oskarbi 1 adlag zeruaz mintzatuz, garbi, hodeirik gabe, batez ere gau, goizalde eta arratsean.

Goiak erabat **oskarbi**, mendiarte altuago hauetan. Pello Zabala

Dominiquen gain gelditu zen erostea lehenik emazte soineko bat [...] bestalde, harekin polit eginen zuen **oski** pareak. **Elena Touyarou**

Arra-hartzailerik ez baita, kautsuzko **oski** zolen produkzioa gelditu da. **Herria**

Itxuratu nuen halako **oski** ziratzaila bat, tu egiten nuen botetara, "Ezagun duzu klasea daukazula, jauna, poza ematen du material honen gainean lan egiteak!". **Koldo Izagirre**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Larrüzko kasabeta soinean, mendi-**oskiak** hoinetan, boneta begietara, metrailleta besapetik. **Herria**

Pitbullak estekan eramaten zituzten gizon **oskien** burdinazko aztalen klaska-klaska metalikoen herots beldurgarriak **Itxaro Borda**

oskigile *(orobat oskile g.er.) iz zapatagilea.*

Apezkeriak eta zenbait jaunsokilek erreformatuen kontra xaxatua zuten herriko jendaila, Maitia delako **oskigilea** buru zutela. **Aingeru Epaltza**

Oskigilea gizon simplea zen, Birjinarren zalea, [...] eta sinetsita zegoena debozio horrek eskubidea ematen ziola larru txarra erabiltzeko bere oinetakogintzan. **Juan Garzia**

Salerosketa asko espaloietan egiten dira, eta bizarginek, **oskileek**, aterki-konpontzaileek pasieran zoazela beren zerbitzuak zuzen-zuzen eskaintzen dizkizute. **Gotzon Garate**

Ceccok ogi eskale jardun zuen, bere aitaren gogorkeiaren testigantza eman, eta azkenean ostatu hartu zuen **oskigile** baten gelazuloan. **Juan Garzia**

oskigin iz oskigilea.

-Oskigin edo, orain esaten den moduan, zapatari izatea egokitu zait munduan. **Juan Garzia**

Gioberti kalean daukat lantegia, Pastrengo kalearekin egiten duen izkinan; hogeita hamar urtez jarduna naiz hantxe, zera, San Secondoko **oskigina** ... **Juan Garzia**

oskile ik oskigile.

osko 1 iz erromatarren aurreko herri bateko kidea, Campaniako eskualdean kokatu zena.

Greziar italiotak **oskoen** eta etruskoak zelten kontraeraso barbaroaren mende erori ondoren, erromatarrek helenismo latinizatua eraman zuten Apeninoen, Po eta Alpeen gainetik Mediterraneoko europar barrualde (hinterland) kontinentalean zehar ezarri zuten arte, Danubioren deltatik Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko itsasartean zehar, Britainiaraino. **Iñaki Mendiguren**

2 oskoera.

Hala, Kanpanian hizkuntza hauek hitz egiten ziren Errepublikara garaiaren amaiera aldean: **Oskoa** (Ponpeiako inskripzioen lekukotasuna dugu), greziera (Napoles eta abar sortu zuten kolonoen hizkuntza), latina, agian etruskoa ere (zeren, erromatarrek iritsi baino lehen, lurralde horren jabeak izan baitziren etruskoak). **Isabel Arrigain**

oskoera iz oskoek hitz egiten zuten hizkuntza italikoa.

Italian bere senide zituen **oskoera** eta unbriera dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin -garai batean kultura aldetik latinaren pare izanak-, eta zer esanik ez etrurierarekin, bere anatoliar sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. **Iñaki Mendiguren**

oskoil ik oskol.

oskol *(orobat oskoil g.er.) 1 iz fruitu batzuen azal gogorra.*

Mamia bilatzen du eta ez azala, muina eta ez **oskola**. **Askoren artean**

Eta zelan batzuetan **oskoletik** gaztaina ale bat ateratzean beste aleak **oskol** barruari atxikirik lotzen diren, halaxe jazo zen liburuarekin ere. **Edorta Jimenez**

Joanto eta Dominique **oskoil** biltzen lotu ziren, Enrietak anartean etxe gibelesko baratzea artatzen zuelarik. **Elena Touyarou**

Gaztaina helduaren **oskolaren** barruan fruituak zelan, halaxe [...]. **Edorta Jimenez**

Almendra **oskol** barruan nola, halaxe hasi zitzaion garuna burezurraren barruan danbateko joka. **Koro Navarro**

2 animalia batzuen babesgarri gogorra, bizkarraldea estaltzen diena. ik maskor.

Lepoa **oskoletik** ateratzeko beldurrez dagoen dortoka baten antzera. **Oskar Arana**

Txangurroa, esate baterako, oso zaugarri geratzen da **oskol** zaharra galdu eta beste bat handiagoa sortu bitartean. **Irene Aldasoro**

-Ongi erran beharko! -erantzun zuen txangurroa azpiletik hartu, hankarik potoloena erauzi eta, kraskagailua erabiliz, **oskol** gogor hura hausten zuelarik. **Josetxo Azkona**

Bere **oskol** barrura biltzen den barakuilua bezala. **Jon Alonso**

3 arrautza baten babesbarri gogorra.

Orain zerbait mugitzen zitzairen barruan, zerbait likin eta itxuragabea, arrautzaren **oskol** hauskorra apurtzeko zorian zegoen zerbait. **Patxi Iturritegi**

Arrautzaren **oskola** pitzatzeari ekiten zion, kumea irtetzen zen arte. **Martin Anso**

Oilaskoak beren lumekin eta arrautzak beren **oskol** eta guzti. **Askoren artean**

Arrautza **oskol** gabetu berria zirudien andreak. **Mirentxu Larrañaga**

4 (erkaketetan)

Oskol bat bezain hutsa eta ahotsez bete urdaila. **Koro Navarro**

Existitu, besterik ez... hutsik dagoen **oskola** bezala. **Iñaki Mendiguren**

Leviatan, ordea, bi mastako goleta ingelesa zen, 200 tonakoa, arina oso eta ederra, inon itsasontzi ederrik izan bada: luma bezalakoa airean, **oskola** bezalakoa itsaso gainean. *ik behegera* 7. **Felipe Juaristi**

Haizeak itsasoa harrotu, hauspotu eta bere onetik atera nahian ekin zion, eta itsasontzia, **oskola** lez, arnasa barneraino hartuz, haizearen musikara hasi zen dantzatzen. **Felipe Juaristi**

5 (gai gisa)

Bernizezko txapin beltzak eta **oskolezko** betaurrekoak. **Josu Zabaleta**

Poliesterrezko traje zimurtuak (marroiak gehienetan), betaurreko lodi **oskolezko** erzdunak, buruan zahia beti, eta edozein eratako berriketa azalekoen kontrako higuin artegarri bat. **Oskar Arana**

6 irud/hed

Nork kenduko dio bere larru-jantzia, zulaezineko **oskol** bikoitza bezalakoa dena? **Elizen arteko biblia**

Denen ezkutuan, zurean intsektuek egiten duten bezala, **oskol** hustu bat uzten baitute altzari pisu bat bazegoela uste genuen tokian. **Jon Alonso**

Baita halako grabitate gabezia bat ere, barrutik jan izan balute eta bihotzaren **oskol** hustua baizik geratuko ez balitzaio bezala. **Oskar Arana**

Harik eta oihu barne-hutsa bihurtu zen arte, inguruko haizeak **oskol** bat edo barrunbe bat eraiki balu bezala, teilatua eta alboak urdinak eta ukitu ezinezkoak zituen **oskol** bat, ortzi biribila bezain altua eta hutsa. **Koro Navarro**

Ikusi dinat nola lerako zaldiak estaltzen zituen izotzezko **oskol** batek, arnasa sudurzuloetan itsatsita! **Karlos Zabala**

Ikuskizun hutsa den telebistaren mundutik inplikazioa eskatzen duen harremanen mundura igarotzean **oskol** baten barruan gordeko balira bezala... eta **oskol** hori isiltasuna da. **Pako Aristi**

Bertan goxo eta lasai bizi ziren beraien doilorkeriaren **oskol** barruan. **Koldo Biguri**

Gaixoa herrazko **oskol** batean ixten doa eta dastarazi nahi izaten die mingostasuna bere esku bihurtutako ahaideei edo adiskideei. **Jon Alonso**

Hori ikusteko gauza, aurrez aurre jartzen direnak besterik ez dira, ertzean bizitzera ohituak, **oskol** mingotsekoak eta galtzaileak. **Josu Zabaleta**

Oskoletik atera berri gara, eta mundua dugu aurrean. **Berria - Harian**

7 (itsasontzia adierazteko)

Itsasontzia zuen etxe bakarra Timorrera iritsi zen egunaz geroztik, eta **oskol** hartan bertan egiten zituen Kupang eta Dilirako noizbehinkako bidaiak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Ez dakit hau leku fidagarriena denetz... -pentsatu zuen **oskol** biltzaile zaharrak ozenki-. **Elena Touyarou**

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esaiain erraiak jaten zituzten piratak, koko- **oskolez** trileru-jokoak egiten zituzten buhameak, [...]. **Jon Alonso**

Hitzek karraska egiten zuten, oin azpian zapal dutako intxaur- **oskol** hutsen antzera. **Jose Morales**

Intxaur **oskol** baten barrura mugaturik ere, espazio infinituaren Errege. **Juan Garzia**

Haren ile kolorea gaztaina **oskolarena** zen. **Edorta Jimenez**

Zorua ganba-azal eta muskuilu- **oskolez** harrigarriro estalita zeukan Mantxa barruko taberna hartan. **Iban Zaldúa**

Egun batean, lagun batek problema zail bat ipini zion ebazteko: barakuilu- **oskol** batetik hari bat pasatzea. **Juan Garzia**

Matiasek leihotik bota zituen kleenexa, tripak eta labezomorro- **oskola**. **Unai Elorriaga**

Gogotsu utzirik hilkor eta ziurgabe dena halabehar, heriotza eta arrisku ororen esku, arrautza- **oskol** batengatik. **Juan Garzia**

Karei- **oskolezko** orrazi bat luzatu zidan, ahopeka esanez: [...]. **Josu Zabaleta**

Erlantz gorria motor- **oskolean**. **Joxe Austin Arrieta**

Beheko plataforman zegoen automobilari erreparaka pasatu zuen, haren gurpil- **oskola** biribil distiratiei mira eginda. **Josu Landa**

Erraldoiaren antzera jantzi zuen bular- **oskola** eta gerrian hartu borrorakako armak. **Elizen arteko biblia**

Uziasek babeskiz, lantzaz, buru- **oskolez**, bular- **oskolez**, arku eta habailetarako harriz hornitu zuen gudarostea. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrautza oskol (3); **intxaur oskol** (3)

bular oskola (4)

bular oskolak (4)

oskoletik atera (4)

buru oskolez (3)

oskoldun 1 *izond* oskola duena.

Ale-nahasketa aberatsa zen: ekilorea, artatxikia, arrosa, basartoa, arto-beltza, garia, kakahuetea, arroz **oskolduna**, eta olo zuritua. **Jon Muñoz**

Aurrerantzean umeak ez ziren emearengandik kanpo arrautza **oskoldun** batean garatuko (narrastiak), baizik eta sabel barruan. **Luis Elberdin**

2 irud/hed

Lurrunezko eta burdinazko **oskoldun** PYSBEko bakailaontzia. **Edorta Jimenez**

• **3 iz** animalia artropodo errulea, gorputza bina luzakin dituzten segmentuez osatua duena, buru gainean bi antena dituena, zakatz bidez arnasa hartzen duena eta oskola duena. ik **krustazeo**.

Oskoldunen Erreinu zinez aintzatsua. **Xabier Olarra**

Alga gehetatik **oskoldun** txikietara, haietatik arrain gero eta lodiagoetara. **Juan Garzia**

Mintzo da beste arrain eta **oskoldun** guzien izenean kotsadura guziak salatuz, itsasoa gero eta gehiago funditzen duten kotsadura guziak... **Herria**

Angula, txangurro eta beste **oskoldun** frangoz arta hartzen zuela toki paregabe hortan. **Herria**

4 (hitz elkartuetan)

Merkatuko kale haietan isurtzen zen urak poztu egiten zuen, eta hango freskurak, itsas **oskoldunen** laztasunetik arrain gazituen usain mingotsera pasatzen zenak, alaitu. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrain eta oskoldun (3)

oskorri 1 *iz* zeru gorria.

Ilunabarretako **oskorria** ez da begia betetzen duen odol putzu bakarra, munduan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gero, **oskorriari** luzitzeko astirik eman gabe zabaldu da gau tropikala, beroa eta itsaskorra. **Joseba Sarrionandia**

Sartalde argitsutik, arrastiriko **oskorriak** dirdira noranahi hedatzen zuen: letoira, nikelera, botoietara eta jendearen begietara. **Lopez de Arana**

Almuedano itsuak, lehen argitsua eta **oskorria**, eta gero urdina izandako goiz baten espaziorantz egin zuen oihu. **Jon Alonso**

Gogoan dudan bakarra da mutilekin lotarako lekurantz itzuli naizenean iluntzen zebilela, eta udako **oskorria** muinoen gainetik bereziki baketsu eta epela zela azken egun honetan. **Urtzi Urrutiakoetxea**

Ziegako leihotik **oskorriari** begira jarrita, Dueñas daukat goi antzean aurrez aurre. **Jokin Urain**

Oskorriak Golkoko Korronteko lainoa zulatzen zuen. **Lopez de Arana**

Oklahomatik hurbileko errantxo berrira, bere emaztea eta bere amaginarreba estreinatzerara, eta **oskorriaren** orduan trostan urrunduko zen apur bat arestiko basamortu orain bai belarrez joria miresteko. **Joseba Sarrionandia**

Eguzkiak **oskorri** ederra osatzen zuen zerumugako hodei bakanen artean. **Aitor Arana**

Haurrak **oskorriaren** kolorekoa zuen ilea. **Berria - Mundua**

Egunsentiaren jainkosaren, Auroraren, ile-adatsetatik jaioa da [Eros], hura orrazten hasi eta egunaren lehengo **oskorrietatik** askatu zitzaiona. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

2 irud/hed

Arestiren **oskorri** inarrositsuan bizi izan zuen nire belaunaldiak ETAre lehen hamarkada. **Joseba Zulaika**

Eta horrela, odol gorriaren **oskorria** masailetan, begiak harriduraz distiraka, Frodok eta Samek aurrera segitu zuten. **Agustin Otsoa**

3 (hitz elkartuetan)

Halako batean, egunsenti- **oskorria**! **Joxe Austin Arrieta**

oskorritu, oskorri(tu), oskorritzen da/du *ad* zeruaz eta kidekoez mintzatuz, gorritu.

Eguzkia sartzearekin batera, arratsaldea **oskorritzen** hasi zen. **Lopez de Arana**

Euren buru gainean, arrastiriko eguzkiak nakarrezko hodei txikiak **oskorritzen** zituen, distiratsu. **Lopez de Arana**

oskurantismo ik **obskurantismo**.

osmaliar ik **osmanliar**.

osmanliar (*orobat osmaliar*) iz turkiarra, otomandarra.

Eskimal eta nomadek, **osmanliar** eta espartarrek bi ezaugarri komun dituzte: espezializazioa eta kasta. **Iñaki Mendiguren**

Merkataritza-guneetan, beren agindupeko lurren erdian, **osmanliarrek** Espainia eta Portugaleko judu sefardita inheslariaren komunitate zibilak ezarri zituzten. **Iñaki Mendiguren**

Ipar-ekialdeko anatoliar barrutiak, non akemenestarrek lurra eman baitzizkieten pertsiar baroiei, Islamera konbertitutako albaniarrek kolonizatu zituzten **osmanliarrek**. **Iñaki Mendiguren**

Osmanliar inperiogileek Konstantinopla, Morea, Karaman eta Trebizond hartuak zituzten; eta Itsaso Beltza otomandar aintzira bihurtua zuten Krimeako genoa koloniak harrapatzean. **Iñaki Mendiguren**

osmosi 1 iz mintz erdi irazkor batek bereizten dituen bi disoluzioren arteko molekula higidura, kontzentrazioa berdintzeko joerak eragina.

Bere temak hartutako gizona zen Lyssenko, zirkunik ere egin gabe botatzen zituena honelako izugarrikeriak badira bi glukosa mota: landareena eta animaliena! aminoazidoen zeregin nagusia zelulen **osmosi**-orekari eustea da! zeluletan, zitoplasmak ematen dizkio bere tasunak guneari! **Juan Garzia**

2 irud elkarrekiko eragina.

Handik amonaren gainean bizi zen amona-izebaren etxera igaro zara, **osmosiz** bezala. **Lourdes Oñederra**

Itzulpen lana izan delako tradizioaren eta hizkuntzaren arteko **osmosiaren** eragile nagusi. **Bernardo Atxaga**

Militante eraginkorrak, berak hasi direlako zenbaitetan hizkuntza ikasten, edo militante pasiboak, berek egin ez zutena ororen gainetik bere seme-alabek egin dezaten nahi dutelako, gogozko tokian maldarik ez delakoan eta hizkuntza **osmosi** bidez beretuko dutelakoan. **Pello Salaburu**

Instrumentuaren eta zintaren arteko **osmosia** lortu nahi dugu; bien arteko harremana sakona izan dadila; bi mundu izan beharrean, bakarra izan dadin. **Berria - Kultura**

OSO 1 izond zatirik edo osagairik falta ez zaiona; (zerbait) buru batetik bestera hartzen duena.

Masajeak ematen ditu ia beso **osoa** zeharkatzen duten orbain arrosotan. **Alberto Barandiaren**

Poliki-poliki, zakil **osoa** hondoratu zen nire ipurmasailen artean. **Juan Martin Elexpuru**

Barrualdean orri **osoa** eskaintzen diote albisteari. **Pako Aristi**

Etxe **osoa** miatu ondoren, ez zuela aurkitzen erantzun zion anaiak. **Askoren artean**

Marmolezko hall **osoa** hartzen zuen mahai luzean zeuden, urduri. **Iñaki Mendiguren**

Kontinente **osoa** igaro beharko du Atlantikora heltzeko. **Jon Muñoz**

Espirituak mirariak egiten zituzten deabruak ziren, eta mundu **osoko** erregeengana jo zuten, Jainko ahalguztidunaren egun handiko borrokara biltzeko. **Elizen arteko biblia**

ik osoko.

Adibide horrek oso argi ikusarazten du langile espezializatuen denbora **osoko** okupazioa ez dela errentagarria gertatzen. **Koro Navarro**

2 urtez, denbora **osoko** lanpostua. **Herria**

Konfiantza **osoko** gizona.

Erresuma **osorako** errege ordenantza batzuk ere tarteko ziren. **Andres Urrutia**

Bizitza **osorako** gera daiteke, bada, hantxe. **Irene Aldasoro**

Irten ziren igelak, Egipto **osoa** estaltzeraino. **Jose Antonio Mujika**

Planeta **osoa** dago gerran. **Josu Zabaleta**

Sinai mendi **osoa** ketan zegoen.

Han, basamortuan zirela, marmarrean hasi zen elkarte **osoa** Moises eta Aaronen aurka gaizki esaka: [...]. **Jose Antonio Mujika**

Baina berak zorro **osoa** hustu zio. **Bernardo Atxaga**

Bi bira **oso** egin zituen, denek izan zezaten obeliskoa begiesteko astia. **Jon Muñoz**

Ez zen eklipse **osoa**, eta ez zuen erabat ilunduko. **Imanol Zurutuza**

Bi leiho ilara **oso** ageri dituk, elkarren gainean paraturik. **Txillardeggi**

Pentateukoaren bertsio laburtua da hemen aurkezten duguna; ez, inola ere, bertsio **osoa**. **Jose Antonio Mujika**

Ez dakit lerro horiek aurkitzen direneta maisuaren obra **osoa** biltzen ari diren liburukietan. **Piarres Xarriton**

Jokaldi batek partida **osoa** goitik behera alda dezake. **Isabel Arrigain**

Gor **osoa** zen eta gauza guztiez haraindian zegoen nolabait. **Mirentxu Larrañaga**

Prestakuntza aldi hori amaitu ondoren, irakasle/ikertzaile **"osoa"** izateko urratsa eman dezake prozesua hasi duenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Jose Luis Lizundia jaz hautetsia izan zen euskaltzain **oso**, Jose Mari Satrustegi nafartarraren segida hartzen zuela. **Herria**

· Homero **osoa**: *Odisearen* hamabi dozena bertsio desberdin; tragikoak: Eskilo, Sofokles, Euripides. **Jon Muñoz**

Irakurrita nuen Unamuno **osoa** goitik behera, Schopenhauer, Nietzsche, Kierkegaard, Camus, Sartre... denak irentsi nituen. **Ana Urkiza**

Uste dut liburutegi **osoa** irakurri nahi duela Gabonak baino lehen. **Iñaki Mendiguren**

2 (gauza abstraktuekin)

Zibilizazio **osoa** numero hutsetara antzutua! **Patziku Perurena**

Zorion **osoa** zen enetzat. **Ana Urkiza**

Eskubide **osoa** dute hala pentsatzeko, irakurle bakoitzak berregiten baitu idazlearen lana. **Koldo Izagirre**

Ea ez zaidan Portugaleko Historia **oso** bat ateratzen. **Jon Alonso**
Janarian jarri genuen arreta **osoa**. **Oskar Arana**
Perfekzio **osora** heldu gabe, baina nor da perfekziora heltzen? **Herria**
Interes **osoa** dut ez huts egiteko, susmotan hartuko bainaute bestela. **Jon Muñoz**
Iluntasuna **osoa** zen eta arimarik ez zebilen han. **Patxi Zubizarreta**
Osoa eta erabatekoa zen nire damua. **Oskar Arana**
Donostiako prentsak, hitz batez, ez zuen segurki egia **osoa** esaten. **Txillardegi**
Neskaren bizitasun **osoa** begietan bildurik zegoen, nolabait esateko. **Karlos Zabala**
Gizartearen onerako zerbitzua izanik, izaera pribatu nahiz publikoa duten erakundeek osatzen dute sistema **osoa**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Einsteinentzat holako bat ezin izan zitekeen teoria fisiko **oso** eta behar bezalako bat. **Iñaki Seguro**
Ez naiz geldiltzen zuri galdeak egitetik, uste **osoa** baitut zure eskuzabaltasunean eta zure adeitasunean. **Jon Muñoz**
Indultuz baliatzeko aukera eman zioten, baina berak zigor **osoa** jasan nahi izan zuen. **Koldo Biguri**
Gero, heriotza-zigorra, zigor aldaketa edo barkamen **osoa** erabakiko dugu. **Juan Martin Elexpuru**
Lortzen ditugun emaitzen ondorioak geuk jasango baditugu, geurea izan beharko litzateke erantzukizun **osoa**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Beste batzuen ustez, nehorz ez du gehiengo **osorik** aise bilduko. **Herria**

3 irud/hed

Beste batzuk ezagutu banituen ere, Rita besteko emakume **osorik** ez nuela kausitu sekula. **Hasier Etxeberria**
Irudipena dut amets egin nuen gau hartaz geroztik helduagoa naizela, neure kabuz pertsona **osoagoa** banintz bezala. **Josu Zabaleta**

4 (izen gisa)

Osoak, **osoa** izango bada eta osatua, gaitzak eta akatsak berdintzea eta biribiltzea eskatzen du. **Iñaki Seguro**

5 (denbora tarteei buruz)

Egun **osoa** idazten eman beharko nuke, den-dena eta xehe-xehe kontatu beharko banizu. **Josu Zabaleta**
Esna igaro zuten biek gau **osoa**. **Felipe Juaristi**
Larunbat **osoa** ohean pasatu nuela erantzun nien. **Anjel Lertxundi**
Aste bat **osoa** izanen dut Burgostik abiatuz Caminoa segitzeko. **Piarres Aintziart**
Itzuli nintzenean, hilabete **osoa** eman nuen etxean zarratuta, Bilboko Aste Nagusia bete-betean. **Javi Cillero**
Uda **osoa** eman du zutaz hitz egiten. **Iñaki Mendiguren**
1868ko irail gatazkatsua harez geroztik, bost urte **oso** joanak ziren ia-ia. **Txillardegi**
Mende **oso** baten ondoren. **Bernardo Atxaga**
Bizitza **osoa** ikusi diat segundo batean. **Koro Navarro**
Botikariarekin pentsatzen egin nuen ia meza **osoa**. **Anjel Lertxundi**

6 zenbakiez mintzatuz, unitatea behin edo zenbait aldiz daukana.

-Zenbaki **oso** eta arruntentz zientzia da aritmetika: 1, 2, 3... **Jon Muñoz**
Zenbaki positiboak baizik ez ditu onartzen Al Khwarizmi, **osoak** nahiz zatikiak. **Jon Muñoz**
Bi zenbaki **oso** bikoitien batura zenbaki **oso** bikoiti bat da. **Jon Muñoz**
-Zenbaki **osoak** -positiboak eta negatiboak- aljebraikoak dira. **Jon Muñoz**
Ikasle garaitik aritmetikaz eta geometriaz gogoratzen nuena burura ekarriaz, zenbaki **osoen** batuketak eta kenketak eragiteari ekiten nion pantailako protagonisten lehenbiziko muxu eta esku-sartzeak ikusi bezain pronto. **Josetxo Azkona**
17 arteko zenbaki **oso** guztien erro karratuen irrazionaltasuna frogatu zuen. **Jon Muñoz**
Lehenengo n zenbaki **osoen** batura kalkulatzeko, haien karratuen batura, eta haien kuboena. **Jon Muñoz**
Gauza jakina da Gaussez geroztik era bakarrean deskonposa daitezkeela zenbaki **oso** guztiak, zenbaki lehenen biderkadura mugagabe gisa, alegia. **Jon Muñoz**
Halako zenbaki **osoa** imajinaezina da; ergo, bada Jainkorik. **Juan Garzia**

7 eritasunik, gaitzik, zauririk gabe.

Eta hala zihoazen egunak, eta osaba gero eta **osoago** sentitzen zen, gero eta umoretsuago... **Joan Mari Irigoien**

· 8 *adlag* maila goran, guztiz, erabat. (*dagokion adizlagunaren edo adizlagun gisakoaren ezkerrean*). ik **osoki**¹.

Oso pozik ikusten zaitut gure artean. **Bernardo Atxaga**
Davidek berak ere **oso** ondo jotzen du. **Bernardo Atxaga**
Oso maiz nahasten baitira bi jarduerak. **Irene Aldasoro**
Oso gora hitz egiten du, eta kalean jolas egiten duenean umekeriak egiten ditu. **Josu Zabaleta**
Oso gaizki nago. **Iñaki Seguro**
Badira oso lege onak, baina **oso** desegoki eginak. **Iñaki Iñurrieta**
Oso justu dabil Kimikan. **Bernardo Atxaga**
Handik **oso** gertu aurkitu zuen bat, Rambuteau kalean. **Karlos Zabala**
Oso goiz zen oraindik. **Joxe Austin Arrieta**
Oso berandu lo hartu nian eta **oso** berandu esnatu. **Koro Navarro**
Kuba **oso** urruti dago. **Jon Muñoz**
Jeneral ausart bat, **oso** urrutitik zetorrena. **Koro Navarro**
Oso gutxitan nekarazten zuten era horretako "euliek". **Askoren artean**
Zeta-tximeleta emeak **oso** urrutitik erakartzen ditu arrak. **Irene Aldasoro**
Une honetan bederen **oso** nekatua zaude. **Lourdes Oñederra**
Oso lanpeturik ibili gara, eguraldia aldatu eta berriz lanari ekin genionetik. **Xabier Montoia**
Hire aita, bestalde, **oso** jota ikusten diat. **Txillardegi**
Aristoteles **oso** kontuz ibili zen eta ez zuen uste izan bere argudioak analitikoki baliozkoak zirenik. **Xabier Kintana**
Ingalateran lapurrak **oso** nekez zigortzen dira heriotzarekin. **Juan Martin Elexpuru**
Putreak eta arranoak begizatzea **oso** noizean behin suertatu ohi zait. **Iñaki Seguro**
Marrok **oso** noizbehinka baino ez zigun hitz egiten haurroi. **Juan Kruz Igerabide**
Oso bakanetan ikusi nuen Odeonen ezagutu nuenetik. **Anjel Lertxundi**
Mary Ann **oso** serio jarri zen. **Bernardo Atxaga**
Paraje haietan ez zuen Infanteak bere burua **oso** seguru sentitzen. **Txillardegi**
-**Oso** zalapartari zeudek; Jexuxa batez ere. **Txillardegi**
Bihotza **oso** bizkor ari zitzaidan taupadaka. **Jon Muñoz**
Gorputzez ahul, baina espirituz **oso** indartsu eta bero baitzegoen. **Anjel Lertxundi**

Tentetu nintzena aurrez aurre neukan, **oso** zurbil. **Bernardo Atxaga**
Oraintxe esan duzu egia!, pipertu zitaidan Elsbeth, **oso** desatsegin. **Anjel Lertxundi**
Ez naiz **oso** zuzen ari. **Iñaki Segurola**
Oso azkar alde egin nuen etxetik, eta, nire ametsa bete nahian, benta bateko ukuiluan hasi nintzen morroi. **Bernardo Atxaga**
Daviden ama ez zegoen **oso** sano burutik. **Oskar Arana**

8 (dagokion izenondoaren ezkerrean)

Letra, berriz, **oso** txikia. **Bernardo Atxaga**
Eraikineko bulego nagusia da, **oso** handia, **oso** argitsua eta **oso** betea. **Josu Zabaleta**
Kotxe bat, **oso** handia, marroiz jantzitako txofer batek gidatua. **Fernando Rey**
Gizakietan eta ugaztun gehienetan, **oso** eraginkorra da tenperatura-erregulazioa. **Irene Aldasoro**
Baina zaldiak **oso** otzanak dira. **Txillardegi**
Oso desberdinak dira bi prozesuok. **Irene Aldasoro**
Oso bestelakoa zara. **Fernando Rey**
Oso erraza baita zinikoa izatea. **Antton Olano**
Jazer eta Galaad lurraldeak abereak hazteko **oso** aukerakoak zirela. **Elizen arteko biblia**
Abdellahri kargu hartu zioten haiek ez ziren, ba, **oso** aurpegi-gozoak. **Bernardo Atxaga**
Ez baita **oso** ohiko eta arrunta holako lanak ematea argitara gure artean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Baina egia **oso** bestelakoa da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Osaba Benjamin aitaren **oso** bestelakoa zen. **Jon Muñoz**
Bai bata bai bestea Irlandako elezahar, folklore eta historiaren **oso** zaleak. **Antton Olano**
Aiton-amonak sionismoaren **oso** kontrakoak baitira. **Josu Zabaleta**
Maitemindurik egotea **oso** erromantikoa duk, bai. **Antton Olano**
Diozun beste maite baduzu, **oso** litekeena da gauzak ondo ateratzea. **Oskar Arana**
Baliteke bera izatea hitz famatu horien egilea, **oso** litekeena zen. **Jon Alonso**
Oso bestelako musika batek betetzen zuen bere buru barnea. **Alberto Ladron Arana**
Liburu erotiko eta pornografiko ugari irakurri ditut, **oso** txarrak gehienak. **Karlos Zabala**

9 (adizkia tartekaturik)

Tomen eta nire logelaren arteko paretak **oso** da mehea, denik eta igeltsuzko holtzik arinena. **Oskar Arana**
Ohea **oso zen** estua. **Ramon Saizarbitoria**
Filologoarentzat begiak **oso** dira engainagarriak, ongiegi erakutsiak eta eskolatuak daude gauza onerako. **Iñaki Segurola**
Mexikoko nekazariak, bestalde, **oso** daude haserre. **Berria - Gaiak**

10 (dagokion esaldiaren eskuinean)

Gaizki egina **oso**. **Iñaki Segurola**
Solas hau jostagarria da **oso**. **Josu Zabaleta**
Bilduma hau osatzen duten kontakizunak ezagunak dira **oso**. **Koro Navarro**
Aurkitzea zaila zen **oso**. **Karlos Zabala**
Sarrarazi ninduten gela zabala eta altua zen **oso**. **Koro Navarro**
Denbora guztian idaztea gustatuko litzaidake, baina aspergarria bihurtuko litzateke **oso**. **Josu Zabaleta**
Hanna oso sentibera zen, suminkorra **oso**. hantxe zutik geratu ginen hirurok irribarrez, zer esan jakin gabe, baina gustura **oso**. **Joxe Austin Arrieta**
Konponbide txarra du gainera horrek **oso**. **Iñaki Segurola**
Bizar-zikin sentitzen nintzen, **oso**. **Joxe Austin Arrieta**
Horregatik, nekaturik zaudelako **oso**, zoaz berarekin atzerrira. **Lourdes Oñederra**
Ekintza ona da **oso** inori norberaren dirua interesik gabe mailegatzea. **Iñaki Iñurrieta**
Zaila da **oso** iritzi publikoari aurre egin eta mesprezu horie ihes egitea. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Gizendurik zegoen **oso**, [...] eta haserre bezala zegoen nirekin. **Oskar Arana**
Larria zen, **oso**, irakurtzen ari zena. **Jon Muñoz**
Urrun **oso** arrantzaleen txalupak. **Joxe Austin Arrieta**
Urduri **oso**, aitortu beharko. **Txillardegi**
Bizar-zikin sentitzen nintzen, **oso**. **Joxe Austin Arrieta**

11 (izen eta izenondoaren multzoaren ezkerrean)

Oso gizon zintzo eta jakintsua da. **Bernardo Atxaga**
Oso gauza ederra izan behar du historiak kontatzea. **Jon Muñoz**
Oso usain ona zerion. **Karlos Zabala**
Oso lantegi txarra da alternatibak asmatzen ibili behar hau. **Iñaki Segurola**
Oso hitz txarrak esaten zituen eta gauza izugarriak egiten. **Askoren artean**
Oso gai berezia da hezurra; materialen zientziak esplikatzen bai baina imitatu ezin dituen ezaugarriak ditu. **Irene Aldasoro**
Oso takoi luzeko oinetakoak zituen. **Jon Muñoz**
Oso gas disolbagarria da amoniakoa, eta **oso** energia gutxi behar da, edo batere ez, hura gorputzean sortzeko. **Irene Aldasoro**
Donatienek **oso** prezio garestia ordaindu zuen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Oso turista informatua naiz. **Bernardo Atxaga**
Oso bihotz oneko emakumea, sexu-grinaz ez diharduenean... **Joxe Austin Arrieta**
Espekulazioak **oso** ondorio larriak izan ditzake truke-tasa finkoetan. **Koro Navarro**
Urruneko ondorioek **oso** eragin ahula dute gizon batzuen gain. **Juan Martin Elexpuru**
Ez ditu **oso** urte onak pasa. **Pako Aristi**
Aitek ez ditek **oso** ospe ona izan orain arte. **Antton Olano**
Muskuluak ez dirudi **oso** material interesgarria motor bat egiteko. **Irene Aldasoro**
Adineko jendeak **oso** pentsamolde atzeratua izaten du batzuetan. **Josu Zabaleta**
Oso liburu polita da, baina **oso** berezia. **Josu Zabaleta**
Oso negu hotza 1873an Lizarran eman nuen lehenengo hura. **Txillardegi**
Oso sarrera-liburu ona. **Askoren artean**
Haren eskolatarak **oso** jende gutxi joaten zen. **Karlos Zabala**
Antzina **oso** urte eta diru gutxi zegoen Italian. **Iñaki Iñurrieta**
Hemezortzi edo hogeita bat urtekoa, **oso** itxura ederrekoa. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

-Katuaren pixa-usainak dago hemen! -bota zuen Perrettek, **oso** umore txarrez. Jon Muñoz

Oso modu burutsuan baliatu da duten lekua. Irene Aldasoro

Mississippiaren gainetik, hor nonbait, gindoazen [...] **oso** altura handian eta erabat lasai. Joxe Austin Arrieta

Asko kontatu behar da **oso** tarte txikian. Iñigo Aranbarri

Asko ikasi zuen **oso** denbora gutxian. Juan Luis Zabala

12 (izenaren eta izenondoaren artean)

Rieti probintzian, izurrite **oso** larria zabaldu zen, behi- eta ardi-azienda guztiak krudelki garbitzen ari zena. Askoren artean

-Foruen kausa **oso** memento larriak ari duk pasatzen -esan zidan-. Txillardeggi

Neska **oso** gazte bat kontratatzen du sukaldarako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Uste soilekin edo froga **oso** ahul eta ekibokoekin frogatu ohi direla. Juan Martin Elexpuru

Matematikako problema **oso** zail bat ebatzi nuen eta frantses gramatikako hiru orrialde itzuli nituen. Josu Zabaleta

Pertsona **oso** mehe baten ia % 70 ura izango da. Irene Aldasoro

Neurri **oso** apal baina funtsezko batean. Pako Aristi

Nikolas tiranoak heriotza **oso** gogorrez amaitu zuen bere bizitzaldia. Askoren artean

Karta-jokalarari **oso** bitxia zara zu... kartak beharrean, grinak eta gizakiak erabiltzen dituzu jolaserako. Ander Irizar

-Katu **oso** gutti da Indian, zakurren aldean. Gotzon Garate

Tratulariak dirutza handiak ematera behartuta daudelarik denboraldi maiz **oso** laburretarako, [...]. Iñaki Iñurrieta

Nire oroimenaren ur ez **oso** lasaietan dabilzten kondarrak bildu eta liburu batean gordeta utzi betiko. Bernardo Atxaga

Askotan sentitzen dut [...] buru-arintasun halako bat noizean behingo zitzada ez **oso** zorrotzekin. Anjel Lertxundi

13 (aditz bati dagokiola) ik asko.

Gogoan nuen **oso** hunkitu ninduen argazki bat, 1994ko abuztukoa. Jon Muñoz

Oso ugaldu dira. Gotzon Garate

1941eko udan amona **oso** gaixotu zen. Begiak zabalteak asko betetzen du, belarriak ongi irekitzean, **oso** janzen gara. Josu Zabaleta

Oso atsegin zitzaion hau Jainkoaren zerbitzariari. Askoren artean

Literatura **oso** laketa du. Gotzon Garate

Tipoa ez nuen **oso** gustuko. Fernando Rey

Anaiek eta jendeak **oso** maite zuten. Askoren artean

Nik **oso** maitea nuen osaba Benjamin eta asko miresten nuen. Jon Muñoz

Ez nituen inoiz ere **oso** aintzat hartu gona-kontu horiek. Oskar Arana

Gogor kritikatu zuen ordu arte **oso** aintzat hartua izan zen liburu bat. Jon Muñoz

Oso modan zegoen garai hartan kantu hura. Juan Luis Zabala

Normalean **oso** bat etortzen ginen ideia eta iradokizunetan. Anjel Lertxundi

Don Bucleri aspaldi aditu edo irakurri nion gauza batekin **oso** bat edo ados sentitu izan naiz beti. Iñaki Segurola

14 ez-oso izond

Baina, halere, azterketa **ez-oso** izan zen, etapa jakin batean gelditua baitzegoen. Isabel Arrigain

Baldin haien paradisua **ez osoa** ez guztizkoa bazen, [...]. Joan Mari Irigoien

Aireari igarotzen uzten dion aho barrunbearen ixte **ez-oso**a dute ezaugarri. Isabel Arrigain

Urte batzuk geroago konturatuko da hilkor gisa bizi garen artean Jaungoikoaren ikuskera irudi bidezkoa izango dela soilik, eta, beraz, **ez-oso**a. Imanol Unzurrunzaga

Gure osabarena ere ez zen hain eskasa eta hain **ez-oso**a. Joan Mari Irigoien

Hortaz, bi nahimen dira, bata ez **oso**a, eta honi falta zaiona besteak dauka. Imanol Unzurrunzaga

Nola egiazko gaitza zaititzen den bi gaitz motatan, gaitz perfektua eta gaitz ez perfektua, gisa berean, bereizten dira zorigaitz osoa eta **ez osoa**. Filosofia definizio akasduz bete dago, bereziki benetan definiziorako osagaiak barnebildu bai baina **era ez** osoan egiten dutenez bete. Piarres Xarriton

15 oso-oso¹ adlag

Ezkonberritan **oso-oso** gaizki pasatu nuen... Lopez de Arana

Ezpainak **oso-oso** gorri pintatuta. Fernando Rey

Fenomeno atmosferiko erreala da izpi berdea, **oso-oso** gutxitan ikus daitekeena. Iñaki Iñurrieta

O, Harry... zuk **oso-oso** kontuz ibili behar duzu. Iñaki Mendiguren

-Mmmm! -marmartu zuen Pepponek, **oso-oso** urduri. Koldo Biguri

Baina ur lasterra **oso-oso** azkarra zen. Karlos Zabala

Zinez mundu mailako bihurtu diren enpresen kopurua **oso-oso** txikia dela kontuan hartuz [...]. Koro Navarro

-Mmmm! -marmartu zuen Pepponek, **oso-oso** urduri. Koldo Biguri

Ez goizean behin, baizik eta **oso-oso** noizean behin, miraria gertatzen da. Joxerra Garzia

Egiaz esaten dizut, **oso-oso** apala naizela. Josu Zabaleta

Sei eskuren fereka sentitzea **oso-oso** kitzikagarria zen. Juan Martin Elexpuru

Aliatuekiko harreman hau **oso-oso** komenigarria zaigu. Edorta Jimenez

Ni **oso-oso** umea nintzen, baina oroitu egiten naiz. Pako Aristi

-**Oso-oso** ikuspegi polita da. Xabier Olarra

Oso-oso gau txarra pasa nuen; lokamutsez gainezka oratua. Txillardeggi

Zaude ziur, jauna, sei pertsonaia **oso-oso** interesgarriak garena gu! Josu Zabaleta

Nik bezala, **oso-oso** beldur nintzenezan, larrimenez itxi ote zituen begiak jaino aurretik? Juan Kruz Igerabide

Oso-oso maite nuen nik arbola puntetan ibiltzea. Menane Oxandabaratz

-George, nik **oso-oso** atsegin ditut txirla egosiak. Lopez de Arana

Oso euskaltzalea duk, eta euskal kontuetan **oso-oso** ikasia. Txillardeggi

Ni **oso-oso** kezkatua nengoen, arraiotan! Antton Olano

Lehendabiziko aldiz liskarrekin hasi ginenetik, aitarekin zegoen **oso-osoan**. Anjel Lertxundi

-Gizaseme baten autoan sartzea **oso-oso-oso** gaizki ikusia zegoen. Karlos Zabala

Vittorio ere egoera **oso-oso-oso** arrisksuan omen zegoen. Fernando Rey

16 oso-oso² izond

Gorraize **oso-oso**a eta ikuste bete-bete. Iñaki Segurola

Orain aise konprenitzen dut, eta arrazoi **oso-oso**a ematen diot gainera. Iñaki Segurola

Uste **oso-oso**a izateko, honen bihotz zabalak laguntza-babes guztia opako diola. ezjakintasun politiko **oso-osoan** bizi ginen gu. Patxi Ezkiaga

Konturatu gabe, egun **oso-osoan** edukiko duzu udare hura jateko irrika ahosabaian eta mingainean. Anton Garikano

zorrotzak (27); **oso zuhur** (13); **oso zuhurra** (10); **oso zurbil** (16); **oso zuzena** (17)

partida oso garrantzitsua (17); **sistema oso bat** (13); **talde oso bat** (10); **urte oso batez** (10); **zaila da oso** (17); **zenbaki oso** (21); **zerbait oso** (32)

ahalmen osoa (15); **amnistia osoa** (41); **ardura osoa** (26); **armada osoa** (15); **arratsalde osoa** (60); **arratsalde osoa eman** (12); **arrazoi osoa** (55); **arreta osoa** (63); **askatasun osoa** (61); **aste bat osoa** (13); **aste osoa** (68); **aurpegi osoa** (22)

babes osoa (74); **babes osoa eman** (10); **babes osoa eskaini** (10); **begirune osoa** (10); **bere bizitza osoa** (27); **bere toki osoa** (10); **bidai­a osoa** (17); **bide osoa** (24); **bilduma osoa** (12); **bira osoa** (11); **bizi osoa** (37); **bizitza osoa** (268); **bizitza osoa eman** (19); **borondate osoa** (15); **botere osoa** (16); **buelta osoa** (19); **buru osoa** (10)

denboraldi osoa (17); **egia osoa** (130); **egia osoa esan** (20); **egun bat osoa** (10); **egun osoa** (300); **egun osoa eman** (19); **egun osoa ematen** (22); **elkartasun osoa** (25); **elkarte osoa** (29); **eraikin osoa** (15); **erantzukizun osoa** (39); **eremu osoa** (13); **errespetu osoa** (21); **eskualde osoa** (17); **eskubide osoa** (94); **eskubide osoa du** (16); **espania osoa** (11); **etxe osoa** (44); **europa osoa** (13); **euskal herri osoa** (75); **euskaltzain osoa** (12); **ez osoa** (12)

familia osoa (89); **fed­e osoa** (10); **frantzia osoa** (10)

gau osoa (168); **gau osoa eman** (20); **gehiengo osoa** (193); **gehiengo osoa lortu** (22); **gehiengo osoa lortzea** (12); **gehiengo osoa lortzen** (10); **gela osoa** (54); **gizadi osoa** (14); **gizarte osoa** (37); **goiz osoa** (46); **gorputz osoa** (205); **gudaroste osoa** (31)

herri osoa (185); **herrialde osoa** (13); **hilabete osoa** (20); **hiri osoa** (56); **historia osoa** (23)

ia egun osoa (10); **ia osoa** (48); **ibilbide osoa** (35); **ikuspegi osoa** (11); **ilara osoa** (11); **indar osoa** (12); **informazio osoa** (19); **inguru osoa** (14); **isiltasun osoa** (10); **israel herri osoa** (10); **israel osoa** (18); **israel­darren elkarte osoa** (11); **istorio osoa** (21); **itxura osoa** (10); **itzuli osoa** (33); **izadi osoa** (13); **izate osoa** (17); **izen osoa** (10)

konfiantza osoa (130); **konfiantza osoa du** (10); **kontrol osoa** (11); **kopuru osoa** (13); **laguntza osoa** (25); **lan osoa** (20); **lehentasun osoa** (35); **leku osoa** (11); **lerro osoa** (10); **liburu osoa** (21); **lur osoa** (37); **lurbira osoa** (10); **lurralde osoa** (56)

mende osoa (10); **mendi osoa** (11); **mundu osoa** (132)

na­farroa osoa (15); **nire bizitza osoa** (16)

obra osoa (29); **oso osoa** (69)

partida osoa (46); **partida osoa jokatu** (16); **planeta osoa** (13); **plaza osoa** (15); **prestutasun osoa** (14); **prozesu osoa** (38)

sail osoa (10); **segurtasun osoa** (10); **sistema osoa** (36); **sostengu osoa** (19); **sustengu osoa** (19)

talde osoa (80); **testu osoa** (13); **toki osoa** (19); **txosten osoa** (12)

uda osoa (14); **unibertso osoa** (28); **urte osoa** (42); **uste osoa** (110)

zati osoa (16); **zentzu osoa** (11); **zerbitzu osoa** (10); **zerrenda osoa** (35); **zigor osoa** (29); **zigor osoa bete** (11); **zilegitasun osoa** (19); **ziurtasun osoa** (17); **zorion osoa** (12)

egun osoak (11); **elkarte osoak** (10); **euskal herri osoak** (15); **familia osoak** (52); **gizarte osoak** (25); **gorputz osoak** (13); **herri osoak** (120); **herri osoak erantzungo** (12); **israel osoak** (18); **mundu osoak** (48); **talde osoak** (34)

arratsalde osoan (52); **aste osoan** (112); **asteburu osoan** (11); **atzo egun osoan** (12); **bere bizitza osoan** (61); **bere osoan** (63); **bidai­a osoan** (31); **bide osoan** (31); **bira osoan** (10); **bizi osoan** (44); **bizitza osoan** (435); **bizitza osoan zehar** (20); **denbora osoan** (43); **denboraldi osoan** (50)

egipto osoan (21); **egun osoan** (590); **egun osoan zehar** (40); **eremu osoan** (19); **erresuma osoan** (17); **eskualde osoan** (15); **espania osoan** (36); **estatu osoan** (31); **etxe osoan** (22); **europa osoan** (111); **euskal herri osoan** (281); **frantzia osoan** (24); **gau osoan** (229); **gau osoan zehar** (14); **gela osoan** (17); **gizarte osoan** (11); **goiz osoan** (67); **gorputz osoan** (115); **gorputz osoan zehar** (10); **herri osoan** (303); **herrialde osoan** (59); **hilabete osoan** (34); **hiri osoan** (40); **historia osoan** (27)

ia egun osoan (12); **ia partida osoan** (14); **ibilbide osoan** (37); **inguru osoan** (22); **iparralde osoan** (19); **isiltasun osoan** (12); **israel osoan** (13); **italia osoan** (12); **itzuli osoan** (11)

lehen zati osoan (10); **liburu osoan** (10); **lur osoan** (11); **lurbira osoan** (12); **lurralde osoan** (71); **luzera osoan** (26)

mende osoan (14); **mundu osoan** (515); **mundu osoan barrena** (11); **mundu osoan ez** (11); **mundu osoan zehar** (27)

na­farroa osoan (23); **ne­gu osoan** (10); **nire bizitza osoan** (34)

obra osoan (10); **oso osoan** (31)

partida osoan (145); **partida osoan zehar** (11); **prozesu osoan** (24)

saio osoan (17); **sasoi osoan** (13)

txapelketa osoan (12)

uda osoan (26); **urte osoan** (269); **urte osoan zehar** (14); **uste osoan** (45)

zabal osoan (13); **zabalera osoan** (10); **zati osoan** (17)

familia osoarekin (16); **gudaroste osoarekin** (12); **herri osoarekin** (11)

aurrekontu osoaren (15); **bizitza osoaren** (10); **determinazio osoaren** (14); **elkarte osoaren** (23); **euskal herri osoaren** (26); **familia osoaren** (17); **gehiengo osoaren** (15); **gizarte osoaren** (47); **gizateria osoaren** (11); **gorputz osoaren** (21); **herri osoaren** (70); **herri osoaren aurrean** (13); **israel osoaren** (23); **kopuru osoaren** (10); **lur osoaren** (13); **mundu osoaren** (72); **obra osoaren** (14); **sistema osoaren** (15); **talde osoaren** (15)

gizarte osoarentzat (14); **herri osoarentzat** (10); **mundu osoarentzat** (10)

elkarte osoari (14); **euskal herri osoari** (25); **familia osoari** (26); **gizarte osoari** (47); **herri osoari** (79); **mundu osoari** (29); **talde osoari** (16)

zenbaki osoen (11)

euskal herri osora (39); **gizarte osora** (18); **gorputz osora** (21); **herrialde osora** (14); **lurralde osora** (17); **mundu osora** (47); **mundu osora zabaldu** (15)

bizi osorako (121); **bizi osorako esp­etxe** (10); **bizi osorako kartzela** (49); **bizitza osorako** (65); **egun osorako** (22); **euskal herri osorako** (54); **mundu osorako** (10); **urte osorako** (27)

euskal herri osotik (19); **gorputz osotik** (11); **mundu osotik** (31)

apaltasun osoz (12); **ardura osoz** (11); **arrazoi osoz** (60); **arreta osoz** (30); **askatasun osoz** (48); **begirune osoz** (13); **bihotz osoz** (26); **denbora osoz** (32); **diskrezio osoz** (11)

egun osoz (37); **errespetu osoz** (25); **eskubide osoz** (32); **gardentasun osoz** (14); **gehiengo osoz** (35); **gogo osoz** (34)

indar osoz (16); **inpunitate osoz** (15); **konfiantza osoz** (29); **lasaitasun osoz** (21); **merezimendu osoz** (41); **nagusitasun osoz** (16); **naturaltasun osoz** (49); **normaltasun osoz** (50)

segurtasun osoz (20); **uste osoz** (23); **zehaztasun osoz** (13); **ziurtasun osoz** (52)

osoba ik **osaba**.

osogarri ik **osagarri**.

osoka (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa) *adlag ipar*

Departamenduka egiteko partez, bozak egin litazke lurralde **osoka**. Herria

Sal-erospen horien enkanteak egiten dira parke **osoka**. Herria

Horietan ezartzen ditu sida edo iesa eritasunaz joak direnak, herri **osoka** zenbait lekutan. Herria

-Baina eztxiuu kiloka saltzen, xungo **osoka** baizik! Itxaro Borda

osoki¹ *1 adlag* erabat, guztiz. ik **osorik**; **osoro**; **oso 8**; **osotara**

-Osoki asmatu duzu. Txillardegi

Suak **osoki** erre du Apeztegia. Herria

Biok genekien ez zela berriro **osoki** sendatuko, aurrerantzean bizitzan ongi moldatu arren, iragan hura beti egongo zela berarekin. Oskar Arana

Urte bat ez du menturaz aski izan­en euskarazko egunkari berriak bost milioi euroko kapitalaren **osoki** eskuratzeko. Herria

Urte bat ez du menturaz aski izan­en euskarazko egunkari berriak bost milioi euroko kapitalaren **osoki** eskuratzeko. Herria

Hautsi-mautsi iduriko erabaki horrek harritu zuen Azpilkueta, zinez uste baitzuen berak hobengabea zeukan gizona, **osoki** zuriturik aterako zela. Piarres Xarriton

Munduko bekatuak ezin nehork **osoki** ikuzi. Xabier Montoia

Bere soak **osoki** kosk egin zion estreinakoz nire begiradaren amuari. Harkaitz Cano

Mutlekin **osoki** bat eginda jokatu nahi omen dik Erregek. Txillardegi

Garaitua izan nintzen, **osoki** garaitua, Prévan geldiarazteko edo neure burua defendatzeko hitzik erran ahal izan baino lehen. Jon Muñoz

Zeren hau sarrera eta eredu bat ematea baita, gero hobeto eta **osokiago** kontenplatzeko. Patxi Altuna

Nola, zein bidetatik eta zer jarreraz lortuko zuen Jainko Jaunari **osokiago** itsastea, beraren asmo eta nahiaren arabera. Askoren artean

Tirriatzean eta erresumintzean banatzen den sentsualitate berak obeditzen diola arrazoimenari, batzutan **osoki** eta bestetan hein batean. Piarres Xarriton

Konturatzan ote gara nola eta zergatik aldatu den **osoki**, urte guti barne, euskaldun gaztearen estereotipoa? Piarres Xarriton

Nork ere bere Herria **osoki** maite baitu, hunek bakarrik maite lezake mundu osoa! Herria

Hari nagokio **osoki**. Jon Muñoz

Israelgo juduen alderdia hartua du amerikano Bushek kasik **osoki**. Herria

2 (adizlagunekin)

Gaia **osoki** ederki erabilia izan da baina ororen buru nehor ez zagon prest abentura horren segitzera. Herria

Katolikoak dira menturaz beren katolikotasunaren barnean hertsiegiak, beren Elizaren unibertsaltasunean **osoki** arrotz egonak. Piarres Xarriton

Nagusi agertu dira **osoki** nagusi. Herria

Adiskideaik Mai aipatua zidan, baina nitaz **osoki** segur agertzeko elementu anitz eskas zitzaizkidan. Itxaro Borda

Nondik nola jakin hori, **osoki** segur izateko gisan? Janbattiit Dirassar

Bide hori harturik jeneralarari beti **osoki** leial egon zirenetan azkenetarik ginuen Olivier Guichard. Herria

Gela erdian emakume bat agertu zitzaien, zutik eta **osoki** larru gorrian. Patxi Zubizarreta

Erran dautzut segurki konfidantzaz sendi dutala hemen zuekin ene burua, **osoki** konfidantzaz... Menane Oxandabaratz

Osoki batuaz idazten dut, baina ez batuera zentralean. Ana Urkiza

3 (izenondoekin)

Baina unibertsaltasunak aurpegi **osoki** positiboa duen bitartean [...] progresoak jada garai honetan Unamuno-rentzat zentzu anbigua dizu, negatiboa ez denean. Xalbador **osoki** fededuna zen. Joxe Azurmendi

Prefetaren erabakia **osoki** politikoa da. Berria - Harian

Bai, adiskidea, nirea da, **osoki** nirea. Jon Muñoz

-Hau ez duk **osoki** hire gustukoa. Txillardegi

Emazte ohiak -zuzendu nion, nahiz eta datua, zorrozki begiratuta, **osoki** egiazkoa ez izan. Aingeru Epaltza

Zure erabakia, bene-benetan, txalogarria da **osoki**. Txillardegi

Ezen ekintza hauek deitzen ahal badira ere partez borondatezkoak, basaberena bezala, ez dira **osoki** horrelakoak. Piarres Xarriton

4 oso-osoki adlag

Oso-osoki fabrikatu egin duten dosier batean oinarrituta akusatu dute. Berria - Harian

Esan dezakegu, beraz, orden honetako erregelak ezegonkorra direla, eta lege sinkronikoaren definizioaren barnean **oso-osoki** sartzen direla. Isabel Arrigain

Ni barruan nengoenean estreinatutako Ertzaintzaz Lorenzok idatzi dituenak neure egiten ditut **oso-osoki**. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eliza osoki betea (3); **meza osoki euskaraz** (3)

osoki agertzeko (3); **osoki ahanziak** (3); **osoki aldatu** (10); **osoki aldatu dela** (3); **osoki aldatzen** (4); **osoki argitu** (4); **osoki atxikia** (4); **osoki atxikiak** (3); **osoki bere gain** (6); **osoki beregain** (3); **osoki beren gain** (4); **osoki berritu** (5); **osoki berritua** (6); **osoki berritua izan** (4); **osoki bete** (17); **osoki betea** (6); **osoki betetzen** (6); **osoki determinatua** (3); **osoki determinatzen** (3)

osoki egin (3); **osoki egiten** (4); **osoki emana** (10); **osoki erre** (5); **osoki euskaraz** (35); **osoki fededuna** (3); **osoki fida** (3); **osoki hartua** (7); **osoki herritar** (4); **osoki jakin** (3); **osoki suntsitu** (5); **osoki suntsituak** (6)

osoki² iz zer osoa.

Eta objektuak aldi berean existituz elkarlotuta errepresentatu behar diren heinean, hauek beren kokapena denboran elkar determinatu, eta horrela, **osoki** bat eratu behar dute. Ibon Uribarri

Orduan, agerpen ororen **osoki** absolutua ideia soila dela esan ahal izango litzateke, izan ere, halako **osokia** inoiz marraztu ezin dugunez gero, bada, honek konponketarik gabeko arazoa dirau. Ibon Uribarri

Objektu hauen **osoki** absolutua inferitzen dugu arrazoimenaren bidez determinatutako batasun absolutu gisa. Ibon Uribarri

Izan ere, **osoki** hau emana baita arrazoimenak bere alde praktikoa duen azken asmoaren bitartez. Ibon Uribarri

Osoki artikulatu (organizatu) orotan zati bakoitza berriro artikulatua dela eta honela zatien analisi amaigabearen bitartez beti zati artifizial berriak aurkitzen direla onartzea, hitz batean, **osokia** amaigaberaino artikulatua dela onartzea, ezin da pentsatu. Ibon Uribarri

Oinarri honekin, arimaren pertsonatasuna inoiz ere ez litzateke inferituztat hartu beharko, baizik denboran **osoki** identikoa den autokontzientziaren esakunetzat, eta arrazoi honegatik balio du a priori. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

osoki absolutu (4); **osoki absolutua** (4); **osoki bat egiten** (3); **osoki batean** (4); **osoki baten** (5); osoki gisa (3)

osoko 1 izlag osoa, erabatekoa; guztiari dagokiona; kide guztiak biltzen dituen.

Osoko profesionala da eta berdin abestuko dizu opera, isil-isilik dago kaia barrenean, edo zarzuela pieza bat. Harkaitz Cano

Silabak Gaileten Munstroaren eran ebakitzen hasten direnak, **osoko** inutilla bazina bezala. Harkaitz Cano

Garbitzaileak alde bietara begiratu du, mesfidati, egitera doana egiteko **osoko** intimitatea beharko bailuen. Harkaitz Cano

Zutitu eta **osoko** ispiluan aztertu zuen bere burua. Irene Aldasoro

Fofanak kontratatutako hiru erasotzaileak ikusi ditu Yaldak, txara artean gordeak, **osoko** txanoak aurpegia estaltzen. Iñigo Aranbarri

Europar **osoko** supermerkatuen sailkapenean hirugarren heinean agertzen zaigu Eroski/Intermarché sozietate berria. Herria

Andoaingo **Osoko** Udaltzatzen herriko seme kuttunaren oroitzapena «bizirik eta dagokion duintasunez» irauarazteko ahalegina egingo du. Berria - Kultura

• 2 adlag osorako.

Eta gaur goizean hara itzuliko naiz egun **osoko**. Jon Muñoz

Adio, Bertrand maitea; goresmenak zuri eta eskerrak zure onberatasunagatik, zuri nago bizitza **osoko**. Jon Muñoz

3 ez-osoko izlag

Ez **osoko** denbora batentzat: Bete-behar-diren-baldintzak: [...]. Herria

Bi denbora osoko lanpostu ("gazte-enplegu " kontratu pean) sortuak izan dira baita denbora **ez-osoko** hiru lanpostu ere. Herria

EAK duen zinegotzi bakarrik, Antxon Belakortuk, ez du parte-harterik izan ez batzordean **ez osoko** bilkuran. Berria - Ekonomia

4 oso-osoko izlag

Bada, itzuli egin zen aita sorterrira, izatez ene lagunaren sorterrira izan ez baina mila urtez geroztik bere leinukoek euren **oso-osoko** herri izan zuten hartara. **Edorta Jimenez**

Hizkera berez-berezkoa eta **oso-osokoa** du Arresek, herri tradizioan sakon sustraitua eta berberak, tradizioko iturrietatik edanez sendoro landua. esaldi txiki honetan bildu du, oso modu politean, Euskal Herri ez beti ulertterazegi honentzat oraintxe ere, neuretzat bederen, balio **oso-osokoa** dirauen gure definizioa: "Peuple charmant, un peu sauvage". **Berria - Kultura**

Mesedez, ez izan nire diskrezioren beldurrik, Eugeni ederra, **oso-osokoa** izango baita. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

5 osoko bilkura

Nafarroako Legebiltzarreko **osoko** bilkuran zortzi gai aztertu zituzten atzo. **Berria - Euskal Herria**

Gizarte Foroko **osoko** bilkura batean hitz egiteko Euskal Herriak ordezkari bat aukeratu ahal izan zuela nabarmendu zuen. **Berria - Mundua**

Demokratek, ordea, bozketa atzeratzeko eskatu zuten, gaia Senatuaren **osoko** bilkuran eztabaidatu ahal izateko. **Berria - Harian**

Euskaltzaindiaren **osoko** bilkurak 2005eko barne jardunaldietan hartu zuen proiektu hori martxan jartzeko erabakia. **Berria - Kultura**

Asteleheneko **osoko** bilkuran onartuko da testua. **Berria - Ekonomia**

Hurrengo urratsa Estraburgoko Legebiltzarrean, **osoko** bilkuran, bozkatzea izango da. **Berria - Ekonomia**

Nazio Biltzarreko kideak aurkeztuko dituzte biharko **Osoko** Bilkuran **Berria - Euskal Herria**

6 osoko zuzenketa

Orora 135 zatikako zuzenketa aurkeztu dira (EB-IUK 69, EAK 42, SAK 7 eta EAJk 17), eta lau **osoko** zuzenketa (IUK, PPK, PSEK eta SAK aurkeztutakoak), PPK plana atzera botatzeko eskatu zuen, **osoko** zuzenketa baten bidez. **Berria - Euskal Herria**

Estatutu Proposamenari egindako **osoko** zuzenketa eta zuzenketa partzial guztiak. **Berria - Euskal Herria**

PPK, berriz, **osoko** zuzenketa aurkeztu zion txostenari, eta zenbait zuzenketa partzial. **Berria - Ekonomia**

Bertan, aurkeztutako **osoko** zuzenketen inguruko eztabaida egingo da. **Berria - Euskal Herria**

PSE-EEK, herenegun akordioa lortu zuela iragarri otean, **osoko** zuzenketa erretiratu baitzuen. **Berria - Harian**

Atzoko batzordean eztabaidatu beharreko bigarren **osoko** zuzenketa PPrena zen. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asteko osoko bilkuran (4); atzoko osoko bilkuran (11); aurkeztutako osoko zuzenketa (5); aurkeztutako osoko zuzenketak (8); aurkeztutako osoko zuzenketen (4)

biharko osoko bilkuran (3)

egindako osoko bilkuran (8); eginiko osoko bilkuran (5); ezohiko osoko bilera (3)

gaurko osoko bilkuran (3)

jarritako osoko zuzenketa (7)

legebiltzarren osoko (6); legebiltzarren osoko bilkuran (4); legebiltzarreko osoko (27); legebiltzarreko osoko bilkurak (8); legebiltzarreko osoko bilkuran (13); lehenengo osoko bilkura (3)

nazio eztabaidagunearen osoko (3)

osoko bilera (7); osoko bileran (19)

osoko bilkura (82); osoko bilkura batean (8); osoko bilkura berezia (4); osoko bilkura egin (10); osoko bilkura egingo (6); osoko bilkurak (67); osoko bilkurak onartu (3); osoko bilkurako (8); osoko bilkuran (183); osoko bilkuran aurkeztuko (3); osoko bilkuran aztertuko (3); osoko bilkuran bozkatuko (4); osoko bilkuran egingo (5); osoko bilkuran eztabaidatuko (4); osoko bilkuran eztabaidatzea (3); osoko bilkuran izandako (3); osoko bilkurara (15); osoko bilkurarekin (3); osoko bilkuraren (17); osoko bilkurari (7); osoko bilkuretan (5)

osoko udalbatzak (3)

osoko zuzenketa (142); osoko zuzenketa atzera (3); osoko zuzenketa aurkeztu (37); osoko zuzenketa aurkeztuko (9); osoko zuzenketak (50); osoko zuzenketak aurkeztu (9); osoko zuzenketan (5); osoko zuzenketaren (6); osoko zuzenketen (19); osoko zuzenketen eztabaida (10); osoko zuzenketen eztabaidan (3)

ostiraleko osoko bilkuran (3)

parlamentuaren osoko (3); parlamentuko osoko (12); parlamentuko osoko bilkurak (4); parlamentuko osoko bilkuran (3)

udaleko osoko bilkura (3); udaleko osoko bilkurak (6)

osorik 1 adlag ezer falta ez zaiola, erabat.

Erabat debekaturik dago [...] zatika edo **osorik** obra hau birsortzea edozein bitarteko edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla. **Patxi Altuna**

Beste espezieentzat, itxirik dago, partez edo **osorik**, mundu hori. **Juan Garzia**

Gortinak ez zuen gelako leihoa **osorik** hartzen, eta agerian geratzen zen tartean bi txori pausatu ziren. **Bernardo Atxaga**

Ez zen egia aurreko milioi erdia **osorik** gastatua nuela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egoitzan doako apopilo izaten jarraitzen badut, irabazten dudana dirua **osorik** bidali ahal izango zioat andreaki. **Eskarne Mujika**

Kargadorea **osorik** dauka. **Iban Zaldúa**

Ez du nirekin plazer **osorik** ezagutu. **Daniel Landart**

Ezin dugu perpaus bat **osorik** ulertu maila guztietan jasotzen duen analisia ezagutu gabe. **Itziar Laka**

Madame Lil ez zen **osorik** erantzi. **Lutxo Egia**

"Zineko izarrak garaile greban", zioen izenburuak; artikulua **osorik** irakurri nuen. **Fernando Rey**

Nire ustea **osorik** egiaztatu zen hurrengo egunean, aitak, labea husterakoan, estilografikoa finkatzeko kiipa errautsetan aurkitu zuenean. **Josu Zabaleta**

2 hautsi edo puskatu gabe.

Pitzatua egotea ez da hautsia egotea; pitzatua egotea ez da **osorik** egotea ere. **Iñaki Segurola**

Nire bihotza ere pusketaz osatua dagoelako, eta **osorik** mantentzeko hutsune guztiak beteta izan nahi ditudalako. **Jasone Osoro**

Hezurrik **osorik** ez geratzeko moduko ordaina, horixe emango diot! **Juan Kruz Igerabide**

Bi besoak **osorik** atxiki dituk hik. **Txillardegí**

Gorputz adarrak **osorik** zituela ziurtatu zuen atzamarrak eta behatzak banaka zenbatuz. **Unai Iturriaga**

3 eritasunik, gaitzik edo zauririk gabe.

Gerla bururaturik, etxera, bizirik eta **osorik**, itzultzen ari zen. **Eneko Bidegain**

Eta dena nahasian dagoenean, batek ez daki zer egin sasitik larrutu gabe **osorik** ateratzeko. **Pello Salaburu**

4 onik eta osorik

Poz handia hartu zuten Nadia eta Mikel Strogoff **onik eta osorik** aurkitzean. **Karlos Zabala**

Itzul zaitez etxera, **onik eta osorik**, eta aurki. **Mirentxu Larrañaga**

Ontziratuta dagoen guztia **onik eta osorik** helduko da. **Jon Muñoz**

Ozen mintzo zitzaion zerbaít on eta ezustekoaz, hiltzat emandako adiskide min bat **onik eta osorik**, bizirik eta irribarretsu agertu balitz bezala. **Jose Morales**

Jakob, berriz, **onik eta osorik** iritsi zen Kanaan lurraldera, Siken izeneko hirira. **Jose Antonio Mujika**

5 oso-osorik

Oso-osorik jaten omen zituen. **Martin Anso**

Hanley sarjentuaren ahotik aditu zitean kontakizuna, eta **oso-osorik** irentsi hark kontaturikoa. **Mirentxu Larrañaga**

Erakarmen hilgarri horren eraginpean gertatuz gero, gaurko itsasontzi handiena ere luma bat urakanaren kontra bezain babesgabe legokeela, eta berehala desagertuko

litzakeela **oso-osorik** . Koro Navarro

"**Oso-osorik** atera dugu kartzinoma alea", esan dit. Hasier Etxeberria

Errusiak beretzat nahi zuen, **oso-osorik** , gure Polonia ederra, baina Prusia, Austria eta batez ere Ingalaterra ez zeuden horretarako prest. J.M. Olaizola "Txiliku"

Basamortuak egiten zituen, ontziak hondoratzan, basoak **oso-osorik** suntsitzen zituen. Xabier Aranburu

Hil zenez geroztik ez zuen Lauaxetak Jaungoikoaren existentziaren frogarik izan, ezerez huts eta ilun batean emana baitzuen **oso-osorik** denbora tarte zehazgabe hura. Juan Luis Zabala

Frantses liberak Bundesbanke Frantziako Bankuari eskainitako laguntzari zor zion **oso-osorik** bere erresistentzia. Koro Navarro

Erakarmen hilgarri horren eraginpean gertatuz gero, gaurko itsasontzi handiena ere luma bat urakanaren kontra bezain babesgabe legokeela, eta berehala desagertuko litzakeela **oso-osorik** . Koro Navarro

Oso-osorik daukat nik neure jendea. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ia ia osorik (7); ia oso osorik (4); ia osorik (64); kasik osorik (4); onik eta osorik (15)

oso osorik (407); oso osorik bete (9); oso osorik betetzen (5); oso osorik hartzen (4); oso osorik hondatzeaz (4)

osorik atera (6); osorik azaldu (4); osorik bete (38); osorik bete ondoren (4); osorik betearazteko (4); osorik beteko (4); osorik beteta (8); osorik betetzea (6); osorik betetzeko (4); osorik betetzen (9); osorik dago (5)

osorik edo zatika (4); osorik egin (11); osorik egiteko (4); osorik egiten (4); osorik egon (4); osorik eman (12); osorik ematen (9); osorik entzun (4); osorik esaten (5); osorik estaltzen (8); osorik garatzeko (4); osorik hartu (6); osorik hartuta (9); osorik hartuz (4); osorik hartzen (11); osorik heldu (4); osorik hondatzeaz (4); osorik hondatzeaz baitago (4)

osorik ikusi (14); osorik ikusteko (7); osorik ikusten (6); osorik irakurri (19); osorik irakurtzeko (6); osorik iraua (4); osorik irentsi (6); osorik izan (5); osorik izango (4); osorik jan (6); osorik jasotzen (4); osorik jokatu (6)

osorik onartu (4); osorik sartu (6)

osorik ulertu (4); osorik utzi (5); osorik zegoen (10)

zigorra osorik bete (19); zigorra osorik beteta (7)

OSORO *adlag* osoki. ik osotoro.

Horrek ez nau **osoro** asetzen. Anjel Lertxundi

Ez nintzen arriskuaz **osoro** jabetu harik eta, minutu batzuk geroago, Lizarragaren etxe atariko zubiaren azpitik pasatu nintzen arte. Bernardo Atxaga

Adimenaren legeekin **osoro** ados dagoen ezagutzan ez dago errakuntzarik. Ibon Urbarri

Koskabiloak, guztiz laxo, **osoro** zintzilik geratu zitzaizkidan eta taketa inoiz baino gogorragoa neukan. Aitor Arana

Izotz urtuak **osoro** makaldua zion lasto-zaporearen trinkotasuna. Anjel Lertxundi

Bazookarena guztiz itxuragabea da, **osoro** neurritz kanpoko. Karlos Linazasoro

Fonologialariarentzat gauzak ez dira **osoro** berdinak. Lourdes Oñederra

osotara 1 *adlag* guztiz, erabat, zeharo. ik osoki¹.

Axola gutxi du jakitea nor izan ote zen, **osotara** edo zatika, eleberriko Lulu hori, Andres Hurtadorekin ezkontzen den neska. Josu Zabaleta

Ez nuen **osotara** erdietsi. Aingeru Epaltza

Gorputza **osotara** uzkurtu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Bizimodu **osotara** berri bati ekitean oterdu erregularrak eta osasungarriak egin behar direla ez gogoratzea ere! Antton Olano

Baritono-ahots gozo durunditsuak bakarrik gutxitzen zuen haren itxura **osotara** biguna. Oskar Arana

Militar jende hura nazka eginda zegoen **osotara** , leporaino benetan. Txillardegí

Gauzak diruditena dira, **osotara** , eta haien atzean... ez dago deus ere. Monika Etxebarria

2 guztira, orotara.

4.000 gizon, **osotara** , Lüküzeren nafar eta zuberotarrek inoiz baino biarnes errebelekin bat egin ondoan. Aingeru Epaltza

Zazpi ipuin ziren **osotara** , kontakizunaren ikuspegitik begiratuta kronologikoki antolatutak. Aingeru Epaltza

Ohea alde batetik bestera betetzen zuen, hankak eta besoak zabalik, ohea berez den esparru autonomoa **osotara** harturik. Unai Iturriaga

3 osotarako izlag

Zeharoko eta **osotarako** jakite hartan, izan ere, ez dago bizirik. Iñaki Segurola

Hamar peniketako te joko batek egun **osotarako** egiten zuen Cam zoriontsu. Anton Garikano

Taula hau Filosofiaren zati teoretikoan erabat baliagarria dela, areago, ezinbestekoa ere badela adigaietan funtsatzen den zientzia baten **osotarako** plana konplutiki marrazteko. Ibon Urbarri

osotasun 1 *iz* osoa denaren nolakotasuna.

Halako **osotasun** batek betetzen zuen Florent; bazirudien sukaldeko usain hura barrura sartu eta hango eguratsa kargatzen zuten janari guztiak jaten ematen ziotela.

Karlos Zabala

Bere zatiak modu arrazional batean egituratzen dituen **osotasun** bat badela. Josu Zabaleta

Balio hutsez osaturiko egitura bat dugu aurrean, alegia **osotasun** bat, denak elkarri buruz buru dauden ikurren arteko erlazioek [...] eraturikoa. Isabel Arrigain

Hor daude osagaiak, baina **osotasunik** ez da, zatiak ez dira lotzen, eta ezin dezaket besterik osoki existitzen ez den egun baten hondakinak bilatu baizik. Oskar Arana

Zatika bezala **osotasunean** , *Playa de las Américas* casek poz gutxi ematen zuen. Bernardo Atxaga

Osootasunak zatiei esker balio du; orobat, **osotasunean** duten lekuari esker balio dute zatiek, eta horra zergatik zatiaren eta **osotasunaren** arteko erlazio sintagmatikoa, zatiek haien artean dutena bezain garrantzitsua den. Isabel Arrigain

Agian, arima ote da osoa eta beronen nolabaiteko atalak bere burua maitatzeko maitasuna eta ezagutzeko jakintza, eta bi atal hauek osatzen ote dute **osotasun** hura? Imanol Unzurrunzaga

Jakin behar da, unibertsoaren **osotasunaren** eta gizabanakoaren arteko antzaz esan duguna gorabehera, ez dela hori gizakia mikrokosmos bat dela esateko arrazoia. Xabier Kintana

Hizkuntza, pentsamendua, arraza, lurra, dena bat, dena **osotasun** bat. Joxe Azurmendi

Arazoa bere **osotasunean** aztertu behar da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jakiteko duzu unibertso hau, bere **osotasunean** harturik, ez duela banako bat besterik osatzen. Xabier Kintana

Unibertsitatea bere **osotasunean** . Herría

Poetak, filosofoak ez bezala, ez du **osotasunik** nahi, **osotasun** horretan gauzak -gauza oro eta gauza bakoitza bere beretasunean- galduko ote dituen beldur baita beti poeta. Joxerra Garzia

Baina zer da nitasunaren **osotasun** hori? Joan Mari Irigoien

Defini al daiteke **osotasun** bat ala kateaketa soilak besterik ezingo ditugu bururatu? Xabier Arregi

Erregeagandik onra bat jaten zuten onra horren parte bat ematen zieten zieten baita basailuri; baina parte horiek ez ziren **osotasunetik** bereizten. **Iñaki Iñurrieta**
Gehiegi begiratu zion Hego Euskal Herriari, eta gutxiegi Euskal Herriaren **osotasunari**. **Koldo Zuazo**
Larruazalaren **osotasuna** mantentzeko, badira hainbat diseinu-ezaugarri burutsu. **Irene Aldasoro**

2 (izenondoekin)

Nire **osotasun** fisikoa arriskuan jarriz behin baino gehiagotan igaro nuen errepidea igaro ezin zitekeen lekutik. **Harkaitz Cano**
Enuntziatua esaldiarekin edo proposizioarekin aurrez aurre ipintzean, ez naiz saiatu **osotasun** galdu bat bilatzen, ezta berpizten ere hitzaren betetasun bizia, berbarean aberastasuna, logosaren batasunaren sakona. **Xabier Arregi**
Osoteriko bakar baten osagaiak bereiz ikertu eta aztertzeko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Gauza bera gertatzen da irudi-horman ere, irudi mugikorrez osatutako segida ordenatu bat baita, **osotasun** zatikatuzko irudi bakar bat bezala irakur daitekeena. **Josu Zabaleta**
Ezaugarri horiek, denbora jakin baten ondoren, berezkoak ziren ezaugarriekin bat eginik, karakterra deitu ohi dugun **osotasun** koherente eta aldi berean kontraesankorra eratu zutela berarengan. **Jon Alonso**
Eboluzioaren teoriak **osotasun** integratu bezala aztertu beharko lituzke organismoak. **Askoren artean**
Enuntziatua eraketa diskurtsiboari dagokio, esaldia testuari dagokion bezalaxe, eta proposizioa **osotasun** deduktiboari dagokion bezalaxe. **Xabier Arregi**
Osotaturantz aurreratzea erabat ezinezkoa da bide enpirikotik. **Ibon Uribaldi**
Izadiaren **osotasun** erabatekoan desagertzeraino. **Hasier Etxeberria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dago, beraz, denbora absoluturik, denbora "orokor" bat baizik, gure denborazko esperientzia guztiak denak batera hartzen dituen **osotasun** -sistema batera egokitzen dituen. **Josu Zabaleta**
Urte askoan usteldu den zur-lan zaharrak izaten duen **osotasun** itxura gogorarazi zidan. **Koro Navarro**
Historia horretako aldi bakoitzean, argiaren estiloak **osotasun** -inpresio bat ematen du. **Josu Zabaleta**
Batzuetan Norari begiratu eta pertsona arrotz bat iruditzen zitzaidan, lehen ez bezala, lehen **osotasun** sentsazioa neukan Norarekiko erlazioan, bateratasun sentipena. **Mikel Hernandez Abaitua**
Subjektu modernoa, Mari mitikoaren antzo, ezaren bila dabil; badaki akatsa eta hutsunea baliagarriago zaizkiola edozein **osotasun** nahia baino. **Joseba Zulaika**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Set-ez den bezainbatean, soilik Adamek berari irakatsi eta adimena eman ondoren, horrela giza **osotasuna** lortuz, esan zen hartaz: [...]. **Xabier Kintana**
Ondoren bera kultur **osotasunak** deskribatzeko eginkizuntzat jotzea. **Xabier Arregi**

5 ez-osotasun iz

Mintza-doinuan erreparatuta, gisa bertsukoren bat erantsiko zuela iduri zuen, eta horrexegatik, erran ez zuelako, ez-**osotasun** kutsua txertatu zion esaldiari. **Aingeru Epaltza**

6 osotasun-ez iz mug

Hara euskaldunok gaur gaurkoz ezaren mitologiatik ikas dezakeguna: **osotasun** -eza hobe da osotasun faltsu baten atzetik aritzea baino **Joseba Zulaika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ilararen osotasun (5); **ilararen osotasun absolutua** (3); **ilaren osotasun** (3); **osotasun absolutua** (17); **osotasun absolutuan** (3); **osotasun absolutuaren** (3); **osotasun erretorikoaren** (5); **osotasun fisiko** (3); **osotasun fisikoa** (5); **osotasun fisikoa arriskuan** (4); **osotasun fisikorako** (3); **osotasun gisa** (4); **osotasun guztia** (3); **sintesiaren osotasun** (3)

euskal herriaren osotasuna (7); **euskararen osotasuna** (4); **hizkuntzaren osotasuna** (3); **lurralde osotasuna** (10); **lurralde osotasuna mantentzeko** (3); **osotasuna ematen** (3); **osotasuna gobernatzen** (3); **osotasuna izan** (4); **osotasuna izendatzen** (3); **osotasuna lortu** (3); **osotasuna lortzeko** (3); **osotasuna mantentzeko** (4)

bere osotasunean aztertu (4); **bere osotasunean bete** (3); **bere osotasunean eta** (7); **bere osotasunean ez** (6); **bere osotasunean ezagutzeko** (3); **bere osotasunean hartu** (8); **bere osotasunean hartua** (3); **bere osotasunean hartuko** (3); **bere osotasunean harturik** (5); **bere osotasunean hartuta** (9); **bere osotasunean hartuz** (4); **bere osotasunean hartzen** (8); **bere osotasunean ikusi** (3); **bere osotasunean ikusten** (4); **bere osotasunean kontuan** (3); **bere osotasunean onartu** (4); **bere osotasunean ulertzen** (3); **beren osotasunean** (15); **eta bere osotasunean** (5); **eta osotasunean** (6); **euren osotasunean** (3); **euskal herria osotasunean** (4); **euskal herriaren osotasunari** (3); **euskararen osotasunari** (4) **bere osotasunean** (250); **gauzak osotasunean** (3); **hau bere osotasunean** (5); **herria bere osotasunean** (27); **herria osotasunean** (4); **hizkuntza bere osotasunean** (3); **hori bere osotasunean** (6); **horiek beren osotasunean** (3); **ia bere osotasunean** (7); **osotasunean aztertu** (6); **osotasunean aztertu behar** (3); **osotasunean aztertzen** (3); **osotasunean bete** (5); **osotasunean duten** (3); **osotasunean ere** (6); **osotasunean eta** (9); **osotasunean ez** (8); **osotasunean ez bada** (3); **osotasunean ezagutzeko** (4); **osotasunean hartu** (13); **osotasunean hartu behar** (8); **osotasunean hartua** (3); **osotasunean hartuko** (3); **osotasunean harturik** (6); **osotasunean hartuta** (18); **osotasunean hartuz** (5); **osotasunean hartzen** (11); **osotasunean hartzen du** (4); **osotasunean ikusi** (4); **osotasunean ikusita** (3); **osotasunean ikusten** (4); **osotasunean kontuan** (5); **osotasunean onartu** (5); **osotasunean ulertu** (3); **osotasunean ulertzen** (5); **unibertsoaren osotasunean** (7)

bere osotasunera (4)

osotasunezko ekimena (4)

osotoro adlag oroso, osoki.

Maitasuna berriz indartsuagoa da gorrotoa baino, eta maitasunak **osotoro** garaitu duen gorrotoa, maitasun bilakatzen da. **Markos Zapiain**
Euskotarra, alegia, intolerantzia eta gogorrean jarrita, zeharo eta **osotoro** dela kastillanotzen. **Iñaki Seguro**
Highsmithek, izan ere, gezurti, iruzurgile eta hiltzaile batekin **osotoro** identifika gaitzen erdiesten du. **Markos Zapiain**
Ez bakarrik elkarturik, baizik eta **osotoro** bat eginik, horrela izan daitezela bat gurekin. **Joan Mari Lekuona**
Bizitza **osotoro** besarkatuaren gainean ermetzen da *Zazie metroan*-ek eragiten duen gozamen. **Markos Zapiain**
Adimenek ezin diezaioketela Sortzailerri (gorets bedi!) hauteman, Hura zer den Berberak besterik ezin dezakeela hauteman, eta Hari hautematea Hari **osotoro** ezin hautematea aitortzea dela. **Xabier Kintana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zeharo eta osotoro (4)

osotu ik osatu.

ospa 1 interj norbaiti, alde egin dezala adierazteko, esaten zaion hitza. ikutikan; hanka.

Nolanahi den, **ospa**! **Fernando Rey**

-**Ospa**, Malfoy -esan zion Ronek, masaila estututa. **Iñaki Mendiguren**

Ba orain **ospa**, lanera, neska-mutikoak! **Harkaitz Cano**

-**Ospa** hemendik -esan zuen enplegatua. **Fernando Rey**

-Hik **ospa** hemendik bizkarra itzuli gabe -esan zion Pepponeri. **Koldo Biguri**

-**Ospa** hemendik, sagu zikina! **Juan Kruz Igerabide**

Ospa nire begien bistatik, nola esan behar zaizue! **Anjel Lertxundi**

Ospa, duintasun izpirik gelditzen baldin bazaizue! **Xabier Paya**

Legearrekin eta kontzientziarekin bakean gaudenean, trena hartu eta **ospa**. Koldo Biguri

Gure prozedurak gustuko ez badituk, **ospa**. Alberto Ladron Arana

Ibaietako urak gora eta gora / egin kasu, semeok, **ospa** edonora! Fernando Rey

2 (adizlagun gisa)

-Banoa **ospa** hemendik -esan zuen gizonak-. Mirentxu Larrañaga

3 *ospa* egin alde egin.

Alde egin besterik ez zuen nahi, **ospa egin** New Yorketik albait bizkorren. Oskar Arana

Handik pixka batera Sheilak **ospa egiteko** keinua egin zidan. Xabier Olarra

Keinu bidez **ospa egitera** gonbidatu zuten: Giovanni hemen bizi da, ziur egon zaitezke, zoaz lasai, zoaz! Fernando Rey

-Zuk ere hobe zenuke salto bat egin eta hemendik hegan **ospa egitea**, kokoteko on bat hartu nahi ez baduzu. Unai Iturriaga

Zarraolandiaren semeak **ospa egin** dik kartzelatik! Pedro Alberdi

Dobbyk "Harry Potter seguru dago hor, jauna!" erantzun eta **ospa egin** zuen. Iñaki Mendiguren

Baina berehala egin du **ospa**, zeharo izututa. Itziar Otegi

Neskak aterantz egin zuen arinetetan, hura ireki eta **ospa egin** zuen. Mirentxu Larrañaga

Ziztu bizian egin genuen **ospa**, etxerainoko bide osoan zehar. Mirentxu Larrañaga

Arratoiak ihes egin zuen Ronen atzaparretatik, lurra ukitu orduko lasterka **ospa egin** zuen. Iñaki Mendiguren

Ni, halakoetan, isil-isila hurbiltzen natzaiek eta haiek deabruak harturik **ospa egiten** ditek. Patxi Zubizarreta

Ospa egin dit erabat burutik. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gero **ospa** (4); **handik ospa egiteko** (3); **hartu eta ospa** (4); **hemendik ospa egin** (4); **ospa egin** (102); **ospa egin ondoren** (3); **ospa egin zuen** (18); **ospa egingo** (7); **ospa egitea** (11); **ospa egiteko** (20); **ospa egiten** (16); **ospa egiten ditek** (3); **ospa hemendik** (17)

ospagai iz ospatzeko gaia.

Txekoslovakiako Errepublikako Demokratikoko Zientzien Akademiak antolatua da zeremonia, ezohiko **ospagai** berezi bat dela eta: ilarretan ondoretasuna nola gauzaten den azalduz Gregor Mendel-ek idatziriko lehenbiziko txostenaren mendeurrena. Juan Garzia

Ospagai har ditzaket amodioak, abere-ohointzak, nabigazioneak, gerlak. Juan Garzia

ospagarri izond ospatua izatea merezi duena.

Geu ginen abuztuaren zortzia **ospagarri** deklaratu genuenak. Koldo Izagirre

ospaketa (19 agerraldi, 5 liburutan) 1 iz ospatzea. ik ospakizun.

Ituna: **Ospaketa** eta ondorioak. Elizen arteko biblia

Ospaketa hura berrikeriatzat hartua izan ez zedin, lehenik Aita santuaren baimena eskatu eta lortu zuen. Askoren artean

Natibitate jaiaren **ospaketa** Greccion. Askoren artean

Larunbat arratsalde batez, jai-giroan sumatzen nuen han urruti neure Donostia kandeletan, **ospaketa** hits eta eroan. Txillardegí

2 (hitz elkartuetan)

Ospaketa zeremonia, hurrengo larunbaterako utzi zen, abuztuaren 2rako. Txillardegí

Legenda Luzea-rekin alderatzen bada, testuaren **ospaketa**-giroa nabarmendu daiteke bereziki. Askoren artean

ospakizun (892 agerraldi, 115 liburu eta 414 artikulutan) 1 iz ospatzea; zerbait ospatzeko antolatzen den ekitaldia edo jaia. ik ospaketa; ospakuntza.

Elizkizunak, **ospakizunak**, mendeurrenak, jokoak, jaiak, [...]. Askoren artean

Danborrada, jai eta **ospakizun** bezala, XIX. mendearen erditik aurrera sendotu bazen ere, [...]. Askoren artean

Uzkudunen **ospakizun** horretara etorriko diren kaballeru batzuk kriminalak izango dituk. Bernardo Atxaga

Jokoan **ospakizun** horietan hiritarrak beren emazte eta umeekin denbora luzean egoten dira leku berean eserita. Santiago Iruretagoiena

Ministroak, bertalde, baimena zuen, igandean, gazteluko kaperan egiteko afariaren **ospakizuna**. Aingeru Epaltza

Aste sainduko **ospakizunak**: erritoak eta sinboloak. Herria

Hamar eguneko **ospakizunak** prestatu zituzten haren omenez. Patxi Zubizarreta

Zoazte atseden hartzera; arratsean **ospakizuna** dugu. Juan Garzia

Amaitu dira jaiak, amaitu **ospakizunak** eta ikuskizun miragarriak. Edorta Jimenez

Urteurrenaren kariaz, **ospakizun** ugari antolatuta dira azken egunotan heroiaren izena duten plaza eta hiribide nagusietan. Jon Arretxe

Ospakizun haiek alderantzizko eragina zuten nigan: nahigabea eta malenkonia nagusitzen zitzaizkidan. Rafa Egiguren

Hor finkatu baitzen **ospakizun** guztien egutegia. Pello Zabala

Ubanbe aurkeztu beharra zegoela munduaren aurrean, eta **ospakizun** bat egingo zutela kazetariatzat. Bernardo Atxaga

Ez nuen **ospakizunetan** parte hartzeko asmorik. Joxean Agirre

Baina ez nago **ospakizunetarako**. Urtzi Urrutikoeetxea

2 (izenondoekin)

Ospakizun on baterako ez zegok Vega Sicilia bezalakorik. Iban Zaldúa

Ospakizun nagusietan ez bestetan eraman ohi zuen aginte-epzata ospetsua lotu zian gerrikotik. Txillardegí

Oroitarrari estalkia kendu eta inauguratu behar zuten goizean, **ospakizun** berezi bat egin zen Bigarren Hezkuntzako Nesken Mendebaldeko Ikastetxea-edo zeritzon leku batean. Oskar Arana

Urtero legez **ospakizun** xumea egin zitzaion atzo, eguraldia lagun. Berria - Ekonomia

-Gauean gertatu zen onena, **ospakizun** luze bezain xarmagarriaren amaiera aldera. Jon Arretxe

Ez du **ospakizun** handirik egingo bi ardirekin. Oskar Arana

Ospakizun handirako prestatua dagoen lekura iristean, kardinal, gotzain eta abadeen multzo goresgarria Aita santuaren inguruan kokatzen da. Askoren artean

Ospakizun santua amaitu zenean, andrea etxera itzuli zen, barrena pozik eta begiak argitan. Askoren artean

Hasiera batean **ospakizun** anfetaminiko-kokainomanoa izango zela erabaki genuen. Sonia Gonzalez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herriaren Etxea inauguratzeko ekitaldirako gonbidapena zen, **ospakizun** egitarauarekin batera. Koldo Biguri

Bilkura berezi bat egin da jakin-arazteko nolako **ospakizun** -saila akulatuko den ondoko egunetan. Herria

Gaur **ospakizun** eguna dugu, ez sesiorakoa! Unai Iturriaga

Urteurrenen **ospakizun** ekitaldietan, hots, okasio berezietan. Berria - Harian

Ospakizun otorduaren osteko zurrinaldi berbatsuan zeuden laurak, normalean baino kalaka animatuagoan. Komunista izaten segitzen dinat nolabait, eta oraindik ere

ospakizun lege loriatuenak gordeak zauzkanat beharginek boterea hartuko duten egunerako. Josu Landa

Nahiz eta ez aitortu, **ospakizun** airea zerion bidaiari. Xabier Montoia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mintzaldia bukatu zela eta herri-**ospakizunak** hasita zeudela. Koldo Biguri

Emaztearen hileta **ospakizuna** amaitu zenean, [...]. Patxi Zubizarreta

Azaroaren 27 an, Eibarren, Mogelen mendeurren-**ospakizuna**. Herria

Gure neskatokak ematen du Windsor Gaztelura doala urtebetetze **ospakizunen** batera. Oskar Arana

Merezi du oroitzapen **ospakizun** horien kariaz idatzi edo argitaratutako lanak aipatzea: [...]. Askoren artean

Badakigu urtarriaren 20ko jaia eta hartan egiten ziren musika **ospakizunak** Inauteriaren atariko bat baizik ez zirela. Askoren artean

Ohere eta goresmen **ospakizun** horietan parte hartuko duten guzieri. Herria

Behin, barau-egunez, Jaunaren kultu-**ospakizun** batean zeudela, Espiritu Santuak honela esan zien: [...]. Elizen arteko biblia

Berdin, udaberriko ekinozotik 40ra, Beltaine, maiatz-leheneko su-festa eta argi-**ospakizun** handietako haietan. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jai eta ospakizun (3); ospakizun bateratuak (3); ospakizun berezi (8); ospakizun bereziak (7); ospakizun eguna (8); ospakizun egunak (3); ospakizun ekitaldia (3); ospakizun ekitaldiak (3); ospakizun ekitaldian (3); ospakizun gisa (3); ospakizun handi (4); ospakizun handia (4); ospakizun handietan (4); ospakizun handirik (3)

ospakizuna egin (3); urteurrenaren ospakizuna (3)

eguneko ospakizunak (4); ospakizunak egin (4); ospakizunak egiten (3); ospakizunak hasi (4); sailduko ospakizunak (3); urteurrenaren ospakizunak (3); urteurreneko ospakizunak (3)

inaugurazioko ospakizunean (3)

eguneko ospakizunetan (3); hileta ospakizunetan (4); ospakizunetan parte hartu (6); ospakizunetan parte hartzeko (8); urteurreneko ospakizunetan (3)

ospakuntza (12 agerraldi, 6 liburu eta artikulua 1ean) 1 iz ospakizuna.

Gernikako **ospakuntza** ikusteko propio etorriak. Txillardegi

Bada, "kinim" direlakoak zorriak dira, Egiptoko hamar izurrietatik hirugarrena, hain zuzen, banaka aipatzen eta kantatzen baitira izurriok juduen Pazkoaren **ospakuntzan**.

Juan Garzia

Gau horretan, jakitegian zer geneukan begira hasi zen Oriol, **ospakuntzarako**. Xabier Mendiguren Elizegi

Beasainen, bere hamaseigarren kapitulua ospatu zuen otsailaren 5ean Odolkiaren kofradiak, asko **ospakuntza** eginez egun berean. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Pazko-**ospakuntza** honela eratu zuten: apaizak beren tokietan jarri ziren, bai eta lebitarrak ere beren mailen arabera, erregeak agindu bezala. Elizen arteko biblia

ospaleku iz zerbait ospatzen den lekua. ik ospatoki.

Ondo-ondoan, ostatuaren eta jantokiaren artean goiti, eskailera estu batzuk zenbait jangela tikitarako bide ziren, jite pribatuagoko oturuntza eta besten **ospaleku**. Aingeru

Epaltza

osparazi, osparaz, osparazten du ad ospatzera behartu.

San Leon Aita Santuak ahaleginak egin zituen [...] egun santu hauek, ordenazioak barne, zabaltzen eta **osparazten**. Pello Zabala

Geroxago Rommel marexala, etsaiek berek hain estimu handitan zaukatena, bere burua pozoindatzera bortxatu zuen, ehorzketa nazionalak **osparaziz**, jestu hori bere baitarik egin balu bezala. Herria

ospatoki iz zerbait ospatzen den lekua. ik ospaleku.

Garrantzi eta inportantzia handienekoa azarokoa zen: orduan hiru egun luzez mundu honetakoeek bestera pasatakoekin harremanak estutzen saiatzen ziren trikuharrietan eta bestelako **ospatokietan**. Pello Zabala

ospatsu ik ospetsu.

ospatu, ospa, ospatzen 1 du ad gertaera edo egun jakin bat, jai edo ekitaldi bereziren batez gogoratu; gertaera jakin bat dela eta, jai edo ekitaldi bereziren bat egin.

Aldarrikapen horren berrogeita hamargarren urteurrena **ospatu** zen egunean. Piarres Xarriton

Igande arratsaldean nire urtebetetzea **ospatu** genuen. Josu Zabaleta

Urtemuga **ospatu** eta hurrengo egunean ziplu jabetu nintzen nire egoera berriaz. Iban Zaldua

Tenpluaren Garbikuntza Jaia **ospatzeko** deia. Elizen arteko biblia

Nekaldia hurbil zuela, Pazkoa **ospatu** zuen bere ikasleekin. Askoren artean

Zuek, juduok, **ospa** ezazue egun hau beste festaburuen artean, jai handiak eginez. Elizen arteko biblia

Ijitoek, esate bateko, San Juan eguna, handiro **ospatzen** dute, suaren eta uraren inguruko erritoen bidez. Patziku Perurena

Urteko lau festa nagusi **ospatzen** zituzten, su-festak lauak, sutzarrak pizteko egunak, purifikazio egunak baitzituzten: Santu guztien egunean, Kandelaria bezperako gaua, maiatzaren lehenean eta abuztuaren hasieran.Ninibeko judutar guztiek **ospatu** zuten egun hura. Pello Zabala

Misterio santuak **ospatu** nahi izan zituztenean. Markos Zapiain

Atzo gauean bertan, ardo ondratu batekin **ospatu** genuen garaipena. Anjel Lertxundi

Alegantzirik handienean **ospatu** zen etxeko jaungaiaren munduratzeara. Itxaro Borda

Sindikatuaren arabera, SCHk «kaleratzeekin **ospatuko** ditu inoizko etekin handienak». Berria - Ekonomia

Ardozko mozkorraldi eder batez **ospatu** dugu hitzarmena. Juan Garzia

Setioaren amaiera zen eta hura **ospatu** beharra zegoen. Aingeru Epaltza

Oraindik gogoan du nola **ospatu** zuen [...] alemaniarrek Janovski atxilotu eta desjabetu izana. **Iban Zaldúa**
Ordurako txanpaina dezente edanda geunden, batez ere Gabrielle, balizko irabaziak **ospatzen**. **Migel Angel Mintegi**
Gosari oparo batekin **ospatu** behar ez zuten ba soldata berria? **Unai Iturriaga**
Tiroa botatzen zuen, eta uso bat erortzen zen aldiko oihuka **ospatzen** zuen. **Elena Touyarou**
Biraoka **ospatu** zuen, marmar gozoan. **Koldo Izagirre**
Ospatzekoren bat genuelarik, amak esnegainezko tostadak jatera garraiatzen gintuen atso-arte hartara. **Aingeru Epaltza**

2 egin.

BBK Bilbao Bizkaia Kutxak bere ohiko batzarra **ospatu** zuen atzo. **Berria - Ekonomia**
Gela handian **ospatu** zeremonia xumea izan zen, eta hari negar zenbait lerratu zitzaizkion. **Elena Touyarou**
Foru-hiriburuan **ospatutako** elizkizun guztien arteko garrantzitsuena ikusteko parada izan nuen. **Txillardegi**
Irkutskeko katedralean **ospatu** zen ezkontza. **Karlos Zabala**
Kongresua **ospatzen** zela aprobetxatuz. **Joxemari Iturralde**
Aurrera egiten uzten ez badidazue gaur bi hileta **ospatuko** ditugu baten orde. **Jon Maia**
1224an **ospaturiko** Arlesko kapituluaz ari da. **Askoren artean**
Prozesio zibiko-erlijiosoa, halako batean ez zen gehiago **ospatu**. **Askoren artean**
1992an Rio de Janeiro konferentzia **ospatu** zen. **Iñaki Heras**
Don Kosme hil zenetik hiru astera **ospatuko** ziren hauteskundeak. **Joan Mari Irigoien**
Garagardo lantegian bertan **ospatzen** dira emanaldiak. **Harkaitz Cano**

3 eman.

Meza **ospatzen** ari zela, apaizak Kristoren Gorputza altxatzean, andreak begiak ireki zituen, garbi ikusi zuten eta debozio handiz adoratu. **Askoren artean**
Igande normal batean, edozein hil daiteke emozioz baloiaren meza **ospatzen** ari den bitartean. **Berria - Kirola**

4 ospe eman, goraiatu.

1789ko Iraultzaren II. mendeurrenaren karietara, François Mitterrand Frantziako presidenteari, Grégoire apezpikuaren gorputza Pariseko Panthéonera eraman zuelarik, "apez abertzale" haien guztien lana zuen **ospatu** nahi. **Piarres Xarriton**
Gogotik **ospatzen** du donostiarran gustu ona. **Askoren artean**
Usandizagaren musikak gaur egun arte iritsi den sonaz **ospatu** zuen donostiar bizimodua. **Askoren artean**
Ateraldi hori algarra handiz **ospatu** zen. **Josu Zabaleta**
Mornatarrek barrezka **ospatu** zuten burutazioa. **Joanes Urkixo**
Orduan, hirurak aho batez Jainkoa goresten, **ospatzen** eta bedeinkatzen hasi ziren. **Elizen arteko biblia**
Herri guztiek dute ohoratzen, beneratzen, **ospatzen** eta goratzen. **Askoren artean**
Egunero, goiz eta arratsalde, tenpluan egon behar zuten Jauna **ospatu** eta goresteko. **Elizen arteko biblia**
Lebitar batzuk izendatu zituen Davidek [...] Jauna, Israelen Jainkoa, ohora, **ospa** eta goretz zezaten. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberi eguna ospatu (4); **alegeraki ospatu** (6); **behar bezala ospatu** (4); **bilera ospatu** (3); **biltzarrak alegeraki ospatu** (3); **diada ospatu** (3); **diada ospatu zuten** (3)
ederki ospatu (5); **egun hautan ospatu** (3); **egun hori ospatu** (3); **eguna ospatu** (59); **eguna ospatu da** (9); **eguna ospatu zuten** (16); **elkarrekin ospatu** (4); **elkartek ospatu** (5); **elkartek ospatu ditu** (3); **emazteek ospatu** (6); **emazteek ospatu dituzte** (6); **etzeiak ospatu** (9); **etzeiak ospatu dituzte** (4); **fiesta ospatu** (6); **garaipena ospatu** (7); **gogotik ospatu** (5); **handikiro ospatu** (3); **handizki ospatu** (12)
igandean ospatu (7); **jaia ospatu** (7); **jaia ospatu zuten** (3); **jaiak ospatu** (5); **jaiotza ospatu** (3); **joandean igandean ospatu** (3); **kapitulu probintziala ospatu** (3); **kartsuki ospatu** (8); **kartsuki ospatu da** (4); **mende erdia ospatu** (3); **nazioarteko eguna ospatu** (3); **nola ospatu** (9)
ospatu zuten garaipena (3); **ospatu zuten garaipena** (4)
pazko jaia ospatu (3); **pazkoa ospatu** (7); **pozik ospatu** (4); **pozik ospatu zuten** (4); **senar emazteek ospatu** (6)
urrezko etzeiak ospatu (8); **urteak ospatu** (8); **urtebetetzea ospatu** (8); **urteburua ospatu** (6); **urtemuga ospatu** (11); **urtemuga ospatu du** (3); **urteurrena ospatu** (17); **urteurrena ospatu zuten** (5); **xanpainarekin ospatu** (4)
handizki ospatua (4); **handizki ospatua izan** (3); **kartsuki ospatua** (3); **ospatua izan** (16); **ospatua izan da** (12); **ospatua izanen** (9); **ospatua izanen da** (8)
aberi eguna ospatuko (3); **asteburuan ospatuko** (3); **aurten ospatuko** (3); **besta ospatuko** (5); **bestak ospatuko** (3); **datorren igandean ospatuko** (3); **eguna ospatuko** (56); **eguna ospatuko da** (17); **eguna ospatuko dute** (31); **eskubideen eguna ospatuko** (3); **fiesta ospatuko** (5); **fiesta ospatuko duzue** (3); **gaur ospatuko** (5); **gernikan ospatuko** (3); **handikiro ospatuko** (3); **handizki ospatuko** (3); **heletan ospatuko** (3); **hileta ospatuko** (3)
igandean ospatuko (9); **igandean ospatuko dute** (4); **jaia ospatuko** (7); **jaia ospatuko duzue** (5); **jaialdia ospatuko** (3); **kantuz ospatuko** (3); **lehen eguna ospatuko** (3); **lelopean ospatuko** (3); **mendeurrena ospatuko** (6); **nazioarteko eguna ospatuko** (3); **nola ospatuko** (3)
oihuz ospatuko (3)
ospatuko ditugu ihauteriak (3); **ospatuko dute gaur** (12)
poz oihuz ospatuko (3)
urteak ospatuko (7); **urteak ospatuko ditu** (6); **urtemuga ospatuko** (7); **urtemuga ospatuko du** (5); **urteurrena ospatuko** (16); **urteurrena ospatuko du** (9)
zer ospaturik ez (3)
mendeburua ospatuz (3); **urteak ospatuz** (5)
eguna ospatzea (5); **elkarrekin ospatzea** (4); **ospatzea erabaki** (10); **ospatzea erabaki zuten** (3); **urtero ospatzea erabaki** (3); **urteurrena ospatzea** (4)
aberi eguna ospatzeko (5); **amaiera ospatzeko** (3); **behar bezala ospatzeko** (3); **besta ospatzeko** (3); **bigarren mendeurrena ospatzeko** (3); **bosgarren urteurrena ospatzeko** (4)
egun bateratua ospatzeko (4); **egun horren ospatzeko** (4); **eguna ospatzeko** (27); **etorrera ospatzeko** (3); **etzeiak ospatzeko** (4); **garaipena ospatzeko** (13); **golak ospatzeko** (3); **hamargarren urteurrena ospatzeko** (8); **handizki ospatzeko** (3); **heriotza ospatzeko** (3)
jaia ospatzeko (3); **jaiak ospatzeko** (4); **mendeurrena ospatzeko** (12); **nazioarteko eguna ospatzeko** (8)
ongi ospatzeko (3)
ospatzeko agindu (4); **ospatzeko antolatu** (7); **ospatzeko antolaturiko** (3); **ospatzeko antolatutako** (7); **ospatzeko asmoz** (4); **ospatzeko aukera** (5); **ospatzeko beharrezkoak** (3); **ospatzeko betarik izan** (3); **ospatzeko deia** (3)
ospatzeko egindako (5); **ospatzeko egingo** (3); **ospatzeko eguna** (4); **ospatzeko egunean** (3); **ospatzeko ekitaldi** (6); **ospatzeko ekitaldia** (8); **ospatzeko ekitaldiak** (5); **ospatzeko ekitaldien** (4); **ospatzeko ekitaldien barruan** (3); **ospatzeko erakusketak** (3)
ospatzeko kontzertua (3); **ospatzeko modu** (3); **ospatzeko modukoak** (3); **ospatzeko prestatzen** (3); **ospatzeko prestatzen ari** (3)
pazkoa ospatzeko (6); **sartzea ospatzeko** (3)
urtea ospatzeko (6); **urteak ospatzeko** (9); **urtebetetzea ospatzeko** (6); **urteen ospatzeko** (4); **urtemuga ospatzeko** (26); **urteurrena ospatzeko** (75); **urteurrena ospatzeko antolatu** (5); **urteurrena ospatzeko ekitaldia** (3); **urteurrena ospatzeko ekitaldiak** (3); **urteurrena ospatzeko ekitaldien** (3)
ezer ospatzekorik ez (5)
aste huntan ospatzen (3); **aurten ospatzen** (17); **aurten ospatzen ditu** (5)
ederki ospatzen (3); **egun honetan ospatzen** (3); **eguna ospatzen** (39); **eguna ospatzen da** (8); **eguna ospatzen dute** (6); **ehun urte ospatzen** (4); **ehun urteak ospatzen** (10); **elkartek aurten ospatzen** (3); **elkartek ospatzen** (4); **etzeiak ospatzen** (4); **fiesta bat ospatzen** (3); **fiesta ospatzen** (5); **garaipena ospatzen** (8); **gaur ospatzen** (6); **handikiro ospatzen** (3)
jaia ospatzen (7); **jaiak ospatzen** (4); **jaiotza ospatzen** (3); **mendeurrena ospatzen** (9); **meza ospatzen** (4); **nazioarteko eguna ospatzen** (3)
ospatzen da gaur (3); **ospatzen da urtero** (3); **ospatzen den egunean** (3); **ospatzen ditu aurten** (3); **ospatzen zenean** (3); **ospatzen zuten atzo** (3)
pazkoa ospatzen (3)
urte ospatzen (10); **urte ospatzen ditu** (3); **urtea ospatzen** (3); **urteak aurten ospatzen** (4); **urteak ospatzen** (31); **urteak ospatzen ditu** (3); **urtebetetzea ospatzen** (3); **urtemuga ospatzen** (8); **urteurrena ospatzen** (9)
eguna ospatzera (4); **etxola jaia ospatzera** (3); **fiesta ospatzera** (5); **jaia ospatzera** (4)

ospatzaile *izond/iz* ospatzen duena.

Erromako Eliza Katolikoan jaiak "mugikorrak" eta "mugiezinak" izaten dira, baina **ospatzaileak** beti mugiezinak izaten dira bapo bete bitartean. **Xabier Olarra**

ospatze *iz* gertaera edo egun jakin bat jai edo ekitaldi bereziren batez gogoratzea; gertaera jakin bat dela eta, jai edo ekitaldi bereziren bat egitea. ik **ospakizun**.

Santa Brigidarekin lotu bide zuten ugalkortasunaren **ospatze** horien denen zerrenda. **Pello Zabala**

Erran dezagun lehenago **ospatze** horiek egiten zirela bi igandez bai Besta Berriz eta ere Otabaz. **Herria**

Ospatze horien moldatzaile diren elkarteek deliberaturik lhauteiak izanen ditugu ilabete hunen 15 eko larunbatean. **Herria**

ospatzear *adlag* ospatzeko zorian.

Garbikuntza Jaia **ospatzear** gaudelarik idazten dizuegu. **Elizen arteko biblia**

Anaiek, hura ehorzteko tokia bai, baina eskubiderik ez zutenez, zer egin deliberatzen ibili ziren, batez ere **ospatzear** zegoen Kontzilioagatik. **Askoren artean**

ospe 1 *iz* norbaiti edo zerbaiti buruzko jendarteko iritzi aski hedatua; iritzi horren hedadura. **ikfama; entzute; hots 8; omen**².

Ospea bestelakoentzat asmatutako onura da. **Hasier Etxeberria**

Kartagoren eta Korintoren gainbeherak areagotu egin zuen Marseillaren **ospea**. **Iñaki Iñurrieta**

Aita dohatsuen heriotzaren berri izan eta zaurien mirariaren **ospea** zabaldu bezain laster, herriak arrapaladan jo zuen bertara. **Askoren artean**

Zer gertatu zait ohorearen eta **ospearen** aldetik gorrotoaren eta bazterkeriaren aldera horrela pasatzeko? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Diruaren, **ospearen**, boterearen eta gainerako giza eragileen morroi izan ordez. **Edorta Agirre**

Londresera joan zen eta zirujau azkar eta onaren **ospe** horrek berak ireki zizkion hainbat ate. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Agintariak berehala ikusi zuten [...] preso hark zekalea palaz pilatzen baino lan probetxuzkoagoa egin zezakeela bulegoetan, baina bazter-nahastaile izugarriaren **ospea** zekarren paperetan. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Histoires naturelles eta *La Maitresse* lanek **ospea** ekarriko zioten. **Itziar Otegi**

Ehiztari gazte bati **ospea** ematen diona oilagor bat botatzea izaten da. **Itziar Otegi**

Une hartatik aurrera Saramagoren **ospea** beti joan da goraka, poliki-poliki bada ere. **Jon Alonso**

Kontuan ez hartzeko moduko umemoko bat besterik ez nintzen jendearen **ospea** zikitzen eta zuritzen aritzen zirenentzat. **Juan Kruz Igerabide**

Gazte erneak deitu ohi zaie; haur-denboran, lagun onak direlako **ospea** hartzen dute eskolan. **Jose Morales**

Dudley Franklin zozoa lar egiatia zen horretarako, eta ezin izan zuen sekula **ospe** hura kendu. **Oskar Arana**

Fundi nadila haren **ospeari** kaltea ekarriko dion ezer egiten badut. **Oskar Arana**

Handik aurrera bere bizirik iraute horrek ematen zion **ospearen** markarekin geratu zen Vitruvioren liburua. **Santiago Iruretagoiena**

Ospea ospetsu bezala jokatzea da, gogoratu hori. **Iñaki Mendiguren**

Salamanca aulkia lehena utzi zuen eta Coimbrakoa hartu Portugalen, **ospez** eta errentaz biziki apalagoa zena. **Piarres Xarriton**

2 (izenondoekin)

Arrera honela handituz, inizatuentzako leku zabalagoa uzteaz gainera, obrari **ospe** handia eman zion. **Santiago Iruretagoiena**

Ospe handiz inguratua joan zen Jonatan Ptolemaidara eta bi erregeekin egon zen. **Elizen arteko biblia**

Ospe ona eta izen garbia garesti saltzen direlako gure gizarte itxuratian. **Migel Angel Mintegi**

Ospe ederra jarri zioke gure geltoki lasai eta baketsuari, **ospe** ederra bai! **Fernando Rey**

Familia bati itsatsi zaion **ospe** txarra soberanoak ezaba dezakeela, errudunaren familia errugabeari bere ageriko elkartasuna agertuz. **Juan Martin Elexpuru**

Gure hiriko alderdi ospelean baziren karrika mehar batzuk **ospe** txarrekoak, putetxe karririk zirela eta. **Pello Lizarralde**

Navarro Villosladaren hitz destainazkoek idazleak omen zuen **ospe** gaiztoa ekarri zioten gogora fraideari. **Anjel Lertxundi**

Halako **ospe** beldurgarria baldin bazuen ere, frustrazio txiki bat sortu zigun Kokok klaserik emango ez zigula jakiteak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ospe zaharreko familiek panteoia gehienetan jatorrizko herrian izaten dutela. **Ramon Saizarbitoria**

Laster bereganatu zuen **ospe** zabala Europako bazterretan. **Xabier Olarra**

Jakin beza egia gizaki guztien boto sekretuekin datorrela, jakin beza konkistatzaileen **ospe** odoltsua isildu egingo dela beraren aurrean. **Juan Martin Elexpuru**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denborak aurrera egin ahala eta lehenengo garaietako **ospe**-sukarra iragandakoan, aspertu egin nintzen ederrez. **Hasier Etxeberria**

Bada **ospe**-minez hiltzea baino gauza bat okerragoa: **ospe**-minez bizitzea. **Joxerra Garzia**

Hori izan zen, beharbada, John Deek ezagutu zuen **ospe** garairik handiena. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ilunabarra zen; eta segizio gaitzaren **ospe**-maila ez zen makala izan. **Txillardeggi**

Aitasantutzaren hondamena, haren ondoren bere legalismoak ekarri zion **ospe**-galtze moral eta erlijiosotik sekula oneratu ez zena. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espainia osora zabaldua zen haren anker eta basati **ospea**. **Koro Navarro**

Lehendik ere nahikoa hedatua zegoen komisaldegian bere maritxu **ospea**. **Harkaitz Cano**

Bai, badakit sexuari dagokionez liberal **ospea** dudala; putarena, batzuentzat. **Juan Kruz Igerabide**

Idazle eta letragizon **ospea** bereganatuko du beste behin. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Francesco Cenciren gizatxar **ospeak** bakarrik uzten zuen itxaropenerako argi-izpi bat Beatricearentzat, lagunak baino etsai gehiago baitzituen erromatar nobleak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ez zeureganatu gaizki-esale-**osperik** eta ez jarri lakiorik inori zeure mihiaz. **Elizen arteko biblia**

Bidezkoa zen Tsiui Pín-en kaligrafo-**ospea**. **Juan Garzia**

Txostenean, Ernesten edatun **ospeari** ekiteaz gainera [...] diru hura eman diezaioten idazlea ekin eta ekin dabilela aipatzen da. **Edorta Jimenez**

Amak eder **ospea** zeukan. **Anton Garikano**

Deek bildutako liburuek eta tresnek [...] beti izan zuten jendea erakartzeko ahalmena, Deeren azti ilun **ospeak** hura hil ondoren ere denbora luzez iraun baitzuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

5 aintza, ohorea.

Eskatu ez duzuna ere emango dizut: aberastasuna eta **ospea**, zure egunetan inongo erregek izango ez duen neurrian. **Elizen arteko biblia**

Jainko ahalguztidunaren, Aita eta Seme eta Espiritu Santuaren, Maria Birjina dohatsuen eta Pedro eta Paulo apostoluen gorespen eta aintzarako eta Erromako Eliza aintzatsuen **osperako**. **Askoren artean**

Handinahia zen Frantzisko, eta diruari nobleziaren **ospea** gehitu nahi izan zion. **Askoren artean**

Edengo zuhaitzen artean, zein zu bezalakoa **ospe** eta handitasunean? **Elizen arteko biblia**
Bedeinkatua eta goretzia zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa! **ospe** zuri menderen mendetan! **Elizen arteko biblia**
Bere pobretasun eta ezerezean, Jauna aurkitu zuen, eta berari gau eta egun orduero **ospe** eta ohore ematea zuen ardura nagusia. **Askoren artean**
Zaldunen armaz hornitua zegoen jauregia, ezkutu distiratsuak eta beste zenbait tresna zituen hormetatik zintzilika, **ospe** militarri zegozkion trofeoak denak ere. **Askoren artean**
Eta aspaldiko saindu xumeek egungo idoloari agur eta **ospe**. **Piarres Aintziart**

6 (izenondoekin)

Ospe handitan egiten zuen Jesusen Bihotz Sakratuko kongregazionearen edo elgertasunaren besta. **Xipri Arbelbide**
Mattin **ospe** handiko lapurra izatera iritsi omen zen. **Martin Anso**
Honela esan baitzuen Jainkoaren **ospe** bikainetik etorritako mintzoak: "Hauxe dut neure Seme maitea, hauxe dut nik atsegina". **Elizen arteko biblia**

7 *ospe izan* du *ad* fama, entzutea izan.

Biolinak egiteko tailer bat sortu nahi baitzuen bertan, Venezia Mediterraneoan zuen **ospe** eta itzala akuilu. Jaunarentzat eraiki behar den tenpluak bikaina izan behar du, herri guztietan entzutea eta **ospea** izateko adinakoa. **Felipe Juaristi**
Garai batean han egiten zen ardoagatik izan zuen **ospea** litoitzek. **Eduarne Elizondo**
Amak, berriz, **ospea** zuen jostun bezala, eta lan asko egiten zuen, baita Obabaz kanpoko bezeroentzat ere. **Bernardo Atxaga**
Lanbide-kontuetan oso arduratsua, are estuegia ere, naizelako **ospea** dut. **Joxe Austin Arrieta**
Soldadu bihozturn eta lider inteligentearen **ospea** zuen. **Edorta Jimenez**
Kurduak jende abegitsuaren **ospea** zuten. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eman **ospe** (6)

ospe distiratsuz (3); **ospe** distiratsuz agertzean (3); **ospe** eta izen (3); **ospe** eta ohore (8); **ospe** handia (60); **ospe** handia du (3); **ospe** handia eman (6); **ospe** handia izan (5); **ospe** handia lortu (10); **ospe** handiagoa (6); **ospe** handian (5); **ospe** handian iragan (3); **ospe** handiena (3); **ospe** handieneko (3); **ospe** handiko (64); **ospe** handikoa (9); **ospe** handikoak (4); **ospe** handitan (6); **ospe** handiz (8); **ospe** haunditan (6); **ospe** jaunaren izenari (3); **ospe** ona (15); **ospe** txar (4); **ospe** txarra (23); **ospe** txarraren (3); **ospe** txarreko (5)

eman zion **ospea** (5); eman zioten **ospea** (4); garai bateko **ospea** (3); goretzi jaunaren **ospea** (3); horrelako **ospea** (3)

indarra eta **ospea** (3); israelen **ospea** (4); izatearen **ospea** (4); izena eta **ospea** (6); jaunaren **ospea** (10); lortu zuen **ospea** (5); nazioarteko **ospea** (4); neure **ospea** (5); nire **ospea** (7); nolabaiteko **ospea** (4)

ospea bereganatu (3); **ospea** berreskuratu (3); **ospea** du (7)

ospea eman (16); **ospea** eman zion (6); **ospea** emango (4); **ospea** ematen (7); **ospea** eta indarra (3); **ospea** eta izena (4); **ospea** eta ohorea (4); **ospea** handitu (4); **ospea** hartu (9); **ospea** hartu zuen (4); **ospea** hartzen (6)

ospea izan (4); **ospea** izatera (3); **ospea** kentzen (3); **ospea** lortu (24); **ospea** lortu zuen (7); **ospea** lortzeko (3); **ospea** nahi (3); **ospea** zabaldu (3); **ospea** zeukan (6); **ospea** zuen (10)

zer **ospea** (3); zeure **ospea** (4); zure **ospea** (14)

golegile **ospearekin** (4)

bere **ospearen** (6)

ospeari esker (5)

bere **ospeaz** (3); zeure **ospeaz** (3)

ospez betea (5); **ospez** jantzi (4)

ospealdi *iz* ospe handiko aldia.

Izan ere FWak ez zuen inoiz 20 kide baino gehiago izan, eta lauzpabost urte inguruko **ospealdi** laburra izan zuen. **Berria - Mundua**

ospebide (*orobat ospe-bide*) *iz* ospea lortzeko bidea.

Cadillac bat erabiltzea ere **ospebidea** izan liteke. **Gotzon Garate**

Etengabeko gerrak txikitu zuen hiri batean, Hegoaldean, Frantziako mugatik gertu, hiriburutik Parisera bidean, **ospe-bidean** beraz, Frantziako Paris hartzeak ospea eman edo bestela kendu egiten baitzuen, holararren aurkako gerrak ez bezala, bizia osperik gabe kentzen baitzuen horrek erraz asko. **Felipe Juaristi**

ospedun *izond* ospea duena.

Irakasleen artean, berriz, Zorroagako Filosofia Fakultatean ari ziren Espainiako intelektual **ospedunak** batzuk, euskal mitoa hurbiletik dastatzera etorriak-edo, trantsizioko desenkantoak jotzen zituen bazterretatik ihesi. **Iñaki Iñurrieta**

XVIII. mendeaz gero, Beterri-Tolosaldeko hizkera izan da **ospeduna**, baina XVI-XVII. mendeetan Lapurdiko "kostatarra" zen nagusi. **Koldo Zuazo**

Eguneroko bizimodu arruntean zein hizkuntza darabilgun ez dio hainbeste ardura, baina **ospedun** hizkuntza aukeratzen da zeregin jasoetan. **Koldo Zuazo**

Bestelako aburuak utzi, **ospedunen** aginduak gainditu eta kalte handiak jasan behar izanda ere [...] kontzientziaren esanera jardun. **Jenaro Garate**

ospegabe *izond* osperik ez duena.

Pavel Broch, esaterako, pintatzaile zen, ez oso ospetsua, ez batere **ospegabea** ere. **Felipe Juaristi**

Haurrari *Ikabod* ezarri zion izena amak, hau da, "**Ospegabe**", esanez: "eraman egin dute Israelen ospea". **Elizen arteko biblia**

ospegabetu, ospegabe(tu), ospegabetzen (*orobat ospe-gabetu*) 1 da/du *ad* ospea galdu; ospea kendu.

Komunismoak kristau-osteko gizakiari zera eskatzen zion, "arrazoiz" **ospe-gabeturiko** beste mundu bateko utopiaren "umekeriazko" nostalgiatik senda zezala bere burua.

Iñaki Mendiguren

Aspaldidanik **ospegabeturiko** Gilermo II.a kaiserrak ohartarazi zuen arrisku horiaz eta zorrotzat jo zuten beldur horiengatik. **Iñaki Mendiguren**

Denboraren joanak **ospegabetua** eta herriaren gustuarentzat mingotsa, liburu zahar bat, kasu. **Xabier Olarra**

ospegose *iz* ospearen gose den pertsona.

Karatxo Berdintsuekiko Gizonen Anaitasun Bihozbera; Durduzatzaila Distiratsuak; Laborriaren Andreak; **Ospegoseen** Lankidetzeta Elkarte. **Xabier Olarra**

ospeki *adlag* ospez.

ospeko 1 *izlag* ospea duena.

Ospeko zientzia-aldizkariaren batean argitaratu. **Fernando Morillo**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zer egin zuen faxista **ospeko** hark? -galde egin zidan bisitariak. **Edorta Jimenez**

Ordurako, ordea, aberats izandako Roland koitaduak bere ondasun guztiak galdu zituen, eta semea -hain sona handiko eta jakintsu **ospekoa** izandako John Dee distiratsua-susmopean zegoen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

- Penaz hil zela zabaldu zen Duneideann hirian [...] eta zakur leial **ospeko** Bobby hark hiritarren bihotzak ukitu zituen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

ospel¹ 1 *iz* hotzak eraginda eskuetan edo oinetan gertatzen den handitu mingarria. **ikazkordin.**

Zorionez galdu genituen aspaldiko **ospelak** : belarri, atzamar-gain eta orpo, hainbat penatu gintuzten **ospelak** . **Pello Zabala**

Ez zen ageri han ez **ospelik** , ez erredura edo garatxorik, ez negal, baba, kalentura, pustula, zimur, kailu, orbain edo granorik. **Bernardo Atxaga**

Gure amona zenak esaten zuen, **ospelak** , harapirikak, bixiakak, pikorrak eta holakoak sendatzeko, haur baten piza zela hoberena. **Patziku Perurena**

Ospelak oinetan, **ospelak** eskuetan... **Anjel Lertxundi**

Ikusten ari ninduan hezetasunak azala harrotu behar zigula zapatetan, babaz eta **ospelez** bete behar ginela. **Josu Zabaleta**

Johni oinetan **ospelak** aterako zaizkio. **Joseba Sarrionandia**

Ospelak sortuko zaizkizu. **Xabier Montoia**

Arian-arian hasi ziren titiburuen inguruko azalean sorrarazten diren pikor moduko horiek itxuratzen, eta **ospel** ikusgarri xamar bat ari zen azal hartatik goratzen, are muturtzen. **Joxan Elozegi**

2 irud/hed

Mingainean **ospelik** inoiz izan ez dituen horietakoa da. **Pello Zabala**

3 (adizlagun gisa)

Ospel hitz egin zuen, oso baxu. **Bernardo Atxaga**

ospel² 1 *izond* laiotza.

Eremitapean, hamaika amodio-aitorren ingurune izandako Egaren bihurtune **ospela** . **Txillardeggi**

Lasterka abiatu da karrika **ospeletara** . **Javi Cillero**

Toki **ospeletan** izotz dezente aurkitu dute. **Jokin Muñoz**

Larraillère-rantz abiatzen ginen oinez, txoko **ospeletatik** gora. **Txillardeggi**

Inguru hauetan, paraje **ospelegoren** batean, belearen tamaina seinalatu izan da neurri: San Pedroten artoak belea estali. **Pello Zabala**

Lubakien alderdirik urrun eta **ospelena** genuen hitzorduaren lekua. **Aingeru Epaltza**

Udazkeneko zuhaitzek, zirtzilaturik, beren gain hartzen dute bandera piltzarren distira, hauek argia ematen dutenean katedral hotzen hilobi **ospeletan** . **Anton Garikano**

Etxe-zulo ilun **ospela** zuen, egurrezko eskailera higitua eta guzti. **Javi Cillero**

Kontuan hartu behar da, herri eta auzo bakoitza, batzuk eguteren besteak **ospelegoan** , batzuk kaskoetan, besteak zokoguneetan, bakoitza paraje eta gune ezberdin eta oso diferenteetan kokaturik dagoela. **Pello Zabala**

2 irud/hed

Margarita Ledo galiziar idazle eta irakasleak bere lehen film dokumentalaren bidez ahanzturaren zokondo **ospel** batetik jaregin berri duen transatlantiko hartako kapilaua euskalduna zen. **Berria - Kultura**

Diskoaren ezterri dardara apar moduan zabalduko da tabernako aire **ospelean** . **Joseba Sarrionandia**

Ospela zen pabilioi barruko giroa. **Harkaitz Cano**

Drogak mila lekutatik arrakalatutako edertasun **ospel** hura. **Joan Mari Irigoien**

Iluntasun **ospelak** inguratuta, begiak bildu ezinda. **Felipe Juaristi**

ospelalde *iz* alde ospela.

la ametsezko leku batean dago kokatua Branford, Mendi Harritsuen **ospelalde** batean habia eginik bezala, British Columbiako hego-ekialdean. **Xabier Olarra**

Hiru mila eta bostehunen bat metro gora, gailur arteko pasabide baten barnetik goaz, goizeko eguzkitan dirdiratsu ageri dira ezkerretara mendiak, eskuinean haien **ospelaldeko** siluetak ditugula. **Xabier Olarra**

ospeldu, ospel(du), ospeltzen du *ad* ospelez bete.

Hatsa bera ere **ospeltzeko** moduko hotza egiten omen du Elsinor-eko gazteluan. **Anjel Lertxundi**

ospeldun *izlag* ospelak dituen.

Eguzkiari "behatz **ospeldun** eskua" deitzen dio. **Joxean Agirre**

ospera *interj*

Agustin: **Ospera** ! nolako ahoalde pollite! nolako gustu freskue! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

ospetsu (*orobat ospatsu g.er.*) 1 *izond* ospe handikoa. (pertsanak)

Azpilkueta ez zen izan handiki **ospetsu** bat, baina bai soil-soilik jakintsu argi bat eta fraide mirezgarri bat. **Piarres Xarriton**

Ez zen gure jakintsu **ospetsuen** artean inor hori jakin ez zuenik. **Xabier Kintana**

Lehenago ere izan dira gizon **ospetsuak** Luzaiden. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Aldizkari sentsazionalista bat irakurtzen ari zen, munduko miseria, ospetsuen esamesa eta zenbait emakume **ospetsu** eta ez hain **ospetsuren** biluztasunarekin denbora

pasatzen eta merxanta asetzen. **Migel Angel Mintegi**

Dama **ospetsu** honen mantu zarpaila, berriz, Espiritu gabeko gizakien iritziak eho du. **Askoren artean**

Aktore **ospetsua** izaten naizenean. **Fernando Rey**

Leo Strauss (1899-1973) aditu **ospetsuari** jarraikiz. **Xabier Kintana**

Obaba inguruan jaiotako boxeolari **ospetsu** bat zen Paulino Uzkudun, Primo Carnera, Max Baer edo Joe Louisen parean ibilitakoa. **Bernardo Atxaga**

Hator, Ulises, akaiar **ospetsu** hori! **Juan Kruz Igerabide**

Itsasgizon **ospetsu** eta zaildua zen aholkua eman zion Nelson kapitain hura. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Errore honek, ordea, aldeko **ospetsu** asko dauzka (Aristoteles eta beste batzuk, esaterako). **Esteban Antxustegi**

Epaileak lapur **ospetsu** bat aurkitzen badu, lotarazi egingo du erregearen aurrera eramateko, frankoa bada (*Francus*); baina pertsona ahulagoren bat bada (*debilior persona*), bertan urkatuko du. **Iñaki Iñurrieta**

Zamorako familia **ospetsu** eta on bateko semea zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Baina Pirandello antzerkigile **ospetsu** egingo duten obra nagusiak 1915etik aurrera hasi ziren antzeztzen Italiako antzeztele ezagunenak. **Josu Zabaleta**

Hortxe da Gertrude Lawrence teatro izar **ospetsua**, frontetik gertuko eszenatokietan antzezteko prest. **Edorta Jimenez**

Pilota elkarteko biltzar nagusi bat izan dugu herrian pilotari **ospetsu** andana baten inguruan. **Herria**

Ernest Hemingway ordurako **ospetsuaren** inguruan. **Edorta Jimenez**

2 (pertsonek, izen gisa)

Artistak, aristokratak, politikoak, dirudunak eta nazioarteko **ospetsu** ugari... **Patxi Iturritegi**

Ospetsuen bidea alde batera utzita, juxtu alderantzizko xendra hartu nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (gauzak)

Monje tenplarioek eraiki omen zuten Eunateko eliza **ospetsu** bezain misteriozua. **Martin Anso**

Tangente-taula bat edukiz gero, zuzenean neur daiteke Keopsen piramide **ospetsuaren** garaiera. **Jon Muñoz**

Greziako Efeso hiri **ospetsu** eta zabalean, antzinako lege bat dago, esaten denez arbasoek jarri zutena, izatez gogorra baina edukiz zuzena. **Santiago Iruretagoiena**

Logroñon sartu aitzin, Ebro ibai **ospetsuari** so egon naiz. **Piarres Aintziart**

Ospakizun nagusietan ez bestetan eraman ohi zuten aginte-epata **ospetsua** lotu zian gerrikitik. **Txillardegi**

Berrogei urte zituela *Akademia* eskola **ospetsua** hasi zen zuzentzen eta antolatzen. **Askoren artean**

Hari zor zaio formula **ospetsua**: "Ezagutu heure burua!". **Jon Muñoz**

Goldman sari **ospetsuaren** irabazlea ere bada, eta Zientzia Fisikoetan doktore. **Eduarne Elizondo**

Orkestinako tronpeta-joleak pieza **ospetsu** bat iragarri zuten mikrofonotik: [...]. **Bernardo Atxaga**

Gure herriak -esan zuten mintzaldi **ospetsu** batean-, gaixotasunik larriena du: buruzagiek ez dute jada agindu nahi. **Monika Etxebarria**

Newtonek, prismaren esperimendu **ospetsuan**, 1666an, erakutsi zuten elkarturiko kolorez osatzen dela argi zuria. **Xabier Olarra**

Anaia honekin berarekin aita santuaren beste mirari **ospetsu** bat gertatu zen. **Askoren artean**

K.o. 1895ean [...] Richard Olneyk adierazpen **ospetsua** egin zuten, haren izenari oraindik baduen hilezkortasuna eman ziona. **Iñaki Mendiguren**

Gero, faktore lehenetan deskonposatze **ospetsua** dator. **Jon Muñoz**

Metodo **ospetsu** hori erabiliz, berehala ekin zion lanari Euler-ek. **Jon Muñoz**

Apostoluen garaitik ez zaio munduari hain irakaspen **ospetsu** eta miresgarririk eman. **Askoren artean**

4 (izan eta kideko aditzekin)

Eta zu izan zaitez aberats Efratan, **ospetsu** Belenen! **Jose Antonio Mujika**

Gorrotoa nion jende horri guztiari, **ospetsu** izate hutsagatik. **Fernando Rey**

Bazen Eslavonian kondesa bat, noblezasunez **ospetsu** bezain bertutez bikain zena. **Askoren artean**

Oi zeinen **ospetsu** eta santu eta handi den zeruan Aita edukitzea! **Askoren artean**

Knox doktorea **ospetsu** bilakatu zen lankideen artean bere anatomia-jakintzarengatik. **Juan Garzia**

Polizia hori **ospetsu** bihurtu zen herrian Gallinone ezizenez. **Pello Lizarralde**

Batez ere idatzi zituen ipuinek bihurtu zuten Andersen **ospetsu**. **Martin Anso**

-Delosen Apolok jasoa zuten aldea **ospetsua** zen Grezia osoan. **Jon Muñoz**

Ospetsua izango da... kondairako pertsonaia bihurtuko da... **Iñaki Mendiguren**

Ez dira **ospetsuak**, inor ez da badirenik konturatzeko. zoritzarrez **ospetsuak** bezain ugariak baitira mende hasieran hiria inguratuz eratu zuten industri-sareak jaurtitzeko dituen dentsitate eta kolore anitz-ezberdinen ke isuriak. **Joan Mari Lekuona**

5 (adizlagun gisa)

Guztiz **ospetsu** dago printzesa. **Joan Mari Lekuona**

Guztiz **ospetsu** doa barrutik erregearen alaba. **Joan Mari Lekuona**

6 ospetsu egin

Ospetsu egin zen bere sendabide pizgarriak zirela eta. **Patxi Zubizarreta**

Izen horrekin **egin** zen **ospetsu** mendebaldeko aurreneko matematika-liburua idazteagatik, *Liber abaci*. **Jon Muñoz**

Bat-batean **ospetsu egin** zen; egunkariet eskuetatik kentzen zizkioten ipuinak eta kronikak. **Josu Zabaleta**

Hilketaz akusatutako anarkista talde bati 1893an barkatu zionean **egin** zen **ospetsu**. **Xabier Olarra**

Gizakiok hain **ospetsu egiten** gaituzten ezaugarri zoragarri horiek guztiak. **Oskar Arana**

Hauak, xumeak eta ezjakinak ziren, baina Espiritu Santuak bere irakaskuntzaz **ospetsu egin** zituen. **Askoren artean**

Guk ere **ospetsu egin** behar dugu geure izena. **Elizen arteko biblia**

Idazle handi eta **ospetsu egiten** naizenean eta hire bila joaten naizenean, ezkonduko al haiz nirekin orduan? **Eskarne Mujika**

Newton, Darwin eta Einstein **ospetsu egin** zituena horrelako argitze-lana izan zen. **Iñaki Mendiguren**

P. Sextilio Ruforen etsenplua ere **ospetsu egin** zen, Zizeronek epikureoen kontrako eztabaidetan darabilelako. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari ospetsu (3); artista ospetsu (6); autore ospetsu (4)

egin zen ospetsu (3); errege ospetsu (3); familia ospetsu (3); fisikari ospetsu (20); gizon ospetsu (19); gizon ospetsu bat (4); guztiz ospetsu (5)

idazle ospetsu (11); idazle ospetsu batek (3); jende ospetsu (4); musikari ospetsu (4)

oso ospetsu (5)

ospetsu bihurtu (14); ospetsu bihurtu zen (5); ospetsu bihurtuko (4); ospetsu bihurtzen (6); ospetsu bilakatu (10); ospetsu bilakatu zen (8); ospetsu egin (25); ospetsu egin zen (10); ospetsu egingo (7); ospetsu egiten (7); ospetsu izan (4); ospetsu izango (5)

pertsonaia ospetsu (5); poeta ospetsu (3); sendagile ospetsu (4); talde ospetsu (3)

aktore ospetsua (7)

esaldi ospetsua (3); gizon ospetsua (9); guztiz ospetsua (3); harry potter ospetsua (7)

idazle ospetsua (10); izen ospetsua (16); jaunaren izen ospetsua (3); jende ospetsua (5); liburu ospetsua (8); musikari ospetsua (3)

obra ospetsua (3); oso ospetsua (10)

ospetsua egin (11); ospetsua egin zen (3); ospetsua izan (21); ospetsua izana (4); ospetsua izanen (3); ospetsua izango (7); ospetsua izaten (3)

poema ospetsua (3); **sari ospetsua** (3); **talde ospetsua** (3); **txit ospetsua** (3)

ospetsuago izan zen (3)

artzapezpiku ospetsuak (3); **gizon ospetsuak** (3); **handi eta ospetsuak** (4); **idazle ospetsuak** (5); **izen ospetsuak** (3); **oso ospetsuak** (3); **ospetsuak egin** (5); **ospetsuak izan** (6); **zientzialari ospetsuak** (3)

liburu ospetsuan (6); **obra ospetsuan** (3); **ospetsuan egin** (3); **ospetsuan sartu** (3); **zerrenda ospetsuan** (4)

aktore ospetsuaren (3); **eta ospetsuaren** (3); **gizon ospetsuaren** (5); **idazle ospetsuaren** (3); **jende ospetsuaren** (3); **ospetsuaren azken** (3); **ospetsuaren iloba** (3); **ospetsuaren omenez** (3); **zendutako gizon ospetsuaren** (3)

gizon ospetsuen (4)

ospetsuena izan (3)

egunkari ospetsuko (3)

ospetsueri iz (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jakin dugunez, jende **ospetsueriaren** artean, hor ziren Michel Inchauspe, Peyuco Duhart, Serge Blanco, **Herria**

ospetsuki adlag ospez.

Beheko gelatxoan Eliza topatu genuen apaizaren besaulkian **ospetsuki** eserita. **Irene Aldasoro**

Garizuma denboran, 1941ean, apezeri misio baten muntatzeko ahala uzten daukute eta **ospetsuki** bururratzen dugu Bazko egunean, gure preso lagunetarik 4 000ko batek parte hartzen dutela. **Michel Oronoz**

Hala nola 60 presuna hurbildu diren ortzegun aratsean, antzerkien gozatzeko, eta 150 presuna ostirale aratseko afarian, Anari kantaria eta Jesus Aured eskusoinulariaren inguruan, larunbateko eguna ere **ospetsuki** iragan delarik. **Herria**

ospetxo iz adkor ospea.

Euskal Herri mailako **ospetxoa** eman zidan, "Euskal Herri" hori zentzu etimologikoan ulertuta: Lesaka, Azpeitia, Markina edo Mendexa bezalako herrietan dastatu nituen ospearen gazi-gozoak; Donostia, Irun, Bilbo edo Gasteizen lasai ibiltzeko moduan nintzen. **Joxerra Garzia**

ospezale izond ospearen zalea dena.

Gau batean, bere asmoak nola burutuko hausnar egiten eta abiatzeko irrikitan zegoela, Jaunak bisita egin zion: hain **ospezalea** zenez, ospearen gorengo gailurrera erakarri eta jaso zuen ikuskarian. **Askoren artean**

Jaun ahalguztidunak erabaki du, **ospezale** horien harrokeria behartzeko, mundu guztian orohatuak zirenak lotsarazteko. **Elizen arteko biblia**

ospil iz harrapakina.

Herri simple, libre, gerrari, artzainak, industriarik gabe bizi zirenak, eta lurrari ihizko etxolaz baizik lotzen ez zitzaizkionak, buruzagiei jarraitzen zitzaizkien **ospila** lortzeko, ez zergak ordaintzeko edo jasotzeko. **Iñaki Iñurrieta**

ospital ik ospitale.

ospitale (orobat ospital g.er., hospitale g.er. eta hospital g.er.) 1 iz erietxea.

Ospitale eta artategietan ere sobera xahutzen dela, hori ere erraiten da hor gairi. **Herria**

Mutila, hemezortzi urte, hemeretzi, hor nonbait, **ospitalera** ailegatzean hil zen. **Koro Navarro**

Oporetako zazpigarren egunean **ospitalera** laguntzeko eskatu zidan Mary Annek. **Bernardo Atxaga**

Gero, infartua izan zuenean, **ospitalera** eraman genuen, non astebetean egin baitzuen, zainketa berezietako unitatean. **Joan Mari Irigoien**

Emakumeak ubelduak, atzamarkadak eta hipotermia zituen, eta Gasteizko **ospitale** batera eraman zuten. **Berria - Euskal Herria**

Sendatu eta berehala ihes egin nuen **ospitaletik**. **Harkaitz Cano**

"Ni infernua egona nauk", esan zuen **ospitaletik** etxeratu zenean. **Bernardo Atxaga**

Ebakuntza ondoko egunak dira, **ospitalean** da oraindik emaztea. **Imanol Zurutuza**

Semea **ospitalean** dut. **Koro Navarro**

Aita **ospitalean** dauka, oso gaizki. **Bernardo Atxaga**

Hilabete **ospitalean** pasatzen du, eta hilabete amarekin. **Koro Navarro**

Charly gaur goizean hil da **ospitalean**. **Aingeru Epaltza**

Ez zuten **ospitalean** hartu nahi. **Marzel Etxehandi**

Ospitaleak topetaraino beteta daude. **Josu Zabaleta**

Urtarrilean, eskarlatina zuela eta, **ospitalean** sartu zen Levi. **Pablo Sastre**

Ospitalean egindako berrogei egunak etorri zitzaizkion gogora. **Unai Elorriaga**

Ospitalean geratu behar duzu. **Xabier Olarra**

Halpin doktoreak, Dublin Hiriko **Ospitaleko** zirujau laguntzaileak. **Irene Aldasoro**

Ospitaleko sendagile batek, nerbioetako gaixotasunetan espezialista bera. **Josu Zabaleta**

Neu nintzen **ospitaleko** ginekologia zerbitzuko eta, batez ere, laborategiko buru. **Hasier Etxeberria**

Argazkietan, ubeldutako gorputz biluzia **ospitaleko** ohe gainean etzanda. **Iñigo Aranbarri**

Irtenbide bakarra geratu zitzaigun: burusi batekin nola edo hala estali, taxi bati deitu eta **ospitaleko** larrialdietara joatea. **Jon Arretxe**

Basurtuko **ospitaleko** umeen pabiloietara. **Paddy Rekalde**

Bazeuden beste hiru gorpu **ospitale** bihurtutako Santa Clara komentutik hurbil. **Lutxo Egia**

Zoro-etxearen eta **ospitalearen** nahaste bat iruditzen zitzaion mundua; adimenez azkarra izatea zorritzara baizik ez zen, eta arduragekeriatik eta eromenetik zoriona baizik ezin etor zitekeen. **Josu Zabaleta**

Irisarriko **ospitalearen** zabaltze ofizialean. **Herria**

Osakidetako **ospitale** guztietatik, ordea, bakarrean eskaintzen dira (Barakaldoko Gurutzetako ospitalean) intseminazio artifizala, *in vitro* ernalketa eta espermatzoide-injekzio intrazitoplasmatikoa (ICSI) teknikak. **Berria - Harian**

Hamasei urtetik behetiko gaixoak, **ospitale** bereko pediatria sailean artatzen dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Orduantze, oposizioz **ospitale** mediku lanpostu lortu berria baitzuen hark. Josu Zabaleta

Zenbait egunen buruan baino ez zioten esan **ospitalekoek** bilobatxoa itsua zela. Mirentxu Larrañaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bazen **Ospitale** Nagusiko gizonezko erizain bat ere. Josu Zabaleta

Japonesek Manila atakatu zutelarik, bertako jendeek *Jai Alaien* kantxa **ospitale** handi bat bilakarazi zuten, bonbardaketen biktima ugari aterbetu eta sendatu behar baitziren.

Ramuntxo Etxeberri

Bagdadeko **ospitale** haundienean badira 2.500 ohe erientzat, hek ere zinez beharrezkoak. Herría

Ospitale Orokorrean sartzeko barneko ikasleentzako azterketa batzuk izatekoak ziren handik hilabete batzuetara. Josu Zabaleta

Ospitale psikiatrikoan egon nintzen garaian, benetan erotu behar nuela iruditu baitzitzaidan. Joan Mari Irigoien

Groningengo **Ospitale** Unibertsitarioko sendagileek protokolo bat sinatu zuten Fiskaltzarekin. Berria - Gaiak

Barnes igandean hil zen, Nashvilleko **Ospitale** Baptistan, pneumoniai jota, 67 urterekin. Berria - Kultura

-Hau Roberto doktorea da, **Ospitale** Klinikoa lan egiten du: Joan tratatzen zuen medikua da. Antton Olano

Hemeretzi urte egitekotan orduantxe, dagoeneko egona zen hainbat bider buruko erientzako bi **ospitale** pribatutan. Oskar Arana

Funski berri eta emendatu dute Baionan **ospitale** publikoko amategia. Herría

Txileko diktadore Augusto Pinochet Santiagoko **ospitale** militarera eraman zuten atzo. Berria - Mundua

Urtebete pasatxo zeraman amonak zaharrentzako **ospitale** hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiriko **ospitaleak** aterpe ematen zien Donejakuera joaten ziren erromesei. Aingeru Epaltza

Trenaren azken bagoia furgoi ireki bat zen, hartatik emakume galtzerdi beltz batzuk zeuden zintzilik kulunkan, segur aski kanpainako **ospitale** bateko erizainenak.

Fernando Rey

Prince Albertera iritsi gabe, bideko **ospitale** batean hil zitzaion ama Michaëli. Pablo Sastre

Drogamenpekotasuna gainditzeko rock izarrak hartzen dituen **ospitale** sotila. Harkaitz Cano

Miquel Bernardo Kataluniako **Ospitale** Klinikoko Eskizofrenia Programako zuzendariak *Zer dakizu eskizofreniaz?* liburua aurkeztu zuen atzo Bilbon. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azkenean, maiatzaren 30ean, Vatikanoko **ospitale** zerbitzu batean onartzen nute. Michel Oronoz

Laboratorio... **ospitale** administrazio... mediku etab... Herría

Sekretupean dago, **ospitale** gela batean gakoturik. Ramuntxo Etxeberri

Bada esaten duenik Perikok zazpigarren **ospitale** egonaldia bati uko egin nahi izan ziola modu horretan bere buruaz beste eginaz. Pako Aristi

Ospitale -eremua han behean zegoen, esperientziadunek "Bigarrena" soilik esaten zioten tximinietako baten magalean. Urtzi Urrutikoetxea

Zure **ospitale** egunak eta pausukoak kontrolatuak izan dira bulegoetan. Marzel Etxehandi

Tелефонoaren bestaldean **ospitale** tonu luze bat. Harkaitz Cano

Ez nekien **ospitale** -eritegia non zen, baina aurkituko nuelakoan nindagoen askiko nuen eria erakustea, eta konprenituko ninduten. Marzel Etxehandi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zoritzarrez, aurki hiltzekoa Azpeitiko odol- **ospitalean**. Txillardegí

Handik, menditik gora, batzuk hilerrietara, besteak odol- **ospitaleetara**, zaurituak denak batean, hildakoak nazio eta mailaren arabera. Jon Alonso

Iratxeko alimaleko batimendu hartan, gerla- **ospitale** bihurtutako monastegiko oheetan, 900 soldadu zeutzan. Txiki-txiki egindako herririk hondatuak, iraganbideko

gudu- **ospitale** zabalak, hilkutxa hutsak zerraldoen esperoan. Txillardegí

Gerra-nobela ere bada (Dunkerkeko erretirada maisuki deskribatuta dago), eta baita gerra-nobelaren aldaera den **ospitale** -nobela ere. Berria - Kultura

Santespirtu, erromes **ospitale** baten inguruan sortua, hain zuzen ere, juduek XVI-XVII^o mendeetan kolonizatutako auzoa. Javi Cillero

5 ospital etxe (orobat ospitaletxe)

Grabieli lharre da, Donapaleuko **ospitale** -etxeko omoniera. Aingeru Epaltza

Leen behakoa zoan **ospitaletxe** zaharren harri zaharretarat, emokadurarik gabe zuritua barnean argitzeko. Herría

6 ospital ontzi ospitale bihurturiko itsasontzia.

Behin destruktoreak Valentzia utzirik, *Maine* britainiar **ospitale** -ontzira eroan zuten. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bartzelonako ospitale (6); behin behineko ospitale (3); bordeleko ospitale (3); eko ospitale (3); euskal herriko ospitale (3); falujako ospitale (3); gasteizko ospitale (4); hiriko ospitale (5); iruñ

ospitale barnean (4); ospitale batean dago (3); ospitale batean hil (5); ospitale batera eraman (10); ospitale berean (3); ospitale bihurtutako (3); ospitale gisa (4); ospitale handi (3); ospitale klinikoko (5); ospitale militar (3); ospitale militarrean (3); ospitale militarreko (7); ospitale militarra (3); ospitale militarra eraman (3); ospitale nagusia (3); ospitale nagusian (6); ospitale nagusiko (4); ospitale nagusira (5); ospitale pribatu (3); ospitale pribatuei (3); ospitale psikiatriko (4); ospitale psikiatrikoa (3); ospitale psikiatrikoan (4); ospitale psikiatrikoetan (5); ospitale publikoan (4); ospitale publikoetan (3); percy ospitale (3); santiagooko ospitale (5)

eliza eta ospitalea (3); irisarriko ospitalea (4); ospitalea utzi (5)

baionako ospitaleak (3); ospitaleak gainezka (3)

aita ospitalean (4); ama ospitalean (9); arrasateko ospitalean (3); artean ospitalean dute (3); baionako ospitalean (47); baionako ospitalean dugu (3); basurtoko ospitalean (3); basurtuko ospitalean (18); donostia ospitalean (16); donostiako ospitalean (26)

fresnesko ospitalean (3); galdakaoko ospitalean (6); garcia orkoien ospitalean (5); gasteizko txagorritxu ospitalean (6); gregorio marañ gurutzetako ospitalean (26); gurutzetako ospitalean dago (4); hilabete ospitalean (3); hiriko ospitalean (5); on ospitalean (4)

eko ospitalean (4); irisarri ospitalean (14); irisarriko ospitalean (4); iruñ nafarroako ospitalean (16)

ospitalean artatu (10); ospitalean artatu zuten (4); ospitalean bertan (9); ospitalean da (9); ospitalean dago (35); ospitalean daude (6); ospitalean dugu (5); ospitalean dute (4); ospitalean ebakuntza egin (3)

ospitalean egon (23); ospitalean egon zen (7); ospitalean eman (3); ospitalean geratu (5); ospitalean hartu (4); ospitalean hil (23); ospitalean hil zen (13)

ospitalean igaro (3); ospitalean ikusten (3); ospitalean ingesatu (5); ospitalean izan (11); ospitalean izan zen (4); ospitalean jaio (3); ospitalean jarraitu (4); ospitalean jarraitzen (10); ospitalean jarraitzen dute (4); ospitalean lan egiten (3)

ospitalean sartu (15); ospitalean sartu zuten (4)

ospitalean zegoela (8); ospitalean zegoen (17); ospitalean zela (5); ospitalean zendu (5); ospitalean zendu zen (4); ospitalean ziren (3)

san millan ospitalean (4); semea ospitalean (3); txagorritxu ospitalean (8); txagorritxuko ospitalean (3)

irisarriko ospitalearen (3); ospitalearen aurrean (4)

ospitaleetako medikuek (4); ospitaleetako sendagileen (3)

eko ospitaleetan (4); iruñ ospitaleetan dauden (3)

ospitaleetara eraman (7)

baionako ospitaleko (3); basurtuko ospitaleko (5); donostia ospitaleko (25); donostia ospitaleko laborategiko (5); donostiako ospitaleko (10)

falujako ospitaleko (3); galdakaoko ospitaleko (9); gurutzetako ospitaleko (13); hadassah ospitaleko (3)

eko ospitaleko (3); iruñ nafarroako ospitaleko (20)

ospitaleko arduradunek (4); ospitaleko atarian (8)

ospitaleko egonaldia (3); ospitaleko etika batzordeak (3); ospitaleko gela (6); ospitaleko gelan (3); ospitaleko geletan (3)

ospitaleko iturriek (12); ospitaleko iturriek adierazi (3); ospitaleko iturrien arabera (20); ospitaleko laborategiko (5); ospitaleko langileak (7); ospitaleko langileek (3); ospitaleko langileen (3); ospitaleko larrialdi (5); ospitaleko larrialdietara (3); ospitaleko mediku (8); ospitaleko medikua (6); ospitaleko medikuek (6); ospitaleko medikuen (3)

ospitaleko ohe (5); ospitaleko ohean (6); ospitaleko ohetik (3); ospitaleko onkologia (3); ospitaleko pediatria (3); ospitaleko psikiatria (4); ospitaleko sendagile (4); ospitaleko sendagileek (4)

ospitaleko zainketa (7); **ospitaleko zuzendari** (5); **ospitaleko zuzendaria** (4); **ospitaleko zuzendariak** (4); **ospitaleko ospitaleritzak** (4)
rudolfinerhaus ospitaleko (3); **santiago ospitaleko** (3)
arrasateko ospitalera eraman (3); **baionako ospitalera** (9); **basurtoko ospitalera eraman** (3); **basurtuko ospitalera eraman** (28); **bidasoako ospitalera eraman** (3); **donostia ospitalera eraman** (22); **donostiako ospitalera eraman** (15)
emakumea ospitalera eraman (4); **eraman zituzten ospitalera** (15); **eraman zuten ospitalera** (10); **fresneseko ospitalera** (3); **galdakaoko ospitalera eraman** (23); **garcia orkoi** ospitalera (4); **gasteizko santiago ospitalera** (5); **gidaria ospitalera** (3); **gurutzetako ospitalera eraman** (32)
eko ospitalera eraman (3); **iruiñ joan zen ospitalera** (3); **lizarrako ospitalera eraman** (3); **mendaroko ospitalera** (5); **nafarroako ospitalera** (22); **nafarroako ospitalera eraman** (11)
ospitalera bidali (3); **ospitalera bidean** (4); **ospitalera bisitan** (4); **ospitalera bizirik iritsi** (3)
ospitalera ekarri (3); **ospitalera eraman** (395); **ospitalera eraman zituzten** (54); **ospitalera eraman zuten** (172); **ospitalera eramana** (3); **ospitalera eramateko** (10); **ospitalera eramaten** (4); **ospitalera eraman dute** (3)
ospitalera ikustera (3); **ospitalera iristen** (4); **ospitalera iritsi** (11); **ospitalera itzuli** (3); **ospitalera jo zuten** (3); **ospitalera joan** (32); **ospitalera joan zen** (8); **ospitalera joateko** (9); **ospitalera joaten** (7)
parisko Percy ospitalera (3); **reina sofia ospitalera** (5); **san millan ospitalera** (3); **santiago ospitalera eraman** (10); **tuterako ospitalera** (3); **txagorritxuko ospitalera eraman** (5)
zumarragako ospitalera eraman (3)
ospitalerako bidea (3); **ospitalerako bidean** (6); **ospitalerako bidean hil** (3)
baionako ospitalerat (13); **baionako ospitalerat eraman** (6); **ospitalerat eraman** (17); **ospitalerat eraman dute** (5)
ospitaletako medikuek (3)
ospitaletara eraman (3)
basurtuko ospitaletik (4); **ospitaletik atera** (24); **ospitaletik atera da** (4); **ospitaletik ateratzean** (3); **ospitaletik ateratzen** (5); **ospitaletik deitu** (4); **ospitaletik etxera** (6); **ospitaletik ihes egin** (3); **ospitaletik irten** (9); **ospitaletik itzuli** (4)
ospitalezk kanpoko (6)
donostiako ospitalaren (3); **ospitalaren atarian** (4)

ospitallealdi *iz* ospitale batean eginiko egonaldia.

Hernia diskala, neumonia eta urdail-hesteetako odoljariora zirela medio iragan beharreko beste hiru **ospitallealdiren** ondoren jadanik 30 urte ingurukoari legez hasi zitzaion mintzatzen, erretiroaren atarira iritsita biak ere. **Pako Aristi**

ospitaleratu, ospitalera(tu), ospitaleratzen da/du *ad* ospitalera joan; ospitalera eraman.

Hurrena koliko nefritiko batek behartuta berriro **ospitaleratu** eta handik itzuli zenean iruditu zitzaion emaztea gaztetaldi berri batek igurtzi zuela! **Pako Aristi**

Horiematik bi larri zauritu ziren, erreduren zainketa bereziko unitatean **ospitaleratu** baitzituzten. **Berria - Ekonomia**

Jasser Arafat urriaren 28an **ospitaleratu** zuten bere osasunak okerrera egin ondoren. **Berria - Mundua**

1976ko urriaren eta 1977ko urtarrilaren artean lau aldiz **ospitaleratu** behar izan zuten alkoholismoa zela-eta, diru arazo larriak ere bazirela tartean. **Koro Navarro**

Gizon bat **ospitaleratu** dute Gasteizen legionelak kutsatuta. **Berria - Euskal Herria**

Larri **ospitaleratu** zuten Mikis Teodorakis maisu greziarra, baina osatuz doa. **Berria - Kultura**

Joan zen igandean **ospitaleratu** zuten umea, pneumoniaren ohiko zantzuekin. **Berria - Harian**

Lau lagun **ospitaleratu** eta ebakuntza egin behar izan zieten. **Berria - Euskal Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Istripu larri bat asteburuero, urte hasieratik 73 zauritu, hamaraka **ospitaleratu**. **Berria - Euskal Herria**

ospitaleratze *iz* ospitalera joatea; ospitalera eramatea.

Oraindik beste loraldi bat izan zuen bere senarraren miresmenean, hau, prostata ebakuntza bat izan eta bere azken **ospitaleratzetik** etxeratu zenean. **Pako Aristi**

Nekea eta deshidratazioa izan dira **ospitaleratzearen** arrazoiak. **Berria - Euskal Herria**

Denak untsa joan direla, erdi presaka egin bada ere **ospitaleratze** hori. **Herria**

Ez dituzte sekula ikusten bankuetako txartelak; beraz, hilaibeteak pasa daitezke inor konturatzera, eta norbait ohartzen bada, jeneralean kasualitatez izaten da, kasu honetan bezala, Brenten **ospitaleratzea** ustekabekoa izan zelako. **Xabier Olarra**

Honoko arloak hobesten saiatuko dira datorren urteaz geroztik: pediatria, lehen sorospena, bezeroen harrera, larrialdiak eta **ospitaleratzeak**. **Berria - Euskal Herria**

ospitalero *izond/iz* Done Jakue bideko herrietan, erromesak hartzen dituen. ik **ospitallezain**.

Atarian jaun andere **ospitaleroen** irribarre goxoak berehala etxekotu naute: zigilua segidan Credencialean daukat, ohea non dudan badakit, eta ere garbiketa tokia. **Piarres Aintziart**

Komentuko aterpean jarriak dira jadanik eta ulertu dut behar ez zen atean joa nuela oixtian eta, urruntxeago zela erromesen zain **ospitaleroa**. **Piarres Aintziart**

Arratsean, erromes eta **ospitalero** bere familiarekin, denek elkarrekin jan dugu. **Piarres Aintziart**

Bekatua ordaintzeko **ospitalero** gisa jarri zen bere emazte Adelarekin. **Piarres Aintziart**

ospitalertsia (*Euskaltzaindiak desegokitzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea*) *iz* andere ospitaleroa.

Emazte batek erraiten dit iturriko ura arras ona dela eta freskoa; gehitzen dit bera dela **ospitalertsia**. **Piarres Aintziart**

Ospitalertsak, Madrilgo emazte bat, bere oporren parte bat hemen iragaiten du. **Piarres Aintziart**

Xutik egon gara, isilik, **ospitalertsak** otoitz bat egiten zuela eta guk "Aitaren". **Piarres Aintziart**

ospitaletxe ik ospitale 5.

ospitallezain *iz* Done Jakue bideko ospitale bat zaintzen zuen pertsona.

Ospitallezainak eskertu izanen zuen, segur aski, harridura keinuren bat zapatagin ohiarengandik. **Aingeru Epaltza**

ospitalitate *iz* abegi edo harrera ona.

Gizakien etxeotan ere, gau eta egun etxeko ateei zabalik eutsiko zaie, eta mahaia afaltzeko pronto, inongo espirituk gure etxeko **ospitalitatea** nahi balu ere... **Pello**

Zabala

Ospitalitatea bertute estimatua eta lege onekoa zuten beti Ekialdean. **Pello Zabala**

ospitalizazio *(corpusean hospitalizazio soilik) iz ospitaleratzea.*

Santurtziko San Juan de Dios Ospitaleko **hospitalizazio** psikiatrikoko eremuko zuzendari Jose Maria Galleteroren esanetan, udaran gaixotasun psikologikoak ugartu egiten dira. **Berria - Euskal Herria**

ospizio ik **hospizio**.

ostadar *iz zeruan, euria egitean edo egin ondoren eguzkiaren aurrez aurreko aldean gertatzen den uztai argitsua, zazpi kolorez osatua, eguzki-argia euri tantetan islatzen denean agertzen dena. ik **ortzadar**.*

Tuneletik irteten ziren bakoitzean, **ostadarra** zabaltzen zen mendixka baten edo badia txiki baten gainean. **Ibon Urbarri**

Greziako mitologian Iris zerukoen mezularia zen, zerua eta lurra elkartzen zituen eta batetik bestera hegan zihon bakoitzean hegaldiaren arrasto koloretsua uzten zuena: **ostadarra** edo Erromako zubia. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nik zerua lainotzean, **ostadarra** azalduko da hodeietan.

Neure **ostadarra** ezartzen dut hodeien artean, lurrarekin dudan itunaren ezaugarri. **Jose Antonio Mujika**

Eguzkiak mendebalean dir-dir, zeruan **ostadarra**. **Joan Mari Irigoien**

Antarttikak irribarre egingo du, zeru urdin garbiaren azpian eguzkiaren errainuak **ostadarraren** koloreak islatuko baititu izotz tontor zurietan. **Joseba Sarrionandia**

Ostadarrek bezala, osorik hartzen du zorigaitzak ere odaiertz zabala, **ostadarrarenak** bezain ugariak ditu koloreak eta hark bezain desberdinak, baina harexen modura elkarri estu lotuak. **Koro Navarro**

Maite itzazu **ostadar** guztietako koloreak ebatsi dituzten gautxoriak. **Javi Cillero**

2 (hitz elkartuetan)

Hodeietan barrena ibilki, eguzkiak argia erauzten zien harriei; **ostadar** -kolorez janzen zituen bazter guztiak, lurraren ura edaten; airearekin jostatzen, aireak jostailu zituen hostoei distira emanez. **Juan Garzia**

ostaila *iz zuhaitz eta landareen hostoen multzoa.*

Biharamunean igandea, zer egun ederra, berriz ere Los-Baños etako feirako parkea euskal kolorez bezituri zagon eta goizetik entzun zaizken gure soinu eta kantuak parkeko zuhaitz berden **ostaila** artetik. **Herria**

ostalari *(195 agerraldi, 45 liburu eta 70 artikulutan; orobat **ostaleri g.er.**) 1 iz ostatu baten edo ostalaritza-zerbitzu baten burua. ik **ostatari; ostaler**.*

Heldu ziren ba bentara; ostaturik ba ote zegoen galdetu zioten **ostalariari**. **Patxi Ezkiaga**

Bere zaldari arretaz kontu egiteko esan zion **ostalariari**, izan ere munduan ez zen beste bat hain onik, ogia jaten zuenik. **Patxi Ezkiaga**

Eta, **ostalariak** berak lagunduta, nor bere gelara joan gara; elkarren ondoko gela banatara. **Txillardegi**

Edaria eskatu zuten eta **ostalariak**, gizon lodi matrail gorri baina era berean abegikor batek [...] Saboiako ardo gorria ekarri zien. **Felipe Juaristi**

Goizegi iruditu zaio alkohola edateko, eta laranjazko kas bat eskatu dio **ostalariari**. **Iban Zaldúa**

Honezkerok, **ostalaria** ohartua izanen da ez dela gosaltzera jaitsi. **Aingeru Epaltza**

Munduan zehar bidaia-puskarik gabe zebilen gazte atzerritar batek oso susmagarria izan behar zuen **ostalari** batentzat. **Anjel Lertxundi**

Etorkizunean ere elikagaiak bataiatzeaz **ostalariak** arduratuko dira, ziririk sartu gabe, hiperbolik gabe, funtsezko ezer ezkatutu gabe, espekulatu gabe. **Edorta Agirre**

Merkatarien eta **ostalarien** elkarteek bat egin dute greba egunarekin. **Berria - Euskal Herria**

2 ipar tabernaria.

Panpilik bierrak manatu zituen, **ostalariak** Johnny Hallydayren zinta azkarrago jar zezan garrasitzen zuen artean. **Itxaro Borda**

3 (izenondo gisa)

Bihar San Juan de Ortega fama handiko herrira eta beregisako erretore **ostalariak** errezebituko nau. **Piarres Aintziart**

4 *izond* biologian, izaki bizidunetz mintzatuz, bizkarroi bat jasatzen duena.

Hau da, birusa birioi egoeran birus partikula osoa da, baina zelula **ostalaritik** kanpo dago dagoenean, eta birusak erasotutako zelularen mintzarekin bat egiten duenean, proteinak egitura ezberdina izaten duela. **Berria - Gaiak**

ostalaritza 1 *iz bidaiariei eta kidekoei jatekoa eta ostatua ematen dien zerbitzuen multzoa.*

Ostalaritzako establezimenduetan eta aisialdiko tokietan, hala nola jatetxeetan, tabernetan, zinemetan eta antzokietan, erretzeko tokiak egokitzea zehazten du. **Berria - Euskal Herria**

Ostalaritzako nagusien erakundeak jatetxe eta hoteletako egoera «erlatibizatu» nahi du. **Berria - Ekonomia**

Ostalaritzako BEZa murrizteko proposamena. **Berria - Ekonomia**

Hango prezioek hiriko **ostalaritzako** ohiko lapurreta maila berdintzen dute. **Aingeru Epaltza**

Kontuan hartu beharrekoa da halaber enpresa multinazionalen eraginpean dauden jarduera pribatuaren nazioartekotzea [...] eta orobat hartu behar da kontuan bidaia-bulegoak eta **ostalaritza**, aisialdi-parkeak eta komunikabideak (prentsa-bulegoak, egunkari eta telebista- kateak) bezalako jardueren nazioartekotzea. **Koro Navarro**

Aprendizen eskas gorria **ostalaritzan**. **Herria**

Euskal Herri osoa enpresa bihurtzeko, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreek bat egin beharko: itsas, ibai eta lehorreko arrain-itsaskiak ekoiztea, horiek industrian, **ostalaritzan** eta etxean eraldatzea eta Euskal Herriko mahaietan kontsumitzea, bertan harrapatzen den arrainetik ale bat ere inportatu gabe. **Edorta Agirre**

Ostalaritzaren esparruko enpresek, hain zuzen ere, etekinik ateratzen diote Done Jakue bideari. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ostalaritza negozio bat duen Domenico Gioricok eta eraikuntza arloan lan egiten duten bere bi anaiek sortu dute telebista, hizkuntza eta kultura katalana sustatzeko. **Berria - Mundua**

Donostian bezalatsu, Tabakoaren Aurkako Espainiako Legeak aztoratuta dauka Bizkaian **ostalaritza** mundua. **Berria - Euskal Herria**

Costa Ricako **ostalaritza** sektoreari turismo sexuala babestea leporatu izan diote sarri. **Berria - Gaiak**

Ostalaritza lantoki batean lan egiten zuten hiru emakumek salatu zuten, atxilotuek esplotatu egiten zituzten eta eurretaz aprobetxatzen ziren. **Berria - Euskal Herria**

100 metrotik gorako tabernetan oraindik obrarik ez egiteko eskatu du EAEko **Ostalaritza** Elkarteak. **Berria - Euskal Herria**

ostaler 1 iz ipar ostalaria.

Ostaler, komertsant eta beste, gehienak arras satisfos. **Herría**

Landestar **ostaler** batek nahi luke beretu, tratua egina bezala, grado handiko hotel eder baten egiteko gisa hartako jabetxe zerbaitekin. **Herría**

Ostatu batera joan, eta handik ez zen ateratzen **ostalerrak**, hesteko, haizatzen zuen arte. **Elena Touyarou**

Landestar **ostaler** batek nahi luke beretu, tratua egina bezala, grado handiko hotel eder baten egiteko gisa hartako jabetxe zerbaitekin. **Herría**

«Ostatuak ez dira handiak eta praktikan ezin ditugu berezi guneak» dio Pannecau karrikako **ostaler** batek. **Berría - Harian**

2 (adizlagun gisa)

Kartzelatik atera eta Otsabiden **ostaler** plantatu zen Xarles elizetako ebasle ohia. **Itxaro Borda**

ostalergo iz ipar ostalaritza.

Horra zergatik ikastegi berri bat eraikiko duten, Miarritzen izanen dena, **ostalergo**-ikastegitik ez urrun. **Herría**

Gazterik joana Pariserat, han ereman du bere laneko denbora **ostalergoan**. **Herría**

ostaleri ik ostalari.

ostalertsia (Euskaltzaindiak desegokitizat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz ipar emakumezko ostalerra.

Atean dagoen **ostalertsak** erran dit, irribarre goxo batekin, gaurko erromes lehena naizela. **Piarres Aintziart**

Ez zegoen ene adineko lagunik... eta **ostalertsia**, emazte nahasi, mihi-zikin, kurios pinterdi bat zen. **Daniel Landart**

Ostalertsak berehala erakutsi dio nondik behar zuen joan ene etxerat. **Janbattitt Dirassar**

ostalgintza iz ostalaritza.

Orotara, 28 ikastaro dira antolatuko: 12 Miarrizteko **ostalgintza** lizeoan, uztailaren 7tik 11 ra, 15 Iruñeko Larraona ikastetxean, uztailaren 15 tik 19 ra; bat, ondarroan.

Herría

ostalier 1 iz jabetxe edo ostatu bateko bezeroa. ik ostari.

Bertan otorduak ematen zituzten, **ostaliertzat** dockerrak, inguruko langileak, Pontrique kaleko putetxeko damak... zituztela. **Pablo Sastre**

Udako jaiegun gehienetan etxe horretan **ostalier** egon -Isabel Sanjoseri ere desiratzen ez nion torturaldia, bertzalde-, eta ez zuen oraino kaxkoratu kazetaritzak bulego eta saltokietan ohi ez diren ordutegiak dituela. **Aingeru Epaltza**

2 ostalaria.

Taxistak, tabernariak eta **ostalierrak** hobeto bizi dira gaur Bilbon. **Berría - Kultura**

ostantzean ik osterantzean.

ostantzerako ik osterantzean 2.

ostape iz ostailaren azpialdea.

Basapiziti guziek **ostape** eta haizpe babesetara jo dute larriturik. **Patziku Perurena**

ostargi 1 iz lirioa.

Lorearen kolore bereziek, batez ere **ostargi** urdinarenek, zeruko urdinak eta ostadarraren kolore nahasiak ekartzen dituzte gogora. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Euskaraz lili esaten dugunean ia lore esango bagenu bezala da, lili hitza erabiltzen baita hainbat lore izendatzeko: zitoria, lila, azuzena, itsas liliapa... eta batez ere lirioa edo **ostargia** (zeruko argia). **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

2 ostargi-belar lirio-belarra. ik iris.

Iris horiak (**ostargi**-belar horiak) ikusi zituen ilunean, eta, jakinez landare horiek ur apalekoak direla, handik zeharkatu zuen ibaia. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Zango potolo zuriak zituen, **ostargi**-belar antzeko zain urdinkara ñimiñoz osaturiko itzalgunez belztuak. **Mirentxu Larrañaga**

Estakuru-antzeko musutxoak ematen zizkion, arin-arin, hatzetan gora eta behera, eta gardenia, zitori eta **ostargi**-belarren izenak xuxurlatzen zizkion. **Mirentxu Larrañaga**

ostari iz ostatu edo hotel bateko bezeroa.

Hotelak ez du zerikusirik **ostarien** bizitza eta gorabeheretan. **Iñaki Zabaleta**

New Harlemgo **ostariak** beren geletako zokoetan sartu ziren. **Iñaki Zabaleta**

Eta jauziz jauzi zebilen ene arima, eta ene oinak lurrez lur eta hiriz hiri, zeren Bolognatik Florentziarat jo baikenuen gero, Pedro Huizi **ostari** zuen hirirat... **Joan Mari Irigoien**

ostarku iz ostadarra.

Ostarkuaren oin bila hasiz gero gertatzen den legera, ez dago argiok lurrera lotuko dituen oinarriak, begiradaren hari ezinezkoak ez badira. **Pako Aristi**

Egutariatik elutsera iragotzen gaitu, lurralde bahietatik lurralde libreterara, lehorretik itsasora, gau ilunetik egun argitara, edo lurretik zerura Jainkoaren zubia edo **ostarkua** bitarteko. **Patziku Perurena**

ostarte iz hodei arteko eguzkialdia. ik hodeiarte.

Mendi erpinetako elurrak harrotuz dator hego haizea, gero eta laztan gozoagoa dario **ostarteko** eguzki oparoari. **Anjel Lertxundi**
Miarritze aldean, hodeiertz ilunean, **ostarte** txiki bat zabaldua ikusi zuen. **Migel Angel Mintegi**
Mila pauso geroago, **ostarte** urdinak ikusi nituen zuhaitzen artean, eta arratsaldeko azken eguzkia haien gailurretan. **Bernardo Atxaga**
Gero eta bakanago ikusi ahal izan ditugu hodeien arteko **ostarte** igarokorretan geure mendi eta herriak. **Txillardegi**
Eguraldiari buruzko saioan, astelehenean **ostarteak** agertuko zirela esan zuten. **Aitor Arana**
Eguerdia argiagotzen ari zen, zeruak gero eta **ostarte** gehiago baitzuten. **Anjel Lertxundi**
Gaua epela zen, ilargia jostalari zebilen zeruan, laino arin eta **ostarte** zabaleko tapizean. **Migel Angel Mintegi**
Urte ilunetako gure historiari behako baten emaitak argitzen bazuen apur bat gure **ostartea**, iragan bi mendeetan gure Iparrak eta Hegoak historia bedera harilkatu izanak zenbait ohar egiteko parada eskainiko digu menturaz. **Piarres Xarriton**

ostatari (21 agerraldi, 4 liburutan) iz ostalaria.

Ostatariak afaria eta botila-ardo eta -sagardo mordo bat ekarri zituen. **Koro Navarro**
-Bai katu gozoak **ostatari** honek karabineroei erosten dizkienak! **Koro Navarro**
Martinek ordaindu zion **ostatariari**, eta Logroñon zer tokitan utzi behar zituen zaldiak adostu zuten. **Koro Navarro**
Gau batean, Ben Guy, Exbourne-ko **ostatariaren** semea, soldadugai berrietakoa, lotan harrapatu zuten bere postuan. **Mirentxu Larrañaga**
Begiratzen diodanean gure **ostatari** gazteenari, emakume trebe, alai, langile eta ilobetan onenari, aitortzen dut, jaun-andreok, ez dakidala zeini eman beharko niokeen saria. **Irene Aldasoro**

2 (izenondo gisa)

Estudianteak andre **ostatariaren** azpiko gona jantzi zuen eta zapi bat lotu zuen buruan. **Koro Navarro**

ostatatu, ostata, ostatatzen 1 da/du ad ostatu hartu; ostatu eman.

Las Vegasera iritsi arte ez gara hoteletan **ostatatuko**. **Patxi Zubizarreta**
Martin bere emaztearekin, eta Bautista berearekin, Ainhoara hurbildu eta bentan **ostatatu** ziren. **Koro Navarro**
Don Carlos, Fermin Iribarren jaunaren etxean **ostatatu** zela nekien. **Txillardegi**
-Non **ostatatuko** zara Istanbulen? -galdetu dit, bideko azken te-kikarakada dastatzen genuen bitartean. **Jon Arretxe**
-Zorionekoa bart gazte hau etxean **ostatatu** duen jabea. **Patxi Zubizarreta**
Basetxe huts baten inguruan **ostatatu** gaituzte, Charlie preso daukaten Walter Camp esparrutik milia bat baino gutxiagora, bidean behera. **Mirentxu Larrañaga**
Gobernu Liberalak Oñatiko Unibertsitatea hestea erabaki zuela; eta arkupe, klaustro eta gela eder haietan soldaduak **ostatatzea** erabaki zuela. **Txillardegi**
Frantzian, Abbe Pierre Fundazioaren arabera, gaizki **ostatatuta** dauden 3 milioitik gora lagunen artean egoerarik itzelena dutenak paperik gabekoak dira. **Beria - Harian**

2 irud/hed

Jaieneri, nola ez dakiela edo badakiela, hiltzeko gogo sor bat **ostatatu** zaio bere baitaren baitan. **Iñaki Segurola**
Kontzientziaren baitan **ostataturik** nuen harra nahi nuen ostikatu eta handik igorri. **Joan Mari Irigoien**

ostatetxe ik ostatu 9.

ostatu 1 iz diru truke jan eta lo egiten den etxea.

Egarriak akuilaturik portuko **ostatu** batera sartu zenean baso bat ur eskatzera. **Felipe Juaristi**
Gau batentzat, edo berdin zenbaitentzat, logela ere **ostatu** horretan du segurtatu. **Janbattitt Dirassar**
Zenbat hotel, zenbat **ostatu** bisitatu zituzten? **Alberto Ladron Arana**
Guztira 1.300 lagunek egiten dute lan Gipuzkoako hotel, **ostatu** eta landa etxeetan. **Beria - Ekonomia**
Jatetxeetan, **ostatuetan** eta kafetegietan erretzea debekatzearen aldekoa zela adierazi zuen Byrnek orduan. **Beria - Gaiak**
Ostatua izba baten antzekoa zen, baina handiagoa. **Jose Morales**
Benta itxurako **ostatu** batean geratu ginen. **Inazio Mujika Iraola**
Triesten ez zen **ostatuturik** eta apopilo-etxerik falta. **Anjel Lertxundi**
Arratsean, haatik, giro bero batean murgildu naiz, *Meson* delako erromesen **ostatuan**. **Piarres Aintziart**
Janari-denda **ostatuarekin** komunikatzen zen beheko oinean, geletara eta ganbarara joateko eskailera hasten zen gelaxka baten bidez. **Joseba Urteaga**
Berak ezagutuko zuela **ostatu** egoki eta merkeren bat. **Anjel Lertxundi**
Ostatuko etxeoandreak atera zidan gau hartako afaria. **Anjel Lertxundi**
Kotxea patioan sartu eta batera, **ostatuko** morroia -edo *polovoia*, Errusian horrela deitzen baitiete **ostatuetako** zerbitzariei- jaunari harrera egitera irten zen. **Jose Morales**
Joanden aste buruan jakin dugu Marie-Louise Laxague Esnasu Menta **ostatukoa** zendu dela. **Herria**
Ostatuan lanean hasi eta, azkar baino lehen, eskualde osoan hedatu zen haren edertasunaren ospea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Hara heldutakoan, **ostatu** batean sartu zen atsedean hartzeko. **Askoren artean**
Ignazia Arkalaren **ostatuan** sartu zen umezain, eta hamalau urte bete zituen arte hantxe aritu zen lanean. **Koro Navarro**
"Colegio Mayor" horietako batean genuen **ostatu**. **Joxerra Garzia**
Bere bizitzaren azken aldera, San Verekundo monasterioan izan ohi zuen sarritan **ostatu**. **Askoren artean**
Ritz Hotelean neukan **ostatu** egun haietan. **Hasier Etxeberria**
Media Vida hotela dauka **ostatu**, eta hegazkin txartelak erosi berri ditu. **Ramuntxo Etxeberri**
Ordukotz baziren zapi etxe edo aterbe Konpostelara joaiten ziren beilarieri **ostatu** edo laguntza egiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Bidez bide dabilenak, **ostatu** asko eta adiskide gutxi. **Anjel Lertxundi**
Ondotik bazkaria Mendialde **ostatuan**. **Herria**
Argitzen hasia zen **ostatura** iritsi zirenean. **Elena Touyarou**
Ostatutik ateratzen den errepede meharrean gora ikusi du autoa. **Alberto Barandiaren**

2 ostatatzea.

Heldu zireba baintara, **ostaturik** ba ote zegoen galdetu zioten ostalariari. Patxi Ezkiaga

Ostatua ordaintzeko hainbat diru bederen emaiten ziguan, eta zertxobait gehiago ere bai. Joan Mari Irigoien

Proposatatu nuen landetxeren batera jotzea, **ostatu** eskatzera. Aingeru Epaltza

Extera gonbidatu nituen gero-: gizalegekoa da **ostatu** eskaintzea. Anjel Lertxundi

Quenutarrek **ostatua** eta mantenua ematen zioten. Karlos Zabala

Gizaseme hauek, ordea, ez ukitu, **ostatua** eta babesia eman baitzizkiet. Elizen arteko biblia

Banuen-eta nahikoa diru lehendabizi **ostatua** eta gero lana bilatzeko. Anjel Lertxundi

Finkatzen du bere oihal-etxola; han aurkitzen du **ostatu** atsegin. Elizen arteko biblia

-Non aurki dezaket **ostatu**? Juan Garzia

Inoiz etxerik gabe gelditzen banaiz, ez natzaizue **ostatu** eske etorriko. Aingeru Epaltza

-Bidaiariak gaituztu, emakumea, gau honetarako **ostatu** eske etorriak zurrera. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Latapie Etorbide Nagusiko **ostatu** ilara apainek, batimenduak oro urdinska eta berdintsu, Miarritze gogorazi zidaten. Saboiako ardo gorria ekarri zien, kolorez **ostatu** jabearen matrailena baino ahulagoa, baina zaparez urarena baino gozoagoa. Txillardegi

Sir John Oldcastle-k mundu guztiari barre eragiten zion bere tripa handiagatik, batez ere **ostatu** andreaki. Juan Garzia

Larderiatu ziharduen, ez erortzeko, malkotan ez hausteko, pairatzen zuen bakardadeaz ez damutzeko eta egoera deitoratzen zueneko **ostatu** zokoetan biltzen zirenean, solasa aihen bilakatzen zitzaion. Itxaro Borda

Zein atsegina zen hiritik kanpo egotea, are Dot's bezalako **ostatu** -zulo zabar eta ilun batean eserita egonik ere, kamioi-gidariz eta beisboleko biseradun txano hori eta gorriak jantzita zeramatzatzen nekazariz inguratuta. Oskar Arana

Miarritzeko **ostatu** ikastegiko ikasle multzo bat. Herria

Ostatu kontuak Frantzian ere ez dira dohainik. Joan Mari Irigoien

Luisak eta Violettek, berez, sekula zapalduko ez zuten **ostatu** klase horietakoa zen, beraz, beharriaz izan ezik. Felipe Juaristi

"Euri edo denbora on, beti kurri gabiltza, nehon ez gintezke geldi, beti joan behar dugu aitzina" dioen haurretako **ostatu** -kanta. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hurtado bere kapaz estali zen, eta, lasterka, mutilari jarraituz, kale galdu batera iritsi zen, Parador de la Cruz deitzen zen mandazain **ostatu** batetik gertu. Josu Zabaleta

5 irud/hed

Baita txakurtegi bat ere, etxeko ehiza-txakurren **ostatu** eta bizileku. Joan Mari Irigoien

Haren baitara bildu nintzen neu ere, eta maindirepean hartu nuen **ostatu**. Anjel Lertxundi

6 ipar taberna.

1963ko azaroaren 22ko eguerdi hastapen hartan Los Angelesko *Desert Inn* **ostatuan** zegoen, Mike Emerson polizia lagunarekin, kafea hurruputzen. Itxaro Borda

Frantziako Asanblea Nazionalaren egoitzaren saihetseko karrikan zegoen *Bar des Amis* **ostatuan** zerbitzari jartzeko. Itxaro Borda

TGVan sartu orduko kasik, zortzi lagunak joan ginen **ostatura**. Daniel Landart

Han barra bat dago, **ostatu** dotore edo pubetan izaten ohi den zur iluneko, baina pipiatua eta higatua. Aingeru Epaltza

Plazako **ostatuan**, garagardo bat bi hurrupaz edan nuen. Daniel Landart

Errobi ibaia zeharkatuz, herriko etxearen parean dagoen **ostatu** irlandesera joan zintezke. Ramuntxo Etxeberri

Plazako **ostatu** kanpoko mahai eta kadirak hartuak daude. Piarres Aintziart

Saltegiek denetarik bazuten eta **ostatuak** goizaldera hesten ziren. Elena Touyarou

Jakinik Bordeleko **ostatu** batean barman bat bilatzen zutela erabaki zuen hara joatea. Daniel Landart

Arratsean, Zizurko **ostatu** ttipi batean afaldu naiz bakarrik. Piarres Aintziart

Izugarria gertatu da Miarritzeko gau-**ostatu** baten atean. Herria

7 ostatu eman

Bihotz onez etxean **ostatu eman** zion gizonari aparte deitu eta esan zion: [...]. Askoren artean

Aspaldi, hire aitak nire aitari **ostatu ematen** zioan; horregatik etorri nauk jauregi honetara. Juan Kruz Igerabide

Nolatan **eman** diezu **ostatu** gure atarian gaizkile hauei? Askoren artean

Jainkoari begirune zion izen oneko gizon batek debozioz **eman** zion **ostatu**. Askoren artean

Nason zipretarraren etxera lagundu ziguten, hark **eman** behar baitzigun **ostatu**. Elizen arteko biblia

Ezta berrehun metro ere, beraz, **ostatu eman** zigun azken kafetegitik. Aingeru Epaltza

-Harrera ona egin zieten hiritarrek eta beren komenentziara **ostatu** egokia **eman** zieten baratze txiki batean. Askoren artean

8 ostatu-emaile izond/iz

Begira, anaia **ostatu-emailea**; zure erreguek behartuta etorri naiz zure etxera bazkaltzera. Askoren artean

Ostatu-emailearen etxera heldurik, zehatz-mehatz kontatu zioten haietako batek ametsetan ikusitakoa. Askoren artean

Migel aitaxi zena gaztetan bezala, nire **ostatu-emaile** Jehane Lapeyrère ere zapatagina zen. Aingeru Epaltza

Asmazioa berriro erakuts ziezaiola erregutu zion **ostatu-emaileari**. Anjel Lertxundi

9 ostatu etxe (probat ostatetxe)

Alpe Garaietan, izoztegien oinetan [...] dauden **ostatu etxe** guztiak bezala, Schwarenbatcheko bentak Gemmiko mendiartearen dabilizan bidaiariei babeslekua ematen die.

Josu Zabaleta

Oihal finezko txano eder bat, marta-larraz azpikotua, zeina **ostatu-etxe** on batean lapurtua baitzuen. Juan Garzia

Hogeita bi urte zeramatzatek hiri honetako aire ustelduak inguratutik bizitzen, bazter guztietan etxe zikinetan edo hirugarren mailako **ostatetxeetan** bezalako kiratsa dagoen tokian. Xabier Olarra

Enperadorearen guardia *Hungriako Erregea* izeneko **ostatetxe** batean zegoen ostatuz, San Estebanen katedralaren ondoan. Xabier Olarra

10 ostatu hartu

Hoteletan **ostatu hartzea** ere maite zuten. Fernando Rey

Desengainatu egin nuela han bertan, Palace-n, **ostatu hartuta** ez nengoelako. Ramon Saizarbitoria

Artur erregea, Kamelotera itzultzerakoan, Eskalot gazteluan gelditu zen **ostatu hartzeko**. Juan Kruz Igerabide

Kristauok, nirean **ostatu hartu** nahi baduzue, gogoz onartuko zaituztet nire etxe barruan. Askoren artean

Ingelesek aberatsen etxeetan **hartu** zuten **ostatu**, alemanen tokian. Koldo Biguri

Bilboko pensio batean **ostatu hartu** eta hantxe bizitzen geratu zen Lauaxeta. Juan Luis Zabala

Hementxe **har** dezakegu **ostatu**. Joxemari Iturralde

Goiz batean, 1938ko udan, goizeko zazpitan deitu ninduten **ostatu hartuta** nengoen etxeko beheko telefono publikora. Koro Navarro

Argi zegoen han **ostatu hartuek** kandela batez edo lanpara batez errez hiltzen zituztela zimitzak. Koro Navarro

Petirisantzek ez du ba **ostatu hartu** gurean? Anjel Lertxundi

11 ostatu-hartzaile

Bikote zaharrak uda oro alokatzen zuen gela, baina zakurra sekula ez zen **ostatu-hartzaileen** lagun egiten. Egun zikinen ondoren errituzko bainura joan behar ote zuten

galdetu zion Taibelek, baina hilekoari dagozkion legeak ez zirela **ostatu-hartzaille** lizunarekin elkartzten zirenengana iristen esan zion Humirzakh. **Koro Navarro** · Horretan ere, goiz hasierako zorte txarrari marro egina niola iduri zuen, Gomez de Seguraren hozkailuak ez baitzuen **ostatu-hartzailerik** falta: emazteki bat, huts egite mediko baten erruz zendua, nonbait, forentseak ehiza-trofeo baten gisara erakusten ziona argazkilaria. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baionako ostatu (3); **eman zion ostatu** (3); **etxean ostatu eman** (3); **hartu genuen ostatu** (4); **hartu nuen ostatu** (4); **hartu zuen ostatu** (13); **hartu zuten ostatu** (10); **hartzten zuten ostatu** (3); **herriko ostatu** (9); **miarritzeko ostatu** (3)

ostatu aurrean (3); **ostatu barnean** (5); **ostatu barnera** (3); **ostatu batean geratu** (3); **ostatu batean sartu** (4); **ostatu batean sartzen** (4); **ostatu batera joan** (5); **ostatu berean** (6); **ostatu berri** (3); **ostatu bila** (6)

ostatu emaile (4); **ostatu eman** (21); **ostatu eman zion** (5); **ostatu emateagatik** (3); **ostatu ematen** (7); **ostatu eske** (3); **ostatu eta jateixe** (3); **ostatu har** (5); **ostatu hartu** (41); **ostatu hartu zuen** (6); **ostatu hartu zuten** (4); **ostatu hartua** (3); **ostatu harturik** (3); **ostatu hartuta** (17); **ostatu hartutako** (4); **ostatu hartzea** (8); **ostatu hartzeko** (10); **ostatu hartzen** (9); **ostatu hartzen zuen** (3); **ostatu hartzera** (5)

ostatu izan (3); **ostatu jabeak** (3); **ostatu jateixe** (3); **ostatu merke** (3); **ostatu itipi** (6); **ostatu txiki** (8); **ostatu txiki batean** (3)

ostatu xoko (6); **ostatu xoko batean** (3); **ostatu xokoan** (4); **ostatu xume** (3); **ostatu zahar** (3)

ostatua eman (4); **ostatua eta mantenua** (3)

bihotzeko ostatuak (4); **ostatuak antolatzen** (7); **ostatuak antolatzen du** (4)

afaria haramboure ostatuan (3); **aintzileko pekoitz ostatuan** (3); **arrosan katina ostatuan** (4); **astelehenean bonnet ostatuan** (4); **bazkaria agerreko ostatuan** (3)

ostatuan afaldu (3); **ostatuan afaria** (3); **ostatuan apairu on** (3); **ostatuan bazkaldu** (3); **ostatuan bazkaria** (4); **ostatuan berean** (3); **ostatuan bertan** (7); **ostatuan bildu** (3); **ostatuan bizi** (4)

ostatuan elgarretaratu (4); **ostatuan hartu** (3); **ostatuan iragan** (8); **ostatuan iragan dira** (3); **ostatuan izan** (4); **ostatuan izanen** (9); **ostatuan izanen da** (7); **ostatuan jokatu** (4); **ostatuan lan egiten** (3)

ostatuan sartu (17); **ostatuan sartu zen** (3); **ostatuan sartu ziren** (4); **ostatuan sartzen** (7)

ostatuan zegoen (3); **ostatuan zeuden** (4); **pausuko xaia ostatuan** (12); **plazako ostatuan** (4)

zubiondoa ostatuan jokatu (4)

ostatuaren aitzinean (5); **ostatuaren barnean** (3); **ostatuaren ondoan** (3); **ostatuaren parean** (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

bihotzeko ostatuak (3)

ostatuño iz ostatutxoa; tabernatxoa.

Denbora hartan, untsa ezagutu dutan **ostatuño** batean, bost soretan bazen arrollze moleta on bat biperrekin, gasna zerra bat ondotik, baso bat arno (ala biga?) jatekoaren pusatzeko! **Herria**

Sasoina oldar gaitzean hasi zaukula, hori zioten joanden igande iluntxean Donibane Lohizuneko **ostatuño** batean hartaz eta huntaz kalakan ari ziren lagun zombaiten artean.

Herria

25 louisengatik (500 libera) erosi zuten, bada, Louisen gurasoek **ostatuño** hura, hiru metro zabaleko, eskuinean barra txiki-txiki bat zuela. **Pablo Sastre**

ostatutxo iz ostatu txikia.

Bide-ertzeko zurezko **ostatutxo** ugarietan aurkitu ohi diren lagun zahar guztiak kausitu zituen Txitikovek gela hartan ere, hau da: samovar intzigarrez estalia; pinuzko horma ondo leunduak; hiru ertzeko alasa zoko batean, teontzi eta katiluz beterik **Jose Morales**

ostatutzar iz adkor taberna handia.

Garai haietan, lana akitutakoan, hiriko azken **ostatutzarrei** itxiera ematen genien, goizaldeko ordu tikitetan. **Aingeru Epaltza**

"Lisboatik" aterata, gauerdia aspaldi egina nion dobla, Alde Zaharreko **ostatutzar** batean anaiarekin topatu nintzenean. **Aingeru Epaltza**

ostatuxka iz tabernatxoa.

Besapeko izerdi urrina zerien gizonen gainezka zegoen **ostatuxka** batera jausten ziren eskalera hartu zituzten, eta hango ilunpeari eta keari ohitzen lanik aski ukan zuten.

Elena Touyaro

ostatuzain (orobat ostatu zain) 1 iz ostatu bateko nagusia.

Nire paper faltasuek ez bide dute **ostatuzaina** mendrenik ere harritu. **Txillardegi**

Dominiquek **ostatuzaina** behartu zuen suaren piztera eta hiruentzat janari zerbaiten egitera. **Elena Touyaro**

Ostalari eta **ostatu zainak** hor zuzenean mintzatuko dira sasoiko lanaren bila dabilzaneekin. **Herria**

2 taberna bateko nagusia.

Robert Dagerrezar, Mugerre Elizaberriko trinket eta **ostatu zainak**. **Herria**

Thiers karrika oinezkoen esku emana izanik, horko **ostatu zainek** osoki beretu dituzte karrika bazterrak **Herria**

ostazuri iz makala.

Ostazuriaren arrimuan eseri naiz, bizkarra enborraren laztanean tinko. **Pako Aristi**

Ostazuria eguzkiak eta ibaiak egindako tratu baten ondorioa besterik ez da, beroak eta urak haizeari enkargatu zioten forma bat, haien irudimen zehatzera egina. **Pako Aristi**

oste¹ 1 iz soldadu taldea; talde armatu bat osatzen duten pertsonak. iktropa.

Rhin, Meuse eta Elba ibaiek igaro, hiru probintzia menderatu, eta berrogei gotorleku azpiratu zituzten frantses **osteek**, Louis XIV.a erregea buru zutela. **Jon Muñoz**

Ba ni gudarosteen Jainkoaren izenean natorkizu, erronka bota diezun israeldar **osteen** Jainkoaren izenean. **Jose Antonio Mujika**

Soldadu errusiaren **osteak**, berriz, urruti zeuden. **Karlos Zabala**

Denbora beharko zuten gizon txikiaren **osteek** hara iristeko. **Harkaitz Cano**

Izan ere, etsaien **oste** bat atzean utzi arren, zer axola zaigu? **Agustin Otsoa**

Handik urtebetera, Smith kapitainak bere **ostearekin** kanpamendua ezarri zuen ibaiko oihanean. **Juan Garzia**

Gobernu inperiala Uraleko mugaz harantz arriskuan zegoela zirudien, oraingoz behinik behin, zeren errusiarrek lehenago eta geroago atzeraraziko zituzten inbaditzaileen **osteak**. **Karlos Zabala**

Ekialdeko gizaki eta orkoen **oste** botereitsu bat lehenengo konpainiak segadan harrapatzen saiatu zen. **Agustin Otsoa**

Madiango **oste** setiatzaile guztia Israelgo defentsa inguratuen barrura. **Iñaki Mendiguren**

Barru-barrutik adierazten zidan zerbaitek, bertako traidoreek deiturik, aurki itoko gintuela odoletan **oste** erdalduen arrotz batek. **Txillardegi**

Gerra-gurdi gakotua etsaien odolez zikindu gabe; turuta **oste** armatuei hitz egin gabe. **Iñaki Mendiguren**

Gerra garaian, hegazkin-aurkako **ostean** mobilizatu zuten. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gerraren bukaera aldera, soldadu **oste** batzuk luze gelditu ziren herrian eta inguruetan. **Koldo Biguri**

Erromako fakzio odoleztatuak bezala, beren bezero-**oste** armatu eta iraintzaileekin, atomo-saldoen zirimola begietsi zuen. Handik hara segidan, gero, bolondres-**oste** handi baten barruan, Lizarraraino! **Juan Garzia**

Han irekitako zuloan barrena, trumilka sartzen da barrura ezpatari-**oste** bat. **Jon Muñoz**

Hala, bada, sei gizoneko kanpo-**oste** bat igortzen dute, sarjentu bat buru dutela, Estatu Batuen aurka gudukatzera. **Juan Garzia**

Gizon haiek hastanduak ziren, eta gizon gogaikarri **oste** baten peko utzia ninduten, den-denek niri ezkontzeko galdea egin nahian. **Jon Muñoz**

3 gizaki taldea; taldea.

Beste berrehun gizon utziko dizkizuet zuten **oste** handiagotzeko. **Juan Garzia**

Amorosgai dohakabeen **oste** emakume jeloskorren **osteari** gehitu zitzaion orduan. **Jon Muñoz**

Pausu luze bat egiten dut presoan **oste** luzea emeki-emeki miaketara doala. **Marzel Etxehandi**

Hilen **oste** itzelak dabilzan lurraldera hurbildua zuen arima. **Irene Aldasoro**

Ni, eta gu, eta bertara hurbildutako **oste** gaitz hura, Pastoralari hasi zain ginen. **Txillardegi**

Kanposanturako segizioa hunkigarria: **oste** jendetsuan ez zen hitzik batere entzuten. **Txillardegi**

Denbora ona lagun, zenbaki guztiak hautsi ditugu, zeren jendea etorri da **oste** handian gutarterat. **Herria**

Bai, gure xokotik, jendea **oste** gaitzean joan da, besta miresgarri hortarat. **Herria**

Bere burua Saint-Etienne auzorantz zihoan **oste** amorratuak bultzaturik ikusi zuen eta ez zuen kontra egin. **Elena Touyarou**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Maximilian plazaren erdian ginen, bertan bildurik zegoen begiluze **ostearen** artean. **Alberto Ladron Arana**

Kaligrafiako lantegi zabaletan, eskribau-**oste** handi bat ari zen buru-belarri lanean, etenaldirik gabe. andreak udaltzain **oste** bat ikusten zuen urdaitegia inbaditzen, berari, Quenuri eta Paulineri ahoa zapiz lotzen, eta hiruak ziega batera bultzatzen. **Jon Muñoz**

Gau on, printze laztan hori, eta aingeru **oste** kantari artean hartu atseden. **Juan Garzia**

5 (bestelako taldeak, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Albaitari gazte bat hartu zen, Jean Louis Guénet, CEAtik etorria, animalia-**oste** horren kargu egiteko. **Juan Garzia**

Oi zeru-**oste** guztiok! **Juan Garzia**

6 jende oste ik jende 16.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oste batek lagundu (3); **oste gaitza** (3); **oste handi** (3); **oste handia** (5); **oste handian** (11); **oste haundia** (4); **oste haundian** (7); **oste haundian etorri** (3); **usaiko jende oste** (4)

jende ostea (10)

soldadu osteak (8)

jende ostearen (5)

frantses osteek (3)

oste² 1 iz atzea. (espazioan, -en atzikiaren eskuinean; ik beherago 7)

Eguzkia goratzen hasia zen Aiako Harri ubelaren **ostetik**. **Koldo Izagirre**

Falangistak agertzen ziren, atarte batetik edo edozein zutaberen **ostetik** enboskadan. **Joseba Sarrionandia**

Antxonak segitzeko keinua egin zigun eta pagoen **ostetik** irten ginen bat-banaka. **Koldo Izagirre**

Anek mesfidati begiratzen zion bateriaren **ostetik**, erritmoa espero baino hobeto zeramala iritzita. **Unai Iturriaga**

Ganguren aldetik, Egirleta eta Artxanda igaro, eta Enekuritik, Fatimaren elizaren **ostetik** aldapan behera, lanera, Lutxanako tailerretara. **Paddy Rekalde**

Bien arteko alde bakarra protagonisten kontu korrontearen lehen zenbakiaren **ostetik** dauden zeroen kopuruak markatzen du (Arranodotarrek kontu korronterik bazuten, behintzat). **Berria - Kultura**

2 (espazioan, hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Familia honetako kideak soinketa ariketak egiten ari dira, itxuraz, denbora guztian, hanka **oste**a edo garondoa ikusi nahiz. **Josu Zabaleta**

Etxe **ostetik** datozen ahotsak entzuten ditu. **Oskar Arana**

Jolasaren ibilbideak etxe-**osteetako** bidexka ilun lokaztuetatik barrena eramaten gintuen. **Irene Aldasoro**

Orain, mutiko horrek, geletako ate **osteetan** ezkutatu ordez, badu hemen lorategian ibiltzea, zuhaitz atzean gordeka. **Josu Zabaleta**

Marretako xehetasunez jabetzean huts egiten hasten naiz, eta zirrimarren irudi-**oste** zorabigarriak ikusten edozein lekutan. **Xabier Olarra**

Horrexegatik saiatzen dira euren bizitzaren eszena **oste**a ezkutatzeko maiztasunaren zerrendan katigatu nahi dituztenei. **Xabier Amuriza**

Urdin betean eta kalmatan agertu zitzaigun, ez zeukan beldur handirik ehizakoren bat jausiko ote zitzaion hodei **ostetik** buru gainera. **Koldo Izagirre**

3 (denboran)

Goiztatu bizitza erabat agortzen zaionean heriotzaren **oste**a dela esan ohi da, hain zuzen ere, bizitza agortzen ari zitzaionean heriotza zelako. **Imanol Unzurrunzaga**

Madalena bat bestearen **ostetik** irensten zuen. **Unai Iturriaga**

Hilabete beltza izan da azken hau, nahiz abenduaren ondotik baino, apirilaren **ostetik** etorri. **Berria - Ekonomia**

Pozaren **ostean** laster etorri ziren desengainuak. **Edorta Jimenez**

4 (denboran, hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Eguberri-**oste**a garairik okerra zen, eta hala ere, hark beharko zuen irakurtzeko saso aproposo, nonbait, neguagatik eta neguko arratsen luzeragatik ere. Jon Muñoz
Gatazka politikoa konpontzeko uda **oste**a eta hurrengo urtea oso garrantzitsuak izango direla iragarri zuen Batasuneko mahaikideak. Berria - Euskal Herria
Eta, halere, zerbait esateko gogoz sumatzen dut nik inguruan jendea, uda-**oste** honetan aspaldi ez bezala. Joxerra Garzia
Hogei urte iraun duen guda gordina jasan dute Sudanen, eta esperantzaren hazia erein behar da orain, guda **ostearen** hasieran. Berria - Gaiak
Ez zuen aspaldi txoririk lumatu eta jostun lanetarako ez ziren haiek garai egokienak, guda **oste** idorrean, gutxi baitziren soineko berrietarako kezka zutenak. Jon Maia

5

-Zer infernu eta infernu **oste**! -Maizak urduri-. Migel Angel Mintegi
34 urte beranduago, zer gerra eta zer gerra-**oste** gida edo burura liteke egokiro? Txillardegia

6 **ostean** (6599 agerraldi, 165 liburu eta 3759 artikulutan; cf **atze** 4 4776 agerraldi, 257 liburu eta 1555 artikulutan) (denboran) ondoren. ik **ondo**² 6.

Maitasun bihotzeko eta zinezko baten aitortpena, hitzekin lan egiten ohiturik dagoen batek hitz bakoitza ongi neurtu eta pisatu **ostean** idatzia. Xabier Mendiguren Elizegi
Bapo jan eta edan **ostean**, kanpamendura itzuli ziren. Patxi Zubizarreta
Apur bat pentsatu **ostean**, Santosek: [...]. Josu Landa
Aita-amak lurperatu **ostean**, pistoleroaren bila hasi zen. Javi Cillero
Norbait hii **ostean**, betaurrekoak garbitzen zituen, arma garbitu beharrean. Julen Gabiria
Egun osoa oinez eman **ostean** iritsi zen lruñera. Eider Rodríguez
Hauek dira Sem, Kam eta Jafeten, Noeren semeen, ondorengoak, uholde **ostean** izan zituztenak. Elizen arteko biblia
Planta galanta nuen orduan, gerra **ostean**. Unai Elorriaga
Gauerdi-**ostean** buffet hotza izan ohi zen: gose nintzela esan eta neurekin etorrarazi nuen behera. Joxe Austin Arrieta
Gosariaren **ostean** mezulari bat iritsi zen, Took lurraldetik zaldiz etorria. Agustin Otsoa
Isiltasunaren **ostean** aita mintzatu da: "tira ba, arindu dugu zama". Urtzi Urrutikoetxea
Argazki asko egin zizkiguten ikasturte hartan, eta orain, aurrenekoaren **ostean**, bost hilabete geroagoko beste bat daukat eskuan. Bernardo Atxaga
Hileta ospakizunaren **ostean** dortoka bat erosi nuen. Jasone Osoro
Arnasa hartu zuen, behar zuen-eta, azalpen luze haren **ostean**. Edorta Jimenez
Brave New World desegin egin zen urte bete baino gutxiagoren **ostean**. Oskar Arana
Ezin al zuten behingoz bakean laga, egun beteko lan-saioaren **ostean**. Mirentxu Larrañaga
Batak bestearen **ostean** egiten zuten istriboretik kibunbera. Joseba Sarrionandia
Lau asteren **ostean** oraindik ez ziren ohitu ahots erlats harekin Anton Garikano

7 (espazioan) atzean.

Polizia bat daukat zaintzaile, grisa, leihoaren **ostean**. Agurtzane Juanena
Mihia zalu, honela erantzun zidan erakusmahaiaren **ostean** zegoen mutil gazteak: [...]. Oskar Arana
Klasea amaitzean frontoiaren **ostean**. Joseba Sarrionandia
Agian, bihurtunaren **ostean** egon daiteke oraindik. Agustin Otsoa
Sasi batzuen **ostean** ezkutatuko nintzen Indianoahilzenekozuloan, han masusta gorri ugari zegoen lekuan. Joseba Sarrionandia
-Egun on, Maiza jauna -agurtu zuen zurezko mahai eder baten **ostean** zegoen gizon galantak-. Migel Angel Mintegi
Ate itxien **ostean** zelatan. Oskar Arana
Zazpi nanotxoak ate **ostean** geratu ziren eta Edurnezuriri entzuten omen zioten hasperenka eskatzen: [...]. Joseba Sarrionandia
Su bat piztu dute ukuilu **ostean**. Oskar Arana
Ziur zegoen hesi **ostean** edo sasi artean bilatuz gero begiak eta gainontzekoa aurkituko zituela. Koldo Biguri
Botikako mostradore **ostean** erratza nola pasatzen zuen miratzen egon zen apur batean. Josu Landa
Lau edo bost arbolatxo besterik ez baitziren zimauregi **ostean**. Josu Zabaleta
Prentsak zabaldu zuen argazki baten ageri naiz, leihatilako sare eta haga **ostean**. Koldo Izagirre
Higer **ostean** Miarrizteko farola. Koldo Izagirre

8 **osteko** izlag ondokoa.

Tomek gosaldu **osteko** zigarroa pizten du, eta esaten du:[...]. Oskar Arana
Jo **osteko** zigarreta erretzen ari ziren. Unai Iturriaga
Gasteizko gobernu autonomoa martxan jarri **osteko** lehen bisitaldi ofizialean. Xabier Mendiguren Elizegi
Horra gerraren **osteko** mende erdiaren erresumena. Edorta Jimenez
Gure topaldiaren **osteko** lehen gutun hark, aldiz, lehengo gar hura zekarren. Xabier Mendiguren Elizegi
Sabaiari begira zegoen bikotea, sexu-atseginarean **osteko** lasaitasunaz gozatuz. Migel Angel Mintegi
Otomandar **osteko** aroan. Iñaki Mendiguren
Konbertsio **osteko** hamahirugarren urtean, Siria aldera abiatu zen. Askoren artean
Esku-oinak dantza **osteko** dardaraz. Felipe Juaristi

9 atzekoa.

Barra **osteko** neskak toplessean zeuden. Migel Angel Mintegi
Ate **osteko** ezezagunaz, errezel atzekoaz, armairu barrukoaz, ohe azpiko ezezagunaz naiz beldur. Josu Zabaleta
Afarria amaiturik zen ordurako, eta gainerako guztiak kanpora atereak ziren etxe **osteko** lorategian esertzera. Oskar Arana
Frantzisko dohatsua azken gelan bizi zen etxe **osteko** baratzeko hesiaren ondoan. Askoren artean
Antzoki **osteko** parkera joan ginen. Anjel Lertxundi
Baranda **osteko** aldean zegoen, harkaitzetan, espaloitik gertu. Migel Angel Mintegi

10 **denda-oste** ik **dendaoste**.

12 **gerra-oste** ik **gerraoste**.

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ate osteetan (3)

[8] adierazi ostean (14); afaldu ostean (9); agurtu ostean (8); akordioaren ostean (8); alde egin ostean (11); amaitu ostean (91); argitaratu ostean (8); argitu ostean (10); aritu ostean (59); ate ostean (10); atentatuen ostean (28); atera ostean (22); atsedendialdiaren ostean (20); atsedeneren ostean (13); atxilotu ostean (12); atzera bota ostean (9); aurka galdu ostean (13); aurkeztu ostean (19); aurrean deklaratu ostean (9); azaldu ostean (10); aztertu ostean (69)

bata bestearen ostean (9); batzarraren ostean (13); bazkal ostean (9); begiratu ostean (11); berdindu ostean (16); berdinketaren ostean (12); bermea ordaindu ostean (10); berri eman ostean (8); berri izan ostean (10); bete ostean (43); bildu ostean (53); bilera egin ostean (20); bilera ostean (14); bilerearen ostean (122); bileren ostean (8); bilkuraren ostean (8); bizi ostean (8); bota ostean (13); bozen ostean (15); bukatu ostean (32)

deklaratu ostean (29)

edan ostean (8); eduki ostean (16); egin ostean (467); egindako bileraren ostean (9); egon ostean (143); ekaitzaren ostean (10); elkar jo ostean (9); eman ostean (127); entrenamenduaren ostean (14); entzun ostean (34); erabaki ostean (10); erakutsi ostean (13); eraman ostean (8); erasoaren ostean (11); erasoen ostean (10); erori ostean (26); erosi ostean (8); erretiratu ostean (8); esan ostean (42); eskatu ostean (20); eskuratu ostean (8); etenaldiaren ostean (14); etenaren ostean (35); ezagutu ostean (12)

finalaren ostean (12); franco hil ostean (8)
gailendu ostean (9); gainditu ostean (16); galdu ostean (96); garaipenaren ostean (10); garaitu ostean (9); gelditu ostean (8); geratu ostean (15); gerra ostean (44); gerraren ostean (37); gertatu ostean (8); gogoratu ostean (10); grebaren ostean (12)
harrapatu ostean (11); hartu ostean (75); hartuta egon ostean (13); hauteskundeak irabazi ostean (8); hauteskundeen ostean (50); heriotza ostean (19); heriotzaren ostean (19); hil ostean (92); hilabeteren ostean (10); hitz egin ostean (25); huts egin ostean (14)
ibili ostean (50); identifikatu ostean (9); igaro ostean (67); igo ostean (11); ihes egin ostean (9); ikusi ostean (41); irabazi ostean (152); iragarri ostean (10); irakurri ostean (25); iritsi ostean (13); irten ostean (11); istripuaren ostean (8); itxaron ostean (10); itxi ostean (24); itzuli ostean (10); izan ostean (120); izandako bileraren ostean (12)
jaiitsi ostean (11); jakin ostean (49); jardun ostean (15); jardunaren ostean (9); jarri ostean (18); jaso ostean (52); jipoia ostean (8); jo ostean (57); joan ostean (23); jokatu ostean (50)
kale egin ostean (8); kanporatu ostean (20); kendu ostean (16)
lanaren ostean (11); lortu ostean (52); manifestazioaren ostean (11); mendeen hartu ostean (10); mundu gerraren ostean (24)
nagusitu ostean (9)
onartu ostean (24); oporren ostean (9); ordaindu ostean (22); osatu ostean (12)
ostean azaldu (8); ostean berriro (13); ostean egin (63); ostean egin zituen (22); ostean egindako (23); ostean egingo (17); ostean eginiko (15); ostean eman (13); ostean erabaki (11); ostean erabakiko (11); ostean esan (9); ostean etorri (13); ostean gertatu (11); ostean hartu (22); ostean hartu zuen (9); ostean hasi (18); ostean iritsi (16); ostean izan (14); ostean jakinarazi (8); ostean lortu (10); ostean sortutako (13)
parte hartu ostean (10); partida galdu ostean (9); partida ostean (10); partidaren ostean (42); pasa ostean (13); pasatu ostean (35); porrotaren ostean (11); porroten ostean (17); preso egon ostean (10)
saioaren ostean (22); salatu ostean (9); sartu ostean (29); su etenaren ostean (28)
uda ostean (19); urte igaro ostean (8); urteren ostean (36); utzi ostean (60)
zabaldu ostean (8); zeharkatu ostean (10); zigorra bete ostean (29)

ostealde iz atzealdea.

Euskaldunak, etxetik urruti izan arren, elkarrekin egotearen poza agertzen du maiz kronikagile eibartarrak; baina, horren **ostealdean**, garden agertzen ez duen guztiaren ospina antzematea ez da hain zaila. Jokin Urain

osteatopia iz

Eta **osteatopiarik**? Karlos Linazasoro

ostegun 1 iz asteko bosgarren eguna, asteazkenaren eta ostiralaren artekoa. ikeguren; ortzegun.

Urtarrilaren 26a **osteguna** zen. Iñigo Aranbarri

Osteguna ikasle eguna izaten da Bilbon. Sonia Gonzalez

Gertakari zositako **ostegun** hartan, Darling andrea umeen logelan zegoen, George etxera noiz bueltatuko zain. Julen Gabiria

Osteguneko kontzertuan jende-joera hobe izan zen. Irene Aldasoro

Lantzean behin eurekin eramaten ninduten kalera, **ostegunetako** giroan ez baitzen arazorik izaten ni ere taberna gehienetan sartzeko. Jon Arretxe

Harik eta **ostegun** eta ostiralaren arteko gaua iritsi zen arte. Matias Mujika

Ostegun eta ostiraletan, armeniarren taberna batean igarotzen genuen arratsa. Juan Kruz Igerabide

-Joan den **ostegunean** zutaz gogoratu ginen ganberaburuaren etxean. Jose Morales

Gertakari haren ondoko laugarren **ostegunean**. Oskar Arana

Hurrengo **ostegunean**, arratsaldeko hiruretatik bostetara. Monika Etxebarria

Gripearen aurka borrokan ibili da **ostegunaz** geroztik eta sukarra du. Oskar Arana

Ostegun batez iritsi nintzen aberrira; lrala zain neukan nasan. Juan Garzia

Biharamunean, **ostegunez**, lbero herrian sartu zen Karlos Setimo Errege, bere jarraitzaile ugariekin. Txillardegi

Gauzatxo bat antolatzen ari gara **ostegunerako**, besterik ez. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Malfoy ez zen ikasgelan agertu **ostegun** goizean berandu arte. Iñaki Mendiguren

Ostegun arratsaldean, 17:30 aldera. Iñigo Aranbarri

Ostegun arratsaldeko eskola ohi bezala zihuan. Iñaki Mendiguren

Ostegun ilunabarra zen. Joxemari Urteaga

Begitazio hura **ostegun** gau baten izan omen zuen, urriko lehenengo **ostegun** gauean. Jon Arretxe

-Gabon eta ongi etorriak **ostegun** gauero Hala Bedi irratian egiten dugun Puntu eta Koma kultur saiora! Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ortzegun aratsean, Donapaleun,"Otsail-**Ostegunak**" sailaren konduko lehen hitzaldia. Herria

Donapaleuko 4n otsail **osteguneko** mintzaldiaren azken parte. Herria

Rachel bigarren hezkuntzako ikastetxean ari zen eta artean etxean bizi zen garaira jo nuen, Esker Emate **ostegun** hotz batera. Oskar Arana

4 ostegun gizen inauteri aurreko osteguna.

Inauteri aurreko ostegunean, **ostegun gizen** delakoan, Ataun aldean eskean ibiltzeko ohitura zuten mutiko gazteek. Pello Zabala

Baina, batez ere, **ostegun gizen** haren berezitasuna tabernetan sartzea zen, guk ordura arte ia inoiz egiten ez genuena, eta tabernetan ardoa eskatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Bera aldean Nafarroan, eta Haltsun Lapurdin, **ostegun gizen** egunez, eskolumeak etxez etxe ibiltzen dira kantuan eta eskean. Pello Zabala

5 Ostegun Santu Aste Santuko osteguna.

Ostegun Santua zela Txikia hil zuten eguna, apirilaren 19 hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Epifania zortziurrenetik **Ostegun Santua** arte. Askoren artean

Zazpi aldiz har bezate Jauna, hau da: Jaunaren Jaiotzan, **Ostegun Santu** egunean, Jaunaren Piztueran, [...]. Askoren artean

Jaunak hil aurretik, **ostegun santuz**, maitasun ezaugarritzat apostoluekin afaldu nahi izan zuen bezala, haren erabateko imitatzaile zen Frantzisko dohatsuak ere, maitasun-ezaugarri bera azaldu nahi izan zien bere anaiei. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken ostegun (3); iragan ostegun (3); joan den ostegun (20); joanden ostegun (7); joanden ostegun goizean (3)

ostegun aratsaldean (4); ostegun aratsaldeko (4); ostegun aratsean (3); ostegun aratseko (6); ostegun arrats (4); ostegun arratsalde (3); ostegun arratsaldean (26); ostegun arratsaldeko (7); ostegun arratsean (15); ostegun arratseko (5); ostegun arratsetan (3); ostegun arte (3)

ostegun eguerdian (4); ostegun eta ostiralean (9); ostegun eta ostiraletan (3); ostegun gau (3); ostegun gaua (3); ostegun gauean (63); ostegun gauean izan (3); ostegun gaueko (5); ostegun gauerdian (3); ostegun gauetan (7); ostegun gauetz (3); ostegun gizen (4); ostegun goiz (6); ostegun goiza (3); ostegun goizaldean (7); ostegun goizean (25); ostegun honetatik aitzina (4)

ostegun iluntzean (7)

ostegun santua (4)
gaur osteguna da (4); **gaurtik osteguna bitartean** (3); **osteguna arte** (5); **osteguna eta ostirala** (7)
ostegunaz geroztik (10)
asteartean eta ostegunean (3); **asteazken eta ostegunean** (5); **asteazkenean eta ostegunean** (11); **asteko ostegunean** (12); **aurreko ostegunean** (3); **datorren ostegunean** (39); **heldu den ostegunean** (20); **hurrengo ostegunean** (7); **iragan ostegunean** (58); **joan den ostegunean** (127); **joan zen ostegunean** (24); **joanden ostegunean** (6); **lehengo ostegunean** (10)
ostegunean atxilotu zuten (5); **ostegunean atxilotutako** (3); **ostegunean bahitu zituzten** (3); **ostegunean baionan** (3); **ostegunean bertan** (15); **ostegunean bilbon** (3); **ostegunean bilduko da** (3); **ostegunean da** (4)
ostegunean edo ostiralean (3); **ostegunean egin zuen** (6); **ostegunean egin zuten** (3); **ostegunean egindako** (5); **ostegunean eta larunbatean** (3); **ostegunean eta ostiralean** (8); **ostegunean gertatu zen** (3); **ostegunean hasi ziren** (11); **ostegunean hasiko da** (3); **ostegunean hil zen** (7)
ostegunean izan zuten (3); **ostegunean izango da** (4); **ostegunean madrilen** (8); **ostegunean madrilen izandako** (4)
otsail ostegunean (4)
pasa den ostegunean (7); **pilota aukeraketa ostegunean** (3)
datorren osteguneko (3); **iragan osteguneko** (4); **joan den osteguneko** (15)
osteguneko bileran (3); **osteguneko bilkuran** (4); **osteguneko entrenamenduan** (3); **osteguneko greba** (6); **osteguneko kontseilu bilkuran** (3); **osteguneko lan saioan** (10); **osteguneko mintzaldiaren** (3); **osteguneko partida** (3); **osteguneko partidari** (3)
otsail osteguneko mintzaldiaren (3)
otsail ostegunen (3)
asteartetik ostegunera (3); **ostegunera arte** (13)
asteazkenetik ostegunerako gauean (3); **datorren ostegunerako** (3)
astearte eta ostegunetan (3); **lehen ostegunetan** (3)
joan den ostegunetik (10); **ostegunetik aurrera** (4); **ostegunetik igandera** (6); **ostegunetik larunbatera** (6); **ostegunetik ostiralerako gauean** (3)

ostegunero *adlag* ostegun guztietan.

Printzipioz, astean behin, **ostegunero**, bilduko da Legebiltzarreko araudia aldatzeko sortu den taldea. Berria - Euskal Herria

Lankideak **ostegunero** biltzen dira bolatokian pizza jatera. Javi Cillero

Emanaldiak **ostegunero** izango dira, 19: 30ean, eta sarrera doan izango da. Berria - Kultura

Ostegunero bezala, Arianek egun librea zuen eta etxean izango zen. Joseba Sarrionandia

Ostegunero ohi dutenez, gaur ere jaialdia izango da Deportivo pilotalekuan, estelar erakargarri batekin. Berria - Kirola

Anartean, **ostegunero** segitzen dira pilota partidak arratsaldeko lauak eterditan. Herria

Ostegunero-ostegunero diktadura (1976-1983) hasi zenetik Buenos Airesko Maiatzeko Plazan Gobernuaren egoitzaren aurrean egiten duten salaketak bere horretan segituko badu ere. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ostegunero bezala (4)

ostegunkari *adlag* ostegunaren kariaz, osteguna dela eta.

Ostegun huntan, aurtengo azken **ostegunkari**, bi partida jokatu dira Baionatopian, 4 orenetan haste, gaztetxo batzuekin. Herria

osteka *adlag* multzo handietan.

Eta jendea, **osteka** bildua, munduko lau hegaletarik etorria, edozein adinekoa, edozein arrazakoa, holakorik ez baita sekulan ikusi. Herria

"Jana lehen, filosofia gero" izan zen, beraz, gure ustez, sorterria utzirik Ameriketara buruz gazte ausartenak **osteka** eraman zituen mugimendu itsuaren kausa lehena.

Piarres Xarriton

Eta jendea, **osteka** bildua, munduko lau hegaletarik etorria, edozein adinekoa, edozein arrazakoa, holakorik ez baita sekulan ikusi. Herria

Emazteak **osteka** hor ziren. Michel Oronoz

Han irten ziren zimitzak **osteka**, argiak itsuturik. Juan Garzia

Damurik haren dizipuluak ez direla **osteka**. Michel Oronoz

osteko ik *oste*² 6.

ostendu, osten, ostentzen (*orobat ostondu g.er.*) da/du *ad* ezkutatu.

Tapizen atzean naiz **ostenduko**, elkarrizketari adi. Juan Garzia

Eguzkia hodeiak gorritzaturik **ostendu** da, astiro. Edorta Jimenez

Eguzkia erabat **ostendu** denean are gorri-moreago egin dira ostertzeko laino printzak. Jokin Urain

Berehala **ostendu** zitzaidan irudia begibistatik, baina mezuak argi salatzen zuen norekin ari nintzen. Javi Cillero

Zuhaitzek zuhaitzia **ostentzen** dute. Javi Cillero

Gortina beltz batzuek **ostentzen** zituzten ate-leihoak. Matías Múgica

Besteak zorroen barrenean tabako-kartoiak **ostendu** eta portu ondoko estankotan sartu dira. Urtzi Urrutikoeetxea

Begiratu egin nion, baina iluntasunak **ostendu** zidan haren aurpegia. Xabier Montoia

Berandu barik, Tomen maletaren hondoan **ostendua**, gutunazal bat topatu nuen. Patxi Zubizarreta

Deskubritu al duzu nigan **ostendurik** sumatzen zenuen altxor ezkutu hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Gero euria hasi zuen, eta begien itxi-ireki batean demonio guztiak handik **ostenduta** zeuden. Joanes Urkixo

ostenezin *izond* ezkutaezina.

Errezelo haiek guztiak Julian Deerenen begi estrabikoetan loratzen ziren, udako goitzinta ederretan ihintza loratzen den bezain galant eta **ostenezin**. Karlos Linazasoro

ostentazio *iz* erakuskeria.

Beldur naiz, beraz, sasierudizioaren **ostentazio** erretoriko bat gehiagoren aurrean soilik gaudela. Joxe Azurmendi

ostentsibo *izond* erakuskeriazkoa.

Ideia benetan adigai heuristikoa baino ez da, ez **ostentsiboa**, eta ez du erakusten objektu bat nola antolatua dagoen. **Ibon Uribarri**

Bere frogak beti **ostentsiboak** izan behar dutela, inoiz ez apagogikoak. **Ibon Uribarri**

Froga zuzena edo **ostentsiboa** ezagutzaren era guztietan egiaren uste osoa aldi berean bere iturrien ikuskerarekin lotzen duena da. **Ibon Uribarri**

Eraikuntza sinboliko baten bitartez iristen da ezagutza diskurtsiboa adigai soilen bitartez inoiz iritsiko ez den puntura, Geometriak (objektua beraren) eraiketa **ostentsiboarekin** edo geometrikoaren bidez egiten duen bezala. **Ibon Uribarri**

osteoblasto *iz* hezur zelula. ik **osteozito**.

Prozesu horietan guztietan, bi motatako zelulek hartzen dute parte: **osteoblastoek** eta osteoklastoek. **Irene Aldasoro**

Osteoblastoek hezur-ehun berria sortzen dute, eta osteoklastoek, berriz, hezur zaharra desegin, eta odol-zirkulazioak garraiatzeko moduko gai bihurtzen dute. **Irene Aldasoro**

osteofitosis *iz* hezur ehunaren hantura.

Astragaloaren azpian **osteofitosis** goiztiar bat dut... **Joan Mari Irigoien**

osteoklasto *iz* hezur ehuna suntzitzen duen zelula.

Prozesu horietan guztietan, bi motatako zelulek hartzen dute parte: osteoblastoek eta **osteoklastoek**. **Irene Aldasoro**

Osteoblastoek hezur-ehun berria sortzen dute, eta **osteoklastoek**, berriz, hezur zaharra desegin, eta odol-zirkulazioak garraiatzeko moduko gai bihurtzen dute. **Irene Aldasoro**

osteologiko *izond* hezur sistemaren eta hezurren azterketa zientifikoari dagokiona.

Aipaturiko bilduma **osteologiko** edo osteoteka hori gabe hasi beharra, adibidez. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egun, atzerrian sona handia duen bilduma **osteologikoa** osatu du. **Berria - Euskal Herria**

osteona *iz*

Hodi nîmiño batzuk dira **osteonak**, 15 mm luze eta 0,25 mm zabal diametroan; barne-hutsak dira, eta odol-kapilarrek betetzen dute barru hori. **Irene Aldasoro**

Osteonez osaturik egon ohi da hezuraren barrua. **Irene Aldasoro**

Garai bateko bizargileen ikurra zen makila marradunaren antzera kiribilkaturiko lamelek osatzen dute **osteonaren** pareta. **Irene Aldasoro**

osteopata *iz* osteopatian espezialista den medikua.

Osteopatar bisita egin eta Iruñera bidali ninduen, erresonantzia egitera. **Berria - Kirola**

Jokalarren prestaketa eta osasun zainketarako prestatzaile fisiko bat, bi kinesiterapeuta, **osteopata** bat eta hiru sendagile ditu. **Berria - Kirola**

Borreroak, gorpu exekutatuari, hezur guztiak bere lekuan ipintzen dizkio, hala behar denean, **osteopata** baten trebezia harrigarri. **Karlos Linazasoro**

osteopatia *iz* hezurretako gaitza.

Pubiseko **osteopatia**, mingarria eta sendatzen zaila omen da. **Berria - Kirola**

Apirilaren 6an egin zioten Mikel Unanueri pubiseko **osteopatia** dela-eta ebakuntza. **Berria - Kirola**

osteoporosi (*orobat osteoporosis g.er.*) 1 *iz* hezurretako gaitza, hezur ehunaren trinkotasun galeran datzana.

Kolesterolak, **osteoporosia** eta antzeko osasun arazoak gaixotasun moduan aurkezten dira sarritan, baina hori ez da zuzena. **Berria - Gaiak**

Nire haragia ez baita gaztetan nuena bezain goxo eta xamurra, eta nire hezurrak **osteoporosiak** jota baitaude dagoeneko... **Joan Mari Irigoien**

Eguzkia onuragarria da azalarentzat, D vitaminaz hornitzen baitu, hezurren kaltzio xurgaketa errazten duelako, eta errakitismo zein **osteoporosia** ekiditeko lagungarri delako. **Berria - Harian**

Antza denez, ISren apoteosia hezurren **osteoporosiari** buruzko ikerketa bat izan da. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan)

Haren arabera, itolarririk edo **osteoporosis** arazorik ez duten 50 eta 60 urte arteko emakumeek ez lukete hormonarik hartu beharko. **Berria - Gaiak**

osteoteka *iz* animalien hezurren bilduma arkeologikoa.

Aipaturiko bilduma osteologiko edo **osteoteka** hori gabe hasi beharra, adibidez. **Berria - Euskal Herria**

Penintsula osoan mendi bazter guztietan animaliak bilatzen eta taxidermistekin hitz egiten hasi nintzen, eta horrela hasi nintzen gure **osteoteka** honekin. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egun Aranzadi Zientzia Elkartearen estatuko **osteoteka** garrantzitsua dugu **Berria - Euskal Herria**

osteozito *iz* osteoblastoa.

Material trinkoa da hezuraren pareta, eta barrunbe batzuk ditu zelula bizientzako (**osteozitoentzako**), kanalikulu izeneko tutu mehe batzuen bidez konektatuak. **Irene Aldasoro**

Gauza jakina da, **osteozitoak** hiltzen badira, inguruan dagoen hezurra xurgatu egingo dela, eta, denborarekin, hezur berriak hartuko duela haren lekua. **Irene Aldasoro**

Osteozitoak egoki elikatzea garrantzitsua da, beraz, hezuraren osasunerako. **Irene Aldasoro**

ostera¹ 1 *adlag* berriro, berriz.

Ostera ikusi nuen artizarra ilargiaren ondoan. [Juan Garzia](#)

Ostera kalean, gogo-nahasirik, etxerantz hartu zuen. [Anjel Lertxundi](#)

-Ostera entzuten duanean, abisidak; gustatuko litzaidakek jakitea zer dioen. [Juan Garzia](#)

Gaineko lurra ongi zanpatu, eta neure lantegira igo nintzen **ostera**. [Juan Garzia](#)

Ilundu orduko, **ostera** etorriko zaizkidak. [Jon Muñoz](#)

Suntsitu dut neure haurraren bizitza, eta hori ezin dezaket inola ere **ostera** bere-oneratu. [Joxe Austin Arrieta](#)

Baina, lehenago edo geroago, beti itzultzen zen guregana eta lehenago berbera izaten zen **ostera**, betiko gure Big Joe, edozer eta edozein maitatzeko gai zena. [Mirentxu Larrañaga](#)

Alde egiterakoan irri egin diot **ostera** zuzendari jaunari, ederra izan behar du preso biluzi bat jaulierrei irri egiten. [Koldo Izagirre](#)

Orduan nik esan nuen zera egin genezakeela, ehun bat metro **ostera** jaitsi, aldaparen erdi parean zeharka jo, eta hurrengo malkorrean gora ekin **ostera**. [Juan Garzia](#)

Baina itzuli egiten ziren **ostera**, behin eta berriro. [Mirentxu Larrañaga](#)

Epaileari begiratu zion gero **ostera**. [Anjel Lertxundi](#)

-Eskerrik asko! -hark **ostera** ... [Bernardo Atxaga](#)

Gizonek ez zuten egundo **ostera** ikusi. [Juan Garzia](#)

Ez dauka Kat **ostera** ikusteko interes izpirik ere. [Sonia Gonzalez](#)

Gauaz euria egin zuen **ostera**. [Juan Garzia](#)

Horrela egon zen zutik, gero alde egin zuen eta sofán jesarri zen **ostera**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Gora naramate **ostera**. [Agurtzane Juanena](#)

Ile **ostera** hazi berria mozten nuen Zazpigarren Etorbideko Park Slope bizartegian. [Oskar Arana](#)

2 berriz, aldiz; ordea.

Harrera gelan **ostera**, nortzuk eta Berlingo taldeko neskek ziren ikuskizuna. [Edorta Jimenez](#)

Bestea, **ostera**, zakar hasi zen solasean. [Patxi Zubizarreta](#)

Jatorrak, **ostera**, asmo jatorrak, eta egintzak ere jatorrak. [Elizen arteko biblia](#)

Orain, **ostera**, begira nola, ikusiaren asez nekatutik, inor ez den dignatzen zeru sapa gardenera begiratzen! [Xabier Amuriza](#)

Itsukeria bitxia gizonarena: publikoki erakusten du hiltzeko artea, saritu egiten du emaitza onenak lortzen dituen, eta, **ostera**, zigortu egiten du norberaren arazo batengatik etsaiaz beste egiten duena! [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Amona-bilobak, **ostera**, toki zelaia nahiago, eta Pipas aldera joan dira, handik Oiangua jaisteko. [Patxi Zubizarreta](#)

Pentsamendu maskulinoan, **ostera**, asepsia handiagoa dago; elementu sentoralek ez dute eragiten neurri berean. [Ana Urkiza](#)

Hiru herrialde horietan, **ostera**, ez zen horrelako kezkarik izan. [Koldo Zuazo](#)

-Elkar ezagutu zenuten, beraz -berak **ostera** -, amaren ikasle garaian? [Joxe Austin Arrieta](#)

Hau, **ostera**, arrazoi fallsuetan datza dena. [Xabier Amuriza](#)

Entrenatzaileek, **ostera**, oso gustukoa dute. [Berria - Kirola](#)

Iritsi, **ostera**, nekez eta lorrez iritsi zuten azkena zibilaren arloan. [Andres Urrutia](#)

Añibarrok, **ostera**, ez zuen bide hori onartu, eta sartaldekoari jarraitu zion, bera ere Arratiakoa zenez. [Koldo Zuazo](#)

Lainoa, goibela eta euria, **ostera**, eguraldi ona zen orduan. [Joseba Sarrionandia](#)

Trikitian hain zarratua eta bera hain arteza izanik, eleiza kontuan, **ostera**, ez ei zan bape zalea eta gitxiago abadezalea. [Xabier Amuriza](#)

Bazen, **ostera**, alderik. [Edorta Jimenez](#)

Hemendik abiatutakoan, **ostera**, batek daki. [Jon Arretxe](#)

Non, **ostera**, Kode Zibil berri hori garatzeko indarra eta tenorea? [Andres Urrutia](#)

Geroagoko kontua da hori, **ostera**. [Edorta Jimenez](#)

4 osterako ik osterako.

4 ostera berriz berriz, berriro.

Hankak **ostera berriz** neuzkan karel zuri etengabe dardartiaren kontra bermaturik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Hiriska bat, ia herriska bat esango nuke, levantinoa, jende-inurritegiak karrika erdian, eta **ostera berriz** bakar-mortua, aurri-hondakinak, hiri handi plantako imitazio batzuk ere bai tarteka, izugarri itsusia. [Joxe Austin Arrieta](#)

Bai horixe, **ostera berriz** gazteak, ahoa eskuaren gibelaldearekin garbitu eta gero, baina Alak ez dio lagutzen bere buruari laguntzen ez dionari. [Jon Alonso](#)

Gero isiltzen omen zen, eta handik ordu, egun edo aste batzuetara ekiten zion **ostera berriz**: "Alua... paripé... alua". [Jon Alonso](#)

Baina Moisesek **ostera ere**: [...]. [Jose Antonio Mujika](#)

5 ostera ere berriz ere.

Ostera ere ahaztu egin zaio atea buelta pare batekin ixtea. [Sonia Gonzalez](#)

Eta **ostera ere**, oihu bera. [Anjel Lertxundi](#)

Negarrez hasi zen **ostera ere** ama. [Harkaitz Cano](#)

Jesus, **ostera ere** hunkiturik, hilobira hurbildu zen. [Elizen arteko biblia](#)

Iribarre zabala egin zuen Tomek; gero, edalontzia jaso zuen **ostera ere**: "Zure osasunaren alde, osaba Nat". [Oskar Arana](#)

Bon, -Berlusgoñi zen, **ostera ere** -, honekin epaileen Lehendakariak nire hitzerdiak ulertzen dituelakoa egiten badu, nahikoa da, nahikoa behar du. [Jon Alonso](#)

Hala zegoen hezlea **ostera ere** agertu zenean. [Koro Navarro](#)

Agintzen dizut ez dela **ostera ere** gertatuko. [Patxi Zubizarreta](#)

Distiraldiaren argitan, zuhaitzaren enborrean Martin ikusi, eta tiro egin zuen **ostera ere**. [Koro Navarro](#)

Gau onak eman zizkidan **ostera ere**. [Juan Garzia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bai ostera (9); **baina ostera** (5); **berak ostera** (13)

egin zen ostera (7); **egin zuen ostera** (11); **ekin nion ostera** (6); **ekin zion ostera** (8); **gero ostera** (20); **hark ostera** (9); **hartu zuen ostera** (5); **hasi naiz ostera** (5)

nik ostera (18)

ostera arte (7); **ostera be** (5); **ostera bere** (10); **ostera berriz** (7); **ostera entzun** (6); **ostera ere** (251); **ostera ikusi** (5)

ostera² 1 *iz* ibilaldia, joan-etorria.

Hiriak eskaintzen zuen aukera zabalaz gozatu nahi zuen: antzerkiak, filmak, kontzertuak, dantza-ikusizunak, poesia-irakurraldiak, Staten Island ferry-an ilargipean **osterak** egitea. [Oskar Arana](#)

Ilun zegoen jadanik Zanjanen hartutako ostatutik irten naizenean, herrian **ostera** bat egiteko asmoz. [Jon Arretxe](#)

Portuko aparkalekura jo aitzin, **ostera** bat egin zuen hondartzako etorbide luzetik. [Miguel Angel Mintegi](#)

Orain, nahi baduk, **ostera** bat egingo azokan zehar. Karlos Zabala

Orain, nahi baduk, **ostera** bat egingo diagu azokan zehar. Karlos Zabala

Gero bazar egiptoarrera jaitsi naiz beste **ostera** bat egitera, eta haren aterpe usaintsu eta koloretsuan bilatu dut babes. Jon Arretxe

Esan zuen, orobat, era horretako **osterak** zirela Harryrekin lan eginez egiten zituen gauzen artean gehien gustatzen zitzaizkionak. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ostera bat egin (5)

osterakide iz bidaiakidea.

Besterik gabe elkartu zait ibilaldian, ez baimenik ez antzekorik eskatzeke; "nire izena Hussein da" esan eta horri nahikoa iritzi dio nire **osterakide** bihurtzeko. Jon Arretxe

osterako 1 adlag gerorako.

-Eztabaidak sabela bete **osterako**, bale? Unai Iturriaga

Pentsamendu hori hedatuz doa, eta Bigarren Mundu Gerra **osterako**, mundu anglo-saxoi osoaz jabetua omen da. Joxe Azurmendi

Beldur naiz nire zentzutasuna, berez ere oso handia ez dena, bizkorregi ez ote zaidan agortzen ari, eta gerra **osterako** ezer ez ote zaidan geratuko. Josu Zabaleta

Hauteskundeak baino lehen, hautesle talde indartsuenen gogoko ekonomia-politika ezartzen da, alegia, neurri popularrak, eta hauteskunde **osterako**, berriz, hain popularrak ez diren neurriak uzten dira. Iñaki Heras

EAJ eta Ibarretxe aipatzen hasi dira alderdien mahaia uda **osterako** utzi behar dela. Berria - Harian

Halako kritika bat Jaurilaritzari, beste hamaika lanen **osterako** utzi duelako agiritegiarena. Iñigo Aranbarri

• 2 (izenlagun gisa)

Keynesen hitzetan, "aberatsak bertan bizitzeko etxetzarrak eraiki edota hil-**osterako** piramideak egin, edota, beren bekatuez damututa, katedralak eraiki eta monasterio edo atzerriko misioak sortu", jarduera horiek guztiek ekonomia hazkundea dakarte. Iñaki Heras

Frontoietan jo eta ke lehenik, gero Centro Vascon [...] eta **osterakoetan** inguruko tabernetan iji eta aja ibiltzen diren pilotarietako batzuk sarekoak dira, duda barik. Edorta Jimenez

osterantzean (orobat ostantzean) 1 adlag bestela, gainerantzean, gainerakoan.

Burua geldiarazi behar dut, **osterantzean** zoratu egingo naiz. Sonia Gonzalez

Garagardo askotxo edan behar izan nuen, jakina, **osterantzean** ez nukeen saltsa gorrixka batean ekarri zidaten hura irentsi ahal izango. Xabier Montoia

Honeei erosi soinu bat edo, **osterantzean**, ni gehiago ez nator. Xabier Amuriza

Eta harrituta entzuten omen zuen Martinek bere ama erdaraz, **osterantzean** euskaraz aritzen zelako beti, are gehiago bere familiakoekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Bronxekoa ei zen jatorriz, **osterantzean** ez nekien deus ere lvyz. Joxe Austin Arrieta

Osterantzean, 1994an Giza Eskubideei eta Ingurumenari buruzko Printzipioen Adierazpena aurkeztu zuten Genevan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Osterantzean, ez zan bapere gastatzailea. Xabier Amuriza

Zer egin **osterantzean**? Urtzi Urrutikoeetxea

-Hala izan dadila... **osterantzean** ... Paddy Rekalde

Segi Emeterioren atuna jaten; hotzitu egingo zaizu **osterantzean**. Markos Zapiain

2 osterantzeko (orobat ostantzerako) izlag bestelakoa, gainerakoa.

Ezbairik gabe, **osterantzeko** arrazoiak ere baziren haren erabakiaren oinarrian. Koldo Zuazo

Osterantzeko gauza guztien gaineratik, musikarekiko afizioak elkartzen zituen Luigi eta Mentxu. Josu Landa

Ondasun mota desberdinak, langintza bestelakotsuak, giza bizitzaren **osterantzeko** egoerak, horiek guztiek eskatzen dituzte erregela berezkoak. Andres Urrutia

Hogeita bost urte zituen Egañazpik Sakabirekin hasi zenean, soldadutzak, gerrak eta **osterantzekoak** bukatu eta gero. Iñigo Aranbarri

Ni orduan gazte txaldan bat besterik ez ninduan, hemengo **osterantzekoak** bezala. Pako Aristi

Osterantzekoak ez du ardurarik. Josu Landa

osteratu, osteratu, osteratzen du ad itzuli.

Eta zubitik bezain muker **osteratu** zenean, mututurik utzi gintuen. Koldo Izagirre

2 hizketaldi batean gehitu.

Emakumeak, zakar, **osteratu** zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Zaitak sorbaldak jaso zituen, eta xumetasunez **osteratu**: [...]. Patxi Zubizarreta

-Aberats jaio behar huen - **osteratu** zion Zaitak, zakar. Patxi Zubizarreta

-Jainkoaren baimenaz - **osteratu** zion besteak-, zure esku uzten dut ene arima. Patxi Zubizarreta

Hori hizkuntzaren analisiak frogatzen du [...] baina ez horrek bakarrik (hizkuntza ez dela natura, **osteratu** ahal izango bailuke norbaitek), Joxe Azurmendi

osteratxo 1 iz adkor ibilalditxoa.

Berriro ere etxekoak gogora ekarririk, goizeroko **osteratxo** datorkit burura. Mirentxu Larrañaga

Egunero-egunero irrikaz itxaroten zuen kalean zeharreko **osteratxoaz** gozatu ahal izateko unea. Mirentxu Larrañaga

Teorian **osteratxo** haiek nik neure behar fisiologikoak asetzeko izaten ziren. Jon Arretxe

Irrika biziz itxaroten nuen egun osoan etxerako **osteratxo** luze hura. Mirentxu Larrañaga

2 (egin aditzarekin)

Eta agentzia baten eskutik ere joan izango nintzen, baldin eta Tarifako lagun batzuek "Mahomaren lurretatik **osteratxo** bat egitera" gonbidatu ez banindute. Bernardo Atxaga

Osteratxo egiteko ohitura zuen afaldu aurretik. Josu Landa

Behin, duela urte batzuk, **osteratxo** bat egitera atera nintzen, askotan bezala, hirian zehar. Joxerra Garzia

Irribarrea aurpegian irten omen zen, goizean goizik **osteratxo** bat egitera balioa bezala. Mirentxu Larrañaga

Burura datozkit, bide batez [...] iluntzero elkarrekin egiten genituen **osteratxoak**, ibai-bazterrean beherantz. Mirentxu Larrañaga

Helikopteroan **osteratxo** bat egitera. Xabier Olarra

Petrusengana abiatzen da **osteratxo** bat eginez, eta bizikleta konpontzen aurkitzen du, azpikoz gora jarrita duela. Oskar Arana

Katedrallean **osteratxo** bat egin dut. Anjel Lertxundi
Lehenbizikoa, "txakur familiarra", laztantzen eta **osteratxo** egiteko txistu egiten zaiou hori da. Juan Garzia

3 (eman aditzarekin)

Trenetik jaitsi eta **osteratxo** bat ematea otu zait buruan darabildanari erantzuteko. Anjel Lertxundi
Osteratxo bat emateko eskatu dizu, baina egunkaririk gabe, mesedez, egunkaririk gabe. Lutxo Egia
Manhattanera ailegatu eta lehen astean eman nuen estreinako **osteratxo** Harlemen. Harkaitz Cano
Gura badun emango dinagu **osteratxo**, polit hori. Urtzi Urrutikoeetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

osteratxo bat egin (5); **osteratxo** bat egitera (5)

osteratxo egin (7); **osteratxo** egitera (8)

ostertz 1 *iz* puntu batetik ikus daitekeen lurrazala mugatzen duen lerroa; lerro horretatik hurbil dauden lur azaleko eta zeruko zatiak. ik **hodeiertz**; **zerumuga**.

Igeldo ostean ezkatutu zaharra ez den eguzkiak urdin aratz argitzen du itsasaldean **ostertza**. Iñaki Iñurrieta
Gorritzen hasita zegoen **ostertza**, eta laster argituko zuen egunak. Anjel Lertxundi
Ostertza goratu egin da, itsasoa ageri da han behean. Koldo Izagirre
Eguzkia behera doan heinean odoltzen ari da **ostertza**. Jokin Urain
Jira eginda Pasaiaiko badia ikusten dugu, eta **ostertzean** itsaso zabal. Koldo Izagirre
Une hartantxe, eguzkia basamortuko **ostertzean** jada desagertzeaz zegoela, iritsi zen autobusa Tadmor hiriko Orient hotelera. Josetxo Azkona
Noiz edo noiz, zamaontziren bat **ostertzean**. Joxe Austin Arrieta
Itsuenarentzat ere nabarmenegia jada abioien presentzia **ostertzean**. Ramon Saizarbitoria
Ostertzeko mendiak, ilunabarrak lausotuta, forma zoragarriak hartuak ziren. Koldo Izagirre
Kanpoan bagoiaren itzal mugikorra **ostertzerantz** luzatzen zen. Juan Garzia
Eguzkia zeruko une gorena jotzeaz zegoela bostehun gerlari azaldu ziren **ostertzean**. Xabier Aranburu
Piztia zauritu baten intziria, **ostertzerainoko** zabal. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Itsaso horren **ostertz** urrun izenik gabeen igarriko duzu zure sortetxera bidea. Joseba Sarrionandia
Ostertz neurrigabe bat ikusten dut. Koldo Izagirre
Ostertza lainotsu dago, eguzkiak erre egiten banau ere. Koldo Izagirre
Eguzki-dirdaiaren islan, aintzira garden bat zirudien ordokiak, lurrunetan desegina, **ostertz** gris bat irazten utziz, argi-lausoturik, lurrunetatik zehar. Juan Garzia
Orduan, gure harridurarako, urrunean beste bat eta gero beste bat eta **ostertz** argitsuan are beste tximinia bat begiztatu ditugu, euretako biri gureari legez zerien kea. Urtzi Urrutikoeetxea
Hondarrezko **ostertza** dakusat, gau berdean zuriska, hemendik hogeit bat miliatara. Joxe Austin Arrieta

3 irud/hed

Begiak itxiko ditut, etorkizuneko **ostertzetako** gurma eta lanbroak ez ikusteko. Joseba Sarrionandia
Nola sortu eta irauan ahal izan duen egitasmo bakarrak, **ostertz** bakarra, hainbeste gogo ezberdin eta bata bestearen ondokorentzat. Xabier Arregi
Gertaeren azpian beste historia bat aurkitzen du, serioagoa, ezkutukoagoa, oinarrikoagoa, jatorritik gertuago, bere azken **ostertzari** hobeto lotua. Xabier Arregi
Horrexegatik, ez da beharrezkoa jotzea mugagabeki gibelatutako jatorriaren eta agortezineko **ostertzaren** gaietara. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan)

Ezkerreko aldea eskuinekoa baino luzeago, Igeldo eta Urgull lotzen dituen **ostertz** marraren gainean luze, atsedenean. · Alde batetik, ez da idealtasun **ostertz** bat, keinu fundatzaile batek jarritakoa, aurkitutakoa edo ezarritakoa. Iñaki Iñurrieta

ostetasun *iz*

Kristalezko mahai borobilaren inguruan eseri gara eta, lekuaz harrituta, hara hor beheko sua, tigre diseatua, laratza, malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta **ostetasun** nabarmenean. Joseba Sarrionandia

ostetxo¹ *iz* oste txikia.

Ostetxo biltzen zuen inguruan, eta pieza amaitzen zuelarik adindu gutik jarraituko zuen bere zereginetara aho zabalduaren sabaian "Basque refugee" zioen papertxoaz zeukan soinu kutxan ezer utzi gabe. Koldo Izagirre

ostetxo² *iz*

1 *ostetxoan* *adkor* ondo-ondoren.

Dantzaldia izango zela plazan, etorritako printzeen omenezko afariaren **ostetxoan**, eta han ikusi nahi zituela bere herriko gizon eta emakumeak, neska zein mutil guztiak.

Felipe Juaristi

Aita, izenez Harkaitz Gogor eta abizenaz eta tituluz Sagarrondoak loratzen diren Goi Ordokiko Jaun, Enperadore Horiaren dekretuaren **ostetxoan** Harkaitz Gogor huts gelditu zen, soilik izenaren jabe. Felipe Juaristi

Berniz hura, esan zidan, gerra bitartean eta **ostetxoan** ekoiztua zen; kromato basiko bat eta erretxina alkidiko bat zeuzkan. Juan Garzia

ostetxoan ik **ostetxo**².

ostia¹ (*orobat* *hostia* *g.er.*) 1 *iz* Eukaristiako ogia, gaur egun gari irinezko olata txiki biribila dena.

Apaizak **ostia** sagaratu altzatzean. Askoren artean

Bospasei egunen buruan paper baliosa banuen, sakela barnenean sartu nuena, **ostia** kontsekratuak nauzkan unti ttipiaren ondoan. Marzel Etxehandi

Eta Hala hasi ginen sakristian **ostiak** jaten. Joseba Sarrionandia

Frantzisko, egin **ostia** bat apur horiekin guztiekin eta eman jaten nahi dutenei. Askoren artean

Beste baita ania ere bidali izan zuten probintzia guztieta, **ostia** txukun eta garbiak egiteko tresneria on eta ederrez. **Askoren artean**

Ostia mihi gainean desegiten zitzaigun artean. **Joseba Sarrionandia**

FAlkoeek Pagasarriko baso batera eraman, eta **ostia** pila bat eman omen zieten jatera. **Inazio Mujika Iraola**

Geldirik ikusi zuenean, hartu zuen eskuetan Eguzki santua, bere urrezko izpiekin, **ostia** zuria erdian zuela. **Josu Zabaleta**

Fededunei **ostia** erakusteko erabiltzen diren pieza itsugarri horietako hiru, lapurturik. **Edorta Jimenez**

Komunioak komunio dira, baita paperezko **ostiekin** komekatuta ere. **Iñaki Segurola**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ostia egiten ditu bi sosetan truk biziaren irabazteko eta **ostia** porroskak banatzen ditu ahurtaraka katiximaren ondotik, hortzekin krask eta krask haurrak loriatzen baitira.

Michel Oronoz

Gisa guzietako **ostia** -untziak baziren su-pizteko untziak -hortarako antolatuturik-, bi zoletako zigareta untziak, paztilla boatak, nik dakita zer oraino. **Marzel Etxehandi**

3 **ostia-milikatzaile** higanoteentzat, Erromako Elizaren jarraitzailea. ik **ostiajale**.

Haiendako alabaina "zerri higanotak" edo "deabru heretikoak" ginen gu: "**ostia** -milikatzaileak" edo "suge papistak", berriz, haiek guretako. **Aingeru Epaltza**

Gure printze Henrikek, hoge **ostia** -milikatzaile baino gehiago garbitu omen ditu bere ezpatatz! **Aingeru Epaltza**

ostia² (*orobat osti g.er. eta oxtia g.er.*) 1 *interj adkor* harridura edo kexua adierazten duen hitza.

-**Ostia**! **Unai Iturriaga**

-**Ostia**! -esan zuen, arduratuta. **Jon Arretxe**

-**Ostia**, Jokin! **Ostia**, hi: 'Zertara etorri naiz? **Unai Iturriaga**

Julen, **ostia**, lurreratu behar al duk, edo zer? **Fernando Morillo**

-**Ostia**, egia! **Unai Iturriaga**

-**Ostia**, hi -hasi zitzaion Julen Imanoli. **Fernando Morillo**

Ostia, beste bi erori dituk, Mikel. **Unai Iturriaga**

-Barrura, **ostia**! **Juan Kruz Igerabide**

Nahikoa dun, **ostia**! **Sonia Gonzalez**

Azkar, **ostia**, azkar! **Patxi Iturritegi**

-Bale, **ostia**, bale! Alazne gainean zeukan oraindik. **Fernando Morillo**

-Joango zait, **ostia**! **Juan Kruz Igerabide**

-Ez naizela joango, **ostia**! -oihukatu zuen Haritzek, larrituta. **Fernando Morillo**

Eta hanka sartu, **ostia**. **Fernando Morillo**

-Bada, lehengo egunean kondoi kaxaren data begiratu eta, **ostia**, iraungita zeuden! **Sonia Gonzalez**

2 (galdetzaileen eskuinean)

Eta hi nor **ostia** haiz? **Sonia Gonzalez**

Nork **ostia** aterako du diskoa? **Unai Iturriaga**

Zein **ostiak** konpondu du nire motorra! **Juan Kruz Igerabide**

Hortzak garbitzen! baina zein **ostia** haiz? -berarengana joan zen zuzenean, eta ez asmo onenekin. **Fernando Morillo**

Non **ostia** ote dago argia? **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Non **ostia** gordetzen dun hire herriko auzapeza ez badun erantzuten, urdanga, ez dun ur hortarik milikatuko ere. **Eneko Bidegain**

Nola **ostia** nahi zenuten biziaren alderdi basatira bidaiatu behar bezalako musikarik gabe? **Aingeru Epaltza**

3 (izenondo gisa)

Txoro **ostia** bat, Bilboko kaleek txakolindegiz josita jarraitzen dutela pentsatzen duten horietakoa. **Hasier Etxeberria**

-Non sartu zaigu atso **ostia** hori! **Aingeru Epaltza**

Batek baino gehiagok (neuk neronek ere, egia esateko) ume **ostia** haiek larrutzeke gogo bizia sentitu zuen. **Karlos Linazasoro**

Haren garrasiak entzun ditiat, baina, jaitsi naizenerako, han zihooan autoa **ostia** batean. **Juan Kruz Igerabide**

Pareta **ostia** hau. **Pablo Sastre**

Gaurko bukatu behar zela. -Ze ke **ostia** da hau? **Unai Iturriaga**

-Eta hiri zer, zahar **ostia**! -erantzun zion zakar luzangak. **Juan Kruz Igerabide**

Eta sinesten bazituen ez dakit zergatik ez zen saiatzen bere "karma" **ostia** hori hobetzen. **Jon Arretxe**

"Hau dek bizimodu **ostiye**!", izan zitezkeen bere aurreneko hitzak. **Iñaki Segurola**

• 4 *iz adkor* kolpea. ik **ostiako**.

Ostia batzuk merezi dozak hik, bai... **Unai Iturriaga**

Ostiak leku guztietatik. **Fernando Morillo**

Sekulako **ostia** eman omen zion behetik gora bat-batean. **Rafa Egiguren**

Inoiz baino **ostia** gehiago hartu nituen, bai. **Jon Arretxe**

Beti bezala kalean, **ostiak** hartzen eta ematen. **Jon Maia**

Edalontzi gainera benetan igotzen saiatu zenean, txarto zapaldu eta kristoren **ostia** hartu baitzuen. **Jon Arretxe**

-Zer gura duzu, **ostia** hartzea, ala? **Sonia Gonzalez**

-Eta hartu dudan **ostia**, zer? **Juan Kruz Igerabide**

Munduan ez gaituk bakarrik **ostiak** hartzeko, noizbait emateko ere bai! **Aingeru Epaltza**

-Egunen batean, **ostia** beltzak eman behar ditiat, Tkun; hiri ere bai. **Juan Kruz Igerabide**

Edo bai, **ostia** pila jausi zitzaidan. **Urtzi Urrutikoeetxea**

-Zer nahi duk? **Ostia** -zaku bat jaso? -egin dizu mehatxu bere zakurkeria gorde gabe-. **Rafa Egiguren**

Egun euri-bustien umeltasuna batzuetan, bat-bateko trumoi eta **osti** -zaparrada bestetan, belauak oinaze minsorra eragiten zion bakoitzean. **Pako Aristi**

5 gauza gaitzesgarria.

Oinarritzkoa, ezinbestekoa duguna hartu, eta laga baliagarri ez zaizkigun oroitzapenak, sentimenduak eta **ostia** guztiak albo batera. **Unai Iturriaga**

Ez gaitun orain **ostiatan** hasiko! **Unai Iturriaga**

Eta gero, kea eta **ostia**, atea beti irekita behar dik... **Pablo Sastre**

Hainbeste enpin, hainbeste latin eta hainbeste **ostia**! **Jon Arretxe**

-Neska, ez etorri **ostiekin**, hau ez dun Jolaseta. **Patxi Iturritegi**

"Hau da hau **ostia**", pentsatu zuen, nahasirik, bere kolkorako. **Fernando Morillo**

Ostia txarra, hi, droga kontuak-eta... **Urtzi Urrutikoeetxea**

6 **ostia txar** (*orobat ostitxar g.er.*) jenio txarra, aldarte txarra. ik **letxe**² 2.

Horixe bai irau, **ostias** ! **Karlos Linazasoro**
Gu ederki antzemanda gaude, **ostias** ! **Karlos Linazasoro**

ostiatu, ostia(tu), ostiatzen du *ad adkor* kolpeak eman.

Ostiatu egin naute! **Karlos Linazasoro**

Non zegoen **ostiatu** behar ninduen Marro hura? **Juan Kruz Igerabide**

Parkeko paseo laburrean txakur pijoren bat **ostiatu** eta bere jabeari lepora salto egitea? **Jon Arretxe**

Jonek gitarra lizun laztandu zuen kontzertu osoan zehar, eta Anek inoiz ez bezala jipoitu zituen bere Pearl kuttuneko partxeak, **ostiatu** !, Jonek esaten zuen bezala. **Unai Iturriaga**

ostiatxo *iz adkor* ostia txikia.

Batek baino gehiagok [...] ume ostia haiek larrutzeko gogo bizia sentitu zuen, **ostiatxo** epel batzuk banatzeko, baina fusilak zeuzkaten eskuetan eta begiratu izoztu bat beginietan. **Karlos Linazasoro**

ostikada 1 *iz adkor* ostikoa.

Sei mila dolar irabazi nituen bezero batentzat, zaldi baten **ostikada** hartu baitzuen. **Lopez de Arana**

Peterrek **ostikada** bat eman zion, labankada eman beharrean. **Julen Gabiria**

Ostikada bat eman nion aireari. **Anjel Lertxundi**

Belaunpean **ostikadak** emanez. **Koldo Biguri**

Pijamaren lepotik helduz barrabiletan **ostikadak** eta soin osoan ukabilkadak eman zizkidan. **Jokin Urain**

Golek, zapuztuta, **ostikada** bat eman zion lurrari. **Joanes Urkixo**

Ostikada bat jo zuen orgaren hagan, eta aurrera egin genuen tirrika-tarraka haize hotzean barrena. **Koro Navarro**

Beste **ostikada** bat jo zion saihetsean eta zulora bidali zuen. **Joanes Urkixo**

Harryk **ostikada** batez ireki zuen atea. **Iñaki Mendiguren**

Hiru entsegu sartu dituzte Miarriztarrek, eta emaitza orokorra (41/16), zorrotzagoa izan zitekeen aise, entseguen ondotikako **ostikadetan** tantorik ez baitute xuri/gorriek erdietsi. **Herria**

Dourthek ez zuen **ostikada** huts egin, eta Baiona apur bat urrundu zuen jaitsiera postuetatik. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Otegitik «**ostikada** bat» eman nahi izan dio EAJri CiUren bitartez. **Berria - Euskal Herria**

Aderazi zutenez, Aznarren eta PPren «azken **ostikadak** » dira hauek. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Herri osoko Foruen kontrako lehenengo **ostikada** 1839an eman ondoren, eta 1841ean Nafarroaren kontra bigarrena emanda, orain Baskongadetakoa zeukaagu gainean. **Txillardegi**

3 (izenondoekin)

Berak ere bazekinan **ostikada** ederra hartu behar zuela! **Xabier Paya**

Ostikada on bat ematen dio mutilari, gogor, eta aldamen batera itzulikarazten du. **Oskar Arana**

Noraren aitak **ostikada** amorratua eman zion zoruari, baina ez zuen deus esan. **Anjel Lertxundi**

Futbolariak **ostikada** bortitzak jotzeko joera erakusten dute, salbuespenik gabe. **Karlos Linazasoro**

Hanka hezurrean hartutako **ostikada** izugarri batek. **Koldo Biguri**

Gizonak hozkailuaren atea ireki eta zerratu zuen **ostikada** ahul batez. **Itxaro Borda**

Makinek eta zestak eraikin berean egon behar dute; hala izan ezean, **ostikada** handia litzateke kirolarentzat. Historiari egindako burla bat, **ostikada** txiki bat. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan)

Gizon hari oinazerik latzenak ematen hasi aurretik Rafael Leonidas Trujillok berak **ostikada** zaparrada jo ei zion. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ostikada bat eman (5); **ostikada bat jo** (4); **ostikada batez** (6); **ostikada eman** (4); **ostikada jo** (4); **sekulako ostikada** (3)

ikarak eta ostikadak (3); **ostikadak eman** (5); **ostikadak ematen** (5)

ostikadatxo 1 *iz adkor* ostikada txikia. ik **ostikotxo**.

Peter sarritan ahalegindu zen, baina **ostikadatxoak** ematen hasi orduko hondoratu egiten zen. **Julen Gabiria**

Staderen entsegu lerrotik 24 metrora eraso **ostikadatxoak** Brusquek, eta bera heldu zen azkarren baloia pausatzeraz. **Berria - Kirola**

2 irud/hed

Iragana hain dago horientzat urrun ze, Bigarren Mundu Gerraren ostean eraiki zen bake arkitekturnari [...] **ostikadatxoak** emateko prest baitira. **Edorta Jimenez**

ostikalari ik **ostikolari**.

ostikaldi *iz* ostikoa.

Goiz batean ohi ez bezalako hots batek esnatu zuen Héraclius doktorea; ohetik jauzi batez jaiki, laster bai laster jantzi eta sukaldera joan zen, sekulako garrasiak eta **ostikaldiak** entzuten baitziren handik. **Josu Zabaleta**

ostikari ik **ostikolari**.

ostikatu, ostika, ostikatzen 1 du *ad* ostikoz jo.

Behiek zirkulu bat egiten zuten, erdian txahalak utzita, eta adarrak erakusten zituzten kanpora; orobat egiten zuten behorrek, haiek berriz, aldakak erakusten zituzten, arrotza

ostikatu behar bazen ere. Pablo Sastre
Ura gogor **ostikatuz**, inguru osoa bustiz. Koro Navarro
Gero lurrean **ostikatu** zuen amorruez, konkorrak ez zuen ja garrasirik egiten. Pablo Sastre
Bainukoa bezain epela zegok -beste eskuaz harkaitza **ostikatzen** zuen, [...] eta eroldi batean jotzen zuen ura, itotzen ari balitz bezala. Koro Navarro

2 irud/hed

Azpirarratuz gazte horiek Espainiako polizaren esku ezarriak balire, giza-eskubideak litazkeela **ostikatuak**. Herria
Zernahi gisaz, aintz tokitan bakea **ostikatu** izan da urte hortan guzian. Herria
Segurantzaz beterik nengoen mahaira jarri baino lehen, eta dudek **ostikatzen** ninduten bi ordu eta erdi geroago. Aingeru Epaltza
Eta kontzientziaren baitan ostataturik nuen harra nahi nuen **ostikatu** eta handik igorri. Joan Mari Irigoien
Ahalgetzekoa ere baduk herri baten hola **ostikatzea**. Michel Oronoz
-Zer gertatuko litzateke Italiak Sizilia **ostikatuko** balu...? -galdetu nion. Joan Mari Irigoien

3 (era burutua izenondo gisa)

Goruki zeritzan indiar gaztea, zeina baitzen Antonio Ibarbiak Santo Tomáseko pulperia-n jaso zuen indiar **ostikatu**. Joan Mari Irigoien
Hiltzailearen etsipenaren lekuko dira irudi **ostikatuak**, sumindu egin baita objektu baliagarriak aurkitu ez duelako agure haren gorpuan. Jon Muñoz
Ostikatu erremina trufazko lanabes bihurtu du, eta ostikatzaileen atzaparkadarik zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen, harik eta peluxecko panpinak bilakatu diren arte. Txema Ramirez de la Piscina

ostikatzaile iz ostikatzen duen pertsona.

Ostikatuaren erremina trufazko lanabes bihurtu du, eta **ostikatzaileen** atzaparkadarik zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen, harik eta peluxecko panpinak bilakatu diren arte. Txema Ramirez de la Piscina

ostiko 1 iz oinaz ematen den ukaldia; zaldiak eta kideko abereak atzeko hanka bat edo biak atzerantz jaurtikiz egiten duen higidura edo ematen duen kolpea. ik **ostikada**.

Alde guztietatik etorri zitzaizkidan zaflakoak, **ostikoak**, muturrekoak. Aingeru Epaltza
Blackek **ostiko** bat bota zion eta Pettigrewek atzera egin zuen. Iñaki Mendiguren
Ronek isatsetik heldu zion Scabbersi eta gaizki kalkulaturiko **ostikoa** bota zion Crookshanksi. Iñaki Mendiguren
Esoporen alegian ere lehoiari, zahartu zenean, astoak **ostikoa** tira zion. Gotzon Garate
Zakurra baztertu nuen, alde batera egin zuen nik muturrean **ostiko** bat emanda. Fernando Rey
Emon diodan **ostikoa** samurra eta oheperakoa izan da. Koldo Izagirre
-Oi, eman diezaiogun **ostiko** bat, behin behintzat. Iñaki Mendiguren
ik beherago 7. Askoren artean
Enetzat zeukan **ostiko** bat aireari eman zion, baztertu bainintzen. Marzel Etxehandi
On Camillok muturra belztu eta **ostiko** bat eman zion traste hari: ez zen ezer gertatu. Koldo Biguri
Ostiko eta hasperenak egiten zituztela entzuten nuen, eta oilo-ipurdia jartzen zidaten. Pello Lizarralde
ik beherago 6. Askoren artean
Kaxei bi **ostiko** jo eta gure amaren bila joan zen hura iraintzeko. Pello Lizarralde
ik beherago 8. Askoren artean
Ostikoak jotzen zituen atean, dena apurtzen zuen. Karlos Zabala
Aurreko gauean jasotako **ostiko** eta ukabilkadek min egiten zidaten oraindik. Iban Zaldúa
Agondu, **ostiko** batez manta baztertu eta pijamaren atorra lotu nuen. Fernando Rey
-**Ostiko** bat ipurtzuloan -erantzun zuen agureak. Josu Zabaleta
Azkenean **ostiko** bat ipurdian joan nintzen kanporat. Menane Oxandabaratz
Ostikoa harentzat zela iduritu zitzaion, eta brau zutitu zen aulkitik. Elena Touyarou
Harik eta hark, bere emaztearen alprojakeriaz asperturik, etxetik kanpora **ostikoz** bota zuen arte. Josu Zabaleta
ik beherago 11. Askoren artean
Ostikoz ireki duzue egurrezko atea. Xabier Montoia

2 irud/hed

-Langilearentzat izaten dira **ostiko** guztiak -esan zuen Hynes jaunak-, eta ez du penike-erdiko bat ere jasotzen. Irene Aldasoro
Ostiko bat Juppé-rentzat, ikas dezan ez dela hola behar sobera "gormanta"! Herria
Horiek hola, mintzatu den egun hortan berean, bera mintzatu baino zombait oren lehenago, Raffarin-ek hartu ditu bi **ostiko**. Herria
Eskuadrilla batek, **ostiko** batez, herrixka birrintzen du. Josu Zabaleta
Ostikoz hartu ninduten hastapenean. Berria - Euskal Herria
Tomasen harridurak egin zuen harako hartan **ostikoz** erabil ez nintzaten. Koldo Izagirre

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikasle guztiek gorroto zioten eta Norris andreari **ostiko** on bat ematea zen askoren guraririk biziena. Iñaki Mendiguren
Pariseko parrokia aristokrata batetako bikarioak **ostiko** bat ederra bildu zuen, ontsa lerrokatua ez zelakotz-edo. Marzel Etxehandi
Hau ere lagunari lotzen zaio eta bi **ostiko** ederrak emaiten dizkio esku bat sakelari. Marzel Etxehandi
Gizonari erreakzionatzeko astirik eman gabe, Amaiak **ostiko** bortitza eman zion barrabil-barrabiletan. Aitor Arana
Valdok denbora askoan izango du gogoan Santiago Bernabeun Roberto Carlos Real Madrilako jokalaria eman zion **ostiko** itsusia. Berria - Kirola
Baldea burutik behera sartu eta **ostiko** galanta emanda bidali zuen handik kanpora. Koldo Biguri
Ostiko txiki bat jo zidan mahaiaren azpitik, eta gatza erori zitzaidan. Koro Navarro
Tente jarri zenean, birao egin eta **ostiko** baldar bat eman zion aireari. Anjel Lertxundi
Lurrean zegoen zakuak ere **ostiko** latza jaso zuen. Josu Landa
-*Ego te absolvo* -esan zuen, **ostiko** gehigarri bat erantsiz-. Koldo Biguri
Nire atzetik hasi zen lasterka ipurdian sekulako **ostikoa** emateko. Pello Lizarralde
Ancien Régime-aren azken hondakinak ezabatzeko, neure eskuz edo neure hankaz **eman** nion hondarreko **ostikoa**, ikasturtea hasi bezain laster. Xabier Mendiguren
Elizegi

4 (hitz elkartuetan)

Dena mehatxu, jokaldi eta **ostiko** -zanzako, gaixtagin tzar batzuen lehertzeko egin ohi den bezala. bakoitzean, Bakoitzean, Pepponek emandako **ostiko** pilo bat hartzen zuen. Herria

5 arkitekturan, zutik dagoen zerbaiti, bermatzeko, jatzten zaion euskarria.

Gero,URREKO adetik **ostikoak** edo horma-bularrak altxako dira paretairen batera. **Santiago Iruretagoiena**
Ostikoen luzera lau zulo eta erdikoa izango da, zabalera, oinean hartuta, 2/3 zuloak, eta lodiera, goian hartuta, 7/12koa. **Santiago Iruretagoiena**
Dorreari eusteko **ostikoek** beheko aldean bederatziz hazbete izan behar zituztela, eta goiko aldean oin erdia. **Santiago Iruretagoiena**
Estutzeak ere beheko partearen bosteko bat izan behar duela, eta **ostikoek** behean oinbete izan behar dutela, eta goian sei hazbete. **Santiago Iruretagoiena**

5 gaztigu-ostiko ik gaztigu² 2.

6 ostiko egin (8 agerraldi, 4 liburutan)

Akerra **ostiko egiten** saiatzen da ostera ere, kulunkatu egiten da. **Oskar Arana**
Indarrez gainezka lurrari **ostiko eginez**, armen aurrera oldartzen da. **Elizen arteko biblia**
Pepponek **ostiko egin** zion harri bati. **Koldo Biguri**
Bere amari etengabe **ostiko egiten** ikusi dut kalean, gozoki eske garrasika. **Iñaki Mendiguren**

7 ostiko eman (13 agerraldi, 10 liburu eta artikulua 1ean) ik beherago 9.

Orduan, Harry Subximistaren gainera igo, eta lurrari **ostiko emanez** goratu egin zen. **Iñaki Mendiguren**
Ateari **ostiko ematen** saiatzen da, baina ondoezik dago, ez du nahikoa leku. **Oskar Arana**
Metalezko liburu erraldoiaren altzoan lo zegoen arratoi bati **ostiko eman** zion nahi gabe. **Harkaitz Cano**
-Ama Birjiña Martxoko, neguari **eman** diok **ostiko**. **Pello Zabala**

8 ostiko jo (8 agerraldi, 7 liburutan) ik beherago 10.

Ostiko jo dut txapan. **Koldo Izagirre**
Phips-ek **ostiko jotzen** zuen aurrealdeko zubi-gazteluan, draga eta gakoan artean. **Juan Garzia**
Orduan ezak orpoz gora bota, jo dezan zeruaren aurka **ostiko**, eta haren arima agi dadin hain infernuzko beltz nola leizea, nora baitoa. **Juan Garzia**
Uretan **ostiko joka** ari zela, esan nion: [...]. **Koro Navarro**
Ume-piloak izaren artean iriteten hasten ziren negar-zotinka eta **ostiko**-joka. **Lopez de Arana**

9 ostikoa eman (29 agerraldi, 20 liburu eta 5 artikulutan)

Pottoken paretik pasa zenean, hauetako batek **ostikoa eman** zion, eta lasterka betean harrapatu zuen. **Agustin Otsoa**
Kontua da **ostikoa eman** niola aitari haren eskuetatik libratzeko. **Anjel Lertxundi**
San Antoniok errieta egin ziola mutil bati bere amari **ostikoa eman** ziolako. **Jon Alonso**
Sekulako inozokeria egin zuen ordu laurdena falta zela, Orbaizi **ostikoa emanda**, eta epaileak zelaitik kanporatu zuen. **Berria - Kirola**
[...] esaten zidan, muturra nazka keinuaz oertuz eta **ostikoa ematekoa** eginez, haren bidean aurkitzen ninduenen. **Jon Arretxe**
Berrero **eman** nion **ostikoa**. **Anjel Lertxundi**
Tira, goazen barrura! -eta **ostikoa eman** zion pertsiarari-. **Sonia Gonzalez**
-Jainkoarren, **ostikoa eman** didazu begian! **Lopez de Arana**

10 ostikoa jo (14 agerraldi, 11 liburu eta artikulua 1ean)

Ostikoa jo zion, ezer ez. **Pablo Sastre**
Horiek izan ziren aitari **ostikoa jo** eta bultza egin nionetik nire lehendabiziko hitzak. **Anjel Lertxundi**
Harri-koxkor bati **ostikoa jo** diot. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Baina hori baloiari **ostikoa jotzen** dakienaren kasu bera da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Errugbian bezala: **jo ostikoa**, eta jarraitu baloiari. **Berria - Harian**
-Egun batean nire senar jeloskorrak **ostikoa jo**, eta auskalo non galdu zitzaigun... **Joan Mari Irigoien**

11 ostikoz jo (25 agerraldi, 16 liburu eta artikulua 1ean)

Atxilotuetarik bat erori egin zen, falangistek **ostikoz jota**. **Koldo Izagirre**
Ematen zuen Ronek **ostikoz jo** zuela Lockhart orkatiletan. Lola erraz askatu da, baina gizona **ostikoz jotzeko** egin duen saioak ez du arrakastarik izan. **Iñaki Mendiguren**
Txinaurriek **ostikoz jo** eta barreiatutako txinaurritegia berrosatzen duten moduan. **Jokin Urain**
Ostikoz jota bota zuen bazter batera. **Anton Garikano**
Handitasunari ahuspez herrestan hurbiltzen zaiona, jirarazteko agindu eta ipurdian **ostikoz jo** ez dezaten. **Xabier Olarra**
Han, egon zintezke seguru ez duzula aurkituko marmol harizko zorurik -gehitu zuen **ostikoz** lurra **joaz**. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emandako ostiko (3); **gaztigu ostiko** (64); **lurrari ostiko** (3); **lurrean ostiko** (5); **ostiko bat ederra** (4); **ostiko bat eman** (24); **ostiko bat emanda** (4); **ostiko bat ematen** (3); **ostiko bat jo** (3); **ostiko ederrak** (5); **ostiko egin** (3); **ostiko egiten** (4); **ostiko eman** (9); **ostiko jo** (3); **ostiko joka** (3); **ostiko txiki bat** (3); **ostiko txikiak** (3)
ostikoa bildu (3); **ostikoa eman** (19); **ostikoa eman zion** (5); **ostikoa emanda** (4); **ostikoa hartu** (4); **ostikoa jo** (11); **ostikoa jo eta** (4); **sekulako ostikoa** (6); **sekulako ostikoa eman** (3)
ostikoak eman (6); **ostikoak ematea** (3); **ostikoak ematen** (11); **ostikoak jotzen** (9); **ukabildakak eta ostikoak** (5)
ostikoz jo (15); **ostikoz jo zuela** (3); **ostikoz jota** (3); **ostikoz jotzen** (4)

ostikoka *adlag* ostikoz joz, ostikoak emanez.

Ostikoka hasi zara atearen kontra. **Rafa Eiguren**
Jeepak bete-beteta, kabitu ez ziren atxilotuei lurrean etzateko agindu zieten, eta **ostikoka** ekin. **Juan Kruz Igerabide**
Zeuretzat okerrago eztenari **ostikoka** egiten badiozu! **Elizen arteko biblia**
Kontatu zuen goiz hartan bertan bereizgarria ez zeraman judu bat bota zutela **ostikoka** tranbiatik. **Anjel Lertxundi**
Horren inozoa ez bazina, **ostikoka** bidaliko zintuzket. **Koro Navarro**
Nik ipurdia birrinduko diot **ostikoka**! **Koldo Biguri**
Buccako atxilotze gunean preso irakiar zenbait **ostikoka** erabili zituztelako. **Berria - Mundua**
Ostikoka eta muturrekoak ematen hasi zitzaion neska-lagunari etxera iritsi zenean. **Berria - Euskal Herria**
Ostikoka eta ukabildakada atera zituzten handik. **Jokin Urain**
Ostikoka eta ukabildakada ibili gintuzten, gero eta gogorrago. **Juan Kruz Igerabide**
Arrastaka eta **ostikoka** eraman ninduten mendian behera. **Anjel Lertxundi**
Elkarri hozka eta **ostikoka** hasten baitziren mandoak tarteka. **Patziku Perurena**
Mozkortzen zenean, bortizki erabiltzen zuen bere emaztea, ukabil eta **ostikoka**. **Aingeru Epaltza**
Jo eta ke ari zait **ostikoka**, bizkarrean, zangoetan, eta ahal duen toki guztietan. **Mirentxu Larrañaga**
Osasunak ez zuen zirrikiturik utzi, eta, estu zebilenean, **ostikoka** geldiarazi zuen Reala. **Berria - Kirola**
-Ez dun hurrengorik izango, ez horixe! -esan zuen Heriok, amorru osoz, aireari **ostikoka**. **Anjel Lertxundi**
Garrasika eta aireari **ostikoka** zebilen, aurpegi zuria malkotan blai. **Lopez de Arana**

Kirolzelaietan biziki trebe baloi bati **ostikoka**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aireari ostikoka (5); **lurrari ostikoka** (4); **ostikoka ari** (10); **ostikoka ari ziren** (3); **ostikoka bidaliko** (3); **ostikoka bota** (6); **ostikoka erabili** (4); **ostikoka hasi** (20); **ostikoka hasi zen** (7); **ostikoka hasten** (4)

ostikoketa *iz* futbola.

Ostikoketa? ni banyek berriz! **Berria - Kirola**

ostikolari (*orobat ostikalari g.er. eta ostikari g.er.*) **1 izond** ostiko jotzen duena.

Benaibordako astar urdin aztaloker hura, Petrineko mando gorri **ostikolaria**. Aldaiko mandoko uhela... **Patziku Perurena**

2 futbolaria.

Egun hauetan jaun horien hasieraz elkartzen ari dira kirolzaleak, gehienez ere **ostikolariak**. **Jokin Urain**

Ostikolari bikainak eta alfonbra-saltzaile malderrak hain desberdin hartzen ditugun herri honetan. **Markos Zapiain**

ostikopean (*orobat ostiko pean*) **1 adlag** oinpean, ostikoka.

Horrek ez dik esan nahi isil-isilik geratuko naizenik eta **ostikopean** erabiltzen utziko diodanik. **Mirentxu Larrañaga**

Aulki bat alboratu eta errezelak eraztea lortu nuen: lurrera bota eta amorru biziz **ostikopean** nerabiltzan, ordurako keak erdi itsuturik, odola lokietan taupaka larriz. **Juan**

Garzia

2 irud/hed

Voltairek **ostikopean** erabili zuen Shakespeare, mundu guztiak erabili du Shakespeare **ostikopean**. **Karlos Zabala**

ostikopetu, ostikope, ostikopetzen du *ad* ostikopean erabili.

Presondegi hartako buruzagiordea gizon zital eta bihotz gabea da: bi erreketek lagun dituela, atxilotu guziak saminduak eta **ostikopetuak** ditu... **Jokin Urain**

ostikotxo *iz* ostiko txikia.

Ez zuten Peter bezain ondo egiten hegaz, eta aireari **ostikotxoak** ere jotzen zizkieten, baina buruak sabai parean zituzten ia, eta ez dago hori baino gauza gustagarriagorik.

Julen Gabiria

ostilamendu *iz* etxeko hornidura; tresneria.

Jantzi, liburu, **ostilamendu**, bitxi, etxe eta bestelako ondasun txikiagoen balioak batuta, 67.380.547\$70etan finkatu zuen Napumoceno jaunak bere aberastasuna. **Bego Montorio**

Ostilamenduari dagokionez, bertan 37 eraztun aurkitu dira, gehienak uztai bakarrekoak, baina badira urrezkoak ere, garai erromatar berantiarrari dagozkionak. **Berria - Harian**

Apaizak [...] azaldu zien Magdaleniar kulturaren arrastoak aurkitu nahian zebilela Jentil-sulon; Rasputinen zorigaitztorako, suharri eta hezurrezko tresna nahikoa sinpleek osatzen zuten, gehienbat, magdaleniar horien **ostilamendua**. **Iban Zaldua**

«Erromes baten **ostilamendua**» zela agertu zuten antolatzaileek. **Berria - Kultura**

Ostilamenduarena bada kontua, lasai, guk jarriko dizugu. **Juan Garzia**

Gela bikoitz bat ikuste hutsa, ez noski hotel batekoa, horiek berehala uztekoak baitira, baina bai etxebizitza baten **ostilamenduzko** gela bikoitz iraunkor bat, alegia, aski motibo izaten da hori niretzat Atzerritar Legioan pentsatzen hasteko ere. **Joxe Austin Arrieta**

ostinatu *izond* setatsua, tematia, hisiatua.

Antonio ez zen aise etsitzen zuen edo lehen kolpean errendatzen zen gizon flakoa eta herbala, eta, nola baitzen, halatan, setatsua eta ezin **ostinatuagoa** -ogi gogorri ez ezik, harriei eta arrazoinbiderik gaitzeneri ere hortzak zorrotz erakusteko gai-, hala, berehala ediren zion arrazoin ihardestezin hari ere ihardespena. **Joan Mari Irigoien**

ostinatuki *adlag* setaz, temaz, hisiatuki.

Aitaren hitz haiek, konparazione, noiz eta Mattinen alde atera baitzen, hura hartaren ehizan zebilelako, gogortki eta **ostinatuki**: [...]. **Joan Mari Irigoien**

-Jainkoak hala egin zuen mundua -erraiten zuten bai batak eta bai bertzeak **ostinatuki**-. **Joan Mari Irigoien**

ostion ik arestian.

ostiral (*orobat ostirale g.er.*) **1 iz** asteko seigarren eguna, ostegunaren eta larunbataren artekoa. ik **bariku**; **ortzirale**.

Ostirala, 1936ko irailaren 18a. **Inazio Mujika Iraola**

Ostirala, 1943ko martxoak 19. **Josu Zabaleta**

Paris. **Ostirala**, 1939ko otsailaren 17^a. **Alberto Ladron Arana**

Ostirala, 11: 45 p.m. **Lourdes Oñederra**

Urte hartan Eguberri eguna **ostirala** baitzen. **Askoren artean**

Iraileko azken **ostirala**, egun aratz beroa. **Joxemari Iturralde**

Hala joan zen, egitekoz bete bezain apartekorik gabe, **ostiral** 15a, bezpera. **Juan Garzia**

Ostiral 17an, Gaztetxean gau pasa. **Herria**

Ostirala ezkerok dabil edanean. **Irene Aldasoro**

Asteko egunak otoiizerako aukeratzeko orduan, ez zuten zalantza apartekorik izan: **ostirala** Gurutzeko misterioarekin lotuta zegoenez, bertatik aukeratu zituzten. **Pello**

Zabala

Ostiral hartako dibertsioa Nana agertzean amaitu zen. Julen Gabiria

Hurrengo egunean, **ostiralean**, honako hau izan zen albiste nagusi, orde: [...]. Iñigo Aranbarri

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ostiral goiz batzuetan lo gutxi eginda joaten izan naiz lanera. Jon Arretxe

Ostiral arratsalde hartan Lucy bueltaka ibili zen Julio Rehexoren auzoan. Joxemari Iturralde

Larunbat bezpera, **ostiral** arratsa eta oraindik argi. Lourdes Oñederra

Kabarete arats bat antolatua zen joanden **ostiral** aratsean, Zabalki gelan. Herria

Ostiral iluntzean, ardi eta behi lan guztiak nihaurek egin nituen. Daniel Landart

Ostiral gau hauek ez daukate ostegun gauen lilura. Jon Arretxe

Ostiral gau arrunta, inora eramango ez nauena. Sonia Gonzalez

Ostiral gau hartan oso lo gutxi egin zuen errabinoak. Koro Navarro

Ostiral gauerdia aldera. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dut uste, gurutzefikatze **ostiral** arratsalde hartan Jesus Kristok nik haina sofritu zuenik... Itxaro Borda

4 *Ostiral Santu* Aste Santuko ostirala.

Ostiralean **Ostiral** Santu izan zen; arratsaldean, Burtsara jolasean aritu ginen, eta larunbat arratsaldean ere berdin. Josu Zabaleta

Ostiral santuko konpletetatik hasten dira, gau horretan saldu eta atxilotu baitzuten Jesu Kristo gure Jauna. Askoren artean

Kontuan hartu, baita ere, orain arteko salmo hauek **Ostiral** Santutik Piztuera igandea arte esaten direla. Askoren artean

Ostiral Santu goizez, artoa aletu eta ereteko gordetzen da propio. Pello Zabala

Ruthen pazientzia amaituz joan zen, batez ere 1955eko **Ostiral** Santu arratsaldean Davidekin elkartzekotan geratu eta, [...] Carole eta Anthony Findlater bikotearekin joan zenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Uste nuen gorrotoa, maitasuna edo heriotza gure gainera jaisten zirela, **ostiral** santuko sugarrak bezala. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

heldu den ostiral (6); iragan ostiral (7); iragan ostiral gauean (6); joan den ostiral (21); joanden ostiral (6); joanden ostiral aratsean (5); lehen ostiral (4)

ostiral arats (11); ostiral arats honetan (4); ostiral aratsean (16); ostiral aratseko (16); ostiral arrats (7); ostiral arratsalde (10); ostiral arratsaldean (29); ostiral arratsaldeko (4); ostiral aratsean (25); ostiral aratseko (7); ostiral batean (9); ostiral batez (4)

ostiral eguerdian (6); ostiral eta larunbat (4); ostiral eta larunbatean (7); ostiral eta larunbatetan (4); ostiral gau (7); ostiral gaua (8); ostiral gauean (86); ostiral gaueko (19); ostiral gauez (5); ostiral goiz (6); ostiral goizaldean (5); ostiral goizean (31); ostiral goizeko (10)

ostiral iluntzean (13)

ostiral santu (6); ostiral santua (4); ostiral santuan (6); ostiral santuko (148); ostiral santuko akordioa (40); ostiral santuko akordioak (6); ostiral santuko akordioan (9); ostiral santuko akordioarekin (4); ostiral santuko akordioaren (16) ostiral santuko hitzarmena (4)

azken ostirala (18); datorren ostirala (5); hileko azken ostirala (6); osteguna eta ostirala (7)

ostirala arte (31); ostirala baino lehen (4); ostirala bitarte (5); ostirala bitartean (16); ostirala eta larunbata (6); ostirala izaki (4)

hileko azken ostiralarekin (4)

joan den ostiralaz (4); ostiralaz geroztik (8)

joanden ostirale aratsean (4); ostirale aratsaldean (6); ostirale aratsean (13); ostirale aratseko (14); ostirale aratsean (5); ostirale aratseko (4)

aurreko ostiralean (14); azken ostiralean (12)

egingo dute ostiralean (5); heldu den ostiralean (41); helduden ostiralean (4); hurrengo ostiralean (9)

iragan ostiralean (85); joan den ostiralean (175); joan zen ostiralean (25); joanden ostiralean (23); lehengo ostiralean (15)

ostegun eta ostiralean (9); ostegunean eta ostiralean (8)

ostiralean abiatu (6); ostiralean amaitu (5); ostiralean amaituko (7); ostiralean amaituko da (4); ostiralean atera (4); ostiralean atxilotu (14); ostiralean atxilotu zuten (6); ostiralean aztertuko (4); ostiralean baionan (5); ostiralean bertan (14); ostiralean bildu (4); ostiralean bilduko (9); ostiralean bilduko dira (9); ostiralean bukatuko (5)

ostiralean egin (16); ostiralean egin zen (5); ostiralean egindako (4); ostiralean egingo (17); ostiralean eman (8); ostiralean eman zuen (6); ostiralean emango (5); ostiralean esan (8); ostiralean esan zuen (6); ostiralean eta igandean (6); ostiralean eta larunbatean (12); ostiralean hartuko (4); ostiralean hasi (16); ostiralean hasi ziren (7); ostiralean hasiko (13); ostiralean hil (6); ostiralean hil zen (4)

ostiralean iragarri (4); ostiralean izan (5); ostiralean izandako (4); ostiralean izango (6); ostiralean jakinarazi (5); ostiralean jarraituko du (8); ostiralean jokatu (6); ostiralean jokatu (12); ostiralean jokatu dute (4)

ostiralean onartu (4)

pasa den ostiralean (12)

datorren ostiraleko (4); iragan ostiraleko (7); joan den ostiraleko (7); ostiraleko bileran (6); ostiraleko emaitzak (4)

astelehenetik ostiralera (29); gaurtik ostiralera (4); ostiralera arte (9); ostiralera bitartean (6)

datorren ostiralerako (8); ostiralerako deitu (4)

azken ostiraletan (18); azken ostiraletan egin (6); hileko azken ostiraletan (6); hileroko azken ostiraletan (4); ostiraletan egin (6); ostiraletan egin ohi (6); ostiraletan egiten (4); ostiraletan eta larunbatetan (5)

iragan ostiraletik (4); joan den ostiraletik (6); ostiraletik aurrera (13); ostiraletik igandera (6)

ostirale ik ostiral.

ostiraleko 1 *adlag* ostiral guztietan.

Argia astekarlan kolaboratzen du eta **ostiraleko Berria** egunkarian testu poetikoak idazten ditu "Maratila" zutabearen. Herria

Ostiraleko bezala, otoitz orduan, bere aitaren oihal-denda zaintzen zegoen Mamu, hura meskitan zen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Hileko azken **ostiraleko** bezala, milaka izan ziren atzokoan ere euskal presoek eskubideen alde kalera atera ziren herritarrak. Berria - Euskal Herria

Denbora gutxi egiten zuten elkarrekin, astearte eta **ostiraleko**, Hannaren biolin-ikastorduen garaian, eta eguraldia edozein zela ere, neskatila beti itsuaren gidari eta erakusleho-erakusle. Joxe Austin Arrieta

Spainiaiko Gobernuak **ostiraleko** egin ohi duen Ministro Kontseiluaren ostean egindako adierazpenetan. Berria - Euskal Herria

2 ostiraleko izlag

Lubakiz bestaldekoen aldarri bat izenpetu zuela, eta sekulakoak esan zizkieten **ostiraleko** tertulian. Joxerra Garzia

Zenbait lekutan **ostiraleko** hitzordua bilakatu da senideena; preso dutenengana eramango dituen autobusa hartu aurretik egiten duten bilkura. Berria - Harian

Moktada Sadr buruzagi xiita erradikalak, esaterako, NBERen bisitaren aurka hitz egin zuen atzo Kufa hiri santuan, Irak erdialdean, **ostiraleko** otoitzean emandako hitzaldian. Berria - Mundua

ostitxar ik ostia¹ 6.

osto ik **hosto**.

ostoalde ik **hostoalde**.

ostoeri ik **hostoeri**.

ostokada ik **hostokada**.

ostokatu ik **hostokatu**.

ostondu ik **ostendu**.

ostoska *adlag* trumoika.

Ostoska ari du urrun. **Patziku Perurena**

ostots 1 iz trumoia, tximistaren hotsa.

Thor jainkoak bazuen mailu miresgarri bat eta horrekin zeruetako burdina -izarrei eusteko lurraren gainean zegoen kanpai erraldoikoa- jotzen zuen bakoitzean sortzen ziren tximistak -txinpartak- eta burrunba -trumoia, **ostotsa**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Goiznabarrean, **ostotsek** iratzarri zuten. **Juan Garzia**

Egunak joan eta egunak etorri, zaparradak geroz eta sendoagoak ziren, **ostotsak** geroz eta zaratsuagoak, tximistak are beldurgarriagoak... **Jose txo Azkona**

Zakur asko kikildu egiten da **ostotsekin**. **Gotzon Garate**

Lur guztia dardarka ari zen, burrunba eta **ostotsak** aditzen ziren. **Fernando Rey**

Ostots luze bat entzun zen. **Lopez de Arana**

Herio musika jotzaile aparta da, tresna guztiak bereak dira, tximista eta **ostots**, lurrikara eta itsas ikara, sumendi eta Jainkomendi, suzko eta berunezko su, hari eta altzairu.

Felipe Juaristi

Gero hostaila beroaren usaina sumatzen eta freskura bat-batekoa larmintzean; oinartzargien bristadak, baina ur-erauntsia ozenago **ostotsa** baino. **Joxe Austin Arrieta**

2 irud/hed

Errepublikak katoliko batek, areago Espainia guztiz katolikoaren adiskide eta negozio-lagun batek, eten behar zuela halako erakustaldia, modu isilean ahal balitz, zarata eta **ostots** handirik gabe alegia. **Felipe Juaristi**

Euskal mundua **ostots** erauntsipean dago aspaldi. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez al litzateke polita izango halako **ostots**-ekaitz bat izango bagenu? **Lopez de Arana**

Ostots danbada, otsoen orro, eta haize irrintzi artean. **Patziku Perurena**

2000. urteko abuztuan, hiru trumoialdi edo **ostots** eraunsi bota zituela. **Pello Zabala**

Oihu egiten zuten, batak oso gora eta besteak apal, batak falso-ahotsarekin eta besteak **ostots**-ahotsarekin. **Fernando Rey**

Herri askotan sortu ziren kanpai-saio horien izenak-eta: hala, **"ostots**-kanpaia" eta "osti-kanpaia" deitzen zitzaion Goierri aldean beldurgarriena zenari. **Pello Zabala**

ostotsu ik **hostotsu**.

ostotu ik **ostatu**.

ostra *iz* maskorrak kanpoaldetik ilunak eta latzak, eta barrualdetik zuriak eta leunak dituen itsas soinbera, harkaitzetan itsatsia bizi dena, jateko oso ona (*Ostrea edulis* etab.).

Zinkezko zeruaren argiak isla biziak erazuten zituen edontzitetatik, zilarrezko baxeratik, **ostren** maskorretatik eta begietatik. **Lopez de Arana**

Ostrak hondar ale bakar baten bueltan perla sortzen duen modura. **Patxi Iturritegi**

Arrantzaleeri eta **ostra** hazten artzen direneri, Chirac presidentak berak garbiki errana diote jasan makurren alderat behar duten guztia altxatuko dutela. **Herria**

Irrikaz irensten dituzte **ostrak**, karramarroak eta bestelako jaki bitxiak, eta Karlsbad-era edo Kaukasora joaten dira gero. **Jose Morales**

Ahoa itxi zinan, **ostra** bat balitz bezala. **Xabier Paya**

Zurbil eta berde, **ostren** gisa. **Monika Etxebarria**

Ostrak, arraina eta ehiza jan zituzten. **Karlos Zabala**

Beroan bero aipatuz ere Eguberri bezperako afariak eta Eguberri eguneko bazkariak, holakoetan ez direla gehiago aski xardina begi gorriak eta gaztena erreak, hor ditugula **ostrak**, legatza eta indioiloak, edari hoberenekin bixtan da! **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Aiztoak bezain **ostra**-maskor zorrotzak erabiliz torturatu zuten, eta sutan erre gero. **Jon Muñoz**

Guztira, hoguei lagunena hezurak zeuden lurperaturik, era guztietako animalien hezurdurekin nahasturik: astoak, behiak, ardiak, [...] eta baita **ostra** oskolak ere. **Berria - Harian**

Bi saskiak bete zituzten txangurroz, txirlaz, tentuz, lapaz, itsasbarraskiloz bai eta **ostra** andana batez ere. **Elena Touyarou**

ostrazismo *iz* antzinako Grezian eta, erbesteratze politikoa.

Halako batean Markok turkoei zaldiak **ostu** zizkien, bestetan bezala. Felipe Juaristi
Borrokarako batik bat **ostutako** zakurrak erabiltzen omen dituzte. Gotzon Garate
Nire seme-alaba samurrak bide latzetan ibili dira, indarrez **osturiko** artaldea bezala eraman ditu etsaiak. Elizen arteko biblia

2 (gauza abstraktuak)

Begiak itxi nituen, lvyk **ostua** zidan loaren zati bat berreskuratzeke. Joxe Austin Arrieta
Gero erabateko iluntasunak **ostuko** dio senaren indar guztia. Pako Aristi
Irriaren gaineko irriak ez baitu zerikusirik oinazeari **ostutako** irriarekin. Joan Mari Irigoien
Bere biktimei **osten** zien bizi-indarraz elikatzen zen. Joanes Urkixo
Roebing aita-semeen istorioa, Paul Austerrri **ostu** diot. Harkaitz Cano
Ruche jauna uste betean zegoen berei **ostu** ziela Sartrek izenburu hura. Jon Muñoz
Beltezko emakume hark **ostu** dio begirada Haritzi, irudia liraintzen dion traje taxutu harekin. Urtzi Urrutikoeetxea
Denboraldi-aurrean atzealdearen eskuin hegala berea zela zirudien, baina Javier Flañok postua **ostu** dio. Berria - Kirola
XIX. mendeko irudi bat kresalaren umeltasunak hiri erraldoiaren berrikuntzei **ostu** diena. Pako Aristi
-Ezpata magikoa, Azpimunduari **ostutako** energia iluna zeure barnean daramazuna... erakutsidazu bidea! arimari lehen zedukan bakea, lasaitasuna eta gelditasuna **ostuz**.
 Joanes Urkixo
Zeru puska txikiak balira bezala, patu beltzari **ostuak**. Joan Mari Irigoien
Guk ere bizitzari egunero une gogoangarri bat **ostu** ahal bageniezaio! Pako Aristi

3 (pertsanak)

Etxezain faltsuak **ostu** bere nagusiaren alaba. Juan Garzia
Ezustean Pokahontas printzesa **ostu**, eta ontzi batean giltzapetu zuen bahi gisa. Juan Garzia
Shibtah-k, emakumeei erditzean umeak **osten** zizkien emakume-deabruak, mitxoleta hazizko pastelak egiten omen zizkion infernuko labeetan. Koro Navarro
Ehun eta berrogeita hamar erretratutik gora zeuden zintzilikaturik paretetan; familiei goizegi **osturiko** gazte batzuk eta umezurtegi bateko ama nagusia salbu, irudikatutik zeudenetatik bat ere ez zen ezkongabe hil, haietako inor ere ez zen hil umerik eta testamenturik gabe, bat ere ez olio santua hartu gabe. Monika Etxebarria
"Norbaiti esklaboa **osten** badiote", esaten da alemanen legean, "lapurraren printzeagana joango da, konposizioa jasotzeko". Iñaki Iñurrieta

4 (era burutua izenondo gisa)

Edgar Allan Poeren "Eskutitz **ostua**" ipuinak erakusten digun teknika berberaz. Iban Zaldúa
Merkantzia **ostu** hori ez dezala uste berehala salduko duenik. Urtzi Urrutikoeetxea

5 isil-ostuka ik isil 24.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arima ostu (3); **autoa ostu** (3); **bihotza ostu** (3); **guztia ostu** (5); **liburua ostu** (3); **ondasunak ostu** (5)
ostutako dirua (5)

ostutze ik ostu.

oszilazio 1 iz magnitude fisiko baten bi muturren arteko aldizkako aldaketa.

Beraren bizimodua [...] bero-hotzen txandaketa gupidagabe bat da, hots, (beti maiztasun bereko) **oszilazio** mehartzexago zein zabaltzaxagozko segida bat. Juan Garzia
Material hau arina da, baina oso zaila da haustea eta **oszilazioak** ongi indargabetzen ditu. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Aurkitu nahi duena prozesu baten mugak dira, bihurgune baten inflexio-puntua, mugimendu erregulatzaile baten alderanzketa, **oszilazio** baten mugak, funtzionamendu baten atalasea, kausaltasun biribil baten haustura uea. Xabier Arregi

3 aldizkako aldaketa. ik gorabehera; atzera¹ 3.

Japoniaren atzerri-politikaren historia K.o. 1868tik 1931ra aukerabide hauen arteko **oszilazioen** historia da. Iñaki Mendiguren
Une batetik bestera aldatzen zen nostalgialaren eta unadura psikikoaren arteko **oszilazioa**. Joxan Elosegi

otaba ik oktaba.

otabera iz ote mota, arruntak baino arantza gutxiago dituen.

Agurea eta mutila Zitadelako gainetara igotzen ziren, eta han, belarraren eta **otaberaren** gainean etzanda, paisaia zabalari begira egoten ziren. Koro Navarro

otalako iz ipar abereek jateko aska.

Sektako arduradunek behitegiko **otalakoetan**, korbeen maldan, ohandze moldeko bat antolatu zioten, Zarteia bilkura eta egitate lizunetarako baliatzen zutela. Itxaro Borda
Horra Eguberriko-seinalea: haurño bat troxatua, Betleemeko **otalako** batean etzana, gurutzean etzana izan den bezala. Herria

otalora ik otalore.

otalore (orobat ota-lore, ote lore g.er. eta otalora g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian otalore agertzen da) iz otearen lorea.

Hasieran, **otalorearen** hori erne berria eta ginarraren ubela eta gorritzat izan dira malkarretako jauzi berdea orbandu dutenak. Hasier Etxeberria
Jakingo bagenu zenbat estimatzen duen erleak **otalore** hori gozoa! Pello Zabala
Negu gordinean ere **ota-lore** horitza hortxe zabaldua egoten dakien arren, aurtengo negu hotzean ez da ausartu lore babatxoak zabaltzen: luze iraun du ezin zabaldurik. Pello Zabala
Udaberriko ekinozioa dugunean juxtu ospatzen dute **otalore** horiaren eguna. Pello Zabala

otamen iz mokadua. ik ahamen.

Arto-opila da hau, banana-hostoan bildua, kalean bertan saltzen duten **otamen** koxkorra. Joxe Austin Arrieta

Gazteak egun horretan beste **otamen** nardoagorik izango ez duela aurreikusten duenaren espresio bildua dauka. Jon Alonso

Otamen bat, kopa batzuk txanpaina, muxuak, dantza bat eta... Jose Angel Irigaray

otapur iz ogi apurra.

Irakurtzen ari zela, ohartu zen mahai gainean utzitako **otapurrak** kentzen zizkiotela. Juan Garzia

Usoa batetik bestera mugitzen da bere hanka ttipiez, **otapur** bila. Pedro Alberdi

otar¹ iz ote mota gogorra.

Apezarentzat [bazela] otoitz egiteko astia **otar** eder eta errebide amaiezinetan. Piarres Aintziart

Landa, pentze eta **otar** haiek. Piarres Aintziart

otar² ik otarre.

otargile ik otarregile.

otargintza ik otarregintza.

otarrain 1 iz itsas oskoldun hamar-oin handia, begi-irtena, antena luzeak eta sendoak, eta aurreko hankak haginik gabekoak dituena, jateko oso ona (*Palinurus elephas*).

Hemen, denak **otarrainaren** eta bakailaoaren arrantzatik bizi dira. Aurelia Arkotxa

Otarrain arantzatsuek, mixera marra beltzekoek, artean bizirik, karraska egiten zuten beren hanka hautsien gainean herrestan zebiltzalarik. Karlos Zabala

Ganba pila handi arrosak dauzkate haiek, eta **otarrain** egosiak, loturik, isatsa bildua, saski gorrietan; **otarrain** biziak, ostera, marmolaren gainean hiltzen dira, zapalduta.

Karlos Zabala

Biharamunean lauretan agertu zen, bost **otarrain**, hiru botila xanpain eta bi azken-buruko zekartzala. Oskar Arana

Otarrainak garbituko zituen batek, tipula uztaiak ebakiko besteak, tomateaz eta entsaladaz arduratuko zen hurrengoa. Harkaitz Cano

Otarrain erdi bat egosita eta aguakate-entsalada bat. Lopez de Arana

Newburg erara prestatuturiko **otarraina**. Lopez de Arana

Honey eta Lucy kantu eroak kantatzen ari dira **otarrainak** hausten dituzten bitartean. Oskar Arana

2 (hitx elkartuetan)

- **Otarrain** -entsalada bukatu dela dio... Lopez de Arana

otarrainketari iz otarrain-biltzailea.

Hobe duzue portura etorriko diren ontzien zain egotea; badira guk baino hobeki zerbitzatuko zaituzteten bizpahiru **otarrainketari**. Elena Touyarou

otarraintxo iz otarrainxka.

Leireri berehala antzeman zioten denek oso gustuko zituela **otarraintxoak**, bere platera itsaski hauen azalez bete baitzen azkar. Aitor Arana

otarrainxka iz itsas oskoldun hamar-oina, 12-14 zm-koa, oskol ahula, antena luzeak eta sabelalde luzanga dituena (*Penaeus kerathurus*). ik otarraintxo; izkira.

Ama-semeeek eta alabak **otarrainxkak** zuritzen dituzte, eta hozkailutik ateratako maionesarekin jaten. Joan Mari Irigoien

Hoa, bai, eta ekar itzan bi dozena **otarrainxka**! Joan Mari Irigoien

otarre (orobat otar g.er.) 1 iz gauzak eramateko ontzia, saskia baino handiagoa, euskarriduna, berez zumitzez egina. ik saski; otzara; zare.

Saski txiki pila bat ageri zen lurrean luze-luze, kaxak eta **otarreak** iristen ziren etengabe, metaturiko muskuilu zakuetatik ur errekaetoak isurtzen ziren. Karlos Zabala

Labana eta ogiaren otarretxoa hartu, eta ogia rasta-rasta ebaki eta **otarrean** pilatzen ditut zatiak. Anjel Lertxundi

Txakurkumea **otarrean** lo. Berria - Kultura

Sokatik helduta daukan mandoaren bizkar gaineko **otarre** bistadizoa eman die. Berria - Euskal Herria

Nekromantziatzko ikuspen bat zela pentsatu zuten, harik eta Dolcinok **otarreari** estalkia altxatu zion arte. Juan Garzia

Saski eta **otarren** kirtenatarako, beste zumitzen euskarritarako, [...]. Pello Zabala

Kaka **otarrean** bildu eta buru gainean darama. Gotzon Garate

Otarrea bizkarrean hartu nuen. Koro Navarro

Buruarekin baietz egin, **otarrera** joan, eta arropa zaharrak iraultzen ditin pixka batean. Anton Garikano

Blusa bat edo jostunaren **otarre** bat balitz bezala, noiznahi utzi edo bazter daitekeena. Anton Garikano

Amak lore-sortatxo bat atera zuen **otarretik**. Anjel Lertxundi

Asetzeraino jan zuten, eta zazpi **otarre** bete zituzten hondarrekin. Elizen arteko biblia

Garbi zuten zein motatako pilotak nahi zituzten, eta berehala aurkitu zituzten **otarrean**. Berria - Kirola

Arrain kiratsa zerion, eta **otarrean** zipriztinek zikintzen zuten dena. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nekazariei erositu eta erositakoa zamaketariak lurlean paratutako **otarre** handietan utziz. Karlos Zabala

Enkanterako arrain sortak antolatzen zituzten **otarre** zabal biribiletan. Karlos Zabala

Otarre biribil bat egingo dizut. Anton Garikano

Baita dozena bat arrautza ere, **otar** estalkidun batean. Anjel Lertxundi

Han, **otarre** hutsak pilatu eta egundoko paretak osatzen ziren goizero. Karlos Zabala

Haren aurrean, fruitu merkeak, gereziak, aranak, marrubiak, pilaturik zeuden paperez apaindutako **otarre** lauetan. Karlos Zabala

Horiek moritxearen palmaz eginikako saskietan eta haiek ihizko **otarreetan**. Joan Mari Irigoien

Guztia zumezko **otarre** batean jarri eta eguzkitara itzuli ziren. Agustin Otsa

Dionik espartzuzko **otarreak** eta saskiak egiten zituen. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanabera bat eta arrantza-**otarre** bat. Anjel Lertxundi

Lau libera aurreztu zituen bi hilabetean, lepo **otarre** txiki baten jabe egin zen, eta txori belar saltzaile hasi. Karlos Zabala

Hauek egurra ebaki zuten, lepa-**otarre** bat bete eta etxe barruraino eraman zioten zama amonaxoari. Pako Aristi

On Camillo sartu zen, eskuan isipua zuela, eta haren atzetik bi meزامutil, ur bedeinkatu ontziarekin eta arrautza-**otarrearekin**. Koldo Biguri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Morrosko sendoek arrautza kaxak, gazta **otarreak**, gurin saskiak jaso eta enkantearen pabiloira zeramatzaten. Karlos Zabala

Gizon bat sumatu zuen zurrungaka, soingaineko batez fardel baten gisa bildurik, burua aran **otarren** gainean. Karlos Zabala

Baziren han, abere hiltokiko harrietatik hurbil, luma **otarre** handi batzuk, non aise kabitzen baitziren. Karlos Zabala

5 (edukiera neurri gisa)

Kontatzen nola erosi zuen **otarre** bat patata. Karlos Zabala

Alemanek sotoan **otarre** bat bete arrautza eta pota bat ezti aurkitu zituzten. Felipe Juaristi

Beren etxeetara baimenarekin joaten ziren soldaduek **otarre** bete mertxika eskatzen ziguten, edo sagarra, mahatsa, pikua eta beste. Juan Kruz Igerabide

-Lore-hostoak gehien erortzen direnean, egunean bost edo sei **otarre** biltzen ditugu. Ibon Uribarri

6 irud/hed

Gure behialako herriaz eginiko laudorio luzea dragaren **otarreak** hondo ezezagunen batean betetzeko aitzakia besterik izan ez bailitzan, eskua ukabildu du pozak hunkituta.

Koldo Izagirre

Aitzitik, eskura dugun informazioa kaskarra bada, nekez egingo dugu zume edo zumitz horiekin **otarre** onik. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

otarre biribil (3); **otarre handi** (3); **otarre zabal** (3)

otarregile (*corpusean **otargile** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **otarregile** agertzen da*) iz otarreak egiten dituen eskulangilea.

Otargile eta banastagileei galdetu, bestela; esango dizute nola, udaberriko ilgoran askatzen baduzu, oso erraz eta dotore aterako zaizun azal hori, baina ez dela hain iraunkorra eta sendoa ateratzen. Pello Zabala

otarregintza (*corpusean **otargintza** soilik; Euskaltzaindiaren Hiztegian **otarregintza** agertzen da*) iz otarrak egitea.

Otargintzan ere asko: banasta eta saski jenero guztien euskarritako, beste zumitzei lokarri eusteko, edo kirtenetarako, lizarrezkoak nahi zituzten, halanola esku-saskien heldulekuak egiteko. Pello Zabala

otarreka *adlag* otarrea neurri gisa hartuz; kopuru handietan.

Otarreka harrapatuko ditut. Itziar Otegi

otarretxo (*orobat **otartxo**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **otarretxo** agertzen da*) iz otarre txikia.

Aulkitik altxa eta zer egin ez zekiela, frigorifiko gaineko zumezko **otarretxotik** laranja bat hartu eta azala kendu zion. Harkaitz Cano

Gisa honetan atzemandako otsokumeak askotan ikusi izan ditugu, **otarretxo** batean darabiltzabela bizirik herriz herri, atzitze-sari eske. Anjel Lertxundi

Labana eta ogiaren **otarretxoa** hartu, eta ogia rasta-rasta ebaki eta otarrean pilatzen ditut zatiak. Anjel Lertxundi

Upelak, suilak, pitxerrak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarrigabeak, **otarretxoak**, saskiak, [...]. Jose Morales

otarte¹ iz ogitartekoa.

Borden zelaira itzultzean, txingarrezko **otarte** luze horietako bat erosi dut. Txillardeggi

otarte² iz ote artea.

Ohartu ginen han hemenka **otartearen** erdian bazirela abata zenbait segur zantilenez ongi hornituak. Herria

otarteko ik ogitarteko.

otartxo ik otarretxo.

otasega iz otea ebakitzeko sega, laburra eta sendoa.

Negubidean, non edo han, oterik guriena ebaki **otasegaz**, ipini zamatan, eta nola ekartzen omen zuten bizkarrean etxera, ikuiluko azindei emateko. Patziku Perurena

otate iz

Otate : zuhaitz-landare bat, etxeko tresnak egiteko erabiltzen den zur malgua ematen duena. [Juan Garzia](#)

Ohea **otatezkoa** zen, zakuz estalia, eta gernu usaina zerien zakuo, sekula eguzkitan egurastu ez balituzte bezala [Juan Garzia](#)

otaxori iz otean ibiltzen den txoria.

Balada zaharretan nabari den ote loratuaren eta **otaxori** kantariaren arteko lirismo erotiko fina. [Patziku Perurena](#)

Eta otalore horrek bezalaxe, zer ikusirik izan ote zezakeen, **otaxoriak** ere, gure amorio kantu lizunon sorreran? [Patziku Perurena](#)

otatza iz

Otatzako txanponak: Forondako aireportua egiten hasi zirenean, kasualitatez 5.000 txanpon baino gehiago zituen otzara aurkitu zuten. [Berria - Kultura](#)

otatze iz otea hazten den tokia.

Gero patar txüta, errekondo hertsia, oiñana, **otatzea** : hots mendixka ñapürra... tüntür mamüne apalen bakoitxean etxalte bateki. [Herria](#)

ote¹ iz zuhaixka abartua, hostoak arantza bihurturik dituena, lore hori usaintsuak ematen dituena(*Ulex europaeus*).

Deus badaki euskaldunak, **otea** zer den dakike. [Patziku Perurena](#)

Sua gartsu pizteko orduan, nekez topatzen zuen gure baseritarrak beste ezer **otea** bezain onik. [Pello Zabala](#)

Txilar bioletek eta **ote** horiek orain lorezko geruza handi batez estaltzen dituzten bi mendiren maldetan barrera doa. [Koldo Izagirre](#)

Negubidean, non edo han, **oterik** guriena ebaki otasegaz, ipini zamatan, eta nola ekartzen omen zuten bizkarrean etxera, ikuiluko azindei emateko. [Patziku Perurena](#)

Bai sorkari liluragarria **otea** ! [Patziku Perurena](#)

Otea loratzen denean hasten dela udaberria. [Joseba Sarrionandia](#)

Gristasunak horitasun ikaratiaz ekia deitzen zuela, **oteak** lili ziren eiki. [Itxaro Borda](#)

Finistère dena ibilia nuen, landa galduak, harri sakratuen, harri sorginduen ondoan **otea** baizik hazten ez den lur gorriak. [Josu Zabaleta](#)

Otea eta txilarra hazten ziren ur istilen arteko sastraketan. [Karlos Zabala](#)

Noraezean noa **oteen** artean. [Koldo Izagirre](#)

Babarrunari bezala, beste lekari askori egiten zaió samua (baita **oteari** ere, adibidez), eta ez bakarrik lekariet. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Geldiune txiki bat, hemendik aurrera pinudi latzak datoz eta: sasia ugari, **otea** han-hemenka, lur erreá, ahitua ageri duten soilguneak. [Pako Aristi](#)

Haizeak, bafadaka jotzen zuen behe haize batek, ziztu eragiten zien inguruko **oteei** . [Josu Zabaleta](#)

Xuria eta perdea zeruak emanak, beltza aldiz gizonak, bainan hau ere, menturaz, beharrezkoa, ezen egungo pentze eder hau ez litake hola bertzela, sasia eta **otea** nagusiturik! [Herria](#)

Tropa samalda handi samarra zetorren Amaotzako malkarrean behera zabalduan, fusilak eskuan, batera eta bestera zoko-miaka **oteak** kanoiekin baztertuz. [Koldo Izagirre](#)

Ondoren, hiriko arduradunak hartu eta zigorkatu egin zituen **otez** eta garduz. [Elizen arteko biblia](#)

Sasipe ilunak txaraz eta **otez** ! [Patziku Perurena](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bildotsetik pagotx gozora ohitutako ardiari **ote**-larrea gogor. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Nor ez du ziztatu **ote** muturren batek, zakarrak hartuketako bide zaharren batetik igarotzekoan? [Patziku Perurena](#)

Eguzki jaun hazten doan horren omenetan: **ote**-suteak. [Pello Zabala](#)

Nagusiak tximinian **ote**-azaoak zeuzkan pilatuak garo lehorrer meta baten gainean. [Koldo Izagirre](#)

Eta zozokabiren bat, zein mutikok ez du bilatu, **ote** mordoren baten zokoan egina? [Patziku Perurena](#)

Eta gure paraie hauetan sanjoanetan bezala, martxoaren 21 egunera iritsi orduko, han **ote**-abarrezko suteak pizten zituzten. [Pello Zabala](#)

Nola hortzak eransten dizkieten [behorek] **ote**-punta arantzadun horiei [Pello Zabala](#)

3 irud/hed

Begi zorrotzeko irakurle horrek jakin beza haatik berak ere erabiltzen duen euskarak baduela nasaiki lapar eta **otetik** . [Herria](#)

ote² 1 part hitzunak, galderetan, zalantza (egiazkoa nahiz erretorikazkoa) adierazteko edo azpimarratzeko erabiltzen duen partikula, aditz laguntzailearen edo era trinkoen ezkerrean ezartzen dena.

Hala **ote** da beti? [Iñaki Segurola](#)

Hori **ote** da erlijioa? [Alberto Barandiaren](#)

Errazagoa **ote** da holandarra izatea, euskalduna baino? [Iban Zaldúa](#)

Gogoratuko **ote** da nitaz? [Josu Zabaleta](#)

Edo gure irudipen hutsa **ote** da? [Patziku Perurena](#)

-Erotu egin **ote** da? [Patxi Zubizarreta](#)

Bakarrik etorri **ote** zen ospitalera? [Ramuntxo Etxeberri](#)

Hurrengo urtean hilko **ote** zen? [Bernardo Atxaga](#)

Esajeratzen ari **ote** naiz, koadroa ilunegi margotzen? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Lehengusu ilegorriak galdetzen zion bere buruari: kizkurra **ote** du zera? [Pello Lizarralde](#)

Honetan guztian izan **ote** du zerikusirik granada platerak? [Patxi Zubizarreta](#)

Maita **ote** du? [Sonia Gonzalez](#)

Jaten **ote** du? [Joxe Austin Arrieta](#)

Merezi **ote** du errukirik eta barkamenik izaki horrek? [Harkaitz Cano](#)

Gogoratzen **ote** du oraindik elkarrekikoa? [Patxi Iturritegi](#)

Jende hurbilagoarekin bestela jokatu **ote** zuen? [Bernardo Atxaga](#)

McCarthyren garai latzak izaki, senatariaren atzaparretatik libratu nahi **ote** du neska? [Anjel Lertxundi](#)

Maitemindu egin **ote** da C. andre suharrarekin, galdetzen diot neure buruari, edo gau bateko kontu baten gisa utziko **ote** du bazterrera? [Oskar Arana](#)

2 (ezezko esaldietan)

Ez **ote** inarru bat izango? [Juan Kruz Igerabide](#)
Ez **ote** zegoen han ezer arruntik? [Bernardo Atxaga](#)
Ez **ote** du, azken buruan, izakera bakarzale eta antolagaitza zurrizko mozorrorik egokiena? [Patziku Perurena](#)
Ez **ote** daukat arbasoren bat kapitain ausart, alferiz gazte izukaitez, edo hitz urriko negrero mutiri? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
Kezka batek kitzikatzen ninduen ere: giltza galduaren istorioa ez **ote** zenetz aitzakia bat? [Daniel Landart](#)
Kulturak irauteko ez **ote** du fedearen premiari? [Itxaro Borda](#)
Beldur nintzen amonak ez **ote** zizkidan nire asmoak aurpegian irakurriko. [Jon Muñoz](#)
Ideia egokiak ez **ote** du, beraz, ezegokiak baino errealitate edo betegintzarre gehiagorik? [Piarres Xarriton](#)
Noiz edo noiz, bizitza honetan, nor ez **ote du** sentitu zirrara hori? [Imanol Zurutuza](#)
Edo, hobeto esanda, ez **ote** ginen sasi-intelektual klasista batzuen gisara jokatzeko ari? [Bernardo Atxaga](#)

3 (ba partikularen eskuinean)

Ba **ote** da sendotasunaren, sasoi onaren pesimismorik? [Iñaki Segurola](#)
Ba **ote** zitekeen inork errezelorik ez hartu izana? [Juan Garzia](#)
Ba **ote** du seme-alabarik?, pentsatu du hurrena. [Imanol Zurutuza](#)
Pentsa, ba **ote** da sortzea baino deus ederragorik? [Daniel Landart](#)
Haatik, Heletak badu Oionen berri; Oionek ba **ote** daki Heleta non den, edo baden ere? [Piarres Aintziart](#)
Barkamenik ba **ote** du batek hobenaren etekina itzuli gabe? [Juan Garzia](#)
Erabaki horretan ba **ote** du ertzik portu-buruarekin bizpahiru gauetan afaltzera irten den operako sopranoaren irribarre sentsualak? [Anjel Lertxundi](#)

4 (galdekatzaileekin)

Zergatik **ote** da? [Luis Elberdin](#)
-Nor egongo **ote** da nirekin ezkontzeko prest? [Patxi Zubizarreta](#)
Nork **ote** zuen arrazoi, Brechtek ala Endek? [Bernardo Atxaga](#)
Nork esango **ote** zigun? [Jon Muñoz](#)
Zer **ote** zen su hura, eta zer esan nahi **ote** zuen? [Koldo Izagirre](#)
Zer **ote du** apaizak gazte jendea odola emateraino prest, horren aise aurkitzeko? [Txillardeggi](#)
-Oh putain, zer **ote** dakik hik horretaz! [Hasier Etxeberria](#)
Non sartu **ote** dut ditxosozko giltza? [Patxi Iturritegi](#)
Noiz eta nola izan **ote** nuen nik lehenengoz Lotsatiren berri? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)
-Nondik atera **ote** da mutil hau horrelakoa! [Koro Navarro](#)
Nora joan nahi **ote** du? [Iñaki Iñurrieta](#)
- Zer operazio mota **ote** dira, beraz, kritikarik ezean, gure poetaren aldikako gaitzeste eta laudatze horiek? [Patziku Perurena](#)
-Zenbat emakumeren negarra ikusi **ote** du dorre horrek? [Felipe Juaristi](#)
Bere bizitza loaldi etengabea izanik, zein aldaketa ekarriko **ote** zion heriotzak? [Patxi Zubizarreta](#)
Zenbat aldiz zapuztu **ote** nituen bandiduen lapurretak! [Bernardo Atxaga](#)

5 (zehar galderetan)

Ez nekien hark ere soinuk entzun **ote** zituen. Yiddishez egin zuten hileta-zeremonia guztia, ez dut gogoan hitzik egin **ote** zuten alemanez. [Koro Navarro](#)
Negarrez ari **ote** naizen ikus dezakete. [Mirentxu Larrañaga](#)
Halako sustrai batek zer landare lotzen **ote** zuen ikasi nahian. [Patziku Perurena](#)
Zertxobait entzuna zuen, erdi-purdi samar **ote** nenbilen Meatzeetan. [Juan Garzia](#)
Akatsa zuzendu **ote** zuen jakin gabe gelditu izanak eta piano-jolea neska **ote** zen argitu gabe uzteak misterioz jantzi zuen gertakari xume hura. [Anjel Lertxundi](#)
Berak gaur egun hogeitaz urte izan balitu, nola **ote** zituen bazterrak inarrosiko haren pindar eta adimenak ari naiz gogoeta. [Piarres Aintziart](#)
Eta pentsatzen ari zen berak, toki guztietan judu izanik, atzerritar beraz, ba **ote** zuen aberri bat izateko eskubiderik. [Felipe Juaristi](#)
Bahekien kanpotar hori gelara igo behar nuela, berririk ba **ote** dakarkidan jakiteko. [Juan Kruz Igerabide](#)
Han nengoen ni herr Haspernek ez **ote** zidan idazlana eskatuko. [Anjel Lertxundi](#)
Irudipena zeukan sekula ez **ote** zuten izan elkarri zer kontatu askorik. [Mirentxu Larrañaga](#)
Ea zenbat metro egingo **ote** zituen buru gorpugabekoak pirrika aurrera, gorputik kenduz geroztik. [Felipe Juaristi](#)
Pentsamendu batzuk ere [...] erne zitzaizkidan ikusmiraren eraginez: zergatik **ote** zegoen halako iluntasuna, zergatik **ote** zeuden izpi haiek guztiak suspentsioan hautsarenak airean bezala, eta ba **ote** zen gelaren bat, ni nengoena bezalakoa baina infinitua, hutsune izugarri hura guztia biltzen zuena. [Bernardo Atxaga](#)
Zertan ibili, baina, zer zen, zer ez **ote** zen? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

6 (aditza ezabaturik)

Liburu pornografikoa **ote** ? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Nobelako beste tokiak, benetakoak **ote** ? [Bernardo Atxaga](#)
Nekazari artean **ote** ? [Berria - Kultura](#)
Ala zinez uranioa **ote** ? [Juan Garzia](#)
Dibortzioa **ote** konponbidea? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)
Egiaz **ote** algaragarri? [Juan Garzia](#)
Emma **ote**, berriz etorria bakarrik? [Daniel Landart](#)
Ez zen aleman perfektu bat, baina ba **ote** aleman perfektorik? [Juan Garzia](#)
Ederragorik eta poetikoagorik ba **ote** ? [Patziku Perurena](#)
Baina egia **ote**, Jainkoa lurrean biziko dela?
Galdetu, begiratu inguruan: gizonezkoa haurdu gertatzen **ote** ? [Elizen arteko biblia](#)
Haiek, goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion bata bestearen ondoren: -Nik **ote** ? [Elizen arteko biblia](#)
-Bezperan aipatua... zer **ote** ? -galdatu zidan amak bizi-bizia, pentsatuz beharbada, zerbait ezin aitortuzko erranen niela. [Daniel Landart](#)
Zergatik **ote** egun batez, zakua bizkarrean, jantziak arin, eta oinetako egokienak erosiak, honela abiatu? [Piarres Aintziart](#)
Zalantza dut, ordea, egia **ote** orduan idatzitakoa. [Hasier Etxeberria](#)

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ote-hitza dela apika harena, **ote**-hizketa; hitzez hitz baino, iradokitzen duena hartu behar zaiola...- [Iñaki Iñurrieta](#)

8 otean zalantzan.

Otean egon naiz, barretxo bat egin edo bekaina okertu. [Koldo Izagirre](#)

9 otezka zalantzan.

Enuraz eta **otezka** gelditu nintzen, elezahar batetik ateratakoa zirudien amets hartatik esnatu nintzenez. [Anjel Lertxundi](#)

10 bai ote?

Bai **ote** ? Patziku Perurena

HHP: Aizu, XYZ: **bai ote** ? Karlos Linazasoro

Bai ote elurretako mamu abominablerik? Karlos Linazasoro

Saint-Ange Anderea: **Bai ote** ? Ziur asko, bere aitorleari honakoa esan zionaren antzekoa zara zu: "Xehetasunak alferrikakoak dira, jauna". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- Landan, prakak askatzea, gauza ederragorik **bai ote** ! Patxi Zubizarreta

11 ez ote?

Nahikoa euskara ez jakitea aurpegiatzen dio Gojenolak Oteizari, baina Gojenolaren beraren ahalegina har berak joa **ez ote** ? Iñaki Iñurrieta

Beharrezkoa ote du autismoa haren arteak? Arte horren osagai bat besterik **ez ote** ? Xabier Olarra

Nahastuta, **ez ote** ? -bere aurreko mutila, askoz sendoago zena, eraman egingo dute. Pablo Sastre

12 ote-otean zalantzan.

Bi bide, **ote-otean** egoteko. Iñigo Aranbarri

13 ote-oteka zalantzan. ik oteka.

Oteiza **ote-oteka** ari dela, jenioari darion egonezin hipotesigile etengabea. Iñaki Iñurrieta

Edo **ote-oteka** aritzea. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

aditu ote (11); **agertuko ote** (13); **ahal izango ote** (14); **ahal ote** (29); **ahalko ote** (18); **ahaztu ote** (9); **aldatu ote** (28); **aldatuko ote** (10); **amaituko ote** (11); **ari ote** (288); **ari ote da** (23); **ari ote den** (26); **ari ote naiz** (11); **ari ote nintzen** (24); **ari ote zen** (84); **ari ote ziren** (17); **ari ote zitzaidan** (12); **ari ote zitzaion** (14); **ariko ote** (9); **aski ote** (15); **asmatu ote** (14); **atera ote** (33); **aterako ote** (25); **ateratzen ote** (11); **aurkitu ote** (18); **aurkituko ote** (25); **ausartuko ote** (14)

ba ote (725); **ba ote da** (78); **ba ote dago** (21); **ba ote dagoen** (31); **ba ote daki** (20); **ba ote dakite** (10); **ba ote den** (42); **ba ote du** (37); **ba ote duen** (23); **ba ote dugu** (11); **ba ote dute** (11); **ba ote duten** (15); **ba ote nuen** (13); **ba ote zegoen** (47); **ba ote zekien** (33); **ba ote zen** (49); **ba ote zuen** (59); **ba ote zuten** (18); **bai ote** (20); **baina ba ote** (13); **baina ez ote** (31); **bainan ez ote** (10); **bakarrrik ote** (9); **balio ote** (23); **balio ote zuen** (9); **balio ote** (9); **behar ote** (470); **behar ote da** (15); **behar ote den** (18); **behar ote diren** (9); **behar ote dizut** (16); **behar ote du** (27); **behar ote duen** (17); **behar ote dugu** (31); **behar ote dugun** (12); **behar ote dute** (34); **behar ote dute** (9); **behar ote nion** (10); **behar ote nuen** (36); **behar ote zen** (10); **behar ote zuten** (51); **behar ote zuten** (11); **beharko ote** (91); **beharko ote zuen** (10); **beharrezkoa ote** (13); **beldur ote** (16); **benetan ote** (13); **bera ote** (33); **bera ote zen** (13); **besterik ez ote** (9); **bete ote** (11); **betetzen ote** (19); **bidali ote** (9); **bihurtu ote** (13); **bilatzen ote** (12); **bizi ote** (34); **bizirik ote** (13); **bukatuko ote** (15); **bultzatu ote** (10)

deitzen ote (9)

ea ba ote (14); **ea ez ote** (33); **eduki ote** (13); **edukiko ote** (10); **egia ote** (84); **egia ote da** (10); **egia ote den** (11); **egia ote zen** (38)

egin behar ote (69); **egin beharko ote** (11); **egin nahi ote** (12); **egin ote** (302); **egin ote du** (21); **egin ote duen** (16); **egin ote nuen** (17); **egin ote zion** (13); **egin ote zuen** (62); **egin ote zuten** (13); **egina ote** (14); **eginen ote** (43); **egin ote** (156); **egin ote du** (10); **egin ote duen** (11); **egin ote zion** (12); **egin ote zuen** (20); **egiten ari ote** (18); **egiten ote** (93); **egiten ote du** (13); **egiten ote duen** (9); **egiten ote zuen** (15)

egokia ote (19); **egon behar ote** (11); **egon ote** (35); **egongo ote** (58); **egongo ote den** (15); **egongo ote zen** (15); **ekarri ote** (22); **ekarriko ote** (35); **eman behar ote** (16); **eman ote** (47); **emanen ote** (16); **emango ote** (40); **ematen ote** (27); **entzun ote** (26); **entzuzko ote** (13); **entzuten ote** (15); **erabiliko ote** (9); **eragin ote** (20); **eraman ote** (19); **eramanen ote** (12); **eramango ote** (13); **erantzungo ote** (12); **erran behar ote** (17); **erran beharko ote** (9); **erran nahi ote** (15); **erran ote** (11); **esan behar ote** (20); **esan nahi ote** (50); **esan ote** (48); **esango ote** (52); **esango ote zuen** (9); **esaten ote** (23); **eskatuko ote** (10)

etorri ote (23); **etorri ote zen** (9); **etorriko ote** (34); **etorriko ote zen** (11); **eutsiko ote** (14); **existitzen ote** (9)

ez ote (3161); **ez ote da** (334); **ez ote dago** (20); **ez ote dagoen** (24); **ez ote den** (249); **ez ote dio** (16); **ez ote dion** (16); **ez ote dira** (74); **ez ote diren** (78); **ez ote ditu** (19); **ez ote dituen** (27); **ez ote ditugu** (10); **ez ote dituzten** (10); **ez ote du** (142); **ez ote dudana** (23); **ez ote dugu** (42); **ez ote dugun** (27); **ez ote dut** (24); **ez ote dute** (40); **ez ote duten** (53); **ez ote duzu** (18); **ez ote duzue** (11); **ez ote gara** (17); **ez ote garen** (12); **ez ote genuen** (15); **ez ote litake** (14); **ez ote litzateke** (14); **ez ote luke** (16); **ez ote lukene** (11); **ez ote naiz** (14); **ez ote naizen** (26); **ez ote ninduen** (13); **ez ote nintzen** (42); **ez ote nion** (21); **ez ote nuen** (41); **ez ote zaidan** (12); **ez ote zaidan** (16); **ez ote zara** (16); **ez ote zaren** (15); **ez ote zegoen** (33); **ez ote zen** (290); **ez ote zidan** (20); **ez ote zion** (35); **ez ote ziren** (76); **ez ote zituen** (32); **ez ote zitzaidan** (11); **ez ote zitzaion** (21); **ez ote zuen** (211); **ez ote zuten** (56)

ezagutu ote (17); **ezagutu ote zuen** (10); **ezagutuko ote** (12); **ezagutzen ote** (45); **ezagutzen ote zuen** (12); **ezin ote** (24)

falta ote (9)

gai izanen ote (10); **gai izango ote** (25); **gai ote** (24); **galdu ote** (16); **galduko ote** (17); **gauza izango ote** (17); **gauza ote** (12); **gehiago ez ote** (14); **gehiago ote** (10); **gelditu ote** (10); **geldituko ote** (24); **geratuko ote** (22); **geratuko ote zen** (9); **gerta ote** (10); **gertatu ote** (103); **gertatu ote da** (11); **gertatu ote zen** (42); **gertatu ote zitzaion** (21); **gertatuko ote** (68); **gertatuko ote den** (12); **gertatuko ote zen** (16); **gertatuko ote zitzaion** (16); **gertatzen ote** (38); **gertatzen ote zen** (14); **gordetzen ote** (13)

hala ote (19); **han ote** (12); **harrapatuko ote** (15); **hartu behar ote** (13); **hartu ote** (44); **hartu ote zuen** (13); **hartuko ote** (45); **hartuko ote zuen** (13); **hartzen ote** (19); **hasi ote** (20); **hasia ote** (9); **hasiko ote** (33); **hasiko ote zen** (10); **hau ote** (13); **heldu ote** (13); **helduko ote** (15); **hil behar ote** (9); **hil ote** (40); **hilko ote** (20); **hori ez ote** (30); **hori ote** (49); **hori ote da** (17); **hori ote zen** (16); **horiek ez ote** (11); **horrek ez ote** (28); **hura ez ote** (10); **hura ote** (22); **hura ote zen** (16); **hura zer ote** (10); **hutsa ote** (21)

ibili ote (26); **ibili ote zen** (11); **ibiliko ote** (16); **idatzi ote** (13); **igaro ote** (9); **ikasi ote** (13); **ikusi ote** (67); **ikusi ote zuen** (16); **ikusia ote** (10); **ikusiko ote** (51); **ikusiko ote zuen** (14); **ikusten ote** (44); **ikusten ote zuen** (10); **irabaziko ote** (11); **irakurri ote** (9); **iraungo ote** (13); **iritxi ote** (29); **iritxi ote zen** (9); **iritxiko ote** (33); **itzuliko ote** (27)

izan behar ote (12); **izan ote** (374); **izan ote da** (26); **izan ote den** (28); **izan ote du** (16); **izan ote duen** (9); **izan ote zen** (102); **izan ote ziren** (21); **izan ote zitekeen** (21); **izan ote zuen** (30); **izanen ote** (98); **izanen ote da** (23); **izanen ote den** (17); **izango ez ote** (9); **izango ote** (360); **izango ote da** (35); **izango ote den** (52); **izango ote du** (10); **izango ote duen** (20); **izango ote nintzen** (10); **izango ote zen** (69); **izango ote zuten** (28); **izaten ote** (11)

jakin ote (19); **jakinen ote** (10); **jakingo ote** (13); **jan ote** (10); **jarraituko ote** (19); **jarraitzen ote** (13); **jarrri ote** (18); **jarrriko ote** (32); **jartzen ote** (9); **jaso ote** (20); **jasoko ote** (9); **jo ote** (18); **joan behar ote** (10); **joan ote** (54); **joan ote zen** (12); **joan ote ziren** (11); **joanen ote** (16); **joango ote** (30); **joaten ote** (11); **jokatu ote** (12); **jokatuko ote** (13); **joko ote** (22)

kenduko ote (11); **komeni ote** (17); **kontua ote** (11); **konturatu ote** (10)

lagunduko ote (12); **lortu ote** (15); **lortuko ote** (25)

maite ote (15); **merezi ote** (31); **merezi ote zuen** (15)

nago ez ote (27); **nahi izan ote** (14); **nahi ote** (297); **nahi ote du** (61); **nahi ote dudana** (9); **nahi ote duen** (13); **nahi ote dute** (11); **nahi ote duten** (12); **nahi ote nuen** (20); **nahi ote zuen** (80); **nahi ote zuten** (16); **nahiko ote** (27); **nahikoa ote** (9); **noiz ote** (18); **nola egin ote** (12); **nola ote** (55); **noiakoa izango ote** (12); **noiakoa ote** (30); **nolakoa ote zen** (12); **non ote** (151); **non ote da** (21); **non ote dabil** (10); **non ote dago** (9); **non ote zegoen** (21); **non ote zen** (21); **non ote zeuden** (13); **nondik atera ote** (15); **nondik ote** (24); **nor ote** (153); **nor ote da** (39); **nor ote den** (11); **nor ote zen** (48); **nora joan ote** (10); **nora ote** (17); **nor bait ote** (10); **norena ote** (15); **nork ote** (9)

ohartu ote (10); **ohartzten ote** (9); **ona ote** (16); **onartuko ote** (20); **ondo ote** (9); **oroitzen ote** (9)

ote da (1373); **ote da bada** (12); **ote da gure** (16); **ote da hau** (18); **ote da hemen** (9); **ote da hori** (44); **ote da izango** (9); **ote dabil** (24); **ote dabilen** (14); **ote dago** (95); **ote dagoen** (170); **ote daiteke** (34); **ote daitekeen** (31); **ote daitezkeen** (14); **ote daki** (34); **ote dakien** (11); **ote dakite** (15); **ote dakizu** (17); **ote dator** (16); **ote datorren** (16); **ote daude** (16); **ote dauden** (43); **ote dauka** (11); **ote daukan** (9); **ote daukat** (12); **ote den** (1109); **ote den ala** (21); **ote den beldur** (14); **ote den edo** (10); **ote den ere** (23); **ote den eta** (9); **ote den ez** (20); **ote den galdetu** (20); **ote den galdetuta** (10); **ote den galdetzen** (20); **ote den ikusteko** (9); **ote den izango** (13); **ote den jakin** (10); **ote den jakiteko** (11); **ote den zalantzan** (9); **ote dezake** (22); **ote dezakegu** (10); **ote dezaket** (12); **ote didan** (13); **ote didazu** (9); **ote die** (22); **ote dien** (9); **ote dieten** (9); **ote digu** (20); **ote digun** (9); **ote dio** (53); **ote diogu** (14); **ote dion** (55); **ote diot** (15); **ote diote** (20); **ote dioten** (20); **ote dira** (310); **ote diren** (316); **ote dit** (30); **ote dituen** (86); **ote dituzten** (13); **ote dituzten** (99); **ote ditugu** (33); **ote ditugun** (9); **ote ditut** (23); **ote dituzte** (23); **ote dituzten** (33); **ote dituztu** (10); **ote dizut** (22); **ote doa** (10); **ote doan** (9); **ote du** (702); **ote du ba** (9); **ote du bere** (10); **ote du horrek** (11); **ote dudana** (99); **ote duen** (475); **ote duen ala** (9); **ote duen edo** (13); **ote duen ez** (12); **ote duen galdetu** (16); **ote dugu** (167); **ote dugun** (69); **ote duk** (16); **ote dut** (156); **ote dut nik** (16); **ote dute** (213); **ote duten** (238); **ote dute beldur** (10); **ote duzu** (86); **ote duzue** (39); **ote duzun** (28)

ote gaitu (17); **ote gara** (51); **ote garen** (44); **ote genuen** (17); **ote genuke** (15); **ote geunden** (12); **ote ginen** (54); **ote gintuen** (14); **ote gira** (12); **ote haiz** (10); **ote lezake** (11); **ote litake** (19); **ote litake** (17); **ote litateke** (12); **ote litateke** (36); **ote litateke** (15); **ote luke** (41); **ote lukene** (24); **ote luketen** (10); **ote lukete** (11)

ote nago (19); **ote nagoen** (15); **ote naiz** (99); **ote naiz ni** (9); **ote naizen** (68); **ote nau** (12); **ote nauen** (12); **ote nekien** (11); **ote nenbilen** (9); **ote nengoan** (42); **ote neukan** (18); **ote nezakeen** (12); **ote nien** (9); **ote ninduen** (53); **ote ninduten** (25); **ote nintzen** (206); **ote nintzen galdetu** (11); **ote nintzen ni** (9); **ote nion** (69); **ote nituen** (44); **ote nuen** (318); **ote nuen galdetu** (11); **ote nuen nik** (15); **ote nuk** (17); **ote nukene** (15)

ote zaidan (18); **ote zaie** (20); **ote zaien** (19); **ote zaigun** (14); **ote zaio** (40); **ote zailon** (57); **ote zait** (15); **ote zaitu** (10); **ote zara** (54); **ote zaren** (39); **ote zarete** (10); **ote zebilen** (44); **ote zegoen** (321); **ote zegoen galdetu** (11); **ote zegoen ikusteko** (12); **ote zegoen jakin** (10); **ote zekien** (14); **ote zen** (2021); **ote zen beldurrez** (22); **ote zen galdetu** (54); **ote zen galdetzen** (17); **ote zen galdezka** (9); **ote zen hori** (12); **ote zen hura** (35); **ote zen ikusteko** (25); **ote zen ikustera** (12); **ote zen izango** (9); **ote zen jakin** (23); **ote zen jakiteko** (11); **ote zen pentsatu** (18); **ote zen pentsatzen** (11); **ote zenuen** (24); **ote zetorren** (21); **ote zetozen** (10); **ote zeuden** (55); **ote zeukan** (40); **ote zezakeen** (34); **ote zidan** (75); **ote zidaten** (16); **ote zien** (32); **ote zieten** (12); **ote zigun** (17); **ote ziguten** (13); **ote zihoan** (22); **ote zinen** (21); **ote zion** (213); **ote zion beldurrez** (10); **ote zioten** (66); **ote ziren** (433); **ote ziren jakiteko** (9); **ote zitekeen** (68); **ote zitekeken** (9); **ote zituen** (166); **ote zituzten** (51); **ote zitzaidan** (50); **ote zitzaien** (15); **ote zitzaigun** (12); **ote zitzaion** (148); **ote zitzaion beldurrez** (11); **ote zitzaizkion** (11); **ote zizkion** (17); **ote zuen** (1350); **ote zuen beldurrez** (15); **ote zuen galdetu** (46); **ote zuen jakin** (19); **ote zuen jakiteko** (13); **ote zukeen** (16); **ote zuten** (376)

pasatu ote (9); **pentsatu ote** (24); **pentsatu ote zuen** (13); **pentsatuko ote** (20); **pentsatzen ote** (27); **possible ote** (57); **possible ote da** (23); **possible ote zen** (22); **prest ote** (33)

sartu ote (31); **sartu ote da** (11); **sartuko ote** (22); **sentitu ote** (21); **sentitu ote zuen** (10); **sentituko ote** (9); **sentitzen ote** (25); **sinesten ote** (11); **sortu ote** (21); **sortzen ote** (11)

topatuko ote (11)

ulertu ote (15); **ulertuko ote** (10); **uste ote** (43); **uste ote zuen** (14); **utzi behar ote** (9); **utzi ote** (25); **utziko ote** (19)
zabalduko ote (10); **zain ote** (10); **zein izango ote** (9); **zein ote** (98); **zein ote da** (18); **zein ote den** (12); **zein ote zen** (39); **zen ez ote** (17); **zenbat ote** (22); **zenbatetan ez ote** (13); **zer ari ote** (23); **zer behar ote** (10); **zer egin ote** (35); **zer egingo ote** (22); **zer egiten ote** (16); **zer esango ote** (33); **zer ez ote** (47); **zer gertatu ote** (49); **zer gertatuko ote** (40); **zer gertatzen ote** (25); **zer izan ote** (14); **zer izango ote** (16); **zer nahi ote** (33); **zer ote** (322); **zer ote da** (58); **zer ote den** (35); **zer ote zegoen** (14); **zer ote zen** (78); **zer ote ziren** (9); **zer ote zuen** (9); **zer pentsatu ote** (11); **zer pentsatuko ote** (13); **zer pentsatzen ote** (14); **zer sentitu ote** (9); **zer uste ote** (11); **zerbait gertatu ote** (16); **zerbait ote** (20); **zergatik ez ote** (61); **zergatik ote** (111); **zergatik ote da** (10); **zergatik ote den** (9); **zerikusirik ote** (9); **zertan ari ote** (26); **zertan ote** (35); **zilegi ote** (15); **zoin ote** (10); **zuzen ote** (11); **zuzena ote** (9)

otealdi *iz* zalantza.

Omenaldia **otealdi** izaten da horrelakoetan sarri. **Joxerra Garzia**

otegi *iz* okindegia.

Duela zonbeit urte berriz hauren ondorat jin da bizitzera Dominixe, Aiherra **otegira**. **Herria**

oteizar *izlag* J. Oteizarena, J. Oteizari dagokiona; J. Oteizaren artegintzaren aldekoa.

[Tramankulu] haren hutsune eta tarte **oteizar** -metafisikoak. **Iban Zaldua**

Plater handietan gauza gutxi, espazio **oteizarra**, tarte zabalak, kromatismo zaindua. **Edorta Agirre**

Eskultura gisako kutxa txiki horiek oso **oteizarrak** direla uste dut; espazioa lantzeko moduan, batez ere. **Berria - Kultura**

Horiez gainera, alde guztietatik garra eta gaztetasun-sua zerion zuzendari **oteizar** bat, Koldo Romero handia. **Berria - Kultura**

oteizazale *izond/iz* J. Oteizaren zalea dena.

Batzuk Oteizazale egin ginen eta besteak **Txillidazale**. **Berria - Euskal Herria**

oteka 1 *adlag* zalantzaka.

Eta zalantza bat piztu zait barren-barrenean, eta **oteka** hasi natzaio neure buruari: gauean egin dudan ametsetik esnatzen ari ote naiz orain, ala orain ari ote naiz amets egiten, amestutako loalditik esnatu berri naizela? **Joxerra Garzia**

2 *ote-oteka* zalantzan.

Oteiza **ote-oteka** ari dela, jenioari darion egonezin hipotesigile etengabean. **Iñaki Iñurrieta**

Edo **ote-oteka** aritzea. **Iñaki Iñurrieta**

oteketa *iz* otea bilatzea.

Amar urteko nintzan, **oteketan** asi. **Patziku Perurena**

Bizkarrrik ziztatu gabe, otesardea behar izaten zen **oteketarako**. **Patziku Perurena**

otel ik **hotel**.

oteondo *iz* ote landarea.

Bidexkak hertsi, eta **oteondoak** elkarri hurbil. **Piarres Aintziart**

otesarde *iz* otea biltzeko sardea.

Bidexkak hertsi, eta **oteondoak** elkarri hurbil. **Piarres Aintziart**

oti 1 *iz* intsektu hegalaria eta jauzkaria, kolore arrekoa, oso jatuna, landetan kalte handiak eragiten dituena(*Fam. Acrididae*).

Udaberrian agertu ziren lehenengo **otiak** (*Schistocerca gregaria*) Afrika mende-baldean. **Berria - Gaiak**

Lur sail handiak soildu ditu **otiak**, eta jateko gabe utzi ditu milaka herritar. **Berria - Gaiak**

Tokian tokiko gobernuak airez saiatu dira **otia** akabatzen, baina orain arteko ahalegin guztiak antzuak izan dira. **Berria - Gaiak**

Oti berde edo matxinsalto handi asekaiz horien multzo hodeitsuak etorri baitziren. **Pello Zabala**

Otientzako sarea al da hura? **Anton Garikano**

Temperatura baldintza egokietan, azkar ugaltzen da oso **otia**. **Berria - Gaiak**

Basamortuko **otiak** Mauritanian egin du minik gehien. **Berria - Gaiak**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oti hodeiek aurrean harrapatzen duten oro jaten dute gero. **Berria - Gaiak**

Afrika mendebaldeko soro eta larreak erabat soilduta utzi ditu **oti** izurriak. **Berria - Gaiak**

Argeliak **oti** izurriari aurre egin ahal izateko laguntza eskatu dio nazioarteari. **Berria - Gaiak**

Oti eta matxinsalto izurritea Kalagurri aldean, laino beltz baten gisa, ortu eta soro, mahasti eta belardi, dena gorri utzi omen zuen. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oti izurriari (4)

oto ik **auto**.

otobre iz urria.

Ordea, **otobre** erdiko egun batean haren oihua bertze oihu bat izan zen. [Joan Mari Irigoien](#)

otobus ik autobus.

otoi 1 *interj* zer bait eskatzen denean eskaria indartzeko erabiltzen den hitza. **ikarren; mesede 10.**

Otoi, euskaraz! [Herria](#)

- **Otoi**! -egin dut garrasi-. [Txillardegi](#)

-**Otoi**, barkatu... [Janbattitt Dirassar](#)

Otoi, ez uki pepino-ogitarteakoak. [Antton Olano](#)

Otoi, uztazu apaiz-lanen bat egiten, ogi-puskaren bat jan ahal izan dezadan. [Elizen arteko biblia](#)

- **Otoi**, gehiagorik ez. [Juan Garzia](#)

Beraz, **otoi**, ixo! [Txillardegi](#)

-Ama, **otoi**! [Itxaro Borda](#)

Barka, **otoi**, zeure mirabe honen errua. [Elizen arteko biblia](#)

Zaude ixilik **otoi**...! [Janbattitt Dirassar](#)

Txaloak **otoi**! [Itxaro Borda](#)

-Belaxkeriarik ez, **otoi**! [Txillardegi](#)

-Zer gertatu da? esadazu, **otoi**!

Erruki, andrea, jabol ezazu, **otoi**, nire arimaren asaldura; erraidazu, **otoi**, zer behar dudan iguriki edo zerk behar nauen izutu. [Jon Muñoz](#)

Baina gizaseme hauei ez egin ezer, **otoi**, neure etxean eman baitiet estatu. [Jose Antonio Mujika](#)

Norbait ahantzi badut jakinaraz **otoi** 05 59 29 56 61rat deituz, plazerrekin agertuko baitut. [Herria](#)

Entzuteko eskatu dizut; areago ausartuko naiz, **otoi** arren erantzuniezadazu. [Jon Muñoz](#)

Erregu egin zuen, **otoi**, inoren Jainkori dei egin gabe, inoren Jainkorik ahotan hartu gabe. [Mirentxu Larrañaga](#)

Otoi, **otoi**, ixil zaitezte. [Herria](#)

Otoi, **otoi**, ez ahantzi 2002ko abendoaren 31 aintzin izena emateia Kultur Etxera 64120 IZURA. [Herria](#)

• 2 iz oitotza.

Orgaren gidaria baitzen, bide guzian aditu zituen arrebaren eta amaren **otoiak** eta aitaren isiltasun tematia. [Elena Touyarou](#)

Meskitara ostiraleko **otoiak** egitera zihoazen hiru palestinar hil zituen goizaldean. [Berria - Mundua](#)

On Camillo elizan zegoen bere **otoietan** bilduta. [Koldo Biguri](#)

Niri ez baina Jaungoikoari zuzendu beharko lioke bere **otoia**. [Koldo Biguri](#)

Nola ez entzun haren **otoi** lazarria? [Koldo Biguri](#)

Ubanbe, Pantxo, Opin eta beste mutil baseritarrak belauniko zeuden, makurtuta, **otoi** betean. [Bernardo Atxaga](#)

3 (hitz elkartuetan)

Davidek berak idatzitako hileta-**otoiaren** hasiera zen. [Bernardo Atxaga](#)

Artaxona aldatzeko eguna erabakitzen genuenean, kaperan jarriko ziguten zerraldia, eta baita beharrezkoak ziren paper guztiak eta apaiza ere, hil-**otoia** egin zezan.

[Ramon Saizarbitoria](#)

4 *otoi egin* erregutu; otoi egin.

Otoi egin genion amari ez gintzala eraman. [Koldo Izagirre](#)

Otoi egin omen zioten munduko hegazti guztiak mikari habia eder bat nola egin erakutsi ziezaien. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

-Jesus -esan zuen ozenki On Camillok-, herri zikin honetan gizon zintzo apurren etxeak ur gainean igerian ibili ahal izango balira Noeren kutxa bezala, **otoi egingo** nizuke ur handi ikaragarri batzuk bidaltzeko, ezpondak lehertu eta herri guztia urpean uzteko modukoak. [Koldo Biguri](#)

-Gure aita zeruetan haizena... -halako batean nire burua ahapeka **otoi egiten** harrapatu nuen. [Edorta Jimenez](#)

Belaunikatu egin zen, bai, **otoi egiteko**. Gero, bere arimaren barrenetik, **otoi egin** zion Jainkoari: [...]. [Edorta Jimenez](#)

Jainkoari **otoi egin** behar zioten, orobat, zubitxo hura pitzatu ez zedin jendea pasatzear. [Koldo Biguri](#)

Egunean bost aldiz **otoi egitea**, barau egitea Ramadan hilean, behartsuei laguntzea. [Xabier Aranburu](#)

Egin otoi eta izan itxaropena. [Eskarne Mujika](#)

Egin otoi Hator jainkosari. [Juan Garzia](#)

Hoa hik dakinan gelaxkara eta **otoi egin** Anterosi. [Juan Garzia](#)

Otoi ez **egiok** ohean andreak ez uretan zaldiari. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arren eta otoi (3); arren otoi (24); otoi arren (31); otoi egin (15); otoi egin zuen (4); otoi egitea (3); otoi egiteko (4); otoi egiten (10); otoi egitera (4); otoi eta otoi (5); otoi jauna (5)

otoialdi (*corpusean otoi aldi soilik*) iz oitotzaldia.

Isba barruan, "zedro-esnea" edaten, kazetariarekin hizketan ari eta, bat-batean txoko ilun bateko ikono antzemangaitzengana jiratu, **otoi** aldi bat egiten zuten. [Pablo Sastre](#)

otoigile iz otoi egiten duen pertsona.

Jainkoaren antzekoa zen anaia, **otoigilearen** antzekoa aita. [Anton Garikano](#)

otoika *adlag* otoi eginez. ik erreguka.

Oinetan du kapitainak emaztea laster, **otoika** eta arrenka. [Xabier Montoia](#)

Abrahamen belaunei helduta, haren oinetan **otoika** hasi zen; bere bizitza gaztea salba zezala erregutzen zion, bere promesa bidezkoa bete. [Joseba Zulaika](#)

Eguberrirako argiztatu denden espaloietan esertzen ziren, zakurrak ferekatuz, euro bat **otoika**. [Itxaro Borda](#)

Albert Matsonen eta bere emazteak esperoan sumatzen zituzten ahaideak, atezuan dagoen zelatariaren egonari itxaropentsuaz, euren heriotzako orduaren alde **otoika**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Otoika nagokie jainko ezezagunei: [...]. [Juan Garzia](#)

Azken gogoeta, besoak luzatuz semea eraman ez ziezaioten **otoika** ari zen aurpegiarik gabeko emazte batentzat izan zuen. [Elena Touyarou](#)

Ustekabea, On Camillo agertu zen, bi mezamutil eta gurutzarekin, eta, hilgurdi aurrean jarriz, **otoika** ibiltzeari ekin zion. [Koldo Biguri](#)

Burumakur, eskuak aurrean batuta, **otoika** bezala. [Iñaki Mendiguren](#)

otoitz (*orobat otoiitze g.er.*) **1** iz arimaren Jainkoarekiko harremana, hari maitasuna edo ezagutza adierazteko, edo eskariren bat egiteko; Jainkoarekiko harreman hori gauzatzen duen esapide edo esaldi saila, Liturgiak arautzen duena.

Gaurkoan Profetaren aldeko **otoitz** batekin hasiko gara. [Patxi Zubizarreta](#)

Apaizek txondorri itzulinguru batzuk egiten diz-kiote, veda **otoitzak** marmarkatuz. [Gotzon Garate](#)

Eguneko lehen **otoitzera** dei egiten zuen txilina aditu zen, deiez. [Edorta Jimenez](#)

Hiruretako **otoitzean** (nonan). [Askoren artean](#)

Nik kudeatzen ditut **otoitz** eta kantu gehienak, baina fededunen urratsei jarraikiz. [Piarres Aintziart](#)

Orduan erakutsiko die Jaunak beren lanen fruitua eta saria, beren etsenplu, **otoitz** eta malkoez salbaturiko arima ugariak. [Askoren artean](#)

Bet-betan, hogeit hitzeko **otoitz** bat izpirituratu zitzaion. [Juan Garzia](#)

Otoitza amaitu arte hantxe egon behar izan genuen. [Edorta Jimenez](#)

Entzun zuen Jaunak Susanaren **otoitza**. [Patxi Zubizarreta](#)

Egunero, Leizarragak **otoitza** zuzentzen zuen, bere izkiriataile lanak uzten zion denboran. [Aingeru Epaltza](#)

Bere baitan **otoitzari** eman zion, honela: [...]. [Elizen arteko biblia](#)

Otoitzen txanda etorri zen orduan. [Edorta Jimenez](#)

Samuel Wardwellek eskuak erdi bildu zituen **otoitzerako**. [Anjel Lertxundi](#)

Ainitz jende bildu da ehorzketan, bai askazi, bai herritar, bai adixkide eta lagun... eta, meza hunkigarri batean parte hartuz, guziek lagundu dugu gure **otoitzez**. [Herria](#)

2 (egin aditzarekin; ik beherago 9)

Ogia hartu zuen eta, esker onezko **otoitza** egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien. [Elizen arteko biblia](#)

Otoitza egin zuenean, oraingoan ere hegoak ateratzen ari zitzaizkiola iruditu zitzaion. [Askoren artean](#)

Egunero-egunero bere **otoitzak** egiten zituen, hebreeraz, ja ere ulertu gabe, ez baitzekien hebreeraz. [Fernando Rey](#)

Hitz berak ahoskatzean, ez genuela, menturaz, denek **otoitz** bera egiten. [Piarres Xarriton](#)

Juditek orduan, Holofernes ohe ondoan zutik, **otoitz** hau egin zuen: [...]. [Jose Antonio Mujika](#)

Otoitz hau egin zuenean, ahots bat etorri zitzaion zerutik, esanez: [...]. [Askoren artean](#)

Otoitz luze eta beroa egin ondoren. [Askoren artean](#)

3 (esan aditzarekin)

Goizerdiko **otoitza** debozioz esaten ari zela, begiak ontzira joan zitzaizkion oharkabea. [Askoren artean](#)

Itxaronaldia ez zen luzatu, izan ere gizon bat agertokira igo baitzen **otoitzak** esatera. [Patxi Zubizarreta](#)

Ahots horrek (ilunbeltzetik etorki) laketasun patsadatsuz ziharduen hitzaldi edo **otoitz** edo aztiele bat esaten. [Juan Garzia](#)

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Otoitz nagusia. [Elizen arteko biblia](#)

Jauna, egin nazazu zeure bakearen zerbitzari hasten den **otoitz** ezaguna. anai Rufinoren etengabeko **otoitz** bertutetsua. [Askoren artean](#)

Otoitz kartsuak, erregu umilak, gizaki hilkorrek, izuaren izuz, Jainkoari eskaintzen dioten hori guztia. [Jon Muñoz](#)

Oliamendiko **otoitz** larria. [Elizen arteko biblia](#)

Harrikada batera aldendurik, **otoitz** santuan murgildu zen. [Askoren artean](#)

Jainkoaren zerbitzariari **otoitz** garbitik eta beste egintza onetatik datorcion bihotzeko debozioa eta alaitasuna. [Askoren artean](#)

Behin baino gehiagoan gertatu ohi da, arrazoiren batengatik, elkarte bati **otoitz** luze eta neketsua ezartzen zaiola. [Joan Mari Lekuona](#)

Eguraldia amasa zaidala, eta arnas sakona **otoitz** gozo zabal zaidala goizeroko lehen momentutik. [Pello Zabala](#)

Itasoko marruma ozenagoa zen, eta orain **otoitz** erritual baten antza hartzen ari zen. [Jon Alonso](#)

Zigarretari azken atxiki bat egin, **otoitz** isil bat esan, edota begiak itxirik. [Mirentxu Larrañaga](#)

Otoitz isilez Kristorengana erakarri dituenak. [Askoren artean](#)

Emakumea **otoitz** apal eta bihotzeko honetan ari zela, nekeak, egarriak eta beroak jota, loak hartu zuen pixka batean. [Askoren artean](#)

Otoitz publikorik ez da izan Büchenwald-en. [Marzel Etxehandi](#)

Etengabeko **otoitz** eta kontenplazio sarriaren bidez. [Askoren artean](#)

Bere ohiko **otoitz** bezala ezarri zuen Ostiral Santuko liturgiako antfonaren kasuan. [Askoren artean](#)

Goizeko **otoitzak** egiterakoan. [Koro Navarro](#)

Haserretu ez dadin alemanerazko **otoitz** batzuk irakurri ditut. [Josu Zabaleta](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Europa aldera zabaldu ahala, ospakizun eta **otoitz**-egun hauen datak han eta hemen, jada finko ageri dira. [Pello Zabala](#)

Erretiratze hau ostiraleko **otoitz eguna** errespetatzeko egin zutela azaldu zuten eleudun militarrek. [Berria - Mundua](#)

Otoitz-denboran ameskeria hutsaletan sakabanatuta ibiltzea. [Askoren artean](#)

Eguerdiko **otoitz** garaian etorriko zaizu. [Patxi Zubizarreta](#)

Egiazko kartsutasun honek hunkitu nau eta onartu dut ene baitan, oldartu gabe, **otoitz** ueña. [Piarres Aintziart](#)

Beren **otoitz** jardunean ohiko barne debozioa sentitzen ez bazuten, Jainkoak eskutik utziak zituela pentsatzen zuten. [Askoren artean](#)

Eliz Amaren **Otoitz**-Liburuetatik. [Pello Zabala](#)

Sakelak aire husten dizkit, **otoitz**-liburua lurrera botatzen didate. [Marzel Etxehandi](#)

Baina Jainkoak entzun egin zidan, nire **otoitz**-oihua aditu. [Elizen arteko biblia](#)

Galdurik, **otoitz**-soinu arraro horri segitzea erabaki nuen. [Jon Alonso](#)

Otoitz-jario bat etorri zen ondotik. [Anjel Lertxundi](#)

Otoitz zurrumuru bat goiti zoala zilarrezko Birjinari buruz. [Michel Oronoz](#)

Daviden etxe gainera eta Jerusalemgo bizilagunen gainera bihotz-damua eta **otoitz**-espiritua isuriko ditut. beren bokazio santua eta **otoitz**-debozioa bazterrera utziz. [Elizen arteko biblia](#)

Hau da benetako **otoitz**-metodoa. [Joan Mari Lekuona](#)

Katoliko anitz eta anitzek **otoitz** kateak egin zituzten, Jaunaren gorespenak geldi ez zuten gauaz ez egunaz. [Marzel Etxehandi](#)

Otoitz-zaletasuna eta profeta-espiritua. [Askoren artean](#)

Haurtzarotik, handien jeloskor izan zen Cecco; mesprezatu egiten zituen, eta **otoitz**-marmarka jarduten. [Juan Garzia](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Adimen-**otoitza** ahozko otoitz guztien gainetik dago. [Joan Mari Lekuona](#)

Negar eta damu- **otoitz** artean ekarriko ditut. **Elizen arteko biblia**
Gure galde- **otoitza** esker onezko otoitz bilakatzen da. **Marzel Etxehandi**
Nire hilibian zizelkatuta egotea nahi nukeen epitafioa idatzi dut, eta haren jarraian, berez etorrita bezala, hileta- **otoitza** . **Bernardo Atxaga**
Bakarrik geratzen eliza hartan, gaueko ofizio- **otoitza** eta beste otoitz batzuk esan ondoren. **Herria**
Prestamen- **otoitza** Jainko gure Jaunari grazia eskatzea da, ene asmo, egintza eta ariketa guztiak Jainko handiaren zerbitzurako eta gorespenerako garbiri zuzen daitezen.
Patxi Altuna

7 **otoitzean** adlag otoitz egiten.

Lagun asko zegoen han bildua **otoitzean** . **Elizen arteko biblia**
Denak bildurik zeuden, **otoitzean** . **Joan Mari Lekuona**
Ezpainetan dardara bat, **otoitzean** balego legez. **Edorta Jimenez**
Etxe barruan ari zen **otoitzean** , eta bukatzean kanpora atera zen. **Askoren artean**
Gauerdi aldera, Paulo eta Silas **otoitzean** ari ziren, Jainkoari gorespesak kantatzen. **Elizen arteko biblia**
Otoitzean ari ziren oraindik, baina haien otoitza marmar bat besterik ez zen, ur bazterretik ezin entzun zitekeena. **Karlos Zabala**
Eguna argitzean **otoitzean** ari zelarik, mota askotariko txoriak etorri ziren bera zegoen gela gainera. **Askoren artean**
Zuen alde eginahalean **otoitzean** dihardu beti, tinko irau dezazuen, Jainkoaren nahia betetzera erabat emanak. **Elizen arteko biblia**
Danielen etsiak zalapartaka sartu ziren haren etxean, eta bere Jainkoari **otoitzean** aurkitu zuten. **Elizen arteko biblia**
Esadazu, egia al da **otoitzean** gehiegi luzatzeagatik galdu zenuela Asteasuko bataila? **Bernardo Atxaga**
Gau osoa hilibiaren aurrean **otoitzean** eman ostean, hanka sendatu zitzaion. **Askoren artean**
Alabaina, erregeak jakin zuelarik bigarren gaua ere **otoitzean** eman zuela, Haiat Al-Nufus printzesari esan zion: [...]. **Patxi Zubizarreta**
Jaiki zen, bada, Sara, eta **otoitzean** hasi ziren biak, Jaunari eskatuz onik gorde zitza. **Jose Antonio Mujika**
Hara sartu eta kartsuki **otoitzean** hasi zen Gurutziltzatuaren irudi baten aurrean. **Askoren artean**

8 **otoitzez** adlag otoitz egiten.

Zuri gaude **otoitzez** , Jaungoiko maitea. **Piarres Xarriton**
Otoitzez nago, egun, zeruko jaunari. **Herria**
Jesus maitea **otoitzez** gaude Eliza hunen barnean. **Herria**
Bidean jarri nintzen, bada, Donibane Lohizunerantz, Piarres Oihartzabal kapitainarenganat, Jainkoari **otoitzez** nengokion bitartean eta zeruari galdegiten ezen etxean egon zedila, ez itsasoan. **Joan Mari Irigoien**
Garakotxean, sailduaren sortetxean, bururatu da beila, **otoitzez** eta kantuz. **Herria**
Ahots apalez marmarka zebilen eta Jessica alabatxia **otoitzez** . **Itxaro Borda**

9 **otoitz egin** ik **otoitzu** 2.

Egun hartan, Jaunak amotarrak israeldarren eskuetan jarri zituenean, **otoitz egin** zion Josuek Jaunari, honela oihukatuz israeldarren aurrean: [...]. **Jose Antonio Mujika**
Lantuka, **otoitz egin** nien jainkoei: [...]. **Juan Kruz Igerabide**
Almuedanoek **otoitz egitera** deitu zutenean. **Jon Alonso**
Egin ote dio **otoitz** , erregutu ote dio, beste inorentzat egin ez duena beretzat egin dezan, xarma, freskotasuna eta grazia azkeneko eguna arte utz diezaion alegia? **Josu Zabaleta**
Han belaunikatzen zen, egunean hiru aldiz **otoitz egin** eta Jainkoa goresteko. **Elizen arteko biblia**
Otoitz egitea Jainkoari, Besteari mintzatzea zen, Transzendenteari hel egitea. **Piarres Aintziart**
Orain ziur naiz **otoitz egiten** ari dela. **Mirentxu Larrañaga**
Apur bat bere onera etorri zenean, **otoitz egiten** hasi zen, eta behin eta berriz erregutu zion Ateneari bere semearen alde. **Juan Kruz Igerabide**
Egizu otoitz nire alde, Jainkoak gogokoan zaion legea eta fedea ezagutarazi diezadan. **Askoren artean**
Bere Jainkoari **otoitz egiten** harrapatu zuten Daniel. **Jose Antonio Mujika**
Egin otoitz irainka ari zaizkizunen alde. **Felipe Juaristi**
Otorduei lotu aitzin **otoitz egiten** zuen, debozioan sartua. **Aingeru Epaltza**
Hala ere, **otoitz egiteko** molde asko dago. **Patxi Zubizarreta**
· Gogor zigortzen zuen gorputza eta **otoitz** eta negar **egiten** zuen saminki. **Askoren artean**

10 **otoitz etxe** ik **otoitzetxe**.

11 **otoitz ordu**

Ostiraleri bezala, **otoitz orduan** , bere aitaren oihal-denda zaintzen zegoen Mamu, hura meskitan zen bitartean; aita Akreko merkatari handia zuen. **Juan Kruz Igerabide**
Otoitz-orduak beti zutik, txanoa kenduta, begiak bilduta eta dena ongi ahoskatuz esaten zituen. **Askoren artean**
Goiz eta arratsalde neure gelatik entzuten nituen musulmanek inguruko mezkita-dorretik **otoitz-ordua** dela orotarazteko egiten zituzten oihuak. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azken otoitz (4); barau eta otoitz (6); bertan otoitz egin (5)
egin dezala otoitz (4); egin nuen otoitz (5); egin otoitz (37); egin zion otoitz (12); egin zuen otoitz (4); egiozu otoitz (7); egiten zuen otoitz (9); egizu otoitz (6); egizue otoitz (9); esker onezko otoitz (4); etengabeko otoitz (4); frantziskoren otoitz (5)
jainkoari otoitz egiten (6); jaunari otoitz egitea (4); jaunari otoitz egiteko (5)
otoitz asko (4); otoitz bat egiten (4); otoitz baten gisan (15)
otoitz egin (231); otoitz egin dugu (11); otoitz egin dute (5); otoitz egin nuen (7); otoitz egin ondoan (4); otoitz egin ondoren (12); otoitz egin zion (21); otoitz egin zioten (7); otoitz egin zuen (31); otoitz egin zuten (10); otoitz eginen (5); otoitz eginez (32); otoitz egingo (19); otoitz egiozu (7); otoitz egitea (38); otoitz egitean (13); otoitz egiteari (5); otoitz egiteko (102); otoitz egiteko eskatu (5); otoitz egiteko eskatzen (4); otoitz egiten (152); otoitz egiten diot (4); otoitz egiten du (4); otoitz egiten duenak (4); otoitz egiten dute (4); otoitz egiten zion (13); otoitz egiten zuen (12); otoitz egiten zuten (5); otoitz egitera (94); otoitz egitera deitu (5); otoitz egitera joateko (4); otoitz egitera joaten (4); otoitz egiterakoan (4); otoitz egiterat (6); otoitz egitetik (4); otoitz egizu (6); otoitz egizu guretzat (5)
otoitz egun (5); otoitz eta debozio (4); otoitz eta kantu (8); otoitz eta kantuetan (7); otoitz eta negar (4); otoitz etxe (9); otoitz etxe izango (4); otoitz hau egin (17); otoitz hori (10); otoitz kartsuak (4); otoitz labur (5); otoitz larria (4); otoitz leku (17); otoitz lekua (5); otoitz liburu (7); otoitz liburua (16); otoitz liburua (5); otoitz luze (4)
azken otoitza (5); egiazko otoitza (4); eginiko otoitza (5); entzun nire otoitza (5); esker onezko otoitza (14); fededunen otoitza (4); goizeko otoitza (4); ofizio otoitza (9); ohizko prestamen otoitza (8)
otoitza amaitu (10); otoitza bukatu (5); otoitza bukatuta (5); otoitza egin (19); otoitza egin ondoren (8); otoitza egiten (5); otoitza errezatzen (4); otoitza eta baraua (4); otoitza eta eskaria (7); prestamen otoitza (20); profetaren otoitza (5)
gure otoitzak lagun (26); kantu eta otoitzak (5); otoitzak egin (4); otoitzak egiten (5)
otoitzaren indarra (4); otoitzaren ondoren (5); prestamen otoitzaren (5); santuaren otoitzaren (6)
otoitzari eman (4); otoitzari emana (10); otoitzari emanak (7); otoitzari emanak bizi (4); otoitzari esker (7)
basoan otoitzean (4); debozio handiz otoitzean (4); etengabeko otoitzean (4); fededunen otoitzean (7); frantzisko otoitzean (5); goizeko otoitzean (6); goizeko otoitzean priman (6); hiruretako otoitzean (4); jainkoari otoitzean (6); jaunari otoitzean (8); kartsuki otoitzean (6); otoitzean ari (120); otoitzean ari nintzela (7); otoitzean ari nintzen (6); otoitzean ari zela (37); otoitzean ari zen (29); otoitzean ari zirela (5); otoitzean ari ziren (7); otoitzean egin (4); otoitzean hasi (18); otoitzean hasi zen (9); otoitzean ikusi (4); otoitzean jarri (6); otoitzean jarri zen (5); otoitzean tertzian (4); otoitzean zegoela (6); san frantzisko otoitzean (4)
otoitzerako zutik (6)
kantu eta otoitzetan (6)

otoitzaldi 1 iz otoitz egiten den denbora.

Urterako seinalatutak badaudela otoitzak, mezetan nahiz beste **otoitzalditan** erabil daitezkeen formulak, alegia. **Pello Zabala**

Otoitzaldia bukatuta, Erroma utzi eta Spoleto haranerantz abiatu zen bere lagunekin. **Askoren artean**

Matanias, **otoitzaldiko** gorespenetan kantua zuzentzen zuena. **Elizen arteko biblia**

Akademian, ohi baino **otoitzaldi** luzeagoa egin genuen egun hartan; horretan gelditu zen ospakizuna. **Aingeru Epaltza**

Jasokunde jaia iritsi zenean, bada, San Frantziskok garizuma santuari hasiera eman zion, bijilia gogorrez eta laztasun handiz gorputza zigortuz, eta **otoitzaldi** kartsuz, gaubeilez eta diziplinaz espiritua indartzuz. **Askoren artean**

2 (hitz elkartuetan)

Gutxitan laguntzen zion anai Egidio inori egun osoan, denbora-tarte bat libre edukitzeko akordioa egiten baitzuen, bere Ordu kanonikoak esan ahal izateko eta meditazio

otoitzaldiei hutsik ez egiteko Tenplua herri guztientzat otoitz-etxe. **Askoren artean**

otoitze ik otoitz.

otoitzegile ik otoizgile.

otoitzekari izond otoitzegilea.

Girixtino, segitu eta zinez **otoitzekaria**. **Herria**

otoitzetxe (orobat otoitz-etxe) iz otoitz egiteko etxea. ik otoizleku.

Tenplua herri guztientzat **otoitz-etxe**.

Sala haundi hura **otoitzetxe** eginez, emanen dugula meza bat gure euskal meza ederren idurikoa. **Herria**

Nire etxea **otoitz-etxe** izango da; zuek, berriz, lapur-zulo egina duzue.

Ez zen emaztearekin batzen, haragia jateari utzi zion eta ez zuen etxean lo egiten, **otoitz etxeko** aulki batean baizik. **Koro Navarro**

otoitzño iz otoitz laburra.

Bazkal aintzin oraino, *Agur Jaunak* eta **otoitzño** bat, Mikel Epalza apezka denen aintzineko. **Herria**

Lore azau bat, **otoitzño** bat Beñat Goity gidari, eta gure betirako eskerrak kasetaren sortzaileari. **Herria**

otoizbide iz otoitz egiteko bidea.

Halere, hasieratik sortutakoari jarraipena ematen diote, beren lanbidea dute **otoizbide**. **Elizen arteko biblia**

otoizgile (orobat otoitzegile eta otoitz-egile; Euskaltzaindiaren Hiztegian otoizgile agertzen da) izond/iz otoitz egiten duena.

Bi barruotatik serora **otoitz-egileen** erregu-eresi fin errepikakorrek hedatzen ziren nekagaitz aire epelean. **Txillardegi**

Beste batzuek, Jaungoikoaren Probidentzia giza bizitzan ukatzera ausartzen ez badira ere, nahiago dute, errore dohakabez, hura indarrik gabea, injustua eta gaiztoa dela sinestea, euren bekatuak pietate **otoizgilez** aitortzea baino. **Imanol Unzurrunzaga**

Mami existenzial eta espiritual handiko salmo hauek Aitaren aurrean jartzen dituzte **otoizgilearen** bizia, estualdiak, oinazeak. **Askoren artean**

Gizonezko bat jarri da **otoitzegileen** artean eta berarekin zeukan lehergailua eztdarazi du. **Berria - Mundua**

otoizgune iz otoitz egiteko gunea. ik otoizleku.

Geroztik, beste atentaturik gertatu da, hala nola Sarteko **otoizgune** baten kontra, joan den azaroaren 27an. **Berria - Mundua**

Pintadak, **otoizgune** edo bestelako biguneei oldar egiteak errebindikatu gabe geratu dira gehienetan, Baionako Herriko Etxeak dio ez dagokiola udalari **otoitz-guneen** laguntzea, «edozein erlijiotakoa izanik ere». **Berria - Mundua**

Ondotik Aita Saindua Lurdera joan da bere "papamobile" famatu hartan, 12.30tan nunbeitan helduz **otoitz guneetara**. **Herria**

otoizka adlag otoitz egiten.

Aita Saindua bera, dena zuhurtzia eta dena bihotz, mintzo zaie beretik armada, nazione eta gudukarieri, erranez **otoizka**: muga eta geldi bederen ditzaten toki haietako jende xehe eta herritarren sofrikarioak. **Herria**

Aita batek, ultzera gaizto bat zuen bere semearen alde, Frantzisko santuari erregu apalez **otoizka** jardun zuenean. **Askoren artean**

Beinat **otoizka** ari zen, malkotan, soldadu-lagunak dardararen dardaraz, zuloetan gordetzera lehiatzen zirela, hartz-ume lotsati: ahal duena salba bedi! **Itxaro Borda**

Bizpahiru marinela jarri ziren orduan belauniko, zeruari erreguka eta **otoizka**, mirakulu baten galdez. **Joan Mari Irigoien**

Barka, ene Jauna! neu nauzu zure aurrean Jaunari **otoizka** ari izan zitzaion emakumea. **Elizen arteko biblia**

otoizlari izond/iz otoitz egiten duena.

540an agertu zuen fraide **otoizlarien** erregela liburua eta 547an hil zen. Nahi luke ere seme **otoizlari** bat, Jainkoa maite duena eta haren bidea hartzen duena. **Herria**

Bost urte luzez egonen zauku hor, beti bezain xehea, ona, **otoizlaria**, eta denetaz maitatua. **Herria**

Jainkoa bera den maitasunagatik erregutzen diet neure anaia guztiei, predikatzaile, **otoizlari** eta langile, kleriko nahiz laiko, saia daitezela gauza guztietan apal izaten.

Askoren artean

Horixe leporatu didate **otoizlari** batzuek Jameh meskitaren inguruetan arduragabeturik argazkiak egiten ikusi nautenean, eta kopeta makurtuta urrundu behar izan dut handik, lotsaz beteta erakutsi dudana sentiberatasun faltagatik. **Jon Arretxe**

otoizle

50 **otoizle** Baztanen. **Herria**

otoizleku

*(orobat **otoitz-leku**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **otoizleku** agertzen da)* iz otoitz egiteko lekua. ik **otoiztegi**.

Larunbatean, hiritik kanpora atera eta ibai ondora joan ginen, han juduen **otoizleku** bat zegoela uste baikenuen. **Elizen arteko biblia**

Barruko patioa, familiaren eta leinuaren bizia han egiten duk, azoka, parlamentu eta **otoitz-leku** duk aldi berean... **Xabier Olarra**

Hola zen **otoitz leku** bilakatu Compostella eta mundu guzitik abiatu zen jendea. **Michel Oronoz**

Otoitz lekua arima bera da, Jaunak esan bezala. **Joan Mari Lekuona**

Ekarri zuen, finean, elizarat -zeinak baitzuen, don Frantziskoren denboran, plaza publikotik eta merkatutik **otoizlekutik** bezainbat, guztiak solas eta solas-isiltasuna. **Joan Mari Irigoien**

otoiztegi

 iz otoitz egiteko lekua. ik **otoizleku**.

Horko jauregi, kapera, **otoiztegi** eta beste egoitzak, horko bazter guziak azkenean, zoin diren ederrak! **Herria**

Athos mendiko orthodoxen **otoiztegiat**. **Herria**

Zoaz eta gelditi zaitetz anaien bizilekuko **otoiztegiaren** atarian, eta nik deitzen dizudanean etorri nigana. **Askoren artean**

otoiztu

, otoitz/otoiztu, otoizten **1 du ad** arrenka eskatu.

Horrek hain ospe handia eman zidan non zenbait Handiki ezagunek gonbidatu ninduten eta **otoiztu** Pariseko Parlamentu Nagusian Aholkularitza onar nezan. **Piarres Xarriton**

Bihar jinen da segurki, hura adiskide ona baita, eta **otoiztuko** diot nire gutuna berehala eman diezazun. **Jon Muñoz**

Laugarren goizean aspertu zen aitorrezinezko bere ametsa egiazta zain egoteaz, errainak arren laster etxera zedin **otoiztuko** ziola. **Itxaro Borda**

Baldin bakarka mintzatzan ahal banatzaio, **otoiztuko** diot eraman diezaiola arren ohar ttipi bat Merteuil andreari. **Jon Muñoz**

-Bakea emaziozu! - **otoiztu** zuen Graxik-. **Elena Touyrou**

Otoizten ditut denak geldirik egon ditzen nahi badute beren bizia salbatu. **Michel Oronoz**

Aratxek Txoko **otoiztu** zuen, Bozekin harremanetan jar zedila Eusko Armadaren ekintza sail honen geldiarazteko. **Itxaro Borda**

Janinak lau herritarren biziaz urrikaltzeko **otoiztu** zuen komandanturreko kapitaina. **Itxaro Borda**

Otoiztu nuen neska, hori bai, pastillok benetan har zitzaizun, arren. **Joxe Austin Arrieta**

Block-eko erizaina **otoiztu** nuen lagun nezan kanpalekuko okuliztera. **Marzel Etxehandi**

Alferrik **otoiztu** nituen akaba nintzaten. **Juan Garzia**

Berak **otoiztu** nau zure ikustera jin nendin, gure etxearen eta deituraren eskaintzeko. **Elena Touyrou**

Harritua iduri behatu zigun guztioi; eta harengana joateko zutitu bainintzen, ezagutu ninduen, neure izenez deitu, eta hurbil nenkion **otoiztu** ninduen. **Jon Muñoz**

Eginahalak eginak zituzten herriko buruzagiek, Aita Sainduak eta familiak bahitzaleak **otoiztuz** etzezetan hil. **Herria**

Nire zorianagatik eta batez ere nire atsedengatik zaitut **otoizten**. **Jon Muñoz**

Basilek Dominiqueri so egin zion, **otoiztuz** bezala, baina ez zen kantitu. **Elena Touyrou**

Kantari eta herritarrak **otoiztuak** dira meza hortan parte hartzera. **Herria**

2 otoitz egin.

Orthezen **otoiztea** eta ikastea baizik ez zen libre; Nabarrenkoxen, berriz, **otoiztea** eta borrokatzea. **Aingeru Epaltza**

Nola aingeruek, jainko-justiziaren labana izanik, jasan eta zaindu nauten eta nigatik **otoiztu** duten. **Patxi Altuna**

Ez zekien zenbat denbora atxikitzen ahalko zuen eta saindu guziak **otoizten** zituen lthurbide jauna itzul zedin azkenean. **Elena Touyrou**

Apez batxiler zen etxeko seme batek eraiki zuela harriz, 1672an, Jainkoa **otoiztuz** bihotz guziaz.... **Xipri Arbelbide**

Sallagoity jaun ertorak meza kartsu batean hil guziak **otoiztuz**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

otoiztu ninduen (4); **otoiztu nuen** (3); **otoiztu zuen** (6)

otoiztu ninduen (4); **otoiztu nuen** (3); **otoiztu zuen** (6)

otoiztuak dira (3)

otokar

 ik **autokar**.

otolito

 iz barne belarriko hezur barrunbeko sisteman aurkitzen din gai solidoa.

Utrikulan eta sakuluan, gelatina gogor batean sarturik daude ile-zelulak; gelatinak badiitu kaltzita- edo aragonita-kristalak (kaltzio karbonato edo klarionaren kristal-formak):

otolitoak. **Irene Aldasoro**

Gelatina baino dentsuagoak dira **otolitoak**, eta atzean geratzeko joera dute burua mugitzen denean. **Irene Aldasoro**

Otarrainek eta beste itsaski batzuek hondar aleak erabiltzen dituzte **otolito** gisa. **Irene Aldasoro**

Gizakien **otolitoak**, ordea, dietako kaltzioz eginak dira. **Irene Aldasoro**

otomandar

 (**110 agerraldi**, **5 liburu** eta **7 artikulutan**) izlag/iz turkiarra. ik **otomano**.

Otomandar Inperioaren turkiar nagusiak sekula ez ziren hasi arabiar kaliferriar arrakastaz eta habsburgotarren danubiar monarkian arrakastarik gabe aplikatu zen politika zertzen. **Iñaki Mendiguren**

Otomandar Inperioaren gainbehera ekarri zuen Lehen Mundu Gerraren ostean. **Jon Arretxe**

Turkiako historiaren urte gatazkatsuenak ziren, dinastia **otomandar** higatua erori eta mendebaldekoen estiloko errepublika sortu zen garaia. **Fernando Rey**

Arabiar herrialdeek [...] **otomandar** agintaritza politikoa eta kultur barniz iranikoa -zeinen azpian estalita egon baitziren lau mendez- asintzen izandako arrakastagatik lortu zuten beren guraria. **Iñaki Mendiguren**

Bey horrek leialtasuna agindua zion sultan **otomandarrari**. **Fernando Rey**

Otomandar grekoen trebezia Inperioaren zerbitzura erabiltzeko [...] beste neurri batzuk hartu ziren greziarren mesedetan, greziarra ez zen raiyah kristau ortodoxoaren bizkar. **Iñaki Mendiguren**

Otomandar kristau ortodoxoek, Mendebalderantz itzuli zirenean, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Hamaseigarren eta hamazazpigarren mendearen esklabo-etxeke lingua franca serbo-kroazier eta **otomandar** itsas arnadaren lingua franca italiara. **Iñaki Mendiguren**

Oso harreman onak zituen **otomandarren** sultanarekin, eta haren ospeari oso loturik zegoen. **Fernando Rey**

Otomandarrak azken hautsak harrotzen ari ziren inperio gisa, eta hasieran kluba ez zen ofiziala, antolatutako kirol jarduerak debekaturik baitzeuden. **Berria - Kirola**

otomandartze iz otomandar bihurtzea.

Hamazazpigarren mendeko zazpigarren hamarkadan **otomandartzea** zen *raiyah*-en gizarte-nahia, garai hartan esan zuen bezala sir Paul Rycaut-ek, Konstantinoplako ingeles enbaxadako idazkari argiak: [...]. **Iñaki Mendiguren**

otomano (19 agerraldi, 8 liburu eta 2 artikulutan) izond/iz turkiarra. ik otomandar.

Gogoratu Albaniako agintean turkiar **otomanoak** zeudela orduan eta Kastriotitarrak haien aurkakoak zirela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Inperio **Otomanoaren** erorikoa, ofizialki Lehen Mundu Gerraren amaiera arte bururatuko ez zena, XIX. mendearen erdian abiatu zen morrontza ekonomikoaren prozesu luze baten emaitza baino ez da. **Koro Navarro**

Gero **otomanoak** iritsi ziren, eta esan zioten aitonari: zu **otomanoa** zara, eta **otomano** bihurtu zuten. **Juan Kruz Igerabide**

Otomanoen Inperioa erori zenean, turkiar bihurtu zen aitona. **Juan Kruz Igerabide**

Baziren han errusiarrak, siberiarrak, alemaniarrak, kosakoak, turkomanak, persiarrak, georgiarrak, grekoak, **otomanoak**, indiarak, txinatarrak, Europa eta Asiako zoko guztietatik etorritako gizon-emakumeak, berrikerian, eztabaidan, aldarrika, tratuan. **Karlos Zabala**

otomobil ik automobil.

otondar izond/iz Oton izeneko erdi aroko lau enperadore germaniarri dagokiena.

Hori enperadoreak handiak eta aita santuak txikiak ziren garai batean egin zen, **Otondarrak** Italiara inperioaren duintasuna berrezartzera etorri ziren garaian. **Iñaki Iñurrieta**

Karlomagno, Luis Errukitsuak, **Otondarrek** zenbait konstituzio orokor egin zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

otordu 1 iz mahaian eserita egiten den janaldia. ik oturuntz; jatordu.

Bapo gozatu zuen Léak **otordu** hura. **Jon Muñoz**

Berehala **otordua** prestatu eta poz handiz jan zuten denek. **Askoren artean**

Beduindarren kanpamendura edonor heltzen dela ere, ez diote haren izen edo norabideaz galdegiten, eta galderen orde **otordu** bat eskaintzen diote. **Patxi Zubizarreta**

Eta etxera itzuli bezain laster, behar bezalako **otordu** bat egin. **Patxi Zubizarreta**

ik beherago 6. **Askoren artean**

Zeuk joan beharko zenuke basomutilei **otordua** eramatera. **Bernardo Atxaga**

Otordu bat ematean, gonbidatu behartsu, elbarri, herren eta itsuak. **Elizen arteko biblia**

Oziasek bere etxera eramane zuten Akior, eta **otordua** eman zien arduradunei. **Elizen arteko biblia**

Ez zegoen neurririk **otordu** hartan, hala nahi izan baitzuen erregeak. **Elizen arteko biblia**

Ezkutuan egoten saiatu zen **otordua**ren azkenburukoetan eta dantzaldi-garaian. **Inazio Mujika Iraola**

Berdin zitzaion, nonbait, lehen ala bigarren **otordua**. **Joxe Austin Arrieta**

Berendiaren beraren telefonotik enkargatzen zituzten **otorduak** Hotel Torrontegira. **Koldo Izagirre**

Jangela: 25.460 **otordu** eskaini zituzten iaz, 13.892 bertakoei eta 11.568 etorkinei. **Berria - Euskal Herria**

Otordua amaitzen ari ginela, zeruan bi hodeitar agertu ziren. **Patxi Zubizarreta**

Otordua bukatu zutenean, denetik eduki balute baino aseago sentitzen ziren gabezia handi hark ematen zien pozaz. **Askoren artean**

Otorduz kanpoko elikadura. **Edorta Agirre**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uretan bakarrik egosiak, **otordu** tristea izaten zen hura. **Pako Aristi**

Otordu arin bat hartu genuen herrian. **Alberto Ladron Arana**

Mendebaldeko **otordu** klasikoa eskatu genuen: txuleta eta garagardoa. **Xabier Olarra**

Otordu handia eman zien orduan erregeak. **Elizen arteko biblia**

Zoazte eta emaiotzue sendagileari **otordu** on bat. **Askoren artean**

Jainkoak emandako mesedeak eskertzearen, eskuzabala izan nintzen pobreekin eta imanekin, eta **otordu** ezin hobeak eskaini nizkien nire laguneri eta ahaidei. **Patxi Zubizarreta**

Festa eta **otordu** oparoak berrehun lagunentzat. **Oskar Arana**

Asteen Jai santuan, **otordu** ederra ipini zidaten. **Elizen arteko biblia**

Oporaldi osoa euren artean ematen duen emakumearen **otordu** goxoak dastatuz, egun gogoangarriak pasa dituzten. **Pako Aristi**

Otordu hotzak prestatzen dituzte beroaldia etorriko denerako. **Berria - Euskal Herria**

Izaki pertsegitu, doilortu, gosetu haiekin **otordu** miserableak konpartitzen nituen tabernazulo miserable ezkutuetan. **Matías Múgica**

Arroz eta babarrunez prestatutako **otordu** mexikar bat egin genuen. **Xabier Olarra**

Duen gosearekin italiar **otordu** bat ez baitzaio gaizki etorriko. **Eneko Bidegain**

Ez zegoen jada nahikoa denbora **otordu** luzeetan patxada ederrean egonaldiak egiteko. **Oskar Arana**

Otordu alaiak eratuz eta elkarri eskuerautsiak bidaliz. **Elizen arteko biblia**

Haren bila joan zen berriro lagunarteko **otorduetara** gonbidatzeko. **Askoren artean**

Eguneroko **otordua** ez ezik, jaiegunekoa eta apartekoak ere prestatzeko. plastikozko kaxatan norberak hartu eta pisuaren arabera ordaintzen diren presazko **otorduak**. **Edorta Agirre**

Eguerdian, Dan Burke's-era joan eta eguerdiko **otordua** egiten zuen. **Irene Aldasoro**

Hala bada, Mahmudek berealdiko **otordua** eskaini zion Ala Al-Dini. **Patxi Zubizarreta**

3 irud/hed

Almirantea filosofi **otordu** presazko haren digestioa egiten ari zela, [...]. **Xabier Olarra**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Eskuinaldeko zuritahun" bat, sarrerako atletik sartu eta zeharka ikusten zena, hurrengo gelako **otordu** -mahaia zela. **Xabier Olarra**

Kafea eta eroskilla batzuk eskatu zituzten urube huts bateko **otordu**-bagoi batean. Lopez de Arana

Igande eguerdietako **otordu** -lege berankorrak. Mirentxu Larrañaga

Otordu denboran, auzapezak ongi etorri on bat eskaini du deneri. Herria

Langile guztiek **otordu** ordaina kobra dezatela, 9,4 euro aurten eta 10,4 2005ean. Berria - Ekonomia

Ez baitzuen uste kilometro gutxi batzuen buruan aldendurik zeuden herrien artean **otordu** jeneroari edo bere prestaketari zegokion berezitasun handirik egon behar zuenik.

Pako Aristi

- «Garapena eta merkataritza» ziren **otordu** -hizketaldi honen menuan, Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egonaldi labor horren egitarauan lan **otordu** bat aurreikusita dago. Berria - Mundua

Beraz, senideok, zeuen elkarte-**otorduak** egiteko biltzen zaretenean, itxaron elkarri. Elizen arteko biblia

Chandler Txiki berandu etxeratu zen te-**otordua** egitera. Irene Aldasoro

Gazte-taldeak bere jaun ezarri zuen, jai-**otordua** ordain ziezaien. Askoren artean

Ez joan festa-**otordua** egiten ari diren etxera, bertakoekin jan-edatera. Elizen arteko biblia

Sansomen emaztea, berriz, eztei-**otordua** antolatatu zuen lagunari eman zioten emaztetzat. Elizen arteko biblia

Pazko-**otorduan** ez duzue legamidun ogirik jango. Elizen arteko biblia

6 otordua egin

Atera sagardoa iturri-askatik, banatu ogia eta gazta, eta **otordua egiten** genuen. Bernardo Atxaga

Anai-arrebak eta lehengo ezagunak etorri zitzaizkion ikustera, barearekin **otordua egin** zuten etxean. Elizen arteko biblia

Frantzisko erretiratu berria zen, **otordua egin** ondoren, otoitzerako eta lotarako zuen gelara. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

otordu bat egin (3); **otordu bikaina** (3); **otordu goxo** (3); **otordu handia** (5); **otordu handia eman** (5); **otordu on** (6); **otordu on bat** (4); **otordu oparoa** (3); **otordu ostean** (3); **otordu sakratua** (4)

azken otordua (3); **eguberriko otordua** (3); **eguneroko otordua** (3); **eztei otordua** (4); **jai otordua** (4); **otordua antolatatu zuen** (3); **otordua bukatu** (3); **otordua bukatzean** (4); **otordua egin** (12); **otordua egin zuten** (5); **otordua egiten** (9); **otordua egitera** (5); **otordua eman** (6); **otordua eman zien** (3); **otordua hartzen** (3); **otordua prestatu** (4)

otorduak egiten (4); **otorduak ematen** (4); **otorduak prestatzen** (5)

otorduaren ondoren (5)

jai otorduetan (3); **kultu lekuetako otorduetan** (4); **otorduetan parte hartzen** (5)

otordulari *iz* otorduez arduratzen dena.

Honela osatzen da: Logelaria, Ohelaria eta **Otordularia**. Xabier Olarra

otordutxo *iz* otordu arima.

Otordutxoa prest zegoela ikusirik, partida jan ondoren bukatzea proposatu zien poliziaburuak gonbidatuei, eta aldameneko gelara joan ziren denak. Jose Morales

Tratua ixtekoan egindako gonbitte edo **otordutxo** izatetik, gero lagunarteko edozein otordu izendatzera iragoa. Patziku Perurena

otorrino *iz* otorrinolaringologoa.

Tipi-tapa joan ginen ama eta biok **otorrinoaren** kontsultara. Javi Cillero

Otorrinoa : ez dago itxaron zerrendarik. Berria - Euskal Herria

otorrinolaringologia *iz* medikuntzaren adarra, belarri, sudur eta eztarriko eritasunez ari dena.

Jesus Algaba Gipuzkoako Poliklinikako **Otorrinolaringologia** Saileko zerbitziburua da. Berria - Gaiak

otorrinolaringologo *iz* otorrinolaringologian espezialista den medikua.

Anbulatoriora lehenbailehen ailegatu eta ahalik eta numerorik onena hartzeko, oftalmologorako, traumatologorako, **otorrinolaringologorako** ... Xabier Mendiguren Elizegi

otoruntz ik oturuntza.

otozain ik autozain.

otruntz ik oturuntza.

otsababa *iz* belar landare sorgortzailea (*Hyoscyamus niger*).

Otsababa guretzat pozoin gogorra da, ahuntzak eta eperrak, ostera, loditu egiten ditu. Xabier Amuriza

otsaihen *iz* kalamuaren familiako landare igokaria (*Homulus lupulus*).

Otsaihenak intsusen, otsalazarren eta hurrizten behealdea itozten zuen, oholesiaren gainetik hedatzen zen gero, eta, azkenik, gorantz egin, eta erdiraino biltzen zuen urki puskatuaren enborra. Jose Morales

Nahas-mahas zegoen dena hor: astigarrak, madariondoak, sahats txikiak, urki gazteak, izeiak, **otsaihena** otsalazarretan kiribildurik. Jose Morales

otsail 1 izurtera bigarren hilabetea.

Otsail hartan ibaiak gainezka egin zuen. Koro Navarro

Otsail edo martxo aldera errunaldia gertatzen da, eta uztailaren bukaera habia uzten dute amiamokoek, neguan itzultzeko *Floating Cities* 1991ko **otsailean** argitaratu zen, eta laster igo zen Ingalaterrako liburu salduenen zerrendetan gora. Berria - Euskal Herria

Badaki, bai, **otsailak** izotz mortalak ekartzen tarteka. Pello Zabala

Eguzkia atera bai, baina zenbat fida leike **otsaileko** eguzkiarekin? Pello Zabala

Eta, eskuinean, latsaz bestaldean, herriko etxe urdinskek, **otsaileko** arrastiri hartan bestetan baino askoz beltzairaigo. Txillardegi

Otsaileko loreak ez du sagarrik ematen. Pello Zabala

ADECCOK kontabilitate arazoak agertu ditu eta mozkinen argitaratzea atzeratu du **otsailak** 4 dituen arte. Berria - Ekonomia
ik beherago 4. Askoren artean

Nafarroako egungo artista plastikoen lanaren aukeraketa garrantzitsua egongo da **otsail** osoan. Berria - Kultura

Otsailaren erdia da, eta etxerako ardoketan izandua naiz Nafarroako Gares aldean. Patziku Perurena

Otsaila dagoeneko. Edurne Elizondo

Otsaileko elurrak ongarri hoberena balio du. Pello Zabala

Otsaila bero, negua gero. Pello Zabala

2 (izenondoeekin)

Otsail gogorra New Yorkekoa. Iñaki Zabaleta

Holako **otsail** hotzetan denak ere hobeki litezke etxeko berokian. Eneko Bidegain

3 (-en atzikiarekin, datetan)

Munich. Asteartea, 1939ko **otsailaren** 21a. Alberto Ladron Arana

Gaur igandea duk, **otsailaren** 20a. Txillardegi

Urte horretan, **otsailaren** 27an. Pello Salaburu

Juan Pedro Aladro Kastrioti Perez de Velasco 1914ko **otsailaren** hogeian hil zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Otsailaren 18an, goizeko seietan, inolako epaiketarik gabe. Txillardegi

1935eko **otsailaren** 5eko goizaldean. Edorta Jimenez

Urtarrilaren 21etik **Otsailaren** 17rako 28 egunak besarkatzen ditu basa-lizarrak. Pello Zabala

Otsailaren 6a: Jorge Olavarriak honako hau idatzi zuen *El Nacionalen*: [...]. Pako Aristi

Otsailaren 1ean, gauean oherakoan. Pello Zabala

Herrialde askotan egin ohi zen festa **otsailaren** lehen eta bigarren egunotan, bien tarteko gauean, batik bat. Pello Zabala

4 (-k atzikiarekin, datetan, aposizioan)

Igandean, **otsailak** 15, Ravel entzuntzean, xuberotar kantari batzu. Herria

Ortizirale huntan, **otsailak** 2, aratsaldeko 4-etan, Baionako diosesak bere gune berezia idekiko du Internet sarean. Herria

Historiaren alde batzuk ez zaizkit oraindik errebelatu; gaur, 1944ko **otsailak** 3, honelatsu dakust. Juan Garzia

Osteguna, 1944ko **otsailak** 3. Josu Zabaleta

Antzerki hori berrerrakutsia izanen da Altsasun (urtarrilak 29), Bilbon (**otsailak** 7), Getxon (**otsailak** 10), Andoainean (**otsailak** 11), Gasteizen (**otsailak** 23), Elorrion (**otsailak** 25), Iruñean (martxoak 4), Azkoitian (martxoak 5) eta Luhuson (martxoak 6). Herria

5 (-k atzikiarekin, datetan)

Otsailak 9, tradizio eta jaiera handiko Apolonia Alexandriako santaren eguna daukagu. Pello Zabala

Eguna: **Otsailak** 4a. Berria - Kultura

Otsailak 20, Euskaldunon Egunkaria itxi zuteneko eguna, memorian gordetzeko eguna. Berria - Euskal Herria

6 (-ko atzikiarekin egunak-edo markatzeko)

Otsaileko lehenbiziko igandean, Migel Mailu eta haren ala-ba Katalina, eliza berriko kide egin ziren Garrüzeko kaperan. Aingeru Epaltza

7 (hitz elkartuetan)

Aurtengo **Otsail** Ostegunek aitzinekoen pareko arrakasta eta maila erakutsi dute. Herria

Aurresku xapelgoa egin da Ordizian, **otsail** hastapen huntan. Herria

Orduan esandakoa berretsi egin zuen **otsail** hasieran. Berria - Gaiak

Lau urtez behin beste egun bat gehiago ematen diogu **otsail** bukaeran, galdu ditugun oren eta minutuak berreskuratzeko. Pello Salaburu

Lehenbiziko negoziaketak bururatu ditu Postak Hiriburuko kantonamenduko hautetsiek **otsail** ondarrean. Herria

Otsail azkenean denak lanean ezarri gintuzten. Marzel Etxehandi

Gasteiztarrek Superligako finalerdiak jokatu dituzte, **otsail** erdi aldera, **Otsail** azken arte, lanxkila batzuk baizik ez nituen egiteko, baina laster denentzat izan zen lan. Berria - Kirola

Otsail erditsu hortan, 55 herritar elgarretaratu dira Noblianean, parropiak gomiturik, bazkari on baten gozatzeko. Herria

Otsail -Martxoetan zuri-beltzez egindako lehenbiziko margolanek barne-bulkada bortizak adierazten zituzten: amorrua, beldurra, etsipena, aztoramena. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

otsail aldera (4); **otsail** hasieran (5); **otsail** hotz (3); **otsail** ondar (3); **otsail** ostegunak (25); **otsail** ostegunean (4); **otsail** osteguneko mintzaldiaren (3); **otsail** ostegunen (3); **otsail** tikiara (5); **otsail** tikiarik (3); **otsail** tikiaren (4)

otsaila amaitu (4); **otsaila** arte (14); **otsaila** bitartean (9); **otsaila** eta martxoa (5); **otsaila** zen (3); **urtarrila** eta **otsaila** (3)

aurtengo **otsailaren** (7); **datorren** **otsailaren** (30); **datorren** **urteko** **otsailaren** (3); **heldu** **den** **otsailaren** (16); **helduden** **otsailaren** (10); **iazko** **otsailaren** (27); **iragan** **otsailaren** (25); **joan** **den** **otsailaren** (52); **joan** **zen** **otsailaren** (6); **joanden** **otsailaren** (3)

otsailaren azken aldera (3); **otsailaren** batean (3); **otsailaren** bigarren (5); **otsailaren** bukaera (6); **otsailaren** bukaera aldera (3); **otsailaren** bukaeran (8); **otsailaren** erdialdean (4); **otsailaren** hasieran (19); **otsailaren** lehen (5); **otsailaren** lehena (8); **otsailaren** lehenean (13); **otsailaren** leheneko (5)

pasa **den** **otsailaren** (3)

otsailaz geroztik (12)

aurtengo **otsailean** (10); **datorren** **otsailean** (6); **datorren** **urteko** **otsailean** (6); **egin** **du** **otsailean** (3); **hasi** **zitu** **zuten** **otsailean** (3); **heldu** **den** **otsailean** (3); **helduden** **otsailean** (7); **iazko** **otsailean** (25); **iragan** **otsailean** (18); **iragan** **urteko** **otsailean** (3); **joan** **den** **otsailean** (38); **joan** **zen** **otsailean** (8); **joanden** **otsailean** (4)

otsailean argitaratu (4); **otsailean** atxilotu (3); **otsailean** bertan (4); **otsailean** bilbon (3); **otsailean** egin (7); **otsailean** egindako (4); **otsailean** egingo (6); **otsailean** eta martxoan (5); **otsailean** gertatu (3); **otsailean** hasi (22); **otsailean** hasi ziren (7); **otsailean** hasiko da (6); **otsailean** hil zen (4); **otsailean** izan (8); **otsailean** izan zen (4); **otsailean** izango (3); **otsailean** onartu (9); **otsailean** onartu zuen (5); **otsailean** onartutako (3); **urtarrilean** eta **otsailean** (10)

otsaileko azken asteburuan (3); **otsaileko** bozetan (3); **otsaileko** datua (4); **otsaileko** egun (5); **urtarrileko** eta **otsaileko** (3)

otsailera arte (12); **otsailera** bitartean (4)

iazko **otsailetik** (6); **otsailetik** aurrera (13); **otsailetik** maiztera (3)

otsailto iz adkor otsaila. ik otsaitxo.

Hemendik izurtera abiada dezentekoa hartzen du eguzkiak: **otsailto** laxterra amaitzerakoan, 48 minutu goizetik, eta ordubete eta laurden pasa arratsetik irabaziak izango

ditu. [Pello Zabala](#)
Garizuma bustitik abiatzen zenean, lehen ere bustian zebiltzalako [otsailto](#) tikiaren egunak. [Pello Zabala](#)

otsailtxo *iz adkor* otsaila. ik [otsailto](#).

[Otsailtxo](#) tikiaren petralkeriak. [Pello Zabala](#)
Errepasa dezagun [otsailtxo](#) firili-faraillero horren kokxa guztien nondik norakoa. [Pello Zabala](#)

otsalizar *iz gurbeondo mota, ale gorriak ematen dituena*(*Sorbus aucuparia*).

Zuhaitz honi zenbait bailaratan [otsalizar](#) ere deitzen zaio: otsailak duen aurrizki berbera. [Pello Zabala](#)

otsan ik [otzan](#).

otsandu ik [otzandu](#).

otsein 1 *iz morroia*.

Leihoak zabaltzera etorri zenean aurkitu zuen [otseinak](#) sir John hila. [Josu Zabaleta](#)
Whittaker andrearen etxea ahizparena baino askoz handiagoa zen, eta hiru [otsein](#) zituen. [Mirentxu Larrañaga](#)
Aurrerantzean ez zen izango inolako lanposturik amarentzat goian, Etxandian, ez baitzen ezein damarik [otsein](#) baten beharrean. [Mirentxu Larrañaga](#)
Jardunok guztiok, bai, harriduraz eta isiltasunean entzuten zituzten maiorraren [otseinek](#). [Juan Garzia](#)
Etxeko [otseinak](#) ahaztuak nituen! [Josu Zabaleta](#)
Ukuiluko argizulotik burua aterata, gazteluko [otsein](#) bat barrezka ari zai. [Itziar Otegi](#)
[Otsein](#) duin mutu batek egongela eder, ilun samar, bildu, gozo baterako atea zabaldu zidan. [Josu Zabaleta](#)
Mundu guztiak bazekien, aspaldidanik, erizain tituludunak setatsu tematzen zirela [otseinak](#) bezala trata ez zituzten. [Mirentxu Larrañaga](#)
Izan ere, akats bat baitut, ongiagi tratatzen ditudala [otseinak](#). [Mirentxu Larrañaga](#)
Kotoi arraiatzeko jaka zeraman [otseinak](#) (polizia, zalantzarik gabe, edo, adina kontuan hartuta, agian polizia ohia) liburutegi handi eta ordenatu batera sarrarazi zuen. [Jon Alonso](#)

2 (hitz elkartuetan)

Nire emaztearen dama-[otseina](#) kaleratu berri dugu. [Mirentxu Larrañaga](#)

otseinburu (*corpusean otsein-buru soilik*) *iz* otseinen burua.

Bazuen dukeak otsein bat, [otsein](#) -burua, irrizale lotsagabea zena. [Patxi Ezkiaga](#)
Eskuarki, zera izan ohi da, [otsein](#) -burua zurrutean harrapatu bide duela. [Mirentxu Larrañaga](#)

otseme *iz* otso emea.

Estepako [otsemearen](#) orroaren deiak bihotza erdibitu zion. [Itxaro Borda](#)
Emakumearen patua zakurremea bezelakoa izatea da, edo [otsemea](#) bezalakoa, hots, hartaz gozatu nahi duten guztiena izatea. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

otserbatu ik [obserbatu](#).

otserbatzaile ik [obserbatzaile](#).

otserri *iz* otsoak bizi diren eremua.

(Antzinako) herri askorentzat jende arrotza, estreina, arerioa da ("atzerri, [otserri"](#)), edo gutxienez -hala greko eta erromatarrentzat- barbaroa. [Askoren artean](#)
Zeren neure etxea izan baitut atzerri, neure etxea [otserri](#), eta zeren zaldia atarian baitut, eta orain berean eginen dut alde! [Joan Mari Irigoien](#)
· Halaber, gerra guztiek beren goseteak dituzte, beren urkiditarrak beren gudariak beren [otserriko](#) berriemaileak. [Lutxo Egia](#)

otso 1 *iz* ugaztun haragijalea, txakurraren antzekoa, mutur-zorrotza eta belarri-zuta, ilea gris iluna eta isatsa luzea dituena, oso jatuna (*Canis lupus*).

Bizkaian, adituek diotenez, hamabost [otso](#) besterik ez daude. [Gotzon Garate](#)
Askotan itotzaileak ez dira [otsoak](#), zakur basatiak baizik. [Gotzon Garate](#)
Hara, ardiak [otso](#) artera bezala bidaltzen zaituztet. [Elizen arteko biblia](#)
Batere neurritasunik gabe, [otsoa](#) ardiatara bezala joan zen. [Askoren artean](#)
Artaldeak zaintzeko mastin zakurrak ipintzea omen da biderik onena, [otsoei](#) jazartzeko gauza direlako. [Gotzon Garate](#)
Begiak [otso](#) batenak bezain zuriak iluntasunean. [Xabier Montoia](#)
[Otso](#) guztiek horzkada amorratua duten bezala eta bele guztiek atzaparra, sugedorri guztiek dute pozoi hilgarria. [Anjel Lertxundi](#)
Infernuko sua [otsoaren](#) amorrua baino beldurgarriagoa zela. [Askoren artean](#)
[Otsoari](#) odola ez zaiola inporta esatea bezala da hori. [Ander Irizar](#)
Ontziaren bularrak ebakitako uren marmarra entzuten zen [otsoen](#) uhuriekien nahasirik. [Karlos Zabala](#)
Muga zeharkatzeko laguntza non emango zioten adierazi zion maisu traidoreak, baina, zer egingo, eta [otsoaren](#) ahora bidali zuzen-zuzenean, faxista baten etxera. [Juan Kruz Igerabide](#)

Otso baten gisan tratatu zuten. Karlos Zabala

Bavariako nekazari batzuek, gau batez **otso** bat harrapatu zutelarik, zutoin batean lotu zuten isatsetik, eta ohera joan ziren. Xabier Olarra

Gizona **otso** da gizonarentzat. Esteban Antxustegi

Gizakia gizakiarentzat **otso**. Askoren artean

Neure bulegoan kuzkurtuta geratzen naiz, kalterik egiten ez duen **otso** bihurtuta, eta ilargia beheratu arte egoten naiz zain. Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Gau batean mendietatik ehunka eta milaka lagun jaitsi zirela **otso** basatien gisara. Fernando Rey

Inguruan **otso** basatiak eta lehoiak zeuden, guztiak belar-ur kaltegarriak sorgindutako gizakiak. Juan Kruz Igerabide

Otso basak ardi malto bilakarazi nahiz. Filipe Bidart

Begiak zabal-zabalik generamatzen, harrapakin baten atzetik lasterka doan **otso** gosetiek bezala. Juan Kruz Igerabide

Badakit, ni joatean, artaldeari barkatuko ez dioten **otso** amorratuak sartuko direla zuen artera. Elizen arteko biblia

Bildots itxurako **otso** harrapariak Orain oinatza, beste batean **otso** zaurituaren odola, halakoan otsoaren silueta arratsean... J.M. Olaizola "Txiliku"

Nengoen puntuan nengoela, **otso** gose sabel-uzkur bat bainintzen. Joan Mari Irigoien

Bilau pausora baino ez zegoenean ikusi nuen **otso** beltza, letaginak agerian, begiak nigan iltzatuak. Jon Maia

Otso erraldoi bat aipatzen zen, ile gris, ia zurikoa, dagoeneko bi haur jana. Josu Zabaleta

Beldur berezi bat, ilunpearen beldurra, baso mortuaren beldurra, eta mendeku hartzeko anaia hil berri zion **otso** amesgaiztozkoaren beldurra. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Otso handi bat erakutsi du **otso** -multzoaren artean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta **otso** -talde batek adina ume izan ditzala... Fernando Rey

Leihotik begiratu eta **otso** talde bat ikusten dudanean estepa izoztuan lasterka, haietako bat zarela bururatzen zait, eta nigana zatozela aldi hartan etorri zinen bezalaxe.

Bernardo Atxaga

Otso -saldo bat orpoz orpo duela. Anjel Lertxundi

Ardia **otso** larruz jantzia. Koro Navarro

Otso -begiz so egiten zioten topaketari. Aingeru Epaltza

Zerua, **otso** -ahoa balitz bezala, beltza eta itxia ageri zen. Felipe Juaristi

Hargatik bideetako kontrolak ikustean, hegiatarik **otso** urratsean bazebilen. Itxaro Borda

Otso -ulutzat jo duzuna datorkizue urrundik. Xabier Montoia

Hil-hurran lebilkeen **otso** -uhuruz aritzea ez zen hargatik Edmearen trakako emazte baten egin-moldea. Itxaro Borda

Giza aberearen **otso** -izaera. Askoren artean

Etorriko dira itsaso luzeetan galtzen diren hareazko bazterretatik, kez beteriko txaboletatik, lur landerretatik, **otso** -oihan sakonetatik. Juan Garzia

· **Otso** harrapari taldeek sarraski handiak egiten zituzten, ez abereetan bakarrik, baita gizakietan ere. Askoren artean

· **Otso** jendearen aztarnak orain bi milioi bat urte suma litezke bai Sartaldeko Asian, bai Afrikan [...]. Gotzon Garate

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo edo izenlagun balioa duela)

Edabe **otso** -hiltzailea aurkitu aurretik, ordea, benetako munstro bihurtzen nintzen hilean behin. Iñaki Mendiguren

Arnas estuka, **otso** pausuka, neskaren logelara jo zuen. Felipe Juaristi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estepa- **otso** sentitu izan duzu, maiz, zeure burua... Ana Urkiza

6 irud/hed

Agian **otso** bat edukiko genuke ardilarruaren azpian, zinezko erreakzionario bat. Bernardo Atxaga

Bere barruko **otsoa** ezkutatu, eta turista xalo eta maitagarrienaren irribarre baboa agertu. Fernando Morillo

Estatubatuarrei esaten zaie Kerry hautagaia aukeratz gero AEBek «**otso** terroristak» izango dituztela etxe atarian. Berria - Mundua

Arratsaldea iritsi zen eta **otsoa** zulotik atera zen, ni zelatan zer ari ote zen, eta hura bizarra egiten. Pello Lizarralde

Johnek ez zeukan lagunik, Michaellek gauetz zituen lagunak, Wendyk gurasorik gabeko **otso** bat zuen. Julen Gabiria

Badakizu nolakoak diren haurrak, etxean **otso** eta kalean uso, pasako zai, emakumea. Eider Rodriguez

Kalean uso, etxean **otso** dabilta ordea. Berria - Ekonomia

Kanpoan uso eta etxean **otso** da, antza, hitza. Joxerra Garzia

Ordea hemen, **otsoaren** haginkadak banaka batzuek bakarrik nozitzen dituzte, hiltzen direnek, edo zaurituek edo espetxeratuak diren horiek. Bernardo Atxaga

6 itsas otso ik itsas otso.

7 otso-belar

Otso-belarraren lekak lehertu egiten dira astindu txikienaz, hots arin bat sortuz... Felipe Juaristi

Eta **otso-belarraren** lekak txistu joka ari dira, aleak atabal joka Felipe Juaristi

7 otso eme ik otseme.

Borrokan jarraitu nuen, hatz bat gutxiagorekin, etsi gabe, aizkorakada batean **otso eme** hari burua lepotik zintzilik utzi nion arte. Jon Maia

Tasmaniako azken **otso** emearen urgentziazko aterpea. Itxaro Borda

Graxi aldiz, hiltzea usnatuko zukeen kabala errabiatuaren maneran zebilen: zanpa-auhen luzeko zakur, zurrunga xehe eta entzunezineko erle, bakardadea deitoratzen zuen

otso-eme. Itxaro Borda

8 otso-gizon gizotsoa.

Ailegatzen zitzaizkien **otso-gizonaren** konbate amorratuaren oihartzunak. Pablo Sastre

Ibiliko ziren, ikusi ez banituen ere, ziklopeak, lamiak, basiliskoak, herensugeak, banpiroak, **otso-gizonak**, anakondak eta krokodiloak. Joxean Sagatzizabal

Hori dio albisteak, banpiroak eta lobizonak edo **otso-gizonak** nahastuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

9 otso txakur (corpusean otso zakur eta otsozakur soilik)

Klase askotako zakurrak ziren gainera: zakur handiak, azeri zakurrak, erbizakurrak, **otsozakurrak**, eta XVII. mendean oraindik auzi harekin teman zebiltzan Brabantekoak.

Patziku Perurena

Otso zakurrari ere grina gaizto hori itsatsi zitzaion. Gotzon Garate

Berangon, nire lagun batzuen landetxean, **otso zakur** handia dago. Gotzon Garate

Otso zakur gosepasatua bezalaxe. Anton Garikano

Lehenagotik bazuten etxean **otso zakurra**. Gotzon Garate

Ez zen izan elikoptero tarrantarik ez eta etxerako bidexkan **otso-zakur** ihausirik. Michel Oronoz

9 irud/hed

Emakumeak ez omen din noskixago ere, ez sukaldetik ateratzeko deretxorik, ez kalean musuka aritzekorik, ez larunbatetan porai desgaria ibiltzregorik..., denak holaxekoak

bota zizkinan, **otsozakur** zar horrek, mende hasieran bageunde bezala Patziku Perurena

10 otso zulo (corpusean otso zilo soilik) ik otsotegi.

Niz zerekin bainan baxian zozoak baitzakiten basa ihizi baxian atzemaiteko **otso ziloak** egiten otsoak tranpan atzemaiteko besteak beste. **Herria**
Oro har, itxuren kontra, artalde ingurumen hartan, **otso ziloa** zen, errana izan den bezala. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardiak otso artera (4); **etxean otso** (12)

otso artera bezala (5); **otso beltza** (5); **otso bihurtu** (5); **otso festa** (3); **otso grisak** (3); **otso handi** (4); **otso harrapari taldeek** (3); **otso izan** (3); **otso potoloa** (3); **otso talde** (10); **otso zakur** (9)

anaia otsoa (7); **ardi artean otsoa** (6); **hartza eta otsoa** (3); **otsoa aipatu** (4); **otsoa artaldean** (3); **otsoa ikusi** (3); **otsoa ikustea** (3)

otsoki *iz* otso haragia.

Otsok ez dute inoiz **otsokirik** jaten. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

otsoko *iz* otsokumea.

-Otso bat **otsokoekin**. **Julen Gabiria**

Bazuen Arginberriko nagusiak txakur gisa hazi eraginda **otsoko** gorri eder bat, azeri kolore distiratsua eta ilajez harro askoa. **Anjel Lertxundi**

Otsoko hori haziko zaik eta berezko grina gaiztoa piztuko zaiok eta ezbeharren bat gertatuko zaiguk. **Anjel Lertxundi**

Iraultzaile hitza zikinegi zegoela ulertzeko, ez zen azkarra izan behar, eta hain zikin egoten segitzen du, non iraultzen zapaltzaile izan direnak iraultzaile diren, **otsoko** bildots.

Iñigo Aranbarri

otsokume *iz* otsoaren umea.

Otsoen etzalekuen berri dakiten artzainak badira gure mendi hauetan, janari bila otsoa noiz irteten den kanpora kontuan isiltxorik egon, eta **otsokumeak** zortzina eta hamarna habian dauden tokietatik harturik beren etxeetara ekarri izan dituztenak. **Anjel Lertxundi**

Batez ere maiatzetik uztaila arte egiten ditu eraso eta kalteak, hilabete horietan **otsokumeak** beren gisa oldartzen. **Gotzon Garate**

Batez ere maiatzetik uztaila arte egiten ditu eraso eta kalteak, hilabete horietan **otsokumeak** beren gisa oldartzen. **Gotzon Garate**

Baso itxian nembilela, **otsokume** baten negarrak entzun nituen. **Jon Maia**

otsolahar *iz* basa arrosa mota.

Ebaki handi baten sakaila zeukan belauaren gibeletik goiti, **otsolaharra** makilan iduri. **Koldo Izagirre**

otsolapar *iz* basa arrosa mota.

Otsok jan ote zuten, bada, bere txerria? Berak behintzat basoko **otsolaparretan** harramazka ederrak bildu zituen ilun hartan. **Pablo Sastre**

otsotasun *iz* otsoa izateko nolakotasuna.

Esan behar dut harrigarria egin zaidala beti filosofia politikoak aipatzea behin eta berriro Thomas Hobbesen esaldia, gure **otsotasunari** buruzkoa, eta ahaztea gure buruzagiei men egiteko dugun jarrera, haiei ezarritz, gainera, botere magiko eta naturaz gaindikoa. **Esteban Antxustegi**

otsotegi *iz* otso zuloa. • *irud/hed*

Bildots ergel bat bezala sartua nintzen **otsotegian**. **Aingeru Epaltza**

Togasekin eleketan ari zen bulegoan, eta ez nuen neurez **otsotegian** sartzeko inolako asmorik. **Aingeru Epaltza**

Berrogei lerroko albistea gisan erredaktatzen lanak, eta nik **otsotegira** bidali nahi. **Aingeru Epaltza**

otsotu, otso(tu), otsotzen da/du *ad* otso bihurtu.

Behin begi urdineko otso zuriak oihan beltz eta basamortu biluzietan, otso abiaduran **otsoturik**, elurrez estali eremuak eta larraitza abandonatuetan barna ibili nintzela agertu nien, neure molekula arteko izate totemikoaren bila. **Itxaro Borda**

otsotzar (*orobat otso tzar*) *iz* adkor otso handia.

Badaki berorrek **otsotzar** gaizgileak, basoak ugariago ziren denbora haietan hainbat ez bada ere, ardi jabeak nahi baino gehiago agertzen direla Gipuzkoako mendietan. **Anjel Lertxundi**

San Frantzisko Gubbio hirian bizi zen garaian, **otsotzar** izugarri eta anker bat agertu zen Gubbioko konderrian. **Askoren artean**

Otso tzar baten ahoak irentsiko banindu bezala. **Juan Kruz Igerabide**

otsozakur ik **otso 9**.

ottarre *iz* adkor otarrea.

Aurten komunione ttipia egin duten haurrak beren **ottarre** eta arrosekin. **Herria**

Zeremonia eder hortan kausitzen ziren aurten lehen komunionea egin duten haur ttipiak, denak xuritan eta beren lore **ottarreekin**. **Herria**

otu, otu, otutzen 1 zaio *ad* bururatu.

Sarritan **otu** zitaidan ideia xelebre hura. **Aritz Gorrotxategi**

Ideiarik onenak ispilu aurrean **otutzen** zaizkio honi ere, niri bezala, egiten du Gabinek bere artean. **Iñaki Iñurrieta**

Ez zitzaion ateraldi burutsurik **otutzen** aparailu hartatik esateko, ezpada: "Hozten ari du kanpoaldea", edota, "Ez daukazu itxura txarrik!" oihukatzea baino. **Mirentxu**

Larrañaga

Galdera bat-batean **otu** zitzaidan, eskuak patriketan eta alkandora-iduna gorantz altxatuta hantxe egonean geundela, kabinara igo aurretixe. **Joxe Austin Arrieta**

Ukaziook berrirakurri eta hona zer **otu** zaidan: [...]. **Juan Garzia**

Ez zitzaidan esaldi harroagorik **otu**. **Iñigo Aranbarri**

Horretarako bide bat **otu** zitzaion: arrebarekin ezkontzea. **Gotzon Garate**

Balada baten hasiera **otu** zitzaion orduan: *Leiho beltz bat zenuen, leiho beltzari emana, Isabelle*. **Harkaitz Cano**

"Hemen kontatzen dena gaurko egunera ekartzan badut", **otu** zitzaidan, "inork ez antzemateko moduan geratuko da ipuina. **Bernardo Atxaga**

"Karlitzak berritri inguruan ote?", **otu** zitzaidan. **Txillardegi**

Ez dakit zergatik **otu** zaidan goiko hori, baina horrelaxe idatzi dut kaineran. **Edorta Jimenez**

Josebari ez zitzaion beste azalpenik **otu**. **Iban Zaldua**

Berehala, ordea, Albertoren adar jotzeren bat **otu** zitzaion. **Joxemari Urteaga**

Entzungo du aurkariarena eta gero biekin (lehen pentsatuarekin eta bat-batean **otutarekin**) osatuko du bertsoa, hasieran erantzun moduko bat txertatuz eta bukaeran lehen pentsaturik zeukana sartuz. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (mendeko esaldi batekin)

Hasieran, putreak izan zitezkeela **otu** zitzaion, baina ezinezkoa zen, harrabots hura kaioena baino ezin zitekeen izan. **Aritz Gorrotxategi**

Otu zitzaidan soldaduek nonbait tresna horren bidez helarazten zituztela aginduak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Bat-batean **otu** zitzaion Ruche jaunari ardoz blaitutako lurraren gainean eraiki zutela arabiar munduarentzako institutua. **Jon Muñoz**

Martinen misterioa hain zen niretzat iluna, espioia ote zen ere **otu** zitzaidan. **Edorta Jimenez**

Sukar ustela zitekeenik, ezta **otu** ere; ez, behintzat, Mihurubikoaren kasuan. **Edorta Jimenez**

Arratsalde goibel eta ilun honetan **otu** zait lerro hauek idazten hastea, leihoak ematen didan zeharkako argiaz baliaturik. **Pello Salaburu**

Halatan, behin dei horiek guztiak biltzea **otu** zitzaidan, irakurriak nituen liburuetako aipuak fitxetan jasotzea. **Iñaki Iñurrieta**

Sinetsita zegoen mundu guztiak arreata biziz entzuten ziola ateraldi bat botatzea **otutzen** zitzaionean. **Anton Garikano**

Zorigaitztoan **otu** zitzaion amore ematea! **Migel Angel Mintegi**

Beste bi garagardo joan ziren beste taberna batera mugitzea **otu** zitzaionerako. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat batean otu (5); **behar zuela otu** (9); **deitzea otu** (5); **egitea otu** (13); **egitea otu zitzaidan** (4); **ematea otu** (3); **esatea otu zitzaion** (3); **eskatzeta otu** (3); **halaxe otu zitzaidan** (3); **ideia bat otu** (3); **izan zitezkeela otu** (10); **izan zitezkeela otu** (3); **joatea otu** (3); **nola otu** (3); **nori otu** (3); **orduan otu** (7); **orduan otu zitzaidan** (4); **ote zen otu** (8)

otu baitzitzaidan (3); **otu zaidan** (6); **otu zaio** (20); **otu zait** (25); **otu zaizu** (5); **otu zitzaidan** (121); **otu zitzaidan orduan** (3); **otu zitzaion** (13); **otu zitzaion** (138); **otu zitzaion gabini** (3); **otu zitzaizkion** (3); **otu zitzaizun** (3)

zer otu zaidan (3); **zerbait otu** (3)

otuko balitzaio ere (3)

otutzen zaio (7); **otutzen zait** (8)

oturantz ik oturuntza.

oturuntza (orobat oturantza g.er., oturuntza g.er eta otruntza g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren oturuntza agertzen da) 1 iz otordu oparo eta bikaina; otordua. ik bankete.

Ez da izango **oturuntza** bat Redinek hotelean izango duena bezalakoa, baina janari garbiagoa izango da. **Bernardo Atxaga**

Ez zuen behin ere huts egiten, ez **oturuntzarik**, ez ospakizunik, ez festarik. **Fernando Rey**

Laurogeita hamar lagunentzako **oturuntza**. **Anton Garikano**

Erregea, haserre bizian, **oturuntzatik** jaiki eta jauregiko lorategira irten zen. **Jose Antonio Mujika**

Zapore baten deiarekin piztu eta neurritz gainera **oturuntza** baten jan behar larrian amatatzen diren oroitzapenak. **Pako Aristi**

Telemakok **oturuntza** bat eskaini zion Atenea mozorrotuari, eta baita han zeuden ezkongai guztiei ere. **Juan Kruz Igerabide**

Donostiako Orfeoia [...] pozaren pozez hartu zuen Usandizaga, eta **oturuntza** bat eskaini zioten Maria Cristina Hotelean. **Askoren artean**

Begira zer **oturuntzak** egiten zituzten lehengo garaietan hiletta egunean. **Bernardo Atxaga**

Meduseld jauregia sagaratzeko Bregok eman zuen **oturuntzan**, ardoz betetako adarra husten zuen bitartean zin ausarta egin zian Baldorrek. **Agustin Otsa**

Ardo askoko **oturuntzetan**, ez agiraka egin lagun hurkoari, ez mesprezatu alai samar dagoenean. **Elizen arteko biblia**

Hala, bada, joan ziren Aman eta biak Esterrek prestatua zuen **oturuntzara**. **Jose Antonio Mujika**

Ez al duk aski handikien **oturuntzan** egotearrekin, denetik janez eta gure hitzak entzunez? **Oturuntza** dialogoan [...] hauxe dio Platonek -hobeki erraiteko Sokratesek-,

Arimak Edertasuna ikusten duelarik, egiazko Bertutea aurkitzen du, zeren ber denboran Egia bera baitu erdietsi. **Juan Kruz Igerabide**

Merethronden, **Oturuntzen** Areto Handian, mahaian eseri zirenean, [...]. **Agustin Otsa**

Ohi denez, liskarra piztu zen **oturuntzaren** ondoren. **Jose Morales**

Errubi harria urrezko bitxian bezala da musika **oturuntzan**. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Prokuradoreak berera gonbidatu zuen bazkari-legea egitera, eta bazkari-legea **oturuntza** handi baten parekoa izan zen. **Jose Morales**

Hiletak amaiturik, [...] jendea Urrezko Jauregiaren ondoan bildu zen **oturuntza** handia eginez tristura baztertzeke. **Agustin Otsa**

Oturuntza bikaina izan zen. **Karlos Zabala**

Altzinook idi bat hil zuen Zeusen ohorez, izterrak erre, eta **oturuntza** eder bat egin zuten. **Juan Kruz Igerabide**

Hobe behartsu-bizitza nork bere teilapean **oturuntza** ederrak inorenean baino. **Elizen arteko biblia**

Baina ezin esan **oturuntza** ganorazkoa denik... **Luis Elberdin**

Hango asaldu hura guztia... gero eta giro beroagoa... horientzat bete-beteko **oturuntza**! **Iñaki Mendiguren**

Han, sekulako **oturuntza** eskaini zien. **Martin Anso**

Berealdiko **oturuntza** prestatu zuten bazkaritarako. **Patxi Zubizarreta**

Itxaron ezak opari ederrak ekarri eta **oturuntza** gozo bat egin arte. **Juan Kruz Igerabide**

Taberna baterantz abiatu ginen, **oturuntza** naro baten egiteko asmotan. **Joan Mari Irigoien**

Dena saldutakoan, **oturuntza** txiki bat eskaini zieten Ust Sisolsk herriko merkatari lagunei. **Jose Morales**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erregealdiko hirugarren urtean, **oturuntza**-jai handia eman zien Asuerok bere agintari guztiei. **Jose Antonio Mujika**

Egun horiek bete eta gero, zazpi eguneko **oturuntza**-jaia eman zien erregeak Susako hiritar guztiei. **Jose Antonio Mujika**

Ur azpitik agertu zen **oturuntza** mahaia, ur gainetik zihonan ziklista, arraun-ohet erraldoia... betiko geratuko dira askoren oroimenean. **Berria - Kultura**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emaztea, ordea, negar eta negar aritu zitzaion eztei: **oturuntzako** zazpi egunetan. **Jose Antonio Mujika**

Eztei, komunioi edo bataiatze **oturuntzetan**. **Berria - Harian**

Luxuaren eraldaketen artean ezagutu zituen haien azturak; jai- **oturuntzetako** solas adeitsuen artean ezagutu zituen haien ideiak eta haien hizkuntza. **Juan Garzia**

-Hau Théoden Erregearen hileta- **oturuntza** da. **Agustin Otsoa**

Gero, biribilean eseri ginen hilobiaren inguruan eta hileta- **oturuntza** izan genuen, masusta-jana. **Mirentxu Larrañaga**

5 irud/hed

Merkatu nagusiko itzal zulo guzti-guztietan eginak zituzten beren maitemindu **oturuntza** samurrak. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

oturuntza bat eskaini (3); **oturuntza eder bat** (3); **oturuntza eskaini** (4); **oturuntza handi** (5); **oturuntza izan** (3)

oturuntzak egiten (4)

oturuntzaren ondoren (3)

otxan ik otzan.

otxandiar *izlag/iz* Otxandiokoa, Otxandiori dagokiona; Otxandioko biztanlea.

Carmelo Bernaola (1929-2002) musikagile **otxandiarraren** liburua aurkeztu berri du Jose Luis Garcia del Busto musikologo eta kritikariak. **Berria - Kultura**

la ehun urte lehenago kantatu zituen Felipe Arrese Beitia **otxandiarrak** "Ama Euskeriari azken agurrak". **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaszte Literatura Saria aldiz Xabier Olaso 41 urteko **otxandiarrari** joan zaio, "Pupuan trapua" olerki bildumarentzat. **Herria**

otxandu ik otzandu.

otxar *iz* belar landarea, tintatze lanetan erabiltzen den gai gorri bat duena sustraietan (*Rubia tinctorum*)

Kreta **otxarraren** sustraiekin eta eskarlatarekin nahastuz ere egiten dira purpurazko koloreak; loreekin egiten dira beste hainbat kolore ere. **Santiago Iruretagoiena**

otxokuarto *iz* gainerako gauza hutsala.

Axis mundi eta *onfalos* eta **otxokuartoak**, pikutara dena, ez dik zuri bat balio. Barkazioak eta **otxokuartoak**. **Iñaki Iñurrieta**

Eta nola ni, euskaldunak ikusten nituenean, bueltak eta **otxokuartoak** utzi eta zuzenean joaten nintzen haienganaino, bueltaka eta parean egokitutakoan bakarrik hitz eginez konbertsazio naturalik izango duenik ez dagoelako. **Arantxa Iturbe**

otxote 1 *iz* zortzikotea.

Aurpegiera okerrekin begirutzen zioten agureak baino ez zebiltzan tabernetan, agure txapeldunak, zutik eta geld, **otxote** bat kantatzear dagoenean bezala. **Unai Iturriaga**

Larunbatean eta igandean, *Lurra* **otxotearen** kontzertuak, lehena Hazparneko elizan aratseko 9ak eta erdietan, bigarrena Donapaleuko elizan, igande aratsaldean, 5 orenetan. **Herria**

Ahoz amikuztar **otxotea**. **Herria**

Ondoren herriko kaleetan barna Biasteriko Banda, Abesbatza, gaita jotzaileak, *Ozenki* **Otxotea**, *Ereintza* Dantza Taldea eta beste hainbat talde eta bakarlarik ariko dira.

Berria - Kultura

Ortzegun aratsean, Baigorriko elizan, kontzertua Ukrainiako **otxote** batekin. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Ortizalean eta larunbatean, Baionan, Santandres elizan, **otxote** edo zortzikote festibala. **Herria**

otzan (*orobat otzan g.er. eta otsan g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian otzan agertzen da*) 1 *izond* muzindu gabe eta baretasunez aritzen dena. ik mantso; amultsu.

Jende leiala, **otzana**, apala eta bihotz onekoa aurkituko duzue. **Askoren artean**

Mutil **otzan** eta esanekoa da, Etxabarriren gustukoa. **Berria - Kirola**

Asko eta asko herritar **otzan** eta esanekoak dira, sistemaren funtzionamenduaz inoiz gogoeta egin ez duten herritar apalak. **Txema Ramirez de la Piscina**

Jende gutxi agertu da klasera; ikasle mantsoak agertu dira bakarrik, pasiboak, **otzanak**. **Oskar Arana**

Dantzakide **otzanak** ditun onenak. **Anjel Lertxundi**

Gobernuak kontseiluan egoteko «sindikatu **otzanak** hobetsi eta kritikoak baztertu» dituela salatu du ELAk. **Berria - Ekonomia**

Lasaia eta **otzana** izandakoa urduri itzuli zen, presatua, ausarti eta berritsua. **Bego Montorio**

Otzanegia edo etorkorregia ez izatearren, beharbada; neure irizpideak banituela erakusteko, alegia. **Ramon Saizarbitoria**

Izaki ankerrenak ere **otzan** bihurtzen ziren harekin. **Askoren artean**

Florentek etsi egin behar izan zuen margolaria jarraitzaile **otzan** bihurtzeko ahaleginean. **Karlos Zabala**

Izan daitezela gozo, baketsu eta eratsu, **otzan** eta apal, denekin oneski hitz eginez, egoki den bezala. **Askoren artean**

Gaixo bakan batzuk, [...] bizitzan poztasun gutxi izateko egoeran zeudenak, **otzan** bihurtu ziren, guztiz apatikoak ez esateagatik. **Irene Aldasoro**

2 (abereak)

Harategira daramaten bildots **otzana** bezala. **Askoren artean**

Bere ehun eta hogei kiloak gorabehera, bildots bat iruditzen zaigu, bildots **otzana**, harakinaren labanari begira dagoena. **Bernardo Atxaga**

Zaldi zuri **otzan** baten gainean zebilen. **Patxi Ezkiaga**

Txakur **otzana** gramolaren aurrean, adi. **Iñigo Aranbarri**

3 (gauzak)

Begi urdin **otzaneko** zerbitzari gaztea. **Anjel Lertxundi**

Lepo leun, **otzan** eta usain gozoko baten eta lepo gogor eta larruazal koipetsuko baten inguruan. **Ibon Uribarri**

Behin eta berriz ukitzen zuen harria bere makila **otzanaz**, zain balego bezala eguna noiz ordenatuko, harkaitzari noiz bideak haziko. **Koro Navarro**

Espagetiak izaki **otzanak** izaten dira normalean. Unai Elorriaga

Errebolberra atera eta, astiro, eskuaz arma **otzan** eta lasaiaren pisua neurtzen ari balitz bezala, neskarri eman zion. Jose Morales

-Emana da -erantzun zuen jeneralak, tonu **otzan** eta esanekoan. Xabier Olarra

Umezurtzaren begirada **otzanak** Graxi mututurik utzi zuen. Elena Touyaru

Lehenengo erreazioak bortitzak dira, baina ondoren erreazio **"otzanak"** etortzen dira. Iñaki Mendiguren

Errusiar herriaren ohiko izaera etsipen **otzana** zen, amerikar herriarena urduritasun zalapartatsua. Iñaki Mendiguren

Bere jarrera **otzan** eta isil horren atzean beste izaera bat aurkitu uste izan du. Arantxa Iturbe

Etorbide zabal-zabalak urratu nahi dituzte, eta perspektiba luzeak eraiki, berez-berez sar dadin handik etorkizun **otzana**. Juan Garzia

4 (adizlagun gisa)

Prakak erantzeko esan zidan, eta **otzan-otzan** obeditu nion. Aritz Gorrotxategi

Nire zerraldoaren atzetik lerratuko dira **otzan** eta burumakur. Joxean Agirre

Orduan, Knot jauna **otzan** makurtu zen; baina uko egin zion bere ron-pitxerkadari. Juan Garzia

Emakumea mutu zegoen beraren besoetan, **otzan** eta zoriontsu. Jose Morales

Nola hasten zen galesez deklamatzeko eta nola goratzen zen garaile, basati batzuetan eta **otzan** besteetan. Koro Navarro

Espainiako aurreko gobernuaren aurrean «**otzan** eta ahul» azaldu dela. Berria - Euskal Herria

Aitarenekin uste eta esanak ere besterik gabe eta **otzan** onartzeko. Anjel Lertxundi

Ahalegin umilean setatzen da oraindik, ahots-apal, **otzan**. Iñaki Iñurrieta

Errukarria iruditu omen zitzaion emakumea, hain **otzan** eta mirabe, nik beti bezain doilor segitzen nuen bitartean. Joxean Agirre

Harakinari amore emandako bildotsak bezain **otzan** egokitu ginen maletategian. Aingeru Epaltza

-**Otzan** habil gaur goizean. Zenbat hitz ezti abereentzat, **otzan** eta zuzen aritzen zirenean [...]. Karlos Zabala

Hura ez zen lehengo Henne bera: ardia bezain **otzan** zebilen. Koro Navarro

Azkenik, **otzan** baino otzanago, gizona eskuak eta oinak musukatzen hasi zitzaion, baina emazteak tarteka jo egiten zuen. Patxi Zubizarreta

Deere jauna ez zen **otzanago** ibili; hark ere errudunaren burua eskatu zuen. Nikotinazko txera biriketarako doakio **otzan**. Karlos Linazasoro

5 (hitz elkartuetan)

-AB zati A'B' berdin AC zati A'C', dena barraz josita -erantzun zion Léak, **otzan** itxura eginez. Jon Muñoz

6 *otzan-otzan* adlag

-Mesedez, nor zara? -erregutu nion **otzan-otzan** -. Anjel Lertxundi

Baina guk, nire aberkideok, arrastaka jarraitu behar al dugu, **otzan-otzan**, hede amorragarri horiekin lotuta? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gure amak **otzan-otzan** segitzen zion pauso batzuk atzerago. Fernando Rey

Espiritu Santua jaitsi zen gizonaren gainera eta, zaharra berri egiten duen Espirituaren eraginez, **otzan-otzan** erantzun zion: "Andrea, zerbitza dezagun Jauna eta salba ditzagun geure arimak hemen etxean". Askoren artean

AFP agentziak, **otzan-otzan** onartu zuen guztia. Iñigo Aranbarri

7 (gauzak)

Argia **otzan-otzan** piztu da Mary Stuart goletaren kabina argiztatuz. Lopez de Arana

Eskotea ixten zioten botoiak askatzen hasi zen eta soinekoa kentzen [...] eta **otzan-otzan** agertu ziren bere bularrak nire begien aurrean. Juan Martin Elexpuru

Atzeko martxa jarri eta mugitzen hasten da autoa, **otzan-otzan** obeditzen nau. Mikel Hernandez Abaitua

Handik bost bat minutura, trena **otzan-otzan** sartu zen Dijoneko geltokian. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
otzan eta esaneko (3); **otzan joan zen** (3); **otzan obeditu** (3); **otzan otzan** (33); **zaldi otzan** (4)
bildots otzana (4); **lasaia eta otzana** (3)

otzanarazi, otzanaraz, otzanarazten du *ad* otzantzera behartu.

Orfeok bere txilibituarekin lotarazi zuen, eta Hereklesek ere **otzanarazi** zuen zakur beldurgarri hori. Gotzon Garate

Erakundeek artistak **otzanarazi** egiten dituzte, zeharkako zentsura zuria aplikatuz, edo zuzeneko laguntza kenduz. Berria - Kultura

otzandu, otzan(du), otzantzen (*orobat otzandu g.e.r.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian otzandu agertzen da*) 1 da/du *ad* otzan bihurtu.

Esklaboen artera botatako emakumea ez zen **otzandu**; alderantzizkoa gertatu zen, ordea. Felipe Juaristi

Amak jenio bizia zuen -urteak aurrera, asko **otzandu** da-, eta ni ez naiz isiltzeko jaioa -urteak aurrera, petralagoa naizela esaten dit amak-. Anjel Lertxundi

Otzanduko duk orduan [gizona], txuria zintzurrean ipintzen diodanean! Koldo Izagirre

Egunero esaten zenioten gogor jokatu nahi bazuen bazenekitela jendea **otzantzen**. Koldo Izagirre

Jendeak aulkian eserarazi eta **otzandu** zuen. Mirentxu Larrañaga

Lehengusu iharrak bazuen festa haren berri, baina ez zuen ezer esaten Campione azkarrak jakin baitzuen nola **otzandu**. Pello Lizarralde

Zorionekoa, bere jauna **otzandu** eta egiazko bizira bideratu zuen emakumea! Askoren artean

33 urte ditu, baina urteak ez dute **otzandu** borroka egin behar denean. Berria - Kirola

2 (animaliak)

Pizti bihozgogorra **otzandu** egin zen Askoren artean

3 (gauzak)

Atertu du, **otzandu** da eguraldia eta, laino artetik kukuka hasi eta gero, eguzkia nagusitzen ari da. Anjel Lertxundi

Urdinek bera kargatu zutenean ez zuen amorerik eman, eta pilota baztertzuz Otxandoren indarra **otzandu** zuen. Berria - Kirola

Eneko Karrera Gipuzkoako EHNEKO lehendakariaren arabera, administrazioaren baliabideak kudeatzeko esleipena «EAJren kontrolpeko» Abelur enpresaren esku utzita, aldundiak sektorea «**otzandu**» nahi du. Berria - Ekonomia

Ondorioz, hiriaz kanpoko landa-eremu zabala **otzandu** gabeko lur basatia besterik ez zen. Berria - Kultura

Kapitalismo basati baten nagusitasunaren ifrentzua baizik ez da estatuek ageri duten geldotasuna, Mendebaldeko aldi keynestarraren ezaugarri ziren gizarte-konpromisoek **otzandu** gabeko kapitalismo horrena. Koro Navarro

Hedabide hori **otzantzeko** saiakeratzen hartzen baitu laguntza eskaintza. Berria - Euskal Herria

4 (era burutua izenondo gisa)

Garai bateko harrokeriak apalduta agertu zaigun buruzagi **otzandua**. Zeuk ematen zenidan zeure burua opari, piztia **otzandu** baten gisan, nahieran joka nezan. Iñigo Aranbarri

Oihuxka batzuk egin zituen Adelak, handik gutxira, itotzear zegoen tigre **otzandu** bat iduri. Joan Mari Irigoien

Landare **otzanduak**, etxekotuak, talterik egiterik ez dutenak, hain dira gizenak.

Monika Etxebarria

otzanezin *izond* ezin otzanduzkoa.

Goizaldeko hiruretan etxera ailegatu nintzenezan, etxeko atea txiki-txiki eginda aurkitu nuen, bertatik Mongoliako Khan Handiaren samalda basatiak haien zaldi **otzanezinez** iragan izan balira bezala. **Berria - Kultura**

otzankote *izond* adkor otzana.

Parkean nengoelarik bera baino bost aldiz handiagoko ogi-puska baten garraioan ari zen inurri guztiz heroi prometeiko bati begira, Dostoiievski dontsua hurbildu zait bere ohiko onberatasun **otzankote** horrekin, eta ukalondotik oratu dit: [...] **Anjel Lertxundi**

otzantasun 1 *iz* otzana denaren nolakotasuna.

Harro lotsagabeak **otzantasunera** erakartzeko. **Askoren artean**

Nire **otzantasuna** eta nire lotsa desagertu egin dira. **Anjel Lertxundi**

Pentsa nolako ordena, malgutasun eta **otzantasunez** betetzen dituzten haien aginduak. **Iñaki Mendiguren**

Orobat, tokiz kanpoko **otzantasuna** ez bedi geldotasun bilakatu, ezta gehiegizko onberatasuna diziplinaren utzikeria ere. **Askoren artean**

Saia zaitetz justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, eramanpenean eta **otzantasunean**. **Elizen arteko biblia**

Aita, ez zaitetz **otzantasunez** sartu gau isilean. **Bernardo Atxaga**

Lortzen zena, jakina, ez zen, sekula, "sendatzea", baizik eta **otzantasuna**, pasibotasun-egoera bat, "osasuna" urrunago zeukana abiapuntuko sintoma aktiboak baino.

Xabier Olarra

Mirari harrigarriaren bidez, zaldunaren zitalkeria **otzantasun** bihurtu zuen. **Askoren artean**

Otzantasun ezti hark hunkiturik. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan)

Otzantasun -aire suerte bat, den baino altuago egiten duena. **Anjel Lertxundi**

Horrek guztiak mendekotasun eta **otzantasun** egoera sortzen baitu. **Luis Elberdin**

· Judu bat, Kristoren hiltzailetako bat, zeramatelako gertatzen zela halako haize **otzantasuna**, eta [...] judua itsasora bota ezean, ez zela Jainkoaren haserre atertuko, ez zela haizea oihalelara itzuliko. **Felipe Juaristi**

Kristau-**otzantasunak** erromatar indarraren gain izandako garaipenaren irakaspena. **Iñaki Mendiguren**

otzantze *iz* otzan bihurtzea.

Jokamolde horrek badu piztiak **otzantze** ukitu bat, batere gustatzen ez zaidana. **Jon Muñoz**

otzara 1 *iz* otarrea. ik saski.

Oinez egunero hogeita bostetik gora kilometroko bideak egiten zituen, besoetan **otzara** bana, **otzara** bion artean hirurogei eta hirurogeita hamabost kiloko kargak eroanez.

Edorta Jimenez

Forondako aireportua egiten hasi zirenean, kasualitatez 5.000 txanpon baino gehiago zituen **otzara** aurkitu zuten. **Berria - Kultura**

Krepe-paperezko **otzarak**, menda-zaporeko gozoki trinkoz mukuratu beteak. **Mirentxu Larrañaga**

Saskien, larruzko poltsen, **otzaren** nahaste-borraste hark. **Karlos Zabala**

Astoen bizkarrean **otzaretan** ekartzen zuten, ez dakit nondik. **Juan Garzia**

Goizeko seietan hasten zen benta, arrainak **otzaretan** edo kaxetan. **Joseba Sarrionandia**

Upelak, suilak, pitxerrak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarrigabeak, otarretxoak, saskiak, emakume nekazariak liho-sortak eta bestelako huskeriak eramateko erabiltzen dituzten **otzarak**, lertxun-zur finezko kutxak, urki-azal txirikordatzko ontzi biribilak. **Jose Morales**

Saski luzexkoak eta **otzara** motzak errenkadan jarrita zeuden, oihalez edo lastoz estalirik. **Karlos Zabala**

Gubbioko hiritar batek ere bere semetxo elbarria santuaren hilobira **otzara** handi batean eraman zuen. **Askoren artean**

Otzara handiak zeroatzaten haietako askok, eta jesarrita zeudenen behintzat lanak zituzten hain zer handiak jesarlekuen mugetara ekartzen. **Josu Landa**

Hippy izan zireneko garaietan bere lagunekin egiten zituen gauzak egin ahal izango lituzke berriro: joskintza etnikoa, buztinezko ontzien dekorazio etnikoa, **otzara** etnikoak, turistei saltzeko idunekoa. **Oskar Arana**

Bazkaria **otzaran** sartu eta egun-pasa joaten ziren. **Xabier Montoia**

2 (edukiera neurri gisa) ik otzarakada.

Emakume bat zen, **otzara** bete ogi eder, arrain, izkira-pastel, ezti eta mahats bildu berriak ekarriz. **Koldo Biguri**

3 (hitz elkartuetan)

Nonahi topatzen zuten, enkanteetako bulegoetan, **otzara** piletan, zabor ontzien artean. **Karlos Zabala**

· Patxi, pilota-**otzarak** zeramatzanak, Carusoren alboan jesarrita, bere aulkari sakatuz harengana hurreratu eta harekin kantuan bat egin zuen. **Edorta Jimenez**

Krepe-paperezko 4 gozoki-**otzara**: 0,28 \$\$. **Lopez de Arana**

4 irud/hed

Orduan, txaloen eta algaren ostean zabaldu zen isiltasuna, **otzara** batean inoiz sartu den hustasunik mingarriena izan zen. **Koldo Izagirre**

otzarakada *iz* otzara baten edukia.

Barruan, merkatari jantzitako sei gizon datoz, ingelesei gerezi bildu berrien **otzarakada** batzuk eskaintzera. **Edorta Jimenez**

otzaratxo *iz* otarretxo.

Gurdia bete erosketa darama, berak **otzaratxo** bat baino ez. **Oskar Arana**

oureensear *izlag/iz* Ourenseretako, Ourenseri dagokiona; Ourenseko biztanlea.

Hain zuzen ere, Alexandre Boveda **oureensearra** du ardatz BNG Bloke Nazionalista Galiziarrek Espainian aurkeztutako eskaerak. **Berria - Mundua**

output 1 iz prozesu baten amaiera elementua; datu irteera. ik.

Begiak eta belarriak behar dituzte mutur bakoitzean input-a prestatzeko eta **output** -a interpretatzeko. Irrati transistore baten **output** -a, higuingarria izateko bezain ozena askotan, watt baten [...] azpitik dago. [Irene Aldasoro](#)

Irudian, teoria lanabes gisa itxuratzen da: corpora du sarreran (input), eta gramatika irteeran **output**). [Itziar Laka](#)

Ondoren agindu sinpleak ematen dira, honako honen modukoak: makina S egoeran badago eta I inputa jasotzen badu, orduan O **outputa** emango du eta S' egoerara pasatuko da. [Askoren artean](#)

Garrantzitsua da egoera horrek zer egiten duen jakitea, zein den horren rol kausala sarreraren (input) eta irteeraren **output**) artean, baita gainerako gogo-egoeren sarean ere. [Askoren artean](#)

Quine ez da arduratzen, haatik, **output** kognitibo zabal horiek, eta sortzen dituzten usteak, justifikaturik daudenetz. [Askoren artean](#)

Hala ere, EAE-ren **output** -a positiboa izan da: %30eko igoera. [Berria - Ekonomia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Itxura guztien arabera, argi-bizitasunarekin erlazioaturik dago begiaren sentikortasuna, halako moduz ezen askoz konstanteago mantentzen baita **output** -seinalea argi-inputa baino. [Irene Aldasoro](#)

outsider iz ohiko joeretatik at dagoen pertsona.

Neska madrildar bat zen, izenez Pilar oker ez banago, hippy, pasota eta **outsider** samarra. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ni beti **outsider** -a izaten nintzen bazkari haietan: lehengusuen artean zaharrena, handiegia nintzen txikien jolas inozoetarako, txikiegia handien solas serioetarako. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Ni guztiz sistematik kanpo dagoen idazlea sentitzen naiz, **outsider** totala. [Ana Urkiza](#)

Outsidera izateak zer dakar onetik eta zer txarretik? [Ana Urkiza](#)

Guztiak Zinemaldian ikusiko dira, gaur arte, **outsider** bat izan da. [Berria - Harian](#)

overbooking iz garraibide edo hoteletan, libre dauden baino eserleku edo gela gehiago saltzea.

Egoera horietan bezeroek ezin izaten dute erreserbatutako eserlekuetan bidaiatu eta **overbooking** -a sortzen da. [Berria - Euskal Herria](#)

'**Overbooking**' -aren kontrako araudi berria. [Berria - Harian](#)

Bidaiariak kalte-ordainak jasotzen jarraituko dute '**overbooking**' -agatik. [Berria - Euskal Herria](#)

Overbooking -a dela-eta hegazkina hartu gabe geratzen diren bidaiariak gaur egun ere beren eskubideak dituztela azpimarratu du Koldo Nabaskuen Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkarteko (EKA) kideak. [Berria - Harian](#)

ovni (orobat OVNI) iz objektu hegalaria ezezaguna.

Norbaitek esan balit orduan Domier eta Heinkel hegazkin naziek mila eta bostehun eta gehiago pertsona soil hil zituztela Gernikan, aho zabalik gelditu izango nintzatekeen, **ovni** baten aurrean bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Gau hartan **OVNI** bat pausatu da Ahartzako lepoan. [Michel Oronoz](#)

Literatura, eskoletan, **OVNI** bat baita. [Ana Urkiza](#)

oxala (orobat ojala; Euskaltzaindiaren Hiztegian oxala agertzen da) 1 interj nahia edo itxaropena adierazten duen partikula. (aditz jokatuak ba- baldintza aurrizkia hartzen duela). ik agian.

Oxala ez banu begiratu beharko. [Koro Navarro](#)

Oxala Kristo Gure Jaunak galarazi balit. [Juan Garzia](#)

Eta halaz guztiz, adiskideak, utzidazue digresio pixka bat egiten eta barkatu aspertzen bazaituztet: **ojala** lehengo hauts izpiak bagina gaur! [Matías Múgica](#)

Oxala azken seme honek bere buruarentzat egin ahal balu egin zuena berarentzat eta hiru ume haientzat, Johnnek eta Ellak ekarriak udako gau batean. [Anton Garikano](#)

Ojala egunero astintzen eta hunkitzen nauen jendez inguratua bizi banintz, zenbatez biziagoa eta nobleagoa izanen litzateke nere izpiritua! [Patziku Perurena](#)

2 (bestelakoetan)

Agian eta **oxala** ! bide berriak urratzen diren, harreman hobeak utziz, nahiz ez den hain aise. [Herria](#)

oxalaka adlag 'oxala' esanez.

Haren hitzok hain zuten Hamlet bekaitzez pozoitu, non **oxalaka** bizian ekin baitzion bertan, ailizka berehala itzul zintezen zu, eta bion indarrak proba. [Juan Garzia](#)

oxalato 1 iz azido oxalikoaren gatza.

Ez dakigu zerk eragozten dien fosfato, **oxalato** eta azido urikoaren kristal mikroskopikoei elkarri eranstea eta harriak eratzea giltzurrun normalean. [Irene Aldasoro](#)

2 (hitz elkartuetan)

Hori baino metodo sinpleagoa da, berriz, odola hartzerakoan zitrato- edo **oxalato** -soluzio pixka bat jartzea botilaren barruan. [Irene Aldasoro](#)

Zitrato edo **oxalato** ioiek berehalaxe desagerrarazten dituzte kaltzio ioiak (IV. gatzatze-faktorea), eta desaktibatuturik geratzen da gatzatzemekanismoa. [Irene Aldasoro](#)

-Badira substantzia batzuk gernuan, hala nola azido urikoa, kaltzio fosfatoa eta kaltzio **oxalatoa** , disolbatu ez, baizik kristal txiki gisa geratzen direnak. [Irene Aldasoro](#)

oxaliko izond azidoz mintzatuz, COOH-COOH formula duena.

Postelberg, erabat suminduta, leihoaren eta kopiagailuaren arteko konketara abiatu zen, eta atzamarrak igurzten hasi zen azido **oxalikoarekin** . [Anton Garikano](#)

oxiazetileno iz oxigenoaren eta azetilenaren nahastea.

Albertok, zenbait astez soldadore-talde batekin aritua baitzen lanean, esplikatu zidan **oxiazetileno** -hodien puntan muntaturik joaten direla [pizgailuak], garra pizteko. [Juan Garzia](#)

oxidatu, oxida, oxidozatu 1 da/du ad oxido bihurtu.

Gorputzaren erregaitarako barneratzen ditugun elikagaiak **oxidatu** egiten dira, eta, horretarako, edozein makinatan bezain prozesu eraginkorrek erabiltzen dira, hain ikusgarriak ez badira ere. [Irene Aldasoro](#)

Sagar bat moztu eta mahai gainean uzten badugu, hura ilundu egiten da, molekulak **oxidatu** egiten direlako. [Berria - Gaiak](#)

Organismoan hondakinak metatzen ari zitzaizkion, eta erabat **oxidatu** gabeko produktuak sorrarazi behar zituen horrek, azido urikoa batez ere. [Josu Zabaleta](#)

Ardoaren patua edana izatea da, glukosarena, berriz, **oxidatua** izatea. [Juan Garzia](#)

2 herdoildu.

Ondoren, ahal bada behintzat, **oxidatutako** zatiak kentzen ditugu produktu kimiko berezi batzuk erabiliaz. [Berria - Gaiak](#)

oxidazio 1 iz oxidatzea.

Konposizioan karbonoa, hidrogenoa eta oxigenoa besterik ez dutenez, karbono dioxidoa eta ura dira **oxidaziotik** sorturiko produktuak. [Irene Aldasoro](#)

Aditu batzuek uste dute zelulen **oxidazioak** sortzen duela Alzheimerra. [Berria - Gaiak](#)

Glukosaren **oxidazioaren** okerbide bat baino ez da diabetesa; "beraz", antozianinekin glukosaren **oxidazioa** ostera bere galga zuzenera ekartzeko saioa egin zitekeen. [Juan Garzia](#)

Ehunka gramo batzuk gantz-azido lapurtuak nituen, barrikadaren beste aldeko nire lankideren batek parafinaren **oxidaziotik** neke handiz lortuak. [Juan Garzia](#)

Fosfatoa deskonposatu eta karbonozko geruza trinko eta iragazteztina sortzen da, plastikoa **oxidazioaren** aurrean babestuko duena. [Berria - Gaiak](#)

Oxidazioa murriztuta, gainera, zukuek propietate nutritibo eta bereizgarri organoleptikoak atxikiko dituzte. [Edorta Agirre](#)

2 (hitz elkartuetan)

Erretxinaren **oxidazio**-mekanismoari buruz [Juan Garzia](#)

oxido 1 iz metal bat oxigenoarekin elkartzean gertatzen den gaia.

Afganistango gerran ere uranio pobretua erabili izanaren zantzuak daude eta uste da 1.000 tona **oxido** erradioaktibo dagoela herrialdean. [Berria - Mundua](#)

Negutegi efektua eragiten duten isurketak (karbono dioxidoa, metanoa eta **oxido** nitrosoa) «askoz ere urriagoak» dira trenbideko garraioan, errepidean baino. [Berria - Euskal Herria](#)

Beste bost gas ditu jomugan itunak: nekazaritzak eta zaborregiek askaturiko metanoa, ibilgailuek isurtzen duten **oxido** nitrosoa eta industria prozesuetan sorturiko PFC, HFC eta SF6a. [Berria - Harian](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondutik, **oxido** mailak %60 egin du behera. [Berria - Gaiak](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ust Sisolskeko mutilak karbono **oxidoa** arnasteagatik hil ziren, eta horrela lurperatu zituzten, itota hil balira bezala. [Jose Morales](#)

Nitrogeno **oxidoa** amonio nitratoa kontu handiz berotuz prestatzen da. [Juan Garzia](#)

Erregai-pilak elektrizitatea eta beroa sortzeko erabiltakoan, CO2ren emisioak %30 jaits daitezke, eta nitrogeno eta sulfuro **oxidoak** mila aldiz gutxiago emitituko dira. [Berria - Gaiak](#)

Neutralizatu beharra zegoen [...] berun **oxido** askeak eragiten zuen basikotasun gehiegia. [Juan Garzia](#)

Merkuriorik gabeko zilar **oxidozko** pila sortu du Sony [...] etxeak. [Berria - Gaiak](#)

Titanio **oxidozko** estaldurak hobeak direla diote adituek. [Berria - Gaiak](#)

Ferrojel bat disolbatzaile batek puztutako sare polimeriko bat da, burdin **oxidozko** nanopartikulez bete. [Berria - Gaiak](#)

Kasu honetan zink **oxidozko** nanopartikulak erabiltzen dira erradiazio ultramorea xurgatzeko. [Berria - Gaiak](#)

Plutonio **oxido** hautsa ordu gutxitan zabalduko litzateke eremu handi batean. [Berria - Gaiak](#)

Europako Batasunak nitrogeno **oxido** isuria murrizteko jarrirako helburuak betetzeko. [Berria - Gaiak](#)

4 **oxido karbono** karbono oxidoa.

Eta, ihes egiten du **oxido** karbonoak. [Pablo Sastre](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nitrogeno oxido (6)

nitrogeno oxidoa (4)

nitrogeno oxidoak (5)

oxigena ik oxigeno.

oxigenagailu iz oxigenatzeko gailua.

Plastikozko mintz fin bat izaten da **oxigenagailua**; alde batean oxigenoa eta bestean gaixoaren odola izaten ditu. [Irene Aldasoro](#)

Bihotzetik datorren odolaren parte bat, **oxigenagailutik** (edo birika artifizialek) pasatu, eta gorputzera itzultzen da. [Irene Aldasoro](#)

oxigenatu, oxigena, oxigenatzen 1 da/du ad (gai bati) oxigenoa erantsi.

Pickwick sindromean, arnasaren depresio larria eta odol gutzia **oxigenatzeko** gutxiagatasuna gertatzen dira, garuneko arnasmunearen depresioari lotuak. [Xabier Olarra](#)

Gibelak badu, hala ere, beste hornibide bat, gibel-arteria, ondo **oxigenaturiko** odola presio handian bidaltzen diona, zain-odolarekin nahasteko. [Irene Aldasoro](#)

Giharrak indartzen ditu, birrikak zabaltzen, burmuina **oxigenatzen** eta tentsioak lasaitzen. [Luis Elberdin](#)

Irekian denez, hobeto **oxigenatzen** gara. [Berria - Kirola](#)

2 oxigeno maila igo.

Erreak onera egin duela ukalezina dela dio, ez bakarrik ura lehen baino askoz **oxigenatuago** dagoelako, baita sedimentuetan metal astunen kontzentrazioa murriztu delako ere. [Berria - Euskal Herria](#)

Korrikaldiak eta iraupen eskia egingo dute, eta, jakina, **oxigenatu**. [Berria - Kirola](#)

3 irud/hed

Murtzian egon duten egonaldiaren helburuetako bat hori izan da, hain zuzen, burua **oxigenatzea**, Zubietako errutinatik aldentzea. [Berria - Kirola](#)

Auzitegi Nazionaleko auzi politikoak politikaren jokalekura ekarri behar dira, eta hor **oxigenatu**. [Berria - Harian](#)

4 (era burutua izenondo gisa)

Kotoi puska bat ur **oxigenatuarekin** blaitu eta bisaia igurtzi zidan. Xingeru Epalza

Ezagut ez zezaten, ur **oxigenatua** eman zuen kalparrean. Fernando Rey

Arterioak aortatik irtetzen dira, eta hornibide nagusitik gorputzeko beste organo eta ehunetara desbideratzen dute odol **oxigenatu** berria. Irene Aldasoro

5 (era burutua izenondo gisa) ilea argitzeko ur oxigenatua erabiltzen duena.

Izan ere, campuseko cocktail party-an ezagutu zuenetik ezin zuen errubia **oxigenatu** hura burutik kendu, eta zirt edo zart egin beharra zegoen. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ur oxigenatuarekin (3)

oxigenazio iz oxigenatzea.

Crickec [...] pentsatzen zuen bazitekeela I. jauna, apika, karbono monoxidoz pozoitua izatea, gauza jakina baita horrek, odoleko **oxigenazioa** aldatuz, koloreen pertzepzioa aldatzen duela. Xabier Olarra

oxigeno (orobat *okzigeno* g.er. *oxijeno* g.er. eta *oxigena* g.er.) 1 iz gai bakuna, gas koloregabea eta usaingabea, atmosferako airearen bostena osatzen duena gutxi gorabehera (O; at. z. 8).

Marrubizko xanpuaren usainaz osoki jabetzeko, zabal-zabal ireki ditu birrikak, Amazoniako **oxigeno** gutzia aurrean edukiko balu bezala. Eider Rodriguez

Arnasa hartzeko indarra egin dut, giharrak **oxigenoz** betetzeko, kirolari onek bezala. Lander Garro

Muskuluko **oxigenoaren** kopuru txiki bat baino ez da konbinatzen hemoglobinarekin. Irene Aldasoro

Oxigeno gehiago lortzearren, arnasa azkarrago hartu behar izaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oxigenoa eman behar izaten zioten, itoko ez bazen. Imanol Zurutuza

Buruari **oxigenoa** faltatuko balitzaio bezala da. Anjel Lertxundi

Zainketa intentsiboan unitatean zegoen, eta **oxigenoa** eta antibiotiko zain-barnetikoak ari zen hartzen. Xabier Olarra

Hogei ordu zeramatzen han, salbutamol inhalazioak hartzen, aldizka **oxigenoaren** hodira konektatuta. Bernardo Atxaga

Arnasten dugun aire berriak % 21 **oxigeno** eta % 0,03 karbono dioxido du. Irene Aldasoro

Litro bat **oxigeno** odolera bidaltzeko, hogei bat litro aire arnastu behar dira. Irene Aldasoro

Arnasan ere hartzen du parte pixka bat larruazalak: orduko 150 ml **oxigeno** (batzuetan gehiago) hartzen du, gutxi gorabehera, eta beste hainbeste karbono dioxido kanporatzen. Irene Aldasoro

Truke horren ondorioz, **oxigeno** gutxiago eta karbono dioxido gehiago dago biriketako airearen konposizioan. Irene Aldasoro

Bizitza-forma orok [...] bi gauza behar ditu: elikagaia eta **oxigenoa**. Irene Aldasoro

Konposatu inorganiko bat da hezur-minerala, kaltzioz, fosforoz, **oxigenoz** eta hidrogenoz osatua. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zain barneko orratz bat besoan sartuta neukala eta plastikozko **oxigeno** -hodiak sudurzuloetan. Oskar Arana

Oxigeno zirkuitua, berogailu zirkuitua, hegazkineko gizonen arteko komunikaziorako telefono zirkuitua antolatzea. Josu Zabaleta

Oxigeno bonbonatxo bati loturik bizi zen, eta ezin zen aulkitik mugitu ere egin hura gabe. Xabier Olarra

Hilaren hasieran, beste 14 haur hil ziren erietxe berean, langileak eta **oxigeno** botilak falta zirelako. Berria - Gaiak

Oxigeno maskarekin hatsa hartzen zuen. Ramuntxo Etxeberri

Ospitaleko kirofano ondoko gelan da, sendagile eta erizainez inguratutik, **oxigeno** -maskara musuan, eskumuturrak zuluturik... Jose Angel Irigaray

Umeak bihotzeko eta biriketako arazo larriak zituen, eta, horregatik, **oxigeno** makina bati lotuta izan zuten beti. Berria - Gaiak

Ez fidatzeko, aterkiaz arduratzen garen bezalaxe, bakoitzak bere **oxijeno** -motxila eraman beharko zuela bizkarrean, eskola-umeak bezala, kalera irteetan. Pello Zabala

Luzaz jarduten nuen irudikatzen, paperean marraztuz, silizio, **oxigeno**, burdina eta magnesio katea luzeak. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, gauza abstratuekin)

Horretarako, **oxigeno** kurbak erabiltzen dira eta kurba hori lortzeko ibaiaren **oxigeno** maila neurtu behar da. Berria - Gaiak

Odoleko **oxigeno** mailak jaisten hasi ziren. Xabier Olarra

Iraupen-lasterkari batek ere **oxigeno** -zorra ordaindu beharko du lasterketaren amaieran, gorputzak ezin baitu **oxigeno** -gairik hartu berehalako premietarako. Irene Aldasoro

Oxigeno hornikuntza kontrolatzen ari naiz, hain zuzen, oso bizkor ari baikara igotzen: sei mila eta zazpiehun metro. Josu Zabaleta

Oxigeno -hornidura nahikoa ez bada, [...] beste prozesu bat izaten du glukogenoak: azido laktiko bihurtzen da, eta energia apur bat askatzen du. Irene Aldasoro

Animalia askotan, garbi bereizten dira denbora luzean esfortzu jarraituan jarduteko egokituta dauden muskulua (**oxigeno** -horni ona behar dutenak) eta bat-bateko ekitaldi laburretarako eginak, **oxigeno** beharrik gabe muskuluan dagoen ATPa eta fosfokreatina darabiltenak. Irene Aldasoro

7 itsaspekarari erruso ziren itsas pazifikoa beren batzkafoan preso gertatuak **oxigena** erresalbu arras xuhurtua bizpahiru egun hartan. Herria

Touchaguseko herritarrek **oxigeno** faltagatik hil zela esaten zuten, Everest igotzen ari zela. Joxean Agirre

Tabakoarena **oxigeno** eza dela-eta gertatzen bide da. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behar adina oxigeno (4); oxigeno asko (3); oxigeno faltagatik (3); oxigeno faltak (4); oxigeno gehiago (14); oxigeno gutxi (3); oxigeno gutxiago (4); oxigeno kantitatea (3); oxigeno maila (6); oxigeno makina bati (4)

helioa eta oxigenoa (3); odoleko oxigenoa (3); oxigenoa behar (4); oxigenoa eman (3); oxigenoa ematen (3)

oxigenorik gabe (15); oxigenorik gabeko (3)

oxihemoglobina iz hemoglobinaren eratorri oxigenoduna.

Oxihemoglobina da konposatu hori, isuritako odolari kolore gorri bizia ematen diona. Irene Aldasoro

oxijeno ik oxigeno.

oximoron 1 iz erretorika figura, kontrako esanahiko bi hitz elkartean datzana.

Oximoron hutsa dirudi "errege errepublikazale" bikoteak, baina halaxe izan omen zen Amadeo Saboiakoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bazuen ibileran (**oximorona** onartzeko modukoa bada) halako baldartasun graziaz bete bat. Juan Garzia

Oximorona dirudi, ika-mikak itxura batean behintzat, nekez baitira elkarren aldekoak. Baina, "Euskal Herria" delako hori ere ez ote duk ba beste "**oximoron**" bat? Andoni Egaña

2 (hitz elkartuetan)

Holaxeko **oximoron** jasa egunero, orduero, lekuero!, mirari dirudite halabehar nahastuok, edo patologia, edo ez dakit nola deitu ere. **Patziku Perurena**

oximoronka *adlag* oximoronak ginez.

Nafar batek hiperkorrekzio petardoaz gutuna; handik gutxira bizkaitar bat *worl orderka* eta **oximoronka**. **Patziku Perurena**

oxitozina *iz* hipofisiak jariatzen duen hormona, uteroa uzkuratzea eragiten duena, besteak beste.

Jarduera sexualaren sarietako bat orgasmoa dugu, orduan burmuinak **oxitozina** askatzen du, hau da, ongizate, betetasun, esker on eta maitasun sentipena eragiten duen substantzia kimiko bat. **Luis Elberdin**

oxka 1 *iz ipar* koska.

Haurren kopurua **oxka** batez goititu da aurtan, 19ek eskola huntako bidea hartu baitute. **Herria**

Tratulantaren eraso bakoitzean prezioak **oxka** batez apaltzen zituzten, frankotan bildotsak galtzetan eskaintzeko. **Itxaro Borda**

Pentsamenduaren **oxka** horretan, Kerguelen komisarioak Ivryko errotxean lan egiten zuen Charlotte bere emazte ohiaren deitzeko gogoaz zuen. **Itxaro Borda**

Ondorioz gure herrian iragaiten den "Ur xuri" ibaia bere **oxketarik** atera da eta behereko landa horietan zabaldu. **Herria**

2 gradua.

Labeak lehenik behar du berotu 600 **oxketaraino**; gero ideki eta barnerat emaiten dituzte %78 kobre eta %22 ziraida (estainu) eta 1200 **oxketaino** berotzen da urtzeko.

Herria

oxkar *iz* bi punturen artean kurba gisa zintzilaturiko lorezko edo hostozko apaingarria. **ikfestoi**.

Iluntasunak asfaltzoko hiri lurrintsua gogor zanpatzen zuen eta leihoen markoak, iragarkiak eta tximiniak eta ur-deposituak eta haizagailuak eta sute-eskailerak eta moldurak eta apaingarriak eta **oxkarrik** eta begiak eta eskuak eta gorbatak birrintzen zituen, puska urdin eta etxe-bloke erraldoi beltz bilakatuz. **Lopez de Arana**

oxkarratu, oxkarra(tu), oxkarratzen du *ad* oxkarrez apaindu.

Ivan Ogareff denda barruan azaldu zenean, agintari handiek eserita segitu zuten beren kuxin urrez **oxkarratuetan**. **Karlos Zabala**

oxkartxo *iz* oxkar txikia.

-Orain **oxkartxoak** daude modan. **Jose Morales**

-**Oxkartxoak**, bai, **oxkartxoak** besterik ez da ikusten: **oxkartxoak** soingainekoetan, **oxkartxoak** mahuketan, **oxkartxoak** bizkarrekoetan, **oxkartxoak** barrenetan, **oxkartxoak** nonahi. **Jose Morales**

oxpindu *izond adkor* ozpindua.

Aste bat edo beste, edo agian hamabostaldi oso bat fortunatzen da, ilargialdi erre eta **oxpindu** bat parean datorrenean, mikatetik botatzen dizkigula egun gehienak... **Pello Zabala**

oxta

1 *oxta-oxta adlag adkor* ozta-ozta.

Eta nire ama bakarrik, kandelen artean; haren aurpegi zurbila, eta haren hortz zuriak **oxta-oxta** agertzen zirela heriotza ubelduak gogorturiko ezpain moreen artetik. **Juan Garzia**

Iruñekoa beste kontu bat da; han **oxta-oxta** iristen dira 45 litrori. **Pello Zabala**

Iberiar deitu penintsulan. %17ra **oxta-oxta** iristen omen ziren alfabetoaren berri zutenak orduan. **Pello Zabala**

Bihokizu, iraileko azterketa **oxta-oxta** igarotzeko balio dezakeen itxulpentxo herrera: [...]. **Pello Zabala**

oxtabena *iz adkor* espetxea.

-**Oxtabena** askotan ibili naiz, eta ez gara inoiz elkarrekin egon. **Koldo Izagirre**

Oxtabena bateko ziegan. **Koldo Izagirre**

Gazteek ordea ez daukate iraganik, eta etorkizuna ukatzen zaie **oxtabenan**. **Koldo Izagirre**

Gerraondoan penizilina kontrabandoa egiten zenean Talavera de la Reinako **oxtabena** akordu lazgarrikoan. **Koldo Izagirre**

Ez zait inoiz atzenduko nolako erantzuna igorri zidan **oxtabenako** zuzendaritzak: [...]. **Koldo Izagirre**

Oxtabenako legea da. **Koldo Izagirre**

Bertatiko batean konprenitu duelako **oxtabena** barruan egotea ohore handia dela. **Koldo Izagirre**

oxtabenaldi *iz* espetxealdia.

-Zuetako batek, lehen **oxtabenaldia** duen batek esate baterako, galde egin zidan ea zergatik nerabilen koilara giderrik gabe. **Koldo Izagirre**

oxtia ik **ostia**¹.

oxtian ik **oixtian**.

ozala iz txerri jana. ik ogale.

Zertarako, periferian **ozala** eta basa bada nagusi, gorotz-lokatetz baditugu begi-belarriak. **Iñigo Aranbarri**

ozar 1 izond errespetu eta begirunerik gabe edo ausarkeriaz aritzen dena.

Zeren auzolagunak festazale porrokatuak baitzitu, Ruseko lurjabe **ozar** horietakoak, bizimodu barreetua daramaten aitoren seme horietakoak. **Jose Morales**
Haren ikasle-jendea hain zen itxuraz bihurria, **ozarra** eta urduria, ezen inolako ordenarik gabeko haur-saldo hezikaitz iritziko baitziokeen beste edonork. **Jose Morales**
Makila ez zuen makulutzat erabiltzen (ez zuen beharrik), baizik eta alaikiro jiraka erabiltzeko airean, eta bidera irteniko txakur **ozarregiak** paretik kentzeko. **Juan Garzia**
Kapitainak ikusi orduko neurtu zuen laguntzeko bidali zioten agentea: gaztea eta **ozarra**, Edward Mille eskarmenturik gabeko hasiberri handikote eta baldarra iruditu zitzaion. **Fernando Morillo**

2 (gauzez)

Ezin zituen begiak saihestu bere so **ozarraz**, irria ezpainetan igerika eta kokotsa esku ezkerrean bermaturik hari beha zegoen emazte gaztearengandik. **Elena Touyarou**
Zein gizonak ez zukeen bere biziaz ordainduko ausardia **ozar** hori? **Jon Muñoz**
Indar ikaragarri handia eta lasaia adierazten zuen, ezin garaituzko irmotasuna, adore hotz eta **ozarra**. **Jose Morales**
Berez harroa eta larderiatsua zen arren, ordu arte inoiz ez zuen hain jarrera harro, **ozar** eta larderiatsurik hartu. **Jose Morales**
Nabarmenegiak eta **ozarregiak** iruditzen hasi zitzaizkion haien manera bizi eta arinak. **Jose Morales**
Orduan ustekabean mairuaren ahotsa altxatu zen, apaiza bere onetatik atera zuen etsipen **ozar** horren izpirik gabe. **Jon Alonso**
Deabruzko begiak, bizitasun basati eta heriozko batez, begira-begira neuzkan milaka lekutatik, [...] eta nire irudimenak gauza irrealak bailitzan ezin ikusi zuen su baten gar **ozarraz** distiratsen zuten. **Koro Navarro**

3 (adizlagun gisa)

Hark bakarrik zuela, **ozar** eta hantustetsu, bere gaineko existentzia baterako eskubidea. **Jose Morales**
Ergel alaeak uste izan zuen **ozar** begiratzen niola, erronkaz, eta bat-batean deiadarka hasi zen. nire senak okaztagarrietik eta deitoragarrietik duena azaleratzen zaidanean izaten dudana aieru eta begirakunearekin ari natzaiola begiratzen, **ozar** eta lotsagabe. **Matías Múgica**
Orain **ozar** eta harro hitz egiten zuen. **Jon Alonso**

ozarkeria iz ozartasun gaitzesgarria; egintza ozarra.

Orduan burua altxatu eta galdetu zuen, *Zerbait nahi al duzu*, lehor, erasokor, eta tonuak emakumearen **ozarkeria** ezabatuarazi zuen. **Jon Alonso**
Haserrez irakiten jarri zitzaidan barrena aitaren zerbitzuko lekaio haren **ozarkeriagatik**. **Matías Múgica**
Juduen gudua eta heien kontrako **ozarkeriak** ez ditu ahanzi, Polonian gertatuekin eta batzuen eta besteen erantzukizun eta hobenez deus gorde gabe, nahiz hor ere zuhurki. **Herria**
Ez dagoela gure ezagutzaren hedapenerako **ozarkeria** kaltegarriagorik aurretik bere abantaila jakin nahi duena baino. **Ibon Uribarri**
Ederra gozamina, **ozarkeria** ezti eta probokazioz ondua! **Jon Muñoz**
Baziren ikasle lotsagabe batzuk **ozarkeriarik** handienak ere egiten zituztenak. **Josu Zabaleta**

ozarki adlag ozartasunez.

Peter gehiago haserretu zen, **ozarki** erantzun zion, Van Daan jaunak arrazoa eman zion eta Dusselek amore eman behar izan zuen. **Josu Zabaleta**
Ororen buru, erran zion bere buruari, **ozarki**, adiskidea ez zen hain makur. **Elena Touyarou**

ozartasun 1 iz ozarra denaren nolakotasuna.

Bere bizitzaren hasierako **ozartasunak** iritzia adierazteko ausardia handia ematen zion. **Josu Zabaleta**
Ikasgelatik egotzi eta gupidarik gabe zigortzen zuen. "Errotik erauziko diat nik harroeria eta **ozartasun** guztia! -esaten zion-. **Jose Morales**
Samosvistovek bere ausardiaren eta **ozartasun** berebizikoaren mugak gainditu zituen. **Jose Morales**

2 (gauzei buruz)

Haren begien **ozartasun** distiratsua beti ere paretsu zirauen. **Juan Garzia**
Herri baten sinesmena, aztikeria, munduaz bestaldeko giroa, jainkoen irria, arkitekturaren **ozartasuna** eta hindutar espirituaren fintasuna elkarri eskua emanda egurasten dira Benaresen. **Gotzon Garate**

3 ozartasunez adlag

Bai, esaten zuen behin eta berriz Schumacherrek lasai eta **ozartasunez**, paradisia hemen zego, etxean, familian, baita zakurraren baitan ere. **Fernando Rey**
Bere inguruan egon gara **ozartasunez**, barrezka, txango batean bageunde eta bera gure irakaslea balitz bezala. **Urtzi Urrutikoetxea**

ozartu, ozar(tu), ozartzen da/du ad ozar bihurtu.

Garrasi egin zuen eta edaleek, mozkorturik, **ozarturik**, Abasen gainera amil eginik, ukaldika, ostikoka eta botilakadaka erabili zuten... **Patxi Zubizarreta**
Amama Otso **ozarturik** ari zitzaion, marrumaka, bere etxean ez zuela sekula onartuko animalia zikin nazkagarririk. **Mirentxu Larrañaga**
Suerteak lagundurik, mendi paret horietan, aspaldi goaitatzen zuten, harrapakin gutiziatua; arras **ozartua** zabilan asian eta potian. **Herria**

ozeaniar izlag/iz Ozeanikoa, Ozeaniari dagokiona; Ozeaniako biztanlea.

Gursen 6.000 eta 7.000 lagun bitarte egon ziren 1939ko udan, poloniarrena zen europarretan talderik handiena; latinoamerikarren artean, argentinarraren zen talde handiena; afrikarrak, asiarrak eta **ozeaniarrak** ere bazeuden. **Jokin Urain**

ozeaniko 1 izond ozeanoarena, ozeanoari dagokiona.

Ur-laster **ozeanikoen** aldaketetan auskalo zenbateko eragina duen... **Pello Zabala**
Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak itsasketa **ozeanikoaren** teknika menderatu zuen arte. **Iñaki Mendiguren**
Espainiako klima desberdinak azaltzen ariko zen, eta **ozeanikoa** iritsi zenean -gurea, alegia, irakasleak berak gogorarazi zigun bezala-, besteak beste ezaugarri hauxe eman zigun, hots, urteko ia egun guztietan egiten zuela euria. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Garbi dago garraio **ozeanikoa** garapen horiek eragozteko "botila-mutur" itogarria gertatuko zela. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Egunkariet ere, Paulino Uzquidun eta Paco Buenoren garaiko argazki hautsezatuak kaxoien hondo **ozeanikoetatik** berreskuratu eta beren argazkilari eta bekariorak zakurren gisan bota zituzten Pasaia gimnasiora. **Harkaitz Cano**

-Bi titi **ozeaniko**. **Iñaki Iñurrieta**

Zure bular **ozeaniko** horien plaian hondartu nahi nuke... **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

itsasketa ozeanikoaren (3)

ozeano 1 iz lur azalaren hiru herenak estaltzen dituen ur gazizko eremu handia; eremu hori banatzen den zati handietako bakoitza. ik **itsaso**.

Ozeanoak uharteekin eta basamortuak oasiekin puntu komun asko dituzte. **Iñaki Mendiguren**

Goreak eta Hilbertzek 15 koral kutxatik gora jarri dituzte munduko **ozeano** eta itsasoetan, eta lortutako emaitzak «ikusgarriak» izan direla esan dute. **Berria - Gaiak**

Laster gabe, **ozeanoak** bereizi egin zituen, eta gero denborak. **Eskarne Mujika**

Orduan, gure itsasontzia **ozeanoaren** mugetaraino iritsi zen, Zimeriarren hiriraino. **Juan Kruz Igerabide**

Bere indarrak **Ozeanoa** menperatzen du, bere adimenaz Rahab munstroa suntsitzen. **Elizen arteko biblia**

Santaremdik urrundu, Belemera iritsi, eta **ozeanoan** barneratu zen lurrun-ontzia. **Jon Muñoz**

Nekez uler daiteke antzinakoek Kaspio itsasoa **ozeanoaren** zati bat zela sinesteko hartua zuten seta. **Iñaki Iñurrieta**

Mendebaldeko Kristandadean, atlantiar itsasertzeko herriek **ozeanoan** ibiltzeko ontzi-mota berria asmatu zuten hamabosgarren mendean. **Iñaki Mendiguren**

Baina Georgina **ozeanoaz** beste aldean dago orain. **Oskar Arana**

Ozeanoak zabortegei bihurtzeko joerak alarma gorria piztu du. **Berria - Gaiak**

2 (izenondoekin)

Banekien, ostera, ertz hura baino harago sinistu ere egin ezin den **ozeano** zabala zegoena. **Edorta Jimenez**

Galiziakoak **ozeano** irekian askoz hobeto moldatzen dira, olatu txikiagoekin. **Berria - Kirola**

Ozeano bukaezinari beha. **Xabier Montoia**

Nola lortu ote dute Afrikako basamortu itzelak zeharkatzea, **ozeano** handiak igarotzea? **Jokin Urain**

Ozeano urdinean galduak diruditen lur porroska batzuk. **Ramuntxo Etxeberri**

Itotzear zegoen buzeatzaila **ozeano** sakonetik irten balitz bezala. **Harkaitz Cano**

Zure justizia mendirik handienak bezalako, zure probidentzia **ozeano** mugagabea adinakoa. **Elizen arteko biblia**

Izarrez osaturiko gangaren azpiko mendi elurtuetatik edo **ozeano** apartsuek bainaturiko zilarrezko hondartzetatik. **Agustin Otsoa**

Gorputzak odola zertarako behar duen ikusteko, gure lehen arbasoen bizileku izan zen **ozeano** primitibora itzuli beharra dago. **Irene Aldasoro**

3 (bost ozeanoen izenondo eta izenlagunekin)

Ande mendietako gailurrik gorenetan jaiotzen denean, **Ozeano** Baretik 150 kilometro baino gutxiagora dago Amazonas ibaia. **Jon Muñoz**

Ozeano Barearen mendebaldeko itsasertzetik Baltikoaren ekialdeko itsasertzearaino. **Iñaki Mendiguren**

Siberiako petrolioak **Ozeano** Bareko kostaldera eramango duen hodi sistemaren ibilbidea aldatuko dute. **Berria - Gaiak**

Ozeano Bareko urak berotzen ditu El Niño-k, eta, ondorioz, Lur osoko tenperaturak jasotzen ditu (0,2 gradu, 1998an). **Berria - Gaiak**

Ozeano Pazifikoan ez bezala, **Ozeano** Indikoko kostaldeetako hiri eta herriak ohartarazteko alarma sarerik ez egoteak biziaren galera handia eragin duela. **Berria - Mundua**

laz **Ozeano** Indikokoan halako alerta sistemak jartzeko proposamenek oihartzun eskasa izan zuten. **Berria - Mundua**

Indiako **Ozeanoan** bertan, Mayotte uhartean, beste 2.000 lagun kutsatu dira eritasunarekin. **Berria - Gaiak**

Portugalдарек, **Ozeano** Atlantikoan nabigatuz, Afrikako punturik hegoaldekoena aurkitu zuten. **Iñaki Iñurrieta**

Urakan eta ekaiz tropikalen aroa amaitu da berez **Ozeano** Atlantikoan, baina haize ufadak ez dira amaitu. **Berria - Gaiak**

Bilbokoak **Ozeano** Atlantikora begira dauden Europako portuekin dauka harreman sendoena. **Berria - Ekonomia**

Gehienak %60 **Ozeano** Atlantikoan harrapatzen dituzte, eta Mediterraneoan %10. **Berria - Gaiak**

Mugatik haraindi gure Kantauri itsaso xumeak Atlantiko **ozeano** zabalekin bat egiten du. **Migel Angel Mintegi**

1970. urteaz geroztik %50 indartsuagoak direla Atlantiar **Ozeanoan** eta **Ozeano** Pazifikoan sortzen diren zikloiak. **Berria - Harian**

Mendi horiek **Ozeano** Artikokoaren itsasbaterrean jaio eta itsaso kaspiarreko ertzetaraino doaz, alde batera Errusia eta bestera Siberia utzirik. **Karlos Zabala**

Ozeano Artikoko itsasoa da Barents. **Berria - Gaiak**

Nobelako pertsonaia batzuen desolazioa, urruntasunaren desanparoa, **Ozeano** Antartikoko hotz hondogabeen itolarria geratu zaizkit. **Jokin Urain**

Asia- **Ozeano** Bareko Lankidetzaren Ekonomikoaren Foroa osatzen duten 21 herrialdeetako ordezkariak. **Berria - Gaiak**

4 hed

Batetik, hidrokarburozko **ozeanoak** ditu [Titanek], eta, bestetik, karbono atomo osatutako atmosfera gorrixka bat. **Berria - Gaiak**

5 irud

Labar zorrotzeko kristalezko irla tikiak baizik ez nituen kausitu barra gainean, ginebrak **ozeano** baten erdian. **Aingeru Epaltza**

Izotz puska tantaiaaren antzera, herrari zebiltzan hiriko **ozeano** hotz grisean, norabiderik gabe. **Aritz Gorrotxategi**

Asfaltoa **ozeano** beltz bat bezalakoa da (edo da nire begietan). **Karlos Linazasoro**

Etengabeki higitu eta itxuraldatzen den ordoki urdina begietsiko zenuke, harri txintxolazko **ozeano** idor honen orde. **Xabier Montoia**

Zibilizazio-kutxa bat, bost edo sei mila urteko denbora-distantzia egin zuena Historiako **ozeanoan** zehar. **Iñaki Mendiguren**

Gure arrazoimenaren bidaia etengabe luzatzen diren esperientziaren kostaldetaraino soilik jarraitzeko, utzi ezin dugun bidaia, kostarik gabeko **ozeano** batera ausartu ezean, beti iruzurtiak diren ikuspegiekin azkenean ahalegin neketsu eta luze oro itxaropenik gabekotzat jo eta hauek uztera behartzen gaituen **ozeanora** bidaia, hain zuten. **Ibon Uribarri**

Auskalora bidean behar duela izan, Apikako itsasotik Beharbada **ozeanorantz** hartuta... **Anjel Lertxundi**

6 (izenondo gisa)

Itsaso **Ozeanoan** barna uharte horietarik eguzki sartzera buruz joanez. **Aurelia Arkotxa**

Basa zetaz landuriko jaka-galtza multzo urdin **ozeanoa**. **Joxan Elozegi**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itsaso Gorri, berriz, golko horren ondoko **ozeano**-parteari deitzen zioten. **Iñaki Iñurrieta**

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iparraldean, Izotz **Ozeanoa**, Karako itsasotik Beringeko itsasarteraino. **Karlos Zabala**

Bekain ilunek haren aurpegiaren zuritasuna azpimarratzen zuten, elur **ozeano** batean galdutako bi beleren antzera. **Fernando Morillo**

Aireari esker bizi garenontzat, elementu guztiz irriskutsua da "ur-**ozeanoa**". **Ana Urkiza**

Mundu-**ozeanoaren** egoera larria dela ohartarazi du NBEk, eta hura babesteko eskatu dio munduari, «beranduegi izan aurretik». **Berria - Gaiak**

Han aurrean, buru- **ozeano** baten atzetan. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ozeano artikoan (6); **ozeano atlantikoa** (4); **ozeano atlantikoan** (6); **ozeano barea** (4); **ozeano barean** (20); **ozeano barearen** (12); **ozeano bareko** (21); **ozeano pazifikoa** (3)
indiako ozeanoan (4); **itsaso ozeanoan** (3); **ozeanoan barna** (4); **ozeanoan zehar** (3)
ozeanoaren beste aldean (3); **ozeanoaren erdian** (7)
itsaso eta ozeanoen (4); **ozeanoen egoera** (3)
indiako ozeanoko (4)

ozeanografia 1 iz itsasoak alderdi fisiko eta biologikoetatik aztertzen dituen zientzia.

Euskal Herrian **ozeanografiari** eta itsas ingurumenari buruz azken 30 urteetan egin diren ikerketak eta azterketak. Berria - Euskal Herria

Billboko Metropolitiko Planak Lemoizko zentral nuklearra izandako esparruan aisialdi-gunea nahiz ikerketarekin eta **ozeanografiarekin** zerikusi duen zentroa jartzeko proposatu du. Berria - Harian

Adolfo Uriarte AZTI Fundazioko **Ozeanografia** eta Itsas Ingurunea Saileko buruak. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ozeanografiko**.

Bizkaiko Golkoan dagoen antxoia neurtzea izango dute xede, eta Azti Arrantzarako Euskal Ikerketa Erakundeko, Espainiako **Ozeanografia** Institutuko, Frantziako Itsasoaren Ikerketarako Institutuko eta Marokoko Itsas Baliabideetarako Institutukoak dira. Berria - Harian

Gobernuarteko **Ozeanografia** Batzordeak emandako datuek diote egunero 20 eta 25 milioi tona karbono dioxido xurgatzen dituztela ozeanoek. Berria - Gaiak

ozeanografiko izond ozeanografiarena, ozeanografiari dagokiona. ik **ozeanografia 2**.

Mapa eta lege **ozeanografikoetan** itsaso erabat herrera da itsasbeherarik gabeko itsaso. Lutxo Egia

ozelo iz hainbat animalietan, larruko, edo hego edo lumetako orban biribilkara.

Itxura gaiztoa ematen dioten sei **ozelo** beltzeko tximeleta daukat begien aurrean, marroia eta horia. Bernardo Atxaga

Oinarrian kolore zuri distiratsukoa izanik, beltzuek ditu aurreko hegoetan, eta gorri biziko lau **ozelo** atzekoetan. Bernardo Atxaga

Lau **ozeloak** nabarmenak dira, eta benetako begiak dirudite. Bernardo Atxaga

ozen 1 izond hotsez edo hots egiten duten gauzez mintzatuz, ongi edo argi edo indar handiz entzuten dena.

Hasperen **ozena** aterarazten genuen orduan, espantatuak baino gehiago, doi bat tronpatuak heriotzaren lan azkarraz. Aingeru Epaltza

Dudleyren korrokada luze **ozen** batek ito zituen haren hitzak. Iñaki Mendiguren

-O, Jones jauna -esan zuen ahots **ozen** eta alaiaz, eta dardar egin zuen, jelatinazkoa balitz bezala. Koro Navarro

Bere artean mintzo zen arren, ahotsa **ozena** zuen, lodia, eta primeran aditzen zitzaion. Anjel Lertxundi

Horiek guziak bere boz **ozen** ederrarekin. Herria

Xuxurla batetik edo hostoen firfiratik hasi eta izadiko hotsik **ozenenetarainoko** eskalan. Irene Aldasoro

Oso dotoreak eta anpurusak ziren, bai beren soinekoetan, bai beren hizkera **ozenean** ere. Txillardegia

Zur eta lur geratu nintzen, ezkontzeko proposamena algaraz eta barre **ozenez** hartua izan baitzen. Oskar Arana

Ongi ezagutzen dut barre txiki hori, oso **ozena** eta sudurkaria. Monika Etxebarria

Musika ateratzen zen etxetik, oso musika **ozena**. Koro Navarro

Medikuak pauso luze eta **ozenak** eman zituen Morse andrearen pisurantz aurrea eta haren logelara gero. Mirentxu Larrañaga

Norbait ari zen ate-joka **ozen** eta tematian. Mirentxu Larrañaga

Hotsak ez dira **ozen** edo ahul, beste bat baino **ozenago** edo ahulago baizik. Lourdes Oñederra

Uluak gero eta **ozenago**. Koldo Izagirre

-Ordu erdi, ordu erdi -Ximurak, gero eta **ozenago** -. Aingeru Epaltza

Erakunde ekologisten eta Errusiako gizarte zibileko beste hainbat talde zein gizabanakoren protesta **ozena** eragin du Siberiako petroliobideak. Berria - Gaiak

Eskandalua ez zen oso **ozena** suertatu; aipatu zen egunkarietan gertakizuna, baina gure inzialekin soilik. Iban Zaldúa

Intentsitatea gehitu ahala, soinu **ozena** zena sentipen mingarri bihurtzen da. Irene Aldasoro

2 (fonetikan, kontsonantez mintzatuz)

Aintzat hartu behar da **ozen** hitzaren esanahia askoz hobeto datorkiola ingelesez *sonorant* terminoaz jasotzen den kontzeptuari. Lourdes Oñederra

Guretzat ezagunenak kontsonante **ozen** albokariak dira (l, ʎ). Lourdes Oñederra

Gogora dezagun kontsonante **ozenak** herskari direla neurri batean. Lourdes Oñederra

Haatik, bilakabide sintagmatiko bati esker, kontsonante **ozenen** aurreko txistukariak ahostundu egiten dira. Lourdes Oñederra

Hizketa hotsen sailkapenaren aldetik, **ozen** eta trabari elkar osatzen duten multzoak dira. Lourdes Oñederra

-Horregatik esaten da bokalak direla hots **ozenenak**, bokalak baitira ahotsbide irekienaz ahoskatzen diren hotsak, biriketarik datorren aireari indartsuen ateratzeko aukera ematen diotenak. Lourdes Oñederra

3 (adizlagun gisa) ozentasunez; goraki. ik **ozenki**.

Dionisos egongelatik purrustadaka ari zen, erdi ahapean erdi **ozen**. Unai Iturriaga

-Jaun-andreok -hasi zen **ozen**, isiltzeko keinu eginez-. Iñaki Mendiguren

Tira, asmatu beste kontu bat! - **ozen** mintzatu zen. Migel Angel Mintegi

-Ez al duzu pixka bat berotu nahi, Evans andrea, oheratu baino lehen? -esan zuen **ozen**. Koro Navarro

Mundu iluna azkar ari zen limurtzen, eta haizea **ozen** zebilkion belarrietan kantari. Agustin Otsoa

Oihua **ozen** aditu da eta lubaki osoan zehar oihartzun egin du. Mirentxu Larrañaga

Platonoven zurrungak **ozen** entzun ziren gela osoan. Jose Morales

Eta nola ez zuela, ba, entzungo, erantzun zidan, telebista hain **ozen** jarrita egonda, eta ea zergatik ez nion esaten lehorreko marinel hari aparatua itzaltzeko. Ramon Saizarbitoria

Mukiak **ozen** zintzatu zituen Antoniak eskuturretik ateratako zapiak. Josu Landa

Gero, frantsesez eta **ozen**, paisaiari edo bidaiari buruzko zerbait esaten nuen, gidariak susmo txarrik har ez zezan. Anjel Lertxundi

Irakur ezazu **ozen**, nahi dituzun argitasun guztiak emango dizkizut. Karlos Zabala

"Erlaitz soil batetik" irakurriko du **ozen**. Oskar Arana

Ez dira **ozen** esateko gauzak, hauek! Josu Zabaleta

Zoram idazle mazedoniarra protestaka hasi zen, **ozen**. **Edorta Jimenez**
Haren isiltasunak **ozen** esaten zuen: ez diat aitarik izan, aitarik gabe jaioa nauk. **Anjel Lertxundi**

4 ozen-ozen adlag

Ozen-ozen mintzo zen, segizioko guztiek garbi aditzeko maneran. **Aingeru Epaltza**

-Ez zen erraza izango frogatzen -pentsatu zuen Perrettek, **ozen-ozen**. **Jon Muñoz**

Eta neguko goiz hartako isiltasun tragikoan haren ahotsa aditu zen, **ozen-ozen**, piketearen aurrean jartzen ari zelarik. **Edorta Jimenez**

Lehegoan esan zidaan ordenagailua bat-batean pitzen zitzaioa goizetan, eta musika jotzen hasten zela, **ozen-ozen**, eta ea nik egiten ote nion. **Antton Olano**

Baina, tupustean, isiltasuna entzuten hasi nintzen **ozen-ozen**: gurasoei arazoak eta oinazea beste deus ekarri ez zien egoera baten xuxurlak; egunero bizi zituzten egonezin eta larrimin isilak, ezin zutelako jakin nolakoa izango zuten etorkizuna. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots ozen (27); **ahots ozen batek** (5); **ahotsa ozen** (4); **ahotsak ozen** (4); **algara ozen** (6); **algara ozen bat** (5); **argi eta ozen** (8); **arnasa ozen** (3); **barre algara ozen** (3); **barre ozen** (3); **boz ozen** (7); **danbateko ozen** (7); **danbateko ozen bat** (4); **dei ozen** (3)

egin zuen ozen (3); **esan nuen ozen** (4); **esan zion ozen** (4); **esan zuen ozen** (20); **eztarria ozen** (3); **garrasi ozen** (5); **harro eta ozen** (3); **hitz ozen** (3); **hots ozen** (8)

izena ozen (4); **karraska ozen** (4); **karraska ozen bat** (4); **kolpe ozen** (3); **kontsonante ozen** (3); **mintzo ozen** (5); **musika ozen** (4); **musu ozen** (3)

oihu ozen (6); **oihu ozen bat** (3); **oihua ozen** (3); **oso ozen** (13)

ozen abestu (3); **ozen adierazi** (4); **ozen aldarrikatu** (10); **ozen aldarrikatzen** (3); **ozen ari** (13); **ozen ari zen** (4); **ozen asko** (3); **ozen atera** (3); **ozen bota** (3)

ozen entzun (26); **ozen entzun ziren** (8); **ozen entzunarazi** (3); **ozen entzungo** (4); **ozen entzuten** (11); **ozen entzuten dira** (3); **ozen erantzun** (5); **ozen esan** (29); **ozen esan zuen** (9); **ozen esateko** (6); **ozen esaten** (10); **ozen eta argi** (6); **ozen eta garbi** (6); **ozen eta garden** (3); **ozen eta zorrotz** (3); **ozen hitz egin** (10); **ozen hitz egiten** (9)

ozen irakurri (4); **ozen irakurtzen** (12); **ozen irakurtzen hasi** (4); **ozen jarrita** (3); **ozen mintzatu** (6); **ozen mintzatu zen** (3); **ozen mintzaten** (6); **ozen mintzo** (3)

ozen oihukatu (4); **ozen ozen** (13); **ozen salatu** (9)

soinu ozen (5); **txillio ozen** (3)

ahots ozena (9); **ahots ozena entzun** (3); **barre algara ozena** (4); **barre ozena** (4); **hasperen ozena atera** (3); **hots ozena** (10); **hots ozena entzun** (4); **musika ozena** (6); **oihartzun ozena** (3); **oihu ozena** (3); **oso ozena** (4)

ezin ozenago (10); **gero eta ozenago** (51); **geroz eta ozenago** (4); **inoiz baino ozenago** (7); **ohi baino ozenago** (3); **ozenago entzun** (11); **ozenago entzuten** (27); **ozenago entzuten da** (6); **ozenago esan** (14); **ozenago esan daiteke** (3); **ozenago hitz egin** (5); **ozenago hitz egiten** (4); **ozenago mintzatu** (5)

gero eta ozenagoa (18)

gero eta ozenagoak (10)

ahots ozenagoz (3)

ahots ozenak (6); **hots ozenak** (5); **kantu ozenak** (3); **kontsonante ozenak** (7); **musika ozenak** (3); **oihu ozenak** (8)

boz ozenarekin (3)

ahots ozenaz (3)

kontsonante ozenen (10)

oihu ozenenak (3)

ahots ozenez (47); **ahots ozenez esan** (5); **ahots ozenez irakurri** (3)

ozenagotu, ozenago(tu), ozenagotzen da/du *ad* ozenago bihurtu. ik **ozendu**.

Halako batean, handik datorren makinan burrunba **ozenagotu** egin da, eta Gabi gehiago aztoratu da. **Jokin Muñoz**

Atzean zakurren zaunkak eta zaldien ferra hotsak **ozenagotu** ziren. **Jon Maia**

Hala, aktorearen ahotsak honela banatutako ontzietan jotzen duenean, **ozenagotu** egiten da eta garbiago eta gozoago iristen da entzulearen belarrietara. **Santiago Iruretagoiena**

Zinturoia askatu eta eskua sartu nion bizkarraldetik, bere ipurdiaren bila nebilen, bere ipurdi gogor, borobil eta leuna; indarrez oretu nuen, eta haren intziariak **ozenagotuz** joan ziren. **Juan Martin Elexpuru**

Isiltasunak badaki aterpe gozo izaten; badaki aizto zorrotz izaten; amorrua zein maitasuna **ozenagotzen** badaki. **Joxerra Garzia**

ozenarazi, ozenaraz, ozenarazten du *ad* ozentzera behartu.

Neskak azkartu egin zituen mugimenduak; gizon menderatuak **ozenarazi** bere intziariak. **Patxi Zubizarreta**

Plast urguilutsuaz xungoak azietan **ozenarazi** nituen, usain, gurin eta baratxuri. **Itxaro Borda**

Bazen jadanik hamar urte ez ginela elkar gurutzatu baina hiru hilabeteetarik behin hartatik telefona **ozenarazten** genuen solasean aritzeko. **Itxaro Borda**

ozendu, ozen(du), ozentzen 1 da/du *ad* ozentasuna handitu. ik **ozenagotu**.

Portuko ontzi guztien tutuak tantra askatzailean **ozenduko** dira orduan zure barnean. **Koldo Izagirre**

Hain luzaroan isilik egondako ele-edertasunaren doinuak berriro **ozendu** ziren Gregorioren pulpitotik. **Iñaki Mendiguren**

Don Carlos Arizkungo plaza luzera sartzerakoan, goizean Zugarramurdirakoan bezalaxe, suziariak berriztatu dira, oihuak eta kantak **ozendu**, eta herri osoaren harrera ezin beroagoa mamitu da. **Txillardeggi**

Motorraren hotsak isildu egin ditu guraso batzuen deiak, **ozendu** besteak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ahotsen erabateko urtze-kateatuan, sopranoarena pixkanaka-pixkanaka apaldu ahala, **ozenduz** joan zen Ruche jaunarena. **Jon Muñoz**

Gero, hotzak **ozendutako** airean, gau orduko kanpai hotsak entzun ziren. -Eta? -boza **ozendu** nuen, erronkari. **Josu Zabaleta**

Halako batean, euskarri hobearen bila, hanken gainean tentetu zen; ahotsa **ozentzeko**, nonbait. **Jon Muñoz**

Ozendu dute itsas urek, Jauna, **ozendu** itsas urek orroa, **ozendu** itsas urek olatu-burrunba! **Elizen arteko biblia**

Gero, ahotsa **ozenduz**, esan zuen: Peeves, ager zaitez. **Iñaki Mendiguren**

2 du *ad* durundi egin.

Menditar hauen bihotzek mendi hauen antzeko oihartzun luze eta sakonak dituzte eta Donostiako bonbardaketak oraindik ere **ozentzen** du beren baitan. **Koldo Izagirre**

ozendura *iz* durundia.

Zintzarri baten **ozendura** du etxe bakoitzak. **Koldo Izagirre**

ozengai *izond* fonetikan, ozentzeko gai dena.

Txisturakiek ere osa dezakete silaba, baina horrek oraindik ikergai den *sonable* edo **ozengaien** arazora eramango gintuzke eta ez da liburu hau horretarako lekua. **Lourdes Oñederra**

ozengailu *iz* ozentzeko gailua. ik **bozgorailu**.

Ozengailutik oihu eginen dute errendi nadila. **Koldo Izagirre**

Ozengailuetarik eman zen elizkizuna, portu osoan eta inguruetakot mendi guztietan entzuten ahal zen organoa eta erretorearen ahots funebrea. **Koldo Izagirre**

ozenka *adlag* zarata atereaz, goraki.

Oilo zahar eta ahate erlastuen uruku ezberdinen artean, emazte karkara ahalkegabeak hautematen ziren, papo urguilutsuak dantzatan eta toki eskasagatik ipurdi oparoak elkarri jo **ozenka** ! **Itxaro Borda**

Ziztuari abiatu zen DS auto ilun batean metatu eta Parisen zehar, beribila harriz osatutako hiriko karriketan klas-klas **ozenka**, Montmartre eskualdera lehiatu ziren. **Itxaro Borda**

ozenkari *izond*

Gorputzeko hezur eta haragi malatsak klaska eta glup **ozenkari**, gerlari ohia txiki-txiki egin zen Sebasen aurrean. **Itxaro Borda**

ozenki *(orobat ozentki g.er.) adlag* ozentasunez, ongi entzuna izateko moduan; goraki.

Ez zen ez **ozenki** ez apalki mintzatzen, gisakoa zen tonuan baizik. **Jose Morales**

Emeki eta gero **ozenki**. **Anton Garikano**

Isilekoak esaten dizkiote elkarri, eta aldizka **ozenki** egiten dute algarra. **Koldo Izagirre**

Arnasa **ozenki** hartuz, autoko atea bortizki zabaldu zuen. **Fernando Morillo**

Weldon jaunak orrialdea pasatu eta **ozenki** aharrasit egin zuen. **Mirentxu Larrañaga**

Nire andreak azkena aditu bide zidan; bafaka ari zen **ozenki**. **Aingeru Epaltza**

Ozenki eta gogotik ari zen xurga eta xurga. **Mirentxu Larrañaga**

Sartzean ez tul egiten du **ozenki**, hango egoera ikusita. **Antton Olano**

Gizonekin **ozenki** hitz egin beharra dago: jendeak zarata gehien egiten duenari aditzen dio. **Koldo Biguri**

Stan-Leyk barre egin du **ozenki**. -Ez dakit hau leku fidagarria denetz... -pentsatu zuen oskol biltzaile zaharrak **ozenki**. **Xabier Paya**

Horrelakorik ez, otoi! -itzuri zait **ozenki**. Tolosako nire gelan, atzealdetik, trenaren zaratak nire oihua itozten zuelarik. **Txillardegi**

Jende guztia haren ondoren igo zen, xirula joz eta beren poza **ozenki** azalduz. **Jose Antonio Mujika**

Zaila da askotan **ozenki** salatzea isilik gorde nahi izaten den zerbait. **Pello Salaburu**

Dudley negarrez hasi zen **ozenki**. **Iñaki Mendiguren**

Orduan, negarrari eman zion **ozenki**. **□**

Ozenki egiten zuten deiadarka, esanez: [...]. **Elizen arteko biblia**

Zer gertatu den esaten du **ozenki** denen aurrean. 'Hau egingo dut, bestea egingo dut' **ozenki** esaka dabiltza beti haurrok. **Juan Kruz Igerabide**

Hurrengo jokoan **ozenkiago** mintzatu zen: "bost dolar jokatzu milioi bat irabaziko dut". **Iñaki Zabaleta**

Gogoan dugunaren **ozenki** erratea ez da zuhurki jokatzeko. **Elena Touyarou**

Aldarrikapena egin bezain laster [...] *Te Deum laudamus* **ozenki** kantatzen hasi ziren. **Askoren artean**

Denok batera ari ginen kantuan, **ozenki** ari ere. **Mirentxu Larrañaga**

Aitak denok larrinean errenkadan jarri eta **ozenki** Aitagurea esanarazten zigun. **Koldo Biguri**

Ez zen norbait zerbait **ozenki** irakurtzen aditzen nuen lehen aldia. **Aingeru Epaltza**

Ozenki irakurri nuen haren izenburu bukaezina. **Aingeru Epaltza**

-Mesedez, Mitxel, hitz egiten ari natzai -esan zidan Adak, Spencer Tracyk utzitako hutsunea ahots **ozenmin** batez harturik-. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egin zuen ozenki (9); **esan nuen ozenki** (3); **esan ozenki** (11); **esan zuen ozenki** (23); **galdetu zuen ozenki** (3); **hasi zen ozenki** (11); **irakurri zuen ozenki** (3); **oso ozenki** (5)

ozenki aldarrikatu (3); **ozenki aldarrikatzen** (4); **ozenki egin zuen** (4); **ozenki egiten** (4); **ozenki erran** (3); **ozenki esan** (25); **ozenki esan zuen** (14); **ozenki esanez** (4); **ozenki esaten** (6); **ozenki gaineratu** (3); **ozenki gaineratu zuen** (3); **ozenki hitz egin** (6); **ozenki irakurri** (9); **ozenki irakurri nuen** (3); **ozenki irakurtzeko** (3); **ozenki irakurtzen** (5); **ozenki kantatzen** (3); **ozenki mintzo** (5); **ozenki negarrez** (3); **ozenki salatzen** (3)

gero eta ozenkiago (7)

ozenmin *izond* ozena eta mina.

-Mesedez, Mitxel, hitz egiten ari natzai -esan zidan Adak, Spencer Tracyk utzitako hutsunea ahots **ozenmin** batez harturik-. **Anjel Lertxundi**

ozentasun 1 *iz* ozena denaren nolakotasuna.

Usoak antzo, Big Joe eta biok ere sor eta lor ginduzkan kanpai-hotsen **ozentasun** bortitzak. **Mirentxu Larrañaga**

Hi eta biok han, errezo azkengabeak errezatzen, berak ezer entzuteke, hik eta biok ezer entzuteke, gauaren azpiko haizearen **ozentasunean** galdurik den-dena. **Juan Garzia**

Liluratu egin gintuen Txatoren irtenaldi ezusteko hark, izenak **ozentasun** sorgina zeukan. **Koldo Izagirre**

Giza entzumenak hautematen duen gutxieneko **ozentasuna** dezibel (dB) bat duena da. **Lourdes Oñederra**

Aurreko esaldietan erabilitako konparazio atzizkiak **ozentasunaren** erlatibotasunari dagozkio: hotsak ez dira ozen edo ahul, beste bat baino ozenago edo ahulago baizik.

Lourdes Oñederra

2 (fonetikan, kontsonantez mintzatuz)

Prosodiaren osagaiok (garaiera, **ozentasuna** eta luzera) gauzatzen dute *azentu* deritzona. **Lourdes Oñederra**

Silaba bat nabarmentzeko baliabide linguistikoak hiru dira: indarra (**ozentasuna** baldintzatzen du), maiztasuna (garaiera baldintzatzen du) edo luze-laburra (iraupena baldintzatzen du). **Lourdes Oñederra**

Beste muturrean kontsonante herskariak daukagu eta, bion artean, **ozentasun** gehiagotik gutxiagora zerrendaturik: hurbilkariak, urkariak, sudurkariak, igurzariak.

Lourdes Oñederra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Industria elektronikoa eta hegazkin industriak jende kopuru handiak jarri dituzte **ozentasun** -muga normala baino haragoko soinuen eraginpean. **Irene Aldasoro**

Ematen zaien indarraz gainera, aintzat hartu behar da hotsak berez direla ezberdin **ozentasun** eskalan. **Lourdes Oñederra**

Kontsonante-bokal hurrenkera silabaren **ozentasun** | egiturari egokitzen zaio. **Lourdes Oñederra**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, fonetikan)

Garunean, **ozentasun** -, garaiera- eta tinbre-sentipen bihurtzen ditu bulkadok datu-prozesaketarako sistema landu batek, eta jatorrizko soinuaren norabideari buruzko zenbait informazio ere ematen du. **Irene Aldasoro**

ozentki ik **ozenki**.

ozentsu *izond* ozentasunez betea, ozena.

Aditzaleek ere arras ongi ulertzen zuketean, predika aulkitik boz **ozentsu** batek zabaldu erakaspena. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Jainkoaren Etxetik Tadjik, Fanch, Marcel eta Mario zakuak gauza **ozentsuz** hanturik jalgi ziren, harroki. **Itxaro Borda**

ozentzeke *adlag* ozendu gabe.

-Jendeak Ramadana betetzen duen bitartean ni vodka edanez mozkortzen naiz -esan dit, ahotsa **ozentzeke**, ibilaldian elkartu zaigunean-. **Jon Arretxe**

ozka ik **hozka**.

ozkakatu ik **hozkakatu**.

ozkaño ik **hozkaño**.

ozkatu ik **hozkatu**.

ozketatu ik **hozketatu**.

ozki ik **hozki**¹.

ozono 1 *iz* oxigenoaren aldaera, molekula hiru oxigeno atomoz osatuak dituena (O₃), gas urdina eta usaintsua, tximisten eraginez atmosferan sortzen dena.

Oxigenoaren forma alotropikoa da **ozonoa**, hiru atomoz osatutakoa. **Berria - Gaiak**

Usain estrainio eta definigaitza darie erietxeei, lurrin mota askoren emaitza, ziurrenik; **ozonoa**, alkohola, kloroformoa, betadinea eta formola bereizi ditut inoiz, baina ziur nago ezagutzen ez ditudan askok ihes egiten didatela. **Iban Zaldua**

Atmosferako goi geruzetako **ozono** hori naturala da eta behar-beharrezkoa Lurrean bizia egon dadin. **Berria - Gaiak**

Ozono troposferikoak nabarmen gora egin du zentralak martxan jarri zirenetik. **Berria - Harian**

Horretaz dakitenak behin eta berriz ari dira beren ahotsa goratzen ingurumenean sor daitezkeen arazo berriak direla eta: **ozonoaren** hutsartea, euri azidoak, negu efektua, eta abar. **Pello Salaburu**

Fisioterapia saioak hartzen hasi zen, eta **ozonoa** ere aplikatu zioten minutuko oinean. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euuri ondorengo **ozono** usaina bezain berezkoa baitzen nire gogoan ikasketak amaitu osteko lan bilaketa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Landare askok kolorea galtzen dute, atmosferako **ozono** kopuru handiaren ondorioz. **Berria - Gaiak**

Ozonoaren imitazioa da, badakizu, hor gain gainean hamaikaren bat kilometrorra **ozono** geruzan dugun zuloaren orde zuzen **ozono** kontzentrazioa simulatzea otu zitzaigun. **Joseba Sarrionandia**

Ozono geruzaren egoera aztertzea da satelitearen helburua. **Berria - Gaiak**

Nik ez dakit negutegi-efektua, CO₂ jaulkipena, **ozono** -zuloa edo atmosferaren berotzea den. **Jon Alonso**

Askotan intentzio gaizto gabeko edozein ekintza hutsalek ondorio katastrofalak baititu, bainugelan ilea finkatzeko spray pixka batek Australia gainean **ozono** zuloa handitzeko kalte ekologikoak adibidez. **Joxe Azurmendi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

-Klorofluorokarburoen arazoa, ozonoa jan eta jan, urteak hor goiko geruzetan irauten duen gas **ozono** -suntsitzailea. **Pello Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ozono geruza (6); **ozono geruzako** (3); **ozono geruzaren** (11); **ozono geruzaren zuloa** (3); **ozono geruzari** (4); **ozono troposferikoa** (5); **ozono troposferikoak** (5); **ozono troposferikoaren** (9); **ozono troposferikoaren altzindari** (3)

ozpin 1 *iz* ardoaren hartzizetik sortzen den isurkari mingotsa, janari batzuk prestatzeko, edo barazkiak-eta ontzeko erabiltzen dena.

Bazen han pitxer bat **ozpin** betea. **Elizen arteko biblia**

Arrautza **ozpinetan** utziz denbora luzean, azala bigundu eta desegin egiten zaio. **Santiago Iruretagoiena**

Belaki bat **ozpinetan** busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion. **■**

Landare produktua, **ozpinetan** onduak. **Josu Zabaleta**

Ozpinetan beratutako tipula. **Unai Elorriaga**

Nola **ozpina** ahorako eta kea begietarako, hala alferra lanean hartzen duenarentzako. **Elizen arteko biblia**

Maisuak gaitz bitxinak dauka, egunero sartzen zuten denaren aurrean, botila bete **ozpin**. Koldo Izagirre

Mahaiaren gainean dagoen ontziterian **ozpina**, olio eta gatza ikustean kultura, hein batean, arimara ahoaren bidez iristen dela esateko gogoia egiten zait. Edorta Jimenez

Metodologia horrekin 2000 urteko apirilean argitaratu zuen **ozpineko** euliaren (*Drosophila melanogaster*) genoma osoa, bere 14.200 geneekin, *Science* aldizkarian. Pello Salaburu

Ozpina bezain jenio bizi eta mina zuen. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ozpin-pepinoen postuari garraztasuna zerion. **Ozpin** usainak eztarria mingosten zion leunki. Piper morroaren esentziatzko **ozpin**-lurrinetan beratutako hegaluzedun carpaccioa, parrillan erre ondoren saltsa bizkaitarreen beratutako patata eta itsaskien salda apartua. Pagauso pauma-isatsak, oilar nanoak, basaahateak, usapalak eta usoak, Mozanbikereko kanario txiki-txikiak, Bengalako urdinkarak, sabel-laranjak, **ozpin**-isatsak. Lopez de Arana

Ozpin-bainu batean murgildu zuten, eta joan egin zitzaion gaixotasuna. Jon Muñoz

Ozpin-botila baten etiketa deszifratzen saiatu zen. Anton Garikano

Ozpin-basokada gaitza edanarazi genion geure adiskideari, baina, bederen, gerla dagoeneko galdua zuelako seinaleztat hartzeko bertutea izan zuen. Aingeru Epaltza

Beste zazpi litro esne berotu, **ozpin** neurria bota, eta bihar goizera arte uzteko eskatu diot. Jokin Urain

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Olio-**ozpinezko** arrandegi bat ere bazen -Buenetxeatarrena-; hango produktu gaziekeragintzat jo beharko dugu, partez behintzat, gudariek sentitzen zuten egarri ase ezin hura. Askoren artean

Arratsalde aspergarri bati gatz-**ozpin** bihi bat eransteke broma, egin nuen neure baitan. Aingeru Epaltza

Gatz-**ozpin-olioarekikoak** maneatzten hasten da gero. Anjel Lertxundi

4 irud/hed

Biok bat-bat eginda ibili ginen, eztieta zein **ozpinetan**, eta, orain zer eta bion arteko lotura hautsiko zuen, eta bertan behera utziko ninduen. Eztia zor duenak **ozpina** onartu behar du. Mirentxu Larrañaga

Propio, **ozpin** guztia zaurira isuriz, egin nuen horrela, nire bizitzan ere halatsu jokatu baitu beti Teresak. Anjel Lertxundi

Ardo gozoa **ozpin** bilakatu zitzaidan, hala deliberratu gabetan. Hasier Etxeberria

-Ez dut berriro ezkontzaren **ozpinetik** edan nahi! Patxi Zubizarreta

Maitasunaren **ozpinak** dastatzeko. Anjel Lertxundi

Euskaldunak, etxetik urrutu izan arren, elkarrekin egotearen poza agertzen du maiz kronikagile eibartarrak; baina, horren ostealdean, garden agertzen ez duen guztiaren **ozpina** antzematea ez da hain zaila. Jokin Urain

Italiako idazleek berebiziko gatz, **ozpin** eta piperra ateratzen jakin dute dialektoen erabilera literarioari. Anjel Lertxundi

Ez zaizkit porrotaren **ozpinetan** ibili zale direnak gustatzen. Anjel Lertxundi

Ozpin-putzu hori ez da pare bat hitz entzun gabe geldituko. Anjel Lertxundi

Nota gorenekoaren eztiak ez zidan oharraren **ozpina** gozatu. Anjel Lertxundi

Frantziaren eta frantsesen kontradikzioeak argitarat emaiten ditu idazleak, **ozpinean** bustitako umorearekin. Herria

• 5 izond erretxindua.

Ordu laurden batez harrera-mahai bakartiaren aurrean itxaron ondoren, tiriki-tarraka etorri zen agure **ozpin** batek gelarik ez zegoela jakinarazi zidan. Alberto Ladrón Arana

Nik esango nuke K pertsona **ozpina** dela, kasik ni baino **ozpinagoa**. Berria - Kultura

-Aski behar -eztiti da orain arteko ahots **ozpina**. Aingeru Epaltza

Kristal gardenetatik haren bisaia **ozpina** ikusten ahal zen, Lokaleko arduradunarekin mokokan. Aingeru Epaltza

Horixe izango zen haren handiuste faltua, haren irribarre gailena eta haren oldarkeria **ozpinari** aurre egiteko moldea. Patxi Zubizarreta

Don Mariok, Fisikako klasean oholtzara deitzen hinduenean baino kolore **ozpinagoa** eman zaik. Aingeru Epaltza

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak adizlagun edo izenondo balioa duela)

Garratz mintzo zen, bisai-**ozpin**, nagusi batek menpekoari errieta eman behar dioneko baldintza gutienekoak betez. Aingeru Epaltza

Hi ikusita mutur-**ozpinena** ere irriz urratzeko maneran. Aingeru Epaltza

7 mari-ozpin ik mari 27.

8 ozpin pepino ozpinetako pepinoa.

Ozpin-pepinoen postuari garraztasuna zerion. Lopez de Arana

9 ozpinetako pepino pepino txikia, ozpinetan ondua.

Janariak prestatzen zizkion kanporako, okela erre eta txerri saiheksiak **ozpinetako pepinoekin** eskatzen zion bereziki. Karlos Zabala

Odolki hotza, saltxitxoi xerrak, txerri okela gazitu puska bat, **ozpinetako pepinoak** eta antzara gantza zerbitzatu zizkien. Karlos Zabala

Neskatila bat, **ozpinetako pepino** gazi eske, eta zalgurdi-gidari bat, lukainka bat erosi zuena. Anton Garikano

Lisak platera pisatu eta jelatina eta **ozpinetako pepinoak** erantsi behar izan zizkion. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gatz ozpin (4); **mari ozpin** (3)

eztia eta ospina (3); **ozpina edaten** (3)

mari ozpinak (3)

ozpinaldi iz garratzaldia.

Ozpinaldiak ezitzeko energia igortzen ei zidan Kristinak. Aingeru Epaltza

ozpindu, ozpin(du), ozpintzen 1 da/du ad (ardoa) ozpin bihurtu. ik mindu.

Auzokideekin ardo **ozpindu** bat edan eta autobusera abiatu zen. Ardo **ozpindu** usaina darion tren geltoki ondoko tabernan sartu naiz. Unai Iturriaga

2 irud/hed ik mingostu; garraztu.

Aise **ozpintzen** da ezti zaharra, eta uzten du bits itsusi bat. Anjel Lertxundi

Iberokoa saiatu zen ospakizuneko txanpaina **ozpintzen**, baina ez zuen lortu, Titinek gehienetan bezala ukabilak airera altxatu zituen partidaren ostean. Berria - Kirola

Ez nuen oroitzapen horrekin kafesnea **ozpindu** nahi. Aingeru Epaltza

-Mesedez, errespetu pixka bat! - **ozpindu** zitzaidan-. Juan Luis Zabala

Egutxi eta geixa haren arteko harremana **ozpindu** egin zen azkenean. Ibon Uribarri

Ez baitut nahi bien arteko harremana inondik ere **ozpintzea**. Patxi Zubizarreta

Horrelakoetan, solas laxo-eztia **ozpindu** eta zurrundu egiten da ustekabean. Xabier Montoia

Izaera ez zaio **ozpindu** baizik, behiala partekatzen genuen mahaitik lekutu zenez geroztik. Aingeru Epaltza

Bihotza **ozpindu** zion esperientziak eta munduaren kontra jarri. Irene Aldasoro

Ederrak ziren zure gutunak, erromantizismoaren gozoa zinismo-tantaren batekin **ozpintzen** zutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaztetako umore bizia **ozpindu** zitzaion pixkaka. Karlos Zabala

Ozpindu egin zitzaion irribarrea. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta arazoa **ozpindu** egin zen. Berria - Euskal Herria

-Eta zertarako, etxeko taldean ez nago eta? -esan zion Malfoyk, **ozpindurik** eta petralduta-. Iñaki Mendiguren

Baina Charvet **ozpindua** zegoen abantaila horrekin. Karlos Zabala

Hemen zauden bitartean, ezinegonaz eta **ozpindurik** biziko zara. Fernando Rey

3 (era burutua izenondo gisa)

Funtzionario **ozpindu** horietako batek. Jon Alonso

Baina aitaren jario hungigarrian babestu orde, zotinak erdi gorde eta, aspaldiko arrangurak gogoan, aurre egin zion erresumin **ozpindu** batez:[...]. Anjel Lertxundi

Zertara dator haserre **ozpindu** hori? Anjel Lertxundi

Ezpainak oker desilusio keinu batean, eta barre-irudi **ozpindu** batekin. Fernando Rey

4 (era burutua –en atzizkiaren eskuinean izen baliorekin)

Guk edaniko ardoaren **ozpinduak** zer berezi bat, hondar berezi bat utzi baitzuen gugan. Karlos Linazasoro

5 gatz-ozpindu ik gatzozpindu.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oso ospinduta zegoen (3)

ozpinduka *adlag (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

Husainik etxera joan zedin konbentzitu ahal izan zuen; ez zuen agurtu harik eta bertara, herratsu eta deiadar **ozpinduka**, sartu zen arte. Patxi Zubizarreta

Haiek zeren beldur ziren sumaturik, Selim Aluan sumindu egin zen eta, ohi ez bezala, deiadar **ozpinduka** hartu zituen. Patxi Zubizarreta

Berehalakoan deiadar **ozpinduka** eta madarikazioka hasi zen. Patxi Zubizarreta

ozpindun *izond* ospina duena.

Ez zitzaion gustatzen ordenaz jatea, eta janari berorik ere ez zuen nahi izaten; gauza hotzak, minak, **ozpindunak**, olio-ospina, laranjak... Josu Zabaleta

ozpindura *iz* ospintzea.

Mattin Irigoienen "Hautsi da kristala" antzerkiarekin arrakasta bildu-eta antzerkilari gazte horien berezkotasuna eta **ozpindura** plazerrekin berriz ikusiko ditugu. Herria

ozpinerre *(corpusean ozpiñerre soilik) iz*

- **Ozpiñerreak** zulora eramango hau -esaten zion Emeteriok-. Alberto Barandiaren

ozpingarri *izond* ospintzen duena.

Baina Danelek pentsa zezakeenari baino beldur gehiago nion Adak nire burutazio eroei (nire jeloskortasunari!) egotziko zizkiela bai deia eta bai abisua, eta une hartan ez zegoen Adaren destaina, edo Adaren barrea, edo Adaren erantzun axolagabea baino ukendu **ozpingarriagorik** nire egoera minarentzat. Anjel Lertxundi

ozpinkeria *iz* mingoskeria, garrazkeria.

Utikan nigandik **ozpinkeriazko** kritikarik! Pello Zabala

ozta 1 *adlag* ia ez; zailtasun handiz. ikdoi 8.

Gela hagitz egoki antolatua dago, **ozta** da ziega bat baino handiagoa. Koldo Izagirre

Demokraziak **ozta** zituen bost urte Francoren heriotzaz geroztik. Txillardegi

Duela hamar urte **ozta** zegoen ostatu bat Miarritzen; egun badira hiruzpalau "hotel". Koldo Izagirre

Argitasun gorabeherarik gabe, zeren, galderaren gaia **ozta** ulertuz, ez bainuen algararik egiten. Bernardo Atxaga

Ikusten duzu, bada, nola jende guztia den inozoa, estua, eta gure adimenaren ahalmenaz uste handia duena, **ozta** gainditzen badu ere animalien sena. Josu Zabaleta

-Osasuna! -ez zeneukan ohiturarik, **ozta** busti zenituen ezpainak. Koldo Izagirre

Beren masailetakoa marrubi kolorea, beren begi alaiaren argi tanta, oihal latzak **ozta** ezkututzen zizkien titi handitu eta tenteak. Josu Zabaleta

Kanpin-gasaren argi tristeak **ozta** hausten zuen ilunpe batean egon ginen berriketan. Iñaki Segurola

Ikaraz dardarka, balantzaka, belaunek **ozta** eusten dizute zutik. Rafa Eiguren

Trenez etortzea ez zaidala gaitz izango, neure erretira-etxetik ondoko geltokira **ozta** hiru kilometro daudelako. Txillardegi

Paperezko mila bandera, bonbilla harietatik zintzilika, **ozta** mugitzen dira itsasotik datorren haize arinetan. Josu Zabaleta

Errekarri zuria, lehor; **ozta** han-hemenka ur xirripa urri batzuk hondartzara aldera isuri. Txillardegi

2 ozta-ozta

Ozta-ozta ezagutzen nuen Martínez hura. Txillardegi

Ozta-ozta eusten nion barregurari haiek hizketan entzunik. Juan Garzia

Ozta-ozta ausartzen zen zerbait jaten, ogi apurrak botatzeko eta platera zikintzeko beldurrez. Karlos Zabala

-Hogei urte nituen **ozta-ozta** eta ez nuen inolako gogorik neure izenez izenpetutako libururik kalean jartzeko. Joxean Agirre

Bien bizialdiak, batuz gero, **ozta-ozta** dira gizon zahar bakar batena lain. Oskar Arana

Gizona **ozta-ozta** ausartzen da Siberiako estepetan edo Asiaren erdialdeko lautadetan barneratzen. Karlos Zabala

Esan nahi nioke belaunek **ozta-ozta** eusten nautela zutik; ez naizela ibiltzen hasteko gauza. Anjel Lertxundi

Kalexkak estuak ziren, bi asto saskidun **ozta-ozta** gurutzatzeko modukoak. Bernardo Atxaga

-Ondo ulertu badut, **ozta-ozta** libratu gara! [Jon Muñoz](#)

Zubi-begian **ozta-ozta** sartzen zen uraren emana, zubi-gaina ere putzu handi bat zen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Daphnirako maldan gora, **ozta-ozta** aurreratzen gu. [Joxe Austin Arrieta](#)

Léa, albora egin salto, eta **ozta-ozta** ez zen, bada, arratsalde ezin beroago hartan hirian barrena zebilen auto bakarraren azpira erori. [Jon Muñoz](#)

Hezurra eta azala besterik ez naiz, **ozta-ozta** jarraitzen dut bizirik. [Elizen arteko biblia](#)

Oso apal hitz egiten zuen, xuxurla baino **ozta-ozta** goraxeago hasieratik amaierara arte. [Oskar Arana](#)

Baseri isolatu batzuk **ozta-ozta**, edo jende xeheen txabola soilak! [Karlos Zabala](#)

Sorbaldak uzurtu zituen, ezer ihardetsi gabe, eta agurtu ere **ozta-ozta** egin gintuen. [Joxe Austin Arrieta](#)

-Beldurra usaindu dik -esan zidan berak, **ozta-ozta**, larri antzera. [Pedro Alberdi](#)

Gutxi; poltsatxo bat **ozta-ozta** ... [Juan Garzia](#)

Eta 22 batailoi bakarrik (liberalen heren bat **ozta-ozta**). [Txillardegí](#)

Nik, berriz, nire sekretu izugarria nuen, burutik **ozta-ozta** baino kendu ezin nuen sekretua. [Mirentxu Larrañaga](#)

-Ez dakidala ezer gero! -azken erasoaldiari ere eutsi egin zion Ostolazak, **ozta-ozta** baina eutsi. [Migel Angel Mintegi](#)

oztaozta ik ozta 2.

oztibartar *izlag/iz* Oztibarkoa, Oztibarri dagokiona; Oztibarreko biztanlea.

Josette Dacosta **oztibartar** artistak bere obren erakusketa zenbait ere idekirik ditu. [Herria](#)

Bakoitzak **oztibartar** poetaren olerki bat aukeratu du. [Berria - Kultura](#)

Joan den igandean, bestaberriz, 15 **oztibartar** gaztek beren bataioko agintzak erreberritu dituzte Ibarren den aterbean. [Herria](#)

Ondotik, Xabi Lasak du hartuko hitza **oztibartarraren** bizitza eta pentsamenduaz aritzeko. [Berria - Kultura](#)

Irisartarrek 18 - **Oztibartarrek** 15. [Herria](#)

oztopa-erraz *izond* oztopatzen erraza dena.

Hainbat larriago bihurtzen da egoera koroa-arteriak bereziki **oztopa** -errazak izanda. [Irene Aldasoro](#)

oztopagarri (*orobat oztopogarrí g.er.*) 1 *izond* oztopatzen duena.

Halare hor gabiltzak hitza hitzari josi eta parrastadan boteaz, denen gustua egin nahian, akaso horixe diagu **oztopagarri**: denen gustua egin nahia. kotoia zuzenean Lagerreko eritegian saltzeari dagokionez, behin egin nuen aproba, baina **oztopagarriegia** zen eta kotizazio eskasa zuen. [Patziku Perurena](#)

2 (hitz soila -en atzikiaren eskuinean)

Lehenengo eta behin, zientzia-ikerketaren beraren jarduneko gorabeheraren bat gerta daiteke zientzia-egazueren **oztopagarri**. [Juan Garzia](#)

Haurraren [...] begiradatik hurbil dagoen perspektiba hori beste edozein bezain zilegi dena, jakina, testuaren sinesgarritasunaren eta eraginkortasunaren **oztopagarri** gerta daiteke, eta gertatzen da liburu honetan. [Berria - Kultura](#)

3 *ez-oztopagarri izond*

Ontzi eta gainazal egokien faltan, bada, lapurgai idealak solidoa, hondagaitza, ez **oztopagarria** eta, batez ere, berria izan behar zuen. [Juan Garzia](#)

oztopaketa *iz* oztopatzea.

Hamabi urte omen zituen **oztopaketa** batean neure burua lurrera botatzen ikusi ninduenean. [Xabier Olarra](#)

oztoparri 1 *iz* oztopo egiten den harria.

Ez da **oztoparririk** gabeko bidea izango. [Edorta Jimenez](#)

2 irud/hed

Halako batean gure elkarrizketak ohiko **oztoparriaren** kontra jo du: Euskal Herriaren egoera eta harako intelektual haren liburua. [Edorta Jimenez](#)

Legea aztertzen dutenak hartaz asebeteko dira, baina itxurazale direnentzat **oztoparri** gertatuko. [Elizen arteko biblia](#)

oztopatu, oztopa, oztopatzen 1 du *ad* oztopo egin. ik *eragotzi*; *behaztopatu*.

Ez zuten tenpluan sartzetik izan, soldadu saldo batek, armak eskuan, **oztopatu** baitzituen. [Elena Touyarou](#)

Aneren presiopetik ihes egiten saiatu arren, neskaren bi besoek **oztopatu** zioten bidea. [Unai Iturriaga](#)

Neu atera natzaizu bidea **oztopatzera**, okerreko bidetik baitzoaz.

Autoak bigarren ilaran, banatzaileak zama-lanetan, furgonetekin bidea **oztopatuz**. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Burbuila horiek puztu egiten dira eta kalteak eragiten dituzte ehunetan, edo odol-hodiak **oztopatzen**. [Irene Aldasoro](#)

Gurdien gurpilak **oztopatu** eta nekez mugitzen zirela utzi zituen. [Jose Antonio Mujika](#)

Soldadu gehiegi ziren eta sarbidea **oztopatzen** zuten. [Patxi Zubizarreta](#)

Adinean aurrera egin ahala, gorputzeko arteria gehienak estutzen dira, baina hodi koronarioak izan ohi dira lehenengoak guztiz **oztopaturik** geratzen. [Irene Aldasoro](#)

Ohola bere lekuan jarri zuten, eta berrito **oztopatu** zieten ahalegina. [Josu Zabaleta](#)

Ipar argizko barren baten gainean hego itsasoetan **oztopatutako** itsasontzi galduen hilerri harrigarri bat ageri zen. [Josu Zabaleta](#)

Oztopaturik zegoen Ruche jaunaren aulki gurpilduna lehenengo mailaren aurrean, eskailera monumentalaren oinetan. [Jon Muñoz](#)

2 (gauza abstraktuez)

Nerbio-gas batzuk kolinesterasaren inhibitzaile dira, hau da, kolinesterasari bere eginkizuna betetzea galarazten diote, eta, hartara, nerbio-bulkadaren transmisioa erabat **oztopatzen**. [Irene Aldasoro](#)

Britainiarrek oraingo bidaia **oztopatu** egin gura izan dutelako berria iritsi zaie. [Edorta Jimenez](#)

Kolinesterasari bere eginkizuna betetzea galarazten diote, eta, hartara, nerbio-bulkadaren transmisioa erabat **oztopatzen**. [Irene Aldasoro](#)

Virginiani nion maitasunak, berriz, **oztopatu** egiten zidan beste neskenganako bidea. [Bernardo Atxaga](#)

Drogek **oztopatu** besterik ez dute egiten yogaren bidea, eta alderantzizko norabidetik eraman gaitzakete, norberaren sunsipeneraino. [Juan Kruz Igerabide](#)

Ezerk ere ezingo zuela haien ibilera **oztopatu**. [Karlos Zabala](#)

Nazionalsozialismoa boteratu hiltzek lehenbizi **oztopatu** eta gero debekatu egin zuen bere liburuak zabalkunde. **Anton Garikano**

Sultanak gisa horretan nahi zuen ezkontza **oztopatu**. **Patxi Zubizarreta**

Beldur zen munduko ohoreak arimako bakea eta osasuna **oztopatuko** ote zion. **Askoren artean**

Kristalinoa ez da guztiz gardena, horixka antzekoa baizik, eta **oztopatu** egiten du espektroaren eskualde more eta ultramoreko argia. **Irene Aldasoro**

Militarrek, honetara edo hartara, behin eta berriz **oztopatua** zeukaten askatasuna berreskuratzea. **Txillardegi**

Buruak ezin zion erritmo horri jarraitu, **oztopatuta** zuen. **Unai Iturriaga**

Nire andre bihozgabe horrek, bere burua tinko defendatzeari emana baita, halako trebeziak **oztopatu** ditu gure elkar ikusteak, non nire trebezia baitu arras nahasi. **Jon Muñoz**

3 da *ad* estropezu egin.

Bosgarren pisuan bizi zen eta etxearen alde batetik N-1 errepidea eta Nafarroa etorbidea ikus bazitzakeen, bestaldea patio ilun batean **oztopatzen** zen. **Harkaitz Cano**

Bidea zabalagotu didazu eta nire oinak ez dira **oztopatu**. **Elizen arteko biblia**

Nire etsaiak, atzera egitean, zure aurrean **oztopatu** eta galdu egin dira. **Elizen arteko biblia**

oztopatzaile 1 *izond/iz* oztopatzen duena.

Kovacevic errematatzaile bikaina dela jakina zen, baina larunbatean **oztopatzailea** ere badela erakutsi zuen. **Berria - Kirola**

Lamarkak **oztopatzaileen** «lan penagarria» salatu du. **Berria - Euskal Herria**

Desegin-behar malenkoniko hari ekiterakoan, laguntzaile (edo, zuzenago, aztoratzaile eta **oztopatzaile**). **Juan Garzia**

2 (gauza abstraktuez)

Babesak delituen hauspotzaile bihurtzen dira, legeak **oztopatzaile** diren baino neurri handiagoan. **Juan Martin Elexpuru**

Errege, parlamentu eta kasta gobernarien -burokrazia nahiz apaizterien- idolatriak dituen ondorio **oztopatzaileen** adibideak ere ematen dira. **Iñaki Mendiguren**

SEAren, Cebeken eta Adegiren «jarrera **oztopatzailea**» gaitzetsi zuten sindikatuek. **Berria - Ekonomia**

oztopatze *iz* oztopo egitea.

Bere funtzioa ez da lan juridiko bat aurrera eramatea, baizik **oztopatze** lan izugarri eta etengabea egitea», txarretsi zuen **Berria - Euskal Herria**

oztopo 1 *iz* bidea ixten duen gauza; zerbait egiteko eragozgarria. *ikestropozo*.

Gelditu egin zen, **oztopo** bat aurkitu izan balu bezala. **Bernardo Atxaga**

Oztopo hura beste bide bati ekiteko seinalea izan zitekeen, gorago egiteko abiapuntua. **Joan Mari Irigoien**

Hemendik aitzina badakit irakurleek zalantzak izanen dituztela eta bidean gelditzeko anitz **oztopo** gogoratuko zaizkiela. **Piarres Xarriton**

Florentek mila **oztopo** aurkitzen zuen bere bidean, honako zamaketari hauek, karga bizkarreratzen ari zirenak, harako saltzaile haiek, hizketa zakarrez eztabaidan; [...]. **Karlos Zabala**

Zure adiskide gazteak bertze zenbait **oztopo** jarri dizkit halaber. **Jon Muñoz**

Politikoki pentsatzen zuten aurkariak Kristau Elizaren kontra Mendebaldeko mundu modernoan etengabe egin duten salaketa aurrerapenaren gurpiletan **oztopo** izatea izan da. **Iñaki Mendiguren**

Badut hemen **oztopo** bat baino gehiago gainditzeko. **Jon Muñoz**

Nazio barneko merkataritzak, izan ere, trukea eragotzen zuten **oztopo** ugari zituen, feudalismoaren garaitik heredatuak -bidesariak, zubien gainekoak eta zubien azpikoak [...]-, eta orobat ziren **oztopo** hiri bakoitza gobernatzen zuen arautegi berezia. **Koro Navarro**

Zuretzat **oztopo** baizik ez nintzateke izango, ene errege jauna. **Elizen arteko biblia**

Oztopoz **oztopo egin** beharko duzu aurrera. **Rafa Egiguren**

Mirenek, bat-batean [...] musu iheskor bat eman zion; eta sudurrak **oztopo** gertatu zitzaizkielarik, barrez hasi ziren, [...]. **Ramon Saizarbitoria**

2 (izenondoekin)

Aurkitzen dituzten nekeak gizon kementsuak beti gainditzten dituen **oztopo** materialek eraginak baizik ez dira. **Josu Zabaleta**

Nire eskuek, luze-luze eginda, aurkitu zuten azkenean **oztopo** gotor bat. **Koro Navarro**

Arteak eta elorriak begi bistak ematen zuen mugaraino hedatzen ziren, eta beraien landaredi sarriak, ibilerari **oztopo** handiak ezarri ez ezik, lagun hanketan aztarna mingarri ugari utziak zituen. **Joanes Urkixo**

Itsas blokeoa ez zen **oztopo** iraunkorra izango haientzat. **Jon Alonso**

Jatorrizko bekatua **oztopo** gaindiezina da. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan)

Oztopo -lasterketa bat bezalakoa. **Iñaki Mendiguren**

Hautatu genuen bidean amore emateko, bide horren arriskuez eta **oztopo** -segadez ohartarazi eta hain premiazko genuen maltzur-jakituraren jabe egiteko. **Juan Garzia**

· Estatu Batuetan, hau idazteko garaian, "arrazo **oztopo**" bat Indiaren bidetik kasta-bereizgarri bihurtzeko joerari aurka egiten zion kristautasunaren espirituaren kontra-eraginak. **Iñaki Mendiguren**

Modari jarraitzeko ahaleginak egin arren barne-**oztopo** moduko batek eragotzi egiten dionean bezala bati nahi lukeen dotoretasuna eta modernotasuna iristea. **Ander Irizar**

4 *oztopo eginsup_1* traba egin. ik *eragotzi*; *behaztopatu*.

Blai eginda zetorren, **oztopo egingo** ziolakoan aterki barik irten zelako. **Joxemari Urteaga**

Ez dago dudarik, ordukoan ere Florak **oztopo egin** zidala zorionaren bidean. **Ramon Saizarbitoria**

Bi fonazio fase horiek elkarri **oztopo egin** gabe gerta daitezke. **Isabel Arrigain**

Lausoa zen haren figura, ala geroago lausotu zen?, beraren eta haren artean euria bailegoen **oztopo eginez**. **Juan Garzia**

Zergatik edozein sorkarik **oztopo egiten** duen eta itxura-galarazten barrutik, horren arrazoia da gure atxikitasunean badelako halako gurekoikera eta jabego-irrika bat. **Joan Mari Lekuona**

Aspaldian ez zuen barre hain gogoz egin; **oztopo egiten** ez dio bada haizeari ere biriketara heltzeko! **Pako Aristi**

Egintza biek elkarri **oztopo eginen** lioketelako, eta hori onartezina da. **Xabier Kintana**

4 *oztopo egin²* estropezu egin.

Gurpiletako batek nire hankan **oztopo egin** zuen, eta ikusi nuen zer zalapartarekin erori zitzaidan gainera. **Xabier Olarra**

Aulkitik salto egin nuenean, hortentsiak lotzeko omen zen soka zati batekin **oztopo egin**, eta muturrez aurrera erori nintzen luze. **Ramon Saizarbitoria**

Oztopo egiten zuen gauzekin batzuetan: ez zituen, nonbait, ikusten. **Xabier Olarra**

Gage honelakoa da: zakarra, lotsagabea, [...] lagunenganako adeitasun gutxi erakusten du, ezinegonak hartzen du zuhurtziak edo aholkuek bere gurariekin **oztopo egiten** dutenean. **Xabier Olarra**

5 *oztopo izan* da *ad*

Politikoki pentsatzen zuten aurkariak Kristau Elizaren kontra Mendebaldeko munduko etengabe egin duten salaketa aurrerapenaren gurpiletan **oztopo izatea** izan da. Iñaki Mendiguren

Gazteagotan, gizartearen aurrerapenerako **oztopo zela** -eta, euskararen kontrako amorratua agertzen zen Fructuoso. Inazio Mujika Iraola

-Alde nire ondotik, Satanas! **oztopo haiz** nireztat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik. Elizen arteko biblia

Pobrezia bakerako **oztopo dela** esan dute adituek. Berria - Gaiak

Plataformak mundu berri horren eraikuntzan **oztopo diren** eragileen lana kritikatzeko baliatu zuen goiza. Berria - Harian

Energia hori *limes* barruan zibilizazioak sortzen du eta, harreman-truke beteago eta emankorragorako **oztopo den** hesian (uretan) zehar igarotzen da. Iñaki Mendiguren

Aurrea hartu nahi dio bere teoriaren **oztopo izan** daitekeenari. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberastasuna salbamenerako oztopo (3); bake prozesurako oztopo (3); bakea lortzeko oztopo (5); betetzeko oztopo (3); egiteko oztopo (9); egoteko oztopo (3)

erabakitzeo oztopo nagusia (3); gainditu beharreko oztopo (6)

izateko oztopo (3); jarritako oztopo (5); lortzeko oztopo (13)

oztopo bat aurkitu (3); oztopo bat izan (3); oztopo bat jarri (3); oztopo bat zegoen (3); oztopo bihurtu (3)

oztopo egin (9); oztopo egingo (4); oztopo egiten (9); oztopo eta eragozpen (3); oztopo ez izateko (3); oztopo gaindiezin (4); oztopo gaindiezina (5); oztopo garrantzitsua (5); oztopo gehiago jarri (3); oztopo gehien jartzen (4); oztopo gisa ikusten (4); oztopo guztiak gainditu (7); oztopo guztien gainetik (19); oztopo handi (5); oztopo handia (22); oztopo handia da (5); oztopo handiak (17); oztopo handiak jartzen (4); oztopo handiegia (5); oztopo handiena (3); oztopo handienak (3)

oztopo izan (52); oztopo izan gabe (3); oztopo izan zituen (3); oztopo izango (18); oztopo larriak (3); oztopo lasterketa (7); oztopo lasterketan (3); oztopo nabarmenak (3); oztopo nagusi (5); oztopo nagusia (39); oztopo nagusiak (6); oztopo nagusietako bat (5)

oztopo ugari (17); oztopo ugari gainditu (6); oztopo ugari izan (3)

oztopoak oztopo (34); prozesurako oztopo (4); salbamenerako oztopo (3)

ez da oztopoa (3); gainditu beharreko oztopoa (3); lehen oztopoa (11); lortzeko oztopoa (6); oztopoa gaingintzeko (3); oztopoa izan (14); oztopoa izango (4); oztopoa izango da (3); oztopoa jarri (6); oztopoa jartzen (3)

bestelako oztopoak (5); egiteko oztopoak (4); gainditu beharreko oztopoak (6); gobernua oztopoak jartzen (3); jarritako oztopoak (10); joateko oztopoak (3); lortzeko oztopoak (5); nolako oztopoak (5)

oztopoak aurkitu (3); oztopoak ezabatzeko (3); oztopoak gaingintza (12); oztopoak gaingintza (3); oztopoak gaingintza (4); oztopoak gaingintzeko (13); oztopoak gaingintzen (10); oztopoak ikusten (3); oztopoak ipintzen (3); oztopoak izan (5); oztopoak izango (7); oztopoak jarri (28); oztopoak jarriko (6); oztopoak jartzea (12); oztopoak jartzeko (13); oztopoak jartzen (35); oztopoak kendu (5); oztopoak kentzeko (3); oztopoak kentzen (3)

sekulako oztopoak (3); trabak eta oztopoak (3); zailtasunak eta oztopoak (3)

oztopoei aurre egiteko (4)

oztopoen artean (4); oztopoen aurrean (4); oztopoen gainetik (16)

egiteko oztoporik (5); ez da oztoporik (3); ez dago oztoporik (3); ez du oztoporik (7); ez zuen oztoporik (7); inolako oztoporik (47); inolako oztoporik ez (10); inolako oztoporik gabe (15); inongo oztoporik gabe (5); oztoporik ez jartzea (12); oztoporik ez jartzeko (12); oztoporik gabe (54); oztoporik gabeko (7); oztoporik handiena (13); oztoporik handienak (5)

oztopotzat hartu (3); oztopotzat hartzen (3); oztopotzat jo (3); oztopotzat jotzen (4)

oztopoz betea (5); oztopoz beteriko (5); oztopoz betetako (4)

oztopobide *iz* oztopo egiteko bidea edo zergatikoa.

Jatorriz testu neurtua izanda, euskarazko neurri moldeetara ekartzekak beste **oztopobide** bat erantsi dio itzulpengintzari. Berria - Kultura

oztopodun *izond* oztopoa duena; oztopoak dituen.

Hesietako baten ondoan jarri du argazkilariak Permach, politikagintzako lasterketa guztiak **oztopodunak** izango dituelakoan edo. Berria - Euskal Herria

oztopogabe *izond* oztoporik ez duena.

Arrikena eska dezakeen dena dauka, eta argiketa fisikoeak beren ibilera **oztopogabea** jarraitzen dute. Ibon Uribarri

Beren arteko lehiaketa aske eta **oztopogabearen** bateratzea. Ibon Uribarri

oztopogarri ik oztopagarri.

oztopoka 1 *adlag* oztopo eginez.

Arriskua eta iluntasuna hain gainean ditugu, non ihesbideren bat bilatzeko zalapartan elkarr **oztopoka** aritzen baikara. Josu Zabaleta

Joaldiak ordu erdi inguru irauten zuen, eta denbora horren buruan kanpaik galdu egiten zuen bere arintasuna, eta **oztopoka** bezala hasten zen, gero eta hots ahul eta irregularragoak sortuz. Bernardo Atxaga

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ona, Eduardo, ikaragaragarria! -Tomas, aho- **oztopoka** eta esku-zartaka, bezero guztiak harengana adi- Negar egitekotan, dotore, hik bezala. Aingeru Epaltza

oztopoteria *iz* oztopo multzoa.

Variscorengandik, zeina, garbiketa-zerbitzukoa izanik, sarbide baitzuen sail guztietara, jakin zuen ekoizpena ere barrandarien aurkako **oztopoteria** trinko bezain xeblete batez babes-inguratutik zegoela. Juan Garzia

oztopotsu *izond* oztopoz betea.

Esan genezake, egoerak -tirabiratsua, **oztopotsua**, deseroso- Gabriel Garcia Marquezen Kolonbiako ipuina gogorarazten duela. Berria - Euskal Herria

oztopotxo *iz adkor* oztopoa.

Bidean goragune txikiren bat, **oztopotxoren** bat edo mailaren bat aurkitzen zuten bakoitzean, Manilovek Txitxikovi eusten zion. Jose Morales

Oztopotxo bat du, ordea, nahiz eta kontestua erraz argituko duen, ustez: polisemikoa dela. Iñigo Aranbarri

